# Egungo Euskararen Hiztegia

# —L—

[bertsioa: 2024-01-09]

---

**la** *iz* musika-eskalako seigarren nota, germaniar eskalako A notaren kidea.

Bachen Meza **La** Maiorrean. Berria - Kultura

Jatorrizko estiloan eta garbi-garbi jo zituen Bachen Preludioa eta Fuga, **La** minorrean organo nagusian. beste laukote bat idatzi zuen, **La** minorean, pianoaren laguntzaz jotzeko. Berria - Kultura

1949. urtea aparta izan zen: *La Duquesa del Candil* zartzuela, **La** bemol maioreko Sinfonia, *La Zapatera y el Embozado* baleta eta pianorako Sonatina idatzi zituen.Han kausitu nuen neure eder hura kadera luze batean finkatua bere buruaren **uzte** zoragarrian. Berria - Kultura

---

**laba** **1** *iz* harri urtua, sumendietatik ateratzen dena.

Snowdon mendiaren gailurretik, zeruraino igotzen ziren tximista gorri bizkor batzuk ikusi dira irteten aurrena, eta hurrena **laba** irazekizko zurrusta luze eta mantso bat. Juan Garzia

Urazpian, berriz, **laba** kiskalgarria zetorren. Berria - Harian

Helens sumendia **laba** botatzen hasi zen atzo arratsaldean. Berria - Gaiak

**Laba** jaurtitzen hasiko den sumendiaren itzalpetik ezkutatzeko. Hasier Etxeberria

Gainazalean gelditzen den sumendien **labak** metano gasa sor dezakeela diote adituek. Berria - Gaiak

Ponpeiako hondakinen artean zakur bat agertu zen, oso-osorik **laba** eginda, Vesubioren leherketaren lekuko. Gotzon Garate

Herkulano eta Ponpeiako inguruak erraustuz eta **labaz** estaliz. Joan Mari Irigoien

Han behean, **labazko** hondartza beltzen ondoan. Bernardo Atxaga

Nire barrenean ehundaka, milaka sumendi piztu dira bi egunotan; erraiak sutan, su goritan sentitu izan ditut, harik eta, **laba** guztia isuri ostean, nire barrunbeak hozten hasi diren arte. Patxi Zubizarreta

**2** (hitz elkartuetan)

**Laba**-geruza burbuila lehertuzko pinportaz josirik dago. Juan Garzia

---

**lababo** **1** *iz* konketa.

Alkoholaren distira begietan **lababo** gaineko ispiluak itzultzen dizun zure aurpegiaren irudian. Lourdes Oñederra

Ezkerraldean bainua, dutxategiko lauzak horiturik eta **lababoko** kainua ur tanta jarioz, hoteltzainari konpon zezan deia sei aldiz eman bazion ere. Iñaki Zabaleta

Komunean, **lababoko** grifoa ireki eta, hango ispiluak dar-dar pixka bat egin zuen. Pablo Sastre

Gainerakoa **lababo** gainean makurtuta botako du, ohizko mugimendu eta hotsez. Xabier Mendiguren Elizegi

Zintzilik dagokeen bularretako bat sudurraren aurrera eramaten du Txetxuk txoraturik, baina, une egokia ez dela oharturik, **lababoaren** kontra jartzen du Marta. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** bainugela.

Hi: **lababoa**? Pablo Sastre

**3** *pl*

Lucy zuzenean joan zen kafetegiaren barrualdean zeuden **lababoetara**. Joxemari Iturralde

Gizonezko bat ari zen eskuak **lababoetan** garbitzen. Joxan Elosegi

**Lababo** kolektiboetan sei lagun zeuden ilaran bere aurrean. Pablo Sastre

---

**labadora** *iz* garbigailua, ikuzgailua.

Esan diot, **labadora** jartzeko baina, zera. Pablo Sastre

Arropa eta jaboia **labadoran** sartzen ari zela. Pablo Sastre

Gaua, epela eta haizetsua zetorren, eta ilunbistan amak **labadora** ireki zuen etxeko arropa pilda hura atera eta oilategian esekitzeko. Pako Aristi

---

**labadura** *iz* legamia.

**Labadurea** behar da taloa egiteko? Joseba Sarrionandia

Josuk legamia edo bentzagia esaten dio, **labadureari**. Joseba Sarrionandia

---

**labain** *(orobat **laban**)* **1** *izond* irristakorra.

Aingira **labain** batek bezala egin baitzidan ihes gorputzaren behealdetik. Joan Mari Irigoien

*Flysch* hitza alemanetik omen dator, Suitzako alemanetik, eta lur **labaina** edo antzeko zerbait esan nahi omen du. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zu zure takoidun zapata meharrekin zoru **labainean** laprast egiteko arriskuarekin eta ni nire herio aurpegiarekin. Joxean Agirre

Usain hordigarria zeriok hostaila hezeari, iratzeari, zuhaitz-azal puska goroldiotsuen tapiz bigun, **labain** eta uniformeari. Xabier Olarra

Ehun-geruza bat da urdail-mukosa, fluidozko kapa **labain** batek estalia. Irene Aldasoro

Izan bedi ilun eta **labain** haien bidea, zure aingeruak pertsegitzean! Elizen arteko biblia

Gazteek ez dute bide **labain** horretan irristatu nahi izan, zer gerta ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Arriskutsua eta **labaina** zegoen xendra. Anjel Lertxundi

Bidezidorra, blai-blai eginda, **labain** zegoan oso, eta harritsu ere bai tarteka. Txillardegi

Nire nagusiaren atzamar bat, **laban-labana** zegoena, ipurdiko zulora itzuli zen. Juan Martin Elexpuru

**2** irud/hed

Oso gai **labainak** aukeratzen zituelako (erlijioa, sexua, bortxaketak, hilketak, iraultza). Jose Morales

Hitz gozo baina **labainak** eskaini zizkion hark. Xabier Montoia

Egun hartan, kontsultaren gaia oso **labaina** izan zen. Karlos Zabala

Alderdien Legea oso murriztailea dela eta aplikazio **labaina** duela, aldi berean Konstituzioak jasotzen dituen eskubide eta askatasun indibidualak errespetatu behar direlako. Berria - Euskal Herria

**3** (adizlagun gisa)

Ontzi zabala **labain** zihoan, izarrez ereina zirudien zerurantz ke beltzezko suge lodi bat jaurtiz. Josu Zabaleta

Bero, goxo, **labain** begiratu zenidan; samur egin zenidan irribarre, bai, samur, ez dut beste hitzik. Eduardo Matauko

**4** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Edozein kasutan, ez da lan samurra gaiaren **labaina** kontuan hartuta. Txema Ramirez de la Piscina

**5** ***labain egin***

Zaldien ferrek ozen zapaltzen zuten lurra, eta batzuetan **labain** egiten zuten elur bustian. Jose Morales

Arriskua hautatu duelako, **labain** egiteko punttuan ibili delako. Andoni Egaña

Goroldioan **labain** eginda, luze eroriko zara errekara. Joseba Sarrionandia

Urratu, **labain egin,** intzirika behera erori, eta nekez abiatzen dira berriro gailur beltzerantz. Jose Morales

Koldo nahiko mozkortuta zegoen, mingainak **laban** egiten zion aho barruan. Sonia Gonzalez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **labain egin** (6); **labain egiten** (6)
> **laban egin** (10); **laban egin zuten** (3); **laban eginez** (3); **laban egiteko** (4); **laban egiten** (6)

---

# labainarazi, labainaraz, labainarazten du *ad* labaintzera behartu.

Eta, platera atxiki zuelarik, urdai gantza mantso-mantso **labainarazi** zuen eltzearen barrura, koilara muturrarekin desitsatsirik. Karlos Zabala

---

# labainarazle *izond/iz* labainarazten duena.

Berdin da, **labainarazle** beti, banana-azala. Xabier Olarra

---

# labaindu, labain(du), labaintzen *(orobat **labandu** g.er.)* **1** da *ad* irristatu, lerratu.

Gaizkileek ni suntsitzeko asmoz erasotzen badidate, beraiek, ene etsaiak, dira **labaindu** eta eroriko. Elizen arteko biblia

Eta ontzi guztiak batera abiatu ziren, beira bezain leuna zegoen aintzira gainean **labainduz**. Iñaki Mendiguren

Teilatuko leihoaren zirrikitutik barrurantz **labaindu** nintzelako, denen oharkabean, sugandilen moduan. Jon Alonso

Eskuak aldaka eta izterretan behera **labaindu** zitzaizkizun. Koldo Izagirre

Zakila aberearen potxon goxo eta zabalean egoki **laban** zedin. Aitor Arana

Aurreko hitzak idazten ari nintzela, esku bat sentitu dut mantapetik **labaintzen,** aurrena izterretan gora, hurrena ipurmasailetan laketua eta, azkena, nire plazarraren artekaren bila. Patxi Zubizarreta

Amari masailetan behera malko bat **labaindu** zitzaion, eta ni ere negarrez hasi nintzen. Joan Mari Irigoien

Edari apartsua gorputz zurixkan behera **labaindu** zitzaion. Lutxo Egia

Lepoan behera bere malkoen beroa **labaintzen** sentituz. Joxean Agirre

Urre koloreko antiojo kaxkarrak sudurrean behera zituen **labainduak**. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** irud/hed

Ilunabarrak aurrera egiten zuen, eta zeruko zuri eta zurixkak, gorri eta gorrixkak, hori eta horixkak lilaren espektrora **labaindu** ziren. Joan Mari Irigoien

Itzala berandu gabe **labainduko** zen hiriaren gaineko goi lautadarantz. Karlos Zabala

Irudi horren gainean beste bat **labaintzen** da orain, bederatzi urte lehenagokoa. Joseba Urteaga

Bi jarrera horien artean **labaintzen** dira nire egunak, Nahi izango nukeen baino ahots goragoz, honako iraina **labaindu** zitzaidan ezpain artetik: [...]. Pako Aristi

• **3** du *ad*

Galtzontziloen zirrikituan **labaindu** zuen eskua, eta zakila igurtzi zidan behatzekin. Aritz Gorrotxategi

Hala bada, astiro-astiro, eskua hanka artera **labaindu** diat, eta, bihotza punpaka hasi zaidak. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **behera labaindu** (3)
> **behera labaintzen** (3)

---

# labaindura *iz* labaintzea.

Lurringaien katearen zuzendariak belauniko jarrarazi ninduen bere aurrean eta lanari zintzo ekiten ari nintzaion bitartean ametsetan hartu nituen edertasun-gai haiek, nire usainaren gozoa adituz eta nire larruazalaren **labaindura** sentituz. Joxan Elosegi

---

# labaingai *(corpusean **labangai** soilik)* *iz* labaingarria, labaintzea errazten duen gaia.

Beti nirekin neramatzan **labangaia** eta kondoiak atera nituen gero neure poltsatik, esku bat luzatuz. Aitor Arana

**Labangai** pixka bat ene zulo gosetian ipintzeko asmoa neukan, noski. Aitor Arana

---

# labaingarri *(orobat **labangarri**)* **1** *izond* labaintzen dena.

Panel **labaingarrien** eta tapiz zintzilikarien atzean gorderiko ateetan zehar. Iñaki Mendiguren

**2** labainarazten duena.

Hor zeuden, baina inor ez zen ausartu lurralde **labaingarri** horietan sartzen. Karlos Zabala

Babesa zoriaren onaldiak emango diola uste duenari buruz, esan behar da bide **labaingarrian** dabilela, eta zalantzarik gabe izango duela bizitza arriskutsua eta segurtasunik gabea. Santiago Iruretagoiena

Zarandonaren ilerik gabeko larruazalak distira egiten zuen gantz **labaingarriaren** ondorioz  Josu Landa

• **3** *iz* labaintzea errazten duen gaia.

[Gai toxiko] horiek hozkailuetan, pinturetan eta **labaingarrietan** ere erabili izan dira. Txistuz edo **labaingarriz** bustiko du bere kirtena, eta xamurki aurkeztuko dio sakondu nahi duen zulo politari.  Berria - Gaiak

**Labaingarria** hiesa eta beste infekzio gaitzez kutsatzeko babes egokia zela uste izan zen hasieran.  Berria - Gaiak

Imanolek tutuko **labangarri** pixka bat esku batean hartu eta zakilean zabaldu zidan mottoa atzera bota ondoren.  Aitor Arana

**Labangarria** ipini eta txulo goxo hartara hurbildu nintzen.  Aitor Arana

---

## labaingarridun *izlag*

N-9 **labaingarridun** kondoiak egiteari utziko diote OMEk hala eskatuta.  Berria - Gaiak

---

## labainka *(orobat* ***labanka****)* *adlag* labainduz.

Iritsi ziren, eta han osaba Vernonek, irristaka eta **labainka,** etxetxo zaharkitura gidatu zituen.  Iñaki Mendiguren

Ileak buruan itsatsita, izerdia gorputzetik **labainka,** begiak itxita, zangoak zabalik.  Bego Montorio

Gorputz jelatinatsu haren gainera igota, hankalatraba jarri nintzen eta, nire kuleroari alde batera eginez, txizari utzi nion haren bizkarreko erretenean zehar irristatzen; erreka horia **labanka** joan zen haren leporaino, haren ezpain ertzetan galdu arte.  Juan Martin Elexpuru

---

## labainkeria *iz* egintza labaina, gaitzesgarritzat hartua.

Berarengandik ez al zaizkigu ba **labainkeria** kilikagarrienak etortzen?  Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## labainketa *iz*

Giltzadura bateko bi hezurrak ez dira egon ohi doi-doi ahokatuta, baizik eta bata bestearen arabera mugitzen da, biraketa eta **labainketa** konbinatuz.  Irene Aldasoro

Giltzadura mugitzeak eragindako **labainketa** eta biraketari esker, aldatu egiten dela bi hezurren arteko ukigunea.  Irene Aldasoro

---

## labainkor *(orobat* ***labankor*** *g.er.)* **1** *izond* irristakorra, labaina.

Bidexka oso **labainkorra** zen, izoztuta baitzegoen.  Jose Morales

Kontuz mugitu ziren, teila bustiak oso **labainkorrak** baitziren.  Fernando Morillo

Irrist egiten zuen aldamio **labainkorretan**.  Jasone Osoro

Gure landroverra marga edo dena delako buztin **labainkor** hartan zegoen ardatzeraino sartua.  Joxe Austin Arrieta

Elkar ikusi genuenean, ni lasterka hasi nintzen etorritako bidetik, pendiz **labainkorrean** gora.  Anjel Lertxundi

Himena dardaraz dago eta **labainkor** baginaren jario naturalez bustirik.  Karlos Zabala

**2** irud/hed

Gai **labainkorretan** laprast ez egiteko defentsa moduan.  Xabier Mendiguren Elizegi

Baina punturik irtenen, **labankorrenean** zentratuko gara: nola herri arimaren kontzeptua haren luman arrazarena bilakatu den.  Joxe Azurmendi

Kontu **labainkorra** zen: agiria faltsutuko zuen norbait aurkitzeaz gainera, dirua aurrez entregatu behar izaten zen, nonahi entzuten ziren ez diru eta ez pasaporte gelditutako juduen istorioak.  Anjel Lertxundi

Egile konkretuarena baitezpadako kontua da, baina eremu **labainkor** batera lerratzen gaitu.  Iñaki Arranz

Anbiguotasunaren eremu **labainkorretan** barrena.  Iñaki Arranz

Albert Allenek, Barbararen aitak, ez zion asko lagundu bizitza triste eta galdu batera zeraman bide **labainkor** hartatik ateratzen.  J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## labaki **1** *iz* luberria.

Biharamunetan, euriaren ondotik, gure aurpegiak eta **labakien** eremuak ikaragarriak ziren.  Itxaro Borda

Erdialdeko lautadako belar erraldoiak **labakitan** kiskailtzeko ordena eman aitzin.  Itxaro Borda

**2** irud/hed

Gizona luzaz deitu gabe egon arren gaurkoan, ez zen huts zein hustua sentitzen, izpirituaren **labakian** auto-suntsiketarako suterik ez zitzaion pizten, hainbat larrutu zuen antsiarentzat den-mendreneko zirrikiturik ere ez zegoen.  Itxaro Borda

---

## labakitu, labaki(tu)l, labakitzen **1** da/du *ad* luberritu.

Agoteak girixtino primitiboak zirela, oihanetan gelditu zirenak bizitzen, Erdi-Aroan eremuak **labakitu** zirenean laborantzarako.  Herria

Badirudi etxe eta borda inguruetako larreak itxi, **labakitu** eta zelaitu zirenetik, murrizten joan zela ganadu bazkatako otea lantzeko usarioa.  Patziku Perurena

**2** irud/hed

Seietan neukan zita garrantzitsua arrunt hegaldatu zitzaidan pentsuaren muinetarik, aiduru neukanaren pazientzia **labakituz,** urrutizkinean, eneak eta asto beltzarenak ahoskatuz larderiatzen ninduela frogatu zidanez gero.  Itxaro Borda

Konplexuek **labakitu** neskari, hedoiak euritzen ziren uneak amodiozko lantzer-izpi iruditzen zitzaizkion.  Itxaro Borda

**3** (era burutua izenondo gisa)

Arrotz eta umezurtz izatearen sentimendua areagotu zitzaidan, minberaki mutu **labakitua** bilakatzeraino.  Itxaro Borda

---

## labakizale *iz* *ipar* labakitzen duen pertsona.

Berantago, Cîteaux-ko erreformarekin, lür berri **labakizale** izan beharrak ziren beneditarrak.  Herria

---

laban ik **labain.**

# labana *(orobat **laban** eta **labain** g.er.)* **1** *iz* ahoa kirtenaren barnean toles daitekeen ganibeta; ganibeta.

Inoiz erabili gabeko errebolber herdoildua magalean eta ontziko **labana** eta ganibet guztien aho zorrotz biluziak eskura. Xabier Mendiguren Elizegi

**Labanaren** alde biak berriro garbitu zituen, oraingoan jertsearen mahukaren kontra. Anjel Lertxundi

Ireki zuen **labana** eta, ohiko legez, xafla baten ahoari hats egin eta galtzetan igurtzi zuen distira ateratzeko. Anjel Lertxundi

Hermannek **labana** itxi zuen eta patrikan gorde zuen azkenik. Anjel Lertxundi

**Labana** hartu eta lau puska kendu zizkion gurin-blokeari. Anjel Lertxundi

Argi dago 20 edo 25 zentimetroko xaflako **labana** daramanak ez daramala hori ogia zatitu edo fruta zuritzeko. Berria - Euskal Herria

Ez da normala jendea **labanarekin** ibiltzea. Berria - Euskal Herria

Harakinak "Badira bi orduan!" egin omen zuen **labana** zorrozten zuen bitartean. Koldo Izagirre

**Labana** eramateagatik ipini beharreko zigorra gogortu dezan araudietan. Berria - Euskal Herria

Ez bat eta ez bi, urreginak **labana** atera, eta zauri bat egin zion ipurtaldean. Patxi Zubizarreta

Bildotsaren ondoan jarri zen, **labana** eskuan zuela. Anjel Lertxundi

Norbait dator **labana** batekin ni hiltzera. Pako Aristi

Gerrikoan zekarren **laban** bat ipini zidan eztarrian. Joseba Sarrionandia

Kalean **labanarekin** mehatxatzen gaituen edozein gaizkilerena baino egiazkoa den heriotz promesa. Pako Aristi

Nevadako euskal artzainek **labanarekin** zuhaitzetan utzitako idatziez. Berria - Kultura

Emakume bat **labanarekin** zauritzeagatik. Berria - Euskal Herria

Gero mokotik heldu zion sakelako **labana** bat irekitzen ariko balitz bezala. Fernando Rey

Behin, espaloian lo zegoela, gizon batek **labanaz** sastakatu zuen. Gotzon Garate

Harrapatu zutenean, piraten itsasontzira igotzen ari zen, **labana** ahoan. Julen Gabiria

Baxerategian zeuden ilaran platerak, azpilak eta edontziak, eta **labana-,** sardexka- eta koilara-sortak. Irene Aldasoro

Mahaian zegoenean, hain biziro hartzen zuen bere basoa, edo sardexka edo **labana** non [...]. Josu Zabaleta

Koilararen kirtenaren alde bat mailukatuz **labana** gisa erabiltzeko tresna bihur genezakeela. Urtzi Urrutikoetxea

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Puruaren punta nakarrezko kirtena zeukan **labana** txiki batez ebakitzen zuen bitartean. Lopez de Arana

Carnot lehendakariaren arrastoa arropan, **labana** odoldua eskuan. Koldo Izagirre

Sei zerra-hortzeko **labana** zorrotza. Julen Gabiria

Jantzi militarraren sakelatik **laban** mehe bezain zorrotza zanpez atera eta Katxoren begitartea urrako sakonaz sardeskatu zuen. Itxaro Borda

Gizon bat zetorren agian Union Street aldetik, bi ahoko **labana** bat eskuan, ni nengoen lekura. Koro Navarro

Lurrean zegoen sukaldeko **labana** handi gorritua jaso du. Koldo Izagirre

Gerrian trabeska ageri zuen mendiko **labana** jo zuen begiz Dopazok. Koldo Izagirre

Bargoak hiltzeko **labana**. Itxaro Borda

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dagoeneko ez zegoen guztiz seguru bere aita zein **laban** motarekin asasinatu zuen, ezta haren kirtenaren koloreaz ere. Pablo Sastre

Agian ez zen halabehar hutsa zenbait urte lehenago, azoka hartara egindako lehen bisitan, **labana**-borroka bat ikusi izana. Bernardo Atxaga

Hartzaren so zilarrak **labana** ukaldi odoltsuaz urratu. Itxaro Borda

**Labana**-arrastoz beteta zeuden Bennetten idazgelan zedrozko hormak. Xabier Olarra

On Camillo irten zen garaile. Haizea mozten duen **labana**-aho baten modukoa. Koldo Biguri

Kolpeak gorantz jo behar direla, **laban** ahoa barrurantz. Juan Garzia

Elsak **labana**-jaurtitzailearena egiten du numeroetako batean. Harkaitz Cano

**Labana** zaurien gisakoak diren lerroak. Berria - Kultura

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mahai gainean bazen halako sastakai-**labana**-edo bat, liburuetako orriak zabaltzeko erabiltzen nuena. Josu Zabaleta

Etxaldeei su ematen, laborariei zangoak gerri-**labanaz** mozten eta neskatoak etzaleku hautsien gainera eraisten zituzten bitartean, Alain txikia dolarearen sarrerako ardo upela hondogabetu batean uzkurtua zen. Juan Garzia

Delako guda-**laban** hori. Patxi Ezkiaga

**5** ***bizar-labana***

Gosariarekin batera aizturrak, xaboia, ispilu txiki bat eta **bizar-labana** utzi dizkidate zoruan. Koldo Izagirre

Eskuineko oina komun-ontziaren ertzean kokatuta, zangoko ileak kentzen pilaz zebilen Schick **bizar-laban** batekin. Oskar Arana

Begia **bizar-labana** batez ebakitzea ez baita, askok uste duten bezala, surrealista, amesgaizto oso errealista baizik. Harkaitz Cano

**6** ***labana-orri*** *(corpusean **labanorri** soilik)* labana-xafla.

Baina koipegin hordi batek **labanorri** zabal bat hondoratua zion lepoan, elkarrekin zeutzala, landa-arras, ehorztegi abandonatu bateko lauzen gainean. Juan Garzia

Ezezagun zitzaizkien, ordea, eskuoi, mailuaren pisu hotsandiko, orekatu hori; **labanorrien** indar kontzentratua, zuhurtzia zorrotzegiz debekaturik baitzeuden gurean. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bizar laban** (3); **laban batekin mehatxatzeagatik** (3)

**ahoko labana** (3); **altzairuzko labana** (4); **bizar labana** (14); **bizarra mozteko labana** (4); **erabilitako labana** (3); **labana atera** (25); **labana atera zuen** (6); **labana bat atera** (4); **labana batekin eraso** (3); **labana batekin mehatxatu** (3); **labana bezain zorrotz** (3); **labana erabili** (3); **labana erakutsi** (3); **labana eskatu** (3); **labana eskuan** (13); **labana eskuan zuela** (3); **labana eskuetan** (5); **labana handi** (6); **labana handi batekin** (4); **labana hartu** (22); **labana hartu zuen** (6); **labana hortzetan** (3); **labana kendu** (4); **labana luze** (5); **labana luze bat** (4); **labana sartu** (15); **labana sartu eta** (6); **labana sartu zion** (4); **labana sartzen** (3); **labana txiki** (4); **labana txikia** (3); **labana zorrotz** (6); **labana zorrotza** (9); **mendiko labana** (3); **mozteko labana** (4); **sakelako labana** (3); **sukaldeko labana** (3)

**bizar labanak** (5); **labanak bezain zorrotzak** (3)

**labanarekin mehatxatzeagatik** (4); **labanarekin mehatxu egiteagatik** (3); **labanarekin zauritzeagatik** (5)

**labanaren ahoa** (5); **labanaren distira** (4)

**labanaz egindako** (3); **labanaz eraso** (13); **labanaz eraso zion** (3); **labanaz erasotzeagatik** (9); **labanaz erasotzen** (3); **labanaz hil** (6); **labanaz zauritzeagatik** (5)

---

# labanagile *iz* labanak egiten dituen eskulangilea.

-Ez dakit -Don Kijotek berriz-; baina ez zen **labanagile** horrek egina izango. Patxi Ezkiaga

---

# labanatxo *iz* tamaina txikiko labana.

**Labanatxoa** aterata azazkalak garbitzeari ekin zenion, arropa artean jesarrita. Koldo Izagirre

Puskaka jaten zuen, aitak oparitutako **labanatxoarekin**. Alberto Barandiaren

Poltsikotik **labanatxo** bat atera, zuloetako batean aztarrika ibili, eta zerbait atera zuen azkenik. Koldo Biguri

---

## labanazale *izond* labana erabiltzen duen gaizkilea.

**Labanazale** eta ehiztari askorentzako tokia dago hirian. Berria - Ekonomia

---

## labanazoka *adlag adkor* labankadaka. ik **labankazoka**.

Gure arteko lokarri mehe eta sendo hori eten nahi dute beti jaulierrek, horregatik **labanazoka** eta odol handian hiltzen dute sozialek elbarria dutxetan edo patio erdian, eta inor ez da harritzen, hain gutxi asaldatzen. Koldo Izagirre

---

## labanda 1 *iz* izpilikua.

Hiru idazkari bazkaltzera irten ziren presaka, arrautza egosia eta esne irabiatua hartuko zuten, eta **labanda** usaina utzi zuten pasatzerakoan. Koro Navarro

-Ekardan **labanda** pittin bat, baldin badaukan. Anton Garikano

**2 *labanda koloreko*** *iz* urdina.

Baziren **labanda** koloreko batzuk ere. Koro Navarro

**3 *labanda-lore*** *(corpusean **labandalore** soilik)*

**Labandalorea,** zaldien eta kuraiaren usaina baino indartsuago. Juan Garzia

---

labandalore ik **labanda 2**.

---

## labanderia *iz* garbitegia.

Estazioak, aireportuak, **labanderiak,** hotelak, hipodromoak, kasinoak eta zita-etxeak ziren bere ehizarako lekurik aproposen eta ohikoenak, baina beti zegoen adi. Harkaitz Cano

Bizitza soziala egiteko leku aproposak izan litezke **labanderiak**. Batzuetan irakurgaia eramaten dut **labanderiara,** baina beste batzuetan eskotilatik begira geratzen naiz, Julio Verneren istorio bateko protagonista banintz bezala. Harkaitz Cano

---

labandu ik **labaindu**.

---

labangai ik **labaingai**.

---

labangarri ik **labaingarri**.

---

## labangizon *iz* labana erabiltzen duen gizonezko gaizkilea.

Liburutegiaren zuzendari berria, entzun dudanez, antzinako hizkuntzen ikasketari buru-belarri emana dagoen letragizon bat da, alegia oraingoak nahikoa baldar ez balira bezala, eta **labangizonez** jositako Buenos Aires alegiazko baten goralpen demagogikoari, orobat. Juan Garzia

Ni 1899an heldu nintzen hiri honetara eta behin bakarrik jarri ninduen halabeharrak **labangizon** baten edo halakoaren fama zuen tipo baten aurrean. Juan Garzia

---

## labanka[1] *adlag* labana ukaldika.

Tomek berak hartu zuen besoetan aitak **labanka** emandakoa, lurrera eror ez zedin. Koldo Izagirre

---

labanka[2] ik **labainka**.

---

## labankada 1 *iz* labana ukaldia.

Min sarkor eta hotza sentitzen dut, **labankada** baten antzekoa. Iban Zaldua

Batzuek, lepoan emaniko **labankadak** hil zuela; besteek, hogeitaka sastada zituela, eta odolustuta hil zela. Iñigo Aranbarri

Autopsiaren arabera, Berruetak heriotza eragin zion **labankada** jaso zuen.

27 urteko emakume bat hil dute **labankadaz** Bilbon. Berria - Euskal Herria

Senarrarekin borrokan egin eta, hura **labankadaz** josi ondoren, ihes egin zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hemen **labankada** baten orbaina dut. Pako Aristi

**Labankada** batez hilko nindutela. Pello Lizarralde

Ari zirela ari, eman zion euskaldunak Don Kijoteri **labankada** astun bat lepagainean. Patxi Ezkiaga

Sabelalde eta bularrean **labankada** sakonak zituen. Berria - Euskal Herria

**Labankada** zehatz eta bakar batez. Edorta Jimenez

Errezeletan zehar, printzak **labankada** txikiak bihurtzen dira begientzat. Sonia Gonzalez

Haren begiradek **labankadak** ziruditen. Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan)

Biktimari eman zizkion **labankada** kopuruak agerian jartzen du hiltzeko asmo argia zuela. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

hainbat labankada jaso (3); labankada bat eman (6); labankada bat emateagatik (5); labankada eman (12); labankada emateagatik (3); labankada jaso (6); tiro eta labankada (3)
labankadak eman (3); labankadak jaso (5)
labankadaz hil (10); labankadaz hil zuten (5); labankadaz josi (4); tiroz eta labankadaz (3)
emandako labankaden ondorioz (3)

---

**labankatu**, labanka, labankatzen du *ad* labanaz eraso, labankadak eman.

Ez zuen amaiera onik izan, gizagaixoa, Burgosko kartzelan **labankatu** zuten amodio kontu batengatik. Javi Cillero

Stockholmeko *Nordiska Kompanie* merkataritza gunean erosketak egiten ari zenean **labankatu** zuten Anna Lindh. Berria - Mundua

-Metroaren geltokian **labankatu** egin dute eta hilzorian dago. Iñaki Zabaleta

Minutu eskas bat joan zen Joseba **labankatua** izan zenetik eta emakume hark aurkitu arte.Bukaeran ez du bere burua **labankatzeaz** beste aterabiderik. Iñaki Zabaleta

---

**labankazoka** *adlag adkor* labankadaka, laban ukaldika.

Estebanen lehengusua, hogei urterekin abangoardiako aldizkari literarioetan kolaboratzen zuena eta hogeita bostekin emaztea **labankazoka** hil eta bere burua trenera bota zuena. Bernardo Atxaga

Emakumeren batekiko maitasun kontu sekretuak eta espak zirela medio, hil omen zuten **labankazoka** 1779ko urriaren 27ko ilunabarrean, Aranotik Leitzara abere gainean heldu zela mendiz. Patziku Perurena

**Labankazokako** peleatik bizirik irtendako besteren bati. Jon Alonso

---

labankor ik **labainkor**.

---

labanorri ik **labana 6**.

---

**labar 1** *iz* itsasbazterreko amildegia, uhinen jardunak eragina.

Pasaian kanpo portua egiteak itsas hondoari eta Jaizkibel mendiko **labarrei** eraginen lieke. Berria - Euskal Herria

Oraino haratago, itsasertzean, **Labar** ugariko itsasbazter malkartsuan zehar. Jon Arretxe

Eraikinaren atzean, itsas aparra joka entzuten zen **labarreko** harkaitzen kontra. Koro Navarro

**Labarretako** zuloetan ezkutatuko gaituk. Koldo Izagirre

**Labarren** gainean bizi naiz, biziki maite ditut Entretat-eko **labar** hauek. Josu Zabaleta

Ez non eta ez han, Ramsay andrea **labar** ertzeko bidatxur haiekin gogoratu zen. Anton Garikano

**Labar** gaineko mandabidea hartuta. **Labar** artetik itsasertzeraino jaitsi ginen, ilgora formako hondartza txiki batera. Joseba Sarrionandia

Mikel itsasertzera hurbildu zen, bere burua **labarretatik** behera botatzeko asmoarekin. Martin Anso

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Ogoñoko **labar** iluna Elantxoben; eta azkenean Matxitxako lurmuturra. Txillardegi

Itsasoa **labar** ilunak astintzen ikusiko duzu istriborreko bandan. Joseba Sarrionandia

Izarteko **labar** zutaren erditsuko koska hartan ni oinutsik paraturik, bitan banatzen zitzaidan mundua: aurrealdean, itsasoa neukan; eta atzealdean, harri berdaxkazko horma hotz ikaragarria. Txillardegi

Priongo mendiaren eta **labar** garai malkortsu baten artean, han ageri zen, Kaistroaren urertzean, Artemisen tenplu itzela. Juan Garzia

Basalto beltzezko **labar** ikaragarriak. Berria - Kultura

Hantxe beren aurrean aurrez aurre, kareharrizko **labar** bat zeukaten, hogei bat metroko altuerako faila ikaragarri batez zulatua. Jon Muñoz

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Olatuen aparrak bere gailur zuri beldurgarria **labar** harrien gainetik gora altxatzen zuenean. Koro Navarro

Mareajea beheratutakoan baino ez zitekeen iritsi **labar**-muturraz haratago zeuden leize zuloetaraino. Koldo Izagirre

**Labar** zerrenda gris bat, zerumugaren alde oso bat hartzen zuena. Karlos Zabala

Mane-Porte-n eserita nengoen, bada, itsasoan barrena urrats bat egiten duen **labar**-hanka erraldoi horren gainean. **Labar** pinturen erreprodukzioak. Josu Zabaleta

Denbora bi adarretan irekitzen da **labar**-herrixka hau ez ukitzeko, godoen garaietatik berdin-berdin dago. Jon Alonso

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oraingoan "Lorentziyo-ene" eta "Tturko" baserriak eskuineko gure aurreko muino-**labarrean** ageri, Loiolako zubia laga, eta "Errotaberri" ondoko belazean eseri ginen. Txillardegi

Bere oinarritik itsasorantz konkortzen den harkaitz-**labarraren** gailur ikaragarrira. Juan Garzia

Mendiak erori egingo dira, harkaitz-**labarrak** amildu eta harresi guztiek lur joko. Elizen arteko biblia

**5** *itsas labar* ik **itsaslabar**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
labarrean behera (5); labarrean gora (3)
labarren kontra (4)
labarretatik behera (3)

---

**labari** *iz* itsasontzietan, labeaz arduratzen den pertsona.

Sortida egin baino ordu bete lehenago ontziratzen zen hura beti, bezperan dena prest utzitakoa berriro ikuskatzen, **labariarekin**. Koldo Izagirre

Armadoreek eta gobernadore zibilak lema eramanen duten Itsasoaren Kontseilua izeneko batzordean hiru ordezkari hautatzeko, lehorrekoek eta saregileek bat, motoristek eta **labariek** beste bat, arrantzaleek azkena. Koldo Izagirre

**Labariak** paneletara behatzen zuen, kokotsa bularrean iltzatuta. Koldo Izagirre

---

**labarralde** *iz* labarrak dauden aldea.

Ederrena, ordea, eta Habibiri dardarizoa sartzen zitzaion ahotsean hura aipatzean, Djidjelli-rainoko kosta zen: hainbat kilometroko **labarralde** amiltsua, "Côte d'Azur

itsasbazterra baino politagoa". Jon Muñoz

---

**labartsu** *izond* labarrez betea.

Badiaren bazter bat lurmutur **labartsu** itzel batean amaitzen zen, uren gainetik berrehun metrora artez gailentzen zena. Joanes Urkixo

---

**labartza** *iz* labarra.

Berrogei bat metro gora, gaineko zelai eta **labartza**-bururaino; eta beste berrogei behera, zut, itsasertzeko arroketaraino. Txillardegi

---

**labe** **1** *iz* eraikuntza gehienetan biribila, barnean sua eginez ogia erretzeko, karea edo adrailuak egosteko... erabiltzen dena; zernahi eraikuntza edo barruti, beroaren bidez gauzak edo gaiak berotzeko, egosteko, erretzeko, kiskaltzeko, urtzeko edo eraldatzeko erabiltzen dena.

Gerritik gora biluzik aurkitu zuen frantses-euskalduna, **labearen** ahoan. Koro Navarro

**Labe** baten aho-ahoan nengoela iruditu zitzaidan. Josu Zabaleta

Itzal ezak **labea,** Jada! Patxi Zubizarreta

Bero izugarria sumatu zuen, **labe** batetik ateratako sugar-bufadak jo balu bezala. Askoren artean

Har ditzagun lurrezko bi ontzi **labe** berean erretakoak eta pisu berdina dutenak. Santiago Iruretagoiena

Izotz puska bakanak, jitoan ibaian behera, argizaria **labe** gainean legez urtzen ari ziren. Karlos Zabala

**Labean** erretako oilanda galkatua. Jose Morales

Karea, **labean** bere ur guztia galdu ondoren porotsu eta ahul geratzen denez, [...]. Santiago Iruretagoiena

Harriren bat **labean** gutxi erreta balego. Santiago Iruretagoiena

Teilak **labean** erretzerakoan hartu duen lehortasunarengatik. Santiago Iruretagoiena

Labore-opariak, nahiz **labean** erreak nahiz eltzean edo zartaginan prestatuak. Elizen arteko biblia

Zilarra arragoan, urrea **labean,** gizakia goratzen duenaren ahoan. Elizen arteko biblia

**2** irud/hed

Imajinazinoaren **labe** gero eta beroagoan iduri lizun bati bertze bat zerraiola. Joan Mari Irigoien

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

**Labe** elektrikora bere horretan bidaltzeko moduko aleazioa. Juan Garzia

Garai hartan etxeko **labeetan** egiten baitzen asteroko ogia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bilboko beilatokiak ezin izango du ipini hirigunean hilotzak errausteko **labea**. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Labe** bafada bero bat igarotzen zen aurpegiaren gainetik, bularra arnasbehartuz. Josu Zabaleta

Suaren beroak sortzen duen lurruna berriro **labe**-zorura erortzen denean, ikusten da zilarbizi bilakatu dela. Santiago Iruretagoiena

Badirudi kale arteko gerizpeetatik ez duela inork irten nahi, **labe**-kaleotan ez duela inork ibili nahi. Paddy Rekalde

Gozo-denda batetik **labe**-ezti usain epela zetorren. Iñaki Zabaleta

**Labe**-etxola ostean ezkutaturik. Koldo Biguri

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ogi-**labe** berri bat asmatu dute, egur gutiago erretzen duena. Herria

Okin-**labeetarako** isats landare ihartuak etengabe zapaltzen genituelarik. Txillardegi

Baratze ugari zeuden, etxaldeek lupulu-**labeak** eta aletegiak, eta angioak eta ukuiluak zituzten. Agustin Otsoa

Urrats batzuk beheiti eginda kisu **labe** gainera inguratu da Joxe. Pello Lizarralde

Egun hortan Angeluko Herriko Etxean bilkura publikoa antolatzen du administrazioak Itsuaren zubiko lohi **labe** proiektuaz. Herria

BAM hiri elkargoak 7,8 milioi euro berexiak ditu Bacheforez-eko ondarkin **labe** eta gunearen garbitzeko. Herria

Lokomotora **labe** batek su lamazko erauntsi bat jaurtitzen dizu sabelera. Josu Zabaleta

Gelak harrikatzaz eta egur-**labeaz** berotzen dira. Eskarne Mujika

Eguzkia energia-**labe** ikaragarri bat dugu. Pello Zabala

**6** ***errauste*** *(23 agerraldi, liburu 1 eta 3 artikulutan] /****errausketa*** *[26 agerraldi, 3 liburu eta 5 artikulutan)* ***labe*** hilotzak errasuteko labea.

Beilatokian **errauste labea** egitea ez dute nahi, kutsatzen duelako. Berria - Euskal Herria

Baionako hileta elizkizunak ez bezala, familia giroan egin zen Manex Goihenetxe zenaren gorpuaren erraustea, atzo arratsaldean, 16:00etan, Errenteriako Zentolen Berri **errauste labean**. Berria - Kultura

Bilboko Ehorztetxeak **errausketa-labea** eraiki nahi du hiriburuan. Berria - Euskal Herria

· *(kontzentrazio esparruetan)* Ijitoak eta, batez ere, juduak gas-ganbera eta **errauste-labeetara** bidali zituzten. Urtzi Urrutikoetxea

Hango tximinia ez zen larru-fabrika, ezpada "krematorioa", **errausketa-labe** baten tximinia alegia. Urtzi Urrutikoetxea

Deportatu gehienak bezala zuzenean gasa eman [...] eta erre izan dira **errausketa-labeetan**. Joxan Elosegi

**7** ***labe garai*** *pl* burdin oxidoa burdina bihurtzen den labea, dorre itxurakoa.

Burdina zirinez gorritutako moilak pasatuta, **labe garaietako** itzal erraldoiek iragarri zieten Sestaora heltzekotan zirela. Josu Landa

Nahiz bere **labe garaian** urtzen duen herdoileriaren eros prezioa azkarki hupatu zaion, EDF-ak apaldu dio elektrika indarraren prezioa. Herria

Bizkaiko **labe garaietako** langilea naiz ni. Berria - Ekonomia

Granitoa Berrocal eta Villalbatik, burdina eta Bessemer altzairua Bilboko **Labe Garaietatik**. Hasier Etxeberria

Baserritik **labe garaietarako** bidean non galdu zen euskara? Berria - Euskal Herria

**8** ***mikrouhin labe*** maiztasun apaleko uhin elektromagnetikoak erabiltzen dituen labea, janariak berotzeko erabiltzen dena.

Zartaginean edo **mikrouhin labean** egin daitezke hanburgerrak. Berria - Harian

Florenek bi baso esne atera ditu **mikrouhin labetik**. Eider Rodriguez

Basoak ardoz bete bitartean, **mikrouhin-labe** batek bere marmaria entzunarazi zigun sukaldetik. Aingeru Epaltza

**Mikrouhin labeek,** esaterako, kontsumitzen duten argindarraren %40 erloju digitalean joaten da. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bizkaiko labe garaiak** (3); **labe bat ketan** (4); **labe berri** (4); **labe garaiak** (11); **labe garaien** (7); **labe garaietako** (9); **labe garaietako langile** (3); **labe gorri** (3); **labe handi** (6); **labe txiki** (3); **labe zatiekin** (3); **mikrouhin labe** (4)

**errausketa labea** (3); **errauste labea** (7); **errausteko labea** (4); **labea piztu** (3)

**errauste labeak** (6)
**labean egin** (3); **labean erretako** (8); **labean erretzen** (4); **labean sartu** (8); **labean sartzen** (5); **mikrouhin labean** (7)
**errausketa labearen** (3)
**labeko atea** (6); **labeko atea zabaldu** (4); **labeko ateaz** (3); **labeko su** (7); **labeko su bizira** (5)

---

## labealdi 1 *iz* labe batean batera erretzen diren gauzen, bereziki ogien, multzoa.

**Labealdi** bakoitzeko ogirik onenak. Elizen arteko biblia

Ogia erretzean, **labealdi** bakoitzeko opil bat eskainiko diozue hasikin gisa. Elizen arteko biblia

Urrezkoa zirudien azken **labealdiko** ogi beroz bete-beterik. Karlos Zabala

Emazteari ogia egiteko esan zion, **labealdi** handia. Jose Antonio Mujika

**2** irud/hed

Iturriagaren patilak eta belarritakoak aitzakia, Sarasuaren belaunaldiak "bada/ez da bertsolari" jasan behar izan zuen gisan, bigarren **labealdi** honek "denak berdinak dira" etiketa eraman behar izan zuen bularrean. Andoni Egaña

Ez dira berri-berriak baina bai oso **labealdi** onekoak. Harkaitz Cano

---

## labegile *izond* labeak egiten dituena.

New Yorkeko amona batek bere katua garbitu eta, hura lehortzearren, mikrouhin labean sartzea bururatu zitzaion, bururatu eta egin; noski, katua kiskali egin zen, eta hain zuzen ere kiskali zelako, amonak enpresa **labegilea** salatu, eta epaitegietara eraman zuen, izan ere inork ez baitzion ohartarazi arriskutsua izan zitekeela animaliak labean lehortzea. Patxi Zubizarreta

---

## labegoritu *izond* labean bezain bero goritua.

Eguraldi bakeoso eta tankera onekoa, berez, aldatzeko gogo handirik ez duena, baina zorioneko bero-depresio horrek, fronte apartekorik gabe, baina bere aziotxoa hara nola ekartzen digun hegoaldeko lur erre **labegoritutik**. Pello Zabala

---

## labekada *iz* labealdia.

Halako batean isilean, xuxurla moduan, **labekada** berri bat agertzen da auskalo zerk bultzatua (ondo egindako aurrelana, zori helezina, magia ukitutxoak...). Berria - Kultura

---

## label 1 *iz* merkataritza produktuez mintzatuz, ezaugarri jakin batzuen marka.

Sarritan ISO 9000 ziurtagiria produktuen kalitatea neurtzen duen zigilu edo **label** bat bailitzan saltzen dute, horrekin zerikusirik ez duen arren. Iñaki Heras

Sinistu behar dute euskal idazleak esportagarriak direla eta **labela** badutela, eta hor dago koxka, ez dutela sinisten. Ana Urkiza

AOC **labela** erdietsi duen Ezpeletako piper zakuño bat. Itxaro Borda

AOC, IGP edo **"label** rouge" bezalako erreferentzia bat lortzea, hori behar beharrezkoa da. Herria

Zuek ba dituzue hiru **label**: biologikoa, Idoki eta Ossau-Irati, zergatik? Herria

**2** irud/hed

Zer da izena? izanari eransten zaion etiketa -barkatu, **label-** hutsa. Joxerra Garzia

Umorea, absurdoa, ironia eta gehiegikeria zuen **labelak** direla esan daiteke? Berria - Kultura

Estatu Batuek trebaturiko militarrek gizarte mugimenduen aurka Hego Amerikan eginiko zapalkuntza ez da, egia esan, inoiz gelditu, Gerra Hotza bukatuta ere, eta jarraituko dute hura beste **label** batekin erabiltzen. Berria - Mundua

**Label** demokratikoa lortu nahi omen dut horrela idatziz, egitura autonomikoan aurrera egiteko. Hasier Etxeberria

Erromes fidagarriaren **"label"** horrekin Bideko aterpeetan onartua izanen naiz. Piarres Aintziart

Eta Kaliforniako piperrak ere ez ziren, oraingoan, hain piperminak; hain gorriak ere ez [...]; dirudienez, **label** pixka bat galdu dute. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jakin dugu **label** eskaera egin duzula. Karlos Linazasoro

Abendutik hona, gainera, aldatu egin dituzte Eusko **Label** zigilua duten oilasko produktuen etiketak. Berria - Gaiak

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gaur egun, esaterako, kalitate **labelik** gabeko haragi gutxi erosi daiteke, ia denek dute zerbait. Iñaki Heras

Objektibotasun-**labelarekin** datorren elikagaia delako, ordea, informazioa gutxieneko arretarik jarri gabe irensten dugu. Pako Aristi

Eusko **Labela** lortzeko aurkeztutako 35.000 arkumeetatik 26.000k lortu zuten amaitu berri den kanpainan. Berria - Ekonomia

Arabako Patataren, Gernikako Piperraren eta Euskal **labeleko** tomatearen kanpainak. Berria - Ekonomia

1989an sortu zuen Kalitatearen Euskal **Labela** Jaurlaritzak. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**eusko label** (5); **label demokratikoa** (6)
**eusko labela** (4)

---

## labeldun *izond* label jakin bat duena.

Kezkatuta daude haragi **labeldunaren** prezioa apaltzen dutelako kanpotik ekarritako abereek. Berria - Harian

Pintxoa ere, elikagai pertsonalizatuaren **labeldun**. Edorta Agirre

Baserriko oilaskoak hazi eta ekoizten dituzte bertan, **labeldunak,** ahalik eta modu naturalenean. Berria - Gaiak

· Benetako kulturgilea eta erakunde-zorria, traidorea eta **labeldun** abertzalea, tribu azoka eta supermerkatu globalizatua. Markos Zapiain

---

## laberatu, labera(tu), laberatzen du *ad* labera eraman.

Hozberoari oniritzirik, gainean sagar-xerra batzuk zeramatzan ore azukredun bat **laberatu** zuen azpil batean. Anjel Lertxundi

---

laberinto ik **labirinto**.

---

## labetxo *iz* labe txikia. ik **labexka**.

Esnea eta ura berotzeko **labetxo** elektriko bat ere utzi dit eta baita 70. hamarkadako telebista bat ere. Harkaitz Cano

Ellen bere alkohol-**labetxoa** apailatzen ari zen konketan. Lopez de Arana

---

## labetzar *iz adkor* labe handia.

**Labetzar** haiek kea zeriela, matxino zeritzoten makina zaratatsuak, salda goriak, galdara haiek eta hango hots, harrabots, danbateko ikaragarriek gorputzaldia gaiztotu zioten. Jon Maia

---

## labexka *iz* labe txikia. ik **labetxo**.

Ipini **labexka** hori lurrean eta eseri. Lopez de Arana

Barne goritasunak hezurretaraino sutzen zituen gizakiak, garra **labexkan** bezala sutzen zitzaien urdailean. Xabier Amuriza

---

## labezain *iz* labe batez arduratzen den pertsona.

**Labezain** baten semearekin jolasean, alajaina! Mirentxu Larrañaga

---

## labezomorro *(orobat* ***labe-zomorro*** *g.er.)* **1** *iz* gau intsektu zapala, beltza gainetik eta gorrixka azpitik, leku heze eta ilunetan ezkutatzen dena eta zernahi janariz elikatzen dena *(Blatta orientalis).*

Zimitzak eta **labezomorroak** ihaurri zituzten haien zeldan. Eneko Bidegain

Ur beroa zen doi-doia, zenbait **labezomorroren** igerilekua. Eneko Bidegain

**Labezomorroak** ateratzen omen dira zulo guztietatik, eta janaria eta funtzionarioen jarrera eta tratua oso txarrak omen dira. Berria - Euskal Herria

Zer axola guri zeinena den, duintasunik eta kemenik gabeko **labezomorroak** bagina bezala, oinpean gauzkan hanka? J.M. Olaizola "Txiliku"

Guztiok mespretxatzen ditugun animaliak; hala nola, arratoiak, usoak eta **labezomorroak**. Berria - Kultura

Beraz, **labezomorro** higuingarrien sindromepean bizi nahi ez baduk, badakik... Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Marakak joz arrakasta lortu nahi duen **labezomorro** karibearra. Berria - Kultura

Marta zigarroari geratzen zitzaion **labezomorro** ttipia metalezko hautsontzian sakatu eta poxpolo batekin zigarro berri bat piztera abiatu zen. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan)

-Eta beste hauek, zer? -esan zion Ronek, **labezomorro**-nahasturaz beteriko ontzi bat Hermioneren sudurrera hurbilduz. Iñaki Mendiguren

---

## labezulo *iz adkor* labea.

Destilagailu eta potoak egosteko, lasai egon zedila: bazen Andreak bere santuak egosarazteko eginiko **labezuloa**. Juan Garzia

Gauez neskameen logeletara joan eta **labezuloak** bezala aurkitzen zituen itxita. Anton Garikano

---

## labirintiko **1** *iz* labirinto itxura duena. ik **labirinto 2**.

Eraikin **labirintikoaren** azken muturrean ate itxia aurkitu dut, eta jende mordoa zain. Jon Arretxe

**2** irud/hed

Elkarrizketa **labirintiko** samarrean. Jon Alonso

Kontent egongo nintzateke, huskeria **labirintikoak** esaten moldatuko banintz, egunkarietako gehigarri kulturaletan agertzen diren zenbait psikoanalista, soziologo edo pentsalari frantses bezala. Karlos Zabala

Inork ez du inoiz hainbeste inozokeria **labirintikorik** bota gure gizarteari buruz, eta, hori gutxi balitz, haren eraginez sortu zaizkigu mundura hainbeste eta hainbeste ahozabal berritsu, Frantzia aldeko bizkarroi horiek guztiak. Karlos Zabala

Ipuin mitikoetan, garia eta oloa ezin ditu bereizi bahe **labirintikoak;** horrek lan amaiezina sortzen du, eta baietzaren indeterminazio sintaktikoa adierazten du. Joseba Zulaika

---

## labirinto *(orobat* ***laberinto*** *g.er. eta* ***labirintu*** *g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***labirinto*** *agertzen da)* **1** *iz* elkar gurutzatzen diren bide bihurgunetsuen sarea, bertatik ateratzea nekeza gertatzen dena.

Minotauroaren **labirintoa**. **Labirintoaren** bihotzean, euskaldunok Minotauroarekin jolasean. **Labirinto** batean harrapatuta gaude. Iñaki Iñurrieta

Jerusalemeko kaleen **labirintoan** zehar. Xabier Kintana

Metroko **labirintoan** behin baino gehiagotan aldatu behar dugu geltokiz eta trenez. Edorta Jimenez

Indultuak, baina, Ministeriotik mezulariaren bitartez igortzen zaizkionak, gehienetan lau edo bost eguneko atzerapenez jasotzen ditu, mezularia Ministerioko **labirinto** bihurrian ezinbestean galdua ibiltzen denez. Karlos Linazasoro

Itsasoa **labirinto** arriskutsua bihurtu da balearentzat. Joseba Sarrionandia

Barranquilla, [...], taxian zeharkatuta, **labirinto** urbano kaotikoa iruditu zait. Joseba Sarrionandia

Kale estuen **labirinto** batean sartu eta sarritan aldatu dinat bidea. Anton Garikano

Hura etxe arrunt bateko soto arrunta zen, ez nire irudimen asaldatuak marraztu zuen **labirinto** arriskuz josia. Alberto Ladron Arana

Behin ongi jabetu zenean txosten hartan zetorrenaz, galderaz, dudaz eta kezkaz beteriko **labirinto** bat zabaldu zitzaion, bat-batean, bere aurrean. Joxemari Iturralde

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **labirintiko**.

Horregatik sortu du ez buru ez hankarik ez duen **labirinto**-egitura hori. Berria - Kultura

Lorategi maitatu hura, bere **labirinto** bideekin, bere antzinako urrinarekin eta bere bihurguneetako hostape haiekin. Josu Zabaleta

Onenak hatz-mamien **labirinto** itxurako aztarnak eta azkazalen arrastadak dituzten argazki zaharrak dira. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mendi- **labirinto** honetatik irtenez gero. Gauzak okertuz gero, ez nuen ihes egin nahi karrika **labirinto** guztiz ezezagun batean barrena. Xabier Montoia

Gero aire bila irten naiz; ez nuen tren **labirinto** hartako beroa jasaten. Patxi Zubizarreta

Orduan, Marik Martintxo kobazuloan sarrarazi eta barruko tunel- **labirintoan** barrena upategira eraman zuen. Martin Anso

Goio amaren atzetik, izuturik, berandutuz gero behelainotan galduko zelako beldurrez, hilobi **labirinto** hartan. Joseba Sarrionandia

Roma dendaren azpian zabaltzen zen korridore **labirinto** hartan barrena eskuargien laguntzaz dena miatzen. Alberto Ladron Arana

Ekonomia-zientzian, Keynesek zioen legez, "sinbolo **labirinto** alferrikakoa eta handinahia" dagoela. Iñaki Heras

Ez zuen jakin posizio **labirinto** hartan orientatzen eta nazionalen zentinelaren segadan eroria zen. Koldo Izagirre

**4** belarriaren barnealdea.

Oso sistema eraginkorra da **labirintoa** posizio-aldaketa detektatzeko eta, hala, gorputzaren posizioa eta jarrera egonkortuko duten seinaleak bidaltzeko, baina ez da guztiz nahitaezkoa. Irene Aldasoro

Batzuetan, **labirintoa** garunera lotzen duten nerbioak ebakitzen dira eritasuna tratatzeko. Irene Aldasoro

Praktikan, begietan oinarritzen gara mugimenduari eta azelerazioari buruzko informazioa jasotzeko, **labirintoaren** aparatu korapilatsuan baino gehiago. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gezurren labirintoa** (9); **laborategia eta labirintoa** (4)
> **labirintoan barrena** (4)

---

labirintu ik **labirinto.**

---

**laboral** *izond* lanarena, lanari dagokiona. ik **lan 5.**

Lan-konbenioak, eskakizun **laboralak,** etc. Edorta Agirre

Azken neskamearen eskakizun **laboral** lotsagabeei buruz. Joseba Sarrionandia

Langileak gara, eta gure eskubide **laboralak** errespeta ditzaten nahi dugu den jakiteko. Pako Aristi

Atzo izendatu du gobernuak komisio bat zor **laborala** zenbatekoa den zehazteko. Pako Aristi

Han den gisako mugikortasun **laborala** ezinezkoa da hemen. Iñaki Heras

Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkio politika sozio- **laboralen** eta enplegu politiken esklusibitatea. Berria - Euskal Herria

Bizitza **laborala** zein sentimentala. Unai Elorriaga

Eibarko Unibertsitate **Laborala**. Berria - Euskal Herria

Lan ministroak erreformak egingo ditu arlo **laboralean,** negoziazio kolektiboarenean eta gizarte segurantzan. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eibarko unibertsitate laboralean** (3)

---

**laboralista** *izond* abokatuez mintzatuz, lan eskubidean aritzen dena.

Handik hilabetera lortu zuen lanpostua, idazkari gisa, abokatu **laboralista** batzuen bulegoan. Joan Mari Irigoien

---

laborantxa ik **laborantza.**

---

**laborantza** **1** *iz* lurra lantzea, nekazaritza.

Kanpotik etorritako **laborantza** baten izenean, gure amalurra pozoindatzen dugu. Herria

Europako **laborantzak** ez du soberakinik egiten. Herria

**Laborantzako** lurren kutsadura ongailu kimikoetatik jiten da parte, beste parte bat euriak berak ekartzen du. Herria

Aitortu behar dugu, ordu heietan **laborantzak** jauzi bat egin zuela geroari buruz. Herria

**Laborantzako** eskola berri baten sortzaile ta arduradun. Herria

Bixintxo Germain-ek ukan du **laborantzako** BTS, Nicolas Ardohain-ek aldiz **laborantzako** baxoa, Jean-Claude Chamalbide-k **laborantzako** BEPA. Herria

Hervé Gaymard izendatu dute, orai arte **laborantzako** minixtro zena. Herria

**Laborantzako** ganbera bat, Euskal-Herriarentzat berezia, aspaldian ainitz laborarik galdetzen dutena eta untsalaz frango aise ardiesten ahal litakeena. Herria

Abiadura handian diruz okituko zen, herrira itzuliko gero, eta Maritxu dendari gaztearekin ezkondurik, aitatxiren etxalde abandonatuan **laborantzan** plantatuko. Itxaro Borda

Mayi alaba familiaturik **laborantzan** ari da Aiherran. Herria

Ttotte: baduka **laborantzan** jarraitzeko zinezko xederik? Itxaro Borda

Lehorreko eta ureztatutako **laborantzaren** historia. Xabier Arregi

**2** (izenondoekin)

Gero euren lursail maitean **laborantza** berriak probatzen joan ziren eta ikusten nola basa fruituak gozotzen ziren, bigun eta laztanki tratatuz. Xabier Amuriza

**Laborantza** berrietan euren burua sartu nahi izanez gero. Andres Urrutia

**Laborantza** industrialak sortutako arazoengatik du agroekologiak duen arrakasta. Berria - Gaiak

Laborariak administratiboki laguntzeaz gain, **laborantza** iraunkorra sustatuko dute. Berria - Ekonomia

Bi urte honetan **laborantza** biologikoa geldian dela salatu dute zenbait dozena lagunek joan den ostiralean Baionan. Herria

Ez da lehen aldia **laborantza** estentsiboak tokian tokiko ingurumenari egiten dion kalteaz ohartarazten dutela. Berria - Gaiak

**Laborantza** transgenikoaren arrisku ekologikoen erregulazioa. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Autoan noa **laborantza** lurretan, olo eta azukre erremolatxazko zelaietan barrena. Koro Navarro

Zelai landu eta **laborantza** -eremu batean zehar zihoan errepide batetik. Urtzi Urrutikoetxea

Ikusiz Errobiko urek **laborantza** guneak trebeskatzen dituztela, ez dea harrigarri hain nitrato guti izan dezaten? Herria

**Laborantza** -etxez osatutako herrixkak. Jon Arretxe

Nekazaritza ikasi zuen Donapaleuko **Laborantza** eskolan. Ana Urkiza

Astelehenean, ELB sindikateko laborari andana bat sartu da Baionan **laborantza** -zerbitzuen bulegoetan. Herria

Estatu Batuetan **laborantza** -mota hau askoz ere garatuago eta hedatuago dago. Askoren artean

Urte guziz Parisen muntatua izaiten den **laborantza**-feria nagusia bururatu da joanden igandean. Herria

Etxalde bakoitzari **laborantza** ekoitz-moldeen taylorizazioa lehenik eta toyotizazioa ondotik. Itxaro Borda

Hazparneko Saint Josephen eta **laborantza** lizeoan elkarretaratze bat inprobisatu dute. Berria - Ekonomia

Hazparneko **laborantza** aprendiz eskolak. Herria

Eusko Jaurlaritzako **Laborantza** sailburu ordea. Herria

Europako **Laborantza** Politika Komuna madarikatzen zutela. Itxaro Borda

Orai, boz horiek iraganak-eta, **laborantza** ganberetan buruzagitza laster berrituko da. Herria

**4** lur sail landua.

Proiektu berriak sortuz, elkarteak trumilka biziaraziz, **laborantza** ttipiak xutik atxikiz, enpresak sortaraziz. Herria

Baina, bizitoki eta kale, errepide eta ola, **laborantza** eta larre, terreno gehiena gizakiak okupatu dio lurrari. Pello Zabala

**5** laboreez minzatuz, lantzea.

Eta badirudi godoek ere, erromatarrei ikasi ziela lekari honen **laborantza**. Patziku Perurena

Budismoa, sozialki arroz-**laborantzako** eskualdean sortu da. Joxe Azurmendi

«Kalte handia» eragin du soja **laborantzak** Latinoamerikan. Berria - Gaiak

Hamar herritarretik batek opioaren **laborantzan** eta trafikoarekin zerikusia duela. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**berezko laborantza** (4); **departamenduko laborantza ganberak** (3); **departamenduko laborantza ganberako** (3); **egiazko laborantza** (3); **etxeko laborantza** (3); **europako laborantza** (5); **euskal herriko laborantza** (113); **euskal laborantza** (16); **euskal laborantza ganbara** (10); **euskal laborantza ganbarari** (3); **frantsesenia laborantza lizeoan** (3); **hemengo laborantza** (3); **laborantza arloko** (3); **laborantza biologikoa** (9); **laborantza etxalde** (5); **laborantza feria** (9); **laborantza feria erakusketa** (4); **laborantza feria nagusian** (4); **laborantza ganbara** (79); **laborantza ganbara berezi** (11); **laborantza ganbarak** (16); **laborantza ganbarako** (13); **laborantza ganbaran** (8); **laborantza ganbararen** (19); **laborantza ganbarari** (9); **laborantza ganbaraz** (5); **laborantza ganbera** (115); **laborantza ganbera berezi** (3); **laborantza ganbera eraikitzen** (3); **laborantza ganbera sortu** (3); **laborantza ganbera sortzea** (3); **laborantza ganbera sortzeko** (3); **laborantza ganberak** (32); **laborantza ganberako** (8); **laborantza ganberara** (3); **laborantza ganberarekin** (6); **laborantza ganberaren** (79); **laborantza ganberaren sorrera** (7); **laborantza ganberari** (11); **laborantza ganberarik** (4); **laborantza ganberaz** (3); **laborantza iraunkor** (6); **laborantza iraunkorra** (7); **laborantza iraunkorraren** (3); **laborantza lizeoan** (6); **laborantza lur** (4); **laborantza lurren** (3); **laborantza lurretan** (3); **laborantza ministerioak** (5); **laborantza ministro** (3); **laborantza mota** (4); **laborantza mundua** (3); **laborantza munduan** (3); **laborantza mundutik** (3); **laborantza politika** (7); **laborantza sailean** (3); **laborantza zerbitzua** (5); **sendabelarren laborantza** (3)

**laborantzako bepa** (3); **laborantzako eskola** (11); **laborantzako eskolak** (4); **laborantzako eskolan** (3); **laborantzako ganbara** (4); **laborantzako ganbera** (4)

**laborantzan ari** (5); **laborantzan ariz** (4); **laborantzan arizan** (8); **laborantzan arizan da** (7); **laborantzan hasi** (3)

**laborantzarako lurrak** (3)

**euskal herriko laborantzaren** (15); **euskal laborantzaren** (4); **hemengo laborantzaren** (3); **laborantzaren aldeko** (3); **laborantzaren berezitasunak** (5); **laborantzaren garapena** (3); **laborantzaren geroa gogoan** (3); **laborantzaren geroaz** (4)

**laborantzatik bizi** (6)

**laborantxa ganbara** (35); **laborantxa ganbarak** (5); **laborantxa ganbararen** (11); **laborantxa ganbera** (6); **laborantxa kudeantzari buruz** (5); **laborantxa mailan** (4); **laborantxa munduaren ezagutza** (5)

**laborantxako ganbara** (4); **laborantxako gela** (3)

---

## laboranxa ik **laborantza**.

---

# laborari 1 *iz* nekazaria.

Gu ez ginen joaiten bainan uste dut **laborari** ainitz astelehenetan joaiten zela Donibaneko merkatura. Menane Oxandabaratz

**Laborari** eta burgesak ez ezik, armagizonak ere baziren haien artean. Aingeru Epaltza

Goizean goizik bazihoazen inguruetako **laborariak** beren kabalekin, behi edo ardi, erremolka bat zaldi karrosari loturik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Herriko Etxeak nahi lituzke Pierrot Amanio **laboraria** eta hunen familia Hiribarnia etxaldetik kanporatu, etxe eta lurrak beretzeko. Herria

Badaki edo jakin behar luke **laborari** gazte batekin ezkontzea, nahitaez, etxekoekin ere uztartzea dela, etxaldearen biziarazteko. Daniel Landart

35 urtez peko **laborari** gazteak laguntzen ditu Akitaniak, etxalde baten muntatzen. Herria

Azken beltzean OGM haziak erosi beharko dituzte bai **laborari** ttipiek ere, gehiago emaiten dutelakotz. Herria

**Laborari** artzaina, ardiak zaintzen, gasna ekoizten eta saltzen iragaten du bere denbora gehiena. Berria - Kultura

**Laborari** bat hil da Haltsun, traktore istripuz. Berria - Ekonomia

**Laborari** bakoitzak ordaintzen dituen zergen zati bat departamenduko laborantza ganberaren diruztatzeko izaten da. Berria - Euskal Herria

Zurezko eskalapoiak egiten dizkiot **laborariari** eta larruzko botak kapareari. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Paxkal dugu eleberri honetako protagonista: **laborari**-seme gazte bat, nabarmentzeko gogorik ez duena, "bigarren izateko beti lehena". Daniel Landart

Sortzez **laborari** alaba baina farmazia batean lan egiten zuen, prestatzaile gisa. Daniel Landart

**Laborari** haurrak ginen baina gure etxea irekia zen. Ana Urkiza

**Laborari** etxe batzuen teilatuak hauteman zituzten, errekaren bihurgune batera heltzean. Elena Touyarou

Frantzia iparraldean, Aisne departamenduan, badu zazpi ehun hektarako **laborari** etxalde handi eder bat. Herria

**Laborari** ardi esne egileen artean. Herria

Ez, ez nuen **laborari** eskolara joan nahi! Daniel Landart

Euskaldun Gazteriako **laborari** taldeak. Herria

Beren dretxo edo eskubideen zaintzeko, bildu ziren **laborari** sindikatuetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

SOS **Laborari** elkarteak jakin arazten du, [...]. Herria

Deusetan ez zituen baliatuko bere teologia jakitate zabalak artzain eta **laborari** herri hartan. Elena Touyarou

**Laborari** mundu hortan sortu zira. Menane Oxandabaratz

· Hazparneko **laborari** aprendiz ikastetxea. Herria

**3** (izenondo gisa)

Eta *cultor* gizon nekazari edota **laboraria** da, baserritarra kasik, batik bat *cultor agrorum* adierazpenean. Askoren artean

Gizaki bikoitzak gona zabal bat zeraman, emakume **laborari** errusiarren antzera. Joxan Elosegi

Andre **laboraria** joatekotan zegoela, ahots sendo batek agurtu zuen ondo-ondotik: [...]. Karlos Zabala

Gure baserritar **laboraria** zeruari begira bizi ohi zen, noiz goiak eguna luzatuko, eguzkia noiz indartzen eta tentetzen ikusiko. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**euskal laborari** (4); **ihiztari eta laborari** (3); **laborari alaba** (3); **laborari andana** (7); **laborari andana batek** (3); **laborari eta artzainek** (3); **laborari etxalde** (4); **laborari etxe** (21); **laborari etxe batean** (5); **laborari etxeak** (4); **laborari etxean** (3); **laborari etxetan** (3); **laborari familia** (3); **laborari gazte** (9); **laborari gaztea** (4); **laborari gazteak** (9); **laborari gazteen** (5); **laborari ohien** (3); **laborari seme** (5); **laborari semea** (4); **laborari sindikatak** (4); **laborari taldeak** (8); **laborari ttipien** (4); **langile eta laborari** (3)

**bizkaitar laboraria** (3)

**euskal herriko laborariek** (5); **euskal laborariek** (4); **euskaldun laborariek** (3)
**euskal herriko laborarien** (5); **euskal laborarien** (9); **laborarien batasuna** (3); **laborarien zerbitzuko** (3); **lurrik gabeko laborarien** (4)
**laborarieri hitzeman** (3)

---

# laboraridun *izond*

Bai herri eta auzo **laboraridunetan** eta baita kaleko parrokia eta elizetan ere. Pello Zabala

---

# laborarisa *(Euskaltzaindiak desegokitzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea) iz ipar* andre laboraria.

Ahal duten bezala bizi dira, lan dorpeak eginez, **laborarisak** baitira gehienak. Herria

11etan, Maryse Cachenaut **laborarisaren** mintzaldia, laborantzaren bilakaeraz. Herria

---

# laborategi *(665 agerraldi, 58 liburu eta 220 artikulutan)* **1** *iz* kimikako, fisikako eta beste alorretako esperimentuak egiten diren lekua. ik **laboratorio**.

Harvard-eko unibertsitateko **laborategi** batean. Juan Garzia

Joseph John Thomsonek elektroia aurkitu zuen Cambridgeko Cavendish **Laborategian** 1897an. Pello Salaburu

Kaliforniako *Lawrence Livermore* **Laborategi** Nazionaleko kidea da Craig Smith. Berria - Gaiak

*Gaiker* Zamudioko teknologia zentroko **laborategietan**. Berria - Gaiak

Zenbait **laborategi** esperimentua errepikatzen hasi ziren han eta hemen. Fernando Morillo

1918ko birusa berregin dute **laborategi** batean, eta H5N1 birusaren oso antzekoa dela esan dute. Berria - Harian

**Laborategietan** lortutako substantzia kimiko bat da bainillina. J.M. Olaizola "Txiliku"

Donostiako Miramon parkean **laborategi** bioteknologiko bat sortzeko. Berria - Euskal Herria

Espazioan izango dugun lehen **laborategi** integrala izango da, eta Lurreko atmosferaren osaera eta kimika hobeto ezagutzeko aukera eskainiko digu. Berria - Gaiak

*Instituto Nacional de Oceanografía* delakoak, Madrilen du egoitza nagusia eta **laborategi** handiena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Uste baino errazagoa da haurrak **laborategian** egiteko bidea. Hasier Etxeberria

Azkenaldi honetan [...] psikofisikako **laborategiak** garatu dira, eta nabarmen ugaldu dira behaketak eta esperimentuak. Josu Zabaleta

Cambridgeko Unibertsitateak tximuekin esperimentatzeko **laborategi** bat egin nahi zuen. Berria - Gaiak

Carmelo Bernaolak abian jarri zuen **laborategi** elektroakustikoan ikasitakoak dira biak. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Antzeko **laborategi** sarea eratu beharko litzateke gaur egun hegazti gripearen kontra borrokatzeko. Berria - Gaiak

Beste unibertsitateetan dauden **laborategi** teknikaririk ez dago gure unibertsitateetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gauza bera gertatu zitzaien hurrengo asteetan erabili zituzten **laborategi**-animalia guztiei. Iban Zaldua

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hamazazpi museo eta galeria, Washington D. C.-ko Zoo Nazionala, hamaika ikerketa-**laborategi..**. Fernando Morillo

Behin eta berriz saiakuntza **laborategian** errepikatu eta gero, saioetako ehuneko larogeita bost kasutan ernalketa lortzen zela ikusi nuen. Hasier Etxeberria

50 urte bete ditu CERN partikula **laborategiak**. Berria - Gaiak

Beste era batera esanda, beraz, kimika-**laborategi** erraldoi bat da erretina. Josu Zabaleta

Mundu osoko genetika-**laborategi** guztiak ixteko. Juan Garzia

Perfume **laborategi** batean lanean hasi ote zen pentsatu zuen hurrena. Joxemari Urteaga

Bazegoen, gastu handirik gabe, zelula-**laborategi** gisa tresnatzea bakterio-**laborategia**. Juan Garzia

Antzerki **laborategi** gisa sortu zen *Antzerkiola Imaginarioa* taldea, Bilbon, 1989. urtean. Berria - Kultura

Euskara emateko ohiko bidea utzi, eta gela irrati-**laborategi** eta mintzatoki bihurtzea predikatzen nuen ikastaro haietan. Joxerra Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**laborategi mugikor** (4); **laborategi nazionaleko** (3)
**euskal laborategia** (3); **laborategia eta labirintoa** (4)
**klarionen laborategiko** (3); **laborategiko ikerketa** (4); **laborategiko lana** (3); **laborategiko langileak** (4); **laborategiko langileek** (4); **ospitaleko laborategiko** (5); **propultsio laborategiko** (3)

---

# laboratorio *(101 agerraldi, 7 liburu eta 14 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **laborategi** agertzen da)* **1** *iz* laborategia.

Horra, beraz, babarrun efektua, Bohneffekt delakoa, osorik eta betean **laboratorioan** antzeratua. Juan Garzia

Bateko eta besteko, badira hamahiru ordu **laboratorioan** ematen ditudan egunak. Harkaitz Cano

**Laboratorioa** modernoa, ongi hornitua, zabala zela. Juan Garzia

**Laboratorio** hori Renaudin medikuak sortu zuen Kanbon, 1946-an. Herria

Egun hartako 12:30ean lehergailuen lehenbiziko aztarnak jaso zituzten **laboratorioan** eta 14:00etan aurreneko «datu fidagarriak» lortu zituzten: lehergaia dinamita zen. Berria - Mundua

Gramo bat azukre pisatu nuen, platinozko arragoan (gure begiko ninia zen huraxe) su emateko: **laboratorioko** aire kutsatuan azukre errearen usain etxetiar eta haurtzarokoa zabaldu zen. Juan Garzia

Fakultatean bi gorpu erabiltzen genitinan **laboratorioko** praktikak egiteko. Harkaitz Cano

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Elkarrekin ibiliak ginen **laboratorio**-ikastaro guztietara. Juan Garzia

**Laboratorio**-buruaren sinaduraren bermea bildu zuen. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kyra argazki **laboratorio** batean dabil lanean. Harkaitz Cano

Zurra-bainuaren lagin bat lortu, esperimentu-**laboratoriora** joan, eta aproba egin nuen 1:10.000 soluzio bat atomizatzen erradiografia-xaflaren lagin bat agerian zegoen kamera beltzean. Juan Garzia

Zergatik da hain erabilia ikerketa **laboratorioetan**? Berria - Gaiak

---

# laboratu, labora, laboratzen du *ad* landu, bereziki lurra.

Landu, **laboratu,** landatu (*agrum colere,* lurra/lur-eremua lantzea). Askoren artean

Nekez etorriko dira haiek, halatan, Urbiainerat, nekazarien lurren **laboratzerat**. Joan Mari Irigoien

Lurra ez dute **laboratzen** ez baitute jan beharrik sagar basen usainetik bizi direlakotz. Aurelia Arkotxa

Lur ordeka horietan euren elikadura **laboratzen** dute hildakoek, sendikoek hilobietan utzitako janarien osagarri gisa edo senideek hilobietan zer janik jartzen ez badiote, haren ordezko. J.M. Olaizola "Txiliku"

M. Ugarte-ren *Paisajes parisienses*-erako hitzaurrea (1901eko uztailean datatua berau), espainiera handi berria eraikitzeko ideia **laboratuz**. Joxe Azurmendi

---

# labore 1 *iz* pertsonen edo abereen elikaduran erabiltzen den ale irintsuko landarea; landare horren alea. ik**ale; zereal**.

Garia eta garagarra dira lehorreko **labore** nagusiak. Berria - Harian

Belar iharra eta **laboreak** usteldu egiten ziren; gari-azaoak eta belar-metak simaur bihurtzen ziren. Jose Morales

Neguan ez dira urritzen lanak: aurreneko garraioak hirira, idortegietan **laboreak** jo, jotako aleak larrainetik bihitegira eraman, zuhaitzak moztu eta egurra egin, [...]. Jose Morales

Esportazioko **labore** berrien zabalkundeak nekazariak lurrik gabe utzi eta hirigune handietara joatera behartzen dituenean. Koro Navarro

**Labore** batzuk genetikoki eraldatu eta botikak edo plastikoa sortzeko erabili dituzte. Berria - Gaiak

Zein herrialdetan landatzen dituzte **labore** transgenikoak? Berria - Gaiak

Transgenikoak ohiko **laboreak** hobetzeko erabili behar direla dio txostenak. Berria - Gaiak

Transgenikoek **labore** natural asko kutsatu dituztela salatu dute USCkoek. Berria - Gaiak

**Laboreak** lurreko zomorroetatik babesteko erabiltzen den pestizida. Berria - Gaiak

**Laboreekin** eginiko edari bizia. Juan Kruz Igerabide

**2** (multzokari gisa)

Gorri daude landak, dolu dagi lurrak; galdu da **laborea,** agortu ardoa, ahitu olioa. Elizen arteko biblia

Gatzaren gainera lurra botaz **laborea** ereiten dutenak. Patziku Perurena

Katilu bat esne bete, eta bi eskutada **labore** bota zizkion. Jon Muñoz

Kilo bat ogi osatzeko kilo bat **labore** behar da; kilo bat txahalki egiteko, ordea, 16 kilo **labore**. Edorta Agirre

Tonaka **labore,** fruitu eta ortuari ekoizten eta gordetzen zen, eta ez zegoen ehizara irten beharrik. Luis Elberdin

**3** *hed*

Segituan, tropikoko **laboreak** etorri ziren, europarren kontsumorako denak: azukre-kainabera, kafea, kakaoa, geroago kotoia eta kautxua. Koro Navarro

Ameriketatik sartutako kakao edo beste **labore** asko. Patziku Perurena

India, kotoi- ehunen esportatzaile izatetik, inportatzaile izatera igaro zen 1830ean, Ingalaterrak, aldi berean, esportazioko **laboreen** garapena sustatzen zuelarik (tea, kafea, jutea, kautxua, opioa eta kotoi gordina, ingeles fabriketarako), bere produktuen salmenta finantzatzeko. Koro Navarro

Kuotak kendu eta zergak jaitsiko dizkie ekilorea, azukre kanabera zein etanola edo biodiesela sortzeko erabiltzen diren beste **laboreak** landatzen dituzten nekazariei. Berria - Gaiak

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etxe hartako **labore**-lanak jai zuela urte hartan, kaxkar eta ahul gelditukо zela soroko uzta. Pello Zabala

**Labore**-lurren mundu mailako produktibitateak azken mende erdian zehar izugarri gora egin duela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Labore**-sailei uzta garaian su ematea. Edorta Agirre

Whiskya egiteko balio duen **labore** mota bat, ogia egiteko ere erabiltzen dena. Xabier Olarra

Euren espezie barruan ere ikusiko duzu edozeintzuk **labore**-ale ez direla elkarren artean euren eiteetan alderen bat ez edukitzeko bezain berdinak. Xabier Amuriza

Azukre-kanabera, banana eta papaia **labore** gehienak. Berria - Mundua

Gure dendara sartu naiz, horretara, eta **labore** eta pentsu usain bera aditu. Txillardegi

Urteko gari edo **labore** uzta. Patziku Perurena

Bihi eta **labore** zakuen bi herenak, abereen bi herenak, idi eta orga pare bat eraman zituzten. Elena Touyarou

**Labore**-opariak eta barkamen- nahiz ordain-oparitzat eskainitako abereak izango dituzte mantenubide Jaunaren etxe aurreko atariaren erdi aldea sagaratu zuen erregeak, erre-opariak, **labore**-eskaintzak eta bake-oparietako gantzak bertan eskaintzeko. Elizen arteko biblia

**Labore** inportazio eta esportazio kontuak. Matías Múgica

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **labore eskaintza** (3); **labore mota** (3); **labore opari** (13); **labore oparia** (16); **labore opariak** (14)

---

# laborismo *iz* Britania Handiko -eta Israel eta beste zenbait herritako- sozialismo erreformista.

Iraultza bide erdian geratu zela eta burutu edo osatu nahiko zukeen mugimendua dago, pentsamendu desberdinekin bere baitan (sozialismo utopikoa, marxismoa, anarkismoa, **laborismoa,** etab.). Joxe Azurmendi

Brown Ekonomia ministroa da eta Blairrren **«laborismo** berriaren» ezkerretara dago, **laborismo** tradizionalaren alde, alegia. Berria - Mundua

---

# laborista 1 *izond* laborismoarena, laborismoari dagokiona.

Gobernu **laborista** baten azpian. Iñaki Mendiguren

Hala berretsi zuen Rodhri Morgan Galesko lehen ministro **laboristak** abuztuaren 4an. Berria - Mundua

Erabakia kontserbadoreen eta 139 legebiltzarkide **laboristen** sostenguarekin hartu zen. Berria - Mundua

Likuden sostengu nahikoa ez eta oposizioko diputatu **laboristen** bozekin plana aurrera ateratzea espero da.

Sindkatu **laborista** nagusien bozen eraginez, bozen %86k ezezkoa eman zioten proposamenari. Berria - Mundua

Parlamentuak, batez ere gehiengo **laboristak,** etxebizitzaren arazoa konpontzeko deiei «entzungor» egin dielako. Berria - Mundua

Prentsa sentsazionalista zein kalitatezkoak, eskuinekoak zein **laboristak,** den-denek kritikatu zuten oso gogor Blair-en jokamoldea. Txema Ramirez de la Piscina

**2** *iz* laborismoaren aldeko pertsona.

**Laboristek** uko egin diote Cardiffen autogobernua handitzeari. Berria - Mundua

Liberal Demokratek salatu dute **laboristek** erabat aldatu dutela jarrera martxotik hona. Berria - Mundua

Handik hiru urtera, **Laboristen** alderdiko beste aholkulari Marco Biagi hil zuten tiroz Bolognan. Berria - Mundua

SNPko independentistek lehen postua kendu nahi diete **laboristei**. Berria - Mundua

Tory-en artean bezala **laboristen** artean ere ahots kritikoak piztu dira. Berria - Harian

Kadimara pasatu diren **laborista** ohiak. Berria - Mundua

**Laborista** desengainatuak erakarri dituzte, baita kontserbadore ohi batzuk ere. Berria - Harian

Gaur erreforma onartuz gero, lehen ministrorde izendatuko dute Shimon Peres **laboristen** burua. Berria - Mundua

### 3 *alderdi laborista*

**Alderdi Laboristaren** Kongresuan. Berria - Mundua

**Alderdi Laboristako** kideek ere bilera «botuak biltzeko estrategia berri bat» dela salatu dute. Berria - Gaiak

Film honetan, Blair **Alderdi Laboristako** lider bilakatzen den uneak ditu argitara ekartzen. Berria - Kultura

Edward Brongersman **Alderdi Laboristako** senatari izandakoari hiltzen lagundu zion sendagilearen kontra. Berria - Gaiak

Kadimak 11 ministro izango ditu, **Alderdi Laboristak** zazpi eta Shas judu ortodoxoen alderdiak lau. Berria - Mundua

Blairrek **Alderdi Laborista** eskuinera lerratu du. Berria - Mundua

2001ean Erresuma Batuko **Alderdi Laboristak** 55 diputatu lortu zituen. Berria - Harian

Frantziako Demokraziarako Batasuna, Lituaniako **Alderdi Laborista**. Berria - Euskal Herria

· John Hume SDLP Alderdi Sozial Demokrata **Laboristako** burua eta Bakearen Nobel Sariduna ez zen jardunaldian izan. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi laborista** (42); **alderdi laborista utzi** (3); **diputatu laborista** (6); **laborista ohiak** (4); **laborista utzi** (3); **ministro laborista** (3)

**alderdi laboristak** (52); **alderdi laboristak irabazi** (3); **buruzagi laboristak** (3); **diputatu laboristak** (4)

**alderdi laboristako** (66); **alderdi laboristako batzorde** (3); **alderdi laboristako buru** (10); **alderdi laboristako buruzagi** (5); **alderdi laboristako diputatu** (6); **alderdi laboristako kide** (3); **alderdi laboristako kidea** (4); **alderdi laboristako kideak** (3); **alderdi laboristako kideek** (3); **alderdi laboristako presidente** (6); **israelgo alderdi laboristako** (6); **peres alderdi laboristako** (4)

**alderdi laboristan** (3)

**alderdi laboristarekin** (6)

**alderdi laboristaren** (32); **alderdi laboristaren kongresuan** (3)

**alderdi laboristari** (10)

**laboristen buru** (4)

---

## laborri 1 *iz* beldur edo izu ikara; beldur handia.

**Laborri** lauso batek hartu zuen Gabriel hori entzutean. Irene Aldasoro

Lipar batean, haren irribarre argitsua **laborri** urragarriz eta suntsigarriz betetako begirada bihurtu zen. Oskar Arana

Bihotza jauzika hasi zitzaion **laborri** bezalako batean. Jon Alonso

**Laborriak** eragin ohi duen egarria baitzen nirea. Edorta Jimenez

Gazteek egunean egunekoa bizi dute, [...], eta are gehiago, izugarria iruditzen zaie, eta ezuste bortitzekiko **laborri** eta harridura aurpegiz diote, "urte bete daramat Evarekin" esaera. Pako Aristi

Bikain transmititzen zaio ikusleari ingurukoen **laborria**. Berria - Kultura

Oraindik izuak harturik banengoen ere, nolabaiteko plan bat izateak **laborritik** ateratzen lagundu zidan. Alberto Ladron Arana

### 2 (izenondo gisa)

Piztu nuen kandela, larritasun **laborri** batean, eta berriro edan nahi izan nuelarik, non ohartzen naizen, harri eta zur eginik, hutsik zegoela botila. Josu Zabaleta

Hain baitzen giro **laborria** espazio zabalean, zabaldu zen elurrezko geruza trinko, gogor, distiratsuaren gainean. Josu Zabaleta

### 3 (adizlagun gisa)

Gustavok, agerpenagatik izu eta **laborri** zegoen arren, galeoiaren brankako saihetsean idatzirik zegoena ikusi zuen, Ainhoa. Felipe Juaristi

### 4 ***laborrian*** *adlag* izu ikaraz.

**Laborrian** itzuli zen alde hartara, eta ez zen ausartu gehiago mugitzen. Karlos Zabala

Isilik gorde nuen, **laborrian,** zurekin banatu nuen sekretu hau. Koldo Izagirre

· Izuaren mende dago biziduna, hari begira, ikarak **laborrian**. Imanol Zurutuza

### 5 ***laborriz*** *adlag* izu ikaraz.

Zer egin zuen senarrak? -galdetu zuen Norak **laborriz-**. Intelektual bat, alegia -esan zuen Guztiahaldunak, **laborriz-;** ezta pentsatu ere! Gizonezkoen aurrean zirraraz eta emakumezkoekin **laborriz,** protagonista hor hasi duk, apurka-apurka eta halabeharrez, bere burua ezagutzen. Anjel Lertxundi

Magia berba haren ahotik aditzeak **laborriz** izutu ninduen, aitor dut, belarraren gainean zegoen debekuaren berri ez nekien arren. Edorta Jimenez

### 6 ***laborrizko*** *izlag* izu ikarazko.

Horixe baitidate **laborrizko** isilpean gero niri jakinarazi, berekin dut nik hirugarren gaueko beila egin. Juan Garzia

· Sartu zen, bada, begiratu zion nire alabari, zabaldu zuen ahoa izumen eta beldur **laborrizko** estura batean, eta zerraldo erori zen ahoz gora. Josu Zabaleta

### 7 ***izu-laborri*** *(orobat* ***izulaborri*** *g.er.) iz* izua.

Eta une hartan, [...] etxe zahar hartako isiltasun beldurgarrian, hots hark, hain bitxia izanik, ezin menderatuzko **izu-laborria** sortu zidan. Koro Navarro

Haren boz hutsak bihotzik ausartenari ere eragiten dio **izu-laborria**... aditu! Koro Navarro

Buruari eragin nion, **izu-laborria** uxatu nahiz. Alberto Ladron Arana

Une batez, **izu-laborriak** jota geratu gara, erabat izoztuta. Mirentxu Larrañaga

Orain, gauez, **izu-laborriak** hartzen nau eta bihotza izozten dit. Felipe Juaristi

Gogor jipoiturik eta **izu-laborriak** hartuta, zaldia lasterka joaten zen lau hanken eginahal guztian, deabrudun baten gisan. Jose Morales

Pentsatzen ahalegindu naiz, nire **izu-laborri** handia baretzearren. Mirentxu Larrañaga

Armak bertan utzi eta **izulaborrian** ihesi joan ziren harkaitzen artera babesleku bila. Joanes Urkixo

Ahantzi gabeko laboratorio jelaz, itxaropenez eta **izulaborriz** bete batean. Juan Garzia

Eta orduan pairatu nituen **izu-laborrizko** sei orduek txiki-txiki eginda utzi zizkidaten gorputz-arimak. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**izu laborri** (8)

**izu laborria** (21)

**izu laborriak** (22); **izu laborriak jota** (8); **laborriak hartu** (3)

**izu laborrian** (12)

**izu laborriaren** (6)

**izu laborrizko** (4)

---

## laborritu, laborri(tu), laborritzen 1 da/du *ad* asko izutu.

Antzokia luke, hara, malkoz itoko eta solas lazgarriz erdiratuko guztien belarria; erruduna erotu eta errugabea **laborritu**. Juan Garzia

Serbiarren aurkako bortizkeriaz **«laborrituta»** azaldu da Javier Solana EBko goi ordezkaria. Berria - Mundua

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Non aurkitzen da, bada, literaturagileek, gu txunditzeko, asmatzen duten eromen **laborritu** hori? Josu Zabaleta

**3** ***izu-laborritu*** *(orobat* ***izulaborritu*** *g.er.)* da/du *ad* asko izutu.

Ukatu egiten dut, ordea, gaur egun ere, Hannak garai hartan leporatu zidana, alegia, bere albistea entzun eta heriotza-punturaino **izu-laborritu** omen nintzelakoa. Joxe Austin Arrieta

Pailazo batek Tarleton-en zorakeriak imitatzen zituen, eta beste batek maindire batean bildurik Hamlet printzea **izulaborritzen** zuen. Juan Garzia

**Izu laborriturik**, neska aulkian agondu, eta Abasi begi herratsuz begiratu zion. Patxi Zubizarreta

---

# labrantza *iz* lur lana, lurra lantzea.

Soro goldatua, aretua, **labrantzako** lurra. Pello Zabala

---

# labrit *(orobat* ***llabrit****)* *iz ipar* artzakurra, artzanora.

Isilik eta burua apal etxeko **labrita**, denak ere elurraren zurian beltz. Itxaro Borda

Ez, bena Larreñeko edo Santa-Graziko **llabrit** bat bezala, txanpa handirik gabe, büria artetarik aphal aphala, herratzen ari ginelarik, ejerki aholkatü gütützü... Herria

Plomuki hartan Balantsun agertzen zen, bildotsa bizkarrean zeramala, **labrit** xakurra saihetsean eta galtzarpa hutsalak sorbaldan. Itxaro Borda

---

# labur 1 *izond* luzera txikikoa, ohi den baino luzera txikiagokoa, ez behar adina luzea. ik**motz**. ant. **luze**.

Baionako Orbe kale **labur** eta jendetsuan topatu nuen arrastiri batean. Txillardegi

'Teens', hitz horrek sutu du bere irudimenaren lastoa: eguzkipean, izerditsu, gona **laburrak** jantzita, tenisean jokatzen ari diren neska gazteak etorri zaizkio gogora. Pako Aristi

Haren bekozkoaren zimurdura txiki eta **labur** hura, bi bekainen artean. Joxe Austin Arrieta

Ipuina idatzi nuen bada, azkenean nobela **labur** bihurtu zitzaidana. Xabier Mendiguren Elizegi

Altuera **laburreko** lokal txiki bat zen.. Anjel Lertxundi

Pauso **labur** azkarretan egin zuen jangelarainoko bidea. Anjel Lertxundi

Beroki **labur** urdina zeraman soinean. Jose Morales

Gaur egun, idazkun **labur** hau dago haien tokian: "Edaritegia". Jose Morales

Urrats **laburretan,** luze gabe heldu zen Sikat Al-Gadida kalera. Patxi Zubizarreta

Urrats **labur** eta lasterrez. Jose Morales

Euskara tradizio **"laburrekoa"**? Patziku Perurena

**2** (denborari edo iraupenari buruz)

Une **labur** batez iruditu zitzaidan nire alde zegoela. Oskar Arana

Konpainiako langileak, aldi **labur** batez, berentzat diru-irabazi izugarriak ateratzeko tentazioan erori ziren. Iñaki Mendiguren

Music-hall-ean jardun ondoren, film **laburrak** egiten hasi zen. Bernardo Atxaga

Kolpe **laburrak** jotzen zizkion anaiari sabelean. Karlos Zabala

Musu **laburra,** kasik ebaska emana. Janbattitt Dirassar

Harreman polit bezain iraupen **laburrekoa** izan zen: hamabost egun. Anjel Lertxundi

Itxuraldaketa oso denbora **laburraren** buruan gauzatu zen. Patxi Zubizarreta

Tarte **laburra** egin zuen zain: emakume bat hurbildu zitzaion. Fernando Morillo

Frantziarren berbak bizialdi **laburrekoak** dira: lipar batez apain eta dotore distiratu, eta berehala itzaltzen dira. Jose Morales

Igerialdi **labur** eta kontrolatu haiek ziren bere buruari zilegitzen zizkion atseden une ia bakarrak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ontziaren kulunkak lagunduriko loaldi **labur** urrietan. Anjel Lertxundi

Hura izan zen bien arteko hizketaldi **labur** ugarietan lehena. Oskar Arana

Harik eta ahotsak agindu **labur** zehatza eman zidan arte. Edorta Jimenez

Denbora oso **laburrean** dena aldatu da zeharo. Sonia Gonzalez

Denbora ezin **laburragoan** lortu zuen hori egitea. Oskar Arana

Eskaria, beraz, epe **laburrera,** ez da batere elastikoa izaten. Koro Navarro

**3** irud/hed

Gezurti guztiek bezala, memoria **laburra** zuen. Koro Navarro

Gizon bakar baten ahalmena **laburregia** baita gizon guztiengana adiskidetasunez heltzeko. Piarres Xarriton

Hauek berehala ihes egiten baitiete adimen **laburrei**. Juan Martin Elexpuru

Beldur nintzen adimen **laburrekoa** nintzela pentsatuko ote zuen. Ramon Saizarbitoria

Ulermen **laburreko** norbaitek. Xabier Kintana

Haren figuraren ibilaldi berria bistatzeko afanetan, lekuaren ezaugarriez jabetzeko lehen parada izan zuten ene begi **laburrek**. Aingeru Epaltza

Ez, hau ez da nire bista **laburrari** zuzendariak egiten dion oparia. atomotxoa han da, intsektuaren mila begietariko batean, eta bere partetxoarekin laguntzen du hark espazioan orientatzeko baliatzen duen **ikusmen labur** eta baldarrean. Koldo Izagirre

Ni kultura motz bateko ordezkari erudizio **laburrekoa** naiz. Jon Alonso

Hala ere, oso arnasa **laburreko** modak dira horiek. Anjel Lertxundi

Fisikari ekiteko modu patetiko eta inozoa guztiz, asmo **laburrekoa**. Juan Garzia

Esaidazu hitz **laburrez:** nola definituko zenuke zuk denbora? Bernardo Atxaga

Gerritik gorakoak, plano **laburrean,** eta koloretan eginak. Iñaki Zabaleta

Miarritzen ginen oren erdi **labur** batean. Koldo Izagirre

• **4** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Zirriborro bat baino ez da, baina bere **laburrean** ederto erakusten du zein den idazle oinazetuaren pentsatzeko era. Julen Gabiria

**5** (adizlagun gisa) ik **laburki.**

**Labur** esanik, oso begiko zuten herritarrek, eta merkatari guztiak iritzi berekoak ziren: [...]. Jose Morales

Ikuspegi honek, **labur** esanda, bateragarri ikusten ditu hazkunde ekonomikoa eta oreka ekologikoa. Iñaki Heras

Entzun dute **labur** idaztea bertute dela, eta hamar esaldi laburretan luzatzeari deritzote **labur** idaztea. Juan Garzia

Egonaldiak **labur** iraungo zidan ustean jaitsi nintzen trenetik. Anjel Lertxundi

Ilea, edo oso **labur** mozturik edo leun-leun orrazturik zeukaten, eta haien hazpegiak biribilagoak eta mardulagoak ziren. Jose Morales

**Labur** eta zuhurtasun handiz erantzuten zuen. Jose Morales

Ilea grisa zuen, tentea eta **labur** moztua. Karlos Zabala

Kontzeptu ilunenak **labur** eta zehatz adierazten dakiena. Xabier Kintana

-Ez eta ez -besteak, **labur** eta lehor. Migel Angel Mintegi

"Argi, zehatz eta **labur"** formula magikoa. Txema Ramirez de la Piscina

**Labur** bezain gordin, halaxe eman zidan albistea. Anjel Lertxundi

**Labur:** gizon portatzen da beti. Xabier Mendiguren Elizegi

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Eta hau izaten da gizaki buru-**laburren** begitazioa agintea eskuetan hartzen dutenean. Juan Martin Elexpuru

Historiaren seinaleak ez dira sekula garbiak eta, horregatik, ez da harritzekoa Luis XVI.a bezain begi-**labur** asko eta Bi Sizilietako errege bezain baba-lasto ugari egotea letren errepublikako idazleen artean ere. Anjel Lertxundi

Probintziako funtzionario esku-**labur** zeken horiek. Jose Morales

Baina esku-**laburra** da lagun hurkoarekin. Jose Morales

Neska ile-**labur** batek txirikorda egiteko denbora izan baino lehen, prest egongo da dena. Jose Morales

Poesia hitz-**labur** bezain odoltsuak idazten dituen. Juan Garzia

## 7 ***denbora laburrik barne*** *ipar*

Bertze bi heriotze izan dira **denbora laburrik barne**. Azkarra izanagatik, eritasun tzar batek ereman du **denbora laburrik barne**. Herria

Zinez, izigarriko makurra denentzat, burdin olak hetsiko baitziren **denbora laburrik barne**! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lehenago Arbelbideren eskolemaile izana eta orai fraileen zuzendari nagusi zen Irlideri idatzi zion Baionako fraileak berehala eta **denbora laburrik barne** eskuratu arrapostua: [...]. Xipri Arbelbide

## 8 ***epe laburrik barne***

Elkarrizketan markatzen ditu xeheki elkargoak jada egiten duena eta **epe laburrik barne** abia ditzakeen ildoak. Herria

Ordaina **epe laburrik barne** etorri zitzaien. Elena Touyarou

Bi unibertsitate adar horien merkatuak idekiko dituzte **epe laburrik barne**; urte ondarrerako egina izanen da enpresa eraikitzaileen hautaketa. Herria

## 9 ***labur beharrez***

**Labur beharrez,** beraz, eta kontuan izanik Lermontovek esan zuela irakurleek ez dituztela hitzaurreak irakurtzen, horra igortzen dut irakurle jakingura. Jose Morales

Hala ere, zure Eugenik gizonak lizunkerian diharduenean izaten dituen zaletasunak aztertu nahi baditu, **labur beharrez,** hiru direla esango dugu: sodomia, fantasia sakrilegoak eta zaletasun ankerrak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nolako estasi-unea, halako gizakumea zen beste nire teorietako bat, orain, **labur beharrez,** azalduko ez dudana. Karlos Linazasoro

## 10 ***labur-labur****sup_1 izond* oso laburra.

Une **labur-labur** horixe baliatzen baitik arerioak hi baino gorago igo eta hi handik tirokatzeko. Anjel Lertxundi

Graziazko une ahaztezinak, loriazko aldi **labur-laburrak,** ezusteko mirariak. Arbelean, Bibliako pasarte **labur-labur** bat. Anjel Lertxundi

"Funes Oroimentsua" izeneko kontakizun **labur-labur** batean. Xabier Olarra

Horixe atzo Itsasondon amaitu zen Gazte Topagunearen muina, **labur-labur** esanda. Berria - Euskal Herria

## 11 ***labur-labur****sup_2 adlag* oso labur.

Buruko ile beltz sarria **labur-labur** moztuta zeukan, soldaduek bezala. Jose Morales

Lan haren haria **labur-labur** azaltzeko eskatu nion. Oskar Arana

Konta dezadan **labur-labur,** telegrafikoki, gertatutakoa: [...]. Bernardo Atxaga

Zer da, **labur-labur,** espiritu semita hori? "absolutismoa", hain zuzen. Joxe Azurmendi

Hona ipuina, **labur-labur**. Edorta Jimenez

## 12 ***labur-laburra*** *adlag ipar* labur-labur.

Serora bezala izena zuen, Odile-Amélie, deitura, Marie Martinon, Aihertarra sortzez, denbora hartan **labur laburra** deitzen zuten, Andere Mari. Michel Oronoz

## 13 ***labur-zurrean*** *(orobat* ***laburzurrean*** *g.er.) adlag* laburbilduz; laburtu nahian.

Denok ere pixka bat lasaitu ginenean, Roman hasi zitzaion obispoari **labur-zurrean** kontatzen zer gertatzen ari zen eta nola hurrengo baterako utzi beharko zuen martirioaren loria. Inazio Mujika Iraola

**Labur-zurrean** saiatu beharrean nago, ordea, hartaz guztiaz esan zizkidanetatik oroitzen ditudan apurrak ere asko baitira. Anjel Lertxundi

**Laburzurrean** edo berandu erantzuten duten lagunekin. Harkaitz Cano

Aginte-koadro nagusia azaldu nion neskari gutxi gorabehera, xehetasunetan sartu gabe; **labur-zurrean,** zer den kilowatta, zer hidraulika, zer amperea. Joxe Austin Arrieta

**Labur-zurrean** jasotako horrek bidenabar erakusten ditu Kode Zibilaren ardatzak. Andres Urrutia

Nor zen Walsh? **labur-zurrean:** idazle eta kazetari argentinarra, 1927an jaioa eta 1977an desagertua. Berria - Kultura

## 14 ***luze-labur****sup_1 iz*

Testuaren **luze-laburra**. Bezeroen sorbalden, mahuken, gerriaren **luze-laburrak** neurtzen nituen. **Luze-laburraren** neurria ondo harturik. Anjel Lertxundi

Une oro aldatzen zuen urratsen **luze-laburra,** ibiltzean mina hartuko balu bezala. Lopez de Arana

Zokota zuri bat sartu du, gero, burutik behera: ongi geratzen zaio **luze-laburrean**. Anjel Lertxundi

Izan ere, eternitatea ez da **luze-labur** kontua. Joxerra Garzia

Asmoak eta **luze-laburrak** ezagutzen ez nizkion sare ikusezin batean sartzeko eskatzen ari zitzaidan Anghios. Anjel Lertxundi

## 15 ***luze-labur***$^2$ *iz (bokal eta silabena)*

Silaba bat nabarmentzeko baliabide linguistikoak hiru dira: indarra [...], maiztasuna (garaiera baldintzatzen du) edo **luze-laburra** (iraupena baldintzatzen du). Lourdes Oñederra

Hona hemen froga garbi bat: **Luze-laburra** ez da berdina *factus* eta *actus*-en, nahiz *facio* eta *ago* diren; *actus*, **agtos*-tik datorrela jo behar dugu, eta bokala luzatu dela, hurrengo ahostunaren eraginez. Isabel Arrigain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**agiri labur** (5); **agur labur** (5); **aipamen labur** (5); **aldi labur** (26); **aldi labur batez** (13); **azterketa labur** (5); **begirada labur** (10); **begiratu labur** (5); **berri labur** (5); **bezain labur** (5); **bidaia labur** (6); **bisita labur** (14); **bitarte labur** (5); **denbora labur** (22); **denbora labur barne** (8); **denbora labur batez** (5); **egonaldi labur** (6); **egun labur** (5); **eleberri labur** (8); **elkarrizketa labur** (9); **epe labur** (31); **epe labur batean** (8); **erantzun labur** (7); **eritasun labur** (8); **esaldi labur** (15); **eszena labur** (5); **etenaldi labur** (6); **euskarazko film labur** (6); **film labur** (95); **film labur onenaren** (7); **film labur onenari** (6); **filma labur** (8); **gogoeta labur** (6); **gutun labur** (6); **handik labur** (8); **historia labur** (7); **hitz labur** (21); **hitzaldi labur** (10); **ipuin labur** (10); **irri labur** (7); **irribarre labur** (6); **isilune labur** (19); **istant labur** (11); **istant labur batez** (5); **istorio labur** (5); **keinu labur** (6); **kontakizun labur** (9); **labur aurkeztu** (6); **labur azaldu** (7); **labur bada ere** (22); **labur beharrez** (5); **labur bezain** (22); **labur bildu** (8); **labur bilduz** (10); **labur biltzeko** (5); **labur erantzun** (10); **labur esan** (5); **labur esanda** (102); **labur esanik** (8); **labur esateko** (32); **labur eta motz** (5); **labur eta zehatz** (7); **labur hitz egin** (7); **labur ikusi** (5); **labur labur** (55); **labur laburra** (10); **labur mintzatu** (10); **labur samarra** (7); **labur zurrean** (10); **lan labur** (8); **luze edo labur** (6); **luze labur** (5); **minutu labur** (6); **momentu labur** (5); **musu labur** (9); **narrazio labur** (6); **nobela labur** (8); **ohar labur** (16); **oso labur** (15); **otoitz labur** (5); **pausa labur** (12); **pauso labur** (6); **solasaldi labur** (7); **tarte labur** (25); **testu labur** (11); **une labur** (57); **urrats labur** (5); **zati labur** (5); **zerrenda labur** (5)

**arras laburra** (5); **azalpen laburra** (8); **bezain laburra** (8); **bide laburra** (19); **bilera laburra** (5); **bizitza laburra** (19); **denbora laburra** (13); **epe laburra** (7); **etapa laburra** (5); **eten laburra** (5); **film laburra** (50); **historia laburra** (11); **ibilbide laburra** (8); **iraupen laburra** (5); **itzuli laburra** (5); **labur laburra** (10); **laburra bada** (7); **laburra bezain** (7); **legenda laburra** (6); **luze laburra** (14); **nahiko laburra** (5); **nobela laburra** (11); **oso laburra** (27); **oso laburra izan** (7); **tarte laburra** (7); **testu laburra** (5)

**berri laburrak** (13); **esaldi laburrak** (9); **film laburrak** (52); **gona laburrak** (5); **luzeak eta laburrak** (5); **narrazio laburrak** (13); **oso laburrak** (7); **poema laburrak** (6)

**arras epe laburrean** (7); **bitarte laburrean** (5); **denbora laburrean** (89); **denbora tarte laburrean** (7); **epe laburrean** (201); **hain denbora laburrean** (10); **hain epe laburrean**

(5); **hain tarte laburrean** (5); **laburrean eta luzean** (6); **luze laburrean** (5); **oso denbora laburrean** (18); **oso epe laburrean** (10); **pista laburrean** (7); **proba laburrean** (5); **tarte laburrean** (19)

**film laburrek** (8)

**film laburrekin** (5); **galtza laburrekin** (8)

**epe laburreko** (39); **iraupen laburreko** (9); **pista laburreko** (5)

**epe laburrekoa** (5)

**ahalik eta laburren** (5); **film laburren** (66); **testu laburren** (5)

**biderik laburrena** (21)

**eperik laburrenean** (7)

**epe laburrera** (56)

**film laburretan** (6)

**denbora laburrez** (25); **epe laburrez** (6); **hitz laburrez** (37)

**denbora laburrik barne** (13); **epe laburrik barne** (12); **film laburrik** (8)

---

# laburbide 1 *iz* laburtzeko bidea.

Iturmendi eta Altsasuko bi lagun, biak 31 urtekoak, joanak ziren mendi horren igaitera, eta iduriz jausterakoan, **laburbide** bat hartu nahian, ditaizke galdu eta arkaitz gaixtotan lerratu. Herria

Tenientea, berriketa gutxiko gizona baitzen, **laburbidez** aurkeztu zidan Zuzendaria, ingeniari gazte bat, garaia eta sendoa, zeina are berriketa gutxiagokoa baitzen, eta ordurako nire egoeraren berri baitzekien noski. Juan Garzia

## 2 *laburbidezko izlag*

Bidean jakin nuenez, anaiak, utzi, ez zizkion berari zehazki utzi giltzak: esateko modu **laburbidezko** bat baino ez zen hura, eufemismo bat, ulertzeko prest-prest dagoenari esaten zaizkion horietakoak. Juan Garzia

---

# laburbildu, laburbil, laburbiltzen du *ad* hitz gutxitan bildu.

**Laburbil** ditzagun ilusioari buruzko ohar hauek adibide bat jarrita. Josu Zabaleta

*Jakintzaren arbola*n, Barojak maitasunaren edo amodio loturaren zalantzarik gabeko beharra adierazten du […], eta behar hori gauza batera **laburbiltzen** du: gogokidetasun eta elkarrekiko konfiantzazko bizitza ideal batera. Josu Zabaleta

Arrapostua hitz bakar batera **laburbiltzen** zen: puta. Patxi Zubizarreta

Zortzi sail horiek bi multzo handitan **laburbiltzen** dira. Berria - Kultura

Dena den, badirudi gaur egun bizpahiru puntutan **laburbiltzen** ahal direla Hizkuntzaren itxurako "hitzarmenaren" berezitasun larrienak: […]. Piarres Xarriton

Jasonek bost liburutan jaso zuen hau guztia liburu bakarrean **laburbiltzen** ahaleginduko gara. Elizen arteko biblia

Neskame zaharraren abesti horretan **laburbiltzen** ziren Andresek gerrari buruz zituen iritzi guztiak. Josu Zabaleta

-Horrela, askozaz ere hobeto **-laburbildu** zuen Matson jaunak. Mirentxu Larrañaga

-Eta orduantxe hi ezagutu hindudan... **-laburbildu** zuen, berez laburra zena. Inazio Mujika Iraola

**-Laburbildu** itzazu gure eztabaida eta gure ikuspuntu desberdinak. Josu Zabaleta

Bizitza **laburbiltzen** zion errautsez, hautsez eta izerdiz emokatu buruko umilak. Itxaro Borda

Euskal Gatazka bi puntutan **laburbildu** ohi da: […]. Piarres Xarriton

Keynesen oinarrizko ideia hala **laburbildu** daiteke: ekonomian, eta bizitzan oro har, ez dakigu etorkizunak zer dakarkigun. Iñaki Heras

Nire bizitzari dagokionez, hitz gutxitan **laburbil** daiteke: Line etorri zen, eta gero berriro joan zen. Eskarne Mujika

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**nekez laburbil** (3)

**ederki laburbildu** (4); **esaldi bakarrean laburbildu** (5); **esaldi horrekin laburbildu** (5); **historia laburbildu** (3); **hitz gutxitan laburbildu** (3); **hitz horiekin laburbildu** (8); **honela laburbildu** (11); **honela laburbildu zuen** (6); **horrela laburbildu** (12); **ibilbidea laburbildu** (5); **nondik norakoak laburbildu** (3)

**ederki laburbiltzen** (3); **esaldi batean laburbiltzen** (3); **historia laburbiltzen** (3); **honela laburbiltzen** (6); **honela laburbiltzen du** (3); **ibilbidea laburbiltzen duen** (3); **ondo laburbiltzen** (3); **osoa laburbiltzen** (4)

---

# laburbilduma *iz* bilduma laburra.

Asmakuntza batek aurkikuntza baten faseen sintesia, **laburbilduma** esan nahi du; asmakuntza bat aurreko gertaeren hain ondorio erraza da askotan, non ia esan baitaiteke, berez bezala ondorioztatzen dela hartatik, ahaleginik egin gabe. Josu Zabaleta

Azpimarretzekoa da lehen gogoetaldiaren **laburbilduma** bai eta ere Apezpikuaren Pastoral Idazkia osoki euskaratuak izan direla. Herria

Nozio hau, azpimarratu berri dugunaren luzapena edo **laburbilduma** da, funtsean. Josu Zabaleta

Daviden erregealdiaren **laburbilduma**. Elizen arteko biblia

Ontogenia filogeniaren **laburbilduma** bat dela. Josu Zabaleta

---

# laburbildumatxo *iz adkor* laburbilduma.

López-Morillas-en zati bat osorik aldatuko dut, orokorki pentsamendu krausistaren **laburbildumatxo** gisa balio baitezake. Joxe Azurmendi

---

# laburbilketa *iz* laburbiltzea.

Oroimena, berez, ez da inoiz zuzena, hitzaren zentzu errealistan, are **laburbilketa** huts baizik ez diren kasurik hasi-masikoenetan, eta, gainera, ez du garrantzirik zuzena ez izateak. Xabier Olarra

---

# laburbilpen *iz* laburbiltzea.

Maimonen bigarren ordenatze-lana Aristotelesen fisika eta metafisikaren zati teologikoki garrantzitsuen **laburbilpena** da. Xabier Kintana

Maimonek ordenatzeko duen gaitasuna, arestian aipatu dugun moduan, *Gidaria* honetantxe ere agertzen da, bi **"laburbilpen"** magistralekin aurkezten digunean. Xabier Kintana

---

# laburdura 1 *iz* laburtzea, bereziki hitzak hizketan; laburturiko hitza.

Etxeko euskara, **laburduraz** eta bustiduraz betea. Iñigo Aranbarri

Ahozko hizkera, bere **laburdura,** erdarakada eta guzti. Koldo Zuazo

Autobusetako batek Rosi ere ekarri du: benetako izena Rosenfeld du, baina denok **laburduraz** deitzen diogu. Urtzi Urrutikoetxea

**2** hitz edo esaldi bateko hainbat letra kentzea, lasterrago idazteko edo toki gutxiago hartzeko; horrela laburtu den hitza.

Toki gutxiago hartzeko helburuz eginiko **laburdurak:** adib., etab., eusk., geogr., hist., iz., liter., mat., pta., Naf., zkia. Iñaki Arranz

Nazioarteko Diru Funtsa (NDF euskaraz, baina ingelesezko IMF edota gaztelerazko eta frantsesezko FMI **laburdurak** ezagunago dira). Iñaki Heras

*Requiescat in pace*-ren **laburdura** traketsa. Xabier Olarra

Gaztelerazko ETT **laburduraz** ezagunak direnak. Iñaki Heras

Badakigu zer erran nahi duen [P.A.C.S.] hitz **laburdura** horrek. Herria

**3** sinboloa.

[Argi-fluxua] lumen-etan adierazten da (**laburdura:** lm). Josu Zabaleta

---

# laburgabe *izond*

Ez dizu alde hau argituko Hiztegi **laburgabeak**: / hiztegigintzan dihardutenak baitira jaun dotoreak. Xabier Olarra

---

# laburka *adlag (hitz elkartuen bibarren osagai gisa)*

Auto barruan eserita, min egiten zion sorbaldak Joxe Mariri; horregatik, arnas **laburka** hartzen zuen airea. Juan Kruz Igerabide

Noizdanik bidaiatzen duzu aldi **laburka** eta zeharbidetik? Jon Muñoz

---

# laburketa *iz* laburtzea.

Guretzat nahikoa izango da haien irakatsietatik kalkulu batzuk bereiztea eta hilabete bakoitzeko egunen **laburketak** eta luzapenak esplikatzea. Santiago Iruretagoiena

Baina, zorionez, ez zen han "Hideous!" edo inolako tik hitzezkorik izan, harik eta Bennetti, bizkarraldeko azalezko hegala aztertzen ari zela, "Hid..." moztu batek ihes egin zion arte, hitzaren bukaera **laburketa** adeitsu bati esker isildurik. *ik* laburdura. Xabier Olarra

---

# laburki 1 *adlag* modu laburrean. ik **laburzki.**

**Laburki** esanda, teknika horrek erakusten du hobeto transferitzen dela beroa fluxu beroa eta hotza kontrako norabidean eta elkarrengandik hurbil doazenean. Irene Aldasoro

Eta **laburki** azaldu zion: [...]. Jose Morales

Hara, **laburki** adierazia: [...]. Pello Zabala

Nahi nuke zerbait **laburki** idatzi hemen aldaketa horietaz, nihaurek doi bat ulertu dezadan. Piarres Aintziart

Pilota bat jaso nion lurretik, ez oso arrapaladan nik uste, baita berak eskertu ere, **laburki,** ingelesez. Joxe Austin Arrieta

Arrazoiaren agindu horiek **laburki** erakustea dagokit, lehenik, hemen, bakoitzak errazago uler dezan zer pentsatzen dudan. Piarres Xarriton

Nola gertatzen den hori azalduko dut **laburki**. Piarres Xarriton

Ahalik eta **laburkienik** kontatu dizkiot Labartzatik "desagertu" ondoko neure kontuak. Txillardegi

**2** ***labur-laburki*** labur-labur.

Ile gris motzak zituen, [...] **labur-laburki** moztuak. Ramuntxo Etxeberri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **agertzen diet laburki** (3); **laburki bada ere** (5)

---

# laburkiro *adlag* laburki.

Labur, labur -36 hitz baino ez!-, **laburkiro** eta poliki. Iñigo Aranbarri

---

# laburmen *iz* laburtzeko ahalmena.

Puntu horretara iritsirik, bitarik bat: edo lortutako horretaz jabetzen dira, hots, **laburmenaren** garrantziaz -ezen ez laburtutakoaz, ahaztu zen hura azterketa pasatu orduko-, edota iruzur egin dietela sentitzen dute, alferrik hartu dutela hainbesteko lana, gero azterketan kopiatu beharrik ez izateko. Iñaki Iñurrieta

---

# laburmetraia *iz* film laburra.

Duela gutxi egin dute hemen bertan **laburmetraia** baten grabaketa. Jokin Urain

**Laburmetraia** esperimentalak egin izan ditu. Harkaitz Cano

Luzemetraia eta **laburmetraiak** sarituko dira. Hasier Etxeberria

Alex Pastor katalandarraren “La Ruta National” **laburmetraiak** eskuratu du sari nagusia. Herria

---

## laburño *izond adkor* laburtxoa.

Egun iguzkitsu batzu ekartzen zituela berekin, neguan sartu aintzineko uda **laburño** bat bezala. Herria

Gaixotasun batek bestearekin zerikusirik izan ote zezakeen pentsatu nuen tarte **laburño** batez. Karlos Linazasoro

---

# laburpen 1 *iz* laburtzea; laburturiko gauza.

Eslabiar hizkuntzetan gertatu den **laburpena,** *â*, *ê* oro *a* bilakatzean. Isabel Arrigain

Horra bi hitzetan zenbakien gaiari buruzko nire ametsen **laburpena**. Jon Muñoz

Ezekielen predikuaren **laburpena**. Irakurleak bere esku du orain azterlan osoaren **laburpen** uniforme bat. **Laburpena** azalaren eta lanaren artean kokatuko duzu. Iñaki Mendiguren

**Laburpena** *(abstract)*. Askoren artean

Aminei buruzko **laburpenezko** azterlan bat ari zen egiten. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Film **laburpenak** irakurtzen ari nintzela egunkari honetan. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **laburpen bat egin** (4)
> **biltzarraren laburpena** (22); **bizitzaren laburpena** (4); **egindako lanaren laburpena** (3); **historiaren laburpena** (3); **kontseiluko biltzarraren laburpena** (21); **laburpena egin** (18); **laburpena eginez** (3); **laburpena egitea** (3); **laburpena egiteko** (5); **laburpena egiten** (6); **laburpena izan** (3)

---

# laburpentxo *iz adkor* laburpena.

Bilera amaitu eta guraso batzuk inguratu zitzaizkidan, gazteleraz **laburpentxo** bat egingo ote nien. Joxerra Garzia

**Laburpentxo** bat egingo diat. Jon Muñoz

Tristan da Cunha-ren uhartearen aipu-**laburpentxo** batean zuen sorburu. Juan Garzia

---

# laburrarazi, laburraraz, laburrarazten du *ad* laburtzera behartu.

Egunkari hori liburu sail batean argitaratzekoa zenez, argitaletxeak liburu sail haren neurrietara **laburrarazi** zuen liburua. Josu Zabaleta

Eta zeru hori, mirakuiluz bezala, kasik egun osoan baketsu agertu, lehen funtsezko euri zortak arastirian baizik ez botatuz, dantza ikusgarria pixka bat **laburraraziz**. Herria

---

# laburtasun **1** *iz* laburra denaren nolakotasuna.

Nobela honen axaleko **laburtasuna,** kasu honetan, ez da moztasun bat, baizik-eta, alde erantzira, ugaritasun bat da. Iñaki Segurola

**Laburtasuna** denez antzearen arima-mamia, eta hitzaspertasuna, berriz, adar-mentu loratuak, labur nadin mintza. Juan Garzia

Bizitzaren **laburtasunaz** hain argiro idatzi zuen gizon hura luzaz bizi izan zen mundu honetan. Imanol Zurutuza

Poesiaren formek **laburtasuna** eskatzen dutelako. Juan Garzia

**Laburtasunaren** mesedetan. Ibon Uribarri

**Laburtasunaren** hitzontzikeria horren, sententziaka jardun behar zoro horren adibide arauemailerik bila daiteke Hamleteko Polonio daniar estatu-gizon ospetsuaren mintzakeran. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

Badirudi denbora-**laburtasun** honen kontra agertzen dela gaizki ulertutako gizadi-maitasun mota bat, [...]. Juan Martin Elexpuru

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bizitzaren laburtasunaz** (3)

---

# laburtto *izond adkor* laburtxoa.

Heletako jokoberri **laburttoan**. Herria

Garaziko “Super” horrek hatsa **laburtto**. Herria

---

# laburtu, labur, laburtzen **1** du *ad* labur edo laburrago bihurtu.

Ordubete eta 10 minutuz **laburtzen** da eguna. Pello Zabala

Eguna ia ordubete **laburtzen** bada, 58 minutu, zehatz esanda, gau luzeetako hotz markatuak, eguneko tenperaturak jaitsarazten ditu. Pello Zabala

Doinua behartzen badu, luzatzeko edo **laburtzeko,** bertso horren neurrietatik kanpora ari da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Lerro bakan batzuetan **laburtuko** dut nire historiaren muina. Josu Zabaleta

*Fidel izan beharraz*-en jatorrizko testua, baina, lau ekitalditan banatuta zegoen, eta Wildek **laburtu** eta hirutara bildu zuen. Antton Olano

Tartea erdira **laburtu** zuen. Ibon Uribarri

Aurreztu beharrez, orrialde erdira **laburtu** zuen idatzi beharrekoa. Jon Muñoz

Urtearekin, sei mila pesetan **laburtu** digute laguntza! Pablo Sastre

Gero Baionako ospitalerat ereman dute, arras gaizki, hatsa ere arrunt **laburtua...** Egunak **laburtzen** ari, polliki **laburtzen**. Herria

Pixka bat **laburturik** egin nahi dudan kontenplazioa. Patxi Altuna

Urtetik urterat beti **laburtuz** balinbadoatzi egonaldiak eta udatiarrek beti eta sos gutiago xahutzen badute, [...]. Herria

Horrelako zati errepikatzaileak ere kendu edo oso **laburturik** utzi ditut, irakurle gaztearen aringarri. Juan Kruz Igerabide

Ekonomiaren kontzepzio klasikoak -edo **laburtuz,** ekonomia klasikoak- Adam Smith-en obran ditu erroak. Iñaki Heras

**Laburtuz,** giza maitasuna utzi eta zakur maitasunera igaro nintzen. Koro Navarro

**Laburtuz,** bada, nik nire egitekoa egiten dut. Josu Zabaleta

**Laburtzeko,** bada, konposizioaren makulua baizik ez da matematika. Josu Zabaleta

**2** (objektuarekin)

Epea **laburtu** egin dela diotsuet. Elizen arteko biblia

Udazkena aurrera doanean [...] eguna **laburtu,** itzala luzatu eta gaua zabalago egin ohi da. Pello Zabala

Erregea datorrenean, denak lasterka hasten dira bidea **laburtu** beharrez, esku-zartaka eta ufaka ongi etorria ematera. Jon Alonso

Bere demonioak bizia **laburtu** zion. Matías Mujika

Handik goiti, gauak, aitzina egin ahalean, bere logika ezarri zigun, elkarrenganako distantzia **laburtuz** hizketagaiak intimotasunera lerratu bezala. Aingeru Epaltza

Bere heriotzaren errudun ez denak ez dik bere bizia **laburtzen**. Juan Garzia

Sartu zarenean bidea **laburtu** dizu. Lander Garro

Pentsa, burdina ere **laburtu** egiten du hango hotzak. Koldo Izagirre

"Euskaldunon Egunkaria", ardurenean izena **laburtuz** "Egunkaria" deitzen duguna. Herria

Arratsaldetan maiz etortzen zitzaikun "Madame Haroztegi", nik izena **laburturik,** "Maztegi" edo ere "Maki" deitzen nuena. Herria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Argitalpen **laburtu** honen irakurleak testuan aurkitu ez dituen zenbait izen eta gertaerarekin topo egingo du taula hauetan. Iñaki Mendiguren

Pentateukoaren bertsio **laburtua** da hemen aurkezten duguna. Jose Antonio Mujika

Jatorrizkoaren bigarren eta hirugarren ekitaldiak bertsio **laburtuaren** bigarrenean elkartuta daude. *Brunch:* "breakfast" (gosaria) eta "lunch" (bazkaria) hitzen batuketa

**laburtua** . Antton Olano

Soinuaren intentsitate mailak dezibeletan adierazten dira (dB, forma **laburtuan)** . Irene Aldasoro

Modu **laburtu** eta xoilean adierazita. Bernardo Atxaga

Ezagutza **laburtuek** iraun dute nire oroimenean. Monika Etxebarria

### 4 *arnasa laburtu*

Arnasa **laburtu** zitzaion Norari, eta izerdi hotza sentitu zuen garondoan. Anjel Lertxundi

### 5 *luze-laburtu*

Doinua luze- **laburtu** gabe ari bada, badaki zenbatu gabe ere zenbat silaba sartzen ari den oin bakoitzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aldeak laburtu** (4); **arnasa laburtu** (3); **bi hitzetan laburtu** (3); **bidea laburtu** (5); **denbora laburtu** (3); **ederki laburtu** (3); **honela laburtu** (3); **laburtu beharrez** (3)
>
> **bertsio laburtua** (4); **prozedura laburtua** (3)
>
> **bidea laburtzen** (3); **ederki laburtzen** (4); **egunak laburtzen** (5); **ondo laburtzen** (3)

---

## laburtxo *izond adkor* laburra, apur bat laburra.

Denbora **laburtxoa** iruditu zitzaidan ubeldu haiek berdintzeko. Juan Kruz Igerabide

Nor bere gogoetekin geratu da une **laburtxo** batez. Xabier Mendiguren Elizegi

Egiazko pertzepzioan horrelakorik eremu **laburtxo** batean baizik ez baita gertatzen. Josu Zabaleta

-Esango al diguzu, jauna, nora egin dezakegun ibilaldi **laburtxo** bat, erraza, eta polita, ahal bada. Josu Zabaleta

Esan dit apurtxo bat badakiela dueluan, eta hasi baino lehen erakustaldi **laburtxo** bat egiten lagunduko didala onartu du jator-jator. Iñaki Mendiguren

---

## laburtxotasun *iz adkor* laburtxoa denaren nolakotasuna.

Nobela hau, bada, bere **laburtxotasun** fisiko-kronometrikoari esker, denborapasagarritasunezko funtzio gaizto horretatik libre gelditzen da, eta horrenbestez, oso asko irabazten du. Iñaki Segurola

---

## laburtzaile *izond/iz* laburtzen duena.

Beren konponketei gainbegirada **laburtzaile** batek uste osoa indar dezake konponketen hainbat une puntu batean bateratzeari esker. Ibon Uribarri

Letra eta zenbakiez gain, gainerako sinbolo tipografikoak ere aukeran ditu hitz **laburtzaileak,** sakelako telefonoetarako aurkitu ditugun adibide hauetan bezala: [...]. Iñaki Arranz

**Laburtzailearen** oharra. Iñaki Mendiguren

**Laburtzaileak** ohar bat erantsi du "kolapsoaren" esanahiaz, Azterlan honetan erabiltzen den termino tekniko gisa. Iñaki Mendiguren

---

## laburtzapen 1 *iz* laburtzea.

Lagunarteko hizketan ohiko diren **laburtzapenak** eta tokian tokiko fonetismo bereziak. Berria - Euskal Herria

Badaki, azken batean, poesia basapizti izugarria dela, ez domaketarik ez **laburtzapenik** onartzen ez duena. Pako Aristi

### 2 laburpena.

K. O. **laburtzapena** erabiltzen bada. Jon Alonso

Azkenik, **laburtzapenen** bilduma labur bat ageri da [euskara-frantsesa hiztegian]. Berria - Euskal Herria

Bere izena irakurtzen baitzen, goiko lerroan, eta azpian argitaletxean lan egiten duten gainerako zuzentzaileena, guztiek dituztelarik, ondoko laukitxoan, beren titulu eta daten **laburtzapenak**. Jon Alonso

---

## laburtze *iz* labur edo laburrago bihurtu.

Luzatu beharrean, laburtu egiten da hitza, hau da, hizkiak galtzen ditu errepikapenean, eta **laburtze** horretan beste hitz bat ageri da. Iñaki Arranz

Egonaldien **laburtze** horrek konparazione nehork uste baino ondorio gehiago badauka bestalde. Herria

-Nik neuk ere eskertuko nizuke **laburtze** hori -eten zidan bisitariak. Edorta Jimenez

Eguna oso pixkaka abiatuko da **laburtze** bidean. Pello Zabala

---

## laburtzearren *adlag* laburtzeko.

Bueno, **laburtzearren:** Neo hori Bidalia zen eta Matrixetik salbatu behar zuten, ordenagailu-programatik alegia. Antton Olano

---

## laburxeago *izond*

Berriketaldi bat izaten genuen aldi horietako bakoitzean, luze samarra batzuetan, **laburxeagoa** besteetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Igual pentsatuko duzu erridikulu samarra dela hau dena -isilune **laburxeagoa-** . Xabier Mendiguren Elizegi

---

## laburxko *izond adkor* laburtxoa.

Norberaren bizia ez ote da **laburxkoa** gizakiarenaren ondoan? Herria

Desafioa botatu zelarik, parioak agertu, lekua eta igandea hitzartu, gaitzeko jendea bildu omen zen Ñañikan [...] ikusteko hea zer eginen zuen gure artzainak; pariatzale gehienak artzainaren kontra omen, hiru oren **laburxko** izanen zela... Herria

Hilabetea eman nuen harengana joan eta ondoan eserita, masaila eta eskuak ferekatuz, haren hatzen ukitu familiarra dastatuz, hatz txiki nirearen antzera **laburxko** eta kurbatuaren azkeneko falangean ageri zuen eraztun-zigilua haztatuz. Joxan Elosegi

---

## laburzale *izond* laburtzearen zalea dena.

**Laburzalea** naiz, bai irakurtzeko eta bai idazteko.Siesta **laburzalea** naiz, izan ere, 3etatik 6ak bitarte horretan edo, ezertarako gogorik gabe geratzen naiz, nekea ere

sentitzen dut, justifikaziorik gabe. Pako Aristi

---

## **laburzki** *adlag* laburki.

Erran behar dugu **laburzki,** nola kristau fedea, edo hobeki erran, nola kristau fededunak berak, ibili diren harremanetan, azken hogei mendeetan zehar, bidean aurkitu dituzten hizkuntzekin, eta bereziki euskararekin. Piarres Xarriton

Lokartu aitzin, Astorgaren historia, gidaliburuan **laburzki** idatzia, irakurtu dut. Piarres Aintziart

Arbelbideren hiru lan nagusiak aipatuko ditugu **laburzki** . **-Laburzki** erranen dauzut: Hegoaldean ongi, Iparraldean gaizki. Xipri Arbelbide

Ikus artikuluaren azken oharrean **laburzki** ematen den bibliografia osoa. Piarres Xarriton

Hogoi urteren buruan, ez gaude eta ez gaudezke ere **laburzki** bada **laburzki** orroitarazi gabe nor izan zen beraz Telesforo de Monzon. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> laburzki erraiteko (4)

---

## **laburzkiro** *adlag* laburzki, laburkiro.

Osabak historia haren gorabehera printzipalak kontatu zizkidan, ez xehero baina **laburzkiro,** historia haren aroma usaintzeko modua izan nezan. Joan Mari Irigoien

---

## laburzurrean ik **laburtu 3**.

---

## **lacaniar** *(orobat **lacantiar** g.er.)* *izond* J. Lacanena, J. Lacani dagokiona; J. Lacanen obraren aldekoa.

Hemendik dator "ez dago Beste nagusirik" formula **lacaniarra** . Joseba Zulaika

Etxebarrietaren tragedia baldin bazen Oteizaren Arantzazuko eskulturaren Erreal **lacaniarra,** Koonsen Erreala denok turista bihurtu gareneko fetixe kontsumisten konpultsioa da. Joseba Zulaika

Okotz Cormenzana psikoanalista **lacantiar** eta maratoilari ezagunak. Iñaki Segurola

Ondorioz Badiou ateoak San Pablo du maite, eta Zizek **lacaniarrak** Lenin, eta gure Oteiza antiklerikalak San Ignazio! Joseba Zulaika

---

## **lacanista** *izond* J. Lacanena, J. Lacani dagokiona.

Hogeiren bat urtetik hona, arazo honen azterketan eragin handia izan du ikuspegi psikoanalitiko freudiano-**lacanistak,** zinemaren ikerketan batez ere. Josu Zabaleta

---

## lacantiar ik **lacaniar**.

---

## **lacanzale** *izond* J. Lacanen obraren zale dena.

Lacanek eta **lacanzaleek** [...] honako araua erabiltzen dute: «Ezein esaldik ez du esan nahi berak dioena». Berria - Harian

---

## **ladentiar**

**1** ***Ben Ladentiar*** *izond* Ben Ladenena, Ben Ladeni dagokiona.

Mossoul eta Kirkouk hiriak itsuski bonbardatu dituzte amerikanoek lehenik, bai-eta Al-Quaida Ben-**Ladentiarra** daukaten islamista kurdo toki bat ere. Herria

Nahiz ez diren beti xuxen izendatuak, Al Qaidako Ben **Ladentiarren** beldurra da gehienik agertzen. Herria

---

## **ladinera** *iz* ladinoa.

Alemana eta **ladinera** . Berria - Euskal Herria

---

## **ladino** *iz* Italia eta Suitza arteko mugako eta inguruetako zenbait eremutan mintzatzen den hizkuntza erromanikoa. ik **reto-romano**.

Alpeetako mendi-magaletako erreten, haran txiki, eta baso ertzetan hitz egiten diren walser, mocheno, **ladino,** cimbro, carinziano edo brigasco hizkuntzak. Anjel Lertxundi

**Ladinoa** da inguru horretan bizirik dauden hizkuntzetako bat. Berria - Kultura

---

## **ladrillo** *iz* adreilua.

Jarri diagu eguerdi bitartean **ladrillo** ilara bat. Pablo Sastre

Kableak eta **ladrilloak** saihestuz etxe txikian sartu zen. Pablo Sastre

---

## **laertziar** *izlag* Laertziakoa.

Guztiarekin ere, **laertziar** Diogenesek helarazi digun kondairak [...] erakusten du matematikariek bide berriaren aurkikuntzaren lehen aztarnek eragindako aldaketaren oroitzapenari hain aparteko garrantzia eman ziotela, non ahaztezina bihurtu baitzen. Ibon Uribarri

---

## **laffittetar** *iz* Laffitte familiako kidea.

**Laffittetarrek** -bi anaia ziren lapurtarrak, Manex eta Petri, Manex anaia zaharrena agertu arren beti buru- beste leku bat aurkitu zuten babes eta gotorleku: Galveston uhartea. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Laffittetarrak** eta haien kideak gogor borrokatu ziren, baina, dena alferrik zela ikusi zutenean, hiriari su eman eta ihes egiteko agindu zuen Manexek. J.M. Olaizola

"Txiliku"

---

**laga**, lagatzen **1** du *ad* utzi. (zerbait)

Harry Blountek errublo pila bat **laga** zuen leihatilaren aurreko apalean. Karlos Zabala

Atzo Juanito San Martin hemen izan zen eta pakete bat **laga** zuen zuretzat. Pedro Alberdi

Euskara **laga** eta espainola hartuz. Joxe Azurmendi

Tabernariak barra gainean **laga** zidan kaña. Koldo Izagirre

Bere berokia **laga** zidan eta aretoan sartu zen. Koldo Izagirre

Bidaztiek, beldurrak airean, pentsamendu bakarra izan zuten: trena **laga** eta burdinbidean babestu. Karlos Zabala

Bekatuan ibiliko banintz bezala, autoa parkearen aparkalekuan **laga** ordez, beherago **lagatzen** nuen. Hasier Etxeberria

-Lehenik eta behin, mundu guztiak ekarritako armak bazterrean **laga** ditzala. Joanes Urkixo

*ik beherago* 7. Askoren artean

Zer egingo, eta dirutza osoa niri **laga** ez dit, bada! Mirentxu Larrañaga

Plater ertzean **laga** zuen delituaren froga. Unai Iturriaga

Konplikazioak alde batera **laga,** eta gauza bati heltzen, ekiten eta segitzen diona. Iñaki Segurola

**2** (norbait)

Beste mutil batengatik **laga** ninduen. Jasone Osoro

**3** (zertan)

Orratzak baino hariak luzeago izan behar du eta **laga** egiozu mutikoari ibiltzen. Joseba Sarrionandia

Zuzendariak sartzen **laga** die nire eskaera ahaztuz. Koldo Izagirre

Masturba itzazu, eta **laga** masturba zaitzaten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eutsi libidoaren bulkadari, eta ez **laga** buruari horrela berotzen. Patxi Iturritegi

**4** (nola)

Itxi gabe **laga** zuen atea. Pablo Sastre

Ez **laga** ezer zintzilik hor barruan. Mirentxu Larrañaga

Ane eta Mikel zur eta lur **laga** zituen. Unai Iturriaga

Odola zeriola **laga** zuen etzanda. Paddy Rekalde

Ileak ere lanak eman bide zizkion; kizkurtu egin zuen eta aske **laga**. Mirentxu Larrañaga

Haren mokor kulunkariek eta haren gerriaren liraintasunak liluratuta **laga** ninduten. Juan Martin Elexpuru

-Bai, lotsagarri **laga** gaituzu -esaten didate gurasoek. Eskarne Mujika

Pixkanaka suntsitu eta guztiz zikindurik **laga** gaitu ezerezean munstro horrek. Aritz Gorrotxategi

**5** *-i* ***laga*** -i utzi.

Esan liteke aireak **laga** egiten ziola aire izateari eta kasik uraren loditasuna hartzen zuela askotan, gu bion arteko zera hark eraginda. Hasier Etxeberria

Hariak hari izateari **laga** eta jantzi bihurtzen zirela ikusten zuenean. Hasier Etxeberria

Gauza miragarria! san Frantziskok gurutzea egin bezain laster, otso izugarriak ahoa itxi eta korrika egiteari **laga** zion. Askoren artean

**6** ***bakean laga***

**Laga** itzazue hilak **bakean** eta itxi ezazue zerraldo hori. Josu Zabaleta

**-Laga** ezak **bakean** -egin zion haserre Germanok. Josu Zabaleta

**Laga** nazazu **bakean**! **Laga bakean**! -garrasi egiten zuen gnomoak. Iñaki Mendiguren

Zergatik arraio ezin zidan bakean **laga**? Mirentxu Larrañaga

· Hartzeko neuk nahi nituen neurriak baina bera **lagatzeko bake** santuan. Hasier Etxeberria

**7** ***bazterrean laga***

Tira, zorteak ez naik **bazterrean laga**. Agustin Otsoa

Berari ezer esan gabe, eta gure elkarbizitza ez nahastearren, **bazterrean laga** nituen neure-neureak nituen zenbait gauza eta ohitura. Hasier Etxeberria

Agurtzane Juanena donostiarrak, erreparo guztiak behingoz **bazterrean laga** ondoren, komisarian emakume batek jaso dezakeenaren berri ematen zuen. Hasier Etxeberria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **agerian laga** (6); **alde batera laga** (5); **arrastorik laga** (3); **atzean laga** (7); **bakarrik laga** (3); **bakean laga** (4); **bazterrean laga** (9); **bertan behera laga** (11); **burumakur laga zuten** (3); **egiteari laga** (3); **izateari laga** (3); **kanpo laga** (3); **laga bakean** (5); **laga ezak bakean** (4); **lurrean laga** (4); **mahai gainean laga** (3)
>
> **alde batera lagata** (8); **bertan behera lagata** (3)
>
> **bertan behera lagatzeko** (3)
>
> **bakean lagatzen** (4)

---

**lagapen** **1** *iz* zuzenbidean, eskubide, ondasun edo kideko zerbaiti nahitara uko egitea beste pertsona baten alde.

Zuzendaritzak ez du errespetatu nire lanaren espiritua eta helburua, eta, ondorioz, bertan behera utzi dut ustiapen eskubidearen **lagapena**. Berria - Kirola

Hura bihur daiteke lan horren gaineko eskubideak gozatzen dituena, egileak hala nahita eta denbora mugatu baterako **lagapena** eginda. Erakundeek **lagapena** egin dute eta elkarteak, hainbat funtzio bere gain hartu ditu. Ana Urkiza

**2** (hitz elkartuetan)

Ondarearen **lagapen** prozesuan ordezkaritza ez dela aintzat hartzen gaineratu zuen.. Berria - Ekonomia

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak eta UZEI Institutuak 2001eko uztailaren 13an Euskalterm bankuaren **lagapen**-kontratua izenpetu zuten. Berria - Ekonomia

---

**lagarto** *iz* Lagarto xaboia.

Nik neure estudiante denboran edozelan garbitzen nuen gorputza: marka bako txanpuaz, **lagartoz,** mistolaz.... Jon Arretxe

---

**lagin** **1** *iz* erakuskaria.

Ikerketarako, 600 laguneko **lagin** bat hartu zuten Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan. Berria - Harian

Zuk liburu edo **lagin** batean sentsibilitate berezi edo ekarpen berri bat ikusten duzularik, ahalegintzen zara hori baliagarria dela defendatzen. Ana Urkiza

Musika-denden jabeei gure produktuak erakutsi eta, interesik azaltzen badute, **lagin** batzuk bidaltzen dizkiegu. Alberto Ladron Arana

Haien azpian, salgaiaren **lagin** bat: dozena pare bat disko, berri eta distiratsu. Alberto Ladron Arana

**Lagin** baten balioa duen multzo honetatik abiatuz arauak definitzea. Xabier Arregi

Bi liburu sarituek jaso dituzten kritiken **lagin** bat da honakoa. Berria - Kultura

Euskal artearen **lagin** garrantzitsua ikus daiteke atzodanik Lizarrako Gustavo de Maeztu museoan.

Lurreko natur baliabideak, barnean harturik airea, ura, lurra, flora eta fauna eta, bereziki, ekosistema naturalen **lagin** adierazgarriak, babestu egin behar dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Jakina, hori guztia nik dakidanaren **lagin** xume bat besterik ez da. Monika Etxebarria

Ziurrenik **lagin** horretatik ezin da Kolektiboaren tipologia egin. Berria - Euskal Herria

**2** (analisi kimikorako)

Kimikari analitikoak laborategira eraman ohi ditu bere **laginak,** aztertzera. Irene Aldasoro

**Lagin** bat hartu dutela, biopsia egiteko, zehatz-mehatz jakiteko zein eratako tumorea den. Imanol Zurutuza

Haziaren bost **lagin** izoztu zituen. Berria - Gaiak

[Hegazti gripearen] gaitzari aurre egiteko batzordeak 934 **lagin** aztertu ditu eta haztegien %42 kontrolatu. Berria - Euskal Herria

A **lagina** positiboa da, baina B **laginak** ez du halakorik esaten, emaitza negatiboa da. Berria - Kirola

**Lagin** bat hartu zuen galdaratik, hozten utzi, eta erreaktiboarekin tratatu zuen. Juan Garzia

Bi egun luze eman nituen askiesteko moduko purutasuneko **lagin** bat lortzeko. Juan Garzia

Itsasoetan dauden fitoplanktonaren **laginak** hartu ditugu. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lagin** bilketa Jaurlaritzak izendaturiko mediku batek eta osasun zerbitzuetako teknikariek zuzendu zuten. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

AEB, Kanada eta Erresuma Batuko 170 adituk 6.000 ADN **lagin** ikertuko dituzte. Berria - Gaiak

ADN **lagin** batzuk beste laborategi batzuetara bidaliko dituzte. Berria - Gaiak

48 eta 90 urte bitarteko 23 gizonen gernu **laginak**. Berria - Gaiak

Ur **lagin** gehiago hartu zituzten atzo, aztertzen jarraitzeko. Berria - Euskal Herria

Odol- **lagin** bat saio-hodi batean uzten bada. Irene Aldasoro

Banadio naftenato **lagin** bat. Juan Garzia

Jasotako estreptomizina- **lagin** berriekin frogak burutu. Josu Landa

Haitz- **laginen** analisi kuantitatiboak egiten. Juan Garzia

Auzitegi-medikuaren arabera egia jakiteko ehun- **lagin** bat aztertzea beste modurik ez zegoelako. Ramon Saizarbitoria

Usain ona zuten xaboi **lagin** batzuez gozatu nuen gorputza. Joxan Elosegi

Elkarrizketa **lagin** xume honetatik igarri ahal dugunez, [...]. Patxi Iturritegi

Tentsioa hartzen zien berak, eta botika- **laginak** oparitzen. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adn lagin** (3); **lagin bat hartu** (6); **lagin txiki bat** (4); **lagin zabala** (4); **odol lagin** (3)
> **odol lagina** (4)
> **adn laginak** (3); **ehun laginak** (4); **laginak aztertu** (3); **laginak biltzen** (3); **laginak hartu** (12); **laginak hartu zizkioten** (3); **laginak jaso** (4); **laginak jasotzen** (4); **odol laginak** (7)

---

# laginketa *iz* multzo baten ezaugarriak aztertzeko laginak hautatzea.

Ikusi dugu inguruan ditugun soinuen **laginketa** egiten duela kanpo-belarriak. Irene Aldasoro

Bisorearen barruan integraturiko bi zelula fotoelektrikok egiten dute argazkilariaren begira doan argiaren **laginketa,** eta haiexek igortzen dituzte esposiziorako eta irekierarako balio egokiak. Irene Aldasoro

Europako Batasunak lehengo urteko irailean aholkatutako neurriak hartzera ez gara mugatu, haiek proposatutako zorizko **laginketak** gainditu egin ditugu... Berria - Gaiak

---

# lagintxo *iz* lagin txikia.

**Lagintxo** bat besterik ez da. Iñigo Aranbarri

---

# lagun 1 *iz* norbaiti buruz, berarekin jolas, lan, ibilaldi edo zernahi motatako jardunean ari dena. ik **kide**.

Higuindu egiten naute **lagun** guztiek, nire aurka bihurtzen adiskide minenak ere. Elizen arteko biblia

Ene **lagun** eta adiskide horietarik zenbait aipatuko ditut. Marzel Etxehandi

Erregeen adiskide izatea, printzeen ezagun eta handikien **lagun** izatea, gauza ona da. Askoren artean

Hasieran Martinen neska-lagun besterik ez zena, gerora **lagun**, eta azkenerako adiskide egin dut. Xabier Etxabe

**Laguna,** senarra edo dena delako gizona kartzelan zeukan emazte bati erreparatu nion. Hasier Etxeberria

Zorionez, sexua baino gehiago **laguna** edukitzea interesatzen zitzaion. Oskar Arana

Goiz batean, karel ondoan zutik eta bakarrik nintzela, bera hurreratu eta ea **laguna** non nuen galdetu zidan. Joxe Austin Arrieta

**Lagunek** zauria lotu zioten Ulisesi, eta arao bat esan zuten odoljario beltza geldiarazteko. Juan Kruz Igerabide

-Beneditano **lagun** bat badugu kanpalekuko bulegoetan lan egiten duena. Marzel Etxehandi

Zuk zeure **laguna** masturbatuko duzu, madame; ni arduratuko naiz zaldunaz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nik, bederen, ez nukeen hainbertze erranen **lagun** artean ez izatera. Aingeru Epaltza

*ik* lagunarte.

Zakurra gizonaren **lagun** zintzoa da. Gotzon Garate

**2** (izenondo egta izenlagunekin)

**-Lagun** zahar batzuekin topo egin diat gaur. **Lagun** txarrek ohitura onak usteldu egiten dituzte. Irene Aldasoro

Kontuz **lagun** gaiztoekin. Elizen arteko biblia

Esanekoa; emazte eta **lagun** ona. Oskar Arana

Zoroak oso **lagun** onak izaten dira presondegian. Koldo Izagirre

**Lagun** leiala izan dut Berlingo gau bukagaitzetan. Xabier Montoia

Bere **lagun** hurbilenen leialtasuna. Askoren artean

Eduki beza **lagun** egoki bat ere, behar den guztietan haren ordezkoak egin ditzan. Askoren artean

Eskolako bi **lagunekin,** bat ni baino zaharragoa eta bestea nire adinekoa. Juan Kruz Igerabide

Laneko **lagun** batek, Cologne-ko garagista batek, arrosario pare bat aurkitu du lurrean. Marzel Etxehandi

Rugbyko **lagun** baten anaiak auto-istripuz bizia galdu zuelarik. Daniel Landart

Donostiako **lagun** frantziskotar batek utzi zidan liburuaz baliaturik. Joan Mari Irigoien

**3** (talde edo multzo bateko kide gisa) ik **pertsona**.

Hebronen taldeko laurogei **lagun,** Eliel buru zutela. Elizen arteko biblia

Bakidesen gudarosteko mila **lagun** inguru hil ziren. Elizen arteko biblia

Bost mila **lagun** baino gehiago agertu ziren haren hiletetara. Karlos Zabala

Guztira, 47 **lagun** bizi dira han. Berria - Gaiak

Holcomb-en, Clutter familiako lau **lagun** hilda agertu ziren beren etxean. Iñigo Aranbarri

Eta mahaira eserita, lau **lagun** musean: hiru miliziano eta obispoa, bere gala guztiekin jantzita. Inazio Mujika Iraola

Joanesek kamioian zituen **lagun** batzuk lurrera erori ziren. Eneko Bidegain

Guztira, 4.600 **lagun** erbesteratu zituzten. Elizen arteko biblia

Egun bakar batean hogeita hiru mila **lagun** hil ziren. Elizen arteko biblia

Bidaxunen izan nintzen egunetan, hamalau bat **lagun** zenbatu nituen han, jende gehien bildu zen egunean. Aingeru Epaltza

Baina haren beldur zirenez, hogeita hamar **lagun** jarri zizkioten aldamenean begirale. Jose Antonio Mujika

Ehunka **lagun** ibili ziren atzo goizean Baionako karriketan, Frantziako gizarte segurantzaren alde. Berria - Euskal Herria

Goizaldeko ordu biak orduantxe ziren eta, kaleetan **lagun** asko zebilen arren, kafea husten zihoan. Edorta Jimenez

Kotxea garbitzen ari ziren bi **lagun** hizketan zituen atzean. Lopez de Arana

Bi **lagun** mozorrotuk hil zuten Julio, tabernatik irten berritan. Juan Kruz Igerabide

Seigarren egunean bi halako bildu ohi zuten, bederatzi bat litro **lagun** bakoitzeko. Elizen arteko biblia

**Lagun** bakar bat zegoen mezu telegrafikoak bidaltzeko aretoan. Karlos Zabala

**4** (deiki gisa)

-Aizu, **lagun,** hau al da New York? Lopez de Arana

Zorionak, ene **laguna**! Patxi Zubizarreta

Alferrik zabiltza, **lagun,** horrela jarraituko dute gauzek, ez dago ezer egiterik. Migel Angel Mintegi

Nire **lagun** hori, hi tiro egiten ez haiz ausartuko. Karlos Zabala

Baina egun tristea zen haientzat, ez **lagun,** ahaide edo adiskideren bat hil zitzaielako, baizik eta iraganeko urteetan hirian bizi ondoren geroko esperantzarik gabe gelldituak zirelako. Felipe Juaristi

-Nik ikusten dudanez, Santxo **lagun,** hauek ez dira izan zaldunak. Patxi Ezkiaga

Zer diostazu kontzientzia txarraz, **lagun**? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Non hago, **laguna**? Felipe Juaristi

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lagun**-talde handia berekin zuela. Elizen arteko biblia

Bakartasunaren izarpetik **lagun**-multzoaren aterpera dagoen tartea. Aingeru Epaltza

**Lagun** koadrilakoak Josu R-ren inguruan bildu ziren. Pedro Alberdi

**Lagun**-bilera ia deseginik geratu zen Jacken indarkeriaz. Irene Aldasoro

Leinu bakoitzeko senitarteen ondare-zatia **lagun**-kopuruaren araberakoa izango bada ere. Elizen arteko biblia

Berriz elkartzean, beren bizitzako garai hartan, **lagun**-premian zeuden biak ere. Xabier Olarra

Eskolan, **lagun**-irrika zuen Templek. Xabier Olarra

Egonaldi honetan egin zion **lagun**-eskea Don Kijotek bere auzoko nekazari bati. Patxi Ezkiaga

· Noiz eta ikusi baitzuen ezen bere tribunako **lagun**-adiskideak nor bere lekuan zeudela. Joan Mari Irigoien

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Txikitako adiskidea zuen Telleria, jolas-**laguna**. Pedroren arrantzu-**lagun** Santiago eta Joan Zebedeoren semeak. Elizen arteko biblia

Diru pixka bat zor zion zerbitzu-**lagun** batekin egin zuen topo. Elizen arteko biblia

Otoi, ez egin niri burlarik, eskola-**lagun** hori. Juan Garzia

Aitaren pentsio-**lagun** batek sinaturik zetorren berria. Juan Garzia

Nire beila-**laguna,** orduan, beste kandela harturik, hildakoaren gainera makurtu zen. Josu Zabaleta

Ximurraren parranda-**laguna**. Aingeru Epaltza

Udan, bakarrik joaten zenean, berekin eramaten zuen sarritan txakurra, eskalada-**lagun**. Juan Garzia

Harik eta Amanciok dantza-**lagun** aldaketa eskatu zuen arte. Inazio Mujika Iraola

Itsu-**lagun** lanetara behartzen nau berriro. Xabier Olarra

Irribarrea moldatu nuen, bekatu-**lagun** eske. Aingeru Epaltza

Apustu **lagun** gorrotatu horiei, denei barkatzen al diezu, Nemesio? Bi gaiztagin ez hain buruargi eta beren axio-**lagun** ezezaguna. Oskar Arana

Zergatik ezarri diezu halako uztarri astuna gure adiskide eta gudu-**lagun** diren juduei? Elizen arteko biblia

Goraintziak nire ahaide eta kartzela-**lagun** Androniko eta Juniari. Elizen arteko biblia

Ez nekien zer nintzaion, adarretan neke-**lagun** ala urgazle. Aingeru Epaltza

Honengandik jakin zuen Teillary erretorea eta Bordaguibel erretore-**laguna** baserri batean bizi zirela, Larrun mendi hegian. Elena Touyarou

Atzean geratutako jende-**laguna**. Bernardo Atxaga

1885az geroztik Filippo Turatiren bikote-**laguna** izan zen, eta elkarrekin zuzendu zuten *Critica Sociale* izeneko aldizkari sozialista. Fernando Rey

**7** (izenondo gisa)

Fraide **lagun** batekin Lombardiatik Trevisoko Markara zihoala. Marzel Etxehandi

Hain irrika biziak bultzatzen zuen, non erromes **laguna** atzean uzten baitzuen, espirituz mozkortuta bezala, bere asmoa betetzeko presaz. Askoren artean

Eta orain irakurle **lagun,** presta ezazu zure bihotz osoa eta zure gogo osoa mundua mundu denetik inoiz idatzi den istorio lizunena irakurtzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta ondorioz, Europan gazte guztien iragana bera zela sumatzen zuten gazte **lagun** horiek. Piarres Xarriton

**8** adiskidea.

Meteorologia liburu bat, Eibarko **lagun** batek utzi zidana. Pello Zabala

Eskaintzak zetozen aurrena: Lizi eta Sarari, osaba Juani, bere ama Carmeni, Obabako gure **lagun** Lubis zenari. Bernardo Atxaga

Betiko nire **lagun** Imanolek berak esanda dakit. Aitor Arana

Harenga bat eman zuen udaletxeko arkupean herriko zazpi gizon fusilatu eta gero, tartean Humberto, nire **lagun** handia, gizon zintzo askoa. Bernardo Atxaga

Nire **lagun** frantses maritxu horrek arte-galeria bat zuen Salvadorren. Karlos Zabala

-Hara, Edu, nola arriskatuko naiz, nire **lagun** Amagoiarekin zer gertatu den ikusita? Aingeru Epaltza

Ene!, **lagun** maitea, ezinezkoa da begi horiei eustea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Egia esan, ez da **lagun-laguna**, ezaguna besterik ez. Sonia Gonzalez

## 9 kidea.

Hosto-formako plater berde handi bat, zurtoin-formako eskulekuz, gainean purpura-koloreko mahaspasa eta almendra zuritu mordoxkak zituela; haren plater **laguna**, Esmirnako pikuz osaturiko lauki zuzen trinko bat gainean zuela. Irene Aldasoro

## 10 *jainkoa lagun*

**Jainkoa lagun,** egun batez zorionean biziko gara elkarrekin. **Jainkoa lagun,** zure gorpuzkinak bizi luze baten ondotik ohoratu nahi ditut. Patxi Zubizarreta

Eta ene itzuleran, **Jainkoa lagun,** zure aitaren postuan ikusiko zaitut, haren desira betez. Patxi Zubizarreta

Eta **Jainkoa lagun** bai, eta inoren errukitik gorde zaitzala berak. Patxi Ezkiaga

Gauden beti halere, **Jainkoa lagun,** esperantza horrekin... Herria

-Dama -erantzun zion Arturrek-: **Jainkoa lagun,** ikusiko dugu berriro elkar. Juan Kruz Igerabide

-Ez, eta ea azkenekoa ere ez den, **Jainkoa lagun**! Karlos Zabala

Horrela egingo dugu, beraz, **Jainkoa lagun**. Elizen arteko biblia

## 11 *lagun egin*sup_1 dio *ad*

Uharteetatik partitzean, kilker batek **lagun egiten** dio marinelari. Patxi Zubizarreta

Kieveko printzeak hamabi kosakoekin **lagun egin** zion Margarita alkatearen izeba pinpirinari etxeraino. Felipe Juaristi

Nik erantzun orduko hirugarren katilu batek **lagun egin** zien mahai gainean zeuden bertze biei. Aingeru Epaltza

Ni mintzo nintzen eta Edurnek **lagun egiten** zien ene hitzei, noiz irri, noiz serio, kontakizunak zer bide hartzen zuen eta horrela. Aingeru Epaltza

Izan ere, errepresentazio ezberdinei **lagun egiten** dien kontzientzia enpirikoa sakabanatua da berez eta ez du harremanik subjektuaren identitatearekin. Ibon Uribarri

Liburuek **lagun egiten** diote. Patxi Zubizarreta

Begira ari zitzaigun plazan zabalduta zegoen pankartatik, eta **lagun egin** zigun atsekabean. Rafa Egiguren

· **-Lagun dagidala** Jainkoak! -esan zuen ilobak-. Patxi Ezkiaga

## 12 *lagun egin*sup_2 da *ad*

-Zuen mutikotxo maitagarriaren **lagun egin** gara -esan zuen Swan andreak. Mirentxu Larrañaga

Inguruko baserritarren **lagun egin** ginen eta eskolako lanetan ere laguntzen genien. Jon Maia

Lapurren buruzagiak, Kogia Husain izena harturik, Ali Babaren semearen **lagun egin** zen. Patxi Zubizarreta

Zeinen ederki adierazia bigarren inozentzia hori, sineste astun guziak alboratu, eta gizona eulien **lagun egiten** deneko hori! Patziku Perurena

## 13 *lagun eraman*

Herrialde suntsitu eder hau iragaten nuela kapitain karlista ohi bat **neraman lagun,** ni bezala Baionako Diligencias Peninsulares-en inperialean jarrita. "Urrezko karroan" berarekin zein eta zein preso **lagun eramango** dituen, gogoetan ematen du denbora luzea. Koldo Izagirre

Bazkalondoan, emakumeek joan nahi izan zuten nik hain debozio handiz artatu nituen dohakabe haiek ikustera; ni **eraman** ninduten **lagun**. Jon Muñoz

Gorrotoa, kanpoko kausa baten ideiak **lagun** daraman Tristura da. Piarres Xarriton

Izan ere, Maitasuna ez da kanpoko kausa baten ideiak **lagun daraman** Poztasuna baizik. Piarres Xarriton

## 14 *lagun etorri*

Biharamun goizean, Holofernesek bere gudarosteari eta **lagun etorri** zitzaizkion gudariei Betuliarantz abiatzeko agindu zien. Elizen arteko biblia

Aita Mathieu, Baionako San Klemente elizako apeza; haren **lagun etorri** den adiskidea, Graxi, eta... Elena Touyarou

Etxeberri Sarakoa **datorkigu lagun,** ia hiru mende alfer samarrik igaro balira bezala: [...]. Iñaki Segurola

Edonon eta edonori **datorkio lagun,** edonon eta edonori gerturatzen zaio. Askoren artean

Ene Jainko, zatozkit **lagun**! Elizen arteko biblia

## 15 *lagun hartu*

Ezkutari bat **lagun harturik,** zaldi gainera igo eta Pugliako lurraldera abiatu zen. Askoren artean

Jaiki zen Moises, eta, Josue **lagun hartuta,** Jainkoaren mendira igo zen. Jose Antonio Mujika

Abigail, berehala jaiki, asto gainean jarri eta bost neskatxa **lagun hartuz,** Daviden mandatarien ondoren joan eta Davidekin ezkondu zen. Elizen arteko biblia

Eta Sakabik Egañazpi **hartzen** duelarik **lagun** hasten da trikiti munduan panderistaren izena soinujolearen ondoan agertzen. Areago, emaztearekin eta haurrekin gogor eta latz ziren senarrak eta aitak, zakur bat **lagun hartu** eta eztiago. Iñigo Aranbarri

Zergatik **hartu** duzu **lagun** Siriako erregea, Jauna, zeure Jainkoa, hartu beharrean? Elizen arteko biblia

· Joan den larunbatean, Nathalie Durruty Gure Ametsakoak biziko **lagun hartu** du Peio Etchegoyen Hazpandarra. Herria

## 16 *lagun ibili*

Ez ote dugu eskubiderik emakume fededun bat **lagun ibiltzeko,** beste apostoluek, Jaunaren anaiek eta Pedrok berak bezala? Elizen arteko biblia

Jinetera batek hogei, hogeita hamar edo berrogeita hamar dolarreko "eskupekoa" jaso zezakeen turista baten **lagun ibiltzeagatik**. Jon Muñoz

Ortzegunean aro ederra **lagun ibili** da. Herria

Talderik ikusgarrienak arrastirian irteten dira; eta baserriz baserri, makuluak, trikitia eta kriseilua **lagun ibiltzen**. Txillardegi

Batzuk espainolen **lagun ibiliak** ziren, eta gehienek, une batean izan ez bazen bertzean, fideltasuna aitortua zioten Fernando zakurrari edota Karlos sugeari. Aingeru Epaltza

Serafinek ere, etxeko emakume bat ibiltzen zuen **lagun** panderoarekin kantuan, Antoni arreba. Iñigo Aranbarri

## 17 *lagun izan*sup_1 du *ad*

Osaba izan **zuen lagun,** Anton Baltzola. Iñigo Aranbarri

Gogoeta horiek izan **nituen lagun** egun askotan. Ramon Saizarbitoria

Egun iguzkitsua eta aski epela **dute lagun**. Amak beste bi ume mutur-zikin **lagun zituela** harrapatu zuen. Eneko Bidegain

Cesar Zapirain oboe jolea **lagun duela**. Eta, Jauna **lagun zutenez**, askok sinetsi zuten eta Jaunarengana bihurtu ziren. Pako Aristi

Atseden hartu ahal izango dute beren nekeetatik, beren egintza onak **lagun baitituzte**. Elizen arteko biblia

Zuhurtasuna **dut lagun,** ezagumen eta bereizmen egokiak ditut neurekin. Elizen arteko biblia

Abrahamen fedeak egintzak **zituela lagun,** eta haren fedea egintzen bidez iritsi zela bere betera. Elizen arteko biblia

Hala ere, zorte ona **lagun izan zuten,** eta egunean zehar ez zuten izaki bizirik edo inolako mugimendurik topatu edo sumatu. Agustin Otsoa

Jainkoa **lagun izan zuen** mutikoak; handitu eta Parango basamortuan bizi izan zen. Jose Antonio Mujika

Halaxe hil zela esan zidaten, nire haurtzaroko **lagun izan nuen** txakur hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Poza eta zoriona **lagun izan ditzazula**. Jose Antonio Mujika

Eskuzabaltasunezko egintza hau burutzeko egiten ari naizen ibilaldian **lagun izan dezadan,** Elizen arteko biblia

## 18 *lagun izan*sup_2 du *ad (aditza ezabaturik)*

Frantzisko San Damian eliza antzinatik eraikia zegoen lekura itzuli zenean, Goi-goikoaren grazia **lagun,** arretaz lan eginez denbora gutxian konpondu zuen. Askoren artean

Kristoren aintzaz markatuak zaudete, gauza guztietan saiatzen baitzarete, grazia **lagun,** hark lurrera etortzean bildutako lehen ikasle-taldearen antzeko izaten. Askoren artean

Sartzeak eta ateratzeak S.S. bat **lagun**. Marzel Etxehandi

## 19 *lagun giro* (*orobat* ***lagungiro***)

**Lagun giroa** nagusitu da, eta, ez da egon ez istilurik, ez antzekorik. Berria - Euskal Herria

Nik ihes egin behar nuen zuen mundu ustel horretatik, eta pertsona garbien eta kontzientziadunen **lagungiroa** bilatu nuen. Koldo Izagirre

Ibiltzen hasi ginen, **lagun giroan,** nik seinalatzen nizkien kaleetan aurrera. Anjel Lertxundi

Aisia gustura bete eta kalitatezko elikagaiak **lagun giroan** edo bakardade urrunean eskuratzearren. Edorta Agirre

**Lagun** giroan dira Finca Vigían. Edorta Jimenez

**Lagun-giro** ederrean zeuden bi-biak, Errioxako ardo-botila bat zeukatelarik mahai gainean. Anjel Lertxundi

## 20 *lagun hurko* (*orobat* ***lagunurko*** *g.er.*)

Ez gutiziatu **lagun hurkoaren** emaztea. Elizen arteko biblia

Eta maita ditzagun **lagun hurkoak** geure burua bezala. Xabier Olarra

**Lagun hurkoaren** gupida. Askoren artean

**Lagun hurkoaganako** maitasun, gupida eta adeitasuna. Askoren artean

Jesu Kristoren aginduak behartzen bainau ene **lagun hurko** guztiak maitatzera. Piarres Xarriton

Gizon arrunta zen hura ere: txakarra ikusten zuen **lagun hurkoaren** begian, eta berean berriz habea ere ez. Bernardo Atxaga

Eta kasu batzuetan **lagun-hurkoa** hiltzea zilegi baldin bada, orduan baita norbere burua hiltzea ere. Juan Martin Elexpuru

Erlijio edo sekta eldarniatu batek harrapatu dituela azpian gure **lagun hurkoetarik** asko eta asko. Iñaki Segurola

Hala eta guztiz ere, esan zien [...] edozein **lagun hurko** zorigaiztokoк urrikalarazten zuen azkenean. Mirentxu Larrañaga

## 21 *lagun joan*

Denek egiten ohi dutena egin zuen: usnatu, inguruan itzulika lotu, haren karesak onetsi eta haren **lagun joan,** isilik. Elena Touyarou

Gailurrera iritsi nintzenean nirekin **lagun zihoan** fraideari esan nion: [...]. Josu Zabaleta

-Gertaera berari buruz, santuaren **lagun joan** zen anai Iluminatoren testigantza, San Bonabenturak jasoa. Askoren artean

Zaldun dohakabearen **lagun joan** ziren denak, zalapartaka eta eskandaluka, nik nahi nuen bezala. Jon Muñoz

## 22 *lagun-min*sup_1

Zuhurtziak isiltasuna du **lagun** min. Anjel Lertxundi

Zaila zela alkoholaren lagun izaten **lagun min** izatera iritsi gabe. Eider Rodriguez

Sekula hitz-erditxorik ere ez, aspaldiko zure **lagun minari**. Mirentxu Larrañaga

## 23 *lagun-min*sup_2 (*orobat* ***lagunmin*** *g.er.*) adiskide mina.

Anaia baino **lagun** minagoak direnak ere. Elizen arteko biblia

Da Ruak entzuna zuen Francisco Salinas Leongo Luis fraidearen **lagun** -min izan zela. Felipe Juaristi

Betristxev jenerala **lagun mina** dut eta, nolabait esateko, baita babesle ere. Jose Morales

La Verna mendiko eremitorio baztertura erretiratu zen, bere **lagun-min** anai Leonekin Askoren artean

## 24 *lagun talde* (*orobat* ***laguntalde*** *g.er.*)

Gustuko zuten elkarrekin ibiltzea, eta, pixkanaka, **lagun-taldetik** banantzen hasi ziren, euren unibertso propioa eratuz. Aritz Gorrotxategi

Hara abiatu zen, bada, Hassan, **lagun talde** txiki bat ondoan. Jon Muñoz

**Lagun-talde** handia berekin zuela, usaingarriz, urre ugariz eta harribitxiz zamaturiko gameluak zekartzala heldu zen Jerusalemera. Elizen arteko biblia

Ikasturtea hasi eta hilabete batzuetara etorri zen eskolara, jadanik oso berandu zenean lagunak egiteko edota herriko **lagun talderen** batean integratzeko. Bernardo Atxaga

**Lagun taldeko** gazteena nintzen. Anjel Lertxundi

Maria Luisa, Lisa lagunentzat, emazte ohiaren **lagun-taldekoa**. Migel Angel Mintegi

## 25 *mutil-lagun* (*179 agerraldi, 38 liburu eta 74 artikulutan; orobat* ***mutilagun*** *19 agerraldi, 4 liburu eta 4 artikulutan*)

Lagun bat, edo **mutil lagun** bat nahi nuela; ez nuen emakumezko lagun bat nahi, gizonezko lagun bat baizik. Josu Zabaleta

Heldutasunera iristeko presa zuen, **mutil-lagunarekin** bizitzeko presa, etxetik alde egiteko presa. Antton Olano

Senarrik edo **mutil-lagunik** gabe, esan nahi dut. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaur, **mutil-lagunari** esan beharrean aurkitu zara, neska batekin bizitzera zoazela. Andoni Egaña

Iheslari baten **mutil-laguna** zelako. Xabier Mendiguren Elizegi

Madrilera joana zen Jorge Uruñuela bere **mutil-lagunaren** epaiketara. Herria

**Mutil-lagun** ohia eta orain harekin ibiltzen den neska, edo ibiltzen zena. Antton Olano

## 26 *mutil-laguntxo iz*

Txikia nintzenean, maitatzen utzi ez zidaten **mutil-laguntxo** bat zakarkidak gogora. Jon Muñoz

## 27 *neska-lagun* (*335 agerraldi, 48 liburu eta 161 artikulutan; orobat* ***neskalagun*** *179 agerraldi, 50 liburu eta 25 artikulutan*)

Bi emazte ditu, edo emazte bat eta **neska-lagun** bat. Oskar Arana

Bata, orduan **neska-lagun** eta orain andre-lagun dudana, Amaia, gertu nahi eta urruti neukana. Joxerra Garzia

Hasieran Martinen **neska-laguna** besterik ez zena, gerora lagun, eta azkenerako adiskide egin dut. Xabier Etxabe

Jean **neskalagun** ohiarekin egin zuen txango batean, oso aspaldian. Iban Zaldua

**-Neska lagun** asko al duzu New Yorken? -galdetu zion Catherinek. Iñaki Zabaleta

Garai hartan nere **neska-laguna** zen. Ramuntxo Etxeberri

**Neska-laguna,** etxera iristean, maleta sarreran utzi eta Mutilaren lanlekuan sartzen da. Antton Olano

Aranaren **neska-lagun** Begoñak aurkeztu zuen ihesari buruzko txostena. Rafa Egiguren

Lana galdu dik, **neska-lagunak** utzi egin dik, lur jota zabilek, negar-ontzi bat eginda. Antton Olano

Bere neska- **lagun** indiarra haurdun zegoela. Joan Mari Irigoien

Bestela ere bilatuko diagu larrialdietarako **neskalagun** bat hiretzat. Jon Muñoz

Neska gazteak **neskalagun** on bat bilatzen saiatu behar du, librea eta munduzalea, plazerak ezkutuan gozatzen lagunduko diona. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hasieratik ezarri zion Sebasen **neskalagun** etiketa, polita zelako agian. Eider Rodriguez

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

**aitaren lagun** (18); **apez lagun** (17); **aro ederra lagun** (15); **aspaldiko lagun** (42); **bederatzi lagun atxilotu** (10); **bi lagun atxilotu** (37); **bi lagun hil** (40); **bi lagun zauritu** (18); **bideko lagun** (9); **bizi lagun** (10); **bost lagun atxilotu** (16); **bost lagun hil** (30); **bost lagun zauritu** (12); **denbora ederra lagun** (9); **dozena bat lagun** (15); **dozena erdi lagun** (9); **dozenaka lagun** (37); **eguraldia lagun** (21); **ehun bat lagun** (56); **ehun lagun** (57); **ehun lagun inguru** (17); **ehundik gora lagun** (9); **ehunka lagun** (108); **elkarren lagun** (22); **eskolako lagun** (20); **espos lagun** (25); **frantziskoren lagun** (13); **grazia lagun** (12); **gure otoitzak lagun** (26); **hainbat lagun atxilotu** (12); **hainbat lagun zauritu** (9); **hamar lagun atxilotu** (17); **hamar lagun hil** (10); **hamar mila lagun** (9); **herriko lagun** (9); **hiru lagun atxilotu** (24); **hiru lagun hil** (42); **hiru lagun zauritu** (21); **ideiak lagun daraman** (23); **jainkoa lagun** (52); **jainkoak lagun** (33); **jauna lagun** (19)

**lagun agertu** (9); **lagun andana** (13); **lagun arte** (10); **lagun artea** (11); **lagun artean** (55); **lagun arteko** (40); **lagun asko** (77); **lagun asko egin** (9); **lagun askok** (14); **lagun askoren** (9); **lagun berri** (15); **lagun berriak** (33); **lagun berriaren** (9); **lagun daraman poztasuna** (10); **lagun daraman tristura** (11); **lagun egin** (85); **lagun egingo** (9); **lagun egiteko** (20); **lagun egiten** (44); **lagun handia** (37); **lagun handiak** (33); **lagun hartu** (23); **lagun harturik** (11); **lagun hartuta** (19); **lagun hurko** (17); **lagun hurkoa**

(72); **lagun hurkoak** (15); **lagun hurkoarekin** (11); **lagun hurkoaren** (71); **lagun hurkoari** (48); **lagun izan zituen** (11); **lagun izango** (36); **lagun izatea** (16); **lagun izateko** (11); **lagun izaten** (17); **lagun izoztua** (30); **lagun jatorrak** (9); **lagun koadrila** (15); **lagun leiala** (9); **lagun maitea** (29); **lagun maiteak** (10); **lagun maiteok** (17); **lagun min** (80); **lagun mina** (101); **lagun minak** (51); **lagun minak izan** (10); **lagun minari** (10); **lagun minen** (10); **lagun ohia** (29); **lagun ohiak** (9); **lagun ohiari** (10); **lagun on** (35); **lagun ona** (50); **lagun onak** (80); **lagun talde** (59); **lagun talde bat** (15); **lagun taldea** (18); **lagun taldeak** (10); **lagun ugari** (22); **lagun zahar** (46); **lagun zahar bat** (12); **lagun zaharra** (23); **lagun zaharrak** (23)

**lau lagun atxilotu** (17); **lau lagun hil** (26); **lau lagun zauritu** (14); **maitatu lagun hurkoa** (11); **mila lagun bildu** (12); **mila lagun hil** (13); **mila lagun inguru** (30); **mila lagun inguruk** (11); **milaka lagun** (143); **milaka lagun bildu** (29); **milaka lagun hil** (9); **milioi bat lagun** (13); **milioi lagun bizi** (13); **milioi lagun hiltzen** (10); **milioika lagun** (24); **musika lagun** (17); **mutil lagun** (33); **mutil lagun ohia** (9); **neska lagun** (66); **neska lagun ohia** (13); **sei lagun hil** (23); **senide eta lagun** (37); **zazpi lagun hil** (20); **zortea lagun** (12); **zortzi lagun atxilotu** (11); **zortzi lagun hil** (13)

**aspaldiko laguna** (34); **bere espos laguna** (10); **bere neska laguna** (13); **bizi laguna** (14); **espos laguna** (17); **laguna du** (9); **laguna dut** (12); **laguna eta biok** (12); **laguna izan** (36); **laguna izango** (9); **mutil laguna** (62); **neska laguna** (116); **oso laguna** (15)

**aspaldiko lagunak** (32); **bertsularien lagunak elkartea** (9); **betiko lagunak** (9); **eskolako lagunak** (12); **espos lagunak** (9); **familia eta lagunak** (12); **lagunak izango** (10); **lagunak izaten** (10); **mutil lagunak** (30); **neska lagunak** (58); **senide eta lagunak** (35); **senideak eta lagunak** (11)

**bere espos lagunarekin** (14); **bere lagunarekin** (33); **lagunarekin batera** (11); **mutil lagunarekin** (15); **neska lagunarekin** (24)

**lagunaren ondoan** (9); **mutil lagunaren** (12); **neska lagunaren** (22)

**espos lagunari** (15); **mutil lagunari** (9); **neska lagunari** (24)

**senide eta lagunei** (21)

---

# lagunarazi, lagunaraz, lagunarazten *(orobat **laguntarazi**)* du *ad* laguntzera behartu.

Honela bada, berehala etorri zen Don Kijoterengana sendatu nahian, eta bere alaba bati **lagunarazi** zion etorri berria sendatzen; itxura ederreko neska gaztea zen alaba hura. Patxi Ezkiaga

Mea-hobira **laguntarazi** dit, bidezko baitzen noski. Juan Garzia

---

# lagunarte *(orobat **lagun arte** g.er.)* 1 *iz* lagunekin izateko zertzelada.; toki batean gertatzen diren lagunen multzoa.

Familia, edota familia horren luzapen baizik ez zen gizartea **-lagunartea,** auzunea, herria- oso babes ona izaten zen pertsonarentzat haurtzaroan. Bernardo Atxaga

Familia eta **lagunartea,** esate baterako, ezinbesteko ardatzak direla. Koldo Zuazo

XVIII. mendeko goi mailako gizarteak hain maite zituen **lagunarte** eta bilkura haiek. Euskaldun izatearen lotsa galdu eta euskara erabiltzen hasi zen **lagunarte** zenbaitetan. Jon Muñoz

Oso maite zuen senar bat, hark ere biziki maite zuena; **lagunarte** bat hari arras laket zitzaiona, eta hura halaber ezin maiteago zuena. Jon Muñoz

Zelulatik kanpora bere kasa ibiltzen hasteak ekarri zion beheraldia bertze **lagunarte** batekin gainditu zuen. Aingeru Epaltza

Antzinako jakintsuen obrak irakurri, bakardadea eta **lagunartea** tartekatu. Markos Zapiain

Nago ez duzula **lagunartea** oso atsegin. Jon Muñoz

Grina horri zion eskaintzen ikasketek, **lagunarteak** eta irakurraldi ugariek libre uzten zioten denbora. Aingeru Epaltza

Literaturaz hitz egiteko **lagunarterik** izan duzu? Ana Urkiza

Bi gizonezkoren arteko **lagunarteak** horixe dauka, pentsatu zuen Damianek, arnasa luzeko harremana izan arren, ez duela haragizko ezerk berritzen sekula. Hasier Etxeberria

Adiskide eta lagunak urrundu egin dizkidazu: ilunpeak ditut **lagunarte** bakar. Elizen arteko biblia

Jende zibilizatua gara, begirunetsua, mota guztietako giro eta **lagunarteetara** ohitua. Aingeru Epaltza

## 2 (izenondoekin)

Bazkari arradoa, eta **lagun arte** beroa eta goxoa. Herria

Aipatu berri ditudan preso ohi biok tarteko zirela, **lagunarte** polita osatu genuen Arrasaten. Joxerra Garzia

**Lagunarte** ona erraten zaion horretan. Jon Muñoz

Bai **lagunarte** ona haiena! Irene Aldasoro

**-Lagunarte** onean utzi dut zure osaba. Migel Angel Mintegi

Rosemonde andrea arras iloba-min da, behar baita aitortu **lagunarte** atseginekoa dela. Jon Muñoz

Xabierrek **lagunarte** txikia omen zuen garai hartan, oso gutxi baitziren futbola gustuko ez zuten mutilak. Joxerra Garzia

Bere **lagunarte** mugatuenean baizik ez zekiten poesia erotikoak idazten zituela. Anjel Lertxundi

Ez nuen topatu **lagunarte** interesgarririk (Aitor Larrañaga salbuespen bakarrenetakoa), ez nuen topatu maitasun-istoriorik (salbuespenik gabe), ez nuen topatu irakasle-maila onik. Xabier Mendiguren Elizegi

## 3 (toki atzizkiez singularrean)

Egun batzuk pasatu ditut italiar matematikari bitxi eta era berean mediku ere bazen baten **lagunartean**. Jon Muñoz

Hara biltzen zen jendea, **lagunartean** ordu batzuk pasatzera eta etxe-zuloan erantsitako lizunak astintzera. Iñaki Segurola

Espero dezagun, behintzat, hau bezalako **lagunartean,** [...] bihotzean gordeko dugula hil eta gure artetik joandako jende handi haren memoria. Irene Aldasoro

Algara egin zuten hirurek, eta zumekizko aulki bat eskuratuta **lagunartera** bildu zen Mentxu. Josu Landa

Zure otoitzez bil ezazu betiko santuen **lagunartera**. Askoren artean

Patu putak -anaiak **lagunartean** eta soilik **lagunarterako** asmatutako beste esamolde bat erabiltzea aizu bazait- hala nahita, [...]. Orobat itzurtzen eta libratzen zaitu liburuak hala jende gorrotagarriaren **lagunartetik** nola ezer ulertzeko gauza ez diren gizon ergelekiko harremanetatik. Joxerra Garzia

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gazte nintzela, behin baino gehiagotan entzun ohi nuen gizonezkoen **lagunarte** giroan *akeita, txola* eta *txokorra* hartzera zihoazela. Koldo Zuazo

Hitanoa da, jakina, **lagunarte** girokoa. Koldo Zuazo

Bizimodu batean oinarritzen dira nazioak, jateko, janzteko, hitz egiteko, espresatzeko formak bultzatzen dituzte, hitz batean, gozamen iturri eta **lagunarte** leku gertatzen dira nazioaren baitan sentitzen direnentzat. Joseba Zulaika

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kafe etxeetara eta garagardotegietara bisitak eta bertan biltzen ziren literatur **lagunarteen** bilerak. Josu Zabaleta

## 6 *lagunarteko izlag*

Ikastaroa amaitzearekin **lagunarteko** afaria egitera joan ginen. Andoni Egaña

Haren bila joan zen berriro **lagunarteko** otorduetara gonbidatzeko. Askoren artean

Espainiako selekzioarekin Maltakoaren aurka jokatu nuèn **lagunarteko** partidan. Joan Mari Irigoien

Ekainaren 2an Osasunaren aurkako **lagunarteko** derbia jokatu ondoren. Berria - Kirola

Brasilen aurkako **lagunartekoan**. Berria - Kirola

**Lagunartekoa** zen, jendekina. Gotzon Garate

Izan ere, ez ziren isilune abegitsu eta **lagunartekoak,** jendea elkartuta dagoenean tarteka gertatu ohi diren horietakoak. Mirentxu Larrañaga

Euskalkiak **lagunarteko** jardunarekin lotzen ditu zenbaitek. Koldo Zuazo

Ikaragarria da erdararen eragina **lagunarteko** hizkeran. Koldo Zuazo

Ondo bereizi behar dira, hala ere, ahozko hizkera eta idatzia, **lagunartekoa** eta jasoa. Koldo Zuazo

Ume eta gazte jendeari zuzendutako saio eta orrialdeetan herriko hizkera, eta baita **lagunartekoa** ere, landu eta zabaldu daiteke. Koldo Zuazo

Txakalen kideko bihurtu naiz, ostruken **lagunarteko**. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

lagunarte giroan (5); lagunarte hartan (4); lagunarte konpainiak (5)

gure lagunartea (3)

aurkako lagunarteko (5); gure lagunarteko (3); lagunarteko bi partida (8); lagunarteko giroa (5); lagunarteko giroan (3); lagunarteko harremanak (3); lagunarteko hiru partida (4); lagunarteko hizkera (26); lagunarteko hizkera lasaian (3); lagunarteko hizkeran (8); lagunarteko partida (29); lagunarteko partida bat (11); lagunarteko partida jokatuko (6); lagunarteko partidak (11); lagunarteko partidan (3)

aurkako lagunartekoa (4); lagunartekoa jokatuko (5); lagunartekoa jokatuko dute (3)

aurkako lagunartekoan (7)

lagun artean kantari (3); lagun arteko afari (3); lagun arteko giroan (3)

---

# lagunartekotasun *iz* lagunartekoa denaren nolakotasuna.

Bazen **lagunartekotasun** halako bat, isil-gordeko kontu hura partekatzeak elkarren lagun minago bilakatu izan balitu bezala. Mirentxu Larrañaga

---

# lagunartezale *iz* lagunartearen zale dena.

Zenbait gizonek heriotzari baino beldur handiagoa diote besteen oniritzia galtzeari, ohoreko gizonak bere burua izaki guztiz bakartua bihurtzeko arriskuan ikusten duelako, egoera jasanezina gizon **lagunartezale** batentzat. Juan Martin Elexpuru

---

# lagundi *(orobat **lagundia** g.er.)* **1** *iz* lagunartea.

-Ikusi egin behar -esan zuen Zakarrak, arin-arin hanka eginez **lagundi** guztiarekin. Koldo Biguri

## **2** erlijio elkartea.

Hamargarren mendekotz bazen Jerusalemen fraide **lagundia** bat beilari eta erromeseri mota guzien artatzeko, geroago "Joani Sainduaren Erizain konpainia" bilakatu zena. Herria

Frantsizkotarren ildo zahar, eta iraunkorretik bazabilan hor, behartsuen zerbitzuko, bereziki Donapaleüko **lagundian**. Herria

Hor Aita Saindua jarri zen bere aulkian eta Kardinaleak beren zizeiluetan, gibeletik zeuzkatela zutik kongregazioneko prelatuak, Aita Sainduaren etxekoak eta beste ehun eta hogeirainoko **lagundia**. Piarres Xarriton

## **3** (L larriz) Jesusen Lagundia.

Jaunaren bideak ezin asmatuzkoak dira, eta **Lagundiak** badu ahala, bitartekoak, modua, bere kumeak babesteko. Iñaki Iñurrieta

Aita Gojenolak **Lagundiaren** babesa zuen, hain erakunde ahaltsuko kide izateak berekin zituen loturekin batera. Iñaki Iñurrieta

Txema Auzmendik ETArekin zerikusirik ez duela dio **Lagundiak**. Berria - Euskal Herria

## **4** ***Jesusen Lagundi***

Elizako beste ordena guztiak erreformatu egin dira lehenago edo geroago, baina Jesusen **Lagundiak** ez du inoiz erreformarik izan. Irene Aldasoro

Juan Miguel Arregi Jesusen **Lagundiaren** Loiolako Probintziako Aita Nagusia. Berria - Euskal Herria

Jesusen **Lagundiko** probintziala Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Berria - Harian

Behin baino gehiagotan azpimarratu zuen, atzoko prentsaurrekoan, Jesusen **Lagundiko** arduradunekin duten «harreman bikaina». Berria - Kultura

Musika ikasitakoa zen bera ere, Comillasen, Jesusen **Lagundiaren** Unibertsitatean. Bernardo Atxaga

Fedegabeei armak edo beste edozer gauza emateko debekuaz, Coimbrako Jesusen **Lagundiaren** Ikastegi Ezagunari eskainia. Piarres Xarriton

Jesusen **Lagundiko** kidea zen, apaiza, teologoa, logika eta metafisikako irakaslea Vienako Unibertsitatean. Askoren artean

Gojenola bera ere elizgizona dela, Jesusen **Lagundikoa,** Inazioren armadako soldadua, haren "hautapen aldaezina" egindakoa... Iñaki Iñurrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

jesusen lagundiak (9)

jesusen lagundiaren (6)

jesusen lagundiko (8)

---

# lagundiburu *iz* lagundi baten burua.

Pedro Arrupe jesuiten **lagundiburu** zenak. Herria

Koldo Cachoren ondotik, huna Txema Auzmendi jesuitaren aldi Pedro Arrupe **lagundiburu** famatuaz hitz egiteko. Herria

---

# lagundu, lagun, laguntzen **1** dio-du *ad* norbaitengana bildu, doan tokira harekin joateko; norbaitek lagun eramanik joan.

Atari nagusiraino **lagundu** zien, eta han Filch etxezaina ikusi zuen. Iñaki Mendiguren

Logeletara **laguntzen** digun bitartean. Oskar Arana

Salaraino **lagundu** nion, eta sofan eserita geratu zen. Inazio Mujika Iraola

Oporretako zazpigarren egunean ospitalera **laguntzeko** eskatu zidan Mary Annek. Bernardo Atxaga

Antzoki ondoan utzita zuten autora **lagundu** genien gero. Ramon Saizarbitoria

Nahi duzu berriz bestaldera **laguntzea,** Adela? Juan Kruz Igerabide

Kontuz-kontuz **lagundu** zioten autoraino, eta aurreko eserlekuan eseri zuten. Juan Kruz Igerabide

Weasley jaunak **lagundu** zion Harryri bi auto berde zaharkitu eta ilun haietako lehenengoraino zegoen tarte laburrean. Iñaki Mendiguren

Egun batez, bere semeari azken egoitzara joaten **laguntzen** ikusi zuten, hilerrira bidean. Patxi Zubizarreta

Biharamunean, Eleutero izeneko ibairaino **lagundu** zion Jonatanek Ptolomeori. Elizen arteko biblia

Aharrausika hasi zen berehala, eta agindu zuen bere gelara **lagun** ziezaiotela. Jose Morales

**Lagundu** erregeari toki guztietara. Elizen arteko biblia

Telefonora **lagundu,** zenbakia markatu eta nituen diru xeheak eman nizkion. Ramon Saizarbitoria

Soaz **lagundu** zion bistatik desagertu zen arte. Migel Angel Mintegi

Ez dago gaizki kafeari **laguntzeko,** ez horixe -trago baten premia nuen, alajaina!-. Migel Angel Mintegi

**Lagundu** partidu hori ikustera. Bernardo Atxaga

Andreak medikua **lagundu** zuen kanporaino eta Joantto bakarrik gelditu zen hil hurrenarekin. Elena Touyarou

Uste dut Larrañagak **lagundu** ninduela autoraino. Daniel Landart

Migel txipiak ez zituen etxekoak ospakizunera **lagundu**. Aingeru Epaltza

**2** irud/hed

Lagunek, biolinaz **laguntzeko** eskatu zioten Heydrichi eta hau desenkusatu egin zen, une hartan nahiago zuelako entzun jo baino. Felipe Juaristi

Musika-talde bat ere bazen koruan, hamabi musikariz osatua, organo-jotzaileari **laguntzeko**. Felipe Juaristi

Margolanen bideoak (musikaz **lagunduak)**. Xabier Olarra

**3** norbaitekin zerbaitetan aritu, jardunaren zati edo pisu nagusia bestearen gain dagoelarik; laguntza eman.

Besotik heldu eta zutitzen **lagundu** nion. Anjel Lertxundi

**Lagundu** behar didazu bezeroa espetxetik ateratzen. Migel Angel Mintegi

Liburu-dendako lanak errenta pagatzen **laguntzen** dio. Oskar Arana

**Lagundu** behar diguk konpontzen! Juan Kruz Igerabide

Amak **lagundu** ote zion ihes egiten edo bere kabuz alde egin ote zuen? Oskar Arana

Kursaala lehertzen **lagundu** nahi zigun. Inazio Mujika Iraola

**Lagun** iezadazu, **lagundu**, infernu honetatik ateratzen. Josu Zabaleta

**Lagun** iezaguzue hiltzen, bizitzen **lagundu** ez diguzuenok! Josu Zabaleta

Gairen batekin arazoren bat nuenean, Adelak **laguntzen** zidan. Juan Kruz Igerabide

Antioko erregearen kontrako borrokan **lagundu** digulako. Elizen arteko biblia

Ezin zion atsoari eskale lanetan **lagundu**. Gotzon Garate

Neskak niri **lagundu** nahi nonbait eta, [...]. Joxe Austin Arrieta

Ama ez zen aski niri eusteko, eta aitak **lagundu** behar izan zion. Juan Kruz Igerabide

Kostako zitzaien horiei, bai, gu menderatzea, alemanek zerutik **lagundu** ez baliete. Ramon Saizarbitoria

Nik **lagundu** nion eginbehar hits horietan. Oskar Arana

Hori da bizitza ulertzen **laguntzen** diguten galderetako bat. Pako Aristi

Xabi Soubelet-ek eskertu ditu elkartea **laguntzen** duten guziak eta lehen lehenik Donibaneko herria. Herria

Estefaniak eta Domingok **lagundu** ninduten bilketan. Aingeru Epaltza

**4** irud/hed

Udan gatz ihintzaz etxeak oro bustitzen dituen itsasoak ere **lagundu** du hiriaren oinarriak asentatzen eta indartzen. Felipe Juaristi

Egia argitara ateratzen **lagundu** duzu. Iñaki Mendiguren

Haren berriketa korapilatsu eta eruditoak **lagundu** egiten zuen bidaiaren astuna arintzen. Oskar Arana

Trantsizio-garaian, birgaitzeak sustatuz, kualifikazio urriko enpleguari diruz **laguntzea**. Koro Navarro

Eredu normatiboa bada ere, zer egin behar den asmatzen gutxi **laguntzen** du. Askoren artean

**5** norbaiten beharrak edo premiak betetzeko zerbait egin.

Gauza ona da erruki egintzetan saiatu eta fruitu onak sortzea, behartsuei **lagundu** eta pobreei zerbait ematea. Askoren artean

**Lagundu** egin behar zion emakume hari... hiltzera zihoan... hil egingo zuten... Iñaki Mendiguren

Izan ere, ez zieten israeldarrei **lagundu** ogia eta ura emanez. Elizen arteko biblia

Horregatik eskatzen dizut, aita, bizirik nengoela halako errukiz **lagundu** zenidan bezala, orain ere **lagun** diezadazula neure oinazeetan, nire alde "Gure Aita"ren bat errezatuz Eman zuzenari, baina ez **lagundu** bekatariari. Askoren artean

Eta niri, **lagun** iezadazu, bakarrik bainago, ez baitut zu beste laguntzailerik. Elizen arteko biblia

Bila dezazula eta onar, zuk **lagundu** ezean, galtzera doan ardia. Askoren artean

**-Lagundu, lagundu** -oihu egin zuen Harryk estu eta larri-, norbaitek, edozeinek! Iñaki Mendiguren

Hastean ontsasko **lagundu** ninduen, gisa guzietara, [...] ene lehen eritasun hartan. Marzel Etxehandi

**6** (era burutua izenondo gisa)

Autobuseko aire girotua edo direkzio **lagundua** ere motor elektriko berberak elikatzen ditu. Berria - Gaiak

Ernalketa **lagunduaren** programan zegoen emakume batek. Luis Elberdin

Ernalkuntza **lagunduaren** lege proiektua onartu zuen atzo Espainiako Kongresuak.

Gaixoei ugalketa **lagunduaren** eta tratamenduen ondorioak arintzeko botiken gastuak. Berria - Euskal Herria

Ikastaldi, behin betiko kontratu edo kontratu **lagunduak** dira gazte anitzek izenpetzen dituzten lehenak. Berria - Harian

**7** ***nahigabean lagundu*** (hiletetan)

**Nahigabean lagunduko** balio moduan erantzun zion Nikolak: [...]. Berria - Kirola

**Laguntzen** zintuela **nahigabean**, berak. Berria - Kirola

- **Laguntzen** zaitugu **nahigabean** -edo antzeko zerbait esan zion han zegoen emakume bakarrak, Gurutze Gorriko txabusina berde bat jantzita zeukanak. Hasier Etxeberria

Trantze horretan, zenbait leku euskarazkotan, "**laguntzen** dizut **nahigabean"** eta holakoak esan beharrean, "etsi!" soila esan ohi da edo zen, motxean eta zuhurrean. Iñaki Segurola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

**altxatzen lagundu** (12); **antolatzen lagundu** (7); **atariraino lagundu** (7); **atera lagundu** (8); **ateraino lagundu** (21); **ateratzen lagundu** (18); **azken egoitzara lagundu** (14); **azken egoitzarat lagundu** (14); **bidean lagundu** (7); **bilatzen lagundu** (6); **diruz lagundu** (46); **ederki lagundu** (6); **egiten lagundu** (56) elgar lagundu (6); **ematen lagundu** (6); **eraikitzen lagundu** (8); **eramaten lagundu** (7); **etxera lagundu** (8); **etxeraino lagundu** (17); **eusten lagundu** (6); **ezin dizut lagundu** (9); **gainditzen lagundu** (8); **hartzen lagundu** (14); **hiltzen lagundu** (10); **igotzen lagundu** (14); **igotzen lagundu zion** (6); **ihes egiten lagundu** (10); **irteten lagundu** (6); **jainkoak lagundu** (6); **jaisten lagundu** (14); **jaisten lagundu zion** (7); **janzten lagundu** (10); **jartzen lagundu** (8); **jendeari lagundu** (6); **kentzen lagundu** (8); **lagundu dit** (40); **lagundu nau** (8); **lortzen lagundu** (16); **ongi lagundu** (8); **prestatzen lagundu** (11); **prozesuan lagundu** (6); **sartzen lagundu** (13); **sortzen lagundu** (26); **sortzen lagundu zuen** (9); **ulertzen lagundu** (9); **zutitzen lagundu** (11)

**ernalkuntza lagunduaren** (6)

**argitzen lagunduko** (7); **aurkitzen lagunduko** (9); **betetzen lagunduko** (8); **bilatzen lagunduko** (10); **diruz lagunduko** (31); **egiten lagunduko** (35); **eramaten lagunduko** (6); **gainditzen lagunduko** (14); **hobetzen lagunduko** (7); **izaten lagunduko** (10); **jainkoak lagunduko** (7); **konpontzen lagunduko** (6); **lortzen lagunduko** (8); **ulertzen lagunduko** (12)

**diruz laguntzea** (19); **etari laguntzea** (19); **laguntzea egotzi** (7); **laguntzea erabaki** (7); **laguntzea izango** (9); **laguntzea leporatu** (10); **laguntzea leporatzen** (13)

**arintzen laguntzeko** (7); **ateratzen laguntzeko** (10); **aurkitzen laguntzeko** (8); **aurre egiten laguntzeko** (8); **bake prozesua laguntzeko** (8); **behartsuei laguntzeko** (6); **biktimei laguntzeko** (16); **egiten laguntzeko** (24); **elkar laguntzeko** (8); **elkarri laguntzeko** (18); **eraikitzen laguntzeko** (7); **errefuxiatuak laguntzeko** (8); **etxera laguntzeko** (6); **gainditzen laguntzeko** (9); **herrialdeei laguntzeko** (6); **hiltzen laguntzeko** (7); **igotzen laguntzeko** (8); **jaisten laguntzeko** (11); **klubari laguntzeko** (8); **konpontzen laguntzeko** (11); **laguntzeko asmoa** (8); **laguntzeko asmoz** (17); **laguntzeko aukera** (12); **laguntzeko borondatea** (8); **laguntzeko eskatu** (51); **laguntzeko eskatzen** (6); **laguntzeko jarrera** (6); **laguntzeko konpromisoa** (8); **laguntzeko moduan** (8); **laguntzeko modurik** (6); **laguntzeko neurriak** (11); **laguntzeko prest** (128); **lanetan laguntzeko** (15); **lortzen laguntzeko** (7); **palestinarrak laguntzeko** (6); **prozesua laguntzeko** (13); **prozesuan laguntzeko** (11); **sartzen laguntzeko** (8); **sortzen laguntzeko** (9); **taldeari laguntzeko** (16)

**aitari laguntzen** (6); **askatzen laguntzen** (6); **ateratzen laguntzen** (10); **betetzen laguntzen** (6); **bizitzen laguntzen** (10); **diruz laguntzen** (33); **egiten laguntzen** (27); **eguraldiak laguntzen** (9); **elgar laguntzen** (9); **elkar laguntzen** (8); **etxera laguntzen** (6); **gainditzen laguntzen** (7); **garatzen laguntzen** (8); **indartzen laguntzen** (6); **izaten laguntzen** (8); **lanetan laguntzen** (13); **lortzen laguntzen** (10); **pasatzen laguntzen** (6); **sortzen laguntzen** (7); **ulertzen laguntzen** (15)

## **lagungai** *iz*

Gogoratu behar dugu bizkitartean Aljeriako gerlatik landa, **lagungaia** aurkitu zuela Xanek, Marie-Luce eta bere lau seme alaba eta bereziki gazte arrotz ala euskaldun aterbeturik, bai Xanek 25 urtez kudeatu zuen Baionako “langile gazteen etxean”, bai Marie-Lucek “Les Mouettes” aterpean. Herria

---

## **lagungarri** **1** *izond* gauzez mintzatuz, laguntzen duena.

Galdera **lagungarriak** era askotakoak izaten dira. Arantxa Iturbe

Tresna administratibo **lagungarri** bat. Joseba Zulaika

Makulu **lagungarrien** antzera erabiliko ditugu bost kontzeptu horiek. Iñaki Arranz

Pertsonen artean gertutasun eroso bat sortzeko **lagungarri** onak izaten dira maiz askotan gustuko otorduak. Juan Luis Zabala

Hipotesi **lagungarrietara** jotzera behartua. Ibon Uribarri

Lente eta prisma **lagungarri** batzuen bidez, bisore batera islatzen da argi hori. Irene Aldasoro

Batzuetan, fotozelularen korrontea -edo pila **lagungarriena-** erabiltzen da objektiboaren irekiera eta obturadorearen kontrola doitzeko. Irene Aldasoro

Transkripzio sistema bakoitzak gehiago edo gutxiago erabiltzen ditu ikur **lagungarriok** . Lourdes Oñederra

Katilua hustu, bertze galleta bat zorroratu eta, marrus-marruska, leku egin nion putzutik atera nintekeelako sentipen **lagungarriagoari** . Aingeru Epaltza

**2** (izen soila izan aditzarekin)

Hitz egitea **lagungarri** da beti. Perfekzioriako **lagungarri** dena sutsu maitatu behar dela. Askoren artean

Elkarte-bizitza eraikitzeko **lagungarri** diren gauzetan. Elizen arteko biblia

Hilketa bat argitzeko **lagungarri** izan daitekeen lekuko baten bila nabil. Migel Angel Mintegi

Argazkiaren hainbat ezaugarri azpimarratzen ditu, argazkia fetixe bihurtzeko **lagungarri** direnak. Josu Zabaleta

Egia esan, Gladstonek 1881ean "zibilizazioaren baliabideak" deiturikoak ia **lagungarri** bezain eragozgarriak izan zitezkeen honelako gerra batean. geure aurreko belaunaldietako hiztunek erabili duten euskara ezagutzea beti izango dugu **lagungarri** . Iñaki Mendiguren

**3** (izena -a artikuluarekin, izan aditzarekin)

Ohi denez, musika **lagungarria** izan zen inpronta itsatsita gera zedin. Bernardo Atxaga

**Lagungarria** izango da zehaztea zer adierazi nahi dugun teknologia hitzaren bidez Mirari hori ulertzeko, berriz, **lagungarria** izan liteke irakurri berri dugun zati baten itzulpena. Irene Aldasoro

**4** (izen soila beste aditz batzuekin)

**Lagungarri** zekarren argazkia ikusita erabaki nuen osorik leitzea. Iñigo Aranbarri

**Lagungarri** zetorkigun ardoak ez zigun kalterik egin. Itxaro Borda

Nire zorionaren ideia hori bera **lagungarri** baliaturik, sarri sentitu nituen ideia haren ondorio onuratsuak. Jon Muñoz

Artetan Jainkoaren izena erabiltzen genuen, giroa **lagungarri** sentitzen genuelarik. Piarres Aintziart

Zeruak bitza gure presentzia eta jardunak atsegin eta **lagungarri** egin harentzat! Juan Garzia

**5** (izen soila -en atzizkiaren eskuinean)

Hegoaldeko euskaldunen **lagungarri** osatu zen zerrenda hori. Aingeru baten gisa kantatzen du, eta doinu txit ederrak sortzen ditu, eta halaber hitzak doinuen **lagungarri** . Koldo Zuazo

Analisi konbinatoriozko adigaiak, eta haien **lagungarri,** mugarik gabeko errepikapenezko aldakiak adibide. Juan Garzia

Lana egiteko, zati asko egokitu ditut, pasarte asko laburtu, begien aringarri, gozamenaren **lagungarri** . Juan Kruz Igerabide

Ibilera hura izugarri atsegina bihurtzen zitzaidan, lasaia eta intimoa, pentsamenduaren **lagungarri** . Bernardo Atxaga

• **6** *iz* laguntzen duen gauza.

Mapak zein beste **lagungarriak** berriki ingelesez atera den argitalpenari zor dizkiogu: Francis of Assisi. Askoren artean

Irakurketarako **lagungarriak** . Askoren artean

· Hitz emana dut egungo ikasia nukeela arieta bat hagitz **lagungarri** zailekoa, eta ez dut hitza jan nahi. Jon Muñoz

· Ezin konta ahala liburu, terapia eta bizi-**lagungarriren** gaia. Iñaki Segurola

**7** ***lagungarri gertatu***

Ederra izango da, bai, zure esker onezko otoitza, baina besteari ez zaio **lagungarri gertatuko** . Elizen arteko biblia

Erbestekoen berri izatea ere, egitasmoa egoki antolatzeko oso **lagungarri gertatu** ohi da. Koldo Zuazo

Liburu hori **lagungarri gerta** dakiguke Paueko hirian gure adiskide zenak eman hitzaldiaren ulertzeko. Ideia hori bereziki **lagungarri gerta** dakiguke euskal azentuaren ikerketan. Piarres Xarriton

Estrategiari, taktikari eta filosofiari buruzko azalpenak **lagungarri gerta** dakizkizuke denbora irabazteko. Rafa Egiguren

**8** ***lagungarriko abere***

Gogorarazten dizugu, Agirre jauna, Espainiako kartzeletako araudiak garbiki esaten duela debekatua dagoela internoek **lagungarriko abereak** edukitzea. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bidean lagungarri** (4); **egitea lagungarri** (4); **egiteko lagungarri** (3); **lagungarri gerta** (26); **lagungarri gerta dakiguke** (9); **lagungarri gertatu** (12); **lagungarri gertatuko** (8); **lagungarri gertatzen** (7); **lagungarri izan** (61); **lagungarri izan daiteke** (14); **lagungarri izanen** (7); **lagungarri izango** (47); **lagungarri izatea** (3); **lagungarri izateko** (3); **lagungarri izaten** (3); **oso lagungarri** (21); **oso lagungarri gerta** (4); **oso lagungarri gertatu** (3); **oso lagungarri izan** (6); **ulertzeko lagungarri** (4)

**lagungarria gerta** (4); **lagungarria izan** (35); **lagungarria izan daiteke** (8); **lagungarria izango** (43); **oso lagungarria** (31); **oso lagungarria izan** (6); **oso lagungarria izango** (8)

**lagungarriak izan** (13); **lagungarriak izan daitezke** (3); **lagungarriak izango** (4); **oso lagungarriak** (8); **oso lagungarriak izan** (5)

---

## **lagungarritasun** *iz* lagungarri denaren nolakotasuna.

Oso berritsua ez zen arren, haren irribarrea, haren **lagungarritasuna** beti berdina zen. Urtzi Urrutikoetxea

---

## lagungiro ik **lagun 19**.

---

## **lagungo** **1** *iz ipar* laguntza elkartea.

1845eko abenduaren 28an bildu ziren 10 Uhartiar, nahikundez beteak, eskualde huntako lehenbiziko jenden arteko **lagungo** baten moldatzeko. Herria

Oraiko **lagungoek,** edo herrietako kesek, bertze itxura bat hartu dute. Herria

Gure baserrietan izan da iratzartze haundi bat aspaldiko urteetan **lagungo** horier buruz. Herria

**2** laguntza.

Egiari zor diogu hemen salatzea, Lafittek hil arte segitu zuela ene ondoan bere **lagungoa,** libertate osoa utziz beti nihauri eta, beharrez, ekarriz ere bere zuhurtzia paregabea

orozgainetik. Herria

**3** lagunen multzoa.

Gorespena bizitza onaren eta egintza onen lagun izan ohi eta behar denez, ez haren **lagungoa,** ez biziera ona, ez ditugu bazter utzi behar. Imanol Unzurrunzaga

---

## lagunkari 1 *izond* lagunkina.

Kalafaten jendea biziki **lagunkari** dela iduri du, arras plaxentak ziren ibili giren lekuetan, eta plazerrekin egin daukute ongi etorri bero bat. Herria

**2** lagun egiten duena.

Eta bere etxean sartzeko ahalegínetan ari zen mozkor bat izumenak jota erori zen dekanoaren barre ozena entzunda, errektorearen faltsete zoliari ahots baxu sakonaz **lagunkari**. Josu Zabaleta

---

## lagunkeria 1 *iz* faboritismoa.

Berak ere barnera nahi, ordu erdi eramaki itxarongelan eta lotsagarria izaki segurtasun indarrak hedabide jakin batekin erakusten ari ziren **lagunkeria**. Aingeru Epaltza

**2** laguntza, gaitzesgarritzat hartua.

Euren lanpostuen defentsan, eta Aenaren eta Setexen arteko **«lagunkeria»** salatzeko. Berria - Ekonomia

---

## lagunketa *adlag* lagun bila.

Beren aintzinean zutena Fabien Itoiz, hura ere heien gisa, **lagunketa** joana, Urruñaraino, xapelgo horrentzat. Herria

---

## lagunki *adlag* lagun gisa.

Aintzineko igandean ere parte hartua zuen Izpuran garaztar adinekoen elgarretaratze hartan arras gozoki eta **lagunki**. Herria

---

## lagunkide 1 *iz* laguna.

Apez eskolen ondotik erakasle kargua ereman du Baionako San Luis ikastetxean 25 urtez, ainitz adiskide argitu eginez ordukotz bai ikasle eta bai **lagunkideetan**. Herria

Zuetako batzuek irainak eta tratu txarrak jasan zenituzten guztien aurrean; besteok horrela erabilitakoen **lagunkide** izan zineten. Elizen arteko biblia

Nazionalismoa erlijio bat da, beste erlijio baten ordezko nahiz beste erlijio baten **lagunkide** izan daitekeen erlijio bizi-betegarri bat, hitzaren adiera guztietan. Iñaki Segurola

Hamazazpigarren eta hemezortzigarren mendeetan Fanar-aren botere politikoa are gehiago zabaldu zen beraien mendeko **lagunkide** musulman askeen ekintzaz. Iñaki Mendiguren

**2** (izenondo gisa)

Laguna zirikatu ere egiten zuen, bikarioaren, apaiz **lagunkideen,** sakristauaren edo seroraren kontra gauza gogorragoak esan zitzan. Koro Navarro

---

## lagunkidetasun *iz* lagunkideen arteko atxikitasuna.

-Haiek badakite zer den **lagunkidetasuna**! -esan zuen komisarioak, etengabe kulunkatzen zen oinari zeharka eta amorruz begira, eta nagiki segurtatu zien ofizialei-: Ezinezkoa da berarekin hitz egitea, jaunak, ezinezkoa. Jose Morales

Harro gaude benetan historikoa izan den eztabaida **lagunkidetasunez** egin delako. Berria - Harian

Yoseikan Budo kirolak gorputza eta buruaren gaitasunak ditu garatzen, konfiantza, kuraia, **lagunkidetasuna** sustatuz, norberak haatik bere jestuak edo ukaldiak menperatuz. Herria

---

## lagunkin *izond* lagunartea atsegin duena, lagunekin adeitsua dena. ik **lagunkoi**.

Eta nola gizakia abere soziala edo **lagunkina** den eta biziak eskatzen dizkion baitezpadako guztiak ez dituen bere etxeko soilekin bereganatzen ahal, [...]. Piarres Xarriton

Abere **lagunkina** dela gizakia. Piarres Xarriton

**Lagunkina** eta alde bat zerbitzu egiterat ekarria, Michel Etchemendy-k bazuen ezagun eta adixkide frango bazter guzietan. Herria

Gizon goxoa, **lagunkina,** beti alegera eta zerbitzu egiterat ekarria. Herria

Mutil koskorretan **lagunkin** zen eta jatorra. Gotzon Garate

Orok maite ginuen adixkide **lagunkina** zen. Herria

Stanley Chowder isil baina **lagunkina,** soropil moztaile eskarmentuduna, poker jokalari maltzur eta ping-pong jokalari aparta, [...]. Oskar Arana

---

## lagunkiro *adlag* adiskidetsuki. ik **lagunkoi 3**.

Ulertzen? -galdetu zidan ahots apalez, serio baina **lagunkiro**. Dena **lagunkiro,** xalotasunez, amultsuki. Ander Irizar

Goxo hitz egin zion, **lagunkiro-**. Joxemari Urteaga

"Polita da doinu hori", esan zidan erretoreak **lagunkiro**. Bernardo Atxaga

Eskua sorbaldan **lagunkiro** ezarririk oihal ostera eroan zenuen batzarraren urruma atzean utziz. Koldo Izagirre

Lajosek, **lagunkiro,** besotik heldu, pasadizo barregarriak kontatu eta gonbidatu berezi-bereziaren antzera jokatu zuen. Ander Irizar

Zerorrek berarekin **lagunkiro** jokatzen baduzu, zakurra beti adiskide leiala izango duzula. Gotzon Garate

---

## lagunkitetza *iz* lagunkidetasuna.

Mende berriak berekin ekarria zuen gerra eta maltzurkeriazko nahastean, nola aldatu ote zen mapa politikoa, ezagutzeko modurik gabe uzteraino, eta nola zortzi botere handiren **lagunkidetza** ederra bira mugatu, biak ere Mendebaldeko Europatik kanpo kokatuta? Iñaki Mendiguren

---

## lagunkoi 1 *izond* adiskidetsua, adiskidezkoa.

Zer abantaila zeukan hitz **lagunkoi** batzuk esateak, elkarrizketaren une jakin batean, isiltasunaren aurrean? Jon Alonso

Irribarre **lagunkoi** batez hartzen zituen beti lagun on batek ohi duen ironiaz, alegia nik botatzen nizkion iritzi hanpatuak.Eta keinu **lagunkoi** baina ez oso atseginez belarritik heldu, tarras eraman eta kolpe bakarrez ebakuntza-mahaian jartzen nau. Urtzi Urrutikoetxea

Nire galdekizun **lagunkoi** baina jakin-minekoak ere ez zituen inoiz erantzuten. Karlos Linazasoro

**2** (adizlagun gisa) ik **lagunkiro**.

**Lagunkoi** eta aholkuak emateko prest agertu zen beti Kearney andrea: jator, hitz batean esateko. Irene Aldasoro

Abegikor eta **lagunkoi,** nahiz eta urrutiko ukitu hori eman bere ahotsari. Joxemari Iturralde

Gero besoa pasa dio **lagunkoi,** neska zotin-dardaretatik babestuz. Urtzi Urrutikoeetxea

-Ederki -esan zuen Gabrielek **lagunkoi,** aldez aurretik beste trago bat eginez-. Irene Aldasoro

Amaordeari eskuan muin eman eta niri ere berba pare bat esan dit **lagunkoi**. Urtzi Urrutikoetxea

"Zer egiten duzu hemen, Mikel?", arrimatu zaio begirale bat, **lagunkoi**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# lagunkor *izond* lagunkoia.

Neskato bat ikusi nuen niregana inguratzen, plazatxoa zuzen-zuzen zeharkatuz, eskuaz keinu **lagunkorra** egiten zidalarik. Joxemari Iturralde

---

# lagunmin ik **lagun 23**.

---

# laguntalde ik **lagun 24**.

---

# laguntarazi ik **lagunarazi**.

---

# laguntasun **1** *iz* lagunen arteko atxikitasuna.

Nire kideek ez zuten, ez, batere **laguntasunik** eta elkartasunik erakusten nirekiko, maisuaren aurrean behintzat. Juan Kruz Igerabide

Anaitasuna berriz, **laguntasunaren** gisara hartuz, ez zitzaion axola jendeen arteko kidetasunean ez baitzuen sinesten. Elena Touyarou

Jatorrizko **laguntasun** edo sozialtasun horrek dakarzkion betekizunak, bi gisatara bete ditzake bakoitzak: edo Estatu legeen bitartez, edo Nazio ohituren bitartez. Piarres Xarriton

**Laguntasuna** eta profesionaltasuna banatzen jakin ezkero, ez dago arazorik. Berria - Kirola

**Laguntasuna,** zoriona eta besta giroa zirelarik oroz gainetik nagusi! Daniel Landart

Errubi taldeak bere besta ospatu du ganden larunbatean **laguntasun** osoan. Herria

Luzaz ukan dezagun leialtasun zelaian eta, bizian, elgarren errespetua, atxikimendua eta **laguntasuna**. Herria

**Laguntasun** agerraldiek emandako indarra. Berria - Kirola

**2** lagun egitea, lagunartea.

Bakarrik bizi zen amonari guk uste baino ezinbestekoagoa zitzaion katuaren **laguntasuna**. Patxi Zubizarreta

Leialtasunean, maitasunean eta **laguntasunean** ez dago animalietan zakurra bezalakorik. Gotzon Garate

Zinez maite ote zuen basapiztia haren **laguntasuna**? Patxi Zubizarreta

Etxetik irten nahi dut, begiratu eta ikusiko ez nauen jendearen **laguntasuna** kalean bilatu. Antton Olano

Eta harrezkero noraezean ibiltzen hasi nintzen, bakarrik, nahiz eta Teresaren **laguntasuna** ezinbestekoa gertatu zitzaidan. Patxi Zubizarreta

Eskertzen ditut bihotz barnetik, gertakari ilun hortan, beren atxikimenduaz eta **laguntasunaz,** lagundu gaituztenek. Herria

**3** laguntza.

Benetako **laguntasuna,** profesional batena. Luis Elberdin

Emakumeek **laguntasuna** errazago eskatzen dutelako. Berria - Gaiak

Eusko Jaurlaritzaren **laguntasuna** ere badutela azpimarratu du. Berria - Kirola

Gudari indartsuak omen ziren, ongi hartzen omen zituzten berengana biltzen zirenak eta **laguntasun** bila joaten zitzaizkienei adiskidetasun-hitza ematen omen zieten. Elizen arteko biblia

Aparteko laguntza zen guretzat, eta **laguntasun** handia segurtasun gaietarako, eta hark utzitako hutsunea nabarmen sentitzen dugu. Josu Zabaleta

**-Laguntasuna** sarri behar izaten zan han, ganadua altzateko, hauspoari eragiteko eta abar. Xabier Amuriza

Baina, nora ote zihoan neskatxa hura, bakar-bakarrik, aitaren edo amaren **laguntasunik** gabe, neba baten babesik gabe, haren adinean behar-beharrezkotzat jotzen badira ere? Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **laguntasuna behar** (5); **laguntasuna behar dute** (3); **laguntasuna eskatu** (4); **laguntasuna eskatu behar** (3)
> **laguntasunik gabe** (4)

---

# laguntsu *iz*

"Aire Ona" batasuneko kideak elgarretaratuko baitira nonbrean eguerditan *Haramboure* Isturitzeko ostatu goxoan desiratuz urte ondar on eta egun **laguntsu** bat guzieri. Herria

---

# laguntto *iz adkor* laguna.

"Zure **lagunttoak** minbizia du" esan zidan Tommyk; handik sei hilabetera Alexek leuzemia zuela esan ziguten. Iban Zaldua

Badira Herriko Etxean **laguntto** mihi-luzeak dituztenak ere. Aingeru Epaltza

---

# laguntxo **1** *iz adkor* laguna.

Nipper Martin, **laguntxo** belarri-txabal bat, Dolton-goa; arbi hazten aritzen zen aitaren basetxean. Mirentxu Larrañaga

Hau, gaizkile hau, egona da hemen lehenago ere, bere **laguntxoekin**. Oskar Arana

Nire **laguntxoek** ezetz, nik neuk aterako nizkiola hesteak, baina ez obispoari, berari, esana egiten ez bazuen. Inazio Mujika Iraola

Biharamun goizean, gu, hiru **laguntxo,** Buick markako auto batean sartu, eta Loiolara bidean jarri ginen. Inazio Mujika Iraola

**Laguntxoen** arteko konponketak tarteko direla. Santiago Iruretagoiena

**2** (deiki gisa)

-Aizu, **laguntxo** -esan zion-, irrikan naukazu jostailu polit honekin lehen aldiz tipo bati tiro egiteko. Migel Angel Mintegi

-Ez da batere erraza izango, **laguntxo**. -Zer, beste bat izatea espero, **laguntxo**? -galdetu zion, eta gero belarrira mintzatuz jarraitu-. Migel Angel Mintegi

---

**laguntza** **1** *iz* norbaitek norbaiten alde egitea, bere ahaleginak haren ahaleginei batuz edo haren premia edo beharrei erantzunez; laguntzeko egiten edo ematen den zera. ik **laguntasun 3**.

Geometriak ere **laguntza** handiak ematen dizkio arkitekturari. Santiago Iruretagoiena

Gainerako garapen-bideko herrialdeentzat [...] **laguntza** publikoa zen kanpoko finantzaketaren bide nagusia. Koro Navarro

Amerikar telebistak **laguntza** teknikoa ekarriko zuen baina oinarrizko teknikariak, kableak ekartzen zituztenak, filmatzen zutenak eta abar... filipindarrak ziren oro. Ramuntxo Etxeberri

Tankera konikoa adigaiaren arabera soilik bihur daiteke begiesgarria ezein **laguntza** enpirikorik gabe. Ibon Uribarri

Amari esango nion ez nuela **laguntza** ekonomikorik behar. Bernardo Atxaga

Hainbeste espero duten **laguntza** eskuzabal hori. **Laguntza** espiritual horren ondotik, hatsa atxiki zuen. Josu Zabaleta

Ahotsa lodirurik, agurearen **laguntza** hil edo bizikoa zuela indartzeko. Anjel Lertxundi

Berriro ere **laguntza** eske natorkizu. Juan Kruz Igerabide

Oihuz hasi da **laguntza** eskean. Iñaki Segurola

-Bidazti batzuk **laguntza** eske! -esan zuen Nadiak. Karlos Zabala

Denentzat laudoriozko, eta bereziki **laguntza** eskezko otoitza zen. Marzel Etxehandi

**2** (aditz baten objektu gisa)

Borrokatzen ari zirelarik, **laguntza** eskatu zioten Jainkoari, eta Jainkoak entzun egin zien. Elizen arteko biblia

Etxera itzultzeko **laguntza** eskatzen dizut. Juan Kruz Igerabide

-A zer **laguntza** bildu dudan! Aingeru Epaltza

Eskuzabal eman zuten **laguntza** hiletak antolatzeko. Elizen arteko biblia

Aise ulertuko da emakume horrek nolako **laguntza** ematen zion Ivan Ogareffi. Karlos Zabala

Txarrenean ere, beti izango nuen etxekoen **laguntza** izateko aukera. Anjel Lertxundi

Prest zegoen **laguntza** eskaintzeko. Anton Garikano

Gerla horretan alemanek **laguntza** gaitza ekarri zioten Franco-ri. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ordukotz baziren zazpi etxe edo aterbe Konpostelara joaiten zirenen beilarieri ostatu edo **laguntza** egiteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Onartuko al zenuke psikoterapeuta baten **laguntza**? Oskar Arana

Herrialde industrializatuetako aurrekontu nazionalek finantzatzen dute ia osorik **laguntza** hori. Koro Navarro

Langabetuei zuzenduriko **laguntza** eta sarien bidez. Iñaki Heras

Bihotz-gogorra bada ere, zure familiaren egoera ondo azalduko bazenio, ez luke adorerik izango **laguntza** ukatzeko. Jose Morales

**Laguntza** antolatzeko ia denborarik gabe. Rafa Egiguren

Ostolazak berak ere eskertuko luke zure **laguntza**. Migel Angel Mintegi

Ez ukatu zeuen **laguntza,** lagundu zamapetik ateratzen. Elizen arteko biblia

Diruak ezin du zure **laguntza** ordaindu. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaixo eta errudunaren **laguntza**-eskaria. Elizen arteko biblia

Maitasun horretatik lekutuak ziren **laguntza**-eskeak eta babes-aseguruak. Fernando Rey

Langabeentzako **laguntza** sistemak. Iñaki Heras

Etxez etxeko **laguntza** zerbitzuak. Iñaki Heras

Espainiako armadari buruzko xehetasunak, baita Alemaniako zein Italiako **laguntza**-tropen gainekoak... Alberto Ladron Arana

Azpikontratazioa **laguntza**-lanekin hasi zen (garbiketak, mantenua, janaria, garrioa...), baina gaur egun oinarrizko ekoizpen prozesu zentralaren zenbait atal ere hartzen ditu. Iñaki Heras

**Laguntza**-etxea [...] zinema baten aurrean zegoen, eraikin itsusi, gris eta handi batean. Urtzi Urrutikoetxea

Behin eta berriz kritikatzen dira administrazioak emandako zenbait **laguntza** mota. Iñaki Heras

Ihesbidea ixten didate, ni galtzen saiatzen dira, inoren **laguntza**-beharrik ez dutelarik. Elizen arteko biblia

Oso oharpen zuhurrak egiten baitizkion troikako **laguntza**-zaldi izpildunari. Jose Morales

**Laguntza** galdea eginen zuela, eta batez ere Volanges andrea iratzar zezaten debekatuko. Jon Muñoz

Beste mundukoen eta hemengoen arteko harremanak benetakoak ziren seinale omen zen Satani **laguntza** eskatze hori. Pello Zabala

Toki hari *Eben-Ezer,* hau da, **"Laguntza**-Harria" eman zion izena. Elizen arteko biblia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Diru-**laguntzen** gorabehera eta gainbeherak. Iñaki Segurola

Herrialde industrializatuetako ekoizpenak dituen diru-**laguntza** ugariak. Koro Navarro

Nafarroako erregeak eskaini zion sos **laguntza** eder bat, ikusten baitzuen beharrezkoa zela bidaiarentzat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Epe ertaineko finantza-**laguntza** emateko aukerak ugalduz. Koro Navarro

Inportazioen kontrolean, aurrekontu-**laguntzetan**. Koro Navarro

Bestalde, herrialde industrializatuen lankidetza-**laguntza** ere ezinbestekoa da. Iñaki Heras

Ez dago inolako lan araudirik, gizarte segurantza, osasun sistema zein bestelako gizarte **laguntza** bateraturik. elkarteko langabetuentzat gutxieneko langabezia **laguntza** bat sorturik. Iñaki Heras

Mediku-**laguntza** hartzeko 1226ko udaberrian hara eraman zutenean. Askoren artean

Oso musika-**laguntza** urriarekin: arrabita, txeloa, oboea edo beharbada fagota. Oskar Arana

Atzerri **laguntza** areagotzea. Iñaki Heras

Kanpo **laguntza** [...] azken urteetan izugarri murriztu da. Iñaki Heras

AEBek barne-**laguntza** horiek kenduko balituzte, nazioarteko kotoiaren prezioak %25 inguru egingo luke gora. Iñaki Heras

**5** ***laguntza-emaile*** *izond* laguntza ematen duena.

Bizidunen elkarte guztietan zeudek pertsona sendo eta **laguntza**-emaileak. Xabier Olarra

Ez du behartzen herrialde hartzailea herrialde **laguntza**-emaileari salgaiak erostera. Koro Navarro

**6** ***neska-laguntza*** erromeriaren ondoren, baserrian bizi diren neskei mutilek etxera laguntzea. ik**laguntze 2**.

90 urterekin sasoiko dago egon, eta lehengo erromeriak, **neska laguntzak** edo gerrako zauriak gaur goizeko kontuak balira bezala kontatu dizkie Joseba Tapia trikitilariari eta

kazetariari. Berria - Kultura

Gero handik **neska laguntza** egin, sagardoa edan eta etxera. Berria - Kultura

Auzoko baserrikoak jotzeko eskatu zion pasodoblea joko du aurrena, gustuko neska gazteari **neska** -laguntza lanak eskatzeko erabiltzen zuena. Xabier Etxabe

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**aurre egiteko laguntza** (12); **babesa eta laguntza** (23); **beharrezko laguntza** (9); **diputazioaren laguntza** (7); **diru laguntza** (758); **diru laguntza bat** (32); **diru laguntza bereziak** (7); **diru laguntza eman** (19); **diru laguntza emango** (22); **diru laguntza ematea** (13); **diru laguntza eskatu** (9); **diru laguntza gehiago** (27); **diru laguntza handiagoak** (11); **diru laguntza handiak** (10); **diru laguntza jaso** (18); **diru laguntza jasoko** (11); **diru laguntza jasotzen** (15); **diru laguntza publiko** (7); **diru laguntza publikoak** (24); **diru laguntza zuzenak** (7); **dolarreko diru laguntza** (10); **dolarreko laguntza** (13); **elkartearen laguntza** (7); **emandako diru laguntza** (9); **emandako laguntza** (22); **erakundeen laguntza** (11); **eskainitako laguntza** (7); **euroko diru laguntza** (63); **euroko laguntza** (63); **giza laguntza** (97); **gizarte laguntza** (23); **gobernuaren laguntza** (16); **herritarren laguntza** (15); **herritarren laguntza eskatu** (7); **jainkoaren laguntza** (10); **jasotako diru laguntza** (7); **jaurlaritzaren diru laguntza** (10); **jaurlaritzaren laguntza** (7); **jendearen laguntza** (11); **kanpoko laguntza** (7)

**laguntza agindu** (9); **laguntza asko** (9); **laguntza behar** (206); **laguntza behar du** (24); **laguntza behar izan** (21); **laguntza beharko** (33); **laguntza beharrean** (10); **laguntza beharretan** (11); **laguntza beharrezkoa** (12); **laguntza berezi** (16); **laguntza berezia** (11); **laguntza bereziak** (15); **laguntza berezirik** (8); **laguntza bikaina** (17); **laguntza bila** (31); **laguntza ederra** (14); **laguntza ekar** (7); **laguntza ekarri** (43); **laguntza ekarriz** (8); **laguntza ekartzea** (8); **laguntza ekartzeko** (16); **laguntza ekartzen** (20); **laguntza ekonomiko** (13); **laguntza ekonomikoa** (27); **laguntza ekonomikoak** (11); **laguntza ekonomikorik** (7); **laguntza eman** (145); **laguntza emanez** (10); **laguntza emango** (47); **laguntza ematea** (98); **laguntza ematea egotzi** (7); **laguntza ematea erabaki** (10); **laguntza ematea leporatzen** (7); **laguntza emateagatik** (13); **laguntza ematearen** (7); **laguntza emateari** (11); **laguntza emateko** (108); **laguntza emateko prest** (11); **laguntza ematen** (78); **laguntza ematera** (18); **laguntza eskaera** (19); **laguntza eskaini** (65); **laguntza eskainiko** (13); **laguntza eskainiz** (8); **laguntza eskaintzea** (9); **laguntza eskaintzeko** (14); **laguntza eskaintzen** (29); **laguntza eskaria** (7); **laguntza eskasa** (8); **laguntza eskatu** (258); **laguntza eskatuko** (17); **laguntza eskatuz** (23); **laguntza eskatzea** (10); **laguntza eskatzeko** (33); **laguntza eskatzen** (70); **laguntza eskatzera** (13); **laguntza eske** (231); **laguntza eske ari** (9); **laguntza eske joan** (13); **laguntza eskertu** (19); **laguntza eskuratu** (8); **laguntza eta babesa** (14); **laguntza ezinbestekoa** (19); **laguntza falta** (7); **laguntza galdez** (17); **laguntza gehiago** (65); **laguntza gehiago eman** (7); **laguntza gisa** (14); **laguntza gutxi** (9); **laguntza handia** (76); **laguntza handia eman** (21); **laguntza handia ematen** (13); **laguntza handiagoa** (24); **laguntza handiagoak** (13); **laguntza handiak** (20); **laguntza handirik** (22); **laguntza humanitarioa** (8); **laguntza izan** (129); **laguntza izan du** (29); **laguntza izango** (74); **laguntza izango du** (34); **laguntza izatea** (9); **laguntza jaso** (67); **laguntza jasoko** (21); **laguntza jasotzeko** (17); **laguntza jasotzen** (42); **laguntza juridikoa** (12); **laguntza logistikoa** (7); **laguntza lortu** (10); **laguntza moduan** (8); **laguntza mota** (21); **laguntza nahi** (7); **laguntza onartu** (11); **laguntza oso** (10); **laguntza osoa** (25); **laguntza paregabea** (8); **laguntza polita** (8); **laguntza premia** (13); **laguntza psikologikoa** (25); **laguntza publiko** (14); **laguntza publikoa** (7); **laguntza publikoak** (33); **laguntza publikorik** (8); **laguntza teknikoa** (22); **laguntza ugari** (7); **laguntza ukan** (13); **laguntza ukanen** (9); **laguntza ukatu** (9); **laguntza ukatzea** (8); **laguntza zerbitzua** (7); **laguntza zuzenak** (22)

**milioi dolarreko laguntza** (11); **milioi euroko laguntza** (11); **nazioartearen laguntza** (15); **nazioarteko laguntza** (48); **nazioarteko laguntza eskatu** (9); **premiazko laguntza** (9); **zaleen laguntza** (22)

**bono laguntzak** (10); **diru laguntzak** (634); **diru laguntzak eman** (18); **diru laguntzak ematea** (13); **diru laguntzak emateko** (16); **diru laguntzak ematen** (18); **diru laguntzak eskatu** (7); **diru laguntzak eten** (7); **diru laguntzak itzuli** (8); **diru laguntzak itzultzeko** (7); **diru laguntzak jaso** (18); **diru laguntzak jasotzeko** (20); **diru laguntzak jasotzen** (16); **emandako diru laguntzak** (11); **emandako laguntzak** (12); **esportaziorako laguntzak** (11); **euroko laguntzak** (9); **gizarte laguntzak** (43); **gizarte larrialdietarako laguntzak** (9); **laguntzak banatzeko** (11); **laguntzak bideratzeko** (10); **laguntzak eman** (40); **laguntzak emanez** (7); **laguntzak emango** (11); **laguntzak ematea** (27); **laguntzak emateko** (29); **laguntzak ematen** (28); **laguntzak eskatu** (17); **laguntzak eskatzeko** (12); **laguntzak eskuratzen** (7); **laguntzak eten** (9); **laguntzak itzuli** (9); **laguntzak itzultzeko** (15); **laguntzak izango** (8); **laguntzak jaso** (27); **laguntzak jasotzeko** (34); **laguntzak jasotzen** (29); **laguntzak kendu** (11); **laguntzak kentzea** (7); **laguntzak kentzeko** (8); **laguntzak murriztu** (18); **larrialdietarako laguntzak** (14); **milioi euroko laguntzak** (8)

**erakundeko errefuxiatuen laguntzarako** (7); **errefuxiatuen laguntzarako** (15); **giza laguntzarako** (49); **haurren laguntzarako** (32); **haurren laguntzarako funtsak** (11)

**aldundiaren laguntzarekin** (7); **diru laguntzarekin** (10); **elkartearen laguntzarekin** (19); **erakundearen laguntzarekin** (16); **etxearen laguntzarekin** (10); **herriko etxearen laguntzarekin** (8); **jainkoaren laguntzarekin** (13); **kultur erakundearen laguntzarekin** (11); **zaleen laguntzarekin** (15)

**diru laguntzaren** (35); **giza laguntzaren** (9); **laguntzaren bat** (14); **laguntzaren beharra** (11); **laguntzaren bila** (7); **laguntzaren premia** (7); **laguntzaren zain** (9)

**diru laguntzari** (14); **laguntzari esker** (79)

**diru laguntzarik** (89); **laguntzarik eman** (18); **laguntzarik emango** (10); **laguntzarik ematen** (9); **laguntzarik eskatu** (13); **laguntzarik izan** (13); **laguntzarik jaso** (26); **laguntzarik jasoko** (10); **laguntzarik jasotzen** (17); **laguntzarik nahi** (10)

**jainkoaren laguntzaz** (20); **jaunaren laguntzaz** (7)

**diru laguntzei** (19); **laguntzei esker** (12)

**diru laguntzen** (179); **diru laguntzen banaketa** (7); **diru laguntzen berri** (9); **diru laguntzen inguruko** (7); **diru laguntzen murrizketa** (8); **diru laguntzen zenbatekoa** (7); **laguntzen banaketa** (7); **laguntzen bidez** (8); **laguntzen murrizketa** (9)

**diru laguntzetan** (15)

**diru laguntzetatik** (7)

**diru laguntzez** (7)

---

## laguntzaile *(orobat* ***laguntzale*** *g.er. eta* ***laguntzalle*** *g.er.)* **1** *iz* laguntze lanak egiten dituen pertsona.

Hernaniko parrokian **laguntzaile** izendatu zuten. Pello Zabala

Erakusleiho apaintzailearen **laguntzaile** izendatu baitzuten. Oskar Arana

Militar karlista bat, bi moja eta haien **laguntzaileak** lohiez estaliak. Koro Navarro

Musikari eta **laguntzaileak** bildu dira elgarrekin besta egiteko goxoki. Herria

Erregeak bere **laguntzaile** nagusi hura bidali zuen hiri-sarrera zaintzera. Elizen arteko biblia

Tom **laguntzaile** ezin hobea izango litzatekeela bigarren solairuko liburu eta eskuizkribu bitxien negoziorako. Oskar Arana

Errekina zekarten **laguntzaile** uniformedunak inguratu zitzaizkion. Koro Navarro

Neskameez ari ginen hizketan, "etxeko **laguntzaile"** deitu beharko litzaiekeela. Josu Zabaleta

Marina etxekoa ez, baina soldatapeko **laguntzailea** dela. Patxi Zubizarreta

Laborategiko **laguntzaile** bat sartu zen eta odola atera zion haurrari. Koro Navarro

Apaizak, lebitarrak, kantariak, atezainak, tenpluko **laguntzaileak** eta gainerako herritarrak. Elizen arteko biblia

Frantziskoren adiskidea eta ordenako arazoetan hurbileko **laguntzaile** izan zuena. Askoren artean

Alemaniar poliziaren **laguntzaile** ukrainarrak. Felipe Juaristi

Ilehoria, hiltzailearen **laguntzailea**. Migel Angel Mintegi

Juan de Panoniaren **laguntzaile** ohi bat, orain harekin etsaiturik zegoena. Juan Garzia

Errukarrien **laguntzaile** nekaezinak ez zion huts egin eta erreguak entzun zizkion. Askoren artean

Nire **laguntzaile** leial, lankide bizkor eta kontseilari zuhur. Askoren artean

Berehala azaldu zen **laguntzaile** bat, limoi ura eskuetan. Javi Cillero

Ez zuen ezagutzen, **laguntzaile** berria zen. Koldo Izagirre

Barkatu **laguntzaile** kaskarra izan banaiz. Anjel Lertxundi

PSOE eta PP ziren aitzindari, baina ezin da ahantzi [...] EAJkoak **laguntzaile** izan zituztela lan zikin horretan. Jokin Urain

• **2** *izond* laguntzen duena.

Karmelo Etxenagusia Bilbaoko gotzain **laguntzailearena**. Seraias apaizburua, Sofonias apaiz **laguntzailea** eta hiru atezainak. Herria

Tesia zuzentzen zion Valarché irakasleak biologo **laguntzaile** postua lortu baitzion Parisen, Inserm-eko laborategi batean. Ramon Saizarbitoria

Bera han baitzen irakasle **laguntzaile,** Animalien Zientzien Departamentuan. Xabier Olarra

Aita Jainko Jaunarekin eta Espiritu Santu **Laguntzailearekin** batera. Askoren artean

Neska **laguntzaile** baten bila hasi zen, begiradaz. Jon Alonso

Zein aldetatik egin zuten eraso gudaroste **laguntzaileek**. Iban Zaldua

Laino artean, eguzkiaren distira gorri ageri zen, motore **laguntzaile** herdoiltsu, kamioien eskeleto, Ford autoen egitura eta metal karraskatuzko multzo itxuragabeetan zehar. Lopez de Arana

Propaganda ideologiko hori arma **laguntzaile** bat besterik ez zela botere inperialistaren armadian. Iñaki Mendiguren

Dikotomia binomio **laguntzaile** bihurtu behar. Ana Urkiza

Azentu **laguntzaileek,** berriz, jokabide prosodiko soila agertu ohi dute. Lourdes Oñederra

Adiskidantza dukezu bertzalde zuhurtziaren **laguntzaile**. Jon Muñoz

Hitzen **laguntzaile** hor dituzu gainerat begiak, eskuak eta azkenean zure gorputz guzia. Janbattitt Dirassar

**3** (adizlagun gisa)

Alderdi haiek ondo ezagutzen omen zituen gidari bat generaman **laguntzaile**. Beitiak bazekien ni ez nintzela musikaria, baina **laguntzaile** hartu ninduen umeak hara eta hona ibiltzeko. Rafa Egiguren

Argiketari kurdu baten **laguntzaile** hasi nintzen lanean. Juan Kruz Igerabide

Bigarren Mundu Gerran mugalari eta **laguntzaile** ibilitakoen testigantzak. Jokin Urain

Sanson artzain hura Tahoe lakuaren inguruetara joan zela Gernika esaten zioten artzain beterano baten **laguntzaile**. Bernardo Atxaga

**4** aditz laguntzailea.

Beherago, 7.1. pasartean, *does* **laguntzaile** azentudunera itzuliko gara. Itziar Laka

Har ditzagun, lehenik, azentugabe azaltzen diren **laguntzaileak**. Itziar Laka

Aditz **laguntzailearen** osagaia aztertzean. Itziar Laka

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baina elementu honek murrizketa estuak jasaten ditu, **laguntzaile** osagaiko elementuen artean bakarra delarik honetan. Itziar Laka

Louiseren **laguntzaile** lana. Itxaro Borda

Beste inon zerbitzari, **laguntzaile** edo igeltsero lanetan aritzeko. Edorta Agirre

Eusko Armadaren **laguntzaile** sareko kideen etxeetan. Itxaro Borda

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Astean bederatzi groshen irabazten zituen maisu-**laguntzaile** bat, nola ausartzen zen hain zorrotza eta handinahia izaten? Koro Navarro

Gu baino apur bat zaharxeagoa zen gazte bati, erizain-**laguntzaile** moduko bati, hots egitea. Urtzi Urrutikoetxea

Garai hartan igeltsero **laguntzaile** nenbilen eta inori ez nion beldurrik. Koldo Biguri

Aguazil-**laguntzaile** sartu behar izan zuen gizonak. Irene Aldasoro

Ez nauk hiltzaile-**laguntzaile** baten ikustera heldu. Itxaro Borda

Katedralean eliza-**laguntzaile** zen Arbidetar baten aholkuak jarraituz. Itxaro Borda

Hori baino lehenago behintzat, gizarte **laguntzaileak** harekin hitz egin nahi du. Pablo Sastre

Eszena-**laguntzailea** lasterka aterako da. Josu Zabaleta

Klinika-**laguntzaile** izateko ikasten ari zen. Juan Kruz Igerabide

Gotorlekuan ba al da hornidurarik nire arma-**laguntzaile** honentzat? Agustin Otsoa

Hondar egun hauetan aski zakarturik dabil gida-**laguntzaile** gaztearekin. Aingeru Epaltza

Langileei dagokienez, aipatuak daude dagoeneko irakasle laguntzailerik ez egotea batetik, eta teknika-**laguntzaile** gutxiegi egotea bestetik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**7** ***aditz laguntzaile***

**Aditz laguntzaile** eta izenordainen taulak. Berria - Euskal Herria

**Aditz laguntzailearen** orainaldia ongi jakinez gero. Berria - Kultura

**Aditz laguntzaile** batuaren ezaugarririk esanguratsuenak. Koldo Zuazo

Emakume hark nirekin jolasean aurrera egiteko gogoa zeukala iruditu zitzaidan 'duk' aditza, **aditz laguntzailea** edo dena delakoa entzun nionean. Hasier Etxeberria

Murrizketa hauek guztiak berreratu beharko ditugu, alderantzizko hurrenkeran, *be+en* **aditz laguntzailearen** atal gisa aukeratzen den kasuetarako. Itziar Laka

**Aditz laguntzailearen** osagaia aztertzean. Itziar Laka

Iparraldeko joera, hain zuzen -alegia, besteak beste, **aditz laguntzailea** aurreratzekoa-. Juan Garzia

**Aditz laguntzaileen** morfologia osoa ikertu zuelako. Berria - Kultura

**8** ***goi laguntzaile***

Kureiaren **goi laguntzaile** Hassan Abu Libdek azaldu zuenez. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aditz laguntzaile** (5); **apez laguntzaile** (4); **beharrezko laguntzaile** (6); **eskualdeburuen laguntzaile** (4); **etaren laguntzaile** (5); **giza laguntzaile** (5); **gizarte laguntzaile** (5); **irakasle laguntzaile** (10); **izan zuen laguntzaile** (5); **kide edo laguntzaile** (9); **laguntzaile balios** (4); **laguntzaile bat bidali** (4); **laguntzaile berria** (4); **laguntzaile bihurtu** (4); **laguntzaile bihurtzen** (4); **laguntzaile eta babesle** (5); **laguntzaile gisa** (43); **laguntzaile izan** (35); **laguntzaile izan zen** (9); **laguntzaile izango** (10); **laguntzaile izatea** (17); **laguntzaile izateko** (7); **laguntzaile izatera** (4); **laguntzaile lanetan** (7); **laguntzaile leiala** (6); **laguntzaile moduan** (9); **laguntzaile onak** (4); **poliziaren laguntzaile** (4); **ustezko laguntzaile** (4); **zuzendariaren laguntzaile** (4)

**aditz laguntzailea** (6); **gizarte laguntzailea** (6); **industria laguntzailea** (4); **irakasle laguntzailea** (4); **laguntzailea izan** (7); **laguntzailea izan zen** (4); **laguntzailea izango** (5); **maisu laguntzailea** (4)

**giza laguntzaileak** (5); **gizarte laguntzaileak** (12); **irakasle laguntzaileak** (9); **laguntzaileak izan** (7); **laguntzaileak izan ziren** (4); **tenpluko laguntzaileak** (9)

**espiritu santu laguntzailearekin** (4); **gizarte laguntzailearekin** (5)

**aditz laguntzailearen** (10); **gizarte laguntzailearen** (6)

**gizarte laguntzailearengana** (5)

**enpresa laguntzaileek** (4)

**gizarte laguntzaileek** (4)

**gizarte laguntzaileen** (4)

**laguntzailetzat jotzen** (4)

---

laguntzale ik **laguntzaile.**

---

laguntzalle ik **laguntzaile.**

---

**laguntzaño** *iz adkor* laguntza. ik **laguntzatxo.**

Gainerat, **laguntzaño** bat Glisseguna sailarentzat. Herria

Bakotxak bere ahalaren arabera **laguntzaño** bat eman dezan. Herria

---

**laguntzar** *iz adkor* lagun handia.

Hala ere, atzo, azken kurtsoko **laguntzar** bat etorri zitzaidan oheraino. Jesus Mari Mendizabal

Bere **laguntzar** Durandarteri ezpata motxez bularpetik bihotza atera ziola. Patxi Ezkiaga

---

# laguntzatxo *iz adkor* laguntza. ik **laguntzaño**.

-Nire isiltasunaren truke **laguntzatxo** bat -esan zion patxadaz-. Migel Angel Mintegi

Seguru nago inori ez zaiola axola izango urteko ikaslerik onenari **laguntzatxo** berezi bat ematen badiot. Iñaki Mendiguren

Gurasoek **laguntzatxo** bat beharko ditek noizean behin. Fernando Morillo

---

# laguntze 1 *iz* laguntza ematea.

Haatik españolek ez dute denetako bakarrak izan nahi ttipiagoen **laguntze** horrendako. Herria

**2 *neska laguntze*** ik **laguntza 6**.

Tabernetan ardoa egoten zen, pattarra, beranduago garagardoa, zigarro bat edo beste, gero **neska-laguntzeak** zelai bazterretan gora, arbola artean. Pako Aristi

· Honek, **neskalaguntzera** joandako mutila harrika hartzeko ohitura ez aspaldiko hura dakar gogora. Patziku Perurena

**Neska-laguntzera** joan eta bueltako bidean galdu egin zen gaztearena. Xabier Etxabe

---

# lagunurko ik **lagun 20**.

---

# lagunzale *izond* lagunak izatea atsegin duena, lagunen zale dena.

Giputzakaz eta danakaz **lagunzalea** ei zan, baina, hango eta hemengo estilo kontuetara jo ezkero, auzia sikuan ebagiko eban: "Giputzek eurena eta guk geurea". Xabier Amuriza

Zeinen **lagunzale**/moldakor eta zoragarri bihurtzen ziren ingurumen "aberastu"ko txerriak, eta zeinen aztoraerraz eta erasokor, aldiz (ia "autista"), "pobretu"etakoak. Xabier Olarra

---

# lahaki *iz* labakia (?)

Zordun gira gizon horien alderat “mutualitateko” lehen **lahakiak** egin baitituzte duela 160 urte. Herria

---

# lahar 1 *iz* sasia; sasiz beteriko lekua. ik **lapar**[1].

Ez dute inausiko, ez jorratuko, eta sasiek eta **laharrek** hartuko dute. Gar bizian ari da gaiztakeria, sua sasi eta **lahar** artean bezala. Elizen arteko biblia

**Laharra** den tokian, berriz, zakurra gaizki ibiltzen da. Gotzon Garate

Hainbeste hazi dituk **laharrak,** istapetan ere sartzen zaizkiguk dagoeneko peto--peto. Juan Garzia

Erretzen ari ziren **laharren** ke sarkorrak garbitu zion barrena. Koldo Izagirre

Ez dute arantza zorrotz eta **lahar** mingarriek bezala zulatuko. Elizen arteko biblia

Ipurtargi baten argia nabarmenago dela ilunpean **laharraren** arantzak baino. Inazio Mujika Iraola

**Laharraren** usain eta ehundura zakarrak zeuzkan zapiak. Anjel Lertxundi

Txoriak kantuz pendoitzetako **laharretan**. Josu Zabaleta

Alferren bidea **laharrez** josia, pertsona zuzenena bide zabala. Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lahar**-zuhaixka idorretatik egur pila pollita bildu zuen. Fernando Rey

**Lahar** edo intxusa adarren bat, soilik, isuskigarratz mordoskaren bat, odola bezain gorri, azaltzen zen bakarrik han-hemenka, zanga ertzetik. Josu Zabaleta

Mila landareko mahastia sasi- eta **lahar**-toki bihurtuko da. Elizen arteko biblia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sasiamen eta amañilili **laharren** usainak. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> sasia eta laharra (6)

---

# lahardi *iz* sasidia.

**Lahardiko** Bidea hartu zuten muinoetatik haratago heldu arte. Agustin Otsoa

---

# lahardikatu, lahardika, lahardikatzen du *ad* larrutu.

Laharrek, asunek eta elorri abarrek jantziak eta zangoak **lahardikatzen** zizkioten. Itxaro Borda

Iruditzen zitzaidan usu, larrurik gabe sortu nintzela, eta agerian neuzkan haragi puska odoltsuak edozein haize bortitzek sarraskitzen zizkidala: bizirik **lahardikatua**. Itxaro Borda

---

# laharrondo *iz* sasi landarea.

Alde egingo ziola etsita, Dionisosek oztopoa jarri zion eder iheslariari, eta sasi edo **laharrondo** bat hazarazi zuen haren aurrean (gauza aski erraza landaretzaren jainkoa den norbaitentzat...). J.M. Olaizola "Txiliku"

**Laharrondo** hura berehala loratu zen, eta lore haiek ninfaren masailen kolorea zuten: horrela sortu ziren arrosak. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# lahartsu *izond* lahr asko dagoena. ik **sasitsu**.

So bat aski ote zen xendra **lahartsuan** tematzeko? Itxaro Borda

**laia** 1 *iz* nekazariaren lanabes zaharra, lurra iraultzeko erabiltzen zena, lurrean sartzen diren altzairuzko bi hortz luzez eta horietako baten gainean itsasten zen zurezko gider batez osatua.

Hamar edo hamabi gizon-emakume **laiak** hartu eta soro ertzean ilaran jarrita, ahal bazen San Martin aurretik, lurrak azpikoz gora jartzen. Pako Aristi

Pixka bat harantzago, **laiak** eta aitzurrak. **Laiarekin** ederki moldatzen da. Josetxo Azkona

Toki patarretan baliatzen ziren **laiak,** beren bi hortz luze-luzeekin. Herria

Galtza zorroa jaso, zurezko hanka itsatsia kendu, eta bertikalki, hortz bakarreko **laia** bailitzan, airean altxatu eta lurrean sartu zuen. Ramon Saizarbitoria

2 ***laian*** *adlag* laiatzen.

**Laian** eta beste lan jeneroetan hasi beharra ere bazen garai haietan eta... Pello Zabala

Gaztela aldean **-laian** apenas egingo zuten edo-. Pello Zabala

---

**laiadun** *izlag* laia duena, laia daramana.

**Laiadun** gizona bere pausoan dabil. Pablo Sastre

Hotza da **laiadun,** aitzurdun gizonaren infernua. Pablo Sastre

---

**laiatu,** lai(tu), laiatzen du *ad* lurraz mintzatuz, laiaz irauli.

Mendi gehiena **laiatu** gabe zegoenean. Mikel Hernandez Abaitua

Euriaren euriz, lurra zopa-zopa eginda, ezin **laiatu,** ezin aretu, ezin zokorrak xehetu, ezin... Pello Zabala

Santa Gurutz maiatzeko, gure soroak **laiatzeko**. Pello Zabala

---

laidatu ik **laudotu**.

---

**laido** 1 *iz* iraina, desohorea.

Orduan bai txintximariak, oihu eta garrasiak, irain, **laido** eta erasoak, sozialistak bere alkietarik joanik, denak bilduak beherean, Lege Biltzarreko uxerrek muga bat egiten zutela beren gorputzekin. Herria

Garrüzeko gazteluzainarengana, lapurreta, **laido,** liskar edo bertzelako makurkeriaren bat salatzera. Aingeru Epaltza

Horren guztiaren gehigarri, zernahi **laido,** kolpe eta mehatxu. Aingeru Epaltza

Adulterioaren A gorri baten **laidoa** soinekoan josirik eraman behar izan zuen Hester Prynne errukarriaren istorioa. Anjel Lertxundi

**Laidora,** lotsaz hiltzera kondenatu zuen. Irene Aldasoro

Sultanarengana iritsi aurretik, irain eta **laido** asko jasan behar izan zuen. Askoren artean

Zer ez du pairatu lege horren gatik: **laido,** irain, mehatxuak. Herria

Ene! jaun zerukoa! nolako **laidoa!...** Zergatik, bada, irainez eta **laidoz** erantzun? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Neure adineko neskei egindakoak kontatzen dituelako, ankerrak guztiz, sexu mailako **laidoz** eta jazarpenez beteak. Agurtzane Juanena

2 (hitz elkartuetan osagai gisa)

Gorapen-hitzen kontrako **laido**-hitzak behin eta berriz belarrietara esan ziezazkiola. Birao eta **laido** sorta luze bat ekarri nuen ahora. Askoren artean

Gezur iraingarriak ugaltzen ziren, **laido** ibai bat eratzen zuten. Karlos Zabala

**Laido**-zaku berean pilatzen dira, nahas-mahas, errealitateak eta mamuak. Juan Garzia

3 ***laidozko*** *izlag* ik **laidogarri**.

Merketasuna gehitzen die gainera bere **laidozko** hitzei, eta, haren arabera, "puta merkea" laidogarriagoa litzateke "puta garestia" baino. Iñaki Segurola

Horregatik hil zen Ternuako uretan, **laidozko** etxe hartara itzuli behar ez izateko. Koldo Izagirre

Ikasleon artaldea **laidozko** makilapean erabiltzeko grina. Juan Garzia

Urkabe zitala, haga lotsagarria, pikota **laidozkoa,** garrote bilaua, huraxe emon behar zidatela, Angiolillori legez. Koldo Izagirre

4 ***laido egin***

-Tematuta zaude guri **laido egiten** -esan zion Luluri erdi negarrez-. Josu Zabaleta

Gure anaiari duk **laido egitea**. Piarres Xarriton

Zure alabak sorrarazi didana halako gisakoa dela, non higuina sor baitiezazuke, baina ez diezazuke **laido egin**. Jon Muñoz

Berdin arropa eta ilaje Jainkoari **laido egiten** ziotenak eta, erran gabe doa, keinu, begirada eta proposamen likitsak oro. · Ezingo diat barkatu egin didaan **laidoa**! Aingeru Epaltza

Suminaren suminez eta amorruz mintzo naiz beste nazioek egin dizueten **laidoarengatik**. Elizen arteko biblia

Bertan konturatu nintzen **laido** handia **egin** zidatela. Matías Múgica

Prakak jaitsi omen zizkioten eta **laido** sexualak **egin**. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

laido egiten (4); laido eta irain (3)

irainak eta laidoak (4); laidoak eta irainak (3)

lotsaz eta laidoz (4)

---

**laidogarri** 1 *izond* iraingarria, laidozkoa.

-Zure hitzak **laidogarriak** dira. Jon Muñoz

Kartzela horietako bizi-baldintzak **«laidogarriak»** direla aitortu zuen. Berria - Euskal Herria

Liburu **laidogarriak** direla esan izan dute.Cruger jaunari ez zitzaion desatsegina Wilmarth andereñoa; **laidogarria** baino ez zion irizten. Bere alaba, Jaurenea-ko ontasun baliosena, ahalke zipitzik gabe gizon batekin etzan zen, eta are **laidogarriago,** sotanadun batekin. Mirentxu Larrañaga

2 (-en atzizkiaren eskuinean)

Ereduzko zigorra merezi du, zalantzarik gabe, baina naturaren **laidogarri** diren oinazeak eta heriotza lazgarria merezi al ditu? Juan Martin Elexpuru

---

**laidoka** *adlag* irainka.

Aita gaizki esaka ari zitzaiola amari, **laidoka** eta irainka, modu txarrean. Joan Mari Irigoien

Bien bitartean aita itzuli zen, eta, semea ez aurkitzean, bekatua bekatuari erantsiz, irainka eta **laidoka** eraso zion emazteari. Askoren artean

Neurriak hautsirik nituelakoan, **laidoka** oldartzea espero izatekoa zen, baina ez hainbertzerainoko adierazpen handirik. Aingeru Epaltza

---

**laidokeria** *iz* egintza laidogarria.

Ez zuela emaztea **laidokerian** zuzenean eta aurrez aurre harrapatu, eta, beraz, ez zeukala ziurtasunik salaketak, eta ez zegoela inolako arrazoirik halako gerra anker bat egiteko. Juan Kruz Igerabide

---

laidostatu ik **laidoztatu**.

---

**laidotsu** *izond* laidoz betea.

Ai, piztia intzestu-egile, ezkon-nahasle horrek, antzezko sorginkeriaz, saldukeriazko dohainez […] bere irrits **laidotsura** zuen erakarri ene erregina itxuraz hain onbidetsuaren gogoa. Juan Garzia

---

**laidotu,** laido(tu), laidotzen **1** du *ad* iraindu, desohoratu. ik **laidoztatu**.

Ez dut **laidotuko** hainbeste mesede egin didan erregina. Juan Kruz Igerabide

Egun hartan ikasi nuen errazagoa dela inor **laidotzea,** laudatzea baino. Egiozu uko **laidotzen** eta izutzen nauen sentimendu horri. Aingeru Epaltza

Gutun hori bera da nire amodioak **laidotzen** zaituela errepikatzen didana. Jon Muñoz

Zeinahi ere den erantzuna, **laidotua** sentitzen da, **laidotua** arrotz baten moduan hartzen dutelako. Oskar Arana

Ama Birjinaren itxura bat kausitu zuten, lehenago lur pean gordea, Arabiarrek ez zezaten gaizki erabili eta **laidotu** . Herria

Espainiako bandera **laidotzea** eta terrorismoa goraipatzea. Berria - Mundua

Ez dezatela **laidotu** ulertu ezin dutena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez dago jainkotu ez den izugarrikeriarik, ez eta **laidotu** ez den bertuterik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (era burutua izenondo gisa)

Gero, estakuru arin batez desagerturik, berehala jinarazten du beraren ordez maitale **laidotua** . Jon Muñoz

Klimaxik gabeko melodia; suge-ezkaten zurrumurrua marmolezko eskaileretan, eta, atzeragotik dardarka, senar **laidotuaren** baritonoa. Oskar Arana

---

**laidotzaile** *izond/iz* laidotzen duena.

Niri, beraren kontra biraolari, pertsegitzaile eta **laidotzaile** izan nintzen honi. Elizen arteko biblia

Hunkitu egiten zen haietaz Jauna, beren menperatzaile eta **laidotzaileen** azpian egiten zituzten negarrengatik. Elizen arteko biblia

---

**laidoztagarri** *izond* laidogarria, iraingarria.

Lau urte-zortzi urte: material pornografikoa egiteko 13 urtetik beherako haurrak erabiltzeagatik; materiala oso **laidoztagarria** denean; materialean ageri diren haurrek bortizkeria fisikoa edo sexuala jasaten dutenean; [...]. Berria - Euskal Herria

---

**laidoztapen** *iz* laidoztea, laidoztatzea.

Gogoraraz dezadan, bidenabar, antisemitismoa bezain aspaldidanikoa dela otoitz-janzkiaren **laidoztapena:** deportatuei soingainekook bahitu, eta haietatik galtzazpiak egiten zituzten SSek, eta gero Lageretan preso zeuden juduen artean banatzen. Juan Garzia

---

**laidoztatu**, laidozta, laidoztatzen *(orobat* ***laidostatu*** *g.er.)* **1** du *ad* laidotu.

Etsaiek **laidoztatu** egin naute. Jose Morales

Emakume hori edukiko dut; **laidoztatzen** duen senarrari kenduko diot. Jon Muñoz

Zeure izen ona belztu zenuen eta askazia **laidoztatu,** seme-alaben gain sumina erakarriz eta zeure zorakeriaren ondorenak jasanaraziz. Elizen arteko biblia

Sarkozy jauna, Bondy hirian egin duzu bisitaño bat polizien sustengatzeko **laidoztatuak** izan zirelakotz, zikinduak ere omen. Herria

Otoitz liburuak urratuak eta zangopilatuak, arrosarioak eta medailak berdin **laidoztatuak..** . Marzel Etxehandi

Ene iduriko merezi bailuke Jainkoaren Handitasuna hainbeste **laidoztatu** ondoan, beste munduko gaztiguak mundu honetan jasaten hastea. Piarres Xarriton

**2** (era burutua izenondo gisa)

Senar **laidoztatuaren** jokamoldea. Koldo Izagirre

Piztia gajoaren zintzurra zertxobait lasaitu zuenean, askatu zen hura nagusi **laidoztatuaren** heldukadatik. Josu Zabaleta

Zure murru **laidoztatuek** / euri nigarrez dolutan. Michel Oronoz

---

**laidoztatzaile** *izond/iz* laidostatzen duena, iraintzailea.

Arneguka ere ibiliak arnegataren bizioa eta gaztigua hartze du, eta laguna laidoztatu duenak **laidoztatzailearena,** eta ez ditu bakarrik anitz xede gaitzengatik anitz gaztigu mota hartze, baina behar dira bestalde konfesatu delako helburu gaitzak-. Piarres Xarriton

---

**laidoztatze** *iz* laidoztea, iraintzea.

Jokinek institutuan jasan zituen burlak eta **laidoztatzeak** . Berria - Euskal Herria

---

**laiko** **1** *izond* elizgizona edo moja ez dena. ik **sekular**[1]; **seglar**.

Klerikoei laguntzeko aukera bitez anaia **laiko** santuak, gizon zuhur eta zintzoak. Askoren artean

Apaiz bakoitzak esan bitza hiru meza, kleriko bakoitzak Salterioa, anaia **laiko** bakoitzak bost Gure Aita. Askoren artean
Erakasle **laiko** gazteak zetozela. Piarres Aintziart

**2** inongo erlijioren mende ez dagoena.
Gizarte **laiko** batean. Herria
Eliz jurisdikzioaren eta jurisdikzio **laikoaren** atzera-aurrerak. Iñaki Iñurrieta
Botere **laikoa** zer da? Piarres Xarriton
"Turkiarren aitak" sultanari agintea kendu, kalifagoa abolitu eta Turkiako Errepublika **laiko** eta modernoa sortu zuen. Jon Arretxe
Lege **laikoa,** eliza katolikotik apartekoa. Andres Urrutia
Erasmok pentsamendu **laikoa** eraiki nahi du. Anjel Lertxundi
Monoteismo **laiko** berria da hau. Patziku Perurena
Moral **laiko** baten aitzindaria dugu. Andres Urrutia
Jaialdi judu **laikoa,** zortzi eguneko iraupena duena. Koro Navarro

**3** *iz* elizgizona ez den pertsona.
Kristau guztiei: erlijioso, kleriko eta **laiko,** gizon eta emakume. Askoren artean
Elizgizonek **laikoen** lepotik dituzten gehiegizko abantailak. Iñaki Iñurrieta
**Laiko** batekin ezkondutako apaizaren alabak. Elizen arteko biblia
Herri mugimenduak ziren, **laikoek** sustatuak. Askoren artean
Hor duzu apostolu erlijioso eta **laiko** handi horien kasua ere. Josu Zabaleta
Isabel Pagola **laiko** misiolariak eman lekukotasuna. Herria
Baldo, Ebanjelio-bizitzara konbertitu aurretik, Lyongo **laiko** ezkondua zen, merkataria eta aberatsa. Askoren artean
Hiltzera kondenatuak ziren apezak eta **laikoak** ere, katolikoak izanez geroz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**4** (hitz elkartuetan)
Hainbat familia erlijioso eta **laiko**-talderen bitartez. Askoren artean
Kleriko nahiz **laiko** bikotea [...] merismo bezala erabiltzen da, anaia guztiak adieraziz. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alderdi laiko** (5); **anaia laiko** (16); **apez eta laiko** (3); **estatu laiko** (6); **kleriko eta laiko** (4); **kleriko nahiz laiko** (12); **laiko andana** (3); **laiko izan** (3)
> **botere laikoa** (15); **eskola laikoa** (3); **estatu laikoa** (7); **laikoa da** (5); **xiita laikoa** (3)
> **alderdi laikoak** (3); **botere laikoak** (4); **laikoak ziren** (3); **xiita laikoak** (3)
> **alderdi laikoaren** (3); **botere laikoaren** (3)
> **xiita laikoek** (12)
> **elizgizonen eta laikoen** (3)

---

# laikokeria *iz* egintza laiko gaitzesgarritzat hartua.
**Laikokerietan** sartuak dira batzu ez dutelakotz onartzen Diwan-eko eskolak sar diten frantses sare publikoan. Herria
Hain hertsiak dira **laikokerian** sartuak diren jende horiek non ukatzen dieten bertze hizkuntzei bizitzeko eskubidea. Herria

---

# laikotasun *iz* laikoa izatea, laikoa denaren nolakotasuna. ik **laizismo 2**.
Errepublika edo **laikotasunaren** objektibitatearenak. Piarres Aintziart
Santo Domingo **laikotasunaren** aitzindari. Piarres Aintziart
Sakristau baten ironiaz eta **laikotasunez** meza entzuten duten euskaldun bakanei. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **laikotasun legea** (5)
> **laikotasuna bermatzen** (4)
> **laikotasunaren alde** (3); **laikotasunaren aldeko** (3); **laikotasunaren legea** (10); **laikotasunaren legearen** (3)

---

# laikotu, laiko(tu), laikotzen da/du *ad* laiko bihurtu, zernahi erlijioren mentedik askatu.
Sinbolismoak ez dira erlijiozkoak bakarrik, eta, Mendebaldeko gizarteak **laikotu** eta gero ere, irudien funtzio sinbolikoak aise iraun du bizirik. Josu Zabaleta

---

# laikotza *iz* kristau elizan, elizgizona edo moja ez denaren egoera, elizgizon ez direnen multzoa.
Kristau Eliza, tokikoa eta unibertsala, bi erlijio-klasetan egituratu zenean, **"laikotza"** eta "kleroa" alegia, [...]. Iñaki Mendiguren
Kristau Elizako **"laikotza"** grekozko hitz arkaiko batez *(laos)* izendatu zen. Iñaki Mendiguren

---

# lain 1 adina.
Oraindik banuen afari on bat ordaintzeko **lain** diru. Jon Muñoz
Gelako objektu guztiak ez zirela existitzen ohartzeko **lain** denbora. geure beharrizanak asetzeko **lain** baliabide eskura ditzakegu. Aritz Gorrotxategi
Gizon ikasia, atsegina, adeitsua da, bizitzeko **lain** irabazten du... Josu Zabaleta
Bizirik irauteko **lain** maitasun izan dugu tarte horretan. Jon Muñoz
Horrek guztiak, ordea, gutun bat betetzeko **lain** ematen ez. Joxe Austin Arrieta
Futbol estadio oso bat hankaz gora botatzeko **lain** leherkari neukan ipurpean. Hasier Etxeberria
Oso gutxi da; baina gosearen harra kentzeko **lain** baduzu. Juan Garzia
Bi lagunentzako **lain,** ozta-ozta. Xabier Mendiguren Elizegi
· Neska pixkanaka hobeto sentitzen zelako, hitz egiteko **lain** behintzat. Joxe Austin Arrieta

**2** ***kosta lain kosta*** kosta ahala kosta.
Sortzaile izan nahi dute **kosta lain kosta**. Bernardo Atxaga
Suspertu egin behar du **kosta lain kosta**. Jesus Mari Mendizabal
Aise ahanzten baitzaie zer den **kosta lain kosta** saihestu behar dena. Markos Zapiain

**Kosta lain kosta** behar dugu Lakda atzeman. Xabier Montoia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**betetzeko lain** (3); **bizitzeko lain** (9); **bizitzeko lain ematen** (3); **botatzeko lain** (3); **egiteko lain** (5); **izateko lain** (4); **jasotzeko lain** (4); **jateko lain** (5); **kosta lain kosta** (11); **lain diru** (3); **lain ematen** (6); **lain irabazten** (4); **lain izan** (3); **ordaintzeko lain** (3)

---

## lainaide ik **lainaire**.

Mendebaletik datorkeenean, euritarako amorrazio handirik gabe, **lainaidea** eta lainaizea deitu izan zaio: euririk apenas eta laino ugari. Pello Zabala

---

## **lainaire** *(orobat **lanaide**) iz* gandua, laino airea. ik **lainaize**.

Mendebaletik datorkeenean, euritarako amorrazio handirik gabe, ***lainaidea*** eta *lainaizea* deitu izan zaio: euririk apenas eta laino ugari. Pello Zabala

**Lainairean** zehar, eta isiltasun egitekotsuan, piamontear ahots bat entzun zen. Juan Garzia

---

## **lainaize** *iz* ik **lainaire**.

Mendebaletik datorkeenean, euritarako amorrazio handirik gabe, ***lainaidea*** eta *lainaizea* deitu izan zaio: euririk apenas eta laino ugari. Pello Zabala

---

## **lainaje** *iz* laino multzoa, lainoteria.

Gaur ere ez duk atera eguzkia, e? esaten dugu hitzetik hortzera edozein **lainaje** tartekatu eta goialdea goibeltzen zaigunean. Pello Zabala

Mendi hegaleko goiz-lainoa, guk normalean lainobera esaten diogun lodierarik gabeko **lainaje** tximadun hori. Pello Zabala

Nolako edo halako, gure aldetiko ezin erabakitze honek ez luke, inolaz ere, narrazioaren gardentasuna **lainaje** umel batean murgildu behar. Karlos Linazasoro

---

## **lainateri** ik **lainoteria**.

---

## lainatu ik **lainotu**.

---

## **laineza** *(orobat **lainezi** g.er.)* **1** *iz* apeta, guraria.

Leku hartara une bateko **lainezari** jarraiki joan zen gau hartan. Ibon Uribarri

Orduan zer litzateke morboa?: legea hauste hutsaren **laineza** eta txoro-haizea?, edo, artearen liturgiaren idiolektoan dioten moduan, transgresioa? Iñaki Segurola

Anne **lainezaz** beteta dago. Josu Zabaleta

*Hasard, nécessité* eta horiek ere ez dira ez dakigunari izena jartzeko **laineza** bat besterik. Iñaki Segurola

**Lainezak laineza,** jasangaitzetik asko zuen niretzat alaba bakarra izateak. Anjel Lertxundi

Oraingo eromen edo **laineza** kartografiko, onomastiko eta toponimiko honetan. Iñaki Segurola

Edozer gauza da inpronunziablea *impronunciable* esateko **laineza** pedanteak harrapatu duenarentzat. Iñaki Segurola

**2** harrokeria modukoa.

Monikarengan, aldiz, harridura izan zitekeen harreman horretako sentimendu nagusia, harridura eta ikara punta bat, eta **laineza** ere bai seguru asko. Joxean Agirre

Gorrotatu egiten ditut beren **laineza** eta hantusteak, exhibitzeko, enkoadratuak izateko, fokoen pean jartzeko duten premia hori. Joxean Agirre

Emazteak **laineza** eta harrokeria horregatik errieta egin zionean. Berria - Kultura

Bitartean Adonais, Hagit emazteak Dabidi eman zion semea, **lainezaz betea** zebilen, hurrengo erregea bera izango zela esanaz. Jose Antonio Mujika

Gizatxar talde bat azaldu zen, **lainezaz** betea. Koro Navarro

Ni bezalakoei, patxara dutenean, lotsa joan eta **laineza** etorri egiten zaie. Matías Múgica

Eta eguzkia eguerdian piko-piko dabilenez, hor joaten da hegoa lotsagabetzen, harroxkotzen, **lainezaz** jantzita. Pello Zabala

Handikiek beren zerbitzariak tratatu ohi dituzten **lainezaz** tratatzen ninduen. Juan Martin Elexpuru

Hurrengo egunean, arrebari deitu eta bere **laineza** eta ergelkeria aurpegiratu zizkion. Koro Navarro

Ea ba, pentsatu nuen, **lainezak** harrotuta. Iñigo Aranbarri

**3** (hitz elkartuetan)

[...] -esan zuen irribarrez eta bi besoekin karpeta estutu zuen **laineza** imintzio bat eginez. Joxean Agirre

**4** ***laineza hartu***

Atzenaldera ordea, zenbait berezitasun erdiasmatu onartu zaizkienetik, **laineza** hartu dute. Patziku Perurena

Errieta egin nion mutikoari tiroa huts egiteagatik, eta **laineza** hartuta erantzuten hasi zitzaidanean, belarrondoko eder bat eman nion. Koro Navarro

Eta gogor ere jarri behar izaten nuen batzuetan, batik bat **laineza** hartzen zuenean. Joan Mari Irigoien

-Aizu -esan zion Mahonyk gizonari, **laineza** harturik-, eta zeuk zenbat dituzu? Irene Aldasoro

Gizon horiek, nire isiltasunarekin **laineza** hartuta, burua apurtzen badidate, zerorrek izango duzula erantzukizuna.-Ez dakizu ongi, maisu, ze **laineza** hartu duten zure esan horrekin. Iñaki Segurola

Hitz egin ahala, harrotuz joan zen Fernando, eta **laineza** hartutako ume baten jarioarekin mintzo zitzaion, barrenak etenda. Pedro Alberdi

**5** ***lainezaz bete*** du *ad* norbaiti, bereziki ume bati, nahi duena-edo egitezn utzi.

Dena onartu, norbait **lainezaz bete**. Antton Olano

**Lainezaz bete** ote zuen? Jon Muñoz

Zuk **lainezaz betetzen** nauzu? Antton Olano

---

## **lainezatu,** laineza(tu), lainezatzen **1** du *ad* mainatu. ik **laineztu**.

Hargatik dute bankuek eta gainerako erakundeek holako interesa artistak **lainezatzen** eta promozionatzen, eta bazter guztiak artez betetzen. Iñaki Segurola

**2** (era burutua izenondo gisa)

Obeditzeko beste modu bat, txoroa eta **lainezatua**. Iñaki Segurola

lainezi ik **laineza**.

**laineztu**, lainez, lainezten da/du *ad* harrotu. ik **lainezatu**.

Onartzen zuen telebistan izana zela, eta liburu bat argitara eman zuela, baina ez zen batere **laineztu,** ume askori gertatuko zitzaion moduan. Xabier Olarra

Nerabe **laineztuak** aitari buruz hitz egiten duen bezala hitz egiten duela ETAk estatuari buruz. Joxerra Garzia

Horrenbesteko mirespenekin ez ote nintzen **laineztuko,** gero? Josu Zabaleta

**laino** *(orobat* ***laiño*** *g.er.* ***laño*** *g.er. eta* ***lano*** *g.er.)* **1** *iz* ur tanta guztiz txikiz osatutako multzoa, eguratsean dilindan, berez lurretik hurbil, mantentzen dena. ik **hodei**.

Hodei masa eta **laino** ugari azaltzen dira edonon. Pello Zabala

Ez ei da, ez, batere parte onekoa, goizeko lehen ordu oskarbitu horien ostean, **lainoa** sartzen denean; ez preseski hodeiak, baizik **laino**, lanbro-laino eta lainobera tximatsu hori. Pello Zabala

Nire bistatik desagertu zen, **lainoak** irentsirik. Xabier Montoia

**Lainoa** altxatu zen. Felipe Juaristi

Baina **lainoek,** desegin eta gero, zeru urdinari uzten zioten lekua. Anjel Lertxundi

Dena gandu, dena **laino**. Unai Iturriaga

Sartaldean **lainoa** ikusi orduko, "euria dator" esaten duzue, eta hala gertatzen da. Elizen arteko biblia

**Laino** moduko batek estaltzen zuen dena. Xabier Montoia

Zeruan, **laino** bakar bat ere ez. Anjel Lertxundi

Hodei itxurako sabelak ziren, hodei itxurako esku eta oinak; **laino** arteko zauri eta orbainak ziren. *ik beherago* 10. Felipe Juaristi

Arrapaladan zeharkatu genituen turkoen lurrak, **laino** artean. Felipe Juaristi

Kortsarioen hiru itsasontzi bota zituela hondora eta laugarrena ere botako zuela erraz, **lainoagatik** izan ez balitz. Felipe Juaristi

Itsasoa, **laino** artetik azalduz eta **laino** artean ezkutatuz. Felipe Juaristi

Bezperatik **lainoz** eta hodei arrez jositako zeru ilun goibelak ez digu inolaz uzten. Pello Zabala

Berriro ere **lainoz laino** zebilen nire gogoa, inoiz baino errariago. Bernardo Atxaga

**Lainoak** baino goragoko eremu etereoan. Bernardo Atxaga

**Lainozko** itsaso bat. Piarres Aintziart

Eskua luzatu eta ez du ukitzen ahal, **lainozkoa** da zuritasun hau. Koldo Izagirre

**2** (izenondoekin)

Harik eta portutik zetorren **laino** zikina, **laino** beltza, **laino** itogarria sudurrean sartu zitzaion arte. Felipe Juaristi

**Laino** bustia besterik ez diat ikusten hementxe dena hartuta, eta ez zakiat noiz altxatuko duen edo batere jasoko duen ere... Pello Zabala

**Laino** mehea sartzen ari zen, pabiloi hutsek tristura grisa zuten. Karlos Zabala

Granadara iristean, laino batek, **laino** sarri lodi batek estali zuen itsasoa poliki-poliki. Felipe Juaristi

Itsasontzi bat azaldu zen orduan, gezi batek bezala **laino** sarriaren sarea hautsiz. Felipe Juaristi

**Laino** trinko bat zeharkatzen duen argi errainu batek bezala.Orduan **laino** itxi batek estali zuen dena. Joan Mari Irigoien

Itsas-haize edo brisara arratsalderokoa gogoan izanik, ez da harritzekoa, mendi lepo altu samarren batetik **laino** lanbrotsu gorputz handirik gabeak, mendiari ondo itsatsita abiatzea. Pello Zabala

Ezin nuela ikusi, eta ibaia, **laino** itsu hark ezkutatzen zidana, nire inguruan igerian zebilzkidan izaki bitxiz beterik zegokeela. Josu Zabaleta

**Laino** zuriak itsutu egiten zuen. Iñaki Mendiguren

**Laino** ilunak metatuz joan ziren zeru morean. Fernando Morillo

Ilargiak atzean utzita zeuzkan **laino** ubelak. Anjel Lertxundi

Susmo beltzak hartu zuen Joanes, **laino** beltzek zerua hartzen duten modura. Felipe Juaristi

Zerua mendebal aldeko **laino** arrexkak berdindua. ilargia **laino** geldien artetik agertu zen borobil borobila. Pello Zabala

Zeru urdinean, **laino** urratu batzuk, bizi-bizi, ihes betean. Anjel Lertxundi

Noiz edo noiz eztandek gerra ondorengo isiltasuna hausten dute eta **laino** erradiaktiboa hedatzen da zeruan. Felipe Juaristi

Zubira abailtzen zen **laino**-oro-irenslearekin. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Laino** motak. Pello Zabala

Ipar-mendebaletik datozen **laino**-masa umel askorekin. Pello Zabala

**Laino** eta hodei-masaok azpi-azpitik, tripa-beltz dakartzanean, Ipar-beltza. Pello Zabala

Kolore griseko **laino** multzo mehatxagarri bat ikusi zuen goialdean. Aritz Gorrotxategi

**Laino**-zinta luxe-luxe batzuk antxintxika garraiatuz. Pello Zabala

Koroa handia eguzkiaren jiran nahiz ilargiarenean, **laino** oihal zurbil bat dagoenean erraz ikus daiteke. Pello Zabala

Larun mendiak jantzi ohi duen **laino**-gerrikoa. Pello Zabala

Sartu hemen lanbro-lainotik, lasai-lasai, eta gu hor, bi **laino**-apalen tartean kokaturik. Pello Zabala

Sermoiak ardotan eta ketan itoak ziren, itsaso gorrian **laino** egun batean naufragatzen duten potinak legetxe. Unai Iturriaga

Han, Jauna agertu zitzaien **laino**-adarrean. Elizen arteko biblia

Lehertzear zeuden **laino**-adarrak. Anjel Lertxundi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azken euri-**laino** mehatxugarriak. Itxaro Borda

Langar-**lainoak** ez zuen ezer ikusten uzten hamar metro baino urrutiago. Anjel Lertxundi

Eguzkia ordurako lanbro-**laino** guztia xurgatzen eta ezabatzen, orain goizeko hamaiketan izaten den bezalatsu. Pello Zabala

Ez baitzekien laino sarriaren eragina izan ote zen, askotan gertatzen baita, itsas **lainoa** burura zabaltzea, eta zentzumenak lainotu eta lanbrotzea. Felipe Juaristi

Bero-**laino** hodeitsu horiek ikusgarri hazten dira. Pello Zabala

Trumoi-**laino** gandor biribildun horiekin batera. Pello Zabala

Bereizten da dagoeneko zer den ur eta zer den lur, eta pare bat goiz **laino** ere han goian ageri. Joxe Austin Arrieta

Teknikoki nola deitzen zaien arratseko lainobera hauei? adbekzio-**lainoak**. Pello Zabala

Erradiazio-**lainoak** dira beste mota batekoak: oraingoan ez da airea horizontalki, bailara batetik bestera pasatzen. Pello Zabala

Haren bizitza misterio **laino** batek estaltzen zuen. Pablo Sastre

**5** irud/hed

Lurrunezko **laino** baten erdian. Joanes Urkixo

Amonio klorurozko **laino** itxi zurixka batek harturik zegoen beti laboratorioa. Juan Garzia

Sala zabal batean nengoen, zeinak baitzirudien ezen kezko **laino** batek harturik zegoela. Joan Mari Irigoien

*ik beherago* 9. Askoren artean

Ke zurizko **laino**-gandor labur bi irteten baitzaizkizu sudurretik. Juan Garzia

Teleskopioarekin argi ikusten da zeru **laino** horiek izar askotaz osatuta daudela. Berria - Gaiak

Banekien halaber diru asko zegoela jokoan, eta **laino** beltzen mehatxurik ere ez zela falta: iruzurren bat izango ote zen, prestatzaileek apustua salduko ote zuten. Bernardo Atxaga

Dena den, nebaren oroimenean beti kaosa eta **lainoa** ziren nagusi. Juan Kruz Igerabide

Tristuraren **laino** etsiak. Joxerra Garzia

Testua, krausopositibista eta razionala, kritikoa da **laino** orientaletatik jalgita ikusten den idealismo klasikoarekin. Joxe Azurmendi

Gutxika-gutxika, mutilaren begiak **laino** etilikoz, somniferoz estaltzen hasi ziren. Jasone Osoro

Galderak egiten hasi zitzaidan, **laino** mehatxarietan bildurik ahotsa. Pako Aristi

Alkohol **lainoz** lausoturiko irudi haiek. Alberto Ladron Arana

Atzean lurrin **laino** trinko baten arrastoak utziz. Karlos Zabala

Uste dut Silvioren irudiaren inguruko misterio-**laino** hura gehienbat gure aitak hedatzen zuela. Fernando Rey

Gizon dotoreari haserre **laino** bat pasatu zitzaion begietatik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Isiltasun-**laino** batek inguratuta, barrura sartzen da, eta Lucy aurkitzen du han, zutik, zain. Oskar Arana

## 6 ***behe-laino*** *(63 agerraldi, 29 liburu eta 14 artikulutan; orobat* ***behelaino*** *104 agerraldi, 24 liburu eta 2 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***behe-laino*** *agertzen da)*

Zeru garbiak zeuden edo **behe-lainorik** bazen edo ez. Pello Zabala

Goizeko haizea hotza da, eta **behe-lainoa** dago. Oskar Arana

**Behe-lainoa** jaso du, eta eguzkiaren argia turrustan sartzen da leiho irekietatik.Leihoaren beste aldean, urruti, ferry bat sumatu nuen uraren eta **behelainoaren** artean. Oskar Arana

**Behe-laino** arin eta gris bat airean kulunkan zebilen etxeen gainetik. Eskarne Mujika

Goizetan, loditu egiten duk **behe-laino** mehe hori, berotu egiten duk. Xabier Olarra

Egunak ematen zituen **behelaino** gaziaren eta haizearen erdian hantxe, Ingalaterratik gertuago zegoela iruditzen baitzitzaion horrela. Juan Garzia

Jasango al zituen euria, **behelaino** bero itogarria, zingiretako eta junglako bakardadea?... Xabier Olarra

Nik eman nizkion hodeiak soinekotzat eta **behe-lainoa** ume-zapitzat. Elizen arteko biblia

## 7 irud/hed

Tupustean eta inongo etenik gabe pasatu baitzen adoleszentziaren **behe-lainoetatik** helduaroaren egurats gorrira. Fernando Rey

**Behe-laino** batek hartzen zuela haren behakoa, bertzela hain arraia. Joan Mari Irigoien

## 8 ***erreka-laino*** *iz* erreken eta ibaien inguruan eratzen den lainoa.

Hortaz, beheko zoko eta errekondoetan […], erreka eta ibaien ondoan pilatzen da **erreka-laino** umel, busti eta frexkoagoa. Pello Zabala

Lurrinketa lana datorkio gero, hurrengo goiz azkarrean: **erreka-laino,** behelaino eta lanbrobeherak nonahi. Pello Zabala

Goizeko lauretan, erlojuan seiak ziren arren, artean **erreka-lainoa** xare-xare, lanbrobeheratan, formatzen osatzen eta trinkotzen. Pello Zabala

Eta bada tristura more bat, idorra, iharra, izerdi larria bezain hotza, [...] geldigorra, gure barrengo laiotzetan aise laketzen den **erreka-laino** baten tankerakoa. Iñaki Segurola

## 9 ***hauts-laino***

Ordokitik ikusten zen **hauts laino** batean murgildurik. Juan Garzia

Atera zenerako, autoek harrotutako **hauts lainoa** baizik ez zuen antzeman. Xabier Montoia

**Hauts laino** txikiak harrotzen ziren haien orpoen atzetik. Karlos Zabala

Wild 2 kometako **hauts lainoek** 'Stardust' ontzia jo dutela dio NASAk Andres Untzain, Juan Duñabeitia eta geroagoko batean Ernest Hemingway ordurako ospetsuaren inguruan izango ziren euskaldunak, den-denak. Edorta Jimenez

Partikula horiek izarrak inguratzen dituen **hauts lainoen** artean daudela azaldu zuten adituek. Berria - Gaiak

Historiaren **hauts-lainoak** tragaturiko itzal begitantzen zitzaizkidan. Edorta Jimenez

## 10 ***ke-laino***

Gau eta egun ziharduten suei egurra bota eta bota, eta haien **ke lainoa** sakabanatu egiten zen astiro zingiradi itzelaren gainetik. Karlos Zabala

Kutsaduraren eraginez hirietan sortzen den **ke lainoak** (smog). Berria - Kultura

Tximiniak ondo tiratzen ez, nonbait, eta **ke laino** bat zegoen gela osoan barreiaturik. Hor baitator iparraldetik gudarostea, **ke-laino** trinko baten antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ke-laino** hauskara batek bete zuen gela. Migel Angel Mintegi

Prokop jaunak **ke-laino** bat bota zuen bere pipatik airera. Anton Garikano

Atoiontzien **ke-laino** kiribilduaren, goleten masten eta [...] gabarra ikaragarrien artetik. Lopez de Arana

Javier Madrazok PP, PSOE eta EAJri «euskal gatazka **ke laino** gisa erabiltzea» leporatu zien atzo Donostian, «euren arteko bat etortzea estaltzeko». Berria - Euskal Herria

## 11 ***laino-arte*** *(orobat* ***lainoarte****) iz*

**Laino**-arte gero eta ugariagoetako argi-txinta horixkek lainoetako griskara zama-tsuarenekin kontrastatzen zuten. Anjel Lertxundi

Haiek beraiek izan ziren, ontzia **lainoarte** itsuan zetorrela sumaturik, itsas malden gailurretan argi faltsuak piztu zituztenak. Pako Aristi

· Kontuon hausnarrean nengoela, **laino-tarte** txikia zerratu zen zeruan, inguruko muino txikiak bezain eguzkirik gabe geratu zen kanposantua. Anjel Lertxundi

## 12 ***laino-behere*** behe-lainoa. ik **lainobera.**

## 13 ***laino egon***

Zortzigarren Etorbidea erabat **laino zegoen,** zintzurrari itsatsita geratzen zitzaien lainoa. Lopez de Arana

Kostaren zati horretan ez dago farorik, ez porturik, ez dute ontziek itsasoa **laino dagoenean** behien orroa bezain tristea den sirenarik jotzen. Joxean Agirre

## 14 ***laino-lanbro*** *(corpusean* ***lainolanbro*** *soilik)*

Goiztiria argitzear denean, beheko errekondo eta ibarretan, aldiz, ezkurazko **lainolanbro** zapladak daude erreka-laino eta behelanbro multzotan pilatuta. Pello Zabala

## 15 ***lanbro laino***

Ez preseski hodeiak, baizik laino, **lanbro-laino** eta lainobera tximatsu hori. Pello Zabala

Bero erre ittogarri batzuen ostean, lurrindurako lainobera eta **lanbro-lainoak** noraezean malkarretan lapatuta gelditzea. Pello Zabala

Euri-datu eta datekin batera, behe-laino eta **lanbro-lainoaren** berri ematen zuen. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**behe laino** (21); **bero laino** (3); **elur eta laino** (4); **erreka laino** (9); **haize eta laino** (3); **hauts laino** (4); **hodei eta laino** (5); **ke laino** (27); **ke laino bat** (5); **laino adarra** (11); **laino adarrean** (7); **laino adarretik** (3); **laino arin** (3); **laino beltz** (9); **laino beltzak** (10); **laino beltzen** (3); **laino eta hodei** (7); **laino eta lainobera** (3); **laino gris** (5); **laino**

**handi bat** (3); **laino handiak** (3); **laino hodeiek** (3); **laino ilunak** (5); **laino itxi** (11); **laino itxia** (8); **laino lodi** (4); **laino mehar** (3); **laino mehe** (6); **laino mehe batek** (4); **laino sarri** (8); **laino trinko** (5); **laino trinkoa** (4); **laino txiki** (5); **laino ugari** (3); **laino zuri** (7); **laino zuria** (4); **lanbro laino** (6); **lurrun laino** (3)

**behe lainoa** (21); **gaua eta lainoa** (3); **iluna eta lainoa** (3); **ke lainoa** (9); **lainoa altxatu** (3); **lainoa altxatzen** (3); **lainoa egoitzaren gainean** (4); **lainoa saretu** (3); **lainoa sartu** (7); **lainoa sartu zen** (4); **lainoa zabaldu** (3)

**behe lainoak** (4); **erreka lainoak** (3); **ke lainoak** (6); **lainoak bezala** (4); **lainoak estalita** (3); **lainoak estaltzen** (6); **lainoak hartuta** (3); **lainoak ikusi** (3)

**lainoan murgilduta** (3)

**behe lainoaren** (4)

**lainoei begira** (3)

**behe lainorik** (4)

**lainoz estalita** (3)

---

**laino** *(orobat* ***laiño*** *g.er.* ***laño*** *g.er. eta* ***lano*** *g.er.)* **1** *iz* ur tanta guztiz txikiz osatutako multzoa, eguratsean dilindan, berez lurretik hurbil, mantentzen dena. ik **hodei**.

Hodei masa eta **laino** ugari azaltzen dira edonon. Pello Zabala

Ez ei da, ez, batere parte onekoa, goizeko lehen ordu oskarbitu horien ostean, **lainoa** sartzen denean; ez preseski hodeiak, baizik **laino**, lanbro-laino eta lainobera tximatsu hori. Pello Zabala

Nire bistatik desagertu zen, **lainoak** irentsirik. Xabier Montoia

**Lainoa** altxatu zen. Felipe Juaristi

Baina **lainoek,** desegin eta gero, zeru urdinari uzten zioten lekua. Anjel Lertxundi

Dena gandu, dena **laino**. Unai Iturriaga

Sartaldean **lainoa** ikusi orduko, "euria dator" esaten duzue, eta hala gertatzen da. Elizen arteko biblia

**Laino** moduko batek estaltzen zuen dena. Xabier Montoia

Zeruan, **laino** bakar bat ere ez. Anjel Lertxundi

Hodei itxurako sabelak ziren, hodei itxurako esku eta oinak; **laino** arteko zauri eta orbainak ziren. *ik beherago* 10. Felipe Juaristi

Arrapaladan zeharkatu genituen turkoen lurrak, **laino** artean. Felipe Juaristi

Kortsarioen hiru itsasontzi bota zituela hondora eta laugarrena ere botako zuela erraz, **lainoagatik** izan ez balitz. Felipe Juaristi

Itsasoa, **laino** artetik azalduz eta **laino** artean ezkutatuz. Felipe Juaristi

Bezperatik **lainoz** eta hodei arrez jositako zeru ilun goibelak ez digu inolaz uzten. Pello Zabala

Berriro ere **lainoz laino** zebilen nire gogoa, inoiz baino erratiago. Bernardo Atxaga

**Lainoak** baino goragoko eremu etereoan. Bernardo Atxaga

**Lainozko** itsaso bat. Piarres Aintziart

Eskua luzatu eta ez du ukitzen ahal, **lainozkoa** da zuritasun hau. Koldo Izagirre

**2** (izenondoekin)

Harik eta portutik zetorren **laino** zikina, **laino** beltza, **laino** itogarria sudurrean sartu zitzaion arte. Felipe Juaristi

**Laino** bustia besterik ez diat ikusten hementxe dena hartuta, eta ez zakiat noiz altxatuko duen edo batere jasoko duen ere... Pello Zabala

**Laino** mehea sartzen ari zen, pabiloi hutsek tristura grisa zuten. Karlos Zabala

Granadara iristean, laino batek, **laino** sarri lodi batek estali zuen itsasoa poliki-poliki. Felipe Juaristi

Itsasontzi bat azaldu zen orduan, gezi batek bezala **laino** sarriaren sarea hautsiz. Felipe Juaristi

**Laino** trinko bat zeharkatzen duen argi errainu batek bezala.Orduan **laino** itxi batek estali zuen dena. Joan Mari Irigoien

Itsas-haize edo brisara arratsalderokoa gogoan izanik, ez da harritzekoa, mendi lepo altu samarren batetik **laino** lanbrotsu gorputz handirik gabeak, mendiari ondo itsatsita abiatzea. Pello Zabala

Ezin nuela ikusi, eta ibaia, **laino** itsu hark ezkutatzen zidana, nire inguruan igerian zebilzkidan izaki bitxiz beterik zegokeela. Josu Zabaleta

**Laino** zuriak itsutu egiten zuen. Iñaki Mendiguren

**Laino** ilunak metatuz joan ziren zeru morean. Fernando Morillo

Ilargiak atzean utzita zeuzkan **laino** ubelak. Anjel Lertxundi

Susmo beltzak hartu zuen Joanes, **laino** beltzek zerua hartzen duten modura. Felipe Juaristi

Zerua mendebal aldeko **laino** arrexkak berdindua. ilargia **laino** geldien artetik agertu zen borobil borobila. Pello Zabala

Zeru urdinean, **laino** urratu batzuk, bizi-bizi, ihes betean. Anjel Lertxundi

Noiz edo noiz eztandek gerra ondorengo isiltasuna hausten dute eta **laino** erradiaktiboa hedatzen da zeruan. Felipe Juaristi

Zubira abailtzen zen **laino**-oro-irenslearekin. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Laino** motak. Pello Zabala

Ipar-mendebaletik datozen **laino**-masa umel askorekin. Pello Zabala

**Laino** eta hodei-masaok azpi-azpitik, tripa-beltz dakartzanean, Ipar-beltza. Pello Zabala

Kolore griseko **laino** multzo mehatxagarri bat ikusi zuen goialdean. Aritz Gorrotxategi

**Laino**-zinta luxe-luxe batzuk antxintxika garraiatuz. Pello Zabala

Koroa handia eguzkiaren jiran nahiz ilargiarenean, **laino** oihal zurbil bat dagoenean erraz ikus daiteke. Pello Zabala

Larun mendiak jantzi ohi duen **laino**-gerrikoa. Pello Zabala

Sartu hemen lanbro-lainotik, lasai-lasai, eta gu hor, bi **laino**-apalen tartean kokaturik. Pello Zabala

Sermoiak ardotan eta ketan itoak ziren, itsaso gorrian **laino** egun batean naufragatzen duten potinak legetxe. Unai Iturriaga

Han, Jauna agertu zitzaien **laino**-adarrean. Elizen arteko biblia

Lehertzear zeuden **laino**-adarrak. Anjel Lertxundi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azken euri-**laino** mehatxugarriak. Itxaro Borda

Langar-**lainoak** ez zuen ezer ikusten uzten hamar metro baino urrutiago. Anjel Lertxundi

Eguzkia ordurako lanbro-**laino** guztia xurgatzen eta ezabatzen, orain goizeko hamaiketan izaten den bezalatsu. Pello Zabala

Ez baitzekien laino sarriaren eragina izan ote zen, askotan gertatzen baita, itsas **lainoa** burura zabaltzea, eta zentzumenak lainotu eta lanbrotzea. Felipe Juaristi

Bero-**laino** hodeitsu horiek ikusgarri hazten dira. Pello Zabala

Trumoi-**laino** gandor biribildun horiekin batera. Pello Zabala

Bereizten da dagoeneko zer den ur eta zer den lur, eta pare bat goiz **laino** ere han goian ageri. Joxe Austin Arrieta

Teknikoki nola deitzen zaien arratseko lainobera hauei? adbekzio-**lainoak**. Pello Zabala

Erradiazio-**lainoak** dira beste mota batekoak: oraingoan ez da airea horizontalki, bailara batetik bestera pasatzen. Pello Zabala

Haren bizitza misterio **laino** batek estaltzen zuen. Pablo Sastre

**5** irud/hed

Lurrunezko **laino** baten erdian. Joanes Urkixo

Amonio klorurozko **laino** itxi zurixka batek harturik zegoen beti laboratorioa. Juan Garzia

Sala zabal batean nengoen, zeinak baitzirudien ezen kezko **laino** batek harturik zegoela. Joan Mari Irigoien

*ik beherago* 9. Askoren artean

Ke zurizko **laino**-gandor labur bi irteten baitzaizkizu sudurretik. Juan Garzia

Teleskopioarekin argi ikusten da zeru **laino** horiek izar askotaz osatuta daudela. Berria - Gaiak

Banekien halaber diru asko zegoela jokoan, eta **laino** beltzen mehatxurik ere ez zela falta: iruzurren bat izango ote zen, prestatzaileek apustua salduko ote zuten. Bernardo Atxaga

Dena den, nebaren oroimenean beti kaosa eta **lainoa** ziren nagusi. Juan Kruz Igerabide

Tristuraren **laino** etsiak. Joxerra Garzia

Testua, krausopositibista eta razionala, kritikoa da **laino** orientaletatik jalgita ikusten den idealismo klasikoarekin. Joxe Azurmendi

Gutxika-gutxika, mutilaren begiak **laino** etilikoz, somniferoz estaltzen hasi ziren. Jasone Osoro

Galderak egiten hasi zitzaidan, **laino** mehatxarietan bildurik ahotsa. Pako Aristi

Alkohol **lainoz** lausoturiko irudi haiek. Alberto Ladron Arana

Atzean lurrin **laino** trinko baten arrastoak utziz. Karlos Zabala

Uste dut Silvioren irudiaren inguruko misterio-**laino** hura gehienbat gure aitak hedatzen zuela. Fernando Rey

Gizon dotoreari haserre **laino** bat pasatu zitzaion begietatik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Isiltasun-**laino** batek inguratuta, barrura sartzen da, eta Lucy aurkitzen du han, zutik, zain. Oskar Arana

## 6 *behe-laino* (*63 agerraldi, 29 liburu eta 14 artikulutan; orobat* ***behelaino*** *104 agerraldi, 24 liburu eta 2 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***behe-laino*** *agertzen da)*

Zeru garbiak zeuden edo **behe-lainorik** bazen edo ez. Pello Zabala

Goizeko haizea hotza da, eta **behe-lainoa** dago. Oskar Arana

**Behe-lainoa** jaso du, eta eguzkiaren argia turrustan sartzen da leiho irekietatik.Leihoaren beste aldean, urruti, ferry bat sumatu nuen uraren eta **behelainoaren** artean. Oskar Arana

**Behe-laino** arin eta gris bat airean kulunkan zebilen etxeen gainetik. Eskarne Mujika

Goizetan, loditu egiten duk **behe-laino** mehe hori, berotu egiten duk. Xabier Olarra

Egunak ematen zituen **behelaino** gaziaren eta haizearen erdian hantxe, Ingalaterratik gertuago zegoela iruditzen baitzitzaion horrela. Juan Garzia

Jasango al zituen euria, **behelaino** bero itogarria, zingiretako eta junglako bakardadea?... Xabier Olarra

Nik eman nizkion hodeiak soinekotzat eta **behe-lainoa** ume-zapitzat. Elizen arteko biblia

## 7 irud/hed

Tupustean eta inongo etenik gabe pasatu baitzen adoleszentziaren **behe-lainoetatik** helduaroaren egurats gorrira. Fernando Rey

**Behe-laino** batek hartzen zuela haren behakoa, bertzela hain arraia. Joan Mari Irigoien

## 8 *erreka-laino* *iz* erreken eta ibaien inguruan eratzen den lainoa.

Hortaz, beheko zoko eta errekondoetan […], erreka eta ibaien ondoan pilatzen da **erreka-laino** umel, busti eta frexkoagoa. Pello Zabala

Lurrinketa lana datorkio gero, hurrengo goiz azkarrean: **erreka-laino,** behelaino eta lanbrobeherak nonahi. Pello Zabala

Goizeko lauretan, erlojuan seiak ziren arren, artean **erreka-lainoa** xare-xare, lanbrobeheratan, formatzen osatzen eta trinkotzen. Pello Zabala

Eta bada tristura more bat, idorra, iharra, izerdi larria bezain hotza, [...] geldigorra, gure barrengo laiotzetan aise laketzen den **erreka-laino** baten tankerakoa. Iñaki Segurola

## 9 *hauts-laino*

Ordokitik ikusten zen **hauts laino** batean murgildurik. Juan Garzia

Atera zenerako, autoek harrotutako **hauts lainoa** baizik ez zuen antzeman. Xabier Montoia

**Hauts laino** txikiak harrotzen ziren haien orpoen atzetik. Karlos Zabala

Wild 2 kometako **hauts lainoek** 'Stardust' ontzia jo dutela dio NASAk Andres Untzain, Juan Duñabeitia eta geroagoko batean Ernest Hemingway ordurako ospetsuaren inguruan izango ziren euskaldunak, den-denak. Edorta Jimenez

Partikula horiek izarrak inguratzen dituen **hauts lainoen** artean daudela azaldu zuten adituek. Berria - Gaiak

Historiaren **hauts-lainoak** tragaturiko itzal begitantzen zitzaizkidan. Edorta Jimenez

## 10 *ke-laino*

Gau eta egun ziharduten suei egurra bota eta bota, eta haien **ke lainoa** sakabanatu egiten zen astiro zingiradi itzelaren gainetik. Karlos Zabala

Kutsaduraren eraginez hirietan sortzen den **ke lainoak** (smog). Berria - Kultura

Tximiniak ondo tiratzen ez, nonbait, eta **ke laino** bat zegoen gela osoan barreiaturik. Hor baitator iparraldetik gudarostea, **ke-laino** trinko baten antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ke-laino** hauskara batek bete zuen gela. Migel Angel Mintegi

Prokop jaunak **ke-laino** bat bota zuen bere pipatik airera. Anton Garikano

Atoiontzien **ke-laino** kiribilduaren, goleten masten eta [...] gabarra ikaragarrien artetik. Lopez de Arana

Javier Madrazok PP, PSOE eta EAJri «euskal gatazka **ke laino** gisa erabiltzea» leporatu zien atzo Donostian, «euren arteko bat etortzea estaltzeko». Berria - Euskal Herria

## 11 *laino-arte* (*orobat* ***lainoarte***) *iz*

**Laino**-arte gero eta ugariagoetako argi-txinta horixkek lainoetako griskara zama-tsuarenekin kontrastatzen zuten. Anjel Lertxundi

Haiek beraiek izan ziren, ontzia **lainoarte** itsuan zetorrela sumaturik, itsas malden gailurretan argi faltsuak piztu zituztenak. Pako Aristi

· Kontuon hausnarrean nengoela, **laino-tarte** txikia zerratu zen zeruan, inguruko muino txikiak bezain eguzkirik gabe geratu zen kanposantua. Anjel Lertxundi

## 12 *laino-behere* behe-lainoa. ik **lainobera.**

## 13 *laino egon*

Zortzigarren Etorbidea erabat **laino zegoen,** zintzurrari itsatsita geratzen zitzaien lainoa. Lopez de Arana

Kostaren zati horretan ez dago farorik, ez porturik, ez dute ontziek itsasoa **laino dagoenean** behien orroa bezain tristea den sirenarik jotzen. Joxean Agirre

## 14 *laino-lanbro* (*corpusean* ***lainolanbro*** *soilik*)

Goiztiria argitzear denean, beheko errekondo eta ibarretan, aldiz, ezkurazko **lainolanbro** zapladak daude erreka-laino eta behelanbro multzotan pilatuta. Pello Zabala

## 15 *lanbro laino*

Ez preseski hodeiak, baizik laino, **lanbro-laino** eta lainobera tximatsu hori. Pello Zabala

Bero erre ittogarri batzuen ostean, lurrindurako lainobera eta **lanbro-lainoak** noraezean malkarretan lapatuta gelditzea. Pello Zabala

Euri-datu eta datekin batera, behe-laino eta **lanbro-lainoaren** berri ematen zuen. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**behe laino** (21); **bero laino** (3); **elur eta laino** (4); **erreka laino** (9); **haize eta laino** (3); **hauts laino** (4); **hodei eta laino** (5); **ke laino** (27); **ke laino bat** (5); **laino adarra** (11); **laino adarrean** (7); **laino adarretik** (3); **laino arin** (3); **laino beltz** (9); **laino beltzak** (10); **laino beltzen** (3); **laino eta hodei** (7); **laino eta lainobera** (3); **laino gris** (5); **laino**

handi bat (3); laino handiak (3); laino hodeiek (3); laino ilunak (5); laino itxi (11); laino itxia (8); laino lodi (4); laino mehar (3); laino mehe (6); laino mehe batek (4); laino sarri (8); laino trinko (5); laino trinkoa (4); laino txiki (5); laino ugari (3); laino zuri (7); laino zuria (4); lanbro laino (6); lurrun laino (3)

behe lainoa (21); gaua eta lainoa (3); iluna eta lainoa (3); ke lainoa (9); lainoa altxatu (3); lainoa altxatzen (3); lainoa egoitzaren gainean (4); lainoa saretu (3); lainoa sartu (7); lainoa sartu zen (4); lainoa zabaldu (3)

behe lainoak (4); erreka lainoak (3); ke lainoak (6); lainoak bezala (4); lainoak estalita (3); lainoak estaltzen (6); lainoak hartuta (3); lainoak ikusi (3)

lainoan murgilduta (3)

behe lainoaren (4)

lainoei begira (3)

behe lainorik (4)

lainoz estalita (3)

---

**lainoaldi** *iz* lainoak dauden aldia, lainoturik dagoen aldia.

Eguzkiak berotu ahala egiten da eguraldia, bere **lainoaldi** eta eurijasa eta guzti. Pello Zabala

---

lainoarte ik **laino 11**.

---

**lainobera** **1** *iz* behelainoa.

Hortaz, suspentsioan dauden ttantta ttiki buxtiz betetzen da airea, eta horrela **lainobera** eratzen. Pello Zabala

Mendi hegaleko goiz-lainoa, guk normalean **lainobera** esaten diogun lodierarik gabeko lainaje tximadun hori. Pello Zabala

Ez preseski hodeiak, baizik laino, lanbro-laino eta **lainobera** tximatsu hori. Pello Zabala

Zergatik horrenbeste laino eta **lainobera**? gaur ere txarra al datorkigu? Pello Zabala

Lanbroa eta langarra deitu ohi zaion **lainobera,** aireak hegan daramatzan ttanttan ttipi-ttipiz osatua. Pello Zabala

Goizero, artean herria **lainoberaren** amaraunetik irten ezinda dagoelarik, [...]. Pako Aristi

**2** (hitz elkartuetan)

Laino eta **lainobera** andanak aise formatuz eta garraiatuz. Pello Zabala

Batzuek diotenez, "lamori zuria"tik dator Lamorizu, hau da, itsasoan osatu ohi den **lainobera** sarea. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

laino eta lainobera (3)

---

**lainoberri** *iz*

Lehenbizi zegoentxoa borratu aurrena, eta ez zena azaldu eta indartu aurrerago! bigarren negozioko **lainoberri** hauek ere, ez pentsa urrunera zihoazenik. Pello Zabala

---

**lainobide** *iz* lainozko bidea.

Izan ere, beroak zurrunbilo kiribil motako lasterrak hasten ditu gorantza, **lainobide** itsu horien barruan. Pello Zabala

---

lainoki ik **lañoki**.

---

**lainokume** *iz adkor* lainoa.

Noski, ez da hodeia artean ere, ez eta gutxiagorik ere; laino matazatxo merke desguaze modukoa, **lainokume** ttiki xarpail tximatsua-. Pello Zabala

---

lainolanbro ik **lanbro 14**.

---

**lainope** **1** *iz* lainok estaliriko lekua.

Gauaz **lainope** lodi batean galduta dabilenari. Xabier Olarra

Lau xurgada gabe erabaki nuen aferaren ukitu pertsonalak lehengo goizaldeko gertakariak estaltzen zituen **lainope** alkoholiko berera igortzea. Aingeru Epaltza

Bake santuan zegoen ia, **lainope** halako batean. Mirentxu Larrañaga

Artean ere, whiskia gai zen Morse andrea eztitzeko, hein handi batean; baina tupustean eta unerik ulergaitzenetan, **lainopeak** bertan behera uzten zuen. Mirentxu Larrañaga

**2** (toki atzizkiez singularrean)

Elkartuta igo zuten Urduña tentea, euripean, **lainopean**. Berria - Kirola

Leku hura beti ilunpean eta **lainopean** dago; Heliosek ez dio inoiz jotzen; beti da gau. Juan Kruz Igerabide

Mendian zegoela sumatu zuen, bideak **lainopean** gora egiten baitzuen. Felipe Juaristi

Haxixaren **lainopean** ilusioak koadrafonian. Unai Iturriaga

Huskerien mataza katramilatu eta hitzen **lainopean** galdu zena. Xabier Olarra

Klararen gorputz lerro argiz egina irudikatzen du ke-**lainopean**. Iñaki Iñurrieta

Juxtu egunari agur esateko orduan atera da Amandre Zuria **lainopetik,** Ulimendiko kaskoan. Patziku Perurena

---

lainoska ik **lainoxka**.

---

lainotasun ik **lañotasun**.

## lainoteria *(orobat* ***lainateri*** *eta* ***lainateria****)* **1** *iz* laino multzoa.

Azkenean gure hegazkina **lainoteria** trinkoan murgildu da. Txillardegi

Ondo pentsatuz gero, euriak ez du horrenbeste baldintzatzen geure bizimodua, haizeari ere neurria hartua diogu, gaudenean gaudela, hodeitza eta **lainateria** badakigu ongi, gaur ez bada bihar, alde egingo duela hemendik. Pello Zabala

Oraingoan **lainateria** txuri zarpailxkoa hortxe gelditu zen. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Hustu ahala, 3 minutu baino lehen, eguzkitsu, ezin erabat oskarbi, mendi mailoetan **lainateri** hondarrak pausatuta. Pello Zabala

---

## lainotsu *(orobat* ***lanotsu****)* **1** *izond* laino asko dagoena. ik **lainozu**.

Danubioren ahoan zegoela aitortu zion heretikoak, toki zingiratsu eta **lainotsu** batean. Felipe Juaristi

Astiro egiten zuten aurrera Bigarren Etorbidean zehar, arratsalde **lainotsuan**. Lopez de Arana

Ohean hilik aurkitu zuten, goiz **lainotsu** batean. Monika Etxebarria

Cancer konstelazioan izar multzo ugari daude: begi bistaz zerbait **lainotsua** bezala agertzean dira. Berria - Gaiak

**2** irud/hed

Neguan hiria bere esku **lainotsuez** hartzen duen itsasoak. Felipe Juaristi

Gehienetan, hitzekiko loturarik ezean, nire gogoetak **lainotsuak** izaten dira. Monika Etxebarria

Eta gero, epaiketaren ondoren etorri zen guztiaren ahanztura erabatekoa; geroak eta ahalegin handiek, modu **lainotsuan** bada ere, gogora ekarri didaten guztiarena. Koro Navarro

*ik* lauso.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **egun lainotsu** (3); **goiz lainotsu** (3)
> **egun lainotsuetan** (3)

---

## lainotu, laino(tu), lainotzen *(orobat* ***lainatu*** *g.er. eta* ***lañotu*** *g.er.)* **1** da/du *ad* lainoz bete.

Orain arte oskarbi zegoen zerua **lainotzen** hasi da. Patxi Iturritegi

Nik zerua **lainotzean,** ostadarra azalduko da hodeietan. Elizen arteko biblia

Eguna **lainotua** zabaldu den arren, Jentilsolora hurbiltzea erabaki dut. Txillardegi

**2** irud/hed ik **lausotu**.

Bista **lainotu** zait eta, 'besteari galdetu dio eta!' entzun dut distortsionaturik, luzaturik, bigunki amiltzen naizen artean. Joseba Sarrionandia

Merryren begiak neke eta malko hodei batek **lainotu** zituen. Agustin Otsoa

Egunotan bizi dugun tentsio sozial eta politikoak gure poza **lainotu** dezake. Berria - Euskal Herria

Neuronetara bidalitako ke dosi egoki batek barne eztabaida oro **laino** dezake. Unai Iturriaga

Askotan gertatzen baita, itsas lainoa burura zabaltzea, eta zentzumenak **lainotu** eta lanbrotzea. Felipe Juaristi

Orain, **lainotu** dira garai bateko usteak. Andoni Egaña

Lore saltzalearen begitartea doi bat **lañotu** zen. Janbattitt Dirassar

**3** (era burutua izenondo gisa)

Leihoan betiko teilatuak ageri ziren, eta seietako eguzki **lainotua**. Zeru **lainatuak** ez du uzten erradiaziorik gerta dadin: lainoak berak ipintzen du tapa. Juan Garzia

Abendu erdialdeko igande **lainotu** eta goibel bat zen. Oskar Arana

Leihoko kristalak zure irudi **lainotua** itzultzen dizu. Lourdes Oñederra

Zeru **lainatuak** ez du uzten erradiaziorik gerta dadin: lainoak berak ipintzen du tapa. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lainotuta dago** (4)

---

## lainotxo *iz* laino txikia.

Zigarro bat piztu zuen, kealdi luze bat bota eta, ke-**lainotxoaren** artetik, lasai-lasai begiratu zidan, dena konponduta balu bezala. Ander Irizar

---

## lainotzar *iz adkor* laino handia.

Gero, atertu aurrena, zerua arindu, hego eta bertoko freskoaren arteko **lainotzar** batzuk mendi kaxkoetan txapel, eta, bien bitartean, goia garbiago. Pello Zabala

---

## lainoxka **1** *iz* lainotxoa.

Hezedura asko dagoenean lur azal eta inguruetan, horrelako lurrinketatxoak eta **lainoxka** umelak egoten dira. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arnas kolpeak botatzen zituela esaten du, lurrun **lainoxkak** airean utziz. Joxean Agirre

Bost gazteak Stephen's Green-etik zehar paseoan joan ziren **ke-lainoxka** aromatiko batean bildurik. Irene Aldasoro

Esku handi dardartia sudurrera eramaten zuenean ere tabako-**lainoxka** batzuk irristatzen zitzaizkion hatzen artetik soingainekoaren aurrealdera. Irene Aldasoro

---

## lainoztagailu *iz* lainoztatzeko erabiltzen den gailua.

Horren ondotik, komunera sartu, eta **lainoztagailu** urdin bat ekarri zuen, erpinean metalezko uztai bat zeukana eta zeinetik ihinztagailu gorri bat ateratzen baitzen. Patxi Zubizarreta

---

## lainoztatu, lainozta, lainoztatzen **1** du *ad* laino moduko bat hedatu.

Hegazkin batek lanean ziharduten soroa **lainoztatu** zuelarik, Rigobertaren anaia bat pozoiturik hil zen. Pablo Sastre

**Lainoztatzeko** erabiliko dituzten substantziak landare eta animalientzako oso kaltegarriak baitira. Hego Kalifornian **lainoztatzeko** poteek eta Connecticut ibarrean gasa-pantailek izotzak uztei kalte egiteko arriskua gutxitu zuten. Iñaki Mendiguren

Isurkari pestizidak inokulatu edo **lainoztatzeko** gailuek gutxitu egin zuten uzta, arbola eta ganaduari izurriek kalte egiteko arriskua. Iñaki Mendiguren

**2** (era burutua izenondo gisa)

Portutxo **lainoztatutik** urrunxeago, ur bazterrari jarraikiz, batteliku huts geldien itzalak zimurtzen dira emeki. Aurelia Arkotxa

---

## lainozu *izond* lainotsua.

Besaulki ondoko ispilu handiak nire irudi **lainozua** itzuli zidan erlojuari begira. Aingeru Epaltza

---

## laiotz **1** *izond* lekuez mintzatuz, eguzkiak jotzen ez duena.

Urkamendiko zurajea zen paraje **laiotz** hartan zuhaitz itxurako bakarra. Felipe Juaristi

Leku **laiotzetan,** batez ere, itzalik gabe ez baitaki landare horrek aurrera egiten. Hasier Etxeberria

Izotz puntturik ere utziko du bazter **laiotzenetan**. Pello Zabala

Beste mundura, mundu beltz **laiotz** horretara. Felipe Juaristi

Zomorro itsuak gutaz bazkatzen dira gorrotoaren ziega **laiotzetan**. Joxerra Garzia

• **2** *iz* eguzkiak jotzen ez duen lekua.

Mendien **laiotzetan,** elurra dago, ez hala eguteretan. Xabier Olarra

Beste isurialdea Adriatikora begira gelditzen da eta iparraldeko eskualderantz etzaten da, eta etengabeko lur-eremuak ditu itzalean eta **laiotzean**. Santiago Iruretagoiena

**Laiotzari** egin dio lekua belardiko eguterak. Argi zerrenda bat zen sasi arteko **laiotzean**. Hasier Etxeberria

Guztiz beherean, **laiotzean,** Urumearen ertzeko "Astiñene" misteriotsura iristean, bizpahiru txalupa hegian estekaturik ikusi nituen. Txillardegi

**3** irud/hed

Eta bada tristura more bat, idorra, iharra, [...], geldigorra, gure barrengo **laiotzetan** aise laketzen den erreka-laino baten tankerakoa. Iñaki Segurola

Etsipenaren **laiotzean** eguraldiak ez du hobera egiteko arrastorik. Anjel Lertxundi

Izatearen **laiotzetako** hotsak zeinek entzuna falta duena psikologoarengana joaten da. Iñaki Segurola

---

## laira **1** *iz* ilara.

Aroa ederrera ari zen goizetan ardiak landara gidatzen zituen, eta eskolarik ez zuen egunetan, anai-arrebekin bat, aihena estekatzen zuen, lerroz lerro eta **lairaz laira**. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan)

Raido herria pasatu orduko lo kixka bat egin dut iratze **laira** hori berdeen erdian. Piarres Aintziart

---

## laister ik **laster**.

---

## laisterka ik **lasterka**.

---

## laisterketa ik **lasterketa**.

---

## laizismo **1** *iz* gizabanakoa, gizartea eta bereziki estatua, zernahi eliza edo erlijioren eraginetik kanpo egon behar duela aldarrikatzen duen dotrina. ik **sekularismo**.

**Laizismoaren** inguruko gogoeta sustatu. Berria - Euskal Herria

Baina **laizismoa** erlijioaren kontrakoa da. Beharbada garaiko giro eta planteamolde esentzialisten propioa da "erlijiositate" orokor hori (fundamentalismoa esango litzateke orain), librepentsamenduan eta **laizismoan** bertan ere nabarigarria XIX. mendean. Joxe Azurmendi

**2** laikoa izatea, lakikoa denaren nolakotasuna.

Bere **laizismoa** du horrekin zaindu nahi Frantziak, erlisio marka bereziak kenduz eskoletarik. Herria

---

## laizista *izond* laizismoarena, laizismoari dagokiona.

Errepublikano, **laizista** eta progresista zen Jean-Baptiste Elizanburu, "Ikusten duzu goizean" kantu ederra idatzi zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## laizitate *iz* laikotasuna, laizismoa.

**Laizitatearen** legea paratuz integristak plega arazteko. Berria - Kultura

---

## laka[1] **1** *iz* Indiako zuhaitz batzuetako adarretan sortzen den gai erretxinatsua, kolorez gorria; gai hori erabiliz egiten den berniz gogor eta distiratsua.

Azazkaletako **laka** hezurkolorea kentzen ari zen alkoholetan bustitako goata-puska batez. atsegin handiz galbideratzen zituen ilea **lakaz** betetako Barbie perfumatu haiek. Anjel Lertxundi

Aurrez maneatu eta **lakazko** kaxa bikainetan gorderiko jaki hotzak. Joxan Elosegi

**Lakazko** azpil hura. Javi Cillero

Asma dezakezu kolore hori [...] **laka** antzeko batez distiratzen duen egur-oholezko zoruaren kolorea dela egiaz. Urtzi Urrutikoetxea

**2** (hitz elkartuetan)

Ez dut ulertzen zelan egin dezakeen **laka** aerosol batek zulo bat zeruan. Joseba Sarrionandia

· Flaskotxoak, hauts-ontzitxoak, ezpain-lapitzak, tuboak, azazkal-**laka,** ile-gakoak, besterik ez... Joxe Austin Arrieta

**laka**[2] *iz* errotariak, ehotze lanagatik, gehienetan gari edo artotan, hartzen zuen saria.

Galdetzen zien zer eta nola ereiten zuten, nolako uzta espero zuten, nola lantzen zuten lurra, zenbatean saltzen zuten garia, zenbateko **laka** jasotzen zuten udaberrian eta udazkenean eho-lanarengatik. Jose Morales

---

**lakain**[1] *iz* izpia.

Aurpegi meharra; bibote- **lakain** mehe-mehe horietakoa, tabakoak horitua; uste handiko baten begirada itzaltsua. Anjel Lertxundi

---

lakain[2] ik **akain**.

---

**lakar** **1** *izond* latza, zimurrez, pikorrez edo irtengunez betea.

Esku **lakar** eta gogor batek lagundu zion, esku ezagun batek, bere lagun Joanes de Iraurgiren esku zabal eta maitekorrak. Felipe Juaristi

Ohartu egin baitzen bere esku **lakarraren** eta gizonaren esku finaren arteko aldeaz. Patxi Zubizarreta

Hasierako azal **lakar** eta arantzatsua pixkanaka leunduz. Berria - Kultura

Lasaiago abiatu nintzen fruta **lakarra** zuritzera. Aingeru Epaltza

Nire arropen ordez artile **lakarrezko** jantzi bat nuen soinean. Koro Navarro

Ohean sartu naiz manta **lakarren** artera. Koldo Izagirre

**2** latza, atsegina edo gozoa ez dena.

Ahots dardarti, **lakar,** isil-isilaz mintzatu zitzaidan. Koro Navarro

Emakume baten ahotsa zen, apal eta **lakarra**. Alberto Ladron Arana

Miles Davisen tronpeta urratua eta John Lee Hockerren aiene **lakarra**. Aingeru Epaltza

Eztarri-soinu **lakar** batek Wardwell arnasarik gabe gelditu zela adierazi zionean, eskailera-mailak azkar-azkar jaitsi, eta, urkamendi gaineko gorpuei bizkarra erakutsirik, jendearen artean galdu zen. Anjel Lertxundi

Oihu **lakar** eta izugarria egin zuen, eta hain zorrotza, non […]. Koro Navarro

Oilar eta ziur joan zen ederrez goraipatzen eta ankerrez deitoratzen zuten bihotz **lakar** hura bigundu eta bereganatzera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ezeren ardurarik gabe, zapore **lakar** hura ahoan dastatu eta lokalean barrena norarik gabe zerabilen begirada. Juan Garzia

Alainek agur keinu **lakar** bat egin zion. Harkaitz Cano

Piamonteko dialekto **lakar,** zimel, lakonikoa. Juan Garzia

**3** (adizlagun gisa)

**Lakar** nituen ezpainak. Anjel Lertxundi

Ta atzera sumindurak gaina hartu ziolarik, emakumea **lakar** mintzatu zitzaion: […]. Patxi Zubizarreta

**Lakar** azaldu nahi hura zen gainera, grazia berezia ematen ziona. Harkaitz Cano

Metalezko ate-eskutoki eta leiho-hegiak opako eta **lakar** bilakatzen ziren. Juan Garzia

Belea bezain **lakar** geratu zen. Koro Navarro

**4** (hitz elkartuetan)

Tutu hotsa kaietan, tranbia ahots- **lakarrak** oso urrutiko kaleetan. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahots lakar** (12)
> **ahots lakarra** (8); **apur bat lakarra** (3)
> **ahots lakarrak** (3)
> **ahots lakarraz** (3)
> **ahots lakarrez** (11)

---

**lakari** *(orobat **lekari** g.er.)* **1** *iz* ale neurri zaharra, ia bost litroko edukierakoa. ik **gaitzeru, imilaun.**

**Lakariak** ia 5 litro dituenez, ia 60 litrokoa. Patxi Ezkiaga

Nik bidaliko diot **lakari** bat ezkur, banan-banan begi argiz eta garbiz ikustekoak. Patxi Ezkiaga

Dirua neurtzeko ontzi bat eskatuko dut auzunean, **lakari** bat, eta zuk zuloa egiten duzun bitartean, nik zenbat **lakari** urre dugun zenbatuko dut. Patxi Zubizarreta

**Lakari** bat ilar eman zion Denverri, aletu eta gauean beratzen uzteko. Anton Garikano

Lurrari **lakari** garia kentzeko den gizona ezkon daiteke beldurrik gabe. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** ***lakari erdi***

Hala eta guzti, **lakari** -erdi bat bidaltzen diot; neronek, mendira joan eta bilduak dira banan-banan. Patxi Ezkiaga

---

**lakarika** *adlag* lakaria neurri hartuz.

Nork neurtu du itsasoa esku beteka, edo zeruen zabala arra beteka, edo lurreko hautsa **lakarika** ? Elizen arteko biblia

---

**lakarilerde** *iz (irain hitza)*

Hoa, hoa hemendik, **lakarilerde** fardela! -esan, eta ostikoka bota zuen bordatik. Anjel Lertxundi

---

**lakartar** *izlag/iz* Lakarrakoa, Lakarrari dagokiona; Lakarrako herritarra.

Habiabordako Agnés Etchart-ek hautu du espos laguntzat Eric Eyharts **lakartar** gaztea. Herria

4 etan eta 12 etan adosturik, 24-15, 28-20 gaina zuten **lakartarrak** eta uztariztarrak 7 sakerekin ordukotz. Herria

---

**lakartu**, lakar, lakartzen **1** da/da *ad* laztu.

Hegoalderago, ametza eta, zenbat eta hegorago, hostoak **lakartuz,** artea. Pello Zabala

**Lakartu** egin du ahotsa agureak. Koldo Izagirre

"Oker ari zara", dio berak, hori esan ahala ahotsa berehala **lakartzen** eta apaltzen zaiola. Oskar Arana

Beldurrak erabat **lakartu** dit ahoa. Mirentxu Larrañaga

Ronak eta jokoak eztarriak **lakartu** eta erraietako amorruak piztu zituzten gau batean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Karkaila zuen ahotsa, kautxuzko mozorroak **lakartua**. Anjel Lertxundi

Aspaldi honetan eztarria **lakartuta** omen dauka eta. Anjel Lertxundi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Hurrupa batez eztarri **lakartua** goxatu bitartean. Patxi Zubizarreta

---

**lakasta** *iz* akaina.

Zion ez dugula **lakasten** gisa jokatu behar, bertzen odola xurgatuz, bainan elgar lagundu. Herria

Txerriei eta kabalei erasotzen dien **lakasta** suerte bat. Juan Garzia

Hik orain arte bezala txakurren **"lakasta"** izaten jarraituko duk eta horrela, leku seguruenetik, haien asmoak ezagutuko ditiagu. Itxaro Borda

---

**lakatu**, laka(tu), lakatzen **1** da/du *ad* lakaz margotu.

Azkazalak ezin txukunago **lakatuak** eta bekainak lapitzez zehaztuak. Joxan Elosegi

Mahai beltzez **lakatuen** inguruko aulkietan eserita daudenek. Iñaki Iñurrieta

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bertan eseri nahi zuen, bertako airea arnastu, bertako larru eta zur **lakatuari** usain egin. Anjel Lertxundi

Harribitxiz txertaturiko mahai **lakatu** baten gainean. Karlos Zabala

Hantxe ziren Txinako burko **lakatu** beltzak. Javi Cillero

Argia zeriela, ferryek bidea irensten zuten, portu **lakatuan** zehar. Lopez de Arana

---

**lakatz**[1] **1** *izond* latza. ik **lakar**.

Badirudi BATAN fabrikan maizenik bartanak, manta **lakatzak,** kapusaiak, eta holakoak egiteko ehunki latzak lantzen zirela. Patziku Perurena

Ehunki **lakatzez** egindako janzki iluna zen, euskaraz "kapusai" deitu gisakoa. Patziku Perurena

Haiek ohituak daude gauzen egia **lakatzak** lixtu handi batekin kontrako zintzurrean beheiti irensten. Iñaki Segurola

Eskularru beltz urtetsuak adabaki gris **lakatzez** higatuak zituen. Mirentxu Larrañaga

Haren muturrezur **lakatza,** haren kalpar luze zarpaila. Patziku Perurena

Baina Amurriora pilotak probatzera joan zirenean sorpresa handia izan zuten: zorua behar baino **lakatzagoa** zegoen. Berria - Kirola

Garraio-gurdi **lakatzak**. Jose Morales

**2** irud/hed

Harian barrena ibiltzeko ere, **lakatza** ta baldarra dugu, noski, mintzoa!... Xabier Mendiguren Elizegi

---

**lakatz**[2] *iz* gaztaina oskol arantzatsua. • (irud) zakila.

Zuk imajinatu, adibidez, zelako plazerra eman behar duen hor tartean **lakatza** sartuta izateak, epeltasunez inguratuta, mmm! Jon Arretxe

---

**lakaztu**, lakaztu/lakatz, lakazten da/du *ad* laztu, lakartu.

Begiratua zorroztu, ahotsa **lakaztu,** sudurpean bibotetxo bat hazi zitzaion. Pablo Sastre

---

lakedemonar ik **lazedemoniar**.

---

**lakera** *iz* kaukasoar hizkuntza.

Hala da mendebaldeko hizkuntza kaukasiarretan **-lakeraz** batik bat-. Lourdes Oñederra

---

**laket** **1** *izond* pertsonez mintzatuz, atsegina.

Gizon **laketa** eta alegera, maite zuen segur hirugarren adinekoen elgarretaratzea. Herria

Dominika Leon emazteki **laketa** zen, biziki jendekina. Herria

Emazte **laketa** eta lagunarte onekoa. Herria

Biziki neska **laketa** zen. Daniel Landart

Fede handiko jendeak baitziren, beren Erregeei jarraikiak eta elkarren artean xeheak, zintzoak, **laketak,** goxoak, neurtuak, umilak eta ez, beste hainbeste lekutan bezala, harrokeriaz josiak. Piarres Xarriton

**2** irud/hed

Urdozeko besta **laketa**. Herria

Halere, leku **laket** eta ederra da. Herria

Valcarce harana hertsia bezain **laketa** da gaur. Piarres Aintziart

Bizi toki **laket** bat izaiteko molde hoberenak asmatu nahi ditugu. Herria

**3** ***laket izan****sup_1* zaio *ad* atsegin izan.

**Laket zait** bakarrik egoitea eta ixilik, leku ezezagun batean naizelarik jende arrotzen erdian. Piarres Aintziart

Ulertu dut Castrojerizerainoko bidea elkarrekin egitea **laket zaiola**. hasi naiz jende biltzen, ibiltzen **laket zaiona** eta Santiagorako Bidean milaka eta milaka erromesen

pausoetan berea jarri duena. Piarres Aintziart

Eta makilarik gabe, beti, **laket baitzait** besoek bere balantza gostuan marra dezaten Zeren horrelakoetan ez **baitzait laket** gauza guziak zehazki antolatzea. Piarres Aintziart

Ez zidaten ihardetsi, eta ez **zitzaidan laket** izan haien isiltasuna. Aingeru Epaltza

Luzamendutan ibiltzea **zait** niri **laket** -esan zuen L-k. Bernardo Atxaga

**4** ***laket izan**sup_2* da *ad* ik **laketu**.

Antzerkian **laket** zen orduan gazteria. Herria

Ez dügü düdarik ere **laket izanen** direla hor bildüko diren güziak. Herria

Adin hortan da ametsa gehienik **laket** [...] eta ametsaren erregebidea da loa. Michel Oronoz

Bai: **laket** da pilotarientzat. Herria

Ez bainaiz neure buruaz **laket izaten**. Joxe Austin Arrieta

Ahal guziak horri buruz egitea **laket** da. Herria

Soinu eta bertsuen apaindura **laket** da holako egunean! Herria

**5** ***laket izan**sup_3* du *ad* atsegin izan.

Badut irrati bat, han; [...] eta biziki **laket dut**. Menane Oxandabaratz

Pentsu dugu zenbaitzuk **laket luketela** hemengo unibertsitate horren laguntzea. Herria

Euskarak **laket baitu** hitzen laburtzea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Fruituak ere ez dituzte gehienetan oso **laket**. Gotzon Garate

Etxe Garbitzea ez dut **laket**. Gotzon Garate

Badira Amikuzen pilota maite dutenak, eta urrunago ere partiden ikustera joaiten **laket dutenak**. Herria

Lehen behar bada, Ermita, hor josteta **laket izanen nuen,** baina orai badakit ondarea ez dela josta leku bat, behar dela errespetatu, zaindu. Michel Oronoz

· Eta jakina, gazteak gaztea **laket**. Hasier Etxeberria

**6** ***laket gertatu***

Besteak atsegin duena norberari ere **laket gertatzea**. Pako Aristi

Aski da dudarik gabe zu ikustea, zuri **laket gertatzea** nahi izateko. Jon Muñoz

**7** ***laket leku*** *(orobat **laketleku**) iz*

Gaüza bat segürra: **laket** lekü dela Ürrüstoi-Larrabile, bena halere hüsten ari! Herria

Artaldek ere beren **laket** lekuak dauzkate. zeharbidarien haurridegoa ez zaio **laketleku** txarra, ez horixe. Herria

**8** ***laketago izan*** atsegin izan.

Telepatia zein sinpatiaren ordez **laketago** zait urdepatia. Gauza gutxi dutela zakurrek oilasko hezurrak baino **laketago**. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arras laket** (3); **batere laket** (6); **biziki laket** (7); **ditu laket** (3); **ez zitzaidan laket** (3); **ez zitzaion laket** (3); **ez zuen laket** (3); **hain laket** (6); **ibiltzea laket** (4); **laket baitzait** (3); **laket baitzuen** (6); **laket da** (3); **laket dut** (4); **laket gertatzea** (3); **laket izan** (24); **laket izanen** (5); **laket izateko** (5); **laket leku** (4); **laket nuen** (6); **laket nuke** (3); **laket zaidan** (5); **laket zaigu** (3); **laket zaio** (3); **laket zaiona** (4); **laket zaiote** (3); **laket zait** (13); **laket zitzaidan** (9); **laket zitzaion** (10); **laket zuen** (5); **niri laket** (4); **nuen laket** (3); **oso laket** (8); **zaio laket** (3); **zait laket** (3); **zein laket** (3); **zitzaidan laket** (3); **zitzaion laket** (3); **zuen laket** (4); **zuri laket** (3)
>
> **gizon laketa** (4); **guziz laketa** (3); **laketa izan** (3); **laketa zen** (4)

---

# laketaldi *iz* atseginaldia.

Gure garaiotako erantzukizun handiko agintariek duten atseden-premia sekulakoaz jabetu bainaiz, eta baita halakoek ondo merezia duten **laketaldi** espiritual indar-berritzaileaz ere. Anjel Lertxundi

---

# laketarazi, laketaraz, laketarazten du *ad* atsegin harrarazi; ohitzera behartu.

Orai pentsatzen dugu gure artean ibiliko dela Michel ezagutza egiten ixil ixila bere bizikletaren gainean eta laster **laketaraziko** dugula uste dugu. Herria

---

# laketasun *iz* atsegintasuna.

Ahots hori latinez mintzo zen; ahots horrek (ilunbeltzetik etorki) **laketasun** patsadatsuz ziharduen hitzaldi edo otoitz edo aztiele bat esaten. Juan Garzia

---

# laketgarri 1 *izond* atsegingarria.

Kanpora irteteko janzten ari zelarik, aldaketa **laketgarri** bat sumatu zuen bere baitan, areagotuz joan zitzaiona nolabait, lokartutakoaren geldotasunetik bozkariozko aldarterantz. Lipar bateko urrin **laketgarria,** besterik ez. Mirentxu Larrañaga

Dolarraren ikurra **laketgarria** zen, apain-apaina. Mirentxu Larrañaga

• **2** *iz* gauza atsegingarria.

Beheko aldea erosoa zuen, ohiko **laketgarriez** hornitua -diban bat, besaulkiak, telebista, margolan eskegiak-. Xabier Olarra

Espiritu ohartuen **laketgarri** eternala zatekeen horrenbestez haren liburua. Juan Garzia

---

laketleku ik **laket 6**.

---

# laketu, laket(u), laketzen 1 da *ad* laket izan, atsegin hartu.

Emeki trebatu zen eta **laketu** denbora hartako bertsulari haundienekin. Michel Oronoz

-Ale, zoazte gustian, eta hi -amak besoetan tinkatzen du mutikoa- habil, **laketuko** hiz gain hartan. Michel Oronoz

Garesen laster **laketu** naiz, ta futxo, bihar itzuli behar. Piarres Aintziart

Leon hirira hurbiltzen ari naiz, ez dut so egin ere etxeei, basamortuan eta baserrian **laketua** bainintzen. Piarres Aintziart

Bitxiki gau hartan emazteekin ez zen batere **laketu** Txoko. Itxaro Borda

Gurean, badugu, nahi izatera, non **laketu**. Iñigo Aranbarri

**2** ohitu.

Pentsatzen dugu laster **laketuko** dela Kostaldeko xoko hortan, nun ez den ere jadanik **laketua..**. Herria

Ez da dudarik Christelle herritar berria **laketuko** zaukula Azme-ko xoko pollit hortan. Herria

Aspaldi huntan hemen nabilazu, denboraren tiraniaz gogaitua, erabat **laketu** ezinik, arront alfertua. Jose Angel Irigaray

Errexki hiltzen zituzten usoak, non-nahi finkatzen eta **laketzen** baitziren, haritz ezkurretan edo pago pahatxetan, elurra hasi artio... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Behar dut ainitz denbora **laketzeko..** . Menane Oxandabaratz

Laster **laketzen** dira beraz gure artean bainan egiazki hemengotzen direa? Herria

Badu bizpahiru aste, ihiziko xakur xurita beltz bat, Bordaxarreko inguruetan badabilala, tokiaz **laketurik,** Belzuntzeko jauregi ondoan. Herria

---

# lakio 1 *iz* begizta osatzen duen soka, urka-bilurra duena.

Borreroa [...] urka-bilurra burutik behera sartzen hasi zitzaion ferratzaileari, baina **lakioa** ez zen Wardwellen buruaren neurrikoa, eta borreroak denbora hartu behar izan zuen, jendearen oihu eta erdeinuei gor, korapiloa laxatu eta kondenatuaren buru-neurrira egokitzeko. Anjel Lertxundi

Bakeroen filmetan **lakioarekin** txekorrak harrapatzen dituztenean bezala. Harkaitz Cano

## 2 animaliak harrapatzeko gailua. ik **lakirio; lazo**[1] **2.**

Katu bat zen, **lakioan** harrapatua, itotzen, arnasestuka, hiltzen. Josu Zabaleta

**Lakio** batean harrapaturiko estolderiako arratoiak bagina bezala. **Lakioak** orkatilatik heltzen dio eta bertan geratzen harrapatua. Juan Kruz Igerabide

**Lakioak** ipintzen zituen lorategian txoriak harrapatzeko. Josu Zabaleta

Ez zegoen hara joaterik, oina **lakioan** ipintzea zen-eta. Juan Kruz Igerabide

Zintzurra **lakioan** zeukana. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Lakioan** jausten den oreina legez. Elizen arteko biblia

Zeure burua askatu arte, oreinak ehiztariagandik eta txoriak **lakiotik** bezala. Elizen arteko biblia

## 3 irud/hed

Ez diezazula mihiak irrist eragin, **lakioa** jartzen dizunaren aurrean eror ez zaitezen. Elizen arteko biblia

Bat-batean eta bortizki ixten zaigu itoko gaituen **lakio** absurdua. Josu Zabaleta

Lepoan itxura ederreko **lakioa** jarri dien politika. Berria - Mundua

Beraz, amore emango dute guri **lakioa** estutzen digutelakoan. Josu Landa

Sarean harrapatuta geratu al zara zeuk emandako hitzez eta **lakioan** preso zeuk esandakoagatik? Elizen arteko biblia

Ona txar bihurtuz, bere **lakioak** hedatzen ditu, egintzarik garbienei ere aurkitzen die aitzakiarik. Elizen arteko biblia

**Lakio** bihurtzen zaio bere bekatua gaiztoari, pozez alai bizi da zintzoa. Elizen arteko biblia

Helburua lorturik zegoen, aurkaria **lakioan** harrapaturik. Juan Garzia

Halakoxe irritsez katigatuak dagoz Venusen **lakioetan,** lohadarrak gozamenaren indarra ahiturik zimeltzen diren bitartean. Xabier Amuriza

Argazkiak, izan ere, erregistro perspektibista automatikoa den aldetik, halako **lakio** ideologiko bat balitz bezala funtzionatzen du. Josu Zabaleta

Liburu laburra izan arren, itzulpen lanaren aldetik ezin uka daiteke nongura maratilak eta **lakioak** dituenik. Berria - Kultura

· Bien bitartean, **lakioa** ixten ari zen, eta karabinero nagusia arratsaldero joaten zen alkatearengana, diziplina handiz, ikerketen berri ematera. Koldo Biguri

## 4 ***lakioan ezarri*** lakio moduan ipini.

Entseatu omen da bera korda batekin **lakioan** ezarriz estekatzera zain hortarik odola galtzera ez uzteko, hala ere ez du odola gelditzea erreusitu, eta gizon gaztea ixtante hil da. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> deabruaren lakioa (4)

---

# lakiotu, lakio(tu), lakiotzen du *ad* lakioz trabatu; trabatu.

Bigarren bruia barnean gelditua da, sabai hondatuak eta aulki bihurrituek **lakiotua** . Koldo Izagirre

---

# lakirio 1 *iz* lakioa, animaliak harrapatzeko gailua.

**Lakirioan** hilik geratu den uso beltza. Felipe Juaristi

Ez niola deituko; ez nintzela ez Danelen ez inoren **lakirioan** eroriko. Anjel Lertxundi

## 2 bigizta.

**Lakirioa** askaturik, bi partitura hautatu zituen Mathildek, eta pianoaren aurrean eseri zen. Anjel Lertxundi

---

# lako *izlag* bezalako.

Hautsa **lako** elur hori nekagarria izango delako. Joseba Sarrionandia

Sua **lako** beroa sentitu du masailetan. Iñigo Aranbarri

Zu **lako** pertsona bat behar dugu. Joseba Sarrionandia

Azken batean, zer ezkuta dezake bera **lako** gizon batek? Sonia Gonzalez

Nire **lako** emakumeak ez dira maitemintzen. Sonia Gonzalez

Zureak **lako** Txabiren begi miopeak. Koldo Izagirre

Erreberentzia **lako** bat sortzen ei eban heltzen zan baztar guztietan. Xabier Amuriza

Trikitilari zahar askoren buruan, plazea temea zan, oilar burrukea **lako** bat. Xabier Amuriza

Juan Jose Urtiaga Inchaurraga, edalontzi ipurdi **lako** betaurrekoak zituena. Joseba Sarrionandia

Gazteak "aupa Rufinoka" batzen jakozanean, bizitu eta harrotu egingo zan, harexti mendetsu hareetan, aparizino mitologiko bat **lakoa** . Xabier Amuriza

Zilarra **lakoa** . Iñaki Mendiguren

Juezok lanean gaudenean abadeak **lakoak** gara. Gotzon Garate

Oroitzapenak zakur abandonatuak **lakoak** dira, alderraiak. Berria - Kultura

Euskaldun gisa hitz egiten du Joxe Azurmendik, judu herratu gisa, hots, eszeptizismoz, daukagun mundua ez baita geu **lakoentzat** eraiki. Markos Zapiain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> bera lako (5); beste lako (8); lako gizon (4); mirentxu lako (16); ni lako (3); nire lako (3); zu lako (5); zure lako (3); zureak lako (3)

---

**lakoi** *iz* txerriaren besoa, urdaiazpikoa bezala ondua.

Gero, **lakoi** hezurgabetuak zeuden, itxura biribil ederrekoak, ogi birrinduaz horiztatuak, kirtenean borla berde bana apaingarri. Karlos Zabala

Zenbat gailego ez ote ditut ezagutu Kanarietan arbi hostoekin egindako salda ospetsuaren ametsetan egoten zirenak, eta **lakoiarekin** baldin bazen, hobe. mingain bilduak gorriagoak eta osasuntsuagoak luzatzen ziren, **lakoiek** beren itxura on horia berreskuratu zuten, saltxitxoi girlandek ez zuten jadanik Quenu atsekabetzen zuen irudi etsi hura. Pako Aristi

---

**lakoniko**[1] *izond* laburra eta zehatza.

Destaina **lakonikoz** egiten baitzien muzin. Juan Garzia

Axola gabezia larria erakusten zuen irri **lakoniko** batez ihardetsi nien: esku hutsik dabilen autoktono bat baizik ez naiz. Itxaro Borda

Piamonteko dialekto lakar, zimel, **lakonikoa**. Juan Garzia

Soinujolearen emaztea izatea gogorra al den galdetu nion Mariari, eta **lakonikoa** izan zen: "Ez dakit gogorra den edo ez, beti bakarrik zaudela, hori bai". Pako Aristi

---

**lakoniko**[2] *iz* erromatar inperioko eraikinetan, lurrun bainuen gela.

Barrura sartu eta bainu hotzeko gelaren aurrean izerdia botatzeko gela gangatua jarriko da, bi aldiz luzeagoa zabala baino; horrek, portikoaren angeluetan alde batetik *laconicum* izenekoa izango du (lurrun-bainuen gela) lehen deskribatu bezala egina, eta **lakonikoaren** aurrean ur beroarekin garbitzeko gela. Santiago Iruretagoiena

Aurrean labe txiki bat egingo da **lakonikora** ematen duten hodi batzuekin. Santiago Iruretagoiena

Erretxina suaren eraginez erretzen denean, hodietatik ke beltza eramaten da **lakonikoraino,** eta han, paretaren eta kamera-gangaren inguruan eransten da. Santiago Iruretagoiena

---

**lakonikoki** *adlag* era lakonikoan, labur eta zehatz.

-Ez düzü mündüaren azkena, ihardetsi nion **lakonikoki,** gazte zira eta denetan diozüe bat galtzen denean, derrepentean, hamar bat biltzen direla. Itxaro Borda

---

**lakonismo** *iz* lakonikoa denaren nolakotasuna, laburtasun eta zehaztasuna.

Bere idazkietan agertzen den **lakonismoa,** tristura etsi hori eta adarra jotzeko gogoa sumatu omen zituen komisarioak oharra irakurri orduko. Joxean Agirre

Lehen ez -bota nion nik, gure burkide eta koadroei ikasitako **lakonismoarekin**. "Orduan ez dago zer ikuskaturik", bota zuen **lakonismoz** bisitariak. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**lakoxe** *iz* bezalakoxe.

Lehen Etxarri aldean erraketekin zebilela hi **lakoxe** bat ikusi diat. Pablo Sastre

Lekukoek aitortu zutenez, hirugiharrari parrillan **lakoxe** kea eta erre usaina atera zitzaizkion gorputz erreari. Harkaitz Cano

Afaria, ordea, bazkaria **lakoxea** izan zen. Josu Zabaleta

---

**lakra**[1] *iz* norbaiten, bereziki gizartearen, akatsa edo bizioa.

Torturaren **lakra** erabat instituzionalizatuta dago eta estatu zein klase politikoan, erabat onartua dago. Berria - Euskal Herria

Andreen kontrako erasoa, tratamendu diferente horren erakusgarri kezkagarrien eta gogorrena, da XXI. mende hasiera honetan munduan dagoen **lakra** horietako bat. Pello Salaburu

---

lakra[2] ik **lakre[1]**.

---

**lakratu,** lakra(tu), lakratzen **1** du *ad* lakrez itxi.

Eskutitza gutunazal batean sartu eta armarri inperialen zigiluaz **lakratu** zuten. Karlos Zabala

Ekarri sua gutuna **lakratzeko**. Eta bi lekukoen aurrean ziurtatu zuen notarioak hamar urte lehenago, hain zuzen ere 1974-11-30ean, berak **lakratutako** gutun-azal bera zela. Bego Montorio

Tiradera baten barruan larruzko karpeta bat aurkitu zuen, itxita eta **lakratua**. Bego Montorio

· **Lakratuaren** kolore biziak, ordea, Don Marcoren hitzak gogorarazi zizkion. Joxemari Urteaga

**2** (era burutua izenondo gisa)

Irakurtzen ari zaren gutun **lakratu** hau eraman dizun gizonak nire konfiantza galdu du Joxemari Urteaga

---

**lakre**[1] (erabat **lakra** g.er.) **1** *iz* zigilatzeko ezko modukoa, eskuarki gorria.

Harago, tokitxo karratu batzuk hondar-ontzia eta tintontzia gordetzeko, eta, haien artean, txalupa-formako hutsune bat idazlumarako, **lakrerako** eta, oro har, gauza luzangetarako. Jose Morales

**Lakre** gorriak sekretua sekretu mantendutako gutuna eskuratu zion. Joxemari Urteaga

Gutunari **lakrea** kendutakoan. Jose Morales

Koaderno horia lokarri urdin batez itxia zegoan, eta lokarriaren begiztaren **lakrea** eraztunaz zigilatuta. Xabier Olarra

**Lakre** zigiluduna ia urtu da, belus horiak ke garratz bat ateratzen du. Xabier Olarra

Zorroan **lakraz** itxia utziko zenuke ene errebeldia eta nire erruak zurituko. Elizen arteko biblia

Gutun-azalari buelta ematean, eskua dar-dar, **lakrezko** zigilu gorri-morexka bat ikusi zuen, eta han armarri bat. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aipatu gutun-azalak ez zuela inolako kalteren aztarnarik eta han jarritako **lakre** zigiluak ezin hobeto zeudela. Bego Montorio

**Lakre**-puskatxo bat; zapi-puska bat, batek daki nondik iritsia hara. Jose Morales

Bakarrik gogoratzen zuen non zeuden luma-muturrak eta **lakre**-puskatxoak. Jose Morales

## lakre[2] *iz*

Baina intsektuak galdua zuen bere hegoetako **lakrea** hatzek estututako aldean, eta uretara erori zen berehala. Bernardo Atxaga

## lakrikun 1 *izond* koketa.

Goriotek, biziki maite zuen emazteaz aspaldi alargundua, Iraultza garaian fideogintzan pilaturiko dirutza, bihotza eta bizitza ematen dizkie alaba **lakrikunei**. Markos Zapiain

**2** (adizlagun gisa)

Limurkeriatan hasi nintzen, **lakrikun** jokatuz. Joxan Elosegi

## lakrikunkeria *iz* lakrikunaren egintza gaitzesgarria.

Emakumea pozak zoratzen zeukan ezkongai izatearen egitasmoak; **lakrikunkeriatan** ibilia zen kontu harekin, olgetan haren karietara. Mirentxu Larrañaga

Pimi, zorionez, ez zaio batere gustatzen andre hori, eta ez zaio atsegina iruditzen ere, eta ez dio batere kasurik egiten bere **lakrikunkeriatan**. Josu Zabaleta

## lakrimal *iz* malkobidea.

Orduan, soin-enborra zuzendu eta begiak ireki ditu, ez erabat, ordea, errekako uretako izarniadura zuri horiak itsutu baitu istant batez eta hatz erakuslea eta erpurua **lakrimaletara** eramatera behartu du. Pello Lizarralde

## lakrimogeno *izond/iz* negar-eginarazlea.

CRSek gerrian zintzilik zeuzkaten **lakrimogenoak** askatu zituzten zer gerta ere. Itxaro Borda

## laktasa *iz* hesteetako entzima, laktosa desegiten duena sakarosa eta galaktosa emanaz.

Esnekiak jende askorentzat jangarri ez izaki (esnearen laktosa digeritzeko **laktasa** entzimarik pertsona gehienek helduaroan mantendu ez dute-eta), proteina-iturritzat, sojaren kontsumoa biderkatu egingo da. Edorta Agirre

## laktato *iz* azido laktikoaren gatza.

**Laktatoa** ere -muskuluen esfortzuaren hondakin bat- biltzen du gibelak, atzera glukosa bihurtu eta berriro erabiltzeko moduan uzteko. Irene Aldasoro

## laktiko *izond*

**1 azido laktiko** esne minduan eta landare askotan aurkitzen den azidoa.

Oxigeno-hornidura nahikoa ez bada, ariketa gogor bat egiten denean askotan gertatu ohi den bezala, beste prozesu bat izaten du glukogenoak: azido **laktiko** bihurtzen da, eta energia apur bat askatzen du. Irene Aldasoro

Lasterketa luze baten lehenengo faseetan, oso mingarria izan daiteke muskuluetan pilaturiko azido **laktikoa**. Irene Aldasoro

Azido **laktikoak** nekatutako giharrak suspertzen laguntzen du. Berria - Gaiak

Odoleko azido **laktikoa** neurtuta, emakumeak muskulu-uzkurdurarik izango duen jakin daiteke. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

azido laktikoa (6)

azido laktikoak (4)

## laktosa 1 *iz* esne azukrea.

Esnekiak jende askorentzat jangarri ez izaki (esnearen **laktosa** digeritzeko laktasa entzimarik pertsona gehienek helduaroan mantendu ez dute-eta), proteina-iturritzat, sojaren kontsumoa biderkatu egingo da. Edorta Agirre

Azukre txarra horrelako jakiek dute: **laktosa** esneak, fruktosa fruituek eta sakarosa azukre zuriak. Berria - Euskal Herria

**Laktosarik** edo sakarosarik hartu ezin duten haurrei. Berria - Euskal Herria

Bakoitzak aurreko ganbaratik **laktosa** kaxa bat hartu, eta burruntzali batez arraunean egin. Josu Zabaleta

**2 *laktosa sistema***

Lambda bakteriofagoaren eta **laktosa** sistemaren kiribil erregulatzaileetan bakarturiko mutante negatibo azpiratzaileak. Juan Garzia

**Laktosa** sistemaren eragozlea bakartzea erdietsi baitzuten. Juan Garzia

## laku *iz* aintzira.

Baikal aintzira, munduko ur gezako **lakurik** handiena (23.000 kilometro kubo), sakonena (1.637 metro) eta zaharrena da (25-30 milioi urte). Berria - Gaiak

Sarritan joaten zen **lakura** euri osteko egun eguzkitsuetan. Julen Gabiria

Gau hartan bertan alde egin zuen ospitaletik bere burua **laku** bateko ur hotzetara botatzeko. Bernardo Atxaga

Eguzkia harantzago ari zen etzaten, Kaweah **lakuaren** ondoko muinoetan. gau hartan bertan alde egin zuen ospitaletik bere burua **laku** bateko ur hotzetara botatzeko. Bernardo Atxaga

**Lakuaren** ur geldietan. Joan Mari Irigoien

**Lakuaren** gainean flamenkoak hegaz. Julen Gabiria

Keihotik kanpora begiratzen saiatu zen, baina tintazko **laku** bati so egitea bezala zen. Agustin Otsoa

Sentimenduen **lakura** esku anonimo batek harria jaurti balu bezalakoa. Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

laku handi (3)

tengrelako lakua bisitatzeko (3)
lakuan zehar (6)
lakuaren bazterrean (3); lakuaren ertzean (3); lakuaren inguruan (7); lakuaren ondoan (3)
lakuko bazterrak miatzen (3); lakuko kartierean (16)

---

# lakutxo *iz* anintziratxoa.

Ala Mouriscot **lakutxoaren** ondotik, Ilbarritza aurrenik; eta gero handik, itsas hegitik, hiri barnera? Txillardegi

---

# lalalakeria *iz* kalaka gaitzesgarria.

**Lalalakeriak** gelditurik egiazko hitzetara pasatu beharko dutela botere publikoek diote Herri Urratsen antolatzaileek. Herria

Liburuska horretan bada egun osoan kantuz aritzeko gaia, 38 kantu beren kopla guziekin, hain zuzen **lalalakeriarik** ez entzuteko. Herria

---

# laletxe *interj*

-Baietz, **laletxe,** baina behartu egin nauela Jefeak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Laletxe** izango luken. Fernando Morillo

---

# lama[1] 1 *iz* su garra, su lama.

Eztanda sor zakar bat eta **lama** gaizto bat eraginez izeki zen barrenean nafta hautseztatuzko txorrotada. Juan Garzia

## 2 ***su lama*** su garra. ik **lamada 3**.

Sotoan zegoela hasi zen sua eta bera ohartzerako hormetako kableetan gora ikusi omen zituen su-**lamak**. Harkaitz Cano

Eta begira zegoelarik su-**lama** guztiz eder eta distiratsua ikusi zuen zerutik etortzen. Askoren artean

Urrezko ilunabar-argiaz blaiturik zegoen gela, argitasun hartan su-**lama** mehe margulak ziruditela kandelak. Irene Aldasoro

Eskuineko motorraren kapotetik, oraindik zalantzakor, sutegiko lehenengo su **lama** filtratzen denerako. Josu Zabaleta

Su-**lamara** hurbiltzen den tximeleta bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
su lama (12)

---

# lama[2] *iz* [fr] xafla.

Ilar zuri haien erdian, ordea, bizar egiteko **lama** bat aurkitu zuen, baita josteko orratz eta haria ere. Eneko Bidegain

Banbu luze batzuren puntan **lama** xorrotx bat ezarririk, preso batzuk, urkatzea arriskatzen dutela, airezta-ziloak balia, lur-sagarrak sotoetatik hartzen dituzte. Marzel Etxehandi

---

lama[3] ik **llama**.

---

# lamada (*orobat **lamara** g.er.*) 1 *iz* bero bafada.

Bilboko kalebazter bero haietako porlanak eta galipotak botatzen duen **lamada** pentsa genezake 20 gradutik gora ibiliko dela. Pello Zabala

Hamar t'erdiak izango ziren zeruan Gernikako sutearen **lamadak** begiztatu nituenean. Edorta Jimenez

Eta alderantziz, aire beroaren **lamadak,** haizeen abiada eta abiaduraren esplikazioa argi zezakeen. -1981ean, berriz, 5etik 22ra, egundoko bero **lamada** Penintsula osoan, 40 gradutik gora paraje askotan. Pello Zabala

## 2 irud/hed

Ardoaren **lamada** beroekin batean desioaren ausikiak suma nitzakeen begirada horretan, baina baita beldurra ere. Joxean Agirre

Itzulpena itsu ditzaketen beroaren **lamarak** eta lurrunak... Anjel Lertxundi

## 3 ***su lamada*** su lama.

Gorpua **su-lamadek** emeki-emeki milikatzen duten bitartean. Gotzon Garate

---

lamara ik **lamada**.

---

# lambda *iz* greziar alfabetoko hamaikagarren letra [l] ahotsa irudikatzen duena.• *irud/hed*

**Lambda** bakteriofagoaren eta laktosa sistemaren kiribil erregulatzaileetan bakarturiko mutante negatibo azpiratzaileak. Juan Garzia

Nahi nuke apez **lambda** baten bakardadea deskribatu. Piarres Aintziart

---

# lamela *iz* xafla txikia.

Normalean bata bestearen ondoan itsatsirik egoten dira, geruzak osatuz **(lamelak)**. Irene Aldasoro

Hezur normal baten kanpoaldeko gainazal leunean, besterik gabe bata bestearen gainean kokaturik daude **lamelak**. Irene Aldasoro

Garai bateko bizargileen ikurra zen makila marradunaren antzera kiribilkaturiko **lamelek** osatzen dute osteonaren pareta. Irene Aldasoro

---

# lamentatu, lamenta, lamentatzen du *ad* deitoratu, negarreztatu.

Nik uste, Finkielkrauti gertatzen zaio, berak ere ezin duela, hainbeste **lamentatzen** duen modernoa eta postmodernoa ez izan, eta erlatibismoa deitoratuz, bera ageri dela

oso modernoa eta erlatibista, historia errepasatzen diharduenean adibidez. Joxe Azurmendi

---

lamia ik **lamina**[1].

---

**lamikatu**, lamika, lamikatzen du *ad* milikatu, miazkatu.

Urak hots lasaigarri bat sortzen zuen piloteen kontra jotzean, hain zuzen ere, txakurrek **lamikatzean** egin ohi dutenaren modukoa. Lopez de Arana

Ardi eta axuriek mihiaz **lamikatzen** zituzten. Pello Zabala

Ababorrera egin genuen eta Harriandi paretik joan ginen […] eragozpenik gabe, haizea arnastuz eta ezpainetan bilduriko gatza **lamikatuz** . Joseba Sarrionandia

---

**lamina**[1] *(orobat **lamin** g.er. eta **lamia**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lamina** agertzen da)* **1** *iz* Euskal folkloreko izakia, emakume itxura duena.

Euskal kondairetan ardura aipu dira **laminak,** neska batzuen idurikoak, bilo hori, baina oinak antzararenak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mila **lamiaren** erreka ondoan gaudek. Aitor Arana

Neguko gauetan, supazterrean, istorio beldurgarriak kontatzen zizkigun Iratiko oihaneko **lamina,** basajaun edo gizotsoez. Aingeru Epaltza

Luzaideko haurrak eta **laminak** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Han bada mizpira arbola bat, eta handik kea ateratzen zelarik, **laminek** egiten zuten sua zen omen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Haize sorginduak darabil liluraz harantz-honantz, erreka bazterrean **lamiak** utzitako orraze (sinua alda lezakeen sorkari) bila. Patziku Perurena

Biharamunean, Martinesa zena **-lamina** baitzen- hilik harrapatu zuten supazterrean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Laminen** ohidura hori ez omen da haatik hain xaharra, aipatu ditugun atorra delako horienaren aldean. Herria

Ilea urre koloreko, inori kalte egiten ez dakiten **lamiak** dira amilamiak. Anjel Lertxundi

**2** (izenondo gisa)

Burua galduko dut neskatila polit honen hatz **laminen** erruz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Helburu nagusia ni isurtzea da, neskatila **lamina** honi ahal dudan plazer guztia ematen diodan bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** (hitz elkartuetan)

Arren, eraman nazazu zure **lamia** erritmoan. Patxi Zubizarreta

**4** *itsas lamina* ik **itsaslamina**.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **sorginak eta laminak** (3)
> **laminen eguna** (3); **laminen mundua** (4)
> **itsas lamia** (6)
> **itsas lamiek** (3)
> **itsas lamien** (3)

---

**lamina**[2] **1** *iz* grabatua; batez ere, liburu batean orri osoa betetzen duena eta testutik bereiz dagoen ilustrazioa.

Ez ditut zenbatu landareen **lamina** guztiak, baina bost milatik gora bai gutxienez, aparte utzita landare kaxak, eskuizkribu eta argitaratutako bi liburuak. Hasier Etxeberria

36 **laminatan** idazle txinatar klasikoen irudiak eta poema bana ageri dira. Ibon Uribarri

**Laminen** azpian luma-muturrez eginiko sinaduretan ikusten da: Frederic Trèmols, Estanislau Vayreda, Michel Gandoger... Hasier Etxeberria

**2** xafla.

Egitura horiek **laminak** sustengatzen dituzte, idatzitako informaziorako eta argazkietarako euskarriak. Berria - Kultura

· Paperezko **lamina** zuri handi bat eseki zuen bertatik. Fernando Morillo

**3** (hitz elkartuetan)

Harlanduzko etxeetako miseria zen; Louvrek bezalako burdina landuzko balkoiak eta Eskorialak bezalako marmol **laminazko** armarriak zeuzkan miseria. Koldo Izagirre

---

**laminagailu** *iz* metal bati xafla itxura ematen dion makina.

Metal preziaturik ez dutenez, ez eta lurrinezko prentsa, **laminagailu** eta sufre-azidorik, altxor-dirurik txanpontzeko, onenean besteei altxor baten lekua seinala diezaieketen. Juan Garzia

---

**laminarri** *iz*

Ordurako, **laminarriak** osatzen joan ziren uhartea handi samarra zen, baina han ez zeukan janaririk jentilak. zubi zaharrari eusten zioten **laminarriak** hor daude, orain ere, urte asko ez dela eraiki duten zubi berriaren pean, harri zahar haien sabelean sarturik burdindun zementuzko oinarriak. Pako Aristi

---

**laminatxo** *iz* tamaina txiki lamina.

*Blanco y Negro*tik **laminatxoak** kalkatzen zituen eta gero pintatu egiten zituen. Josu Zabaleta

---

laminazino ik **laminazio**.

---

**laminazio** *iz* metal bati xafla itxura ematea. ik **xaflagailu**.

Erreduktoreak egiten ditue, barkuetan, eolikoetan, zementu-, azukre-, paper-fabrika, **laminazino,** zentral hidrauliko eta holakoetan behar diranak. Xabier Amuriza

1962an Etxebarriko Bandak **laminazio** fabrikan-eta egindako greba gogorren ondorioz. Jokin Urain

**Laminaziorako** zilindroak. Urtzi Urrutikoetxea

**lamiti** *izond* litxarra, gozozalea. • *idur/hed*

Eta nola, nengoen puntuan nengoela, otso gose sabel-uzkur bat bainintzen, golos eta **lamiti**, Mignonen gorputza haginkatzeko prestik, [...]. Joan Mari Irigoien

---

**lamoritu,** lamori, lamoritzen da *ad* lainotu.

Artean herria **lamorituta** dagoelarik egunari hasiera nire tabernan ematen dioten gizon hauek alde egiten dutenean. Pako Aristi

---

**lamorizu** *iz* lainobera sarea.

Haxixa erretzen dutenerako barruan daramate **lamorizua**. Pako Aristi

---

**lan** 1 *iz* onuragarri den zerbait lortzeko egiten den jarduera edo ahalegin jarraitua. ik**behar**.

Seguru, bi giza sexuen arteko larru-lanean **(lana,** eginkizuna: larru-jaia edo ustekabeko festa oso gauza bakana izaten baita zorigaitzez). Iñaki Segurola

**Lan** handia izan genuen, egia erran! Edurne Elizondo

Aberatsa izateko diru asko behar da, diruak **lan** handiak ematen ditu, eta lana egiteko ez du aberatsa izatea merezi. Iñaki Segurola

Etxe berria hasten delarik **lan** asko bada obratzeko. Daniel Landart

Ez da **lan** makala berrogeita hamazazpi urterekin berriz bizitzen hasi beharra. Oskar Arana

-Alferrikako **lana** duk hori, ez diat jokatuko. Jose Morales

**Lana** txukun egiteko ilusioa. Patziku Perurena

Egiteko **lan** berri bat daukagu: haragi saldazko (hautsa) paketeak bete. Josu Zabaleta

Basoko **lan** akigarria ihesbide izan nuen hasieran. Alberto Ladron Arana

Euskalgintzaren jardueraren pizgarri eta sustagarri seinalatuena eta haren beharra nabarmenenik erakusten duena, euskararen etsai eta erasotzaileen **lan** gaiztoa da. Iñaki Segurola

Posta elektronikotik etorritakoa laburtzeko **lan** distiragabeari. Aingeru Epaltza

Gaiztakeria-tresna bilakatu da askotan **lan** fisikoa. Iñaki Heras

Zazpigarren egunerako bururatua zuen Jainkoak bere **lan** guztia eta zazpigarren egunean **lanetik** gelditu zen. Jose Antonio Mujika

**Lan** haren alde txarrak bistakoak ziren. Oskar Arana

Nire lagunak ez zuen **lan** handirik izan horrekin tutu itxurosoa moldatzen. Aingeru Epaltza

**Lan** da egunero 8.000 karaktere idaztea. Aingeru Epaltza

2 *(jarduera hori, ondasunak lortzearren, giza talde baten barnean eta era arautuan egiten denean).*

Soldata bazen zerbait, baina **lana** gogorra zen oso, eta gero hilabete batzuk lehorrean inora ezean. Koldo Izagirre

Gerra bukatuta **lana** bilatzea ez zela ahuntzaren gauerdiko eztula. Xabier Etxabe

-Badakizu **lana** aurkitu dudala? Aingeru Epaltza

**Lana** ematen zioan, nahiz eta, iduriz, gaizki eta berandu ordaindu honek ere... Aingeru Epaltza

Bestela zerrategian eskatuko nuen **lana**. Bernardo Atxaga

Tailerreko **lana** gogorra zen. Juan Kruz Igerabide

Institutuko **lana** ere utzia du, nik aspalditik susmoa ere banuenez. Joxe Austin Arrieta

**-Lana** daukatenak itota, langabetuak etsita! Pako Aristi

Nik haatik **lana** segurtatua dut bulego batean eta badakit beste anitzen aldean xantza gaitza badudala. Janbattitt Dirassar

Ilea galdu, gogoa galdu, **lana** galdu eta emaztea galdu ondoren, zail zen niretzat aurrera nola jarraitu asmatzen. Oskar Arana

Balore-hierarkia, eta **lanaren** zentzu sakonak eskatzen dute kapitala **lanaren** esanetara egotea, eta ez **lana** kapitalaren esanetara. Iñaki Heras

**Lan** ona, senar prestua, apartamentu erosoa. Oskar Arana

Justizia! **lana** ! ez dugu besterik nahi! Jon Maia

3 zerbaiten jarduera etengabea, ondorio ageria duena.

Eta ontzitik lehorrera bezala jaitsiko zarete, **hotzaren lanari** esker, itsaso izoztura. Joseba Sarrionandia

Urruneneko mendigainak garden ageri ziren, hego **haizearen lana**. Koldo Izagirre

Gainerakoa beldurraren **lana** izan zen. Aingeru Epaltza

4 eskulangile, burulangile edo artista baten jardueraren ondoriozko gauza. ik**obra 2**.

Salomonek, Jaunaren etxea eraikitzeko **lan** hauek guztiak bukatzean, [...].

B ide berriaren **lan** nagusiak eginak badira, izkinak bururatzen ari ziren langileak. Berria - Ekonomia

Tahoe aintzira eta Sakramento hiriaren artean nonbait, errepidea konpontzeko **lanak**. Joxerra Garzia

Artelanak asmatzeko, urre, zilar eta brontzezko **lanak** egiteko. Elizen arteko biblia

Arratsaldearen hasiera fisikako laborategirako **lan** bat idazten eman baitzuen. Oskar Arana

Nire **lana** irakurri zuen Saito jaunak. Joxan Elosegi

Ehun bat orrialdeko **lana** da. Juan Garzia

Ez dago ongi norberak bere **lana** aipatzea, baina doitasun handiz egindako azterketa da. Askoren artean

Haren zortzi edo hamar **lan** atera zituen handik, eta salmahaiaren gainean jarri zituen banan-banan, nik ikus nitzan. Oskar Arana

Baziren artean **lan** batzuk saltzeke. Oskar Arana

**Lan** honetan, Homeroren **lana** zuzenean edo zeharka aztertu duten ikerketak hartu ditugu "teoria oralista" horren osagarri nagusitzat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Frantziskoren biografoen **lana** epaitzeko orduan. Askoren artean

Hona **lan** aipagarrienak: [...]. Jon Muñoz

Jean-Patrick Lebel-en *Cinéma et idéologie* **lana**. Josu Zabaleta

Guztien artean *Fonética Histórica Vasca* (FHV) **lan** eskerga nabarmentzen da, bere luzera eta aberastasunagatik. Lourdes Oñederra

Gehitu behar diogu, gainera, Hualde-k **lan** ugari egin duela euskarari buruz ikuspegi horretatik. Lourdes Oñederra

*Justine*-ren egilearen **lan** postumoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Barojaren **lana** ulertzeko. Josu Zabaleta

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **laboral**.

**Lan**-konbenioak, eskakizun laboralak, etc. Edorta Agirre

**Lan** eskariaren eta eskaintzaren arabera. Iñaki Heras

**Lan**-sektoreetako egunkariak eta *Wall Street Journal* zituen, besteak beste, irakurketa horien artean. nire lantokian **lan** eguna zen. Xabier Olarra

Egun beteko **lan**-saioaren ostean. Mirentxu Larrañaga

Atzoko **lan** saioan partidatxo bat jokatu zuten. Berria - Kirola

Zorioneko **lan**-estresa ote? Migel Angel Mintegi

Herrialde horren lehia herrialde industrializatuenak baino askoz **lan** egoera okerragoan oinarritzen denez. Iñaki Heras

Gizakiari bere **lan**-kargaren zati bat arindu behar liokeen aurrerapen teknikoa. Iñaki Heras

Alemaniak **lan** kostu garaienak ditu eta langabezia maila oso apalak ditu. Iñaki Heras

Pragmatismo eta **lan** gaitasun handiko gizona. Iñaki Heras

Orduko **lan** produktibitatea -ordu bakoitzeko ekoizten dena. Iñaki Heras

**Lan**-banaketaren txanponaren ustezko alde teknikoari lotutako auziak. Iñaki Heras

**Lan** denboraren murrizketa edota lanaren banaketa. Iñaki Heras

**Lan** antolaketa fordistari. Iñaki Heras

**Lan**-merkatuen gehiegizko arauketa eta sektore publikoaren nagusitasuna. Iñaki Heras

**Lan**-harremanetan malgutasuna areagotu. Iñaki Heras

**Lan** faktorearen prezioari dagokiona. Iñaki Heras

Aitaren **lan**-jaka zikina ez zen aurrerantzean zintzilik izan etxeko atari-aurrean. Mirentxu Larrañaga

Ameriketako Estatu Batuetako **Lan**-Idazkari Nagusi izandako Robert Reich-ek. Iñaki Heras

Eusko **Jaurlaritzaren Lan** Sailaren bitartekaritza saioak. Berria - Harian

*ik beherago* 24. Askoren artean

· Herri **Lan Saileko** zuzendari nagusi izan da Miranda Nafarroan, 1996. urteaz geroztik. Edurne Elizondo

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zubiaren eraikuntza **lanak** hasi eta gutxira, sute bat gertatu eta hainbat ordu igaro zituen Washington Roeblingek urpean. Harkaitz Cano

Filosofia tibetarra egun eta tarota bihar, taldez talde zebilen garairik zoroenean ere ez zituen zokoratu ama-**lan** funtsezkoenak. Aingeru Epaltza

Maisu-**lan** bikaina. Kontulari-**lan** bat erdietsi zuen oihal-denda batean. Oskar Arana

Arotz-**lan** finez. Santiago Iruretagoiena

Jendea komunisten eta juduen kontra jartzeko burutzen zituztela naziek sator-**lan** haiek. Anjel Lertxundi

Txindurri-**lan** diziplinatuan. Xabier Mendiguren Elizegi

Asto-**lana** franko egin zuten gure gurasoek. Arantxa Iturbe

Tipula-papera gaineratu dioten pintura-**lan** inpresionista batean bezala. Aingeru Epaltza

Joste-**lan** bikainak egiten zituen gakorratzaz. Juan Garzia

Beste era bateko garraio-**lana** ere egiten du odolak. Irene Aldasoro

San Bonabenturarekin, Erdi Aroko biografiak bukatzen dira (biografia, santuaren bizitzaren eraikitze-**lan** organiko bezala ulertuz). Askoren artean

-Oker ez bagaude ikerketa-**lan** bikaina burutu berria duzu -esan zuen. Migel Angel Mintegi

Munduko hiririk bizigarrienean zegoen, kontraespioitza-**lan** arriskutsu batean. Alberto Ladron Arana

Orain, kale-**lan** gorrian zebilen, hasberri baten gisan. Aingeru Epaltza

Ikusagun zorioneko industria-**lan** edo giza-jarduera errezale horrek zenbateko lanak sortu dizkigun. Pello Zabala

Koipe-**lan** bikoitza, erabil oparo olioa eta gantza. Oskar Arana

Zeren bideo-**lan** gehienek iruzkin luzeak, asmoaren azalpenak, erabiltzeko moduari buruzko argitasunak ekartzen baitituzte. Josu Zabaleta

Internetek tele-**lan** edo tele-hezkuntza alorrean sortzen dituen aukerak. Iñaki Heras

· Urtarrilean taxi-gidari **lana** utzi zuenez geroztik ez zen auto baten bolante aurrean eseri. Oskar Arana

## 7 (fisikan) magnitude fisikoa, indar baten eta haren ezartze puntuak kurritzen duen distantziaren biderkaduraren baliokidea dena.

Motorrek ez dute **lan** onuragarri bihurtzen erregai guztia; motorraren energia kimikoaren parte bat -parte handia, proportzioan- bero bihurtzen da. Irene Aldasoro

Bero hori, gero, **lan** bihurtzen da, baina ez dena, eta, gehienetan, eraginkortasun maila nahiko apala emanez, **lan** gutxi eta bero handia sortzen baitira errekuntzaren ondorioz. Irene Aldasoro

Eraginkortasuna da (erregaia **lan** bihurtzeko behar den energia kimikoaren proportzioa, alegia) bi motor konparatzeko modu praktiko bat. Irene Aldasoro

Ingeniari batek makina bat diseinatzen duenean, makinak egin beharreko **lan**-karga handiena kalkulatzen du lehenik. Irene Aldasoro

## 8 *alfer lan*

Giza naturaren legeen aurka jardutea **alfer lana** dela ulertu berria duenaren antzera. Xabier Olarra

**Alfer-lana** izango nuen nik galtza barrenak jasotzea, lokatzez beteak bainituen ordurako. Juan Luis Zabala

Galderak egitea, **alfer lana**! Txillardegi

**Alfer lan** hark haserre jartzen ninduenez, eta begiak ilunbetara erabat ohitu zitzaizkidanez, argiago ezin ikusiko nuela etsi, eta idazmahaira joan nintzen. Josu Zabaleta

Ez zuan **alfer lanean** ari, eszenategia artaz prestatzen baizik. Aingeru Epaltza

## 9 *galtzak bete lan* (*orobat* ***galtza bete lan*** *g.er.*) lan asko.

Sailkatzaileek **galtzak bete lan** zuten; pilen gainetik saltoka, saskiak hartu, kolpe batez lastoa kendu, hustu eta bota egiten zituzten bizi. Karlos Zabala

Nagorek **galtzak bete lan** izan zuen Goñi II.aren erasoei eusteko.

Jakina baita, ilargi betea denean, **galtzak bete lan** izaten duela Heriotzak. Xabier Etxabe

Merkatuek, **galtzak bete lan,** ohiko dantza egin zuten: gora goizean, behera gerora. **Galtza bete lan** izango du Bilbao indizeak 2000ra itzultzen, baita Belokik Tourreko podiumera itzultzen ere. Berria - Ekonomia

Bai Guzmanen taldeak bai Praderarenak ere **galtza bete lan** izan zuten hautagai izateko behar adina sinadura biltzeko. Berria - Kirola

## 9a *gatibu lan* preso dagoenak kondenaren parte gisa egin behar duen lana.

**Gatibu-lanaren** aurkako Askapenerako Fronteko buru izan zen. Berria - Gaiak

## 10 *gauazko lan* (*orobat* ***gauezko lan***) kontrabandoa.

Hiru hilabete baizik ez ziren iragan Alemaniatik itzuli zenetik eta zenbait aste haietan **gauazko lanean** abiatua zen. Aste batzuez, lanetik itzultzean, errusiar preso talde bat gurutzatzen zuen, haiek **gauazko lana** baitzuten. Eneko Bidegain

Erran behar da orduan ere **gauazko lanak** bazuela arrakasta haundia, eta Etxalartar talde zintzoarekin baziren harreman frango. Herria

Eta pantailan agertu zaizkigu hiru aldiz aspaldiko auriztar batzu, beren etxetan filmatuak, zernahi oroitzapen lerrokatuz, herriko bestetarik haste, mendietako **gauazko lanetaraino**. Herria

Ibiliko ziren elkarrekin kontrabandoan, **gauezko lanean**, mendian gora eta behera. Hasier Etxeberria

## 11 *lan aste* (*orobat* ***lanaste*** *g.er.*)

2001ean enpresarekin pixkanakako lanaldi murrizketa hitzartu zuten, 2006an 35 orduko **lan astera** iritsi arte. Berria - Ekonomia

Siemenseko presidenteak, bestalde, 40 orduko **lan astera** itzultzea proposatu zuen igaro astean. Berria - Ekonomia

35 orduko **lan astearen** alde, Catelsa greban. Berria - Ekonomia

Ikerketa baten arabera, ez da ona haurdunaldian 24 ordutik gorako **lan astea** izatea. Berria - Gaiak

Opelek ere **lan astea** luzatu nahi du soldatak bere hartan utzita. Urteko lan egutegia, astelehenetik ostiralera bitarteko **lan astea** eta erretenak eta eszedentziak arautzea nahi dute medikuek. Berria - Ekonomia

## 12 *lan bila* *adlag*

**Lan bila** hasiko nintzen, ez nuen etsiko ogibideren bat aurkitu arte. Bernardo Atxaga

**Lan bila** zebilen eta nagusi batekin elkarrizketa zuelako alde egin beharra zuen. Gotzon Garate

Gerra amaituta kartzelan egon eta irtetean **lan bila** etorri nauk hona. Jon Maia

Poesiatik eta ipuinetatik bizitzerik ez denez, **lan bila** saiatzen nintzen buru-belarri. Juan Garzia

Jakina da, garai batean, UBI bukatutakoan, ez ikasten segi ez **lan bila** hasi. Xabier Mendiguren Elizegi

Parisa **lan bila** joaten ziren Iparraldeko euskal neska asko prostituzio sareetan eror-tzen zirela. Gotzon Garate

**Lan bila** atera ziren Afrikatik, baina bide erakusle zituztenek abandonatu egin zituzten. Iñigo Aranbarri

**"Lan bila** jarraitzen al duzu?", jakin nahi izan zuen, dendaren hondoko bulegoan eserita jarri ginenean. Bernardo Atxaga

## 13 *lan egin**sup_1*

Fabrikan **lan egiten** zuten bi aleman nituen auzo. Orain epaile baten bulegoan **lan egiten** du. Marzel Etxehandi

Hirugarrenean, hark **lan egiten** duen bidaia-agentziara deitzen du. Oskar Arana

Aitak kafean **lan egitea** proposatu zidak, hilean hiru liberaren truke. Patxi Zubizarreta

Luzaroan **lan egin** nuen horretan; arrakastarik gabe, ordea. Jon Muñoz

Eta zuk, Nathan, zertan **egiten** duzu **lan** ? Oskar Arana

Ekonomialari gisa **egiten** dut **lan** nire osabaren rantxoan... Bernardo Atxaga

-Ez duzu inoiz aseguruetan **lan egin** . Oskar Arana

Armada britainiarrarentzat **lan egiten** zutenen oparotasuna. Patxi Zubizarreta

Laburpenaren bigarren emanaldi hau prestatzen, Somervell jaunak eta biok elkarrekin **lan egin** dugu. Iñaki Mendiguren

Basetxean, egokitzen zitzaidan aukera oro baliatzen nuen neure kasa **lan egiteko** . Mirentxu Larrañaga

Gogotik **lan eginez** . Jose Morales

Berriro saiatuko gara, gogor **lan eginez** . Juan Kruz Igerabide

## 14 *lan egin**sup_2 (testuinguru teknikoagoetan)*

Motor bat da muskulua: **lan egiteko** tresna bat, alegia. Irene Aldasoro

Muskuluak ez dira salbuespen, [...] ATP deritzon gai kimikoa behar baitute **lan egiteko** . Irene Aldasoro

Motor batzuek indar guztian **lan egiten** dute beti, baina moduren bat izaten da, normalean, irteerako indarra erregulatzeko. Irene Aldasoro

Urdail-urinarekin **lan egiten** duten entzimak gai dira okela digeritzeko. Irene Aldasoro

Beren jaulkipen-lurraldetik kanpo, diru guztietan **lan egiten** duten bankuak. Koro Navarro

## 15 *lan eginarazi*

Atsoaren arabera, ez zen zentzuzkoa umeari horrela **lan eginaraztea,** arratsean, haurrek lotan egon behar duten garaian. Karlos Zabala

Zeus tximistadunak nire lagunak kikildu zitian; hantxe hil zituan asko eta asko; beste asko bizirik eraman zitiztean, soroetan **lan eginarazteko** . Juan Kruz Igerabide

Makina sinple bat da palanka, oso ezaguna eguneroko bizitzan, puntu batean aplikaturiko indarrari beste puntu batean **lan eginarazten** diona. Irene Aldasoro

Ene barne ardotua ez zegoen buruari horrenbertze **lan eginarazteko** . Aingeru Epaltza

## 16 *lan eragin* lan eginarazi.

Haietarik hirurogeita hamar mila zamaketari izendatu zituen, laurogei mila hargin mendian eta hiru mila eta seiehun lan-arduradun, jendeari **lan eragiteko** . Elizen arteko biblia

Hargintzan **lan eragin** zien, Jaunaren etxea eraikitzeko harriak lantzen. Elizen arteko biblia

## 17 *lan-erdi* ik **lanerdi.**

## 18 *lan-esku* (*20 agerraldi, 4 liburu eta 3 artikulutan; orobat* **lanesku** *8 agerraldi, 2 liburu eta 3 artikulutan)*

Ea iruditzen zitzaion IG-Farben delakoak ezerezetik baliatu ahal izan zuela gatibuen **lan-eskua** . Lehengaiak, **lan-eskua,** banaketa-sareak, teknologia, ikerketa, dirua aurreztea, etab. Juan Garzia

**Lan-eskuaren** kostu apalak baliatzeko estrategia. Koro Navarro

Enpleguak eskaintzen zizkion nekazaritzatik etorritako **lan-esku** gehiegizkoari. Koro Navarro

**Lan-eskua** sarritan oso gaztea izaten zen eta errotazioa handia zen. Koro Navarro

Fabrikatzen errazak ziren produktu bakunak esportatzen hasi zen (hau da, kapital gutxi eta **lanesku** asko behar dutenak). Koro Navarro

## 19 *lan eta lan* *adlag*

**Lan eta lan,** goizetik arrats ostatura zetozkion jendeak haia-haia zerbitzatzen. Itxaro Borda

Eta goizean hasi denetik orain arte **lan eta lan** aritu da, atsedenik hartu gabe. **Lan eta lan** aritu zen lehertu arte, semeak zuzenbidea ikas zezan. Mrs. Jose Antonio Mujika

Soubrine oinetan zuen, ahoa orratzez beterik eta albainu txiki batez **lan eta lan** Lopez de Arana

## 20 *lan indar* (*orobat* **lanindar** *g.er.) (ekonomia marxistan)*

Era horretan hazi egiten ziren lur-jabeen errentak eta **lan-indarra** ugaltzearen kostua, eta, horren ondorioz, soldatak ere handitzen ziren. Koro Navarro

**Lan-indarraren** ordainketa da munduko espazio ekonomikoaren beste faktore desberdintasun-eragile egiturazko bat.Kapitalak ezin menderatu duen **lan-indarra** . Koro Navarro

Ez dioala sekula salduko heure **lan indarrik** hire ideologiarekin bat ez datorren inori! Unai Iturriaga

1990eko hamarraldiaren hasieran industriak **lan-indarraren** ia %40 hartzen zuen lehen belaunaldiko herrialde industrializatu berrietan. Koro Navarro

Hiriek, haietan eskuratzen ziren soldatak zirela-eta, indartsu erakartzen zuten landa-giroko lan- **indarra** . Koro Navarro

Fabrikatik askoz haratago doan **lan indar** mugikorra da, klase osaketa guztiz ezberdina duena: langile prekarioak, emigranteak... Berria - Kultura

## 21 *lan istripu* (*orobat* **lanistripu** *g.er. eta* **lan ixtripu** *g.er.)*

Gure aita papeleran hil zen **lan istripu** batean. Joxe Azurmendi

Iaz Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan **lan istripuetan** 152 lagun hil ziren. Berria - Ekonomia

Ospitale batera eraman ninduten, eta **lanistripua** gertatu zitzaidala esan behar izan nuen. Rafa Egiguren

**Lan istripu** hilgarriak salatzeko. Berria - Ekonomia

**Lan istripuen** kontrako neurriak. Herria

**Lan istripuei** aurre egiteko milioi bat euro gehiago bideratuko dira. Berria - Harian

**Lan ixtripuak** zorrozkiago kontrolatu beharko dituela Erien Axurantza Kutxak. Herria

Bohemiako Erresumaren **Lan Istripuen** Aurkako Aseguru Etxean. Pedro Alberdi

## 22 *lan-jantzi* (*36 agerraldi, 11 liburu eta 4 artikulutan; orobat* **lanjantzi** *18 agerraldi, 6 liburu eta artikulu 1ean)* *iz* laneko jantzia.

Laneko arropak jantziko ditut, galtza beltzak eta atorra urdina, **lanjantziaren** soingainekoa, letoizko botoiekikoa, amak sidolaz garbitzen didana. Fernando Rey

Tornuan **lan-jantzi** urdineko gizon batek palanka bat zerabilen. Lopez de Arana

Hantxe agertu zen Karmen bera, **lan-jantzi** urdina soinean eta organizazioko kapela gorri-beltza buruan. Inazio Mujika Iraola

**Lan-jantzi** urdin zarpaila jantzita. **Lan- jantzia** koipe zikinez belzturik. Javi Cillero

**Lanjantzi** zituen galtza gorriak eta atorra zuri-gorria erantzirik, bere autoan sartu eta Unzaluren etxera abiatu zen. Xabier Montoia

Jaiegunetako **lanjantziarekin**. Fernando Rey

## 23 *lan jarduera*

Gaitzek gaixoen zein haien zaintzaileen **lan jardueran** duten eraginaren inguruko ikerketak. Berria - Gaiak

Bost urteko iraupena laura jaistea, **lan jardueran** urte bakoitzeko ordu bat murriztea. Berria - Ekonomia

Gainera, greba hark herri osoari eragiten zion zuzenean ala zeharka: merkataritza, tabernak, tailer txikiak eta bestelako gremio askok ere beren eguneroko **lan jarduerari** kaltea zetorkiola ikusi zuten eta ia herri osoak parte hartu zuen mobilizazioetan. Jon Maia

## 24 *lan-jardun* (orobat ***lanjardun*** g.er.) iz

Eguneko **lan-jarduna** amaitu eta alde egitear zelarik [...]. Mirentxu Larrañaga

**Lan jardun** amaigabeak, ordainsari eskasak eta kontratu prekarioak. Berria - Euskal Herria

Akordioaren arabera, **lan jarduna** egokitzeko malgutasuna ezarri zen eta lan orduak gutxitu egin ziren. Berria - Ekonomia

Irujok bere **lan jarduna** hiru zutabetan oinarrituko duela aurreratu zuen. Berria - Euskal Herria

## 25 *lan kostu* (orobat ***lankostu*** g.er.)

INEren arabera, **lan kostuak** soldatak baino gutxiago hazi ziren 2002 urtean. Berria - Ekonomia

Arrazoitu daiteke **lan kostuek** gorantz egiterakoan [...] salmentek beherantz egin dezaketela. Iñaki Heras

Alemaniak **lan kostu** garaienak ditu eta langabezia maila oso apalak ditu. Iñaki Heras

CIE Automotivek **lan kostuak** %32 gutxitu nahi ditu 2010era arte. Berria - Ekonomia

**Lan kostuen** murrizketa ezinbestekoa zen guretzat. Berria - Ekonomia

**Lan kostu** handiek eragin dute enpresen lehiakortasunik eza. Berria - Ekonomia

**Lan kostu** apaleko lehiakortasunaren bila aritu den eredu ekonomiko baten emaitza. Berria - Ekonomia

## 26 *lan mahai* (orobat ***lanmahai*** g.er.) lan egiten den mahaia.

Argazkietan ikasleak ez ziren ikasmahaian txoropitoen moduan barrezka jarriak agertzen, baizik-eta negutegi batean loreak aldatzen, edo, **lan-mahai** batean oholak mozten. Jesus Mari Mendizabal

Bere **lan-mahaiaren** aurrean eseri nahi du berriro, bere ohean lo egin. Oskar Arana

**Lan- mahaiaren** aurrean eseri eta beste atal bat gehitu nion *Giza erokeriaren liburua*ri. Oskar Arana

Antoniak **lan-mahaiaren** ondoko aulkia jiratu zuen Mentxurekin bekoz beko jartzeko. Josu Landa

## 27 *lan ordu* (orobat ***lanordu***) lan egiten den ordua.

Zoritxarrez emakume vietnamdarrak gure trapuzko andere txiki lirainak egiten beste hainbat **lan ordu** eta lan egun eman beharko ditu. Iñaki Heras

**Lan-orduak**: 41 oren astean. Herria

Neskak zentzuz jokatu eta **lan-ordua** amaitu arte itxaron zuen. Mirentxu Larrañaga

Ondasun-unitate bat ekoizteko behar diren **lan-orduak**. Koro Navarro

Herriko Etxean berean, **lan ordu** emendatze batzu aipagai ziren bai eta ere lan postu berrien sortzea. Herria

## 27a *lan poltsa* lan eskaintza eta eskarien taula.

Kazeta ez abertzaleek omen duten kalitate hobea (--?), batzuek eta besteek eskaintzen dituzten zerbitzuak (**lan-poltsa**, iragarki laburrak, eskelak...), eta beste hainbat. Txema Ramirez de la Piscina

Mendebaldeak bere produktuak saltzeko merkatu gisa eta **lan poltsa** osatzeko erreserba gisa ikusten du ekialdea. Berria - Mundua

Jordan de Uriesek, baina, ez du zehazterik izan aurrerantzean zenbat etorkin izango diren **lan poltsan**. Berria - Harian

210 eguneko lanaldia, eta 12 eguneko **lan poltsa** proposatu zuen VWek. Berria - Ekonomia

40 bat hezitzaile **lan poltsatik** kanpo geratuko direla salatu dute langileek. Berria - Euskal Herria

Erreformak 127 behin-behineko langile utziko ditu kalean, ikasturte berrirako **lan poltsan** aurkezteko aukerarik gabe. Berria - Euskal Herria

Irakasle baten egun batzuetarako ordezkapena ere beraiek egingo dute, **lan poltsa** beraiek kudeatuko dutelako. Berria - Euskal Herria

Irungo grebalariek sumisio tresna hori apurtzea lortu dute, **lan-poltsa** bat ezarrita. Berria - Euskal Herria

## 28 *lan sail* (orobat ***lansail*** g.er.)

**Lansail** bakoitz edo lantegi bakoitx berdin, elkartasun-egun kondu beste edozoin hautatzen ahalko da... Herria

Dutch Robertson Brooklyngo zubiko jarleku batean eserita zegoen, bere longain militarraren lepoa jasota eta egunkari bateko **lan sailari** so. Lopez de Arana

Horregatik hizketa patologia eta terapiaren eremua **lan-sail** oparoa da fonetikarien eta bestelako adituen arteko elkar-laguntzarako.Azken lau urteotan «paisaiari buruzko ikerketaren ildoan» egin dituen **lan-sailetako** obra hautatuak batu ditu Sotok [...] Donostiako erakusketan: AEBetako nahiz Afrikako basamortuetako irudiak, Finlandiako Aland uharteetakoak, [...]. Lourdes Oñederra

## 29 *lan sari* ik **lansari**.

## 30 *lan talde* (orobat ***lantalde*** g.er.)

Erdian leku zabal bat zegoen, hura zen gatibuentzako bilkura-gunea goizetan (*Appell*-a), hortik abiatzen ziren *Kommando*-ak **(lan-taldeak),** eta hor egiten ziren exekuzio publikoak. Urtzi Urrutikoetxea

Jakin dut *Kartoffelschäler* **lan-taldeak,** "patata-zuritzaileenak" alegia, ez diharduela egunez bakarrik. Urtzi Urrutikoetxea

Lamikizen **lan taldeak** hiru urte daramatza beharrean. Berria - Kirola

Gaur zuzenketa partzialak aztertzen dituen **lan-taldeak** azken bilera egingo du. Berria - Euskal Herria

**Lantalde** haren lanaren emaitza gisa, 1972an Meadows Txostena atera zen argitara, "Hazkundearen mugak" izenburu adierazgarriaz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

- **Lan talde** bat muntatu dugu Herriaren kontzientziaren esnatzeko eta askatzeko. klubak **lan-talde** bat antolatu du [...] gaur goizean elurra kentzen hasteko. Itxaro Borda

**Lan taldeak** osatu ditugu, baina proiektua Berlingo Unibertsitate Teknikoak koordinatzen du. Berria - Gaiak

Lau **lan talde** ezarri ditu lanean. Herria

Beharrik, Joanesen **lan taldeko** arduraduna, belgikar bat, segidan jabeldu zitzaion. Eneko Bidegain

Julen Arzuaga eta Teresa Toda 18/98+ **lan taldeko** kideek egin zuten deialdia Madrildik. Berria - Harian

Emakumezkoen **lan taldean** ere parte hartu zenuen. Ana Urkiza

Autogobernu **lan taldea** gelditzea erabaki dute alderdiek. Berria - Euskal Herria

Erakusketa **lan taldeak** aurkituko ditu artistak eta erakusgaiak, ahalik eta gehien filmei lotuak. Herria

**Lantalde** kideek pertsonaia bana hartuko dute hirian diren maila edo estratu sozialetatik. Koro Navarro

Gipuzkoako Foru Aldundiko Itzultzaile **Lantaldearen** eskutik. Iñigo Aranbarri

## 31 *lan tresna* (orobat ***lantresna*** g.er.) lanabesa.

Pala eta aitzurra eman zizkioten **lan tresna** gisa. Eneko Bidegain

Zuen aitzur, eskuare eta **lan-tresna** guztiak atzeratuak geratu zaizkizue. Joan Mari Irigoien

Etxe barruan, **lan tresnak** gordetzeko erabiltzen zen ezkaratz zabal batean. Bernardo Atxaga

Ez dut, ordea, lur-saila lantzeko **lantresnarik,** lau semeren aita bainaiz eta, gainera, herrialdeko langabetu ugarietako bat naiz. Pako Aristi

· *irud/hed* Batasuna ezinbestekoa zen batzuendako, gehienbat euskara **lan tresna** zutenendako: idazle, kazetari eta, batez ere, irakasle eta testugileendako. Koldo Zuazo

**Lan-tresnak** behar ditu bertsolariak, sentitzen duen hura, nolabait bada ere, esan ahal izateko. Andoni Egaña

Halaxe, bada, artistak ere: ezer sakratutzat joko ez duen begirada du **lan-tresnarik** garrantzitsuenetako bat. Anjel Lertxundi

Maite diat halere ironia, ia **lan tresna** bihurtzeraino... Patziku Perurena

## 32 *lan urte* (orobat *lanurte* g.er.)

Honenbestez, 193 eguneko **lan urtea** ezarri dute. Jubilazio egunean bi **lan-urteko** zorra edukiko zuen enpresarekin. Jon Alonso

Torneoen ondoren pilotariei ere **lanurte** berria hasi zaie, heldu den larunbatean hasiko baita lau t'erdiko txapelketa. Berria - Kirola

Blairren ustez, IRAren agiria Ostiral Santuko Akordioarekin hasitako «zortzi **lan urte** gogorren» emaitza da. Berria - Harian

Izugarri sufritu du, benetan, bere hemengo lehen **lan urteetan**. Joxan Elosegi

Fabrikak nekea eman dik bakarrik, berrogei **lan-urtetako** neke hiltzailea. Eskarne Mujika

## 33 *lan uzte* ik **lanuzte**.

## 34 *lanak eman*

**Lanak ematen** zizkidan inoiz berriro elkarren berririk izango ez genuela pentsatze hutsak ere. Joxe Austin Arrieta

Aitormen pertsonalaren esparruan areago lerratzea zilegi bazait, ahozkotasunaren kontu honek berealdiko **lanak eman** dizkidala esan behar dut. Bernardo Atxaga

Eta horrela, hanka puntetan zutik, ipurmasailak tente dituztela, izaki guztiz arrotz eta urrunak iruditu ohi zaizkit eta **lanak ematen** dizkit une batzuk lehenago nire altzoan edo besoen artean eduki ditudanik sinesteak. Joxean Agirre

Diruak **lanak ematen** ditu, bere mugitu- eta korritu-behar zoroak harrapatu zuenetik; dirua gobernatu egin behar da, ganadua bezalaxe: jai eta aste eman egin behar zaio biziko bada eta emango badu. Iñaki Segurola

Eta nontasunak holako **lanak ematen** baditu, ze ez ditu emango nongotasunak, nortasunak, identitateak eta horien hariko determinazio guztiek? Iñaki Segurola

**Lanak ematen** zituen, bai, arto ereite horrek. Pello Zabala

## 35 *lanak* (orobat *lan*) *izan* du ad (zerbaitek, sinesteak batez ere)

*Sinesteak **lan badu** ere, inork ez zuen saiatu ordura arte jokoen teoria orokorrik.* Juan Garzia

*Sinesteak **lan bazuen** ere, iritsi zen agindutako egun hura.* Juan Garzia

*Oroitzeak **lan du** baina, "denak elkarren kontra" jokatzen genuen garaietan, gau bat baino gehiagotan bukatu zuen ene.* Aingeru Epaltza

*Saiatu izan dira berdintasun eseriaren aldeko emakume batzuk beste sexukoei txixa eserita eginarazten, eta itxura denez, lortu ere bai, sinesteak **lanak baditu** ere.* Iñaki Segurola

*Badakit sinesteak **lanak dituela,** baina izterren artean baizik ez zuen egin.* Karlos Zabala

*· da ad **Lan da** egunero 8.000 karaktere idaztea.* Aingeru Epaltza

*Sinesten ere **lan da**!* Itziar Otegi

## 36 *lanak izan* du ad (-tzen osagaiarekin)

***Lanak ditut** sinesten hona etorri ziren gizon haiek arrotzak zirela.* Oskar Arana

***Lanak nituen** oraino, neure gelan aske nengoela sinesten.* Txillardegi

*Mazedoniangobernuaren armadak **lanak ditu** UCK-ko albaniar jazarleeri buru egiten.* Herria

*Eta jesarrita zeudenek behintzat **lanak zituzten** hain zer handiak jesarlekuen mugetara ekartzen.* Josu Landa

*Ezagun zuen **lanak zituela** zenduaz iraganean mintzatzen.* Aingeru Epaltza

*· (-tzeko osagaiarekin) **Lanak nituen** espioitzazko zeregin batean ari nintzela sinesteko.* Alberto Ladron Arana

*Haien izatea bera ere ezbaian zegoela zirudien, **lanak zituztela** une batetik bestera iragateko.* Monika Etxebarria

***Lanak zituen** hitz osoak irakurtzeko, nahiz eta askotan, letra bat edo biri esker, edo seinaleen estiloagatik, zein hitz ziren asmatu.* Xabier Olarra

*· (zerbaitek) Hala ere, **lanak ditu** gauaz bide zuzena atzemateak.* Aingeru Epaltza

## 37 *lanik eza* (orobat *laneza*) mug langabezia.

***Lanik eza** «alboko kalte ugari eragiten ari delako», sindikatuek salatu zutenez.* Berria - Ekonomia

*Ohartarazi zuten **lanik ezak** eta negoziazio kolektiboaren blokeoak «ziurgabetasun egoera» larriagotu dutela.* Berria - Ekonomia

*Soldatak eta gastuak, lana eta **lanik eza**.* Anton Garikano

***Lanik eza,** txarra? esan zuen Joxemarik; begiraion Piperraren semeari.* Pablo Sastre

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

**alde lan egin** (40); **alde lan egiteko** (83); **alde lan egiten** (65); **aldi baterako lan** (25); **animazio lan** (11); **antzerki lan** (63); **antzerki lan bat** (12); **arratsaldeko lan** (9); **arte lan** (40); **asteko lan** (12); **atzoko lan** (38); **atzoko lan saioan** (19); **aurreko lan** (12); **aurtengo lan** (11); **autogobernu lan** (14); **aztertzeko lan** (11); **batera lan egin** (9); **batera lan egiteko** (9); **beharginen lan** (20); **beharginen lan baldintzak** (11); **beharreko lan** (14); **bestelako lan** (9); **biktimen lan taldean** (11); **defentsa lan** (19); **defentsako lan** (10); **dokumentazio lan** (9); **egin beharreko lan** (11); **egin zuten lan** (40); **egindako lan** (158); **egindako lan guztia** (13); **eguneroko lan** (15); **elkarrekin lan egin** (30); **elkarrekin lan egitea** (14); **elkarrekin lan egiteko** (32); **elkarrekin lan egiten** (18); **esku lan** (16); **espainiako lan ministroak** (15); **etxeko lan** (29); **fabrikan lan egiten** (9); **galtzak bete lan** (31); **gogor lan egin** (33); **gogotik lan egin** (11); **goizeko lan** (12); **herri lan** (154); **herri lan kontseilari** (23); **herri lan sailak** (11); **herri lan sailburu** (13); **herri lan sailburuak** (15); **ikerketa lan** (46); **itzulpen lan** (10); **izan zuten lan** (14); **izeneko lan** (17); **jaurlaritzako lan sailak** (16); **jaurlaritzako lan sailburuak** (13); **kanpo lan** (22); **kanpoan lan egiten** (9)

; **lan akademiko** (13); **lan ardatz** (13); **lan arloa** (9); **lan arloan** (10); **lan arloko** (29); **lan arriskuen** (27); **lan arriskuen prebentziorako** (10); **lan asko** (261); **lan asko dago** (15); **lan asko egin** (74); **lan asko egiten** (16); **lan astea** (23); **lan aukerak** (9); **lan aurkeztu** (23); **lan aurkeztu dira** (14); **lan bakarra** (30); **lan baldintza** (156); **lan baldintza duinak** (20); **lan baldintza hobeak** (14); **lan baldintza kaskarrak** (11); **lan baldintzak** (264); **lan baldintzak hobetzea** (11); **lan baldintzak hobetzeko** (32); **lan baldintzek** (16); **lan baldintzekin** (10); **lan baldintzen** (38); **lan baldintzetan** (24); **lan baliosa** (17); **lan banaketa** (26); **lan bat aurkitu** (10); **lan bat egin** (30); **lan batailoietan** (16); **lan batzorde** (15); **lan batzordea** (9); **lan batzordeak** (42); **lan batzordeko** (14); **lan berezi** (26); **lan berezi bat** (17); **lan berezia** (14); **lan berri** (53); **lan berri bat** (12); **lan berria** (65); **lan berriak** (31); **lan berrian** (34); **lan berriaren** (16); **lan berriko** (9); **lan bikaina** (157); **lan bikaina egin** (92); **lan bikainak** (18); **lan bikoitza** (9); **lan bila** (115); **lan bila ari** (16); **lan denbora** (17); **lan dezente** (14); **lan duina** (14); **lan eder** (18); **lan ederra** (65); **lan ederra egin** (23); **lan ederrak** (14)

; **lan egin** (1277); **lan eginen** (46); **lan egingo** (251); **lan egiteagatik** (17); **lan egiteak** (33); **lan egitean** (9); **lan egitearen** (18); **lan egiteari** (32); **lan egiteaz** (16); **lan egiteko** (883); **lan egiteko asmoa** (15); **lan egiteko aukera** (52); **lan egiteko deia** (14); **lan egiteko era** (11); **lan egiteko eskubidea** (14); **lan egiteko gai** (10); **lan egiteko gogoa** (14); **lan egiteko konpromisoa** (12); **lan egiteko modu** (26); **lan egiteko modua** (25); **lan egiteko moduan** (9); **lan egiteko prest** (56); **lan egiten** (1758); **lan egitera** (162); **lan egitera behartu** (10); **lan egitera deitu** (9); **lan egitera joan** (9)

**lan egoera** (38); **lan egokia** (12); **lan egun** (21); **lan eguna** (16); **lan egutegi** (9); **lan egutegia** (18); **lan eman** (14); **lan eremu** (20); **lan eremua** (11); **lan eremuan** (11); **lan erraza** (141); **lan erreforma** (33); **lan erreformak** (14); **lan erretxa** (10); **lan errexa** (10); **lan eskaintza** (140); **lan eskaintza publikoa** (26); **lan eskasa** (21); **lan eske** (16); **lan eskerga** (82); **lan eskerga egin** (35); **lan eskergaren** (10); **lan eskubideak** (9); **lan esparru** (15); **lan esparrua** (17); **lan eta** (490); **lan eta garraio** (29); **lan eta gizarte** (113); **lan eta lan** (69); **lan eta trebakuntza** (18); **lan ez** (16); **lan fina** (10); **lan fisiko** (11); **lan fisikoa** (9); **lan gabezia** (20); **lan gabezian** (10); **lan gaitza** (44); **lan gaitza egin** (13); **lan garrantzitsua** (18); **lan garrantzitsua egin** (11); **lan gatazka** (77); **lan gatazkak** (31); **lan gatazkaren** (11); **lan gehiago** (131); **lan gehiago egin** (31); **lan gehiago ematen** (11); **lan gehiegi** (20); **lan gehien** (17); **lan gehienak** (19); **lan gogor** (14); **lan gogorra** (61); **lan gogorra egin** (12); **lan gogorrak** (11); **lan gutxi** (27); **lan gutxiago** (25); **lan handi** (26); **lan handia** (411); **lan handia egin** (186); **lan handia egiten** (36); **lan handia izan** (13); **lan handiagoa** (47); **lan handiagoa egin** (10); **lan handiak** (44); **lan handiaren** (9); **lan handiena** (10); **lan handirik** (43); **lan harremana** (12); **lan harremanak** (25); **lan harremanen** (56); **lan harremanetan** (14); **lan harremanetarako** (42); **lan haundia** (23); **lan hitzarmen** (20); **lan hitzarmena** (117); **lan hitzarmena negoziatzen** (10); **lan hitzarmena sinatu** (9); **lan hitzarmenak** (30); **lan hitzarmenaren** (33); **lan hizkuntza** (17); **lan ikaragarria** (23); **lan ikusgarria** (18); **lan ikusgarria egin** (9); **lan ikuskaritzak** (25); **lan ikuskaritzan** (15); **lan ikuskaritzaren** (10); **lan ildo** (71); **lan ildoa** (25); **lan ildoak** (67); **lan indarra** (14); **lan interesgarria** (10); **lan istripu** (40); **lan istripua** (15); **lan istripuak** (44); **lan istripuan** (13); **lan istripuen** (51); **lan istripuetan** (10); **lan itun** (26); **lan ituna** (119); **lan ituna negoziatzen** (13); **lan itunak** (30); **lan itunaren** (66); **lan itunaren negoziazioa** (17); **lan itunen** (10); **lan itzela** (24); **lan itzela egin** (12); **lan izan** (40); **lan izan zuen** (11); **lan izango** (39); **lan izaten** (12); **lan izugarria** (22); **lan izugarria egin** (13); **lan jantzi** (14); **lan jantzia** (9); **lan karga** (27); **lan kodea** (9); **lan kontratu** (37); **lan kontratua** (83); **lan kontratuak** (26); **lan kontratuaren** (64); **lan kontratuaren aurka** (12); **lan kontratuen** (11); **lan kontraturik** (10); **lan kontseilari** (23); **lan kontuak** (12); **lan kostu** (14); **lan kostuak** (32); **lan luze** (15); **lan luzea** (17); **lan mahaiaren** (10); **lan mahaira** (11); **lan makala** (25); **lan mardula** (17); **lan merkatu** (16); **lan merkatua** (36); **lan merkatuak** (14); **lan merkatuan** (58); **lan merkatuaren** (46); **lan merkatuko** (14); **lan merkatura** (14); **lan ministerioak** (13); **lan ministerioko** (9); **lan ministro** (16); **lan ministroak** (29); **lan mota** (39); **lan mundua** (44); **lan munduan** (114); **lan munduaren** (13); **lan munduko** (16); **lan mundura** (17); **lan nagusia** (18); **lan neketsua** (14); **lan nekeza** (18); **lan on** (24); **lan on bat** (12); **lan ona** (276); **lan ona egin** (124); **lan ona egitea** (19); **lan ona egiteko** (9); **lan ona egiten** (49); **lan onak** (23); **lan onaren** (9); **lan onari** (16); **lan onari esker** (10); **lan onena** (27); **lan ordu** (25); **lan orduak** (31); **lan orduen** (10); **lan orduetan** (9); **lan osasun** (15); **lan osasuna** (13); **lan osasunaren** (11); **lan osasuneko** (9); **lan oso** (31); **lan osoa** (20); **lan pixka** (23); **lan pixka bat** (23); **lan polita** (63); **lan polita egin** (40); **lan politikoa** (26); **lan poltsa** (24); **lan postu** (96); **lan postu bat** (11); **lan postua** (13); **lan postuak** (12); **lan sail** (11); **lan saila** (9); **lan sailak** (69); **lan sailaren** (27); **lan sailari** (16); **lan sailburu** (22); **lan sailburu alvaro** (11); **lan sailburua** (10); **lan sailburuak** (56); **lan sailburuaren** (13); **lan saileko** (13); **lan saio** (44); **lan saioa** (66); **lan saioak** (29); **lan saioan** (74); **lan saioaren** (27); **lan saioaren ondoren** (17); **lan saioetan** (31); **lan sakona** (12); **lan samurra** (33); **lan serioa** (17); **lan talde**

(179); lan talde bat (44); lan talde batek (9); lan taldea (127); lan taldeak (156); lan taldean (77); lan taldearen (71); lan taldeari (14); lan taldeen (19); lan taldeetan (11); lan taldeko (49); lan taldeko presidenteak (9); lan tresna (56); lan tresnak (13); lan txarra (17); lan txiki (12); lan txukuna (147); lan txukuna egin (74); lan txukuna egiteko (19); lan txukuna egiten (18); lan txukunena (11); lan tzar (18); lan ugari (32); lan zail (9); lan zaila (80); lan zaila izango (18); lan zama (56); lan zamaz (11); lan zikin (10); lan zikina (36)

langileen lan (51); langileen lan baldintzak (33); literatur lan (15); lortzeko lan (24); maisu lan (14); nahiko lan (97); nahikoa lan (83); nahikoa lan izan (16); ohiko lan (23); ohiko lan arruntik (13); ondo lan egiten (10); orain arteko lan (10); oraino lan (9); ordu lan (14); orduko lan (52); sektoreko lan (23); sormen lan (10); sortutako lan (14); talde lan (14); urtez lan egin (16)

aholkularitza lana (9); aktore lana (19); aktoreen lana (11); alde egindako lana (21); aldeko lana (44); alfer lana (13); alferreko lana (9); alferrikako lana (15); antzerki lana (40); arte lana (12); artistaren lana (14); atezainaren lana (9); aurkariaren lana (9); bakarkako lana (13); batzordearen lana (17); bilketa lana (14); bitartekari lana (42); bitartekaritza lana (15); defentsa lana (24); defentsako lana (28); egin beharreko lana (67); egindako lana (311); egindako lana goraipatu (15); eginiko lana (94); egiteko lana (16); egiten den lana (34); egiten duen lana (51); egiten duten lana (53); eguneroko lana (30); elkar lana (10); elkartearen lana (9); emakumeen lana (9); entrenatzailearen lana (9); epaileen lana (25); erakundeen lana (10); familia eta lana (13); gaitzeko lana (13); gazteen lana (9); gobernuaren lana (10); hasitako lana (22); ikerketa lana (34); irakasleen lana (14); itzulpen lana (9); izeneko lana (24); jokalarien lana (10); kartzelako lana (15); kazetarien lana (9); kontrol lana (16)

lana aipatu (16); lana aldarrikatu (9); lana amaitu (34); lana amaitzeko (11); lana argitaratu (13); lana aurkeztu (16); lana aurkeztuko (30); lana aurkitu (41); lana aurkitzea (14); lana aurkitzeko (29); lana azpimarratu (24); lana aztertu (11); lana bete (26); lana betetzen (16); lana bilatu (10); lana bilatzea (11); lana bilatzeko (14); lana bilatzen (16); lana bukatu (40); lana bukatuta (14); lana burutu (11); lana egin (422); lana egina (22); lana eginda (19); lana eginen (10); lana eginez (27); lana egingo (53); lana egitea (77); lana egiteari (9); lana egiteaz (10); lana egiteko (143); lana egiten (288); lana egitera (22); lana ekarriko (9); lana eman (42); lana emango (21); lana emateko (9); lana ematen (20); lana erabakigarria (33); lana erabakigarria izan (27); lana errazteko (23); lana erraztén (11); lana erraztu (25); lana eskaini (12); lana eskainiko (13); lana eskatzen (11); lana eskertu (27); lana eta etxebizitza (10); lana eta familia (22); lana eta lana (9); lana ezagutarazteko (12); lana ezagutzeko (9); lana ezagutzen (9); lana ezinbestekoa (11); lana funtsezkoa (21); lana galdu (22); lana goraipatu (62); lana goraipatu zuen (34); lana goretsi (11); lana hartu (31); lana hartzen (9); lana ikusi (11); lana izan (126); lana izanen (16); lana izango (66); lana izaten (11); lana kaleratu (17); lana lortzeko (14); lana nabarmendu (28); lana ondo egin (14); lana ondo egiten (9); lana ongi egin (12); lana ongi egiten (11); lana oztopatzen (10); lana saritu (18); lana topatu (9); lana txalotu (19); lana utzi (74); lana uzteko (18); lana uzten (12)

literatur lana (13); lortzeko lana (10); maisu lana (9); orain arteko lana (11); oteizaren lana (12); poliziaren lana (13); sekulako lana (31); sekulako lana egin (18); sormen lana (14); sukalde lana (21); talde lana (78); taldearen lana (16); taldeen lana (10); taldeko lana (11); urteetako lana (19); urteko lana (30); zubi lana (35)

alde egindako lanagatik (13); egin duen lanagatik (9); egindako lanagatik (59); eginiko lanagatik (12)

antzerki lanak (33); arte lanak (15); artistaren lanak (21); artisten lanak (27); baserriko lanak (9); berritze lanak (15); bestelako lanak (10); betetzeko lanak (23); bideo lanak (10); bilaketa lanak (16); bitartekari lanak (43); bitartekari lanak egin (17); egileen lanak (17); egin beharreko lanak (27); egin zituen lanak (9); egindako lanak (100); eginiko lanak (33); eguneroko lanak (11); eraikitze lanak (11); eraikitzeko lanak (24); eraikuntza lanak (22); eskolako lanak (25); esku lanak (20); etxeko lanak (194); etxeko lanak egin (28); euskal prentsaren lanak (11); filmaketa lanak (12); garbiketa lanak (20); idazleen lanak (17); ikerketa lanak (29); ikuskatze lanak (9); kazetari lanak (10); konponketa lanak (15)

lanak amaitu (22); lanak amaituta (9); lanak aurkezteko (16); lanak aurkezteko epea (14); lanak aurkeztu (14); lanak aurkeztuko (10); lanak aztertu (9); lanak betetzen (10); lanak bildu (27); lanak bilduko (11); lanak biltzen (23); lanak bukatu (25); lanak bukatuta (10); lanak egin (192); lanak eginak (9); lanak eginda (17); lanak eginez (16); lanak egingo (25); lanak egitea (30); lanak egiteko (120); lanak egiten (203); lanak egitera (27); lanak eman (54); lanak eman zizkion (10); lanak emanen (9); lanak emango (30); lanak ematen (52); lanak erakusten (9); lanak erakutsiko (25); lanak eskainiko (15); lanak eskatzen (9); lanak eten (10); lanak gelditzeko (9); lanak hartu (17); lanak hartzen (10); lanak hasi (46); lanak hasteko (12); lanak ikus (13); lanak ikusi (16); lanak interpretatuko (15); lanak irakurtzen (9); lanak izan (93); lanak izan zituen (21); lanak izango (60); lanak izango ditu (19); lanak izaten (15); lanak jarri (10); lanak jaso (11); lanak ukan (12)

literatur lanak (15); prentsaren lanak (11); prestaketa lanak (9); salbamendu lanak (26); sormen lanak (11); sortutako lanak (14); sukaldeko lanak (9); talde lanak (13); urtegia betetzeko lanak (19); urtegiko lanak (9); zuzendari lanak (13)

egindako lanarekin (81); eginiko lanarekin (14)

egin beharreko lanaren (10); egindako lanaren (124); egindako lanaren emaitza (14); eginiko lanaren (15); egiten den lanaren (10); lanaren aldetik (9); lanaren arabera (18); lanaren ardatz (10); lanaren balioa (10); lanaren banaketa (14); lanaren berri eman (12); lanaren bidez (25); lanaren emaitza (61); lanaren emaitzak (11); lanaren fruitua (21); lanaren fruituak (15); lanaren garrantzia (13); lanaren kalitatea (10); lanaren nazioarteko erakundeak (10); lanaren ondorioa (22); lanaren ondorioz (21); lanaren ordaina (14); lanaren sari (9); lanaren saria (15); lanaren truke (15); lanaren zati (15); talde lanaren (13); urteko lanaren (32)

egindako lanarengatik (31)

egindako lanari (57); egindako lanari esker (31); eginiko lanari (9); ekin lanari (11); ekin zion lanari (22); ekin zioten lanari (14); lanari ekin (81); lanari ekingo (13); lanari ekitea (10); lanari ekiteko (16); lanari ekiten (11); lanari eman (12); lanari esker (154); lanari eutsi (9); lanari lotu (23); lanari utzi (15)

egindako lanaz (23)

aldeko lanean (19); ari da lanean (107); ari lanean (11); ariko dira lanean (19); aritu zen lanean (32); aritzen dira lanean (10); bakarkako lanean (9); bilatzeko lanean (9); buru belarri lanean (25); defentsa lanean (20); defentsako lanean (26); eguneroko lanean (34); elgarrekin lanean (11); elkarrekin lanean (26); etengabe lanean (17); hasi zen lanean (105); izeneko lanean (10); jardun zuen lanean (10); lanean ari (961); lanean ariko (20); lanean aritu (130); lanean aritzea (26); lanean aritzeko (40); lanean aritzen (33); lanean ariz (17); lanean arizan (33); lanean artzeko (13); lanean buru belarri (20); lanean egon (14); lanean eman (10); lanean gogor (18); lanean hasi (261); lanean hasia (14); lanean hasiak (11); lanean hasiko (44); lanean hasita (10); lanean hastea (22); lanean hasteko (99); lanean hasten (43); lanean ibili (13); lanean ikusi (9); lanean ikustea (9); lanean ikusten (10); lanean izan (11); lanean jardun (57); lanean jarduteko (14); lanean jarduten (10); lanean jarraitu (113); lanean jarraituko (102); lanean jarraitzea (29); lanean jarraitzeko (104); lanean jarraitzeko asmoa (22); lanean jarraitzeko konpromisoa (10); lanean jarraitzen (63); lanean jarri (44); lanean jartzeko (17); lanean jartzen (16); lanean segitu (23); lanean segituko (25); lanean segitzeko (12); lanean segitzen (13); lortzeko lanean (24); morrontza lanean (12); sortzeko lanean (9); talde lanean (29); urtez lanean (9)

lanei esker (12)

lanekin batera (15)

laneko denbora (11); laneko istripuak (11); laneko jazarpen (9); laneko segida (21); laneko segurtasun (9); laneko segurtasunaren (9); laneko tresna (10)

egindako lanen (16); etxeko lanen (17); lanen bidez (11); lanen bilduma (12); lanen erakusketa (15); lanen ondorioz (15); lanen zerrenda (11); literatur lanen (10); zaharberritze lanen (14)

etxetik lanera (9); itzuliko dira lanera (13); joan zen lanera (9); lanera etorri (14); lanera itzuli (52); lanera itzuliko (16); lanera itzultzea (16); lanera itzultzeko (15); lanera joan (89); lanera joan behar (18); lanera joateko (51); lanera joaten (19)

lanerako bidean (18); lanerako gaitasuna (12); lanerako gogo (9); lanerako gogoa (17); lanerako gogorik (9); lanerako grina (10); lanerako prest (28); lanerako tresna (12); talde lanerako (9)

aktore lanetan (17); antolaketa lanetan (14); berreraikuntza lanetan (9); bitartekari lanetan (11); bozeramaile lanetan (10); defentsa lanetan (21); entrenatzaile lanetan (9); epaile lanetan (13); eraikuntza lanetan (13); eskolako lanetan (9); etxeko lanetan (47); garbiketa lanetan (12); gidari lanetan (12); ikerketa lanetan (10); irakasle lanetan (13); kazetari lanetan (16); lanetan ari (100); lanetan ariko (10); lanetan aritu (72); lanetan aritu zen (28); lanetan arituko (9); lanetan aritzeko (16); lanetan aritzen (45); lanetan hasi (33); lanetan ibili (19); lanetan jardun (19); lanetan jarduten (9); lanetan laguntzeko (15); lanetan laguntzen (13); mantentze lanetan (20); mantentze lanetan aritzen (10); prestaketa lanetan (11); salbamendu lanetan (12); zuzendari lanetan (15)

lanetik bizi (13); lanetik bota (16); lanetik etxera (23); lanetik kanpo (15); lanetik kanpoko (10); lanetik landa (17)

lanez gain (19); lanez gainezka (26); lanez lepo (11)

ez dago lanik (13); ez du lanik (18); lanik aurkitu (13); lanik egin (124); lanik egin gabe (23); lanik egingo (24); lanik egiten (46) lanik eman (10); lanik ematen (13); lanik ezagunenak (9); lanik gabe (204); lanik gabe utzi (11); lanik gabeko (15); lanik garrantzitsuena (10); lanik handiena (16); lanik hartu (34); lanik izango (11); lanik onena (20); lanik zailena (12)

---

**lana** (orobat **lena**) iz artilea.

[Hondartzan] txabolatxo batean sartu, aldatu, eta -"zeru eder honek bakarrik inspiratzen duen eta klima gozo honek bakarrik onartzen duen askatasunean"- gorputzak arin-arin egiten dute igeri: alegia, **lanazko** atorra luze batzuekin belaunetarainokoak, aztalak agerian. Koldo Izagirre

Oraindik ederki oroitzen naiz nola enterradoreek, etxera bila etorri zirenek, **lanazko** manopla lodiak zituzten **Lena** pilota bat eta bi orratz emaiten dauzkitzut, zer trikotatzen duzu? Matías Múgica

---

**lanabes** **1** iz lan jakin batean erabiltzen den tresna. ik **lan 31**.

Horra zergatik, baserriko **lanabes** guzientzako, hurritzezko kiderrak, kirtenak, euskarriak, eskulekuak. Patziku Perurena

Azken ukituak emateko nekerik hartu gabe, karrakarik, ginbaletik edo bestelako **lanabes** finik erabili gabe. Jose Morales

Alanbikea, su txikiak, metalezko eta beirazko ontzi eta **lanabesak** edonon. Josu Landa

Etxera joan ziren lehendabizi, igitaiak eta eskuareak hartzera, eta gero, **lanabesak** bizkarrean hartuta, bideari ekin zioten. Josu Zabaleta

Etxeko **lanabes** zaharrak ere ekartzen zizkiguten lantzean behin. Urtzi Urrutikoetxea

Brusa zuridun langile batzuek galtzada zeharkatzen zuten pausoa arin, **lanabesak** besapean. Karlos Zabala

**2** irud/hed

Material fotosentiberaren bidez, artistak argia du **lanabes** . Berria - Kultura

*Agenda-21 iraunkortasunerako* ***lanabes*** *praktiko bikaina da.* Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

*Instituzioei legezko* ***lanabesak*** *eman behar zaizkie bide horien sostengu izan daitezen.* Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

*Azken urteotan pairatzen ari garen gaztelaniaren eragin erabat neurriz gainekoari aurre egiteko* ***lanabes*** *egokiena.* Berria - Harian

*Hitza arnasa bezala ulertzen duzu ala* ***lanabes*** *gisa?* Ana Urkiza

**3** *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa)*

*Zurezko makilatxoak mozten eta leuntzen ari zen* ***lanabes*** *-kirtenak egiteko.* Joanes Urkixo

***-Lanabes*** *-kutxa bat zeukak aitak.* Anton Garikano

*Lehenik,* ***lanabes*** *dendak ageri dira.* Berria - Kultura

*Eta Rio'92k eta bere kontzeptu, programa eta gauzatze* ***lanabesak*** *baliozkoak zaizkigu orain ere.* Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**4** *(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)*

*Andre biek jostun* ***lanabesak*** *zituzten eskuartean, artaziak, hari-jostorratzak eta titareak erpuruetan.* Josu Landa

*Aurkakotasun fonemikoak bilatzeko analisi-* ***lanabesa*** *.* Lourdes Oñederra

*Osaba Kamil prest agertu zen altzariak eta medikuntza* ***lanabesak*** *berean gordetzeko.* Patxi Zubizarreta

*Ordenagailuz lagundutako diseinua eta ekoizpena (CAD/CAM sistemak), makina-* ***lanabes*** *automatizatua, edota just in time produkzioa, besteak beste.* Iñaki Heras

---

## ***lanaldi*** *iz lanean ematen den denbora.*

*Asteko* ***lanaldia*** *35 ordura mugatzen duen legea. Asteko* ***lanaldia*** *35 ordura murriztera.* Berria - Ekonomia

***Lanaldiaren*** *murrizketa, lan deboraren murrizketa edota lanaren banaketa.* Iñaki Heras

*Horrek esan nahi zuen* ***lanaldi*** *erdiz baizik ez nuela egon behar han.* Oskar Arana

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
>
> ***lanaldi erdia*** *(3);* ***lanaldi erdiz*** *(4);* ***lanaldi galdu*** *(3);* ***lanaldi luzeak*** *(7);* ***lanaldi murrizketa*** *(30);* ***lanaldi murrizketak*** *(13);* ***lanaldi murrizketaren*** *(4);* ***lanaldi murrizketarik*** *(10);* ***lanaldi murrizketarik onartuko*** *(3);* ***lanaldi osoa*** *(7);* ***lanaldi osoan*** *(3);* ***lanaldi osoko*** *(7);* ***lanaldi osoz*** *(3);* ***lanaldi partziala*** *(3);* ***lanaldi partzialeko*** *(6);* ***orduko lanaldi murrizketa*** *(12)*
>
> ***asteko lanaldia*** *(7);* ***benetako lanaldia*** *(3);* ***eguneko lanaldia*** *(6);* ***lanaldia luzatu*** *(7);* ***lanaldia luzatzea*** *(5);* ***lanaldia murriztea*** *(6);* ***lanaldia murriztearen*** *(5);* ***lanaldia murrizteko*** *(4);* ***orduko lanaldia*** *(17);* ***urteko lanaldia*** *(13)*
>
> ***orduko lanaldiak*** *(3)*
>
> ***lanaldiaren murrizketa*** *(13);* ***lanaldiaren murrizketaren*** *(4);* ***lanaldiaren murrizketari*** *(3);* ***orduko lanaldiaren murrizketa*** *(3)*

---

## ***lanarazi,*** *lanaraz, lanarazten du ad lantzera behartu.*

*Lurra lantzen edo* ***lanarazten*** *dutenak, fruitu-soberakina dutenez, ezerk ez ditu behartzen hurrengo urtean lan egitera; aisian bizi den jendeak ez lituzke kontsumituko fruituak, jende horrek ez lukeelako zerekin erosi.* Iñaki Iñurrieta

---

## ***lanarte*** *iz lanaldien arteko tartea; lan egiten ez den denbora.*

*Denek,* ***lanartetan,*** *hizkuntza arrotzak ikasten zituzten.* Marzel Etxehandi

*Ordezkari bat xekatzen dugu, gure idazkariak urte bat eta 3 urte arteko* ***lanartea*** *hartzen baitu haurren heziketarako.* Herria

*Oraino berri-berriki, bere ofizioko* ***lanarteetan,*** *bazuen arrakesta eta galde, besta eta elgarretaratze batzuen alaitzeko.* Herria

---

## *lanaste ik* ***lan 11****.*

---

## ***lanaulki*** *iz lanean erabiltzen den aulkia.*

*Hantxe neuzkan ordurako, ni iritsi zain,* ***lanaulki*** *bat, aire kanpai, idazmahai bat, beirazko ontziz beteriko armairu bat eta isiltasun eta ordena gizagabe bat.* Juan Garzia

*Esku ezezagunek uzten zizkidaten* ***lanaulkiaren*** *gainean, gauez, landareak eta landareak, egunero mota desberdinekoak.* Juan Garzia

---

## ***lanbas*** *iz etxe eta kideetako lurra, makurtu gabe, garbitzeko tresna, makila luze batez eta behealdean lotzen zaion oihalezko zerrenda xurgatzaile multzo batez osatua.*

*Gosariarekin batera garbiketa tresnak,* ***lanbasa*** *eta lejia ekartzen dizkidate egunero.* Koldo Izagirre

*Gero* ***lanbasa*** *berriro hartu eta komuna garbitzera joan zen.* Jon Alonso

*Zoruko terrazoa* ***lanbasaz*** *garbitzen.* Iban Zaldua

*Puntu urrunenetik hasi zen* ***lanbasarekin*** *zorua pasatzen. Ez ziegan* ***lanbasa*** *pasatzeko ez galeria baldekatzeko ez arropa zikina garbitzeko.* Karlos Linazasoro

***Lanbasaren*** *giderra baino estuagoko bularrarekin.* Koldo Izagirre

*Beren esanetan, gizon bat emakume bat jipoitzen ari zen etxepean* ***lanbas*** *baten makilarekin eta zenbait botilarekin.* Berria - Euskal Herria

*Florentek "azeri salataria" eta "prefekturako* ***lanbasa"*** *nola deitzen zioten entzun zuen.* Karlos Zabala

---

## ***lanberatu,*** *lanbera, lanberatzen da ad elurra bigundu.*

***Lanberatzen*** *hasi baino lehen, malutak jausitako zerua adabakiz jostera itzuli dira.* Eider Rodriguez

---

## ***lanbero*** *iz sargoria.*

*Kale estuetako espaloiak ere hertsi egiten zitzaizkion,* ***lanberoa*** *kondentsatu eta izerdi bihurtuz.* Joxemari Urteaga

*Sargori latza, sapa,* ***lanberoa,*** *nik dakita nola esan?* Txillardegi

---

## ***lanbide*** *(orobat* ***lanpide*** *g.er.)* **1** *iz bizibidea ateratzeko balio duen jarduera. ik* ***profesio; ogibide; ofizio.***

*Irakaskuntzan, kazetaritzan, itzulpengintzan eta antzeko* ***lanbideetan*** *.* Koldo Zuazo

*Zergatik ez zuen, lagunen gisara,* ***lanbide*** *bat ikasten?* Patxi Zubizarreta

**Lanbide** edo irabazpide bat aurkitzeko eta edukitzeko lehiatua. Patxi Altuna

Mattin Mottela sakanarrak bi **lanbide** zituen: mandazaina zen, baina baita, noizean behin bederen, bidelapurra ere. Martin Anso

**-Lanbide** guztietan huts egin dut. Patxi Zubizarreta

Helduaroan baztertuta nengoenean, ogibiderik aurkitu ezinik, **lanbide** bat eman zidan. Iñaki Mendiguren

Bizimodua ateratzeko jarraitzen du irakasten, eta **lanbide** horretan apaltasuna ikasten duelako ere bai. Oskar Arana

Egiazko **lanbidea** ehiza zuen Petri Strogoffek. Karlos Zabala

Pertsonek eta animaliek badugu antz pixkat; jaten, lotan, bizitzen (bizimoduan?), lanean **(lanbidean** ?). Iñaki Segurola

Maitasuna **lanbide** zuen emakumearekin igaroko zuen gaua ere. Jose Morales

Soroak eta lantegiak utzi berri dituzten laborari eta ofizialeen itxura zuten, ez soldadutza **lanbide** dutenena. Aingeru Epaltza

Itsasontzietako kapitan-pilotu guztiek, marinelek eta itsasoa **lanbide** duten guztiek. Elizen arteko biblia

Hamar **lanbide** eta hamaika galbide. Karlos Zabala

Ez **lanbide**, ez ogibide. Joxerra Garzia

## 2 hed

Ez dela profeta ofizioa **lanbide** erraza. Piarres Xarriton

Marrazkilaritza ei zuen **lanbide,** artista, alegia, baina **lanbidea** ez ezik bizibidea ere hartatik omen, nonbait. Joxe Austin Arrieta

Literatura dut ez ogibide baina bai **lanbide,** eta beharturik nago ordu eta betile asko irakurtzen erretzera. Anjel Lertxundi

Ez **lanbide**, ez ogibide. Joxerra Garzia

## 3 (izenondoekin)

Musikariarena izan zitekeela **lanbide** duina. Felipe Juaristi

Inbidia zien **lanbide** liberala zutenei. Anton Garikano

Baina ez dauka inolako bizileku ez **lanbide** finkorik. Fernando Morillo

Bere **lanbide** nagusi bietan, errementaritzan zein soinularitzan, urgulu profesional totalekoa. Xabier Amuriza

Azafatarena ez delako **lanbide** aproposa -nik erantzun-. **Lanbide** txarra eman die Jainkoak gizon-emakumeei, horretan jardun dezaten. Joxe Austin Arrieta

Badakit nirea ez dela **lanbide** arrunta, baina detektibeok hezur-mamizkoak gara, suhiltzaileak edo bulegariak bezalaxe. Migel Angel Mintegi

Bakarrenetarik naiz noski, **lanbide** kaka honetan. Aingeru Epaltza

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **profesional**.

Escher-Wyss-en eskaintzaz, Bagdadeko lanpostuaz eta, oro har, ingeniari baten **lanbide**-aukerez mintzatu nintzaion. Joxe Austin Arrieta

Fraideen **lanbide** heziketako ikastetxe batean, Friburgon. Mikel Hernandez Abaitua

Langileen **lanbide** kategorien egokitasunari buruz azterlana egitea. Berria - Euskal Herria

Gaur egun, Metalurgia alorreko enpresak ez dauka dirurik **lanbide** zerga ordaintzeko. Berria - Ekonomia

Gaixotasunen maiztasunari buruz, kutsatze-fokuei buruz, **lanbide**-gaixotasunei buruz. Izena, maila akademikoa, **lanbide**-estatusa. Xabier Arregi

Aristokraziak, eliteak, **lanbide** taldeak urturik zeuden jendetza epel hartan. Monika Etxebarria

Egia da, baita ere, gai faltarik ez zuela bere **lanbide** bizitzan, hegazkin pilotu (posta eta gerrako pilotu) ez ezik, hegazkintzarako tresna asmatzaile, hegazkin zerbitzuen antolatzaile eta propaganda zerbitzuetako kide ere izan baitzen. Josu Zabaleta

Orain, aitaren **lanbide**-aldaketaz, ez inor ez ezer ezagutzen ez zuen herri batera ekarria. Xabier Mendiguren Elizegi

France Telecomek **lanbide** tasan edukitako abantaila fiskalak. Berria - Ekonomia

**Lanbide** helburua duten ikasketak . Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Beste kontu garbitze bat Díaz-ekin egiten duena da, Zestoako medikuarekin, haserre bukatu baitzuten **lanbide**-jeloskortasun kontuengatik. Josu Zabaleta

Atxuriko Arte eta **Lanbide** eskolan. Javi Cillero

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kimikari **lanbideak** [...] inolaz ere ezinbesteko eta jaiotzezko ez diren zenbait higuin gainditzen irakasten digu. Juan Garzia

Andres bere itzultzaile-**lanbide** berria ongi betetzeko prest zegoen. Josu Zabaleta

Hilazti- edo igarle-**lanbidea** duen gizonak nahiz emakumeak heriotza-zigorra izango du. Elizen arteko biblia

Inperiogileek nekez izaten dute nahikoa giza indar edo arma **lanbidearekiko** aski ardura beren inperioari laguntzarik gabe eusteko eta defendatzeko. Iñaki Mendiguren

Baina, mesedez, sinets iezadazu, jaun estimatu horrek, komiko **lanbide** hau guztiz dela lanbide noblea! Josu Zabaleta

Ile-apaintzaile **lanbide** horretan. Joxan Elosegi

## 6 egitekoa.

Nire begi-bistan daukadan errealitateari -mundu guztiak modu bertsuan ikusten duenari- alde ezkutuak, alde itzaltsuak ikusten saiatzea du arteak **lanbide**. Anjel Lertxundi

Uniformedun guztiek ibilera patxadatsua zuten: ematen zuen paseatzea zutela **lanbide**. Anjel Lertxundi

Bizitza halako **lanbide** zorigaiztokoa izan ez dadin, nork injektatzen ote dizkigu beharrezkoak zaizkigun proteina sinbolikoak? Patxi Zubizarreta

## 7 **lanbidez** adlag

Autobus gidaria **lanbidez** eta poeta izatez -gogo-bihotzez, berak esaten zuen bezala-. Xabier Montoia

Idazlea ikasketaz eta **lanbidez** kimikaria zela. Juan Garzia

Kimikaria **lanbidez** eta artista zaletasunez. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Lanbidez,** Euskal Hizkuntza eta Literatura irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean. Ana Urkiza

Ni neu ere herrialde azpigaratuen aurrerabideaz arduratzen bainaiz **lanbidez**. Joxe Austin Arrieta

## 8 **lanbidezko** izlag

Espainieraz **lanbidezko** harremanetarako bai, moldatzen naiz, baina bestela, komikoa ere bada: ez dut neuk nahi dudana esaten, hizkuntzak nahi duena baizik. Joxe Austin Arrieta

Alde pertsonala eta **lanbidezkoa,** barnekoa eta kanpokoa, erabat loturik zeuden berarentzat. Xabier Olarra

## 9 **lanbide arteko** (orobat **lanbidearteko**) izlag

**Lanbide** arteko akordioak. Joxerra Garzia

54 eta 55 milioi hektolitro biltzea pentsatzen du Arnoaren **Lanbide Arteko** Frantziako bulegoak. Berria - Harian

Aurki hasiko ditu bere lanak Errioxako Ardoaren **Lanbide arteko** Erakundeak. Berria - Ekonomia

**Lanbide** arteko soldata mixerable hori ez dagoela %2a baino gehiago handitzerik. Joxerra Garzia

**Lanbidearteko** Gutxieneko Soldata 600 eurora igoko duela. Berria - Ekonomia

**Lanbidearteko** Gutxieneko Soldata baino gutxiago irabazten dutenek Alargunen pentsioak **Lanbide** arteko Gutxieneko Soldatarekin (LGS) parekatuko dituzten ordainsariak.

**Lanbide Arteko** Gutxieneko Soldataren %6,6ko igoera. Joxerra Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bizitza lanbide** (7); **jaurlaritzako lanbide heziketako** (3); **lanbide arteko akordioak** (4); **lanbide berri** (4); **lanbide berria** (3); **lanbide berriak** (3); **lanbide berrian** (4); **lanbide bihurtu** (3); **lanbide eskolan** (3); **lanbide eta enpresa** (3); **lanbide heziketa** (51); **lanbide heziketa ikasten** (3); **lanbide heziketak** (7); **lanbide heziketako** (56); **lanbide heziketako ikasketak** (3); **lanbide heziketako titulua** (6); **lanbide heziketan** (44); **lanbide heziketara** (5); **lanbide heziketarako** (4); **lanbide heziketaren** (28); **lanbide**

*heziketari buruzko* (7); *lanbide heziketaz* (3); *lanbide nagusi* (4); *lanbide txarra* (5); *lanbide zerga* (5)
*lanbidea utzi* (3); *lanbidea zela eta* (3); *langilea eta lanbidea* (3)
*lanbidearteko gutxieneko* (10); *lanbidearteko gutxieneko soldata* (3); *lanbidearteko gutxieneko soldataren* (5)
*lanbidez abokatua* (3); *lanbidez aldatu* (3)

---

*lanbidearteko* ik **lanbide 7**.

---

## **lanbidedun** *izlag lanbideko.*

*Liburuko pertsonaia nagusia Amaia Ezpeldoi detektibea da: ordu arte gizonezkoena zen* ***lanbidedun*** *emakumea eta euskal literaturan ordu arteko nobeletan pertsonaia nagusiak emakumezkoak ez zirenean...* Ana Urkiza

---

## **lanbidekide** *izond/iz lanbide berekoa.*

*Gogoko dut nire* ***lanbidekide*** *gazteagoak nola aritzen diren ikustea, ulertzen didazu, ezta?...* Lopez de Arana

---

## **lanbro** **1** *iz lainoa, behelainoa; euri lanbroa.*

*-Eguzkia* ***lanbroa*** *uxatzen hasi duk.* Karlos Zabala
***Lanbroak*** *hartzen zuen dena, ez zen almidoi aire bat baino ikusten.* Koldo Izagirre
***Lanbro*** *izoztu grisak inguratzen ari zitzaizkien.* Agustin Otsoa
*Eszenaren atzealdean,* ***lanbro*** *beroaz bustitako oihanak.* Karlos Zabala
*Bi astez ia etenik gabe egin zuen euria, eta, noizean behin zenbait orduz atertzen zuenean, kearen antzeko* ***lanbro*** *hotza altxatzen zen nonahi.* Jose Morales
*Itsaso izurtuak eta* ***lanbro*** *iraunkorrek goia eta behea batu eta berdinduko baitituzte.* Joseba Sarrionandia
***Lanbro*** *izarniatzailean galdu aurretik.* Agustin Otsoa
*Zelai-arrasean* ***lanbro*** *zurixkak limurtzen dira, beharbada mamu ilaunak ezkutatzeko.* Itziar Otegi
*Panoramaren hondo-hondoan behar du Veneziak, bero goriak eragindako* ***lanbro*** *errean kulunka.* Anjel Lertxundi
*Gandu moduko* ***lanbro*** *hitsa nola datorren ikusita, ipar tankeraz, mendebaleko haizexkak bultzatuta.* Pello Zabala
*Hodei eta* ***lanbro*** *artean, mintzo galdu batzuk aditzen dira, ilunpe isilean, tarteka:kri... kra... kro...* Patziku Perurena

**2** *irud/hed*

*Aurpegia* ***lanbro*** *argitsu batek lausotua zeukan.* Fernando Rey
*Giza izaera ezkutatzen duen* ***lanbro*** *sarria urratu nahi genuke.* Anjel Lertxundi
*Malenkoniazko* ***lanbro*** *horren eraginpean bururatu zitzaidan, lehenengoz, ideia zital hura.* Xabier Mendiguren Elizegi
*Ardoaren* ***lanbroa*** *buruan, zahatoa eskuan.* Felipe Juaristi
*Emaztea, semea... marihuanak ereindako* ***lanbro*** *eztiaren artetik gogora ekarri ditu haien figurak.* Aingeru Epaltza
*Has hadi, gizona, has hadi hire* ***lanbro,*** *susmo eta asmabideei forma ematen.* Anjel Lertxundi
*Ekonomiaren* ***lanbroan*** *nora ezean igeri egiten duten enpresaburuak.* Berria - Kultura
*Zientziarik zehatzen eta zurrunena aplikatzen zaiola espekulazio ukiezinenaren* ***lanbro*** *eta espiritualtasunari.* Koro Navarro
*Ahanzturaren* ***lanbroan*** *galdu nahi izan genuela haren iragana.* Karlos Linazasoro

**3** *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa)*

***Lanbro*** *giroan eginen duzue bidea.* Joseba Sarrionandia
***Lanbro*** *tanta ñimiñoek sistatzen zuten aurpegia.* Aurelia Arkotxa
*Zeru hodeitsu,* ***lanbro*** *airea, aterki beltzak zabalik etxe grisen artean.* Xabier Mendiguren Elizegi
*Hartu arnasa... senti ezazu lur eta* ***lanbro*** *usain hau.* Jesus Mari Mendizabal
*Ateri da, baina* ***lanbro*** *-kizkolak dakartza haizeak.* Anjel Lertxundi

**4** *(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)*

*Loriazko mozkor horietako bat izan zen, inguruko guztia eta guztiak irrealtasun-* ***lanbro*** *batean bildurik ikustera ailegatzen zarena.* Xabier Mendiguren Elizegi
*Desio-* ***lanbrozko*** *burbuila da, ispiluan hila bezain zurbil dago.* Monika Etxebarria

**5** *(izenondo gisa)*

*Neuk moldatu nizkion koplak, berak gaia emanda, Londongo egun* ***lanbro*** *haietan.* Koldo Izagirre
*Aratsaldeko 5 orenak ziren San Franciscoratzean eta* ***lanbro*** *zen.* Herria
*· Begitartea* ***lanbro*** *halere.* Herria

**6** *tanta xehe-xehetan erortzen den euria. ik beherago* **7.**

*Gau hartan* ***lanbroa*** *ari zuen.* Josu Zabaleta
*Aldiro-aldiro* ***lanbroa*** *egiten zian, isurika, aldiro eurijasa.* Josu Zabaleta
*Lurra asetzen duen* ***lanbroa*** *bezala.* Elizen arteko biblia

**7 euri lanbro** *tanta xehe-xehetan erortzen den euria.*

*Kanpoan,* ***euri lanbroa*** *ari zuen; udaberri aurreko azken hotzak ziren.* Juan Kruz Igerabide
***Euri lanbroa*** *hasi zuen.* Koro Navarro
*Jausten hasiriko* ***euri-lanbro*** *itxiak etxera egotzi zituen kalean zebiltzan azken oinezkoak.* Migel Angel Mintegi
*Isur bitez nire esanak ihintza bezala,* ***euri-lanbroa*** *belarretan bezala, langarra zelaian bezala.* Elizen arteko biblia
***Euri lanbrotan*** *igoal.* Iñigo Aranbarri

**8 lanbro laino** *lanbroa dakarren lainoa.*

*Ez preseski hodeiak, baizik laino,* ***lanbro-laino*** *eta lainobera tximatsu hori.* Pello Zabala
*Bero erre ittogarri batzuen ostean, lurrindurako lainobera eta* ***lanbro-lainoak*** *noraezean malkarretan lapatuta gelditzea.* Pello Zabala
*Euri-datu eta datekin batera, behe-laino eta* ***lanbro-lainoaren*** *berri ematen zuen.* Pello Zabala

***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
*lanbro artean* (15); *lanbro laino* (6)
*euri lanbroa* (7); *lanbroa ari* (3); *lanbroa bezala* (3)
*igerilaria ekonomiaren lanbroan* (3)

**lanbrotsu** 1 *izond lanbroz estalia edo betea.*

*Gau **lanbrotsuetan** irteten zen Burke jauna, mozorro hori eskuan.* Juan Garzia

*Eguna iluna zen, **lanbrotsua,** hezetasuna hezurretaraino sartzen zen.* Migel Angel Mintegi

*Udazken hozkirri eta **lanbrotsu** honetan, berriz, hutsik daude, ostatu eta jatetxeak bezalaxe.* Jon Arretxe

*Zuri bat udaberriko goiz **lanbrotsuan** azaltzen den bezala.* Felipe Juaristi

*Ez da harritzekoa, mendi lepo altu samarren batetik laino **lanbrotsu** gorputz handirik gabeak, mendiari ondo itsatsita abiatzea.* Pello Zabala

*Gabarra ilun angeluzuzenez beteriko portutik Staten Island-eko muino **lanbrotsura** bitarteko paisajea.* Lopez de Arana

**2** *irud/hed*

*Hori baino ez zen geratzen bion artean, jaka bat eta hiriko hainbat txokotan igarotako bizikizun **lanbrotsuak**.* Aritz Gorrotxategi

*Abstrakziozko ezagutza lauso edo **lanbrotsua**.* Piarres Xarriton

*Pentsamendu logikoa amaitzen zen muga **lanbrotsutik** haratagoko tokiren batetik etorritako deia.* Alberto Ladron Arana

*Memoria **lanbrotsua** da.* Jokin Urain

***Lanbrotsuak** ziren bere oroitzapenak.* Aritz Gorrotxategi

*Eszena haiek oso **lanbrotsuak** iruditzen zitzaizkion orain: Natalia, astiro mugituz, betaurrekoen parean kokatu, eta, hatz nagiarekin kopeta ferekatzen ziola, "ulertzen zaitut, ulertzen zaitut" xumea ahoskatuz.* Aritz Gorrotxategi

---

**lanbrotu,** *lanbro(tu), lanbrotzen* **1** *da/du ad lanbroz bete, lausotu.*

*Ordurako **lanbrotuak** genituen kristal guztiak gure hatsarekin eta nire berriketekin.* Fernando Rey

*Begiak **lanbrotuta**, norabiderik gabe.* Berria - Ekonomia

*Ikuspegia pixkanaka-pixkanaka **lanbrotzen** duten euri tanten kentzeko.* Berria - Kultura

*Ala neu izanen naiz, Patri, bero honek aldrebestu eta dena **lanbrotuta** ikusten duena?* Hasier Etxeberria

**2** *irud/hed*

*Argizari berdearen eukaliptu usaina hedatu zen sukaldean eta neu ere **lanbrotu** egin ninduen.* Jasone Osoro

*Edari sarriak bezala **lanbrotzen** dute adimena.* Anjel Lertxundi

*Alkoholaren arinkeriaz leunki **lanbroturiko** gauak.* Berria - Kultura

*Narrazio teknikarik landu eta bihurrienak maisuki erabiliz, orain irakurketa **lanbrotuz** eta bat-batean argituz.* Berria - Kultura

*Bazekielako musu bakar batez, mingainaren zaporea eta listuaren umeltasuna sentitzeaz bat, klitoria ere **lanbrotzen** zitzaiola, ihintzaz estaltzen.* Jasone Osoro

**3** *(era burutua izenondo gisa)*

*Harik eta, ustekabean, herrixka baten silueta **lanbrotuak** begiztatu ditudan arte.* Jon Arretxe

*Zerk galarazten digu hain isla **lanbrotuak** dituen erantzukizuna ere baliagarritasunaren mende jartzea?* Anjel Lertxundi

**4 lanbrotuxe** *lanbrotu xamar.*

*Hiriak ez zion hutsik egin itsuari eta bere jakin-mina asetuxe, bere belarriak musikaz hanpatuxe, bere begiak hainbeste edertasun ikusteaz **lanbrotuxe,** Napoleserako bide urezkoa hartu zuten Aragoiko galeoi batean.* Felipe Juaristi

---

**lanbroxka** *iz adkor lanbroa.*

*Edo, mendebal **lanbroxka** sartu orduko: euri xehea, iparra laster.* Pello Zabala

---

**land** *(orobat **lander**; alemanez, lander, land-en plurala da)* **1** *iz (singularrean)*

*Bilera **land**-eko presidentearekin.* Berria - Euskal Herria

*Ondoren datoz Alemaniako ekialdeko **land**-ak (%14,7), Portugal (%12,9), Grezia (%7,9) eta Italia hegoaldea (%7,8).* Berria - Ekonomia

*· Chirac jaunak onartuko al luke Frantzia Alemaniako **lander** bat bihurtzea Frantzia %10 aberatsagoa izatearen truke.* Berria - Harian

*Bavariako **lander**-eko lehen ministro Edmund Stoiberrek* Berria - Mundua

**2** *(pluralean)*

*Alemaniako bost **lander**-etan agertu da dagoeneko gaitza.* Berria - Gaiak

*Sozial demokratek hauteskunde bat bestearen atzetik galdu dute **lander**-etan.* Berria - Harian

*Koalizio Handia indartuta irten da **landerretako** bozetatik.* Berria - Mundua

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> ***alemaniako lander*** *(3)*

---

**land-rover** *(orobat **Land-Rover, landrober** g.er., **landrover** g.er. eta **lanrober** g.er.)* *iz noranahiko ibilgailu baten marka erregistratua. ik **patrol**.*

*Efrain azaldu zen bere **Land** Roverrean osabaren bila.* Bernardo Atxaga

*Edonola ere, eremua berehala inguratu dute **Land**-Rover haren atzetik zetorren beste **Land**-Roverraren kidekoek eta bizkor iritsi diren Gobernu Zibileko polizia nazionalek.* Iban Zaldua

**2** *noranahiko ibilgailua.*

*Lasaitzen ari nintzela, **landrober** bat iragan zen nigandik hurbil, arin eta zaratatsu.* Aitor Arana

*Oraindik orain, pinu eraisten dabilen basomutil gazte bati irakurria diot bere **land**-roverrean "baso esplotakuntza" duela lanbide.* Iñigo Aranbarri

*Hango jabeak bazuen **land**-rover bat, Palenqueko ibilgailu bakarra bistan zenez.* Joxe Austin Arrieta

*Lekukoek ere ez zutela **land** rover-a azkarregi zihoanik adierazi.* Ramon Saizarbitoria

*Haien **lanroberren** uluak entzun artean.* Juan Luis Zabala

*Han hiru edo lau **lanrober** edo patrol horietakoak zeudean.* Pablo Sastre

*Lasaitzen ari nintzela, **landrober** bat iragan zen nigandik hurbil, arin eta zaratatsu.* Aitor Arana

---

**landa**[1] **1** *iz herriguneetatik kanpoko lur eremua; bereziki, bertan landatzeko on dena.*

*Ager soroa, alorra da, **landa,** lurra, lur-eremua, lurraldea, eskualdea.* Askoren artean

Eskualde geografikoa adieraz dezake, lurrak nahiz **landak,** edota kargu nahiz ofizioak ere bai. Askoren artean
Ederrak dira Esloveniako **landak,** berdeak, ez oso aldapatsuak. Anjel Lertxundi
Artzain bat aurkitu zuen **landan** ahuntz- eta aker-talde bat bazkatzen. Askoren artean
Etxe bat **landan** ! Antton Olano
Hori Arabiako basamortu eta oasietatik irten eta Erromatar eta Sasaniar inperioetako **landa** eta hirietara joanez egin zuten. Iñaki Mendiguren
Halako batean gelditu egin zen, **landa** erdian ia. Juan Garzia
Urak hartuak zituen bide bazterreko soro, baratza eta **landak** . Anjel Lertxundi
**Landa** erosi zuenari lapurtu eta hartan inolako eskubiderik ez duenari ematen diona injustua da. Imanol Unzurrunzaga
Zerrenda gorri batek mugatzen zuen **landa** . Josu Zabaleta
Gure **landa** eta mahastien gain dirua eskatu beharrean gertatu gara, erregeari zergak ordaintzeko. Elizen arteko biblia
Burgundiarraren artaldeek erromatarraren **landa** ongarritzen zuten. Iñaki Iñurrieta

## 2 (izenondoekin)

Alboetara izotzezko **landa** zuriak eta lantzean behingo izotzezko tontorrak diren eraikin erraldoiak. Joseba Sarrionandia
Friburgo aldera, **landa** berdeak ikusten ziren bakarrik. Josu Zabaleta
Basamortuan iturriak sortuko dira, **landa** lehorrean errekak. Elizen arteko biblia
Lurrera botako zaitut eta bertan behera utziko **landa** zabalean. Elizen arteko biblia
Egin beza burrunba itsasoak eta bertako guztiak, egin festa **landa** zabalak eta bertan dagoenak. Elizen arteko biblia
**Landa** loretsuak kolore mardulez distiratu ziren. Xabier Amuriza
Ikusten zituzten **landa** abandonatuak eta gurutzatzen zituzten jendeen so goibelak. Elena Touyarou
Euriak are indartsuago eta haizeak ausarki astintzen zituen **landa** hutsak zeharkatzean. Itxaro Borda

## 3 irud/hed

Hona hemen ni ene oroimenaren **landa,** leize eta ezin konta ahalko hartzuloetan, ezin konta ahala mota gauzez neurrigabeki beteak. Imanol Unzurrunzaga

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **rural**.

Eguna argitzen ari zuen, eta han goitik **landa** -puska izugarria ikusten zen. Koro Navarro
**Landa** inguruetan jarraitzen dutenen bizitzan jarri ditu begiak argazkilariak. Nahiago zuela errepide txikiagoetara aldatu, **landa** -inguruetako bide ez hain beteetara, alegia. Oskar Arana
Monoi usaina dago, **landa** loreekin urrindutako koko olioaren usaina. Patxi Zubizarreta
Barazkiekin behaztopa egin eta **landa** -hesian zehar lasterka jo genuen. Mirentxu Larrañaga
Buruaskitasuna zen **landa** -giroaren ezaugarri nagusietako bat. Koro Navarro
Badu halako **landa** kutsu bat agerian. Josu Zabaleta
Ingalaterran, hesitze-higikundeak **landa** -ekonomia irauli zuen. Koro Navarro
Berrogeita zazpi herritatik hogeita hemeretzi dira **landa** -baserri eta nekazaritzari lotuta bizi direnak. Pello Zabala
Azkenik, Hitlerrek arima baten arimari ordaindu zion zerga bere **landa** -egoitza Berchtesgaden-en [...] ezarriz. Iñaki Mendiguren
Italiaren hegoaldeko muturrean zeukan **landa** -jabegoa monasterio bihurtu zuen. Iñaki Mendiguren
Haien ordez eurak ezarri ziren atzerriko gutxiengo menderatzaile gisa, eta **landa** -populazioa Mendebaldeko Kristau Gizartearen barne-proletalgo izateko estatusera murriztu zuten. Iñaki Mendiguren
Hurtadok **landa** -mediku diharduen Alcolea herrian. Josu Zabaleta
Foru Aldundiko **Landa** Garapenerako sailak. Berria - Euskal Herria

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herri aberatsa da, gari **landa** eta mahasti xarmantak baditu. Aurelia Arkotxa
Ortzaizeko ogi- **landa** irekietan dantzari zen haize freskoa susmatu zuen. Itxaro Borda
Orduan ulertu nuen zergatik nengoen oin hutsik eta hotzez akabatzen arroz- **landa** haietan. Anjel Lertxundi
Landesetako arto **landa** zabal horietara. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Sasien artetik bidea idekiz edo harkaitzaren itzulia eginez, artetan berdin goroldioan oinak sartuz, ote **landak** sist egin ez dezan belaunean. Piarres Aintziart

## 6 landa-alde (orobat **landalde** g.er.)

Hungariako **landa-aldean** . Oskar Arana
Valentzia inguruko **landa** aldea, emankorra izanagatik ere, ez zitzaion gustatzen. Josu Zabaleta
Vermonteko **landa-aldeko** bigarren mailako errepide batean. Oskar Arana
Varsoviatik **landa** aldera aldendu ginen igande batez, zelai batean askaria egiteko asmotan. Harkaitz Cano
Baina non aurkituko dugu **landa** -aldean lursail bat erosteko dirua? Oskar Arana
**Landa-aldeko** urrutiko lekuren batera bizitzera joango zelako ideia zozokeria hutsa iruditzen zitzaidan. Oskar Arana
-Carolinan -esaten du, silabak luzatuz, astelehenean entzun nion **landa-aldeko** hegoaldeko azentu berarekin. Oskar Arana

## 7 landa-arras

Elkarrekin zeutzala, **landa** -arras, ehorztegi abandonatu bateko lauzen gainean. Juan Garzia

## 8 landa-bide

**Landa-bide** estu batean aurrera joan ziren ziztu bizian. Iñaki Mendiguren
Burura datozkit, bide batez, landare-hesi garaiak eta **landa-bideak,** eta, iluntzero elkarrekin egiten genituen osteratxoak. Mirentxu Larrañaga
Iluntze batean, Charlie, Big Joe eta hirurok etxera gindoazen, **landa-bidean** gora. Mirentxu Larrañaga
Elkarrekin goaz etxerantz, **landa-bide** sakonetatik zehar. Mirentxu Larrañaga

## 9 landa-eremu

Horren ondorioz, gero eta jende gehiago joango zen **landa-eremuetara** bizitzera. Txema Ramirez de la Piscina
Beste 100 milioi **landa eremuetatik** hiri nagusietara joandako emigranteak dira. Berria - Mundua
13 milioi desplazatuetatik %36 kanpalekuetan bizi dira, % 15 hiriguneetan eta %49 **landa eremuetan** sakabanatuta edo leku finkorik gabe. Berria - Harian
Laguntza horiek jasoko dituzten **landa-eremuetako** botoak ezinbestekoak izango ditu Bush-ek berriz ere hautatua izateko. Iñaki Heras
**Landa eremuko** lursailen espekulazio bortitza. Berria - Euskal Herria
Irtenbidea, merkataritza-klasearentzat, **landa-eremuetatik** etorriko zen. Koro Navarro
Merkantilismoaren garaian, **landa-eremuak** mundu-ekonomiaren periferiaren parte ziren oraindik ere. Koro Navarro
Hirietako industria-jarduerak **landa-eremuetara** eta hiri handietatik txikietara desbideratu zirelako. Koro Navarro
Etsaia barreiatua baitzen, **landa eremuaren** zabaltasunean urturik bezala. Josu Zabaleta
Zegamako **Landa Eremuko** Zentro Balioaniztunean. Berria - Euskal Herria
**Landa Eremuko** Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira egindako jardunaldian. Berria - Euskal Herria
EHNEk ez du berretsi **Landa eremuen** Garapenerako Gizarte Ituna. Berria - Euskal Herria

## 10 landa-etxe ik **landetxe**.

### 11 landa-herri

Hiri inguruko **landa herrietan** suziriak botatzen dituzte. Josu Zabaleta

Hiri eta **landa- herrietan**. Juan Garzia

Piamontearen hegoaldeko zenbait **landa-herritan** aurkitu zuten bizilekua. Juan Garzia

**Landa-herrietan,** emakumezkoa ez da tximeleta baino zoriontsuagoa. Koldo Izagirre

### 12 landa ingurune

Izan ere, **landa ingurunea** mantentzen duen sektorea gara. Berria - Ekonomia

Baserritarrik gabeko **landa inguruneek** zer dakarte? Berria - Ekonomia

Eta, orain herri txikietan etxez etxe doazen kamioitxo horien antzera, etorkizunean **landa-ingurunean** horrelako salmenta jeneralizatuko da. Edorta Agirre

Gipuzkoako Foru Aldundiko **Landa Ingurunearen** Garapenerako Sailak ituna sinatu du Gipuzkoako Ehiza Federazioarekin. Berria - Euskal Herria

### 13 landa-lan ikerketez mintzatuz, azterkizunaren eremuan, bertatik bertara, egiten dena.

Olaziregik aplikatu zuen lehen aldiz euskal literaturan Harreraren Estetika, **landa lana** deritzana eginez inkestak eta beste, eta irakurleari eta harrerari garrantzia emanez. Berria - Kultura

**Landa lana** egin dute, lehenik, Pasaian eta inguruetan. Berria - Kultura

**Landa lana:** Beti gogoratzen dute Roldan Jimeno libreta eskuan herriz herri, jendearen ahotik datuak biltzen. Berria - Kultura

Unibertsitateko esperimentu-abeltegira joan ginen, han egiten baitu Templek gehienbat oinarrizko **landa-lana**. Irudiarekiko erlazioaren unibertsaltasuna zalantzan jartzera eraman zituen **"landa** -lan" baten emaitzak argitaratu dituzte. Xabier Olarra

### 14 landa-lur

Sindikatuaren ustez, EAEko **landa lurrak** identifikatzeko eta babesteko legea behar da. Berria - Euskal Herria

**Landa-lur** zabalak hasten ziren gunean, bere zain bezala, zaldi beltz gihartsu bat eta zeta zurizko janzki batzuk zeuden. Baserri eta **landa-lurren** errenta aspalditik izozturik dagoenez gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Garai hartan, jaurgo-ekonomia zen oraindik nagusi **landa-lurretan**. Koro Navarro

### 15 landa mariskal gaur egungo dibisio jeneralari dagokion maila zuen gudalburua.

D'Artagnan mosketaria, **landa** -mariskal izendatua, gudu hartan hil zen. Jon Muñoz

Blücher **landa** -mariskalak. Iñaki Mendiguren

### 16 landa-turismo (orobat **landaturismo** g.er.)

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hoteletara eta **landa turismoko** etxeetara jotzen duten turista gehienak Espainiatik eta Frantziatik datoz. **Landaturismoko** baserri bat. Iñigo Aranbarri

**Landa turismoko** ostatu batera. Berria - Mundua

Getxon, Zientoetxeko Sastraka baserrian, orain, eraberritu eta **landa-turismorako** egokitu dutenetik, Falcon Crest deitzen dioten horretan. Patxi Iturritegi

Igoera nabarmenena **landa turismoak** izan du, %8 gehitu baita turismo mota hori aukeratu duten bisitarien kopurua. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arroz landa haietan** (4); **arto landa** (5); **festa landa zabalak** (4); **inguruko landa** (6)
>
> **landa aldea** (3); **landa aldean** (8); **landa aldeko** (5); **landa aldera** (5); **landa batera** (3); **landa berde** (4); **landa besta** (3); **landa bide** (4); **landa bidean** (3); **landa eder** (3); **landa erdian** (3); **landa eremu** (6); **landa eremua** (3); **landa eremuak** (3); **landa eremuan** (5); **landa eremuaren** (4); **landa eremuetako** (4); **landa eremuetan** (5); **landa eremuetatik** (3); **landa eremuko** (18); **landa eremuko erabilera** (5); **landa eremuko zentro** (5); **landa eta mahastien** (3); **landa eta pentze** (4); **landa etxe** (3); **landa giroko** (5); **landa haur** (3); **landa herrietan** (3); **landa herriko** (3); **landa inguruetako** (3); **landa inguruetan** (3); **landa lana** (6); **landa lehorrean** (4); **landa turismoko** (3); **landa zabal** (9); **landa zabala** (4); **landa zabalak** (5); **landa zabalean** (8); **landaz landa** (4)
>
> **lore landa** (3); **mendiko landa** (3); **ogi landa** (4); **pentze eta landa** (3)
>
> **landak hedatzen** (3); **ogi landak** (3)
>
> **izreelgo landan** (4); **landan barrena** (15); **landan barrena abiatu** (3); **landan bizi** (4); **landan hiltzen** (4); **landan sartu** (3); **landan zehar** (13); **mendiko landan** (9)
>
> **landara atera** (3); **landara irten** (4)

---

# landa[2] 1 adlag kanpo, at.

Eta gorputz osoaren sentimenetik gogor eta bigun, hotz eta bero, leun eta latz, astun eta arin den oro, gorputzaren baitan nahiz **landa**. Imanol Unzurrunzaga

### 2 –tik landa[1] –tik kanpo.

Kontent ere bai, azkenik zulo hartatik **landa** zarelarik. Xabier Montoia

Adimenetik **landa** ez da, beraz, deus aurkitzen ahal gauza batzuen elkarretarik bereizteko, substantziak baizik. Piarres Xarriton

Ez da, beraz, Harengandik **landa** deus izaten ahal, Hura Bera edozer egitera delibera edo hertsa dezakeenik. Piarres Xarriton

Ametsen lurraldetik **landa**. Fernando Morillo

### 3 –tik landa[2] ipar –z gero.

Ni ere ibilia nintzen honela, aspaldi, Bordeleko karriketan, Aljeriako gerlatik **landa,** bakea nahi genuela oihukatuz. Piarres Aintziart

Udatik **landa** aterako dituzte ondorioak. Berria - Euskal Herria

Mezatik **landa,** dokumentua bidali zuten herriko kontseilu orokorrari. Michel Oronoz

Aitak ez zuen jada hitz egiten, zenbait aste lehenago jasan buruko odol erasotik **landa**. Itxaro Borda

Agataren ikerketatik **landa** argi zen ez zela itsustasuna Louiseren bakardadearen arrazoia. Itxaro Borda

Lanetik **landa,** oski-dendara makurtuko genituen urratsak, ondikotz halabeharrez. Itxaro Borda

Handik **landa** Xabi etxera bildu zelarik, usaian baino berantago, biziki serios kausitu zuten aitamek. Michel Oronoz

### 4 –z landa –z kanpo.

Kakazorroak erran dizuete, ez dagoela, arabeez **landa,** zuek baino apalagorik. Xabier Montoia

Horrez **landa,** 5.300 karaktere idatzirik nituen aferaren gaineko jakingarri berri guztiekin. Aingeru Epaltza

Horiez **landa,** lehiatua zen herriko mintzairan irakurtzen ez ezik, izkribatzen ere ikas zezaten. Aingeru Epaltza

Isiltasuna egun bat gehiago luzatzeak, gizabidezkoa ez izateaz **landa,** etorkizuneko harremanetan zailtasunak sortzea baizik ez luke ekarriko. Jon Alonso

Zenbat forma eduki dezake denborak, guk pertzibitzen dugunaz **landa**? Jon Alonso

### 5 –z landara adlag –z kanpo.

Bata Gipuzkoa babestuan zegoen artean, mapaz **landara** kokatu zuten bestea, Biarnon. Iñigo Aranbarri

Konpromiso hutsezko egintza horrez **landara** ez zitzaidan deus eraginkorragorik kaxkoratzen. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adimenetik landa** (4); **afaritik landa** (5); **agurratik landa** (3); **aljeriako gerlatik landa** (4); **auzitik landa** (4); **baxotik landa** (8); **bazkaritik landa** (7); **bigarren gerlatik landa** (3); **bileratik landa** (5); **bilkura hortarik landa** (4); **bilkuratik landa** (10); **biltzar nagusitik landa** (6); **biltzarretik landa** (3); **bisitatik landa** (8); **bozetarik landa** (6); **bozetatik landa** (3); **elizkizunetarik landa** (3); **elizkizunetik landa** (3); **eskolatik landa** (11); **gerlatik landa** (28); **handik landa** (15); **ikusgarritik landa** (3); **izateaz landa** (5); **jainkoaz landa** (3); **kasernatik landa** (4); **klasetik landa** (3); **lanetik landa** (17); **lasterkalditik landa** (3); **manifestalditik landa** (3); **martxotik landa** (3); **meza nagusitik landa** (7);

***mezatik landa*** *(86);* ***nitaz landa*** *(4);* ***ongi etorritik landa*** *(5);* ***partidatik landa*** *(7);* ***sarkozyren bisitatik landa*** *(4)*

---

*landaetxe* ik ***landetxe***.

---

***landagarri*** *izond landa daitekeena*

*Munduan pertsonako den lur eremu **landagarria** murriztea.* *Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde*

---

***landagune*** *(orobat **landa-gune**) iz landako gunea.*

***Landaguneen** izenetatik abiatu da Naberan ondorio horretara heltzeko.* *Berria - Euskal Herria*

*AEBetako hauteskunde sisteman, **landa** -guneek pisu handiagoa baitute hiriguneek baino.* *Iñaki Heras*

***Landagunea:** gizartea, lurraldea, ekosistema eta ekologia.* *Berria - Euskal Herria*

---

***landagunegintza*** *iz landaguneak egitea.*

***Landagunegintzaren** hirigintza.* *Berria - Euskal Herria*

---

***landaketa*** ***1*** *iz landatzea.*

*Ekologikoki produktiboa den lurra **-landaketak,** larreak, basoa-, munduan erabilgarri dena.* *Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde*

*Inork ez zukeen **landaketarik** egingo, ezta erein edo eraikiko, lurrak banatuak izan ez balira eta norbanako bakoitza seguru egon ez balitz bere jabetza modu baketsuan edukitzeaz.* *Andres Urrutia*

*Erremolatxaren **landaketa** duela hilabete egin behar zela adierazi du Lopez de Forondak.* *Berria - Ekonomia*

*Ekialdeko Asian, berriz, opiobelar **landaketak** eta kalamuarenak ohikoak dira.* *Berria - Gaiak*

*Hango 160.000 laborari familia kafe **landaketetan** ari dira lanean.* *Herria*

***Landaketa** transgeniko berrien debekua hausteko lehen urratsa.* *Berria - Euskal Herria*

*Zuztarretik atereak izango dira horiek guztiak Jainkoak ez duelako **landaketarik** egin horien bihotzetan.* *Joan Mari Lekuona*

***2*** *lur sail landatua. ik **landatze 2**.*

*Hiria inguratzen eta etxebizitza eta **landaketak** birrintzen.* *Berria - Mundua*

*Kokaina eta heroina ekoizteko 20.000 hektarea **landaketa** daude Catatumbo eskualdean.* *Berria - Mundua*

---

*landalde* ik ***landa***[1] ***6***.

---

*landara* ik ***landare***.

---

***landaratu,*** *landara(tu), landaratzen da ad landara joan.*

***Landaratu** zen bezain laster, burutapen larri bat barne-jabetu zitzaion.* *Patxi Ezkiaga*

---

***landarazi,*** *landaraz, landarazen du ad landatzera behartu.*

*Probok eta Julianok, ez baitzieten inoiz beldurrik izan, berriro **landarazi** zituzten.* *Iñaki Iñurrieta*

---

***landare*** *(orobat **landare** g.er.)* ***1*** *iz berez ezin higi daitekeen eta sentiberatasunik ez duen izaki bizia; eguneroko hizkuntzan, sustraiak eta hostoak dituzten izaki biziak.*

*Bizigabeak, **landareak,** animaliak, gizakiak. Urrutiko **landare,** zuhaitz, hegazti eta animaliaz betetako paisaia hura.* *J.M. Olaizola "Txiliku"*

*Era askotako **landareak** hozitu ahal izango dira etxean bertan.* *Edorta Agirre*

*Herri epeletako **landareak** alda daitezke haietan, laranjondoak eta limoiondoak besteak beste.* *Koro Navarro*

***Landarea** ez zen, ordea, edozein lekutan hazten, klima berezia behar baitzuen, lurralde beroak.* *J.M. Olaizola "Txiliku"*

*Amerikako oihan tropikaletatik at, **landarea** loratzen zen baina ez zuen lekarik ematen.* *J.M. Olaizola "Txiliku"*

*Zereginik kuttunena **landareak** zaintzea zuen.* *Eider Rodriguez*

*Hiru herrialdeotako **landareak** sailkatzeko, 2.300 multzo (taxon) erabiltzen dira.* *Berria - Gaiak*

*Lemna Minor uretako **landareak** gai kutsakorrak xurgatzen ditu.* *Berria - Gaiak*

***Landare** bat topatu dut, berezia: Woodsia ilvensis. Haurra izan eta biharamunean berak pozoitu zuen, herrixka ondoan hazten den **landare** baten erretxinaz.* *Gotzon Garate*

*Loratzerat zoan **landarea** itzali zaiku, Ostankoa Haixpeko Mattin Idiart, 16garren urtean.* *Herria*

***2*** *(izenondoekin)*

***Landare** arraro guztien artean arraroenetakoa zuhaitzetan errotzen den mihura da.* *J.M. Olaizola "Txiliku"*

*Baratzearen zati bat **landare** usaintsu eta loredunentzat gordetzeko agindu zuen.* *Askoren artean*

*Hortentsia handiak bezalako **landare** apaingarriek.* *Aitor Arana*

***Landare** idortuen erakusketa euskal erakustokian.* *Herria*

*Faroen argi-konoan ikusgai: **landare** zurrun-geldiak eta lur-azaleko erro-multzo nahaspilatuak, erraien gisa distiratzen ari.* *Joxe Austin Arrieta*

*Emakume hura **landare** mardul osasuntsua zen.* *Karlos Zabala*

*Eraikin berria metalezko sare batek inguratuko du, eta han **landare** igokariak jarriko dituzte.* *Berria - Harian*

*Noiz eta neure Indietarako bidaian **landare** haragijale haiek ikusi bainituen.* *Joan Mari Irigoien*

***Landare** baskularrak dira katalogoan jasotako guztiak.* *Berria - Gaiak*

Fitoplanktona da itsasoan dagoen **landare** unizelularra. Berria - Gaiak

**3** *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik* ***bejetal****.*

*Era guztietako* ***landare*** *espezieak.* Xabier Kintana

*Animali edo* ***landare****-organismoentzat saihestezinak izan litezkeen eboluzio-arauak.* Iñaki Mendiguren

*Animaliei utzi behar diegu* ***landare****-proteina eraldatu eta hartatik forma digerigarriago bat ateratzeko ardura.* Irene Aldasoro

***Landare****-zuntzik ez dugu kontsumituko.* Edorta Agirre

***Landare****-jatorriko erretxina fosilak dira.* Juan Garzia

*Horien jana arroza, azukrea, gatza, dilistak eta* ***landare****-olioa da.* Gotzon Garate

***Landare****-koipe miresgarri batez.* Edorta Jimenez

*Bularreko minbizia, hormonak eta* ***landare****-hormonak.* Herria

*Edozein hondakin oso egokitzat hartzen dute,* ***landare****-hondakinak batik bat.* J.M. Olaizola "Txiliku"

*Lorategi atsegingarriak landatzen dituzu eta kanpoko* ***landare****-haziak ereiten.* Elizen arteko biblia

*Israel da Jaun ahalguztidunaren mahastia; Judako herria, haren* ***landare****-sail kuttuna.* Elizen arteko biblia

*Ehunka* ***landare*** *ale, Londresko bere lankideentzat ezezagunak ia denak.* Jon Muñoz

*Bere azpian* ***landare*** *mota denetarikoak erne daitezke.* Pello Zabala

*Karmelek hainbat* ***landare****-hosto ekartzen zizkion.* Joan Mari Irigoien

*Hegoak katagua izeneko* ***landare*** *izerdiaz busti, eta errekako urak kutsatzen dituelako.* Berria - Gaiak

***Landare****-zorrien tortikak landareetan.* Josu Zabaleta

*Ez dakit nondik sortuak diren Iribarrenek aipatzen dituen abozo edo agozo* ***landare*** *izenak.* Patziku Perurena

***Landare*** *hesiek beste lursailetatik bereizten zuten.* Karlos Zabala

*Jar bezate bertan* ***landare****-hesi on bat horma legez.* Askoren artean

*Arrosaz beteriko bi* ***landare*** *hesi trinko.* Karlos Zabala

*Arrabioak putzu bakoitzean gainezka, arrabioak istil xixtrin bakoitzean bor-bor... eta, oro har, atergabeko* ***landare****-narotasun hura, malastasun-usain hura, umotasun ustelduzko kirats hura.* Joxe Austin Arrieta

*· Nahasketa orekatua,* ***landare****-proteinaduna.* Jon Muñoz

**4** *(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)*

*Itsas animaliak eta itsas* ***landareak*** *ikertzen direla laborategi horretan.* Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

*Kakaoaren industria hedatu zenean, kakao-* ***landarea*** *Afrikako hainbat lekutara eraman eta kakao-soroak landatu ziren.* J.M. Olaizola "Txiliku"

*Kafe-* ***landare*** *bat edo beste aldatu, esate baterako.* J.M. Olaizola "Txiliku"

*Masusta* ***landare*** *hostotsuz inguratuta.* Koldo Biguri

*Marrubi* ***landareak,*** *mahastiak...* Pako Aristi

*Kakalardoarekiko immuneak diren arto-* ***landare*** *transgenikoak bilatzen dituzten laborategiek. Neska hura arrosa-* ***landare*** *bihurtu zen.* J.M. Olaizola "Txiliku"

*Patata eta aza* ***landare*** *handiek.* Karlos Zabala

*Ohitura handia izan da Euskal Herriko baserrietan erromero* ***landare*** *bat edukitzea.* J.M. Olaizola "Txiliku"

*Lorategietako lore-* ***landareak****.* Mirentxu Larrañaga

*Zorri eta xomorroen kontrako belar-* ***landare*** *sorta bat.* Pello Zabala

*Otate: zuhaitz-* ***landare*** *bat, etxeko tresnak egiteko erabiltzen den zur malgua ematen duena.* Juan Garzia

*Garo eta argizari-* ***landare*** *zoragarriak zeuzkan, eta, inor bisitan joaten zitzaion guztietan, beti eman ohi zion aldaxka bat edo beste bisitariari.* Irene Aldasoro

*Berpizkunde* ***landare*** *edo Jerikoko arrosa (Anastatica hierochuntica) deitzen dioten basamortuko landareak.* Berria - Gaiak

**5 landare denda** *(corpusean* ***landaredenda*** *soilik)*

*Autobusa goizeko 8etan abiatuko da Hazparne-tik, eta 8.30etan Maignon-en (Lafitte* ***landaredenda*** *aitzinean) geldituko da autobidean sartu aitzin.* Herria

**6 landare ontzi** *landareak edukitzeko ontzia. ik* ***loreontzi 2****.*

*Norvegiako lau pinu txiki zituen fatxadaren alboetan, berdez margoturiko* ***landare ontzietan****.* Karlos Zabala

***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***

***animalia edo landare*** *(3);* ***animalia eta landare*** *(14);* ***arrosa landare*** *(9);* ***aza landare*** *(4);* ***belar eta landare*** *(3);* ***hazten den landare*** *(3);* ***izeneko landare*** *(4);* ***kafe landare*** *(4);* ***landare berde*** *(4);* ***landare berri*** *(3);* ***landare berriak*** *(3);* ***landare edo animalia*** *(4);* ***landare espezie*** *(7);* ***landare espezieak*** *(6);* ***landare eta abere*** *(3);* ***landare eta animalia*** *(9);* ***landare eta animalien*** *(6);* ***landare eta arbola*** *(3);* ***landare eta lore*** *(5);* ***landare eta zuhaitz*** *(3);* ***landare eta zuhaitzak*** *(3);* ***landare haziak*** *(4);* ***landare hesi*** *(7);* ***landare hesiaren*** *(3);* ***landare hosto*** *(4);* ***landare igokari*** *(3);* ***landare jatorriko*** *(3);* ***landare klase*** *(5);* ***landare mota*** *(15);* ***landare olioa*** *(3);* ***landare sakratu*** *(3);* ***landare transgenikoak*** *(7);* ***lore eta landare*** *(8)*

***ezaguna den landarea*** *(3);* ***tomate landarea*** *(3)*

***animalia eta landareak*** *(3);* ***animaliak eta landareak*** *(8);* ***genetikoki moldatutako landareak*** *(4);* ***kafe landareak*** *(3);* ***landareak aldatu*** *(4);* ***landareak eta animaliak*** *(4)*

***abere eta landareen*** *(3);* ***animalia eta landareen*** *(4);* ***animalien eta landareen*** *(10);* ***landareen eta animalien*** *(4);* ***landareen mundua*** *(3);* ***landareen salerosketaren*** *(5)*

***tabako landareetatik*** *(3)*

***landarez betea*** *(3);* ***landarez hornitutako horma*** *(3)*

---

## landaredenda *ik* **landare 5**.

---

## **landaredi** *iz lurralde edo herrialde batean hazten diren landareen multzoa. ik* **flora**.

***Landaredi*** *oparoko lurraldea da hau: berez sortzen da aise.* Pello Zabala

*Leku batean azido fosforiko asko pilatzen bada inguru horretako fauna eta* ***landaredia*** *«erre» egiten direla.* Berria - Gaiak

*Hiria hilik dagoenean,* ***landarediak*** *hartuko du, harrietan gora eginen du, inguratu, miatu, leherrarazi eginen ditu bere pintza beltzekin; zuloak butxatuko ditu eta hanka berdeak utziko ditu dilindan nonahi.* Monika Etxebarria

*Beste batzuetan, ordoki handi oparoak ziren,* ***landaredi*** *trinkoz estalitako alderdiak, tarteka-tarteka aintzira txiki baten ispilu argiak urdindutakoak.* Karlos Zabala

*Itsasoko leize sakonetako* ***landarediari*** *eta animaliei beha egoteko aukera.* Imanol Zurutuza

---

## **landaregai** *iz landarekia.*

***Landaregaien*** *sentikortasuna zen oro har hizketagaia.* Koro Navarro

---

## **landaregintza** *iz landareak haztea, landareen laborantza.*

Eta frangotan sofritu dut nik hemen ikusi ditudalarik, enpresa ttipi batzu hasi, zurgintza edo fruituigintza edo **landaregintza,** edo zernahitan, eta bertze batzu heieri bazterretik tiroka, politika edo nik dakita zein arrazoinengatik. Menane Oxandabaratz

---

**landarejale** izond landareez elikatzen dena.

*Animalia **landarejaleez** (ardiez, esate baterako) elikatu nahi badu, 10 hektarea beharko ditu.* Edorta Agirre

*Egin dezagun kontu, hektarea batean gizaki **landarejale** bat bizi daitekeela.* Edorta Agirre

---

**landareki** iz landare motako zera.

*Erregimen berria hasi eta hilabete baten buruan Hurtado hobeto zegoen; janari urri eta **landareki** hutsezkoak, bainuek, aire zabalean jarduteak nerbiorik gabeko gizona bihurtzen zuten.* Josu Zabaleta

---

**landaretegi** iz landareak hazten eta saltzen diren gunea.

*Orkideetan espezializaturiko **landaretegi** bat jarri zuen, eta berak gobernatu zuen tarte batez.* Xabier Olarra

*Igandean, Donibane Lohizunen, Artxiloako **landaretegi** baratzean, landare trukaketak.* Herria

*Euskal Herriko, Hego eta Iparreko (hala nola Lekorneko Lafitte mindegia), bai-eta frantses eta espainol estatuetako ainitz **landaretegi** dira han aurkituko, zernahi lore eta landare mota desberdinekin.* Herria

---

**landaretsu** izond landare asko dagoena.

*Museo arinagoak izango dira, gardenagoak, mugak garbi definitu gabekoak, eta, batez ere, **landaretsuak**.* Berria - Kultura

---

**landaretxo** iz landare txikia.

*Ehun bat **landaretxo,** kolorez purpurakara berdeak, ari ziren han hazten ilaratan.* Iñaki Mendiguren

*Gero zuhaitzak hostatzen zirela, edo **landaretxoak** loratu eta belaiak berdetu.* Pello Salaburu

*Zergatik sustraitzen da **landaretxo** hau zuhaitzen adarretan?* J.M. Olaizola "Txiliku"

*Frantzisko dohatsua hil zen astean, larriki gaixo zegoen andre Klara, Ahizpen Ordenako lehen **landaretxoa**.* Askoren artean

---

**landaretza** iz landareak.

*Sugarrek inguruko **landaretza** kiskaltzen zuten.* Joanes Urkixo

*Hango paisaian ere **landaretza** tropikala, kareharrizko labar piko-pikoak eta harrobi erraldoiak nagusi ziren.* Jon Muñoz

***Landaretza** joriaren ordez, basamortuko paisaia nagusitu zen oraingoan.* Jon Muñoz

***Landaretza** ugariko leku batean.* Berria - Euskal Herria

*Itsas hondoko **landaretza** suntsitzen dute, 0,5 eta 6 metro arteko arrastoak eginez.* Berria - Gaiak

*Uretako **landaretzak** konposatu organikoen deskonposizioan duen eragina.* Berria - Gaiak

*Zenbait animalia oso garrantzitsuak dira **landaretza** zabaldu ahal izateko, eurak arduratzen baitira landareen haziak banatzeaz.* Berria - Gaiak

***Landaretzarik** gabeko uharte txiki batetik gertu.* Joanes Urkixo

*Neure intxaurdira jaitsi naiz, ibarretako **landaretza** ikustera, mahastiak kimuberritzen, granadondoak loratzen ikustera.* Elizen arteko biblia

***Landaretza** eta Faunarako Interes Ekologikoen Gune Natularak sortzea.* Berria - Mundua

---

**landarezale** izond landareen zale dena.

*Inozentzio Munitak, Aramako erretore **landarezaleak,** apenas deus handirik erasten duen.* Patziku Perurena

---

**landatar** izlag landakoa, landari dagokiona.

*Nekazaritza industrialak izadiari kalte egiten dio [...] eta **landatar** herriak desagerrarazten ditu, txaletez betetako urbanizazioen mesedetan.* Berria - Ekonomia

*Bizitza basati eta **landatar** hura utziz, zibilizazio eroso batera iritsi zen.* Santiago Iruretagoiena

*Errenteria herri handixea bazen ere, inguruak oso **landatarrak** ziren orduan, eta ez zen asko ibili behar Biteri kaleko zaratatik aldentzeko.* Berria - Kultura

*Hiriko bizimodu, errutina eta atzerakuntzaren kontra, produktu industrialen aurka eta jaki natural, **landatar** eta "jatorrizkoen" aldeko pentsamoldea.* Edorta Agirre

*Goi mailako gastronomia eta elikagai **landatarrak** vs elikadura industrializatua.* Edorta Agirre

*Gizarte **landatarrari** gutxieneko merkataritza-esperientzia eta antolaketa emanez.* Iñaki Mendiguren

*Nekazari eta lurjabeen gizarte ultra-**landatarra** izatetik pixkanaka eskulangile eta burgesen gizarte ultra-hiritarra izatera aldatu zen.* Iñaki Mendiguren

---

**landatartasun** iz landatarra denaren nolakotasuna.

***Landatartasunaren** ikusmolde paradisutar, edenikotik begiratzen zaio orain unibertso horri, landa-giroko bizimoduaren utopia (eta ukronia) delakoan.* Edorta Agirre

---

**landatasun** iz landa izateko nolakotasuna.

*Beraz, Hugo baitan badago jada landaren **landatasun** defentsa bat, naturaltasunaren defentsa bezala, hiriaren eta modaren inbasioen aurka, modernizazio perbertitzailearen aurka hain zuzen.* Koldo Izagirre

---

**landatu,** landa(tu), landatzen **1** du ad landare edo hazi bat lurrean ipini, haz eta bizi dadin. ik**aldatu**.

*Oraingo Gernikako arbola 1861ean **landatu** zuten.* Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

*Jaiotzeko garaia eta hiltzeko garaia, **landatzeko** garaia eta landarea ateratzeko garaia.* Elizen arteko biblia

Etxeak eraiki eta mahastiak **landatuko** dituzte. Elizen arteko biblia
Esklabo eginak egon behar al dugu ba beti, patata **landatzen** edo txerri zaintzen? Koro Navarro
**Landatu,** nik egin nuen; ureztatu, Apolok; baina hazi, Jainkoak hazarazi zuen. Elizen arteko biblia
Nahi dute lursagarrak **landa** ditzagun armadaren hazteko. Elena Touyarou
Baina nik lihoa **landatuko** nuke, eta lihoak bakarrik bost mila errublo ustziko lizkidake. Jose Morales
Txabola umil hartan, ogia egiten, baratzea **landatzen,** negurako egurra biltzen... Pako Aristi
Kafe-aleak ekartzea baino are negozio handiagoa zatekeela kafe-landareak eskuratu eta kafe-soroak **landatzea**. J.M. Olaizola "Txiliku"
200 arrosa landare **landatuak** dituzte Baionako baratze munizipalean. Herria

**2** finkatu, ezarri.

Migelek kolpe batez **landatu** zuen haga zorrotza haren ezker bularrean. Aingeru Epaltza
Hantxe, dotzena bat zurzuri, pintore batek erretaularen behereko tatxa berdean pintzel ukaldi batez **landatuak** balitu bezala. Piarres Aintziart
Oinak lurraren gainean **landatuak** ditugula, buruan pantasiari lekurik eman gabe. Iñaki Segurola
Hasperen bat bota eta ezpain izkinan **landaturiko** zigarreta meharrari su eman zion. Itxaro Borda
Han hemenka, harrixabal xuriak, ardi ttittak iduri dutela pentze lohitsu batean **landatuak**. Piarres Aintziart
Jaunak Eliza **landatu** eta eraiki zuen hasiera hartatik gaurdaino. Askoren artean
Beren lurraldean **landatuko** ditut, eta nik eman lurretik ez dituzte inoiz aterako. Elizen arteko biblia
**Landatu** zeure herria zeure toki santuan, Moisesek bezala. Elizen arteko biblia
Jadanik ongi **landatua** zegoen Ordena Alemanian, eta Zelanoko Tomas, orduan kustodio bakarra zena, bikario izendatua zuen. Askoren artean
Alabaina, etxea utzi nuenez geroztik, beldur irrazionala **landatua** zitzaidan. Aingeru Epaltza
Hitzen hotsak **landatzen** ditu bere gogamenean, edo, Bennettek esaten duen bezala, haien "doinuak". Xabier Olarra

**3** (begiez eta kidekoez mintzatuz) iltzatu.

Begiak Jesusen begietan **landatzen** zituen, salbamendu bila. Itxaro Borda
Begiak lurrean **landaturik** zeuzkaten denek. Jose Morales
Mikelek lurrean **landatu** du begirada. Aingeru Epaltza
Atsoa geldi-geldirik zegoen, barnetik ikus zitekeen zeru zatian begiak **landaturik**. Elena Touyarou

**4** (era burutua izenondo gisa)

Altzifreek, mahastiek, soro **landatuen** ordena garbiak, gure hizkuntzak, maite izan dudan gauza bakoitzaren gaineko begirada pausatu honek! Juan Luis Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **landatu eta eraiki** (3); **mahastia landatu** (7); **mahastia landatu zuen** (5); **mahastiak landatu** (5); **zuhaitz landatu** (4); **zuhaitzak landatu** (4)
> **eraiki eta landatzeko** (3); **kalamua landatzeko** (3); **soja landatzeko** (4)
> **arroza landatzen** (3); **loreak landatzen** (4); **zuhaitz landatzen** (4); **zuhaitzak landatzen** (4)

---

landaturismo ik **landa[1] 16**.

---

**landatzaile** **1** iz landatzen duen pertsona.

Mahasti zaharraren **landatzaile** tristeak ere denboren gainbehera salatzen eta gizaldia madarikatzen du. Xabier Amuriza
Espainian eta Hego Euskal Herrian 10.000 familia inguru bizi dira tabako negoziotik: saltzaileak, tabako egileak, **landatzaileak,** banatzaileak; ez dut uste familia horien guztien etorkizuna arriskuan jarriko dutenik. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

**Landatzaile** komando hortan jende anitz bazen. Marzel Etxehandi
· Hondamendi bat behar zela, hildako askorekin, lore-**landatzaile** batek bizimodua ateratzeko. Juan Kruz Igerabide

---

**landatze** **1** iz landare edo hazi bat lurrean ipintzea.

Eskola eta trinketeko lanak, oihan **landatze** eta garbitze, eletrika azkartze, bide antolatze eta beste. Herria
Zuhaitz **landatzeak,** buruan koroak jartzeak, gaueko suak,... Pello Salaburu
Herria engaiatua zen **landatze** batzuen egitera mendian, kabaler itzal ekartzeko. Herria
Nafarroako gobernuak bere gain hartzen ditu **landatze** gastuak, 120.000 euro ingurukoak. Herria

**2** lur sail landatua. ik **landaketa 2**.

Bere **landatzeetan** barrena zebilela, sarritan jotzen zuen maiorrak langile baten sorbalda: [...]. Stede Bonnet maiorra armadatik erretiraturiko jaun gisatsu bat zen, bere **landatzeetan** bizi zena, Barbados uhartean, 1715 aldera. Juan Garzia

---

**lander**[1] izond behartsua, pobrea.

Nobleak onak eta ederrak ziren eta eukitsuak; xumeak itsusiak eta gaiztoak ziren eta ezeuki **landerrak**. Joxe Azurmendi
**Lander,** behartsu, bilakatuak, aterabiderik ez ikusten ; bertzeak iduri, gogoeta ilunik bertzerik ez zitzaidan buruan ibiltzen... Herria
Bazakiat nik zeinen zaila den gure egitekoa baztertuta gauzkateneko herri **landerrotan**. Juan Garzia
Charron ez zen Parisko auzo **landerrenetan** ibili modelo bila. Matías Múgica
Apezpikuaren gainsoinekoa izan zedila itsusia eta **landerra**. Patxi Altuna

---

lander[2] ik **lanjer**.

---

lander[3] ik **land**.

---

**landerretxe** iz behartsuentzako etxea, erruki etxea.

*Zarpailak eraman izan balitu,* ***landerretxean*** *edo jendarmeen esku zegoen honezkero.* Anjel Lertxundi

---

## *landertasun* *iz landerra denaren nolakotasuna, pobretasuna.*

*Lepotik zintzilik zeraman urrezko domina kenduta, neskak ez zeukan soinean eta jantzietan* ***landertasunaz*** *beste adieraz zezakeen ezer.* Anjel Lertxundi

---

## *landertu,* *lander, landertzen da/du ad larder bihurtu, pobretu.*

*Orain, zorigaitzez, aldatu egin dituk garaiak, bazterrok honela* ***landertu*** *zirenetik inor ez baita komunikatzen dagoeneko gurekin.* Juan Garzia

---

## *landes* *izond landestarra.*

*Oraindik ere, hala burlatzen dira euskaldunez auzo herrietakoak,* ***landesak*** *eta biarnesak batez ere.* Iñigo Aranbarri

*Auzoekin petanka saio aspergarritan (nire ustez aspergarri, jakina, baina ez horrelakorik esan* ***landesei)*** *amaitzen zituen egunak.* Txillardegi

*Milafrangan berdin, Sarako eta Zuraideko gazteak, Makear ta* ***Landesak*** *bigarrenean, Hazpandarrak eta makearrak lehenean.* Herria

---

## *landestar* *izlag Landesekoa, Landesi dagokiona.*

*Aguerre,* ***landestar*** *auzapez eta pilotazale, eta holako arduradun suharreri.* Herria

*Venezuelan, frantses* ***landestar*** *andere gazte bat bazuten bahitua 47 egun huntan.* Herria

*Christophe Dardy* ***landestarra*** *xapeldun.* Herria

*Jean-Claude Dutertre artista* ***landestarra*** *ezagutarazteko parada.* Berria - Kultura

*Apez euskalduna apezpikuaren agurtzen frantsesez, eta apezpiku* ***landestarra*** *ihardesten lasaiki euskaraz.* Piarres Xarriton

*Michelek, bidaia Joanesen ondoan egin zuen* ***landestar*** *gazteak arriskuaren hartzea erabaki zuen.* Eneko Bidegain

**2** iz Landeseko herritarra.

*ASBek ez du fortuna hoberik egin 13/28 galdu baitu Soustons-eko* ***landestarren*** *kontra.* Herria

---

## *landetar* *izlag/iz landestarra.*

*Dourthe* ***landetarra,*** *gainera, tantogilerik onenen zerrendan hirugarren postuan jarri da, 141 tanto egin dituela.* Berria - Kirola

***Landetarrak*** *ezin izan du errugbi ahantzi eta Paueren (Biarno) eskaintza onartu du Torossian ordezkatzeko.* Berria - Kirola

*Plazer handiz jardun zuen jokalari izan zenean, eta horrela izaten jarraitzen duela dio* ***landetarrak*** *.* Berria - Kirola

---

## *landetxe* *(orobat* ***landaetxe*** *g.er. eta* ***landa-etxe*** *g.er.)* **1** *iz landan eraikitako etxea, bereziki lantzeko lurrak dituena. ik* ***basetxe****.*

*Haiek ere, gu bezala, Koronelaren etxaldeko* ***landetxe*** *batean bizi ziren.* Mirentxu Larrañaga

*Bidean agertzen diren herrixka,* ***landetxe*** *eta baserriei begiratu.* Gotzon Garate

*Balentin Jauregi da Ibarluze* ***landetxeko*** *ugazaba eta inguruko lurrak lantzen dituen baserritarra.* Berria - Euskal Herria

*Datxak, Errusian, hiri batetik gertu dauden* ***landetxeak*** *dira.* Edorta Jimenez

***Landetxe*** *atxiki bat dela honako hau, zure senar zenak etxaldean zuen lanpostuari atxikitako* ***landetxea,*** *hain zuzen ere.* Mirentxu Larrañaga

*Hobe duk nekazaria izatea, garia ereitea eta* ***landetxe*** *on bat izatea, aletegiekin, txerriekin, zaldiekin, behiekin, oiloekin...* Lopez de Arana

*Badirudi aletegiak, mandioak, lastategiak eta zaldi-errotak* ***landetxetik*** *kanpora egitea komeni dela,* ***landetxea*** *bera babestuta gera dadin sute-arriskutik.* Santiago Iruretagoiena

***Landa*** *-etxe bat bazuen Ostiako bidean.* Juan Garzia

*Adobezko hormak zituen* ***landa*** *etxe batean bizi nintzen.* Josu Zabaleta

*Gogoratu zitzaidan* ***landetxe*** *bakartiren batean izan zezakeela egoitza izen osorik gabeko Taldeak.* Aingeru Epaltza

*Sarritan eman zituen egun batzuk Ingalaterra Berriko* ***landetxe*** *liluragarri haietan, Texaseko arrantxoetan, Kentuckyko zaldi-haztegietan.* Karlos Zabala

*Alpujarretako herrixka bateko* ***landetxe*** *batean komunitate bat fundatuz.* Joan Mari Irigoien

***Landetxeen*** *administrazioa "mamsér" (sasikume) baten esku utzi zuelako.* Juan Garzia

*Proposatu nuen* ***landetxeren*** *batera jotzea, ostatu eskatzera.* Aingeru Epaltza

**2** *landa turismoko etxea.*

*Espainiako turistak dira nagusi EAEko hotel eta* ***landetxeetan*** *.* Iñigo Aranbarri

*Hoteletan eta* ***landetxeetan*** *ostatu hartu zuten turisten %71,6 Espainiakoak, Kataluniakoak eta Hego Euskal Herrikoak ziren, eta %28,4 Frantziakoak, Alemaniakoak eta Erresuma Batukoak.* Iñigo Aranbarri

*Euskal Autonomia Erkidegoko* ***landetxe*** *batean asteburu oso bat bi presunentzat.* Herria

*Jatetxeak eta* ***landetxeak*** *egiteaz gain, natura bera, gure paisaia, produktu bilaka dezakegu.* Berria - Euskal Herria

**3** *(hitz elkartuetan)*

*Expiación-ek (Atonement, ingelesez)* **landetxe** -nobela tipikoki britainiarra dirudi. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hotel eta landetxeetan** (3)

---

## landetxetar *iz* landetxekoa, landetxean bizi den pertsona.

Errepublikako **landetxetarrei** zegokienez, zordunei epe bat ematera behartzen zituen. Iñaki Iñurrieta

---

## landetxetxo *iz* landetxe txikia.

Joan den udan **landetxetxo** bat nuen alokatua Sena ibaiaren ertzean, Parisetik zenbait miliatara, eta hara joaten nintzen lotara gauero. Josu Zabaleta

---

**landgrave** *iz* Alemaniako zenbait lurralde jakinetako konde edo printze subiranoa.

Turingiako **Landgravea,** 1246an Alemaniako errege hautatua Frederiko II.aren aurka. Askoren artean

Hungariako Santa Elisabet, Turingiako **landgravearen** emaztea. Askoren artean

---

**landiar** *iz* E. H. Land, Polaroid optikaren asmatzaile estatubatuarrari dagokiona.

Kolorearen ikerketa fisiologikoaren muga, gaurdaino, ikusmen primarioan koloreekiko sentibera diren sistemetan dago, V1 eta V4ko korrelazio **landiarretan** hain zuzen ere. Xabier Olarra

---

**landibartar** *iz* Landibarko herritarra.

Azaroaren 18 an ezkontzako sakramenduak elgarretaratu ditu Julie Ithursaray **landibartarra** eta Eric Sagardoy gure herritarra. Herria

Euskal Herria kurritu dute alde orotara, Jakes Casaubon eta Pierre Sabalo-k, bata oztibartarra, bestea **landibartarra**. Herria

---

**landismo** *iz* A. Landak eta kideko aktoreek 60 eta 70 hamarraldietan egin zuten zinema mota.

Pedro Lazaga, Mariano Ozores eta garaiko **landismoa** goratu zuten tankerako beste zuzendari espainiarren arinkeriatik ihes egin zuen Eloy de la Iglesiak bere jardunean. Berria - Kultura

---

**lando** *iz* lau gurpileko zalgurdia, bi kapota tolesgarri, aurrekoa eta atzekoa, dituena.

Hainbat berlina, orga eta **lando** zeuden atari aurrean, bata bestearen atzetik errenkan eta ilargitan zilartsu. Anjel Lertxundi

Kotxea **lando** zarpaildu zahar bat zen, eta soka batekin lotuak zeuzkan beira bat eta argiontzietako bat. Koro Navarro

Bihurguneetara iristean, okertu egiten zen **lando** zaharra, eta karranka egiten zuen mila puskatan txikitu beharko balu bezala. Koro Navarro

---

landrober ik **land-rover**.

---

landrover ik **land-rover**.

---

**landu**, landu/lan *(orobat **lant**)*, lantzen *(orobat **lantu** g.er.)* **1** du *ad* (zerbait) lanaren bidez prestatu, egokitu, onuragarri edo onuragarriago bihurtu.

**Landu** itzazu zeure lurrak. Elizen arteko biblia

Biztanleen ugaltzearen ondorioz emankortasun gutxiagoko lurrak **landu** behar baitziren. Koro Navarro

Eta ez da nahikoa gizaseme geratzen, ia, labore-lurrak **lantzeko**. Mirentxu Larrañaga

Lur-sail oraindik goldatu gabeak **lantzera** behartuta. Jose Morales

**Landu** soro berriak, ez erein arantza artean. Elizen arteko biblia

Goldeaz **lantzen** diren alor apalak. Aingeru Epaltza

Arto alorrak **lantzen** eta golf zelaiak zaintzen. Iñigo Aranbarri

Elizak itxiak edo gerrako babes bihurtuak; landak, alorrak, baratzeak **landu** gabe. Patziku Perurena

Ibaia gurutzatu eta egun zoriontsuagoetan Ithilien ederrean biziko gara, lorategia **lantzen**. Agustin Otsoa

Herriko jende xehea baizik ez zuen utzi, alorrak eta mahastiak **landu** zitzaten. Elizen arteko biblia

Eta horrela egin ziren [...] Amerikako hainbat lurraldetan kafea **lantzeko** lehen ahaleginak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baratzezainari, berriz, baratzeko ertzak **landu** gabe uzteko agindu zion. Askoren artean

*ik* landugabe.

**2** (materialak)

Badaki urrea, zilarra, brontzea, burdina, harribitxiak eta zura **lantzen**. Elizen arteko biblia

Esmeraldak eta diamanteak **lantzeko** teknikak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Berunginak gara nire herrian: guztiek dakite beruna urtzen eta **lantzen**. Juan Garzia

Eltzegilea buztin biguna **lantzen** saiatzen da. Elizen arteko biblia

Etxea eraikitzeko harriak **lantzen**. Elizen arteko biblia

Baina kontu egik burdina gori-gori **landu** ostean uretan sartu duala. Edorta Jimenez

Itsasoak labarretan **landu** dituen uztai handiengatik. Koldo Izagirre

Pieza hau ikusgarri **landua** dago Karlos V.aren gustu goibel eta dotorearekin. Koldo Izagirre

Lehengo sarrera Felipe II.aren garaiko zutabedun ataria da, Errenazimentuko artista zoragarriek **landua**. Koldo Izagirre

Egin urre garbizko argimutila, mailuz **landua**. Elizen arteko biblia

Estalkiaren bi ertzetan, bi izaki hegadun egingo dituzu, urretan **landuak**. Elizen arteko biblia

Entsaladarako tresnak, olibondo zurean **landuak**. Joxan Elosegi

Goi lautadan dauden gas erreserbak Mexiko eta [...] Ameriketako Estatu Batuei **landu** gabe esportatzeko proiektua.· Bere mihi txit trebeak zakilburua **lantzen** zidan beste inork inoiz bezala. Juan Martin Elexpuru

**3** irud/hed

**Lantzen** ari zen liburuaz galdetu nion. Anjel Lertxundi

Urte hartan Verlaine **landu** genuen. Piarres Aintziart

Ahozkotasuna nola **landu**. Andoni Egaña

Eskolako kide guztiek **landu** beharra zeukaten oroimena. Jon Muñoz

Luzaroan **landu** ditugu ekuazio aljebraikoak. Jon Muñoz

Hirugarren mailako ekuazioaren ebazpenak **landu** zituen Tartagliak. Jon Muñoz

Gairik modernoenak **lantzeko** ere balio zuela euskarak. Ana Urkiza

Biologiaren Filosofia, bizitza artifiziala, Zientziaren Filosofia eta zientzia kognitiboa dira **landu** dituen gaiak. Askoren artean

Pascalek orobat **landu** zitinan analisi konbinatorioa. Jon Muñoz

Silogismo gisako argudio-formak **landu** zituen. Askoren artean

Estrategia hori konparaziozko abantaila berriak **lantzean** datza, eta, horren ondorioz, etekinik hoberena ateratzen zaio munduko eskariaren luzerako joerari. Koro Navarro

Begiratu ea **landu** ez duzun, edo gehiago **lant** dezakezun, ideiarik badagoen. Askoren artean

Bestelako eredu narratiboak **landu** behar dira. Txema Ramirez de la Piscina

**4** (era burutua izenondo gisa)

Tinko heltzen zion agureak makila **landu** baten bolizko eskutokiari. Jon Muñoz

Armairu **landu** bateko intxaur-zurezko atea berez ireki zen. Jose Morales

Zeren iduri hura bertze diamante **landu** bat baitzen. Joan Mari Irigoien

Baserrietako arto landa zaharretatik hirietako arlo **landu** berrietara. Pello Salaburu

"Pneumatiko" hitz **landu** eta dotorea. Pello Salaburu

Irribarrea batez ere, irribarre **landu** miresgarri hori. Monika Etxebarria

Zer den kultura **landua** eta zer kultura primitiboa. Joxe Azurmendi

Doktrina talmudikoei buruzko iruzkin aparta eta **landu- landua** dela. Xabier Kintana

Fisikaren eta biologiaren aurrerabidea dela eta, gero eta tresneria **landuagoa** eskatzen du ikerkuntzak. Juan Garzia

Kamala emakume **landua** da. Gotzon Garate

**5** ***landu gabeko*** *(orobat* ***landugabeko*** *g.er.)* *izlag* landugabea.

Andy sekulakoa zen, **landu gabeko** diamante bat. Karlos Zabala

**Landu gabeko** harriak hartu eta lehengoa bezalako aldarea eraiki zuten. Elizen arteko biblia

**Landu gabeko** mahastia ere Jaunaren usain gozoa hedatzen zuten kimuak ematen hasi zen. Askoren artean

Jorratu gabeko eta **landu gabeko** landak. Joan Mari Irigoien

Erabat **landugabeko** lurra garbitu eta zelaitu. Ibon Uribarri

Slytheringo egongela lur azpiko gela luze eta apal bat zen, hormak eta sabaia harri **landugabekoak** zituen. Iñaki Mendiguren

Orain arte **landu gabekoak** jada ez dauka konponbiderik. Berria - Kirola

· Inoiz **landu** eta erein **gabeko** tokira. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **asko landu** (20); **bereziki landu** (6); **egitasmoa landu** (4); **euskara landu** (5); **gaia landu** (6); **harremanak landu** (4); **harrobia landu** (4); **historia landu** (4); **hizkuntza landu** (7); **irudimena landu** (4); **landu eta aztertu** (4); **landu eta garatu** (4); **landu gabe** (16); **landu gabea** (6); **landu gabeko** (20); **lurra landu** (11); **proiektua landu** (5); **taldeak landu** (5); **tantoa landu** (4); **txostena landu** (4)
>
> **euskara landua** (4); oso landua
>
> **gaia landuko** (4); **gaiak landuko** (5)
>
> **aurrez landuriko** (4)
>
> **eskuz landutako** (6); **jaurlaritzak landutako** (4); **konbentzioak landutako** (4); **landutako gaiak** (4); **ondo landutako** (4)
>
> **eskuz landutakoak** (5)
>
> **kristal landuzko** (6)
>
> **harremanak lantzea** (6); **lurra lantzea** (4)
>
> **ahozkotasuna lantzeko** (10); **bertsolaritza lantzeko** (4); **gaiak lantzeko** (10); **harremanak lantzeko** (6); **harrobia lantzeko** (4); **informazioa lantzeko** (4); **ipuina lantzeko** (4); **komunikazioa lantzeko** (4); **lantzeko ahalegina** (4); **lantzeko ariketak** (6); **lantzeko asmoa** (6); **lantzeko aukera** (20); **lantzeko beharra** (5); **lantzeko bidea** (4); **lantzeko modu** (4); **lantzeko modua** (5); **lantzeko orduan** (10); **lantzeko prest** (4); **lantzeko tresna** (6); **lurra lantzeko** (11); **memoria lantzeko** (4); **plana lantzeko** (6); **proiektua lantzeko** (7)
>
> **asko lantzen** (10); **euskara lantzen** (5); **gaia lantzen** (15); **gaiak lantzen** (13); **geroa lantzen** (4); **gutxi lantzen** (6); **harremanak lantzen** (8); **harrobia lantzen** (10); **ideia lantzen** (4); **lantzen eta garatzen** (4); **lurra lantzen** (25); **lurra lantzen duenak** (4); **lurrak lantzen** (6); **proposamena lantzen** (6); **proposamenak lantzen** (4); **zura lantzen** (4)

---

# landualdi *iz* zerbait lantzen den denbora edo aldia.

Arrazoimenaren **landualdia** zientziaren ibilera segurutik abiatzen ikustea. Ibon Uribarri

---

# landuarazi, landuaraz, landuarazten du *ad* lantzera behartu.

Asko estimatu zuela haren taldekoen prestakuntza militarra baina, bere ustez, atzerabueltakoa eta pauso arina gehiago **landuarazi** beharko ziela, iraultza proletarioaren egunean horien behar handia izango zutelako. Koldo Biguri

---

# landugabe *(orobat* ***landu gabe****)* **1** *izond* landurik ez dagoena, landutasunik gabea.

Lur landuek **landugabeei** aurrea hartzen dietela eta eskuen lanez emaitza hobeak dakartzatela ikusten dugunez gero, [...]. Xabier Amuriza

Berriro landuko dira lur hondatuak eta bidaiariek ez dute aurrerantzean lur **landugaberik** ikusiko. Elizen arteko biblia

Bertan lursail **landu gabe** bat zegoen. Fernando Rey

Hilarri **landu gabeen** hotza, ongietorri eginez. Anton Garikano

Malenkoniatsuek goraipa dezatela, ahal duten guztia, larreko bizitza **landugabea,** gizakiak mespreziatuz eta abereak miretsiz. Piarres Xarriton

Landarearen absortzioa eta izerdi **landugabearen** garraioa oztopatuz. Berria - Gaiak

Izaki sentikorren multzoari materia **landugabe** eta bizigabearen simetria eta ordena berbera eman nahi izatea. Juan Martin Elexpuru

Ez dakigu nola ateratzen duen garunak hain informazio zehatza seinale aski **landugabe** horietatik. Haren ikuspegiak, nire irudiko, balio berezia du, munduaren ikuspegi zuzen-zuzenekoa eta kontzeptu **landu gabea** helarazten baitizkigu. Irene Aldasoro

Ez da egia, esate baterako, euskalki dotoreak eta itsusiak daudena; euskalki landuak eta **landugabeak** baizik ez daude. Koldo Zuazo

Modu **landugabe** batean bada ere. Itziar Laka

Guraso **landugabeen** semeen artean. Iñaki Mendiguren

Argi eta garbi erakusten zuten nolakoak diren gizonezkoak: baldarrak, **landu gabeak,** zatarrak, etxea gobernatzeko ezgaiak. Jose Morales

**2** *landugabeko* ik **landu 5.**

---

# landukera *iz* lantzea; lantzeko era.

Leiarrak **landukeran** -haren lanbidea- dohatsutasuna erdiesteko bideez lasai hausnartu baino ez zuen gura... Markos Zapiain

---

# landun *iz* lana duen pertsona.

Hiru hilabetean 10.500 **landun** gutxiago eta 11.200 langabe gehiago Hegoaldean. Berria - Ekonomia

**Landunen** kopuruak behera egin du, 10.500 lagunetan. Berria - Ekonomia

**Landunen** %40,5 soilik dira oraindik emakumezkoak. Berria - Ekonomia

---

**landuzale** *izond* gauza landuen zale dena.

**"Landuzale"** berri batzuek baditugu aurrerantzean euskera areago eraman nai dutenak: *Philosophia Naturalis,* Bacon, Newton eta Einstein-en eremuetara. Koldo Zuazo

---

**lanegun** *(73 agerraldi, 20 liburu eta 31 artikulutan; orobat* ***lan(-)egun*** *48 agerraldi, 15 liburu eta 32 artikulutan; Euskaltzaindiaren Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***lanegun*** *agertzen da)* **1** *iz* lan egiten den eguna.

**Lanegunetan** ez bezala, ez da ke-adarrik ageri tximinietan gora. Rafa Egiguren

Orain nahiago ditut **lanegunak** jaiegunak baino. Gurean ez dago asteburturik, andere, ezta **lanegun** zehatzik: asteko guztiak izan daitezke jaiegunak edota **lanegunak**. Eskarne Mujika

Joan den astean apirileko hiru **lanegun** jaiegun izendatu zituzten. Berria - Ekonomia

Konpainiara itzuli nintzen nire azken hiru **lanegunak** betetzeko. Joxan Elosegi

Produkzio beharren arabera **lanegunak** urtean 200 egunera jaitsi ahal izanen direla edo 218ra igo.

30 **laneguneko** oporrak. Berria - Ekonomia

Epaitegiak [...] bost **laneguneko** epea eman dio Poliziari gizona itzularazteko. Berria - Euskal Herria

2000 urtean, 28 milioi **lanegun** galdu zituzten guztira britainiarrek, biriketako gaixotasunen ondorioz. Berria - Gaiak

Kaleratzearen trukeko kalte-ordaina 33 **lanegunekoa** da, lan egindako urte bakoitzeko. Berria - Harian

**2** lan egiten ematen den egun zatia.

Hauts hori hartuz gero, **laneguna** azkarrago joaten da. Eskarne Mujika

Zortzi orduko **laneguna** lortu zuten Maiatzaren Lehenean bertan. Berria - Ekonomia

8 orduko **lan eguna** 60 edo 65 euroren truke egiten da. Herria

Bost bat minutu barru, **laneguna** bukaturik, hasiko zen jendea irteten. Migel Angel Mintegi

-Ordu bi eta erdietan amaitu da nire **laneguna**. Migel Angel Mintegi

**Lan egunaren** buruan ogi kozkor bat besterik eduki ez ahora eramateko. Patxi Zubizarreta

Nire lanaldi erdia arian-arian jardun beteko **lan-eguna** bihurtu zela. Joxan Elosegi

Eta lana lortzen dugunean **lanegunak** kalkulatzen ditugu, eta **lanegunak** luzeegiak direnean lanorduak kalkulatzera pasatzen gara. Unai Elorriaga

Urrunago, bapore baten zantzua: ilunabarrean itsasoratua ote, ala **lanegunaren** ostean etxera datorrena? Xabier Mendiguren Elizegi

---

**laneratu,** lanera(tu), laneratzen da *ad* lanera joan.

Lili Marlen ohean abandonatu nuen, bihotza apurturik: ez nuen **laneratzea** biziki maite, are gutxiago goiz hartan pentsatzen ahal den maneran. Itxaro Borda

---

**laneratze** *iz* ikasketak bukatu ondoren lanean hastea.

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ikasleen **laneratzeari** buruzko txostenaren emaitzetan agertzen denez, 2000. urtean EAEko unibertsitate publikoan ikasketak amaitu zituzten %11,2 ez zebilen lanean inkesta egin zen garaian, 2003. urtean. Berria - Euskal Herria

Emakumeek gizarte arloko ikasketak egiten dituztela gehiago kontuan izan behar da, eta ikasketa horietako **laneratzea** eta bestelako baldintzak txarragoak dira beti. Berria - Euskal Herria

---

**lanerdi** *(orobat* ***lan erdi****)* **1** *iz* herri kirol probetan, proba amaitzeko egin behar denaren erdia.

**Lanerdiak** izan ohi dira errefentziak hartzeko mugarririk garrantzitsuenetakoak; atzo bosgarren egurra. Berria - Kirola

Arientzaren uztarriak 22 untze zituen **lanerdietan,** eta baita zureak ere. Berria - Kirola

Unda I.ari pala apurtu zitzaion **lanerdietan,** baina ez da aitzakia egin zuen partida kaskarra egiteko. Berria - Kirola

Izetak lasaiago ekin zion bolari, **lanerdietan** Ostolazak baino altxaldi bat gehiago lortuz. Berria - Kirola

Handik aurrera, ordea, Vicentek hartu zuen aurrea, eta **lanerdietan** lortu zuen alderik handiena. Berria - Kirola

Lehen itzulian 6 segundoren aldean jardun zuten eta **lanerdietan** parean ziren. Berria - Kirola

Azurmendi artista da, eta **lanerdietatik** aurrera ere irauten duela erakutsi du. Berria - Kirola

Pedreñak estropada txukun hasi bazuen ere, **lan erdiak** eginda hustu baitzen. Berria - Kirola

**2** irud/hed

Espainiako Liga **lanerdietan** sartuko da asteburu honetan, eta Ernesto Valverde Athleticeko entrenatzaileak garbi esan zuen herenegun zein den une honetan epe motzeko eta epe luzeko helburua. Berria - Kirola

Bigarren Mailak Ligako **lan erdiak** egin ditu dagoeneko. Berria - Kirola

Vuelta ia **lan erditan** dela, nahiko itxuroso eusten dio tropelak. Berria - Kirola

---

lanesku ik **lan 18**.

---

laneza ik **lan 37**.

---

**langa** **1** *iz* esparru edo bide bateko sarbidea eragozteko zurezko haga edo haga multzoa, zeharka jartzen dena, eta aurrrerantz edo atzerantz irekitzen dena.

Bestelako muga, hesi, **langa** eta sarbideak omen dituzte gaur paradisu horiek, elikadurari dagokionez. Edorta Agirre

Hesiak **langa** bat du, eta beste aldera dago Desiderioren lurra eta borda. Jon Alonso

Lepic jaunak beste **langa** bat saltatu du, ondoko alpapa-soroa arakatzeko. Itziar Otegi

**Langa** askatu dut, etxe eta karrika burgesen aldera jiratu eta ahopeka esan dut: "igandea da". Monika Etxebarria

Kanpora atera eta **langa** ixtea erabaki nuen. Koro Navarro

Ohean nengoen loretegiko **langa** irekitzen aditu nuenean. Koro Navarro

Gure **langa** zabaltzen entzun dut. Koro Navarro

**Langa** bultzatu eta salto batez inguratu nintzaion. Monika Etxebarria

Ez gelditu eta ez izan **langa** jotzeko beldurrik. Iñaki Mendiguren

Eta zergatik ezin izan ote genuen geltokiko **langa** igaro? Iñaki Mendiguren

Aurreko ertzetik, emakumeak, **langetako** sarreretan, beren hilotz eta desio-zamarekin hurbiltzen diren txalupei so daude. Jon Alonso

Hesola eta **langetan** barrena. Anton Garikano

· Zezenei eta zezenzaleei **langa** atzetik begiratzea izaten da. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (izenondoekin)

Hartarako, bederatzigarren eta hamargarren nasak banatzen zituen **langa** gotorrean zehar igaro behar zen. Iñaki Mendiguren

Atzean geratu ziren **langa** marraduna eta hiria, eta bidean aurkitu zen berriro Txitxikov. Jose Morales

Jostailu itxurako **langa** zuri-gorri ederrak ixten zuen bidea. Urtzi Urrutikoetxea

**3** (gorantz irekitzen dena)

Trenbidearen pasaguneko **langa** jaitsita egon arren, igaroa zen autoa. Berria - Mundua

Honek **langa** altxatzeari ekin zion. Alberto Ladron Arana

Harik eta pasonibeleko **langa,** garai batean zuri-gorriak, begiztatu dituen arte. Pello Lizarralde

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atzean utzi ditut, ez dira samurrak motozaleontzat, altzairuzko babes-**langak,** erori eta arrastaka haien kontra joanez gero gorputza labanak legez ebakitzen dizutenak. Pako Aristi

Harik eta sarrerako burdin **langaren** kirrinka entzun genuen arte. Mirentxu Larrañaga

Guardia zahar zimel bat zegoen txartel-**langaren** ondoan eta binaka edo hirunaka bakarrik uzten zien igarotzen. Iñaki Mendiguren

**5** futbolean eta kidekoetan kirol batzuetako ateko goiko haga.

Osasunak 120 minututan bi zutoin eta **langaren** artean egin erremate bakarra izango zen Muñozena. Berria - Kirola

Baloiak, **langan** jo ondoren, marra gainean egin zuen botea, baina marrazainak gola adierazi zuen. Berria - Kirola

**Langaren** gainetik joan zen haren jaurtiketa. Berria - Kirola

Bere jaurtiketa **langak** urrundu zuen. Berria - Kirola

(16 min): Griffitsek **langan** zigor kolpe jaurtiketa. Berria - Kirola

**6** maila, koska.

Jokalari batek bakarrik gainditu du Bryantek atzo gainditu zuen 80 puntuko **langa**. Berria - Kirola

Bi urte geroago Albaniaren errentaren bataz bestekoak ozta-ozta gainditu zuen 2.000 dolarren **langa**. Edorta Jimenez

Igotzeko joera hartu zuen hasieratik, eta amaieran 10.900 puntuko **langa** gainditu zuen. Berria - Ekonomia

10.000 laguneko **langa** gainditu nahi dute BECen Tauren aurka. Berria - Kirola

Hurrengo **langa** handia Zeanurin aurkituko eban, hogeta bi urtetik beherakoen txapelketan. Xabier Amuriza

Behingoz final-laurdenetako **langa** igarotzeko xede tinkoarekin. Berria - Kirola

Idazkera automatikoaren alderantzizko bidea ezartzen da, irudimenari ez zaio erabat bere kasa ibiltzen uzten, baizik eta koska eta **langa** jakin batzuk ezartzen zaizkio gainditu beharrak. Xabier Olarra

**7** ***langa ezarri***

Domingo Abaurrek eta biok gazteluko atea hetsi eta **langa** ezarri genuen, kantarekin bat egin gabe. Aingeru Epaltza

· Alabaina, inoiz inon errana naiz oro har zibilizatua naizela, eta **langa** ezarri nion doilorkeriaren bideari. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **final laurdenetako langa** (5); **langa gainditu** (7); **langa jo** (5); **laurdenetako langa** (5); **puntuko langa** (6)
> **baloia langara** (4); **langara bidali** (4)

---

# langabe 1 *iz* lanik ez duen langilea, langabezian dagoen langilea. ik **langabetu 3**.

Prokuradoreak bi isun mota ezartzea eskatu zion epaileari: 600 eurokoa lana zutenei eta 300 eurokoa **langabe** eta ikasleei. Berria - Euskal Herria

Gerrako **langabeak** baizik ez diren gizonok ez dute erakusten abertzale garaituari egotzi ohi zaion etsimen hori. Josu Zabaleta

**Langabeentzako** laguntza sistemak. Iñaki Heras

1994an, EBko **langabeen** erdiak ia gutxienez urtebete zeraman enplegurik gabe. Koro Navarro

Moteldu egin da **langabeen** murrizketa. Berria - Ekonomia

Lehen aldiz lana bilatzen diharduten **langabeen** egoera. Berria - Ekonomia

Iraupen luzeko **langabeek** eta edadeko jendeak. Berria - Ekonomia

Gainerakoak langabeziaren estatistikak puztu ditu, urtero 700.000 **langabe** inguru erantsiz urtero. Koro Navarro

Baso bat ardo piastra erdian bihotz-altxagarria duk ni bezalako **langabe** batentzat. Patxi Zubizarreta

Hegoaldean 918 **langabe** gutxiago izan dira maiatzean. Berria - Ekonomia

Bizkaian daude **langabe** gehien: 40.978 guztira. Berria - Euskal Herria

INEMek 1.585.175 **langabe** zenbatu ditu, ekainean baino 40.959 gutxiago. Berria - Ekonomia

6.508 **langabe** kontratatu zituzten enpresek Lan Sailaren diru laguntzei esker. Berria - Ekonomia

Hegoaldean 84.900 **langabe** zeuden iaz, %16,51 gutxiago. Berria - Ekonomia

52 urteko **langabe** batek zaplastekoa eman zion atzo Alemaniako gobernuburu Gerhard Schroederri.. Berria - Mundua

**2** (izenondo gisa)

David Devayasam Pardeshi izeneko gazte **langabe** bati galdetu zion, Amirzada garbitzeko gerturik ote zegoen. Gotzon Garate

Nafarroako emakume **langabeen** tasa 19,3 puntu gutxitu da. Berria - Ekonomia

Berarekin zebilen tipoa ingeniari aeronautiko **langabe** bat zen, Alkoholzale Anonimoetan ezagutu zuena. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gipuzkoan, berriz, bai langabeen zenbatekoa bai **langabe** portzentaia gutxitu egin ziren. Berria - Ekonomia

**Langabe** kopuruak beherakadarik handiena izan duen herrialdea. Berria - Ekonomia

Abenduan, dena den, gora egin zuen **langabe** kopuruak Hego Euskal Herrian. Berria - Ekonomia

**Langabe** proportzio handienak Polonian (%18,7), eta Eslovakian (%15,7) zenbatu zituzten Eurostatek. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

langabe gehiago (43); langabe gehiago zenbatu (10); langabe gutxiago (48); langabe gutxiago izan (5); langabe gutxiago zenbatu (17); langabe gutxiagok (4); langabe kopurua (11); langabe kopuruak (8); langabe zenbatu (6)

euskal herriko langabeen (4); langabeen kopurua (19); langabeen kopuruak (6); langabeen zenbatekoa (5)

---

# langabetu, langabe(tu), langabetzen 1 da *ad* langabe bihurtu, langabezian gertatu.

Hilabetean 78 ordu baino gutxiago eta egonkortasunik gabe lan egiten zutenak ez baitziren, bat-batean, **langabetu**. Iñaki Heras

**2** (era burutua izenondo gisa)

Emazte zapuztuak, gizaseme **langabetuak,** katu herratuak. Mirentxu Larrañaga

Lan arloko erakundeek gazte **langabetu** guztien egoera aztertu eta hiru hilabeteko epean lanpostu bat edota prestakuntza eskaintzea nahi du Villepinek Berria - Harian

**3** (era burutua izen gisa) langabea.

Lana daukatenak itota, **langabetuak** etsita! Erresuma Batuan ere, 1998. urte inguruan, langabeziaren definizio berriak 500.000 **langabetu** ezabatu zituen ziztu batean estatistiketatik. Iñaki Heras

**Langabetuei** zuzenduriko laguntza eta sarien bidez finantzatuko litzateke ekimena. Iñaki Heras

**Langabetu** guztiei, gazteei, elbarriei, baita etxeetan lan egiten dutenei ere. Iñaki Heras

Prezioa 20 euro helduentzat eta 13 euro haur, ikasle eta **langabetuentzat**. Herria

Turista aluek agur egiten zieten zubien gainetik listua botatzen zieten paristar **langabetuei**. Unai Iturriaga

Unibertsitatea **"langabetuen** fabrika" dela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Liskarretan parte hartu zuten gehienak **langabetuak** ziren. Berria - Mundua

· **Langabetu** talde bat banku batean eserita eta egonean. Bernardo Atxaga

**Langabetu** kopuruak bost milioiko marka gainditu du berriro. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ikasle eta langabetuentzat (8)

---

# langabetze *iz* langabe bihurtzea, langabezian gertatzea.

Martinak ordu haietan, eskutik eskura bildu zuen **langabetze** gutuna Sebasi erakutsi zionean. Itxaro Borda

---

# langabezia 1 *iz* lanik eza, langile bat lanik gabe gertatzeko zertzelada.

**Langabezia** gogorraren garaia iritsia zen, demokraziaren etorrerarekin batera. Juan Kruz Igerabide

**Langabeziaren** ordaina kobratuz iraun nezakeela pentsatu nuen. Juan Kruz Igerabide

**Langabezia** biztanleria aktiboaren heren batera iritsi zen. Koro Navarro

Espainian, berriz, behera egin du **langabeziak**. Berria - Ekonomia

**Langabezia** %6,4raino igo da. Berria - Ekonomia

Atzeraldiko faseetan **langabeziak** gora egiten duenean, soldata nominaletan islatzen da gorakada hori. Koro Navarro

**Langabezia** gero eta handiagoa zelarik, estatuak inportazioen kontrako oztopoak ugaltzen hasi zirelako. Koro Navarro

Ezagunak dira **langabeziaren** ondorio ekonomikoak ez ezik, baita soziologikoak eta psikologikoak ere. Iñaki Heras

Ekonomia atzeraldia badator, garrantzitsua dela bertako ekonomiak **langabeziari** gogor aurre egiteko ekonomia politika propioak eskuragarri edukitzea. Iñaki Heras

Sakrifizio ekonomiko handiak egiten genituen langile guztiok, kateak kiebra jo eta **langabezian** gertatuko ote ginen beldur. Joxan Elosegi

Urtean bederatzi hilabetez **langabezian** egoteaz. Iban Zaldua

Hire gisa **langabezian** direnak behar litezkek bortxatu edozein lanetara makurtzera. Itxaro Borda

Bata zainetarik eri, bestea **langabezian,** azkena estatuak lagundu enplegu batean! Itxaro Borda

Nik zazpi urte nituela **langabezian** gelditu zen aita. Ana Urkiza

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **langabezi** g.er.)

Gogoz kontra lanik ez duen biztanleria aktiboaren portzentaje gisa definitzen baita **langabezia**-tasa. Iñaki Heras

**Langabezia**-tasa apalak. **Langabezia**-tasa garaiek ez ezik, kalitate urriko enpleguak ere eragin handia du pobreziaren hazkundean. Iñaki Heras

**Langabezia** maila handia eta interes tasa handiak onuragarri izan baitaitezke zenbait giza talderentzat. Iñaki Heras

Norbait langabezian geratuz gero, biharamunean **langabezia** asegurua kobratzen du. Berria - Ekonomia

**Langabezi**-saria hunkitzeko arauak gogortu zirela. Itxaro Borda

Frantziako Gobernuak atzera egin zuen atzo **langabezia**-sariaren erreforman. Berria - Ekonomia

Anduk bazeukan **langabezi** soldata txikia, nahikoa berarentzat. Jon Arretxe

Hiriko garbiketa orokorra, arloteen polizia-zaintza, eskupekoak ematea egun jakinetan txiro behartsuei, **langabezia**-laguntzak. Bego Montorio

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

langabezi eskaerak (3); langabezi eskaeren (4); langabezi saria (5); langabezi sariaren (3); langabezi tasa (25)

aebetako langabezia (7); aebetako langabezia tasa (4); arabako langabezia (4); arabako langabezia tasa (3); emakumeen langabezia (13); emakumeen langabezia tasa (10); emakumezkoen langabezia (4); euroguneko langabezia (9); euroguneko langabezia tasa (6); euskal herriko langabezia (5); frantziako langabezia (4); gazteen langabezia (9); gazteen langabezia tasa (5); gizonezkoen langabezia (7); gizonezkoen langabezia tasa (4); igo da langabezia (4); jaitsi zen langabezia (3); langabezia arazo (3); langabezia asegurua (3); langabezia eskubiderik (3); langabezia eskubiderik gabe (3); langabezia eta osasun (3); langabezia handia (4); langabezia handiagoa (3); langabezia handiko (4); langabezia igo (3); langabezia izugarri (3); langabezia jaitsi (5); langabezia maila (5); langabezia sari (4); langabezia saria (12); langabezia saria jasotzeko (3); langabezia sariak (6); langabezia sariaren (3); langabezia saririk (4); langabezia saririk gabe (4); langabezia tasa (215); langabezia tasa handia (3); langabezia tasa handiena (3); langabezia tasak (41); langabezia tasaren (6); langabezia tasari (4); langabezia tasarik (6); langabezia tasarik handiena (3); langabezia tasen (5); langabezia teknologikoaren (4); unibertsitarioen langabezia (5); unibertsitarioen langabezia tasa (3)

emakumeen langabeziak (3); langabeziak behera egin (11); langabeziak gora egin (8)

langabezian dago (10); langabezian dagoen (3); langabezian daude (7); langabezian dauden (7); langabezian diren (3); langabezian direnak (3); langabezian zeuden (6); zeuden langabezian (3)

gazteen langabeziaren (3); langabeziaren arazoa (7); langabeziaren aurka (3); langabeziaren aurkako (9); langabeziaren datuak (5); langabeziaren igoera (4); langabeziaren kontrako (3); langabeziaren tasa (4)

langabeziari aurre egiteko (5)

---

# langabeziadun *iz* langabea.

Orain berriz Nestor Kirchner president berriarekin ezker alderako behakoak dira eta **langabeziadunen** manifestaldi zernahirekin dira, hauk oro kexu alabainan. Herria

---

## **langai** 1 *iz* lantzeko gaia.

Nire ustez, bizitzako garairik gogorrenetarikoa eta zailenetarikoa da haurtzaroa, eta hor bizipen eta **langai** asko dago literaturarako. Ana Urkiza

Badirudi, txantxari jarraiki, ilgoran ebakia izanen zela 14 apostolu hauentzako **langai** mamitsua. Pello Zabala

Rioko Konferentziak **langai** izan zuen garapen iraunkorraren ideia konpromiso zehaztugabea da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bestelako ikasketa baino hobea zeritzolako aukeratu zuen Kimika: ikusten eta ukitzen ziren gauzak zerabiltzan ogibide horrek **langai,** eta arotzarena edo nekazariarena baino erosoagoa zen. Juan Garzia

Gramatika, semantika eta bien arteko loturak **langai** dituen metateorian. Itziar Laka

Herri aurreratuek jakintza eta ezaguera lehenetsi dituzte **langai** gisa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**2** lan egiteko gaia.

Material fabrikarik eta ekoizpenik ez zegoen garaian, zuhaitz zarbak zirela edozertarako behar ziren **langaiak**. Pello Zabala

Hogei kanaerdiko izan zituzten **langai** eta Mindegiak irabazi zuen. Berria - Kirola

Mugerreko postaren kasuan, astean 33 orenez zabalik dago, langilek 19 orenen **langaia** dutelarik. Herria

---

## **langaluze** *iz (arkitekturan)*

Janben ondoko **langaluzeek** langeten zabaleraren erdia izango dute. Santiago Iruretagoiena

**Langaluzeen** zabalera langetek dutenaren erdia izango da. Santiago Iruretagoiena

Orpo aldeko **langaluzeei** bao-zabalera osoaren hamabiren bateko zabalera emanez egingo dira ateak. Santiago Iruretagoiena

---

## **langar** 1 *iz* lanbroa.

-Lanbroa eta **langarra** deitu ohi zaion lainobera, aireak hegan daramatzan ttanttan ttipi-ttipiz osatua. Pello Zabala

Xirimiria edo **langarra** noizbehinka, ateri tarteka, hasi-ez-hasi marteka... Pello Zabala

**Langarrak,** euri sarri bihurtzen ari baitzen, gero eta indartsuago jotzen zuen kristalen kontra. Anjel Lertxundi

Warren kalean **langarra** ari zuen. Lutxo Egia

Minutu baten buruan **langarrak** irentsi du Joxe. Pello Lizarralde

**Langarrak** blai utzi duelako eta hotzikaretan dagoelako. *Euskalduna*tik gorde zuten garabi bakarraren ingerada azaldu da **langar** eta behe-laino artean. Aingeru Epaltza

Haritz bakan batzuk zituen eskuinean eta sakan **langarrez** estalia ezkerrean. Pello Lizarralde

Trafiko gutxi zebilen autobidean baina **langarrarekin** bustia zegoen errepidea. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (izenondoekin)

**Langar** eztia ari zuen. Matías Múgica

Amairik gabeko **langar** isila. Txillardegi

Errepideak itsasalderaino egin zuen, eta **langar** hauskor baten erditik igaro zen autobusa. Javi Cillero

**Langar** gustagarria ari zuen, Errusian apirila baino lehen batere izaten ez den horietakoa. Matías Múgica

Ibaiko **langar** huts eta ilunean, ontziralekuak bat-batean aharrausi egin zuen. Lopez de Arana

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Goizetik lanbroa eta **langar** pizarra aritu du. Patziku Perurena

**Langar** boladen artean. Anton Garikano

**4** ***euri-langar***

Leihora hurbildu nintzen: euri **langarra**. Karlos Linazasoro

Londresen euri-**langarra** ari du etengabe. Lutxo Egia

Eta paisaiaren erdian, distantzia batera, gure baserriko tximiniaren ke haria, kanpoko euri-**langarretan** galtzen. Pedro Alberdi

**5** ***langar-laino***

**Langar**-lainoak ez zuen ezer ikusten uzten hamar metro baino urrutiago. Anjel Lertxundi

Hamahiru urtez haratakotik, **langar**-lainoa baizik ez dut gogoan. Aingeru Epaltza

Oraindik argi zantzu gutxi izan arren, bukatuak dira gaueko hegaztien hegaldiak, eta hurbil xamar dago **langar** lainoaren negarra. Pello Lizarralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **euri langarra** (9); **euri langarra ari** (6); **langarra ari** (9); **langarra ari zuen** (6)

---

## **langartsu** *izond* langarrez estalia edo betea. ik **lanbrotsu**.

Arratsalde **langartsu** batez, egunero izaten ziren tirorik gabeko tarte horietako batean. Anjel Lertxundi

Gutxi nekien Angeloren ibilbidea guztiz bihurrituko zuen pasadizo hartaz, eta nekien guztia **langartsua** zen. Anjel Lertxundi

---

## **langartu,** langar, langartzen du *ad (irud)* langarrak bezala busti.

Gizonezkoen *Tabac* kolonia potoa hartuta fris-fras eskumuturrak **langartzen** zituen aurrena. Jasone Osoro

---

## **langatu,** langa(tu), langatzen du *ad* langaz itxi.

Barrura itzuli eta atea **langatu** zuen: baina ez zegoen beharrik. Koldo Biguri

Ate hark kisketa arin bat baizik ez zuen, hutsaren indarra eginez gero zabalduko zena; nik gortina baten makilaz **langatu** nuen. Josu Zabaleta

---

## **langatxo** *iz adkor* langa.

Minutu eta erdira Patardek tinko jaurti zuen 8 metrotik eta **langatxoa** jo ondoan, Bachelet epaileak ontzat eman zuen gola. Berria - Kirola

---

## **langela** *iz* lan egiteko gela.

Aitak arratsetan, bere **langelan,** lan egiten zuen, hots, bere liburuen inprenta-probak zuzentzen zituen, eta zenbait ilustrazio itsasten zituen lekedaz. Fernando Rey

Bazkaldu baino bi ordu lehenago, Andrei Ivanovitx bere **langelara** joaten zen, buru-belarri eta gogor lan egitera. Jose Morales

Euler jo eta ke ari da lanean, **langelatzat** erabiltzen duen gelan. Jon Muñoz

Ahozabalka, nagiak ateratzen ditu, ordenagailua itzali, **langelatik** irten eta logelara joaten da. Antton Olano

Paketea eskuetan duela, **langelako** mahaira inguratzen da. Antton Olano

Bere **langelan** irakurtzen gelditzen baitzen. Fernando Rey

Bere **langela** ia altzaririk gabean, kandela baten argitan, zifraz eta letraz zirrimarratutako orri baten gainean makurtuta zegoen Robert Recorde, luma eskuan, prest. Jon Muñoz

Pedro Páramo bere **langelan** giltzapetu zen atzera. Juan Garzia

Lau egun eta lau gauetan doktorea ez zen atera bere **langelatik**. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> langelan sartu (4)
> bere langelara eraman (3)

---

# langeta *iz* zeharreko langa modukoa. ik **zeharraga**.

**Langeta** edo zeharragak honela egingo dira: banatuko da altuera guztia bost partetan, eta horietako bi, goiko aldeari emango zaizkio, eta hiru behekoari. Santiago Iruretagoiena

Langaluzeen zabalera **langetek** dutenaren erdia izango da. Santiago Iruretagoiena

Janben ondoko langaluzeek **langeten** zabaleraren erdia izango dute. Santiago Iruretagoiena

Tarteko **langetak** erdian jarriko dira. Santiago Iruretagoiena

---

# langile 1 *iz* bere lanetik ogibidea ateratzen duen pertsona; bereziki, lanbide jakin batean sari truke aritzen dena; batez ere, eskuen bidez industrian lan egiten duena.

Erdi dendari, erdi **langile,** bi aldetakoa aldi berean. Joseba Urteaga

Gure ikasleen artean, laborari eta **langile** guti. Piarres Aintziart

Baiona Ttipia, **langile,** ofiziale eta etorkinen auzotegia zen. Elena Touyarou

**Langileek,** proletarioek, ekoizleek eta kontsumitzaileek -nahi bezala deitu- dituzten interesak defendatzeko bide bakarra. Lopez de Arana

**Langileak** kostatu zaion lanaren arabera baloratzen du bere obra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Langileen** izerdiak koipeztutako makinak. Anjel Lertxundi

**Langileak** gutxiago sufritzen duela heriotzaren larrimina denbora libre asko duenak baino. Anjel Lertxundi

Ontzitegi nagusiko milaka **langile** greban egon ziren luzaro. Bernardo Atxaga

**Langileek** Fabrika Zaharra hartu zutenekoa, Eta penagarritzat jotzen zuen burgesik handienak **langileak** izatea, espirituz bai behintzat. Joan Mari Irigoien

**Langileen** buruak esan zidan egun pare batera agertzeko, ziur aski izango zutela leku bat fundizioan. Jon Maia

*ik* langileburu.

Teknologia berriek ez dutela **langileen** gehiengoarengan hainbesterako eraginik izan. Iñaki Heras

**Langileen** Alderdiak Brasilen izandako arrakastak. Koro Navarro

**Langileen** ordezkariek lanpostu eta soldaten gainekoa izaten dute arreta nagusia. Iñaki Heras

Eraso gogorrak jasan zituzten **langileek** egun haietan, eta Bilbon, adibidez, 216 **langile** harrapatu zituzten aste bakar batean. Rafa Egiguren

Lau mila **langile,** gerriraino lokaztuak, soina biluzik. Xabier Olarra

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Soldatapeko **langile** zintzo bat. Iñaki Heras

Marxek zioen bazegoela **langile** esplotatu bat baino okerragoa den zerbait: lanik gabeko **langile** bat. Iñaki Heras

Lantegiko **langileak** 800-1.000 rupia hilero. Gotzon Garate

Treneko **langilea** zen Miksch. Anton Garikano

Postako **langile** baten alarguna. Anton Garikano

Aurrezki-kutxako **langilearen** txanda zen orain. Anton Garikano

Guk, eraikuntzako **langileok,** elkartu egin behar dugu. Lopez de Arana

Unibertsitateko irakasle eta **langileak**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Azken mailako **langilea** zen, mandatu-gizon gisa jarria. Pello Lizarralde

**Langile** ez-irakasle gehiago. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ia esan genezake **langile** autonomoa zela, bere kontura egiten zuela lan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Herri-administrazio inperialeko **langile** iraunkorrak. Iñaki Mendiguren

Madrilgo Burtsako **langileen** ordezkari sindikala zen. Hasier Etxeberria

Emakumezko **langile** juduen antzera. Patxi Zubizarreta

Bada diferentziarik asko goikoen (zuzendari edo kargudunen) eta behekoen **(langile** soilen) artean. Iñaki Heras

Presaka zebiltzan aleman **langile** saiatuak, baita garagardotegiaren pareko mozkorrak ere. Fernando Rey

**Langile** buzodunak eskuak galtza urdinetan igurtzitzen. Harkaitz Cano

Sarrerako **langile** gorbatadunari . Xabier Montoia

Makina adimendunek hainbat eta hainbat eragiketetan ordezkatzen dute gizakia, eta milioika **langile** lepo-zuri eta lepo-urdin bidaltzen dute langabezia ilaretara. Iñaki Heras

**Langile** fina da Faustino. Txillardegi

## 3 irud/hed

Inurriek, **langile** nekaezin burutsu horiek Josu Zabaleta

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Langile** klasearen ikuspegitik. Iñaki Heras

**Langile**-klase industrial berriak gizartearen egitura berriari egindako ekarpen bereizgarriak. **Langile** mugimenduak gaur egun dituen arazo nagusiak. Iñaki Mendiguren

Bilboko ezkerraldean aste batzuk lehenago izandako **langile**-mobilizazioen berri jaso zenuten. Rafa Egiguren

Gipuzkoako **Langile** Frontearen Manifestua. Rafa Egiguren

Kiroletako kazetari bat genuen **langile**-batzordeko burua. Aingeru Epaltza

Hotelaren aurrean **langile**-etxe batzuk ikusten ziren. Edorta Jimenez

Erdi mailako eta behe mailako kualifikazioak dituzten **langile** kopuru handiak. Iñaki Heras

**Langile** Batailoiak, esaterako, adin guztietako gerra prisioneroekin osatzen ziren. Jokin Urain

**Langile**-auzoetako giro iraultzazale horren kontrako herra. Xabier Mendiguren Elizegi

**Langile**-ghetto bat oihal-fabrika baten inguruan eraikia. Joseba Urteaga

**Langile** jendea bizi zen auzo batean omen zegoen. Rafa Egiguren

**Langile**-semeak ziren nire lagun eta ikaskide gehienak ere. Xabier Mendiguren Elizegi

**Langile**-buzoa eramango du soinean. Koldo Biguri

· **Langile** puta andana horiek merezi luketela lanean ariaraztea, ez hogeita hamabost orenez astean, baina bai berrogeita hamarrez, gu laborariak ari garen maneran. Itxaro Borda

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ekoizpena gehitzeko teknologiaren gaitasun potentziala lehian ari zela industri **langileen** eta nekazarien berezko giza uzkurtasunarekin. Iñaki Mendiguren

Aitatik semera egundainotik gituk aizkolari, zurgin, maixturu, dupagin, batzuetan bat edo bertze izan zukek harrobi **langile** edo ehaile, bakan. Michel Oronoz

Larru-**langile** txukun baten dendan. Patxi Ezkiaga

Ellis Islandeko aduana-**langileei**. Harkaitz Cano

Andreasek, jakina, ez zekarren inolako ekipajerik, baina ez atezaina ez igogailuko mutila ez hotel-**langileetako** inor ez zen horretaz harritu. Matías Mujika

Alboan, beste argazki batean, bi hegazti-ale mardul ageri ziren, udal-**langile** batek zare batean zeramatzanak. Josetxo Azkona

DISIPeko jendea, Guardia Nazionala, Ejerzitoa, gizarte-**langile** zibilak, boluntarioak... Pako Aristi

**6** (izenondo gisa)

Gizon on batekin, gizon **langile** batekin... Elena Touyarou

**Langileak,** kristau onak, fededunak oso, Jainkoari esker. Arantxa Iturbe

Garai batean, Emakume **Langilearen** Eguna deitzen zen martxoaren 8a. Iñigo Aranbarri

Ez zen egunerokoa Josu hain **langile** topatzea halako tenorean. Aingeru Epaltza

Egia erran, oso **langilea** da, nahi duenean. Alberto Ladron Arana

Apez **langileak** langile bilakatu ziren bezala. Piarres Aintziart

"Euskal Herri **Langilearen** gaineko zanpaketa" izeneko txostenak. jakiteko irrika pizten ziena. Rafa Egiguren

Esku alferrak txirotu, beso **langileak** aberastu. Elizen arteko biblia

Zuk badakizu nola egiten diren erle **langileak:** gelaxka txiki batean sartzen da larba, eta janari eskasa ematen zaio. Josu Zabaleta

Argia destilatzen zuen Adela hura, eguneroko gauzetan urtez urte ageri zen ipurtargi **langile** hura, haurren buruak esnatzen zituena, bizi-gogoa ematen ziena. Juan Kruz Igerabide

· Haur **langile** gehienak Asian bizi dira: 5-14 urte arteko 122 milioi umek lan egiten dute. Berria - Gaiak

**7** *esku-langile* ik **eskulangile**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**administrazioko langile** (8); **behin behineko langile** (6); **bertako langile** (10); **bi langile hil** (9); **bi langile zauritu** (6); **emazte langile** (10); **enpresako langile** (24); **eskoletako langile** (8); **esku langile** (8); **etxeko langile** (9); **fabrikako langile** (6); **gizarte langile** (7); **gizon langile** (17); **herriko langile** (25); **hezkuntza saileko langile** (6); **hildako langile** (7); **komunismoaren aldeko langile** (7)

**langile andana** (10); **langile ari** (17); **langile aritu** (7); **langile aritzen** (7); **langile armatuak** (7); **langile arruntak** (8); **langile asko** (29); **langile askok** (18); **langile atxilotu** (13); **langile atzerritar** (6); **langile atzerritarrak** (8); **langile atzerritarrei** (7); **langile atzerritarren** (12); **langile autonomo** (6); **langile autonomoen** (11); **langile auzo** (8); **langile bahitu** (11); **langile bakar** (8); **langile bakarra** (6); **langile bat hil** (58); **langile bat larri** (7); **langile bat xekatzen** (10); **langile bat zauritu** (13); **langile bat zendu** (6); **langile batzordea** (15); **langile batzordeak** (44); **langile batzordearen** (8); **langile batzordeko** (29); **langile berri** (18); **langile berriak** (10); **langile enplegatzen** (6); **langile eta enpleatu** (7); **langile etorkinen** (10); **langile falta** (6); **langile fina** (15); **langile finak** (8); **langile finko** (13); **langile gazte** (6); **langile gisa** (18); **langile gutxi** (7); **langile gutxiago** (7); **langile hil** (53); **langile hil dira** (25); **langile izan** (12); **langile izango** (7); **langile kalean geratuko** (6); **langile kaleratu** (20); **langile kaleratuko** (16); **langile kaleratuko ditu** (7); **langile kaleratzea** (13); **langile kaleratzeko** (12); **langile kanporatu** (8); **langile klaseak** (8); **langile klasearen** (15); **langile kopurua** (33); **langile mugimendu** (8); **langile mugimenduaren** (6); **langile ohi** (13); **langile ohia** (7); **langile ohiak** (16); **langile ohiek** (29); **langile ohiek deituta** (7); **langile ohien** (8); **langile on** (7); **langile ona** (6); **langile porrokatua** (12); **langile sindikat** (6); **langile sindikatak** (13); **langile soil** (6); **langile talde** (22); **langile talde bat** (8); **langile taldea** (9); **langile xume** (9); **langile zauritu** (11); **langile zintzo** (7)

**navaleko langile** (9); **saileko langile** (7); **saileko langile gisa** (6); **udaleko langile** (6); **urteko langile** (12); **urteko langile bat** (11); **zerbitzuetako langile** (6)

**emazte langilea** (7); **gizon langilea** (15); **jende langilea** (7); **langilea hil** (12); **langilea hil zen** (6); **langilea izan** (14); **langilea zela** (8); **langilea zen** (15); **urteko langilea** (12)

**; azpikontratetako langileak** (6); **behin behineko langileak** (6); **bertako langileak** (18); **caballitoko langileak** (7); **enpresako langileak** (21); **enpresetako langileak** (7); **eraikuntzako langileak** (6); **gizarte langileak** (12); **greban dauden langileak** (11); **herriko langileak** (7); **kanpoko langileak** (7); **langileak euskalduntzeko** (9); **langileak hartuko** (6); **langileak izan** (12); **langileak kaleratuko** (6); **langileak kontratatzeko** (7); **langileak kontratatzen** (7); **langileak lanera** (8); **langileak ziren** (12); **ospitaleko langileak** (7); **postako langileak** (6); **udaleko langileak** (8); **urtegiko langileak** (6

**zerbitzuetako langileak** (15)

**emakume langilearen** (8); **langilearen eguna** (6); **langilearen heriotza** (9)

**eskatu zien langileei** (6); **langileei ordaintzeko** (8)

**anbulantzietako langileek** (6); **azpikontratetako langileek** (6); **baionako erietxeko langileek** (6); **bertako langileek** (13); **caballitoko langileek** (16); **enpresako langileek** (40); **eraikuntzako langileek** (10); **erietxeko langileek** (8); **eskatu dute langileek** (6); **eskoletako langileek** (13); **etxeko langileek** (7); **euskotreneko langileek** (8); **haur eskoletako langileek** (12); **konpainiako langileek** (11); **langileek adierazi** (8); **langileek egin** (9); **langileek egindako** (10); **langileek elkarretaratzea egin** (12); **langileek eskatzen** (6); **langileek greba egin** (7); **langileek greba egingo** (6); **langileek greba hasi** (7); **langileek salatu** (16); **langileek salatu dute** (8); **langileek uste dute** (6); **larrialdietako langileek** (8); **ontziolako langileek** (10); **udal langileek** (10); **volkswageneko langileek** (12); **zerbitzuetako langileek** (8)

**langileekin bat egin** (6); **langileekin batera** (11)

**administrazioetako langileen** (8); **administrazioko langileen** (13); **aldi baterako langileen** (6); **bertako langileen** (9); **caballitoko langileen** (9); **emakume langileen** (8); **enpresa eta langileen** (6); **enpresako langileen** (27); **enpresako langileen batzordeak** (6); **enpresetako langileen** (6); **eskoletako langileen** (11); **etxeko langileen** (9); **haur eskoletako langileen** (11); **herriko langileen** (9); **hildako langileen** (7); **korsikako langileen** (9); **kurdistango langileen** (38); **kurdistango langileen alderdia** (10)

**langileen aldarrikapenak** (8); **langileen alde** (11); **langileen aldeko** (14); **langileen alderdi** (7); **langileen alderdia** (12); **langileen alderdiak** (10); **langileen alderdiaren** (9); **langileen alderdiko** (22); **langileen baldintzak** (16); **langileen batzarrak** (8); **langileen batzordea** (40); **langileen batzordeak** (161); **langileen batzordean** (11); **langileen batzordearekin** (10); **langileen batzordearen** (29); **langileen batzordearen gehiengoak** (9); **langileen batzordeari** (29); **langileen batzordeko** (146); **langileen batzordeko buru** (8); **langileen batzordeko kideek** (6); **langileen batzordeko ordezkariak** (6); **langileen batzordeko ordezkariek** (7); **langileen batzordeko presidente** (37); **langileen batzordeko presidenteak** (25); **langileen bizkar** (8); **langileen diziplina batailoietan** (6); **langileen egoera** (28); **langileen eguna** (6); **langileen erantzuna** (6); **langileen eskaera** (6); **langileen eskariak** (7); **langileen esku** (10); **langileen eskubideak** (49); **langileen eskubideen** (20); **langileen gehiengoak** (6); **langileen greba** (11); **langileen interesak** (7); **langileen interesen** (7); **langileen kopurua** (15); **langileen lan baldintzak** (33); **langileen lanpostuak** (6); **langileen ordezkari** (13); **langileen ordezkariak** (37); **langileen ordezkariei** (27); **langileen ordezkariek** (76); **langileen ordezkariekin** (21); **langileen ordezkarien** (14); **langileen osasuna** (13); **langileen parte hartzea** (6); **langileen protesta** (7); **langileen segurtasuna** (10); **langileen seme** (6); **langileen sindikatuek** (6); **langileen soldata** (10); **langileen soldatak** (26); **langileen soldaten** (6)

**navaleko langileen** (39); **navaleko langileen batzordeko** (18); **ontziolako langileen** (10); **sektoreko langileen** (8); **soldadu langileen** (7); **soldadu langileen diziplina** (7); **soldatapeko langileen** (6); **udal langileen** (13); **udaleko langileen** (10); **udaletxeko langileen** (8); **udaletxeko langileen batzordeko** (6); **volkswageneko langileen** (8); **zerbitzuetako langileen** (9)

**langileren kaleratzea** (6); **langileren lanpostuak** (7)

**langileri eragingo** (8); **langileri eragiten** (15)

---

# langileburu *(orobat **langile-buru**)* *iz* langile talde baten burua.

Joe Aguirre izeneko **langileburua** izango da bi *cowboy*-ak jazartzen lehena. Berria - Kultura

Phineas Gage, bidegile talde baten **langile-burua,** zauritu egin zen eztanda batean 1848an. Irene Aldasoro

**Langile-buru** eraginkor izandakoa, pertsona berekoi, buruarin eta ganoragabea bihurtu zen. Irene Aldasoro

Simonek izendatuko zituen santutegiko **langile**-buruak, herrialdeko administrazio-arduradunak, bai eta gudarostearen eta gotorlekuen arduradunak ere. Elizen arteko biblia

Inazio **langileburu** putakumeari egin zizkioten putakumekeriak Iban Zaldua

---

## langilego *(Euskaltzaindiaren Hiztegiak 'langiletasuna' adieran baino ez du onartzen; gainerakoetarako* ***langileria*** *agertzen da)*
*iz* langileak. ik **langileria**.

**Langilegoaren** interesak defenditzeko, CFDT sindikatak bi autobus antolatu eta bete ditu. Herria

Bere eskaeretan «inolako aldaketarik ez egitea» egotzi dio patronalak **langilegoari**. Berria - Ekonomia

Azpikontratazioa **«langilegoaren** minbizia» dela ziurtatu du enpresa batzordeak. Berria - Ekonomia

---

## langilekume *iz adkor* langilea.

Noizean behin, gaztetxo eta haurren Malagako musika banda-edo etortzen ziren herrira eta, beren prakamotx eta alkandora urdin uniforme apainekin, martxa militar musikarekin kalejiran ibili eta gero -begi guztiak lore-lore **langilekumeok** begira-, pilotalekuan kanpatzen zuten, gure inbidiaren aurrean. Joxe Azurmendi

---

## langileria **1** *iz* langile klasea, langileak.

**Langileriaren** diktadura eta internazionalismoa. Rafa Egiguren

Klasearteko ideologia nazionalistari jarraitu gabe, militanteek **langileriaren** zerbitzuan jarri nahi zuten erakundea. Rafa Egiguren

Euskal eta espainiar **langileriaren** arteko harremanak. Rafa Egiguren

Gora munduko **langileria**! Jon Alonso

Sobiet Errepublika Sozialisten Batasuna, hots, **"Langileriaren** Aberria". Piarres Xarriton

**2** langileen multzoa.

Herriko Etxeko **langileria** (830 langile). Herria

Izan ere **langileriaren** %100 bazkidea izatetik, bazkideak **langileria** osoaren %60a inguru izatera aldatu baita [Eroskin]. Iñaki Heras

Erromako bazter auzoetako proletario mailarik apalenetako eta baztertuenetako **langileria** eta gazteria ezagutu zituen. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan)

PSE-EEren aburuz, legeak udal **langileria** guztiaren gaineko eskumen osoa ematen dio udalbatzari, eta ez alkateari soilik. Berria - Euskal Herria

---

## langilezain *iz* langile talde baten ardura duen pertsona.

Egun hartan bertan, faraoiak honela agindu zien lan-arduradunei eta **langilezainei:** [...]. Elizen arteko biblia

**Langilezain** israeldarrak estu eta larri zebiltzan eguneroko adreilu-kopurua ez zietela gutxituko jakitean. Elizen arteko biblia

---

## langin *izond* langilea.

Nobletasun-titulu dira giza **langin** edo *homo faber* delakoarentzat, baina orain arte horien garrantzia huskeria da kopuruz. Juan Garzia

---

## langintasun *iz* langina denaren nolakotasuna.

Topiko errepikatua zen arraza espainolaren alfertasuna eta ezgaitasuna zientziarako, iparraldeko arrazen **langintasun** eta zientzia eta teknikarako iaiotasunaren aldean. Joxe Azurmendi

---

## langintza **1** *iz* lanbidea, egitekoa; lan egitea. ik **lantegi 5**.

Ofizio eta **langintza** askotako gizona izan zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Borreroa izan zen eta ofizioan ondo ikasitakoa, baina inoiz ez zion beste baliorik eta morborik eman egin zuenari: **langintza** bat zen, beste edozein bezalakoa, eta kito. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mirabe izatea ez da **langintza** bat, esana egitea da; egizu, beraz, hark agintzen dizun guztia. Juan Martin Elexpuru

Gizakiak bere **langintza** guztiak Jainkoagatik osabetetzen dituenean. Joan Mari Lekuona

Maitasunak bere **langintza** dagienean, ez egin ihesik ezertan; zarraizkio ekaitzaldian eta berealdian. Joan Mari Lekuona

Ordura arte nekazari familiaren baitan egiten ziren bizirik irauteko behar ziren **langintza** guztiak, eta lan banaketa oso primitiboa zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zaldunak bere gain hartuko du **langintza**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beste giza **langintza** askok bezala, oro har bizitzak bezala, bi polo ditu zientziak bere bidearen mugarri: desiragarri dena eta posible dena. Juan Garzia

Nork bere izaera gordinki bereziaren arabera, Amerika berrasmatzeko **langintza** hartu zuten beren gain. Oskar Arana

Ontziburuak agintzen zizkidan askotariko **langintzetara** egokitzen. Edorta Jimenez

Aurreikusirik ez dituela diruz berdinduko ezta **langintza** horretan sartu ziren orduak berak ere. Anjel Lertxundi

Mahomak berak ere ez zuen aurrera eramango bere **langintza,** baldin eta Mekara jaurti izan ez balute eta salneurria jarri haren buruari. Juan Martin Elexpuru

Baina ez al da aski naturaren **langintzei** begirada arin bat botatzea, berarentzat desegitea sortzea bezain beharrezkoa dela ikusteko? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (izenondoekin)

Eraiki zuten autobidea -**langintza** bikaina inondik ere- eta, hain justu ere, ehun eta berrogeita hamar metro doi-doi zeuden autobiaren eta landetxearen artean. Eskarne Mujika

Zahartzea bera ere ez da **langintza** dotorea. Oskar Arana

**Langintza** gogorra zen itzalen xerka ibiltzea. Edorta Jimenez

Liburu horretan erreferentzia ugari jasotzen dira urkatzeko **langintza** ohoretsu eta errentagarriari buruz. J.M. Olaizola "Txiliku"

**3** ***lur langintza*** lurra lantzea.

Ohizko lur-**langintza** xumeak 8 hektara aski ditu. Herria

Etxe nagusian, sartu eta berehala, sukaldea, lasai samarra, euskal baserri guztikoen irudira, etxebizitzarako ta lur-**langintzarako** behar ziren tresnez betea. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**langite** *iz* egitekoa, langintza.

Otordua amaitu bezain laster ordea, oroitu zen, nork bere **langitera** joateko ohitura zeukan. Anton Garikano

Neronek askotan ikusia dut, laneko aberea, [...] bere **langitea** bukatu eta, eguardian edo iluntzean, nagusiak pasta, koilaruna edo dena delako tresneria kendu ondoren, zeinen pozik hasten den lurrean iraulka, bere gorputz estutu eta nekatua, lasatu, hazkatu eta gozatu nahian. Patziku Perurena

---

**lango** *izlag* lako, bezalako.

Bisita hareri huts egitea gerrea bigarrenez galtzea **langoa** izango zan harentzat. Xabier Amuriza

---

**langosta** **1** *iz* otarraina.

Baina zirkua itxita, nola ordaindu xanpaina, **langostak,** miserak, itsas fruituak? nola ordaindu Txanberlainek emakumeen amoreak? Bernardo Atxaga

Xabier agurtzera joan gara, eta bide batez Txalupan jandako arrain eta **langosta** goxoen kontua egitera. Pako Aristi

**Langosta** jangaitz zegoen, baina Penedesko ardo zuria zoragarri. Patxi Iturritegi

**2** larrapotea, otia.

-1340an, Alacanten, **langosta** eta matxinsalto izurrite gorritzailea. Pello Zabala

---

**langostino** *iz* otarrainxka.

Ez al diok bibotea ikusi, nik lehengoan bertatik **langostino** -azal bat ateratzen ikusi nian. Jon Alonso

Lehenengo koplak ekarriko ditut hona, **langostino** eta xanpainaren ordez, gau gogoangarri haren oroiminez eta omenez: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**langune** **1** *iz* lan egiteko gunea.

Lanzelai bat antolatuko da bestalde Putillenea aldean, orotarat bederatzi **langune,** lantegi ttipi batzu hor kokatzeko, lantegi "garbiak" haatik, kotsadurarik zabalduko ez dutenak. Herria

92-an, [...] COREBAk bere lan eremua bikoizten du eta urtea berantago, **langune** berria idekitzen du Biarnon, Laroin herrian. Herria

Eroste horrek haatik kezkak sortzen ditu, bereziki Brandt taldeko bost **languneetako** langileen baitan, ez baidakite lanpostu guziak begiratuak izanen direnez luzara. Herria

Sartu berria da Urruñako Berrueta **langunean,** 300 metro karratuko lantegiarekin. Herria

**2** lanpostua.

**Langune** askotan enpleguen eraldaketa handia izan da: lanpostu tradizionalak desegin eta beste kontratu-lotura duten lanpostuak sortu dira, are baldintza kaskarragoekin. Iñaki Heras

Horrek [...] **langune** berean langileen arteko kontratu-lotura oso desberdinak izatea ahalbidetu du. Iñaki Heras

Horiek gaixtaginak dira, eriez guti edo batere axolatzen direnak eta haien bizia **lanjerretan** ezartzen. Herria

---

lanindar ik **lan 20**.

---

lanistripu ik **lan 21**.

---

lanjantzi ik **lan 22**.

---

lanjardun ik **lan 24**.

---

**lanjer** *(orobat* ***lander*** *g.er.)* *iz* arriskua.

Tadjiken bigarrena izendatua izan zen orduko eta, edozein lekutarik aberastasunak ostu ostean, **lanjer** eta mehatxu handienetarik jalgitzeko izugarri trebea zen. Itxaro Borda

Gure herriaren geroa kezkagarria da, **lanjer** handiak baditugu gainditzeko. Michel Oronoz

Gaintxurizketako harana **lanjer** gorrian da. Herria

Bretoin hizkuntza **lanjer** bizian dela diote hautetsiek. Herria

**Lanjer** hurbil baten seinale isila. Itxaro Borda

**Lanjera** beti hor beraz, untsa kezkagarri baita. Herria

Baina ez da, gisa guziz, Bush-en ministroek erran duten bezenbateko **lanjerik** Iraken.

Ageri duk ez duala lanaren galtzeko **lanjerrik** ! Itxaro Borda

Otso haundi batek iretsiko du, **lanjerrean** da, behar da salbatu. Herria

Ainitz tokitan zernahi gisaz, itsas-bazterra, kasik denetan hoin ederrra eta baliosa dena, **lanjerean** dugu. Herria

Frantziako batasuna **lanjerrean** ezarriko dugula eta holako mentskeria batzu! Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lanjer handia** (3); **lanjer handian** (3)
> **lanjeretik kanpo** (3)

---

**lanjeros** *izond* arriskutsua.

Jende **lanjerosen** artean. Michel Oronoz

Terrorrista **lanjeros** batzuk bakartasunetik ateraiak izan zirelako. Filipe Bidart

Jadanik anitzek galdegiten dute lekuz alda ditzatela lantegi **lanjerosak,** eta ez utz hiritik hain hurbil edo hiriaren erdian. Herria

Xanti eri zela eta haren eritasuna guziz **lanjerosa** zela. Michel Oronoz

Leku biziki **lanjerosak** dituk, lohitsuak, lerrakorrak, alimaleko ziloek, putzuek bidea mozten ditie nunahi. Michel Oronoz

Ez zarete **lanjerosak** Estatuarentzat, salbu gehiengoaren bakea trabatzen duzuenean. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **biziki lanjerosa** (3); **lanjerosa izan** (3)
> **biziki lanjerosak** (3)

---

## lanjeroski *adlag* arriskutsuki.

Orduan, elizaren ate nagusitik apeza lehiatu zen, bereterrak euritakoa gora atxikitzen ziola, herriko mutilak intsentsu-ontzia **lanjeroski** balantzatzen zuen bitartean. Itxaro Borda

---

## lanketa 1 *iz* lantzea.

Bertso-eskolek ere irudimenaren **lanketa** dute zereginetako bat. Andoni Egaña

Hizkuntza gaitasunen **lanketa** osagarria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Burdin-sarearen **lanketak** hamalaugarren mendea salatzen duela, eta ez neholaz ere hamahirugarrena. Koldo Izagirre

Datuen **lanketa** kuantitatiboa. Xabier Arregi

Planifikaziorako eta **lanketa** metodiko zehatzerako joera. Berria - Harian

Horrelako eztabaidak eta horrelako puntuen **lanketa** mahaian egiten direla, ez dela ezer mahaitik aparte lantzen. Berria - Harian

Denbora asko eta zabala eskaini ohi diogu haren prestatzeari, imajinatzeari, estrategiari nahiz **lanketari**. Xabier Mendiguren Elizegi

Arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen **lanketarako** baliabideak. Berria - Kultura

**• 2** *adlag ipar* lan bila.

Kasik gazte guziak herritik urrun joan behar **lanketa**... Janbattitt Dirassar

Etorkinak deitzen dira beste herrietarik **lanketa** etorriak direnak. Herria

Herrialde batetik beste batetarat **lanketa** dabiltzanen mugimenduak. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **konstituzioaren lanketan** (3)

---

## lanketari *iz ipar* lan bila dabilen pertsona.

Etorkiak deitzen ditugun **lanketariak** heltzen dira Afrikatik, Turkiatik eta edozein herritarik, Hego-Amerika-barne, gero ta gehiago. Herria

Erran behar da hiruetarik biga emazteak direla **lanketari** horietan. Herria

---

## lankia *iz ipar* lantegia.

Aragoi aldetik (eta Erronkariko nafar ibarretik), negüko sasuaren egitera horra ziren espartiña **lankietara** horra ziren hanko neskatilak, "ainera" famatüak. Herria

Interesatua den presuna oro harremanetan sartzen ahal da Komitearekin bere parte hartzea gauzatzeko (egoitza, garraioa, **lankien** hautua, laguntza,...). Herria

Ordükoz ez zen izigarri elizatiarra hanko jentea: **lankia** ütsala kiristigoaren hedatzeko! Herria

---

## lankide 1 *iz* norbaitentzat, berarekin lan egiten duen pertsona.

«Hitzik gabe» daude bosgarren solairutik erorita hildako margotzailearen **lankideak**, ezbeharra «edonori gerta zekiokeelako»$$. Berria - Ekonomia

-Hoa, bai -esan zidan Aloñaren **lankide** Aitziber lotsagabeak-. Xabier Mendiguren Elizegi

-Ai, neska horri loreak ahaztu zaizkio -esan zidan **lankide** emakumezko batek hura joan eta gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Zerrategiko bere **lankide** bat, Opin esaten ziotena. Bernardo Atxaga

Ez nituen nire **lankide** guztiak ezagutzen, bakar batzuk besterik ez. Matías Múgica

**Lankide** gara, nolazpait. Txillardegi

**-Lankideak** al zineten? Migel Angel Mintegi

Horregatik, hain zuzen, nago hemen, emaztearen **lankide** izana zarenez, zer edo zer jakin zenezakeelakoan. Migel Angel Mintegi

Telebistan nenbilela, urte pare batez **lankide** izan nuen Jose Mari Gabiria. Joxerra Garzia

Oraindik harrotasun apur bat geratzen zait, haurren eta **lankideen** aurrean gutxienez. Juan Kruz Igerabide

**Lankideen** arteko giroa aparta zen. Itxaro Borda

Ez al ziren jabetu bulegoko **lankideak** Brown jaunak nozitu zituen aldakuntza ugariez eta ikusgarriez? nork egin diezaioke uko aberasteari, bizilaguna edo **lankidea** etengabe aberasten ari bada? Karlos Linazasoro

Ituna negoziatzen ari direnean 14 **lankide** kaleratu dituztela salatu dute langileek. Berria - Ekonomia

**2** irud/hed

Egiteko horretan, nekez aurkituko dugu Aristoteles baino **lankide** hoberik; nekezago tresna hoberik haren Erretorika baino. Joxerra Garzia

**3** (izenondoekin)

Adiskide esatea gehiegizkoa da, **lankide** ona egokiago deritzot, lanetik kanpo ez baikenuen harremanik. Migel Angel Mintegi

**Lankide** txarra eta adiskide baldarra. Hasier Etxeberria

Bera zen une guztietan nire laguntzaile leial, **lankide** bizkor eta kontseilari zuhur. Askoren artean

Langile bikaina eta **lankide** zintzoa zela, emakume jantzia bere lanerako. Migel Angel Mintegi

Egunkariko **lankide** ohia nuen Tomas. Aingeru Epaltza

**4** (hitz elkartuetan)

Amaitutakoan, **lankide** giroan hasi zitzaidan, aurki ni ere Leioan hasteko nintzela, eta ea kafetxo bat elkarrekin hartzeko modua egiten genuen. Joxerra Garzia

**5** (izenondo gisa)

Zergatik, emakume **lankide** gazteago batek -ordura arte harreman erabat adeitsua izan duenak- kikara utzi eta alde egiten du, eta bera bertan ez balego bezala begiratuz igaro? Oskar Arana

Noiz gonbidatu behar dituk berriro hire maistra **lankideak** kafesnea eta gailetak hartzera? Iñaki Iñurrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lagun eta lankide** (3); **lankide eta adiskide** (3); **lankide eta lagun** (3); **lankide izan** (11); **lankide izana** (3); **lankide izango** (3); **lankide kaleratu** (3); **lankide maite** (4); **lankide maite hori** (3); **lankide maitea** (7); **lankide ohi** (4); **lankide ohiaren** (3)

**lankidea izan** (4)

**lagun eta lankideek** (4); **unibertsitateko lankideek** (3)

---

# lankidego *iz ipar* lankidetza.

Haren nahikaria da Europa molda dadin herrien arteko **lankidego** hertsi bat sustatuz. Herria

Azpimarratzen du bere hizkuntza politikaren alorrean Euskaltzaindiaren ganik igurikatzen duen **lankidego** garrantzitsua. Herria

---

# lankidetza 1 *iz* elkar lana.

Estatuen esku-hartzea zabaltzea eta munduko ekonomiaren erregulazio-hutsunea betetzea dira **lankidetza** horren helburuak. Koro Navarro

Nazioarteko **lankidetza** suspertzeko saio guztiak. Koro Navarro

Nazioarteko **lankidetza** indartu, gutxieneko lan egoera globala eskatu. Iñaki Heras

Espainia eta Frantziako polizien arteko **lankidetza** sendotzea. Berria - Euskal Herria

-*Patrie* erraten diogun aberriak, guzien **lankidetza** eskatzen du! Elena Touyarou

Euskotarrek AEBetako Navyrekin ere **lankidetzan** ziharduten. Edorta Jimenez

**Lankidetzan** oinarritutako pentsamendu eta esperientziek. Iñaki Heras

Geroztik, nihonek itzuli nuen F. Vitoriakoaren *De Indis* aipagarria eta, Jose Luis Alvarez Santa Cristinarekin **lankidetzan,** B. Spinozaren *Etika* liburua. Piarres Xarriton

1960ko hamarraldian, beste herrialde industrializatuetako banku zentralen **lankidetzari** esker baino ezin defendatu izan zen dolarraren parekotasun ofiziala. Koro Navarro

## 2 (izenondoekin)

AEBetako Armadarekiko **lankidetza** politiko zein logistikoa etetea. Berria - Mundua

Espainiako Gobernuarekin **lankidetza** «leiala» izateko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Berria - Ekonomia

Erakundeen eta gizarte eragileen arteko konpromiso eta **lankidetza** aktiboa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Biokimikariak eta genetistak **lankidetza** estuan aztertzen hasi dira material bera. Juan Garzia

Sailkako antolamenduak, ordea, ia ezinezkoa egiten du sailen arteko **lankidetza** iraunkorra. Joxerra Garzia

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

2006an euskararen gaineko hizkuntza politikarako gaietan **lankidetza** ildoak jasoko dituen akordio berria. Munduko diru sistema antolatzeko **lankidetza** formula berriak ezartzeko saioak. Iñaki Heras

Ezinbestekoa da sindikatu abertzaleekin **lankidetza** estrategia finkatzea. Berria - Euskal Herria

**«Lankidetza** aukerak» sortu dira taldekoek hainbat erakunderekin egindako bileretan. Berria - Euskal Herria

63 **lankidetza** proiektu ditugu gaur egun Txilen. Berria - Euskal Herria

Herrialde industrializatuen **lankidetza**-laguntza ere ezinbestekoa da. Iñaki Heras

Fernandezek presidentzia hartzen duenean Jaurlaritzarekin **lankidetza** harremanak sendotzea espero duela esan zuen Madrazok. Berria - Euskal Herria

CDNko presidenteak **lankidetza** hitzarmenen defentsa egin zuen. Berria - Euskal Herria

Iraultzaren Zuzendaritza eta Uztailaren 26ko Mugimenduaren arteko **lankidetza** ituna sinatu zutenak. Edorta Jimenez

Garapenerako **Lankidetza** Legearen aurreakordioa. Berria - Euskal Herria

ANEAC Espainiako Errepideetako **Lankidetza** Enpresen Elkartea. Berria - Ekonomia

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Txinarekin industria **lankidetza** bultzatu nahi dugu. Berria - Ekonomia

Kazetaritza **lankidetza** sakontzea erabaki du MIDASek. Berria - Euskal Herria

Horretarako balio du Nazioarteko Ekonomi **Lankidetza** eta Garapenerako Erakundeak.

OCDE Ekonomia **Lankidetza** eta Garapenerako Erakundeko herrialdeek. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako armadarekiko lankidetza** (3); **ekonomi lankidetza** (11); **ekonomia lankidetza** (3); **estatuen arteko lankidetza** (6); **garapenerako lankidetza legearen** (3); **indarren arteko lankidetza** (3); **lankidetza akordio** (3); **lankidetza akordio bat** (3); **lankidetza akordioa** (12); **lankidetza akordioa sinatu** (6); **lankidetza bultzatu** (4); **lankidetza bultzatzeko** (4); **lankidetza ekonomikoaren** (3); **lankidetza eskaini** (4); **lankidetza eskatu** (6); **lankidetza eskatzen** (3); **lankidetza estuan** (3); **lankidetza eta garapenerako** (13); **lankidetza etetea** (3); **lankidetza hitzarmen** (4); **lankidetza hitzarmena** (22); **lankidetza hitzarmena sinatu** (5); **lankidetza hitzarmenak** (6); **lankidetza indartu** (3); **lankidetza legearen** (3); **lankidetza leiala** (4); **lankidetza proiektu** (3); **lankidetza sustatzea** (4); **nazioarteko lankidetza** (20)

**lankidetzan aritu** (3); **lankidetzan aritzeko** (7)

**lankidetzarako hitzarmena** (4); **lankidetzarako hitzarmena sinatu** (3); **mugaz gaindiko lankidetzarako** (3)

**nazioarteko lankidetzaren** (3)

---

# lankostu ik **lan 25**.

---

# lanleku *(orobat **lan leku**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lanleku** agertzen da) iz* lan egiteko lekua.

Kamera txiki batzuk erosi eta leku jakinetan jarri zituen: bat, **lanlekuan;** bestea, egongelan... Antton Olano

Neska-laguna, etxera iristean, maleta sarreran utzi eta Mutilaren **lanlekuan** sartzen da; ordenagailua ikusi eta ezin izan dio tentazioari eutsi. Antton Olano

Kale Nagusiko 45eko gure **lanleku** hau, beste alde batetik, txikitxo gelditukoa zaigu aurki. Txillardegi

Zerbitzatzen ditu gosariak eta otorduak, lekuan berean jateko edo berorik eramaiteko nork bere **lan lekuraino**. Herria

Ekintzaile suizida batek gidatutako ibilgailu bat lehertu zelarik Miskat Mumin Ingurumen ministroa bere **lanlekurat** zeraman konboitik hurbil. Berria - Mundua

---

# lanmahai ik **lan 26**.

---

# laño *(orobat **laino** g.er.)* 1 *izond* laua, apala, bakuna.

Hura gizon xehea eta **lañoa** da eta, gure iduriko, konturatu gabe mintzatu dateke bazterretan. Piarres Xarriton

Haur **laño** eta herabeti batek. Jon Muñoz

Gero bi fraide, txekiarrak, Prémontés, nik uste bat xaharra, biziki ederra, 72 urte, xuxen xuxena zegoen, ona, **lañoa,** zuhurtziaz betea, irri xuri bat ezpainetan, enetzat zinezko anaia. Marzel Etxehandi

Ikus ordea zein xaloa eta **lañoa** naizen! Jon Muñoz

Bere izaite **laño** eta toles gabekoarekin. Herria

Haren begi handi **lañoak** apalaraztea. Jon Muñoz

Bihotz oraino onest eta **laño** bat seduzitzera entseiatzen den lehena. Jon Muñoz

Irribarre **laño** batez agurtu nau. Txillardegi

Denborak gupidarik gabe hondatutako zoriontasun apal eta **laño** hura guztia. Juan Luis Zabala

Bere hitz **lañoak**. Herria

Haatik urteburu hori ez da bakerik **lañoenean** ospatu : Errusiarekin dituzte beste nazioneek beren tripako minak denboraren buruan. Herria

**Lañoegia,** kaltegabeegia zen, nolabait errateko. Alberto Ladron Arana

Beldur naiz euskal gaietan gauzak ez diren denak xalo eta **laño,** bizitzaren tolesgabetasunaren eskutre. Pello Salaburu

• **2** *adlag* bare, lau.

Itsasoa franko **laño** zegoen, nahiz, batzuetan, uhin haguntsuak biziki gora altxatzen ziren. Daniel Landart

### 3 *laño-laño adlag*

-Pastel bat egin dezakezu -esan zion **laño-laño**. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lañ lañ o** (3); **o dago** (3); o lañ

---

lano[1] ik **laino.**

---

lano[2] ik **laño.**

---

### lañoki *(orobat **lainoki** g.er.) adlag* lañotasunez, toles edo korapilorik gabe.

Haurraren xalotasun xarmangarriak ez zion ordea gezurrik erraten utzi, eta **lañoki** erantzun zuen: [...]. Jon Muñoz

Graxik hain **lañoki** egin zuen galderak beste emazteak karkailaka hasarazi zituen. Bi gizonak **lañoki** mintzatu dira elgarren errespetu osoan. Elena Touyarou

Ez zen **lainoki** eta makurrik gabe egina. Gotzon Garate

Pobreez inguratua, sofrikario eta nigarren erdian bere saria kausitzen du **lainoki**. Herria

Alta, **lañoki** idazteak ez dakartza hizkuntzaren zentsura edo pobrezia. Janbattitt Dirassar

Bere esperientziaren berri eman zidan **lañoki** eta xeheki. Daniel Landart

Iragan da beraz, eta arras **lañoki,** lurralde-bozen lehen itzulia. Herria

Bozak ez direla batere **lañoki** joan, alde batetik agertu konduak ez direla nihundik ere xuxenak izaiten ahal eta bestalde presidentaren aldekoak dena larderia eta mehatxu ibili direla bozak ziren egunean ere ainitz tokitan, jendea kasik bortxatuz beren hautagaiaren alde bozkatzerat. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahal bezen lañoki** (8); **lañoki eta sanoki** (8); **lañoki iragan** (6); **sanoki eta lañoki** (3)

---

lanordu ik **lan 27.**

---

### lañotasun *(orobat **lainotasun** g.er.) iz* laua edo apala denaren nolakotasuna.

Usoaren **lañotasuna** eta maitasuna, Izpiritu Sainduaren **lañotasun** eta maitasun neurrigabearen itxura da, hura baita Aitaren eta Semearen **lañotasun** eta maitasun neurrigabearekin substantziaz bat egina. Piarres Xarriton

Ez duzu agian harridurarik gabe ikusiko horrenbertze **lañotasun** eta horrenbertze bilaukeria elkar litezkeenik. Jon Muñoz

---

lanotsu ik **lainotsu.**

---

lanotu ik **lainotu.**

---

lanotu ik **lainotu.**

---

### lañoxerra *iz*

**Lañoxerra** martian noraino, apirilean edurra haraino. Pello Zabala

---

## lanpa 1 *iz* lanpara. ik **argiontzi.**

Goizaldera egiazki lozorroan sarturik, lehen arrabotsak ez ditut aditu ez eta ere ikusi anitzek berekin dauzkaten eta goizik pizten dituzten **lanpak**. Piarres Aintziart

Hain zen itsugarria hango argizarien, **lanpen** eta damen soinekoen distira. Gelako sabaiaren erdi-erdian **lanpa** parpailadun magenta bat zegoen zintzilik. Jose Morales

**Lanpa** elektrika nahi duzuea? Aurelia Arkotxa

Elektrizitatezko **lanpek,** ilargi distiratsu zurbilen gisan. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

**Lanpa**-argiak erakarritako zomorroak ematen dute. Anjel Lertxundi

· Petrola **lanpa** batetik dantzan ari da argi hori flako bat, ke beltz baten xingola firurikan eskapatzen dela. Michel Oronoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **petrola lanpa** (4)
> **petrola lanpako argi** (3)

---

# **lanpara** 1 *iz* argiontzia.

Mahai gaineko **lanpara** piztu dut: baliteke haren argitasunak kontra egitea egunekoari. Monika Etxebarria

Erdiko **lanpara** baizik ez zen gelditu pizturik. Monika Etxebarria

Aire bolada batek **lanpara** itzaltzen du. Juan Garzia

**Lanpara** batek argiztatzen zuen nasa, baina haurren aurpegiak itzalpean zeuden. Juan Garzia

Hiru **lanparak** argi-eremu txiki batzuk eratzen zituzten ilunpean. Jon Muñoz

Mably kafetegiak hamabi bonbilla elektriko dauzka, eta haietako bi baizik ez zeuden pizturik, bata kutxaren gainean, bestea sabaiko **lanparan**. Monika Etxebarria

Kaleko **lanparak** isurtzen zuen mamu-gisako argi bat zegoen gelan. Irene Aldasoro

Atzean *chaise longue* morea, eta, ondoan, **lanpara** txikia mahaitxo gainean. Alberto Barandiaren

Mesanotxeko **lanpara** modernista. Iban Zaldua

**Lanpara** sagaratuaren argi-errainura, eleok irakurri, eta oro jakin zuen. Juan Garzia

Amaieran, goian, **lanpara** argi-ahul bakarra zegoen barandazko zirkulu batek inguratua. Koro Navarro

Begiak erdi-itsuen antzera bilduz, paretako **lanpara** baten argi hotz eta dardartia lagun. Xabier Olarra

Eraztuna edo **lanpara** igurtzi, eta jeinua azaltzen da. Bernardo Atxaga

**Lanparen** mitxa goiti eta beheiti erabiltzen du argiaren hobetzeko. Michel Oronoz

**Lanpararen** pantailak aurpegiaren goialdea ebakitzen zien. Lopez de Arana

**2** (mota adierazten duen izenlagun edo izenondoarekin)

Ez da erraza izaten gasezko **lanpara** piztea. Koro Navarro

Alkoholezko **lanpara** baten argitan. Anton Garikano

Leihorik gabeko gela bat ikusi zuen, kerosenozko **lanpara** batez argitua, lanpararen tximinia kedarrez belztua. Koro Navarro

Mahaiaren erdian jarritako karburozko **lanpara** zaharraren atzetik. Paddy Rekalde

Tximisten argia bakarrik, kuartzozko **lanpara** batenaren antzekoa. Joxe Austin Arrieta

Errezeletan oraindik arku voltaikozko **lanpara** baten erlantza ageri zen. Joxe Austin Arrieta

Intentsitate erregulagarriko **lanparak**. Aingeru Epaltza

Kirxaren kafeko **lanpara** elektrikoak. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Honela ez dago **lanpara**-estalki horiek ikusteko modurik. Mirentxu Larrañaga

Errefektorioko **lanpara**-estalkian margoturik zeuden apostoluak bezala. Juan Garzia

**Lanpara**-zutoinaren ondotik aldendu gabe. Irene Aldasoro

**Lanpara**-argi bat ikusi genuen guregana hurbiltzen. Mirentxu Larrañaga

Gona-barren **lanpara**-argiak sotilki argituak. Irene Aldasoro

Horman ezkutatutako **lanpara** multzo batetik argi-habiak sortu ziren. Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Thomas Alva Edison asmatzaile estatuabatuarrak goritasun **lanpara** sortu zuen. Berria - Harian

Ez zuen mahai gaineko petrolio-**lanpara** piztu. Ander Irizar

Sabaian esekia zegoen gas **lanpara** handi batek argiztatua. Patxi Zubizarreta

Ohe ondoko olio-**lanpara** piztu zuen. Xabier Montoia

Sodio-**lanparen** argiarekin. Xabier Olarra

Gela partekatu hartan, non gau-**lanparen** argi berdeak hobi sakonak zabaltzen baitzituen hire gelakide gaixoen matrailetan eta betazpietan. Eskarne Mujika

Ikusi duzu senarra oin-**lanpararen** argi horian. Lourdes Oñederra

Ingalaterrako burdina forjatuko eskulanak; Italiako sabai-**lanparak**. Jon Muñoz

Lau besoko armiarma **lanpara** bat zintzilik baitzegoen. Karlos Zabala

Proiekzio **lanparen** intentsitatea jaso zenean (arku-**lanparak** erabiltzen hasi zirenean batez ere), 24 Hz-z goiti igo zen maiztasun kritikoa, eta segundoko 24 irudi proiektatzean berriro azaldu zen txinpartaketa. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **armiarma lanpara** (5); **gas lanpara** (3); **gau mahaiko lanpara** (4); **lanpara baten argi** (4); **lanpara baten argitan** (3); **lanpara baten azpian** (3); **lanpara handi** (3); **lanpara hartu** (4); **lanpara itzali** (3); **lanpara piztu** (38); **lanpara piztua** (3); **lanpara txikia** (3); **mahai gaineko lanpara** (3); **mahaiko lanpara** (6); **mahaiko lanpara piztu** (5); **olio lanpara** (5); **petrolio lanpara** (3); **sabaiko lanpara** (3)
> **olio lanparak** (3)
> **lanpararen argi** (4); **lanpararen argipean** (3); **lanpararen argitan** (10)
> **lanparen argi** (4)

---

# **lanparagile** *iz* lanparak egiten dituen pertsona.

Han esan zioten **Lanparagileen** Kalea non zegoen. Agustin Otsoa

---

# **lanparatxo** 1 *iz* lanpara txikia.

Argia itzali eta beheko **lanparatxo** estalki gorriduna piztu zuen. Jose Morales

Gizonari ahaztu egin zitzaion goiko **lanparatxoa** itzaltzea. Jose Morales

Irakurtzen ari zen, oheburuko **lanparatxoa** bakarrik piztuta. Aitor Arana

**Lanparatxoak** dira umeen loa zaintzen duten begiak, ama joandakoan ere erne geratzen direnak. Julen Gabiria

**2** (hitz elkartuetan)

Darling andreak ohean sartu zituen umeak, gau-**lanparatxoak** piztu ostean. Julen Gabiria

**lanparda** *iz* aingiraren antzeko arrain aho-biribila itsasoan *(Petromizon marinus)* edo ibaietan *(Petromizon fluviatilis)* bizi dena.

Ibaian arrain ugari egoten da: zarboak, tenkak, [...] eta, batzuetan, **lanparda** txikiek zirikatuta, gaizkata sendoak ere igotzen dira ibaian gora. Koldo Biguri

---

**lanpas** *iz* etxe bateko atearen kanpoaldean, lurrean, oinetakoen zoruak garbitzeko jartzen den alfonbra modukoa, lodia eta latza.

Oinetako azpiak igurzten ditut ate aurreko **lanpasean**. Anjel Lertxundi

Giltza sarrerako **lanpasaren** azpian aurkitu zuen. Iñaki Iñurrieta

Bat-batean Piramok, **lanpasean** lotan dagoen tokitik, mar-mar sor bat atera du. Itziar Otegi

Dama zahar batek aterako **lanpas** bat ekarri zuen. Julen Gabiria

Alfonbra eta **lanpas** guztiak. Julen Gabiria

---

**lanperna** **1** *iz* itsasbazterreko haitzei atxikirik bizi den oskolduna, hatz baten itxura duena eta jateko ona dena*(Pollicipes cornucopia* edo *Mitella pollicipes).*

**Lanpernetan** ez, eta beste zertan ariko zen, bestela? Anjel Lertxundi

Harralde hura oso toki ona delako **lanpernetarako**. Anjel Lertxundi

Gerrian daramadan kalamuzko zakua **lanpernez** betetzeko. Anjel Lertxundi

Jarri abakandoak eta **lanpernak** egosten biharko menurako. Paddy Rekalde

**Lanpernak** estreinakoz jaten dituenaren berri-poz atzera-aurrera horrekin. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan)

**Lanperna**-biltzaileren bat behar zuen, itsasbazter hark guztiak fama zuen-eta hartarako. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lanperna biltzaileren bat** (3)

---

**lanpernazale** *iz* lanpernak biltzen dituen pertsona.

Bertaraturik, harro mutu beldurrak ekarriko genituen akordura olatu garratz batek iragan urtean handik eraman zituen **lanpernazaleak,** herritarrak, koadrilako izendatzen genituenak orain, gure burua hondamen hartako bizigordeak sinetsita. Koldo Izagirre

Dedukzio bat da gizon beltzez jantzia **lanpernazalea** zela esatea. Anjel Lertxundi

---

**lanpetu,** lanpe(tu), lanpetzen **1** da *ad* lana asko izan.

Eman iezaiezue lan astunagoa, are **lanpetuagoak** egon daitezen. Jose Antonio Mujika

Marta, berriz, **lanpetua** zebilen etxeko zereginetan. Elizen arteko biblia

Ez du deus aurkitu, hain dago **lanpetua**. Itziar Otegi

Hara eta hona zebilen jendea, eta oso **lanpetuak** ziruditen denek. Xabier Aranburu

-Ez diat ahoa hik bezain **lanpetua**. Aingeru Epaltza

• **2** du *ad* lan asko eginarazi.

-Bazakiat Ana gaixoa, praktiketakoa, **lanpetu** duzuela egun hauetan atal guztia haren gain jarrita. Aingeru Epaltza

-Uztazu, ez zaitut alferrik **lanpetu** nahi. Anjel Lertxundi

Ilobak espero baino gutiago **lanpetzen** zuen nonbait. Aingeru Epaltza

Aitatxik maiz **lanpetzen** zituen Donapaleuko notarioak, gazteluzaintzaren administrazioari loturiko izkribuekin. Aingeru Epaltza

**3** (era burutua izenondo gisa)

Haien bizitzetan goiasmo berriak nagusitu ziren, aita **lanpetuaren** bizimolde eta arduretatik urrun. Gizon **lanpetua** da Olabe. Patxi Zubizarreta

Oinezko **lanpetu** banaka batzuen urratsek hots egiten dute espaloietan. Karlos Zabala

Gizon **lanpetuaren** itxurak eginez. Fernando Rey

Giza abaraska **lanpetuak** diruditen bi geltoki zalapartatsuen arteko parentesia bat: trena abiatu orduko, bidaiariari ahaztu zaio lanera doan ala lanetik datorren. Anjel Lertxundi

Goiz benetan **lanpetua** izango zuten Agustinak eta Leirek. Aitor Arana

Fisika teorikoaren unibertso **lanpetuan** paradisurik baldin bazen, Mendebaldeko Europan aurkitzen zen. Fernando Morillo

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lanpetu** itxuraz aditzen zion kazetariak Gabini sail berriaren eskaintza Beti presaka zebilen, ez zuen inoiz berriketan astirik galtzen, beti **lanpetu** aurpegia zeukan. Iñaki Iñurrieta

**5** ***lanpeturik***

Jostetan **lanpeturik,** susmatzen dut. Oskar Arana

Emakumea oso **lanpeturik** dago, hezurrak arrautzak balira bezala jartzen bere koilaran, arretatsu. Monika Etxebarria

**Lanpeturik** dago oso. Josu Zabaleta

Ezar iezaiezue lan astunagoa eta beude **lanpeturik**. Elizen arteko biblia

**Lanpeturik** ibiltzeak on egiten zidan. Alberto Ladron Arana

**Lanpeturik,** ito antzean pixka bat, baina gaizki ez. Oskar Arana

Lisari, senarra **lanpeturik** eduki nahian, odolkia goizez betetzea bururatu zitzaion. Karlos Zabala

**Lanpeturik** eduki behar nuen neure burua. Oskar Arana

Azken bi egunetan arrunt **lanpeturik** ibili gara, sobera **lanpetu** eta nekaturik irakurri edo idazteko. Xabier Montoia

**6** ***lanpetuta***

**Lanpetuta** nengoelako itxurak egin nituen. Koro Navarro

**"Lanpetuta** zaude?", galdetu zidan. Bernardo Atxaga

Neskame azal-iluna **lanpetuta** zebilen egongelan. Mirentxu Larrañaga

Egunez etxekoandreak eltze artean **lanpetuta** ibiltzen dira, baina ilunabarrean askotan agertzen zitzaizkion Taibeleri lagunak berriketan aritzera. Koro Navarro

**-Lanpetuta** zebilek egun hauetan, Zaldibiako gorpuak agertu zirenetik dei mordoa jasotzen ari baita. Xabier Etxabe

Eguzki eztia, arratsalde-erdiaren baretasuna, erleak **lanpetuta** lore-zelaian. Oskar Arana

**-Lanpetuta** harrapatu nauzu, erabat, oraindik ez dut egunkaria hartzeko astirik izan -erantzun zion. Migel Angel Mintegi

Baina, behin hara helduta, **lanpetuta** eduki gaituzte atsedenik gabe. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gizon lanpetua** (4); **oso lanpetua** (4)

**oso lanpetuak** (3)

**lanpetuegi ibili** (4)

**guztiz lanpeturik** (3); **lanpeturik dabil** (8); **lanpeturik dago** (4); **lanpeturik eduki** (4); **lanpeturik egon** (3); **lanpeturik ibili** (7); **lanpeturik nabil** (3); **lanpeturik nago** (6); **lanpeturik zebilen** (6); **oso lanpeturik** (21); **oso lanpeturik ibili** (5)

**lanpetuta baitzegoen** (3); **lanpetuta dabil** (10); **lanpetuta daude** (3); **lanpetuta ibiliko** (7); **lanpetuta ibiltzen** (6); **lanpetuta nabil** (5); **lanpetuta nago** (7); **lanpetuta zebilen** (7); **lanpetuta zegoen** (4); **nahiko lanpetuta** (3); **oso lanpetuta** (22); **oso lanpetuta nago** (4); **oso lanpetuta zegoen** (3); **oso oso lanpetuta** (3)

---

## lanpide ik **lanbide**.

---

## **lanpostu** *(orobat **lan postu** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lanpostu** agertzen da)* **1** *iz* enplegua. ik **postu 12**.

Gavard, bere aldetik, **lanpostu** bat bilatzen ari zen Florententzat. Karlos Zabala

Badakizu zein nekosoa den **lanpostu** bat aurkitzea. Karlos Zabala

Gazte guztiek **lanpostu** baten jabe -mirabe- izateko duten eskubidearen alde. Iñaki Segurola

-Zuen aitaren **lanpostu** bera beteko duzue. Patxi Zubizarreta

Langune askotan enpleguen eraldaketa handia izan da: **lanpostu** tradizionalak desegin eta beste kontratu-lotura duten **lanpostuak** sortu dira. Iñaki Heras

Gero eta leku gehiagotan, **lanpostu** bat izateak ez du bermatzen bizi-maila duin bat izatea. Iñaki Heras

Gertatzen dena da **lanpostu** gutxi daudela. Fernando Rey

AEBetako ekonomiak 144.000 **lanpostu** gehiago sortu zituen iragan hilabetean. Berria - Ekonomia

Soldatak izozten ez badira 30.000 **lanpostu** arriskuan daudela dio VWk. Berria - Ekonomia

Mercedes Benzek Gasteizko lantokian 750 **lanpostu** kentzeko asmoa duela. Berria - Ekonomia

Demokratek oroitarazi dute Bush agintaldian dagoenetik milioi bat **lanpostu** galdu direla. Berria - Ekonomia

**2** (izenondoekin)

**Lanpostu** finko bat hartu zuen Robby's saltokian. Koro Navarro

Irakasle titular eta katedratikoak, alegia, **lanpostu** finkoa eta soldata polita dutenak. Joxerra Garzia

«460 **lanpostu** egonkor» sortzen lagunduko du Sustatuk aurten. Berria - Ekonomia

Zintzo bizi, **lanpostu** ona lortu eta agian ezkondu. Lopez de Arana

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egunkarietako ekonomia-orriak irakurri, **lanpostu**-eskaintzak bereizi, kurrikulumak bidali hara eta hona. Xabier Mendiguren Elizegi

Frantsesezko liburu batean (Europako **lanpostu** lehiaketetan erabiltzen dena). Jarduera horren inguruan zuzeneko eta zeharkako **lanpostu** sorkuntza handia gertatu da. Edorta Jimenez

Lehen industria iraultzak, lurrin-makina eta irun-makina automatikoak ezarriz gauzatu zenak, langileen **lanpostu** galera eta langabezia sortu zituen. Iñaki Heras

Gasteizko Michelin enpresan **lanpostu** murrizketa izan daitekeela. Berria - Ekonomia

Lanaldi murrizketak gertatzen direnean sortzen den **lanpostu** kopurua. Iñaki Heras

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bulego-**lanpostu** bat eman zion Clint-ek, eskuila-lantegi bateko ardura baitzuen bere gain. Mirentxu Larrañaga

Eskola pribatuetako irakasle-**lanpostu** guztiak orduantxe bete berriak zeuden. Oskar Arana

Irakasle **lanpostu** libreen zerrendan hautatu nuen bigarren eskola Nafarroan zen, herri txiki batean. Agurtzane Juanena

Herriren bateko mediku-**lanpostu** bat ematen didaten begiratuko dut. Josu Zabaleta

Gizarte-albisteeen kronikari-**lanpostu** bat lortuko dit... Lopez de Arana

Campuseko dantzari-**lanpostu** bat eskuratzeko ahaleginetan ari naiz... Lopez de Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**administrazioko lanpostu** (3); **irakasle lanpostu** (3); **lanpostu arriskuan daudela** (3); **lanpostu asko** (11); **lanpostu asko galdu** (3); **lanpostu bat aurkitu** (3); **lanpostu bat lortu** (3); **lanpostu bat lortzeko** (5); **lanpostu bat sortzen** (4); **lanpostu baten jabe** (3); **lanpostu berri** (32); **lanpostu berri bat** (5); **lanpostu berri sortuko** (7); **lanpostu berria** (7); **lanpostu berriak** (14); **lanpostu berrien** (4); **lanpostu betetzeko** (8); **lanpostu daude** (4); **lanpostu desagerrarazi** (3); **lanpostu desagertu** (6); **lanpostu desagertuko** (3); **lanpostu deuseztatu** (3); **lanpostu duina** (4); **lanpostu duinak** (4); **lanpostu eragin zituzten** (3); **lanpostu erdi** (3); **lanpostu ezabatu** (4); **lanpostu ezabatuko ditu** (4); **lanpostu finko** (3); **lanpostu finkoa** (5); **lanpostu finkoen** (3); **lanpostu galdu** (11); **lanpostu galdu dira** (6); **lanpostu galduko** (11); **lanpostu galera** (3); **lanpostu galtzen** (3); **lanpostu kendu** (4); **lanpostu kenduko** (6); **lanpostu kenduko dituela** (3); **lanpostu kentzeko** (6); **lanpostu kentzeko asmoa** (5); **lanpostu kolokan** (3); **lanpostu kopurua** (3); **lanpostu murrizketa** (6); **lanpostu murrizketak** (3); **lanpostu murrizketarik** (3); **lanpostu on bat** (3); **lanpostu ona** (5); **lanpostu sortu** (26); **lanpostu sortu ditu** (4); **lanpostu sortu ziren** (7); **lanpostu sortuko** (13); **lanpostu sortzea** (3); **lanpostu sortzeko** (4); **lanpostu sortzen** (4); **lanpostu suntsitzeko** (3); **lanpostu ugari** (4); **lanpostu zuzen** (4); **mila lanpostu** (9); **milaka lanpostu** (10); **milioi lanpostu** (12); **milioi lanpostu sortu** (3)

**denbora osoko lanpostua** (3); **funtzionario lanpostua** (3); **lanpostua betetzeko** (3); **lanpostua bilatu** (4); **lanpostua eskaini** (4); **lanpostua galdu** (9); **lanpostua galduko** (12); **lanpostua galtzeko** (4); **lanpostua kolokan** (3); **lanpostua lortu** (7); **lanpostua lortzeko** (5); **lanpostua utzi** (4); **lehen lanpostua** (5); **lortu zuen lanpostua** (3)

**langileen lanpostuak** (6); **langileren lanpostuak** (7); **lanpostuak arriskuan** (3); **lanpostuak betetzeko** (10); **lanpostuak ezabatu** (3); **lanpostuak galdu** (6); **lanpostuak galtzen** (5); **lanpostuak kolokan** (5); **lanpostuak mantentzeko** (3); **lanpostuak sortu** (12); **lanpostuak sortuko** (9); **lanpostuak sortzea** (5); **lanpostuak sortzeko** (11); **lanpostuak sortzen** (8); **sortzen diren lanpostuak** (3)

**lanpostuaren hizkuntz eskakizuna** (3)

**lanpostuei eustea** (5); **lanpostuei eusteko** (5); **lanpostuei eutsi** (5); **lanpostuei eutsiko** (3)

**lanpostuen defentsan** (5); **lanpostuen etorkizuna** (3); **lanpostuen galera** (4); **lanpostuen kopurua** (7); **lanpostuen sorkuntzak** (3); **lanpostuen sorrerari** (3)

**lanpostuetako titularretatik** (3)

**lanpostura joan** (3)

**lanposturik sortu** (3)

**lanpostuz aldatu** (3); **lanpostuz aldatzen** (3)

---

## **lanproi** *iz*

Marrazo eta **lanproietan,** kartilagozkoa da eskeletoa; kartilago zeken delakozko hori gai gogor, malgu eta oso egokia da itsasoan lasai bizitzeko, grabitatearen eraginik ia batere gabe. Irene Aldasoro

---

## lanrober ik **land-rover**.

lansail ik **lan 28**.

---

**lansari** *(orobat **lan sari** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lansari** agertzen da)* **1** *iz* laneko saria; bereziki, lanagatik egun, aste edo hilero dirutan ordaintzen dena. ik **soldata**.

Hori dela eta, **lansaria** lana burutzeko epearen araberakoa izango da: sei mila euro aste betean bada eta erdia epea luzatuz gero. Migel Angel Mintegi

Mertzenariotako batek egunean 1.000 dolarreko **lansaria** irabaz dezake Iraken. Berria - Mundua

Enplegu zirtzil bat eman zioten, urtean hogeita hamar edo berrogei errublo **lansari**. Jose Morales

Zelai militar britainiarretan zerbitzatzen hasi zen eta, eguneko lehengo hiru piastren ordez, hogeita hamarreko **lansaria** jasotzen zuen. Patxi Zubizarreta

**Lansaritzat** jasotako errubloak behin eta berriro zenbatzen. Jose Morales

Presidenteordeak, berriz, 241.422 euroko **lansaria** du. Berria - Mundua

Zor baitzaio langileari bere **lansaria**. Piarres Xarriton

**Lansariaren** gehiena aurrezten saiatuko naiz eta, gerra amaitutakoan [...] beste bizartegi bat zabalduko dut Sikat Al-Gadida kalean. Patxi Zubizarreta

Ez utzi biharamunera arte ordaindu gabe langilearen **lansaria**. Egunean eguneko **lansaria** emango diozue, eguzkia sartu baino lehen. Elizen arteko biblia

Abere nabarrak izango dituzu **lansari**. Jose Antonio Mujika

Izan ere, morroiari **lansaria** zaio axola, eta ez ardiak. Elizen arteko biblia

Datorren urte hasieran, antzinatasunaren soldata plusa bost urteko epean jasotzetik hiru urteko epean jasotzera pasako dira, eta 12 **lansaritan** ordaindu ordez, 15 **lansaritan** ordainduko zaie. Berria - Euskal Herria

Ez badut Gizarte Segurantzara kotizatzen segitzen gutxieneko **lansariarekin** gelditukoo naiz. Berria - Ekonomia

Lan errenten gaineko kontrola oso zorrotza da, **lansariari** eginiko atxikipenei esker. Berria - Ekonomia

**2** irud/hed

Zintzoaren **lansaria** bizia da, gaiztoaren irabazia porrota. Elizen arteko biblia

**3** (hitz elkartuetan)

**Lansari**-ordainketa. Elizen arteko biblia

**Lansari** sistema eta osagarri gehigarrien dekretu zirriborroa negoziatzeko. Berria - Euskal Herria

---

lant ik **landu**.

---

lantalde ik **lan 30**.

---

lantare ik **landare**.

---

**lantegi** *(orobat **lantei** g.er.)* **1** *iz* eskuzko lan bat egiten den tokia. ik **tailer**.

Kaligrafiako **lantegi** zabaletan, eskribau-oste handi bat ari zen buru-belarri lanean, etenaldirik gabe. Jon Muñoz

Istripua tranbia urbanoen **lantegi** zentralean. Anton Garikano

Bitxigile soil baten **lantegi** soilean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lulu Segovia kaleko **lantegi** baterako brodatzen aritzen zen, eta egunean hiru pezetaraino irabazi ohi zuen. Josu Zabaleta

· Ertz batean Émile-Goudeau plaza du, iturri bat eta bi aulkirekin, eta Bateau-Lavoir, Montmartreko margolarien **lantegi** zaharra. Jon Muñoz

**2** fabrika, faktoria.

Familia onekoa izaki, herentzia bikaina jaso, eta diru horrekin adreiluzko tximiniatzarrez jositako **lantegi** erraldoi bat eraiki zuen, hiriko auzunerik osasungaitz eta ilunenean. Iban Zaldua

Zentral elektrikoetan eta beste **lantegi** batzuetan hozteko nahiz prozesu kimikoetarako erabiltzen den ura. Irene Aldasoro

Etxe-hondakinak errausteko **lantegi** bat, laurogei metrora. Eskarne Mujika

Bere lan-bizitza luzean, **lantegi** asko pasau ondoren, azken aldi luzea Getxoko Areetako Iberdrolan egin eban, oraindino sasoiko erretirau zalarik. Xabier Amuriza

SAFAM **lantegi** horretan ba dira 130 langile. Herria

Mondragon Corporacion Cooperativa (MCC) egiturak 20 **lantegi** berri idekiko ditu herriz kanpo, bost urte barne. Herria

Behean, ibaiaren ertzean, hiri guztia azukrez hornitzen duen Domino enpresako **lantegi** erraldoia dago. atera ziren zelai honetatik Frantziako **lantegi** nagusi batera euskaldun pila bat, burdinazko lanetan iaiotuak. Harkaitz Cano

Opelen bi **lantegi** geldiarazi ditu Bochumeko langileen lanuzteak. Berria - Ekonomia

Volkswagen margotzeko **lantegi** berria eraikitzen hasiko da asteartean. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

1833ko Legeak eratu zuen **lantegi**-ikuskaritza urrats bat izan zen beste mota bateko herri-administrazioaren garapenean. Iñaki Mendiguren

Eguraldiak eragindako uzta txar, gaitz, greba orokor, **lantegi**-ixte, lurrikara, nazioarteko merkataritza-bideen bat-bateko butxadura eta antzekoengatik. Iñaki Mendiguren

**Lantegi** proiektua idazteko eta negoziatzeko. Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zurgin-**lantegi** baten ondotik igaro ginen, eta gero ile-apaindegi eta azoka baten albotik. Juan Kruz Igerabide

Mauleko espartin-**lantegi** batean egiten zuen lan, eta igande pasa zebilen Baionan. Rafa Egiguren

Artista-**lantegi** guztiak bezala, iparralderantz orientaturik zegoen hura ere. Jon Muñoz

Lisaketa **lantegiak** ematen zuen dirua ez zen aski, jakina, etxeko beharrak asetzeko. Josu Zabaleta

Alfonbra **lantegi** batean ari zen. Gotzon Garate

Kapera tallur **lantegi** bilakatu zuten. Marzel Etxehandi

Hilabete batzuk eman zituen Toursen, moda-**lantegi** batean aprendiz. Joxan Elosegi

Amsterdameko (eta beste hainbat lekutako) diamante-**lantegi** txikiak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Alemanian kontrabandista izana zen, eta koadernatze **lantegi** bat zabaldu eta aberastu egin zen. Koro Navarro

Kimikari nintzen kimika-**lantegi** batean, kimika-laboratorio batean (hori ere kontaturik dago jadanik), eta lapurreta egiten nuen jateko. Juan Garzia

Ama bonboi **lantegi** batean hasi dela. Pablo Sastre

Auzotik pare bat kilometrora zegoen paper-**lantegi** batera. Juan Kruz Igerabide

Heldu den apirilean abiatuko dela Bardozeko konpost **lantegi** hori. Herria

Atzera begira geratu zen, kautxu- **lantegi** alderantz, handixe aterea baitzen eguneko lan-saioaren ostean. Mirentxu Larrañaga

Hiri-erditik urrin, hiru kuartel eta arma **lantegi** bi egozan. Lutxo Egia

Garabi- **lantegi** bat, gero *Jaso* izena hartuko zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Literatur **lantegi** bat antolatzeko ideia bururatu zaio Lujanbiori. Anjel Lertxundi

Garagardo- **lantegi** bat egon behar din inguruan, kale guztian zegon-eta malta-kirats desatsegina, jasanezina. Anton Garikano

Garai hartan Lodzeko Ehun eta Larruen Estatu **Lantegia** izena zuena. Iban Zaldua

**5** lana, egitekoa. ik **langintza.**

Osabak ekarritako artikulua buruan dudala etorri naiz Donostiara, eta egia esateko ez da **lantegi** zaila izan aurkitzea. Xabier Etxabe

Jakina, ez duk **lantegi** erraza izango, buruhauste handiak ekarriko zizkidak, eta beldurra ere ematen dik. Jose Morales

Hark garraiatzen ziguan posta, eta **lantegi** horretan segitu zian gortu ondoren ere. Juan Garzia

Ez da, ordea, **lantegi** makala. Iñigo Aranbarri

Larrutako **lantegian,** bada, emakumeak gozamenari begiratzen omen diola, gozatzeari eta atsegin hartzeari, eta gizonezkoak berriz, gozarazteari, atsegin emateari eta emakumea gozatzen ari dela ikusteari. Iñaki Segurola

Txerria hazten jardun eta garaia datorrenean, eta txerrikitarako behar dugulako, behar bezala hiltzen badugu, ba horixe, hil egiten dugu, txerri-hiltzeak dakartzan **lantegi** guztiak hartzen ditugularik. Iñaki Segurola

Beti baserriko **lantegi** astunari emana. Josetxo Azkona

Galdetu diot zertan ari zen alferrikako **lantegi** astun hartan. Josetxo Azkona

**Lantegi** horretan, dena den, bere maisu Antonio Zabalak ez bezala jokatu duela esanen nuke; izan ere, ahozko literaturaren datu-biltzera mugatu gabe, Perurena ipuin, kanta eta kontakizun horien interpretazioa azaltzen saiatu da. Patziku Perurena

**6** ***lantegi gune*** *(orobat* ***lantegigune*** *g.er.)*

Toki hortan **lantegi gune** baten eraikitzeko asmoa daukate. Herria

Hazparneko herriak 15.820 m2 erosten ditu Pinadetako **lantegi gunearen** zabaltzeko. Herria

Alabainan, Aldatu **lantegi gunean** ez baita aski tokirik galde guzieri ihardesteko. Herria

Irulegin bizi dira Gibelin jaun-andereak hamabortz bat urte huntan, herri hortako **lantegi gune** sahetsean. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**ehungintza lantegi** (5); **industria lantegi** (4); **lantegi bat okupatu** (5); **lantegi eta elkarte** (4); **lantegi gune** (4); **lantegi handi** (11); **lantegi integrala** (4); **lantegi itxiko** (5); **lantegi ohiaren** (4); **lantegi ttipi** (6); **lantegi txiki** (4); **lantegi zaila** (7); **lantegi zaila izan** (4); **lantegi zibilak** (4); **literatur lantegi** (6)

**baionako lantegia** (5); **gasteizko lantegia** (4); **gure lantegia** (4); **landabengo lantegia** (4); **lantegia erosi** (5); **lantegia itxi** (22); **lantegia itxiko** (4); **lantegia ixtea** (10); **lantegia ixteko** (18); **lantegia ixteko asmoa** (5); **senpereko orma lantegia** (4); **sestaoko lantegia** (6); **trapagarango lantegia** (5); **zamudioko lantegia** (4)

**landabengo lantegiak** (4); **lantegiak itxi** (5); **lantegiak ixteko** (4)

**landabengo lantegian** (6); **lantegian ari** (6); **lantegian lan egiten** (4); **lantegian sartu** (5); **sokoa lantegian** (4)

**baionako lantegiaren** (4); **gasteizko lantegiaren** (4); **lantegiaren etorkizuna** (17); **lantegiaren etorkizuna ziurtatzeko** (4); **lantegiaren itxiera** (6)

**lantegiko beharginak** (6); **lantegiko enpresa** (6); **lantegiko langile** (5); **lantegiko langileen** (5); **lantegiko zuzendaritzak** (5); **nafarroan duen lantegiko** (4); **sestaoko lantegiko** (4); **trapagarango lantegiko** (4)

**lantegira joan** (6)

---

## lantegiburu *(orobat* ***lantegi-buru****)* *iz* lantegi baten burua.

Batean arrantzaleekin, bestean **lantegiburu** batzuekin, bestean berdin UMP alderdiko adixkide zonbaitekin... Herria

Mintzalari: Peio Olhagaray Komertsaldegikoa, Henri Lauque turismaburua, Jean Pierre Ithurbide Eusko Jaurlaritzaren Garapen Agentziakoa, André Garreta **lantegiburua**. Herria

Solasaldi horietan entzun ahal izan dira **lantegi-buruak** (Beñat Castorene, Ramuntxo Camblong), sindikalistak [...]. Herria

---

## lantegigintza *iz*

Edo Frantzian, [...], **lantegigintza** pribaturik noizbehinka izan gaitezkeen zerga-ordaintzaleen sakolatik zurrupatu laguntza publikorik erdietsi ezean. Berria - Kultura

---

lantegigune ik **lantegi 6**.

---

## lantegiratze *iz* lantegira eramatea.

Sagarretik juserat, sei hilabete nunbeitan behar dira: biltze, **lantegiratze,** garbitze, bereizte, xehakatze, tinkatze, erakitze, botoilatze, jastatze... Herria

---

lantei ik **lantegi**.

---

## lantoki 1 *iz* lan egiten den tokia; norbaitek lan egiten duen lantegia edo bulegoa.

Arcelorrek hamar **lantoki** ditu: hiruna Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan, eta bakarra Araban. Berria - Ekonomia

Enpresako buruak Alemaniako **lantoki** nagusitik 6.000 langile kaleratzeko mehatxua egin du. Berria - Ekonomia

Berez, **lantoki** eta jatetxe guztietan, eta tabernen %90ean debekatu nahi dute erretzea. Berria - Gaiak

Erresistentzia palestinarrak Al Kassem koheteak egiten dituen **lantoki** klandestinoen bila. Berria - Mundua

Buna-Monowitz-eko fabrika osoa, zortzi kilometro koadro **lantoki** ziklopekara, pentsa, "juduak babestu eta bizirauten laguntzeko" xedez eraikia zela. Juan Garzia

Nik 1946-47 urte bitartean bernizgintzaren hastapenak ikasi nituen **lantoki** berean. Juan Garzia

**Lantoki** atsegina izan behar zuela hark pentsatu nian, lankideek elkar hain maitekiro tratatzen bazuten. Joxean Agirre

Jauretxe zaharrek itxita zeuzkaten beren ate handiak; atari batzuetan, larru-ontzaileen **lantoki** bihurturik, larruak lerro-lerro zintzilik ikusten ziren. Koro Navarro

Sekula ikusi dudan gelarik bereziena dun **lantoki** hori. Anton Garikano

**Lantoki** nuen laborategia txikitxoa eta moldatzen zaila izanik, organismo era berean txikitxo bat baino ezin egokitu. Juan Garzia

Espaloia bizileku eta **lantoki**. Ramuntxo Etxeberri

**2** (hitz elkartuetan)

Berregituratzea behar ez izateko nolako **lantoki** eredua nahi duen galdetu zioten sindikatuek buruzagitzari. Berria - Ekonomia

· Hor nahi luke artista bikoteak altxatu arte **lantoki** ideki bat. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lantoki berria** (4)
> **gasteizen duen lantokia** (4); **lantokia ixteko** (6); **lantokia ixteko asmoa** (4); **lantokia jarri** (3)
> **lantokian erretzea** (6)
> **landabengo lantokiaren** (3); **lantokiaren bezero nagusiak** (3); **lantokiaren bideragarritasuna** (3)
> **petrolio lantokiari eraso** (3)
> **lantokietan erretzea** (5); **lantokietan erretzeko** (3)
> **lantokietara joan** (3)
> **lantokira agertu** (3); **lantokira joan** (3)

---

lantresna ik **lan 31**.

---

## lantsu 1 *izond* lan handikoa.

Etxera heldu naiz egun **lantsu** eta nekagarri baten ondoren. Juan Martin Elexpuru

Baina aste-bukaerako egunak **lantsuak** izate-ittuk gu apaizontzat. Txillardegi

Oso bizitza **lantsu** eta emankorra izan zuen artearen munduan. Xabier Olarra

Cauteretsen pasatako egunak **lantsuak** zirenik ezin esan. Txillardegi

Aurten ere beraz, zinez sail **lantsu** eta aberatsa Euskaltzaindiarentzat. Herria

Zamaketa eta zamagabeketa izan zen **lantsuena**. Txillardegi

Baina, nolanahi ere, *Abuztu **lantsu,** ganbara betetsu.* Pello Zabala

Kanpoan jokatu duten lehen partida **lantsua** izan dute Genêts taldeko futbolariek, 1/1 eko emaitzarekin itzuli dira. Herria

**2** lan handia duena.

Sanker atzera-aurrera zebilen, deiadar jario, erle **lantsu** baten gisara. Patxi Zubizarreta

Handikiaren seme alfer **lantsuari**. Joan Mari Irigoien

---

## lantto 1 *iz* lantxoa.

Horiek hola, **lantto** honentzat izenburu baten ondotik nenbilelarik, politika gaiez ariko naizela adierazi nahiz, gogoratu zitzaidan *Res Publica* latinezko hitz elkarte zahar hura. Piarres Xarriton

Nork daki zenbat eta zenbat urtez eskatu dizkion Donoztiri Basagaitzeko semeari bere **lanttoak**. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Antzerki **lantto** berezi horren egilea. Herria

---

## lantu[1] 1 *iz* negarra, marraska.

Badiat bestela ere minik eta **lanturik,** neure erregeagatik negarrez. Juan Kruz Igerabide

Izan ere, kantuen eta **lantuen** mundu honetan maizago ukitzen gaitu, maleruski, **lantuak** kantuak baino. Joan Mari Irigoien

Ez zara sekulan **lantuz** hasiko mila marko galdu dituzulako. Joan Mari Lekuona

Zarata batzuk entzuten hasi ziren hargailutik, **lantu** ahul baten antzekoak. Iban Zaldua

Maxinamendu gaitza duzu itsasontzien **lantua** gauaren erdian. Koldo Izagirre

**Lantua** jotzea baino hobe dela erremedioa jartzea. Joxerra Garzia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

bidea irekiz bere ahotsari emakumeen **lantu**-zinkurinen artean. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hasierako notak alaiak ziren, bozkariozkoak, jolasgarriak; bukaerakoak, ordea, negar **lantuak,** hitsak, malenkoniatsuak. Felipe Juaristi

Hil-**lantuak** gehiago, bizidunen aieneak baino. Felipe Juaristi

Negoziaketa **lantuen** ondotik biltzar nagusira proposatua izan den orientabide idazki berria gehiengo handiz onartua izan da. Herria

---

lantu[2] ik **landu**.

---

## lantuka *adlag* negarrez, intzirika.

Hantxe abiatu ziren, negarrez, gu ere **lantuka** atzean utzirik. Juan Kruz Igerabide

**Lantuka,** otoitz egin nien jainkoei. Juan Kruz Igerabide

Hiritarrak Ulisesen jauregira joan ziren, eta bakoitzak bere gorpua eraman zuen, **lantuka**. Juan Kruz Igerabide

Ni ez nagoenean **lantuka** hasten da; horregatik, joan aurretik zapi beltz batez estaltzen diot kaiola, eta lo egiten du, gaua dela uste baitu. Juan Kruz Igerabide

---

## lanturos *izond* negarrezkoa.

Halakoetan Ramsay andreak, Lilyri amorrazioa ematen zion aldartean, erdi **lanturosa** erdi sumindua, ez zuen gauza ematen ekaitza patxadan gainditzeko. Anton Garikano

---

## lanturu 1 *iz* lantua.

Emakumeak eten egin zuen bere **lanturu** tristea eta begira geratu zitzaidan. Joxean Agirre

Eztarri urratuak eragotzi egin zizun baita min **lantururik** txikiena egitea ere. Hasier Etxeberria

Denek batera jalki zuten **lanturu** alfer bat, eta ondoren sukaldeko ateren batek erantzun zuen. Anton Garikano

Mutila txamarretik libratu zen, **lanturuan** : -zertara zoaz? Anton Garikano

Aho hartatik izuzko hitz auskaloko bat irten bazen, urdina eta larria, **lanturuzkoa** . Karlos Linazasoro

**2** (hitz elkartuetan)

"Brotxea galdu dut - amonaren brotxea", esan zuen Mintak **lanturu** doinu batekin. Anton Garikano

· Harriagatik edo nire negar **lanturuengatik,** ez jakin. Harkaitz Cano

Ostatuko giro berez hitsean ez zuten gaizki eginen lagun galduarendako nire mozkor-**lanturuek** . Aingeru Epaltza

---

# lanturuka *adlag* lantuka.

**Lanturuka** hasi zen ozenki, bere umeek erotu egiten zutela, batez ere Sebastianek, eta ahaztu egiten zitzaiola dena. Bernardo Atxaga

---

# lantxa *iz* txalupa.

1912ko abuztuaren 11n, Santa Klara egunean, San Nicolás **lantxa** arrantzara atera zen Lekeitioko portutik. Bernardo Atxaga

Handik Gurutze Gorriko **lantxetan** lehorreratuko zituzten. Paddy Rekalde

---

# lantxe *adlag* bezalaxe.

Ohitura onak hartzen hasi haz, Anton **lantxe** . Unai Iturriaga

Hotzikara mingarri batek negargura eragin zion, ondoko emakumea lepotik heldu eta ume txikiak **lantxe** negar batean hasteko hunkipena. Unai Iturriaga

Baina Mikel kieto hantxe, taketa **lantxe** . Unai Iturriaga

---

# lantxo **1** *iz adkor* lana.

Lanean hasi zela, tira, **lantxo** bat bazuela. Unai Iturriaga

Egun batez, hots egin, eta, argi zehar bat begietan, niretzako **lantxo** bat zuela esan zidan. Juan Garzia

-**Lantxo** bat aurkitu dut. Unai Iturriaga

Orain dela lau bat urte, telebistarako saioak egiten dituen *Pausoka* etxetik deitu zidan Xabi Puertak, **lantxo** bat eskaintzeko. Ez litzaidake axola izango asteburuetan hemen auzoan **lantxo** bat edo beste egitea, kantatzen, alegia. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (hitz elkartuetan)

Baratzea lantzea eta bere kasa eraikuntza-**lantxoak** egitea. Joseba Urteaga

**3** idazlantxoa.

**Lantxo** bat idazten ari naiz. Oskar Arana

1935eko irailetik 36ko urtarrila bitartean ia hogei **lantxo** atera zituen *El Día* egunkarian *Lotsati* goitizenpean. Xabier Mendiguren Elizegi

Ikusmolde hori iraultzera dator **lantxo** hau. Iñaki Arranz

Eta edateaz eta edaleaz dihardu, hain zuzen ere, bere azken **lantxo** honek, edalearen nahi eta ezinaz. Matías Mujika

Geneten bi **lantxo** argitaratu zituzten liburu bakarrean, bata espetxe baten barruan kokatutako antzezlan bat, eta bestea Xatilako palestinar errefuxiatugunean egindako sarraskiaz. Paddy Rekalde

---

# lantxoi *iz* txalupa handia.

**Lantxoia** bere motor zaharra amatatu gabe jarriko da moila parean, eta ohol ilun bat jarriko dute. Joseba Sarrionandia

**Lantxoiko** patroiak indiferentziaz so eginen die gertaerei. Joseba Sarrionandia

---

# lantxurda *(orobat **lantzurda** eta **lanzurda** g.er.)* **1** *iz* lanbroa, langarra; intzigarra.

Baionesak **lantxurda** iraunkorrak trabatu ditu partida guzian. Herria

Martxo hondarretako **lantzurda** eztiak. Itxaro Borda

**Lantxurdaz** eta olatu-bitsez blai zegoen, baina ez zuen hotzik. Anjel Lertxundi

-Kontuz mendi horretan, **lantxurda** sartzen da eta. Javi Cillero

Amaia, baiki, berezkoa zuen alaitasuna apurka galduz joan zen debeku haiengatik, **lantxurda** goizeko eguzkipean desegiten den bezalatsu. Josetxo Azkona

Lainoa zuen iluntasunetan traketsena, **lantxurdak** apaldu egiten zion bizitasuna, eta gaztetan Mediterranioko argiak luzaz gozatu izanak areagotu egiten zion egurats gandutuaren zama, bazterralde lausotuarekiko tristura. Josu Landa

Neguan, hori dena intzigar eta **lantzurda,** batzuetan luxe-luxe, izotz-azazkal 12-15 zentimetro neurtzen dituztenak ateratzen dituela haizeak, halaxe gertatzen da. Pello Zabala

**2** irud/hed

Milaka behi gizentegi bat beti kanpoan direnak egunero kamiuntaraka eremaiten dituzte hiltzerat eta ordainak sartzen gizenzeko, beroa gaixto delakoan **lanzurda** bat egiten dakote gainean fresko egoiteko. Herria

Bero baitzen, **lanzurda** gisa ura burugainean hodi batetik heldu zitzaioten, behiak freskatuz. Herria

**3** (hitz elkartuetan)

**Lantxurda**-tantek distira esnetsua egiten zuten ilunpeetan. Anjel Lertxundi

---

# lantxurdatsu *izond* lantxurdaz betea.

Besoak gibelerantz luzaturik nituela, sorgorturik geratu nintzen bat-batean, zeren eta eskuak zabaldu ahalean nire hatz-mamiek ustez pertsona batenak ziren gorputz atal **lantxurdatsuak** ukitu baitzituzten. Josetxo Azkona

---

# lantza **1** *iz* buruan burdin zorrotz bat duen haga batez osaturiko iskilua.

Sua egin eta erre egingo ditu armak: babeski eta bular-oskolak, uztai eta geziak, **lantza** eta azkonak. Elizen arteko biblia

Buruko babesgarria, ezkutua eta **lantza** lurrera bota nitian. Juan Kruz Igerabide

**Lantza,** arku eta ezpatez armaturik. Agustin Otsoa

Sable bikoitz gakotua aldean, labana gerrikoan, hamar oineko **lantza** eskuan. Karlos Zabala
Hanka bat belauniko, **lantza** eskuan tinko. Nire **lantzak** alderik alde zulatu zuen, eta lurrera erori zen garrasika. Juan Kruz Igerabide
Orduan, **lantzak** botatzeko agindu zien Ulisesek bere lagunei. Juan Kruz Igerabide
Hirurehun gizonen kontra astindu zuen bere **lantza,** eta denak hil zituen. Elizen arteko biblia
Beste basailuren bat agertuko zen eta **lantza** sartuko zion putakumeari. Koro Navarro
Gogor ekin zion, **lantza** beheraturik. Juan Kruz Igerabide
**Lantza** hautsita, ezpata atera zuen Lancelotek. Juan Kruz Igerabide
Dardar dagite **lantzek** .Jauregian eseria zegoen, **lantza** eskuan. Elizen arteko biblia
Zeharka nazazue zuen **lantzez** . Patxi Zubizarreta
Haren **lantzaren** makilak ehulearen gakoa zirudien. Jose Antonio Mujika
*ik beherago* 4. Askoren artean
**Lantza** bat erortzen da sabaitik ohe gainera, baina arrasto bat besterik ez dio egiten zaldun ezezagunari. Juan Kruz Igerabide
On Kixotek bezala printzipioen **lantza** eskuan hartuta. Joan Mari Irigoien

**2** (izenondoekin)

Gurutzearen oinetan, soldadu erromatar batek **lantza** luze bati eusten zion. Alberto Ladron Arana
Eskuan **lantza** handi eta astun bat zeramala. Juan Kruz Igerabide
Arkua eta mutur zabaleko **lantza** motza zeramatzan. Agustin Otsoa
Itsasontzietatik arkuak, geziak eta **lantza** eztenluzeak hartu eta, hiru taldetan banaturik, jaurtika hasi ginen. Juan Kruz Igerabide
**Lantza** odoleztatuari begira. Alberto Ladron Arana

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskuineko saihetsean **lantza** -zauri bat agertu zitzaion, orbaindu gabea, gorria eta odoldua. Askoren artean
Jainkoak zeure esku jarri dizu gaur etsaia; uztazu **lantza** -kolpe batez lurrari josten. Elizen arteko biblia
Fusil tiroen oso zalea ez naiz, ezta **lantza** kolpeena ere. Karlos Zabala
**Lantza** -ukaldi baten orbainak edertzen dio bularra. Aingeru Epaltza
Goraka datorren argizko zaparrada hau behar da, **lantza** kolpezko oldar hau behar da. Josu Zabaleta
Zazpi arma ere azaldu dira, **lantza** puntak gehienak, eta ezpata bat, itxuraz germaniarra. Haren **lantza** -kirtena ehuleen ardatza adinakoa zen. Elizen arteko biblia
Arma-meta handiak eta **lantza** -sorta zutituak. Agustin Otsoa
Normandoak, frankoen erasoaren **lantza** -mutur zirenak, seljuktarrak bezain konbertitu berriak ziren barbarotasunetik. Iñaki Mendiguren
Loxetako zumardi hura bailitzan sei Heinkel 51en helburua, eskuineko hegoa altxatu [...] eta bonbaketarien **lantza** formazioa utzi zuten. Ramon Saizarbitoria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kontzentrazio zelaia eta egoiliarrak su- **lantzekin** suntsitzeko manua ukan dutela. Michel Oronoz

**5** ***lantza-makila*** *(corpusean **lantzamakila** soilik)*

Haren **lantzamakilak** ehulearen gakoa zirudien, eta lantzaren burdinmuturra sei kilo baino gehiago zen. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**benetako lantza** (3); **lantza eskuan** (12); **lantza hartu** (4); **lantza kirtena** (3); **lantza kolpe** (5); **lantza kolpe batez** (3); **lantza luze** (4); **lantza santua** (8); **lantza santuaren** (3)
**lantzaren ahotsak** (3); **lantzaren punta** (5)
**lantzaz armatuak** (4); **lantzaz zulatua** (7)

---

# lantzadun *izond/iz* lantza duena; lantzaz armaturiko gudaria. ik **lantzari**.

Hara bildutakoen artean nahasirik, poliziak nabari ziren, **lantzadun** kosako batzuen laguntzaz ordena zaintzen. Karlos Zabala
Nahiago zuela, soldadu gisa, **lantzadun** bakarraren soldata irabaziz, zinez lorioski eta guztiz giristinoki, bizitzeko doia egin, ezen ez eta heretikoen errege izan. Piarres Xarriton

---

# lantzaile *(orobat **lantzale**)* *iz* aipatzen dena lantzen duen pertsona.

Bizi molde berrien frankatzea, lur **lantzaileen** artean eskuz esku lan egitetik haurren altxatzeko moldetaraino. Herria
Eraikuntza berrietarik batean hasia da Antton Heguy, Ortzaiztar semea, burdin **lantzailea** eta hiru langile badauzka. Herria
Gure burdin **lantzaleak,** ez zituen orenak kondatzen eta horrentzat egunak berdin luzeak ba udan eta neguan. Herria
Lehenak, larruaren **lantzaile** izanki, bere gain jarri nahi du. Herria

---

# lantzakada *iz* lantza kolpea, lantza ukaldia.

**Lantzakadaz** zulatu zioten alderik alde bular aldea eta bihotza. Felipe Juaristi
57 egun geroago hilko da, Ravennako guduan, hamabost **lantzakadaz** zulatua aurpegia. Jon Muñoz
-Menditarrek **lantzakadaz** garbitzen ahal zitiztean, baina asperturik zeudean, itxuraz -Etiennek, alegia deus ez, bere kontakizunari loturik-. Aingeru Epaltza
Senpereko **lantzakadaren** ondotik Baionan egin zituen hilabeteetan, apez batek letren misterioak argitzen lagunduz gozatu zion eriondoa. Aingeru Epaltza

---

## lantzale ik **lantzaile**.

---

## lantzamakila ik **lantza 4**.

---

# lantzamendu *iz* (produktu berri bat) merkaturatzea.

Gamesako arduradunen arabera, Espainian egitekoak zituen instalazioetako atzerapenak izan dira aurreikuspenak ez betetzearen errudunak, baita lehengaien hornikuntzako arazoak eta haize errota familia berri baten **lantzamendua** ere. Berria - Ekonomia

---

# lantzari 1 *iz* lantzaz armaturiko gudaria. ik **lantzadun**.

Nafarroako **lantzari** hoberena delakoan. Koro Navarro

Fernando Katolikoaren armada guztiz ahaltsua, **lantzariak** eta alkabuzariak, oinezkoak eta zaldizkoak. Joan Mari Irigoien

Eduki itzazue prest gaueko bederatzietarako berrehun soldadu oinezko, hirurogeita hamar zaldizko eta berrehun **lantzari,** Zesareara joateko. Elizen arteko biblia

**Lantzarien** dantza amaitu zenean, gelako bazter urrun batera alde egin zuen Gabrielek. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan)

**Lantzari** -dantza eratu zuten. Irene Aldasoro

**Lantzari** -erregimentu bat Pasealeku Zabaletik kargan etorri zen, gorosti-hostoekin armatuta, horrek zauri ikaragarriak eragiten baitizkio etsaiari. Julen Gabiria

---

## lantze *iz* (zerbait) lanaren bidez prestatzea, egokitzea, onuragarri edo onuragarriago bihurtzea.

Elikagaia egun deslokalizatua dago, hots, tradizioz zegozkion sorterri, **lantze** tradizional eta gorabehera klimatikoetatik deserrotua, deskonektatua. Edorta Agirre

Arabiarrak, hagitz ikasiak eta trebeak izan baitziren nola hidraulika kontutan hala ehunki **lantze** eta saltze kontutan. Patziku Perurena

---

## lantzean

**1** ***lantzean behin*** noizean behin.

**Lantzean behin** bertan egiten dut lo, baina gehienetan bera etortzen da gurera. Sonia Gonzalez

**Lantzean behin,** ni nengoen aldera begiratzen zuen. Anjel Lertxundi

**Lantzean behin,** abadea bera etorten zan tabernara. Xabier Amuriza

Ez daki tutik ere zer esaten ari ote den, baina **lantzean behin** etenak egiten ditu eta entzuleen adostasun-marmarrak entzuten dira. Oskar Arana

Orain ere, lapurtu egiten dizkiot koadernoak, **lantzean** behin. Unai Elorriaga

Ebek *Camel* kartoiak ekartzen dizkio **lantzean behin** . Sonia Gonzalez

Mundu zabaleko gainerako hizkuntzetan bezala, aldaera bakarra aukeratu zen honelakoetan, oso **lantzean behin** erabateko erabakirik hartu ez bazen ere: *esan / erran* bikotean, esate baterako. Koldo Zuazo

**2** ***lantzean-lantzean*** askotan.

Eta, **lantzean-lantzean,** ekaitz euria botatzen zuen, hautsa desagertarazten eta bideak garbiago uzten zituela. Karlos Zabala

Zalantza egun batzuk izaten zituen **lantzean-lantzean** komedianteak. Harkaitz Cano

Aspaldiko lan hori **lantzean-lantzean** eten eta berrartua izan da. Andres Urrutia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lantzean behin** (152); **lantzean lantzean** (6); **oso lantzean behin** (6)

---

## lantzeke *adlag* landu gabe.

Esan dezagun aukeraketa teorikoen azterketa **lantzeke** dagoela oraindik, geroagoko ikerketa bat heldu arte, berari arreta osoa eskaini ahal izango diona. helduen euskalduntze-alfabetatzea aurrera eramatea bermatuko duen markoa daukagu, eta hori **lantzeke** dago oraindik. Xabier Arregi

---

## lantzer *iz ipar* langarra.

Man-en larru beroak Graxirena farrastatzen zuenean, uste zuen larrazkeneko zein udaberriko **lantzerra** hasten zela, euri malko xehe eta finez bazterrak astinduz, arteka bedera amultsuki urez emokatuz, idorte mehatxuari arre ozenka. Itxaro Borda

Konplexuek labakitu neskari, hedoiak euritzen ziren uneak amodiozko **lantzer** -izpi iruditzen zitzaizkion. Itxaro Borda

---

## lantzerka *adlag* zeihar edo eslaian ebakiriko ertza osatuz.

**Lantzerka** apaindua da, heldulekua du, baita armarri txiki bat ere, pala batekin, eta palaren gainean idatzirik *Spatenbräu*. Monika Etxebarria

---

## lantzoi[1] **1** *iz* arrain txikia, gorputz-luzea, hondar azpira erraz sartzen dena *(Ammodytes tobianus).*

Eta, alde guztietan, lengoraduak erruz ageri ziren binaka paratuak, grisak edo horiak; **lantzoi** meheek, zurrun-zurrun, eztainu txirbilak ziruditen. Karlos Zabala

Arraien eta mielgen bizkarraren gainean, harri handi ilunak, moreak, berdexkak, metal belztu batean txertatzen ziren; eta **lantzoien** makila meheetan, esperlinen isats eta hegatsetan bitxigintzako lan zoragarriak ageri ziren. Karlos Zabala

• **2** *izond* pertsonez mintzatuz, lotsagabea edo ergela.

'Hori da **lantzoia,** hori!' esaten zuen Goiok. Joseba Sarrionandia

Nolako **lantzoia** Floren, gure uste okerrak okerragotzeko! Koldo Izagirre

---

## lantzoi[2] **1** *iz* lantza motza.

Gehiagorik gabe, bere **lantzoia** tinkaturik ekin zion beltzez jantzitako bati. Patxi Ezkiaga

Lurraren kontra puska-puska egina gelditu zen **lantzoia** . Patxi Ezkiaga

**2** (hitz elkartuetan)

Bertara joan eta **lantzoi** -punta aurpegian jarriaz, errenditzeko esan zion edota hilko zuela bestela. Patxi Ezkiaga

---

## lantzoikeria *iz* lotsagabeari edo lotsagalduari dagokion egintza.

Horrenbeste berba feo eta juramentu, horrenbeste **lantzoikerixa,** horrenbeste alperkerixa. Jon Arretxe

---

## lantzurda ik **lantxurda**.

---

lanurte ik **lan 32**.

---

**lanuzte** *(540 agerraldi, 4 liburu eta 283 artikulutan; orobat **lan-uzte** g.er.)* **1** *iz* lana uztea, greba.

**Lanuzte** teknikoa da, eta ez greba, enpresaburuak (autonomoak) baitira deitzaileak. Berria - Ekonomia

Alemaniako metal arloan greba eta **lanuzteekin** jarraituko dute. Berria - Ekonomia

*Caballito*ko grebalarien aldeko **lanuztera** deitu dute gaurko. Berria - Ekonomia

Langile ia guztiak azaldu ziren **lanuztearen** alde. Berria - Ekonomia

Malgutasun akordioa betetzen ez dela ikusita, langileek **lanuztea** hasi zuten. Berria - Ekonomia

Produkzioan aritzen diren 4.200 beharginek sindikatuek deitutako 24 orduko **lanuztea** egin zuten. Berria - Ekonomia

Erabateko **lanuztea** egin zuten atzo Volkswagen enpresak Iruñean duen lantegian. Berria - Ekonomia

Bizkaian, langileen %85 **lanuztearekin** bat egiten ari direla diote sindikatuek. Berria - Ekonomia

UGTk **lanuztea** geratzea proposatu arren, greba egingo dute gaur Vwen. Berria - Ekonomia

Baldintza bakarra jarri dute: garbitzaileek **lanuztea** etetea. Berria - Ekonomia

Nafarroako Lan zuzendaritzan egindako bileran **lanuztea** bertan behera uzten bagenuen eskaintza berri bat aurkeztuko zigula agindu zigun. Berria - Ekonomia

Tarifak «duindu» arte, **lanuzteari** eutsiko diote garabi enpresek. Berria - Ekonomia

Ekoizpena erdira jaitsi da **lanuzteen** ondorioz. Berria - Ekonomia

Horregatik **lanuztea** ostiralera mugatzea erabaki dugu. Berria - Ekonomia

Martxoan Turingo **lanuzteak** etorri ziren, krisia hurbil zela iragarriz. Juan Garzia

Supituko **lanuzte** horrek espontaneoa zirudien, inprobisatua. Unai Elorriaga

· Japoniarrek [...] lan erritmoa bikoiztuz egiten dituzten **lanuzteak**. Harkaitz Cano

**2** (izenondoekin)

06:00etan, hasi zuten Montañesako 400 langileek **lanuzte** mugagabea. Berria - Ekonomia

Mugagabeko greba hasi aurretik langileek hamar eguneko **lanuzte** partzialak egin zituzten zuzendaritza presionatzeko. Berria - Ekonomia

Garabi enpresek **lanuzte** «selektiboak» egingo dituzte. Berria - Ekonomia

Urtebeteko **lanuztea** gogorra izan dela nabarmendu zuen. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urteko lehen **lanuzte** eguneko parte-hartzea %50ekoa izan da, CGT sindikatuaren arabera. **Lanuzte** proposamena CCOOrekin eta UGTrekin ere negoziatu zuten gainerako sindikatuek. Berria - Ekonomia

Hala ere, ez diotela **lanuzte** deialdiari trabarik jarriko adierazi diete gainerako eragileei. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

'Abisu **lanuzteak'** Alemaniako VWn negoziazioetan presioa egiteko. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eguneko lanuzte partzialak** (4); **lanuzte egin** (6); **lanuzte mugagabea** (7); **lanuzte partzialak** (8); **lanuzte teknikoa** (4)

**bi orduko lanuztea** (8); **egun osoko lanuztea** (4); **eguneko lanuztea** (7); **lanuztea egin** (22); **lanuztea egin zuten** (16); **lanuztea egingo** (8); **lanuztea erabatekoa** (6); **lanuztea erabatekoa izan** (4); **lanuztea hasi** (12); **lanuztea hasi zuten** (5); **ordubeteko lanuztea** (6); **orduko lanuztea** (20)

**bi orduko lanuzteak** (13); **egun osoko lanuzteak** (4); **lanuzteak egin** (22); **lanuzteak egin zituzten** (15); **lanuzteak eginen** (5); **lanuzteak egingo** (17); **lanuzteak egiten** (5); **lanuzteak egitera** (5); **lanuzteak eta** (5); **lanuzteak ez** (6); **lanuzteak hasi** (4); **lanuzteak hasiko** (6); **lanuzteak hasiko dituzte** (4); **lau orduko lanuzteak** (10); **orduko lanuzteak** (25); **orduko lanuzteak egin** (7)

**lanuztearekin bat egin** (4)

**lanuzteekin jarraituko** (4)

**lanuztera deitu** (13)

---

**lanzadera** *iz* trenez, espazio ontziez eta kidekoez mintzatuz anezka.

Halaber amaitzear dago Renferentzat egindako tren-**lanzadera** bat. Berria - Ekonomia

---

**lanzinante** [fr] *iz* zorrotza; obsesiboa.

Momadayren liburuko perpausak buru zokoan dailu erabiltzeak eta mantra **lanzinanteen** gisa errepikatzeak on egin zidan. Itxaro Borda

Amatxik erresumin etengabea zeraman, herio dantza **lanzinantearen** urratsen urratzaile. Itxaro Borda

Ahaire monotono eta **lanzinantean** hasi zen gizonaren itzalak eta argiak zerrendatzen, garaitezintasuna azpimarratuz lehenik. Itxaro Borda

Batak bere zintzur harramantza uzten zuen, besteak auhena are azkar eta **lanzinanteago** eraman zezan. Itxaro Borda

---

lanzurda ik **lantxurda**.

---

**laodizear** *izlag/iz* Asia Txikiko Laodizeakoa, Laodizeakoari dagokiona; Laodizeako herritarra.

Arabiar nagusitasunaren omeiatar agenteak musulman guztien berdintasunaren abbastar ordezkariek ordeztu zituzten, erlijio-printzipio islamikoen izenean, konbertitu zinikoen biloba musulman fede handikoek Laodizeako arabiar konkistatzaile musulmanen **laodizear** biloba musulmanekin indarrak neurtu zituztenean. Iñaki Mendiguren

---

**laostia** **1** *interj adkor* harridura-edo adierazteko hitza.

- **Laostia,** Mikel, zenbat denbora! Unai Iturriaga

**'Laostia,** bala bakoitzarekin seizazpi indio garbitzen ditu!' protestatzen genuen batzuetan. Joseba Sarrionandia

Esaidak, **laostia**! Unai Iturriaga

Urduri jartzen hasiak ginen, **laostia**! Unai Iturriaga

• **2** *izond* gauza harrigarri edo ikagragarria.

**-Laostia** da, ezta? -esan zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Joder, Beltza -esan zidan, pedalei emateari utzi gabe-, emakumeak **laostia** dira. Jon Arretxe

Fededuna izango banintz, **laostia** izango luken -irribarre xuxurlaria egin zuen-. Fernando Morillo

**Laostiako** ederrak zarete. Fernando Morillo

---

# lapa[1] 1 *iz* itsasbazterreko haitzei atxikirik bizi den soinbera gasteropo maskorbakarra, jateko ona *(Patella vulgata).*

**Lapak** harkaitzetarik deslotzeko erabiltzen zuen eta, atorra azpian, gerrikoari loturik zeraman ganibetaren giderra hunki zuen. Elena Touyarou

Bi saskiak bete zituzten txangurroz, txirlaz, tentuz, **lapaz,** itsasbarraskiloz bai eta ostra andana batez ere. Elena Touyarou

Beste enbarkazio batean aingura altxatzen ari ziren, itsas belarrak eta **lapak** nabaritzen ziren kate handian itsatsirik. Joseba Sarrionandia

Esaten da bere gorputzaren zatietatik sortu zirela gaur egun itsaso nahiz ibaietan diren izakiak oro, esate baterako: bere begininietatik zapaburuak; azazkal gogorren geruzapean hazi ziren txirlak eta **lapak;** ileek angula itxura hartu zuten […]. Pako Aristi

Bibi, Joxanekin pega-pega eginda, **lapa** bat bezala, irribarretsu egon zen gau osoan. Paddy Rekalde

Baietz esan nion eta **lapa** bat bezala itsatsi zitzaidan. Juan Martin Elexpuru

**2** metalezko zati baten itsasten den leherkaria.

Autopean **lapa** bat jarri diote. Unai Iturriaga

Erabiltzeko gidaliburuak, errepide mapak eta **«lapa»** zioen poto bat ere atzeman zuten iragan hileko miaketa hartan. Berria - Euskal Herria

**3** ***lapa-belar*** *(orobat* ***lapa-belar****)* *iz* hosto berde ilunak dituen landarea, arropetan itsasten diren fritu biribilak ematen dituena *(Arctium lappa* eta *Arctium minor).*

Mr. Esku ezezagunek uzten zizkidaten lanaulkiaren gainean, gauez, landareak eta landareak, egunero mota desberdinekoak; guztiak ere etxe-etxekoak ziren, eta ez dakit nola aukeratzen zituzten: tipula, baratxuri, azenario, **lapabelar,** ahabia, milorri, sahats, salbia, erromero, txakur-arrosa, ipuru. Juan Garzia

Usoak urrumaka bezala eta **lapa** -belarra bezain mikatz hitz egin zuen Noraren aitak. Anjel Lertxundi

Orbela eta lapabelar-hostoak **arakatuz** Mr. Perryk zerbait topatu zuen bere makilaz. Lopez de Arana

**4** ***lapa egin*** pegatu.

Gizajo hau gainetik ezin kendurik ibili naiz gaur arte, beti neukan aldean **lapa** eginda. Koldo Izagirre

---

# lapa[2] 1 *iz* patsa.

Gau batez, egun zinez neketsuaren ondotik, biak mahats **lapa** edaten ari zirelarik bordan. Elena Touyarou

Mahats **lapari** ohore egiten zioten bitartean, Gartzia lehiatu zen Joanttori gertakarien berri ematera. Elena Touyarou

**2** ***hordi lapa*** arras hordia

Nire sudur gorri puztukote hau eta nire aurpegiko ubeldurak nori legozkioke ez bada ni bezalako hordi-**lapa** amorragarri bati? Anjel Lertxundi

**3** ***izerdi lapetan*** izerdi patsetan.

**Izerdi lapetan** zara, baina izerdiak, zikindu ordez, ikuzi egiten zaitu. **Izerdi lapetan** zen, margul. Xabier Montoia

Gizonak **izerdi lapetan** zeuden oihal lodiz egin palto eta xenilak soinean. Elena Touyarou

Hamar minutuz oraino, toki berean egon ninduan, mugitu gabe, hotzez ikaran eta **izerdi-lapetan** . Daniel Landart

Beribil zabal dirdiradunean zabilan ixil ixilik lehena... eta harri hausten ari bigarrena **izerdi lapetan** . Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> izerdi lapetan zara (3)

---

# lapabelar ik **lapa**[1] **3.**

---

# lapaitz *iz* aran txikiak ematen dituen zuhaitza.

Urki biguina, noranahiko **lapaitza** edo haritz noblea, halako sustrai batek zer landare lotzen ote zuen ikasi nahian. Patziku Perurena

---

# lapar[1] 1 *iz* sasia, kaparra.

Uzten ditut ezker, gain haietan, bide xuko bat segituz ikusiko nituen hurritzondo, pago eta **laparrak** . Piarres Aintziart

Nola lilia **laparren** erdian, nola sagar ondoa oihaneko zuhaitzen artean. Erreka ilun bat, dena sasi eta **lapar** . Xipri Arbelbide

Battittu Coyos xiberotarra **laparra** bezala lotu zaio lanari gure mintzaira historikoen alde departamenduan. Herria

**2** ***laparretara bota*** bazterrera utzi, bertan behera utzi.

Hazparne aldean egun hautan hori dela gertatzen dute salatu gazteek, tokiko auzapezak Euskal Herria Zuzenean festibala zuzenki **laparretara** botatzen duelarik, bere gerizapean hartu ondoan. Herria

Maitasunak sustatu ote du Espainiako apezpikuen burua, Jose Maria Rouco Valera Madrilgo kardinale eta artxapezpikua, "Ibarretxe plana" **laparretara** botatzera? Herria

---

# lapar[2]

**1** ***elur-lapar*** ia zuritzen ez duen elurra. ik **lapatx 2.**

rra elurxeago denean, orduan, jardun-ahala, elur-**lapar** edo elur-nabar gelditzen da, alde hauetan elur-lapatsa esaten dioguna, ezartzen hasi ez hasi, laster xurituko lukeenean. Pello Zabala

---

# lapardi *iz* lapar asko dagoen tokia. ik **sasidi.**

Halere, inork ez daki zenbat neskatxa lurperatzen dituzten etxeko larrainetan edo junglako **lapardietan** . Gotzon Garate

---

# laparoskopia *iz* sabel barrunbearen azterketa endoskopikoa.

**Laparoskopia** bat egitea barrunbe abdominaleko azterketa endoskopiko bat egitea da berez, eta hori egiteko nahikoa da zentimetro gutxiko ebaki bat egitea. Berria - Gaiak

Horretarako, **laparoskopia** teknikaz baliatu ziren. Berria - Gaiak

**lapata** *adlag* pegatuta. ik **lapatu**.

Eta elkarri **lapata,** pega-pega, multzotuta datorrenean, elur-moltso, elur-hosto, elur zafla, hauek jada puska handiak direnean, mataza baten irudian, hortik elur-matazea deitzearena, batez ere elur-erauntsi formala eta itxia ari duenean. Pello Zabala

**lapatin** *iz* lapa-belarra; lapa-belarraren fruitu arantzatsua.

Ez du indarrik atxemaiten, ukondo ukaldi batez, **lapatina** bezala lotzen zaion senargaiaren gibelera pusatzeko. Eneko Bidegain

Batzuetan iduri zuen **lapatina** bezala lotzen zitzaiola, infernu hartan zuen "lagun bakarrari". Eneko Bidegain

**lapatinkada** *iz*

Mihiak mihiari izugarriko **lapatinkada** eman zion. Itxaro Borda

lapats ik **lapatx 2**.

**lapatu,** lapa(tu), lapatzen **1** da *ad* itsatsi, pegatu.

Ondo **lapatuta** bizi da huntza: baina besteren bizkar hartzen duena bere zain eta sustraietan janaritutakoaz osatzen du. Pello Zabala

Hantxe supazterrean bertan, sutako tenazari ohartuko zitzaion gero, ea sutako txingarrak eta sutautsa **lapatzen** zitzaizkion: hezetasuna ugaritzen ari zenaren seinale zen hori ere. Pello Zabala

Arropak azalean **lapatuta** zituzten biek. Harkaitz Cano

Uztailaren abian, bero erre ittogarri batzuen ostean, lurrindurako lainobera eta lanbro-lainoak noraezean malkarretan **lapatuta** gelditzea. Pello Zabala

San Markos egun bedeinkatu honi [...] udaberriko harkaitz umelari goroldioa bezala **lapatu** izan zaizkio esaera zaharrak. Pello Zabala

**2** irud/hed

Oroitzapenen zakuan, eguraldiaren pasadizoak agudo nahasten dira eta kamusten, harik eta data berezixko baten inguruan **lapatuta** gelditu ez diren, herriko festekiko edo ospakizun bereziko data batzuekin, alegia... Pello Zabala

**3** *(era burutua izenondo gisa).*

Bere uztar estalizko larruz eginikako "Kaska" pausatzen du, gaizoa, izerdi **lapatua,** gorri beltztua. Herria

**lapatx** **1** *izond*

Euri xirrin sarriko eta egun askotakoak, baina zirin, langar, euri motela gehiena, ordu askotako jardun buxti **lapatx** hori. Pello Zabala

**2** ***elur-lapatx*** *(orobat* ***lapats****)* ia zuritzen ez duen elurra. ik **lapar**$^2$.

Samuel etxera iristerako hasi ziren lehendabiziko elur-**lapatx** arinak. Anjel Lertxundi

Gailurretan geratzen zen elur-**lapatxa,** antzigarrak bere kristalezko kutxan gordea zeukana, desagertu egin da egun hauen epeltasunarekin. Pako Aristi

Oriol, berriz, Mediterraneo itsasertzekoa zen, eta elur **lapatxa** besterik ez zuen ukitu bere bizitza osoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Elurra elurxeago denean, orduan, jardun-ahala, elur-lapar edo elur-nabar gelditzen da, alde hauetan elur-**lapatsa** esaten dioguna, ezartzen hasi ez hasi, laster xurituko lukeenean. Pello Zabala

**lapazorri** **1** *iz* potrozorria.

Balio ez duen gauza, hala nola Boreaplastik hegoalderantz **lapazorriak** bezala ugaritu diren tribuen erlijioak, filosofiak, literaturak, arteak eta zientziak. Xabier Olarra

**2** irud/hed

Ana ondotik heldu zitzaidan, **lapazorri** uxaezina. Aingeru Epaltza

**lapidario** *izond* esaldiez eta kidekoez mintzatuz, hotz eta motza.

Esaldi **"lapidarioen"** lehiaketa izango zen, ez hilarrietako esaldiak, baten batek hitzez hitz interpretatu zuen bezala, esaldi biribilak baizik, zirt-zartekoak. Xabier Mendiguren Elizegi

**lapidarioki** *adlag* hotz eta motz, era lapidarioan.

Andrea Memmo-k **lapidarioki** laburtuko zuen ilustratuen jarrera. Santiago Iruretagoiena

**lapidariotasun** *iz* lapidarioa denaren nolakotasuna.

Aipatu dut, **lapidariotasunaren** abantailetan babesturik, interesgarri litzatekeela Borgesenetan ageri ez diren gaien zerrenda egitea. Juan Garzia

**lapidatu,** lapida(tu), lapidatzen du *ad* harrika hil.

Afghanistaneko 29 urteko emazte bat **lapidatu** dute, hots, harrika hil, hango araba lege edo ohiduren arabera. Herria

**lapidazio** *iz* lapidatzea, harrika hiltzea.

Ni musulmana naiz eta **lapidazioaren** aurka nago. Berria - Mundua

**Lapidazioa,** esku zein lepo mozketa... Berria - Mundua

**lapiko** 1 *iz* eltzea.

Kendu zituen bere **lapiko** haiek sutatik eta jatera deitzeko esan zuen. Askoren artean

Gaineratiko eskaintzak eltze, pertz eta **lapikoetan** egosi eta herritarren artean banatu zituzten. Elizen arteko biblia

**Lapikoaren** edukia aztertzen ari zen. Josu Zabaleta

**Lapikoan** egosi eta olio-opilen gustuko opilak egiten zituzten. Elizen arteko biblia

Afaritarako arroza **lapikoan** egosten ari den bitartean. Eider Rodriguez

Bezperako kafearen **lapikoa** berotzen ipini. Josu Landa

Ama zegoen han **lapiko** bat garbitzen, arraroa zen dena. Joseba Sarrionandia

Sutan dagoen **lapikoak** estalkia nahi izaten dik. Koldo Izagirre

Kirika egin zuen buztinezko **lapiko** barrura. Anton Garikano

Horrek esan nahi zuen **lapikoko** arroz guztia amaitua genuela. Juan Kruz Igerabide

*ik* lapikoko.

**Lapikoaren** hondoan itsatsitako hondar beltzak erraz kentzen direla ohartu eta gero. Iñaki Iñurrieta

Guraizeak zorroztera edota **lapiko** zahar baten ipurdia konpontzera etorritako gailegoren bat. Iñigo Aranbarri

Badaezpada ere bi **lapikoetatik** jatea erabaki zuen. Patxi Zubizarreta

Halako jendea jasateak betetzen zidak **lapikoa**. Aingeru Epaltza

Eguneroko **lapikoa** bete ahal izateko lanean aritu beharrik ez izan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Alfontsori, berriz, jende horrek ez dio inolako **lapikorik** betetzen. Aingeru Epaltza

Minutu baten buruan itzuli zen **lapiko** handi batekin, kaka eta pixa lurrean egin beharrik eduki ez nezan. Oskar Arana

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lapiko** ipurdia bezain beltza. Askoren artean

**Lapiko** hondoari erantsitako artirina. Anton Garikano

Ni nintzela ziurtatu nion, "Shellekoa", eta galdetu ea sukaldean, tira, deskuiduan ez ote zen haginen artean paratzeko ezer gelditzen, hondarren bat agian, **lapiko** hondotik-edo. Urtzi Urrutikoetxea

Zarautzen ere 150 bat lagun manifestazioan atera ziren iluntzean, **lapiko** hotsean. Berria - Euskal Herria

Azken egunotan bezala, **lapiko** jotzea egin zuten eguerdian eta arratsaldean 16:00etan. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gaur egun asko dira beren lanak presio **lapikoetan** prestatzen dituztenak, baina letren sukaldari xume hau dago ezen hobe dela obra erraietan zein paperean astiro eta presarik gabe txegostea. Patxi Zubizarreta

Abeletxeetako atetzarren alboan zeuden, esne-**lapikoen** eta arrain-zoparako gonbitaren zain. Jose Morales

**4** lapikoaren edukia. ik **lapikoko**.

Hemendixe usaintzen dut zure amaren **lapiko** goxoa. Joxemari Urteaga

**Lapiko** bat esne berotu eta kanaberazko siropa eta banilla nahastu zizkion. Anton Garikano

Azkenean atzeko atea zabaldu eta Sethe irten zen, besoaren bihurgunean **lapiko** bat bete janari-hondar zekarrela. Anton Garikano

**Lapiko** bete patatarekin eskaileretatik behera jaisten ari nintzenean. Josu Zabaleta

**5** *adkor* burua.

Gaztetxo bati **lapikoan** jarri zaiolako ezin dela odolik eman nori ematen zaion jakin gabe. Koldo Izagirre

Guraso naizen aldetik, badut nahikoa buruhauste: kontraesanez borborka daukat lepo gaineko **lapikoa**. Joxerra Garzia

**6** *adkor* futbolean, jokaldi batzuetan, ate baten inguruan, gertatzen den jokalari pilaketa.

Baloiak **lapikora** bidaltzea beste aukerarik ez zuen izan. Berria - Kirola

**7** *itsu-lapiko* ik **itsulapiko**.

**8** ***tonto-lapiko*** *izond adkor* ergela.

Ez duzu irri antzerki bateko tonto **lapikoa** izan nahi, ezta? Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lapikoa hartu** (3)
> **lapikoan sartu** (3)

---

**lapikoko** *iz* lapikoaren edukia, eltzekaria.

Behin batean, Jakob **lapikokoa** egosten ari zela, iritsi zen Esau oihanetik, oso nekatua. Elizen arteko biblia

Nola anai Juniperok **lapikokoa** prestatu zien behin anaiei. Askoren artean

Begira zegoen nolako arretaz egiten zuen anai Juniperok **lapikoko** hura. Askoren artean

Ardura zaitez, bada, gu itzultzen garenerako, **lapikoko** zerbait prestatuta edukitzen. Askoren artean

Azazkal-zati bat lapikoan sartu ezkero, **lapikokoa** yan dagiana zoratu egiten da. Pello Zabala

---

**lapin** 1 *iz* untxia.

Erdi lasterka, erdi jauzika, uharteko **lapinak** bezala. Eider Rodriguez

Bi **lapin,** oilasko bat, zerri izter bat, bi gasna, bertze hainbertze ogi... Aingeru Epaltza

Gure herrian ditugun odolkiak, zango usaina duten gasna mutzituak, kurkuiluak, ostrak edo **lapinak** hemen bitxikeriak lirateke! Ramuntxo Etxeberri

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondotik, errota-joko, **lapin** -kurtsa... Herria

Ber-denboran haur jokoak ere izanen direlarik : **lapin** -joko eta bertze... Herria

**3** ***lapin-hazle***

Untxi edo **lapinhazleak** krisi larrian dira. Herria

---

**lapislazuli** *(orobat* ***lapis lazuli*** *g.er.) iz* aluminio, kare eta soda silikatua, kolore urdin bizikoa, oso gogorra, bitxigintzan erabiltzen dena.

Zeuk ikusi porpidarria, jaspea, agata, **lapis** lazulia, marmolik finena edo zein material erabiltzen duzun. Patxi Zubizarreta

**Lapis** lazulizko paparreko orratza. Mirentxu Larrañaga

Eta zetarekin batera **lapislazulia,** harri-kristal gorria, barruan sua duela dirudiena, esmeralda, korala eta mamut bolia, txiki-txiki eginda, hauts bihurtua, amodio gogo hila piztu eta berpiztu egiten duena, eta urrea, edergarrien artean edergarriena, eguzkiaren ordezko lurrean. Felipe Juaristi

---

# lapitz[1] **1** *iz* arkatza.

**Lapitza** hartu eta marrazten hasi zenean, arnasari eutsi nion. Xabier Olarra

**Lapitza** atera eta kontuak egiten hasi zen paper batean. Koldo Biguri

Mapa txiki hartan **lapitz** batekin zirkuluak marrazten. Fernando Rey

Maniobraburua kezkatua zegoen, eta **lapitz** batez mezuak seinalatzen zituen bitartean, **lapitzaren** puntak dardar egiten zion eta paperean kardiograma baten antzeko zirrimarrak egiten zituen. Fernando Rey

Lehenago ere marraztu izan zuen Leirek marrazki ederrik, koloretako **lapitzak** erabilirik. Joan Mari Irigoien

Berak patentatutako metalezko **lapitza** paratu zuen, mina muturrera atera daitekeenetakoa. Fernando Rey

Gero bere poltsa zabaldu, **lapitz** urdin-gorria atera, akatsak azpimarratu eta hauxe idatzi zuen bandoaren oinean: [...]. Koldo Biguri

**Lapitzez** egindako arrastoren bat. Xabier Olarra

**Lapitzezko** marratxo haiek. Xabier Olarra

Gomazko kanula txiki bat **-lapitz** bat baino meheagoa-. Luis Elberdin

**2** (hitz elkartuetan)

**Lapitz** mutur bat eta paper puskatxo bat. Matías Mujika

**Lapitz** muturra ahora sartu du berriz. Xabier Paya

**3** makillajean erabiltzen den barra edo lapitz modukoa.

Apaintze-mahaira joan eta Kleenex bat eta bekainetarako **lapitza** hartu ditu idazteko. Xabier Paya

Neska konturatu egin zen Joseba zelatan zela eta honi irribarre xarmanta eskainiz xakutoan sartu zituen **lapitzak** eta hautsak. Iñaki Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan)

Xakuto batetik makillaje **lapitzak** eta hautsak atera zituen eta begiak margotzen, masailetan ilununeak ezartzen hasi zen. Iñaki Zabaleta

**5** ezpain lapitza.

Poltsa arrosatik **lapitza** atera eta ezpainak apaintzen hasi da ispilu txikian. Alberto Barandiaren

Masailak gorriztatu zituen, ezpainak **lapitzarekin** margotu. Patxi Zubizarreta

**6** ***ezpain lapitz*** ezpainetako margoa, ezpainetakoa.

Ilea guztiz nahasirik, eta ahoa ezpain **lapitzaz** gorri-gorri. Koro Navarro

Oharkabean ezpain-**lapitzez** zikindu dut. Xabier Olarra

Bainu-gela osoa arakatu nuen goitik behera bizar-xafla baten bila; flaskotxoak, hauts-ontzitxoak, ezpain-**lapitzak,** tuboak, azazkal-laka, ile-gakoak, besterik ez... Joxe Austin Arrieta

Ivy modeloa zen: kotxearen kolorea nolako, soinekoak ere halako hautatzen zituen hark, nik uste, eta kotxearen kolorea ezpain **lapitzarenaren** arabera, edo alderantziz, ez dakit. Joxe Austin Arrieta

**7** ***ezpainetako lapitz*** ezpain lapitza, ezpainetakoa.

Bere eskuko poltsatik ispilu ñimiñoa eta ezpainetako **lapitza** atera zituen. Joxean Agirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lapitza atera** (3); **lapitza eta borragoma** (4); **lapitza hartu** (3); **papera eta lapitza** (5)

---

# lapitz[2] *iz* arbela.

Horietarik bat lehen aldikotz eskolan sartzeko egun handi hartan ene zaku ttipian nuen **lapitz** -taula edo "ardoisa" eta hartan idazteko gisa bereko arkatza. Herria

**Lapitz** usain hori ez dut sekulan ahantzi eta gaur oraino sumatzen dutalarik bizitzen ditut memento hartako sendimendu berak : beldurra, bihotz-mina, griña. Herria

Platintxulorako golkora iritsi aitzin badagoelako mutur irten bat, **lapitz** hauts hartan ikusten ahal ez zena. Koldo Izagirre

---

# laponiar *izlag/iz* **1** Laponiakoa, Laponiari dagokiona.

Barrara hurbildu eta Matty **laponiarrak** bost dolarreko bilete bat atera zuen. Lopez de Arana

**2** *iz* Laponiako herritarra. ik **sami**.

Eskandinabiar hizkuntzak kontsonantez beteak daude, baina **laponiarren** eta finlandiarrenek italierak berak baino bokal gehiago dituzte. Isabel Arrigain

Eta finlandiarrak, estoniarrak, **laponiarrak,** txeremiarrak, txuvashiarrak eta permiakak gehitzen baditugu, eta alemaniarrak, [...] eta aleutiarrak gaineratzen, ongi ulertuko dugu horren estatu zabalean batasunari eustea zaila baino zailagoa dela eta horrelako inperioa denboraren lana baizik ezin dela izan, gobernuen jakinduriak lagundurik. Karlos Zabala

Finlandiak **laponiarren** eskubideak onartu zituztenetik hona, ez dago **laponiarrak** baino finlandiarragorik. Berria - Harian

---

# laponiera *iz* laponiarrek hitz egiten duten hizkuntza. ik **samiera**.

Fino-ugrioa, -beste hizkuntza batzuen artean, benetako finlandiera edo suomiera, mordvinera, **laponiera** eta abar hartzen dituena-, Iparreko Errusian eta Siberian hitz egiten den hizkuntza familia bat da. Isabel Arrigain

Hungariera, estoniera, **laponiera** eta suomiera (Finlandian). Herria

---

# lapran *izond* zeiharra.

Eguzki **lapranak** hiribidea zeharretara hartu eta bi itzalak neurrigabe luzatzen zituen galtzadan zehar; haien buruak beste aldeko espaloiraino iritsi eta bidean aurrera lerratzen ziren. Karlos Zabala

Begiak elkarrengandik izugarri bereizita zeuzkan, txekor batenak bezala, eta hain **lapran** eta garden non deabruarenak izan baizitezkeen. Berria - Kultura

Hala sortu ditu hainbat esapide, hala nola, "gainbeheranko koadratzea" (filmagaia gainetik hartzen denean), "azpitiko koadratzea" (filmagaia azpitik gora hartzen denean), "koadratze **laprana",** "hurbileko koadratzea", "aurretiko koadratzea", eta abar. Josu Zabaleta

---

# laprast

**1** ***laprast egin*** irrist egin, labaindu.

Eguraldi narrasa zela medio kontrola galdu, **laprast** egin eta errepide kontrolaren aurka joan zen, hori zen bertsio ofiziala. Harkaitz Cano

Bi aldiz egin zuen **laprast** aldapan behera. Hasier Etxeberria

Baina **laprast** egin bere esku koipeztuetatik eta lurrean puskatu zaio Isidorari olioaren portzelanazko ontzia. Pako Aristi

Halako batean, Budek bere burua aurrerantz bota zuen, **laprast** egin eta esku bakar batetik helduta geratu zen, eguzkiak begiak itsutzen zizkiola. Lopez de Arana

Uste zuena baino gaitzagoa da, palak **laprast** egiten dio batzuetan, sakonegi sartzen du hurrengoan. Koldo Izagirre

Kanoak **laprast** egin zuen amuraka harkaitzetara, ez luze, pilotuak brankaz portura zuzentzea lortu zuen barrak itsasoari ematen zion sosegua berriro baliatuz. Koldo Izagirre

Ur-azala arrailatzen zuen ferryak **laprast** egiten zuen eta, mareak bere altzoan eramanik, astiro-astiro iristen zen ontziralekura. Lopez de Arana

**2** irud/hed

Garaipenaren bidea estua baita beti, eta akatsik txikienean amildegiaren ertzean **laprast** egitea oso da erraza. Berria - Kirola

Baldin zuk bezalako neurriarekin begiratuko baliote bizitzaren luze-laburrari, ez lukete **laprast** egingo lizunkeriaren lohitan. Anjel Lertxundi

Gai labainkorretan **laprast** ez egiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezin da ez **laprast** egin anbiguitate larrietan. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **laprast egin** (8); **laprast egin eta** (3); **laprast egiten** (4)

---

**laprastada** **1** *iz* laprats egitea, irristada, labainkada.

Barkatu egin zidan, nonbait, **laprastada,** ez baitzidan luzaroan berriro aipatu. Edorta Jimenez

Gainera, erreka igarotzen da seminarioa igurtziz, **laprastada** bat aurrerago itsasoratzeko. Jokin Urain

**2** ***laprastada egin***

Hurrena berriz, aski atseden hartuta, dutxatu berritan, eta saio ona egiteko irrikitan joan, eta **laprastada** egingo duzu laprastadaren atzetik. Andoni Egaña

---

**lapraxtu,** lapratx, lapraxten du *ad* elur-lapatxez bete.

Negua neguan nahi zuten, eta ez atzerakarga hartuta, udaberria **lapraxten** eta uda bera zipriztintzen. Pello Zabala

---

**lapsus** **1** *iz* hitz egitean edo idaztean, hitz egokiaren ordez beste bat erabiltzea.

Hau **lapsusa** izan dudana. Eider Rodriguez

Ez zen **lapsusa** izan. Berria - Euskal Herria

**Lapsus** adierazgarria atera zitzaion Peio Iralurri atzo. Berria - Euskal Herria

Psikoanalisiaren teorian, **lapsusek** subkontzientea azalarazten dute. Iñaki Arranz

Huskeria bat, eta horra hor **lapsus** deitzen den zulotxoa, horra azpian zegoena agerian, horra sekretuan gorde nahi zena nabarmen. Bernardo Atxaga

Bertan, inkontzientearen formazioak atzeman daitezke: **lapsusak,** txisteak, ametsak, huts egindako ekiteak. Berria - Kultura

Dela ahozko **lapsusa** *(lapsus linguae),* dela idatzizkoa *(lapsus calami),* hutsa ez da berariaz egiten eta, hortaz, nekez esan genezake egilea jolasean ari denik. Iñaki Arranz

**2** (hitz elkartuetan)

Ordea, oroimen-**lapsus** ezin sinesteko bat eduki nuen, eta zenbakia ahaztu. Jon Alonso

**3** denbora bitartea.

Ez da iraupenik gabeko **lapsusa,** bi garai bereiziko lituzkeena eta faila baten alde batera eta bestera bi denbora heterogeneo zabalduko lituzkeena; transformazio kopuru jakin batek zehaztutako jarraitasun-eza da, definituriko bi positibotasunen artean dagoena. Xabier Arregi

---

**lapur** **1** *iz* lapurtzen duen, lapurretak egiten dituen pertsona. ik **ohoin; ebasle**.

**Lapurrak** sartu dira berriro, baina oraingo honetan egiazko **lapurrak**. Josu Zabaleta

Bizkaian eta Nafarroan ere egin zituen ebasketak ustezko **lapurrak**. Berria - Kultura

Gauzaina berehala ohartu zen balizko **lapurra** hilik zegoela. Patxi Zubizarreta

Autobideko **lapurren** afera. Aingeru Epaltza

**Lapurraren** ibilerak. Berria - Kultura

Han topatu zuen **lapurren** gordelekua. Patxi Zubizarreta

**Lapurren** buruzagiak, harkaitzera iritsirik, ezpata zorrotik atera, eta ohiko araoa ahoskatu zuen. Patxi Zubizarreta

Zer esan didate, gauean **lapurrak** ibili direla edo... Pablo Sastre

"Oihuka hasi zen: harrapatu **lapurra**! Pello Lizarralde

Gaizkile eta **lapurrak** atxilotzeko. Xabier Olarra

Ezpataz eta makilaz etorri zarete, **lapur** baten bila bezala, ni harrapatzera! Elizen arteko biblia

Baina Jaunaren eguna **lapurra** bezala ustekabean etorriko da. Elizen arteko biblia

Lau polizia, **lapur** baten atzetik zebiltzela aitzakia eginez, hotel batean sartu ziren. Gotzon Garate

Koldarrak, alprojak eta **lapurrak** izatea aurpegiratzen zieten batzuek besteei. Koro Navarro

**-Lapurrak** zarete zuek, bai, lapur galantak! Karlos Zabala

Hire familian **lapurrak** dituk denak. Koro Navarro

Federicoren herrian denak **lapurrak** ziren, eta amorruaren eta lapurretaren senak jota zeuden. Pello Lizarralde

**2** (izenondoekin)

Auzo horretan, garai hartan, **lapur** arloteak eta jendilajea bizi zen. Pello Lizarralde

Zure seme hori **lapur** zital bat da. Mirentxu Larrañaga

**-Lapur** zikin bat besterik ez da. Juan Kruz Igerabide

Baina abokatu guztiak **lapur** hutsak dira... Lopez de Arana

Hemengo guztiak **lapur** edo litxarrero hutsak dira. Jose Morales

**Lapur** arruntak zarete; horratx, zer zareten. Mirentxu Larrañaga

**Lapur** galanta, Berlino. Bernardo Atxaga

**3** (izenondo gisa)

Lehengusu gizagaixoak, lehengusu **lapur** eta zelatariak. Pello Lizarralde

Anaia **lapurrak,** zatozte gugana; anaiak gaituzue eta ogi ona eta ardo ona dakarzkizuegu. Askoren artean

Hura bezalakoxea baitzen: **lapurra,** maltzurra, arlotea, zaharra, zinikoa, betizua eta bere gisa ibiltzen zena. Koro Navarro

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alan Ladd nahiko ospetsu bihurtua zen bere **lapur** lanak zirela medio. Pello Lizarralde

Piratez betetako **lapur** -habia hura suntsitu eta bertako jendea kateekin lotuta ekartzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arabiarrek, **lapur** -herria, sarri egiten zizkioten irainak eta bidegabeak elkarri. Iñaki Iñurrieta

Erreportajea egiten hain ongi ezagutzen dugun autobideko **lapur** bandaz. Aingeru Epaltza

Urtero **lapur** -talde moabdarrak Israelen sartu ohi ziren lapurretara. Elizen arteko biblia

**Lapur** -saldo batek inguratu zituen behizaina eta behi-taldea. Anjel Lertxundi

**Lapur** -sail baten antzera, zelatan dago apaiz-taldea. Elizen arteko biblia

Benetako **lapur** -txistu basati batek urratu zuen epaiketa-aretoko aire geldoa. intertestualitatea deitzen zaion **lapur** -zaku hondorik gabea. Jose Morales

**Lapur** -harrapatzaile trebea izan baino lehen gobernuaren aurka zegoen jendea harrapatzen, salatzen eta atxilotzen zuen. Pello Lizarralde

**Lapur** -jendeak zituan, eskekoak. Eskarne Mujika

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baso- **lapur** guztiak udal zerbitzura jarri baitzituen alkateak. Felipe Juaristi

Hamabi Tauletako legeak onartu egiten zuen gau- **lapurra** hiltzea, bai eta egunezkoa ere, ihesi zihoalarik aurka egiten bazuen. Iñaki Iñurrieta

-Hilotz- **lapurrak** ere interesatzen zaizkit. Aingeru Epaltza

Berdin emazte- **lapur** alemaniar edo hari-laukote konpositore trebeak izan? Harkaitz Cano

Zaldizain trebe egin zen, eta turkoen aurkako gerra gaiztoaren kariaz, zaldi- **lapur** eta gerlari. Felipe Juaristi

Francisco medikua da, eta goiz batean auto- **lapur** bilakaturik esnatu zen. Pako Aristi

Ez dit ardura zer den Hussein: polizia, militarra, banku- **lapurra,** unibertsitaria, noraezean dabilen zoroa... Jon Arretxe

Erru guztia denda- **lapur** horrena duk. Fernando Rey

Ihes egitea lortu zuen, baina guardiek deskubritu zuten nor zen bihotz- **lapur** hura. Pello Lizarralde

Emakumezale amorratu eta bihotz- **lapur** gaiztoaren ospea zeukan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Dionisio I.ak, botere- **lapur** eta tiranoa baitzen, [...]. Xabier Olarra

Izen- **lapur** arriskutsu bat dabil hirian. Joxerra Garzia

**6** *bide-lapur* ik **bidelapur**.

**7** *itsas-lapur* ik **itsaslapur**.

**8** ***lapur-zulo*** *(orobat **lapurtzulo** g.er. eta **lapurzulo** g.er.)* lapurren zuloa, lapurretak gordetzen dituzten zuloa.

**-Lapur-zulo** honetan? Aingeru Epaltza

Liburu Santuak dio: Nire etxea otoitz-etxe izango da; zuek, berriz, **lapur-zulo** egina duzue. Elizen arteko biblia

**Lapur** -zulotzat ote daukazue niri sagaratua dagoen tenplu hau? Elizen arteko biblia

Wall Street **lapur zulo** bat dela sinestea baliagarria da lapur arrakastagabe guztientzat, zerua iristeko esperantzaren ordez. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**auto lapur** (3); **benetako lapur** (3); **bide lapur** (16); **bide lapur nomada** (5); **bide lapur nomadak** (3); **itsas lapur** (8); **lapur eta hiltzaile** (3); **lapur handiak** (5); **lapur hutsak** (4); **lapur izan** (3); **lapur jendeak** (3); **lapur nomada** (5); **lapur nomadak** (3); **lapur talde** (8); **lapur zulo** (5); **lapur zulo egina** (3)

**ageriko lapurra** (3); **bide lapurra** (3); **lapurra da** (6); **lapurra izan** (6); **lapurra naiz** (5)

**itsas lapurrak** (4); **lapurrak dira** (3); **lapurrak etorri** (3); **lapurrak sartu** (8); **lapurrak ziren** (4); **ustezko lapurrak** (4)

**itsas lapurrek** (3); **lapurrek alde egin** (3); **lapurrek eraman** (3)

**autobideko lapurren** (3); **itsas lapurren** (6); **lapurren beldur** (4); **lapurren beldurrez** (3); **lapurren burua** (7); **lapurren buruzagia** (7); **lapurren buruzagiak** (5); **lapurren esku** (5)

---

# lapurbide *iz* lapurrak dabiltzan bidea.

Ikasia baitzuen orduko norberaren inozotasunak errukira bainoago maltzurkeriara bultzatzen dituela besteak, balizko inozoaren poltsa arintzeko helburuz **lapurbidera** alegia. Felipe Juaristi

---

# lapurgai *iz* lapurra izateko prestatzen ari den pertsona.

Horretara ezkero, sinesmena galdu samarturik nengoen nire **lapurgaiak** merkatuan izan zezakeen arrakastaz: baliagarri izan zitekeen apika sua pizteko, baina Lagerrean pospoloak (legez kanpokoak) ez zebiltzan inondik inora urri. Juan Garzia

Ontzi eta gainazal egokien faltan, bada, **lapurgai** idealak solidoa, hondagaitza, ez oztopagarria eta, batez ere, berria izan behar zuen. Juan Garzia

---

# lapurkeria *iz* lapurreta. ik **lapurreria**.

Egoera zinez latza da han: urik eta elektrikarik ez, egoitzak suntsituak, **lapurkeriak,** bortxaketak, jendeak iheska, nun nahi hilak beren ber utziak[...]. Herria

Esan beharra dago, Silak asmatutako **lapurkeria** hau ez dela oso eredu imitagarria. Juan Martin Elexpuru

Eraikuntza berriak egiteko profitatu nahi dute datorrena, euren enpresak eta **lapurkeriak** nola elikatu baino ez dute buruan. Hasier Etxeberria

---

lapurketa ik **lapurreta**.

---

# lapurreria *iz* lapurreta. ik **lapurkeria**.

Zabarkeria, arduragebekeria, **lapurreria** eta mozkorkeria ziren han nagusi. Jose Morales

---

# lapurreta *(899 agerraldi, 152 liburu eta 190 artikulutan; orobat **lapurketa** 20 agerraldi, 7 liburu eta 4 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lapurreta** agertzen da)* **1** *iz* lapurtzea. ik **ohointza**.

Erabateko nahaspila da dena: odol-isurketa eta hilketa, **lapurreta** eta iruzurra, ustelkeria, desleialkeria, gizarte-gatazkak. Elizen arteko biblia

Printzeak gerrei eta **lapurretei** esker eusten dio bere eskuzabaltasunari. Iñaki Iñurrieta
**Lapurreten** kontrako alarma. Patxi Iturritegi
**Lapurretetan** gezurrezko bizarra, ileordea eta fusil bat eramaten ditu. Berria - Euskal Herria
Armazko **lapurreta,** hilketa eta emakume baten bortxaketa. Jose Morales
Porrot egindako **lapurreta**. Iñaki Zabaleta
**Lapurreta** bigarren mailakoa da. Oskar Arana
-Salerosketa **lapurreta** balitz, ez litzateke gizarterik izango. Koro Navarro
**Lapurretak** eta hilketak gertatu omen dira, baita egun argiz ere, kalean zihoan jendeak ezertxo ere egin gabe. Pako Aristi
Egunero gertatzen dira **lapurretak,** hilketak, asaltoak. Josu Zabaleta
**Lapurretarik** izanez gero, arrisku guztietarako poliza dutenei ordainduko zaie; epaitegietara jo beharko dute besteek. Berria - Ekonomia
Eta orain kanpoan bizi dira, eta **lapurretari** ekin diote, Archet oihanaren beste aldean eta iparraldeko lurralde basatietan ezkutaturik. Agustin Otsoa
Gringottseko **lapurreta** hura nire urtebetetze-egunean gertatu zen. Iñaki Mendiguren
-Zer kaka-zahar argitaratu huen lehengoan autobideko **lapurretez**? Aingeru Epaltza
Zenbat aldiz zapuztu ote nituen bandiduen **lapurretak**! Bernardo Atxaga
Magistratuen **lapurretak,** tratularien kobraketa gaitzak eta egunero gertatzen ziren usadio txarrak. Iñaki Iñurrieta
Batasunak «karguen **lapurreta»** indar handiagoz salatzeko asmoa du. Berria - Euskal Herria
Sheila salatu zutela enpresa baten kontuen faltsutze, iruzur eta armaturik egindako **lapurretan** gaizkide izateaz. Xabier Olarra
**Lapurretari** eta kalteen ordainari buruzko legeak. Elizen arteko biblia

**2** (izenondoekin)

**Lapurreta** txikiak eta handiak zigor berbera badu, argi dago ebaslea ahalik eta **lapurreta** handiena egiten saiatuko dela. Juan Martin Elexpuru
Egin duzuena **lapurreta** hutsa izan da. Migel Angel Mintegi
**Lapurreta** garbia esango nuke nik. Patxi Iturritegi

**3** (egin aditzarekin; ik beherago **8**)

Ramiroren osabak **lapurreta** bat egin zuen lanean ari zen enpresan, orain dela hamar bat urte. Jon Muñoz
Tuteran ustez 20 **lapurreta egin** zituzten lau lagun atxilotu dituzte. Berria - Euskal Herria
Antza, ikaste-maila kaxkarra da oso eta ikasleei **lapurretak** egiten dizkiete eskolatik irteterakoan. Jesus Mari Mendizabal
**Lapurreta** hilaren 12an egin zuten, gaueko 23:00etan, bi gizonezkok. Berria - Euskal Herria
Indarkeriarik gabe eginiko **lapurretak** diru-zigorrekin zigortu beharko lirateke. Juan Martin Elexpuru
Hark egindako **lapurretak** eta odolusteak deabruaren lanak zirela esan zuen. Edorta Jimenez

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haien fiskoaren **lapurreta**-gosea. Iñaki Iñurrieta
Leku sakratu batetik gauza pribatu bat hartzen duena **lapurreta**-delituagatik baizik ez da zigortua izango. Iñaki Iñurrieta
Ustezko **lapurreta** saiakera batengatik. Berria - Euskal Herria
Roma dendako **lapurreta** saioa gertatu zen egun haren ondoko gauean ere ez nuen lorik egin. Alberto Ladron Arana
Luxuzko hotelek **lapurreta** andana bat jasan dute. Berria - Euskal Herria
**Lapurreta**-arriskua alderantzizko proportzioan aldatzen zen lapurrak hazten ziren gizarte-ingurunearen egoerarekin, eta, beraz, gizarte-hobekuntzako neurriekin lotu zitekeen. Iñaki Mendiguren
Laguntza iristean edota iritsi bitartean, arpilatze eta **lapurreta** kasuak gertatzen ari dira. Berria - Mundua
**Lapurreta** kasuek nabarmen egiten dute gora uda garaian. Berria - Harian
Gizahilketa (eta buru-hilketa), pasio-hilketak, sexu delituak, **lapurreta**-mota batzuk, [...]. Xabier Arregi
Hango prezioek hiriko ostalaritzako ohiko **lapurreta** maila berdintzen dute. Aingeru Epaltza

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gateko jendeak, bertako jatorrikoak, hil egin zituen, haiek abere-**lapurretara** etorri zitzaizkielako. Elizen arteko biblia
Nire lagunak futbol-saio, bizikleta-karrera, mendibuelta edota sagar-**lapurreta** bizkorretan zebiltzan bitartean [...]. Pako Aristi
Banku **lapurreta** batean polizia bat hiltzeagatik. Berria - Harian
1997an espetxeratu zituzten, banku **lapurreta** bat egiteagatik. Berria - Harian
Boto eroskeria, hautestontzi **lapurreta** eta bestelako irregulartasunak izan zirela. Berria - Mundua
Imitazioaz, aipabideaz, plajioaz, literatur **lapurretaz** eta beste antzeko arazoez. Bernardo Atxaga
Berak estimatzen eta errespetatzen zituen beste burukide batzuek ere ez ote zuten orduko sakrilegio-**lapurretaren** berri izango. Ramon Saizarbitoria

**6** ***lapurretan*** *adlag* lapurtzen, lapurreta eginten. *ik beherago* **9.**

Sekula ez naiz **lapurretan** aritu. Jose Morales
Biltegian sartu zirenean, lapurrak **lapurretan** ari ziren oraindik. Josu Zabaleta
Erregearen basailuek **lapurretan** jardunez gero, kondearen zigorra jasotzen zuten, erregearena jaso nahi ez bazuten. Iñaki Iñurrieta
Ez nekien nolako zigorra izanen zuten Alemanian **lapurretan** saiatzeagatik. Alberto Ladron Arana
**Lapurretan** harrapatua lotsatu egiten den bezala. Elizen arteko biblia
Besteetan, hementxe utzi izan ditiat **lapurretan** harrapatutakoak! Koldo Izagirre
Munduan inork **lapurretan** ikusi banau [...] ekatzu hona, eta esan dezala noiz eta non ikusi nauen. Anjel Lertxundi
**Lapurretan** etorri naizela eta harrapatu egin nauala? Edorta Jimenez
Teologiako ikasle eta **lapurretan**? Joxerra Garzia

**7** *itsas lapurreta* ik **itsaslapurreta**.

**8** ***lapurreta egin*** lapurtu.

Bronx, Brooklyn eta Harlemgo ghetto hispano eta beltzetan, iluntasuna eta kaosa baliatuz, milaka pertsona kalera atera ziren helburu bakarrarekin: **lapurreta egitea**. Sauli, **lapurreta egin** ondoren, burua moztu eta armak kendu zizkioten. Harkaitz Cano
Baina hemen denok gara senitarteko, eta barrenak ez agintzen **lapurreta egiteko**. Juan Garzia
Kanpotar batzuek **lapurreta egin** zuten etxalde aberats batean, nagusia eta haren emaztea hil, eta etxea erre zuten. Jose Morales
Gazteak ustez **lapurreta egiteko** sartu zirelako obra batean. Iñigo Aranbarri
Engainatu eta **lapurreta egin** zidan gizonaren zain nengoen goizean. Ander Irizar
Milioiak irabazten dituzte **lapurreta eginez**. Jose Morales
Ez du **lapurretarik egiten**, baizik eta jatekoa ematen dio gosetuari, eta jantzia biluzik dagoenari. Elizen arteko biblia
Gescartera kasuan 50 milioitik gorako **lapurreta egin** dutenen historia. Pako Aristi
-Nork egin dizu **lapurreta**? Anton Garikano

**9** ***lapurretan egin*** lapurtu.

Dortmunden **lapurretan egin** zioten Alberto Porlani. Edorta Jimenez

Jaunak, Israelen kontra biziki haserreturik, lapurren esku utzi zituen, eta hauek **lapurretan egin** zieten. Elizen arteko biblia

Ez ziren etorri **lapurretan egitera** bakarrik. Oskar Arana

Inor ez hiltzea, **lapurretan** ez **egitea**. Iñaki Iñurrieta

Bere karrera labur bezain betean, hamabi bidaztiri **egin** zien **lapurretan,** hogei fraide ketu zituen komentu batean eta moja monasterio bat harem bihurtu zuen. Josu Zabaleta

Erromatarren artean, **lapurretan egiten** zuen esklaboa Tarpeiar haitzetik botatzen zuten. Iñaki Iñurrieta

Zortzi-hamaika urteko haurrak, etxeetako leihoak hautsi eta **lapurretan egitera** sartzen dira. Josu Zabaleta

Florentek burua makurtu zuen; **lapurretan egin** berria zen. Karlos Zabala

**Lapurretan egin** ziguten eguna. Oskar Arana

### 10 *lapurretan ibili*

Ez nuen dirurik, beraz **lapurretan ibili** nintzen, trafikante, eta... Mexikora iritsi nahi nuen, baina ez nintzen Kubatik atera. Jon Muñoz

Hauxe da **lapurretan dabilenari** gertatzen zaiona: lapurrari berari kentzen dio bizia. Elizen arteko biblia

**Lapurretan ibilitako** neskame eta zerbitzariak urkatu egiten zituzten. Felipe Juaristi

Zer dela-eta egin behar ditugu "gure gauzak" ezkutuan, **lapurretan bagenbiltza** bezala? Ana Urkiza

Zergatik **lapurretan dabiltzan** gazteak osasunez gainezka bizi diren, eta hitzez ere irain egiteko gauza ez diren haurrak eritasun mingarrien mende. Imanol Unzurrunzaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**banku lapurreta** (3); **egindako lapurreta** (12); **eginiko lapurreta** (3); **lagunek lapurreta egin** (3); **lapurreta da** (7); **lapurreta egin** (47); **lapurreta egin zioten** (4); **lapurreta egin zituzten** (3); **lapurreta egin zuten** (4); **lapurreta egitea** (17); **lapurreta egitea egotzi** (3); **lapurreta egitea leporatuta** (4); **lapurreta egiteagatik** (11); **lapurreta egiteko** (11); **lapurreta egiten** (18); **lapurreta egiten saiatu** (4); **lapurreta egitera** (3); **lapurreta gertatu** (6); **lapurreta handi** (4); **lapurreta izan** (8); **lapurreta izan zen** (3); **lapurreta kasuak** (3); **lapurreta kopurua** (3); **lapurreta saioa** (3); **lapurreta salatzera** (3); **lapurreta txiki** (3); **lapurreta txikiak** (4); **lapurreta ugari** (3)

**egindako lapurretak** (3); **gertatzen dira lapurretak** (3); **lapurretak egin** (6); **lapurretak egiten** (11)

**lapurretan ari** (11); **lapurretan ari ziren** (5); **lapurretan aritu** (4); **lapurretan aritzen** (5); **lapurretan aritzen dira** (3); **lapurretan egin** (13); **lapurretan egiteko** (5); **lapurretan egiten** (10); **lapurretan egitera** (3); **ustez lapurretan ari** (4)

**lapurretaren ondorioz** (4)

**lapurretaz salatu zuten** (3)

---

## **lapurretagai** *iz* lapurtzeko gaia.

Hasieran barbaroek **lapurretagai** baizik ez zuten ikusten merkataritza. Iñaki Iñurrieta

---

## **lapurretatxo** *iz* lapurreta txikia. ik **litxarreria 2**.

-Nik -tetelkatu zuen berriro Meharrak- **lapurretatxoren** bat-edo egin dut, muturrekoren bat eman ere bai, baina inori ez diot kalterik egin. Koldo Biguri

---

## **lapurtar** 1 *izlag* Lapurdikoa, Lapurdiri dagokiona.

Hartarik landa, XIX. mendean, Garat **lapurtar** anaiek, Zamakola bizkaitarrak, Chaho zuberotarrak, asmatu xede politikoek ez zuten izan arrakasta handirik beren garaian. Piarres Xarriton

**Lapurtar** estiloko etxe bat. Anjel Lertxundi

Oñatiko Unibertsitateaz **lapurtar** idazleak idatzi zituen lerro hauek: [...]. Piarres Xarriton

Aspaldiko **lapurtar** koblari zenbaiten kantuak dituzte hautatu. Herria

XVII. mendeko apaiz **lapurtarrek**. Koldo Zuazo

Beskoitze herri **lapurtarrean** jasotako adibideak. Koldo Zuazo

Euskara **lapurtarra** dauka oinarrian [Leizarragak]. Koldo Zuazo

• **2** *iz* Lapurdiko herritarra.

Bigarren milurtearen bezperan zazpiehun kideko tribua osatzen genuen, erdiak **lapurtarrak**. Itxaro Borda

Baionesek **lapurtarren** foruen etsai amorratua zen Pes de Puyanne izendatu zuten alkate. Martin Anso

Gutxi-asko, **lapurtarrek** eta mugaren alde bietako nafarrek ere egin behar izan dituzte erdialdeko euskalkira hurbiltzeko euren ahaleginak. Koldo Zuazo

Xuberotarrek **lapurtarrak** jo, hauk 8-0 hasi ondoan. Herria

### 3 lapurtera.

**Lapurtar** klasikoan idatzi zuen Gabriel Arestik Boccaccioren *Dekamerone tipi bat.* Koldo Zuazo

Argi dago lau literatura euskalkiak gainerako hirurak baino esanguratsuagoak direla, eta lau horien artean badira bi, giputza eta **lapurtarra,** euskararen benetako ordezkariak direnak: lehena Espainian eta bigarrena Frantzian. Koldo Zuazo

Asko ziren euskara giputza, giputz osotua, "euskara osotua" edo **lapurtar** zaharra aldarrikatzen zutenak, Koldo Zuazo

### 4 *nafar-lapurtar* nafar-lapurtera.

Lafittek nafar-**lapurtarra** deitu zion eredu berriari. Koldo Zuazo

Lapurtarra, giputza, bizkaitar biak, zuberotarra eta nafar-**lapurtarra** dira euskararen ibilbidean sortu eta garatu diren literatura euskalkiak. Koldo Zuazo

· Garai hartako guztiek bezala, hiru euskalki bereizi zituen, Larramendiri jarraituaz: a) nafar-**lapurtarra,** Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan erabiltzen zena, b) giputza, Gipuzkoan eta Araban mintzatzen zena, eta c) bizkaitarra. Koldo Zuazo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**defentsa ministro lapurtarra** (3); **nafar lapurtarra** (8)

**didier deschamps lapurtarrak** (4); **gazte lapurtarrak** (3)

**lapurtarrek irabazi** (3)

**lapurtarren biltzarra** (15); **lapurtarren biltzarrak** (9); **lapurtarren biltzarraren** (3); **segiko hiru lapurtarren** (9)

---

## **lapurtartu,** lapurtar(tu), lapurtartzen da *ad* lapurtar bihurtu.

Eta ere Manex Pagola-ren bost kantu; aspaldidanik **lapurtartua** den baxenafartar huni omenaldi bat bezala nahi izan diote eskaini Pantxoa ta Peiok. Herria

---

## **lapurtera** 1 *iz* euskalkietako bat, Ipar Euskal Herriko kostalde eta ingurukoa.

Eredu bi izatea, **lapurtera** Iparraldean eta giputza Hegoaldean, ez zen, baina, gure gaitz bakarra. Koldo Zuazo

1973. urtea zen, eta Bilbon egokitu nintzen, **lapurtera** klasikoaren jarraitzaileen gotorlekuan. Koldo Zuazo

Nafarroan hitz egiten diren euskalkiak dira nagusi, baina badira **lapurteraz** egindako grabazioak ere. Berria - Kultura

**Lapurtera** literarioaren alde borrokatu zuen beti. Askoren artean

**2** ***nafar-lapurtera*** XX. mendean Ipar euskal Herrian eratu zen literatura euskalki berria, lapurteraren eta baxenafarreraren elementuez osatua.

Gipuzkera, bizkaiera, nafarrera, **nafar-lapurtera** , zuberera... euskalkiak baino, eredu sozialak egon direla esango nuke. Iñigo Aranbarri

Hola duzue orain arte PIKA irakurri ahal izan züberotarrez edo **nafartar-lapurteraz** . Herria

Düala berri, ber lana eginik züan **nafar-lapurteraz** Aita Marcel Etchehandy, Belokeko beneditarrak. Herria

Ez baikenuen haatik, **nafar-lapurterazko** gure euskalkian, neholaz oraino ez gizakirik ez pertsonarik ez asmatu, ez onartu! Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lapurtera klasikoa** (4)

**nafar lapurteraz** (5)

---

# **lapurtu**, lapur(tu), lapurtzen **1** du-dio *ad* norberarena ez den zerbaitez jabetu, indarrez, ezkutuan edo iruzurrez. ik **ostu; ebatsi; harrapatu.**

-Nork bereari kontu egin biezaio, eta ahal duena **lapur** beza -esaten zuen. Koro Navarro

Bidean **lapurtu** edo kontuen liburuarekin lapurretan egiten dutenen artean, nahiago ditiat bidean **lapurtzen** dutenak. Koro Navarro

Haurretatik hasi ezean, **lapurtzen** ikastea ez da erraza. Juan Garzia

Gurasoei **lapurtu** eta "ez da bekatu" dioena kriminalen pareko bihurtzen da. Elizen arteko biblia

**Lapurtuko** dioten beldur ote da neskatila? Harkaitz Cano

-Zenbat **lapurtu** huen? Koro Navarro

**2** (objektuarekin)

Auziak noiznahi sortzen ziren Baigorri, Erro eta Luzaideko jendeen artean: bordak erretzen ziren, kabalak ebasten edo hiltzen, artzainak bahitzen, bidaiariak **lapurtzen** . Michel Oronoz

Emakumeak eta haurrak gatibu hartu zituzten gudariek, eta abereak **lapurtu** . Elizen arteko biblia

Elkar gorrotatzen eta ezpataz hiltzeraino zauritzen, auzokoaren abereak ezkutuan hiltzen, gauez inoren ondasunak harrapatzen eta **lapurtzen,** eta antzeko beste oker asko egiten hasi ziren. Askoren artean

Mutil koskor mehe bat zen, itxura gozokoa, ahaztutako saltxitxoi zatiak eta urdaiazpiko muturrak **lapurtzen** zituena. Karlos Zabala

Banku bat **lapurtu** duzu zuk gaur, seguru. Koro Navarro

Mozkor ditzagun Jesus inguratzen duten begiraleak; **lapur** dezagun haren gorpua, iragar dezagun berpiztu egin dela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Zaldia **lapurtu** didazu -egin zuen irri pashak-. Fernando Rey

Aste Santuetako oporretan bizikleta **lapurtu** zidaten. Josu Zabaleta

La Sarriette oroitu zen aurreko astean saski bat mertxika **lapurtu** ziotela. Karlos Zabala

Eta eskubide hori **lapurtu** egiten zaie. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Haren irribarrea ikusi zuen, ezki bat eguteran, argiari argi gehiago **lapurtzen** . Felipe Juaristi

Kontuz ibili, hemen dirua aise **lapurtzen** dute-eta. Koro Navarro

Han aurkitutako urrea eta harribitxiak **lapurtu** zituen. Jon Muñoz

Makinak bien artean hartuta, banan-banan eraman zituzten **lapurtu** berria zuten furgonetara. Rafa Egiguren

Ganbara zahar batera hautsa **lapurtzera** sartutako lapurren bat? Joxemari Urteaga

· **Lapurtu** ez nuena itzuli behar. Askoren artean

Gordean dituzte **lapurtu** zituztenak. Anjel Lertxundi

**3** irud/hed

Lau eta bat galdu, baina partida **lapurtu** omen zieten. Ramon Saizarbitoria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**armak lapurtu** (3); **auto bat lapurtu** (5); **baloi asko lapurtu** (4); **baloi bat lapurtu** (3); **baloia lapurtu** (12); **baloia lapurtu zuen** (5); **baloiak lapurtu** (3); **bizikleta lapurtu** (4); **dirua lapurtu** (8); **euro lapurtu** (3); **materiala lapurtu** (5); **oiloak lapurtu** (3); **ordenagailua lapurtu** (5); **poltsa lapurtu** (3); **poltsatik lapurtu** (3); **sua lapurtu** (3); **txartela lapurtu** (3); **zaldia lapurtu** (3)

**autoa lapurtua** (3); **gutun lapurtua** (5); **poeren gutun lapurtua** (3)

**lapurtutako auto** (3); **lapurtutako dirua** (6); **lapurtutako sexualitatearen** (3)

**egia bat lapurtzea** (3); **lapurtzea egotzi** (4); **lapurtzea leporatu** (3)

**oinezko bati lapurtzeagatik** (3)

**baloiak lapurtzen** (4); **lapurtzen saiatu** (4); **lapurtzen saiatu ziren** (4); **lapurtzen saiatuko** (3); **lapurtzen saiatzen** (3)

---

# **lapurtxo** *iz* lapur txikia. ik **litxarrero.**

Ustekabe ederra hartuko zitean **lapurtxo** horiek, bai horixe! Alberto Ladron Arana

---

# **lapurtze** *iz* norberarena ez den zerbaitez jabetzea, indarrez, ezkutuan edo iruzurrez.

Onartu behar da ere hurko lagunarentzat bizimodu satsuenetaz kapable dela gizona, sokorri errefusatze, **lapurtze,** bortizkeria, borroka, hiltze. Michel Oronoz

Taldekideek Lanpard eta Makelelek zelaierdian egindako baloi **lapurtze** lanaren fruituak jaso zituzten. Berria - Kirola

---

# lapurtzulo ik **lapur 8.**

---

# lapurzulo ik **lapur 8.**

---

# **lar** **1** *adlag* gehiegi. (izenondoekin)

**Lar** gaztea dut ordea udal funtzionario hau, hartaz gomutatzeko. Koldo Izagirre

Batzutan, **lar** arteza bere bai. Xabier Amuriza

Bost bat segundo iraun duen bien arteko isiltasuna **lar** luzea iruditu zaio. Paddy Rekalde

Hasieran ez nuen gogoko, **lar** mistikoa aurkitzen nuen, **lar** sinbolikoa. Koldo Izagirre

**2** (adizlagunekin)

**Lar** goiz zen arren, ume ugari zegoen eskolako ate handien aurrean. Joseba Sarrionandia

**3** (aditzekin)

**Lar** babesten diren haurrek nekezago egiten diete aurre estres egoerei. Berria - Gaiak

**Lar** hobetsi ditugu garaiotan aldaketa eta erreformak. Andres Urrutia

-San Andres, **lar** eskatzen debanari, bapez. Pello Zabala

-Rufinok nahikoa eta **lar** egiten eban gugaz. Xabier Amuriza

· **"Lar,** txar" dio sano ondo Bizkaiko esaera zahar batek. Gotzon Garate

**4** (izen baten eskuinean) ik **larregi.**

Ezin zaie baliabide eta ondasun naturalei «kalte **lar»** egin. Berria - Gaiak

Agur, mutiko -esan zidan ohiko irribarre nazkagarria erakutsiz-, eta ez egin paja **lar,** txarra da eta. Jon Arretxe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **denbora lar** (3); **lar babesten** (3); **lar berandu** (6); **lar handia** (4); **lar luzatu** (3); **lar mozkortuta** (3); **lar ona** (5); **lar ondo** (9)

---

# larako *iz* kabila. ik **ziri.**

Burdinazko **larako** edo ardatz txiki batzuk jartzen dira. Santiago Iruretagoiena

Zulo horietatik teinkatzen dira nerbioak, tornu eta **larakoekin** bihurrituz. Santiago Iruretagoiena

Ardatz biribilaren diametroa gakoak duen neurrikoa izango da, baina **larakoek** 1/16 gutxiago izango dute. Santiago Iruretagoiena

Buruaren ordez **larako** bat zegoen estutzeko. Pello Lizarralde

Biolin gorputzaren berniza usainduz, lau harik eta lau **larakoak** hatzez aztertuz, jotzera ausartzeke ordea. Felipe Juaristi

---

# laranja *(orobat* ***liranja*** *g.er.)* **1** *iz* laranjondoaren fruitua, biribila eta kolore hori-gorrixkakoa, ataletan banatutako mami urtsu eta gozoa duena.

Izozkailuaren gaineko frutontzi zumezkoan **laranja** bat zegoen eta iratzargailu bat ere bai **laranjaren** ondoan. Harkaitz Cano

**Laranja** baten atala. Jasone Osoro

**Laranjak** jan eta jan ari naiz. Piarres Aintziart

Zuhaitz eder hura hirirako bide ondoan zegoen eta bidaiari askok **laranjak** lapurtzen zizkioten. Patxi Zubizarreta

**Laranjak** erosteko txartela. Edorta Jimenez

Sâidna Musak **laranja** gozo batzuk dastatu, eta saritzat zer nahi zuen galdegin zion Miseriari. Patxi Zubizarreta

**Laranja** baten zukua ateratzen den bezala. Josu Zabaleta

Pomelo edo **laranja** txiki baten tamainaraino hazia. Xabier Olarra

Kristal arrosazko bola bat zen, **laranja** koxkor baten tamainakoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hartlen arabera, bi kalkuluak konparatzea «sagarrak eta **laranjak»** parekatzea bezalakoa da. Berria - Gaiak

**Laranjazko** freskagarria Leirerentzat eta kamamila beroa Amaiarentzat. Aitor Arana

Apustu egin, eta coca eta **laranjazko** edariak jokatzen zituzten. Juan Kruz Igerabide

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Laranja konpaktu horietako bat zen, **laranja**-atalak elkarri oso lotuta dauden horietakoa. Harkaitz Cano

**Laranja** atal-erdi baten tankerakoa. Edorta Jimenez

Hatzez **laranja** zatiak banantzen saiatu zen. Harkaitz Cano

Gosariko tostada bukatu eta **laranja** zumoa edaten ari zela erabaki zuen Martari deitzea. Xabier Mendiguren Elizegi

*ik beherago* 8 *eta* 9. Askoren artean

**Laranja**-azal idorrak. Juan Garzia

Behean, hesiaren ohol ezpalduen artean flotatzen, kutxa hautsiak, **laranja**-azalak eta aza ustelak zituzten. Lopez de Arana

Sagar pilen eta **laranja** kaxen atzean. Karlos Zabala

Etxabean limoi eta **laranja** biltegi bat zegoen. Karlos Zabala

Teknikaren aurrerapenei esker, urte guztia da orain **laranja**-aldi. Joxerra Garzia

Intxaur tamainako harriak, tarteka **laranja** neurrikoak ere bai. Pello Zabala

· Badakizu, ohiko [zapore] guztiak, txokolatea, menda eta **laranja,** baina espinaka, gibel eta tripakien gustua ere suerta dakiguke. Iñaki Mendiguren

Beste urte batez Tourmaleta igo du Tourrak, eta beste urte batez **laranja** kolorea nagusitu da La Mongietik behera. Berria - Kirola

• **3** *izond* laranja-kolorekoa.

Argi **laranja** batek beroaren irudipena ematen zuen. Juan Kruz Igerabide

Maiatzean Espainiako urtearteko KPI %3,4 hazi da: argi **laranja** baino gehiago, gorria pizteko datua. Berria - Ekonomia

Turbante **laranja** baten azpian, ezpain **laranja** eta aurpegi zurbileko beste emakume bat igarotzen zen handik. Lopez de Arana

Kazola handi batean bloke zuri batzuk zekartzan, azal **laranja** fin bat zutenak. Harkaitz Cano

Azal **laranjako** liburua. Aritz Gorrotxategi

Salbamendu jaka **laranja** jantzirik. Joseba Sarrionandia

Duela bi urte Iraultza **Laranja** bultzatu zuen Julia Timoshenkok, Viktor Justxenkorekin batera. Berria - Mundua

Ematen du koadro normal bat dela, urdina eta **laranja**. Unai Elorriaga

Zerua ere urdin ilun zegoen egunsentiko une hartan, mantxa **laranja** eta horiekin. Bernardo Atxaga

Hodei luze bikoitzaren marra morea, gorri bihurtu zen azkar, baita **laranja** distirant ere gerora. Txillardegi

**4** (hitz elkartuetan)

Korbata **laranja**-hori bat, ezin itsusiagoa. Iñaki Mendiguren

Udazkeneko kolore guztiak ageri zituzten, nire amaren gogoko koloreak hain zuzen ere: urre kolore ilunetik marroi argira, **laranja** tonuetatik eztiaren kolorera, okreetatik bolira, gorrixketatik beltzaranera. Joxan Elosegi

· Markako txandal gorri-**laranja** batez txatxutua. Aingeru Epaltza

**5** *iz* laranja kolorea.

Ezpainak **laranjaz** pintatuta zeuzkan. Bernardo Atxaga

Praile budista **laranjaz** jantziek jotzen duten gong erraldoi baten erdigunea. Lourdes Oñederra

**6** ***laranja-arbola*** laranjondoa.

Atarian oso ale ederrak ematen zituen **laranja** arbola bat zeukan. Patxi Zubizarreta

Dagoeneko ageri ziren zabaldiak arroz-soroekin eta **laranja**-arbolekin, barraka zuriak estalki beltzarekin. Josu Zabaleta

**7** ***laranja-kolore*** *(orobat **laranjakolore** g.er.) izond* laranja-kolorekoa dena.

Handik bi ordura, geltoki **laranja-kolore** baten aurrean ikusi dut. Turago musofago bat, gorputza more, mokoa **laranja-kolore** eta burua pinporta txikiz betea zuena: gorriminak atzean, horiak aurrean. Xabier Olarra

Batzuetan morez, batzuetan kobre-kolore garbiz, beste batzuetan urdinez, eguzkiz, horiz, **laranja-kolore** ñirñirkariz... Fernando Rey

Munstro **laranjakoloreok**. Juan Garzia

**8** ***laranja-koloreko*** *(orobat **laranjakoloreko** g.er.) izlag*

**Laranja-koloreko** suge pozoitsuak. Iñaki Mendiguren

**Laranja koloreko** lau billete. Jesus Mari Mendizabal

Eguzki galdatan, **laranja koloreko** eguzkitakoen azpian. Monika Etxebarria

Guantanamoko presoen **laranja koloreko** jantzi batekin. begiak **laranja-kolorekoak** eta irtenak. Iñaki Mendiguren

· **Laranja kolore** biziko atorrak. Berria - Euskal Herria

Begi handi distiratsuak **laranja-kolore** bizikoak. Iñaki Mendiguren

**9** ***laranja-lore*** laranjondoaren lorea.

-Hara, gaur **laranja** lorearen usaina daukan. Karlos Zabala

Emaztegai orrazkera txit altua zuen, **laranja** lore adarrez goratua. Karlos Zabala

**10** ***laranja-ur*** *(**20** esaldi **13** liburutan)*

**Laranja-uraz** betetako edontzia. Oskar Arana

Kafesnea, **laranja-ura** eta patata-tortilla puska. Aingeru Epaltza

Bar batean gelditu naiz lehenik, kolpez irentsiz baso bat **laranja ur**. Piarres Aintziart

**11** ***laranja-zuku*** *(**11** esaldi **8** liburu eta artikulu **1**ean)*

-Orain gustura edango nuke **laranja- zukua**. Jasone Osoro

Kaxako **laranja zukua** zuen hozkailuan. Joxemari Iturralde

Hozkailua ireki eta **laranja zuku** bat hartzen du. Antton Olano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argi laranja** (5); **gorri laranja** (5); **iraultza laranja** (10); **laranja atal** (4); **laranja azal** (3); **laranja kolore** (16); **laranja kolore biziko** (4); **laranja kolore bizikoa** (3); **laranja kolorea** (9); **laranja koloreko** (30); **laranja kolorekoa** (9); **laranja kolorekoak** (6); **laranja kolorekoek** (3); **laranja kolorez** (4); **laranja ur** (5); **laranja ura** (9); **laranja zukua** (7); **talde laranja** (3); **txandal gorri laranja** (3)

**laranjak eta limoiak** (22); **sagarrak eta laranjak** (3)

**talde laranjako** (3)

**talde laranjaren** (6)

---

# laranjada *iz* laranjazko edaria.

Orduantxe hasi baitzen tabernetara joaten, handiekin, bere **laranjada** bazter batean edatera. Josu Zabaleta

Noiz edo noiz amak, uda partean, eta aitaren ezkutuan, eman izan die **laranjada** bazkaritan. Jokin Muñoz

---

laranjakolore ik **laranja 7**.

---

laranjaoondo ik **laranjondo**.

---

# laranjatxo *iz adkor* laranja.

-Joan aurretik **laranjatxo** bat jan nahi nuke -eskatu zuen apal-apalik. Patxi Zubizarreta

---

# laranjondo *iz (orobat **laranjaondo** g.er. eta **laranja-ondo** g.er.) iz* bortusaiaren familiako zuhaitz txikia, larruaren tinkotasuneko hostoak eta lore zuri usaintsuak dituena, fruitutzat laranjak ematen dituena *(Citrus sinensis).*

Gero, lehen ura zegoen tokietan fruitu arbolak sartu zituzten, lehortutako ubide bakoitzean klase bana, sagarrondoak, madariondoak, mertxikondoak, abrikotondoak, gereziondoak, limoiondoak eta **laranjondoak,** nekazarien pozerako, lur emankorra eta osasungarria baitzen oso. Felipe Juaristi

Oraingo mafiaren diru iturri nagusia ez dago Siziliako limoiondo eta **laranjondoetan,** Milan eta Manhattango bulegoetan baizik. Berria - Mundua

Mirtoak eta **laranjondoak** baino ez; **laranjondo** garratzak eta mirto garratzak. Juan Garzia

**Laranjondo,** limoiondo eta mingranondo makatzez betetako zuhaizti hostotsu baten erdian. Jon Muñoz

**Laranjondoak** loretan zeudenean. Jon Alonso

Lorategi bat dudala, **laranjondoz** josia. Felipe Juaristi

**Laranjondoak** fruituz beteta. Josu Zabaleta

---

# laratz **1** *iz* sutondoan, kebidetik zintzilik dagoen kate kakoduna, bertza edo galdara esekitzeko erabiltzen dena.

Katua esku artean hartu eta zazpi bira ematen zaizkio etxeko **laratzaren** azpian. J.M. Olaizola "Txiliku"

Babarrunak egosten beheko suan **laratzetik** zintzilik jarritako lurrezko eltzean. Pako Aristi

Betidanik ikusi du ur-tupina **laratzean** zintzilik. Itziar Otegi

Ur hura pertz handi batean jartzen genuen beheko suaren gainean, **laratzetik** zintzilik, eta pertz honetan nola-hala garbitu gero, beheko suaren ondoan, handik kanpoko hotza ez baitzen biluzten ibiltzeko modukoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Pertza ekarri zuen gero, ura han hustu eta **laratzean** zintzilikatu zuen pertza. Xabier Mendiguren Elizegi

Hantxe egon ohi ziren askotan, ke-zulo azpian, lurruntsu, **laratzetik** behera zilintzilika, zezinaren itxuran, baserri hartakoen "azkiñiko" busti ta basaz lohituak. Xabier

Mendiguren Elizegi

**2** (erkaketetan)

Dontsuak hasieran bezala jarraitzen zuen, etxeko **laratza** bezain isilik. Anjel Lertxundi

---

# larba **1** *iz* beldarra.

Euli arrunt edo etxekoaren emeak 500 bat arrautza jartzen ditu hondakin horietan eta 24 ordu barru arrautza horietatik euli-**larbak** jaiotzen dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Larba** horietatik imagoa jaiotzen da, itxuraldaketa edo metamorfosiaren bidez intsektu heldu bihurtuko dena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kakalardo espezie baten **larbak**. Pablo Sastre

Arrautzatik irten bezain laster, gertuen dagoen arto landarearengana jotzen du **larbak**. Berria - Gaiak

Sitsek sekula ez dute arroparik jan; sitsen **larbak** dira jertseak eta alargunen fajak jaten dituztenak. Unai Elorriaga

Zuk badakizu nola egiten diren erle langileak: gelaxka txiki batean sartzen da **larba,** eta janari eskasa ematen zaio. Josu Zabaleta

Honela eliza bat zibilizazioen ugaltze-sistemaren zati litzateke, tximeleta eta tximeleta artean arrautza, **larba** eta krisalidaren papera eginez. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zomorro horrek, artoaren landarearekiko mendekotasuna du, bai **larba**-fasean eta heldutasunean ere. Berria - Gaiak

Mr. Goldstein **larba**-itxurako gizona zen. Lopez de Arana

Erlijio nagusi baten bizitasun iraunkorra, garai batean Mendebaldeko **larba**-gizarte bati bere krisalida eman ziona. Iñaki Mendiguren

---

# lardaia *iz* gurdi, orga eta kidekoetan, endaitza, pertika.

Orga bat behar da itzuli **lardaiaren** gainean denbora laburrenean. Herria

---

# lardaska **1** *iz* lardaskatzea.

Bihotz-gogorrak ziren, zakarrak, traketsak, moldakaitzak, ganoragabeak, ezdeusak, zarpailak, makurrak; haien buruan dena zen nahaste-borraste, zalantza, kontraesan eta **lardaska**. Jose Morales

Etxaldea gobernatzen ez jakitearen kariaz, nahastearen eta **lardaskaren** mendean baitaude hala bata nola besteak. Jose Morales

Edertasunaren engainua al zen berriro, hartara inoren perzepzio guztiak, egiaren erdibidean zeudenak, urrezko **lardaska** batean nahasten zirelarik? Anton Garikano

• **2** *izond* lardaskatua, nahasia.

Matson andrearen iduriko, behe-mailakoen joera zen nabarmen-nabarmen "egunerokorako" arropa berria janztekoa; bizimodu **lardaska** eta arduragabearen adierazgarri zena, inondik ere. Mirentxu Larrañaga

Niretzat, balioen konflikto nahasi batean murgilduak bizi gara: gizarte erditradizional, erdimoderno, kontserbakoi, anarko, erlijioso, pagano **lardaska** batean, ez mundu bateko ez besteko, trantsizio krisietan ohi den eran. Joxe Azurmendi

**3** (adizlagun gisa) lardaskan.

Zuzendaria dirudien emakumea azaltzen da agertokira urrats lasterrez, eta haren atzetik larru beltzez jantzitako gizon gazte bat, hormako entxufean **lardaska** hasten dena. Oskar Arana

Bizitza osoa pasio gaitzesgarriari lotua igaro ostean, lohian **lardaska** ibiltzearen poderioz, bizimolde hari guztiz normala irizten zion. Patxi Zubizarreta

**4** ***lardaskan*** *adlag* ordena jakinik gabe, han-hemenka sakontasunik gabe.

**Lardaskan** ibili naiz gelakideen krema harrigarri ugarien artean. Patxi Zubizarreta

Lehenbiziko gauean, igotzean, bere historia kontatu zion Florenti luze eta **lardaskan**. Karlos Zabala

Ez zitzaien atsegin **lardaskan** ibiltzea, patxadan lan egin nahi zuten. Karlos Zabala

"Erlojua lapurtu didate" esanez etorri zen neska zaharrenetako bat ondoren, eta orduko garbi zeukaten: litxarrero koxkor bat dabil besteen gauzetan **lardaskan**. Xabier Mendiguren Elizegi

Emaztea **lardaskan** dabil bere platerean. Monika Etxebarria

Hiri-bazterreko auto puskatuen biltegietan **lardaskan** dabiltzan ume bihurriek. Jon Muñoz

Honetan gogoa, **lardaskan,** Euskaldunon Egunkaria-ren estilo liburura jo dut, idazkuntzaz ematen diren oharrak irakurtzera. Iñigo Aranbarri

-Banuen bere zeraren... berarekin **lardaskan** ibili den emakume horren berri. Xabier Olarra

Esan beharra dago matematikan **lardaskan** aritzeaz batera, halakoxe gimnastika batean ziharduela bere baitan Ruche jaunak. Jon Muñoz

Herio dama bati azkeneko ordua iritsi zaiola esaka, eta, aldi berean, hatz batez damaren aluan **lardaskan**. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lardaskan ibili (5)

---

# lardaskatu, lardaska(tu), lardaskatzen **1** du *ad* nahasi, mordoilotu; ordena desegin; alferrik galdu. ik **lardastu**.

Norbaitek maleta hura ireki, dena **lardaskatu** eta artilezko jertsea lapurtu zion. Joxemari Iturralde

Etorri zen Saioa, amonaren kutxako fotoak eta paperak **lardaskatu** zituen. Pablo Sastre

Haurra, berriz, ezin da geldirik egon, batera eta bestera etengabe, inguru guztia **lardaskatuz**. Pedro Alberdi

Egoera politikoa erabat **lardaskatuta** dago, gori-gorian. Migel Angel Mintegi

Hantxe zegoen, bibotea behin eta berriro **lardaskatuz** eta, etsipenez, buruari eraginez. Patxi Zubizarreta

Legelariak, ezkutuko mago ikusezin baten antzera, mekanismo guztia gobernatzen zuen; erabat **lardaskatu** zuen dena, inork ezer ikertzeko astirik izan baino lehen. Jose Morales

Edozer gauza eskatzen nuen, banekien eta ateratakoa jan gabe **lardaskatuko** nuela platerean, urduritasunak sabelean egiten didan korapiloak jatea eragozten didalako. Ramon Saizarbitoria

Beste bat izan balitz, zorriak **lardaskatzera** bidaliko nuen. Anjel Lertxundi

Egile zaharrenek, edo akaso denbora berak, lortu dute nolabaiteko distantzia bat ezartzea, eta ez dirudi haien izena **lardaska** dezakeenik "homeriko", "dantesko" eta halako adjektiboen erabilerak. Juan Garzia

Horrelako zerbait esanen zion Antxonek, ez zituen aukerak **lardaskatzen**. Koldo Izagirre

Beldurra... horrelako marka bikaina **lardaskatzeko** arriskua, ba ei zekian ez zuela Ezard Charles . Josu Landa

Ez du nekea ordaintzen papera ergelkeriez **lardaskatzeak**. Koldo Izagirre

• **2** da *ad*

Gure emazteak ez ziren nonbait gu bertze emakumeekin **lardaskatuko** ginen beldur. Aingeru Epaltza

• **3** du *ad* ordena jakinik gabe aritu, han-hemenka sakontasunik gabe aritu.

Kandido eta Paulo, norgehiagoka berriak asmatzen, eta Txantoi txikia eta Fernando, komenioaren gorabeherak **lardaskatzen**. Pedro Alberdi

Paperean apuntatuta nituen kale-izen guztiak bilatzen amaitu nuenez, entziklopedian **lardaskatzen** hasi nintzen. Unai Elorriaga

"Gidoia" jarri nuen goian, eta papera **lardaskatzeari** ekin, agerraldiz agerraldi zenbatuta. Xabier Mendiguren Elizegi

-Haren aluan **lardaskatzeko** baimena emanda, leiala izan zaian adieraziko nikek. Anjel Lertxundi

**4** (hizkuntzez edo kidekoez mintzatuz)

Jende ona ziren txilaba haiek, tabakoa ematen ziguten, eta zekiten gaztelania apurra **lardaskatzen** zuten gurekin. Koldo Izagirre

Hamabost hizkuntza, hil zein bizi, menderatzen ditut, hogeita hamarren bat hala edo nola **lardaskatzen,** arabiera irakurtzen badakit, baina oso ahoskera txarra daukat. Jon Alonso

Laster hasiko zuan hitz batzuk **lardaskatzen,** eta manifestazioetan aurreneko lerroan jartzen. Jokin Muñoz

Eskerrik asko, ninfa maitagarri hori! **-lardaskatu** zuen eta gaileta jateari ekin zion. Lopez de Arana

· Harmoniuma **lardaskatzen** duena hamaika urteko Hanmantu mutikoa da. Gotzon Garate

**5** (era burutua izenondo gisa)

Baina haren ezpainen erdeinuzko imintzioak, haren begirada garbiak agerian aitortzen zuten doilorrek baizik ez zutela barau egiten era **lardaskatu** hartan. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lardaskatzeko manerak** (3)

---

**lardaskatzaile** *izond* lardaskatzen duena, lardaskan ibiltzen dena.

Zenbait urte lehenago, txandrioa -"akats tipografikoa", lanbideko mintzaje beti zikin-estalian- tailerretako muntatzaile **lardaskatzaileei** egotziko niekeen. Aingeru Epaltza

Bera zegoela inor baino ere harrituago, eta beti beldurrez egon zela iruzurti nahiz **lardaskatzaile** hutsa izatea lepora ziezaioten, edo bien tarteko nahaste halamoduzko bat. Juan Garzia

---

**lardaskatze** *iz* nahastea, mordoilotzea; han-hemenka sakontasunik gabe aritzea.

Hitzen arteko lotura sintaktikoetara jo gabe, hitzen morfologia ere izan daiteke **lardaskatze** prozesu honen kaltetua. Iñaki Arranz

Maitasuna deitu zitekeen larru **lardaskatze** sail luze eta aspergarri horretan. Itxaro Borda

---

**lardaskatzear** *adlag* lardaskatzeko zorian.

Une batez, izenak izen eta lanbideak lanbide, iruditu zitzaidan agureak gogoan izango zuela Michelangeloren kapera sixtina halako bat **lardaskatzear** zegoela. Javi Cillero

---

**lardaskeria** *iz* lan lardatsa, gaitzeskarritzat hartua.

Ez duk batere erraza izango atxilotzetik libratzen, izan ere, zerbait egiten hasita, a zer **lardaskeria** egin duzuen! Joxean Agirre

Etxe berean bizi izan ginen elkarrekin zure bizitzako lehenbiziko hemezortzi urteetan, eta ez daukat zertan zuri gogorarazi zer-nolako **lardaskeria** egin nuen nik zure amarekin. Oskar Arana

Letra handi-handitan idatzi du, eta diana itxurako **lardaskeria** batean izena sartu gura izan du. Urtzi Urrutikoetxea

John Derekek bere emazte Boren gorazarrerako egindako **lardaskeria** pseudoerotiko eta komertziala. Xabier Mendiguren Elizegi

Azken gertakariek «teknikoki ltoizko urtegia **lardaskeria** hutsa» dela erakusten dute. Berria - Euskal Herria

Nahi gabeko haurdunaldiak galarazteko egiten ziren **lardaskeriak**. Luis Elberdin

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lardaskeria egin** (4)

---

**lardaskero** *(orobat **lardaxkero**) izond adkor* lardatsa, lardaskeriak egiten dituena.

Goiz busti **lardaskeroan** kantuan abia ohi denean, ez da batere seinale txarra. Pello Zabala

Hegoa normalean gehiena, zeharhaize aldaize hego-mendebal zarpail eta **lardaxkero** astinzalea ibili ohi baita sarri, fanfarroi jo ohi du zenbait egunetan. Pello Zabala

---

**lardasketa** *iz* lardastea, lardaskan ibiltzea.

Maitasunak beste forma batzuk hartzen ditu Herio atostean dagoela sentitzen dugunean: forma goxoak, ia idealak, eguneroko bizitzako gatazka eta **lardasketatik** libre daudenak. Bernardo Atxaga

Goitik beheraino miatu zidaten etxea eta garbi ikus nezakeen zerbaiten bila aritu zirela halako **lardasketan** jardun zutenak. Joxemari Iturralde

Era berean senarrak, betiko emazteaz aspertuta, andre- **lardasketan** diharduela eta horrek, ezkontzaren objektua bete gabe, ez dio besterik erakartzen plazerra baino. Andres Urrutia

---

**lardastu,** lardats/lardastu, lardasten **1** du *ad* han-hemenka sakontasunik gabe aritu; nahasi, mordoilotu. ik **lardaskatu**.

Mariak ikasi edo, hobeto esan, **lardastu** zuen pieza bakarra jotzea ez zaio ahaztuko. Xabier Etxabe

Amak esan zuen pena sentitzen zuela hilobia **lardastuko** zutelako -"ils vont fouiller la tombe comme ça"-. Ramon Saizarbitoria

**2** narrastu, zikindu.

Ruche jaunaren ahoskera moldakaitzak oker baino okerrago esanarazi zion aurreneko arabiar matematikariaren izena, erabat **lardasteraino**. Jon Muñoz

Zientziaren aurkako salaketarik larriena egiten zaio aspaldion ingeniaritza genetikoari: ahala ematen diela biologoei, alegia, itsuski **lardastu** eta eskuperatzeko gizakiaren hala gorputza nola gogoa. Juan Garzia

Eta irudi materialen multzoak batzuetan haren soslaia lausotzen badute ere, inoiz ez dute ilunduko, ez **lardastuko**. Imanol Unzurrunzaga

---

**lardats 1** *izond* ordena jakinik gabe aritzen dena, han-hemenka sakontasunik gabe aritzen dena.

**Lardats** ere **lardatsa** izan beharra zegoen, edo astazakil burumotza, magnesitatik magnesio sulfatoa ateratzen ez asmatzeko, edo bromo potasiotik bromuroa. Juan

Garzia

Oinarrizko arazo bat dago hor, pedagogiarik **lardatsenean** ikusten dena. Berria - Kultura

Ferrerren ustez, «frogatuta geratu da Justizia **lardats** eta apetazkoa, oinarrizko eskubide eta askatasunen urraketa, eta sumarioen atzean dagoen bultzada politikoa». Berria - Euskal Herria

**2** narrasa.

Ez zen beldurra, hotzikara umel eta sakona zen sentitzen zena iluntzeko lasterketa **lardatsean**. Joseba Sarrionandia

---

# lardaxka **1** *iz izond adkor* lardaska, lardaskatua.

Bero **lardaxka** eta hotz likina sentitu zituen batera. Joxemari Urteaga

**2** ***lardaxkan*** *adlag adkor* lardaskan.

**Lardaxkan** hasi, eta ikasi ere bai, zerozer, baina gero, etxeko sarreran, han gelditu zen mutu, paretean zintzilik. Patziku Perurena

Herriaren alde azkeneraino lan egingo zuela hitz eman zuenean, zertarako eta bekadun *teenager* batekin **lardaxkan** ibiltzeko; eta engainatu gaitu hori bere herriaren aurrean solemneki ukatu duenean. Patxi Zubizarreta

---

# lardaxkatu, lardaxka(tu), lardaxkatzen **1** du *ad adkor* lardaskatu.

Traizio handi xamarra da, badakit, haren orduko esanak "printzipioak" bezalako panpinkeriekin **lardaxkatzen** ibiltzea, baina zer egingo diogu ba? Iñaki Segurola

Beste toki txukunagorik ez dudala edukiko, hautsa besterik ez dagoela hemen, bazterrak **lardaxkatuko** ditudala... Joxemari Urteaga

**2** (era burutua izenondo gisa)

Haririk jarraitu ezin hau! -erantzun zion, odolki **lardaxkatuaren** tartetik gorritasun bizi bat ateratzearekin batera-. Joxemari Urteaga

---

lardaxkero ik **lardaskero**.

---

# larderia **1** *iz* begirunea edo beldurra eragiten duen nagusitasuna; nagusitasun horrek eragiten duen sentimena. (pertsonez mintzatuz)

Orduko erakasleen gisa, biek **larderia** gaitza izanez, ez zuten barkatzen urratsak eta jauziak ongi jalgi arte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hitz egin zioten moduarengatik ikusten zen Jefea **larderia** handiko emakumea zela. Jon Alonso

Jainko Aitari ematen zaion adin handiak aldiz gogoratzen digu haren probidentzia eta **larderia** handia. Piarres Xarriton

Badakit apeza zirela, eta hortakotz **larderia** baduzu, eta jende anitz heldu zauzu ikustera. Marzel Etxehandi

Polizak eta Jandarmek **larderia** gehiago behar dute agertu, hori ere aditzen da frangotan. Herria

Gobernuak nahi du **larderia** gehiago erakutsi. Herria

Ezagutu nuenetik, beti saiatzen nintzen disimulatzen haren itxurak eragiten zidan **larderia**. Anjel Lertxundi

Zerk egiten du denen buru ixtripu gutiago izaite hori ? ainitzen gostuko, gobernuaren manuz erakutsia izan den **larderiak**. Herria

Haren ustez, Aleksander Lukashenko jarduneko presidenteak botoen %82,6 eskuratzea iruzurren eta **larderiaren** ondorioz gertatu zen. Berria - Mundua

Haren izana baina bai izateko arrazoia, eta Haren laineza eta **larderia,** eta bikaintasuna, eta betegintasuna... eta teologoek asmatutako dohain ezin goragoko horiek oro. Iñaki Segurola

Haren **larderia** ez baitzuten aise irensten... Daniel Landart

Biak behar dira: maitasuna eta **larderia**. Gotzon Garate

Deitoragarri izan liteke, baina, **larderia** eta zigorraren beharra dugu guztiok. Gotzon Garate

**2** (gauzez mintzatuz)

Metrailadore zenbaitek **larderia** finkatzen dute. Marzel Etxehandi

Baina jakin behar zenuke erakunde honen **larderia** jarri duzula kolokan. Koldo Izagirre

1998ko uztailaren 17an, 138 estatuk sinatu zuten alabaina, Erroman, bere **larderia** munduko lau hegaletara helaraziko zuen Nazioarteko Auzitegi Penala Hagako hirian eraikitzeko kontratua. Piarres Xarriton

**3** (hitz elkartuetan)

-Duela lau egun hona etorri ziren deportatuak nora eraman zituzten? -galdegin zion jaunak, bere postuari egokitu **larderia** doinuarekin. Elena Touyarou

Bilkurako eztabaidak, kideen **larderia** keinuak, kontra-erreformatzaileen ekintza gogorrak. Itxaro Borda

Alta **larderia** poxi batek ez luke batere kalterik gu denendako. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**4** mehatxua; mehatxuzko jarrera.

Presidentaren aldekoak dena **larderia** eta mehatxu ibili direla bozak ziren egunean ere ainitz tokitan. Herria

Iruñean bereziki, polizia dena **larderia,** elgarretaratzea etzadin egin... Herria

Egia erran, jadanik bazen gero eta **larderia** gehiago gordeka jiten ziren etorkinentzat. Herria

Haatik hor dute den Bruxellesen **larderia** zorrotza, ez baitu hunek barkatuko herri bakotxak bere baldintza edo kondizioneak oro beteak ez baditu. Herria

Nicolas Sarkozy barne-minixtroa ibili da alde batetik dena **larderia** eta mehatxu, bestetik dena lausengu, ainitzen gostuko ez ditu bazterrak gehiago nahasi baizik. Herria

Hots, permisarentzat, gero eta **larderia** gehiago izanen da hor gaindi. Herria

**5** ***larderiaz*** *adlag* mehatxuzko jarreraz; begirunea edo beldurra eragiten duen nagusitasunaz.

Badut uste beste arrazoi bat bazela Aita Sainduen aitzinean aipatu ere behar ez zena, are gutiago Pio V.aren aitzinean, hain baitzen Aita Saindu hau Elizaren **larderiaz** axolatua. Lubisek jaisteko eskatu zion **larderiaz**: "Zer nahi duzu, Sebastian, denok zure mende jartzea? jaitsi zaitez segituan hortik". Piarres Xarriton

-Zoaz azkar haien bila -agindu zion **larderiaz**. Patxi Zubizarreta

-Isil zaitez -erraten zion antolatzaileak **larderiaz** -, hor blasfematzen ari zara. Itxaro Borda

-Zaldiak -eskatu zuen, aginduak emateko ohitura duenaren **larderiaz**. Karlos Zabala

Munduaren, eta bereziki euskal mundu txikiaren giderrak ilunpeetarik eta sekretuaren **larderiaz** plegatzea maite zuen funtsean. Itxaro Borda

Zorri multzo ikaragarri handia zen, eta bere gainera zetorren, **larderiaz** eta mehatxu eginez. Josetxo Azkona

Piztiak **larderiaz** zaintzen du bere habia, terrorearen habia, izuen gordelekua. Jokin Urain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

dena larderia (14); gaitzeko larderia (3); gurasoen larderia eskasagatik (3); larderia eta mehatxu (4); larderia gehiago (35); larderia gehiago erakusten (3); larderia gehiago erakutsi (3); larderia gehiago erakutsiko (3); larderia gehiago erakutsiz (3); larderia handia (5); larderia handiko (5); larderia haundia (3); larderia soberakina (3); sobera larderia (3)

larderiaz esan (3)

## larderiadun *izond* larderia erakusten duena, zorrotza.

Eta kexu daude han gobernuko enpletau ainitz, holako gobernu **larderiadun** baten kontra. Herria

Mendearen bukaerarako infernuak, paradisuak, ardiak eta artzainak desagertu ziren, elizak hustu eta apez **larderiadunak** xuhurtu. Itxaro Borda

---

## larderiaka *adlag* larderiaz

-Ezdeus halakoak, harrapa ezazue mukizu hori! -Bernard Etxeto **larderiaka**. Aingeru Epaltza

---

## larderiakoi *izond* larderia sentiarazten duena.

Itxura leunen atzean, eta kaleratutako ipuinen atzean, piztia galanta eta **larderiakoia,** omen. Txillardegi

---

## larderialdi *iz ipar* larderia edo mehatxua sentiaraztea.

Eza bozkatuz **larderialdi** bat ona behar zaiola eman Jean Pierre Raffarin gobernuburuari. Herria

Dena den, jeneral horrek **larderialdi** bat bederen merexi duela, denboran ukan zituen ohorezko medailak segurik nahi daizkiote kendu. Herria

Menturaz holako **larderialdiak** beste batzu ere lotsaraziko ditu holako joko txarretarat lerratzetik... Herria

---

**larderialdiño** *iz adkor ipar* larderialdia, mehatxua.

Abertzaleen Batasunak **larderialdiño** bat nahi ukan dio eman Danone etxe handi horren nagusiari, ehun bat lagun edo gehixago bildurik Arrangoitzen duen egoitzaren ondorat. Herria

Zergategiak hunenbeste galdetua eta zuk bi sos eskas emaiten badituzu, laster ukanen duzu **larderialdiño** bat eta ixtanteko mehatxu batzu ere ba berdin, zure onetan delako eskasa, izanik ere arrunt ttipia, behar duzula ordaindu eta luzamen handirik gabe. Herria

---

## larderiatsu *(orobat **larderiazu** g.er.)* **1** *izond* larderia handikoa, zorrotza.

Aitama **larderiatsuak** zituen, omen, eta ez zioten libertate handirik uzten. Daniel Landart

Berez harroa eta **larderiatsua** zen arren, ordu arte inoiz ez zuen hain jarrera harro, ozar eta **larderiatsurik** hartu, inoiz ez zuen lepoa horrela jiratu, inoiz ez zuen horrela begiratu. Jose Morales

Horra Tavio txikia gizon mehatxagarri, errespetatu eta **larderiatsu** bihurturik. Jon Muñoz

Arratsaldeko bere jolaskidea, gazte biboteskadun hura, ni baino **larderiatsuagoa** zen, noski, jokoan. Joxe Austin Arrieta

Dena dela, zakurrek gizonezkoa, **larderiatsu** bada eta beste aldetik adiskidetsu, hobetsi egingo dute. Gotzon Garate

Baina Charvet zen taldeko despota, hura baitzen bai **larderiatsuena,** bai eskolatuena. Karlos Zabala

**2** (gauzez mintzatuz)

Frantzia izenda dezakegun Aita **larderiatsuak**. Aitak igandeetako begitarte serios eta **larderiatsua** aitzinatu zuen: [...]. Itxaro Borda

Niccolo Machiavelli Florentziako idazkariak printze guztien buru gainetik kendu zuen Jainko Subiranoaren beso **larderiatsua,** "Printzea" deitu bere liburu ospetsua argitaratu zuelarik. Piarres Xarriton

Itxura patxadatsuaren justu aurkakoa zuen hitz egiteko modua: **larderiatsua,** piperra. Anjel Lertxundi

Letaginak erakutsi eta orroa **larderiatsua** egiten hasiko da. Gotzon Garate

Aitonarena izandako hilkutxa itxurako erloju **larderiatsua** aspaldidanik zegoen bere jabe ohia bezain hilik egongelako bakardadean. Alberto Ladron Arana

Ataria **larderiatsua** zen eta esklaboak mutuak. Juan Garzia

**3** (adizlagun gisa)

**Larderiatsu** ziharduen, ez erortzeko, malkotan ez hausteko, pairatzen zuen bakardadeaz ez damutzeko. Itxaro Borda

-Wood, Davies, eman bostekoa elkarri -esan zien Hooch andreak **larderiatsu,** eta Woodek eskua eman zion Ravenclaweko kapitainari. Iñaki Mendiguren

· -Ba..., gune hartaz arduratu nahi baduk, hire esku duk baina **larderiatsua** agertu beharko duk kontrolatzeko. Elena Touyarou

---

## larderiatu, larderia(tu), larderiatzen **1** du *ad* mehatxatu.

Orduz geroztik, nehork ez zuen **larderiatu**. Elena Touyarou

Zenbat aldiz ez nau **larderiatua,** bekatuaren fruitua nuela ene muttikoa, bekatu ilun batena! Janbattitt Dirassar

Berdin poliza frantsesak zerbaitengatik zituen **larderiatu** eta haiek Luzaideko desterru goxoa hautatu... hipotesia frango badaiteke. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Larderiatua** eta zigortua izana, etzela aski umilki jartzen presondegiko biziari, deusik jan eta deusik edan gabe plantatu da protesta gisa, salatuz ere bakartasun oso-osoan atxikia izaitea. Herria

Eneak eta asto beltzarenak ahoskatuz **larderiatzen** ninduela. Itxaro Borda

**2** zigortu, zentzatu.

Erromako Aita Sainduak berak **larderiatzen** ahal duela laiko nornahi, edozein bekatu hilgarri, naturaz gaineko legeak hautsiz edo hitzarmenak ez begiratuz edo zerbait debeku gainditUZ, egin duelarik, zehazkiago adieraziko den bezala. Piarres Xarriton

Askok diotelarik behar litazkeela gehiago **larderiatu** gure gazteriaren andeatzerat hola ari direnak... Herria

Berrikitan erakutsi dute [...] nola **larderiatu** zuen Libertatearen teologiaren sortzailea, luzaz belauniko atxikaraziz. Herria

---

## larderiatze *iz* mehatxatzea; zigortzea.

Ez bide zitzaion eder ez, bere kofesorak hoin idorki **larderiatze** hori. Xipri Arbelbide

---

larderiazu ik **larderiatsu**.

---

larehun ik **laurehun**.

# largabista *(orobat **largabixta** g.er.)* **1** *iz* betaurrekoa.

**Largabista** begietan jarririk, Kolivan inguruan zer gertatzen ari zen begiratu zuen, bere albisteak osatzeko asmoz. Karlos Zabala

**Largabistatik** ikusi izan bazenu alde egingo zenukeen, biktimak ezagutzerik gura ez lukeen bortxatzaile batek legez egingo zenukeen. Koldo Izagirre

Hamarren bateko orka taldea ikusiko duzu **largabistaz**. Joseba Sarrionandia

Atzo, gaur eta bihar aski da **largabista** bat erabiltzea Lurretik Urano planeta ikusteko. Berria - Gaiak

**2** *pl*

**Largabistak** maletatik atera eta leiho ondoko mahaian paratu zituen. Harkaitz Cano

**Largabistak** hartu zituen, hobeto ikusteko. Harkaitz Cano

Emazte ilegorri bat **largabistekin** zebilen gauaren zilatzen. Aurelia Arkotxa

**Largabistekin** leihotik begirada azkar bat bota eta Cesar Telleria ispilu aurrean zerraldo zegoela baieztatu zuen. Harkaitz Cano

**3** teleskopioa.

Astronomoek beren **largabista** elektronikoei esker -non indar magnetikoen gatik ez diren panan gelditzen- zuzen badakite zenbat diren eta bakoitzaren izenak. Michel Oronoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **largabistak hartu** (5)

---

# largabixta ik **largabista**.

---

# largatu[1], larga, largatzen **1** du *ad* askatu.

Finean, erretore garaztarra ziztuan **largatzeko,** paper guztiak berehala hari itzultzeko eta bidean luzamendurik gabe segitzera uzteko, haren esperoan baitaude Pauen. Aingeru Epaltza

Izpiritua **largatu** zait, laxatu, haitzaren nasaia ene izate osoan sartzera doa, pertzepzioa sendimendu bilakatzen zaidala ohartu gabe. Piarres Aintziart

**2** laga, utzi.

Azkenean bakean **largatuko** zaituzte. Joan Mari Irigoien

---

# largatu[2], larga, largatzen du *ad ipar* zabaldu.

Errepidea **largatuko** baitute alde bakoitzetik bi lerrotara, eta Aturriko partera ezin baita **largatu,** hiruzpalau bizitegi lurrera bota beharko dira. Herria

Autobidea **largatu** behar dutela, ez da kontra, iduritzen baitzaio badela largatze horren beharra. Herria

1963. urtean bidea **largatzean** alimaleko pala mekanika batzuekin, delako harroka kendu zuten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **autobidea largatu** (4)

---

# largatze *iz ipar* zabaltzea.

Autobidea largatu behar dutela, ez da kontra, iduritzen baitzaio badela **largatze** horren beharra. Herria

Eta **largatze** horren gatik 59 etxe lurrerat bota beharko direla Biriatu eta Baiona arte hortan. Herria

Laster abiatuko dira Biriatutik Bilborainoko autopistaren **largatze** obrak. Herria

Gobernuko zerbitzu batzuek bazakitelarik naski **largatze** proiektuaren berri. Herria

---

# largo[1] *izond ipar* zabala.

-Segurrenik ere okupatzen duzun postu horrek behar du ere ukan hola espola **largoak** edo barne haundia artetan, ez? Menane Oxandabaratz

Gure lanak hasi aintzin, pidaia bali, bi egunez itzuli bat egin dugu hor gaindi, 80 kilometro luze, 30 kilometro **largo** den ugartearen kurritzeko. Herria

40 metra **largoko** autobide batek. Herria

---

# largo[2] *iz* musikan, mugimendu geldia.

Opari gisara, Bach-en Do nagusiko sonatako **Largoa** eman zuen. Berria - Kultura

---

# largoki *adlag ipar* eskuzabalki.

Zeren emazteki haren gorputza abaraska bat zen eta lepoa olioa baino leunagoa zuen, eta zeren, Mignon ez bezala, perfumatu egiten baitzen, joriki eta **largoki,** Sabako erregina iduri... Joan Mari Irigoien

---

# largotasun *iz ipar* zabalera.

Leku handia zen, 63 metro luzetasunean, 11 **largotasunean,** sei mila ikusle baino gehiago aterbetzen omen zituen. Ramuntxo Etxeberri

---

# laringe **1** *iz* ahots kordak dauzkan arnasbideetako organoa. ik**zintzur**.

**Laringean** bereizten da biriketarantz doan arnasaren bidea (trakea) jakiak urdailerantz bideratzen dituen hestegorritik. Lourdes Oñederra

*Ahoskorda* deitzen diren horiek **laringean** dauzkagun ezpain itxurako tolesdura haragitsuak dira. Lourdes Oñederra

**Laringea** osatzen duten gihar eta kartilagoen egitura eta mugikortasunagatik. Lourdes Oñederra

Hots kate bat sortarazten duten ahoaren eta **laringearen** mugimendu guztiak. Isabel Arrigain

Nolako uniformitatea **laringearen** eta sudur barrunbearen funtzioan, halako aniztasuna ere aho-barrunbearenean. Isabel Arrigain

**Laringearen** dardara. Isabel Arrigain

Ez dakigu zerk eragiten duen **laringeko** minbizia. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Aho soken hurbilketa dela medio, **laringe** hotsa gerta baitaiteke. Isabel Arrigain

**Laringe** hotsa aldatzen hartzen du parte bereziki. Isabel Arrigain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> laringe hotsa (4)

---

**laringetomizatu** *izond* laringea guztiz edo partez erauzia duena.

Gizon **laringetomizatuaren** eztarrian behera. Hasier Etxeberria

---

**laringofono** *iz* laringetomizatuak, ahotsak igorri ahal izateko, lepoaren aurrealdean jarria duen gailu elektronikoa.

**Laringofonoak** ez daude hondatuta. Josu Zabaleta

---

**laringologo** *iz* laringean eta laringeko eritasunetan espezialista den medikua.

**Laringologoen** eta beste eztarriko osagileen zaindari izatearen tradizioa. Pello Zabala

---

**laritz** *iz* pinuaren ordenako zuhaitza, hosto erorkorrak eta pinaburu txiki zutituak dituena*(Larix decidua).*

Jaisten ari nintzen bidearen aurrez aurre, **laritzez** berdaturiko haran bat ageri zen luzetara, eta haren atzean uda betean elurrez zurituriko mendiak. Juan Garzia

---

**larjakin** *izond* jakintsu-ustea dena.

**Larjakinak** dena daki, baina besterik ez. Epela ari du Murtzian eta laga bakean gizon **larjakina** . Berria - Kirola

---

**larmintz** *(orobat **larrumintz** eta **larru-mintz**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **larmintz** agertzen da)* **1** *iz* giza azala. ik **larruazal**.

Giza haragi puska hura, **larmintzaren** azpian zainak ageri, eta **larmintza** bera zetazko paper ximurtua zirudiena, hain guri eta aldi berean dizdizari. Joxe Austin Arrieta

**Larmintzan** ileak hazten diren moduan. Joan Mari Lekuona

Noizbehinka arkupe azpira ere palastatzen da ura, loreak ere konfetti-euri gisa, eta gero hostaila beroaren usaina sumatzen eta freskura bat-batekoa **larmintzean** . Non aurkitu mundu zibilizatuan, egun, bizarra egin eta gero aurpegian alunbre-harria emango lukeen gizona, hura **larrumintzaren** aurkako basatikeria zen, egun kosmetika erregina da, eta errege eta lehendakaria. Joxe Austin Arrieta

**2** (izenondoekin)

Azala beltzarana zeukan, **larmintza** leuna bere adinerako. Migel Angel Mintegi

Ile beltz atzera boteak orrazten zizkion Flumek; **larru-mintza** fin-fina zuen, begiak handi, bekainak gora. Juan Garzia

Hogeita hamar urte inguru zituen, eta **larmintza** zurbil eta margula. Juan Garzia

Hanna ez da inola ere emakume zaharra, baina nik, noski, haren **larmintz** zimeldua nekusan, haren betazpi puztuak ere bai, eta haren baldoki zimurtuak. Joxe Austin Arrieta

Itsusiak ere badira amerikano horiek, horratik, hemengo gizakien aldean: horien saltxitxa egosi tankerako **larmintz** gorrixka, okaztagarria. Joxe Austin Arrieta

**3** (hitz elkartuetan)

Haren kokospeko sugandila-**larmintza,** haren baldokietako ximurrak. Joxe Austin Arrieta

---

larogei ik **laurogei**.

---

**larrabehi** *(orobat **larrebehi** g.er.)* *iz* larrean bazkatzen den behia. ik **betizu**.

Ni neu ere, gaztetan ibilia naiz **larrabehi** horien aurretik sokamuturrean eta. Gotzon Garate

Gure ondotik ardi behor **larrabehiak** etortzen ziren lizarrosto ondarren surrian. Patziku Perurena

Bai, **larrabehia** bezain bihurri da Israel. Elizen arteko biblia

Guk Gipuzkoan eskuarki **larrabehiak** esaten diegunei, Nafarroako eskualde askotan betizuak. Gotzon Garate

Arnabarretako malkorrean, hiru **larrebehi** amildu eta lepazurra hautsi zutela. Patziku Perurena

---

**larrabere** *iz* basaberea.

Negu beltzeko elurte zurietan, goseak ebakitako **larrabere** gaixoak ote mordoaren gaineko elurrik haundixkona besoekin aztalkatu eta, arantzezko pukadu berderen bat edo beste ahora eraman nahian ikusteak. Patziku Perurena

---

**larrabetzuar** *izlag/iz* Larrabetzukoa, Larrabetzuri dagokiona; Larrabetzuko herritarra.

Yusen antzeko egoeran daude Mikel Artetxe **larrabetzuarra** eta Mikel Gaztañaga ikaztegietarra. Berria - Kirola

Etxahun Lekue 25 urteko **larrabetzuarra** . Herria

**Larrabetzuarra** primeran aritu zen, dotore eta lasai, eta Igorrengandik hurren gelditu zen hondarreko puntuazioan. Berria - Kultura

**Larrabetzuarrek** saihesbidaren aurkako bilkura egin dute Bilbon. Berria - Euskal Herria

---

**larrabide** *(orobat **larrapide**)* *iz* larreko bidea.

Hortxe ehunen bat metrotara edo, airatu eginen zaizu, eta bospasei hegaldi kiribil egin goitibehitika, bere lumaje xuribeltx gorrixka erakutsiz […] eta haruntzaxeago ttaka, berriz ere hantxe pausatuko zaizu **larrabide** zahar belarrak hartuan. Patziku Perurena

**Larrapidean** behiak izaten ziren eta haiei jazartzen zieten. Gotzon Garate

---

**larrain** **1** *iz* uzta eultzitzen den leku laua, lurra trinkoa eta askotan lauzatua duena.

Ararateko mendi-mazelan **larrain** bat baino askoz handiagoa ez den aintzira bat dago. Fernando Rey

Gaur gauean garagarra garbitzen arituko da **larrainean**. Jose Antonio Mujika

Sarritan agertzen zen soroetan, **larrain** estalietan, azao-idortegietan eta errotetan. **Larraineko** motzondoan eserita geundela. Jose Morales

Jotako aleak **larrainetik** bihitegira eraman, zuhaitzak moztu eta egurra egin. Jose Morales

Filistearrak Keila hiriari erasoka ari dira eta **larrainetako** garia lapurtzen. Elizen arteko biblia

**Larrainak** eta dolareak ez diete gosea kenduko, ardoak huts egingo die. Elizen arteko biblia

Haizeak eraman zituen, udan **larraineko** lastoa bezala, arrastorik ere utzi gabe. Elizen arteko biblia

Nola **larraina** gari-jotzean, hala geratuko da Babilonia hiri ederra. Elizen arteko biblia

Ene herri, garia **larrainean** bezala jo zaituzten hori. Elizen arteko biblia

**Larrainean** gari-balak bezala bildu ditu Jaunak nazioak. Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan)

Oilategi-zuloetan lauhankan sartuz eta **larrain**-zokoak altxa-makurka miatuz. Juan Garzia

· Atsegin duzu zeure prostituzioaren saria gari-**larrain** guztietan jasotzea. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **larrain dantza** (24)
> **larrainera jaitsi** (3)

---

**larraindu**, larrain(du), larraintzen du *ad* erabat zapaldua utzi.

Zangulua ere paratzen zigun aitak, adar oker batetik zintzilik, eta hantxe ibiltzen ginen dilindan, bihotz ttiki erne hura hegaminez genuela, lizarpe guzia **larraindu** arte. Patziku Perurena

---

**larraintar** **1** *izlag* Larraingoa, Larraini dagokiona.

Joan den larunbatean berriz, Haitzarteko Frederic Martinon eta Sandrine Larrandabürü **Larraintarra** elgarretaratu dira Aiherrako herriko etxe eta elizan. Herria

Dotzena bat urte huntan ari dira altzürükütar aita-semeak eta **larraintar** koinata elgarrekin kantuz, Euskal Herri osoa kurrituz. Herria

Bigerrena Battitta Sagardoy Maulekoa, sortzez **larraintarra**. Herria

Bigarren partean biziki txalotua izan zen Jean Barneix **larraintar** kantaria ere. Herria

Koperatibak markatü nahi izan beitu **Larraintar** laborarien etxekimentüa koperatibari. Herria

**2** *iz* Larraingo herritarra.

Badakigu zenbat maite duen mendia **larraintarrak,** Sagarmatha bezalako goi-mendia bainan ere bere xokoko mendi multzoa. Herria

---

**larraintarsa** *(Euskaltzaindiak desegokitzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea)* *iz* larraintar andrea.

Sortzez eskiulatarra, errejent egonik zen Barkoxeko eskola püblikoan, emaztearekin, hau **larraintarsa**. Herria

---

**larrakitu**, larraki, larrakitzen da *ad* higatu, maskaldu.

Eskuak dardarka ari zaizkio, **larrakitu** samarrak, hainbat larrugorri ukitzearen ukitzeaz. Javi Cillero

---

**larrantz** *iz* itxura.

Arrano bat ikusi, eta artaldera ziztuan bildu ordez, izuak arranoari begira-begira egotera derrigortutako bildots erdi galduaren moduan zegoen Nora: arranoaren hegaldi goratsu eta **larrantz** ederraren liluraz, eta haren atzaparren beldurrez. Anjel Lertxundi

---

**larrantzatu**, larrantza, larrantzatzen du *ad* marraztu.

Zenbakia beso gibelean **larrantzatu** zioten eta, horretaz aparte, zenbaki bera uniformearen atorrean josi. Eneko Bidegain

---

**larrantzi**, larrantz, larranzten du *ad* larrutu.

Aldiz usnatu Ameriketako airearen usainaren nostalgiak izpiritua **larrantzi** zion: hezea, karatsa, bultzakorra. Itxaro Borda

Inorekin hitz egin ezinik, tristura larriak **larrantzia**. Itxaro Borda

Ote eta belar zorrotzek **larrantzi** zioten auto-azala. Itxaro Borda

---

larrapide ik **larrabide**.

---

**larrapote** *(orobat **larrepote**)* *iz* otia, intsektu jauzkaria.

Afrikan, **larrepotek** desmasia izigarriak egiten ari dituzte, Senegaletik Tchad-eraino, Mauritania, Malia eta Niger-en gaindi bazter guziak suntsituz. Herria

Sugeen hozkadak eta **larrapoteen** izurria. Elizen arteko biblia

-Luza eskua Egiptoren gainean; etorraraz itzazu **larrapoteak** eta kazkabarrak jo gabe utzitako hondarrak jan ditzatela. Jose Antonio Mujika

Egiptoarrak **larrapoteen** eta eulien sastadaz hil ziren. Elizen arteko biblia

Makadam gainera jausten den **larrapote** multzo bat luzaro bizi daiteke? Josu Zabaleta

---

## **larratoki** *(orobat **larretoki**)* *iz* larratzeko tokia.

Geu bizitzeko hiriak eta abereentzako **larratokiak** emateko. Elizen arteko biblia

**Larratoki** dituen mendiak arakatzen ditu edozein belar-izpiren bila. Elizen arteko biblia

Haren menpeko hiriak betiko bertan behera utziak, abereentzat **larratoki** eta etzaleku lasai izango dira. Elizen arteko biblia

Errege-jauregia utzi egingo dute, hiri jendetsua hutsik geldituko da; Ofel auzoa eta zaintzeko dorrea, betiko hondaturik, basastoen etzaleku atsegin eta artaldeen **larratoki** bihurtuko. Elizen arteko biblia

Nola lehoia Jordango sastraka artetik atera eta ardiz beteriko **larretokietara** oldartzen den, [...]. Elizen arteko biblia

---

## **larratu**, larra, larratzen *(orobat **larretu**)* da/du *ad* bazkatu.

Behia eta hartz emea elkarrekin **larratuko** dira eta haien umeak batera etzango. Elizen arteko biblia

Nik neuk **larratuko** dut artaldea, eta neuk harraraziko diot atseden. Elizen arteko biblia

-Zure anaiak Sikenen izango dira, ardiak **larratzen**. Jose Antonio Mujika

Maiatzeko Santa Kruzetan Saldiastik Oderitzera ekartzen zituzten behiak **larratzera**. Pello Zabala

Erraustutako hirian, zelaian bezala bazkatuko dira ardiak, **larratuko** ahuntzak. Elizen arteko biblia

Zoaz ardien oinatzen ondoren eta **larratu** zeure antxumeak artzainen txabola ondoan. Elizen arteko biblia

Leku horietan **larretutako** ganaduak hiltzen zituzten, eta segidan haien gibelak arakatzen zituzten. Santiago Iruretagoiena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ardiak larratzen** (3)

---

## larratxori ik **larretxori**.

---

## **larratze** *iz* bazkatzea. • *irud*

**Larratzeak,** alabaina, ez du bakarrik erran nahi konfesioak entzutea eta penitentziako sakramentua ematea, baina eskualdeen eta herrien gaineko artzainak ezartzea ere bai, eta haien alhatzeko eta salbatzeko behar diren gai guztietan eskolatzekoa. Piarres Xarriton

---

## **larrauldar** *izlag* Larraulgoa, Larrauli dagokiona; Larraulgo herritarra.

Hor ariko dira Unai Iturriaga 31 urteko durangarra, Jexux Mari Irazu 33 urteko **larrauldarra** (horiek biak duela lau urteko finalistak), [...]. Herria

---

## **larraundar** *izlag* Larraungoa, Larrauni dagokiona; Larraungo herritarra.

Uztailaren 23an, tiro bat ere bota behar izan gabe, Lekunberrin sartu zen Don Carlos bere 2.000 soldaduekin; **larraundarrek** harrera ezin bihozkorragoa eskaini ziotelarik. Txillardegi

Gurasoak **larraundarrak** eta beraz "labradores pecheros" zituela frogatu nahi baitzuten goizuetarrek. Patziku Perurena

---

## **larrazken** *iz* udazkena.

Hola bizi izan genituen 44ko uda eta **larrazkena**. Marzel Etxehandi

Eta hor dugu laster **larrazkena**. Herria

**Larrazkena** luze badoa, gero etortzen da neguaren gogorrena. Pello Zabala

**Larrazkenaren** eztitasun isil eta margotua ene baitan sartzera utzi dut. Piarres Aintziart

**Larrazkeneko** egun epel batean. Joan Mari Irigoien

Obrak laster hasiko dira heldu den **larrazkenean** bururatzeko. Herria

Euskal Herriko **larrazken**-neguko koloreak. Joan Mari Irigoien

Banaka, **larrazken** aireko jantziz apainduak. Itxaro Borda

Helbidea, azken hamarkadan **larrazken**-izakz bezala hiriaren inguruan loratu diren auzo berrietariko batean. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **heldu den larrazkenean** (9); **helduden larrazkenean** (7); **joan den larrazkenean** (4); **larrazkenean jokatuko** (4)

---

## **larre** 1 *iz* abereak bazkatzen diren toki belartsua; landa.

Doluz dago lurra, madarikaziopean lurraldea, lehor landako **larreak**. Elizen arteko biblia

**Larreetan** belar falta izateak handitu egin du aziendari ematen zaion bazka eskaera. Berria - Harian

Eta horrela betidanik eta betiko, belarra **larreetan** berriz hazten den bezala.Bide-bazter guztietan aurkituko dute **larrea,** muinogorri guztietan bazka. Juan Garzia

Nimrimgo erreka agortu egin da, belarra ihartu, **larrea** zimeldu: hostorik ere ez dago berde. Elizen arteko biblia

Aziendak mendi altuenetatik behera abiatzen dira, hango **larrea** gorritu ahala, beheko zokoetan dagokenaren peskizan. Pello Zabala

Zortzi urtez **larrean** hazitako idia. Edorta Agirre

**2** (izenondoekin)

Zerua, hesia, errepidea, **larre** zabalak eta basoa ikusten zituen. Jose Morales

Harana nire oinetan amaitzen zen, etxolaz eta aziendaz puntukaturiko **larre** zabal-zabal batean. Juan Garzia

Ardiak auzoko **larre** aberatsagoetara ihes joan arren. mendi garaiak aintzirako ur garbietan islatuak, **larre** oparoak, aziendak hausnarrean. Itxaro Borda

Etxaldeak, arrantxoak, **larre** emankorrak ditugu begien aurrean. Xabier Olarra

**Larre** eta soro berdeak zingira bilakatuta, eta behiak errapeetaraino hondoratuta, marruka. Alberto Barandiaren

**Larre** hesitu batera. Xabier Olarra

Badator landazabalean **larre** berria, badakarte zuhaitzek fruitua, pikuondoak eta mahastiak aberastasuna. Elizen arteko biblia

Bidea ez zen **larre** ederrik gabekoa; belar ugari eta hezea izango zuen bazkatzeko. Karlos Zabala

**3** (bazkatu aditzaz)

Ez al duzue nahikoa **larre** bikainetan bazkatzea? Elizen arteko biblia

Hortik eratzaten dituzte abereek euren gorputzak **larre** alaietan, gizenez astundurik. Xabier Amuriza

Egun hartan zuen abereak **larre** zabaletan bazkatuko dira. Elizen arteko biblia

Zutik omen zegoen bera Nilo ibaiaren ondoan, noiz eta ikusi baitzituen Nilotik irteten zazpi behi itxura ederrekoak eta gizen-gizenak, ibaiertzeko **larrean** bazkatzen hasi zirenak. Jose Antonio Mujika

· Zeren sarritan ardi iletsuak, muino batean **larre** gozoa bazkatuz, mantxo ibili ohi dira. Xabier Amuriza

**4** eremu landugabea.

Orotara beraz, 28 hektarea bazituen: 22 hektarea lur erabili eta beste 6ak oihan eta **larre** . Daniel Landart

Armada baten eta bertzearen joan-etorriek **larre** eginik zituzten Charenteko eskualdeko laborantzak oro. Aingeru Epaltza

**Larre** bazterreko zanga luzea saltatu eta, alboan iratzea eta sasia izan arren, pinuorriak alfonbraren modukoa eskaini zion. Joseba Sarrionandia

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haietako bizilagunak indarrik gabe, ikaraturik eta buru-makur utzi dituzu, **larre** -belarra bailiran. Elizen arteko biblia

**Larre** -saguak korrika bizian nire ondotxotik. Joxean Sagaztizabal

Abere-gorpuz ihaurriak zeuden **larre** -bazterrak. Juan Garzia

Hasia nintzen **larre** plazer haiez aspertzen, molde beretsukoak baitziren nire buru ernearentzat. Jon Muñoz

**Larre** -herrialdeak gutxi populatuta daude, jende gutxik baitauka han bizibidea. Iñaki Iñurrieta

**Larre** -izkuntza dena kale-izkuntza biur dedin. Koldo Zuazo

Inguruan asko bezala, **larre** lanetan nabila atzenaldian. Patziku Perurena

1937ko abuztuaren 24rako bere lurraren azken metro koadrorainoko guztia galdua zuen euskal gudarosteak, Castro Urdiales eta Santoña bitarteko **larre** sail mehe bat izan ezik. Jokin Urain

**Larre** zati bat ikusi ahal izan dut, baina bertorantz higitu den talde batek estali dit berdea.. Koldo Izagirre

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aitzurrez gorritu ohi ziren mendi-maldetara ez da inor joango, sasi eta laharrak direla-eta: behi- **larre** eta ardi-leku izango dira. Elizen arteko biblia

Bildotsetik pagotx gozora ohitutako ardiari ote- **larrea** gogor. J.M. Olaizola "Txiliku"

**7** ***larre motzean*** *(orobat* ***motxean****)* ***hazi*** ugaritasunik ezean, behartasunean hazi.

Denak ere **larre motzean** haziak eta behartsu bizi izanak, eta bertsoa zaletasun ez ezik diru pixka bat ateratzeko baliatutakoak. Berria - Kultura

**Larre motzean** hazitakoon legea da platerean jartzen zaiguna jan egin behar dela beti. Xabier Mendiguren Elizegi

**Larre motxean** hazitako emakumea zen eta. Xabier Etxabe

· **Larre motzekoa** zen noski, zail ohitutakoa. Koldo Izagirre

**8** ***larre oilo*** *(corpusean* ***larreoilo*** *soilik)*

Errusiako **larreoiloak** , olo lastoaren eta ikatzen arteko nahasketa batean iristen direnak. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**larrez larre** (4); **oihan eta larre** (3)

**behia larrean aseko** (3); **hegaztiak larrean** (6); **hegaztiak larrean haztea** (3)

**behia larrera** (3)

---

# larrealdatze *iz* behiak eta kidekoak, bazkatzeko, larre batzuetatik beste batzuetara aldatu.

Herriko Etxeak galdegiten diote ardi eta ahuntzen jaberi agertzea lehen bai lehen, Pabetik igorri paperen betetzeko : **larrealdatze** "transumance" hortaz ere aipatzen dute. Herria

---

larrebehi ik **larrabehi**.

---

# larregi *adlag* gehiegi. ik **lar 3**.

-Hemen jende **larregi** dago, ezta? Sonia Gonzalez

Eta gure artean profeta **larregi** dago. Txema Ramirez de la Piscina

Kolpe **larregi** jaso zituen, jasan ahal zituenak baino gehiago. Paddy Rekalde

Liburu frantses **larregi** irakurri zuelako. Koldo Izagirre

Kezka **larregi** loa ez galtzeko. Karlos Zabala

-Baina, Ane, ez da **larregi** diskoarena? Unai Iturriaga

Izutuarena egin behar nuen, baina ez **larregi** . Koldo Izagirre

Ez zuen uste emakumea **larregi** kezkatuko zuenik senarraren alderdi ezkutua ezagutzeak. Migel Angel Mintegi

Gain hartatik ikusita, uhartearen hego-kostaldeko urbanizazioek **larregi** argitutako hiri insomne baten atalak ziruditen. Bernardo Atxaga

Nahikoa eta **larregi** nuen kaiku. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**denbora larregi** (3); **gauza larregi** (4); **jende larregi** (8); **jende larregi dago** (3); **larregi da** (5); **larregi edaten** (3); **larregi egiten** (4); **larregi eragin** (3); **larregi gustatzen** (3); **larregi izan** (3); **larregi izango** (5); **larregi luzatzen** (4); **urte larregi** (4)

---

# larregitxo *adlag adkor* gehiegi.

**Larregitxo** iritzi zion espainiarraren usteari. Lutxo Egia

---

# larregune *iz* larrea dagoen gunea.

Gertakarien lekua: futbol zelaia eta etxe partikularren arteko **larregunea** . Herria

Tximistak erretako **larregune** beztua. Patziku Perurena

**larrejende** *iz* larreko jendea.

Beraz, beste edozein hitz bezain ezaguna dut nik alka, Goizuetako **larrejende** orok bezalaxe. Patziku Perurena

Jean François frantsesak, garaiko gusto burgesaren aurka, hain zuhur eta duin erakutsi zituen **larrejendearen** paisaia ederren artetik, "Beleen negua" izeneko hura. Patziku Perurena

---

**larrekide** *iz* larre berekoa.

Gaizki esaka ari dira denak beste larrekoez, baina **larrekideei** buruz inork ez du ez mee ez bee txikiena ere ateratzen. Bernardo Atxaga

---

larreoilo ik **larre 8**.

---

**larrepetit** *iz* otia, larrapotea.

Tximeleta eta **larrepetitek** plastiko gogorraren kontra jo eta istant bat irauten dute gidariaren begien aurrean atzera ilunarekin bat egin arte. Pello Lizarralde

Belarrari, zenbait segundoz, **larrepetitaren** kolorea ernatu zaio. Pello Lizarralde

---

larrepote ik **larrapote**.

---

**larreratu,** larrera(tu), larreratzen da/du *ad* larrera irten; larreta eraman.

Aterabide bakarra aziendak bezala **larreratzea** zen. Aingeru Epaltza

Umeak itzartu, korta garbitu, garbigailua ipini, abereak **larreratu,** josi, ongarria bota, bankura joan, abereak batu... Joxerra Garzia

Honela animalia bakoitza berari dagokion usainak **larreratzen** du eta pozoin kiratsuak atzerarazten, eta horrelaxe diraute piztien espezieek. Xabier Amuriza

---

**larresoroar** *(orobat **larresorotar** g.er.) izlag* Larresorokoa, Larresosori dagokiona; Larresoroko herritarra.

Kattalin Habans **larresoroar** kantaria. Herria

Bat Paueko sarjentua eta bertzea **Larresoroar** tenientea. Eneko Bidegain

Malvina Recalde **larresoroarra** eta Maika Arizaga baionesa libro utziak izan dira, kargurik gabe. Herria

Lagun eta adixkide, **Larresoroar** eta auzo-herritar, denak gomitatuak zirezte egun xoragarri baten pasatzerat. Herria

**Larresoroar** guziak gomitatuak dira beren atxikimendu eta sustenguaren erakusterat Ote Lore elkarteari. Herria

---

larretoki ik **larratoki**.

---

**larretu**[1], larre, larretzen da/du *ad* eremu landugabe bihurtu.

SAFAM zerratua, Ruwel-eko hamar hektareak **larretzen** ari, industriak ez du osasun handirik erakusten inguru hauetan. Herria

---

larretu[2] ik **larratu**.

---

**larretxori** *(orobat **larratxori** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **larretxori** agertzen da) iz* hegatxabala.

Argiaren maitale eta arratseko ilunaren etsai diren **larretxoriak**. Askoren artean

Eguraldi distiratsua zegoen, eta trosta bizian nindoan belardietan zehar, **larretxorien** kantuak eta nire sableak botan egiten zidan hots erritmatua entzuten. Josu Zabaleta

Bera bai ederki, txantxangorria eta **larratxoria** kukukume arrotza lepo-potxolo hazitzen ari zaizkion bitartean. Pello Zabala

Hegatxabala, arrunki **"larretxori** txanoduna" deitua, beste txori guztien gainetik maite zuen. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> arreba larretxoriak (3)

---

**larri** **1** *izond* tamaina, pisu, gorabehera, garrantzi handikoa. ant**xehe**.

Esneketaria genuen gizon **larri** bat, handi eta zabal, *Turkoa* deitzen zutena. Janbattitt Dirassar

Neska **larri** hanka-handi batzuk. Janbattitt Dirassar

Zirudienez, aker hura oso ondo konpontzen zen hango azienda **larriekin**. Jose Morales

Aberei ere pentsutzat baba **larria** ematen zitzaien askotan. Patziku Perurena

Dena delako Batasun horretan laster sartuko direla Polonia, Lituania, Eslovenia edo Estoniaren heineko zenbait lurralde, eta Malta edo Zipre deitu uharteak, hots, dozena bat estatu-nazio xehe nahiz **larri**. Piarres Xarriton

Ehiza xeheari eskopetaz segika, ehiza **larria** noiz agertuko zelatan. Karlos Zabala

Bada tristura more bat, idorra, iharra, izerdi **larria** bezain hotza. Iñaki Segurola

**2** (gauza abstraktuez)

Beste ezbehar **larri** bat... Iñaki Mendiguren

Han zegoela, ordea, gosetea izan zen lurraldean, gosete **larria**. Jose Antonio Mujika

1220an erabaki **larri** bat hartzera behartua sentitu zen Frantzisko: Ordenako agintea besteen esku uztera, alegia. Askoren artean

Lege hori, neurri batean behintzat, eragozpen **larria** zela lurjabe askorentzat. Jose Morales

Erritual ezkutu batean istripu **larri** bat gertatu eta aurpegia zeharo desitxuratuta geratu zitzaion. Joanes Urkixo

Estatu baten babesean egiten denean eragiten du torturak kalterik **larriena**. Joxerra Garzia

Gerrako gertaera **larri** batzuen berri izan dut, eta susmo bat daukat […] jendea hiltzen ibilitako gizon baten semea ote naizen. Bernardo Atxaga

Arazo **larri** batetik libratu nintzelako sentimenduak adoretuta. Ramon Saizarbitoria

Huts **larri** batean ustekabean harrapatu izan balute bezala. Joxemari Iturralde

Alta bada badakigu heresia ez dela bakarrik krimena, baina menturaz krimen guztietatik **larriena**. Piarres Xarriton

Balioen krisi **larri** bat bizi dugu.. Joxe Azurmendi

Beste batzuetan doinu **larri** hori, taxu dramatiko hori alde batera utzi eta estilo xeheago bat hartzen du. Xabier Mendiguren Elizegi

Izurri **larria** izango da. Elizen arteko biblia

1913an hil zen aita, ordea, eta, familiarentzako dolu eta zoritxarraz gainera, diru-arazo **larria** ekarri zuen horrek. Xabier Mendiguren Elizegi

Isiltasuna **larria** zen eta bete-betea ia. Juan Garzia

Zer den bekatu **larria** edo mortala eta zer bekatu arina edo beniala; eta zerk bereizten dituen **larria** eta arina. Piarres Xarriton

**3** eritasunez eta kidekoez mintzatuz, kezkagarria edo arriskutsua dena.

Egoitza eder eta lasaiak ziren, gaixo **larrien** zainketarako prestatuak. Agustin Otsoa

Gaixotasun **larri** baten hasiera izan ote zen gripe hura? Koro Navarro

Begietako gaitz **larri** batek jo zuen. Askoren artean

Pneumonia lobularra zuen, birika baten kongestio **larri** bat zehazki. Xabier Olarra

Hemorragia baten ondorioz lobulu frontaleko lesio **larri** bat izan zuen. Xabier Olarra

Kontua **larriagoa** zen, ordea, eguneroko gauzez ahazten hasi zelako. Iban Zaldua

Bizirik atera nintzela joan den udazkenean egin behar izan zidaten ebakuntza **larri** hartatik. Imanol Zurutuza

Aitak bihotzekoa izan zuela esan zidaan, **larri** zegoela. Paddy Rekalde

**Larri** ohean etzanik bazegoen ere, [...]. Askoren artean

Gaixorik, oso **larri,** 1937an utzi zioten ateratzen. Fernando Rey

Zauritua nago, oso-oso **larri**. Koro Navarro

Gaizki jarritako habe bat erori eta burua zanpatu zion, oso **larri** zaurituz. Askoren artean

**Larri** zauritua egon arren. Elizen arteko biblia

**Larri** zauritutako bat Cepranon. Askoren artean

**4** ondoez edo kezka bizia sortzen duena, estua, hertsia.

Martxan jartzeko unean motozikletak botatako purrustadarekin batera urdailak S.O.S. **larri** bat bidali zion. Migel Angel Mintegi

Bat-batean bizikletaren txapa-zarata entzun genuen, lurrean arrastaka, behin eta berrizko ai **larriekin** batera. Juan Kruz Igerabide

Helduei so eginez nabari zen egoera **larria** zela. Edurne Elizondo

**Larria** zen egoera eta gure arbasoek ez zuten jatekorik. Elizen arteko biblia

Iragana zen ordurako bost hilabeteko itxaronaldi **larri** urduria. Juan Garzia

Ikara **larri** bat zabaldu zen baso izoztuan. Pako Aristi

Premia **larri** batek bultzatuta. Alberto Ladron Arana

Etengabe egin zuten otoitz, gogo osoz Jainkoari eskatuz atera zitzala premia **larri** hartatik. Askoren artean

Quenuk hogeita bi urte zituen artean, eta estura **larri** batek hartu zion barrena, anaia etxean agertzen ez zela ikusi zuelarik. Karlos Zabala

Herstura **larri** hartan. Elizen arteko biblia

Urdai saltzaile ederrak so **larria** egin zion. Karlos Zabala

Guztiek ahalegin **larria** egin zuten, irten nahirik, harik eta ur azpian galdu ziren arte. Juan Kruz Igerabide

**4b** letrez mintzatuz xehea baino handiagoa den eta eskuarki beste itxura bat duen letra mota. ik**maiuskula**.

Parentesiak, azpimarrak, letra **larriak**, letra lodiak, letra etzanak. Iñaki Arranz

Nik hamasei urte dauzkat orduan, eta nire baieztapen berria garbi gera dadin, letra **larriz** idatzi dut: HARIZTI. Karea artez erabiltzea, hozkirik egin ez zezan; w **larria**, i xehea, bere izenaren letra ederrak, maistra Jonesek testu-liburutzat erabilitako Bibliaren esaldi goibelak. Pako Aristi

Letra **larri** gorri edo beltz handi-handiz idatziak zeuden, atzealdeko kolore margularen gainean. Karlos Zabala

*Eduardo* hitzaren azpian, letra **larri** handiak erabiliz. Aingeru Epaltza

Letra handi eta **larriz** idatzita. Berria - Harian

Grafikoki ere nabarmentzen du egileak honako adibide honetan, letra **larrien** bidez. Iñaki Arranz

• **5** *adlag* estuasunean; estu; kezka edo ondoez biziko egoera batetik irten ezinik.

Gonbidatuak iritsi baino lehen bere burua atontzen, presaka eta **larri**. Oskar Arana

Arretatsu ziharduen ikuskariaren esanahia hausnartzen, eta espiritua guztiz **larri** zuen haren zentzua atzeman nahian. Askoren artean

Hermione, utzidazu zure idazlana irakurtzen -eskatu zion Ronek **larri,** bere erlojuari begiratuz. Iñaki Mendiguren

Begi erneak ditu, **larri** begiratzen dizute. Lutxo Egia

Arnasa **larri** hartzen zuen, min egingo balio bezala. Juan Kruz Igerabide

Gaurko gazteok ez dituzte gauzok horren **larri** hartzen. Gotzon Garate

• **6** *iz* larritasuna.

Izua eta **larria** nagusitu zitzaizkion. Elizen arteko biblia

Etsaien lurraldean bizirik geldituko zaretenoi barru-barrurainoko **larria** sentiaraziko dizuet. Elizen arteko biblia

-Barruko **larriari** eutsi ezinik zabilek, kondenatu bat bezala. Juan Garzia

Bere **larri** hartan, eztarria garbitu nahian, eztulka hasi zen. Patxi Zubizarreta

-Hau **larriaren** handia!

· Estatuak erlijio zehatzik babestu beharrik ez du, eta moral laiko baten aitzindaria dugu, besteak beste, dibortzioaren neke **larrietan**. Andres Urrutia

**7** (-en atzizkiaren eskuinean)

Egoeraren **larria** ikusirik, atzera Gibarara jotzea erabaki nuen. Edorta Jimenez

Egin zizkioten testek agerian jartzen zuten, antza, emozio eta adimen arloan zituen akatsen **larria**. Xabier Olarra

"Embarras de richesse" ("aukera zabalegiaren **larria"**) delakoa begitantzen zitzaigun. Juan Garzia

Eritasunaren **larriaren** aurrean eta beste terapia baten faltan. Juan Garzia

Pentsau egizu geure **larria**. Gotzon Garate

Nire **larria**! Gotzon Garate

**8** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Larri** keinu bat egin zuen mutilak. Pablo Sastre

Aspergarri eta... -atxiki luzea eman zion purutxoari, eta kea astiro bota gero, **larri** itxura eginik. Migel Angel Mintegi

**Larri**-orduan etikaren eskea gogortu egiten da gizartean eta etika gogorra izaten da eskatzen dena, duda-muda gutxikoa, segurua. Joxe Azurmendi

Galderari erantzun gabe, **larri**-antzean esan zuen: [,...]. Jose Morales

Hilabete **larri** -nahasi gutxi haietan. Juan Garzia

**9** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Halako bihotz- **larri** eta ekaitz gogorretik aterako ninduen haren zain nengoen. Askoren artean

Nota zorrotz kizkur- **larri** bateraino igoz baitzihoan [sirena]. Juan Garzia

Galdera mordoa nuen nik egiteko: gehiegi, eta astun- **larriegiak** berarentzat eta neuretzat. Juan Garzia

**10** ***estu eta larri*** *adlag*

Urduri, **estu eta larri,** hartutako mezuen karpeta zabaltzen du, baina..., karpeta hutsik dago. "Lau egun besterik ez dira falta!", errepikatu nuen **estu eta larri** . Antton Olano

Aita ere **estu eta larri** egonda haurraren zain. Luis Elberdin

Hor dabiltza gero, **estu eta larri,** irriak, zirriak eta musuak baino ez dituztelarik bidelagun. Mirentxu Larrañaga

-Lana bukatu zenuen -esan zuen, **estu eta larri,** defentsiban jarririk-. Migel Angel Mintegi

Oraintxe ari gara anaiari egin geniona ordaintzen, hura **estu eta larri** erreguka ari zitzaigunean ez baikenion jaramonik egin. Jose Antonio Mujika

**11** ***hizki larri*** letra larria.

Hizki **larri** eta barrokoz. Felipe Juaristi

Bertako lehen letra Aitzin-solasaren A **larria** delarik. Bernardo Atxaga

Logaritmo nagusia deitzen zaion eta "l" **larri** batez idazten dun. Jon Muñoz

**12** ***larri ibili***

-Seme, zergatik egin diguzu hori? ikusi zeinen **larri genbiltzan** aita eta biok zure bila! Elizen arteko biblia

Horiek makina erosi egingo ditek, baina pagatu... **larri ibili** . Pablo Sastre

Larrialdian adorea galdu baduzu, **larri zabiltza** indarrez! Elizen arteko biblia

Gogoratzen dudan bakarra, oso **larri ibili** nintzela, gero eta izutuago Ashbury eta Frederick kaleen gurutzean sortutako kidetasuna galduko genuelakoan. Bernardo Atxaga

Begiko minez **larri** samar **ibiltzen** da batzuetan, eta hanka ere ez dauka guztiz katoliko... Jokin Urain

Konturatzeko gauza ginen, bai, amak lanik egin ezean eta bestelako diru-sarrerarik izan ezean, estu eta **larri ibiliko** ginela. Mirentxu Larrañaga

· Hantxe **nenbilen**, **larri** asko, Las Vegasko joko-etxe horietako batean. Joxe Austin Arrieta

**13** ***larri-larri****sup_1 izond*

Egoera **larri-larrian** zen Virgil, eta egun batzuk bizitzaren eta heriotzaren arteko mugan egin zituen. Xabier Olarra

Gaixo **larri-larri** horiek, beren autismoaz gain, era askotako ezintasunak zituzten. Xabier Olarra

Horregatik balioen arazoa **larri-larria** bilakatu da gure gizartean. Joxe Azurmendi

**14** ***larri-larri****sup_2 adlag*

Mahai azpira! -esan zuen Maryk **larri-larri,** eta mutilari eskutik tira, eta mahai azpian kuzkurtu ziren biak. Koro Navarro

**Larri-larri** zeuzkan begiak, eta negar eginaren arrasto nabarmenak ikusten zitzaizkion masailetako hautseztaketa zurian behera. Anjel Lertxundi

-Ez daukat hemen -amore eman zuen, **larri-larri** eginik-, Miarritzen daukat, bertan gordetzeko eskatu zidan Joanek. Migel Angel Mintegi

**15** ***larri-larria*** *adlag ipar* xehetasunik gabe. ik **larriki 3**.

Ez ditugu hemen **larri-larria** baizik aipatzen ahal larunbat hortako solasak. Herria

**Larri-larria** eta gainez-gain. Herria

Emaitzen berri jakin da egun hotan, **larri-larria** orainokoan, xehetasun gehiago ukanen beste denbora poxi baten buruan. Herria

**Larri larria** kategoriaka so eginez : kadrek 2 800 euro eskuratu dute, arteko ofiziotakoek 1651 euro, langile kalifikatuek 1 224 euro, enplegatuek 1 090 euro eta azkenik, langile xoilek 947 Euro hilabetean. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**akats larri** (11); **akats larri bat** (6); **arazo larri** (47); **arazo larri bat** (13); **bekatu larri** (13); **delitu larri** (6); **egoera larri** (40); **eritasun larri** (7); **estu eta larri** (130); **gaitz larri** (17); **gaitz larri batek** (6); **gaixotasun larri** (45); **gaixotasun larri batek** (6); **gaixotasun larri baten** (9); **gertaera larri** (9); **gertakari larri** (12); **gidaria larri zauritu** (6); **huts larri** (9); **istripu larri** (34); **istripu larri bat** (11); **istripu larri izan** (8); **kinka larri** (19); **krisi larri** (7); **larri antzean** (10); **larri dabil** (11); **larri dabiltza** (6); **larri dago** (41); **larri dagoela** (11); **larri daude** (25); **larri daudela** (6); **larri egon** (7); **larri eta sendaezina** (15); **larri gaixotu** (6); **larri ibili** (62); **larri ibiliko** (18); **larri ibiltzen** (8); **larri jarraitzen** (7); **larri jarri** (11); **larri larri** (21); **larri larria** (42); **larri samar** (13); **larri samarra** (6); **larri zauritu** (227); **larri zauritu da** (21); **larri zauritu dira** (14); **larri zauritu zen** (84); **larri zauritu ziren** (37); **larri zauritu zuen** (17); **larri zauritu zuten** (21); **larri zauritua** (9); **larri zauriturik** (12); **larri zaurituta** (46); **larri zaurituta eraman** (14); **larri zauritutako** (13); **larri zebilen** (6); **larri zegoen** (15); **larri zeudela** (7); **larri zeuden** (8); **lesio larri** (16); **lesio larri bat** (6); **letra larri** (10); **ondorio larri** (6); **ordu larri** (6); **oso larri** (140); **oso larri dago** (17); **oso larri daude** (10); **oso larri zauritu** (7); **pertsona larri** (8); **premia larri** (6); **une larri** (9); **zauritu larri** (11)

**akats larria** (33); **arazo larria** (95); **arazoa larria** (14); **arrisku larria** (13); **atzerapauso larria** (6); **auto istripu larria** (8); **behar larria** (13); **bekatu larria** (43); **bekatu larria egin** (9); **benetan larria** (6); **bereziki larria** (24); **biziki larria** (6); **delitu larria** (9); **desobedientzia larria** (8); **egoera hain larria** (8); **egoera larria** (161); **egoera oso larria** (47); **egoeraren larria** (22); **ekonomiko larria** (10); **erabaki larria** (7); **ezbehar larria** (7); **falta larria** (8); **gaitz larria** (15); **gaixotasun larria** (16); **gauza larria** (14); **guztiz larria** (8); **hain da larria** (6); **hain larria** (38); **hori larria** (6); **hori oso larria** (19); **horren larria** (10); **huts larria** (12); **hutsegite larria** (8); **istripu larria** (48); **istripu larria gertatu** (10); **istripu larria izan** (21); **kalte larria** (19); **kezka larria** (11); **kinka larria** (8); **kontu larria** (7); **krisi larria** (13); **larri larria** (42); **lesio larria** (42); **lesio larria izan** (9); **mehatxu larria** (6); **nahiko larria** (7); **oker larria** (8); **osasun egoera larria** (13); **oso arazo larria** (10); **oso larria** (225); **oso larria izan** (15); **premia larria** (34); **zerbait larria gertatu** (7)

**gero eta larriago** (10)

**arazo larriagoa** (6); **arazoa larriagoa** (7); **egoera are larriagoa** (8); **egoera larriagoa** (7); **gero eta larriagoa** (18); **uste baino larriagoa** (14)

**arazo larriagoak** (9); **gero eta larriagoak** (6); **ondorio larriagoak** (9)

**akats larriak** (18); **arazo larriak** (175); **arazo larriak ditu** (18); **arazo larriak eragiten** (6); **arazo larriak izan** (15); **arazo larriak izaten** (6); **arazo larriak sortzen** (10); **bortxaketa larriak** (6); **diru arazo larriak** (8); **egoera larriak** (15); **eragin larriak** (7); **eraso larriak** (6); **erredura larriak** (10); **gaitz larriak** (9); **gaixotasun larriak** (20); **hitz larriak** (8); **huts larriak** (7); **istilu larriak** (23); **istilu larriak izan** (7); **istripu larriak** (28); **kalte larriak** (24); **kalte larriak eragin** (8); **lesio larriak** (9); **ondorio larriak** (121); **ondorio larriak ekar** (11); **ondorio larriak ekarriko** (9); **ondorio larriak eragin** (14); **ondorio larriak izan** (20); **ondorio larriak izango** (19); **ondorioak larriak** (15); **ondorioak oso larriak** (7); **osasun arazo larriak** (29); **oso ondorio larriak** (10); **premia larriak** (7); **une larriak** (13); **urraketa larriak** (8); **zauri larriak** (51); **zauri larriak eragin** (8); **zauri larriak izan** (11)

**arrisku larrian** (28); **arrisku larrian daude** (6); **bekatu larrian** (9); **egoera ekonomiko larrian** (9); **egoera larrian** (109); **egoera larrian daude** (13); **egoera oso larrian** (11); **herio larrian** (6); **kinka larrian** (127); **kinka larrian dago** (16); **krisi larrian** (15); **oso egoera larrian** (15); **premia larrian** (33)

**egoera larriaren** (9)

**arazo larriari** (6)

**egoera larriaz** (8); **egoeraren larriaz** (21)

**arazo larriekin** (15); **osasun arazo larriekin** (6); **zauri larriekin** (7)

**zauri larrien ondorioz** (6)

**arazo larriena** (18); **arazorik larriena** (18); **istripurik larriena** (7); **krisirik larriena** (8)

**arazo larriena** (18); **arazorik larriena** (18); **da larriena** (19); **istripurik larriena** (7); **krisirik larriena** (8)

**kasu larrienetan** (6)

**egoera larrietan** (7)

**premia larriko** (6)

**arazo larririk** (23); **kalte larririk** (6); **zauri larririk** (21); **zauritu larririk** (6)

**hizki larriz** (14); **letra larriz** (52)

---

**larriagotu,** larriago(tu), larriagotzen **1** da/du *ad* larriago bihurtu. ik **larritu 4**.

Bi kezka horiek **larriagotu** egin zuten aspaldi zaharreko nire misantropia. Juan Garzia
Gerla horiek guztiek **larriagotu** eta gaizkitu baizik ez zituzten euskaldunen eta espainolen arteko gaizki hartzeak. Piarres Xarriton
Estatu Batuen kanpoko defizitaren **larriagotzea** nahiko albiste ona zen munduko gainerako herrialdeentzat. Koro Navarro
Delitua **larriagotu** dezaketen hutsegiteak daude. Berria - Euskal Herria
"Doikuntzaren gizarte-kostua" (hau da, pobretasuna **larriagotzea)** deitu zaion horretan. Koro Navarro
Haren agintepean gatazka **larriagotu** egin da, batez ere arrazakeria areagotu delako. Berria - Mundua
Defentsazko protekzionismo orok, hain zuzen ere, arazoa **larriagotu** baino ez du egingo. Koro Navarro
Sindikatuetako ordezkariek berretsi dute legerik ezak **larriagotu** egin duela makina bat irakasleren egoera. Berria - Euskal Herria
Alabaina, egoera **larriagotzen** ari zen unerik une. Karlos Zabala
Hasieran kezka hutsala baino ez zena, ordea, **larriagotu** egin zen denboraren joanarekin. Imanol Zurutuza

**2** (eritasunez eta kidekoez mintzatuz)

Gaixotasuna egunetik egunera **larriagotzen** zihoakion eta, antza denez, zainketa faltagatik areagotu zitzaion. Askoren artean
Maiz, gaitza **larriagotzen** zitzaionean, hil egin behar zuela zirudien. Askoren artean
Bronkitisa **larriagotu** eta pneumonia dauka orain. Berria - Harian
Erretzeak asma **larriagotzen** zuela argi ikusten zuten zientzialariek. Berria - Gaiak

**3** (are-ren eskuinean)

Horren ondorioz, are **larriagotzen** zen Estatu Batuen merkataritza-defizita. Koro Navarro
Virginiaren heriotzaz gero, are **larriagotu** ziren krisi haiek. Koro Navarro
Eta komunistek are **larriagotu** besterik ez zuten egiten. Alberto Ladron Arana
Gainera, badira egoera are gehiago **larriagotu** duten faktoreak: fitosanitarioen, erregaien eta zerealen prezioen igoera, esaterako. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> egoera larriagotu (12)

---

# larrialdi 1 *iz* estualdia.

**Larrialdi** guztietatik onik atera zuen. Prest zegoen gizon hau arimako **larrialdi** eta gorputzeko oinaze guztiak jasateko. Elizen arteko biblia
Biziko nintzen itxaropena bera ere galdua nuen, ezin jasan ahalako **larrialdi** handiak izan bainituen. Elizen arteko biblia
Bazen han **larrialdi** estu bat, esan gabe adierazia. Jon Muñoz
Bere burua halako **larrialdian** ikusirik, Jauna, bere Jainkoa, baretzen saiatu zen Manases. Elizen arteko biblia
Baina **larrialdian** Jaunari oihu egin eta salbatu egin zituen estualditik. Elizen arteko biblia
Krisia ez, baina **«larrialdia»**. Berria - Ekonomia
Amaika **larrialdi** ibili dizkik. Patziku Perurena

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Larrialdi**-garaia izango da, nazioak nazio direnez geroztik parekorik gabea. Elizen arteko biblia
Egun iluna eta beltza izan zen hura, atsekabe- eta **larrialdi**-eguna. Elizen arteko biblia
Kanpoan eguzkitan gertatzeko beldurrez zegoela entzuten nion, oso **larrialdi**-dardara garbiak jasotzen baitzituzten nire belarriek hark itsumustuan igorritako ultrasoinuetatik. Joxan Elosegi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Asian 1997an sortu zen diru-**larrialdia** izan da egoera honen eragile. Gotzon Garate

**4** ezusteko egoera edo gertaera, berehala konpondu behar dena.

**Larrialdia** amaitu dela adierazteko, berriz, 30 segundoko sirena entzuten da. Berria - Euskal Herria
Herriz herri ibiliko den ikasgela mugikor batean, **larrialdi** kimiko baten aurrean zer egin azaltzeko hitzaldiak emango dituzte. Berria - Euskal Herria
Ama New Yorkera iristen zenerako hari ordezkari bat igor ziezaiotela eskatu zien, azkeneko unean erietxetik **larrialdi** baterako deitu ziotela azaltzeko. Oskar Arana
Azkenean **larrialdietako** telefonoa erabili beharko genuela pentsatu dut. Patxi Zubizarreta
Anbulatoriora iristean, **larrialdietako** sarrerara abiatu ginen zuzenean. Aitor Arana
Zaharrei begiratu bat egin eta ekartzeko berehala neurologoa, traumatologoa eta pare bat kirurgialari, esan nion **larrialdietako** erizainari. Koro Navarro
Ez da normala **larrialdi** batean 14 edo 16 ordu egon behar izatea medikuak noiz hartuko zaituen zain. Berria - Euskal Herria
Burgoseko **Larrialdi** Nuklearretarako Planaren arabera, Euskal Herriko hamalau herritan eragingo lituzke kalteak ezbehar nuklear batek. Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ospitalean asko arindu ziren atzo gaixoen harrerak eta **larrialdi** zerbitzuan egoera normalduta zegoen. Berria - Euskal Herria
Erorikoa ikusi zuen mendizale batek SOS Nafarroako **larrialdi** zerbitzuei eman zien abisua. Berria - Euskal Herria
Auzoko erietxeko **larrialdi**-gelan, kommozio zerebrala nuela esan zidaten. Xabier Olarra
Telealarma egunaren 24 orduetan **larrialdi** zentroekin automatikoki konektatuta dago. Berria - Euskal Herria
Industria kimiko bakoitzak bere **larrialdi** plan berezia dauka. Berria - Euskal Herria
Urtegiko **larrialdi** plana ezarri gabe. Edurne Elizondo
**Larrialdi** taldea osatuta zegoen ordurako, eta talde horri esker, ekintza aurrera eraman ahal izan genuen. Edurne Elizondo
Egoera horren ondorioz, **larrialdi** kabinete bat sortzen da, eta lau pertsonak bunker batean bilatzen dute babeslekua. Berria - Kultura
Nonbait, beste motorrek ere huts egin zezaketelako beldurrez, **larrialdi**-lurreratze bat egitea erabakia zuten. Joxe Austin Arrieta
Alde guztietara begiratu azkarra eman, eta ziztu bizian **larrialdi**-irteerarantz joan zen. Migel Angel Mintegi
**Larrialdi** argi guztiak piztu ziren atzo Belgikan, hegazti gripearen Europako lehen giza kasua izan zitekeenaren berri zabaldu zenean. Berria - Gaiak
Baliteke palestinarrek eta zenbait gobernu arabiarrek Nazio Batuen Asanblea Orokorraren **larrialdi** bilkura eskatzea. Berria - Mundua
New Orleanseko **Larrialdi** Operazioetarako buruzagiak lotsagarritzat jo du Gobernuak emandako laguntza. Berria - Harian
Zientzialari Atomikoen **Larrialdi** Batzordea. Fernando Morillo

**6** *larrialdi egoera*

Gerra Legea bertan behera utzi eta **larrialdi** egoera ezarri zuten.
Hondamendi natural batek edo **larrialdi**-egoera batek beste estaturen baten ingurumenari kalte egin badiezaioke hondamendia jasan duen edo **larrialdi**-egoeran dagoen estatuak beste estatuari horren berri emango dio. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> larrialdi deia (17); larrialdi egoera (72); larrialdi egoera ezarri (31); larrialdi egoeran (11); larrialdi egoeretarako (8); larrialdi plana (22); larrialdi planaren (7); larrialdi zerbitzuak (22); larrialdi zerbitzuei (7); larrialdi zerbitzuek (18); larrialdi zerbitzuetako (8); larrialdi zerbitzuetara (13)
> larrialdietako langileek (8)
> gizarte larrialdietarako (18); larrialdietarako batzordea (10); larrialdietarako laguntzak (14)

**larrialdiko bilera** (11)

---

# larriarazi, larriaraz, larriarazten du *ad* larritzera behartu.

**Larriarazten** nautenak nire erorketaz poztuko dira, / baina nik zure errukian dut uste ona. Askoren artean

Joxeren asmoa kontatutakoan ezin izan zioten negarrari eutsi, biak ahalegindu arren, inguruan olgetan zebiltzan alaba txikiak **larriaraziko** ote zituzten beldur. Xabier Montoia

Bi abereak indarrez berdinak ez direnean, eta batek besteak baino gehiago tiratuz beste hau **larriarazten** badul, [...]. Santiago Iruretagoiena

---

# larridura *iz* larritasun egoera.

Pixkana-pixkana, eta ez harrimen eta **larridurarik** gabe, benetako lehendakaria Twirl zela sumatzen hasi ginen. Juan Garzia

Lepoa bi besoez inguratzen zidan, eta aurpegian antzematen zitzaion **larridura**. **Larridurak,** behar gorriak, ezbeharrak aienatzen dira eta iruditzen zaio heriotzatik bizitzara igaro dela. Inazio Mujika Iraola

Inoiz, pentsamendu obsesiboaren eta **larriduraren** bidez agertzen da Touretteren sindromea. Xabier Olarra

Listuz bustitako hatz lodiarekin zapatak garbitu zituen, masail gorrituta, *harrapatzen banaute* pentsatzen duenaren **larriduraz**. Lander Garro

Emakume baten **larridurazko** oihu batzuek atera naute nire baitatik. Anjel Lertxundi

---

# larrigarri *izond* 1 larritzen duena.

Uste dut beste begi batzuk dauzkagula aurpegiko horien ondoan, gauekoak direnak, gehientsuenetan irudi **larrigarriak** erakusten dizkigutenak. Bernardo Atxaga

Ikusgarria baita zelan atontzen duen pozoia bere eltze **larrigarrian**. Markos Zapiain

## • 2 *iz* epaiketetan eta kidekoetan, zigorra larritzen duen gauza.

Indarkeria eta armen erabilera **larrigarri** gisa hartu dituzte zinpekoek, eta, aringarri modura, berriz, Mendikuteren gaitz psikopatikoa.

Abokatuaren ustez, hori ez da kontuan hartu, eta **larrigarri** gisa eragin beharko luke fiskalaren eskaeretan. Berria - Euskal Herria

Legebiltzarreko batzordeak dio «nazioarteko terroristak» egun indarrean dauden legeei jarraiki epaitu behar dituztela, «terrorismoa eragile **larrigarritzat** erabiliz». Berria - Mundua

---

# larrigura *iz* oka egiteko gogoa.

Etsirik nengoen hil egingo nintzela, eta behin tumorea erauzi eta erradiazio- eta kimioterapia-tratamenduen oinazealdi ahulgarriak igaro ondoren, **larrigura** - eta zorabio-aldi luzeak pairatu, ilea galdu, gogoa galdu, lana galdu eta emaztea galdu ondoren, zail zen niretzat aurrera nola jarraitu asmatzen. Oskar Arana

---

# larrika *adlag (izen baten eskuinean, hitz elkartuen bigarren osagai gisa)*

Horrela, arnasa **larrika** sartu zen Urrezko Lehoia ostatuan, arnasa tristeka ere bai, ez baitzuen Justina ikusterik lortu. Felipe Juaristi

Horrela, arnasa **larrika** sartu zen *Urrezko Lehoia* ostatuan, arnasa tristeka ere bai, ez baitzuen Justina ikusterik lortu. Felipe Juaristi

Entzun izan balute gauez zegoelarik ohean bakarrik, [...], jira alde batera eta buelta bestera, hasperen **larrika,** maite zuenaren irudia pentsamenduan, haren izena ezpainetan

Ahots estu eta **larrika** aitortu zuen ez zela ez Amsterdamen ez inon halako iturririk. Felipe Juaristi

---

# larrikara *iz* larridura.

Orain sentitzen duen **larrikara** benetakoa da. Antton Olano

---

# larrikeria *iz* gehiegikeria.

**Larrikeria** hauek ez ziren gertatuko agintariek gizakien eskubideen alde diharduten elkarteei arreta egin izan baliete. Berria - Harian

Azkenean Pantzo Irigaray-en irriegingarrikeriek denentzat piko eta zirto izan dute, sekulan **larrikerietara** erori gabe. Herria

---

# larriki 1 *adlag* era larrian.

Ezin ziren luzaroan egon elkar **larriki** iraindu gabe. Damu zuen hain **larriki** bekatu egin izana. Askoren artean

Istiluak, aldiz, **larriki** areagotu dira azken urteotan, eta ez bereziki festetan, baizik eta asteburuetan. Berria - Harian

Guretzat, baina, behar-beharrezkoa da giza eskubideak **larriki** urratu dituen legea lehenbailehen aldatzea. Berria - Euskal Herria

Sri Lanka erresuma **larriki** joa izan da abendoaren 26an gertatu izigarrikerian: "Tsunami" deitu desmasian. Herria

Zangoak izugarri handitzen hasi zitzaizkion hidropesiagatik, eta **larriki** gaixotu zen. Askoren artean

Eskolatze berezirik izan ez balute […], **larriki** bakarturik eta ezgai jarraituko zuten gazte autistak haiek, adimen eta jatorri onekoak izan arren haietako asko. Xabier Olarra

Kanner motako haur gehienak atzeratuak dira, askotan oso **larriki**. Xabier Olarra

197 presuna arinki kolpatuak, 22 **larriki** eta lau hilak. Herria

Manexek **larriki** zauritutakoaren itxurak egin zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

"Mignon!", oihukatu nuen, ezin **larrikiago,** laguntza eske. Joan Mari Irigoien

Enpresa horrek ez ote duen ingurumena **larrikiegi** kolpatuko. Herria

## 2 *ipar* xehetasunik gabe. ik **larri 15.**

**Larriki** aipatzeko, erakusketa, irri ixitorio, dantza, bertsu eta kantuek dute Musikaren egunen 14 garren edizioa osatuko. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**larriki gaixo** (10); **larriki gaixotu** (9); **larriki gaixotu zen** (8); **larriki zauritu** (17); **larriki zauritua** (9); **larriki zaurituri k** (8); **oso larriki** (6)

---

# larrimin *iz* arriskuren baten berehalakotasunak eragiten duen larritasuna, eztarria hertsatzen duena. ik **angustia**.

Camusek zioen langileak gutxiago sufritzen duela heriotzaren **larrimina** denbora libre asko duenak baino. Anjel Lertxundi

Hari entzunez, **larriminak** hartzen ninduen, eta hain estutzen nintzen, botatzeko gogoa jartzen baitzitzaidan. Juan Kruz Igerabide

Berehala argitzen du ez dela **larrimin** hori bere hil beharrak sortua baizik bere herriaren gainbeherak. Berria - Harian

Beldurra [...] izumenezko gauza bat da, sentipen lazgarri bat, [...], pentsamenduaren eta bihotzaren estura ikaragarri bat, gogoratzeak berak **larriminezko** ikarak eragiten dituena. Josu Zabaleta

Ingurura begiratu zuten: Tsiganok zen, hil aurreko **larriminaren** mende-. Jose Morales

Amets gaiztoek eragindako **larriminak** hasperenak aterarazten zizkion. Juan Kruz Igerabide

**Larriminak** hiltzen zegoen. Josu Zabaleta

Koadroa ederra da, eta tristea, eta **larrimina** sortzen du, kezkagarria gertatzen zaigulako plazerra eta oinazea, estasi sexuala eta mistikoa bereizten dituen muga, ilunbea. Ramon Saizarbitoria

Gizakiaren **larriminean** erroturiko zenbait mito. Juan Garzia

---

# larritasun 1 *iz* larri dagoenaren egoera.

Itotzen ninduen **larritasunari** amaiera emateko. Ramon Saizarbitoria

Ba al da kontraste ankerragorik epaituaren **larritasunak** eta epailearen patxadak egiten dutena baino? Juan Martin Elexpuru

Batek **larritasun** bat, etsimen bat du: bizitzarekin zer egin ez jakitea, plan bat ez izatea. Josu Zabaleta

Venezuelako erreferendumaren emaitzari buruzko kezka igarota, Irak da orain **larritasun** gehienen iturri. Berria - Ekonomia

Naturaz gaindiko beldurraren **larritasun** ezin eutsizko horretan. Josu Zabaleta

## 2 (izenondoekin)

Itxaronaldi hori oso luzea egiten da, eta **larritasun** handia sortzen du. Luis Elberdin

Begiak itxi zituen bere ama maiteari begitartea uzkurtzen zion **larritasun** ikaragarria ez ikusteko. Karlos Zabala

Batzuetan, ordea, nonbait, burmuineko zokorik ilunenean, errezeloren bat sortzen zitzaion, harra bezala luzatuz eta uzkurtuz ideia kontsolagarri haren bila mehatxari zetorrena; eta, horietan, **larritasun** sakon batek hartzen zuen mendean. Ramon Saizarbitoria

Zigorrak ez du hobenduna hobetzen: **larritasun** geldo bat, zuhurtzia, mesfidantza eman diezaioke apika. Markos Zapiain

Taxitik ama eta alaba jaitsi ziren, **larritasun** begibistakoz. Karlos Linazasoro

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Larritasun** sentipen bat sentitzen dut orduan. Josu Zabaleta

Tupustean **larritasun** sentimendu azalgaitza nagusitu zitzaion. Ikara bat izan dut bat-batean, ez hotzak eragina, **larritasun** ikara bitxi bat baizik. Agustin Otsoa

Alde egitera nindoala ikusi zuenean, **larritasun** keinu batez heldu zidan Jacques Parentek besotik. Josu Zabaleta

Politikari begi-zoli horietako bik edo hiruk, fisionomista onak izaki, **larritasun** zantzuren bat ikusi uste zuten beren gonbidatzailearen aurpegieran, haren zergatiaz tutik ere sumatu ez arren. Karlos Zabala

Gu bezala mundu guztia, muinetarainoko **larritasun**-zirrara batek jorik. Juan Garzia

Zorigaiztoko eguna baita, hondamen- eta **larritasun**-eguna, Jainko Jaun ahalguztidunak bidalia. Elizen arteko biblia

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lan gehiago egiten ere saiatu zen, bere nerbio **larritasun** haiei aurre egiteko. Karlos Zabala

Diltheyren ekarpenari Sören Kierkegaard-en existentzia-**larritasuna** gehitu zion Martin Heideggerrek. Askoren artean

## 5 larria denaren nolakotasuna.

Izan ere, **larritasun** itzelezko ekintza bat moldatua zuen Ivan Ogareffek, guztiz eraginkorra haren egitasmoa burutzen laguntzeko. Karlos Zabala

Luzera begiratuta, hala ere, ez zen **larritasun** gutxiagokoa, eta hura konpontzeko erantzukizuna Txinako diktadore komunisten bizkar zegoen orain. Iñaki Mendiguren

Biharamuneko txostenak **larritasun** erabakigarria izan zuen. Karlos Zabala

**Larritasun** hitza erabil daiteke Baionako Etxepare euskal lizeoarentzat. Herria

*Askatasuna* taldearen ustez, bestalde, **«larritasun** ikaragarria» du epailearen erabakiak. Berria - Euskal Herria

Zehazki, **larritasun** erradiologikoen protokoloa jarriko du martxan. Berria - Euskal Herria

Gordin-gordin agertu zitzaion bat-batean gaixotasunaren **larritasuna**. Imanol Zurutuza

Bekatuaren **larritasuna** bihotzaren gaiztakeria igarriezinaren araberakoa da. Juan Martin Elexpuru

**Larritasun** oso handikoa da hauteskunde kanpainan horrelako gai sensiblearekin zenbaitek egiten duen erabilera demagogikoa. Berria - Ekonomia

-Zenbait gauza hartu behar dira kontuan: bere egoeraren **larritasuna,** auzitegien jarrera eta akaso abokatuaren trebetasuna... Lopez de Arana

## 6 (hitz elkartuetan)

Herenegun Danubioren uholdeek eragindako kalteek hartutako **larritasun** maila. Berria - Mundua

Ez gaude, inondik inora ere, salbuespen egoera batean eta ondorioz **larritasun** mezurik ezin da zabaldu. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **larritasun handia** (9)
>
> **arazoaren larritasuna** (7); **egoeraren larritasuna** (21)
>
> **egoeraren larritasunaz** (12)

---

# larritu, larri(tu), larritzen 1 da *ad* larritasunak hartu.

Berri honekin **larritu** egin zen Herodes erregea, bai eta Jerusalem hiri osoa ere. Elizen arteko biblia

**Larritu** nintzen, mutila egoera hartan ikusita. Iñaki Iñurrieta

"Aspaldiko kontuekin **larritzen** zara, David", esan zidan Lubisek hura zeharkatu genuenean. Bernardo Atxaga

**Larritzen** hasi nintzen. Iñigo Aranbarri

**Larritu** egin ziren biak eta ahozpeztu, beldurrez beterik. Elizen arteko biblia

Erabat **larritu** zen Demba. Anton Garikano

Zer da hau? **-larritu** zen petrikiloa, nire hankaren itxura ikusita. Juan Kruz Igerabide

-Jainkoarren! **-larritu** zen Börs-. Juan Kruz Igerabide

Bihotza **larritu** zitzaion. Bernardo Atxaga

-Ez zaitez **larritu,** Anttonek eramango gaitu bere furgonetan. Joxemari Iturralde

-Ez zaitezte **larritu** guregatik! -esan zion Ninik. Josu Zabaleta

Ez samindu besteengatik; ez **larritu** niregatik. Juan Garzia

Ikusiko diagu, hi ez **larritu**. Anjel Lertxundi

Ez **larritu,** bada, behartsu garelako. Jose Antonio Mujika

## • 2 du *ad*

Kastitatearen zamatik aske emakumearen begitartean ikusirikoak **larritu** egin zuen. Migel Angel Mintegi

Poliki ezagutzen nuen Marixa, eta ez ninduen **larritzen** Unairen patuak. Aingeru Epaltza

-Egia da, bai -erantzun nion-; eta, gainera, ez zaitut alferrik **larritu** nahi. Koro Navarro

Bere zalantzak ez ninduen **larritu**. Ramon Saizarbitoria

Espero gabeko zerbait entzun balu bezala, entzundakoak **larritu** balu bezala. Joxemari Urteaga

Gure gaurko munduak [...] manera adeitsuak eta jarrera integratua eskatzen dizkio idazleari: ez dezala **larritu,** ez dadila deserosoa izan, ez diezaiela aterik zabaldu kezkari eta egonezinari. Anjel Lertxundi

**Larritu** zuena, ordea, printzearekin batera baso-mutilen eta nekazarien ordezkariak ikustea izan zen, eta haiekin Tomeo Xaharra. Felipe Juaristi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Idealtasun **larritu** eta guztiz desorekatu batek sufre distira bat barreiatzen zuen nonahi. Koro Navarro

Hirutan egin du urrats, kideon begi **larritu** eta izuak hartuen aurrean. Juan Garzia

Gero, hots **larritu** batzuk labarrean behera. Anjel Lertxundi

Nire **larritu** aurpegiarekin. Fernando Rey

• **4** du *ad* larriago bihurtu. ik **larriagotu**.

Ospitalera joaitearekin eri mota horien egoera berehala **larritzen** da. Herria

Eguzki talde ekologistak Euskal Herrian ingurumenaren egoera **larritzen** ari dela salatu du. Herria

Ez ditu hedapen horrek bakarrik kalteak ekartzen jendeentzat, hari esker dira hego aldeko eta Asiako herri batzu **larritu** eta azkartu. Herria

Problema hainbeste **larritu** da non enpresa buruak hasi baitira langileen sindikatekin mintzatzen. Herria

Orduko lapurreta hura, Pio XII.ak berretsi eta **larritu** baizik ez zuen, Baionako Albert Léon Terrier apezpikuari deus erran gabe, gure elizbarrutiari kendu ziolarik Ondarlako auzoa, Iruñekoari emaiteko Franco jeneralaren gomendio. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baina ez larritu** (6); **baina ez larritu** (6); **egoera larritu** (8); **egoera larritu** (8); **larritu nintzen** (7); **larritu zen** (25)
> **larritzeko arrazoirik** (6); **larritzeko motiborik** (9)
> **egoera larritzen** (6); **larritzen zuen** (7)

---

## larritzaile *iz* larritzen duena.

Ezein berrazterketa **larritzailek**. Xabier Olarra

---

## larritze *iz* larriago bihurtzea.

Egoera **larritze** honen aurrean, Ali Sistani aiatola nagusiaren ordezkari Mohamed Bakr al Mohirik zinki eskatu zien, bai AEBetako Armadari, baita Moktada al-Sadren gerrillariei ere Najafetik alde egiteko. Berria - Mundua

---

## larriune *iz* larridurazko unea.

Arratsaldean nozituriko tentsio eta **larriune** guztiak askatzeko unea zen. Joxemari Iturralde

Asti ezak sorrarazten duen **larriune** horretan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Diru-funtsek hondoa jotzen zieten **larriune** orotan, emaile berriren bat agertu ohi zitzaien; halaxe gertatu izan zen betidanik. Mirentxu Larrañaga

Gelako arduradunak, matrailak leher zorian gorri, **larriuneetako** irteerara jotzen du, baina hau ere itxita dago, kanpotik itxita. Karlos Linazasoro

---

## larrixko *izond adkor* larri samarra.

Harri pikor **larrixko** batzu. Herria

Ikusi behar beraz nola ateratzen den keinka **larrixko** hortarik. Herria

Huts **larrixko** bat egiten duena. Emazte **larrixko** bat, ontsa anderea. Herria

Aski adibide politak aurki ditzake gramatika honetan, aspaldixko emanak, bere liburuaren bigarren argitalpena prestatzen duenean **larrixkoena** bederen zuzentzeko materiala izan dezan. Pello Salaburu

Autoaren gidari, **larrixkoa** iduritu zitzaidan gizon bat, berrogeita hamar bat urte edo holako zerbait. Janbattitt Dirassar

---

## larroritar *izlag/iz* Larrikoa, Larroriri dagokiona; Larroriko herritarra.

Haatik **larroritar** andana bat hor bazen: herriko etxez Mitikileri lotürrik izana gatik, elizaz Ürrüstoirat zen Larrori. Herria

---

## larrosa ik **arrosa**.

---

## larru **1** *iz* animalien gorputza biltzen duen azala.

Zeuek hildako animalien **larru** eta hezurrak. Joseba Sarrionandia

Haren eskutzarrak jertsetik heldu zidan, txakurtxo bati bizkarreko **larrutik** heltzen zaionean bezalaxe. Juan Kruz Igerabide

Gero, behia erabat erreko dute apaizaren aurrean: **larru,** haragi, odol eta heste. Elizen arteko biblia

Alda ote dezake beltzak azalaren kolorea? edo lehoinabarrak bere **larru** pikardatua? Elizen arteko biblia

Zain mehe gorriak, **larru** beltzaren azpitik ibaiak sortuz eta deseginez. Felipe Juaristi

Bufaloak pozik, **larruan** sartuta dituzten zomorroak jaten dizkiete eta. Gotzon Garate

Xangreak gorputza husten zion salbu hezurrak eta **larrua**. Itxaro Borda

**2** (gizakiarena; ik **larruazal; larmintz**)

Ikusi zuen herriak zaku-jantzia zeramala erregeak soinekoen azpitik, **larru** gainean. Elizen arteko biblia

Eskuak oroitzen du, esaterako, emakume baten **larru** leuna. Felipe Juaristi

Soinekoa jaitsiz joan zen, arreta handiz, **larrua** kentzen balihardu bezala. Juan Martin Elexpuru

**Larru** beltzeko gizonek. Karlos Zabala

**Larru** zuriko jendeek ez baitute dena jakin behar. Aurelia Arkotxa

*ik* beherago 26. Askoren artean

Gizon flakoxta bat ikusi zuen, beltzarana oso, **larrua** olio-kolore. Felipe Juaristi

Nere **larru** beltxaranak erakusten duen bezala, ez naiz txinatarra. Ramuntxo Etxeberri

**Larru** gorrien lurra. Herria

Hezur eta **larru** baizik ez zen nire maisu izana. Aingeru Epaltza

Eritegian herioari zain zegoen lasai asko, argal-argal, **larrua** hezurretan itsatsia. Gotzon Garate

Jar gaitezen hanka-arte erantzira begira, **larru bizira** eta gorrira, pentsatuz ezen beharbada gaitzeko aiekatik hobeki ezagut litekeela zein nolakoa den, onetik, zuritik eta jantzitik baino. *ik* larrubizi. Iñaki Segurola

## 3 irud/hed

Nobeletan agertu ohi diren bi **larrutako** jendea etorri zait burura: izan ere luistarra zen Xanjoxe, palioa eskuetan eramanaz prozesioetan buru egiten zutenetakoa. Xabier Etxabe

*ik* larrubiko.

## 4 azal horren zatia gorputzetik berezia eta ondua.

Eta **larru** osoa ez baduzu nahi, onar ezazu zati bat urdaila estaltzeko. Askoren artean

Lehortu gabeko **larruekin** estaltzen zituen, era guztietako kolpeetatik babesteko. Santiago Iruretagoiena

Biluzik nengoen eta, **larru** batean bildua egonagatik, hotzez ikaran. Aingeru Epaltza

## 5 (izenondoekin)

Zaldiz ibiltzeko galtzak eta **larru** beltzezko polainak. Lopez de Arana

Gidariaren ondoko eserlekuan **larru** horizko kaxa bat zegoen. Lopez de Arana

**Larru** onduaren gainean. Monika Etxebarria

**Larru** landuzko bota baxuak zeramatzan oin txikietan. Karlos Zabala

**Larru** malguko sandaliek. Jon Muñoz

**Larru** leuneko jarleku batean patxada ederrean eseria. Jon Muñoz

Azalak, beltza eta handitua, **larru** egosizkoa zirudien. Monika Etxebarria

**Larru** latzezko bere txalekoaren sakeletan. Lopez de Arana

**Larru** finezko oinetakoak. Elizen arteko biblia

Soin gaineko arropen **larru** higatua. Aingeru Epaltza

Lodzeko Ehun eta **Larru** Sintetikoak SL etxea osatzen duten hormigoizko kubo mardulak. Iban Zaldua

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Irudi txiki-txiki bat zen [...] **larru**-ilezko kapela bat eta artilezko eskularru urdin ilunak jantzita. Xabier Olarra

**Larru**-eritasun ezezagun batek tumorrez estali zuen. Juan Garzia

Ez baitugu odolik, arrosa bere adarrean bezala, **larru** zuloetatik barna isurtzen denik. Felipe Juaristi

Bere **larru**-kolorea zuritik urdinera bidean, bere aurpegia are zuriago. Felipe Juaristi

Tomas Atondoren lantegian aitaordearendako **larru** puskak prestatzea. Aingeru Epaltza

**Larru** saltzaile baten iruzurra saihesteko. Aingeru Epaltza

**Larru**-langile txukun baten dendan. Patxi Ezkiaga

**Larru**-zurratzeko tinarik handiena astean-astean husten zuten. Juan Garzia

**Larru**-zurragarri organikoak polifenolak dituk. Juan Garzia

Aintzira-bazterretako lur **larru**-kolorekoaren gainean. Fernando Rey

**Larru** fabrika bateko tximinia. Urtzi Urrutikoetxea

Narrastien **larru** berritzea. Iñaki Iñurrieta

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; izenondoak eratuz)

Azkenean bere nagusiak losintxaz baretu zuen pakidermo **larru**-lodi haserrea. Gotzon Garate

Orpo luzeko bota **larru**-horiak oinetan. Karlos Zabala

**Larru**-horiak diren gizon-emakumeen ongia. Felipe Juaristi

Pilota **larru**-leun, **larru**-goxo, **larru**-beroa. Daniel Landart

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Klima hotzetan, janaritik dator behar den energia, eta ile-**larru** sarriak gordetzen du energia hori. Irene Aldasoro

Egun hotzetan ilea pixka bat tentearazten duten muskulu ugari dituzte animaliek larruan; hartara, ile-**larrua** harrotu, eta isolagarritasun hobea lortzen da. Irene Aldasoro

Lehenengo irten zena ilegorria zen, abere-**larrua** bezain iletsua. Jose Antonio Mujika

Gorputzaren jiran animalia-**larru** bat zeukan erantsia. Juan Garzia

Idi-**larru** bat dut hemen. Jon Muñoz

Ardi-**larru** batek doi-doi gerizatzen ninduen euri zakarretik. Aingeru Epaltza

Antxume-**larru** gris eta zurizko eskularruak. Lopez de Arana

Azeri-**larru** bat lortu zuen eta Frantziskori eraman. Askoren artean

Arratoi eta katu **larru** lehortuak. Joseba Sarrionandia

· Guanako **larru** zati bat. Joseba Sarrionandia

Kalitate gutxiko bizpahiru ahuntz **larru** tona. Bego Montorio

## 9 (sexu harremanak aipatzeko)

**Larrutako** lantegian, bada, emakumeak gozamenari begiratzen omen diola, gozatzeari eta atsegin hartzeari, eta gizonezkoak berriz, gozarazteari, atsegin emateari eta emakumea gozatzen ari dela ikusteari. Iñaki Segurola

Egizu kontu zure aixkire Joxepitak **larrua** beti mesedez eskatzen dizula. Iñaki Segurola

**Larrua** diru alde saltzeaz beste bizibiderik ez zeukaten ekialdeko neskatxen saihetsetik suge trebeen antzera lerratuz. Itxaro Borda

Afari eder bat eta **larru**-paxara bat putetxean. Iñaki Segurola

Bakartia nintzen eta ez nuen norbait ohean ene aldamenean jasaten ahal **larru** joaldiak eskatzen zuen epearen luzeran baino. Itxaro Borda

Bi emakume desioz beteak, elkarrekin enamoratuak, bero eta heze, elkar maitatzen, musukatzen, laztantzen eta miazkatzen; bi emakume elkarrekin **larru** festan. Luis Elberdin

Seguru, bi giza sexuen arteko **larru**-lanean (lana, eginkizuna: **larru**-jaia edo ustekabeko festa oso gauza bakana izaten baita zorigaitzez). Iñaki Segurola

Bakartasuna, **larru**-gosea, hauts gorri zutoinak airatzen eta begiak itsutzen zituzten haizeak. 'Bizitza honetan balio duen gauza bakarra **larru** asuntoa da,' esan zuen. Itxaro Borda

Soldadutzan bezala, hasi berriaren suak harrapaturik nengoen **larru** aferetan ere. Aingeru Epaltza

Afalondoetan kontatzen zizkigun **larru**-istorioak. Aingeru Epaltza

Zer mila deabru, 197 egun neramazkien **larru**-miserian! Aingeru Epaltza

Aurreko apaizari behin baino gehiagotan eskatua zion Adelak aretoa, [...] baina lehengo apaizak ez zuen ezer jakin nahi izan "komunista **larru**-bero" harekin. Juan Kruz Igerabide

**10** ***larrutan*** *adlag* larrua jotzen.

Ohean **larrutan** harrapatu zituen egunean, hilen zituela eta alde egin zuen, sarraskia obratu aurretik. Itxaro Borda

Ezkutuan **larrutan** ari direnak zelatatzen omen ditu, giza haziaren irrikan beti ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Amerikanoak babalore atseginak ziren, kanpo-ederrak bai, baina ez zekiten **larrutan**. Karlos Zabala

Maitek eta biok **larrutan** jarraitu genuen sutsu eta bero. Aitor Arana

Txakurra **larrutan** bizi-bizi ikustea gustatu zitzaidan. Aitor Arana

-Esan **larrutan** egiteko hiru jarrera. Patxi Zubizarreta

**Larrutan** ongi eta luze egin berri duenaren asetasun nagia zekarten bisaietan zizelatua. Aingeru Epaltza

Esaten dutenez, intsektu eme honek, **larrutan** egin eta gero bere maitaleak hil egiten ditu. Jasone Osoro

Ahalik eta gehiena egizue **larrutan**. Berria - Harian

**11** ***larrutik*** *adlag* oso garesti.

Etxetik alde egin nuenetik, **larrutik** ari nintzen ikasten bizitzak nik uste baino ertz gehiago dituela. Anjel Lertxundi

Ez nekien non, ez nekien nola, baina **larrutik** ordainduko zuen. Anjel Lertxundi

Gizon horrek **larrutik** pagatu behar dik egindako kaltea. Patxi Zubizarreta

Lasai, esaten nuen nire baitan, pazientzia, eta harrapatzen dudanean **larrutik** ordainduko du. Monika Etxebarria

Aspertuta naukazu zure kritikekin, **larrutik** ordainduko didazu hori! Josu Zabaleta

Pagarazi genion, **larrutik** pagarazi ere, eginean eta egin gabean. Aingeru Epaltza

Hala ere, ez da erraza: **larrutik** ezagutu ditut horren ordainak; bakardadearena, batez ere. Anjel Lertxundi

Gizon lotua izatetik gizon librea izatera pasa zen, baina **larrutik** ordaindu beharko zuen horregatik, askatasuna garesti saltzen baita, biziaren trukean batzuetan, bakardadearen trukean besteetan. Felipe Juaristi

Arrakasta **larrutik** pagatzen da, eta larruarena ardotik. Iñaki Segurola

· Zuei, nire **larrutik** aberastu zaretenoi, ni eta nire familia erdi miseria batean edo are egoera latzagoan eduki gaituzuenoi, gauza bakarra eskatzen dizuet: eman dizkizuedan irabazi ugarien ordainetan, ordain itzazue nire hiletaren gastuak. Anjel Lertxundi

**12** *esku-larru* ik **eskularru**.

**13** ***hezur eta larru*** *adlag* ezin argalago.

Jende gaixo nigarregingarriak, goseak hilak, **hezur eta larru,** ardura oinez etorriak edo biziki emeki zebiltzan trenetan, jatekorik gabe. Marzel Etxehandi

**Hezur eta larru** bilakatuak gira. Michel Oronoz

Eguzkitara atera dira Kixoren saihets-izterrak, oro **hezur eta larru**. Aingeru Epaltza

**Hezur eta larru** atera zuten bere hobitik eta nork daki nora eraman... Eneko Bidegain

**14** ***larru-apaintzaile*** *iz* larru-ontzailea.

**Larru-apaintzaileek** Nabarreriako jendegunean zuten beren karrika, San Martin ospitalearen eta San Tirso elizaren artean. Aingeru Epaltza

Menderen mendetan bere arbaso **larru-apaintzaileek** Argaren ertzetan bildu nekearen heinekoa zirudien aitatxik urari zion gorrotoak. Aingeru Epaltza

**15** ***larru-arras*** *adlag*

Gogotik gustatzen zaizkit pubis iletsuko emakumeak, ez naiz ileak **larru-arras** mozteko zale, ipar-ekialdean askok egiten duen bezala. Karlos Zabala

Begirada tolesgabea, aurpegi adoretsua, belarrondoko bizarrak eta bibote handi ileurdina, ilea **larru-arras** mozturik garondoan. Jose Morales

**16** ***larru-beltz*** *(orobat* ***larrubeltz****)* *izond* azala kolore beltzekoa duena.

Ramona, **larru**-beltz, izter-guri. -Desager hadi niregandik urrun, **larrubeltz** hori! Patxi Zubizarreta

Eta ondoz ondo bizi izan ziren aberatsen ongia eta pobreena, larru-horiak diren gizon-emakumeen ongia, **larru-beltzena,** larru-zuriena... Felipe Juaristi

Bereziki hango **larru-beltzek** pentsatu dute Katrina orronak funditu dituen herritarrak zuriak izan balire eta ez beltzak, goizago mugituko zela Bush. Herria

**17** *larru bizi* ik **larrubizi**.

**18** *larru-gorri* ik **larrugorri**.

**19** ***larru-has*** *adlag* biluzik.

Bertze batzuetan, gaina kaska pelaturik uzten zuten, burua **larru has** egon behar baitzen beti. Eneko Bidegain

Uste duzu irakurle, astotik mandora eramaten zaitudala, baina ez da hala: hitzak odoletan, **larru-has** dauzkat eta den mendreneko haize firfira beroak zauriak zornategi, irekitzen dizkit. Itxaro Borda

**20** ***larru-huts/hutsik*** *(orobat* ***larrutsik****)* *adlag* biluzik.

Galtzaileak ezkatarik gabeko sardinatzarrak bezala geratzen ziren, **larru huts**. Felipe Juaristi

Kurduak erdi **larru-hutsik** zeuden. Pablo Sastre

Haiek esan arte ez nintzen ohartu **larrutsik** nengoela. Xabier Mendiguren Elizegi

Aurrez aurre jarri gara, elkarri begira **larru hutsik**. Javi Cillero

· **Larru-huts** nengoen, hezur-huts. Aingeru Epaltza

**21** ***larru-ilun*** *(corpusean* ***larruilun*** *soilik)* *izond/iz*

Londongo neska bat ere bazegoen, bigarren **larruiluna:** Bernardine Evaristo. Edorta Jimenez

**22** ***larru-jotzaile*** *(orobat* ***jole, larrujotzaile****, eta* ***larrujole****)* *izond/iz* larrua jotzen duena.

**Larru-jotzaile** bat ezin **larru-jotzaile** izan, mugatua baldin badago. Karlos Zabala

**Larru-jole** handia izan zen, eta agure gordina bihurtu zen zahartu zelarik. Karlos Zabala

Drogazalea eta **larru-jolea,** gezurtia eta gaizkile txiki bat, maite ninduten guztien traidore bat. Oskar Arana

Kontua larrua jotzea da, **larrujotzaileak** ugaritzea eta sarri aldatzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Dotorezia barroko samarrez jantzia zihoan, eta txerritxo **larrujoleen** korbata bat zeraman. Juan Martin Elexpuru

**23** ***larru-jotze***

**Larru-jotzeak** eta zakil-miazteak. Oskar Arana

Gero erotismo esplizitua eta **larru jotzeak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Lantokian atzealdeko eskailerapeko hutsartean egindako **larru-jotze** arinak. Oskar Arana

Jakina, **larru jotze** garbiraino ez beste zera guziak jo litezke zirritzat. Patziku Perurena

Nire lehen **larru jotzeaz** oroitzen hasi nintzen. Jose Angel Irigaray

Emma Bovary du gogoan, nola erabat aseta etxera datorren, begiak distiraz, arratsaldea **larru jotze** ero batean igaro ondoren. Oskar Arana

Ez omen dago **larru-jotze** on bat bezalakorik, norbaitengandik zintzilik geratzeko. Lourdes Oñederra

· Irakasleekin lotsagabe eta solasean ausart -beti **larru** eta kanpai-**jotze**-, lehen egunetan ez gintzaizkion hurbiltzen ere. Aingeru Epaltza

**24** ***larru-ontzaile*** *(orobat* ***larru-ontzale*** *g.er. eta* ***larruontzaile*** *g.er.)* *iz* larrua ontzen duena pertsona.

Atari batzuetan, **larru-ontzaileen** lantoki bihurturik, larruak lerro-lerro zintzilik ikusten ziren, eta haien atzean Ega ibaiaren ur ia erabat geldia ageri zen, berdetsua eta arrea.

Koro Navarro

Jostuna edo zapatagilea edo **larru-ontzailea** izan nahi baduzu, gazte hasi beharra daukazu. Koro Navarro

**Larru-ontzaileen** auzora egindako bisitaren ondoren gertatutakoa gogoratuz. Bernardo Atxaga

Zapataginek larrua lantzen dutelako, **larruontzaile,** eta larrugintzan dihardutenek eta zurratzaileek ere bai, San Markos hartu zuten. Pello Zabala

Laguntza eske lerrotu zaizkio **larru-ontzale** eta zurratzaileak. Pello Zabala

## 25 *larru-xaku* *(corpusean **larruxaku** soilik)* larruzko zaku txikia.

Eta nolako atsegina irudimenak: munduko urre pipitta guziekin betetako **larruxaku** xahar ximurtu haietako bakoitza eztitan gordea bezala, ikusi aldiro! Patziku Perurena

## 26 *larru-zuri*sup_1 *(orobat **larru-xuri** eta **larruxuri** g.er.)* *izond* azala kolore zurikoa duena.

Eta atea zabaltzearekin batera ezagutuko zaitu, antzinako mutiko argal, **larruzuri,** ilegorri hura. Joseba Sarrionandia

Atzerritar **larruzuri** perla-bilatzaile bakarti hura, hizkuntza estrainio batez mintzo zena. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrek ekarri zuen nekazari **larru xuriak** haizatu zirela handik. Herria

Halakotzat [albinotzat] joak izan dira esate bateko agote **larruxuriak,** larrujea gorritzen duen pigmentu baten eskasiagatik. Patziku Perurena

Tomas aspaldi desagertua zen bere errumaniar **larru**-zuriarekin. Aingeru Epaltza

## 27 *larru-zuri*sup_2 *(izen gisa)*

Duela zenbait mendetako historia, nola **larru zuriek** bereganatu dituzten larru gorriek baliatzen zituzten lurrak, nola zazpi miliun jende bizi zirelarik lur horietan, lau ehun mila bakarrik bizi direla orain. Herria

Indiarren eta **larruzurien** arteko mugan salerosketan eta ehizan ibiltzen zen gizona. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jende arrotzak, **larru xuri** iletsuak, sartu zirelarik Indianoen lurretan, tiroka nahi izan zituzten ez bakarrik menperatu, baina ezeztatu. Michel Oronoz

## 28 *larrua eman* sexu harremanak onartu.

**Larrua** erraz ematen duela pentsatuko lukete denek. Luis Elberdin

Alferrik da galdetzea larru-apaintzaileen alabak **larrua** bortxaz ala nahitara eman zion. Aingeru Epaltza

## 29 *larrua jo* *(**208** agerraldi, **71** liburu eta **2** artikulutan)* sexu harremanak gauzatu.

Arrantzara joaten ginen haren kanoan eta **larrua jotzen** genuen itsasoaren erdian. Beraz, **jo larrua**, Eugénie, **jo larrua**, ene aingeru maitea. Karlos Zabala

Gogoko zuen saltsa-maltsatan ibiltzea, Kenen emaztearekin eta lagun pila batekin **jo** zuen **larrua**. Karlos Zabala

Zuk ez duzu nigan pentsatzen, beste emakumeekin **larrua jotzean**? Harkaitz Cano

Gau hartan ere etorri zen gizona, **jo** zion **larrua** eta joan zen. Pako Aristi

Hamabi urte daramat ezkondurik, eta hamar edo hamabi mila lagunek **jo** didate **larrua**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

- **Larrua jo** nahi didak? Urtzi Urrutikoetxea

Harro nengoen bere emazteari **larrua jo** niolako, eta horrek bakarrik moteltzen zidan apur bat gizon hura hiltzeko nuen gogoa. Juan Martin Elexpuru

Nahi izan zuen modu guztietan **jo** zidan **larrua**, eta baita nik ere hari. Karlos Zabala

Bai, lagun, **jo** egidazu **larrua** ongi, baina ez egidazu sermoirik bota. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez duzu hara eta hona ibili behar inguruko emakume ezkonduei **larrua jotzen**. Oskar Arana

Eta jakin nahi duzu zergatik ez nion utzi aurrealdetik ere **larrua jo** ziezadan? Karlos Zabala

**Larrua** amorruz jotzen hasi zitzaidan, hurakan baten indarraz. Juan Martin Elexpuru

Gogotik gustatu zitzaidan atzetik **larrua jotzen** hasi zitzaidanean. Karlos Zabala

Ez erabili zapirik **larrua** hortik **jo** dizutenean: arrakala zabalik jarraitzea komeni da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta Rodolfo Rodolfo zen, gau guztian **jo** zigun **larrua** zulo guztietatik. **-Jo** al dizute **larrua** bi gizonek batera? Karlos Zabala

**Larrua jotzetik** alde egin dezazuen. Anjel Lertxundi

Emakumeak ez dira gaizki esaka aritzen haiekin **larrua jotzen** duten gizonen kontra. Karlos Zabala

Nik atzo **larrua jo** nion puta bera. Pako Aristi

Jo ezak **larrua,** eta ez adarra. Joxerra Garzia

· Puta honek gogoan izan dezan bake-bakean utzi behar duela bere alaba, nahi beste **larru jotzen**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 30 *oilo larru* oilo ipurdia.

**Oilo-larrua** egin zaio harrabotsa hurbiltzean. Aingeru Epaltza

**Oilo larrua** eginda jarraitu genuen martxan, beldurra gaindituko bagenu bezala, zangoak dardaraka. Joseba Sarrionandia

Barrez eztanda egin zuen azkenean eta **oilo-larrua** jarri zitzaidan. Joxan Elosegi

**Oilo larrua** ipini zitzaidaan, hankak dardarka hasi, aurpegiko gihar guztiak tenkatu, eta iruditu zitzaidaan gorputzaren ordez hozkailu bat nuela. Mikel Hernandez Abaitua

Kafeak noski zainak inarrosi zizkidan, **oilo larrua** denetan hedatuz; zure mintzamoldeak halaber. Itxaro Borda

**Oilo larrua** hazten zitzaien eta orro-emez urrundu ziren sasiaren maldatik. Itxaro Borda

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ahuntz larru** (7); **ardi larru** (6); **azeri larru** (8); **azeri larru bat** (3); **ehun eta larru** (5); **erdi larru** (3); **hezur eta larru** (11); **idi larru** (4); **larru arras** (3); **larru azal** (4); **larru azala** (15); **larru azalaren** (4); **larru azalean** (8); **larru beltz** (5); **larru beltzeko** (12); **larru beltzez** (4); **larru beltzezko** (13); **larru berdea** (3); **larru bizitan** (3); **larru fabrika** (4); **larru festa** (3); **larru finak** (3); **larru finezko** (10); **larru finezko estalduraz** (6); **larru gainean** (3); **larru gorri** (3); **larru gorrian** (17); **larru gorrian joan** (3); **larru gorririk** (3); **larru gorritan** (19); **larru gorritan utzi** (3); **larru gorrizko** (6); **larru has** (3); **larru hutsik** (3); **larru jotze** (8); **larru jotzea** (3); **larru kolore** (5); **larru puska** (4); **larru sintetikoak** (5); **larru tratularia** (3); **larru xuri** (3); **larru zaharra** (3); **larru zati** (5); **larru zuri** (6); **larru zuria** (3); **larru zuriko** (4); **larru zuriz** (3); **larruz larru** (6)

**; ardi larrua** (7); **idi larrua** (3); **ile larrua** (6); **jo larrua** (10); **koloreko larrua** (3); **larrua bueltaturikoa** (3); **larrua bueltaturikoak** (4); **larrua bueltatutako** (12); **larrua bueltatutako pilotekin** (4); **larrua bueltatutakoa** (4); **larrua bueltatutakoak** (5); **larrua eta okela** (3); **larrua itzulita** (3); **larrua jantzi** (4); **larrua jo** (68); **larrua jo behar** (4); **larrua jo nahi** (5); **larrua jo ondoren** (3); **larrua joko** (6); **larrua jotzea** (36); **larrua jotzean** (7); **larrua jotzeko** (18); **larrua jotzen** (48); **larrua joz** (7); **larrua kendu** (3); **larrua kentzen** (3); **larrua salbatu** (4); **oilo larrua** (9); **oliba koloreko larrua** (3)

**ahari larruak** (4); **ahuntz larruak** (4); **azeri larruak** (4); **esku larruak** (5); **tindaturiko ahari larruak** (3)

**ardi larruaren** (4); **larruaren gainean** (3); **larruaren koloreko** (7); **larruaren koloreko lurraren** (4); **larruaren usaina** (3)

**lehortu gabeko larruekin** (5)

**ehun eta larruen** (3); **larruen estatu lantegia** (3)

**harekin larrutan** (5); **larrutan ari** (10); **larrutan aritzen** (4); **larrutan egin** (23); **larrutan egin genuen** (3); **larrutan egitea** (5); **larrutan egiteko** (14); **larrutan egiten** (9); **larrutan egitera** (3)

**bere larrutik** (4); **larrutik ezagutzen** (3); **larrutik ordain** (6); **larrutik ordaindu** (50); **larrutik ordaindu zuen** (12); **larrutik ordainduko** (28); **larrutik ordainduko zuela** (5); **larrutik ordaintzekotan egon** (3); **larrutik ordaintzekotan izan** (3); **larrutik ordaintzen** (9); **larrutik pagatu** (5); **larrutik pagatuko** (3); **larrutik pagatzen** (3)

**ahuntz larruz** (3); **ardi larruz** (17); **ardi larruz jantzitako** (3); **larruz egina** (5); **larruz eginak** (4); **larruz egindako** (5); **larruz eginiko** (4); **larruz forratutako** (5); **larruz jantzia** (5); **larruz jantzirik** (4); **larruz jantzita** (6); **larruz larru** (6)

**ahari larruzko** (6); **ahari larruzko beroki** (5); **antxume larruzko** (5); **ardi larruzko** (5); **azeri larruzko** (4); **larruzko arropak** (4); **larruzko aulki** (3); **larruzko azal** (5); **larruzko azalak** (3); **larruzko baloi** (3); **larruzko beroki** (23); **larruzko beroki bat** (10); **larruzko berokia** (10); **larruzko berokiarekin** (3); **larruzko berokiaren** (3); **larruzko besaulki** (5); **larruzko bota** (10); **larruzko botak** (3); **larruzko errezelak** (5); **larruzko estalki** (4); **larruzko estalkia** (3); **larruzko gauza** (3); **larruzko gerriko** (4); **larruzko gona** (3); **larruzko jaka** (17); **larruzko jakaren** (3); **larruzko jantziak** (3); **larruzko kapa** (3); **larruzko kapela** (7); **larruzko karpeta** (5); **larruzko kartera** (6); **larruzko kazadora** (3); **larruzko maleta** (11); **larruzko maletatxo** (3); **larruzko oinetako** (3); **larruzko pilotarekin** (6); **larruzko pilotekin** (4); **larruzko poltsa** (5); **larruzko txamarra** (5); **larruzko txano** (7); **larruzko txanoa** (3); **larruzko txupa** (3); **larruzko uhala** (6); **larruzko uhalez** (3); **larruzko zaku** (5); **larruzko zamarra** (3); **larruzko zapata** (7); **larruzko zartailuz zigorkatzen** (4); **larruzko zorro** (8); **larruzko zorro bat** (3); **larruzko zorroa** (7); **leopardo larruzko** (3); **marta larruzko** (3); **palaz larruzko pilotarekin** (3); **sator larruzko** (6); **untxi larruzko** (4)

## larrualdi *(orobat **larrutaldi**)* *iz* larru joaldia.

Beste batean, handik puska batera eta, **larrualdi** baten ondoren, eszena hartaz oroiturik, Dabidi galdera hau zuzendu nion: "nirekin zaudenetik, sarritan masturbatzen al zara?". Patxi Zubizarreta

Ikustekoak dira **larrualdi** bateko argazkiak edo bideoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ipurdia ere salduko lukeela **larrutaldi** on baten truke. Patxi Iturritegi

---

## larruazal *(orobat **larru-azal** g.er.)* **1** *iz* giza larrua. ik **larmintz**.

**Larruazal** argiko emakume bat zen. Koro Navarro

Bibiren kafe koloreko **larruazal** epela, adats beltz kirruak, begi ederrak, ezpain haragitsuak... Paddy Rekalde

Florentek hotzikara sentitu zuen **larruazalean** zehar. Karlos Zabala

Azazkal zorrotzek **larruazala** urratzen zidaten. Juan Kruz Igerabide

Burbuilen igurtzi atsegina ari nintzen sentitzen nire **larruazal** guztian. Juan Martin Elexpuru

Bero itzela izanda ere, hotzikarak zimiko egin zidan **larru**-azalean. Aingeru Epaltza

Titimutur harrotuen kontaktua **larruazal** bustian. Paddy Rekalde

Kristinaren bisaiako **larruazal** beltxarana zurbiltzen ikusi nuen. Aingeru Epaltza

Gizon edo emakume bati **larruazalean** orbain zuriak ateratzen bazaizkio. Elizen arteko biblia

Hilotzena zuen **larruazaleko** zurbiltasuna. Koro Navarro

Gaitz hilgarriak **larruazala** jaten dio zatika, gorputz-atalak irensten. Elizen arteko biblia

**Larruazal** sentiberetako laranja-azal itsusiaren kontrako gel mikrozelular bereziak bazirudien ez zuela nigan sartu nahi. Joxan Elosegi

**2** (testuinguru teknikoetan)

Guk ***larruazal*** esaten diogun hori kanpoko geruza besterik ez da, teknikoki *epidermis* deritzona. Irene Aldasoro

**Larruazalaren** parterik handiena dermisa da, geruza mamitsuago bat. Irene Aldasoro

**Larruazal** ilunak melanina gehiago dauka. Irene Aldasoro

Buruko **larruazalean,** ilearen % 80 inguru ari da beti hazten. Irene Aldasoro

Badira bi izerdi mota, **larruazaleko** guruinek sortuak biak. Irene Aldasoro

Arnasan ere hartzen du parte pixka bat **larruazalak:** orduko 150 ml oxigeno (batzuetan gehiago) hartzen du, gutxi gorabehera. Irene Aldasoro

Baina alde batera bakarrik da irazgaitza **larruazala,** ez bi aldeetara; izan ere, gorputzaren azaletik ur asko galtzen da izerditzean. Irene Aldasoro

Folikulu ugari ditu **larruazalak,** epidermisean hasi eta handik behera dermisera iristen direnak. Irene Aldasoro

Gas askok nahikoa erraz igarotzen dute **larruazala**. Irene Aldasoro

Ebakuntzan hiletsitako emakume baten aurpegiko azala, **larruazaleko** gantza eta odol basoak jarri zizkioten, aurpegia berregiteko. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **larruazal guztia laztantzen** (3); **larruazal guztian zehar** (4); **larruazal zuri** (6)
> **aurpegiko larruazala** (3)
> **larruazalaren azpian** (5); **larruazalaren irekigunea** (3); **larruazalaren kolorea** (3)
> **larruazalean zehar** (4)

---

larrubeltz ik **larru 16**.

---

## larrubiko *izond* bi alde dituena. ik **larru 3**.

Argi dago aztiak **larrubiko** aurpegia zuela eta parte txarrekoa zela, bestela ez zizkidan estualdi horiek pasaraziko. Patxi Zubizarreta

---

## larrubixi *(orobat **larru bixi**)* **1** *adlag adkor* larrubizi.

Eta ni hantxe, erabat **larrubixi,** dibortzioa eskatzeko zain. Joxe Austin Arrieta

Ni han, goitik behera **larru bixi,** ergel baten moduan. Joxan Elosegi

**2 *larrubixirik*** *adlag adkor* larrubizi.

**Larru bixirik,** bere zokoan, lokartu egiten zen... Pablo Sastre

---

## larrubizi *(orobat **larru bizi**)* **1** *adlag*

Azpiko gonaz jantzita zegoen emakumea; ez zirudien luzerako, ordea, gizasemea **larrubizi** baitzegoen, miliziano-kapela bakarrik buruan. Inazio Mujika Iraola

**2 *larrubizian*** *adlag* larrubizi.

Hedy Lamarr deitzen zioten maniako hari, **larru bizian** ibiltzen zelako. Pello Lizarralde

Emakume bat **larru bizian** ikusten nuen aurrenengo aldia zen. Juan Martin Elexpuru

**3 *larrubizirik*** larrubizi.

Batzuetan **larrubizirik** geratzen zuan esanez huraxe zela gure desira. Juan Garzia

Presondegian **larrubizirik** jarri, jipoitu eta argazkiak atera zizkioten. Berria - Mundua

Noizbait ere **larru bizirik** geratu zelarik, bere tresna izter artean laztandu zuen. Patxi Zubizarreta

**4 *larrubizitan*** *adlag* larrubizi.

-Ez dut inor ikusten, ez **larru-bizitan,** ez jantzita. Juan Kruz Igerabide

Gizon bat besteari zakila miazkatzen; andre bat **larru bizitan,** gizon bat titiak igurtzen eta beste norbait alua jaten ari zaizkiola, eta abar eta abar. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## larrudun *izond* larrua duena.

Zamar **larrudun** bat sorbalda gainean jarri, garaje-gelako atea ireki, aulki gurpildunari eragin, eta patioa zeharkatu zuen, zoladura gorabeheratsuaren gainean zabuka. Jon Muñoz

**larrugain** *iz* larruaren gainaldea.

Beste inori entzuten ez zitzaizkion hitz miragarriak esaten zituen: gipura, izurdurak, Txinako krepa, **larrugaina,** ozkar puntua, izur zeharra, gona-taulak, bolantak... Joxan Elosegi

larrugile ik **larrugin**.

**larrugin** *(orobat **larrugile** g.er. eta **larrukin** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **larrugin** agertzen da)* **1** *izond/iz* larruak ontzen dituena.

Behin, aspaldi samar dagoeneko, bere lagun **larrugile** baten zerbait aipatu zuen Kleimanek. Josu Zabaleta

Simon **larruginaren** etxean dago ostatuz, itsasertzean. Elizen arteko biblia

**-Larruginak** larrua nola, hala zurratu haute garaztarrek. Aingeru Epaltza

Gero, Rua bukatuta, **Larruginen** kaletik jarraitu zuten. Koro Navarro

Ogibidez **larrukin,** zikinketari, zerbitzu garbitzaile, gorputz errausle... eta holako lan "zikin"-ez arduratzen dira. Herria

Oreztaz jositako gazte alai eta oso maitatu bat, ile beltza tente moztuta daroana: **larrugile** deritzogu denok, eskola zenbaitetatik gatozen gainontzekook ez bezala, lanbide hau berak aukeratu baitu. Urtzi Urrutikoetxea

**2** (hitz elkartuetan)

**Larrugin** -dendako saltzailea gogorarazi zion. Matías Mujika

**larrugintza** *iz* larruak ontzea.

Zapataginek larrua lantzen dutelako, larruontzaile, eta **larrugintzan** dihardutenek eta zurratzaileek ere bai, San Markos hartu zuten. Pello Zabala

Ekoizpen mota hau (ehungintza, **larrugintza,** zurgintza, jostailuak, material elektrikoa, etab.), denborarekin, eta berrikuntza tekniko handiren bat ez badago, soldata apaleko eskualdeetara joango da. Koro Navarro

Beste alde batetik, «bisoi amerikarrak desagerraraztea eta **larrugintzarako** ustiategiak debekatzea» premiazko neurriak dira, espeziearen kinka konponduko bada. Berria - Gaiak

**Larrugintza** konpainiek aurten 320.000 itsas txakur hiltzeko asmoa dutela salatzeko. Berria - Gaiak

Hiltegiak, gantzak lantzeko eta okela ontziratzeko guneak, **larrugintza** lantegiak eta bestelakoak. Berria - Harian

**larrugogortu,** larrugogor, larrugogortzen da/du *ad* larrua gogortu.

Ordurako gainditua behar nuen krisirik gogorrena, Lagereko ordenaren parte izatera pasatu izatearena, eta harrigarriro **larrugogorturik** behar nuen noski. Juan Garzia

**larrugorri** *(orobat **larru-gorri**)* **1** *iz* azala kolore gorrikoa duen pertsona.

Zeren **larrugorri** hauek Piccaninny tribukoak dira. Julen Gabiria

Hara, John, **larrugorrien** kanpalekuko kea ikusten dut! Julen Gabiria

Bene-benetako **larrugorria** izateko, ordea, aurpegian marra batzuk pintatu behar. Xabier Mendiguren Elizegi

Duela zenbait mendetako historia, nola larru zuriek bereganatu dituzten **larru gorriek** baliatzen zituzten lurrak, nola zazpi miliun jende bizi zirelarik lur horietan, lau ehun mila bakarrik bizi direla orain. Herria

• **2** *izond* azala kolore gorrikoa duena.

Indio **larrugorriak** bezain trebea zen torturatzen, eta gogoa zuen Marfa Strogoff gatibuari haren sekretua barrutik erauzteko. Karlos Zabala

• **3** *adlag* biluzik.

Ni **larrugorri** jarri? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Larrugorri** eta oinutsik gelditu zen. **Larrugorri** zeuden gizona eta emaztea; hala ere, ez zuten elkarren lotsarik. Elizen arteko biblia

Jantzi gabeko jendea ere bai, **larrugorri** edo erdi **larrugorri** dabilena. Gotzon Garate

Orain arte hor ibili gara goseak, egarriak, **larrugorri** eta gaizki erabiliak. Elizen arteko biblia

Biluzik baino **larrugorriago,** ez dakit zein postura hartu, eskuez zer egin, arnasari nola eutsi. Anjel Lertxundi

**4** ***larrugorrian*** *(18 agerraldi, 8 liburu eta 3 artikulutan; orobat **larru gorrian** 17 agerraldi, 4 liburutan)* *adlag* biluzik. ik beherago **6.**

Zutitu, gorputza estalzen zion setazko kamisoia erantzi eta **larrugorrian** geratu zen nire aurrean. Juan Martin Elexpuru

Baina bekatu egin zuenean, ohartu zen **larrugorrian** zegoela, eta lotsaren lotsaz, piku-hostoen bila korrika joan eta estalkia egin zuen beretzat. Askoren artean

Zer-nolako itxura izan zezakeen **larrugorrian**. Mirentxu Larrañaga

Teatroan **larrugorrian** agertzera behartu zituzten neska gazteak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Ziur nago **larrugorrian** jarri eta ispiluari begira egoten zarela sarri. Juan Martin Elexpuru

Gela erdian emakume bat agertu zitzaien, zutik eta osoki **larru gorrian**. Patxi Zubizarreta

**5** ***larrugorririk*** biluzik.

**Larrugorririk** bizi izan zen zabortzan, eta ogi azalak, oliba ustelak eta arrain idorraren hezurrak biltzen zituen bere zorroa betetzeko. Juan Garzia

Maroneako herria utzi zuen, **larrugorririk,** ileak dilindan, oihal zahar batez bakarrik estalirik soina. Juan Garzia

**6** ***larrugorritan*** *(52 agerraldi, 24 liburu eta 3 artikulutan; orobat **larru gorritan** 19 agerraldi, 18 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **larrugorrian** agertzen da)* *adlag* bikluzik. ik gorago **6.**

Ohetik jaiki eta leihora inguratu nintzen, **larrugorritan**. Juan Luis Zabala

**Larrugorritan** utzi zuten, seme-alabak kendu eta bera ezpataz hil zuten. Elizen arteko biblia

Nolako itxura izango ote zuen **larrugorritan**? Migel Angel Mintegi

Harrapakinetarik hartu eta jantziak eman zizkieten **larrugorritan** zeudenei, bai eta oinetakoak eta janari-edariak ere. Elizen arteko biblia

**Larru gorritan** utzi zuen ordenagailua. Unai Elorriaga

· Eros iezadazu zeuretzat sutan garbituriko urrea, aberats zaitezen, eta soineko zuriak zeure burua janzteko, **larrugorri** lotsagarritan ager ez zaitezen. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

erdi larrugorri (3)

larrugorritan geratu (3); larrugorritan utziko (3)

**larrugorritu**, larrugorri, larrugorritzen da *ad* larrugorri jarri, biluzi.

Edurne zutitu eta **larrugorritzen** hasi da bera ere. Aingeru Epaltza

-Benetan beharrezkoa da **larrugorritzea** ? Aingeru Epaltza

larruilun ik **larru 21**.

**larruje** *iz* larruaren, azalaren itxura.

Gauza ezaguna da munduan, kasta desberdinetako jendea, beren **larrujea** edo kolorajea nabarmenduz bereizteko usario zabaldua. Patziku Perurena

Gaitzak bereizteko orduan ere, maiz erreparatu dio jendeak **larrujeari:** gorriena, sukar horia, sukar beltza, berdoztua, horimina... Patziku Perurena

*Albino* hitzak ere badu zer ikusirik kolorearekin, latineko *albus* (txuri) hitzetik baitator, eta halakotzat joak izan dira esate bateko agote larruxuriak, **larrujea** gorritzen duen pigmentu baten eskasiagatik. Patziku Perurena

**larrujoka** *adlag* larrua joz.

Jendea zirika eta barreka zebilen, oihuka emakumeak, zaunka eta **larrujoka** txakurrak, negar marruka bularreko haurrak. Pablo Sastre

larrujole ik **larru 22**.

larrujotzaile ik **larru 22**.

larrujotze ik **larru 23**.

**larrukara** *izond* larruaren itxurakoa.

Epidermisaren kanpoko geruzek egiten dute larruazala irazgaitz: zelula hil zapalduek ematen diote larruazalari bere gainalde **larrukara**. Irene Aldasoro

Piko umo berriaren irudia, azalez **larrukara** horista lehun guri eta barrenez dena odol gorri gozo eta hazi zuri heze nahaste. Patziku Perurena

**larruketa** **1** *iz* larrutzea.

Bazirudien lana doi bete nahi zuela, gerra irabazi, gainerako **larruketa,** gerraren alderdirik tamalgarriena, ahazturik; edo baztertuxe utzirik. Felipe Juaristi

**2** larru-jotzea.

Ez nuen bortitz ibili nahi banekielako uzkia ez dela hasieran potxona bezain malgua **larruketarako**. Aitor Arana

Gerritik heldu nion gizonari **larruketa** mugimenduei ekinez. Aitor Arana

Denok ongi dakigu gizon heldu batzuek askotan atseginago izaten dutela jendea larrutan ikustea, eurek **larruketan** parte hartzea baino. Aitor Arana

**larruketari** *iz* larru-ontzailea, larrua ontzen duen pertsona.

"Pellejero"ak barne, horko deitura euskaldun beltx asko; gure oroitzeko **larruketariak**. Patziku Perurena

**larruki** **1** *iz* larru onduaren zatia.

Raduan Husaini **larruki** baten gainean eseria zegoen eta arrosarioa aletzen ari zen. Patxi Zubizarreta

Oihalkiak nasaiki koloratuak, kolorezko kristalkiak gasagarrean edo labean landuak, **larrukiak,** xirio apaingarriak, haurrentzat zurezko apainki eta puzzleak, larru eta txapinak, joiak, eltzeak... Herria

**2** pergaminoa. ik **larrutx**.

**Larrukiak** egiteko antxumearen larruak erabili ohi ziren maiz. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Larruki** bakoitzeko poro bakoitza tranpa bat bezala zen kopiatzailearentzat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hitza hor behean ageri den eran idatzi ohi zen **larruki** baten gainean eta lepotik zintzilika eraman linozko hari batekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

larrukin ik **larrugin**.

larrumintz ik **larmintz**.

**larrundar** *izlag* Larrungoa, Larruni dagokiona; Larrungo herritarra.

Eliza ederki apaindua zen, **Larrundarrak** batasuneko klikak eta koralak parte hartuz. Herria

larruontzaile ik **larru 24**.

**larrupe** *iz* larru azpia.

**Larrupe** hura tiran neukan eta zulo guztietarik, izerdiarekin batera, kexua zeridan. Itxaro Borda

Ez erabat hezur eta azal huts, ostera, ze **larrupean** hanturik nabarmentzen zitzaizkion besoetako giharrak. Edorta Jimenez

Irudi luke beste bat zela nire **larrupean** sartutakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Instant batez soldadu sobietar haien **larrupean** sartu nahi izan dut. Edorta Jimenez

---

larrutaldi ik **larrualdi**.

---

# larrutegi *iz* larrua jotzeko tokia.

Hamasei urteko mutikoak **larrutegi** ezagun bateko txaketa zeraman jantzita, eta etxe bereko pakete handi bat eskuetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Bikote ezkonduen bitxikerien artean ez ohi duk izaten andrearen amorantearen **larrutegira** joatea, are gutiago amorante horrek harrapatzeko arriskua izaten ahal bada, ezta? Aingeru Epaltza

Badiat norekin, baita horretarako **"larrutegi"** egokia ere. Aingeru Epaltza

---

# larrutero *izond adkor* larruzalea.

Ez dut inor eskandalizatu nahi, baina, gezurra badirudi ere, gure planeta hau **larrutero** birtualez eta Xerezade anorgasmikoz beteta dago. Patxi Iturritegi

---

larrutsik ik **larru 20**.

---

# larrutu, larru(tu), larrutzen **1** du *ad* larrua kendu.

Piztia **larrutu** eta gurasoen etxeraino eraman zuen herrestan larru itzela, versta dezente eginez. Karlos Zabala

Lebitarrek **larrutu** egiten zituzten eskainitako abereak. Elizen arteko biblia

Animaliak torturatzen -batzuk, erabat hilik ez daudela, **larrutzen** eta laurdentzen- dituzten hiltegi eskergak. Edorta Agirre

Alfanje zorrotza zuen gizona ahari bat **larrutzen** den bezala **larrutzen** ari zen presoa. Fernando Rey

Harrapariak harrapakin bihurtuko dituzte eta larrutzaileak **larrutu** egingo. Elizen arteko biblia

Arreba Ernestinak ehizakia **larrutu** eta lumatu egiten du. Itziar Otegi

Baina kontuz, ez dezagun azeria ehizatu aurretik **larrutu**. Pedro Alberdi

**2** (pertsonez mintzatuz)

Ez dakigu nola hil zuten ere: azienden eran **larrutu** ote zuten? Tigreak Mattin **larrutu** zuen eta berriak larritu egin ninduen. Pello Zabala

Edonora joanik ere ihesi, azkenean pashak aurkitu, harrapatu eta bizirik **larrutuko** zuen... Fernando Rey

Denen izenean mintzatu zenari, anaien eta amaren aurrean, mihia moztu, burua **larrutu** eta esku-oinak mozteko agindu zuen. Elizen arteko biblia

· Eskuak ere **larrutuak** zituzten, horiez baliatuz saiatzen baitziren mugitzen. Askoren artean

Bisaia itsusitua zuen, **larrutua,** zaurtua eta lohitua. Joan Mari Irigoien

Eta dena nahasian dagoenean, batek ez daki zer egin sasitik **larrutu** gabe osorik ateratzeko. Pello Salaburu

**3** (norbaiti) ondasunetan edo izen onean kalte handia egin. ik**lumatu 2**.

Jende xehea **larrutzen** duzue gari-zerga ordaintzera behartuz. Elizen arteko biblia

Nork jarri du Israel, Jakoben herria, **larrutu** eta bipildu dutenen esku? Elizen arteko biblia

Nire erruagatik **larrutu** zaituzte egunkarietan. Xabier Olarra

Infusioak edan bitartean beren gizonak tar-tar-tar **larrutzera**. Aingeru Epaltza

-Hoa, bai -esan zidan Aloñaren lankide Aitziber lotsagabeak-, hartara lasaiago **larrutuko** haugu-eta. Xabier Mendiguren Elizegi

"Lintxamendu mediatikoa" deitzen diogu, hedabideek, gizabanakoa dagoen tokian dagoela atxilotu, epaitu gabe biluzik paseatu, eta iritzi publikoaren aurrean gatibu hartuta, errukigabe **larrutzen** dutenean. Iñigo Aranbarri

Larrutik **larrutu** zuten. Karlos Linazasoro

**4** eraman daitekeen baliozko gauzarik gabe utzi. ik**soildu**.

Etxe guztiak **larrutu** zituzten, balioko zena, sal zitekeena alegia, gurdi handietara bota eta beren akanpalekuetara eramanez. Felipe Juaristi

Berberiarrak jaitsi zirela hondartzara eta hiria **larrutuko** zutela. Felipe Juaristi

Napoleonen gerlek **larrutu** zutela Iparraldea. Xipri Arbelbide

· Noeren uholdeak lur guria eraman baitzuen eta mendia **larrutua** utzi. Aurelia Arkotxa

Anartean, ingurumena ari da funditzen eta Hego-Ameriketako oihan guziz baliosak **larrutzen** ari dituzte. Herria

Mahastia bezala **larrutu** zuten harrapariek, mahats-aihenak soilduz. Elizen arteko biblia

**5** (era burutua izenondo gisa)

Arboletan zintzilik jarriak zeuden erbi **larrutuak** eta oilo lumatuak, eltzeetan sartzeko zain-zain. Ilunabar berdea eta beronen neonezko iragarkiak, izozki-saltzaileak, platanondoen azal **larrutua,** txorien txorrotxioak, itzalen sarea zoru gainean, eta ahoen lore gorriak. Patxi Ezkiaga

Jende zapaldu eta **larrutua** izango zarete bizitza osoan, eta ez dizue inork lagunduko. Elizen arteko biblia

Herri **larrutu** eta bipildua da, denak presondegian sartu eta kartzelan loturik daude Elizen arteko biblia

---

# larrutx **1** *iz* pergaminoa. ik **larruki 2**.

Pergaminotik **larrutx** finagora aldatuz gero. Jon Muñoz

Idazlanak -papiroak edo **larrutxak-** nonahitik zetozen: Bizantziotik zein Alexandriatik, Pergamotik zein Sirakusatik, Antiokiatik zein Jerusalemdik. Jon Muñoz

Pergaminozkoak ziren, edota antzeko **larrutxez** egindakoak.Paperezko edo **larrutxezko** kopiak baino ez. Jon Muñoz

· Pergaminozkoak ziren, edota antzeko **larrutxez** egindakoak. Mirentxu Larrañaga

**2** juduak, zenbait otoitzaldietan, kopetan eta ezkerreko besoan zeramatzaten pergaminozko zerrendak, idazki santuen pasarteak zeuzkatenak.

Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; **larrutxa** zabalak eraman ohi dituzte bekokian eta borlatxo luzeak jantzietan. Elizen arteko biblia

---

**larrutzaile** **1** *izond* larrutzen duena.

Auzoen erran-merran **larrutzaileei** axolagabe zegokiela. Itxaro Borda

**2** larrutzen duen pertsona.

Biharamunean oso goiz, idia utzi zuen lekura itzuli zen **larrutzailearekin** eta bazkatzen aurkitu zuen erabat sano, ez baitzegoen hautsitako hanka bestetik bereizterik. Askoren artean

Beren harrapariak harrapakin bihurtuko dituzte eta **larrutzaileak** larrutu egingo. Elizen arteko biblia

Biharamunean oso goiz, idia utzi zuen lekura itzuli zen **larrutzailearekin** eta bazkatzen aurkitu zuen erabat sano, ez baitzegoen hautsitako hanka bestetik bereizterik. Askoren artean

---

larruxaku ik **larru 25**.

---

larruxuri ik **larru 26**.

---

**larruzale** **1** *iz* larrua jotzen oso zale dena.

Dimitri gizon garaia zen, indartsua, [...], kirolari ona, **larruzalea,** jokalaria, parranderoa... J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** larrugina.

Esaera italiar batek dio: **"Larruzaleak** azerien larru gehiago lortzen ditu astoenak baino". Xabier Olarra

---

**larruztatu**, larruzta, larruztatzen **1** du *ad* larruz estali.

Esku batean linterna eta **larruztaturiko** liburu handi bat. Iñaki Mendiguren

Guhaurk egin izan ditugu pilotak, **larruztatu** edozoin gisaz eta orduan ari izan gira guhaur... Menane Oxandabaratz

**2** (era burutua izenondo gisa)

Argazki-album **larruztatua**. Iñaki Mendiguren

---

larruzuri ik **larru 26**.

---

**lartxo** *adlag adkor* gehiegitxo.

Baina taxi-gidari filosofiko bat, itsas armadako jantziak janzten zituena eta gerriaren inguruan itzelezko kupela zeukana **lartxo** zen. Oskar Arana

- **Lartxo** edaten zabiltza. Unai Iturriaga

**Lartxo** niretzat, Osaba Nat. Oskar Arana

Baina auto **lartxo** dira. Urtzi Urrutikoetxea

Etxian andra bat gutxitxo, bi **lartxo,** iru baño, bapez oba. Iñigo Aranbarri

---

**laru** **1** *izond* hori ahula.

Verlaque andrea, lehengo ikuskatzailearen emaztea, ezagutzen duzue noski, dama **laru** hori... Karlos Zabala

Gero konturatu nintzen eskandinaviar tankerako ile **laru,** ia zuri hark engainatu ninduela. Juan Garzia

Bere esku **laru,** hezurtsu, eta gogorraz. Urtzi Urrutikoetxea

Aurpegi **laru** argala dauka, begi ilun handiak [...]: ehiza txakur bizkor eta zintzoa ematen du. Urtzi Urrutikoetxea

*Mont-d'or* gazta **laruei** usain gozoegia zerien. Karlos Zabala

Eguzki sartzea eguzki sartze polarra da ia, ezbai etengabeko bat, sartu ala ez, duda egingo balu bezala eguzki **laruak**. Harkaitz Cano

Krisztinaren amak bere azken uneak bizi zituen eta hil zen eraikin **laruak** itxura bitxia dik. Xabier Olarra

Argazki **laru** batek. Unai Iturriaga

Gelako argi **laruak** dir-dir egiten zuela, ahul. Berria - Kultura

Argi **laru** eta hotza. Edorta Jimenez

**2** irud/hed

Arrastiriko ordu hartan leihotik sartzen zen distira **larua** nahikoa ez izan arren, argirik piztu gabe irakurtzen ari zen. Harkaitz Cano

Argi laranja **laru** bat besterik ezin du eman. Harkaitz Cano

---

**laruen** *iz* larumina.

Bilis horiska horren inguruko **laruen,** larumin, minhori eta gisakoak. Patziku Perurena

---

**laruendun** *iz* laruena duena. ik **larumindun**.

**Laruendunek** ere dakusten guztia laru bihurtzen dute. Xabier Amuriza

---

**larumin** *iz* odolean bilirrubina gehiegi egoteak dakarren larmintzaren eta muki mintzaren kolore larua, min horia.

**Laruminez** edo ikteriziaz eri dena. Xabier Kintana

Bilis horiska horren inguruko laruen, **larumin,** minhori eta gisakoak. Patziku Perurena

---

**larumindun** *iz* larumina duena.

**Larumindunak** gauzak hori dakuski. Xabier Kintana

---

# larunbat 1 *iz* asteko azken eguna, ostiralaren eta igandearen artekoa.

Apirilaren 28a, **larunbata**. Marzel Etxehandi

Abuztuak 14, **larunbata**. Aingeru Epaltza

**Larunbata,** 1942ko azaroak 28. Josu Zabaleta

**Larunbata,** 1939ko martxoaren 18ª. Alberto Ladron Arana

**Larunbata,** 4:30 p.m. Lourdes Oñederra

-Bihar **larunbata** da, jaieguna, ahaztu al duzu? Migel Angel Mintegi

**Larunbata** egun gogorra da. Koro Navarro

-Bihar **larunbata** da. Aitor Arana

**Larunbata** zen iritsi nintzenean. Edorta Jimenez

Horregatik aukeratu du **larunbata** igoera egiteko, **larunbatetan** igande goizetan baino jende gutxiago ibiltzen delako. Bernardo Atxaga

**Larunbat** eguzkitsua zen eta zooa familiez beteta zegoen. Iñaki Mendiguren

Badira makina bat **larunbat,** ilun askoak eta euritsuak. Pello Zabala

**Larunbat** osoa izanen dut bila ibiltzeko. Alberto Ladron Arana

Txikitan **larunbataren** zain egoten nintzen bezalaxe egon naiz gaurko gaua noiz iritsiko zain. Koro Navarro

Ostirala **larunbat** bihurtzeko garaia. Lourdes Oñederra

Abuztuko azken **larunbata** iritsi zenean. Bernardo Atxaga

-Etzi, **larunbatean**. Aingeru Epaltza

**Larunbat,** igande eta jaiegunetan neska-mutil talde jator bat osatzen zuten. Gotzon Garate

Hala joan ginen, **larunbat** batean, ama eta biok Adelaren eta Albertoren etxera. Juan Kruz Igerabide

Galdera horixe zebilkidan gogoan, abuztuko **larunbat** horretan, erredakziotik bere etxeko telefonoa markatu nuenean. Aingeru Epaltza

Bere bulegoan hilik agertu zen lehengo **larunbatean,** hilak 14, buruan bi tiro zeuzkala. Aingeru Epaltza

Hurrengo **larunbatean,** eguna argitzera zihoala. Migel Angel Mintegi

Datorren **larunbatean** izan liteke? Migel Angel Mintegi

Joan den **larunbatean**. Herria

Bukaresteko egunkari nagusiaren **larunbateko** gehigarrian. Iban Zaldua

**Larunbata** zen eta **larunbatekoei** ekin behar nien, aitzin egunetakoak burutik hastanduta. Aingeru Epaltza

**Larunbat** batzuen buruan, berekin joatera gonbidatu ninduen. Juan Garzia

Astean sei egunetan egiten du lan, astelehenetik **larunbatera**. Oskar Arana

**Larunbata** arte ibili ginen Iruñean, eta buelta trenean Tolosara. Arantxa Iturbe

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Larunbat** bazkalondoko lasaitasunean. Lourdes Oñederra

**Larunbat** goiza Moskun. Edorta Jimenez

**Larunbat** goizean deitu eta hemen aurkituko nauk. Aingeru Epaltza

**Larunbat** gau batez, egunkariaren edizioa ixteko lanetan nengoela [...]. Aingeru Epaltza

**Larunbat**-biharamunean, harrapakinetarik zati bat pertsekuzioa jasan zutenen artean banatu zuten, beste zati bat alargun eta umezurtzen artean. Elizen arteko biblia

Izan ere, **larunbat**-bezpera zen. Elizen arteko biblia

**Larunbat** gauerdiko haizeen nondik norakoa. Pello Zabala

· **Larunbat**-igandeetan janzteko. Aingeru Epaltza

**Larunbat**-igandetako mendizalerik ez. Pako Aristi

## 3 juduen artean, atseden hartzen den eta Jainkoari eskaintzen zaion eguna.

Gogoan izan **larunbata,** Jaunari sagaratzeko. Elizen arteko biblia

Nire gauza santuak mesprezatzen dira, nire **larunbata** hausten. Elizen arteko biblia

Errespetatu nire **larunbatak,** hauxe baita belaunez belaun nire eta zuen arteko loturaren ezaugarria. Elizen arteko biblia

Santutegia soildua gelditu zen, basamortu egina; jaiak dolu bihurtu ziren, **larunbat**-jaia barregarri eta ohoragarri zena arbuiagarri. Elizen arteko biblia

Jaiegun, **larunbat** eta ilberri-jaietan nire erreinuko juduek ez dute zergarik ordaindu beharrik izango. Elizen arteko biblia

## 4 *Larunbat Santu*

Amezketa aldean tradizio berezia zizun ur bedeinkatu **Larunbat Santu** goizekoak. Pello Zabala

**Larunbat Santua** amaituz geroztik. Askoren artean

Antzerakoa edo okerragokoa **Larunbat Santuko** gau-beilarekin: Pazko ospakizun piztuerakoa, larunbat goizeko seietan, erdi-lotsaturik bezala, ospatzen zen Elizan, kristau-elkarteari deitu ere egin gabe. Pello Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**abuztuko larunbat** (10); **helduden larunbat** (40); **helduden larunbat aratsean** (14); **iragan larunbat** (18); **joan den larunbat** (58); **joanden larunbat** (40); **joanden larunbat aratsaldean** (16); **joanden larunbat aratsean** (13); **larunbat arats** (15); **larunbat aratsalde** (16); **larunbat aratsaldean** (165); **larunbat aratsaldearekin** (8); **larunbat aratsaldeko** (68); **larunbat aratsarekin** (11); **larunbat aratsean** (478); **larunbat aratseko** (107); **larunbat arratsalde** (33); **larunbat arratsaldea** (9); **larunbat arratsaldean** (74); **larunbat arratsaldeetan** (14); **larunbat arratsaldeko** (9); **larunbat arratsean** (36); **larunbat arratseko** (8); **larunbat arte** (47); **larunbat batean** (8); **larunbat eguerdian** (9); **larunbat eguerditan** (15); **larunbat eta igande** (13); **larunbat eta igandean** (43); **larunbat eta igandez** (8); **larunbat gau** (17); **larunbat gaua** (13); **larunbat gauean** (79); **larunbat gaueko** (13); **larunbat gauetako** (8); **larunbat goiz** (25); **larunbat goiza** (11); **larunbat goizaldean** (13); **larunbat goizarekin** (13); **larunbat goizean** (133); **larunbat goizeko** (48); **larunbat goizetan** (22); **larunbat iluntzean** (12)

**larunbata bitartean** (14); **larunbata da** (21); **larunbata zen** (17)

**larunbataz geroztik** (13)

**aintzineko larunbatean** (12); **aurreko larunbatean** (19); **azken larunbatean** (8); **datorren larunbatean** (117); **ean** (15); **egingo dute larunbatean** (10); **errepika larunbatean** (8); **ezkontza iragan larunbatean** (9); **ezkontza joanden larunbatean** (27); **ezkontze iragan larunbatean** (18); **ganden larunbatean** (22); **heldu den larunbatean** (110); **helduden larunbatean** (164); **hurrengo larunbatean** (28); **iragan larunbatean** (216); **izango da larunbatean** (10); **joan den larunbatean** (344); **joan zen larunbatean** (90); **joanden larunbatean** (239); **joanden larunbatean ezkondu** (8); **jokatuko du larunbatean** (8); **jokatuko dute larunbatean** (8); **larunbatean aratsaldeko** (10); **larunbatean aratseko** (10); **larunbatean atxilotu** (9); **larunbatean baionan** (11); **larunbatean bertan** (16); **larunbatean bilbon** (24); **larunbatean donostian** (15); **larunbatean egin** (33); **larunbatean egin zuten** (9); **larunbatean egindako** (8); **larunbatean eginen** (9); **larunbatean egingo** (18); **larunbatean eta igandean** (161); **larunbatean ezkondu** (31); **larunbatean hasi** (16); **larunbatean hasiko** (26); **larunbatean hil** (10); **larunbatean iragan** (13); **larunbatean iruñ larunbatean izan** (13); **larunbatean izanen** (9); **larunbatean izango** (20); **larunbatean izango da** (14); **larunbatean jokatu** (23); **larunbatean jokatuko** (70); **larunbatean jokatuko da** (21); **larunbatean jokatuko dute** (22); **lehengo larunbatean** (20); **ondoko larunbatean** (13); **ortzirale eta larunbatean** (9); **ortziralean eta larunbatean** (52); **ostiralean eta larunbatean** (12); **partida larunbatean** (12)

**datorren larunbateko** (10); **heldu den larunbateko** (12); **helduden larunbateko** (8); **iragan larunbateko** (10); **joan den larunbateko** (13); **joan zen larunbateko** (9); **larunbateko partida** (19); **larunbateko partidan** (9); **larunbateko partidaren** (10)

**astelehenetik larunbatera** (8); **larunbatera bitartean** (8)

**datorren larunbaterako** (18); **heldu den larunbaterako** (12)

**ortzegunetik larunbaterat** (21)

**joan den larunbatetik** (8); **larunbatetik aurrera** (8); **larunbatetik goiti** (9); **larunbatetik iganderako gauean** (9)

---

**larzabaldar** *iz* Larzabalgoa, Larzabali dagokiona; Larzabalgo herritarra.

Urriaren 4ean ezkontzako sakramendua errezebitu dute Bernadette Kurutxarry eta Lionel Sapparrart **larzabaldarrak**. Herria

Loran Bassagaesteguy Leizumekoak emaztetzat hartu du Jeannette Sinde **Larzabaldarra**. Herria

"Geroa Eraiki" plataformaren izenean, lholdikokantonamenduan hautagai agertzen da Anita Lopepe, 28 urteko **larzabaldarra,** Bunuzen bizi dena. Herria

---

lasa ik **lasa**i.

---

**lasagna** *iz* italiar jakia, pastazko eta haragi xehatuzko geruzak tartekatuz prestatzen dena.

14:00: bertso bazkaria: **lasagna** edo pasta entsalada eta jogurta. Berria - Harian

Landarezko **lasagna** eta papiloteak. Edorta Agirre

**Lasagna** apur bat edo... Patxi Iturritegi

Nintendoarekin utzi nuen pantaila aurrean, eta **lasagna** mikro-uhindu berriarekin azaldu nintzenerako, lo seko zegoen besaulkian. Iban Zaldua

Aurrez prestaturiko kroketak, labean berotu besterik behar ez zuen **lasagna** eta azpiltxo bat camembert gazta kaxatxo batekin. Joxemari Iturralde

---

**lasai** *(orobat* **lasa** *g.er.)* **1** *izond* ezinegonik, kezkarik, larritasunik gabea. ik **laxo**[1] **2; nasai.**

Batzuetan bortxakeria ere azaltzen da, izaera **lasai** eta patxadatsuko jendearengan. Anton Garikano

Alarguna zaintzeko jartzen zuen arreta **lasai** berberaz arduratzen zen dendako salmahaiaz. Karlos Zabala

Neskatxaren adore **lasaia** atsegin zitzaion bere arima kartsuari. Karlos Zabala

Raduanek ahots sakon **lasaiaz** eman zion arrapostua: [...]. Patxi Zubizarreta

Pertsona bizia, elkarrizketa zirtolarikoa eta barre **lasai** eta zabalekoa zela jabetu ahal izan nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Hango bizimodu **lasai,** geldi eta aspergarria urrun zegoen gerrako ekintza, oldarra eta suharretik. Jon Muñoz

Etsipen **lasai** batez ikusten dut egunak eta, batez ere, gauak nola joaten diren. Iban Zaldua

Lubisen begiak, normalean hain **lasaiak,** larritasunez mugitu ziren. Bernardo Atxaga

Bitarte hartan Maizak begiratu **lasaiagoa** eman zion bulegoari. Migel Angel Mintegi

Portaeran gozoa, izaeraz **lasaia,** hitzetan atsegina, aholku ematen burutsua. Askoren artean

Pauso **lasaian** joan zen geltokira. Unai Iturriaga

Urrats **lasaiez** bideratu zen ate nagusiraino. Elena Touyarou

**2** zaratarik, iskanbilarik, gorabeherarik gabea.

Hegoaldera jo zuten, Lyon hiritik barrena joateko asmoz, baina ez ziren lur **lasaiak,** gerra usainekoak baizik. Felipe Juaristi

Jar zaitez bizitzen bazter leku **lasai** batean, elizatik eta herritar xume onengandik hurbilago. Jose Morales

Asmo horrekin etorri ginen hona, Euskal Herriko bazter **lasai** honetara. Migel Angel Mintegi

Gau jendetsuen konstelazioko tabernetan komuna da hitz toki **lasai** bakarra. Pako Aristi

Gero, zainketa berezitik atera zutenean gela **lasai** bateko ohean jartzeko, ondo-ondoan eduki ninduen. Aitor Arana

Jatetxe **lasai** eta intimo bat. Oskar Arana

Demokrazia aurreko giro **lasaian** bizi gara hemen. Patxi Iturritegi

Tenore honetan trafikoa nahiko **lasaia** da. Ramuntxo Etxeberri

Bidetxidorra **lasaia** da, eta bidea ez da luzeegia. Xabier Etxabe

Nire oroimenaren ur ez oso **lasaietan** dabiltzan kondarrak bildu eta liburu batean gordeta utzi betiko. Bernardo Atxaga

Ibai **lasai** dotorea, zeinen bazterretik, gau partean, Heriotza igarotzen baita bizikletan arin. Koldo Biguri

Musika **lasai** batek, horra. Pako Aristi

Sasoiz kanpoko egun bero, **lasai** eta lainotsu horietako batean. Koro Navarro

Leihoak udako gau **lasai** baten argiari sartzen utzi dio. Xabier Paya

Lehen hiruzpalau orduak **lasai** samarrak izan ziren. Juan Luis Zabala

Walking Wounded horren aurreko diskoek ez baitute zerikusirik musika elektronikoarekin, pop **lasai** eta jazzy moduko batekin baizik. Iban Zaldua

Orratzak urrezko erlojuaren esferan eginiko mugimendu **lasaia**. Jose Morales

Oso hegaldi **lasaia,** zinez: mendi-haize motelsko bat besterik ez dabil. Joxe Austin Arrieta

Josafaten erregealdia **lasaia** izan zen, eta Jainkoak bakea eman zion alde guztietatik. Elizen arteko biblia

Guardia **lasaia** izan al duzue? Juan Garzia

**3** personez mintzatuz, nekez larritzen edo haserretzen dena.

Herriko jendeak erruki zuen, emakume **lasaia,** bihotz onekoa eta negozioetan zintzoa zelako. Koro Navarro

Tipo **lasaia** zen Sebas, anbizio handirik gabekoa, hiru edo lau printzipio zurrunen jabe. Eider Rodriguez

Eta halako batean, bazekinagu Angel ez dela oso gizon **lasaia,** hartu pistola eta danba buruan, eta zaldia isilik betiko. Bernardo Atxaga

Pilotari ohi **lasai** batekin Peio "lagun zaharraz" hitz egiten ahalko zutela... Ramuntxo Etxeberri

Zeren Giua hura, Paola Carrararen etxean ikusi ohi zuen hura, pertsona patxadatsu, **lasai** eta burutsua iruditu baitzitzaion beti. Fernando Rey

Hain jaun baketsu eta **lasaiaren** etxean. Jose Morales

Kanpotik bestelako itxura dauka Joxanek: azoka ondoko erriberako barandan bermatuta itsasadarrari begira dagoen gizon **lasai** batena, ur zikinak bezain bare. Paddy Rekalde

· *hed* [Begiak] zabalak ziren, **lasaiak**. Bernardo Atxaga

**4** estua ez dena, tinko loturik ez dagoena. ik **laxo**[1].

Udako egun bero hartan, beroki luze bat, gorbata **lasaia** eta luxuzko kapelua, hegal zabalekikoa, zeramatzan. Koro Navarro

Soineko estanpatu **lasaia** zeraman, urdina berdeekin. Iñaki Iñurrieta

Llumek, errituari jarraituz, kotoizko galtza **lasai** batzuk jantzi eta makillajea eta ile-gogortzailea kentzen ditu. Antton Olano

Laranja-koloreko praka **lasaiak** Haren aldamenean lekaioa, zapi batez loturiko jaka **lasai** batez jantzirik. Jose Morales

Petrushkak nagusi jaunak behinola erabilitako jaka gaztainkara **lasai** samar bat eraman ohi zuela soinean. Jose Morales

Itzulpen hori, ordea, modu **lasai** eta egokituan egin dugu, testua hitzez hitz iraultzeko xederik gabe. Jose Antonio Mujika

**5** ohitura onek eskatzen duten hertsitasuna erakusten ez duena.

Joan ohi ziren bide zuzen eta ziurretik aldentzen hasi zirela, eta heriotzara daraman bide **lasaiagoa** hartuz, ez ziotela beren bokazio eta profesioari eta etsenplu onari kasurik egiten. Askoren artean

Kontzientzia **lasa** daukadala. Patziku Perurena

Apaiz libertino batekin igaro zuen bere haurtzaroa, moral **lasaiko** emakumez inguratuta, bere aitaren ibileren eraginpean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

· Memoria **lasagoa,** zigorra latzagoa. Markos Zapiain

**6** *adlag* estutasunik, kezkarik edo larritasunik gabe. ik **lasaiki.**

Aldi berean nengoen estu eta **lasai**. Hasier Etxeberria

-Bai -erantzun zuen Konradek, oso **lasai**. Xabier Olarra

Egon **lasai**. Lopez de Arana

-Segi **lasai** -nik-, ez kezkatu, zuretzat mesedegarria dena pozgarria da niretzat. Migel Angel Mintegi

**Lasaiago** zaude orain? Harkaitz Cano

Ezin naiz **lasai** egon, gure alabarekin dagoenean. Karlos Zabala

Orain hurrengoan baino **lasaiago** etorri zara, ezta? Migel Angel Mintegi

**Lasai** esan dezaket ez dudala ezer exajeratu. Arantxa Iturbe

**Lasaiago** sentitzen nintzen orain, baketsuago neure buruarekin, eta baita sendoago ere. Mirentxu Larrañaga

Bertan ezkutatuko zen, eta **lasai** biziko zen behinolako egunetan bezala. Karlos Zabala

Egia jakin behar nuen **lasai** gelditzeko. Mikel Hernandez Abaitua

Erraz asmatuko zuen 15 urteko mutila **lasai** uzteko moduko argudioren bat. Bernardo Atxaga

**-Lasai** ikusten zaitut, zera, txostenaz soilik arduratuta. Migel Angel Mintegi

Zoaz sukaldera eta hartzazu kafea **lasai**. Jasone Osoro

Arnasa sakon eta **lasai** hartzen zuen Harryk. Iñaki Mendiguren

Hitz egin nahi dinat hirekin **lasai**! Pako Aristi

Gauez **lasai** lo egin ahal izateko, kontzientzia **lasai** eduki beharra dagoela. Koldo Biguri

Zakurra ailegatu zen, nitaz kexu, eta turkiarrak laztanak egin zizkion, **lasai** eta patxadan, ederki ezagutuko balu bezala. Fernando Rey

Demagun andereñoak gau hartan lo **lasai** egiten duela, bi ekintza on egin izanak kontzientzia lasaiturik. Joxerra Garzia

Barre **lasai** egiten segi dezagun. Iñaki Segurola

Algara **lasai** egin zuen Tomek. Iñaki Zabaleta

Etzan **lasai,** presa barik, zer dela eta aztoramendu hori, lehia hori? Urtzi Urrutikoetxea

· Bihotz-**lasai** joan zitekeela hemendik, bihotz-**lasai** eta oroimen-garbi. Felipe Juaristi

**7** (dagokion aditza ezabaturik)

**-Lasai,** Vasia. Jose Morales

**-Lasai,** motel! Txillardegi

**Lasai,** hi! Antton Olano

**-Lasai,** ez da ezer. Koldo Izagirre

**-Lasai,** moldatuko gara. Xabier Mendiguren Elizegi

**-Lasai,** Beaky, **lasai** -esan zion Hagridek Buckbeaki. Iñaki Mendiguren

**-Lasai, lasai** -esan zion mutikoak. Koro Navarro

Hantxe zen, lasterka, Don Arturoren **"Lasai, lasai,** ez da ezer!" erreguari jaramonik egiteke. Koldo Izagirre

Baina hi **lasai:** bolada guztiek izaten ditek beren akabera, baita txarrenek ere. Anjel Lertxundi

Baina nigatik **lasai,** ez natzaizu-eta kontuak eskatzen ari. Anjel Lertxundi

**Lasai:** ez naiz hasiko elektroiaren gorabeherekin, ez naiz ariko haren ibilbide ezin determinatuzkoaz. Iñaki Segurola

Baina **lasai:** aspaldi erakutsi ziguten baserritarra negarti hutsa dela, eta ez dela sobera fidatu behar haren hitzetan. Iñaki Segurola

Gero-ta zaluago nabil, gorputza **lasai** bezain izpiritua tinkaturik. Piarres Aintziart

Eskuak lehortu zituen mantelean, irribarrez beti, odola izotz, bare eta **lasai,** ibai grina hotz mengelen dardara haren erdian. Karlos Zabala

**8** tinkotasunik gabe.

Bere giharre **guztiak** lasai edukitzeko asmotan. Xabier Olarra

**9** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Burua alde batera zuen eroria, modu harrigarri batez: lepoa bihurrituta zeukala esango nukeen arnasaren **lasaiari** erreparatu ez banio. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta idazkerak -ai, eskuaren **lasaia!-,** ez du kolore beharrik. Iñigo Aranbarri

**10** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lasai**-itxurako ahots dardartiaz. Iñaki Mendiguren

Xalo eta **lasai** itxura eginez, bere ardoa patxadatsu hustu eta bere kapelari heldu. Anton Garikano

Aurre ematearren isilik begira geratu zitzaion, **lasai** irudia eginez, bere barruko egoera bestelakoa bazen ere. Migel Angel Mintegi

Zerbitzari bati ukondotik oratu, eta, ahal nuen modurik **lasai**-itxuratsuenean, emakumeaz galdetu nion. Anjel Lertxundi

**11** ***lasai antzean*** lasai edo.

Egunak **lasai antzean** igaro ziren. Felipe Juaristi

Egun hartan **lasai antzean** zihoazen kontuak. Unai Iturriaga

Baina behin honuzkero **lasai antzean** uste dut esan litekeela badela edo izan litekeela munduan zoriontsu izatea baino zori hoberik. Iñaki Segurola

Une batez patxadan egon zen, **lasai antzean,** baina luze gabe mesfidantza eta aldarte txarra nagusitu zitzaizkion. Patxi Zubizarreta

Horra hor, bada, Mikel Strogoff, hiriaren alde batetik bestera, gaua igarotzeko aterpe baten bila, **lasai antzean**. Karlos Zabala

**12** ***lasai asko*** oso lasai.

Mister Lewin, gizon-puska hura, lo zegoen **lasai asko,** irribarrez. Joxe Austin Arrieta

-Begiratu egin behar, erosi baino lehen -erantzun zion **lasai asko** Normandiar ederrak. Karlos Zabala

-Jakina -ihardetsi zuen Charliek, **lasai asko,** gezurretan-. Mirentxu Larrañaga

Ez nituen jadanik ikusten emakumeak, kizkurgailuak buruan, **lasai asko** paseatzen. Jon Muñoz

**Lasai asko** bizi ginen, hainbestean gure zekenkeria burges txikian hondoratuta. Eduardo Matauko

Okilak, ordea, **lasai asko** jarraitzen zuen belar artean mokoka, zomorroren baten peskizan. Imanol Zurutuza

Horra hor gaiztoak: **lasai asko** beti, ondasunak pilatzen. Elizen arteko biblia

**13** ***lasai arraio*** *adkor* oso lasai.

Ivyk, **lasai arraio,** berak goserik ez zuela, besterik ez zidan adierazten. Joxe Austin Arrieta

Hortxe bizi da, etxe ziztrin horretan -erantzun zien **lasai arraio-**. Juan Kruz Igerabide

Azterketa amaitzen aurrenetarikoa izan da ikasle begiluzea, eta badoa, **lasai arraio,** azterketa-orriak irakasleari entregatzera. Joxerra Garzia

### 14 *lasai demonio adkor* oso lasai.

Nagusia, begiradak saihestuz, **lasai demonio** hurbildu zen kaxara. Patxi Zubizarreta

Bizkitartean, zorduna zordunago, **lasai demonio** segitzen baitu bere lau-gurpil kuttuna nonahi uzten, eta hartzekoduna hartzekodunago, etsita sos horiek inoiz eskuratuko ote dituen. Aingeru Epaltza

Egitekotan, gauez egin behar nian, biok biotara **lasai demonio** geundela... Patxi Zubizarreta

### 15 *lasai ederrean*

Hala, bera **lasai ederrean** egoten zen purua erretzen. Pello Lizarralde

Gogoan dut egun batean egongelan ikusi nuela **lasai ederrean** egunkaria irakurtzen. Fernando Rey

Orain **lasai ederrean** joan gintezke gu ere komunera binaka eta hirunaka, eta ez lehenago bezala, zer pentsatuko zuten beldurrez. Iñaki Segurola

Lo egongo zen seguru asko, **lasai ederrean,** bere etxean, pijama urdin argiarekin. Unai Iturriaga

**Lasai ederrean** atera zuen aurrera aurreneko set-a, erakustadia emanda. Berria - Kirola

### 16 *lasai hartu*

Presarik ez izatea, gauzak **lasai** hartzea. Luis Elberdin

- **Lasai hartzea** duk onena. Juan Luis Zabala

Bizitza **lasai** hartzeko. Lourdes Oñederra

**-Lasai** hartu, hala ere, Fulgor. Juan Garzia

Baina zineak luze iraunen zuen; **"lasai hartu** -esan nion nire buruari-. Fernando Rey

Baina Dummyk **lasai hartzen** zuen dena. Koro Navarro

· Partidak-eta **lasaiago hartzen** ditut, zentratuago irteten naiz kantxara. Berria - Kirola

### 17 *lasai-lasai adlag*

Lisa, zutik, begira zegoen, **lasai-lasai**. Karlos Zabala

Oinez **lasai-lasai** jendetzaren artean. Karlos Zabala

Goiak **lasai-lasai** zeuden, baina beltz, ilun, haserre. Karlos Zabala

Gero tentsio handiko une bat heltzen dela, nola estutzen duen eta gero nola geratzen den **lasai-lasai**. Luis Elberdin

Gero, **lasai-lasai,** bi hitz esan nizkion, ganbarako ateak zabaldu zizkidaten bi hitz magiko: [...]. Anjel Lertxundi

Halako batean jakin nuen basurde bat menditik jaitsi eta **lasai-lasai** ibili zela Asteasuko kale nagusian zehar. Bernardo Atxaga

· Lazo urdin zabala **lasa-lasa** gerria bilduz. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahots lasai** (9); **arnasa lasai** (9); **egon hadi lasai** (8); **egon lasai** (54); **erantzun zuen lasai** (11); **esan zuen lasai** (10); **ez da lasai** (8); **ez dago lasai** (7); **ez zegoen lasai** (7); **ez zen lasai** (8); **giro lasai** (10); **gizon lasai** (7); **hago lasai** (36); **kontzientzia lasai** (15); **lasai ageri** (8); **lasai agertu** (10); **lasai antzean** (46); **lasai ari** (13); **lasai aritzeko** (8); **lasai aski** (7); **lasai asko** (146); **lasai atera** (8); **lasai bizi** (57); **lasai bizi izan** (11); **lasai biziko** (13); **lasai bizitzeko** (11); **lasai dago** (57); **lasai dagoela** (25); **lasai daude** (22); **lasai daudela** (8); **lasai demonio** (10); **lasai ederrean** (37); **lasai egin** (39); **lasai egin zuen** (8); **lasai egiteko** (11); **lasai egiten** (16); **lasai egon** (160); **lasai egongo** (15); **lasai egotea** (16); **lasai egoteko** (127); **lasai egoteko eskatu** (14); **lasai egoten** (7); **lasai erantzun** (10); **lasai esan** (19); **lasai eserita** (13); **lasai eta bakean** (10); **lasai eta eroso** (9); **lasai eta goxoan** (8); **lasai eta gustura** (7); **lasai gaude** (12); **lasai gelditu** (13); **lasai geratu** (20); **lasai geratuko** (8); **lasai hadi** (8); **lasai hartu** (48); **lasai hartu zuen** (7); **lasai hartzea** (10); **lasai hartzeko** (12); **lasai hartzen** (16); **lasai hasi** (9); **lasai hil** (9); **lasai hitz egin** (11); **lasai hitz egiteko** (10); **lasai hitz egiten** (9); **lasai ibil** (9); **lasai ibili** (24); **lasai ibiltzeko** (14); **lasai ibiltzen** (11); **lasai jarraitu** (7); **lasai joan** (36); **lasai joateko** (8); **lasai jokatu** (16); **lasai jokatzen** (14); **lasai lasai** (232); **lasai lo egin** (12); **lasai nago** (71); **lasai nengoen** (15); **lasai samar** (10); **lasai sentitzen** (7); **lasai utzi** (12); **lasai uzteko** (7); **lasai uzten** (9); **lasai zaitez** (29); **lasai zegoela** (10); **lasai zegoen** (41); **lasai zeuden** (8); **leku lasai** (9); **lo lasai** (15); **nahiko lasai** (20); **ni lasai nago** (8); **nintzen lasai** (9); **oso lasai** (86); **zaude lasai** (78)

**egun lasaia** (8); **giro lasaia** (10); **gizon lasaia** (16); **lasaia izan** (52); **lasaia izango** (9); **leku lasaia** (7); **nahiko lasaia** (7); **oso lasaia** (15)

**lasaiago ari** (9); **lasaiago bizi** (13); **lasaiago biziko** (7); **lasaiago dago** (10); **lasaiago egongo** (12); **lasaiago ibiliko** (7); **lasaiago nago** (20); **lasaiago sentitu** (11); **lasaiago zegoen** (14)

**giro lasaian** (8)

**ahots lasaiaz** (10)

---

## **lasaialdi** *iz* lasaitzea; (norbait) lasaitzen den denbora.

Bat-bateko **lasaialdiak** eragindako barrea. Jon Muñoz

Denok ere hartu dugu gaur bai, **lasaialdi** ederra. Koro Navarro

Hobe, beraz, buruari **lasaialdi** bat eman, eta hurrengo eguna arte garunak bakean uztea. Migel Angel Mintegi

Behar du Dylanek **lasaialdi** bat, sendatu-pasara bat, eta Yoloren aitari ongi etorriko zaio konpainia, laguntza. Pako Aristi

Erreakzio hari **lasaialdia** jarraitu zitzaion. Bernardo Atxaga

Seguru aski, pentsatu nuen, **lasaialdiaren** unean iritsiko gara hara... eta horrekin izan dezakegu itxaropenik. Koro Navarro

Egia da hamarkada horretan ohituren **lasaialdi** bat egon zela, eta horregatik argitaratu ahal izan zirela bere liburuak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## **lasaiarazi,** lasaiaraz, lasaiarazten du *ad* lasaitzera behartu.

Gure artilleriak erantzun du orain, baina horrek ez gaitu batere **lasaiarazi**. Mirentxu Larrañaga

Eskua betiere nire sorbalda gainean duela, ni **lasaiaraziz,** eta babestuz. Mirentxu Larrañaga

Sorgin praktika bat da, espirituak **lasaiarazteko,** gaixotasun bat uxatzeko edo euria eginarazteko egiten dena. Juan Kruz Igerabide

Burua era horretan **lasaiaraziz,** urrutiko iraganetik material asko samar ateratzea lortzen nuen, ordura arte betiko galdutzat neuzkan gauzak. Oskar Arana

---

## **lasaibide** *(orobat **lasapide** g.er.) iz* lasaitzeko bidea; gogo-aringarria.

Baina orduan etorri zitzaion, paradoxaz, **lasaibidea:** berak oparitzat hartu zuen bigarren itsutasun hura, konponbiderik gabea. Xabier Olarra

Ezin zuen hitz egin, ez eta jan edo edan ere, eta erabilitako enplasto eta beste sendagaiek ez zioten inolako **lasaibiderik** ekarri. Askoren artean

Ez diat nahi **lasaibiderik** izan dezaan -esaten du lasai-. Xabier Olarra

Hausnarketa labur baten ondoren, susmo hori ia **lasaibide** bihurtu zuan niretzat. Xabier Olarra

Estualdian Jaunari nion dei egin, eta **lasapide** emanez erantzun zidan. Elizen arteko biblia

---

## **lasaidura** *iz* lasaitzea, lasaitasuna.

Gisa batez, zerbait **lasaidura** sendi nuen. Janbattitt Dirassar

Baina bat-bateko **lasaidura** hauteman zion osabari derrepentean. Fernando Morillo

## lasaiera *iz* lasaituasuna.

Uste dut gona beltza jantzita utzi nuela **lasaiera** handikoa zelako. Joseba Urteaga

## lasaigailu *iz* lasaigarria, lasaitzen duen sendagaia.

**Lasaigailu** txertoak egiten zizkioten orduetan bereziki memoria inarrosaldiak pairatzen zituen eta beti itxura berdinak zetozkion buru-zokoaren lardaskatzera. Itxaro Borda

## lasaigarri 1 *izond* lasaitzen duena.

Jeneralak keinu **lasaigarri** bat egin zion bere idazkariari. Alberto Ladron Arana

Biharamun goizean, lo **lasaigarri** baten buruan esnatu zenerako, emakumeak prestaturik omen zion nortasun berriaren zirriborroa. dutxa **lasaigarri** bat hartzea erabaki zuen. Joxean Agirre

Erantzun **lasaigarri** eta kontsolagarri bat. Xabier Olarra

Lajos hizketan ari zen bitartean, zerbaitez jabetu nintzen, nahiz eta ez nuen asmatuko egia ulerterraz eta **lasaigarri** hura hitzez egoki adierazten. Ander Irizar

Erabaki nuen gustura edango nuela orduan gin-tonic **lasaigarri** bat. Joxemari Iturralde

Kopatxo bat hartuko genuen disko **lasaigarri** baten laguntzaz. Joxemari Iturralde

Horrek zama astun batetik libratu banintz bezalako sentimendu **lasaigarri** bat ernarazi zuen nire bihotzean. Anjel Lertxundi

Besapean, berriz, pistolaren pisu **lasaigarria**. Alberto Ladron Arana

Halako kharma **lasaigarri** batek harrapatzen ninduen orduan eta halaxe egoten nintzen ordu luzeetan, itsaso urrunean pasatzen zen ontziren baten karelean izan ezik burua beste ezertan eta beste inon jarri gabe. Hasier Etxeberria

Ez dela ohizkoa eta ezta **lasaigarria** ere detektibe bat etxera etor dakizun. Migel Angel Mintegi

Dena dela, oro har berriak **lasaigarriak** zirela aurreratu zion, haren ezinegona gutxitzearren. Migel Angel Mintegi

Itsasoa **lasaigarria** delako, eta belaz nabigatzea are **lasaigarriago**. Migel Angel Mintegi

**2** (hitz elkartuetan)

Unibertsitatearen itzalaz baliatzen naiz eta hango baliabideetan bermatu, unibertsitateak berak ematen didan askatasun gogo-**lasaigarriaz,** Pello Salaburu

**3** (adizlagun gisa)

Eta hori ere ez zitzaion **lasaigarri** suertatzen. Joxemari Iturralde

Gezurrezkoa izan arren burdinaren hoztasuna **lasaigarri** gertatu zitzaion. Migel Angel Mintegi

Agian hiretzat **lasaigarri** izango lukek gertaera haiek kontatzea. Xabier Olarra

**4** (izenondo soila -en atzizkiaren eskuinean)

Bavariako aitzinalde dotorea eta Maximilian plaza ageri ziren berriro, beren egunerokotasunean nire estura eta asaldura guztien **lasaigarri**. Alberto Ladron Arana

Gau hartan kondesaren gorputza portu eta babes izan zitzaion Irisarriri, nekearen bizigarri, izuaren **lasaigarri**. Felipe Juaristi

Goiz xamar joango zen etxera, amaren **lasaigarri**. Unai Iturriaga

Loreak eta irudi erlijiosoak, semearen heriotzaren minak zeharkatu dituen bihotzen **lasaigarri,** bizitzako nekeen atsedengarri. Pako Aristi

**5** *iz* lasaitzen duen gauza.

**Lasaigarri** bakarra dauka: aitak ezin ikustea egoera honetan. Urtzi Urrutikoetxea

Beste norbaitek eragindakoak ere ez dira **lasaigarri** bete-betekoak: hiltzailea nor den eta hiltzeko zer arrazoi zituen jakin arteko onik ez dugu izaten. Joxerra Garzia

Buruaren **lasaigarria** eta bizitzaren aringarria izateaz gain, afrodisiako ezin hobea duk. Patxi Zubizarreta

Iraupena zen haien kalitatearen froga, gure aukera onaren agiria eta ekonomia justuaren **lasaigarria**. Pako Aristi

**6** lasaitzen duen sendagaia. ik **lasaigailu**.

Ama geroztik **lasaigarrien** menpe zegoen, mutu. Itxaro Borda

**-Lasaigarri** bat behar dut, sukarretan nago eta arritmia areagotu zait. Koldo Izagirre

Lucyk **lasaigarri** bat hartu du, jakinarazten die hark, eta ohean da; hobe bakean uztea. Oskar Arana

-Oraindik oso urduri dago eta **lasaigarri** bat eman diogu. Antton Olano

Harik eta **lasaigarria** jarri dioten arte. Imanol Zurutuza

Eta nik lagundu egiten nion, estu sentitzen zenean **lasaigarriak** zainetatik injektatuz. Joan Mari Irigoien

Antsiolitikoak eta **lasaigarri** antidepresiboak. Joan Mari Irigoien

Tabakoa, alkohola eta **lasaigarriak** edo anfetaminak moduko psikoaktiboak sarri kontsumitzeak arazoak sor ditzake. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eragin lasaigarria (4); itxura lasaigarria (3); lasaigarria da (7); lasaigarria izan (6); lasaigarria zaio (3); lasaigarria zen (5); mezu lasaigarria (4); zarata lasaigarria (3)
> hitz lasaigarriak (3); lasaigarriak hartzen (3)
> lasaigarrien menpe (3)

## lasaikeria 1 *iz* lasaitasun gaitzesgarria.

**Lasaikeriara** ohitutako gorputza. Askoren artean

Azken denboraldietan Osasunaren ibilera jarraitu duen orok badaki **lasaikeria** dela nafarren etsairik nagusietakoa. Berria - Kirola

Sekula ez zen gozatu hiriburuetan jendearen **lasaikeria**-egarria asetzen duten jolaskeriez. Jose Morales

Inkonformismoaren **lasaikeriaren** kutsua dute. Antton Olano

**2** ohitura onek eskatzen duten hertsitasuna erakusten ez duen egitea edo jokaera.

Haien ustean, heziketa sexualak zuzenean jarduera sexuala eta promiskuitatea handitzea ekarriko zuen eta, azkenean, **lasaikeria** sexuala. Luis Elberdin

Greziarrek bultzatu egiten zuten emakumeen **lasaikeria** hau estatu arrazoiengatik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Lasaikeriaren** jatorria zein den aztertzen badugu, delituen zigorgabetasuna dela ikusiko dugu, eta ez zigorren biguntasuna. Jose Antonio Mujika

## lasaiki 1 *adlag* lasai, estutasunik, kezkarik edo larritasunik gabe.

Ez du aspaldi euskal irratitik hartzen genuen meza batean entzun dugula herriko apez euskalduna apezpikuaren agurtzen frantsesez, eta apezpiku landestarra ihardesten **lasaiki** euskaraz. Piarres Xarriton

Ez ditut ezustekoak batere gogoko -esan zuen Edgarrek **lasaiki-** baina maite dut harrituta utz nazaten. Joxan Elosegi

**Lasaiki** afaldu naiz ostatuan, ohar zenbait salatuz paperari eta oroitzapenak fresko direno finkatuz, akidurak eta afariaren goxoak izpiritua malindu aitzin. Piarres Aintziart

**2** lasaikeriaz.

Ahalgerik gabe eta **lasaiki** mintzatzen dira. Berria - Kultura

---

## lasaikiro *iz* lasai.

Ostatuan zeuden biak, aberats plantan jantzirik eta **lasaiki** solasean. Itxaro Borda

Auguste erakusmahaia antolatzen ari zen **lasaikiro** . Karlos Zabala

Gelaren iluntasunean bildurik, eserlekuan begiztatu zuen, nargilea **lasaikiro** errez. Patxi Zubizarreta

**Lasaikiro,** gorrizko ukitu bat eman zuen ezpainetan. Lopez de Arana

---

## lasaikote *izond adkor* pertsonez mintzatuz, lasaia eta sendoa.

Gero, urkamendiko eskaileretan gora hasi zen fardel itxurako lepoalde trinkodun gizon **lasaikotea,** idi nekatu baten antzo. Anjel Lertxundi

---

## lasaitasun 1 *iz* ezinegon, kezka edo larritasunik eza.

Eguna bukatzera zihoan, **lasaitasuna** handia zen. Bernardo Atxaga

Familiaren berririk iristeak, iristen bada, **lasaitasun** gutxi ekartzen du, aldez aurretik **lasaitasunik** ez badago. Fededunek behatz artean errosarioa hartzean sentitzen duten **lasaitasun** berbera. Jon Alonso

**Lasaitasuna** hartu zuen Norak, hizketa-gaia desbideratu egiten zela ikusirik. Anjel Lertxundi

-Gu ez gara satorrak, Marta -esan zuen Olatzek **lasaitasuna** galdu duenaren irmotasunez. Harkaitz Cano

Hi, **lasaitasuna** nahi baduk, hortxe bertan duk parkea. Iban Zaldua

Zer nolako gobernu-mota da agintariak bere menpeko bakoitzean etsaia susmatzen duena, eta, **lasaitasun** publikoaren izenean, hiritarra **lasaitasunik** gabe utzi beharren aurkitzen dena? Juan Martin Elexpuru

Siesta garaiko **lasaitasunak** baretuta zeuden ostatuko korridore-eskailerak. Josu Landa

Zure **lasaitasunerako** esango dizut zuk ez duzula zerikusirik ikertzen ari naizen arazoan. Migel Angel Mintegi

Susmoa neukan ez zuela **lasaitasunez** erantzungo. Oskar Arana

Gure ikerketak **lasaitasun** osoz egiteko. Alberto Ladron Arana

Hanka libratu ziotenean, **lasaitasunezko** hasperena egin zuen. Inazio Mujika Iraola

**2** (izenondoekin)

**Lasaitasun** handia sentitu zuen. Migel Angel Mintegi

Zaldien pabiloian **lasaitasun** handia zegoen. Bernardo Atxaga

Umbertorekin egote hutsak **lasaitasun** handia ematen zidan, baina zer nekien nik gertatu zenaz? Anjel Lertxundi

Postu berriak **lasaitasun** handiagoa eman zion. Bego Montorio

Jira labur hark biharamuneko eginbeharra **lasaitasun** handiagoz hartzeko balioko zidalakoan nengoen. Alberto Ladron Arana

Bakardade ukitu bat zuen **lasaitasun** gozo batek betetzen zuen Egutxi. Ibon Uribarri

Bat-batean **lasaitasun** zoragarri batek hartu ninduen. Ander Irizar

Begi eta ezpainei Ekialdeko idoloen aurpegien **lasaitasun** narkotiko bera darie. Xabier Paya

Hala ere, **lasaitasun** arraroa zegoen: ekaitz bortitzaren ondoren barealdian dagoen haran nekatua. Agustin Otsoa

**Lasaitasun** harrigarri batek harturik zeukan neskaren barrena, mundutar ikusten baitzuen, bizitzan lehenengo aldiz, bere burua. Anjel Lertxundi

Editoreek **lasaitasun** ekonomiko minimo bat behar dute euskal literaturaren aldeko apustu garbi eta planifikatu bat egingo badute. Ana Urkiza

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lasaitasun**-begirada agertu zitzaion aurpegian Templeri. Xabier Olarra

**Lasaitasun**-hasperena egin zuen Yusufek. Fernando Rey

Herrian, nolanahi ere, **lasaitasun** sentimen bat zegoen, ia isiltasunekoa. Josu Zabaleta

**Lasaitasun** eta atseden une luzeagoak. Juan Martin Elexpuru

**Lasaitasun** pixka baten bila. Josu Zabaleta

Kirola egitean, adrenalina bota ondoren, konpensatzeko, endorfinak isurtzen ditugu, halako **lasaitasun**-sentsazio bat ematen dutenak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Lasaitasun** itxura ematen zuen. Joxemari Iturralde

**Lasaitasun** antzeko bat sentitu nuen bere kirurgialari lana nola egiten zuen ikustean. Xabier Olarra

Dolabelly Gak doktoreak uste du satisfakzio termino bat zela, adimen **lasaitasun** maila gorena adierazten zuena. Xabier Olarra

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Imajinatzen zuen haren bisaia transzendentala, Michelangeloren harena bezain barea eta harmoniatsua, barne **lasaitasun** lizun haren irudi metafisikoa. Unai Iturriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bake eta lasaitasun** (6); **lasaitasun giroa** (4); **lasaitasun giroan** (3); **lasaitasun handia** (23); **lasaitasun handia eman** (6); **lasaitasun handia ematen** (7); **lasaitasun handiagoa** (7); **lasaitasun handiagoz** (9); **lasaitasun handiz** (9); **lasaitasun hasperen** (3); **lasaitasun hasperen bat** (3); **lasaitasun ikaragarria** (3); **lasaitasun itxura** (3); **lasaitasun mezua** (42); **lasaitasun mezua helarazi** (5); **lasaitasun mezua igorri** (12); **lasaitasun mezua zabaldu** (17); **lasaitasun mezuak** (5); **lasaitasun osoz** (21); **lasaitasun pixka bat** (6); **lasaitasun publikoa** (3); **lasaitasun sentsazioa** (4)
>
> **bakea eta lasaitasuna** (3); **barne lasaitasuna** (4); **erabateko lasaitasuna** (11); **konfiantza eta lasaitasuna** (4); **lan egiteko lasaitasuna** (3); **lasaitasuna berreskuratu** (5); **lasaitasuna ekarri** (10); **lasaitasuna ekarri zuen** (3); **lasaitasuna ekarriko** (4); **lasaitasuna eman** (27); **lasaitasuna eman digu** (3); **lasaitasuna eman zion** (3); **lasaitasuna emanen** (3); **lasaitasuna emango** (9); **lasaitasuna ematen** (21); **lasaitasuna eskatu** (32); **lasaitasuna eskatu zien** (9); **lasaitasuna eskatzen** (5); **lasaitasuna eta konfiantza** (6); **lasaitasuna eta poza** (3); **lasaitasuna eta sosegua** (3); **lasaitasuna falta** (6); **lasaitasuna falta izan** (4); **lasaitasuna galdu** (9); **lasaitasuna hartu** (4); **lasaitasuna irabazi** (3); **lasaitasuna izan** (6); **lasaitasuna izan zen** (4); **lasaitasuna izango** (6); **lasaitasuna izatea** (4); **lasaitasuna izateko** (3); **lasaitasuna lortu** (6); **lasaitasuna lortzeko** (5); **lasaitasuna nagusi** (6); **lasaitasuna zen nagusi** (4); **nolabaiteko lasaitasuna** (5); **zuhurtzia eta lasaitasuna** (4)
>
> **ematen duen lasaitasunarekin** (4)
>
> **lasaitasunaren bila** (3); **lasaitasunaren gola** (5); **lasaitasunaren teoria** (3)
>
> **lasaitasunari eutsi** (3)
>
> **lasaitasunerako deia egin** (21); **lasaitasunerako deiak** (3)
>
> **lasaitasunezko hasperena** (3)

---

## lasaittu ik **lasaitu**[2].

---

## lasaitu[1], lasai(tu), lasaitzen *(orobat **lasatu** g.er.)* **1** da *ad* ezinegona, kezka edo larritasuna desagertu. (pertsonez eta

animaliez mintzatuz)

-Oliver, **lasai** zaitez! -esan zion Fredek, izutu samar-. Iñaki Mendiguren

**-Lasai** zaitez, Claire -esaten dit. Koro Navarro

**-Lasaitu** hadi, Mitxel. Anjel Lertxundi

**Lasaitu** hadi -Mitxelek. Xabier Mendiguren Elizegi

-Aizan, **lasaitu** hadi! Antton Olano

**Lasaitu** al da mutikoa? Joxemari Urteaga

Pauline **lasaitu** zen, sosa ikusita. Karlos Zabala

Logre ez zen **lasaitzen**. Karlos Zabala

Jatorkeria da nagusi giroan, eta **lasaitu** egiten da Lucyk ez duela horretan parte hartzen ikusita. Oskar Arana

Harry erabat **lasaitu** zen konturatzean bera ez zegoela beste guztiak baino askoz atzerago. Iñaki Mendiguren

**Lasaitu** egin ziren soldaduak, heriotzaren erresumatik etorri berri balira bezala. Felipe Juaristi

Solasaldiak izan zuen eraginik: Hamida **lasaitu** eta arduragabetu egin zen. Patxi Zubizarreta

Pixka bat **lasaitu** zenean, hala esan zion neska zerbitzari bati: [...]. Juan Kruz Igerabide

Eurak ikusita apur bat **lasaitu** nintzen, txukunak eta arretatsuak ziruditelako. Urtzi Urrutikoetxea

Ez dakizu nola **lasaitu** nintzen. Josu Zabaleta

Exkaluk **lasaitua** zirudien, bere onera etorria. Pako Aristi

Lucy hurbildutakoan **lasaitu** egiten dira txakurrak. Oskar Arana

## **2** (gauzez mintzatuz)

Bihotz guztiak berehala **lasaitu** ziren. Agustin Otsoa

Lupinen aurpegia **lasaitu** egin zen. Iñaki Mendiguren

Nire bihotzeko taupadak **lasaitu** egin ziren. Juan Kruz Igerabide

Beso-zangoak **lasaitu** egiten zaizkio. Oskar Arana

Azken nerbioak **lasaitu** egin zitzaizkidan, eta hasiera-hasieratik tenkatzen ari nintzen soka ere **lasaituz** joan zen, zergatik ari zen **lasaitzen** ez banekien ere. Jon Muñoz

Gero, Anitari esker, polliki-polliki, giroa pixka bat **lasaitu** zen. Daniel Landart

Baretu zen azkenik ekaitza, **lasaitu** ziren olatuak. Felipe Juaristi

Astiro-astiro **lasaitzen** doazen marruak. Itziar Otegi

Ontzien sokak **lasaituak** daude, ezin diote mastari eutsi. Elizen arteko biblia

Burdin hagari kanpora tira eginez haria estutu egiten zen eta uhateak ireki, eta burdin hagari barrura eginez haria **lasaitu,** eta uhateak itxi. Felipe Juaristi

Giharren tentsio-joko perfektua nire aurrean, ezker-eskuin txandakaturik: estutu, **lasaitu,** estutu, **lasaitu**. Xabier Mendiguren Elizegi

## **3** du *ad* ezinegona, kezka edo larritasuna kendu.

-Ez, ez daki **-lasaitu** nuen-. Jon Muñoz

-Trankil **-lasaitu** zuen Leirek-. Aitor Arana

Horrek **lasaitu** egin ninduen. Juan Luis Zabala

Emakumea **lasaitzen** ahalegindu nintzen. Anjel Lertxundi

Lisak **lasaitu** egin zuen, arrosa bat bezain freskoa zegoela esanez. Karlos Zabala

Neba **lasaitu** ordez bere onetik atera zuelako arbasoei buruzko galdera harekin. Anjel Lertxundi

Halakoetan, begiak ixteak **lasaitzen** nau. Anjel Lertxundi

Masturbazioak desioa asetzen du, kitzikatu eta **lasaitu** egiten gaitu. Luis Elberdin

Mathiasekin egoteak **lasaitu** ninduen. Daniel Landart

Françoisek longaina kendu zion Luisari eta hitz amoltsuz **lasaitu:** "Pare bat orduko kontua izango da". Felipe Juaristi

Aitak bere burua **lasaitzeko** jarriko zuen musika. Anjel Lertxundi

## **4** (gauzez mintzatuz)

Ur epelean **lasaitu** zuen gorputza. Iñaki Zabaleta

Atearen kontra egon nintzen, arnasa eta bihotzaren taupadak **lasaitzen**. Juan Kruz Igerabide

Oina **lasaitu** nuen. Urtzi Urrutikoetxea

Besoak **lasaitu** eta fusila askatu zuen. Jose Morales

· Parkegate-tik Chapelizod-a doan bide bakartian pausoa **lasaitu** zuen. Irene Aldasoro

## **5** tinkotasuna edo hertsitasuna gutxitu. ik **laxatu.**

Gogoratzen dut aita gorbata **lasaituta** eta ilea bekoki gainean dantzan zihoala bolantean. Joseba Sarrionandia

-Iruzurra -oihukatu zuen Jonathanek, suminez, gorbataren korapiloa **lasaiturik-**. Jon Muñoz

Komisarioak alkandora **lasatu** zuen, itotzen ari zen soto heze hartan. Harkaitz Cano

Korapiloa **lasatu** beharrean, estutu egin zitzaion. Joxemari Urteaga

Lur jotako baserrian maskuria **lasaitu** zuen puskailetan. Koldo Izagirre

Giharrak **lasaitu** nahi zenituen eta ez zenuen lortzen. Eider Rodriguez

Aitorpenak **lasaitu** zion matraila. Unai Iturriaga

Lokarriak beheraino **lasaitu,** mingaina kontu handiz ongi jarri eta berriro lotu zituen. Anton Garikano

Hatzek presioa **lasaitu** eta ni gainetik kendu nintzaionean, nire bizitzaz galdetu zidan. Anjel Lertxundi

## **6** (era burutua izenondo gisa)

Bera dela auzitan dagoen gaiari dagokionean ziurtasunaren, adiskidetzearen, lo **lasaituaren** atsedenlekua. Jendea dabil kalean, etxera bidean jende **lasaitua,** zakurrak paseatzen emakume bakartia, agure berantiarren bat gaurko egun ederra k berpiztua. Xabier Arregi

· Hogei bat minuturen buruan, askoz **lasaituago** irten zen, emozio aldetik ez hain zurrun. Xabier Olarra

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**agurea lasaitu** (3); **apur bat lasaitu** (18); **asko lasaitu** (7); **barrena lasaitu** (3); **bat batean lasaitu** (6); **batere lasaitu** (5); **bazterrak lasaitu** (7); **berehala lasaitu** (4); **berriro lasaitu** (6); **burua lasaitu** (5); **doi bat lasaitu** (5); **egoera lasaitu** (3); **erabat lasaitu** (3); **gauzak lasaitu** (5); **giroa lasaitu** (5); **guztiz lasaitu** (4); **herritarrak lasaitu** (3); **ikusteak lasaitu** (3); **jendea lasaitu** (5); **nabarmen lasaitu** (3); **ni lasaitu** (7); **nik lasaitu** (3); **pixka bat lasaitu** (26); **zertxobait lasaitu** (5)

**lasaituz joan** (4)

**lasaitzea lortu** (8); **lasaitzea lortu nuen** (3)

**ama lasaitzeko** (3); **apur bat lasaitzeko** (3); **burua lasaitzeko** (6); **giroa lasaitzeko** (6); **herritarrak lasaitzeko** (4); **kontzientzia lasaitzeko** (5); **lasaitzeko agindua** (3); **lasaitzeko ahaleginak egiten** (3); **lasaitzeko aitzakia** (3); **lasaitzeko asmoz** (4); **lasaitzeko aukera** (3); **lasaitzeko esan** (7); **lasaitzeko eskatu** (11); **lasaitzeko eskatu zien** (3); **lasaitzeko keinua egin** (3); **lasaitzeko keinurik** (3); **lasaitzeko mezua zabaldu** (3); **ni lasaitzeko** (6)

**apur bat lasaitzen** (4); **asko lasaitzen** (3); **batere lasaitzen** (3); **bere burua lasaitzen** (5); **burua lasaitzen** (6); **erabat lasaitzen** (3); **giroa lasaitzen** (3); **jendea lasaitzen** (3); **lasaitzen ahalegindu** (3); **lasaitzen ari** (10); **lasaitzen hasi** (10); **lasaitzen hasi zen** (4); **lasaitzen joan zen** (3); **lasaitzen laguntzen** (3); **lasaitzen saiatu** (20); **lasaitzen saiatu zen** (8); **lasaitzen saiatzen** (6); **zertxobait lasaitzen** (3)

umea lasaitzera (3)

---

# lasaitu² *(orobat* **lasaittu** *g.er.)* **1** *iz* lasaitasunezko egoera.

Zapatilak erantzi ahala oinazea eta **lasaitua** nahastu zaizkio; gorriturik dauzka, urratua zauri bihurtzeko zorian.-Hau duk hau **lasaitua,** Etxabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez, eta hi ere ez haut ikusten, hau **lasaitua** ! Pako Aristi

Ekintza on horrek **lasaitu** handia eman zion. Karlos Zabala

**-Lasaitu** ederra eman didazu! -eten zuen emakumeak-. Migel Angel Mintegi

Amets munstrotsu eta kontrolaezinek **lasaitu** bat hartu zuten, Denver hasi zenean haur mamuan kontzentratzen. Anton Garikano

Harrigarriki, berriak **lasaitua** ekarri zion. Aingeru Epaltza

Erru-ustea kolektibizatzeak dakarren **lasaituaz** . Iñigo Aranbarri

Nire buruarentzat **lasaitu** ederra duk -eta hau esanda, lotan geratu zen berriro. Agustin Otsoa

**Lasaitu** ederra denontzat! Joxe Austin Arrieta

**Lasaitu** hark mingain puztuaren min txikiagoa sentitzen utzi zion. Anton Garikano

## 2 *lasaitu ederra hartu*

Baina gora begiratu, eta **lasaitu** ederra hartu zuen, horma-erlojuak une horretantxe ordua jotzea erabaki zuela konturaturik. Jose Morales

Kontuak kontu, **lasaitu** ederra hartu nuen irakasle zaharra onik atera zela jakinda. Alberto Ladron Arana

**Lasaitu** ederra hartuta nengoen ni. Anjel Lertxundi

Maletak egin eta apartamentua jasotzeko unea iritsi zenean, giroak **lasaitu** ederra hartu zuen. Jesus Mari Mendizabal

## 3 *lasaitu itxura(k) egin*

**Lasaitu** itxurak egiten saiatu da senarraren ondoan etzan denean. Jokin Muñoz

FBIko buruak **lasaitu** itxura egin bazuen ere. Edorta Jimenez

## 4 *lasaitua hartu*

**Lasaitua** hartu nuen jakinik malko horiek eragiteko beste hunkitu zutela nire hitzek. Oskar Arana

Nolabaiteko **lasaitua** hartu du gaixoak. Harkaitz Cano

Ezagun du **lasaitua** hartu duela. Oskar Arana

-Esaiozu ezetz, behingoz, eta horrela **lasaitua** hartuko duzu, gizona. Jon Alonso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

lasaitu bat (6); lasaitu ederra (60); lasaitu ederra hartu (34); lasaitu ederra hartuko (11); lasaitu ederra hartuta (3); lasaitu handia (8); lasaitu handia hartu (3)

halako lasaitua (3); hau lasaitua (3); lasaitua hartu (34); lasaitua hartu zuen (9); lasaitua hartuko (6); lasaitua hartzen (5); nolabaiteko lasaitua (5); nolabaiteko lasaitua hartu (3); nolako lasaitua (4); sekulako lasaitua (9); sekulako lasaitua hartu (6)

---

# lasaitxo **1** *izond adkor* lasai samarra.

Haurrak beren tokietan utzi eta bi edo hiru, haien arteko **lasaitxoenak,** haurrak zeuden bezala zaintzen utzi ondoren, Cecilia, Ilde eta besteak, nabari-nabarian pozik, laborategiko gelan, beheko solairuan, aldatzera joan ziren lasterka. Josu Zabaleta

## 2 (adizlagun gisa) lasai samar.

Aitortzen dizut **lasaitxo** ibili naizela urtean zehar. Itziar Otegi

---

# lasaitzaile *izond* lasaitzen duena. ik **lasaigarri**.

Elkarrizketa politikoa irekitzea ere eskatu dugu eta baita botere publikoei prozesuan neurri **lasaitzaileak** hartzea ere. Berria - Euskal Herria

---

# lasaitze **1** *iz* ezinegona, kezka edo larritasuna desagertzea. ik **lasaitu²**.

Hura **lasaitzea** ! Josu Zabaleta

Ohar hauek idaztea, hasiera batean, **lasaitze** bat izan da, hustu-behar moduko bat. Agurtzane Juanena

Gaitzaldi latz batetik irten berri denak bere larriok kontatzean sentitu ohi duen barrena hustu eta **lasaitze** horrekin batera, plazer konplexu, bortitz eta berri bat sumatzen nuen orain idaztean. Juan Garzia

## 2 tinkotasuna edo hertsitasuna gutxitzea.

Koiunturazko aldiotan gertatu ohi diren aurrezki pribatu gehiegizkoaren eta interes-tasen **lasaitzearen** ondorioz. Koro Navarro

Diru-batasunak eragindako diru-baldintzen **lasaitzeak,** 1999ko bigarren hilekoan, jarduera lastertu eta langabezia gutxiagotu zuen berehala. Koro Navarro

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kontzientziaren eta kanpoko begien **lasaitze** -ariketak eginez hasiko gara. Iñaki Mendiguren

Poliziak egin zitzala kontrol lanak, **lasaitze** lanak, hori bai. Karlos Linazasoro

Hegoaldeko jendeek, Iparraldea ikusten zutela **lasaitze** eremu bezala, ez konturatuz, hemen ere, Iparraldean, ekonomia dinamiko bat bazegoela. Herria

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beheraldi hori diru-**lasaitze** orokor baten testuinguruan egin ahal izan zen. Koro Navarro

---

# lasaiune *iz* lasaitasunezko unea.

**Lasaiune** labur haietako batean, hondoa jota alderrai nenbilela, apalera joan, iragaitzaz liburu bat hartu, Adelak utzia, eta Esoporen alegia bat irakurri nuen: "Orakulua eta fedegabea". Juan Kruz Igerabide

---

# lasaizale *adlag* lasaisatun zale.

Egun osoa, *Iliada*ko bertso hartan ongi ala gaizki jarri ote zuen, azterketan pasatzen zaio; epigrama hartan **lasaizale** ibili ez ote zen Martzial; Birjilioren halako edo honelako bertsoak era hartara ala bestera irakurri behar ote diren. Patxi Ezkiaga

---

lasalletar ik **salletar**.

lasapide ik **lasaibide**.

**lasartear** *iz* Lasartekoa, Lasarteri dagokiona; Lasarteko herritarra.

Harkaitz Cano 30 urteko **lasartear** idazleak eskuratu du euskarazko Euskadi Saria. Herria
Joxe Esnaola preso ohi **lasartearrak** herrikideen ongietorria jaso zuen asteazkenean. Berria - Euskal Herria
Legez Urnietarra naiz ni, eta elizaz [...] **Lasartearra** . Berria - Kultura
Iñaki Petxarroman **lasartearrak** dioenez. Berria - Kultura
**Lasartearrak** gogoak eman diona idatzi du, ez espero zitekeena. Berria - Harian

lasatu ik **lasaitu**[1].

**laser** **1** *iz* energia handiko argi azao kolorebakarra eta koherentea sortzen duen gailu elektronikoa.

Horretaz baliatuz, **laser** batekin ahalik eta zulorik txikiena egiten da. Berria - Gaiak
Prostataren Lurrunketa Fotoselektiboa edo **laser** berdea da teknika horren izena. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondoren, eta **laser** argia baliatuta, lagina plakari zein puntutan lotzen zaion ikusten da. **Laser** izpiak edo nik dakit zer hasi ziren biraka aretoan. Joxan Elosegi
Bonba horiek **laser** izpi batek gidatuko zituen. Pello Salaburu
Esku batean pistola sofistikatu bat zuen, **laser** izpien jaurtigailu edo. Aingeru Epaltza
Irakurketa optikoa egiten duen **laser** sistema baten bidez. Berria - Mundua
Kosmosean barna **laser** seinaleak bidaltzea estralurtarrek guregana heltzeko erabil dezaketen oso modu logikoa da. Berria - Gaiak
**Laser** inprimagailu bakoitzak bere marka uzten du agirietan. Berria - Gaiak
Kameren aurrean puxikak jartzea eta hitzaldietan erabiltzen diren **laser** erakusleak oso eraginkorrak dira kameroi ikusmena galarazteko. Berria - Gaiak
Techno 98 jarri zuen azkar **laser** irakurgailuan. Itxaro Borda
Beribil bereziaren leihatila batetik zetorren **laser** ezpata mihiak troxatzen ninduela. Itxaro Borda
Datozen bi egunotan ere ultrasoinu eta **laser** tratamenduak hartuko ditu. Berria - Kirola
**Laser** bidezko irudiak. Berria - Kirola
Egitasmo honen helburua aurrerago martxan jarriko den LISA **Laser** Interferometroaren Espazioko Antena proiektuari bidea irekitzea da. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **laser berdeak** (3); **laser irakurgailuan** (3); **laser izpi** (5); **laser izpiak** (7)

**laspel** *iz* gasa.

Autoetaz aseak dira eta ezin jasanak dituzte abiadura haundiak, **laspel** kaltegarriak eta errepidetako irriskuak. Herria
Mitxa bat piztu eta, barrikaren kaskoan hiltzen bazen, erran nahi zuen karboniko **laspela** oraino jalgitzen ari zitzaiola eta irakidura ez zuela bukatua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**laspelki** *iz* gasa.

**Laspelki** kaltekor batzuekin airea ari dugu pozoinatzen. Herria
Ez ginukeela hoinbeste **laspelki** bota behar, guhauren eta gure ondokoen onetan! Herria

**lasta** **1** *iz* itsasontziei, baloi aerostatikoei eta kidekoei, egonkortasun handiagoa izateko, jartzen zaien pisua.

Nola **lasta** itsasora bota ondoren belaontziak branka jaso eta olatuak menperatzen dituen, hala, fede zaharraren zamaz libraturik, aurre egin ahal izan zien ingurukoen ezinikusi, destaina eta zitalkeriei. Xabier Montoia
**Lasta** mugitu eta brastateko batean aurrerantz joan zen, haizebe aldera. Pako Aristi

**2** irud/hed

Zama nire gainetik kentzeko, **lasta** arintzeko, itxitura itogarri hartatik, han bakarrik nire guraso hilekin batean, ihes egin ahal izateko ote zen? Joxan Elosegi

**lastaila** *iz* urria.

Urrila, Buruila, **Lastaila** . Pello Zabala

**lastaira** *(orobat **lastari** g.er.)* *iz* telazko zaku modukoa, laukizuzena, lehen lastoz eta orain betegarri bigun edo plastiko batez betea, lo egiteko, gehienetan ohearen armazoiaren gainean jarriaz, erabiltzen dena.

Ekar ditzatela **lastaira** bat eta bi tapaki. Koro Navarro
Oheak harria bezain gogorrak ziren, eta ez zuten ez **lastairarik,** ez burkorik. **Lastari** bat zegoen bazter batean. Iñaki Mendiguren
Kuarto handia, bi ohe biki bikientzat, eta, erdian, nire **lastaira** txukun-txukun jarria, izara urdinak eta tapaki gorrixka. Joxean Sagaztizabal
Burusiak altxatuko zituela, izarak atera, **lastairari** buelta eman, eta aireberritzen ipiniko zuela. Juan Kruz Igerabide
**Lastairetan** etzaten gara. Marzel Etxehandi
Eta txabolaren lurrezko zoruan jarritako **lastaira** baten gainean jo zuten hirugarren aldiz. Anton Garikano
Artilezko **lastairak** erostera igotzen ziren ijitoek. Juan Kruz Igerabide
**Lastaira** ireki zuen, artilea harrotzeko asmoz. Jokin Urain

Bere artalokotsezko **lastairetatik** jauzi eta lasterka abiatu ziren etxean zehar. Josu Zabaleta

Zoko guziak ahal bezain ontsa baliatzen genituen **lastairak** 4 estaietan, batzuk besteen gainean, lehena lurretik 25 zentimetrotan eta laugarrena teilatuari hurbil. Marzel Etxehandi

---

**lastaki** *iz* lastaira.

Pilotazaleek amaitutakoan, Udalaren beharginek lurrean **lastaki** meheak eta mantak ipintzen dituzte eta 20:30ean irekitzen dituzte berriro ateak, bertan lo egiten geratuko direnentzat. Berria - Euskal Herria

---

lastapilo ik **lasto 7**.

---

**lastargi** *iz* lasto sorta edo azao batez eginiko zuzia.

Iluntzen ari zuen eta ibaiertzean **lastargi** eta zuziak piztu zituzten. Koldo Biguri

Larunbat gauerdian zein haize zebilen jakiteko gure aitajaunak **lastargia** pizten zuen, kea nora, haizea hara...! Pello Zabala

Ipurtargiak dirudite **lastargiek** Sakabia bidean. Iñigo Aranbarri

**Lastargiez** argiztaturiko itsasontzi batean uraren gainean abandonatzen dituzte. Monika Etxebarria

**Lastargia** eskuan, bide erdian tente-tente, [...], Karonte txalupariari arima galduak eramaten dizkion espektroa. Joxean Sagaztizabal

Eguzkiak urrezko eta brontzezko babeskiak jo zituenean, distirak argitu egin zituen mendiak, **lastargi** izekiak bailiran. Elizen arteko biblia

---

lastari ik **lastaira**.

---

lastasorta ik **lasto 8**.

---

lastasu ik **lasto 9**.

---

**lastategi** *(orobat* ***lastotegi*** *g.er.)* *iz* lastoa gordetzen den tokia.

Goian **lastategia** zena zegoen. Jon Maia

Pixkana-pixkana gaua pasatzeko ganbara edo **lastategia** utziko ziguten edo jaten emango ziguten nekazari fidagarrien saretxoa osatu nuen han-hemen. Anjel Lertxundi

Arratsean itzultzen zen, edo are biharamunean, **lastategietan** lo eginez. Juan Garzia

**Lastotegia** dela, egurrezko egitura dela... baserrietan kaleko etxeetan baino aukera gehiago daude sutea izateko. Berria - Euskal Herria

Gau batean **lastategiak** su hartu eta etxe osoa eta baratzeko arbola guztiak erre ziren poxpoloak balira bezala. Koldo Biguri

Ustekabean entzun zuen nola Anjelmarik agintzen zion Errekaldeberriko Eukeniri arratseko zortzietan Bordatxuriko **lastategira** joateko. Xabier Mendiguren Elizegi

Orratz bat besterik ez naiz, **lastategi** bateko orratza. Lopez de Arana

---

**lastatu,** lasta(tu), lastatzen du *ad* lasta ezarri.

Itsasontzia **lastatu** beharra daukan kapitain batek marmola hartuko du; zura behar badu zamak behar bezala antolatzeko, zura erosiko du; eta ezer galtzen ez duen bitartean, pozik hura. Iñaki Iñurrieta

---

lastazuzi ik **lasto 10**.

---

**laster** *(orobat* ***laister*** *g.er. eta* ***laxter*** *g.er.)* **1** *adlag* denbora laburrean, denbora gutxiren buruan; lasterka.

**Laster** hilko baikara. Askoren artean

**Laster** izango zuten haren berri lazgarria. Edorta Jimenez

**Laster,** lau karabinero ikusi genituen zaldiz gugana hurbiltzen. Anjel Lertxundi

**Laster** Donapaleu. Piarres Aintziart

Andre ona zen, oso zakarra, hirurogei urte **laster** beteko zituena. Karlos Zabala

Emaidazu musu; **laster** etorriko da zure txanda. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina honezkero **laster** da hemen... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Laster** isuri zuen bere likore eztia nire ipurdiaren sakonean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zatoz **laster** gu salbatzera! Jose Antonio Mujika

-Agudo, **laster, laster** -esan zien neskak-. Fernando Rey

Eskuak suaren aurrean eduki zituen, eta **laster** hasi zitzaizkion min ematen. Koro Navarro

Gehiago erosi beharko nituen **laster**. Anjel Lertxundi

Noiz, ez zakiat, baina **laster**. Anjel Lertxundi

**-Laster,** har itzazu arropak eta zaldia, esan duzun bezala, eta joan. Jose Antonio Mujika

Urratsa ahal bezainbat luzatuz, frango **laster** heldu nintzen Magaliren etxerat. Janbattitt Dirassar

**Laster** atera nintzen nasara. Fernando Rey

Holako galdea egiten didatenak **laster** igortzen ditut antzara ferratzerat. Janbattitt Dirassar

Handik, **laster** ailegatu ziren Logroñorako bidera. Koro Navarro

Itsasontzia **laster** heldu zen bi sirenen uhartera, haizeak bultzaturik. Juan Kruz Igerabide

Aparkalekuetatik hiri barneraino **laster** ibiliko diren autobus elektrikoekin. Herria

Esperantza dut Hazparnetik eraman arrengurak **laster** despeituko dituzula, zure sail berriari karraskan lotzeko. Piarres Xarriton

Ene puskak **laster** bildurik, begiak altxatu nituen Mirentxuri buruz. Janbattitt Dirassar

Zein **laster** aldatzen den mundua gure inguruan. Oskar Arana

Itsasoratu eta **laster** jo nuen begiz lehenengoz ile-motots kaxkagorridun neskatxa. Joxe Austin Arrieta

Hori lortu bezain **laster,** alde egingo nuen Angeloren etxetik. Anjel Lertxundi

Kafea hartu bezain **laster** joan ginen, bi koinatuak, gerezi-ondoaren azpira. Daniel Landart

**Laster** egin genuen itzulia. Janbattitt Dirassar

**Laster** egin zuten harainoko bidea: **lasterregi** Merryren gusturako. Agustin Otsoa

**Lasterrago** handitu baitziren salgaien prezioak fabrikazio-kostuak […] baino. Koro Navarro

**Laster egina,** laster galdua. Piarres Xarriton

- **2** *izond* denbora laburrean gertatzen, egiten edo bururatzen dena.

Kutxatik diapositiba-zerrenda bat atera eta leihoaren aurrean eduki zuen begiratu **laster** bat emateko. Oskar Arana

Behako **laster bat** ohapeari: gure lur-sagar erresalbu guzia desagertu da! bere Ibili **lasterra** bat-batean gelditu, bularra airez bete, eta indarrez botatzen zuen arnasa. Marzel Etxehandi

Nazioarteko zuzeneko inbertsioen hedapen **lasterra**. Koro Navarro

Hazkunde **laster** hori ia etengabea izan zen 1973 arte. Koro Navarro

Enpleguen beheraldi **laster** eta etengabeak kezka hori areagotzen du. batengana zein besterengana hurbiltzen zen urrats labur eta **lasterrez**. Koro Navarro

Hiru taberna eta janari **lasterreko** beste sei saltoki. Berria - Kirola

McDonald's janari **lasterreko** konpainiak. Berria - Harian

Taupada **lasterrean** hasi zitzaidan ostera bihotza. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Bazela han gazte bat, zeinaren lepoa baitzen jirafa oin-**lasterrarena** baino luzeagoa. Xabier Olarra

Ibarreko umeak, eroriak eta lotsagabeak begiak, ume mihi-**lasterrak** eta ahots-kantariak, txirlak bezain zapalak bularrak. Koro Navarro

Emazte oihu-**laster** eta espantu-sarria ez bezalakoa. Aingeru Epaltza

**4** laster ibiltzen dena.

Mila errekasto **lasterrek** zeharkaturiko lurralde batean. Karlos Zabala

Hots apal, sor, **laster** bat iritsi zitzaidan belarrietara. Koro Navarro

**Lasterra** ala motela? Irene Aldasoro

· Kanpoko bizitzan, bizitza normalean, abiadura **lasterrean** bizi gira. Filipe Bidart

- **5** *iz* laster egitea; lastertasuna.

Ibaiak ur-laster artean gorpu bat leramakeen bezala, halaxe ninderaman tren hark, geltoki arteko **lasterretan**. Jon Maia

Leihotik jautsi eta iheslariak bi **lasterrez** sasian gordetzen ziren. Eneko Bidegain

Azkeneko **lasterra** bailitzan. Itxaro Borda

Ezin asezko natura horri zerekin egin kontra, egundoko **lasterrean** irensten baitu den-dena, eta fisikoa den ezerk ezin baitio aurre egin? Jon Muñoz

**6** (-en atzizkiaren eskuinean)

Ezin konprenitu noski, nolatan arin zezakeen ilunak trenaren **lasterra**. Iñaki Segurola

Arrasta zapatuz brau! autoaren **lasterra** mendratu nuen. Itxaro Borda

Haizea gorputz ezkutua da, itsas-lehorrak [...] arrastatzen eta bat-bateko zirimolean andarka daramatzana, eta hauen **lasterra** eta hondamengintza uraren izate gozoaren antz-antzekoa da. Xabier Amuriza

· Hala ere, haien uste sendoak -beraientzat jasangaitza zen sistema ezarri bat, lehentxeago edo geroxeago, denboraren "ezinbesteko **lasterrak"** aurrean eramango zuelakoak- zirrara txikia eragiten zuen. Iñaki Mendiguren

**7** isurkari higidura jarraitua, ibai baten gisa higitzen den masa. ik**korronte**.

Txalupak, yateak eta itsasontziak eraman izan ditu **lasterrak** haren eraginpera iritsi baino lehen kontuz ez ibiltzeagatik. Koro Navarro

Itsaslasterra gogorrenean dagoenean, eta ekaitz batek areagotzen badu **lasterraren** indarra, arriskutsua izaten da norvegiar milia bat baino barrurago sartzea. Koro Navarro

Kanal hura, batzuetan, lohitu egiten zen, zeren eta lohikeria baita eskrementuen eta bertze mila hondarren emaitza, eta, haien garbitzeko, errotako urtegiko ura husten zen noizik behin, uraren **lasterrak** haiek guztiak jauregitik urrun zitzan. Joan Mari Irigoien

Belarrietako tinpanoetaraino iristen ziren tunelak, behatzen arteko krakazko bola txikiak, begiak beren zuloetan, ahots eutsia, odolaren **lasterra**. Koro Navarro

Han daude, bihotzean kezkarik gabe, Zorionekoen Uharteetan, ozeanoko **lasterraren** zurrunbilo sakonen ondoan. Iñaki Mendiguren

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baneramatzan pare bat egun eztulka eta zintz eginez pabilioiko korridore luzeetako aire-**lasterren** kausaz. Anjel Lertxundi

Uholde-euriak, 160 kilometro orduko haizeak, eta ekaitzaren begiak eragindako lur-**lasterrek** erabat suntsiturik utzi zuten lurraldea. Berria - Mundua

Odol-**lasterra** imajinatu nuen, etxearen hormak miazkatzen. Koro Navarro

Niniren kemenak etxea eta pertsonak betetzen zituen; paretak, gauzak zeharkatzen zituen indar-**laster** sekretu bat bailitzan. Xabier Olarra

· Hitz-**lasterraren** harmoniara egokiturik. Karlos Linazasoro

Atzerriko biktimen kultura sartzen zaiola bere bizi-**lasterrean**. Iñaki Mendiguren

**9** ***lasterrean*** *adlag* lasterka

Orein bat han zoak **lasterrean** bidexkan barrena. Xabier Olarra

**Lasterrean** bildu ziren bazter batera. **Lasterrean** atera ginen, kutxa zabalik utzita. Josetxo Azkona

Bizkor joaten dira denak haren atzetik txaloka, **lasterrean** jarraitzen diote haren garaipen-gurdiari. Jose Morales

Gaua igaro zitzaidan ziztuan, begiak zabalik, adimena erne, oroimena **lasterrean**. Felipe Juaristi

Hartz izigarriak Concheko herrixka ikaragarriko **lasterrean** trebesatu omen zuen. Aurelia Arkotxa

Jadanik Joseba kanpoan zen, erdi **lasterrean** toki hartatik aldenduz. Iñaki Zabaleta

Zangoak arindu dituzte, **lasterrean** kasik. Aingeru Epaltza

**10** ***behi laster*** *pl ipar*

200 urtez goiti badu, ihauterietan **behi lasterrak** egiten direla Hazparneko karriketan, herritarren jostagailu ohizkoa, ustez, betikoa. Herria

Duela 250 urte, Hazparneko **behi lasterrak,** idi lasterrak zirela, eta hor laster egiten zuen idia hiltzen zutela eta herriko behardunei partitzen ihauterietan. Herria

Igande aratsean, **behi-lasterrak** Azkainen eta Donibane Lohizunen.

**Behi laster,** zezen laster, pilota partida eta gaineratiko, bestalde ere izanen da haatik mugimendu Baionako bestetan. Herria

Agorrilaren 16an aratseko 9.30etan **behi lasterrak** karriketan. Herria

23an, aratseko 9etan Landes **behi laster** zinezkoak joko plazan. Herria

**11** ***haize-laster*** *iz* aire masa baten higidura jarraitua.

Ez nion arretarik jarri, ustez **haize** lasterren batek oihalen bat mugituko zuelakoan-edo. Josu Zabaleta

Bat-batean **haize**-lasterra sortu eta ilea harrotu zion. Iñaki Mendiguren

Zoru hotzaren gainean etzan nintzen, ate zirritutik **haize-lasterra** bazebilen ere. Eduardo Matauko

Kaietatik zetorren **haize laster** batek urratu zuen kalea. Koro Navarro

Hego Manhattanetik zetorren **haize laster** hozkirriak lanera zihoazen oinezkoen aurpegi deliberatuak goxatu eta poztu egiten zituen. Gotzon Garate

Pospoloak itzali zizkion **haize-laster** batek. Koro Navarro

Amak erantzuten zion **haize-lasterrak** oso txarrak izaten direla adineko jendearentzat Ni neu erraz erasaten naute **haize-lasterrek**. Anjel Lertxundi

Malins andreari ez zaio komeni **haize-lasterrean** zutik egotea. Irene Aldasoro

Ondo kontuan hartu zuten behar bezain babestua egon zedila **haize-lasterretatik**. Jon Muñoz

Korridoreetan **haize-lasterrekin** hotz handia egiten zuen. Iñaki Mendiguren

## 12 *handik laster*

**Handik laster** itzuli zen pitxerño bat eta beira lodiz egin hiru baso ttipi ekarriz. Elena Touyarou

**Handik laster,** bi zaldunak lau hazka Baionarantz abiatu ziren. Elena Touyarou

**Handik laster** hilko duk Zezilia, eta iloba alargunarekin ezkonduko. Anjel Lertxundi

Jaio eta **handik laster** hil zen Ingo, Gerra Handia bukatu eta berehala, erditze-minetan izandako lesioen eraginez. Anjel Lertxundi

Lila arrastatu zuten, baina **handik laster** libratu. Itxaro Borda

Ospitalera eraman eta, **handik laster** hil zen. Pablo Sastre

Bihotzeko zimiko batez oroitzen dut Enrique Jorda lehenengo zuzendaria, **handik laster** hil zena. Xabier Mendiguren Elizegi

Adiskidantza haundia baitzuten, ez da harritzeko anaitasun hitzarmen bat sinatua izan bazen **handik laster** Lizarra eta Donibane-Garaziren artean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Alegrantziarik handienean ospatu zen etxeko jaungaiaren munduratzea, baina **handik laster** umetxoa eritasun horiak jo zuen. Itxaro Borda

## 13 *handik lasterrera*

**Handik lasterrera** Gernikan zen Von Richthofen. Edorta Jimenez

**Handik lasterrera,** 1918an, hizkera eredu horretan idatzi zuen *Ardi galdua* kontakizuna. Koldo Zuazo

Hark agindu moduan egin nuen, baina etsipenak jo ninduen **handik lasterrera** egunkarien bidez Hemingwayren heriotza tragikoaren berri izan nuenean. Edorta Jimenez

Dudaren eraginez gure oroimena pixkanaka isilduz joango zen, **handik lasterrera** zeharo mututzeraino. Pedro Alberdi

Hasiera batean eredu hura erabilitako Gabriel Aresti eta Jon Mirande idazleek ere, beste bide batzuk urratu zituzten **handik lasterrera**. Koldo Zuazo

## 14 *itsas laster* ik **itsaslaster.**

## 15 *laster arte*

**Laster arte,** laztana. Jon Arretxe

**Laster arte,** Aitor. Paddy Rekalde

Muxu bat, **laster arte**. Joxemari Iturralde

Milesker eta **laster arte**. Herria

**"Laster arte",** esan dut trena abiatu denean. Anjel Lertxundi

**"Laster arte!",** egin zuen nire lagunak oihu ogi-saltzaile baten agurrari erantzunez. Bernardo Atxaga

Ez, ez; hau gizonen artean konpondu beharreko ohore kontua da: emakume batek traba egingo liguke... **laster arte,** andereok. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**-Laster arte,** orduan -esan zion Harryk, dardarka zuen ahotsari konfiantza eman nahian. Iñaki Mendiguren

## 16 *laster batean adlag* oso denbora gutxian.

Eta oso agudo, **laster batean,** eguerdirako, hemen genuen fronte beroa. Pello Zabala

Banoa **laster batean**. Josu Landa

**Laster batean** irten nintzen kalera. Anjel Lertxundi

Aztarrika zebiltzan oiloak **laster batean** sartu omen ziren oilategira. Patziku Perurena

Gurdia txalupa bihurtu zuten **laster batean**. Karlos Zabala

Tartana bat hartu zuten, herrira **laster batean** eraman zituena. Josu Zabaleta

Urte asko dira Jonek galdera filologikorik egin ez didala, **laster batean** lortu baitzuen nik baino gehiago jakitea. Hau, semearen izena entzunik eta herritarren zalaparta hura haren kontra zuzendua zela ikusiz, **laster batean** jaiki zen, baina ez semea askatzera, galtzera baizik. Xabier Mendiguren Elizegi

## 17 *laster asko*

**Laster asko** lotu nituen etxe dorreduna eta hango oihuen doinu atzerritarra. Anjel Lertxundi

**Laster asko** okertu dira agindu nien bidetik. Elizen arteko biblia

Edonor atxilo eramaten zuten **laster asko,** susmo hutsarekin sarri, eta egurra ematen zioten, nola gainera, eta urtetarako espetxeratu gero, legez kanpoko alderdi politiko batean zebilelako, besterik gabe. Juan Kruz Igerabide

Eskola gabe eta entenditzeko moduan jardutera derrigortu ezkero, mutu lirateke **laster asko** bere ustetako jakintsu informatu asko eta asko. Iñaki Segurola

## 18 *laster egin* arin joan edo ibili, jauziak bezalako urratsak eginez. ik **lasterkatu; lasterka 4; korrika 6.**

**Laster egin** nuen, biluzik, haren bila. Juan Garzia

Ahalegintzen naiz besteekin batera **laster egiten,** haien parean joaten. Mirentxu Larrañaga

Eskuez sabelari eusten dioala, eta **laster egin** duk komunera. Pedro Alberdi

Atzerritar bat azaltzen den aldi oro, **laster egiten** dute ezarria daukaten mugaraino. Koldo Izagirre

Agatak **laster egin** zuen, aspaldiko ustezko adiskidearengana heltzeko. Itxaro Borda

Aitak eman baitzizkion semeari arnasa hartzeko ahoa, argia jateko begiak, Naturaren soinuak entzuteko belarriak, zuhaitz igaliak hartzeko eskuak, maitearengana **laster egiteko** oinak. Felipe Juaristi

Eman zizkidaten zapatillak, **laster egitekoak,** aitarenak ziren; hark ere hanka handiak nik bezalaxe. Fernando Rey

## 19 *laster-laster adlag*

Aterpean sarrarazi zituzten esklaboak eta ukuiluetara eraman zituzten **laster-laster** abereak. Jose Antonio Mujika

Peter **laster-laster** jaisten da eskaileretan behera. Josu Zabaleta

-Ez, ez -xuxurlatu zuen emakumeak izu ikaraz, eta **laster-laster** jaikirik gelatik ihes egin zuen. Josu Zabaleta

Zaldia zegoen tokira itzuli zen, eta han berriz zaldiari inguruka hasi zen **laster-laster**. Fernando Rey

## 20 *laster-lasterra adlag ipar* laster-laster.

**Laster lasterra** ihardetsi zien. Eneko Bidegain

Biziki harritua zaituzket, andrea, zure etxetik **laster-lasterra** partitua naizela jakinik. Jon Muñoz

## 21 *lasterrari eman*

Baina, tupustean, haurrak, askaturik, burua astindu zuen eta **lasterrari eman** zion. Rabache dendatik andre zahar bat ikusi dut ateratzen, zapia buruan jantzen eta **lasterrari ematen**. Monika Etxebarria

Ertzainak agertu zirenean, **lasterrari eman** genion, baina gutariko batek -ez zen batere ikasle ona- atxilotuta pasatu behar izan zituen ordu batzuk. Anjel Lertxundi

Gibelaz itzulirik, **lasterrari eman** zion deabrua ondotik balu bezala. Aingeru Epaltza

## 22 *tren laster*

Orduko hurbiltzen ari zen **tren lasterraren** makina. Fernando Rey

Geltokietan zehar gelditu gabe pasatzen den **tren lasterra**. Fernando Rey

Ospitale bihurtutako **tren laster** bati. Fernando Rey

**23** ***ur-laster*** *iz* ur masa baten higidura jarraitua.

Puskak jaisten ziren, ibaiaren **ur lasterrak** garraiaturik. Karlos Zabala

Ibaiaren erdialdean, **ur-lasterra** sendo eta bizkor mugitzen zen. Koro Navarro

**Ur-laster** isilak daude itsasoaren alde batetik bestera etengabeko joanean. Iñaki Mendiguren

Ama, gerrikoari tiraka, aitari irteten laguntzen ari zen, baina **ur-lasterrak,** indartsua baitzen, ez zion uzten. Juan Kruz Igerabide

**Ur-lasterraren** aurka igeri egin behar izan zuten. Urtzi Urrutikoeetxea

Ibaian behera darama **ur lasterrak**. Karlos Zabala

**Ur lasterra** bortxaz eta jauzika zihoan aitzina, uharra irudi. Karlos Zabala

Nijni [ibaia] Novgorodetik aitzina aldatu egiten da, Errusia erdi aldeko probintzietatik datorren Oka ibaiaren **ur lasterrarekin** nahasten denean. Karlos Zabala

Toki amuarraintsua zen, harriarte eta **ur-laster** askokoa. Anjel Lertxundi

**Ur lasterrekin** mugitzen den zooplanktonarekin batera, mikrobioak dira erronka nagusia. Berria - Gaiak

· Burua buruko bigunegiaren azpian gorde eta Wagnerren musikaren **ur-lasterrean** sartu nintzen berriro. Alberto Ladron Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**abiatu bezain laster** (8); **agertu bezain laster** (9); **ahal bezain laster** (69); **amaitu bezain laster** (43); **aski laster** (34); **atera bezain laster** (28); **behi laster** (12); **bezain laster** (1331); **bezain laster hasi** (10); **bezain laster jakin** (8); **bezen laster** (23); **bukatu bezain laster** (30); **bururatu bezain laster** (11); **egin bezain laster** (27); **eman bezain laster** (9); **entzun bezain laster** (36); **esan bezain laster** (15); **eskuratu bezain laster** (9); **etorri bezain laster** (11); **ezagutu bezain laster** (8); **frango laster** (13); **haize laster** (8); **handik laster** (160); **hartu bezain laster** (31); **hasi bezain laster** (51); **heldu bezain laster** (26); **hemendik laster** (14); **ikusi bezain laster** (55); **ireki bezain laster** (14); **iritsi bezain laster** (48); **irten bezain laster** (45); **itxi bezain laster** (12); **itzuli bezain laster** (17); **izan bezain laster** (21); **jakin bezain laster** (55); **jarri bezain laster** (14); **jaso bezain laster** (14); **jo bezain laster** (8); **joan bezain laster** (9)

**laster abiatu** (9); **laster abiatuko** (19); **laster agertu** (22); **laster agertuko** (10); **laster amaituko** (16); **laster arte** (58); **laster asko** (36); **laster atera** (14); **laster aterako** (17); **laster aurkitu** (13); **laster baino lehen** (8); **laster batean** (149); **laster beteko** (13); **laster bildu** (11); **laster bukatuko** (17); **laster egin** (53); **laster eginen** (11); **laster egingo** (25); **laster egitea** (10); **laster egiten** (24); **laster egongo** (11); **laster eman** (13); **laster emango** (13); **laster erabaki** (8); **laster eroriko** (10); **laster esango** (11); **laster eta laster** (13); **laster etorri** (25); **laster etorriko** (47); **laster etxera** (15); **laster ezkontzekotan** (26); **laster galdu** (9); **laster galduko** (9); **laster geratu** (9); **laster gertatuko** (9); **laster hartu** (16); **laster hartuko** (12); **laster hasi** (59); **laster hasiko** (75); **laster hedatu** (17); **laster heldu** (23); **laster helduko** (13); **laster hil** (18); **laster hilko** (33); **laster ikasi** (12); **laster ikusi** (25); **laster ikusiko** (36); **laster ikusiko dugu** (8); **laster ikusten** (9); **laster iritsi** (17); **laster iritsiko** (20); **laster irtengo** (10); **laster itzuli** (21); **laster itzuliko** (41); **laster itzuliko naiz** (14); **laster izan** (20); **laster izanen** (11); **laster izango** (84); **laster izango da** (21); **laster jabetu** (8); **laster jakin** (41); **laster jakin nuen** (8); **laster jakinen** (9); **laster jakingo** (24); **laster jarriko** (8); **laster joan** (18); **laster joango** (21); **laster konturatu** (45); **laster konturatu zen** (16); **laster laster** (12); **laster ohartu** (31); **laster ohartu nintzen** (8); **laster ohartuko** (13); **laster sartu** (9); **laster senda** (8); **laster sendatuko** (12); **laster ulertu** (14); **laster utzi** (15); **laster utziko** (14); **laster zabaldu** (16); **laster zabaldu zen** (11)

**ohartu bezain laster** (12); **oso laster** (20); **punpa laster** (14); **punpa laster bat** (8); **sartu bezain laster** (65); **sobera laster** (8); **sortu bezain laster** (8); **ukitu bezain laster** (9); **ur laster** (19); **utzi bezain laster** (15); **zabaldu bezain laster** (13); **zatoz laster** (8)

**ur lasterra** (11)

**gero eta lasterrago** (8)

**behi lasterrak** (125); **behi lasterrak azkainen** (12); **behi lasterrak karriketan** (35); **ur lasterrak** (22); **zezen lasterrak** (23)

**ur lasterraren** (15)

**lasterrari eman** (8)

**janari lasterreko** (10)

**ahalik eta lasterren** (104); **ahalik lasterren** (27); **albait lasterren** (17)

**ahalik lasterrena** (27)

**handik lasterrera** (30)

---

# lasterbide **1** *iz* toki batetik beste batera joateko, ohiko bidea baino lasterragoa den bidea.

Autopistatik atera eta saihesbide hau hartzen dut, ez dago oso garbi **lasterbidea** ote den, askoz kilometro gutxiago izan arren bidea oso bihurgunetsua delako eta ziur aski berdin tardatzen da. Mikel Hernandez Abaitua

Kanpamendura joateko **lasterbidea** hartzen dugunean. Patxi Zubizarreta

Helmuga argi bat ikusten denean, sendo joaten daki pausoak, baina zer nahi den, zer gertatuko den, inork ez dakienean, kiribilez betetzen da bidea, alferrikako bihurtuz **lasterbide** guztiak. Hasier Etxeberria

**2** irud/hed

Leku guztietan daude arantzak, baina bizioaren ibilbidean arrosak loratzen dira haien gainean; bertutearen **lasterbide** lohitsuetan, ostera, naturak ez du halakorik sortzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bakerako bidea legearena, demokraziarena eta Zuzenbide Estatuarena da; ez dago **lasterbiderik**. Berria - Euskal Herria

Parlamentuak, berriz, **lasterbide** neurritsuz eztabaidatuko du ea egokia den lege berri sorta bat ematea. Juan Garzia

---

# lasterka *(orobat **laisterka** g.er.)* **1** *adlag* laster eginez.

Harengana joan nintzen **lasterka**. Mirentxu Larrañaga

Zoaz **lasterka** etxera, bidean luzatu gabe. Elizen arteko biblia

**Lasterka** zihoan trena. Jose Morales

Zorabioa, oka hasteko gogoa, handik **lasterka** alde egiteko beharra, denetarik sentitu nuen. Anjel Lertxundi

Aitak eskua askatu zidan, eta aldapan behera **lasterka** abiatu zen. Juan Kruz Igerabide

Orduantxe zetorren Roman eskaileretan behera **lasterka**. Inazio Mujika Iraola

Testu hau aurrera doala, ideiak eta sentimentuak **lasterka** datozkit, bi korrikalarik ukondoak erabiliz bezala, zeingehiagoka. Piarres Aintziart

Dikeetan zehar ibili nintzen **lasterka**. Monika Etxebarria

Berriro errepidera irtenda, **lasterka** igo genuen aldapa. Juan Kruz Igerabide

**Lasterka** irten nintzen gordelekutik, eta harengana zuzendu. Juan Kruz Igerabide

Atzealdetik **lasterka** atera eta besarkatu egin ninduen. Oskar Arana

Mutikoa **lasterka** itzuli zen Patriciarengana. Koro Navarro

Ondoko pentzean, bizpahiru haur **lasterka** ari zirenak, zakurra ondotik. Elena Touyarou

Komunera jo nuen **lasterka,** oka egitera. Joxan Elosegi

Gizasemeak **lasterka** ikusi ditut, kili-kolo balantzaka, eta lurrera jausten trumilka. Mirentxu Larrañaga

Nonahi, soldaduak, eta artilleria, eta anbulantziak hara-hona bizian, **lasterka** eta presaka. Mirentxu Larrañaga

Une berean bi txakur **lasterka** eta elurretan zilipurdika hasi ziren. Bernardo Atxaga

Joxe Mari, **lasterka,** Marro harrapatzeko zorian egon zen. Juan Kruz Igerabide

Angela ikusi nuen, plaza ia **lasterka** zeharkatzen. Alberto Ladron Arana

• **2** *iz* laster egitea, lasterra.

**Lasterka** txikian iritsi nintzen institutu aurreko autobus-geltokira. Anjel Lertxundi

Halaxe egin zuen, **lasterka** txikian, beti ere maletatxoari bularraren kontra estutzen ziola. Anjel Lertxundi

Ez dadila bete **lasterka** bizian egunsentirantz naramaten amets iragankorrez. Mirentxu Larrañaga

Pauso batzuk sentitzen ditut niregana hurbiltzen, **lasterka** bizian. Anjel Lertxundi

**Lasterka** ero horretan. Josu Zabaleta

Sorra eta gorra zirudien min fisikorako, etengabe anestesiapean balego bezala, bere jomugara kosta ahala kosta heltzeko hisia besterik ez gogoan, eta gauza bakarra ikusten zuen **lasterka** zentzugabe hartan, bidea oso azkar geratzen zitzaiola atzealdean. Karlos Zabala

Zalakain eta frantses-euskalduna, egoeraren jabe, guztiz sosegaturik zeuden, **lasterka** arinean zihoazen eta barrez ari ziren. Koro Navarro

**Lasterkari** ekin zion. Iñaki Zabaleta

Lurrera salto egin eta **lasterkari** eman zion. Karlos Zabala

### 3 *lasterka batean adlag* oso denbora gutxian.

Geure bizitzaren beldurrez, **lasterka batean** zeharkatu genuen ibaialdea, ihesi. Mirentxu Larrañaga

Eguna argitu orduko, jaiki zen erregea eta lehoi-zulora joan zen **lasterka batean**. Elizen arteko biblia

Erasoaldi handi bat, aitortu zidanan, eta **lasterka batean** itzuliko omen ditun Berlinera, buztana hanka artean dutela. Mirentxu Larrañaga

Bere erregina berriro agertu zen mirariz, eta, zalantzarik ez, bihotza **lasterka batean** zebilkion, bere bular maitasunez erian eroki taupaka. Oskar Arana

### 4 *lasterka egin* laster egin.

Ezin dut **lasterka egin** arnasarik hartu gabe. Mirentxu Larrañaga

Eskaileretan behera **lasterka egin** eta zuhaitzen aldera joan zen. Ramon Etxezarreta

Mundu guztiak azokarantz **egin** zuen **lasterka,** eta baita nik ere. Mirentxu Larrañaga

Hamar bat kilometro **lasterka eginik**. Daniel Landart

Nahiz eta **lasterka egin**, ez zara iritsiko, ez eta ihes egingo ere saiatu arren. Elizen arteko biblia

Bizkar-zorroak utzi dituzue ahalik eta zaluen **lasterka egiteko**. Xabier Montoia

Gogoan dut harriturik utzi ninduela aitaren **lasterka egiteko** moduak. Juan Kruz Igerabide

Untxiak ere, gordelekura baino urrunago gutxitan egiten duenez **lasterkarik,** zuria du haragia. Irene Aldasoro

Ulrichek bizkorrago **egin** zuen **lasterka**. Josu Zabaleta

Saiatu ere bai ni **lasterka egiten,** non eta uretan! Joxe Austin Arrieta

· **Lasterka** baino gehiago, hegan **egin** nuen, herrenaz batere gogoratu gabe. Juan Kruz Igerabide

### 5 *lasterka-toki iz*

Edo **lasterka**-tokian lehiatzen direnak. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abiatu zen lasterka** (5); **atzetik lasterka** (30); **batetik bestera lasterka** (5); **beti lasterka** (4); **egin zuen lasterka** (5); **erdi lasterka** (12); **eskaileretan behera lasterka** (6); **hasi zen lasterka** (4); **itzuli zen lasterka** (6); **joan zen lasterka** (47); **korrika eta lasterka** (4)

**lasterka abiatu** (45); **lasterka abiatu zen** (19); **lasterka abiatzeko** (4); **lasterka abiatzen** (6); **lasterka alde egin** (13); **lasterka alde egingo** (4); **lasterka aldendu** (5); **lasterka ari** (10); **lasterka atera** (23); **lasterka atera zen** (12); **lasterka batean** (16); **lasterka bizian** (28); **lasterka doa** (14); **lasterka egin** (41); **lasterka egitea** (5); **lasterka egiteko** (16); **lasterka egiten** (17); **lasterka ekin** (5); **lasterka eta oihuka** (5); **lasterka eta presaka** (4); **lasterka etorri** (23); **lasterka etorri zen** (14); **lasterka etortzen** (7); **lasterka hasi** (59); **lasterka hasiko** (4); **lasterka hasteko** (5); **lasterka hasten** (5); **lasterka heldu** (4); **lasterka hurbildu** (16); **lasterka hurbiltzen** (4); **lasterka ibili** (10); **lasterka ibiliko** (4); **lasterka ibiliz** (7); **lasterka ibiltzea** (5); **lasterka ibiltzen** (6); **lasterka igaro** (5); **lasterka igo** (11); **lasterka ihes egin** (4); **lasterka ikusi** (6); **lasterka irten** (20); **lasterka irten zen** (9); **lasterka itzuli** (10); **lasterka jaitsi** (12); **lasterka jarraitu** (8); **lasterka jo** (6); **lasterka joan** (156); **lasterka joanez** (7); **lasterka joateko** (8); **lasterka joaten** (23); **lasterka joaten ginen** (4); **lasterka joaten zen** (5); **lasterka joaten ziren** (5); **lasterka nindoala** (4); **lasterka nindoan** (4); **lasterka sartu** (8); **lasterka segitu** (4); **lasterka txikian** (10)

---

## lasterkada *iz* lasterketa, lasterra. ik **lasterkaldi.**

Zortzi elkartek parte hartu dute eta hauetan herriko hautetsiek, jaun auzapeza berak egin duelarik **lasterkada** lekukoa eskuan. Herria

Dauphiné libéré: Hau da Frantziako itzulia baino lehen egiten den **lasterkada,** holako entsegu bezala ikusteko zertan den bakoitza, **lasterkada** famatua hasi aitzin. Herria

Nola ez aipa El Guerrouj, bi urrezko medailen jabe, 1500 metretako **lasterkadan** eta 5000 metretakoan. Herria

Bakarkako **lasterkadan** Joane Somarriba euskaldun emaztea xapeldun da. Herria

Garai hartan ez baitzen orain bezalako auto **lasterkadarik**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez du balentria txarra egin delako Schumi horrek seigarren aldikotz dela munduko xapeldun beribil **lasterkadetan**. Herria

---

## lasterkaldi 1 *iz* lasterketa, lasterra.

Halako batean, Nihatek sekulako **lasterkaldia** egin zuen kontraeraso batean eta bere pasea ezinhobe errematatu zuen Kovacevicek buruz. Berria - Kirola

Berrogeita hamar kilometroko **lasterkaldia** korritzen. Aingeru Epaltza

Lehen aldikotz muntatua da Everest Challenge 2003 **lasterkaldi** hori, Everest edo Sagarmatha mendiaren lehen igaitearen 50. urtemuga ospatu nahian. Herria

Duela gutti, 17 lasterkari arizan dira Vignemaleko **lasterkaldi** gogorrean (45 km), Cauterets herritik abiaturik. Herria

Larrungo **lasterkaldian,** igandean, hirugarren sailkatu da, Ramuntxo Lamothe saratarra. Herria

Bigarren **lasterkaldia,** 5 kilometrokoa 10 orenetan abiatuko da eta jazko itzuli bera, Ahizen gaindi, eginen du. Herria

Lehenik, haurren **lasterkaldia** (2 km), laburra bainan maldatsua, 35 haurrekin, gehienak Bidarrai berekoak. Herria

Helduen **lasterkaldian** (16 km), sekula baino lehiakide gehiago, 192 lasterkarirekin. Herria

Sekulako garaipena euskal taldearentzat, duela zortzi eguneko Dauphine Libere **lasterkaldiko** garaipenaren ondotik. Herria

Hauek egun hortan izan diren **lasterkaldi** eta kirolaldietan laguntzaile izan dira. Herria

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Munduko mendi **lasterkaldi** gogorrena, dotzena bat egunetakoa. Herria

Feria hunen bihotza haatik 16 kilometretako mendi-**lasterkaldia** izan da, 219 lasterkarirekin, bidexka horietan kasik ehun bat oinezko ere bazabilalarik. Herria

Uztailaren 28 an abiatuko da Figaro itsas-**lasterkaldia,** Sables d'Olonnetik. Herria

Joanden asteburuan iragan den mendi kaskoetako auto **lasterkaldian,** Patrick Orhategaray gure herritarra da deneri nagusitu, hoberenak gainདituz. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lasterkaldi gogorra** (3); **mendi lasterkaldi** (6)

**euskal trail lasterkaldia** (3); **kilometrako lasterkaldia** (3); **mendi lasterkaldia** (3)

**kilometrako lasterkaldian** (3); **lasterkaldian parte hartzeko** (3)

**mendi lasterkaldien** (3)

---

**lasterkarazi**, lasterkaraz, lasterkarazten du *ad* lasterkatzera behartu.

Ondarrerat frango aise gainerat, ahal bezenbat pilota guti utziz Loquillo-ren aztapar ausarteri eta Santamaria azkarki **lasterkaraziz**. Herria

Geroago, goitikinez eta gorotzez tindatu gela hertsian, axuanta bere zerbitzuko pistolarekin tiro eginez **lasterkaraziko** zuten, mendekuaren jokoa baltsa hilkor bihurtuz. Itxaro Borda

---

**lasterkari** **1** *izond* lasterka egiten duena.

Bada beste protagonista bat, Filosofia ikasle bizarduna, ekintzaile **lasterkariaren** heriotzaren lekuko geldia, Zamudio tabernako mahai batera eserita, Zamudio taberna itxita dagoen arren. Berria - Kultura

Ikusiko duzue zeinen behor fina, Seabiscuit zaldi **lasterkaria** bezain abila. Mirentxu Larrañaga

Zaldi **lasterkariak,** zaldi indartsuak, zaldi beltzak. Felipe Juaristi

Negarrez iratzarri baitzen zapata **lasterkari** batzuei buruzko ametsetik. Anton Garikano

• **2** *iz* laster egiten duen pertsona; lasterketa batean parte hartzen duen kirolaria.

**Lasterkari** trebea izanez, hiru laurden hegalari gisa bizkarrean neramala "14" zenbakia, banuen geroztik zenbait-zenbait partida jokaturik. Daniel Landart

**Lasterkariak** bere mailako **lasterkarien** kontra korritu behar du bere bizitzako lasterketa. Josu Zabaleta

Neure burua maratoia amaitu duen **lasterkari** batekin alderatuz. Patxi Zubizarreta

Larunbat goizeko 8-etan, 200 **lasterkari** dira abiatuko Baigorriko plazatik, Urepeleri buruz, mendiz mendi, Hauza kaskoan gaindi (1306m). Herria

Duela gutti, 17 **lasterkari** arizan dira Vignemaleko lasterkaldi gogorrean (45 km). Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iraupen-**lasterkari** batek ere oxigeno-zorra ordaindu beharko du lasterketaren amaieran, gorputzak ezin baitu oxigeno-gaindikinik hartu berehalako premietarako. Irene Aldasoro

Ez manifestariak edo ikusleak edo maratoi **lasterkariak**. Karlos Linazasoro

Orain, mendi **lasterkari** gehien horiek *euskal trail* dute gogoan. Herria

Interesatu da gehien bat 17. mendeko euskal arrantzale eta mariñelen biziari, berezikiago itsas-**lasterkarieri,** eta orduko ingurugiroari. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itsas lasterkari** (3); **lasterkari hoberenak** (3); **mendi lasterkari** (4)

---

**lasterkatu**, lasterka(tu), lasterkatzen **1** da *ad* laster egin, lasterka egin.

Plazerez hantu zitzaion bihotza eta amarengana **lasterkatu** zen: [...]. Itxaro Borda

Kopetan bazerion izerdia esku-gibelaz xukatzen zuen eta ogi-ehaiteko makina zaharraren maldara **lasterkatzen** zen, lana ez baitzen egundainokoan bukatzen. Itxaro Borda

Tanta bat bisaian beheiti **lasterkatu** zen, errekasto mehe bat eginez nire larruazalean zehar. Aingeru Epaltza

• **2** du *ad* lasterka esetsi.

Bekatu egiten du zezenak zirikatzen edo **lasterkatzen** dituenak. Piarres Xarriton

Kristau karitatearen eta debozioaren kontra doazela, zirkoetan eta plazetan egiten diren zezenen eta basabereen **lasterkatzeko** ikusgarriak. Piarres Xarriton

Ohiturak egin omen dezake azkenean etxe-txakurrak ehizan ikastea eta ehizora, alderantziz, erbien **lasterkatzetik** gelditzea. Piarres Xarriton

Familia anitzek hiria utzi dute, jende zintzoak presondegietan hetsiak izan dira eta Jainkoaren zerbitzariek **lasterkatzeak** jasaten dituzte. Elena Touyarou

---

**lasterkatze** *iz* laster egitea, lasterka egitea.

Eüskararen süstatzeko plantatürik den 2.350 kilometretako **lasterkatze** honek, gaü eta egün taigabe, Eüskal Herri osoa kurritüren dü, Orreagan martxoaren 10ean abiatürik, Bilbon martxoaren 20an ürrentü artino. Herria

---

**lasterkeria** *iz* lasterka ibiltze gaitzesgarria.

Finkatze hori gobernuari dagokio; eta gobernuak gai honetan har ditzakeen neurriak ezin **lasterkeriaz** ondu. Andres Urrutia

---

**lasterketa** *(orobat* ***laisterketa*** *g.er.)* **1** *iz* laster egitea.

Eskaileretan gorako **lasterketak**. Irene Aldasoro

**Lasterketa** etsian, Frodo eta Sam zubiraino iritsi ziren. Agustin Otsoa

Jauzika zihoazen animalien **lasterketa** ikusezinak. Elizen arteko biblia

**Lasterketa** arin baten ostean batak eskuaz bestea ukitzen zuen eta, orduan, honek beste norbait harrapatu behar zuen. Joxemari Iturralde

**Lasterketa** moduko batean lehiatu ginen ekaitzarekin. Juan Garzia

*Korrika* izeneko **lasterketan**. Pello Salaburu

**2** (norgehiagoketan)

**Lasterketa** egin zuten lehenik, eta Klitoneok irabazi zuen, alde handiz. Juan Kruz Igerabide

Hanka biak sendo edukitzea ez da aski **lasterketak** irabazi edota markak hausteko. **Lasterketan** ez dela beti bizkorrena nagusitzen, ez eta guduan ere indartsuena. Joxerra Garzia

Olinpiadetako ehun metroko **lasterketa** balitz bezala geunden gu denok. Xabier Mendiguren Elizegi

Ehun eta berrehun metroko **lasterketetako** korrikalaria. Atleta batek 2 zp inguruko potentzia manten dezake 100 metroko **lasterketan**. Fernando Rey

Orduko 14 miliako abiadura baino ez da bi miliako **lasterketaren** munduko marka; hamar miliako **lasterketaren** marka, berriz, orduko 13 miliakoa da. Irene Aldasoro

Igande goizean, Azkainen, Larrun mendi kaskorainoko **lasterketa**. Herria

Multzoka zeuden ikusleak automobilen itzulerako **lasterketa** ikustera bildurik. Irene Aldasoro

**Lasterketa** ziklisten zale amorratuak. Pello Lizarralde

Elkartze sexuala ez da erlojuaren kontrako **lasterketa**. Luis Elberdin

Abiadurako **lasterketa** hasi zen orduan. Karlos Zabala

**Lasterketako** pilotua zenez, ez zegoen arriskurik, teorian behintzat. Edorta Jimenez

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sakristauaren semearen **lasterketa**-bizikletaren gainean. Koldo Biguri

Arnasestuka, helmugara iritsi zen **lasterketa** zaldiaren gisan, horma kontra hartu zuen bermea, ez erortzeko. Josu Zabaleta

Lastertasuna **lasterketa** eremuan erakusten da. Hildakoarekiko halako begirune falta bezala uler zitekeela tanatoriotik urrundu nahi zuen **lasterketa** saio hura. Josu Zabaleta

Denera zazpi **lasterketa** egun daramatza, baina beste urte batzuetan baino hobeto dagoela dio. Berria - Harian

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

"Steeple-chase" izenekoa zaldien oztopo **lasterketa** bat da, azeri-ehizaren irudira egiten dena. Karlos Zabala

Erresistentzia **lasterketa** zen. Berria - Kirola

Iraupen-**lasterketa** egiten duten atletentzat. Berria - Gaiak

-Ba -azaldu zuen Barchinik-, bizikleta **lasterketa** bat: gizon bakoitzak neska bana eraman behar du barran eserita. Koldo Biguri

Txirrindularitza **lasterketa** denak ikusten ditugu. Berria - Kirola

Auto-**lasterketako** pilotuaren itxura ematen zion. Aingeru Epaltza

Hiru egunez izanen da zernahi joko: aerotrin, jumping, quad eta kart **lasterketa,** show akrobatikoa, skate eta gaineratiko. Herria

Zaldi-**lasterketetako** paperekin lotzen edo zen haren izena. Irene Aldasoro

Zaldi **lasterketen** apustu-txartelak. Harkaitz Cano

Egia erran, urtero, inauterietan zaldi, idi, behor eta asto **lasterketa** ederra egiten da Hiri nagusian sari bereziak eskainiz lehen heltzen denari. Piarres Xarriton

"Vendée Globe" itsas-**lasterketaren** irabazlea. Herria

Euskal Herriko Herri **Lasterketen** Lehen Zirkuitua jarriko dute martxan hilaren 22an, Betelun. Berria - Kirola

**5** irud/hed

Asmamenak **lasterketak** egiten ditu nire baitan. Mendez mendeko txandakako **lasterketa** horretan, Abelen esku hotzetatik hartu zuen Galoisek lekukoa. Edorta Jimenez

Aktibo likidoenak gauzatzeko **lasterketa** hasten da orduan, eta **lasterketa** horrek berehala ekartzen du merkatu espekulatiboen erorikoa, kapitalen ihesa eta kanpoko kreditu-lineak izoztea. Koro Navarro

Lasterkariak bere mailako lasterkarien kontra korritu behar du bere bizitzako **lasterketa**. Josu Zabaleta

Zer asmatu gizon horrek bere baitan dituen onenak eman ditzan, izatez **lasterketa** ere ez den **lasterketa** batean? Josu Zabaleta

Armamentu **lasterketan** galtzaile behar zuen nahitaez. Josu Zabaleta

Informazio mozkorraldi honetan, besteek emango ez dutena emateko **lasterketa** ero horretan, ez direlako kazetaritzaren oinarrizko arauak errespetatu, morboa gailendu zaigulako Iñigo Aranbarri

**6** ***lasterketa-buru****sup_1 (orobat* ***lasterketaburu*** *g.er.)* lasterketan aurren doana.

El Moaziz eta Songoka ziren **lasterketa buru,** baina kenyarra, beste erritmo aldaketa bat egin, eta bakarrik helmugaratu zen. Berria - Kirola

**Lasterketa buruan** zihoan taldearekin bat egiten saiatu zen Vinokourov. Berria - Kirola

42 kilometro egin zituzten **lasterketa buruan**. Bigarren jardunaldian hartu zuen **lasterketaburua,** [...] eta lidergoari eutsi dio, aise gainera. Berria - Kirola

**7** ***lasterketa-buru***$^2$ *irud/hed*

Alderdi popularra **lasterketa buru** eta PSOE atzetik arnasestuka aldapa gora, CIS-ek Marianoren taldeari iragartzen dizkion 176 txirrindularien tropelari jarraitu ezin. Berria - Euskal Herria

**8** ***zezen lasterketa***

Zezen **lasterketetan** entzuten diren doinu horietako bat. Ramuntxo Etxeberri

Zezen **lasterketako** josteta horietan, gehiago ikasten zela etsaiari ihes egiten, ezen ez etsaiari buru egiten. Piarres Xarriton

· Orduan ikusi bainuen zezen basa batek bi edo hiru gizon bortizki xehakatzen zituela erabaki nuen sekula gehiago horrelako **lasterketarik** ikustera ez joatea. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abiadura lasterketa** (4); **auto lasterketa** (4); **bakearen lasterketa** (5); **bizikleta lasterketa** (3); **eguzkiaren lasterketa** (4); **erlojuaren kontrako lasterketa** (5); **euskararen aldeko lasterketa** (3); **gold race lasterketa** (4); **herri lasterketa** (12); **herri lasterketa jokatuko** (3)

**lasterketa amaieran** (3); **lasterketa amaitu** (4); **lasterketa bat antolatzen** (3); **lasterketa bat irabazi** (6); **lasterketa bat irabazteko** (3); **lasterketa bikaina** (6); **lasterketa bikaina egin** (6); **lasterketa bukatu** (6); **lasterketa buruan** (15); **lasterketa buruari** (3); **lasterketa ederra** (3); **lasterketa egin** (5); **lasterketa egingo** (3); **lasterketa egunean** (4); **lasterketa esprintean** (4); **lasterketa garrantzitsuena** (4); **lasterketa gogorra** (4); **lasterketa hasi** (7); **lasterketa hasi aurretik** (3); **lasterketa hasieratik** (5); **lasterketa hausteko** (3); **lasterketa ikusgarria** (3); **lasterketa ikusten** (3); **lasterketa irabazi** (18); **lasterketa irabazteko** (11); **lasterketa irabazteko hautagai** (3); **lasterketa izan** (10); **lasterketa jokatuko** (12); **lasterketa jokatuko da** (5); **lasterketa korritu** (6); **lasterketa korrituko** (6); **lasterketa luzea** (3); **lasterketa nagusiak** (4); **lasterketa on** (4); **lasterketa ona** (3); **lasterketa onena** (3); **lasterketa osoan** (3); **lasterketa txukuna** (3); **lasterketa utzi** (26)

**lehen lasterketa** (22); **lehenengo lasterketa** (3); **ligako lasterketa** (6); **munduko lasterketa** (4); **oztopo lasterketa** (7); **patineta lasterketa** (3); **txapelketako lasterketa** (3); **udaberriko lasterketa** (6); **urteko lasterketa** (6); **zaku eramate lasterketa** (3); **zaku lasterketa** (4); **zaldi lasterketa** (9)

**auto lasterketak** (6); **lasterketak egiten** (6); **lasterketak irabazi** (6); **lasterketak korrituko** (3); **lasterketak korritzeko** (3); **lasterketak korritzen** (4); **zaldi lasterketak** (6)

**lasterketaren bilakaera** (4); **lasterketaren buruan** (4); **lasterketaren ondoren** (7)

**lasterketatik kanpo** (8); **lasterketatik kanpo utzi** (3)

**herri lasterketen** (9); **herri lasterketen zirkuituko** (3); **lasterketen emaitzak** (3); **zaldi lasterketen** (5)

---

## lasterketaburu ik **lasterketa 6**.

---

## **lasterketari** *iz* lasterka egiten duen pertsona; lasterketa batea parte hartzen duen kirolaria.

Lekukoa eskuetan harturik, ez nuen hamar pausorik egin gibelean zetozen **lasterketari** batzuk, gehienak gazteak, oihuka hasi zitzaizkidala. Pello Salaburu

Atletek eta eliteko **lasterketariek**. Berria - Gaiak

Marijo Perec andere-panterak **lasterketari** gisako bere karrera abandonatzen duela. Berria - Kultura

---

## **lasterketatxo** *iz* lasterketa laburra.

Arnasestuka sartu zen, **lasterketatxo** bat egin ondorengo larrialdiaz. Joxemari Iturralde

Trostari eder bati gurdia lotu eta **lasterketatxo** bat egitea. Irene Aldasoro

---

## **lasterki** *adlag* laster.

Ateratzen zaizkion oztopo guztiak bortizkiago eta **lasterkiago** alboratzen eta bere bideari jarraitzen diola. Xabier Amuriza

---

## **lasterkor** *izond* lasterra.

Guri orain, ikerketa bera baino, emaitzak, interesatzen zaizkigu (bilduma **lasterkor** honek, bistan dago, ez duela Nietzscheren beraren irakurketa ordezkatuko). Joxe Azurmendi

---

# **lasterragotu**, lasterrago(tu), lasterragotzen **1** da/du *ad* lasterrago bihurtu.

Han errekaren ibilgua nabarmen beheititzen da eta ura **lasterragotzen** . Pello Lizarralde

Estatuaren baliabideen fiskalizazioa, XII. mendean abiaturik, **lasterragotu** egin zen XIV. mendean. Koro Navarro

1990eko hamarraldiaren bukaeran hazkundea **lasterragotu** egin zen, eta horri esker bazterketa-fenomeno horiek, partez, desagertu ziren. Koro Navarro

Garai hartan, berriz ere, zentralizazio politikoaren prozesua **lasterragotu** egin zen, nazioarteko krisi handi bat zela-eta. Koro Navarro

Usteltzea gorabehera askoren mende dago, eragile batzuek **lasterragotu** egiten dute eta besteek moteltzen. Koro Navarro

Haragia desegiten, gorputz hezeak blaitzen, dena usteltzen duen giro honetan; bizitzaren gehiegiaz heriotza **lasterragotzen** duen giro honetan, [...]. Jon Muñoz

Nazioari kanpotik etorririko nahasmendu batek nazio horren hizkuntzaren bilakaera **lasterragotzen** badu, [...]. Isabel Arrigain

**2** (era burutua izenondo gisa)

Hazkunde **lasterragotu** hori aurkitzen da halaber nazioarteko zuzeneko inbertsioen stocketan. Koro Navarro

---

# **lasterragotze** *iz* lasterrago bihurtzea.

1980ko hamarraldiaren erditik aurrera gertatu zen nazioarteko zuzeneko inbertsioen **lasterragotze** horrek, trukeen nazioartekotzeak baino pisu handiagoa eman zion ekoizpenaren nazioartekotzearen fenomenoari. Koro Navarro

Estatu Batuetako eta Europako 1997ko hazkundearen **lasterragotzeak** izan zuen eraginik asiar merkatuetako kapitalen atzeraldian. Koro Navarro

---

# **lasterraldi** **1** *iz* laster egiten den aldia; lasterketa.

Perkak azken **lasterraldi** amorratu bati ekin zion. Koro Navarro

Abdominalak, **lasterraldiak,** halterofilia-zirkuituak, judo eta norberaren defentsarako ariketak. Berria - Kultura

**Lasterraldiak** gorritua heldu nintzen, hatsa nekez hartzen nuela. Aingeru Epaltza

Han etorri da Maggie, **lasterraldiak** eta zirrarak arnaslarriturik. Juan Garzia

Nabarrenkoxera agertu aitzin, lauretan hogei legoako **lasterraldia** egina zuen Montgommeryk, Tarn ibaiaren ertzetik gure artera. Aingeru Epaltza

Bere hanka mengel eta dardartiek ezingo zuketen **lasterraldi** luzerik jasan. Unai Iturriaga

Zeren ustekabean **lasterraldia** apur bat luzatzen baita, eta irabazle zirudiena -bere ahaleginean leherturik eta ezin aitzina eginik- galtzaile gertatzen baita hondarrean. Joan Mari Irigoien

Larunbat goizean, **lasterraldiak** karriketan. Herria

20 kilometra luzeko **lasterraldia** da, maratoi erdi baten heinekoa nunbait han, biderditan patar koxkor batekin. Herria

Igandean, **lasterraldia** Pausutik Donostiarat. Herria

Igandean, Azkainen, Larrun kaskorateko **lasterraldia** goizean. Herria

Beti bezala, Olinpi jokoen saila bururatu da maratoi deitu **lasterraldi** luzearekin. Herria

*Txingudi Korrika* deitu **lasterraldia** . Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erbia herrenago ibili da, baina hurrengo **lasterraldi** txandari ekiteko pronto da bera ere. Pello Zabala

3 *(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)* Route du Rhum bela ontzi **lasterraldian** . Herria

Zaldi- **lasterraldi** bateko tarteaz urrun egon behar zuela beti itsasertzetik. Iñaki Iñurrieta

-Arratsalde honetako kanoa **lasterraldia,** nola? Aurelia Arkotxa

"Entzierro" delako zezen **lasterraldiek** . Herria

**4** irud/hed

Ikerketaren **lasterraldi** honetan hausnarketa meta-zientifikoek (hots, etikak) zer esan gutxi dute. Berria - Gaiak

Zientzia **lasterraldi** bizian ari da. Berria - Gaiak

Estatutu zatikatzaileen **lasterraldia** bukatu da. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artzainen lasterraldia** (3); **kaskorateko lasterraldia** (3)
> **ezpeletako lasterraldiak** (3)

---

## **lasterraldiño** *iz adkor* lasterraldi txikia.

Korrikaren karietarat, beste ekitaldi parrasta bat eskuin eta ezker, giro alegera batean, eta nola ez gorets Korrika-Ttiki **lasterraldiño** horiek, hoinbeste haur eta gaztetxo euskararen alde. Herria

---

# **lastertasun** **1** *iz* abiadura.

Eguneko bost kilometroko **lastertasunean,** landetan zehar ehun kilometro aurrerago doazen tankeen, eta orduko seiehun kilometroko **lastertasunean** ibiltzen diren hegazkinen ihesi. Josu Zabaleta

Orduko bostehun eta hogeita hamar kilometroko **lastertasunean** goaz. Josu Zabaleta

Zinema harraldien **lastertasuna** . Josu Zabaleta

Orduko bederatziehuneko **lastertasunean** . Josu Zabaleta

Ia zortziehun kilometroko **lastertasuna** harrapatzea. Josu Zabaleta

Ahoskorden dardararen **lastertasunak** baldintzatzen du hotsaren maiztasuna. Lourdes Oñederra

Neure gaitza, bada, ikaragarrizko **lastertasunaz** ari zitzaidan areagotzen. Koro Navarro

Gabik ederki gozatu du bide guztian, anaiak **lastertasuna** biziagotu duenean batez ere. Jokin Muñoz

Ezinbestekoa da denok norabide berean ibiltzea, baina ez, nahitaez, denok **lastertasun** berean ibiltzea. Koldo Zuazo

Lauhazka doan zaldiaren **lastertasunean** abiatu izan balitz. Jon Muñoz

**2** (izenondoekin)

Autoa **lastertasun** bizian zihoan. Jon Muñoz

**Lastertasun** handiko kalkulagailua. Joxe Austin Arrieta

Trenak **lastertasun** handiegia hartu zuenean. Iñaki Mendiguren

Gizarte-aldaketaren **lastertasun** azeleratua. Iñaki Mendiguren

Nora garamatza **lastertasun** itsuko tren honek? Joxerra Garzia

Medina hiriaren inguruko basamortu-sail txiki batzuetatik abiaturik, **lastertasun** harrigarriz hedatu zen islama. Jon Muñoz

**Lastertasun** beldurgarriaz zabaldu zen izurria kontinente osoan. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan)

Orain **lastertasun** ariketak hasi gara egiten. Josu Zabaleta

Ondo pasatzen zuen **lastertasun**-txapelketak egiten makinaren kontra. Jon Muñoz

· Efekto hori saihesteagatik jaso da, hain zuzen, proiekzio-**lastertasuna** [...], lehenik segundoko 12 iruditik 16 iruditara, eta gero poliki-poliki 24 iruditaraino. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lastertasun berean** (3); **lastertasun bizian** (3); **lastertasun handiko** (3)

**proiekzio lastertasuna** (3)

**hamar kilometroko lastertasunean** (3)

---

# lastertoki *iz* lasterketak egiteko prestaturiko tokia.

Geltokiaren atzean zaldi **lastertoki** bateko oztopo guztiak ikusten ziren. Fernando Rey

---

# lastertu, laster(tu), lastertzen **1** da/du *ad* lastertasuna hartu edo eman.

Hondar ordua genuen goiz hartan zurekin eta, noiz eta sartu baitzinen, bihotza **lastertu** eta bizkortu zitzaidan. Joan Mari Irigoien

Ikasketak amaitzeko garaia hurbiltzen zen neurrian, **lastertu** egiten zitzaizkion bihotz-taupadak. Jose Morales

Badirudi gizakiek alferrik gastatzen dutela energia gorputzaren abiadura **lastertzen** eta moteltzen. Irene Aldasoro

1990eko hamarraldiaren hasierako finantza-integrazioaren azkentzeak, parekotasunen doikuntzaren estigmatizazioarekin batera, nahitaez **lastertu** zuen ekonomien bateratze nominala. Koro Navarro

Eliza munduko arazoetan nahasteak eta ekintza-modu sekularretara emateak **lastertu** zuen atzerakada. Iñaki Mendiguren

*Limes* baten kolapsoa eragozteko baliabide honek eragotzi behar zuen hondamendia **lastertu** baino ez duela egiten. Iñaki Mendiguren

Hizketa **lastertzea** urduritasunaren seinale izan daiteke. Lourdes Oñederra

• **2** da *ad* lasterka joan.

Kalera **lastertu** nintzen, ez zebilen inor. Koldo Izagirre

---

# lastertxo *adlag adkor* laster.

Erran gabe doa, liburu-denda itxi eta saldu egin zutela **lastertxo**. Josetxo Azkona

Udaletxeko plazara iritsirik, handik bertatik beherantz abiatzen zen karrika bakarretik jo zuen **lastertxo**. Josetxo Azkona

---

# lastertze *iz* lastertasuna hartzea edo ematea.

Oro har, uste dut onuragarri litzatekeela sakonago ikertzea urduritasun, tempo **lastertze** eta bestelako egoera berezietako ahoskera aldaketen inguruan. Lourdes Oñederra

---

# lasterxka *adlag adkor* lastertxo.

Anitzen gustuko **lasterxka**. Itxaro Borda

---

# lastima **1** *iz* errukia eragiten edo pena ematen duen gauza.

**Lastima** sentitu nuen. Eider Rodriguez

**Lastima** habaila ez edukitzea. Josu Zabaleta

Hau **lastima** nazioa hain egoera dorpean baita... Elena Touyarou

**Lastima,** nire iritzian horrelako jendeari odolkiak eman behar baitzaizkio ordainetan. Josu Zabaleta

**Lastima,** badu lagun bat, Beppy izenekoa, bere gain oso eragin txarra duena, zeren egiaz gauza zikinak eta desatseginak esaten baititu. Josu Zabaleta

**Lastima,** deiturak irlandar itxura handiagoa ez izatea. Irene Aldasoro

**Lastima** ematen dit bere barruan toles horiek izateak... Josu Zabaleta

"Vashka Kashirin" deitzen zion bere buruari, harrokeriaz eta **lastimaz**. Jose Morales

Lehen aipatu abesti **lastimazko** horiengatik. Patziku Perurena

**2** ***lastima izan*** da *ad* ik **domaia 2.**

**Lastima** da honen altzari ederra eman beharra. Josu Zabaleta

**Lastima** zen, agian gauzak bestelakoak izan zitezkeen egoera ezberdin batean ezagutu balute elkar... Harkaitz Cano

Esan zuen **lastima** zela garagardo beltz tanta bat ez edukitzea trago bat egiteko. Irene Aldasoro

Jacqueline txoraturik dauka, eta **lastima** da. Josu Zabaleta

**-Lastima** izango litzateke, hain da ederra! -esan zuen sarjentuak. Felipe Juaristi

Akats asko zituen, baina **lastima** da, **lastima** denez! Antton Olano

· Tira, **lastima** da, gero! Mirentxu Larrañaga

**Lastima** da, gero, zuri ez gustatzea. Mirentxu Larrañaga

**3** ***lastima eman***

Eta inoiz ez zizun hainbeste **lastima eman**. Harkaitz Cano

Portugesari **lastima eman** genion, edo aspertu zen atea ixtez, eta sartzeko esan zigun. Joseba Sarrionandia

**Lastima ematen** dit bere barruan toles horiek izateak... Josu Zabaleta

Pentsatzen dinat horrelako gauzak ez direla egun batetik bestera gertatzen, eta hala ere **lastima ematen** zidan. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**hori da lastima** (5); **lastima da** (38); **lastima duk** (3); **lastima izan** (6); **lastima izan da** (3); **lastima izan zen** (3); **lastima zela** (3); **zer lastima** (3)

---

# lastimagarri *izond* lastima ematen duena. ik **tamalgarri**.

Goizean goiz irten zaitez, hor izanen duzu, beti adar berexkoetan, xaltoka zure aurretik, kantu **lastimagarria** dirudien malenkonia buxtizkoan. Patziku Perurena

Beherakoa daukazu, seguru asko beldurrak, tentsioak, hotzak, goseak eta jipoiak eraginda, eta itxura **lastimagarria** behar duzu izan. Rafa Egiguren

---

# lastimatu, lastima(tu), lastimatzen da/du *ad* min egin, hondatu.

Kristo gurutziltzatuak dirudite, beren gorputz agonikoak antiaju beltz eta galtzamotz extutan konprimiturik, odola izerditan bo[ta]tzeko puntturaino **lastimatuak**. Patziku Perurena

---

# lastimoso *izond* errukarria, errukarrizkoa.

Segidan, ordea, ibiltzen hasi eta segituan, Ametzagaingo txakurraren zaunka **lastimosoak** aditu genituen. Pedro Alberdi

Mutila, bizi **lastimosua** galtzeko zorian odolusten ari zela. Makinako teklak modu **lastimosoan** sakatzen ari nintzela. Jon Alonso

---

# lasto 1 *iz* gariaren, garagarraren eta kideko landareen zurtoina, bereziki ihartua, ebakia eta joa izan ondoren.

Ganaduarentzako belarra eta **lastoa**. Bernardo Atxaga

Zamari eta zaldientzat behar zen garagarra eta **lastoa** ere eraman ohi zuten. Elizen arteko biblia

Oloa zen, ez **lasto** hutsa. Jose Morales

Ez naiz airean doan hosto eta **lasto** iharra baizik. Elizen arteko biblia

**Lasto** lehorraren usain gozo-antza sentitzen zen airean. Josu Zabaleta

Baheak garaua eta **lastoa** bereizten zuen, gero **lastoa** biltzen zen eta garaua alferrik galtzen uzten. Josu Zabaleta

**Lastoa** suak hartuko du eta irentsiko. Elizen arteko biblia

Suak irensten duen **lastoaren** antzeko izango dira. Elizen arteko biblia

Gaztainak jasotzeko sasoia da [...]; ganbaran apaletan, **lastoa** azpian, errezil-sagarrak lasa-lasa kokatzekoa, mizpirak goxatzekoa... Pello Zabala

Su beraren eraginez, urreak distira egiten du eta kea dario **lastoari,** Belartxo **lasto** kolorekoan eserita. Imanol Unzurrunzaga

Landetxe patio bat baitzegoen, iluna eta bizia, **lasto** moztu berriaren usainez eta gorotz beroarenez mukuru. Karlos Zabala

Gurdia **lastoz** zamatu eta etxera itzuli dira hirurak. Alberto Barandiaren

Pozik etzango du burua **lasto** gainean. Askoren artean

Arto ez bada, **lasto**. Luis Elberdin

Finean, aleak merezi izan zuen hainbeste **lasto**. Jon Alonso

*Marca*-n, Valentzia-Bartzelona partidaren egunean, azalean, bihia bera **lasto:** "Partidazo". Iñigo Aranbarri

**2** (material gisa)

Antzinako panpina **lastoz** beteak. Patziku Perurena

Voodooa egiteko egokiak omen diren **lastozko** txorimalo ttikiak nonahi. Harkaitz Cano

Marseillan teilarik gabeko estalkiak ikusten dira, lurra **lastoarekin** nahastuz eginda. Santiago Iruretagoiena

Harrizkoa uste genuen jauregia, **lastoz** egina zen. Anjel Lertxundi

Ez zutela txabolatxo bakar bat besterik, **lastoz** estalia eta zume eta buztinezko hormaz egina. *La Caledonia* adobezko etxe luze bat zen; sabaia **lastozkoa** zuen, bi isurkinekoa, eta adreiluzko korridore bat. Askoren artean

Ohe bat ekarri zuen, **lastozko** koltxoia zuena. Koro Navarro

**Lasto** beltzezko kapela xingola-gabe bat buruan. Karlos Zabala

Milanen ateratzen zen bere esku-makila eta **lastozko** kapelua hartuta. Fernando Rey

Damentzako **lastozko** kapela hegal-zabal bat darabil orain buruan Otsemek. Mirentxu Larrañaga

Oihalezko kapela bat, **lastozkoaren** ordez. Anton Garikano

**Lasto** ustelduzko ohe batean. Koro Navarro

Ate ondoko **lastozko** aulkitxoan. Alberto Ladron Arana

**3** (hitz elkartuen lehen osagai gisa¸orobat **lasta** g.er.)

Adiskide, utzi begian duzun **lasto**-izpia ateratzen. Elizen arteko biblia

Beren sugandila-ahoak **lasto**-hariz ongi estekatuak. Joxe Austin Arrieta

Barruan beste gela txikiago bat zegoen **lasto**-ehunez egina. Askoren artean

Egongela polit bat zen, **lasta**-oihalez tapizatua. Josu Zabaleta

**Lasto** makilatxoz osaturiko errezela zeharkatu zuen emakumeak. Harkaitz Cano

Indioak, noski, galtza eta **lasto**-kapelu txuridunak. Joxe Austin Arrieta

Altzari apurtuak, oholak, **lasto**-zakuak denean. Anton Garikano

Kotoizko soineko **lasto**-kolore batek bereganatu zuen bien arreta. Anjel Lertxundi

**Lasto** hotsak kamastraren aldean... Pablo Sastre

Ur eta **lasto** usain sendoa. Josu Zabaleta

Gurdietan **lasto** eta lizun-usain apur bat zegoen. Iñaki Mendiguren

Izotz urtuak osoro makaldua zion **lasto**-zaporearen trinkotasuna. Anjel Lertxundi

**Lasto** apur batez beteriko koltxoi txar apurtuak. Askoren artean

**Lasto**-sortak egitera joan behar zuelako. Joseba Urteaga

**Lasto** fardelak ukuiluan jartzen ari dira bi anaiak. Alberto Barandiaren

**Lasto**-balen gainean eserita geunden. Koro Navarro

**Lasto** pila batean maindirerik gabe. Joseba Urteaga

Fedegabeen batzarra **lasto**-meta da, sugarretan amaituko du. fruitondoak **lasto**-korapiloz ornatzen dira, kanposantura lora-sortaz joan aurretik. Elizen arteko biblia

Maiatz jorra, **lasto** jorra. Pello Zabala

**Lasto**-ustel pila baten gainean piltzarren artean. Xabier Olarra

**4** (hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Belar **lasto** bat ahoan zuela. Jon Maia

Gari **lasto** iharrak hartuta. Iñigo Aranbarri

Jo dezagun gari-**lastoa** zuztar-ondotik. Pello Zabala

Urki azal ederra eta garagar **lastoa** baduzue atze alde horretan. Karlos Zabala

Errusiako larreoiloak, olo **lastoaren** eta ikatzen arteko nahasketa batean iristen direnak. Karlos Zabala

Jokoak direlarik sokatira (pisu berdinean), orga joko, **lasto** altxatze, birun karreatze. Herria

**Lasto** altxatzea: 30 kiloko **lasto** zama bat behar da 6 metraraino altxatu ahal bezenbat aldiz 2 minuta barne. Herria

Lucien Betbeder **lasto** altxazale txapeldüna. Herria

· Bahetik pasaturik erretorika-**lastoa** eta fede on zein txarreko gezurrak, giza ale tipikoki gris bat ateratzen zen garbi. Juan Garzia

Horrela egiten du lan estereotipoak, pertsonak panpinduz; haiei barrua kendu eta hutsunea ideia-**lastoekin** edota ideia-trapuekin betez. Bernardo Atxaga

### 5 *baba-lasto* *izond* ergela.

Ez da harritzekoa Luis XVI.a bezain begi-labur asko eta Bi Sizilietako errege bezain baba **lasto** ugari egotea letren errepublikako idazleen artean ere. Anjel Lertxundi

### 6 *lasto gizon*

Landetxeen administrazioa "mamsér" (sasikume) baten esku utzi zuelako, zeinak ogi-koxkor baten truke saldu baitzizkion bere **lasto**-gizon bati. Juan Garzia

Uhin hormatuen artean, ibaiak **lasto**-gixon bat bezala ninderaman. Aingeru Epaltza

### 7 *lasto pila* *(orobat **lastapilo** g.er.)*

**Lasto pila** batean etzatera joan zen. Josu Zabaleta

Korta gainean lo egiten zuen, **lasto pila** batean maindirerik gabe. Joseba Urteaga

Panzer bat **lasto pila** baten erditik bezala pasatu zen barre-algaren artetik. Koldo Biguri

**Lastapilo** baten gainera erori. Aitor Arana

### 8 *lasto sorta* *(orobat **lastasorta**)*

Sagarrak biltzera edo belarra moztera eta **lasto-sortak** egitera joan behar zuelako. Joseba Urteaga

Eta eskuinera aldatzen omen zuen berehala **lasto sorta,** eta esaten omen zuen: [...]. Koro Navarro

Giza gorpuak zabalduta daude lur azalean simaurra bezala, **lastasortak** igitarien atzean bezala, eta ez ditu inork biltzen. Elizen arteko biblia

### 9 *lasto su* *(orobat **lastasu**)*

Hipnosiarena ere urte gutxi batzuetako **lasto- sua** besterik ez zen izan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Txabolari su eman genionean, beheiti-goiti egin zuten garrek **-lasto-su,** laster-su-, baita ene arimak ere haien hauts garreztatuekin batean. Joan Mari Irigoien

Orain ez da **lastasurik** iristen, inork ez du gure aitonaren etxean gauerdian aterik jotzen, ez dago ezkutuan ibili beharrik ere, baina jendea heltzen da oraindik belar eskean. Iñigo Aranbarri

### 10 *lasto zuzi* *(corpusean **lastozuzi** eta **lastazuzi** soilik)*

Lastargi eta **lastazuzi** handi luzeak. Pello Zabala

Mendigaineko gizonezkoek, lastargi bana eskuetan, **lastozuziak** astinduz, deiadar batean lagundu behar zieten goitik oihuka. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **gari lasto** (3); **lasto altxatze** (10); **lasto altxatzea** (12); **lasto altxatzen** (10); **lasto bala** (3); **lasto bila** (4); **lasto hutsa** (4); **lasto izpi** (3); **lasto izpia** (6); **lasto koloreko** (4); **lasto meta** (3); **lasto pila** (4); **lasto pixka bat** (3); **lasto sorta** (3); **lasto su** (3)
>
> **belarra eta lastoa** (3); **lastoa bezala** (9); **lastoa eta belarra** (3)
>
> **lastoaren plazan** (3)
>
> **lastorik emango** (5)
>
> **lastoz bete** (4); **lastoz beteak** (3); **lastoz egindako** (3); **lastoz eginiko** (3); **lastoz estalia** (3)
>
> **apaindutako lastozko kapela** (4); **lastozko kapela** (26); **lastozko kapelak** (7); **lastozko kapelaren** (3); **lastozko kapelu** (5); **lastozko kapelu bat** (3); **lastozko kapelua** (3); **lastozko koltxoia** (3); **lastozko txabola** (3); **lastozko zubia** (4)

---

## **lastokara** *izond* lastoaren kolorekoa.

Gelako paretetan, lore ñimiñoekiko paper **lastokara** gainean, dekoraziotzat zenbait plater zeramikazko: Kordoba, Granada, Napoli, Palermo... Pablo Sastre

---

## **lastoki** *iz* lasto landarea.

Lehen urtean artoa, bigarrenean beste **lastoki** edo bihiki bat eta hirugarrenean pentze egiten dugu eremu bera. Herria

---

## lastotegi ik **lastategi**.

---

## **lastotsu** *izond* lasto asko duena.

Ilberriko alea **lastotsu,** ilbeherakoa burutsu. Pello Zabala

---

## **lastotxo** *iz* edateko erabiltzen den hodi txikia. ik **arrauka 2**.

Haurrek burbuilak egiteko erabiltzen zituzten plastikozko **lastotxoak**. Iñaki Mendiguren

Zornea zeriola zuen eztarri barrena, eta **lastotxo** batekin aritu behar izan zuen likidoak hartzen. Berria - Kirola

---

## **lastoztatu,** lastzota, lastoztatzen du *ad* lastoz estali edo hornitu.

Maiz ikusi ohi genuen herrixka ingurunean, Iddesleigh aldean, norbaiten teilatu gaina **lastoztatzen,** dinbi eta danba. Mirentxu Larrañaga

---

## **lastoztatzaile** *iz* lastoztatzen duen pertsona.

Pete Bovey, lanbidez teilatu-**lastoztatzailea,** eta sagardo edale fina, Doltongoa hura ere. Mirentxu Larrañaga

---

lastozuzi ik **lasto 10**.

---

## **lastra** *iz* harrizko atal luze eta mehea.

Berehala, teilatura igo zen etxea desegiteko asmoz, eta esku azkarrez teilak eta **lastrak** iraultzen hasi zen. Askoren artean

---

## **lastratu**, lastra, lastratzen du *ad* lastatu.

Berunez **lastratutako** gorpuak. Koldo Izagirre

---

## **lastre** *iz* lasta.

Izen barregarri horrek, aspaldi guztitik **lastre** baten gisa sentitu banuen ere, izen horrek agian hala lagunduko zidala niri ere gorabidean. Matías Múgica

---

## **lata**[1] **1** *iz* latorrizko ontzia; batez ere, kontserbak gordetzeko erabiltzen dena. ik**latontzi; poto**.

**Lata** ireki eta telebistaren aurrean eseri da. Harkaitz Cano

Apar lehertuak plai ertzeko hondarrean lagatako itsasbelar, konpresa, plastiko eta **lata** hutsak, Neptunoren opari. Xabier Mendiguren Elizegi

Kamtchatkako izokin kaviarra du 6 eurotan **lata**. Berria - Mundua

Edari freskagarririk ezin da **latetan** erosi. Jokin Urain

Armak atera nituen lur azpian gordeta neukan **lata** batetik: 38ko errebolber bat eta 9 laburreko pistola. Rafa Egiguren

**Latako** janaririk egun batzuetan ez prestatzeko eskatuko diozu sukaldariari. Joseba Sarrionandia

Arratsalde batean, **latako** izokina jan eta kafe beroa hartzen ari ginela. Bernardo Atxaga

Esan zidan **latako** sardina usaina nuela. Ramon Saizarbitoria

**2** lataren edukia.

**Lata** bat garagardo oso suspergarri ona izango zen hura bezalako goiz batean. Lopez de Arana

**Lata** bat atun ogiarekin. Joseba Sarrionandia

Goiok **lata** bat galipot bero ekarri zuen. Joseba Sarrionandia

4.000 **lata** kontserba. Joseba Sarrionandia

**3** (hitz elkartuen lehen osagai gisa)

Lore zuztarrak landatzen zituzten janari **lata** herdoilduetan. Bernardo Atxaga

Zerbeza **lata** bana genuen eskuetan. Aingeru Epaltza

Garagardo **lata** batzuk, ilaran eta etiketak agerian ordenatuak. Joseba Sarrionandia

Merkatu beltzean erosi behar izan ditu hegaluze **lata** horiek. Harkaitz Cano

Sardina **laten** pilak ikustea ere atsegin zuen neskak. Karlos Zabala

Ogi pilo bat eta haragi **lata** handiak. Urtzi Urrutikoetxea

Niri ere helarazi zidaten, batek daki nondik, kontserba-**lata** bat. Urtzi Urrutikoetxea

Oiloei ura emateko herdoildutako azeituna **latak**. Jon Maia

Guk gaileta **lata** batekin antolatu genuen brinkel bat Burgosen berrogeita hamabian. Koldo Izagirre

Petrolio-**lata** bat eskuetan zeukan gizon batek. Lopez de Arana

Tinta-**lata** batzuk, eta makina-olio ontzi pare bat. Txillardegi

Katuak zabor-**latak** bertan behera uzten ari ziren. Lopez de Arana

· Sardina gazituen kaxa biribila hartu eta oliba olio **lata** koloretsuen gainean utzi du. Pello Lizarralde

Talko-hauts **lata** bat, azazkaletako eskuila bat, eta veronal pastilla-kaxa bat. Mirentxu Larrañaga

**Lata** huts mordoa pilatu nuen mahai gainean. Ramon Saizarbitoria

**4** ***lata-irekitzeko*** *iz*

Jeani labana bat egokitu zaio, xafla askotakoa, bere kortxo-kentzeko, **lata**-irekitzeko eta guzti. Eskarne Mujika

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atun lata** (3); **coca cola lata** (5); **cola lata** (5); **garagardo lata** (12); **hegaluze lata** (3); **kontserba lata** (6); **lata handi** (3); **lata huts** (4); **sardina lata** (10); **zerbeza lata** (3)
> **garagardo latak** (7); **kontserba latak** (5)

---

## **lata**[2] **1** *iz* teilatuetan, teilen euskarri, ipintzen den ohol mehe eta luzea.

Eta eliza osoki inguratuz, gapirioak, habeak eta **latak** ageri, egurrezko aterpearen euskarri. Txillardegi

**2** harrizko atal luze, lau eta mehea.

Hilobi gaineko **latan** zeuden lore idortuak bazterrera bota eta ekarritako arrosa gorriak jartzeko ur berriaren bila joan zen. Labartzaz bestaldean, Izarteko **lata** beldurgarriaren erditsuan, mugitu ezinean gertatu nintzen arrastiri batez itsasora begira. Joseba Sarrionandia

**Lata** berdin beldurgarri honetan, zulorik ez, heldulekurik ez, tarterik edo arraildurarik bat ere ez! Txillardegi

Esku ahurraz har-**lata** ukitu nuen. Txillardegi

---

## **lata**[3] *iz*

**1** ***lata eman*** kalaka eman.

Nik banuen aitaita bat, Salamancan greziera-katedraduna, egundoko **lata** eman zuena niri behar bezalako izen bat jar ziezadaten. Joxean Sagaztizabal

**Lata** pixka bat eman nion, eta bi orduko grabazioa egin zuen. Berria - Kultura

---

## **lataratu** *izond* ontziratua.

Charlyrenera deitzean bezalako emakume ahots atsegin-uste **lataratua** ateraz gero zer mezu klase utzi -biraoa, laidoa, sarkasmoa- gogoan nerabilela. Aingeru Epaltza

## **latente** *izond* sorra.

Misoginia **latente** ikaragarria dago gure literaturan. Ana Urkiza

## **latentzia** *iz* sortasuna.

Mugimenduon **latentzia**-aldia (hasteko behar duten denbora) nahiko laburra da, bi segundo hamarrenekoa gutxi gorabehera. Josu Zabaleta

## **lateral** **1** *izond* albokoa.

Antxetak bere begi **lateralak** kliskatu zituen. Joseba Sarrionandia

Autoa gidagailurik gabe denean, gurpilek zuzentzeko joera dute, eta, ondorioz, azelerazio **laterala** zerora gerturatzen da. Berria - Kirola

**2** (kirol talde batekoa)

Gehiago eman dezake zelai erdian ezkerretik, hegaleko baino: ondo iristen da aurrera, zalea da igotzen, ukitu ona du; baina, **lateral** jokatzeko, ez du oso ongi gordetzen atzean tokia. Berria - Kirola

## **laterri** *iz* estatua, politika banako beregaina osatzen duen herrialdea.

Geroztik beste hamaika errege eta ahaltsu hil izan duk, **laterri** handiak menperatu ondoren. Xabier Amuriza

## **latex** **1** *iz* zenbait landareren zauriei darien esne modukoa.

Ordukoz, zainek ohiko izate apala itzularazia zidaten gerriazpitik, eta horrek erraztu zizkidan **latex** babestailea eranzteko lanak. Aingeru Epaltza

Halako batean, kremaileratik tiratu eta **latex** irisatuzko top ñimiñoa zorura bidean joan zaio. **Latexari** eskumutur parean tira egin eta txistu desatsegin bat egin zuen eskularruak, egurraz jabetzen ari den suaren antzekoa. Patxi Iturritegi

Txalekoko patrikatik **latexezko** eskularru parea atera eta hizketan jarraitu zuen. Harkaitz Cano

**Latexezko** goanteak kendu. Jon Alonso

Gaur eguneko kondoiak, berriz, **latexezkoak** dira. arrosa koloreko **latexezko** esferak. Luis Elberdin

Seringa arbolatik **latexa** ateratzen zutenen jazarpena jasan zuten aurrena, eta zur merke bila joan ziren lurjabe handiena gero. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Amazoniako kautxu-zuhaitzik onena; gogorrena eta **latex**-emailerik oparoena, aldi berean. Jon Muñoz

## lati ik **latin**.

## **latifundio** *iz* lur jabego handia.

Alenteijo eskualdeko jornaleroek **latifundio** handiak okupatu zituzten. Berria - Mundua

Nire familiak ikusi zuen han zapaltzen zituen hanka bera zela hemen azpian zituena, han **latifundioen** bidez, eta hemen fabriketan. Berria - Kultura

## **latifundista** *iz* latifundio baten jabea.

Indigenek, baina, ez dute uste horrekin azken urteotan nekazari eta **latifundistekin** izan dituzten liskarrak amaituko direnik. Berria - Gaiak

## **latigo** *iz* zigorra.

Garai hartako "pedagogian" oso normala zen zigorra **(latigoa)** erabiltzea ipurdi biluzietan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ezta Ipar-haundia ere, itsasaldetik builatsu eta dena aurretik eraman beharrean etor ohi dena, kostaldean **latigo** emanez. Pello Zabala

## **latin** *(orobat **lati** g.er.)* **1** *iz* erromatarrek hitz egiten zuten hizkuntza indoeuroparra.

Pentsa liteke agian Miltonek **latin** eta greko gehiegi zekiela. Iñaki Mendiguren

Frantsesa, **latina** eta ingelesa ziren ene ikasgaiak. Piarres Aintziart

Zeren hiru lagun sartu ginen elkarrekin **latin** ikastera. Askoren artean

**Latina** berpiztearen alde eta kontrako argumentuak kontsideratu nituen. Juan Garzia

Baina **latin** pixka bat ikasiak ginen bederen, laugarren batxilerrean. Joxerra Garzia

*Viruela* **latineko** *variola* hitzetik dator, eta *larruje nabarra* esan nahi du. Patziku Perurena

**Latineko** irakasle batekin izandako liskarren ondorioz. Josu Zabaleta

Hau da, 'Jainkoagandiko jarioa', **latinera** *spiritus* gisa itzulia. Xabier Kintana

*Ab ovo* esamoldea **latinetik** hartutakoa da, noski, eta *arrautzatik* esan nahi du. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mintzaldi labur bat egiten zigun **latinez**. Marzel Etxehandi

Haren liburu gehienak atera ziren lehenik gaztelaniaz edo **latinez,** bat edo beste portugesez. Piarres Xarriton

Arabieraz otoitz egiten zûen, gûk elizan **latiz** egiten gûnûan bezala. Herria

**Latin** eta grekozko prosan. Iñaki Mendiguren

Elizako errentez idatzi dudan **latinezko** liburuxkan. Piarres Xarriton

Bost urte nituenerako Ovidio irakurria nuen, **latinezko** jatorrizkoan. Jon Alonso

**2** (izenondoekin)

**Latin** goxo bat, errexa, denen menekoa. Marzel Etxehandi

Frantsesa eta Probentzala, esaterako, biak **latin** arruntetik sortuak dira, **latin** arruntak Galiako iparraldean eta hegoaldean izan zituen bilakaera desberdinen ondorioz. Isabel Arrigain

Ea zer bilakatu den frantsesez **latin** klasikoko *e* hura. Isabel Arrigain

Eskolastika Erdi Aroko **latin** hilaren filosofia da. Joxe Azurmendi

Alferrik Agerreren **latin** joria, doktore gehienenaren gainetik zegoena. Aingeru Epaltza

Epaileek barre egin zuten haren salmoen **latin** landerraz. Juan Garzia

**3** (beste izen baten ezkerrean)

Nazioarteko merkataritzaren hedapenak, nolanahi ere, Erdi Aroko **latin**-kristau herriaren mugen barnean bakarrik indartu zituen merkatariak. Koro Navarro

San Tomasen **latin** hizkera latza, liraina zeukan. Piarres Xarriton

'Zer pasatzen zaik, Goio?' galdetu nion **Latin** klasean. Joseba Sarrionandia

**Latin** azterketa batean. Iñaki Arranz

Frantsesez, **latin** izenetik gertuago, *globicephale noir* da, edo *baleine pilot*. Iñigo Aranbarri

**Latin** sintaxiaren erabileraren plazerretik zetorkidan errabia hori. Piarres Aintziart

**Latin**-gramatika batean. Xabier Arregi

**Latin** literaturako irakasle bati entzundakoa ekarri nuen harira. Bernardo Atxaga

Ni **latin** eta frantses irakaslea nintzen, erdi kolegioan, erdi lizeoan. Piarres Aintziart

• **4** *izond* latinezkoa.

Marcosek pentsatu zuen "mutlare" hitza **latina** dela eta bokal batzuk laburrak direla eta beste batzuk luzeak. Unai Elorriaga

Hiru masta, eta mastotan, **latina** deritzegun horietako hiruki-taxuko bela bi bakoitzean! Edorta Jimenez

**5** ***latin jazz***

**Latin jazz** ekitaldi didaktikoa **Latin jazz** gauek, esaterako, berebiziko garrantzia hartu dute mundu osoko jazz jaialdietan. Berria - Kultura

*Be-bop* arinean maisuak dira ( **latin jazz** pieza pare bat egin arren). Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **latin arrunteko** (4); **latin jazz** (5); **latin klasikoko** (3); **latin pixka bat** (3)
>
> **latina erabili** (4); **latina eta grekoa** (4); **latina ikasi** (4); **latina ikasten** (3); **latina izan** (3)
>
> **latineko irakasle** (3); **latineko irakaslea** (3); **latineko klasean** (3)
>
> **latinera itzuli** (4)
>
> **latinetik dator** (3)
>
> **latinez idatzia** (3); **latinez idatzitako** (4)
>
> **latinezko esaldi** (3); **latinezko hitz** (5); **latinezko hitzak** (6); **latinezko hitzetik** (4); **latinezko izen** (4); **latinezko izena** (4); **latinezko lan** (3); **latinezko testuak** (3); **latinezko testuaren** (4)

---

## latinamerikar *izlag* latino-amerikarra.

Susmoa zuen ez zela espainiar edo **latinamerikar** egile batena eta, gainera, beste hizkuntza batean idatzia bazegoen ere, ez zuela gaztelaniazko itzulpenik izango. Iban Zaldua

Ez da kasualitatea liburuaren argitalpen asko Robert Damiensen urkamendiaren kontaketarekin etortzea [...] Luiz XV.a aiztoz zauritzeagatik; edota edizio **latinamerikarren** batean Tupac Amaruren urkamendia agertzea, El Cuzcoko Arma-plazan. Juan Martin Elexpuru

---

## latindar **1** *izlag* Erroma metropolitzat zuen eskualdeari dagokiona. ik **latino**.

Bonabenturak zehatz-mehatz gordetzen ditu **latindar** prosaren *cursus rhythmicus* delakoaren arauak. Askoren artean

**Latindar** jatorriko kolonientzat. Iñaki Mendiguren

Ontzi-mota berria asmatu zuten hamabosgarren mendean, hiru masta eta sokateriaz hornitua, lehenengo **latindar** haize-oihalak eta gero txopatik brankara oihalak zituena. Iñaki Mendiguren

Azken pentsalari greko eta **latindarren** mundu ustelduan. Askoren artean

Mitologia greko-**latindarretik** abiatuz egindako margolanak. Bernardo Atxaga

**2** latino-amerikar herrialdeei degokiena.

Chicagoko **Latindar** jaialdian 'Yuri Sam' lana aurkeztuko du. Berria - Kultura

Europakoak zerikusi gutxi dauka herrialde **latindarretan** egiten denarekin. Berria - Euskal Herria

**3** *iz* Erroma metropolitzat zuen eskualdeko herritarra.

Virgilio, Horazio eta gainerako **latindar** klasikoak irakurtzeko. Iñaki Mendiguren

Greziarrentzat **latindarrak** barbaroak ziren. Iñaki Mendiguren

**Latindarrek** horren orde grekozko Metanoia erran behar zutela, latinezko hizkuntzak beste hitz bat baduelakotz, hori baita Poenitudo. Piarres Xarriton

**4** ***Auzo Latindar*** Pariseko auzo baten izena.

Auzo **Latindarreko** liburu-denda espezializatuetan. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **auzo latindarreko** (7)

---

## latindartu, latindar(tu), latindartzen da *ad* latindar bihurtu.

Mundu helenikoan probintzietan **latindartuek** laugarren mendean kristautasunerantz izandako lerratzea. Iñaki Mendiguren

---

## latindu, latin(du), latintzen du *ad* latinezko bihurtu.

Eskuarazko hitz guzien **latintzeko** . Iñaki Arranz

---

## latinera *iz* latina.

Elementurik interesgarriena **latineraz** *sacraria* deitzen dioten egitura da. Berria - Kultura

---

## latineratu, latinera(tu), latineratzen du *ad* latinera itzuli.

Baina, filosofiaren ikuspegitik, Boezioren egitasmoa egundokoa izan zen: Platonen eta Aristotelesen obra osoa **latineratua** eskaintzea. Askoren artean

**latineztatu**, latinezta(tu), latineztatzen du *ad* latinezko kutsua eman. ik **latinizatu**.

Jin baitziren Zezar enperadorearen soldado eta aintzindariak, beren Italia eta Piemonteko guneetarik, Probentza, Katalunia, Okzitania eta guziak beretu beharrez, eta gune horietako mintzairak oro **latineztatuz** nolazbait... Herria

---

**latinismo** *iz* latinezko hitz edo esapidea, beste hitzkuntza batean erabiltaen dena.

Jatorrizkoa ingelesez idatzia da eta **latinismo** ugariz hornitua. Juan Garzia

---

**latinista** *iz* latin hizkuntza eta kulturan espezialista den pertsona.

**Latinista** oroituko da hemen gelditu zela "Legio VII Gemina", Galba inperadoreak moldatua. Piarres Aintziart

Gauzak lasaitu ziren, **latinistak** joan ziren, eta mahaian eseri nintzen berriro idazten hasteko. Josu Zabaleta

---

**latinizatu**, latiniza(tu), latinizatzen **1** du *ad izond* latinezko kutsua eman.

Euskara garbi gelditu zela, beste herrialdeen mintzairak bezala gurea **latinizatu** gabe. Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Erromatarrek helenismo **latinizatua** eraman zuten Apeninoen, Po eta Alpeen gainetik Mediterraneoko europar barrualde *(hinterland)* kontinentalean zehar ezarri zuten arte, Danubioren deltatik Rhinen bokaleraino eta, Dover-eko itsasartean zehar, Britainiaraino. Iñaki Mendiguren

---

**latinizazio** *iz* latinizatzea.

Inperioko eskualderik atzeratuenetan zibilizazio-gune (kasuaren arabera, **latinizazio** edo helenizazio-gune) izateko. Iñaki Mendiguren

Gure **latinizazioa** Burgoskoei edota Santanderkoei ezkutatzea. Bernardo Atxaga

---

**latinkeria** *iz* latinezko hitz edo esapidea, gaitzesgarritzat hartua.

Hauxe zen Joxe Krakaxen istorioa, Dantxarik, Estudianteak, egileak eman dituenak baino **latinkeria** gehixeagorekin kontatu zuena. Koro Navarro

---

**latino** **1** *iz* latinari dagokiona; Erroma metropolitzat zuen eskualdeari dagokiona. ik **latindar**.

Kultura **latinoa,** ordea, berdinarazlea da, zapaltzailea, diferentzien ukatzailea. Joxe Azurmendi

Jeinu espainolaren ezaugarri horiek autore **latino,** judu, arabiar nahiz kristauetan egiaztatzen ahal dira. Joxe Azurmendi

Beste hizkuntza **latinoetako** herrietatik. Joxe Azurmendi

Frantzia bera hagitz **latinoa** baita. Joxe Azurmendi

**2** latino-amerikarra.

Espainia eta Amerika **latino** guztia nazio bakar bihurtzeko. Joxe Azurmendi

**3** ***latino-amerikar*** *(5 agerraldi, liburu 1 eta 2 artikulutan; orobat* ***latinoamerikar*** *43 agerraldi, 8 liburu eta 19 artikulutan)* espainolez edo portugesez mintzatzen diren herrialdeei dagokiena.

Zorraren aldaketa publiko edo pribatuko programek bultzaturik [...] **latino**-amerikar ekonomia zordunduenek hiperinflazioa ezabatu ahal izan zuten. Koro Navarro

Europar kapitalak, japoniarrak eta **latino**-amerikarrak (azken horiek, depreziazio lasterra pairatzen ari ziren tokiko diruetatik ihesi) dolarretan hasi ziren inbertsioak egiten. Koro Navarro

Ezker **latinoamerikarraren** eredua. Pako Aristi

Helenek literatura **latinoamerikarra** irakasten zuen. Bernardo Atxaga

Idazle **latinoamerikarren** abertzaletasun antiespainolaren aurka. Joxe Azurmendi

Errepublika **latinoamerikarretan**. Joxe Azurmendi

**Latinoamerikarren** artean, argentinarrena zen talde handiena. Jokin Urain

**Latinoamerikar** askok Espainiarekin hurbiltasuna bilatzeko ez duela gogorik batere erakusten. Joxe Azurmendi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**latino amerikar** (3)
**alfabeto latinoa** (3); **jazz latinoa** (7); **latinoa eta** (3); **latinoa ez** (4); **musika latinoa** (3)
**erritmo latinoak** (4)
**kultura latinoamerikarren** (3)
**jazz latinoaren** (8)
**jatorri latinoko** (4); **jazz latinoko** (3)

---

latinoamerikar ik **latino 2**.

---

**latinoamerikartasun** *iz* latino-amerikarra denaren nolakotasuna.

Bestela, kafea ekarri digun berrogeita hamar bat urteko iritzi diodan beste emakumeari ere **latinoamerikartasuna** dario. Edorta Jimenez

---

**latinzale** *izond* latinaren zalea dena.

Jérôme Carcopino gure jaun ministro berri **latinzale** jakintsuak. Piarres Xarriton

Plinioren *Naturalis historia*ren liburuki bakoiti bat, zeinak aise gainditzen baitzituen (eta oraino ere gailentzen baititu) **latinzale** gisa ditudan ahalmen xumeak. Juan Garzia

---

**latitude** **1** *iz* Lurraren gainaldeko puntu batetik ekuatorera dagoen angelu distantzia.

Keopsen piramidea Gize-n dago, 30°ko **latitudean,** ipar-hemisferioan; tropikotik gora, gu bezala; askoz beherago, ordea. Jon Muñoz

Epizentroa Lizaoainen izan zuen, Agoitz eta Iruñea artean (42,80 gradu iparreko **latitudean** eta 1,49 gradu mendebaldeko luzeran). Berria - Euskal Herria

18 graduko **latitudean,** hor nonbait... Joxe Austin Arrieta

Hemen Norvegiako kostaldetik gertu gaude, hirurogeita zortzi graduko **latitudean**. Koro Navarro

Ipar **latitudearen** 80 gradutan nago. Joxean Agirre

Jekaterinburgetik aitzina, Irkutskeko bideak **latitudeko** 55. graduari jarraitzen dio ia paraleloan, baina, Biriusinsk pasata, hego-ekialdera jaisten da nabarmen, eta zeharka ebakitzen du 100. meridianoa. Karlos Zabala

Gure maparik onenek luzerako ehungarren graduan kokatzen dute Harrizko dorrea, eta **latitudeko** berrogeigarren gradu inguruan. Iñaki Iñurrieta

Arratsetik goizaldera zerua doi-doia iluntzen zuen urte sasoi hartan eta **latitude** haietan. Karlos Zabala

Izotz aztarnak aurkitu dituzte [Merkurion] **latitude** altuetan dauden inguruetako krater eta gerizpeetan. Berria - Gaiak

Normalean hain **latitude** baxuetara ez da sartzen haize hotz hau. Berria - Harian

Lur-azalaren beroaren intentsitatea ere markatzen du **latitudeak**. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Errekasto urdin bat, estatu-arteko muga-marra zuzen bat, eta **latitude**-gradu baten lerroa, zuri hutsaren gainean...! Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **latitudearen arabera** (3)
> **ipar latitudeko** (3)

---

latoi ik **letoi**.

---

## latomia *iz*

Sirakusa inguratzen duten harrobi ezin handiagoei ***latomiak*** deitzen zaie. Jon Muñoz

Haitzuloetan sarrarazten zituen Dionisiok presoak, **latomiak** haitzuloz josita baitzeuden. Jon Muñoz

---

## latontzi **1** *iz* latorrizko ontzia. ik **lata**[1].

Hurrena agindu zion Amanciorekin eta Jetrurekin hiru bat txartel eta **latontzi** bana hartu eta gasolina bila joateko orduantxe bertan. Inazio Mujika Iraola

**2** latontzi baten edukia.

Alde batera utziko dut, hortaz, Tomek bidearen beste aldean zegoen gasolindegitik **latontzi** bete gasolina oktano-zenbaki handiko nekez ekarri zuelako kontua. Oskar Arana

---

## latorri **1** *iz* bi aldeak eztainuztatuak dituen burdin edo altzairuzko xafla mehea.

Gero, grabatzerakoan, gogoak gidatzen zion besoa, eskua, zizela, **latorriaren** gainean bere bidea aurki zezan. Iñaki Iñurrieta

Ur apur bat atera zuen **latorrizko** depositu batetik. Lopez de Arana

**Latorrizko** zaborrontziak mukuru beteak zeuden espaloietan. Iñaki Zabaleta

**Latorrizko** kutxa txiki batetik azken tableta atera zuen. Lopez de Arana

**Latorrizko** hamar ontzi handi. Juan Garzia

Halako **latorrizko** jostailu mekaniko bat izan naiz, barnea guztiz hutsa duena. Lopez de Arana

Abestalde zerutiarrek, bardoz jantzita eta **latorrizko** botoiekiko txalekoekin, galesera bitxi batez abesten zieten marinelei. Koro Navarro

Lurrina zerion saldaz betetako pertzari; **latorrizkoa** zen, eztainuz estalia. Karlos Zabala

Eta berriro Alfa Romeo hura, haren klaxonkadak kalesketan [...] haren **latorrizko** durundia gauaren erdian... Joxe Austin Arrieta

Gaurko urrea biharko **latorria**. Alberto Ladron Arana

**2** (hitz elkartuetan)

Honi ere kolpetxoa eman nion eta **latorri**-hotsa, lehorra, zartagin zaharrarena itzuli zidan. Iñaki Zabaleta

---

## latoso *iz* gogaikarria.

-Euli **latoso** hauek -erantzun zuen serio baserritarrak. Koro Navarro

Nolanahi ere, makina bat aldiz, zenbait **latosori** erantzunetan esan dudana gogoratu nahi nuen: [...]. Pello Zabala

---

## lats *(orobat **latsa**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lats** agertzen da)* **1** *iz* ur-laster txikia. ik **erreka.**

Hiriburu-Uztaritze errepidean, **latsak** gainezka egin zuen atzo, eta une batzuetan errepide atal batzuk ur azpian egon ziren, zirkulazioa trabaturik. Berria - Harian

Lehortea bide, agian, gure gaztaroko **lats** gardenari ur uherra nagusitu zaio orain. Txillardegi

Eskuinean, **latsaz** bestaldean, herriko etxe urdinskek, otsaileko arrastiri hartan bestetan baino askoz beltzaireago... Txillardegi

**Latsaren** xuxmur izuti etengabea ari, Arhane etxeraino hurbildu nintzen. Txillardegi

**2** bokata, gobada.

Ibarrak arrastiriko zehar-argitan, itzal-mazelak, itzal-trokarteak, **lats** zuriak han behean, larre-pentzeak zehar-argitan, sarale-metak eguzki-argitan gorri, eta artalde bat oihan-ertzeko sakonune harri-kozkortsu batean: zizare zuriak iduri! Joxe Austin Arrieta

**3** (hitz elkartuetan)

-Gero, potxola, bokata-**latsean** elkarrekin ariko gara! Itxaro Borda

---

latsagi ik **latsarri**.

---

## latsaldi *iz* arropa garbitzea.

**Latsaldia** bururatua delarik, hobendunek gimnastika egin behar dute, kadera bat beso bakoitzaren puntan, odolaren kurriarazteko! Marzel Etxehandi

---

## latsari *iz* latsarrian bokata egiten zuen emakumea.

Hasieran ez zen inolako gorabeherarik izan ikerketa hartan, baina halako batean Beatricek **latsari** bati garbitzeko emandako zapi baten kontua agertu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## latsarri *(orobat* ***latsa harri*** *eta* ***latsagi****)* *iz* latsan, bokata egiteko, dagoen harria.

Askak bi dira, garai bateko **latsarri** egun lehortu eta sasi-jandakoen antzekoak, hauek urez beteak. Pako Aristi

Bere itzulian dauzkala **latsa harri** asko. Herria

Hiru emaztek egiten dute gobada **latsarrian,** belaunetaraino uretan. Koldo Izagirre

Oraindik ere bidea utzi gabe, aldaparen erdian, gaztelua, bere garita eta bere zentinela iraganda, **latsarria** aurkitu dut. Koldo Izagirre

Tarrapataka jaten nuen, hurrupa usuek hitza gutitzen zidatela, eta besteek ez zutelarik oraino jana, xutitzen nintzen, etxe itzulian ibiltzeko, **latsarriko** urean oinak sartuko nituela berdin gero, jarri aitzin zubiaren ezpondan. Piarres Aintziart

Gure hiri eta herrietan, zenbat iturri eta **latsagi** gorderik edo zokoraturik daudenak, nun ez diren suntsituak edo lurperatuak izan! Herria

Karruntatürik gure **latsagia**. Herria

Harresiaz harata, Argaren ertzetan, neska ur bila edo **latsarrira** zihoala. Aingeru Epaltza

Louillot-eko **latsa harriaren** adiskideen kasuan errotak itzulia zentzu onean bururatu du. Herria

---

## latsatu, latsa(tu), latsatzen du *ad* latsarrian garbitu.

Horra zer erantzun zien zuriketaren **latsatzen** ari zen emazte batek, non ziren galdetu ziotenean. Elena Touyarou

Handik urruntzekotan zeuden, berriki **latsatu** zuriketa zekarren andre bat agertu zitzaienean, iturri bidetik aldapan gora zetorrela. Elena Touyarou

---

## latxa *iz* ardi arraza baten izena.

Orain arte, Erronkariko Gazta *rasa* eta ***latxa*** ardien esnearekin egiten zuten, baina ardi arraza horiek ez omen dute nahiko esne ekoizten. Berria - Ekonomia

Ardi-**latxen** sariketak, ardi-gasnen primak, ardi-moztaileenak eta tresnerien erakusketak, deizteko eta beste. Herria

Atzerriko ardien esnea sartzen badugu, **latxa** desagertu egingo da. Berria - Ekonomia

**Latxa** artalde gehienak galdu eginen dira honen ondorioz. Berria - Ekonomia

**Latxa** arrazak edo karrantzarrak soilik ematen baitute Idiazabal gazta egiteko beharrezkoa den esnea. Berria - Ekonomia

---

## latz 1 *izond* zimurrez, pikorrez edo irtenunez betea dagoelako, ukimenari atsegin ez zaiona. ik **lakar**. ant **leun**.

Nekazarien oihal **latzezko** beroki lodiez estalirik zeuden. Jose Morales

Ehun **latzezko** zakutxoetan. Jose Morales

Ehunki **latza** kolpeka joaz lantzeko eta tinkatzeko tresna hidraulikoa. Patziku Perurena

Hil-tunika zakuki **latzez** estaltzea eskatu zuen. Askoren artean

Paper **latzean** bildutako zorroak garraiatzen. Anton Garikano

Tunika zarpail eta **latz** batekin. Askoren artean

Erregutzaileen jantzi **latza** jarri dut. Elizen arteko biblia

Alfonbra zatar eta **latz** haren gainean lo jarraitu zuen. Jasone Osoro

Garondoan azal **latza** zuen, txerriaren larru gorrizta iduri. Karlos Zabala

Are izugarriagoa izan zitzaion bere hatz luzeak azal **latz** gogorreko oinetan zehar irristatzean sentitutakoa. Felipe Juaristi

Gorputza bere osoan arantza legezko ile luze **latz** zorrotzez josia. Edorta Jimenez

Buruko ile **latz** gogorrak laztantzen. Jose Morales

Nire eskuak giltza handi eta hozkadunaren gain **latzari** kontzen zionKale garbitzaileek, bi ordutik behin, zola garbitzen zuten ur ugariz, eskuila **latzak** pasatzen zituzten orban gorriak kentzeko Aingeru Epaltza

### 2 irud/hed

Ardo txuri, ardo gorri, ardo beltz, ardo **latz** eta ardo goxo... Pello Zabala

-Isilik! -esan zuen bat-batean ahots **latz** batek. Iñaki Mendiguren

Beso-zangoak gotor zituen, boza ortots, ipurdia **latz,** burua arin eta odola adin ederrean bezain bero. Aingeru Epaltza

Limoi saskitxoen urrin saminak, bakailao bilduen usain **latzak**. Karlos Zabala

Orduan, ura eman zenien harkaitz **latz** batetik. Elizen arteko biblia

Baziren heriotzaren beste seinale batzuk ere: gogoa izuz eta esturaz perturbatua, bekosko errukarria, aurpegi **latz** eta sumindua, [...]. Xabier Amuriza

Soldadu erraldoi haren eztul **latza** entzun nuenean Joseba Sarrionandia

### 3 gogorra, nekagarria. (gauzei buruz)

Baina gizona astindualdi **latz** batekin bizitza guztirako porru eginda gelditzen da. Pako Aristi

Belarrondoko **latz** bat emon zidan, lurrera jaurti ninduen. Koldo Izagirre

Lurrean zegoen zakuak ere ostiko **latza** jaso zuen. Josu Landa

-Zaflako **latzagoak** hartu nitian atzo. Aingeru Epaltza

Kolpe **latz** hark azken pozak suntsitu zizkion. Karlos Zabala

Jipoi **latza** hartzeko zorian zen. Jon Muñoz

Ixtripu **latz** batek betirako eraman du Beñat Jaury ahatsarra. Herria

Astelehen aratsaldean, auto ixtripu **latz** bat gertatu da Ezpeletatik Zuraiderako bidean. Herria

Bide **latzetan** ibiliz. Askoren artean

Ibilbide **latz** eta luzeaz nekatuta. Askoren artean

Iduri du ez dela gerlaren burrunba **latz** eta hasperen izigarrietaz besterik entzuten. Michel Oronoz

Garrasi **latzak** izango dira Egipto osoan. Elizen arteko biblia

Trumoi eztanda **latz** batek berritu zuen erasoa. Koldo Izagirre

Zauri izugarriz, zauri **latz** eta iraunkorrez, gaixotasun gaizto eta sendaezinez. Elizen arteko biblia

Keinu **latz** batez jakinarazi nion ez nekiela nortaz ari zitzaidan. Aingeru Epaltza

Irudi **latz** haiek ekarri nituen berriro gogora. Alberto Ladron Arana

Izozte beldurgarria gertatu zen, mahastiak denak ihar erreta utzi zituen izozte **latz** berandukoa. Pello Zabala

Eremu **latz** batean jarri zara, haizetearen jostailu. Javi Cillero

**4** (gauza abstraktuei buruz)

**Latza** da gaizkileen azkena. Elizen arteko biblia

Aurrerapenak mudantza **latzak** ekarri zituen hirira. Iñaki Segurola

Bizimodu **latz** haren bozkario mingots guztiak ezagutu zituen. Karlos Zabala

Hilabete **latz** horien ondotik, husturik nengoen. Aingeru Epaltza

Hiriak itxura **latz** eta goibela izan arren. Jose Morales

Beste proba **latz** bat gainditu nuen. Alberto Ladron Arana

Bihotz zokoan sekretu **latz** bat daramaten bi neska gazte. Pablo Sastre

Urtarrileko goiz **latz** batean. Iñaki Mendiguren

Beldur **latz** ikaragarri batek hartua nago, hatsa tapatzen didan beldur batek. Janbattitt Dirassar

Sormen-krisi **latz** batean hondoratu zen berriro. Jose Morales

Depresio **latz** baten mendean erori zen. Iñaki Segurola

Etxe guzia ixiltasun **latz** batek hartua zeukan. Janbattitt Dirassar

Nolatan ez duzu zeure egoera **latz** horretatik ateratzeko biderik aurkitu? Jose Morales

**Latzak** izan behar inondik ere Uraleko mugatik harantz jazotzen ari ziren gertaerek. Karlos Zabala

Bidegurutzea gurutzebide bihurtzen zaio, sofrikario **latz,** oinaze gorri. Daniel Landart

**5** (personei buruz)

Gizon **latz** horien begiko egin nintzen. Aingeru Epaltza

Lagun **latz** eta hitz gutiko, inon bada eta. Aingeru Epaltza

**6** (adizlagun gisa) ik **lazki.**

**Latz** jotzen duela material honek! Pako Aristi

Kanoiak ari izan dira berriro ere, mendebal aldeko mazela harritsua **latz** astinduz. Txillardegi

Gizona, **latz** ari baitzen sufritzen alabaren egoera larriagatik [...]. Askoren artean

**Latz** beldurtu nindinan. Anton Garikano

**Latz** egin nuen lan, ahal izan nuen bitartean. Joxe Austin Arrieta

-Lana **latz** egin duk hik bart, inondik ere... Inazio Mujika Iraola

Baietz erantzun zion, **latz,** gogoz bestera. Karlos Zabala

Aitak eskua luzatu zidan, **latz,** nire beso erabilgarri bakarrera biltzeko astirik eman gabe. Aingeru Epaltza

Florentek alde egin zuen gaitzespen oihuen artean, itxura **latz,** belarriak entzungor. Karlos Zabala

• **7** *iz ipar* laztasuna.

Halako **latz** bat, halako pisu bat... Janbattitt Dirassar

-Ai, **latzaren latza** ! -esan zuen L-k. Bernardo Atxaga

· **-Latzak** pasatuko zitiztenan etxe horretan. Anton Garikano

**8** (-en atzizkiaren eskuinean)

Egia bere **latzean** pairatu. Itxaro Borda

Kolpearen **latzak** sortutako hire begitazio bat duk beltzez jantzitako gizonarena. Oi, hau bidegalduaren **latz** eta gogorra! Anjel Lertxundi

Indian zeruaren ederra eta infernuaren **latza** elkarturik aurkituko dituzu. Gotzon Garate

Eginbeharraren **latzagatik** ere. Aingeru Epaltza

**9** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere tinbre biziak, altuak, **latz** puntu deigarri bategaz eta ezarten deutsan garboagaz, eskegita zaroazala emoten dau. Xabier Amuriza

Langilea, **latz**-antxa, nabarmenkeriaren etsaia, ezkondua eta bi seme-alabaren aita. Aingeru Epaltza

Katu-amak, muzindu, puzka hasi, eta behatzetatik burugaineraino **latz**-harrotu zituen ileak. Juan Garzia

**10** ***latz-latz***

28 urterekin, astronomiako problema **latz-latz** bat ebatzi nahian aritu zen Euler. Jon Muñoz

Udazkenean, eskuak **latz-latz** zeuzkatela etxera heldu eta, biharamunean bertan zeta finarekin joste lanean hasi behar zuten Pablo Sastre

**11** ***paper-latz***

Handik etorri zen Hélèneren alaba, larru argia, **paper-latz** bustiaren kolorekoa. Pablo Sastre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**ahots latz** (5); **arazo latz** (5); **berri latz** (6); **borroka latz** (6); **egoera latz** (11); **egun latz** (4); **eremu latz** (5); **garai latz** (8); **gertaera latz** (5); **gertakari latz** (18); **halako latz bat** (4); **ixtripu latz** (7); **ixtripu latz bat** (4); **kalpar latz** (8); **kolpe latz** (7); **lana latz** (4); **latz egin** (6); **latz egiten** (5); **une latz** (12); **une latz hauetan** (4)

**arazo latza** (13); **arrisku latza** (10); **berri latza** (15); **bidaia latza** (4); **bide latza** (5); **biziera latza** (5); **bizimodu latza** (9); **bizitza latza** (5); **borroka latza** (36); **borroka latza izan** (6); **egia latza** (4); **egoera latza** (44); **egoera latza dela** (4); **erekontru latza** (7); **erronka latza** (23); **gertakari latza** (10); **guziz latza** (5); **haize latza** (4); **ixtripu latza** (5); **kolpe latza** (63); **kolpe latza hartu** (5); **kolpe latza izan** (26); **kolpe latza jaso** (7); **kontu latza** (5); **krisi latza** (4); **kritika latza** (4); **lan latza** (5); **min latza** (5); **oihu latza** (4); **oso latza** (25); **urte latza** (5)

**gero eta latzagoa** (6)

**arazo latzak** (10); **baldintza latzak** (4); **biziki latzak** (4); **borroka latzak** (7); **egoera latzak** (4); **eztabaida latzak** (4); **garai latzak** (10); **gertakari latzak** (6); **kolpe latzak** (4); **kritika latzak** (4); **ondorio latzak** (37); **ondorio latzak izango** (5); **oso latzak** (9); **tortura latzak** (6); **uholde latzak** (7); **une latzak** (33); **une latzak bizi** (11); **une latzak izan** (7); **urte latzak** (10); **urte latzak izan** (4)

**egoera latzaren** (4)

**bere latzean** (4); **borroka latzean** (4); **egoera latzean** (8)

**kolpe latzegia** (4)

**borroka latzen** (5)

**unerik latzena** (6)

**unerik latzenean** (5)

**bide latzetan** (5); **une latzetan** (10)

**ahots latzez** (25); **oihal latzez** (6)

**oihal latzezko** (8); **oihal latzezko beroki** (7)

---

latzgarri ik **lazgarri.**

**latzikara** *(orobat **latz-ikara** g.er.) iz*

Gau-ikuskariaren **latzikara** hauxe da: sorkariek bihotza ilunki eta itsuki hartu izana. Joan Mari Lekuona

Honi ezin ulertuzko **latzikarak** eta izuikara estuagarriak jarraitzen diote, hezurrak dar-dar jartzeraino. Joan Mari Lekuona

Izuturik eta dardarka indargabetzen hasi nintzen harriduraz eta **latz**-ikaraz. Askoren artean

---

**latzikaratu,** latzikara(tu), latzikaratzen **1** da *ad adkor* ikaratu.

Eta gelditu, eta gibela egin nuen isilik eta emeki, **latzikaraturik** artean. Emazteak ez zion erantzun, eta dena irentsi zuen; gero, bat-batean, begiak finko, **latzikaraturik,** izumenez iltzatu zituen bere gizonarengan. Joan Mari Irigoien

**2** (era burutua izenondo gisa)

Esklabo **latzikaratu** batek kontatu zuen arrasto gorri bat ikusi zuela ilunpeak ildotzen Etnaren gailurrerantz. Juan Garzia

---

latzki ik **lazki**.

---

**lau**[1] **1** *zenbtz* hiru eta bat, 4. (dagokion izenaren ezkerrean)

**Lau** kafe huts elkarren segidan. Aingeru Epaltza

Egin urrezko **lau** eraztun eta erantsi **lau** oinen ertzetan. Elizen arteko biblia

Hiru edo **lau** karraturen batura. Jon Muñoz

**Lau** pote haragi, bi pitxer marrubi. Josu Zabaleta

500 bat dolar dira, eransten du, "full time" ari diren **lau** laguni eta zatika ari diren beste hamalauri ordaintzeko. Edorta Jimenez

Bete urez **lau** ontzi eta isuri erre-oparigai eta egurraren gainera. Elizen arteko biblia

Orga bakoitzak brontzezko **lau** gurpil zituen. Elizen arteko biblia

Oinarrizko **lau** zapore badirela frogatzen dute test zientifikoek: gazia, garratza, gozoa eta mingotsa. Irene Aldasoro

**Lau** lerro laburren bidez. Ramon Saizarbitoria

Aritmetikako **lau** eragiketak. Jon Muñoz

**Lau** gurpilak panelen azpialdean zeuden. Elizen arteko biblia

Aske utzi zituzten **lau** aingeruak. Elizen arteko biblia

**Lau** koloreko sistema. Irene Aldasoro

**Lau** zangoko intsektu hegadun guztietatik. Elizen arteko biblia

**Lau** mastako brasildar ontzi handi bat. Josu Zabaleta

Bere **lau** seme-alabekin. Txillardegi

Albiste baten zoko-moko guztiak neketan ekartzen ahal baitira **lau** hitzetara. Aingeru Epaltza

**Lau** miliar ardi baino gehiago kontatu ditut. Itxaro Borda

**Lau** aldiz handiagoa zen. Iñaki Mendiguren

13 milioi euroren irabaziak izan zituen iaz CIE Automotive enpresak, hau da, 2002an baino **lau bider** gehiago.

**2** (hitz elkartuen lehen osagai gisa, izenak nahiz izenondoak osatuz)

Lasai demonio segitzen baitu bere **lau**-gurpil kuttuna nonahi uzten. Aingeru Epaltza

**3** (dagokion izena ezabaturik)

Beheko faxak horietako hiru zati hartuko ditu, tartekoak **lau,** eta goikoak bost. Santiago Iruretagoiena

Lau mahai zeuden sarreraren barnealdean, eta **lau** kanpoaldean. Elizen arteko biblia

Luzeran eta lodieran bost zulo, eta altueran **lau**. Santiago Iruretagoiena

Pasa-hitzak zortzi karaktere izan beharko zituen gehienez, eta **lau** gutienez. Aingeru Epaltza

Gero irakurgelako paretetara begiratu zuen irribarrez; **lauak** zeuden apalez beteta, eta apalak liburuz gainezka. Aitor Arana

Handien hau emaztea duk; **lau** horiek bi seme eta bi alaba. Imanol Zurutuza

**Lau** hauek bakarrik ditugu, **laurak** ere une berezietan idatziak. Askoren artean

Isakarren semeak honako **lau** hauek izan ziren: Tola, Pua, Jaxub eta Ximron. Elizen arteko biblia

**Lau** dira, **lau** besterik ez, izakiak elikatzen dituzten elementu horiek. Josu Zabaleta

**Lauak** ahapeka hasi ziren elkarri iritzi eske Koldo Biguri

**4** (futbol, pilota eta kideko kirolen emaitzetan)

Futbolean, txarrena gertatu zaie Baionesei: **lau** eta bat galdu dute Montpellier-en kontra. Herria

**5** (data adierazteko)

Mila behazunehun eta hobigarren urteko otsailaren **laua** da gaur. Harkaitz Cano

Urriaren **lauko** egun osoa iragan zuen polizak haren etxearen miatzen. Herria

Darioren erregealdiko bigarren urteko seigarren hilaren hogeita **laua** zen. Elizen arteko biblia

Urriaren **lauan,** igandez. Askoren artean

Hurrengo eguna ekainaren hogeita **lauaren** bezpera izango da. Joseba Sarrionandia

Urriaren **lauaren** [...] aurreko gaueko lehen orduan. Askoren artean

Igandean, ekainak **lau** [...] hots batek erauzi zuen nire iloba lozorrotik. Oskar Arana

**6** (ordua adierazteko)

Arratsaldeko **lauak:** zer ariko naiz hemen? Piarres Aintziart

Amatxi ez zen ausartu goizeko **lauak** zirela aitortzera. Ramuntxo Etxeberri

Hazkunde handiena gauerdia eta goizeko **lauak** bitartean izaten da, gorputzaren jarduera gehienak motelenean daudenean. Irene Aldasoro

Goizeko hamarretatik arratsaldeko **lauak** arte dituzte bulego-orduak. Antton Olano

Arratsaldeko **lau** eta erdietan utzi nuen lantokia. Aingeru Epaltza

Igande goizalderat, **lauak** eta erdiak irian, lurra guti aski ikaratu da Hendaiako alde hortan. Herria

Goizaldeko **lau** t'erdiak aldera. Edorta Jimenez

Niagaran, arratsaldeko **lauak** eta laurden. Patxi Zubizarreta

Hamaikak eta hogeita **lau** minutu ziren nire erlojuan. Aingeru Epaltza

**7** (denbora unitateekin)

Duela **lau** mende. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
**Lau** urteren buruan. Herria
**Lau** hamarkada beteak zituztenentzat ez zen deus. Itxaro Borda
**Lau** urteko ume eroen moduan eztabaidatzen. Oskar Arana
Frantzisko hil eta **lau** urtera. Askoren artean
Hogeita **lau** urtez izan zen errege. Elizen arteko biblia
Etxe horretan **lau** hilabete nituen eginak. Aingeru Epaltza
Gainera, ez dituk hogeita **lau** ordu iragan behar heriotzatik ehorzketara? Aingeru Epaltza
Handik **lau** minutura-edo. Josu Zabaleta
Hogeita **lau** minuturen buruan atzarriko zen Edurne. Aingeru Epaltza
Handik **lau** segundora sartu zen neska. Unai Elorriaga

**8** (diru unitateekin)

Hogeita **lau** errublo eta laurogeita hamasei kopek. Jose Morales
-Hemen **lau** txelin falta dira. Irene Aldasoro
-Beren ama ere akabatuko lik etek **lau** sosen truke. Aingeru Epaltza
Morroi horrek bere herria salduko luke **lau** penikeren truke. Irene Aldasoro
Ehun sosean saski hau, eta **lau** liberan bestea. Karlos Zabala
**Lau** xentimoak utzi, eta hogeikoa hartu zuen. Juan Garzia

**9** (bestelako neurri unitateekin)

Bergaratik **lau** bat kilometrora. Unai Iturriaga
N 789tik hogeita **lau** kilometrotara, Le Conquet-en. Ramon Saizarbitoria
**Lau** metroko sakonera zuen. Elizen arteko biblia
**Lau** versta zabal zen, zuhaitzak zituen inguru guztian. Jose Morales
Arieteak berak ehun eta **lau** oineko luzera zuen. Santiago Iruretagoiena
Hiru hazbete ere ez zen eta **lau** berga balitz bezain harro mintzatu zitzaidan. Aingeru Epaltza
Hogeita bost bat milimetro luze ziren, hor nonbait, eta **lau** edo bost milimetrokoa zuten diametroa. Euntze bat -euntze triste bat- zen jabez aldatu, **lau** erregu eta bortz sagarrondo guztira. Juan Garzia
Hiramek emanak zizkion Salomoni **lau** tonelada inguru urre. Elizen arteko biblia
Eskaini **lau** kilo irin zuri. Elizen arteko biblia
Bakoitzak bil dezala jateko behar adina, **lau** litro bakoitzeko. Elizen arteko biblia

• **10** *iz* zenbaki naturalen sailean hiruaren ondotik datorren zenbakia.

Atean zegoen brontzezko **lau** zenbakia argitzen zuen. Iñaki Mendiguren
Seiaren bi herenek **laua** egiten dute. Santiago Iruretagoiena
Izotz xehatua eta botila pare bat White Rock igo ditzatela **lau** zero **lau** gelara. Lopez de Arana
Hilaren **lauan** eta bostean. Rafa Egiguren
Hileko ehuneko **lauan** mailegatu zien, eta hartara bi senatu-kontsultu lortu zituen. Iñaki Iñurrieta
Logika berari jarraituz, **lau mila** ken **lau** berdin mila. Iñaki Arranz

**11** *norbaiti zerbait* ***lau*** *adlag* batere axolarik ez.

Haiei **lau,** ordea. Aingeru Epaltza
Charlyri nire goiti-beheiti profesionalak **lau**. Aingeru Epaltza

**12** ***hiru-lau*** *zenbtz* ik **hiruzpalau**.

**Hiru-lau** kaset ziren, kaxarik gabeak. Aingeru Epaltza
**Hiru-lau** minutu emango ditu zutabea irakurtzen. Andoni Egaña
Gabik **hiru-lau** pauso eman ditu atzera. Jokin Muñoz
**Hiru-lau** egun itsas bazterrean eman dezagun eta ondoko hiruzpalauak Euskal-Herri barne hortan. Herria
Kamioizale itxurako **hiru-lau** gizon. Aingeru Epaltza
Bertze **hiru** -lau lankiderekin batean. Aingeru Epaltza
Zorutik **hiru-lau** metrora sentitzen nintzen. Aingeru Epaltza
**-Hiru-lau** aldiz erran zidak, hire bisita noizko. Aingeru Epaltza
· Astean **hiru-lautan** egiten zituen bilerak, batzarrak, prestakuntza-saioak. Aingeru Epaltza

**12a** ***lauko*** *izlag (kalibreez mintzatuz)* ik **lauko**.

Soinu ikaragarri horiekin mosketeen tiro zoliak nahasi ziren, bai eta emirraren artilleria osatzen zuten seiko eta **lauko** kanoien eztanda hots apalagoak ere. Karlos Zabala

**13** ***lautan****sup_1 adlag* lau aldiz.

Lau aldiz mandatu berbera bidali zidaten eta **lautan** gauza bera erantzun nien. Elizen arteko biblia
Hirurogei urteetan zehar **lautan** baino ez zen Baionara etorri. Itxaro Borda
Orduan hasi zen munduko politikaz arduratzen eta, 4 urtez, egunean **lautan** entzun zituen nazioarteko berriak. Bego Montorio
**Lautan** deitu du etxera. Hasier Etxeberria
Baina ezinbesteko zitzaidan egunean hirutan gutxienez, **lautan** ez bazen, bera gogaitaraztea. Urtzi Urrutikoetxea
Oktabak eta Sanjuanak juntu antzean tokatu ziren urte batean, aste bakar batean **lautan** jota daude Sakabi eta Elgeta, panderorik gabe, Aittola gaineko Mugarriko ordekan, txabolako teiletu gainera igota. Iñigo Aranbarri
Urtean **lautan** baino sarriago gertatzen direla haurren eutanasia kasuok. Berria - Gaiak

**14** ***lautan****sup_2 adlag* lau zatitan.

Kartera hanpatu bat zabaldu du, tolesdurek **lautan** ebakitako prentsako txatala erakusten dit. Juliana zopa egiteko barazki freskoak ere bazituen prestaturik, paper orri batzuen gainean fin-fin moztuak, eta azak, **lautan** puskatuak. Koldo Izagirre
Zuhaitz baten azpian eseri ginen, eta lurrean biribil bat marraztu zuen, eta gero **lautan** banatu: iparraldean Turkia, hegoaldean Irak, mendebaldean Siria, ekialdean Iran. Juan Kruz Igerabide
Orria eskuratu, **lautan** tolestu eta, kartazal batean ezkutatu ondoren. Joxemari Urteaga
Arropa tartean Aralarko poster handia idoro nuen, **lautan** tolestua. Koldo Izagirre
Tabernariak destolestu duen ardura bardinaz bildu du **lautan** agiria gazteenak herrenari itzuli baino lehen. Koldo Izagirre

**15** ***lau bat*** *(**97** agerraldi, **57** liburu eta **27** artikulutan; orobat **lauren bat** **3** agerraldi, **3** liburutan)*

Rupiak, berriz, **lau bat** pezeta balio ditu. Gotzon Garate
**Lau bat** ordu oinez eman eta gero, muino batera iritsi ginen. Rafa Egiguren
Bazen gurutze bat ere [...] **lau bat** zentimetrokoa eta letoizkoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Beste sakonune bat ikusi genuen, **lau bat** oin luze. Koro Navarro

Hogeitamar gela eta **lau bat** hektarea parke. Ramon Etxezarreta

**Lau bat** karrera egin zituen baina, noski, ez zen anaia gazteena bezain trebea. Xabier Etxabe

Eraikuntzaren luze-zabala izugarria bada ere (10.000 metro koadro ditu erabilgarri), **lau bat** pisuko altuera doiak liburu erraldoi etzan baten itxura ematen dio. Anjel Lertxundi

· **Lau bat** mila metro goratik, Mendi Harritsuen zabala dugu begien aurrean. Xabier Olarra

### 16 *lau-bost* (*orobat **lau-bortz***) *zenbtz* lau edo bost. ik **lauzpabost**.

Plazaren haraindiko puntan jarria zegoen Maddalen, beste **lau-bost** neskaren erdian. Janbattitt Dirassar

Kolpe batean, **lau bost** kilo ekarri, bizimodu ederra. Pablo Sastre

**Lau-bost** egunen buruko bere baitaratu zen. Marzel Etxehandi

**Lau-bost** urteko kontua da. Fernando Morillo

Alde banatan **lau-bost** mahai, elkarri erantsita., -Damurik, ez baihaiz **lau** -bortz urte zaharragoa... Xabier Mendiguren Elizegi

Egutxik hirurogeita lau urte zituen orduan, eta emakumeak hogeita **lau-bost** edo hogeita zazpi-zortzi gehienez. Ibon Uribarri

Mailadian eserita zegoen **lau-bosteko** taldetxo bat. Josu Zabaleta

### 17 *lau eta erdi* (*orobat **lau t'erdi** eta **lauterdi***) pilota partida mota bat.

Eta **lau eta erdi** sailean txapeldun buruz buruka l996an. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Lau eta erdian** txapeldun, atzelari bakarra. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Goizuetarra den gazte honek parean zuen buruz buruka Leitzako Barriola, **lau eta erdiko** moldean. Herria

**Lau eta erdiko** hortan ez du bere maila pasatu lekuindarrak. Herria

Abel barriolak eta Aimar Olaizolak **Lau t'erdiko** finala jokatuko dute gaur arratsaldean Gasteizko ogeta pilotalekuan. Berria - Kirola

EPELen **lau t'erdiko** txapelketa aurkeztu dute. Berria - Kirola

Sekulako ezustea izan da **lau t'erdikoa** jokatuko nuela jakitea. Berria - Kirola

**Lau t'erdi** barruan aurreneko aldiz jokatuko dute elkarren kontra Aspeko bi pilotariek.

### 18 *lau-hankako* ik **lauhankako**.

### 19 *lau hankan* (*44 agerraldi, 17 liburu eta 2 artikulutan; orobat **lauhankan** 8 agerraldi, 5 liburutan eta **lau hankatan** 31 agerraldi, 16 liburu eta artikulu 1ean*) *adlag* ik beherago **21**.

**Lau hankan** mugitu naiz, arrastaka, aita etzanda dagoen aldera. Mirentxu Larrañaga

**Lau hankan** ibiltzetik bi hankan ibiltzera igaro ondoren, giza primateei genitalak aldatu zitzaizkien. Luis Elberdin

Arnasestuka **lau hankan** jarrita, urtzen ari zen sentsazio beldurgarria izan zuen. Iñaki Mendiguren

Gizakiaren egitura etzanda edo **lau hankan** egoteko sortutakoa da. Berria - Gaiak

Orain **lauhankan** zegoen nire aurrean, bere ipurmasaila kolore-gorriak ikusten nituen. Juan Martin Elexpuru

Horrela inguratu ginen arrats batean, **lau hankatan** makurturik, sasi eta lokatz artetik, erreketeen kanpamendura. Joseba Sarrionandia

Lurrera erori da maisua, eta **lau hankatan** hasi da ihesi arbel aldera, mahats mordoak oraindik belarrietan. Jokin Muñoz

### 19a *lau hazka* ik **lauhazka**.

### 20 *lau mila* *zenbtz*

Lebiren leinuko **lau mila** eta seiehun gizon. Elizen arteko biblia

Hamar minututan **lau mila** dolar poltsikoratzea. Bernardo Atxaga

Erreginak **lau mila** kilo urre, usaingarriak eta harribitxi ugari erregalatu zizkion erregeari. Jose Antonio Mujika

Esan liteke, gure etxean, hiru edo **lau mila** kilometrora zegoen batek agintzen zuela gauza eta gertaera guztietan. Hasier Etxeberria

Gaur egungo kalkuluen arabera, akrezioz sortua da, duela **lau mila** milioi urte, gure Lur hau. Juan Garzia

Euskadiko kutxek **lau mila** milioitako irabazia... Unai Iturriaga

Berrogeita **lau mila** dolar eskudirutan 1934-ean, ziburutarrak baziren 4170, lehen aldia **lau milaz** goiti zirela... Xabier Olarra

· **Lau milagarren** liskarrak, berriz, 1998ko data darama Bernardo Atxaga

### 21 *lau milioi*

**Lau milioi** lagunek dute parkinsona mundu osoan **Lau milioi** urte daramagu bi hankaren gainean ibiltzen. Luis Elberdin

Jaurlaritzak **lau milioi** euro bideratuko ditu lan arriskuen prebentzioa sustatzeko. Berria - Ekonomia

Eskuizkribu oso batengatik hiru eta **lau milioi** dolar artean pagatzen da. Oskar Arana

**Lau milioi** inguru biztanle dituen herri honek historia luzea du. Edorta Jimenez

Nazio Batuen arabera, Espainian 15 eta 65 urte bitarteko herritarren %16,8a analfabeto funtzionala da **(lau milioi** eta erdi pertsona). Txema Ramirez de la Piscina

### 22 *lau oinean* (*8 agerraldi, 5 liburutan; orobat **lau oinetan** 4 agerraldi, 4 liburutan*) *adlag* lau hankan.

Ez zuten denek holakorik lortu **-lau oinean** ibiltzea ez baita hain erraza-, baina nahiko bakarrik geratu ginen. Bernardo Atxaga

Batzuetan pentsatzen da energia gehiago behar dela bi oinen gainean korrika egiteko **lau oinean** korrika egiteko baino. Irene Aldasoro

Egun batean, iluntze aldera, argiak piztu zituztenean, Tsiganok **lau oinean** jarri zen ziegaren erdian eta otsoen antzera uluka hasi zen, alarau dardaratiak eginez. Jose Morales

Amaren aburuz, **lau-oinetan** ibiltzen zenetik beretik, kaxkarra izan zuen ikusmena. Xabier Olarra

### 23 *lauretan hogei* *zenbtz* laurogei.

Nabarrenkoxera agertu aitzin, **lauretan hogei** legoako lasterraldia egina zuen Montgommeryk, Tarn ibaiaren ertzetik gure artera. Aingeru Epaltza

**Lauretan hogei** kiderentzako arratsaldeko askaria. Itxaro Borda

Zeren bertze **lauretan hogei** urte bizi izanagatik, ezin ahantziko bainuke gertakari triste horrek eragin didan zirrara. Jon Muñoz

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

**azken lau hilabeteetan** (9); **azken lau partidak** (15); **azken lau partidetan** (18); **azken lau urteetan** (58); **azken lau urteotako** (9); **azken lau urteotan** (66); **bakoitzak lau proba** (11); **berrogeita lau** (24); **beste lau hilabetez** (10); **beste lau kide** (9); **beste lau lagun** (21); **beste lau lagunekin** (11); **beste lau pertsona** (11); **beste lau urte** (9); **beste lau urtez** (32); **beste lau zauritu** (23); **datozen lau urteetan** (31); **datozen lau urteetarako** (17); **dela lau urte** (46); **duela lau egun** (13); **duela lau urte** (226); **duela lau urteko** (35); **hiru edo lau** (208); **hiru eta lau** (25); **hiru lau** (161); **hiru lau aldiz** (9); **hiru lau urte** (9); **hogeita lau ordu** (58); **hogeita lau orduko** (25); **hogeita lau ordutan** (9); **hogeita lau orduz** (27); **hogeita lau urte** (29); **hurrengo lau urteetan** (28); **hurrengo lau urteetarako** (10); **ia lau urte** (22)

**lau alaba** (10); **lau aldarrikapen** (13); **lau alderdi** (21); **lau alditan** (12); **lau aldiz** (253); **lau arlo** (9); **lau aste** (54); **lau asteren** (10); **lau astez** (19); **lau atal** (17); **lau ataletan** (13); **lau atzerritar** (9); **lau aulki** (9); **lau auto** (10); **lau bat urte** (10); **lau bertsio** (9); **lau bide** (9); **lau bider** (34); **lau bikote** (14); **lau bortz** (10); **lau bost** (59); **lau buru** (11); **lau denboraldi** (9); **lau denboraldietan** (16); **lau diputatu** (18); **lau disko** (9); **lau domina** (15); **lau edo bost** (123); **lau edo sei** (13); **lau egin** (14); **lau egun** (226); **lau egun geroago** (22); **lau egun lehenago** (18); **lau egunean** (20); **lau eguneko** (59); **lau eguneko greba** (10); **lau egunen** (13); **lau egunera** (18); **lau egunetako** (10); **lau egunetan** (60); **lau egunez** (113); **lau egunez segidan** (11); **lau egunotan** (9); **lau ehun** (143); **lau ehun bat** (23); **lau ehun mila** (12); **lau ehun urte** (45); **lau ehun urteak** (30); **lau ekintzaile** (20); **lau emakume** (32); **lau emazte** (10); **lau entsegu** (55); **lau eta bost** (10); **lau eta erdiak** (16); **lau eta erdietan** (11); **lau eta sei** (10); **lau etapa** (14); **lau etxe** (9); **lau film** (10); **lau final** (17); **lau gai** (9); **lau galdu** (19); **lau garaipen** (25); **lau gauza** (16); **lau gazte** (44); **lau gazteak** (15); **lau gaztigu** (12); **lau gaztigu ostiko** (12); **lau gerrillari** (10); **lau gizon** (63); **lau gizonek** (9); **lau gizonen** (12); **lau gol** (92); **lau gol egin** (10); **lau gol sartu** (22); **lau goleko** (37); **lau goleko aldea** (19); **lau guardia** (16); **lau gurpileko** (9); **lau haizeetara** (79); **lau haizeetara zabaldu** (13); **lau haizetara** (74); **lau haizetara zabaldu** (13); **lau hanka** (14); **lau hankak** (13); **lau hankako** (18); **lau hankan** (44); **lau hankatan** (31); **lau harri** (11); **lau hatz** (10); **lau hauek** (10); **lau haur** (36); **lau haurren** (15); **lau hautagai** (14); **lau hegaletan** (10); **lau helburu** (9); **lau herri** (27); **lau herrialdeak** (9); **lau herrialdeetako** (10); **lau herrialdeetan** (29); **lau herrietako** (13); **lau herriko** (17); **lau herritar** (11); **lau hil** (15); **lau hilabete** (199); **lau hilabete geroago** (9); **lau hilabete lehenago** (15); **lau hilabetean** (16); **lau hilabeteetan** (22); **lau hilabeteko** (48); **lau hilabeteotan** (12); **lau hilabetera** (30); **lau hilabeteren** (13); **lau hilabetez** (40); **lau hiri** (12); **lau hiriburuetan** (13); **lau hitz** (30); **lau hizkuntza** (9); **lau hizkuntzatan** (16); **lau horiek** (21); **lau horma** (14); **lau hormak** (9); **lau**

hormen (10); lau irabazi (23); lau irakiar (14); lau izaki (9); lau izan (20); lau izango (12); lau izen (12); lau jardunaldi (28); lau jardunaldietan (10); lau jokalari (55); lau jokatu (9); lau kanaerdiko (37); lau kanporaketa (15); lau kantari (10); lau kantu (10); lau kasu (9); lau kide (55); lau kidek (10); lau kilo (23); lau kilometro (23); lau kilometrora (12); lau kontzertu (19)

lau lagun (160); lau lagun atxilotu (17); lau lagun hil (26); lau lagun zauritu (14); lau lagunak (19); lau lagunek (37); lau lagunekin (15); lau lagunen (17); lau lan (17); lau langile (28); lau langileak (9); lau lerro (22); lau lerroko (15); lau liburu (16); lau maila (10); lau mende (33); lau metro (21); lau metroko (15); lau mila (115); lau milioi (106); lau milioi euro (21); lau milioi urte (9); lau miliun (24); lau minutu (35); lau minutuko (16); lau minutura (24); lau multzotan (14); lau musikari (17); lau mutil (17); lau neska (25); lau obra (11); lau oin (12); lau oinak (9); lau oinarri (9); lau oinean (9); lau onenen (9); lau onenen artean (9); lau ordezkari (10); lau ordu (129); lau orduan (10); lau orduko (60); lau orduko lanuzteak (10); lau ordutan (10); lau orduz (48); lau oren (22); lau orenetan (18); lau orenez (11); lau orrialde (13); lau palestinar (11); lau pare (29); lau partida (137); lau partida galdu (12); lau partida jokatu (32); lau partidak (52); lau partidak irabazi (13); lau partidako (9); lau partidatan (11); lau partidetan (39); lau partidetatik (18); lau pauso (12); lau pertsona (108); lau pertsona hil (50); lau pertsona zauritu (11); lau pertsonak (11); lau pilotari (45); lau pilotariak (69); lau pilotariek (61); lau pilotarien (11); lau polizia (43); lau postuetan (14); lau preso (18); lau proba (31); lau probak (11); lau probatan (10); lau puntu (70); lau puntuko (44); lau puntura (27); lau saio (11); lau sari (14); lau sasoi (11); lau segundo (12); lau segundoko (12); lau seme (64); lau seme alaba (30); lau sindikatuek (13); lau soldadu (37); lau soldadu hil (11); lau t (480); lau t erdia (11); lau t erdian (84); lau t erdiaren (9); lau t erdiko (288); lau talde (71); lau taldeak (13); lau taldeek (17); lau taldek (18); lau taldetan (13); lau tanto (27); lau tanto egin (11); lau tiro (10); lau tokitan (12); lau txakur (12); lau txapel (11); lau txirrindulari (12); lau urrats (9); lau urte (860); lau urte barne (10); lau urte barru (11); lau urte bete (17); lau urte daramatza (11); lau urte egin (22); lau urte eman (18); lau urte eta (25); lau urte geroago (34); lau urte hauetan (20); lau urte huntan (12); lau urte igaro (19); lau urte lehenago (20); lau urte pasatu (9); lau urte zituela (9); lau urteak (18); lau urtean (92); lau urtean behin (18); lau urteetako (15); lau urteetan (156); lau urteetarako (31); lau urteko (254); lau urteko epean (15); lau urteko espetxe (16); lau urteko kartzela (26); lau urteko zigorra (11); lau urtekoa (13); lau urteotako (14); lau urteotan (101); lau urtera (34); lau urterako (41); lau urterekin (14); lau urteren (43); lau urteren buruan (27); lau urterentzat (12); lau urtetan (21); lau urtetarik (11); lau urtetik (26); lau urtetik behin (11); lau urtez (167); lau xori (16); lau zaldi (12); lau zati (16); lau zatitan (25); lau zauritu (33); lau zibil (15); lau zigor (24); lau zigor kolpe (21); lau ziren (17); lau zutabe (10)

laurogeita lau (17); orain lau urte (51); urrezko lau domina (11)

arratsaldeko lauak (9); goizeko lauak (9)

hogeita lauan (10)

lauetako hoberena (11)

lauetan hogoi (40)

arratsaldeko laurak (40); arratsaldeko laurak aldera (12); goizaldeko laurak (9); goizeko laurak (18); laurak aldera (24); laurak arte (15); laurak bat (17); laurak eta (22) laurak ziren (14)

lauren artean (30)

arratsaldeko lauretan (33); goizeko lauretan (15)

lautik hiru (14)

---

# lau² *(orobat* ***plaun*** *g.er.)* **1** *izond* gorabeherarik edo garaiera desberdintasunik ez duena. ik **zelai**.

-Ezin **lauagoa** izan, ezin zabalagoa -30 kilometroraino-, ezin sakonagoa -70 metroraino-. Jon Muñoz

Begi-bistara **laua** zirudiena biribil izan zitekeela. Joxerra Garzia

Lur **lauaren** gainean. Askoren artean

Aldapan gora igo, eta mendi-bizkar **lauetatik** joan zen gero bidea, galsoro, garagardi eta zekale-alor igitatu gabeak alde batean. Jose Morales

Ibar **lau bat** muino artean. Joxe Austin Arrieta

Berriro dakusazu aurrean estepa inorgabea, etxerik gabeko eremu zabala, dena berdina eta **laua**. Jose Morales

Nireak, behinik behin, basamortu **lau** bat; eta han urrutian, haitz bat, zut. Jon Muñoz

Kartoi **laua** hartu eta kaxa bihurtu, behin eta berriro. Harkaitz Cano

Perrettek ekarria zion kuxin **lau** berria ez zeukan oraindik bere moldera egina. Jon Muñoz

Laranja-koloreko praka lasaiak eta lastozko kapela **laua**. Iñaki Mendiguren

Bidea **laua** zen, baina bihurri-bihurria. Karlos Zabala

Adats hori-luzea dauka, orain kizkurbidean, orain **laua** eta eroria. Pako Aristi

Aurrenik, geometria **laua;** ondoren, zenbakien teoria; azkenik, espazioko geometria. Jon Muñoz

Ikusi zelako titi ederrak dituen, zelako sabel **laua,** zelako ipurdi gozoak. Juan Martin Elexpuru

Sabelaren diametroa murriztuz doa abdomen **laua** izan arte. Eider Rodriguez

Luis Alberdi entzefalograma **laua** emango luketen horietakoa zen. Unai Iturriaga

Horregatik ez da esaten "zerua esferikoa da" esaldia ederra dela, ez eta "lurra **laua** da" itsusia denik ere, baina bai bata egiazkoa eta bestea faltsua dela. Xabier Kintana

## 2 irud/hed

Haren aurrean, fruitu merkeak, gereziak, aranak, marrubiak, pilaturik zeuden paperez apaindutako otarre **lauetan**.· Karlos Zabala

## 3 (erkaketetan)

Horri sabela ipurmasailetara erori zaion, hago ziur; lisa burdina bezain **laua** dun eta... Karlos Zabala

## 4 inongo berezitasunik ez duena, apaingarririk, zailtasunik edo tolesik gabea. ik **laño**.

Istorio sinpleak, pertsonaia **lauak,** psikologia tolesgabeak. Karlos Zabala

Gizonak sinpleak, **lauak** eta ganbararik gabekoak direla esan izan duzu. Ana Urkiza

Gizonak **lauak,** soilak eta lapitzaren mekanismoa baino sinpleagoak direla diozu liburuan. Berria - Kultura

Hizkera **lau** eta konkretua erabiltzen zuen kulturarik gabeko jendeari predikatzean. Askoren artean

**Hitz lau** eta argiz azaltzen ditu bere datuak. Iñaki Heras

*ik beherago* 6. Askoren artean

-Ni aspertu nauk -esaten du gonbidatuak, inolako intonazio berezirik gabe, ahots **lauz-**. Pentsatzen nuen -aitortzen du, hitz soil eta **lauez,** Imrek- seguru aski zerbait abantaila atera ahalko nuela, lizeoan ikasi egin bainuen pixka bat beraien hizkuntza. Pablo Sastre

Ez da hor ñabardurarik, eta erregistro bat bakarra erabiltzen dugu, **laua,** burkanda eta elakarik gabea, kolorerik gabea, hila. Pello Salaburu

Mundu aspergarri **lauari** erliebea ematea bezala. Harkaitz Cano

Hala gertatu zuan -esaten du bestela bezala, tonu **lauan,** ia aspergarrian-. Xabier Olarra

Kantariaren bizitza ez zen **laua** izan, inondik ere. Berria - Kultura

## 5 (hitz elkartuetan, elkarketak izenondo balioa duela)

Atuna, azal-**laua** eta bernizatua, larruzko zorro belzkara baten antzekoa. Karlos Zabala

## 6 *hitz lau* prosa.

**Hitz-lau** arruntetik neurtitz berezirainoko gradu guztiak aurki baitaitezke obran. Juan Garzia

Hitz neurtu bihurriak **hitz lau** zabar batera bihurtuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Orain eta hemen dugun mina eta zikina eman digu Otamendik, **hitz lau** doi, dotore eta ederraz. Markos Zapiain

Hain bitxi politak baitzerizkion haren **hitz lauaren** garbiari eta arrazoi-bide bihurriari. Patxi Ezkiaga

Hurrena, Budurri bere amodioa eta zorabioa azaldu zion, nola **hitz lauan** hala hitz neurtuan. Patxi Zubizarreta

Antanaklasiaren beste adibide batzuk datoz orain, **hitz lauz** eta hitz neurtuz. Poesiara zein **hitz lauzko** lanetara. Iñaki Arranz

**Hitz lauzko** nahiz neurtuzko ateraldi zorrotza. Xabier Olarra

## 7 *lau-lau*

Herrialde **lau-laua** da, mendirik eta ibai handirik gabekoa. Berria - Kultura

Hemengoak, luxuzko zur sendoz eginak ziren, eta oliba-berdezko belusez estalita zeuden; eta **lau**-lauak zituzten bizkarrak! Jon Muñoz

Baliteke bihurri samarra izatea nire arrazoibidea, baina zure bideak ere ez ziren zelai eta **lau-lauak**. Xabier Mendiguren Elizegi

· Haren azal luze izoztua **lau-lau** zabaltzen zen haran barrenean. Josu Zabaleta

**Lau-lau** berdindu. Juan Garzia

Junturak egon daitezen elkarren artean **lau-lau** jarrita. Santiago Iruretagoiena

Lurralde osoa **lau-lau** egingo da, Gebatik Rimoneraino. Elizen arteko biblia

Eskura ditugunak **lau-lau** eta estilo xumez kontatuko ditugu. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lau lau** (12); **lau laua** (9)
> **dena da laua** (4); **entzefalograma laua** (4); **erabat laua** (3); **etapa laua** (3); **ibilbide laua** (3); **kilometroko erlojupeko laua** (5); **lurra laua** (3)
> **etapa lauak** (6)
> **ahots lauz** (3); **hitz lauz** (16); **hitz lauz esanda** (3)
> **hitz lauzko** (9)

---

## lauburu 1 *iz* adar bakoitzean buru moduko bat duen gurutzea, ohiko euskal ikurra.

**Lauburu** bat marrazten laguntzeko eskatu zidan. Ramon Saizarbitoria

Eguzkia, besteak beste, **lauburuarekin** irudikatu izan dugu gure historian zehar. Pello Salaburu

**-Lauburua** esbastikak Euskal Herrian hartutako itxura besterik ez da -moztu zidan-. Alberto Ladron Arana

Estetika aldatzen da; eskela kristau arruntaren ondoan ezkertiarrek olerki eta kantuen letrak jartzen dituzte; gurutzearen ordez **lauburua**. Pako Aristi

Bere ametsetako hilarriak gutxienez **lauburu** bat izan behar omen zuen. Ramon Saizarbitoria

Izen-abizenak, data eta jaioterria idatzita dauzkan hilobia, **lauburu** zizelatua duena. Iñaki Zabaleta

**2** lauburu formako gauzakia.

Lepoaren bueltan, sokatxo beltz bat, eta, handik zintzilik, zilarrezko **lauburu** bat. Anjel Lertxundi

Samatik eskegita neroan zilarrezko **lauburuaz** ziharduen. Xabier Montoia

---

## laudagarri *iz* laudatzea merezi duena. goragarria.

Zuk egintza **laudagarri** bat ikusi uste duzun lekuan, nik ez nuen laket izateko bide bat baizik bilatzen. Jon Muñoz

Sentimendu **laudagarri** horietara osoki emana. Jon Muñoz

Begiramen handia dio goi-gizarteko jendeak eguneko ordu guztietan frantsesez mintzatzeko duen ohitura **laudagarri** horri. Jose Morales

Komunikazio-ahalegin **laudagarria** egin eta gero. Jon Alonso

Guretzat, kristauontzat, ikusten ez duguna sinestea ez da ausarkeria gaitzesgarria, fede **laudagarria** baizik. Imanol Unzurrunzaga

Erabili dituen baliabide guztiak ohoragarritzat eta **laudagarritzat** emanen ditu mundu guztiak. Piarres Xarriton

---

## laudano *iz* opioz prestaturiko sendagai lasaigarria.

Siddal **laudano** gaindosi bat hartuta hil zen. Ramon Saizarbitoria

**Laudanoa** opio zukua da. Ramon Saizarbitoria

**Laudanoz,** zikutaz eta azido askorbikoz osatutako nahasketa bitxi bat. Iban Zaldua

1872an, Rossetti bere burua hiltzen saiatu zen, emazteak bezala, **laudano** flasko bat irentsiz. Ramon Saizarbitoria

---

## laudatu, lauda, laudatzen *(orobat **laidatu** g.er. eta **laudotu** g.er.)* 1 du *ad* goratu, goraipatu. ik **goretsi**.

Edozein egokieratan, lehorreko taktika mesprezatzen eta itsasokoa **laudatzen** hasi zen. Juan Garzia

Hark veneziarren zuhurtzia **laudatu** zuen. Felipe Juaristi

Gaitzestea eta **laudatzea** operazio sentimentalak dira, kritikarekin batere zerikusirik ez dutenak. Patziku Perurena

Ezagutzen dut **laudatutako** idazlearen irribarre eztia, gutxietsi nuen idazlearen begiradako altzairu zorrotza ezagutzen dudan bezala. Pako Aristi

Ez naute **laudatu,** ez maiseatu. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaizkileak zigortzeko eta ongileak **laudatzeko**. Patziku Perurena

Morse andreak gogotik eta bihotz-bihotzez **laudatu** zituen. Mirentxu Larrañaga

Belaunaldiz belaunaldi gorazarre kantu hilezkorrez **laudatuko** diren legeak. Juan Martin Elexpuru

Hitz horiek Jainkoari buruzkoak (handietsia eta **laudatua** izan bedi!) direla kontsideratzean negar eraginez. Xabier Kintana

Egun hartan ikasi nuen errazagoa dela inor laidotzea, **laudatzea** baino. Aingeru Epaltza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Munduko Bankuko Daly eta Goodland ekonomilariek azpimarratu dutenez, erabat hausten du nazioarteko merkataritzan merkatu askearen teoria edo eredu **laudatua**. Iñaki Heras

Erromatarrek, basatikeria titulu baten baino gehiagoren jabeak haiek ere, esklaboekin bakarrik erabiltzen zuten tortura, bertute zakar eta **laudatuegiaren** biktima ziren esklaboekin. Juan Martin Elexpuru

Nahiz eta bere Tolosa **laudatua** behin eta berriz goraipatu, zazpi urtez goiti baziren Bilbon bizi zela. Unai Iturriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **laudorio handiekin lauda** (3)
> **laudatuenetakoa bihurtu** (4)
> **biziki laudatzen** (3)

---

## laudatze *iz* goratzea, goraipatzea.

Zer operazio mota ote dira, beraz, kritikarik ezean, gure poetaren aldikako gaitzeste eta **laudatze** horiek? Patziku Perurena

---

## laudatzeke *adlag* laudatu gabe.

Guztia ere esango nuke, baina eszena hasiera etzanen eta kako arteko esaldi batzuen forma ez nuke **laudatzeke** utzi nahi. Xabier Paya

**laudetsi**, laudets, laudesten du *ad* laudatu.

Irlandar apaizak oso **laudetsiak** dira mundu osoan. Irene Aldasoro

laudiar ik **laudioar**.

**laudioar** *(orobat* ***laudiar*** *eta* ***laudiotar****)* **1** *izlag* Laudiokoa, Laudiori dagokiona.

Barrutik sortutako kantuak bildu ditu Igor Arzuaga **laudioar** kantautoreak *Smog* lanean. Berria - Kultura

EAJko kidea zen Federiko Belaustegigoitia **laudiarra**. Koldo Zuazo

Literatur lanen bildumaz gainera, Joseba Arregi oñatiarraren, Joxe Blanco **laudioarraren** eta *Segapoto* Kolektiboaren liburu bana kaleratu du Ataramiñek. Berria - Kultura

**2** *iz* Laudioko herritarra.

Zauritutako bi lagunak, 74 eta 79 urteko **laudiotarrak,** Galdakaoko Ospitalera eraman behar izan zituzten.

Hastapeneko bost urteak aipaturiko baselizan eman zituzten **laudiotarrek**. Berria - Kirola

laudiotar ik **laudioar**.

**laudo** *iz* zuzenbidean, arbitrajea.

Grebalariek ez lukete lanera sartu behar **laudo** bat egon arte. Berria - Ekonomia

Betebeharreko **laudo** baten bidez gatazka gainditzea proposatu zuen enpresak. Berria - Ekonomia

Administrazioak ezarritako arbitrajezko **laudoak**. Berria - Ekonomia

Hori ez da lortuko inposatutako **laudo** batekin. Berria - Ekonomia

Nafarroako Gobernuak proposatutako **laudoa** ez dute onartu zuzendaritzak eta langileen batzordearen gehiengoak. Berria - Ekonomia

Caballitoko **laudoari** helegite bana jarri diote batzordeak eta UGTk. Berria - Ekonomia

Ur Partzuergoan **laudoa** ezarriko du Jaurlaritzak. Berria - Ekonomia

**Laudo** batek «grebarako eta negoziazio kolektiborako eskubideak» urratzen dituela salatu dute Langileen Batzordeko ordezkariek. Berria - Ekonomia

**Laudoak** bidezkotzat jo du langile azpikontratatuek bazterketa gainditzeko eskaera. Berria - Ekonomia

· Zenbait ikerketa antropologiko egin zituen eta Arara herriaren aldeko **laudo** bat ere lortu zuen. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bete beharreko laudoa** (3); **betebeharreko laudoa** (3); **proposatutako laudoa** (3)

**laudorio** **1** *iz* laudatzea, goresmena.

Haren ondotik, bertze mila **laudorio** egin zizkion dukeak osabari. Joan Mari Irigoien

Edozein **laudorio** iraina da zuretzat. Anton Garikano

Gerra aurreko urteetan, poema liburu batzuk zituen argitaratuak Mussoliniren **laudoriotan**. Fernando Rey

Batzuetan euskaldunen **laudoriotan** ari dela ematen du. Joxe Azurmendi

Irakurriak baitzituen aitak emakumearen **laudorioz** idatzitako gutunak. Felipe Juaristi

· Zorionak eta **laudorio,** Kattinbordako Erramuntxori. Herria

**Laudorio,** goresmen, etxeko guzieri! Herria

**Laudorio** eta ohore etxeko guzieri. Herria

**2** (izenondoekin)

**Laudorio** handiak egin zituen hildakoaren alde. Gotzon Garate

Euskal Herriko prentsan ere **laudorio** handiak jaso zituen Garmendiak *Kareletik* filmean egindako lanarengatik. Berria - Harian

**Laudorio** handiak merezi dituztela atenastarrek. Santiago Iruretagoiena

**Laudorio** handiz goretsi zuten. Askoren artean

*Euskal-Erria* aldizkariak ale monografiko oso bat eskaini zion, **laudorio** sutsuak eginez. Askoren artean

Izkribatzaile trebatu gabe baten lana zen nabarmen: erretorikoa, erdizka zintzoa, digresioz eta **laudorio** neurrigabez betea, hunkigarria, pedantea eta trabatsua. Juan Garzia

Munduaren ohoreak edo erreberentziak edo **laudorio** hutsalak. Askoren artean

Ez naiz, ordea, **laudorio** zuritan hasiko. Joxerra Garzia

Gaizki-esaka barregarri batzuk eta beste horrenbeste **laudorio** negargarri. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** laudioriozko idazlana.

Artearen Historia erakusten zigun fraideak taila haien **laudorio** bat idatzi zuen kolegioko aldizkarian. Bernardo Atxaga

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dira, ez, **laudorio** hitzak irakasle zitalarenak. Iñaki Heras

Ez dut **laudorio** liburu bat idatzi. Berria - Kultura

Ohore eta aginte irrikari, **laudorio** gose gehiegizkoari. Imanol Unzurrunzaga

Soldaduak zerbait esan dio: **laudorio** itxura zeukan. Urtzi Urrutikoetxea

Han entzun zen oskigilearen ahots barea **laudorio**-kantari. Juan Garzia

Hil eta geroko **laudorio** salda beroan. Joxerra Garzia

**5** ***laudoriozko*** *izlag*

Ustekabeak **laudoriozko** hitzak indartsuago bihurtzen baititu. Agustin Otsoa

**Laudoriozko** aipamenak bilduz. Herria

**Laudoriozko** oda bat Villagrandeko dukeari. Joan Mari Irigoien

Atzean entzuten zituen txutxumutxuak **laudoriozko** surmurrak iruditzen zitzaizkion. Josu Zabaleta

Sobiet Batasunari buruzko komentarioren bat noizean behin, **laudoriozkoa** beti, oroiminak eragindakoa ziur aski. Xabier Mendiguren Elizegi

Poema ederrak eta hitz **laudoriozkoak**. Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dena laudorio** (3); **laudorio asko** (5); **laudorio eta goresmen** (3); **laudorio eta ohore** (3); **laudorio handia** (4); **laudorio handiak** (8); **laudorio handiak egin** (3); **laudorio handiekin** (6); **laudorio hitzak** (4); **laudorio horiek** (4); **laudorio ugari** (4)

**eromenaren laudorioa** (3)

**alabantzak eta laudorioak** (6); **laudorioak jaso** (7)

**laudoriozko hitzak** (4)

---

**laudorioka** *adlag* laudorio handiak eginez.

Denek **laudorioka** arizan baitira, laudorio merezituak dudarik gabe. Herria

**Laudorioka** lotu zitzaidan, parean izan ninduen puntutik: [...]. Aingeru Epaltza

---

**laudoriotsu** *izond* laudoriozkoa.

Heien artean badire idazle alderdia izaki eta beren irudimen aberatsari esker, Euskal Herria ongi aipatuz, elaberri **laudoriotsu** zenbait dituzte zabaltzen. Herria

---

laudotu ik **laudatu**.

---

**laugarren** **1** *ord* zerrenda batean aurretik hiru dituena (4.).(dagokion izenaren ezkerrean)

**Laugarren** oharra. Patxi Altuna

Hogeta **laugarren** kapitulua. Askoren artean

Bere bizitzako **laugarren** hamarraldi hasi berria ospatzeko. Oskar Arana

Berrogeita **laugarren** solairuko komunetan eman nuen eguna. Joxan Elosegi

**Laugarren** dimentsioko lekuren batean. Koro Navarro

Gustav Mahlerren **laugarren** sinfonia. Felipe Juaristi

**Laugarren** egunean Sena ibaiko uretan aurkitu zen gorpua. Koro Navarro

**Laugarren** laguna falta baitzuten musean ari ahal izaiteko. Eneko Bidegain

**Laugarren** erreinu bat ere izango da, burdina bezain gogorra. Elizen arteko biblia

Bildotsak **laugarren** zigilua ireki zuenean, **laugarren** izakiaren ahotsa entzun nuen hau esaten: "zatoz". Elizen arteko biblia

Epifania ondoko **laugarren** igandea. Marzel Etxehandi

Salomonen erregealdiko **laugarren** urteko Ziu hilean. Elizen arteko biblia

Europako gramatikek **laugarren** proportzionalarekin egiten dute lan. Isabel Arrigain

Hau da hautatzen dudan **laugarren** eta azken hitza. Ramuntxo Etxeberri

**Laugarren** aldiz ene bizian, zurtz gelditu nintzen, Orthezeko oihan beltzean abandonatuta. Aingeru Epaltza

**2** (dagokion izena ezabaturik)

-Ba, nik lau gizon ikusten ditut, suaren erdian libre dabiltzala; ez die suak kalterik egin, eta **laugarrenak** aingerua dirudi. Elizen arteko biblia

Lehenengo lerroa, bigarrena eta **laugarrena** elkarri lotuta zeuden: errimatuta behar zuten; hirugarrena, berriz, librea zen. Jon Muñoz

Hurrengo urtean -karrerako **laugarrena-** bazen ikasleei, Andres Hurtadori batez ere, jakin-mina pizten zien gai bat: Jose de Letamendi jaunaren irakasgaia Batxilerreko **laugarrena** elkarrekin egin genuen. Josu Zabaleta

Aurten **laugarrena** amaituko dugu. Joseba Sarrionandia

Batek egunkari orriak ekartzen ditu, besteak patatak zuritzeko tresnak [...], hurrenak patatak, eta **laugarrenak** ura. Josu Zabaleta

Badu, gainera, hiru ardatzak biltzen dituen **laugarren** bat: lurraldetasuna. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hirugarren interpretazio horri (errefusaezina baiteritzot) ez dakit ausart naitekeen **laugarren** bat gaineratzera. Juan Garzia

Igandez jendartean beste emakume batekin agertu zen, gero hirugarren batekin, eta azkenean **laugarren** batekin ezkondu zen. Juan Garzia

Finalerdiak jokatuko dira datozen ortzirale eta larunbatean: Stade Français lehena Tolosa **laugarrenaren** kontra ortziralean eta Miarritze bigarrena Bourgoin hirugarrenaren kontra larunbatean. Herria

Ze kurtsotakoa nintzen, eta **laugarrenekoa** esan nuen. Joseba Sarrionandia

Hirugarren internazionalekoek, **laugarrenekoek,** maoistek. Bernardo Atxaga

Bi ikastegi horietako **laugarreneko** 53 ikaslek. Herria

**3** (dagokion izena ezabaturik, izan aditzarekin)

Zortzi seme-alabetatik **laugarrena** nintzen. Pablo Sastre

Nire ilarako **laugarrena** nintzen gaur goizean. Anjel Lertxundi

Sei senidetan **laugarrena** zen Antonio. Xabier Etxabe

· Zuberotarrak ziren haietarik hiru, eta lapurtarra **laugarrena**. Koldo Zuazo

Lehen izakia lehoi antzekoa zen; bigarrena zezen antzekoa; hirugarrenak gizaki antzeko aurpegia zuen, eta **laugarrena** hegaz doan arrano antzekoa zen. Elizen arteko biblia

**4** (forma soila aditz baten ezkerrean)

Oriotarrek irabazi zuten estropada eta zarauztarrak, **laugarren** zetozenak, bigarren sartu ziren. Xabier Etxabe

Hormadik **laugarren** amaitzeko aukera du. Berria - Kirola

Cases-en multzoa **laugarren** dugu sailkapenean. Herria

Sailkapenean Baiona **laugarren** da. Herria

Ingelesak **laugarren** dira ligan, bost punturekin. Berria - Kirola

Sailkapenean **laugarren** dira, lehenetik bi tantotara. Herria

**Mulhouse** laugarren da sailkapenean 25 punturekin. Berria - Kirola

Iaz **laugarren** izan zen 600 eta 680 kiloko finaletan. Berria - Kirola

Luzaz **laugarren** egonik, hirugarren alkirat hupatu da beraz ederki. Herria

Mantzisidor izan zen **laugarren**. Berria - Kirola

Errenteriako Sustapen-Beraun **laugarren** sailkatu da, Orvinak adina punturekin. Berria - Kirola

**Laugarren** bukatu du Tauk Euroligako lehen ligaxka. Berria - Kirola

Pierre Grenade, Jakes Abeberry eta Mixel Gimon dira hiru lehenak, Juliette Seguela **laugarren,** Max Brisson bosgarren izanen da eta Mixel Veunac seigarren. Herria

**5** (forma soila aditz baten ezkerrean, dagokion aditza ezabaturik)

Genêts **laugarren** futbolean. Herria

Barrichello atzerago oraingoan, **laugarren,** pneumatiko eta geldialdi estrategia desberdinaren ondorioz. Berria - Kirola

**6** laugarrenik.

**Laugarren,** hain jabetuak daude pobretasun gorenaren tituluaz, non apenas iristen diren janari eta jantziari dagozkien premiarik beharrezkoenak asetzera. Askoren artean

**Laugarren,** erabaki dut teologoen dotrinak inon ez eztabaidatzea, herritarren obedientzia ezabatu eta Estatuaren sendotasuna hondeatu nahi dituztenak izan ezik. Esteban Antxustegi

**7** ***laugarrenez*** laugarren aldiz.

Elortzak **laugarrenez** jantzi du txapela. Berria - Kultura

Miarritzek **laugarrenez** galdu du Top 16an. Berria - Kirola

**Laugarrenez** zotz egin eta Isakarren leinuko senitarteei egokitu zitzaien. Elizen arteko biblia

Lege musulmanaren arabera, senar batek emaztea hiru bider arbuiatzen baldin badu, eta, hala ere, berriro damutu, eta **laugarrenez** harekin ezkondu nahi izango balu, emakumeak lehenago beste gizon batekin ezkondu behar luke, eta gizon horrek berriro arbuiatu. Patxi Zubizarreta

**8** ***laugarrengo*** *izlag* laugarrena.

'Heriotzaren multzoa' deitu diote **laugarrengoari:** izen handiko hiru taldeetako bat etxera itzuliko da. Berria - Kirola

Hirugarrengoak zuriak, eta **laugarrengoak** nabarrak. Elizen arteko biblia

**9** ***laugarrengoz*** laugarrenez.

Aurten, **laugarrengoz,** Europako Kross txapelduna izatea lortu du. Berria - Kirola

Kopako finalerdietan sartu da Alaves, bere historian **laugarrengoz**. Berria - Kirola

**10** ***laugarrenik*** aurreko hiruen ondoren.

Hots, lehenik, bekatuen gogoratze eta kontenplatzearekin; bigarrenik, Kristo gure Jaunaren bizitzarekin Erramu eguna arte, hau barne; hirugarrenik, Kristo gure Jaunaren nekaldiarekin; **laugarrenik,** Pazko eta Igokundearekin, otoitz egiteko hiru modu ezartzen ditugularik. Patxi Altuna

Ondoren maitasun estua dator, eta **laugarrenik** zoramenezkoa. Joan Mari Lekuona

**Laugarrenik,** horri esker Jainkoak zuzenean eta naturalki ematen dio gizaki bakoitzari, bere biziaren eta gorputzaren zaintzekoa, hutsik gabeko geriza bermatuz. Piarres Xarriton

**Laugarrenik** dator zerbitzariak izendatzeko, elizako irabaziak eta karguak banatzeko boterea. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**berrogeita laugarren** (17); **berrogeita laugarren solairuko** (8); **bigarren eta laugarren** (6); **denboraldiko laugarren** (9); **erregealdiko laugarren** (8); **erregealdiko laugarren urtean** (6); **errekopako laugarren** (6); **espainiako konstituzioaren laugarren** (7); **etxeko laugarren** (6); **europako errekopako laugarren** (5); **hilabeteko laugarren** (6); **hirugarren edo laugarren** (22); **hirugarren eta laugarren** (71); **hogeita laugarren** (8); **itzuliko laugarren** (10); **konstituzioaren laugarren** (12); **konstituzioaren laugarren xedapen** (10); **kopako laugarren** (6); **kristau aroko laugarren** (6)

**laugarren aldia** (20); **laugarren aldia da** (6); **laugarren aldia du** (5); **laugarren aldikotz** (23); **laugarren aldiz** (43); **laugarren atala** (14); **laugarren belaunaldiraino** (11); **laugarren da** (19); **laugarren dira** (9); **laugarren diskoa** (11); **laugarren edizioa** (5); **laugarren edo bosgarren** (7); **laugarren eguna** (13); **laugarren egunean** (32); **laugarren eguneko** (6); **laugarren egunez** (8); **laugarren entsegua** (7); **laugarren eta azken** (23); **laugarren eta bosgarren** (15); **laugarren etapa** (41); **laugarren etapako** (6); **laugarren etapan** (19); **laugarren finala** (11); **laugarren garaipena** (33); **laugarren garaipena lortu** (16); **laugarren geratu** (8); **laugarren greba** (7); **laugarren greba eguna** (6); **laugarren hanka** (7); **laugarren hiruhilekoan** (6); **laugarren igandea** (9); **laugarren izan** (37); **laugarren izan zen** (27); **laugarren jardunaldia** (18); **laugarren jardunaldian** (11); **laugarren jardunaldiko** (13); **laugarren kanporaketa** (7); **laugarren kanporaketan** (6); **laugarren kapitulua** (17); **laugarren larunbatean** (6); **laugarren laurdenean** (9); **laugarren lerroan** (7); **laugarren liburua** (8); **laugarren liburuan** (7); **laugarren maila** (5); **laugarren mailako** (24); **laugarren mailan** (11); **laugarren minutuan** (6); **laugarren multzoan** (7); **laugarren mundua** (5); **laugarren partea** (6); **laugarren partida** (46); **laugarren partida galdu** (12); **laugarren partida irabazi** (9); **laugarren postu** (5); **laugarren postua** (51); **laugarren postuak** (8); **laugarren postuan** (66); **laugarren postuan da** (6); **laugarren postuan dago** (5); **laugarren postuan sailkatu** (13); **laugarren postuari** (7); **laugarren posturako** (5); **laugarren postutik** (6); **laugarren proba** (11); **laugarren proportzionalaren** (5); **laugarren sailkatu** (27); **laugarren sailkatua** (6); **laugarren saioa** (14); **laugarren saioan** (6); **laugarren solairuan** (14); **laugarren solairuko** (19); **laugarren solairura** (7); **laugarren tokian** (7); **laugarren txapela** (6); **laugarren urtea** (17); **laugarren urtean** (15); **laugarren urteko** (6); **laugarren urtez** (17); **laugarren xedapen** (23); **laugarren xedapen iragankorra** (16); **laugarren xedapena** (11); **laugarren xedapenak** (5); **laugarren xedapenean** (5); **laugarren zatia** (5)

**ligako laugarren** (22); **ligako laugarren partida** (5); **mahlerren laugarren** (6); **munduko laugarren** (12); **sailkapenean laugarren** (6); **sailkapeneko laugarren** (7); **torneoko laugarren** (6); **txapelketako laugarren** (12)

**hirugarrena eta laugarrena** (7)

---

# laugune *iz* gune laua.

Lauoinka igo beharreko haitz-hormak [...] **laugune** belartsu batzuk izaten zituen tarteka. Juan Garzia

Barka, maitea, esaten badizut ezin duzula ulertu zer ziren niretzat eskailera horiek, **laugune** hori: hura zorabioa, hura nahasketa, hura ustekabeko zorion estu, ia hilgarria. Eduardo Matauko

---

# lauhaizetaratu, lauhaizetara(tu), lauhaizetaratzen du *ad* lau haizeetara igorri.

Haren agenteak, normala denez, sekretuak dira; behin eta berriro (akaso etengabe) **lauhaizetaratzen** dituen aginduak ez dira bereizten faltsariek barra-barra zabaltzen dituztenetatik. Juan Garzia

---

# lauhankako *(orobat **lau-hankako**)* *iz* lauoinekoa.

Hiruzpalau burtzi soilik sartu zizkion toreatzaileak zezenari, eta bere morroietarik batek haga luze batez zulatu zion bizkarra, **lau-hankakoak** odol apur bat gal zezan eta, halatan, ahul zedin. emakumea piztien eta **lauhankakoen** moduan hobeto ernaltzen dela uste da gehienbat, horrela hazia hobeto iristen baita, bularrak beherantz eta ipurdia goian. Joan Mari Irigoien

---

lauhankan ik **lau**[1] **19**.

---

# lauhazka *(**94** agerraldi, **29** liburu eta **3** artikulutan; orobat **lauazka** g.er. eta **lau hazka** g.er.)* **1** *adlag* zaldiez eta kidekoez mintzatuz, berez ahal duen urratsik bizienean. ik **lauoinka**.

Orduan, libre zirela ikusirik, **lauhazka** hasi dira sei mandoak. Koldo Izagirre

**Lauhazka** segitu zuten. Agustin Otsoa

Handik laster arotza atera zen, zaldiaren zelan jarri eta **lauhazka** abiatu zen mendi aldera. Fernando Rey

**Lauhazka** doan zaldiaren lastertasunean abiatu izan balitz. Jon Muñoz

Bi postari **lauhazka** zetozen haien norabidean. Elena Touyarou

Kanpoan gurdi bateko gidariak zaldia jo eta **lauhazka** jarri zuen. Anton Garikano

Arratsalde hartan berean, bi zaldizko atera ziren Garrüzetik **lauhazka,** batak Paue eta bertzeak Donibane helmuga. Aingeru Epaltza

Ahmet gau batean bere bila etorri, zaldi gainean hartu eta biek alde eginen balute desertura, milaka gazela **lauhazka** ibiltzen diren toki hartara. Fernando Rey

**Lauhazka, lauhazka** hondamendira eta munduaren amaierara! Agustin Otsoa

Angelun, Piñadako oihanean ibilki denak ikus dezake bat batean pasatzen zaldizko bat, ez **lau hazka,** baizik eta urratsean, bazterrari ongi begiratuz. Herria

**2** irud/hed

Diligentzia **lauhazka** zihoala maldan behera, [...]. Koldo Izagirre

Graxik kopeta apaldu zuen eta, jasaniko inarrosaldiaren ondorioz, izpiritua **lauhazka,** gutxitan bisitatzen zuen haurtzarora itzuli zen. Itxaro Borda

Guztia doa **lauhazka** azken esaldirantz, berau baita garrantzitsuena, aurrekoa ulergarri eta zentzudun bihurtzen duena. Markos Zapiain

Hemen, jaun-andreok, kalentura **lauhazka** doalako. Fernando Rey

Sobera ohitua zaude munstro horren atzetik ibiltzen, baita burua **lauhazka** doanean ere beste mundu bateko eldarnioetan non zauden ere jakin gabe. Fernando Rey

• **3** *iz* lauhazka doanaren urratsa.

Zaldizkoen **lauhazka** entzun zuten zubitik iragaten. Agustin Otsoa

Urrutian, zaldien **lauhazka**-edo aditu zen. Koro Navarro

Une hartan Éomer heldu zen **lauhazka** bizian. Agustin Otsoa

Jo, zizta, atximur, ausiki egiten zien, ukabilez eta zangoz jotzen zituen, **lauhazka** gorrian zeraman diligentzia. Koldo Izagirre

Zaldiaren **lauhazka** motelduz. Agustin Otsoa

Zamarien **lauhazka** bizkortuz. Agustin Otsoa

Baionara **lauhazka** batean itzultzen ginelarik, [...]. Koldo Izagirre

**4** irud/hed

Doinuen kidetasunagatik, doinuen **lauhazkagatik** Haydnena dela pentsatu du, nahi gabe bezala entzun duelako seguru asko. Felipe Juaristi

**5** ***lauhazkako*** *izlag*

Orkoak, zuhaitz hizlariak, legoa eta legoatako zelaiak, **lauhazkako** zaldizkoak, haitzulo distiratsuak, dorre zuriak eta urrezko jauregiak, borrokak eta uren gaineko ontzi garaiak, dena iragan zen Samen begi miretsien aurretik. Agustin Otsoa

**6** ***lauhazkan*** *adlag* lauhazka.

Zeren, jendea atzetik segika zuela igarri zuenean, zaldiak trosta luzean jarri baitzituen, eta **lauhazkan**. gero. Koro Navarro

Goiz hartan ere **lauhazkan** ibili ginen bide guztian, muinoan gorantz, Ford's Cleave basoan barrena. Mirentxu Larrañaga

· Burua **lauhazkan** hasi zitzaion, pentsamenduak etorriarekin joaten ziren. Iñaki Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lauhazka abiatu** (3); **lauhazka bizian** (4); **zaldia lauhazka** (3)

---

# **lauhazkaldi** *iz* lauhazkako ibilaldia.

Bizi nahiak erreakzioak pizten zituen nire azalaren azpian, alde guztietatik zetozkidan olde haiek, basurdeen **lauhazkaldiak** sentitzen nituen nire garunetan, oinazturen zapartaldiak nire giharretan. Joxan Elosegi

---

# **lauhazkatu**, lauhazka(tu), lauhazkatzen **1** da/du *ad* lauhazka ibili.

Lautada hotzetan barna **lauhazkatzea** baino plazer handiagorik ez da bizian. Itxaro Borda

**2** irud/hed

Farenheit hitza entzun baiko, haserre gorriak **lauhazkatu** zuelakoan Peter, bushean higatu urteak gogoan agian. Itxaro Borda

**3** (era burutua izenondo gisa)

Istant batez, nire bihotz-pilpira **lauhazkatuak** baizik ez zitzaizkidan belarriratu. Aingeru Epaltza

---

# **lauhilabeteko** *iz* lauhilekoa.

Unibertsitateko programei begira, egungo **lauhilabetekoen** araberako egutegi (ideal) bat proposatuko dizugu: [...]. Askoren artean

Euskal Herriko Unibertsitateak bertan behera utzi ditu egunotarako aurreikusitako lehen **lauhilabeteko** azterketak, datorren astelehenera arte. Berria - Harian

---

# **lauhileko** *iz* lau hilabete hurrenez hurrenekoren denbora bitartea.

Irakasgai gehienak **lauhileko** bihurtzen dira ikasketa plan berrian. Joxerra Garzia

Orain, **lauhileko** honetan, EUTGko ikasleei azaldu nahi dizkie lanaren fruituak. Iñaki Iñurrieta

Bota egin zitenan eskolatik bigarren **lauhilekoa** amaitzean. Xabier Paya

Urteko lehen **lauhilekoan** 100 langiletik gorako enpresen fakturazioa %2,4 hazi da. Berria - Ekonomia

MCCk, lehen **lauhilekoa** oinarri hartuz, salmentak %10 handitzea espero du aurten. Berria - Ekonomia

Egunerokoaz gain, astean asteko batez bestekoa ateratzen genuen, hilean hilekoa eta **lauhilekoan lauhilekoa**. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **urteko lehen lauhilekoan** (3)

---

# **lauhortzeko** *(corpusean **lauortzeko** soilik)* *iz* lau hortz dituen goldea; lau hotz dituen sardea.

Belar-deskargagailuari **lauortzekoa** edo deitu zion. Joxean Sagaztizabal

---

# **lauki** **1** *iz* lau aldeko poligonoa; bereziki, lau aldeak berdinak eta arteko angeluak zuzenak dituena. ik **koadro 4; karratu**[1] **2**.

Pertsona bati oso irudi bakun bat erakusten bazaio ere (zirkulua, hirukia, **laukia),** [...]. Josu Zabaleta

Triangeluaren ordez **laukia**. Xabier Mendiguren Elizegi

Irudiaren inguruan **lauki** bat marraztu zuen gero. Jon Muñoz

Leihoaren argizko **laukia**. Alberto Ladron Arana

Pantailako **laukiaren** behe aldeak jo ninduen begietara. Aingeru Epaltza

Ispiluaren **laukiaren** alde batera zein bestera eskuak luzatzen ikusi zuen Ruche jaunak don Ottavio, ispilua zuzen jarri nahiko balu bezala.Ahotik odola zeriola, espaloira eraman zuten gizona, **laukiekiko** txalekotik burua zintzilika. Jon Muñoz

**Laukiekiko** gorbataren gainean orratz errubidun bat agerian zeukalarik. Lopez de Arana

Orain hirurogeita lau **laukiko** taula hau dugu. Joseba Sarrionandia

Joko hunek 63 **lauki** dauzka, bakotxak zerbait berezi manatzen diola jokolariari. Herria

Hurrengo **laukian** XX. mendeko filosofiaren mugimendu nagusiak irudika ditzakegu: [...]. Askoren artean

Une hartan animazio handia zegoen borrokarako **laukietako** nagusian, klubeko izarra zen Manu Kid Sanchez, pisu astunetako txapelduna, berton ari baitzen erakustaldi bizian. Josu Landa

**2** (izenondoekin)

**Lauki** handi bat zegoen lurreko zementuan marra beltzez markatuta. Bernardo Atxaga

Haran zabal bat ikusten dute euren oinetan, pabiloi industrialen **lauki** argiztatuak han-hemenka. Patxi Iturritegi

**Lauki** borobila ez existitzeko arrazoia haren izaerak berak ematen du, kontraesan bat bere baitan baitauka. Piarres Xarriton

· **Lauki** gorrizko alkandora batez jantzirik. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gela txiki **lauki** formakoak. Juan Kruz Igerabide

Gu bizi garen gela **lauki** itxurakoa da; mahaia, baxua eta biribila. Juan Kruz Igerabide

Guziz samurrak Nichollas Hampersen zurezko **lauki** egiturak hain onirikoki marraztuak eta koloreztatuak. Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gas-sua, lapiko zikina, non pasta hondarrak ageri baitziren, eta poltsan zegoen ogi-**laukia**. Juan Kruz Igerabide

**5** (xake jokoan) ik **laukitxo 2.**

Nire begiek taulako **lauki** guztiak aztertu zituzten, pieza bakoitzaren posizioaren berri emanez bat-batean pizturiko garunari. Alberto Ladron Arana

Bi aldiz aztertu behar izan nuen jokaldia, piezaz pieza eta **laukiz lauki** aztertu ere. Alberto Ladron Arana

Neuk ere **lauki** hartaraino eraman nuen erregina beltza. Alberto Ladron Arana

Ezinezkoa zen jokalari alemanak bere erregina **lauki** hilgarri hartara mugitu izana. Alberto Ladron Arana

Gainera, erregea oso motela duk: aldiko **lauki** bat baizik ez duk mugitzen. Alberto Ladron Arana

Alfilak, ordea, beti kolore bereko **laukietan** barrena ibiltzera kondenatuta daude, hori dute patua. Imanol Zurutuza

**6** ate edo leiho bat, edo margolan edo argazki bat inguratzen duen eta eusten dion egitura modukoa.

Marrok atearen **laukiaren** kontra ipini zuen besoa, eta azpitik igaro behar izan nuen aretora sartzeko. Juan Kruz Igerabide

Paretak **lauki** urreztatuekiko antzinako erretratuz beteak zeuden. Xabier Olarra

Margolanak **lauki** urrekara bat zeukan, eta pareta zuri batean zegoen eskegita, kajoiz betetako gerezizko altzari baten gainean. Xabier Olarra

Bonbillak lotzen, tapizak astintzen, leiho-**lauki** hondatuak konpontzen. Oskar Arana

**7** margolana.

Hormetan hiru **lauki** abstrakto kaskar edo, gehienez ere, lekuan lekuko paisaia azkarren bat, akuarelaz egina jeneralean. Hasier Etxeberria

Berniza eman behar diet Rastroan erositako bizpahiru **laukiri**. Javi Cillero

Gelako pareta zuri **lauki** simetrikoz osatuak. Javi Cillero

Hemeretzigarren mendeko **laukia** duzu hori, inondik ere. Javi Cillero

Horrek erran nahi du, ideiak ikusten dituztela **lauki** bateko pintura mutu batzuk bezala. Piarres Xarriton

Jesusen Jaiotzaren eta Igokundearen eta haren Amaren Jasokundearen **laukiak**. Piarres Xarriton

**8** (izenondo gisa)

Orri **laukia** esku batean hartzea aski zen beste eskua boligrafo baten bila hasteko. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**lauki bat marraztu** (6); **lauki itxurakoa** (3); **lauki luze** (3); **lauki luzeak** (4); **lauki luzeak zeharka** (3); **lauki zuzen** (9); **paperezko lauki** (3)

---

**laukidun** *izond* laukiak dituena.

Gurutzez jositako orri **laukidunetan,** igeri zeuden ontzien aztarnak. Jon Muñoz

Txukun berridatzi nuen orri **laukidun** handi batean. Itziar Otegi

Bazen oliozko kriseilu handi bat mahaiko oihal **laukidunaren** gainean. Koro Navarro

Mattyk eskuak bere jantzi **laukiduneko** poltsikoetan sartu eta biletez beteriko bere bi ukabilez kolpetxo bat jo zion Budi paparrean. Lopez de Arana

· Gainetik alkandora **lauki** gorriduna jantzi beharko du-eta. Pako Aristi

---

**laukiluze** *izond* laukizuzena.

Doctor Marteens bota beltzak sartu zituen ohe gainean zegoen larruzko maleta **laukiluzean,** liburu eta katalogoen gainean. Harkaitz Cano

---

**laukitasun** *iz* lauki izateko nolakotasuna.

Gauzak hola, hainbeste atal errepikaturik daudenez, denborak galdu egiten du bere **laukitasuna;** irabazi egiten du, aldiz, zirkulartasunean. Bernardo Atxaga

Begirada altxatu nuen eta azkenean ulertu nuen zirkulu harrigarri haren **laukitasuna** zertan zen. Jon Muñoz

Lautasunak, **laukitasunak,** eskuadrarekin ebakitako bizi-uste batek. Iñaki Segurola

---

**laukitu,** lauki(tu), laukitzen **1** du *ad* laukietan zatitu.

Oraindik **laukitua** izan ez den lur baten gainetik eta aurrez ikusteko zaila den helmuga baterantz. Xabier Arregi

· *irud/hed* Andy Warholek bezala, prentsako irudiak hartzen ditu Thomas Demandek ere, **laukitutako** errealitateak. Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Kirika eginez baso barren hartara non argi-itzalek den-dena **laukitu** eta forma guztiak itxuragabetzen baitituzte. Anton Garikano

Puntu batek plano **laukituan** duen lekua haren izena izango da. Jon Muñoz

Ume zintzoentzako jolasa, eta ez zen garestia: bi arkatz, bi goma, eta bi orri, baina ez edozein, **laukituak** baizik!, eskolako koadernoetatik kenduak. Jon Muñoz

Astronomia **laukitu** guztietan zehar distiratzen duen zerura. Xabier Arregi

**laukitxo** 1 *iz* lauki txikia.

Erdiguneak egon beharko lukeen tokian lauki bat dagoela lau **laukitxorekin,** bi txuri eta bi beltz. Bernardo Atxaga

Katalina idatzi nuen "password" hitzaren ondoko **laukitxoan**. Aingeru Epaltza

Mutil koxkor biluzgorri baten irudia erosi du, gazte irribarretsu batek marfilezko **laukitxoetan** eskainita. Javi Cillero

Hasieran okindegiko emazte ilehori titihandiaren aurretik pasatu behar da: ogiaren txartelari dagokion **laukitxoa** moztu eta gero okinak pisatu egiten du ogia. Urtzi Urrutikoetxea

**2** (xake jokoan) ik **lauki 5**.

Peoi zuri bat bi **laukitxo** mugitu zen aurrera. Iñaki Mendiguren

Agureak ere ezagun zuen irekiera espainarraren berri zuela: haren pieza beltzak, diziplina militarraz, **laukitxo** ezagunak hartzen joan ziren, nire jokaldiei erantzunez. Alberto Ladron Arana

-Harry, mugitu diagonalean lau **laukitxo** eskuinera. Iñaki Mendiguren

---

**laukitze** *iz* laukietan zatitzea.

Unibertsoari buruzko ikuspegi […] estatiko, ordenatu, konpartimentatu eta jatorriz **laukitze** sailkatzaileari irekia. Xabier Arregi

---

**laukiztar** *izlag/iz* Laukizkoa, Laukizi dagokiona; Laukizko herritarra.

Segidan, Erandiokoek Gaztedi A-ren aurka jokatu zuten, eta bietan **laukiztarrak** garaile; lehen tiraldiak 11 minutu eta 25 segundo iraun zuen. Berria - Kirola

**Laukiztarrek** bi talderekin ere jardun zuten Euskadikoan, baina Bizkaikoan batekin. Berria - Kirola

---

**laukizuzen** *(orobat **lauki zuzen** g.er.)* **1** *iz* lau angeluak zuzenak izanik, bi alde beste biak baino luzeagoak dituen poligonoa.

Bion artean, atexkaren **laukizuzen** beltza zabaltzen zen. Alberto Ladron Arana

Zutikako **laukizuzen** estu bat -trenbideak zuzenak direlako seinalea-, **laukizuzen** etzan bat -trenbideak bihurgunea duelako seinalea-. Fernando Rey

Santa Cecilia karrikaren plaka argazkigailuan hartu dut: **lauki zuzen** bat, mosaiko urdinak inguratua eta eskuin, goian, itze hori bat dirudiena, maskorra. **Laukizuzen** ia perfektu bat, angelu zuzenetan elkar ebakitzen zuten kale nagusiz zeharkatua. Piarres Aintziart

Hura agertu arte, ezin izan ziren egin irudi lerrozuzenen koadraturak baizik: **laukizuzenarena,** paralelogramoarena, trapezioarena. Jon Muñoz

Integrala: **laukizuzen** infinituki txikien kopuru infinituki handiaren batura, zeinaren azalera osoa irudiaren azalera baita. Jon Muñoz

**2** (izenondo gisa)

Begi grisek ez zituzten bide bazterreko etxe **laukizuzen** haiek ezagutzen, ezta balkoitik balkoira oihuka ari ziren emakumeak. Unai Elorriaga

Herrixkako etxebizitza **laukizuzenak** bereziak dira, hirigintza aldetik. Berria - Kultura

Italiar margolaritza klasikoan marko biribila erabiltzeko izan zen bolada handi bat kenduta, gainerako marko gehien-gehienak **laukizuzenak** izan dira. Josu Zabaleta

Sasi-arrastoa zen apurtuta zegoelako eta ezin zelako jakin apurtu baino lehen paper karratua izan zen, edo **laukizuzena** izan zen, edo triangularra izan zen. Unai Elorriaga

Besteak hamabost-hogei zentimetroko luze-zabaleko plaka angeluzuzenak ziren, karratuago batzuk, **laukizuzenago** besteak. Iñaki Iñurrieta

---

**lauko** 1 *iz* lau banakoz osaturiko gauza.

A-tik J-ra eta batetik hamarrera, sarea marraztu duzu [...] eta barkuak egokitu dituzu ondoren: lau bateko, hiru biko, bi hiruko eta **lauko** bat, guztira. Rafa Egiguren

Neskak hamar groscheneko txanpon bat, seiko bat eta **lauko** bat hartu zituen. Koro Navarro

Zirkulu guztia **lauko,** bosteko eta zortziko bikoitzetan banatu ondoren. Santiago Iruretagoiena

· Bi **lauko,** zortzi. Lourdes Oñederra

**2** lau kidez osaturiko taldea edo multzoa. ik **laukote 4**.

Gobernu koalizioa arriskuan dago, kolonoen alderdiak **laukoa** utziko duela ohartarazi baitu. Berria - Mundua

Zenbateraino existitu da **laukoa** (hirukoa eta CiU) estatutuaren inguruko negoziazioetan? Berria - Harian

PANeko lehen ministro Ahmed Kureiak atzo iragarri zuen ez dela **Laukoarekin** -AEB, NBE, Europako Batasuna eta Errusia- berriz bilduko.

Kureia **Laukoaren** ordezkariekin elkarrizketatu zen herenegun, Ramalan. Berria - Mundua

Aurretik dezenteko zuloa ireki zuen **laukoa** zihoan: Aitor Osa (Illes Balears-Banesto), Aitor Perez Arrieta [...], Antoine Charteau [...] eta Francisco Lara. Berria - Kirola

**3** lau lerroko ahapaldia.

-Omar Khaiamen **laukoak**! Jon Muñoz

[Poeta] **lauko** ospetsuen egilea zela, emakumeak eta ardoa gustatzen zitzaizkiola, polinomioen aita zela, 3. mailako ekuazioen espezialista, [...]. Jon Muñoz

Burdin-sarearen gainean paratutako **lauko** honek, latin basa samar eta enigmatikoan: [...]. Koldo Izagirre

Oso forma zehatza dute **laukoek:** lau lerroetatik hiru elkarri lotuta daude, errimatuta behar dute; laugarrena, berriz, beregaina da. Jon Muñoz

**4** (kartetan)

**Lauko** bihotza. Berria - Kultura

• **5** *izlag* lauk osatua; lauren artekoa.

Nik behintzat pozik hartu dut puska batean **lauko** ziegetan lo egin beharra Xabier, Andoni eta Josebarekin. Koldo Izagirre

Bost puntuko moldea dela, **laukoekin** batera, bertsolariek sarrien erabiltzen dutena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Presidenteak ere bi urteko zigorra izango du, eta medikuak **laukoa**. Berria - Kirola

Emirraren artilleria osatzen zuten seiko eta **lauko** kanoien eztanda hots apalagoak. Karlos Zabala

Burdinaria eskuratu behar duk nonbaitetik [...] eta **lauko** amua egin behar duk, edo bostekoa, haria nolakoa den. Ama-alabak bi dituk, **lauko** multzoa osatzeko beste bi falta. Koldo Izagirre

16 selekzio ari dira lehian, **lauko** lau multzotan. Berria - Kirola

Seiko edo **lauko** kargalari-taldeetan ere, oso karga handiak eramaten direnean, horretarako erabiltzen dituzten hagen erdian orekatzen da karga. Santiago Iruretagoiena

Eguerdian, aldiz, eguneko ekitaldi nagusia izango da: zazpiko futboleko **lauko** torneoa. Berria - Kirola

Etzi hasiko da lur gaineko Euskadiko **Lauko** Txapelketa Berriatuan, eta bihar, goma gaineko Nafarroakoa. Berria - Kirola

**Lauko** txapelketako lehenengo jardunaldia jokatuko dute 280 eta 240 kiloetan, Laukizen. Berria - Kirola

**6** ***laukoan*** *adlag* lauhazkan.

**Laukoan** joan ziren ezkutariak esandako lekuraino, baina han ez zuten inor aurkitu. Juan Kruz Igerabide

**7** ***lauko final*** lau talderen artean jokatzen den finala.

*lauko final:* lau taldeen artean jokatzen den finala.

Saskibaloia Euroligako **Lauko Finala**. Berria - Kirola

**Lauko Finaleko** finalerdi batean. Berria - Kirola

**Lauko Finala** eta ACB Liga gelditzen dira oraindik. Berria - Harian

Azken 10-12 urteetan beste hainbeste final jokatu ditu, Europako Kopako final bat eta **Lauko** Final bi. Berria - Kirola

Moskuko **Lauko Finalaren** azken partida jokatu zuenPragarako bidea hartu du Tauk, bihar hasiko den **Lauko Finaleko** txapela janzteko helburu zailarekin. Berria - Harian

**Lauko Finala** kanpotik bizi dutenek Baskonia faboritotzat jotzen dute. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arabako lauko txapelketa** (3); **bigarren lauko finala** (8); **euroligako lauko finala** (6); **euroligako lauko finalean** (4); **euskadiko lauko txapelketa** (7); **euskadiko lauko txapelketako** (5); **euskadiko lauko txapelketan** (4); **lauko bateko bitartearekin** (7); **lauko bi multzotan** (3); **lauko euskadiko txapelketa** (5); **lauko euskadiko txapelketak** (4); **lauko euskadiko txapelketako** (5); **lauko final** (10); **lauko finala** (85); **lauko finala irabazteko** (3); **lauko finala jokatu** (3); **lauko finala jokatuko** (6); **lauko finala jokatzeko** (8); **lauko finalak** (9); **lauko finalaren** (11); **lauko finalari** (6); **lauko finalean** (86); **lauko finalean egon** (4); **lauko finalean egongo** (4); **lauko finalean egoteko** (17); **lauko finalean kokatu** (3); **lauko finalean sartu** (4); **lauko finalean sartzeko** (10); **lauko finaleko** (14); **lauko finalera** (15); **lauko finalera heldu** (4); **lauko finalera heltzeko** (4); **lauko finalerako** (27); **lauko finalerako bidea** (4); **lauko finalerako txartela** (8); **lauko finaletik** (5); **lauko finaletik kanpo** (3); **lauko torneoa** (3); **lauko txapelketa** (14); **lauko txapelketak** (3); **lauko txapelketako** (9); **lauko txapelketako lehen** (3); **lauko txapelketan** (14); **moskuko lauko finalean** (5); **pragako lauko finala** (8); **pragako lauko finalean** (4)
>
> **euskadiko laukoa** (4)

---

# **laukoitz** 1 *izond* lau gauza berdinez edo mota bereko lau gauzez osatua.

By pass **laukoitza** egin zioten, eta berriz ebakuntza egin behar izan zioten egun gutxiren buruan, barne odoljarioaren ondorioz. Berria - Kultura

Agilofingoak dukeen jatorrikoak ziren, eta haien artean aukeratzen zen dukea; konposizio **laukoitza** zuten. Iñaki Iñurrieta

Berari esker ikusten da antinomia **laukoitzaren** lehenengo frogak ez direla itxurapenak, froga irmoak baizik Ibon Uribarri

**2** lau halako dena.

Zin edo birao egiten harrapatuak, izuna ordaindu beharko dute lehenengo aldian; bigarrenean, hirugarrenean eta laugarrenean, izun bikoitza, hirukoitza eta **laukoitza**. Juan Martin Elexpuru

145,5 gramo heroina atzeman zituzten orduan, 2003an atzemandakoaren **laukoitza**. Berria - Euskal Herria

Eta lau hizkuntzatan izateak badu meritu **laukoitza**. Berria - Kultura

Gutxiren **laukoitzak** ez du zertan asko izan behar. Berria - Ekonomia

---

# **laukoizte** *iz* lau halako bihurtzea, lau bider handiagoa egitea.

Aski adierazgarria da herrialde industrializatuenen (G7) lehen gailurra 1975. urtean bildu zela, hau da, Bretton Woodseko sistemaren hondamenak eta petrolioaren prezioaren **laukoizteak** eragindako nahasmenduen ondoren. Koro Navarro

---

# **laukoiztu,** laukoiztu/laukoitz, laukoizten da/du *ad* lau halako bihurtu, lau bider handiagoa egin.

Etekinak **laukoiztu** egingo lirateke eta zor guztiak kitatzeko aukera izango luke. Jose Morales

1950-2001 artean biztanleria ia bikoiztu egin da; etxebizitzen kopurua, berriz, ia **laukoiztu**. Berria - Harian

Petrolioaren prezioa **laukoiztu** egin zen Yom Kippur-eko gerraren ondoren. Koro Navarro

Izan ere, hau egin zuela eta bestea ez zuela egin, esamesek **laukoiztu** egiten zuten berez oparoa zen errealitatea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

1973ko urriaren eta 1974ko urtarrilaren artean petrolioaren prezioa **laukoizteak** eragindako krisiaren ondorioz. Koro Navarro

Ezin duk gehiago; ihes egiten duk, arreta galdu duk, heure buruari esaten diok Bizantzio dela hori, heure dirua hirukoizten ari dela; **laukoiztu,** hamarkoiztu, ehunkoiztu, milioikoztu, miliarkoiztu egingo dela. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **hirukoiztu edo laukoiztu** (3)

---

# **laukote** 1 *iz* lau musikarik osaturiko taldea. ik **kuarteto**.

Herbie Hancock piano jotzaileak eta Wayne Shorter saxo jotzaileak distira berezia ematen diote **laukoteari**. Berria - Kultura

Coltraneren **laukote** mitikoko bateria jotzailea. Berria - Kultura

Quatuor Debussy **laukote** famatua. Herria

**Laukotean,** beren artean zegoen maila gorde zuten: Egeak biolontxeloa jotzen zuen, Circek lehen biolina, Safok bigarrena, eta Virgiliak biola. Felipe Juaristi

**Laukotearen** aberasgarri, Etxepareko Jason etorri zen Arbideko musika eskolan ikasteko baliatzen zuen biolina kokospean. Itxaro Borda

Gau batez jo zuen **laukoteak** zamaketarien aurrean, gau luze, gau bero batez. Felipe Juaristi

Gauez, *Gatza* **Laukoteak** Beethovenen Fuga Handia jo zuen Karol Schultzen omenez. Felipe Juaristi

U2 beti izan da talde ideologikoa, gurutzada politiko eta erlijiosoa abiatu duen **laukotea**. Berria - Harian

*The Magnetic Fields* **laukotearen** pop sinfonikoa entzuteko parada. Berria - Kultura

**Laukotearen** testamentu musikala izango zena grabatu zuten: *Spasms of Pleasure*. Patxi Iturritegi

Itziar, pandero-jole berriaren maitale platonikoa, atearen ondotik **laukoteari** begira, liluraturik. Jon Arretxe

· Laukotea ahots, zanfona, karamilo eta **lautez** osatua zegoen. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haren laguntzaz jazz **laukote** bilbotarra orain artean jorratu gabeko esparruan murgildu da. Berria - Kultura

Musikari **laukote** berria, bere onenak ematen; ni, haien zarata etsipenez aguantatzen. Jon Arretxe

Etsaien adorea apaltzeko, haien morala beheratzeko, haien espiritua zirtziltzeko, musika-**laukoteak,** hari-**laukoteak,** antolatu nahi zituela frontean bertan, etsaiengandik gertu. Felipe Juaristi

Ganbarako musikaren moda zabaldu zenean, lau emakumeek [...] hari-**laukotea** osatzea erabaki zuten. Felipe Juaristi

**3** lau lagunek osaturiko taldea.

Inguruetako **laukote** bikainena osatua zuten, garai batean, Pello, Erramun, Alustizako Miel eta laurek. Joxemari Urteaga

**Laukotea,** patxadaz ibiliz, barraren parera heldu zen. Jon Arretxe

Gure **laukote** hartan bazen bat [...] neskekin tratatzeko eta haiekin hizpidean sartzeko erraztasun pixka bat zeukana. Xabier Mendiguren Elizegi

Beata **laukoteak** ondotik urrunduz. Koldo Izagirre

Handik gutxira, **laukoteak** erabaki zuen musika-talde bat sortzea. Oskar Arana

**4** lau jokalarik osaturiko taldea.

Atenasen brontzezko domina leporatu zuten **laukotetik** hiruk parte hartu zuten Bordelen: Sergi Escobar eta Carles Torrent kataluniarrek eta Carlos Castaño espainiarrak. Berria - Kirola

Kataluniak [...] **laukote** indartsua aurkeztuko du: Romero, Mageme, Fluvia eta Granados. Berria - Kirola

**Laukote** batek bereganatzen du garrantzia Maccabiren jokoan: Parker, Solomon, Baston eta Vujcicen artean 55 puntu sartu dituzte batez beste Euroligan. Berria - Kirola

Baigorriko atzelaria izan zen **laukoteko** pilotari onena. Berria - Kirola

**5** lau estatu edo erakundek osaturiko taldea. ik **lauko 2**.

Egun horretan bertan, Londresen elkartuko dira **Laukotea** osatzen duten Ameriketako Estatu Batuak, Errusia, Europako Batasuna eta Nazio Batuen Erakundeko ordezkariak.

Nazio Batuen Erakundeak, Europako Batasunak, Ameriketako Estatu Batuek eta Errusiak osatzen duten **Laukote** honek moldatutako bake prozesuak aurreikusten du estatu palestinar bat eratuko dela [...] Gazako lurraldean eta Zisjordanian.

Horrela zuzendu zaie **Laukoteko** kideei (AEB, NBE, Europako Batasuna eta Errusia) Ismail Hania, Palestinako Aginte Nazionaleko lehen ministroa.

**Laukoteak** (NBE, AEB, Brusela eta Mosku) PANi esan zion Israelen izaera eta aurreko akordioak onartu, eta indarkeriari uko egin beharko ziola «nazioarteko laguntza jasotzen segitzeko».

**Laukoteak** diru laguntza emango dio PANi, hauteskundeak egiteko. Berria - Mundua

Israelek uko egin dio **Laukotearen** ordezkariekin bakeaz hitz egiteari. Berria - Mundua

Espainiako Kongresuan bozkatuko dutena ez da bakarrik PSOEk eta CiUk hitzartutakoa, «aurretik PSOEren eta Kataluniako **laukotearen** artean egindako bileretan erabakitakoaren ondorioa da». Berria - Mundua

**6** lau gauza berdinek osaturiko multzoa.

Argi daukat hainbat idazlek egundoko eragina izan dutela niregan: bata da Gustave Flaubert-en *Madame Bovary*; bestea, Lawrence Durrell-en *Cuarteto de Alejandría* eta, batez ere, **laukote** horretako *Justine* nobela. Ana Urkiza

Jogurt **laukote** bat hartu zuen eskuetan, pentsakor. Fernando Morillo

**7** musika-laukote batentzako musika-lana.

Haydnenen **laukote** bat da, *Hegatxabala* gisa ezagunagoa. Felipe Juaristi

Mozartekin hasi ziren, *Milan* **Laukoteari** ekinez. Felipe Juaristi

Orduan aipatu zion lehen aldiz Schuberten "Neskatxa eta herioa" biolin-**laukotea**. Aritz Gorrotxategi

Hari-**laukotearen** allegroari ekin zioten, gogoz eta kemenez ekin ere. Felipe Juaristi

Gonbidatzaileak alemanak baziren, Beethoven jotzen zuten, Beethovenen hari-**laukoteren** bat. Felipe Juaristi

Smetanaren doinuak jotzen zituen, *Nire bizitzari buruzkoa* izena duen hari-**laukotea,** esaterako. Felipe Juaristi

Beethovenen *Harpak* izeneko soka **laukotea,** oso tristea ausaz, lau mugimenduetatik bi adagioak baitira. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> hari laukote (6); jazz laukote (3); laukote bat (14)
> hari laukotea (6); laukotea osatu zuen (3); laukotea osatzen (6); osatzen dute laukotea (4)
> hari laukoteentzat (3)
> laukoteko kideei (3); laukoteko onena (3); laukoteko ordezkariak (3)

---

# laukoteka *adlag* laukotetan.

Edonortzuk izan zitezkeen, han dozenaka neska ikusten baitziren, bikoteka, hirukoteka, **laukoteka...** ederrak, motzak, zaharrak, gazteak... Jon Arretxe

---

# laukun *izond* lau osagai dituena.

Leihoa bera, **laukuna** bere itxuraz, lau beira karratuz osatua zelako, atze samarrean gelditzen zen. Txillardegi

Gaueko hiruretan [...] erloju dotoreak entzunarazi du bere melodia **laukuna:** mi-do-re-sol... sol-re-mi-do. Txillardegi

Lepotik paparreraino zintzilikaturik, urrezko "Toison" **laukunaren** domina. Txillardegi

---

# launa 1 *izlag* bakoitzari lau; bakoitzak lau.

**Launa** bertso bota behar zituzten zortziko txikian. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Txapelketa hartan **launa** pieza jo zituzten bi bikoteek: fandangoa, arin-arina, trikitixa eta porrusalda. Xabier Etxabe

Lau talde daude **launa** punturekin sailkapenean. Berria - Kirola

**Launa** gudariko lau talderen zainpean. Elizen arteko biblia

**Launa** urteko espetxe zigorra ezarri diete erizain bati eta mediku bati.

Harri handiak, bost eta **launa** metrokoak. Elizen arteko biblia

Animaliarik gehienek bezala, **launa** gorputz-adar zituzten, baina [...] bi baino ez zituzten erabiltzen ibilirako. Juan Garzia

Julius lehengusuak **launa** kiloko bi ume izan ditu. **Launa** hilabeteko egun eta gau polar horien artean, egunak bereziak dira, egunsenti eta ilunabar amaiezin eta ezin ederragoekin. Ramon Etxezarreta

Hogeita **launa** diputatu. Berria - Mundua

**2** (dagokion izena ezabaturik)

**Launa** berdindu ondoren, Xalak hiru tanto egin zituen jarraian. Berria - Kirola

Erritmo bizian hasi zuen partida bikote gorriak, baina urdinek **launa** berdintzea lortu zuten. Berria - Kirola

**3** ***launako*** *izlag* lauk osaturiko.

Jendea iritsi ahala, **launako** ilarak osatzen ditugu Zuzendari txit agurgarriaren leiho aurreko patioan. Anjel Lertxundi

Gainerako anaiak iritsiko ziren hiruna eta **launako** taldeetan. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> launa aurpegi (3); launa bertso (3); launa punturekin (4)

---

# launaka 1 *adlag* launako multzoetan.

Tipula zuriak lerrokatzen zituen **launaka,** piramideak osatuz, hiru ale azpian, bat puntan. Karlos Zabala

Eskailerako mailak **launaka** jaitsi nituen. Joseba Sarrionandia

**Launaka** igo genituen eskailerak. Jon Muñoz

Horrela, pareka, hirunaka, **launaka** bildu eta jaso ditzake irakurleak. Berria - Kultura

Guk **launaka** joan behar genuen gizonentzako komun publikoetara. Pello Lizarralde

Talde handietan gabe, hirunaka edo **launaka** . Aingeru Epaltza

Umeak bakarrik, umeak bikoteka, umeak taldeka, **launaka,** seinaka, hamarnaka, piltzarrak oinen inguruan bildurik oinetakoen ordez. Oskar Arana

**2** ***launakako*** *izlag* launako.

Alde egin zuten soldaduek, pauso baldarrez, **launakako** lerroetan, hiriko gotorlekura. Felipe Juaristi

Patioan hirunaka edo **launakako** ilaretan jarrarazita egiten zizkiguten kontaketak egunean pare bat aldiz. Jokin Urain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **mailak launaka** (3)

---

## launako ik **launa 3**.

---

## **launazka** **1** *adlag ipar* launaka.

**Launazka** lerroan ezarririk, hiria trebesarazi ziguten bi edo hiru kilometrotan, Royalieu kasernara arte. Marzel Etxehandi

Kantinan sarrarazten gaituzte, eta **launazka** jartzen gara. Marzel Etxehandi

**2** ***launazkako*** *izlag* launakako.

16 pilotari, **launazkako** lau pula edo multxotan: A multxoan ariko dira Oyhenart, Haroçarene, Sorhaitz, Kurutcharry. Herria

---

## **lauoineko** *iz* lau oineko aberea. ik **lauhankako**.

Begira-begira jarri nintzaion, eta **lauoinekoak,** basapiztiak, narrastiak eta hegaztiak ikusi nituen barruan. Elizen arteko biblia

Mota guztietako **lauoineko,** narrasti eta hegaztiak zituen barruan. Elizen arteko biblia

---

## **lauoinka** *(38 agerraldi 14 liburutan; orobat* ***lauoinka*** *g.er.)* **1** *adlag* lauhazkan.

Zaldiak, hesoletan loturik baina uhal guztiak jantzita beti, prest zeuden lehen agindua eman orduko **lauoinka** abiatzeko. Karlos Zabala

Zaldiak **lauoinka** bizian jartzeko agindu zion Selifani. Jose Morales

Egin ote lezakete **lauoinka** haitzetan zaldiek? golda ote lezakete itsasoa idiek? Elizen arteko biblia

Belarria lurrean jarrita entzun egiten zuen ea **lauoinka** hotsa hedatzen zen estepan zehar. Karlos Zabala

Zaldien **lauoinka** -hotsa, gudu-gurdien burrunba eta gurpilen karranka entzutean. Elizen arteko biblia

**2** irud/hed

Tximinoek jauzika, piztiek **lauoinka** zeharkatzen zuten sastraka. Txakurrak, hartan ikasia, pareta ia bertikalean **lauoinka** ekiten zion, muturra gorantz jasorik, ahopetik uluka, ametsetan bezala. Karlos Zabala

Mikel Strogoffek zaldi gainera igo eta **lauoinka** ihesi joatea beste aukerarik ez du. Karlos Zabala

Mikel Strogoff **lauoinka** zihoan kanaberadi horien artean, inork ikusi ezin zuela bidearen inguruko zingiretatik. Karlos Zabala

Gero, **lauoinka** abiatu zen destakamendua. Karlos Zabala

• **3** *iz* lauoinka doanaren urratsa.

Eta zaldia harantz gidatuz, **lauoinka** triste askian bentaraino etorri zen. Patxi Ezkiaga

• **4** *adlag* lau hankan.

**Lauoinka** ibiltzeari utzi eta bi oinen gainean ibiltzen hastean, aurrera okertu behar da burua ikusmen-eremu erosoa izateko. Irene Aldasoro

**Lauoinka** igo beharreko haitz-hormak, harri sendo egokizkoa oro har. Juan Garzia

Azkenean **lauoinka** eta atzeraka irteten zinen leizezulotik. Juan Garzia

Eta gero oso-osorik sartzen zidan ipurditik ni **lauoinka** jarrita. Karlos Zabala

Ferekatzen utzi nion, ukitzen, zabaltzen, **lauoinka** jartzen, marruka nenbilela eta zezen nirea deitzen niola. Karlos Zabala

Gizonak, beren autoetan igoarazi, eta **lauoinka** jartzen dira ipurdia zula diezaieten, hori izaten da haien espezialitatea. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lauoinka bizian** (5); **lauoinka jarri** (3)

---

## lauortzeko ik **lauhortzeko**.

---

## laupabost ik **lauzpabost**.

---

## **laurazka** *iz ipar* launaka.

Partaideak (16 urtez goitikakoak) **laurazka** ariko dira, kopurua 40 etara mugatua izanen delarik. Herria

---

## **laurden** **1** *iz* lau zati berdinetan banatu den banako baten zati bakoitza.

Botila hiru **laurden** betea. Aingeru Epaltza

Jateko txahalaren **laurden** bat osorik. Anjel Lertxundi

Orain dela ordu eta **laurden** . Oren bat eta hiru **laurden** iraun du partidak. Josu Zabaleta

Harenak ziren munduko urre-erreserben hiru **laurden** . Koro Navarro

Nire gelako kideen **laurden** batek-edo errepikatu egin beharko luke urtea. Josu Zabaleta

Anne Frank Funtsak onartutako testu hau orain arte ezagutzen zen testua baino **laurden** bat luzeagoa da. Josu Zabaleta

Frisoak ere arkitrabeak berak baino **laurden** bat txikiagoa izan behar du. Santiago Iruretagoiena

Nekazaritzak, meatzaritzak eta energia-gaiek munduko esportazioetan duten partea bi heren izatetik, **laurden** bat baino gutxiago izatera iritsi da. Koro Navarro

Jokalari argentiarrak lehen **laurden** bikaina egin zuen eta Gasteizko taldearen puntu gehienak egin zituen. Berria - Kirola

**2** (orduetan)

Erlojuak hamarrak **laurden** gutxi jo zituen. Josu Zabaleta

Gaueko hamaikak **laurden** guti ziren. Aingeru Epaltza

Zortziak eta **laurden** jo gabe eta dagoeneko etxeko atariaren parean. Aingeru Epaltza

Ordubiak **laurden** gutxi: bazkaltiarrak jaiki eta zein bere eginkizunetara itzultzen dira. Josu Zabaleta

Zazpiak **laurden** gutxiak arte. Josu Zabaleta

Zortziak **laurden** gutxietatik aurrera. Josu Zabaleta

Hamaikak **laurden** gutxiagotan iritsi ziren King's Crossera. Iñaki Mendiguren

Lau alemanak kanpora atera ziren, gauerdi **laurden** gutitan, ohi zuten bezala. Eneko Bidegain

**3** edukiera neurria, pitxer laurdenaren baliokidea.

Zoaz Zeldarengana, kalearen bestaldera, eta eros ezazu **laurden bat** esne irakin. Koro Navarro

**Laurden bat** ardorik ez dute tabernan ematen, palanka-botatze on baten edo ezpata-kosk on baten truke. Patxi Ezkiaga

Buhame itxurako saltzaile batek merke zurrean eskaintzen zuen olioaren kolorea gustaturik, txinta bat erosi du hartatik, **laurden** erdi bat besterik ez. Arraina zegoenetan, olioa ere ematen ziguten, ontza eta erdi bakoitzari, eta ozpina ere egunero, **laurden** bana. Anjel Lertxundi

**4** liburuen tamaina mota, inprenta orri baten laurdenari dagokiona.

Londresen, 1929ko ekainaren hasiera aldera, Joseph Cartaphilus antikuarioak, Esmirnakoa bera, Pope-ren Iliadaren sei liburukiak, **laurden** txiki moldean argitaraturikoak (1715-1720), eskaini zizkion Lucinge-ko printzesari. Juan Garzia

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ogi apur bat, txokolatea, gazta **laurden** bat. Eider Rodriguez

Mendi ostean erortzear dagoen ilargi **laurden** hori. Josu Zabaleta

Orri **laurden** bat zegoen mahai gainean. Jose Morales

Mende-**laurden** batean, bi nazio horiek munduko herrialde boteretsuenak bihurtu ziren. Koro Navarro

Moskoe-strömgo zurrunbiloa milia **laurden** bat aurrerago zegoen. Koro Navarro

Ertzeko zintarria metro **laurden** zen gora. Elizen arteko biblia

Libra **laurden bat** te eta bi libra azukre erostera irtetea erabaki zuen. Irene Aldasoro

Gabonetarako libra **laurden** bat gurin gehiago emango zaiola bakoitzari. Josu Zabaleta

Ontsa gorderik bazen kafea, eta hobeki gorderik, pinta **laurden bat** aguardienta. Marzel Etxehandi

Zor dizkidazu bost penny-**laurden**. Mirentxu Larrañaga

Bi diesi edo tonu-**laurden**. Santiago Iruretagoiena

Estatu Batuetako Federal Reserve Board erakundeak interbentzio-tasa puntu-**laurden** bat jaistea erabaki zuen. Koro Navarro

Bihar egingo da final-**laurden** eta finalerdietako zozketa. Berria - Kirola

**6** ***ordu laurden***

**-Ordu laurden** bat galdu diat lehen ere hire bila. Joxean Agirre

**Ordu-laurden** bat ere ezin geldirik egon. Joxe Austin Arrieta

**Ordu laurden** bat geroago tabernako nagusiarekin irten zen. Migel Angel Mintegi

Ixteko **ordu laurdena** doi falta zela iritsi nintzen. Anjel Lertxundi

**Ordu laurden** baino gehiagoko azterketa zehatzaren ondotik. Aingeru Epaltza

Egurra mozten egon den **ordu laurdenean** ez dugu hitz bat bera ere esan. Josu Zabaleta

Beti bezala, hiru **ordu laurdeneko** bidaia. Unai Iturriaga

Handik **ordu laurdenera,** neskamea lasterka agertu zen. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bederatziak eta laurden** (5); **bederatziak laurden gutxi** (4); **bi final laurden** (5); **biak eta laurden** (5); **bostak eta laurden** (5); **duela mende laurden** (18); **eguerdi laurden gutitan** (6); **final laurden** (12); **finala laurden hau** (7); **hamabiak eta laurden** (4); **hamaikak eta laurden** (6); **hamaikak laurden gutxi** (7); **hamarrak laurden gutxi** (5); **hiru laurden** (61); **hiru laurden iraun** (8); **hiru ordu laurden** (41); **hiru oren laurden** (4); **hirurak eta laurden** (5); **laurak laurden gutxi** (5); **laurden gutitan** (6); **mende laurden** (63); **mende laurden bat** (24); **mende laurden batez** (5); **mende laurden honetan** (4); **ordu eta laurden** (11); **ordu laurden** (256); **ordu laurden barru** (5); **ordu laurden beranduago** (5); **ordu laurden eman** (4); **ordu laurden eskas** (4); **ordu laurden falta** (5); **ordu laurden geroago** (15); **ordu laurden inguru** (12); **ordu laurden lehenago** (13); **oren laurden** (46); **puntu laurden** (21); **puntu laurden bat** (4); **puntu laurden igo** (7); **seiak eta laurden** (5); **seiak laurden gutxi** (7); **zazpiak eta laurden** (5); **zortziak eta laurden** (6); **zortziak laurden gutxi** (5); **zortziak laurden gutxiago** (4); **zortziak laurden gutxiagotan** (5)

**azken laurdena** (14); **azken ordu laurdena** (5); **final laurdena** (23); **finala laurdena** (15); **hirugarren laurdena** (10); **laurdena bete** (10); **laurdena beteta** (4); **laurdena bukatu** (4); **laurdena falta** (7); **laurdena falta zela** (5); **laurdena igaro** (4); **lehen laurdena** (15); **mende laurdena** (37); **ordu laurdena** (46); **ordu laurdena falta** (4); **oren laurdena** (13); **pintatutako laurdena erakusten** (4); **torneoko final laurdena** (4)

**bi final laurdenak** (8); **bi finala laurdenak** (4); **euroligako final laurdenak** (4); **final laurdenak** (185); **final laurdenak jokatzeko** (13); **finala laurdenak** (62); **harmailen hiru laurdenak** (7); **hiru laurdenak** (83); **hiru laurdenak bete** (14); **hiru laurdenak beteta** (11); **kopa final laurdenak** (5); **kopako final laurdenak** (28); **lehen final laurdenak** (4); **txapelketako final laurdenak** (4); **zigorraren hiru laurdenak** (21)

**azken laurdenaren** (7); **bigarren laurdenaren** (4); **hirugarren laurdenaren** (9); **lehen laurdenaren** (6)

**azken laurdenean** (55); **azken mende laurdenean** (4); **azken ordu laurdenean** (7); **azken oren laurdenean** (4); **bigarren laurdenean** (37); **final laurdenean** (10); **finala laurdenean** (10); **hirugarren laurdenean** (54); **laugarren laurdenean** (9); **lehen final laurdenean** (4); **lehen laurdenean** (56); **lehen ordu laurdenean** (5); **mende laurdenean** (9); **mendearen azken laurdenean** (5); **ordu laurdenean** (27); **oren laurdenean** (9)

**hiru laurdenek** (18)

**azken laurdeneko** (7); **final laurdeneko** (13); **hiru laurdeneko** (20); **hiru ordu laurdeneko** (8); **mende laurdeneko** (4); **ordu eta laurdeneko** (6); **ordu laurdeneko** (27)

**final laurdenen** (7); **finala laurdenen** (5); **hiru laurdenen** (9); **hiru laurdenen buruan** (5)

**azken laurdenera** (11); **handik ordu laurdenera** (7)

**ordu laurdenerako** (4)

**ordu laurdenero** (5)

**final laurdenetako** (285); **final laurdenetako joanekoan** (6); **final laurdenetako kanporaketa** (38); **final laurdenetako partida** (24); **final laurdenetako zozketa** (6); **hiru laurdenetako** (15); **hiru laurdenetako lerroan** (6); **kopako final laurdenetako** (31); **ligako final laurdenetako** (14); **torneoko final laurdenetako** (6); **txapelketako final laurdenetako** (23)

**azken bi laurdenetan** (5); **bederatziak eta laurdenetan** (4); **euroligako final laurdenetan** (4); **final laurdenetan** (272); **final laurdenetan jokatu** (5); **final laurdenetan sartu** (7); **final laurdenetan sartzeko** (9); **finala laurdenetan** (56); **hiru laurdenetan** (12); **kopako final laurdenetan** (27); **lehen bi laurdenetan** (5); **ligako final laurdenetan** (8); **seiak eta laurdenetan** (4); **txapelketako final laurdenetan** (8); **zortziak eta laurdenetan** (7)

**final laurdenetara** (90); **final laurdenetara iritsi** (9); **final laurdenetara sailkatu** (4); **final laurdenetara sartu** (9); **final laurdenetara sartzeko** (9); **kopako final laurdenetara** (6)

**final laurdenetarako** (96); **final laurdenetarako sailkatu** (20); **final laurdenetarako txartela** (21); **kopako final laurdenetarako** (6); **nbako final laurdenetarako** (5); **txapelketako final laurdenetarako** (8)

**finala laurdenetarat** (4)

**final laurdenetatik at** (9); **final laurdenetatik kanpo** (8)

**hiru laurdenez** (10); **hiru ordu laurdenez** (7); **hiru oren laurdenez** (9); **ordu laurdenez** (13); **oren laurdenez** (9)

**laurdendu,** laurden(du), laurdentzen du *ad* laurdenkatu, lau laurden egin.

Emakume babesgabeei zintzurra moztu zenieten arkume errugabe bailiran, eta haurrak **laurdendu** zenituzten. Jon Alonso

Agian urkatu egingo zaituzte, makilatu, **laurdendu,** erdibitu, bizirik erre. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Epaitegi gorenak **laurdendu** egin zuen Gillermo Colingburn zalduna. Juan Martin Elexpuru

Animaliak torturatzen -batzuk, erabat hilik ez daudela, larrutzen eta **laurdentzen-** dituzten hiltegi eskergak itxiko ditu jendeak, mugimendu zibilek bultzatuta. Edorta Agirre

**Laurdenduta** hiltzera kondenatu zuten. Juan Martin Elexpuru

---

**laurdenka 1** *adlag* laurdena oinarri harturik.

Gramoka azaltzen da beti, edo gramo **laurdenka** . Bernardo Atxaga

Markagailua **laurdenka:** 17-16, 41-41 (atsedenaldia); 67-63 eta 93-87. Berria - Kirola

**2** ***laurdenkako*** *izlag*

Gure **laurdenkako** urtaroak baino luzeagoak. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> markagailua laurdenka (4)

---

**laurdenkatu,** laurdenka(tu), laurdenkatzen du *ad* lau laurden egin, bereziki pertsona bat heriotze zigor gisa.

Erregea hiltzeko saio-egileak **laurdenkatuak** izaten ziren plazan, zaldi lodi eta kemen handikoak lotzen zitzaizkien kondenatuaren beso-hankei eta gero tira egiteko agintzen. Felipe Juaristi

Nork egin dizu begizkoa? nork liluratu zaitu? [...] esan, eta **laurdenkatu** egingo dut halako hori, eta gero haren puskak egosita zakurrei emango dizkiet. Felipe Juaristi

Aurrena gorputza **laurdenkatu** nuen. Koro Navarro

Barbarotasun arabiar peto-petoz, **laurdenkatu** egiten zituen, gazitu eta soto batean kontserbatzeko. Juan Garzia

---

**laurdenkatzaile** *iz* laurdenkatzen duen borreroa.

**Laurdenkatzaile** baten upel zikin-zikinak, non herri oso baten gantz gaiztoa urtzen baitzen. Karlos Zabala

---

**laurdenki** *iz* laurdeneko zatia.

Eta, estalpeetan, zelata egiten zieten tripakiei beren tinetan, eta hestebete luze kulunkariei, eta harakinek okela-**laurdenkiak** zintzilikatzen zituzteneko kakotzar burdinazkoei. Juan Garzia

---

**laurdentsu** *iz* gutxi gorabehera laurdena.

Hendaiako *Tribord* horrek hartzen du hektara erdiño baten eremua, eremu horren **laurdentsua** saltegi kondu. Herria

· Ordu **laurdentsuz** lo-ez-lo atseden hartu eta gero, zigarroari zigarroa egon nintzen sabaira begira. Anjel Lertxundi

---

**laurdentto** *iz adkor* laurdena. ik **laurdentxo**.

Sozietateko akzioen **laurdentto** bat hamazazpi enpresa pribatu desberdinen artean partekatua dago. Herria

---

**laurdentxo** *iz adkor* laurdena.

**Laurdentxo** bat baino ez naiz, erditxo bat, bezpera bat, izatera iristen ez den hats galdua. Karlos Linazasoro

· Ea gutxienik ordu **laurdentxo** bat jokatzeko modurik dudan. Berria - Kirola

Ordezkoen aulkian eserita eduki ondoren, ordu **laurdentxoa** baino falta ez zelarik zelairatu ninduen anai Jaxintok. Joan Mari Irigoien

---

**laurehun** *(orobat* ***lau ehun*** *eta* ***larehun*** *g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***laurehun*** *agertzen da)* **1** *zenbtz* lau bider ehun, 400. (dagokion izenaren ezkerrean)

**Laurehun** granadak egin zuten eztanda bost egun eta gauez. Beheko danborrak **laurehun** bira eman dituenean. Txillardegi

Davidek aurrera egin zuen **laurehun** gizonekin. Elizen arteko biblia

Liburu bakoitza **laurehun** eta hamar orrialdetakoa da. Juan Garzia

Artileriako mila eta **laurehun** pieza. Juan Garzia

**Laurehun** artista inguruk parte hartuko dute aurten Aitor Urdangarin margolaritza lehiaketan. Berria - Kultura

**Lau ehun** bazkaltiar hurbil, gaitzeko giro ona. Herria

Berrogeita hamar eta hirurehun edo **laurehun** ale bitarteko argitalpenak izango ziren. Oskar Arana

Beste **laurehun** eta gehiago gatiburekin. Karlos Zabala

Bil itzazu israeldar guztiak niregana Karmel mendian, bai eta Jezabelen mahaian jaten duten Baal sasijainkoaren laurehun eta berrogeita hamar profetak eta Axera jainkosaren **laurehunak** ere. Elizen arteko biblia

**Laurehunetik** gertuago hirurehunetik baino. Edorta Jimenez

**2** (dagokion izena ezkerretik ezabaturik)

Ilaretan eginak daude barrakoiak, ia **laurehun** guztira. Jokin Urain

"Berrehun eta berrogei gramo galdu ditut azken aste honetan", edo "kilo eta **laurehun** irabazi ditut", zehazten zuen don Pedrok. Bernardo Atxaga

Baalen profetak, berriz, **laurehun** eta berrogeita hamar dira. Elizen arteko biblia

Seiehun eta laurogei kaxa egunean, hiru mila eta **laurehun** astean, ehun eta hogeita hamasei mila urtean. Harkaitz Cano

Bostehun kilometro, **laurehun** eta laurogeita hamar, **laurehun** eta laurogei, **laurehun** eta... edozein momentutan gerta daiteke edozein ezbehar. Sonia Gonzalez

**3** (denbora unitateekin)

Horazio eta Virgilioren aroa baino **laurehun** urte geroago. Iñaki Mendiguren

-la **laurehun** urte dira ez dudala jan -erantzun zion mamuak-. Iñaki Mendiguren

Aurreko **laurehun** urteetan. Iñaki Mendiguren

Zeruko bere orbita osoa **laurehun** eta laurogeita bost egunetan egin ondoren. Santiago Iruretagoiena

**4** (diru unitateekin)

Lursail horrek zilarrezko **laurehun** txanpon balio du. Jose Antonio Mujika

Prezioa baieztatu zidan, **laurehun** libera eskura. Joseba Urteaga

**Laurehun** eta berrogeita hamar franko geratuko dira arropa garbitzeko, gastu xeheetarako eta zinemarako. Monika Etxebarria

Sari ederrak badira irabazteko, lehena **lau ehun** eurokoa. Herria

Nire eskudiruaren moldaketa, berriz, pixkanaka egin dezaket, egunean hirurehun edo **laurehun** dólar. Xabier Olarra

**5** (bestelako unitateekin)

Bi mila eta **lau ehun** tona ardi gasna. Herria

**Laurehun** tona bakailaoren gainean. Koldo Izagirre

**Laurehun** kilo garagar-hazi zilarrezko berrogeita hamar txanponetan. Elizen arteko biblia

Porlanez betetako **laurehun** kiloko bidoi batera kateatu ziren. Berria - Euskal Herria

**Laurehun** eta berrogeita hamar kilometro gogor haiek eta hegazkinean iragandako ordu luzeek leher eginak utzi gintuzten. Xabier Montoia

Mirenen baserritik **laurehun** metrora beste bat zegoen, zahar-zaharra. Joxean Sagaztizabal

Eraikin horiek ezkerreko espaloiaren ertzean hedatzen dira **laurehun** metroan. Monika Etxebarria

Hantxe utziko zuen ibai handia, **laurehun** versta luzean handik behera etorri eta gero. Karlos Zabala

**6 *hirurehun-laurehun*** *zenbtz*

**Hirurehun-laurehun** oineko aldea bazegoen almadiatik Poshkavsk herriaren sugarretara. Karlos Zabala

· Langileak **hirurehun-laurehunekoren** bat ziren, baina poliziak ere asko ziren Josu Zabaleta

**7 *laurehun bat*** *(orobat* ***laurehunen bat****)* gutxi gorabehera laurehun.

Reykjavik sarraskitu zuten, lapurreta ugari egin eta **laurehun bat** islandiar hartu esklabo. J.M. Olaizola "Txiliku"

Orain dela **laurehun bat** urte Leitzan eraikitako etxe dotore bat da Maxurrenea. Martin Anso

**Laurehunen bat** gizonek jarraitu zioten David. Elizen arteko biblia

Tours Angelutik **laurehunen bat** kilometrora dago. Berria - Kirola

**Laurehun bat** verstako tartea zen (426 kilometro), eta trenak egun erdia beharko zuen haraino. Karlos Zabala

**8 *laurehun mila*** *zenbtz*

**Laurehun mila** gudari ziren, gerrarako trebatuak. Elizen arteko biblia

Ondorioa da **laurehun** edo bostehun **mila** lagun egongo zirela, zuhurtziak mesfidati izatera eramaten gaituen zenbakia, alegia. Jon Alonso

Emazte ohia eta biok salmentatik ateratako dirua erdi bana egitekotan geunden, eta bankuan **laurehun mila** dolar aski eta sobera izango ziren azken hatsa eman arte bizitzeko. Oskar Arana

**Laurehun mila** aletik gora saldu ziren. Koldo Biguri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bainuontziko laurehun tapoi** (3); **hirurehun edo laurehun** (3); **laurehun bat urte** (3); **laurehun gizonekin** (5); **laurehun lagun** (3); **laurehun libera** (4); **laurehun metro** (4); **laurehun mila** (9); **laurehun mila gudari** (3); **laurehun tapoi** (3); **laurehun txanpon** (4); **laurehun urte** (16); **laurehun urtez** (4); **mila eta laurehun** (8); **mila laurehun** (5); **zilarrezko laurehun txanpon** (3)

---

# laurehuna *adlag* bakoitzari laurehun, bakoitzak laurehun.

Ahariek muga hiruzpalau aldiz igaro zutenerako, **laurehuna** mila errubloko kapitala zuten bi funtzionarioek. Jose Morales

---

# laurogei *(orobat* ***larogei****; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***laurogei*** *agertzen da)* **1** *zenbtz* zortzi bider hamar 80. (dagokion izenaren ezkerrean)

Izan ditzala erregeak hirurogei emazte, **laurogei** ohaide, nahi beste neska gazte. Elizen arteko biblia

Harrotua zegoen hainbeste milaka gudari eta zaldun eta **laurogei** elefante zituelako. Elizen arteko biblia

Isaak ehun eta **laurogei** urtez bizi izan zen. Elizen arteko biblia

**Laurogei** eta koska urtez itxaron behar izan dut hori ulertzeko. Jon Muñoz

Orduko ehun eta **laurogei** kilometroko lastertasunean. Josu Zabaleta

Astaburu bakar batek zilarrezko **laurogei** txanpon balio zuen. Elizen arteko biblia

Hartu dut diru-zorroa eta atera ditut **laurogei** koroak. Anton Garikano

Zuria, metro **laurogei** zentimetro. Gotzon Garate

Metro eta **laurogei** zentimetro [...] begiak distiraz betetako bi maxi-mix eskizofreniko. Patxi Iturritegi

Kamsketik Ubinsk herrixkara dauden **laurogei** versta (85 kilometro) egun hartan bertan egiteko asmoz. Karlos Zabala

Gryffindor doa aurretik **laurogei** punturen aldeaz. Iñaki Mendiguren

Ehun eta **laurogei** graduko itzulia egin zuen Davidek beste aldera. Oskar Arana

Bi pezetako olioa, **laurogei** pezetan. Arantxa Iturbe

**2** (dagokion izena ezkerretik ezabaturik)

Hirurogei baino ez, aintziraren ertzean barrena Angarako ahoraino, eta beste **laurogei,** Angarako ahotik Irkutskeraino: guztira, ehun eta berrogei versta. Karlos Zabala

Gidariak ez ziren gauza hogeita hamar itzulitik gora egiteko; garai honetan **laurogei** dira ohikoak. Berria - Kirola

Nire kalkuluen arabera, **laurogeiak** ondo beteak behar zituen, laurogeita hamar urte ere izango zituen agian. Koro Navarro

Ehun bat metro izango dira handik hona, **laurogei** akaso, distantzia handia nolanahi ere. Karlos Linazasoro

Metro eta **laurogei** inguru izango zen altu. Aritz Gorrotxategi

Mori andereñoa metro eta **laurogei** pasa zen luze. Joxan Elosegi

- **Laurogei,** gutxi gorabehera. Jose Morales

**Laurogei** ehuni aterako da dirua Nagoreren alde. Berria - Kirola

**3 *laurogeita***

**Larogeita** hamar urte baino gehiagorekin joan zaigu Francis Gaudeul jenerala, euskalduna bihotzez. Herria

**Larogeita** hamalau egun itsasoan, bakarrik. Herria

**Larogeita** hamabosteko udan. Pablo Sastre

Behin eta berriz saiakuntza laborategian errepikatu eta gero, saioetako ehuneko **larogeita** bost kasutan ernalketa lortzen zela ikusi nuen. Hasier Etxeberria

**-Larogeta** lau eginak eta esperantzea beste hainbestekoa. Xabier Amuriza

## 4 ***laurogei bat*** *(orobat* ***laurogeiren bat****)* laurogei gutxi gorabehera.

Apezpiku euskalduna eskatzeko ausartzia izan zuen **laurogei bat** laguneko apez taldeaz mintzo ziren. Piarres Xarriton

Metro eta hirurogei inguruko garaieran banatutako **laurogeiren bat** kilo, begi marroiak, eta hontz itxurako aurpegia. Joxemari Urteaga

Emakume bat, **laurogei bat** urtekoa, oinez dabil noraezean. Harkaitz Cano

Bost urteren buruan, **laurogei bat** mila libera zituzten errenta onetan jarriak. Karlos Zabala

Esparru estu hartan, gazte asko bildu ginen; **laurogeiren bat** preso politiko guztira. Rafa Egiguren

## 5 ***hirurogei-laurogei*** *zenbtz*

Halako argitasun fosforeszente bat zerien laino itxi haietako batzuei, **hirurogei-laurogei** graduko arkuak osatuz. Karlos Zabala

Minutuko **hirurogei-laurogei** aldiz gertatzen da bulkada hori. Irene Aldasoro

## 6 ***laurogei mila*** *zenbtz*

**Laurogei mila** lagun galdu ziren hiru egunetan: berrogei mila ezpataz hilak eta gutxienez beste horrenbeste esklabo salduak. Elizen arteko biblia

**Laurogei mila** litro ur hartzen zuen uraskak. Elizen arteko biblia

Aukerako ehun eta **laurogei mila** gizon ziren gudurako gai. Elizen arteko biblia

Bost urteren buruan, **laurogei** bat **mila** libera zituzten errenta onetan jarriak. Karlos Zabala

## 7 ***laurogei milioi*** *zenbtz*

**Laurogei milioi** pezeta jaso beharko lituzke ama batek urtean. **Laurogei milioi** legoatako distantziara besterik ez gugandik. Arantxa Iturbe

Eskualde Kontseiluak bere kontuetan **laurogei milioiko** zuloarekin bukatuko duela. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**laurogei bat lagun** (3); **laurogei egunetan** (3); **laurogei gizon** (3); **laurogei graduko** (4); **laurogei inguru** (4); **laurogei koroa** (3); **laurogei koroak** (5); **laurogei lagun** (3); **laurogei mila gizon** (4); **laurogei mila hargin** (3); **laurogei milioi** (5); **laurogei obra** (3); **laurogei urte** (29); **laurogei urteak** (6); **laurogei urteko** (5); **laurogei urtetan** (3); **laurogei urtetik gora** (7); **laurogei urtetik gorako** (6); **laurogei urtez** (8); **laurogei zentimetro** (5); **metro eta laurogei** (5)

**laurogeiko hamarkadaren hasieran** (4)

**ehuneko laurogeita hamarra** (4); **laurogeita hamar egunetan** (3); **laurogeita hamar urte** (9); **laurogeita hamarra** (4); **laurogeita hamarreko** (7); **laurogeita hemeretzi urte** (5); **laurogeita hiru urte** (4); **laurogeita lau banku** (4); **laurogeita sei egun** (3); **laurogeita zazpigarrena** (3)

---

# laurogeigarren *izlag* zerrenda batean aurretik hirurogeita hemeretzi dituena (80.).

Joan den mendeko **laurogeigarrenetan** "pobrezia berria" sortu da, hau da, jan nahi ez dutenena, jana txarra delakoan. Edorta Agirre

---

# laurogeinaka *adlag* laurogeinako multzoetan.

Orain ez gindoazen hirurogeinaka, **laurogeinaka** baino; hala eta guztiz fardelik ere ez generaman eta ez genuen emakumeez ere arduratu behar. Urtzi Urrutikoetxea

---

# laurogeitaka *adlag* urteez mintzatuz, laurogeitik gora.

**Laurogeitaka** urte zituela hil zen, 1928an. Juan Garzia

**Laurogeitaka** urteko bikote bat baino ez. Unai Elorriaga

Orain **laurogeitaka** urte. Iñaki Segurola

**Laurogeitaka** urte (eta gehiago, segurutik) iraun dezakeen bizi-pasaren ondoren, zer egiten du zoriontsuak? Iñaki Segurola

---

# lausengari 1 *izond* lausengatzen duena. ik **losintxari; lausengatzaile; lausengarri.**

Irratiko solaskide **lausengaria** politikari baten hitzak errepikatzera mugatu da. Lutxo Egia

-Baietz Lockhart izan inoiz topatu duzun morroirik **lausengariena**! -esan zion Ronek Harryri. Iñaki Mendiguren

Emakume hori zeinen atsegina den, eta adiskidantzari zer nolako xarma **lausengaria** ematen dakien! Jon Muñoz

Hitz gozo eta **lausengariz**. Felipe Juaristi

Ahots **lausengaria** erabili zuen orduan, baina ez zen hura ahots isekaria baino hobea. Iñaki Mendiguren

Ideia orokorrak **lausengariagoak** dira. Monika Etxebarria

## 2 (adizlagun gisa)

**Lausengari,** eskuarekin ileak laztandu dizkio, eta tira egin. Itziar Otegi

-Monestier herritarrak hegaztietaz anitz daki -zehaztu zuen Monduteguyk, **lausengari**. Elena Touyarou

-Oso erraza da, Joanes buru-argia -esan zion alkateak **lausengari-**. Felipe Juaristi

-Nabaritzen zaizu -Maizak, **lausengari** samar. Migel Angel Mintegi

## • 3 *iz* lausengatzen duen pertsona.

Hantustetsuak bizkarkinen edo **lausengarien** presentzia maite du. Piarres Xarriton

Zeren, nehor ez da, hantustetsuak baino errazkiago, **lausengarien** sareetan erortzen. Piarres Xarriton

Gezurtiak gorroto dio biktimari, **lausengariak** hondamendira darama. Elizen arteko biblia

---

# lausengarri *izond* gauzez mintzatuz, lausengatzen duena. ik **lausengari.**

Chiracek, berriz, hitz **lausengarriekin** nabarmendu zuen Frantziak eta Europako beste herrialde gehienek Ameriketako Estatu Batuei eta beste herrialde aliatuei zor dietela gaur egun duten askatasuna. Ez du sekula konplimendurik egiteko itxurarik, eta haatik erraten duen guztia **lausengarria** da. Jon Muñoz

Poliziaburuari, berriz, oso gauza **lausengarriak** esan zizkion hiriko kalezainen gainean. Jose Morales

---

# lausengatu, lausenga, lausengatzen 1 du *ad* norbaiti, haren onginahia irabazteko, hitz labainak esan edo txerak, askotan engainuzkoak, egin. ik **losintxatu; balakatu.**

Ez dute estimatzen; **lausengatzen** dute ordea. Jon Muñoz

Emakume bat nola **lausengatu** ondotxo dakiten horietakoa. Jasone Osoro

Zu **lausengatu** nahian nenbilen. Patxi Zubizarreta

Ez naiz inoren alde jarriko, ez dut inor **lausengatuko**. Elizen arteko biblia

Pauline **lausengatua** sentitu zen hasieran, baina atzera egin zuen segidan. Karlos Zabala

Hamar urte dira jo eta ke ari naizela **lausengatzen** hemengo dirudun zeken zikin batzuk, nahiz eta gogoz emango nizkiekeen muturreko on batzuk topatzen ditudan bakoitzean. Koldo Biguri

**Lausengatu** egin nuen, hori delako mozkor bat tratatzeko modu hoberena. Fernando Rey

Ez zuen umorerik Ahalguztiduna **lausengatzeko,** jakintza-emaile, hilen bizi-emaile, gaixoen sendatzaile, atxilotuen askatzaile deitzeko, edo Bere santutasuna Sionera berriz eramanda Jerusalem berreraiki zezala erregutzeko. Koro Navarro

Nahi nuke nire neskatxak ni pixka bat zaintzea eta **lausengatzea**. Lopez de Arana

**2** irud/hed

Ohoreak **lausengatuta,** denbora luzez prestatu nuen nire hitzaldia Hartu duen xede horrek neure buruari diodan maitasuna **lausengatu** du, aitor dizut. Itziar Otegi

Trebeki **lausengatzen** gure bi gutizia maiteenak. Jon Muñoz

Eta diru-epifania honek, automatikoki gobernuaren ospea sustatzeaz gain, aukera paregabea ere ematen dio bere burua **lausengatzeko**. Iñaki Mendiguren

---

# lausengatzaile *iz* lausengatzen duen pertsona.

**Lausengatzaileen** eta gaizkierraileen solasen kasuan beti zentzuz jokatu behar da eta, ez bada gaizkirik aurkitzen jendeak gutaz hitz egiten duelarik, bozkario handitan sartu behar dugu. Piarres Xarriton

---

# lausengu **1** *iz* norbaiti, haren onginahia irabazteko, esaten zaizkion hitz labainak edo egiten zaizkion txerak, askotan engainuzkoak.

**Lausengu** hark hunkitu egin zuen. Husainik ez zuen denbora gehiago **lausenguetan** xahutu nahi izan. Patxi Zubizarreta

Aurrena **lausenguz** bete zuen, eta hurrena kalezuloko eta alboko auzuneetako esamesak kontatu zizkion. Patxi Zubizarreta

Bere zurikeriaz menperatu eta bere **lausenguz** bereganatu zuen. *ik beherago* 4. Xabier Kintana

Ai, zer miserablea naizen **lausenguak** egiten hasten naizenean! Harkaitz Cano

**Lausenguak** utzi eta pisu handiagoko arrazoiak agertzeko aldia nuen. Aingeru Epaltza

Hitzok ez ziruditen arima-zaindari batek esanak, **lausengua** eta koipearen azpian lehortasun hotza igartzen da. Jon Alonso

Ez diogula jaramon handirik egin behar gizonen **lausengu** edo mesprezuei, eta sentimendu hutsal eta zentzugabe hauei entzungor egin behar diegula. konfiantzaz eta ausardiaz jokatzen zuen gauza guztietan, inolako zurikeria eta **lausengutan** ibili gabe. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Iduritu zitzaion hitz horiek ez zirela zinez **lausenguzkoak,** eta osaba zehazki begiztatu zuen, esaldi trukaketa laburrean nehondik ere aldatu ez zitzaion aurpegi aire haren gibelean zer gordetzen ote zen jakiteko ahaleginetan. Elena Touyarou

**Lausenguak** ere sortzen du elkartasuna, baina menpetasunaren edo fede txarraren kutsuarekin. Piarres Xarriton

**2** irud/hed

Itsaso jabalaren **lausengu** traidoreak ezin zuen inor erakarri bere uhin irrigileen engainura. Xabier Amuriza

**3** (hitz elkartuetan)

Zuzendari txit agurgarriak, bitartean, bere **lausengu**-sortarekin segitu zuen. Anjel Lertxundi

Eta halako **lausengu**-korda luze bat korapilatzen hasi da haren mingain lodia. Anjel Lertxundi

Baina hura ez zen **lausengu** zale (gizon gehienak bai, pentsatu zuen). Anton Garikano

**4** ***lausenguz** adlag*

Onez onean saiatu zen lehenik, txeraz eta **lausenguz,** eta mehatxuekin gero. Joxean Agirre

Emakume gaiztoarengandik gordeko zaituzte eta **lausenguz** ari zaizunarengandik. Elizen arteko biblia

Mirespenez edo **lausenguz** begiratzen diola pentsatuz. Joxean Agirre

-Ea, tira! -esan zion Ronek **lausenguz,** bolanteari astindutxo bat emanez-. Iñaki Mendiguren

---

# lausenguka *adlag* lausenguak egiten, lausenguz.

Egiatia naizelako eta jendeari edozein modutan **lausenguka** ari ez natzaiolako. Josu Zabaleta

Noir bulebarrak ez du paseoan dabiltzanei **lausenguka** ibiltzen zaizkien kale burgesen piura lotsagabea. Monika Etxebarria

Ni gabe ere, ezti-jario asko ditu inguruan, beti **lausenguka**. Jose Morales

Etsaiak aurrean makurtuko zaizkizu **lausenguka,** eta zuk bizkarra zapalduko diezu. Elizen arteko biblia

---

# lausengukeria *iz* lausengu gaitzesgarria.

Horrez gainera, jarri bere harrokeria eta bere **lausengukeria**. Josu Zabaleta

Gorrotoa eta **lausengukeria,** norberaren **lausengukeriari** gorrotoa. Joseba Urteaga

Baina nigar kolektiboak, erasia bortitzen beldurrak, laudorio, **lausengukeri** eta apaltasunak, eginbide gogorrak, ideia bakun hetsiak... zer zen hori? Piarres Aintziart

---

# lauskitu, lauski, lauskitzen **1** du *ad* eskuen artean marruskatu.

Papera **lauskitu** eta pilota jakako poltsikoan sartu ondoan, bertze orri bat erauzi nuen koadernotik. Aingeru Epaltza

Esku ikusezin hark nire urdaila **lauskitzen** jarraitzen zuen. Alberto Ladron Arana

· Etsi-etsian, gerrian zeraman zorro hutsa, zeinu magikoz betea, eskuaz **lauskitu** zuen. Joanes Urkixo

**2** irud/hed

Esku ikusezin hark nire urdaila **lauskitzen** jarraitzen zuen. Alberto Ladron Arana

Pasabidearen bukaeran **lauskituta** zeuden jendetzaren artean. Lopez de Arana

Ez naute **lauskituko** Zunino eta Zangri-k. Juan Garzia

---

# lauso **1** *iz* begiaren alde gardenean agertzen den orbantxo zurixka, ikusmena iluntzen duena. ik**gandu**.

Tobiti begietako **lauso** txuria kenduko zion, Jainkoaren argia bere begiz ikus zezan. Jose Antonio Mujika

*ik beherago* 11. Askoren artean

Haien zirin beroa erori zitzaidan begietara eta **lauso** txuriak sortu zitzaizkidan. Jose Antonio Mujika

Testamentu berriak dioen bezala, begiak irekiko dira, **lausoak** erori, eta itsuari ikusmena "emango" zaio. Xabier Olarra

**2** gehiegi edaten denean, negar egiten denean edo antzekoetan, begiek hartzen duten itxura.

Betaurrekoak puska tiki eginda, begietako **lausoak** ilunagotzen zuen toki zoldazu horretako ilunpea. Aingeru Epaltza

Joxanen begietan oruxoak eragindako **lausoa..** . Paddy Rekalde

Maddalen tristura oso batean sartu zen, zeina irakur baitzitekeen haren begien **lausoan** Joan Mari Irigoien

**3** beiretan itsasten den hezetasuna, gardentasuna kentzen diena.

Leihoak **lauso**-geruza mehe batez estaltzen ari ziren, ordea, beroaren goxotasunez. Jon Muñoz

Marmarrean hasi zen berriro bere kasa, begiak tabernako beiratea bezain argi-**lauso**. Anjel Lertxundi

Leihoetako kristalak **lauso-lauso** ageri dira, karez zurituta bezala. Patxi Iturritegi

**4** gandua; ikustea eragozten duen zernahi gauza.

Miopiaren **lausoen** artetik, bere gisako bizitegi batean nintzela konprenitu nuen. Aingeru Epaltza

**Lauso** artean bizi dira. Berria - Harian

Utzikeriaz jokatu dutela maiz Txinako agintariek gaixotasun honen aurrean, eta **lauso** artean gorde dituztela gaitzari buruzko hainbat datu eta susmo. Berria - Gaiak

Garaituen historia **lausoan** galtzea da garaileen helburuetako bat. Jokin Urain

Hor ikusten du **lausoaren** atzean, piezatxoak bere eskutzarretan ibiltzen. Jokin Muñoz

**5** (-en atzizkiaren eskuinean)

Dena dela, azken 70 urteotakoak ere historia asko daude kontatzeko oraindik, eta kontatu beharko lirateke, denboraren **lausoak** ez ditzan eraman memoriaren aztarna horiek. Jokin Urain

Uste zuen ondo lurperatuak zituela denak, oroitzapenak gordetzen diren ganbaratik etsipenaren **lausoaz** ezabatu zituenean. Alberto Barandiaren

• **6** *izond* begiez eta begiradaz mintzatuz, gardentasunik gabeko itxura duena.

Burua berriro jaso eta emakumearen begi **lauso** urtsuekin egin zuen topo, berari so. Lopez de Arana

Umearen begi zabal **lausoak** eskuetan sentitzen ditu iltzatuta. Jokin Muñoz

Eta sekulako tristura sentitu zuen, estuasuna ezpain loratu berrietan, eta andereñoa begi **lauso** eta umelez ikusi zuen zerrendarekin aurrera egiten. Eider Rodriguez

Gavoillek, mahai baten gainean eserita, begirada **lauso** eta zangoak zintzilik, muzin egiten du, negar egiteko gutxi falta duen haur batek bezala. Josu Zabaleta

Karranpek eta oinazeek jota, hesteak zimur-zimur, begiak **lauso**. Karlos Zabala

Jimmy altxatu egin zen, irakurtzearen poderioz begiak **lauso** eta bero zituela. Lopez de Arana

Begiek, berriz, **lauso-lauso,** nigan finkatuta segitzen zuten, baina ni ez nintzen beste norbait edo zerbait ikusten ariko balira bezala. Anjel Lertxundi

Bere gogoan bildurik zegoen, eskuak elkarturik, begiak **lauso,** kanporako sor eta gor, kanporako itsu eta itxi. Felipe Juaristi

Azken aldian, ordea, hizketan ari zintzaizkiola, begiak **lauso** eta burua beste zerbaitetan bezala sumatuko zenuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Pilarrek begiak **lauso** samar zituela iruditu zitzaion Leireri. Aitor Arana

Begi **lausoz** so egiten. Joseba Sarrionandia

**7** *izond* argi eta garbi ikustea eragozten duena, gardentasunik edo zehaztasunik gabeko itxura ematen duena, uherra.

Eguerdia da, zeru erreari gandu **lausoa** dario. Zenbat eta [kamera ilunaren] irekidura handiago, or duan eta soslaia **lausoago**. Anjel Lertxundi

Argia, mugimendua, kolorea hantxe bere aurrean, nahasturik, esanahirik gabe, orban **lauso** bat balira bezala. Xabier Olarra

Odolaren isla **lauso** bat da linfa. Irene Aldasoro

Sakontasuna oso ongi iradoki daiteke atzeko plano **lauso** baten bidez. Josu Zabaleta

Gogoratzen dut etxeko leihoan zirri hori bat, eta aintzira-ikuspegi **lauso** bat bertan. Juan Garzia

Irudia urrundik hartua eta **lauso** samarra zenez, gizona garaia eta adin ertainekoa zela besterik ezin zen antzeman. Alberto Ladron Arana

Nik ez nekien nor zen Weber ofizial hura, argazki **lauso** bat besterik ez zidaten erakutsi. Alberto Ladron Arana

Akuario **lauso** bateko arraina bezala. Lopez de Arana

Nabigazio kartek erakusten zuten bagabidea, une hartan, laino **lauso**-lodi batek estalia ageri zen. Pako Aristi

Aire itzal-**lausoan** eta ilunbean desagertzen. Juan Garzia

Memoriaren itzal horiek, oso modu **lausoan,** hartu eta isil-isilik berekin ninderamaten irudi luzeak erakutsi dizkidate, beherantz beti, beherago oraindik. Koro Navarro

Hotsa sortzen zen lekurantz bihurtu, eta "irudi **lauso"** bat ikusi omen zuen. Xabier Olarra

Bere gogoa hutsune eroso **lauso** bat zen. Lopez de Arana

**8** irud/hed

Galduko ez den oroitzapena da, itzala bezalakoa, **lausoa,** aldakorra, zehazgabea, ziurtasunik gabea. Koro Navarro

Ideia horiek guztiak, erdi argiak, erdi **lausoak**. Matías Múgica

Kontzeptu **lauso** eta nahasia da, oraindik ere, Garapen Iraunkorrarena. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak oso **lausoak** direlako. Julen Gabiria

Nire familiaren berri **lausoa** eman nion, amona Erika aipatu gabe. Anjel Lertxundi

Amets-antzeko sorgortasun **lausoan** murgilduta bizi zen. Mirentxu Larrañaga

Haren aurpegi bizar-kendua aurrerantz luzatua zegoen, eta denborarekin txerri muturraren halako antz **lauso** bat hartu zuen. Karlos Zabala

Hurrengo baterako asmoa hartu genuen, ez hitzordu finkatu eta zehaztua, baina bai halakoetan ohi den "egongo gara" **lauso** hori baino mami gehiagokoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Denak bizi gara, onarturik, halako arrisku **lauso,** zehaztugabe eta lainotsuan. Pello Salaburu

Orainaren eremu labainkor, aldakor eta **lauso** horretan kokatzen dira ipuin gehienak. Berria - Kultura

Ea zergatik zen hain **lausoa** eta konplexua alkimisten hizkera. Xabier Aranburu

Halako euforia **lauso** bat ematen du, handik segundo gutxira konortea galtzen da, eta minutu batzuen buruan hil egiten zara. Josu Zabaleta

Jakin-nahi **lauso** batek erakarri ninduen harengana. Josu Zabaleta

Eta neu ere dardaratan sentitu nintzen, halako beldur **lauso,** ahaltsu, ikaragarri batez. Josu Zabaleta

Historia hori entzuten ari nintzela halako susmo **lauso** bat izan nuen ni nintzela tximino hura. Josu Zabaleta

Musika, arte konplexu eta misteriozko, aljebra bezain zehatz eta ametsa bezain **lauso** hori. Josu Zabaleta

**9** (izenondo elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Azalean zerbait, likaren bat-edo, uzten zizula ematen zuen begirada astun **lauso** hartaz. Josu Zabaleta

Commendatorea zen nagusia, nahiz Basileako beste nagusi ilun-**lauso** batzuen mendean egon. Juan Garzia

Azalpen alferrikako eta berariaz bihurri-**lauso** bat zekarren erretxinaren oxidazio-mekanismoari buruz. Juan Garzia

Herri txiki-**lausoetan** etxe zuloraino sartzen zaizkizu naturaren uholdeak, eta kasik neurriak hartu behar dituzu zapuztu ez zaitzaten. Pako Aristi

• **10** *adlag* ez argi eta garbi, gardentasunik edo zehaztasunik gabe, ilun, uher. ik**lausoki**.

**Lauso** ikusten zuela, besoko min lazgarriak zorabiaturik. Iñaki Mendiguren

Hori guztia **lauso** samar ikusi nuen, eta ahalegin handiak eginda. Koro Navarro

Edonola ere, **lauso** ageri zaizkio hilabete haiek alargunari. Imanol Zurutuza

Autoak hiri handiko kaleetan barrena egiten zuen bitartean, ikusmena **lauso,** uharte mortu batean galdua ikusten zuen bere burua berriro. Imanol Zurutuza

Ni neu ere ez nengoen oso santu, egia da; **lauso** ikusten nuen dena gure aurrean. Inazio Mujika Iraola

Ni pasabidetik iristen ikusteko gauza zen, baina oso **lauso** . Xabier Olarra

Ikusmena argiago, baina oraindik **lauso..** . Xabier Olarra

Eta gainerako guztia **lauso** geratzen da. Josu Zabaleta

· **Lauso** bada ere, ilunpean, gaitzespenezko panelak ikustatzen nituen. Josu Zabaleta

**11** ***begi-lauso****sup_1* ik gorago **1.**

Azken urtean, begi-**lausoa** egin zitzaion Niniri begi batean. Xabier Olarra

Aitona bat aztertu dut, begi-**lausoa** du, eta ebakuntza egin beharko diote sei hilabete edo urtebete barru. Felipe Juaristi

Eskuineko begitik kendu zioten, bada, begi-**lausoa** eta lente berri bat jarri begi barnean. Xabier Olarra

Begi-**lauso** lodiak zituen, eta, esaten zutenez, erretinitis pigmentosoa ere bai, gaitz hereditario bat. Xabier Olarra

Erretinak ez baitziren ikusi ere egiten begi-**lauso** lodi haien atzean. Xabier Olarra

Gaixotasunaren sintomak begietan irakurtzeko ohitura dut, glaukomak, begi-**lausoak** . Felipe Juaristi

**12** ***begi-lauso****sup_2 izond* begi-lausoa duena.

Ez konkorra, ez mazkala, ez begi-**lausoa** . Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **begi lauso** (7); **begiak lauso** (6); **beldur lauso** (7); **burua lauso** (3); **ezinegon lauso** (3); **gauza lauso** (4); **halako beldur lauso** (4); **ideia lauso** (5); **ideia lauso bat** (5); **irribarre lauso** (3); **irudi lauso** (7); **irudi lauso bat** (3); **keinu lauso** (4); **lauso artean** (3); **lauso eta zehaztugabeak** (3); **lauso geratzen** (3); **lauso ikusten** (6); **lauso samar** (8); **lauso samarra** (4); **lauso txuriak** (3); **muga lauso** (3); **nahi lauso** (3); **oroitzapen lauso** (9); **oroitzapen lauso bat** (4); **sentimendu lauso** (3); **susmo lauso** (3)
>
> **arrunt lausoa** (3); **aski lausoa** (3); **begi lausoa** (7); **begietako lausoa** (6); **nahiko lausoa** (4); **oroimen lausoa** (3); **oso lausoa** (5)
>
> **begi lausoak** (5)
>
> **argi lausoan** (3)

---

# lausogabe *izond* lausorik gabekoa.

Gu izatedunak, sinestedunak eta **lausogabeak** garen aldetik. Iñaki Segurola

Baina ez zuen inork aintzat hartuko halako esamesarik haurraren begirada alai eta bozkario **lausogabea** ikusiz gero. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# lausogune *iz* gune lausoa.

Ondoren hainbat **lausogune** argitu beharko ditu IPEk: nolako aurrekontua ukanen duen, zein hizkuntza politika mota ezarri nahi duen... Berria - Euskal Herria

Gaizkile taldearen irudia ez du zehazten, ordea, eta abokatuen ustez eskubide urraketa handiak gerta **daitezke** lausogune horren babesean.

Miguel Sanzen mintzaldian **lausogunerik** ez dagoela adierazi du. Berria - Euskal Herria

Nola uler daiteke legegileek horrelako **lausogunea** uztea? Berria - Euskal Herria

---

# lausoki *adlag* ez argi eta garbi, gardentasunik edo zehaztasunik gabe, ilun, uher. ik**lauso 10**.

**Lausoki** gogoratzen dudan plazatxo batera eraman nau Mikelek. Iban Zaldua

Bizitza gelditu egin zaio; **lausoki,** erretiro lasai bat hasi da irrikatzen; eta horrek huts eginez gero, apoteosia, heriotza. Une hartan **lausoki** gogoratzen nuen gauza bakarra zera zen, urearen eratorri bat zela eta bazuela zerikusiren bat azido urikoarekin. Oskar Arana

Poliki-poliki, **lausoki,** doi-doi jabetuz gindoazen bakarrik geundela, ez genuela aliaturik berarekin konta genezakeenik, ez lurrean eta ez zeruan. Juan Garzia

Orobat, Running Wild kanta ere aditzen zen, **lausoki,** gramofonoaren orratz kamutsaren azpian karrankari. Lopez de Arana

Larruazal zuri hartan belus gorrimina islatzen zen **lausoki** . Ibon Uribarri

Bada lotura horietaz bestelako zerbait, eta biek sumatzen zuten **lausoki** samar bederen. Xabier Olarra

Bonino gizontxo potolo, zarpailtxo, **lausoki** txakurkara bat zen. Juan Garzia

Irakasle Laguntzailea begi jostagarri eta **lausoki** ironikoz begiratzen zidan. Juan Garzia

---

# lausotasun **1** *iz* lausoa denaren nolakotasuna.

Ebazpenaren **lausotasun** horrek hainbat kezka eragin ditu gizartean. Berria - Euskal Herria

Imbonati kalearen erdi parerako **lausotasunetik** irtenez zihoan, eta Porta Voltara orduko garbi eta zehatz ari zen. Juan Garzia

Hainbat neurri eta moldetako letrak ikusten zituen, inolako **lausotasunik** gabe, baina "grekerazkoak" edo "hebraierazkoak" begitantzen zitzaizkion. Xabier Olarra

**Lausotasun** horrek, bai ikusmenari, bai gnosiari erasaten zion. Xabier Olarra

Dardara eragiten zidan **lausotasuna** eransten baitzuen pintzelkada bakoitzean, eta dardara are larriagoa, zergatia ez nekielako. Koro Navarro

Gardentasun konbentzional hori ia pintura guztian izan da [..] inpresionismoa arte, inpresionismoak egin baitu gardentasun horren aurka, **lausotasuna** landuz. Josu Zabaleta

Anaia Martin azkenengo urteetan bizi zeneko **lausotasun** sorgor hartatik une batzuez erabat libratu zela esango nuke, hain bixia izan baitzen haren begien keinua , eta hain azkarra eta argia haren arrapostua. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (hitz elkartuetan)

Ulertzen zailagoak, asaldagarriagoak, eta aieru txarrekoak, apika, **"lausotasun"** aldi luzeak ziren. Xabier Olarra

· Eta hala ere hobe zen topikoetan babeste hori, ezen ez beste alemanen bihurri-**lausotasun** lorapuztua baino. Juan Garzia

---

# lausotu, lauso(tu), lausotzen **1** da/du *ad* lausoz estali. (begiak)

Begi biak **lausotzen** hasi zitzaizkion Virgili sei urte zituenean, eta nabarmena zen funtzionalki berriro ere itsu bihurtzen ari zela. Xabier Olarra

**Lauso** bitez haien begiak, ez dezaten ikus, makur bekie bizkarra betiko. Elizen arteko biblia

Berriz ere **lausotu** zaizkit begiak, orain argia zela eta. Urtzi Urrutikoetxea

Lurra bekokiaz jo [...] eta haren begiak lainoak **lausotu** zituen. Juan Kruz Igerabide

Behazunez, berriz, igurtzi begiak **lausoturik** dituenari, haize eman begietara eta sendatu egingo zaizkio. Elizen arteko biblia

Nahigabetua daukagu bihotza, negar-malkoz **lausoturik** begiak. Elizen arteko biblia

Begiak nahigabez **lausotuak** ditut, horrenbeste zorigaitzez ahulduak. Elizen arteko biblia

Begiak izerdiz **lausotuta** . Iñaki Mendiguren

Hark begiak **lausotuak** zituen, ez zahardadeaz, negar-malkoen eraginez baizik. Askoren artean

Abstrakzio hagitz jantzien lurrunak adimenduaren begiak **lausotzen** dizkigula. Iñaki Segurola

· Bista **lausotzen** hasi zaio. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Izua torloju itogarria da, begirada **lausotzen** duena. Karlos Linazasoro

Nor da arrazoirik gabe kolpatua? nork du begirada **lausotua**? Elizen arteko biblia

**2** (gauza fisikoak)

Lurrunak kristalak **lausotzen** ditu. Juan Martin Elexpuru

Kikarari zerion lurrunak betaurrekoak **lausotzen** zizkiola. Xabier Montoia

Malkoz **lausotutako** betaurreko lodien atzean. Urtzi Urrutikoetxea

Itxita zegoen tabernako atea, leihoak **lausotuta**. Unai Iturriaga

Argia iragazirik eta indarrik gabe sartzen zen hauts-geruzak **lausotutako** beiratetik. Anjel Lertxundi

Ez alkohol lainoz **lausoturiko** irudi haiek, ez lerroburu deigarri haiek ez zitzaizkion axola. Alberto Ladron Arana

Trinitik pantailara begiratzen du, baina malkoek irudia **lausotzen** diote. Antton Olano

Bere burua **lausoturik** ikusi zuen apain-mahaiko ispiluan. Lopez de Arana

Artean **lausoturik** ikusten zituen langar bioleta elektrikoan aienatutako salmahai luzeak. Lopez de Arana

Likido bero batez zeuzkan begiak beteta [...] eta horrek, bere ezpainen sendotasuna galerazi gabe, airea **lausotu** zuen. Anton Garikano

Ganduak **lausotuta** ikusten ziren bihitegiak, garabiak, nasak eta, urrunago, ontzien mastak. Anjel Lertxundi

Hotzak eta behelainoak **lausoturiko** mendietatik zetozen. Joseba Sarrionandia

Eguzki sartzea igarri-igarrian zegoen eta Midak kalezuloa itzalek **lausotua** ageri zen. Patxi Zubizarreta

Orrian eroritako negar malkoaren orbanak baizik ez du **lausotzen** hitza, han edo hemen. Josu Zabaleta

**3** (gauza abstraktuak) ik **difuminatu**.

Konortea galtzeak, edonola ere, ez zizkion azaleko kolore biziak **lausotu**. Ikusmena **lausoturik** neukan arren, SSetako ofizialen taldea ikusi nuen, kriptako murruaren kontra pilaturik. Iban Zaldua

Arima **lausotu** egiten dela munduko zereginen hautsez. Askoren artean

Gero, burua **lausotu** zitzaionean, hitz eztiak esan nizkion: [...]. Juan Kruz Igerabide

Burua ezertxok ere **lausotu** ez ziezaion. Isabel Arrigain

Lizunkeriaren sugarra erraz pitz baitezake [...] edota bihotz garbiaren distira **lausotu**. Askoren artean

Sentimendu guztiak **lausotu** egin ziren haren baitan, sirenaren kantu lausoaren eraginez. Lopez de Arana

Idazkerak **lausotu** egiten duela hizkuntzaren itxura: idazkera ez da jantzi bat, mozorro bat baizik. Isabel Arrigain

Zientziaren eta teknologiaren arteko muga klasikoa apurka-apurka **lausotuz** joan da. Juan Garzia

Arestiko kezkak **lausotzen** zihoazen neure baitan. Alberto Ladron Arana

Bere ipurdi biribil eta tentearen oroimenak **lausotu** egiten zidan pentsamendua. Juan Martin Elexpuru

Gero, zorabio moduko batek sena **lausotu** zion. Karlos Zabala

Elederri berehala **lausotu** zaio, ordea, erditzearen poza. Anjel Lertxundi

**4** irud/hed

Izan ere, ez zuen nahi harririk txikienak jaurtiz **lauso** zekion ikustea hain gogoko zuen iraganaren azalera gardena. Ramon Saizarbitoria

Zaharrak ziren eta **lausoturik** zegoen haien apaingarrien distira. Alberto Ladron Arana

Irakurri eta idatzi dugunaren ondoren, irudi batzuk geratu zaizkigu itsatsita, temoso, historiaren lanbroan **lausotzeari** uko eginez. Jokin Urain

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jakobek, zahardadez begi-**lausoturik,** ezin zuen ikusi. Elizen arteko biblia

Eguzki-dirdaiaren islan, aintzira garden bat zirudien ordokiak, lurrunetan desegina, ostertz gris bat irazten utziz, argi-**lausoturik,** lurrunetatik zehar Juan Garzia

**6** (era burutua izenondo gisa)

Haren begi **lausotuek** ezin diote eutsi zure perfekzioaren distirari. Askoren artean

Aurrealdera begiratzen zian begi **lausotuez,** ilunpe aldera. Xabier Olarra

Harryk bere burua ikusten zuen begi **lausotu** haietan islatuta. Iñaki Mendiguren

Kristal osteko begirada **lausotu** hartako barrenean argi izpirik piztuko ote zen zain geratu nintzen aldi batez. Xabier Mendiguren Elizegi

Zutik zegoen, dardarka, ispilu **lausotuaren** aurrean. Lopez de Arana

Esfera **lausotuaren** azpiko bi orratz geldituek zortziak eta hamar seinalatzen dituzte. Pello Lizarralde

Bere premiazko tonua, zorionez, semearen gogo **lausoturaino** iritsi zen. Joanes Urkixo

Egunabarreko euri arinak Branen zentzumen **lausotuak** argitu zituen. istantera lo zegoen, lekutu denaren zorion irribarre **lausotuarekin,** eskuak magalean. Joanes Urkixo

· Bere begi malkoz **lausotuekin** nire lanjantzia goitik hasi eta beheraino aztertu zidan. Fernando Rey

**7** ***lausotuxe*** lausotu xamar.

Margolari astigmatiko batek, betaurreko gabe pintatzean, garbi fokaturik ikusiko lituzke marra bertikalak, eta **lausotuxeak** marra horizontalak (edo alderantziz). Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**begi lausotu** (5); **begiak lausotu** (12); **begiak lausotu zitzaizkion** (3); **ikusmena lausotu** (3); **kristalak lausotu** (3)

**begi lausotuak** (3)

**begiak lausoturik** (7); **lausoturik agertzen** (3); **lausoturik ikusten** (4); **malkoz lausoturik** (3)

**lausotuta ikusten** (3)

**begiak lausotzen** (12); **bista lausotzen** (3); **bista lausotzen hasi** (3); **ikusmena lausotzen** (4); **irudia lausotzen** (3); **kristala lausotzen** (4)

---

# lausotze 1 *iz* lausoz estaltzea.

Ikusmenean jasan zituen zurruntze eta **lausotzeari** buruz Kontu garbiak genituen jasoak, erietxean egon zen bitartean, odoleko gasen gorabeheren arabera ikusmenean jasan zituen zurruntze eta **lausotzeari** buruz. Xabier Olarra

**2** (hitz elkartuetan)

Gauza jakina da nikotinak ikusmen-**lausotzea** ekar dezakeela (anbliopia), eta akromatopsia ere bai. Xabier Olarra

---

laut ik **laut**e.

---

## lautada *(452 agerraldi, 59 liburu eta 60 artikulutan; cf **ordoki** 301 agerraldi, 59 liburu eta 78 artikulutan eta **zabaldi** 69 agerraldi, 29 liburu eta 29 liburutan)* **1** *iz* ordokia, zabaldia.

Arabako **lautadan** azkar gorritzen dela lurra? gorrituko ez da ba? Pello Zabala

Ecofuel enpresa ezartzeak Arabako **Lautadako** herritarren bizi-kalitateari kalte handia egingo liokeela uste du LABek. Berria - Euskal Herria

Gasteizko **lautadan** bilatu behar izan du aterpe. Berria - Euskal Herria

Gizona ozta-ozta ausartzen da Siberiako estepetan edo Asiaren erdialdeko **lautadetan** barneratzen. Karlos Zabala

Beren estualdian Asisko **lautadan** han-hemen eskean biltzen zituzten arbiekin konformatu behar izaten zuten gosea. Askoren artean

Hemendik aurrera, behin Pancorbo igarota, mundua zabaldu egiten da, **lautada** bihurtzen. Pako Aristi

Mendian egiten den lana ez da **lautada** batean egiten den bera. Berria - Ekonomia

NASAren *Opportunity* zundak urtarrilaren 24an lur hartu zuen Marten, *Meridiani Planum* izeneko **lautadan**. Berria - Gaiak

Bi gurpileko zalgurdia guztiz ezdeusa baita nire irudimenak lezakeen baino askoz ere harantzago luzatzen diren ametseko **lautada** bazterrik gabeetan. Anjel Lertxundi

**2** (izenondoekin)

Poloniako **lautada** amaigabean. Felipe Juaristi

Gure aurrean **lautada** handi eta zabala, nekagarria beroak dardarazi eta astinduriko airean. Urtzi Urrutikoetxea

Muga gabeko **lautada** itzela, belarrezko basamortu antzekoa. Karlos Zabala

Batere trabarik ez ikusmira guztian, **lautada** zuri berdinduan! Karlos Zabala

**Lautada** mugagabearen monotonia sasi banaka batzuek ozta-ozta hausten dute. Karlos Zabala

Beste batzuek bidea urratzen zuten **lautada** harritsuan. Agustin Otsoa

Etxaldea **lautada** basotsu batean dago. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hondartzarako girorik ba ote zuen edo hobe zukeen **lautada** aldea hautatzea. Pello Zabala

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Une hartan laino zerratu bat zabaldu zen gudu-**lautadan**. Anjel Lertxundi

Itsas **lautadak** hazi urdinez osatuak balira, ezingo lirateke inola zuritu. Xabier Amuriza

Gure inguru honetan ez bezala, bai barruko hego-**lautada** horretako beroek eta baita Mediterraneoko kostaldean ere, ekaitza emankor ibili ohi da. Pello Zabala

Baina, ai!, agudo sartzen du muturra hego haize ahulak, barne-**lautadako** beroen eraginez. Pello Zabala

Zure eskumatan zegoen gorputz-**lautada** argia ez dago dagoeneko. Sonia Gonzalez

**5** (L larriz) Arabako lautada.

Atzetik, berriz, **Lautadako** herrietatik eta Sakanatik Araiara joandako ehunka herritar izan ziren. Berria - Euskal Herria

Ecofuelek findegia Amezaga herritik 60 bat metrora kokatzeko asmoa zuela jakin eta gero, mobilizazioak hasi ziren **Lautadako** eskualdean, egitasmoari aurre egiteko. Berria - Euskal Herria

***Lautada*** *Bizirik* izeneko plataforma eratu dute herritarrek Ecofuelen kontrako protestak bideratzeko. Berria - Euskal Herria

Lantokiaren eragina, plataformak azaldu duenez, ez da **Lautadara** mugatzen, findegitik ateratako erregaia Olaztiko (Nafarroa) eta Lemoako (Bizkaia) zementu fabriketan erabiltzeko baita. Berria - Euskal Herria

Aiarakoak, Gorbeialdekoak, **Lautadakoak** nahiz Gasteizkoak, txapelketaren aurtengo ekitaldian; guztira 22 bertsolarik eman dute izena. Berria - Kultura

**6** ***goi lautada***

**Goi lautada** zabal bat hautatu zuten ospakizun horretarako. Karlos Zabala

Inguru osoan, **goi lautada** zabalaren atzealdetik Tom ibaian amaitzen ziren ezponda malkartsuetaraino. Karlos Zabala

Andeetako goi-**lautada**. 15.000 indigena bildu ziren **goi lautadatik** hiribururaino egindako martxa koloretsuan. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arabako lautada** (4); **goi lautada** (8); **itsas lautada** (3); **lautada bizirik plataformako** (3); **lautada handi** (3); **lautada handian** (3); **lautada osoa** (8); **lautada osora** (3); **lautada sutan** (5); **lautada zabal** (6); **lautada zabal bat** (4); **lautada zabala** (3); **xaron lautada** (3)

**arabako lautadako** (7); **goi lautadako** (3); **lautadako hiri** (3); **lautadako hiri guztiak** (3); **xefela lautadako** (3)

**arabako lautadan** (5); **goi lautadan** (6); **jerikoko lautadan harrapatu** (3); **lautadan barrena** (5); **lautadan ezarri** (3); **lautadan harrapatu** (3); **lautadan zehar** (6); **moabeko lautadan** (13); **xefela lautadan** (3)

**arabako lautadaren bihotzean** (3)

**lautadetan barrena** (7)

---

## lautadatxo *iz* lautada txikia.

Han, **lautadatxoan,** mendikari txanodunak geldi eta isilik zeuden, zain. Agustin Otsoa

---

## lautasun *iz* laua denaren nolakotasuna.

Perspektiba, izan ere, ikusmenean dago, eta irudiaren **lautasuna** ikusmenezko sistematik kanpokoa da guztiz. Josu Zabaleta

Eta ni ahaleginean ari naiz, eskuak patrikan, txistu eginez, eta ahal dudan **lautasun** handienarekin, paseatzaileentzat debekatuta dagoen baina zaintzaile guztiek [...] igarotzen uzten duten lorategi honetatik igarotzen... Josu Zabaleta

Normaltasunak erotu zuen **(lautasunak,** laukitasunak, eskuadrarekin ebakitako bizi-uste batek; ez dakienik balego, normak "eskuadra" esan nahi zuen jatorriz). Iñaki Segurola

---

## laute *(orobat **laut**)* *iz* hari bikoitzeko musika tresna, kaxa laua gainaldetik eta esferikoa azpialdetik duena.

Oso ondo jotzen zituen arrabita eta **lautea**. Tronu baten inguruan **laut** baten doinuaz dantzan. Juan Kruz Igerabide

Laukotea ahots, zanfona, karamilo eta **lautez** osatua zegoen. Berria - Kultura

Biwa bost sokako **laute** txiki bat da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Oud bat (hots, arabiar **lautea)**. Berria - Kultura

Dutara bat zeraman eskuan, **laute** itxurako instrumentua. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lauta jotzen** (5)

---

lauterdi ik **lau**[1] **17**.

---

# **lautu**, lau(tu), lautzen **1** du *ad* lau bihurtu, berdindu.

Zelaiak apaltzen eta mendi garaiak luzatzen ziren; haitzek ezin baitzuten hondoratu, ez alde guztiek era berdintsuan **lautu**. Xabier Amuriza

Bulldozer batek, bazter auzo bat suntsitu eta **lautzen** ari zela, txabola bat bota du barruan bizi ziren bi atso zapalduz. Joseba Sarrionandia

Lurra ez da berdina, gorabeherak ditu, burdina-pala eta eskuarea behar dira, lurra marraskatu eta sendo berdinduko dutenak, ongi **lautu** eta berdindua geratu arte. Joan Mari Lekuona

Lurrezko munduan, mundu errealean, badira armadunak, Auschwitz eraikitzen dute, eta prestu eta armagabeek **lautu** egiten diete bidea; horregatik Auschwitzengatik aleman orok erantzun behar du; areago, gizon orok. Juan Garzia

Ez diogu bidea **lautuko**. Berria - Mundua

**2** irud/hed

Ideia handiak beharrezkoak dira bide berriak irekitzeko, harriak hausteko, itsas ezpondetako labarrak **lautzeko**. Atzo ere, bezperan bezala, azken orduko erosketek baino ez zuten emaitza txukundu **(lautu,** egia esan). Felipe Juaristi

Goraipatu duen kultura esentzialki espainol hura guztia guztiz "latinoa" da [...] Erromak arrazagabetu eta **lautua**. Joxe Azurmendi

---

# **lauza** **1** *iz* harri aski handia, aski mehea eta laua, gehienetan lauki formakoa. ik**harlauza.**

Kanposantuko arduradunak, burdin hagak erabiliz, **lauza** altxatu zuen. **Lauza** bat altxaturik, fardel bat ikusi zuen azpiko zuloan. Josetxo Azkona

Mailadiko harrizko **lauzaren** kontra. Hasier Etxeberria

Oinazpian zafirozko **lauzaz** eginiko solairua bezalakoa zuen. Elizen arteko biblia

Katu-janaren bolatxoak din-din erori dira sukaldeko **lauzetan**. Javi Cillero

Ezkerraldean bainua, dutxategiko **lauzak** horiturik eta lababoko kainua ur tanta jarioz. Iñaki Zabaleta

Hodiaren zurrustak zolako **lauzak** harramazkatzen zituen zakar, hango odol sunda eta herdoila kendu ezinik, ordea. Karlos Zabala

Odolak putzuak sortzen zituen **lauzen** gainean, hiltegietako harrietan behera isuri ondoren. Karlos Zabala

Huntza bururik buru doan karrika honen zorua **lauzaz** egina da. Koldo Izagirre

Belardi gaineko **lauzazko** bidetik eliza atzera jo du. Pello Lizarralde

**Lauzazko** zoru gainean etzan. Juan Garzia

**2** (izenondoekin)

Badira marmolezko zutabe-ilarak, altuera izugarrietaraino jasoak; haien gainean jarririk, **lauza** itzelak, marmolezkoak haiek ere. Jon Muñoz

Harresiak barrenaldetik baratzetara ematen du, eta **lauza** handiz osatutako bide bat dauka. Koro Navarro

Zoruan hain ongi markatuak dauden **lauza** perfektu horietan. Koldo Izagirre

Buruhas, bere ogia igurikatzen zuen, **lauza** lakar batean bermaturik. Juan Garzia

Kulunka eginez zoruko **lauza** zabukarietan. Koro Navarro

Beste mahai batzuek, **lauza** beltzez eginak, zuloak zituzten, arauturiko tartez, biktimen odola isurtzen uzteko. Juan Garzia

**Lauza** zurizko komunaren parean. Koro Navarro

**3** irud/hed

Bihotz gainean **lauza** handi bat zuela sartu zen etxe barrenera. Gotzon Garate

Familia urratuetan hazitako umeek beti eramango dute **lauza** bat beren buru-bihotzetan. Gotzon Garate

-Kristoren **lauza** kentzen didazu, Cesar. Harkaitz Cano

Ez etorkizun berri baten atarian, iragan ilun baten **lauzapean** baizik. Joxe Azurmendi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Denen gibeletik nindoan, burua apal naski, ohartuz halere etxeen itxurek, galtzada-**lauzen** margoek udazkenaren eite zutela. Piarres Aintziart

Ikusi nituen, Soler kaleko patiostean, duela hogeita hamar urte Fray Bentos-eko etxe bateko bebarruan ikusitako zoru-**lauza** berak. Juan Garzia

Bide hau oso gogorra da tarteka, zati batzuk hare-**lauzaz** eta marmol-**lauzaz** daude zorutuak. Koldo Izagirre

Hormigoi **lauzen** gainean erdi etzanda geundela. Joseba Sarrionandia

Izotz **lauza** edo xafla zabalak egingo dira urgainean. Joseba Sarrionandia

Itsastxakur eguzkizaleak ere izango dira izotz **lauzen** gainean etzanda. Joseba Sarrionandia

**5** ***harri lauza*** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***harlauza*** *agertzen da)* *ipar* harlauza.

**Harri lauza** edo zurezko ohol batean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pentzeen hesiak, "chantos" delakoak, arbelezko **harri lauza** landatuz eginak dira. Piarres Aintziart

Moisesen legeko bi **harri lauza** haiek dira hemen gogoratzen, jakina. Piarres Xarriton

Baina sukaldeko **harri lauzen** arteko arraildura eta patarretaz ginen baliatzen kaniketan jostatzeko. Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **harri lauza** (15); **marmolezko lauza** (4)
> **harri lauzak** (4)
> **lauzaz eginiko solairua** (3); **zafirozko lauzaz eginiko** (3)
> **lauzen gainean** (6)

---

# **lauzadun** *izond* lauzak dituena.

Patar **lauzaduna,** beribila jauzika ari dela eta bihotza pil-pilka, iragan dut. Piarres Aintziart

Ataria oso zabala zen, eta handik patio **lauzadun** batekin komunikatzen zen. Josu Zabaleta

---

# **lauzadura** *iz* lauzazko zoladura.

Gorputza inarrosi eta bira batzuk egin nituen zoruko **lauzaduraren** gainean, baina hotz eta gogor zegoen. Joxan Elosegi

---

# **lauzangoka** *adlag* lau hankan.

**Lauzangoka** dabiltzan intsektu hegadunak debekatuak dituzue. Elizen arteko biblia

## **lauzatu**, lauza(tu), lauzatzen **1** du *ad* lauzez estali edo hornitu.

**Lauzatu** berria nuen logela bateko komuna. Koro Navarro

Karrikak ere harri berdinez **lauzatuak** dira. Aurelia Arkotxa

Eraikin txikiak eta lorategiak nahasian, han-hemen; trakets **lauzatutako** kale estuz gurutzatuak eta ehun urteko zuhaitzez inguratuak. Jon Muñoz

Leihoaren beste aldean hasten zen etorkizuna, maitale txoroez beteriko Singleton parkearen gainetik igaro eta poemez **lauzaturiko** Londres ketsura iristeko. Koro Navarro

**2** (era burutua izenondo gisa) ik **lauzaztatu.**

Williams andrearen aurretik zihoan urduri, korridore **lauzatuan** zehar. Koro Navarro

Pareta **lauzatuaren** ondo-ondotik. Koro Navarro

Zoru **lauzatuko** pitzaduretatik. Karlos Zabala

Plaza **lauzatura** ematen zuen ataria, zuzena izan ordez, zeiharra zen. Jon Muñoz

Hura bukatzen zen tokian, patio txiki **lauzatu** bat zegoen, trasteak gordetzeko balio ziena. Karlos Zabala

---

## **lauzatxo** *iz* lauza txikia.

Adreilu itxurako buztin-**lauzatxoak**. Pello Zabala

---

## **lauzatzaile** *iz* lauzatzen duen pertsona edo enpresa.

Huna ofizialeak nor diren: hargina, Gilentegi Oragarrekoa, zurgina Duhalde Hazparnekoa, kanpoko maisturintza SOMIR, barneko maisturintza Betbeder Donamartirikoa, **lauzatzailea** SOLADOUR. Herria

---

## **lauzaztatu** *izond* lauzatua.

Kanoiak mugitzeko bidea, **lauzaztatua,** berria guztiz. Han egoten zen karrika **lauzaztatuen** artean bidaztiren bat iragan zain. Juan Garzia

Erromatar itxurako estrata **lauzaztatu,** oker eta estuan. Koldo Izagirre

---

## **lauzkan** *adlag ipar* uztarturik.

Bainan UMP-tiar eta UDF-tiar, ez ados izanik ere, ez dira sobera elgarren kontra jokatzen ahalko, bigarren itzulian **lauzkan** jarri beharko baitute, denetan ez bada, ainitz departamendutan. Herria

Tira bira horri oharturik eta ere gure ondokoeri ezin dugula neholaz ere lur pozoindatu eta higatu bat utzi, jarriak dira iparralde huntan **lauzkan** BERDEAK eta hemen gaindiko euskal abertzale gehienak (AB, EA eta EAJ koak). ezkerraldean sozialixtak -"berdeekin" **lauzkan** -. Herria

---

## **lauzkatu**, lauzka, lauzkatzen du *ad ipar* uztartu; lagundu.

Zozialisten eta kontserbadoreen xedeak arras dira desberdinak, ezin ditazke **lauzka** . Herria

Egiazki miatzen duguia laborantxa eta hazkuntza arloko formakuntzetan elgar **lauzkatzeko** eta osatzeko paradarik balitaikenetz? Herria

Ez zen arrazoiaren indarraz ari, baina arrazoia **lauzkatzen** zuen indarraz, herri ordezkariak bere esku zituen armak zeharka aipatuz. Elena Touyarou

Gasteizen, Alfonso Alonso eskuindarra aintzina auzapez, sozialixtek **lauzkatuz** . harresien bestaldetik jazarri zitzaizkiela Zumalakarregiren soldadu ohiak, Don Karlosen gerla galdu-eta, Oriberen **lauzkatzera** hara joanak zirenak. Piarres Xarriton

Jean Duvergier Haurranekoa **lauzkatzen** du eta Louvain-era igortzen teologia ikastera jesuistetan bere ahaide Martin Barcozkoarekin. Michel Oronoz

---

## **lauzpabortz** *zenbtz* lauzpabost.

Oholesiak **lauzpabortz** ziren, elkarri itsatsiak. txakurra baztertu, eta **lauzpabortz** kolpez akabatu nuen narrastia. Joan Mari Irigoien

Hartza bezalakoak dituk horiek, eduki izokinak errekan, paratu **lauzpabortz** artista bizitzen inguruan, eta ikusiko duk jendea ziudadetik helduki ur garbien bila. Hasier Etxeberria

---

## **lauzpabost** *zenbtz* lau edo bost, lau-bost.

Duela **lauzpabost** urte. Herria

**Lauzpabost** egun lehenago. Joan Mari Irigoien

Bittor Iza Gernikatik **lauzpabost** kilometrora den Kanala auzunekoa da. Edorta Jimenez

**Lauzpabost** mila milioi globulu gorri inguru ditu gizaki batek odolean. Berria - Gaiak

**Lauzpabost** bider baizik ez dut ikusi. Josu Zabaleta

Barra ia beteta eta mahaietan **lauzpabost** lagun zeuden. Migel Angel Mintegi

**Lauzpabost** gauza badira alabaina, XIX. mende hartan berean gertatuak, euskaldunen frantsesteari kontrajartzeko gisan, euskal kontzientziaren adierazgarri dauzkagunak: […]. Piarres Xarriton

Orain, beraz, ia gauero, gutariko **lauzpabost** aukeratzen dituzte, eta patruilari bidaltzen dituzte "ez-inoren lur"era, ea zer edo zer aurkitzen duten. **Lauzpabost** gutxienez garbituko ditut, eta gero... Mirentxu Larrañaga

Bai, gizonak zaldi gainean, **lauzpabost** ! Agustin Otsoa

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**azken lauzpabost urteotan** (3); **duela lauzpabost urte** (7); **lauzpabost aldiz** (10); **lauzpabost aste** (3); **lauzpabost egun** (9); **lauzpabost egunetarako** (3); **lauzpabost goleko aldea** (3); **lauzpabost hilabete** (6); **lauzpabost kilo** (3); **lauzpabost lagun** (8); **lauzpabost ordu** (3); **lauzpabost orduz** (3); **lauzpabost segundo** (3); **lauzpabost segundoko** (4); **lauzpabost urte** (26); **lauzpabost urteko** (4); **lauzpabost urteotan** (3); **lauzpabost urtera** (3); **urtean lauzpabost** (3)

---

## **lauzuriko** *iz* bi marabedi balio zuen txanpon zaharra.

Etxandereak kontua erakutsi eutsanean, **lauzuriko** eta marauginokoa (marabedia) emanda gero, katanarrutik amaseiko gorri ederra aterata, mai gainean ots zoli-zolia eraginez: […]. Anjel Lertxundi

## laxa 1 *adlag* lasai.

Gizona Ofizioak preso hartua zuela halako moduan esan zuen, hain **laxa,** non hark eragin zidan amorruak lagundu zidalakoan bainago zutik eusten. Edorta Jimenez

· Etorri berriak eskumuturrak igurtzi zituen, bizkor; **laxagoa** lotzea bahuen, beltz demonio horrek! Jon Alonso

**2** ***laxa-laxa*** *izond*

Arratsalde erdirako euri zaparradaxka **laxa**-laxa batek ekarri zigun gogora eguraldi eroa nolakoa izan daitekeen, hartara jartzen denean. Pello Zabala

---

## laxapen *iz* lasaitzea.

Flore Perretek **laxapen** terapia egiten du Resodabanta sarean. Berria - Euskal Herria

Batzutan **laxapen** ariketak ez dira aski eriek bere baitan duten korapiloa askatzeko. Berria - Euskal Herria

---

## laxarazi, laxaraz, laxarazten *(orobat **laxoarazi**)* du *ad* laxatzera behartu.

Maiorraren hitzak ez zituen eteten sugandilen zaratatxo motelak baino, haiek teilatutik erori ahala, asaldu-ikarak beren hanketako bentosak **laxarazirik**. Juan Garzia

Preseski, berant bada berant, onartu eta baieztatu ditu hango ganbarak herritarren eskari horietarik zenbait bederen gainean duten aztaparra **laxaraziz** nolazbait. Herria

Libratzen dizkiote tigreari begiak... abiatzen da hura ehizaren gibeletik, harrapatzen du... hurbiltzen dira ehiztariak, handik aitzina, tigrearenganat, zaldiz; **laxarazten** diote ehiza, begiak berriro estaltzen dizkiotela. Joan Mari Irigoien

Fenomeno fonetikoak, alternantziak sortzen ez dituen gainerako kasu guztietan, hitzak lotzen dituzten gramatika loturak **laxoarazten** ditu. Isabel Arrigain

---

## laxatu, laxa(tu), laxatzen *(orobat **laxotu** g.er. eta **lazatu** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **laxatu** agertzen da)* **1** du *ad* tinkotasuna edo hertsitasuna gutxitu. ik **lasaitu**[1] **5.**

Korbata estua **laxatu** zuen nik zigarroa piztuta. Aingeru Epaltza

Bridaren presioa **laxaturik** sentitu zuelarik, zaldia lauhazka atera zen. Jon Alonso

Borreroak denbora hartu behar izan zuen, jendearen oihu eta erdeinuei gor, korapiloa **laxatu** eta kondenatuaren buru-neurrira egokitzeko. Anjel Lertxundi

Komedianteen antzeztokiak desagertu ziren puskaz puska; dantzak eta kantuak gelditu; [...] orekarien soka tenkatuak **laxatu**. Karlos Zabala

Ur beroak giharrak **laxatu** eta burua arindu zizkion. Elena Touyarou

Gorputz osoa lasaitzen eta **laxatzen** zihoakiola. Itxaro Borda

Ezpainak, orduan, aire horrek bultzata irekiko dira eta, gero, glotiseko hersketa **laxatuko** da. Lourdes Oñederra

Hassan II-ek hain hertsiki atxiki gobernu giderrak poxi bat **laxatuko** zituela haren semeak. Herria

Setioa ez zen tartean **laxatu**. Aingeru Epaltza

Hazpegiak **laxaturik,** begitartea irribarre ameslari batez dirdaitu zitzaion. Patxi Zubizarreta

Neskatxaren atzamarrak **laxatu** egin dira, lepoan behera herrestatu, gizonaren sorbaldetarantz. Patxi Zubizarreta

Berak, une bakar batez ere zentzumenak **laxatu** gabe, gaixotasuna aitzakiatu zien. Patxi Zubizarreta

Errima **laxotuko** bagenu, hain estu hartu ez, Iparraldeko usadioari segiko bagenio errima zabalxeago hartze horretan, emaitza hobeak izango genituzkeela bertsolariok. Andoni Egaña

**Laxatzen** hasi direla debekuak. Herria

Ekoizpen eta banakuntza sistemak industrializatu izanak elikagaiaren eta kontsumitzailearen arteko harremanak **laxatu,** hoztu, ahuldu ditu. Edorta Agirre

Predikazioan, berriz, [...] atentzioa hainbat gauzetan barreiatzen da eta diziplina **laxatzen**. Askoren artean

**2** askatu.

Nylonezko alkandoraren barreneko hiru botoi **laxatu,** eta zilborra erakusten zuen hiruki zuri bat agerian utzi zuen. Aritz Gorrotxategi

Arnoak mihia **laxatuta**. Aingeru Epaltza

Ene besoetarik **laxatu** eta aterako bidea hartu zuen. Joan Mari Irigoien

-Hango gaztainadia erran duk? **-laxatu** nuen pistolaren perkutorea. Aingeru Epaltza

Ezpainetarik irri jainkozko hura baztertzen ez zuela, **laxatu** zuen gerruntzea, **laxatu** zituen atorrako zintak, eta dardarka eta hatsangaka zeudèn usakume bi haiek erakutsi zizkidan. Joan Mari Irigoien

Noiz eta historia baten korapiloak kolpe batez **laxatu** nahi baititugu, aldiz, are gehiago korapilatzen dugu hura. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **giharrak laxatu** (3); **hazpegiak laxatu** (4); **korapiloa laxatu** (3)
> **herstura laxatzen** (3)

---

## laxatze *iz* tinkotasuna edo hertsitasuna gutxitzea.

Larunbatean [...] baloi **laxatze** bat eskoletako haurrekin eta ondotik pottokez ibilaldiak; suhiltzaleek eskainiko dute beren ikusgarria. Herria

---

## laxista *izond* zorroztasun moralik eza erakusten duena.

Mendebala sekularizatu arau gogortuko da Eliza katolikoa, honek erranen baitu ez dela moralik Egiaren kanpotik, mundua erlatiboa dela definizioz eta gizona **laxista** jitez. Piarres Aintziart

Sobera gastatzen dut, aiserian bizi da naski, nere abere **laxista**! Piarres Aintziart

---

## laxo[1] *(orobat **lazo** g.er.)* **1** *izond* estua edo hertsia ez dena, tinko loturik ez dagoena. ik **lasai 4.**

Kamiseta **laxoa** eta kulero ttipiak baizik ez zituela soinean. Aingeru Epaltza

Gauzak eta jendeak harreman tinko eta betan **laxo** batean daude. Piarres Aintziart

Ebakera **laxoak** silaba luzeetan gertatzen direla. Isabel Arrigain

Baina bete bezain pronto zakua hustu: **laxo** baitzen hari-tartea. Xabier Olarra

Giro estu, zorrotz samar kontrolatutako batetik beste giro **laxoago** eta lasaiago batera igarotzetik sortu ote zitzaidan? Xabier Mendiguren Elizegi

Transkripzio **laxoa** eta transkripzio zehatza bereizten dira maiz eskuliburuetan. Lourdes Oñederra

Jendea, adibidez, alde batetik oso **laxoa** da, sexu kontuetan ere bai. Gotzon Garate

Leunki pasatzen zuen eskua muskulu bigun, **laxoetatik** . Jose Morales

Esaldiaren halako definizio zabalarekin -eta halako zentzu **laxoan-** zaila da ikustea nola ezagut daitezkeen enuntziatuak ez diren esaldiak eta esaldiak ez diren enuntziatuak. Xabier Arregi

Adiera orokor **laxoan** . Askoren artean

**2** lasaia.

Horrela zihoan sukaldeko lana, bakoitza berean, berriketa **laxoan** . Harkaitz Cano

Giroa **laxoagoa** zen orain. Aingeru Epaltza

· Poliziaren sareen zuloak **laxoegiak** ziren. Itxaro Borda

• **3** (predikatu edo adizlagun gisa)

Garai horretan aitaren galtzak ez nituen hain **lazo,** luzexeagoa bainintzen. Pello Lizarralde

Estu jarri nintzen batetik, baina burua **laxo** neukan bestetik. Xabier Mendiguren Elizegi

Hazpegiak **laxo,** poztasunez eta handikeriaz beterik zihoan. Patxi Zubizarreta

Biloak pixka bat nahas zeuzkan eta gerriko zinta **laxo** . Itxaro Borda

Ez nuen buruko minik, eta tabakoak bularraldean ezartzen duen hersturatik **laxoago** zeuden ene birikak. Aingeru Epaltza

**4** (pilotan) ik beherago **8.**

Erran behar da ere luzean edo **laxoan** zela orduko pilotako jokoa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bezperetarik landa gaztek pilotan ari behar dute: **"laxoan,** errebotean edo bederen plekan", molde hau ez zen oraino nagusitua. Xipri Arbelbide

**Laxoan** aritzeko ez da plaza egite beharrik; aski da zelai bat leuna. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bere lagunekin **"laxoan"** pilotan aritzeko. Ramuntxo Etxeberri

Pilota partida bat **laxoko** joko xaharrean. Herria

**5** ***laxoan*** *adlag* aske.

Sorbaldetaraino heltzen zitzaizkion ileak noiztenka **laxoan** uzten zituen edo bestela, buztan batean bildurik Elena Touyarou

**6** ***laxorik*** *adlag* aske.

Buru ederreko adats iluna **laxorik** bazeraman. Aurelia Arkotxa

**7** ***laxo-laxo*** *adlag* lasai-lasai.

Egun batez, ordea, haurra, nehor ohartu gabe etxetik alde egin, trenbidean **laxo-laxo** etzan, eta loak hartu zuen. Gotzon Garate

Uzkia **laxo-laxo** sentitzen nuen. Aitor Arana

**8** ***plaza laxo****sup_1* laxoan jokatzeko pilotalekua.

Sortu zirelarik orain bezalako pilota plazak, hala nola ezker pareta, trinketa, plaza **laxoa,** eta abar, tantoka kondatzeko orde segitu zuten luzean bezala kondatuz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Plaza laxoa** 1924-an egin zen, Olinpi-Jokoak Parisen muntatu ziren urtean. Herria

Pilota plaza hori lurrera botatu behar litekeela uste dute batzuek, presidentak aldiz, atxiki ttipian arizana baita gaztean, dio urruntxago, Quintaouko ordokian eraikitzen ahal litekeela aise **plaza laxo** bat. Herria

3 herriko etxeak eskertuak izan dira, urririk Abarratia pilota batasunari uzten baitituzte, **plaza laxo**, trinket eta ezker paretak. Herria

**9** ***plaza laxo***$^{2}$ laxoko jokoa.

Erran behar da galtzaleak Frantziako xapeldun direla **plaza laxoan** . Herria

Urruñako arrabotean jokatu dira **plaza laxoko finala** hauk: [...]. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> laxo laxo (4); plaza laxo (3); uztartze laxo (6)
> laxoa txapelketako (3); plaza laxoa (7); uztartze laxoa (12); uztartze laxoa osatu (8)
> plaza laxoan (41); uztartze laxoan (12); uztartze laxoan bultza (3); uztartze laxoan bultzaka (4)
> laxoko finala (4); laxoko joko (6); laxoko partida (3); laxoko xapelgoak (5); plaza laxoko (49); plaza laxoko finala (4); plaza laxoko joko (4); plaza laxoko xapelgoak (5)

---

# laxo$^{2}$ **1** *iz adkor* lazoa.

Disenatzaile zigortu hauek denak eskola beretsutik etorriak izango dira: **laxoen** erremedioa iruditzen zaie luzitzeko biderik egokiena, eta **laxoz** jositako arropekin lehertzear gauden opari-kutxak bihurtzen gaituzte. Arantxa Iturbe

Goiko solairuan agertu ginen biok, arropa zikinen saskia bion artean genuela, iruditxoz eta urdin eta arrosa koloreko paperezko **laxoz** apainduta. Josu Zabaleta

**2** lakioa.

Deabruak anitz sare badu ere arimen atzemateko, ez du batez ere hainbat harrapatzen, nola emazte gaixtoez, eta haiek hedatzen eta paratzen dituzten artez, sarez, **laxoez** eta segadez. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> laxoa osatu (8); laxoa osatu eta (4)

---

# laxoarazi ik **laxarazi**.

---

# laxokeria *(orobat **lazakeria**)* *iz* laxotasun gaitzesgarria; zabarkeria.

Gaztigatzen diat ordea, baldin zeregin honetan **laxokeriarik** egiten baduk, hura dukek nire zerbitzura eginiko azkena. Gure **lazakeriak,** axolagabekeriak gure altxor paregabe horiek galarazten ahal dauzkigute. Jon Muñoz

**Laxokeriari** arrunt emanak diren emakume horiengatik. Jon Muñoz

[...] cannabisari gaitz hauek denak egotziz: nahasketa mentala, errealitatearen pertzeptzio deformatua, arnasbideetako zauriak, motibazio eza, **laxokeria,** antsietatea, bronkitisa, minbizia, faringitisa... Pako Aristi

**Lazakeriaz,** funts eskasez edo nik dakita zer gisaz, aintzineko gobernua, Jospin-ena beraz, arrunt okerki jokatu baita sail hortan. Herria

---

# laxoki *adlag* tinko loturik gabe.

**Laxoki** loturik bada ere, elkarri atxikita jarrai dezaketenak. Xabier Amuriza

Aireari hitz egiten dio eta airea bera izara baten antzera dago **laxoki** eskegita. Oskar Arana

-Hala da, bai -esan zuen Txitxikovek **laxoki**. Jose Morales

---

**laxotasun** **1** *iz* laxoa denaren nolakotasuna.

Doinuak eta errimak **laxotasun** handiagoa dute (kantatu edo errimatu daiteke oso ondo, ondo, ez hain ondo, erdipurdi, gaizki, oso gaizki..., baina neurriak ez du inongo eskalarik onartzen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Laudoriozko hitzekin mintzatu zen liburuei buruz orokorrean, gizabanakoa **laxotasunetik** salbatzen dutela oharraraziz. Jose Morales

Nagusiaren gogobideak zuzenak dira, baina **laxotasunez** aplikatzen ditu. Juan Garzia

Ez bertsolariek bezala, **laxotasunez,** jarrera harro batez baizik. Berria - Kultura

Ahoskera baten transkripzioa zenbaterainoko xehetasunez egiten den da kontua: **laxotasuna** eta zehaztasuna, betiere, erlatiboak dira. Lourdes Oñederra

**2** (hitz elkartuetan)

Tabernan bere lekua hartu duen bakoitzaren bisaia aztertuz, eskuekin zer egiten duen, hankak nola ezarriak dauzkan, edota begiradari darion txingar argia edo asperdura halako betazal-murgiltzearen arabera, asmatuko nuke gutxi-asko zertaz ari diren, eta gaiak haien bizitzarekin duen loturaren estura- **laxotasun** neurria. Pako Aristi

---

laxotu ik **laxatu**.

---

laxter ik **laster**.

---

lazakeria ik **laxokeria**.

---

**lazareto** *iz* gaitz kutsagarriren bat dutenen eriak artatzeko erietxea.

Geroago, berriro ikusi nuen, **Lazareto** baten aurrean aztoraturik petrikilo bati kontsulta egiten bularraldeak itsusten zizkion zaldar bati buruz. Xabier Olarra

Jainkoak daki zer zebilkion buruan, uste bide zuen "arima hil" haiek sukar-epidemia baten eraginez **lazaretoetan** eta bestelako eritegietan mordoka hildako gaixoak izan zitezkeela. Jose Morales

---

**lazarista** *izond* Pauleko san Vicentek XVII. mendean legenardunak artatzeko sortu zuen erlijiozko ordenakoa.

Ene latinezko lan bat agertu zen, 1925ean ontsa oroit baldin banaiz, aita **Lazaristek** Italiako Piacenza hirian duten "Divus Thomas" aldizkarian. Piarres Xarriton

---

lazatu ik **laxatu**.

---

lazdura ik **laztura**.

---

lazedemondar ik **lazedemoniar**.

---

**lazedemoniar** *(orobat **lazedemonar** g.er.)* *izlag/iz* Lazedemoniakoa, Lazedemoniari dagokiona; Lazedemoniako herritarra.

Erromatar bati emaztea inori uztea baimentzen zion legea, bistan da, **lazedemoniar** jatorrikoa da. Iñaki Iñurrieta

Platonen legea instituzio **lazedemoniarren** gainean eratua zen. Iñaki Iñurrieta

**Lazedemoniarrei** ilotek ematen zieten jaten; kretarrei, perieziarrek. Iñaki Iñurrieta

---

**lazeria** *iz* behartasun larria, miseria gorria.

Zenbait jende gai dela babesik, dirurik, lagunik, kezkarik gabe iraunbizitzeko, premia gorria eta **lazeria** ezagutzeke. Patxi Zubizarreta

Andre gazteak, blusa hutsetan, gona gaizki loturik, ileak agerian, leher eginak, **lazeriaz** maskalduak jada. Karlos Zabala

**Lazeriaz,** nekez, gosez horditurik zegoen. Karlos Zabala

Ez sufriarazi gose denari, ez sumindu **lazerian** dagoena. Elizen arteko biblia

Oparotasun-denboran oroitu gosealdiaz; aberastasun-egunetan, pobreziaz eta **lazeriaz**. Elizen arteko biblia

**Lazeria** gorrian bizi ziren greziar apezpiku guztiak ez ziren batere abegitsuak. Iñaki Mendiguren

---

**lazgarri** *(orobat **latzgarri** g.er.)* **1** *izond* lazten duena, izugarria.

Gau **lazgarri** hartan ezingo zuen lorik egin. Jose Morales

Herio, oihu **lazgarri** bat bota eta gero, dantzan hasi zen. Anjel Lertxundi

Inor ez da harrituko aitortzen badut ikuskizun **lazgarri** horrek egundoko zirrara eragin duela nigan. Anjel Lertxundi

Gernikako erauntsi **lazgarriaren** ondotik, laster hasi zen beraz, 1939an, II. Mundu Gerla. Piarres Xarriton

Orduan esan nien bi egun bazirela naufragio **lazgarri** batetik onik irten nintzela. Patxi Zubizarreta

Bidaiari guztiak hil ziren istripu **lazgarri** honen zergatiari buruz ez da bertsio ofizial erabakiorrik plazaratu. Harkaitz Cano

Egunen batean gerra **lazgarri** hau ere bukatuko da. Josu Zabaleta

Hiru egun joaiten dira agonia **lazgarri** hortan. Michel Oronoz

Zein ote zen amaren egia **lazgarri** eta beldurgarri hura? Joan Mari Irigoien

Oinaze **lazgarri** batek zaurturik. Txillardegi

Miseriarik handienak, izugarrikeriarik **lazgarrienak** pairatu ondoren. Alberto Ladron Arana

Ezinegon **lazgarri** baten izerdi hotzak heriotzaren koloreko gailur hotziletara bulkatzen duela. Iñaki Segurola

Ez al da hori gauza ankerra, kriminala, **lazgarria**? Josu Zabaleta

**Lazgarriak** dira kantuen hitzak; **lazgarriak,** doinuak. Anjel Lertxundi

Lipar erraldoi horretan, milioika egintza ikusi ditut, atsegin nahiz **lazgarri**. Juan Garzia

Eta banekien apaiz zaharra hilkutxan zerraldo zegoela guk ikusi bezala, serio eta **lazgarri** heriotzan, kaliza hutsa bular gainean. Irene Aldasoro

Beraren zerbitzura lanean ari zen gizona hain modu **lazgarrian** hiltzen utz ez zezan. Askoren artean

**2** ***ile-lazgarri*** *izond* ileak lazten dituena.

Istorio ile-**lazgarri** baten inguruko esanak. Anjel Lertxundi

Norbaitek horretan dibertitu gura badu, bi alorron bilketak ziurtatua du uzta oparo bat ile-**lazgarria**. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **berri lazgarri** (3); **egoera lazgarri** (3); **garrasi lazgarri** (3); **gertaera lazgarri** (8); **gertakari lazgarri** (3); **ikuskizun lazgarri** (3); **ixtripu lazgarri** (4); **ixtripu lazgarri batean** (3); **modu lazgarri** (3); **oihu lazgarri** (6); **oihu lazgarri bat** (4); **une lazgarri** (3)
>
> **berri lazgarria** (3); **egoera lazgarria** (6); **gertakari lazgarria** (5); **lazgarria izan** (11); **oihu lazgarria** (5)
>
> **garrasi lazgarriak** (3); **gertaera lazgarriak** (4); **gertakari lazgarriak** (3); **irudi lazgarriak** (5); **lazgarriak izan** (4); **oihu lazgarriak** (9); **ondorio lazgarriak** (14)
>
> **modu lazgarrian** (5)
>
> **gertakari lazgarrien** (3)

---

# lazgarrikeria *(orobat **latzgarrikeria** g.er.)* *iz* lazkeria, izugarrikeria.

Probintziaren atal hura, tatariar armadaren bi zutabeek eratzen zuten sardearen erdian kokaturik, inbasioaren **lazgarrikerietatik** urruti egon zen ordu arte. Karlos Zabala

Bi kazetariak «berehala» askatzeko eskatu zien bahitzaileei, **«lazgarrikeria** honekin amaitzeko eta islamaren baloreeen arabera jokatzeko». Berria - Mundua

Errusiako agintarien aldetik gurako genuke jakitea, **lazgarrikeria** hau [Beslango eskolakoa] nola gertatu ahal izan den. Berria - Mundua

---

# lazgarriki *adlag* era lazgarrian.

Etxeberritarrek bezain **lazgarriki** ez izanagatik ere, abaurretarrek ere bazuten pairamenen berri. Aingeru Epaltza

Gozo, **lazgarriki** gozo mangatu diot kriminal arriskutsu honek biktima xarmatuari. Koldo Izagirre

---

# lazka *iz* izua.

Non zegoen konturatu zenean, izugarrizko **lazka** hartu zuen. Gotzon Garate

---

lazkaoar ik **lazkaotar**.

---

# lazkaotar *(orobat **lazkaoar** g.er.)* **1** *izlag* Lazkaokoa, Lazkaori dagokiona.

Joseba Beloki **lazkaotar** txirrindularia ez doa azkenean *Stayer* taldera. Herria

Josune Bereziartu **lazkaotar** eskalatzaileak eskuratu du 2002ko Gipuzkoako kirolari hoberenaren saria. Herria

*Brigada Criminal* **lazkaotar** taldeak kaleratu du bere diska berria, "Osti bi" izenekoa, 12 kanturekin. Herria

Sortzez **lazkaotarra**. Xabier Mendiguren Elizegi

Josu Irastorza olaberritarra eta Jokin Lasa **lazkaotarra**. Herria

Atzelari **lazkaotarra** datozen hiru urteetan arituko da Alavesen.

**2** *iz* Lazkaoko herritarra.

Kaputxinook, apaltasun-seinale gisa, norberaren herria izaten dugu deitura bakarra: **lazkaotarrak** Aita Lazkao eta zestoarrak Aita Zestoa. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# lazkeria *iz* izugarrikeria.

Ez dezakezu susma zalamandrana deabru horrek zer nolako **lazkeria** parrasta izkiriatu dion nire bizkar. Jon Muñoz

Bizarbeltzen furfuriak eta nabigazioaren **lazkeriak** pairatu zituen. Juan Garzia

---

# lazki *(orobat **latzki** g.er.)* *adlag* laztasunez, latz; modu lazgarrian.

Suak baino **lazkiago** erretzen duen elur hotz batek ebakia. Iñaki Segurola

Erraz eta samurki, hau da, gozoki eta **lazki**. Iñaki Segurola

Bista **lazki** laburtzen ari zitzaidala. Itxaro Borda

**Lazki** kostatu zitzaion ohetik jaikitzea. Iñaki Zabaleta

Gizonak **lazki** jo. Gotzon Garate

Sendatu zaio, egia da, baina aurpegia **lazki** desitxuratua du; eta bereziki galdu du begi bat. Jon Muñoz

Gero baztanga beltzak **lazki** du desitxuratzen: begi bat galdua, aurpegian du orain arima. Markos Zapiain

---

# lazo[1] **1** *iz* begizta.

**Lazoa** egin zuen gero, listaria oihal-xingola beix batez estalirik. Anjel Lertxundi

Zeta gorrizko **lazo** eder batez apainduta. Koldo Biguri

Takoi altuko zapata parea eramango diola, **lazo** gorri handi batez bildutako zorroan. Alberto Barandiaren

**Lazo** urdin zabala lasa-lasa gerria bilduz. Pello Zabala

Emakumeak emakume izateko behar du begirune pixka bat gizonarekiko; haren esanetara eta haren nahietara makurtzeko dohaina berezkoa zaigu, eta hori izan ezean, alferrik dira gonak eta lepoko **lazoak**. Arantxa Iturbe

**2** lakioa.

Pagotik gertu, bere lur-sailaren barruan, **lazoan** harrapatutako basurdea makilkadaka akabatzen ikusi genuen behin. Jon Alonso

Izan ere, Generalitateko presidente den Pascual Maragall bera **lazoan** erori da, «Bermudako triangelua» gisako baliabideak erabili baititu ETA, PP eta ERC zaku berean sartzeko. Berria - Euskal Herria

Damurik, une horretan ez nintzen konturatu **lazoa** nire lepo inguruan jartzen ari zitzaizkidala. Jon Alonso

---

## lazo² *izond ipar* adoregabea, axolagabea.

Halaz aldi berean kuraiosak eta **lazoak** ginen, ausartak eta herabeak, elekariak eta mutuak, jakintsuak eta ezjakinak, itsusiak eta ederrak, gaiztoak eta onak. Itxaro Borda

Frogatzen da zergatik Aita Sainduak beren aulkitik kentzen ahal dituen erregeak, beren erreinuen kudeatzeko hainbestetaraino **lazoak** direlarik, non menpean daukaten Jainkoaren herria urruntzen den betiereko biziaren bidetik. Piarres Xarriton

Frantses poliza sobera **lazoa** dela, ETA-koak hortaz baliatzen direla eta hola aise ibilki direla mugaren alde batetik besterat. Herria

---

## lazo³ ik **laxo¹**.

---

## lazodun *izond* lazoz hornitua.

Denda aski handia zen; erakusleiho zabala haurrentzako jantziz, kapela izurdunez eta alkandora **lazodunez** apaindua. Josu Zabaleta

---

## lazotxo *iz* lazo txikia.

Zetazko alkandora **lazotxoz** beteak. Josu Zabaleta

---

## laztabin *iz* ginbaleta, zurginaren lanabesa; burdinazko haga, buru batean daratulu moduko bat duena, harriak zulatzeko erabiltzen dena.

Auhen txistukari bat egin zuen eta, halako batean, **laztabin** moduko bere begi beltz altzairuzkoak Ellenenetan finkatu zituen. Lopez de Arana

---

## laztan **1** *iz* eskuez edo ezpainez egiten den txerazko edo maitasunezko adierazpena.

Badira **laztan** edo igurtzi batzuk bero-bero jartzen gaituztenak. Luis Elberdin

**Laztan** edo fereka batzuk eraginkorragoak dira, beste batzuk baino. Luis Elberdin

Etxean, dena zen **laztana** eta txera. Karlos Zabala

**Laztan** bat izan zen, ukitze goxo baino goxoago bat, igurtzi arin baino arinago bat burmuina leherrarazi zidana. Jon Muñoz

Eta lotsa keinuak eta **laztanak,** eta baita zorabioak ere ikaskide baten amodio adierazpena entzutean. Pello Lizarralde

**Laztan** bakar bat emango banizu, ezingo zintuzket utzi, infernuraino segituko nizuke. Anjel Lertxundi

Bera izan zen berriro irribarre egin, niri masailean **laztan** labur bat eman eta alde egin zuena. Joxean Agirre

Komeni ez zen **laztan** edo xirriren bat desgaraian eginez gero. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zakurra ailegatu zen, nitaz kexu, eta turkiarrak **laztanak** egin zizkion, lasai eta patxadan, ederki ezagutuko balu bezala. Fernando Rey

Caracas, ordea, ez du itsasoaren **laztanak** harrapatzen. Pako Aristi

**2** (izenondo edo izenlagunekin)

**Laztan** lotsatiak, musuak... Luis Elberdin

Haren eskua **laztan** ia lotsagabe batean mugitu zen nire lepagainean zehar. Alberto Ladron Arana

**Laztan** lizunetan ikasitako eskua nolanahi ere. Joxean Agirre

Eskutik heldu ostean, ileak zirimolatu zizkidan **laztan** samur batean. Aritz Gorrotxategi

Gero **laztan** beroa nire izterraren kontra. Monika Etxebarria

Baina berak **laztan** erogarri horiekin jarraitzen du, sabeleraino jaitsi da, gerrian eta aldaketan dabil jostari. Juan Martin Elexpuru

**Laztan** iheskorrak esku eta masailean. Sonia Gonzalez

Eguneroko bestelako kontaktuekin edo **laztan** sexualekin. Luis Elberdin

Maitasunezko **laztan** eder horiek. Luis Elberdin

Ahozko **laztan** horietako bat ezpainetako musua da. Luis Elberdin

Orain axaleko **laztan** horiek ez naute asetzen. Josu Zabaleta

Eugeni xarmangarria, **laztanik** gozoenez ase nahi dut ipurdi hori! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Olatuen hots urruna eta haizearen **laztan** leuna ostatuaren terrazan. Aritz Gorrotxategi

Gero eta **laztan** gozoagoa dario ostarteko eguzki oparoari. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Neska batekin oheratu eta, geron **laztan** jostetan genbiltzala, ez si eta ez no, bapatean egin zidan galdera: [...]. Patziku Perurena

Mantaletik tiraka ibiltzen nituen horretarako gai zirenak **laztan**-eskean. Arantxa Iturbe

Gauza bat dela zalea izatea **(laztan**-trukean, ez dirutan) eta beste bat, oso diferentea, puta edo profesionala izatea (dirutan, ez **laztan**-trukean). Iñaki Segurola

Biok musu eta **laztan** premia handia genuen, nonbait, eta izerdi, listu, hazi eta bestelako isurkinetan igerika ibili gara denda zaku berez beroan. Patxi Zubizarreta

Garai hartan posible ziren **laztan**-keinu guztiak egin nituen. Bitartean nire emazte ohiaren eta putakumearen arteko **laztan**-eszenak aurrera jarraitzen zuen. Karlos Zabala

Gure larruazal guztian zehar daude ukipen eta **laztan** errezeptoreak, baina are gehiago genitaletan. Luis Elberdin

40 urteak jada beteak baina gazteen freskotasuna gordetzen zuena, bular oparoak etengabeko **laztan** eskaintzan bezala. Bego Montorio

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Intxaurrak bezalaxe, estimatzen du eguzki-**laztan** gozo hori. Pello Zabala

Neskatxa harkaitzaren gainean zegoen eserita, begiak hertsirik, eta isil-isilik, eguzkiaren argi-**laztanak** dastatzen ari. Joxe Austin Arrieta

Eman biezat musu, bere ezpainez musu! zure maite-**laztanak** ardoa baino gozoago. Elizen arteko biblia

Bazeukan San Antonioren irudi koskor bat gelako mahai txikian, argi eta lorez apaindua, egunero, musu-**laztanak** emanez eskari eta otoitz samurrak egiten zizkiona, senargai aberatsa, ona eta dotorea eskatzeko. Pako Aristi

• **5** *izond* maitea, kutuna.

Nire ahizpa **laztan** eta maiteoi. Askoren artean

Oi maiatzeko arrosa, dontzeilatxo **laztan,** arreba amultsu, Ofelia eztia! Juan Garzia

Gau on, printze **laztan** hori, eta aingeru oste kantari artean hartu atseden. Juan Garzia

Ene maite **laztan** ezti kuttun ttiki hori, ez dakit zer izan dezakezun Algernon izenaren aurka. Antton Olano

Guztiok maite genuen Wanda, horren baitzen **laztan** eta otzana. Gotzon Garate

"Ikusten al duzu zein egoeratan utzi nauzun, zaldun **laztana?",** esan zidan bere zakil zaildu eta burugogorra eskainiz, oso luzea eta bueltan sei bat hazbetekoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hitz **laztanak** esanez. Pablo Sastre

Airearen fereka **laztana** sentiarazteko eta gozatzeko ahalegina. Pello Zabala

**6** (deikietan)

Oi, ene **laztana** ! - **Laztana,** ez egin hori, aitatxok oraindik ez du osorik irakurri. Lopez de Arana

Ea, **laztana,** esango al didazu behingoz zer gertatzen den? Mirentxu Larrañaga

-Barkatu, **laztana** -esan zuen mutilak-. Mirentxu Larrañaga

Stella, **laztana,** ez hadi kezkatu. Xabier Paya

Adorea, **laztana,** adorea, esan zidan amona Erikak. Anjel Lertxundi

Benetan diotsut, **laztana,** ez nuen horrelakorik esan nahi. Koldo Izagirre

-Ez esan hori, **laztana** . Joan Mari Irigoien

Neuk deituko dizut, bostetan, **laztana** . Patxi Zubizarreta

-Zergatik ez baina, ene **laztana** ? Patxi Zubizarreta

**7** ***laztan egin*** ik **laztandu.**

Eskua luzatu nuen, haren aurpegiraino, eta **laztan egin** nion. -Entzun **-laztan egin** zidan berriz ere-. Jon Muñoz

Iletik pasatu dit eskua eta **laztan egin** dit zaman eta lepotik behera. Sonia Gonzalez

Gizon hura, ilean **laztan egiten** zidana, eskolan aurkitu nuen berriro. Eskarne Mujika

Elkarri lepoan **laztan egin** eta autora joan aurretik [...]. Edorta Jimenez

Bitartean Fernandok **laztan egiten** zien Marken zakilari eta Kateren titiei. Karlos Zabala

Menelaok irribarre eta **laztan egin** zion; opari eder bat eman, eta joaten utzi zion. Juan Kruz Igerabide

Loroak, lepoa okertuz, utzi egin zion **laztan egiten** . Ibaitik datorren haizeak **laztan egiten** du. Jon Muñoz

Geroztik Ibrahimi zoriak **laztan egin** zion. · Bikote bat hizketan ari da eta elkarri **laztan** ttikiak **egiten** , elkar musukatzen. Gotzon Garate

**8** ***laztan-laztan izan*** du *ad*

Aski da hori; **laztan-laztan** banauzu, ez dakizu nola eskertuko dizudan! Gotzon Garate

Indioek **laztan-laztan** dituzte beleak. Gotzon Garate

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **laztan egin** (20); **laztan egin nion** (3); **laztan egin zion** (9); **laztan eginez** (5); **laztan egiteko** (5); **laztan egiten** (15); **laztan egiten dio** (3); **lepoan laztan** (3)
>
> **adiskide laztana** (4); **ahizpa laztana** (4); **amatxo laztana** (3); **bere laztana** (3); **bihotzeko laztana** (5); **ene laztana** (42); **ene seme laztana** (5); **gertrude laztana** (4); **hamlet laztana** (3); **jainko laztana** (12); **lagun laztana** (3); **maite laztana** (6); **nire bihotzeko laztana** (4); **nire laztana** (7); **nire maite laztana** (3); **patri laztana** (3); **seme laztana** (7)
>
> **ahozko laztanak** (4); **laztanak egiten** (3); **maite laztanak** (3); **zure maite laztanak** (3)
>
> **laztanaren estimulua** (3)

---

# laztanarazi, laztanaraz, laztanarazten du *ad* laztantzera behartu.

Eta Goiok besoa luzatu zuen, begiek ezer ere ikusi gabe, eta amak hartu zion eskua eta zauri haren ezpain josiak **laztanarazi** zizkion, eta orbaina leuna iruditu zitzaion. Joseba Sarrionandia

---

# laztandu, laztan(du), laztantzen 1 du *ad* laztan egin. (norbaitek)

**-Laztan** nazazu. Eskarne Mujika

Eseri denean Itxasok **laztandu** egin du leunki bizkarrean. Pako Aristi

Zenbat maite zuen kontatuko zion musuen bitartez eta astiro-astiro **laztanduko** zuen, zilborrean putz eginez. Jasone Osoro

Elkar **laztandu** dugu ia elkar ukitu gabe, leialtasun erdibiturik gabe, denboratik kanpo. Harkaitz Cano

Nire asperdura nabarmentzeko betaurrekoek minberatutako sudurra **laztandu** dut. Koldo Izagirre

-Ez zenuen gaizki egin -onartu zion Einsteinek, bibotea **laztanduz** . Fernando Morillo

Oinak musuka **laztantzen** zizkion. Askoren artean

Eskuarekin ileak **laztandu** dizkio. Itziar Otegi

Eskuin eskuko hatz puntez bere ezpainak **laztantzen** hasi zen. Harkaitz Cano

Amak burua **laztandu** zidan irribarrez. Juan Kruz Igerabide

Emakumeak urez beteriko edalontzi bat ekarri zuen sukaldetik, eta bekokia **laztandu** zion leunki gero. Aritz Gorrotxategi

Bidaiariek galdeketari ekiten zioten bitartean, Ruben eta bion belaunek elkar **laztanduz** jardun dute. Patxi Zubizarreta

Neskak ezpaineko zauria hatz batez **laztandu** zion-. Fernando Morillo

Zenbat aldiz ez ote zituen **laztandu** Julenek Mirariren bular haiek. Fernando Morillo

Izugarri gustatzen zaio lagunak klitoria musuka, miazka eta **laztan** diezaion. Luis Elberdin

Nolako jainkosa-ipurdia! **laztandu** gura dut! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Laztandu** katuaren bizkarra. Pako Aristi

**2** (zerbaitek)

Urak esku leunak ditu, eta gorputzaren zoko-moko guztiak **laztandu** dizkit. Patxi Zubizarreta

Olatuek oin biluziak **laztantzen** zizkioten, eta damak liburu bat irakurtzen zuen. Aritz Gorrotxategi

Haize bolada hotz batek **laztandu** zuen emakumearen musu goibela. Aritz Gorrotxategi

New Yorkeko txalo zaparradak **laztandurik,** baina txaloen jatorrian dagoen gerra lekukotasunaren laztan mingarritik urrin, uda hori Ernest Hemingwayk Biminin emango du. Edorta Jimenez

**3** (norbaitek zerbait)

Esku dardarati batez **laztandu** nuen burdina zaharra. Alberto Ladron Arana

Musika aparatuaren ondoan zegoen zutik, diskoaren karpeta urdina **laztantzen** . Iban Zaldua

Eta zorigaitzezko gau hartan, aspaldiko partez pilota hura esku ahurrean harturik, luzaz ferekatu, **laztandu** nuen, anaiaz hobeki oroitzeko. Daniel Landart

Jaio orduko hil den haurraren hilotza bezala **laztantzen** zuela arma itzali berria, dohakabeki negar eginez. Joxean Agirre

Bada balak oroitzapenik ederrenak bailiren **laztantzen** dituen jendea. Pako Aristi

Arratsaldeko eguzki xamurrak teilatuak **laztantzen** zituen. Joxemari Urteaga

**4** irud/hed

Eta berriro bere oroitzapenak **laztanduz,** uso bat biek bota uste zutenean sortzen ziren mokokaldiak datozkio gogora. Pako Aristi

Mingarriro **laztantzen** nau haren oihartzunak, arima barruraino sartzen zait, bihotzaren inguruan kiribiltzen da. Jose Morales

Alkoholak **laztandu** egiten ditu minak. Paddy Rekalde

Ginebrak **laztandu** egiten ditu izotz puskak. Paddy Rekalde

**5** (hitz elkartuetan)

Hura bai sekula sentitu ez nuen **laztandu** -nahi bizia! Txillardegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurpegia laztandu** (5); **bekokia laztandu** (3); **besoa laztandu** (7); **bizkarra laztandu** (3); **bularra laztandu** (3); **burua laztandu** (11); **burua laztandu zion** (4); **elkar laztandu** (3); **eskua laztandu** (6); **ilea laztandu** (13); **ilea laztandu nion** (3); **kokospekoa laztandu** (4); **kokospekoa laztandu zuen** (4)

**burua laztanduz** (3); **ilea laztanduz** (3)

**aurpegia laztantzen** (9); **burua laztantzen** (10); **elkar laztantzen** (3); **eskua laztantzen** (4); **ezpainak laztantzen** (3); **ilea laztantzen** (12); **ilea laztantzen zidan** (3); **ipurmasailak laztantzen** (3); **klitoria laztantzen** (5); **larruazal guztia laztantzen** (3)

---

# laztangarri *izond* laztantzea merezi duena.

Gameluaren larrua bezain **laztangarria** den txamarra batekin. Pablo Sastre

Ez gorputz eder, ez aldi eder, ez begiok hain maite duten argi zuria, ez lelo guztien doinu leunak, ez lore, gantzuki eta lurrinen usain gozoa, ez mana, ez ezti, ez haragi atal **laztangarriak** . Imanol Unzurrunzaga

Beharbada, mutil zurbil argal horrek bere lehenbiziko senarra zekarkion gogora, emetasun **laztangarriko** proventzar horietako bat, hil arte biziki maite izan zuena. Karlos Zabala

Ardo zuria berez sartzen da, leihotik barrura sartzen den kaleko argia bezain **laztangarri** . Edorta Jimenez

---

# laztanka *adlag* laztan eginez.

Musuka eta **laztanka** genbiltzan. Aitor Arana

Mariok artean ere "il baco del calo del malo" esaten zuen, pixka batean nirekin eta amarekin egongelan eserita, bere matrailak **laztanka** . Fernando Rey

Musu luze bat eman zidan **laztanka** aritu zitzaidan masailean bertan. Jon Muñoz

Orbaina ikusirik, negarrez hasi ziren biak, eta Ulises besarkatu zuten, **laztanka** . Juan Kruz Igerabide

Llumek **laztanka** hartzen du, Daniri begiratzen dion bitartean. Antton Olano

Gorputz biluzian euri tanta lodiak lehertzen eta haize beroa **laztanka** sentitzea. Aitor Arana

Elkar **laztanka** hasi dira, arrosa batek kideko arrosa laztantzen duen bezala. Felipe Juaristi

Euskal Herriari bizkarra emanda, eta Erdal Herriari **laztanka,** ibili dira alderdi horretako bizilagunak aspaldi luzean. Koldo Zuazo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**musuka eta laztanka** (6)

---

# laztankeria *iz* laztan gaitzesgarria.

*Faxista, hiltzaile* eta antzeko beste **laztankeria** batzuk esanda. Edorta Jimenez

*Halako batean lepoa igurtzi eta hil egingo haut!*, eta halako **laztankeriak** esanez. Edorta Jimenez

---

# laztanki *adlag* txeraz, maitasunez. ik **laztankiro**.

**Laztanki** besarkatu ninduen erranez: [...]. Maitasunez, **laztanki** maiteko bazintut, zer erantzungo zenidake? Josu Zabaleta

Laborantza berriak probatzen joan ziren eta ikusten nola basa fruituak gozotzen ziren, bigun eta **laztanki** tratatuz. Xabier Amuriza

Zuztarrak harkaitzari **laztanki** heldurik. Pello Zabala

---

# laztankiro *adlag* laztanki.

Hark ez baitzituen utzi nahi izan maisuak, ausardia faltaz, **laztankiro** gorde zituen itzurbideak. Josu Zabaleta

Gau hartan, gertuago nengoen ferekak hortzekin egitetik mingaina suabe-suabe, **laztankiro** mugitzetik baino. Jasone Osoro

Dionisio oso larritu zen eta **laztankiro** galdetu zion: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# laztankor *izond* txeratxua.

Are goxoago, eztiago, **laztankorrago** da Ezkuturen begitartea. Gotzon Garate

---

# laztantsu *izond* txerazkoa.

Esku **laztantsu** bat harengana jaso orduko, Lutezia, nire bihotzeko prenda, aurpegian joka hasi zitzaidan bi ukabilekin. Matías Múgica

---

# laztantxo *(orobat **laztantxu** g.er.)* **1** *iz* laztan txikia edo arina.

Nik **laztantxo** bizkor bat besterik ez baitizut emango. Karlos Zabala

Pliushkinek **laztantxoak** egin zizkien bi ilobei. Jose Morales

Eta ez zen pasa **laztantxoaz** harago. Karlos Zabala

Hemen bai antzematen zaiola itsasoaren **laztantxoari** . Pello Zabala

• **2** *izond (deiki gisa)*

-Baina, ene **laztantxoa,** zer da dantza? Jose Morales

-Soberan dakizu, **laztantxu,** goxokitxo bat. Sonia Gonzalez

· Amets egin dut nire **laztantxoak** bueltan zeudela. Julen Gabiria

---

laztantxu ik **laztantxo**.

---

**laztantze** *iz* laztan egitea.

Hurrengo batean ere ukitze, **laztantze** eta jolas horietara joko du, atsegin baititu, sentipen berriak eta plazerezkoak baitira. Luis Elberdin

Igogailuetan lagun asko doaz, eta denen eskuak gurutzatzen dira elkar **laztantze** horretan. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**laztasun** **1** *iz* latza denaren nolakotasuna.

Siberiako eguraldiaren **laztasun** eta gordinkeriari aurpegi emateko prest. Karlos Zabala

Ospitaleko usain sarkorrak **laztasun** berezia ematen zien oroitzapenei. Juan Kruz Igerabide

Bulegoburuak, bere **laztasun** guztia kordokan, tea hartzera gonbidatu zuen. Jose Morales

Orduan soilik leundu zuen urte askotako **laztasun** hura. Jose Morales

Errieta egingo nion iraganagatik eta orainagatik, zorrotz baina **laztasun** handiegirik gabe. Ander Irizar

Ukaezina da lanari darion edertasun poetikoa, baina estetikaren **laztasun** erabatekoak eta erritmoaren geldotasunak asko murrizten dute *La Zaranda*ren proposamen honetaz gozatzeko aukera. Berria - Kultura

Musikaren erabateko **laztasun** abstraktuak asko murrizten ditu lanaren posibilitateak. Berria - Kultura

**2** jarduera latza, hildura.

Bijilia gogorrez eta **laztasun** handiz gorputza zigortuz. Askoren artean

Nahiz eta santuak indar guztiz anaiak bizitza latzera bultzatu, ez zen **laztasun** gogorregiaren aldeko. Askoren artean

---

**laztenagotu,** laztenago, laztenagotzen du *ad* areago laztu.

Dontsuon sentiberatasunari ez omen zaio-eta batere komeni sutara errekin gehiago bota, eta giroa **laztenagotzen** hastea. Anjel Lertxundi

---

**laztu,** latz/laztu, lazten **1** da/du *ad* zirrara bizi batek jo; larritu, izutu.

Oraintxe eman didate, andrea, zure gutuna; irakurri ahala **laztu** naiz, eta doi-doia utzi dit hari ihardesteko indarra. Jon Muñoz

Egizu kontu nola **laztu** naizen, ikusirik haren bi sehik zekartela zure iloba jauna, gorputz osoa odoletan blai. Jon Muñoz

Eta **laztu** ere egin nintzen lipar batez, harrigarriro. Txillardegi

**Laztu** nau, esan dizut. Koldo Izagirre

Beti estekatua dagoelako zakurra **laztu** eta arriskutsua egiten da. Gotzon Garate

Liburu hau konparatzen dietalarik Iparraldeko gure literaturan aurkitzen diren gerlako lekukotasunei ez dut uste baden [...] Aintziarten egunari honek bezain barna irakurlea inarrosten eta **lazten** duenik. Piarres Aintziart

**2** latz edo latzago bihurtu.

Kearekin boza **laztu** eta gizonduko zitzaiela uste baitzuten mutiko guztiek. Joseba Sarrionandia

Baina oihuak, amore eman ordez, **laztu** egin ziren. Bernardo Atxaga

Taxitik jaisteaz batera, hautsez betetako haize hotzak eztarria **laztu** zion. Lopez de Arana

Aurpegia **laztu** egin zitzaion hitz gorrotatu hura aipatzean. Julen Gabiria

-Pentsatze hutsez oilo-ipurdia jartzen zaidak! **-laztu** ziren Anaren ezpain lodi-gorriztak. Aingeru Epaltza

Kontrabando hitzak **laztu** egin ditu pasearien begitarteak, bekatu larria baita merkatari hirian, bakanetakoa. Felipe Juaristi

Hauxe gertatu zitzaidan, [...] ezdeuskeria huts kausi daitekeena, baina kinka hartan jadanik enetzat aski latza eta nahasia zen eguna oraino gehiago **laztu** eta nahasi zuena. Janbattitt Dirassar

Horrek egoera **laztu** besterik ez du egiten. Berria - Harian

Halere, unerik larrienetan guri laguntzen aritu dira, batez ere 2001ean eta 2002an okupazioa **laztu** zenean. Berria - Mundua

**3** (ileaz mintzatuz)

Ileak **laztu** egiten dira honelakoak entzunda. Juan Martin Elexpuru

Buruko ileak **laztu** zaizkit oihala hurre-hurretik ferekatzean. Javi Cillero

Baina zergatik, hitz haiek irakurtzean, **laztu** zitzaizkidan buruko ileak, eta zergatik gogortu zitzaidan zainetan odola? Koro Navarro

Ileak **lazteko** moduko zerbait. Iñigo Aranbarri

Bizkarreko ilajea **laztu** egin zitzaion guztia, buztana zurrundu, eta nerbioak, zuntzak eta zainak ikusi nizkion tenkatzen, zintzur aldean hasi eta zango zailetan buka. Joxan Elosegi

· Azala **laztu** zitzaidan. Migel Angel Mintegi

Aldi berean loroari ere lumak **laztu** zitzaizkion. Matías Múgica

Argiarekin, urruntasuna piramidez eta dorrez **laztu** zen. Juan Garzia

**4** (era burutua izenondo gisa)

Zure gutunak **lazturaz** izoztu nau. Jon Muñoz

-Armatan hain gizon **laztua** baldin bahaiz, ez diok ezetz erranen hire ezpata nirearekin gurutzatzeari. Aingeru Epaltza

Bibote gris **laztu** baten gainean, bere aurpegiak ez zuen ezer adierazten. bere masail-bizar **laztuak** eta sudur heze sentikorra. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> ilea lazteko (4); ileak lazteko (6); ileak lazteko moduko (3)
> ileak lazten (4)
> ileak laztu (11)

---

**laztura** *(orobat **lazdura**)* **1** *iz* zirrara bizia, beldurra, izua.

**Laztura** hilgarri horretan, nahi du oraino gibelera egiten saiatu. Izadiaren edo gizonen ankerkeria bortitzek **laztura** eta sumindura eragin dezakete, baina ez dizute eragiten

gauzatxo etsigarri batzuk ikustean bizkarrean eragiten dizun hozkirri hori. Jon Muñoz

**Laztura** batek inarrosi zuen ehiztaria; gauza hotz bat, ur tanta bat bezala, jaitsi zitzaion bizkarretik behera. Josu Zabaleta

Zure gutunak **lazturaz** izoztu nau. Jon Muñoz

Ezerk ezin digu jada **lazturarik** eragin eta horixe da, Joseph Rothen ustetan, benetako izugarrikeria. Anjel Lertxundi

Orduan Beldur hura deitzen dugu **Laztura,** batez ere, izutzen gaituzten gaitzak izugarrienetarik baldin badira. Piarres Xarriton

**2** (hitz elkartuetan)

Urduri egongo da denbora guztian, eta samintasun, mespretxu, larritasun, **laztura** keinuz jarraituko ditu haien arteko hitzak. Josu Zabaleta

---

**lazun** *iz Mugilidae* familiako arraina, janaria ibai ahoetako lohian bilatzen duena *(Mugil cephalus* etab.). ik **korrokoi.**

Azken aspaldian inoiz baino **lazun** gehiago ikusten da itsasadarrean... Paddy Rekalde

Ur gainean dabiltzan **lazunei** begiratu die; hortxe daude, banaka, hirunaka, seinaka... itsasadarrak eskaintzen dizkien zabor biologiko eta kimikoak jaten, inork harrapatuko ote dituen beldur barik. jo eta akabatu egingo nituzke **lazun** higuingarri hauek guztiak. Paddy Rekalde

---

leader ik **lider.**

---

lealtasun ik **leialtasun.**

---

**leasing** *iz* tresnak-eta, erosteko aukerarekin errentan hartzea.

Enpresei emandako kreditu, mailegu eta **leasingak** %12,5 handitu dira. Berria - Ekonomia

---

**leatxun** *(orobat **leatzun**) iz ipar* belar zamak besagainean garraiatzeko tresna.

Haste haiendako tailuz belar epaiteak, belar idorraren pentzeetatik ekartzeak bizkarka, **leatxunak** deitu tresnekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Halaber, garai hartan etxeko labeetan egiten baitzen asteroko ogia, alorretatik ere sartzen ziren bestalde ogi azauak, **leatxunetan** horiek ere. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Artetik erraiteko, ez dugu guk orga bat ezarri baina orga parea, haixtur parea eta **leatzun** parea erraiten dugun bezala betiko haritik. Herria

---

leatzun ik **leatxun.**

---

**leba**[1] *iz* garrantzia.

**Leba** handiko gizona da. Berria - Kultura

Esan behar ziona **leba** handikoa zen, itxuraz, ez baitzuen nahi hura beste inork adi zezan. Edorta Jimenez

Gure aitari, beharbada, beragaitik ez eutsan hainbesteko **lebarik,** baina bere etxekoak herriaren aurrean seinalateak min handia emoten eutsan. Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **leba handiko gizona** (4)

---

**leba**[2] *iz* soldadu biltzea, errekrutatzea.

Honako gutun hau diogu idatzi Norvegiako erregeari [...] eragotz dezan hura aurrerago joatea, zeren **lebak,** kintak eta abarrak haren sujeten artetik egiten baitira. Juan Garzia

**Leban** harturiko soldaduak Poloniako erregearen aurka erabiltzeko. Juan Garzia

---

**lebante** *iz* sortaldea.

Nola, aldi berean, **Lebantetik** ontziak urrezko eta zetazko oihalez, urre, zilar, gariofili hitze, eltzaur muskada, eta bertze anitz espeziaz beteak datozen. Aurelia Arkotxa

---

lebatza ik **legatz.**

---

**lebita**[1] *iz* gizonezkoen jantzia, estua, hegalduna eta mahukaduna, belaunetaraino iristen dena.

Gainean **lebita** beltza, buruan kapela. Felipe Juaristi

**Lebita** zuriz eta galtza argiz jantzitako lau beltz. Felipe Juaristi

**Lebita** urdina darama Gabrielek, berdea Inaziok. Felipe Juaristi

-Axola zaizu **lebita** eranzten badut? Jose Morales

Besaulki batean eseririk, **lebitako** botoiak askatzen hasi zen. Josu Zabaleta

**Lebitaren** hegalak tarratatu gabe gordetzen ahalegindu da. **Lebita** zaharra zeraman soinean, baina txukun-txukun eskuilaturik, bentzina-usainarekin eta galoi berriek zeharkaturik. Itziar Otegi

**Lebita** bat gorrimina orkatiletaraino iristen zitzaiona. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lebita beltz** (3)

---

lebita[2] ik **lebitar**.

---

## lebitadun *izond* lebita daramana.

Eta harrapakina poltsikoan zuela irten zen Demba etxetik, egongelan topatu ondoren bi gizon **lebitadun,** gozakaitz, tinkotasun goibelez lurrera begira zeudenak. Anton Garikano

---

## lebitar *(orobat* ***lebita*** *g.er.) izond/iz* Lebiren leinuko israeldarra, tenpluaren zerbitzuan aritzen zena.

Kore **lebitarra** eta, harekin batera, Datan, Abiram eta On rubendarrak Moisesen aurka matxinatu ziren. Jose Antonio Mujika

-Horra, hortxe duzu zeure anaia Aaron, **lebitarra,** eta hark ongi hitz egiten duela badakit. Jose Antonio Mujika

Bete zuten **lebitarrek** Moisesen agindua, eta hiru milaren bat gizon hil ziren egun hartan. Elizen arteko biblia

**Lebitarrak,** I[tun].Z[aharr].eko azken mendeetan, tenpluko bigarren mailako zerbitzariak ziren. Askoren artean

Kantuez arduratzen ziren **lebitar** familiaburuek tenpluan zituzten beren logelak. Elizen arteko biblia

Apaizek eta **lebitarrek,** beraz, egin zituzten garbikuntzak, Jaunaren, Israelen Jainkoaren, kutxa eraman ahal izateko. Elizen arteko biblia

**Lebitar** kantari-taldeak. Elizen arteko biblia

Handik itzultzean, herriko jendea, apaizak, **lebitarrak** eta tenpluko laguntzaileak izan ziren hiria eta jabegoak berreskuratzen lehenengoak. Elizen arteko biblia

Gero, berriz, Moisesek Legea idatziz jarri eta apaiz **lebitarren** esku utzi zuen, hala nola Israelgo arduradun guztien esku. Jose Antonio Mujika

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apaiz eta lebitar** (3); **lebitar apaizgoa** (4)
> **apaiz eta lebitarrak** (4); **apaiz lebitarrak** (3); **apaizak eta lebitarrak** (10); **bizi den lebitarrak** (3); **urtez gorako lebitarrak** (3)
> **apaiz eta lebitarrei** (4); **apaizei eta lebitarrei** (3)
> **apaiz lebitarrek** (7); **apaizek eta lebitarrek** (5)
> **apaiz lebitarren** (5); **lebitarren artean** (4); **lebitarren esku** (3); **lebitarren familiaburuak** (3); **lebitarren izen bilketa** (3)

---

## lebitarazi, lebitaraz, lebitarazten du *ad* lebitatzera behartu.

Upel handi bat zapore guztietako gozokiekin, eta beste bat altxagarri burbuilatsuz betea: Ronek aipatu izan zizkion **lebitarazten** zuten zurrupaki-bola haiek. Iñaki Mendiguren

---

## lebitarburu *iz* lebitarren burua.

**Lebitarburu** ziren Konaniasek eta beronen senide Xemaiasek eta Netanelek, bai eta Haxabiasek, Jeielek eta Jozabadek ere bost mila bildots eta bostehun idi eman zizkieten lebitarrei Pazko-oparitarako. Elizen arteko biblia

---

## lebitatu, lebita(tu), lebitatzen du *ad* lurretik goititu, indar fisiko ezagunen eraginik gabe.

Argal-argala zen bera, eta, egiari buruz ari zelarik, airean **lebitatzen** noiz hasiko egoten ginen, hain hitz egiten zuen bere baitara bilduta. Joxerra Garzia

Mikel **lebitatzen** ari zen. Unai Iturriaga

Bozgorailutik neure izena entzun nuenean, **lebitatzera** nindoala iruditu zitzaidan. Autoaren gurpilak **lebitatuz** zihoazela zirudien errepide izoztuaren gainean, errepidea trenbide bailitzan. Joan Mari Irigoien

---

## legal 1 *izond* legezkoa; legeari dagokiona. ik **lege 8**.

Don Adolfo Arguedas Goñi sarjentuari prozedura **legal** bat egingo zioten ohiko garantia **legal** guztiekin. Joseba Sarrionandia

Horren guztiaren jabe **legala** izanda ere, ez daukak eskubiderik. Paddy Rekalde

Demokraziaren izenean, alderdi politiko **legal** baten zuzendaritza osoa kartzelara sartu. Xabier Montoia

Epailea prest dagoela gizatasunaren aldeari alde **legalari** baino gehiago begiratzeko. Fernando Rey

Desehorzketaren alderdi etiko eta **legalaz** . Ramon Saizarbitoria

Kode moral eta **legalak** betearazteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Euskarak estatus **legal** bakarra izan behar du Euskal Herrian. Berria - Euskal Herria

Kargu publikoetan jarduteko gai judizial eta **legaletan** adituak badira. Lopez de Arana

Txanponaren erabilgarritasuna areagotu egiten dela zenbat eta eremu handiagoan izan erabilera **legala** . Iñaki Mendiguren

Sortu, Banku Zentralak soilik sor dezake erabilera **legaleko** dirua. Iñaki Heras

Aitatasunaren ikerketa **legalari** buruz. Ramon Saizarbitoria

Medikuntza **legaleko** irakasleak. Karlos Zabala

Ez zara orain txikikeria **legalekin** hasiko, ezta? Antton Olano

Trikimailu **legalei** nola edo hala aurre egiteko. Joan Mari Irigoien

**2** poliziaren fitxa ez duena.

Atxilotutakoak ETAko kide **legalak** dira eta, Poliziaren bertsioak dioenez, Bizkaia Komandoko partaide ziren. Unai Iturriaga

Erantzun zidan izenak eskatu omen zizkiotela, ETA ko ekintzaile **legalak** zein ziren. Juan Kruz Igerabide

Gure giroan esaten zen bost bonba jarri zituela larunbat gau batean, artean **legala** zela, eta bakar-bakarrik egin zuela dena. Bernardo Atxaga

**3** *adkor* zintzoa, gisakoa.

Horra tipo **legala** ! Unai Iturriaga

Hi! esan zuen Sakik; hau herrikoa duk; hau **legala** duk... Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **estatus legal bakarra** (3); **euskarak estatus legal** (3)
> **arazo legalak** (5); **bide legalak** (5); **neurri legalak** (7)
> **medikuntza legaleko** (5)
> **babes legalik** (4); **babes legalik gabe** (3); **oinarri legalik** (3)

legalidade ik **legalitate**.

## legaliformitate *zi*

Bestela esanda: zerk bereizten du lege zientifikoa edozein enuntziatu unibertsaletatik? erantzunak legearen formaren inguruan, hots, **legaliformitatearen** inguruan zeutzan. Askoren artean

## legalismo *iz* legea hitzez hitz aplikatzeko joera.

Lehenengo emaitza Inperioa erortzea izan zen; bigarrena, aitasantutzaren hondamena, haren ondoren bere **legalismoak** ekarri zion ospe-galtze moral eta erlijiosotik sekula oneratu ez zena. Iñaki Mendiguren

## legalista *izond* legea hitzez hitz aplikatzearen aldekoa dena. ik **legezulo**.

Erromatarren herentzia zen interes pertsonalen defentsa **legalista**. Iñaki Mendiguren

Prozesua oso **legalista** zen, eta epaimahaiari zaila egin zitzaion bereiztea zein delitu egin ziren arrazoi politikoengatik, eta zein ez. Berria - Euskal Herria

Ni **legalista** naiz; beraz, jardun nahi dut, jardun behar dut dena legearen arabera egin dadin. Berria - Harian

## legalitate *(orobat **legalidade** g.er.)* 1 *iz* legezkotasuna.

Demokrazian **legalitaterik** gabe, ez dagoela zilegitasunik. Berria - Euskal Herria

**Legalitatea,** berriro ere, justiziaren gainetik jarri da. Berria - Euskal Herria

**Legalitatea** bete eta betearazteko beharrari buruzkoa izan zen. **Legalitatearen** kultura baten alde. Berria - Harian

Ez du **legalitatean** euskarririk egungo kartzela politikak. Berria - Euskal Herria

**Legalitatearen** normaltasunetik aberrazio hutsa besterik ez dena, subiranotasunaren ikuspegitik norbere ahalmenaren adierazpen da. Joseba Zulaika

### 2 *legalitate printzipio*

Egonkortasunik, adostasunik eta **legalitate** printzipioarekiko errespetorik gabe ez dago inolako berrikuntzarik, kaosa bakarrik. Berria - Euskal Herria

Delituen interpretazio «zabal, malgu eta **legalitate** printzipioaren aurkakoa» egiten dela ere salatu zuen Elosuak. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **legalitatearen kultura** (3)

## legalizatu, legaliza, legalizatzen 1 du *ad* legal bihurtu.

DRM izeneko babes sistemak **legalizatzen** ditu legeak. Berria - Kultura

Bide beretik, 'Testing'-ak **legalizatu** nahi dituzte. Berria - Ekonomia

Frantzian **legalizaturik** dagoen erakunde baten bozeramaile izatea «ez dela delitua» erran zuen Basurcok. Berria - Euskal Herria

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Mahai berean alderdi **legalizatuak** eta ilegalizatuak sartzea. Berria - Harian

## legalizazio *iz* legalizatzea, legal bihurtzea.

77ko udaberrian ikurrinaren **legalizazioaren** alde egin ziren manifestazioei buruz. Alberto Barandiaren

Zerrenda hauen **legalizazioa** PSOEren kalkulu politiko eta elektoralen arabera egingo dela. Berria - Harian

Jai Alaiko jokoaren berpizteak erran nahi du apustuen **legalizazioa**. Ramuntxo Etxeberri

Aukera guztien **legalizazioa**. Berria - Euskal Herria

## legalki *adlag* legearen arabera; legearen ikuspegitik.

Herritarrak **legalki** jo dezakeela Estatuaren aurka. Esteban Antxustegi

Xede hori **legalki** erdiets ezina zela. Itxaro Borda

Positiboa da Giza Eskubideak publikoki eta **legalki** onartuak egotea. Joxe Azurmendi

Bikote ezkondu bati **legalki** dagozkion onurak. Berria - Gaiak

Lucindak hemezortzi urte bete berriak zituen, beraz **legalki** bere buruaren jabe zen emakumea. Joxemari Iturralde

**Legalki** homizidioa da, hau da, norbait hiltzea asasinoa izan gabe. Berria - Mundua

Estatu Batuetan **legalki** egoteko, bisatua indarrean eduki behar da. Iñaki Zabaleta

Etikoki errudunak dira, baina **legalki** arrazoi dute. Fernando Rey

## legaltasun 1 *iz* legezkotasuna.

**Legaltasunaren** eta ilegaltasunaren arteko marra gorria. Itxaro Borda

Zuzenbide penalaren **legaltasuna**. Juan Martin Elexpuru

Espainiako Errepublikaren **legaltasun** demokratikoa. Berria - Mundua

Artekoarentzat ez baita aski ekintzaren bat **legaltasunarekin** bat datorren edo ez. Berria - Harian

**«Legaltasuna** defendatzea» eskatu du Barcinak. Berria - Euskal Herria

**Legaltasuna** errespetatu behar hori ez al da, azken batean, Espainiaren subiranotasun bakarraren eztabaidaezintasuna onartzea? Berria - Euskal Herria

### 2 (hitz elkartuetan)

**Legaltasun**-irizpidea, sustraiak zuzenbidezko estatu liberalaren oinarri politikoan dituena, [...] ilustrazioaren alaba dela. Juan Martin Elexpuru

Betorik ez jartzeko, **legaltasun** printzipioa betetzeko. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**legaltasun irizpidea** (3)

---

# legamia *(orobat **legami** g.er.)* **1** *iz* orea altxatu edo harrotzeko erabiltzen den gaia, batez ere onddo zelulabakarrez osatua. ik **altxagarri**.

Arrautzak, irina, **legamia..** . amantala jantzita, sukaldeko mahai gainean oratu eta oratu. Sonia Gonzalez

**Legamia** eta gatza bota bere esku bilduaren zimurrera, eta biak gaineratu zizkion irinari. Anton Garikano

Eskainiko dizkiozue, bai, **legamia** eta eztia lurraren lehen fruituen eskaintzan. Elizen arteko biblia

Zelula bakarrekoak aztertzen jarraitu, bakterio zein **legamia,** barruti berriak ikertuz. Juan Garzia

Genetikoki eraldatutako **legami** bat sortu dute, eta ugari eta merke ematen du botika egiteko lehengaia. Berria - Gaiak

**2** irud/hed

Izan ere, zer da gaizki esalea gizakien behazun, gaiztakeriaren **legamia,** munduaren lotsa baizik? Askoren artean

**Legamia** erigarri horretatik datoz kalte guztiak, gure pobretasunak, gure ezjakintasunak eta gure harrokeriak okerragotuak. Josu Zabaleta

Euskalgintzaren **legamia** . Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bakailao gibeleko olioa, **legamia** tabletak eta kaltzioa ematen dizkidate. Josu Zabaleta

Zakurrentzako pentsua edo **legami** hautsak edo nik al dakit zer goraipatzen. Joxe Austin Arrieta

Ez al dakizue **legami** pixka batek ore guztia altxatzen duela? Elizen arteko biblia

---

# legamiadun *(corpusean **legamidun** soilik)* *izlag* legamia duena.

Zazpi egun horietan legamigabeko ogia jango duzue; zuen lurralde osoan ez da legamirik, ez **legamidun** ogirik. Elizen arteko biblia

Eskaini **legamidun** ogia esker onezko oparitzat. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**legamidun ogia** (4); **legamidun ogirik** (3)

---

# legamiagabe *(corpusean **legamigabe** soilik)* **1** *izond* legamiarik ez duena.

Irin garbiz eginiko legamigabeko saski bat ogi, olioz oraturiko opilak eta oliotan bustiriko talo **legamigabeak** ere eskainiko ditu, labore- eta isur-opariekin batera. Elizen arteko biblia

**2** ***legamiagabeko*** *(corpusean **legamigabeko** soilik)* *izlag* legamiagabea.

Afaria prestatu zien eta **legamigabeko** ogia erre zuen. Jose Antonio Mujika

Egiptotik ekarritako orearekin **legamigabeko** opilak egin zituzten jateko. Jose Antonio Mujika

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**legamigabeko ogia jango** (12); **legamigabeko ogiak** (6); **legamigabeko ogien** (22); **legamigabeko ogien jaia** (11); **legamigabeko opilak** (4)

---

# legar[1] **1** *iz* ibai eta itsas ertzeko harru-koskorra, eta bereziki horien multzoa; harri xehatua, bideetan eta, ezartzen dena.

Oroimena galbahearen gisakoa dela diote, **legarra** atxikitzen duela gogoan, baina pasatzen uzten hondarra. Imanol Zurutuza

**Legarra** hondar bilakatu, landareak estali eta ito, eta mortua hedatzen dik. Xabier Montoia

Material hori **legarraren** tamainara eho, idortu, eta sailkatu egiten zen. Juan Garzia

Pneumatikoek **legarra** zapaltzean egiten duten klaska. Oskar Arana

Hilobia bi metro eta erdi baino barrenago zen, zur oholez, adreiluz eta **legarrez** estalirik. Gotzon Garate

Emeki-emeki, Mercedes iluna **legarrezko** bidean aurrera lerratu zen. Alberto Ladron Arana

**Legarrezko** eremuan burdinezko bi mahai eta hiru silla herdoildu daude. Pello Lizarralde

**2** (izenondoekin)

**Legar** larriaren gainean xinpleki pausatuz [bakailaoa]. Aurelia Arkotxa

Zulo inguruan **legar** xehea, sendabelar bereziak eta beste nahasgarri berezi batzuk ipintzen dituzte sugeak konortegabe uzteko. Gotzon Garate

**Legar** xehe-xehezko hondartza zabal hartan. Aurelia Arkotxa

**Legar** grisez beteriko zakuak. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Izerditua eta hautseztatua, **legar**-gurdiko nekazari hura bezalatsu. Joxe Austin Arrieta

Zelatan egoten zen erreginaren bideetan, **legar**-putzuen eta karobien ondoan. Juan Garzia

**Legar**-euri bat gertatzen zen erorketaren ondoren. Juan Garzia

Jadanik lau edo bost metrotan harresia goratua zutelarik, erortzen da hargina... beharrik hariña edo **legar** metaren gainera! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hurbiltzen saiatzen nintzen bakoitzean pago-ezkurrak, sustraiak eta harri-**legarrak** botatzen zizkidan. Jon Alonso

Korrontearen itolarri geldoa orkatiletan sentitzen genuela, eta hondoko harri **legar** txikien kirrinka, Jon Alonso

**5** ***ahoan legarrik gabe*** argi eta garbi

Kementsua zen, ahoan **legarrik** gabe hitz egiteko gai baino gaiago. Patxi Zubizarreta

Aga gizon zentzuduna zen eta ahoan **legarrik** gabe hitz egin zuen: [...]. Fernando Rey

Ahoan **legarrik** gabe mintzo da behera etorritako Buenos Aires moderno hartan. Iñigo Aranbarri

Aho- **legarrik** gabe kritikatu du Alemaniak duen politika, armak ematen baitizkio Ankarako gobernuari. Fernando Rey

Errusiarraren adimen berez zorrotz eta bizia da nagusi, eta errusiarrak ez du **legarrik** ahoan, ez ditu hitzak egosten [...] hitzetik hortzera asmatzen ditu. Jose Morales

**6** ***sagarrak eta legarrak nahastu***

Traketsenak sagarrak eta **legarrak** nahastu zituen zuhurtziarik gabe, eta zentzurik gabe, eta Euskaldunon Egunkariarena Euskal Herrian gertatu berri diren beste atxiloketen upel berean sartu zuen. Bernardo Atxaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**ahoan legarrik gabe** (3); **legarrik gabe** (5)

---

# **legar**[2] *iz ipar* zerga.

Hor Nafarroako erregearen **legar** eta zerga biltzale izan zen. Herria

---

legarrestatu ik **legarreztatu**.

---

# **legarreztatu** *(orobat **legarrestatu**) izond* legarrez estalia.

Bide mota guzietarik aurkitzen da: gudronatua, **legarrestatua,** lauzatua, zimentatua, lur hutsa, estreka eta xendera. Herria

Seiak hurbil ziratekeen hondartzatik zituzten oinetako **legarreztatuekin** atera zirelarik. Aurelia Arkotxa

---

# **legartsu** *izond* legar asko duena; legar asko dagoena.

Lur **legartsuetan** erdi-mailako ur-korronteak eta ez oso seguruak aurkitzen dira, baina leuntasun aparta izaten dutenak. Santiago Iruretagoiena

Zola **legartsua** zapaltzean. Xabier Montoia

---

# **legartza** *iz* legarrezko eremua.

Belardi batek, urrutitik ikusiz gero, oso ehundura xehea izango du, eta berdin **legartza** batek ere. Josu Zabaleta

Bidexka, patar eta **legartzetan** gaindi doazela. Xabier Montoia

---

# **legato** *iz* musika nota sail bat abestea edo jotzea noten arteko etenik gabe.

Hasieratik taldeak bere **legato** ona erakutsi zuen. Berria - Kultura

Lanak eskatzen duen bezala, espresibitatea (*vibrato* eta ***legato***-a) izan zen nagusi. Berria - Kultura

**Legato** txukuna, koloreak, portamento eta filado-etan ondo aritu zen. Berria - Kultura

---

# **legatu**[1], lega, legatzen **1** du *ad* testamentuan norbaiti zerbait utzi.

**Legatzeko** gaitasuna mugatzen zuen lege horren kapituluak xede horri ekiten zion: izan ere, nahi bezala legatu ahal izan balitz, emakumeek legatu gisa hartu ahalko zuten jarauntsi gisa jaso ezin zutena. Iñaki Iñurrieta

Augusto salbuetsia izan zen askatasuna emateko eskuduntza mugatzen zuen legetik, eta **legatzeko** eskuduntza mugatzen zuenetik. Iñaki Iñurrieta

---

# **legatu**[2] **1** *iz* testamentuan uztea.

Dukearen **legatuak** oso garbi esaten du parkea ezin dela zementatu, izan ere, pasealeku modura baino ez erabiltzeko agindu zuen. Berria - Euskal Herria

Oinordetzak, **legatuak** ez bezala, ez du inolako nahirik adierazten, ez da gureganako erakutsiko zen inolako asmoren ondorioa. Joxan Elosegi

**Legatu** hori ez zela sekula bete, Maria Graçak aitaren desio guztiak albait zehatzen betetzeko **legatu** hori ez zela sekula bete, Maria Graçak aitaren desio guztiak albait zehatzen betetzeko. Bego Montorio

**2** testamentuan utziriko gauza.

Fundazioa baita Oteizaren **legatua** kudeatzeko arduraduna. Berria - Kultura

Emakumeek **legatu** gisa hartu ahalko zuten jarauntsi gisa jaso ezin zutena. Iñaki Iñurrieta

Herentzia, **legatu** edo beste edozein oinordetza dela-eta sortutako ondasun eta eskubideen eskurapenak, heriotza dela-eta bizi aseguruen kontratuen onuradunek egindakoak barne. Iñaki Heras

Hiltzean, 1912an, **legatu** garrantzizkoa utzi zion Bouvilleko liburutegiari: markesaren eskutitzak, egunkari zati bat, mota guztietako paperak. Monika Etxebarria

Autore horienak irakurtzean, nork ez du pentsatuko kapitulu hori jarauntsia **legatuen** bidez agor ez zedin egina dela? Iñaki Iñurrieta

**3** irud/hed

Dogmatikoki bazterturiko kristautasunetik bizirik iraundako **legatu** espirituala. Iñaki Mendiguren

Astuna zen, inolaz ere, **legatu** hura. Joxan Elosegi

Agirrerengandik jasotako hiru **«legatu»** aipatu zituen: «Euskal identitatea mantenduz» paktuak bilatu beharra, besteenganako gorrotoa baztertu beharra, eta «euskaldun unibertsala» izatearen garrantzia. Berria - Euskal Herria

Abertzaletasunaren museoaren esku utzi dute Sabino Aranaren **legatu** pertsonala. Berria - Kultura

---

# **legatu**[3] *iz* ordezkaria.

Inperio erromatarren kasuaren modura bere **legatuaren** bitartez goberna lezake Aita Sainduak. Piarres Xarriton

Aulki apostolikoak, beste askotan bezala, Hugolino jauna Toscanara bidali zuen **legatu** bezala. Askoren artean

Lombardian Aita santuaren **legatu** zenak. Askoren artean

Horietako guztiak ez dira **legatuak** edo tribunoak edo ehuntariak edo horien azpiko graduetako ofizialak. Iñaki Mendiguren

---

# **legatz** *(orobat **lebatz** g.er.)* **1** *iz* itsas arrain hezurduna, luzea eta baraila irtena duena, kolore gris argikoa, bost kiloko pisua izan dezakeena, sukaldaritzan oso aintzat hartua *(Merlucius merluccius* edo *M. esculentus)*.

Haizu den baino **legatz** txikiagoak harrapatzen dituztela eta itsas zola sobera husten. Herria

Halako batean, atzapar batek heldu eta amuko **legatza** bezalaxe atera ninduen. Joxean Sagaztizabal

Bizkaiko Golkoan 2005ean **legatza** ez harrapatzeko eskatu dute adituek. Berria - Ekonomia

**Legatza** sobera gaztea delarik hartzen dela, sobera xehea, eta hori bera makurra dela geroari buruz. Herria

Kolore distirant haiek guztiak nahasten ziren batzuk besteekin, maskorren haragi tonuak **legatzen** opaloekin, berdelen nakarrak barbarinen urreekin. Karlos Zabala

Bixiguz eta **legatzez** eta txipiroiz eta izotzez eta perrexilez beteriko metalezko erakusmahaiaren aurrean. Iban Zaldua

Datorren urteko lehen seihilekoan sortuko dute marka, Bizkaiko Golkoan eta Kantauri Itsaso osoan arrantzatutako **legatz,** hegaluze, antxoa, sardina, lanperna eta txangurruarentzat. Berria - Ekonomia

San Sebastian egunerako prestatu nahi duen **legatzaz**. Iban Zaldua

**2** (multzokari gisa)

Ez zekien, esaterako, jaten dugun **legatz** gehiena, hoberenera jota ere, Argentinatik edo Chiletik datorrela, edo Afrikatik bestela. Ramon Saizarbitoria

2.000 tona **legatz** gehiago harrapatzeko eskubidea. Berria - Ekonomia

Sesituak izan zaizkie 5 tona **legatz,** Ziburuko portuan salduak izan direnak. Herria

**3** (jaki gisa)

Barazki batzuk eta **legatz** errea. Joan Mari Irigoien

Nik **legatz** izoztuarekin segitzen diat. Harkaitz Cano

Chef hoberenak ados daude **legatza** saltsa berdean munduko jakirik hoberenetakoa dela esateko. Ramon Saizarbitoria

**Legatza** koxkera eran buztinezko kazolan. Ramon Saizarbitoria

Salda, **legatza** koskera, lomo errerik Ezpeletako biperraz onturik, [...] bixkotx ala itzozki, kafe eta arnoa barne. Herria

Pla-pla egindako erretilukada **legatza** atera zuenean. Joxemari Urteaga

Maiatzean, pobrientzat be **lebatza** platerean. Pello Zabala

Barazkiak; azenarioak, porruak eta ilarrak, arrain garbia **(legatza** edo merlenka, egosita) eta fruta. Edorta Jimenez

**Legatza** eta dilistak hozkailuan gorde ditut, nahi izanez gero afaltzeko jan ditzan. Sonia Gonzalez

Egun batean **legatza** egiten ari zela usaindu nuen. Lander Garro

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Joanden igandean uste gabetarik **legatz** arrantza gelditu behar izan dute Ondarruko bi ontzik. Herria

Hegoaldeko **legatza** stock-ak 10.200 tonatik behera daude, eta 35.000 tonakoa da gutxieneko maila onargarria. Berria - Ekonomia

**Legatz** xerra batzuk oliotan frijituak. Baina zerbait geratu zitzaion eztarrian, **legatz** hezur bat bailitzan. Koldo Izagirre

**Legatz** kutxak garraiatzeagatik. Harkaitz Cano

Paolak **legatz**-pastel pare bat ekarri ditu eta japoniarrek arrain pastela probatu dutenean uko egin diote sushiari. Harkaitz Cano

[Frantziak] **legatz** eta zapo kuota gutiago eskuratuko du. Herria

· Sekulako burukada eman baitzidan presidente **legatz** begidunak, biok asmo berarekin bateratsu makurtu eta elkar jo genuenean. Josetxo Azkona

**5** *legatz kume* ik **legazkume**.

**6** ***legatzetan*** *adlag* legatzak harrapatzen.

Arrantzontziek **legatzetan** ari zirela. Joseba Sarrionandia

**Legatzetan** ibiltzen ziren gehienak bi milioi kilo gehiago har zitzaketen Espainiak Frantziari emandako antxoa kuotaren truke. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> legatz kumeen (5)

---

# legazkume *(orobat **legatz kume**)* *iz* legatzaren kumea.

Izebak ganbaran lehortzen utzitako **legazkume** horien begiak eta varech algak murtxikatzen genituen bitartean. Juan Kruz Igerabide

**Legatz** kumeen arrantza «eutsi ezinezko tentazioa» dela ohartarazi du Ondarroako Alturako Ekoizleen Erakundeak. Berria - Ekonomia

---

# legazpiar *izlag* Legazpiakoa, Legazpiari dagokiona; Legazpiako herritarra.

Bigarren bururatu du Zuhaitz Ezpeleta **legazpiarrak**. Herria

Bakarne Jorge musikari eta aktore **legazpiarrak**. Berria - Kultura

Ama, berriz, **Legazpiarra** dugu jaiotzez, eta Bergarakoa hizketaz. Joxerra Garzia

Oñatiarrek oso gertukotzat dutela **legazpiarren** euskara giputza. Koldo Zuazo

---

# lege **1** *iz* gizarteko agintaritzak ezarritako arau edo arau multzo betebeharrezkoa.

Jainkoak gizonei, Estatuak herritarrei eta, oro har, boteretsuek aurre ezin egin dietenei jarritako manuak **lege** deitu behar dira. Esteban Antxustegi

Ulertzen da **lege** orok berarekin batera daramala zigorra. Esteban Antxustegi

Diruzaintzari buruzko **legeak**. Elizen arteko biblia

Historia **legeen** bidez argitu behar da, eta **legeak** historiaren bidez. Iñaki Iñurrieta

**Legeak** indartsu daudenean, atseginak eta luxuak biztanleriaren zerbitzura egon ohi dira, eta ez daudenean, atseginak tiraniaren tresna izaten dira. Juan Martin Elexpuru

Lau mende lehenago, Aztien **legeak** debekatu egiten zion eskolatik kanpo magia erabiltzea. Iñaki Mendiguren

Joan den mendean dueloen kontrako **lege** oinarrizkoak egin zirenean. Iñaki Iñurrieta

Plajioa moralki gaizki ikusia eta **lege** aldetik ere kondenagarria izaten hasi zenetik, egonezina hedatu zen literatur gizartean. Bernardo Atxaga

**2** (izenondoekin)

Behenafarroa Nafarroa zen, baina gizonen **lege** idorrek aspaldian ahantzirik zeukaten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Lege** zitala zen; izan ere, ohiturak gordetzeko, natura hankazgoratzen zuen, ohituren jatorria naturan dagoelarik. Iñaki Iñurrieta

**Lege** anker, zentzugabe, bidegabeek milioika lagun erail dezakete mende bakar batean... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Erromatarrek, mundu osorako egiten baitzituzten **legeak**, oso **lege** gizatiarrak eginak zituzten urperatzeez. Iñaki Iñurrieta

Frankoen **Lege** feudalen teoria, monarkia ezartzearekin duten zerikusiaren aldetik. Iñaki Iñurrieta

Munduko gauzak **lege** teleologikoen arabera elkarlotzeko eta horren bitartez beren batasun sistematiko gorenera iristeko. Ibon Uribarri

Naturguneen **Lege** berria. Berria - Euskal Herria

**Lege** positiboak zehaztu ez duen gai batez. Andres Urrutia

**Lege** sinbolikoaz ari gara, arauen gainetik inposatzen den **lege** tautologikoaz, hau da: "Hau horrela da nik agintzen dudalako". Joseba Zulaika

Arrazakeriaren aurkako **lege** zorrotzenak ere ez ditu desagerraraziko gure baitan hain errotuak ditugun eskema xenofoboak. Anjel Lertxundi

Lege horiek **lege** fiskalen antza hartu zuten, politiko eta zibilen antza baino gehiago. Iñaki Iñurrieta

Frankoak beren herritik irten zirenean, **lege** salikoak idatzarazi zizkieten beren nazioko jakintsuei. Iñaki Iñurrieta

Espainiako Osasun **Lege Nagusiaren** arabera gutariko inori ezbeharrik gertatzen zaigunean, berehala daukagu laguntza medikoa. *ik beherago* 18. Berria - Euskal Herria

**3** (aditz baten objektu gisa)

Bil itzazue zeuengana **legea** betetzen duten guztiak, mendekatu zeuen herria. Elizen arteko biblia
Berak emandako agindu eta **legeak** ez betetzeagatik. Elizen arteko biblia
Zuzenbide Estatuaren **legeak** betearazteko eskatzea. Berria - Euskal Herria
**Legeak** obeditzen ez dituena. Juan Martin Elexpuru
Abadesaren hautaketan, eliz **legeak** gordetzera behartuak beude ahizpak. Askoren artean
**Legeak** errespetatuz bizi dena apatikoa da, eta bestea, heroia. Itxaro Borda
Baztertzeko zorian zeuden **legeak** berrezarri zituzten. Elizen arteko biblia
Ezin dira Jainkoaren **legeak** hautsi ondoriorik jasan gabe. Elizen arteko biblia
Bigarren heriotza sinboliko bat da beharrezko "Beste" nagusi hori deuseztatu dela onartzeko eta ordura arteko **legea** indargabetzeko. Joseba Zulaika

**4** (mug.) legegileak ezarritako arauen multzoa. ik **legedi**.

**Legeak** zigorra dakar ondorio. Elizen arteko biblia
**Legearen** subiranotasunaren ideia ezinbestekoa da ordena politikoaren eta askatasunaren ikuspegi errepublikazale ororentzat. Esteban Antxustegi
**Legearen** inperioaren pean. Esteban Antxustegi
**Legea** subiranoaren borondate aldarrikatua baita. Esteban Antxustegi
**Legearen** eremu den gizarte-ekintzaren arloa hiru esparru handitan zatitzen da: [...]. Iñaki Mendiguren
**Legeak** zigor zehatzak eta behar-beharrezkoak bakarrik ezarri behar ditu. Juan Martin Elexpuru
Bakearen arrazoien aurka doa, hau da, naturaren **legearen** kontra. Esteban Antxustegi
Ez da harritzeko, beraz, **legea** ere aberats eta boteretsuen aldeko izatea sarri. Joxerra Garzia
**Lege** erromatarren xedapenaren kontrakoa. Iñaki Iñurrieta
**Lege** grekoek eta erromatarrek zigortu egiten zituzten bai lapurreta estaltzen zuena eta bai lapurra bera; gauza bera egiten du **lege** frantsesak. Iñaki Iñurrieta
Jainkoaren eta **Lege** Zaharraren izenean. Piarres Xarriton

**5** Jainkoaren edo jainkoen borondatea adierazten duen araua.

Jainkoak ezarritako **lege** santuari jarraitu zien. Elizen arteko biblia
Nire **legea** Kristo baita. Elizen arteko biblia
Gorde Moisesen arauetan idatziak dauden **lege,** agindu, erabaki eta burubideak. Elizen arteko biblia
Bete arretaz Jaunak zeuen Jainkoak ematen dizkizuen agindu, **lege** eta xedapenak. Elizen arteko biblia
Liburu Santuaren arabera, hauxe da **lege** nagusia: maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala; eta hori benetan betetzen baduzue, ondo baino hobeto. Elizen arteko biblia
Belarra baizik ez zuten jaten, **legeak** debekatua janda ez kutsatzearren. Elizen arteko biblia

**6** gizarte harremanetan, jokoetan... kontuan izan behar diren arauak.

**Lege** edo usadio horrek beste bat sorrarazi du. Iñaki Iñurrieta
Kontraesan nabarmena dago **lege** zibilen [...] eta ohorea deiturikoari buruzko **legeen** artean. Juan Martin Elexpuru
Bada beste zerbait, **lege** zorrotzago bat, gogorrago bat, bi pertsona loturik dauden ala ez erabakitzen duena. Ander Irizar
Miaketa hori, zenbait kasutan gehienez ere, etxeko **lege** partikularra litzateke, inoiz ez lege zibila. Iñaki Iñurrieta
Tentaldi gogorragoek erasotzen dute orain, **mundukoen legera** bizi zenean baino. Joan Mari Lekuona
Ohiko **legeak** errespetatuz, bateria-joleak sartu zuen aurrenekoa. Unai Iturriaga
Garbitasunaren eta lotsaren **legeak** gordetzen ez badituzue. Iñaki Iñurrieta

**7** izadiko gertakariak mendean dituen arau orokor eta aldagaitzen adierazpena; izadiko gertakarien arteko elkarbidea adierazten duen formula orokorra.

Fisika teorikoaren kontzeptu eta **lege** oinarrizkoak. Iñaki Segurola
Izaki materialak izanda ere, hau da, fisikaren **legeak** betetzen badituzte ere. Askoren artean
Izadiaren **lege** aldaezinen arabera. Ibon Uribarri
Naturaren **lege** soilei esker. Piarres Xarriton
Diskurtso nagusiak askotan salbuespena **lege** bilakatuz eta hedatuz kontrakoa dion arren, [...]. Iñaki Heras
Baina izadiaren **lege** guztiak daude adimenaren oinarri-esakune garaiagoen menpean. Ibon Uribarri
Halabeharrezkoak ala kontrolagarriak dira historian zertzen diren naturaren **legeak**? Iñaki Mendiguren
Benetan **lege** enpirikoek ezin dute enpirikoak diren heinean beren jatorria adimen hutsetik eratorri. Ibon Uribarri
**Lege** zientifikoaren azterketa, eta bereziki nola adierazi **legearen** izaera **legearen** enuntziatuzko forma unibertsaletik abiatuz, izan da zientziaren azterketa filosofiko estandarrean analisi interesgarrienetarikoak eskaini dituen arloa. Askoren artean
Hizkuntzen historian agerturiko fenomeno partikular guztiak barne hartuko dituzten **lege** orokorrak ateratzea. Isabel Arrigain
**Lege** sinkronikoa eta **lege** diakronikoa. Isabel Arrigain
Boterearen erabilera eta abusuarekiko antzeko jarrera-aldaketa gertatu zen beste zibilizazio batzuen historian [...]; baina, **"lege"** historiko hau bereiz badaiteke ere, salbuespen asko ditu. Iñaki Mendiguren

**8** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **legal**.

**Lege**-baldintza guztiak betez. Elizen arteko biblia
Borondatezko testamentuari **lege** izaera eman nahi dio Londresek. Berria - Gaiak
Augustoren lege hori **lege**-kodea zen zehazkiago. Iñaki Iñurrieta
**Lege** testu horiek, Lapurdin eta Zuberoan, herri ohituren bilketak ziren. Andres Urrutia
Antiokoren gizonek hautsi eta sutara bota ohi zituzten aurkitutako **lege**-liburuak. Elizen arteko biblia
Aipatu ekimenak **lege**-ekimen bat abian jartzea zuen helburu. Iñaki Heras
Beccariaren **lege**-proposamenek eragina izan zuten [...] Europako zenbait legeriatan. Juan Martin Elexpuru
Beraiei baitagokie **lege**-auziak eta arazo kriminalak erabakitzea. Elizen arteko biblia
Gizonen arteko harremanetan **lege**-esparru batzuen barruan joka daitekeelako. Juan Martin Elexpuru
**Lege**-haustura berbera da. Iñaki Iñurrieta
Ahaztu mesedez **lege**-urratzeak, erresistentziak, sakrifizioak... ez dira jada beharrezko. Joseba Zulaika
Auziren bat, hilketa- nahiz **lege**-arazoren bat, agindu, arau nahiz erabakiei buruzko arazoren bat. Elizen arteko biblia
Berori izan baitzen kode proiektu zenbaitzuen egile eta maizenik ere, Napoleonen aholkulari errimea **lege** gorabeheretan. Andres Urrutia
Hau guztia **lege**-indarrez gordeko duzue beti, bai zeuek, bai zuen ondorengoek. Elizen arteko biblia
Gizakia hainbat **lege**-motak gobernatzen dute: zuzenbide naturalak; zuzenbide jainkozkoak, hots, erlijioarenak; eliz zuzenbideak, hau da, kanonikoak, [...]. Iñaki Iñurrieta
**Lege**-ordena desberdinak daude. Iñaki Iñurrieta
Unibertsitate guztietako **Lege** Fakultate eta Eskolak. Andres Urrutia
Ahmedabadeko unibertsitatean hasi zen ikasten eta **lege**-ikasketak burutzeko Londresera joan zen. Gotzon Garate

**9** (hitz elkartuetan lehen osagai, gisa bigarren osagaia pertsona denean)

Eleazar **lege**-maisu nagusienetakoa zen, adin handikoa eta itxura bikainekoa. Elizen arteko biblia

Bazen Biltzar Nagusian Gamaliel zeritzan fariseu bat, herri osoan itzal handia zuen **lege** -irakaslea. Elizen arteko biblia
Dei egin zien **lege** -jakintsuei, zeren lege eta arauetan adituak direnen aurrean behar baitira errege-arazoak aztertu. Elizen arteko biblia
Lazedemoniako **lege** -emaile izan zen Likurgo berberak ere. Patxi Ezkiaga
**Lege-emaile** jakintsuek egiten duten legez. Ibon Uribarri
Izenda itzazu **lege** -zaintzaile eta epaileak. Elizen arteko biblia
**Lege** -urratzaileei zigorra jartzeko. Esteban Antxustegi
Kikildu egin ziren **lege** -ukatzaileak hark ematen zien beldurraz, eta gaiztagin guztiak izutu ziren. Elizen arteko biblia
Aldi hartan, **lege** -hausle batzuk sortu ziren Israelen eta jende asko engainatu zuten. Elizen arteko biblia
Israeldar ausart eta **lege** -betetzaileak ziren. Elizen arteko biblia

## 10 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Salerosgaien konfiskazioa berekin daramaten merkataritza-**legeak**. Iñaki Iñurrieta
Banatze- **legeak** eta penalak ez dira lege motak, lege zatiak baizik. Esteban Antxustegi
Eraketa-**lege** berdinen bidez objektu berriak agertzen dira. Xabier Arregi
Errebelazioak eskatzen duen guztia ez du eskatzen lege naturalak, eta honek eskatzen duen guztia ere ez du eskatzen gizarte-**lege** soilak. Juan Martin Elexpuru
Hegoafrikako gobernuak botika-**legea** aldatzea erabaki du. Joxerra Garzia
Koherentzia-**lege** hau arau heuristikoa da, prozedurazko eginbeharra. Xabier Arregi
Irudiak […] gainerako gauzak bezalaxe dira ikusgai, neurri bateraino behintzat, haien pertzepzio-**lege** berberen mende baitaude. Josu Zabaleta
Elikagai hori baizik onesten ez duen erlijio-**lege** bat, beraz, oso baliagarria da klima haietako gizakientzat. Iñaki Iñurrieta
Zeren esperientziak erakusten baitu jendeak ez dituela portaera-arau egonkorrak hartzen, ez dela hondamen- **lege** unibertsaletik aldentzen. Juan Martin Elexpuru
Imita ezazue arestian aipatu dudan herri- **lege** zuhurra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Katakumeari zakur- **lege** ona erakutsi nahi izaten zion Jaik. Gotzon Garate

## 11 *legez* legearen arabera. ik **legezko**[1].

**Legez** debekatua da erreklama soberaren egitea arnoaren alde. Herria
Bere zerrrenda azkarki berritua du haatik, berak nahi ala ez funtsean, emazteeri **legez** hartze duten tokia egitea gatik. Herria
Egia erran eta denen buru, zinez ez bada **legez** egiten ahal, legea da kanbiatu behar! Herria
**Legez**, euskarak zer toki ukan dezake Herriko Etxeetan? Herria
Aurki dadila bai gizon bat ararteko bezala, oro bilduko dituena [...] behar diren hautsi-mautsietaratzeko elgarrekin, **legez**, zuzenez eta zintzotasunez. Herria
Prophil lantegia **legez** deseginik. Herria
Bainan biltzar hori **legez** bali izaiteko, hunenbeste elkartekide behar da han kausitu. Herria
Gauzak **legez** egitera, ehorzketa atzo egin behar genukeen eta ez gaur. Aingeru Epaltza
Neskak naturaren **legez** gizonezkoak baino gehiago izaten dira. Gotzon Garate

## 12 *bizi-lege* ik **bizilege**.

## 13 *goi lege*

Antolakuntza berriaren **goi** legea. Andres Urrutia

## 14 *lege-gizon* ik **legegizon**.

## 15 *lege egitasmo* ik **legegai**.

Haurtzaroa nahiz nerabezaroa babesteko **lege** -egitasmoa onartu du Gobernu Batzordeak. Berria - Euskal Herria

## 16 *lege-emaile* *izond*

Botere bortxazkoa, legeen interpretazioa eta botere **lege emaile** (Estatuarentzat guztiz ezinbestekoak) legeen beraien eskuetan utzi behar direla defendatzen dutenek. Esteban Antxustegi
Ideia berbera guretzat **lege-emailea** da eta, horrela, berezkoa da berari dagokion arrazoimen **lege-emaile** bat onartzea *(intellectus archetypus)*. Ibon Uribarri

## 17 *lege-hauste* *(orobat **legehauste** g.er.)* *iz*

Hortaz, ez dira nahastu behar **lege-hauste** handiak eta ordena publikoaren hauste hutsa. Iñaki Iñurrieta
**Lege-hauste** handiren bat egingo zuela Anshelek bururatu zitzaion beste norbaiti, eta erbestera joana zela penitentzia egitera. Koro Navarro
Mugimendu orotaz ohartzen ziren eta zen **lege hausterik** ttipiena ere salatzen zuten. Eneko Bidegain
Legeak berarekin du **lege-haustea;** ezak sortzen du desira. Joseba Zulaika
Akusazio agirian ez diote Zougami zuzenean **legehausterik** leporatzen. Berria - Mundua
Bigarren zatiak Lisboako setioaren garai hartara garamatza, lehen aldiz; hirugarrenak nobelari funtsa ematen dion **legehaustea** -transgresioa- kontatzen du. Jon Alonso

## 18 *Lege Nagusi* *(orobat **lege-nagusi** eta **legenagusi** g.er.)* Konstituzioa.

Europa eta Europako **Lege Nagusia** sartzen ari da frantses politikan. Herria
Errana izan zauku [...] Europa batuaren **lege-nagusia** dugula onartu behar. Herria
Nola pikoan ezarria duten **lege-nagusi** horrek badauzkan 448 artikulu, bakotxak kausi dezake hor nunbait nahi duen hura eta nahi ez duena ere berdin. Herria
Aspaldiko ametsa, europar izaitea, eta, hain zuzen, Europar **Lege nagusiak**, datorren igandeko bozei esker, emaiten dit europar izaitea ez gehiago ametsez bainan bai legez, frantses naizen bezala. Herria
Alderdi Kontserbadorean are handiagoa da EBren **Lege Nagusiaren** aurkako postura. Berria - Mundua
Ea Frantziako hizkuntzen aipamena eginen zen ala ez **Lege nagusiko** 2. artikuluan. Herria
Ingurumena, beraz, sartua da hemendik goiti frantses **Lege Nagusian**. Herria

## 19 *lege natural*

Bazirudien **lege naturalari** zegokiola begirunezko tratu-modu kortesiazko hura. Anjel Lertxundi
Ezinezkoa da lege zibil batek **lege naturalaren** aurkako zerbait agintzea. Esteban Antxustegi
**Lege naturalaren** kontrakoak diren lege zibilez. Iñaki Iñurrieta
Jainkoaren aurka bekatu egitea edo **lege naturalak** haustea. Esteban Antxustegi
Gero **"lege naturala"** jarrai nezala konbentzitzen saiatu zen, berarentzat krimen bat zena ez nezala burutu. Joseba Urteaga
· **Lege naturalak** ez dira lege idatziak. Esteban Antxustegi
**Lege natural** komunei darraizkien gauza naturalei buruz. Piarres Xarriton
**Lege naturalak** eta herri guztien legeek. Iñaki Iñurrieta
Zeruko **lege naturaltzat** hartzen dituzte gizarte erakundeen fruitu huts direnak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 20 *lege oneko*

Ordu arte kartoizko heroi miserablea izan banintzen, handik aurrera egiazko, **lege oneko** heroia izango nintzen. Matías Múgica
Beste horiek agertzen dizueten ardura ez da **lege** onekoa; niregandik bereizi nahi zaituztete, beraietaz ardura zaitezten. Elizen arteko biblia
Denek oso musika berezia emanaz esango zuten nire izena, benetako izen zintzo **lege onekoa** ez, baizik goitizen bat izan balitz bezala. Matías Múgica
Bertute estimatua eta **lege onekoa**. Pello Zabala

Gizarte ekandu onek irudikatzen duten dama **lege oneko** horietako bat. Berria - Kultura

## 21 *lege onez*

Legegizona naiz eta **lege onez** gobernatuko zaituztet! Joan Mari Irigoien

**Lege onez** irabazitako diruaren erdia fede txarrez ostu nahi zioten. Migel Angel Mintegi

Behin imajina hori postulatuz gero (inork ezin baitit **lege onez** ukatu) garbi dago nire arazoa Cervantes-ena baino askoz ere zailagoa dela. Juan Garzia

Fred Rodriguez estatubatuarrak irabazi zion **lege onez**, eta ezinezkoa zirudiena egia bihurtu zuen Berria - Kirola

## 22 *lege zibil*

Eta arau horiei **lege** zibil edo Estatuaren lege deitzen zaie, Estutuan botere gorena daukanaren aginduak baitira. Esteban Antxustegi

**Lege zibilek** arautzen dituzte harreman naturalak eta konbentzionalak, aginduzkoak nahiz borondatezkoak, nahitaezkoak zein komenientziazkoak, norbanako guztiak beste norbanako batekin edo batzuekin lotzen dituztenak. Andres Urrutia

Kontraesan nabarmena dago **lege zibilen** (hauek hiritar bakoitzaren gorputzaren eta ondasunen zaindari dira, beste ezer baino gehiago) eta ohorea deiturikoari buruzko legeen artean, iritziaren alorrekoak hauek. Juan Martin Elexpuru

Bistan da hori erlijio-aholku bat besterik ezin daitekeela izan, ez **lege** zibila. Iñaki Iñurrieta

Ohitura zen enperadoreak zenbait **lege** zibiletatik salbuestea. Iñaki Iñurrieta

Erlijioa Jainkoarengandik gizonarengana dator; **lege zibila** zuengandik zuen herriengana. Juan Martin Elexpuru

## 23 *legez aurkako* *izlag* legez kontrakoa.

**Legez aurkako** ezer ez dela egon eta dirua ez dela desagertu. Berria - Ekonomia

## 24 *legez kanpo* (*orobat* ***legezkanpo*** *g.er.*) *adlag* legearen eremutik kanpo.

Baganekien nor ari zen **legez kanpo** jokatzen. Edurne Elizondo

Gehienak **legez kanpo** haziak. Gotzon Garate

New Yorkera **legez kanpo** joan eta, egunak kalean ematen omen zituen. Pablo Sastre

**Legez kanpo** utzen da erlijio berria eta hura iragartzen dutenak. Iñaki Iñurrieta

Liskar zibilek, triunbiratoek, **legez kanpo** uzteek, aurrez egindako edozein gerrak baino gehiago ahuldu zuten Erroma. Iñaki Iñurrieta

Sei urte eta egun bat eskatzen zituela alkatearentzat armak **legez kanpo** edukitzeagatik. Rafa Egiguren

**-Legez kanpo** direnak oro gelditzen badituzte, jende gehiago izanen da presondegi barnean kanpoan baino. Elena Touyarou

## 25 *legez kanpoko* (*orobat* ***legezkanpoko*** *g.er.*) *izlag* legez kanpo dagoena. ik **ilegal**.

**Legez kanpoko** jokabideak bultzatzen ditu. Markos Zapiain

**Legez kanpoko** kopietatik babesten badira. Koro Navarro

**Legez kanpoko** amodio grinak sutua. Patziku Perurena

**Legez kanpoko** haurdunaldi-etenak egiten ziren kirofano bateko fokua zirudien gehiago ring gaineko hark. Harkaitz Cano

Legezkoa ala **legez kanpokoa** da negozioa? Oskar Arana

Iruñeako auzitegiak galdeketa hori **legezkanpokoa** zela jakinarazi dio. Herria

Proiektua **legez kanpokoa** zela onartu zuen Auzitegi Nazionalak. Edurne Elizondo

Hainbat sententziak **legez kanpokotzat** jo izan dute urtegia. Edurne Elizondo

Elkartze **legez kanpokoek** gutxi laguntzen dute espeziea ugaltzen. Iñaki Iñurrieta

*ik* legezkanpotasun.

## 26 *legez kanporatu* legez kanpo utzi. ik **ilegalizatu**.

Bainan hunat jinez geroz haur bat ukana badu, haur hori frantses ekarria da, Frantzian sortua izanki-eta, kasu hortan ama ez ditake **legez kanporatu**. Herria

2003. urtean **legez kanporatu** zuten Batasuna. Berria - Harian

Espainiako Auzitegi Gorenak Konstituzioaren arabera jokatu zuen Batasuna **legez kanporatzea** erabaki zuenean. Berria - Euskal Herria

Batasuna **legez kanporatzeak** ez du eragiten SA talde parlamentarioa **legez kanporatzea**.

Batasuna **legez kanporatzeko** 2002an hasitako estrategiaren balantzea egin du ETAk martxoaren 14ko hauteskundeei buruzko azterketan. Berria - Euskal Herria

Herri plataformak **legez kanporatzeko** neurria. Berria - Euskal Herria

ETAren ingurua **legez kanporatzeko** mezua. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak HZ **legez kanporatzeko** PSOEren erabakia kritikatu zuen. Berria - Euskal Herria

HZ **legez kanporatzearen** kontrako elkarretaratzea. Berria - Euskal Herria

· Ezker abertzale **legez kanporatuaren** inguruko zerrenda izan ote litekeen. Berria - Harian

## 27 *legez kanporatzesup_1* ilegalizazioa.

EHAK **legez kanporatzeen** aurka dagoela berretsi du. Berria - Euskal Herria

Inork ezin dio **legez kanporatzeari** abstenituz erantzun. Berria - Euskal Herria

Acebesen hitzek **legez kanporatzearen** porrota erakusten dute. Berria - Euskal Herria

Azken urteotan, erakunde eta alderdi edo koalizio politikoen **legez kanporatzeak** asko erraztu du preso politikoen ugaltzea. Jokin Urain

Batasunaren **legez kanporatzea** bertan behera uzteko eskaera egin zuen atzo Elkarri-k.

HZk kritikatu egin zuen Espainiako Gobernuak **legez kanporatzea** Europara zabaltzea. Berria - Euskal Herria

EHAKren **legez kanporatzea** abiatzeko. Berria - Euskal Herria

EHAKren **legez kanporatzea** ez eskatzea «egokia» izan zela dio Conde Pumpidok. Berria - Euskal Herria

Balizko **legez kanporatzea** ez dago gure agendan. Berria - Euskal Herria

Bi urteko **legez kanporatzea** hauteskundez hauteskunde gainditu du ezker abertzaleak. Berria - Euskal Herria

## 28 *legez kanporatzesup_2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)*

**Legez kanporatze** epaia «berme guztiekin» eman zela eta eskubiderik ez dela urratu argudiatu du. Berria - Euskal Herria

Batasunaren **legez kanporatze** prozesua abian jarri zutenetik milaka herritarren eskubide zibil eta politikoak urratzen ari dira. Berria - Harian

## 29 *legez kontra* *adlag*

Lau urteko presoaldi txikia eman zioten **legez kontra** elkartzeagatik. Rafa Egiguren

**Legez kontra** bada ere. Pablo Sastre

Gainera, Zamoraren ustez, epaileak **legez kontra** jokatu du, «epaileak bere iritzia eman baino lehen atxilotuek defentsarako bide guztiak agortzeko eskubidea dutelako. Berria - Euskal Herria

Duela hilabete batzuk EHUko datu basean **«legez kontra**» sartu ziren, eta han zeuden zenbait euskal presoen espedienteak komunikabide batzuetan argitaratu zituzten. Berria - Euskal Herria

Norbaitek jakiten bazuen etxolan, **legez kontra**, herensuge bat zeukala gordeta. Iñaki Mendiguren

GKE horrek salatu du itsasoko mikroorganismoak biltzen ari direla zientzialari estatubatuarrak, **legez kontra**. Berria - Gaiak

## 30 *legez kontrako* (*orobat* ***legezkontrako*** *g.er.*) *izlag* legearen kontrakoa, legez kanpokoa.

Ene seme, ez egin **legez kontrako** ezkontzarik. Elizen arteko biblia

Ez zuen **legez kontrako** traturik egiten, ez zuen inoiz eskupeko diru zikinik onartzen. Jose Morales

Aita santuek askotan salatu zuten **legez kontrako** diru iturri hura. Patziku Perurena

Uste nuen palmondoak hartzea **legez kontrakoa** zela.Europako Batasunako kide diren herrialde askotan abortua **legezkontrakoa** dela salatzen du idatziak. Oskar Arana

Ez baitzekien legezkoa ala **legez kontrakoa** zen. Jose Morales

**31** ***legez-lege*** *adlag ipar*

Urrats guziak **legez lege** egiten ditugu. Herria

Bainan zendako aipu zuten Ibarla? herri hortan hitzarmen bat finkatu baitute euskararen erabilpena **legez-lege** segurtatua izan dadin herriko etxean. Herria

Ez dela arrazoin mikorik hemezortzi urte huntan preso den baigorriar gazteari ukatzeko baldintzapeko askatasuna, eta hori **legez-lege** jokatuz. Herria

Joanden asteanginiona, Miarritzen,Bellevue plazan hasi obrak gelditu dira Paueko auzitegi baten manuz, gauzak etzirela arrunt **legez-lege** eginak izan. Herria

Ondoko egunetan, larderia gehiago orobat **legez-lege** jin nahi luketeen batzuentzat ere. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**aldeko lege** (9); **aurkako lege** (18); **aurkeztutako lege** (9); **babesteko lege** (15); **berdintasunerako lege** (14); **bozka lege** (9); **buruzko lege** (28); **da lege** (88); **eaeko lurzoruaren lege** (17); **egindako lege** (12); **espainiako lege** (8); **europako lege** (22); **frantses lege** (11); **frantziako lege** (11); **gobernuaren lege** (14); **hauteskunde lege** (9); **izadiaren lege** (22); **kontrako lege** (20)

**lege aldaketa** (26); **lege aldaketak** (25); **lege aldetik** (27); **lege antiterrorista** (9); **lege aurreproiektua** (16); **lege aurreproiektuak** (9); **lege aurreproiektuaren** (8); **lege babesa** (20); **lege bakar** (9); **lege bakarra** (17); **lege barruan** (11); **lege bat egin** (13); **lege bat onartu** (13); **lege baten bidez** (11); **lege berean** (13); **lege berezi** (13); **lege bereziak** (14); **lege berri** (73); **lege berri bat** (26); **lege berria** (83); **lege berriak** (97); **lege berrian** (10); **lege berriarekin** (23); **lege berriaren** (44); **lege berriaren arabera** (11); **lege bihurtu** (10); **lege bihurtzeko** (9); **lege bihurtzen** (8); **lege biltzarrean** (40); **lege biltzarreko** (8); **lege dekretu** (10); **lege egitasmo** (23); **lege egitasmoa** (78); **lege egitasmoak** (32); **lege egitasmoaren** (29); **lege egitasmoari** (12); **lege enpirikoen** (13); **lege enpirikoen arabera** (9); **lege erreforma** (17); **lege erreformak** (9); **lege esparrua** (9); **lege eta arau** (10); **lege eta erabakiak** (14); **lege gai** (13); **lege gisa** (9); **lege gizon** (19); **lege hauste** (18); **lege haustea** (8); **lege hausteak** (10); **lege horren arabera** (21); **lege horren kontra** (9); **lege integrala** (20); **lege iruzurra** (23); **lege islamikoa** (10); **lege izaera** (9); **lege izango** (25); **lege izango duzue** (19); **lege liburua** (13); **lege maisu** (38); **lege maisuak** (27); **lege maisuek** (19); **lege mota** (12); **lege nagusi** (73); **lege nagusi bat** (10); **lege nagusia** (59); **lege nagusiak** (18); **lege nagusiaren** (23); **lege nagusiari** (11); **lege natural** (10); **lege naturala** (29); **lege naturalak** (34); **lege naturalaren** (40); **lege naturalen** (9); **lege ona** (8); **lege onez** (13); **lege organiko** (11); **lege organikoa** (13); **lege organikoaren** (16); **lege orokor** (14); **lege orokorra** (9); **lege orokorrak** (8); **lege orokorren** (13); **lege orokorren arabera** (13); **lege osoa** (8); **lege politiko** (15); **lege politikoak** (8); **lege politikoen** (9); **lege proiektu** (38); **lege proiektua** (143); **lege proiektua onartu** (28); **lege proiektuak** (61); **lege proiektuak ez** (9); **lege proiektuan** (14); **lege proiektuaren** (69); **lege proiektuaren arabera** (8); **lege proiektuari** (13); **lege proposamen** (27); **lege proposamen bat** (9); **lege proposamena** (82); **lege proposamena aurkeztu** (16); **lege proposamenak** (17); **lege proposamenaren** (13); **lege saliko** (10); **lege salikoa** (10); **lege salikoak** (18); **lege salikoaren** (8); **lege sindikal** (10); **lege sistema** (8); **lege testu** (12); **lege unibertsal** (11); **lege vokoniarra** (8); **lege zaharra** (18); **lege zaharrak** (22); **lege zaharreko** (8); **lege zaharren** (9); **lege zibil** (24); **lege zibila** (17); **lege zibilak** (43); **lege zibilaren** (15); **lege zibilek** (31); **lege zibilen** (33); **lege zorrotzak** (10)

**legea lege** (16); **legez lege** (54); **lurzoruaren lege** (63); **lurzoruaren lege egitasmoa** (15); **lurzoruaren lege proiektua** (13); **naturaren lege** (8); **naturguneen lege** (10); **oinarrizko lege** (8); **onartutako lege** (21); **uraren lege** (11)

**afari legea** (14); **alderdien legea** (253); **atzerritarren legea** (35); **aurkako legea** (34); **babesteko legea** (9); **bazkari legea** (17); **berdintasun legea** (15); **berdintasunerako legea** (31); **bikoteen legea** (14); **bozka legea** (16); **eaeko lurzoruaren legea** (13); **eaeko unibertsitate legea** (9); **elkartasun legea** (8); **espainiako atzerritarren legea** (9); **espainiako legea** (12); **europako legea** (10); **euskararen legea** (33); **gerra legea** (31); **gerra legea ezarri** (10); **hauteskunde legea** (21); **ikurren legea** (15); **immigrazio legea** (8); **immunitate legea** (12); **indartsuenaren legea** (9); **izatezko bikoteen legea** (14); **jainkoaren legea** (26); **kalitate legea** (27); **kontrako legea** (20); **laikotasunaren legea** (10)

**legea aipatu** (10); **legea alda** (9); **legea aldatu** (41); **legea aldatzea** (16); **legea aldatzeko** (55); **legea aldatzeko eskatu** (11); **legea bete** (60); **legea betearazteko** (27); **legea beteko** (12); **legea betetzea** (19); **legea betetzeko** (25); **legea betetzen** (57); **legea betez** (12); **legea egin** (39); **legea egitea** (13); **legea egiteko** (13); **legea eman** (10); **legea errespetatu** (9); **legea eta ordena** (10); **legea ez betetzea** (9); **legea ez betetzeagatik** (8); **legea ezarri** (31); **legea garatzeko** (17); **legea hausten** (22); **legea hautsi** (31); **legea indargabetzeko** (11); **legea indarrean jarri** (19); **legea indarrean sartu** (9); **legea izan** (14); **legea jarri** (9); **legea lege** (16); **legea onartu** (130); **legea onartu zuen** (35); **legea onartuko** (9); **legea onartuz** (12); **legea onartzea** (10); **legea onartzeko** (21); **legea onartzen** (9); **legea urratu** (16); **legea urratzen** (31)

**lurralde historikoen legea** (10); **lurzoruaren legea** (48); **moisesen legea** (17); **oinarrizko legea** (14); **onartutako legea** (11); **sistemaren legea** (8); **tabakoaren aurkako legea** (10); **tabakoaren legea** (8); **unibertsitate legea** (38); **uraren legea** (12)

**agindu eta legeak** (9); **alderdien legeak** (46); **atzerritarren legeak** (13); **berdintasunerako legeak** (30); **erromatar legeak** (9); **espainiako legeak** (13); **euskararen legeak** (13); **giza legeak** (9); **hamabi tauletako legeak** (8); **inguruko legeak** (8); **jainkoaren legeak** (13); **kontrako legeak** (18)

**legeak agintzen** (39); **legeak agintzen duen** (9); **legeak aldatu** (13); **legeak aurreikusten** (12); **legeak baimentzen** (8); **legeak behartzen** (9); **legeak bete** (15); **legeak betetzen** (16); **legeak debekatu** (12); **legeak debekatu egiten** (9); **legeak debekatzen** (15); **legeak dio** (37); **legeak dioena** (20); **legeak egin** (18); **legeak egiteko** (20); **legeak egiten** (17); **legeak eman** (10); **legeak ematen** (15); **legeak esaten duena** (8); **legeak eskatzen dituen** (11); **legeak eta arauak** (10); **legeak ezarri** (13); **legeak ezarritako** (19); **legeak ezartzeko** (8); **legeak ezartzen** (23); **legeak ezartzen dituen** (14); **legeak hala aginduta** (10); **legeak hala agintzen** (9); **legeak jasotzen** (16); **legeak manatzen** (8); **legeak onartu** (11); **legeak onartzen** (13); **legeak urratzen** (8)

**lonbardiarren legeak** (8); **naturaren legeak** (28); **nazioarteko legeak** (12); **tauletako legeak** (8); **unibertsitate legeak** (21)

**alderdien legean** (12); **moisesen legean** (14)

**alderdien legearekin** (10)

**alderdien legearen** (77); **alderdien legearen aurka** (10); **atzerritarren legearen** (16); **aurkako legearen** (10); **berdintasunerako legearen** (23); **bikoteen legearen** (14); **erromatar legearen** (8); **euskararen legearen** (9); **hauteskunde legearen** (12); **ikurren legearen** (8); **izatezko bikoteen legearen** (14); **jainkoaren legearen** (8); **legearen aldaketa** (16); **legearen alde** (34); **legearen aldeko** (8); **legearen aldetik** (15); **legearen arabera** (204); **legearen araberako** (10); **legearen aurka** (73); **legearen aurkako** (35); **legearen aurkako helegitea** (9); **legearen aurkakoa** (8); **legearen aurrean** (25); **legearen aurreproiektua** (9); **legearen babesa** (9); **legearen barruan** (26); **legearen bidez** (17); **legearen erreforma** (11); **legearen helburua** (22); **legearen inguruan** (16); **legearen inguruko** (8); **legearen irakurketa** (10); **legearen izenean** (14); **legearen kontra** (52); **legearen kontrako** (35); **legearen kontrakoa** (23); **legearen mende** (8); **legearen ondorioz** (18); **lurzoruaren legearen** (15); **moisesen legearen** (10); **unibertsitate legearen** (19)

**alderdien legeari** (26); **bikoteen legeari** (9); **izatezko bikoteen legeari** (8); **legeari buruzko** (12); **legeari egindako** (8); **legeari jarraiki** (19); **legeari jarritako** (8)

**naturaren legeek** (10)

**barbaroen legeen** (18); **giza legeen** (9); **izadiaren legeen** (12); **legeen arabera** (120); **legeen artean** (8); **legeen aurka** (11); **legeen bidez** (16); **legeen kontra** (12); **legeen mende** (10); **naturaren legeen** (15)

**legez besteko** (124); **legez egiten** (10); **legez kanpo** (568); **legez kanpoko** (460); **legez kanpokoa** (180); **legez kanpokoak** (63); **legez kanpokotzat** (90); **legez kanporatu** (52); **legez kanporatua** (10); **legez kanporatuak** (11); **legez kanporatutako** (63); **legez kanporatze** (13); **legez kanporatzea** (141); **legez kanporatzeak** (43); **legez kanporatzearekin** (12); **legez kanporatzearen** (99); **legez kanporatzeari** (29); **legez kanporatzeaz** (10); **legez kanporatzeen** (14); **legez kanporatzeko** (35); **legez kontra** (24); **legez kontrako** (35); **legez kontrakoa** (22); **legez lege** (54)

**ez legezko** (24); **ez legezko proposamena** (9); **legezko alderdi** (8); **legezko ikerketa** (10); **legezko paperak** (8); **legezko proposamena** (10)

---

# legealdi *(245 agerraldi, 2 liburu eta 152 artikulutan)* **1** *iz* legegintzaldia.

Prozesuak **legealdi** bat baino gehiago iraungo duela. Berria - Euskal Herria

Erreferenduma **legealdi** honetan ez dela egingo. Berria - Euskal Herria

Zapatero lehen ministroak erran duenez **legealdia** bururatu aitzin espero du ETA-k armak utziko dituela. Herria

Parlamentuan eztabaidarako aurkeztutako planari buruzko bozketa **legealdia** bukatu baino lehen egingo zela. Berria - Euskal Herria

Ibarretxek **legealdia** amaituko duela adierazi zuen atzo goizean Ajuria Enean.

**Legealdi** osoa iraungo al du Gobernuak? Berria - Mundua

Aurreko **legealdiko** sailburuak. Berria - Euskal Herria

Aurrekontua **legealdiko** lehena da eta horrek **legealdirako** bide nagusi bat markatzen du. Berria - Euskal Herria

2004-2007 **legealdirako** aurreikusitako proiekturik «garrantzitsuena». Berria - Harian

Adierazi du Kongresuan **legealdiaren** irekiera ekitaldian. Berria - Euskal Herria

**Legealdiaren** bigarren zatian. Berria - Euskal Herria

· Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi du **legealdia** hasi zenetik [...] bere Ogasun Sailak 385 milioi euroko iruzur fiskala atzeman duela. Berria - Ekonomia

Zinegotzia izan zen Goierriko auskalo zein herritan; pare bat **legealditan** aukeratu zuten. Iban Zaldua

Aurreko **legealdiko** udalbatzek jarraitzen dute agintzen bost herriotan.

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eusko Jaurlaritzak **legealdi** hasieran hartutako konpromisoari eutsiko diola berretsi zuen EAEko lehendakariak. Berria - Euskal Herria

**Legealdi** aldaketaren ondoren. Berria - Euskal Herria

Uztailetik aurrera %6,6 igoko da SMI, 460 eurotik 490era, eta **legealdi** amaieran 600era igoko da. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **elkarrizketaren legealdia** (3); **legealdia amaitu** (5); **legealdia amaitzeko** (4); **legealdia amaitzeko asmoa** (3); **legealdia bukatu** (3); **legealdia hasi** (6)
> **aurreko legealdian** (12); **azken legealdian** (3); **datorren legealdian** (7); **hurrengo legealdian** (4)
> **datorren legealdiaren** (3); **legealdiaren hasieran** (3)
> **aurreko legealdiko** (4)

---

# legebakar *izond* lege bakarra duena.

Erregerekin edo Errege gabe, federalak izan zein konstituzionalak, hemen Espainia **legebakar** isabelinoa zetorkiguk. Txillardegi

---

# legeberritze *iz* legea berritzea.

Beren gobernamenduaren **legeberritze** batzuen kontrako kexamendua. Herria

---

# legebide *(orobat **lege-bide**)* **1** *iz* legezko bidea.

Auzia ohiko **lege**-bideetatik epai dadin eragozteko. Jose Morales

Jakinarazi behar dizuet nire asmoa ez dela **lege**-bide burokratikoetara jotzea, epaiketa militar berehalakoa egitea baizik. Jose Morales

Horixe bakarrik, zenbat kostako zitzaion don Pedrori gauzak hartaraino joan balira, **lege**-bideraino? Juan Garzia

Eta zuek izan zaitezte Jaunaren, zeuen Jainkoaren, esaneko, beraren **lege**-bidean ibiliz eta beraren aginduak betez. Elizen arteko biblia

**2** ***legebidez***

Hura **lege**-bidez beretzat zela, erantzun zien Santxok; bere nagusi Don Kijotek irabazitako borrokaren ordain-ondotzat alegia. Patxi Ezkiaga

Gatazka ez bazen **legebidez** konpontzen ahal , berak erabaki bat hartuko zuela jakinarazi zuen. Berria - Mundua

---

# legebidetsu *izond*

Gure neskamea alde batetik **legebidetsua** da eta nik galdetu ezik, ikusliarra nor den ez dit esaten. Gotzon Garate

---

# legebiltzar **1** *iz* estatu edo herrialde beregain baten lege agintea duen biltzarra, hauteskundeen bidez hautatua. ik **parlamentu.**

Demokratikoki aukeratutako **legebiltzarrean** adierazten den borondate orokorrarren mamitzea izan behar du legeak. Juan Martin Elexpuru

**Legebiltzarra** desegina izan zen erresumari konstituzio berri baten emateko. Elena Touyarou

Eskaera argia egin zien Etxerat-ek EAE-ko eta Nafarroako **legebiltzarrei**: [...]. Berria - Euskal Herria

Gasteizko nahiz Iruñeko **legebiltzar** eta gobernuek. Berria - Mundua

Eusko **Legebiltzarrean** onartutako goi mailako lege batek. Pello Salaburu

Erkidegoko **legebiltzar** autonomikoko parlamentari mutuetariko bat. Aingeru Epaltza

**Legebiltzarrerako** hauteskundeen emaitzak. Iban Zaldua

**Legebiltzarreko** boz eguna. Herria

Atenasko **legebiltzarreko** bat bidali zuen Antioko erregeak juduak beren arbasoen legeetatik urruntzera behartzeko. Elizen arteko biblia

**2** (izenondoekin)

Auzitegi Konstituzionalak lehendik **legebiltzar** autonomikoen ekimenen aurkako inpugnazioak tramiterako onartu izan dituela gogorarazten dute. Berria - Euskal Herria

Irlanda iparraldeko lehenengo **legebiltzar** autonomoa. Berria - Mundua

Mbeki presidentearen alderdia faborito da **Legebiltzar** nagusirako eta bederatzi probintzietatik zazpitarako. Berria - Mundua

Europako Batasunak **legebiltzar** nazionalekin dituen harremanak. Berria - Mundua

**Kanadako** Legebiltzar Federalean. Berria - Harian

Ez da Konstituzio bat, ez baita izan **legebiltzar** konstituziogile bat. Berria - Euskal Herria

Munduko **legebiltzar** handiena izango da EBkoa, 732 kiderekin. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Legebiltzar** taldeek egoki irizten dioten moduan. Berria - Euskal Herria

**legebiltzar** taldeen iritziak kontuan hartu beharko dituela. Berria - Euskal Herria

Bere beharrezko laguntza bakarra «demokrazia, botere banaketa eta **Legebiltzar** forua indartzekoa izan zen». Berria - Euskal Herria

**Legebiltzar** hauteskundeetako hautagaiak. Herria

1978 ko **legebiltzar** hauteskundetan. Herria

**Legebiltzar** funtzioa beteko duen Irakeko Kontseilu nazionalaren 100 kideak izendatzeko helburua izango duen Konferentzia nazionala. Berria - Mundua

**Legebiltzar** lana egingo duen Kontseilu Nazionaleko 100 kide aukeratzea. Berria - Mundua

Londresko gobernuak Galesko autonomia abian jarri zuenean, galestarren ia %40 edozein **legebiltzar** motaren kontra zeuden erabat. Berria - Mundua

**4** (eraikina)

30ean elkarretaratzea Eusko **Legebiltzar** aurrean. Berria - Euskal Herria

Nafarroako **Legebiltzar** atarian elkarretaratzea egin zuen hainbat agintarik. Berria - Euskal Herria

Gauaren erdian bakar batzuen artean CPE bozkatu zutela **Legebiltzar** erdi huts batean. Berria - Ekonomia

**Legebiltzarrean** sartu eta hitza hartu zuten. Elizen arteko biblia

Gehiengo nahikorik gabe sartu baitzen goizean **legebiltzar** aretora. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eusko legebiltzar** (6); **irakeko legebiltzar** (3); **legebiltzar autonomikoen** (3); **legebiltzar berria** (12); **legebiltzar berriak** (3); **legebiltzar berriaren** (7); **legebiltzar talde** (16); **legebiltzar talde guztiek** (7); **legebiltzar taldea** (10); **legebiltzar taldeak** (30); **legebiltzar taldearen** (12); **legebiltzar taldeei** (6); **legebiltzar taldeek** (20); **legebiltzar taldeen** (4); **legebiltzar taldeetako** (7); **legebiltzar taldeko** (23); **legebiltzar taldeko bozeramaile** (6); **legebiltzar taldeko bozeramaileak** (3); **palestinako legebiltzar** (3); **sa legebiltzar taldea** (5); **sa legebiltzar taldeak** (3); **sa legebiltzar taldearen** (4)
> **behin behineko legebiltzarra** (6); **eaeko legebiltzarra** (3); **europako legebiltzarra** (18); **eusko legebiltzarra** (76); **eusko legebiltzarra osatzen** (3); **frantziako legebiltzarra** (5); **galesko legebiltzarra** (4); **gobernua eta legebiltzarra** (8); **ipar irlandako legebiltzarra** (5); **iparraldeko legebiltzarra** (3); **irlandako legebiltzarra** (5); **kataluniako legebiltzarra** (4); **konstituzioa eta legebiltzarra** (3); **legebiltzarra aukeratzeko** (8); **legebiltzarra berriz abian** (4); **legebiltzarra bertan behera** (8); **legebiltzarra desegin**

(3); legebiltzarra desegitea (4); legebiltzarra desegiteko (6); legebiltzarra eta gobernua (6); legebiltzarra lanean (3); legebiltzarra martxan (6); legebiltzarra osatzeko (5); legebiltzarra osatzen (8); legebiltzarra osatzen duten (6); nafarroako legebiltzarra (9); stormonteko legebiltzarra (14)

alemaniako legebiltzarrak (3); eaeko legebiltzarrak (9); ebko legebiltzarrak (4); errusiako legebiltzarrak (4); eskatu du legebiltzarrak (5); espainiako legebiltzarrak (7); europako legebiltzarrak (78); euskal legebiltzarrak (3); eusko legebiltzarrak (297); eusko legebiltzarrak hartutako (3); eusko legebiltzarrak onartu (6); eusko legebiltzarrak onartutako (16); eusko legebiltzarrak onartzen (6); frantziako legebiltzarrak (20); galesko legebiltzarrak (9); galiziako legebiltzarrak (3); israelgo legebiltzarrak (4); jaurlaritzak eta legebiltzarrak (3); kataluniako legebiltzarrak (51); kosovoko legebiltzarrak (3); legebiltzarrak aintzat hartu (3); legebiltzarrak atzera bota (10); legebiltzarrak berretsi (5); legebiltzarrak erabaki (9); legebiltzarrak erabakitzen (8); legebiltzarrak gaur bozkatuko (6); legebiltzarrak gehiengo osoz (4); legebiltzarrak gehiengoz (3); legebiltzarrak hartutako (5); legebiltzarrak onar (3); legebiltzarrak onartu (29); legebiltzarrak onartutako (55); legebiltzarrak onartutako estatutu (8); legebiltzarrak onartutako testua (3); legebiltzarrak onartutako testuak (6); legebiltzarrak onartuz (3); legebiltzarrak onartuz gero (3); legebiltzarrak onartzen (11); legebiltzarrak onetsi (3); lituaniako legebiltzarrak (3); montenegroko legebiltzarrak (3); nafarroako legebiltzarrak (15); nafarroako legebiltzarrak onartutako (4); onartu du legebiltzarrak (4); onartu zuen legebiltzarrak (5); palestinako legebiltzarrak (7); samien legebiltzarrak (5); serbiako legebiltzarrak (3); turkiako legebiltzarrak (5); ukrainako legebiltzarrak (4)

europako legebiltzarraren (13); eusko legebiltzarraren (98); galesko legebiltzarraren (3); gasteizko legebiltzarraren (6); legebiltzarraren atarian (4); legebiltzarraren aurrean (29); legebiltzarraren aurreko plazan (3); legebiltzarraren babesa (4); legebiltzarraren berritzeko (4); legebiltzarraren egitekoa (3); legebiltzarraren egoitza (8); legebiltzarraren egoitzan (7); legebiltzarraren erabakia (6); legebiltzarraren erabakiak (4); legebiltzarraren esku (15); legebiltzarraren esku dago (3); legebiltzarraren esku utzi (5); legebiltzarraren gehiengo (4); legebiltzarraren gehiengoa (3); legebiltzarraren gehiengoak (3); legebiltzarraren inguruan (4); legebiltzarraren izenean (5); legebiltzarraren kontrola (6); legebiltzarraren lehen saioa (4); legebiltzarraren mahaiak (3); legebiltzarraren ondoan (3); legebiltzarraren onespena (3); legebiltzarraren oniritzia (6); legebiltzarraren osaketa (3); legebiltzarraren osoko bilkuran (4); legebiltzarraren proposamena (3); legebiltzarraren sostengua (4); legebiltzarraren txosten (3); legebiltzarraren zerbitzu (4); nafarroako legebiltzarraren (6); palestinako legebiltzarraren (4)

europako legebiltzarrari (12); eusko legebiltzarrari (48); galesko legebiltzarrari (4)

eaeko legebiltzarrean (9); erresuma batuko legebiltzarrean (3); eskatu du legebiltzarrean (4); espainiako legebiltzarrean (20); europako legebiltzarrean (84); euskadiko legebiltzarrean (5); euskal legebiltzarrean (3); eusko legebiltzarrean (569); eusko legebiltzarrean aurkeztu (15); frantses legebiltzarrean (3); frantziako legebiltzarrean (15); galesko legebiltzarrean (3); gasteizko legebiltzarrean (31); irakeko legebiltzarrean (4); israelgo legebiltzarrean (8); italiako legebiltzarrean (5); kataluniako legebiltzarrean (22); knesset israelgo legebiltzarrean (3); knesset legebiltzarrean (7)

legebiltzarrean abiatutako (3); legebiltzarrean agerraldia egin (4); legebiltzarrean agertu (3); legebiltzarrean aurkeztea (3); legebiltzarrean aurkezteko (5); legebiltzarrean aurkeztu (21); legebiltzarrean aurkeztuko (6); legebiltzarrean aurkeztutako (17); legebiltzarrean aurrera egin (3); legebiltzarrean duen aulkia (3); legebiltzarrean duen bozeramaile (3); legebiltzarrean duen bozeramaileak (6); legebiltzarrean duen bulegoan (3); legebiltzarrean egin (22); legebiltzarrean egin zuen (5); legebiltzarrean egindako (31); legebiltzarrean egindako agerraldian (12); legebiltzarrean egingo (8); legebiltzarrean eginiko (12); legebiltzarrean eginiko agerraldian (5); legebiltzarrean egon (5); legebiltzarrean egongo (3); legebiltzarrean eman (3); legebiltzarrean emandako (3); legebiltzarrean esan (4); legebiltzarrean eskainitako (3); legebiltzarrean eztabaidatu (4); legebiltzarrean eztabaidatzea (5); legebiltzarrean eztabaidatzeko (5); legebiltzarrean eztabaidatzen (3); legebiltzarrean hartutako (3); legebiltzarrean hitz egin (3); legebiltzarrean izan (10); legebiltzarrean izandako (3); legebiltzarrean izango (3); legebiltzarrean onartu (6); legebiltzarrean onartutako (8); legebiltzarrean onartzen (3); legebiltzarrean ordezkaritza duten (5); legebiltzarrean ordezkaritza lortzeko (3); legebiltzarrean ordezkatuta dauden (3); legebiltzarrean sartzeko (4); legebiltzarrean sortu (3); legebiltzarrean sortu den (3); legebiltzarrean sortutako (4)

nafarroako legebiltzarrean (24); palestinako legebiltzarrean (11); pariseko legebiltzarrean (3); stormonteko legebiltzarrean (5)

ankarako legebiltzarreko (5); ankarako legebiltzarreko diputatu (4); behin behineko legebiltzarreko (3); borrell europako legebiltzarreko (3); eaeko legebiltzarreko (12); eskoziako legebiltzarreko (3); espainiako legebiltzarreko (4); europako legebiltzarreko (116); europako legebiltzarreko hauteskundeetan (4); europako legebiltzarreko presidente (24); eusko legebiltzarreko (427); eusko legebiltzarreko araudia (3); eusko legebiltzarreko araudiak (3); eusko legebiltzarreko bozketan (4); eusko legebiltzarreko hauteskundeetara (4); eusko legebiltzarreko lehendakariak (7); eusko legebiltzarreko mahaiak (29); eusko legebiltzarreko presidenteak (15); frantziako legebiltzarreko (8); galesko legebiltzarreko (3); irakeko legebiltzarreko (3); israelgo legebiltzarreko (8); kataluniako legebiltzarreko (21); kataluniako legebiltzarreko presidente (7); knesset legebiltzarreko (5)

legebiltzarreko agerraldian (3); legebiltzarreko alderdi (19); legebiltzarreko alderdi guztiek (5); legebiltzarreko alderdiek (3); legebiltzarreko araudia (8); legebiltzarreko araudia aldatzeko (3); legebiltzarreko araudiak (8); legebiltzarreko araudiaren (3); legebiltzarreko auzia (3); legebiltzarreko batzorde batek (4); legebiltzarreko bozen (3); legebiltzarreko bozeramaile (8); legebiltzarreko bozeramaileak (6); legebiltzarreko bozeramaileen (9); legebiltzarreko bozetan (3); legebiltzarreko bozetara (3); legebiltzarreko bozketa (4); legebiltzarreko bozketan (6); legebiltzarreko bulegoan (4); legebiltzarreko buru (9); legebiltzarreko buru izendatu (3); legebiltzarreko burua (3); legebiltzarreko buruak (5); legebiltzarreko diputatu (25); legebiltzarreko diputatu ohi (4); legebiltzarreko diputatua (8); legebiltzarreko diputatuak (3); legebiltzarreko diputatuek (3); legebiltzarreko diputatuen (6); legebiltzarreko erregistroan (4); legebiltzarreko eserlekua (3); legebiltzarreko eskaera (4); legebiltzarreko eta senatuko (3); legebiltzarreko eztabaida (11); legebiltzarreko eztabaidan (12); legebiltzarreko eztabaidaren (4); legebiltzarreko hauteskundeak (3); legebiltzarreko hauteskundeen (3); legebiltzarreko hauteskundeetan (6); legebiltzarreko hauteskundeetara (4); legebiltzarreko itzulpen zerbitzuko (3); legebiltzarreko kide (10); legebiltzarreko kideak (3); legebiltzarreko korridoreetan (3); legebiltzarreko lan taldeak (6); legebiltzarreko lehendakari (20); legebiltzarreko lehendakaria (10); legebiltzarreko lehendakariak (10); legebiltzarreko lehendakariaren (4); legebiltzarreko lehendakariordea (4); legebiltzarreko mahaia (4); legebiltzarreko mahaiak (64); legebiltzarreko mahaian (8); legebiltzarreko mahaiaren (8); legebiltzarreko mahaiari (6); legebiltzarreko mahaikideak (3); legebiltzarreko mahaikideen (7); legebiltzarreko mahaiko (27); legebiltzarreko mahaiko kideen (4); legebiltzarreko ordezkariak (3); legebiltzarreko ordezkaritza (3); legebiltzarreko osoko bilkurak (8); legebiltzarreko osoko bilkuran (13); legebiltzarreko politika orokorreko (6); legebiltzarreko ppko bozeramaile (3); legebiltzarreko prentsa aretoan (3); legebiltzarreko presidente (90); legebiltzarreko presidente ohi (3); legebiltzarreko presidentea (21); legebiltzarreko presidenteak (36); legebiltzarreko presidentearekin (6); legebiltzarreko presidentearen (6); legebiltzarreko presidenteari (9); legebiltzarreko prozedura (3); legebiltzarreko talde (39); legebiltzarreko talde parlamentarioekin (3); legebiltzarreko talde politikoek (4); legebiltzarreko taldea (4); legebiltzarreko taldeak (6); legebiltzarreko taldearen (3); legebiltzarreko taldeei (4); legebiltzarreko taldeek (7); legebiltzarreko zerbitzu juridikoek (3); legebiltzarreko zerbitzu juridikoen (4)

londresko legebiltzarreko (4); nafarroako legebiltzarreko (18); palestinako legebiltzarreko (19); palestinako legebiltzarreko presidente (4); senatuko eta legebiltzarreko (3); turkiako legebiltzarreko (4); turkiako legebiltzarreko diputatu (3)

europako legebiltzarrera (10); eusko legebiltzarrera (39); eusko legebiltzarrera eraman (3); legebiltzarrera bidali (4); legebiltzarrera eraman (10); legebiltzarrera eramango (4); legebiltzarrera eramateko (6); legebiltzarrera igorriko (3); legebiltzarrera iritsi (5)

espainiako legebiltzarrerako (3); europako legebiltzarrerako (74); europako legebiltzarrerako bozak (3); europako legebiltzarrerako bozetan (6); europako legebiltzarrerako hauteskundeak (7); europako legebiltzarrerako hauteskundeetan (16); eusko legebiltzarrerako (40); eusko legebiltzarrerako hauteskundeak (12); eusko legebiltzarrerako hauteskundeetan (12); flandesko legebiltzarrerako (8); israelgo legebiltzarrerako (5); knesset legebiltzarrerako (3); legebiltzarrerako aralarreko zerrendaburuak (3); legebiltzarrerako azken hauteskundeetan (3); legebiltzarrerako botoen (3); legebiltzarrerako bozak (50); legebiltzarrerako bozak egingo (6); legebiltzarrerako bozak irabazi (9); legebiltzarrerako bozen (8); legebiltzarrerako bozetako (3); legebiltzarrerako bozetan (35); legebiltzarrerako hautagai (3); legebiltzarrerako hautagaia (3); legebiltzarrerako hauteskunde (12); legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina (3); legebiltzarrerako hauteskundeak (62); legebiltzarrerako hauteskundeak irabazi (4); legebiltzarrerako hauteskundeei (4); legebiltzarrerako hauteskundeen (21); legebiltzarrerako hauteskundeen emaitzak (3); legebiltzarrerako hauteskundeetako (4); legebiltzarrerako hauteskundeetan (45); legebiltzarrerako hauteskundeetarako (7) palestinako legebiltzarrerako (27); palestinako legebiltzarrerako bozak (5); palestinako legebiltzarrerako bozetan (4); palestinako legebiltzarrerako hauteskunde (3); presidentetzarako eta legebiltzarrerako (10); stormonteko legebiltzarrerako (5); westminsterko legebiltzarrerako (4)

eusko legebiltzarretik (22); eusko legebiltzarretik kanpo (12); kataluniako legebiltzarretik (3); legebiltzarretik at (9); legebiltzarretik kanpo (24); legebiltzarretik kanpoko (4)

---

## legebiltzarburu *(orobat **legebiltzar buru**) iz* legebiltzarraren burua.

Bere aldetik, Izaskun Bilbao Euskadiko **legebiltzarburuak** erran du urrats garrantzitzua dela hori bainan Europak goitxago edo berantxago beharko diola euskarari ere ofizialtasuna eman. Ezezko borobila adierazi dio Josep Borell **legebiltzar** buruak, europar egiturak ez duelako gai horrekin deus ikustekorik. Herria

**Legebiltzar-burua** behar zuten hautatu karia hortarat. Herria

---

## legebiltzarkide 1 *iz* legebiltzar bateko kidea.

SAko **legebiltzarkide** Jone Goirizelaiak atzo argitu zuenez [...]. Berria - Euskal Herria

EAko idazkari nagusi eta **legebiltzarkide** izandako Gorka Knörrek alderdia utziko du. Emakumezko **legebiltzarkideak** %6 baino ez ziren. Berria - Harian

Eskoziarrek zazpi **legebiltzarkide** aukeratu ahal izango dituzte datorren ekaineko bozetan. Berria - Mundua

Gasteizko **legebiltzarkide** eta lehendakarigai hautatu zuten Juan Karlos Ioldi ataundarra. Jokin Urain

1980an eta 86an EAJren **legebiltzarkide** hautatu zuten. Berria - Euskal Herria

Bobby Sands **legebiltzarkide** hautatu zutenean. Berria - Euskal Herria

Sozialistek 11 **legebiltzarkide** dituztela eta alternatiba izateko «nahitaez oposizioko beste taldeekin kontatu» behar dutela ohartarazi zien Erraztik. Berria - Euskal Herria

Hamasen gobernuak, dena den, ez du arazorik izango **legebiltzarkideen** babesa lortzeko. Berria - Mundua

**2** (izenondoekin)

Iturri ofizialen arabera, **legebiltzarkide** kontserbadoreari sarekada bat egin zioten aireportuko aparkalekuan eta buruan egin zioten tiro. Berria - Mundua

Ekintzaileek **legebiltzarkide** xiita baten hiru seme-alabak bahitu zituzten. Berria - Mundua

Kosovoren independentzia aldarrikatu zuten **legebiltzarkide** albaniarrek. Berria - Mundua

Elixabete Piñol **legebiltzarkide** jeltzalearekin batera eman zuen hitzaldia Egibarrek atzo. Berria - Euskal Herria

**Legebiltzarkide** ohia da Zubimendi, Bilboko zinegotzi ohia Arbulu. Iñigo Aranbarri

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

EAEko PPko **legebiltzarkide** taldeak bilkura egin zuen atzo. Berria - Euskal Herria

Kargu politikoa bai baina **legebiltzarkide** postua uztea ez zaiela eskatu argitu zuen Chivitek. Berria - Euskal Herria

**Legebiltzarkide** kargua hartzeko Espainiako Konstituzioaren zina egiteko beharra jasotzen duen Legebiltzarreko araudiaren 6. artikulua da polemikaren iturria. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**a** (3); **ak** (7); **aralarreko legebiltzarkide** (11); **batasuneko legebiltzarkide** (5); **berdeen legebiltzarkide** (3); **berdeetako legebiltzarkide** (6); **eabko legebiltzarkide** (4); **eaeko legebiltzarkide** (3); **eajko legebiltzarkide** (10); **eajren legebiltzarkide** (6); **eako legebiltzarkide** (9); **eako legebiltzarkide rafa** (6); **eb berdeen legebiltzarkide** (3); **eb berdeetako legebiltzarkide** (5); **eb iuko legebiltzarkide** (5); **ebko legebiltzarkide** (4); **eeko legebiltzarkide** (24); **eeren legebiltzarkide** (3); **ezker batuko legebiltzarkide** (5); **iuko legebiltzarkide** (5); **legebiltzarkide aukeratu** (3); **legebiltzarkide berriak** (4); **legebiltzarkide hautatu** (4); **legebiltzarkide jeltzaleak** (3); **legebiltzarkide kargua** (4); **legebiltzarkide kontxi bilbaok** (3); **legebiltzarkide leopoldo barredak** (4); **legebiltzarkide ohi** (3); **legebiltzarkide ohia** (6); **legebiltzarkide ohiak** (6); **legebiltzarkide rakel** (10); **legebiltzarkide rakel peñ legebiltzarkide rakel peñ legebiltzarkide sozialista** (3); **legebiltzarkide sozialistak** (9); **legebiltzarkide talde** (3); **legebiltzarkide taldeak** (10); **nafarroako legebiltzarkide** (3); **ppko legebiltzarkide** (23); **pse eeko legebiltzarkide** (24); **pse eeren legebiltzarkide** (3); **sako legebiltzarkide** (29); **uako legebiltzarkide** (4)

**aralarreko legebiltzarkidea** (5); **eaeko legebiltzarkidea** (5); **eako legebiltzarkidea** (7); **eb iuko legebiltzarkidea** (4); **otegi sako legebiltzarkidea** (3); **pse eeko legebiltzarkidea** (5); **sako legebiltzarkidea** (11)

**alvarez sako legebiltzarkideak** (4); **araitz zubimendi legebiltzarkideak** (3); **aralarreko legebiltzarkideak** (13); **barreda ppko legebiltzarkideak** (3); **berdeetako legebiltzarkideak** (4); **eajko legebiltzarkideak** (9); **eako legebiltzarkideak** (13); **eb berdeetako legebiltzarkideak** (4); **eb iuko legebiltzarkideak** (7); **ezker batuko legebiltzarkideak** (3); **iuko legebiltzarkideak** (7); **legebiltzarkideak adierazi** (6); **legebiltzarkideak adierazi zuenez** (4); **legebiltzarkideak azaldu** (8); **legebiltzarkideak azaldu zuenez** (6); **legebiltzarkideak esan** (7); **legebiltzarkideak esan zuenez** (3); **nafarroako legebiltzarkideak** (3); **ppko legebiltzarkideak** (14); **pse eeko legebiltzarkideak** (16); **sako legebiltzarkideak** (37); **sako legebiltzarkideak azaldu** (3); **taldeko legebiltzarkideak** (13)

**eako legebiltzarkideek** (3); **pse eeko legebiltzarkideek** (3); **sako legebiltzarkideek** (6)

**euskal legebiltzarkideen** (9); **euskal legebiltzarkideen asanblea** (3); **euskal legebiltzarkideen asanbleak** (3); **euskal legebiltzarkideen asanbleako** (3); **legebiltzarkideen aurkako** (7); **legebiltzarkideen aurrean** (4); **legebiltzarkideen boto** (3); **legebiltzarkideen eskubideen** (3); **legebiltzarkideen eskubideen ukiezintasuna** (3); **legebiltzarkideen kontrako** (4); **sako legebiltzarkideen** (3)

---

# legedi

**1** *iz* herrialde bat arautzen duten legeen multzoa; alor jakin bat arautzen duten legeen multzoa. ik **legeria**.

Lehen pauso bezala, Ordenako **legedia** bateratu nahi izan zuen, 1223an Erregela onetsia izan zenetik haren aplikaziorako emandako xedapen ugariak bilduz eta osatuz. Askoren artean

Ingurunearen babeserako eta hobekuntzarako eskubidea nazioarteko **legedian** sartzeko kanpaina batean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Debeku hori AEBetako **legediaren** *First Amendmend*-en kontra omen doa. Gotzon Garate

**2** (izenondoekin)

**Legedi** berria bozkatu eta berehala aplikatu zuten. Filipe Bidart

NOBek dopinaren aurkako **legedi** zorrotz hori leuntzeko eskatu zion Italiako Gobernuari. Berria - Harian

Bai Oriolek bai Galanek ezinbestekoa iritzi diote Espainiako argindarraren merkaturako **legedi** «egonkor» bat lehenbailehen hitzartzeari. Berria - Ekonomia

Behar-beharrezkoa da **legedi** integral bat onartzea enplegu sistemak indartzeko. Berria - Ekonomia

Nazioarteko **legedi** humanitarioaren oinarrizko printzipioak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Legedi** antiterroristarekin eta Auzitegi Nazionalak jokatzen duen paperarekin tortura sustatzen da. Berria - Euskal Herria

Garai hartako **legedi** kanonikoan eta eliz dokumentuetan. Askoren artean

Europako Batasunekoen artean **legedi** bateratua eraikitzeko dauden oztopoak. Berria - Euskal Herria

Adingabekoei **legedi** berezia aplikatzea. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

**Legedi** aldaketaren ondorioz, langabe gutxiagok jasotzen dute saria. Berria - Ekonomia

Munduan dagoen **legedi** nahaspilak arazoak sortzen dizkigu. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**legedi antiterrorista** (4); **legedi berezia** (3); **legedi berria** (10)

**espainiako legedia** (7); **europako legedia** (8); **indarrean dagoen legedia** (9); **indarrean den legedia** (3); **legedia aldatu** (5); **legedia aztertu** (4); **legedia bete** (7); **legedia beteko** (4); **legedia betetzeko** (3); **legedia betetzen** (7); **legedia errespetatu** (4); **legedia errespetatzeko** (7); **legedia errespetatzen** (5); **legedia ezartzeko** (4); **legedia urratu** (8); **legedia urratzen** (9); **nazioarteko legedia** (47); **nazioarteko legedia bete** (4); **nazioarteko legedia errespetatzeko** (7); **nazioarteko legedia urratzen** (5)

**egungo legediak** (4); **espainiako legediak** (6); **europako legediak** (4); **legediak onartzen** (4); **nazioarteko legediak** (7)

**egungo legedian** (4); **espainiako legedian** (3); **nazioarteko legedian** (5)

**egungo legediarekin** (3)

**ebko legediaren** (3); **egungo legediaren** (6); **egungo legediaren arabera** (3); **erresuma batuko legediaren** (4); **europako legediaren** (4); **frantziako legediaren** (4); **gaur egungo legediaren** (3); **indarrean dagoen legediaren** (4); **legediaren arabera** (40); **legediaren aurka** (5); **legediaren aurkakoa** (3); **legediaren aurkakoak** (3); **legediaren barruan** (5); **legediaren kontra** (3); **nazioarteko legediaren** (20); **nazioarteko legediaren arabera** (7)

---

# legegabe

**1** *izond/iz* legerik ez duena.

Arrazoimen espekulatibo **legegabeak** bestela Moralean eta Erlijioan seguru egingo lituzkeen kalteak saihesten dituela. Ibon Uribarri

Orduantxe handik patruilari bat pasatu balitz barre txikia egingo zuen bi zabor haiek ikusita, bi **legegabe** ilegal-esklabo bat eta emakume zuri bat, ortutsik, ilea lotu gabe-, soinean zeramatzaten trapuetan bildurik zutela hamar minutu zituen haurra. **Legegabeak** bilatu eta pertsegitu egin zituen eta herriaren nahasleei su eman. Anton Garikano

Haren bideak zuzenak dira zintzoentzat, baina oztopoz beteak **legegabeentzat**. Elizen arteko biblia

**2** ***legegabeko*** *izlag* legegabea.

Judas hiltzean, Israel osoan **legegabeko** jendea agertzen hasi zen eta gaizkileek burua jaso zuten. Elizen arteko biblia

Eta biziki haserretu zen **legegabeko** gizon haiekin, haiek etorrarazi baitzuten lurralde hartara, eta haietarik asko hil zuen. Elizen arteko biblia

**Legegabekoa** eta faxista izan zela esan dute, baina ez aho batez. Hasier Etxeberria

Gudarostea eraturik, haserre eta amorruz, bekatarien eta **legegabekoen** kontra oldartu ziren. Elizen arteko biblia

---

# legegabetasun

*(orobat **lege-gabetasun**)* **1** *iz* legerik eza.

Eta gero, izan ere, aurkitzen duzu, bere **lege-gabetasunean**, sortuko dela ekintza posibleren bat, nolabait ere ezeroso sentiaraziko duena. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan)

Baina zientzialariak, hauen Naturaren legeak Jainkoaren legea ordeztu duelarik ikerketa-arlo gehientsuenetan, behartuta aurkitu dira historia **legegabetasun**-egoeran uztera. Iñaki Mendiguren

---

**legegai** *iz* lege egitasmoa.

Nicolas Sarkozy Finantza ministroari egokitu zitzaion **legegaia** defenditzea. Berria - Ekonomia

Diputatuek zenbait aldaketa egin dizkiote Gobernuak aurkeztutako **legegaiari**. Berria - Ekonomia

Kaleratzeei buruzko **legegaia** onartu du Parisko gobernuak. Berria - Ekonomia

Borloo **legegaia** onartu du Frantziako Asanbleak. Berria - Ekonomia

Espainiako Zapateroren sozialistek **legegai** bat bozkatu dute bi homosexualen arteko ezkontzaren aldekoa. Herria

**Legegaiak** aldeko 376 boto eskuratu zituen UMP eta UDFkoak eta aurkako 180 sozialista, komunista eta berdeena. Berria - Ekonomia

Gure eskualdean haatik, sozialixtek bat eginen dute **legegaiaren** kontra direnekin. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **legegaia onartu** (6)

---

**legegile** 1 *iz* legegintzan aritzen den pertsona.

**Legegileak** jurisprudentziaren kezka behar du izan. Andres Urrutia

Aldi berean epaile eta **legegile** izateko eskubidea. Juan Martin Elexpuru

Legea **legegilearen** agindua delako. Esteban Antxustegi

**Legegile** erromatarrek bazekizkiten egia hauek. Aski izango zaio **legegile** jakintsuari punturik garrantzitsuenak seinalatzea. Juan Martin Elexpuru

Solon bezalako **legegile** erreformatzaileek zuzenbidea jarriko dute *polis*aren ardatzean. Askoren artean

Niri esker dira erregeak errege eta agintariak **legegile** zuzen. Elizen arteko biblia

Legeak izan daitezela, beraz, tinkoak, eta tinkoak haien gauzatzaileak kasu bakoitzean, baina **legegilea** izan dadila gozoa, errukitsua, gizalegekoa. Juan Martin Elexpuru

**2** *izond* legeak egiten dituena.

Auzitegiek [...] justizia eskaleak igortzen zituzten, premiazko errekurtsoen bidez, botere **legegilearen** esparrura, legerik ezean edo legea izanda ere, berori ilun irizten zitzaienean. Andres Urrutia

Botere exekutiboa eta **legegilea** bereiztea. Berria - Mundua

Ezin dugu inoiz argudiatu ez dugula ezagutzen aginte **legegilea**. Esteban Antxustegi

Dekretu hori bat dator gure batzar nazional eta **legegile** guztien gogoarekin. Andres Urrutia

Biltzar **Legegilearen** aitzindaria izan zen Konstituziogilea. Koldo Izagirre

Eskumen **legegileak** dituzten eskualdeetako parlamentuei kontsultatzeko. Berria - Harian

Estatus juridiko uniformea ematen duen egintza **legegile** baten bidez. Iñaki Mendiguren

Irailaren 23ko 88/1091 Erret Dekretu **Legegilearen**, hau da, Aurrekontu Lege Orokorraren Testu Bateratuaren 29-2 artikuluan. Joseba Sarrionandia

Herri **ekimen** legegilea bultzatu zuten udalen plataformako kideek. Berria - Harian

Hizpide izan ditugun legeak, lurren banaketa horren ondorio zirenez, Erromako hiru errege **legegile** horien emaitza direla. Iñaki Iñurrieta

**3** (hitz elkartuetan)

Giza **legegileak** behartzen dituzten oinarriak. Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ekimen legegile** (5); **ekimen legegile bat** (4)
> **ahalmen legegilea** (3); **botere legegilea** (13); **botere legegilea duten** (3); **ekimen legegilea** (20); **ekimen legegilea aurkeztu** (3); **herri ekimen legegilea** (16)
> **botere legegileak** (4); **herri ekimen legegileak** (7)
> **botere legegilearen** (6); **herri ekimen legegilearen** (3)

---

**legegiledun** *izlag*

Eskumen **legegiledun** legebiltzar eta gobernuetako lehendakarien konferentzietan. Berria - Euskal Herria

---

**legegilekide** *(corpusean **legegile-kide** soilik)* *izond* norbaitentzat, berarekin legegintzan ari den pertsona.

Nahiz eta gizakia bera ere legegile eta **legegile-kide** izan Kanten teorian, legeak, nahi besteko lege unibertsalak esaten dio zer egin behar duen. Jenaro Garate

---

**legegiletza** *iz* legegilearen jarduera.

Kubatar jatorrikoak ez diren estatubatuarrek debekatuta daukate Kubara bidaiatzea, salbuespen gutxi batzuk izan ezik, hala nola kazetaritza edo **legegiletza** lana burutzera doazenak. Berria - Mundua

---

**legegintza** 1 *iz* legeak egitea.

Atzerako eragina ez da existitzen ez politikan, ez **legegintzan**, ez gizarteko beste edozein esparrutan. Zeinen esku laga administrazioa, harreman internazionalak, **legegintza**, Gobernua. Berria - Ekonomia

Korsikarraren eztenkadak (Brumaireren 18ko estatu kolpeak) erakarri zuen **legegintza** zibilerako berebiziko bultzada. Andres Urrutia

Europako Batasunean ateak zabalduko zaizkiola **legegintzako** eskumenak dituzten eskualdeen parte-hartzeari. Berria - Euskal Herria

Politika horien lantze, gauzatze eta kontroleko euskal instituzioek **legegintzarako** eta exekuziorako ahalmen guztiak dauzkatela ezaztuta. Berria - Euskal Herria

Eusko Legebiltzarreko mahaiak atzera bota du herrialde txiroekin Elkartasunezko eta Justiziazko Agiri bat proposatuz hainbat taldek garatu nahi zuten **Legegintzako** Ekimen Herritarra.

**Legegintza** ikasten ari nintzen abokatua izateko. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Estatu Kontseiluaren **legegintza** sailera. Andres Urrutia

1223ko Erregelaren baiespen ofizialak amaiera jarri zion Frantziskoren eta anaien **legegintza**-lanari. Askoren artean

Zuzenbide penal horrek estatu-eredu desberdina eskatzen zuela, eta hau gauzatzen ez zen bitartean ezinezkoa zela osorik garatzea *Delituez eta Zigorrez*-en **baitan** dagoen legegintza proiektua. Juan Martin Elexpuru

**Legegintza** arloan ere ez da deus aldatuko.

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Espainiako Gobernuak, «salbuespen **legegintzarekin**, oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak larri» murriztu dituela esan zuen EBBko lehendakariak. Berria -

Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

legegintza gorputzean (3)

---

**legegintzaldi** *(252 agerraldi, liburu 1 eta 190 artikulutan)* **1** *iz* biltzar legegile batek, kide berekin, legegintzan aritzen den epea. ik **legealdi**.

Kongresuko eta Senatuko VIII. **legegintzaldian**. Elkarrizketa **legegintzaldi** honen ezaugarri nagusia izatea espero dute. Berria - Euskal Herria

Aurreko **legegintzaldiko** gobernuak indarrean jarri dituen hainbat politika berraztertu egin behar direla. Berria - Euskal Herria

Harrezkeroztik senatore hautatu zuten 1972ra bitarteko **legegintzaldi** guztietan. Fernando Rey

Jesus Mari Agirrezabalak bi **legegintzaldi** daramatza Debako alkate. Berria - Euskal Herria

**Legegintzaldia** amaitu baino lehen. Berria - Kultura

EAri iraingarria iruditu zaio Aznarren **legegintzaldia** amaitu ondoren honek egin duen agurra. Berria - Euskal Herria

Galdeketa **legegintzaldi** honetan egin behar dela dio Azkarragak.

Araudiaren arabera, **legegintzaldi** berean ezin da gai bera bitan jorratu.

Miren Azkarate Jaurlaritzaren kulturako Sailburuak bere **legegintzaldiko** bideak eta sailak zein izanen dituen agertu du, Jose Ibarretxe Lehendakariak ezarria zuen ildotik. Herria

**Legegintzaldiko** konpromisoak ez betetzea egotzi dio San Gilek Jaurlaritzari. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Espainiako Gorteen **legegintzaldi** hasierako ekitaldi ofizialean. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

legegintzaldi berrian (3); legegintzaldi honetan bozkatuko (7); legegintzaldi honetan egin (5); legegintzaldi osoan (3)

azken legegintzaldia (3); datorren legegintzaldia (4); legegintzaldia amaitu (11); legegintzaldia amaitu arte (3); legegintzaldia amaitu aurretik (5); legegintzaldia bukatu (4); legegintzaldia bukatzeko (4); legegintzaldia bukatzeko gelditzen (3)

aurreko legegintzaldian (21); aurreneko legegintzaldian (3); azken legegintzaldian (7); datorren legegintzaldian (13); galdeketa datorren legegintzaldian (3); hurrengo legegintzaldian (12); joan den legegintzaldian (3)

aurreko legegintzaldiko (4); datorren legegintzaldiko (3)

hurrengo legegintzaldirako (3)

---

**legegizon** *(orobat* ***lege-gizon****)* *iz* gizonezko legelaria.

Erregeak mandatariak bidali zituen eskualdeko funtzionario guztiak biltzeko: eskualdeburu, gudalburu, gobernari, kontseilari, diruzain, epaile, **legegizon** eta agintariak. Elizen arteko biblia

Mediku batentzat, dena da medikuntza; eta **legegizon** batentzat, dena lege. Juan Kruz Igerabide

Zuzenbidean aditu diren hainbat **legegizonek** ere iritzi hori dute. Berria - Mundua

Badinat lagun bat **legegizona** eta hau guztia ondo aztertzeko esango zionat. Xabier Paya

**Legegizonen** esku da orai afera. Herria

Basoa herrira bihurtzeko desioz erregearen **lege-gizonekin** sinatu zen hitzarmenaz geroztik, istilua eta zarraparra besterik ez zela herrian. Felipe Juaristi

**Legegizon** jakintsu batek. Askoren artean

Abokatu eta **legegizon** leinu baten ondokoa zen Ezponda. Aingeru Epaltza

Asenjo izeneko **legegizon** famatu baten laguntzarekin. Josu Landa

Zuzenbidean aditua eta **lege-gizon** zen Pedro Cattanirekin. Askoren artean

Indiara itzuli zen eta Bonbain **legegizon** jardun zuen. Gotzon Garate

· Filosofo eta pentsalariek, bere garaikoen aurka egundoko garaipenak lortu zituelako; gero, abokatu eta **legegizon**-emakumeek, eztabaidetarako ukan zuen abilidadearengatik. Pello Zabala

---

legehauste ik **lege 17**.

---

**legekidetasun** *iz* lege berak izateko nolakotasuna edo zertzelada.

Isonimia: hiritar ororen berdintasuna, **legekidetasuna** adierazten du. Patziku Perurena

---

**legekizun** *iz* lege zeremonia.

OLATX mundura jaio zen egun berean arnasarik hartu ezinez ito zen umeari; ordu batzuk bixirik pasa eta, bere gorputzñoa bertan urtu beldurrez, ixiltxorik lurpean utzia izan zenari; ez **legekizun** eta ez elizkizun, inon ofizialki pertsonatzat ezagutua ez izanik, esistitu ere egin ez den aingeruari. Iñaki Segurola

---

**legekontrako** *izond* legearen aurkakoa.

Haste hastetik ukatu ditu juje horien ahalak, eta holandes jujeen aintzinean, nahi du frogatu **legekontrakoa** dela tribunal hori. Herria

**Legekontrakoak** direla otoitz-barne horiek akusatzen dituzte. Herria

---

**legekume** *iz adkor* legelaria.

Baina abokatuak, deontologiak nire itzala izatera behartu duen **legekumeak**, ez du nire trauma edertu nahi. Anjel Lertxundi

---

**legelari** **1** *iz* lege arazoetan aditua dena; bereziki, bezeroak lege kontuetan aholkatzeko, auzietan ordezkatzeko... lanbidea duena. ik **abokatu; legegizon**.

Lege naturalak ez dira lege idatziak; **legelarien** erantzunak eta ohiturak, berez, ez dira legeak, botere gorenak baietsiak ez diren bitartean. Esteban Antxustegi

Auzitegietako epaile eta **legelariak**. Mendebaldeko teologo, **legelari** eta kanonista jakintsu anitzek. Piarres Xarriton

Zuzendaritzako arduradunek teknikari baten eta departamentuko **legelariaren** aurkako iritziarekin erabaki zuten diru laguntza ematea. Berria - Euskal Herria

Adulterioak ondoriorik ez badu, eta senarrak ezer ez badaki, ez da **legelaririk** kasu horretan krimena egon dela froga dezakeenik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

AEBetan indar handia hartzen ari da Eric Schlachter **legelariak** plazaraturiko doktrina minimalistak. Berria - Gaiak

Legea **legelariek** egina da, eta **legelariak**, berriz, aberats eta boteretsu izan ohi dira hamarretik hamaikatan. Joxerra Garzia

Hamar urte eman ditu **legelari** bezala Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Berria - Euskal Herria

**Legelari** batzuekin hitz egingo dut auzi honi buruz. Jose Morales

*Hizkuntzaren Aldeko* ***Legelariak*** elkarteak Justizia arloan Herritarrek dituzten Hizkuntz Eskubideen Ituna onartu zuen. Berria - Euskal Herria

Espainiako **Legelarien** Estatutu Orokorreko 41. eta 33. artikuluek. Berria - Harian

CIJ **Legelarien** Nazioarteko Batzordeak eta CAJ Andeetako **Legelarien** Batzordeak, bestetik, «hutsune instituzionala» salatu zuten atzo. Berria - Harian

**Legelarien** Euskal Kontseilua Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko abokatuen kolegioen gainetik dagoen erakundea da. Berria - Euskal Herria

**2** (izenondoekin)

Batzorde bereizia antolatu, bertara lau **legelari** ospetsu ekarri eta abiada bizian jarri zuen aspalditik baratz zebilena. Andres Urrutia

Bolognan eta haren alaba ziren unibertsitateetan hezitako **legelari** zibilak administratzaile bihurtu ziren. Iñaki Mendiguren

Anai Peregrinok ez baitzuen inoiz ere apaiz egin nahi izan eta anaia laiko geratu zen, nahiz eta oso jakintsua eta **legelari** handia izan. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan)

Bere **legelari** ikuspegiari nahiz jarraiki, eginahalak oro egin zituen Espainiako Inkisizioaren auzitegitik auziaren kentzeko eta Erromara eramateko. Piarres Xarriton

**Legelari** batzorde bat. Berria - Harian

· Donald Rumsfeld Defentsa idazkariak iaz **legelari** zibil eta militar talde bati eskatu zion aztertzeko nazioarteko eta AEBetako legeek tortura erabiltzea eragozten zuten. Berria - Mundua

---

# legen 1 *iz* eritasun kutsagarria, haragiak usteltzen eta erorarazten dituena. ik **legenar**.

Hi heu eta hire ondorengoak Naamanen **legenaz** kutsatuko zarete. Elizen arteko biblia

Baldin buruko edo kopetako soilunean mantxa zuri-gorrixka badu, **legena** ari zaio sortzen. Elizen arteko biblia

**Legenak** jotako gizonak arropak urratuak eramango ditu. Elizen arteko biblia

Eskua elurra bezain zuri zeukan **legenaz**. Elizen arteko biblia

Legenduna **legen** zuritik sendatu dela ikusten badu, [...]. Elizen arteko biblia

Berehala, **legena** garbitu egin zitzaion. Elizen arteko biblia

**Legen** zaharra du gaixoak larruazalean. Elizen arteko biblia

**Legen** gaixtoaren atzaparretan! Joan Mari Irigoien

**Larruazaleko** legenaren antzekoa. Elizen arteko biblia

Bazuen bekokian zauri zornatu bat **legena** zirudiena. Juan Garzia

Masusta multzo baten antzeko **legen** ikaragarri bat dauka aurpegiaren erdian. Hasier Etxeberria

Hark sendatuko lioke **legena**. Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan)

**Legen** edo lepra izurite handiak izan ziren Europan VIII. eta XII-XIII. mendeetan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **legen kasua da** (6)
> **legenak jota** (7); **legenak jota zegoen** (3)

---

# legenagusi ik **lege 16**.

---

# legenar *iz* legen beltza, Hansen-en baziloak eragindako legen mota.

**Legenarra** senda diezaiodan igorri omen dit gizon hau. Elizen arteko biblia

Eta **legenarretik** garbi eta paralisitik askaturik, erabateko osasuna lortu zuen. Askoren artean

---

# legenardun 1 *izond/iz* legenarra duena; legenarrak jota dagoen pertsona.

Persiako Suman lurraldean, bazen behin Junan izeneko errege **legenardun** bat. Patxi Zubizarreta

Jaunak Simon **legenardunaren** etxean afaldu zuen, Lazarorekin batera. Patxi Altuna

**Legenarduna** da, larruazala guztiz usteldua du eta, gauero bezala, ukenduak ematera etorri naiz. Haren merituei esker, itsu eta gor, mutu eta herren, urmindu eta perlesidun, deabrudun eta **legenardun**, itsasoan galdutako eta gatibu, denek aurkitzen dute erremedioa. Patxi Zubizarreta

**Legenardunen** egoitzako kapilau izanik. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Madelonnettesko espetxean lehenengo; handik Carmesekora eramango dute, eta handik **legenardun**-etxe ohi batera, eta gero zentzategi batera, eta gero espetxe iraultzaile batera, eta 1794ko urtarrilean Saint-Lazarekora. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

# legenda *(orobat* ***leienda****)* 1 *iz* elezaharra.

Ipuin, **legenda** eta mitoen habiak dira basoak. Berria - Kultura

Hemen da historiaren eta **legendaren** arteko bidegurutzea. Martin Anso

**Leienden** barruan, ipuin tradizionalak, gertaera historiko apokrifoak eta beste motako kontakizunak bildu ditu. Berria - Kultura

**Legenda** guztietan nola-halako oinarri historikoa aurkitzen da. kantabresek erromatarrekin egindako gerra heroikoen **legendak**, Tubal edo Aitor eta bestelako mitografia. Martin Anso

**Legenda** hau ez da guztiz orijinala eta Arnau konde katalanarenarekin zerikusi handia du. Martin Anso

Inork ez zuen **legenda** egiaztatzeko ahaleginik egin. Iban Zaldua

*Agurea eta itsasoa* eleberriko Santiago pertsonaiaren irudia Indalexio dela dioen narrazioa **legenda** hutsa dela dirudi. Edorta Jimenez

**Leiendak** dioenez, Poyoko tailua Bianara eramana izana zen, baina Birjina beti hemen agertzen zen eta ondarrean ermita hemen eraiki zioten. Piarres Aintziart

Sortua zen **legenda**. Berria - Kultura

Horregatik, Beyaziteko gazteluko ziega **leienda** bihurtua zen. Fernando Rey

Nago, baina, horrek ez duela **legenda** puztu besterik egiten. Berria - Kultura

Berak ere elikatu du **legenda**, horren barruan kokatu beharko baitugu haren jaiotzeari buruz kontatu duena. Berria - Kultura

Harritzekoa da batzuetan, **leiendak** zinezkoari ematen dion indarra. Patziku Perurena

Hiriarekin lotutako ahozko ondareari dagokionez, hiri **legendak**, txisteak, esamesak eta «behin-behineko literatura» [...]. Berria - Harian

**2** (izenondoekin)

Errenazimentuak "garai argitsua" izan nahi zuela azaldu zigun, eta eguzkia hartu zuela ikurtzat, [...] eta aldi berean **leienda** gaizto bat -kontramito bat- asmatu zuela aurreko garaiaz.Tsíui PÍn-ek infinitu peto-petoa izango zen labirinto bat eratu nahi zuelako **leienda** bitxia. Bernardo Atxaga

Gustavo Adolfo Bécquer-en **legendarik** ezagunenetako batek. Martin Anso

· Orokorki Unamuno-ren hegelianismoari buruz esan behar da, doi-doi horixe dela eta ez gehiago: bere buruarentzat berak asmaturiko **legenda** aurea bat. Joxe Azurmendi

**3** kontakizuna.

**Legenda** *Laburra*-k 7 atalburu ditu, bakoitza 9 irakurgaitan banatua. Askoren artean

Zelanoko Tomas, gero Frantzisko santuaren lehenengo eta bigarren **"legendak"** idatzi zituena. Askoren artean

Frantziskoren gaztaroaren aurkezpen zehatzena *Hiru Lagunen* ***Legenda***-k (HLaLe) emana dugu seguruenik. Askoren artean

*Hiru Lagunen* ***Legenda***-ren testuaren eskuizkribu gehienek Greccioko Gutuna dakarte buruan. Askoren artean

Hiru lagunek Ministro jeneralari bidaltzen diotena ez da, beraz, **"legenda"** bat, "lore-sorta" bat baizik. Askoren artean

Perugiako **Legendaren** joera Perugiako Anonimoaren kontrakoa da. Askoren artean

1260ko Narbonako kapituluak San Frantziskoren **Legenda** berria eratzeko eskea egiten dio Bonabentura Ministro jeneralari, eta hiru urteren buruan Pisako kapituluak **Legenda** Luzea onartzen du, eta berehala zabaltzen dira aleak Probintzia guztietara. Askoren artean

**4** ***legendazko****sup_1 izlag* legendari dagokiona, elezaharretakoa, alegiazkoa. ik **legenda 4**.

Entzun ahala ahaztu baititut, eta barruan irudi lauso **leiendazko** bat besterik ez zait geratu. Xabier Mendiguren Elizegi

Donostian izandako **legendazko** hondoratze baten berri ematen digu Javier Sadak. Martin Anso

Entzun ahala ahaztu baititut, eta barruan irudi lauso **leiendazko** bat besterik ez zait geratu. Xabier Mendiguren Elizegi

**Leiendazko** garaitezintasuna. Itxaro Borda

Liburu honek erronka garbia jotzen dio gaur egungo kontzientziari [...] ez baita ikusten zer den historiazkoa eta zer **legendazkoa**. Askoren artean

**5** ***legendazko****sup_2* guztiz ospetsua, gogoangarria. ik **legendario 2**.

Euskal Herrian eskainiko dituen hiru kontzertuetan beste horrenbeste talde gonbidatu izango ditu lagun; *Federation X*, AEBetako garaje eszenatik indartsu atera den taldea, *The Intelligence* eta Australiako rockaren **legendazko** beste banda bat, *The Beasts of Bourbon*. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bonabenturaren legenda** (6); **hiru lagunen legenda** (22); **legenda laburra** (6); **legenda luzea** (13); **perugiako legenda** (22); **san bonabenturaren legenda** (3); **san frantziskoren legenda** (4)
>
> **leiendaren arabera** (3)

---

# legendagile *(corpusean **leiendagile** soilik) iz* elezaharrak ontzen dituen idazlea.

Horiez gain, «benetako **leiendagileen**» liburutara ere jo du Ansok, Iturralde, Arakistain, Bizente Arana, Campion, Trueba, besteak beste, «orain dela ehun urte benetako best-seller-en egileak» izan ziren egileengana. Berria - Kultura

---

# legendario **1** *izond* legendari dagokiona, elezaharretakoa, alegiazkoa. ik **legenda 4**.

Bera ez zen izan erregetzarako gai, ezta ezpata **legendarioaren** jabe izateko dina ere. Joanes Urkixo

Orain dela gutxi arte historikotzat jo izan den ondoko pasadizo **legendario** xelebre bezain odoltsu honi zor zaio izen aldaketa. Martin Anso

Orreagako borrokaldi historiko **legendarioarekin** zerikusirik izan zuten pertsonaia asko ezagutzen ditugu... Martin Anso

**2** guztiz ospetsua, gogoangarria. ik **legenda 5**.

Ben Webster saxo jotzaile **legendarioaren** Once in a while estandarraz. Berria - Kultura

---

# legendazale *izond* legenden zale dena.

Zenbait euskal "filologo" eta historialari edo **legendazalerekin**. Joxe Azurmendi

---

# legendun **1** *iz* legena duena; legenak jota dagoen pertsona.

Jesus Betanian zen, Simon **legendunaren** etxean. Elizen arteko biblia

Errukizko portaera **legendunekin**, hau da, gizarteko pertsona miserable eta baztertuenekin. Askoren artean

Herrenak ibiltzen hasten dira, hezueriak jotakoek salto egiten dute, **legendunak** garbi gelditzen dira. Askoren artean

Hiriko ospitalean zakur bat bezala hiltzera uzteko, izurriak joekin eta **legendunekin** batean. Aingeru Epaltza

Jesusek hamar **legendun** sendatu. Elizen arteko biblia

Nola bidelapurrek harrapatu eta elurretara bota zuten, eta nola zerbitzatu zituen **legendunak**. Askoren artean

**Legendunekin** eta zakurrekin bizi izan da, poliziek sarritxo jo dute. Gotzon Garate

Esnatzen naiz eta berriro sabaipe hau, eta gogoratzen naiz alemanek gure lurrak okupatu dituztela, ni **legenduna** naizela, eta iruditzen zait ez naizela esnatu. Felipe Juaristi

Kapitulua egin zuen Andre Mariaren Jaiotza egunean Spiran, harresiz kanpoko **legendunen** etxean. Askoren artean

**Legendun** behartsuentzat utzi zuten borda hura. Askoren artean

**2** (hitz elkartuetan)

Bovarako San Pedro elizatik gertu, 3 bat km-ra, bi **legendun**-etxe zeuden, San Tomas eta San Lazaro. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **legendunak garbi gelditzen** (3)
>
> **legendunen etxe** (3); **legendunen etxeetan** (5); **legendunen etxera** (3)

---

## **legeneria** *iz* legena.

Abokatuak ados egonen dira, **legeneria** dute. Koldo Izagirre

---

## **legeria** **1** *iz* legedia.

Lege alferrekoek lege beharrezkoak ahultzen dituzten bezala, itzuri egin dakiekeen legeek **legeria** ahultzen dute. Iñaki Iñurrieta

Ezin da **legeria** herriaren nahiaren gainetik jarri. Berria - Harian

Erromako **legeriaren** historia da, batez beste, herri guztien **legeriarena**. Andres Urrutia

[Errukiak] **legerian** egin behar duela distira, eta ez epaiketa partikularretan. Juan Martin Elexpuru

Honek erakusten du **legeria** aliritzira ezartzen dela askotan. Juan Martin Elexpuru

**Legeria** eta justizia paregabe bat funtsean txit modernoa ere finkatu dute. Joxe Azurmendi

Frantziako Iraultzak ondu zuen [...] halako zerrenda osotua, lege zibilen ikuspegitik aurreko **legeria** ezabatu eta arloz arlo bestelako legeen hariak bilbatu zituena. Andres Urrutia

Tortura ahalbidetzen duen **legeria** indargabetzeko. Berria - Euskal Herria

**Legeria** aldatu baino lehen saiatu zen Auzitegi Nazionala presoen onura penitentziarioak bertan behera uzten. Berria - Euskal Herria

Bere Tsin-go erresuma zaharrean indarrean zegoen **legeria** berak konkistatu eta bereturiko sei estatu etsaien lurraldeetan ezartzea agindu zuenean. Iñaki Mendiguren

Guk ez dugu Ottawak dioena segituko; guk **nazioarteko** legeria segituko dugu. Berria - Harian

Nazioarteko **legeria** betearazteko eskatzea. Berria - Mundua

«Terrorismoaren aurkako Espainiako **legeria** aberasten» jarraitzeko asmoa dutela. Berria - Euskal Herria

Atxilotuari buruzko **legeria** "antiterroristaz". Joxe Azurmendi

Inkomunikaziorako bidea ematen duen **legeria**. Berria - Euskal Herria

**2** (izenondoekin)

Gizona zorion handienera edo ahalik eta zorigaitz txikienera eramateko artea da **legeria** onaren funtsa. Juan Martin Elexpuru

Absolutismoa itzuli zenean, **Legeria** zaharra ezarri zen berriro, eta honek atzeratu egingo du gure herrian Zuzenbide Penal Liberalaren irizpideak onartzea. Juan Martin Elexpuru

Herri batzarrek, hala ere, berehala antzeman zuten **legeria** zibila kodetzeko premia. Andres Urrutia

Nire sentiberatasuna hunkitu duen zoritxar honek batetik eta lege hain anker honek, bestetik, nazioetako **legeria** kriminalei begirada batzera eraman naute. Juan Martin Elexpuru

Frantzian, bestalde, «lan-arloko **legeria** zurruna» dute. Berria - Gaiak

AEBetan **legeria** zorrotza dute alor horretan. Berria - Gaiak

Unibertsitatearen **legeria** organikoa errespetatzen ez den heinean. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahalbidetzen duen legeria** (4); **egungo legeria** (3); **ematen duen legeria** (3); **legeria aldatu** (5); **legeria antiterrorista** (5); **legeria zibila** (3); **nazioarteko legeria** (8)
> **espainiako legeriak** (4)
> **espainiako legeriaren** (5); **espainiako legeriaren arabera** (5); **gaur egungo legeriaren** (4); **legeriaren arabera** (14); **nazioarteko legeriaren** (4)

---

## legestatu ik **legeztatu**.

---

## **legetasun** *iz* legezkotasuna.

Hitz asko egin izan da jabego horien **legetasunaz**, lapurtuak izan ote ziren. Joan Mari Irigoien

Moraltasuna da osorik *a priori* printzipioetatik erator daitekeen ekintzen **legetasun** bakarra. Ibon Uribarri

Epaileek ez baitute aldatuko orain artean erabaili duten jarrera oinetakoen **legetasuna** kontrolatzeko. Berria - Kirola

---

## **legetsu** **1** *izond* txeratsua, adietsua.

Adiskide karana eta **legetsua** dut. Gotzon Garate

Gazte **legetsua**, buruargia, nortasun handikoa zela ematen zuen. Gotzon Garate

Denekin **legetsu** eta irribarretsu jarduten zuen. Gotzon Garate

**2** (adizlagun gisa)

Inspektore nagusiak oso **legetsu** hartu zuen. Gotzon Garate

---

## **legetxe** *adlag* bezalaxe.

Estalita baitzihoan goitik behera, herri honetako emakume gehienak **legetxe.** **Jon Arretxe**

Eguneroko bizitzan **legetxe**, azken buruan, den-dena hildakoei loreak erostean geratzen da. Berria - Kultura

Hala ere, Saltaperico gaitzizenaz ezagutzen genian denok, oso arin eta zolia baitzen jauzietarako, petardook **legetxe**. Juan Garzia

---

## **legetxo**

**1** ***bazkari legetxo*** *iz adkor* bazkari legea.

Bazkari **legetxo** bat egin azkar-azkar, eta berriro neure gelara, arratsera arte. Txillardegi

---

## **legez**[1] **1** *adlag* bezala.

Gernikan **legez** beste denean ere. Edorta Jimenez

Ondo dabiltza agure biak, beti **legez** sesioan. Urtzi Urrutikoetxea

Beste askok **legez**, Zeferinak ez zekien idazten. Edorta Jimenez

Gero Prado Museora joan da, beste gehienak **legez.** **Edorta Jimenez**

Hitzok behin ere entzun ez balitu bezala ahoskatzen ditu, bere aurrean bat-batean agertu izan balira bezala untxi bat kapelu batetik **legez**. Oskar Arana

Gasez, Auschwitzen **legez**, edo agian botiken laguntzaz. Urtzi Urrutikoetxea

Castor Uriarte arkitektoak dioen **legez**, su-hiltzaileak arduratsu eta zehatz saiatu ziren. Edorta Jimenez

Mezulariek iragarri **legez**, laster harana zabaltzen hasi zen. Joanes Urkixo

Indarge **legez** jesarrita zeuden hiruzpalau gizonei agur egin diet. Jon Arretxe

Hostailan babestuta, azeria **legez**. Hasier Etxeberria

Luzaz ibili zen Sukarrieta eta Laida artean pasaiari-ontzi **legez**. Edorta Jimenez

1885ean Londresera abiatu zen, poltsikoak hutsik, idazle *freelance* **legez**. Julen Gabiria

**2** ***legezko*** *izlag*

Pearl Harbor edo Normandia **legezko** lekuetan. Edorta Jimenez

Bere buruari 'ongile' eta 'aberri berriaren aita' **legezko** goitizenak ezarri zizkion gizonak bere agintaldiari buruzkoan 'aro' hitza erabiltzea merezi zuen. Edorta Jimenez

---

legez[2] ik **lege 11**.

---

# legezain *iz* legearen zaindaria dena.

Parisen **legezain** handi dago Pierre Mazeaud, denak lege-nagusiaren arabera xuxen egiten direnetz aztertzen duen batzorde bereziaren buru dena. Herria

---

# legezale *(orobat **lege-zale**)* *izond/iz* legearen zale dena.

Ez genuke ahaztu behar nire agure jakintsu hark herrizain **legezale** hari esana: gizakiaren zerbitzurako behar du legeak, ez gizakiak legearen mendeko. Joxerra Garzia

Bere pentsaera **legezaleak** hotzikarak ere ematen ditu. Jenaro Garate

Gero, akatsik gabeko apaizak, **legezale** zirenak, aukeratu zituen. Elizen arteko biblia

Denbora gehiena auzokoak, aspergarri eta **lege**-zale hutsak zirenak, espiatzen ematen zuen. Iñaki Mendiguren

Francoren aldekoek "errebelde" iritzi zieten **legezaleei**. Edorta Jimenez

---

# legezaletasun *iz* legezalea denaren nolakotasuna.

Agnèsek ez zion jaramon handirik egin aitaren **legezaletasunari**, abokatuaren, eta ez aitaren, hitzak zirelakoan. Felipe Juaristi

---

legezkanpo ik **lege 24**.

---

legezkanpoko ik **lege 25**.

---

# legezkanpotasun *iz* legez kanpokoa denaren nolakotasuna.

Haatik, DUPeko buru Ian Paisleyk ikuspuntu erabat kontrajarria erakutsi zuen, eta IMCren dokumentuak IRA **«legezkanpokotasunez** betea dagoela berresten» duela nabarmendu zuen. Berria - Mundua

---

# legezko[1] **1** *izlag* legearen araberakoa. ik **lege 11; legal**.

Sasiko eta **legezko** seme-alaben eskubideak. Ramon Saizarbitoria

**Legezko** Gordailua. Bernardo Atxaga

Indianoaren ondasun guztiak Juana Bixentaren eskuetara pasatu ziren **legezko** bedeinkapen guztiekin. Anjel Lertxundi

**Legezko** kontratua izatea ezkontzaren funtsari dagokiolako. Esteban Antxustegi

Lurrak zirela-eta **legezko** gorabehera batzuk zerabiltzala esku artean. Joxemari Urteaga

Ordena eta **legezko** batasuna sortzeko. Ibon Uribarri

Eskaera egiteko **legezko** epearen barnean nengoenez [...]. Ramon Saizarbitoria

Printzipioen **legezko** finkapenaren bitartez. Ibon Uribarri

Nire **legezko** aita, egia esan, gizon xaloa zen. Matías Múgica

Erruztatuari kendutako ondasunak bere **legezko** oinordekoei dagozkiela. Juan Martin Elexpuru

Ezingo dio magistratu batek **legezko** zigorra handitu hiritar gaizkile bati, erantzukizuna, onura publikoa, edo beste edozein aitzakia hartuta. Juan Martin Elexpuru

Floridako emaitzen aurka jo zezaten eta gero Epaitegi Gorena manipula zezaten, **legezko** estatu-kolpe bat atondu zezan beren ordez. Oskar Arana

Zonbiak balira bezala herriko biztanle eta bertako etxeen jabe **legezko** bakarrak. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (adokion izenaren eskuinean)

Seme-alaba naturalak eta **legezkoak** berdin-berdinak izango al dira? Andres Urrutia

Erregeren gorteetan haur bastartak **legezkoekin** nahasten dira. Aingeru Epaltza

Arauzko ezkontza baten seme-alabei **legezko** deritze, batuketa **legezko** eta baliozko baten fruituak baitira. Andres Urrutia

Printzearen ondorengo **legezkoa** nintzela, Jaungoikoaren legekoa nolerebait esan. Matías Múgica

Seme-alaba horiek **legezkoak** izan behar zutela ezkontide batekiko eta ezlegezko bestearekiko. Andres Urrutia

Etxean zituen billete guztiak **legezkoak** zirela. Jose Morales

**3** ***ez-legezko*** *izlag*

Tokiko telebisten mapa egiteko irizpideen **ez-legezko** proposamena aurkeztu du Aralarrek. Berria - Euskal Herria

**Ez legezko** prozedura bat abiatzeko asmoarekin. Berria - Euskal Herria

Zapaterorekin Atzerritartasun Legean akordioa lortzeko baldintza moduan aurkeztu du **ez-legezko** eskaria. Berria - Euskal Herria

Fiskalak KASi «erakunde **ez legezko** eta klandestino» esaten diola gogorarazi zion abokatuak. Berria - Euskal Herria

Gai zen legezko edo **ez legezko** jarrerak bereizteko. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ez legezko (24); ez legezko proposamena (9); legezko alderdi (8); legezko aukera (4); legezko balioa (3); legezko baliorik (3); legezko bitarteko (3); legezko egin (4); legezko egiteko (3); legezko egoeran (3); legezko epea (4); legezko erregeak (3); legezko eskubideak (3); legezko estatu (4); legezko eta baliozko (3); legezko ezagupen (4); legezko ikerketa (10); legezko izateko (3); legezko jabea (3); legezko jende (3); legezko neurriak (3); legezko paperak (8); legezko proposamen (4); legezko proposamena (10); legezko proposamena aurkeztu (5); legezko proposamenaren (5)

abortua legezkoa (4); egitea legezkoa (3); europan legezkoa den (3); eutanasia legezkoa da (3); ezkontza legezkoa (3); hesia legezkoa (3); klonatzea legezkoa da (3); legezkoa izan (22); legezkoa izango (7); legezkoa izango da (6); legezkoa izatea (3); legezkoa izateko (4); proposamena legezkoa (3); salmenta legezkoa (3)

zilegiak eta legezkoak (3)

---

legezko[2] ik **legez[1] 2**.

---

legezkontrako ik **lege 28**.

---

**legezkotasun** **1** *iz* legezkoa denaren nolakotasuna. ik **legaltasun**.

Hain juxtu ere, egun hartan, biltzar horren **legezkotasun** dudazkoaz ohartaraztea zuen Bastidan eginkizun. Aingeru Epaltza

Racing-Osasuna partidaren ostean Racingek zalantzan jarri zuen Bakayokoren lizentziaren **legezkotasuna**. Berria - Kirola

Marihuanaren **legezkotasuna**, homosexualen ezkontzak, prostituzioa, eutanasia. Berria - Harian

Gizakiari buruz arimaz eta gorputzaz hitz egitean, horiek ez dira ulertu behar gainditzen dituen **legezkotasun** batetik osagai heterogeneo konposatu gisa. Piarres Xarriton

Liburuak izenburu bereko foroan eztabaidagai izan ziren hiru gai nagusi jorratzen ditu: zilegitasuna eta **legezkotasuna** Euskal Herrian, berezko justiziaren esanahia Euskal Herrian eta, botere judizialaren independentzia. Berria - Euskal Herria

Zalantzan izanez gero, hobe da **legezkotasunaren** alde jokatzea. Andres Urrutia

**Legezkotasunera** itzultzeko bide bakarra legea eta ebazpen judizialak betetzea eta indarkeria gaitzestea da. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Epaileen ekintzek **legezkotasun** printzipioen araberakoak izan behar dute eta ez abagune politikoen araberakoak. Berria - Harian

Dekretuaren edukia legez kanpokotzat jo du **legezkotasun** txostenak. Berria - Euskal Herria

Ez dut uste Europako Batasunak eta AEBek **legezkotasun** arazorik izango duten Teheranen aurka zigorrak bideratzeko. Berria - Mundua

Hemen ez dago zinezko epaiketarik; ez ninteke bere abokatua izan, baina **legezkotasun** itxura eman nekioke azken batean oso legez kanpokoa den auzibide bati. Berria - Mundua

Bozen **legezkotasun** eza aipatzen hasi zirela hauteskunde hauek izan aurretik. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

hesiaren legezkotasuna (3)

banaketa hesiaren legezkotasunaz (3)

---

**legeztapen** *iz* legeztatzea.

Alderdi guztien **legeztapena** eta preso politikoen egoeraren hobetzea. Berria - Euskal Herria

Eutanasia, homosexualen arteko ezkontza, abortua eta prostituzioaren **legeztapena,** eta kalamua [...] saltzeko tolerantzia bukatuko litzatekeela. Berria - Harian

Aldizkariak bost urte egingo ditu ikurrinaren **legeztapenaren** hogeita bosgarren urteurrenarekin batera. Alberto Barandiaren

Esperientzia orotan pentsatze hutsa *a priori* barnebiltzen duten adigai hauek kategorietan aurkitzen ditugu, eta objektu bat beren bitartez baino ezin dela pentsatu frogatu ahal bada, hau haien dedukzio gogobetegarria eta haien baliotasun objektiboaren **legeztapena** ere bada. Ibon Uribarri

---

**legeztasun** *iz* legezkotasuna (?).

Aukeratzeko betebeharrak espekulazioaren erabakiezintasuna orekatik aterako luke hemen osagarri praktiko baten bitartez, eta arrazoimenak, epaile zorrotzenen gisara, ez luke bertan **legeztasunik** aurkituko, baldin eta bera premiazko kausa eragileen menpean -ikuskera akasdunarekin bada ere- bere judizioaren oinarri honi jarraituko ez balitzaio, bere gainetiko beste hobeagorik ezagutzen ez dugunez. Ibon Uribarri

---

**legeztatu**, legezta, legeztatzen **1** du *ad* legezko bihurtu, legezkotasuna eman.

Legeak agintzen duenez, auzitegian **legeztatu** zuten testamentua. Jose Morales

Abortua **legeztatzeko** lege proposamena aurkeztu dute Argentinan. Berria - Gaiak

Iraultzak libratu zituen esklaboak Antilletan eta Napoleon-ek **legeztatu** berriz esklabotasuna. Herria

Neguko txanoa eskuan eta paperak besapean, Ganberarantz abiatu zen eroste-agiriak **legeztatzera**. Jose Morales

Auzitan dago ezkontzak aurreko seme-alabak **legeztatu** behar dituen. Andres Urrutia

Argi ageri da ohaideen haurrak **legeztatzen** dituen legea bortxaz egindako legea dela. Iñaki Iñurrieta

Emakume trafikoaren mafiak **legeztatu** dira, ez besterik. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Askakeria hori, jakina, arautua izango litzateke eta burugabekeria **legeztatu** baten emaitza, ezkontza bera ordezkatuko lukeena. hurrengo autonomia hauteskundeetan, «ezker abertzale **legeztatua**» aurkeztu ahal izatea ez duela baztertzen esan zuen. Andres Urrutia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

egoera legeztatu (5); ezkontzak legeztatu (5); ikurrina legeztatu (3); legeztatu gabeko (3)

egoera legeztatzea (4); ezkontzak legeztatzea (3); kalamua legeztatzea (3); legeztatzea erabaki (3)

abortua legeztatzeko (3); batasuna legeztatzeko (5); botikak legeztatzeko (3); egoera legeztatzeko (23); etorkinak legeztatzeko (3); etorkinen egoera legeztatzeko (4); eutanasia legeztatzeko (4); kalamua legeztatzeko (3); legeztatzeko agentziak (6); legeztatzeko aukera (6); legeztatzeko eskatu (11); legeztatzeko eskatzen (4); legeztatzeko lege (3); sendagaiak legeztatzeko agentziak (3)

---

**legeztatze** *iz* legezko bihurtzea, legezkotasuna ematea.

Sinestuta nago drogen konturako soluziobide bakarra **legeztatzearen** bidetik datorrela. Iban Zaldua

**Legeztatzea** «eskaera demokratikoa» izanik, «ordainik» espero gabe hartu beharreko neurria dela dio. Berria - Euskal Herria

Ingalaterrako legeek ez dute, osteko ezkontza dela eta, **legeztatze** hori onartzen; egia esan, **legeztatze** horri mesfidantzaz begiratzen diote. Andres Urrutia

Ganberaburuaren aginduz, **legeztatze**-tasaren erdia bakarrik kobratu zioten. Jose Morales

Minbiziaren aurkako *Yondelis* sendagaiak Europan izandako **legeztatze** arazoak bitarte egin dute aldaketa hori. Berria - Ekonomia

---

# legezulo *izond adkor* legalista.

Fossa **legezulo** zintzo-zintzoa zen, gogotik ahalegindu zen araudiekin egokituriko kartzela-errejimen bat antolatzeko berehala gure fabore. Juan Garzia

---

# legio *(orobat* ***lejio*** *g.er.)* **1** *iz* antzinako Erroman, oinezko eta zaldizko soldaduek osaturiko armada taldea.

Berenize-n, Itsas Gorriari bekoz beko, kokatua zen **legio** bateko tribunoa nintzen. Juan Garzia

Erromatarren **legioetan** aritu ziren baskoiak. Berria - Kultura

Nik, Marko Flaminio Rufo-k, **Erromatar** legioetarik bateko guda-tribunoak. Juan Garzia

**Legio** handiek zelaiak lasterka betetzen dituztenean, gudu plantak eginez, distira zeruraino heltzen da eta lurrak inguru guztia brontzez dizdizten du.Condor **Legioko** liztor itzelek Gernika suntsitu zuten iluntzean. Xabier Amuriza

**2 *Atzerritar Legio***

Aski motibo izaten da hori niretzat Atzerritar **Legioan** pentsatzen hasteko ere. Joxe Austin Arrieta

**3 *legio izan*** asko izan.

Nire ustez **legio** dira nik *liliputitis* deitzen dudan gaitz horrekin dabiltzanak. Bernardo Atxaga

**4 *ohorezko legio***

Ohorezko **legioa** ematea alkateari. Monika Etxebarria

Parisen Ohorezko **Legioko** domina eman zioten. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ohorezko legioa** (3)
> **condor legioak** (3)

---

# legionario *(orobat* ***legionari*** *g.er. eta* ***legioner*** *g.er.) iz* legio bateko kide den gudaria.

Oktabianoren **legionarioek** eraso egin zuten, baina euskaldunak garaiezinak ziren Zelatun inguruko mendiotan. **Legionarioak** preso hartu zuen, irten zedila agindu zion, joan zedila mastaraino. Martin Anso

Erromatar **legionarioei**, zerbitzu aktiboan zeudenean legez ezkontzea debekatuta izan arren, praktikan baimendu egiten zitzaien ohaideekin ezkon-harreman iraunkorrak izatea eta familiak haztea. Iñaki Mendiguren

Batailan hildako **legionari** erromatar baten benetako izpiritua. Iban Zaldua

Ohorezko **Legioner** egina izan da gure Auzapeza ilabete hunen 17an. Herria

---

legionela ik **legionella**.

---

# legionella *(orobat* ***legionela****) iz* bakterio batek eragiten duen eritasun kutsagarria, aski larria, sukarra eta neumonia ezaugarri dituena.

Gizon bat ospitaleratu dute Gasteizen **legionelak** kutsatuta. Berria - Euskal Herria

Bartzelonan izan ondoren, **legionella** gaitzaz kutsatu eta hilzorian egon zen. Berria - Harian

1993an Cabo Verden **legionella** harrapatuta larri gaixotu zen arte. Berria - Euskal Herria

1997tik erakundeak behartuta daude **legionela** kasuen berri ematera. Berria - Euskal Herria

---

# legionelosi *iz* legionellak eragiten duen eritasuna.

Bederatzi lagun hil dira dagoeneko **legionelosiak** jota. Berria - Mundua

---

# legislatibo **1** *izond* legegilea.

Eskumen **legislatiboak** dituzten eskualdeen alde ere. Berria - Euskal Herria

1979an aukeratu zen lehen aldiz sufragio unibertsalez Legebiltzarra eta orduan askok zioten benetako botere **legislatibo** bihurtuko zela. Berria - Mundua

**2** legebiltzarrarari dagokiona.

Gure ardura zibikoa betetzen dugu hauteskunde guzietan: munizipalak, **legislatiboak** edo presidentzialak. Herria

---

# legislatura *iz* legegintzaldia.

Formalitateek eta errutinak lanpeturiko funtzionarioengan jokaturiko papera gero eta zurrun eta diziplinatuagoa zen alderdi-sistemak jokatzen zuen lanpeturiko **legislatura** hautatuetan. Iñaki Mendiguren

---

# legislazio *iz* legegintza; legeria.

Arabiarrek *-fiqh* izenaz gure Zuzenbide kanonikoa adierazten dute, eta, oro har, Koranean eta tradizioan erroturiko **legislazio** osoa. Xabier Kintana

---

# legitimatu, legitima, legitimatzen *(orobat* ***lejitimatu*** *g.er.) du ad* zilegiztatu; bidezko bihurtu.

Zilegitasun edo zuzentasuna eztabaidatzea beti dagoela, ukatu gabe: esplikatzen ari gara, ez **legitimatzen**. Iragana **legitimatzearen** aurka zegoen ETA, iragan hori Lauaxetaren iragan heroikoa bazen ere. Joxe Azurmendi

ERCk jada aurreratu egin zuen Konstituzioari ezezko botoa emango diola, Caroden arrazoitu zuenez «ez garelako herri eta hizkuntza gisa agertzen; ez gaituelako ez onartzen, ez **legitimatzen**».

Emakumeen kontrako indarkeria **legitimatzen** duten balioak. Berria - Euskal Herria

Gehiengoak ez arrazoirik eman eta ez kendu egin liezaioke inori; ez egiarik oinarritu, ez baliorik **legitimatu** eta ez deslegitimatu. Joxe Azurmendi

Borroka, berriz, antzerki hutsa izan liteke, estatu kolpe eta parrizidioa **legitimatzeko** amarrua. fraide mendikanteek Elizan beren bizimolde propio eta bereziaren arabera bizitzeko zuten eskubidea **legitimatzeko**. Martin Anso

Estatua ez zen gai bere burua **legitimatzeko** eta horrek erraztu egin zuen iraultza. Berria - Mundua

Zuzenbide estatuaren egituran, legegilea ez da legeak egiten dituena, hitzarmena onartu zutenen ordezkaria baizik, eta, horregatik, legeak egiteko **legitimatua** dagoena. Juan Martin Elexpuru

EAEko Gobernua eta Nafarroakoa ez daude **legitimatuta** Justizia Auzitegian erreklamaziorik egiteko. Berria - Euskal Herria

---

# legitimatzaile *izond* legitimatzen duena.

Orduan, modernitatearen balore **legitimitzaileak** -askatasuna, berdintasuna eta justizia- merkatu librearen jarduerarantz lerratzen ari direla ikusten dugu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

# legitimazio 1 *iz* legitimatzea, zilegiztatzea.

**Legitimazioari** dagokionez, nik neuk nahitaezkoa dut hurbileko irakurleen iritzia nire lana justifikatzeko. Ana Urkiza

Zientzia, errealaren deskribapena egitea da -eta ez haren justifikazioa edo **legitimazioa** -. Askoren artean

Euskal Herriko, Espainiako eta mundu zabaleko mobilizazioak lekuko, Burgosko epaiketak eman zion ETAri **legitimazio** osoa. Joseba Zulaika

**Legitimazioa** eta onespena ekar dakieken hornidurazko txorimaloarena dela, batez ere, langintza hori. Hasier Etxeberria

Herri akusazioaren **legitimazioa** zalantzan jarri zuten defentsek. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Babes sozialean oinarritutako **legitimazio** printzipioa. Iñaki Heras

---

# legitimidade ik **legitimitate**.

---

# legitimista *(orobat **lejitimista** g.er.) izond/iz* erreinatzen duenaz beste dinastia baten aldekoa dena.

Aldizkari **"legitimistak"**. Txillardegi

Horrexegatik zen **legitimista**, Iraultza aurreko monarkiaren oinordekoen aldekoa, Luis-Filipe errege burgesaren aurkakoa, erabat kontserbadorea. Frantses **legitimistek** Henrike IV. berri bat bezala imajinatzen zuten Don Karlos. Markos Zapiain

Gugana Donibanetik etorritako bi **legitimistaren** itzultzaile ni hautatu. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **legitimista frantses** (3)

---

# legitimitate (erabat **legitimidade** g.er.) 1 *iz* legezkotasuna, bidezkotasuna. ik **legitimotasun**.

**Legitimitateaz** ari garela, subjektua erabaki behar da. Bernardo Atxaga

**Legitimitatea** gizabanakoari dagokio eta botoen bitartez erabakitzen da. Bernardo Atxaga

Eta eskubideaz gain, irabazi ditugun hauteskundeek emaiten daukute **legitimitatea**. Herria

Barru osoa urdin izateak odola urdin izateak baino **legitimitate** dinastiko handiagoa eman behar luke. Anjel Lertxundi

Gure armak **legitimitatez** osatutako gobernu baten aurka altxatu genituela. Pako Aristi

Eusko Legebiltzarrak **legitimitate** osoa du estatutu aldaketa proposatzeko. Berria - Euskal Herria

Jose Antonio Agirre lehendakariaren gobernuaren **legitimitatea** zalantzan jarri duela. Berria - Kultura

Euskal autogobernua Espainiako Konstituzioak jarriko lituzkeen mugaketa hipotetikoetara murriztea, juridikoki justifikatzen ahalegindu daiteke, baina politikoki Espainiako Estatuak Euskadin duen **legitimitatea** izugarri ahulduko luke. Berria - Euskal Herria

· Egia da Euskal Herria dagoela zutik **Legitimidadearen** eta Don Carlosen alde. Txillardegi

**2** (hitz elkartuetan)

Arakan segitu du **legitimitate**-arrasto gehiagoren bila. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **legitimitate osoa duela** (3)

---

# legitimo *(orobat **lejitimo** g.er.)* 1 *izond* bidezkoa, legearen araberakoa, zilegitasuaren araberakoa.(pertsonei buruz)

Gu andre **legitimoaren** semeak garen aldetik [...]. Pello Lizarralde

Haren familiakoak Nafarroako errege **legitimoaren** aldekoak zirelako. Joan Mari Irigoien

Bena gerla hortan, beste aldetik ziren, aitaren ondotik, San Frantsesen bi anaiak, Migel eta Johan, Nafarroako errege **lejitimoari** leial. Herria

**2** (gauzei buruz)

Helburu guztiz **legitimoa** da independentziarena. Joseba Zulaika

Nor izango da orduan legearen interprete **legitimoa**? Juan Martin Elexpuru

Defentsa **legitimoa** -norberarena edo lagun hurkoarena-, tiranizidioa, gerra "justua", etab. Joxe Azurmendi

Ez dut, beraz, eginkizun estrukturalista bere muga **legitimoetatik** harantzago eraman nahi izan. Xabier Arregi

Konstituzioaren ikuspuntutik **legitimoa** dela. Berria - Euskal Herria

Politikoki eztabaidagarria da, baina erabat **legitimoa**. Berria - Euskal Herria

Aldizkaria euskara bera defendatzeko eta era **legitimoan** askatasuna babesteko aukera dela. Berria - Kultura

Hala ere, «egun herriaren gehiengoak, era librean eta **legitimoan**, nahiago du Batasunaren zati izan». Berria - Harian

**3** (predikatu gisa)

Erlijioak eta ezkontzak **legitimo** egindako seme-alaben zerrendetatik aldentzen ziren sasi-adarrak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**4** ***ez-legitimo*** ik **ilegitimo**.

Ezkontza ez **legitimo** baten oinordeko. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**erabat legitimoa** (3)

---

**legitimoki** *adlag* era legitimoan, bidez, legez.

Sail ezberdin horien artean zein harreman-mota deskriba daitekeen **legitiimoki**. Xabier Arregi

Autoritatearen helburua, esan nahi baita, auzi zientifikoetan **legitimoki** jarduteko sozialki onartua izatearena. Askoren artean

Posible da euskaldun izan eta euskaldun izatea maitatzea, **legitimoki** espainiar sentitzen dena gorrotatu gabe. Berria - Euskal Herria

---

**legitimotasun** *iz* legitimoa denaren nolakotasuna, legezkotasuna, bidezkotasuna. ik **legitimitate**.

Herritarren atxikimendua aldarrikatzea eta haren **legitimotasuna** oinarritzat hartzea. Berria - Ekonomia

Gehiengoek ez dute inongo **legitimotasunik** gutxiengoei beraien funtsezko eskubideak kentzeko. Berria - Euskal Herria

Errepresioa trantsizio deitutakoaren moldeak beretzen ari zen neurrian, herri-borrokak ere asmatu egin nahi zuen nola aurpegi eman, aurrekoaren oinordeko zuzena izan arren **legitimotasun** handiagoa lortzeko bidean zen erregimen berriari. Jokin Urain

---

**lego** *(orobat* ***lego*** *g.er.) izond* komentu bateko kideez mintzatuz, ordenak hartu ez dituen edo profesa egin ez duena, komentuko lanetan aritzen dena.

Edozein unetan sartzen ziren gizonezkoak alboko atetik, eta, anaia **legoak** zuzendurik, eliz-aldamenetatik aurrera joaten ziren, hanka-puntetan, esertzeko lekuren bat aurkitzera. Irene Aldasoro

---

**lego** *(orobat* ***lego*** *g.er.) izond* komentu bateko kideez mintzatuz, ordenak hartu ez dituen edo profesa egin ez duena, komentuko lanetan aritzen dena.

Edozein unetan sartzen ziren gizonezkoak alboko atetik, eta, anaia **legoak** zuzendurik, eliz-aldamenetatik aurrera joaten ziren, hanka-puntetan, esertzeko lekuren bat aurkitzera. Irene Aldasoro

---

**legoa** *(orobat* ***lekoa*** *g.er; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***legoa*** *agertzen da) iz* bide neurri zaharra, 5.500 bat metroren baliokidea (Espainiakoa) edo 4.000 bat metrorena (Frantziakoa).

**Legoa** laurdena haratago, zakutoa kausitu du bide erdian. Aingeru Epaltza

**Legoa** laurden bat gibeleratua uste genuelarik. Koldo Izagirre

Paristik 10 **legoara**. Aingeru Epaltza

Iruñetik sei **legoatara** zarela. **Legoa** eskas batera zeuden lehenengo harresiaren kokalekuak. Agustin Otsoa

Urrutira iristen dira maiz erleak lore bila, bi edo hiru **legoetaraino**. Anjel Lertxundi

**Legoak** eta **legoak** egin beharko dituzue ikusmugarik gabeko eremu zabal honetan beste etxeren bat aurkitzerako. Anjel Lertxundi

Berrehun **legoa** eginak dituenean. Koldo Izagirre

Mendien behealdetik hamar bat **legoa** edo gehiagora hedatzen zen. Agustin Otsoa

Luzera neurria, 5.762 metro zituena, gutxi gora-behera, kristauen **legoaren** baliokidea. Xabier Kintana

Zazpi **legoa** luze dan kalea. Patziku Perurena

**Lego** erdi bat bazen bere aurpegia. Patxi Ezkiaga

*20.000* ***legoa*** *itsaspean* liburuan. Karlos Zabala

Soilik hamar **lekoak** bereizten gaituzte, eta bitarte gaindierraz hori soil-soilik niretzat da ezin gaindituzko traba bihurtu! Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**berrehun legoa** (4); **handik legoa** (3); **legoa batera** (7); **legoa daude** (3)

---

legor ik **lehor**.

---

legorpe ik **lehorpe**.

---

**legorretar** *izlag/iz* Legorretakoa, Legorretari dagokiona; Legorretako herritarra.

Garmendia **legorretarra** partida garrantzitsu asko ari da irabazten azken boladan.

---

legorte ik **lehorte**.

---

legortu ik **lehortu**.

---

legua ik **legoa**.

---

**leguma** *iz* [fr] lekalea, egoskaria.

Bost-pa-sei **leguma** mota, gero fruituak berak jiten dira, ananas salbu; hori lantzen dute. Menane Oxandabaratz

legun ik **leun**.

legundu ik **leundu**.

legunkeria ik **leunkeria**.

**lehen** **1** *adlag* igaro den denboran. ik **lehenago**.

**Lehen** portugaldarra nintzen; orain ez dakit zer naizen. Felipe Juaristi

**Lehen** bai, baina orain luzatu egin da, eta neska polita dago. Bernardo Atxaga

**Lehen**, gutxienez, aza-zopa eta behi-xerra jaten zituen egunero; orain, [...]. Jose Morales

Zorionez, eguraldi ona genuen lehor gainean ere, **lehen** itsas gainean bezala. Joxe Austin Arrieta

**Lehen** bezala, aldaketarik gabe. Bernardo Atxaga

**Lehen** ere ibili zinen etxe honetan hotelaren benetako jabearen bila. Bernardo Atxaga

-Ordu laurden bat galdu diat **lehen** ere hire bila. Joxean Agirre

**Lehen** nioenez, badakizu Onqelosek pasarte hori nola interpretatzen duen. Xabier Kintana

**Lehen** aipatu dugun Hugo Münsterbergen zinemari buruzko liburua. Josu Zabaleta

**Lehen** bezain auzi larria da Errusian kapitalismoaren sarbidearen arazoa. Koro Navarro

Norabidea aldatu eta **lehen** joaten galarazi zitzaion tokira joan zenean, paradisutik egotzia izan zen. Xabier Kintana

Izan ere bihotz bakoitza da erloju, hasierako eta amaierako orduak punpaka erakusten baititu **lehen** eta agian geroan, baina ez oraingoan, ez baitago erlojurik gure oraingo denbora neurtuko duenik. Felipe Juaristi

**2** (izen gisa)

Bi aldi haiek, hots, **lehena** eta geroa, nola izan daitezke, **lehena** ez baita jada eta geroa ez oraindik? Imanol Unzurrunzaga

Lehenengo hilabetean bagaude berau da orain, gainontzekoak etorkizun; bigarrenean bagaude, **lehena** iraganera igaro da eta gainontzekoak ez dira oraindik. Imanol Unzurrunzaga

Hasperen egin du, **lehenaren** eta orainaren artean mugarria jartzea hain erraza izango balitz bezala. Eider Rodriguez

Hizkuntzan bertan, **lehena** orainean bizi da eta orainaren errainua aldi igaroak iragartzen du. Lourdes Oñederra

Esperientzia bizi-bizia da literatur ora oro, **lehenaren** oraina gauzatzen baitu, eta oraina etorkizunerako prestatzen. Itzulpena dugu bide bakarra zubi egiteko: beste hizkuntzen eta gurearen artean; **lehenaren** eta etorkizunaren artean; kultura unibertsalaren eta euskal gizabanako bakoitzaren artean. Anjel Lertxundi

• **3** *ord* aurretik besterik ez duena, beste guztien aurretik gertatzen dena. ik**lehenengo**. (izenlagun gisa)

**Lehen** greziarrak itsaslapurrak ziren denak. Iñaki Iñurrieta

**Lehen** gizonaren **lehen** bekatua. Piarres Xarriton

Frantziako **lehen** eta bigarren inperioen pintorea izan zen. Karlos Zabala

Egun berriaren **lehen** argi printzak sartzen ari ziren kaperako ate irekitik. Ez zen, inola ere, tratabide estuago baten **lehen** pausoa. Aingeru Epaltza

-Bada bat beherean, zokoan eskuin, zure aintzinean; bestea **lehen** estaian da. Marzel Etxehandi

Errusiarrek Siberian sorturiko **lehen** industrigunea. Laburpen honen **lehen** liburukia. Karlos Zabala

**Lehen** unetik beretik. Joxerra Garzia

Aldaketa hori hasi zuten **lehen** bi herriak. Piarres Xarriton

Horra, egiazkoa ala alegiazkoa, nire **lehen** oroitzapena. Aingeru Epaltza

"Eser zaitezte denak hor", eskatu zigun gizonak **lehen** aulki ilara seinalatuz. Bernardo Atxaga

**lehen** hiru egunak apezetxean higatu zituen. Itxaro Borda

Industriak berriz %45 hartzen zuen, eta **lehen** sektoreak %25. Koro Navarro

**Lehen** Mundu Gerraren aurreko lau hamarraldietan. Koro Navarro

Paganoerk **Lehen** Kausatzat hartzen dutena adieraziz. Xabier Kintana

· Eta isilpean salatzea, bi bekatu mortal: **lehena**, salatzeagatik, eta bigarrena, isilpean egiteagatik. Berria - Euskal Herria

Grégoire apeza izan zen lege berriari zin egin zion **lehena**. Piarres Xarriton

**4** (izenondo gisa)

Hiru afektu **lehen** horiek, eta Izpirituaren izaeraz gorago erran duguna, kontutan hartzen baldin baditugu [...]. Piarres Xarriton

Agerre, etsaiaren ikasle **lehena.** **Aingeru Epaltza**

Sekula frogatzen baldin bazen heretikoa zela, bera izanen zela haren kondenatzaile **lehena**. Piarres Xarriton

Bainan ez dut uste hori den, hala ere, arrazoinik **lehena**... Menane Oxandabaratz

Propietate **lehenen** eta bigarrenen arteko bereizketarekin estu loturik. Askoren artean

Frantzia osoko noble **lehenen** zalduneria harroa. Aingeru Epaltza

Hiru **lehenen** ahizpa nagusiak sukaldeko atea ireki zuenean. Aitor Arana

Artzainaren pieza hura hamar **lehenen** artean ipini beharko nuke. Oskar Arana

Korritu duen guztietan sailkatu da sei **lehenen** artean. Berria - Kirola

**5** (adizlagun gisa)

Egia erran, urtero, inauterietan zaldi, idi, behor eta asto lasterketa ederra egiten da Hiri nagusian sari bereziak eskainiz **lehen** heltzen denari. Piarres Xarriton

Nahiz eta helmugara **lehen** iritsi, azkenean kanporatu egin baitzuten, irteeran aurreratu zela-eta. Berria - Kirola

**6** gorago besterik ez duena, beste guztiak baino nagusiagoa edo hobea dena. ik**primera 2**.

Bidaiari dagokionez, Bilbotik Bruselara ez dago **lehen kategoriarik**. Berria - Euskal Herria

Eskumakilari dagokionez, bestetik, gizarte-mailaren ezaugarri zen garai hartan, gaur egun trenean **lehen klasean** bidaiatzea bezala. Juan Garzia

Hegazkinaren modelo tipoa 555 bidaiarentzakoa da, hiru klasetan banatuta (22 **lehen klasean**, 96 business-ean eta 437 turista klasean). Berria - Harian

Billetea izan arren, atera egin zuten **lehen klaseko** konpartimendutik.Worthingerako **lehen-mailako** tren-txartela zuelako sakelan. Gotzon Garate

Aita **lehen klaseko** bagoira igo zen konturatu gabe bigarren klaseko txartelarekin. Joseba Urteaga

Badoa **lehen mailako** bagoietara, handikiren batek maleta eramateko eskatuko diolakoan. Gotzon Garate

**Lehen klaseko** bidaiariei ez baitzaizkie gustatzen zarata eta geldirik egoten ez diren haurrak. Joseba Urteaga

**Lehen kategoriako** kamarotean hartu ahal izan zuten tokia, estuarioaren gaineko ikuspegi zabalarekin. Jon Alonso

Milioi bat libera urteko **lehen kategoriako** ofizioko jokolarientzat. Herria

Berak han iragan zuen **lehen** maila akademikoa. Piarres Xarriton

Umetan beti amestu izan nuen txuri-urdinen **lehen mailako** elastikoa janztea. Joan Mari Irigoien

Magia Legea Betearazteko Patruilako hogei kidek eraman zuten Black, eta Pettigrewi Merlingo Ordena, **lehen klasekoa**, eman zitzaion. Iñaki Mendiguren

Lau pilotariak **lehen klasean** jokoaren eta plaza gizontasunaren aldetik. Herria

## 6a *baino lehen*

Konturatu **baino lehen** bulegotik kanpo nengoen. Bernardo Atxaga

Lehendabiziko aulkira iritsi **baino lehen** gelditu behar izan zuen. Ramon Saizarbitoria

Alde egin zian inork harrapatu **baino lehen**. Bernardo Atxaga

Ospetsua, oinez ibiltzen eta hitz egiten hasi **baino lehen.** **Iñaki Mendiguren**

Joan hadi hire etxera lo hartu **baino lehen**. Bernardo Atxaga

Jatorri asiarreko atzerritar guztiek probintziatik atera behar dute hogeita lau ordu igaro **baino lehen.** **Jon Alonso**

Hemezortzi urte bete **baino lehen.** **Bernardo Atxaga**

Hoa eta emak izena, agian hik uste **baino lehen** deituko diate. Anjel Lertxundi

Zauria ez zedin behar **baino lehen** orbaindu. Urtzi Urrutikoetxea

Goiz zen oraindik, baina eguzkia oso goian ageri zen zeruan, laurak **baino lehen** urratu baitzuen iluna. Karlos Zabala

Gauerdia **baino lehen** etxean izan gintezkean. Aingeru Epaltza

Urtea **baino lehen** hilda zeuden erdiak. Bernardo Atxaga

Panteoi bat erostekoak baikinen luze **baino lehen**. Ramon Saizarbitoria

Edo Teresa bera, Teresa inor **baino lehen**. Bernardo Atxaga

## 7 *lehen baino lehen* lehenbailehen.

Alde hemendik **lehen baino lehen**. Antton Olano

Jauzi egin nuen; erdi lehortu, galtzontziloak jantzi, eta **lehen baino lehen** irten nintzen. Juan Kruz Igerabide

Ea eliza **lehen baino lehen** basilika izendatzen duten. Josu Landa

Bidali izan balitu **lehen baino lehen** soldaduak eta mertzenarioak leporaino armatuta [...]. Felipe Juaristi

Etsai guztien eliminazio fisikoa planifikatzen zuen egitura totalitarioak ahoskatzen zuen Goethen mintzaira **lehen baino lehen** abandonatu behar zuela. Itxaro Borda

## 8 *lehen eta behin* lehenik eta behin.

Zein da, baina, intelektuala izateko baldintza? **lehen eta behin**, politika ez den beste eremu batean lorturiko ospea, defendatu nahi den kausaren alde eskaintzea. Berria - Kultura

## 9 *lehen-seme* (orobat **lehenseme**) *iz*

Kanaanek Sidon, **lehen-semea**, eta Het izan zituen. Elizen arteko biblia

Semeen artean ondarea banatzean, ezin emango dio **lehen-seme**-eskubidea maiteago duen emaztearen semeari, gutxiago maite duen emaztearen semearen, benetako **lehen-semearen**, kaltetan. Elizen arteko biblia

Merariren seme Hosak seme hauek izan zituen: lehena Ximri, **lehen-seme** ez izan arren bere aitak buruzagi ezarria. Elizen arteko biblia

Jesus Haurra tenplura ekarri zuten, Jaunari aurkeztua izateko **lehen-semea** zenez. Patxi Altuna

Hamargarren izurria: **lehensemeen** hilketa. Jose Antonio Mujika

Lenitsinen emaztearen ondotik, inudeak besoetan ekarri zuen **lehensemea**, senar-emazte ezkonberrien maitasun samurraren fruitua. Jose Morales

Jahat izan zen **lehen-semea**, Ziza bigarrena. Elizen arteko biblia

## 9a *lehen-semetza*

Ez bedi izan zuen artean lizunik nahiz erlijiogaberik, Esau bezala; janari batengatik saldu baitzuen hark bere lehen-**semetza**. Elizen arteko biblia

Goseak hiltzear egonik, zertarako diat **lehen-semetza**-eskubidea? Elizen arteko biblia

## 10 *lehen plano* ik **plano 10.**

## 11 *maiatzaren lehena* *mug*

Ez dugu ahantzi behar **maiatzaren lehena** dela ere langileen eguna. **Maiatzaren lehena** ospatzearren. Herria

Faxistek beren musikarekin ospatu omen zuten **maiatzaren lehena**. Atzo zen alabaina **maiatzaren lehena**. Edorta Jimenez

Maiatzaren **lehenaren** ondoren. Ramon Etxezarreta

*ik* leheneko 3.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

**abendua baino lehen** (27); **abiatu baino lehen** (28); **agertu baino lehen** (15); **ahaztu baino lehen** (14); **amaitu baino lehen** (84); **argitu baino lehen** (22); **arratsaldeko lehen orduan** (17); **arratsaldeko lehen orduetan** (12); **atera baino lehen** (28); **aurten lehen aldikotz** (12); **aurten lehen aldiz** (24); **aurtengo lehen hiruhilekoan** (14); **azaldu baino lehen** (15); **azkar baino lehen** (18); **behar baino lehen** (17); **berandu baino lehen** (112); **berant baino lehen** (18); **bere lehen diskoa** (10); **bere lehen lana** (11); **bere lehen liburua** (14); **bere lehen partida** (21); **beren lehen haurra** (17); **beren lehen haurrari** (32); **bete baino lehen** (37); **bizitzan lehen aldiz** (16); **blair lehen ministroak** (28); **blair lehen ministroaren** (13); **bota baino lehen** (11); **bukatu baino lehen** (72); **bururatu baino lehen** (12); **denboraldiko lehen garaipena** (20); **desagertu baino lehen** (10); **egin baino lehen** (161); **eguerdia baino lehen** (9); **eguna baino lehen** (12); **egunsentia baino lehen** (17); **ekaina baino lehen** (10); **ekin baino lehen** (15); **eman baino lehen** (39); **entzun baino lehen** (12); **erabaki baino lehen** (15); **erantzun baino lehen** (17); **esan baino lehen** (24); **esan dizut lehen** (19); **esan dut lehen** (24); **esan zuen lehen** (18); **espainiako lehen mailan** (9); **etorri baino lehen** (28); **euroligako lehen fasea** (11); **euroligako lehen faseko** (17); **ezagutu baino lehen** (10); **ezer baino lehen** (148); **ezkondu baino lehen** (14); **finalerdietako lehen partida** (21); **finalerdietako lehen partidan** (9); **frantziako lehen ministro** (30); **frantziako lehen ministroak** (45); **frantziako lehen ministroaren** (11); **galdu baino lehen** (10); **garaia baino lehen** (28); **gaua baino lehen** (9); **gauerdia baino lehen** (12); **gertatu baino lehen** (22); **gobernuko lehen ministro** (11); **goizeko lehen orduan** (15); **hartu baino lehen** (47); **hasi baino lehen** (227); **hauteskundeak baino lehen** (15); **heldu baino lehen** (39); **hil baino lehen** (44); **hilabete baino lehen** (9); **hilaren lehen egunean** (17); **historian lehen aldiz** (39); **igaro baino lehen** (16); **ilundu baino lehen** (23); **indiako lehen ministro** (18); **ingles lehen minixtroak** (10); **inor baino lehen** (9); **irakeko lehen ministro** (35); **irakeko lehen ministroak** (18); **irekiko lehen** (12); **iritsi baino lehen** (105); **iritsi zen lehen** (9); **irlandako lehen** (61); **irlandako lehen ministro** (40); **irlandako lehen ministroak** (11); **irten baino lehen** (36); **israelgo lehen ministro** (134); **israelgo lehen ministroa** (13); **israelgo lehen ministroak** (51); **israelgo lehen ministroaren** (26); **italiako lehen ministro** (30); **italiako lehen ministroak** (11); **itxi baino lehen** (25); **itzuli baino lehen** (17); **itzuliko lehen etapa** (16); **izan baino lehen** (103); **jaialdiko lehen partidan** (12); **jaio baino lehen** (10); **jarduneko lehen ministro** (32); **jarduneko lehen ministroa** (14); **jarduneko lehen ministroak** (33); **jarri baino lehen** (15); **jo baino lehen** (27); **joan baino lehen** (59); **kanporaketako lehen partida** (9); **konturatu baino lehen** (9)

**lehen abere** (11); **lehen abisua** (19); **lehen agerraldia** (27); **lehen agerraldian** (11); **lehen agertu** (9); **lehen agurra** (14); **lehen ahalegina** (12); **lehen aipatu** (128); **lehen aipatu bezala** (9); **lehen aipatu ditugun** (12); **lehen aipatu dudan** (15); **lehen aipatu dugun** (26); **lehen aipaturiko** (25); **lehen aipatutako** (37); **lehen aldi hartan** (11); **lehen aldia** (750); **lehen aldia da** (192); **lehen aldia du** (10); **lehen aldian** (81); **lehen aldikotz** (389); **lehen aldikoz** (45); **lehen aldiz** (1490); **lehen aldiz egin** (12); **lehen aldiz ikusi** (27); **lehen aldiz irabazi** (14); **lehen aldiz jokatuko** (32); **lehen alea** (17); **lehen antzezle** (85); **lehen antzezle emakumezkoa** (33); **lehen antzezle gizonezkoa** (31); **lehen antzezlea** (10); **lehen arazoa** (15); **lehen ardura** (9); **lehen argazkia** (9); **lehen argi** (17); **lehen argia** (10); **lehen argiak** (10); **lehen argitalpena** (13); **lehen arlotea** (33); **lehen artikuluak** (11); **lehen asmoa** (11); **lehen aste** (15); **lehen astea** (19); **lehen astean** (50); **lehen asteburuan** (19); **lehen asteetan** (11); **lehen asteko** (11); **lehen atala** (49); **lehen atalean** (21); **lehen atera** (47); **lehen atera da** (14); **lehen ateraldia** (11); **lehen aukera** (87); **lehen aukeran** (17); **lehen aurkaria** (13); **lehen auzialdiko** (17); **lehen auzo** (10); **lehen auzoa** (10); **lehen axuanta** (11); **lehen azaldu** (12); **lehen azterketa** (29); **lehen bai lehen** (166); **lehen baino hobeto** (15); **lehen baino lehen** (14); **lehen baldintza** (11); **lehen batean** (33); **lehen batzarra** (9); **lehen begi** (24); **lehen begi kolpean** (16); **lehen begiradan** (15); **lehen begiratu** (10); **lehen begiratuan** (97); **lehen behakoan** (18); **lehen belaunaldiko** (17); **lehen bertsioa** (10); **lehen bertsoa** (14); **lehen bi asteetan** (11); **lehen bi egunetan** (12); **lehen bi hilabeteetan** (9); **lehen bi partidak** (31); **lehen bi postuak** (10); **lehen bi postuetan** (13); **lehen bi sailkatuak** (11); **lehen bi sailkatuek** (9); **lehen bi urteetan** (10); **lehen biak** (44); **lehen bidaia** (21); **lehen biek** (15); **lehen bietan** (11); **lehen biktima** (9); **lehen bilera** (64); **lehen bilera egin** (14); **lehen bileran** (18); **lehen bilkura** (21); **lehen bilkuran** (9); **lehen biltzar** (13); **lehen bisita** (15); **lehen bisitan** (10); **lehen bizitza** (29); **lehen borroka** (10); **lehen bostak** (10); **lehen bosten** (10); **lehen bosten artean** (9); **lehen bozaldian** (16); **lehen bozaldian berean** (9); **lehen datuen** (16); **lehen datuen arabera** (16); **lehen denbora** (15); **lehen denboraldia** (17); **lehen denboraldian** (33); **lehen derbia** (12); **lehen diska** (30); **lehen disko** (10); **lehen diskoa** (64); **lehen diskoa kaleratu** (10); **lehen diskoan** (15)

**lehen edizio** (9); **lehen edizioa** (9); **lehen edo bigarren** (19); **lehen eginkizuna** (9); **lehen egitekoa** (11); **lehen egun** (56); **lehen eguna** (65); **lehen egunak** (29); **lehen egunean** (276); **lehen eguneko** (19); **lehen egunetako** (13); **lehen egunetan** (90); **lehen egunetik** (68); **lehen eguzki** (13); **lehen ekimena** (14); **lehen ekintza** (15); **lehen ekitaldi** (9); **lehen ekitaldia** (27); **lehen ekitaldian** (15); **lehen eleberria** (10); **lehen elkarrizketa** (9); **lehen emaitza** (11); **lehen emaitzak** (20); **lehen emakume** (12); **lehen emakumea** (21); **lehen emanaldia** (36); **lehen emaztea** (20); **lehen entrenamendu** (23); **lehen entrenamendua** (16); **lehen entsegu** (10); **lehen entsegua** (36); **lehen erabaki** (14); **lehen erabakia** (12); **lehen erakusketa** (15); **lehen erantzuna** (13); **lehen erasoa** (18); **lehen erdi** (15); **lehen erdia** (16); **lehen erdian** (79); **lehen erdiko** (14); **lehen ere** (519); **lehen ere aipatu** (17); **lehen ere esan** (77); **lehen ere esana** (9); **lehen ere ikusi** (10); **lehen ere izan** (13); **lehen erran** (10); **lehen erregela** (16); **lehen erronka** (19); **lehen esan** (189); **lehen esan bezala** (57); **lehen esandako** (23); **lehen esaten** (10); **lehen eskola** (13); **lehen eskuko** (11); **lehen eskutik** (10); **lehen**

**esperientzia** (21); **lehen estaian** (13); **lehen eta azken** (38); **lehen eta bigarren** (142); **lehen eta hirugarren** (18); **lehen eta orain** (22); **lehen etapa** (106); **lehen etapako** (12); **lehen etapan** (46); **lehen etxean** (9); **lehen euskalduna** (28); **lehen ez bezala** (25); **lehen eztabaida** (15); **lehen fase** (21); **lehen fasea** (84); **lehen faseak** (13); **lehen fasean** (121); **lehen faseko** (85); **lehen film** (23); **lehen film luzea** (9); **lehen filma** (27); **lehen final** (18); **lehen finala** (65); **lehen finala jokatuko** (12); **lehen finalerdi** (10); **lehen finalerdia** (104); **lehen finalerdian** (46); **lehen finalista** (18); **lehen fitxaketa** (9); **lehen fruituak** (26); **lehen gai** (11); **lehen galdera** (26); **lehen garaietako** (17); **lehen garaietan** (10); **lehen garaipen** (14); **lehen garaipena** (135); **lehen gau** (9); **lehen gaua** (15); **lehen gauean** (22); **lehen gauza** (85); **lehen gela** (10); **lehen gerra** (15); **lehen gertatu** (9); **lehen gizon** (10); **lehen gol** (12); **lehen gol aukera** (10); **lehen gola** (110); **lehen gola sartu** (12); **lehen graduko** (11); **lehen greba** (12); **lehen gutuna** (19); **lehen hamabi** (12); **lehen hamabostaldian** (13); **lehen hamar** (52); **lehen hamar minutuetan** (9); **lehen hamarren artean** (49); **lehen hamarretan** (13); **lehen harremana** (12); **lehen harremanak** (15); **lehen harrera** (11); **lehen harri** (12); **lehen harria** (41); **lehen hartu** (14); **lehen hasi** (13); **lehen haur** (21); **lehen haurra** (89); **lehen haurrari** (38); **lehen hauteskundeak** (9); **lehen helburua** (91); **lehen herria** (15); **lehen hezkuntza** (11); **lehen hezkuntzako** (54); **lehen hezkuntzan** (27); **lehen hil** (16); **lehen hilabete** (9); **lehen hilabetean** (11); **lehen hilabeteetan** (25); **lehen hilaren** (20); **lehen hildakoa** (12); **lehen hiru** (186); **lehen hiru hilabeteetan** (12); **lehen hiru postuetan** (10); **lehen hiru puntuak** (12); **lehen hiruak** (9); **lehen hiruhilabetekoan** (9); **lehen hiruhilekoan** (79); **lehen hirurak** (9); **lehen hitz** (13); **lehen hitza** (23); **lehen hitzak** (57); **lehen hitzaldia** (23); **lehen hitzaurrea** (12); **lehen hitzordu** (10); **lehen hitzordua** (41); **lehen hizkuntza** (21); **lehen hogei** (13); **lehen hori** (12); **lehen horiek** (18)

**lehen igande** (9); **lehen igandean** (23); **lehen ikasgaia** (10); **lehen ikasketak** (14); **lehen ikerketa** (13); **lehen ikerketen arabera** (9); **lehen ikusi** (36); **lehen iritsi** (10); **lehen irudia** (9); **lehen irudiak** (11); **lehen istripua** (12); **lehen itzuli** (38); **lehen itzulia** (117); **lehen itzulian** (196); **lehen itzulian berean** (9); **lehen itzuliaren** (15); **lehen itzuliko** (57); **lehen itzulitik** (21); **lehen izan** (37); **lehen izena** (10); **lehen jardunaldia** (91); **lehen jardunaldia jokatu** (16); **lehen jardunaldian** (167); **lehen jardunaldietan** (9); **lehen jardunaldiko** (41); **lehen kanporaketa** (78); **lehen kanporaketak** (19); **lehen kanporaketako** (10); **lehen kanporaketan** (44); **lehen kapitulua** (18); **lehen kapituluan** (12); **lehen kasua** (34); **lehen kasuan** (36); **lehen kateak** (9); **lehen kausa** (12); **lehen kolpea** (21); **lehen kolpean** (23); **lehen komunionea** (49); **lehen kontzertua** (39); **lehen lan** (191); **lehen lan kontratua** (55); **lehen lan kontratuaren** (58); **lehen lana** (77); **lehen lanak** (16); **lehen lanean** (9); **lehen lasterketa** (22); **lehen lasterketan** (14); **lehen lau** (75); **lehen laurdena** (15); **lehen laurdenean** (56); **lehen lehen** (15); **lehen lehenengo** (9); **lehen lehenik** (215); **lehen lekua** (14); **lehen lerro** (16); **lehen lerroa** (30); **lehen lerroak** (22); **lehen lerroan** (135); **lehen lerroetan** (14); **lehen lerroko** (24); **lehen lerrotik** (12); **lehen liburu** (13); **lehen liburua** (92); **lehen liburuak** (10); **lehen liburuan** (16); **lehen liburukia** (11); **lehen liburukiaren** (10); **lehen liburuko** (13); **lehen liderra** (22); **lehen ligaxka** (19); **lehen ligaxkan** (12); **lehen mail** (17); **lehen maila** (124); **lehen mailako** (526); **lehen mailako jokalaria** (9); **lehen mailako talde** (23); **lehen mailako taldea** (19); **lehen mailakoa** (28); **lehen mailakoak** (17); **lehen mailan** (518); **lehen mailan aritzeko** (16); **lehen mailan jarraituko** (11); **lehen mailan jarraitzea** (16); **lehen mailan jarraitzeko** (21); **lehen mailan jokatu** (12); **lehen mailan jokatzea** (9); **lehen mailan jokatzeko** (14); **lehen mailara** (153); **lehen mailara igo** (23); **lehen mailara igotzea** (10); **lehen mailara igotzeko** (33); **lehen mailara itzultzeko** (13); **lehen mailarako** (39); **lehen mailarako txartela** (10); **lehen mailari** (38); **lehen mailari eusteko** (12); **lehen mailatik** (21); **lehen mailean** (102); **lehen maileko** (59); **lehen mailekoak** (21); **lehen maileta n** (9); **lehen mendeurrena** (10); **lehen meza** (16); **lehen ministro** (1132); **lehen ministro berria** (18); **lehen ministro berriak** (16); **lehen ministro izan** (9); **lehen ministro izateko** (22); **lehen ministro izendatu** (17); **lehen ministro kargua** (32); **lehen ministro karguan** (12); **lehen ministro ohi** (33); **lehen ministro ohia** (31); **lehen ministro ohiak** (23); **lehen ministro ohiaren** (13); **lehen ministroa** (304); **lehen ministroa da** (11); **lehen ministroak** (754); **lehen ministroarekin** (35); **lehen ministroaren** (277); **lehen ministroaren dimisioa** (9); **lehen ministroaren esanetan** (10); **lehen ministroaren gobernuak** (10); **lehen ministroari** (117); **lehen ministrorde** (34); **lehen ministrordea** (17); **lehen ministrordeak** (14); **lehen minixtro** (23); **lehen minixtroa** (35); **lehen minixtroak** (66); **lehen minutuak** (32); **lehen minutuan** (15); **lehen minutuetan** (66); **lehen minututik** (52); **lehen momentuan** (9); **lehen momentutik** (15); **lehen multzoan** (56); **lehen multzoko** (16); **lehen mundu** (109); **lehen mundu gerra** (22); **lehen mundu gerrako** (12); **lehen mundu gerran** (21); **lehen mundu gerraren** (27); **lehen munduko** (11); **lehen musua** (17); **lehen nahi** (9); **lehen neurri** (9); **lehen nobela** (18); **lehen norgehiagoka** (14); **lehen norgehiagokan** (11); **lehen notak** (15)

**lehen obra** (13); **lehen oharra** (13); **lehen ondorioa** (17); **lehen ondorioak** (15); **lehen ordu** (43); **lehen ordu erdian** (13); **lehen orduan** (67); **lehen orduetan** (40); **lehen oren** (9); **lehen orrialdean** (35); **lehen orrialdeko** (10); **lehen orrian** (24); **lehen oztopoa** (11); **lehen parte** (23); **lehen partea** (37); **lehen partean** (80); **lehen partida** (550); **lehen partida galdu** (32); **lehen partida irabazi** (40); **lehen partida izango** (9); **lehen partida jokatu** (43); **lehen partida jokatuko** (28); **lehen partida jokatzeko** (10); **lehen partidak** (41); **lehen partidako** (21); **lehen partidan** (202); **lehen partidaren** (19); **lehen partidetan** (24); **lehen pauso** (17); **lehen pausoa** (94); **lehen pausoa eman** (20); **lehen pausoak** (37); **lehen pertsona** (28); **lehen pertsonan** (41); **lehen pilotakadarekin** (13); **lehen plana** (13); **lehen planoa** (14); **lehen planoan** (34); **lehen poema** (23); **lehen poema liburua** (13); **lehen poemak** (10); **lehen porrota** (17); **lehen postu** (12); **lehen postua** (127); **lehen postua lortzeko** (13); **lehen postuak** (10); **lehen postuan** (171); **lehen postuan amaitu** (14); **lehen postuan jarri** (10); **lehen postuari** (30); **lehen postuetan** (53); **lehen postuetatik** (9); **lehen postura** (13); **lehen postutik** (14); **lehen presidente** (10); **lehen proba** (51); **lehen probak** (11); **lehen proban** (29); **lehen proiektua** (12); **lehen puntua** (62); **lehen puntua lortu** (9); **lehen puntuak** (15); **lehen sailkatua** (16); **lehen sailkatuak** (11); **lehen saio** (18); **lehen saioa** (100); **lehen saioak** (11); **lehen saioan** (44); **lehen sari** (11); **lehen saria** (171); **lehen saria ardietsi** (10); **lehen saria irabazi** (12); **lehen sasoian** (11); **lehen sei hilabeteetan** (21); **lehen seihilekoan** (32); **lehen seme** (36); **lehen semea** (30); **lehen semeak** (23); **lehen semeen** (13); **lehen seta** (11); **lehen sexu** (9); **lehen sintomak** (18); **lehen solairuan** (25); **lehen solairuko** (26); **lehen talde** (10); **lehen taldea** (74); **lehen taldea joanen** (20); **lehen taldeak** (75); **lehen taldeak irabazi** (25); **lehen taldean** (145); **lehen taldearekin** (119); **lehen taldearekin entrenatzen** (14); **lehen taldearen** (17); **lehen taldeko** (80); **lehen taldeko jokalari** (10); **lehen taldera** (49); **lehen tantoa** (11); **lehen tantoak** (11); **lehen tantoetan** (20); **lehen tiraldia** (9); **lehen tiraldian** (14); **lehen titulua** (23); **lehen tokia** (21); **lehen tokian** (25); **lehen topaketak** (9); **lehen torneoa** (13); **lehen txanda** (20); **lehen txandan** (59); **lehen txapela** (32); **lehen txapelketa** (33); **lehen txartela** (14)

**lehen une** (16); **lehen unean** (35); **lehen uneko** (9); **lehen unetik** (78); **lehen urrats** (62); **lehen urrats bat** (19); **lehen urrats gisa** (12); **lehen urratsa** (200); **lehen urratsa egin** (32); **lehen urratsa izan** (15); **lehen urratsak** (177); **lehen urratsak egin** (17); **lehen urratsak egiten** (10); **lehen urte** (46); **lehen urtea** (72); **lehen urteak** (23); **lehen urtean** (143); **lehen urteetako** (13); **lehen urteetan** (51); **lehen urteko** (18); **lehen urteurrena** (10); **lehen xedea** (14); **lehen zantzuak** (19); **lehen zati** (65); **lehen zati osoan** (10); **lehen zatia** (198); **lehen zatiak** (13); **lehen zatian** (379); **lehen zatiaren** (42); **lehen zatiaren amaieran** (12); **lehen zatiko** (81); **lehen zenbakia** (25); **lehen zenbakian** (9); **lehen zerrendaburua** (11); **lehen zerrendaburuak** (10); **lehen ziabogan** (10); **lehen zirriborroa** (19)

**lehiaketako lehen saria** (13); **ligako lehen jardunaldian** (9); **ligako lehen mailako** (20); **ligako lehen mailan** (11); **ligako lehen partida** (15); **maiatzaren lehen** (10); **minutu baino lehen** (13); **multzoko lehen postua** (25); **multzoko lehen postuan** (12); **ni baino lehen** (12); **ohartu baino lehen** (22); **oheratu baino lehen** (14); **onartu baino lehen** (10); **orain baino lehen** (15); **ordua baino lehen** (10); **oroz lehen** (22); **palestinako lehen ministro** (13); **palestinako lehen ministroak** (11); **paneko lehen ministro** (32); **paneko lehen ministroak** (13); **pasatu baino lehen** (19); **raffarin lehen ministroak** (13); **sailkapeneko lehen postua** (10); **sartu baino lehen** (56); **serbiako lehen ministro** (15); **turkiako lehen ministro** (13); **turkiako lehen ministroak** (10); **txapelketako lehen faseko** (18); **txapelketako lehen partida** (13); **uda baino lehen** (37); **urte baino lehen** (21); **urtean lehen aldiz** (14); **urteko lehen hiruhilekoan** (16); **urteko lehen seihilekoan** (10); **uste baino lehen** (14); **utzi baino lehen** (21); **villepin lehen ministroak** (10); **zabaldu baino lehen** (16)

**maiatzaren lehena** (46)

**bi lehenak** (24); **hiru lehenak** (15); **izan ziren lehenak** (10); **lehenak dira** (15); **lehenak izan** (30); **lehenak izan ziren** (13)

**lehenaz gain** (14); **lehenaz gainera** (11)

**maiatzaren leheneko** (15)

---

# lehenago 1 *adlag* testuinguruan aipatzen den denbora baino lehen.

**Lehenago** Luzaide luze baino meharrago bazen, 1530etik honat oraino meharrago gelditu zitekeen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Badago "Urtxel" deitzen den etxe bat, **lehenago** "Urri-eltze". Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

José Tudela biolin jotzailea, **lehenago** Joseph Israel de Tudela, eta are **lehenago** José Sánchez. Felipe Juaristi

Zorionez, **lehenago** ikusi nuen nik bera. Oskar Arana

Esan dizut **lehenago** ere. Rafa Egiguren

Nola ez haiz **lehenago** konturatu? Txillardegi

Handizkiak **lehenago** etorriak ziren. **Lehenago**, optikan izana nintzen. Aingeru Epaltza

**Lehenago** ez, ezta geroago ere. Aingeru Epaltza

Euskal Herritik Ameriketara aldatzean, hamazazpiren bat urte **lehenago**. Bernardo Atxaga

Lau hilabete **lehenago**, etxea uztean, pare bat liburu baizik ez nuen maletaratu. Aingeru Epaltza

## 2 *lehenagoko izlag*

**Lehenagoko** denboretan ere beti betetzen hituen hire planak. Aingeru Epaltza

**Lehenagoko** beldur hark berriz hartu ninduen. Daniel Landart

Azterlan honen **lehenagoko** zati batean jada aztertu dugu luze Gizarte Helenikoaren kolapsoa. Iñaki Mendiguren

Baneuzkan **lehenagoko** lanak. Juan Kruz Igerabide

Mick Jaggerren ahots gazteak hogei urte **lehenagoko** irudiak zekarzkidan. Aingeru Epaltza

· Gugan euskalduntasuna **lehenagokoa** da, zaharragoa eta jatorragoa, gizontasuna baino. Iñaki Segurola

Bi hilabete **lehenagokoa** zen, gerra hasi aurrekoa. Bernardo Atxaga

Iazko ateraldiak ikusteko guti izan zuen bederatzi urte **lehenagokoarekin**. Aingeru Epaltza

## 3 *lehenagotik adlag*

Ehunka eztarriren harrabotsa **lehenagotik** entzun nuen. Aingeru Epaltza

## 4 *baino lehenago*

Orbaizetan baino **lehenago** izan zen fabrika bat Eugin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hil baino ordu batzuk **lehenago**, osabak susperraldi bat izan zuen. Bernardo Atxaga

Bere hoteleko sarrera baino hogei metro **lehenago** aparkatu nuen autoa. Bernardo Atxaga

· Ebakuntza baino **lehenagoko** egunetan. Hasier Etxeberria

## 5 *lehenago edo beranduago* lehenago edo geroago.

Bazekiten **lehenago edo beranduago** aurkituko zutela. Berria - Gaiak

Eta sufrimendu hori, **lehenago edo beranduago**, jarrera hipokondriako bihurtzen da. Berria - Euskal Herria

Bizitzak irakaspen ederrak ekartzen ditu **lehenago edo beranduago**. Hasier Etxeberria

Txanda ailegatuko zaie, **lehenago edo beranduago**. Xabier Montoia

## 6 *lehenago edo geroago*

**Lehenago edo geroago**, gehiegizkoa bihurtuko zaio, eta orduan den-dena aterako zaio. Oskar Arana

**Lehenago edo geroago** norbait agertuko zen, edo dagoeneko bazeuden han gu ailegatzean. Pedro Alberdi

Jabea, **lehenago edo geroago**, bere zaldiaren bila hasiko zen. Fernando Rey

Baina igotzen dena **lehenago edo geroago** jaisten dela esatea, ordea, ez dirudi oso serioa denik. Iñaki Heras

Horixe dakiala, jabetuko hintzen **lehenago edo geroago**, tropikoan edo beste nonbait. Xabier Olarra

Suerte pixka bat behar izan nuen nire irtenbidea aurkitzeko, baina, suerterik gabe ere, aurkituko nuen **lehenago edo geroago**. Karlos Zabala

Banekien nire ibiliak hara eramango ninduela **lehenago edo geroago**. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**aise lehenago** (11); **amaitu baino lehenago** (10); **apur bat lehenago** (16); **asko lehenago** (16); **askoz ere lehenago** (27); **askoz lehenago** (95); **aste bat lehenago** (15); **aste batzuk lehenago** (34); **aste lehenago** (75); **astebete lehenago** (60); **azterlan honetan lehenago** (11); **bederatzi urte lehenago** (9); **behar baino lehenago** (31); **bera baino lehenago** (17); **berak baino lehenago** (9); **berrogei urte lehenago** (11); **bi aste lehenago** (38); **bi egun lehenago** (60); **bi hilabete lehenago** (26); **bi ordu lehenago** (24); **bi urte lehenago** (79); **bost egun lehenago** (12); **bost minutu lehenago** (12); **bost urte lehenago** (20); **dezente lehenago** (10); **egin baino lehenago** (29); **egun bat lehenago** (40); **egun batzuk lehenago** (134); **ehun urte lehenago** (15); **esan dut lehenago** (9); **ezer baino lehenago** (16); **hainbat urte lehenago** (8); **hamabost urte lehenago** (8); **hamar egun lehenago** (14); **hamar urte lehenago** (54); **hartu baino lehenago** (12); **hasi baino lehenago** (33); **heldu baino lehenago** (8); **hil baino lehenago** (9); **hilabete bat lehenago** (17); **hilabete batzuk lehenago** (45); **hilabete lehenago** (158); **hiru aste lehenago** (16); **hiru egun lehenago** (44); **hiru hilabete lehenago** (21); **hiru ordu lehenago** (8); **hiru urte lehenago** (36); **hogei urte lehenago** (30); **inork baino lehenago** (11); **iritsi baino lehenago** (17); **istant bat lehenago** (14); **izan baino lehenago** (15); **joan baino lehenago** (13); **lau egun lehenago** (18); **lau hilabete lehenago** (15); **lau urte lehenago** (20); **laurden lehenago** (13)

**lehenago abiatu** (9); **lehenago adierazi** (12); **lehenago agertu** (8); **lehenago ailegatu** (8); **lehenago aipatu** (29); **lehenago alde egin** (9); **lehenago amaitu** (8); **lehenago atera** (8); **lehenago aurkitu** (8); **lehenago azaldu** (12); **lehenago bizi** (8); **lehenago edo beranduago** (24); **lehenago edo geroago** (99); **lehenago egin** (74); **lehenago egindako** (17); **lehenago egiten** (10); **lehenago egon** (10); **lehenago eman** (25); **lehenago ere** (394); **lehenago ere esan** (21); **lehenago ere ikusi** (12); **lehenago ere izan** (24); **lehenago esan** (72); **lehenago esan bezala** (10); **lehenago esana** (9); **lehenago etorri** (23); **lehenago ezagutu** (25); **lehenago gertatu** (25); **lehenago hartu** (9); **lehenago hasi** (54); **lehenago hasi zen** (13); **lehenago hasia** (10); **lehenago hasiko** (12); **lehenago hasitako** (9); **lehenago hasten** (19); **lehenago heldu** (19); **lehenago hil** (46); **lehenago hil zen** (19); **lehenago hila** (14); **lehenago hilko** (8); **lehenago idatzi** (8); **lehenago idatzia** (9); **lehenago idatzitako** (12); **lehenago ikusi** (39); **lehenago iritsi** (43); **lehenago iritsiko** (12); **lehenago irten** (9); **lehenago izan** (36); **lehenago izandako** (15); **lehenago jakin** (15); **lehenago joan** (15); **lehenago konturatu** (14); **lehenago lortu** (13); **lehenago ohartu** (8); **lehenago sartu** (11); **lehenago sortu** (14); **lehenago utzi** (11)

**mende bat lehenago** (14); **mila urte lehenago** (9); **minutu bat lehenago** (9); **minutu batzuk lehenago** (63); **nahi baino lehenago** (20); **ni baino lehenago** (21); **ordu batzuk lehenago** (98); **ordu bete lehenago** (8); **ordu erdi lehenago** (30); **ordu laurden lehenago** (13); **ordubete lehenago** (60); **oren bat lehenago** (9); **pixka bat lehenago** (26); **sartu baino lehenago** (9); **segundo bat lehenago** (8); **sei egun lehenago** (8); **sei hilabete lehenago** (23); **sei urte lehenago** (16); **sortu baino lehenago** (9); **une bat lehenago** (9); **une batzuk lehenago** (9); **urte asko lehenago** (12); **urte bat lehenago** (12); **urte batzuk lehenago** (104); **urtebete lehenago** (64); **uste baino lehenago** (48); **utzi baino lehenago** (9); **zazpi urte lehenago** (8); **zenbait egun lehenago** (23); **zenbait hilabete lehenago** (8); **zenbait ordu lehenago** (15); **zenbait urte lehenago** (20); **zenbat eta lehenago** (27); **zer da lehenago** (8); **zertxobait lehenago** (13); **zortzi egun lehenago** (8)

**askoz lehenagoko** (8); **lehenagoko denboretan** (16); **lehenagoko zati batean** (11)

**askoz lehenagotik** (31); **lehenagotik ezagutzen** (18); **urte lehenagotik** (12)

---

# lehenaldi *(orobat **lehen-aldi** g.er.)* **1** *iz* denbora iragana, iraganaldia.

Tren bat entzun dut: **lehenaldi** urrunetik datorren murmurio bat, ezagutzen ez dudan etorkizun urrunerantz doana. Juan Kruz Igerabide

Ezin dut esan mundua **lehenaldiari** dagokionez edo espazioari dagokionez amaigabea denik. Ibon Uribarri

**Lehenalditik** itzuliko ez ziren emakumeen oroitzapenetan murgiltzea kontsolamendu errukarria zen agure batentzat. Ibon Uribarri

Herria handitzeaz batera orainaldi eta **lehenaldiaren** arteko tartea ere handitu egin zait. Javi Cillero

Bloke bat dirudi **lehenaldiak**. Piarres Aintziart

Alferrik gabiltza **lehenaldia** eta geroa idealizatu nahian. Edorta Agirre

Alferrik gabiltza **lehenaldia** eta geroa idealizatu nahian. Edorta Agirre

Gaur, agertu zenetik hainbeste denbora igaro arren, sinbolo bat izaten jarraitzen du liburu honek: **lehenaldia** eta geroaldia markatzen du Zuzenbide Penalaren alorrean. Juan Martin Elexpuru

Orainak aldi izateko **lehenaldira** igaro behar badu, nola esan dezakegu badela, bere izaera ez izatera iristea bada? Imanol Unzurrunzaga

## 2 aditzaren aldia, perpauseko adizlagunak markatzen duen denbora bitartea baino lehenagokoa biltzen duena.

-Jotzen zuela? - galdetu zuen Anak, **lehenaldiko** aditz laguntzailea berariaz indartuz -. Aitor Arana

**Lehenaldiaren**, orainaldiaren eta geroaldiaren arteko bereizketa. Isabel Arrigain

Orainaldiaren eta **lehenaldia** burutugabearen arteko erlazioari. Grezierazko [...] **lehenaldi** burutugabea da. Isabel Arrigain

Aditzaren **lehenaldiko** partizipioa. Isabel Arrigain

---

# lehenbailehen **1** *adlag* ahalik lasterrena. ik **lehen 7**.

**Lehenbailehen** alde egitea komeni zaigu. Patxi Zubizarreta

-Hik ere hobe duk **lehenbailehen** jantzi. Aingeru Epaltza

**Lehenbailehen** iritsi nahi zuen Omskera. Karlos Zabala

**Lehenbailehen** atera behar nuen Parisetik. Alberto Ladron Arana

Larrialdi batean **lehenbailehen** egin beharrekoa. Irene Aldasoro

**Lehenbailehen** itsasoratzeko esan zion, bera etxera iritsi eta Nestor zaharra jabetu baino lehen. Juan Kruz Igerabide

Hark ere presa zuela **lehenbailehen** heltzeko. Karlos Zabala

Orain lasaitasuna komeni zaizu, **lehenbailehen** sendatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Higuina eman zidan egoera hark, eta langintza **lehenbailehen** amaitzea erabaki nuen. Juan Martin Elexpuru

Babesen bat bilatu behar genuela **lehenbailehen**, bestela hotzak hilko ginela. Bernardo Atxaga

Onena, ahalik gutxien hitz egitea eta handik **lehenbailehen** desagertzea. Anjel Lertxundi

Mihia astindu beharko zion, eta **lehenbailehen** gainera. Migel Angel Mintegi

Bigarren arazoari zegokionez, lan bat behar nuela esan nion neure buruari, eta **lehenbailehen**. Bernardo Atxaga

Banoa, baina **lehenbailehen** itzuliko naiz. Aitor Arana

Has zedila erretoliken jarioa eta buka zedila **lehenbailehen**, amorratzen nengoen-eta gosaltzeko. Anjel Lertxundi

Baina natorren **lehenbailehen** kolkoan ditudan adibideetara. Iñaki Segurola

## 2 (aginterazko formekin)

-Irten **lehenbailehen**, Joantxo! Juan Kruz Igerabide

Mesedez, zatoz **lehenbailehen**. Gotzon Garate

Tira, goazen **lehenbailehen**. Migel Angel Mintegi

Atera nazazue hemendik, **lehenbailehen**, erotu aurretik. Migel Angel Mintegi

Aurki ezazu, **lehenbailehen** aurki ezazu, eta gure betiko esker ona izango duzu. Migel Angel Mintegi

-Itzul zaitez **lehenbailehen**, morrosko -hots egin zion neskak medikuari atzealdetik -. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

joateko lehenbailehen (4)

lehenbailehen abiatu (6); lehenbailehen abiatzeko (5); lehenbailehen ahazteko (6); lehenbailehen ahaztu (10); lehenbailehen alde egin (9); lehenbailehen alde egitea (8); lehenbailehen alde egiteko (4); lehenbailehen amaitu (9); lehenbailehen amaitzea (17); lehenbailehen amaitzeko (9); lehenbailehen argitu (5); lehenbailehen argitzea (6); lehenbailehen argitzeko (9); lehenbailehen argitzeko eskatu (5); lehenbailehen atera (7); lehenbailehen ateratzea (5); lehenbailehen ateratzeko (8); lehenbailehen baztertu (4); lehenbailehen bete (4); lehenbailehen betetzeko (5); lehenbailehen biltzeko (4); lehenbailehen bukatu (11); lehenbailehen bukatzeko (9); lehenbailehen egin (18); lehenbailehen egingo (6); lehenbailehen egitea (11); lehenbailehen egiteko (12); lehenbailehen eman (4); lehenbailehen etor (4); lehenbailehen etorri (7); lehenbailehen hartu (8); lehenbailehen hartzeko (7); lehenbailehen hartzeko eskatu (4); lehenbailehen hasi (8); lehenbailehen hastea (7); lehenbailehen hasteko (5); lehenbailehen heldu (8); lehenbailehen hil (4); lehenbailehen ikusi (8); lehenbailehen iristea (4); lehenbailehen iristeko (9); lehenbailehen iritsi (6); lehenbailehen itzuli (6); lehenbailehen itzultzeko (4); lehenbailehen ixteko (7); lehenbailehen jakin (8); lehenbailehen jarri (6); lehenbailehen joan (4); lehenbailehen konpondu (8); lehenbailehen konpontzea (5); lehenbailehen konpontzeko (7); lehenbailehen moztu (4); lehenbailehen onartu (4); lehenbailehen osatzea (4); lehenbailehen ziurtatu (4)

zatoz lehenbailehen (6)

---

# lehenbizi *(526 agerraldi, 87 liburu eta 66 artikulutan)* **1** *adlag* lehendabizi, lehenik.

**Lehenbizi**, ez dudalako zu ezagutzeko poza; bigarren, ez dakidalako noiz izango dudan modua diru hori itzultzeko; hirugarren, [...]. Matías Mujika

Behin eta berriro berpizten den intelektualaren tipo mesianiko hori, Menéndez Pelayotar edo krausista **lehenbizi**, 98tarra gero, laster faxista, demokrata konstituzionalista hurrengo, herri espainolaren arima salbatzeko bokaziokoa beti. Joxe Azurmendi

Arku eskerga bat, ate zulo garai handi bat, zabaltzen zen **lehenbizi**; gero, pabiloiak pilatzen ziren, beren bi teilatu mailekin. Karlos Zabala

Lerro labur bat **lehenbizi**, eta gero bigarrena, luzexeagoa. Aingeru Epaltza

Oporrak bi aldiz izorratuta, izebak **lehenbizi** eta lapurrek gero. Aingeru Epaltza

Kexazko marmar bat sortu zen **lehenbizi**, aparteko neurri horien kontra, eta amorru bizizko garrasi bihurtu zen gero. Karlos Zabala

Argi- **biribilak** lehenbizi, gurutzeak ondoren. Monika Etxebarria

Baina umeak etxean diren begiratuko dut **lehenbizi**, jakina. Koro Navarro

Tom eta biok Lucyri uzten diogu **lehenbizi** aukeratzen. Oskar Arana

**Lehenbizi**, leku bat behar genuen. Karlos Zabala

Utzi eurei **lehenbizi** hitz egiten. Oskar Arana

Jarri txertoa, **lehenbizi**. Berria - Gaiak

-Ba, ez direlako ni, **lehenbizi**. Oskar Arana

Axola zaizu **lehenbizi** hau amaitzen badut? Oskar Arana

## **2** lehen.

Hortzak **lehenbizi**, indizioa emanda ateratzen zituen, baina, behin jeringa puskatu zitzaion, eta hura konpondu arte, batere anestesiarik gabe. Patziku Perurena

Tom heldu zen **lehenbizi** Little House kafetegira. Iñaki Zabaleta

## **3** ***lehenbizian*** hastean.

Zenbait egunen buruan berriz haste, **lehenbizian** bezala lau tokitan, bainan bertzalderdian erraiten duten bezala "porrot" egin dute ez baita hilik izan. Herria

Iraultza horri esker, bazirudien, **lehenbizian**, bizkaitar abertzaleek hitzarmen bat eginen zutela Nafarroako karlistekin. Piarres Xarriton

**Lehenbizian** ni ulertzen saiatu beharko duzu. Gotzon Garate

---

# lehenbiziko *(2069 agerraldi, 121 liburu eta 519 artikulutan)* **1** *izlag* lehenengo, lehen.

Oso erraz nahasten baitituzte teologoek **lehenbiziko** pertsona eta hirugarrena, aitaren etxea eta izpiritu santuren batena. Iñaki Segurola

**Lehenbiziko** gauza: hasi baino lehen, lau hankatan jarri beharra dago. **Lehenbiziko** huts egitea Tomi bizkarra ematea izan zen. Karlos Zabala

**Lehenbiziko** gauean, igotzean, bere historia kontatu zion Florenti luze eta lardaskan. Karlos Zabala

**Lehenbiziko** mugimendua begiekin egiten zen beti, ez beste ezerekin. **Lehenbiziko** bi hilabeteetan. Oskar Arana

**Lehenbiziko** egunak, asteak, hilabeteak iragan dira. Filipe Bidart

Ez zuen gogoan, horrez gain, han izan zituela **lehenbiziko** sintomak: lehenik eta behin, pixkana ikusmena galtzearena. Xabier Olarra

Mutil zurbil argal horrek bere **lehenbiziko** senarra zekarkion gogora. Karlos Zabala

Nire **lehenbiziko** irakurketa-ahaleginak neketsuak izan ziren. Xabier Olarra

Euren **lehenbiziko** bene-benetako etxea. Sonia Gonzalez

Ekainaren **lehenbiziko** astea baino ez, eta uda sasoia bete-betean sartu da. Oskar Arana

Solasaldi hasieratik **lehenbiziko** aldia zuen apaltasun pikor bat adierazten. Aingeru Epaltza

Haren etxera **lehenbiziko** aldiz agertu zirenean. Karlos Zabala

**Lehenbiziko** pitzadura izan zen haren Florentenganako amultsutasunean. Karlos Zabala

· Hargatik gara gu Europako **lehenbiziko** indioak, **lehenbizikoak** eta bakarrak. Iñaki Segurola

## **2** (dagokion izena ezabaturik)

**Lehenbiziko** hortan parte hartu zuen Etxahunek, gaia zela Ameriketarat atzerriratzea. Michel Oronoz

## **3** ***lehenbizikorik*** *adlag ipar* lehendabizi, lehenik.

**Lehenbizikorik** lan baldintzak, xantieretako seguritatea eta higiena; elkarrizketa soziala sustatu behar dela lantegi barnean; azkenik eraikuntzako sektorearen itxura kanpora hobetu behar dela baitezpada. Herria

Eta **lehenbizikorik**, zer da fedea? Piarres Xarriton

Hortik dator **lehenbizikorik**, ez dela nehongo kausarik, kanpotik edo barnetik, Jainkoa ekitera bultzatzen duenik, bere izaeraren betegintzarrea baizik. Piarres Xarriton

**Lehenbizikorik**, zeruko zorion egiazko osoaren eta infernuko zorigaitz egiazko osoaren maiz gogoratzea dela, gure bekatuen penitentzia osoa egitera erakartzen ahal gaituzten gauza hoberenetarik bat. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

bere lehenbiziko (35); bizitzako lehenbiziko (5); denboran lehenbiziko (4); denboran lehenbiziko aldiz (4); egindako lehenbiziko (6); eginiko lehenbiziko (4); haren lehenbiziko (7); horren lehenbiziko (4)

lehenbiziko aldia (82); lehenbiziko aldia zen (20); lehenbiziko aldian (12); lehenbiziko aldikotz (4); lehenbiziko aldiz (126); lehenbiziko aldiz ikusi (5); lehenbiziko bilera (5); lehenbiziko bilkura (9); lehenbiziko egun (6); lehenbiziko eguna (5); lehenbiziko egunak (4); lehenbiziko egunean (18); lehenbiziko egunetan (10); lehenbiziko egunetik (5); lehenbiziko emakumea (6); lehenbiziko fasean (5); lehenbiziko gaua (4); lehenbiziko gauean (7); lehenbiziko gauza (30); lehenbiziko gutunean (5); lehenbiziko haurra (24); lehenbiziko haurra dute (8); lehenbiziko helburua (4); lehenbiziko hilabeteetan (5); lehenbiziko hitzak (6); lehenbiziko intifadan (4); lehenbiziko jendeak (4); lehenbiziko liburua (4); lehenbiziko mundu (4); lehenbiziko partida (8); lehenbiziko pertsona (5); lehenbiziko solairuan (6); lehenbiziko solairuko (5); lehenbiziko urratsa (11); lehenbiziko urratsak (5); lehenbiziko urte (5); lehenbiziko urtea (5); lehenbiziko urtean (12); lehenbiziko urteetan (13); lehenbiziko zatia (5)

mendearen lehenbiziko (4); nire lehenbiziko (13); zure lehenbiziko (4)

lehenbizikoa izan (8); lehenbizikoa izan zen (5); zen lehenbizikoa (11); zuen lehenbizikoa (8)

**hortik dator lehenbizikorik** (5)

# lehenbizikoz *(132 agerraldi, 33 liburu eta 30 artikulutan)* **1** *izlag* lehen aldiz.

Une hartan, **lehenbizikoz** eta azkenekoz historia hartan, burua galdu nian nik ere. Xabier Olarra

Hitz hura **lehenbizikoz** entzun nuenean, oso txikia nintzen, Hain zuzen ere, erietxean **lehenbizikoz** izan zenean, Hare Krishnako lagun asko etorri zitzaizkion bisitan. Juan Kruz Igerabide

Neroni ere pozik egoteko arrazoi aski nuelakoan nengoen, erredakzioan **lehenbizikoz** agertu eta egunkariko zuzendariak, oro koipe eta lausengu, ongi etorri egitean. Aingeru Epaltza

Egia da neronek ere erdi sinistu nuela **lehenbizikoz** nire sakelan sentitu nuenean nire aitaren izenpeko pasaportea. Matías Múgica

**2** lehenbizi, lehenik, hasiera batean.

**Lehenbizikoz** atso zahar bat zela pentsatu nuen, gero aurpegia ezagutu nuen eta, berehala, parkeko atesan azaldu ziren asaltoko tropak. Ramon Etxezarreta

Bazen non zer hauta: menestra edo arroza **lehenbizikoz**, albondigak edo xerra errusiarrak bigarrenez. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bizitzan lehenbizikoz** (4); **historian lehenbizikoz** (3); **lehenbizikoz ikusi** (5)

---

# lehendabizi *(625 agerraldi, 94 liburu eta 168 artikulutan)* **1** *adlag* gainerako gauzen aurretik. ik **lehenbizi; lehenik.**

Amorruak hartu ninduen **lehendabizi**, loak gero. Anjel Lertxundi

Basokada bat ur edan nuen **lehendabizi**, eztiz bustitako galleta batzuk jan nituen gero. Anjel Lertxundi

**Lehendabizi**, barnealdean ezkutatuta, dozena erdi te hartu nituen, eta gero, ordu biak inguruan edo, terrazan eseri nintzen sagar-tarta zati bat jatera. Ramon Saizarbitoria

**Lehendabizi** haren begien oroitzapena galdu nuen, ondoren haren gorputz luzearena. Monika Etxebarria

Eta joan egin zen, **lehendabizi** ni ondo arakatu, epaitu, haztatu eta aztertu ondoren. Josu Zabaleta

Eta **lehendabizi** karramarro baten tamaina hartu bazuen ere, katu handi baten neurrikoa ari zela egiten poliki-poliki. Hasier Etxeberria

Uretara iritsirik, oin biluzia busti du **lehendabizi**. Anjel Lertxundi

Bizi gaitezen **lehendabizi** -idatzi zuen Robert Walserrek Jakob von Gunten eleberrian-, obserbazioak berez etorriko dira eta. Anjel Lertxundi

Grasse-ra iritsi behar izan **nuen** lehendabizi, urrinen herrira, alegia. Josu Zabaleta

Arnasa behar nuen **lehendabizi**. Hasier Etxeberria

-Proba itzazu **lehendabizi** zure kontaktuak. Josu Zabaleta

Marten biztanleak badirela frogatu nahi dizut **lehendabizi**. Josu Zabaleta

Begiak erdi itxi, eta aireari usaina hartu zion **lehendabizi**. Anjel Lertxundi

**Lehendabizi**, otsoak izan diren garbi jakin. Gotzon Garate

-Entzun **lehendabizi**. Josu Zabaleta

Gau hartan bi aldiz egin zuen amodioa emazte logalearekin: **lehendabizi** festa utzi aurretik, eta bigarrenez goizeko seiak aldean, trumoi hotsak iratzarri eta segituan. Patxi Iturritegi

**2** lehen.

Foruzaingoa eta Guardia Zibila ailegatu ziren **lehendabizi**. Edurne Elizondo

Bera izan da **lehendabizi** galdetzen. Gotzon Garate

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**agertu zen lehendabizi** (3); **behar da lehendabizi** (11); **behar du lehendabizi** (3); **behar dut lehendabizi** (4); **egin zuen lehendabizi** (3); **geratu nintzen lehendabizi** (3); **hitza lehendabizi** (3); **izan zen lehendabizi** (4); **izan zuen lehendabizi** (4); **komeni da lehendabizi** (4); **lehendabizi egin** (3); **lehendabizi eta gero** (3)

---

# lehendabiziko *(1170 agerraldi, 96 liburu eta 455 artikulutan)* **1** *izlag* gainerako gauzen aurrekoa.

Hori da **lehendabiziko** gauza. Pako Aristi

Ikusi nuen **lehendabiziko** tabernan sartu nintzen. Anjel Lertxundi

Herbert iratzarri eta esan egingo nion, Palenque hura atzean utziko zuen **lehendabiziko** trena hartu eta banindoala handik, etorritako bidetik, albait lasterren. Joxe Austin Arrieta

Betazalak erre beharrean irakurri ditugu **lehendabiziko** bertsoak. Anjel Lertxundi

Bukatu zen **lehendabiziko** eskola ordua. Anjel Lertxundi

Noir bulebarraren **lehendabiziko** ehun metroak. Monika Etxebarria

Piztu nuen; **lehendabiziko** aldia zen urte hartan. Josu Zabaleta

Ez da **lehendabiziko** aldia. Anjel Lertxundi

Gero eseri egin zen, afari osoan **lehendabiziko** aldiz patxada pixka batez. Anjel Lertxundi

**Lehendabiziko** whiskya bi zurrutadatan edan nuen. Migel Angel Mintegi

Ziklo hartako **lehendabiziko** kontzertuan biolin-jole frantses bat zetorren, Régis Pasquier, Txaikovskiren biolin-kontzertu zoragarria jotzera gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire **lehendabiziko** maite-harreman hura, hain inozoa, oroimenean zizelkatua geratu zitzaidan, harri gogorrean bezain. Juan Kruz Igerabide

• **2** *adlag* lehendabizi, lehenik.

Hildakoak eraman zituzten **lehendabiziko**, eta bizirik zirenen bila etorri ziren gero. Edurne Elizondo

**Lehendabiziko** egin, eta gero gerokoak. Edurne Elizondo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere bizitzan lehendabiziko** (4); **bere lehendabiziko** (18); **bizitzan lehendabiziko** (14); **bizitzan lehendabiziko aldiz** (13); **egindako lehendabiziko** (3); **goizeko lehendabiziko** (5); **gure lehendabiziko** (3

**lehendabiziko aldia** (49); **lehendabiziko aldia zen** (10); **lehendabiziko aldian** (11); **lehendabiziko aldiz** (182); **lehendabiziko aldiz ikusi** (6); **lehendabiziko argazkia** (3); **lehendabiziko aukera** (4); **lehendabiziko bidaia** (3); **lehendabiziko bilera** (7); **lehendabiziko egun** (4); **lehendabiziko eguna** (5); **lehendabiziko egunean** (15); **lehendabiziko egunetan** (5); **lehendabiziko elkarrizketa** (5); **lehendabiziko errematean** (3); **lehendabiziko esperimentu** (3); **lehendabiziko esperimentu abstraktuak** (3); **lehendabiziko eta oinarrizko** (3); **lehendabiziko fasea** (3); **lehendabiziko gauza** (21); **lehendabiziko harria** (3); **lehendabiziko hartu emana** (4); **lehendabiziko helburua** (3); **lehendabiziko hilabete** (3); **lehendabiziko hilabeteetan** (8); **lehendabiziko hitzak** (4); **lehendabiziko kasua** (4); **lehendabiziko kontzertua** (4); **lehendabiziko lana** (6); **lehendabiziko lerroan** (3); **lehendabiziko mintegia** (3); **lehendabiziko momentutik** (3); **lehendabiziko nobela** (5); **lehendabiziko pausoa** (7); **lehendabiziko presidente** (3); **lehendabiziko saioa** (3); **lehendabiziko sei** (3); **lehendabiziko titulua** (4); **lehendabiziko urratsa** (13)

**neure lehendabiziko** (3); **nire bizitzan lehendabiziko** (4); **nire lehendabiziko** (10); **urteko lehendabiziko** (3); **zure lehendabiziko** (4)

---

**lehendakari** *iz* 1 Eusko Jaurlaritzako burua.

Handik aste batera osatu zen lehenbiziko euskal gobernua, Gernikan, Agirre zela **lehendakari**, kontrako bozik gabe. Pello Salaburu

Euskal Autonomia Erkidegoko **lehendakari** Juan Jose Ibarretxe jaunak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

1982a zen: Garaikoetxea zegoen Ajuria Enean **lehendakari**. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** estatu bateko burua; hainbat gobernutako burua. ik**presidente**.

Reagan **lehendakari** amerikarren administrazioak. Ramuntxo Etxeberri

Handik urte betera, ordea, 1947ko martxoan, hantxe bertan urkatu zuten irandarrek Qazi Mohamed **lehendakari** kurdua. Juan Kruz Igerabide

Errepublikako **lehendakari** 1964tik 1971ra bitartean. Fernando Rey

Valery Giscard D'Estaing Frantziako **lehendakari** ohia da-eta salaketaren sujeta. Iñigo Aranbarri

Ordu hartan, Argeliako **lehendakari** ohia Parisen bizi zen exiliatuta. Bernardo Atxaga

Nelson Mandelak hogeita zazpi urte eman zituen gerizpean, eta orain **lehendakari** dago. Iñaki Arranz

2003an Gloria Macapagal Arroyo zegoen **lehendakari**. Ramuntxo Etxeberri

Nafarroako Gobernuko **lehendakari** Miguel Sanz bilerara joango dela ziurtatu zuen atzo Gobernuaren bozeramaile Alberto Catalanek. Berria - Euskal Herria

**3** erakunde bateko burua.

1973an Politburoan sartu eta Sobiet Goreneko Presidiumgo **lehendakari** izan zen. Bernardo Atxaga

Sobiet gorenengo presidiumgo **lehendakari** izan zen. Edorta Jimenez

AEBetako Erreserba Federalaren **lehendakari** ahalguztidun Alan Greenspan-ek. Iñaki Heras

Udalbiltzaren **lehendakari** Loren Arkotxa ere han izan zen. Berria - Harian

*Royal Academy of Arts*eko **lehendakari** izandako Sir Hugh Cassonek . Xabier Olarra

Sustapen Elkarteko **lehendakari** Nerecan jauna lagun zutela.1992an Garaikoetxea EBBko **lehendakari** izendatzea Arzalluzen proposamena izan zen. Askoren artean

San Gil aukeratu dute EAEko PPko **lehendakari**, babes zabalarekin. Berria - Euskal Herria

Begoña Errazti, EA-ko **lehendakari** andereak argi agertu du lehenik bere atxikimendua Europa baketsu eta sozial bati. Herria

Lehen aldiz aurkeztuko da EIko **lehendakari** izateko. Berria - Harian

Epaimahaira hurbildu zen, tribunaleko **lehendakariari** luzatu zion. Koldo Izagirre

Euskadiko Podologoen Elkargoko **lehendakariaren** esanetan. Berria - Gaiak

Gerra **kontseiluko** lehendakariari. Koldo Izagirre

Gratien Adema "Zaldubi" apaiz lapurtarra aukeratu zuten batzordeko **lehendakari**, Martin Guilbeau idazkari. Koldo Zuazo

Joseba Arregi aukeratu dute *Aldaketa* taldeko **lehendakari.** **Berria - Euskal Herria**

Joan Mari Torrealdai *Egunkaria*-ko Administrazio Kontseiluko **lehendakari** eta Jakin-eko zuzendariak. Berria - Harian

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Joan den astekotzat aipatzen ginauzkitzuen **lehendakari** bozken inguruko kalapitak. Herria

Eskuin muturreko ideologo bat zen, eta **lehendakari** kargua hartu bezain laster, ero arriskutsuen esku egongo omen zen gobernua. Oskar Arana

Roman Sudupek San Markoseko **lehendakari** kargua utzi du. Berria - Euskal Herria

Seaskak Ixabel Xarriton hautatu du **lehendakari** postua betetzeko. Berria - Euskal Herria

Retegik azken hiru urteetan **lehendakari** lanak egin ditu. Berria - Harian

**Lehendakari** aldaketak norabide aldaketa ekarriko du ala, besterik gabe, erreleboa hartu duzu? Berria - Kultura

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**administrazio kontseiluko lehendakari** (11); **alderdiko lehendakari** (10); **ardanza lehendakari** (6); **auzitegi nagusiko lehendakari** (12); **batzar nagusietako lehendakari** (8); **batzarreko lehendakari** (20); **batzordeko lehendakari** (18); **bbbko lehendakari** (5); **eaeko lehendakari** (45); **eaeko ppko lehendakari** (19); **eajko ebbko lehendakari** (15); **eajko lehendakari** (22); **eajren ebbko lehendakari** (20); **eako lehendakari** (22); **ebbko lehendakari** (85); **ebbko lehendakari gisa** (6); **ebbko lehendakari ohi** (5); **elkargoko lehendakari** (5); **elkartearen lehendakari** (8); **elkarteko lehendakari** (62); **erakundeko lehendakari** (6); **eusko jaurlaritzako lehendakari** (85); **eusko legebiltzarreko lehendakari** (13); **federazioko lehendakari** (7); **frantziako lehendakari** (6); **gbbko lehendakari** (14); **generalitateko lehendakari** (6); **gobernuko lehendakari** (8); **hautetsien kontseiluko lehendakari** (6); **ibarretxe lehendakari** (8); **imaz ebbko lehendakari** (9); **jaurlaritzako lehendakari** (92); **konfederazioko lehendakari** (5); **kontseilu nagusiko lehendakari** (8); **kontseiluko lehendakari** (29); **legebiltzarreko lehendakari** (20)

**lehendakari aukeratu** (7); **lehendakari berri** (10); **lehendakari berria** (45); **lehendakari berriak** (26); **lehendakari berriaren** (10); **lehendakari berriari** (8); **lehendakari hautatu** (5); **lehendakari izan** (25); **lehendakari izandakoak** (5); **lehendakari izatea** (9); **lehendakari izateko** (32); **lehendakari izateko hautagai** (9); **lehendakari izaten** (5); **lehendakari izendatu** (21); **lehendakari joseba egibarrek** (6); **lehendakari kargua** (19); **lehendakari kargua hartu** (6); **lehendakari kargua utzi** (5); **lehendakari moduan** (5); **lehendakari ohi** (26); **lehendakari ohia** (43); **lehendakari ohiak** (26); **lehendakari ohiaren** (11); **lehendakari ohiari** (5); **lehendakari orde** (21); **lehendakari ordea** (16); **lehendakari ordeak** (8); **lehendakari zen** (5); **lehendakari zenaren** (6)

**nafarroako lehendakari** (12); **ohorezko lehendakari** (7); **ppko lehendakari** (34); **pse eeko lehendakari** (9); **seaskako lehendakari** (6); **udalbiltzako lehendakari** (8)

**administrazio kontseiluko lehendakaria** (7); **batzar nagusietako lehendakaria** (6); **bbbko lehendakaria** (5); **biltzarreko lehendakaria** (9); **eaeko lehendakaria** (43); **eaeko ppko lehendakaria** (7); **eajko ebbko lehendakaria** (5); **eajren ebbko lehendakaria** (6); **eako lehendakaria** (11); **ebbko lehendakaria** (23); **egungo lehendakaria** (8); **elkarteko lehendakaria** (52); **euskal konfederazioko lehendakaria** (7); **euskaltzaleen biltzarreko lehendakaria** (5); **eusko jaurlaritzako lehendakaria** (34); **eusko legebiltzarreko lehendakaria** (7); **federazioko lehendakaria** (15); **fundazioko lehendakaria** (6); **gaur egungo lehendakaria** (6); **gbbko lehendakaria** (6); **gure lehendakaria** (5); **ibarretxe eaeko lehendakaria** (36); **ibarretxe lehendakaria** (55); **idazleen elkarteko lehendakaria** (5); **ikastolako lehendakaria** (5); **imaz ebbko lehendakaria** (7); **jaun lehendakaria** (7); **jaurlaritzako lehendakaria** (40); **konfederazioko lehendakaria** (7); **kontseilu nagusiko lehendakaria** (7); **kontseiluko lehendakaria** (17) legebiltzarreko lehendakaria (10); **lehen lehendakaria** (5)

**lehendakaria aukeratzeko** (9); **lehendakaria da** (34); **lehendakaria izan** (28); **lehendakaria izango** (8)

**miarritzeko lehendakaria** (5); **nafarroako lehendakaria** (5); **ohorezko lehendakaria** (9); **pen klubeko lehendakaria** (5); **ppko lehendakaria** (12); **sanz nafarroako lehendakaria** (5); **seaskako lehendakaria** (5); **taldeko lehendakaria** (9); **udalbiltzako lehendakaria** (7)

**agirre lehendakariak** (17); **alderdiko lehendakariak** (5); **arkotxa udalbiltzako lehendakariak** (10); **at durruty lehendakariak** (5); **batzordeko lehendakariak** (17); **beñ bertsozale elkarteko lehendakariak** (6); **chirac frantziako lehendakariak** (6); **claverie seaskako lehendakariak** (5) durruty lehendakariak (6); **eaeko lehendakariak** (174); **eajko ebbko lehendakariak** (21); **eajko lehendakariak** (17); **eajren ebbko lehendakariak** (8); **eako lehendakariak** (37); **ebbko lehendakariak** (67); **egungo lehendakariak** (11); **ehneko lehendakariak** (5); **elkarteko lehendakariak** (68); **erakundeko lehendakariak** (7); **errazti eako lehendakariak** (10); **esan zuen lehendakariak** (5); **espainiako gobernuko lehendakariak** (6); **eusko jaurlaritzako lehendakariak** (121); **eusko legebiltzarreko lehendakariak** (7); **federazioko lehendakariak** (10); **frantziako lehendakariak** (9); **fundazioko lehendakariak** (5); **gbbko lehendakariak** (14); **gipuzkoako ppko lehendakariak** (6); **gobernuko lehendakariak** (13); **hautetsien kontseiluko lehendakariak** (8); **ibarretxe eaeko lehendakariak** (98); **ibarretxe jaurlaritzako lehendakariak** (5); **ibarretxe lehendakariak** (131); **ikastolako lehendakariak** (7); **imaz eajko lehendakariak** (6); **imaz ebbko lehendakariak** (17); **jaurlaritzak eta lehendakariak** (5); **jaurlaritzako lehendakariak** (136); **konfederazioko lehendakariak** (10); **kontseilu nagusiko lehendakariak** (19); **kontseiluko lehendakariak** (19); **legebiltzarreko lehendakariak** (10); **lehen lehendakariak** (6)

**; lehendakariak adierazi** (22); **lehendakariak adierazi zuenez** (9); **lehendakariak atzo adierazi** (6); **lehendakariak atzo iragarri** (5); **lehendakariak azaldu** (12); **lehendakariak azaldu duenez** (6); **lehendakariak azpimarratu** (7); **lehendakariak egin** (8); **lehendakariak egindako** (7); **lehendakariak eman** (8); **lehendakariak erran** (5); **lehendakariak esan** (21); **lehendakariak esan zuen** (8); **lehendakariak hartu** (9); **lehendakariak nabarmendu** (7); **marcel martin lehendakariak** (6); **nafarroako lehendakariak** (18); **pen klubeko lehendakariak** (5); **ppko lehendakariak** (22); **pse eeko lehendakariak** (8); **raxoi ppko lehendakariak** (7); **realeko lehendakariak** (6); **sanz nafarroako lehendakariak** (8); **seaskako lehendakariak** (12); **taldeko lehendakariak** (6); **udalbiltzako lehendakariak** (21); **xarriton seaskako lehendakariak** (6)

**eaeko lehendakariarekin** (13); **eusko jaurlaritzako lehendakariarekin** (14); **ibarretxe eaeko lehendakariarekin** (9); **ibarretxe lehendakariarekin** (21); **jaurlaritzako lehendakariarekin** (20); **lehendakariarekin batera** (9); **lehendakariarekin bildu** (14); **lehendakariarekin bilduko** (5); **lehendakariarekin eta** (6); **lehendakariarekin izandako** (6)

**agirre lehendakariaren** (25); **eaeko lehendakariaren** (29); **eako lehendakariaren** (5); **ebbko lehendakariaren** (11); **elkarteko lehendakariaren** (8); **eusko jaurlaritzako lehendakariaren** (12); **gbbko lehendakariaren** (5); **ibarretxe eaeko lehendakariaren** (12); **ibarretxe lehendakariaren** (35); **jaurlaritzako lehendakariaren** (19); **lehendakariaren aburuz** (5); **lehendakariaren arabera** (15); **lehendakariaren emazte** (17); **lehendakariaren emaztea** (9); **lehendakariaren emazteak** (28); **lehendakariaren emazteari** (21); **lehendakariaren esanetan** (18); **lehendakariaren hitzak** (9); **lehendakariaren hitzetan** (11); **lehendakariaren inbestidura** (7); **lehendakariaren iritziz** (6); **lehendakariaren irudiko** (6); **lehendakariaren jarrera** (5); **lehendakariaren mezua** (6); **lehendakariaren plana** (8); **lehendakariaren proposamena** (6); **lehendakariaren ustez** (20); **tourvel lehendakariaren** (50); **tourvel lehendakariaren emazteak** (25)

**eaeko lehendakariari** (35); **ebbko lehendakariari** (5); **eusko jaurlaritzako lehendakariari** (26); **ibarretxe eaeko lehendakariari** (20); **ibarretxe lehendakariari** (27); **jaurlaritzako lehendakariari** (33); **lehendakariari zuzendu** (5)

**erkidegoetako lehendakarien** (5)

**behasteguy gerlarien lendakariak** (4); **gerlarien lendakariak** (4); **gerlarien lendakariak irakurtu** (3); **lendakariak egin** (3); **lendakariak irakurtu** (4); **lendakariak irakurtu du**

(3)

# lehendakarigai *(orobat **lehendakari-gai**)* *iz* lehendakari izateko aurkezten dena. ik **presidentegai**.

AEBetako hauteskundeetan Alderdi Demokratako **lehendakarigai** izan daitekeen John Kerryren aldeko botoa eskatu zuten. Berria - Kultura

Gasteizko legebiltzarkide eta **lehendakarigai** hautatu zuten Juan Karlos Ioldi ataundarra 1986ko azaroaren 30ean. Jokin Urain

Maria San Gil izango da PPren Jaurlaritzarako **lehendakarigaia**.

AEBetako hauteskundeetan Alderdi Demokratako **lehendakarigai** izan daitekeen John Kerryren aldeko botoa eskatu zuten. Eskuindar **lehendakari-gaia** zenaren arabera. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lehendakarigai aurkeztu** (3); **lehendakarigai izateko** (7)

**eaeko lehendakarigaia** (5)

**eaj eako lehendakarigaiak** (3); **eako lehendakarigaiak** (3); **ppko lehendakarigaiak** (4)

# lehendakarikide *(orobat **lendakari-kide**)* *iz* norbaitentzat, harekin lehendakari dena.

Eta Monica Frassoni Berdeen **lehendakarikideak** berretsi: «Adierazpen askatasunaren arazoa Europako herri frankotan ezagutzen da, nahiz eta ez den hainbeste aipatu nahi. Berria - Harian

Federazioko **lehendakari**-kide Saida Benhabyles aljeriarrak, ostera, EB kritikatu zuen. Berria - Euskal Herria

# lehendakariorde *(orobat **lehendakari-orde** g.er.)* *iz* lehendakariaren hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa. ik **presidenteorde**.

Ibarretxeren **lehendakariordea** izan nahi duelako. Berria - Harian

Beldurra genion **lehendakariorde** zela; orain, lehendakari zela, hobe lotara joatea berehala. Juan Kruz Igerabide

Emakume honek, Pepsicolako **lehendakari-ordea** Estatu Batuetan, 300 milioi pezeta irabazten omen zituen urtean. Arantxa Iturbe

Gizon hori ez al da National City Bank izenekoaren **lehendakariordeetako** bat? Lopez de Arana

Jose Ramon Goikoetxea Ingeniaritza saileko **lehendakariordeak**. Berria - Ekonomia

Nik bezala **lehendakariorde** kargua du, baina Zaharraren laguntzaile berezia da, eta hura Honolulun zenez, bera zen nagusi. Xabier Olarra

Kerryk Edwards izendatu du **lehendakariorde** hautagai. Berria - Mundua

Iraultzaren Aginte Kontseiluko **lehendakariorde** kargua bete zuen. Berria - Mundua

Iñaki Gabilondo Realeko ekonomia **lehendakariordea.** **Berria - Kirola**

Jose Luis Markaidak, Arrateren agintaldian ekonomi **lehendakariorde** lanetan aritutakoak, taldearen Ekonomi Kontrola eramango du. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**elkarteko lehendakariorde** (3); **espainiako gobernuko lehendakariorde** (4); **eusko jaurlaritzako lehendakariorde** (10); **gobernuko lehendakariorde** (6); **ibarretxeren lehendakariorde** (4); **idoia zenarrutzabeitia lehendakariorde** (4); **jaurlaritzako lehendakariorde** (15); **kutxako lehendakariorde** (3); **lehendakariorde izan** (6); **lehendakariorde izateko** (3); **lehendakariorde izendatu** (3); **lehendakariorde kargua** (8); **mankomunitateko lehendakariorde** (4)

**batzordeko lehendakariordea** (5); **eaeko lehendakariordea** (5); **ibarretxeren lehendakariordea** (4); **ibarretxeren lehendakariordea izan** (4); **idoia zenarrutzabeitia lehendakariordea** (3); **jaurlaritzako lehendakariordea** (3); **legebiltzarreko lehendakariordea** (4); **lehendakariordea izan** (5)

**azaldu zuen lehendakariordeak** (4); **elkarteko lehendakariordeak** (4); **espainiako gobernuko lehendakariordeak** (4); **eusko jaurlaritzako lehendakariordeak** (9); **idoia zenarrutzabeitia lehendakariordeak** (12); **jaurlaritzako lehendakariordeak** (14); **lehendakariordeak azaldu** (5); **lehendakariordeak azaldu duenez** (3); **lehendakariordeak jakinarazi** (3); **mahaiko lehendakariordeak** (4); **olbeko lehendakariordeak** (3); **zenarrutzabeitia jaurlaritzako lehendakariordeak** (3); **zenarrutzabeitia lehendakariordeak** (12)

**jaurlaritzako lehendakariordearen** (3); **la vega lehendakariordearen** (3); **lehendakariordearen ahotik** (3); **lehendakariordearen arabera** (4); **lehendakariordearen esanetan** (3); **lehendakariordearen iritziz** (3); **lehendakariordearen ustez** (3)

# lehendakariordegai *iz* lehendakariorde izateko aurkezten dena. ik **presidenteordegai**.

Eta John Edwards haren **lehendakariordegaiak** hauxe esan du AEBen etsaiei buruz: «Suntsitu egingo ditugu». Berria - Mundua

# lehendakariordetza *iz* lehendakariordearen kargua eta titulua. ik **presidenteordetza**.

Javier Rojo PSE-EEko Arabako presidentearen anaiak finantza erakundeko **lehendakariordetza** izan du azken lau urteetan. Berria - Ekonomia

Gizarte ongizateari dagokion guztia bere gain hartzen **duen** lehendakariordetza. Berria - Harian

**Lehendakariordetzako** iturriek salatu dutenez --, beste 10,5 milioi ordaindu gabe utzi ditu Madrilek. Berria - Ekonomia

**Lehendakariordetzako** iturriek esan dutenez, Jaurlaritzak hitz egiten eta negoziatzen jarraitzeko asmoa du. Berria - Euskal Herria

Gainerako bost alderdietako ordezkariek **lehendakariordetza** sektorial banaren ardura izango dute. Berria - Euskal Herria

Estatutuek diotenez, lehendakaritza nahiz **lehendakariordetza** bi urtez behin aldatzen dira hiru erakundeen artean. Berria - Kultura

# lehendakarisa *(Euskaltzaindiak desegokitzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea)* *iz ipar* emakumezko lehendakaria.

Esküalde kontseilüko laborantxa lantaldearen **lehendakarisa**. Herria

*Hemen* elkartearen **lehendakarisa** den Dominique Durruty armendariztarrak dauku lehenik elkartearen berri eman. Herria

Iragan ortziralean Lapurdi gelan Haltsu, Jatsu, Larresoro eta Uztaritze-ko auzapezak bildu dira Baionako Familien Laguntza Kutxako Genevieve Lebard andere **lehendakarisaren** inguruan. Herria

# lehendakaritza 1 *iz* lehendakariaren kargua eta titulua. ik **presidentetza**.

Gaur egun Irlandak du Europako Batasuneko **lehendakaritza**. Berria - Euskal Herria

Hilabete barru Europako Batasuneko **txandakako** lehendakaritza hartuko duen estatuak. Berria - Harian

Batzorde horretako zaharrena zen eta berorri egokitu zitzaion taldearen **lehendakaritza**. Andres Urrutia

Fernando Lamikiz presidenteak **lehendakaritza** hartu aurretik. Berria - Kirola

Erronka handia dute sozialistek datorren urteari begira: Juan Jose Ibarretxeri **lehendakaritza** kentzea.

Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan **lehendakaritza** lortzen saiatuko dira. Berria - Euskal Herria

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko **lehendakaritza** irabazi arte. Berria - Euskal Herria

Kataluniako Generalitateko **lehendakaritza** geureganatzeko aukera izateko. Berria - Mundua

Confebask Euskal Enpresaburuen Elkarteko **lehendakaritza** utzi eta bederatzi hilabetera. Berria - Ekonomia

Erreferenduma Frantziako **Lehendakaritza** zazpi urtetik bost urtera pasatzeari buruzkoa zen.Arzalluz ohartua zegoen laster EBBko buruzagitza hutsik geratuko zela, sortzear zen Eusko Jaurlaritzako **lehendakaritza** Garaikoetxeak hartuz gero EBBko **lehendakaritza** hutsik geratuko zela susmatzen zuelako. Berria - Harian

**Lehendakaritzako** hauteskundeetan. Berria - Mundua

Normala da **lehendakaritzara** iritsi den presidenteak bere kirol proiektua aurrera eramateko konfiantzako pertsonak aukeratzea. Berria - Kirola

-Orain, **lehendakaritzan** , burokraziak ez al du bera ere irentsiko? Pako Aristi

**2** lehendakariaren bulegoa eta bulegoko taldea.

EB-Berdeetako **Lehendakaritzako** eledun Mikel Aranak. Berria - Euskal Herria

Josu Legarreta **Lehendakaritzako** ordezkaria, eta Irune Zuluaga Sabino Arana fundazioko zuzendaria. Berria - Kultura

Jaurlaritzako **Lehendakaritzak** bertan behera utzi du Euskadi Kirol Sarien banaketa. Berria - Harian

Ana Armesto Bilboko Finantza Elkarteko presidentea atzo Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariarekin bildu zen Gasteizen, **Lehendakaritzaren** egoitzan. Berria - Ekonomia

**Lehendakaritzako** prentsa aretoa. Berria - Euskal Herria

**Lehendakaritzak** berak ikerketa bat egin zuen, eta atera zuten ondorioa izan zen euskal gizartean gehienek ondo ikusten zutela selekzio propioak izatea. Berria - Kirola

Ekainean egoera bideratzeko akordioa lortu zutela azaldu zuen **Lehendakaritzak** . Berria - Ekonomia

**3** lehendakariaren egoitza.

Bezperan deitu zuen EAEko **Lehendakaritzara** . Berria - Euskal Herria

**Lehendakaritzan** itxarotea erabakita, Carltonera jo nuen. Edorta Jimenez

Jordi Sevilla Eusko Jaurlaritzako lehendakari Juan Jose Ibarretxerekin bildu zen **Lehendakaritzan** . Berria - Euskal Herria

Espaniako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lehendabiziko bilera ofiziala izan zen atzo **Lehendakaritzan** . Berria - Euskal Herria

Bilera amaitzean, komunikabideen aurreko agerraldi laburra **Lehendakaritzan** . Berria - Harian

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Herri elkargoko **lehendakaritza** kargu bat da; gero eta garrantzia gehiago izanen duena. Berria - Harian

**Lehendakaritza** Jauregiko parkean atera ziguten argazkian. Edorta Jimenez

**Lehendakaritza** Batzordeak iragan asteko bileran onetsi zuen Gasteizko Euskara Plana. Berria - Euskal Herria

Felipe Gonzalezen orduko gobernuko **Lehendakaritza** ministro eta bozeramailea zen. Berria - Euskal Herria

**Lehendakaritza** zinegotzi arduradun Idoia Garmendiak. Berria - Euskal Herria

Udalek eskaerak eta txosten teknikoak bideratu beharko dituzte Nafarroako Gobernuko **Lehendakaritza** Sailera. Berria - Euskal Herria

Gaspar Zarrias **Lehendakaritza** sailburuak. Berria - Euskal Herria

**Lehendakaritza** taldearen osaketa. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ebbko lehendakaritza** (7); **eusko jaurlaritzako lehendakaritza** (3); **gobernuko lehendakaritza** (4); **jaurlaritzako lehendakaritza** (3); **lehendakaritza hartu** (7); **lehendakaritza hartuko** (3); **lehendakaritza lortzeko** (3); **lehendakaritza utzi** (6); **txandakako lehendakaritza** (5)
>
> **jaurlaritzako lehendakaritzak** (3)
>
> **eaeko lehendakaritzako** (3); **eb iuko lehendakaritzako** (4); **eusko jaurlaritzako lehendakaritzako** (5); **iuko lehendakaritzako bozeramaileak** (3); **jaurlaritzako lehendakaritzako** (5); **lehendakaritzako bozeramaile** (4); **lehendakaritzako bozeramaileak** (5); **lehendakaritzako egoitzan** (6); **lehendakaritzako iturriek** (8); **lehendakaritzako iturrien arabera** (3)
>
> **lehendakaritzara iritsi** (3)
>
> **aebetako lehendakaritzarako** (5); **athleticeko lehendakaritzarako** (6); **athleticeko lehendakaritzarako hautagaia** (3); **batzarreko lehendakaritzarako** (4); **bbbko lehendakaritzarako** (3); **eaeko lehendakaritzarako** (9); **eaeko lehendakaritzarako hautagai** (3); **eaeko lehendakaritzarako ppko** (3); **ebbko lehendakaritzarako** (5); **eusko jaurlaritzako lehendakaritzarako** (6); **frantziako lehendakaritzarako** (6); **jaurlaritzako lehendakaritzarako** (6)
>
> **lehendakaritzarako bozetan** (5); **lehendakaritzarako hautagai** (19); **lehendakaritzarako hautagaia** (9); **lehendakaritzarako hautagaiak** (6); **lehendakaritzarako hauteskunde** (8); **lehendakaritzarako hauteskunde kanpaina** (3); **lehendakaritzarako hauteskundeen** (9); **lehendakaritzarako hauteskundeetako** (3); **lehendakaritzarako hauteskundeetan** (7)
>
> **lehendakaritzaren egoitzan** (7)

---

# lehendanik *(19 agerraldi, 5 liburu eta 4 artikulutan)* **1** *adlag* lehendik.

Nahiz **lehendanik** lerroa laburtua izan, betiko ospe berean iragaiten da eta kartsutasun berean. Herria

Haizeak aldatu direla **lehendanik** , hori egia! baina ez ote du behar haizeak ere lagundu, haizea berak nahi duen alderat emaiten utzi gabe. Herria

Biluzteko ohidura hori aldatua da **lehendanik** , zeren eta sobera jende sartzen baita joko horretan; Atsoa eta Tupina itotzen bezala dituzte eta sobera laster biluzten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mintzairak, une orotan, **lehendanik** finkaturiko sistema bat eta bilakaera bat inplikatzen ditu. Isabel Arrigain

**2** ***lehendaniko*** *izlag*

Ontzat hartzen du badaudela hitzez **lehendaniko** ideia erabat osatuak. Isabel Arrigain

**Lehendaniko** bi forma sailen artean. Isabel Arrigain

**Lehendaniko** madarikazioa du, zaharrena, berekin: anaiaren hilketa. Juan Garzia

**3** ***lehendanik ere***

Gure literaturan hitzaren ekonomia maisutasunez erabili duenik bada **lehendanik** ere, bat aipatzearren Sarrionandia. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **lehendanik bazegoen** (3); **lehendanik bazeuden** (3); **lehendanik ere** (3)

---

# lehendari *iz* lehendakaria.

Euskal-Herrian bakebide batzueri buruz egiteko den indarra, **lehendariak** berrikitan egin proposamenak berme, itsasoa kotsatua delakotz diren arrangurak eta ere zalutasun handiko treinaren arazoa. Herria

Hitz horiek, **lehendariak** zionaz, ene leku berean bilduak zituen "Eskualdun gazteriari". Herria

Jean Bordaxar Mauleko Pastorala elkarteko **lehendariak** gogogorazi zuen mauletarrek 1928. eta 1967. urteetan eman zituztela pastoralak. Berria - Kultura

---

# lehendariorde *iz* lehendakariordea.

Hala, 1998ko apirilean, Europako Demokrateen Batasuneko presidenteorde izan zen eta 1999an, Europako Legebiltzarreko alderdi kontserbadoreetako hautetsiak biltzen dituen Europako Alderdi Popularreko **lehendariorde** izendatu zuten. Berria - Mundua

---

# lehendik *(796 agerraldi, 153 liburu eta 272 artikulutan)* 1 *adlag* testuinguruan aipatzen den denboraren aurretik.

Droga utzita zeukan, baina, antza denez, **lehendik** zeukan benenoa. Bernardo Atxaga

Artur **lehendik** saminez beterik bazegoen, areago orain. Juan Kruz Igerabide

Haien arteko inork ere ez zuen **lehendik** Lucy ezagutzen, eta, hortaz, aurkezpenak izan ziren lehenbiziko eginbeharrekoa. Oskar Arana

Itsasontzira ezin azal daitekeela **lehendik** bertan ez dagoenik inor, Ivy, esate baterako. Joxe Austin Arrieta

Hori **lehendik** ere bazekiela, ez ziola gaixotasunak irakatsi. Imanol Zurutuza

Ezagutzen nuen **lehendik**. Hasier Etxeberria

**Lehendik** zuen hartua herioa inguruan zebilkiolako susmoa Wolfgang Amadeusek. Imanol Zurutuza

Entzunak zituen **lehendik** halako kontakizunak. Imanol Zurutuza

Gizon batek, **lehendik** ezaguna zuen gizon batek, Korinto hirian topo egin baitzuten aspaldi, geldiarazi zion. Felipe Juaristi

Nahi gabe hil baitu bere lagun hurkoa eta ez **lehendik** gorroto zuelako. Elizen arteko biblia

**Lehendik** datozen arazoak berritzen eta argitzen dituzten garrantzi handiko lanak. Josu Zabaleta

**Lehendik** zegoena baino kaos handiago bat lortu duela. Joxe Azurmendi

## 2 *lehendikako izlag*

Baina herrian susmoak **lehendikakoak** izango ziren, noski, eta nahikoa izan zen Zora eta bere alaba mugitzen hastea, herritik irten eta berehala harrapatu baitzituzten. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 3 *lehendiko izlag*

**Lehendiko** esperientziaren eta asoziazioen arabera. Josu Zabaleta

**Lehendiko** ohitura baitzuten adiskideek Camillaren baranoan biltzekoa, hura mirestera. Mirentxu Larrañaga

## 4 *lehendik ere*

Bazeuzkaten hiru **lehendik** ere, eta ez zuten gehiagorik nahi. Juan Kruz Igerabide

Egotismoaren gela itxi eta itsua, **lehendik** ere bisitatu izan dudana. Xabier Mendiguren Elizegi

Ikusiak zituen **lehendik** ere italiarrak Amsterdameko eliz atarietan. Felipe Juaristi

**Lehendik** ere ezaguna nuen bulego ñimiño hartan. Xabier Mendiguren Elizegi

Idazle handiaren **buru** lehendik ere zurian. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ezagutzen nuen lehendik** (3); **lehendik bagenekien** (3); **lehendik eginak** (4); **lehendik eginda** (3); **lehendik egindako** (4); **lehendik ere** (275); **lehendik ere banekien** (3); **lehendik ere entzuna** (3); **lehendik ere esana** (4); **lehendik ere ezaguna** (4); **lehendik ere izan** (5); **lehendik esana** (3); **lehendik ezaguna** (4); **lehendik ezagunak** (5); **lehendik ezagunak ziren** (3); **lehendik ezagutzen** (36); **lehendik ezagutzen nuen** (9); **lehendik izan** (5); **lehendik pentsatuta** (3); **lehendik zegoen** (5); **lehendik zetorren** (3); **lehendik zetozen** (3); **lehendik zeuden** (6); **lehendik zeukan** (5)

---

# leheneko *(63 agerraldi, 15 liburu eta 43 artikulutan)* 1 *izlag* lehengoa.

**Leheneko** denboretan ospetsu bezain orain erdi hutsa den herriaren lurrezko karriketan. Piarres Aintziart

Hemen ikusten dugu garbiki **leheneko** jendeek ere zerbait ikusiak zirela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ikusi da nolazbait beti **leheneko** pentsamoldetan eta gogoetan zagoela. Menane Oxandabaratz

Ez zela komentua **lehenekoa**, ez eta erlijiosoak ere. Anjel Lertxundi

Hots, dei bat zen hori ere, **lehenekoen** gainerat, elgarrekin joka diten eta ez berexka amerikar eta europearrak. Herria

· Azaroaren **leheneko** jaia ospatzearren. Joanes Urkixo

GRAPO **Urriaren** Leheneko Erresistentzia Talde Antifaxistak.

## • 2 *adlag* aipatzen den hilebetearen lehena baino lehen.

Bulgariak eta Errumaniak behar lukete europear nazioneetan onartuak izan helduden 2007ko urtarrilaren **leheneko**. Herria

Nahi duena etortzen ahal da izenak emanez ostaturat edo 05 59 29 86 33erat martxoaren **leheneko**. Herria

Ekainaren **leheneko** kontuetan helduak ziren 782.000 eurotara. Herria

## 3 *maiatzaren leheneko izlag* ik **lehen 10.**

Frango jendetsu izanak dira jadanik maiatzaren **leheneko** ibilaldiak. Herria

Maiatzaren **Leheneko** mobilizazioetan. Berria - Ekonomia

Maiatzaren **Leheneko** mintzaldia. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**apirilaren leheneko** (3); **ekainaren leheneko** (3); **maiatz leheneko** (4); **maiatzaren leheneko** (15); **martxoaren leheneko** (5); **otsailaren leheneko** (5); **uztailaren leheneko** (4)

---

# lehenen *adlag* lehen.

Greziar gizon bat ausartu zen **lehenen**, bere begi hilkorrak altxatzen eta aurka egiten. Xabier Amuriza

«Prezioen gorakadak guri eragiten ditu **lehenen**», azaldu dio *Berria*ri Hiru sindikatuko idazkari nagusi Mikel Etxeberriak. Berria - Ekonomia

Beharrezkoa dut ahalik eta **lehenen**, une berean, apuntatzea. Honelakoetan irakasleak nola edo hala asmatu beharko du **lehenen** gai hori nola azaldu. Joxemari Urteaga

Hegan **lehenen** iritsia **lehenen** sar dadin, elkar jo eta hausten ekin gabe. Xabier Amuriza

---

# lehenengo *(7810 agerraldi, 225 liburu eta 2483 artikulutan; orobat **lelengo** g.er.)* 1 *izlag* lehenbizikoa, aurrena.

Mikel Strogoffek geltokira jo zuen **lehenengo** trena hartzeko asmotan. Karlos Zabala

**Lehenengo** urratsa izango da okerrena. Eider Rodriguez

Oporretako **lehenengo** astean. Iñaki Mendiguren

Bidean aurkituriko **lehenengo** tabernan. Migel Angel Mintegi

Ulises eta semea ere borrokan hasi ziren **lehenengo** ilarakoekin. Juan Kruz Igerabide

**Lehenengo** hiru-lau urteetan jende berbera agertu zuan, bizpahiru gazte sutsuk lagunduta. Jokin Muñoz

Nire **lehenengo** itsas bidaia! Joxe Austin Arrieta

**Lehenengo** urteko ikasle ikaratuei. Iñaki Mendiguren

**Lehenengo** klaseko bi gela erreserbatu zituen. Karlos Zabala

Hogeigarren mendearen **lehenengo** erdian. Irene Aldasoro

**Lehenengo** globalizazio garaian, 1870 eta 1914 urte bitartean, [...]. Iñaki Heras

**Lehenengo** aldiz egin zuten topo elkarrekin Jauregi Berriko jaialdi hartan. Karlos Zabala

Hurbildu eta **lehenengo** aldiz ezarri zidan eskua. Juan Martin Elexpuru

**Lehenengo** aldiz sartu nintzenean hementxe ikusi nuen. Joxemari Urteaga

**Lehenengo** aldia da...! Juan Martin Elexpuru

Halakorik gertatzen zaion **lehenengo** aldia da. Iban Zaldua

Ez zen **lehenengo** aldia, gainera. Martin Anso

· Hura izan zen maletan sartu nuen **lehenengoetako** gauza. Bernardo Atxaga

## **2** (dagokion izena ezabaturik)

**Lehenengoa** eta garrantzitsuena, hau: ingeniaritza biomedikoa ez da ingeniaritzaren beste adar batzuk bezalakoa. Irene Aldasoro

Gose grebetan egunik txarrena **lehenengoa** dela. Jokin Urain

Bigarren gutun hark ez zioen ezer **lehenengoak** ez zioenik. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez da izango zorabiatu den **lehenengoa**. Iñaki Mendiguren

-Nolatan -zioen **lehenengoak** -, nolatan zu ontzi honetan, nire lankide maitea? Karlos Zabala

Alfa hotelera iristen **lehenengoetarik** izan nintzen. Edorta Jimenez

Azken egunean, **lehenengoan** bezala, haren gorputza ez zen ez eri, ez gaixo. Joan Mari Lekuona

Nobela liburutegira heldu orduko, fitxatu eta zigilua jarri zion 111, 211 eta 311. orrialdeetan; baita **lehenengoan** ere. Iban Zaldua

**Lehenengoarengana** hurbilduz, trapua jaso eta larrua gozatu zion, eta orobat egin zion bigarrenari. Pablo Sastre

## **3** *adlag* aurrena.

Amonak negar egin zuen, eta enperadore txikiak bi eskutxoak elkartu eta otoi egin zuen ekialdera begira, **lehenengo**, eta mendebaldera, gero. J.M. Olaizola "Txiliku"

Txortan hasi zen; jarraikor eta sutsu **lehenengo**, etengabe eta bortitz ondoren. Aitor Arana

**Lehenengo** irten zena ilegorria zen, abere-larrua bezain iletsua. Jose Antonio Mujika

-Sar hadi hi **lehenengo**, Alazne -esan zion Arantxak-. Fernando Morillo

**-Lehenengo** -hasi zen osaba Vernon purrustaka -, zuk mihia zainduko duzu Margeri hitz egiterakoan. Iñaki Mendiguren

Josemarik ene atzealdean ezkutatzeko mugimendua egin zuen **lehenengo**, gero esan zuen ahapeka: 'Aita!'. Joseba Sarrionandia

Amak pipa jarri zion alboan **lehenengo**. Mirentxu Larrañaga

Eta, habiatik ihes egingo banuen, ikasketak amaitu behar **lehenengo**. Xabier Mendiguren Elizegi

Dena dela, **lehenengo**, istorioa izaten da eta horrekin abiatzen naiz, gehiegi jakin gabe, burutuko den edo ez. Ana Urkiza

**Lehenengo** ni pasatuko naiz Harryrekin. Iñaki Mendiguren

**Lehenengo-lehenengo**, bazkaldu egingo dugu. Anjel Lertxundi

## **3** ***lehenengoz*** lehen aldiz.

Erradioterapia sailera **lehenengoz** joan zirenean. Imanol Zurutuza

1620an eman zen **lehenengoz** argitara. Askoren artean

Orduantxe entzun nuen, **lehenengoz**, Koronelari eta Otsemeri buruzko txutxu-mutxua. Mirentxu Larrañaga

Preso hartu zutenetik **lehenengoz**, bere esperantza ez zen guztiz funtsik gabea. Bernardo Atxaga

Banekien bazirela [...] baina aurrez aurre, benetakoak, han ikusi nituen **lehenengoz**. Arantxa Iturbe

*Ánimas* karrakako kanoien danbada **lehenengoz** eta ia azkenekoz orduantxe entzun nuela. Edorta Jimenez

Lehoiek erasotako artalde sakabanatua zen Israel; Asiriako erregeak irentsi zuen **lehenengoz**; gero, Babiloniako errege Nabukodonosorrek txikitu zeharo. Elizen arteko biblia

## **4** ***lehenengo eta behin***

Azaldu behar dizut, **lehenengo eta behin**, ezezkoak, nolabait, atributuak direla, eta zertan ezberdintzen diren baiezkoetatik; ondoren, argitu eginen dizut nola ezin diogun Jainkoari atributurik eman ezezkoen bidez ez bada, eta ez bestela. Xabier Kintana

Euskal idazleak zerbait baldin badira "euskal" dira **lehenengo eta behin**, eta gero "idazle", zeren batzuetan kosta egiten da, eta nola gainera, testu bat hartu eta euskara dela irenstea. Pello Salaburu

Komunean **lehenengo eta behin** maskuria hustu, gero dutxa arina hartu eta ilea lehortu... Sonia Gonzalez

**Lehenengo eta behin**, nire nebari eta zure hezitzaile zintzo honi eman zaitezen gura dut; gero bilatuko ditugu beste batzuk. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bi arrazoiz: **lehenengo eta behin**, isilpekotasuna behar-beharrezkoa zen hor, ezinbestekoa, zeren jentilek ulertzeak sakrilejio-salaketaren arriskua ekar baitzezakeen berekin; bigarrenik, [...]. Juan Garzia

Gorputz hitzak, **lehenengo eta behin**, Kristoren gorputz (eta odol) txit santua adierazten du. Askoren artean

Horretarako, **lehenengo eta behin**, haren izena jakin beharko baitzuen. Edorta Jimenez

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**bizitzan lehenengo aldiz** (15); **lehen lehenengo** (9)

**lehenengo abisua** (8); **lehenengo aldia** (195); **lehenengo aldian** (25); **lehenengo aldiz** (397); **lehenengo astean** (9); **lehenengo atala** (22); **lehenengo atalean** (14); **lehenengo aukera** (10); **lehenengo begiratuan** (9); **lehenengo biderrez** (8); **lehenengo bilera** (14); **lehenengo disko** (8); **lehenengo diskoa** (36); **lehenengo diskoan** (21); **lehenengo egun** (11); **lehenengo eguna** (24); **lehenengo egunean** (52); **lehenengo egunetan** (31); **lehenengo egunetik** (30); **lehenengo ekintza** (11); **lehenengo erasoa** (8); **lehenengo esaldia** (8); **lehenengo eskola** (11); **lehenengo eta behin** (176); **lehenengo eta bigarren** (30); **lehenengo etapa** (8); **lehenengo euskal** (9); **lehenengo fasea** (10); **lehenengo fasean** (12); **lehenengo finala** (12); **lehenengo galdera** (16); **lehenengo garaipena** (8); **lehenengo gauean** (14); **lehenengo gauza** (72); **lehenengo hamar** (8); **lehenengo hiru** (20); **lehenengo hiruhilekoan** (23); **lehenengo hitzak** (11); **lehenengo inpresioa** (8); **lehenengo itzulian** (14); **lehenengo kasuan** (20); **lehenengo kontzertua** (10); **lehenengo lana** (32); **lehenengo lau** (9); **lehenengo lerroan** (10); **lehenengo liburua** (21); **lehenengo liburuan** (11); **lehenengo maila** (13); **lehenengo mailako** (10); **lehenengo mailan** (11); **lehenengo minutuetan** (10); **lehenengo mundu** (10); **lehenengo orduan** (12); **lehenengo partida** (32); **lehenengo partidan** (16); **lehenengo pausoa** (29); **lehenengo pertsonan** (9); **lehenengo pisuan** (15); **lehenengo postuan** (8); **lehenengo saioa** (11); **lehenengo saria** (16); **lehenengo sei** (16); **lehenengo seihilekoan** (11); **lehenengo solairuan** (19); **lehenengo umea** (8); **lehenengo unetik** (8); **lehenengo urratsa** (28); **lehenengo urratsak** (8); **lehenengo urtea** (8); **lehenengo urtean** (15); **lehenengo urteetan** (11); **lehenengo urteko** (16); **lehenengo urtekoak** (10); **lehenengo zatia** (24); **lehenengo zatian** (44); **lehenengo zirriborroa** (10)

**lehenengoz ikusi** (15).

---

# **leheneratsu** *adlag* lehenera gutxi gorabehera.

Gure baserri eta kostaldeko antzerako giroetan, agudo pasatu ohi baitzen Eguberriaren erasana, laburra ohi zen itzala, eta *Estebantxu orduko,* ***leheneratsu*** *berriro.* Pello Zabala

---

**leheneratu**, lehenera(tu), leheneratzen *(30 agerraldi, 5 liburu eta 18 artikulutan)* da/du *ad* lehengoratu, lehengo egoerara etorri edo ekarri.

Berak zera uste izan zuen, ni pertsona hain meneragaitza ere ez nintzela eta, elkarrekin astebete eman ondoren, berriro dena **leheneratuko** zela. Joxe Austin Arrieta

Errege galtzadak eta Erdi Aroko zubiak **leheneratzen** ari dira. Berria - Euskal Herria

Aurton beste 380.000 euro erabiliko ditu zenbait udalerrietako lur kutsatuak **leheneratzeko.** **Berria - Euskal Herria**

AEBek 1979an moztu zituzten harremanak **leheneratzeko** inolako zantzurik ez du erakutsi Ahmadinejadek. Berria - Harian

Lesioak zituen sagu baten giharrak **leheneratu** zituzten molekula horiei esker. Berria - Gaiak

1990eko hamarkadan gainbehera utzitako inteligentzia sistema **leheneratzen** saiatzen ari da Bush. Berria - Mundua

Irakeko petrolio azpiegitura **leheneratzeko** kontratua eskuratu zuen enpresak, zuzenean, inolako lehiaketa publikorik gabe. Berria - Mundua

Japoniarren hegazkinek ohar edo gaztigurik gabe, ezkutuan, jo zuten erasoa Pearl Harbourren obra biziak **leheneratzen** ari zen ontzidi estatubatuarraren aurka. Jon Alonso

Frankismoaren biktimak moralki eta ekonomikoki **leheneratzeko** legea. Berria - Mundua

---

**lehenetsi**, lehenets, lehenesten **1** du *ad* lehentasuna eman.

Ongizatearen gainetik ere, gizakiaren segurantzia **lehenetsi** beharko baita. Edorta Agirre

Markatutako politikak **lehenetsitako** itzulpenak **lehenetsiko** lituzke administrazioak laguntzak ematerakoan ere. Anjel Lertxundi

Axaleko dotorezia **lehenetsiz**, gu ilustratuok baino mila aldiz sen hobeagoko euskara zerabilten hiztun asko lotsarazi eta mututu ditugu. Joxerra Garzia

Duintasuna **lehenesten** zuten guztiek, jenialtasunaren aurretik. Anjel Lertxundi

Irizpide etnologikoek hariztiaren alde jartzen gintuzten, literarioek lizardia **lehenetsi** behar genuela esaten ziguten. Anjel Lertxundi

Ezinbestez **lehenetsiko** ditu bertsolariak hizkuntzaren senak berak errazago eskaintzen dizkion baliabideak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Edukiak **lehenetsi** dira, balioen gainetik. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izeonodo gisa)

Dena dela, boto baliogabearen aukera leundu egin du exekutibak, orain horri «modu **lehenetsia**» iritzita eta beste aukera kritikoak nabarmenduta. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aukera lehenetsi** (3); **politikoak lehenetsi** (4)

---

**lehengai** **1** *iz* industriak lantzen eta eraldatzen duen gaia.

Lasterrago handitu baitziren salgaien prezioak fabrikazio-kostuak (soldatak eta **lehengaiak**) baino. Koro Navarro

Merkatuez eta baliabideez (**lehengaiak**, lan-eskua, banaketa-sareak, teknologia, ikerketa, dirua aurreztea, etab.) jabetzeko. Koro Navarro

**Lehengai** guztietan petrolioa da estrategikoena. Koro Navarro

Petrolioak eta **lehengai** metalikoek goia jo dute. Berria - Ekonomia

Ohiko produktuak saltzen zituzten, bai, baina **lehengai** naturalekin egindakoak soilik. Berria - Ekonomia

Nekazaritza nahiz meatzaritzako **lehengaiak** zentroko herrialdeetara eramateko. Koro Navarro

Gure gastronomia, besteak ez bezala, **lehengaietan** oinarritzen da. Ramon Saizarbitoria

Ingalaterra, garai hartan, periferiako herrialdea zen, **lehengaien** esportatzaile, Eskandinavia eta Errusia bezalaxe. Koro Navarro

Txina, Vietnam, Indonesia edo Bangladesh bezalako herrialdeak **lehengaiak** esportatu eta eskuz landutako produktuak inportatzen zituzten. Iñaki Heras

Bizitzeko ezinbestekoak diren **lehengaiak** ezin ekoiztu. Pello Salaburu

Beste lekuetan aurkitzen ez diren **lehengaiak** ustiatzeko. Koro Navarro

**2** irud/hed

Arnasa hartzeko behar dugun aire hori berori da, gainera, hizketa hotsen **lehengai**. Horregatik, pentsamendu izena ere ez zuen merezi; pentsakizun baten it zala zen beharbada, edo pentsakizun baten **lehengaia**, lehenagotik ere hantxe gordea zegoena. Lourdes Oñederra

Argudio-hobi horietatik ateratzen da argumentazioaren **lehengaia**, ondoren [...] argudio-egituratan agerian nahiz gordean artikulatzen direnak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Umeek eskaintzen zioten **"lehengaia"** aprobetxatu zuen bere obra nagusia idazteko. Julen Gabiria

Emakumetasuna ez dut erabiltzen ez tresna, ez baliabide modura; izatekotan, **lehengaia** da. Ana Urkiza

Laburtuz, egoera **lehengaia** da: landua izatea eskatzen du. Monika Etxebarria

Itxuraz urri eta trakets diren hizkuntzek **lehengaia** eskaintzen dute kultura landu eta konplexu baterako. Bernardo Atxaga

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lehengai** merkatuetan iaioa ez den eta arriskuez jabetzen ez den jende piloa dago. 1970etik aurrera etengabe murriztu da munduko **lehengai**-esportazioetan -petrolioarenean izan ezik-, garapen-bideko herrialdeek duten ehunekoa. Koro Navarro

Kapital naturala, **lehengai** eta energia hornitzaile gisa, gizakiak sortutako kapitalaren osagarria da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

EBren hedapena eta **lehengai** falta jo ditu Elkargik arrisku nagusitzat. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lehengai metalikoen** (4); **lehengai nagusia** (3)
> **egiteko lehengaia** (4)
> **bestelako lehengaiak** (3)
> **industriako lehengaien** (3); **lehengaien eskasia** (3); **lehengaien garestitzea** (5); **lehengaien garestitzeak** (4); **lehengaien kostua** (3); **lehengaien kostuak** (5); **lehengaien merkatuan** (3); **lehengaien prezio** (8); **lehengaien prezio errealen** (3); **lehengaien prezioa** (4); **lehengaien prezioak** (3); **lehengaien prezioen** (6)

---

**lehengo** *(2531 agerraldi, 256 liburu eta 1099 artikulutan –**lehengo** forma soilik-)* **1** *izlag* igarotako aldi edo denborakoa.

Zaldi holandarra, **lehengo** baserritarrek goldatzeko erabiltzen zituzten haietakoa. Bernardo Atxaga

Dorre azpian, **lehengo** ziega zaharra berrireki zuten. Aingeru Epaltza

Politagoa hengoen **lehengo** zima luze haiekin! Bernardo Atxaga

Gero ez zen beraren aldamenean eseri, **lehengo** tokian baizik, ohearen aurreko aulkian. Jose Morales

**Lehengo** leku berean gaude oraindik, erromantikoek egin ziguten hartan. Bernardo Atxaga

Guk **lehengo** ohiturei eusten diegu. Bernardo Atxaga

Leku askotan desagertu dira **lehengo** kartzela zaharrak. Jokin Urain

Neskatxak, amaren destainaren aurrean, ezentzuna egin zuen eta **lehengo** ahots desatsegin berberarekin jarraitu zuen. Patxi Zubizarreta

Gaixotasuna erabat desagertu eta **lehengo** osasuna berreskuratu zuen. Askoren artean

Katalinak **lehengo** irriñoa berrituz erantzun zidan, arestian bezain hitz gutiko. Aingeru Epaltza

Beti **lehengo** denboretara begira. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Judako errege Roboamengana, **lehengo** bere jaunarengana. Elizen arteko biblia

Bere **lehengo** jaun Saulengana igaroko zela pentsatuz. Elizen arteko biblia

Erruen ordainkizuneko azalaren azpian **lehengo** bizitzaldian egindako hobenak sumatzen zituen. Josu Zabaleta

Bere **lehengo** biziera arbuiatuz, indar eta baliabide guztiez Jaunaren zerbitzura jartzen da. Askoren artean

Eguneko **lehengo** hiru piastren ordez, hogeita hamarreko lansaria jasotzen zuen. Patxi Zubizarreta

**Lehengo** haritik pentsamenduak, galde egin nion Tomasi: [...]. Bernardo Atxaga

Baina atera gaitzazu gaitzetik, / **lehengo**, oraingo eta gerokotik. Askoren artean

Lehengoak **lehengo**, beste urte eta erdi joan zitzaidan faximil ateratzen, argazki biltzen, testu moldatzen. Patziku Perurena

**2** (hilabete eta egunen izenekin, eta urte eta kidekoekin; ik beherago **4**)

Eta nehor ere prest ez balego, indiarrak erabil genitzake, zeren, aita saindu Paulo III.ak **lehengo** mendean erabaki bezala, haiek ere arima dute. Joan Mari Irigoien

Catherine, nire adinetik hurbilen zegoen alaba, **lehengo** urtean zendua zen. Aingeru Epaltza

Berarekin zuen ezpata, **lehengo** urtean Martin Epaltza bizkaitarrari kendu ziona. Aingeru Epaltza

**Lehengo** urtean eztiki artatu ninduten han, bi hilabetez, nire eriondoan. Aingeru Epaltza

- **Lehengo** astean eta aurrekoan bajan egon nauk **-Lehengo** astean zientziaz eta arteaz aritu nintzaizun, oroitzen al zara? Pablo Sastre

**Lehengo** astean, berriz, zelai hartarat joan nintzen paseoan, eta, gaztaroko pasadizo hura gogoratzen nuela, leku bertsuan etzan nintzen. Joan Mari Irigoien

Badakizu zer komentario egin zuen **lehengo** egun batean, bazkarian, sozio sartu naizen klubaren berri ematen ari nintzela? Bernardo Atxaga

Pena handia dauka **lehengo** igandean harmonioa jotzera joan ez zinelako. Bernardo Atxaga

Etsaiak behartuta aterea nintzen, **lehengo** otsailean, Nafarroatik, eta orain garaitua zen etsai hori. **Lehengo** gauean, Asensio jeneralarekin afaldu beharra izan nuen, zoritxarrez. Aingeru Epaltza

**Lehengo** urteko uda hondarreko egun batean. Joan Mari Irigoien

**Lehengo** urteko abenduan. Unai Elorriaga

**Lehengo** asteko larunbatean, Berria-ren azalean: [...]. Iñigo Aranbarri

**Lehengo** asteko nire ibileren berri eman nion, xehe-mehe. Aingeru Epaltza

**Lehengo** igandeko *El Diario Vasco*-n. Iñigo Aranbarri

Ni iritsi naizenean, **lehengo** asteazkeneko irakurketaz ari ziren. Bernardo Atxaga

**3** ***lehengo batean*** lehengo egunean.

**Lehengo batean**, lagunarte on batean nengoela, gure aberriaren gaia ekarri zuen solasak. Bernardo Atxaga

**Lehengo batean**, hala esaten zidan hor nonbaiteko baserri bateko alabak: gu, komeni denean Errenteriakoak, komeni denean Oiartzungoak eta komeni denean Astigarragakoak. Iñaki Segurola

**Lehengo batean** J.L. Bernardo Atxaga

Zabalak zioen gehiago identifikatzen garela Tourreko etapa batean sufritzen ari den ziklistarekin, Ruandan goseak hiltzen ari den jendearekin baino. **Lehengo batean**, Goizuetako Toberenea etxe izena eta toberak aipatzen nituen, eta aurreko igandean horra non jakin dudan [...]. Bernardo Atxaga

**Lehengo batean** turista espainiar bat kexu zen dendan: ez zioten pezetarik ametitu nahi Hendaian. Hasier Etxeberria

**Lehengo batean** Oteizaren anekdota gogora ekarri zidan gertakari batez konturatu nintzen. Hasier Etxeberria

Harropuzkeria da hori, esaten zidan **lehengo batean** lagun batek. Joxemari Iturralde

Oinez dabilena da gaurregun ere jenderik libreena, **lehengo batean** amona Paulina Urkiolak esaten zidan bezala. Patziku Perurena

Nik neuk ikusi nuen **lehengo batean** nola gertatu zen horixe, S autobuseko atzealdeko plataforman. Xabier Olarra

**4** ***lehengo egunean***

Baina **lehengo egunean** Marilynen "Tentazioa goikoan bizi da" filma ikusi ninan eta, gauzak nola diren, harrezkero behin eta berriz egin dinat amets berarekin. Migel Angel Mintegi

**-Lehengo egunean** haren agentzian izan ninduan, aspaldiko partez. Aingeru Epaltza

Buruxut heldu zen, **lehengo egunean** bezain burgoi eta ilun aire batek hartua. Aingeru Epaltza

-Frai Josep? - **lehengo egunean** mahaian zen, gurekin bazkaltzen. Aingeru Epaltza

Tinbrea jo zuten **lehengo egunean**, zure liburuen fitxak egiten ari nintzela. Koldo Izagirre

· Pasatu al zaizu **lehengo eguneko** tristezia hura? - galdegin zidan. Hasier Etxeberria

**Lehengo eguneko** pistola utzi zuen nire eskuetan. Aingeru Epaltza

**Lehengo eguneko** gurutzeak apaintzen zion paparoa. Aingeru Epaltza

Egingo nuke **lehengo eguneko** minigona motz likrazkoa dakarrela soinean. Patxi Iturritegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**burua lehengo lepotik** (5)

**lehengo aldean** (10); **lehengo aldia** (5); **lehengo aldiz** (6); **lehengo astean** (127); **lehengo asteburuan** (6); **lehengo asteko** (14); **lehengo astelehenean** (8); **lehengo batean** (86); **lehengo bera** (34); **lehengo berak** (5); **lehengo berberak** (8); **lehengo bere** (5); **lehengo bi** (7); **lehengo bide** (7); **lehengo bidetik** (14); **lehengo bizitza** (6); **lehengo denboretako** (5); **lehengo denboretan** (21); **lehengo egoera** (6); **lehengo egoerara** (10); **lehengo eguna** (5); **lehengo egunean** (91); **lehengo eguneko** (35); **lehengo egunekoa** (5); **lehengo emakume** (5); **lehengo era** (5); **lehengo eta** (41); **lehengo eta oraiko** (15); **lehengo eta oraingo** (10); **lehengo garai** (6); **lehengo garaiak** (7); **lehengo garaietan** (6); **lehengo gau** (9); **lehengo gauean** (13); **lehengo gauza** (6); **lehengo gizon** (7); **lehengo hariari** (5); **lehengo hartan** (8); **lehengo hilean** (8); **lehengo hitz** (7); **lehengo hura** (8); **lehengo igandean** (9); **lehengo itxura** (11); **lehengo izena** (5); **lehengo jarrera** (8); **lehengo larunbatean** (20); **lehengo lehengoa** (5); **lehengo lekuan** (21); **lehengo lekuan utzi** (6); **lehengo lekura** (7); **lehengo lepotik** (57); **lehengo lepotik burua** (35); **lehengo maila** (5); **lehengo moduan** (17); **lehengo moldean** (6); **lehengo ohidura** (5); **lehengo ostegunean** (10); **lehengo ostiralean** (15); **lehengo tokian** (24); **lehengo tokira** (5); **lehengo urtean** (27); **lehengo urteko** (16); **lehengo zaharrek** (7)

**lehengoa baino okerragoa** (5)

---

# lehengoratu, lehengora(tu), lehengoratzen *(55 agerraldi, 15 liburu eta 21 artikulutan)* da/du *ad* lehengo egoerara etorri edo ekarri. ik **leheneratu**.

Familiako gainerako kideak [...] libre egonik ere, ez ziren **lehengoratu** gatibutzako gabezien ondotik. Aingeru Epaltza

Emakumea Estany Llong-era iritsi arte ez da **lehengoratu**. Aingeru Epaltza

Diotenez, erraz nahastuko litzateke urarekin, eta berehala **lehengoratuko** litzateke itsasoa. duela 30 urte ia hilik zegoen erreka **lehengoratzen** ari da. Berria - Gaiak

Alfonso Sanchezen argazkiak **lehengoratzeko** antzinako teknikak teknika modernoekin elkartu dituzte. Berria - Kultura

Bilbo aipatu dute Txinako hiriak **lehengoratzeko** eredu gisa. Berria - Kultura

90 eguneko epea jarri dute salbamendu plana aurkeztu eta «akziodunek galdu duten konfiantza **lehengoratzeko**. Berria - Ekonomia

Alabaina, horrek guztiak ez zuen bion arteko harmonia andeatua **lehengoratu**. Aingeru Epaltza

Ez genuen erretaularen pintura **lehengoratu** behar edo txapiteletako erliebeak garbitu edo halako ezer. Xabier Mendiguren Elizegi

Lege politikoak familiaren bati oinordekotzari uko eginarazi dionean, zentzugabea dela lege zibiletik ateratako **lehengoratzeak** erabili nahi izatea. Iñaki Iñurrieta

**lehengoratze** *iz* lehengo egoerara etortzea edo ekartzea.

Ingurumenaren errespetua eta ondarearen **lehengoratzea** uztartuko ditugu. Ez da, historiaren mugetan, agortezineko a prioria, aldi berean atzeraka doana, abiapuntu orori, **lehengoratze** genetiko orori, ihes egingo liokeelako, eta ezingo lukeelako sekula izan bere buruaren garaikidea osotasun esplizitu batean. Xabier Arregi

Artia ubidean egin diren **lehengoratze** lanak. Berria - Euskal Herria

Ni ez naiz aditua kostaldeko ekosistemen **lehengoratze** prozesuetan. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lehengoratze lanak (3)

**lehengozale** *izond* lehengo gauzen zalea dena.

Aldaketen eta denboraren aurkako gotorleku zen Pontito: herri bakartu, aldagaitz, **lehengozalea**. Xabier Olarra

**lehengusina** **1** *iz* lehengusu emea.

Bi **lehengusina** zituen, oso maite zituenak. Iban Zaldua

Hori Clara da, zure **lehengusinen** ahizpa txikia -erantzun zion izebak. Iban Zaldua

Nire bi anaia eta **lehengusina** bat hil zituzten diktaduran, eta beste lehengusu bat desagerrarazi. Berria - Mundua

Nire andrearen **lehengusina** gaztea, Koralezko lepokoa ekarri nahi zion Caroline **lehengusinari**. Karlos Zabala

-Nola dago nire **lehengusina** Rachel? Oskar Arana

Ziur nago **lehengusina** Helenak han askotan hartu duela tea. Lopez de Arana

Haren apartamentura deituko du telefonoz, eta Pauline **lehengusinak** hartuko du deia. Oskar Arana

Egia esan, ez naiz inola ere gaiztoa, **lehengusina** Cecily. Antton Olano

Banandu, eta Elsa Einstein **lehengusinarekin** ezkondu zen. Berria - Harian

Gure aitaren **lehengusinak** eta izebak. Fernando Rey

-Mezu bat bidali diozu... zeure **lehengusinari**?... Karlos Zabala

13 urteko **lehengusinari** sexu gehiegikeriak egiteagatik. Berria - Euskal Herria

Orduan, gu zaintzeko, **lehengusina** bat ekarri zuten amarenetik. Bernardo Atxaga

Tartean izaten dira Australian dituen bederatzi osaba-izebak eta 21 lehengusu-**lehengusinak** ere. Berria - Kirola

**2** ***lengusina propio*** lehen mailako lehengusina.

Amélie Sagardia, ene izeba txikia nolabait esateko (izeba-amona delako), eta amaren **lehengusina propioa**, Gero, itzuli eta urdaitegi bat zabalduko zuen Troyesen, non bere **lehengusina propioa**, Augustine Landois, baitzeukan zain. Txillardegi

Nire adiskide min hori, Gwendolen **lehengusina propioa** diat. Antton Olano

**3** ***lehengusina txiki*** bigarren mailako lehengusina.

Beti iruditu izan zait nire **lehengusina txikia** dela, eta ez nire izeba. Txillardegi

Zu Cecily izango zara, nire **lehengusina ttikia**. Antton Olano

Nire **lehengusina ttikia** zen eta ia nire arreba ere bazela esango nukeen. Gotzon Garate

Ekainaren zortzikoa, Ainhoa, **lehengusina** txikia. Patxi Iturritegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lehengusina cecily (7); lehengusina propioa (3); lehengusina txikia (3)
> lehengusu lehengusinak (8)
> lehengusu lehengusinen (5)

**lehengusu** **1** *iz* norbaitentzat, gurasoen anai-arreben semea edo alaba. ik **kusi**.

Hiru **lehengusu** gizonezko ditut, ni baino sei bat urte gazteagoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Nola bertako nagusiak osaba-izeba nituen eta haien seme-alabak **lehengusu**. Joan Mari Irigoien

*ik* lehengusina.

Nire **lehengusu** Maria Teresa da hori, osaba Migelen lehenengo umea. Xabier Mendiguren Elizegi

Horra, zure **lehengusu** Isabelek semea izango du zahartzaroan. Patxi Altuna

Berenize eta ni **lehengusuak** ginen, eta elkarrekin hazi ginen nire gurasoen oinetxean. Koro Navarro

Amaren **lehengusu** baten senarra hil da. Lourdes Oñederra

**Lehengusu** haiek -mutilzahar eta neskazaharrak denak-, bazituzten etxeak hiriburutik hurbileko zenbait herritan Aitaren arreba bat salbu, denak ezkonduak ziren eta orotara hogeita sei **lehengusu** baginen. Josu Zabaleta

Zure **lehengusu** Juanek dio han lana erruz dagoela, jende asko joaten ari dela hara. Jon Maia

Beraz, ez dun hire **lehengusu** Florent maite? Karlos Zabala

-Eta nor arraio da, ba, Martin **lehengusu** hori? Jon Muñoz

Nire amona Teresaren **lehengusua** zen don Jose Larrea. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero, Amianori begiratuz, **lehengusua** zuela aitortu behar izan zuen. Ramon Saizarbitoria

Bi anaiek **lehengusuak** jarri zituzten aitona zelatatzen. Pello Lizarralde

Urrutiko **lehengusu** bat naizela esango diot, ahaide pobre bat. Koro Navarro

Zenbat ordu ez ote nituen egin koadroko neure **lehengusu** ustezkoaren aitzinean! Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan)

Tartean izaten dira Australian dituen bederatzi osaba-izebak eta 21 **lehengusu**-lehengusinak ere. Berria - Kirola

**3** ***lehengusu propio*** lehen mailako lehengusua.

Beatrizen harako **lehengusu propio** hark [...] luze ondua zuela kakofoniaren eta kaosaren posibilitateak infinituraino zabaltzeko gauza zirudien poema bat. Juan Garzia

Enbaxadoreak gutun bat utzi zion Patriziori, honek Granadako gobernadore bere **lehengusu propioari** ematekotan. Felipe Juaristi

Guk ere ez dakigu, baina garbi dago, behintzat, Grezia zaharrean Meleagro izeneko **lehengusu propio** bat izan zuela. Martin Anso

· Neurosiaren **lehengusu propioa** den fanatismoa, jatun exkaxen laineza bat besterik ez da. Iñaki Segurola

**4** ***lehengusu txiki*** *(orobat **tipi** g.er. eta **ttiki** g.er. eta **lehengusuttiki** g.er.)* bigarren mailako lehengusua.

Salamancara bidali ninduen baina ez bakarrik, **lehengusu** txiki baten laguntzarekin, hark ni zaintzeko eta nitaz arduratzeko aginduekin. Felipe Juaristi

Nire **lehengusu txiki** Juan Mari eta Karlos Garzia Otegi ezagutzen nituen, aitonaren auzoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire aitaren **lehengusu txiki** bati. Xabier Mendiguren Elizegi

Haietarik bat, hiruretan lehena, bere **lehengusu tipi** bat zen, Xalbador Etxegoien. Joan Mari Irigoien

Beren jaioterriko lehengusu nahiz **lehengusu ttiki** guztiekin. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aitaren lehengusu** (5); **amaren lehengusu** (3); **aneren lehengusu** (3); **ene lehengusu hernandoren** (3); **lehengusu argala** (5); **lehengusu argalak** (4); **lehengusu fidel** (3); **lehengusu hantusteak** (9); **lehengusu hernando** (4); **lehengusu iharra** (3); **lehengusu ilegorria** (8); **lehengusu ilegorriak** (3); **lehengusu ilegorriari** (3); **lehengusu lehengusinak** (8); **lehengusu lehengusinen** (5); **lehengusu maitea** (5); **lehengusu maria teresa** (3); **lehengusu mussa arafat** (3); **lehengusu propio** (5); **lehengusu propioa** (6); **lehengusu txiki** (6); **lehengusu txikia** (4); **lehengusu txikiari** (3); **nire lehengusu maria** (3)

**aneren lehengusua** (5); **hernando lehengusua** (3); **martin lehengusua** (8)

**antonio lehengusuak** (4); **martin lehengusuak** (8)

**zubiaga lehengusuek** (4)

**lehengusuen etxean** (3)

---

lehengusuttiki ik **lehengusu 4.**

---

# lehengusutxo *iz adkor* lehengusua.

Gaur gauean primeran pasatuko duzu zure **lehengusutxoekin**... Lopez de Arana

-Trebea izan zara honaino heldu ahal izateko, **lehengusutxo** -esan zion, bere irribarre burlatia erakutsiz. Joanes Urkixo

---

# lehenik 1 *adlag* lehen buruan, beste ezer baino lehen, aurrenik. ik **lehenbizi.**

**Lehenik** Uterga izanen da, gero Muruzabal, azkenik Obanos, hiruak Valdizarbe haranean kokatuak. Piarres Aintziart

Euskal Herrian ikusi ditu Juan Jose Ibarretxe **lehenik** eta Arnaldo Otegi gero. Herria

**Lehenik** baxerak eta gero ikusiko. Filipe Bidart

Irache hotelean kafe on bat, **lehenik**, eta gero, gosari nasaia. Piarres Aintziart

Espainolez aritu da **lehenik**, eta frantsesez erantzun du hurrengo deia. Berria - Kirola

Meza nagusia **lehenik** Orriako Eliza ederrean euskaraz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Martiri izateko irrikaz, **lehenik** Espainiara eta gero Siriara joan zen. Askoren artean

Argi bihur dezakeen argitik urruntzen duen aje hori bera ezkutuan gertatu zen **lehenik** eta ondoren agerian. Imanol Unzurrunzaga

Berak edan zuen **lehenik**, bi hurrupada luze, nire eskuetan utzi baino lehen. Aingeru Epaltza

Bihotzetik irten eta gero, zirkulazio sistemikoko arterietara banatzen da **lehenik** odola [...]; handik, arteriola izeneko beste hodi txikiago batzuetara, eta kapilar estuetara gero. Irene Aldasoro

Baina denak, apez baitziren **lehenik**, salatari eta block-etako enpleatuengatik, beren apez lanaren egitera bermatzen ziren. Marzel Etxehandi

Ez ote zaie egundainotik hurbilekoei eta etxekoei zor maitasuna, **lehenik**? Piarres Xarriton

Aita **lehenik**, gero ama, joanik, anaia eta arreba familiatuak izanez, beren mundu errealean ari eta ari, funtsezko atxikimendu baten gabean eta beraz bakardadearen libertate kasik osoan bizi naiz oraindanik. Piarres Aintziart

Halaxe ageri zen Sabeth nire gainean, edo nire aldamenean, hobeto esanda: **lehenik** bere espartinak, gero bere aztal biluziak, eta izterrak, ikuspegi murriztu hartan ere lirain askoak, ondoren bere pelbis galtza bakero atezatuetan hertsia; esku biak patriketan sartuak, zutik. Joxe Austin Arrieta

Langile mexikarren etxeak zeuden **lehenik**; hurrena, osaba Juanena izandakoa, nire egoitza Stonehamera iritsi nintzenetik; azkenean, gailurrean bertan, loratei batez inguratua, Davidek bere osabarengandik jaso zuena Euskal Herritik Ameriketara aldatzean. Bernardo Atxaga

## 2 *lehen-lehenik*

Garapen ekonomiko iraünkorrak **lehen-lehenik** gazteen jakitate, ahalmen eta oldarrean bermatü behar dü. Herria

Xabi Soubelet-ek eskertu ditu elkartea laguntzen duten guziak eta **lehen lehenik** Donibaneko herria. Herria

Ez diezazuket egun zehatza erran; baina ez ezazu dudarik egin ezen, heldu orduko, **lehen lehenik** zuri dizudala jakinaraziko. Jon Muñoz

Español hitz horrek hori du **lehen lehenik** erran nahi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## 3 *lehenik eta behin* lehenik.

**Lehenik eta behin** euren ahotsa entzun dut. Urtzi Urrutikoetxea

**Lehenik eta behin**, ostatura itzuli behar nuen. Alberto Ladron Arana

**Lehenik eta behin** haren ogibidea zein zen ez zekielako; gero, tabernariak ongi esan bezala, primerako emakumea zelako gauero ordu luzeetan zulo batean usteltzen egoteko; eta, azkenik, hiltzailea ergeltzat hartzen ez zuelako.Erregu egin zion, gero, **lehenik eta behin** hiru aldiz jotzeko txirrina, eta hurrena bi aldiz, sartzen utz ziezaion. Migel Angel Mintegi

Hori baino gehiago behar da: bertsoak behar dira, **lehenik eta behin**; eta bertsook zer-nola kantatu ziren jakin behar genuke zehatz-mehatz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Alboko erdarez ari garela, gaztelania eta frantsesa datozkigu **lehenik eta behin** gogora. Iñaki Arranz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**eta lehen lehenik** (20); **eta lehenik** (58); **ikusi nuen lehenik** (6); **izan zen lehenik** (7); **lehen lehenik** (215); **lehenik ahalbidetzen** (6); **lehenik ariko** (9); **lehenik ariko dira** (9); **lehenik erran** (6); **lehenik eta behin** (488); **lehenik eta gero** (25); **lehenik gazteak** (7); **lehenik ikusi** (10); **lehenik joan** (6); **lehenik meza** (11); **lehenik mintzatu** (7)

---

# lehenki *iz pl* lehen elementuak, gai guztien etorkia direnak.

Zeren ortziaren eta jainkoen azken arrazoia azaltzera eta gauzen **lehenkiak** agertzera bainoakizu, zeintzuokin naturak gauza oro sortzen, handitzen eta elikatzen duen, eta zeintzuotara berriz ere, desegindakoan, itzularazten dituen; zeintzuoi, geure doktrina azaltzean, materia, gorputz genitalak edo gauzen haziak deitzen diegun, baita lehen gorputzak ere esaten diegun, eurotatik, **lehenkiotatik**, baitator dena. Xabier Amuriza

Ezertxo ere ez da, beraz, hutsera etortzen, denak, banaturik, materiaren **lehenkietara** itzultzen baizik. Xabier Amuriza

Gero, eguzki sorberriak bere izpiekin lurra irekitzen eta beroa beronekin nahasiz dilatatzen duenean, suaren **lehenkiek** antzinako egoitzetara alde egiten dute eta uraren bero guztia lurrera itzultzen da. Xabier Amuriza

Haren beroak, edontziaren alboetatik sarturik, hauek laxotu eta porotsuago egiten dituelako eta, gero, edontzian bertan, ardoaren **lehenkiak** berehala askatzen eta barreiatzen dituelako. Xabier Amuriza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gauzen lehenki** (4)

**gauza guztien lehenkiak** (4); **gauzen lehenkiak** (16)

lehenkusi ik **kusi 2**.

lehenseme ik **lehen 9**.

lehentarzun ik **lehentasun**.

# lehentasun *(orobat* ***lehentarzun*** *g.er.)* **1** *iz* lehena denaren egoera edo nolakotasuna.

Langileen erakunde baten beharretara egokitzeko eta masa-mugimenduari **lehentasun** handiagoa emateko batez ere. Rafa Egiguren

Egonkortasuna izan da gure **lehentasun** nagusia hasieratik. Berria - Euskal Herria

EAJ prest dago bakeari **lehentasun** osoa emateko. Berria - Euskal Herria

Euskararen batasunari eman zitzaion **lehentasuna**. Koldo Zuazo

Nik literatura ona sortu nahi dut, kalitatezkoa; horixe da nire **lehentasuna**. Jon Arretxe

Erdarak eskura izanda, euskararen batasuna ez zen **lehentasuna**. Koldo Zuazo

Objektuaren **lehentasun** naturaletik subjektuarenera pasatu da. Askoren artean

Badu behakuntzak **lehentasun** epistemikorik? Askoren artean

**Lehentasun** batzuk ere markatzen zituen. Xabier Mendiguren Elizegi

Industria astunei emandako **lehentasun** erabatekoak. Koro Navarro

Euskarari, mintzairetan, **lehentasuna** behar zaiola atxiki erabaki da urriaren 23an, Herriko Etxe eta Euskal Konfederazioaren arteko bilkuran. Herria

Biztanleriaren oinarrizko eta **lehentasunezko** beharrak ez dira asetzen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zein izango da **lehentasun** araua? Iñaki Heras

**Lehentasun** eskumena erabiliko du Azkaratek. Berria - Euskal Herria

**Lehentasun** zerrenda ezarri zen. Berria - Euskal Herria

Bizitzaren **lehentasun** aitortzarekin batera, bizitzaren balio maila desberdinen kontzientzia garbia behar da eduki. Joxe Azurmendi

Jabetza salgai da eta Herriko Etxeak **lehentasun** eskubidea baliatzea deliberatu du. Berria - Euskal Herria

**Lehentasun** kontua zen, eta hozki pentsatuz gero, ez zituen bi jaka behar izango. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Izan ere gizartean talde bakoitzak bere helburu **lehentasunak** oso modu desberdinean ezartzen baititu. Iñaki Heras

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**halako lehentasun bat** (8); **lehentasun bakarra** (9); **lehentasun bat emanez** (4); **lehentasun eskubidea** (5); **lehentasun handiagoa** (6); **lehentasun nagusia** (11); **lehentasun nagusiak** (5); **lehentasun osoa** (35); **lehentasun politikoa** (14)

; **erabateko lehentasuna** (7); **ezker abertzalearen lehentasuna** (5); **gobernuaren lehentasuna** (5); **lehentasuna emaiten** (8); **lehentasuna eman** (44); **lehentasuna emanez** (31); **lehentasuna emango** (7); **lehentasuna ematea** (20); **lehentasuna emateko** (14); **lehentasuna ematen** (29); **lehentasuna hartu** (5); **lehentasuna izan** (19); **lehentasuna izango** (16); **lehentasuna izango dute** (6); **lehentasuna izatea** (5); **premiazko lehentasuna** (4)

**lehentasunak ezarri** (4); **lehentasunak zehazteko** (4); **lehentasunak zehaztu** (4); **lehentasunak zeintzuk diren** (6)

**lehentasunen arabera** (5)

**lehentasunezko gaia** (4); **lehentasunezko helburua** (5)

**lehentasunik ematen** (6)

**lehentasuntzat jo** (7)

# lehentiar *izond* lehenari, aurrenari dagokiona.

Konklusio hori, ezagutzen duguna da: herri arimaren karaktere **lehentiarra**, osoki beregaina, menpegabea geografiatik. Joxe Azurmendi

# lehentsu

**1** ***lehentsuan*** *adlag* hasieran gutxi gorabehera.

Helduden urtearen **lehentsuan**. Herria

Ezin erran aste hunen **lehentsuan** norat eginen duen haizeak. Herria

**2** ***lehentsuago*** zerbait lehenago.

Nire lasaigarri, begietan **lehentsuago** igarria nion su beldurgarria joana zitzaion eta, benetan eskertu nuen hori. Edorta Jimenez

Eguna argitu baino nahikotxo **lehentsuago**. Edorta Jimenez

Desideriak alaba biak erbestera joaten ikusi ditu egun batzuk **lehentsuago**. Edorta Jimenez

lehentxago ik **lehentxeago**.

# lehentxeago *(orobat* ***lehenxeago*** *g.er.,* ***lehentxago*** *g.er. eta* ***lehenxago*** *g.er.)* **1** *adlag* apur bat lehenago. ik **lehentxo 2**.

**Lehentxeago** esan dugunez. Jose Morales

**Lehentxeago** Calvino zuen bidelagun, orain Leo Perutz du mahaikide, gero Joseph Roth hunkigarriarekin egin nahi luke topa. Anjel Lertxundi

**Lehentxeago** pasaporte bat nola lortuko nenbilen, Iraketik ihes egin ahal izateko. Juan Kruz Igerabide

Iluntasuna aipatu dut **lehentxeago. Anjel Lertxundi**

Hara sartua zen **lehentxeago**. Inguruan, agabeak, hondarra eta, urrunean, mendi gorriskak besterik ez, **lehenxeago** iruditua zitzaidana baino urrunago. Joxe Austin Arrieta

Lagunak **lehentxeago** sentiarazi zion emozioak balditurik zeukan oraino. Elena Touyarou

Laurak eseri ziren Peterrek **lehentxeago** ekarritako aulkietan eta biolinak besagainetara ekarri zituzten. Felipe Juaristi

Eleazar zeramatenek gogorkeria bihurtu zuten **lehentxeago** agertu zioten biguntasuna. Elizen arteko biblia

Apur bat **lehentxeago**, kapitulu berean. Piarres Xarriton

Mamua bizpahiru oren **lehentxeago** oldartu zitzaion gazte hartan gorpuzturik zegoen. Elena Touyarou

Doi-doia egunsentia baino **lehentxeago**. Oskar Arana

Estudiora iritsi baino **lehentxeago**, gelditzeko keinua egin zion polizia batek. Xabier Olarra

Gailurra baino **lehentxeago**, leize bat zegoen, eta hantxe gelditu ginen. Juan Kruz Igerabide

Bera munduratu baino apur bat **lehentxeago.** **Piarres Xarriton**

Berriro ere azoka hutsari begiratu eta ez zuen **lehentxeagoko** desesperazio hura sentitu. Xabier Aranburu

**Lehentxeagoko** tipo bera. Xabier Olarra

## 2 *lehentxeago edo geroxeago*

**Lehentxeago edo geroxeago** alde batera edo bestera egitera behartuta zegoen, zirt edo zart egitera, ez zuen ihesbiderik. Migel Angel Mintegi

**Lehenxeago edo geroxeago** izateak, nolanahi ere, ez du axola handirik. Alberto Ladron Arana

Hurko baten hil-ezkilak geure barrunbean joka dauzkagunean, **lehentxeago edo geroxeago**, etsi beharra dago, erotuko ez bagara. Iñaki Segurola

Igotzen den guztia **lehentxeago edo geroxeago** jaitsi egiten dela dio esaerak. Berria - Ekonomia

Zientzian, berriz, edonork daki Ebere lana beste batek gaindituko duela **lehentxeago edo geroxeago** . edonork daki bere lana beste batek gaindituko duela **lehentxeago edo geroxeago**. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argitu baino lehentxeago** (3); **egun batzuk lehentxeago** (6); **gauerdi baino lehentxeago** (3); **hartu baino lehentxeago** (4); **hasi baino lehentxeago** (7); **hil baino lehentxeago** (7); **hilabete lehentxeago** (4); **iritsi baino lehentxeago** (3); **lehentxeago agertu** (3); **lehentxeago ala geroxeago** (3); **lehentxeago edo beranduxeago** (5); **lehentxeago edo geroxeago** (27); **lehentxeago esan** (8); **lehentxeago hasi** (3); **lehentxeago ikusi** (4); **lehentxeago sartu** (3); **ordua baino lehentxeago** (4); **sartu baino lehentxeago** (3); **une bat lehentxeago** (4)

**lehenxeago edo geroxeago** (8); **sartu baino lehenxeago** (3)

---

# lehentxo *(orobat **lehentxu** g.er.)* 1 *adlag adkor* duela gutxi.

Urrutiko lekuren batean, hala ere, zalgurdi bat zebilen, bat bakarra, **lehentxo** nire aurretik igaroa agian. Josu Zabaleta

-Bego **lehentxo** jetsi da pastillatara, laster izango da. Joxean Sagaztizabal

## 2 *lehentxoago adkor* apur bat lehenago. ik **lehentxeago**.

**Lehentxoago** azaldu dizudana da hau. Xabier Amuriza

Aipatu ditugu **lehentxoago** zinema margolaritzako arte prestuarekin alderatzeko moduko zineplastika bat bihurtu nahi izan zutenak. Josu Zabaleta

Ustekabean, Seiabideko 3an, geltokia baino **lehentxoago**, ikurrin zabal bat topatu dut. Txillardegi

Arratsaldeko seiak baino **lehentxoago**, zeharkatu bere etxe aurreko zubia eta eraikitzen ari ziren kirol zelaian barneratzen zen, Villa Lecuonarantz. Bernardo Atxaga

**Lehentxuago**, gerotxuago. Unai Elorriaga

Baina, handik minutu batzuetara itzuli nintzenean, ez zen gogoratzen **lehentxoagoko** elkarrizketaz, eman nion berriaz. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lehentxoago azaldu** (3)

---

# lehentxu ik **lehentxo**.

---

# lehentze *adlag ipar* lehen aldiz.

Pastoraleko "türk" andereak 1990ean **lehentze** agertü ziren Maulen, "Abadia Ürrüstoi" trajerian. Herria

Lurra zilatzen duten xenda lohitsuetarik ibilirik, mendikletaz, Creac'h itsasargiaren maldan, neure bi begiz **lehentze** ikusi nuen ontzi kraskatu baten burdinazko hezurdegia. Itxaro Borda

Egia erran, kasik ezabatu zuen bere burumuinetarik **lehentze** elkar ikusi orduko. Elena Touyarou

---

# lehenxago ik **lehentxeago**.

---

# lehenxeago ik **lehentxeago**.

---

# leher

## 1 *leher egin**sup_1*** eztanda egin. ik **lehertu**.

Erran nahi dut oraindik **leher egin** gabeko hainbat bonba gelditzen omen direla. Alberto Ladron Arana

Florida hoteleko ur beroaren galdaran granada batek **leher egin** du. Edorta Jimenez

Segundo bat geroago, trumoi gorgarri batean, ate orriak **leher egin** zuen. Alberto Ladron Arana

Flakostaren lepoak **leher egin** zuen, norbaitek tomate handi, onduegi bat bota izan balio bezala. Alberto Ladron Arana

· *irud/hed* Hirea gehiegizkoa dun, ez zekinat nire bihotz ahulak ez ote duen **leher egingo** hire besoetan. Migel Angel Mintegi

Eskolara joaiten ginen espartinekin euririk ez zenean; eta pilota lekuan lasterka ari baiginen, zolak **leher egiten** zuen epe laburrik barne. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pastoralaren beharrik ote dü dantzak? eüskarak bai segürki, **leher egiten** ari beita Xiberoan. Herria

Atsegin hartu zuten, 1940an, behialako Errepublikak **leher egin** zuelarik eta gure elizako otoitza aldatu zelarik honela: *Domine salvam fac Galliam!* Gero, gelditu egin zen, eta barruak **leher egin** zidan. Piarres Xarriton

Barreka **leher egin** du eta eskua ahora hurbildu du barrea estaltzeko. Xabier Paya

Ia **leher egin** genian algaraz. Josu Zabaleta

Eta **leher** eta zapart **egin** dezala han. Koldo Biguri

## 2 *leher egin**sup_2** (orobat **leherrin** g.er.)* egin den ahaleginaren ondorioz erabat nekatu edo ahuldu. ik beherago**8.**

**Leher egin** arte egin nuen dantza diskotekan. Juan Martin Elexpuru

Eta behar ziren ere, "Napoleon Errebidea" **leher egin** gabe igan nahi bagenuen, indarrak neurtu. Piarres Aintziart

Gorputza zauriz beterik zuten biek ala biek, odoletan blai, baina bietako inork ez zuen atzera egiten, ekin eta ekin, **leher egiteko** zorian. Juan Kruz Igerabide

Gogoeta haiek ordea **leher egiten** ninduten, eta behin betiko baztertuko nituela erabaki nuen.Zalditeria **leher egina** zegoenez, menperatu eta ihes eragin zion. Koro Navarro

Alta, **leherrina** duk gizon hori, ez duk batere fleitean. Piarres Aintziart

**Leher egina** dator guri jarraika, zurekin hitz egin nahian. Askoren artean

**Leher eginda** erori ginen ohe gainean, eta loak hartu ninduen, nahi gabe. Juan Martin Elexpuru

**Leher eginda** zaude, lo egin beharra daukazu, baina urduritasunak ez dizu uzten. Rafa Egiguren

Andre gazteak, blusa hutsetan, gona gaizki loturik, ileak agerian, **leher eginak**, lazeriaz maskalduak jada. Karlos Zabala

**3** ***leher eginarazi*** leher egitera behartu.

Egin ahal guziak egin zituela honek kongregazio hori **leher egin arazteko** idatzi izan du Lafittek: [...]. Xipri Arbelbide

Zuriek **leher eginarazi** zioten azkenean. Anton Garikano

**4** ***leher eragin*** leher eginarazi.

-Gerra garaiko bonba bati **leher eragin** diote italiarraren etxearen azpian -azaldu zigun Hansek, pozarren, ama eta bioi. Alberto Ladron Arana

**5** ***leher gaizto egin*** *adkor* leher egin, erabat nekatu.

**Leher gaizto egin** beharrean abiatu zen lasterka. Akituta eta **leher gaizto eginda**. Josu Zabaleta

**Leher gaizto egiteraino** hasi zen irri karkaraka. Anjel Lertxundi

Barrez **leher gaizto egin** behar nuela iruditu zitzaidan. Joxan Elosegi

Irriz **leher gaizto egiteko** zorian nengoen. Joxan Elosegi

Bihotzak **leher gaizto egin** nahi zidanan, desira harekin: askatasuna! Anton Garikano

Hara, hire lagun Bunbury horrek **leher gaizto egin** izana duk zorigaiztoko kontu honetan hartu dudan poz txiki bakarra. Antton Olano

· Argi azkorria arte ez nintzen gelaratu, akiduraz eta logalez **leher gaizto**. Jon Muñoz

**6** ***leher gaiztoan*** *adlag adkor* lehen gaizto eginik.

"Mundu osasuntsuago baten alde!", egin zuen orro gizonetako batek, eta hirurek batean egin zuten ondoren irri, **leher gaiztoan**. Joxan Elosegi

Blokeo honekin **leher gaiztoan** gaude, adiskidea. **Leher gaiztoan** ari zen aho hura ezkutatzeko, ahal bezainbat makurtu nuen burua. Jon Muñoz

**7** ***leherrak egin*** leherrenak egin.

Yvan bezala, neure burua ere galduko ote nuen beldur nintzen, eta **leherrak** egin nituen zutik jartzeko. Joxan Elosegi

Azkenean, mugitzen hastea lortu nuenean, halako urradura handia sentitu nuen barruan, neure borondatea bete ahal izateko, zerebroari eta gorputzari **leherrak** egin zitzaten eskatu izan banie bezala. Joxan Elosegi

Atzealdeko zangoen gainean jarri, lepoa luzatu eta, **leherrak** egin ondoan, lortu nuen zerbait jatea. Joxan Elosegi

Legea saihesteko ahalak eta **leherrak** egiten dituzte. Andres Urrutia

**8** ***leherrenak egin*** erabat lehen egin.

Garbi gelditu zen azkenean, **leherrenak** eginagatik ere, ez nintzela eragiketa haiek egiteko gauza. Joxan Elosegi

**Leherrenak** eginda ere, ezin zuen erreminta zulotik atera; zeren orduko neskaren zukua substantzia likatsua bihurtua baitzen, loctite hutsa, aggggg! Patxi Iturritegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**barrez leher** (3); **barrez leher gaizto** (3); **leher egin** (35); **leher egin arte** (10); **leher egin zuen** (5); **leher egina** (39); **leher egina dago** (3); **leher eginak** (19); **leher eginda** (107); **leher eginda amaitu** (3); **leher eginda bukatu** (3); **leher eginda bukatzen** (3); **leher eginda erori** (5); **leher eginda nago** (10); **leher eginda zegoen** (8); **leher egingo** (5); **leher eginik** (26); **leher egiteko** (6); **leher egiteko zorian** (5); **leher egiten** (16); **leher egiten zuten** (3); **leher eta zapart** (10); **leher gaizto** (14); **leher gaizto egin** (8); **leher gaiztoan** (3); **leher kaka egina** (5); **leher zorian** (7); **nekeaz leher** (3)

**leherrak egin** (4)

---

# leherdura *iz* lehertzea.

Bestalde beste **leherdura** batzu ere jasan dezazke oraino itsasoan hoin barna den untzi zahar horrek, uraren pisuak berak kraskarazten ahal baitu, hortakoak diren frangoren gostuko. Herria

Urak sekulako abiada hartzen zuen harri eta sastraken arteko ubide estuan behera, ez zen uraren **leherdura** etengabea besterik entzuten. Anjel Lertxundi

Esaldiak ingelesezko eta gaztelaniazko esamoldeekin zipriztinduz, hitzak ebakiz, ezpainen arteko **leherdura** txistukariekin esaldiak txikletuz... Anjel Lertxundi

---

# lehergai **1** *iz* era egokian eragiten bazaio, denbora gutxian oso gas kopuru handia eta beroa sortzen duen gaia edo nahastura. ik **leherkari**.

Polizia iturrien arabera, 30 eta 40 kilo **lehergai** zituen bonba autoak. Berria - Euskal Herria

Frantziako Poliziak 360 kilo **lehergai** atzeman ditu Limogesen. Berria - Euskal Herria

**Lehergaien** osaketa aztertzen aritu ziren gero. Berria - Euskal Herria

**Lehergaien** ezaugarriak. **Lehergaiak**, ordea, behar baino lehen egin zuen eztanda. Xabier Olarra

Ekintzaile suizida batek **lehergaiez** betetako kamioneta bat leherrarazi zuen. Berria - Mundua

**Lehergaiez** jositako ekintzaile suizida batek bere burua haien artean zartarazi eta gero.

**2** lehergailua.

Vienaren harresiak ikusi ahal izan zituzten turkoek eta hiriaren aurka bota ere bai beren **lehergaiak**. Felipe Juaristi

Erasoetan erabilitako **lehergai** bakoitzak 4,5 kiloko pisua zuen. Berria - Harian

Halako zutabea edo edifizioa botatzeko zenbat **lehergai** eta zein lekutan jarri behar zen erakusteko. Joseba Sarrionandia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bietan antzeko **lehergai** kopurua erabili duela. Berria - Euskal Herria

**Lehergai** biltegi bat edukitzea. Berria - Euskal Herria

Tu-134an ere **lehergai** zantzuak daude. Berria - Mundua

ETArena izan zitekeen egoitza bat aurkitu zuten, arma eta **lehergai** andana batekin. Berria - Euskal Herria

Ez zuen argitu zein **lehergai** mota zen. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arma eta lehergai** (3); **erabilitako lehergai** (3); **kilo lehergai** (18); **kilo lehergai atzeman** (3); **kilo lehergai zituen** (4); **lehergai kopuru** (3); **lehergai mota** (7)

**erabilitako lehergaia** (7); **lehergaia dinamita** (3); **lehergaia titadyne zela** (4)

**aldean zeramatzan lehergaiak** (3); **erabilitako lehergaiak** (3); **lehergaiak zartarazi** (3)

**kilo lehergaiez** (3); **lehergaiez beteta** (3)

**kilo lehergaiz** (5); **lehergaiz betetako** (4)

## **lehergailu** 1 *iz* eztanda egiten duen gailua. ik **leherkari**.

Torinotar gazte batek, gerrian **lehergailu** batzuk lotu eta gero, bere buruaz beste egin omen zuen lehergailuen eztandarekin inbasoreei tuneleko sarrera ixteko. Anjel Lertxundi

NATOren biltzarra egingo den egoitzatik gertu bi **lehergailu** indargabetu dituzte. Berria - Mundua

Indar handiko **lehergailu** bat zartarazi dute Beirut hirinagusian. Herria

**Lehergailu** batek eztanda egin eta bi polizia zauritu ziren herenegun.

Kolpez hil da autoaren azpian ezarria zioten **lehergailu** bat zartatu baitzaio. Herria

Bost **lehergailu** zartatu dira Madrilen eta inguru hetan. Herria

Zazpi **lehergailu** jauzarazi ditu ETA-k Konstituzioaren egunean. Herria

230 kiloko bi **lehergailu** jaurti zituzten kale hartako etxeetara. Pako Aristi

Errepidean zegoen **lehergailu** bat zapalduta. Berria - Mundua

Borrokan ari zirela, **lehergailu** bat bota zieten atzetik. Pako Aristi

Biak nahastuz gero, koktela **lehergailu** bihurtuko da. Atzeko aulkian **lehergailu** bat dagoela segundo batzuk barru eztanda egingo duena. Joseba Sarrionandia

Halako **lehergailu** batek 20 kilotoiko indarra askatuko luke. Berria - Mundua

### **2** irud/hed

Iruzurra **lehergailu** bat da, gure muturrean eztanda egin dezakeen **lehergailua**. Migel Angel Mintegi

Gauzak dauden bezala, iruzurgilea salatzeko frogarik ez dugun aldetik, txostena edozein momentuan eztanda egin dezakeen **lehergailua** da. Migel Angel Mintegi

### **3** (izenondoekin)

**Lehergailu** azkar bat pausatu dute eta zartarazi Aleria herriko jandarmeriaren ondoan. Herria

Plastikozko poltsan sartzen da **lehergailu** txiki batekin, urrutiko kontrolez eztandarazteko. Joseba Sarrionandia

Arma termonuklearrak **lehergailu** atomikoaren ordezkoak dira. Felipe Juaristi

### **3** lehergaia.

Base militar batetik 350 tona **lehergailu** desagertu direla ohartarazi zuen atzo. Berria - Mundua

150 gramo **lehergailu** maleta batean sartu zuten bi jendarmeei. Berria - Mundua

Bonba **lehergailu** plastikoz zegoen osatuta. Berria - Mundua

### **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Poliziak dio gordegailu bat kausitu duela **lehergailu** gai batzuekin. Arma eta **lehergailu** gordetegiak aurkitzeko eta gerrillaren babeslekuak deuseztatzeko. Herria

Polizaren arabera, **lehergailu** ebasketa bat ari zuten prestatzen. Herria

Plevingo **lehergailu** lapurretaren inguruan. Berria - Mundua

**Lehergailu** zantzuen bila aritu ziren atzo arratsaldean segurtasun indarrak. Berria - Mundua

Geroago, ordea, ez zen inolako **lehergailu** aztarnarik aurkitu, eta jendarmeek, frogarik ezean, zalantzan jarri zuten lekukoen bertsioa. Patxi Iturritegi

Zehaztu gabeko **lehergailu** kopuru bat ezarri zuten autoaren behealdean. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arma eta lehergailu** (5); **bazterrean ipinitako lehergailu** (4); **bederatzi lehergailu** (3); **bi lehergailu jarri** (3); **bi lehergailu zartarazi** (9); **bi lehergailu zartatu** (4); **etxean egindako lehergailu** (11); **etxean eginiko lehergailu** (6); **hainbat lehergailu** (4); **hamar lehergailu** (4); **hamar lehergailu zartarazi** (3); **hiru lehergailu** (10); **indar txikiko lehergailu** (6); **kilo lehergailu** (7); **lau lehergailu** (6); **lehergailu bana jarri** (3); **lehergailu bat aurkitu** (7); **lehergailu bat bota** (5); **lehergailu bat ezarri** (3); **lehergailu bat eztandarazi** (6); **lehergailu bat indargabetu** (10); **lehergailu bat jarri** (8); **lehergailu bat jartzeko** (3); **lehergailu bat jaurti** (3); **lehergailu bat zartarazi** (18); **lehergailu bat zartarazita** (4); **lehergailu bat zartatu** (8); **lehergailu bat zartaturik** (3); **lehergailu bat zegoela** (3); **lehergailu batek eztanda** (56); **lehergailu baten bidez** (4); **lehergailu batzu bota** (3); **lehergailu indartsu** (4); **lehergailu itxurako** (8); **lehergailu itxurako fardela** (3); **lehergailu txiki** (3); **tona lehergailu** (5); **zazpi lehergailu** (4)

**aspaldiko lehergailua** (3); **lehergailua eztandarazi** (4); **lehergailua indargabetu zuen** (3); **lehergailua jarri** (10); **lehergailua jarri zuten** (3); **lehergailua leherrarazi** (3); **lehergailua zartarazi** (11); **lehergailua zartarazi zuen** (7); **soinean zeraman lehergailua** (4); **zeraman lehergailua zartarazi** (4)

**armak eta lehergailuak** (8); **erabilitako lehergailuak** (3); **lehergailuak egiteko** (6); **lehergailuak eztanda egin** (13); **lehergailuak eztandarazi** (6); **lehergailuak eztandarazi zituzten** (3); **lehergailuak jarri** (11); **lehergailuak non zeuden** (4); **lehergailuak zartarazi** (7); **zeramatzan lehergailuak** (4)

**bi lehergailuk** (3); **lehergailuk eztanda egin** (5)

**lehergailurik aurkitu** (6)

**lehergailuz buruturiko ekintza** (23); **lehergailuz egindako ekintza** (9)

---

## **lehergarri** 1 *izond* eztanda egin dezakeena.

Autoaren barruan isurkari **lehergarriz** beteriko ontzi bat zegoen. Berria - Mundua

Bien arteko nahasketa **lehergarria** gertatzen da. Luis Elberdin

Azukre-harizko idazluma hauskorrak eta bonboi **lehergarriak**. Makina **lehergarri** baten detonagailua bezala. Iñaki Mendiguren

Merkantzia **lehergarriak** zeramatzan tren bateko 30 bagoik eztanda egitearen ondorioz. Berria - Mundua

### **2** irud/hed

Iluntzea, prostitutak, hiriaren xarma... koktela **lehergarri** izan daiteke. Edorta Jimenez

Nik sortzen ditut, nire ahotsaren kolorea dute eskandaluek eta berri **lehergarriek**. Harkaitz Cano

Ondorioz biztanleriak Helasko bizibideetan zertzen zuen presioak grekoen hedapenari indar **lehergarria** eman zion eta akuilatu egin zituen itsasoz bestaldean merkataritza-guneak jartzera. Iñaki Mendiguren

Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadearen erreakzio **lehergarriak** [...] gurutzaldietan aurkitu zuen adierazpidea. Iñaki Mendiguren

Iraultza mimesi-egintza atzeratu eta ondorioz **lehergarri** gisa defini daiteke. Iñaki Mendiguren

### **3** guztiz akigarria.

Karga **lehergarri** bat. Josu Zabaleta

Nola nahi duzu paira dezadan zure sumina biztu izanaren uste **lehergarria**, eta batez ere nola nahi duzu zure mendekuaren beldurrak mendean har ez nazan? Jon Muñoz

Plomuzko tapaki astuna, **lehergarria** eta mutua. Itxaro Borda

Ixiltarzün **lehergarri** hori ützirik. Herria

### • **4** *iz* lehergailua.

Itsasontzia bazokaz, granadez, **lehergarriz** eta 50 kalibreko metrailadore batez egokiro hornitu diezaioten nahi du. Edorta Jimenez

Sakoneko **lehergarri** hori ere ez ote den Abrako bokalean nabigazioa eragozteko jarri ziren haietakoa. Edorta Jimenez

Urpeko **lehergarri** batek eztanda egitean. Edorta Jimenez

### **5** lehergaia.

Eztanda egin zuen lehergailuak bost kilo **lehergarri** zuen. Berria - Euskal Herria

## **lehergarritasun** *iz* lehergarria denaren nolakotasuna.

Bi puntu daude nabarmenak (gaiaren **lehergarritasuna** erakusten dutelako): [...]. Joxe Azurmendi

---

## **leherkari** 1 *iz* lehergaia; lehergailua.

Asturiasko meatzari batzuk ekarri zituzten, **leherkarietan** espezialistak. Xabier Mendiguren Elizegi

Katedrala ipurdiz gora botatzeko lain **leherkariren** eskaera egin nionean, erotu egin ote nintzen galdegin zidan. Hasier Etxeberria

15 kilo **leherkari** zituen bonba-autoa. Berria - Mundua

Indar haundiko lehergailua, 50 kilo **leherkariz** osatua. Herria

Teoria pixka batekin batera, **leherkariak** nola erabiltzen ziren erakutsi zigun, eta pistola, errifle eta subfusilekin ere egiten genituen tiro-saio batzuk aldian behin. Rafa Egiguren

**Leherkariz** beteriko autoa AEBek Tikriten duten basetik gertu lehertu zen. Berria - Mundua

Barruan eramango duen material arriskutsua ez da erregaia edo **leherkaria** izango, aldizkari bat baizik: *Avengers 113*. Berria - Mundua

Aldean zeramatzan **leherkariak** zartarazita, ekintzaile suizida batek bere buruaz gain Israelgo segurtasun indarretako gutxienez hiru kide eta zibil bat hil zituen atzo Gazako Eretz kontrolgunean. Berria - Mundua

**Leherkariak** jaurtitzeko erabili zen kamioia leherraraziz erantzun zion AEBetako Armadak erasoari. Bi **leherkari** zeuden ezarrita gas likidoa gordetzen duten biltegian, ordu erdiko tartez lehertu zirenak. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

Poliziaren arabera, detonagailu eta **leherkari** zantzuak aurkitu dituzte etxean. Berria - Mundua

Polizia iturriek ez zuten atzo zartarazitako **leherkari** mota edo kopurua jakinarazi. Berria - Euskal Herria

**3** *izond/iz* fonetikan, kontsonanteez mintzatuz, silaba hasieran handituz doan tinkotasunez ahoskatzen dena.

Gogora bedi sudurkariak herskariak badira ere ez direla **leherkari** izaten. Lourdes Oñederra

**Leherkari** guztiak dira herskari, baina herskari guztiak ez dira **leherkari**. Lourdes Oñederra

Grimm-ek pentsatu zuen hots hau bikoitza ez ezik **leherkari** hasperendua ere bazela. Isabel Arrigain

Ingelesik ez dakien hizkuntzalari batek nire ezpainetatik *cat* "katu" hitza grabatuko balu, lehenik bukaerako **leherkari** hasperendun batez eta gero **leherkari** glotalaurreko irekigabe batez, datu fonetikoek ez diote esango forma aurkariak diren ala ez. Itziar Laka

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**leherkari batek eztanda** (3); **leherkari mota** (8)

**leherkariz beteriko** (3)

---

## **leherketa** 1 *iz* lehertzea. ik **eztanda**.

Harik eta halako batean kristalak dardarka jarri zituen **leherketa** bat entzun zen arte. Koldo Biguri

Tuboeskapetik **leherketa** txiki modukoak atera zaizkio. Paddy Rekalde

Bi **leherketa** handi entzun ziren gauean. Berria - Harian

**Leherketa** eztandatsu haiek plus koloretsu bat eman zioten programaren taxuari. Karlos Linazasoro

Ateak ireki zituena ez zen izan kanpoko deia, barruko **leherketa** baizik... Iñaki Mendiguren

**Leherketa** eragiteko aparatua. Koldo Biguri

*In crescendo* metalikoa **leherketa** gor batean bukatuz. Eider Rodriguez

Kimika institutu batean **leherketa** bat izan eta pertsona bat hil da. Berria - Mundua

**Leherketa** gertatu zenean, 300 lagun zeuden gutxi gorabehera azokan. Berria - Mundua

Poliziak jakinarazi zuen lau eztandez gain, «bi **leherketa** kontrolatu» eragin zituela herenegun. Berria - Harian

Gure galaxia Big Bang **leherketa** handiaren ondoren sortu zen lehenengo galaxietakoa izan zela. Berria - Gaiak

Granada baten **leherketak** zauri larriak eragin zizkion. Harkaitz Cano

Motorraren hotsaren gainetik txapligu baten **leherketa** entzun nuen. Bernardo Atxaga

Madrilgo Burtsa Etxearen **leherketa**. Hasier Etxeberria

**2** irud/hed

Erabat gauza espontaneoa izan zen, herriaren **leherketa** bat, buruzagirik gabe, herri askotara zabaldu zena. Pako Aristi

Hamabietan puntuan, festaren **leherketa**, erokeria kolektiboa. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** fonetikan, kontsonante batzuk ahoskatzean, hasieran handituz doan tinkotasuna.

Herskarietan ez bezala, ordea, hersketa hori ez da bat-bateko **leherketa** baten bidez irekitzen. Lourdes Oñederra

"Nik!" esaten bada hitz azkenean ezpainak itxita, *k* horretan hersketa gertatuko da, baina **leherketa** ez. Lourdes Oñederra

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Metrailadore-danbadak eta **leherketa** hots ezagunak. Aingeru Epaltza

Hildako zenbaiten gorpuak **leherketa** lekutik 100 metrora bota zituen eztandak. Isildu behar hertsi hark **leherketa** punturaino eramaten ninduen batzuetan. Txillardegi

**leherketa** arriskua zegoelako . Berria - Ekonomia

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gas **leherketa** bat izan dela otutzen zaio hamaika pentsamendu eta sentsazioz nahasturik. Mikel Hernandez Abaitua

Bonba **leherketaren** suak eta hotsak. Bat-batean, ezkerrean, soinu eta argi **leherketa** bat bezalakoa da. Ramon Saizarbitoria

Jende asko zegoen bilduta eta alaitasun **leherketa** bat izan zen. Koldo Biguri

Liburu franko idatzitakoa da, azkena *The Newest Explosion of Terrorism* (Azkenaldiko terrorismo **leherketa**). Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bi leherketa izan** (3); **eragin zuen leherketa** (5); **gas leherketa** (16); **gertatu zen leherketa** (10); **gertatutako leherketa** (3); **hainbat leherketa izan** (4); **izan zen leherketa** (9); **izandako leherketa** (16); **leherketa bat entzun** (6); **leherketa bat gertatu** (8); **leherketa bat izan** (19); **leherketa batek eragin** (3); **leherketa baten ondorioz** (13); **leherketa dela eta** (5); **leherketa entzun** (7); **leherketa eragin** (5); **leherketa gertatu** (17); **leherketa handi** (8); **leherketa handi bat** (4); **leherketa izan** (29); **leherketa izan zen** (8); **leherketa lekutik** (3); **leherketa txiki** (3)

**eragindako leherketak** (4); **izandako leherketak** (6); **leherketak entzun** (3); **leherketak eragin** (3); **leherketak gertatu** (8); **leherketak izan** (10); **leherketak izan ziren** (3)

**izandako leherketan** (15); **leherketan hil zen** (3)

**izandako leherketaren** (5); **izandako leherketaren ondorioz** (3); **leherketaren arrazoiak** (3); **leherketaren eraginez** (7); **leherketaren ondoren** (4); **leherketaren ondorioak** (4); **leherketaren ondorioz** (17); **leherketaren ostean** (4); **leherketaren zain** (3)

**asturiasko leherketen** (3); **leherketen ondorioz** (5)

---

## leherketatxo *iz* indar tutxiko leherketa.

Bat-batean, **leherketatxo** haren ondoren, neure onera etorri nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## leherketatzar *iz adkor* indar handiko leherketa.

Hurbildu egin zaio eta bere bularraren kontra estutu du, eta umea besoetan duela gertatu da **leherketatzarra**. Mikel Hernandez Abaitua

---

## leherkin **1** *iz pl* leherketaren hondakinak.

Sufrimendua kanporatzeko modua bakarrik egiten zitzaidan ezagun, sumendiek bezala **leherkinak** kanporatuz eta gero sosegura itzuliz. Joxean Agirre

**2** leherkaria.

Beharrezko, agi denez, bidegintza horretarako lehen suziri eta **leherkina**. Andres Urrutia

---

## leherkor *izond* lehertzeko, eztanda egiteko joera duena.

Bertan behera utzi genuen saioa, ondo ordu onean utzi ere, ez baikenekien noski zer gerta daitekeen gatz **leherkor** hori behar adinako artarik gabe berotuz gero. Juan Garzia

Bakartasunaren sentimendu **leherkorrak** ez zaplastatzeko, noiztenka ernatzen zen ahots hori bera. Itxaro Borda

[Estatuaren] unibertsalismo espansionista eta esklusibistaren ondorio **leherkorrak** ezagunak zaizkigu. Joseba Zulaika

Arkuaren eraso-kolpe indartsua dauka, ia **leherkorra**, doinuaren hasierako notak ia azpimarkatuz. Berria - Kultura

---

## leherkuntza *iz* lehertzea.

Planeta osora zabaldu zen **leherkuntza** bikoitz horretatik, Europa suntsiturik eta elkarren kontrako bi bloketan zatiturik atera zen; superpotentzia erdi-europar batek agintzen zuen bloke bakoitzean: Europatik, Europako giza proiekzio, kultura eta ideologiatik, atereak ziren bata zein bestea. Koro Navarro

---

## leherpen *iz* lehertzea.

Gune berean artikulatzen ez diren bi fonemaz osaturiko katemaila bat hartzen badugu, *r> m>* esaterako, *m>*-ak ez dio oztopatzen **leherpena** *r>*-ari, baina bai erabat estaltzen, bere artikulazio itxiagoaren bitartez, ondorio bera ekarriz. Isabel Arrigain

Bestela, *m> r>* alderantzizko kasuan bezala, isilpeko **leherpena** -mekanikoki ezinbestekoa-, ahozko katea haustera dator. Isabel Arrigain

---

## leherra *adlag* asko.

Auritze gero eta gehiago herriaren apaintzen eta edertzen ari da; aurten bazen jendeez **leherra**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

leherrak egin ik **leher 7**.

---

## leherraldi *iz* norbaitek edo zerbaitek eztanda egiten duen aldia.

Héraclius gaixoa ez zen horren ausart, ez eta gutxiagorik ere, Honorine neskamearen **leherraldien** aurrean. Josu Zabaleta

**Leherraldi** honen ondoren makalaldi bat etorri zen, hamasei, hamazazpi eta hemezortzigarren mendeetan iraun zuena, eta ondoren, pausaldi luze haren atzetik, bat-bateko beste bizkorraldi bat K.o. 1840-90 bitarteko berrogeita hamar urteetan. Iñaki Mendiguren

Hala ere, hamargarren mendeko Mendebaldeko Kristandadearen bizitasun-seinale horiek ez dirudite erabat egokiak hamaikagarren mendean Mendebaldeko energiak izan zuen **leherraldi** harrigarria ulertzeko. Iñaki Mendiguren

Emakume-elokuentziaren **leherraldi** honen zaztada bukaeran zetorren: [...]. Iñaki Mendiguren

---

## leherrarazi, leherraraz, leherrarazten *(orobat **lehertarazi**)* **1** du *ad* lehertzera behartu, eztandarazi.

Film batean legez ikusten ari zen, Sirius Blackek nola **leherrarazten** zuen milaka zatitan Peter Pettigrew. Iñaki Mendiguren

Hidrogeno-bonbek [...] **leherrarazteko** fisio-bonba txiki bat erabili behar izaten zuten detonagailu gisa. Berria - Gaiak

Postuaren azpian eginiko tunel batean 150 kilo dinamita **leherrarazita**. Berria - Mundua

Konboia igarotzen ari zen unean **leherrarazi** zuten lehergailua. Berria - Harian

Bonba poliziak **leherrarazi** du. Iñigo Aranbarri

Ezerk ezertarako balio ez duen arren, guk zubiak **leherrarazten** ditugu hala ere, jokoari jarraitzeko. Josu Zabaleta

Suizida batek bere autoa **leherrarazi** zuen akademia ondotik igarotzean. Berria - Mundua

Bera barruan zegoela jakin gabe **leherrarazi** genian transformadorea. Josu Zabaleta

Libertario guztion besoak gutxi izango dituk Kursaala **leherrarazteko**. Inazio Mujika Iraola

Granada bat **leherrarazi** ziotela aho-barrenean. Karlos Zabala

Lasto batez puztu eta **leherrarazitako** igelak. Joseba Urteaga

Sedekias bera, begiak **lehertarazi** ondoren, Babiloniara eraman zuen katez loturik. Elizen arteko biblia

Zer nahi duk, Peaceful, hire burua jo eta airean **leherraraztea**? Mirentxu Larrañaga

**2** irud/hed

Bi sentimendu elkarren kontra borrokan nituela barruan, bularra **leherrarazteko** zorian. Juan Kruz Igerabide

Donostiako kasinoko banka **leherrarazi** zuen errusiar baten iruzurrari buruzko zer edo zer. Iban Zaldua

**3** guztiz akiarazi.

Ni gorteatzen sei zaldi nahi omen ditu **leherrarazi**! Jon Muñoz

Barriolaren lana izango da pilota luze erabili eta kontrarioa alde batera eta bestera mugiaraztea, pilota oinetara jarri, korrikan **leherrarazi** eta tantoa bukatzea. Berria - Kirola

**4** ***barrez leherrarazi***

Héraclius nire lagun prestuaren aurpegia bera, **barrez leherraraztekoa.** **Josu Zabaleta**

Pailazoak bitza **barrez leherraraz** beren birikak desarratzeko pronto daudenak; eta damak ere oztoporik gabe beza jardun solasean. Juan Garzia

· **Barre**-algaraka **leherrarazi** zenuen ezinbestean. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**auto bat leherrarazi** (26); **auto leherrarazi** (7); **autoa leherrarazi** (3); **bi bonba leherrarazi** (5); **bonba auto leherrarazi** (7); **bonba bat leherrarazi** (19); **bonba leherrarazi** (10); **bonba leherrarazi zituzten** (3); **granada bat leherrarazi** (3); **kamioi bat leherrarazi** (3); **lehergailua leherrarazi** (3); **leherrarazi zuen bonba** (3); **leherrarazi zuten autoa** (4); **leherrarazi zuten bonba** (4)

**bonba bat leherrarazita** (8)

**leherrarazitako bonba** (3); **leherrarazitako bonbak** (4)

**airean leherraraztea** (4)

**leherrarazteko prest** (3)

**begiak lehertarazi ondoren** (3); **bonba bat lehertarazi** (4)

## leherrenak egin ik **leher 8**.

## leherrin ik **leher 2**.

## lehertarazi ik **leherrarazi**.

## **lehertu**, leher, lehertzen **1** da *ad* barneko mamia kanporatuz ireki.

Une horretantxe, su-ziri **bat** lehertu da zeruan. Anjel Lertxundi

Zubigaineko kaminero-etxean **lehertu** zen frankisten aldekoek jarritako bonba. Xabier Etxabe

Eta odolki hori **lehertu** da. Karlos Zabala

Eskopetarekin jolasean ari zirela **lehertu** egin zitzaion bere anaiari aurpegian. Harkaitz Cano

1959an, Zamorako lurraldean, Ribadelagoko urtegia **lehertu**, eta 145 pertsona eraman zituen. Pello Zabala

Hona non, 1989an, uste gabetarik, **lehertzen** eta zapartatzen den, Berlineko Harresiarekin batean, Sobiet Errepublika Sozialisten Batasuna. Piarres Xarriton

Bainan hara, Pariseko horri jauzgailua ez zaio ideki, eta gure jauzi egilea lurrean da **lehertu**. Herria

Espekulazioa dela medio finantza burbuila puzten eta puzten joaten da, harik eta **lehertu** eta barruan ezer ere ez dutela geratzen diren arte. Iñaki Heras

Brastako batean, sekulako ekaitza **lehertu** zen goiak eta beheak dardararaziz. Anjel Lertxundi

Olatu bat **lehertu** zen urrunean. Fernando Morillo

Malkoa **lehertzen** ari zitzaion. Aingeru Epaltza

Neskari **malkoak** lehertu zitzaizkion begietan. Jose Morales

Edo bi eguzki direa, bata bihotzean **lehertzen** dena eta bertzea adimenduan? Joan Mari Irigoien

Flash baten argia **lehertzen** da. Oskar Arana

Eta milaka argi **lehertzen** dira une batean zure barnean, milaka beira puskatzen zure baitan. Filipe Bidart

### **2** *irud/hed (norbait)*

**Lehertu** hadi, ba! -oihu egin zuen On Camillok, alde eginez. Koldo Biguri

**Lehertu** egin behar dudala iruditzen zait, eta badakit negar egiteak arindu egingo nindukeela. Josu Zabaleta

· Besteak oro karkaila gurintsutan **lehertu** ziren. Itxaro Borda

Algara batean **lehertu** zen gela osoa. Josu Zabaleta

Barre-algara lerdejario batean **lehertu** zen orduan. Inazio Mujika Iraola

Ezin izan zuen fartsa harekin jarraitu eta negarrez hipaka **lehertu** zen. Patxi Zubizarreta

Maitea, negar malkotan **lehertu** naiz berria jaso dudanean. Jon Muñoz

### **3** (burua, bihotza eta kidekoak)

Halako batean abisatu zidaten nire burua odoletan **lehertu** zitekeela edozein egunetan, edozein ordutan. Karlos Zabala

Burua **lehertzeko** zorian neukan, minaren mugak gainezkatu beharrez. Anjel Lertxundi

Bihotza **lehertu** zitzaion nonbait, jakin zuenean ez zela berehala aterako Frantziatik. Felipe Juaristi

Kirioak **lehertu** aginean egon zen, harik eta, zorabiaturik, lurrera zerraldo jausi zen arte. Patxi Zubizarreta

### **4** (norbait haserreak joa)

Orduan Nini **lehertu** egin zen, eta herri osoari ekin zion "jende hezigabea eta baserritarra" deituz. Josu Zabaleta

Haiek bezain madarikatuak zarete!, **lehertu** zen aita. Anjel Lertxundi

-Zer dela eta etorri behar zuen gurekin izorratzaile horrek? -**lehertu** egin da azkenean Lola-. Patxi Iturritegi

Don Manuelek ideia bera bizpahiru aldiz errepikatu zuenean **lehertu** zen aitona, zerua lehertzen den bezala. Alberto Barandiaren

· Jendea txaloka eta oihuka **lehertu** zen. Jon Maia

Hala, **lehertu** egin da nire haserre-sumina, eta erre egin ditu Judako hiriak eta Jerusalemgo kaleak. Elizen arteko biblia

Bat-batean haserrez **lehertu** zen bere buruaren aurka. Oskar Arana

### **5** (zerbait)

Krisi-garaietan **lehertu** ohi dira estalirik dauden arazoak. Daniel Landart

Bizia bere gorrian **lehertzen** zen sasoian. Iñaki Segurola

### • **6** du *ad* eztanda eginarazi.

Lepoan zebilkion zomorro bat harrapatu, argiontzira hurbildu, eta azazkalen artean **lehertu** zuen. Jose Morales

Tiro batek begia **lehertu** baitzion erdi-erditik. Inazio Mujika Iraola

Etzatera behartu du bibotedunak, eta ahoz behera dagoela, ostiko batez **lehertu** dizkio potroak. Patxi Iturritegi

Ia belarriak **lehertu** zizkidak telefonoaren txirrinak! Pako Aristi

Badakit kamainetako koltxoiak **lehertu** eta muelleak irensten dituztela. Koldo Izagirre

Komuneko depositoaren gainean zegoen, kokotseko granotxo bat **lehertu** nahian. Iñaki Mendiguren

### **7** irud/hed

Zerbaitek buztin puska zeharkatu, eta, irtetean, materiala kanpo aldera **lehertu** izan balu bezala. Patxi Zubizarreta

Otoi egingo nizuke ur handi ikaragarri batzuk bidaltzeko, ezpondak **lehertu** eta herri guztia urpean uzteko modukoak. Koldo Biguri

**Lehertu** egingo dut zubia! Koldo Biguri

Hiri handia hiru zatitan **lehertu** zen eta munduko beste nazioetako hiriek lur jo zuten. Elizen arteko biblia

Hau gozamena! **lehertu** egin behar nau, ezin dut gehiago! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Orduan, bezeroak beste zerbaitez axola zitezen, neure borondatez utzi nuen eskotea **lehertzen**, eta nirea izan zen orduan iniziatiba. Joxan Elosegi

- **8** da *ad* guztiz akitu.

Azkenetan zegoen, lan eta lan aritu zen **lehertu** arte, semeak zuzenbidea ikas zezan. Karlos Zabala

Lehen baino **lehertuago** esnatu zen. Koro Navarro

Egunaren erdia pasa, belar sartzen arizan ondoan, afal orduko, oherat abian zen gure laboraria, **lehertua**, akitua. Herria

Helburua, gatibutza soilaz gain, Alemaniako ekonomiari doako lan-eskua ematea ere bazen, presoa **lehertu** arte behartuz lanera. Urtzi Urrutikoetxea

Esaterako Mary Anny Walkley 20 urteko jostunaren kasua, Londreseko jantzigintza tailer batean beste hainbat langilerekin edonola pilatuta, izugarrizko lanaldiak egiten zituena [...] gehiegizko **lanez** lehertu eta hil zena. Iñaki Heras

**Lehertu** arte lan egin beharko duzue orain, zirgatzaileok! Jose Morales

· Beste guztiek barre egiten zuten **lehertu** arte. Rafa Egiguren

*ik beherago* 12. Askoren artean

- **9** du *ad ipar* zapaldu, zanpatu.

Duela 2 aste Irulegin Serge Damestoy izan zen bere trakturrak **lehertua** leku gaixto batetan uzkalirik. Herria

Iragan astean autobus batek **lehertu** ditu eta hil zortzi presuna. Herria

Iruñeatik hurbilsei basurde **lehertu** eta hil ditu kamiun batek autobidean. Herria

Erran behar da orduan Armeniako herrialde hori **lehertu** zuelarik podore gorenak, miliun bat eta erdi hil ukan zituztela beren herritarretan. Herria

Txetxeniako probintzia edo herria, Errusiak doi bat **lehertua** daukana, hangoen berex-nahia ezin onetsiz. Herria

Penak **lehertu** gaitu, hor gira taldean. Herria

Saddam Husseinen gizonak eta harek **lehertuak** eroriko zirelakoan amerikar salbatzaileen ahorat salbamendu otoizka. Herria

Hain da herria ttipia, eta iduriz hustua, non eliza alimaleak **lehertzen** baititu etxe guziak. Piarres Aintziart

Heldu arte Comillas hirixkarat, zoinek iduri baitzuen **lehertua** halako palazio alimale baten azpikaldean. Herria

**10** (era burutua izenondo gisa)

Zain more handiak nabarmentzen zitzaizkion, larruazalean batera eta bestera, barize **lehertu** sail bat legez. Karlos Zabala

Berehala begiratu zion bere jesarlekuari eta labezomorro **lehertu** bat ikusi zuen, tripak kanpoan. Unai Elorriaga

Orduan hedatzen dira lehen errainuak itsas azalaren gainetik: gari-sorta irudi, azkonak irudi, ontzi **lehertu** baten ezpalak irudi, [...] elektroi-bonbardaketen argazkiak irudi. Joxe Austin Arrieta

Zaborrak gainezka egiten du eta poltsa urdin **lehertuetatik** tipula ustel batek ihes egin du patata azal baten eskutik. Eider Rodriguez

Apar **lehertuak** plai ertzeko hondarrean lagatako itsasbelar, konpresa, plastiko eta lata hutsak, Neptunoren opari. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina linternadunak bere begi **lehertu** hartan pausatzen zuen azkenean argitxoa. Bernardo Atxaga

Saski zaharrak, **pandero** lehertuak eta haririk gabeko gitarrak. Koldo Izagirre

Edo neure bota **lehertuak** ikusiko bahitu. Koldo Izagirre

Ezker begiaren zuritasun **lehertuak** begirada izua erakusten zuen. Joxemari Urteaga

Bortizkeriarik ez, baina zapalduen eta **lehertuen** lekuko izan. Herria

Horra Jainkoak ahulen alderdia hartzen duela, ez gerlariena baina **lehertuena**, bere nahitara. Herria

**11** ***lehertzear*** lehertzeko zorian.

**Lehertzear** zeuden laino-adarrak. Anjel Lertxundi

Nire barrua **lehertzear** dago, nora irtenik ez duen ardoaren eraginez zahagi berriak bezala! Elizen arteko biblia

Batzuetan burua **lehertzear** daukadala iruditzen zait. Julen Gabiria

Baina indarrak ahitzear dagoela sumatzen diogu, nerbioak **lehertzear** dituela. Josu Zabaleta

Joseri kopeta eta lokiak zimurtu zaizkio, buruko zainak **lehertzear** balitu bezala. Anjel Lertxundi

Argi sumatu nuen andrea **lehertzear** zegoela: denek nahi zuten leher zedin. Monika Etxebarria

Ikusten nituen inguruko mutilak elkarri begira, batzuk txundituta, besteak barrez **lehertzear**. Urtzi Urrutikoetxea

Atea ireki orduko, ziplo gelditu zen bertan, ikaraz **lehertzear**. Josetxo Azkona

**12** ***barrez lehertu***

**Barrez lehertzen** hasi ziren. Jesus Mari Mendizabal

**Barrez lehertzekoa** da! Bernardo Atxaga

Eta gero **barrez lehertuko** ziren biak, fular imajinarioak lepo inguruan kiribilduz. Slytheringo taldea ia **lehertu** zen **barrez**. Harkaitz Cano

**Barrez lehertzeko** moduko izena. Oskar Arana

Billy Jonesek uso bat pala kolpeka nola hiltzen zuen ikusi nuen, eta aurrena **barrez lehertu** nintzen, eta botaka aritu nintzen gero. Koro Navarro

Maisu beldurgarriak imintzio amaneratuak egiten zituen, bat-bateko piztia-pailazo bikoitza bihurturik, eta denak **barrez lehertzen** ziren nire bizkar eta bide batez maisuaren beraren bizkar, ez dago-eta ezer barregarriagorik beldurra ematen digun norbait pailazoarena egiten ikustea baino. Juan Kruz Igerabide

**13** ***irriz lehertu***

**Irriz lehertu** zen goraki, balentria bikainaz espantuka. Itxaro Borda

Eskuekin tripazorroari eutsiz, **irriz lehertzen**, mandatariari gutuna ozenki irakurrarazi zion, gau hartan bere ondoan zeudenek edukiaren berri izan zezaten. Fernando Rey

-Otsoa bertan daukagu beraz- gizona **irriz lehertu** zen. Itxaro Borda

· Nagusia **irri** gordinez **lehertu** zen. Itxaro Borda

**14** ***lehertu beharrean***

Zainak, guztiz irtenak, **lehertu beharrean** zeuzkan. Anjel Lertxundi

Bihotza **lehertu beharrean** taupaka sentitu nuen, eta malkoak begietara igotzen. Juan Kruz Igerabide

Bihotza eta sabela, **lehertu beharrean**. Anjel Lertxundi

**Lehertu beharrean** ikusten zaizkio begiak, argitara jarritako kristalena bezalako distira batez. Anjel Lertxundi

Eta ni, barrez **lehertu beharrean**. Eztarriak **lehertu beharrean** ekin zioten berriro kantuari. Josu Zabaleta

Erabat jota nengoen, ahoa lehor-lehor, eztarrian zotin bat **lehertu beharrean.** **Juan Kruz Igerabide**

Kartoizko bost maletak **lehertu beharrean** bete zituen amak. Jon Maia

Meñakara **lehertu beharrean** iristen zen zakur gaixoa. Gotzon Garate

**15** ***lehertu beharrez*** lehertu beharrean.

Lokaletik irten, eta, burua **lehertu beharrez**, etxera heldu zen. Anjel Lertxundi

Begiratu egin nion eta algaraka hasi nintzen **lehertu beharrez**. Eskarne Mujika

Lehen baino gogorrago jo zioten taupadek Freddy Greeni, lokia **lehertu beharrez** oraingoan. Joxemari Urteaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**algara batean lehertu** (5); **auto bat lehertu** (19); **auto lehertu** (8); **auto lehertu ziren** (3); **autoa lehertu** (4); **barrez lehertu** (69); **barrez lehertu behar** (3); **barrez lehertu beharrean** (13); **barrez lehertu zen** (22); **bat batean lehertu** (5); **bihotza lehertu** (7); **birikak lehertu** (3); **bonba auto lehertu** (8); **bonba bat lehertu** (12); **bonba lehertu** (7); **bonbak lehertu** (5); **burbuila lehertu** (5); **burua lehertu** (10); **burua lehertu beharrean** (4); **dike bat lehertu** (3); **ekaitza lehertu** (8); **esku artean lehertu** (3); **eztarria lehertu beharrean** (3); **gerra lehertu** (7); **gurpila lehertu** (4); **hipaka lehertu zen** (4); **irriz lehertu zen** (6); **kamioi bat lehertu** (3); **karkailaka lehertu ginen** (3); **kirioak lehertu** (3)

**lehertu zen bonba** (10); **maskuria lehertu** (3); **maskuria lehertu beharrean** (3); **mina bat lehertu** (3); **misil lehertu ziren** (3); **negarrez hipaka lehertu** (5); **negarrez lehertu** (3); **negarrez lehertu zen** (3); **pozez lehertu** (5); **pozez lehertu beharrean** (3); **zahagiak lehertu** (3)

**barrez lehertuko** (7)

**auto bat lehertuta** (4); **barrez lehertuta** (3); **bonba bat lehertuta** (10)

**bihotza lehertzear** (3); **burua lehertzear** (4); **lehertzear zegoen** (4)

**barrez lehertzeko** (20); **barrez lehertzeko moduko** (4); **barrez lehertzeko zorian** (11); **bihotza lehertzeko zorian** (7); **burua lehertzeko zorian** (5); **etxea lehertzeko** (3); **lehertzeko arriskua** (3); **lehertzeko moduan** (6); **lehertzeko moduko** (5); **lehertzeko modukoa** (4); **lehertzeko prestatu** (3); **lehertzeko puntuan** (5); **lehertzeko zorian** (80); **lehertzeko zorian jarri** (4); **lehertzeko zorian nengoen** (3); **lehertzeko zorian zegoela** (3); **ontzia lehertzeko zorian** (3)

**barrez lehertzekoa** (10)

**barrez lehertzen** (64); **barrez lehertzen ari** (10); **barrez lehertzen hasi** (7); **barrez lehertzen ziren** (6); **irriz karkailaka lehertzen** (3); **irriz lehertzen** (7); **karkailaka lehertzen** (3); **minez lehertzen** (3); **pozez lehertzen** (7); **pozez lehertzen zegoen** (3)

---

# **lehertzaile** *iz ipar* zapaltzailea.

Errusia **lehertzaile** hori da Txetxeniako herritarrek onartzen ez dutena, txetxeniarren dretxoak eta zuzenak ahantziak eta ostikatuak direlakoan. Herria

Gizonaren dretxoen **lehertzaile** ziren tribunale bereziak. Herria

Aleman **lehertzaileen** zapalketak. Herria

---

# **lehertze** 1 *iz* eztanda egitea.

Halako bat-**bateko** lehertze zarata gabeko batean. Oskar Arana

Ikusteko daukagu oraindik nola sortzen den banatze horretarako aukera; eta, jakina, "gaitzen hasiera" hau **lehertze** hori eragin duen elizaren ahulune edo urrats okerren batean bilatu behar da. Iñaki Mendiguren

Atzo goizean Udalaren Ur Batzordearen bilera egin zen hodien **lehertze** horiei buruz hitz egiteko. Berria - Euskal Herria

## 2 ***lur lehertze*** *ipar* luizia.

Donibane Lohizunen, joanden neguan, lur **lehertze** bat izan zen Santa Barbarako itsas-mutur hortan. Herria

Bestalde, euritearen gatik, lur **lehertze** batzu ere izan dira Saran eta hor gaindi. Herria

Lur **lehertze** batzu gutien ustean gertatzen ahal direla, bereziki eurite handixko baten ondotik. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lur lehertze batzu** (3)

**bonba baten lehertzeak** (4)

---

# lehi ik **lehia**.

---

# **lehia** *(orobat **lehi** g.er.)* 1 *iz* zerbait egiteko edo lortzeko ahalegin bizi eta presatua.

Jainko, ene Jainko, **lehia** biziz nabilkizu bila. Elizen arteko biblia

Bizarra egindakoan, bizkor eta agudo jantzi zen, hain **lehia** biziz, ezen gutxigatik ez baitzen lurrera erori hankak galtzetan sartzerakoan. Jose Morales

**Lehia** biziz eta elkar joka eskuratu nahi dituzte denek ondasun materialak. Jose Morales

Orain **lehia** handiz ari da frantses ikasten, gauez ere bai, ohean, hamarrak eta laurdenak arte. Josu Zabaleta

Zaldun batek, begirunez eta **lehia** handiz eskatuz, bazkaltzera gonbidatu zuen. Askoren artean

Gurekin **lehia** isilean izana zen, bere ordua noiz iritsiko. Edorta Jimenez

Haserrea kontrolatzeko **lehia** izugarria eginik hitz egin zuen nebak. Anjel Lertxundi

Datu soil horiek erakuts dezakete Maupassanten sormena, lanerako **lehia** zenbaterainokoa zen. Josu Zabaleta

Helburua lortzeko **lehia**. Elizen arteko biblia

Hori izan da bere obsesioa, bere **lehia**, bere obra nagusia. Joxean Agirre

Susmatzen nuen zer egin asmatu ezinik ibiliko zela naturaren eta gizonaren legeen kontrako **lehia** hartan. Anjel Lertxundi

Gogoetarik gabeko **lehia** ez da ona, presaka ibiltzeak huts egitera darama. Elizen arteko biblia

## 2 norgehiagoka. ik **lehiaketa**.

Bigarren **lehia** makilarekin zen, ea nork botatzen zuen makila urrutiago. **Lehia** hasi zelarik, Lancelot ziztu bizian sartu zen borrokan bere zaldiarekin. Bernardo Atxaga

Lau pilotari handien arteko **lehia** izan zen Labritekoa. Berria - Kirola

Bizitzaren eta heriotzaren arteko **lehia** morbosoaren ilustrazioa. Anjel Lertxundi

Guadalupera sarri joaten ginen Jon eta biok, bizikletaz, **lehia** bizian (**lehiak** ere, orain uste bide denaz beste, ikaragarri sendotzen du lagunen arteko atxikimendua). Joxerra Garzia

Hor kanpoan zerua eta lurra **lehia** bizian ari dira nork berotuko ote sorkariak. Patxi Ezkiaga

Erromes horiek **lehia** zakarrean ekiten zioten iraganbide meharretan, madarikazio ilunez elkarri erasotzen, eskailera jainkozkoetan batak besteari lepoa bihurritzen. Juan Garzia

Meza bukatutakoan, **lehia** borroka bihurtzen zen, eta hamar edo hamabost mutilek elkarri erasotzeari ekiten zioten ereinotz adarra lantza edo ezpata moduan erabiliz, nor nagusi geldituko. Bernardo Atxaga

Erredakzioetan, **lehia** gupidagabean aritzeko hezten gaituzte, lankideari lepoa nola zanpatuko. Aingeru Epaltza

Itsasoa eta zerua ikusten ziren, zein baino zein urdinago, elkarri **lehia** egiten. Migel Angel Mintegi

**Lehia** horietan guztietan latina izan zen beti-beti garaile. Iñaki Mendiguren

Kontrako afektuen arteko **lehia** bizi dutenek ez dakite zer nahi duten. Piarres Xarriton

Trikitilarien arteko **lehia** honek teknikaren garapen izugarria ekarri du. Koldo Izagirre

-Vermonten zer gertatuko den ez dakit -dio Tomek-, baina badakit estu-estu ibiliko dela **lehia**. Oskar Arana

Normandiar ederraren eta Lisa ederraren arteko **lehia** isilagoa eta kezkagarriagoa izan zen handik aurrera. Karlos Zabala

**Lehia** judizialean ezarritako arauak. Iñaki Iñurrieta

Nire erantzunaren zain jarraitzen zuen besteak, kopa ahora astiro eramanez, **lehia** dialektikoa irabazi zuelakoan. Anjel Lertxundi

## **3** (ekonomian)

Erabateko **lehia** edo konpetentzia perfektua jasotzen duen eredua. Iñaki Heras

Konkurrentziak jartzen die bidezko prezioa salerosgaiei, **lehiak** ezartzen ditu benetako erlazioak haien artean. Iñaki Iñurrieta

Lan-indarra, balioaren legea, eskaintza eta eskariari buruzko legea, **lehia** ekonomikoa, inperialismoa, kolonialismoa. Rafa Egiguren

Elkarrizketa erabili gura dute **«lehia** askearen» aldeko pausoak emateko. Berria - Ekonomia

**Lehia** gogorra zagok orain sektorean, eta bezeroa ez duk hain aise etortzen. Aingeru Epaltza

Korearren **lehia** desleialaren eta euroaren eta dolarraren arteko aldearen ondorio direlako. Berria - Ekonomia

Korearren **lehia** desleialaren, eta euroaren eta dolarraren arteko aldearen ondorio. Berria - Ekonomia

Hor **lehia** bat dago unibertsitateen artean, gero ikusiko denez. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Estatu Batuen politika ekonomikoaren aldaketak, aurren-aurrenik, nazioen arteko konkurrentzia mota berri bat sorrarazi zuen: munduko aurrezkia bereganatzeko **lehia**. Koro Navarro

Euroaren ondorioz, integrazioa gero eta zabalagoa izango denez, **lehia** areagotu egingo omen da enpresen artean. Iñaki Heras

Denen arteko elkarlana, bai, denok garelako sistema bakar baten kideak, baina aldi berean lehiakortasuna ukatu gabe, denen arteko **lehia**, hori ere behar baitugu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Lehia** okerrik egin gabe, hori bai, administrazioak hezkuntza, ziurtasuna eta osasuna bideratu beharko lituzkeelako, baina ez, demagun, kirol denda bat. Pello Salaburu

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lehia** Auzitegiak Edurnezuriri 57 milioiko isuna jarri arren, Telefonicak (-%0,08) ez zuen txintik atera. Berria - Ekonomia

Vladimir Spidla EBko **Lehia** komisarioak bultzatu duen ikerketa batek. Berria - Ekonomia

Gas naturalek (- 1,34) Enagasen (%0,21) zuen %4,5 saldu du, **lehia** legediak bultzatuta. Berria - Ekonomia

**Lehia** puntu bat bazen bien artean, arras lotzen zituena eta bata besteaz etengabe arduratzera bultzatzen zituena. Karlos Zabala

## **5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Batzar batean hizkuntz **lehia** dagoenean, lehendakariak, batasuna erdiesteko, denek frantsesez solastatzea proposatzen du. Anton Garikano

Alemaniaren eta Danimarkaren artekoa, eskubaloi **lehia** baino gehiago, borroka libreko erakustaldia izan zen. Berria - Kirola

Bosteko luzea halako indar **lehia** bihurtu da, lagunen artekoa. Paddy Rekalde

## **6** ***lehian*** *adlag*

Nahikoa zela esan zuen, jokoan eta **lehian** hasteko garaia zela. Juan Kruz Igerabide

Uil eta biok **lehian** ibiltzen ginen nork erantzungo telefono deiari. Juan Kruz Igerabide

**Lehian** diren aldaera biak zaharrak direnean. Koldo Zuazo

Aurkia eta ifrentzua beti **lehian** daudela erakusten duen zerbaiten lekuko izan nintzen bart. Anjel Lertxundi

Luisaren lepoari ere begira aritu zen denbora luzez, lur zuria hura ere, odolaren taupadek harrotua zertxobait, azpiko urdina **lehian** ageri ez ageri. Felipe Juaristi

Ordu arteko nire munduan erraza gertatu zitzaidan banaketa egitea: gaizkiaren eta ongiaren arteko **lehian**, aski zen erabakitzea zein zelaitan zegoen ongia. Anjel Lertxundi

## **7** -ekin **lehian**

Usoak zebiltzan harat-honat kai bazterrean, kaioekin **lehian**. Felipe Juaristi

Burdinbideak errepideekin **lehian** ari ziren, eta hegazkintza, lehorreko eta uretako garraiabide guztiekin. Iñaki Mendiguren

Nola ausartu, ordea, Bacourt-eko baronesa prestatzen ari omen den orrialde urregorrizkoekin edo Carolus Hourcade-ren arkatz fineziaz eta zehaztasunez bete horrekin **lehian**? Juan Garzia

## **8** -tzeko **lehian**

Bi gizon botere-gose tronua lortzeko **lehian** lehian badabiltza, indartsuenak irabaziko du eta heriotza epaia ezarriko dio ahulenari eta haren jarraitzaile guztiei. Juan Martin Elexpuru

Eta hala iruditzen zaigu, bizitzak ezin duela formaren muga hertsietan etsi, 24 lerro horietatik ateratzeko **lehian** ari dela. Bernardo Atxaga

Eta beldur zen, ez ote zen behartsu izateko **lehian** galtzaile aterako. Askoren artean

Herfy eta Kid euli pisuko txapelketa lortzeko **lehian** arituko dituk. Lopez de Arana

## **9** ***elkarren lehian***

Bi koruek elkarren **lehian** kantatuz. Askoren artean

Kontrako afektuak elkarren **lehian** ditugunean. Piarres Xarriton

· Ikasleak urritzen direnean, eta unibertsitateak elkarren artean **lehian** sartzen direnean besteak beste ikasleak erakarri behar dituztelako, joku arauak zeharo alda daitezke. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**aizkolarien lehia** (6); **amaitu zen lehia** (4); **arteko lehia** (230); **aurkako lehia** (30); **bien arteko lehia** (13); **bigarren posturako lehia** (4); **botere lehia** (4); **elkarren arteko lehia** (5); **erabaki zen lehia** (4); **erabaki zuen lehia** (5); **eskuratzeko lehia** (4); **europako batzordeko lehia** (5); **finalerdietara sartzeko lehia** (4); **herrialdeen lehia** (4); **hirugarren posturako lehia** (4); **irabazi zuen lehia** (6); **jardunaldiko lehia** (5); **joaneko lehia** (4); **kontrako lehia** (11); **kopako lehia** (4)

**lehia amaitzeko** (6); **lehia askea** (4); **lehia askearen** (6); **lehia askeari** (4); **lehia berdindu** (5); **lehia berezia** (4); **lehia bihurtu** (4); **lehia bizi** (5); **lehia bizia** (40); **lehia bizia espero** (5); **lehia bizia izan** (8); **lehia biziak** (4); **lehia bizian** (26); **lehia bizian ari** (6); **lehia biziz** (5); **lehia desleiala** (7); **lehia ederra** (5); **lehia egin** (7); **lehia erabakigarria** (10); **lehia erabakita** (4); **lehia espero da** (4); **lehia estu** (6); **lehia estua** (78); **lehia estua izan** (27); **lehia estuagoa** (7); **lehia galdu** (4); **lehia gisa** (4); **lehia gogorra** (42); **lehia gogorra espero** (4); **lehia gogorra izan** (10); **lehia gogorragoa** (6); **lehia gogorrean** (6); **lehia handia** (26); **lehia handia dago** (7); **lehia handiagoa** (7); **lehia handiena** (4); **lehia handiz** (5); **lehia hasi** (9); **lehia ikusgarria** (15); **lehia ikusi** (4); **lehia irabazi** (15); **lehia itxia** (6); **lehia izan** (31); **lehia izango** (53); **lehia izango da** (37); **lehia izango dute** (13); **lehia izatea** (6); **lehia izugarria** (6); **lehia jokatu** (15); **lehia jokatuko** (8); **lehia jokatzeko** (5); **lehia judiziala** (8); **lehia judizialaren** (19); **lehia judizialaren usadioa** (6); **lehia nagusia** (6); **lehia orekatua** (10); **lehia oso estua** (6); **lehia oso gogorra** (7); **lehia parekatua** (7); **lehia polita** (27); **lehia polita izango** (10); **lehia prestatzeko** (5); **lehia utziko** (4)

**lortzeko lehia** (11); **nazioarteko lehia** (6); **oso lehia estua** (8); **posturako lehia** (14); **sartzeko lehia** (4); **taldeen arteko lehia** (4); **unibertsitateen arteko lehia** (6); **urrezko aizkolarien lehia** (4)

**arteko lehiak** (42)

**urrezko aizkolarien lehiako** (9)

**aizkolarien lehian** (9); **ariko dira lehian** (114); **arteko lehian** (52); **aurkako lehian** (31); **bigarren posturako lehian** (5); **buruz buruko lehian** (4); **egiteko lehian** (6); **elkarrekin lehian** (7); **elkarren artean lehian** (4); **elkarren arteko lehian** (4); **elkarren lehian** (27); **ere lehian** (12); **europako lehian** (5); **eusteko lehian** (9); **hirugarren posturako lehian** (5); **igotzeko lehian** (4); **ihes egiteko lehian** (5); **irabazteko lehian** (32); **irabazteko lehian egon** (4); **itzuliko lehian** (7); **izateko lehian** (8); **jaitsiera saihesteko lehian** (5); **joaneko lehian** (4); **jokatzeko lehian** (4); **kiloko lehian** (4); **kontrako lehian** (11); **lehian ari** (46); **lehian ariko** (40); **lehian ariko dira** (9); **lehian ariko diren** (18); **lehian aritu** (14); **lehian arituko** (6); **lehian aritzea** (7); **lehian aritzeko** (12); **lehian aritzeko aukera** (4); **lehian buru belarri** (5); **lehian egin** (4); **lehian egon** (14); **lehian egongo** (8); **lehian egotea** (6); **lehian hasi** (6); **lehian hasteko** (5); **lehian ibili** (5); **lehian ibiltzen** (4); **lehian izan** (7); **lehian izango** (14); **lehian izango da** (8); **lehian jardun** (9); **lehian sartu** (20); **lehian sartuko** (7); **lehian sartuta** (8); **lehian sartuta dauden** (4); **lehian sartzea** (5); **lehian sartzeko** (15); **liga irabazteko lehian** (7); **lortzeko lehian** (32); **mailari eusteko lehian** (9); **nazioarteko lehian** (4); **postua lortzeko lehian** (4); **postuen lehian** (4); **posturako lehian** (15); **saihesteko lehian** (7); **sartzeko lehian** (8); **txartela eskuratzeko lehian** (5); **uefarako lehian** (14); **urrezko aizkolarien lehian** (9)

**arteko lehiarekin** (4)

**arteko lehiaren** (10); **lehiaren aurka** (4); **lehiaren defentsarako** (10)

**arteko lehiari** (4); **ekin zion lehiari** (7); **lehiari aurre egiteko** (9)

**irabazteko lehiatik at** (6); **lehiatik at** (24); **lehiatik at geratu** (8); **lehiatik kanpo** (26); **lehiatik kanpo geratu** (5); **lehiatik kanpo utzi** (6); **liga irabazteko lehiatik** (5); **lortzeko lehiatik at** (5)

**arteko lehiaz** (4); **lehiaz eta** (5); **lehiaz gain** (4); **lehiaz kanpo** (9)

**lehiabide** *iz* lehiatzeko zioa.

Binilozko disko zaharrak, merkatuan dagoeneko **lehiabide** direnak, errepide mapa zaharkituak, noizbaiteko bidai gidak, historikoak ia-ia, [...]. Joxan Elosegi

---

**lehiadun** *izond* lehiatzeko joera duena.

Hor ageri da Pierre gizon kartsu, **lehiadun**, bihotz handikoa zela. Herria

---

**lehiaka** *adlag* presaka.

Orduan atea berriz zabaldu zen eta aho zabalik gelditu nintzen sendagilea **lehiaka** sartu baitzen, hain ezohiko orduetan sekula jazo ez zena. Urtzi Urrutikoetxea

---

**lehiakari** *iz* lehiaketa batean parte hartzen duen pertsona.

Hamahirugarren Korrikletak 210 **lehiakari** bildu ditu igandean Angeluko karriketan. Herria

Zumaian iragan den "B" saileko proban lehen atera dira, zortzi **lehiakarik** osatzen zuten zoinlehenkan. Herria

Zortzi hautagia ditugu lehian: Jean-Mixel Colo Arrangoitzeko auzapezak nahi luke aintzina segitu karguan bainan **lehiakari** zorrotzak agertzen zaizkio. Herria

---

**lehiaketa** *(orobat **leiaketa** g.er.)* **1** *iz* elkarren lehian arituz egiten den sari bat irabazten den jarduna, batez ere literaturazkoa.

Herriko elkarte batek, *Gure Txokoa*k, 50. urteurrena betetzen omen zuen, eta hori ospatzeko sormenezko **lehiaketa** bat antolatu omen zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Narazio laburren **lehiaketa** bat antolatzen du Kanbon dagoen Artobeltz talotegiak. Herria

1999ko Tene Mujika **lehiaketan**. Iban Zaldua

Donostiako Udal Liburutegiko **lehiaketara** ipuin bat bidaltzea otu zitzaidan. Iban Zaldua

"Porroia", liburua ixten duen *snuff-movie* hori, Basauriko ipuin erotikoen **lehiaketarako** idatzi nuen 1999an. Xabier Mendiguren Elizegi

Iragarki eta **lehiaketa** arruntez bete nahian programazioa. Pello Salaburu

Telebistako **lehiaketa** bat ari baitziren ikusten han. Iñaki Mendiguren

World Press Photo **lehiaketakoentzat**, garbi dago. Iñigo Aranbarri

Aurreko urteko **lehiaketaren** epaia zeharo injustua izan ei zen. Josu Landa

Utz ditzagun neurriak alde batera, hau ez baita **lehiaketa** bat. Luis Elberdin

Arroltze moleta **lehiaketa** Balearen karrikan, Kaskarot-Bandak bazterrak harrotuz. Herria

**2** (kiroletan) ik **txapelketa**.

Txapeldunen Liga bezalako **lehiaketa** bati [...] arreta gehiago jarri diogu. Berria - Kirola

Frantziako federazioak **lehiaketa** ofizialetatik kanpo utziko dituela mehatxatu ditu pilotariak. Berria - Kirola

Agirrek **lehiaketa** bikaina egin zuen. Berria - Kirola

Klub batzuek **lehiaketa** pribatu bat eratu nahi dute, federazioetatik kanpo. Berria - Kirola

Huna Amikuzeko trinket berri hortan nola hasi den aurtengo **lehiaketa**. Herria

Berriki Aldudeko xokoan ezker paretako esku huskako **lehiaketa** iragan da. Herria

Aste huntan berean hasten den amaturren **lehiaketa**. Herria

Euskal Herriko Sega Txikiko lehen **lehiaketa** jokatuko da gaur, Legorretan. Berria - Kirola

Eta baliatu nintzen Bost Nazioetako **Lehiaketaren** barnean jokatu France-Irlanda partidaz, Frantziako hiriburura joateko. Daniel Landart

Pariseko Open **Lehiaketa**. Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Espainiako **Lehiaketa** Batzordeak guztira hamabost partidako zigorra jarri dio Osasunari. Berria - Kirola

Marketinaren ikuspegitik «kirol erakargarria» bihurtu da arrauna, **«lehiaketa** eredu berriari esker». Berria - Kirola

Aurtengo Binakako Erremonte Txapelketak berriak ditu izena, **lehiaketa** sistema eta hiru pilotari. Berria - Kirola

**Lehiaketa** erritmo ona hartu dut Australian eta Paris-Nizan. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire fakultatean bertan antolatzen zuten ipuin **lehiaketa** batera aurkeztu nuen. Iban Zaldua

Geroztik asko ugaldu dira haurrentzako literatur **lehiaketak**, dela ipuinetan dela olerkietan. Xabier Mendiguren Elizegi

Lau urtez behin antolatzen den bertso **lehiaketa** gorena da denen gailurra. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Xabik bertso-paper **lehiaketa** irabazi berri duela. Xabier Etxabe

Gaspar Cassado nazioarteko biolontxelo **lehiaketa** irabazi zuen. Berria - Kultura

*Bilbao Hiria* Pop Rock **Lehiaketa** abian da. Berria - Kultura

Iaz lehen saria eraman zuen kantonamenduko gazta **lehiaketan**. Javi Cillero

Arku **lehiaketa**. Juan Kruz Igerabide

Pilota **lehiaketa**. Herria

Hiriburuko ezkerparetan ere abiatu da jokoberri **lehiaketa** bat. Herria

Trinketeko Ostatuko Mus **lehiaketa**. Herria

Bilboko Nazioarteko Kantu **Lehiaketa**. Berria - Kultura

Espainiako Kopa **lehiaketa** erakargarria da Athleticentzat. Berria - Kirola

**5** lanpostu, lan edo kideko bat eskuratzeko, eskuarki zenbait hautagaik parte hartuz, egiten den azterketa.

Lineako transatlantiko bateko mediku-posturako **lehiaketan** sar zedin lortu zuten. Juan Garzia

**Zerbitzua** lehiaketa bidez hornitzeko Parlamentuak harturiko erabakiak atea ireki zien erakunde ez-ofizialen eremu zabalagoko hautagaiei. Iñaki Mendiguren

Batere susmagarria ez den frantsesezko liburu batean (Europako lanpostu **lehiaketetan** erabiltzen dena) hara zer esaten den. Edorta Jimenez

Sei hilabete gabe esku artean zeukan ospitaleko arropa zuri guztia garbitzeko kontratua, **lehiaketa** publiko "guztiz gardenean" irabazia. Aingeru Epaltza

Espainiako Sustapen Ministerioarentzat bi ontzi eraikitzeko **lehiaketa** irabazi du. Berria - Ekonomia

1991-06-08: behin behinean sortutako bost enpresa elkarte aurkezten dira Itoizko urtegia eraikitzeko **lehiaketara**. Edurne Elizondo

Indarrean zegoen ituna baliogabetu zen **lehiaketa** publiko batek baimentzen ez duen zerbait egiteko.

2000 ko irailean Sokoak abiatu zuen enpresa berriak sortzeko **lehiaketa** bat. Herria

**6** lehiatzea, norgehiagoka.

Desarautzea beti da ekonomiaren mesederako; konkurrentziak prezioei buruzko **lehiaketa** mesedegarria sortzen du, eta zerbitzuen kalitatea hobetzen. Iñaki Heras

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**abesbatza lehiaketa** (5); **aizkolarien lehiaketa** (37); **amaturren lehiaketa** (4); **animazio lehiaketa** (5); **arroltze moleta lehiaketa** (4); **artzain xakur lehiaketa** (12); **aurtengo lehiaketa** (10); **berrigara lehiaketa** (4); **bertsopaper lehiaketa** (6); **birla lehiaketa** (8); **elhinako lehiaketa** (5); **esku huskako lehiaketa** (4); **espainiako lehiaketa batzordeak** (6); **fandango lehiaketa** (11); **federazioko lehiaketa** (5); **futbol lehiaketa** (10); **gazteen arteko lehiaketa** (6); **gazteen lehiaketa** (4); **heleta mus lehiaketa** (4); **indar joko lehiaketa** (6); **ipuin lehiaketa** (23); **irabazi zuen lehiaketa** (4); **itsas lehiaketa** (6); **jaialdiko lehiaketa** (4); **joko lehiaketa** (8); **kantu lehiaketa** (6); **kartel lehiaketa** (4); **kirol lehiaketa** (5)

**lehiaketa antolatu** (29); **lehiaketa antolatu du** (13); **lehiaketa antolatzen** (8); **lehiaketa bat antolatu** (12); **lehiaketa bat antolatzen** (15); **lehiaketa bat iraganen** (4); **lehiaketa batzordeak** (49); **lehiaketa batzordean** (4); **lehiaketa batzordearen** (5); **lehiaketa berezi** (23); **lehiaketa berezi bat** (14); **lehiaketa egin** (5); **lehiaketa egingo** (5); **lehiaketa egun** (8); **lehiaketa erredakzioa** (5); **lehiaketa handi** (7); **lehiaketa hasi** (5); **lehiaketa hasiko** (4); **lehiaketa irabazi** (48); **lehiaketa irabazi zuen** (21); **lehiaketa iragan** (6); **lehiaketa iragan da** (5); **lehiaketa izanen** (4); **lehiaketa izango** (4); **lehiaketa jokatuko** (5); **lehiaketa jokatzen** (5); **lehiaketa nagusia** (11); **lehiaketa nagusian** (10); **lehiaketa ofizialetan** (12); **lehiaketa publiko** (14); **lehiaketa publiko batek** (5); **lehiaketa publikoa** (11); **lehiaketa publikoak** (5); **lehiaketa publikoan** (4); **lehiaketa publikoaren** (5); **lehiaketa publikora** (5); **lehiaketa sistema** (16); **lehiaketa taldeak** (11); **lehiaketa urte** (4)

**ligako lehiaketa batzordeak** (4); **literatur lehiaketa** (8); **maketa lehiaketa** (7); **margo lehiaketa** (4); **marrazki lehiaketa** (10); **marrazki lehiaketa bat** (4); **moleta lehiaketa** (6); **mus lehiaketa** (115); **mus lehiaketa bat** (25); **musika lehiaketa** (7); **nazioarteko lehiaketa** (11); **open lehiaketa** (5); **palantxa lehiaketa** (9); **pilota lehiaketa** (11); **pop rock lehiaketa** (15); **prestatzaileen lehiaketa** (6); **rock lehiaketa** (16); **rock lehiaketa taldeak** (10); **sukaldaritza lehiaketa** (4); **taldeen lehiaketa** (5); **tenis lehiaketa** (4); **trinketeko lehiaketa** (4); **urrezko aizkolarien lehiaketa** (36)

**lehiaketak jokatzeko** (9); **literatur lehiaketak** (4); **mus lehiaketak** (4); **urrezko aizkolarien lehiaketak** (5)

**aizkolarien lehiaketako finala** (7); **aizkolarien lehiaketako ligaxkara** (4); **aizkolarien lehiaketako sailkapen** (4); **lehiaketako epaimahaia** (5); **lehiaketako final** (5); **lehiaketako finala** (13); **lehiaketako lehen saria** (13); **lehiaketako ligaxkara** (4); **lehiaketako sailkapen** (4); **lehiaketako sari** (7); **lehiaketako sariak** (6); **literatur lehiaketako** (7); **urrezko aizkolarien lehiaketako** (72); **urrezko lehiaketako** (9)

**aizkolarien lehiaketan** (19); **akordeoi lehiaketan** (6); **lehiaketan parte hartu** (9); **lehiaketan parte hartuko** (4); **lehiaketan parte hartzeko** (13); **lehiaketan parte hartzen** (5); **lehiaketan saritutako** (5); **literatur lehiaketan** (5); **nazioarteko lehiaketan** (4); **taldeen lehiaketan** (4); **union basque lehiaketan** (4); **urrezko aizkolarien lehiaketan** (18)

**aurkeztu dira lehiaketara** (4); **aurkeztu ziren lehiaketara** (4); **lehiaketara aurkezteko** (4); **lehiaketara aurkeztu** (7); **lehiaketara lanak aurkezteko** (6)

**amikuzeko lehiaketaren** (6); **aurtengo lehiaketaren** (7); **ipuin lehiaketaren** (5); **lehiaketaren emaitzak** (9); **lehiaketaren finala** (24); **lehiaketaren finalak** (24); **lehiaketaren irabazlea** (6); **lehiaketaren irabazleak** (4); **lehiaketaren karietarat** (4); **lehiaketaren lehen partida** (4); **lehiaketaren sari** (4); **palantxako lehiaketaren** (7); **palantxako lehiaketaren finalak** (6); **urrezko aizkolarien lehiaketaren** (4)

**lehiaketatan saritu** (5)

**lehiaketatik at** (14); **lehiaketatik at utzi** (4); **lehiaketatik kanpo** (29)

**lehiaketaz kanpo** (10)

**lehiaketetan aritzeko** (4); **lehiaketetan parte hartzea** (4); **lehiaketetan parte hartzeko** (7); **nazioarteko lehiaketetan** (11)

**lehiaketetatik kanpo** (4)

---

# lehiaketatxo *iz* lehiaketa txikia.

Gure auzoko kultur elkarteak antolatu zuen **lehiaketatxo** anonimoan. Jon Arretxe

---

# lehiakide 1 *iz* lehia edo lehiaketa bateko kideetako bakoitza.

**Lehiakide** bakoitxak bere bertsetak kantatü dütü. Herria

**Lehiakideek** bi lerro osatu zituzten. Bernardo Atxaga

Txapela jantzi zuen iaz, baina **lehiakide** gogorrekin topo egingo du aurten. Berria - Kirola

Domergue UDFkoak ez dauka **lehiakide** sendorik eskuinean. Berria - Euskal Herria

Salmonden **lehiakide** izan zen Cunningham SNPko presidentetzarako lehian. Berria - Mundua

Petxo Idoyaga lankideak ustekabeko **lehiakide** bat izan zuen katedrarako oposizioetan. Joxerra Garzia

Ez eskatu aholkurik emakumeari bere **lehiakideaz**, koldarrari gerraz, merkatariari negozioaz, erosleari salmentaz. Elizen arteko biblia

OSS zerbitzuarentzat lan egin zuten, hots, FBIren **lehiakide** eta aurkari ere bazen erakundearentzat. Edorta Jimenez

Haren **lehiakide** Kodak eta Leicak jada ez dute produktu analogikorik ekoizten. Berria - Ekonomia

Euskara giputza zen nagusi, behin XIX. mende erdiraz gero, baina beste hiru eredu ere bazituen **lehiakide**. Koldo Zuazo

**Lehiakide** sentitu izan zuela, horra, eta ez burkide. Jon Alonso

## 2 (izenondoekin)

Orain **lehiakide** handiagoei eta merkeagoei aurre egin behar diete. Berria - Harian

Beste **lehiakide** handi batek, Txinak, [...]. Koro Navarro

Neurri zehatzen bidez galarazi zuten metropoliek hainbat koloniaren industrializazioa, **lehiakide** arriskutsuak zirelako. Iñaki Heras

Anaia konplizea **lehiakide** maltzur bihurtua. Eider Rodriguez

**Lehiakide** menderatuak suspertzeko arriskuaren aurkako segurtasun-neurri gisa. Iñaki Mendiguren

Airbus askoz egoera hobean dago Boeing **lehiakide** estatubatuarra baino. Berria - Ekonomia

## • 3 *izond*

Nazio-estatu **lehiakide** batzuek eratu duten munduko ekonomiaren aroa. Koro Navarro

Enpresa **lehiakideari** produkzioa erosi eta desegitea. Erakunde **lehiakide** eta aurkari gisa. Edorta Agirre

Edo erlijio bakar bat gerta liteke garaile edo erlijio **lehiakideak** beren artean adiskidetu egin litezke elkarren ondoan bizitzeko, mundu sinikoan eta indikoan bezala. Iñaki Mendiguren

Komunitate **lehiakide** lehiakide bateko profeta errefusatua gonbidatu zuten Mekara. Iñaki Mendiguren

Ordudanik, europar nazio handiak elkarren **lehiakide** izan ziren alor gehienetan. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bushen lehiakide** (3); **lehiakide izan** (10); **lehiakide izan ziren** (3); **lehiakide izango** (7); **lehiakide nagusiak** (4)

**lehiakideei aurre egiteko** (3)

**lehiakideen arteko** (7)

---

# lehiakor 1 *izond* helburu bera lortu nahi duten gainerakoekin lehian aritzeko gauza dena.

Bere alorrean **lehiakor** eta emankorra den enpresak bizkarra erakusten dio kultura **lehiakor** eta emankorrenari. Merkatu bateratu, integratu eta **lehiakor** bat. Anjel Lertxundi

**Lehiakorrak** ez diren produktuek desagertzera jotzen dutelako. Koro Navarro

Lantegi **lehiakor** batean lan egin nahi dutela. Berria - Ekonomia

Gipuzkoak aireportu **«lehiakor** eta segurua» behar du. Imanol Unzurrunzaga

1970eko hamarraldian HPEEren prezio jasoen politikak eskaintza **lehiakor** bat gararazi zuen, eta orobat ekarri zuen energiaren ordezkatzea eta aurreztea. Koro Navarro

Ekonomia **lehiakor** batean langile ikasiek berdinen elkarte sozialistak eratzea, hau da, kooperatibak sortzea. Berria - Kultura

Hori, inguru **lehiakor** batean, oso arriskugarria izan daiteke ikasleekiko konkurrentzia handia dagoenean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Urte horietan bi talde **lehiakor** zeuden Lieja hirian, Standard bata eta FC Lieja bestea. Berria - Kirola

Gizonari, aldiz, **lehiakorra** izaten erakusten zaio. Ana Urkiza

Estaturik boteretsuenen artean kokatzeko lasterketan **lehiakor** izateko ahalegin horretan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Epe luzera **lehiakor** izateko berrikuntza eta ikerketan inbertitu beharra. Koro Navarro

Trena garraiobide **lehiakor** eta moderno bihurtzeko. Berria - Gaiak

**2** (adizlagun gisa)

Nuarbek **lehiakor** jarraitzen du. Berria - Kirola

Beti **lehiakor**, beti erasoan. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lehiakor izateko** (4); **talde lehiakor** (6)

**auto lehiakorra** (3); **lehiakorra izan** (7); **lehiakorra izango** (4); **lehiakorra izateko** (5); **oso lehiakorra** (8); **oso talde lehiakorra** (3); **talde lehiakorra** (9)

**lehiakorrak izan** (5); **lehiakorrak izateko** (4); **lehiakorrak izaten** (3); **oso lehiakorrak** (3)

**gizarte lehiakorrean** (3)

**lehiakorrena bihurtzea** (3); **lehiakorrena izateko** (3); **munduko ekonomiarik lehiakorrena** (3)

---

# lehiakortasun 1 *iz* leihakorra denaren nolakotasuna.

Beharrezkoa da **lehiakortasunaren** kimera erretoriko hori kritikatzea. Iñaki Heras

**Lehiakortasuna** handitzen hasi denean. testuinguru globalean bere ekonomiaren **lehiakortasuna** ziurtatzen ez badu. Joseba Zulaika

Lanpostuak ziurtatu eta **lehiakortasuna** irabazteko era bakarra. balio erantsia eta **lehiakortasuna** areagotzeko. Berria - Ekonomia

Asmo nagusia enpresa txiki eta ertainen **lehiakortasuna** areagotzea da.

Enpresak **lehiakortasunari** eutsi ahal izateko. Berria - Ekonomia

Horren emaitza, batetik, **lehiakortasunaren** beherakada lasterra izan zen, eta, bestetik, defizit korrontearen hazkunde ikusgarria. Koro Navarro

**Lehiakortasun** horrek ingurumena errespetatu behar dela. Berria - Ekonomia

Norberak duen onena emanaz atera daiteke guztientzako emaitzarik onena: horrek behar luke izan **lehiakortasunaren** definizioa. Iñaki Heras

**2** (izenondoekin)

Talde honetan **lehiakortasun** handia dago postu guztietan.

Ez dira negozio onak, ez dago **lehiakortasun** handirik. Edorta Agirre

**Lehiakortasun** handiena duten herrialdeen sailkapena. Berria - Ekonomia

Atlantiko aldeko 13 kontseilu biltzen ditu RTAk, eta **lehiakortasun** ekonomikoa bultzatzea du helburu. Berria - Ekonomia

Gure mundua larritasunez, presio itogarriz, **lehiakortasun** kaltegarriz beteta dago, eta horrek guztiak ito egiten du pertsona. Dolarraren goraldiak ez zion ekonomien **lehiakortasun** erlatiboari bakarrik eragin. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Frantziako Gobernuak 650 milioi euroko laguntzak emango ditu hurrengo urteotan, **«lehiakortasun** guneak» sortzeko. Berria - Ekonomia

Babcockeko zuzendaritzak azpimarratu duenez, **lehiakortasun** plana abian jarri dute jada. Berria - Ekonomia

Modernizazio, segurtasun eta **lehiakortasun** irizpideekin. Berria - Euskal Herria

Estatua ez da berrikuntzaren eta garapenaren etsai bihurtzen, hazkuntza eta **lehiakortasun** faktore bihurtzen da. Berria - Ekonomia

Etengabeko **lehiakortasun** galera gainditzeko bidea. Berria - Ekonomia

Txirrindularien **lehiakortasun** maila neurtzeko proba. Berria - Gaiak

Ez dut uste, printzipioz, ona den elebakarreko unibertsitateak sortzea, beren **lehiakortasun** maila arras apala izango litzatekeelako. Pello Salaburu

EBren eta AEBren arteko **lehiakortasun** tartea handitu egin da azken urteotan. Berria - Ekonomia

Langileen hezkuntza eta kualifikazio maila eta beren parte-hartze maila enpresarentzat **lehiakortasun** eta produktibitate iturri nagusia da. Iñaki Heras

Baina Elgetaren garaian beste **lehiakortasun** mota bat zegoen. Koldo Izagirre

Mario Monti egungo **Lehiakortasun** komisarioa. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lehiakortasun arazoak** (4); **lehiakortasun handia** (6); **lehiakortasun handia dago** (4); **lehiakortasun plana** (3); **lehiakortasun txikiagoa** (3)

**arteko lehiakortasuna** (4); **enpresen arteko lehiakortasuna** (3); **enpresen lehiakortasuna** (6); **ertainen lehiakortasuna** (3); **eta ertainen lehiakortasuna** (3); **eta lehiakortasuna** (16); **lehiakortasuna areagotzea** (4); **lehiakortasuna areagotzeko** (11); **lehiakortasuna arriskuan** (3); **lehiakortasuna da** (3); **lehiakortasuna eta** (12); **lehiakortasuna ez** (4); **lehiakortasuna sustatzeko** (4); **produktuen lehiakortasuna** (3)

**enpresen lehiakortasunari** (4); **lehiakortasunari kalte** (4)

**enpresen lehiakortasunerako** (3)

---

# lehiarazi, leiharaz, lehiarazten du *ad* lehiatzera behartu.

Pastorala zinez arrisкütan ezarten dü, ene ustez, idazlearen testüaz axolik ez düanak, beti llabürtzera **lehiarazi** nahi gütüanak. Herria

Egiazko fededün bat da Mohamet, fedeak **lehiarazirik** mintzo da. Herria

Place de la Concorde-n barrena gindoazela, jendarme baten ziztuek **lehiarazita**, besotik heldu zidan. Joxe Austin Arrieta

Hexagono Gorribiziko liburuak erdiesteko eldarnioak **lehiarazi** zituen hartara. Juan Garzia

Esker ona edo Ikustatea da, ongi egin digunari, Maitasun afektu berberaz, ongi egitera **lehiarazten** gaituen Desira edo Maitasungarra. Piarres Xarriton

Tinkotasuna deitzen dut, bakoitza, Arrazoiaren agindu soilari jarraikiz, bere izana atxikitzeko, **lehiarazten** duen Desira. Piarres Xarriton

---

# lehiatila ik **leihatila**.

---

# lehiatsu 1 *izond* lehiaz betea.

Gizon **lehiatsuen** gizartea. Askoren artean

Ez du anfitrioi **lehiatsuarena** egiten, ez die edari bat eskaintzen. Oskar Arana

Arimen salbamena jainkozaletasun sutsuz eta grina bizi eta **lehiatsuz** bilatzen zuen. Askoren artean

Urrats **lehiatsuak** entzun ziren korridorean. Urtzi Urrutikoetxea

Barneko merkatuen murriztasunak kanpoko merkatuen bilaketa **guztiz** lehiatsua ekarri zuen. Koro Navarro

Bakearen eta salbamenaren etsai ziren askok, Jauna lagun, bakea besarkatzen zuten bihotz-bihotzez, eta bakearen seme-alaba eta betiko salbamenaren bilatzaile **lehiatsu**

bihurtzen ziren. Askoren artean

Hemen hasten da Agustin filosofoaren Egiaren bilaketa **lehiatsua.** **Imanol Unzurrunzaga**

Zuhurra nauk, eta **lehiatsua**, eta zentzuduna, baita setatsua ere. Jose Morales

Bien arteko isiltasuna nork urratuko **lehiatsu** hartan bizitza jokatzen ari balira bezain irmo. Anjel Lertxundi

**2** (adizlagun gisa) ik **lehiatsuki**.

Isilune bat sortu da, agian oso **lehiatsu** mintzatu naizelako. Bernardo Atxaga

Lanean ari zen berriz, **lehiatsu**, jainko ezezagun bati gure garunak arruntik ketzeko zina egin balio bezala. Aingeru Epaltza

Hasieran ia egunero deitzen zuen, gogorik gabe batzuetan eta **lehiatsu** besteetan. Joxean Agirre

Axenario **lehiatsu** tematzen da jarraitzen, kexatu gabe. Itziar Otegi

Anaiak **lehiatsu** animatzen zituen otoitz egitera. Askoren artean

Luze eta **lehiatsu** otoitz egin ondoren. Askoren artean

Jaiki zen berehala azkar, **lehiatsu** eta alai, eta Jainkoagatik borrokatzeko fedearen ezkutuaz eta konfiantza handiz armaturik, hiriko bidea hartu zuen. Askoren artean

---

## lehiatsuki *adlag* lehiaz, karrez. ik **lehiatuki**.

Eta ikaragarria zen pentsatzea jendea urkatzerakoan gizakiak hain ohikotasun handiz joka zezakeela, hain arduratsu, hain zehazki, hain **lehiatsuki**, munduko ekintzarik zentzugabeena hain era arrunt eta ondo antolatuan egin zezakeela. Jose Morales

---

## lehiatu, lehia, lehiatzen **1** da *ad* presatu.

Bat-batean, ordea, larriak harturik jaiki, eta komodako tiraderara **lehiatu** zen lasterka. Juan Garzia

Gizona bainugelara **lehiatu** zen arraposturik eman gabe. Itxaro Borda

Gartzia **lehiatu** zen Joanttori gertakarien berri ematera. Elena Touyarou

Arkua eta gezia ateratzea, ezkongaiak **lehia** zitezen. Juan Kruz Igerabide

Ez bat ez bi, gizonarengana **lehiatu** zen, aitak alemanen begirada eta gutizia bekaitzetarik salbu atxikitzen zituen baserriko mozkinez zareak hanpaturik. Itxaro Borda

Orduan, sorginaren gisa piztua ostatutik **lehiatu** zen Leonie, Maddi orroaz ondotik zetorkiola. Itxaro Borda

Ordaintzera **lehiatu** ziren. Itxaro Borda

**2** lehiaz ahalegindu.

Gauza bakoitza, haren esku den bezainbatean, bere izanean irauten **lehiatzen** da. Piarres Xarriton

Bakea egin ondoren, ekonomiazko merkataritzan **lehiatu** ziren biak. Iñaki Iñurrieta

Jaunaren erabakiz, burugogorkeriaz **lehiatu** ziren israeldarrei kontra egiten. Elizen arteko biblia

Laster, bere armada handiarekin, Europako beste erreinu edo inperio guztien gainetik Frantziako inperioaren ezartzera **lehiatu** zen, Madriletik Moskuraino. Piarres Xarriton

Andresek behin eta berriro **lehiatu** behar izan zuen haurraren egoera larria zela konbentzitzeko. Josu Zabaleta

Ez zuen askorik **lehiatu** behar izaten konbentzitzeko salerosketa eta negozio-arte bat zela politika. Josu Zabaleta

Eta **lehiatu** egin behar dela lana lortu nahi bada. Esteban Antxustegi

Kontrabandoko ekaiak pasatzera **lehiatzeagatik**, jende parrasta atxilotua izan zen. Elena Touyarou

**3** lehian aritu; lehia edo lehiaketa batean parte hartu.

Holding berria, hala, nazioarteko merkatuan **lehiatu** ahalko da. herrialdeko enpresa txiki eta ertainak nazioartean erosoago **lehiatu** daitezen. Berria - Ekonomia

Ezin dira ekoizpen masiboaren eta prezioa baxuen aurka **lehiatu**, eta orain hiru urteko krisialdiak industria hondoratu du. Berria - Ekonomia

Zeruaren eta itsasoaren kontra **lehiatu** behar setatsu hartan. Anjel Lertxundi

Osagai femenino handia duten emakumeek ez dute **lehiatu** beharrik sentitzen. Ana Urkiza

Batetik, industria babestu behar da, ezin baita **lehiatu** ez badago egitura ekonomiko sendorik. Ana Urkiza

Dakar probako motoak ez dira **lehiatu**, Caldecotten alde dolua adierazteko. Berria - Kirola

91 lasterkari **lehiatu** dira hor, nun nahitik jinak. Herria

Bi hilabetez, 130 muslari pare dira **lehiatu** Txixtulari ostatuan, antolatua zen 16. lehiaketa huntan. Herria

76 talde **lehiatu** dira giro hoberenean eta huna [...] hiru mailetako irabazleak. Herria

**4** norbaitekin elkarren lehian jardun.

Afrikan punikoarekin **lehiatu** behar izan zuen. Iñaki Mendiguren

Oinezkoekin lasterka nekatzen bazara, nola **lehiatu** nahi duzu zaldizkoekin? Elizen arteko biblia

Lasterketa moduko batean **lehiatu** ginen ekaitzarekin. Juan Garzia

Hizkuntzarekin **lehiatu** ez den eta lehian lortutako etekinekin gozatu ez den hiztun erdi teknokrata erdi indiferente horrek. Patziku Perurena

Zeren enara nola **lehia** daiteke zisneekin, edo antxumearen hanka dardaratiek nola berdin lezakete lasterka zaldiaren indar bortitza? Xabier Amuriza

Berez txikiak diren hizkuntzak, eta handiekin **lehiatu** behar dutenak, ezin, baina, triunfalismoan eta erosokerian sekula bizi. Koldo Zuazo

Ez daukak handienekin **lehiatzen** ibili beharrik. Hasier Etxeberria

**5** (era burutua izenondo gisa)

Partida estu hasi zen, lehen tantoak **lehiatuak** izan ziren. Berria - Kirola

Gilen **lehiatuarendako**, berriz, Salbaterrako zubiaz harata mundua ere bazela ikastearen pare izan zen. Aingeru Epaltza

Harea gorriaren eta harri beltzaren gainean han entzuten nuen hurbiltzen; airearen freskurak eta euriaren zurrumurru **lehiatuak** iratzarri ninduten. Juan Garzia

Ukrainako oposizio laranjak [...] Presidentetzarako hauteskunde **lehiatuaren** emaitzari aurre egiten jarraitzen zuen atzo.

Partida **lehiatua**, gogorra, eta gaitza izango da. Berria - Kirola

Partida estu hasi zen, lehen tantoak **lehiatuak** izan ziren. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**elkarrekin lehiatu** (3); **elkarren aurka lehiatu** (3); **film lehiatu dira** (5); **gogor lehiatu** (3); **izateko lehiatu** (3); **lasterka lehiatu** (3); **merkatuan lehiatu** (6); **nazioarteko merkatuan lehiatu** (3); **talde lehiatu dira** (5); **talde lehiatu ziren** (13); **taldeekin lehiatu** (4)

**final lehiatua** (4); **oso lehiatua** (14); **oso lehiatua izan** (4); **partida lehiatua** (10); **partida lehiatua izango** (3); **partida oso lehiatua** (4)

**abere lehiatuko dira** (3); **atalean lehiatuko** (3); **aurka lehiatuko** (14); **aurka lehiatuko dira** (8); **bertsolari lehiatuko dira** (5); **bikote lehiatuko** (3); **bozetan lehiatuko** (6); **eskuratzeko lehiatuko** (4); **film lehiatuko dira** (9); **filmak lehiatuko dira** (3); **hautagai lehiatuko dira** (4); **hauteskundeetan lehiatuko** (4); **idi pare lehiatuko** (3); **jaialdian lehiatuko da** (4); **kirolari lehiatuko dira** (4); **kontra lehiatuko** (4); **lehiatuko dela iragarri** (3); **lortzeko lehiatuko** (4); **luze lehiatuko dira** (3); **multzotan lehiatuko** (3); **onenak lehiatuko dira** (3); **sail ofizialean lehiatuko** (8); **sailean lehiatuko da** (3); **talde lehiatuko dira** (21); **taldeak lehiatuko dira** (7); **uztarri lehiatuko dira** (5); **zazpi talde lehiatuko** (3); **zerrenda lehiatuko dira** (4)

**lehiatzea galarazi** (5)

**bozetan lehiatzeko** (3); **europan lehiatzeko** (4); **lehiatzeko asmoa** (9); **lehiatzeko asmoa zuten** (3); **lehiatzeko aukera** (16); **lehiatzeko aukera izango** (4); **lehiatzeko aukerarik** (3); **lehiatzeko borrokan** (3); **lehiatzeko eskubidea** (3); **lehiatzeko grina** (3); **lehiatzeko moduan** (8); **lehiatzeko prest** (5); **lehiatzeko tresna** (3); **lehiatzeko txartela** (7); **nazioartean lehiatzeko** (8); **ofizialki lehiatzeko** (5)

bozetan lehiatzen diren (3); hauteskundeetan lehiatzen (4); lehiatzen ari (8); lehiatzen ari diren (3); lehiatzen hasi (3); lehiatzen ikustea (3); putinen aurka lehiatzen (4)
lehiatzera ohituta (3)

---

# lehiatuki *adlag* lehiaz, karrez. ik **lehiatsuki**.

Zinez **lehiatuki** zeraman bere misiolari kargua. Herria

Hura ez baitzen bere desirkundeetan ihartzen eta iraungitzen zen gizona, baina **lehiatuki** lehiatzen zena eta bere gogoa gogor atxikitzen zuena, azkeneraino. Joan Mari Irigoien

---

# lehiatzaile *iz* lehiatzen den pertsona.

Printzeak gutxiago arduratu ziren hango ministroak izendatzeaz, eta **lehiatzaileek** gutxiago eskatu zieten beren autoritatea. Iñaki Iñurrieta

Balkan Txikiren **lehiatzailerik** zorrotz eta gogorrena. Jon Alonso

---

# lehiatze *iz* lehiaz ahalegintzea.

Usoen etengabe **lehiatze** horrek gau-beila luzeen osteko amesgaiztoa gogorarazten dio: aita galdu zuenetik beti ikusten du katedrala ametsetan, baina inoiz ez da barrura sartzen, portaleko usoek izuturik. Javi Cillero

---

# lehiazale *izond* lehiaren zalea dena.

Jakizu alargun naizela eta **lehiazale** porrokatua, eta ez dudala etsiko harik eta lo dagoen printzea esnarazi eta nire herrira eraman arte. Felipe Juaristi

---

# lehoi *(orobat **lehoin** g.er., **leoi** g.er. eta **leoin** g.er.)* 1 *iz* ugaztun haragijale handia, ilea hori-gorria, eta isatsa luzea eta ile motots batean bukatua duena, Asian eta Afrikan bizi dena *(Panthera leo).*

Basamortuari harrotasunez begira dagoen **lehoi** ar bat ageri zen. Patxi Zubizarreta

**Lehoi** arra bezala / makurtu eta etzaten da, / edo lehoi emea bezala: / nork egin aurre hari? Jose Antonio Mujika

Timnako mahastietara hurbiltzen ari zenean, **lehoi** gazte bat irten zitzaion orroka. Jose Antonio Mujika

Hartz edo **lehoi** basatiak. Elizen arteko biblia

Zeuok hil dituzue profetak ezpataz, **lehoi** amorratuak bezala. Elizen arteko biblia

**Lehoi** goseen erpe eta atzaparretarat. Joan Mari Irigoien

Nondik edo handik **lehoi** baten larru zahar bat lortua zuten. Patxi Zubizarreta

**Lehoi** baten eta bufalo baten arteko borrokaldia. Koro Navarro

**Lehoi** baten zuloan sartzea bezala zen Henneren etxean sartzea. Koro Navarro

**Lehoi**-tximadun jakintsuak. Fernando Morillo

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lehoi** aurpegiak, gizonen eta emakumeen aurpegiak. Lourdes Oñederra

Baliteke gu **lehoi** burua duen sagua izatea, baina hobe da hori arratoi aurpegia duen lehoia izatea baino. Jon Muñoz

**Lehoi** ehizan bildutako ebatondoak. Aingeru Epaltza

Afrikan **lehoi** harrapaketan ibil zitekeen tribu galdu bateko erraldoi horietako bat. Aritz Gorrotxategi

Unibertsitate batean eman behar zuen hitzaldi batera zirkuko **lehoi** hezle jantzita agertu omen zen behin Gomez de la Serna. Berria - Kultura

**Lehoi** domadorea? Harkaitz Cano

## 3 ***lehoi-eme*** *(orobat **lehoieme**)*

Lehoiak harrapatzen eta zatitzen zuen ehiza **lehoi**-eme eta kumeentzat, harrapakinez betetzen zuen bere haitzuloa. Elizen arteko biblia

Makurtu eta luze etzaten da lehoiaren antzera, **lehoi**-emearen antzera. Elizen arteko biblia

**Lehoi** eme beltzarana dirudi kirru mataza horrekin. Berria - Kultura

**Lehoieme** amorratuek gorputza betean noranahi saltatzen zuten, aurre egiten zietenen aurpegira oldartzen ziren. Xabier Amuriza

## 4 ***lehoi-zulo*** *(orobat **lehoizulo**)*

Gero, harri bat ekarri eta **lehoi**-zuloaren sarrera itxi zuten. Jose Antonio Mujika

Gero, Danielen salatzaileak ekartzeko agindu zuen erregeak, eta **lehoi**-zulora jaurtiki zituzten beren emazte eta seme-alabekin batera. Elizen arteko biblia

**Lehoi**-zulora hurbildu eta barrura begiratzean, eserita ikusi zuen Daniel. Elizen arteko biblia

**Lehoizulo** bat ematen du etxeak. Javi Cillero

## 5 ***urrezko lehoi*** Veneziako zinemaldiko sari nagusiaren irudia.

Europako hiru film eta Hego Koreako bat dira faboritoak Veneziako **Urrezko Lehoia** eskuratzeko. Berria - Kultura

Mike Leighen *Vera Drake* filmak irabazi du Veneziako Nazioarteko Zinemaldiko **Urrezko Lehoia**.

Veneziako Mostrako **Urrezko Lehoiaren** irabazlea. Berria - Kultura

Eisenmanek bere ibilbideagatik jaso du **Urrezko Lehoia**. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

lehoi aurpegia (3); lehoi eme (6); lehoi emea (4); lehoi emearen (4); lehoi gazte (5); lehoi gaztea (3); lehoi zuloaren (3); lehoi zulora (5)
lehoia baino (3); lehoia bezala (8); urrezko lehoia (20); urrezko lehoia eskuratzeko (3); urrezko lehoia irabazi (4)
lehoiak bezain (3); lehoiak bezala (9); lehoiak edatera joaten (3)
lehoiaren ahotik (3); lehoiaren antzera (4); lehoiaren hezur (3); lehoiaren kaiolan (3); lehoiaren orroa (4); lehoiaren zalduna (3); urrezko lehoiaren (3)
lehoiek orro (3)
daniel lehoien zuloan (3); lehoien ahoak (3); lehoien pasabidea (4); lehoien zulora (7)
lehoietako zalduna (3)

---

# lehoidun *izlag* lehoiaren irudia duena.

Gryffindorreko **lehoidun** bandera gorriak astintzen zituzten edo pankartak altxatzen zituzten. Iñaki Mendiguren

---

lehoieme ik **lehoi 3**.

**lehoikume** *iz* lehoiaren umea.

Lehoia basapiztien artean bezala, **lehoikumea** ardien artean bezala izango dira. Elizen arteko biblia
**Lehoikume** xalo bat bi hiena zitalengandik eskapo. Aingeru Epaltza
**Lehoikumeak** gordelekutik marruma egiten ote du, ezer harrapatu ez badu? Elizen arteko biblia
Eta panterakumeak eta **lehoikumeak** erpeka eta haginka defendatzen dira, kasik haginik eta erperik irten aurretik. Xabier Amuriza
Amak eta bi inudek bularra eman zioten, eta **lehoikume** bat bezain indartsu hazi zen, jazmina bezain zuri eta arrosak bezain musugorri. Patxi Zubizarreta

lehoin ik **lehoi**.

**lehoinabar** *(28 agerraldi, 7 liburu eta 7 artikulutan; orobat **lehoi nabar** g.er.)* *iz* ugaztun haragijale handia, larrua gorrixka eta orban edo izpil beltz biribilekin duena *(Panthera pardus)*. ik **pantera**.

Gero, begira nengoela, beste piztia bat ikusi nuen, **lehoinabarraren** antzekoa. Elizen arteko biblia
Alda ote dezake beltzak azalaren kolorea? edo **lehoinabarrak** bere larru pikardatua? Elizen arteko biblia
**Lehoinabar** baten zalutasun hilgarriaz mugitzen zuen gorputz luze lerdenean. Alberto Ladron Arana
**Lehoinabar** larruz jantzita azaldu zen hura burutik oinetaraino. Felipe Juaristi
Norvegiako Jomi Massage hasi zen: **lehoi nabarrezko** soinekoa, botak eta gitarra gorriak. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**elurretako lehoinabarra** (6)

**lehoitu** *izond*

Belar artean ageri da lurraren arradan muino ttipi **lehoitu** berdexketan eta lo hartutako artaldea ematen du. Koldo Izagirre

lehoizulo ik **lehoi 4**.

**lehor** *(orobat **leihor** g.er. eta **legor** g.er.)* **1** *izond* hezetasunik edo urik ez duena, bustirik ez dagoena.

Meseta aldetik datorren **haize** lehorra. Pello Zabala
Udako arratsaldea zen, astuna, itogarria, aire **lehor** eta hautsez betekoa. Josu Zabaleta
Aire **lehor** epelagoa. Pello Zabala
Giro **lehor** eta beroa. Pello Zabala
Nahiago dut hotz **lehor** hau hezetasuna baino. Monika Etxebarria
Tropiko aldean, bi eguraldi mota dauden gisara, bero **lehorrarekikoa** eta bero umelarekikoa, [...]. Pello Zabala
Aspaldian urik ikusi ez duen lur **lehorra**. Ibaiak basamortu bihurtzen ditu, iturburuak lur **lehor**. Anjel Lertxundi
Jose putzu **lehorretik** atera eta zilarrezko hogei txanponetan saldu zieten ismaeldarrei. Elizen arteko biblia
Errekaren ubide **lehorraren** alboetan. Agustin Otsoa
Paisajea bezain aldakor sentitzen naiz: noiz **lehor** noiz heze, noiz egutera noiz ainube, noiz bero noiz hotz... Patxi Zubizarreta
Hotz ala bero, heze edo **lehor**, lastozko kamaina batean etzaten da, zerua aterpe. Jon Alonso
Hondar **bustia** lehor bihurtzen den punturaino. Iñaki Iñurrieta
Neguan ere **lehorra** egoten da etxeetako egurra. Koro Navarro
Lasto **lehorraren** usain gozo-antza sentitzen zen airean. Josu Zabaleta
Erantzi zapatak, galtzerdi bustiak, eta jantzi zituzten artilezko **lehorrak**. Anton Garikano
Oihal **lehor** eta goxoen artean. Jon Arretxe
Eskua sabelean zeukan, odol-marka **lehor** baten gainean. Inazio Mujika Iraola
· Termometro **lehor** eta bustiaren arteko zenbakia topatu. Pello Zabala

**2** euri gutxi egiten duena.

Orain basamortuan dago landatua, lurralde **lehor** eta egarberan. Elizen arteko biblia
Lurra **lehorra** zen; arbolarik ez zegoen, klima gogorra zen, jendeak ere gogorra behar. Josu Zabaleta
Eguna **lehor** eta eguzkitsu. Hasier Etxeberria
Abendu **lehorra**, urte ugaritsua. Pello Zabala
Eskualde **lehor** eta epelagoa da hemendik aurrerakoa. Jon Arretxe
Klima **lehorra**. Pello Zabala

**3** berezkoa duen hezetasuna edo zukua ez duena.

Gosaltzeko, ogi **lehorra** kafearen ordezkoarekin. Josu Zabaleta
Opil **lehor** horiei bultzatzen lagunduko dizu. Anjel Lertxundi
Madalena **lehor** batzuk aurkitu zituen armairuan. Unai Iturriaga
Bakailao **lehor** pusketa bat bota zidaten. Koldo Izagirre
Balea-haragi gazitu **eta** lehorra. Felipe Juaristi
Aukeran **lehor** samarra zegoen lasagna, baina oso ardo ona zuten ikasleek pisu hartan. Juan Luis Zabala
Berehala bukatu zuten beren jateko **lehor** murritza. Patxi Ezkiaga
Goxoki, fruitu **lehor** eta tabako paketeen atzean. Eider Rodriguez
Piku **lehor** hau ere norbaitek zuritu beharko dit. Iñaki Mendiguren
Kaxakada bat galleta **lehor**. Iñaki Mendiguren
· Sabel agorrak eta bular **lehorrak**. Elizen arteko biblia

**4** (ahoaz eta kidekoez mintzatuz)

Barka, ene printzesa, **aho lehorrez** jaikitzen naizenean gehiegi hitz egiten dut. Iñaki Zabaleta

Oso astiro, zintzurra **lehor**, oinak erreta dituena bezala, erdi herrestan iritsi nintzen etxeko eskalinata leinurutsuaren aurrera. Matías Múgica

Nola ur freskoa **eztarri** lehorrarentzat, hala dira urrutitik jasotako albiste onak Elizen arteko biblia

**5** (landareez eta kidekoez mintzatuz) ik **ihar 3; idor 3**.

Txori bat zegoen zuhaitz **lehor** baten adar biluzian. Koro Navarro

Intxusa **lehor** batetik masustondo lehorrera. Josu Zabaleta

Sasi **lehor** arantzadunei heldu nien, baina erroak atera egin ziren. Koro Navarro

Leku ezkutu eta eguzkitsu hartan tabako-sail egiazko bat landatu zuen; **hosto** lehorrak Arkale tabernariari saltzen zizkion gero. Koro Navarro

**6** (erkaketan)

Indargabe nago, teila bezain **lehor**. Elizen arteko biblia

Ahoan mihia larru-puska bat **bezain** lehor sumatu zuen. Lopez de Arana

Monasterioko zulo batera bota zuten eta han egon zen luzaro, ohola bezain **lehor** geratu zen arte. Elizen arteko biblia

Zeuen buru gaineko zerua brontzea bezain **lehor** eta oinazpiko lurra burdina bezain elkor bihurtuko dizkizue. Elizen arteko biblia

**7** pertsonez mintzatuz, maitasun edo txerarik erakusten ez duena, lagunkina ez dena.

**Gizon** lehor eta berekoia iruditu zitzaion Iturrioz. Josu Zabaleta

Felix Sumarakov-Elston **gizon** lehorra omen zen, semearekiko maitasun eta xera gutxi erakusten zuena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Carlos oso serioa zen, **lehorra**, izugarri arretatsua gauzak egiteko orduan. Irakasleak, ordea -aguretxo **lehor** eta erretxin bat-, aurre egin zien. Bernardo Atxaga

Venancia emakume zahar, **lehor**, garbi, langile horietako bat zen. Josu Zabaleta

Neska kementsua zen, **lehor** samarra. Josu Zabaleta

· Bere bihotz **lehor** zekenaren baitatik sortua. Felipe Juaristi

Begi **lehorrak** malkoz bete zaizkio. Itziar Otegi

**8** pertsona lehorrari dagokiona.

Agur zabal eta **lehor** bat luzatu dio, besoarekin zirkulu bat eginez. Monika Etxebarria

**Lehorrak** izan ziren Catherineren hitzak. Iñaki Zabaleta

"Bale" **lehor** bat eta buelta eman zuen, barraraino. Sonia Gonzalez

"Hiri" esatekotan egon da, semearengatik egindako guztiagatik, baina "ez horregatik" **lehorra** irten zaio. Urtzi Urrutikoetxea

Andresek ama agurtu zuen; hark harrera **lehorra** egin zion, eta aulki batean eseri zen Andres, Lulurengandik urruti. Josu Zabaleta

Noizean behin, barre **lehor** bat, berehalakoan itoa. Monika Etxebarria

Hileta-jagoleak **keinu** lehor bat egiten die hurbilen dituen gizonezkoei eta hilkutxa seinalatzen die. Anjel Lertxundi

Esplikazio **lehor**, ulergaitz, hermeneutiko, enigmatiko eta transgresibo bat. Iñaki Segurola

Beste eskuarekin Joxe Mariren besoari heldu, eta mugimendu **lehor** batez krak hotsa atera zion. Juan Kruz Igerabide

**9** testuez eta kidekoez mintzatuz, apaingarririk eda atsegingarririk ez duena.

Umekeria pedantez mamitua dago, tesi guztiak bezalaxe, eta ez dago kristaurik hango jardun **lehorra** inork derrigortu gabe irakurriko duenik. Iñaki Segurola

Ez da, ez, lege-testu **lehorra**, baina ezta gogoeta espiritual soila ere. Askoren artean

Apaiz batzuek egindako lan filologiko **lehorrak**. Iñaki Iñurrieta

Ustekabean, ordea, gerrako istorio eder bat entzun nuen, nire bibliofiliak espero zituen zehaztapen tekniko eta **lehorren** ordez. Anjel Lertxundi

· Entrenamendu-saioak gero eta hobeak ziren, edo **lehorragoak** behintzat. Iñaki Mendiguren

**10** (-en atzizkiaren eskuinean) lehortasuna.

Bixta urruneneraino luzatzeko ahalmen hori, airearen **lehorrari** zor zaio. Pello Zabala

Emakumearen aurpegian irribarrea ageri da oraindik, baina zakarkeria, hitzen **lehorra** ezin daiteke bazter utzi. Jon Alonso

**11** hotsez, kolpez eta kidekoez mintzatuz, laburra eta durundirik gabea.

Hots **lehorra** izan zen, sorra. Alberto Ladron Arana

Une berean hots **lehor** bat aditu zen. Urtzi Urrutikoetxea

Hots **lehor** bat egin zuen ezpainez. Lopez de Arana

Bat-batean, **tiro**-hots lehor batzuk entzun genituen: dak!, dak!, dak! Juan Kruz Igerabide

Eta, danba!, eztanda **lehor** bat entzuten dut. Anjel Lertxundi

Eta hor entzuten dut, paum!, eztanda txiki bat, soinu **lehor** bat, pertsianek haizearen eraginez hormaren kontra jotzean egiten dutenaren antzekoa. Anjel Lertxundi

Ikarazko oihu **lehor** bat. Joxemari Urteaga

Eztul **lehor** baten ondoren jarraitu zuen Marco Fidanzak: [...]. Joxemari Urteaga

Balaztada **lehor** baten soinuak moztu zigun, bat-batean, solasaldia. Juan Luis Zabala

Zaunka **lehor** bat entzun zen barnealdean. Joxemari Urteaga

Lasterka doaz, presaka, ondotik iragatean kolpe **lehor** batez jotzen naute eta desagertu egiten dira ondoren. Monika Etxebarria

-Tira, esnatu, putakume hori, esnatu! -hitzok zaplazteko **lehor** batzuek indartuta zetozen. Alberto Ladron Arana

Aire hotza sartzen da bere ziegara eta jendearen oihuak, lasterkarien hotsak eta tiro **lehorrak**. Harkaitz Cano

**12** edari alkoholdunez mintzatuz, azukrerik edo gozagarririk ez duena.

Zuri koktel **lehorrak** gustatzen zaizkizu, ezta ba? Mirentxu Larrañaga

Bermut **lehor** bat zerbitzatu Pierre jaunari, Noilly Cinzano bat Léon jaunari. Monika Etxebarria

**13** mozkorturik ez dagoena.

Gazteak nahiz zaharrak, indartsuak nahiz ahulak, mozkorrak nahiz **lehorrak**, osasuntsuak nahiz gaixoak. Oskar Arana

Denetara probatu zuen: asko janda eta baraurik; ontziko masta nagusia bezain zut eta **lehor**, ardo-zahagia bezain baldan eta mozkor. J.M. Olaizola "Txiliku"

· Al Capone eta Lege **Lehorraren** garaia bete-betean ezagutu zuen. Harkaitz Cano

**14** (adizlagun edo predikatu gisa) ik **lehorki.**

Noek untziko estalkia zabaldu eta lur-azala **lehor** ikusi zuen. Elizen arteko biblia

Jar ezazue fedea Jainkoarengan eta zaindu ezazue bolbora **lehor**. Atarian sartzeaz bat, **lehor** mintzatu zaio polizia: [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zirrara bat izan nuen, haren kontrako haserreaz gainezka; **lehor** erantzun nion: [...]. Monika Etxebarria

-Ez, jauna -erantzun zuen Philipek, **lehor** baina ziur-. Joxemari Urteaga

-Nik ez dut pipa erretzen- esan zuen Txitxikovek, **lehor**. Jose Morales

-Tira, etxera noa- **lehor** egin zuen barre. Lopez de Arana

-Ez eta ez -besteak, labur eta **lehor**. Migel Angel Mintegi

Ateko txirrinak jo du labur eta **lehor**. Rafa Egiguren

**Lehor** baina errespetu handiz. Josetxo Azkona

Ahoa **lehor**, bihotza estututa. Iñaki Mendiguren

Aho guztia hareaz beteta banu baino **lehorrago** nituen ezpainak, mingaina, sabaia. Anjel Lertxundi

• **15** *iz* itsasoak estaltzen ez duen Lurraren zatia.

Zeruko Jainkoa, itsasoa eta **lehorra** egin zituena. Elizen arteko biblia

Minututik minutura gero eta argiago ageri dira itsasoa eta zerua, baina **lehorra** ez, oraindik. Joxe Austin Arrieta

Baina ontziko inor ez da **lehorraren** hurbilaz ohartu. Anjel Lertxundi

**Lehorreko** lehenengo izakiek ezin izan zioten erabat ihes egin ingurune gaziari. Irene Aldasoro

Bizkitartean txalupak **lehorra** joa zuen. Koldo Izagirre

Eguraldi ona genuen **lehor** gainean ere, lehen itsas gainean bezala. Joxe Austin Arrieta

Bil bitez toki batean zeru azpiko urak eta ager bedi **lehorra**. Jose Antonio Mujika

**Lehorrari** "lur" eman zion izena eta ur-multzoari "itsaso". Jose Antonio Mujika

Aireak mendiak xedatzen ditu eta mendiek airea; lehorrak itsasoa eta itsasoak, berriz, **lehor** oro bereizten du. Xabier Amuriza

Itsasoa **lehor** bihurtu zuen, oinez igaro ziren bertatik. Elizen arteko biblia

Itsaso urdina eta **lehor** berdea logaleturik zeuden. Migel Angel Mintegi

Itsasbazterreko ur eta **lehor** arteko muga bihurrian barrena. Joseba Sarrionandia

Itsaso eta **lehor** zabiltzate. Elizen arteko biblia

**Lehorrera** eraman eta, naufragoa zalduna zela ikusirik, Pedro Zarauzkoak bere etxera eraman zuen, Narrosko jauregira. Martin Anso

Ni marinela nintzen, ez arrantzalea, itsasoko biztanlea nintzen eta guda osoan **lehorrez** ibili behar izan nuen. Koldo Izagirre

Mendebaldeko eta Errusiako gizarteen agindupeko lurraldeetatik munduko beste alde batzuetara **lehorrez** iristeko bide guztiak itxi zituzten. Iñaki Mendiguren

**16** (ibai-ri kontrajarria)

Artetxerreka herri-jendeak bataiatutako paraje baten izena da (ura eta **lehorra**, dena barne), eta Urola berriz, kartografiak ibai-izen gisa finkatua eta zabaldua. Iñaki Segurola

Eutsi egin zioten VI. kapituluan hizpide izan dugun merkataritzari, **lehorretik** eta ibaietatik egiten zenari alegia. Iñaki Iñurrieta

**17** ***lehorreko*** *izlag* itsasoak estaltzen ez duen Lurraren zatiari dagokiona.

Nijni Novgorodera iritsi eta, gauzak nola zeuden, **lehorreko** bideari ekingo zion edo Volgako lurrun ontziren bat hartuko zuen, Ural mendietara lehenbailehen iristeko. Karlos Zabala

Gartzela barrutik presoek irteerako atea begiratu ohi duten bezala begiratzen genuen guk ere, donostiarrok, **Lehorreko** Atearen aurreko zubi altxagarri hura. Txillardegi

Erromatarrek **lehorreko** armada besterik ez zuten aintzakotzat hartzen. Iñaki Iñurrieta

Zu **lehorrekoa** zara, zuk ez dakizu. Koldo Izagirre

Asuero erregeak zergak ezarriz menperatu zituen, nola **lehorrekoak** hala itsasaldekoak. Elizen arteko biblia

· Siriako inperioak **lehorretiko** merkataritza hainbeste hedatzen zuen bitartean, Egiptok ez zuen asko aitzinarazi itsas merkataritza. Iñaki Iñurrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahoa erabat lehor** (3); **ahoa lehor** (12); **ahoa lehor lehor** (3); **aire lehor** (8); **begi lehor** (4); **begiak lehor** (4); **bezain lehor** (10); **eremu lehor** (4); **esan zuen lehor** (3); **eztarria lehor** (10); **eztarria lehor lehor** (3); **eztul lehor** (5); **fruitu lehor** (3); **fruta lehor** (4); **galdetu zidan lehor** (3); **hots lehor** (12); **hots lehor bat** (6); **keinu lehor** (3); **kolpe lehor** (21); **kolpe lehor bat** (4); **kolpe lehor batez** (5); **lehor erantzun** (4); **lehor eta garbi** (3); **lehor lehor** (18); **lehor lehor eginda** (4); **lehor lehorra** (12); **lehor lehorrak** (4); **lur lehor** (7); **lurra lehor** (5); **zintzurra lehor** (4)

**belar lehorra** (4); **eztarri lehorra** (4); **eztarria lehorra** (3); **hots lehorra** (4); **itsasoa eta lehorra** (3); **lehor lehorra** (12); **lehorra da** (6); **lehorra dago** (3); **lehorra egin** (3); **lehorra izan** (13); **lehorra izan arren** (3); **lur lehorra** (4); **ogi lehorra** (5); **termometro lehorra** (3)

**almendra lehorrak** (3); **erloju lehorrak** (4); **fruitu lehorrak** (4); **itsas lehorrak** (6); **lehor lehorrak** (4); **piku lehorrak** (3)

**ahots lehorraz** (3)

**lehorreko atea** (4); **lehorreko atean** (3); **lehorreko atera** (3); **lehorreko muga** (3); **lur lehorreko** (3)

**lehorrera atera** (6); **lehorrera atera zuen** (3); **lehorrera ateratzeko** (5); **lehorrera begira** (5); **lehorrera egin** (10); **lehorrera eraman** (4); **lehorrera itzuli** (3); **lehorrera jaitsi** (7); **lehorrera joan** (3); **lehorrera joandakoak** (4); **lehorrera joango** (3); **lehorrera joateko** (4); **lehorrera salto egin** (6); **ontzitik lehorrera** (4)

**lehorretik etorri** (3)

**odol lehorrez** (3)

**fruitu lehorrezko** (4)

---

# lehorbide *(orobat **lehor-bide**)* *iz* lehorretik doan bidea.

Israeldarrek **lehorbide** horretatik igaro zuten itsasoa, ur harresiak zituztela ezker eta eskuin. Israelgo herri osoa **lehorbidetik** igarotzen zen bitartean, Jaunaren itun-kutxa zeramaten apaizak zutik egon ziren lehorrean, ibaiaren erdian; hala egon ziren, geldi, denak igaro ziren arte. Jose Antonio Mujika

---

# lehorgailu **1** *iz* arropa lehortzeko gailua.

Gutxira ikuzgailua geratu egin zen eta, arropa bustiak hortik atereaz, **lehorgailuan** sartu zituen, hamar zentaboko txanponaz makina martxan jarriz. Iñaki Zabaleta

Gero arropak eskotilatik atera eta **lehorgailura** zuzenean. Harkaitz Cano

Hozkailua eta **lehorgailua** hondatu zaizkigu. Berria - Euskal Herria

Ogi eginberria bezala ateratzen da **lehorgailutik** arropa: epela eta zakarra. Harkaitz Cano

**2** ilea lehortzeko gailua.

'Azken albistea!' dio burua **lehorgailuan** sartuta dagoen batek. Joseba Sarrionandia

**Lehorgailuaren** azpian nago, aldizkari bat altzoan dudala eta Marnie azkazala egiten ari zait. Koro Navarro

Amak txikitan burua lehortzeko nola nahasten zidan ilea gogoratzen dut, Norak zenbat denbora ematen zuen **lehorgailu** eskutan. Mikel Hernandez Abaitua

Ile-apaindegiko **lehorgailu** beroegiak. Joseba Urteaga

Ile-**lehorgailu** batek zora zaitzake, munduan ez da besterik, ile-**lehorgailu** alu baten zarata baino. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ile lehorgailu** (5)

---

# lehorgarri *izond* lehortzen duena.

Ohartu zen mahaiko paper **lehorgarrian** zerbait idatzita zegoela. Lopez de Arana

Basamortuko suzko haizea baino **lehorgarriago** eta hilgarriago diren bolada bortitzetan igarotzen zen. Josu Zabaleta

---

## lehorketa *iz* lehortzea.

Sindikalisten aurkako errepresioa Kolonbian, ur putzuen **lehorketa** Indian, iturriko uraren erabilera Ingalaterran... hamaika dira enpresaren kontrako akusazioak. Berria - Mundua

Nomaden sarraldiak zibilizazioen eremuan, edo gero eta handiagoa den **lehorketak** eraginak dira [...] edota zibilizazio baten kolapsoak eraginak. Iñaki Mendiguren

Nomadismoaren bilakaera aztertzen da **lehorketa** -aldietan. Iñaki Mendiguren

---

## lehorki *adlag* maitasunik edo txerarik erakutsi gabe. ik**lehor 14**.

**Lehorki** bukatu zuen hizketa Angiek. Iñaki Zabaleta

-Zer, ba? - **lehorki** esan zuen Mirarik, burua jasoz eta ezaxola azaldu nahian. Fernando Morillo

---

## lehorpe *iz* estalpea.

Ate guztiak beren erroetan ondo sarturik zeuden; eta ordezko orgak ikusi zituen nekazarien **lehorpeetan** gorderik, ia berriak, gehienetan bat eta batzuetan bi. Jose Morales

---

## lehorralde 1 *iz* alde lehorra.

Ezer esan beharrean, beraz, setati eta tristuraz begiratu zuen bakezko estalki batean bildutako **lehorralde** hartara. Anton Garikano

**2** lehorreko aldea.

Garbi zegoen ez gindoazela kostalde gainetik, ez horixe: braust sartuak ginen **lehorralderantz.** **Joxe Austin Arrieta**

Baina handik berehala, euroakiloi deitzen zuten haize-erauntsi batek eraso zion **lehorraldetik** untziari. Elizen arteko biblia

Tampicorantz omen gindoazela, noiz eta, gero eta **lehorraderago** ari ginen bitartean. Joxe Austin Arrieta

---

## lehorraldi *iz* gabeziako aldia.

**Lehorraldi** luzearen ondoren, badirudi aurki iritsiko direla pantailetara euskarazko film luze batzuk. Berria - Harian

Ez datozkiola barrenean espirituko zenbait mugira, hala nola pozaldiak eta **lehorraldiak** . Patxi Altuna

**Lehorraldi** garaian aldakuntzarik ez egin, baizik sendo eta gogor iraun **lehorraldi** bezperan edo aurreko pozaldian zeunden erabaki eta asmoetan. Patxi Altuna

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lehorraldi garaian** (3)

---

## lehorrarazi, lehorraraz, lehorrarazten *(orobat **lehorrerazi**)* du *ad* lehortzera behartu.

Beste batzuk zanpatutako lur-zokorrak **lehorraraziz** altxatzen zituzten paretak. Santiago Iruretagoiena

Gobernuburuak ohartarazi zuen 1960 eta 1970eko hamarkadetan ehunka dike eraiki zituztela Danubio ibaiaren ubidea estutzeko, gisa horretara **lehorrerazitako** lurrak nekazaritzarako baliatzeko xedean. Berria - Mundua

---

## lehorreratu, lehorrera(tu), lehorreratzen *(orobat **lehiorreratu** g.er. eta **leihorratu** g.er.)* 1 da *ad* lehorrera joan.

Ernest Hemingway eta haren lehenengo emaztea Frantziako Havre portuan **lehorreratu** ziren. Edorta Jimenez

Anartean, Aliatuen armadak **leihorreratzen** dira eta Parisen sartzen. Michel Oronoz

Urpean igerika, Mikel Strogoff kaian **lehorreratu** zen Nadiarekin batera. Karlos Zabala

Ontzitik **lehorreratu** berria nintzen San Franciscon. Javi Cillero

Hor **lehorreratzen** dituk gabarrak. Karlos Zabala

Orduan bakarrik **lehorreratu** zen txalupa.· Jesus Galindez dakarren hegazkina Habanako aireportuan **lehorreratu** da, 1950eko maiatzean. Edorta Jimenez

**2** du *ad* lehorrera eraman.

Ezin izan du tripulazioa **lehorreratzeko** baimena lortu. Paddy Rekalde

Cadizko portu barruan sartu, gizonetako batzuk **lehorreratu** , hiriari su eman, hamaika ontzi handiri tiro egin eta hondora joanarazi eta gero ihes egin handik. Edorta Jimenez

Kaxak **lehorreratu** eta hantxe itxaroten egongo zen talde bati eman behar baitzizkien. Iban Zaldua

Orain ingelesek nahi duten guztia **lehorreratu** ahal izango dute, portu bat dute eta. Josu Zabaleta

Asteazken gauean, salbamendu taldeetako helikoptero bat itsasora amildu zen, Selendang Ayu-ko eskifaia **lehorreratzeko** lanetan ari zela. Berria - Gaiak

Zure merkantziak **lehorreratzean** , herri asko hornitzen zenuen. Elizen arteko biblia

**3** (era burutua izenondo gisa)

Argazkia ateratzen utziko zioten, baietz, hara Tom bere aitaren txalupa **lehorreratuaren** ondoan eskua txakur baten lepoan daukala. Koldo Izagirre

Laurentek **lehorreratuen** gaineko agintea hartu zuen. Edorta Jimenez

· Lo-kuluxka baterako gonbita egin diete **lehorreratu** berriei ere. Urtzi Urrutikoeetxea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ontzitik lehorreratu** (3); **portuan lehorreratu** (4)
> **kontinentean lehorreratzeko** (4); **lehorreratzeko baimena** (3)

---

## lehorreratze *(orobat **leihorreratze**)* *iz* lehorrera joatea.

Kolonek Mendebaldeko Indietan egin zuen lehenengo **lehorreratzea** baino bi urte geroago. Iñaki Mendiguren

Normandiako **lehorreratzearen** biharamunean. Eneko Bidegain

Normandiakoa ez zen benetako **lehorreratzea** izan. Harkaitz Cano

**Lehorreratze** hau balentria handia da, baina ez da uste izan behar amaieraren hasiera denik. Josu Zabaleta

Orain dela 60 urte gertatu zen Normandiako **leihorreratze** militarra ospatzea. Berria - Mundua

Han kanpoan, **lehorreratze** -lanak aurrera. Joxe Austin Arrieta

· Barrosok EBko goi ordezkari Javier Solanari Batzordean **«lehorreratze** leuna» agindu zion atzo. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**normandiako lehorreratzearen** (11)

---

lehorrerazi ik **lehorrarazi**.

---

**lehorreri** *iz* idorreria.

Lepoa edo lokia haztatzen didate ea sukarrik dudan, **lehorreria** dudan galdetzen didate. Josu Zabaleta

Berak duen **lehorreriarako** oso egokiak direla, osasunerako inondik ere donuts-ak baino egokiagoak. Patxi Zubizarreta

---

**lehortar** *iz* lehorrean bizi dena; itsastar ez dena.

Ontziko denak, eskifaiako nahiz **lehortar**. Gizonek, **lehortar** zein itsastar, ingeles ontziaren taxu doitua, haren galaitasun erabatekoa, haren aparailuen berritasuna [...] aipatu zituzten. Edorta Jimenez

Halako alarau bat aditu zen, erdiragarria, gain-bizkarrean bilduak ginenoi, **lehortar** nahiz marinel, deabrua agertzekotan zitzaigula pentsarazi ziguna. Edorta Jimenez

Horretarako baimena eman zuen Armadaren buruak, itsasoko gaietan deus gutxi ei zekien Medina Sidoniako dukeak, askoren ustez **lehortar** hutsa zenak. Edorta Jimenez

Hala akuilaturik, **lehortarrak** kanoietara bildu ziren, eta ontziaren gain-bizkarra libre utzi. Edorta Jimenez

---

**lehortasun** **1** *iz* lehorra denaren nolakotasuna.

Teilak labean erretzerakoan hartu duen **lehortasunarengatik** ezin izaten du geruza hori ez onartu eta ez eutsi, tartean ez baldin bada karea sartzen. Santiago Iruretagoiena

Era horretakoak dira koloreari, zaporeari, usaimenari, beroari, hotzari, **lehortasunari** eta hezetasunari dagozkionak. Xabier Kintana

Gauza bera erakusten digute haizeek ere: leku oso hotzetan sortuta datozenek, iparraldekoak eta ipar-ekialdekoak, **lehortasunarekin** ahuldutako haize-bufadak botatzen dituzte. Santiago Iruretagoiena

**2** irud/hed

Eta gustuak gustu, nire uste apalean, **lehortasun** pittin batek mesede egingo ziokeen edukiaren berezko indarrari. Berria - Kultura

Haren berekoikeria eta **lehortasuna** zenbaterainokoak ziren. Josu Zabaleta

Haren aldean kristauen mintzaldietan beti ageri dira nolabaiteko **lehortasuna**, nolabaiteko pazientzia falta, are eta ironia ere. Bihotzaren **lehortasunak** eman zezakeela, diskurtsoen haizearen indarrez, anaitasunaren edo maitasunaren oinarria. Jon Alonso

Jauna, hau **lehortasuna** eta iluntasuna ariman daukadana! Joan Mari Lekuona

---

**lehorte** **1** *iz* euririk eza; euririk gabeko aldia. ik **agorte**.

Ia bi urteko **lehorteak** gosetea eragin du Kenyan. Berria - Gaiak

**Lehorte** izugarria izan zela Urbiainen, ekainean eta uztailean ur xortarik ere egiten ez zuela. Joan Mari Irigoien

Gipuzkoako nekazaritza **lehorte** handia jasaten ari da azkeneko bi urteetan. Berria - Ekonomia

Aurtengo tenperaturak ez dira iaz bezain garaiak izan, baina euri ezak **lehorte** latzagoa eragin du Gipuzkoako eskualde askotan. Berria - Ekonomia

Kenyako ipar-ekialdean **lehorte** gogorra dute, eta, ondorioz, gosea ere bai. Berria - Gaiak

**Lehorte** luze baten osteko euri-zaparrada bortitzak estoldetan sorturiko buxadura topatu zuten metroko ahoan. Lutxo Egia

**Lehorteak** kalte handiak eragingo ditu 2004an ere. Berria - Ekonomia

Zenbait soro horiturik ere ageri da **lehorteaz**. Hasier Etxeberria

**Lehortearen** hirugarren urtean. Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan)

**Lehorte** garaiko trumoiak. Anjel Lertxundi

Indiako ipar-ekialdeko herrialdeek uholde hauek jasaten dituzten unean bertan, ipar-mendebaldeko eskualdeetan, ostera, **lehorte** arrisku handiak daude. Berria - Mundua

**3** irud/hed

Breakfast at Tiffani's liburua [...] bukatu berria zuen, eta, ordurako, obra handi bat sortu ondorengo **lehortea** sentitzen hasia zen. Josu Zabaleta

Hamar urteko **lehorte** narratiboaren ondoren. Berria - Kultura

Egoera berriari **lehorte** informatiboa esatea erabaki duzu. Lutxo Egia

Harrobiaren **lehortearekin** batera, maila eskaseko atzerritarrak fitxatzen hasi ziren hango klubak, eta gaur egun gabezia handiak dituzte harrobi mailan. Berria - Kirola

Kovacevicek gol bat sartu zuen, **lehorte** luze bati amaiera emanez. Berria - Kirola

Eskoziak garaipen **lehorte** ikaragarria ukan du Ingalaterraren aurkako partidetan azken 15 urteotan. taldeak aurtengo denboraldian jasaten ari den gol **lehorteari** aurre egiten saiatzeko. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**lehorte handia** (6); **lehorte luze** (3); **urteko lehorte** (3)
**lehortearen eraginez** (4); **lehortearen ondorioz** (4)
**gol lehorteari** (4); **lehorteari aurre egiteko** (4)

---

**lehortegi** *iz* zerbait lehortzen jartzeko lekua edo muntadura.

Haren uberan *Galerna* bakailaontzia zetorren, **lehortegien** flotakoa, bandera faxistarekin. Koldo Izagirre

Eztanda hirugarren **lehortegian** gertatu zen eta beste bi **lehortegiren** egituretan kalteak eragin ditu. Berria - Ekonomia

---

**lehortu**, lehor(tu), lehortzen *(orobat **legortu** g.er.)* **1** du *ad* zerbaiti ura edo bustitasuna kendu. ik **xukatu**.

Platerak edo basoak **lehortu** eta gorde egiten ditu. Sonia Gonzalez

Lepotik zintzilik zeukan mantal batekin esku bustiak **lehortzen** zituen bitartean. Jon Muñoz

Harriak berez bigunak eta porotsuak izaten direnez, erabat **lehortzen** dute morteroa, ur guztia xukatuz. Santiago Iruretagoiena
Haizeak ilea **lehortzen** zidan, aurpegia laztantzen. Eskarne Mujika
Ilea **lehortu** behar dut. Xabier Paya
Beldurrak ahoa **lehortzen** omen du. Pako Aristi
Hiltzeko izuak eztarria **lehortu** eta aho-ezpainak zigilu batez itxi egiten baititu. Felipe Juaristi
**Lehortu** egingo dut Nilo ibaia. Elizen arteko biblia
Mexikoko eguzkiak ezin izan zion **lehortu** erbesteak ariman utzitako mantxa. Bernardo Atxaga
Euren esker txarrak **lehortu** zuen nire bihotza. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (non edo zerekin adieraziz)

Neskak lo atorrako mahukan begiak **lehortu** eta umea besoetan hartu zuen. Koro Navarro
Eskuak belaunetan **lehortu** nituen. Ramon Saizarbitoria
Aurpegia mahukan **lehortu** eta Lupini begiratu zion. Iñaki Mendiguren
Ezpainak **lehortu** zituen gero eskugainaz. Anjel Lertxundi
Komunean pixa egin eta paperarekin eserlekua **lehortu** nuen. Joxean Agirre

**3** (aditzaren objektua kentzen dena delarik)

Kopetako izerdia **lehortu** eta atea jo zuen. Anton Garikano
Gizon txikiaren eskua bere kopetako izerdia **lehortzen**. Harkaitz Cano
Orduan, lotsatuta, bekokiko izerdi tantatxoak **lehortu** eta ulertzea besterik ez duzu desiratu. Lander Garro
Eztulak eragindako malkoak **lehor** zitzan. Anjel Lertxundi
Malkoak soinekoaren mahuka barrenarekin **lehortu** ondoren. Joxean Agirre
Lanbasa hartuta itzuli zen aitonaren gelara, eta ur zipriztinak **lehortu** zituen. Jon Alonso
Hats egin zuen azazkaletako batean alkohola **lehortzeko**. Anjel Lertxundi

• **4** da *ad* zerbaitek ura edo bustitasuna galdu.

Lixiba egiten dute, arropa **lehortzen** jartzen dute soketatik zintzilik. Felipe Juaristi
Indioilarrari salda isurtzen erre bitartean **lehortu** ez zedin. Oskar Arana
Ogia **lehortu** egiten da, esnea mindu. Josu Zabaleta
Amaiaren ahotsa nabarmen **lehortu** zen: [...]. Fernando Morillo
Luisi bihotzak jauzi egin dio eta ahosabaia **lehortu** zaio. Lourdes Oñederra
Udazkenean fruituak heldu direnean eta hostoak ere **lehortzen** direnean. Santiago Iruretagoiena
Intxaurrondoak nola **lehortu** ziren kontatzen digu agureak. Xabier Olarra
Irakurriz pasatzen zitzaizkion gauak argirik argi eta egunak ilunik ilun eta honela, lo gutxi eta asko irakurri, garuna **lehortu** zitzaion. Patxi Ezkiaga
Piko onduberriak baino hagitzez gozoagoak izaten direla piko lehortuak, hain zuzen ere, **lehortu** ahalean azukrea loditzen baitzaie. Patziku Perurena
Jauzi egin nuen; erdi **lehortu**, galtzontziloak jantzi, eta lehen baino lehen irten nintzen. Juan Kruz Igerabide
Artilezko manta eta **lehortu** gabeko larruekin sendotu zuen. Santiago Iruretagoiena
**Lehortu** gabe hasi zen arropak janzten. Joseba Sarrionandia

**5** (aditzaren objektua kentzen dena delarik)

[Belea] atera, eta joan eta etorri ibili zen, lurreko urak **lehortu** arte. Elizen arteko biblia
Ignazia negarrez hasi zen, baina Martinek esan zionean Bautistak esposatu nahi zuela eta dirua bazuela, segituan **lehortu** zitzaizkion malkoak. Koro Navarro
Biriketako hezetasuna **lehortzen** laguntzen du gatzak. Anjel Lertxundi

**6** (era burutua izenondo gisa)

Urak hondar **lehortua** behin eta berriro bustitzen duenean bezala. Bernardo Atxaga
Arropa **lehortua** jasotzen. Koldo Izagirre
Botila hutsak, kartoiak, latak, plastiko erraustuak, arratoi eta katu larru **lehortuak**. Belar **lehortua** pilatzen. Joseba Sarrionandia
Gorputz biak paraleloraino irristatu dituzue eta izerdi **lehortu** nahasien usainari gorputz ikara itzultzen zaio ordain. Lourdes Oñederra
Piko onduberriak baino hagitzez gozoagoak izaten direla piko **lehortuak**, hain zuzen ere, lehortu ahalean azukrea loditzen baitzaie. Patziku Perurena
Hautsaren lakarra **eztarri** lehortuan, izerdiaren likina kamiseta umeldu eta itsatsian. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahoa lehortu** (6); **arin arin lehortu** (3); **aurpegia lehortu** (7); **aurpegia lehortu zuen** (4); **begiak lehortu** (5); **erabat lehortu gabe** (3); **eskuak lehortu** (5); **eskuak lehortu zituen** (3); **ezpainak lehortu** (5); **ilea lehortu** (3); **itsasoa lehortu** (4); **izerdia lehortu** (8); **kopetako izerdia lehortu** (4); **lehortu gabeko larruekin** (5); **malkoak lehortu** (7); **ongi lehortu** (3); **urak lehortu** (4)

**aurpegia lehortuz** (3); **aurpegiko izerdia lehortuz** (3); **begiak lehortuz** (3); **izerdia lehortuz** (4); **mahukan lehortuz** (4); **malkoak lehortuz** (3)

**lehortzeko leku** (3)

**ahoa lehortzen** (4); **arropa lehortzen** (3); **eguzkitan lehortzen** (7); **izerdia lehortzen** (3); **lehortzen jarri** (7); **lehortzen jarritako** (8)

---

## lehortxo *adlag* lehor samar.

-Ondo -nik **lehortxo**. Txillardegi

---

## lehortze 1 *iz* ura edo bustitasuna galtzea edo kentzea.

Inprentetan erabiltzen diren **lehortze** azkarreko tintekin saiakuntzak eginez. J.M. Olaizola "Txiliku"
Erredurak izan dituzten pertsona asko begiak ixteko gai izango dira, eta horrela, begien **lehortzea** saihestuko da. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

**Lehortze** prozedurak. Urtzi Urrutikoetxea
**Lehortze**-sistema tradizionalen aldean metodo hau garesti samarra bada ere, kalitate hobeko produktuak ekoizten ditu. Edorta Agirre

---

## lehorxeago *adlag* apurbat lehorrago.

-Agian xehetasun hori gabe ere molda gaitezke -erantzun nion, eta esaldia nahi baino **lehorxeago** atera zitzaidan: urduri nengoen. Alberto Ladron Arana

---

## lehun ik **leun**.

lehundu ik **leundu**.

lehuntasun ik **leuntasun**.

## lehunztar *izlag/iz* Lehuntzekoa, Lehuntzeri dagokiona; Lehuntzeko herritarra.

Berasategui azkaindarra batetik eta Heguiabehere **lehunztarra** bestetik. Herria

Lehen mailan, Hiriberhonde-Lamure **lehunztarrak** nagusi 30-24 St Jean-Mariluz saratarreri. Herria

Baginakien **lehunztarraren** berri, ez duela nehori barkatzen, eta berriz ere hori du erakutsi. Herria

Milafrangan gainez gain zoan **lehunztarra** xapelgoko partida hortan baina lanak izan ditu haatik ondarrerat lau kintzez irabazteko. Herria

## lei *iz* izotza.

Haitza bustirik zegoen eguzkiak jotzen zuen isurkian, eta **lei** beltzez estalia itzalpekoan. Juan Garzia

Neguko solstizioak elurrak dakartza eta **lei** kixkorrak berritzen ditu; badator Negu, haginak hotzez dardar. Xabier Amuriza

Ibaiko **leia** apurka zelan urtzen zen ikusiz. Jon Arretxe

Horregatik, izozte gogorrak direnean [...] ezin da lanik egin, ze zulatu orduko berriro hormatzen hasten baita **leia**. Juan Garzia

**Leiak** estalirik, dirdira egiten zuten landa-zelaiek egun argitan. Edorta Jimenez

Eta elurrik egiten ez zuenean ere, gauez izarrik hotzenekin **leia** egiten zuen sarritan, eta patioko ur putzuak izoztuta topatzen genituen goizargitze zurbiletan. Joseba Sarrionandia

leiaketa ik **lehiaketa**.

## leial *(orobat **leihal** g.er.)* **1** *izond*

Zerbitzari **leial** eta zentzuduna da. Askoren artean

Eta nik, zerbitzari **leial** honek, asmatu behar diot hura esnarazteko ipuina. Felipe Juaristi

Langile zintzo, auzo **leial**, guraso on izan ondoren, erbesteratuak zirelako sorterri bezain hilerri zitzaien hiritik. Felipe Juaristi

Ez dago distantzia nahikorik kritika **leial** bat egiteko. Ana Urkiza

Gaur ere txakur **leial** batek bezala erantzun dit pianoak. Anjel Lertxundi

Ez al genuke adiskide desleiala onartu behar, laguntza-emailea eta **leiala** onartzen dugun bezala? Xabier Olarra

Hau da ene iloba **leiala** eta sekretua atxikitzen ikasia. Piarres Xarriton

Neska **leiala** ematen du. Pablo Sastre

Hango Salbatore monasteriotik, Joanes Orbara abade **leialak** laguntza ematen zien Amaiurkoei. Aingeru Epaltza

Ondoan etzanda txakurra, lagun **leiala**. Paddy Rekalde

Erregimen inperialaren laguntzaile **leialen** koloniak [...] edozein komunikabide-sistema inperialen osagai dira. Iñaki Mendiguren

Antzinateko heroiek ez zutela arrotz lagun **leialari** *anaia* erratea. Aingeru Epaltza

Printze ospetsu batzuen eta beste gizon guztiz **leialen** ospeari eta ohoreari gaitzitu gabe. Piarres Xarriton

Grial Santuaren bilaketa eta Lancelotek dizun maitasun **leiala**. Juan Kruz Igerabide

Utzi dituen adixkide hurbileri, gure euskal bihotzeko sendimendu **leialenak**. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Zakur **leial** ospeko Bobby hark hiritarren bihotzak ukitu zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**3** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa) leialtasuna.

Hori guztia merezi du-eta merezi, bere bihotzaren garbiak eta **leialak**. Patxi Ezkiaga

**4** (izan aditzarekin)

Jainkoaren nahiarekin **leial** izanik. Joan Mari Lekuona

Beren printzipioekin **leial** izatearren hainbeste sufritzen zuten pertsonaiek. Ana Urkiza

Nafar kantauritarra naizela, beren Erregeei bereziki eman hitzari beti **leial** egon diren jendakietako semea. Piarres Xarriton

Behin-behineko Euskal **Gobernuari** leial izandako biztanleria zibilak jazarpenik ez zuela jasango bermatzea. Jokin Urain

**Leial** natzaie ni neure burubideei. Juan Garzia

**Leial** izan zatzaizkidate beti. Juan Kruz Igerabide

Aita baten semeak gaituzu denak; jende **leiala** gara, ez zelatariak. Jose Antonio Mujika

-Zin egiten dut **leiala** izango naizela. Agustin Otsoa

Itunari eusten diozu eta **leiala** zara maite zaituztenekin. Elizen arteko biblia

Administratzaileari eskatzen zaiona **leiala** izatea da. Elizen arteko biblia

Zakurra **leiala** da, ez du azpijokorik egiten, beti nagusiaren ondoan dago. Gotzon Garate

Jende gogorra zen, bere jaunarekiko **leiala**. Agustin Otsoa

-**Leiala** al zaitut, ni **leiala** nauzun bezala? Elizen arteko biblia

**5** (adizlagun gisa) ik **leialki**.

Orain bere zerbitzupean **leial** aritzeko zina egin baituk. Agustin Otsoa

Jaunari eta Hiriari **leial** zerbitzatzea zin egin berri duzula. Agustin Otsoa

Ordudanik, **leial** zerbitzatu dut, nahiz eta sarritan huts egin diodan. Iñaki Mendiguren

**Leial** jokatuko dugu zurekin. Elizen arteko biblia

Nik ere **leial** portatu behar nuen berarekin. Xabier Olarra

Anaiei hitzemandako bizimoldean **leial** irautera deitzen aspergabe. Askoren artean

Inork ez zaitu hain gatibatuta, hain **leial**, hain artsuki maitatu. Eduardo Matauko

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adiskide leial** (4); **beti leial** (5); **gauza gutxian leial** (6); **gizon leial** (5); **gobernuari leial** (4); **guztiz leial** (5); **guztiz leial izan** (3); **jaunarekiko leial** (3); **jaunari leial izan** (3); **kide leial** (4); **leial agertu** (3); **leial egoiteko** (3); **leial egon** (7); **leial eta fidel** (3); **leial eta zentzuduna** (3); **leial eta zintzo** (8); **leial eta zuzen** (3); **leial eusten** (3); **leial**

**eutsi** (6); **leial gorde** (4); **leial iraun** (4); **leial irauten** (3); **leial izan** (45); **leial izango** (6); **leial izatea** (5); **leial izateko** (8); **leial izaten** (4); **leial jokatu** (18); **leial jokatuko** (5); **leial jokatzen** (5); **morroi leial** (4); **testigu leial** (4); **zerbitzari leial** (16); **zintzo eta leial** (7)

**adiskide leiala** (15); **emazte leiala** (3); **gizon leiala** (6); **guztiz leiala** (8); **guztiz leiala izan** (5); **jainko leiala** (5); **jende leiala** (4); **lagun leiala** (9); **laguntzaile leiala** (6); **lankidetza leiala** (4); **leiala da jainkoa** (4); **leiala izan** (26); **leiala izan zitzaion** (3); **leiala izango** (3); **leiala izateko** (3); **maitasun leiala** (3); **morroi leiala** (3); **ona eta leiala** (4); **onbera eta leiala** (3); **txakur leiala** (6); **txit leiala** (4); **zerbitzari leiala** (7)

**adiskide leialak** (3); **leialak izan** (3); **leialak izateko** (3); **zerbitzari leialak** (5)

**adiskide leialari** (5)

**bihotzeko sendimendu leialenak** (11)

**leihal egonez** (3)

---

# leialki *adlag* leialtasunez. ik **leial 4**.

**Leialki** eta debozioz egin bezate lan. Herria

Bete **leialki** besarkatu duzun zerbitzua. Askoren artean

Zin egin du bere eginbidea beteko duela **leialki**. Herria

Sekretua **leialki** gordeko niola. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**leialki eta debozio** (4)

---

# leialtasun *(orobat* ***lealtasun*** *g.er.)* **1** *iz* leiala denaren nolakotasuna.

Ez itzazu gal ontasuna eta **leialtasuna**. Elizen arteko biblia

Ez da mutilaz fidatzen, **leialtasuna** galdu diola uste du. Antton Olano

Horra zergatik gorde zieten hain **leialtasun** handia erromatarrei. Iñaki Iñurrieta

Egunen batean Linak jakin dezala zein den handia beti gorde diodan **leialtasuna**. Anjel Lertxundi

EBBko buruzagitzak, aldiz, babes eta **leialtasun** osoa eskaini dio Zapaterori bake prozesuan. Berria - Harian

Holako egoeran, ez da erraz zerbitzariei **leialtasuna** eskatzea. Gotzon Garate

Bey horrek **leialtasuna** agindua zion sultan otomandarrari. Fernando Rey

Ez ditut nik merezi zeure zerbitzari honi egin dizkiozun mesedeak eta erakutsi diozun **leialtasuna**. Jose Antonio Mujika

Dartaietek erakutsitako **leialtasun** hain zirrikiturik gabea eskertzeko. Anjel Lertxundi

Hutsik gabeko **leialtasuna** erakutsiaz. Joxan Elosegi

Sorterriarekiko **leialtasuna** adierazten zuen oihuak. Julen Gabiria

Hori al da adiskidearekiko zure **leialtasuna**? Elizen arteko biblia

Euskaldunek Frantziari diogun **leialtasuna** erakutsiko diagu. Elena Touyarou

Beti **leialtasunean** lanean ariz guzien onetan. Herria

Ni ez bainaiz etxekoandrearen **leialtasunaz** arduratzen diren putazale horietako bat. Migel Angel Mintegi

Jaunak beti maitasunez eta **leialtasunez** jokatzen du beraren ituna eta manamenduak gordetzen dituztenekin. Elizen arteko biblia

Jende gaiztotua baita, **leialtasunik** gabeko seme-alabak. Elizen arteko biblia

## 2 irud/hed

Agian ez da, testuarekiko **leialtasunari** dagokionez, itzulpen-eredu izango [...] baina prosazko jarioaren eredu bikaina aurkituko dugu guztiok ere orri horietan. Anjel Lertxundi

Latinezko idatzi jatorrizkoari **leialtasun** zorrotza gordetzea izan da asmoa. Ezin dugu **"leialtasun** historikoa" helburutzat duen biografia espero izan. Santiago Iruretagoiena

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Patxi Lopezek **«leialtasun** eza» leporatu zion Iztuetari. Berria - Euskal Herria

Ez al da, beraz, Juda Itun Berriko benetako heroia eta ez al da bere traizioa **leialtasun**-ekintzarik benetakoena? Joseba Zulaika

Kontu hauek jendeak ezagutzen dituenean agur gure **leialtasun** bermea eta lapurreten kontrako asegurua. Xabier Olarra

Luzaz ukan dezagun **leialtasun** zelaian eta, bizian, elgarren errespetua, atxikimendua eta laguntasuna. Herria

Betiko adiskidetasun eta **leialtasun** ituna sinatu zutenean. Askoren artean

Elizgizon guziei **leialtasun** eta menpekotasun ageriaren izenpetzeko agindua eman zitzaien. Elena Touyarou

Itunaren onartzea eta **leialtasun** zin-hitza. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**leialtasun eza** (6); **leialtasun falta** (8); **leialtasun falta egotzi** (3); **leialtasun osoa** (4); **leialtasun osoz** (6); **leialtasun zina** (10); **leialtasun zina egin** (3)

**jainkoaren leialtasuna** (3); **leialtasuna eskatu** (4); **leialtasuna gorde** (3); **onginahia eta leialtasuna** (4); **zure leialtasuna hodeietarainokoa** (4)

**leialtasunari eutsi** (3)

**leialtasunik eza** (6)

---

# leiar *(orobat* ***leihar*** *g.er.)* **1** *iz* gutxienez alde bat konkaboa edo konbexua duen beirakia. ik**lente**.

Irakurtzeko erabiltzen zituen **leiarrak** jaso zituen, eta begiak igurtzi. Juan Kruz Igerabide

Prismatiko batzuk ere topatu nituen, **leiarrak** apurturik. Juan Kruz Igerabide

Laserra eta **leiarrak** baliatzen dituen metodo optiko nahiko sinple baten bidez prozesatzen denean. Irene Aldasoro

Lente lau batek foku-luzera luzea du, eta, erdialdean sabelduxeago den **leiar** batek, berriz, foku-luzera laburra. Irene Aldasoro

Pianojolea zahar argal apaindu bat zen, aurpegi estu luzea zuena, eta **leiar** lodiko betaurrekoak erabiltzen zituena. Josu Zabaleta

Akats hori zuzentzeko asmatu ziren XV. mendean **leiar** konbergenteak. Josu Zabaleta

**Leiar** bikoitzak desitxuratua ageri zen apaizaren begitartea. Joxan Elosegi

## 2 (hitz elkartuetan)

Objektibo konplexuagoak erabili ohi dira tresna horietako gehienetan **leiar** konbinazioak dituzten objektiboak, hain zuzen. Josu Zabaleta

## 3 kristala, beira.

Oraindik ere belarri puntak **leiar** bat bezala pitzatuko zaizkidala iruditzen zait, krak, Patri, krak. Hasier Etxeberria

Aireportuko **leiarretatik** harantz begiak jarrita. Hasier Etxeberria

Deustuko Unibertsitateko **leiarrak** apurtuko dituzte. Hasier Etxeberria

"Etxearen kontura", azpimarratu zuen ahots txiki, ahots leun, ahots **leiarrezko** batez. Felipe Juaristi

• **4** *izond* gardena, argia.

Errekastoko ur **leiar**, inozo, jostalaria. Felipe Juaristi

**5** ***ukipen leiar*** ik **lente 2.**

Betaurrekoen ordez **ukipen-leiarrak** jarrarazi zizkion; haren armairua erabat berritu zuen; beso eta zangoetako ilea kenarazten zion aldizka, tratamendu mingarriekin. Oskar Arana

---

leienda ik **legenda**.

---

# leihaje *iz* leiho multzoa.

Kuadrilatero eder bat da, kruzeroek hamalaugarren mendeko **leihaje** aberats eta sendoak marrazten dituzten ojiba handiz inguratua. Koldo Izagirre

---

leihal ik **leial**.

---

leihar ik **leiar**.

---

# leihate *(orobat **leiho-ate** g.er.)* **1** *iz* leiho handia, batez ere lurzorurainokoa.

Litekeena zen **leihatearen** gortinen atzean balkoi bat izatea. Unai Elorriaga

Egongelara sartu zenean, Lucas ikusi zuen **leihatearen** ondoko besaulkian. Unai Elorriaga

Horma guztia betetzen din **leihateak**, lorategiaren ikuspegi ezin hobea eskainiz. Iban Zaldua

Gela osoa inguratzen zuten hiru **leihateetako** errezel hori handietatik zehar sartzen ziren eguzki izpiak. Joxemari Iturralde

*Steak House* deituriko jatetxe baten **leihateen** aurretik pasatu zen. Joxemari Iturralde

Jatetxe jendetsu batean eta elizara ematen zuen **leiho-atetik** guztiz urruti bazkaldu genuen. Anjel Lertxundi

**2** (izenondoekin)

Gogoko nuen bereziki igogailua; izan ere, kristalezko **leihate** handi bat zegoen zain egoten nintzaion gunean. Joxan Elosegi

Goizeko eguzkiak zerbitzuguneko aparkalekua argiztatzen zuen, **leihate** handitik harata. Aingeru Epaltza

Bulegoko **leihate** gardenei esker, besaulkitik mugitu gabe, ikusmiran ditu zuzendaritzako langile ia-ia guztiak. Aingeru Epaltza

Goiko bi solairuek [...] bazituzten hainbat elementu arkitektoniko errespetatu beharrekoak, hala nola sabai garaiak, horma osoko **leihate** arkudunak, eta haritz eta pago zurez eginiko eskailera monumentala. Patxi Iturritegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kristalezko leihate** (4)

---

# leihateria *iz* lehiate multzoa.

Horregatik, bihotzak ezusteko latza eman zidan **leihateriatik** bestaldera ikusi berri nuenaz jabetzen hasi nintzenean. Joxemari Iturralde

---

# leihatila *(orobat **lehiatila** g.er.)* **1** *iz* leiho txikia eta, batzuetan, berezia.

**Leihatila** bera aski gora da, eta barneko aldetik sare trinko batek ongi hesten du; kanpoko aldetik, burdin ziriak baditu, sare batez estaliak. Filipe Bidart

Ipar haize beltzak, kilin kalanka darabilzki **lehiatilak** aitonaren etxean. Patziku Perurena

Bordak bi **leihatila** ditu alde banatan eta ganbelak eskuineko hormaren ondoan. Pello Lizarralde

Kristalezko **leihatila** karratu hura zen aretora argia sartzea ahalbidetzen zuen hutsune bakarra. Aritz Gorrotxategi

Alde bateko leiho guztiak itsutu eta **leihatila** txiki bat egin zuen haien ordez. Jose Morales

Egurrezko **leihatila** txiki bat dauka ziega bakoitzak atean, eta kanpotik ireki daiteke; beraz, saio bat egin dezakezu. Rafa Egiguren

Ateko **leihatila** irekita utzirik. Atearen parean leihoa, aski gora, *vasistas* edo **leihatila** sistema bat, doi-doia idekia aire pixka bat uzteko gisan. Filipe Bidart

**2** irud/hed

Sukaldera ematen zuen **leihatila** bat zeukan, tornu batekin komentuetan bezala, eta haren alboan jarri nintzen erne. Bernardo Atxaga

**3** bulego eta kidekoetan, enplegatua jendearekin harremanetan jartzeko leiho modukoa.

Hirurak sartu ziren aireportura eta bertan saiatu Bilborako hegaldiari zegokion British Airways-en **leihatila** aurkitzen. Joxemari Iturralde

Zuk, orain, administrazioko **leihatila** batera hurbiltzen zarenean, normaltzat jotzen duzu beste aldean dagoenak euskaraz erantzutea. Pello Salaburu

Bulegoa hura zen, baina **leihatila** aurrean sekulako jende ilara zegoen. Josu Zabaleta

**Leihatila** aldera makurtu nintzen, gaua zen, kutxazaina ilegorria, eta esan nion: "Txartel bat! Fernando Rey

Txartelak saltzeko **leihatila** itxiko kristalari erantsita, txartelak trenean saltzen zituztela gaztigatzen zuen oharra. Anjel Lertxundi

**Leihatila** batean norbaiti kexan ari zitzaion tonuan mintzo zen Marta. Harkaitz Cano

**Leihatila** blindatuaren gibeletik, frantses polizia gizonak bere bisitaren zergatia eskatu zion. Ramuntxo Etxeberri

Buru-ukaldi batez eskertu nion faborea, eta xeheak itzuli zizkidan **leihatila** estuko zirritutik. Aingeru Epaltza

Telegrafo etxe bakoitzean, enplegatuek, **leihatilan** eserita, eskuratu ahala bidaltzen zituzten mezuak. Karlos Zabala

**4** (ordenagailuan)

"Aurkitu fitxategia" zioen **leihatila** hautatu nuen. Aingeru Epaltza

**5** (autoez eta kidekoez mintzatuz) leihoa. ik **leiho 3.**

Edo horrelako zerbait zioen, autoaren **leihatila** aldera hurbildu orduko Estebanek berehala ezagutu zuen gizonak. Pako Aristi

Txoferrak **leihatila** jaitsi du, eta Joxe, eskuak sakeletatik atera gabe, pixka bat makurtu da harekin mintzatzearren. Pello Lizarralde

Hegazkinaren **leihatila** zulatuaren gisan hurrupatu ninduen leihoak, ezkaratzaren beste aldean. Joxan Elosegi

Treneko **leihatilan** kedarra itsatsi da. Sonia Gonzalez

Metroko **lehiatiletatik** ez da kalerik ikusten, lurpean sartu baita metroa pare bat geltoki lehenago. Lourdes Oñederra

**6** ***leihatila bakar***

Erakundez erakunde paperak betetzen jardun ez daitezen, **leihatila** bakarra delakoa sortzeko exijituko die Bruselak EBko herrialdeei. Berria - Ekonomia

Espainiako Gobernuak eta erkidego autonomoek **lehiatila** bakar bat sortuko dute, eskariak batera egin ahal izan daitezen. Berria - Ekonomia

Aurten enpresa berriak sortzeko tramiteak koordinatzeko eta azkartzeko **leihatila** bakarra martxan jarriko dutela iragarri du Josu Lapatzak. Berria - Ekonomia

**7 *txartel leihatila***

Era berean, nabarmena da elementuen erabilera sinbolikoa: txartel-**leihatila** hilkutxa bihurtzen da, kartek etorkizun beltza iragarri eta denboraren urratsak markatzen dituzte. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **leihatila bakarra** (5); **leihatila ireki** (6); **leihatila irekita** (3); **leihatila jaitsi** (4); **leihatila txiki** (4)
>
> **ekonomatoko leihatilara** (3)
>
> **leihatilaren aurrean** (6); **leihatilaren beste aldean** (3)
>
> **autobuseko leihatilatik** (3); **autobuseko leihatilatik begira** (3); **autoko leihatilatik** (3); **leihatilatik barrena** (3); **leihatilatik begira** (9); **leihatilatik begiratu** (5); **leihatilatik ikusi** (3)

---

## leihatu ik **lehiatu**.

---

## **leiho** **1** *iz* horma edo pareta batean, argia eta haizea sartzen uzteko, solairutik halako neurri bat gorago egiten den irekigunea.

**Leiho** batean bakarrik ikusten zen argia. Jose Morales

Azken solairuan, **leiho** bat ikusi zuen zabalik. Aitor Arana

Kea desagertu zenean, jende-sail bat ikusi zuen **leiho** baten koskatik zintzilik. Lopez de Arana

Erabaki zuen onena **leihotik** salto egitea izango zela. Berria - Kultura

Nire gelatxoko **leihoan** jarri, eta hainbat denbora egon nintzen, besoak gurutze, Mediterraneoko argi aratza ederresten. Anjel Lertxundi

N-1 errepidera ematen zuten **leihoak** berriro ireki zituen. Harkaitz Cano

Erpineko **leihoa** zabaldu eta andre zahar bat agertu zen. Karlos Zabala

Ateak itxi eta **leihoak** igotzen ditut. Koro Navarro

Zabalik egoten ziren beti etxeko **leiho** guztiak. Jose Morales

Besoak **leihoaren** karelean jarrita, patiora begira geratu da. Iñaki Iñurrieta

Alde bateko **leiho** guztiak itsutu eta leihatila txiki bat egin zuen haien ordez. Jose Morales

**Leiho** bakarra oholekin itsutua zegoen. Bernardo Atxaga

Solairu guztietako **leihoak** itxita daude. Iñaki Iñurrieta

Senarrak ganbarako **leihotik** ikusi zuen gertatutako guztia. Josu Zabaleta

Luis XIII.aren garaiko zurajeko kontraleiho berdeak, **leiho** ongi itxiekin. Koldo Izagirre

Gaitzeko xantza nuen, gelak **leihoa** hego-alde zuen. Marzel Etxehandi

**-Leihoak** lorategira ematen zian. Xabier Olarra

**Leihoaz** bestaldean zuhaitzek goibel mugitzen zituzten adarrak. Jose Morales

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Leiho** handiko kristal zeharrargietan. Karlos Zabala

Komuneko **leiho** txikitik. Iñaki Mendiguren

Bulebarreko **leiho** argiztatuak ikusten zituen berriz ere. Karlos Zabala

**Leiho** argiztatuen aurretik igarotzean. Lopez de Arana

**Leiho** beltzeko etxe zurrunetan. Lopez de Arana

Phineas R. Blackhead-ek bulegoko **leiho** zabaleko pertsiana igo zuen. Lopez de Arana

Eguzkiaren argia turrustan sartzen da **lehio** irekietatik. Oskar Arana

Hallaren bukaeran kristal beruneztatuekiko **leiho** bat zegoen. Lopez de Arana

Sei pisuko eraikina zen, **leiho** estuekikoa. Lopez de Arana

Bi kristal **lodizko** leihoa. Anjel Lertxundi

Beti grisa zen zerurantz ematen zuen **leiho** kristalgabe, altu eta estu baten aurrean. Urtzi Urrutikoetxea

Letoizko dozena-erdi bat ohe, **leiho** errezeldunen ondoan. Iñaki Mendiguren

Hiru hezur txikiz osaturiko kate baten bidez konektaturik daude tinpanoa eta **leiho** obala.· Aurreko etxe **leiho** handidunek dardai arrosa bizi bat jaulkitzen zuten. Irene Aldasoro

**Leiho** burdin-sareztatu batetik. Irene Aldasoro

**3** (ibilgailu eta kideetakoa)

Autoko **leihoetara** joan eta, ahaleginak eginez, izotza kendu zuen. Koro Navarro

Gidarien besoak ikusi dituzu autoetako **leihoetatik** zintzilik. Eider Rodriguez

Ireki nion nire aldeko **leihoa**, eta *El Liberal* Bilboko egunkariaren ale bat eman zidan. Inazio Mujika Iraola

Taxiaren beirazko **leiho** dardaratietatik harantzago. Lopez de Arana

Harry Gautxori-**buseko** leihoaren kontra jarri zen. Iñaki Mendiguren

Kalesako **leihotik** begira zegoen Nora. Anjel Lertxundi

Kotxeko **leihoak** bide guztian kliski-klaska. Irene Aldasoro

Treneko **leihotik** urruti ikusitako lakua bezain bakarti. Anton Garikano

Esperantzarik gabeko trenetako **leihoetatik** begiratzen. Eskarne Mujika

Goioren aurpegia markoan ipinia bezala ikusten dut orain hegazkineko **leihoan**. Joseba Sarrionandia

Behealde hartan pistaren bat zain bageneuka bezala ari ginen jaisten, eta ni aurpegia **leihoari** itsatsita. Joxe Austin Arrieta

**4** (informatikan) ik **leihoxka 2.**

Pozgarria da, bide berean, ez dela hau bertsolaritzak duen **leiho** bakarra interneten, amaraun handi horretan. Berria - Kultura

Interneteko webgune eta **leihoak** ugaltzen doaz. Pello Zabala

Gaur egun, esan liteke Interneten inguruko munduak duela tekno-liluraren esklusiba, eta hortxe gaude, Sarean **leiho** bat zabaldu nahirik esperantzari. Joxerra Garzia

**5** (egunkari bateko berri eta artikuluetan)

Titulu nagusietara jota, **leiho** eta tartekiak albo batera utzita, ez dira egunean zortzi-hamar baino gehiago aipu markak dakartzaten lerroburuak. Iñigo Aranbarri

**6** irud/hed

Kapela airera jaurti eta, ostikada bat emanda, aidez sartu zuen konfesategiko **leihotik**. Koldo Biguri

Nire zutabeen **leihoak** soil-soilik irakurtzen dituzten adiskide internazionalistek. Berria - Kultura

Telebixtaren **leiho** hortarik Ben Ladenen aurpegia. Herria

Liburuaren dohainez gain beharrezkoa baita irakurleak zabalik izatea bihotz-begietako **leihoak**. Unai Elorriaga

Poema bakoitza **leiho** bat da. Berria - Kultura

Gogoetarako **leiho** dira bere margolanak. Berria - Kultura

Antzerki amateurrari **leihoa** irekiko dio egunotan Debako XVIII. Asteak. Berria - Kultura

«Mundura zabal-zabalik dagoen **leihoa** » da *Kukuma*. Berria - Kultura

Literatur sorkuntzari eta itzulpengintzari ere oso **leiho** emankorra zabaldu zion *Egan*-ek urte horietan Berria - Kultura

## **7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etxe hartako bosgarren pisuko **leiho** begitik urrutira doi apuntatu eta [..] tiro egin zuen azkenik. Josetxo Azkona

Txalupak, sabaitik zintzilik, **leiho** kristal apurtuetatik sartzen zen haizearekin mugitzen ziren. Joseba Sarrionandia

Dorre-gaztelutxo hau inguratzen duen pareta borobilean, bi **leiho** ilara oso ageri dituk, elkarren gainean paraturik. Txillardegi

Etxeorratzetako **leiho** garbitzaileak. Iñigo Aranbarri

Gortina eta **leiho** atzeetan gorde. Anjel Lertxundi

## **8** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bi sabai **leiho** zabaldu ziren. Josu Zabaleta

## **9** ***gezi leiho*** *(orobat* ***gezileiho****)* leiho oso estua.

Herri honetan, behartua naiz berritzera, leihoa ez da leiho; **gezi-leiho** da. Koldo Izagirre

Goraxeagotik, **gezileiho** luzexka eta meharretatik, argi-errainu estuak sartzen ziren ziegaren hondoraino. Fernando Rey

**Gezi-leihoetatik** zelata eginez. Koro Navarro

Beste belar asko ere zabaltzen da harresian barna, asunekin eta mitxoletekin nahasturik, eta beren berdetasunarekin eta beren lore txiki soilen konstelazioekin apaintzen dituzte almenak, **gezi-leihoak** eta matakanak. Koro Navarro

## **10** ***goi leiho***

Ozta-ozta iristen da argi-zerrenda kaskar bat **goi** -leihoren batetik. Anjel Lertxundi

**Goi** leihoetatik argi zurbila amiltzen da beheraino. Karlos Zabala

**Goi** leihoen eta gas argiontzien argitasun horiaren pean. Karlos Zabala

## **11** *leiho-ate ik* **leihate**.

## **12** ***leiho-sare*** *(orobat* ***leihosare)***

**Leiho-sarea** beheraturik edukitzen nuen, leiho barrenetik hazbeteko zirrikitua utzita, neroni ikus ez nintzaten. Irene Aldasoro

**Leiho-sareak** beheraturik egongo ziren eta izeba Kate izango zuen ondoan eserita, negar eta zintz, Julia nola hil zen kontatzen. Irene Aldasoro

Itsas-aireak barrura eta kanpora zerabilzkien **leihosareak**. Anton Garikano

Gure hormaren atzean gelditu da, leihoetatik zelatan, **leiho-sareetatik** kirika. Elizen arteko biblia

## **13** ***leiho tapa*** *(orobat* ***leihotapa****)* kontraleihoa.

Barrikada egun batean dendako **leiho tapak** zabaldu zituenean, hildakoak ikusteko. Karlos Zabala

Bi leiho bakarrik zeuden irekirik; gainerakoek itxirik zeuzkaten **leihotapak** edo, baten batzuek, oholak iltzaturik. Jose Morales

Haien atzean, Rosek **leiho tapen** pernoak ipintzen zituen. Karlos Zabala

Bota gabe zeuden errezelez baliatzen zen, gaizki itxita zeuden **leiho-tapez**. Eskarne Mujika

## **14** ***leiho zulo*** *(orobat* ***leihozulo****)*

Obretan zegoen ezkerreko etxea: zakar kontainerra aurrean, zur plantxak atarian, kristalik ez **leiho zuloetan**. Pablo Sastre

**Leihozulo** hilak zituzten etxe erre biluzi batzuen ondotik pasatu zen hotelerantz. Iñaki Zabaleta

Haren **leihozulo** batetik metalezko tubo bat atera eta, [...]. Pablo Sastre

Hemen zinea egiteko aukera ederra eskaini diotela, hor ikusgai diren bideo horiexek lekuko -bideoak pasatzen ari dira, hareazko dunen alde honetan diren antzinako **leiho** -zuloetan, hain zuzen- eta gustura dagoela. Edorta Jimenez

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**ate eta leiho** (5); **ate leiho** (4); **egongelako leiho** (5); **etxeko leiho** (17); **gelako leiho** (9); **goiko leiho** (6); **jauregiko leiho** (4); **lehen solairuko leiho** (4)

**leiho alboan** (5); **leiho aldera** (25); **leiho atzean** (5); **leiho atzetik** (4); **leiho aurrean** (22); **leiho aurreko** (7); **leiho bakarra** (9); **leiho bat zabaldu** (9); **leiho baten aurrean** (4); **leiho baten ondoan** (8); **leiho batetik begira** (5); **leiho ertzean** (8); **leiho estu** (5); **leiho eta ate** (8); **leiho handi** (9); **leiho handiak** (7); **leiho handiaren** (4); **leiho hegian** (4); **leiho hegitik** (5); **leiho ireki** (7); **leiho ireki baten** (4); **leiho irekiaren** (5); **leiho irekitik** (12); **leiho itxiaren** (4); **leiho ondoan** (76); **leiho ondoan eseri** (5); **leiho ondoan eserita** (4); **leiho ondoan jarri** (5); **leiho ondoan zegoen** (4); **leiho ondoan zutik** (6); **leiho ondoko** (31); **leiho ondoko besaulkian** (4); **leiho ondoko mahai** (4); **leiho ondoko mahaian** (5); **leiho ondora** (13); **leiho ondora hurbildu** (4); **leiho ondotik** (7); **leiho parean** (5); **leiho tapak** (4); **leiho ttipi** (7); **leiho txiki** (30); **leiho txiki bat** (9); **leiho txiki batetik** (4); **leiho txikia** (4); **leiho txikitik** (7); **leiho zabal** (11); **leiho zabalak** (4); **leiho zabaletik** (5)

**solairuko leiho** (8); **sukaldeko leiho** (4); **telebixtako leiho** (7); **telebixtako leiho ttipi** (4)

**gelako leihoa** (9); **leihoa ireki** (52); **leihoa ireki zuen** (12); **leihoa irekita** (10); **leihoa itxi** (31); **leihoa itxi zuen** (10); **leihoa itxita** (8); **leihoa itxita zegoen** (4); **leihoa ixteko** (4); **leihoa ixtera** (4); **leihoa jaitsi** (4); **leihoa parez pare** (5); **leihoa zabal zabalik** (5); **leihoa zabaldu** (41); **leihoa zabaldu zuen** (12); **leihoa zabalik** (21); **leihoa zabalik zegoen** (7); **leihoa zabaltzen** (8); **leihoa zabaltzera** (5); **logelako leihoa** (5); **sukaldeko leihoa** (7)

**ate eta leihoak** (5); **ate leihoak** (17); **ateak eta leihoak** (22); **etxeetako leihoak** (9); **etxeko leihoak** (5); **gelako leihoak** (5); **kanpo leihoak** (5); **leihoak eta ateak** (7); **leihoak ireki** (9); **leihoak itxi** (19); **leihoak itxita** (15); **leihoak zabaldu** (14); **leihoak zabalik** (13); **leihoak zabaltzen** (5); **logelako leihoak** (4); **saredun leihoak** (4)

**etxeko leihoan** (7); **goiko leihoan** (5); **leihoan agertu** (4); **leihoan barrena** (8); **leihoan eserita** (6)

**gelako leihoaren** (4); **leihoaren alboan** (4); **leihoaren aurrean** (10); **leihoaren aurretik** (4); **leihoaren azpian** (9); **leihoaren bestaldean** (4); **leihoaren beste aldean** (7); **leihoaren kontra** (24); **leihoaren koskan** (4); **leihoaren ondoan** (22); **leihoaren ondoko** (4); **leihoaren parean** (11); **leihoaren zirrikitutik** (4)

**leihoari begira** (5); **leihoari so** (4)

**leihoaz bestalde** (5); **leihoaz bestaldean** (9)

**gelako leihoek** (4)

**leihoen aurrean** (6); **leihoen azpian** (4); **leihoen kontra** (12)

**leihoetako kristalak** (15)

**etxeko leihoetan** (5); **goiko leihoetan** (5)

**leihoetara begira** (4)

**goiko leihoetatik** (4); **leihoetatik sartzen** (5); **leihoetatik zintzilik** (4)

**leihoko arasan** (4); **leihoko argi** (5); **leihoko argia** (4); **leihoko errezelak** (6); **leihoko gortina** (4); **leihoko kristal** (6); **leihoko kristalak** (7); **leihoko kristalean** (6); **leihoko kristaletan** (5)

**gelako leihora** (6); **leihora atera** (19); **leihora begira** (18); **leihora begiratu** (9); **leihora hurbildu** (49); **leihora hurbildu zen** (15); **leihora hurbildurik** (4); **leihora hurbiltzen** (4); **leihora hurreratu** (9); **leihora inguratu** (10); **leihora irten** (9); **leihora jo** (8); **leihora joan** (46); **leihotik leihora** (7); **logelako leihora** (4); **sukaldeko leihora** (7)

**leihoraino joan** (6)

**leihorantz begiratu** (6); **leihorantz jiratu** (4); **leihorantz joan** (4)

**leihorik gabeko gela** (6)

**bulegoko leihotik** (7); **burua leihotik atera** (5) egongelako leihotik (4); **etxeko leihotik** (16); **ganbarako leihotik** (5); **gelako leihotik** (20); **leihotik aldendu** (4); **leihotik atera** (12); **leihotik bahituak** (40); **leihotik barrura** (9); **leihotik begira** (130); **leihotik begira egon** (5); **leihotik begira egoten** (5); **leihotik begira geratu** (4); **leihotik begira jarri** (7); **leihotik begira zegoen** (16); **leihotik begiratu** (60); **leihotik begiratu zuen** (20); **leihotik begiratuz** (6); **leihotik begiratzean** (5); **leihotik begiratzeko** (4); **leihotik**

**begiratzen** (18); **leihotik beha** (4); **leihotik behera** (46); **leihotik behera bota** (9); **leihotik behera botatzen** (6); **leihotik bota** (14); **leihotik botako** (4); **leihotik burua aterata** (5); **leihotik ikusi** (16); **leihotik ikusi zuen** (4); **leihotik ikusten** (23); **leihotik jauzi egin** (5); **leihotik kalera** (6); **leihotik kanpora** (63); **leihotik kanpora begira** (13); **leihotik kanpora begiratu** (13); **leihotik kanpora begiratzen** (4); **leihotik kanpora bota** (5); **leihotik kirika** (4); **leihotik leihora** (7); **leihotik salto egin** (4); **leihotik sartu** (9); **leihotik sartzen** (30); **leihotik so** (15); **leihotik zehar** (5); **logelako leihotik** (7); **nire gelako leihotik** (4); **nire leihotik** (11); **sartzen zen leihotik** (8); **sukaldeko leihotik** (22); **telebixta leihotik** (207); **treneko leihotik** (4); **zabalik zegoen leihotik** (4); **ziegako leihotik** (7)

**leihoño** *iz adkor* leihotxoa.

Dominique De Villepinbarne minixtroa kasik bi orenez segidan mintzatu da telebixtako **leihoño** hortarik. Herria

**leihope** *iz* leihoaren azpialdea.

Nire gelako **leihopeak** du erabakiaren kulpa. Anjel Lertxundi

leihor ik **lehor**.

**leihoratu**, leihora(tu), leihoratzen da/du *ad* leihora joan; leihoara eraman.

Joseba, jakinguraz, **leihoratu** egin zen eta kalera begira geratu zen. Iñaki Zabaleta

Dena eskaparate den gizarte honetan, gu ere **leihoratu** ginen noizbait. Andoni Egaña

Azkenean **leihoratu** dute salbu hunkitua izan zen zatia. Herria

leihorratu ik **lehorreratu**.

leihorreratu ik **lehorreratu**.

leihosare ik **leiho 12**.

leihotapa ik **leiho 13**.

**leihotto** *iz*

**Leihotto** egia esanda ñimiñoa, burua sar nezakeen bertan baina ez sorbaldak. Fernando Rey

Rouendik sarrailagile bat ekarri, eta nire gelarako burdinazko **leihosare** bat egiteko agindu diot, Parisen, egoitza partikular batzuek beheko solairuan lapurren beldurrez eduki ohi dituztenak. Josu Zabaleta

**leihotxo** *iz* leiho txikia. ik **leihoxka**.

Oroituko zara, noski, harresiak zulatzen dituzten **leihotxoez**, behinola arerioari geziak jaurtikitzeko edota olio irakina gainera botatzeko erabiltzen ziren "txakur hilgarri" haiez. Patxi Zubizarreta

Eskaileraren buruan, burdina trinkoko gontzetan irrintzi egiten duen gotorlekuren bateko borta astuna etxean sartzeko, erdian **leihotxo** hagadun bat zabaltzen zaiola. Koldo Izagirre

Txakurtegirantz jo nuen berriro, atzealdeko karkabako **leihotxopean** gelditu nintzen adi. Koldo Izagirre

Gero barneko patioko **leihotxotik** oihuka hasi zen. Fernando Rey

· Nik autoko erloju txikiari erreparatu, eta 7:30 irakurri nuen haren **leihotxoan**. Pedro Alberdi

Aspaldi ez dela, **leihotxoa** zuten kamisoiak erabiltzen ziren. Luis Elberdin

Argazki-kamera eskuratu eta hatz dardaratia botoitxoan eta begia **leihotxoan** ipini zituen. Migel Angel Mintegi

**leihoxka** **1** *iz* leiho txikia. ik **leihotxo**.

Masailek eta begiek gezurrezkoak dirudite **leihoxka** hartako ispiluan, biribil eta ubel. Harkaitz Cano

Ganbera txiki bat zen, **leihoxka** bakarrekoa. Aingeru Epaltza

Hori beren begiekin ikus zezaketen bagoiaren izkinetan zeudenek, burdin sare baten artetik; **leihoxka** haietatik aire poxi bat sartzen zen. Eneko Bidegain

**2** (informatikan) ik **leiho 4**.

Pantaila-zolako tresna-barratik, **leihoxka** batek ohartarazi ninduen horraino idatzitako karaktere kopuruaz: 2.734. Aingeru Epaltza

leihozulo ik **leiho 14**.

**leinargi** *izond* etorkiz bikaina, aitonen semeen nolakotasunak dituena.

Harrigarria zatekeen erromatar nobleek, frankoen mendean bizi izanda, konposizio handiagoa izatea, eta frankorik **leinargienak** eta haien kapitainik handienak baino pertsonaia garrantzitsuagoak izatea. Iñaki Iñurrieta

Espero zituen euskaldun **leinargi** eta aitonensemeen ordez sasiko eta parte txarreko arbasoak aurkituta. Xabier Mendiguren Elizegi

Zuhaitz honek, noski, berak ere jatorri **leinargia** behar du. Pello Zabala

Gauza handiez eta jasoez handitasunez eta jasotasunez behar da hitz egin, arima **leinargiz**. Joan Mari Lekuona

## leinargitasun *iz* leinargia denaren nolakotasuna.

Nolanahiko dohain, izpiritu, arbasoengandiko **leinargitasun**, odol eta historiaz kargatu beharra daukala atzera bere arrazatxo hori. Joxe Azurmendi

---

## leinu 1 *iz* familia bateko belaunaldien saila, familia bateko aurrekoen edo ondorengoen multzoa.

Arrazez ez dagoela zertan hitz egin historian eta kulturan, bai soil-soil **leinu**, tribu, herri eta nazioez. Joxe Azurmendi

Mundu **honetako** leinu, enda eta herriak. Jose Morales

Goubernie horretako bizilagunak enda eta **leinu** askotakoak dira. Karlos Zabala

Kirgiz ibiltarien **leinu** handiko tribu zenbaitek [...] Irtish eta Obi ibaien beste aldera aldatu zituzten beren dendak, inbaditzaileen harrapaketetatik ihesi. Karlos Zabala

Falujako **leinu** batek zituela euren bahitzaileen eskuetatik libratu. Berria - Mundua

Dionisio Halikarnasokoak ezin du sinetsi veiarrek hildako hirurehun eta bost fabiarren heriotzaren ondoren **leinu** horretatik haur bakar bat geratu izana. Iñaki Iñurrieta

Ikur haiek antzinako tribu edo **leinu** ospetsuren baten bereizgarriak ziren noski. Fernando Rey

Truxa irakasleak iparreko tuaregen hizkera erabili zuen, hain zuzen ere [...] aspaldi desagertutako **leinu** baten dialektoa. jakitun izango baitzen bere **leinu** arioaren gehiagotasunaz. Anton Garikano

**2** *(Biblian)*

Huna 144.000 direla seinaleaz markatuak, hamabi mila, Israeleko 12 **leinu** bakotxetik eta ezin kondatzeko jendealdi haundi bat bertzalde. Herria

Aukera itzazue herriko hamabi gizon, **leinu** bakoitzeko bat. Elizen arteko biblia

Jerusalemgo hiriak hamabi ate izango ditu, eta bakoitzak Israelgo **leinu** baten izena izango du. Elizen arteko biblia

Lebiren **leinuko** gizaseme bat **leinu** bereko emakume batekin ezkondu zen. Elizen arteko biblia

**3** (biologian)

Saguari buruz han egiteko zen ikerketak honako hauek ekarriko zituen: sagu odolkidezko hainbat **leinu** mantentzea; mutanteak bereizi eta mantentzea, [...]. Juan Garzia

Saguarekin berarekin ere [...] muga garbi bat dago, eta ezin hortik aurrera egin: **leinu** puruak ekoizten dira, eta gurutzaketa luze eta konplexuak aztertzen. Juan Garzia

Genetikak organismoen planoa aztertzen du; **leinu** germinalak transmitituriko gene sorta batek dauka bere baitan plano hori, eta haren arabera definitzen da geroko organismoaren arkitektura. Juan Garzia

Gizaki guztiak familia edo **leinu** bakar baten ondorengo ote garen. Joxerra Garzia

**Leinu** garbirik gabeko txakur gorrail bat zen, sasikoa. Juan Garzia

**4** jatorria.

**Leinu** nobleko ez diren neskak ezaugarritzen dituen burutea. Juan Garzia

Familiaren **leinu** noblea kontuan hartuta. Ramon Saizarbitoria

Lehian nire alde aritu da, eta ez du zuk baino adore gutxiago, ez zuk baino **leinu** apalagoa. Frantziako **leinu** printzipalenetariko baten semea. Juan Kruz Igerabide

Lis loreari zerbitzu handia egindako **leinu** baten ondokoa zelako. Aingeru Epaltza

Nafarroa Behereko eta Zuberoako beaumondarren **leinu** nagusiaren oinordekoa. Aingeru Epaltza

· **Leinu** garbirik gabeko txakur gorrail bat zen, sasikoa. Juan Garzia

**5** (hitz elkartuetan)

**Leinu** kutsua kendu zioten "herritar" esanahiari, eta unibertsal bihurtu zuten. Esteban Antxustegi

· Euren familiaren ongizateak kezkaturik arropa xuri ederra landu eta zaindu zuten emakume **leinu** luzearen testigantza. Joxan Elosegi

Abokatu eta legegizon **leinu** baten ondokoa zen Ezponda. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **israeldar leinu** (4); **israelgo leinu** (28); **leinu bakoitzeko bat** (7); **leinu bereko** (3); **leinu eta herri** (3); **leinu osoa** (4); **leinu osoak** (3); **manasesen leinu** (30); **manasesen leinu erdiaren** (8); **manasesen leinu erdiari** (6); **manasesen leinu erdiko** (6); **manasesen leinu erdikoei** (3)
>
> **benjaminen leinua** (3); **judaren leinua** (6); **lebiren leinua** (4)
>
> **benjaminen leinuak** (3); **danen leinuak** (3); **ekialdeko leinuak** (4); **israeldar leinuak** (3); **israelgo hamabi leinuak** (3); **israelgo leinuak** (3); **jakoben leinuak** (3); **leinuak etxolatuko dira** (4); **neftaliren leinuak** (4)
>
> **lebiren leinuari** (3)
>
> **hamabi leinuen** (8); **israelgo hamabi leinuen** (6); **israelgo leinuen** (7); **leinuen artean banatuko** (3); **leinuen izenak** (4)
>
> **israeldar leinuetako** (4)
>
> **aitaren leinuko** (4); **axerren leinuko** (3); **benjaminen leinuko** (8); **danen leinuko** (8); **efraimen leinuko** (8); **etxegoiendarren leinuko** (3); **gaden leinuko** (4); **isakarren leinuko** (4); **judaren leinuko** (16); **judaren leinuko senitartean** (3); **lebiren leinuko** (5); **leinuko emakume** (3); **leinuko gizon** (5); **leinuko senitartean** (18); **leinuko senitarteei** (9); **leinuko senitarteek** (3); **manasesen leinuko** (4); **neftaliren leinuko** (4); **olaizolatarren leinuko** (3); **simeonen leinuko** (9); **zabulonen leinuko** (3)
>
> **benjaminen leinukoa** (8); **danen leinukoa** (3); **danen leinukoa** (3); **isakarren leinukoa** (3); **isakarren leinukoa** (3); **judaren leinukoa** (4); **judaren leinukoa** (4) benjaminen leinukoa (8)
>
> **danen leinukoek** (6); **judaren leinukoek** (5)
>
> **benjaminen leinutik** (3); **gaden leinutik** (3); **isakarren leinutik** (3); **judaren leinutik** (4); **leinutik hamabi mila** (12); **neftaliren leinutik** (3); **simeonen leinutik** (3); **zabulonen leinutik** (3)

---

## leinuadar *iz* leinua baten adarra.

Adibidez, Joan Lopez Lazarragako [...] Oñatin geratu zen **leinuadar** batekoa, erregina Elisabet Katolikoaren Kontulari, Idazkari eta [...] haren testamentuaren albazea izan zena. Berria - Kultura

Ezkontza tamalgarri baten ondorioz bazela Lazarragatarren artean **leinuadar** bat juduekin batua edo zikindua. Berria - Kultura

---

## leinuburu *iz* leinu baten burua.

Edomdarren errege eta **leinuburuak.** **Elizen arteko biblia**

Hona hemen Israelgo **leinuburuak**: Rubenen leinuarena Eliezer, Zikriren semea; Simeonen leinuarena Xefatias, Maakaren semea; [...]. Elizen arteko biblia

Orduan, familiaburuek, Israelgo **leinuburuek**, milako eta ehuneko gudari-taldeen buruzagiek eta erregearen administratzaileek eskuzabal egin zituzten beren emaitzak. Elizen arteko biblia

Hauek guztiak **leinuburu** izan ziren, eta beraien familiak asko ugaldu ziren. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **edomgo leinuburuak** (4)

---

## leinuka *adlag* leinuen arabera.

Jar zaitezte, bada, Jaunaren aurrean **leinuka** eta senitarteka. Elizen arteko biblia

Azkenerako lurralde osoa hartu zuen, Jaunak Moisesi agindu zion bezala, eta Israeli eman zion ondaretzat, **leinuka** banatuta. Jose Antonio Mujika

---

# leinukide *iz* leinu berekoa.

Haiek ere ikusiak zituzten ahaide eta adiskideak zalgurdietan kanporako bidea hartzen; agurtuak zituzten haiek beren jauregiko atarietan, presakako besarkada batez, begirada xumeen trukaketa batez, zihoanak begien ispiluan argi eta garbi idatzita utzi baitzuen bere mina, joateagatik ez ezik, lagunak, **leinukideak** , handitasunean berdinak, geratzeagatik ere bai. Felipe Juaristi

---

# leinuru 1 *iz* distira.

Aitari so egin zion, eta ustekabe handia hartu zuen ohartu zelarik **leinuru** gabeko begi haiek negarrez hanpatuak zirela. Elena Touyarou

Aurpegia oinazez maskaratua zuen, eta kriseiluak argitzen zizkion begiek dirdiratzen zuten, **leinuru** beldurgarriz. Elena Touyarou

Ehun leiho handi zabaldu eta biziki izarniatuetarik datorren **leinuru** leun batek argitzen du plaza eztiki. Koldo Izagirre

Eta arima deuseztatu eta erraustuan, mundu suntsitu horretan, biziki distiratzen zuen bere borondate goriak, altzairu urtuaren **leinuru** zuriarekin. Jose Morales

Zerura begiratu, eta lurreko argiek goratzen duten **leinurua** ikusita jakin daiteke han, urrunean, hiri bat dagoela. Pako Aristi

**2** izpia.

Arratsalde apala zen eta, eguzkiaren azken **leinuruek** hodei lerroak gorritzen zituzten. Elena Touyarou

Rambuteau kalearen amaieran, zeru esnetsua ubelez margotua ageri zen behealdean, eguzkiaren **leinuru** arrosen kariaz. Karlos Zabala

---

# leinurutsu *izond* distiratsua.

Oso astiro, zintzurra lehor, oinak erreta dituena bezala, erdi herrestan iritsi nintzen etxeko eskalinata **leinurutsuaren** aurrera. Matías Múgica

---

# leioaztar *izlag/iz* Leioakoa, Leioari dagokiona; Leioako herritarra.

Hildako bietako bat Raimundo Redra 43 urteko **leioaztarra** da. Berria - Euskal Herria

---

# leitmotiv *(orobat **leit-motiv**) iz*

Tobera **leitmotiv** bat du Lukuk. Berria - Kultura

Eguna ghettoko ostatuetan finitzen zuten, mozkor arrailak, edozein uniformez beztitu bi zangodun karrikan gurutzatzean "putakumeak" **leitmotiva** ezpaineratuz. Itxaro Borda

Bere buruaz goxa dadin bezala ari zait gaineko gizon korrokaduna: ezti eztia darama deabruzko **"leitmotiv"-a** . Piarres Aintziart

Irrati, telebista eta egunkarietan, egunetik egunera, **leitmotiv** krudelen antzera, axuriki egileen negar zotinak mikro eta hostoetan behera lerratzen ziren. Sarrerra hori bera erabiltzen du Bernardo Atxagak bereK *Obabakoak*eko *Azken hitzaren bila* saileko lehen ipuinaren titulurako ez ezik, hasiera eta ipuinaren **leit-motiv** moduko bat osatzeko. Itxaro Borda

---

# leitu[1], lei(tu), leitzen *(orobat **letu** g.er.)* du *ad* irakurri.

Periodikua **leituz** ilustratzen gera. Iban Zaldua

Hamaika urte arte eskolara joan nintzen, zenbatzen eta **leitzen** ikasteko. Itxaro Borda

Egunkari bat **leitzen** tabernako barran. Iñigo Aranbarri

Bost bat minutuan *Los Angeles Times*eko kultura orriak **leitu** eta alde batera utzi du egunkaria. Javi Cillero

Berriro **leitu** ditut bi lerroburuak. Iñigo Aranbarri

Besteen kartak **leitzen** disfrutatzen al duzu orain? Pako Aristi

Haien erditik ibili zen, gainean ageri ziren izenak **leituz** , baina bilatzen zuena ez zuen atzeman. Elena Touyarou

Horregatik **leitu** dut atsegin handiz *Hitzen Ondoeza.* *Patziku Perurena*

Dokumentuko hamazazpi atalak pausatuki **leitu** zituen. Elena Touyarou

Ez zira zu, halarik ere, jenatia eskuaraz **leitzeko** ? Menane Oxandabaratz

Behiala Fermin Irigaray jaunari **leitu** niola uste dut, Zugarramurdiko Alkelarre toponimoa nola bihurtu zen Akelarre inkisizio garaian. Patziku Perurena

Bere emazteari eskaini bertsoak **leitzen** zizkidan. Marzel Etxehandi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **leitu berri** (3)
> **egunkaria leitzen** (3); **kontuak leitzen** (3)

---

# leitu[2] *izond* izoztua.

Hagineko minak, ur **leituaren** zistadak eta janari mastekatuan bat-batean aurkitzen den harriak. Xabier Amuriza

**Marmol** -harri leituaren gainean hotzak izoztu zaitzan. Xabier Amuriza

---

# leitzar *izlag/iz* Leitzakoa, Leitzari dagokiona; Leitzako herritarra.

Barriola **Leitzar** gazteak bere jeinua erakutsi du eta Eugi eta Belokiren heinerat helduxea dela agerian utzi du. Herria

Gaur egun, futbol zelai zaharra dago -beti ardi-kakaz beteta zegoelako, **leitzar** txantxazale batzuek *Kakazelai* izenarekin bataiatu zutena-. Martin Anso

**Leitzar** baserritar falanjista euskaldun batekin. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **leitzar gazteak** (7)
> **rekondo leitzarrak** (3)

---

## leitzione *(orobat **leizione**)* 1 *iz ipar* lezioa.

Berak dio ez dela etorri **leitzionen** emaiteko. Herria

Haurren laguntzen biharamuneko **leitzionen** ikasten. Herria

Manera hitsak horiek oro, amerikarrekin jendetasun eta errespetu **leitzione** emaiterat joanak ziren zibilizatuendako. Herria

Bizi **leitzione** eder bat eman dauku eta hori ez dugu sekulan ahantziko. Herria

**Leizioneak** ondorioak izan zituen, iraunkorrak, agian. Marzel Etxehandi

Eta handik landa 40. urtean **leitzione** batzu eman zituen teologian, Salamankan. Menane Oxandabaratz

**2** (hitz elkartuetan)

Azkenik Parisen Delanoe alkatearen ondoan agertu zaigu Jakes Haundia, dena ele eder eta **leitzione** emaile. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **leitzione eder bat** (3)

---

## leizafin ik **listafin**.

---

## leizatu *izond*

Ahots **leizatu** eta isilaz mintzo zen. Harkaitz Cano

---

## leize 1 *iz* haitzulo oso sakona, oso sakontasun handi eta arriskutsua. ik **leze**.

Lurra nahas-mahas hutsa zen; ilunbeak estalitako **leize** handia. Jose Antonio Mujika

Hondorik gabeko **leize** bat. Joanes Urkixo

Gona labur eta atorra zuritan ari zen neska eder bat igeri bi uhaitzek ixten zuten kala txikian, **leize** baten sarreran. Beste aldean bi mendi daude, eta horietako batean **leize** bat, non bizi baita Eszila, munstro gaiztoa eta orrolaria. Koldo Izagirre

Eos, goizean jaiotzen dena, agertu zenean, ontzia **leize** batean ainguratu genuen. Juan Kruz Igerabide

Gu, beldurturik, **leize** barruan ezkutatu ginen. Haiengandik babesteko, mendietako haitzarte, **leize** eta toki hurbilgaitzetan gorde ziren. Elizen arteko biblia

Itsasoko **leize** sakonetako landarediari eta animaliei beha egoteko aukera paregabea. Imanol Zurutuza

**2** irud/hed

Argi zirrinta minimo bat egin zitzaion bere buruan zuen **leize** ilunean. Harkaitz Cano

Gure hitzaren eta bizitzaren artean zabaldu den **leize** horretan desagertu da koherentzia, eta gaur jada inork ez du gogoratzen zein ederra zen haren presentzia. Pako Aristi

Baina **leize** handia dago estatu burujabeen konfederazioaren eta herrien konfederazioaren artean. Iñaki Mendiguren

Jainkoaren Erkidegoko gizarte irekiaren eta zibilizazio guztietan azaltzen den gizarte itxiaren artean dagoen **leize** handia. Iñaki Mendiguren

Bere buruaren ikuspegi berria zertu zuen, **leize** psikiko aztergabe horren gainean esekitako kimera bat bailitzan. herrialde aberatsen eta pobreen arteko **leize** digitala handitzea. Iñaki Mendiguren

Huts hori sumatzen dut, **leize** ikaragarri hori, euskararen mito ziztrin askoren erdi erdian. Patziku Perurena

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Leize** zolan begi batzuk distiraka ikusi zituen. Gotzon Garate

Ezagützen ez dena da **leize** zola bezain ülün. Herria

Jaitsi ziren **leize** hondoraino, eta hantxe aurkitu zituzten urtebeteko bi zakurkume eta eme hazi bat. Gotzon Garate

Lapur guztiak **leize** barnera sartu dira. Patxi Zubizarreta

**4** (zakilaren eta klitoriaren anatomian) ik **leizetsu 3**.

Barruan hainbat gelaxka edo **leize** txiki dituztelako deitzen zaie horrela, eta eszitaziorik ez dagoenean ia hutsik egoten dira, baina haragia pizten zaigunean odolez betetzen dira. Luis Elberdin

**5** ***leize-zulo*** *(orobat **leizezulo**)*

**Leize zulotik** ateratzeko garaia ere bazetorkidan. Patxi Ezkiaga

**Leize-zuloa** ireki zuen: kea atera zen bertatik, labe handi batetik bezala. Elizen arteko biblia

Mareajea beheratutakoan baino ez zitekeen iritsi labar-muturraz haratago zeuden **leize zuloetaraino**. Koldo Izagirre

Etamgo haitzartera jaitsi zen eta hango **leize-zulo** batean jarri zen bizitzen. Jose Antonio Mujika

Mila bider irudikatu dute [zakila], tente-tente beti, **leize zuloetako** pinturetan, antzinako eskulturetan, baxuerliebeetan, egiptoarren papiroetan eta baita Interneten ere. Luis Elberdin

Burua behin eta berriro jotzen zenuen sabai gero eta baxuagoaren kontra, eta azkenean lauoinka eta atzeraka irteten zinen **leizezulotik**. Juan Garzia

Egoera hartan jaistea [...] bizia galbidean jartzea baizik ez zen, norbere burua **leize zulora** botatzea. Karlos Zabala

**6** irud/hed

Aspaldian gainditua du Legarderekiko **leizezulo** intelektuala. Javi Cillero

Maitasunaren azkenik gabeko **leizezuloraino** murgildurik geratu zen jainkotasunaren itsas zabalean. Joan Mari Lekuona

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ekaingo leize** (7); **ekaingo leize zuloaren** (4); **etamgo haitzarteko leize** (3); **haitzarteko leize** (3); **herio leize** (9); **herio leize sakonetik** (4); **leize ahoa** (3); **leize barruan** (3); **leize handi** (5); **leize handi bat** (3); **leize handia** (7); **leize handiaren** (3); **leize ilun** (4); **leize sakon** (7); **leize sakonetik** (5); **leize zulo** (23); **leize zulo batean** (6); **leize zuloa** (10); **leize zuloak** (5); **leize zuloan** (12); **leize zuloaren** (8); **leize zuloetan** (6); **leize zuloetara** (3); **leize zuloko** (4); **leize zulora** (9); **leize zulotik** (6)
>
> **herio leizeak** (4)
>
> **leizean beheiti** (5); **pagabasoko leizean** (8)
>
> **herio leizearen** (6); **leizearen ertzean** (8)
>
> **leizeetan bizi** (3)
>
> **herio leizeko** (3)
>
> **herio leizera** (14); **herio leizera botako** (3); **leizera eraman** (3)
>
> **pagabasoko leizerat** (7)
>
> **leizetik ateratzen** (3); **leizetik behera** (3)
>
> **leizezulo batean** (3); **leizezulo jainkozkoan** (3)

---

**leizealdi** *iz • irud* ziegako espetxealdia.

**Leizealdia** luzerako da, eta ziegako egun finigaitz betiberdin aspergarriren batean, bihotza ahul eta zentzua ahulago duzun batean, begiak labana bat jotzen du. Koldo Izagirre

---

**leizetsu** **1** *izond* leizez betea.

Lazedemonia **leizetsura** iritsi, eta Menelaoren jauregira joan ziren Telemako eta Nestorren seme Pisistrato. Juan Kruz Igerabide

**2** irud/hed

-Zer duzu, baina? - galdetu zion ostera Andreasek, ahots apal **leizetsuz**. Anjel Lertxundi

**3** (zakilaren eta klitoriaren anatomian) ik **leize 4**.

Glandeko, klitoriaren zurtoineko, zuztarretako, ezpainetako, erraboiletako, uretrako eta perineoko gorputz **leizetsuak** eta harroak odolez bete eta handitu egiten dira. Luis Elberdin

Zakilaren mokoaren ondoren bi gorputz **leizetsu** eta bi zuztar daude. Luis Elberdin

---

leizezulo ik **leize 5**.

---

leizione ik **leitzione**.

---

**leizparztar** *izlag/iz* Leizparzekoa, Leizparzeri dagokiona; Leizparzeko herritarra.

Hiru hargin **Leizparztarrak** ziren, Jean Iribarrenekoa, Domingo Uhidekoa eta Joanes Beltzakoa, eta laugarrena, Domingo Goienetxekoa, Otikorenekoa. Michel Oronoz

---

leiztafin ik **listafin**.

---

**lejia** **1** *iz* lixiba.

Gosariarekin batera garbiketa tresnak, lanbasa eta **lejia** ekartzen dizkidate egunero. Koldo Izagirre

**Lejia** edan edo lanbasarekin giltzadunari eraso edo... Koldo Izagirre

**2** *adkor* kinaren zuztarren hautsa, arrozarekin eta anisarekin nahasia.

Senarraren bizimodua: mea zuloan otordu txikia jateko betarik ez diete uzten eta, gosea atzenarazteko, koka hosto mingotsak eta **lejia** (quinaren zuztarren hautsa, arroza eta anisarekin nahastuta) mastekatzen dituzte. Pablo Sastre

---

lejio ik **legio**.

---

lejitimatu ik **legitimatu**.

---

lejitimista ik **legitimista**.

---

lejitimo ik **legitimo**.

---

**leka** **1** *iz* babarrunen, ilarren eta kideko landareen haziak gordetzen dituen estalkia.

Ilberriko baba eta zalkeak, **leka** askatu ta ixuri egiten dira. Pello Zabala

Otso-belarraren **lekak** lehertu egiten dira astindu txikienaz, hots arin bat sortuz... Felipe Juaristi

Algarrobaren **leka** barruko garaua. Xabier Kintana

Ilarrak aletzea nahiko lan nekagarria da berez ere, baina ez dakizu zer den **lekak** zuritzea. Josu Zabaleta

**Lekari** azala kentzea kontu handiz egin beharreko lana da. Josu Zabaleta

Artaburuak jaulkitzeko, babarrun **lekak** aletzeko. Pello Zabala

Tomate, ilar **leka**, porru eta lur-sagar kaxen erdian. xerrikia ilar zuriekin edo ilar **lekarekin**. Itxaro Borda

**2** (jaki gisa)

Pentsarazi zion, esaterako, bazkaltzeko **lekak** egongo zirela pentsioan, edo barazki ulertezinagoren bat. Unai Elorriaga

Berro-zopa, txerri-azpizun errea, **lekak** almendrekin, eta, azken-buruko, budina. Oskar Arana

*Gutarra* kontserba ontzi pila ugariaren bistak eragindako bozkarioz: **lekak**, alkatxofak, ilarrak, azenarioak... denetik dago han. Iñaki Iñurrieta

Igandero aldatuko duzue etxe batetik bestera eta txandaka zainduko duzue, eta bazkatzen emango diozue, espinakak eta **lekak**. Unai Elorriaga

**3** ***ilar leka*** *(orobat* ***ilarleka)*** ilarraren leka.

Xerrikia ilar zuriekin edo **ilar lekarekin**.Bai segur, dela porru, aza, tipula edo baratxuri, dela piper, pastenagre, entsalada edo **ilarleka,** ahantzi gabe perrexila eta xarbota. Herria

Gero aratxekia errerik eta hunen laguntzeko **ilar leka** eta lur sagarrak. Herria

Oso jende gutxik dakiela zenbat bitamina duten eta zein gozoak eta samurrak diren **ilar lekak,** barruko azala kendu diezunean. Josu Zabaleta

---

**lekadun** **1** *izond* landareez minzatuz, lekak dituena.

Erretiroa hartu edo beste sektore batean jardun arren, diru laguntzak hartzeko moduan dira garai batean abelgorri arrak, esnetarako abereak, ale **lekadunak** edo oliba olioa

ekoizten zuten nekazariak, adibidez. Berria - Ekonomia

**2** *iz* landare lekaduna. ik **lekari**[1].

**Lekadunez** osatutako elikadura eta patatadunez osatutakoa madarikatu ondoren, bidaiako gainerako gauzez hitz egin zuen. Koro Navarro

---

# lekaide *iz* elizgizona, erlijio ordena baten profesa egin ondoren mundutik at bizi dena, nahiz bakarrik (ik **eremutar**), nahiz, maizago, komentu batean (ik **fraide**). ik **monje**.

Gotzai, apaiz eta **lekaideak**. Berria - Harian

San Verekundo monasterioan izan ohi zuen sarritan ostatu, eta bertako Abade eta **lekaideek** bihotz zabalez hartzen zuten. Askoren artean

Zisterko **lekaideen** artean. Pello Zabala

Mendi horretan dute beren tradizio-iturri Karmeldar **lekaide-lekaimeek** ere. Pello Zabala

Behin batean, anai Egidio San Sixtoren iturrira joan zen **lekaide** batzuentzako ur bila. Askoren artean

**Lekaide** likits bat zen, baina sekula atzendu ez zuena Amabirjinari gur egitea. Juan Garzia

Aita Santuak bidali zituen iparraldeko lurraldeetara zenbait **lekaide** eta monje misiolari. Pello Zabala

---

# lekaidetxe *iz* komentua; monasterioa.

Azken otoitza izeneko hamalauduna erdaraz idatzi zuen Lauaxetak, Gasteizko karmeldarren **lekaidetxeko** bere zeldan. Jokin Urain

---

# lekaime **1** *iz* moja. ik **serora**.

Zeure hiru Ordenetako arima guztiak -hau da, anaia txikienak, **lekaime** eta hirugarrendarrenak-. Askoren artean

Behin batean, Santa Klara oso gaixorik zegoen, eta ezin zen elizara joan beste **lekaimeekin** batera ofizioa errezatzera. Askoren artean

Avilako Teresa **lekaime** ibiltari jakintsuaren eguna. Pello Zabala

Eliza abandonatua zegoen orduan, baina lehenago San Agustinen Ordenako **lekaimeek** bizi izan ziren bertan. Askoren artean

Bastia ondoko **lekaime** beneditarren San Paulo monasterioan. Askoren artean

Ordena dominikar berri eta berritzailearen komentuak, eta hemen zehatzago esateko **lekaime** dominikarrenak. Joan Mari Lekuona

Sister Marie Keyrouz maronitar **lekaimeak**. Berria - Kultura

Andres bere salako eta beste batzuetako Karitateko **lekaimeen** laguna egin zen. Josu Zabaleta

Jesusen Bihotzeko **lekaimeen** etxe nagusia. Josu Zabaleta

Klausurako **lekaime** lotsatien halako herabetasun aire bat ematen. Pako Aristi

Monastegi horietako **lekaimeek** jainkoaren eskekoak hartzen dituzte, egun batzuk bakean eta atseden hartuz igaro ditzaten. Gotzon Garate

**2** (hitz elkartuetan)

Lonbardiarren legeak debekatu egiten du **lekaime**-jantzia hartu duen emakumea, nahiz eta botoak egina ez izan, ezkondu ahal izatea. Iñaki Iñurrieta

Eskeko mojak edo "beatak" bigarren mailako erlijio-emakumeak ziren: ez zuten doterik behar, ez baitziren ohizko **lekaime**-etxeetara joaten, eta erlijioak emandako pozetatik eta eskean bildutako purtziletatik bizi ohi ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# lekaimetza *iz* lekaimearen egoera.

Frantzian, ordea, **lekaimetza** ezarrita dagoelarik, neskek beti dute zelibatoaren aukera, eta gurasoen onespenari itxaroteko agintzen dien legea komenigarriagoa liteke. Iñaki Iñurrieta

---

# lekaio **1** *iz* jaunari lagun egiten dion oinezko morroi libreaduna.

Ezkaratzean, hondar koloreko librea horiz jantzitako bi **lekaio**, hedeak eta botoiak zilar huts. Matías Múgica

Selifan kotxezainak eta Petrushka **lekaioak** igo zioten maleta. Jose Morales

Beste jaun batzuen **lekaio** eta gurdizainak. Jose Morales

Zalgurdi bat non ikusiko nuen, ze enbaxadako **lekaioa** ikusi nuen niregana lasterka etortzen. Matías Múgica

Frak estu eta labur batez jantzitako **lekaioak** koñaka eta garagardoa ekarri zituen. Jose Morales

**2** (hitz elkartuetan)

**Lekaio**-jantziak gordetzeko erabiltzen zuen fardelari. Jose Morales

Gurdiaren atzealdeko koxkan **lekaio**-itxurako gizaseme bat zegoen. Jose Morales

**3** *izond/hed*

**Lekaiotzat** duelarik miseria. Piarres Xarriton

**4** zerbitzari zuria, otxankeriazko jarrera duena bere nagusiaganako.

Mirari hori gauzatzearen aldetik Dominikar Errepublikako diktadore Rafael Leonidas Trujilloren **lekaioek** eta morroiek trebe jarduten zuten. Edorta Jimenez

Tiranoen eta haien **lekaioen** kontra... Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> petrushka lekaioak (3)

---

# lekale **1** *iz* egoskaria.

Garia erraz biltegiratzen da, bai komunitateak eta bai norberak bere aldetik jasota, eta hori falta bada, erraz egingo dira ordezkoak barazkiekin, haragiarekin edota **lekaleekin**. Janari gordinak bakarrik jaten zituen -barazkiak, **lekaleak** eta fruta-. Santiago Iruretagoiena

Arroza eta **lekale** lehorrekin txerriki gatzatua zertzeko tratua egin zuen harro-harro, bi barrika ron eta kable zahar batekin ordainduz. Juan Garzia

Ekialdeko armada **lekale** lehorrez hornitzen zuen dendari auzoko batekin. Karlos Zabala

Elikagai erabat kuzinatuak, aurre kuzinatuak, ia-ia kuzinatuak, **lekale** beratuak, labore hozituak, usain-emaile natural eta sintetikoak, koloratzaileak, [...]. Edorta Agirre

**2** (hitz elkartuetan)

Ellenek bere igaroan aurpegiak, fruta-erakuslehioak, **lekale**-poteak eta oliba-pitxerrak ikusten zituen. Lopez de Arana

Ezkilak **lekale**-zuriketarako deia jotzen zuenean, beren belarrak garbitzen laguntzen zien tina handiaren inguru-jiran. Juan Garzia

**lekari**[1] **1** *iz* landare lekaduna.

Babarrunari bezala, beste **lekari** askori egiten zaio samua (baita oteari ere, adibidez), eta ez bakarrik **lekariei** : badira, esaterako, hurraren samua bezalako mokofinak ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Badirudi godoek ere, erromatarrei ikasi ziela **lekari** honen laborantza. Patziku Perurena

**2** lekalea, egoskaria.

Gizonak esnea, arrautzak, **lekariak** , erosi zizkion auzoko nekazari bati. Eskarne Mujika

Anaia hark maitinak esan ondoren ipintzen zituen **lekariak** beratzen. Askoren artean

Etxera itzulirik, tapioka zopa bat eta **lekari** batzuk prestatu zituen. Juan Garzia

---

lekari[2] ik **lakari**.

---

**lekaro** *iz* basamortua.

Isiltasunaren etorkin sentitzen zen behizaina, natura hots huts zen **lekaro** izugarri hartan. Anjel Lertxundi

---

**lekat** *lok* izan ezik.

Bazkalordua zen eta guztiok bazkaltzen ari ginen, **lekat** aitona, zeinak gero eta gutiago jan eta gero eta gehiago erretzen baitzuen. eta, kontu-kontari, kontatu zigun ezen, mendeku gisa, guztiei trenkatu ziela burua, **lekat** haietarik bati, zeina baitzen untziko borreroa eta zeina igorri baitzuen La Habanako gobernariarenganat txalupa batean, non baitzeuden untzikideen buruak. Joan Mari Irigoien

Guztiak gelditu ziren harri eta zur hura ikusi zutenean, **lekat** osaba Joanikot. Joan Mari Irigoien

---

**lekatsu** *izond*

**Lekatsuak** [goxokiak] baina paper garden koloreanitzetan bilduak betiere, haur alproja pollit batzuei noiz eskainiak izango ziren zain zeudela ematen zuten litxarreria haiek. Joxan Elosegi

---

**lekatu**[1], leka(tu), lekatzen du *ad* salbuetsi.

Adostu zuten alditxartze irudi bat eginez adiskidearen etxera afaltzera joatetik **lekatuko** zela, eta arrats osoa Prévanentzat izanen zela. Jon Muñoz

---

**lekatu**[2], leka(tu), lekatzen du *ad* milikatu, miazkatu.

-Hoa sagarroiak **lekatzera** . Aingeru Epaltza

---

**lekatxo** *iz* leka txikia.

Frantziako sukaldaritzak berehala egin zuen bere orkidea honen **lekatxoa** , eta azkar baino lehen, bainilla zaporezkoak izan ziren goxoki frantses ugari. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**lekeda** **1** *iz* itsasteko goma; gai itsaskorra.

bere liburuen inprenta-probak zuzentzen zituen, eta zenbait ilustrazio itsasten zituen **lekedaz** . Fernando Rey

Aitzur-burdina lehor eta garbi ateratzen bada, esan nahi du karea ahul eta lehor dagoela; baina liskatsua eta ondo beratua dagonean, burdinaren inguruan **lekeda** bezala itsatsita geratuko da. Santiago Iruretagoiena

**Lekedaz** bezala zoruari itsatsia. Pako Aristi

Gure azalak **lekedaz** eta biskaz josiak baleude bezala,.**Lekeda** bezala lotzen zaizkitzunak. Joan Mari Irigoien

Oinak lurrean josita geratu zen, zapatilak eztitan edo **lekedatan** itsatsita geratu balira bezala. Aitor Arana

Amodioaren **lekedaz** itsatsiak. Askoren artean

Azkenik oinak, **lekeda** beltz, zeru grisaren pean distira ketsuz emokatuak. Itxaro Borda

Neska ohean utzi zuen, izterrak zabalik, **lekeda** zeriola azpietan behera. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan)

Zurak zezen **lekedarekin** bakarrik bat egiten du eta oholen hariak maizago apurtuko dira, lekedaren itsaspena askatuko den baino. Xabier Amuriza

Esku gibelaz xukatzen zituen aho **lekedaz** busti matelak. Itxaro Borda

---

**lekedatsu** *izond* lekedaz betea.

Beren loaren amaraun **lekedatsuagotik** brastakoan irteteko pattar kopa bana edo bina hartzen duten langileak. Pako Aristi

Isilik geratu zen, minaren samina heste bihurrietan hausnarrean hutsaren bola **lekedatsua** zeramala goiti eta beheiti. Itxaro Borda

Halako hutsune bat da bere gela une honetan, airea kiskaltzen duten izpi **lekedatsuz** betea. Pako Aristi

---

**lekedatu**, lekeda(tu), lekedatzen du *ad* lekedaz itsatsi.

-Gurina lodi-lodi eta erreximenta mehe-mehe, gustatzen zainan bezala -belarriak **lekedatu** zizkidan anaiaren mintza-doinu exti-jarioak. Aingeru Epaltza

Gus McNiel, artean begiak logurez **lekedaturik** , bere gurdiaren ondoan zebilen, esne botilez beteriko alanbrezko saski bat eskuan balantzaka zerabilela. Lopez de Arana

---

**lekedazu** *izond* lekedatsua.

Badut susmoa hain juxtu ere hala jokatu nuela gure anaiaren neska lagunekin: kapar, **lekedazu** eta gogaikarri. Aingeru Epaltza

Ez nuen, bertzalde, inolako zalantzarik, kristau onaren ikasgaiak gupida **lekedazu** baten itxuran azaleratuko zitzaizkiola. Aingeru Epaltza

---

# lekeitiar *(orobat **lekeitiar** g.er.)* **1** *izlag* Lekeitiokoa, Lekeitiori dagokiona.

Resurreccion Maria Azkue **lekeitiar** abadeak argi dio bere hiztegian. Pello Zabala

**Lekeitiar** neska batek. Iñigo Aranbarri

Bizkaitarra zen Azkue, **lekeitiarra**. Koldo Zuazo

**Lekeitiarra** ote zen Akab kapitaina? Berria - Kultura

Eusebio Erkiaga **lekeitiarra** ere haserre agertu zen giputzen jarrera itxia zela-eta. Koldo Zuazo

1996ko uztailaren 23an atxilotu zuten Lasseuben preso **lekeitiarra**. Berria - Euskal Herria

**2** Lekeitioko herritarra.

Gizon handia, zinez, **lekeitiar** hura, bai gorputzez eta bai arimaz. Gotzon Garate

Igandeak ekaitza ekarri zuen, ordea, eta horrek **lekeitiarren** asmoak hankaz gora jarri zituen. Berria - Kirola

Aspalditik Hondarribian bizi den 49 urteko **lekeitiarrak** enpresa munduan eskarmentua duenik ezin uka. Berria - Ekonomia

---

lekettiar ik **lekeitiar**.

---

lekoa ik **legoa**.

---

# lekondar **1** *izlag* Lekornekoa, Lekorneri dagokiona.

Jean Landarretche **lekondar** apeza. Herria

Gure **lekondar** laboraria. Herria

Jean Michel Noblia, **lekondar** toberen idazlea. Herria

Aitzin-partida bat jokatuko dute buruz buruka Errecart **lekondarrak** eta Idiart makearrak. Herria

**2** Lekorneko herritarra.

Baina **lekondarrak** 15 kintze egin ditu, gibelerat joz indarrez, Davidek bat egiteko artean. Herria

Egin dute **lekondarrek** beren bestetako partidattoa. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lekondar gazte** (3); **makear lekondar** (4)
> **errecart lekondarra** (3)
> **makear lekondarrek** (6)

---

# lekora *postpos*

**1** *-tik **lekora**[1]* -tik kanpora.

Frantziaren eta Espainiaren interes arrotzen kontu gure arbasoek erabili zalaparta guztietarik **lekora**, XIX. mende hondarrean, bi bizkaitar gaztek, Luis eta Sabino Arana Goiri anaiek piztu zuten euskal bihotzetan nazio propioaren aldeko sugarra. Piarres Xarriton

Gorputzetarik eta pentsatzeko moduetatik **lekora**, ez dugu gauza singularrik deus sendi, ez deus nabarmen. Piarres Xarriton

Zalaparta guztietarik **lekora**. Piarres Xarriton

**2** *-tik **lekora**[2]* -en ondoan, -tik aurrera.

Dantzaldia pilota partidatik **lekora**. Herria

Mezatik **lekora**, Laby familiak eta banderariek egin diote beren agurra bildutasunean Arnaud-ri. Herria

Union Basque batasunak urtarrilaren 6 etik aintzina antolatzen du mus zoingehiagoka Herriko Etxeko Edantegian, aratseko 9 tik **lekorat**. Herria

Aitortuko dut beraz gogotik, kontziliotik **lekora**, Jainkoaren Herria hurbildu zaiola, asko gisatara, herri xeheari eta jende xumeari. Piarres Xarriton

Iheslariak heldu ziren etengabe, eta mugako herrien deportaziotik **lekora**, kopuru handiagoan. Elena Touyarou

Handik **lekora** gutun bat igorri zioten Nafarroako buruzagiari, zerbait laguntza ardietsi nahiz Arnegira buruz bide berri baten egiteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aro txarraren ondotik, garizumatik **lekora** Pazko. Pello Zabala

**3** *-z **lekora*** -z kanpora.

Literaturaz **lekora** zetzan literatura batean jarri nuen gero eta gehiago gogoa. Aurelia Arkotxa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **handik lekora** (6); **hortik lekora** (5); **mezatik lekora** (7)

---

# lekoratu, lekora(tu), lekoratzen du *ad* kanporatu; barreiatu.

Arindu den legearen zorroztasunetik urruntzen du eta **lekoratzen**. Egunsentiko errainuek metalaren kontra sortutako distira koloretsuan **lekoraturik**. Piarres Xarriton

---

# lekore

**1** ***lekorean*** kanpoan.

Hor dago, pantailaren atzean, **lekorean**, berea ez den eremuan. Urtzi Urrutikoetxea

Moncloakoa Gobernu zentrala bada, han dagoela erdia, begia, bihotza, eta gu, beraz, kanpoan, **lekorean**, periferian gaudela. Iñigo Aranbarri

**2** ***lekoreko*** kanpokoa.

**Lekoreko** amodio deiari amore emanez gero. Patziku Perurena

---

**lektoradutza** *iz* atzerriko unibertsitate batean bere sorterriko hizkuntza irakasten duen irakasle languntzailearen kargua edo postua.

Oinez jarraitzen zuten eta Ramsay andrea ez zen esanahiaz zehatz ohartu, hitz bakanak soilik, han-hemenka... disertazioa... ikerlaritza, **lektoradutza** ... katedra. Anton Garikano

---

**leku** *(20514 agerraldi, 284 liburu eta 6425 artikulutan)* **1** *iz* espazioko gune jakina. ik **toki.**

**Leku** eta toki guztietan daude konputagailuak. Pello Salaburu

Gai bakuna (atomoa) ez da toki jakin batean, **leku** mugatua betetzen badu ere. Xabier Kintana

Toki hau ez da ideia horiek finkatzeko **leku** egokia. Isabel Arrigain

Proposizio bat egiazkoa bada, egiazkoa izango da **leku** eta une orotan. Askoren artean

Ez baztertu ez **leku** , ez denbora, ez pertsonarik; ordu guztiek, toki guztiek, gizon guztiek balio behar dute zure atseginerako. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hemen zeuden, eta han, eta **leku** orotan, ikusgai eta ukigai nire aurrean. Koro Navarro

Lehen **leku** askotan astero izaten zen erromeria. Pako Aristi

Han, bizitzako azken geltoki den **leku** hartan. Edorta Jimenez

Zein **leku** , zein jende mota, zein hiri ezagutu dituan. Juan Kruz Igerabide

**Leku** hartan, ibaia versta erdi zen zabal. Esnea eta barazkiak beti **leku** berean eta pertsona berari erostea bururatu zitzaidan. Karlos Zabala

Ez da **leku** berera denbora laburrean bitan agertzea bezalakorik. Aingeru Epaltza

Oreina, esate baterako, Europako **leku** gehienetan gautar bilakatu da. Pako Aristi

Gaua igarotzeko **leku** bila. Jose Morales

Ni nagoen **lekuan** . Urtzi Urrutikoetxea

Zirrara sakon eta errespetuzko batez, lehengo **lekuan** jarri nuen berriz argimutila. Koro Navarro

Espazioan jiraka dabilen planeta honetan, Asteasu, Albiztur, Zizurkil eta beste hainbat herri pausatzen diren **lekuan** munduratu nintzen 1951. urtean. Bernardo Atxaga

Bizkarraren erdian azkura pizten denean bezala, eskuak iristen ez diren **lekuan** ezin hazka eginda nago. Hasier Etxeberria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Puntu gorri hori da balak joko duen **leku** zehatza. Pako Aristi

Auzo hau dotorea duk eta hiriaren erdigunean, **leku** onean, zagok kokatuta. Joxemari Iturralde

Hiltzeko **leku** lasai baten bila nenbilen. Eliz atarian, **leku** desertu eta antzinako hartan. Oskar Arana

Munduko **leku** bakartiena. Bernardo Atxaga

**Leku** babesean, zerrizainak berak eraikia zuen korta. Juan Kruz Igerabide

Pentsatzen nuen deserosoa zela edonorentzat **leku** arrotzean turista bakartiaren moduan ibiltzea. Bernardo Atxaga

Iragana **leku** arrotza da, beste modu batean hitz egiten dute han. Bernardo Atxaga

New York City-ko legearen arabera, ezin dira hildako pertsonen errautsak **leku** publikoetan bota. Oskar Arana

**Leku** eta tenore egokian. Juan Luis Zabala

**Leku** puta horretan sekulako beroa egiten dik beti. Aingeru Epaltza

Edozein tokitan egonik, okerreko **lekuan** nagoela irudituko litzaidakek. Patxi Zubizarreta

**3** irud/hed

Ahaleginak egin dituzu inspektorearen **lekuan** jartzeko. Rafa Egiguren

Eta Juliaren **lekuan** banengo, aurpegira esango nioke Aita Healy horri... Irene Aldasoro

Estatuak, merkatuaren **lekua** hartzen saiatu gabe, haren gidari-eginkizunak betetzen ditu. Koro Navarro

Nahiago dut gazte eta lerden bati **lekua** utzi... Menane Oxandabaratz

Gertatu zen honek **lekua** utzi ziola erromatar zuzenbideari. Iñaki Iñurrieta

Garaiz esaten ez den egiak gero bere **lekua** hartzeko areagoko lana izaten duErlijioaren Filosofia bukatzen den **leku** horretan bertan hasten da erlijioa. Anjel Lertxundi

**Leku** askotan arrazoitzen du Maupassantek patu irrazional hori. Josu Zabaleta

Pentsamenduaren historian **leku** duina eta berezia duen bestea Migel Servet da. nire deiturak ez du zalantzarako **leku** handirik uzten. Askoren artean

Prosodiari buruzko lanetan, zatikako azterketek hartu dute **leku** gehien. Lourdes Oñederra

Sufrimenduak memoria du eta ama bere oroitzapenetako **leku** ezkuturen batean bilduta egongo zen Ingorekin. Anjel Lertxundi

Katramilatu egin nintzen, lotsagarri, beharrik ez zegoen **lekuan** . Hasier Etxeberria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Zer **leku** klase duk hau, Riley, igande arratsaldea eta neskarik batere ez? Koro Navarro

Nahikoa lan bazutela Donostiako **leku** -hustea prestatzen; nahita ere, ezin zutela egoera kontrolpean eduki. Inazio Mujika Iraola

Laboratorioko biak hilak ziren, ez nekien non ez nola; eta Goldbaum ere bai, hotzak eta goseak, **leku** -huste martxan. Juan Garzia

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure arrantza **lekuan** aurkitzen genituen arazoen hamarrena ere ezingo nizuke kontatu. Nire burua ideien borroka **leku** bihurtua zen. Koro Navarro

Beste atsegin **leku** bat aurkitu zuten gurina, gazta eta arrautzak handizka saltzen ziren pabiloian. Karlos Zabala

Zelaian, kanpalekuaren hegoaldean SS-en entrenamendu **leku** bat bada. Marzel Etxehandi

**6** (espazioa, tartea)

Karmen, ordea, beste batentzat adina **leku** bazela kabinan, eta gurekin etorriko zela setatu zen. Kamera sofistikatu baten ezaugarri asko ditu begiak, baina askoz **leku** txikiagoa hartzen du eta guztiz automatikoak dira kontrolak. Inazio Mujika Iraola

Pasteur Institutua oso txiroa zen orduan alde horretatik: **leku** gutxi, tresneria eskasa. Juan Garzia

Ohe anitz, baina lerroen artean **leku** guti. Piarres Aintziart

Hilarrian oso **leku** justua zeukala hiru hizkuntzatan jarri beharreko esaldi harentzat. Bernardo Atxaga

**Leku** eskasiaz kexu zirenei, arrazoiz, gogorarazten zieten hurrengo aldietan bagoiko laurogei etorriko zirela. Urtzi Urrutikoetxea

Gizonak **leku** bat aurkitu zuen libre eta hara joan zen. Koro Navarro

18 **lekuko** mahaian 32 izanen ginen. Marzel Etxehandi

**6b** (esaldi hanpatuetan leku atzizki mugagabe batekin, urruntasuna-edo adierazteko)

**Lekutan** zegoen orduan Alemania! Pello Salaburu

**Lekutan** dago maoista zen garaia. Iñigo Aranbarri

**Lekutan** dago orain 'The Crook Factory' hura. Edorta Jimenez

Hura dena isilpean eta ezkutuan gordetzekoa baldin bazen, **lekutan** zegoen sekretua; Gaztelako erromantzez izkiriatua, izkribuak Armadaren ontzien berri zehatza zekarren. Edorta Jimenez

Lurreko konfederazioak Unibertsoaren **lekutako** muturretik etorritako inperio baten erasoa jasoko du. Jon Arretxe

**Lekutara** etorri gara! Joseba Sarrionandia

Zigortuta, mendiko herri batera bidalia, **lekutara**. Koldo Biguri

Bruciatako jabeen makina bat erabili baino lehen, nahiago zuen hiru aldiz gehiago gastatzea, eta urtero-urtero **lekutatik** ekartzen zuen traktore bat. Koldo Biguri

Duda izpirik gabe **lekutatik** etorria zen. Fernando Rey

## 7 (sailkapen, hierarkia edo kideko batean) ik **postu**.

Sailkapenean bigarren **lekuan** ditugu Avirontarrak. Herria

Sailkapenean gure futbolariak ongi jarriak daude hirugarren **lekuan**. Herria

Kaikuk UCI Europe Tour rankineko laugarren **lekura** egin du jauzi. Berria - Kirola

Hemen gaindiko ikastegien "hit parade" horretan Bernat Etxepare lizeoa dugu lehen **lekuan** %-eko 100 erreusipenekin baxoan. Herria

EAren lehenengo hautagaiak koalizio zerrendako bigarren **lekuan** joan ziren Gipuzkoan eta Araban, eta laugarren **lekuan** Bizkaian. Berria - Euskal Herria

Hemendik aitzina atzarririk egon beharko dute, sailkapenean bederatzigarren **lekutik** gorago hupatzekotan. Herria

## 8 ***lekuko*** *izlag* ik **lekuko; lokal 4; toki 10**.

Periferian ekoizten diren gaiek, beraz, ez dute zerikusirik izaten sortzen diren **lekuko** premiak asetzearekin, eta zuzenean kokatzen dira munduko deritzan merkatuan. Koro Navarro

Zabalkundearen arrakasta, zabalkunde hori gertatzen den **lekuko** eragileek lanaren antolaketa-formei eta atzerritar ekoizpen moduak bideraturiko sozializazio-mekanismoei egiten dieten harreraren araberakoa izaten da. Koro Navarro

**Lekuko** errealitatea ezagutzen dutenak. Berria - Euskal Herria

Gaztelaniaren, portugesaren, ingelesaren eta frantsesaren faboretan eta **lekuko** hizkuntzen kaltetan. Piarres Xarriton

Apezpikua beti grekoz mintzo zen, berak Siriakoa jakinik ere; **lekuko** hizkuntza uzten zion aldiz apezlagunari, honek egin zezan itzulpena. Piarres Xarriton

Lurralde horren jabe ziren, mankomunitatean, Baigorri, Luzaide, Erro eta Baztango baleak, haiek zituzten **lekuko** mozkinen baliatzeko arauak finkatzen. Michel Oronoz

**Lekuko** erran zaharra da. Michel Oronoz

Hor ziren elgarretaratzen duela aspaldi **lekuko** artzainak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

9. kapituluan agintzen duelarik *cuestores* deitu eske biltzaileak kentzea, **lekuko** apezpikuak edo bi kalonjek induljentziak iragartzea eta haiek berek amoinak biltzea. Piarres Xarriton

**Lekuko** arrantzaleek diotenez. Aurelia Arkotxa

## 9 ***leku egin*** *(orobat **lekua egin**)* ik **toki 11**.

Jaso zuen bere mailutzarra, eta, kolpeka, ateko oholak urratu zituen bere esku larruz babestuarentzat **leku egiteko**. Ramonak bere izterren artean **leku egin** zidanetik, zainetan egiten nituen egunaren azken orenak, eguzkia noiz gordeko. Koro Navarro

Gaixoarentzat ez da samurra irria, baina, lubakian ere, **leku egin** nahi lioke pozaldiari, oraingoz isildu baitira tiro hotsak, eta bihotza epeldu baitiote eguzki-printzek. Imanol Zurutuza

Erlijioek filosofiari **leku egiten** dioten neurrian, hainbat eta hobeto aterako dira fundamentalismoaren arriskutik. Askoren artean

Ikusgarriak maite dituen gizartea lehenbizian inarrosiko du, baina ez irauliko eta, garaiz, **leku egin** behar dio eztabaida politikoari. Piarres Xarriton

ETAren su-etenak aspaldiko nahiari **leku egin** dio. Joseba Zulaika

Eta umoreak maiteminari **egin** zion **leku**. Joan Mari Irigoien

Zer edo zer esan zion atezainari belarrira, eta atezainak barrura eraman eta **lekua egin** zigun aurreko lerro batean. Koro Navarro

Annettek **lekua egin** zuen mahaiaren erdian eta amak hantxe jarri zuen erretilua. Anjel Lertxundi

Yolo taberna fregatzen ari da maitekiro, aulkiak mahai gainetara jasoz **lekua egin** ondoren Pako Aristi

## 10 ***leku eman*** ik **toki 12**.

Halakorik gabe, nazioarteko ekonomiak oreka galtzen du, eta liberalismoak nazionalismoari **leku ematen** dio berehala. Koro Navarro

Gizakiari ere berdin gertatzen zaio, eragozpenei **leku ematean**, denik eta txikienak direla. Joan Mari Lekuona

Adierazgarritasunari horrenbeste **leku eman** baldin badiogu, bazen arrazoi bat horretarako: [...]. Josu Zabaleta

Eta hain gogor tentatu zuen, ezen hark, tentaldiari **leku emanez**, erabaki baitzuen anai Joan komentura etorri bezain laster utziko zuela Ordena. Askoren artean

## 11 ***leku geometriko***

Puntu horien **leku** geometrikoari *horoptero* deitzen zaio. Josu Zabaleta

## 11b ***leku-hustu*** *ad* ik beherago **14;** ik gorago **5.**

Jakin baitzuen elgorriak jorik nola egon nintzen, bizirik iraun nezan arduratu zen, bereziki gatibuak oinez **leku-husten** zituztela jakin zuenean. Juan Garzia

## 12 ***leku izen*** *(orobat **lekuizen;** Euskaltzaindiaren Hiztegian **leku(-)izen** agertzen da)* ik **toki 13**.

Ibaien izen kartografikoak **leku-izenak** dira berez, ibaia pasatzen deneko leku baten izenak, gero ibai osoaren mapa-izen bihurtu direnak, kartografo eta kudeatzaileen (ez jendearen) beharrak hartaraturik. Iñaki Segurola

Hitz berriak asmatzeko joera nabarmenagoa da pertsona- eta **leku**-izenetan. Iñaki Arranz

Herri eta **leku izenak** frantsestu zituen, frantsesa hizkuntza bakartzat ezartzen duen Toubon legea indartu zuen. Hasier Etxeberria

Leitzako "Abaden Gurutzea" **lekuizena** datorkit gogora. Geroxeago konturatu nintzen **leku-izenak** jadanik hungarieraz irakur nitzakeela. Patziku Perurena

## 12a ***leku onean*** (utzi eta kideko aditzekin) ik **toki 14**.

"Omen" horrek ez zuen Ximurra hagitz **leku onean** uzten, sinesgarritasunaz den bezainbatean. Aingeru Epaltza

Hartu desohorea zeure gain, ahizpek baino bekatu higuingarriagoak eginez **leku onean** utzi baitituzu haiek. Elizen arteko biblia

Khalidik ez du INCko burua oso **leku onean** uzten: Muturreko kontserbadorea da, Wolfowitz bezala, [...]. Berria - Mundua

## 13 ***leku txarrean*** (utzi eta kideko aditzekin) ik **toki 15**.

Memorandumeko hirugarren orrialdeak **leku txarrean** uzten du norbait.Imazek **leku txarrean** utzi du Ibarretxe. Edorta Jimenez

**Leku txarrean** laga naute arabarrek eta madrildarrek. Berria - Kirola

Difamazio kanpaina bat izan da gure jarduera **leku txarrean** uzteko. Berria - Mundua

Oso **leku txarrean** utz dezakete zure osaba Juan. Bernardo Atxaga

UPNko idazkari nagusi Alberto Catalanek ere PSN «oso **leku txarrean**» geratu dela uste du. Berria - Euskal Herria

## 14 ***lekuak hustu*** joan, alde egin. ik **toki 16**.

Azkenekoz, ostatuko nagusiak erran zigun **lekuak hustu** behar genituela, laster oilarra kukurruka hasiko zela eta. Daniel Landart

- **Lekuak huts** itzazue etxe hontarik... Itxaro Borda

Geroxago entzun nian autoa pizten eta **lekuak husten**. Daniel Landart

Bi musu eman zizkidan ebaska bezala eta gelarat jo zuen, bere puskak bildurik behar zituela **lekuak hustu**. Janbattitt Dirassar

Prentsaurrekoa kudeatu zuen komandoak **lekuak hustu** zituen. Itxaro Borda

## 17 *–en **lekuan*** –en ordez.

Arrazoiaren **lekuan** bere kapritxoa erabiltzen badu. Askoren artean

Orduan, bedeinkazioaren **lekuan** madarikazioa erakarriko nuke neure gainera. Jose Antonio Mujika

Uko egitea arrazoiaren **lekuan** intolerantzia eta fanatismoa ipintzeari. Juan Garzia

Behialako moldegabekeriaren **lekuan** jendetasuna -jendetasun ekarria, bistan da- erakusten zekiena. Aingeru Epaltza

Inperio zaharraren **lekuan** beste ordena berri, sendo eta indartsuagoa eraikitzeko gai izango direlakoan. Anjel Lertxundi

Egun haietan ez nekien gerora zer gertatuko zitzaidan baina odolaren **lekuan** kafea baneuka bezala nenbilen. Hasier Etxeberria

Jainkoa baztertu (arrazoiketa publikotik) eta haren **lekuan** balioak oinarritzeko instantzia bakartzat arrazoimena aitortzen bada. Joxe Azurmendi

Une horretan ohiko Anne ezabatu egin zen bat-batean, eta haren **lekuan** beste Anne bat azaldu zen, ausarta eta jostagarria ez den eta maite eta samurra izan nahi duen Anne hori, alegia. Josu Zabaleta

Hernando ene lehengusuaren **lekuan** nintzela hara etorria, eta harexen izena begiratzeko arren. Edorta Jimenez

### 15 ***lekuan-lekuan*** lekuka. ik **toki 18**.

**Lekuan-lekuan** herritarrekin egin behar da lan gehiago. Berria - Euskal Herria

Hori da politika, ezta? **lekuan lekuan** behar den moduan erantzutea. Berria - Euskal Herria

Berehala **lekuan-lekuan** beharrezkoak diren baliabideak jartzen ditugu martxan. Berria - Harian

### 16 ***lekuan lekuko*** ik **toki 19**.

Ez dagoela berriz ere **lekuan lekuko** nazio dirura bueltatzerik. Iñaki Heras

Behin eta berriz ikusi zen, eta ikusten da oraindik, **lekuan lekuko** interesek duten garrantzia. Iñaki Heras

Ulertu behar da beti ere **lekuan lekuko** estrategia bat garatu beharko dela, errealitate bakoitzera egokitua. Berria - Gaiak

Eta hartan ohartu nintzen **lekuan lekuko** musika behar dela. Menane Oxandabaratz

Hartara, bada, jardun jakin batzuetan -batez ere ahozkoetan- **lekuan lekuko** hizkera erabiltzea iruditzen zait zentzuzkoa. Koldo Zuazo

**Lekuan lekukoa** ona izaten da. Gotzon Garate

### 16 ***lekuz aldatu*** ik **lekualdatu**.

Museo batean koadro baten aurrean **lekuz aldatzen** garenean, ez dugu irudi haren barruan ez mugimendu paralaxiarik ez perspektiba dinamikorik sumatzen. Josu Zabaleta

Lege honek dioenez, elementu batzuk aldi berean **lekuz aldatuz** baldin badoaz, unitate bezala pertzibitzen dira, eta forma bakarra osatzen dute joera gisa. Josu Zabaleta

Laino-adarra ere **lekuz aldatu** eta atzealdean kokatu zen. ez da guztiz zehatza bihotza "mugitzen dela" esatea, ez baita **lekuz aldatzeko** mugimendurik egiten. Elizen arteko biblia

· Pixkana-pixkana aulkia **lekuz aldatu** zuen, harik eta gelako aterantz begira jarri zen arte. Koro Navarro

Lehenik, pasiboa sortzeko izen sintagmak **lekuz aldatzea** beharrezkoa ote den galdetzen dugu. Itziar Laka

Altxatu eta **lekuz aldatu** behar izan zituen maletak. Mirentxu Larrañaga

Hurrengo egunean **lekuz aldatu** gintuzten, eta Ziburun jarri ginen. Rafa Egiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**aski leku** (17); **atseden leku** (11); **bazter leku** (10); **beti leku berean** (18); **bizi leku** (9); **bizi leku bat** (8); **bizitzeko leku** (8); **borroka leku** (10); **denbora eta leku** (9); **egiteko leku** (18); **egoteko leku** (11); **europako leku** (8); **euskal herriko leku** (9); **gotor leku** (13); **hainbat leku** (26); **herriko leku** (11); **hiru leku** (9); **ikasteko leku** (8); **josta leku** (31); **kultu leku** (19)

**leku aldaketa** (22); **leku aldaketak** (9); **leku anitzetan** (11); **leku aparta** (9); **leku aproposa** (28); **leku asko** (13); **leku askorik** (8); **leku askotan** (143); **leku askotara** (8); **leku askotatik** (11); **leku bakar** (10); **leku bakarra** (31); **leku bakarti** (13); **leku bakoitzean** (13); **leku bat aurkitu** (11); **leku bat egin** (12); **leku baten bila** (12); **leku batera eraman** (14); **leku batera joan** (13); **leku batetik bestera** (41); **leku berberean** (8); **leku berean** (247); **leku berera** (20); **leku beretik** (27); **leku berezi** (18); **leku berezi bat** (10); **leku berezia** (55); **leku berezia egin** (11); **leku berri** (14); **leku berria** (12); **leku berriak** (9); **leku bila** (10); **leku desberdinetan** (16); **leku eder** (13); **leku ederra** (20); **leku ederrean** (12); **leku egin** (29); **leku eginez** (11); **leku egingo** (9); **leku egiteko** (18); **leku egiten** (18); **leku egoki** (8); **leku egokia** (50); **leku egokian** (18); **leku egokiena** (11); **leku eskasa** (8); **leku eskasez** (10); **leku eta garai** (8); **leku eta ordu** (8); **leku eta une** (9); **leku ezberdinetan** (12); **leku ezezagun** (8); **leku garrantzitsua** (16); **leku gehiago** (42); **leku gehienetan** (27); **leku gisa** (9); **leku gutxi** (17); **leku gutxiago** (11); **leku handi** (8); **leku handia** (37); **leku handiagoa** (20); **leku hartan bertan** (8); **leku hartu** (9); **leku hartzen** (8); **leku hoberik** (10); **leku ilun** (9); **leku itxi** (10); **leku itxietan** (8); **leku izan** (12); **leku izango** (16); **leku izen** (15); **leku izenak** (16); **leku jakin** (51); **leku jakin batean** (25); **leku jakin batera** (8); **leku lasai** (9); **leku libre** (11); **leku nagusia** (8); **leku on** (8); **leku ona** (18); **leku onean** (14); **leku orotan** (8); **leku osoa** (11); **leku polita** (8); **leku publiko** (22); **leku publikoetan** (52); **leku publikoetan erretzea** (18); **leku sakratua** (10); **leku seguruan** (8); **leku txarra** (20); **leku txarrean** (9); **leku txikia** (14); **leku txikian** (13); **leku urrun** (9); **leku zabala** (10); **leku zabalagoa** (9); **leku zehatz** (15); **leku zehatz batean** (8)

**leku zoragarria** (8); **munduko leku askotan** (9); **nahiko leku** (8); **nahikoa leku** (8); **otoitz leku** (17); **uda leku** (33); **uda leku elkarteak** (9); **une eta leku** (9)

**badute lekua** (9); **bakoitzak bere lekua** (13); **bere lekua aurkitu** (10); **bere lekua hartu** (12); **bere lekua hartzen** (10); **bere lekua utzi** (8); **bigarren lekua** (8); **bizi lekua** (10); **dagokion lekua** (18); **euskararen lekua** (11); **izango dute lekua** (9); **lagunentzako lekua** (8); **lehen lekua** (14); **lekua aurkitu** (21); **lekua bete** (11); **lekua beteko** (9); **lekua betetzeko** (27); **lekua betetzen** (17); **lekua bilatu** (16); **lekua dago** (8); **lekua dauka** (8); **lekua du** (17); **lekua duen** (10); **lekua dute** (16); **lekua egin** (39); **lekua egingo** (12); **lekua egitea** (11); **lekua egiteko** (21); **lekua egiten** (17); **lekua eman** (14); **lekua eta ordua** (28); **lekua galdu** (17); **lekua har** (16); **lekua hartu** (100); **lekua hartu zuen** (21); **lekua hartua** (8); **lekua hartuko** (16); **lekua hartzea** (16); **lekua hartzeko** (24); **lekua hartzen** (41); **lekua hartzen ari** (8); **lekua hartzen du** (9); **lekua izan** (68); **lekua izan behar** (18); **lekua izanen** (9); **lekua izango** (39); **lekua izango du** (13); **lekua izatea** (13); **lekua izateko** (8); **lekua kendu** (13); **lekua utzi** (39); **lekua utziz** (15); **lekua uzteko** (10); **lekua uzten** (32); **lo egiteko lekua** (8); **merezi duen lekua** (9); **ordua eta lekua** (40); **utzi zion lekua** (9); **utzitako lekua** (24); **zalantzetarako lekua** (19); **zalantzetarako lekua uzten** (19)

**kultu lekuak** (31); **lekuak husten** (9); **lekuak hustu** (66); **lekuak hustu behar** (14); **lekuak hustu dituzte** (8); **lekuak hustu zituen** (8)

**bakoitza bere lekuan** (31); **behar den lekuan** (16); **behar zen lekuan** (8); **behar zuen lekuan** (8); **bere lekuan ipini** (12); **bere lekuan jarri** (19); **bere lekuan jartzen** (9); **bigarren lekuan** (14); **dagoen lekuan dagoela** (9); **dagokion lekuan** (23); **dena bere lekuan** (9); **egiten duten lekuan** (9); **egondako lekuan** (18); **esandako lekuan** (12); **gauden lekuan** (11); **gauzak bere lekuan** (15); **gertatu zen lekuan** (16); **hirugarren lekuan** (9); **lekuan berean** (44); **lekuan bertan** (69); **lekuan bertan hil** (9); **lekuan egon** (22); **lekuan egotea** (8); **lekuan eseri** (14); **lekuan geratu** (10); **lekuan ipini** (15); **lekuan izan** (12); **lekuan jarri** (55); **lekuan jarriko** (10); **lekuan jartzeko** (14); **lekuan jartzen** (29); **lekuan kokatu** (14); **lekuan lekuko** (93); **lekuan sartzen** (8); **lekuan utzi** (18); **lekuan uzten** (8); **nagoen lekuan** (24); **nagusi den lekuan** (8); **nahi duen lekuan** (8); **nahi duzun lekuan** (9); **ni nagoen lekuan** (8); **okerreko lekuan** (11); **pilota lekuan** (12); **utzitako lekuan** (14); **zauden lekuan** (8); **zegoen lekuan** (68); **zegokion lekuan** (8); **zen lekuan** (78); **zen lekuan bertan** (9); **zeuden lekuan** (19)

**lekuaren arabera** (18)

**kultu lekuetako** (10)

**dagoen lekuetan** (21); **dauden lekuetan** (17); **kultu lekuetan** (11)

**lekuko agintariek** (5); **lekuko ekonomia** (7); **lekuko jende** (5)

**dagoen lekura** (23); **esandako lekura** (12); **gertatu zen lekura** (12); **lekura eraman** (27); **lekura eramango** (10); **lekura etorri** (8); **lekura heldu** (8); **lekura hurbildu** (18); **lekura iristeko** (14); **lekura iritsi** (29); **lekura itzuli** (39); **lekura joan** (33); **lekura joateko** (11); **lekura joaten** (11); **nahi duen lekura** (9); **nahi duzun lekura** (13); **nahi zuen lekura** (12); **zegoen lekura** (61); **zeuden lekura** (10)

**zegoen lekuraino** (12)

**zegoen lekurantz** (21)

**ez da lekurik** (15); **ez dago lekurik** (11); **ez du lekurik** (29); **ez duela lekurik** (8); **ez dute lekurik** (20); **ez dutela lekurik** (8); **ez zegoen lekurik** (8); **ez zuen lekurik** (12); **inolako lekurik** (8); **lekurik aproposena** (15); **lekurik egokiena** (21); **lekurik ez duela** (15); **lekurik onena** (19)

**lekutan dago** (10)

**bere lekutik atera** (10); **bere lekutik mugitu** (8); **dagoen lekutik** (29); **dauden lekutik** (11); **geunden lekutik** (11); **lekutik altxatu** (9); **lekutik atera** (21); **lekutik gertu** (24); **lekutik hurbil** (15); **lekutik mugitu** (28); **lekutik mugitu gabe** (15); **nengoen lekutik** (11); **nire lekutik** (8); **zauden lekutik** (13); **zegoen lekutik** (40)

**kultu lekutzat** (8)

**lekuz aldatu** (75); **lekuz aldatuko** (14); **lekuz aldatuta** (8); **lekuz aldatzea** (34); **lekuz aldatzeko** (30); **lekuz aldatzen** (46); **lekuz kanpo** (117); **lekuz kanpoko** (21); **lekuz kanpokoa** (20); **lekuz kanpokoak** (8)

---

## lekualdaketa *(orobat **leku(-)aldaketa**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lekualdaketa** agertzen da)* **1** *iz* lekualdatzea, lekuz aldatzea.

Hiriburuak eta hauen **lekualdaketak** aztertzen dira gero. Iñaki Mendiguren

Honelako aditzek argiro frogatzen dute pasiboa subjektu eta objektuaren **leku-aldaketan** oinarritu behar dela. Itziar Laka

Inkontzientearen "hizkuntzan" eta haren **lekualdaketa** eta kondentsazio-prozesuetan oinarritzen den adierazpen subjektibo, neurotikoaren eremua. Josu Zabaleta

### 2 (pertsonena)

**Leku-aldaketa** egin baino sei ordu lehenago eman behar omen zuten parte komisarian. Agurtzane Juanena

Oroitzen da hirira iritsi zirenekoa, Eusebioren **leku aldaketa** zela-eta. Alberto Barandiaren

Antoniok ez zuen berehala eskatu **lekualdaketa**. Espainiako eta Frantziako kartzeletan 18 **lekualdaketa** egin dituzte azken hilabetean, eta bakar batean ere ez dute euskal presorik Euskal Herriko espetxeetara ekarri. Iban Zaldua

**3** (ekonomian)

Mercedes-Benz, **lekualdaketaren** mamuak jotako azken enpresa. Berria - Ekonomia

**Leku aldaketa** itxura eman gura diete itxierei. Berria - Ekonomia

Enpresak hilabete dauka **lekualdaketaren** berri langileei emateko. Berria - Ekonomia

**Lekualdaketen** eta kaleratzeen mehatxuak beti izan ditugu. Berria - Ekonomia

---

## **lekualdarazi**, lekualdaraz, lekualdarazten du *ad* lekuz aldarazi, lekualdatzera behartu.

Jendetza bulkaka hasi zenean (eta ez kakatza jendea bulkatzen), bidaiari igo berri batek (eta ez bideberri igokari batek) **lekualdarazi** zuen lehengoa (eta ez lehengorarazi aldalekua). Xabier Olarra

---

## **lekualdatu**, lekualda(tu), lekualdatzen **1** da/du *ad* lekuz aldatu. ik **tokialdatu**.

Igandetako nire etxea itsaso zabalaren beste aldera **lekualdatu** da. Ramon Etxezarreta

Ezustez hiri arrotz batera **lekualdatuak** ginela zirudien. Aingeru Epaltza

Eguzkia ez da egunero toki berean ateratzen izarrartean, pixkanaka-pixkanaka **leku aldatuz** doalako. Pello Salaburu

Aspaldian ez nuen ikusi, haren familia herrixkatik **lekualdatu** zenez geroztik-edo. Mirentxu Larrañaga

Eta, konpainiako gainerako guztiei zegokienez, beste sektore batera **lekualdatu** zituztela esan zidatean, gudu-lerrora joanak zirela denak, eta ez zeudela eskueran. Mirentxu Larrañaga

Urtean zentimetro batzuez **lekualdatzen** beheregi altxaturiko zenbait eraikin. Juan Garzia

Gertatu zen behin, piano bat nahi zutela **lekualdatu**. Harkaitz Cano

**2** (ekonomian)

Produkzioa nora **lekualdatu** dezakeen ere ez dago oso garbi. Berria - Ekonomia

*Caballito* Alemaniako multinazionalak Betoñotik Jundiz industriagunera **lekualdatu** behar zuela-eta, 25 langile kanporatzeko eskatzen zuen enpresak. Berria - Ekonomia

1998an aurreko alkateak [...] Sidenorreko altzairutegia **lekualdatzeko** ituna sinatu zuen. Berria - Ekonomia

---

## **lekualdatze** **1** *iz* lekuz aldatzea. ik **lekualdaketa**.

Eskolan ematen nituen orduak **lekualdatzea** antolatzeko erabiltzen zituzten. Eduardo Matauko

Epaia sinatuta zegoen, eta hainbeste **lekualdatzek** sortutako desordenak eta nahaste-borrasteak salbatu zuen bakarrik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hazkunde demografiko oraindik ikaragarrizko baten eta modernizazio besterendu batek dakartzan biztanleen **lekualdatze** masiboen emaitza dena, zalantzarik gabe. Hau da, gramatikako **lekualdatze**-eragiketek egitura hartzen dute kontuan. Koro Navarro

Hau da, gramatikako **lekualdatze**-eragiketek egitura hartzen dute kontuan. Itziar Laka

Europako grabitate-zentroaren **lekualdatzea**. Koro Navarro

Pasiboak izen sintagmen **lekualdatzea** agintzen duela. Itziar Laka

Ezinaren transferentzia, **lekualdatze** edo destokitze itxuragabe bat gertatu da hor: nere ezina hitzaren berezko ezin bihurtu da eta, horrenbestez, delako hitz horrek berekin du ezina. Iñaki Segurola

**2** (ekonomian)

Azken asteotan, ugaritu egin dira **«lekualdatzearen** mamua» astindu eta lanaldia luzatu nahi duten enpresak. Berria - Ekonomia

Multinazionalen **lekualdatze** politikei aurre egiteko. Berria - Ekonomia

Lanuzteak, **lekualdatze** mehatxuak, atxilotuak eta kaleratuak. Berria - Ekonomia

Kartzelatik auzitegira zihoan **leku aldatze** furgoia setiatu zuen. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lekualdatzearen aurka (3)

---

## **lekuarazi**, lekuaraz, lekuarazten du *ad* lekutzera behartu, urrunarazi.

Guadalajaran, ehunka jende **lekuarazi** dituzte beren etxeetarik bost mila hektara lur izan direlarik erreak. Herria

Izigarriko euriteak direla medio, euriteen ondotik, izan dituzte 150.000 etxe urperatuak eta 45.000 jende **lekuarazi** behar ukan dituztenak lanjeretik. Herria

Badira hor protesta asko herri hortako basakeriez, hil edo **lekuarazi** diren herritar saldoez, bai-eta islamista armatuekin ezin bururatu diren amnistia edo bake solasez, bai-eta herri horretan jastatu diren korrupzio eta itsuskeria ainitzez. Herria

---

## **lekuindar** *izlag/iz* Lekuinekoa, Lekuineri dagokiona; Lekuineko herritarra.

Goiti ari da **Lekuindar** gaztea. Herria

Nork ez ditu ezagutzen, Pantxoa Carrere **lekuindarra** ta Peio Ospital itsasuarra? Herria

**Lekuindarrak** bazterrak harritu ditu. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lekuindar gaztea (3)
> hugo carrere lekuindarra (5)

---

## lekuizen ik **leku 12**.

---

## **lekuka** *adlag ipar* leku batzuetan. ik **tokika**.

**Lekuka** familia osoak, haur ttipiak barne, beste leku batzuetan gizonak bakarrik. Herria

**Lekuka**, herriko bestak arrunt bereziak izaiten dira eta fama handi-handikoak. Herria

**Lekuka**, beren hasarrea agertuz, karrika eta plazetan bota ere dituzte fruitu eta baratzekariak. Herria

Eta jadanik itsasoan hedatua den petrolaki hori? parte ja bildua da eta **lekuka** lan gaitza egin da hortarako ere. Herria

Lanak izan dira kamiunzain horieri konpreni-arazteko mugaraino ez bazen ere elurrik, handik harat bazela eta **lekuka** frango lodi. Herria

Kondizione horieri jarraikiz, proiektu bat asmatu dut, ziri batzu ere **lekuka** landatu, nondik pasatuko den jakinarazteko, Arnegizaharre etxe gibeletik eta Luzaideko plazaraino. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

'Euskal-Herria ez da saltzeko' , hori ikusten dugu **lekuka** idatzia, euskaraz edo frantsesez. Herria

---

**lekuko** **1** *iz* zerbait ikusi edo entzun duelako edo zerbati dakielako, horren berri eman dezakeen pertsona. ik**testigu**.

Hanna, hantxe zutik, ezbeharraren lekuan **lekuko**, Hanna, bere zigarreta erretzen ari. Joxe Austin Arrieta

**Lekuko** batzuek ziotenez, gizonak ez omen zuen bere burua defenditzeko zirkinik ere egin. Joxean Agirre

Urtegiko langileek Itoizko biztanleak izan zituzten **lekuko**. Biharamunean, igandekari, **lekuko** batek zioenez, hainbeste jende hurbildu zen hilaren ikusteko non ez baitzen batzuen eta besteentzat tokirik. Edurne Elizondo

Hauek guztiak bilduak dira ez **lekuko** soil batenganik baina askotarik. Piarres Xarriton

Badaki ere haien aurka ez dela onartu behar ez salatari ez **lekuko** fidagarririk baizik. Piarres Xarriton

Baina garbi hitz egin dezagun: bi **lekuko** aski al dira hauek galdu nahi dituztenak hilarazteko? Juan Martin Elexpuru

**Lekuko** ematen ditu Larramendi, Axular eta Duhalde. Xipri Arbelbide

**Lekuko** izan nintzen gertaerei buruzko galdera batzuk egin zizkidan. Anjel Lertxundi

Han egona zen **lekuko** batengandik jaso dudan bezala. Jon Muñoz

Ezkontza zibil bateko **lekuko** izanak. Marzel Etxehandi

Guztien **lekuko** izana nintzen eta guztien berri ahalik eta zehatzena emana gure irakurleei, kazetarioi uste zaigun grinagabeziaz. Aingeru Epaltza

Ezbehar baten **lekuko** zirenik ohartu ere egin gabe. Joxean Agirre

Ikuskizun harrigarri baten **lekuko** suertatu zen. Patxi Zubizarreta

Zin-egiteetan **lekukotzat** hartutako idoloen ahalmena. Elizen arteko biblia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Hartu gero bi **lekuko** fidagarri: Urias apaiza eta Zakarias, Jeberekiasen semea. Jesusen Ebanjelioaren ispilu argi eta **lekuko** jator dugu Frantzisko. Elizen arteko biblia

Antipas nire **lekuko** leiala. Elizen arteko biblia

San Nikolas, Santa Ageda, [...] eta beste santu errukarri ugari ditugu garai eta usario horren **lekuko** zahar. Patziku Perurena

Ez da zigorgabe geldituko **lekuko** faltsua, gezurra dioena galdu egingo da. Elizen arteko biblia

Han egongo da zuen kontrako **lekuko** gisa. Elizen arteko biblia

Ez da aski **lekuko** bakarraren aitorpena. Elizen arteko biblia

Horren ondoren, zoritxar eta atsekabe izugarriak gertatuko zaizkie, eta, orduan, kanta hau izango da haien aurkako **lekuko**. Jose Antonio Mujika

Frantziskok Egiptoko Sultanari egin zion bisitaz eta honek erakutsi zion adiskidetasunaz zuzenenko **lekuko** bezala mintzo delako. Askoren artean

Agoizko epailearen ezezkoa jaso zuten foralek lehendabizi, babestutako **lekuko** gisa deklaratu nahi izan zutenean. Berria - Euskal Herria

**3** lekukotasuna ematen duen gauza.

Urtegiko horma **lekuko** ixila izan zen. Edurne Elizondo

**Lekuko** ditut nire kontzientzia eta hiltzen naizenean ireki dadin utzi nuen eskutitza. Ander Irizar

Honen **lekuko** ditut niri neuri gertatutako zenbait pasadizo. Pello Salaburu

Horren **lekuko** da 1454an idatzi zuen *Chronica*. Martin Anso

Eta elurra bera ere anitz estimatua zizuten; atsotitz hauxe **lekuko**: Otsaileko elurrak ongarri hoberena balio du. Horren **lekuko** duzu, urrutira gabe, "Himalaya burgesen desertu" artikulu bikaina. Jarrera baikor honen **lekuko**, langabeziari buruzko Erromako Klubaren txosten ezagun batetik ateratako hitzak: [...]. Pello Zabala

Bai, jauna, zerua **lekuko**. Juan Garzia

Hor daude **lekukotzat** zenbait sermoi edo prediku gure mintzairan emanak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**babestutako lekuko** (5); **babestutako lekuko gisa** (5); **bi lekuko** (15); **bi lekuko ditugu** (5); **gertakarien lekuko** (5); **heriotzaren lekuko** (6); **hilketaren lekuko** (6); **historiaren lekuko** (5); **istripu baten lekuko** (5); **kristoren lekuko** (5); **lekuko bakarra** (17); **lekuko baten arabera** (5); **lekuko batzuen arabera** (6); **lekuko bezala** (11); **lekuko faltsua** (5); **lekuko gertatu** (7); **lekuko gisa** (97); **lekuko gisa deklaratu** (13); **lekuko gisa deklaratzera** (8); **lekuko isila** (8); **lekuko izan** (142); **lekuko izan zen** (30); **lekuko izana** (8); **lekuko izandako** (9); **lekuko izango** (24); **lekuko izanik** (7); **lekuko izatea** (12); **lekuko izateko** (10); **lekuko izatera** (9); **lekuko zela** (7); **lekuko zuzena** (9); **lekuko zuzena izan** (5)

**hartu dute lekukoa** (5); **hartu zion lekukoa** (5); **kideari lekukoa eman** (8); **lekukoa eman** (10); **lekukoa eman aurretik** (8); **lekukoa hartu** (38); **lekukoa hartuko** (25); **lekukoa hartuko du** (10); **lekukoa hartzeko** (10); **lekukoa hartzen** (7); **lekukoa izan** (11); **lekukoa izan zen** (6); **lekukoa pasatu** (7); **lekukoa pasatu dio** (5)

**lekukoek adierazi** (17); **lekukoek adierazi zutenez** (11); **lekukoek diotenez** (5)

**lekukoen arabera** (89); **lekukoen esanetan** (14); **lekukoen hitzetan** (7); **lekukoen testigantzak** (6)

**bi lekukok** (5); **hainbat lekukok** (17); **lekukok adierazi** (5); **lekukok adierazi zutenez** (5)

**hiru lekukoren aitorpenaz** (8); **lekukoren arabera** (5)

**lekukorik gabe** (21)

---

lekukotarzun ik **lekukotasun**.

---

**lekukotasun** *(869 agerraldi, 82 liburu eta 481 artikulutan; orobat* ***lekukotarzun*** *g.er.)* **1** *iz* ikusi edo entzun denaren adierazpena, egia finkatzeko balio duena; zerbait badela frogatzeko balio duen gauza. ik **lekukotza; testigantza**.

**Lekukotasunen** arabera, Sinico andrea, trenbidea gurutzatzen hasi zela, Kingstowndik zetorren hamarretako trenaren lokomotorrak jo eta bota zuen. Irene Aldasoro

Poliziak baieztatu egin zuen **lekukotasuna**. Irene Aldasoro

-Aleman hauek Jainkoak bidali zizkiguk -xuxurlatu zuen maniobraburuak-, gure aldeko **lekukotasunak** emanen ditiztek. Fernando Rey

Berpizkundean hedatzen ari zen pentsamendu modernoaren **lekukotasuna** ere eman zigun. Askoren artean

Apaizburuak eta Biltzar Nagusi osoa Jesusen kontrako **lekukotasun** bila zebiltzan, heriotzara kondenatzeko. Elizen arteko biblia

**Lekukotasun** hauek guztiok erakusten dutenez, txokozalekeria eta itsukeria aspaldiko kontua dira gurean. Koldo Zuazo

Hamar egun izan dira **lekukotasunak** biltzen, hitza emaiten bati, besteari... Menane Oxandabaratz

Hizketan jarraitu zuen Prefektuak, bere ikuspuntua agertuz, aldizka poliziak jasotako **lekukotasunei** buruzko iruzkin luzeak tartekatuz, **lekukotasun** haiek ez baikenituen oraindik eskura. Koro Navarro

Liburu horretan biltzen dizkigu Salbatore Mitxelena, Nemesio Etxaniz, Eugenio Agirretxe ala Orixeren idazkietan, Francoren garaiko katolikotasun espainolak Euskal Herrietan sortu zituen amorruaren eta etsipenaren **lekukotasunak**. Piarres Xarriton

Idazle zarenez gero ere ustekabean aurki zintezke **lekukotasunaren** eta konplizitatearen arteko lurralde labainean. Joseba Zulaika

Rossetti-ren jarduna, emakumearen aurpegia behin eta berriz amaigabe errepikatzea, ordea, bere maitasun obsesiboaren **lekukotasuna** da. Ramon Saizarbitoria

Zuen adimen ordenatuaren **lekukotasuna** agertzen zuen oraindik gelak. Irene Aldasoro

Errezelek iragazten duten argitasun motela, erantzitako arropen **lekukotasun** isila eta asteburu honetan konponduko duen kable soltea. Eider Rodriguez

Liburuko **lekukotasun** ugarietatik honako pasarte hau aldatuko dut. Koldo Zuazo

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Lekukotasun** ederrak kultur mailan, politika mailan... Menane Oxandabaratz

Beren neurririk ederrena ematen die hitzei toponimia klasikoak: lekuan **lekukotasun** bizia. Patziku Perurena

Dekalogoko aginduak gurasoak ohoratzeari, homizidioari, adulterioari, lapurretari eta **lekukotasun** faltsuari dagozkionak, lege zibilak dira. Esteban Antxustegi

Sanskritoa indoeuropar hizkuntzaren **lekukotasun** zaharrena denez, prototipo bihurtu zuten. Isabel Arrigain

Gauden tokitik urrun hitz egiten den hizkuntza bati dagokionez, are beharrezkoagoa da **lekukotasun** idatzietara jotzea. Isabel Arrigain

Hori bera baieztatu ahal izan du arrats honetan berean, **lekukotasun** zirraragarri baten entzuteko ordez, telebistako menskeriak hautatu baititu. Eneko Bidegain

Ggizarte egoera larri eta estuak testigantza eta **lekukotasun** historikoak uzten baino eguneroko ogia bilatzen gehiago saiatzera behartu zituela donostiarrak. Askoren artean

Apaizburuak eta Biltzar Nagusi osoa Jesusen kontra gezurrezko **lekukotasun** bila zebiltzan, heriotzara kondenatzeko. Elizen arteko biblia

Irratietara deitzen zuten jendeen etsipen aitortuak eta sostenguzko **lekukotasunak**. Itxaro Borda

**3** (hitz elkartuetan)

**Lekukotasun**-liburu pollit bat argitaratua izan da berrikitan: "Le fardeau ou les ailes". · Txaloen jatorrian dagoen gerra **lekukotasunaren** laztan mingarritik urrin, uda hori Ernest Hemingwayk Biminin emango du. Herria

Jean Marie Astabie Bunuzeko auzapezaren mintzaldi-**lekukotasunaren** aldi gero. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lekukotasun aberats** (3); **lekukotasun aberatsa** (3); **lekukotasun argi** (3); **lekukotasun asko** (10); **lekukotasun baliosa** (4); **lekukotasun bizi** (3); **lekukotasun bizia** (4); **lekukotasun gisa** (3); **lekukotasun hunkigarri** (8); **lekukotasun hunkigarri bat** (3); **lekukotasun hunkigarriak** (6); **lekukotasun liburu** (7); **lekukotasun liburu bat** (3); **lekukotasun ugari** (3); **mintzaldi eta lekukotasun** (3)

**eman lekukotasuna** (4); **fedearen lekukotasuna** (3); **lekukotasuna agertu** (4); **lekukotasuna ekarri** (3); **lekukotasuna ekarriko** (3); **lekukotasuna eman** (17); **lekukotasuna eman nahi** (3); **lekukotasuna emanen** (3); **lekukotasuna emanez** (3); **lekukotasuna emango** (6); **lekukotasuna ematen** (7); **lekukotasuna ematen du** (3); **lekukotasuna jaso** (6); **lekukotasuna utzi** (5); **lekukotasuna zabaltzeko** (3)

**lekukotasunak bildu** (8); **lekukotasunak bilduko** (3); **lekukotasunak biltzen** (3); **lekukotasunak jaso** (3); **presunen lekukotasunak** (3)

**iradiren lekukotasunaren arabera** (3)

**lekukotasunen arabera** (6)

---

## **lekukotu**, lekuko(tu), lekukotzen da *ad* (norbait) leku jakin batekoa bihurtu.

Auzokoekin traturik ez badute, zelan **lekukotuko** dira? horrenbestetan aipatzen dugun kulturen arteko gizartea oso urrun dago oraindik. Berria - Euskal Herria

Itxuraz gai urruna balin bada ere, laster **lekukotuko** gira, izenen gisarat, horgo arazoa ez baitzauku arrotza Euskal Herrian ere. Herria

Gaiak ere halaxe: fedeak gaurko giroan, sekulan baino gehiago, sineste baieztatu batetik aintzinago, bizi berritu, oraikotu, **lekukotu**, bermatu eta sustatzaile indar bat bilakatuz duela bere egitekoa, loeria batean kulunkatzerat loakeen mundu baten harrogarri. Herria

Gure asmoa da Inama herrian **lekukotzea**; ez dugu Inama gabeko Muxikarik ikusten. Berria - Euskal Herria

Etorkinei **lekukotzeko** bideak jarri behar zaizkie. Berria - Euskal Herria

Gisa hortan lehen astea denek batean pasatzen dugu eta lehenbizikotz abian direnak **lekukotzen** dira lagun artean. Herria

---

## **lekukotza** *(170 agerraldi, 34 liburu eta 90 artikulutan)* **1** *iz* lekukotasuna. ik **testigutza**.

Ene **lekukotza** irakurri ondoren. Karlos Linazasoro

Fiskalak Carmen Lopezen **lekukotzaren** baliogabetasuna eskatu zuen. Koldo Izagirre

Beharbada berari tokatuko zitzaiolako historiaren aurrean gertaera haren **lekukotza** ematea. Ramon Saizarbitoria

Traidorea eta baztertzailea dela oroimena, eta ez dudala bizi izan nuenaren **lekukotza** zehatz-mehatz egiterik izango inoiz, hots, oroimenak erabakiko duela zer gogoratu eta zer ez. Juan Kruz Igerabide

**Lekukotza** faltsua leporatu zioten, eta ihes egin behar izan zuen Ingalaterratik. Juan Martin Elexpuru

Eta zer axola zuten **lekukotzek** azkenean denek hilik bukatu behar zutenean? Aitor Arana

Legez kanpoko kartzela topatzeko diktadurako biktimen **lekukotzez** baliatu direla. Berria - Mundua

Txostenean jaso diren **lekukotzen** krudelkeriak, alta, bihotz guztiak astindu ditu. Berria - Mundua

**2** irud/hed

Code Civil eta euskal foruak: dema baten **lekukotza**. Liburuak beren garaiko lekukoak dira eta, gerora, garai horretako **lekukotzak** eskaintzen dizkiete, hauek irakurtzen dituztenei. Andres Urrutia

Euskararen **lekukotza** ere eskutik eskura pasatzen da, ixilik, diru beltza bezala. Patziku Perurena

Gaumahaitxoetako rutinaren **lekukotza** ematen duten erretratu gogaikarriak. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan)

Bestela, nola arituko nintzen ni orain **lekukotza**-idazki hau zirriborratzen? Karlos Linazasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**emango digu lekukotza** (4); **lekukotza eman** (12); **lekukotza ematea** (3); **lekukotza emateko** (5); **lekukotza ematen** (6); **lekukotza jaso** (4); **lekukotza jaso ditu** (3); **lekukotza zuzena** (3)

---

## **lekukotze** *iz* (norbait) leku jakin batekoa bihurtzea.

Zentroko arduradunek, gainera, dokumentazio prozesua hasi beharko dute, eta prestakuntza eta **lekukotze** prozesuari ekin, nagusi egin artean gazteok euren burua jantzi eta lan mundurako treba daitezen. Berria - Euskal Herria

---

### **lekuño** *iz adkor* lekutxoa.

Euskarari ere gure geltokietan **lekuño** baten egiteko. Itoak ziren eta halakoetan lurrean **lekuño** bat atxemaiten zitzaien. Eneko Bidegain

Gure aldetik ere, nahi genioke **lekuño** bat hemen egin, muga ondoko bazter hauek ongi ezagutzen baitzituen eta gain gainetik maite. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gure otoitzek lagundurik, agian **lekuño** bat irabazi dute zeruko lorian. Herria

---

**lekuratu**, lekura(tu), lekuratzen **1** da/du *ad ipar* aipatzen den lekura joan edo eraman.

Griñatua nintzen, baina **lekuratu** -eta ohartu nintzen ez nintzela bakarrik, ezagutzen nituen apez guziak kasik han ziren, eta beste batzuk ezagutzen ez nituenak, kanpaleku handitik, ttipitik eta komandoetatik jinak. Marzel Etxehandi

Helikoptera batekin **lekuratuz** behar ziren muntadura guziak. Herria

Harrizko oroitzapen eder hori Musoliniren kideek ebatsia zieten etiopiarreri eta orain itzuli eta **lekuratu** behar izan dute gostaia gosta. Herria

Baigorriko ezkerparetan lekua eskas zen Mahastizainen egunean, partida hau ikusi nahi zuten guzien **lekuratzeko**. Herria

· Denak bere **lekuratu** ditu Garcia Ariño aspaldikoak erranez: pilotak denendako berdinak direla. Herria

**2** irud/hed

Georgian [...] bozak izanak zituzten joan den azaroaren 2an baina ez dira gauzak batere **lekuratzen** geroztik. Herria

Israel eta Palestinaren arteko bakeaz kezkatua dabilala orain George Bush, ez da dudarik, bere ttanttoak **lekuratu** nahiz ari balinbada ere Amerikanoa. Herria

---

**lekutasun** **1** *iz* ikusi, entzun, sumatu denaren adierazpena, egia finkatzeko balio duena; lekukoaren adierazpena.

Istorio txit siniestroa [...] ondo datorrena, ordea, mamuen partikulartasuna, **lekutasuna**, frogatzeko, eta baita beldurraren lan egiteko modu boteretsua ikusteko ere. Bernardo Atxaga

Horrelako esaldietan, **lekutasuna** denboraren metafora izaten da, beste askotan bezala. Lourdes Oñederra

**2** leku izateko tasuna.

Ez ote du inoiz adierazi, egun Etxebarren, Etxebertz, Bazterretxe delakoei darien **"lekutasun"** kutsu horrenik? Patziku Perurena

---

**lekutu**, leku(tu), lekutzen **1** da *ad* urrundu, ihes egin, baztertu; desagertu.

Biharamunean **lekutu** ziren Orthezetik, Joanes Ezponda berekin zeramatela. Aingeru Epaltza

Hura gelatik ez **lekutzen**, ordea. Aingeru Epaltza

Morroia oraino hor zela **lekutu** zen Katalina eskailera ilunetara. Aingeru Epaltza

Erlijioa besarkatzeagatik Genebara **lekutu** behar izan zuen, biziko bazen. Aingeru Epaltza

"Arrazoia suzko errobera bat da", idatzi zuen bere egunkarian, eta Filosofia utzirik Piroteknia ikastera **lekutu** zen urrungo hiri batetara. Iñaki Segurola

Ez bazara berehala **lekutzen**, nire mutilak deituko ditut. Elena Touyarou

**Lekutu** behar zuen, baina kurios-pinterdia zenez, sasiaren atzealdean eta lokatzean iltzatu zen, geldo. Itxaro Borda

Zubi gainean, garabi-ibilgailua **lekutua** zen, telebista kamerak bezala. Aingeru Epaltza

Agintе botereak **lekutzen** baziren, Monduteguyk bere sorterria ostrazismora kondenatzen zuen. Elena Touyarou

• **2** (du ad gisa) baztertu.

Debaldeko eginahalak egiten ditu amatxik, iloba tipiaren begietatik anpuluak **lekutzeko**. [Tábano] ez da gure liztorra, bazik eta *abe, abi, ezpada, ezpara,* edo gisako aldaeretan latineko *vespam* hartatik etxekotu genuen hura, *tabanus* izena **lekutuz**; *iteulia* (idi eulia) erabili dugu berriz *tabanus bobinus* izendatzeko. Xabier Montoia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **etxetik lekutu** (5); **handik lekutu** (7); **laster lekutu** (3); **lekutu zen** (18); **lekutu ziren** (10); **lekutu zitzaigun** (3); **ziztuan lekutu** (3)
> **handik lekutzeko** (4)

---

**lekutxo** *iz* leku txikia edo apala. ik **tokitxo**.

Turistentzako moduko **lekutxo** batean sartu ginen. Edorta Jimenez

Lekuz kanpo dauden erregetzako pertsonaia hauek beti izan dute **lekutxo** bat literaturan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ni eroa, bihotzari bere **lekutxoa** egin diodalako neure eguneroko bizimoduan...! Joan Mari Irigoien

Saget andereñoa hain argala zen, ezen beti aurkitzen zuen **lekutxoren** bat banku batean esertzeko. Karlos Zabala

Zaintza eta jarraipen hartan bere Ertzaintzarentzat **lekutxo** bat eskatu zuen Atutxak. Jokin Urain

---

**lekutze** *iz* urruntzea, baztertzea; desagertzea.

Ez zen **lekutze** bat izan. Aingeru Epaltza

Inork ez zidan **lekutzea** eragotzi. Aingeru Epaltza

---

**lekuxka** *iz adkor* lekutxoa.

Orain, emeki baldin bada emeki, erakunde sozial batzuetan gure mintzairari **lekuxka** zerbait eskaintzen zaio. Herria

---

lekzio ik **lezio**.

---

lekzione ik **lezio**.

---

lelengo ik **lehenengo**.

---

**leletu**, lele, leletzen da *ad* lelotu.

Daldaraka ari nintzen, nagusiak ene gaizki izana susmatuko zuelako beldurrez, nor zara zu, nor zara zu oihuka, eroaren antzera **leletzen**. Itxaro Borda

---

**lelo**[1] **1** *iz* hitz neurtuzko esaldia, kantetan eta, errepikatuz doana. ik **errepika**.

**Lelo** hura ezpainetan, desafinatzen ari zen, ahapetik. Lopez de Arana

**Lelo** hau abesten zuen Miriamek: [...]. Jose Antonio Mujika

Dotore baliatu du arketipo hau, poema batean **lelo** modura sartuz. Patziku Perurena

Klodio eta Klodiaren gaineko **lelo** lohiak kantatzen ziren. Juan Garzia

Goma-saltoan aritzeko kantatzen den **leloa** xuxurlatu zuen Uilek. Juan Kruz Igerabide

Baina edozein testu, bertso, **lelo**... osatzerakoan, esana edertzetik baino, zer esanetik datozkigu arazoak. Andoni Egaña

*Internazionala* izeneko kantaren **leloa**. Lopez de Arana

**Leloaren** amaiera aldera, perkusioaren laguntzarekin, Jimmy Fontanak maitasun kontuak baino harago zegoen oihu bat zabaltzen zuen airean: *Un mondo...* Bernardo Atxaga

**2** askotan errepikatzen den esaldi edo hitza.

Betiko **leloa**. Unai Iturriaga

Eta nik beti **lelo** bera, *ez dakit, ezer ez dakit, ezertxo ere ez dakit... Hobe sufritzea ezen ez hiltzea,* hori da bizidunen **lelo** gorena. Joan Mari Irigoien

Joko haien karietara, aitzineko "Hirurak bat" edo "Laurak bat" **leloaren** orde, *Zazpiak Bat* aldarrikatu zuen, Adema Zaldubi kalonjeak, Azpeitiko bestetan, 1894an. Piarres Xarriton

"Boterea hartu genuenetik, %20 egin du behera langabeziak" eta gisa bereko **leloak** sarri samar entzuten dira han eta hemen. Iñaki Heras

Gogaiturik **lelo** berbera hainbeste aldiz errepikatzeaz. Jose Morales

**Lelo** hainbat lelozale baitago gaur egun bazterretan. Joxerra Garzia

Ez zion inoiz funtzionatzen estrategia **lelo** horrek. Jon Arretxe

Emakumeak bere inguruan soberan izan dituela dirudien harroxko batek esandako **leloa** bezain harroputza, eta hala ere, Telleriak **lelo** hura orpoz orpo jarraitu zuen urtetan, huraxe zen egia. Harkaitz Cano

Marx bere artaldearen erabilpenerako utzi **zituen** lelo, esaldi eta aldarri amorratuen egilea baino izan ez balitz, [...]. Iñaki Heras

**3** (izenondoekin)

Jendeak madarikatzen duen funtzionario horietako bat zen, metodikoa eta zuzena, "denok gara ogasuna" **lelo** barregarriaren jarraitzaile sutsua. Migel Angel Mintegi

**Lelo** ezaguna, errepikatua, geureganatua, eta, zer esanik ez, Europatik kanpora ere zabaldua eta barreiatua. Andres Urrutia

**Lelo** harroa agian. Harkaitz Cano

**4** ***lelopean***

Bide beretik, Ajuria Eneko itunak manifestaldi baterako deia egin zuen martxoaren 18rako, "Bakea orain eta betirako" **lelopean**. Jokin Urain

Urte guziz bezala, aurten ere kalitateko ikastaldiak eskainiko ditu UEU-k, "Haize berriak" **lelopean**. Herria

*Karmele gogoan* **lelopean** hiriguneko kaleak zeharkatu zituen jende andanak Correos plaza bitartean. Berria - Euskal Herria

27tik 29ra hamaika lehiaketa, irakurketa, haurrentzako joko eta bestelako izango dira, *Gora Mozart* **lelopean**. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beti lelo bera** (4); **betiko lelo** (5); **kanpainako lelo** (3); **lelo bera** (24); **lelo bera errepikatzen** (4); **lelo berarekin** (3); **lelo berbera** (3); **lelo ezaguna** (5); **lelo nagusia** (14); **lelo nagusiak** (3); **lelo nagusienak** (3); **lelo zaharra** (3)

**aspaldiko leloa** (5); **aspaldiko leloa da** (3); **aukeratu duten leloa** (3); **aurtengo leloa** (9); **betiko leloa** (22); **betiko leloa errepikatu** (3); **egunaren leloa** (3); **eguneko leloa** (3); **errepikatzen den leloa** (4); **jaiaren leloa** (4); **kanpainaren leloa** (6); **kantaren leloa** (3); **leloa aukeratu** (5); **leloa erabili** (3); **leloa eramango** (8); **leloa eramango du** (5); **leloa errepikatu** (4); **leloa hautatu** (5); **leloa idatzia zuen** (13); **leloa idatzita** (12); **leloa irakur** (6); **leloa irakur zitekeen** (4); **leloa zuen pankartaren** (7); **manifestazioaren leloa** (8); **ohiko leloa** (3)

**aldeko leloak** (17); **antzinako leloak** (3); **aurkako leloak** (4); **betiko leloak** (5); **kanpainaren leloak** (3); **kontrako leloak oihukatu** (3); **leloak aldarrikatu** (3); **leloak entzun** (5); **leloak entzun ziren** (3); **leloak idatzita zituzten** (4); **leloak oihukatu zituzten** (9)

**betiko leloarekin** (5)

**betiko leloarekin** (5)

**amnistia osoa lelopean** (3); **askatasuna lelopean** (4); **autodeterminazioa lelopean** (10); **bai ofizialtasunari lelopean** (3); **epaiketarik ez lelopean** (3); **errepresiorik ez lelopean** (5); **lelopean antolatu** (9); **lelopean bildu** (3); **lelopean deitutako** (6); **lelopean egindako** (4); **lelopean elkarretaratzea** (3); **lelopean manifestazioa egin** (3); **lelopean manifestaziora deitu** (3); **lelopean ospatuko** (3)

---

# lelo[2] **1** *iz* ergela, tentela.

Junipero **lelo** hura zihoan bide hartatik, eta haren presentzia eraman ezinik eta itxaron ezin nuelako, leku hauetan zehar ihes egin dut. Askoren artean

-A ze bi **lelo**! -esan zuen amak, irribarre erdiarekin-. "Ikusi haut, **lelo** hori! Ikusi haut!", entzun diote tabernariari. Jon Maia

**Lelo** alaena, zergatik puskatu burua, Susiek dagoeneko gure artetik alde egin badu? Lopez de Arana

Bai **leloak** eta jendaila hutsala gu hilkorrok. Oskar Arana

**Leloen** moduan telebistara begira geratu beharrean. Jon Arretxe

**Leloarena** egiten nabilela uste dut. Jon Arretxe

**Lelo** aurpegi hori segituan aldatzen ez baduzu, atximur egingo dizut ipurtaldean. Patxi Iturritegi

**2** (izenondo gisa)

Txapela bekainetaraino sartua, irribarre **lelo** bat masailetik masailera. Jokin Muñoz

---

# lelodun *izlag* leloko.

'Epaiketarik ez' **lelodun** pankartaren atzean elkarretaratzea egin dute Donostiako Auzitegi atarian. Berria - Euskal Herria

*Konponbide garaia da* **lelodun** manifestazioaren inguruan gertatutakoak mahai gainean izan zituzten Euzkadi Buru Batzarrean, joan den astelehenean egindako bileran.

---

# leloka-leloka *adlag*

Hori dela eta, eguerdi aldean Cleveland-en gelditu garenean **leloka-leloka**, taldearengandik urruntzea lortu dut. Patxi Zubizarreta

**Leloka-leloka**, azkenean Danek beti lortzen du bere asmoa aurrera ateratzea. Patxi Zubizarreta

---

# lelokatu, leloka(tu), lelokatzen du *ad* abestu, ahopekatu.

Musika txol ona zen, hura **lelokatzen** itzuli ginen, *Antxetak* taldekoek aski ongi moldatu zuten berehala *The Sound of Silence*, "Ilunpe, lagun zaharra, zurekin nahi dut mintza...". Koldo Izagirre

---

# lelokeria *iz* ergelkeria, tentelkeria.

**Lelokeria** hutsa zen, txorakeria, asmakeria, deabruak daki zer!... Jose Morales

**-Lelokeriak** ! -esan zion Hagridek-. **Lelokeria** hori ere sinetsarazi nahi digute. Karlos Zabala

Uste dut **lelokeria** dela denok jaikitzea gosarirako. Lopez de Arana

-Ez esan **lelokeriarik** , bihotza. Julen Gabiria

Hobe zenuke, **lelokeriak** esan beharrean, zure ondasunekin zer egingo duzun erabakitzea. Jose Morales

Denak ere **lelokeriak** egiten. Jon Arretxe

-Utzi **lelokeriak** asmatzeari eta gatozen harira. Migel Angel Mintegi

Edozein unetan **lelokeria** bat bota dezaket. Anjel Lertxundi

Eta zer **lelokeria** ari haiz irakurtzen hi, Algy? Antton Olano

**-Lelokeriak** ; hori ez da serioa -esan zion Lisak zirikatu nahian. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ez esan lelokeriarik** (7); **utzi lelokeriak** (3)

---

# leloki *adlag* ergelki.

Hargatik xantaia guztiak noizbait ordaintzen zirela argi neukan, andere saltzailea "eta hauek?", "eta hauek?" **leloki** ahoskatzen hautematen nuen artean. Itxaro Borda

---

# lelotasun *iz* ergeltasuna, tenteltasuna.

Eta oroitzapen atseginak ez zuen zerikusirik harremanaren luze-laburrarekin, aurpegiaren edertasun edo zatartasunarekin, buru-bizkortasun edo **lelotasunarekin** , dotorezia edo arrunkeriarekin. Ibon Uribarri

Ikasle zintzoaren otzantasuna ala sugearen aurrean txoriak daukan **lelotasuna** izan zen, beste ikasleak irtendakoan, bertan geldiarazi ninduena? Xabier Mendiguren Elizegi

---

# lelotu, lelo(tu), lelotzen da/du *ad* ergeldu, tenteldu.

-Zer nahi duzu?- **lelotu** egin al zara "hotelean"? Migel Angel Mintegi

Hainbeste penitentzia egiten ibili eta gero, gizon hauek **lelotzen** eta burua galtzen ari dituk. Askoren artean

**Lelotzeraino** edango genuke; hala, honezkero lokartuta egongo nintzateke. Mirentxu Larrañaga

Baina alu heze baten usainak **lelotu** egiten gaitu askotan, eta garesti ordaindu nituen nik Mirenek emandako une atseginak, arraioa! Migel Angel Mintegi

Liluratuta zuen Idoiak, **lelotuta** . Xabier Montoia

Lo egin ondoren, ez zen gose; **leloturik** zegoen guztiz. Karlos Zabala

Nire adineko kristautxoak zaharragoenganako mimetismoz eta mirespenez **leloturik** zeudelako. Xabier Mendiguren Elizegi

**Leloturik** geratu zitzaion beha. Koldo Izagirre

-E? -erantzun nik, artean **lelotuta** . Xabier Mendiguren Elizegi

**Lelotuta** bezala gelditu nintzen jinetera haietako bati begira. Jon Muñoz

Baina mundu-oparotasunaren miasmak, masa **lelotzen** duenak, ongi eragin lezake mundu honetako xarmei buruzko mesfidantza arima espiritualki sentibera eta kementsuetan. Iñaki Mendiguren

---

# lelotxo *izond* ergeltxoa, tenteltxoa.

-O anai Rufino, **lelotxo** hori! Askoren artean

---

# lelozale *iz*

Lelo hainbat **lelozale** baitago gaur egun bazterretan. Joxerra Garzia

---

# lema[1] 1 *iz* ontzi bagen higidurak gobernatzeko xafla, txopan ezartzen dena.

Ez zuen sekula **lema** eskuetan izan. Felipe Juaristi

Galeoiaren brankan, **lema** eskuan, emakume bat zegoen. Felipe Juaristi

Gustavok are tinkoago eutsi zion **lemari** orduan, jarritako norabidetik saihesteke. Felipe Juaristi

Patrizio, **lema** zuzenduz, hurrengo olatuaren zain geratzen zen. Felipe Juaristi

Ezkerrera eragiten zion **lemari** eta eskuinera gero kolpe bortitz batez, ontziak sigi-saga egin, eta lehertuta zetorren olaturen bat saihets zezan. Anjel Lertxundi

**Lema** istriborrera osorik sartuz branka ababorrera zehatz artezturik, hegoaldera jo genuen. Edorta Jimenez

Purrustarri ingurura joana zen kalma zuria baliatuz itsasoan zabal **lema** estiborrera zarratuta. Koldo Izagirre

**Lemaren** heldulekuari, grekoek *oiax* deitzen dutenari, esku bakar baten mugimenduarekin bermapuntuaren arabera jarrita dagoen zentroaren inguruan trebeziaz eraginez. Santiago Iruretagoiena

Portiloak lehertuak, ateak eramanak, mastak etzanak, **lemako** gurpilik ez... Koldo Izagirre

**Lemako** lokarriak lasaitu zituzten eta, brankako oihala haizeari emanik, hondartzarantz abiatu ziren. Elizen arteko biblia

## 2 (hitz elkartuetan)

Baina lemazaina trebea izan eta, **lema** kolpe batez, haitzak ez gintuen harrapatu. Patxi Zubizarreta

**Lema** bolantea eskuetan hartua zuen eta animalia zahar haren gorputz astuna ababorrera istriborrera mugiarazi ere bai, nasari lotutako sirgak eteteko beldurrik gabe. Joseba Sarrionandia

## 3 irud/hed

[Hegazkinaren] lau helizeak dirdiraka hantxe, zeru ezin urdinago hartan, baita atzeko hiru **lemak** ere. Joxe Austin Arrieta

Ontziaren ordenagailuek huts eginez gero, Soiuz-en **lema** hartzeko trebaturik daude astronautak. Berria - Gaiak

Frantzian ontziaren **lema** nork duen jakiteko nahasmen handia dagoela ikusita, [...]. Berria - Ekonomia

Gazteek Espainia, Euskadi eta Europako politikaren **lema** hartu behar dute, haiek lekukoa hartzeko garaia baita. Berria - Euskal Herria

Athleticek burua hotz mantendu eta partidaren **lema** berreskuratu zuen. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lema hartu** (15); **lema hartu zuen** (6); **lema ukaldia** (3); **partidaren lema hartu** (3)

**lema**[2] **1** *iz* goiburua.

Hola mintzo zitzaizkigun girixtinoek beren **lema** hauxe dute: *elkartu, formatu, lagundu.* Itxaroren bigarren kezka nagusia, "gure gizarte mikroeuskaldun honek" euskaldungoa hiru edo lau **lema** ideologikoren mendean kateatuta duela ikustea da. Herria

Segituan entzuten ziren leloak eta **lemak**. Alberto Barandiaren

Huna **lema**: "Euskal Ihauteriak gure sineste pentsamendu zaharretik ikusirik" . Herria

**2** teorema bat ezarri aurretik frogatu behar den proposizioa.

Argi ageri da Proposizio hau 2. Zat., 13. Prop. Eskol. ondoko 3. **Lemari** darraion 1. Axiomatik. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurtengo lema** (9); **egun horren lema** (4); **egun hortako lema** (4); **lema berezia** (7); **lema nagusia** (12); **lema pean** (7); **partidako lema** (3); **partidaren lema** (5); **taldearen lema** (4)

**harriaren herria lemapean** (4)

---

**lemaburu** *iz* lemazaina.

Iberdrola argindar enpresaren **lemaburu** izateari utziko dio Iñigo Oriolek eta Ignacio Sanchez Galan da ordezkatzeko «hautagai naturala». Berria - Ekonomia

---

**lemagabe** *izond* lemarik ez duena.

Non dago ordea txalupa **lemagabe** hori? Koro Navarro

---

lemakaina ik **lemakana**.

---

**lemakana** *(orobat* ***lemakaina****)* *iz* lemari eragiteko makila modukoa.

**Lemakanarik** gabeko batela aukeratua nintzen, ez neukan handiagoren beharrik. Koldo Izagirre

---

**lemari** *iz* lemazaina.

**Lemariak** pirata ingelesak ziren, eta marinelen artean hainbat herrialdetakoak zeuden. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kargak eramaten dituen itsasontzi baten **lemariak**. **Lemari** ero batek gidatu belaontzi mastagabetuko txo, eskifaia hordi batek etengabe ipurzulatua. Santiago Iruretagoiena

---

**lematu,** lema(tu), lematzen du *ad* lemaz zuzendu. • *irud/hed*

Alegia deus ez, motorraren gidariak zangoz lagunduta **lematu** zuen bere makina espaloi pareraino. Aingeru Epaltza

Eskua hara **lematu** nuen, mihiseen azpiko urpekontzi. Aingeru Epaltza

---

**lemazain** **1** *iz* ontzi baten lema gobernatzen duen marinela. ik **lemari**.

Oihal zuriak zabaldu eta itsasontzietan eseri ginen, haizea eta **lemazainak** gidari genituela. Juan Kruz Igerabide

Baina **lemazaina** trebea izan eta, lema kolpe batez, haitzak ez gintuen harrapatu. **Lemazainaren** kabinara. Patxi Zubizarreta

Bigarren eguneko goiz alban, **lemazainaren** egoitzaren kontra erdi lo geratu zelarik, [...]. Juan Garzia

Alejo Bilbao kapitainaren **konfiantzazko** lemazaina Bizkaia bou loriatsuan. Koldo Izagirre

Popatik uretara begira dagoen **lemazainak**. Joseba Sarrionandia

• **2** (predikatu edo adizlagun gisa)

Berehala bildu zituzten bela-oihalak, eta Patrizio bera jarri zen **lemazain**. Felipe Juaristi

Beren biziak **lemazain** zegoen gizonaren eskuetan utzirik. Felipe Juaristi

**3** irud/hed

Ez dezagun ahantz Mao Zedong **lemazain** handia ere bide beretik zebilela, fusilaren puntan zegoela boterea irakasten zuelarik. Piarres Xarriton

**Lemazain** gabe, iparra galduta ibili zen Frantzia. Berria - Kirola

Gauza guztien **Lemazainak** bere probidentzia onberaz lagundu zion, bera eta beste asko heriotza-arriskuetatik libratuz eta, bera zela eta, itsaso sakonean egintza miragarriak eginez. *Irutxuloko Hitza*-ko erredakzioan **lemazain** izatea dagokio orain. Askoren artean

---

lemoar ik **lemoaztar**.

---

**lemoaztar** *(orobat* ***lemoar****)* *izlag/iz* Lemoakoa, Lemoari dagokiona; Lemoako herritarra.

**Lemoar** gaztea ezustekoa ematen saiatuko da faborito den Eugiren aurrean. Berria - Kirola

Alex Txikon **lemoaztarrak** ere nahi zuen Makalu gainerat heldu. Herria

---

**lemur** *iz* primateen ordenako ugaztuna, begi-handia, mutur-irtena etga buztan-luzea, arboletan bizi dena *(Lemur gen.)*.

Madagaskar irlan begi handi eta tximu txikien gorputza zuten izaki batzuk bazirela jakin zenean, **lemur** izena eman zitzaien. J.M. Olaizola "Txiliku"

Haeckelek pentsatzen zuen Lemurian zegoela gizakiaren sorlekua eta **lemurak** izan zitezkeela tximinoen eta gizakion arbasoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hauek izan ziren **lemurren** hasierako bizilekuak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hauen artean daude ipar Amerikako elur-oreina, idi musketaduna, Seychelle Uharteetako azeri hegalaria eta **lemur** marroia. Berria - Gaiak

---

**lemurido** *iz* lemurraren familiako animalia.

Madagaskar irlan begi handi eta tximu txikien gorputza zuten izaki batzuk bazirela jakin zenean, *lemur* izena eman zitzaien, eta **lemuridoak** mota horretako animaliei. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

len ik **lehen**.

---

lena ik **lana**.

---

lenbizi ik **lehenbizi**.

---

lendabizi ik **lehendabizi**.

---

lendakari ik **lehendakari**.

---

lenengo ik **lehengo**.

---

**lengadokera** *iz* Languedoc eskualdeko okzitanieraren aldaera.

Kaskoinera eta **Lengadokera** dira gehien bat erabiliak kaseta hortan, doi bat probentzala ere. Herria

---

**lengoaia** *(orobat* ***lengoaje*** *g.er.,* ***lenguaia*** *g.er.)* **1** *iz* hizkuntza, mintzaira.

-Frantsesa duk **lengoaia** hori, kokolo! Edorta Jimenez

Euskaldunon **lengoaiak** aitzina egin zezan. Joan Mari Irigoien

Astoen **lengoaian** mintzo diren barbaroak. Joan Mari Irigoien

Indioen **lengoaian** . Xabier Olarra

Eta gure **lengoaia** arrunteko hitzak atzean utzi zituen. Patziku Perurena

**2** hizkuntza, sistema gisa. ik **hizkuntza 2**.

**Lengoaiak** bereizten gaitu gu eta tximinoak. Txema Ramirez de la Piscina

Aristotelesek ere esana du aspaldi: **lengoaia** da, batik bat, gizaki egiten gaituena. Txema Ramirez de la Piscina

Gauak eteten ez zuen kontzientzia puruzko sukar-egoera batean nengoen, **lengoaiaz** haraindi. Joseba Urteaga

Gauzak eta ideiak **lengoaiaren** bidez adierazten dira. Berria - Kirola

**3** irud/hed ik **hizkuntza 6**.

Eskuak gure ez-**berbazko** lengoaiaren tresna dira. Ana Urkiza

Harrien **lengoaia** mutura lerratu zen... Patziku Perurena

Kode genetikoan behar genuke espeziearen iraupenerako funtsezko informazioa, baina zibilizazioaren abiadak atzean utzi du, nonbait, zentzumenen **lengoaia** , biologiaren ikasgaia. Xabier Mendiguren Elizegi

Gorputz biluzien **lengoaia** . Berria - Kultura

Plazera ematen duen sufrimendua dela **lengoaia** poetikoaren alkimia. Ana Urkiza

**Lengoaia** ekonomikoaren nagusitasunaren mendean, nahasketa gertatu da *hazkunde* eta *garapen* terminoen artean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

XML informatika **lengoaiaren** onurez hitz egin du Iñaki Alegriak. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lengoaia berri bat** (3); **lengoaia eszeniko** (4)

---

lengoaje ik **lengoaia**.

---

**lengoradu** *iz* mihi-arraina.

Arraiak, **lengoraduak** , berdelak, izokinak, hara eta hona ekarri eta eraman egiten zituzten enkante sailkatzaileek. Karlos Zabala

**Lengoradu** pare bat nahi dun, turbot eder bat? Karlos Zabala

**Lengoradu** otarre bat enkantean saltzen zuen amorru berberaz hitz egiten zuen politikaz jeneralean. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lengoradu pare bat** (3)

---

lenguaia ik **lengoaia**.

---

**lenifikante** *izond* leuntzailea, biguntzailea.

Marsianoen marxismoa eta Lenin **lenifikantea** beude hemendik urrun! Itxaro Borda

---

# leninismo 1 *iz* Leninen politika- eta ekonomia-doktrina komunista.

Hortaz, sozialdemokrazia ahaztu eta **leninismoa** mirestera pasa nintzen, zirt-zart, txepelek, koldarrek eta tratulariek tokirik ez duten tokia. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 *marxismo-leninismo*

Fronte abertzalearen aldekoa izan naiz beti, Marxismo **Leninismoan** ez dut inoiz sinestu, Stalinismoaren kontrakoa izan naiz beti... eta orain ere hala naiz. Berria - Kultura

Marxismo-**leninismoaren** oinarrien eta merkataritza askearen neurrien artean dantzan ari den herrialdea da Txina. Berria - Mundua

---

# leninista 1 *izond/iz* leninismoaren aldekoa.

Geroztik, nire nahikeria **leninistak** ere oroitzapenen kutxara igaro ziren. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere betaurreko borobilekin, **leninista** baino gehiago lennonista izango da Josu. Joseba Sarrionandia

Aita Justizia ministroa zen garai liberaleko gobernuan, **leninisten** izua baino lehen. Berria - Kultura

## 2 *marxista-leninista*

Turkiako Alderdi Marxista-**Leninista** Komunistako kideek «alde egiteko» oihukatu zioten ministroari. Berria - Mundua

CPN-UML Nepalgo Alderdi Komunista-Marxista **Leninista** Batuko bozeramaile Pradip Nepal prest agertu zen Gobernuan parte hartzeko. Berria - Mundua

Gauzak asko aldatu dira, baina Marxista-**Leninista** ez izateagatik asko sufritu dut. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> marxista leninista (8)
> marxista leninistako (3)

---

# lenitibo *izond* leungarria, bigungarria.

Itsasoa **lenitiboa** dela esaten dute, minak baretu egiten dituela. Joxean Agirre

---

# lenitio *iz (hizkuntzalaritzan)* hots baten ahultzea.

Hots-bilkura baten ordez beste hots-bilkura ahulago bat egiteari esaten zaio*ahultze* edo ***lenitio***. Lourdes Oñederra

Esaterako, euskaraz sudurkari bat herskari ahoskabe batekin elkartzeak bide zekarren bilkura desegokia egokitzeko **lenitioaren** bidea har daiteke: *Washingtondik;* edo fortitioarena: *Washingtonetik.* Lourdes Oñederra

Asimilazioa **lenitiotzat** hartu ohi da, funtsean ahuldu egiten baita seinalearen nabarmentasuna. Lourdes Oñederra

**Lenitio** edo ahultze sintagmatikoa. Lourdes Oñederra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> ahultze edo lenitioak (4)

---

# lenta

Baina **lenta** bat ipini zutenean Cristinarengana etorri zen Yassin; hark ezetza eman zion, noski. Iban Zaldua

Hurrengo **lenta**-n niri bota zidan gonbita, eta ezetzarekin erantzun nion neuk ere. Iban Zaldua

Murgil egin genuen, ehun braza atzerago genituen boietaraino **lenta** eginez urruntzeko. Koldo Izagirre

## 2 *lentan*

**Lentan** joaten ginen goraldiak uhartetua zuen harkaitzeraino. Koldo Izagirre

Ostikoak huts egin zuen, murgil egin nuen eta **lentan** urrundu nintzen putzuaren erdian zegoen garabi flotanteraino. Koldo Izagirre

Guk arraunketa naturalean baino arinago eramaten zuen batela ziaka, bokalearen erdiraino egiten zuen **lentan**, aldizkari argazkidunak erakusten zizkigun frontoi atzean. Koldo Izagirre

---

# lente 1 *iz* leiarrra.

**Lente** koxkor eta biribiletako antiojoak zeramatzan gizon bat zegoen idazmahaiaren atzean. Josu Landa

**Lente** lau batek foku-luzera luzea du, eta, erdialdean sabelduxeago den leiar batek, berriz, foku-luzera laburra. Irene Aldasoro

**Lente** sinple baten lehenengo akatsa irudiaren distortsio bat da, teknikoki aberrazio esferikoa esaten zaiona. Irene Aldasoro

Begiak badauka kristalino izeneko **lente** bat, irudia eratzen duena. Irene Aldasoro

**Lente** bikoitzeko proiektore batez. Xabier Olarra

Gain-gainean, "itsasargia", *Farola* alegia; baita **lente** jirakorra inguratzen duen burdinazko balkoitxoa ere. Txillardegi

## 2 *ukipen lente* ik **leiar 5**.

**Ukipen-lente** ispiludun bat erabiliz, ez da zaila begiaren mugimendu naturala konpentsatzea, eta, hala, erretinako irudia guztiz geldi mantentzea. Irene Aldasoro

Begian **ukipen-lente** bat ipini, lentean ispilu txiki bat erantsi, eta ispilutik film mugikor batera argi-izpi bat islatu. Irene Aldasoro

---

# lentedun *izond* lentea duena; lenteak dituena.

Halaxe zihoan Hanna, aurretik, ile urdin eta motxeko andere hura, kareizko **lenteduna**, arrotz, ezezagun, baina Sabethen ama, hau da, Elsbethena (hots, nire amaginarreba, esaterako!). Joxe Austin Arrieta

---

# lenteja *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **dilista** agertzen da)* *iz* dilista.

**Lenteja** gehiegi jarri zioten platerean, seiehun igual. Unai Elorriaga

Ogia, tipula eta azenarioak erosi zituen beheko dendan, **lentejak** jarri behar baitzituen. Unai Iturriaga

**Lentejen** salda eman zidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Sei dolar eta hirurogeiko **lenteja** platerkada bat hartu eta hamar dolarreko propina utzi dit... Harkaitz Cano

Orduan, etxe guztietan goizean jartzen zen egosten babarrun edo **lenteja** eltzekada bat, eguerdian eta gauean jateko. Pako Aristi

Zeren eta, galeoien hornitzeko, batzuek garbantzu, **lenteja** edo indaba zakuak garraiatzen baitzituzten. Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
lenteja platerkada (3)

---

# **lentejuela** *iz* ezkata distiratsua.

**Lentejuelez** hornitutako soineko bat jantzirik zuen emakume potola bat sartu zen, haiek orein-adarrez apaindutako jangela handi bateko mahaian eseri ondoren. Lopez de Arana

---

# lentila ik **lentilla**.

---

# **lentilla** *(orobat **lentila** g.er.)* **1** *iz* ukipen leiarra.

Ilea moztu nuen eta **lentillak** jarri nituen betaurrekoen ordez. Joseba Urteaga

Farmazietan saltzen dituzten behin-behineko **lentilla** horietako batzuk eskuratu nituen. Iban Zaldua

-Eta zer iruditzen zaizu betaurrekoak utzi eta **lentillak** erosiko banitu? Joan Mari Irigoien

41 hutsegite egin zituen Piercek eta arazoak izan zituen partida guztian bere **lentillekin**. Berria - Kirola

**2** leiarra.

Inguruan jaukitzen zitzaigun egituraren ibilarazteko tresnak banaka aurkeztu zizkigun, mila miraila puska nabarrez osatu **lentila** optiko erraldoiak sortzen zidala hunkidurarik ikaragarriena. Itxaro Borda

---

# **lento** *izond* geldia, geldoa.

'Baina ez zaitez hain **lentoa** izan,' esan zidan galtzaren gerriko botoia askatzen zidala. Joseba Sarrionandia

· Hizkera ardurazkoetan, maila formaletan, bereziki *adierazgarri* eta ***lento*** deitutakoetan, oro har. Lourdes Oñederra

---

# **lentzeria** **1** *iz* emakumeentzako barruko arropa. ik **linjeria**.

Jira eta bira artean, mantalaren azpian jantzita zeraman bakarra **lentzeria** gorria zela erakutsiz. Jasone Osoro

Egun osoa jendaurrean, **lentzeria** dotoreenak jantzita. Jasone Osoro

Oheko guda-zelaian irabazitako ikurrin eta garaikur izaten **ziren** lentzeriazko xapi ñimiño eta moñoño haiek. Xabier Mendiguren Elizegi

Enkajezko **lentzeria** barrokoa zeraman goiz hartan. Patxi Iturritegi

**2** lentzeria denda.

Tabernatik gertu zegoen, **lentzeria** bateko erakusleihoari begira. Migel Angel Mintegi

**3 *lentzeria denda***

Ameliak ez baitzuen ireki nahi ere izan neuk berarentzat **lentzeria**-denda batean propio erositako kolore zuriko kamisoi luze-luzea gordetzen zuen opari-kutxa. Josetxo Azkona

---

# **leo** *iz* Zodiakoko konstelazioa; zodiakoaren bosgarren zeinua; latinez 'lehoia' esan nahi du.

**-Leo** dator: bihotza, bizkarra, diafragma, odol-zirkulazioa eta arteriak dagozkio berari. Pello Zabala

Gero, **Leotik** Virgora iragan eta zeinu horren arroparen tolesturetara aurreratuz, laburtu egiten du bere orbita, eta Tauron zegoenean egiten zuen bidearekin berdintzen du bere ibiliaren neurria. Santiago Iruretagoiena

---

# leoi ik **lehoi**.

---

# leoin ik **lehoi**.

---

# **leondar** **1** *izlag/iz* Leongoa, Leoni dagokiona; Leongo herritarra.

Baluke bai **leondar** jaun horrek lan aproposa totalitarismoek asmatutako "psikiatriko" famatu haietan... Txillardegi

Ramiro Pinto **leondarrak** nekez ahaztu ahal izanen ditu egungo Espainiako presidente Jose Luis Rodriguez Zapaterok 1986. urtean Riañoko urtegiari buruz erran zituenak: "Riañoko lanek aberastasun handia ekarriko diote Leoni". Edurne Elizondo

Erasoan, berriz, Garraldak arazo asko sortu zizkien **Leondarrei**. Berria - Kirola

**2** antzinako Leongo erreinuari dagokiona; erreinu horretako herritarra.

**Leondarrek**, aldiz, hartu zuten aitzindaritzat Pelaio. Piarres Xarriton

Aldaketa hori hasi zuten lehen bi herriak izan ziren beren erregе propioak hautatu zituztenak: nafarrak eta **leondarrak** eta gero Espainia guztira hedatuz oldar miresgarri batekin, itxura bereko zuhurtziarekin eta gerlako trebetasun gaitzarekin haieri jarraikiz beste herri guztiek sarrazenoen eskuetarik atera zituzten Espainia osoko erreinu guztiak. Piarres Xarriton

---

# **leopardo** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **lehoinabar** agertzen da)* *iz* lehoinabarra.

Beste zakur batzuk ere elkartu eta **leopardoak** ihesari eman zion. Gotzon Garate

**Leopardo** zuriarena dirudien larru sintetikoz egindako gona bat jantzi eta nigana etorri da. Harkaitz Cano

Lumumbak ez zuen, bere **leopardo** forma utzita, iraultza berririk gidatu, eta Kongon beste diktadura bat ezarri zen, eta beste gerra bat piztu. Iban Zaldua

**Leopardo**-larruzko berokiarekin jantzitako emakume bat ageri zen pantailan. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# **leotar** *izond*

Bertso **leotarrak** lerro baten erdiko hitz batek bukaerakoarekin errimatzen dutenak dira. Xabier Olarra

Bertso **leotarrek** Leo zeritzan poeta baten ohoretan dute izen hori, prosodian adituak direnek atseginez sinesten baitute hura izan zela bi puntuko bertsoa lerro bakarrean eman zitekeela asmatzen lehena. Xabier Olarra

---

**leotardo** *iz* kulero zangodunak. ik **kulero 3**.

Gona arrosa eta **leotardo** beltzekin. Joseba Urteaga

Txurroetan bildutako txima luzeak zituen mutiletako batek, **leotardo** tankerako galtza elastiko beltzak zituzten jantziak, neska zein mutil, bizpahiruk... Juan Luis Zabala

---

**lepabeltx** *izond adkor* lepo beltza duena.

Zatarrak hil izanen du Benaiko arkazte **lepabeltxa**, bi begiak jan dizkio beleak, baina, han ez da putrerik ageri. Patziku Perurena

---

**lepabigun** *izond* lepoa biguna duena.

Lehenik, 'abernoa' deitura txori mota guztientzat galgarri izatetik jarri zaio, zeren, inguru horretara hegan heldutakoan, hegoei eragitea ahazturik, belak jaisten dituzte eta, **lepabigun**, buruz behera lurrera jausten dira, lekua halakoa bada, edo uretara, azpian Abernoko lakua badago. Xabier Amuriza

---

lepagain ik **lepogain**.

---

**lepagogor** *(orobat **lepo-gogor**)* **1** *izond* burugogorra.

Cascantekoak? **lepagogorrak**, inondik ere. Pablo Sastre

Ez zen **lepo**-gogorra, baina ezin zuen ahaztu M'Coy jaunak gurutzada bat antolatu zuela aspaldi ez zela maleta eta jantzi-kutxa bila, M'Coy andreak herrialdean zehar ustezko eginbehar batzuk egin ahal izan zitzan. Irene Aldasoro

**2** (adizlagun gisa)

"Guanteak ekarri behar dituk hik, guanteak," esan zuen Joxemarik **lepagogor**. Pablo Sastre

• **3** *iz* lepoa gogortzen edo zurruntzen duen mina. ik **tortikoli.**

Gaur lepoan bufanda handi bat duela dabil, **lepagogorra** duelako, eta Van Daan jauna ere kexuka dabil, gerriko mina duela-eta. Josu Zabaleta

---

**lepagogorkeria** *iz* burugogorkeria.

Ezagunak ditut zuen errebeldiak eta **lepagogorkeria**; orain, ni zuekin bizi izan naizen artean ere, Jaunaren aurka errebelde izan bazarete, zer ez ote da izango ni hil eta gero? Elizen arteko biblia

---

**lepagogortu,** lepagogor(tu), lepagogortzen *ad* lepoa zurrundu, lepagogorrak jo.

Ordu laurdena besterik ez nuen egin lo, **lepagogortuta** itzarri nintzen. Koldo Izagirre

Ni **lepagogorturik** altxatzen nintzen handik, telebista aurrean pare bat ordu segidan pasatzen nituenean. Iban Zaldua

---

lepahezur ik **lepo 20**.

---

**lepahori** *iz* ugaztun haragijalea, buru-txikia, gorputz-mehea eta buztan-luzea, ilea leuna eta sarria duena*(Martes martes)*.

Orduan ehiztariak ibiltzen dira sarri eskualde oparo horretan zehar, **lepahori**, zibelina eta batez ere azerien atzetik, haien larruen truke ordain ederra jasotzen baitute. Karlos Zabala

Aditzen nuen usoak usategian urduri zeudela, geltokiko burua joan zenean baino urduriago, kaiolan erbinude bat edo **lepahori** bat sartu balitz bezala. Fernando Rey

Sorbaldetan **lepahori** larrua. Felipe Juaristi

Azeri larruzko txano beltza, **lepahori** larruzko berokia, lepoko urrezkoa, eskularru beltzak... Felipe Juaristi

---

**lepaihar** *iz pei* lepo iharra duen pertsona.

Urrun eduki beharreko **lepaihar** andana. Aingeru Epaltza

---

lepainguru ik **lepo 21**.

---

**lepakada**

**1** ***lepakada bildu*** mozkortu. *iz*

Mozkortu, kazkartu, muturra berotu, atxurra bildu, **lepakada** bildu, zurrutari eman. Xabier Olarra

---

lepalde ik **lepoalde**.

---

lepaluze ik **lepo 22**.

lepamehe ik **lepo 23**.

lepamotz ik **lepo 24**.

**lepamoztaile** *iz* lepoak mozten dituena.

Epaile odolzale amorratuak ezagutu dira; horrelakoa izan da Jeffreys Ingalaterran; horrelakoa izan zen **lepamoztailea** deituriko gizon bat ere Frantzian. Juan Martin Elexpuru

Ondo jaiotako haurren **lepamoztaile** paperari eder iritzirik. Iñaki Segurola

lepamoztu ik **lepo 25**.

**lepape** *iz* lepoaren azpialdea.

Masail gorrixkak eta kokospean jausten zen **lepape** biguna. Sonia Gonzalez

Oso ederrak behorrak; hede-apain ikustekoak soinean eta txilin **ugariak** lepapean. Patxi Ezkiaga

**lepatente** *izond* lepoa tente ibiltzen duena.

Dena dela, arrats hartan, afaritan, frantsesak, beti aterea eta apur bat berritsua, eta ingelesak, beti serio, beti **lepatente**, mahai berean egiten zuten topa, bene-benetako Cliquot bat edaten zutela, zortzi errubloan botila, inguruetako urkien izerdi freskotik oparo aterea. Karlos Zabala

lepatu ik **lepotu**.

lepatxuri ik **lepozuri**.

lepatze ik **lepo 15**.

**lepauztai** *(orobat **lepa-uztai** g.er.) iz* hezur luzea, S itxurakoa, besaburutik bularrezurrera doana.

Azkenean, atzera odolera itzultzen da linfa, klabikula edo **lepauztaien** atzean dauden zain subklabioen bitartez. Lau saihets hezur hautsi eta **lepauztaia** bere tokitik atera zitzaion. Irene Aldasoro

Unai Osak **lepauztaia** hautsi du berriro. Italiar txirrindulariak **lepauztaia** eta beso bat hautsi, eta kolpea izan zuen buruan.

Eskuineko **lepauztaia** apurtuta daukala erakutsi dute medikuek egindako probek. Berria - Kirola

**Lepauztaiako** zaintiratua egin zuen, eta ez da garaiz osatuko. Berria - Kirola

Bularrezurrak eta **lepauztaiak** bat egiten duten arte. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lepauztaia hautsi (11); lepauztaia hautsi du (3)

lepazain ik **lepo 27**.

lepazamar ik **lepo 28**.

lepazur ik **lepo 20**.

**lepazuri** *(orobat **lepatxuri**) iz* pitotxaren familiako ugaztun haragijalea, gorputza mehea eta muturra luzea dituena, gauaz oilategiei erasotzen diean *(Martes foina)*.

Mozoloa edo **lepazuria** izango da; baina instintuak aldatuak dituena. Josu Zabaleta

Idi, zerri eta oilo ugari dago, azken hauek pitotxa eta **lepazurien** begipean. Koldo Biguri

Ordea, kaleak konkortu zaizkio hiriari, etorbideak zimurtu, **lepatxuri** zaharraren antzera. Javi Cillero

**lepidoptero** *izond/iz* intsektuez mintzatuz, mintzezko lau hego ezkatatsu, aho xurgatzailea eta metamorfosi osoa duena.

Nola esan euskaraz **lepidopteroen** multzoaren izen orokorra. Edorta Jimenez

**lepidopterologia** *iz* zoologiaren adarra, lepidopteroen azterketaz aritzen dena.

Osoki **lepidopterologian** emango nituzke egunak. Berria - Kultura

# **lepo** **1** *iz* gorputzaren zatia, burua enborrari lotzen zaioa, gehienetan mehea.

Oin, beso eta behatz, buru, **lepo** eta gerri. Elizen arteko biblia

Gazteak keinu urduriak egin ditu **lepo** eta buruarekin. Pello Lizarralde

**Lepoa** eta besaburuak behar adina soilik zeuden agerian. Jose Morales

Aurre egiten dio berari, **lepoa** zurrun, begiak dirdirka. Oskar Arana

Gorbata marraduna **lepo** inguruan egokitzen bukatu zuen. Alberto Ladron Arana

**Lepo** gainean eraman izan naik mila bider. Juan Garzia

Beren zaldi **astunen** lepo gainerantz makurturik. Josu Zabaleta

Buckbeaki bere soka **lepo** gainetik pasatu eta lepokoaren beste aldean lotu zion, bridak balira bezala. Iñaki Mendiguren

Eskua luzatu du txakurraren **lepo** ingurura. Jokin Muñoz

Beso horiek, hanka horiek, **lepo** hori ikusirik, nabari du indartsua dela. Juan Kruz Igerabide

Bere begien aurrean **lepo** asko moztu ziren Beyaziteko gotorlekuan... Fernando Rey

Liho finezko arropak jantzarazi zizkion eta urrezko **lepoko** katea ipini. Elizen arteko biblia

*ik* lepoko.

Josek Benjamini **lepotik** heldu, eta negar batean aritu ziren biak besarkaturik. Elizen arteko biblia

**Lepora** oldartu zitzaidan. Koldo Izagirre

Bildots mantso edo ardi motel baten **lepora** jauzi egiten zuten. Itxaro Borda

Muchek salto egiten zion **lepora**. Karlos Zabala

Besoak **lepora** bota eta negarrez esan zion: [...]. Irene Aldasoro

Ura **leporaino** heldu zitzaidan, / eta itsaso handiak inguratzen ninduen. Jose Antonio Mujika

## **2** (aditzaren objektu gisa)

Harrapatu zituztenean, Kixon errekara jaitsarazi eta **lepoa** moztu zien Eliasek. Elizen arteko biblia

Alproja haietako erdiei gillotinaz **lepoa** moztu behar zitzaiela esaten zuen. Karlos Zabala

Beren etsai guztiak ezpataz jo, hil eta suntsitu egin zituzten juduek, **lepoa** moztuz eta sakailduz. Elizen arteko biblia

Erregeari **lepoa** gillotinatzen ausartu den munduko hiri bakarrak. Koldo Izagirre

**Lepoa** estutzen hasi zitzaion bi atzaparrez. Anjel Lertxundi

Hantxe zetzan Miren, **lepoa** urratuta, odoletan blai. Migel Angel Mintegi

Baina nik ez nion **lepoa** bihurritu, ez naiz gauza. Migel Angel Mintegi

Jaitsiera, berriz, **lepoa** hautsi beharreko ziztuan egiten genuen. Juan Garzia

Arloteak **lepoa** makurtu zuen, alkandoran tomate orbana bilatzen duenaren interes hotzarekin. Lander Garro

Hau dio Jaunak: makurtu **lepoa** eta jarri Babiloniako erregearen menpe. Elizen arteko biblia

Bi jauzitan atzetik eraso zion, beso batekin **lepoa** inguratu, bestearekin ahoa estali, eta arrastaka eraman zuen barrurantz. Migel Angel Mintegi

**Lepoa** luzatu zuten, ez zuten deus ikusi. Karlos Zabala

**Lepoa** luzaturik dabiltza, keinuka, begiak batetik bestera, pauso txikian. Elizen arteko biblia

**Lepoa** tenteturik, nebari begiratu zion. Anjel Lertxundi

Lainezek bizkarra eta **lepoa** uzkurtu ditu. Pello Lizarralde

Mikelek **lepoa** igurtzi zion leunkiro. Unai Iturriaga

**Lepoa** bihurtu zuen, eta neuri begira segitzearren egiten zuela begitandu zitzaidan. Edorta Jimenez

Ezin izango dute handik **lepoa** atera, ez eta burua tente ibili ere. Elizen arteko biblia

**Lepoa** sorbaldetan erdi hondoratu. Anjel Lertxundi

## **3** (izenondoekin)

**Lepo** ederra duela esan dio mutilak. Alberto Barandiaren

Tentetu du bere **lepo** motza, begi parean duena hobeki ikusi beharrez. Aingeru Epaltza

Bitxi bikain eta fina zen [...] eta ziur egon nintzen dotore emango zuela Rachelen **lepo** lerdenean. Oskar Arana

Musu belarrian, musu **lepo** zurrunduan. Joxe Austin Arrieta

**Lepo** moztu hori odol zuritan erakutsi gabe. Patziku Perurena

Oihal latzak **lepo** mehe zuria minberatu eta narritatzen zion. haren **lepo** labur lodiak itxura ikaragarria zuen. Jose Morales

Ondoan, **lepo** gorriko gizon bat zeukan, garondo zapala agerian. Lopez de Arana

Oso **lepo** luzeko gizon bat ikusi nuen, feltrozko kapela bat zeramana. Xabier Olarra

Osaba gizonkote handi bat zen, oso **lepo** motz eta bibote handikoa. Iñaki Mendiguren

Balea bera baino handiagoa zen, oso **lepo** eta isats luzekoa, dinosaurio baten itxurakoa. Bernardo Atxaga

## **4** irud/hed

Izterrezurraren **lepo** hori hautsiz gero, bi hezur zatiak bereizi egiten dira muskuluen eraginez, eta ez dira berez osatzen. Irene Aldasoro

Kale-kantoi batera iritsirik, portuko **garabien** lepo luzeak ikusten ziren, ontzien zamaketa-lanean. Anjel Lertxundi

Kliskaz idortu genituen godalet **lepo** luzeak. Itxaro Borda

· *(ik beherago* 30) -Agian nahiago izango duzu **lepoa** ez arriskatu -esan zion-. Iñaki Mendiguren

## **5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lepo** ukaldi arin batez bihurtu nituen begiak. Aingeru Epaltza

Lau libera aurreztu zituen bi hilabetean, **lepo** otarre txiki baten jabe egin zen, eta txori belar saltzaile hasi. Karlos Zabala

-Begiak! -amaitu zuen esaldia Justok, **lepo** atzealdean hotzikara zabaltzen sumatzen zuela. Joxemari Urteaga

Amultsu igurtzi zizkion sorbalda eta **lepo** buelta. Unai Iturriaga

## **6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Antzara **lepo** handiak agertu ziren tupustean, eta estalkia altxatu zuten indarka. Karlos Zabala

Tuilerietako lorategiko pagausoak etorri zitzaizkion gogora, bai eta sotoko uso **lepo** apurtuak ere. Karlos Zabala

Mundu hau, eztizko opilak eta ahate **lepo** beteak egiten dituzten amona marmartien mundu hau, Felipe Juaristi

## **7** uteroaren beheko aldea, baginaren hondoan kokatua, mehea eta malgua.

Uteroaren **lepoa** bilatzen nuen haztamuka eta mina ematen zidanean gelditu egiten nintzen. Joseba Urteaga

## **8** jantzietan, lepoa inguratzen duen zatia. ik **lepoki**.

Hermannek gabardinaren **lepoa** jaso zuen. Anjel Lertxundi

Jaka higatuaren **lepo** jasoaren azpian. Lopez de Arana

Jakaren azpian **lepo** altuko jertse ilun bat janzten zuen. Fernando Rey

Jaka bat zeraman soinean, eta jertse bat, **lepo** bilduarekin. Lander Garro

Jertse urdin iluna soinean, alkandoraren **lepo** zuria dauka agerian. Rafa Egiguren
Igandeetako **lepo** gogorreko alkandora. Joseba Urteaga
**Lepo** luzeko blusa zeta berdezko bat jantzita zeukan, farfail batez apaindua. Lopez de Arana
**Lepo** nasaiko jertse bat jantzita. Oskar Arana
Lekaio bat zihoan damarekin, **lepo** ugariko longain dotorea soinean. Jose Morales
Gauean **lepo** hutseko jantzitan agertzen zen, goizean baino ere presatiago. *ik* lepohastu. Josu Zabaleta

**9** sorbalda.

Eskuan pistola, **lepo gainean** fusila eta buruan kaskoa. Edorta Jimenez
Gero, liburua albo batera utzirik, eskuak **lepo gainean** jarri zizkidan, neu baino arrabete txikiago zen hark. Edorta Jimenez
**Lepo gainean** eraman izan naik mila bider. Juan Garzia
Bartolome Helgaren gainean paratu zen, niri **lepoa** emanez. Edorta Jimenez
Meñakarrak ez du ulertu zergatik Donostiako ospitalean auto istripua izan ostean nongo mina duen galdetu, **"lepokoa"** esan, eta, lepoa begiratu barik, sama bueltan jarri dioten iduneko ortopedikoa. Iñigo Aranbarri

**10** mendien arteko igarobidea; igarobide horretako puntu garaiena. ik**mendate**.

Burdinzahi da Olatraneren azpiko aldean dagoen **lepo** bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Handik Ibañetako **lepora** atera ginen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
**Lepo** horretara iristen ari ginela, zer moduz zetorren galdetu nion Juanitori. Berria - Kirola
**Lepo** horretatik hurbil bada erreka xilo bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Bi **mendi** kaskoren lepo inguruan. Pello Zabala
**Lepora** iritsitakoan, 8.500 metro parera, han hasi nintzen edema hasiera nabaritzen. Berria - Kirola
Bidexidorrak **lepo** bateraino gidatu ditu. Pello Lizarralde
Ekologista zonbeit juanak ziren **lepo** hartarat pasaiako xorien kondatzeko.· Mendi **lepo** ttipi batean dago, Erredoraira heldu gabe. Herria

• **11** *adlag* bete-beterik.

San Mames **lepo**. Berria - Kirola
Arasa bat daukat musuz betea, **lepo**, denak txukun-txukun klasifikatuak: kolorez, zaporez, tamainaz, egituraz, estiloz, sakoneraz, iraupenez, orekaz, doinuz, eta abar. Karlos Linazasoro
Busa **lepo** stop gazte lepaluze kapela borobil txirikordadunak kargu hartu bidaiari ezezagun bati aitzakia hutsalez stop. Xabier Olarra
Europa Ekialdeko tenislari ospetsu bat, kokainaz **lepo** eta Versaceren top model hankaluze baten besotik agertu zena. Patxi Iturritegi
Laster batean, hiritar asko eta asko, ikaraz **lepo**, hilketa haiek ezin gehiago pairaturik, [...] ihes egiteko prestatu ziren. Karlos Linazasoro
Harmailak **lepo** jendez. Pedro Alberdi
Lizarregia kiroldegia **lepo** bete zen, 2.000 ikusle inguru. Berria - Kirola
Okina ikusten dut, hiru otar, ogiz **lepo** beterik, furgonetatik ateratzen. Anjel Lertxundi
Igandea zen, eta **lepo** zegoen futbol zelaia, arratsaldeko bostak eta laurdenetan. Karlos Linazasoro
Korutik barrena sartu zen tximista korua eta eliza jendez **lepo** zeudenean. Pello Zabala
Azaroa haziaro izanik ere, dolareak lanez **lepo** dabiltza. Pello Zabala
**Lepo** zihoazen. Anjel Lertxundi
· Ura edaten dut **lepo**, beldurraren egarri guztia asetu arte. Pako Aristi

**12** *-en* ***lepora*** *-en* gain.

Okendok berak halaxe egin ei zuen aitaginarrebaren alde fede auziren batean, eta Inkisizioaren kastigua beraren **lepora** etorri. Edorta Jimenez
Errua beti bestien **lepora**. Joxerra Garzia
Eñauti nolabait iruditu zitzaion bere **lepora** egiten zuela barre alboko hanka luzedun jainkosak. Sonia Gonzalez
Orduan ez lukete gure **lepora** irri egingo. Berria - Kultura

**13** ***leporaino*** goraino.

Bailara guztiko jendea igo zen; frontoia **leporaino** zegoen, eta jende gehiago plazan pilaturik, frontoiaren ondoan. Juan Kruz Igerabide
Apaizaren sotoa **leporaino** bete zen. Juan Kruz Igerabide
**Leporaino** dago nire atikoa deabruz gainezka. Koro Navarro
Itzuli nintzenean jendez **leporaino** beteta zegoen patioa. Koro Navarro
**Leporaino** nengoen politikaz, "hemengo politikaz" esan nion. Ramon Saizarbitoria
**Leporaino** gaude okela jatez. Juan Garzia
Arrain saskiak zurezko kutxa garai **leporaino** beteetan garraiatuz. Karlos Zabala
Militar jende hura nazka eginda zegoen osotara, **leporaino** benetan. Txillardegi
Militar jende hura nazka eginda zegoen osotara, **leporaino** benetan. Txillardegi
Kafka **leporaino** zegoen burges lohian sartuta. Koro Navarro
On Camillok ez zuen zalantzarik izan saltsa hartan **leporaino** sartzeko. Koldo Biguri

**14** *-en* ***lepotik -****en* kontura.

Barre egin duzu nire **lepotik**; gezurra esan didazu. Elizen arteko biblia
Quenuk haren **lepotik** barre egiten zuen, oso traketsa baitzen arrautzopilak egiten. Karlos Zabala
Mendeku hartuko dut etsaien **lepotik**, ordaina eman beharko dute. Elizen arteko biblia
Jauntxoak haien **lepotik** bizi dira Beti egongo dira herriaren **lepotik** bizi direnak. Gotzon Garate
Entzun, badatoz langileak, badatoz gure **lepotik** bizi direnei lepoa egitera, gizarte barri bat sortuko dute Thiersen tropak suntsitu ondoren, Versailles sutan. Koldo Izagirre

**15** ***lepo-atze*** (*orobat* ***lepatze*** *g.er.*) *iz*

Neskak arropak jantzi zituen eta **lepo atzea** laztandu zion negarrez ari zen mutil biluziari. Harkaitz Cano
Bi mutikotxo zintzo, jakin-minak bizitutako masail-gorriak ageri zituztenak, eta **lepo-atze** bero eta hezeak. Mirentxu Larrañaga
Barne zirrarak kilikatzen zuen **lepatzean**, irribarrea kanporatu zitzaion eta inguru guztia, han zeuden jendeak edertu egin ziren, alaitu, Angierentzat. Iñaki Zabaleta
Violetak haize zaflada beroa sumatu zuen **lepo atzean**. Aritz Gorrotxategi
"Eta zein izango litzateke gure izen artistikoa?" Teresak **lepo atzetik** pasa zizkidan besoak. Bernardo Atxaga

**16** ***lepo-bihurritzaile*** (*corpusean* ***lepobihurritzaile*** *soilik*) *iz*

Brontzezko ganbara batean, **lepobihurritzailearen** zapi isilaren aurrean, esperantza izan dut lagun; atseginen ibaian, izua. Juan Garzia

**17** ***lepo egin****sup_1* lepoa moztu.

Hainbat erasotan 11 pertsona hil dituzte, horietako hiru **lepo eginda**. Berria - Mundua
Zuen idia zeuen begi aurrean **lepo egingo** dute. Nick Berg negoziogizon estatubatuarrari **lepo egin** zioten. Elizen arteko biblia
Aitoren seme eta handizki gaizkileei nobleziaren ikur zen sableaz jota **lepo egiten** zieten. Felipe Juaristi

Jakin badakigu nor izan zen gillotinaz **lepo egindako** lehen presoa. Felipe Juaristi

Neska bat topatzen du negarrez, zaldun **lepo egindako** baten ondoan. Juan Kruz Igerabide

**Lepo eginiko** Bildotsaren biziaren liburuan. Elizen arteko biblia

**18** ***lepo egin**sup_2* lepo bete, goraino bete.

Bere herrira egin genuen txangoa, autobuskada bat, eta **lepo** egin genuen odolkiz eta solomoz eta txerri hankez eta urdaiez. Karlos Linazasoro

Bidaxunen jan-edanaz **lepo egindako** bi asteei esker. Aingeru Epaltza

Whiskyz **lepo egin** arte edatera. Harkaitz Cano

Orain dena da desamodioa, ezin ulertua, zerbezaz **lepo egin** eta frakaso gorria. Karlos Linazasoro

**19** *lepo-gogor* ik **lepagogor**.

**20** ***lepo-hezur*** *(orobat **lepa(-)hezur** eta **lepazur**)* lepoko ornoen multzoa.

**Lepo-hezurraren** atzeko sakongunetxoan. Irene Aldasoro

Burua moztuko dio **lepo-hezur** ondotik, baina erabat erauzi gabe. Elizen arteko biblia

Utz ziezaietela parabellumen kanoiak niri **lepohezurrean** jartzen. Fernando Rey

Tximinoarena egiteko eta gaur ez bada bihar **lepa-hezurra** txikitzeko. Urtzi Urrutikoeetxea

Arnabarretako malkorrean, hiru larrebehi amildu eta **lepazurra** hautsi zutela. Patziku Perurena

Etxea handia eta ederra zen, eta irristatu eta **lepo-hezurra** hausteko moduko baldosak zituen. Pello Lizarralde

· *(esapideetan)* **Lepo hezurra** hautsiko du bere politika horrekin... Karlos Zabala

Baziren beste kotxe batzuk ere **lepo-hezurreraino** gauzez beteak. Koro Navarro

**Lepa-hezurreraino** nengoen, egia esanda. Jesus Mari Mendizabal

· *pl* 12 urteko haur batek minartu du **lepo hezurretan**. Herria

**21** ***lepo inguru*** *(orobat **lepainguru**)* lepoaren ingugura. ik **lepoalde. -**

**Lepo inguru** gorraila mokomotz zabalarekin. Herria

Lepoa eta **lepaingurua** bistan, baita zangoak ere. Joan Mari Irigoien

Beste behin igurtzi zituen **lepo** -ingurua eta kopeta. Joxemari Urteaga

Eskuineko poltsikotik musuzapia atera eta kopeta eta **lepo inguruak** igurtzi zituen azken tanta lehortzeko asmoz. Joxemari Urteaga

Haien atzean, berriz, jauna, kapelua buruan, longaina soinean eta zapi ñabarra **lepo inguruan**. Jose Morales

Etxekoandrea sartu zen, presaka jantziriko lo-txano bat buruan eta flanelazko sorbalda-oihal bat **lepo inguruan** loturik. Jose Morales

Alkandora erabat bustia neukan **lepo inguruan**. Bernardo Atxaga

**22** ***lepo-luze*** *(orobat **lepaluze**)* *izond* lepoa luzea duena.

Mutil **lepo luze** bat zuen zain, urduri, txartel bat eskuan zuela. Lopez de Arana

Gazte **lepaluzea** ziztuan joan da esertzera. Xabier Olarra

Gizon garaiak, **lepo-luzeak**, asperdurazko begitarte ilunekoak. Jose Morales

Ottoren eskua dortoka **lepoluze** haren inguruan itxi zen. Alberto Ladron Arana

Brontosauro **lepoluze** baten antzera edo. Fernando Morillo

Kolore gorri iluneko galtza estuekin eta txalekoarekin jantzita zihoan, eta jertse beix **lepo-luze** batekin. Bernardo Atxaga

**23** ***lepo-mehe*** *(orobat **lepamehe**)* *izond* lepoa mehea duena.

-Oraindik hemen al da **lepo** -mehe hori ere! -marmartu zuen Emilek. Joxemari Urteaga

Eta ez da ba hasten - **lepamehe** hura- builaka gizon bati! Xabier Olarra

**24** ***lepo-motz*** *(corpusean **lepamotz** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lepo-motz** agertzen da)* *izond* lepoa motza duena.

Asperturik gaudela Zuzendari txit agurgarriaren buru **lepamotza** bere bulegoko errezelen artetik beti begira ikusteaz. Anjel Lertxundi

Pepek zerbitzatu eta, Tolo **lepamotzak**, astebeteko bizar zarratukoa, ixtorio on bat zeukan doinuarekin, Anderri: [...]. Pablo Sastre

Barazki beratuez egindako ongailuak ere, **botila** lepamotz aho-zabal batzuetan sarturik. Karlos Zabala

· Zeren sarritan, jainkoen tenplu apainduen aurrean, intzentsua erretzen ari den aldare ondoan, txahala **lepamotz** jausten baita, paparretik odol erreka beroa dariola. Xabier Amuriza

**25** ***lepo-moztu*** *(orobat **lepamoztu**)* du *ad* (zerbaiti) lepoa moztu.

Hala ere, haren irudia **lepamoztu** zuten, eskarmentu eta abisu gisa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**25a** (era burutua izenondo gisa)

Piltzarrez jantzitako umeak ogi-pusketa bategatik borrokan, gizon-emakume **lepamoztuak**. Lutxo Egia

Eta orain hortxe zuen, besoa luzatu eta ukitzeko moduan, hil-hotzik, etorkizun **lepo-moztua**. Imanol Zurutuza

**26** *lepo ondo* ik **lepondo**.

**27** ***lepo-zain*** *(orobat **lepazain**)* *iz* lepoko zaina.

Agustinen **lepo** -zaina ebaki zuen dudarik gabeko kolpe batez. Itxaro Borda

Atzamarrak paratu dizkiot **lepazainean**. Koldo Izagirre

Hurrengo aldian ene eskuz bihurtuko diat **lepo** zaina bestela -mehatxatu zuen. Elena Touyarou

Eta abertzaleak jakina, hortzak tinko, **lepo** zaina hegian, oka egiteko zorian, · Ezpainetan behera egiten dion muztaxagatik bera zen, nire lagunek ahotan mesprezuka zerabilten huraxe, Liceuan harro eta **lepozain** barik ausartzen zen kriminala. Koldo Izagirre

**28** ***lepo-zamar*** *(orobat **lepazamar**)* *iz* lepoaren atzealdea.

Pat King-i jarraitu, Gabrieli **lepo-zamarretik** heldu, eta Hoxton-eko zelaietara eraman zuen herrestan, non Gabrielek aurre egin behar izan baitzion, ezpata bat eskuan. Juan Garzia

**Lepazamarretik** heldu zion Irujori; begiak atera beharrean zirudien. Inazio Mujika Iraola

Joan den larunbatean Eugenio Arriaga epaileari **lepazamarretik** oratu zionari beste pilotazale batek eutsi zion, izan ere, eta ez bereziki horretarako ardura duen beste norbaitek. Berria - Kirola

**29** ***lepo-zapi*** *(orobat **lepozapi**)* *iz* lepoan erabiltzeko zapia.

Nik bi barruko elastiko, hiru galtza pare, soineko bat, [...] buruko txano bat, **lepo zapi** bat eta beste gauza pila bat neraman. Josu Zabaleta

**Lepozapia** askatutakoan, bazkaria ekartzeko agindu zuen jaunak. Jose Morales

**Lepozapian** hatu bat daramana eta bere umea dela esanez urrumatzen duena Juan Garzia

**30** ***lepoa egin**sup_1* lepoa joatu, bizia jokatu.

-Kaiola bat dun, **lepoa egingo** niken. Harkaitz Cano

- **Lepoa egingo** nuke gure taldea baldar samarra iruditu zaizula. Xabier Paya

- **Lepoa egingo** nuke gure taldea baldar samarra iruditu zaizula. Xabier Paya

Egingo nuke zuk nahi beste kapela oparituko zizkizukeela, hogeita bi dolarrekoak; **lepoa egingo** nuke! Mirentxu Larrañaga

Nik hire bidea hartu izan banu, **lepoa egiten** diat ez nukeela galduko. Lopez de Arana

**Lepoa egingo** zukeen, halaber, aspaldi aritua zela azpilanetan bere burua salatu gabe esku egokietara helarazteko, trikimailuren bat asmatuko zuen, ordurako asmatua ez bazuen. Migel Angel Mintegi

### 31 ***lepoa egin**sup_2* lepo egin, lepoa moztu.

Ganibeta zorrozten haiei **lepoa egiteko**. Aingeru Epaltza

Aurrez aurre, baionetaz edo esku-bonbaz edo metraila puskailek **lepoa eginda** elkar hil behar genuenok, onik irtenak ginen eta elkarrekin bizi behar genuen aldi batez behintzat. Koldo Izagirre

### 32 ***lepoa jokatu*** bizia jokatu.

-Arduratuko ote litzateke zuetako inor negozio zail batez, **lepoa jokatu** behar bada ere? Koro Navarro

**Lepoa jokatuko** nikek hik eta nik ezagutzen ditugun gazte guztietatik bat bakarrak ere ez duela nahi aitarekin Saint James' Street-en paseatzen ikus dezaten. Antton Olano

**-Lepoa jokatuko** nuke berak hil zuela Ana -aitortu zien Amaiak besteei. Aitor Arana

**Lepoa jokatzen** dinat, film komertzialak baizik ez zaizkiola gustatzen. Eneko Bidegain

Zurezko gure estalpean, tapakien azpian eta txirbilez beteriko lastairen gainean; alegia, sute bat eragiteko arriskua harturik gure gain, eta, ikuspuntu pragmatikoago batetik, **lepoa jokatuz**: ezen urka-zigorra ezartzen baitzitzaion, besteak beste, estalpe barruan pospolo bat pizten zuen orori. **Lepoa jokatuko** zukeen Mirarik ere ez zekiela non zebilen. Juan Garzia

### 33 ***lepora bota*** aurpegira bota, aurpegiratu.

Efraimek saminki nahigabetu du Jainkoa: Jaunak **lepora botako** dio isuri duen odola, eta berari itzuliko bere irainak. Elizen arteko biblia

Zure egiteen ordaina **lepora botako** dizute. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **alkandoraren lepo** (5); **aretoa lepo** (7); **bizkaia arena lepo** (4); **burua lepo gainean** (5); **harmailak lepo** (15); **harmailak lepo bete** (5); **jendez lepo** (36); **jendez lepo zegoen** (9); **konfiantzaz lepo** (4); **lanez lepo** (11); **lepo aldean** (7); **lepo aldera** (6); **lepo atzean** (6); **lepo bete** (51); **lepo bete zen** (28); **lepo bete ziren** (7); **lepo bete zuten** (4); **lepo beteko** (19); **lepo beteko da** (9); **lepo beteta** (11); **lepo betetzea** (4); **lepo betetzen** (6); **lepo bueltan** (8); **lepo dago** (8); **lepo egin** (10); **lepo eginda** (7); **lepo egindako** (5); **lepo egiten** (5); **lepo egon** (4); **lepo egoten** (4); **lepo gainean** (37); **lepo gaineko** (6); **lepo gainera** (6); **lepo gainetik** (10); **lepo hezurra** (11); **lepo inguruan** (45); **lepo inguruko** (4); **lepo labur** (4); **lepo luze** (17); **lepo luzea** (21); **lepo luzeak** (5); **lepo luzeko** (8); **lepo mehe** (6); **lepo mozte** (4); **lepo ondoan** (6); **lepo zaina** (4); **lepo zegoen** (24); **lepo zeuden** (5); **lepo zuria** (4); **mendi lepo** (10); **oso lepo** (5); **pabiloia lepo** (12); **pabiloia lepo bete** (6); **pilotalekua lepo** (8); **pilotalekua lepo bete** (7); **pilotalekuko harmailak lepo** (5)
>
> **alkandoraren lepoa** (5); **jakaren lepoa** (6); **lepoa bihurritu** (11); **lepoa bihurrituko** (7); **lepoa bihurritzen** (5); **lepoa bihurtu** (15); **lepoa bihurtu zuen** (6); **lepoa egin** (8); **lepoa eginen** (8); **lepoa eginen nuke** (5); **lepoa egingo** (31); **lepoa egingo nuke** (19); **lepoa emanda** (4); **lepoa emanez** (6); **lepoa estutu** (7); **lepoa estutzen** (4); **lepoa gora** (4); **lepoa hautsi** (4); **lepoa hautsita** (4); **lepoa igurtzi** (4); **lepoa inguratu** (9); **lepoa inguratzen** (6); **lepoa jarri** (6); **lepoa jarriko** (7); **lepoa jaso** (6); **lepoa jokatuko** (9); **lepoa jokatuko nuke** (5); **lepoa luzatu** (25); **lepoa luzatu zuen** (7); **lepoa luzaturik** (15); **lepoa luzatuta** (5); **lepoa luzatuz** (11); **lepoa luzatzen** (11); **lepoa luzatzen zuen** (5); **lepoa luze** (7); **lepoa moztea** (8); **lepoa mozteko** (22); **lepoa mozteko agindu** (4); **lepoa mozten** (18); **lepoa moztu** (99); **lepoa moztu zioten** (19); **lepoa moztuko** (37); **lepoa mozturik** (5); **lepoa moztuta** (13); **lepoa moztutako** (5); **lepoa moztuz** (6); **lepoa mugitu** (5); **lepoa nola** (8); **lepoa nola mozten** (6); **lepoa okertu** (5)
>
> **lepoak luzatzen** (4)
>
> **ahartzako lepoan** (5); **lepoan behera** (8); **lepoan hartu** (22); **lepoan harturik** (4); **lepoan hartuta** (13); **lepoan ipini** (4); **lepoan jarri** (10); **lepoan jo** (7); **lepoan lotuta** (4); **lepoan zintzilik** (4); **lepoan zuela** (4); **nire lepoan** (9); **san inazio lepoan** (5); **soka lepoan** (5); **zakua lepoan** (5)
>
> **lepoaren bueltan** (13); **lepoaren gainean** (9); **lepoaren inguruan** (32); **lepoaren kontra** (9)
>
> **mendi lepoetan** (4)
>
> **jirafa lepoko** (4); **lepoko mina** (5); **lepoko zainak** (8); **lepoko zapi** (9); **lepoko zapi bat** (4); **lepoko zapia** (7)
>
> **lepora jauzi** (8); **lepora oldartu** (5); **lepora salto** (5)
>
> **frontoia leporaino** (4); **jendez leporaino** (8); **leporaino bete** (23); **leporaino bete zen** (11); **leporaino betea** (5); **leporaino beterik** (6); **leporaino beteta** (9); **leporaino betetako** (7); **leporaino betetzen** (6); **leporaino iristen** (4); **leporaino sartu** (4); **leporaino sartuak** (4); **leporaino sartuta** (5); **leporaino zegoen** (8); **ura leporaino** (4)

---

## **lepoaizun** *iz* ordezko lepoa.

-Ongi da -onartu du zuzendariak, eta bere larderia argi erakustearren Markaida jaunari begiratu barik jarraitu du-, nik ekarriko dizut alkandora zuri bat, eta **lepoaizuna** ere bai. Koldo Izagirre

---

## **lepoalde** *(orobat **lepalde** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lepoalde** agertzen da)* *iz* lepoaren aldea.

Ilea garbi eta emeki kiribildua **lepoalde** mehean. Mirentxu Larrañaga

Dardarka askatu zizkion alkandoraren goiko botoiak, neskaren **lepoaldea** eta bularrak hobeki ikusteko. Patxi Zubizarreta

Hark bere besoez inguratu zidan **lepoaldea**, eta negar-zotinka ekin zion, bihotza erdibitu izan baliote bezala. Mirentxu Larrañaga

Haien hurbiltasuna, haien esku beroak, haien arnasa **lepoaldean**. Berria - Kultura

Arrak kunplitu duenean, emeak ordain gaiztoa ematen dio: **lepaldean** kiribildu eta hozka eginez lepoa mozten dio. J.M. Olaizola "Txiliku"

Alkandoraren **lepoaldea** askatuz, sorbaldaren zati bat erakutsi zidan. Javi Cillero

Puntada luzez josten hasi zen parpaila estua, erdi eginda zeukan janzkiaren **lepoaldean** zehar. Mirentxu Larrañaga

Izerdiz blai berriro nik bekoki eta **lepo aldeak**. Joxe Austin Arrieta

---

## lepobihurritzaile ik **lepo 16**.

---

## **lepodun** *izond* lepoa duena.

Charly xelebre zegoen, atorra **lepoduna** eta zapata abantzu estandarrak jantzita. Aingeru Epaltza

Praka beltzak, **lepodun** jertse fin beltza. Unai Iturriaga

---

## **lepogabe** *izond* leporik ez duena.

Sir Patrick eta gainerako ehiztari **lepogabeak** hasiak ziren buru-hockeyko partida jokatzen eta jendea haiei begira zegoen. Iñaki Mendiguren

Nola izan zaitezke ia **lepogabea**? Iñaki Mendiguren

---

## **lepogabetu**, **lepogabe(tu), lepogabetzen** da/du *ad* lepogabe bihurtu.

Gehienek usteko lukete nahikoa **lepogabetuta** nagoela, baina, oi ez, sir Ondo **Lepogabeturiko**-Podmore horrentzat ez da aski! Iñaki Mendiguren

---

**lepogain** *(4 agerraldi, 3 liburu eta artikulu 1ean; orobat **lepagain** 31 agerraldi 19 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lepogain** agertzen da)* *iz* lepoaren gainaldea.

Eta pauso luzeak emanez alde egin zuen handik, **lepogaina** Ronen belarriak bezain gorri zuela. Iñaki Mendiguren

**Lepagaina** eta kopetondoa kiskaltzen. Pako Aristi

**Lepogainera** eraman nuen eskua, hazka. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez daukan bururik **lepagain** horretan? Anton Garikano

Eman zion euskaldunak Don Kijoteri labankada astun bat **lepagainean**. Patxi Ezkiaga

Ezkerreko **lepagainean** jo zuen bai, baina alde hura guztia etenarazi beste kalterik ez zion egin, belarri-erdia eta zelatarik gehiena eramanaz beherakoan. Patxi Ezkiaga

Zaldien **lepagaineko** ile luze epelak bi eskuez igurtzen nituen. Jesus Mari Mendizabal

Izan ere, gizonak harria askotan jasoko du **lepagainera**, baina harriak behin gizona botatzen duenean, akabo, horrek ez dauka bueltarik. Pako Aristi

Lyons jauna mahai ertzean eseri zen, eta kapelari **lepagain** aldera bultza egin eta zangoak kulunkatzen hasi zen. Irene Aldasoro

· Neskaren **lepagaineraxe** erortzen zitzaion ile kiribilduan kontzentratu nuen estreina eskuargiaren fokoa. Anjel Lertxundi

---

**lepohastu**, lepohas, lepohasten du *ad* lepo hutsik utzi.

Emaztea hari buruz ukurtu zen, bularrak, **lepohastu** gorontzetik kanpo, ateratzer zitzaizkiola. Elena Touyarou

---

lepohezur ik **lepo 20**.

---

**lepokari** *iz* kontsonanteez mintzatuz, mihiaren lepoarekin gauzatzen dena.

Mihiaren zati hori bizkarraren hasieratzat har daiteke; horregatik, batzuetan, *bizkarkari* terminoa erabiltzen da ***lepokari*** terminoaren ordez. Lourdes Oñederra

**Lepokari** (ing. *laminal*) zehatzagoa da *bizkarkari* edo *dorsal* baino, mihi-bizkarra oso eremu zabala delako (mihi-puntta eta erroa ez beste, guztia da berez dorsum deitzen dena). Lourdes Oñederra

NAFaren lehenengo bertsioetan euskarazko *txistukari apikari-txistukari* ***lepokari*** aurkakotasunak (ortografikoki *s / z*) ez zuen islarik. Lourdes Oñederra

Ezaugarri horixe da ahoskune bereko diren txistukari mota bien arteko bereizgarri funtsezkoena: bata apikari dela (S, s idatzia) eta bestea, **lepokaria** (s, z idatzia). Lourdes Oñederra

---

**lepokaritasun** *iz* lepokaria denaren nolakotasuna.

Orain, txistukariaren azpiko diakritiko karratua *(subscript square)* proposatzen du **lepokaritasuna** adierazteko, eta hankaz gorako zubitzat har litekeena *(inverted subscript bridge)* apikaritasuna adierazteko. Lourdes Oñederra

---

**lepoki** *iz* jantziez mintzatuz, lepoa.

Ahal bezainbat kaparen **lepokia** esku batez goiti atxikitzen du, bisaia erakutsi nahi ez balu bezala. Michel Oronoz

---

**lepoko** **1** *iz* lepoko apaingarria.

Etorri ziren bihotz-zabaleko gizon-emakumeak eta urrezko bitxiak ekarri zituzten, katetxoak, belarritakoak, eraztunak eta **lepokoak**. Elizen arteko biblia

Arkeologoek azaldu zutenez, maskorrak leizearen inguruetatik hartu zituzten **lepokoak** egiteko. Berria - Gaiak

Lepoan ale gorrizko **lepokoa**, buruan urregorrizko diadema. Felipe Juaristi

Horrek diamantezko **lepokoa** nabarmentzen zion, lepoko zuri batek egingo ez zukeen moduan. Julen Gabiria

Koralezko **lepokoa** ekarri nahi zion Caroline lehengusinari, aitortu zuenez, hartaz maitemindua baitzegoen. Karlos Zabala

Haren keinurik ñimiñoena ere kitzigarria zitzaidan, ezker eskua bularraldera eraman, eta **lepokoarekin** jostatzen ibiltzen zenean kasu. Patxi Zubizarreta

Novgorod, Vladimir, Kiev, Kazan, Astrakhan eta Siberiako ezkutuak arranoaren inguruan, San Andresen ordenako **lepokoa** biran, eta errege koroa buruan. Karlos Zabala

Hariak **lepokoaren** aleak batzen dituen bezala. Bernardo Atxaga

**2** lepoko zapia edo berogarria. ik **tapauka**.

Ile eta bekain tindatuak, zetazko **lepokoak** eta belaontzi-klubetako blazerrak, maritxuen hizkera. Oskar Arana

Ez baitzen batere normala abuztu erditsuan neguko **lepokoa** jantzita eramatea. Patxi Zubizarreta

Gabardina jantzi, **lepokoa** gurutzatu, kapela ongi jarri eta irteerarantz abiatu zen. Iñaki Zabaleta

**Lepokoa** sudurretaraino jarriz abiatu zen hotelerantz. Iñaki Zabaleta

**3** lepoan jartzen den tresna.

Oinak katean lotu zizkioten, burdinazko **lepokoa** erantsi. Elizen arteko biblia

Urkatu behar zenari **lepokoa** jartzen zitzaion, korapilo bereziarekin (gero eta gehiago ixten zen lakioarekin) eta soka teinkatu egiten zen, gaizkileari zintzurra estutuz arnasa eragozten zion arte. J.M. Olaizola "Txiliku"

Igor Astarloak **lepokoa** eraman beharko du astebetez, auto istripu baten erruz. Berria - Kirola

Istripuaren ondorioz, Arruarteren arrebari **lepokoa** jarri zioten. Berria - Euskal Herria

Beste galdeketa batzuetan, txakurrarena egitera behartu zuten **lepokoa** jarri ondoren. Berria - Mundua

Madiango erregeek zeramatzaten purpurazko jantziak eta gameluek lepoan zeramatzaten **lepokoak** kontatu gabe. Elizen arteko biblia

Zamarientzako **lepokoak** saltzen baitzituzten. Jose Morales

**Zaldien** lepokoak zarrastaturik zeuden eta hedeak sokazkoak ziren. Jose Morales

Zakur mutur-handi bat sartu zen haren atzetik, kobrezko **lepokoarekin** zarata handia ateraz. Jose Morales

Ondo imajinatzen zuen hamahiru urteko Hagrid munstroari uhala eta **lepokoa** jarri nahian. Iñaki Mendiguren

**4** jantziez mintzatuz, lepoa. ik **lepo 8**.

Baina Hermione zerbaiten bila ari zen bere soinekoaren **lepokoan**, eta haren azpitik urrezko kate luze-luzea eta fin-fina atera zuen. Iñaki Mendiguren

Zamarraren **lepokoa** jaso eta hondartza inguruko etxadietarantz hartu nuen. Anjel Lertxundi

**5** irud/hed

Harrokeria dute **lepoko**, bidegabekeria soineko. Elizen arteko biblia

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tangan zeuden neska beltzak lore-**lepokoak** ezarri zizkieten gizonei lepoetan, eta bankuko billeteak eskegi zituzten gizonek nesken tangetatik. Joxan Elosegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lepoko eta kapela** (4); **lepoko gorri** (3); **lepoko gorria** (4); **lepoko kate** (3); **lepoko mina** (5); **lepoko zapi** (9); **lepoko zapi bat** (4); **lepoko zapia** (7); **lepoko zuridun** (4); **lepoko zuridun soineko** (3); **urrezko lepoko** (4)

**lepokoa jarri** (4); **urrezko lepokoa** (4)

**lepokotik heldu** (3)

---

**lepokodun** *izlag* lepokoa duena.

Harry lehenago ikusitako **lepokodun** mamuaren aurrez aurre eseri zen. Iñaki Mendiguren

---

lepoluze ik **lepo 22**.

---

lepomoztu ik **lepo 25**.

---

**lepondo** *(orobat* ***lepo ondo****)* *iz* garondoa, lepoaren atzeko aldea.

Eta berberak ziren **lepondoa** estutu zioten erpuruak. **Lepo** ondoa gogortuta nabaritzen hasia zen aulkitik altxatzea erabaki duenean. Anton Garikano

**Lepondora** eraman zuen eskua, izerdi hotza kendu eta gertatzen ari zitzaionaz jabetzeko. Anjel Lertxundi

Belarrien atzean eta **lepondoan** behera zetorkion izerdi koipetsua lehortzeko. Juan Kruz Igerabide

Eta tiroa eman zioten **lepondoan**. Lutxo Egia

-Joantxo -heldu zidan **lepondotik** gogor. Juan Kruz Igerabide

Furgoi beltzean itzaleratu zutenean, gilotinaren mihi fin eta zorrotza **lepondoan** hotz lerratzen imajinatu eta trenputxartu zen. Itxaro Borda

---

**leporaketa** *iz* leporatzea, hutsegite bat egoztea.

Eta bestetik, badaude beste **leporaketa** batzuk delituak direnak, baina ez daukatenak inolako oinarririk. Berria - Harian

---

**leporatu** **1** dio *ad* hutsegite edo kidekoren bat egotzi; zerbaiten erantzukizuna egotzi.

Madarikatu egin zituen orduan, eta bere loa eragoztea **leporatu** zien. Patxi Zubizarreta

-Morroi bat garbitu izana **leporatzen** diote. Josu Landa

**Leporatu** dizkidaten kargu horien guztien errudun. Oskar Arana

Errua niri **leporatu** beharrean, zeure buruari begiratu beharko zenioke! Patxi Zubizarreta

Jauntxoak andreari **leporatu** omen zion alabaren desohorearen hobena. Elena Touyarou

Txostena gordetzea, horixe bakarrik **lepora** diezadakezu niri. Migel Angel Mintegi

Ez da hori inori **lepora** dakiokeen jarduna, noski, baina inguruak adi ibiltzera behartzen gaitu. Berria - Kultura

Barkatu hitz hori erabiltzeagatik, baina ezin didazu errurik **leporatu** aztoraturik egoteagatik. Oskar Arana

Baina nork **leporatuko** zion bada ezer zuhurtasunezko zenbait neurri (hala aipatu zuen berak) hartu nahi izateagatik? Oskar Arana

Nagusiei **leporatu** behar zaie errua. Gotzon Garate

-Horretan ez dugu aurkituko Danieli zer **leporatu**. Jose Antonio Mujika

**2** egotzi.

Tarteka kezkatsu ikusi dut, bai, baina oraintsu esandakoari eta lanari **leporatu** izan diot beti, aparteko garrantzirik eman gabe. Migel Angel Mintegi

-Beldurrak al hago? - **leporatu** zion Husainek, isekari-. Patxi Zubizarreta

Jakin ez bazuten ere, Françoisen hilketa senar jeloskor bati **leporatu** zioten, botikari bati hain zuzen. Felipe Juaristi

Emakumeen aurrean desenkusatu da, gerrari **leporatu** dio gizonen gogorkeria, gizonen arreta gutxia, gizonen heziketa baldresa. Felipe Juaristi

• **3** du *ad* lepoan hartu, lepoan ezarri.

Jesus gurutziltzatzera zeramatela, sorotik etxera zihoan bat, Simon Zirenekoa, hartu zuten eta **leporatu** zioten, Jesusen ondotik eraman zezan. Elizen arteko biblia

Miel Saralegik 329 kiloko harria **leporatu** zuen eta Iñaki Perurenak 320 kilokoa. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**arduragabekeriaz jokatzea leporatu** (5); **aritu izana leporatu** (6); **aritzea leporatu** (50); **aritzea leporatu zion** (15); **aritzea leporatu zioten** (6); **arriskuan jartzea leporatu** (8); **asmoa leporatu** (8); **babestea leporatu** (8); **baliatzea leporatu** (9); **baztertzea leporatu** (8); **betetzea leporatu** (12); **betetzea leporatu zion** (6); **bultzatzea leporatu** (17); **bultzatzea leporatu zion** (5); **delitua leporatu** (11); **duela leporatu** (17); **eajri leporatu** (5); **edukitzea leporatu** (5); **egin izana leporatu** (33); **egitea leporatu** (154); **egitea leporatu zion** (44); **egotea leporatu** (22); **egotea leporatu zien** (5); **ematea leporatu** (37); **ematea leporatu zion** (14); **erabili izana leporatu** (7); **erabiltzea leporatu** (27); **eragitea leporatu** (9); **eramatea leporatu** (5); **erantzule izatea leporatu** (14); **esatea leporatu** (11); **eskubideak urratzea leporatu** (6); **espainiako gobernuari leporatu** (6); **etari leporatu** (9); **eusko jaurlaritzari leporatu** (6); **ez betetzea leporatu** (10); **ez egitea leporatu** (13); **ezkutatzea leporatu** (9); **falta leporatu** (9); **gezurretan aritzea leporatu** (11); **gobernuari leporatu** (15); **hartu izana leporatu** (10); **hartzea leporatu** (37); **haustea leporatu** (6); **hil izana leporatu** (13); **hilketa leporatu** (6); **hiltzea leporatu** (15); **ibiltzea leporatu** (13); **indarrei leporatu** (6); **iruzur egitea leporatu** (9); **iruzurra leporatu** (11); **jarraitzea leporatu** (5); **jartzea leporatu** (29); **jaurlaritzari leporatu** (8); **joatea leporatu** (6); **jokatu izana leporatu** (7); **jokatzea leporatu** (29); **kentzea leporatu** (5); **kide izatea leporatu** (20); **laguntzea leporatu** (10); **leporatu dio epaileak** (5); **leporatu zien sozialistei** (5); **leporatu zion bushi** (8); **muzin egitea leporatu** (8); **nahia leporatu** (9); **parte hartzea leporatu** (14); **ppri leporatu** (5); **saiatu izana leporatu** (6); **saiatzea leporatu** (9); **sartzea leporatu** (8); **sortzea leporatu** (5); **sostengatzea leporatu** (8); **sustatzea leporatu** (8); **taldeari leporatu** (6); **trabatzea leporatu** (9); **traizio egitea leporatu** (5); **urratzea leporatu** (13); **ustelkeria leporatu** (8); **uztea leporatu** (9)

**izatea leporatuko** (7)

**aritzea leporatuta** (8); **delitua leporatuta** (5); **egin izana leporatuta** (8); **egitea leporatuta** (24); **ematea leporatuta** (19); **erabiltzea leporatuta** (8); **eragitea leporatuta** (8); **erasotzea leporatuta** (7); **gehiegikeriak egitea leporatuta** (5); **hartzea leporatuta** (12); **hil izana leporatuta** (8); **hilketa leporatuta** (8); **hiltzea leporatuta** (10); **izana leporatuta** (57); **izatea leporatuta** (44); **jotzea leporatuta** (7); **kide izatea leporatuta** (16); **laguntzea leporatuta** (5); **lotura izatea leporatuta** (5); **parte hartzea leporatuta** (12); **ustelkeria leporatuta** (13); **zerikusia izatea leporatuta** (6)

**agindu izana leporatzen** (7); **bultzatzea leporatzen** (6); **egin izana leporatzen** (17); **egitea leporatzen** (40); **egitea leporatzen diote** (16); **egotea leporatzen** (5); **elkarri leporatzen** (6); **ematea leporatzen** (17); **erabiltzea leporatzen** (8); **eragitea leporatzen** (7); **erantzukizuna leporatzen** (5); **erantzule izatea leporatzen** (5); **hartu izana leporatzen** (16); **hartzea leporatzen** (25); **hil izana leporatzen** (13); **hilketa leporatzen** (14); **hiltzea leporatzen** (19); **izatea leporatzen** (100); **izatea leporatzen diote** (35); **krimenak egitea leporatzen** (5); **laguntza ematea leporatzen** (7); **laguntzea leporatzen** (13); **leporatzen die epaileak** (5); **leporatzen dio fiskalak** (5); **nahi izatea leporatzen** (8); **parte hartzea leporatzen** (20); **saldu izana leporatzen** (5); **urratzea leporatzen** (6); **ustelkeria leporatzen** (8)

---

**leporatze** *iz* hutsegite edo kidekoren bat egotzi.

Auzia daraman Auzitegi Nazionaleko epaileak ez ditu onartu **leporatze** horiek eta kargurik gabe aske utzi dute beasaindarra.

**lepotu**, lepo(tu), lepotzen *(orobat* **lepatu***)* du *ad* lepoa moztu.

Bergarako anarkistak **lepotu** guran etorri ziren Foggiako *camicia nera* haien hazurrak. Koldo Izagirre

Eta hesteen azaoa ongi lotua eduki behar zuen batek usteldegi hartan soldadu **lepotuak**, emakume lehertuak eta ume erreak jasotzen ez zorabiatzeko. Koldo Izagirre

Hau guztia gutxi balitz, K jaunak ez du ukelelea jotzen, ez matxinsalto frijiturik jaten, eta egun seinalatuetan ez du oilorik **lepatzen** Changori eskaintzeko. Berria - Kultura

---

lepozain ik **lepo 27**.

---

lepozapi ik **lepo 29**.

---

**lepozapidun** *iz* lepozapia duena.

Harik eta berriro **lepozapidun** emakumea aurrez aurre gurutzatu zitzaidan arte. Juan Garzia

---

**lepra** *iz* legenarra.

**Lepra** eritasunaz joak diren jendeendako eske bat egina izanen da helduden astean. Herria

**Lepra** eta tuberkulosia tratatzeko botikak. Berria - Mundua

---

**lepradun** *izond/iz* legenarduna.

Hiri-sarreran lau gizon **lepradun** zeuden elkarri esaten: -hemen egon behar al dugu hil arte. Elizen arteko biblia

**Lepradunaren** gorputz-atalak enperadorearen beraren gorputz-atal egiten dira. Joan Mari Lekuona

Era berean, Conpelloko Joan anaiak, gizon eta emakumez osoturiko **lepradun** talde handia bildurik, Ordena utzi eta beste ordena bat fundatu nahi izan zuen. Askoren artean

---

**leproso** *izond/iz* legenarduna.

Duela urte batzuk printzipio antropikoa aipatzen zutenak sutara bidaltzen zituzten (edo sute figuratiboara, pariah zientifikoa bihurtzeko bidekoa, kosmologo **leprosoak** diren linbora). Berria - Gaiak

---

**leptina** *iz* batez ere gantza zeluletan sortzen den hormona, OB hormona ere saten zaiona.

Ikertzaileek **leptina** izeneko proteina erabili zuten zelulen aldaketa eragiteko. Berria - Gaiak

Arratoien ehunetan **leptina** sartu zutenean zelulen egitura erabat aldatu zen. Berria - Gaiak

Lo gutxi egiten badugu, **leptina** gutxiago jariatuko dugu eta ondorioz, gose gehiago izango dugu. Berria - Gaiak

**Leptina** hormonaren maila altuagoak. Berria - Gaiak

---

**leptoprosopia** *iz*

Kontsultatu beharra daukat nola itzultzen den alemanera **leptoprosopia**. Anton Garikano

---

**lera**[1] **1** *iz* gurpilik gabeko orga, bi albo oholen bidez irristatzen dena, elur gainean ibiltzeko, edo belarra-eta garraiatzeko toki malkartsuetan erabiltzen dena. ik **narra**.

Poligonotik hara, bide zaharrean goitik behera, Motxo ilegorria eta bere zaldi pertxerona pasatu ziren, atzean esne marmitekin **lera** zeramala. Pablo Sastre

Ubideak izoztu egiten dira, gazte eta haurrak **lerak** hartuta patinatzera ateratzen dira. Felipe Juaristi

Elurra eta izotza nonahi, eta **lera** aise eta agudo doa aurrera irristan. Karlos Zabala

Negu siberiarrean, **lerek** eta karabanek zeharkatzen dute lehorreko itsaso hori. Karlos Zabala

**Lera** eta zaldia bide-bazter elurtuan lotu, eta trena abiatu arte itxaroten zuen han. Jose Morales

**Lera** gainean jarri eta herrestan eramango genuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Semmmering-en, **lera** gainean lerratzen zenean. Eduardo Matauko

Batzuetan, neguan gaudenez, txikia **lera** batean hartuta etortzen da Line, **lerari** tira eginez. Eskarne Mujika

Nire aita Golubtxik **lera** batean kargatu zuten. Matías Múgica

Aluminioz eta zuntz sintetikoz egindako **lera**. Joxemari Urteaga

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Soroko eta basoko lanak, gurdi eta **lera** lanak. **Lera** txakurrak eta enparauak. Pello Zabala

Mikel Strogoffek nahiago zuen bidaia negu beltzean egin, urtaro horretan **lera** zerbitzua antola baitzitekeen ibilbide osorako. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Elur **lerek** zanpatu gabeko bakarlekuen gisan. Karlos Zabala

---

**lera**[2] *iz* joera bizia, grina.

Ala gizonezko guztiak dira beti eta etengabe emakume baten **lera** daukatenak euren zurezko bihotzean, euren betiereko minean? Pako Aristi

Hirugarren arauaren guztiz kontrakoa lehorraldia deitzen dut, hala nola arimaren ilunpea, gogo-nahastea, gai purtzil eta lurkoietarako **lera**. Patxi Altuna

---

**leradun** *izond* lera duena.

Horrelaxe zian behin zimurtu bekokia, topaldi haserre batean poloniar **leradunak** zituenean izotz gainean porrokatu. Juan Garzia

**Ierakada** *iz* Iera baten edukia.

Neguan abereen etzauntza egin edota txerria erretzeko urrutiko mendietatik ekartzen ziren garoz betetako gurdi eta **Ierakada** mardulen usain gozoa. Pako Aristi

---

**Ieratsu** *izond* grinatsua.

Hura lortutakoan, beste bat nahi dugu, eta bizi-egarri **Ieratsu** berak gauzka beti. Xabier Amuriza

Emearen lepo **Ieratsuak**. Anton Garikano

---

**Ierda** *izond* mozoloa (emakumezkoa).

Bakarrik zaude, eta esan diozu zeure buruari "goazen **Ierda** honengana, seguru honek amua irentsiko duela". Sonia Gonzalez

---

**Ierde** **1** *iz* ahotik jariatzen den listua, adurra, elderra. ik **bits; hagun**.

Haurrak **Ierde** garbia isuri zion aurpegira. Anton Garikano

Aitak zapia pasatu dio ezpainetatik, zintzilik geratu zaion **Ierdea** garbituz. Jokin Muñoz

Gabi jada gainean dute, tiro eta tiro, **Ierdea** dariola. Jokin Muñoz

Lurrean iraulka eta **Ierdea** zeriola. Elizen arteko biblia

Kurrixka txikiak eginez hitz egiten zuen, eta **Ierdea** oretzen zitzaion aho ertzetan. Anjel Lertxundi

Ahotik jaulki orduko ezpainetan behera galtzen den **Ierde** baten tankerakoa. Iñaki Segurola

Hatzak likistuta dauzkat haien **Ierde** zikinaz. Itziar Otegi

**2** (hitz elkartuetan)

**Lerde** hari bat ezpain bazter batetik zintzilik zeukan, metraileta lurrera botatzeko keinua egin duenean. Jokin Muñoz

Buruko zapiarekin lehortzen zituen malkoak, baina ezpainen artetik **Ierde** hari mehar bat zerion lotsagarriro. Joxean Agirre

**3** ***Ierde-jario****sup_1* *(orobat* ***Ierdejario****) iz (irain hitza)* Ierdea dariona.

Ez du merezi **Ierde-jario** horiek jotzea, eskua mailatzea besterik ez duzu lortzen. Jose Morales

Irribarre eztia, gozoa, inozoa, batzuetan **Ierdejarioaren** atarikoa. Arantxa Iturbe

**4** ***Ierde-jario****sup_2 (orobat* ***Ierdejario****; izenondo gisa)*

Barre-algara **Ierdejario** batean lehertu zen orduan. Inazio Mujika Iraola

Herritarrek, ordea, ez zioten Lady Godivaren edertasunen kontakizun **Ierdejarioa** bukatzen utzi. Anjel Lertxundi

Ez nenkian heu ere emakume guztiok soka motz bana daukagula uste duten gizon klase **Ierdejario** horretakoa hintzenik. Anjel Lertxundi

Gure Hizkuntzarekiko ezinezko mistika **Ierdejariozko** batean lausoturik bizi zirenak eta direnak. Iñaki Segurola

**5** ***Ierde-jario****sup_3 (adizlagun gisa)*

Emakume sofistikatu eta eder haren keinuek eta mainek liluratu egin zuten, eta **Ierde-jario** utzi. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hantxe zen zakur gizajoa, **Ierde jario**, atzetik mutiko koadrila bat harrika zuela. Jon Maia

Agian ni hari begira-begira, eta, zergatik ez erran, **Ierde jario** harrapatu izana izan zen nigana etortzeko arrazoia. Alberto Ladron Arana

**6** ***Ierde-jarioan*** *adlag*

Zer nahi duk, ba, zuek biek egunero elkarri laztan goxoak ematen, eta ni etsi-etsian **Ierde jarioan** zuei begira egotea? Jon Muñoz

**7** ***Ierde-jarioka*** *adlag*

Harentzat Europara bidaia egiteko plan polita zen Potsdam-en lau egun ematea eta Orangerie-n ibiltzea **Ierde-jarioka** eta poloniar guztiak zutoina ipurditik sartuta akabatuko zituela amets eginez. Karlos Zabala

**8** ***Ierde-merke*** *izond (irain hitza)*

Aberats itxurako agure **Ierde**-merke bat sartu zen, eta guk ez bezala, Ianaren prezioaz galdetu zuen. Berria - Kultura

---

Ierdejario ik **Ierde 3**.

---

**Ierdekatu**, Ierdeka, Ierdekatzen da *ad* opildua, galkatua.

-Bai, jauna... bere koadroetako bat bezala geratu zitzaion aurpegia, **Ierdekatuta**. Harkaitz Cano

---

**Ierden** **1** *izond* zuzena izanik, luzetasun egokia edo dotoera duena.(pertsonez)

Sartzean gizon haundi **Ierden** bat kurutzatu nuen. Michel Oronoz

Gizaseme hile hori begi urdin **Ierden** bat. Aurelia Arkotxa

30 urte inguruko gazte **Ierden** bat. Juan Luis Zabala

Luzea eta **Ierdena** zen, aldaken aldetik zabal samarra beharbada, baina haragi sendokoa, halere. Migel Angel Mintegi

Emakumeak **Ierdenak** eta ederrak dira, baina ez oso jendekinak. Askoren artean

Zaldun **Ierden** prestua zen mutila, eta neska, berriz, eder bezain bihotz onekoa. Martin Anso

Orreagako priore **Ierdena** Salamancara joan zen gero elizako eta estatuko legeen ikasketei jarraitzeko. Piarres Xarriton

· Zoazte, mandatari bizkorrak, itzuli herri **Ierden** eta beltzaran horretara, edonon beldurra sortzen duen jendearengana. Elizen arteko biblia

**2** (bestelakoez)

Lehoinabar baten zalutasun hilgarriaz mugitzen zuen gorputz luze **Ierdenean**. Alberto Ladron Arana

Bitxi bikain eta fina zen [...] eta ziur egon nintzen dotore emango zuela Rachelen lepo **Ierdenean**. Oskar Arana

Edo milimetro erdiren bat lodituko zitzaizkiola [...] hain meharra zuen gerria edo hain **Ierdenak** zituen bularrak. Joxean Agirre

Azala beltzarana, soina **Ierdena** eta biribiltasunak neurrikoak eta trinkoak zeuzkan. Migel Angel Mintegi

Xori zuri **Ierdenei** aste guti gelditzen zitzaien umeen hazteko eta, bidaia luzea hasi aitzin, eguzkiz asetzeko. Aurelia Arkotxa

Mendian eder arbola, luze, hostotsu, **Ierdena**. J.M. Olaizola "Txiliku"

"Biba Luzaide" grabatu zuen nabala batekin Estatu Batuetako baso handi bateko lertxun **Ierden** batean. Pello Salaburu

Begirale bat etorri, eta neure parean jarri da, haritz **Ierden** bat bezain izugarri. Anjel Lertxundi

Eta etxearen arteko itzalean, sei errododendro **lerden**. Hasier Etxeberria

Goroldioa haritz eta pagoen gerri bikain eta **lerdenetan**. Pako Aristi

Itsas faroa; dorrea, alegia, zuria, borobila, **lerdena**, hasia zen jadanik bere errainu jirakor bikuna bazterretara hedatzen. Txillardegi

Arriluzko dorretxo karratu **lerdenaren** soslaia gailentzen zen zumarraren adaburuaren gainetik. Txillardegi

**3** irud/hed

Jakinik zaindariak beren ahots gorri **lerdenez** aginduak ematera etorriko zirela. Felipe Juaristi

**4** (adizlagun gisa)

Aulkia alde batera utzi eta Ellenengana jo zuen, beltzaran, kementsu, **lerden**, bere txabusina aldrebesarekin. Bere burua oraino aski **lerden** sendi zuen ahuntzen bideetarik ibiltzeko. Lopez de Arana

Adarrak **lerden** goruntz. Pello Zabala

Jardina gurutzatzen ikusten diat berriro Krisztina, lirain eta **lerden**, bere kapela florentziar hegal-zabala buruan. Xabier Olarra

Libano mendia bezain eder, zedroak bezain **lerden**. Elizen arteko biblia

Soroen xake-taulatik harantzago, **lerden** agertzen dira bat-batean ordokian Calgaryko dorreak. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gazte eta lerden** (3); **gazte lerden** (12); **gizon lerden** (9); **gizon lerden bat** (3); **gorputz lerden** (3); **lerden bat** (16); **zuhaitz lerden** (4)
> **lertsun lerdena** (3)

---

## **lerdendu**, lerden(du), lerdentzen da/du *ad* lerden edo lerdenago bihurtu.

Gabardinak **lerdendu** egiten zion itxura berez lerdena. Anjel Lertxundi

---

## **lerdentasun** 1 *iz* lerdena denaren nolakotasuna.

Gona motz batek, sasoi arteko jakak eta soinari itsatsitako jertse meheak areagotzen zioten gorputzaren **lerdentasuna**. Migel Angel Mintegi

Neskatxa baten **lerdentasuna** ez bazuen ere, haragi sendoko emakumea zen, **Lerdentasuna** nabarmentzen zion traje iluna zeraman. Migel Angel Mintegi

Oinaren proportzio hori bera emakumearen **lerdentasunari** aplikatu zioten, eta ezer baino lehen, altueraren zortziren batekoa egin zuten kolomaren diametroa, itxuraz airosoagoa izan zedin. Santiago Iruretagoiena

Urrutiratzen ikusi duzu, sahats abaildu baten **lerdentasunaz. Eider Rodriguez**

Eiffel dorrearen arintasun eta **lerdentasuna** eman nahi izan dio Fosterrek lanari. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Izan ere gorputz **lerdentasunaren** eredua behin eta berriz goraipatzen da. Berria - Euskal Herria

---

## **lerdetsu** *izond* lerde asko dariona.

Hiru aho **lerdetsu**, letagin horixketatik zintzilika hari lingirdatsuetan listua zeriela. Iñaki Mendiguren

Haitzezko harpeetara ihes egiten zuten, basurde **lerdetsuaren** edo lehoi indartsuaren etorreran. Xabier Amuriza

Agure **lerdetsu** horiei egurra emateko. Alberto Ladron Arana

Letrajale **lerdetsu** horietakoa, klasean aipaturiko goiti-beheitiez galdezka, bibliografia eske, koipe-jario. Xabier Mendiguren Elizegi

· Haragi hura guztia babesik gabe agertuko zen, hanpatua, **lerdetsua**, likits samarra. Monika Etxebarria

---

## **lerdo** 1 *izond* mozoloa, motza.

-Ez **lerdoa** izan, Alazne. Fernando Morillo

-Mutil **lerdo** horrek mesede handia egin digu. Joanes Urkixo

**Lerdoa** ni: nori deituko tuntuna, eta nitaz errukitzeko eta trufatzeko askoz ere motibo gehiago zituen bati. Anjel Lertxundi

Nork? -Gaizkak egin zuen orain galdera **lerdoa**. Xabier Mendiguren Elizegi

Zure liburu **lerdo** horretan irakurri duzu hori? Aitor Arana

Hori ote da arrazoia hizkuntza idatziari halako begirune **lerdoa** izateko? Karlos Zabala

**Lerdoen** gisara burlaz eta histaz irri-ajataka. Fernando Rey

Eta pentsatu zuen **lerdoarena** egiten ari zela. Unai Elorriaga

Haiek espero zuten Goylek, ia maltzurra bezain **lerdoa** izanik, huts egingo zuela. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan)

**Lerdo**-aurpegiko gazte mordoa, garagardo-baso baten truke non-nahi gitarrari zarata jasanezina ateratzeko prest zeudenak. Fernando Rey

---

## **lerdokeria** *iz* mozolokeria.

Zukuak, gimnasia eta **lerdokeriak**. **Lerdokeria** latza dela gaixoak bezala bizitzea, gero azkenean sano-sano hiltzeko. Iñaki Segurola

-Alex, utzi **lerdokeriak** eta garbiago hitz egin ezak. Fernando Morillo

---

## **lerdotu**, lerdo(tu), lerdotzen da/du *ad* lerdo bihurtu.

Hala jokatu baitu beti fanatizatu edo fededundu gabeko jendeak: komenentziara eta ez besterik (latza da esaten jardun beharra ere: hortik pentsatu noraino **lerdotu** garen). Iñaki Segurola

Autokritika faltak **lerdotu** egin zaituzte. Jon Alonso

---

## **lerra** 1 *iz* lerratzea.

Gune frango hormatuak ziren eta biziki **lerra** handia bazen lekuka [autobidean]. Herria

Autobidea ere arrunt zuritua eta gaitzeko **lerrarekin**. Herria

Bagoaz, **lerra** eta **lerra**, gero eta lasterrago S.S.ak ondoan ditugu akuilatzeko. Marzel Etxehandi

· Trinket zola biziki **lerra** zen. Herria

Lurrean sigi-sagaka elkarturik **lerra** eta bihurdika zebiltzan bi sugegorri. Itxaro Borda

**1a** (izenondo gisa)

Trinket zola biziki **lerra** zen. Herria

**2** ***lerra-itxigailu*** *iz* kremailera.

1914an Witcomb L. Hudson izeneko jaun batek asmatu zuen, Chicagon, behin eta berriz, aspertu gabe, gure arropetan gora eta behera erabiltzen dugun **lerra itxigailua** edo kremailera. Pello Salaburu

**3** ***lerra-joko***

Aste huntan guzian, bada mugimendu Miarritzeko itsas-hegi hortan, uhainen kaskoz kasko **lerra** -jokoetan trebe diren jokolari asko bildurik, "Reef Biarritz Surf Trophée" lehiaketaren karietarat. Herria

*Surf* itsas-**lerra** jokoak badu gero eta arrakasta gehiago. Herria

**4** ***lerra-kirol***

Irailaren 26an, igande osoan, **lerra kirolak** (surf, roller, skate...) eta euskal mundua uztartuko dira. Herria

**Lerra kirolen** merkatua. Herria

**Lerra kirolen** ekonomiak leku handia du Lapurdi kostaldean. Herria

Lapurdiko eta hego Landesetako **lerra kirol** sektoreko afera zifra bilduz 800 Milioi euro (5,2 miliar libera) pasatuak dira. Herria

Asmakuntza tekniko bat pikoan eman dute alabaina, surf edo elur **lerra kiroletan** balia daitekeena. Herria

Ez zuten aro xarmantagorik ukaiten ahal, itsas hegiko **lerra kirol** erakusketa horretan. Herria

**5** *lerra-leku* ik **lerraleku**.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lerra jokoetan** (3); **lerra kirol** (6); **lerra kirolak** (4); **lerra kirolen** (5); **surf lerra** (3)

---

# lerrabide *(orobat **lerra bide**) iz* lerratzeko bidea.

Dei bat dugu bakarrik federakuntzako president berriari egiteko: zer egiten ahal den zinez herrietan, pilota bere **lerrabidetik** ateratzeko? Herria

Proiektuak ez dituzte eskas, hala nola neguan **lerra** bidetarat joaitea, eta beste bi ateraldien egitea primaderan. Herria

---

# lerradura **1** *iz* lerratzea.

Harat-honatak eta azentuen **lerradurak** badaude Ortega-ren pentsamenduan. Joxe Azurmendi

Sortzen ari den erakundearen aldeko **lerradura** gertatzen da, eta bere lastertasuna eta eremua desintegratzen ari den gizartearen kolapsoaren erritmoak erregulatzen du. Iñaki Mendiguren

**2** geologian, geruzen arteko lerratzea.

Txostenak agerian uzten du, halaber, **lerradurak** izateko arrisku handia badagoela: "Magalaren baldintza hidraulikoak aldatzen badira horma eraikitzearen ondorioz, arazoak sor daitezke, irristatzeko arriskua duen eremuan baitago. Edurne Elizondo

Geologian, geruza batean **lerradurak** izateko arrisku faktorea kalkulatzeko, geruzari bere horretan eusten dioten indarrak zatitu egin behar dira behera bultzatzen duten indarrekin. Edurne Elizondo

---

# lerragune **1** *iz* bertan lerratzeko arriskua duen gunea.

Autobus hori berria zen, bidea bere elurretik garbitua, **lerragune** batzuekin halere han hemenka. Herria

**2** bertan lerra-kiroletan aritzeko prestaturik dagoen gunea.

Portillon elur **lerragunean** barna, 3 kilometrako tunel bat eta 28 bihurgune lazgarrien ondotik, agertu zauku Euskal Herria iduriko bazter berdetsu ederra. Herria

---

# lerrakada *iz*

Hirugarren **lerrakada** bat ere altxatu behar dut. Herria

---

# lerrakera *iz* lerraketa.

Bedeinka dezagun, beraz, izadia, berorrek eman baitizkigu **lerrakera** jazarrezinak eta gure bihotza jarri **lerrakera** horien erregela eta balazta. Andres Urrutia

Nola aurkaratu gertaeren haria edo ohituren **lerrakera** oharkabea? Andres Urrutia

---

# lerraketa *iz* lerratzea, zerbait beste zerbaiten gainean astiro higitzea. • *irud/hed*

Aldakuntza faktoreek, beti, **lerraketa** bat gertarazten dute adieraziaren eta adierazlearen arteko erlazioan. Isabel Arrigain

Nahikoa da oro har egiaztatzea ideiaren eta ikurraren arteko lotura laxotu egin dela eta **lerraketa** bat gertatu dela haien erlazioan. Isabel Arrigain

Banako sinkronikoen **lerraketa** bat gertatu dela agertzeaz ez dugu inondik ere azaltzen. Isabel Arrigain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erlazioaren lerraketa bat** (4); **lerraketa bat gertatu** (3)

---

# lerrakin *iz* oinetako gisa jartzen den irristailua. ik **lerrazkin**.

Arratsalde partean "roller" deitu **lerrakinak** jantzirik 7 kilometro eginak zituzten 250 gaztek nahiko hazkurri eta edari aurkitu dute besta horretan. Herria

---

# lerrakor **1** *iz* erraz lerratzen dena.

Alta, euria jeuts-ahala ari, lehen denboraldian, bainan baloina beti **lerrakor** izanez hutsak egin dituzte denek. Herria

Duda eta pentsamendu **lerrakorra** ukan dezakezu edozein gaitan, eszeptiko aseptikoek nola. Itxaro Borda

Jainkoak dohainik emandako graziaren bidez ez bada lehenago giza borondate **lerrakorra** bere onera etortzen. Askoren artean

**2** bertan lerratzea erraza gertatzen dena. ik **irristakor 2**.

**2** bortan lerratzea erraza gertatzen denak. ik **irristakor 2**.

Elurrez estalitako zelai **lerrakorrean**. Herria

Bestalde, eta aski aro txarra izanez, autobidea **lerrakor**, hiruzpalau egun barne hogoi bat ixtripu izan dira. Herria

Erraiten ari da El Acebo herrira heldu aitzin, patar xut arras **lerrakor** eta arriskutsu bat badela. Piarres Aintziart

Lauzak **lerrakorrak** baitziren. Marzel Etxehandi

Leku biziki lanjerosak dituk, lohitsuak, **lerrakorrak**. Michel Oronoz

---

## lerrakuntza *iz* lerraketa.

Ez da [...] paradoxa bat gehiago, eta bai kopia bat edo jarraipena soil, tenore horretantxe, XIX. mendearen hondarrean, karakteristika berberekin Frantzian agitzen ari den **lerrakuntzarena** eskuin patriotarantz. Joxe Azurmendi

---

## lerraldi *iz* lerratzea, hutsegitea. ik **irristaldi**.

Nahita aipatu zuen txostena, ez zen **lerraldi** bat izan, solaskidea nor zen eta solasaldia ez aurrera ez atzera egiteko zorian ikusirik, irtenbiderik egokiena zezenari adarretatik heltzea iruditu baitzitzaion. Migel Angel Mintegi

**Lerraldi** edo hanka-sartzerik tikienagatik ere kargu hartzeko prest. Aingeru Epaltza

---

## lerraleku *(corpusean **lerra leku** soilik)* *iz* irristalarientzako lekua. ik **lerrategi**.

Oraingo **lerra** lekua bikoiztu nahi lukete, parte bat nazio arteko lehiaketentzat eta bestea josta lekutako erabiltzeko gisan. Herria

---

## lerrarazi, lerraraz, lerrarazten *(orobat **lerra arazi** g.er.)* du *ad* lerratzera behartu. ik **irristarazi**.

Neskak niri lagundu nahi nonbait eta, Louvreko eskulturak ezagutzen ez ditudanez, nire roboten aldera **lerrarazten** du gonbertsazioa. Joxe Austin Arrieta

Uste horretara **lerrarazten** gaitu hain zuzen bilduma honetako gutun guztietan ageri den gisa horretako akatsen ugaritasunak. Jon Muñoz

Oinaze eternal **batera** lerrarazi nahi banauzu. Jon Muñoz

Deskriptzio poetikoen ondotik, orain, datu prosaiko batera **lerrarazi** nauela errealitateak. Piarres Aintziart

Bide hori [...] ezinbertzekoa izaten dela, bai usu eragintza handienekoa ere, neska nahi delarik galbidera **lerrarazi**. Jon Muñoz

Gure arimak amoltsutasunaren zirrara eztietara **lerraraziak** zituen lilura halabeharrezko hura. Jon Muñoz

Begietara so ginaudela, Arantxak abantailoski ordezkatzen ahalko ninduela zioen bitartean, esku ahurra papoan **lerra** arazten zidan. Itxaro Borda

---

## lerrategi *iz* lerralekua.

Angelun, Barra auzoguneko **lerrategian**, "Les Trois Mousquetaires" ikusgarri berezia, Errusiatik etorri artixta batzuekin. Herria

Ortzirale aratsean eta larunbat aratsaldean, ihauteria-besta Angeluko **lerrategian**. Herria

---

## lerrati *iz* lerratzeko joera duena.

Eta lurrak eguzkiaren igurtzi beroz uzta guztiak berri ditzan eta bizidunen belaunaldiak lora daitezen eta eterraren su **lerratiak** bizi daitezen. Xabier Amuriza

---

## lerratoki *iz* irristailuekin lerratzeko antolaturiko tokia. ik **lerrategi**.

Jokalariak **lerratokian** baino gehiago lerratu eta lurrera erortzen ziren, hastapenetik beretik. Berria - Kirola

Bad Reichenhalleko izotz-hockey taldeak **lerratokian** egitekoa zuen trebakuntza saioa ezeztatu zuen ezbeharra gertatzetik ordu erdi bat lehenago. Berria - Mundua

Lurra **lerratoki** zelaiak bezain hormatua. Eneko Bidegain

---

## lerratu, lerra(tu), lerratzen **1** da *ad* zerbait beste zerbaiten gainean astiro higitu.

Bat-batean, haren gibeleko erridau xuriak **lerratu** dira, bi serora klarisa agertzen zaizkigula eta gero laster gordetzen. Piarres Aintziart

Euri-tantak leihoko kristalean behera nola, hala **lerratzen** zitzaizkion egunak bata bestearen ondoan eta jario etengabean. Mirentxu Larrañaga

Berriz ere manten artean **lerratu** nintzen, oheko epeltasun sorgorgarrian murgilduz. Alberto Ladron Arana

Malkoak **lerratu** zitzaizkion, hainbeste denboraz metatu samintasuna haizatuz. Elena Touyarou

**2** irud/hed

Semmmering-en, lera gainean **lerratzen** zenean, jendea harengana jiratzen zen, harriturik. Eduardo Matauko

Mikel Strogoff eta biak azkar **lerratu** ziren izotz bankuaren gainazalean aurrera. Karlos Zabala

Orthezeko harresietatik beheiti **lerratu** nintzen bi egun geroago, soka baten laguntzaz. Aingeru Epaltza

Hura ikusi orduko, besoetara **lerratu** nintzaion, hunkiduraren eta beldur hotzaren mugetan dilindan. Itxaro Borda

Ez gaitiztek nehoiz harrapatuko! -isiltasun une **lerratu** zen bien artean. Itxaro Borda

Ideia hori aise **lerratu** baitzitzaidan arimara. Jon Muñoz

**3** astiro higitu.

Bittor alimaleko labana zorrotza zetxikala esku batean, amaren eta Agustinen ganbarara **lerratu** zen, ezko-argia bestean. Itxaro Borda

Lurreraino **lerratu** zen oihala, portzelanazkoa zirudien gorputza agerian utzirik. Migel Angel Mintegi

Begiak egunkarietara **lerratu** zitzaizkidan berriz. Aingeru Epaltza

Hara: **lerratzen** noa emeki-emeki uraren hondora, beldurrerantz. Monika Etxebarria

Arrats hartan tenperatura zeropera **lerratu** zen. Itxaro Borda

Afaltzen ari ginen bitartean, politikaren alorrera **lerratu** zen pixkanaka elkarrizketa. Juan Kruz Igerabide

Agure Jauna iraganaldira **lerratu** zen isil-misilean. Mirentxu Larrañaga

Isilune bat, emakumea ametsera **lerratu** da berriz. Monika Etxebarria

Kalifornian batera eta bestera ibilia nintzen tarte horretan guztian, apurka-apurka galbidera **lerratzen**, eta ez nuen adorerik eduki telefonoa hartu eta deitzeko. Oskar Arana

Euskalduna agrafotzat salatzen duenak "izaera" kontuetara **lerratzen** du auzia, hots, berezkotasunera edo giza naturara; ez zirkunstantzietara, hots, historiara. Bernardo

Atxaga

Oraingoan ere, zortea alde **lerratu** zitzaion Cesarri. Harkaitz Cano

• **4** du *ad* zerbait beste zerbaiten gainean astiro higiarazi.

Eskuin besoa, beraz, eskailerako esku-karrilean **lerratzen** du, sorbalda eta buruaren artean berrogeita bost graduko angelua osatuz. Harkaitz Cano

Mahai gaineko argazki batera luzatu zuen eskua gobernadoreak, ertzeetako zilarrean **lerratu** zituen atzamarrak. Marcosek garondoan hasi eta, bizkarrezurretik, gerriraino **lerratu** zion hatza. Koldo Izagirre

Beherantz **lerratu** zuen neskatoaren sorbalda-hezurra inguratzen zuen esku-ahurra. Ibon Uribarri

Erpurua billeteen ertz maiztuen gainetik **lerratu** nuen. Alberto Ladron Arana

Aldika-aldika, eskua maindireen azpitik **lerratu** eta une laburrez zakila ukitzen dut. Oskar Arana

Emeki-emeki, burukoaren azpian ezkutatua nuen pistolarantz **lerratu** nuen eskua. Alberto Ladron Arana

Honek bostekoa estutu eta bost liberako lau txanpon **lerratu** zizkion, inork ikusi gabe, belarrira honela xuxurlatu ziola: [...]. Karlos Zabala

Handik goiti, gauak [...] bere logika ezarri zigun, elkarrenganako distantzia laburtuz hizketagaiak intimotasunera **lerratu** bezala. Aingeru Epaltza

Amak agur egin eta bakarrik gelditu nintzelarik, plazan barrena **lerratu** nituen begiak. Alberto Ladron Arana

**5** itzuri.

Hein batean, neroni izan nintzen neure nekeen errudun, ortzegunean oker tiki bat **lerratu** baitzitzaidan bi erreportaiak idaztean. Aingeru Epaltza

Horrek, lehen hitzen misterio kutsuak eta bazkaltiar gehienei **lerratu** zitzaien irri apalak burua nahasi zidaten. Aingeru Epaltza

Ustekabetua, neure ezpainei baiezkoa **lerratu** zitzaien. Aingeru Epaltza

Baina bizpahiru "txit! txit!" **lerratzen** zaizkio, lehenagoko Luhusoko trenak egiten zuen bezala azken ke txar bat ximiniatik eskapatzen zitzaionean. Piarres Aintziart

• **6** da *ad ipar* irristatu.

Sotana altxatu zuen, eta erreka gainditzean arta handiz ibili zen, **lerratu** gabe. Elena Touyarou

Trabeska ibiliz, **lerratu** gabe egin daiteke jaitsiera. Piarres Aintziart

Erreka batzutan sartuz belaunetaraino, **lerratzeko** irriskuan... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eta bere gorputza **lerratu** zen, **lerratu**, zirristaka-zirristaka, hamar metro beherago. Daniel Landart

Jendeen ustez, putzuaren gaineko aldetik pasatzen ari zelarik, **lerratu** zitekeen eta erori. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Teilatutik **lerratu** eta lurrerat erori da Jeloseko Zobur Dithurbide nausi xaharra, bospasei metretarik. Herria

Gure behia Xokoerdi pentze konkorrean, **lerratu** eta zazpi metrako eroriko bat egin eta tanpez hil, hor berean. Herria

**7** da/du *ad* lerrokatu.

Auzitegi Nazionaleko beste giltzarrietako bat Zigor Salako presidentea da, Javier Gomez Bermudez, argi eta garbi joera kontserbadoreenekin **lerratua**. Berria - Euskal Herria

Emakume arropak ohe gainean **lerratu** zituen: zapatak, galtzerdi luzeak, soinekoa... Harkaitz Cano

Leiho **ondoan** lerraturik zituen Cutty Shark botiletatik zurrupada txikiak edaten hasi zen Harkaitz Cano

**8** (era burutua izenondo gisa)

Saizarbitoriak, Tabucchik, Alonsok, Alberdik... denek diote, historiagilearen lana beti izaten dela **lerratua** eta motza. Hasier Etxeberria

Horrez gain, Hondarribiko Udalak jarrera «jarrera **lerratua**» izatea leporatu dio Iñigo Lamarcari. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **batzuetara lerratu** (4); **behera lerratu** (4)
> **behera lerratzean** (3)
> **aise lerratzen** (9); **aldera lerratzen** (5); **behera lerratzen** (11); **behera lerratzen zitzaizkion** (3)

---

# lerratze *iz* astiro igitzea.

Kastelaren mateletan, menturaz, malkoaren **lerratze** oiharra adi zitekeen. Itxaro Borda

Denbora guztian erortzen ari zen hauts haren **lerratze** zehazgabe beti jarraitua baizik ez zen entzuten. Josu Zabaleta

Koadratzea, beraz, markoaren eginkizuna da, haren mugikortasuna, bere baliokidea duen leihoaren **lerratze** etengabea. Josu Zabaleta

Soziala izan zein intelektuala, politikan, artean zein zientzian gertatu, iraultza orok eskatzen du, lehenik, posible denaren **lerratze** bat, sineste-jokoaren berrantolatze bat. Juan Garzia

Objektiboak *more geometrico* tratatzen du argia, bere egikeraz helburu gisa dituen perspektiba moduetarako, eta Comollik *objektibo*-tik *objetibitate*-rako **lerratze** errazegia azpimarratzen du. Josu Zabaleta

Lo gozo batera **lerratze** hura baino poztasun handiagorik ez zegoen. Ibon Uribarri

---

# lerrazkin *iz* lera moduko irristailua. ik **lerrakin**.

Iragan udan, bost euskal mendizale [...] ibili ziren Txinako Muztag Ata mendian (7546 m.), **lerrazkinez**, Pakistaneko Islamabad-etik abiaturik, Elur erdian zakurrekilako **lerrazkinak**, aintzira ormatuetan arraintzan... Herria

---

# lerro 1 *iz* norabide berean jarririk dauden pertsonen edo gauzen segida. ik **errenkada; lerrokada**.

Zaldizkoen **lerro** luzeak. Agustin Otsoa

Jaen aldean olibadiak **lerro** zuzen-zuzenetan antolatuta daude. Iban Zaldua

Aurrera begira zihoan, gas argiontzien bi **lerro** azkengabeei erreparatuz. Karlos Zabala

Auzoko denda irekien **lerro** haiek ez ziren jadanik paradisu itxi bat. Karlos Zabala

Hondar **lerro** batek -zortzi-hamar arkabuzari- gibelaldea babesten zuen, noizbehinka tiro eginez. Aingeru Epaltza

**Lerro** horizontalek hizkiak dituzte, bertikalek aldiz zenbakiak. Ramuntxo Etxeberri

Miarritze, ordea, indartsu ikusten du: "hirugarren **lerro** aparta du, eta maila handikoa da talde osoa". Berria - Kirola

**Lerro** urdinak, frantsesenak alegia, musika-banda eta guzti, gero eta hurbilago. Aingeru Epaltza

Uko egin zion **lerro** nazi-faxistetan borrokatzeari eta, ondorioz, kontzentrazio-esparru militar batera bidali zuten. Koldo Biguri

Frontea zatikatu eta zulatu egin zuten, **lerro** guztiak hautsiz: historiarena, bizitzarena, maitasunarena eta heriotzarena. Jon Maia

Maria bere familiakoarekin lehen **lerroetan** urrats aisean zihoan. Piarres Aintziart

Hirunakako hiru **lerrotan** doaz. Harkaitz Cano

Orduan denak **lerrotan** emaiten ziren, eta kanpalekuan sartzen ginen urrats neurkatuan, xut zeuden postako soldadoei agurra eginez. Marzel Etxehandi

George Pickard (estatubatuarra), **lerroko** patinaren ordezkaria. Berria - Kirola

**2** irud/hed

Historialariari dagokio aurkitzea eboluzio baten **lerro** jarraitua. Xabier Arregi

Jaunek [...] berreroste-eskubidea deitu zitzaiona ezarri zuten; gure ohiturek hitz egiten dute horretaz; hasieran **lerro** zuzenean ordaintzen zen, eta gero, usadioz, albo-**lerroan** baizik ez zen ordaindu. Iñaki Iñurrieta

Mikelek baxu **lerro** bat markatzeari ekin zion, baxu **lerro** sendoa, obsesiboa. Unai Iturriaga

Konposizioa birmoldatu egin beharko litzateke, eta hala, **lerro** melodikoa bere horretan utzita, gogotik irabaziko luke handitasun koralean. Askoren artean

Jo dezagun, esate baterako, batbederaren **lerro** ideologikoan ere susmagarriak ditugun eremu labainago horietako batera. Iñigo Aranbarri

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hurritz **lerro** baten ondora iritsita hiru alanbre paralelo topatu ditu. Pello Lizarralde

**Zumar** lerro lausoen atzean. Karlos Zabala

Orga **lerro** luzea Donibanerantz bideratu zen. Elena Touyarou

Etxe **lerro** bat hertsiki elkarganatua. Koldo Izagirre

Kanpamentuko muga, herri txikiaren lehenengo etxeetan berme harturik, eten ezineko zaintzaile **lerro** baten ardurapean gelditu zen. Karlos Zabala

Lau **lerro** soldadu, zutik edo zaldi gainean, atzean jarri zitzaizkien, ihesaldia guztiz oztopatzeko. Karlos Zabala

**Ikerketa** lerro guztiak irekita daude. Txema Ramirez de la Piscina

Partida on bat Tolosan, Berasaluzeren tanto **lerro** eder batekin. Herria

Nahi zutenentzat ere mintzaldi **lerro** andana: Begoña Errazti EAko lehendakariarekin bezala, Unai Ziarreta Idazkari nagusiarekin ere eta ere Bretainiatik [...]. Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goizeko ordu bietan, bi argi **lerro** piztu ziren zerumuga itzaltsuan. Karlos Zabala

**5** (kokainaz-eta mintzatuz)

Bi **lerro** egin zituen karnetaren gainean. Unai Iturriaga

Tabernetako komunak dira komunio horren tenpluak, eta zulo haietan, Ostia Biribila gurtu beharrean, karnetarekin egindako **Lerro** Zuzena gurtzen dugu. Iñaki Segurola

Telebista jasanezina da alkohol eta marihuana barik, etxea batzea ezinezkoa speed **lerro** pare bat barik. Sonia Gonzalez

Susok koka **lerro** pare batez zuritu zituen sudur zuloak. Paddy Rekalde

**6** errenkada batean idatziriko hitzen edo ikurren saila.

Bi **lerro** idatzi dizkizut, baina ez dakit orain zentzurik baduten. Ramon Saizarbitoria

**Lerro** gutxiko eskutitz bat diktatu zion ahopean. Karlos Zabala

**Lerro** bat ere ez dakite zuzen idazten. Aingeru Epaltza

Egungo Historia liburuetan hamar **lerro** ematen zaio Pearl Harborkoari. Edorta Jimenez

Kontaerak, aldiz, beste hamar **lerro** ditu. Edorta Jimenez

Horren ostean, hamabi-hanalau **lerro** ezabaturik dira. Edorta Jimenez

Dozenaka orri betetzen dituzten **lerro** estuetan. Aingeru Epaltza

Bestela, talde edo erakunde faxista bakoitzari eskaintzen zaizkion **lerro** kopuruak ezberdinak dira. Edorta Jimenez

**Lerro** bien muturrak baino ezin ziren irakurri, baina aski nuen horrenbestez. Juan Garzia

Eskuzko **lerro** bakan haietan. Xabier Olarra

**Lerro** hautsietan idazte hutsak ez du, bestalde, esaldi bat, besterik gabe, poema bihurtzen. Joxerra Garzia

Eta jakingo dute **lerro** artean irakurtzen. Julen Gabiria

**Lerro** hauen bidez jakinarazi nahi dizugu [...]. Arantxa Iturbe

Hitzez hitz eta **lerroz lerro** irakurri du testua. Pello Salaburu

**7** (ahapaldi batekoa)

Bi puntuko bertsoa **lerro** bakarrean eman zitekeela asmatzen lehena. Xabier Olarra

18. koplaren azken bi **lerro** hauek. Piarres Xarriton

**Lerro** bakoiti guztiak segidan irakurri arte. Joxemari Urteaga

**8** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lerro** andana horretan denak nahas-mahas emanak dira: jendeak, sorginak, debruak, izpirituak eta abar... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Egin zuen letra hura **lerro** pasan irakurtze irudi bat, ez egon arren irakurtzeko egoeran. Jon Muñoz

**9** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bertso **lerro** guztiak osatzen duten bi hizkiek ez dute inolako esanahirik ezkerretik eskuinera irakurrita. Iñaki Arranz

Gertutik begiratu zion etiketari, zenbaki **lerro** luze bat aztertzen ariko balitz bezala. Koro Navarro

Gilderren bertso asko irakurri ditut, baina ez dut poesia **lerro** bakar bat ere aurkitu haietan. Xabier Olarra

Inoiz ez zuen haren olerki **lerro** bakar bat irakurri. Anton Garikano

**10** dimentsio bat nagusi den hedadura jarraitua.

Beso apur bat argala zen, larruazal fin-finekoa, zain urdinen **lerro** lausoak agerian zituena. Karlos Zabala

Marmitak aldats behera ikusi zituen, esnezko **lerro** zuriak marraztuz. Joxemari Urteaga

Errailen **lerro** gurutzatuekin. Lopez de Arana

Ural mendiak hiru mila verstako **lerro** bati jarraituz hedatzen dira Europaren eta Asiaren artean. Karlos Zabala

Mendixkek zeru ertzaren **lerro** patxadazkoa marrazten zuten. Karlos Zabala

Lehenengo teilatuen **lerro** iluneraino iristen ziren. Karlos Zabala

**Lerro** zuzenak deshumanizaziora eramaten gaitu. Harkaitz Cano

**Lerro** biribil batek nola erakartzen zituen senti zezakeen, eta nola **lerro** hori kiribil gero eta txikiagoetan biltzen ari zen. Karlos Zabala

Egirletara doan autobiaren **lerro** finetik baserria kokatzen saiatu da. Urtzi Urrutikoeetxea

Marjinaren **lerro** gorria, koloregabeturik, arrosa koloreko nahasketa bilakatua zen. Monika Etxebarria

**Lerro** ilun batzuek jana zioten aurpegiko azala. Juan Garzia

**11** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lerro**-espektroetan, denborarik gabeko osagaien ikuskera behetik-gorakoan, garaiera handieneko lerroek edo **lerro** multzoek islatzen dituzte formanteak. Lourdes Oñederra

**12** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gelako atearen beheko zirrikitutik argi **lerro** bat kanporatzen da. Pello Lizarralde

Hamar akreko soro batean alderik alde sutauts **lerro** bat egin zuen. Xabier Olarra

Hona hemen gure sailkapenerako erabili ditugun indar **lerro** nagusiak. Iñaki Arranz

Hona beste denbora **lerro** narratibo bat. Unai Iturriaga

Gizon gazte bat, goiko ezpainaren gainean bibote **lerro** batekin, barrura sartu zen. Juan Kruz Igerabide

**13** geometrian, puntuz osaturiko lerroa.

**Lerroa** puntu kopuru infinitu batez osatua da; planoa **lerro** kopuru infinitu batez. Juan Garzia

**Lerro** hori zentrotik pasatuko da zirkulua bi hemisferio berdinetan banatuz. Santiago Iruretagoiena

Eguzkia, Artizarra eta Lurra **lerro** berean jartzen direnean gertatzen da fenomeno astronomiko hau. Berria - Gaiak

Karratu horretan, **lerro** diagonal bat egingo da angelu batetik bestera. Santiago Iruretagoiena

**Lerro** zuzenak eta makotuak, parabolak eta elipseak. Imanol Zurutuza

Bi punturen artean **lerro** zuzen bakarra egon daiteke. Xabier Kintana

Elkar-ebakigunera zihoazen **lerro** zuzenen konbergentziari. Juan Garzia

Elkar ukitzen ez zuten plano eta **lerro** paraleloak. Imanol Zurutuza

Bi belarrien artetik igarotzen den irudizko **lerro** baten puntu batetik. Irene Aldasoro

**Lerro** guztiak zirkulu baten zentroa den puntu batera biltzen direla. Santiago Iruretagoiena

**Lerroen** eta planoen neurtezintasun- eta neurgarritasun-propietateak, **lerro** arrazional eta irrazionalen existentzia, eta, oro har, Euklidesen X. liburuak daukan guztia. Xabier Kintana

**14** errepide edo autobide bat zatitzen den zerrendako bakoitza, ibilgailu baten zabalera duena. ik **karril**.

A-8 autobideko hiru **lerro** moztu zituzten. Berria - Harian

**Lerro** bat baizik ez da idekia, aldizkatu beharrean dira bi sentsuetan dabiltzan ibilgailuak Hots, batzuetan norabide batean izanen lirateke bi **lerro**, eta besteetan beste norabidean, inoiz ez bi norabideetan. Herria

Norabide bakoitzak **lerro** bakarra izango du. Berria - Harian

**15** ***lerro bakar*** *adlag ipar* errepide edo autobide batean, lerro bakarrean

Autoek **lerro** bakar joan beharko dute, batean goiti eta bestean beheiti, usaiako bi lerroak aldizkatuz beraz. Herria

Arte hortan, auto eta kamiun **lerro** bakar ibiliko dira bi eskualdetarat. Herria

**16** ***lerro-lerro*** *adlag ipar* lerrokaturik, elkarren ondoan.

200 harri, **lerro lerro** ezarriak. Herria

Amerikanoen zilarrezko hegazkinak ikusi genituen, lertsunak iduri, **lerro-lerro**, eguzkitara, Biarritzeko hiriaren bonbardatzera. Piarres Xarriton

Bospasei ehiztari, belar luzeen erdian **lerro lerro** joaki, arras emeki. Piarres Aintziart

Oren bat huntan baginabiltzan, goiti doan bide xendra hertsi batean, pago oihan baten erdian, hiruak **lerro lerro**. Michel Oronoz

Donibane Lohizune eta Biriatu arte hortan, laster egin da gaitzeko soka luzea, kamiunak **lerro-lerro**, denak tokiaren gainean egon behar. Herria

Huna hemen **lerro lerro** azken egun horietan iragan diren partiden emaitzak: [...]. Herria

**17** ***lerroz lerro*** lerro-lerro.

Zazpi zaborrontzi kale bazterrean (zazpiak **lerroz lerro**) taparik gabe, ahoa euliei zabal zabalik tripazain. Patziku Perurena

Mendiaren azken bizkarrek sator meta alimale batzuk dirudite, **lerroz lerro** eraikiak, ordokiak eremu osoa berdindu aitzin. Piarres Aintziart

Hango burdin hari guztien gainean zopiloteak ikusten zenituen pausaturik, **lerroz lerro**, zelatan, zakurren bat goseak noiz hilko, astoren bat noiz lehertuko edo zaldiren bat noiz akabatuko zain. Joxe Austin Arrieta

**18** *mendi lerro* ik **mendilerro**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**ardiak lerro lerro** (5); **atzeko lerro** (5); **aurreko lerro** (5); **azken lerro** (4); **bertso lerro** (12); **gorputz lerro** (4); **idatzitako lerro** (12); **idatzitako lerro hauek** (4); **ikerketa lerro** (6); **kanpoko lerro** (6); **lehen lerro** (16); **lerro andana** (4); **lerro artean** (42); **lerro arteko** (6); **lerro artetik** (7); **lerro bakan** (8); **lerro bakar** (34); **lerro bakar bat** (19); **lerro bakarra** (9); **lerro bakarrean** (9); **lerro bat egin** (4); **lerro bat egingo** (5); **lerro bat idatzi** (4); **lerro beltz** (5); **lerro berdea** (6); **lerro berdearen** (7); **lerro berean** (20); **lerro berri** (4); **lerro berriak** (5); **lerro eder** (6); **lerro ezarri** (5); **lerro gorria** (7); **lerro hauek idazteko** (41); **lerro idatzi** (4); **lerro jarri** (4); **lerro labur** (4); **lerro lerro** (73); **lerro luze** (12); **lerro nagusiak** (7); **lerro osoa** (10); **lerro paralelo** (4); **lerro pare** (15); **lerro pare bat** (12); **lerro sendoa** (4); **lerro urdin** (4); **lerro urdinak** (4); **lerro xume** (5); **lerro zuzen** (33); **lerro zuzen bakarra** (6); **lerro zuzen bat** (4); **lerro zuzen baten** (5); **lerro zuzena** (10); **lerro zuzenak** (11); **lerro zuzenaren** (5); **lerro zuzenean** (16); **lerro zuzenen** (7); **lerroz lerro** (48); **mendi lerro** (9)

**atzeko lerroa** (24); **azken lerroa** (16); **erdiko lerroa** (5); **gibeleko lerroa** (6); **gudu lerroa** (4); **kanpoko lerroa** (26); **kanpoko lerroa indartzeko** (5); **kintzeko lerroa** (5); **kontrol lerroa** (6); **lehen lerroa** (30); **lehenengo lerroa** (4); **lerroa indartzeko** (9); **lerroa osatzeko** (6); **luzeko lerroa** (5); **tantoko lerroa** (12)

**atzeko lerroan** (33); **aurreko lerroan** (10); **aurreneko lerroan** (7); **azken lerroan** (8); **defentsa lerroan** (4); **dohatsuen lerroan** (5); **entsegu lerroan** (5); **gibeleko lerroan** (6); **haundien lerroan** (6); **hiru laurdenetako lerroan** (6); **kanpoko lerroan** (42); **lehen lerroan** (135); **lehen lerroan jarri** (7); **lehenengo lerroan** (10)

**atzeko lerroaren** (7); **kanpoko lerroaren** (10); **mendi lerroaren** (4)

**bertso lerroen** (7)

**aurreko lerroetan** (8); **azken lerroetan** (11)

---

# lerroalde *iz* testuez mintzatuz, lerro jarraituen multzoa. ik **paragrafo**.

Guialdoren bere ahaideen eta adiskideen konbertsioa deskribaten duen **lerroaldea** dator ondoren. Jon Alonso

Testua osorik eta kaka-nahasterik gabe ageri zen **lerroaldez** lerroalde. Aingeru Epaltza

Eleberriak idazterakoan, «ahotsa» bilatzen du, atzetik beste **lerroalde** guztiak ekarriko dituen ahots harrapatzen zaila. Berria - Kultura

Letrek, esaldiek, **lerroaldeek**, liburuek belztua. Jon Alonso

Baina ohartu al zarete **lerroaldeen** luzeraz, ertzen eta zuriuneen zabaleraz, hitzen letra moldeez? Iñaki Arranz

---

# lerroaldi *iz* lerroaldea.

Hitz kateekin idatzitako soneto baten lehenengo bi **lerroaldiak** ekartzen ditugu hona, horren agergarri. Iñaki Arranz

Erran dezagun, garai hartan usu gertatzen zena, sudurra sartu ondoan liburuaren ikuspegietan, agertzetik debekatu zuela Inkisizioak, zenbait **lerroaldi** xuxendu arte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

# lerroburu **1** *iz* lerro baten burua.

Supermerkatuko gasnategian nengoen zerbitzari anderearen aiduru, hoberenetik manatzeko prest; **lerroburuan** egonagatik, frantses puru eta eder batean mintzo zen gizon heldu berria zerbitzatu zuen. Itxaro Borda

**2** prentsan, berri, artitulu edo erreportaje baten izenburua.

Beharbada hori ere aipatuko dut erreportajean: "Germaniako gizonak, Europaren mira" -hots egin zuen Del Vallek, airean alegiazko **lerroburua** marraztuz. Alberto Ladron Arana

**Lerroburuak** halaxe zioen: "Txekoslovakiako presidente Hachak Alemaniaren babesa eskatu du!!!", "Pragako biztanleek ongi etorri eman diote Reicheko armada askatzaileari!!!". Alberto Ladron Arana

*Harbidea, galbidea,* izan zitekeen gaurko **lerroburua**. Berria - Kirola

Petrolioak bereganatzen ditu komunikabideetako **lerroburuak**. Berria - Ekonomia

Beste tankerako egitura du artikulu honen **lerroburuak**. Berria - Kirola

Titulu nagusietara jota, leiho eta tartekiak albo batera utzita, ez dira egunean zortzi-hamar baino gehiago aipu markak dakartzaten **lerroburuak**. Iñigo Aranbarri

Baina, ez alkohol lainoz lausoturiko irudi haiek, ez **lerroburu** deigarri haiek ez zitzaizkion axola. Alberto Ladron Arana

---

# lerrodun *izlag* lerro bateko.

Erdian mikrofono baten antzeko idazluma egonen da eta **lerrodun** hutsune bat edukiko du, entzule jendeak mezuak idatz ditzan hor. Iñaki Zabaleta

---

# lerrogintza *iz* lerroak egitea.

Ximurra **lerrogintzan** ari zen berriz, larruzko karpeta granatea belaun gainean azpil. Aingeru Epaltza

---

# lerroka 1 *adlag* lerroetan.

Israeldarrak eta filistearrak aurrez aurre jarri ziren **lerroka**. Jose Antonio Mujika

Ehundaka jarleku zegoen **lerroka** behetik gora zelaiaren inguruan. Iñaki Mendiguren

Horrelako arratsaldeetan autobusak **lerroka** kokatzen ziren zirku-desfile bateko elefanteak bezala. Lopez de Arana

Xoraturik gelditu nintzan, hoinbertze liburu baitzen, ezin kondatuak, **lerroka**, zurubiak behar ziren gaineko lerroan zirenen eskuratzeko. Michel Oronoz

· Beste bi **lerroka** ere izanen dituzte, batean 6 tanto eta bestean 5. Herria

**2** ***lerroz lerroka***

Zaindariak, ordea, bat-bateko liluramendu hura aienaturik, egoeraz jabetu zirenean, **lerroz lerroka** jarri ziren, dantzariei begira. Felipe Juaristi

---

# lerrokada 1 *iz* lerroa, pertsonen edo gauzen ilara. ik **errenkada**.

Urrunago, uraza, tipula, porru eta apio ildoek berunezko soldaduen desfile bat ematen zuten, denak **lerrokadetan**, soka bidez landaturik. Karlos Zabala

Hipermerkatuko **lerrokada** hits batean zaudete, tetrabrik bat eskuan, zain. Jon Alonso

S.S.en xedea argi da, zeren abiatu bezain laster, [...] gure **lerrokadan** segitzen ahal ez direnak, bihotz gabe errebolbera kolpe batez lurreratuak dira. Michel Oronoz

Logelako nire ohe gainean nago eserita orain, aurrean zapata **lerrokada** bat daukat denak binaka jarrita, soldadutxo leialak bailiren. Joxemari Iturralde

Zintzilika lehortzen zeuden zigarro hosto **lerrokaden** atzean. Gotzon Garate

**2** lerro multzoa. ik **paragrafo**.

1997-1998 urteko hitzarmenaren 35. **lerrokadan** jasotakoa. Berria - Ekonomia

Etrurierazko lau **lerrokada** nahikoak dira frogatzeko etrurieraz hitz egin zuen herria oso desberdina zela. Isabel Arrigain

Harri lauza edo zurezko ohol batean, egiten zuten lehenik lau kantoinetako marrazki bat, gero **lerrokada** batzuk. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

# lerrokadura *iz* lerrokatzea.

Erlaitzaren azpiko aldean, triglifoekin bertikalean jarrita eta metopen erdian paratuta, bide edo tarteen **lerrokadurak** eta goten ilarak markatuko dira. Santiago Iruretagoiena

Erlaitzak bukatu ondoren, paretak zarpeatuko dira, baina latz eta zakar utziz, eta ondoren gainetik, zarpeoa pixka bat lehortu denean, kareorearen **lerrokadurak** markatuko dira, luzetarakoak erregela eta kordelarekin, altuerak berunarekin, eta angeluak eskuairarekin ondo markatuz. Santiago Iruretagoiena

---

# lerrokarazi, lerrokaraz, lerrokarazten du *ad* lerrokatzera behartu.

Jautsarazten gaituzte, **lerrokarazten**, kondatzen eta berriz kondatzen. Marzel Etxehandi

Jautsarazten gaituzte, **lerrokarazten**, kondatzen eta berriz kondatzen. Marzel Etxehandi

---

# lerrokatu, lerroka(tu), lerrokatzen *(259 agerraldi, 61 liburu eta 110 artikulutan)* 1 da/du *ad* lerroan jarri; lerro zuzenaren arabera jarri. ik **lerrotu**. (pertsonak)

Kanpadendetan, **lerrokatuta** lo egiten genuen; komunean, ilaran esertzen ginen. Mirentxu Larrañaga

Eskola-txirrinak jo du eta ilara bitan **lerrokatu** gara, isil-misilik, hogeina haur inguru. Mirentxu Larrañaga

Ilaran **lerrokatu** nintzen joanean zihoazen beste zaurituekin batera, eta medikuarengana joan ginen. Mirentxu Larrañaga

Atsedena akabatuta, **lerrokatzen** hasiak ginen bazkaltzera abiatzeko, baina oraindik ez ziguten emana isil-agindua. Aingeru Epaltza

Urrezko txanpon multzoak bururdiaren gainean **lerrokatu** zituen, zilarrezkoak ohe estalkiaren hutsunean utzita. Karlos Zabala

Bosnazka **lerrokatzen** gaituzte abilenak gibelean jartzen dira. Marzel Etxehandi

**2** (bestelakoak)

**Lerrokatuko** ditugu hemen etxe zenbaiten izenak: [...]. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gainean patatak, arbiak, azenarioak, tipula zuriak **lerrokatzen** zituen launaka. Karlos Zabala

Zaldiak geldirik eta elkarren ondo-ondoan **lerrokatuta**, abere azoka batean bezala. Karlos Zabala

Hona mahats ondoen zerrendak, geometrikoki **lerrokatuak**, beren adarrak hedatzen dituztela eskuin eta ezker, elkarri esku emanez bezala. Piarres Aintziart

Erdiko apalean, hamar bat mila libera zeuden urrezko txanponetan, pila txikietan metodikoki **lerrokaturik**. Karlos Zabala

**3** zerrendatu.

Ez ditugu hemen **lerrokatuko** Azpilkuetaren liburu guztiak, anitz baitira. Piarres Xarriton

Bestalde **lerrokatzen** ditu Juan Pedro Aguirre-ren titulu ospetsuak: "Comendador de la Orden americana de Isabel la Católica; [...]; exdiputado a Cortes." Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**4** aipatzen denarekin lerro bat osatu.

Kontuan hartu, berebat, pilastren eta fronteko kolomen tartean gainerako kolomak jarriko direla, berdin banatuta eta haiekin **lerrokatuta**. Santiago Iruretagoiena

Sudurra bekokiarekin **lerrokatua**, luze eta sendoa lepoa eta ezpain lodiak ongi marratuak. Ramon Saizarbitoria

**5** (era burutua izenondo gisa)

Lehenbizi, zilarraren distira biziak eta zuritasun mateak ageri ziren, erloju **lerrokatuak**, kate esekiak, mahai tresna gurutzatuak, godaletak, toxak, ezpainzapitakoak, orraziak, denak apaletan paraturik. Karlos Zabala

Eta ikusi zuten Peppone iritsi zela, bere gudaroste ondo **lerrokatuaren** aurretik. Koldo Biguri

**6** ***herri ez-lerrokatu*** blokeetatik kanpoko herrialdea.

1973an Herri Ez **lerrokatuen** Mugimenduak Aljerren egin zuen bileran. Txema Ramirez de la Piscina

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
lerrokatu gabeko herrialdeen (3)

---

**lerrokatze** *iz* lerroan jartzea; lerro zuzenaren arabera jartzea.

Zenbaketa eta **lerrokatze** luzeen, urduritasunen eta bultzakaden helburu bakarra zen, azaldu zutenez, kanpamentu bakoitzaren [...] aurrean hamarreko taldeak osatzea eta bertako bizilagun izango zirenak egokitzea. Urtzi Urrutikoetxea

---

**lerroketa 1** *iz* lerrokatzea.

**Lerroketa** hauek ez dute erremediorik, horrela gertatuko dira beti. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Ikusmenezko mozorrotzearen beste kasu bat, garrantzi handikoa, "ikusmenezko zaratáren" bidezko mozorrotzea da ( **lerroketa** egitura aleatorioa): mozorrotze hori beste edozein baino ahaltsuagoa da. Josu Zabaleta

---

**lerrokide** *izond* lerro berean dagoena.

Munnings jaunaren ahots burrunbatsua entzun dut alboko atean, **lerrokideak** izendatzen, eta pozik nago McAllister dugulako andereño. Mirentxu Larrañaga

Golaren ospakizunean Eydelie ageri zen, Deschamps eta Sauzee **lerrokide** zituen mutila. Berria - Kirola

---

**lerromakur** *izond* lerro makur baten araberakoa.

Era honetako perspektiba motarik garrantzizkoena Berpizkundean asmatu zen ihes-puntu zentraleko perspektiba [...] da zalantzarik gabe, baina perspektiba ' **lerromakurrak** " ere proposatu izan dira batzuetan. Josu Zabaleta

Berpizkundeko perspektiba linealaz ez ezik, baita berak perspektiba "sintetikoa" deitzen duenaz ere; alegia, Fouquet-engan, Uccello-rengan eta zenbaitetan Leonardorengan ere aurkitzen den sistema **lerromakur** enpirikoago eta, geometriaren aldetik, zehaztasun gutxiago edo gehiagokoaz. Josu Zabaleta

---

**lerroño** *iz adkor* lerrotxoa.

Alde batetik, lege nagusia kanbiatu dute Europa batuari eskainia denarekin untsa joan dadien eta bestetik igurumenaren aldeko **lerroño** batzu sartu dituzte. Herria

Denek igortzen giniozkan jada, xixta-mixtaka, **lerroño** batzu eta noiztenka ere, nola gerta, aprendiz bertsu batzu. Herria

Euskaraz deus gutti, edo lau **lerroño** xoko batean. Herria

---

**lerrotto** *iz adkor* lerrotxoa.

Etxola gutitan ikusten dena, hantxe dauka liburu **lerrotto** bat mahi buruan Pettanek, udako egun ahusatuagoetan irakurtzeko. Herria

---

**lerrotu**, lerro(tu), lerrotzen *(25 agerraldi, 12 liburu eta 3 artikulutan)* **1** da/du *ad* lerrokatu.

Txikitako kaligrafia saioak gogorarazi zizkion Gabini letra biribil ondo **lerrotuak** . Iñaki Iñurrieta

Berrogeita hamarren bat emazte infanteria konpainia iduri ilara bakarrean **lerrotuak** . Koldo Izagirre

Harribitxiz estaliko duzu, harribitxiok lau errenkadatan **lerroturik** : lehen errenkadan, kornalina, topazioa eta esmeralda; [...]. Elizen arteko biblia

Zaldiz datoz, borrokarako **lerroturik** , zure aurka. Elizen arteko biblia

Mahastiz **lerrotutako** lurra zeharkatzen zuten, aihen pilotxoen eta ahaztuta utzitako lukuen tartetik. Joxemari Urteaga

**2** aipatzen denarekin bat etorri. ik **lerrokatu 3**.

Baina Bilbo eroritakoan matxinatuekin **lerrotu** zen Arbex. Lutxo Egia

Ezkerreko ideologiarekin **lerrotuta** zegoelako neurri handi batean. Berria - Euskal Herria

---

**lerrotxo 1** *iz* lerro txikia.

Baina ez dakizu nolako oihal polita bidali dioten haren ahizpari [...]: urdin argia, marra estu-estuak, eta marren artean orbantxoak eta **lerrotxoak** , orbantxoak eta **lerrotxoak** , orbantxoak eta **lerrotxoak** . Jose Morales

**2** (kokainaz-eta mintzatuz)

Hik ere nahi dun **lerrotxo** bat? Unai Iturriaga

Katek **lerrotxoak** prestatu zituen lagun berriak kisketarik gabeko ateari eusten zion bitartean. Sonia Gonzalez

Pixka bat makurtu eta astiro barneratu zuen **lerrotxoa** . Unai Iturriaga

**Lerrotxo** bat edonon har daiteke, baina txute bat ez. Sonia Gonzalez

---

**lerrozuzen** *izond* lerro zuzen baten araberakoa.

Ezinezkoa den zerbait, bi alde dituen figura **lerrozuzena** den legez. Ibon Uribarri

Horien guztien kasuan zentro batekiko egiten dira mugimenduak, **lerrozuzenak** batzuk eta zirkularrak besteak. Santiago Iruretagoiena

---

**lerrun** *iz* maila.

Guztiek zuten titulu eta **lerruna** , baina Akademian, nolabait esateko, arropategian utzi beharra zeukaten beren identitatea. Xabier Olarra

Mutil batek neska bat bahitu eta maiteminduek etxe batean babesa eskatzen bazuten, etxearen jabeak ezin zion neska aitari eraman, aitaren **lerruna** goi-goikoa izanik ere. Fernando Rey

---

**lertsun** *(orobat* **lertxun** *g.er.)* *iz* kurriloa, hegazti zangaluzea.

**Lertsunek** berriz arto lekuak hobeki baliatzen. Herria

Hasten dira antzoki erdian dantzan, **lertsunen** hegaldia bailitzan. Berria - Kultura

Amerikanoen zilarrezko hegazkinak ikusi genituen, **lertsunak** iduri, lerro-lerro heldu, eguzkitara, Biarritzeko hiriaren bonbardatzera. Piarres Xarriton

Guk ikusi dugun andere hortarat itzuliz, badira oraino, erromes ala beilari, larrazken huntako **lertsunen** gisan, beren biziko bide xuxenaren keta dabiltzanak. Herria

Villalbillaz oroit naiz, elizaren dorrean **lertsunak** ikusi baigenituen, bizikletaz pasatu ginelarik gaztaroan. Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lertsun lerdena** (3)

---

**lertxun**[1] *iz* makalaren antzeko zuhaitz azal-leuna, haizekirriaren eraginez dardaratzen diren hosto txorten-luzeak dituena *(Populus tremula).*

Basoa are sarriago bilakatu zen: **lertxun** eta makalez gain, urkiak ere agertzen hasi ziren, eta, handik gutxira, oihan itsua zuten inguru guztian. Jose Morales

Rue de Verrièreseko **lertxun** batzuek erdi ezkutatzen duten hiru solairuko jauregitxoaren aurrean."Biba Luzaide" grabatu zuen nabala batekin Estatu Batuetako baso handi bateko **lertxun** lerden batean. Anjel Lertxundi

Artzain anitzek milaka eta milaka mezu, izen eta data utzi dituzte **lertxunetan** irarriak. Pello Salaburu

**Lertxun** orrikarazko koroak aurkitu izan dira Mesopotamiako hilkutxetan ere. Pello Zabala

**Lertxun** baten milaka hostoak gau-tximeleta zaurituak bezala ikaraz haizea abarren artetik lerratzen delarik. Oskar Arana

Bere burua koroatzen zuen **lertxunaren** zein orrikararen zarba eta hostoekin. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

**Lertxun** hostoa baino ikarago. Josetxo Azkona

---

lertxun[2] ik **lertsun.**

---

**lertxundi** *iz* lertxunak dauden tokia.

Bideak, basotik irtenda, aurrera egin zuen belardietan barrena, **lertxundi** txikien albotik, sahats eta aihen zahar zein gazteen aldamenetik. Jose Morales

Erreka batek, [...] hor-hemen, atzean uzten zituen mendiarteak, eta, belardietan barna hainbat itzulinguru eginik, sua bezala dirdirka eguzkitan, atzera gordetzen zen urkidi, **lertxundi** eta haltzadietan, eta pixka bat aurrerago lasterka ateratzen zen handik. Jose Morales

Pepponek **lertxundiraino** jarraitu eta gero eskuinera jiratu zuen. Koldo Biguri

---

**lertzo** **1** *iz* lohitasuna.

Baina noiz zituzten holako torrakoak Lafitten sotanek? ez baitzuen Lafittek ez ama ez gelari ez-eta herriko serorarik ere **lertzoen** eta xiloen zaintzeko. Herria

**Lertzoa** kentzera, eta agian baita granuloma bat edo beste ere; minik ez, baina masailetan halako taupada moduko batzuk sentitzen ditut. Joxe Austin Arrieta

**2** (hitz elkartuetan)

Burdin-**lertzoak** edo erretegiko hautsak dira gehienik emendatu. Herria

Zuzendari txit agurgarriak bere hortz **lertzoz** zikinak erakutsi dizkit. Anjel Lertxundi

---

**lesakar** **1** *izlag/iz* Lesakakoa, Lesakari dagokiona.

Estitxu Arozena **lesakarra**, 30 urte. Herria

Juan Malot deituriko **lesakar** batek. Patziku Perurena

Afizionatu mailan pilotari izandako **lesakar** gazte hau. Berria - Kirola

**2** Lesakako herritarra.

Hala ere, **lesakarrak** ez zuen nahi bertze gozatu bertsotan. Berria - Kultura

**Lesakarrek** bi tiraldiak irabazi zituzten. Berria - Kirola

---

**lesbiana** **1** *izond* emakumeez mintzatuz, homosexuala dena. ik **lesbiar 2.**

Emakume **lesbianak** gizarte klase guztietan daude, milaka dira, eta ideologia guztietakoak, eta ezkonduak, ezkongabeak eta amak izan daitezke. Luis Elberdin

Azken batean, sistemari ez dio askorik ardura emakumea **lesbiana** den edo ez, hura gizonaren autoritatearen aurrean makurtuz gero eta umeak edukiz gero. Luis Elberdin

Iturriagak eta Maiak **lagun** lesbianen gaia landuz eginiko saioan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Guk, alaba **lesbiana** daukan aitaren paperetik heldu behar izaten diogu maitasunari. Andoni Egaña

Beharbada **lesbiana** da, beharbada frigida, ni seduzitzea premiazkoa zitzaion. Joxe Austin Arrieta

Gizon guztiak homosexualak dira, gradu handiagoan edo txikiagoan, eta emakume guztiak **lesbianak**, gradu handiagoan edo txikiagoan. Karlos Zabala

**2** *iz* emakume homosexuala.

Gay eta **lesbianen** aldeko manifestazio koloretsuan parte hartzeko asmotan. Joan Mari Irigoien

**Lesbiana** arteko harremanak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hemen eseri eta gaua **lesbianen** film pornoak ikusten igaro? Oskar Arana

Edo beharbada **lesbianak** horixe baino ez dira: gizonen beharrik ez duten emakumeak. Oskar Arana

**-Lesbiana** zikina -esan zuen Johnnyk. Lopez de Arana

Senarra utzi eta **lesbiana** emakume batekin bizi izana. Gotzon Garate

Azkenean, Lucy bere bi lagunekin utzi behar izan zuen -**lesbiana** bikote batekin. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lesbiana bikote** (6); **lesbiana eta transexualen** (8); **lesbiana izatea** (4)
> **emakume lesbianak** (8); **gay eta lesbianak** (12)
> **emakume lesbianek** (5); **gay eta lesbianek** (14)

**gay eta lesbianen** (71); **gayen eta lesbianen** (3); **lesbianen elkarteak** (6); **lesbianen elkarteko** (6); **lesbianen eskubideen aldeko** (3); **lesbianen eta transexualen** (4); **lesbianen kasuan** (3); **lesbianen mugimenduek** (3)

**gay eta lesbianok** (3)

---

# lesbianismo *iz* emakumeen homosexualitatea.

Horregatik, masturbazioa, uzki-koitoa, lesbianismoa edo homosexualitatea -ugalketarik gabeko jarduerak guztiak- gogor jazarri eta kondenatuko dira. Homosexualitatearen, **lesbianismoaren** eta transexualitatearen arrazoiak familia barruko harremanen psikodinamikan bilatzen tematzen direnek. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Halaxe zabaldu zen **lesbianismo** ideologiko bat, iraultza feminista gisa, gizonak erabat baztertzeko mehatxua eginez. Juan Kruz Igerabide

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lesbianismoaren gaia** (3)

---

# lesbiar 1 *izlag/iz* Lesbosekoa, Lesbosi dagokiona; Lesboseko herritarra.

Frisoan zimazio doriarra eta astragalo **lesbiarra** zizelkatu behar dira, erliebe txikiko tailarekin. Santiago Iruretagoiena

**2** *izlag* emakumeez mintzatuz homosexuala dena. ik **lesbiana**.

Lizunkeria pizten jakingo duzula espero dugu, gizonekin esperiantziarik ez duen **lesbiar** bikote batean. Juan Martin Elexpuru

Hango zuhaitzak eta umeak, erdi mailako familia saiatuak, hango bikote **lesbiarrak**, jaki-denda korearrak, [...]. Oskar Arana

---

# lesbiko *iz* lesbianismoari dagokiona.

Primateen eta batez ere txinpantzeen artean, era askotako jokabide **lesbikoak** eta homosexualak ikusi dituzte ikertzaileek. Luis Elberdin

Harreman **lesbikoetan** bagina askoz gehiago lubrifikatzen dela. Luis Elberdin

Bikote homosexualak eta **lesbikoak**. Luis Elberdin

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**homosexualak eta lesbikoak** (3); **lesbikoak eta homosexualak** (3)

---

# lesbofobia *iz* lesbianismoaren aurkako jarrera.

Instituzioei edozein homofobia, **lesbofobia** edo transfobia arrastoak, edo lesbiana, gay eta transexualen aurkako giza jarrera diskriminatzaileak ezabatzeko politika eraginkorrak susta ditzatela eskatzen diegu. Berria - Harian

---

# lesio 1 *iz* kolpe, zauri, gaitz edo kideko batek ehun organiko batean eragiten duen kaltea.

Metraila zatiek eragindako **lesio** bat zuen lobulu frontaletan. Xabier Olarra

Lobulu frontalean **lesio** larria jasandako gaixo bat. Xabier Olarra

Dientzefaloaren **lesio** sakonekin loturik. Xabier Olarra

Garuneko alde jakin batzuen **lesioak** sor zezakeela akromatopsia. Xabier Olarra

Ikusmen-kortexaren eremu txiki batean **zuela** lesioa. Xabier Olarra

Azaleko **lesioak**, infekzioak, sukarra. Luis Elberdin

Garuneko **lesio** primarioa. Xabier Olarra

Ikusmena ere nabarmen suspertu zitzaion, baina **lesio** larria zuen, orain, erretinetan. Xabier Olarra

Ez da **lesio** zelularrik ez funtzionalik agertzen. Joan Mari Irigoien

Argi zegoen tumorrak **lesio** konplexu eta bitxia eragin zuela. Xabier Olarra

**Lesio** baskularrak sendatzeko ebakuntza egiteko zain dago. Berria - Euskal Herria

Bizitzaren atxikimendu-oinarri osoari azpijana egin diezaiokeela **lesio** neurologiko batek. Xabier Olarra

**2** (kirol ariketetan)

Nik uste nuen **lesio** txikiak jokatuz senda zitezkeela. Berria - Kirola

Entrenamenduetan murgildu beste irtenbiderik ez du izango, harik eta **lesioa** erabat osatu arte. Berria - Kirola

Ez da **lesio** larria eta asteazkenean taldekideekin entrenatuko da. Berria - Kirola

**Lesio** handia da, baina ez da larria. Berria - Kirola

**Lesio** bihurria zen, eta gainera, erabat osatu arte ez jokatzea erabaki genuen. Berria - Kirola

Giharretako **lesio** batek hilabete eta erdi zelaietatik at eduki duela. Berria - Kirola

Belauneko **lesio** bat dela medio, Realeko atzelariak partida bakarra jokatu du denboraldi osoan orain arte. Berria - Kirola

Iazko hatzetako **lesio** larria ahaztuta, txapelketarekin gozatzen ari dela dio. Berria - Kirola

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lesio** fokuaren adigaia [...] Morgagnik eguneratu zuena eta medikuntza klinikoaren kontzeptu nagusienetakoa bihurtu dena. Xabier Arregi

**Lesio** guneen inguruan zentratua. Xabier Arregi

Hiru urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri diote eta hiru asteburuz atxilotzeko **lesio** falta bat.

Bilboko enpresa aurtengo udan pairatzen ari den **lesio** izurriteak beste jokalari bat kutsatu baitu. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ehun lesiodun edo gaixoa [...] gorputzeko toki batetik bestera linfan edo odolean barrena garraiatzea; ondorioz sortzen den ehun **lesio** berria. Imanol Zurutuza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**belauneko lesio** (9); **eragindako lesio** (3); **garuneko lesio** (3); **lesio bat gainditu** (3); **lesio baten erruz** (6); **lesio baten ondorioz** (7); **lesio batengatik** (6); **lesio izan ditu** (4); **lesio izurriteak** (3); **lesio larri** (16); **lesio larri bat** (6); **lesio larria** (42); **lesio larria izan** (9); **lesio larria ukan** (3); **lesio larriak** (9); **lesio larriak izan** (3); **lesio larririk ez** (3); **lesio mordoa** (4); **lesio txiki** (6); **lesioak lesio** (3); **orkatilako lesio** (3)

**belauneko lesioa** (6); **belokiren lesioa** (4); **eizagirreren lesioa** (3); **izan zuen lesioa** (5); **kovacevicen lesioa** (4); **lesioa dela eta** (11); **lesioa du** (4); **lesioa gainditu** (8); **lesioa iritsi** (3); **lesioa izan** (20); **lesioa larria** (5); **lesioa osatu** (9); **lesioa osatzeko** (3); **lesioa sendatu** (7); **lesioa zela eta** (8)

**lesioaren erruz** (3); **lesioaren larritasuna** (3); **lesioaren ondorioz** (4)

**lesioei aurre egiteko** (3)

**lesioekin arazoak izan** (3)

**lesioen erruz** (3); **lesioen ondorioz** (9)
**lesioetatik osatu** (3)
**lesiotik osatu** (4); **lesiotik osatzen** (3)

---

## lesiodun *izond* lesioa duena.

Ehun **lesiodun** edo gaixoa (bereziki zelula edo tumore gaiztoak) gorputzeko toki batetik bestera linfan edo odolean barrena garraiatzea. Imanol Zurutuza

---

## lesionatu, lesiona, lesionatzen **1** da/du *ad* lesio bat izan. (kirol ariketan)

Partida hartan bertan hiru bat asterako **lesionatu** zen. Berria - Kirola
Herrenka baitzebilen futbolari zela **lesionatu** zenetik. Jon Alonso
Denboraldi guztian lesioekin zortea izan ondoren azken txanpan **lesionatzeak** amorrua ematen du. Berria - Kirola
**Lesionatuta** zegoela eta entrenadoreak astebeteko deskantsua eman ziola. Unai Elorriaga
**Lesionatutako** zangoan, ezkerreko orkatilaren gainean. Patxi Iturritegi

• **2** du *ad* lesio bat eragin. (kirol ariketan)

Jokalari bat **lesionatzen** duzunean gutxienez barkamena eskatu behar da. Berria - Kirola
Bere burua **lesionatzeko** mehatxua egin bazuen ere. Berria - Euskal Herria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Baskoniak, batik-bat kanpoko lerroan, **lesionatu** askorekin jokatuko du. Berria - Kirola
**Lesionatu** gutxien dituen taldeak egingo baitu aurrera lehiaketan. Berria - Kirola
**Lesionatuen** zerrenda handia da oraindik. Berria - Kirola
**Lesionatuekin** ditu arazoak Bartzelonak. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**lesionatuta edo zigortuta** (3); **lesionatuta egon** (10); **lesionatuta jarraitzen** (3

---

## letagin **1** *iz* azken ebakortzaren eta lehen haginaren arteko hortz zorrotza, zenbait abereetan aski irtena gertatzen dena. ik **betortz**.

**Letagin** biak eta azken juzioko hagina ere atera nituen, orain dela denbora franko. Patziku Perurena
Ondo dakizu kateme bat duzula, erpeak eta **letaginak** dituen kateme bat. Josu Zabaleta
**Letagin** bat hautsia eta ubeldurak begitartean eta lepoan. Herria
**Letagin** eta ahutzetatik erortzen zaion lerde makurra. Jon Alonso
Otsoen **letaginek** eta hegazti harraparien mokoek. Karlos Zabala
Harrigarria zen zein antz handia zuen **letagin** zorrotzeko tigre batekin. Iñaki Mendiguren
**Letagin** luze eta pozoitsu bat gero eta barrurago ari zitzaion sartzen besoan. Iñaki Mendiguren

**2** irud/hed

Diru publikoak erakartzeko aldamenekoari **letaginak** erakusten dizkiogu. Berria - Kultura
Kopa hasi aurretik **letaginak** zorroztu ditu Baskoniak, eta Estudiantesi astindua eman. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**letagin zorrotzak** (3)
**letaginak erakutsiz** (4)

---

## letagindun *izond* letaginak dituena.

Lurrunetan espektro **letagindunak**, deabru sega azazkaldunak, arima herratuak paradisu bila. Joxean Sagaztizabal

---

## letal *izond* hilgarria.

Injekzio **letala**? Harkaitz Cano

---

letaña ik **letania**.

---

## letania *(55 agerraldi, 33 liburu eta 5 artikulutan; orobat **litania** 12 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean, eta **letaña** g.er. Euskaltzaindiaren Hiztegian **litania** agertzen da)* **1** *iz* liturgia otoitza, batek esaten, eta aurrean dauden gainerakoek erantzuten edo errepikatzen dituzten oles, dei edo arren multzo batek osatua.

Inolako puntuazio nahiz intonazio, atxikimendu nahiz tonurik gabe, **letania** moduko baten gisara. Xabier Olarra
**Letania** baten doinu monokordearekin. Iñaki Arranz
Latiñezko **letaniak**. Iñaki Arranz
Buruz dakizkit eta **letania** bat balitz bezala errepikatzen ditut ene baitan. Anjel Lertxundi
Mamerto, Vienako gotzainak, V. mendean ipini zuen San Markos eguneko **litaniak** errezatzeko ohitura. Pello Zabala
Beren santuei arren egiten eta **letaniak** esaten. Juan Garzia

**2** irud/hed

Jo dezagun gizonaren **letaniak** kantatzen hasi behar dugula (jakiundetsuek hala egin ohi dute beren gisara: *homo habilis, homo sapiens, homo sexualis..*). Iñaki Segurola
. "Ez da posible, ez da posible" **letaniaren** arabera hormak ukabilka joaz. Antton Olano

**3** (hitz elkartuetan)

**Letania** itxurako eta geroz eta ozenago goratutako kantu leun batean. Urtzi Urrutikoetxea

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**ezin kantatu letaniarik** (3)

---

# letaniadun *izond* letaniez hornitua.

Hor kokatzen baitziren Azinzio eta Pentekoste inguruko prozesio **letaniadun** eta kyrieleisondun haiek. Pello Zabala

**Letaniadun** errezoak. Pello Zabala

---

# letargia 1 *iz* lozorroa.

Izan ere, hain baita indartsua **letargiatik** edo lozorrotik esnatzen denarengan iluntasun erabatekoaren eragina! Koro Navarro

Inoiz **letargia** larriak lozorro sakon eta luzean sartzen du. Xabier Amuriza

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **letargiko**.

Horretaz gain, **letargia** entzefalitisak jotako beste hainbat gaixo agertu ziren. Berria - Gaiak

Guztiek **letargia** entzefalitisa zuten. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**letargia entzefalitisa** (3)

---

# letargiko *izond* letargiarena, letargiari dagokiona.

Telefonoaren hotsaren labankadak bazkalosteko pentsamendu **letargikoak** eten dizkio. Sonia Gonzalez

Oxigenoa ematen zitzaion arren, artean ere beheko maila arriskutsuetaraino hondoratuz zihoakion odoleko oxigenoa, eta, maila behe-behera erortzen zenean, **letargiko** eta erabat itsu bihurtzen zen. Xabier Olarra

---

# letargo *iz* lozorroa.

Murgilduta baitzegoen logale berde grisaska batean, borondate oneko **letargo** oparo eta gozo batean. Anton Garikano

---

# letoi *(orobat* ***latoi****)* 1 *iz* kobre eta zinkezko aleazioa.

**Letoizko** piezek biziki egiten zuten diz-diz. Lopez de Arana

**Letoizko** potoa hartu zuen esku artean, berriro. Joxemari Urteaga

Gusek orpoak patxadan ezarri zituen **letoizko** barraren kontra. Lopez de Arana

**Letoizko** botoiekiko zerbitzari beltzak. Lopez de Arana

Gure ateko **letoizko** behatxulo biribiletik. Eduardo Matauko

Mississipiaren ibaiadarrei antzeman nien han behean, laino artetik, eguzki-dirdiran barrena, **latoi** edo brontzezko zainak ziruditen. Joxe Austin Arrieta

Errusiako benetako samobar bat, **latoizkoa**. Matías Múgica

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zalien **latoi** hotsak. Koldo Izagirre

Katuak oso pipertuta ematen zuen, lepoan lotuta urre-antzeko **letoi**-xafla bat baitzeukan. Iñaki Mendiguren

Hari eman zion **latoi** puska. Koldo Izagirre

**3** ***letoi-kolore*** *izond* letoiaren kolorea duena.

Gustatzen zitzaidan garagardoaren zaporea, apar zuri bizia, sakontasun **latoi**-kolorea. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**letoizko plaka** (3); **letoizko potoa** (3)
**latoi puska** (3)

---

# letoniar 1 *izlag* Letoniakoa, Letoniari dagokiona.

Zaldun teutonikoek Siria utzi eta beren zoriona Vistulan bilatu zuten prusiar, **letoniar** eta estoniar paganoen bizkar. Iñaki Mendiguren

Signe Baumane zinemagile **letoniarrari**. Berria - Kultura

77.000 judu **letoniar** hil zituzten naziek eta Letoniako Poliziak. Berria - Mundua

Ama **letoniarra** izanik ez du inolako zailtasunik hizkuntzarekin moldatzeko. Berria - Mundua

**2** *iz* Letoniako herritarra.

Hungariar, estoniar eta finlandiarrek antzeko erroak eta izaera dutela nabarmendu du eta, lituaniar zein **letoniarrak** oso ezberdinak direla pentsatzeko moduan zein hizkuntza aldetik. Berria - Mundua

Ingak ez du uste **letoniar** eta errusiarren artean arazorik dagoenik Rigan. Edorta Jimenez

Hiru ziren iheslariak, hirurak **letoniarrak**. Urtzi Urrutikoetxea

---

# letoniera *iz* Letonian mintzatzen den hizkuntza baltikoa.

Courlanden eta Livonian **letoniera**, alemana eta errusiera hitz egiten da. Isabel Arrigain

Eslaviarrak (errusiera, poloniera...); baltikoak (**letoniera**, lituaniera). Herria

Hautetsi izateko **letoniera** hiztuna izan behar zen. Berria - Mundua

Rementievak **letonieraz** badaki eta herritartasuna ere badu. Berria - Mundua

---

# letra 1 *iz* hizkuntza hots edo fonema bat idazten den ikurra; ikur horren itxura.

**Alfabetoko** letrak. Bernardo Atxaga

Amaierako *a* **letra** ia atzemanezina zenez, bazirudien Elizavet zuela izena, ez Elizaveta. Jose Morales

Lehenengoan X **letra** zizelatuko dut. **Letra** hauetatik *c, q, v, w* eta *y* erdaretatik hartutako maileguak eta kanpotar izenak transkribatzeko erabiltzen dira bakarrik. Bernardo Atxaga

Izan ere, bi **letrak** osatzen dute *bi* zenbakia, eta bederatzi letrak *bederatzi*. Iñaki Arranz

Orain zenbakia **letra** bihurtuko dugu, eta horretarako egokitu ezazu zure zenbakia alfabetoan dagokion **letrari**. Patxi Zubizarreta

Ez zegoen ez batak ez besteak **letra** haiek ondo ebakitzeko modurik. Koro Navarro

Bi lerrotan, lau zutabetara, 42 tamainako **letra**. Aingeru Epaltza

Urrezko **letretan** idatzirik. Jose Morales

Arazo inportanteak zituen **letrak** ahoskatzeko. Unai Elorriaga

Ez zuen **letrarik** edo silabarik ezabatzen uzten, alferrikakoak edo desegokiak baziren ere. Askoren artean

Letraz **letra** adierazi nion izena ortografia zaharraren arabera: "Guernica". Bernardo Atxaga

Ate gaineko iragarki koloretsuari bi **letra** falta zaizkio, eta beste bat erortzear dago. Iban Zaldua

Aldian behin, edalontzia ardoz bete eta **letrari letra** josten jarritako pasio beraz husten zuen trago bakar batean. Anjel Lertxundi

## **2** (izenondoekin)

**Letra** zirilikoen ondoren arabiar zenbakiak. Joseba Sarrionandia

Ipuinaren izenburuko **letra** gotikozko kaligrafia. Anjel Lertxundi

Hogei bat orrialde ziren, hainbat ataletan banatuak, bakoitza bere sail eta azpisailekin, denak **letra** beltxez, kurtsibaz, azpimarrez, tarte xuriez eta ordenagailuak gisako lanei ekartzen dizkien gainerako miragarriez hornituak. Aingeru Epaltza

Eskuz izkiriatuak ziren, **letra** handi zuzenetan. Aingeru Epaltza

Nire atezaina izan zenaren **letra** txiki eta aldrebesa. Monika Etxebarria

Esku-orrietan azaltzen zen testua, **letra** xeheegiz gainera. Josu Landa

*ik beherago* 12. Askoren artean

Hots desberdinak izan ditzaketen **letra** bakar horiek: g (gato, general), c (cereza, culebra). Lourdes Oñederra

Tileta baztertu eta **letra** bikoitzak erabiltzea hobetsi zen: rr, dd, ll eta tt. Koldo Zuazo

*Dabiltzu* hitzak *tz* **letra** konposatua du. Iñaki Arranz

Halako hitzak **letra** italikoz idatziko ditugu. Iñigo Aranbarri

Esku anonimoren batek **letra** beltzez idatzita. Iñaki Arranz

**Letra** gorriak ontziaren krosko zurian. Joseba Sarrionandia

Zuk eta Gordonek ***Letra*** *Gorrimina*ren eskuizkribu bat faltsutu behar duzuela? Oskar Arana

## **3** (hitz elkartuetan)

**Letra** kopuru berdina duten hitzez osatutako esaldiak. Iñaki Arranz

Latinetiko historian ulertzen dira hots berari dagozkion **letra** multzo horiek: v-b (*vaca-bajo*), c-z (cereza), c-k-qu (*culebra, kilo, quiebra*). Lourdes Oñederra

Hiru bider errepikatzen dira silabak edo **letra** multzoak: kakarazaka, kokoriko, [...]. Iñaki Arranz

Hitzaren barruan silabak eta **letra** multzoak errepikatzen diren bezalaxe, hitzen arteko kontaktuak ere errepikapena ahalbideratzen du. Iñaki Arranz

Zera zioten egunkariek **letra** tipo potoloetan: [...]. Iñaki Heras

Ezagunenak **letra** zopak eta hitz gurutzatuak dira. Iñaki Arranz

Hitzak **letra** kateetan ikusten dituzu zureganantz hegan. Lourdes Oñederra

## **4** irud/hed

Legearen **letrak** hil egiten baitu; Izpirituak, berriz, bizia ematen. Joan Mari Lekuona

## **5** idazkera; letrakera.

Ikusi orduko ezagutu nuen osaba Feliperen **letra**. Txillardegi

**Letra** Xabirena da inolako zalantzarik gabe. Iban Zaldua

Ez dela nire **letra**. Anjel Lertxundi

· Zazpi gauza dira, nire agenda txikian **letra** txukunaz apuntatu ditudanak. Iban Zaldua

## **6** abestiez mintzatuz, hitzak. ik **hitz 7.**

Juan Bizente Etxegarai eta Santesteban maisuaren **letra** eta musika. Askoren artean

Martxaren musika eta **letra**. Askoren artean

Informazioz osatua dator koadernotxoa: urtean zehar egin diren ekitaldiak, zirkuituaren nondik norakoak, egitaraua, kantuaren **letra**, grabazioaren irudiak. Iñigo Aranbarri

## **7** *pl* literaturaz, arteaz eta giza jakintzez aritzen diren ikasketa eta ikerketen multzoa.

Zientziak ala **letrak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure jende xeheak ez ditu **letrak** estimatu. Eskolapioak utzi, **Letrak** ikasi nahi nituelako utzi nituen. Anjel Lertxundi

Gure **letren** gailurra ez da Cervantes. Iñigo Aranbarri

Nobela honek **letra** garaikideen panorama errotik eraberritzen du. Iñaki Segurola

Euskal **letren** mundutxo harroputx eta xipotx honetan. Patziku Perurena

**Letra** Katalanen Ramon Llull saria. Berria - Kultura

Bordeleko **Letren** Fakultatera igorriko nindutela. Piarres Aintziart

**Letra** fakultateko jangelan zitatu ninduen. Koldo Izagirre

Alcala Henares-eko Unibertsitateari asko zor diot eta biziki maite dut, bereziki hark eman baitzidan ene lehen gradua, **letretan** izan nuena. Piarres Xarriton

**Letra** klasikoetako agregazioa lortuta. Berria - Mundua

Utikan, armak baino alde hobea dutela **letrak**, dioten horiek. Patxi Ezkiaga

## **8** kanbio letra.

Horrela, izan gutuna, **letra** nahiz txekea, hark sinatzen zituen beti, Araujo Lda. enpresaren kudeaketaren erantzukizun oso eta erabatekoa bereganatuz. Bego Montorio

Ehuneko hogei emango lukeela esan dik nagusiak, **letrak** izenpetuak ekarriz gero. Koro Navarro

Espainiako hartzekodunei hamar mila markoko **letrak** emanez Holandako zordunen gainean. Iñaki Iñurrieta

Dirua duen eta **letrak** hartzen dituen bankaria. Iñaki Iñurrieta

Espainiarrek hamar mila markoko **letrak** edukiko lituzkete Frantziaren kontura. Iñaki Iñurrieta

**Letra** protestaturik zegoen ordurako. Bego Montorio

Higigarriak, ostera, hala dirua, nola balioko, kanbio **letrak**, banku zein konpainien akzioak, ontziak, merkatugaiak oro. Andres Urrutia

## **9** *ipar* gutuna.

Eta biziki kontent niz zeren eta Leizaolaren **letra** bat baitut eskuetan. Menane Oxandabaratz

-Amodiozko **letra** bat, beraz... gizon bati! Menane Oxandabaratz

Harritua nintzen nola Gestapoak ene **letra** batzuk bildu zituen. Marzel Etxehandi

## **10** ***letra larri*** letra xehea baino handiagoa den eta eskuarki beste itxura bat duen letra mota. ik **maiuskula.**

Parentesiak, azpimarrak, **letra larriak**, letra lodiak, letra etzanak. Iñaki Arranz

Nik hamasei urte dauzkat orduan, eta nire baieztapen berria garbi gera dadin, **letra larriz** idatzi dut: HARIZTI. **Letra larri** gorri edo beltz handi-handiz idatziak zeuden, atzealdeko kolore margularen gainean. Pako Aristi

*Eduardo* hitzaren azpian, **letra larri** handiak erabiliz. Aingeru Epaltza

**Letra** handi eta **larriz** idatzita. Berria - Harian

Grafikoki ere nabarmentzen du egileak honako adibide honetan, **letra larrien** bidez. Iñaki Arranz

**11** ***letra maiuskula*** letra larria.

**Letra maiuskulaz**, tinta urdinez. Unai Elorriaga

**letra maiuskulaz** idazten den Historia Handiak bere lege propialak izaten ditu. Hasier Etxeberria

Beste paper batean izenpetu zuen, **letra maiuskulekin**: MONTSERRAT. Joan Mari Irigoien

**12** ***letra minuskula*** letra xehea.

**Letra minuskulak** ez, maiuskulak bakarrik. Unai Elorriaga

**13** ***letra xehe*** idaztean eskuarki erabiltzen den letra mota. ik **minuskula**.

Zuzentasunez Kulturaz (singularrean eta letra larrian) mintzatzen da, zuzentasunez eta gizalegez ere kulturez (pluralean eta **letra xehean**) hitz egiten da. **Letra xehea** nahita eginiko hautua da. Askoren artean

Poztu nintzen aita santua, honela, **letra xehez** irakurri nuenean. Iñigo Aranbarri

**14** ***letraz letra***

Hitz berria edota ezezaguna denean **letraz letra** irakurtzen dugu hura. Isabel Arrigain

Dena **letraz letra** irakurtzen zuen, oso mantso, hitz bat bestearen atzetik. Xabier Olarra

**Letraz letra**, pausoz pauso, hitz batetik beste batera igarotzen gara. Iñaki Arranz

Batzuetan, siglak **letraz letra** irakurri eta ahoskatzen dira [...], baina beste batzuetan izen arruntak balira bezala. Iñaki Arranz

**Letraz letra** adierazi nion izena ortografia zaharraren arabera: "Guernica". Bernardo Atxaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**a letra** (7); **alfabetoko letra** (6); **azaleko letra** (7); **b letra** (11); **c letra** (6); **d letra** (5); **e letra** (5); **g letra** (4); **h letra** (10); **hasierako letra** (5); **i letra** (4); **idatzitako letra** (4); **kanbio letra** (5); **lehen letra** (8); **lehenengo letra** (4); **letra beltz** (5); **letra beltzez** (5); **letra berriak** (4); **letra etzana** (5); **letra etzanez** (9); **letra ezagutu** (4); **letra gizon** (6); **letra gorri** (4); **letra gorriak** (7); **letra gorrimina** (5); **letra gorriminaren** (4); **letra gorriz** (9); **letra handi** (15); **letra handiak** (4); **letra handitan** (10); **letra handiz** (18); **letra irakaslea** (4); **letra jorran** (59); **letra katalanen** (4); **letra larri** (10); **letra larriak** (4); **letra larrien** (4); **letra larritan** (5); **letra larriz** (52); **letra larriz idatzi** (5); **letra larriz idatzitako** (4); **letra larriz idazten** (5); **letra lodiz** (5); **letra mekanografiatuak** (5); **letra mota** (4); **letra motak** (4); **letra multzo** (10); **letra txiki** (10); **letra txikia** (5); **letra txikiagoan** (4); **letra txikiagoz** (6); **letra txikian** (7); **letra txikiz** (6); **letra xehez** (5); **letra zuriak** (5); **letrari letra** (5); **p letra** (4); **v letra** (5)

**azken letrak** (4); **euskal letrak** (5); **filosofia eta letrak** (7); **izenaren letrak** (6); **kanbio letrak** (8); **lehen letrak** (4); **letrak ikasten** (6)

**hamabi letrako izen** (4)

**letraz letra** (19); **urrezko letraz** (6)

**asturierazko letren** (10); **euskal letren** (17); **galizierazko letren** (5); **letren akademia** (4); **letren errepublika** (5); **letren sukaldari** (9); **letren sukaldari xume** (5); **letren sukaldariak** (7)

**filosofia eta letretako** (4)

**euskal letretan** (6); **urrezko letretan** (6)

---

letradu ik **letratu**.

---

# letradun

**1** *izond/iz* ikasia, halako jakite maila, bereziki letren sailean, iritsi duena.

Letrak dakizki baserritar bertso-egileak eta lagun **letradunak** ditu. Anjel Lertxundi

Gizon **letradun** jakintsua eta bizimolde saindukoa. Piarres Xarriton

Berarekin eztabaidatzera zetozen gizon jakintsu eta **letradun** guztiak garaitu egiten baitzituen. Askoren artean

Doktor Nafarra gizon garbia da, **letradun** argia, Salamancan bazuen bere aulkia eta Portugalen irakasten zuelarik soldata ederra irabazten zuen. Piarres Xarriton

Beste buruzagi bat, Hébert lehendakaria, **letradun** fina, Impétrazen laguna. Monika Etxebarria

**2** *izlag* aipatzen den letra duena; letrez osatua.

Gogora ekarri beharko litzateke *etiko* izendapenean bi termino bateratzen direla: *êthos* (*eta* **letraduna**), bizilekua, egoitza; eta *éthos* (*epsilon* **letraduna**) norbanakoaren profila, izaera propioa. Piarres Xarriton

Zalantza barik oso maila goreneko pertsona zen, hala nabarmentzen zuen zenbaki baxu dotoreak eta bularreko "Z" **letradun** hiruki berdeak. Urtzi Urrutikoetxea

Zenbaki eta **letradun** panel bat bakarrik ikusten zen orain Kamioneta zuri-gorri **letradunaren** ondoan. Bernardo Atxaga

---

# letragabe

*izond* eskolarik ez duena, eta, bereziki, analfabetoa.

Horrelako zerbait gertatu zaio, gure ustez, Juan Mari Lekuonari, XIX. mendeko bertsolari **letragabe** Udarregiren bertsoak aztertzerakoan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Jadanik ez dagoelako masa **letragabeak** gobernatzen dituen eliterik, elite masifikatuak baizik. Berria - Kultura

Agintedun pozarren bizi da **letragabeen** artean. Txema Ramirez de la Piscina

Dunga **letragabea** da eta gizon zuri askojakinek jakinarazi diote letrak falta zaizkiola eta letramotza dela: letra engainagarrien mundura botatzera doa bere burua, Historiaren bortxaz. Iñaki Segurola

---

# letragile

*iz* abesti-idazlea. ik **letrista**.

Kanten edukiari sakontasun handiagoa emateko asmoz **letragile** batekin hasi zen lanean. Berria - Kultura

Berriro ere Van Dyke Parks **letragileari** deitu, zinta zaharrak errepasatu, falta ziren pasarteak konposatu eta kantak birgrabatzeari ekin zion Wilsonek. Berria - Kultura

Ez zen ez elastikoa ez hiztun beldurgarria, eszena bete egiten zuen ordea; ez zen **letragilea**, baina arretaz hautatzen zituen besterenak. Berria - Kultura

---

# letragizon

*iz* gizon letraduna.

Harremana izan zuen Montesquieu, Voltaire eta gar aiko beste **letragizon** askorekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Azkenean Erromatar Inperioaren alderdi hori miretsi zuten hasieran kontra zeuden greziar **letra**-gizonek. Iñaki Mendiguren

Liburutegiaren zuzendari berria, entzun dudanez, antzinako hizkuntzen ikasketari buru-belarri emana dagoen **letragizon** bat da. Juan Garzia

Euskal Herriko hainbat **letra gizon** (Mogel, Murga, Astarloa...) idazle klasikoak itzultzen jarri zuen (Fénelon, Tazito, Tito Livio, Zizeron...). Anjel Lertxundi

Tsíui PÍn nobelagile jeniala izan zen, baina hura zen bezalako **letra** -gizon batek ez zuen noski bere burua nobelagile soiltzat joko. Juan Garzia

Arkitektoak **letra** -gizon izan beharko du, komentarioen indarrez bere oroimena sendotzen joateko. Santiago Iruretagoiena

---

letraiatu ik **letreiatu**.

---

**letrajale** *izond/iz adkor* letrazalea.

Laurok ginen nolabait ere liburuzale eta **letrajale** , eta laurok osatzen genuen halako laguntalde moduko bat. Xabier Mendiguren Elizegi

**Letrajale** lerdetsu horietakoa, klasean aipaturiko goiti-beheitiez galdezka, bibliografia eske, koipe-jario. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**letraka** *adlag* letraz letra.

Eta hiru letra izkiriatuko ditu, PRN, eta ia **letraka** ahoskatuko du. Joseba Sarrionandia

---

**letrakari** *iz ipar* postaria.

Angeluko 35 **letrakarietatik** 22-ek greba egin dute joan den ostiralean. Herria

Gutun gehiago banatzen ahal dela **letrakari** bat gutiagorekin. Herria

**Letrakari** eta gixeteko langile kopurua txipitzen ari da Posta. Herria

"Alo **letrakaria"** zerbitzuak ordezkatuko ditu herri ttipietako posta agentziak. Herria

---

**letrakera** *iz* letraren itxura.

**Letrakera** dotorezko hitzez. Juan Garzia

Laboratorioko gainerako poto eta botila guztiek etiketa garbi-zehatzak zituzten, makinaz idatziak, edo eskuz **letrakera** gotiko ederrez. Juan Garzia

---

**letralatra** *iz*

Aldiz, "Telebistarik ez, inkomunikazioa dakar eta" eta "Txinoen esperoan" ipuinek, irudiaren bitartekaritzari uko egiten dioten **letralatra** eta mistikoen desgaraiko egoera pintatzen digute: asperkeria frigidoa zein eldarnio paranoidea hurrenez hurren. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**letraldatu**, letralda, letraldatzen da *ad* hizkuntza bateko hitzak beste alfabeto bateko letren arabera aldatu.

Gaur, ordea, judu ez diren adituen artean jatorrizko Yahweh forma hobesteko joera dago berriro ere, autore guztiek *tetragrammaton* hori berdin **letraldatzen** ez duten arren. Xabier Kintana

---

**letramodu** *iz* letra idazkera.

Filisteoak gutuna ikusi, eta inbidiz akabatzen: - **"Letramodu** txukuna, gerore!". Patziku Perurena

---

**letramotz** *izond adkor* letragabea.

Dunga letragabea da eta gizon zuri askojakinek jakinarazi diote letrak falta zaizkiola eta **letramotza** dela: letra engainagarrien mundura botatzera doa bere burua, Historiaren bortxaz. Iñaki Segurola

---

**letraño** *iz ipar adkor* guntxoa.

Bakotxak ukana du **letraño** bat, oroitarazteko zein pondutan diren oraino ez arras haxean. Herria

---

**letraontzi** *iz* letren ontzia.

Eta P-ren atzetik Q, testu honen *quille* edo gila, **letraontzi** honen armazoia alfabetoa dela gogorarazten didana; eta Q-ren atzetik R arraroa; eta R-ren atzetik Sheguers-en S-a. Bernardo Atxaga

---

**letratu** *(orobat **letradu** g.er. eta **letrau** g.er.)* **1** *izond/iz* legelaria.

Zigor afliktiboa, merezi zuten kasuetan, leundu egin zen, bailiak bi gizon **letratu** hartzeko zuen betebeharraren bidez, eta azkenik, apelazioak egiteko erraztasun handiari esker ezereztu zen. Iñaki Iñurrieta

Abokatu eta **letratuen** zaindaria. Pello Zabala

Abel Huizi **letratuaren** semea zena eta Ubarneko damarena. Joan Mari Irigoien

Nahiago diat **letratu** izan [...] zeren eta **letratu** izaiteko ikasi bainuen, azken finean. Joan Mari Irigoien

**2** letraduna.

Paper zaharretan euskaragatik esaten den "bárbaro, vulgar, rústico" horrek, hain juxtu, gutxiengo **letratu** batek ez beste guziak zerabilen hizkera "korrientea" besterik ez zuen adierazten. Patziku Perurena

---

letrau ik **letratu**.

---

**letreiatu**, letreia, letreiatzen *(orobat **letraiatu** g.er.)* du *ad* (hitz baten) letrak banaka eta hurrenez hurren izendatu.

Idazkariak nor nintzen galdetu zidan eta nik bi aldiz **letreiatu** behar izan nion nire izena. Fernando Rey

Maisuk bere ikasleak eserarazi eta liburuetatik **letreiatzen** jartzen zitinan, arratsaldero pixka bat. Anton Garikano

Bere izena **letreiatu** orduko. Anton Garikano

Zer da zuretzat zailago, Nietzsche **letraiatzea** edo, adibidez, Fullaondo. Berria - Euskal Herria

---

## letrero *iz* idazkuna, errotulua.

*United Fruit Company* **letreroaren** azpian auto bat dago. Joseba Sarrionandia

Lehenengo pisuan, "principal"ean, **letrero** hau atean: "El Cuartel Real". Txillardegi

Neon-argi berde eta urre koloreko **letrero** handi bat goian, The 7th Heaven -7. Zerua– izenarekin. Iñaki Zabaleta

Sartzean ez naiz ohartu neoizko **letrero** bat dagoela ate gainean. Joseba Sarrionandia

Gizon bien atzetik etorri zara, postal saltoki, iragarki eta **letrero** guztiei begira. Lourdes Oñederra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **letrero handi** (3); **neoizko letrero** (3)

---

## letrerotxo *iz* tamaina txikiko errotuloa.

Dingilizka zegoen **letrerotxoarekin** olgetan ari zen Mentxu, ateko kristaletik begira bitartean "cerrado" eta "abierto" jirabiraka tartekatuz. Josu Landa

---

## letrina *iz* kanpamenduetan eta kidekoetan, eginkariak egiteko eta biltzeko etxola modukoa.

Hamaikatxo **letrina** ikusiak dauzkat hura baino txukunagoak. Hasier Etxeberria

---

## letrista *iz* abesti-idazlea. ik **letragile**.

Usandizagaren musikak Gregorio Martínez Sierra **letrista**, editore eta antzerkiko enpresa gizonaren lankidetza zuen. Askoren artean

Testuak berak argi uzten du, aldi berean, Fernandez Garayalde dela garai hartan letrak idazten dituzten **letrista** guztien artean onena, ezagunena ez bada ere. Askoren artean

**-Letrista** aldatu nahi baduzue postua libre zegok. Xabier Mendiguren Elizegi

---

letu ik **leitu**[1].

---

## letxada *iz* karesnea.

Tarteka, baita, txuri finez jantzen, **letxada** zarpeo batzuk ei datoz nabarmentzen goialde horietan, batzuetan zibelak deitu mintz xuri fin baten antzera, edo pilatuxeago, tripaki-lainoen islan beste batzutan. Pello Zabala

---

## letxe[1] *adlag* bezalaxe.

Espero **letxe**, inork ez zuen Gerardo ezagutu. Xabier Montoia

Umetako lagunak ziren Luis eta Gerardo, bien familiak **letxe**, eta eskolatik elkarrekin ibiliak. Xabier Montoia

---

## letxe[2] *iz adkor*

Guanteak eta **letxeak**, esan zuen Manuk; nik ez diat ibiltzen. Pablo Sastre

Txortena jaitsia dauka, puta, ostia, **letxe**! Pako Aristi

**letxes**! Xabier Etxabe

**2 *letxe txar*** jenio txarra, aldarte txarra. ik **ostia**[1] **6**.

Hori bai, egia esan behar bada, Llumi **letxe txarra** falta zaio horretarako. Antton Olano

**Letxe txarrean** hator ala? Unai Iturriaga

---

## letxeria *iz* esne denda.

Ehun bat laborarik **letxeria** okupatzen dute, esnearen prezioaren aipatzeko eta labela errespetatua izan dadin eskatzeko. Itxaro Borda

**Letxeriak** ere badira hor gaindi ez urrun. Herria

---

letxu ik **letxuga**.

---

letxua ik **letxuga**.

---

## letxuga *(orobat **letxua** eta **letxu** g.er.)* **1** *iz* uraza.

Aza klaseak berak ez ditugu gutxi: aza beltza, aza zuria, aza berdea, aza kizkurra (Milango aza) urraza (**letxuga**), zakurraza, ahuntzaza... Patziku Perurena

**Letxugak** uretan behin bakarrik eraginez garbitzen zituen. Joseba Urteaga

**Letxuaren** kukuiluko hosto ezin samurragoak. Jon Alonso

Isidora **letxuga** garbitzen ari da. Pako Aristi

Porruak, azenarioak eta entsaladarako **letxuga**-tomateak plastikozko poltsa batean. Unai Iturriaga

Gaur arratsaldean **letxua** ustel egosia jan dugu. Josu Zabaleta

Arrautza egosia eta **letxuga** zeukan, eta maionesa. Iban Zaldua

"Gau on denoi", eta **letxuga** baino freskoago sartu zen bere gelan. Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan)

**Letxuga**-hostoak momorroz josita daude, bare txiki-txikiz beterik. Eskarne Mujika

---

## letzione ik **lezio**.

---

## **leude** *iz* erdi aroan, jaun baten basailua.

Esan daiteke hiru soldadutza zeudela: **leude** edo erregearen leialenak, haiek ere beren mende beste leial batzuk zituztelarik; apezpiku edo beste elizgizon batzuenak, eta haien basailuenak; eta azkenik kondearena, zeinek gizon libreak eramaten baitzituen. Iñaki Iñurrieta

Erregeek hitz eman zuten ez zizkietela beren gizon libreak kenduko **leudeei**. Iñaki Iñurrieta

Kondeak **leude** ziren beren konderrietan; **leudeak**, berriz, konde beren jaurerrietan. Iñaki Iñurrieta

**Leude** edo jaun baten basailuak kondearen agindupean joaten ziren gerrara. Iñaki Iñurrieta

**Leude** haiek ere eramaten zituzten beren basailu eta azpibasailuak. Iñaki Iñurrieta

---

## leukemia ik **leuzemia**.

---

## **leukodistrofia** *iz* ondoretasunezko nahasmen genetikoa, burmuineko nerbio zuntzak estaltzen dituen mielinaren gantzaren endekapenak eragina.

*Eskukaldia* elkarteak bazkari berezi bat antolatzen du martxoaren 21ean, igande eguerditan, Donapaleuko Jean Errecart lizeoan, **leukodistrofia** eritasunaz joak direnen sustenguz. Herria

---

## **leukotomia** *iz* bekoki lobuluen lobotomia.

Garai hartan asmatu zuen Egas Moniz neurologo portugesak **"leukotomia** prefrontala", eta berehala egin zien egin ere, hogei gaixori. Xabier Olarra

---

## **leukozito** *iz* ornodunen odoleko eta linfako zelula, organismoa infekzioetatik babesten duena.

Azken analisietako **leukozito** eta hematien zenbakia. Jon Alonso

Haietako batzuk neutropenia izan zuten **leukozito** kopurua gutxitzea. Berria - Gaiak

**Leukozito** gutxiegi oraindik. Imanol Zurutuza

**Leukozito** eskasia zela eta tratamendua berriro eten behar izanak sortutako kezkan murgilduta. Imanol Zurutuza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> leukozito eskasia (4)

---

## **leun** *(orobat **lehun** g.er.)* **1** *izond* gainaldeez mintzatuz, kozkorrik, pikorrik edo zimurrik ez duena.

Biguna eta gogorra, **leuna** eta latza, eta horrelakoak bereiztea. Imanol Unzurrunzaga

Errekatik bost harri **leun** aukeratuta bere artzain-zorroan sartu zituen. Jose Antonio Mujika

Diamante **leun** eta itxia bailitzan. Jon Alonso

Begiak idazmahai **leun** beltzean josirik. Matías Múgica

Lan-mahaiko ohola eremu **leuna**, garbia da, *tabula rasa,* egoki mintzatzeko. Jon Alonso

Begiradak dira, eta uneak, horma **leun** eta itsua, hiri bat, ibai errauts-kolorea edo teilatuegaletatik erortzen den ura. Jon Alonso

Wild 2 [kometa] oso «ezohikoa» eta «bakarra» da: bere ezaugarri morfologikoak oso bitxiak dira, eta azala ez da **leuna**. Berria - Gaiak

Zazpi kirten **leun** eta berri, eta "Nimbus 2001" zioten urre finezko zazpi letra-multzok distira egiten zuten. Iñaki Mendiguren

Ile luze **leuna** bizkarretik behera. Josu Zabaleta

Ilea [...] zilindro **leun** bat da normalean. Irene Aldasoro

Hondartza lau eta **leun** batean azaltzen zara. Koldo Izagirre

Errepide **leun** eta urdinak herria inguratzen du. Piarres Aintziart

**2** laztasunik edo gogortasunik ez duelako zentzumenei atsegin zaiena.

Jantzi **leunak** gorroto zituen eta latzak gogoko. Askoren artean

Arropa **leun** eta kolorezkoz jantzirik. Askoren artean

Bere haragi **leun** beroa nirean kiribiltzeko irrikaz. Oskar Arana

Ene! zelako jainkosa-bularrak, zelako izter **leun** eta guriak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Mutil gaztearen arrebak itxura mozkotea zuen, eta ile liso **leuna**. Mirentxu Larrañaga

Ile **leun** luzeak soineko gorri ilunaren gainetik. Josu Zabaleta

Aurpegia jaso eta ahots **leun** eta dardaratiz esan dit: [...]. Urtzi Urrutikoetxea

Elurrez estalirik zeuden kostaldeko mendixka eta muino **leunak**. Anjel Lertxundi

Haize **leun** batek giroa freskatzen zuen. Urtzi Urrutikoetxea

Bere eskuen usain **leun** gozoak. Lopez de Arana

Argi **leun**, zeharkakoak mahai bakoitzari intimitate eta diskrezioa emateko. Xabier Mendiguren Elizegi

Musu **leun**, maitekor bat, masailean, ezpainaren ertzetik oso hurbil. Jon Muñoz

Musika **leun** ederra irristatu zen gure belarrietan. Aritz Gorrotxategi

Irribarre **leun** bat irten zen bere ezpainetatik. Aritz Gorrotxategi

Ibarreko bake geldiak eta etxeetako kolore **leun** xarmagarriek. Txillardegi

**3** irud/hed

Mendi- **malda** leunak, belar hezearen usain sarkorra. Anjel Lertxundi

Olatuen palasta **leuna** arroketan. Xabier Mendiguren Elizegi

Entrenatzaileak kolpe **leun** pare bat eman zizkion bizkarrean, "ez da ezer, ez larritu". Aritz Gorrotxategi

-Zein **leuna** zaren! eta zein trinkoa! -esaten zuen gizonak liluratuta, begiak zuri. Juan Martin Elexpuru

Gazteluaren gerizpean zegoen belardi **leun** eta hezera irten ziren. Iñaki Mendiguren

Goxotasun **leun**, lasai, nagi, trankil eta baretik beste aldi mugituago, kitzikagarriago eta gartsuagora pasatu behar da. Luis Elberdin

Berotasun **leuna** nabaritu zuen masailetan. Sonia Gonzalez

Aldi berean nire paparrean Musen maitasun **leun** bat ezarri du. Xabier Amuriza

Maiatzeko arratsalde **leun** hartan. Oskar Arana

Urumea inguruko ibar geldi **leuna**. Txillardegi

Bihurgune **leun** batean. Lopez de Arana

Gela **leun** eta emetu hauetakoa. Oskar Arana

Bortxatzeko gogo odoltsu **leun** batek hartu nau atzetik, geldiro, belarrien atzetik. Monika Etxebarria

Gero nire atzealdean eseri zen, eta ni orrazten hasi modu **leun** eta samurrez. Juan Martin Elexpuru

Haren larruazalak [...] distira **leun** bat zuen. Ibon Uribarri

Bizar motza, betaurreko borobilak, ibilera **leuna**, erreparatu zuen Josebak. Fernando Morillo

Horrez gainera, agentzien arteko harremanen sarea dago: lotura **leun** bezain malguak mantendu behar dituena. Pello Zabala

Bere uztarria **leuna** dela eta bere zama arina. Joan Mari Lekuona

Entzumen **leunekoentzat** gogortxo gerta daiteke honelako esaldia. Askoren artean

Hitz **leunak**, sedukzioa bera bezain zaharrak. Oskar Arana

Horien barrena leize-zuloa, eztarria hilobi zabaldua, mihia, berriz, **leun** eta labaina. Elizen arteko biblia

**4** (erkaketetan)

Musu bat bezain **leuna** zen gaua. Anjel Lertxundi

**5** (adizlagun gisa) ik **leunki.**

-Bai, jauna -erantzun nion **leun**. Nigana jiratu da, burua albo batera **leun** okertuz. Urtzi Urrutikoetxea

Burua **leun** astintzen. ile beltza **leun** urdintzen zitzaion lokietan. Urtzi Urrutikoetxea

Indarrez ahul eta **leun** datorrenean, hego emea ere deitzen diogu. Pello Zabala

Lepoa **leun** musukatzen zion bitartean. Sonia Gonzalez

Esnea gozo eta **leun** jaisten zen eztarri lehorretik behera. Lopez de Arana

**6** (-en atzizkiaren eskuinean, izen gisa) leuntasuna.

Eriek senditzen baitute eta goxatzen larruaren **leuna** eta adina. Michel Oronoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahots leun** (12); **aire leun** (3); **aurpegi leun** (4); **azal leun** (5); **esku leun** (5); **gozo leun** (4); **haize leun** (16); **haize leun bat** (3); **hots leun** (4); **ile leun** (8); **irribarre leun** (7); **irribarre leun bat** (4); **kolpe leun** (6); **leun leun** (51); **leun leuna** (13); **muino leun** (3); **musika leun** (3); **musu leun** (5)

**adats leuna** (3); **ahots leuna** (4); **ahotsa leuna** (5); **argi leuna** (3); **azal leuna** (5); **bezain leuna** (11); **esku leuna** (5); **haize leuna** (6); **hots leuna** (3); **ile leuna** (4); **iluna eta leuna** (3); **irribarre leuna** (3); **leun leuna** (13); **ukitu leuna** (5); **urdin leuna** (4)

**baino leunagoa** (12)

**esku leunak** (4); **haize leunak** (15); **hitz leunak** (6); **muino leunak** (4); **ukitu leunak** (3); **zurrunga leunak** (4)

**haize leunaren** (3)

**ahots leunaz** (4)

**aldapa leunean** (3)

**esku leunez** (3)

---

# **leundu**, leun, leuntzen *(orobat **lehundu** g.er.)* **1** da/du *ad* leun edo leunago bihurtu, leuntasuna hartu edo eman.

Kaoba egurra erraza da **leuntzen** eta, gainera, ondo hartzen ditu kolorea nahiz berniza. Berria - Gaiak

Egur pusketak **leuntzen** edo hire maketak margotzen ikusi haut. Jesus Mari Mendizabal

Pinuzko horma **ondo** leunduak. Jose Morales

Andereñoaren bisaian hiru zimur **leundu** dira eta masailak beratu zaizkio. Eider Rodriguez

Hautsi zaion azkazal bat arta ezin handiagoaz konpontzeko, haustura berdindu du dagoeneko, orain karraskaz **leuntzen** du, zolitasunez. Jon Alonso

Diamante **leundu** gabea dugula gizakiok barrua. Juan Kruz Igerabide

Big Joe intzirika hasia zen, eta amak ilea **leundu** zion, lasaiarazi eta baretze aldera. Mirentxu Larrañaga

Milikatu egin zion krema garestiek **leunduriko** larruazala. Migel Angel Mintegi

Azkazalak **leunduak** zituen, ondo zainduak. Koro Navarro

Leihotik filtratzen den argiak gauzen ertzak **leuntzen** ditu. Jon Alonso

Eztarria **leundu** eta sukaldeko mahaian eseri zen. Koro Navarro

Gero ahotsa **leunduz** gaineratu zuen-: Zein zaila den herri honetan alkate kargua! Felipe Juaristi

Orduan soilik **leundu** zuen urte askotako laztasun hura. Jose Morales

Ez ditut zure penak **leunduko**, neuretuko ditut ordea. kanpoko fereka bero eta sutsuak barruko oinaze bortitza **leunduko** diolakoan. Jon Muñoz

Zigorren **gogortasuna** leuntzea. Juan Martin Elexpuru

Medikuek bakoitzaren sintomen araberako botikak ematen dizkiete gaixoei --, sintomen eragina **leuntzeko**. Berria - Gaiak

Baina nekeen gogorra **leundu** nahi ez badidazue, ezkuta ezazue lana bera. Iñaki Iñurrieta

Zaurien gainean larru-zati bat ipiniz artilearen **laztasuna** leuntzeko. Askoren artean

Neurri horien bitartez **leundu** egiten ziren, nolabait, merkatuaren bidez sortzen ziren desberdintasun sozialak. Iñaki Heras

Kapital-errenten gaineko zergak **leundu**. Iñaki Heras

Zakarkeria **leuntzen** saiatu nintzen: [...]. Anjel Lertxundi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Zur **leundu** haiek. Koldo Izagirre

Harri **leunduzko** eskaileretan zehar. Juan Garzia

Hilobien **harresi** leunduen kontra bermaturik. Juan Garzia

Izokina, zilar landua iduri, ezkatak metal **leunduan** gubilez joka eginda dauzkana. Karlos Zabala

Begiak suzko zuziak bezalakoak zituen, beso eta zangoak brontze **leundua** bezain distiratsuak. Elizen arteko biblia

Honela begiratuta, begi **leundu** haiek gabe, haren aurpegia ez zen hain erakargarria. Anton Garikano

**3** (era burutua izen gisa)

Fabrikan pieza solteak egiten dira; piezei lehen **leundua** ematen zaie, beste enpresa batzuetarako. Eskarne Mujika

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**bidea leundu** (4); **eztarria leundu** (6); **jarrera leundu** (4)
**ondo leunduta** (4)
**leuntzeko bide** (3); **mina leuntzeko** (4)
**ertzak leuntzen** (3); **ilea leuntzen** (3)

---

# leungailu ik **motelgailu.**

**1** ***kolpe leungailu*** *(orobat* ***kolpeleungailu****)* kolpe motelgailua.

**Kolpe-leungailuak** atzeko argiekin bat, lohi-babesak elkar marruskatuz, motoreak marruka, ihes-tutuak ketan. Lopez de Arana

Errebuelta itxia eginez sartu da zubi erdiraino, **kolpe-leungailu** baxuak eta gurpil zabalek lagunduta. Urtzi Urrutikoetxea

Trabeska gelditu zen Volvoaren aurrean, **kolpeleungailutik** metro erdia baino gutiagora, zoruak zauri gurpiletako kautxoari. Aingeru Epaltza

---

# leungarri **1** *izond* leuntzen duena.

Auto-gurpilek burrunba egiten **zuten** lanbro leungarrian zehar. Lopez de Arana

Haien ahalmen **leungarriak**. Bernardo Atxaga

Baina hori **leungarria** besterik ez zen, eta kalteak bere hartan irauten zuen. Iñaki Iñurrieta

**2** (hitz soila -en atzizkiaren eskuinean)

Emakumearen aurpegi izerditsuari herabetasun bozkariotsua zerion, mazela latzen gogortasunaren **leungarri**. Aingeru Epaltza

Amorruaren **leungarri**, protesta bat egiten saiatu zen: enbaxadatik ekarri dizkidatela ziurtatu didate. Jon Alonso

**3** (zuzenbidean)

Horrek «zinkunstantzia **leungarri** garrantzitsuak» ikusi eta 27.000 eta 14.400 euroko isunak galdegin zituen. Berria - Mundua

Akusatuaren adimen urritasuna argudiatuz **leungarri** gisa. Berria - Euskal Herria

• **4** *iz* leuntzen duen gauza. ik **leuntzaile.**

Ama ardoa erretiratzen hasten zenean, aitak, gaztari bultzatu beharraren aitzakiaz, azkeneko tragoa eskatzen zion, **leungarri** eta guzti, tragotxoa eskatzen baitzuen beti. Anjel Lertxundi

**Leungarri** eta goitizenik gabe aipatzen zuen gaitza, astrozitoma gaizto bat nuen. Imanol Zurutuza

Ziurtzat jo dezakegu kasu horietan ere, heriotza zentzumen guztietatik sartzen denean ere, urruntzaile bat dagoela, **leungarri** bat: ideologia. Bernardo Atxaga

Baina hori **leungarria** besterik ez zen, eta kalteak bere hartan irauten zuen. Iñaki Iñurrieta

Apenas erabiltzen duen modalizaziorik: *komeniko litzateke, beharko genuke* eta antzeko **leungarririk**. Patxi Altuna

Galeperra ahoan txiki-txiki egin eta gero, inolako **leungarririk** espero ez duen ehiza-txakurraren moduan.Horrelako idazleak [...] azalera ekartzen du mundu honetako gure izanaldi hainbatetan mingots eta gogaikarrian nonahi aurkitzen diren izaera hotz, arrunt eta xehen hondoa; zizel gupidagabea bere indar guztiarekin erabiliz, batere estalgarri edo **leungarririk** gabe erakusten ditu mundu guztiaren begien aurrean. Anjel Lertxundi

---

# leunkari *iz* arropa leuntzen duen produktua.

Garbigailuari tinko begiratu, eta bertara sartzeko gogoa etortzen zitzaidan: garbikari trinkoa eta **leunkaria** franko ipini, aparailua martxan jarri, eta barnera sartu nahi izaten nuen. Patxi Zubizarreta

Atseginez jantziko nituzke hozkailutik atera berriak diren jeans batzuk (garbiak, **leunkariaren** usain freskoarekin, ongi ematen dutenak [...]). Patxi Zubizarreta

---

# leunkeria *iz* leuntasun gaitzesgarria; bereziki, inoren borondatea bereganatzeko balakua edo losintxa.

Gogor egin nion hitz, ez zuen **leunkeriarik** gura izaten. Koldo Izagirre

Gordin mintzatzea erabaki nuen, **leunkeriaz** eta zurikeriaz mintzatzea baino hobe zelakoan. Joan Mari Irigoien

Hauteskundeak hola hurbiltzearekin, zernahi erraiten da, **leunkeria** eta zurikeria merke izaiten dira. Herria

Dena lausengu eta **leunkeria** español gobernuaren alderat. Herria

Finezien eta **leunkerien** lagun, lortzen dute denak beren zerbitzurako egon daitezen. Joan Mari Lekuona

---

# leunketa *iz* leuntzea, leuntasuna hartzea edo ematea..

Aspaldidanik **leunketa** baten beharrean zegoen kolore gabeko zorua. Iban Zaldua

Igurtziaren gainean, garbiketarekin eta **leunketarekin** ondo bukatuta daudenean, marmola bahetu eta zabalduko da eta gainean kare eta hareazko geruza bat emango da. Santiago Iruretagoiena

---

# leunki *adlag* leuntasunez, leun. ik **emeki.**

Oparo jan eta edan eta **leunki** jantzten zirenak. Askoren artean

**Leunki** zihoan aurrera hain ibilera leuneko kalesa. Jose Morales

**Leunki** zeharkatzen duzu Times Square goizaldeko hiru eta erdietan. Oskar Arana

Victoriak kaleko aterantz bultzatu ninduen, **leunki** eta ahopeka baina bide batez irmo, eztabaidarik onartzen ez zuen eran. Ramon Saizarbitoria

Llumek Daniri begiratu eta laztan egiten dio **leunki**. Antton Olano

Kintzilik geratzen zen airean, haizeak **leunki** kulunkaturik. Jose Morales

Ozpin usainak eztarria mingosten zion **leunki**. Karlos Zabala

Zuzen-zuzenean sartuko da atean zehar usain atsegineko **logela** leunki argiztatura. Oskar Arana

-Ene iloba -hasi zitzaion, orduan **leunkiago**-, zure osaba naiz, baina aitatzat har nazakezu. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**leunki bizi** (4); **leunki bizi izan** (3); **leunki ukitzen** (3)

**leunkiro** *adlag* leunki.

Gorputza eta gorputz adarrak **leunkiro** ukitu, eta eskuak hartu zizkion. Agustin Otsoa

Orduan baretuko ditut ibaiko urak eta olioa bezain **leunkiro** joango dira. Elizen arteko biblia

Bere zakila dakust mardo-mardo, nire ezpain artean hartu **dut** leunkiro, eta burutxoa ferekatu diot. Juan Martin Elexpuru

Gizonak musu ausart batez neskatxaren ahoa itxi du bibote sarrien artean, mokorrak hurbildu ditu, **leunkiro** baino tinko. Karlos Zabala

---

**leuntasun** *(orobat* ***lehuntasun*** *g.er.)* **1** *iz* leuna denaren nolakotasuna.

ukitu gabe ere gauza bakoitzaren laztasuna edo **leuntasuna** garbi-garbi dator nire ukimenaren oroimenera. Pako Aristi

Gogoan du haren ilearen **leuntasuna**, arintasun luma baten antzekoa bere hatzen artean. Oskar Arana

Cadinek artileak, flanelak, kotoiak ukitzen zituen, ehunaren **leuntasuna** eta malgutasuna egiaztatzeko asmoz. Karlos Zabala

Baina esnatzen naizenean oraindik sentitzen dut haren bular sendoen **leuntasuna** larruan. Migel Angel Mintegi

Eta lizunkeria ez da gorputzen edertasunaren eta **leuntasunaren** bizioa, gorputzezko plazerak neurriz kanpo maite dituen arimarena baizik. Imanol Unzurrunzaga

Musu baten **leuntasun** epela zuen aireak. Anjel Lertxundi

Hatz-muturrak, aurpegi lokartuaren aldameneko burkoaren gainean ezarriak, barnerantz bihurtuta zeuden pixka bat loaldiaren **leuntasunean**. Ibon Uribarri

**2** ***leuntasunez*** *adlag*

Amodioak sorgortua sentitu zen, harik eta Hamidak bere besoetatik **leuntasunez** baztertu zuen arte. Patxi Zubizarreta

Erreka ere isilik zegoen, **leuntasunez** egiten zuen aurrera. Bernardo Atxaga

**Leuntasunez** errefusatu zuela, zakarkeriarik gabe. Patxi Zubizarreta

Hatz batekin nire hatz bakoitza ferekatuz joan zen, oso poliki, **leuntasun** handiz. Ramon Saizarbitoria

---

**leuntzaile** **1** *iz* leuntzen duen gauza. ik **leungarri**.

Koloniak, haginetako pasta, arropen **leuntzailea**. *ik* leunkari. Jon Arretxe

Orain hobeki zaintzen dugu geure burua, badira lozioak, tindagaiak, **kremak**, leuntzaile zenbait. *ik* leunkari. Jon Alonso

**2** leuntzen duen pertsona.

Artisauak zilarginari ematen dio adore, mailukari **leuntzaileak** ingude-jotzaileari, esanez: "Ederra soldaketa!". Elizen arteko biblia

---

**leuntze** *iz* leun edo leunago bihurtzea, leuntasuna hartzea edo ematea.

Zure oinazeen **leuntze** arin bat baizik ez da izanen, baina ez duzu bederen bakarrik negar eginen. Jon Muñoz

Egur pusketak **leuntzen** edo hire maketak margotzen ikusi haut. Jesus Mari Mendizabal

---

leutzemia ik **leuzemia**.

---

**leuzemia** *(orobat* ***leukemia*** *g.er. eta* ***leutzemia*** *g.er.)* **1** *iz* eritasun larria, gorputzeko atal askotan leukozitoak neurriz gaindi ugaritzean sortua.

**Leuzemia** odoleko minbizia da, eta anemia, odoljarioak eta akidura dira haren zantzu nagusiak. Berria - Gaiak

Handik sei hilabetera Alexek **leuzemia** zuela esan ziguten. Iban Zaldua

Parisen, **leuzemiak** jota, [...] hil zenetik, hogei urte bete dira 2004. honetan. Berria - Kultura

Gero eta mutil sendoagoa egin zen eta, **leuzemia** linfoblastikoak utzi zizkion ahulezia guztiak ahaztuta. Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan)

**Leuzemia** zelulak hiltzeko duen ahalmena. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> leuzemia linfoblastikoa (3)

---

**leviatar** *izlag*

**Leviatar** absolutismo honen azken gorabeherak, kristau-aroko hogeigarren mendean izan zituen adierazpen "totalitarioetaraino", dagoeneko jorratu ditugu Azterlan honetan lehenagoko orrialdeetan. Iñaki Mendiguren

---

**lexema** *iz* esanahia duen hitz zatia.

Etimologia aldarrikatzen du Serrano Izkok saiakera honetan, baina ez filologoen eran, **lexema** bakoitzaren jatorria ikusarazi nahian. Berria - Kultura

Hitz moztuetan, adibidez, hitza banandu egiten da eta, horrela, haren **lexema** duten termino guztiak lortzen dira. Askoren artean

---

**lexikal** *izond* hiztegiari dagokiona. ik **lexiko**.

Esku artatsuz eta amodioz eginiko nire lehen poemak erakusten nizkion, eta berak zuzenketa gramatikalak, **lexikalak** eta estiloari zegozkionak egiten zizkidan, euskaldun berria nintzen hartan. Baina euskararen ezgaitasuna frogatzeko Unamuno-k beti hartzen duen bidea txirotasun **lexikalarena** izaten da. Joxe Azurmendi

Eduki **lexikalen** azterketak definitzen ditu garai jakin batean subjektu berbadunek euren eskura dituzten adierazpen elementuak. Xabier Arregi

Diskurtso baten objektuen eraketa deskribatzean, ahalegintzen gara praktika diskurtsibo bat ezaugarritzen duten harremanak kokatzen, ez da zehazten antolaera **lexikal** bat eta ezta eremu semantiko baten etendurak ere. Xabier Arregi

---

lexikaldu ik **lexikalizatu**.

---

**lexikalizatu**, lexikaliza, lexikalizatzen *(orobat **lexikaldu**)* **1** da *ad* hitz bihurtu.

Badira, azkenik, **lexikalizatuta** dauden aldaerak eta, nire ustez, bere horretan utzi beharrekoak direnak: *ba* eta ez *bada*, *barik* eta ez *bagerik*, *bialdu* eta ez *bidaldu*, [...]. Koldo Zuazo

Guztiz **lexikalizatuak** dauden *bet-betan, bat-batean, bat-bateko, bat-batekotasun, kuxkuxean...* sail honetakoak dira. Iñaki Arranz

Guk hona bikoiztapen **lexikalizatu** batzuk baino ez ditugu ekarriko: *adi-adi (egon), birrin-birrin (egin),* [...]. Iñaki Arranz

**2** irud/hed

Ekosistemak mantentzeko arauak hizkuntza txiki horietan barneratuta daude, ekosistema nola mantendu **lexikalizatu** egin dute. Berria - Euskal Herria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Izan ere, *irri eta mirri* bezalako esapide **lexikalizatuak** gogoan, hitz pare berriak sortzea denon eskueran dago. Iñaki Arranz

Esamolde **lexikalizatu** hauek ez dute hitz elkartua sortzen, baina egitura bateratua dute. Iñaki Arranz

---

**lexiko** **1** *izond* hiztegiari dagokiona.

Euskal hitz eta aldaera **lexiko** zaharrak. Koldo Zuazo

Oparotasun **lexiko** handia du japonierak. Ibon Uribarri

Posible da hitz baten egitura fonologikoa jakitea laguntza **lexiko** eta gramatikalik gabe ere. Lourdes Oñederra

Berez askeak diren bi hitz (edo gehiago) elkartuz, unitate **lexiko** berria sortzen du hitz elkarketak. Iñaki Arranz

**2** *iz* hitz altxorra, hiztegia.

Literatur berpizkunde baten monumentu tipikoa bere lehen fasean antologia, corpus, thesaurus, **lexiko** edo entziklopedia bat izaten da, printze baten eskariz jakitun-talde batek bildua. Iñaki Mendiguren

Erregelazko ordezkatzeak, beraz, arauz eta buruz ikasten dira hizkuntzaren gramatika edo **lexikoa** ikasi ahala. Lourdes Oñederra

**Lexikoaren** koherentzia beharrezkoa da filosofian. Askoren artean

Baina ez zen bakarrik hitz egiten zutena, **lexiko** zahar hura; isiltzen zutena ere bazen. Bernardo Atxaga

Film haietan azaltzen zen **lexikoa** euskaratzerakoan arazo txikiren bat izan genuen. Jon Arretxe

**Lexiko** berria sortzean, berriz, sarriegi jo izan dugu plastikozko terminoak asmatzeari. Joxerra Garzia

Eibarren, neure jaioterrian, **lexiko** berezia garatu da bertako langileen bizimoduan. Koldo Zuazo

Lantegietako **lexiko** teknikoa. Koldo Zuazo

Ez dut **lexiko** garbizalea eguneroko jardunerako aldarrikatzen. Koldo Zuazo

Jakin egin behar da norberaren **lexikoa** ere sortzen, zaintzen, hedatzen. Iñigo Aranbarri

**3** irud/hed

Korrelazio anatomo-kliniko sinpletik prozesu fisiopatologikoen azterketa fineraino zeinuen **lexikoa** eta eurak deszifratzeko modua berriz eratu delako oso-osorik. Xabier Arregi

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **lexikal**.

**Lexiko** mailako tresneria. Isabel Arrigain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> fonologia lexikoa (3); lexikoa eta sintaxia (3)
> aldaera lexikoak (4)

---

**lexikografia** *iz* hiztegigintza.

Baina [Harrieten] hiztegia ez zen argitaratu, eta ez da aztertu haren benetako balioa euskal **lexikografian**. Berria - Kultura

Baina hortxe dago, eta ez da izen berezi baten duin, ez herri-jendearentzat behinik behin, baina bai gorputzaren kartografiarentzat: bai anatomiarentzat eta **lexikografiarentzat**. Iñaki Segurola

UZEI Terminologia eta **Lexikografia** Zentroak. Berria - Euskal Herria

---

**lexikografiko** *izond* hiztegiarena edo hiztegigintzarena; hiztegiari edo hiztegigintzari dagokiona. ik **hiztegi 5; hiztegigintza 2.**

Zergatik azalpen **lexikografiko** hau? Xabier Mendiguren Elizegi

Marraz itzak bihurkadura **lexikografiko** eta sintaktikoak. Xabier Olarra

Inork ez daki nola, baina, halako batean, Abaxik hiztegien oin-bilurrak askatzea lortu du, eta ihes egin du literatur lilura urriko lerro **lexikografikoetatik**. Anjel Lertxundi

---

**lexikografo** *iz* hiztegigilea.

Hizkuntzalariei eta informatikalariei da jardunaldi hau zabaldua, bai-ta ere unibertsitateko ikasle, irakasle eta ikerleeri, **lexikografo**, itzultzaile eta euskara lan-tresna duen edonori. Herria

**Lexikografo** zorrotza ohartzen da definizio bikain hauei eransteko ez daukala baliozko ezer. Xabier Olarra

**Lexikografo** batek zaharkitutzat jo duen hitza horrez geroztik beldurgarri eta higuingarri bihurtzen da idazle ergelarentzat. Xabier Olarra

---

**lexikologia** **1** *iz* hizkuntzalaritzaren adarra, lexiko unitateak eta horien arteko erlazioak, hizkuntzaren sistemaren barnean, aztertzen dituena.

Arrazoizkoa al da **lexikologia** gramatikatik bereiztea? Isabel Arrigain

Izan ere, morfologiak eta sintaxiak osatu dute, abenikoz, gramatika, eta alde batera utzi da **lexikologia** edo hitzen zientzia dena. Isabel Arrigain

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **lexikologi**) ik **lexikologiko**.

Ikusten da, beraz, **lexikologi** gertaera sintaxi gertaerarekin nahas daitekeela funtzioaren ikuspuntutik. Isabel Arrigain

1986an, era berean, **lexikologia** irizpideak zehazten hasi zen Euskaltzaindia. Koldo Zuazo

**Lexikologia** eta hiztegigintza arloan egin du lan batik bat. Berria - Kultura

Aurkakotasuna, grezieraz, gramatikazko bideak erabiliz eratu dela, eta frantsesez, **lexikologi** bideak erabiliz. Isabel Arrigain

Euskal Idazleen Elkarteko eta UZEI Terminologia eta **Lexikologia** Zentroko bazkidea. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

terminologia eta lexikologia (3)

---

**lexikologiko** *iz* lexikologiari dagokiona. ik **lexikologia 2**.

Gertaera foniko, **lexikologiko**, morfologiko, sintaktikoak eta abar. Isabel Arrigain

Hizkuntza mota guztietan **lexikologikoena** txinatar hizkuntza da; sanskritoa eta indoeropeoa, aldiz, gramatikaletan gramatikalenak dira. Isabel Arrigain

---

**lez** *adlag* legez.

Helbiderik gabeko postala **lez**. Joseba Sarrionandia

Alkate **lez** sinatzen zituen aginduak. Joseba Sarrionandia

Arratsaldeko geriza **lez**, luzatu egin zitzaidan bere irudia. Hasier Etxeberria

Euskaraz ikasi dugu, baina egia esan hizkera hermetiko **lez** erabili dugu beti. Joseba Sarrionandia

"Maiteminduta egotea **lez"**, esaten du. Oskar Arana

Eguzkia gorri jalgiko da, ikatz suak hartua **lez**. Joseba Sarrionandia

Baten batek esan ei eban berak Rufinok soinua jota dantzan egin gura eukeala, antxina **lez**. Xabier Amuriza

Zertarako hainbeste hitz eta pitz, beti **lez**, betikotan? Hasier Etxeberria

-Magiako Ministerioa gauzak nahasten dabil, beteiko **lez**. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
balira lez (6); bat lez (3); berriak lez (3); beti lez (3); betiko lez (5); den lez (5); lez hil (3)

---

lezafina ik **listafin**.

---

**lezamar** *izlag/iz* Lezamakoa, Lezamari dagokiona; Lezamako herritarra.

Duela 25 urte hildako **lezamar** idazlearen 11 liburu eskaintzen ditu Susak atondutako webguneak. Berria - Kultura

Partidaren hasieratik bukaera arte Aurtenetxe **lezamarra** izan zen jaun eta jabe.

**Lezamarrak** bitan iritsi dira finalera eta bietan irabazi dute, Usansoloko taldea lehengoz iritsi da finalera. Berria - Kirola

---

**leze** *iz* leizea.

**Leze** ondoan izan naiz gaur. Alberto Barandiaren

**Lezea** zen gure maskorra, gure mamuen kantua bihurtzen zigun koba. Alberto Barandiaren

Larrungo treina eta Sarako **lezeak**. Herria

Maiatz luze, artuaren **leze**. Pello Zabala

---

**leziabide** *iz*

Gure doktrinak badu, kasu horretan eta beste bakan batzuetan, galderoi erantzuteko **leziabide** eder edonoren eskukorik; lekuz kanpo legoke, ordea, hori hemen. Juan Garzia

---

**leziatu**, lezia, leziatzen **1** du *ad adkor* doktrinatu.

Landareez eta piztiez **leziatzen** ninduen, baina gutxi mintzatzen zen bere familiaz. Juan Garzia

Ez dut inor **leziatzeko** asmorik, ez neure ahuleziak arintzeko beharrik ere. Anjel Lertxundi

Baziren integrista batzuk, taldean etortzen zirenak -ni **leziatzera** esan ohi zuten bezala-, eta ahotan *malapartatua* hitza baino ez zutenak. Joxan Elosegi

Abian jarri zen Leviatan, haizearekin jolasean, zaldi ongi **leziatua** zelaian trostan bezala. Felipe Juaristi

Amaiurrez, konkistaz eta euskaraz hainbeste **leziatuta**. Diktadore izena, ez da nahikoa irakurlea **leziatzeko**? Iñigo Aranbarri

**2** irud/hed

Salvatierraren hilketaren ondoren nik, soldadu odoletan **leziatu** honek, Jauregi adiskidea, soka batetik zintzilik urkaturik ikusi nuen. Felipe Juaristi

---

**lezio** *(orobat **lekzio** g.er., **lekzione** g.er. **letzione** g.er. eta **lezione** g.er.)* **1** *iz* ikasgaia; eskola.

Liburua eguneko **lezioan** zabaldu eta, maisuari eta aldizka liburuko orrialde zabalduei begira egon arren [...]. Joseba Sarrionandia

**Lezio** argi eta errax bakar batzuetan analisi iraultzailea erakusten nien guztiei. Fernando Rey

Miradorean alde batetik bestera ibiltzeari ekiten genion Arteari edota Filosofiari buruzko **lezioa** hartzen nion bitartean. Bernardo Atxaga

Ikasleek **lezioa** hartzen zioten elkarri, aurpegi serioarekin. Anton Garikano

Youngen ideia bikaina, bestela **bezala** lezio batean jaurtia, ahazturik edo lozorroan gelditu zen, harik eta Hermann von Helmholtzek, ikusmenari buruzko ikerketan ziharduela, piztu eta zehaztasun berri bat eman zion arte; aipatzen dugu gaur Young-Helmholtz hipotesia. Xabier Olarra

Halako batean, bere **lezio** "metodiko harrigarrian" ari zela [...]. Patziku Perurena

Eta **lezio** asko bazen, eta bada, ikasteko. Edurne Elizondo

Ez dira **lezioak**, solasak baizik. Markos Zapiain

**Lezio** ttiki bat plajioari buruz. Iñaki Arranz

Guri "glotodidaktikako" **lezio** ematera zinez eta gogoz heldu zela adierazi nahiko zigun nonbait. Patziku Perurena

Taldea eskutik edukitzeko soka noiz askatu jakite hori zen Perikok falta zuena, karreran ikasi gabeko **lezioa**. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** irakaspena, ikaskizuna.

Kalamitate asko bizi eta nozitutako gurasoengandik jaso genituen lehen **lezioak**, urte ttiki haietan **lezio** handiak, gerora zintzo aplikatzekoak. Pello Zabala

Bistan da autoestimako **lezio** ederra eman ziola amari. Patziku Perurena

Hori da ere obra hunen xarma, **letzione** emaiteari uko eginik, misterioa nagusitzerat uztea etxerako bidean... Herria

Eta guztietatik **lezio** bat atera nahi du alemaniarrak. Edurne Elizondo

Riañok erakutsitako **lezioa** ez dugu oraindik ikasi. Edurne Elizondo

Juanmak, tamalez, are **lezio** gogorragoak ere ikasi ditu. Edurne Elizondo

Zer **lezio** ikasi duzue Berangon, Irunen eta Elgoibarren izandako eskarmentuetatik? Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dussel jauna [...] **lezio** emaile zaharkitu horietako bat da. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure atsotitzek badutela filosofia **lezio** eta ikaskizunik hitz gutxitan bilduta...! Pello Zabala

Begiak igurzten dira, eta aurrez sufritzen da gramatika **lezio** tristeagatik. Josu Zabaleta

«Venezuelak demokrazia **lezio** bat eman dio munduari», adierazi du Kolonbiako presidente Alvaro Uribek. Berria - Mundua

Mila esker duintasun **lezio** honengatik. Berria - Ekonomia

Tere Irastortzaren hitzaldi- **lezioa** entzuteko prest. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lezio bat eman** (6); **lezio berri** (4); **lezio berri bat** (3); **lezio ederra** (6); **lezio ederra eman** (4); **lezio handiak** (3); **lezio ttiki bat** (4)

**erakutsitako lezioa** (3); **groenlandiako lezioa** (14); **ikaragarrizko lezioa** (3); **ikasita zeukan lezioa** (3); **lezioa eman** (10); **lezioa emango** (3); **lezioa ematen** (3); **lezioa hartzen** (4); **lezioa ikasi** (7); **lezioa ikasita** (6); **lezioa izan** (4); **lezioa ondo ikasita** (4)

**lezioak atera** (3); **lezioak eman** (4); **lezioak ematen** (9)

---

## lezione ik **lezio**.

---

## **leziotxo** *iz adkor* lezioa.

Gure telebistari gagozkionez, nire uste apalean, bete-betean asmatu dute aurkezpenaren barruan, tarteka eguraldi nahiz eguratsaren inguruko hainbat kontu ttiki **nahiz** leziotxoak emateaz. Pello Zabala

---

## **lezitina** *iz* gai organikoa, zelulen mintzan, nerbio zuntzetan eta arrautzaren gorrringoan ugari dagoena.

Moyresak ekoiztutako soja- **lezitina** edo soja-olio transgenikoa asko erabiltzen da margarinak, txokolateak, jogurtak eta antzekoak egiteko. Berria - Euskal Herria

---

## **lezka** **1** *iz* kanaberaren zurtoinaren antzeko zurtoina duen belar landarea *(Typha angustifolia etab.).*

Ikustekoak ziren bi bazterretako itsas padurak, ihi eta **lezkaz** oparoak. Joanes Urkixo

Kanabera greziarrik ez baldin badago, zingiretako **lezkak** bilduko. Egur horien tartean zingiretako **lezkaz** egindako saskiak jarriko dira buztinez beteta. Santiago Iruretagoiena

**2** ***lezka-txori*** txori intsektujalea, lumaje gaztainkara duena, zingiretan eta ur ondoko landareetan bizi dena*(Acrocaphalus scirpaseus).*

Kanabera artean ezkutaturik, martin-arrantzale ñabarra, **lezka** -txoria, uroiloa eta kopetazuri maltzurra egon ohi dira. Koldo Biguri

---

## **lezoar** *(orobat **lezotar**)* **1** *izlag* Lezokoa, Lezori dagokiona.

Urtzi Urkizu **lezoar** olerkaria. Herria

Miguel Angel Barcenilla **Lezotar** historialariak emanik. Herria

*Euskaldunon Egunkaria*ren afera hortan, oraino bi presuna gelditzen dira preso: Iñaki Uria zarauztarra eta Xabier Alegria **lezoarra** . Herria

**2** *iz* Lezoko herritarra

**Lezoarren** mendekua Hondarribikoek hartu zuten: bi jardunaldietako denborak batuta, 1: 22ko alde kendu zieten oriotarrei. Berria - Kirola

---

## **lezoi** *iz* pezoia.

Bera makurtu egin zen, ibai ertzeko **lezoian** ezkutaturik. Kriminal haiek ez ziren 55 mmøko obusak lehertzen ziren **lezoietan** inoiz egon... Koldo Izagirre

Euli urdin gizenak **lezoiaren** hondoan baionetaz josien artean furrundaka. Koldo Izagirre

Hogeita hamazazpiko otsailean hartu zuten tropa nazionalek preso bere konpainia erdiarekin, eta ez omen zuten bertan fusilatu besoak behar zituztelako **lezoiak** egiteko. Koldo Izagirre

---

## lezotar ik **lezoar**.

---

## leztafin ik **listafin**.

---

## **liana** *iz* tropikoetako aihen landarea, arboletan gora igotzen diren eta goian abartzen diren zurtoinak dituena.

Oihaneko **lianak** buruko tximetan katramilatuta. Ander Irizar

Jendeari bultzaka, junglan adarrak eta **lianak** apartatzen diren moduan. Joseba Sarrionandia

**Lianaren** beste muturra, etxepean lo zegoen zerri baten hankari itsatsi diote. Pablo Sastre

Gure azken esperantza Tarzan agertzea da, **liana** batetik zintzilik eta oihuka. Jon Alonso

---

## **liatu**, lia, liatzen **1** da *ad* nahasi, korapilatu.

Ez naiz orain hasiko gauzak **liatzen** . Lourdes Oñederra

**2** (norbaitekin) katramilatu.

Bere andrarekin **liatua** nintzela kontatu eta aurpegiko gihar bat ere ez zian mugitu... Sonia Gonzalez

• **3** du *ad* zigarretez eta kidekoez mintzatuz, bildu.

Bazter batera doaz eta txirri bat **liatzen** dute. Pako Aristi

Gazteak lasai-lasai segitu duela berean, kanuto **bat** liatzen, alegia, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Jokin Muñoz

Pareko hormaren kontra Xankapo, porroa **liatzen.** **Iñaki Iñurrieta**

Eta Bobek **liatzen** zituen tronpetak, paregabeak aixkide... Harkaitz Cano

---

libandar ik **libanoar**.

---

**libanes** *izond* libanoarra.

-Kosto hau **libanesa** duk, gogor jotzen dik. Iñaki Iñurrieta

---

libaniar ik **libanoar**.

---

**libanoar** *(orobat **libandar** g.er. eta **libaniar** g.er.)* **1** *izlag* Libanokoa, Libanori dagokiona.

Ez da harritzeko **libanoar** irakasle batek aipu baitzuen berrikitan giza eskubideen deklarazioa berridaztea. Piarres Xarriton

Libanoko enbaxadak, bestetik, bahituta zegoen Imad Bassila **libanoarra** atzo askatu zutela adierazi zuen.

Nahla Chahal idazle eta ekintzaile **libanoarrak** oso ondo eta gertutik ezagutu zuen Arafat. Berria - Mundua

400 bat preso **libanoar** zein palestinar askatu zituen Israelek. Berria - Mundua

Uassef Ali Hassun jatorri **libanoarreko** soldadu estatubatuarrarentzat. Berria - Mundua

**2** *iz* Libanoko hiritarra.

*Haaretz* egunkariak atzo zabaldu zuenez Alemaniak bi **libanoar** eta iraniar bat askatuko ditu.

Ostegunean 59 **libanoarren** gorpuak eraman behar dituzte Rosh Hanikra mugako herrira. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bi libanoar** (5); **preso libanoar** (3)

---

**libazio** **1** *iz* erritu paganoa, aldarearen edo biktimaren gainean likido jakin bat ixurtzean zetzana.

Eta ahoa hurbildu zuen **libazioak** isurtzen direneko hodira. Juan Garzia

**2** irud/hed

Herio urrintsu, onar ezan ene ahotsaren **libazioa**. Juan Garzia

---

**libelo** *iz* pertsona, ideia edo erakunde bat gezurrez belzten den izkribua.

1914an argitaratu zen **libelo** batean, Bahr-ek espresionistatzat hartzen ditu Matisse, Braque, fauvistak, Blaue Reiter, noski (Klee, Kandinsky, Franz Marc), die Brücke (Nolde, Schmidt-Rottluf), eta orobat futuristak. 1997ko udazkenean, Mujikak, euskal kulturari buruzko **libelo** bat (hala deitzen dio egileak berak) eman zuen ezagutzera, Interneten bidez. Josu Zabaleta

Opus Dei-ren aurkako **libeloa** irakurri gogo duenak. Berria - Kultura

Baina aspaldi ez dela **libelo** itsusi bat atera da egunkarietan: Vidal andereñoa Aljeriatik egotzi duten arrazoiak ez omen ziren politikoak izan. Harkaitz Cano

---

**libelogile** *iz* libeloak egiten dituen idazlea.

**Libelogileak**, kinka berean, emozioa jartzen du zalantzan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Baina, hala ere, badira beste kontu batzuk **libelogileak** nahitaez aipatu behar dituzkeenak, bere azterketa lau hankatatik herren geratzea nahi ez bazuen behintzat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

**libelula** *iz* mariorratz, sorgin-orratz.

Euliak, inurriak, hiru kakarraldo, eltxoak, **libelulak**, matxinsalto bat, erleak. Unai Elorriaga

Krema koloreko J.B. Hotson sonbreirua jantzita zeukan, eta eskuan hartu eta **libelula** handiak uxatu zituen mahai ingurutik. Bernardo Atxaga

Hegan joan ziren gehienak, baina **libelula** batek oinez joatea erabaki zuen, inurriekin batera. Unai Elorriaga

---

**libera** **1** *iz* Frantziako diru banakoa, euroa ezarri zen arte.

Bostehun **libera** eskaini zion amaren altzari eta arropen truke. Karlos Zabala

Hala, esaterako, euro batek 166,386 pezeta eta 6,559 **libera** balioko zituela ezarri zen. Iñaki Heras

Lau **libera** aurreztu zituen bi hilabetean. Karlos Zabala

Gauean jendetza hori bera daramate Baionara hamabina **liberatan**. Koldo Izagirre

Ehun mila **libera** xahutu omen zituen Zainab anderea lortzearren. Patxi Zubizarreta

5.000 **liberatako** isuna. Berria - Mundua

-Esan, Marcel, ehun sosean saski hau, eta lau **liberan** bestea, bederatzi **libera** eman behar diat guztira, ezta? Karlos Zabala

Gogora zetorkion nola iritsi zen Havrera, eta nola hamabost **libera** baino ez zituen aurkitu muki zapiaren korapiloan. Karlos Zabala

**Libera** bateko eta biko txanponez betetako biribilki batzuk. Karlos Zabala

Miliun eta ehun mila **libera zahar** banatu dire azienden priman herritarreri. Herria

Eskuak bost ehun **liberako** biletez hanpaturik. Itxaro Borda

Hiru **liberako** ezkutuak, paperean, zilarrezko hiru **liberako** ezkutuak baino lau bosten gutxiago balioko luke. Iñaki Iñurrieta

Andreasi hartutako ehun **liberakoa** mukizapian bildu kontu handiz eta korapilo egin zion. Matías Mujika

**2** libera esterlina.

1816tik 1970era, Britainia Handiko dirua **libera** zen. Julen Gabiria

**Libera** bakoitza 20 txelin ziren, eta txelin bakoitza 12 penny. Julen Gabiria

Ginea, berriz, 21 txelin ziren, hau da, **libera** bat eta txelin bat. Julen Gabiria

1970ean, sistema hamartarra hartu zuten, eta **libera** 100 penny izatera pasatu zen. Julen Gabiria

Zure hemezortzi txelin eta hiru pennyekin, izango ditugu hiru **libera**, bederatzi txelin eta zazpi penny. Julen Gabiria

**Libera** bat eta hamazazpi txelin dauzkat etxean, eta bulegoan **libera** bi eta sei txelin. Julen Gabiria

**3** libra, pisu neurria.

Gerran itzel sufritutako mutila, abiada batean ehun **liberako** erregai-upelak altxatzeko gai zena. Edorta Jimenez

Uztailaren 6an 750 **liberako** ezpatarraina harrapatu zuen, hura plazera. Edorta Jimenez

**4** ***frantses libera***

Frantses **liberak**, daniar koroak eta irlandar librak (otsailean debaluatua) eraso gehiago pairatu behar izan zuten. Koro Navarro

1995ean, frantses **liberak** eraso gehiago pairatu behar izan zuen, eta Frantziako Bankuak beste diru-murrizte bat egin behar izan zuen. Koro Navarro

**5** ***libera esterlin***

Hirurehun mila **libera** esterlin balio zuen altxorrak Juan Garzia

**6** ***libera urre***

Galiarrek Erroma hartu zutenean, mila **libera urre** besterik ez zuten aurkitu han. Iñaki Iñurrieta

Hogeita **hamar** libera urre eskatu diot guztiaren truke. Juan Garzia

Halako gisaz non jakin dudan leku segurutik 200.000 **libera** urre zor badituela. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**libera balio** (8); **libera berri** (3); **libera diru** (3); **libera eman** (6); **libera ematen** (3); **libera eskaini** (3); **libera eskatzera** (3); **libera eskura** (3); **libera esterlina** (8); **libera gostako** (3); **libera pagatu** (3); **libera urre** (3)

**frantses liberak** (3)

**hiru liberako ezkutu** (4); **hiru liberako ezkutuak** (5); **hirurogei liberako isuna** (6); **liberako billete** (5); **liberako diru** (4); **liberako errenta** (4); **liberako ezkutu** (6); **liberako ezkutuak** (5); **liberako isuna** (6); **liberako isuna ordaintzen** (4); **liberako maileguak** (3)

---

# liberal

**1** *izond* politika eta ekonomian, gizabanakoaren askatasunaren aldekoa dena. (pertsonak)

Mendebaldeko politikari **liberal**, sozialista eta demokrata guztiek. Piarres Xarriton

Ekonomilari **liberal** askoren ustez, estatuaren parte-hartzearen ondorioz sortzen dira ekonomiek izaten dituzten arazo gehienak. Iñaki Heras

Segoviako jauntxo **liberal** bat. Txillardegi

Azkartxo adosten zarete zuek, jainkogabe horiek, apaizjale **liberalekin**! Koldo Biguri

Pidal omen da nazio espainolaren teoriko **liberal** handia. Joxe Azurmendi

Dirk Stercks eurodiputatu **liberalak** idatzi zuen txostena. Berria - Gaiak

Gai horietan Baionako irakasleak aski **liberalak** ziren. Piarres Xarriton

**2** (bestelakoak)

Zapaterok Espainia **liberal** bat aldarrikatzen du. Joxe Azurmendi

Joera **liberalak** merkatu-ekonomian edo sistema kapitalistan merkatu mekanismoek duten garrantzia azpimarratzen du. Iñaki Heras

Esku-hartzearen aldeko apustua da beraz Keynesena, doktrina **liberal** erradikalaren aurkako erasoa. Iñaki Heras

Oposizio **liberal**-kontserbadoreak aurka bozkatu zuen. Berria - Mundua

Parisen poderean eskuineko gobernu ultra **liberal** bat dugun garaian. Herria

Ameriketako Estatu Batuetako hiri **liberalenetako** bat da San Frantzisko. Berria - Gaiak

Institutuko giro **liberal** eta laikoaz blaiturik. Xabier Mendiguren Elizegi

Absolutismoa itzuli zenean, Legeria zaharra ezarri zen berriro, eta honek atzeratu egingo du gure herrian Zuzenbide Penal **Liberalaren** irizpideak onartzea. Juan Martin Elexpuru

**3** lanbideez mintzatuz, konkurrentzia librean, eta estatuak ordaindu gabe gauzatzen direnak.

Ofizio **liberaleri**, mediku, abokat, notario eta horieri ez. Herria

Inbidia zien lanbide **liberala** zutenei eta bulego-ordu jakinen mendean ez zeudenei. Anton Garikano

Indiako negozio eta gobernuaren mendebaldartzeak Mendebaldeko bi lanbide **liberal** sortu zituen Indian, unibertsitateko irakaskuntza eta abokatutza Iñaki Mendiguren

**4** eskuzabala.

Hain sentitu nintzen franko eta **liberal**, non Mignonen begi zolien aitzinean ireki bainuen poltsa... Joan Mari Irigoien

Erromako eliza beti hain **liberala** eta eskuzabala. Joan Mari Irigoien

Jainkoak enekin ezin **liberalago** jokatu zuela orbanen kontu harekin. Joan Mari Irigoien

• **5** *iz* politika eta ekonomian, gizabanakoaren askatasunaren aldekoa den pertsona; alderdi liberal baten kide edo aldeko den pertsona.

Baina, **liberala** izanik, era berean, ez zen **liberal** ortodoxoa izan. Iñaki Heras

Atzoko sozialista gorriak orain **liberal** zuriak dira. Joxe Azurmendi

1839ko **liberalen** eta karlisten arteko besarkada, traizioaren eredu euskaldunontzat. Koldo Izagirre

Errenteria **liberalen** menpe zegoen. Berria - Kultura

Desberdintasun hauek **liberalentzat** konpongarriak ziren eta kontserbadoreentzat ezinbestekoak. Iñaki Mendiguren

Eskuina, armada eta eliza katolikoa auzitegi militarraren epaiekin bat zetozen; **liberalak** eta intelektual ugari, aldiz, kontra. Karlos Zabala

**Liberal** demokratek joko pollita egin dute ardietsiz berrogoi-ta hamar bat deputatu alki. Herria

Bai, badakit sexuari dagokionez **liberal** ospea dudala; putarena, batzuentzat. Juan Kruz Igerabide

**6** ***alderdi liberal***

Quebeceko Asanblea Nazionalean (Legebiltzarra), aldiz, PL **Alderdi Liberala** da nagusi. Berria - Harian

**Alderdi Liberaleko** buruetako batek. Berria - Harian

Alemaniako **Alderdi Liberaleko** kide eta Barne ministro ohia da Gerhart Baum. Berria - Mundua

FDP Alemaniako **Alderdi Liberalekoa**. Berria - Harian

Bazterturik geratu zen berehala **alderdi liberalaren** egoitzari su emateko proposamena. Koldo Biguri

· Mike German Cardiffeko legebiltzarrean Alderdi **Liberal** Demokratako diputatuen burua da. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi liberal** (15); **alderdi liberal demokrata** (4); **alderdi liberal demokratako** (6); **erresuma batuko liberal** (7); **liberal demokratak** (9); **liberal demokratek** (23); **liberal demokraten** (16); **liberal demokraten buruak** (3); **liberal kontserbadorearen** (3)

**alderdi liberala** (8); **ekonomia liberala** (3); **liberala izan** (5); **oso liberala** (4); **pentsamendu liberala** (3)

**alderdi liberalak** (20); **armada liberalak** (3); **eurodiputatu liberalak** (3); **gobernu liberalak** (3); **irina khakamada liberalak** (3); **lehen ministro liberalak** (3); **liberalak eta demokratak** (3); **oso liberalak** (3)

**alderdi liberalean** (3)

**tropa liberalei** (3)

**liberalek osatzen dute** (3)

**alderdi liberaleko** (8); **oposizio liberaleko** (3)

**demokrata eta liberalen** (3); **liberalen eta demokraten** (3); **liberalen kontra** (5)

---

liberalisatu ik **liberalizatu**.

---

# liberalismo

**1** *iz* liberalen ideologia, ekonomia harreman askeetan eta kontzientzia askatasunean oinarritzen dena; estatuaren askatasuna erlijio guztiei buruz aldarrikatzen duen sistema politikoa.

John Stuart Mill **liberalismoaren** maisuak. Piarres Xarriton

**Liberalismoaren** haizeek mundu osoan jotzen duten honetan, herrialde bat ei dago joera horri aurka egiten diona: Frantzia. Berria - Ekonomia

Berrikerien eta **liberalismoaren** kontra hitz ezinago gogorrez oratutako sermoi beldurgarria bota zuen. Txillardegi

**Liberalismoaren** aurkako alternatiba zehatzak. Berria - Euskal Herria

**Liberalismoak** irabazi dio partida, hortaz, sindikalismoari? Berria - Ekonomia

**2** (izenondoekin)

Lockeren eta Adam Smithen **liberalismo** klasikoa. Berria - Kultura

Darwinismoaren ilusrakeria **liberalismo** ekonomiko eta politikoan ez ezik, Marx eta Engels-en klase-borrokan ere nabarmentzen da; klase borrokaren eta lehia biologikoaren arteko analogian, hain zuzen. Iñaki Heras

Munduan hedatzen ari den **liberalismo** salbaia. Herria

**Liberalismo** demokratikoa sutsuki defenditu. Askoren artean

Nazionalismo handinahiaren eta **liberalismo** askezalearen artean. Joxe Azurmendi

Lege zientifikoek Jainkoaren lekua hartzen dute marxismoan eta **liberalismo** utopikoan. Iñaki Heras

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**liberalismo ekonomikoaren** (5)

**liberalismoaren alde** (4)

---

# liberalista

*izond* liberala.

Hala ere, merkatua kontrolatzen duten joera **liberalistek** ez dute horretarako aukerarik ematen. manifestatzen ibili dira bai komunista ohiak eta bai **liberalistak** Moskun eta besteetan. Herria

---

# liberalizatu

, liberaliza, liberalizatzen **1** da/du *ad* zerbait, bereziki ekonomiarekin eta merkataritzarekin zer ikusia duten jarduerak, libre edo libreago bihurtu.

Espazioa **liberalizatzeko** kanpaina jarri behar diagu indarrean orain, lokal publikoetan, tabernetan batez ere, jarduera gay eta lesbikoak baimen ditzaten. Pako Aristi

Aurreko gobernuak datorren urtetik aurrera ordutegiak **liberalizatzeko** asmoa zuen. Berria - Ekonomia

Europako Parlamentuak onartu egin du zerbitzuak **liberalizatzeko** araua. Berria - Ekonomia

Kontsumoko ondasunak **liberalizatzen** direnean. Koro Navarro

Munduko ekonomiako joko arauak jartzen dituztenei [...] komeni zaizkien merkatuak bakarrik **liberalizatzen** dituzte, eta besteak ez. Iñaki Heras

Kredituak emateko baldintzak **liberalizatzea**. Koro Navarro

Sektore publikoaren gastua murriztea eta enpresa publikoen pribatizatzea; eta, halaber, barne eta atzerriko merkataritza eta finantza harremanak **liberalizatzea**. Iñaki Heras

**2** (era burutua izenondo gisa)

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko gas banatzaile nagusia da, eta merkatu **liberalizatuan** merkaturatzaile nagusia. Berria - Ekonomia

Merkatu **liberalizatuagoen** aldekoen eta «nazionalismo ekonomikoaren» aldekoen arteko eztabaidan. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**merkatuak liberalizatzeko** (7); **sektorea liberalizatzeko** (5); **zerbitzuak liberalizatzeko** (3); **zerbitzuen sektorea liberalizatzeko** (3)

---

# liberalizatze

*iz* zerbait, bereziki ekonomia eta merkataritza, libre edo libreago bihurtzea.

Merkatuen **liberalizatze** eta pribatizatze politiken ondorioz. Iñaki Heras

---

# liberalizazio

**1** *iz* liberalizatzea.

Globalizazioaren analisiak oso argi esplikatzen ditu garraioen kostuaren beheranzko joera eta trukeen **liberalizazioa**. Koro Navarro

Ondasunen merkatuan argi ikusten da gertatu den desarautze prozesua handia izan den arren, askotan merkataritzaren **liberalizazioa** eta desarautzea ez direla topikoak baizik. Iñaki Heras

Finantzaketaren **liberalizazio** lasterregiak areago galaraz dezake egonkortasuna. Koro Navarro

Kapitalen mugimenduen **liberalizazio** osoa. Koro Navarro

Erregimen horren erorikoak, 1970eko hamarraldian, apurka-apurka, kapitalen mugimenduen erabateko **liberalizazioari** buruzko erresistentzia oro ezabatu zuen. Koro Navarro

Bilakaera hori sustatu zuten halaber inportazioen **liberalizaziozko** neurriek eta truke-tasen apreziazio errealeko politikak. Koro Navarro

**Liberalizazioa** helburu duten egitasmoak bertan behera uztea. Berria - Ekonomia

Zenbait ikuspegi kritikorentzat, berriz, merkataritza askea da beti -edota **liberalizazioa** edo globalizazioa, denak sinonimoak omen dira eta- egoera txar ororen sortzailea.

Iñaki Heras

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Liberalizazio** prozesuak sektorea «eraldatu» duela azpimarratu zuen. Berria - Ekonomia

Erakundeak «interes handia» du Ankarak demokratizazio, **liberalizazio** eta modernizazio prozesuan «erreformak egiten» segi dezan. Berria - Mundua

Merkantilismoa [...] ororen gainetik, barne-merkataritzaren **liberalizazio**-mugimendu zabala izan zen, feudalismotik ateratako nazio-estatuek ezarria. Koro Navarro

NDFk eta Munduko Bankuak zorraren krisiaren kudeaketaren baitan ezarririko **liberalizazio**-politiken eraginpean. Koro Navarro

**Liberalizazio**- eta pribatizazio-programen handitasuna are ikusgarriagoa gertatzen da, kontuan hartzen bada erreforma horiek demokraziarako trantsizioan egin zirela. // *Professore*-k **liberalizazio** neurriak ezarriko dituela agindu du. Koro Navarro

2001 amaieran, munduan bederatzigarren **liberalizazio** aldia abiarazteko gaien zerrenda zehaztu zuten Dohan. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erabateko finantza-**liberalizazioak** [...] ia hutsean uzten du sistemak duen askatasuna, berez ere urria dena. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**liberalizazioa sustatzeko** (3); **merkatuen liberalizazioa** (3); **trukeen liberalizazioa** (5); **zerbitzuen liberalizazioa** (5)

**merkatuen liberalizazioak** (3); **zerbitzuen liberalizazioak** (3)

**liberalizazioaren aurka** (8); **liberalizazioaren aurkako** (3); **zerbitzuen liberalizazioaren** (5)

---

## liberalki *adlag* liberaltasunez.

Pantallak familia nuklearra munduarekin konektatzeko daude; libreki, **liberalki** eta luzezabalki informatzeko eta hezteko. Iñaki Segurola

---

## liberaltasun 1 *iz* liberala denaren nolakotasuna.

Eusko Ikaskuntzako liburuzain zelarik nuen ezagutu haren **liberaltasuna** eta Unamunorenganako mira. Hasier Etxeberria

**2** eskuzalbatasuna.

Eta, hala, elizaren **liberaltasunaz** eta eskuzabaltasunaz mintzatzen zitzaidan ama. Joan Mari Irigoien

Nola dena Jainkoz beterik dagoen, nola Jainkoaren ezin pentsatuzko **liberaltasunak** zabaldu dituen bere aberastasunak sorkari guztietara. Joan Mari Lekuona

**Liberaltasunez** jokatu zuen hasiera batean. Koldo Izagirre

---

## liberatu, libera, liberatzen 1 da/du *ad* askatu.

Ez da Amerika **liberatzen** ahal gerla dueluaren arauetan egiten dela uste duen tropa batekin. bidaiari haiek guztiek bazekitela **liberatuak** izango zirela. Koldo Izagirre

Musika horren garapenak atzetik duen heziketa sistemari, azpiegiturei, jendeari, historiari, ironia hori gehitu nahi diot, horrek **liberatzen** nau. Berria - Kultura

Ez al da uste emakumeak bere burua **liberatzeko** idazten duela? Ana Urkiza

**Liberatutako** emazte ohi baten barrea, agian. Oskar Arana

**2** alderdi politiko, organizazio terrorista edo sindikatu batek kide bati ordaindu, soilik erakundearentzat lan egin dezan.

Basauriko espetxeko jurista plaza oposizioetan irabazi bezain laster, CCOO sindikatuak **liberatu** egin zuen. Berria - Euskal Herria

Zenbait militante **liberatu** eta gero, jarduera militarra antolatu ahal izateko. Rafa Egiguren

*Egin*-en alde lan egiteko **liberatu** izanak ez zuela KASekin zerikusirik azpimarratu zuen Gorostiagak. Berria - Euskal Herria

**3** irud/hed

Lizentzia ematen die Eusko Jaurlaritzak, eta euren lanetik **liberatuta** lan horretan aritzen dira. Berria - Harian

Hizkuntz eskakizuna lortzeko **liberatuta** egon dira ia hiru urtez 157 irakasle, soldata kobratuz. Berria - Harian

**4** (era burutua izenondo gisa)

Tennesseeko esklabo **liberatua** aita, Panamako kanaleko lanetarako Colonera heldu zena. 1948an "martxa handia" izan zen, Xiaoting komunistekin, eskualde **liberatuetara** joan zen. Pablo Sastre

1942an Gestapo atzetik zuela, Frantzia **liberatura** alde egin behar izan zuen. Berria - Kultura

Mirenek ez dauka zerikusirik beste giro bateko neska brigadista **liberatu** eta alaiekin. Jon Arretxe

Alderdiko **liberatua** eta eledun ondokoaren bigarrena izanen da Lizarbe. Berria - Euskal Herria

**5** (era burutua izen gisa)

Urte asko egin ditu espetxean funtzionario, eta egun ELAko **liberatua** da. Berria - Harian

Bi abokatu eta bi **liberatu**, hori da egungo koordinakundea. Edurne Elizondo

Batean Fofo (**liberatu** legala) zihoan gidari. Rafa Egiguren

---

## liberatzaile *izond* askatzailea.

Onena bezalaxe Lizarriturrik "armada **liberatzaileari"** egindako oparia zen. Koldo Izagirre

Nire Kloruro Demonioa, maitasun zoriontsu baten eta liburu **liberatzaile** baten biki hori. Heriotzaren eguneroko presentziak gaizkoaturiko eta aldi berean errusiar **liberatzaileen** hurbilketak aztoraturiko giro batean. Juan Garzia

Ailegatu bezala, gure **liberatzaileak** harrapaka lotu zitzaizkien gazteluko bizigarri murritzei. Aingeru Epaltza

Alde horretatik, disko hau grabatzea **liberatzailea** izan da, hiru akorde eta hitzekin mundu bat sorrarazten dutelako doinuek. Berria - Kultura

Guztiz diferentea da bien planteamendua, honako hau askoz mistiko, poetiko eta **liberatzaileagoa** delako soto barrukoa baino. Berria - Kultura

---

## liberazio *(orobat **liberazione** g.er.)* 1 *iz* liberatzea.

Aldi berean, nabarmena da idaztea katarsia, terapia, **liberazioa** zela Saderentzat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gerra sortzea **liberazioa** izan zen Karmenentzat; ez omen zegoen gehiago jasaterik hango errezo eta hango betiberdin, betiberdin gogaikarria. Inazio Mujika Iraola

**Liberazioarekin**, Suzhoun ez zen opiorik, ez zen suerte jokorik, ez zen prostituziorik. Pablo Sastre

**Liberazioaz**-eta berriketa ugari, baina uko egiten diozu harreman libre eta sano bati. Xabier Mendiguren Elizegi

Nago Ibarretxek halako rol mesianiko bat hartu duela eta Euskal Herriaren **liberazioa** lortzea dagokiola uste duela. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Liberazio** egunean, aitak La Marseillaise abesten irakatsi zidan. Joseba Urteaga

Bordeleko herriak loreak jaurtitzen ditu Euskal Brigada pasatzean, hiri honetako **liberazio** desfilean. Eguneroko bizitza hain astuna eta neketsua denez, elurraren etorrerak

euforia eta **liberazio** sentimendua ekartzen du beti. Koldo Izagirre

Demokrazietan -eta Espainiakoa Italiakoa edo Frantziakoa bezain ona da-, Armada Sinbiotikoa edo Baader Meinhoff bezalako taldeak sor daitezke, ez **Liberazio** Mugimendurik. Bernardo Atxaga

---

liberazione ik **liberazio**.

---

## liberdi *iz* libra erdia.

Orduan azunbreetan, liberetan, **liberdietan** eta halakoetan egiten ziren-eta kontuak. Edorta Jimenez

---

## liberiar *izlag/iz* Liberiakoa, Liberiari dagokiona; Liberiako herritarra.

Bi atxilotuak **liberiarrak** dira, Dom Kwane King 35 urtekoa eta Anthony Sapona 29 urtekoa. Berria - Mundua

430 errefuxiatu **liberiar** doaz ontzian eta ura eta elikagaien eskasia dute. Berria - Mundua

**Liberiarrek** badakite zer den gerran bizitzea, hamabost urte ondoren orain bukatu baitituzte erasoak. Berria - Mundua

---

libertade ik **libertate**.

---

## libertadore *iz* askatzailea.

Nik adituak ditut askotan:... masoi, judio, usurero, politikero, bankero, kontratista, dekoradore, demokratiko, papelero, txatarrero, katedratiko, injinero, diplomatiko, tekniko, moderadore, publizista, akomodadore, **libertadore** , hotelero, pionero... eta beste hitz asko. Patziku Perurena

---

## libertario **1** *izond* anarkista.

Beste batzuk Catalunya-n bildu ginen anaia **libertarioekin** . Koldo Izagirre

Komunismo **libertarioa** aldarrikatu eta lurralde-banaketa egin zuten. Unai Elorriaga

Atxilotu duten 59 urteko gizonezkoa, heziketa zentro **«libertario**» bateko animatzailea da. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko erakunde **libertario** bati. Berria - Harian

Militante **libertario** zintzoek. Inazio Mujika Iraola

• **2** *iz* anarkista.

Nagusi ginen **libertarioak** , mila eta gehiago afiliatu. Koldo Izagirre

**Libertario** guztion besoak gutxi izango dituk Kursaala leherrarazteko. Inazio Mujika Iraola

Jende buruduna behar zen haren iritziz, ikasketaz-eta ongi prestatua eta **libertarioen** doktrinaren marka sakon errotua izango zuena. Inazio Mujika Iraola

Eta zer zen ba **libertario** bat, biraorik esaten ez bazuen, sakratuenaren kontrako hitzik ateratzen ez bazuen. Inazio Mujika Iraola

---

## libertate *(orobat **libertade** g.er.)* **1** *iz* askatasuna.

Niretzako **libertatea** , eskola bukatzen zenean hasten zen. Ana Urkiza

Gatibuei askatasuna eta kartzelatuei **libertatea** iragartzera. Elizen arteko biblia

Ilunbean eta isiltasunean sendimenduek **libertate** gehiago baitute. Michel Oronoz

Biarriztarra, **libertatea** pagaturik, presondegitik atera zen. Marzel Etxehandi

Baldintzapeko **libertatearen** galdea erreberritzeko. Herria

Gauzak haxean ziren orain arte: **libertate** horren izenean ausarkeria guziak haizu izanen dira, nork hetsiko du orduan Pandoraren ontzia? Piarres Aintziart

Zertako du, izan ere, **libertatea** , bere burua gobernatzen ez dakienak? Patziku Perurena

**2** (izenondoetan)

Gizakiak mundua menderatu ahal izateko duen **libertate** naturala. Iñaki Heras

Aitama larderiatsuak zituen, omen, eta ez zioten **libertate** handirik uzten. Daniel Landart

Greziarren artean, hartutako hiri bateko biztanleek **libertate** zibila galtzen zuten, eta esklabo gisa saltzen zituzten. Iñaki Iñurrieta

Paper horri esker **libertate** osoan ibiltzen niz biltegi guzietan. Michel Oronoz

**Libertate** osoan ari naiz orriak betetzen, ideiak jin arau, baina zailenak geroko utziz. Piarres Aintziart

**Libertate** espirituala lortu ondoren, zertarako artea? Iñaki Iñurrieta

Horixe da hirietako libertatearen jokalekua, eta **libertate** hermetiko bat da hura: hiri-maiteek berek aitortzen dute hiriko **libertaterik** preziatuena inork inoren berri ez jakitea dela. Iñaki Segurola

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Libertate** sentsazio bera sentitzen nuen irakurtzen nuenean eta bazterretan, naturan, zaldiekin, ninderabilenean. Ana Urkiza

Segunduan, **libertate** sentimentua, libertate basa batena. Piarres Aintziart

Irizpide orokorrenak eta hutsegite larrienak aipatuko ditut, **libertate** zaletasun gaizki ulertuak erakarririk anarkia ezarri nahi dutenak desengainatu nahi ditudalako. Juan Martin Elexpuru

**Libertate** itxura faltsu batez gozatzen. Piarres Xarriton

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esperientzia puxka bat badut, eta izpiritu **libertate** aski, komando on batean naizenaz geroz, eta galerian, besteak nola bizi diren behatzeko eta ikasi dudanaren bilduma egiteko. Marzel Etxehandi

Aberri **libertatearen** alde. Piarres Aintziart

· Igande astirian zenbait oren **libertate** baitzuten, hiru edo launazka ibiltzen ziren harat honatka, sekretuan, zuhurtzia handirekin. Marzel Etxehandi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**libertate osoan** (7); **libertate osoz** (4)

**baldintzapeko libertatea** (5); **bizitzeko libertatea** (3)

**libertatearen aldeko** (8); **libertatearen beldur** (3); **libertatearen lurra** (3)

**libertaterik gabe** (4)

**libertiarazi**, libertiaraz, libertiarazten du *ad* libertitzera behartu.

Bazekien asko hitz egin, asmatu eta **libertiarazi** beharko zuela, eta lehorregi zeuzkan garuna eta eztarria halako lanetarako. Irene Aldasoro

**libertigailu** *iz* jostarazten duen gauza.

Arratsaldean berriz ere zernahi **libertigailu**, dantzari taldeak, zonbait arras urrundik etorriak, eta xarmanteko emanaldiak egin baitituzte. Herria

Gure kirola ederrenak kanpotarrendako utziz, eta guhauk kanpoko **libertigailuak** hautatuz. Herria

**libertigarri** *izond* jostagarria, dibertigarria.

Lehiaketa horren helburua da gaztetxoeri erakustea zientzia **libertigarria** dela. Herria

Nik ostera erantzun, **libertigarriak** iruditzen zitzaizkidala euren dantza modernoak, ikusgarriak oso. Joxe Austin Arrieta

-**Libertigarria** izanen zaidak behingoagatik xedez aldatzea- ordenagailua ferekatu zuen. Aingeru Epaltza

Josteta **libertigarrian**. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
libertigarria zitzaion (3)

**libertimendu** *iz* jostaketa, josteta.

Urte ondarreko **libertimenduak** igan dire oso ederki. Herria

Gure antzerki iturriak bitan banatzen ditu: bat parropia antzerkiak bultzatu duena, frantses eskolan erakutsi bidetik, bestea aldiz betikoa, maskarada, tobera, **libertimendu** eta karrusetan ezagutzen dena. Herria

Zuberotarrek maskarada duten moduan, baxenabartarrek **Libertimendua** dutela erran daiteke nolabait. Berria - Kultura

**Libertimendua** bera, hau da, antzerki nagusia, 12:00etan zuzen emanen da Herriko Etxearen aitzinean. Berria - Kultura

Agorrileko egun guziek ikusi dute plaza, josteta, **libertimendu** gune alaia. Herria

libertin ik **libertino**.

**libertinaje** *iz* gehiegizko edo abusuzko askatasuna.

Luxuria jabetu zen nitaz eta inguratu egin ninduen bere traiziozko itzal mugikorrez, bere moralik gabeko estandarteez, **libertinajeari** lotzeko deia zen hura, lotsa erabat galtzeko, ñabardura guztietako gozamen guztiak probatzeko. Zabaldu zure fedegabekeria lau haizeetara, oraindik ere sineskeriaren ilunpean galduta dabiltzan zure adineko gazteen artean zaudenean; lizunkeria eta **libertinajea** aldarrikatu. Karlos Zabala

Hainbeste bekaturi erremedio jarri behar zitzaiola, **libertinaje** hura guztia desmasia bat besterik ez zela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Konpara itzazue adin eta edertasun beretsuko bi emakume, bata zelibatoan eta bestea **libertinajean** bizi dena: ikusiko duzue nola irabazten dion bigarrenak distira eta freskotasunean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

libertinki ik **libertinoki**.

**libertino** *(orobat **libertin** g.er.)* **1** *izond* sexu plazeretara neurririk gabe ematen dena.

Zain zegoela, pentsatu zuen ezen lehenengo aldiz gonbidatu zuela etxera halako gizon **libertino** bat. Patxi Zubizarreta

Apaiz **libertino** batekin igaro zuen bere haurtzaroa, moral lasaiko emakumez inguratuta, bere aitaren ibileren eraginpean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Armadako giro **libertinoa**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sade fantasiaz betetako beste obra **libertino** batzuk ere idatzia zen ordurako. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eredu **libertino** eta konformagaitza aurkitu zuela bere aitarengan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Libertinoegia** izan naiz logelako atean gelditzeko, harroegia faboritoei, ministroei edo maitaleei losintxak egiteko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (izen gisa)

Puta gisa jardun nuen, eta hainbat **libertinoren** fantasiak ase nituen astebete osoz, eta oso zaletasun bereziak ikusi nituen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Askotan hemen (ipurmasailak bereizi eta ipurtzuloa erakutsi du) aurkitzen du **libertinoak** gozamena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kontua da, hainbeste gorabeheraren ondoren, idazle eta **libertino** damugabe gisa ezagutzen dela gaur egun Sadeko Donatien. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Merezimendu osoz nireganatu dut **libertino** lizun haragikoiaren titulua. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan)

**"Libertino**-ikasle" saiatua izan zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
ideia libertino (4); libertino bat (4); libertino batekin (3)
libertinoa naiz (3)

**libertinoki** *(corpusean **libertinki** soilik)* *adlag* libertinoaren eran.

Zeren horrela dabilena ez baitabil libreki, baina **libertinki**! Joan Mari Irigoien

**libertitu**, liberti, libertitzen **1** da *ad* jostatu, dibertitu.

Zu ahalkerazirik **libertitzen** nintzelako. Jon Muñoz

**Libertitu** egiten nintzen portaera harekin. Joxan Elosegi

Izugarri **libertitzen** ari nintzen. Joxan Elosegi

Horrela **libertitzen** dira. Koldo Izagirre

Izugarri **libertitzen** ari nintzen. Joxan Elosegi

Azkarrak direnak, goizero hara beren abilidadeak probatzera joanez **libertitzen** direnak. Jesus Mari Mendizabal

Zazpi oren lan, zazpi oren lo, besteak **libertitzeko**. Herria

• **2** du *ad* jostarazi, dibertitu.

Ez ziren konturatu emakumearen aurpegian ez zegoela gogortasunik, hain zuzen ere, irribarre arin bat baizik, azken finean egoerak **libertituko** balu bezala. Jon Alonso

Ez nau gutiago **libertitu** une honetan bertan udaletxearen aitzineko plazatxoan dagoen feriak. Koldo Izagirre

---

# libertizida *izond* libertatea suntzitzen edo ezeztatzen duena.

Lukatxenko presidentearen erregimen **«libertizidaren»** erasoak jasan zituen, eta Toscanako Pontedera hirian bizi da egun. Berria - Kultura

---

# liberto 1 *izond* esklaboez mintzatuz, nagusiak askatu duena.

Klase hori libre izandako eta proletario bihurturiko gizonek eta **liberto** edo esklabo askatuek osatzen zuten. Koro Navarro

K.a. azken bi mendeetan Ekialdeko Mediterraneotik Italiara ekarritako esklabo-saldoetatik "**libertoen**" klase bat sortu zen, ikaragarri ahaltsu bihurtu zena. Klaudio eta Neronen ministro **libertoak**. Iñaki Mendiguren

**2** *iz* nagusiak askatu duen esklaboa.

Neurriak hartu zituzten administrazio inperialean **libertoen** papera mugatzeko. Pentsa genezake han kristau-komunitateak izan zuen garrantzia neurri batean Zesarrek bertan jarritako erromatar **libertoen** koloniaren izaera kosmopolitari zor izan zitzaiola. Iñaki Mendiguren

---

# libertsio *iz* josteta, dibertsioa.

Gizarteko sare ttipi gorde guziak, **libertsio** itxuran gu aspertzeko ipiniak daude. Patziku Perurena

---

# libiar *(orobat **libyar** g.er.)* *izlag* Libiakoa, Libiari dagokiona.

Hona **libiar** nomadek dituzten sinesteak: [...]. Patziku Perurena

Etiopiar eta **libiar** gudarostea ere izugarria zen, beren gudu-gurdi eta zalditeria handiarekin. Elizen arteko biblia

Kostaldeko **libyar** nomadaz goitik, barrualdera, piztien Libya dago. Patziku Perurena

Kadhafi **Libiarrak** ez du mundua guti harritu aste huntan herri hortan hartu duten delibero batekin. Herria

**2** *iz* Libiako herritarra.

40 **libiar** hil zituzten, horien artean Gaddafiren alaba bat. Berria - Mundua

Haiekin lan egiten zuten bederatzi **libiar**, bestalde, aske utzi dituzte. Berria - Gaiak

**Libiar**, sukiar eta etiopiarrez osoturiko gudari-multzoarekin. Elizen arteko biblia

---

# libidino *izond* libidinosoa.

Zer mundu hitsa! zahar **libidinoak** eta Ziziliarako espedizio bezperan harri--tailu sakratuak profanatzen zituzten gazteak! Itxaro Borda

---

# libidinoski *adlag* era libidinosoan.

**Libidinoski** eta tente so zegokidan. Itxaro Borda

---

# libidinoso *(orobat **libidinos** g.er.)* 1 *izond* lizuna, haragikoia. (pertsonak)

Fraide lizun eta **libidinoso** bat dirudizu. Karlos Linazasoro

Ttotte ez zela gizon **libidinos** ustel horietarik. Itxaro Borda

**2** (bestelakoak) lizuna.

Caterpilar anderea irribarretsu hurbildu zitzaidan, haren mihi gorria nire belarri bateko gingiletik beste belarrikora dantzatuz, halako joko **libidinoso** batean, titi lerden, titi-puztu. Karlos Linazasoro

Beldur da ez ote duen emakumearen ahalkea irainduko baldin eta, begien aurrean, ikuskizun **libidinoso** hori, ohea, jartzen badio. Jon Alonso

---

# libido 1 *iz* plazera, bereziki sexu plazera, senak eraginik bilatzea.

Dientzefaloak funtzio oinarrizkoak erregulatzen ditu, loa, jangura eta **libidoa** bereziki. Xabier Olarra

Adulterioaren malezia, agian, **libidotik** datorke. Imanol Unzurrunzaga

Gutizia edo **libidoari** errenditzen zaion adimena zuzenki zigortua da. Imanol Unzurrunzaga

Emazteok, politika **libidoarekin** bideratzen genuela. Itxaro Borda

Ipuin likits bat, nire **libidoa** kitzikatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Enkontru hark **libidoa** piztu bide zion, eta orain **libido** hori askatzen baino ez zen ari. Unai Iturriaga

Bestelakoa ere gertatu ohi den arren, azalpenek ez dute nire **libidoa** hoztu. Pako Aristi

Baina egia da adinarekin **libidoa** urritu egiten dela eta heldu askok modu pasiboagoan hartzen dutela plazerra. Aitor Arana

Dado-potoak amaren altzoa irudikatzen duela eta ardo-botilak, **berriz**, faloaren libidozko altxamendu disimulaezina. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan)

Ea nork bere bizia, libertatea edo kastitatea defenditzeko, bortxaz datorkizun etsaia edo maltzurki oldartzen zaizun sikarioa inongo **libido** motarik gabe erail daitekeen. Imanol Unzurrunzaga

---

**libra**[1] **1** *iz* pisu neurria, Euskal Herrian hamazazpi ontza, hots, kilo erdia baino zerbait gutxiago, balio zuena; gaur egun, kilo erdiaren baliokidea.

Makinak berak hirurehun eta berrogeita hamar mila **libra** pisatzen zituen. **Libra** asko pisatzen zuten burdinazko girgiluz lotu zizkion oinak. Santiago Iruretagoiena

Bost **libra** pisatzen dituen ogi biribila sabelaren kontra duela. Itziar Otegi

Ehun oinekoak badira, bakoitzak mila eta berrehun **libra** izango ditu pisuan; laurogeikoak badira, bederatziehun eta hirurogei **libra** . Santiago Iruretagoiena

Palankatxo moduko tresna bat, hamahiru **libra** pisu eta ia metro erdi luzekoa. Xabier Olarra

Galantina hura trufatua zela erantzun zion, eta handik ezin ziola eman hiru liberan **libra** saltzen zituzten plateretan baizik. Karlos Zabala

Berrogeita hamar sosean **libra** , ezta? Karlos Zabala

Bi **librako** harria jaurti behar duen baleztak, bere burukoan, bost hatzeko zuloa izan beharko du. Santiago Iruretagoiena

196 **librako** kankailu bat, esaterako, nahikoa da 2,44 m-ko altura batetik amiltzea behar bezala urkatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ogiak **librakoak** ziren, nahiko handiak. Bernardo Atxaga

**2** (neurri unitate gisa)

**Libra** bat txerri saiheski ozpinetako pepinoekin erostera etorritako andre bati. Karlos Zabala

Emadazu **libra** bat txerri gantz... Karlos Zabala

**Libra** bat lino txarrantxatzen ari duk orain bertan. Patxi Ezkiaga

Zer dira hamar **libra** ikatz neguan? Koro Navarro

Hiru **libra** merkurio ia hiru **libra** urre bilakatu zituela Kelleyk ekitaldi bakar batean. J.M. Olaizola "Txiliku"

**3** hainbat herrialdetako diru banakoa.

Aldi berean frantses liberak, daniar koroak eta irlandar **librak** (otsailean debaluatua) eraso gehiago pairatu behar izan zuten. Koro Navarro

**4** libra esterlina. *(ik beherago* **7***).*

-Zer egingo huke milioi bat **libra** izango bahu? Koro Navarro

Peterrek **libra** bat eman zion orduan. Julen Gabiria

-Hiru **libra** eta zortzi penike zor zizkidanan niri. Koro Navarro

762 **libra** , 14 txelin eta 2 penike joan den urriaz geroztik. Antton Olano

Akzio batek 128 **libra** balio zuen. Nik ere lapurtu nian amaren poltsatik; sekulako **libra** pilak zeuzkak. Koro Navarro

Eta erabat asaldatuta seinalatu zuen Granger jaunak eskuan zuen hamar **librako** billetea. Iñaki Mendiguren

**5** ***libra erdi*** kilo laurdena. ik **liberdi**.

Urdaitegira sartu eta **libra** erdi bat gibel pate zerbitzatu zuen. Karlos Zabala

**Libra** erdi te 350 florin ordaintzen da; **libra** erdi kafe, 80 florin. Josu Zabaleta

Bezeroek [...] ez zuten beren ahots nahigabetua apaltzen, odolki puska bat, hamar sosen urdaia, **libra** erdi bat txerri gantz eskatzen zutenean. Karlos Zabala

**6** ***libra esterlina*** Erresuma Batuko diru banakoa.

1992an, berak kudeaturiko funtsekin Ingalaterrako Bankua porrot teknikoan utzi eta **libra** esterlina Europako diru sistematik atera zuena da G. Soros hau. Iñaki Heras

**7** ***libra laurden*** ehun eta hogeita bost gramo.

Gabonetarako **libra** laurden bat gurin gehiago emango zaiola bakoitzari. Josu Zabaleta

**8** ***libra urre***

Queda ontzi mairua atzeman zuenean, hindu eta armeniar jendeak antolatua, hamar mila **libra** urrerekin, harrapakinaren banaketan perrail odoljario dun gizona hantxe zegoen dukaten gainean eserita Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> gurin libra (4); gurin libra baten (3); libra bat txerri (3); libra erdi (6); libra erdi bat (3); libra esterlina (8)

---

**libra**[2] *iz* Zodiakoko konstelazioa; zodiakoaren zazpigarren zeinua; latinez 'balantza' esan nahi du.

Geldi egon behar du eta gainean Cancer zeinuaren irudia izango du, eta harekin perpendikularrean eta behean Capricornioren irudia, begira dagoenaren eskuinaldean **Libra** , eta ezkerretan Aries. Santiago Iruretagoiena

**Libra** eta Eskorpiorengandik hurbil, Zentauroren aurreko parteak daude. Santiago Iruretagoiena

**-Libra** dugu gero: mukurrak edo aldakak, giltzurrunak, maskuria. Pello Zabala

---

**libraezin** *izond* ezin libratuzkoa.

Amorru kutsu garratz bat, kirats koldar eta **libraezin** bat. Xabier Olarra

---

**libragarri** *izond* libra daitekeena.

Zama **libragarria** , Jainkoaren, patuaren, Halabeharraren edo Zoriaren bizkarrera aise bota daitekeena. Xabier Olarra

---

**libraka** *adlag* libra neurri harturik.

Bixigarriak, mota bateko eta bestekoak, **libraka** ez baina arroaka erosi zituztela zirudien, eta agerian jarriak zeuden denak kutxa batean. Patxi Ezkiaga

---

**librakuntza** *iz* libratzea.

Geroago baizik ez nuen sumatu hiltzea **librakuntza** dela. Matías Múgica

Bat- **bateko** librakuntzaz ez dut aspaldi sinisten. Joxerra Garzia

---

**libramendu** **1** *iz* gorputza libratzea.

Tunika bat jantzita eroan behar ote ninduten nire esfinterren **libramenduak** estetika hauts ez zezan? Koldo Izagirre

Etsaiak **libramendurako** erabiltzen zituen upelak maldan behera botatzen zituen haizea alde zuenean, usain nazkagarri hura gure lubakietaraino iritsi eta horrek gure morala areago birrindu eta indar urrituko zuelakoan. Harkaitz Cano

Haien usaina eta bere marmita txikiko **libramenduena** bat egiten zitzaizkion. Bernardo Atxaga

**2** libratzea.

Baldin infernu hartan ez bazen reskat posiblerik ez **libramendurik**, Heriok presooi eskain ziezagukeena baino [...]. Joan Mari Irigoien

---

librantxa ik **librantza**.

---

**librantza** *(orobat* ***librantxa****)* **1** *iz* askapena.

Presoak gogoz aldatzen ziren, hobetzen - **librantza** ez zen urrun. Marzel Etxehandi

**Librantza** baino bizpahiru egun lehenago [...] Dachau-ra igortzen zituzten deportatu taldeen artean -aliatuek hartua ez zuten leku bakarra baitzen- frantses komando ttipi bat jin zen. Marzel Etxehandi

Egun bakarra iraun zuen gure **librantzaren** ospakizunak. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

1944ko agorrilaren 24a zen, Parisen **librantza** bezpera. Marzel Etxehandi

Hunek iragan uztailan berritu du **librantza** eskaera, aspaldixkoan legez zor zaiona. Herria

**3** lanetik libratzea.

Gaur-gaurkoz, legez bi eguneko **librantza** dagokie aita izan berri direnei. Berria - Ekonomia

---

**librarazi**, libraraz, librarazten du *ad* libratzera behartu, askarazi.

Elizako batzorde bat da Bogotako gobernua eta ELN-ko arduradunen artean bitartekari lanetan ari, bahituak **librarazteko**. Zerbaiten egitera entseatu dela erran daut, bainan ez duela deus ardietsi; funtsean **libraraztea** ardiets balezate ere, ez omen luke Baionako suprefetak Etxaluz eskola libroetan irakasle ikusi nahi. Herria

Ez zuen biziki ongi ulertzen zergatik adiskidea hainbeste tematzen zen serora bat espetxetik **librarazi** beharrez. Elena Touyarou

---

**librasari** *iz* norbait libratzeko ordaindu behar den saria.

Italian azken aste horietan libratuak izan dituen bahitu batzuen **librasariez** zerbait egia ikasten da denborarekin, emeki emeki. Herria

---

**libratu**, libra(tu), libratzen **1** da/du *ad* egoera gaizto, ez-atsegin edo larri batetik atera.

Daniel, errugabe izateagatik, **libratu** egin zen lehoien haginetatik. Elizen arteko biblia

**Libra** nazala ene Jaunak ur hau edatetik! Elizen arteko biblia

Garbi ageri zen zerbitzutik **libratu** izanaren kausa ere: gerran herrendua. Anjel Lertxundi

Jainkoaren zerbitzari Frantziskori esker itsasoko arriskuetatik **libratu** zirela ikusirik, [...]. Askoren artean

Hiri guztietan ari da suntsitzailea, ez da bat ere **libratzen**. Elizen arteko biblia

Limosna egiten zuelako **libratu** zen Ahikar Nadabek hil nahian jarri zion tranpatik. Jose Antonio Mujika

Ez nintzela, alajaina, obispo gogaikarri hartaz **libratuko**. Inazio Mujika Iraola

Birjintasuna behin baizik ez da galtzen, nik aukera nuen orain hartaz **libratzeko**. Karlos Zabala

Ozta-**ozta** libratu nintzen blaitu gabe. Anjel Lertxundi

Ni **libratu** ezinik nengoen haren sedukzioaren saretik. Anjel Lertxundi

Bere zama beldurgarritik **libratu** ondoren, abiadan joango zen hiltzailea hirira. Koro Navarro

Xabi da moda horretatik **libratu** den bakarra. Xabier Etxabe

Kurt onik **libratu** bada, konpontxo egin duelako faxistekin. Anjel Lertxundi

-Ederretik **libratu** gara! -esan zuen atezainak. Felipe Juaristi

Zeuen Jainkoak **libratuko** zaituztela nire eskuetan erortzetik. Elizen arteko biblia

Emakume errugabe bat **libratu** zuela bere senarrak azpikeriaz prestatutako heriotza injustu batetik. Jon Alonso

**2** askatu.

Burdin bidetako enplegatu batek erran zigun Erroma **libratua** zela. Marzel Etxehandi

Dachau **libratu** zenetik hamabosgarren urtean. Marzel Etxehandi

Kontzentrazio zelaia **libratu** eta hogoi egun berantago gure ametsgaiztoko lekuak ez ditugu oraino utziak. Michel Oronoz

Kanpalekua **libratua** zen, baina ez presoak. Marzel Etxehandi

**Libratu** nindutenean, ikatz-saltzaile batengana joan nintzen lanera. Koro Navarro

Lila arrastatu zuten, baina handik laster **libratu**. Itxaro Borda

Grezia tiraniatik **libratu** gura zuen idealista bat. Koldo Izagirre

Edo denak urkatuko gintuztela, edo denak **libratuko**. Marzel Etxehandi

Bitxiki, hiru egunen buruan, Hutx **libratu** zuten. Itxaro Borda

Gudari bat ari zitzaion orkatila zepotik **libratu** nahian. Inazio Mujika Iraola

**3** irud/hed

Lokartu aurretik, maindire azpian eztultxo batzuk egin ditu, eztarria **libratzearren**. Itziar Otegi

Bi sarrailak **libratu** zituen eta berriz barrendik giltzatu. Iñaki Zabaleta

Hodeiak gero eta beltzagoak ziren, puztuta zeuden, barrukoa **libratzeko** gogoz. Migel Angel Mintegi

**4** lanpostuez, lekuez eta kidekoez mintzatuz, libre gelditu.

Taberna batean leku bat **libratu** zela jakinarazi zion, haren partez aski zuela bihar berean presentatzea gehituz. Itxaro Borda

Orduantxe beste mahai bat **libratu** zela. Matías Múgica

Bitartean, bi neskek mahai **libratu** berri bat hartu zuten. Joxemari Iturralde

· Nik, ordea, ez nuen filosofia **libratzea** beste liberaziorik behar, eta euskara ematen jarraitu nahi nuela adierazi nien Joxerra Garzia

**5** digestioaren hondakinez mintzatuz, gorputzetik atera.

Idorreria, esaterako, hesteak **libratu** ezina alegia, txarra da. Joxerra Garzia

Maskuria **libratu** ondoren, zurrutada ur edan, eta sukaldera bideratu zen. Migel Angel Mintegi

Barruak **libratzeko** makurtu, kuxkurtu, kuxkuldu edo eseri egiten da. Iñaki Segurola

**6** (era burutua izenondo gisa)

**Libratu** horietarik bat beneditanoa zen, ez dakit zein komentukoa. Marzel Etxehandi

Libratzaile ala **libratuek** beren kezkak eta griñak ez dituzte ahanztekoak halere. Herria

**Libratuetarik** 210 islamistak dira, 210 Fatakoak Herria

**7** (era burutua izen gisa)

Kaka egingo dugula, alegia, eta barkatu gaizki esana, baina hau da hau **libratua** hartu dudana! Joxerra Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jainkoak libra** (9); **jainkoak libra gaitzala** (3); **jainkoak libra nazala** (5)

**atzaparretatik libratu** (5); **besarkadatik libratu** (3); **ederretik libratu** (7); **erabat libratu** (4); **eskuetatik libratu** (12); **etsaiengandik libratu** (3); **gaitz guztietatik libratu** (3); **haien eskuetatik libratu** (4); **heriotzatik libratu** (5); **jainkoek libratu** (3); **libratu berri** (4); **libratu ezinik** (5); **libratu gabe** (4); **menpetik libratu** (3); **onik libratu** (3); **ozta ozta libratu** (4)

**baldintzapean libratua** (6); **bidart baldintzapean libratua** (3); **lehen libratua izan** (3)

**erraz libratuko** (4); **heriotzatik libratuko** (3); **jaunak libratuko** (6)

**hartaz libratzea** (3); **libratzea eskatuz** (3); **libratzea eskatzeko** (3); **libratzea lortu** (5)

**erasotik libratzeko** (3); **libratzeko laguntza** (3)

**heriotzatik libratzen** (3)

**eskuetatik libratzera** (4)

---

## **libratzaile** *iz* librtatzen duena, askatzailea.

**Libratzaile** horietarik bat zen preseski Perkain famatua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nazione Batuek dutela, beti erran duten bezala, Irakia horren **libratzaile** izan nahi, Amerikari ohore guzia utzi gabe. Herria

**Libratzaile** ala libratuek beren kezkak eta griñak ez dituzte ahanztekoak halere. Herria

---

## **libratze** **1** *iz* askatzea.

Bi operazio edo eginkari horiek elkarren ahaide txit hurbilak direlakoan nago, biak ere **libratze** bat diren aldetik. Iñaki Segurola

**2** digestioaren hondakinak gorputzetik ateratzea.

Aurrerantzean, afrontuan egin beharko genituen gure behar geureenak, hau da, barru **libratzeak**. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**libratze hori** (3); **libratze horren** (5)

**baldintzapeko libratzea** (3)

---

## **libre** **1** *izond* askea, lokabea. (pertsonak eta herriak)

Izaki beregain eta **libre** bat, ezein giza talderekin zerikusi handirik ez zuen norbait. Xabier Olarra

Gizaki **libreak** ez du sekula engainuz iharduten, beti fede onez baizik. Piarres Xarriton

Dubos abadearen arabera, *Francus* gizon **librea** da, *debilior* persona jopua. Iñaki Iñurrieta

Hiru seme-alaba zituzten emakume **libreak** eta lau zituzten emakume jareginak aske ziren. Iñaki Iñurrieta

Honek sortzen ditu espiritu **libre** adoretsuak eta buru argiak, eta gizonak bertutetsu bihurtzen. Juan Martin Elexpuru

Herri **libre** batean ezin dela krimentzat hartu naturaren bultzadei jarraitzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hala ernatu omen zen bere baitan aberri **librearen** ametsa. Xabier Mendiguren Elizegi

· Da Ruak bazekien merkataritzak [...] egin zuela **libre** eta aberats Venezia. Felipe Juaristi

**2** (bestelakoak)

Injustua litzateke zigorra, erabakimen **librea** zintzo bizitzeko ez ezik bekatu egiteko ere eman izan balitzaigu. Imanol Unzurrunzaga

Diruen zirkulazio **librea**. Koro Navarro

Truke **libreak** nazio guztien ongizatea hobetu dezakeelako hipotesia. Koro Navarro

Espaziontziak areago egin zuen beheraka, baina oraingoan erorketa **librean**, bere pilotuaren heriotzak hegan jarraitzeko gogoa zapuztu izan balio bezala. Bernardo Atxaga

Harreman sexualen eta maitasun **librearen** gainean dakizun guztia. Rafa Egiguren

Gora eta behera hasten zitzaizkion ipurdi-mazelak, dantza **libre** halako batez. Anjel Lertxundi

Aurretiaz asegarritasuna definituz aldagai **libreak** zituzten formulen arazoari aurre egin zion. Askoren artean

**3** (izan aditzarekin)

Ideiak **libre** dira. **Libre** zelakoan bizi zen, bere buruaz beste inor ez baitzuen ez jaun ez jabe. Felipe Juaristi

Gizon zaharrak **libre** dira nahi dutena egiteko. Oskar Arana

**Libre** izan nahirik, haren gogoak iparraldeko lurralde hotz hezeak maite zituen. Felipe Juaristi

Gizakiak **libre** direla uste izatea. Piarres Xarriton

Egindako ongiaren neurrian sarituko duela bakoitza Jaunak, esklaboa nahiz **librea** izan. Elizen arteko biblia

Eskuak **libre** izan nahi nituen, pentsatzeko denbora izan arte. Xabier Olarra

Arnegi "okupatua" zen, Ondarrola aldiz **"libre"**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

· **Libre** nuen eskuaz ilea laztandu nion, kizkurrekin jolastuz. Juan Kruz Igerabide

**Libre** zuen zure etxean sartzea berean bezalaxe. Anton Garikano

• **4** (predikatu edo adizlagun gisa)

Gogoan izan **libre** baina susmopean zaudela oraindik. Migel Angel Mintegi

Zoriontsua ez dago giza eskizofrenia fundazionaletik **libre** (aitzitik, eskizofreniazko kasu beteginena da). Iñaki Segurola

Orduan jakin nuen Rita ez zegoela **libre**. Hasier Etxeberria

Zereginetatik **libre** gelditu ezkero, zer egin asmatu beharrean aurkitzen da gizabanako librea. Iñaki Segurola

Ez zituztela bahituak **libre** utziko. Aingeru Epaltza

**Libre** uzteko nahi dik Lubisek sagua. **Libre** jaiotzen denak eta hala dirauenak ideia egokirik baizik ez du eta, beraz, ez du neholako gaizkiaren kontzepturik. Bernardo Atxaga

-Eta hiltzailea **libre** oraindik... -esan zuen, kezkatuta. Migel Angel Mintegi

• **5** *adlag* libreki.

**Libre** bizi izan nauk beti, eta kateak ez dituk niretzat, urrezkoak izanda ere. Koro Navarro

Betizuak mendian **libre** ibiltzen diren behiak dira. Gotzon Garate

**Libre** mugitzen da, berak daukan propultsio-unitate bati esker. Irene Aldasoro

• **6** *iz* gizaki librea.

Esklaboak eta **libreak**, denak. Jose Antonio Mujika

• **7** *izond* baldintzarik gabekoa.

Eta jauzi **librean**, lurrera bertikalean erortzean ere, itxaron oraindik. Josu Zabaleta

**Libre** da sarrera. Juan Luis Zabala

Bada Azkoitian, kaskailuak izan, debekatua zegoela dantza helduta egitea, baina Zumarragan **libre**. Pako Aristi

**8** bidez eta kidekoez mintzatuz, eragozpenik gabekoa.

Argi berdearekin bide **librearen** seinalea egin nion. Fernando Rey

Bidea **libre** zegoen inbaditzaileentzat. Karlos Zabala

Irkutskeraino bidea **libre** zuela pentsa zezakeen azkenik Mikel Strogoffek. Karlos Zabala

Mihi gaiztoenek ziotenez, orain **libre** zuen bidea, maistrarekin txortan berak bakarrik egiteko. Juan Kruz Igerabide

Euskal herritarrok iraindu eta Euskal Herriaren bide **librea** nonahi trabatu eta oztopatzen ikusi dut. Berria - Euskal Herria

**9** gelez eta kidekoez mintzatuz, hartu gabea, erabil daitekeena.

Gela **librerik** ba al zuen galdetu nion. Alberto Ladron Arana

Nire pisukidea ez da oporrak bukatu artean etorriko, eta bere logela **libre** dago. Unai Iturriaga

-Hamaikagarren gela **libre** dago, Harry -esan zion Fudgek. Iñaki Mendiguren

Bi leku haietara deitu nuen, baina bietako batean ere ez zeukaten gelarik **libre**. Oskar Arana

**Libre** zegoen aulkian eseri zen. Migel Angel Mintegi

Gizonak leku bat aurkitu zuen **libre** eta hara joan zen. Koro Navarro

Eguerdi aldera, leku **libre** bakarrik ere ez da gelditzen. Aingeru Epaltza

Eta telefono-kabina **libre** dago. Anjel Lertxundi

**10** egitekorik gabea.

Nahikoa denbora **libre** zeukan. Oskar Arana

Gaur bere gau **librea** du. Fernando Rey

Edozein tarte **libre** edo opor baliatzen nuela irakurtzeko eta ikasteko. Juan Kruz Igerabide

Nik ere **libre** diat asteburua. Aingeru Epaltza

Lagun hark **libre** zuen denboran. Juan Kruz Igerabide

Arratsaldeak **libre** hartzen nituen tailerretik. Juan Kruz Igerabide

**Libre** izaten nituen egunetan. Oskar Arana

Morroiak arratsalde **libre** bat izango zuela astero, eta gau osoak ere **libre**, jakina... Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**arriskutik libre** (5); **azkenean libre** (5); **baldintzapean libre** (5); **bere etorkizuna libre** (6); **bidea libre** (37); **bidea libre utzi** (5); **bizirik eta libre** (5); **denbora libre** (16); **eguna libre** (5); **eskuak libre** (22); **estatu libre** (5); **etorkizuna libre** (8); **euskal herria libre** (8); **gaitzetik libre** (5); **gizarte libre** (5); **gizon libre** (25); **guztiz libre** (10); **herri libre** (14); **herri libre batean** (5); **herria libre** (11); **herritarrek libre** (7); **jaurtiketa libre** (6); **leku bat libre** (7); **leku libre** (11); **leku libre bat** (7)

**libre atera** (8); **libre atera zen** (5); **libre bizi** (8); **libre bizitzeko** (11); **libre bizitzeko eskubidea** (5); **libre da** (32); **libre dago** (22); **libre dagoela** (6); **libre daude** (9); **libre dela** (17); **libre dira** (8); **libre direla** (8); **libre du** (9); **libre dute** (5); **libre egin** (8); **libre egon** (8); **libre egotea** (8); **libre eta demokratikoki** (24); **libre eta sozialista** (6); **libre gelditu** (30); **libre gelditukо** (7); **libre gelditzen** (17); **libre geratu** (29); **libre geratuko** (22); **libre geratzen** (14); **libre gisa** (5); **libre haiz** (5); **libre hartu** (6); **libre ibili** (6); **libre ibiltzen** (7); **libre ikusi** (16); **libre irten** (5); **libre izan** (39); **libre izan nahi** (17); **libre izango** (26); **libre izatea** (10); **libre izateko** (16); **libre izaten** (12); **libre izatera** (5); **libre joaten** (5); **libre nago** (5); **libre nahiz esklabo** (6); **libre naiz** (7); **libre nengoela** (5); **libre sentitu** (9); **libre sentitzen** (15); **libre utzi** (140); **libre utzia** (6); **libre utziko** (26); **libre utzita** (5); **libre utzitako** (11); **libre utziz** (6); **libre uztea** (17); **libre uzteko** (29); **libre uzten** (40); **libre zara** (9); **libre zaude** (6); **libre zegoela** (7); **libre zegoen** (26); **libre zela** (7); **libre zen** (15); **libre zeuden** (10); **libre zeukan** (9); **libre zituen** (5); **libre zuen** (9); **libre zuten** (5)

**ordu libre** (7); **presoak libre** (5)

**aliantza librea** (7); **bide librea** (5); **denbora librea** (31); **egun librea** (7); **erabakimen librea** (7); **eremu librea** (8); **europako aliantza librea** (7); **gizon librea** (12); **kausa librea** (6); **librea da** (28); **librea dela** (9); **librea izan** (8); **librea zen** (6); **maitasun librea** (5); **merkatu librea** (12); **nahimen librea** (8); **software librea** (12); **zirkulazio librea** (7)

**entrenamendu libreak** (5); **europako aliantza libreak** (5); **gizaki libreak** (15); **gizon libreak** (30); **hauteskunde libreak** (5)

**merkatu librearen** (13); **nahimen librearen** (5); **software librearen** (11); **truke librearen** (5)

**gizon libreen** (9); **irrati libreen** (8); **jaurtiketa libreen** (6)

**atxikimendu libreko** (20); **atxikimendu libreko federalismoaren** (7); **merkatu libreko** (5); **sega libreko** (6); **txanda libreko** (15)

**txanda librekoan** (8)

**merkataritza librerako** (8)

---

# librea *iz* zerbitzarien galako uniformea, lebita eta bereizgarriak dituena.

Soinean **librea** militarra eta eskuan fardel txiki bat zeraman mutiko bat. Jose Morales

Ezkaratzean, hondar koloreko **librea** horiz jantzitako bi lekaio, hedeak eta botoiak zilar huts, beren sillatik jaiki ziren. Matías Múgica

Oso gustu onez janzten ziren, eta, garaiko modak agintzen zuenez, kalesan ibiltzen ziren hirian barrena, atzealdean lekaioa zeramatela, zanbuluka, urrezko galoiekiko **libreaz** jantzirik. Jose Morales

---

# librekanbismo *iz* ekonomian, truke librearen doktrina edo sistema.

Smith-ek pasarte famatu horretan ez du, inondik inora, laissez-faire dogmatikoaren apologia egiten, XVIII. mendeko merkataritzak zituen oztopo askoren aurkako bere **librekanbismo** sutsua aldarrikatzen du. Iñaki Heras

---

# libreki *adlag* askatasunez. ik **libre 5**.

**Libreki** bizitzeko borondatearen gustua. Ana Urkiza

-Herriak **libreki** hautatu dituen nazio ordezkariak deabruak deitzen dituzu? Elena Touyarou

Euskal gizarteak bere etorkizuna **libreki** erabakitzeko duen eskubidea. Berria - Harian

Nehor ez zen **libreki** mintzo. Itxaro Borda

Bere irudipen, oroitzapen eta ideiak **libreki** mugitzen uzten dituen ikusle soilaren ikuspegitik.Lurraldea berriz, **libreki** onarturiko presondegia bezalatsu du. Bernardo Atxaga

Egun batean emakumeek **libreki** abortatzeko eskubidea izango zutela. Joseba Urteaga

Lan intelektualak **libreki** eskuratzeko eskubidea aldarrikatzen dute. Berria - Gaiak

Pantallak familia nuklearra munduarekin konektatzeko daude; **libreki**, liberalki eta luzezabalki informatzeko eta hezteko. Iñaki Segurola

Hala, haurrak uste du **libreki** gururaitzen duela esnea, mutil haserretuak orobat uste du **libreki** nahi duela mendekua, eta herabeak **libreki** nahi duela ihesa. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **etorkizuna libreki erabaki** (4); **libreki adierazteko** (3); **libreki erabaki** (4); **libreki erabakitzeko** (3); **libreki eta demokratikoki** (3); **libreki hautatu** (4); **libreki ibiltzeko** (3)

---

librepensadore ik **librepentsadore**.

---

librepensamendu ik **librepentsamendu**.

---

## librepentsadore *(orobat **librepensadore**)* *iz* librepentsalaria.

Zeinen urruti gelditzen diren alegia, gizaseme apaiztu erretoriko hutsak, harako arima haragitan odoldu duen **librepentsadore** haren gogo lasa eta estzeptiko hartatik. Patziku Perurena

---

## librepentsalari *iz* librepentsamenduaren aldekoa.

**Librepentsalarien** sinesgogortasunari. Ibon Uribarri

Erantsi zuen oso tankera ona hartu zidala -zinegotziak, alegia-, bera bezala **librepentsalaria** nintzelako. Ramon Saizarbitoria

---

## librepentsamendu *(orobat **librepensamendu**)* *iz* erlijio gaietan norbanakoaren arrazoiaz beste irizpiderik ezagutzen ez duen filosofia doktrina.

Garaiko giro eta planteamolde esentzialisten propioa da "erlijiositate" orokor hori [...] **librepentsamenduan** eta laizismoan bertan ere nabarigarria XIX. mendean. Joxe Azurmendi

Diotena diotela, gizonaren etorkizuna ez dago erabakirik hankak oinarri sendo baten gainean tinko finkatzen ez dituen bitartean, gaztaroan **librepensamenduak** eragindako amets ustelak bazter utzirik. Jose Morales

---

## librepentsazale *iz* librepentsalaria.

Aitak, **librepentsazale** baitzen, garaiko jaun guztiak bezala, Herbert Spencer-en dotrinan hezia zuen, baina amak, Montevideorako bidaia baten aurretik, gauero Aitagurea errezatu eta gurutze santua egin zezala eskatu zion. Juan Garzia

---

## libreria *iz* liburu denda.

Ene partez joanen zirea, plazer baduzu, "Le Livre" **libreriarat**, hango andereari galdegitera eman dezazun "Jesu Kristoren Imitazionea", euskaraz. Marzel Etxehandi

---

## libreta 1 *iz* ohar liburuxka.

Emakumeak poltsatik bolaluma eta **libreta** ñimiño bat atera eta zerbait zirriborratu zuen gainean. Aingeru Epaltza

**Libreta** atera eta apunteak hartzen hasi da. Oharrez, txostenez, hitzorduz betetako **libreta** bat harrapatu dizute, eta horrekin zaude batez ere kezkatuta. Harkaitz Cano

**Libretan** jasotako oharrek ematen dizute kezkarik handiena. Rafa Egiguren

Traje zimurtuko jaka zimurtutik **libreta** bat atera eta zerbait idatzi zuen lehen orrialdean. Aingeru Epaltza

Kutxa barren-barreneko karpeta eta uztaiez **bildutako** libreta bat, kutxa barruko albo batean zegoena. Jon Muñoz

**Libreta** alfabetiko batean apuntatu nituen topatu ahala. Juan Garzia

**2** liburuxka.

Horri buruz ere familia bakotxak lau ageri fornitu behar ditu adibidez: bizilekuarena, 2003ko zergena, familiako **libreta**, eta kirolaren egiteko gaitasuna. Herria

Historia handian ontsa kokatü nahi dü, probarik hoberena delarik **libretaren** arrakasta, püblikoaren erdiak erosten beitü: bikote hanitx badela kontütan hartürik, haboroxeak **libretaz** baliatzen dira. Herria

**3** aurrezki liburuxka.

Kontu-jaberen batek **libreta** ez baldin bazeukan eta saldoa eskatzen bazuen. Xabier Olarra

**Libreta** hartu nion, kopuruaren sarrera egin, 10$-ekoa han utzi nion, etortzen zenean bere gainerako diruarekin batera jar zezan. Xabier Olarra

Gaur hor etorri zait, **libreta** bat berak eguneratuko zuela eginez. Xabier Olarra

**Libreta** hartu eta sarrera-agiri bat egin nuen. Xabier Olarra

-Aurrezki **libretak** dituzten bezeroak alde honetan mesedez, **libretak** eskuan harturik. Xabier Olarra

· Posta-kutxako **libreta**. Anton Garikano

**4** ***aurrezki libreta*** aurrezki liburuxka.

Banku-dirua, alegia, bere **aurrezki libretan** edo beste finantza-produktu batean agertzen den anotazio kontablea: gordailua. Iñaki Heras

Kutxazain batek zenbaki batzuk eransten zituen nire **aurrezki libretan**, eta horrek diruz hornituta nengoela adierazten zuen. Koro Navarro

- **Aurrezki libretak** dituzten bezeroak alde honetan mesedez, libretak eskuan harturik. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **libreta berria** (3); **libreta hartu** (3); **libreta horiko poemak** (10); **pako aristiren libreta** (5)
> **aurrezki libretan** (3); **libretan ageri** (3)

---

## libretasun *iz* librea denaren nolakotsauna, askatasuna.

Eta hori dena **libretasunaren** edo askatasunaren izenean. Iñaki Segurola

---

## **libretatxo** *iz* libreta txikia.

**Libretatxoa** atera nuen lehenik, igandeko emaitzak eta serventesioak eta epitafioak apuntatzen nituen huraxe. Karlos Linazasoro

Lucyk, eskupoltsatik atera zuen **libretatxoari** orria erauzi ondoren, aitaren etxeko helbidea eta telefono zenbakia idatzi zizkion. Joxemari Iturralde

Nire atzetik lau babalore zetozean, auto baten barruan, nor bere **libretatxoarekin**, pasatzen nintzen kale bakoitzeko leihoetara begira: zenbat argi piztu eta zenbat jende esnatzen nuen zenbatu behar zitean, pentsa. Harkaitz Cano

---

## **libretista** 1 *iz* libreto-idazlea. ik **libretogile.**

Argumentuak aldaketa berritzaile batzuk behar zituela eta, Antonio Somma kontratatu zuen **libretista** gisa. Berria - Kultura

**2**

Hasieran **libretista** izan behar zuten; goizean joan eta sendagileak agindutako errezetak jaso eta idaztea zuten egitekoa; arratsaldean, botika jaso, banatu eta guardiak egitea. Josu Zabaleta

---

## **libreto** *iz* musikatua izateko idazten den obra dramatikoa.

Sarriegik *Pasayan* zartzuela estreinatzen du, Bitoriano Iraolaren **libretoarekin**. William Shakespeareren tragedian oinarritutako Arrigo Boitoren **libretotik** sortu zuen Verdik *Otello*. Askoren artean

"Los indianos" zartzuelaren **libretoaren** egilea. Askoren artean

Egile askorentzat idatzi zituen **libretoak** eta abestiak. Askoren artean

Operako **libreto** baten antzekoa zen: arranditsua, hutsalaren hutsalez arriskutsua, eta gezurtia. Ander Irizar

---

## **libretogai** *iz* libreto bat idazteko gaia.

Arras **libretogai** ona duzue. Patziku Perurena

---

## **libretogile** *iz* libreto-idazlea. ik **libretista.**

Verdik bere **libretogileei** gauza asko aldarazten zizkien, bere ideia gauzatzea lortu arte. Berria - Kultura

---

## **libro** 1 *izond* librea, askea; egitekorik edo eragozpenik gabea.

Eta egun hauetan ikusi duzula, ezti edo samin, gizon **libroen** iguzki gozoa, hainbestetan gutiziatua. Herria

Europearren eta herri **libroen** aitzinean. Herria

Bizi **libroa** nuen. Ana Urkiza

Parropiak baditu gastu handiak bere eskola **libroekin**. Herria

Ni eskola **libroan** ibilki, hura gobernukoan. Janbattitt Dirassar

Irrati **libroak**, hurbil herritarrengandik. Menane Oxandabaratz

Hau egun **libroa** dugu, familia Buenos Aires-en dutenak joaiten dira egunaren pasatzerat beren kusiekin, bertze batzu aldiz hirian gaindi beren gusturat bisitatzen. Herria

Erakaskuntza ordu **libroetan** eta haurreri buruz egina den kontratua izenpetuko dute. Herria

Denboraldi **libroak**, iraultza bat garai hunentzat. Herria

**2** (izan aditzarekin)

Aitamak joanik, **libro** naiz. Piarres Aintziart

Saddam Hussein preso da, bainan Oussama Ben Laden **libro**, nonbait bizi oraino. Herria

Presondegian ziren, orain **libro** dira. Herria

Eta hala ere makurtu behar, beti makurtu behar, opor sainduetan gaudelako, eta opor sainduetan, itxuraz, zernahi diru xahutzea **libro** delako. Aingeru Epaltza

Ustez eta gauaz denak **libro** dituela. Michel Oronoz

· Hortxetako besaulki horiek **libro** dira... Daniel Landart

-Jar zaitez -gonbidatu zuen osabak, zizeiluan **libro** zen lekua seinalatuz. Elena Touyarou

**3** (izan aditza ezabaturik)

Kintzez berdin! trebesa **libro**! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nor xapeldun? parioa **libro**. Herria

Erakusketa egunero idekia izanen da, aratsaldeko 3 etarik 7 ak arte, sartzea **libro**. Herria

• **4** *adlag* libre, aske.

Badakit dena den, **libro** bizi nahi dutela, eta laguntza ekartzen diet. Elena Touyarou

Beren etxeko griña eta buru-hausteetarik **libro** ibiltzea gogoan, ilabete bat edo biez. Herria

Astelehenean **libro** utzi du jujeak, auzia igurikatu artean. Herria

Gerla labur baten ondotik (opio-aren gudua) txinatarrek bidea **libro** behar izan zuten utzi ingeles "debruei". Ramuntxo Etxeberri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eskuak libro** (3); **guziak azaltzea libro** (5); **herri libro** (3); **libro irten** (3); **libro izan** (4); **libro izanen** (6); **libro izango** (5); **libro utzi** (22); **libro utzia** (5); **libro utziak** (7); **libro utziz** (3); **libro uzten** (6); **parioa libro** (52); **parioak libro** (12); **sartzea libro** (8)

**eskola libroan** (3)

**eskola libroko** (6)

---

## **libroki** *adlag* libreki, askatasunez.

Espainiako guarda zibila eta poliza berdin, ibil daitezke frantses estatuan **libroki**. Herria

Jean René Etxegarai lehen axuanta ere **libroki** mintzatu da. Herria

Herri hortako jendea sar ditake **libroki** Europa batuan. Herria

Errusian lege nausiak esku emaiten dakola bakotxari bere erlisionearen urratseri **libroki** jarraikitzea. Herria

Beregaintasuna bildu du Poloniak eta gure kasetaria **librokiago** mintzo da berriz. Herria

---

**liburu** **1** *iz* idatziriko eta irakurtzeko prestaturiko orri multzo aski handiaren bilduma.

In-quarto **liburu** batean. Monika Etxebarria

Urduri hasi zen **liburu** mardularen orriak pasatzen. Migel Angel Mintegi

Bigarren eskuko **liburuen** dendatxo batean nenbilela, nire ezagun baten sinadura ikusi nuen **liburu** baten kortesiazko orri zurian. Anjel Lertxundi

Txikitan, miragarria iruditzen zitzaidan itxitako **liburu** bateko letrak beren artean ez nahastea eta gauaren joanean ez galtzea. Juan Garzia

**Liburu** honen orri kopurua zehazki infinitua da. Juan Garzia

Infinituraino helduko litzateke soka hori, baldin espazio fisikoak infiniturik onartuko balu: **liburuko** azalean ageri den mutikoaren **liburuko** azalean ageri den mutikoaren **liburuko** azalean ageri den mutikoaren **liburuko** azalean ageri den... Anjel Lertxundi

Norbaitek, gezur biribil batekin, [...], **liburu** bat saldu zion Rudolf II.ari; gero, **liburu** hura enperadorearen liburutegian geratu zen, inork inoiz ez zer zioen jakin gabe. J.M. Olaizola "Txiliku"

Orain urte batzuk, bigarren eskuko **liburuen** dendatxo batean nenbilela. Anjel Lertxundi

Idazle baten liburutegiak (apaletan haustutako **liburuek**; **liburuetako** azpimarrek eta *in margine* egindako oharrek [...]) informazio ugari eman dezake idazle horren obraz. Anjel Lertxundi

Pistola bat **liburu** eder hustu batean ezkutatzen den bezala. Anjel Lertxundi

**2** (izenondoekin)

Denak ere **liburu** garai eta mardulak ziren, ertz distiratsuzko azalez koadernatutakoak, eta jabearen harrotasunaren adierazgarri zeudenak erakusgai. Mirentxu Larrañaga

234 orrialdeko **liburu** koadernatu bat dela, hizkuntza ezezagun batean idatzia. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Liburu** zaharrenak larruzko azaldunak ziren gehienak, eta gaur egungoak azal-babesgarri gardenez zeuden bilduta. Oskar Arana

Larruztaturiko **liburu** handi bat (*Magiaren Historia*, Bathilda Bagshot-ek idatzia) burkoaren kontra ipinita zuela. Iñaki Mendiguren

XX. mendearen hasieran **liburu** misteriotsu hura berriro argira atera zuen Voynich jaunak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**3** liburu batek dauzkan zeinuen multzoa.

**Liburu** bat zabaldu orduko, idazlearen arreta piztu duten oihartzun batzuk entzun eta antzeman ditzake irakurleak. Anjel Lertxundi

Zenbat eta zenbat **liburu** dago **liburu** hau taxutzeko kontsultatu dudan **liburu** bakoitzaren atzean? Anjel Lertxundi

**Liburu** baten mugak ez dira sekula garbiak eta modu zorrotz batean marraztuak: izenburuaren gainetik, lehen lerroez eta puntu eta amaieraz gainetik, bere barne konfigurazioaz eta autonomia ematen dion formaren gainetik harrapatua dago beste **liburu**, testu eta esaerekiko erreferentzia-sistema batean: sare bateko korapilo bat da. Xabier Arregi

Munduko gauza guztiek aipu batera, **liburu** batera garamatzate. Anjel Lertxundi

Polanyik *The Great Transformation* **liburu** handian maisuki azaltzen duen legez, [...]. Iñaki Heras

Honela dio **liburu** horrek: [...]. Jose Antonio Mujika

San Gregoriok ere, bere Elkarrizketen 2. **liburuko** 33. kapituluan idazten duenaren arabera. Piarres Xarriton

Zer ari zitzaigun kontatzen **liburu** hau? Pako Aristi

Hogeita sei edo hogeita zortzi **liburu** idatzi zituela, guztiak ere asperdura transzendentalezko aharrausi moduan zabaltzen direnak, dena eskas duen mundu baten aurrean. Josu Zabaleta

Galarazita dago **liburu** honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa. Bernardo Atxaga

Bi argitaraldi izan ditu **liburu** horrek orain arte. Juan Garzia

Medikuntzako eta Biologiako **liburu** batzuk, ordurako zaharkituak.egileak Trikitilari Elkarteko Agurtzane Aizpuru eta Mikel Markez aipatu nahi lituzke, **liburu** hau egiteko eman dioten laguntza handia aitortu eta eskertzearren. Josu Zabaleta

**Liburu** Sainduek ez digute erakusten Jainkoaren ospea behar dela kantatu bakarrik hiru hizkuntzetan, baina bai hizkuntza guztietan. Piarres Xarriton

Musikaren historiako **liburu** askotan. Pako Aristi

**4** zenbait idazlan inprimaturen zati nagusia edo berezia.

Jakina denez, Testamentu Zaharreko **liburu** batzuek Israelen historia 'ofiziala' kontatzea dute helburu. Jose Antonio Mujika

*De Architectura* obraren testu idatzia, esan bezala, hamar **"liburu"** edo partetan banatzen da. Santiago Iruretagoiena

*De Architectura* tratatuaren hamar **"liburuak"** (*kapituluak* esango genuke, gaur egun, areago). Santiago Iruretagoiena

Fisika tomoaren azken **liburuetan** Aristotelesek Lehenengo Motorraren gaia dakar berriro. Askoren artean

Onuragarri iruditu zaigu gure lanak atariko **liburu** batez hastea: Zuzenbidea eta legeak orokorrean. Andres Urrutia

Bilduma honetan ez baitzeuden 22.877 **liburu** baino gutxiago, 11.095 liburuki betetzen zituztenak, edukien aurkibideak aparte. Iñaki Mendiguren

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Neskaren poltsatik **liburu**-azal bat nabarmentzen zen garbi aski bistara. Juan Garzia

Horma bat **liburu**-apalez estalia zegoen. Oskar Arana

Material didaktiko sorta nahiko zabala bada dagoeneko argitaratua (**liburu** formatuan, kasetetan ala hizkuntza lantzeko testu-liburuetan eduki edo ariketa osagarri gisa). J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Atalka argitaratutako kronika haiek, osatuta eta orraztuta, **liburu** euskarrian eskaintzen dizkizugu orain, Alberdaniak eta BERRIAk baterako argitalpenean. Anjel Lertxundi

**Liburu** saltzailea metroan zen berriz ere, bakarrik. Jasone Osoro

Orain izango nuen nire **liburu**-gosea berdintzeko aukera. Xabier Mendiguren Elizegi

Hamarretarako nengoen **liburu**-txosnen aurrean. Anjel Lertxundi

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pedro Lombardoren Sententzien Liburua zen hura, gero XIII. mendeko unibertsitatean teologiako eskola-**liburu** klasiko bihurtuko zena. Askoren artean

*Gogojardunak* ez da narrazio-**liburua**, ebanjelioak diren bezala; edo azalpen-**liburua**. Patxi Altuna

Horiekin batera Eiheralarreko aspaldiko erretore baten poesia **liburu** zahar bezain bitxia doa. Aingeru Epaltza

Bidaia horrexetarako gonbita da literatur **liburu** bat ere. Anjel Lertxundi

Keynesen errezeta-**liburu** zabalean, eskariari buruzko politikaz gain, badira politika erabilgarri gehiago. Iñaki Heras

Ez zituzten filosofia **liburu** izugarri haiek irakurtzen. Alberto Ladron Arana

Itsasoa ere otoitz **liburu** bat da, Jainkoaz mintzatzen da. Monika Etxebarria

**7** ***liburu denda*** (orobat ***liburudenda***) liburuak saltzen diren denda.

Hurrengo etxe sailean hebreerazko eta yiddishezko liburuak erakusten zituen **liburu denda** batek. Koro Navarro

Iragan bost hilabeteetan ibilia omen zen *Brightman's Attic* **liburu**-dendan lanean. Oskar Arana

Bi kale aurrerago dago Einaudi argitaletxearen **liburu**-denda nagusia. Anjel Lertxundi

Jantoki azpiko bebarruan, berriki ireki duten kanpuseko **liburudenda** dago. Iban Zaldua

**Liburu denda** ondoko tabernaren atean. Alberto Barandiaren

**8** ***testu liburu*** ik **testuliburu**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**argazki liburu** (10); **arte liburu** (8); **bildumako liburu** (9); **euskal liburu** (32); **euskarazko liburu** (15); **gida liburu** (11); **idatzitako liburu** (23); **ipuin liburu** (23); **izeneko liburu**

(17)

**liburu aberats** (11); **liburu argia** (11); **liburu argitaratu** (40); **liburu argitaratu ditu** (11); **liburu aurkezpen** (10); **liburu aurkezpena** (9); **liburu aurrerapena** (12); **liburu autobiografikoa** (9); **liburu azoka** (21); **liburu azokak** (13); **liburu azokan** (30); **liburu bat argitaratu** (19); **liburu bat atera** (14); **liburu bat egiten** (12); **liburu bat hartu** (24); **liburu bat idatzi** (38); **liburu bat idaztea** (9); **liburu bat idazteko** (16); **liburu bat idazten** (12); **liburu bat irakurri** (11); **liburu bat irakurtzen** (31); **liburu bat plazaratu** (11); **liburu batean bildu** (10); **liburu baten gainean** (9); **liburu berdea** (12); **liburu berri** (99); **liburu berri bat** (17); **liburu berria** (64); **liburu berriak** (34); **liburu berrian** (16); **liburu berriaren** (14); **liburu berrien** (10); **liburu denda** (127); **liburu denda bat** (16); **liburu dendak** (13); **liburu dendako** (26); **liburu dendan** (35); **liburu dendara** (19); **liburu dendaren** (22); **liburu denden** (15); **liburu dendetan** (27); **liburu dendetara** (12); **liburu eder** (48); **liburu eder bat** (22); **liburu ederra** (18); **liburu ederrak** (10); **liburu eman** (9); **liburu erosi** (9); **liburu eta diska** (17); **liburu eta disko** (24); **liburu gotor** (15); **liburu gotorra** (11); **liburu handi** (21); **liburu handi bat** (8); **liburu idatzi** (36); **liburu interesgarria** (9); **liburu kaleratu** (12); **liburu lodi** (14); **liburu mardul** (9); **liburu mardula** (12); **liburu meta** (8); **liburu on** (15); **liburu on bat** (8); **liburu onak** (8); **liburu oso** (16); **liburu oso bat** (8); **liburu osoa** (21); **liburu osoan** (10); **liburu ospetsua** (8); **liburu pollit** (8); **liburu sakratuak** (8); **liburu saltzaile** (13); **liburu saltzailea** (11); **liburu saltzaileak** (11); **liburu saltzaileek** (9); **liburu saltzaileen** (13); **liburu santua** (10); **liburu santuak** (102); **liburu santuak dioena** (9); **liburu santuan** (11); **liburu santuek** (20); **liburu santuen** (14); **liburu santuetan** (25); **liburu santuko** (8); **liburu sorta** (8); **liburu txiki** (16); **liburu ugari** (12); **liburu zahar** (30); **liburu zaharrak** (12); **liburu zaharren** (16); **liburu zuria** (26); **liburu zuriak** (18)

**nazioarteko liburu** (9); **orrialdeko liburu** (29); **poema liburu** (49); **poesia liburu** (31); **poesia liburu bat** (11)

**argitaratutako liburua** (8); **estilo liburua** (16); **gida liburua** (9); **idatzitako liburua** (18); **inguruko liburua** (9); **ipuin liburua** (30); **izenburuko liburua** (9); **izeneko liburua** (28); **lege liburua** (13); **liburua argitaratu** (87); **liburua argitaratuko** (12); **liburua argitaratzeko** (8); **liburua atera** (22); **liburua aurkeztean** (11); **liburua aurkezteko** (18); **liburua aurkeztu** (53); **liburua aurkeztuko** (22); **liburua aurkitu** (9); **liburua besapean** (8); **liburua bukatu** (8); **liburua egin** (15); **liburua egiteko** (16); **liburua eman** (22); **liburua erosi** (10); **liburua eskuan** (14); **liburua eskuetan** (11); **liburua hartu** (48); **liburua idatzi** (66); **liburua idaztea** (9); **liburua idaztean** (9); **liburua idazteko** (31); **liburua idazten** (16); **liburua irakurri** (29); **liburua irakurtzeko** (14); **liburua irakurtzen** (48); **liburua ireki** (12); **liburua itxi** (43); **liburua kaleratu** (47); **liburua osatu** (18); **liburua osatzeko** (13); **liburua osatzen** (10); **liburua plazaratu** (16); **liburua zabaldu** (32); **liburua zabaltzen** (9); **memoria liburua** (11); **meza liburua** (16); **osatutako liburua** (10); **otoitz liburua** (16); **poema liburua** (55); **poesia liburua** (13); **salmo liburua** (9); **xake liburua** (8)

**eskola liburuak** (14); **euskal liburuak** (11); **euskarazko liburuak** (13); **ipuin liburuak** (9); **liburuak argitaratu** (11); **liburuak begiratzen** (8); **liburuak erosteko** (11); **liburuak eta diskoak** (10); **liburuak hartu** (9); **liburuak idatzi** (12); **liburuak irakurri** (16); **liburuak irakurtzea** (8); **liburuak irakurtzeko** (12); **liburuak irakurtzen** (45); **liburuak utzi** (8); **poema liburuak** (12); **testu liburuak** (14)

**argitaratutako liburuan** (8); **erregeen kronika liburuan** (36); **erregeen liburuan** (11); **gida liburuan** (8); **izeneko liburuan** (32); **kronika liburuan** (41); **liburuan ageri** (18); **liburuan agertzen** (25); **liburuan aipatzen** (13); **liburuan argitaratuak** (11); **liburuan azaldu** (11); **liburuan azaltzen** (14); **liburuan barrena** (13); **liburuan bildu** (16); **liburuan dioenez** (10); **liburuan esaten** (10); **liburuan idatzi** (13); **liburuan idatzia** (11); **liburuan irakurria** (21); **liburuan jaso** (8); **liburuan jasotako** (10); **liburuan kontatzen** (16); **liburuan sartu** (9); **liburuan zehar** (27); **poema liburuan** (9)

**haur liburuaren** (10); **haur liburuaren nazioarteko** (9); **izeneko liburuaren** (9); **liburuaren ale** (14); **liburuaren ale bat** (8); **liburuaren argitalpen** (9); **liburuaren aurkezpena** (33); **liburuaren aurkezpenean** (30); **liburuaren azala** (11); **liburuaren azalean** (10); **liburuaren bila** (8); **liburuaren bukaeran** (13); **liburuaren egilea** (36); **liburuaren egileak** (31); **liburuaren egileek** (10); **liburuaren hasieran** (25); **liburuaren helburua** (8); **liburuaren hitzaurrean** (14); **liburuaren izena** (8); **liburuaren izenburua** (33); **liburuaren nazioarteko eguna** (14); **liburuaren sarreran** (10)

**bigarren eskuko liburuen** (10); **diska eta liburuen** (8); **euskal liburuen** (9); **euskarazko liburuen** (8); **liburuen azoka** (8); **liburuen eta diskoen** (8); **liburuen zerrenda** (11)

**historia liburuetan** (22); **liburuetan agertzen** (8); **liburuetan aurkitzen** (8); **profeten liburuetan** (9)

**liburuko ipuinetan** (8); **liburuko pasarte** (21); **liburuko pertsonaia** (8); **liburuko poemak** (10)

**liburutik hartua** (8)

---

## liburudenda ik **liburu 6**.

---

## **liburudendazale** *iz* liburu denden zale den pertsona.

Beste idazle asko bezala, **liburudendazale** amorratua naiz; ez dut esango New Yorkeko guztiak ezagutzen ditudanik, baina bai onenak. Iban Zaldua

---

## **liburugile** *iz* liburuak egiten dituen pertsona.

Bigarren parteko beste ehun orrialdeentzat, **liburugileak** gure eskualdeko lekuko asko entzunik, eskaintzen dizkigun kapituluak aipatuko ditugu bakarrik, pentsu baitugu irakurle askok eskuratu nahiko duela liburua bera. Herria

Bi liburu zale handi eta euskal **liburugile** haiei, eskaintzen diet, maiteko zuketen nafar teologoaren artikulu sorta hau. Piarres Xarriton

«Hiri irekia, librea eta liberala zela iruditu zitzaiolako aukeratu zuen Irun», **liburugilearen** arabera. Berria - Kultura

Gizakiak aski ez duelarik halabeharrak bidaltzen dizkion zoritxarrekin, oinaze are bihurriagoak asmatzen aritzen da **liburugile** eta kontalari jendea. Anjel Lertxundi

---

## **liburugintza** **1** *iz* liburuak egitea.

Euskal literatura eta **liburugintza** sustatu nahiz. Herria

**Liburugintzan** esaterako, lan ikaragarria egin dugu, eta aurten hamar liburu atera ditugu euskaraz. Berria - Euskal Herria

Lau urte du sortua dela Gatuzain argitaletxea Baionan, **liburugintza** alternatibo bat sortu nahiz. Herria

Euskal **liburugintzaren** motorra eta ardatza euskarazko ikasliburugintza dela. Berria - Harian

Frantzian komikigintza une goxoan da eta datuek erakusten dutenaren arabera, 2003an inoiz baino album gehiago argitaratu zen: 2.526 liburu, **liburugintza** osoaren %13. Berria - Kultura

Nire ustez, tranpa bat egiten da **liburugintza** eta literatura edota **liburugintza** eta irakurzaletasuna identifikatzean. Berria - Kultura

Betidanik landu zuen antzerki-zuzendaritza, batetik, eta **liburugintza**, bestetik. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Doako eskola liburuen alde agertu da **liburugintza** sektorea, baina mailegua erabat baztertu du. Berria - Euskal Herria

Euskal **Liburugintza** plana nola egituratuko den ere zehaztu zuten. Berria - Kultura

Mailegu sistemak **liburugintza** ekoizpen osoa jar dezake arriskuan. Berria - Harian

Joan Mari Torrealdai *Jakin*-eko zuzendari eta **liburugintza** ikerlariak ere ondo ezagutzen du Lazkaoko artxibategia. Berria - Harian

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aipatuz Ikas zentroak ikas-**liburugintzan** daraman sail handia. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**euskal liburugintza** (4); **liburugintza sektorea** (4)

**euskal liburugintzak** (3)

**euskal liburugintzaren** (11)

---

## **liburuki** **1** *iz* idazlan hedatuak banatzen diren eta bereiz koadernatzen eta argitaratzen diren zatietako bakoitza. ik**tomo**.

Joseph Cartaphilus antikuarioak, Esmirnakoa bera, Pope-ren Iliadaren sei **liburukiak**, laurden txiki moldean argitaraturikoak (1715-1720), eskaini zizkion Lucinge-ko printzesari. Juan Garzia

Egongelan **topatu** zituen Marx eta Engelsen *Lan Guztien* liburukiak, txukun-txukun ordenatuta letik XLIVra. Iban Zaldua

Ohearen ondoko mesanotxean Micheleten Frantziako Historiaren **liburuki** bat du, beti bezala. Monika Etxebarria

Bosgarren **liburuki** hau da *Bakarka* ikasbidearen azkena. Hamasei **liburuki**, 14.028 orrialde, 21 urteko lan isil eta saiatuaren emaitza. Herria

Han daude oraindik Marx eta Engelsen Lan Guztien **liburukiak**, zut, bata bestearen ondoan, hauts-patina mehe batez estalita. Iban Zaldua

Auspoako 200 bat **liburukiak**, adibidez. Txillardegi

Oroit naiz nola horrek aukera eman zidan Txinako entziklopedia baten **liburuki** seda-antzekoak ferekatzeko. Juan Garzia

**2** liburua (lehen adieran).

366 orrialdeko **liburuki** mamitsua, toponimoak herrika eta ordena alfabetikoan sailkaturik. Herria

Hiru **liburuki** eta zortzi ataletan, 1973 eta 1989 urteen bitartean egindako gehiegikeriak biltzen ditu txostenak. Berria - Mundua

Bilduma honetan ez baitzeuden 22.877 liburu baino gutxiago, 11.095 **liburuki** betetzen zituztenak, edukien aurkibideak aparte. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bi liburuki** (11); **bost liburuki** (3); **hamar liburuki** (3); **hamasei liburuki** (3); **lau liburuki** (4); **liburuki bat** (9)
> **azken liburukia** (6); **bigarren liburukia** (7); **lehen liburukia** (11); **lehenengo liburukia** (4); **liburukia argitaratu** (5)
> **bi liburukiak** (3); **hiru liburukiak** (4)
> **lehen liburukian** (3)
> **lehen liburukiaren hitzaurrean** (3)
> **hiru liburukiko** (4)
> **bi liburukitan** (7); **bost liburukitan** (3); **hiru liburukitan** (4); **lau liburukitan** (3); **zortzi liburukitan** (3)

---

# **liburukote** *iz adkor* liburu handia eta lodia.

Kantek 57 urte zituen 856 orrialdeko *Arrazoimen hutsaren kritika* **liburukotea** idatzi zuenean. Berria - Kultura

Greziako eta Erromako mitologiari buruzko **liburukote** lodi bat. Josu Zabaleta

Azal beltzeko **liburukote** sendo bat. Iñaki Mendiguren

Globalizazioari buruzko **liburukote** irentsezin bat. Eider Rodriguez

Telefonicako **liburukotea** hartu eta Nafarroa etorbideko 20. ezkaratzeko bosgarren pisuko helbideari zegokion izena begiratzea erabaki zuen. Harkaitz Cano

Bizitza osoan entzungo ez nituzkeen diskoak, aspertuaren aspertuaz heriotzara eraman zaitzaketen **liburukoteak**. Sonia Gonzalez

---

## **liburuño** *iz adkor* liburutxoa.

1937. urtean Jean Etchevers, Donibaneko eliza ondoko botikariak egin marrazkiak **liburuño** batean publikatu zituen eta haren bidez etorri ziren arkeologo batzuk dorrearen misterioa zilatu nahiz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Karia hortarat, **liburuño** bat agertuko ere da Etienne Salaberry-ren biziaz eta lanez, "Bidegileak"sailaren kondu, eta beste bi liburu "Egan" aldizkariaren eskutik. Herria

**Liburuño** baten itxura duen zenbaki berezi hortan, kondatua da legatzak zer erran lezakeen mintzatzen ahal balitz. Herria

---

# **liburuatu**, liburura(tu), liburuatzen da/du *ad* liburu formatora eraman.

Liburu honetan ageri diren gehientsuenak, esaterako, *New York Review of Books* aldizkari ezagunean agertu ziren **liburuatu** baino lehen. Berria - Kultura

Jenioaz, ordea, «nahikoa» idatzi da eta Jorge Oteiza gizona **liburuatu** nahi izan du Salisek. Berria - Kultura

Hizkuntzarekin zerikusirik ez duten elementuak ere, neurri handiago edo apalago batean, bideratu nahi den mezuarekin nahasian agertzen zaizkigu, hasi azalaren argazkiarekin eta ehundura ezberdineko materialak **liburuatzearekin** buka. Iñaki Arranz

---

## liburuska ik **liburuxka**.

---

# **liburutegi** *(1355 agerraldi, 145 liburu eta 320 artikulutan; cf.* ***biblioteka*** *102 agerraldi, 32 liburu eta 25 artikulutan)* **1** *iz* liburuak, irakurriak ahal izateko moduan sailkaturik, kokatzen diren eraikuntza edo gela. ik **biblioteka**.

Santos-eko **liburutegi** batean haren eskuizkribu bat aurkitu zuen. Juan Garzia

Salako **liburutegiari** begira nengoen. Aingeru Epaltza

Uste dut **liburutegi** osoa irakurri nahi duela Gabonak baino lehen. Iñaki Mendiguren

**2** (izenondoekin)

Kortesiazko diosalen ondoren, **liburutegi** nagusira eraman ninduen. Anjel Lertxundi

Hurtadok **Liburutegi** Nazionalean ematen zituen goizak. Josu Zabaleta

Zarautzen **liburutegi** publiko bakar bat zegoen orduan, fraideen komentukoa. Anjel Lertxundi

**Liburutegi** munizipalean badago kabina berezi bat elbarrituek dokumentuak kontsultatzeko. Herria

**Liburutegi** ibiltari baten moduan ibiltzen omen zen beste presoen kartzela-aldia arintze aldera. Anjel Lertxundi

3.619 metro koadroko **liburutegi** interaktiboa. Berria - Kultura

Pragmatismoaren **liburutegi** zibernetikoa. Askoren artean

Informazio oro dugula eskura, munduko **liburutegi** birtual guztiak etxeko ordenagailuan. Iñigo Aranbarri

**Liburutegi** pertsonal oro bizitza baten egitasmoa eta ispilua da. Anjel Lertxundi

Europako **Liburutegi** Digitala sortzeko lehen pausoak. Berria - Kultura

**3** irud/hed

«Kometa hori **liburutegi** bat bezalakoa da», dio Brownleek, «eguzki sistemaren hasierako lagina da, duela 4.500 milioi urtekoa». Berria - Gaiak

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Liburutegi** areto batek ez zuen sekula ikuskizun lasaiagorik eskainiko. Monika Etxebarria

**Liburutegi** azpiegitura eta zerbitzu moderno, koordinatu eta eskuragarriak lortzea. Berria - Kultura

Irakurketa Sare Publikoa eratuko da toki administrazioen menpeko **liburutegi** sareak batzeko. Berria - Kultura

Proiektuaren arabera, EAEko **liburutegi** Sistema, lankidetza-harremanen bitartez **liburutegi** zerbitzuak emateko gai diren erakundeen multzoa da.

**Liburutegi** Sistemaren Katalogo Kolektiboa eratzea da Jaurlaritzaren epe motzeko bi erronketatik bat. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Donostiako Udal **Liburutegian**. Berria - Euskal Herria

Aurten apailuak segituko dira herri-**liburutegi** berria egiteko Urdazuri auzogunean, mediateka bati josia eta biltzar-gela handixko batekin. Herria

Gizarte **liburutegiak**: Argazkiak, bideoak edo bestelakoak trukatzeko. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eaeko liburutegi** (3); **espainiako liburutegi** (4); **europako liburutegi** (4); **euskal liburutegi** (6); **frantziako liburutegi** (4); **herri liburutegi** (3); **liburutegi berria** (8); **liburutegi digitala** (6); **liburutegi digitalak** (3); **liburutegi digitalaren** (4); **liburutegi digitalean** (5); **liburutegi ederra** (3); **liburutegi handia** (4); **liburutegi munizipalean** (6); **liburutegi nagusi** (3); **liburutegi nagusia** (4); **liburutegi nagusiak** (4); **liburutegi nagusian** (8); **liburutegi nazional** (3); **liburutegi nazionala** (8); **liburutegi nazionalak** (3); **liburutegi nazionalaren** (9); **liburutegi nazionalean** (7); **liburutegi nazionaleko** (5); **liburutegi osoa** (3); **liburutegi publiko** (5); **liburutegi publikoak** (3); **liburutegi txiki** (3); **munduko liburutegi** (6); **nafarroako liburutegi** (5); **new yorkeko liburutegi** (3); **parisko liburutegi** (3); **parisko liburutegi nazionalean** (3)

**babelgo liburutegia** (7); **eaeko liburutegia** (3); **euskadiko liburutegia** (5); **liburutegia sortzea** (3); **udal liburutegia** (3)

**bidebarrieta liburutegian** (25); **bidebarrietako liburutegian** (7); **bilboko bidebarrieta liburutegian** (13); **donostiako udal liburutegian** (4); **enperadorearen liburutegian** (3); **etxeko liburutegian** (3); **herri liburutegian** (5); **herriko liburutegian** (11); **liburutegian aurkitu** (4); **liburutegian ikasten** (19); **liburutegian ikasten aurkitu** (6); **liburutegian ikasten zegoen** (9); **liburutegian izan** (3); **liburutegian sartu** (4); **mutila liburutegian ikasten** (4); **obabako liburutegian** (3); **the library liburutegian** (5); **udal liburutegian** (23); **unibertsitateko liburutegian** (5)

**euskadiko liburutegien** (4); **liburutegien euskal kontseilua** (3); **liburutegien euskal sarea** (3); **liburutegien lege** (3)

**azkue liburutegiko** (3); **donostiako udal liburutegiko** (5); **liburutegiko apal** (3); **liburutegiko apalak** (4); **liburutegiko apaletan** (3); **liburutegiko arduradun** (3); **liburutegiko atal** (3); **liburutegiko atea** (3); **liburutegiko ekitaldi aretoan** (4); **liburutegiko liburu** (3); **liburutegiko liburuak** (3); **liburutegiko zuzendariak** (3); **nire liburutegiko** (4); **udal liburutegiko** (18); **udal liburutegiko sotoan** (5)

**bilboko bidebarrieta liburutegira** (3); **liburutegira itzuli** (5); **liburutegira joan** (8); **liburutegira joaten** (6)

---

# liburutegitxo *iz* liburutegi txikia.

**Liburutegitxo** bat zuen Joe Dillonek *The Union Jack, Pluck* eta *The Halfpenny Marvel*en ale zaharrez osatua. Irene Aldasoro

Kasino hura, "Anaitasuna", herriaren behinolako aintzaldiaren aztarren bat zen; sekulako gelak zituen, gaizki dekoratuak, gorputz osoko ispiluak, billar-mahai batzuk, eta **liburutegitxo** bat, zenbait libururekin. Josu Zabaleta

---

# liburutegizain *iz* liburuzaina.

-Bihotz bihotzetik ene eskerrak, Michelco Ortitz de Miranda, musika maisu, **liburutegizain** eta kalonje jauna. Michel Oronoz

Hori nuen huts bat xoko on guzietako ateak hesten zizkidana **liburutegizain**, sukaldari... bi komando banituen gogokoak. Marzel Etxehandi

---

# liburuteka *iz* liburutegia.

Beskoitzeko **liburuteka**. Herria

---

# liburutoki *iz*

Molleja: **liburutokia** esaten duk. Pablo Sastre

---

# liburutto *iz adkor* liburutxoa.

62 orrialdeko **liburuttoa**, 4 eurotan salgai. Herria

**Liburutto** hunek 20 orrialde ditu doi-doia eta Daniel Jolivet-en margoez apaindua da. Herria

42 kantuko 6000 **liburutto** banatuko. Herria

*Quai Rouge* argitaletxeak bi **liburutto** plazaratu berri ditu. Herria

Mendizaleentzat egiten diren **liburutto** horietako bati. Bernardo Atxaga

Kantu **liburutto** berria. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**liburutto pollit** (3)

---

# liburutxar *iz*

**Liburutxar** honek, ordea, ez zuen nik erakutsitako bidetik joan nahi izan, eta uko egin zion laurogei kontakizunen bilduma izateari. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# liburutxo *iz* liburu txikia. ik **liburuxka**.

**Liburutxo** honek, hasi eta buka etenik gabe irakurtzean, nahaspila-inpresioa egiten du. Askoren artean

Ipuina Zumalakarregi Museoak argitaratutako *Dilijentzia* **liburutxoan** azaldu zen 1996an. Bernardo Atxaga

*Bidegileak,* Eusko Jaurlaritzaren kolekzioko **liburutxoa**, 37 argazkirekin. Herria

---

# liburutzar *iz adkor* liburu handia.

*Derrotero de Pío Baroja* (Alberdania) idatzi ondoren, orain *Pío Baroja, a escena* (Espasa) **liburutzarra** -552 orri- jarri du kalean Miguel Sanchez Ostizek. Ez Parisen ez Madrilen, ez Geneban ez Erroman, gorteetako kronikariek ez zuten delako data urrezko letretan nabarmendu, beren jaunen gogoak asebetetzeko **liburutzarretan**. Aingeru Epaltza

Sabethek bere **liburutzarrean** murgilduta ematen zuen denborarik gehiena. Joxe Austin Arrieta

Hurtadok **liburutzarrak** aztertzen ematen zuen feriak irauten zuen denbora guztia. Josu Zabaleta

---

# liburuxka *(orobat **liburuska** g.er.)* **1** *iz* orrialde gutxiko edo tamaina txikiko liburu modukoa.

Gerran herrendu zelako, hala zioen [...] aitaren **liburuxka** militarrak. Anjel Lertxundi

Hitz bat esan gabe, zuzendariak emaitzen **liburuxka** eman zidan. Juan Kruz Igerabide

Diskoaren **liburuxkan** letrak ageri ez diren arren. Berria - Kultura

CD barruko **liburuxkan** agertzen diren irudiek. Paddy Rekalde

Gurutzegramen **liburuxka** itxi egin nuen. Joxemari Iturralde

Lehenengo kaiera edo **liburuxka** osatu dute herritarren mezu eta testigantzekin. Berria - Harian

Zinemagilearen biografia eta filmografia biltzen duen 16 orrialdeko **liburuxka** argitaratu du. Berria - Kultura

Obra erraldoi horretatik ateratako **liburuxka** batez baliatu naiz ni. Martin Anso

Turismo bulegoko **liburuxketan**. Urtzi Urrutikoeetxea

Katalogoak eta **liburuxkak**, euskal literaturari buruzkoak. Edorta Jimenez

Gero jakako barneko patrikatik azal beltz eta ertz gorridun **liburuxka** bat atera du. Urtzi Urrutikoetxea

**Liburuxka** berezi bat moldatu dut horrelako hitzak idazteko. Josu Zabaleta

**2** irud/hed

Ur-kontsumoaren zenbatekoa nire **liburuxka** elektronikoan erregistratu ondotik. Josetxo Azkona

Kafeak mahai gainean genituen, baita erretzeko paperen **liburuxka** ere. Aingeru Epaltza

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ene liburuen erdian daukat, 1955eko urriaren 7an hasten den *Carnet-notes* delako ene **ohar** liburuxka. Piarres Aintziart

Bepek eta Miepek egin zituzten erosketak, gure errazionamendu **liburuxkez** baliatuz. Josu Zabaleta

Hautesle errolda osatzeko Husseinen agintepean banatutako errazionamendu **liburuxken** datuak erabiliko dituzte. Berria - Mundua

Informazio **liburuxketan** azaltzen diren aholkuak jarraitzeko. Berria - Euskal Herria

Haurren jarraipen **liburuxka** ezarri nahi du Sarkozyk. Berria - Euskal Herria

LAB langile sindikatuak ateraia du esku **liburuxka** bat elebiduna sasoilarientzat. Herria

Dendako erosketa **liburuxkan** azken eroslearen izena agertzen zen. Gotzon Garate

Gurasoentzako Aholku **Liburuxka**, guraso guztientzako. Berria - Euskal Herria

1819an baitzen berraurkitu eta oraino ez osorik, Erromako liburutegi batean, beste eskuizkribu zahar zenbaiten azpian gorderik, aita Angelo Mai jesuita **liburuzain** jakintsuak atzeman zuelarik. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aholku liburuxka** (3); **izeneko liburuxka** (5); **liburuxka argitaratu** (6); **liburuxka bat argitaratu** (3); **liburuxka kaleratu** (5); **orrialdeko liburuxka** (5)
> **liburuxkan idatzi** (3)

---

# liburuzain **1** *iz* liburutegi baten ardura duen pertsona.

**Liburuzaina** zen lanbidez. Berria - Kultura

Muskizko udal liburutegiko **liburuzainaren** iritziz, hango liburutegien egoera eta zerbitzuak ez dira parekagarriak Euskal Herrikoekin. Berria - Kultura

Pruden Gartzia Euskaltzaindiko **liburuzainak** duela gutxi osatu du Txillardegiren bibliografia osoa. Berria - Kultura

Liburu maileguen doakotasuna aldarrikatuko dute **liburuzainek**. Francisco Augusto de Thou (1607-1642), erregearen **liburuzain** nagusia eta Parlamentuko aholkularia. **Liburuzain** izendatu dut. Juan Martin Elexpuru

**2** (izen baten eskuinean)

Hainbat libururen eskabidea egin diot begirale **liburuzainari**. Anjel Lertxundi

-Nahiko nuke -esan zuen Aita **Liburuzainak** atsekabeturik-. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (hitz elkartuetan)

Duela urte asko Frantziako hiriren batean bizi da, **liburuzain** lanetan. Patxi Zubizarreta

**4** ***liburuzain-orde*** liburuzainaren hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

**Liburuzain** ordearen bulegoan utzi nituen aurreko hilabetean maileguan harturiko bi liburuak. Monika Etxebarria

---

# liburuzale **1** *izond/iz* liburuen zalea dena.

Jonas gaztea mutil isil eta **liburuzalea** zen, ikasketetan nabarmendu egiten zen eta zientzialari edo doktore izan nahi zuen. Oskar Arana

Eta bitartean maisu **liburuzalea** begiratzen eta idazten. Anton Garikano

Irakurtzen dut, baina ez naiz **liburuzale**. Xabier Montoia

Baina Basarri, bertsolaria izateaz gainera, bazen **liburuzalea** ere. Anjel Lertxundi

Laurok ginen nolabait ere **liburuzale** eta letrajale, eta laurok osatzen genuen halako laguntalde moduko bat. Xabier Mendiguren Elizegi

**Liburuzale** amorratua banintzen. Joan Mari Irigoien

Wilfrid M. Voynich izeneko **liburuzale** ingeles batek aurkitu zuen eskuizkribu hori 1912. urtean. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** liburu-saltzailea.

Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* liburuarentzat izango da aurtengo Zilarrezko Euskadi Saria, Gipuzkoako **Liburuzaleen** Elkarteak atzo iragarri zuenez. Berria - Kultura

---

# liburuztatu *izond* liburuz hornitua.

Gabin horma **liburuztatu** haiei begia kendu ezinik zegoen, liluratuta. Iñaki Iñurrieta

Azken buruan, lau horma **liburuztatuen** babesetik irteteko beldurra. Iñaki Iñurrieta

Horren esperantzan ibili naiz ni ere denbora luzean, balearen sabel **liburuztatutik** ametsetan: ni ere, sabeletik aterako ninduen ekintzari esker, errealitate berri batera jaioko ote nintzen esperantzan egon naiz. Iñaki Iñurrieta

---

libyar ik **libiar**.

---

# lider *(orobat **leader** g.er.)* **1** *iz* burua, buruzagia.

Orduan konturatu ginen **lider** bat behar genuela. Jon Alonso

Jontxu beti izan zen **lider** bat gure lagunartean. Xabier Mendiguren Elizegi

Erakutsi ahal banizu, ikusarazi ahal banizu Alemania berri honen birsortzea, gure **Lider** Maitatuaren buruzagitzapean! Futbolfoboen talde txiki hark bere **lider** erabatekoa zeukan: hark idatzia zen araudia, hark agintzen zuen taldean. Ramon Etxezarreta

Nazismoaregandik ihesi, sionismoaren alde egin zuen eta juduen **lider** bihurtu zen. Berria - Harian

Negozioen munduko **liderrek** oso gogor egingo dute kontra. Iñaki Heras

Burua ateratzen zidan, eta gelako **liderra** zen. Joan Mari Irigoien

Karisma handiko **liderra** zen Arana Goiri. Koldo Zuazo

Bazuten **lider** moduko bat, Pepelu Retolaza, eskolapioetako apaizgai bilbotar bat. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (izenondoekin)

Khamenei dago haren alboan, aiatolah handiaren ondorengoa, **Lider** Gorena izendapena daukana. Jon Arretxe

Euskal politikan lehen lerroan gehien iraun duen **lider** politikoak azken eguna du gaur. Berria - Euskal Herria

Alejandro Toledo Perutar **lider** populistak. Iñaki Heras

Nik hainbeste miretsi izan dudan *Hertzainak*eko **lider** kantariak, Garik. Joan Mari Irigoien

José Bové-ren gisako **lider** mediatiko ospetsuekin. Iñaki Heras

Kazetariak erosiz, politikari ustelak bultzatuz, **lider** deserosoen hilketak aginduz. Alberto Ladron Arana

**Lider** beltzek martxak antolatu dituzte Brooklyngo zubian gaindi. Harkaitz Cano

Soldadu bihoztun eta **lider** inteligentearen ospea zuen. Edorta Jimenez

**3** (kiroletan) ik **sailkapenburu**.

Alaves, **liderraren** kontra. Miarritzek **lider** sendoa dela erakutsi du garaipenarekin. Berria - Kirola

Bode Miller, Munduko Kopako **lider** berria. Berria - Kirola

Maglia arrosa (**liderraren** maillota) lortu zuenean. Berria - Kirola

Zeelanda Berriko 'Konica Minolta' da **lider** Sydney-Hobart proban. **Lider** da Eibar Espainiako Bigarren A Mailan. Berria - Kirola

Werder Bremen **lider** da 9 puntuko aldeaz. Berria - Kirola

Popovitx da Giroko sailkapen nagusiko **lider** berria. Berria - Kirola

Hamaika jardunaldi egin ditu Real Madrilek **lider**. Berria - Kirola

Carlos Sainz eta Marc Coma **lider** jarri dira Dakarrean. Berria - Kirola

Joan Roma katalunianrrak eta Stefan Peterhansel frantziarrak jarraitzen dute **lider** sailkapen nagusian.

Hondarribia-Irunek mendean hartu du Yaya Maria (70-64), eta **lider** jarraituko du. Berria - Kirola

Igor Astarloa ermuarrak **lider** ekingo dio Mallorcako itzuliko azken etapari. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartuetan)

**Lider** aldaketa bikoitza izan da Dakarrean. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jarraitzen du lider** (13); **jarri da lider** (14); **jarri zen lider** (4); **kopako lider** (7); **lider aldaketa** (3); **lider bakarra** (3); **lider berria** (20); **lider berriak** (6); **lider bezala** (3); **lider gisa** (5); **lider izan** (14); **lider izateko** (6); **lider izaten** (3); **lider jarraitzeko** (3); **lider jarraitzen** (20); **lider jarraitzen du** (18); **lider jarri** (42); **lider jarri da** (33); **lider kataluniako rallyan** (3); **lider moduan** (3); **lider sailkapen nagusian** (3); **lider segitzen** (7); **lider segitzen du** (6); **lider sendo** (3); **lider sendoa** (10); **lider sendoa da** (4); **ligako lider** (6); **multzoko lider** (4); **munduko kopako lider** (7); **ontziak lider jarraitzen** (3); **sailkapeneko lider** (4); **segitzen du lider** (9); **taldeko lider** (3)

**atzo arte liderra** (3); **benetako liderra** (3); **emakumezkoen ligako liderra** (3); **espainiako ligako liderra** (6); **karisma handiko liderra** (3); **lehen liderra** (22); **liderra falta** (3); **liderra hartuko** (9); **liderra izan** (13); **liderra izango** (5); **liderra izateko** (3); **liderra suediako rallyan** (3); **liderra zen** (16); **ligako liderra** (15); **ligako liderra izango** (3); **mailako liderra** (3); **multzoko liderra** (7); **multzoko liderra da** (3); **probako liderra** (5); **rallyko lehen liderra** (4); **sailkapeneko liderra** (6); **sailkapeneko liderra da** (3); **taldeko liderra** (13); **txapelketako liderra** (3); **voeckler liderra** (5)

**konferentziako liderrak** (4); **liderrak dira** (7); **liderrak izan** (3); **ligako liderrak** (5)

**acbko liderraren** (6); **acbko liderraren aurka** (3); **ciudad real liderraren** (3); **liderraren aurka** (37); **liderraren aurka jokatu** (5); **liderraren kontra** (16); **liderraren kontra ariko** (3); **liderraren maillota** (4); **liderraren zelaian** (3); **ligako liderraren** (6); **ligako liderraren aurka** (4); **mailako liderraren** (3); **monako liderraren** (3)

**liderrari irabazi** (5)

---

# lideratu, lidera, lideratzen du *ad* buru gisa gidatu.

Herria **lideratzeko**, autogobernua garatzeko eta gatazkari konponbidea bilatzeko. Berria - Euskal Herria

PPren arabera, Ibarretxek **lideratu** beharko luke Konstituzio itunaren aldeko kanpaina. Berria - Euskal Herria

Nazio Eztabaidagunearen inguruko multzo politikoak ere (Batasunak eta **EAk** lideratuta) bere lehen mugimenduak egin ditu. Berria - Harian

Gasteizko 68 merkatarik Inalco sortu zuten 1998an, eta hirian tamaina ertaineko merkataritza gune bat sustatu, kudeatu eta **lideratu** nahi zuten.

Ondoren entzuleen faboritoak agertu ziren: The Charades madrildar taldea, Elektrobikinisen kantari ohiak **lideratuta**. Berria - Kultura

---

# lidergo *(429 agerraldi, 5 liburu eta 311 artikulutan)* **1** *iz* lider izatea. ik **lidertza**.

Kanpaina oso ona izan zen, buruzagi eta zuzendaritza berriaren neurrira egindakoa, eta **lidergo** berri hori finkatu eta erakundea zer den inguruko ideia bat emateko ere balio izan zuen. Berria - Harian

«Lizarberen **lidergo** ahula» kritikatu du UPNk. Berria - Euskal Herria

PSE-EEren **lidergorik** eza. Berria - Euskal Herria

**«Lidergo** indartsu baten ardatzaren inguruan» bildu beharko lukete botoa; EAJ-EA koalizioaren inguruan, alegia. Berria - Euskal Herria

**Lidergo** eta koordinazio sendoagoa ezinbestekoak direla ondorioztatu dute. Berria - Gaiak

Inork ez dio **lidergoa** kenduko. Joxerra Garzia

Estatu ereduaren eztabaidan konplexurik gabe hartu behar du parte Euskadik; are gehiago, eztabaidaren **lidergoa** hartu beharko luke EAEk. Berria - Euskal Herria

Informazio teknologien **lidergoa** duten Ameriketako Estatu Batuetan. Iñaki Heras

Sektore batzuetatik, PSOEtik batez ere, Ibarretxe gutxiesteko eta beste **lidergo** batzuk indartzeko joera sumatzen duzu? Berria - Euskal Herria

SCH Europako **lidergoaren** bila. Berria - Ekonomia

**Lidergoa** hartu zuen, eta **lidergoa** aitortu zioten. Berria - Harian

**2** (kiroletan) lehen postua.

Etapa irabazi eta **lidergoa** lortu. Berria - Kirola

Erik Zabelek **lidergoa** kendu dio Bettiniri. Berria - Kirola

Astillerok **lidergoa** galdu zuen, eta atzerapen handiarekin iritsi zen helmugara. Berria - Kirola

Bigarren Mailako **lidergoa** berreskuratzeko. Berria - Kirola

Ivan Santosek **lidergoari** eutsi dio, Guadalupeko kronoigoeraren ostean. Berria - Kirola

Jose Ivan Gutierrez espainiarra zen liderra erlojupekoa korritu baino lehenago, eta are gehiago sendotu zuen **lidergo** hori atzoko saioaren ondoren. Berria - Kirola

Kordobari 1-2 irabazi ondoren **lidergoan** da Alaves Cadizekin berdinduta. Berria - Kirola

**Lidergoan** dagoen taldearen jarrera. Berria - Kirola

Bettini, UCIko sailkapeneko **lidergoan**. Berria - Kirola

**3** (hitz elkartuetan)

Nolabaiteko **lidergo** nahiari erantzuteaz gain, zer eman dezake kontseilu politiko honek? Berria - Euskal Herria

Hillsborougheko negoziazioak alderdietarako **lidergo** eta heldutasun proba dira. Berria - Mundua

ELA eta LAB sindikatuek agiria plazaratu zuten, Osalaneko zuzendaritzari **lidergo** falta egozteko. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

dibisioko lidergoa (3); etapa eta lidergoa (10); garaipena eta lidergoa (4); lidergoa berreskuratu (6); lidergoa berreskuratzeko (4); lidergoa ere eskuratu (4); lidergoa ere lortu (10); lidergoa eskuratu (5); lidergoa galdu (8); lidergoa hartu (9); lidergoa hartzeko (4); lidergoa kendu (4); lidergoa kendu dio (4); lidergoa lortu (14); lidergoa lortzeko (4); lidergoa lortzen (3); lidergoa sendotu (8); lidergoa sendotzeko (5); lidergoa zuen (3); ligako lidergoa (6); lortu du lidergoa (4); lortu zuen lidergoa (4); multzoko lidergoa (8); sailkapeneko lidergoa (3); txapelketako lidergoa (3)

jarraitzen du lidergoan (7); segitzen du lidergoan (6)

eutsi zion lidergoari (11); lidergoari eustea (4); lidergoari eusteko (5); lidergoari eusten (5); lidergoari eusten saiatuko (3); lidergoari eutsi (27); lidergoari eutsi zion (8); sailkapeneko lidergoari (3)

---

# lidertza *(42 agerraldi 37 artikulutan)* **1** *iz* lidergoa.

Europako **lidertzari** eutsi eta Ipar Amerikan eta Asian hazten jarraitu nahi du hurrengo urteotan. Berria - Ekonomia

**2** (kiroletan) lehen postua.

Partida eta **lidertza** galdu ditu. Berria - Kirola

Tauk ACBko **lidertza** utzi du, Manresan galdu ondoren (104-92). Berria - Kirola

Moreauk etapa irabazi eta **lidertza** lortu du, Iker Flores hirugarrena da. Berria - Kirola

Vanthourenhout **lidertzan**. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

lidertza galdu (3)

sailkapen nagusiko lidertzan (3)

---

# lidiar *izlag/iz* Asia Txikiko eskualde zen Lidiakoa; Lidiako herritarra.

**Lidiar** monarkiak greziar hiri-estatu guztiak, Mileto izan ezik, hartu zituenean Anatoliaren mendebaldeko kostan. Iñaki Mendiguren

**Lidiar** erregeetako ospetsuena. Iñaki Mendiguren

Ohiko **lidiar** subiranotasunaren ordez pertsiar subiranotasun arrotza jarri zuena. Iñaki Mendiguren

Traziarrek, szitiarrek, pertsiarrek eta **lidiarrek** eta ia barbaro guztiek. Patziku Perurena

**Lidiarren** agindupeko lurretan. Iñaki Mendiguren

---

# lied **1** alemaniar abestia. ik **lieder**.

Richard Straussen baltseak eta Gustav Mahlerren **Lied**-a ditu oinarrian. Berria - Kultura

**2** *pl*

Ez dakit alemanez, eta Schumann-en **lied** melankoliatsuenen bertsio frantsesak kantatzen nituen. Anjel Lertxundi

---

# lieder (alemanezko **lied**-en plurala) **1** alemaniar abestia. ik **lied**.

Schumannen **lieder** bat, alegia, kanta bat jo zuen, Austria eta Alemanian ez ezik, mundu guztian ere oso ezaguna zelako. Felipe Juaristi

Sopranoak, eskupeko moduan, Wagnerren Trauber izeneko **liederra** eskaini zigun. Berria - Kultura

**2** *pl*

Hermannek ahots lodia zuen; etxeko irratian aitak entzuten zituen **liederren** baritonoak gogorarazten zizkidan mirari hark. Anjel Lertxundi

---

# lientzo *(orobat **lienzo**)* **1** *iz* ehuna, margolana.

Margotzen zituen **lientzoetan** apuntatzen zituen bere neskalagunen telefono zenbakiak ere, haiekin haserretu ahala pintzelkada batez ezabatzen zituenak. Harkaitz Cano

Velazquezen begi ironikoaren arabera -**lientzoaren** eskuinaldean pintatzailea bera ageri baita- Spinolaren ezker eskuak pauma lumadun kapelu beltzari eusten dio. Felipe Juaristi

**2** pareta zati jarraitua.

Hormen **lientzoen** gainetik pasatuz abandonatua zirudien etxe batera iritsi nintzen. Koldo Izagirre

---

lienzo ik **lientzo**.

---

liferentzia ik **diferentzia**.

---

# liga **1** *iz* pertsona, gizarte talde edo estatuen arteko itun edo batasuna, helburu komun bat lortzeko egiten dena.

Danimarkako erregearen mehatxuei aurre egiteko, itun bat osatu zuten (Hansako **Liga**), eta hark antolatzen zuen merkatari-konboien babes militarra. Koro Navarro

Autobide luze-luzeak hara iristeko, eta lehenago merkatarien antzinako **liga** hartako antzinako hiri haietako bat, harresia zuena eta bi dorretzar eder ere bai ate baten alde banatan. Fernando Rey

Eskuinburuko hautagaiak badira denetan, ezkermuturrekoak hiru bakarrik, hiruak Baionan, horietarik biga komunixten **Liga** delakoaren kondu. Herria

Giza Eskubideen Euskal Herriko **Liga**. Berria - Euskal Herria

Herrien Eskubideen eta Askapenaren Aldeko Nazioarteko **Liga** (LIDLIP) gobernuz kanpoko erakundeak. Berria - Euskal Herria

Baina Bouvilleko diputatuak ez zuen Abertzaleen **Ligako** lehendakariaren axolagabekeria.Indar Ilunen Aurkako Defentsarako **Ligako** Ohorezko kidea. Monika Etxebarria

**2** (izenondoekin)

**Liga** hanseatikoaren babespean. Isabel Arrigain

Papistek, **Liga** Katolikoa delakoan bildurik, bazter guztietan jazartzen zieten fededunei. Aingeru Epaltza

Itxuraz, gauza segurua da hiltzailea *ligard* bat dela, **Liga** Katolikoko gerlari ohia, beraz. Aingeru Epaltza

Foru **Liga** Autonomiazalearen presidentea, boto integristek eta karlistek aukeratua. Askoren artean

Joan den astean utzi ditu bai kontseiluko kargua bai eta politikan **Liga** komunista iraultzaileko karta. Herria

**Liga** Arabiarreko herriak ardatz Frankfurteko Azokan. Berria - Kultura

**3** ligeta.

Beste eskuarekin igurtzialdi batean galtzerdiek **liga** izaten duten parereraino laztandu bat eman nion. Xabier Olarra

Banderez apaindutako harmaila batetik patila zuridun gizon bat, alkandoraren mahuketan **liga** gorri txikiak zeuzkana, hitzaldi bat ematen ari zen. Lopez de Arana

**4** talde bakoitzak gainerako guztien aurka jokatzen duen txapelketa.

**Liga** eta Kopa bakarrik ez, Athleticek UEFA ere jokatu beharko du aurten. Berria - Kirola

**Ligako** partida jokatu ondoren. Joan Mari Irigoien

Barça **ligan** zazpigarrena zegoela. Joan Mari Irigoien

Erregularrenak izan gara, eta polita litzateke **Liga** irabaztea. Berria - Kirola

Frantziako **Liga** baino askoz ere gogorragoa iruditu al zaizu? Berria - Kirola

Betis lehen aldiz Txapeldunen **Liga** jokatzeko sailkatu da eta Kopako bere hirugarren finala jokatuko du. Berria - Harian

Lauko Finala eta ACB **Liga** gelditzen dira oraindik. Berria - Harian

Sei denboraldi Espainiako **ligako** bigarren mailan egin ostean. Iñigo Aranbarri

Pro-Tour **Liga** Euskal Herrira itzuli da. Berria - Harian

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Liga** jardunaldietako partidekin, lehia bereziak izaten dira eta inoiz ez dago faboritorik. Berria - Harian

**Liga** hasiera «zaila» izango du Athleticek. Berria - Kirola

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Proposamen berria egin du futbol **liga** profesionalak. Berria - Kirola

Trainerilla **ligetako** azken bi jardunaldiak aste bukaeran jokatuko dira. Berria - Kirola

Iparraldeko pilota **liga**, Euskal Herriko Pilota Konfederazioan sartu da. Herria

Nafarroako Bertso **Liga** gaur, Arbizu, Betelu, Etxarri-Aranatz eta Arruitzen. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**acb liga** (41); **alemaniako liga** (16); **asobal liga** (57); **asobal liga irabazteko** (8); **astillerorik gabeko liga** (4); **bertso liga** (7); **bi liga irabazi** (5); **bigarren mailako liga** (5); **errusiako liga** (5); **espainiako futbol liga** (7); **espainiako liga** (91); **espainiako liga irabazi** (5); **europako liga** (7); **euskal herriko liga** (4); **euskal liga** (14); **federazio liga** (21); **frantziako liga** (29); **futbol liga** (26); **futbol liga profesionalak** (11); **futbol liga profesionaleko** (4); **hansako liga** (4); **hasiko da liga** (5); **ingalaterrako liga** (21); **irabazi du liga** (5); **italiako liga** (14); **izarren liga** (5); **kopa eta liga** (5); **kosovoko liga** (9)

**liga amaiera** (18); **liga amaieran** (7); **liga amaierarako** (8); **liga amaitu** (29); **liga amaitu arte** (4); **liga amaitu bitartean** (14); **liga amaitzeko** (59); **liga arabiarra** (8); **liga arabiarrak** (30); **liga arabiarraren** (13); **liga arabiarreko** (22); **liga arabiarreko idazkari** (10); **liga bukaera** (7); **liga bukaeran** (12); **liga bukatu** (10); **liga bukatu arte** (6); **liga bukatzeko** (28); **liga bukatzen** (4); **liga erdia** (7); **liga erregularra** (10); **liga eskuratzeko** (4); **liga eta kopa** (21); **liga final zortzirenak** (4); **liga hasi** (61); **liga hasi aurretik** (10); **liga hasiera** (25); **liga hasierako** (11); **liga hasieran** (27); **liga hasiz** (11); **liga hastear** (4); **liga hasteko** (8); **liga irabaz** (8); **liga irabaz dezake** (7); **liga irabazi** (79); **liga irabaziko** (8); **liga irabazita** (7); **liga irabaztea** (23); **liga irabazteko** (77); **liga irabazteko aukera** (7); **liga irabazteko hautagai** (7); **liga irabazteko lehian** (7); **liga irabazten** (4); **liga jokatu** (20); **liga jokatuko** (8); **liga jokatzea** (9); **liga jokatzeko** (29); **liga jokatzeko aukera** (4); **liga jokatzeko sailkatu** (4); **liga jokatzeko txartela** (6); **liga jokatzen** (6); **liga komunista** (5); **liga nagusiko** (4); **liga profesionala** (5); **liga profesionalak** (13); **liga profesionalean** (6); **liga profesionaleko** (8); **liga sortu** (6); **liga txapelketa** (13); **liga txapelketan** (5); **liga xapelgoa** (5)

**magnus liga** (10); **maila nagusiko liga** (4); **munduko liga** (5); **nbako liga** (5); **nbako liga erregularra** (4); **pilota liga** (6); **portugalgo liga** (6); **pro tour liga** (32); **sailkapen liga** (7); **saskibaloi liga** (4); **tke liga** (34); **turkiako liga** (4); **txapeldunen liga** (236); **txapeldunen liga irabazi** (15); **txapeldunen liga irabazteko** (7); **txapeldunen liga irabazten** (4); **txapeldunen liga jokatu** (16); **txapeldunen liga jokatuko** (4); **txapeldunen liga jokatzea** (9); **txapeldunen liga jokatzeko** (26); **txapeldunen liga jokatzen** (5)

**acb ligak** (4); **asobal ligak** (8); **du ligak** (5); **eskubideen ligak** (9); **espainiako ligak** (9); **euskal ligak** (4); **federazio ligak** (6); **giza eskubideen ligak** (8); **ingalaterrako ligak** (4); **pilota enpresen ligak** (12); **pro tour ligak** (13); **tke ligak** (20); **txapeldunen ligak** (17)

**abf ligako** (25); **acb ligako** (83); **asobal ligako** (80); **asobal ligako sailkapenean** (6); **bertso ligako** (4); **emakumezkoen ligako** (15); **espainiako ligako** (192); **espainiako ligako lehiaketa** (5); **espainiako ligako liderra** (6); **euskal ligako** (39); **euskal ligako xapeldun** (4); **federazio ligako** (28); **frantziako ligako** (25); **ingalaterrako ligako** (11); **italiako ligako** (6); **jokatu zuten ligako** (4); **leb ligako** (19)

**ligako arauen** (4); **ligako azken jardunaldia** (10); **ligako azken jardunaldian** (9); **ligako azken partida** (6); **ligako azken partidan** (6); **ligako azken txanpara** (4); **ligako bi partida** (5); **ligako bigarren itzulia** (7); **ligako bigarren partida** (6); **ligako egutegia** (7); **ligako euskal taldeek** (5); **ligako final laurdenetako** (14); **ligako final laurdenetan** (8); **ligako final zortzirenak** (8); **ligako final zortzirenetako** (21); **ligako final zortzirenetan** (14); **ligako finala** (61); **ligako finala galdu** (5); **ligako finala jokatuko** (4); **ligako finalak** (12); **ligako finalean** (23); **ligako finaleko** (9); **ligako finalerako** (6); **ligako finalerdiak** (12); **ligako finalerdietako** (8); **ligako finalerdietan** (14); **ligako finalerdietara** (8); **ligako finalerdietarako** (4); **ligako goleatzaile** (7); **ligako goleatzaile nagusia** (4); **ligako golegile** (11); **ligako golegile onena** (5); **ligako hirugarren jardunaldian** (4); **ligako jardunaldi** (4); **ligako jokalari** (15); **ligako kanporaketa** (4); **ligako kide** (9); **ligako kopa** (8); **ligako lasterketa** (6); **ligako laugarren jardunaldia** (4); **ligako laugarren partida** (5); **ligako lehen garaipena** (8); **ligako lehen itzulia** (6); **ligako lehen jardunaldian** (9); **ligako lehen maila** (7); **ligako lehen mailako** (20); **ligako lehen mailan** (11); **ligako lehen mailara** (4); **ligako lehen partida** (15); **ligako lehen partidan** (5); **ligako lehiaketa** (6); **ligako lehiaketa batzordeak** (4); **ligako lider** (6); **ligako lidergoa** (6); **ligako liderra** (15); **ligako liderrak** (5); **ligako liderraren** (6); **ligako liderraren aurka** (4); **ligako ligaxkako** (4); **ligako ligaxkan** (5); **ligako maila** (4); **ligako onena** (5); **ligako onenetakoa** (4); **ligako partida** (53); **ligako partida bat** (6); **ligako partida jokatu** (7); **ligako partida jokatuko** (4); **ligako partidak** (10); **ligako partidan** (7); **ligako partidarik** (6); **ligako postuetan** (10); **ligako presidente** (4); **ligako proba** (6); **ligako sailkapen** (8); **ligako sailkapena** (4); **ligako sailkapenean** (15); **ligako sailkapeneko** (10); **ligako talde** (43); **ligako talde onena** (4); **ligako taldeek** (7); **ligako taldeen** (9); **ligako talderik** (28); **ligako talderik onena** (4); **ligako txapela** (5); **ligako txapeldun** (6); **ligako txapelduna** (10); **ligako txapeldunak** (7); **ligako xapeldun** (8); **ligako xapeldunak** (5); **ligako xapelgoan** (4)

**magnus ligako** (37); **portugalgo ligako** (4); **pro tour ligako** (70); **tke ligako** (34); **txapeldunen ligako** (355); **txapeldunen ligako finala** (32); **txapeldunen ligako finalean** (18); **txapeldunen ligako finaleko** (7); **txapeldunen ligako finalerako** (4); **txapeldunen ligako finalerdiak** (4); **txapeldunen ligako finalerdietako** (4); **txapeldunen ligako finalerdietan** (11); **txapeldunen ligako finalerdietara** (7); **txapeldunen ligako joaneko** (5); **txapeldunen ligako kanporaketa** (4); **txapeldunen ligako lehen** (16); **txapeldunen ligako ligaxkako** (4); **txapeldunen ligako ligaxkan** (5); **txapeldunen ligako partida** (11); **txapeldunen ligako partidak** (4); **txapeldunen ligako postuetan** (10); **urrezko ligako** (6)

**txapeldunen ligakoa** (5)

**pro tour ligakoak** (5)

**abf ligan** (18); **acb ligan** (92); **asobal ligan** (60); **bertso ligan** (10); **espainiako ligan** (163); **espainiako ligan jokatu** (7); **euskal ligan** (20); **federazio ligan** (31); **federazio ligan aritu** (5); **frantziako ligan** (31); **ingalaterrako ligan** (34); **italiako ligan** (10); **izarren ligan** (15); **ligan ari** (19); **ligan ari diren** (7); **ligan ariko** (4); **ligan aritu** (12); **ligan arituko** (5); **ligan aritzea** (5); **ligan aritzeko** (7); **ligan diharduten** (5); **ligan eta kopan** (4); **ligan irabazi** (4); **ligan jarraitzeko** (6); **ligan jarri** (4); **ligan jokatu** (28); **ligan jokatuko** (4); **ligan jokatutako** (5); **ligan jokatzea** (6); **ligan jokatzeko** (11); **ligan jokatzen** (14); **ligan sartu** (9); **ligan sartzeko** (4); **magnus ligan** (14); **maila nagusiko ligan** (4); **pro tour ligan** (19); **sailkapen ligan** (4); **tke ligan** (26); **turkiako ligan** (5); **txapeldunen ligan** (184); **txapeldunen ligan jokatu** (4)

**acb ligara** (12); **asobal ligara** (9); **asobal ligara itzuliko** (4); **espainiako ligara** (8); **izarren ligara** (4); **ligara itzuliko** (9); **txapeldunen ligara** (17)

**izarren ligarako** (4); **ligarako postuetan** (7); **ligarako sailkapena** (9); **ligarako sailkatu** (9); **ligarako sailkatzea** (10); **ligarako sailkatzeko** (8); **ligarako txartela** (28); **txapeldunen ligarako** (92); **txapeldunen ligarako postuetan** (7); **txapeldunen ligarako sailkapena** (9); **txapeldunen ligarako sailkatu** (9); **txapeldunen ligarako sailkatzea** (9); **txapeldunen ligarako sailkatzeko** (8); **txapeldunen ligarako txartela** (24)

**bertso ligaren** (5); **espainiako ligaren** (6); **euskal herriko ligaren** (4); **euskal ligaren** (7); **pro tour ligaren** (4); **tke ligaren** (9); **txapeldunen ligaren** (15)

**ligatik at** (16); **ligatik at geratu** (5); **ligatik kanpo** (32); **ligatik kanpo geratu** (4); **ligatik kanpo utzi** (5); **txapeldunen ligatik at** (11); **txapeldunen ligatik kanpo** (10)

---

# ligadura *iz* medikuntzan, lotura.

Nire lankide honek hiru haur aski gazterik izan arren, senarrarekin gehiago ez ekartzea erabakia izan arren, ez zuen tronpa **ligadurarik** egin nahi izan. Patxi Zubizarreta

---

# ligako *iz* ligeta-eustekoa. ik **ligero**.

Berrikuntza zen ez zituela **ligako** beltzak, arrosak baizik. Pello Lizarralde

Saiatzen nintzen **ligako** haiek haztatzen eta usaintzen. Pello Lizarralde

Ea **ligakoetan** ba ote zen gordeta **ligako** horiek eramaten zituzten emakume aberatsen sekreturik. Pello Lizarralde

Ganbarara eramaten nituen **ligako** lapurtu haiek horrelako jantziak eramaten zituzten emakume aberatsen magiaren sekretua aurkitzeko. Pello Lizarralde

---

**ligamentu** *iz* anatomian, lotailua.

"Orkatila bihurrituko zitzaion", " **ligamentuak** izan litezke". Xabier Mendiguren Elizegi

---

**ligatu**, liga, ligatzen **1** du *ad adkor* mutiletan edo neskatan egin. ik **dragatu**[2].

Argi baitago emakumearekin **ligatu** nahian dabilela mutila. Iban Zaldua

Antza, bezperan ere harekin **ligatzen** saiatu ei zen, baina, ezin izan zuela ikusirik, bart eraso bortitzagoa jo du, zuzenean haren ohean sartuz. Patxi Zubizarreta

Behin neska bat **ligatzen** hasi nintzen eta aurrean, telebistan, Chavez hizketan. Pako Aristi

Iruditzen zaidak erromantizismoa erabili duala ni **ligatzeko**, larrutan egiteko, eta behin hori lortutakoan kito, goazen zuzenean zast-zast, txortan egitera, ezta? Pako Aristi

Ez zuen inoiz onartuko **ligatzera** irteten zenik, "buelta bat ematera" baizik. Jon Arretxe

Nola demontre **ligatu** behar nuen nik horrela? Antton Olano

Ez zutela batere **ligatzen**. Jon Arretxe

Tope **ligatu** nian, Marais aldean bereziki. Iban Zaldua

Gauerdirako **ligatzen** ez bada, hobe erretiratzea. Lourdes Oñederra

**2** lotu.

Giputz estiloa jarraituagoa, **ligatuagoa** da. Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **sailkapen nagusiko lidertzan** (3)

---

**ligatxo** *(4 agerraldi 3 artikulutan)* *iz* ligaxka.

Athleticek UEFAko lehen kanporaketa gainditu eta txapelketa **horretako** ligatxoa jokatuko du. Berria - Kirola

Europako hamasei talde onenak biltzen dituen **ligatxo** batean aurkari errazak izatea ezinezkoa da. Berria - Kirola

---

**ligaxka** *(726 agerraldi, liburu 1 eta 406 artikulutan)* **1** *iz* talde gutxik parte hartzen duten kirol liga.

Sailkatze fasea eta finalerdietako **ligaxka. Berria - Kirola**

Xalak eta Irujok abiatuko dute gaur finalerdietako **ligaxka**. Berria - Kirola

Multzo bakoitzak bere **ligaxka** jokatuko du eta lehen bi sailkatuak finalerdietara sartuko dira. Berria - Kirola

Gainerakoetan, berriz (480 eta 520 kilo), hiru jardunaldiko **ligaxka** jokatuko dute, eta lehenak eramango du txapela. Berria - Kirola

**Ligaxka** ez da, ordea, Txapeldunen Ligakoa bezalakoa izango. Berria - Kirola

Barriolak eta Olaizola II.ak abiatu behar zuten **ligaxka**, eta Nagorek eta Xalak jokatu behar zuten beste partida. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ligaxka** sistema ezarri zenetik, lehen aldiz arituko dira lau aurrelari eskuz banakako finalerdietan. Berria - Kirola

**Ligaxka** eran, bertsolariak irratian lehiatu ziren 1962ko apiril-maiatz bitartean, eta entzuleek igorritako botoek erabaki zuten Txomin Garmendia izatea irabazle. Iñigo Aranbarri

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sailkapen **ligaxka** jokatuko dute, bi jardunaldira, eta sei onenek finala jokatuko dute. Berria - Kirola

Binakako Txapelketako sailkatze **ligaxka**. Berria - Kirola

Bigarren porrota jasotzea garesti ordaindu dezakete **ligaxka** bukaeran. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aizkolarien lehiaketako ligaxka** (3); **azken ligaxka** (10); **bigarren ligaxka** (6); **buruz buruko ligaxka** (4); **finalerdietako ligaxka** (18); **igotzeko ligaxka** (3); **jardunaldiko ligaxka jokatuko** (3); **kopako ligaxka** (3); **lehen ligaxka** (19); **lehiaketako ligaxka** (3); **ligaxka amaitu** (5); **ligaxka amaituta** (6); **ligaxka hasi** (3); **ligaxka jarri dute** (3); **ligaxka jokatu** (9); **ligaxka jokatuko** (26); **ligaxka jokatuko dute** (19); **ligaxka jokatzeari** (3); **ligaxka jokatzeko** (4); **ligaxka moduan** (3); **ligaxka osoan** (3); **ligaxka sistema** (4); **sailkapen ligaxka** (13); **sailkatze ligaxka** (3); **sariko ligaxka** (3); **txapelketako bigarren ligaxka** (3); **uefa kopako ligaxka** (3)
>
> **azken ligaxkako** (4); **banakako finalerdietako ligaxkako** (3); **finalerdietako ligaxkako** (27); **finalerdietako ligaxkako partida** (3); **finalerdiko ligaxkako** (5); **lehen ligaxkako** (3); **ligaxkako aurreneko partida** (3); **ligaxkako azken jardunaldia** (5); **ligaxkako azken partida** (11); **ligaxkako bigarren jardunaldiko** (7); **ligaxkako bigarren partida** (5); **ligaxkako bigarren partidan** (4); **ligaxkako hiru partidak** (3); **ligaxkako hirugarren** (7); **ligaxkako lehen partida** (5); **ligaxkako lehen puntua** (3); **ligaxkako partida** (13); **ligaxkako partidan** (4); **ligaxkako seigarren garaipena** (3); **sailkapen ligaxkako** (3); **sailkatze ligaxkako** (7); **txapeldunen ligako ligaxkako** (4); **txapelketako finalerdietako ligaxkako** (4); **txapelketako finalerdiko ligaxkako** (3); **txapelketako ligaxkako** (7); **txapelketako sailkatze ligaxkako** (4)
>
> **azken ligaxkan** (7); **bigarren ligaxkan** (3); **finalerdietako ligaxkan** (28); **finalerdietako ligaxkan sartu** (4); **finalerdiko ligaxkan** (4); **lehen ligaxkan** (12); **ligaxkan ariko** (3); **ligaxkan arituko** (4); **ligaxkan aritzeko** (3); **ligaxkan elkarren aurka** (3); **ligaxkan izan** (3); **ligaxkan jokatu** (4); **ligaxkan jokatutako** (3); **ligaxkan sartu** (10); **ligaxkan sartzeko** (4); **sailkapen ligaxkan** (10); **sailkatze ligaxkan** (4); **txapeldunen ligako ligaxkan** (5); **uefako ligaxkan** (4)
>
> **aizkolarien lehiaketako ligaxkara** (4); **ligaxkara sartzea** (5); **ligaxkara sartzeko** (3); **onenen ligaxkara** (3)
>
> **azken ligaxkarako txartela** (3); **finalerdietako ligaxkarako** (5); **ligaxkarako txartela** (7)
>
> **ligaxkaren amaieran** (3)
>
> **ekingo dio ligaxkari** (3)

---

**lige** **1** *iz adkor* ligatzea.

Horri harremana deitu ohi zaio, edo **ligea**, **ligeak** konpromisorik gabeak eta ondoriorik gabeak izaten dira, gaur den egunean gehien aurkitzen dena da. Jon Alonso

Ustekabeko **lige** baten aukera. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala ere, gau bateko hurbilketa hura, **lige** arrunt bat, aski izan zen neskarengan zalantza baten bidea irekitzeko. Pako Aristi

**2** ligatu den pertsona.

Hirurogeita hamabost urte zituen zure lehenengo **ligeak**? Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (hitz elkartuetan)

**Lige** saioak, kalabazak, mozkorrak, egindako trauskilkeriak. Jon Arretxe

---

**ligero** *iz* ligeta-euskekoa. ik **ligako**.

Emakume batzuek aski dute **ligero** bat jaztea Mata Hari direla sinesteko. Ramon Saizarbitoria

Bere **ligero** gorrietan eta tanga beltzean erreparatu nuen, hura zen nik neureganatu nahi nuen altxorraren zaindaria. Juan Martin Elexpuru

Belaun bat jaso eta **ligeroko** tiranteak askatu zituen eta galtzerdi beltza kenduz joan zen. Juan Martin Elexpuru

**ligeta** *iz* galtzerdiari eusteko zinta edo xingola elastikoa. ik **liga**.

Hainbat jarreratan ageri zen, biluzik eta kitzikatzaile: ohe-atorra garden batekin apaindurik irudi batean, **ligeta-eustekoa** eta galtzerdi beltzak jantzita beste batean, belaunetara arteko bota bernizatuekin hurrengoan. Oskar Arana

---

**ligoi** *iz adkor* mutiletan edo nesketan arrakasta handia duena edo asko saiatzen dena.

Beharbada, gaur **"ligoi"** esaten diogunari, behiala "otatxori" esanen baitzioten. Patziku Perurena

---

**ligor** *iz*

Mundua murriztuz joan da zazpi marra arteko lauza estuak bihurtu arte, izar akitupean distirarik agertzen ez duten zuntz zeihar **ligorrak**. Sonia Gonzalez

---

**ligoteo** *iz adkor* ligatzea.

Laburbiltzeko: **ligoteo** tipiko bateko baldintza guztiak. Unai Iturriaga

---

**ligur** *iz* K. a.-ko VI. mendean Galiako hego-sortaldean eta Italiako ipar-sartaldean kokatu zen herriko kidea.

Teoria hau, italieraren aldaeren gainean ere aplikatu da, eta horren arabera, **ligur**, etrusko eta abarren eraginez gertatuturiko aldaerak daude soil-soilik. Isabel Arrigain

---

**liho** *(orobat **lino** g.er.)* **1** *iz* belar landare lore-horia, hazi oliodunak ematen dituena, ehungintzan erabiltzen diren zurtoineko izpiengatik lantzen dena batez ere *(Linum usitatissimum)*.

Ehuna purpura gorriz eta morez nahiz gorriminez tindatzen, bai eta **lihoa** ehotzen ere. Elizen arteko biblia

Ez duzue artilea eta **lihoa** nahastuz ehunduriko arroparik jantziko. Elizen arteko biblia

Tunikak egin zituzten **liho** finez ehunduak. Elizen arteko biblia

Lepotik zintzilika eraman **linozko** hari batekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Lihozko** soinekoz jantzia. Elizen arteko biblia

**Liho** finezko arropak eman zizkion eta urrezko lepokoa ipini zion lepoan. Jose Antonio Mujika

Kortina ere egin zuen, **lihozkoa**. Elizen arteko biblia

Baina nik **lihoa** landatuko nuke, eta **lihoak** bakarrik bost mila errublo utziko lizkidake. Jose Morales

Libra bat **lino** txarrantxatzen ari duk orain bertan. Patxi Ezkiaga

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haizeak astinduriko **liho**-landarearen dardararekin hitz egin zuen. Anjel Lertxundi

Baserritarrek abeltzaintza eta **liho**-lana zituzten eginbehar printzipalak. Pello Zabala

Indietako Javatik ekarritako **liho** albainuz ehundua zen, arrebak opari emana. Felipe Juaristi

**Liho**-olio egosian sarturiko tipularen historia kontatzeari ekin nion. Juan Garzia

Etxe gainera eramanak eta bertan metaturik zituen **liho**-sorta artean ezkutatuak zituen gizonak. Elizen arteko biblia

**3** ***liho-hari*** *(orobat **lihohari** g.er.)* lihozko haria.

**Lihohariz** josia, artelanez egina. Elizen arteko biblia

**Liho-hari** bihurrituzko galtzak. Elizen arteko biblia

Suak erretako **liho**-hariak bezalako bihurtu ziren Sansomi besoak lotzen zizkioten sokak. Elizen arteko biblia

Oihalak **liho**-hari bihurrituzkoak izango dira, eta oinak brontzezkoak. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**liho eta purpurazko** (3); **liho fina** (7); **liho finez** (5); **liho finezko** (3); **liho hari** (21); **liho hari bihurritua** (3); **liho hari bihurrituz** (13); **liho hari bihurrituzko** (3); **liho olio** (3); **liho zurizko** (3)

**artilea eta lihoa** (4)

**lihoaren penak** (4)

**lihoaren penak** (4)

**lihozko galtzak** (6); **lihozko tunika** (3)

---

**lihogin** *iz* lihoa lantzen duen pertsona.

**Lihoginak** etsita geldituko dira, ilazkin eta ehuleak zurbil. Elizen arteko biblia

---

**lihogintza** *iz* lihozko ehungintza.

Ez dago esan beharrik, gure lurralde honetan, egundoko garrantzia izan zuela **lihogintzak**; artileaz gainera, lihoa baitzuten janzteko soinekotarako eta etxeko ehungintzan erabiliko zutena. Pello Zabala

---

lihohari ik **liho 3**.

---

lija ik **lixa**.

---

lijatu ik **lixatu**[1].

---

**lijer** *(orobat* ***lijero****)* **1** *izond* arina.

Baratx baina arin ekin zion irakurketari, ibiltzerakoan ere erakusten zuen liraintasuna oroitarazi zidan hots-erritmo **lijer** halako batez. Anjel Lertxundi

· Soprano liriko **lijeroaren** tinbrea dauka. Berria - Kultura

**2** (adizlagun gisa)

"Hik hirea; eta hi, **lijero** barrura," esan eta, barrura egin zuen Iñakik. Pablo Sastre

-Zentzuzkoa da, jakina -esan zuen Norak, arrazoiak argi ez zezakeen eremu batean ibiltzeko aukera hura olatuetako bitsa bezain **lijer** desegin zitzaiola etsirik. Anjel Lertxundi

---

lijero ik **lijer**.

---

lijerotu ik **lijertu**.

---

**lijertu,** lijer(tu), lijertzen du *ad* arindu.

Basilea ezagutzeko gogoa baino, nire buru astundua **lijertzeko** premia nuen, eta loak ez bezala lagunduko zidan Basileako kaleetan usainez usain eta hotsez hots galtzeak. Anjel Lertxundi

Gero basoerdia eraman du ahora; nik uste, txarrastada bat edateko baino mingaina eta ahozerua, eztarriarekin batean, bustitzeko eta mugiarazteko; **"lijertzeko"**, esango luke berak. Pako Aristi

· Landarea eta bizidun gizakia, barru-garbitzen, zurruntasuna **lijerotzen**, zalutzen eta malgutzen, izerdia medio lixiba egiten ari dira. Pello Zabala

---

**lika** **1** *iz* txoriak harrapatzeko gai likatsua.

- **Likarekin** ehizatzen irakatsi behar didak. Jon Maia

Demagun, txoriak ehizatzeko kanabera eta **likazko** tranpez deus ez dakien norbaitek topo egiten duela mendian arma horiez hornituta dabilen ehiztariarekin. Imanol Unzurrunzaga

**2** gai itsaskorra.

Metroz ibiltzeak ezartzen duen **lika** izaten da hori. Hasier Etxeberria

Ahurrari orduan **lika** ikusezin baten gisako izerdia ateratzen zaio, aise antzematen ahal zaiona urre edo zilarrezko txanpon bat ezarriaz. Xabier Olarra

Ile kiribila **likaz** lisatzen saiatzen zen. Unai Iturriaga

1976ko udaberri hura, aldiz, **lika** bezala daramat erraietan. Iñigo Aranbarri

**3** (erkaketetan)

Baina preso dago dagoeneko gabiraiaren erretinan, erretina horri **likari** baino atxikiago, zeren gabiraiak ez baitio gehiago jaregingo. Josu Zabaleta

**4** (izenondo gisa)

Oskolik gabeko barraskilo baten antzerako zerbait baizik ez naiz, pentsatzen zuen, **lika**, beratz, hauskor, zaurigarri. Jon Alonso

Behin, uda egun sargori eta **lika** batez, Sintrako jauregian biaotan zegoelarik, lorategi bat ikusi zuen amets artean, zuhaitz eta lorez betea. Felipe Juaristi

Gehiago edo gutxiago eskukaturiko gorotz-pikorra, mila bider oratu den ore **lika**. Jon Alonso

Harkaitzetako zuloak atzapar iletsuko itsas armiarmaz, malba-koloreko itsas izar **likaz** likaz eta sabelalde gorriko karramarroz betetzen ziren. Xabier Olarra

**5** (hitz elkartuetan)

Oskolez, zuringo eta gorringo **likaz** erabat zikindurik. Josetxo Azkona

**6** ***lika egin***

Izerditan blai zegoen Cesar, bizkarra erabat **lika** eginda, eta errua, pentsatu zuen, bere jakarena zen. Harkaitz Cano

---

**likadun** *izlag* lika duena.

Eta hori esan bezain laster, bera altxatuko zen bizkor-bizkor, **likadun** makilaraino joateko. Jon Maia

---

**likantropia** **1** *iz* gizakia otso miragarriki bihurtzea.

**Likantropia**, sineskizun ez ezik, metafora ere bada. Martin Anso

**2** buru nahasmendua, gizaki bat otsoa dela uste izatera daramana.

**Likantropia** zooantropismo mota bat da. Martin Anso

---

**likantropo** *iz* likantropiak jotako pertsona.

**Likantropoek**, eta batik bat gizotsoek, beren atzapar-markak antzina-antzinatik utzi dituzte herri askotako tradizioan. Martin Anso

Profanatutako hilobiak eta **likantropoak**. Berria - Kultura

---

**likatasun** *iz* lika denaren nolakotasuna.

Nanosilize hauek **likatasun** oso baxua dute, beste nanopartikulekin egindako konpositeekin konparatuz gero. Berria - Gaiak

---

**likatsu** *(orobat* ***liskatsu*** *g.er.)* **1** *izond* itsaskorra, eranskorra. ik **lirdingatsu**.

Ile beltz koipetsua, gai **likatsuren** batekin atzerantz orraztua. Xabier Mendiguren Elizegi

Zoruan itsatsita zegoen goma **likatsu** bat. Josetxo Azkona

Mami **likatsua** gatzatzen ari zitzaidan izterrondoan. Aingeru Epaltza

Alkandora kendu eta titiak miazkatu nizkion, esperma **likatsua** bere titiburuen inguruan zabalduz. Harkaitz Cano

Leherrenak eginda ere, ezin zuen erreminta zulotik atera; zeren ordurako neskaren zukua substantzia **likatsua** bihurtua baitzen, loctite hutsa. Patxi Iturritegi

Eguzkiak pago gazteen kimu zorrotz eta **likatsuen** gainean dir-dir egiten zuen. Lopez de Arana

Txanpurik ez dugunean, xaboi berde **likatsu** batekin moldatu behar izaten dugu. Josu Zabaleta

Ez nuen alde egiteko kemenik, ez nekien nola libratu amaraun **likatsu** hartatik. Anjel Lertxundi

Aitzur-burdina lehor eta garbi ateratzen bada, esan nahi du karea ahul eta lehor dagoela; baina **liskatsua** eta ondo beratua dagonean, burdinaren inguruan lekeda bezala itsatsita geratuko da. Santiago Iruretagoiena

Emakume busti **likatsuak** katuka joan ziren lehorrera. Anton Garikano

**2** likaz betea.

Komunetatik har luze **likatsuak** irteten ziren. Juan Kruz Igerabide

**3** (erkaketetan)

Nire gorputz honek gogoan ditu izandako erorikoak, burezurrean izandako hausturak, koma aldi siropa bezain **likatsuak**, ospitalean emandako gauak. Josu Zabaleta

**4** irud/hed

Begiratu **likatsua** bota dit, susara dagoen behiarena. Patxi Iturritegi

Rock sinfonikoaren atzamar **likatsuetan** nengoen harrapatua. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta isiltasun hura **likatsua** iruditu zitzaion Matiasi, laranja-ura bezala. Unai Elorriaga

Eguzki **likatsu** hura... Joxe Austin Arrieta

Gero, ilargia, ilargi **likatsua**, baina izarrik ageri ez, egurats gandutsuegi hartan. Joxe Austin Arrieta

Egurats **likatsua.** .. Joxe Austin Arrieta

Hilabete haietan, begitan hartu nuen morroi hura; **likatsua** iruditzen zitzaidan, melenga, ia-ia lizuna, ez sexuari zegokionez zuzen-zuzenean, baina bai halako sexualitate "sublimatu"tik zetorkion zerbaiten kariaz. Juan Kruz Igerabide

**5** (adizlagun edo predikatu gisa)

Bonboiak txiki-txiki eginda azaldu ziren mutilaren azpian: **likatsu** ateratzen ziren kutxatik, tirriki-tarraka Jaioberri bat herrestan dabil, **likatsu**, ez baitute miazkatu. **Likatsu** neukan azala eta nahikoa lehorturik begiak. Lopez de Arana

Pikea baino **likatsuago** sentitzen nuen ahoa. Jesus Mari Mendizabal

---

## **likatu**, lika(tu), likatzen **1** da *ad* lika bezala itsatsi.

Txokolatetxo bigundua **likatu** zitzaidan aho-sabaian. Anjel Lertxundi

Ikusia naiz bizkarrean **likatu** zitzaidan zuzendari lausengaria irteerako atea danbateko batez ixten eta haren bulegoaz bertze batzuk -ez hain lausengariak- jabetzen. Aingeru Epaltza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Haren traje merkea, haren ile **likatua**, dena okaztagarria. Unai Iturriaga

Oi arima **likatua**, xederatik askatzeko borrokan katigatuagoa! Juan Garzia

---

## **likeatu**, likea, likeatzen du *ad*

Rufoak **likeatzen** jarraitzen du. Harkaitz Cano

---

## **liken** *iz* alga eta onddo baten elkartzeak osaturiko landarea.

Urak harria zipriztintzen du, aspalditik bilduak dituen goroldioak eta **likenak** bustitzen ditu, eta, orduan, suspertu egiten da ibaiaren esentzia. Pello Lizarralde

Belus gorriko armiarma ttipiak **likenean** lasterka. Koldo Izagirre

Napumoceno jauna gatza, ahuntz larruak eta tindatzeko **likena** esportatzen hasi zela. Bego Montorio

Badago igel erraldoi bat muino goi baten tontorrean kokoriko, **likenek** tanta hori eta zurbilez jaspeztatua. Koldo Izagirre

Euriak eta **likenek** ilundu eta maiztutako harriak, bihurrituak, zulatuak, zorroztuak. Anjel Lertxundi

Horma zahar hori pixka bat txukundu eta, goroldioak eta **likenak** pixka bat kendu eta. Pablo Sastre

Murrua gorrixka da, **likenak** jana. Koldo Izagirre

**Likenak** bere lore sagar-berdea itsatsi zuen metalean. Anton Garikano

Eraldaketa haietatik lehenbiziko egitura organiko konplexuak loratu ziren; ondoren **liken**, alga eta belarren klorofilari esker -bakterioak kloroplastoan kokatuak izaki, bizitza garatzeko "heziak"- fotosintesia garatuz joan zen, oxigeno geruza sortuz. Jose Angel Irigaray

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> tindatzeko liken (6)

---

## **likendun** *izond* likena duena.

Margolanek edo simulazioek xehetasun guztiak ikuspegi gutzi-guztietatik eduki behar dituzte [...]; baita elizako harri **likendunen** xehetasunik xumeenak ere. Xabier Olarra

---

## **likidapen** *iz* likidatzea. ik **likidazio**.

SAFAM lantegia joan den urtarrilaren hamarrean **likidapenean** emana zuen komertsa auzitegi horrek berak. Guérin jauna izendatu du **likidapenaren** eramaiteko. Herria

SAFAM-eko **likidapen** egunean, baziren 120 langile, bana beste 48 urterekin mende laurden honetan hor ari zirenak. Herria

---

## **likidatu**, likida, likidatzen **1** du *ad* negozioez mintzatuz, azken kontu kitapena egin.

Hortaz, Araujo Lda. enpresa **likidatzea** onartu zuen, negozioetatik alde egin, errentetatik bizi. Bego Montorio

Erosleak kosta ahala kosta ezarri zuen salerosketa bururatzeko baldintza gisa ken zezatela liburu-denda handik, eta horrek urte hasiera eromenezko bat ekarri zion Tomi, Harryren aspaldiko negozio osoa **likidatu** beharrez. Oskar Arana

**2** salgai bat merke saldu estoka ahitzeko, kitapen salmenta egin.

Prezio onean eskaini zion hark, jeneroa **likidatu** beharra zeukala eta. Iñaki Iñurrieta

**3** irud/hed

Nicolas Sarkozy barne ministro frantziarrari dagokio Frantziako Iraultzatik geratzen zen ondare apurra **likidatu** izanaren ohorea. Joxerra Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**likidatuta dago** (3)

---

**likidatzaile** *iz* negozio bat edo kideko bat likidatzen duen pertsona.

Handik laster Baionako tribunalak [...] **likidatzaile** judizial bat izendatu zuen. Itxaro Borda

---

**likidatze** *iz* negozioez mintzatuz, azken kontu kitapena egitea.

Nagusiaren eta sindikatuen artean hitzartu **likidatze** egitarauaren arabera hogeita lau hilabete bazituen lan baten atzemateko. Itxaro Borda

---

**likidazio** *(orobat **likidazione** g.er.)* **1** *iz* likidatzea, kitapena.

EHKB kontsumitzaile elkarteak, berriz, agerraldia egin zuen atzo, berehala gauzatuko den Hiri Jabetzaren Ganberen **likidazioaz** iritzia emateko. Berria - Euskal Herria

Enpresaren **likidazioa** errazteko. Berria - Euskal Herria

**Likidazioarekin**, 120 langile gelditukoa lirateke lanik gabe. Berria - Ekonomia

Egunkaria SAko egoitzetan dauden ondasunen **likidazioa** egiteko. Berria - Euskal Herria

Daewook eta Ramondinek Arabako Ogasunak egiten dien **likidazioari** helegitea jarri ahalko diote. Arrisku hau [...] dibisetako eragiketa baten bi alderdien aldi bereko **likidazioa** segurtatuko duen mekanismoen faltatik dator. Koro Navarro

Honekin batera dohakizu txekea eta hileko **likidazioa**. Ramon Etxezarreta

Erromako Laziok 10,91 milioi euro ordainduko dizkio Gaizka Mendieta bizkaitarrari, talde harekin zuen kontratuaren **likidazioagatik**. Berria - Kirola

Beharginen eledun Carlos Gonzalezen esanetan, «enpresak ez zuen ezertxo ere eskaini» zorrak, **likidazioak**, uztaileko soldatak edo atzerapenak ordaintzeko. Berria - Euskal Herria

10,5 milioi euro gehiago kendu zituzten Kupoaren eta BEZaren eta zerga berezien **likidaziotik**, hurrenez hurren.

Kupoaren **likidazioaren**, Ertzaintzaren plantilla zabaltzearen eta Prestige-k eragindako gastuen inguruan ari zen Zubia. Berria - Euskal Herria

**2** kitapen-salmenta.

Oinetako eta galtzen **likidazioak** dendetan. Joseba Sarrionandia

**3** irud/hed ezeztapena, suntsiketa.

Errusia komunistan ugazaba pribatuen **likidazioaren** ondoren sindikatuen arauketa etorri zen bitartean, Alemania nazional sozialistan, berriz, sindikatuen **likidazioaren** ondoren ugazaba pribatuen arauketa etorri zen. Iñaki Mendiguren

Jatorriz ezin euskaldunagoa zen aberkide batek prestatu zuen Puiko eta Bergarako **likidazioa** Txillardegi

**4** hilketa.

"Röhm-Putsch" edo Labana Luzeen Gaua deituriko 200 lagun inguruen **likidazioa**, Alderdi Nazional-Sozialistako Hitler-en lehiakideak gehienak. Joxe Azurmendi

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

'Egunkaria'-ren **likidazio** plana gauzatzeko baimena. Berria - Euskal Herria

Erabakiak dioenez, **likidazio** proiektua orduerako aurkeztu ezean, lege konkurtsala jarriko du indarrean Del Olmok. Berria - Euskal Herria

**Likidazio** proposamena onartu duela jakinarazi du epaileak. Berria - Euskal Herria

Ondasunen mantenua eta **likidazio** prozesua errazteko. Berria - Euskal Herria

Handik sei hilabetera, Baionako auzitegiak Etxarri legezko **likidazio** bidean jarri zuen. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**aurkeztutako likidazio** (3); **likidazio proiektua** (10); **likidazio proiektua aurkezteko** (3)
**ondasunen likidazioa** (3)
**zerga berezien likidaziotik** (6)

---

likidazione ik **likidazio**.

---

**likidazionista** *izond* likidazioaren aldekoa dena.

Klase borrokaren zurrunbiloak gurea mila puskatan zartarazi ez bazuen, errebisionisten eta ortodoxoen arteko gatazka luze bati zor diot, zeinaren hondarrean garaileek -bigarrenak, ohi denez- bertzeak ohildu baitzituzten kanpo-ilunpe **likidazionistara**. Aingeru Epaltza

---

**likidezia** **1** *iz* ekonomian, likidotasuna.

Zergatik uko egin **likidezia** edo eskudirua edukitzeari horren errentagarritasun Ltxikiaren truke? Iñaki Heras

Krisia hirukoitza izan zen: **likideziarena**, parekotasun doiketarena eta konfiantzarena. Iñaki Heras

Dirua merke dago, **likidezia** handia du ekonomiak. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan)

**Likidezia** arazoek aurrezteko beharra areagotu dute. Berria - Ekonomia

**Likidezia** poltsa itzela sortu da eta hori espekulaziorako erabili da. Berria - Harian

**Likidezia** beharra du Alstomek. Berria - Ekonomia

---

**likido** *(orobat **likidu** g.er.)* **1** *izond* gai edo gorputzez mintzatuz, daukan ontziaren formara egokitzen dena eta presioak tamainari eragiten ez diona. ik **isurkari**.

Soinu-uhin bat gainazal solido edo **likido** batera iristen bada. Irene Aldasoro

Erregai solidoaren lekuan, erregai **likido** edo gaseosoak erabiliko balira, urtero 9.000 haur gutxiago hilko lirateke. Muntaketa-kate **likido**, banaketa-sare eta hondakinak biltzeko sistema ez ezik, gorputzaren berotze-sistema [...] eraginkorraren funtsa eta infekzioen aurkako babes-mekanismoa da odola. Irene Aldasoro

Materialtasun **likido** zabal hori estrainioa zaigulako, bitxia, osin beltza delako egiazki itsasoa. Ana Urkiza

Ur **likido** gutxi duten hodeietan. Pello Zabala

Gas **likidoa** erabiltzen duten instalazioen ekoizpena. Berria - Ekonomia

Merkatuko lurra lohi **likidozko** itsaso bihurtzen ari zen. Karlos Zabala

Titan ilargian hidrokarburo **likidoa** egon daitekeela esan zuten atzo misioa zuzentzen ari diren zientzialariek. Berria - Gaiak

Nafta **likidoa** botatzen dute itsasora. Karlos Zabala

Zenbait berniz **likido** izatetik solido izatera pasatzen dira. Juan Garzia

Haren balioa goratzeko, urre **likido** guztia trukatu zuen paper horren aldera. Juan Garzia

Azido **likido** bat da, korrosiboa, eta ez da lurrintzen. Berria - Gaiak

Beruna **likido** bihurtua zenean. Xabier Aranburu

Egoera **likidoan** behar zuten molekulok. Juan Garzia

**2** diruaz mintzatuz, besterik erabil edo xahu daitekeena.

EBZko buruak zehazki aipatu zuen M3 aldagaia asko handitu dela, hau da, **diru** likido asko dabilela, eta arriskutsu deritzo. Berria - Harian

**3** *iz* daukan ontziaren formara egokitzen den eta presioak tamainari eragiten ez dion gaia edo gorputza.

Ura beti ur den moduan, izan izotz, izan **likido** edo izan lurrun. **Likido** batean presio-aldaketak eraginez gero, gas edo lurrun-burbuilak era daitezke. Hasier Etxeberria

Barne-belarria [...] **likidoz** eta ehun bigunez osaturik dago, gorputzaren atal gehienak bezala. Irene Aldasoro

**Likido** horrek fluido interstiziala eratzen du. Irene Aldasoro

Proba horretan adituek amaren amnioseko **likidoa** aztertzen dute. Berria - Gaiak

Ez daki onik egingo dion hainbeste **likido** hartzeak. Patxi Iturritegi

**Likido** bat araztu nahi izanez gero. Irene Aldasoro

**Likidoa** lurrun bihurtzeko, energia askotxo behar da. Irene Aldasoro

Artigasko zabortegiko lixibatuak tratatzeko plantan, 350.000 metro kubo **likido** tratatu ahal izango dira urtean. Berria - Euskal Herria

Belauna izugarri puztu zitzaion eta sei xiringakada **likido** atera behar izan zizkioten. Berria - Kirola

**4** (izenondoekin)

Zirkulazioko odola [...] **likido** gazi bat da, bizitzaren sorburu izan zen itsaso hartako uraren oso antzekoa. Irene Aldasoro

Odol-plasmaren oso antzeko **likido** urtsu bat da **likido** sinobiala. Irene Aldasoro

Managua hiri barreiatuko kaleetan barrena ibili naiz, zalantzan, **likido** amniotikoan murgilduta bezala. Joseba Sarrionandia

Eskua zauri zaharrera eraman eta **likido** itsaskor batez blaituta atera nuen. Alberto Ladron Arana

Johnny odola galtzen ari zen: han zekusan **likido** zikin bat asfaltoaren gainean; gari soro haietan ibiltzen ziren traktore zaharren batek galdutako olioa edo izan behar zuen, hura ezin zuen bere gorputzarekin lotu. Pako Aristi

**5** (hitz elkartuetan)

**Likido** galtze hau berreskuratu beharra dago. Berria - Harian

**Likido** falta horrek ondorio larriak izan ditzake zaharren osasunean, funtsezkoa baita sistema kardiobaskularrarentzat. Berria - Harian

**6** kontsonanteez mintzatuz, urkaria.

Argi dago, multzo horiek herskari batez osatuak daudela, batzuetan aurretik eta besteetan atzetik **likido** bat edo sudurkari bat dutelarik. Isabel Arrigain

Praktikan 2, 3, 4 irekierako fonemak (sudurkariak, **likidoak**, erdibokalak) dira rol bat edo bestea jokatzen dutenak, beren ingurukoen eta beren artikulazioaren izaeraren arabera. Isabel Arrigain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**likido amniotikoaren** (3); **likido asko** (4); **likido beltza** (3); **likido gorri batekin** (3); **likido sinobiala** (4); **likido sinobialak** (3); **ur likido** (3)

**gas likidoa** (3); **ur likidoa** (4)

**egoera likidoan** (3)

---

## **likidodun** *izlag* likidoa duena.

Egintza Handia ez da etortzen beti arrautza edo **likidodun** flasko itxuraz jantzia. Xabier Aranburu

---

## **likidotasun** **1** *iz* ekonomian, ondasun bat laster diru bihurtzeko gaitasuna.

Gobernuek, 1929ko hutsegiteen oroitzapenarekin beldurtuta, masiboki sustatu zuten **likidotasuna**, arazoak zituzten eragileen birfinantzaketa errazteko. Koro Navarro

Petrolioaren lehen krisiaren ondoren eurodolarren merkatuaren **likidotasuna** oso handia bazen ere. Koro Navarro

Banku jakin baten arazoek eragiten dute gehienetan banku-izua, eta krisia berehala zabal daiteke sistema osora, baldin agintari publikoek ez badute gordailuen **likidotasuna** bermatzen. Koro Navarro

Euromerkatuek 1973 ondoren zuten **likidotasun** izugarriak halabeharrezko eragina izan zuen merkatu horietan esku hartzen zutenen finantza-jokamoldeetan. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan)

Kontua da ezkon urte honetan salerosketa bolumenaren marka berria izan dela eta **likidotasun** maila egokia erakutsi duela gure burtsak, urtean 490.000 milioi euroren akzioak mugitzeraino. Berria - Ekonomia

---

## **likidotu,** likido(tu), likidotzen **1** da/du *ad* likido, isurkari bihurtu.

Horietako batek petrolioa zeraman eta besteak **likidotutako** gas naturala. Berria - Mundua

Egia esateko, 200 urteen muga medikuek adostutako muga arbitrarioa baino ez da (zenbaki borobila bai, baina arbitrarioa); izan ere, egon dira hainbat kasu 198 urte bete gabe ere burmuina ondo **likidotuta** eduki dutenak. Unai Elorriaga

**2** (era burutua izenondo gisa)

Digestioan parte hartzen duten entzima gehienek ingurune azidoan lan egiten ez dutenez, pankreako jariakin bat injektatzen zaio lehenik janari **likidotuari**, neutralizatzeko.

Talde handi bat sortzera goaz, gas **likidotuaren** esparruan munduko lehena izango den taldea. Irene Aldasoro

Gas natural **likidotua** ekartzeko terminal berriak eta gasbide berriak egitea. Berria - Mundua

---

## likidu ik **likido**.

---

## **likin** **1** *izond* **1** likatsua, itsaskorra.

Esku **likinak** igurtzi zituen Markoxek. Joxemari Urteaga

Izerdi **likina** sumatu zion kopetan eta ezpain gainean. Joxemari Urteaga

Kopetatik pasa zuen eskua izerdi **likina** lehortzeko. Joxemari Urteaga

Banekielako edozein unetan haren zakil lodiak eztanda egin eta nire eztarrian behera tiro **likinak** botako zituela. Jasone Osoro

**2** (-en atzizkiaren eskuinean) likintasuna.

Nekearen zama rsentitzen du soin-adarretan, igurtziaren gorria izter lodi bien barnealdean, hautsaren lakarra eztarri lehortuan, izendiaren **likina** kamiseta umeldu eta itsatsian. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** irud/hed

Horrelakoetan, musu **likinak** ematen dizkit. Javi Cillero

• **4** *iz* gai likina.

Neskaren aienerik gabe, Ferminek haren sabelaldean hazia isuri eta eskuetan behera erori zitzaion **likina** ahora eraman zuen. Jasone Osoro

Mihia zintzilik **likina** ezpainetan begiak urten beharrez. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> izerdi likina (5)

---

# **likindu**, likin, likintzen du *ad* likinez bete.

Suge baten erdi biak burdinaz zati-zati egiteari ematen badiozu, zati moztu berriak bihurtzen eta lurra zornez **likintzen** ikusiko duzu, eta aurre partea atzeari heltzera itzultzen, haginkada sutsu batez zauriaren mina kentzeko. Xabier Amuriza

Segi egin nuen, beraz, are indar handiagoz, amaiera hurbilari igarriz, eta hantxe etorri zen, plop, agurearen dardarizo eta arnasotsen artean, eskua **likindu** zidan isurki lirdinga hura, biziaren iturritzat goretsi ohi duguna, neure bizian lehenengoz ikusten nuena Ipurdi ikaragarri haietara hurbildu nintzen eta gorri-gorri jarri arte astindu nituen; gero haurrendako olio-frasko bat hartu eta arrakala blaitu nion; ondo **likindu** nionean, mirarik gabe hondoratu nion dardaragailua begi beltzean, pilari eman eta zalapartaka hasi zen; haragiak marrubizko jelatina bezala mugitzen zitzaizkion. Xabier Mendiguren Elizegi

Begira nola **likindu** dudan alu hau! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

# **likintasun** *iz* likina denaren nolakotasuna.

Odolaren **likintasuna** ere handitzen da, ordea, eta WADAk debekatutako sustantzien artean du. Inor ez zen inorekin gelditzen hizketan, ihes egiten zioten denek elkarri, halako **likintasun** bat soinean, itsas azpiraino hondoratzen gaitu faxismoak. Koldo Izagirre

Kimikako laugarren ikasturteko programaren barnean bazen ikastaro labur bat fisikako ariketak egiten zirenekoa: **likintasun**, azaleko tentsio, errotazio-ahalmen eta halakoen neurketa sinpleak. Juan Garzia

---

# **likiskeria** 1 *iz* zikinkeria, lohikeria.

Emakumea **likiskeria** handienean murgiltzeko beste modu bat erakutsiko dizut. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Semeak ezin zituzten erdaindu eta era guztietako **likiskeria** eta lohikeriaz kutsatu behar zituzten beren buruak. Elizen arteko biblia

Zeure gaztaroko **likiskerietara** jo duzu berriro. Elizen arteko biblia

Baldin eta **likiskeriak** ezartzen dizkion betekizunak beteko ez balitu... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ipurdia dantzatzen hasi nintzen puta bat bezala, streep-teas-eko artista batek beretzat nahiko lukeen **likiskeriaz**. Juan Martin Elexpuru

**2** ekintza likitsa.

Emakumeek ez dakite zenbat edertzen dituzten beren **likiskeriek**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sasijainkoen ondoren joanez, **likiskeria** izugarriak egin zituen. Elizen arteko biblia

Gure sarera ekarri dudan izaki tolesgabe eta maitagarri hori **likiskeria** horietara zaletzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zer nolako **likiskeriak** iradokitzen zizkidaten! Imanol Unzurrunzaga

---

# **likistasun** *iz* zikintasuna, lohitasuna.

Horien bidez gorets zaitzala nire arimak, den guztiaren Jaungoiko Egilea, baina ez dakiela gorputzaren zentzuen bidez itsatsi maitasunaren **likistasunean**. Imanol Unzurrunzaga

---

# **likistu**, likits/likistu, likisten **1** da/du *ad* zikindu, lohitu.

Pariek herritik kanpora bizi behar omen dute, goiko klaseko giro espiritualа **likits** ez dezaten. Gotzon Garate

Gorputzak inor eta deus ere **likits** ez dezan, dorre garaietan ipintzen dituzte, saiek jan ditzaten. Gotzon Garate

Hatzak **likistuta** dauzkat haien lerde zikinaz. odol asko galdu ez nuen arren, alkandora bustita eta **likistuta** sentitzeak zorabio moduko bat eragiten zidan. beheko uharrien artean nahi izan genituen gure atzamar azukrez **likistuak** garbitu. Itziar Otegi

Kedarrez **likisturiko** gizonaren tximiniarena. Traidorea nor den ongi dakite: armada frantsesaren izena **likisten** duen nornahi. Xabier Montoia

Baina, baina, nire beloa **likisten** ari zara, Cassie. Lopez de Arana

**2** (moralki)

Harrapatua sentitzen nintzen, **likistua**, baina ez nuen oraindik galdu garbitasunaren eta zintzotasunaren zentzua. Matías Múgica

Baina halakoak gara: badakigu ezen lohitzen eta **likisten** garela, noiz eta egin beharrekoa egiten ez baitugu, baina, halarik ere [...]. Joan Mari Irigoien

Kontzientzia garbitu bezain fite **likisten** ninduena. Joan Mari Irigoien

---

# **likits** 1 *izond* zikina, lohia.

Zolda **likits** bat ezpain ertzean. Unai Iturriaga

Bezperako okaden arrasto **likitsak** zituen gorputzean. Unai Iturriaga

Motel **likitsetako** ganbara ilunetan. Itxaro Borda

Baina, gero, pertsona haziz eta helduz zihoan bezala, alfonbra hura maizten eta saretzen hasten zen, edo okerrago, sustantzia **likits** bihurtzen zen, graka hutsa, askatasuna kendu eta bizitzaren mugimendua eragozten zuena. Bernardo Atxaga

Ibiliaren ibiliaz, mundu guztia zikindu eta zipriztindu da hemen eta halako geruza **likitsez** jantzita dator aukera oro. Hasier Etxeberria

Traidoreak piztia **likitsak** gara. Bernardo Atxaga

**2** (moralki)

Bere begiz ikusi ez balu ere, gazteluko armagizonen so eta marmari **likitsetan** sumatuko zuen. Aingeru Epaltza

Zure ezpain **likitsak**. Jasone Osoro

Estefaniaren kezka bizienetarik zen bi alabak goarnizioko gizonen gogo **likitsetatik** apartatzea. Ordenagailuaren pantailaren ipurdia ferekatu zuen berriz, ia-ia **likitsa** gertatu zitzaidan keinu batean. Aingeru Epaltza

Askotan eztabaidatu da sodomia egiteko bi moduetarik zein den **likitsagoa**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Deabrurik **likitsen** eta ustelduenengana prostituitu den adimena. Espiritu **likitsaren** kutsurik ez duenak dauka Jaungoikoa. Imanol Unzurrunzaga

**3** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa) likistasuna.

Berriz ere, odola egin zaio eskuetan eta odolaren **likitsa** izerdiarekin batera urtu zait azalean. Javi Cillero

**4** likatsua, itsaskorra.

Bero itogarria izan genuen harreragile Campeche-n, eguraldi **likits** eta egurats itsaskorra. Joxe Austin Arrieta

Haragi hura guztia babesik gabe agertuko zen, hanpatua, lerdetsua, **likits** samarra. Monika Etxebarria

Barraskiloek utzitako muki **likitsagatik** ez balitz. Harkaitz Cano

Gero hatzak eraman zituen sudur-mintzetara, eta hazia jakinminez usaindu zuelarik, irribarre egin zuen, hatzak **hazi** likitsagatik ez balitz kriskitin egingo luketen eran igurtziz. Harkaitz Cano

Haize hotzaren gainetik izerdi **likitsa** sumatu zuen bizkar aldea. Joxemari Urteaga

Bat-batean odolaren **epel** likitsa nabaritu nuen azalean. Xabier Montoia

---

**likitsu** *izond* likatsua, itsaskorra.

Baina, une hartan, koadroa jausi zen lekuan, iltzeak egina zuen zulotik [...] zizare beltz **likitsu** batek atera zuen burua. Aritz Gorrotxategi

Eta odolez zikinduta zeukaten musu **likitsua**, ardiei eraso egindako otsoek bezala... Paddy Rekalde

Dena bete zen odolez eta ore **likitsuz**. Sonia Gonzalez

---

likor ik **likor**e.

---

**likore** *(orobat* ***likor*** *g.er.)* **1** *iz* edari bizia, hainbat gai destilatuz ateratatzen dena.

**Likore** greziar bat hartu genuen ordaindu ondoren. Bernardo Atxaga

Andere mahatsezko **likorea** arratsean erosten zuen. Karlos Zabala

Guayabaz eginiko **likore** berezi bat zen. Aritz Gorrotxategi

**Likoreen** eraginpeko eskuzabaltasun-tarteetan. Mirentxu Larrañaga

Azken bi hilabetean, tabernariak botila bat **likore** oparitzen zien Méhudindarrei igandero. Karlos Zabala

Flasko argiek, kolore berde, gorri, hori leunekoek **likore** ezezagunekin eta gardentasun aparteko lore estraktoekin amets eginarazten zuten. Karlos Zabala

Tira, ekarri kopa bat **likore**. Jose Morales

Zopa amaitu eta kopa **likorea** hustu zuenean (**likorea** oso ona zen), Txitxikov honela mintzatu zitzaion Kostanjoglori. Jose Morales

**2** kopa likorea.

**Likore** bat eskatu nuen, berdin zitzaidan zer. Joxean Agirre

**Likore** bina hartu genuen, nik uste, Almeidak eta biok. Edorta Jimenez

-Onar iezadazu **likore** baten gonbitea. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azken **likore** tanta hustu eta arrazoia eman nion. Harkaitz Cano

**-Likore** xorta bat balitz, bazkari bikain honentzat bukaera paregabea litzateke. Elena Touyarou

Kafe kikara bi eta calvados **likore** kopa bat. Josetxo Azkona

**Likore** flaskoek su biziagoak pizten zituzten ispiluan. Karlos Zabala

Barraren isla zabal zurian, ispiluaren aurrean, non botilek eta **likore** ontziek faroltxo veneziarren ilara zintzilikatuak ematen baitzuten. Karlos Zabala

Hango barazki egosien saltokiek, hango barruki edo **likore** denda zuloek. Karlos Zabala

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zopa amaitu eta kopa **likorea** hustu zuenean [...] Txitxikov honela mintzatu zitzaion Kostanjoglori [...]. Jose Morales

Beatrizek melokotoi **likorea** pasatu zion. Aritz Gorrotxategi

Hemen azukre zaku batzuk, han hainbat upel **likore**. Alberto Ladron Arana

**5** irud/hed

Laster isuri zuen bere **likore** eztia nire ipurdiaren sakonean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ekinaldi bat egin ondoren, hor ikusiko dugu gizona **likore** zuri eta likatsua botatzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Maitale sutsu eta irudimen handikoek irentsi egiten dute ahoan isuritako hazia, eta horrela samurki gozatzen dute elkarren **likore** zoragarri horiek barneratzeak emandako atsegin likitsaz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**
> likore botila (5)

---

**likoretsu** *izond* likorearena.

Gelaxkaren usainak, tabakoaren kearekin beroturiko usain **likoretsu** hark, mozkortu egiten zuen, zorion berezia ematen, bere buruaz ahaztarazten; eta, abandonatze hartan kulunkatzen zenean, konturik larrienak ere onartzeko prest egoten zen. Karlos Zabala

---

**likra** *iz* poliuretanozko zuntz sintetiko eta elastikoa, gorputzaren formara erabat egokitzen diren jantziak egiteko erabiltzen dna.

**Likrazko** kamiseta izerditua erantzi du, eta berdin udako galtza luzeak, %100 nylon. Aingeru Epaltza

Janzten zituen **likrazko** prakek bere izterretako gihar boteretsuen gorabeherak nabarmenagotzen zituzten. Jon Alonso

Egingo nuke lehengo eguneko minigona motz **likrazkoa** dakarrela soinean. Patxi Iturritegi

---

**liktore** *iz* antzinako Erroman, justiziako kidea, kontsulen insigniarekin haien aurretik joaten zena.

Erromako kontsulak, kargua hartu behar zuenean, aurretik zihoazen **liktore** deitu 12 zaindari haietako bakoitzak urki-makila bana zeraman. Pello Zabala

**Liktoreek** horregatik zilegi al dute / giltzapean gu sarturik / egurtzea aspertu arte? Xabier Olarra

---

**lila** **1** *izond* kolore more argia duena.

Umetan kolore **lilak** eta apalak bortitzak baino atseginago nituelako. Joan Mari Irigoien

Lore arroxak zituèn jertse **lila** harekin ikusi ninduenean, [...]. Joan Mari Irigoien

Eta **lilak** ziren oinetako mokasinak ere. Bernardo Atxaga

Emakumea falta azpimarra **lilapean**. Iñigo Aranbarri

**2** *iz* lila kolorea.

Horizontean zeutzan hodeiek **lilatik** grisera egin zuten. Ilunabarrak aurrera egiten zuen, eta zeruko zuri eta zurixkak, gorri eta gorrixkak, hori eta horixkak **lilaren** espektrora labaindu ziren. Joan Mari Irigoien

Ilargia **lila**-kolore... Joxe Austin Arrieta

**3** olibondoaren familiako zuhaixka apaingarria, multzoetan bilduriko lore zuriak edo moreak eta oso lurrintsuak, ematen dituena *(Syringa vulgaris)*. ik **amañilili**.

**Lila** batzuk bildu eta ibaira jaurti nituen, hori da egunsenti hartaz gogoratzen dudan bakarra. Anjel Lertxundi

Croix-Luizeteko azokan **lilak**, mihura, gorostia saltzen zituzten. Pablo Sastre

Zitoria, **lila**, azuzena, itsas lilipa... eta batez ere lirioa edo ostargia (zeruko argia). J.M. Olaizola "Txiliku"

- **Lila**-ur apur bat, kapitain? Lopez de Arana

**4** ***lila-kolore*** *izond* lila kolorekoa.

Ilargia **lila**-kolore... Joxe Austin Arrieta

**5** ***lila-koloreko*** *izlag* lila-kolorea.

Harryk salto handi bat egin zuen eta **lila-koloreko** orban handi bat egin zuen Veronica Smethleyren kale-izenean. Iñaki Mendiguren

Alkandora estanpatu bat zeraman urre eta **lila koloreko** sagarrak zituena hondo beltzean. Bernardo Atxaga

Jantziak, jade-berdeak, lila-**koloreko**, urdin ilunak.. presaka tolestuta zeuden haietako batean. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jertse lila** (3); **lila koloreko** (5)

---

**lilatoi** *iz* emakumeentzako lasterketa.

**Lilatoia**, emakumeen bost kilometroko herri lasterketa, 11:00etan, Alderdi Ederretik abiatuta. Berria - Euskal Herria

Ane Lasa nagusitu da bigarren aldiz jarraian **Lilatoian**. Berria - Kirola

---

**lili** **1** *iz* lorea.

Xaron zelaiko lore naiz ni, ibarretako **lili**. Elizen arteko biblia

Nola **lilia** arantza artean, hala ene laztana neskatxen artean. Elizen arteko biblia

Eguzkia zuten lagun **lili** hauek denek. Pello Zabala

Baina hire ahizpa Blanche ez dun **lili** eder bat! Xabier Paya

Ote-larre xurpailan zonbait **lili** hori. Herria

**Lili** hauskorra izaten dela bakea, haize handia pizten denean. Hasier Etxeberria

**Lili** eztiz bildua, hilobira inork ere isurtzeke dolua. Juan Garzia

Urrea eta zilarra, hango landetan eta mendietan, **lili** distiratsuak bezala loratzen zirelako. Joan Mari Irigoien

Jessica bere aldetik ibiltzen zen pinpirin, **lilitik lilira**, izeba zahar eta lehengusu gazteei ongi-etorriak banatzen. Itxaro Borda

**2** irud/hed

Zoratuta nago Louri begira, neure neska da, neure **lilia**. Koro Navarro

Birjintasunaren eta kastitatearen **liliak** hain usain zoragarriz inguratzen ditu guztiak, non, lurreko pentsakizunak ahazturik, zerukoak bakarrik nahi dituzten hausnartu. Askoren artean

Egunetik egunera zimelduago ikusten zuen haren gaztetasunaren **lilia**. Patxi Zubizarreta

**3** (adizlagun edo predikatu gisa) loretan.

Bide ertzetan sahatsak **lili** ikusi nituela gogoratzen nintzen soilik. Itxaro Borda

Gristasunak horitasun ikaratiaz ekia deitzen zuela, oteak **lili** ziren eiki. Itxaro Borda

· Sukaldeko leihotik gerezitzeak dena **lili** zuri miretsi nituen, maitekiro, luzaz. Itxaro Borda

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lili** sorta bat, adibidez. Itxaro Borda

Hilerrira zihoanean, izenik ez zekarren hobian **lili** buket bat pausatzen zuen Bittoren oroimenez. Itxaro Borda

Dantza **lili**-ontzi bat bezala zen, turistendako... Berria - Kultura

Bere **lili**-atzamarren artetik. Xabier Paya

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bularrak ikusiak zizkion, apenas bi loto **lili** izatetik palmondoen bi fruitu izatera igaro, eta azkenik bi granada mardul bilakatu zirenak. Patxi Zubizarreta

**6** lirioa.

eskumutur bakoitzean urrezko hariz **brodatutako** lili lore bana elkarturik. Felipe Juaristi

Makina batekin belarra mozten zuen, eta arrosak, kalak eta **liliak** zaintzen zituen. Joan Mari Irigoien

**Lilia** bezala, badira beste landare batzuk ikur gisa erabiltzen direnak. J.M. Olaizola "Txiliku"

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lili lorearen** (3); **lili negarra** (3); **lili sorta** (6); **lili sorta bat** (3)
> **hazitik lilia** (3)

---

**lilikatu** *izond* loreztatua.

Bai, segurki hura baitzen, sekulan baino panpinagoa, ixter erditan gelditzen zitzaion zaia motz **lilikatu** batekin! Janbattitt Dirassar

Atorra **lilikatu** eta beste jantzi modernoek, zer atsegina ez zioten ematen! Daniel Landart

Ondoan zeukatela ohakoa, dena mihise **lilikatu**, farfaileria eta xingola. Daniel Landart

---

**lilikeria** *iz* ilaunkeria.

Neskek ohi duten bezala isiltzen zela uste zuen Ninik, aginduren batengatik edo **lilikeriaz**, eta jarraitu egiten zuen: [...]. Josu Zabaleta

---

**lilipa** **1** *iz* nartzisoa.

Hasperenka, Weldon andreak arretaz begiratu zion **lilipen** loreontziari, freskotasuna apur bat galtzen hasiak ziren **lilipei** adi so eginez. Mirentxu Larrañaga

Beste edozeinekin arituko balitz hizketan, **lilipak** aipatuko lizkioke soil-soilik. Mirentxu Larrañaga

**Lilipa** goiztiarrak loratu ohi ziren bide-mutur hartaraino Imanol Zurutuza

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Weldon andreak azken zartatxoa eman zien **lilipa**-lore zimelduenei. Mirentxu Larrañaga

-Ikusten nire **lilipa**-belartxoro-politak? -esan zuen emazteak, goi-argiturik. Mirentxu Larrañaga

Kale hutsetan zehar, berbena eta **lilipa** usainez beterik dauden lorategietan zehar, unibertsitaterainoko bidea egiten du. Oskar Arana

---

**liliputar** (oroba **liliputiar**) *izond* oso-oso txikia dena.

"Martxan aurreneko, gastadore **liliputarrek** osatutako eskuadra eder bat ageri zen, lehen inperioko uniforme distiratsuz jantziak: kasaka berdea, galtza gorriak, azpantar zuriak, larruzko mantala eta kapelu luze iledunak. Askoren artean

Operazioaz gero, mundu **liliputar** oso bat erosten hasia zen Virgil -jostailuzko soldaduak, autoak, animaliak, eraikin ospetsuen miniaturak-, eta orduak ematen zituen haiekin. Xabier Olarra

Barraketan tren fantasmara igotzen ginen, Himalayara, eta munduko emakume lodiena eta **liliputiarra** ikustera sartzen ginen. Joseba Urteaga

---

liliputiar ik **liliputar**.

---

**liliputitis** *iz*

Nire ustez legio dira nik **liliputitis** deitzen dudan gaitz horrekin dabiltzanak. Bernardo Atxaga

"Eureka!" hots egin genuen halako batean, eta lanari lotu gintzaizkion suharki, abertzaleen eta ez hain abertzaleen **liliputitisa** arintzea helburu. Bernardo Atxaga

---

**liliputizatze** *iz* oso-oso txiki bihurtzea.

-"Gulliverizatze"- eta **"liliputizatze"-** efektuak eragiten ditu (Philippe Dubois-en hitzak erabiltzeko), irudiaren eta irudikatzen den objektuaren tamaina erlatiboarekin jokatuz. Josu Zabaleta

---

**lilitegi** *iz* lorategia.

Hala entzunak gara gauero nahi zuen emakumearekin oheratzeko eskubidea zeukala, jotzen zuen **lilitegian**. Koldo Izagirre

Amara Zaharreko **lilitegi** bateko emakumeren baten semea zela entzun izan diat... Koldo Izagirre

---

**lilitu,** lili(tu), lilitzen **1** da *ad* loratu.

Geroztik, oihana **lilitu** duk, baita ere ostotu seietan, uda ere negu, negua ere uda gertatu duk hainbertzetan. Aurelia Arkotxa

Konparaketa poetikoa sobera garatu gabe, nahar artean eta lur hiletan handitu eta **lilitutako** arrosa zuria zen. Itxaro Borda

**2** (era burutua izenondo gisa)

Otsabideko estrada **lilituan** Werner ikusi zuen. Itxaro Borda

---

**lilitxo** **1** *iz* loretxoa.

Hortantxe salatu zuen bere burua, portuetako **lilitxoengandik** sobera espero zuen gazteak. Koldo Izagirre

**2** (pertsonez mintzatuz)

Lar ondo ezagutzen nau, **lilitxo** halakoak. Urtzi Urrutikoetxea

· Ilararen amaieran, arriskurik handieneko lekuan, Tigre **Lilitxo** doa, zutik eta harro, printzesa baita. Julen Gabiria

---

**lilizain** *iz* lorezaina.

Nirea da maitea eta ni harena, **lilizainarena**. Elizen arteko biblia

---

**lilizu** *iz ipar* liliz betea.

Atorra **lilizua** xehekatu zuen eta Bozen egurrezko txistua bular artean gatibatu. Itxaro Borda

Aljeriar jatorrizko Fadilak zapi iluna zeraman buruan eta zenbaitetan, ez marrantatzeko, Edmeak ere buruko **lilizua** zekarren. Itxaro Borda

---

lillura ik **lilura**.

lilluratu ik **liluratu**.

---

# lilura *(orobat **lillura** g.er.)* **1** *iz* argi gehiegiak-edo burua nahastea.

Sugeak begietara tinko begiratzen dionean, akordua galduta bezala geratzen omen da txoria, **lilurak** erdiz erdi jota. Joxerra Garzia

**2** irud/hed

Izan ere, gaizkiaren **lilurak** benetako baloreak iluntzen ditu, eta grina txarren zorabioak gizaki tolesgabea desbideratzen. Elizen arteko biblia

Denak isilik geratu ziren Ulisesen kontakizuna entzunda; **lilurak** jota zeuden jauregiko itzalean. Juan Kruz Igerabide

Georgierengana jiratu zen, hantxe baitzegoen mutikoa, **lilurak** jota. Mirentxu Larrañaga

Txori baten xaramelaren **lilurapean** gelditu zen monjearen elezaharrean. Aingeru Epaltza

**3** zirrara zoragarri baten mendeko egoera.

Amets baten, **lilura** baten, abentura baten ehizan abiatuak ziren gizonak. Jon Muñoz

Itxaropen, kimera, **lilura** horren atzetik gabiltza. Izarrartean suaren **lilura** eta magia gozatzen. Iñaki Iñurrieta

Nahiago unearen **lilura** bizi, eta gero ahantzi. Xabier Mendiguren Elizegi

Amodioaren **lilurak** eztiagoak izan daitezke; baina nork ez daki halaber gutxiago irauten dutela? Jon Muñoz

Mendebaldeko zientzia modernoa filosofia helenikoaren **lilura** apurtzen eta alor intelektual berrietara sartzen hasi zenean. Iñaki Mendiguren

Deus ez izatearen **lilura**, ezta, Damian? Hasier Etxeberria

Lausotzen ari da Lularen **lilura** Brasilgo mugen artean. Berria - Mundua

Atxikimendua eta **lilura** sor daitezen bere baitan. Anjel Lertxundi

Orain uste dut egoeraren berezia izan zela halako **lilura** eragin zidana. Xabier Mendiguren Elizegi

Alabaina, bazeukan halako **lilura** bat idazleenganako. Koldo Izagirre

Izadiarekiko **lilura** eta irakurketaren plazera noiz eta nola uztartzen dituzu? Ana Urkiza

Baina, mugitu, eguzkia bakarrik mugitzen da, edo ilargia; baliteke, beraz, **lilura** hutsa izatea aurrera zoazelakoa. Joxe Austin Arrieta

Urteen amarauna osatzen doazen gau hauetako **lilura** ez da itzali oraindik bere baitan. Pako Aristi

Teknologia berriek eragiten diguten **lilura** guztizko horren oinarrian, nik uste, giza mixeria dago. Joxerra Garzia

Guztira, hasierako **lilura** eta geroko iraupenaren artean, bi urte eta erdi gutxi gorabehera. Patxi Zubizarreta

Baina **lilura** hark ez zidan luze iraun. Alberto Ladron Arana

Askatasuna ez da **lilura** baino, geure buruari helburuak jartzeak ez du zentzurik. Markos Zapiain

**Lilura** horietan murgildurik, nire patua, etsaiak atzetik dabilzkion gizonaren paradero tristea, ahaztu egin nuen. Juan Garzia

Haiek ere hantxe baitzeuden Sutximistari **liluraz** begira. Iñaki Mendiguren

Garai hartan, zorionezko eta **lilurazko** aldi bat bizi izan nuen berriro. Juan Kruz Igerabide

**4** (hitz elkartuetan)

**Lilura** izpi batez bustitako denbora bat eman genuen elkarrekin. Pako Aristi

Beste **lilura**-gairen bat bilatu beharra, aurrekoa putzuan datzan bitartean. Berria - Kultura

Argia erruz sartzen zen leihotik eta horrek biziagotzen horren guztiaren **lilura** itxura. Aingeru Epaltza

**5**

Ihes egin du **literatur** lilura urriko lerro lexikografikoetatik. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eragindako lilura** (6); **halako lilura bat** (3); **hasierako lilura** (3); **lilura betean** (3); **lilura bitxi** (4); **lilura bitxi batek** (3); **lilura hutsa** (8); **lilura itzali** (3); **lilura sortu** (3); **lilura sortzen** (3)

**lilurak jota** (4)

**lilurak jota** (4)

---

# lilurabide *iz* liluratzeko bidea.

Kontu hura, ez bainuen duda-izpirik egia zela, aldi berean iruditzen zitzaidan ezainkeria latz eta **lilurabide** eder: ezain, hiltzeko modu krudel harengatik, eta miragarri natural bat halako hutsalkeria baterako erabiltzeagatik; liluragarri, berriz, halako trikimailu bikainaren asmatzaile mitikoak horrenbestez erakusten zuen buruargitasun eta ausardia bipilarengatik. Juan Garzia

---

# liluragarri **1** *izond* zentzumenak nahasten dituena.

Ke **liluragarri** batez lausotu ditu gizakien begiak, hitz ederrez balakatu ditu, bizitzaren alderdi goibela ezkutatu eta izaki ezin miresgarriagoa erakutsi die. Jose Morales

**2** liluratzen duena.

Bat-batean, aurrean dauka argia, bizitzaren zelaia, Scheherazade **liluragarri** bat, nolabait esateko. Jose Morales

Ahotsa apur bat karrankaria zen baina gainontzean oso atsegina, limurtzailea, ia **liluragarria**, eta leun eta eztia. Urtzi Urrutikoetxea

Fantasiazko mundu **liluragarri** bat. Berria - Harian

Leku atsegin eta **liluragarri** hau, ikusi dudan ederrenetarikoa den leku ezezagun hau. Koldo Izagirre

Halako begirada **liluragarri** bat. Lopez de Arana

Magia **liluragarri** bat dela medio, hitza, h gorabehera, azti bihurtzen da. Iñaki Arranz

Bekatuak bertuteak baino **liluragarriagoak** edo, bederen, iraunkorragoak diren seinale da. Iñigo Aranbarri

Bai sorkari **liluragarria** otea! Patziku Perurena

**3** (adizlagun edo predikatu gisa)

Urrunetik, **liluragarri** ageri zitzaizkidan lurjabearen etxeko teilatu gorria eta tximinia zuriak inguruko zuhaitzen hostaila berdetik zehar. Jose Morales

**Liluragarri** zeuden Urumea ibarreko inguru baketsuak. Txillardegi

Eta orduko abesti batekin oroimenaren atea irekitzen denean, hor ikusten ditut, haien artean hizketan, urduri, **liluragarri**... Berria - Kultura

Dena zegoen han, **liluragarri**, fresko, ondo zaindua eta egoera bikainean. Urtzi Urrutikoetxea

**4** (izen gisa)

Kideen zerrendara jo nuen, **liluragarri** haren izenaren bila. Xabier Mendiguren Elizegi

· Obra handi ikusgarrietatik dena dezakeen nanoteknologia deritzanak sortu behar omen duen ezin ikusizko nanomundu ahaltsura igaro gara, nano mental askoren **liluragarri** eta bakarren baten -hau da, ekonomiaren- bizigarri. Iñaki Segurola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
atsegin eta liluragarri (3); emakume liluragarri (3); mundu liluragarri (4)
liluragarria iruditu (4); liluragarria izan (7); liluragarria izan zen (3); liluragarria izango (4)

# liluragarriro *adlag* era liluragarrian.

Orain ikasi dudanez, Nafarroan maiz bezain **liluragarriro** gertatzen baita. Txillardegi

# liluraka *adlag*

Nire gorputzaren otzarak [...] lehertu egin behar izan zuen, erditze bat, hitz uste jolas **liluraka** menderatua ninduen aingirak kita nintzan. Koldo Izagirre

# lilurakeria *iz* lilura gaitzesgarria.

Darwinismoaren **lilurakeria** liberalismo ekonomiko eta politikoan ez ezik, Marx eta Engels-en klase-borrokan ere nabarmentzen da. Iñaki Heras

Orduan gure adimena **lilurakeria** denei irekia geratzen da eta ezin die bere onarpena ukatu hauen adierazpenei. Ibon Uribarri

Bev Shaw ez da albaitaria, apaiza da, New Age-aren **lilurakeriaz** eta sineskeriez betea, Afrikako animalia oinazetuen sufrikario-zama arintzen saiatzen dena, zentzugabeki. Oskar Arana

Gure esperientzia-adigaien interpretazio okerretik ezinbestean sortu behar den **lilurakeria** iruzurtia saihestearren. Ibon Uribarri

# lilurakizun *iz* lilura.

Zein **lilurakizun** txundigarriak! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

# liluraldi *iz* lilurapeko aldia.

Konturaturik zer-nolako begirada finkoa zuen eta zeinen handituak begi-niniak bere **liluraldian**, horrenbestez bururatu zitzaidan krisialdi psikiko moduko zerbaitek ez ote zuen jotzen. Xabier Olarra

**Liluraldi** hartatik itzartu nintzenean, errusiera ikasteko gogoak menderatu ninduen. Berria - Kultura

Zure eskolume ttipi horrek zugan nire ustez eragin duen **liluraldia** gorabehera, ez dezaket sinets hura zeure xedeetan deusetarako har dezakezunik. Jon Muñoz

Norma Lúciak **liluraldia** izaten zuen sagua izu-ikaraz geldi-geldirik ikustearekin batera, eta Selmak sugearen begirada maltzur hori botatzen zion, mingainaz airea arakatzen zuela, eta gero, sugeak baizik ez duen mugimendu bihurri horrekin, saguaren inguruan kiribildu, miazkatu, estutu, eta irentsi egiten zuen presarik gabe. Karlos Zabala

# liluramen *iz* liluratzea.

Indiako geltokietara joateak **liluramen** berezia du; bai tren eta bai autobus-geltokiek Indiaren aniztasuna eta miragarritasuna erakusten dute. Gotzon Garate

Zorionez, armadaren ametsak ni bezainbeste liluratzen zituela, eta **liluramenak** ez ziela adimena beste ezertan erabiltzen uzten, halaxe otu zitzaidan. Edorta Jimenez

Interes handiz galdetzen nion neure buruari ea non gordetzen ote zuen bere **liluramen** hura. Josu Zabaleta

# liluramendu **1** *iz* lilura buru-nahasgarria.

Gero, **liluramendutik** atera eta galdetu zion Florenti: [...]. Karlos Zabala

Ahoa bete haginez begiratu zidan, txunditurik eszena ikusezin haren aurrean, hura kontatzen nienean gizonezkoek nireganako sentitzen zuten **liluramendu** berak hartuta... "hori dun eta! oso ondo egina!", errepikatzen zuen miretsirik. Joseba Urteaga

**Liluramendua** hautsi nahi ez duenez, geldi-geldirik eta adi jartzen da, ez dadila kontaera eten. Bernardo Atxaga

Bizitzako jarrera ulertezinenak gaztetako **liluramendu** baten ondorio dira ez gutxitan. Joxan Elosegi

**Liluramendu** hartatik soil-soilik kafeteraren ziztuak itzarri ninduen. Patxi Zubizarreta

Horrelakoetan, haren begiradak fereka egiten zuen, haren ohizko seriotasunak ukitu ezin preziatuzkoa ematen zion bat-bateko **liluramendu** tresna horri. Karlos Zabala

**2** lilura adimen-nahasgarria.

Ordubetez egon nintzen neure buruari antsiaz galde eta galde ea **liluramenduren** bat izan ote nuen. Josu Zabaleta

Soldadu bat ikusi zuten, bi eskuak aurrera, elurpeko **liluramendu** hartan, elur bisutsaren astinaldiak eraginiko eldarnio hartan. Felipe Juaristi

Azkeneko ezaugarria, berriz, kezka bitxi eta estuak agertzea zen: **liluramendu** eta fixazio oso zentratu eta bortitzak. Xabier Olarra

Halako **liluramenduen** agerpena eta errituen bereganatzea [...] ez ziren gertatzen, Kannerren eta Aspergerren ustez, beste inolako eritasunetan. Xabier Olarra

Zaindariak, ordea, bat-**bateko** liluramendu hura aienaturik, egoeraz jabetu zirenean, lerroz lerroka jarri ziren, dantzariei begira. Felipe Juaristi

Flasha, ezin goragoko sentsazioa, heriotzaren mugetarainoko jolasa, Natura goitarra edo Kimika goitarra bezalako ideien **liluramendua** eta itsumena. Iñaki Segurola

# lilurapen *iz* liluratzea, lilura.

Baina Llumen zoraldiak arrastaka ninderamala konturatu nintzen eta..., eta kezkatu egin nintzen, haren..., haren **lilurapena** neurea banu bezala baitzen... Antton Olano

Nire proiektua bertan behera uzteko haren setaren atzean, asaldura sakon bat antzematen nuen, izuarekin nahastutako **lilurapena**. Joseba Urteaga

Mexikarren heriotzarekiko **lilurapena**. Berria - Kultura

Haragizko **lilurapena** etorri eta bihotzeko atea jotzen duenean. Askoren artean

# lilurarazi liluraraz, lilurarazten du *ad* liluratzera behartu.

Jende gutxi zegoen, eta denak telebistari begira, esatariaren oihuek **lilurarazi** futbol partidu baten azken minutuak irensten. Migel Angel Mintegi

# liluratsu *izond* liluraz betea.

Ilargiak eguzkitara Donostian Zinemaldiak mende erdia ospatu du aurten, sekula bezain **liluratsuago**. Herria

**liluratu**, lilura(tu), liluratzen *(orobat* ***lilluratu*** *g.er.)* **1** da/du *ad* argi gehiegiak ikusmena nahasi.

Eta oroitzen ditut, halaber, amaren hitzak, eta haren behakoa, argi ezkutu batek **liluratua** zeukana. Joan Mari Irigoien

Alfer-gurpil behin eta berrirokoan itzulika gabiltza, horra, ostera ere, temati, gau-tximeleta argiak liluratua nola. Elkarren ondotik azkar baino azkarrago igarotzen ziren argiek **liluratua**, beiraren bestaldeko munduari berria iritzi zion, irribarretsua, dirdaitsua. Haren begiradaren argiak **liluratzen** nau. Juan Garzia

• **2** da *ad* (zirrara eragiten duen zerbaitez) adimena nahasia, gogoa menderatua gertatu.

Eta gu, naturak bere aldaketak adierazteko duen indarraren aurrean, **liluratu** egiten garen bezala, nekazariak normaltzat hartzen ditu aldaketok, eta anormaltzat gu. Pako Aristi

Hurbiltasun hartan erregea are gehiago **liluratu** bazen ere, bere harridurak goia jo zuen neskatxa birjina zela ikusi zuenean. Patxi Zubizarreta

Maskorrek egin forma magikoak ikusten ditu, kaioen hegadekin **liluratzen** da. Berria - Kultura

Ez nengoen ezertarako indarrez; ez nintzen leihotik ikusten nituen argiekin **liluratzeko** gauza. Anjel Lertxundi

Aitak etorkizun etekintsua beste deus ikusten ez zuen tokian, ordea, paisaiaren ederrez **liluratzen** zen Nora. Anjel Lertxundi

Filosofiarekin **liluratu** nintzen garaian bertan hasi nintzaien lagunei-eta esaten egunen batean alemana ikasiko nuela. Joxerra Garzia

Bertzeen begiak **lilura** daitezen amoreakatik, eta arestian ikusia ahantz dezaten. Ez zaitzatela inork argudio hutsalez **lilura**, horrexegatik pizten baita Jainkoaren haserrea errebeldeen aurka. Joan Mari Irigoien

Baina ni **liluratua** zoin zen neskatxa xarmanta... Janbattitt Dirassar

• **3** du *ad* (zirrara eragiten duen zerbaitek) adimena nahasi, gogoa menderatu.

Eta, suge hilak **liluratu** balu bezala, hari beha segitu zuen denbora luzez. Joan Mari Irigoien

Damatxoren batek begikoa egingo zioan, edo nolabait **liluratu**, eta nigandik betiko bereizi dik. Juan Kruz Igerabide

Horiek dira gu limurtzen eta **liluratzen** saiatzen diren irudiak, egia eskuartean daukagunean ere. Imanol Unzurrunzaga

Grigoriren begi suhartuek, hitz goriek eta bizitzeko zuen indar izugarriak **liluratu** egin zuten Alexander Nevski monasterioko pope zaharra. J.M. Olaizola "Txiliku"

Atzaparrak zauli-zauli higitzen ditu eta txilibitutik **kobrak** liluratzeko moduko musika ateratzen da. Gotzon Garate

Edertasunak **liluratu** zaitu eta irrikak bihotza okertu. Elizen arteko biblia

Haren hitzak eta hitzaren indarrak **liluratu** egiten baininduten. Joan Mari Irigoien

Beti **liluratu** izan naute egun batean desagertzea erabakitzen duten pertsonen istorioek. Pako Aristi

**Liluratu** ordez, politikak, gaur egun, nazkatu egiten du. Txema Ramirez de la Piscina

Ez zegoen gizon hura hunkitzeko eta haren gogoa **liluratzeko** gai zen giza indarrik. Jose Morales

· Nirea baino lehen, noizbait **liluratu** zuen euskal belarria, hitz arrotz eder honen kadentzia ilun luzeak. Patziku Perurena

**4** (era burutua izenondo gisa)

Normandiarrak atsegin hartu zuen zerbitzariaren begitarte **liluratuari** begira. Karlos Zabala

Nire begi **liluratuen** aitzinean, munduko mendirik gailenak azaldu ziren elkarri kateaturik. Xabier Montoia

Eta durunda handiaren gainetik, beste uhin-luzera batean, euskaldun **liluratuaren** oihua hondakin guztietan oihartzun London osoan, Ingland osoan barreiatzen. Koldo Izagirre

Bere buruaz duen ideiaren kontenplazio **liluratuan**. Xabier Olarra

Haien ehizaki-begiratu **liluratuak**, bere herio larrian, argi asko azaldu digu dena. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**asko liluratu** (3); **beti liluratu** (6); **beti liluratu izan** (3); **betidanik liluratu** (6); **betidanik liluratu izan** (4); **erabat liluratu** (3); **zerk liluratu** (3)

**liluratua zegoen** (5)

**begi liluratuen** (3)

**mundu osoa liluratuko** (3)

**erabat liluraturik** (4); **guztiz liluraturik** (3); **hari begira liluraturik** (3); **liluraturik begiratzen** (3); **liluraturik bezala** (15); **liluraturik bezala geratu** (3); **liluraturik gelditu** (6); **liluraturik gelditzen** (4); **liluraturik geratu** (17); **liluraturik geratzen** (3); **liluraturik nengoen** (8); **liluraturik utzi** (8); **liluraturik uzten** (4); **liluraturik zegoen** (6)

**liluraturiko gizona** (3)

**erabat liluratuta** (5); **liluratuta begiratu** (3); **liluratuta bizi** (3); **liluratuta gelditu** (4); **liluratuta geratu** (16); **liluratuta utzi** (5); **liluratuta zegoen** (7); **liluratuta zeukan** (4); **zeharo liluratuta** (3)

**liluratzeko moduko** (3); **zu liluratzeko bizi** (3)

**liluraz begira** (3); **liluraz begiratzen** (3)

---

**liluratzaile** **1** *izond* liluratzen duena.

Halabeharra izango zen apika, edo bestela berriz nik garai hartan nuen begirada **liluratzailea** edota nire Citröen beltz are **liluratzaileagoaren** eragina. Bernardo Atxaga

Denok sentitzen genuen Lajosen aztikerien indar **liluratzaileak** soilik eusten ziela gure emozioei mendean. Ander Irizar

Zure begitarte xarmangarria, zure dohain **liluratzaileak**. Izan ere, jende errebelde, berritsu eta **liluratzaile** asko dago, judu-jatorrikoen artean batez ere. Elizen arteko biblia

**2** *iz* liluratzen duen pertsona.

Janes eta Jambres aztiak Moisesen aurka jarri ziren bezalaxe, **liluratzaile** hauek ere, buru usteleko jendea eta sinesmenean porrot egina baita, egiaren aurka jartzen dira. Elizen arteko biblia

Zapaterok garai bateko Suarezen itxura handia du; **liluratzaile** bat da. Berria - Euskal Herria

**3** sugeak liluratzen dituen pertsona.

Bertako jendeak ez du **liluratzaileak** ikusteko lehengo gogoa. Gotzon Garate

Nor errukituko da sugeak ziztatutako **liluratzaileaz** eta piztiengana hurbildu eta zauritua izan denaz? Elizen arteko biblia

---

**lima**[1] **1** *iz* altzairuzko lanabesa, ildoxkak edo pikortak dituena, metalak edo zura murrizteko, berdintzeko edo leuntzeko erabiltzen dena. ik **karraka**[1].

Bi **limekin** itzuli zen, bata handia eta bestea txikia. Anton Garikano

Hik ez dakik presoei ogi barruan **lima** bat sartzen zietela, ezta? Harkaitz Cano

**Lima** harturik urratu dio marrazkia potiñari eta egin dizkio ebaki estu batzuk. Pako Aristi

Altzairuzko katea **limaz** jaten hasi zen. Anton Garikano

Ez zegok **limaz** gastatzerik. Anton Garikano

Bere labana txikia eta azazkaletarako **lima** bat beste tresnarik ez zuen. Monika Etxebarria

Gizonezko batek azazkaletako **lima** sartu zion atzo bere emazteari. Berria - Euskal Herria

Fundizioko inperfekzioak lijekin eta **limekin** berrikusi eta txukuntzen dituzte horretarako prestaturiko mahaietan. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Azazkal **lima** bat hartuta lasai-lasai eseri zen zoko batean. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lima berde (3)

---

**lima**[2] **1** *iz* limondoaren fruitua, limoiaren antzekoa, baina berdea, txikiagoa eta garratzagoa.

Izotz kozkor bat eta **lima** zati bat erantsi zituen. Koro Navarro

Galtzariak ikusten uzteko eskatzen zioten eta ginebra eta **lima** hartzera gonbidatzen zuten. Koro Navarro

**2** ***lima kolore*** *iz*

Garondo aldeko mototsean, ia **lima**-kolorea zuten ile-adatsak. Mirentxu Larrañaga

· Besapean, berde **lima**-koloreko kapela zekarren. Iñaki Mendiguren

---

**limaketa** *iz* limatzea.

Pepponek **limaketan** jarraitu zuen. Koldo Biguri

---

**limar** *iz* liparra, apurra, kopuru txikia.

Gizonak belar **limar** bat hartu eta usaindu zuen. Elena Touyarou

Belar **limar** luze baten hozkatzen ari zen. Elena Touyarou

---

**limatu**, lima, limatzen du *ad* limaz jan edo leundu.

Ez duk zaila izango hau **limatzea**. Steffi Prokopek besterik esan ez eta are sutsuago ekin zion katea **limatzeari**. Anton Garikano

Parisetik trenez itzuli nintzenean, emakume bat azkazalak **limatzen** etengabe nire konpartimentuan. Joseba Urteaga

---

**limatxokon** *iz*

Toskaniarrean, atrioaren zabalera guztian zeharkatuta jartzen diren habeek kontrako beste habe batzuk izaten dituzte azpitik eusteko, eta **limatxokonak**, gainera, goitik behera datozenak paretetako angeluetatik habeen arteko angeluetara; gero, tirante bidez osatutako isurkiari esker, euri-urak hartu eta atrioaren erdira eramaten dira. Santiago Iruretagoiena

---

**limen** *iz*

Adiskidetasunetik etsaitasunerako aldaketak kultur atalase eroankor hori (**limen**) fronte militar banatzaile (limes) bihurtu zuen. Iñaki Mendiguren

Europaren lehorreko muga, Indiakoa ez bezala, gehiago izan da **limen** limes baino, eta Ural mendiak baino askoz mendebalderago dago benetan. Iñaki Mendiguren

---

**limes** *iz* erromatar inperioaren muga, bereziki Europako iparraldean.

Adiskidetasunetik etsaitasunerako aldaketak kultur atalase eroankor hori (limen) fronte militar banatzaile (**limes**) bihurtu zuen. Iñaki Mendiguren

**Limes** edo eustormaren gaineko presioa areagotu egiten da mugaz bestaldeko barbaroek "aurkari" duten zibilizazioaren teknika militarrak ikasi ahala. Iñaki Mendiguren

Ikusi dugu **limes** baten hurbiltasunak ondoeza sortzen duela mugaz bestaldean bere irispidean dauden barbaroengan. Iñaki Mendiguren

Egia esan, aro heroikoa, **limes** baten kristalizazioaren ondorio sozial eta psikologikoa da. Iñaki Mendiguren

**Limes**-aren alde barbaroan metatzen den energia psikikoa oso neurri txikian bakarrik dator mugaz bestaldeko barbaroen gizarte-ondare kaskarretik. Iñaki Mendiguren

Erromatar Inperioko europar **limes**-ean. Iñaki Mendiguren

**Limes** mehatxatuaren atzeko botereak. Iñaki Mendiguren

---

**limikola** *izond* ibaietako lohian edo lokatzan bizi dena.

Lehendik bagenekien belatzaren elikagaien %10,2 hegazti **limikolak** eta itsasokoak direla. Berria - Euskal Herria

---

**limistatu**, limista, limisatzen du *ad* milikatu.

Larrutan egiten genuen bitartean, tarteka musu eman eta tarteka titiburuak **limistatzen** zizkidan. Aitor Arana

---

limit ik **limite**.

---

**limitazio** *iz* zerbaiten edo norbaiten garapena mugatzen edo eragotzen duen gauzaren nolakotasua.

Merkatu askea tresna efikaza da, baliabideak esleitzeko **limitazioak** dituen arren. Iñaki Heras

---

**limite** *(orobat **limit**)* **1** *iz* muga.

Mugetako **limiten** gainetik sortu eztabaiden balakatzea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Edozein makinak, zioen, **limite** zeharkaezina dauka. Fernando Morillo

Behatutako kasuen kopurua txikia denean, ezin da bermatu indukzioaren metodoa **limitera** ailegatuko denik, gutxieneko **limitea** zein den ez dakigulako. Askoren artean

Indukzioa erabiliz, zerbait baieztatu ahal izateko gutxieneko **limite** bat ezagutu behar dugu. Askoren artean

Sistema hauek [...] diskurtsoan bertan dautza, edo gehiago oraindik [...] bere mugan, bera den moduan existiarazten duten arau bereziak definitzen diren **limitean**. Xabier Arregi

**2** balio finkoa, zeinetara jotzen baitu, hiru iritsi gabe, zenbaki sail infinitu bat,

Matematikako **limite** nozioarekin analogia bat eginez. Askoren artean

---

# limo 1 *iz* ibaietako lohia.

Eszilaxek dio Zernez harantzago itsasoa ez dela nabigagarria, han hondo gutxikoa delako, **limoz** eta itsas belarrez betea; halaxe da, asko dago horietarik eskualde hartan. Iñaki Iñurrieta

**2** irud/hed

Erleek loreetan ez bezala jokatzen ari zitzaion Andreas: neskaren barne-muinetako lore-hautsa jaso ordez, mutilaren musuek kezkak eta larridurak oro irentsarazten zizkioten Norari, gero eta atseden-**limo** eztiagoari tokia egiteko. Anjel Lertxundi

---

# limoi 1 *iz* limoiondoaren fruitua, laranjarenaren antzekoa, baina horia eta hura baino garratzagoa.

Zortzi urterekin, **limoiak** saltzen hasi zen. Karlos Zabala

Labana bat erabiliz, **limoia** zuritu eta azal pixka batez igurtzi zuen edalontziaren ertza. Bai, **limoi** zurrupatuak ziren bihotz eta amodio kontuak. Josetxo Azkona

Haiek ondo-ondo irabiatu ondoren **limoi** arrailatua nahastuko zion. Pako Aristi

Autoan zure perfumearen **limoi** lehorra beste zerbaitekin nahasi da. Lourdes Oñederra

Sagarrak eta madariak, **limoi** berantiarrak eta mahaspasak. Edorta Jimenez

**Limoia** pontxean bezain erreak bukatu genuen ia. Karlos Zabala

**2** limoi zukua.

Edateko, berriz, garagardoa **limoi** freskagarriarekin. Berria - Kirola

Esnea amaiturik teak **limoiaz** behar zuen nahi eta nahi ez. Joxemari Iturralde

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Limoi** tea eskatu zuen. Joxemari Iturralde

Bikarioaren emazteak **limoi**-edaria ekartzen zigun Zu hurbiltzean, perfume sakon baten **limoi** usainak usaimena baino barruragoko zerbait ukitu dio Luisi. Mirentxu Larrañaga

Eguna joan ahala, **limoi** azal eta oliba hezurrekin nahasiko zen zerrautsa. Lander Garro

**Limoi** pusketa hartu eta aizto txiki batez bi zatitxo egin zituen. Joxemari Iturralde

Merkatu nagusiaren inguruetako bankuetan hainbat saltzaile esertzen ziren, **limoi** saski banarekin. Karlos Zabala

Etxabean **limoi** eta laranja biltegi bat zegoen. Karlos Zabala

Gero, azukrea jarri ondoren, rona isurtzen zuen tantaz tanta **limoi** xerraren gainean, urarekin ez nahasteko moduan. Karlos Zabala

**3** ***limoi arbola*** limoiondoa.

Lorategian ezpelak, erramuak, **limoi** arbola. Pablo Sastre

Herrialde beroak ikusi nahi nituen, non fama baita olibondoak eta **limoi**-arbolak hazten direla. Juan Garzia

**4** ***limoi koloreko*** *izlag*

Horrelakoak ziren koadro guztiak, esan zuen, berde eta grisak, **limoi** koloreko belauntziekin, eta emakume arrosekin hondartzan. Anton Garikano

**5** ***limoi-ur*** *(orobat **limoiur** g.er.)* limoi zukua.

Gerezi-konpota, **limoi ura** eta koñaka agerian saltzen. Felipe Juaristi

**Limoi ur** hotza emakumeentzat prestatua. Felipe Juaristi

Safok, bere eskuez hartu zuen maitalea eta jendetzatik aparte eraman, taberna batera, **limoi-ura** kanelarekin hartzeko. Felipe Juaristi

Zazpi basokada **limoi ur** koñakarekin nahasturik edanak zituen. Felipe Juaristi

"Campary" bat, **limoi-ur** tanta zenbaitez bataiatua. Aingeru Epaltza

· **Limoi** erdiaren **ura**, gatza, eta olioak olibarena behar du izan Pako Aristi

**6** ***limoi-zuku***

Ur berozko poltsak, **limoi** zukua eta termometroa bi orduz behin. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **limoi ur** (13); **limoi ura** (12); **limoi uraz** (3)
>
> **laranjak eta limoiak** (22); **limoiak kantari** (4); **limoiak kantatzen** (4); **limoiak kantatzen hasi** (3)
>
> **limoizko zurrupaki** (3)

---

# limoikume *iz adkor* limoi txikia.

Bi **limoikume** dakartza bueltan. Jokin Urain

---

# limoiondo *iz* laranjondoaren familiako zuhaitz txikia, lore arrosa usaintsuak dituena, fruitutzak limoiak ematen dituena *(Citrus limon)*.

**Limoiondo** zabal hostotsu baten azpitik. Felipe Juaristi

Valentzia aldean erabat galdu ziren laranjondo eta **limoiondoak**. Pello Zabala

Inguru guztian, haranaren sail lauetan, mahastiak eta **limoiondo** lerroak ageri ziren. Bernardo Atxaga

Olibondo eta **limoiondo** sailak ere suntsitu dituzte israeldarrek, lekukoen arabera. Berria - Mundua

Kartagon ere bada iturri bat, gainean koipe moduko bat izaten duena igerian, eta **limoiondo**-azalaren antzeko usaina duena. Santiago Iruretagoiena

---

limoiur ik **limoi 5**.

---

# limonada 1 *iz* limoi zukuarekin, urarekin eta azukrearekin egiten den edari freskagarria.

Gure ogitartekoa jan, **limonada** edan eta txantxetan aritu ginen. Baso bat **limonada** goraino bete eta eman zion. Kanape garraztuekin eta **limonada** gezarekin. Josu Zabaleta

**Limonada** batera gonbidatuko haut. Alberto Ladron Arana

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiru **limonada**-botila ireki zituen. Irene Aldasoro

Zalantzarik gabe, on egingo lioke **limonada** trago batek. Patxi Iturritegi

Alepo herrian, sorgortuta zegoela nik ikusitako **limonada**-saltzaile batek Gabriel goiaingerua zela uste zuen. Anton Garikano

---

# limosna

**1** *iz* karitateak bultzaturik ematen den dirua edo zernahi gauza.

Apaiz zikoitz batek galdetu zigun ea norentzat ari ginen biltzen **limosna**. Aberastasun egarriak eta negozioaren ardurak preso hartuta, ukatu egin zion **limosna**. Pello Lizarralde

Ate ondoan **limosna** eske. Jesusen elizara eta Montserratekora joan ohi zen **limosna** eskatzera. Josu Zabaleta

Etxeko andrea, bota egizu **limosna** on bat zakura. Pello Zabala

-Har beza hori berorren elizarentzako **limosna** gisa. Juan Garzia

Karlos Ohandok, Martinen amari baserria **limosna** moduan utzen zion familia aberatseko semeak. Koro Navarro

**2** ***limosna egin***

Eta **egin** dezagun **limosna**, limosnak garbitu egiten baititu arimak bekatuen zikinetatik. **Limosna egiten** zuelako libratu zen Ahikar Nadabek hil nahian jarri zion tranpatik. Askoren artean

Erakutsi zeuen seme-alabei zuzen jokatzen eta **limosna egiten**. Elizen arteko biblia

· Erruki egintza eta **limosna** asko **egiten** zuelako. Jose Antonio Mujika

**Limosna** ugari **egin** izan diet nirekin batera Ninibeko erbestera ekarri zituzten ahaide eta herritarrei. Jose Antonio Mujika

**3** ***limosna eman*** limosna egin.

Ea bidezkoa zen lapurrei **limosna ematea**. Askoren artean

**Limosna emateari** uko egiten dionarentzat. Elizen arteko biblia

Karitatea egitea **limosna ematea** da, eta elkartasuna, aldiz, indarrak batzea, helburu jakin baten alde egiteko. Berria - Gaiak

Ohi zuen baino eskuzabalago eta oparoago **emango** zuela **limosna**. Askoren artean

· Handik aurrera, begi onez ikusten zituen behartsuak eta **limosna** ugari **eman** ohi zien. Askoren artean

Oso karitategileak zirela, **limosna** handiak ematen zituztela eta miseria asko konpontzen zituztela. Josu Zabaleta

**4** ***limosna ontzi*** elizetan eta, limosnak botatzen diren ontzia.

**Limosna** ontzi bat zeraman gerrian giltzarrapoz itxia, elizetako pilareetan esekita daudenak bezalakoa. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **emaguzue limosna** (4); **emaiozue limosna** (3); **eman limosna** (3); **eskatu limosna** (3); **hartuko dute limosna** (3); **limosna asko** (3); **limosna bila** (38); **limosna egin** (3); **limosna egiten** (3); **limosna emaile** (3); **limosna emaile handiak** (3); **limosna eman** (5); **limosna ematea** (8); **limosna ematean** (3); **limosna emateko** (4); **limosna ematen** (7); **limosna eskatu** (14); **limosna eskatu zion** (6); **limosna eskatuz** (3); **limosna eskatzea** (6); **limosna eskatzeaz** (4); **limosna eskatzeko** (6); **limosna eskatzen** (11); **limosna eskatzera** (9); **limosna eske** (54); **limosna gehiago bildu** (4); **limosna gisa** (3); **limosna ugari** (3)
>
> **bildutako limosnak** (4); **emandako limosnak** (6); **limosnak eginez** (3)
>
> **limosnatik bizi** (4)

---

# limosnagile

*iz* limosna egiten duen pertsona.

**Limosnagile** handi den Jainkoak, gauza guztiak bere esku dituenak, bere mahaira gonbidatzen gaitu. Askoren artean

Izan ere, Jainkoaren zerbitzariak, limosna eskatzean, Jainkoaren maitasuna eskaintzen die saritzat **limosnagileei**. Askoren artean

---

# limosnagintza

*iz* limosna egitea.

**Limosnagintzan**, Frantziskok gehiago begiratzen zion arimen irabaziari, gorputzeko mantenuari baino; eta bai ematean eta bai hartzean, eredu izan nahi zuen besteentzat. Askoren artean

---

# limosnatxo

*iz* limosna txikia; *adkor* limosna.

Hago; emango diat **limosnatxoa**. Juan Kruz Igerabide

Jainkoaren maitasunagatik **limosnatxo** bat eskatzen ziola. Askoren artean

Jauna, **limosnatxo** bat umezurtz honentzat! Jose Morales

Erromestasun gorrian, **limosnatxoren** bat eskatzen. Gotzon Garate

Etxeetan, txirrina jo eta gero, hauxe esan behar zen: **limosnatxo** bat Jainkoaren izenean, nire ama erotu egin da eta. Pello Lizarralde

---

limousina ik **limusina**.

---

# limpiaparabrisa

*iz* parabris-garbigailua.

Ez al daukate zure begiek **limpiaparabrisarik**? Karlos Linazasoro

---

limur ik **limur**i.

---

# limurgaitz

*iz* limurtzen zaila, ia ezin limurtuzkoa.

Beharbada, horrela jokatu zuten **limurgaitzak** direlakoa egiten duten dama horietako batzuek. Jose Morales

Zaintzaile **limurgaitz** gogorra. Juan Garzia

---

# limuri

*(orobat* ***limur*** *g.er eta* ***linburi****; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***limuri*** *agertzen da)* **1** *izond* labaina, irristakorra.

Emakumeak izaki isurkariak dira eta, bareak bezala, lorratz **limur** bat uzten dute iragaiten diren lekuan. Joxean Agirre

Lurra, berriz, berehalaxe lokatz bihurtzen da edozein ekaitzen ostean [...]; lokatz ez ezik, ernaminez beteriko ustelkeria ere bai, baselina bezain **limuri**, eta putzuek egunsentiko argipean odol zikinezkoak dirudite, hileko-odoldunak, arrabioz beteriko istilak, buztan dardartizko burubeltzez irakiten, espermatozoozko borbortegiak balira bezala, hots, gauza izugarria... nazkagarria benetan. Joxe Austin Arrieta

Baldin tentamenduaren lur **linburietan** labaintzen eta linburtzen banintzen. Joan Mari Irigoien

**2** (adizlagun gisa)

Behatu nionean, malko bat ikusi nion osaba Joanikoti, masailetan behera **linburi**. Joan Mari Irigoien

**3** lizunkeriazkoa.

Alde zaharreko kaleetan gora, taberna batzuetako ateen orpoetan emakume lotsagabeek irribarre **limuriak** eskaintzen dizkizute. Pako Aristi

---

# limurkeria *iz* lizunkeria, lohikeria.

**Limurkeria** hitzak apaiz usaina du eta lizunkeriarik gabekoak ere izan daitezke piropoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nire arreba txikia aldizkari porno batean **limurkerietan**. Oskar Arana

Hatz luzea **limurkeriaz** miazkatzen zuen, atzera-aurrera astiro mugituz ezpain mamitsuetan. Migel Angel Mintegi

Zaila zen, abesti hura entzutean, zenbait korista ez ekartzea gogora, gerriari **limurkeriaz** eraginez. Koro Navarro

Polly, jakina, ibiltzen zen **limurkerietan** mutilekin, baina Mooney andreak, epaile maltzurra izanik, bazekien mutilak denbora-pasa bakarrik ari zirela, haietako inork ez zuela asmo seriorik. Irene Aldasoro

Durant jauna alboratu egin zen **limurkeriaz** eta lehendabizi sartzen utzi zion neskari. Mirentxu Larrañaga

· Burduntzi-arrak, susmo txarrak dituelako edo, eme leialak nahi ditu, ez du arinkeriarik edota **limurkeriarik** onartzen, eta emea menpean hartzen jarraitzen du. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# limurketa *(corpusean **linburketa** soilik)* *iz* limurtzea.

Eta horregatik hasi zinen **linburketa**-saioekin? Xabier Olarra

---

# limurki *adlag* limurkeriaz, lizunkeriaz.

Elkarri begira egon ziren une luze batez: Teresa **limurki**, Maiza errezeloz. Migel Angel Mintegi

---

# limurkortasun *(corpusean **linburkortasun** soilik)* *iz* limurtzeko joera duenaren nolakotasuna.

**Linburkortasunaren** erronka. Patziku Perurena

---

# limurtasun **1** *iz* besteren nahia bereganatu edo zerbait egitera bultzatzeko ahalegin zuria.

Izan ere, aspalditik saiatzen ari ziren Turkestango tatariarrak eta batik bat Bukhara, Kokand eta Kunduzeko khanerrietakoak bai indarrez bai **limurtasunez** kirgizen herriak Errusiaren mendetik ateratzen. Karlos Zabala

-Nahi baduzu, taxi bat har dezakegu -mintzatu zitzaion gizona, **limurtasunez**-. Patxi Zubizarreta

Begiak pizturik alaitasunezko eta **limurtasunezko** olde hantu batez, uzkurtasun edo arrangura arrastorik ere gabe. Oskar Arana

**2** sentsuen atsegina, atsegalea.

Baina gizon hark desio zuen, eta horrek neskaren bihotzean zirrara eta mirespena pizten zituen, hain zuzen ere polo magnetiko batek bezalatsu erakartzen zuen **limurtasunezko** plazerarekin batera. Patxi Zubizarreta

Bien bitartean, moteldurik sentitzen zuen haxixa nola liseritzen zen bere baitan, haren **limurtasunean** abandonatua. entzutetsuak ziren senarrarekin, haren **limurtasuna** zela eta, izaten zituen liskarrak. Patxi Zubizarreta

Dantzariak zalutasun bateratuan kulunkatzen dira, baina inspiraziorik gabe, suhartasunik gabe, grinarik gabe, **limurtasunik** gabe. Koldo Izagirre

---

# limurtu, limur, limurtzen *(orobat **linburtu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **limurtu** agertzen da)* du *ad* **1** da *ad* irristatu, labaindu.

Platertxoa belaunen artean **limurtu** zitzaion, lurrera erori eta puskatu egin zen. Lopez de Arana

Pantxo etzanda jarri zen lurrean, eta harkaitz barrura **limurtu** zen. Bernardo Atxaga

Hatzen artetik, miligramo hauts guti batzuk **limurtu** zitzaizkion behar baino lehenago, madarikazio eztanda bat sorraraziz. Aingeru Epaltza

Baldin tentamenduaren lur linburietan labaintzen eta **linburtzen** banintzen. Joan Mari Irigoien

Aizkora, egurra ebaki ordez, **limurtu** egiten zitzaion kolpe bakoitzean. Pako Aristi

Aingira bat bezain erraz **limurtzen** dela kontsolamendua esku artetik, eta arrantzalearen esku hutsek atsekabea irudikatzen dutela. Imanol Zurutuza

Eta, begietan beheiti purpuila batzuk **linburtzen** zitzaizkiola, erran zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed ik **lerratu**.

Gurbiltasunaren legeak utzi zidan bezain laster, laboratoriora **limurtu** nintzen. Juan Garzia

Eguzkia gortinen azpitik **limurtzen** zen bulegoan. Lopez de Arana

Loak eta koltxoiek isuritako usain txarra **limurtzen** zen leiho estuekiko etxeetatik. Lopez de Arana

Azkenean, izaren **artean** limurtu zen, amiñika-amiñika, oheko oholtxoek kirrinkarik egin ez zezaten. Lopez de Arana

Nola ahaztu kazetari batzuen eta ezkerreko intelektualen eldarnioak, beren ideologiak itsubidera ekarriak, arrazoimenari uko eta pentsamenduaz beste egitera hain lotsagarriro **limurtuak**? Juan Garzia

Horrela, nahi gabe, oharkabean kasik, gure geografia plastikozko egiten da, gelatina xaflak balira bezala **linburtzen** dira egunen poderioz auzoak, herriak, eskualdeak espikerraren ezpainetan. Iñigo Aranbarri

• **3** (du ad gisa)

Begiak ondoko emakumearen sorbalda gurietan behera **limurtu** zituen. Lopez de Arana

**4** du *ad* norbaitek besteren nahia bereganatu; norbaitek beste norbait bairatu.

-Markako bakeroak, inoiz baino merkeago, hiru biren prezioan! - eta antzekoez **limurtu** guran erosleak. Urtzi Urrutikoetxea

«Bezeroak **limurtzeko** topagune» bihurtu dira azokak. Berria - Ekonomia

Agure batek urtxintxa bat **limurtu** nahi zuen poltsa bateko kakahueteak jan zitzan. Lopez de Arana

Hirugarren mailako letretako gure taldean, ordea, lortu egiten zuten ikasleak **limurtu** eta manipulatzea. Xabier Mendiguren Elizegi

- **Limurtu** ezazu senarra, eta emaguzu jakitera erantzuna. Jose Antonio Mujika

Uste dut Ivyk nik neure burua gorrotatzea besterik ez zuela nahi, eta horretarakoxe **limurtu** ninduela, hain zuzen ere, neure burua gorrota nezan. Joxe Austin Arrieta

Horiek dira gu **limurtzen** eta liluratzen saiatzen diren irudiak. Imanol Unzurrunzaga

Hurrengo, politikak **limurtu** zuenean, gure begi-bistatik desagertu zen. Ander Irizar

Egiaren itxurako iritziak iruzur egin ez diezagun, hitzaldi **dotoreak** limurtu ez gaitzan. Imanol Unzurrunzaga

Gauza bati begiratzen diozu, eta, poliki-poliki, **limurtu** egiten zaitu, nahastu egiten zaitu [...], emakume baten aurpegia balitz bezala. Josu Zabaleta

**5** seduzitu.

Nagusiaren alabak, ederretan ederra, ezkutaria **limurtu** nahi izan zuen, bere ahots eztiarekin galderatxoak belarrietara irristatuz. Juan Kruz Igerabide

Neska gustatu egingo zitzaioan eta **limurtu** egin zian. Patxi Zubizarreta

Bere burua eskainiz, neskatoak berriro **limurtzen** zuen Egutxi. Ibon Uribarri

Deabruak **limurtu** zuen, eta galbidean ipini. Patxi Zubizarreta

Bere "armak" erakusten ari den indioilar baten antzera indioiloa **limurtzeko** erritoan. Juan Kruz Igerabide

Baina nor **limur** dezaket nik zuldar zorne-kirats hauekin? Anjel Lertxundi

Miresgarria dela zein ongi dagoen bere adinerako, bere larruazal belztuarekin eta bere gorputz mehearekin **limurtzeko** gauza dela oraindik. Monika Etxebarria

---

# limurtzaile **1** *izond* limurtzen duena.

Aspalditik erabilitako froga-oinarrien pisuaren indar **limurtzailea**. Ibon Uribarri

Ahotsa apur bat karrankaria zen baina gainontzean oso atsegina, **limurtzailea**, ia liluragarria. Urtzi Urrutikoetxea

Gazte ttiki bat, makala, atsegina, ahots **limurtzailekoa**. Fernando Rey

Gehien bat bere begi ikusgarriak nabarmentzen zitzaizkion, beltz baino beltzagoak eta **limurtzaileak**. Patxi Zubizarreta

Musikaren erritmo bero eta **limurtzailearekin** batera. Joxemari Iturralde

Eskote **limurtzaileak**, ageriko bizkarraldeak, ezer gutxi ezkutatzen duten oihal arinak...Montse sentsuala zen, **limurtzailea** zen, lizuna zen, fantasia bera zen... Patxi Iturritegi

**2** (adizlagun gisa)

Ahotsak entzun ziren berriro, eta gizonaren ahotsak berriro eten zituen, artaziek zetazko haria mozten duten bezala, **limurtzaile** eta gazte. Jose Morales

• **3** *iz* limurtzen duen pertsona.

Eta zer esan Hank Miller-ez, unibertsitateko futbol taldeko atzelari eta emakume ospetsuen senior mailako **limurtzaileaz**. Oskar Arana

Begirada erakargarri hori, aldi berean inguratu eta biluzten duena, **limurtzaile** petoaren begirada hori. Eduardo Matauko

**Limurtzaile** ona izaten jakin behar da [...], magia pixka bat egiten jakin behar da gau bateko babesa lortzeko. Xabier Paya

---

# limurtze *iz* labaintzea; bairatzea; seduzitzea.

Lausengua, laidoa, **limurtzea** ... imintzio eta keinu etengabea. **Limurtzea** zen orain persuasiorako bidea, sedukzioa alegia. Xabier Mendiguren Elizegi

Lau hanka haiek bi izan balitu baino askoz ere **limurtze** indartsuagoaren sentsazioa utzi zioten. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> limurtze soila (3)

---

# limusina *(orobat **limousina** g.er.m, **limousine** g.er.)* **1** *iz* luxuzko automobila, luzera handikoa.

Nik **limusinak** pelikuletan bakarrik nituen ikusita, eta sartu nintzenean erreginaren pare sentitu nintzen. Juan Martin Elexpuru

Joseph Blatterrek, sekula baloirik jo ez duena baina zortzi metroko **limusinetan** gidari beltzekin dabilen FIFAko burokratak. Berria - Kirola

Packard **limusinaren** barruan eserita, Cynthia liburu bat irakurtzen ari zen. Lopez de Arana

Zoriaren halabeharrez, akaso, ez zuen inork begiratu **limusina** barrura. Mirentxu Larrañaga

Haien atzean, **limusinak**, turismoak, ibilaldi turistikoetarako autoak eta sedanak herrestan zebiltzan, sigi-saga errepidean zehar. Arrakasta handia izaten ari da Renault Logan, 'pobreen **limusina**'. Lopez de Arana

**Limusinak** alokatzeko enpresa bat ere zuzentzen du. Berria - Kultura

**2** antzinako zalgurdia, atzeko aulkia estalia eta aurrekoa estaligabea zuena.

Hurrengorako zaldi zuriek eramandako **limusina** bat alkilatuko dut. Iñaki Zabaleta

---

# linazi *iz* lihoaren hazia, margoak egiteko erabiltzen den olioa ematen duena.

**Linazi** -olioa emanda daude. Pablo Sastre

---

# linbiko *izond* sistemaz mintzatuz, emozioak gobernatzen dituen burmuineko egitura batzuek, hipotalamoa eta hipofisia barne, osatzen dutena.

Hormonak aske dabiltza, neuronen zirkuituak hiperaktibatuta daude eta burumineko plazeraren guneek ( **sistema linbikoa** ) plazera eta atsegina ematen diguten deskarga elektrikoak jasotzen dituzte. Luis Elberdin

Garuneko "emozio-zirkuituen" ahuleziaz duen ideiari atxikitzen zaio, ordea, eta berekiko dauka zirkuitu horiek, filogenetikoki zaharrak diren garuneko emozio-aldeak - **amigdala eta** sistema linbikoa- baliagarriak izan daitezkeela kortex prefrontaleko alde garatu berriekin eta gizakiaren ezaugarri espezifikoak dituzten aldeekin lotzeko Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> sistema linbikoa (3)

---

# linbo **1** *iz* kristau erlijioan, zintzoen arimen egoitza Jesu Kristoren berrerospenaren aurretik; bataiatu gabe hildako haurren egoitza.

**Linbo** moduko batean egona zen aldi batez. Xabier Olarra

Eta nire heriotzako egunean nik, **linbora** jaitsi eta han aurkitu nituen arima guztiak zauri hauen bitartez handik atera nituen bezala. Askoren artean

**2** ongi zehaztu edo mugatu gabeko eskualdea edo egoera.

Ez zeru eta ez infernu, minaren sentipenak eta plazerarenak nahasten diren **linbo** badaezpadakoa begitandu izan zaio beti bizartegia. Harkaitz Cano
**Linbo** moduko batean egona zen aldi batez. Xabier Olarra

---

**linbotiko** *izond* linboari dagokiona, linbo-.
*Knockin' On Heaven's Door* ere ez, jakina, paradoxikoegia litzateke gure egoera **linbotikoan** ... Harkaitz Cano

---

linburi ik **limuri**.

---

linburketa ik **limurketa**.

---

linburkortasun ik **limurkortasun**.

---

linburtu ik **limurtu**.

---

**lindano** *iz* belar-hiltzaile eta intsektu-hiltzaile gisa erabiltzen den hauts zuri pozoitsua.
2.500 tona **lindano** horiek Barakaldoko [...] Argalario mendiko **lindanoa** gordetzeko gunera eraman zituzten. Berria - Euskal Herria
1995. urtean **lindanoa** garbitzeko baimena eman zuten Jaurlaritzako Ingurumen Saileko arduradunek. Berria - Euskal Herria
**Lindanoz** kutsatutako gune hori garbitzeko. Berria - Euskal Herria

---

lindirgatsu ik **lingirdatsu**.

---

**linea** **1** *iz* garraio zerbitzu baten ibilbidea; zerbitzu hori bera.
Tranbiaren bagoiari begiratzen zion, autobusari; **linea** bat aukeratzen zuen, ez non eta ez han. Anton Garikano
S (gaur 84) **lineako** autobus ia bete bateko atzeko plataforman. Xabier Olarra
Metroan eleberriak soilik irakurtzen dituzu, eta ez **linea** guztietan. Lutxo Egia
Bilboko metroak, egun, bi **linea** ditu. Berria - Euskal Herria
**Linea** urdin iluna hartu du trenaren zain egon beharrik izan gabe. Eider Rodriguez
Tren geltoki horrek beste **linea** guztiekin eduki behar du lotura. Berria - Harian
AHT **lineak** egitea eta **linea** zaharra merkantzien garraiorako uztea. Berria - Euskal Herria
Aturriko bokalean ainguratua zegoen **lineako** ontzi bat ikustera joan ginen behin. Koldo Izagirre
Super-Constellation-a genuen hegazkina, **linea** hartan ohi bezala. Joxe Austin Arrieta
**Linea** beretan izan ginen pilotu. Josu Zabaleta
Beste asko autoz, trenez eta **lineako** autobusetan etorri dira. Berria - Euskal Herria
**Lineako** transatlantiko bateko mediku-posturako lehiaketan. Juan Garzia
**2** energia edo seinale elektrikoa eroaten duen kable sistema.
Goi tentsioko **linea** eten zuen atzo Espainiako Sare Elektrikoak. Berria - Euskal Herria
**Linea** horren bitartez garraiatzen da Frantziak Espainiari saltzen dion argindarra. Berria - Euskal Herria
Antzaren hegada **linea** elektrikoen gainetik. Koldo Izagirre
Aspaldidanik ezarri zuten Chicagora arteko telefono-kableen **linea** . Mirentxu Larrañaga
Friedelen zenbakia markatu nuen, baina **linea** hartuta zegoen. Koro Navarro
Sateliteko telefonoa hartu zuen, Pentagonoarekin **linea** zuzena lortzeko. Fernando Morillo
Lehen parte-hartzaileei proiektuko arduradunek jarriko dizkiete ordenagailua, kamara eta ADSL **linea** . Berria - Gaiak
**3** lerroa.
Abstraktiko pintura harrigarriak, eta Chantal Guillet-ren **linea** borobiletan legundu eskultura goxoak. Herria
-Kaixo, baliente, primera **linean** ? Iñaki Iñurrieta
Ahotsaren **linea** melodikoa. Berria - Kultura
**4** joera, ildoa.
poliziek eta Corroye epaileak U Ribomburen **linea** editoriala dutela jopuntan jarri eta FLNCren ekinbidea ez kondenatzea leporatzen diote. Berria - Mundua
**Linea** kontserbakorra daukagu bestetik: Iraultza Frantsesak berehala izan ditu gisa honetako behatzaile eta analistak, Tocqueville bat Frantzian, Burke Ingalaterran, L. von Stein Alemanian. Joxe Azurmendi
Aldizkariaren **linea** . Xabier Mendiguren Elizegi
Traizioraino bezain leiala **linea** ofizialarekin. Joxe Austin Arrieta
**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)
Ez daki bere helmugara iristeko **linea** konbinazioa zein den. Eider Rodriguez
**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)
Donostia eta Baionaren arteko tren **linea** baten sortzeko egitasmoa. Berria - Euskal Herria
Autobus **linea** berriak Trintxerpe, [...] eta Larratxoko bizilagunei ordu oro Donostia erdugunera gerturatzeko aukera ematea du helburu. Berria - Euskal Herria
Donostia-Bilbo tren **lineako** Mallabiako geltokian. Berria - Ekonomia
Hegazkin **linea** batzuk beti zaintzapean. Berria - Mundua
Mexico DF eta Monterreyko hainbat metro- **linea** . Berria - Ekonomia
Bakoitzak bere telefono **linea** izatea ere pentsatu genuen. Patxi Zubizarreta
Argindar **linearen** babes eremua garbitzeko. Berria - Harian
Telefonisten ordezko lana egiten duten telefono **linea** digitalak. Iñaki Heras

Posta **lineak** sortzea. Josu Zabaleta

Ornamentazio justua eta kantu **linea** dotorea. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **linea berri** (4); **linea berriak** (5); **metroaren hirugarren linea** (3); **prima linea** (4); **s linea** (3); **telefono linea** (13)
> **telefono lineak** (5)
> **lineako autobus** (12); **lineako autobus batean** (3); **s lineako autobus** (9)
> **linearen beste aldean** (3)

---

# lineal 1 *izond* lerroari dagokiona, lerro zuzena bezalakoa.

Baina altxor baliotsuena barruan dago: 3.500 metro **lineal** informazio. Berria - Kultura

Minoiko Ertain II-tik Minoiko Ertain III-rako trantsizioan bi idazkera hieroglifiko banatu, aurreko denboraldiaren hasieran aldi berean agertu zirenak, bat-batean eta erabat ordeztu zituen beste idazkera **lineai** batek (A Linealak) 14. "B Lineal" idazkera minoikoa. Iñaki Mendiguren

Perspektiba **linealaren** legeak aski bakunak dira geometriaren ikuspegitik, eta ongi ezagutzen dira. Josu Zabaleta

Zenbat aldiz errepikatzen den unitate hori [...] edo errepikatuz formatu diren kateak **linealak**, adarkatuak edo elkarren artean lotutakoak ote diren. Berria - Gaiak

Kasu guztietan, erreakzio-kate **linealak** ditugu, hots, sekuentzia batzuk, non urrats bakoitza entzima espezifiko batek katalizatzen baitu. Juan Garzia

Hala ere, ez dago bide **lineal** bat logikaren historia osoan zehar. Askoren artean

Ikuspegi berrian, mundu biziaren egitura ez da jada **lineal** eta jarraitua, baizik, aitzitik, ez-lineal eta etena. Juan Garzia

## 2 adarrik edo itzulingururik ez duena.

Kontaketa **lineala** da, hirugarren pertsonan egina, eta urtearen aroekin batera egiten du aurrera. Berria - Kultura

Ez, nire idazteko modua ez da **lineala**, ez eta nobeletan ere. Ana Urkiza

Ez dut dedukzio **linealaren** bidez jokatzen, zirkulu zentrokideen bidez baino. Xabier Arregi

Elkarren ondoan, elkarren segidan, bata bestearen gainean jartzen diren edo eskema **lineal** batera murriztu ezinik gurutzatzen diren sail ezberdinen bereizketa. Xabier Arregi

## 3 lerro zuzen baten bidez irudika daitekeen aldakuntza duena.

Soldaten 100 euroko igoera **lineala**. Berria - Ekonomia

KPIren gainetik 600 euroko soldata gehikuntza **lineala**. Berria - Ekonomia

Progresoaren ideia ez dago zergatik esplikatu derrigor eskala **linealetan**. Joxe Azurmendi

Sarritan datuak estimazio **linealetan** oinarritzen baitira. Iñaki Heras

Muskulua, funtsean, motor **lineal** bat da, tenperatura baxuko erregai-pila batek darabilena. Irene Aldasoro

Prozesu gutxi-asko **lineal** eta jarraitu bat, proteinen zer-nolakoa aldarazten zuten mutazioen ondoriozkoa. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **perspektiba lineala** (4)

---

# linealki *adlag* lerro zuzenaren arabera; adarrik edo itzulingururik gabe.

Hainbat direla aztertu beharreko faktoreak, eta ez gainera **linealki**, [...] baizik eta alde desberdinak oro har aztertuz. Iñaki Heras

Bi elementu, bata **linealki** zuzendua eta bestea nota musikal bakoitzak dituen harmonikoez baliatuz gora eta behera eratutako glissando efektua. Berria - Kultura

Hasieratik garatuz doa **linealki**, mailaz maila sistema osoa. Imanol Unzurrunzaga

---

# linealtasun *iz* lineala denaren nolakotasuna.

Zatika kontatzen du, eta ez dago **linealtasunik**. Berria - Kultura

Hizkuntzaren **linealtasuna** dela eta, baztertua geratzen da erabat bi elementu batera ahoskatzeko aukera. Isabel Arrigain

Gauza horiek guztiak ez daitezen metatu mordo amorfo batean, ez daitezen inskribatu etendurarik gabeko **linealtasun** batean. Xabier Arregi

Hirurogeita hamarreko urteetan, ordea, pitzatzen eta zartatzen hasi zen jarraitutasun eta **linealtasun** hori. Juan Garzia

---

# linfa 1 *iz* isurkari organiko koloregabea, odolaren eta ehunen arteko harremanen bitartekari gertatzen dena.

Gorputzeko fluidoetariko bat **linfa** da; odolaren isla lauso bat da **linfa**: odol-plasmaren itxurako likido bat, funtsean. Irene Aldasoro

**Linfaz** edo esne epelez beterik nengoela iruditzen zitzaidan. Monika Etxebarria

## 2 irud/hed

Uretan disolbaturik baitago, edo zuzenago, mahatsaren **linfan**. Juan Garzia

## 3 (hitz elkartuetan)

**Linfa**-sisteman sortzen den minbizi mota bat da Hodgkinen gaitza. Berria - Gaiak

---

# linfatiko 1 *izond* linfarena, linfari dadokiona.

Hodi-sare konplexu bat da sistema **linfatikoa**, zain eta arterietatik hurbil dagoena. Irene Aldasoro

Larbek gizakiaren sistema **linfatikoa** erasotzen dute, eta bertan hazi eta ugaltzen dira. Berria - Gaiak

Nodulu **linfatikoak** ehunezko kozkor batzuk dira, gorputzaren leku askotan daudenak. Irene Aldasoro

## 3 irud/hed

Ez dut nahi integra nazaten, ez eta nire odol gorri ederra piztia **linfatiko** hori gizentzera joan dadin. Monika Etxebarria

---

# linfoblastiko *izond* leuzemiaz mintzatuz, minbizi akutua, linfa zeluletan sortua.

Patuak lagun-min egin gintuen, Ekainek leuzemia **linfoblastiko** bat harrapatu zuenean. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **leuzemia linfoblastikoa** (3)

## linfogranulomatosi *iz* gongoil batean granuloma agertzea ezaugarri duen eritasuna.

Linfa-sisteman sortzen den minbizi mota bat da Hodgkinen gaitza edo **Linfogranulomatosi** gaiztoa deitzen dutena. Berria - Gaiak

---

## linfohitiozitosi *iz*

**Linfohitiozitosi** hemofagozitoa deritzon gaitza tratatzeko etoposidoa kimioterapiarako gaia erabiltzen da. Berria - Gaiak

---

## linfoma *iz* linfa ehuneko tumorea.

Odoleko minbizirik zabalduena da **linfoma**. Berria - Gaiak

Hodgkin-en **linfoma** deritzon gaixotasuna. Berria - Harian

Hodgkin motakoak ez diren **linfomak**, berriz, 45 eta 60 urte arteko pertsonek garatzen dituzte gehien. Berria - Gaiak

Duela sei hilabete atzeman zioten **linfomaren** arrastoak erabat desagerraraztea da ebakuntzaren helburua. Berria - Harian

Kutsadurarekin lotzen diren tumoreak (sarkoma, **linfoma**, jaiotzetiko anomaliak). Berria - Euskal Herria

---

## linfozito *iz* tamaina txikiko leukozitoa, gongoiletan eta linfa hodietan sortzen dena eta immunologia sisteman garrantzia handia duena.

Globulu zurien beste talde nagusia **linfozitoena** da; globulu zuri guztien laurdena edo dira **linfozitoak**. Irene Aldasoro

**Linfozitoek** linfan zirkulatzen dute, eta azkenean odolera iristen dira. Irene Aldasoro

Kasu askotan birusa **linfozitoak** suntsituz joaten da. Luis Elberdin

**Linfozitoak** gure zainetan barrena bidaiatzen duten gisan goaz gu ere bizitzaren odolean nahasturik. Pako Aristi

---

## lingala *iz* lingalera, hizkuntza bantua.

Antza, laster aski ikasi zuen herrialde hartan bi dialekto zeudela: **lingala** eta munikutuba. Pablo Sastre

---

## lingalera *iz* hizkuntza bantua, Zairen eta inguruetan mintzatzen dena.

Jean Bernabe Moussayou angolarrak **lingaleraz** abestu du zenbait kantutan. Berria - Kultura

Kukuma berbak iritsi esan gura du **lingaleraz**, Moussayou angolarraren hizkuntzan. Berria - Kultura

---

## lingirda *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **lirdinga** agertzen da)* *iz* lirdinga.

Desager bitez **lingirda** darion barea bezala. Elizen arteko biblia

Han ilunpea beltz-beltza zen, eta hotza hormetan itsatsitako **lingirda** zikina. Pako Aristi

Sudurrera eraman zituen hatzak, **lingirda** hura usaintzeko. Harkaitz Cano

Kuleroak jaitsi nituela **lingirda** hartaz zikintzea ez nuelako nahi, besterik ez, eta mukizapi bat eskatu nion garbitzeko. Karlos Zabala

---

## lingirdatsu *(orobat **lindirgatsu** g.er.)* *izond* lirdingatsua.

Lurrean upelak zeuden isurkari **lingirdatsuz** beterik, eta pitxerrak belarrekin. Iñaki Mendiguren

Eskueran izango duzu giza ergelkeria ere, **lingirdatsu** eta likatsu samartua beroaren eraginez. Xabier Olarra

Ni ez naiz tristura horren arduraduna, baina bizitza osoa daramat nondik datorkidan jakin guran, ibai arre eta **lingirdatsu** horren sorburua noraino iristen den irudikatu nahian. Pako Aristi

Ez da oraindik aparteko ezer, zorioneko goragale xumea da: baltsa **lingirdatsuaren** hondoan hedatzen da, gure denboraren hondoan. Monika Etxebarria

Margeren salaketari esker, Interpolek desartikulatu ahal izan ditu erakunde beldurgarri horrek ia mundu guztian zehar sakabanaturiko tentakulu **lindirgatsuak**. Iban Zaldua

---

## lingote 1 *iz* metal landugabe urtuzko barra edo puska, eskuarki burdinazkoa, edo urre, zilar edo platinozkoa.

Gurdietan eraman ohi zuten, teilez estalita, beruna **lingoteetan** ere, balak urtzeko balioko zuena. Koro Navarro

Narrows-ak **lingotez** buxaturik zeuden. Lopez de Arana

Alga zuriko **lingoteak** ordaindu zuen hilkutxa. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

Zilar **lingote** bat zen, aise 300 libera balio zuena. Juan Garzia

---

## linguista *iz* hizkuntzalaria.

**Linguista** banintz ez nintzateke ausartuko hain terreno labankorrean sartzera. Bernardo Atxaga

Jacques Allières, Tolosako Unibertsitateko **linguista**. Herria

Boppen ondoan, hasiera-hasieratik azaldu ziren maila handiako **linguistak**. Isabel Arrigain

**Linguista** ikuspegi diakronikoan jartzen bada, somatuko duena ez da hizkuntza izango, baizik eta hizkuntza hori aldarazten duten gertakari batzuk. Isabel Arrigain

Alferrikakoa da **linguisten** ahalegina; ez dute euskararen enborra inoiz aurkituko. Berria - Kultura

---

## linguistika 1 *iz* hizkuntzalaritza.

Ikerketa horiek izan ziren [...] **linguistika** historikoari bidea urratu ziotenak. Isabel Arrigain

Indoeuropar **linguistika**, hasieran, ez zen jabetu erkaketaren benetako xedeaz, ezta berreraikitzeko metodoaz ere. Isabel Arrigain

Hiztunaren jarduera, diziplina multzo bat kontuan hartua aztertu behar da, eta diziplina horiek, hizkuntzarekin duten erlazioarengatik soilik dute lekua **linguistikan**. Isabel

Arrigain

Hizkuntzaren **linguistika** eta hizketaren **linguistika**. Isabel Arrigain

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Linguistika** eskola nagusienetan. Lourdes Oñederra

"Belarri ona" deitzen den hori ez dago **linguistika** ikerketan erabiltzeko moduan neurtua. Lourdes Oñederra

Quebec-eko **linguistika** egoeraz. Herria

---

## linguistiko *(orobat* **linguiztiko** *g.er.) izond* hizkuntzari dagokiona. ik **hizkuntza 4**.

Eremu **linguistikoen** kate etengabea. Isabel Arrigain

Komunitate nazionala [...] komunitate **linguistikoa** da, hizkuntzak egiten du nazioa. Joxe Azurmendi

Gizarte lotura dela eta, erkidego **linguistikoa** sortzen da, eta agian, ezaugarri erkide batzuk hizkuntza osoaren gainean hedatzen dira. Isabel Arrigain

Hiru hizkuntza horietan lortzen dituzten gaitasun **linguistikoek** etorkizunerako bide zabalak irekitzen dizkiete ikasleoi. Berria - Euskal Herria

Bi lurraldeen arteko lotura historikoak, kulturalak eta **linguistikoak**. Berria - Ekonomia

Hitz edo perpaus baten esanahia testuinguru **linguistikoan** ageri diren gainerako elementuekin duen erlazioa baino ez da. Askoren artean

Euskararen jabekuntza: azterketa **linguistikoa**. Lourdes Oñederra

Arau hau ezin garrantzitsuagoa da edozein exegesi **linguistiko** edo literariotarako, bai eta interpretazio orokorretarako ere. Xabier Kintana

Silaba bat nabarmentzeko baliabide **linguistikoak**. Lourdes Oñederra

Deitoratu behar dugu Frantziako buruzagien faxismo **linguistikoa**. Berria - Euskal Herria

Ikur **linguistikoa** arbitrarioa da. Isabel Arrigain

Arazo **linguistikoek** duten garrantzia testuak erabili behar dituztenentzat. Isabel Arrigain

Antolaketa **linguistiko** hori hizkuntza bakoitzaren fonologian, gramatikan eta hiztegian datza. Lourdes Oñederra

Euskarak azentuari garrantzi **linguistiko** txikia ematen diola. Lourdes Oñederra

Haurren entzumena hasieran ez da **linguistikoa**, erabat fonetikoa baizik. Lourdes Oñederra

Italiako entsalada **linguistikoaren** osagai nagusia italiera da, baina ez bakarra. Anjel Lertxundi

*Eleka Ingeniaritza* ***Linguistikoa*** enpresa berri samarra da. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **garrantzi linguistiko** (3); **testuinguru linguistiko** (3)
> **balio linguistikoa** (3); **ikur linguistikoa** (9); **ikur linguistikoa arbitrarioa** (3)
> **ikur linguistikoak** (4)
> **ikur linguistikoaren** (5)
> **ikur linguistikoen** (4)

---

## linguistikoki *adlag* hizkuntzaren aldetik.

Gaurko Euskal Herria gizarte desintegratu bat da administratiboki, politikoki, sozialki, **linguistikoki**, kulturalki. **Linguistikoki**, morfologiak ez du helburu benetako eta autonomorik; ezin izan daiteke sintaxiaz kanpoko jakingai. Joxe Azurmendi

Klikak erabiltzen ditugu guk ere, baina ez **linguistikoki**. Lourdes Oñederra

Txistukarien ahotsa, beraz, ez da inoiz **linguistikoki** erabiliko euskaraz. Lourdes Oñederra

Ez ideologikoki, ez literarioki eta ez **linguistikoki**. Ana Urkiza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **linguistikoki erabiltzen** (3)

---

## linguiztiko ik **linguistiko**.

---

## linier *iz* marrazaina.

Gaur egunera arte iritsi diren ***linierra***, *kornerra, orsaia* eta enparauak ez dira gaur goizekoak. Iñigo Aranbarri

---

## linimentu *iz* mina eta hanturak arintzeko gorputzaren guneren batean igurztzen den sendagai likido oliakara.

Izerdiaren eta **linimentuaren** usaina nagusi giroan. Berria - Kultura

Gorputz osoan zituen ubeldurak **linimentuz** igurztera. -Eman egizu **linimentu** hau oraingoz. Iban Zaldua

---

## linja *iz ipar* arropa zuria.

Abiatu bezain laster gutarik batek ateratzen du **linjaz** aldatu behar dugula, joan aitzin. Marzel Etxehandi

Begia hesteko artean noiznahi eta nonahi ebasten dizutena ogi, **linja**, tabako, paketa, ahal duten guzia, jan daitekeena eta ez daitekeena, truka daitekeen ber. Marzel Etxehandi

---

## linjeria **1** *iz* arropa zuria.

**injeria** eta paperen metatzen ari nintzelarik ene bidaia zakura, aita abadea heldu zait erraitera: [...]. Marzel Etxehandi

Beste batzuek **linjerian** lan egiten zuten. Marzel Etxehandi

Sukaldeak, 60 000 pinta salda egin ditzaketenak, xuriketategia, **linjeria**, dutxak modernak dira eta frango ontsa pentsatuak. Marzel Etxehandi

Tallur pasatu nintzanean adiskiderik baizik ez nuen, batek haria galdegin, besteak orratza, edo **linjeria**. Marzel Etxehandi

**2** (hitz elkartuetan)

Hiru autok [...] ere jasan zuten kalterik, baita burdindegi alboko **linjeria** dendak ere. Berria - Euskal Herria

---

**link** *iz* informatikan, esteka.

Mundu osoko **link** alternatiboen zerrendarik agian osatuena Independent Media Center elkarteak kudeatzen duen helbide honetan topa daiteke http: //indymedia.org. Txema Ramirez de la Piscina

Horretarako **link** ugari aurki ditzakegu Donostiako Miramongo Zientziaren Kutxagunearen web orrian (www.miramon.org) edo Iruñeko Behatokiarenean(www.pamplonetario.org). Berria - Gaiak

Izan ere, **link** zuzenak ditu euskalgintza inguruko taldeekin, hedabideekin, herri mugimenduekin, talde politikoekin zein sindikatuekin. Berria - Euskal Herria

---

lino ik **liho**.

---

linoleo ik **linolio**.

---

linoleum ik **linolio**.

---

**linolio** *(orobat linoleo eta **linoleum** g.er.)* **1** *iz* jute ehunezko xafla, kortxo hautsezko eta linazi oliozko nahastura batez estalia, zoruen zoladura gisa erabiltzen dena.

Altzari ilun dotore askoak, zorua **linolioz** eta alfonbraz estalia, irrati bat, lanpara eder bat, dena zoragarria, benetan. Josu Zabaleta

**Linoleo** gainean alfonbra sare bat, norvegiar kutxa bat, aulki bat arropa batzuekin, aparadorea, armairu zahar bat. Pablo Sastre

Bat-batean lotan geratu binintzen **linoliozko** zoru hotz, gogorrean. Josu Zabaleta

Eguzki-printzak pertsianetatik zehar sartzen ziren zoruko **linolioraino**. Joseba Urteaga

**2** (hitz elkartuetan)

Lurrean dauden **linoleo** zatiekin harrapatzen dituzte une batez, konturatzeke, txundituta zeudelako mugitzeko ahalmenik gabe geratu direnak. Berria - Kultura

---

linotipia ik **linotipo**.

---

**linotipista** *(orobat **linotipizta** g.er.)* **1** *iz* linotipoa erabiltzeko lanbidea duen pertsona.

Idazteaz gainera [...], **linotipista** lana gustatzen zitzaidan gehien: letrak letrekin elkartuz zer nolako aukerak sortzen ziren ikusteak asko eragin zidan betidanik izan dudan hizkuntzarekin jolasteko nire jarreran. Anjel Lertxundi

Parisen ibili zen, egunez inprimeria batean **linotipista** eta gauez ikasketak egiten. Inazio Mujika Iraola

**2** (izenondo gisa)

Hauk ginituen lehen lanak irarkolan: aintzinetik guk igorri textuak joak baitzituzten astearte goizerako bi gizon **linotipiztek**, behar ginituen guk denak irakurri. Herria

---

linotipizta ik **linotipista**.

---

**linotipo** *(orobat **linotipia**)* **1** *iz* testuak inprimitzeko makina, matrizeko letrak eta ikurrak lerroka urtzen dituena.

Argazkilaritza arnasten den lekua da, dagerrotipo, **linotipo** eta hamaika argazki pelikula eta kamera jasotzen dituen museo historikoa. Sartu zirenetik, gizonarengan neukan arreta, eta ez ordu arte juntatzen aritu nintzen **linotipiako** matrizetan. Anjel Lertxundi

Nikelezko hortz-ilarak zituen aho bat zen **linotipia**, irensten, xehatzen zuena. Lopez de Arana

**Linotipiaren** besoa eskularru zuri bat jantzirik zuen emakume baten eskua zen. Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan)

Moldiztegi modernoa, ertaina, zilindroez, Kelley-ez, Miller elikagailuez, prentsa txikiez, **linotipo**-makinez eta koadernatze-tailer oso batez hornitua... Lopez de Arana

---

**linterna** **1** *iz* eskuargia.

**Eskuan** linterna bat zekarrela. Aitor Arana

**Linternaren** argiak itzal handiak eta mugikorrak sortzen zituen. Aitor Arana

**Linterna** piztu zuen, eta gordeleku barrurantz zuzendu. Bernardo Atxaga

**Linterna** piztua esku batean zeramala. Aitor Arana

Dupontek olio-lanpara piztu eta **linterna** itzali du. Xabier Montoia

**Linterna** baten izpia, konturatu zen. Fernando Morillo

Pianoaren segidan zegoen atean finkatu zuen **linternaren** jopuntua. Josu Landa

**Linternaren** fokuaz papera argiturik. Josetxo Azkona

Eskaparateen neoien aurrean, BBKkoen ekimen hau izkinatxotik etorritako argi izpia da: **linternaren** begitik dianaren zentro-zentrora doana. Berria - Kultura

Han egin zuten lehen trainerua 1986an, gas **linterna** baten argipean. Berria - Kirola

**Linterna** elektriko baten argia bota zien aurpegira. Koldo Biguri

Kafe-termoak, kanpin-sua, sakelako **linternak**. Joxan Elosegi

**2** (burdinbideetan)

Nik zerbitzuko **linterna** atera eta argi berdearekin bide librearen seinalea egin nion. Fernando Rey

Irteerarik gabeko trenbidea bukatzen den tokian, han gau osoan **linterna** urdin argi bat dago, eta semaforoetan besoek soinu bat egiten dute urrutitik argiak aldatzean. Fernando Rey

**3** ***linterna magiko*** beiran margoturiko iduriak proiektatzeko tresna optikoa.

Eguzki kiskalgarri bat nire buruan irristatzen da zurrun, **linterna** magikoen xafla baten antzera. Monika Etxebarria

**Linterna** magikoaren erakustaldietan. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**linterna gorria** (10); **linterna itzali** (4); **linterna piztu** (4); **linterna txiki** (3)
**linternaren argia** (4)

---

# linternadun *izond/iz* linterna duena.

Bankariek atoiontzien uluak entzuten zituzten, zaindari **linternadunek** aldeetako ateak irekitzean. Berehala ohartu zen Ertzaintzako bereziak zirela, **linternadun** fusilak eskuan hartuta, pareko etxea inguratzen ari zirenak. Lopez de Arana

"Uste dut hor datorrela", esan zuen **linternadunak** bidea argituz. Bernardo Atxaga

---

# linternatxo *iz* linterna txikia.

Medikuaren **linternatxoak** begi-nini dilatatu batzuk argitu zituen. Joxemari Urteaga

Pixa egitera joateko baliatzen genuen **linternatxo** baten argia izan nuen lagun maindire arteko irakurketan. Anjel Lertxundi

---

# linternero *iz* iturgina.

Igeltseroak dira, **linterneroak**, peoiak..., beren esku indarrez edozelako gailuak erabilgarri, bizigarri, gozagarri bilakatzen dituen jendea. Pako Aristi

Behin, leihoa hautsi, eta **linterneroaren** zain nengoela, izar bat ikusi nuen ortzian. Karlos Linazasoro

---

# lintxamendu *iz* lintxatzea.

Azken batean, **lintxamenduaren** fabore dagoenak dio justiziarik ez dagoelako hartzen duela, hartzen duenean, Lynchen bidea. Iñigo Aranbarri

Egun, **lintxamendu** fisikotik harago, **"lintxamendu** mediatikoa" deitzen diogu hedabideek, gizabanakoa dagoen tokian dagoela atxilotu, epaitu gabe biluzik paseatu, eta iritzi publikoaren aurrean gatibu hartuta, errukigabe larrutzen dutenean. Iñigo Aranbarri

«Sorgin-ehiza» eta **«lintxamendu** morala» salatu dituzte. Iñigo Aranbarri

Hedabideetan zure kontra sortu den **lintxamendu** giroa. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**lintxamendu morala** (3)

---

# lintxatu, lintxa, lintxatzen du *ad* epaitua izan ez den pertsona bat jendetza zalapartatsuak justiziatu.

Bi mila eta bostehun lagunetik gora **lintxatu** ziren hegoaldeko estatuetan 1882 eta 1903 bitartean. Iñigo Aranbarri

Nahiz egunero ez den norbait **lintxatzen**, lintxamendua, sinbolikoa edo erreala, hortxe dago beti, lozorroan, egiazko posibilitate bezala. Bernardo Atxaga

Bere aburuz, filtrazio horiek pertsonaia publikoak **«lintxatzeko** egindako manipulazio arduragabeak» dira eta haien kontra «epaitegitik kanpoko epaiketa» egin nahi izatea egotzi zien zenbait hedabideri. Berria - Euskal Herria

**Lintxatuta** bukatuko dik bere mundualdia. Bernardo Atxaga

---

# lintxatzaile *iz* lintxatzen duena.

Batzuetan **lintxatzaileak** zitunan, edo haizetea. Anton Garikano

---

# lintzura *iz* lohiz beteriko ura dagoen tokia.

Geroztik, oso bakan, baina ikusi izan ditut arrabioak: mendi basoetan, beti ere **lintzura** edo toki heze eta lizunetan. Patziku Perurena

Inperioaren mugaldeko bazter latzak bilatu zituen, **lintzura** dorpeak eta basamortu kontenplatiboak, bakardadeak lagun ziezaion bere patua ulertzen. Juan Garzia

---

# liofilizatu, liofiliza, liofilizatzen 1 du *ad* jaki bat, iraunarazteko, idortu, lehenik izoztuz eta, ondoren, izozturiko ura sublimatuz.

**Liofilizatutako** hamburgerra. Itxaro Borda

**2** (era burutua izenondo gisa)

Berehala hartzeko (nes) kafea eta zopak, adibidez, produktu **liofilizatuak** dira. Edorta Agirre

---

# liofilizazio *iz* liofilizatzea.

**-Liofilizazioa**: elikagaia izoztutakoan, hutsean sartu eta, sublimazioz, ur guztia erauztea, galaraztea. Edorta Agirre

---

liotenant ik **lotinant**.

---

# lipar *iz* unea, mementua.

**Lipar** bat baizik ez zen izan, haren keinu burlatia agertu bezain fite iraungi zena. Auhena eztarri zolan ito nuen, ozendu baino **lipar** bat lehenago. Aingeru Epaltza

Balizko denbora bat lehenestea **liparraren** kaltetan. Anjel Lertxundi

Bada mende-laurden bat film hori lehen aldiz ikusi zuela, baina txunditutа dauka oraindik ere: orainaren **lipar** bat eta **lipar** horren iragana, lurrinduz bezala, biak leku berean harrapatuta. Oskar Arana

**Liparrik** galtzen utzi gabe. Imanol Unzurrunzaga

Murazov isilik geratu zen **lipar** batez, zerbait hausnartzeko bezala, eta azkenean esan zuen: [...]. Jose Morales

**Lipar** batez isilik geratu ziren. Lopez de Arana

Neska **lipar** batez itzuli zen. Lopez de Arana

**Lipar** batean arnaska gelditu ziren, mutu eta ikaragarri, okelen gainetik. Karlos Zabala

Isildu egin zen **lipar** batean, bi itzalei begirik inoiz kendu gabe. Karlos Zabala

Duda egin zuen, gelditu egin zen **lipar** batean. Karlos Zabala

Erlojua oraintxe gelditu da, **lipar** labur batez bada ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Hori bai ez nuela **lipar** bakar batean ere sinetsi. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lipar bat lehenago** (3); **lipar batean** (31); **lipar baten buruan** (3); **lipar batez** (118); **lipar batez isilik** (3); **lipar labur** (3); **lipar labur batez** (3)

---

**liparño** *iz adkor* liparra.

Soin-adarrak luze, giharrak teinkaturik eta biloak txut murgildu **baino** liparño bat lehenago: plaxx. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## lipartxo *iz adkor* liparra.

Espainola zaren ala ez **lipartxo** bat dudatzea. Joxe Azurmendi

Elizako ate aurrean, On Camillo **lipartxo** batez bueltatu, buru-makurtze duin batez jendetzari agur egin eta barrura sartu zen. Koldo Biguri

---

## lipido 1 *iz* kimikan, gantza.

**Lipido**, protido eta gluzido sintetikoz osatu janariak. Itxaro Borda

Zeinahi ere zirelarik haien funtzioak -nerbio, gihar, guruin zein beste-, zelula guztiak ziren antzeko osagaiz eginak: karbohidratoak, **lipidoak**, proteinak eta azido nukleikoak. Juan Garzia

Zuntz eta karbohidrato konplexu gutxiegi eta animalia proteina, **lipido** saturatu eta azukre soil gehiegi kontsumitzen delako. Edorta Agirre

Normalki jaten ditugun **lipidoak** jatorria animalietan daukaten gantz saturatuak dira. Berria - Euskal Herria

**Lipido** aseek, ekilore-olioak edo arto-olioak, esaterako, minbizia azkarrago garatzen laguntzen dute. Berria - Gaiak

Guk jandakoaren %30-35 **lipidoak** izaten dira. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Era berean, «gomendagarria» da, aldiro-aldiro gorputzeko glukosa eta **lipido** maila kontrolatzea. Berria - Gaiak

**Lipido** kontsumo horrek kaloria gehigarriak dakartza, eta horrek gizentasuna ekar dezake. Berria - Euskal Herria

---

## lipodistrofia *iz* gantzen metabolismoko nahasmendua.

Era berean, **lipodistrofiaren** ondorioak arintzen laguntzeko baliabideak eskatu dizkiote osasun sistema publikoari. Berria - Harian

Hartzaileen metabolismoaren aldaketak dira ugarienak (**lipodistrofia** du izena), eta gantzen areagotzea du zantzurik nabarmenena. Berria - Euskal Herria

---

## lipograma *iz* letra jakin bat nahitara erabili gabe idazten den izkribua.

Testu batean hizki bat ez erabiltzeari deritzo **lipograma**. Iñaki Arranz

Euskaraz gehien erabiltzen den bokala *a* da eta, hortaz, hori genuke **lipograma** nagusia. Iñaki Arranz

---

## lipogramatiko *izond* lipogramarena, lipogramari dagokiona.

Ez dirudi euskaraz ariketa **lipogramatiko** askorik egin denik. Iñaki Arranz

---

## liponimia *iz*

Hitz jakin bat baldin bada testuan agertu behar ez dena, **liponimiaz** hitz egiten dugu. Iñaki Arranz

---

## liposoluble *izond* gantzetan solublea dena.

**Liposolublea** denez, jaki koipetsuetan ondo xurgatzen da; horregatik, esnetan edo oliotan hartzea aholkatzen da edota janariekin batera. Berria - Harian

---

## liposukzio *iz* kirurgia estetikoko sendabidea, larmintzaren azpiko gantza xurgatzean datzana.

martxoa solarium, azalerako ukendu, bainujantzi eta **liposukzioen** aroa da, maiatza bidai agentzietara joan beharrekoa... Pako Aristi

**Liposukzioa** egin berri zirudien, baina burua sekula baino soilduago zeukan, eta zaharrago ematen zuen. Jon Alonso

---

## liposukzionatu, liposukziona, liposukzionatzen du *ad* liposukzioa egin.

Zerebroa da **liposukzionatu** beharko zizuketena. Jon Alonso

---

## lipotimia *iz* konortearen galtze bat-batekoa eta igarokorra, geruneko odol gabeziak eragina.

Tenperatura aldaketa horrek, besteak beste, **lipotimiak** eta zorabioak sor ditzake. Berria - Euskal Herria

---

lipu ik **lupu**.

---

**lira**[1] **1** *iz* Italiako diru banakoa euroa ezarri zen arte.

Bost **lira**, arranoaren ikurra zeramaten haietakoak. Juan Garzia

Hamar mila **lira** galdu ditugu! Fernando Rey

Oporretan lanera joatea proposatzen zigun **lira** batzuk biltzeko. Pello Lizarralde

**Lira** batzuk irabazteko irrikan dagoenak. Pello Lizarralde

Bi **lira** garai hartan ere diru gutxi zen, baina Albertok egunean behin baino gehiagotan eskatzen zuen **lira** pare bat. Fernando Rey

Mila bana **lira** eman hektarea bakoitzeko. Koldo Biguri

Bost mila **liren** bueltak kontatzen hasi zen. Koldo Biguri

Aberats aspertu bat kalera irten da eskale jantzita, berarekin ondo portatzen den lehendabizikoari milioi bat **lira** emateko asmoarekin. Anjel Lertxundi

· Irailean, italiar **lirari** eta libra esterlinari eraso zieten, eta EDStik irten ziren biak. Koro Navarro

**2** Turkiako diru banakoa.

Autobuseko txartelaren truke zortzi milioi **lira** (bost bat euro) kobratu zidaten haranzkoan, deskontua eginda. Jon Arretxe

Ziur nago ez nuela zertan ordaindu **lira** bat ere, baina tematuz gero arriskua neukan bisarik gabe geratzeko edo, ordu batzuetan behintzat, tramitazioa atzeratzeko; horren ondorioz, gerta zitekeen gaurko autobusa galtzea, beste egun batez itxaron behar izatea Erzurumen... Jon Arretxe

---

**lira**[2] **1** *iz* antzinako musika tresna hariduna, bi eskuez jotzen zena eta ezaugarritzat bi adar kurbatu dituena.

**Lira** jotzeko ez dut nik izan esku treberik. Xabier Olarra

Kantuaren eta **liraren** laguntzaz gozatzeko. Juan Kruz Igerabide

**Liraren** soinua entzuten zuten, Femio *aedo*a ari baitzen kantatzen. Juan Kruz Igerabide

Zutik zegoen, eskuan **lira** zuela. Juan Kruz Igerabide

Zertaz ari da, aitzina, **lira** jainkotiarra, hitz egizan nire ordez!, eskatzen duenean? Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zisnearen kantua eta Feboren **lira** doinu artosoak era berean azpiraturik isilduko lirateke. Xabier Amuriza

Txilin, **lira** eta harpa-soinuz. Elizen arteko biblia

Biola, **lira**, harpa, ttunttun edo arrabita joleek lagundurik, bertze batzuk eguzkitan dantzan ari direla. Aurelia Arkotxa

**3** bost lerroko ahapaldia.

Donibane Gurutzekoaren **lira** batzuk. Berria - Kultura

Orduan, oharkabaean, zurekin Salamancan ikasi nuen Frai Luis Leongoaren **lira** hura oroitu nuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Euskal literaturan ez dago tradiziorik ez sonetoetan, ez **liretan**. Berria - Kultura

Zuhurra eta onargarria al zen pentsatzea akabatu egin nahi nindutela nire ipuin erromantiko edo endetxa edo serbentesio edo **liren** kausaz? Karlos Linazasoro

---

**lirain** **1** *izond* lerdena eta, gehienetan, arina. ik **mehakoil**.

Baina han zen orobat nire frantseseko irakaslea, Mademoiselle Des Forêts, quebectar **lirain** hura, bere zango ederrekin eta ezpain-margo gorri biziarekin eta begi marroi urtsuekin. Oskar Arana

Sion, neskatxa **lirain** eta atsegin hori, zureak egin du! Elizen arteko biblia

Gorpuzkera **lirain** eta neurrikoa. Askoren artean

Haren gorputzak eta gerri **lirainak**, [...] begiak betetzen zizkioten. Patxi Zubizarreta

Bere esku luze **lirainak**. Joxe Austin Arrieta

**Liraina** zen, lerdena, oso airosoa. Migel Angel Mintegi

Barrualdekoa beltzarana zen, luzea eta **liraina**. Koro Navarro

Sendoa eta **liraina**. Joan Mari Irigoien

Barraz bestaldeko emakumea hankaluze horail **lirain** bat da. Edorta Jimenez

Bazen han emakume bat, **liraina** gorputzez, baina lotsagarria arimaz. Askoren artean

Zaldirik **lirainenak** eta hamaika mirabe, emakumezko nahiz gizonezko. Patxi Zubizarreta

Hura ilargia hodei artetik irtetean bezain **lirain** zegoen. Patxi Zubizarreta

**2** irud/hed

Adats beltz sarria harrotu zuen eskuaren mugimendu **lirain** batez. Jose Morales

Jauzi **lirain** batez zutitu, tabernatxora zuzendu, ireki eta, makurtuz, esan zidan: "zer hartuko duzu? Juan Martin Elexpuru

San Tomasen latin hizkera latza, **liraina** zeukan. Piarres Xarriton

Bachen fughetta **lirain** labur bat jo zuen lehendabizi, ariketa moduan ia. Anjel Lertxundi

Kimika fin eta **lirain** hori. Juan Garzia

Autoak ere halaxe erantzuten zion, emeki-emeki, [...] alaitasun **lirain** batez aldapa beherakoetan. Anjel Lertxundi

**3** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Melaia bere gorpuzkeraren **liraina** nabarmentzeko gisara jantzia zuen. Patxi Zubizarreta

Eta begien distira, ilearen kizkurra, lepoaren segaila, gerriaren **liraina**, besoen zuria, masailen gorria, aurpegiaren obaloa, bularren gordea, dena nuke goresgai. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** (adizlagun gisa)

Ellen Jimmyren ondotik igaro zen, arin eta **lirain**. Lopez de Arana

Jardina gurutzatzen ikusten diat berriro Krisztina, **lirain** eta lerden, bere kapela florentziar hegal-zabala buruan. Xabier Olarra

Badakite zertan ari diren iragarkiotan pertsonaia guztiak gazte, **lirain**, alai eta desiragarri azaltzean. Joxerra Garzia

Neska begi-argiak, sofan **lirain** eta tente eserita, irribarre distiratsua egin zion mutilari. Mirentxu Larrañaga

Ecthelion Dorreak [...] distira egiten baitzuen zeruaren kontra, perla eta zilarrezko galburua bezain distiratsu, **lirain** eta harmoniatsu. Agustin Otsoa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gazte lirain** (4); **gorputz lirain** (4); **neska lirain** (6)
> **gorputz liraina** (4); **liraina zen** (6)

---

**liraindu**, lirain(du), liraintzen **1** da/du *ad* lirain edo lirainago bihurtu.

Mehetua zen, **liraindua**. Joxe Austin Arrieta

Irudia **liraintzen** dion traje taxutu harekin. Urtzi Urrutikoeetxea

Beste batzuek, ordea, galdu-gordean bezala edukitzen dute beren emetasuna, eta askoz ere beranduago, kanpotik norbaitek tira egingo balie bezala (Giacomettiren irudien antzera) hasten dira luzatzen eta **liraintzen**, ia molde transparenteak hartzeraino. Joxean Agirre

• 2 ***lirainduxe*** *izond*

Aldaka beti bezain sendo eta biribilak, sabel-izter **lirainduxeak** eta bular beltztuak bereziki. Aingeru Epaltza

---

# lirainkeria *iz* liraintasun gaitzesgarria.

Askoren sinestea izan da askatasuna amets bat, **lirainkeria** bat dela, eta langileek ez zutela ogirik berriketa horrekin. Jokin Urain

---

# liraintasun 1 *iz* liraina denaren nolakotasuna. ik **lerdentasun**.

Sugearen **liraintasunaz**. Haren mokor kulunkariek eta haren gerriaren **liraintasunak** liluratuta laga ninduten. Juan Martin Elexpuru

Bolumen gehiegi eta **liraintasunik** ez. Anjel Lertxundi

Jertse estuak eta praka elastikoek nabarmendu egiten zioten gorputzaren **liraintasuna**. Migel Angel Mintegi

Bere **liraintasun** eta graziak nire heldutasuna nabarmenarazten zuten. Joxean Agirre

Argaltzeko dieta egin eta ia zeukan pisuaren bosten bat kendu zuen ezkondu osteko lehenbiziko urtean, xarmarik gabeko 70 kiloetatik **liraintasunezko** 60 kiloetaraino. Oskar Arana

Ibilera arinagatik, orbelik harrotu gabe ibiltzeko erakusten zuen **liraintasunagatik** ezagutu nuen. Anjel Lertxundi

Tarteka bakarrik antzematen du zure **liraintasuna** nola ari den argaltasun bihurtzen, nola jantzi zabalak bakarrik erabiltzen dituzun, gero eta zabalagoak, gero eta eroriagoak. Lourdes Oñederra

**2** (hitz elkartuetan)

**Liraintasun** eta dotorezia eredu da haren gorpuzkera, zoragarria haren bularra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

liranja ik **laranja**.

---

# lirdinga 1 *iz* gai likatsua.

Nire bularraren azpian gurutzatzen ziren zain- eta arteria-zirkuituak, **lirdinga** eta odolezko barne-sare trinkoa. Oskar Arana

Orduak behar izan ditut bareen **lirdinga** kentzeko... Iñaki Mendiguren

Marea beherakoan haitzetako **lirdingetan** trabatutako aingira-kume bat baino galduago. Anjel Lertxundi

Dena **lirdingaz** bete beharrak amorru pixka bat ematen zuen batzuetan. Karlos Zabala

**2** *izond* lirdingatsua.

Hantxe etorri zen, plop, agurearen dardarizo eta arnasotsen artean, eskua likindu zidan isurki **lirdinga** hura, biziaren iturritzat goretsi ohi duguna, neure bizian lehenengoz ikusten nuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Ipurdia ondo jasota eta hankazabalik jarri du; haren bulba gorri eta **lirdinga** dakust nire ezkutalekutik. Juan Martin Elexpuru

Heineken botilen kristal berdeak ez du keruaren garratza ostentzen atetzarraren goma **lirdingak** klik egiten duenean. Javi Cillero

· *irud/hed* Filosofiaren teologizatze **lirdinga**. Patziku Perurena

---

# lirdingatsu 1 *izond* likatsua, itsaskorra. ik **lirdinga 2; lingirdatsu**.

Barea bezain **lirdingatsua** zen ahots hura. Alberto Ladron Arana

Patata pure lodi itsaskor batean hondoratu izan banu bezain **lirdingatsu** jartzen zitzaidan eskua. Joxan Elosegi

Muki eta haragi **lirdingatsuen** artean behera. Hasier Etxeberria

Krokodilo baten bihotz handi eta **lirdingatsua** bota zion Malfoyri. Iñaki Mendiguren

Inguruko horma ilun **lirdingatsuetara** begira. Iñaki Mendiguren

Snaperen mahaiaren atzeko apalean isurkari berdetan igerian zegoen zera **lirdingatsuari** ez begiratzen saiatu zen. Iñaki Mendiguren

**2** irud/hed

Loditasun **lirdingatsua** zuela irudi zuen, olio mineral batez osatua edo. Karlos Zabala

Igandea zen abiatu ginenean, ilargi **lirdingatsuzko** gau bero bat. Joxe Austin Arrieta

Hozkirri-arrastorik ez, ordea; huraxe bai goiz sargori eta lurrintsua, eguzkia ere inoiz baino **lirdingatsuago** ageri, eta hostoak ere distira itsuan, eta gu izerdiz eta euriz eta olioz blai, jaioberriak bezain zoldatsu. Joxe Austin Arrieta

---

# lirika 1 *iz* olerkariak bere barne sentipenak adierazten dituen poesia mota.

Norbaiten ahotik ateratako kontuak askotan entzuten direnean, azkenerako ez da jakiten epika non bukatzen den eta non hasten den **lirika**. Xabier Etxabe

Umoreak, izan ere, bizitzari buruzko beste ikuspuntu bat dakar: mugagabea dirudienari bere mugak ezartzen dizkio, epika **lirika** bihurtuz. Joan Mari Irigoien

Ezkerreko mugimenduetan beti izan zen halako bulko poetiko bat, epopeia proletarioaren eta **lirikaren** artekoa. Juan Kruz Igerabide

**Lirika** herrikoi eta poesia epikoaren loratzean. Iñaki Mendiguren

Europako **lirika** zaharra, andereena zen, batik bat. Patziku Perurena

Bere adierazmolde biziki poetikoan *Minnesang*aren eragina nabari zuena, hau da, Erdi Aroko gorteko zaldunen **lirika** amodiozkoarena. Joan Mari Lekuona

Ipuina, nire iduriko, narrazioaren **lirika** da. Berria - Kultura

Har dezagun kopla zahar bat, gure **lirikaren** irudi ederrenetakoak utzi dizkigute egile anonimoek. Berria - Kultura

**2** opera edo zartzuela musika.

Ezagun du **lirikan** (operan eta zarzuelan) aritzen dela. Berria - Kultura

Mozarten **lirikaren** eragina. Berria - Kultura

Angel eta Carmen Corellarekin batera, dantza eta **lirika** bateratuko dituen ikuskizuna eskainiko dute. Berria - Kultura

Gainerakoa **lirika** eta musika ikuskizunek hartu dute. Berria - Kultura

Susanna Rigacci sopranoak, Erromako Sinfonietta orkestrak eta Erromako **Lirika** Koruak hartuko dute parte kontzertuan. Berria - Kultura

Baina argi dago, bestalde, Bilboko lehiaketa honek nazioarteko **lirika** munduan lortu duen ospea. Berria - Kultura

**liriko** **1** *izond* lirikarena, lirikari dagokiona.

Poeta **liriko** eta post-erromantikotzat jotzen dute [Arrese] euskal literaturaren historiek. Berria - Kultura

Prosa **liriko** eder batean idatzia. Herria

Badirudi euskaldunok ez dugula sinesmenik geron sen **lirikoan** eta poetika klasikoan, eta hori gabe, ez dakit nola idatzi litekeen, esate bateko, poema **liriko** ederrik. Patziku Perurena

Testuak tonu **liriko** nabarmena hartzen du gai horretan barrentzen denean. Juan Garzia

Bere hegaldi **lirikoetan** laguntzen dion mandolina besoen artean kulunkatzen duela. Oskar Arana

Introspekzio **lirikoa** nagusitzen da gizartearen deskribapenaren gainetik. Ibon Uribarri

Irakurri, bide batez, maitaleen topaketaren deskribapen ezinago **lirikoa**, ipuin berean. Juan Garzia

Amatasun **lirikoa** edo bihotz malenkoniatsua baino gehiago, gatazkaren gakoa da Nafarroa. Berria - Euskal Herria

**2** opera edo zartzuela musikari dagokiona.

Hainbat konpositoreren obren pasarteak abestuko ditu elkarte **lirikoak**: Pucciniren, Verdiren eta Rosinniren operetakoak eta Sorozabalen eta Bretonen zarzuela pasarteak eskainiko dituzte. Berria - Kultura

Bilboko Orkestra **Lirikoa**. Berria - Harian

Protagonistekin batera, bihar debuta egingo du Nafarroako Abesbatza **Lirikoak**. Berria - Kultura

Irungo Sasibil konpainia **lirikoak** Jacinto Guerreroren *La canción del olvido* taularatuko du. Berria - Kultura

Barbara Hendricksen ahots **lirikoa** entzun ahal izango dute, gaur, Getxoko Biotz Alai plazara batzen diren guztiek. Berria - Kultura

• **3** *iz* olerkaria.

Uxio Novoneyra **liriko** galegoaren poema eder hau. Patziku Perurena

**4** ***soprano/tenor liriko***

Errepertorio zabala menderatzen du Cedolinsek; soprano **liriko** eta soprano **liriko**-dramatiko arinari egokitzen zaion edozein pertsonaia interpretatzeko abilezia du. Berria - Kultura

Opera aditu guztien laudorioak jaso ditu Florezek, eta munduko tenor **lirikorik** onenen pare jartzen dute. Berria - Kultura

Dean Smith tenor **lirikoak** biribil abestu zuen Lohengrin. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **poema liriko** (4); **soprano liriko** (3)
> **konpainia lirikoak** (3)

---

**lirikokeria** *iz* lirikotasun gaitzesgarria.

Jackek errazkeriarako zuen joerak molestatzen ninduen (eta halaxe jakinarazi nion, gainera), eta hark ezin zuen ustezko nire **"lirikokeria"** jasan. Iban Zaldua

---

**lirikotasun** *iz* lirikoa denaren nolakotasuna.

**Lirikotasun** paregabea eransten dio Kemalek bere lanari, paisaien eta urtaroen deskripzioan batik bat. Fernando Rey

Idazle izan nahi dutenek, kazetariek, politikoek haren **lirikotasun** hanpatua imitatzen dute. Anjel Lertxundi

**Lirikotasuna** falta zitzaizun, esan duzunez. Oskar Arana

**Lirikotasun** hori izan bazenu, orain ez ginen egongo gauden lekuan. Oskar Arana

---

**lirin** *izond* heldua, umoa.

Izan ere, gordinak jan ondoren, **lirinak** nahi genituen Gorukik eta biok; aldiz, are gordinagoak jan behar izanen genituen handik gutirat. Joan Mari Irigoien

---

**lirindu**, lirin(du), lirintzen da/du *ad* gehiegi umotu.

Bazirudien giza bihotzetan lurperatutako guztia, usteldutako eta **lirindutako** guztia indar gupidagabe batez berpizten zela, izaki bakoitzaren bihotzean ezkutaturik zegoen erritmo hilgarri bat taupadaka has zitekeela bizitzako une batean musikaren eraginez. Xabier Olarra

---

**lirio** **1** *iz iridaceae* familiako landarea, erraboilduna eta zurtoin-luzea, sei hostoko lore handiak, urdinak moreak edo zuriak, ematen dituena *(Iris germanica)*.

**Lirioak** eta zitoriak ageri ziren diz-diz, eta haien usain atseginek bat egiten zuten lurzorutik altxatzen ziren lurrun beroekin. Karlos Zabala

Mendiko txoriek zein **lirioek** ez dutela eguneroko elikagaiaz kezkarik izaten, fio direla zerutiarren laguntzaz. Bernardo Atxaga

Adio, **lirio** eder hain delikatuak, zuen santutegi txiki margotuetan sartuak. Monika Etxebarria

**Lirioak** bezain zuriak. Anton Garikano

**Lirio** bat bezain zimel gelditu nintzen. landa oso bat ereinarazia zuen **lirioz**. Juan Garzia

**Lirio** txinatarren gozotasun jasanezina. Lopez de Arana

**2** ***lirio-lore***

**Lirio** lorearen petaloak oso aberatsak dira antozianinaz. Juan Garzia

Bazter guztiak **lirio**-lorez bitxiro betetzetik hasi zen kontua; petalo zeru-urdin fin, patata frijitu ñimiño batzuen tankeran siku eta hauskorrak zakuka. Juan Garzia

---

**lirismo** *iz* lirikotasuna.

Pintore frantsesa, paisaia **lirismo** amestiz interpretatu zuena. Koldo Izagirre

Gero, trena hirira inguratu ahala, paisajeak **lirismoa** galdu zuen. Bernardo Atxaga

Kritikoek zein zaleek ordea, bere hitzen **lirismoa** goraipatzen dute. Berria - Kultura

Idazten dudanean, amorruaren edo atsekabearen **lirismoari** aurre egin behar izaten diot batzuetan. Joseba Urteaga

Absurduaren poesia-printza batzuk hemen, **lirismo** arin bat han. **Lirismoz** gainezkako oroitzapenok goibeltasunez beteak daude heriotzaren auzoko den agurearen gogoan. Eskarne Mujika

Indarkeria zartatsu batetik **lirismo** guztiz barne-bildu batera naturaltasun osoz jauzika. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**lirismo erotiko** (3)

# lis

## 1 *lis lore* *iz* heraldikan, lirioaren lorearen irudikapena.

Bortak iltzez eta **lis** lorez beteak daude. Koldo Izagirre

Elurrak bortuetako pasabideak hetsi zituen, Frantziako **lis** lorearen eskuoihalik agertzen ikusi gabe Donazaharre aldetik. Aingeru Epaltza

Eta ez bakarrik **lis** loreari zerbitzu handia egindako leinu baten ondokoa zelako. Aingeru Epaltza

# lisaburdina

*(orobat* ***lisa burdin****)* *iz* erropa lisatzeko tresna, eskuarki argindarrez berotzen den hiruki formako oinarri metalezko batek eta eskuleku batek osatua. ik **lisagailu**.

Gauzak jaurtitzen dizkiot - **lisaburdina**, irabiagailua, zartagina, edozer-; gauzak botatzen ditut bat-batean, amorrazioak hartu banindu bezala. Xabier Olarra

Gero amarengana joango naiz, **lisaburdina** matxuratu omen zaio eta. Anjel Lertxundi

Horri sabela ipurmasailetara erori zaion, hago ziur; **lisa burdina** bezain laua dun eta... Karlos Zabala

Ikusi dugu nola ezartzen diren mahaiak, **lisa-burdina** eskuetan dafailen behar den bezala jartzeko plegurik gabe. Herria

**Lisaburdinaren** kirtenean mirto pixka bat lotzeak. Anton Garikano

Eiki, goizetan daramazkizun atorra zimurtuak ikusiz, ez duzu **lisaburdina** anitz higatzen! Itxaro Borda

9000 Euroko auto bat, bapore **lisa burdin** bat, sasi mozteko bat. Herria

# lisagailu

*iz* lisaburdina.

**Lisagailua** sutan berotzen emakume bat. Berria - Kultura

Horrek ez du esan nahi poema batean aipatzen badut **lisagailuarekin** izara bat erre dudala, benetan erre dudanik. Ana Urkiza

# lisaketa

## 1 *iz* arropa lisatzea.

Andre Venanciak, **lisaketan** ari zen bitartean, bere ugazaben historiak kontatzen zituen.-Ez dut gura Jaumek zu inoiz ikustea **lisaketan**. Koldo Izagirre

Sekulako mina daukat ezkerreko behatz erakuslean, eta ezin dut **lisaketa** egin. Josu Zabaleta

Eta, gainera, nork egingo zion ume gaixoari lixiba eta **lisaketa**, emaztea hain urrun egonda. Iban Zaldua

## 2 (hitz elkartuetan)

**Lisaketa** lantegiak ematen zuen dirua ez zen aski, jakina, etxeko beharrak asetzeko. Josu Zabaleta

# lisatu

, lisa(tu), lisatzen *(orobat* ***lixatu*** *g.er.)* **1** du *ad* arropari, lisaburdin bero batez, zimurrak kendu edo tolesak markatu.

Emakume hauek, lagunok, seme-alabak ikastolara eraman, etxea garbitu, bazkaria prestatu, arropa **lisatu**, harrikoa egin, seme-alabak ekarri eta afaria egin dute gaur... Berria - Harian

Venanciak doan **lisatzen** zizkion alkandora-lepoak. Josu Zabaleta

-Nik **lisatuko** dut, zuk afaria prestatuko duzu. Koldo Izagirre

Jakaren papar-hegalak **lisatu** zituen. Lopez de Arana

Alkandora **lisatu** gabe daramazu, Jainkoak daki nork moztu dizun ilea horrela. Oskar Arana

Jaitsi ginenean, garbiak zeuden Jacken zapatak, eta josia eta **lisatua** jaka. Koro Navarro

Izur txukuna eginez **lisatutako** prakak. Urtzi Urrutikoetxea

Galtza grisak, ongi **lisatuak**, berriak, jai egunetako galtzak. Josu Zabaleta

Bai baitirudi beren jantziak oihal lodi eta latzez eginak direla; ilunak eta **lisatu** gabeak bezala ageri dira, eta aberatsenenak ere higatu itxura izan ohi du. Ramon Saizarbitoria

**Lisatzeko** oholaren oina desarmatu nuen. Jesus Mari Mendizabal

Gero **lisatzeko** gelara joaten zen, Natalinarekin eta Rinarekin hitz egitera. Fernando Rey

Paper-zati zimurtu bat atera zuen, **lisatu** eta berdindu, eta besteei erakutsi zien. Iñaki Mendiguren

Eta hau ilea **lisatzeko** erabiltzen duen koipea da, eta hauts horrekin zurituko du larrua. Joseba Sarrionandia

Ile nahasiak **lisatu** eta metrora jaitsi nintzen. Alberto Ladron Arana

Biboteak **lisatu** zituen, bere buruari aire errespetagarriago bat eman nahian. Pablo Sastre

Banekien, baita ere, enkaje eta brodatuak zituztenak hobe nuela ez **lixatzea**, hondatu egiten zirela-eta, baina berdin zitzaidan. Jasone Osoro

## 2 irud/hed

Lautan tolestutako orria **lisatu** bezain pronto ekin zion irakurtzeari. Joxemari Urteaga

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Andresi, alkandora **lisatua** jantzi beharrak, besterik gabe, erabat zitaldu zion umorea. Josu Zabaleta

Tximiniaren kanpai zabalaren inguruan oihal zuri **lisatu** bat zegoen zintzilik, iltzeekin eutsita. Gero arropa **lisatu** guztiak banatu zitinan eta eskuak jarri zitinan bizkotxoan. Koro Navarro

Mundura traje edo soineko **lisatu** eta guzti erdituak izan balira bezala. Harkaitz Cano

## 3 (era burutua izen gisa)

Aitortu behar baitut oraingo honetan **lisatu** ederra eman diodala bizkarrak bere izen ona galtzen duen atze aldeko inguru horri. Joxerra Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**lisatzeko gelan** (4)
**arropa lisatzen** (7); **garbitzen eta lisatzen** (4); **ilea lisatzen** (4); **lisatzen hasi** (3); **lisatzen saiatu** (3)

# lisatzaile

## 1 *izond* lisatzen duena.

Maskarilla **lisatzailea**. Jasone Osoro

## 2 *iz* arropa lisatzen duen pertsona.

Bazen lagun bat, [...] andre xahar bat, auzoan bizi zen **lisatzaile** bat, izena Venancia zuena. Josu Zabaleta

Behin -kontatu zuen **lisatzaileak** - dukesa bere maitalearekin zegoen logelan; nik harekin komunikazio-ate bat zuen ondoko gela batean egiten nuen lo. Josu Zabaleta

---

**lisatze** *iz* lisaburdin bero batez, zimurrak kentzea tolesak markatzea.

Amari askotan entzun nion kexua, **lisatze** lana zela eta; alegia, bere ametsa eserita lisatu ahal izatea izango zela. Jesus Mari Mendizabal

Balin baduzue zuen etxetan edo inguruan haur zaintze, arropa xuritze eta **lisatze** , jateko egite eta zerbitzatze, egin lezake omore onean. Herria

---

**lisboar** *(orobat **lisboatar**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lisboar** agertzen da) izlag/iz* Lisboakoa, Lisboari dagokiona; Lisboako herritarra.

Iaztik Paulo Ribeiro **lisboarra** da Gulbenkian baletaren zuzendari artistikoa. Berria - Kultura

Badakit Portoko biztanle bat herrikideago dela Vilagarcia de Arousako batekin **lisboar** batekin baino. Berria - Kirola

Aulki horietan esertzen dira saudadea praktikatzen duten **lisboatar** ugariak. Joxean Agirre

---

**lisboarsa** *(Euskaltzaindiak desegokitzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea) iz* lisboar emakumea.

Egia baldin bada **lisboarsak** Europako hiriburuetako emakumerik zatarrenak direla, itsuskeriaren infernutik atereak dirudite ostatuko parrokiano femenino bakanek. Aingeru Epaltza

---

lisboatar ik **lisboar**.

---

liseitu ik **liseritu**.

---

**liseri-neke** *izond* liserigaitza.

Kurtso **liseri** nekeak, erakasle zenbaiten metodo kaxkarrak, edo azterketa demonio horiek! Herria

---

**liserigaitz** *izond* liseritzeko gaitza dena.

Saltsa lodi eta **liserigaitza** , aldiz, nonahi. Berria - Ekonomia

---

**liseriketa** *(orobat **lixeriketa** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **digestio** agertzen da)* **1** *iz* digestioa.

**Liseriketako** organoak, nerbioak, barea, area edo pankreas. Pello Zabala

**Liseriketa** sistemako gaixotasunak. Berria - Euskal Herria

Arnas eta **liseriketa** aparatuen gaixotasunak. Berria - Euskal Herria

Bakterio eta zelulen DNAetan atxiki oroimenari esker eta haien arteko borrokaren ondorioz, **liseriketa** prozesu bat bailitzan, bilakaera agudo gertatu zen. Jose Angel Irigaray

**2** irud/hed

Eguneroko bizitzaren eta munduko gurpil noragabekoaren arteko kontraesanen **liseriketa** astunak tripako mina ematen badigu ere. Berria - Kultura

---

**liseritu**, liseri, liseritzen *(orobat **liseitu** g.er., **diseritu** g.er., **diseitu** g.er. eta **lixeritu; ik liseriketa**)* **1** du *ad* digeritu.

Azken azterketek, berriz, «odoleko anomaliak» eta **«liseritzeko** arazoak» dituela ondorioztatu eta leuzemia izatea ukatu dute. Berria - Mundua

Egurra, burdina edo harria jaten ez banituen, mamurtu eta **liseritu** ezin zirelako besterik ez zen. Urtzi Urrutikoetxea

Bere ostruka-urdailak harriak ere **liserituko** lituzke, baita lizundutako txanpon zaharrak ere. Itziar Otegi

Langileek 400 grama ogi eskuratzen dute, ogitzeko aisetak ez diren gaiez egina gaizki errea, pisua, **liseritzeko** nekea... Marzel Etxehandi

Moteldurik sentitzen zuen haxixa nola **liseritzen** zen bere baitan, haren limurtasunean abandonatua. Patxi Zubizarreta

Jaten zuen bederen, **diseitzen** eta putz bat eskapatzera uzten? Piarres Aintziart

**2** irud/hed

Anti-intelektualismoa, manikeismoa, mistizismoa, pesimismoa, anarkismoa, egoitsmoa **liseritu** ditu. Eskolan toneladaka nozioak emanik elikagai, bizkor ere bizkor **liseritzen** nituen nik, baina ez zidaten zainetako odolik berotzen. Juan Garzia

---

lisiba ik **lixiba**.

---

**liskar** *(orobat **lisker** g.er.)* **1** *iz* eztabaida, errieta, borroka.

Ni ez nauk nahasiko **liskar** horretan, ez horixe. Karlos Zabala

**Liskar** ugari piztu ziren gure protagonistaren kariaz. Jose Morales

Aspaldiko **liskar** hartan piztutako etsaigoaren garrak, gizalege britainiarraren elurren pean txingar bihurturik bada ere, bizirik dirau oraindik. Xabier Olarra

Auzokideekin **liskarra** pizten zenean, horixe zuen arma nagusi. Patxi Zubizarreta

**Liskar** horiek berari adina niri dagozkidala iruditzen zait. Josu Zabaleta

Asma daitekeen bezala, hortik sortu zen anitz **liskar** eta nahigabe. Piarres Xarriton

**Liskar** eta odol-isurketa handia eraginez. Felipe Juaristi

Halatan, aski frogatua iruditzen zait Merteuil andrea ezin izan daitekeela ez **liskar** horren kausa, ezta eragilea ere. Jon Muñoz

Bera gaztedanik kristauen arteko **liskar** guztien kontra bihurtu zen. Politikagatik gure artean hainbeste **liskar** izatea, hori ergelkeria hutsa iruditzen zait. Piarres Xarriton

Bikote baten **liskarra** entzun dut. Koldo Izagirre

Astebete iraun zuten **liskarrek**, eta auto erreketak eta kale kalapitak nonahi piztu ziren aldi horretan. Hasier Etxeberria

Gizakiarentzat ohoragarri da **liskarretatik** ihes egitea; baina zentzugabea auzitarako beti prest. Elizen arteko biblia

**2** ik beherago **7.**

Zein **liskar** duzu bada zeure buruari egiteko? Jon Muñoz

Karia horretara egin didazun **liskar** gisako horrek biziki asaldatu nau. Jon Muñoz

Eta zer **liskar** ez zenizkioke zeure buruari eginen, baldin gertakari hori zorionekoa ez balitz! Jon Muñoz

**3** (izenondoekin)

Hala, margolanen benekotasunaren inguruan **liskar** handia sortu da. Berria - Kultura

Halako **liskar** txiki bat izan genuen duela hilabete batzuk, eta adiskidetzea urrun dago oraindik. Oskar Arana

Minskeko kaleetan **liskar** gogorrak izan ziren atzo polizien eta manifestarien artean. Berria - Mundua

**Liskar** beldurgarriak izaten ziren gauero bi anaien eta Lisa ederraren artean. Karlos Zabala

**Liskar** izugarria piztu zen Roseren eta arrain saltzaile baten artean. Karlos Zabala

Nazien jendaurreko agerraldiak eta mitinak **liskar** larriekin bukatzen ziren. Alberto Ladron Arana

Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako katolikoen eta protestanten arteko **liskar** atergabeetan. Erabilitako metodologiak ez zuen utzi bi joeren azpian zegoen **liskar** politikoa azaleratzen. Joan Mari Irigoien

Azken urteotako **liskar** politikoen inguruan idatzi dena. Bernardo Atxaga

Orduan hasi ziren **liskar** armatuak Gazako karriketan. Berria - Mundua

Oraingoz **liskar** zalapartatsuak baretu dira; Dussel bakarrik dago Van Daanekin haserretuta. Josu Zabaleta

Ordurako bagenekien tribuaren barneko **liskar** sarritan latzek jeltzaleen jarrerak besteko mina eragiten zizutela. Xabier Montoia

Oraintxe arte ez dut hartu, maite eder horrek, hilaren 11ko zure gutuna, eta han bilduak diren **liskar** eztiak. Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Liskar** hotsa iristen zen hirugarren solairutik. Oskar Arana

Gaitzetsi dizudan **liskar** doinu horretarik itzurtzeko. Jon Muñoz

**Liskar** giroarekin amaitzeko. Berria - Euskal Herria

Egoera horrek Aznarren garairik ilunenera eramango gintuzke, **liskar** eta konfrontazio garaira. Berria - Euskal Herria

Gerla bakoitza **liskar** eta ondiko iturri bat dela. Joan Mari Irigoien

**Liskar**- eta heriotza-historiak kontatzea gustatzen zitzaion. Josu Zabaleta

**5** ***liskarrean*** *adlag*

Hitza kentzen zion honako honi; **liskarrean** hasten zen harako harekin. Karlos Zabala

Zure kontra **liskarrean** ari direnak. Elizen arteko biblia

Bi gizon, elkarren etsai amorratuak, **liskarrean** zebiltzan aspalditik. Askoren artean

**6** ***liskar batean*** *adlag*

Bultzaka eta **liskar** batean aritu ziren biak. Inazio Mujika Iraola

**7** ***liskar egin*** errieta egin.

Eta gozamen horien eztitasunak dastatzeagatik **liskar egiten** didazu! Jon Muñoz

**Liskar egidazu** aitzitik; bai gogor **liskar egin** ere, zeren erruduna bainaiz. Jon Muñoz

**Liskar egin** diot haren etxekoandrea partitzera zihoala mezutu ez zidalako. Jon Muñoz

Etengabe egiten dit **liskar**, nola musikaz hala bertze gauzez. afalondo osoan **liskar egin** nion neure buruari, zuhurtziarik gabeko urrats hori egin nuelako.· Zorionekoa zu, ez baitut zuri **liskar** gehiagorik egiteko astirik. Jon Muñoz

Antzina hamaika **liskar** handi **egina** zion senarrari, baina emaitza onik gabeak denak ere. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**liskar bat izan** (5); **liskar batzuk izan** (3); **liskar bila** (3); **liskar egin** (9); **liskar eginen** (3); **liskar egiten** (4); **liskar gogorrak** (6); **liskar gogorrak izan** (3); **liskar handi** (4); **liskar handi bat** (3); **liskar handia** (4); **liskar handia sortu** (3); **liskar handiak** (3); **liskar izan** (6); **liskar txikiak** (3); **liskar ugari** (6); **liskar ugari izan** (3)

**hasi zen liskarra** (4); **izan zuten liskarra** (3); **izandako liskarra** (3); **liskarra besterik ez** (3); **liskarra izan** (19); **liskarra izan zuten** (6); **liskarra pizten** (3); **liskarra piztu** (3); **liskarra piztuko** (3); **liskarra sortu** (6); **liskarra sortzeko** (4); **liskarra sortzen** (4); **milagarren liskarra** (5)

**eztabaidak eta liskarrak** (4); **hasi ziren liskarrak** (5); **izandako liskarrak** (9); **liskarrak areagotu** (7); **liskarrak egon** (5); **liskarrak eragitea** (3); **liskarrak gertatu** (7); **liskarrak hasi** (5); **liskarrak izan** (45); **liskarrak izan ziren** (25); **liskarrak izan zituzten** (3); **liskarrak izaten** (4); **liskarrak nagusi** (5); **liskarrak piztu** (9); **liskarrak piztu ziren** (6); **liskarrak sortu** (5); **liskarrak sortzea** (3)

**izandako liskarraren** (4); **liskarraren ondorio** (3); **liskarraren ondorioz** (3)

**elkarrekin liskarrean** (4); **izandako liskarrean** (3); **liskarrean ari** (7); **liskarrean hasi** (3); **liskarrean zebiltzan** (3)

**liskarrei aurre egiteko** (4)

**izandako liskarren** (7); **izandako liskarren ondorioz** (4); **liskarren bat** (16); **liskarren bat edo** (3); **liskarren bat izan** (4)

**izandako liskarrengatik** (6); **sevillan izandako liskarrengatik** (3)

**izandako liskarretan** (17); **zauritu ziren liskarretan** (3)

---

# liskarbide *iz* liskartzeko zioa.

Eta **liskarbiderik** ez da falta, egiaz. Josu Zabaleta

**Liskarbidea** jarri duenak, bestearen oinetan barkazio eske belaunikatu behar du berehala, Jaunari bere otoitzaren oparia eskaini aurretik. Askoren artean

Ez dut uste horrek hain **liskarbide** handirik ekar dezakeenik. Jon Muñoz

Gure gizonik atseginenak lehian ari ziren **liskarbide** izateko ohorea nork erdietsiko. Jon Muñoz

---

# liskarbidetsu *izond* liskarbidez betea.

Zuzendaritzak Koldoren otzantasunaren aldeko apustua egin zuenetik, Danelen profesionaltasunaren aldeko apustu logikoagoa (eta **liskarbidetsuagoa**) bazterturik. Anjel Lertxundi

---

# liskargile *izond* liskar egiten duena.

**Liskargile** horiek Islamaren izena zikintzen ari dira. Berria - Mundua

---

# liskarka *adlag* liskar eginez.

**Liskarka** aritzeagatik beretik, ez dela amore eman nahi izaten. Jon Muñoz

---

**liskarraldi** *iz* liskarreko aldia.

Ni haserretu egin nintzen eta **liskarraldi** bat izan genuen gero. Antton Olano

Erasoarekin, Karlosen eta Katalinaren arteko ezinikusia, lehendik ere bazena, hainbesteraino areagotu zen, non andre Agedak, **liskarraldi** garratzak saihesteagatik, Karlos ostera ere Oñatira bidali baitzuen eta bera bere alaba zelatatzera jarri zen. Koro Navarro

---

**liskarti** **1** *izond* liskarrean aritzen dena. ik **liskartsu.**

Shamil buruzagiaren ondorengo **liskarti** batzuk altxatu zirenean. Karlos Zabala

Seme zentzugabea aitaren zoritxarra, emazte **liskartia** etengabeko itogina. Elizen arteko biblia

Ez lan eta estudiozale ekuru, egonarriko, baizik matxin bihurri, grinatsu, **liskarti**. Joxe Azurmendi

Zaldun horiek, edo, zalduntxoak, hobeki, oso **liskartiak** direla. Joan Mari Irigoien

ELAren «jarrera **liskartiak**» lan harreman «modernoei» kalte egiten diela salatu du Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko patronalak. Berria - Ekonomia

**2** (izen gisa)

Ikatzak txingarra, egurrak sua: berdin suspertzen **liskartiak** sesioa. Elizen arteko biblia

---

**liskartsu** **1** *izond* liskarrean aritzen dena, bihurria.

Moskuko gobernuak herri **liskartsu** horiek erabat menderatuak zeudela uste izan baitzuen. Karlos Zabala

Zaldien eta abelgorrien umeteria **liskartsua**. Xabier Amuriza

Laster bere arima berez **liskartsua** beste barne gatazka batean sartu zen. Patxi Zubizarreta

**2** liskarrez betea.

Kongresu lasaia izango da, ala **liskartsua**, aurrekoak legez? Berria - Ekonomia

Eztabaida **liskartsua** Forumean. Berria - Euskal Herria

Baina gau **liskartsu** batez hanka batean zauritu zuten eta herren utzi. Anjel Lertxundi

Gauean manifestazioa egin zen, **liskartsua**, polizia oldartu baitzitzaien gazteei, eta atxilotuak izan ziren. Berria - Euskal Herria

Ikastaldi horietarik bat eman nuela txukun eta baketsu, orduan han gaindi zebiltzan beste hainbeste solas nahasi eta **liskartsuren** aurka, *Decretalia*-ren aitzinsolas hau iruzkinduz: Errege bakezaleak, bere bihotz onarekin nahi du bere subjektuak umilak, bakezaleak eta bertutetsuak izatea. Piarres Xarriton

Senar emakoiarekiko harreman **liskartsu** eta sarri bortitza gorabehera, beti izan zen haren lanaren defendatzaile irmoa. Oskar Arana

Apirilaren hasieran apartamentura egin zidan ikustaldi hits **liskartsuaren** ondoren. Oskar Arana

Egoera **liskartsuetan** asko laguntzen baitu bere tokian eta bere momentuan zuzen esandakoak. Anjel Lertxundi

---

**liskartu**, liskar, liskartzen **1** da *ad* liskarrean aritu.

Egin ditzatela apustuak, egin dezatela barre, esan ditzatela juramentuak, egin dezatela nahi dutena, ustel daitezela nahi badute, baina ez daitezela **liskartu**, horrelakoetan akabera txarra izaten da-eta. Josu Zabaleta

Eztabaidan **liskartu** ginen lehenengo aldia izan zen. Joxan Elosegi

Eta gero, inolako arrazoibide agerikorik gabe, kalapita basatian **liskartzen** ziren. Mirentxu Larrañaga

Venancia eta haren suhia **liskartzen** zirenean, Manoloren emaztea senarraren alde ateratzen zen beti. Josu Zabaleta

Atzo Dani eta Joanarekin **liskartu** nintzen. Antton Olano

-Hirekin ez zegon ondo etortzerik, administratzailearekin berarekin ere **liskartuko** hintzateke huskeria batengatik, zikoitza alaena! Jose Morales

Vressacek beltzuri horren kausa nahi izan zuen galdegin, bizkondesa **liskartu** zitzaion. Jon Muñoz

Zeinahi bidez bazter ezak, edo **liskar** hakio bertzela: ez izan ondorioen beldurrik, nik sustengatuko haut. Jon Muñoz

Ez zen berriro ere **liskartzeko** beldur baina, aldi berean, mihi gaiztoei hizpidea eman nahi ez. Patxi Zubizarreta

Elkarrekin **liskartuak** baketzen eta ados zeudenak maite-lokarri estuagoz lotzen. Askoren artean

Van Daan senar-emazteak **liskartuta** daude berriro. Josu Zabaleta

**Liskarturik** ere, gonbidatuak eta etxeko nagusiak elkarrekin afaldu zuten. Jose Morales

• **2** (du aditz gisa)

Ibili ziren, jakina, beste zurrumurru batzuk ere, senide guztiak **liskartu** zituen oinordetza kalapitatsu baten ingurukoak guztiak. Anjel Lertxundi

Gaizki egindakorik kausitzen didanean, liskar egiten dit batzuetan; eztiki **liskartzen** nau ordea, eta gero bihotz-bihotzez besarkatzen dut, harik eta haserrea baretzen zaion arte. Jon Muñoz

Ez diot hain segur neure buruari zer **liskarturik**. Jon Muñoz

**3** (era burutua izenondo gisa)

Nire familiakoak eskailera beherenean geunden, arnasari eusten, behar izanez gero **liskartuak** bereizteko prest. Josu Zabaleta

---

**liskartxo** *iz* liskar txikia.

Hurtadok harekin izandako lehenengo **liskartxoa**, Sanchez Baezako zezenketa batera joan zelako izan zuten. Josu Zabaleta

Maitagarriek **liskartxoak** izaten dituzte txoriekin, baina normalean erantzun zibilizatuak ematen dizkiete galdera zibilizatuei. Julen Gabiria

---

**liskarzale** *(orobat **liskar zale** g.er.)* **1** *izond* liskarraren zale dena.

Hau emakume **liskarzalea**! Jose Morales

**Liskar zalea** da mutila. Juan Garzia

Goseak gaude, eta goseak gaudenean, oso **liskarzale** gara denok. Irene Aldasoro

Lepoa egingo nuke Txitxikovek erosi dituen mujik horiek, lapur hutsak eta mozkor porrokatuak ez badira, alfer gorotzak eta **liskarzale** amorratuak direla. Jose Morales

Ezpatari trebea baitzen, **liskarzale** eta andrezale bezain. Felipe Juaristi

Hartz handia bera ere baldar, itsu eta **liskarzale** bilakatzen da, eta, azkenean, lur jotzen du zakur zaunkarien oldarpean. Patxi Zubizarreta

Gero esan zidatenez, Tapia edo Paredes edo halakoren bat zeritzon, eta **liskarzale** fama zuen. Juan Garzia

**2** (gauzei buruz)

Bai, bere izaera **liskarzale** oldartsuak gizonari aurre egitera derrigortzen zuen. Patxi Zubizarreta

Dimitrios-i ahots ozen eta **liskarzalez** galdetu zionean ea Nathan han zegoen. Oskar Arana

Borroka bila dabilen **liskar zale** baten harropuzkeriaz. Karlos Zabala

**3** (izen gisa)

Alcolean lapurreta eta hilketa gutxi izaten zen: garai batean izan ziren halakoak jokalarien eta **liskarzaleen** artean. Josu Zabaleta

**Liskarzaleak** bekatua du maite, handinahikoak hondamendia bereganatzen. Elizen arteko biblia

---

## liskatsu ik **likatsu**.

---

## lisker ik **liskar**.

---

## **liso** *(orobat* ***lisu*** *g.er.)* **1** *izond* ileaz mintzatuz, kizkurrik ez duena.

Bilarreko bola bat bezala, **lisoa** eta biribila. Joan Mari Irigoien

Mutil gaztearen arrebak itxura mozkotea zuen, eta ile **liso** leuna. Mirentxu Larrañaga

Aurpegia luzea zuen, ilea batzuetan txukun orraztua eta **lisoa**, beste batzuetan galanki kizkurtua ilea kizkurtzekoekin. Fernando Rey

Ile **lisoa** eta horiska dindilizka zeukan bizkarretik behera. Lopez de Arana

Kaobaz tindaturiko ile **lisoa**. Unai Iturriaga

Horregatik iparraldeko herrialdeetan bizi den jendea gorpuzkera handikoa izaten da, larruazal-kolore argikoa, ile gorri **lisokoa**, begi urdin eta odol ugarikoa. Santiago Iruretagoiena

Ile gorrixkaren mataza izurtu batek kiribil **lisoez** zedarritzen zion kopeta luze eta estua. Lopez de Arana

**2** (bestelakoetan) ik **leun**.

Galtza **lisoak** eta belusezkoak. Felipe Juaristi

Larruzko botez gizonak, larruzko zapata **lisoz** emakumeak. Felipe Juaristi

Badira bi muskulu mota nagusi: **lisoak** eta ildaskatuak. Irene Aldasoro

Bilarreko bola bat bezala, **lisoa** eta biribila. Joan Mari Irigoien

**3** (adizlagun gisa)

Bere ile horia buru handian **liso** zanpatuta. Iñaki Mendiguren

Txikia zen, begi urdin urtsuak zituen eta ile hori ugaria, buru sendo eta lodian **liso**-liso eroria. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> ile liso (3)
> ile lisoa (5)

---

## **lisogenia** *iz* birus bat, bizkarroi dagoen bakterioaren nukleoan integratzea eta harekin zatitzea.

Elie Wollman-ekin lehenik, bakterioen **lisogenia** eta sexualitatea ikertzeko. Juan Garzia

Poliki-poliki, **lisogeniari** buruzko lana eta laktosa sistemari buruzkoa konbinatuz, eztabaiden eta arbeleko diseinuen poderioz, tankera hartu zuen, halako batean, "operoi" delakoaren ereduak. Juan Garzia

---

## **lisosoma** *iz* zelularen zitoplasman aurkitzen den zatikia, digestiorako enzimak dauzkana.

Synukleina proteinak mutatu, eta **lisosoma** zelulak zaintzeko sistema blokeatzen du. Berria - Gaiak

---

## **lisotasun** *(corpusean* ***lisutasun*** *soilik)* *iz* lisoa denaren nolakotasuna.

Sentimenak gozatzen dituen ezer ez baita sortua izan bere lehenkietan **lisutasunik** gabe; aitzitik, ordea, molestoa eta latza den guztiak materiaren nolabaiteko zakartasuna ageri du. Xabier Amuriza

---

## **lisotu**, liso(tu), lisotzen du *ad* lisotasuna eman.

Lehen zimurrak agertzen diren unetik gerla bat hasten dela bi denbora ezberdinen artean, egunekoaren eta gauekoaren artean, batek zimurgabetu eta **lisotu** duen azalean irekitzen baitu besteak ildoa bere txanda iritsitakoan. Pako Aristi

---

## **lista** *(orobat* ***lixta)*** **1** *iz* pertsonen edo gauzen izenen zerrenda.

S.S. batek, **lista** bat eskuan, joan behar zutenak izendatu zituen. Marzel Etxehandi

Bere tituluen **lista** eman zuen berriro. Joan Mari Irigoien

Has zitekeen, halatan, bekatu mortalen **lista** zabaltzen. Joan Mari Irigoien

Badakit hauetako batzuk seko gorri lotsatuko direla hemen **listan** azaltzean: eskatu banie, ez nukeen jasoko baimenik eta... esana dago gainerakoa. Pello Zabala

Presoen **lixta** afitxatua da, sargian. Marzel Etxehandi

**2** *ipar* hauteskunde edo bozetako hautagaien zerrenda.

**Lista** desberdinen artean, hor dugu "Arrangoitze Azkenean" zerrenda, herrian dinamika berri bat bultzatu nahian. Herria

**Lista** horren helbürüak: Mauleko bazterren antolatzea, demokraziaren emendatzea eta oroz gainetik esküinaren bazter etxekitzea. Herria

Sozialisten **listako** lehena Pierre Hamant izanen da. Herria

**Lista** gaztea hots, eta prefosta abertzalea. Herria

Miarritzeko azken bozetan Max Brisson RPRekoak onartu zuen Didier Borotraren **listan** sartzea. Herria

Andde Luberriaga auzapezaren **lixtak** irabazi duela partida, hamahiru alki segurtatuz. Herria

Hautuaren eguna ari hurbiltzen eta huna bigarren **lista** baten agerpena. Herria

Presentapen lekura heldu delarik erran diote haatik ez zela **listan** sartua. Herria

Bestetik, "Lahonce pour tous" lemaren pean prest dago zerrenda bat, François Bioy delarik **lista** burua. Herria

Jean Pierre Destraden inguruan beste zerrenda bat egina da baina bera **lista** buru izan gabe. Herria

Auzapez ohiaren **listatik** 6 dira hautatuak izan: Jean Michel Glaize 64 boz, Claudine Irigoin 63, [...]. Herria

Boza **lixta** bati eman behar da, **lixta** hortan deus kanbiatu gabe. Herria

**3** zerrenda.

**Lista** gorriminak ageri dira zeruaren oihalean, ostertza kolpaturik balego bezala. Xabier Montoia

---

## listadun *izond* zerrendaduna.

Eta gerrikoaren partez, gerri mehearen inguruan, jaka erdia zekarren, ez: gutxiago, jaka laurdena, oihal zuri **listadunezkoa**, nakarezko hiru botoi distiratsu zoragarrik lotua. Matías Múgica

---

## listafin *(orobat **liztafin, leizafin, leiztafin** eta **leztafin**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **listafin** agertzen da)* **1** *iz* liztorra.

**Liztafinek** naute iratzararazi, ene zango eta oinen gosez. Piarres Aintziart

Tortura ukatze horiek, iduri-eta Unai Romano gaztearen aurpegi desformatua **leiztafin** inoxent batek eginiko xixtaño baten ondorioa baizik ez zela... Herria

Etxe edo larretako su hiltzeak, bidegaineko ixtripuak, jende behartuen soleitzea edo eritegietarat segitzea, liztor edo **leztafin** kasatzea. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Baina ene dozierraren parte hori hark baino hobeki ezagutzen bainuen, **leizafin** kafi hortatik sobera makurrik gabe atera nintzen. Marzel Etxehandi

Altu eta **listafin** gerria zuena, zango mehe, beso luze... euli pisu bikain bat egiten zuen. Pablo Sastre

---

## listaño *(corpusean **lixtaño** soilik)* *iz adkor* lista.

Bazterrak airean ezarriak ditu hor gaindi biziki polliki, alegia eta deusez, Pazko bezperan agertu **lixtaño** batek..! zer da bada lixta hori? 616 izen badauzka, denak erremedio batzuen izenak. Herria

---

## listari **1** *iz* gauzak biltzeko hari sendoa. ik **kordel; soka.**

Ez da soka, **listaria** baizik. Bernardo Atxaga

Soka edo **listaria**, zertarako den jakin nahi dut nik. Ez zen ez xingola bat, ez **listari** bat, baizik eta galoi txirikordatu bat. Bernardo Atxaga

Ziba dantzarazteko **listari** mehea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Azken korapiloa egin zion **listariari** enborrean sobera estutu gabe. Koldo Izagirre

Orduan, ile-matazak garondoaren parean bildu, eta korapilo bat egin zion Norak **listari** batez. Anjel Lertxundi

Historia batek beste bat dakar sarritan, **listariko** korapiloak legez. Jokin Urain

Gutunean jasotako uztaitxoa **listari** batekin zintzilikatu nuen etxeko garajean. Bernardo Atxaga

Komunetako xukabideak erabiliz, **listariz** loturik elkarri mezuak bidaltzen zizkioten. Pablo Sastre

**2** (hitz elkartuetan)

Zetazko paper-biribilki, **listari** mutur, ardo botila eta beste hainbat gai. Joxan Elosegi

**Listari** puska batean eginiko korapiloez osatua zuen errosarioan bildua. Koldo Izagirre

---

## listatu, lista(tu), listatzen **1** du *ad* prest jarri.

Mandoak **listatu** ditinat eta prest zauden. Juan Garzia

**Lista** itzan hire tresnak eta hoa. Juan Garzia

**Lista** zaitezte, otoi, bidaia presatsu horretarako; ezen girgiluak nahi dizkiogu ezarri orain oin-askeegi dabilen izugarri horri. Juan Garzia

**2** (era burutua izenondo gisa) zerrendatua.

Atera zuen bere jaka-laurden **listatu** hartako ezker sakelatik botilatxo zapal bat. Matías Múgica

Paper **listatu** apain bat hankezurren inguruan zuela. Irene Aldasoro

---

## listeria *iz* meningitisa eta septizemia, besteak, beste eragiten dituen bakterioa *(Listeria gen.)*

Elikagai berriek oraingo gaixotasunen areagotzeaz gainera berririk ere ekarri eta jeneralizatuko dute, hala nola salmonelosia, **listeria**, behien entzefalopatia espongiformea [...]. Edorta Agirre

1987an Suizan, 25 hil, **listeriaz** kutsatu gasnak jan-eta. Herria

1992an Frantzian, **listeria** gatik 63 hil. Herria

---

## listerina *iz*

Aurpegia **listerinaz** busti zuen, norbere garbiketarako gauzak bere toaila hezean bildu eta aza-berde koloreko alfonbra batez estalitako eskailera batzuetan gora egin zuen. Lopez de Arana

---

## listin *iz* telefono aurkibidea.

Atariko atezain automatikoan bigarren eskuinari zegokion izenari erreparatu, eta telefono **listinera** egokitu besterik ez: Piarres Bordagarai, 59 45 86 21. Patxi Zubizarreta

Hogei bat De Miguel aurkituko zenituzten telefonikako **listinean**, eta banan-banan deika aritu zineten, bila zenbiltzaten Demi hura aurkitu zenuten arte. Jokin Muñoz

Baina ez, **listina** errazegia zen. Unai Elorriaga

---

## listo[1] *(orobat **lixto** g.er.)* *adlag* prest.

**Listo**, dena prest dago. Sonia Gonzalez

**-Listo** -esan zuen Dimasek. **Listo**, filatxo zuri bat eta dei egingo diot. Sonia Gonzalez

Botak garbitu eta **listo** . Sonia Gonzalez

-Orain Betadine pixka bat eta **listo** ! Aingeru Epaltza

Noizean behin kantariak hurrengo kantua zein izango zen aipatzen zuen eta **listo** , lanera. Berria - Kultura

Enara **listo** dago habiak lokatzez egin eta kumak ateratzeko: gero eta eltxo gehiago baitabil airean. Pello Zabala

---

**listo**[2] **1** *izond/iz adkor* buruargia; buruargi ustekoa. ik **listopasatu**; **listomari**; **zozolisto**; **tontolisto**; **tertulisto**.

Horixe da zuen kondena: hain **listo** zaretenez denak, eta hainbeste eta hainbeste zaretenez, jada ez dakizue zer txorrada esan, zer mozolokeria idatzi, zer txatxukeria asmatu. Jon Alonso

Baina gidoi hartatik atera hintzen, **listo** hori, sekula armarik ukitu gabea hintzela esan huenean. Jokin Muñoz

Berak bai, berak bazakizkik kontu asko, mutil **listoa** duk! Urtzi Urrutikoetxea

Eta elurrak biltzen ditu **listoak** eta ezjakinak, mozkorrak eta apaizak, emakumeak eta malderrak, hilak eta biziak. Markos Zapiain

**2** (hitz elkartuetan)

Eta sendagilea, **listo** plantak eginez, paperean idatzi eta idatzi. Xabier Etxabe

**3** ***listoarena egin*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

**-Listoarena egiten** saiatu naiz - aitortu zuen Philippek -, lehengo astean nagusiak errieta egin zidan eta zera esan... ETC-literatura, saiakera

[telebista<->Zurea da nire bihotza, Goenkale, 2004]DIEGO.- (zutituz, **listoarena eginez** ) Esan diet zu show-bussiness-ean ari zarela, ulertzen? Eta ikuskizunak jarraitzeko, beharrezkoa dela batzutan ergelarena egitea. Edo ez? Negozioa ez al da horrela?

---

**listoi** **1** *iz* oholaxka, estrabea.

**Listoi** batzuk jarriko dira zuzen, elkarren artean bi oin baino gehiagoko tarterik utzi gabe. Santiago Iruretagoiena

**2** (gorako jauzian)

Konturatu orduko, **listoia** 4,35ean zegoen, bere marka onena aurten. Berria - Kirola

Bitan hobetu du Espainiako marka, **listoia** 4,47an jarri arte. Berria - Kirola

Konturatu orduko, **listoia** 4,35ean zegoen, bere marka onena aurten. Berria - Kirola

Gainera, pertika eta gorako jauzian zaila da ezer aurreratzea, tartean **listoia** dagoelako. Berria - Kirola

**3** irud/hed

Baina bolada eskas hartan ez nengoen **listoia** oso goian ipintzeko moduan. Jon Arretxe

Nik aitortzen dut gutako askok ez dutela nahi 38 **legebiltzarkideko** listoia gehiengo osoa pasatu. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> listoia bota (3)

---

**listomari** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* *izond/iz adkor* buruargi ustekoa. ik **listo**[2]; **listopasatu**; **zozolisto**; **tontolisto**; **tertulisto**.

Aldaketak defendatzen dituzun guzietan bezala, jaso ditudan erantzunak **listomarien** topikokeriak izan dira». ETC-prentsa

Beraz, **listomari** mediatiko guztiez futitzen da halakoak entzuten dituen aldiro, eta putaidearik ez dutela konprobatzen egunero-egunero liburutegian jende saldoa ibiltzen dela ikusita. ETC-literatura, saiakera

ZAINDARIA. - Hi, **listomari** ! Nirekin etorri beharko duk! ETC-telebista

---

**listopasatu** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)* *izond/iz adkor* buruargi ustekoa. ik **listo**[2]; **listomari**; **zozolisto**; **tontolisto**; **tertulisto**.

-Bai, bale, **listopasatu** samarra izan naiz. ETC-literatura, saiakera

Peter Pan deitzen didan original usterik ere badago, Gaztelaniako **listopasatuak** , kasu, nahiz ile txima hauekin Garfio miope baten itxura handiagoa dudan. ETC-literatura, saiakera

**listopasatu** askotxo . ETC-prentsa

Nolanahi ere den, zorrotz balio du definitzeko PPko **listopasatuen** panorama ere: Rajoyren alderdia Media Markt-en filosofiarekin diseinatua dago, Angel Acebesena da atzo arteko azken estanpa: Ni ez naiz tontoa! dute eslogana, praktikoagoa zaie ikusitako guztia arpilatzea tonto putz gelditzea baino. ETC-prentsa

ENDIKA. - (grabagailua seinalatuz) Hemen zagok froga. Honekin ez zagok zalantzarik. Kirmen eta Unax **listopasatuek** larrutik pagatuko ditek. ETC-telebista

---

listor ik **liztor**.

---

**listu**[1] *(orobat **lixtu** g.er. eta **liztu** g.er.)* **1** *iz* ahoko guruinei darien isurkari apur bat likatsua; isurkari hori, ahotik jaurtitzen denean. ik **tu; ahogozo**.

Gelako mahai gainean edo etxekoan arkatzez zirriborroak egitea gustatzen zitzaidan niri, gero **listu** pixka batekin atzamarrez ezabatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

-Zertarako erabili hainbeste **listu** txorakeria hori kontatzeko! Patxi Zubizarreta

Gaueko zaindariak antolatzen saiatzea **listua** alferrik gastatzea duzu. Lopez de Arana

Ezpainetatik zerion **listu** eta odolaren nahasketan. Harkaitz Cano

**Listua** kontrako eztarrira joaten zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

Hagridek **listua** irentsi zuen, baina ez zitzaion hitzik atera. Iñaki Mendiguren

**Listua** irensten saiatu nintzen... Jose Morales

Pentsa daitekeenez, ezin nuen **listurik** irentsi. Ramon Saizarbitoria

Mihiaz klask egin, ezpainak miazkatu, eta ahoan bildutako **listua** jaurti zuen. Jose Morales

Margaritak esan zion Luisitok ahotik odola bota zuela **listuarekin** . Josu Zabaleta

Besterik gabe, **listua** eman zion gutunazalari, eta postariaren kutxan ipini zuen. Javi Cillero

Tu egin du norbaitek bere atzean, zapataren ondoan erori zaio **listua** . Koldo Izagirre

Mutilak zakila **listuz** busti zuen, ni prest jarri nintzen irrikaz betea. Karlos Zabala

**Listuaz** lohia egin eta lohiaz itsuari begiak igurtzi zizkion. Elizen arteko biblia

Bere **liztuaren** zaporeak blaitu zidan ahosabaia, nire sabelpea asaldaraziz. Juan Martin Elexpuru

Bagenekien bere **listuaren** ADNko nukleotidoen sekuentzia zifratua. Jon Alonso

· Haiek ohituak daude gauzen egia lakatzak **lixtu** handi batekin kontrako zintzurrean beheiti irensten. Iñaki Segurola

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hitzak jaten zituela segitu zuen, **listu** tanta ñimiñoak jaurtika niganaino. Aingeru Epaltza

Oharkabean **listu** zipriztinek ihes egiten diote hitzekin batera. Hasier Etxeberria

**Listu** kolpea sentitu nuen eztarrian. Harkaitz Cano

Ezpain erdi zabalduen artean ageri zen mihi muturretik **listu** hari mehe bat zegoen zintzilik. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** ***ahoan listu egin***

Baina pentsatzen ahal duk ahoan **listu** nola egiten zitzaigun hura ikusita! Josu Zabaleta

**4** ***listu egin***

Lurrera **listu egin** zuen. Aingeru Epaltza

Tabakoa erretzen eta sutara **listu egiten** ari zen. Josu Zabaleta

Albo batera **listu egin** zuela oroitzen naiz eta gero hori ezetz esan zuela, hori ezta pentsatu ere. Karlos Zabala

"Ea ba", esku ahurretan **listu egin** zuen Joxemarik; "zer egin behar da?". Pablo Sastre

Ezin diozu sekula utzi zure aho-barrenean berehala bukatzen eta, hala egiten badu, **listu egin** ezazu, garbi ezazu ahoa, igurtz itzatzu ezpainak musuzapi batez. Karlos Zabala

**5** ***listu-jario*** *adlag* listua jariatzen.

Izterrari ukabil ukaldika hasi zitzaion eta, ahots lakar zakarrez, **listu** jario, kexuka hasi zen: [...]. Patxi Zubizarreta

**6** ***listu-merke*** *(corpusean* ***liztumerke*** *soilik) izond*

Batetik, Espainiako selekzioaren zale **liztumerkeak**; bestetik, txerri ehiztari artaburuak. Berria - Ekonomia

**7** ***listua bota***

Ez nien aurpegia saihestu iraintzen eta **listua** botatzen zidatenei. Elizen arteko biblia

Orduan, aurpegira **listua** bota eta ukabilkadak eman zizkioten. Elizen arteko biblia

Renfeko langile batek **listua** bota du lurrera geltokian, nabarmen eta ozen. Pako Aristi

-Osasuna, kakagixon! -esan zidan; eta **listua** bota zuen lurrera destainaz. Inazio Mujika Iraola

Orain *booling*-a deritzona nik aspaldi bizitu nuen: harrika egin didate, **listua** bota didate...· Eskua lehortzen zitzaidanean **listu** gehiago botatzen nion. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**listu analisiak** (3); **listu egin** (6)

**listua bota** (13); **listua botako** (3); **listua botatzen** (11); **listua irensten** (3); **listua irentsi** (47); **listua irentsi zuen** (21)

**listurik irentsi** (3)

---

# listu[2], lits/listu, listen da/du *ad* (ehun bat) litsetan desegin. • *irud/hed*

Neure buruaren betekadaz lehertzen naiz, neure arnasak itolarritzen nau eta mila izpitan xehatzen naiz, **listen** naiz, baina izpi eta lits horiek oro neure gorputzaren erdi-erdiko muinean biltzen dira atzera, indarka bezala. Iñaki Segurola

---

# listuka *adlag* listu eginez.

Batzuk **listuka** hasi zitzaizkion. Elizen arteko biblia

Gizon talde batzuk edaten ari ziren salmahaiaren aurrean zutik, eztulka, **listuka**, begiak ireki ezinik, erabat esnatu nahian ardo zuriaren eta pattarraren laguntzaz. Karlos Zabala

Sekula ez zuen asmatzen, baina halere jan egiten zituzten patata haiek [...] barrez, **listuka**, eta aholku ematen hurrengorako. Anton Garikano

Azkenean, araoka eta **listuka** sendatzen duten emakume horietako batengana joaten da. Jose Morales

Hitzak **listuka** jalgi zitzaizkidan: [...]. Aingeru Epaltza

---

# listukada *iz* kolpe batez jaurtitzen den listua.

-Eslabo nazkagarriak, ba! -esan zuen Ninik, eta **listukada** bat bota zuen lurrera. Josu Zabaleta

---

# listukatu, listuka, listukatzen du *ad* listu egin. • *irud/hed*

Antzaldatzearen distira hitsak aurpegia harturik, zangoak elkargurutzaturik eta mihia alborantz okertuz, editoreak bere nahia paperean **listukatzen** du eta erabiltzeko moduko neurrietan zirtzilatzen. Xabier Olarra

-Engainatu gaituzue - **listukatu** dio Asierrek, ahots neutroz, metro bakar baten distantziatik. Aingeru Epaltza

-Azpisuge zikina - **listukatu** zidan-. Aingeru Epaltza

---

# listuontzi *iz* listu egiteko ontzia.

Congok tabernaren zokoan zegoen **listuontzira** ttu egin eta, kopetilun, barruko gelara itzuli zen berriro. Lopez de Arana

Viler zutitu eta purua **listuontzira** bota zuen. hara-hona gelan barrena, denbora guztian zinkurinka eta bazter batean zegoen **listuontzi** batera tuka. Lopez de Arana

---

# listuztatu, listuzta, listuztatzen du *ad* listuz bete.

Hurrenez hurren (eta arrakastaz) honako eginkizun hauek bete: ahoan txikitu, **listuztatu** eta irentsi. Xabier Olarra

---

lisu ik **liso**.

lisutasun ik **lisotasun**.

litania ik **letania**.

## litas *iz* Lituaniako diru banakoa.

1993: Diru berria, **litasa**, ezarri zen. Berria - Mundua

## litatu, lita, litatzen da *ad ipar* lurrez, etxeez eta kidekoez mintzatuz, erori edo lerratu.

Ezagutu ditugun euriteen ondotik, mendi mazela hortako peza ederra **litatu** da, bide guzia trabatuz. Herria

## litatze 1 *iz ipar* lurrez, etxeez eta kidekoez mintzatuz, erortzea edo lerratzea.

Euri eta hotzaren ondorioz gertatua laiteeke **litatze** hori. Herria

Haatik, beldur handiak badira **litatzeak** ez direla hortan gelditukο. Herria

**2** ***lur litatze*** *ipar* luizia.

Lur **litatze** batek Donostia eta Bilbo arteko A8 autobidea mozturik utzi du Zestoa eta Itziar artean, kamioi bat eta 4 auto azpian harrapatuz. Herria

Joan den aste erditan, gutitarik egin da ez baita ixtripu larriagorik gertatu gara ohiaren pareko lur **litatzearekin**. Herria

## litera 1 *iz* elkarren gaineko oheen multzoa.

Hiru pisuko **litera** bat alde batera eta beste hiruko bat bestera. Unai Iturriaga

Hiru mailatako **literak** ziren, lau ilara paraleloetan ezarriak. Josu Landa

Txikia izango da gela, zuriz pintatua, horman armairu bi, hozkailu bat, eta ohe biko **litera**. Joseba Sarrionandia

Gela batera eraman eta alkandora eta maila biko **litera** batetik behekoa eman zizkidaten. Urtzi Urrutikoetxea

**2** ohatzea.

Sei **litera** eta bost pertsona, pospolo kaxa bat zirudien gelan. Unai Iturriaga

Goiko **litera** eta sabaiaren arteko distantzia ez zen metro batera heltzen. Unai Iturriaga

## literal 1 *izond* berezko esanahiari dagokiona, hitzez hitzekoa.

Gizakia behartsua da, zentzu **literalean**, beharrei buruz adikzioa duen izakia. Iñaki Heras

Itzulpen **'literala'** egitea baino areago, testu irakurgarriak idaztea izan dugu helburu. Jose Antonio Mujika

Erreforma horien ezaugarri nagusia, Erregelaren obserbantzia **"literalera"** itzultzea izan da beti. Askoren artean

Muhammad Ibn Abd al-Uahhab (1703-1792) buru erlijiosoak Islamaren interpretazio **literal** eta puritanoa ondu eta hedatu zuen. Berria - Mundua

Ez zinemak, ez argazkiak, ez dute ezer errebelatzen munduaz, hitz horren zentzu **literal** eta esoterikoan. Josu Zabaleta

Beti ibili izan da psikoanalisten buruan, eta autobiografo handien artean ere berdin, iraganeko oroitzapenak garunean gelditzen direlakoa, modu ez hain **literalean**, ez hain mekanikoan bada ere. Oskar Arana

Irudi jakin bat eskema tipikoak ahalik eta modu **literalenean** irudikatzen duten irudi partzialen konbinazio multzoa. Josu Zabaleta

**2** (adizlagun gisa)

Hausterrek **literalegi** hartzen zituen gauzak. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> esanahi literala (3)

## literalista *iz*

Karaitarrak (-*qara'îm*, -*qara*' 'irakurri' aditzetik) testu sakratuen letra idatziari erabat atxikia zen judu sekta bat zen (**"literalistak"**). Xabier Kintana

## literalitate *iz* literaltasuna.

Beharbada alderdiko beste kide batzuek esan dute, baina **literalitate** horrekin ere duda egiten dut. Politikoei **«literalitatea**» baino ez diela eskatzen esan zuen duela ez asko, elkarrizketa batean, Bernardo Atxagak. Berria - Mundua

## literalki *adlag* era literalean, hitzez hitz.

**Literalki** belauniko erori nintzen gizon ahal-orotako haren aurrean eta eskua bilatu nion mun egiteko. Matías Múgica

Madarikaziotzat, berriz, "medà meshônà" lotura bitxia erabiltzen zen, hots, **literalki** "heriotza estrainioa", baina ulerbide zuzenean piamonterazko "assidènt" ("ezbehar") formaren kalkoa. Juan Garzia

Beraz, **literalki**, etxearen gobernua edo gidaritza aztertzea litzateke ekonomiaren helburua. Iñaki Heras

Irakurri nahi duk, baina ezin, euria nolabait liburuan sartzen zaik, ez **literalki**, baina bai benetan; ez haiz lerroei jarraitzeko gauza, euriaren hotsa aditzeko baino ez zaik gelditzen kemenik. Xabier Olarra

Askotan hitzak **literalki** ulertzea ez baita aski izaten gauzen zentzu filosofikoa jasotzeko. Ramon Saizarbitoria

Lubbocken showing **literalki** itzuliz. Josu Zabaleta

**Literalki** belauniko erori nintzen gizon ahal-orotako haren aurrean eta eskua bilatu nion mun egiteko. Matías Múgica

Gero entzefalitis batek "musikaren zentzua gordetzen duen zerebroaren puska jan egin zion **literalki"**. Pablo Sastre

Gizartearen klase-banaketa **literalki** islatzen dute artelanek beren ekoizpenean eta gizartean duten harreran. Josu Zabaleta

**literaltasun** *iz* literala denaren nolakotasuna.

Azalezko **literaltasun** baten haria jarraitzen da alde batetik, baina azpitik beste korronte bat mugitzen da, irakurleak dakienak eta esan gabe doanak eragina. Berria - Kultura

Stephenen marrazkiek [...] errealitatearekiko hurbiltasuna, **literaltasuna** eta nolabaiteko xalotasuna ageri zuten. Xabier Olarra

Edo autoritate argudioa delako -eta erakutsi nahi duzu nola esaten duen- edo bere **literaltasunean** kritikatu nahi den zerbait delako. Askoren artean

Emanaldia ederki hasten da, jatorrizko testuaren **literaltasun** ia osoaren bidetik eta garai hartako jantziak eta hizkera gaurko estetikarekin uztartuz. Berria - Kultura

---

**literario** 1 *izond* literaturari dagokiona. ik **literatura 3**.

Obaba leku **literarioa** da, eta nire haurtzaroko eta gaztetako bizipenetan dago bere egia. Bernardo Atxaga

Nik imajina dezakedan mundu **literarioaren** oinarrian beste batzuek imajinatu zuten errealitate **literarioa** dago, eta, mundu erreala deitzen dugun hori bezain erreala izanik, beste klase bateko erreltasun batez eraikitzen du bere existentzia. Anjel Lertxundi

Nortasun **literarioari** ez zaio ia aldaketarik nabarmentzen, ez gaietan eta ez estiloan ere, hogei bat urteko literatur ibilbidean. Anjel Lertxundi

Itsua izanagatik ere, Borges idazleak begi ernea zuen topiko kulturalak eta **literarioak** biluzteko orduan. Anjel Lertxundi

Puntako joera **literarioak** euskal literaturara ekartzea. Ana Urkiza

Maitemindu egin nintzen fikziozko pertsonaia **literario** hartaz. Ana Urkiza

Sistema **literarioa** beharrezkoa da, kultura guztiek daukate. Ana Urkiza

Gustu **literarioaren** homogeneizazioaz. Ana Urkiza

Ikuspegi filologikotik landa, **literariotik** ere interesgarria zela Iuan de Tartasen *Ontsa hiltzeko bidea.* *Iñaki Iñurrieta*

Lagunarte **literarioetako** kide: [...]. Josu Zabaleta

Nevsky perspektiban dagoen kafetegi **literarioan**. Edorta Jimenez

*El Liberal Guipuzcoano,* "egunkari politiko, filosofiko, **literario** eta merkataritzakoa". Askoren artean

Claudio Magris-ek Danubio liburu gogoangarrian egindako txango erdi **literario** erdi bidaiaria darabilt gogoan. Berria - Kultura

Elkarrizketa sasi **literario**, sasi zientifikoak. Lourdes Oñederra

**2 *ez-literario*** *izond*

Idatzitakoak, idatzia gainditu eta egia ez-**literario** eta oso sakon batera irits zitezkeelako sinesmenak gogor kolpatu ninduen. Berria - Kultura

Iruñetik «ezagutzen dudan hiri ez-**literarioenetik**» Madrilera daraman trenean hasten du Sanchez Ostizek egunkaria. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **agente literario** (3); **arketipo literario** (3); **baliabide literario** (7); **balio literario** (4); **erreferentzia literario** (3); **genero literario** (5); **ibilbide literario** (4); **jolas literario** (3); **kanon literario** (5); **lan literario** (5); **pertsonaia literario** (4); **produkzio literario** (3); **talde literario** (3); **testu literario** (3); **tradizio literario** (4)
>
> **alderdi literarioa** (3); **balio literarioa** (3); **hiriaren irudi literarioa** (3); **ibilbide literarioa** (4); **idazkera literarioa** (5); **ikuspegi literarioa** (3); **irudi literarioa** (3); **kritika literarioa** (3); **obra literarioa** (5); **zuzendari literarioa** (12)
>
> **baliabide literarioak** (3); **lan literarioak** (3); **zuzendari literarioak** (12)
>
> **bizitza literarioan** (3)
>
> **kritika literarioaren** (3); **mundu literarioaren** (3); **zuzendari literarioaren** (5)

---

**literarioki** *adlag* modu literarioan; literaturaren ikuspuntutik.

Benetako esperientzia bat **literarioki** adierazteko ahalegina egiten ari da. Bernardo Atxaga

Zergatik ez jostatu **literarioki** maisu frantziarrak emandako exenpluaren ildotik? Bernardo Atxaga

Urteak pasatu ahala, difuminatu egin zen -eta egin zaigu- Borgesen ikuspegi politikoa, eta haren eklektizismo politikoak, **literarioki** emanak, ez du aitzakiarik. Besteengandik ikasten eta, aldi berean, neure burua neurtzen, bai **literarioki** eta baita pertsonalki ere. Ana Urkiza

Oposizioa **literarioki** ere nabarmena da: "bi Pasaia baitaude egia esan, bata gaztea eta bestea zaharra". Koldo Izagirre

Durán bera erromantzeroan, **literarioki** baino gehiago, historiko-politikoki, hots, nazionalki interesatzen da, zehazkiago izpiritu nazionalaren historiagatik. Joxe Azurmendi

---

**literato** 1 *iz* literatura lanen idazlea, literaturagilea.

Lehen erromantizismo frentseseko **literato** gailena. Joxe Azurmendi

Ortega filosofoa da; Unamuno **literato** bat, informazio filosofiko handiarekin. Joxe Azurmendi

Bere herrikideek letragizontzat daukate, **literatotzat**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Filologo gisa idatzia dago datorrena, idazle -edo **literato**- gisa baino askozaz gehiago. Iñaki Segurola

**2** (izenondo gisa)

Bidaiari **literatoaren** ikusmen biziarekin . Koldo Izagirre

---

**literatura** 1 *iz* hitzaren bidezko adierazpenaren antzea; idazlanak, bereziki estetika arduraren ezaugarria duten aldetik; idazlearen lana edo antzea. ik **elerti**.

**Literatura** egiterakoan, doinua dela funtsezkoa dio eta ez hizkuntza. Ana Urkiza

**Literatura** eta aingira irrist eta ihes eginez bizi dira. Anjel Lertxundi

Batzuetan, dialekto bati hizkuntza izena eman zaio **literatura** bat sortu duelako; hori da hain zuzen portugesa eta nederlanderaren kasua. Isabel Arrigain

Edozein **literaturak** du irakurketa politikoa, baina literatura oro ez da konprometitua. Ana Urkiza

Hizkuntza bateko tradizioa hizkuntza horretan garatzen den **literaturak** osatzen badu ere, [...]. Anjel Lertxundi

Kazetaritza eta **literatura** elkarrengandik gertuago zeuden garai haiek. Iñigo Aranbarri

**Literaturaren** grina hezurretaraino sartua duenak. Juan Kruz Igerabide

Ez da esan behar **"literatura"**, esan behar da "liburuak". Bernardo Atxaga

Nire liburu hauek guztiak [...] erreak izan litezke, suntsituak, eta ez luke horregatik **literaturaren** ozeanoak malko pare bat baino galduko: nireak. Karlos Linazasoro

Isaac Bashevis Singerri eman zioten 1978ko **Literatura** Nobel saria. Koro Navarro

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Euskarazko **literatura** idatzia indartu zenean. Koldo Zuazo

Hebrear **literaturan** hark egin zituen lorpenei buruz. Koro Navarro

Ahozko **literaturaren** alorrean ere, doinuak, errimak eta neurriak egiten dute bertsoa bertso. Iñaki Arranz

**Literatura** idatzian, testua da idazlearen eta irakurlearen zubi ia bakarra. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Urre Mendeko **literatura** handian. Joxe Azurmendi

Zerbait ere bai nazioarteko **literatura** modernotik. Xabier Mendiguren Elizegi

Unibertsitatea apenas arduratzen da **literatura** garaikideaz. Anjel Lertxundi

**Literatura** katolikoak indar handia zuen garai haietan. Anjel Lertxundi

**Literatura** urbanoaren aldarrikapenak bazuen [...] gure narraziogintzaren hastapenetako jatorrizko bekatutik ihes egiteko halako premia begi-bistako bat. Anjel Lertxundi

**Literatura** nazionala kontzeptuaren mugak gero eta lanbrotuagoak ikusten diren honetan. Anjel Lertxundi

Filosofia eta **literatura** unibertsalak txabolako sutondoan sortu zirela. Patziku Perurena

Erregistro, ahots, gai eta formen ugaritasunaren metaketak osatzen du **literatura** jakin bat. Anjel Lertxundi

Borgesek zioenari jaramon egin behar badiogu, metafisika ez da **literatura** fantastikoaren alor bat baino. Anjel Lertxundi

### **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **literatur**) ik **literario**.

**Literatura** hizkuntzaren eta tokian tokiko dialektoen artean dagoen auzi handia Guretzat **"literatura** hizkuntza" ez da bakar-bakarrik literaturaren hizkuntza, baizik eta [...] komunitate osoaren zerbitzuan dagoen hizkuntza landu oro, ofiziala edo ez. Isabel Arrigain

Euskal Herri osorako **literatura** hizkera eraikitzea. Koldo Zuazo

**Literatura** euskara nazionala. Koldo Zuazo

Hizkuntza orekatuagoa egoten da dialektoa baino, **literatura** tradizioa izaten du, eta tradizio handiagoa izaten du orobat gramatiketan eta hiztegietan. bereizten hasita nengoen zer den hizkuntza bateko tradizioa eta zer **literatur** ideologia. Isabel Arrigain

Lehen lan horiekin Londreseko **literatura** giroa astindu zuen. Koro Navarro

**Literatur** kritikaren ikuspuntutik begiraturik. Anjel Lertxundi

Hizkuntza baten **literatura** garapena, dena den, fenomeno orokorragoa da, historia politikoari lotua dagoelako. Isabel Arrigain

Borges ez da pertsona bat, ez eta pertsonaia bat ere, **literatur** kategoria bat baizik. Juan Garzia

**Literatura** lehiaketa guztietara bidali zuen, non edo non sarituko zutela guztiz konbentziturik. Jon Arretxe

**Literatura** irakurlea naiz, nobela irakurlea. Hasier Etxeberria

Imitazioaz, aipabideaz, plajioaz, **literatur** lapurretaz eta beste antzeko arazoez. Bernardo Atxaga

**Literatura** kafetegira joan gara Pablo eta biok. Edorta Jimenez

Zer dela-eta New Yorkeko judu poloniar batek alemanierazko **literatura** aldizkari bat argitaratu? Koro Navarro

Herriak ez ditu **literatura** merituak aintzat hartzen. Askoren artean

Espainiako **Literatura** Sari Nazionala. Pello Salaburu

### **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina batez ere jolas-**literatura** da hau. Berria - Kultura

Aztertzaile gisa, geletara herri-**literaturaren** azterketa eramatea egokitu zitzaion. Berria - Harian

Euskarazko aho **literaturaren** barruan, inprobisazioa da, dudarik gabe, gauzarik deigarriena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Beharbada, haur **literaturako** klasiko handietan besteetan baino nabarmenagoak izaten dira autoreen patologiak, baina Peter Pan muturreko adibidea da. Julen Gabiria

Orduko gazte **literatura** *Diario de Ana Frank*, Michel Quoist-en *Diario de Ana María*... eta antzeko liburuek osatzen zuten. Ana Urkiza

Pontevedran 2003an **bidaia literaturari** buruz egin ziren beste jardunaldi batzuen inguruan. Patxi Zubizarreta

Haur eta Gazte **literaturako** Euskadi Saria. Berria - Kultura

### **5** (irakasgai gisa)

**Literatura** suspenditu duzu! Jon Alonso

**Literaturako** irakaslea emakume txiki bat zen. Anjel Lertxundi

**Literaturako** klasearen bukaera eta matematikako osoa galdu ditut. Anjel Lertxundi

Hamaika urterekin ekin zion Hizkuntza eta **Literatura** Ingelesa ikasteari, Oxforden, eta 1915ean lizentziatu zen. Agustin Otsoa

Zientzia irakatsiko diot, eta **literatura**, eta aritmetika. Patxi Zubizarreta

Margot Frank: ikasketak: ingeles, frantses, latin postaz, ingeles, aleman eta nederlanderazko takigrafia, [...], aljebra, ingeles, frantses, aleman eta nederlanderazko **literatura**, kontabilitatea, geografia, gaur egungo historia, biologia, ekonomia. Josu Zabaleta

**Literatura** eta soziologia klaseetara joaten nintzen. Joseba Urteaga

**Literatura** Eslaviarreko irakurlea Turingo Unibertsitatean. Fernando Rey

### **6** gai bati buruzko liburu-multzoa.

Lehenago ere **literatura** ugari irakurria nintzen, banantze eta dibortzioek seme-alabengan uzten dituzten ondorio deitoragarriez. Aingeru Epaltza

1973ko azterlanaren ondoren, hasi ziren berriro agertzen, medikuntzako **literaturan**, giza akromatopsiaren kasu gehiago. Xabier Olarra

Irudiari buruzko **literatura** guztian. Josu Zabaleta

Ikuspegi horretatik begiratuta, aipatu beharra dago *urrezko epaia* deitu izan denaz idatzi den **literatura** oparoa. Josu Zabaleta

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**literatur aldizkari** (16); **literatur aldizkaria** (8); **literatur aldizkariak** (5); **literatur aldizkarien** (16); **literatur aldizkarien gordailua** (9); **literatur aldizkarien gordailuan** (5); **literatur genero** (9); **literatur ibilbidea** (6); **literatur ibilbidean** (6); **literatur kritika** (12); **literatur kritikari** (19); **literatur kritikaria** (9); **literatur kritikariak** (8); **literatur kritikariaren** (5); **literatur lan** (15); **literatur lana** (13); **literatur lanak** (15); **literatur lanen** (10); **literatur lanetan** (6); **literatur lantegi** (6); **literatur lehiaketa** (8); **literatur lehiaketako** (7); **literatur lehiaketan** (5); **literatur obra** (9); **literatur ondare** (5); **literatur sari** (10); **literatur saria** (10); **literatur sarien** (6); **literatur sistema** (8); **literatur sorkuntzarako** (5); **literatur testu** (7); **literatur tradizio** (9); **literatur tradizioa** (6); **literatur tradizioaren** (5); **literatur zaletasuna** (5)

**ahozko euskal literatura** (5); **ahozko literatura** (12); **ala literatura** (6); **arte y literatura** (6); **baina literatura** (9); **baita literatura** (8); **bere literatura** (20); **bertako literatura** (5); **beste literatura** (8); **bizitza eta literatura** (5); **da literatura** (50); **da literatura ona** (5); **dagoen literatura** (5); **de la literatura** (15); **dela literatura** (5); **den literatura** (16); **dira literatura** (5); **ditu literatura** (5); **du literatura** (17); **duen literatura** (11); **dut literatura** (5); **edo literatura** (20); **egindako literatura** (6); **egungo literatura** (6); **elkar literatura** (6); **elkar literatura unibertsala** (6); **ere literatura** (9); **eta euskal literatura** (14); **eta gazte literatura** (36); **eta literatura** (156); **eta literatura eta** (5); **euskadi literatura** (8); **euskal literatura** (138); **euskal literatura eta** (7); **euskarazko literatura** (6); **ez da literatura** (10); **gazte literatura** (42); **gure literatura** (29); **haur literatura** (15); **herri literatura** (13); **historia eta literatura** (5); **hizkuntza eta literatura** (12); **idatzitako literatura** (7); **kazetaritza eta literatura** (5); **la literatura** (17); **la literatura vasca** (13); **liburua ala literatura** (5)

**literatura aldetik** (6); **literatura aldizkari** (8); **literatura arloko** (6); **literatura astea** (5); **literatura bizitza** (5); **literatura egin** (12); **literatura egin nahi** (7); **literatura egitea** (13); **literatura egiteko** (16); **literatura egiten** (14); **literatura egiterakoan** (11); **literatura eta zinema** (6); **literatura euskalki** (5); **literatura euskalkia** (6); **literatura euskalkiak** (10); **literatura hizkuntza** (12); **literatura idatzi** (5); **literatura idatzia** (6); **literatura idatzian** (8); **literatura irakasle** (5); **literatura irakaslea** (5); **literatura irakurtzen** (7); **literatura mota** (8); **literatura ona** (10); **literatura saila** (5); **literatura sari** (5); **literatura saria** (10); **literatura sariak** (7); **literatura tradizio** (5); **literatura tradizioa** (7); **literatura unibertsala** (39); **literatura unibertsala bilduma** (7); **literatura unibertsala bildumako** (5); **literatura unibertsala bilduman** (7); **literatura unibertsalak** (5); **literatura unibertsalaren** (9); **literatura unibertsaleko** (13)

**munduko literatura** (5); **musika eta literatura** (8)

**euskal literaturak** (55); **gazte literaturak** (7); **haur literaturak** (6)

**euskal literaturako** (22); **gazte literaturako** (36); **haur literaturako** (14); **literaturako euskadi saria** (7); **literaturako irakasle** (5); **literaturako irakaslea** (7); **literaturako nobel saria** (8)

**gazte literaturakoa** (5)

**euskal literaturan** (81); **euskarazko literaturan** (6); **frantses literaturan** (5); **gazte literaturan** (15); **haur literaturan** (10)

**gazte literaturara** (5)

**ahozko literaturaren** (7); **egungo euskal literaturaren** (5); **euskal literaturaren** (152); **euskal literaturaren historia** (19); **euskal literaturaren historian** (9); **euskal literaturaren mamuak** (5); **euskarazko literaturaren** (9); **gazte literaturaren** (20); **haur literaturaren** (8); **herri literaturaren** (10); **literaturaren alde** (8); **literaturaren arloan** (7); **literaturaren bidez** (7); **literaturaren esparruan** (6); **literaturaren gaineko** (7); **literaturaren historia** (39); **literaturaren historiako** (7); **literaturaren historian** (23); **literaturaren inguruan** (13); **literaturaren inguruko** (13); **literaturaren kasuan** (6); **literaturaren munduan** (13); **literaturaren zubitegia** (11); **nafarroako literaturaren historia** (5)

**euskal literaturarentzat** (5)

euskal literaturaz (16); literaturaz ari (5); literaturaz hitz egin (5); literaturaz hitz egiten (7)

## literaturagile *(orobat* ***literatura-egile*** *eta* ***literaturgile****)* *iz* literatura egiten duen idazlea. ik **literato**.

Nik idazleak aipatzen ditudanean, ez naiz **literaturagileez** bakarrik ari, idazleez baizik. **Literaturagile** baten konpromisorik gorena ahalik eta hobekien idaztearena dela iruditzen zait. Ana Urkiza

**Literaturgileak** zilegi ez ezik berezkoa du era horretako metonimiak egitea. Berria - Kultura

Orixe **literaturgilea** alde batera utzi du, baina «haren literaturgintza ulertzeko ezinbestekoak jaso» ditu. Berria - Kultura

Non aurkitzen da, bada, **literaturagileek**, gu txunditzeko, asmatzen duten eromen laborritu hori? Josu Zabaleta

## literaturagintza *(orobat* ***literaturgintza****)* *iz* literatura egitea.

Uribek nabarmendu zuen **literaturagintza** ez dela etorkizun horri begira egiten, eta «bizi garen lekuari eta bizi dugun egunari» erantzuten diola, «horrek ematen diolako denboran irauteko gaitasuna». Berria - Kultura

Haren **literaturgintza** ulertzeko. Berria - Kultura

**Literaturgintzak** jolas neurotikotik zer duen erakusteko izan behar omen zuen. Ramon Saizarbitoria

Ibilbide luzea du egina **literaturgintzan**. Berria - Kultura

**Literaturgintzan** aritzea baina leku txikian, handietan galdu egiten bainaiz. Ana Urkiza

Erdozaintziren **literaturgintza** taxutzen duen iruditeria poetikoaren gakoak aztertzen ditu. Berria - Kultura

Oraindik ez dagoela euskal **literaturgintzan** erreferentzialtasuna duen korronte edo belaunaldirik, Frantzian edo Ingalaterran pasatzen den bezala. Berria - Kultura

Feminismoa eta politikarekiko konpromisoa izan baitira bere **literaturgintzako** ardatzak. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
euskal literaturgintzan (3)

## literaturatasun *(orobat* ***literaturtasun****)* *iz* literatura izateko tasuna.

Tradizionalki, tropo edo figuren ugaritasunean aurkitu nahi izan da **literaturtasunaren** ezaugarria, hots, hizkuntza-arau zein hizketa arruntarekiko urruntasunean. Bernardo Atxaga

Hain zuzen bi alderdi horiek, **literaturatasuna** eta oroigarriak arte garaikideak mende hasieratik alde batera lagatako kontuak dira. Berria - Kultura

Ene bizitzak ez zeukan **literaturtasunik** eta, beraz, nire literaturak ere ez. Iban Zaldua

Beharbada **literaturtasun** gehiago dago poema haiek suntsitzeko ekintzan, haiek sortzekoan baino. Xabier Mendiguren Elizegi

## literaturatu, literatura(tu), literaturatzen du *ad* literatura bihurtu. ik **literaturizatu**.

Hiria eta mendia kontraste bako paisaia gisa **literaturatu** ditu Irasizabalek, Mendigurenen irudiko. Berria - Kultura

Historian zehar bi eratan **literaturatu** da beldurra. Berria - Kultura

Iraganeko aroak **literaturatzen** ditu, "baina malenkoniarik gabe". Berria - Kultura

## literaturatxo *iz pei* literatura txikia.

Beraz, inzibilizatua omen zen basajende gerrazale horri, zibilizazioa ere dexente aitortu ahal dakioke: bere **literaturatxoa**, handia ez bada ere. Joxe Azurmendi

## literaturazale *(orobat* ***literatura zale*** *g.er. eta* ***literaturzale****)* *izond/iz* literaturaren zale dena.

Irri eta txalo egin zuten filologogai **literaturzale** gazteek. Juan Luis Zabala

Gizon **literaturzalea** bera, idazleen babesle eta mezenas. Felipe Juaristi

Poetez fio ez den **literaturazale** baten bedeinkapenaz. Berria - Kultura

Biok ginen **literaturazaleak** eta biok geneukan erlijio eta filosofia gaietarako gustua. Xabier Mendiguren Elizegi

Luigi semea, ordea, **literatura** zaleago zen, sufre ustiatzaile eta saltzaile baino. Josu Zabaleta

Unamuno utzirik, hizkuntza espainolaren izpiritu goratasunaz testuak erruz bil daitezke, poeta, literato, **literaturazale**, kritiko modernoen artean, dotore askoak. Joxe Azurmendi

Jakina, **literaturzale** amorratuak bertsio osoa behar du. Juan Kruz Igerabide

## literaturazaletasun *(orobat* ***literaturzaletasun****)* *iz* literaturazalea denaren nolakotasuna.

Euskara eta **literaturzaletasuna** bateratzeko asmoak; hogei urteren bueltan zebiltzan gazte poeta-asmoen gogoa eta euskal zeraren aurkikuntza. Iñaki Iñurrieta

Duela urtebete itxi zuten Euskaldunon Egunkaria-ren lehen garaietan, **literaturzaletasunaz** galdera egin zitzaien euskal idazleei. Berria - Kultura

Marie-Émilie Coulomb Charles d'Abbadie d'Arrast jaunarekin ezkondu zen, Euskal Herrian bere **literaturazaletasunarengatik** [...] hain ezaguna den Anton Abadiaren (Antoine Thomson d'Abbadie d'Arrast) anaia gaztearekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

## literaturgile ik **literaturagile**.

## literaturgintza ik **literaturagintza**.

## literaturizatu, literaturiza, literaturizatzen du *ad* literatura bihurtu. ik **literaturatu**.

Hori ere, ordea, antzinako heroi tragikoen legea bezain, bizitza taigabe **literaturizatzera** garamatzan bulkada betierekoaren isla da noski: galduak galdu eta etsiak etsi, gure bertsioak iraun dezala. Juan Garzia

## **literaturizazio** *iz* literatura bihurtzea.

Ezker filosofikoak, bere aldetik, filosofiaren tradizio horri uko egingo lioke, eta, nolabait esatearren, «filosofiaren **literaturizazioa** » aldarrikatuko luke, Bengoetxearen iritziz, filosofia literatur genero bat gehiago bilakatuz. Berria - Kultura

---

## literaturtasun ik **literaturatasun**.

---

## literaturzale ik **literaturazale**.

---

## literaturzaletasun ik **literaturazaletasun**.

---

## **litiko** *izond* harrizko, harri-.

Horretaz gain, On Kixote eta Sancho Panza pertsonaia ezagunen arteko solasaldien ordez, zelula erritmikoak eta hainbat perkusio tresna ez oso arruntetatik irtendako soinuak entzuten dira emanaldian: litofonoak, kaulitoak, pikolitofonoak, zuhaitz arrazialak, euri-arbolak, gortina **litikoak** , plaka eskegiak, enbor durunditsuak... Berria - Kultura

---

## **litiniko** *izond* litioa daukana.

Fiteroko urak kloruratu-sodiko sulfatatuak, fluoratuak, bromuratuak eta **litinikoak** dira eta 48,5 graduko tenperaturarekin ateratzen dira lurretik. Berria - Euskal Herria

---

## **litio** *iz* gai bakuna, metal alkalino zilar-kolorea, 179 °C-tan urtzen dena, metalen artean arinena (Li; at. z. 3).

Berilioa baino arinagoak hidrogenoa, helioa eta **litioa** dira, baina horiek leherketa handiaren ostean sortu ziren, adituen arabera. Hori irakurtzean, oroitu nintzen Robert Lowellek, bere nahasmendu maniako-depresiboa zela eta, **litioa** hartzeaz beste batean esan zidanaz: "Askoz "hobeto" sentitzen naiz, nolabait: lasaiago, egonkorrago, baina nire poesiak galdu egin du bere indar gehiena". Xabier Olarra

Zentzu horretan, Saiz psikofarmakoen eragingarritasunaz aritu zen: antidepresiboak, **litioa** , antipsikotikoak... Berria - Euskal Herria

---

## **litofono** *iz* harri xaflaz osaturiko musika tresna.

Perkusioko musika tresna da **litofono** handia, Sanz Vazquezek, 1993an, Fernando Buenacheren eskultura soinudunetan oinarriturik, sortutakoa. Berria - Kultura

**Litofono** handirako emanaldia, Julio Sanz Vazquezen eskutik. Berria - Kultura

---

## **litografia** **1** *iz* hartarako prestatzen den harri baten gainean irarririko marrazkiak edo izkribuak ugaltzeko antzea; era horretaz lorturiko kopia.

Picassoren **litografia** bat erosi dut. Xabier Mendiguren Elizegi

Jangelako sabaian euli batek hegan ekin zion, bertako argi-aparailutik lekutu eta paretako **litografiaren** markoaren gainean pausatu zen. Jon Alonso

Margolariaren autorretraturik zaharrena, 28 grabatu eta lau **litografia** ikusgai jarri ditu Arabako Arte Ederretako museoak. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Grabatu edo **litografia** erakusketek, aldiz, ez diete halako graziarik egiten. Bernardo Atxaga

Don Herbert **litografia** ikastaroa egiten ari da han, eta Uxoa Zumeta serigrafiakoa, eta nik marrazkiak egiten ditut ikastaro horietarako. Berria - Kultura

Don Herbertek **litografia** lantegia zuzenduko du uztailean. Berria - Kultura

Oihalak, paper gaineko obrak eta **litografia** harriak, besteak beste. Berria - Kultura

---

## **litote** *(orobat **litotes**)* *iz* figura erretorikoa, hitzez hitz esaten dena baino gehiago aditzera ematean edo iradokitzean datzana.

Aztertzen dituzten obretan metaforak, metonimiak, sinekdokeak, edota **litoteak** edo enfasi-kasuak bereizten ahalegintzen dira. Josu Zabaleta

Nire agendako eufemismo eta **litoteetan** , Jean T.ren begi irtenetan, ezinbesteko ezkontzetan, *Cherburgoko goardasolak* filmean, abortatzen zuten emakumeen lotsan eta besteen gaitzespenean. Joseba Urteaga

Badirudi orobat, enfasi negatiboa, **litotesa** bereziki, erabiltzeko joera askoz nabariagoa dela euskaraz aldameneko hizkuntzetan baino.Izan ere, **litotesa** dugu, itxuraz, bertsolarien ironiarako estrategia nagusia, antitesia eta anafora diskurtsoa antolatzeko baliabide erabilienak diren bezala. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Litote** aszetikoen bideari eusten saiatu nintzen arren, dagoeneko urrunegi joana nintzela ohartu nintzen. Joxan Elosegi

---

## litotes ik **litote**.

---

## **litro** **1** *iz* neurri sistema hamartarreko edukiera banakoa, dezimetro kubo baten baliokidea.

Bigarren gizona du aurrean, txikiena, **litro** beteko botila hutsa lepotik helduta eskuan duela. Oskar Arana

Pankrea-urin kantitatea 0,7 **litro** ingurura iristen da egunean. Irene Aldasoro

Garagardo bana, **litro** herenekoak. Aingeru Epaltza

Guztira, 236,3 milioi **litro** saldu ziren. Berria - Ekonomia

Seigarren egunean bi halako bildu ohi zuten, bederatzi bat **litro** lagun bakoitzeko. Elizen arteko biblia

Donostian biltzen dela euri gehien: 128 **litro** metro koadroko. Pello Zabala

Gasolio **litroak** 0,938 euro balio zuen han, eta 95 oktanoko berunik gabeko gasolina **litroak** , 1,030 euro.

Nik bazakiat non saltzen duten *Haig and Haig* [...] gerraren aurretik egina, sei dolar **litroa** . Lopez de Arana

Datozen hiru urteotan esne **litroaren** salneurria 0,09 euro zentimo jaitsiko da. Berria - Ekonomia

Egunero Txekiako garagardo ospetsutik **litroak** edaten zituen bere taberna gustukoenean. Fernando Rey

**2** (zenbaketetan, neurtzen denaren ezkerrean)

Miloika **litro** ur bota zituen. Patziku Perurena

**Litro** bat oxigeno odolera bidaltzeko, hogei bat **litro** aire arnastu behar dira. Irene Aldasoro

"Ipuru ardoa" izeneko diuretikoa, 60 gr. ipuru ale, 10 gr. limoi azal, eta **litro** bete ardo zuriz egiten da, zortzi hamar egun ontzen edukiz. Patziku Perurena

Lehenengoarekin batera, eskaini lau kilo irin zuri, **litro** bat olio garbiz oratua, eta isuri **litro** bat ardo. Elizen arteko biblia

Honek, ordainez, sei mila tonelada gari eta zortzi mila **litro** olio garbi eman ohi zizkion Hirami urte oroz. Elizen arteko biblia

Brontzezko hamar ur-ontzi ere egin zituen, orga bakoitzerako bana; bina metroko diametroa zuten, eta mila eta seiehuna **litro** ur hartzen. Elizen arteko biblia

Halako ura lortzeko, aski zela 20 gramo gatz **litro** bat uretan nahastea. Hasier Etxeberria

Gutxi gorabehera hiru **litro** odol-plasmatan disolbaturiko kilo bat proteinak zopa lodi baten sendotasuna emango lioke odolari. Irene Aldasoro

**Litro** erdi oliotik pixka bat hartu eta ezkerreko eskuan isuriko du. Elizen arteko biblia

**Litro** eta erdiren bat oliotan oraturiko lau kilo ogi-irin garbi. Elizen arteko biblia

Zenbat **litro** ardo destilatu duzue etxaldean? Jose Morales

**3** ***litroko*** *iz* litroko garagardo botila.

Administrazioaren aginduz, Teresa La Espada Deustuko Unibertsitateko **soziologoa** litrokoa eta botilakoa izeneko gazteen jarduerak aztertzen ari da. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erregai litro** (5); **gasolio litro** (4); **gasolio litro bakoitzeko** (3); **litro ardo** (11); **litro bat ardo** (3); **litro bat esne** (4); **litro bat ur** (3); **litro bat uretan** (4); **litro bete** (3); **litro bildu** (4); **litro biltzen** (8); **litro bota** (8); **litro bota zituen** (5); **litro ditu** (3); **litro eman** (3); **litro erdi** (18); **litro erdi bat** (7); **litro erregai** (9); **litro erregai isuri** (5); **litro esne** (7); **litro eta erdi** (6); **litro eta erdiren** (3); **litro euri** (4); **litro gasolina** (4); **litro gasolio** (4); **litro gehiago** (4); **litro inguru** (6); **litro jaso** (5); **litro jaso ziren** (3); **litro kontsumitzen** (4); **litro kopuru** (3); **litro kopurua** (3); **litro merkaturatu** (3); **litro merkaturatu ziren** (3); **litro metro koadroko** (6); **litro odol** (3); **litro olio** (10); **litro petrolio** (3); **litro petrolio isuri** (3); **litro saldu** (3); **litro ur** (43); **litro ur erabiltzen** (5); **milaka litro** (6); **milaka litro gasolio** (3); **milioi bat litro** (4); **milioi litro** (23); **milioi litro esne** (3); **milioi litro saldu** (3); **sei litro olio** (4)

**gasolio litroa** (6)

**gasolina litroak** (8); **gasolio litroak** (3); **oktanoko gasolina litroak** (3)

**esne litroaren** (5); **litroaren prezioa** (3)

**litrotik gora** (9)

---

# litroka *adlag* litroa neurri hartuz, kopuru handian.

Neurtu, nola? kiloka, **litroka**, puntoka agian? Berria - Kirola

Hire tronuan eserita egoten haiz, pattarra **litroka** irensten! Xabier Paya

Indartzen ari zela sumatu eta ura **litroka** ekartzeko eskatu zien erizainei goizean goizetik. Hasier Etxeberria

**Litroka** xaboi eta kiloka pazientzia beharko dituen harrikoaren zain. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# litrokada *iz adkor* litro kopurua.

Hilabete euriz ongi portatukoen artean, egundoko **litrokadak** daude: denen goitik, Pontevedra 724 litro bilduta hilabete osoan; 621 bildu genituen Arantzazun, 1969an. Pello Zabala

---

# litrotxo *iz adkor* litroa.

Udako kopurua, izuikaraz dardaratzekoa da: 21 litro, udaberriko 92 egunotan; eta, 10, 10 **litrotxo** bakarrik, udako beste 92 egun dontsuetan. Pello Zabala

---

# litroxka *iz adkor* litrotxoa.

**Litroxka** batzuk, xuabe, marduldu gabe utzi zituen opari. Pello Zabala

---

# lits *(orobat* ***litx*** *g.er.)* **1** *iz* oihal baten ertzeko hari puska; soineko zerrenda.

Itxura zarpail samarra zuen neskak, beroki latz eta han-hemenka **litsez** betetako hartan bilduta. Mirentxu Larrañaga

Burko haietako baten artilezko **litsetatik** askatutako hari bati tiraka. Mirentxu Larrañaga

Besaburuek, non **lits** ugariko txarratelak eraman baitzituen garai batean. Jose Morales

Hennek tokilla batez estali zuen bere gorputz biluzia, eta kandelak bezalaxe hasi ziren haren **litsak** erretzen. Koro Navarro

Karibu larruzko gaina eta galtzak, besoetarik eta zangoetarik larruzko **lits** luzeak haren mugimendu guzien arabera firi-firika ari zirela. Aurelia Arkotxa

Aurreko gauean, errabinoak erabaki zuen ez zuela **litsekiko** jantzia berriz jantziko. Koro Navarro

**Lits** aberatseko oihal zetazkoaren makila urreztatuari eusten zion goi-goian. Karlos Zabala

Gizonezkoek otoitz egiterakoan barrutik janzten duten banda moduko bat da, 613 **lits** dituena. Koro Navarro

Neuk ere esku hartu nuen [ospakizunean], kolore urdin iluneko jantzi hungariarra soinean, **litsekin**, Bocskai jantzia deritzona. Urtzi Urrutikoetxea

**2** irud/hed

Leihatilatik ikusitako laino trinkoenak ere halako batean desegin, eta **lits** urratu bihurtzen ikusten zituen modu berean. Anjel Lertxundi

Ekialdeko mendietako tontorretan eguna urratzen hasia zen eta argi bizi-biziko **litsak** erortzen ziren ohe gainera.Perpaus batzuen zatiak, aldarrikapen zenbaiten hondarrak, hainbat aitorpen urrunen **litsak**, horra gelditu zaizun poxia. Fernando Rey

**3** (hitz elkartuetan)

Eskuak garbitu zituen eskuzatar moduko **lits**-mordo koloreanitz batekin. Joxe Austin Arrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lits ugariko** (3)

**litsekiko jantzia** (6)

---

# lituaniar **1** *izlag* Lituaniakoa, Lituaniari dagokiona.

Zein da **lituaniar** zinemaren egoera? Erbesteko **lituaniar** komunitateek Bigarren Mundu Gerraren ostean sare sekretua osatu zuten. Edorta Jimenez

**Lituaniar** presoen truke. Edorta Jimenez

Emmanuel Lévinas (1905-1975) pentsalari judu **lituaniarra**, *Etika eta Infinitua* idatzi duena. Piarres Xarriton

**2** *iz* Lituaniako herritarra.

Macijauskas **lituaniarrak** eta Kornel David hungariarrak. Berria - Kirola

Somarriba bizkaitarra da faboritoa, Jolanta Polikeviciute eta Edita Pucinskaite **lituaniarrarekin** batera. Berria - Kirola

Poloniarren gurari megalomanoak **lituaniar** eta ukrainiarren aurkakotasun sutsua eragin zuen. Iñaki Mendiguren

Milaka **lituaniar** Siberiara deportatu zituzten. Berria - Mundua

---

**lituaniera** *iz* Lituanian mintzatzen den hizkuntza baltikoa.

Hemen geratu nahi duten errusiarrek **lituaniera** ikasten dute; besteek Ameriketara ihes egitea dute amets. Edorta Jimenez

Hala, ez dago, 1540 arte, **lituanieraren** lekukotasunik. Isabel Arrigain

Bera hemen jaioa da eta **lituanieraz** zein polonieraz daki. Berria - Mundua

---

**liturgia** *(orobat* ***liturjia*** *g.er.)* **1** *iz* Elizak Jainkoari eskaintzen dion jendaurreko gurtza edo gorazarre ofiziala; gurtza hori egiteko era.

**Liturgia** honetan errito nagusia Komunio Santua zen. Iñaki Mendiguren

**Liturgia** eta literatura katolikoa transmititzeko. Iñaki Mendiguren

Kontzilio Vatikano II. hark, kontu asko taxutu eta egokitu zituen: denen artean bat, **liturgia** elizakoa. Pello Zabala

Jainko mirarigileari esker onezko **liturgia**. Behin betiko Erregelan erromatar kuriaren **liturgia** ezarriko die anaiei. Elizen arteko biblia

Orduen **Liturgia** debozioz egiten zuen. Askoren artean

Latinezko **liturgiak** ordezkatu zuela grekozkoa. Piarres Xarriton

**2** irud/hed

Saskiko pilota bakoitzarekin **liturgia** bera jarraitu zuten, lehenbizi Irujok probatu zituen, iruzkina egin, eta gustuko bazuen Eulate kideari utzi. Berria - Kirola

Arbolak aldatu ditugu, txalaparta jo, errautsak sakabanatu... **liturgia** paganoak asmatu behar izan ditugu ordainetan. Hasier Etxeberria

Sinesgarritasuna lortzea eta, aldi berean, **liturgia** politiko-militarra garatzea, gaur egungo Euskal Herrian ez da posible. Txema Ramirez de la Piscina

Ondoko mahaietan zeudenek ere ezin eutsi izan zioten barreari eta zeu izan zinen, Damian, **liturgia** menditar hartan bere burua guztiz kanpo ikusi zuen bakarra. Baina **liturgia** bati uko egiteak ez du esan nahi liturgiarik gabe bizi gaitezkeenik. Hasier Etxeberria

**3** (hitz elkartuetan lehen osogai gisa; orobat **liturgi**) ik **liturgiko**.

**Liturgia** ospakizunen zabaltze eta oparotzea. Pello Zabala

Baionako besten indarra urte oroz errepikatzen den **liturgian** datza. Herria

Festetan erabiltzen zen **liturgia** musika da, eta XII. mendetik transkribatuta dago zuzenean. Berria - Kultura

**Liturgi** ofizioko zenbait gorazarre eta antifona. Askoren artean

**Liturgi** egutegiaren arabera. Elizen arteko biblia

Katixima egile talde bat moldatu, **liturgia** talde bat eta beste ainitz gauza. Herria

Diosesako **liturgia** batzordekide batek. Herria

**Liturgia** emanaldi baten egitea parropietako animazio ekipak laguntzeko. Herria

Purpura more, gorri eta gorriminez egin zituzten santutegiko **liturgi** zerbitzurako jantziak. Elizen arteko biblia

Abesbatz-buru edo korukideeri, kantu-sail arduradun eta **liturgia** animatzaileeri eta hizlarieri. Herria

**4** ***liturgia ordu*** *(corpusean* ***liturgi ordu*** *soilik)*, eliz otoitzaren zatia, ordu jakin batean esan behar dena. ik **kanoniko**[1] **2**.

Eguneko nahiz gaueko **liturgi ordu** guztietan esan ohi zituen Frantziskok gorespen hauek. Askoren artean

Munduan zehar zihoanean ere, gelditu egiten zen beti **liturgi orduen** otoitza esan nahi zuenean. Askoren artean

Honako antifona hau **liturgi ordu** guztietan esaten da. Askoren artean

Natibitatetik Epifania zortziurrena arte **liturgi ordu** guztietan esaten dela salmo hau. Askoren artean

Erreza bitzate **liturgi orduak** eta jaiki bitez maitinetarako. Askoren artean

· Jainkoaganako begirune adina deboziorekin errezatzen zituen **liturgi** otoitzeko orduak. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **liturgi ofiziotik** (3); **liturgi ordu** (7); **liturgi ordu guztietan** (5); **liturgi zerbitzua** (5); **liturgi zerbitzurako** (8); **liturgi zerbitzurako erabiltzen** (3); **liturgi zerbitzurako jantziak** (3); **santutegiko liturgi zerbitzurako** (4)
>
> **orduen liturgia** (19); **orduen liturgia errezatzeko** (4); **orduen liturgia esan** (3); **orduen liturgia esateko** (3)

---

**liturgiko** *izond* liturgiari dagokiona. ik **liturgia 3**.

Guk, zerbitzu **liturgikorako** bereziki izendatuak garenok. Askoren artean

Kantu **liturgikoak** eskainiko dituzte, ofizio erlijiosoetarako sorturikoak. Berria - Kultura

Urte **liturgikoaren** hiru zikloak. Herria

Jesu Kristorekin bizitzeko beren bizitza **liturgikoa**. Askoren artean

Latinezkoan *dalmatica*, diakonoei dagokien jantzi **liturgikoa**. Askoren artean

Prentsari zeregin ia **liturgikoa** agindu zitzaion: herri-borrokaren hauspoa izatea, alegia. Txema Ramirez de la Piscina

---

liturjia ik **liturgia**.

---

litx ik **lits**.

---

**litxar** *izond* lapur txikia, litxarreriak egiten dituena. ik **litxarrero**.

Ez naiz **litxar** bat, ezta frikun bat ere, eta ikuskizunen zalea nauzue. Juan Garzia

litxarkeria ik **litxarreria**.

---

**litxarreria** *(orobat* ***litxarkeria*** *g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***litxarreria*** *agertzen da)* **1** *iz pl* premiarik gabe jaten diren gauzatxo goxoak.

Egungo joerei jarraiki (hanburgerrak, *fish&chips*, patata frijituak, *moules et frites,* saltxitxak, izozkiak, umeentzako **litxarreriak**, pizzak...), janari gehientsua neke handirik hartu gabe irensteko moduan salduko da. Edorta Agirre

Brandya, likorra eta **litxarreria** ugari izaten nuen armairuan gordeta. saski erraldoi batean gaseosak eta **litxarkeriak** saltzen zituen andre bat izaten zen bertan. Koro Navarro

Azukrezko **litxarreria** mexikarrak erosi eta banatzen dizkiet. Joxe Austin Arrieta

· Mutikoak **litxarreria** pila bat aipatu zion: erregaliza, melaza, gominolak, azukre hautsa. Karlos Zabala

Gozotegiek eta txarkuteriek, adiera zabalean, geroz eta **litxarreria** (bai *fast food* moduko zabor sasi-jangarriak, baita *delicatessen* plegukoak ere) gehiago ekoitziko dituzte. Edorta Agirre

Ez jan **litxarreria** gehiegi, gero afaldu egin behar diagu eta. Xabier Montoia

**2** lapurreta txikia.

Baina orduan, neurri batean behintzat, libre ginen horrelako eragozpenetatik, heriotzara kondenatutako gaizkileek **litxarreria** batzuk, kondena oraindik ziurra ez zenean debekatuak zituztenak, libre dituzten bezala. Koro Navarro

· Nostalgia edo dena delako **litxarreria** hori sentitu dut, bai, aitortzen dut. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan)

**Litxarreria** postu bat ote dago Kursaaleko atarian? Berria - Kultura

Nire **"litxarreria** kutxatxoa" goian utzi dudanez, [...]. Josu Zabaleta

---

**litxarrero** *iz adkor* lapur txikia. ik **litxar**.

"Erlojua lapurtu didate" esanez etorri zen neska zaharrenetako bat ondoren, eta orduranko garbi zeukaten: **litxarrero** koxkor bat dabil besteen gauzetan lardaskan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hemengo guztiak lapur edo **litxarrero** hutsak dira. Jose Morales

Habanako portuan, tabernetan eta zuloetan ezagutzen ei ditu idazleak putak, **litxarreroak**, pirata-ustekoak eta bazterreko halako beste batzuk. Edorta Jimenez

Kaizuloetako arratoiak, **litxarrerotxoak**, putak, errepublikanoak eta pilotariak alde batera utzita, haren beste lagun gehienak aberatsak dira. Edorta Jimenez

Mutiko bat besterik ez zela jarri zioten Rasputin ezizena, bihurri, alproja, **litxarrero**... J.M. Olaizola "Txiliku"

Armada sail hura ez zen etorri Omsk eta Kolivandik segizio moduan hamaika eskale, **litxarrero**, salerosle eta buhame ekarri gabe, bidean dabilen armada baten atzealdea osatzen ohi dutenak. Karlos Zabala

---

**litxi** *iz* txinatar zuhaitz tropikala, fruitu mami-zuria eta gozoa ematen duena *(Litchi chinensis)*.

Klima eta gainerako gorabeherak aldeko izanez gero, berton produzituko (produzitzen segituko) dira anakardoa, arabarba, babakoa, banbua, bergamota, feijoa, getozka, gonboa, guaiaba, karanbola, kardamomoa, kiwanoa, krosnea, kumkuata, lima, **litxia**, lotusa, mandioka, [...] zidra eta beste hamaikatxo ere. Edorta Agirre

---

**living** *iz* egongela.

Orain Shirley estudioetan dago baina, haren **livinga** ikus dezakezue. Pablo Sastre

---

**livoniar** *izlag/iz* Livoniakoa, Livoniari dagokiona; Livoniako herritarra.

Neska **livoniarrarengana** hurbildu, eta eskua eskainiz deitu egin zuen: [...]. Karlos Zabala

Gazte **livoniarraren** oroitza agertu zitzaion supituan. Karlos Zabala

---

**lixa** *(orobat* ***lija****)* **1** *iz* paper sendoa, alde batean hondar edo beiraki pikor itsatsiak dituena, zura edo metalak leuntzeko erabiltzen dena. ik **paper 29**.

Ordezko hortzeriarekin arazoa du; min ematen zion, eta tailerreko **lixarekin** konpondu behar izan du. Berria - Euskal Herria

Pitzadura horiek, esan zuen Sasik, **lija** latzarekin ondo-ondo arraspatu eta, zepa eta gatzarekin pasta bat eginda primeran tapatzen dituk. Pablo Sastre

Nire eskuek **lijaz** forratuak dirudite. Jasone Osoro

Musu hezeak -"emadan muxu, politte!"- eta azala **lija** bezalakoa. Alberto Barandiaren

**2** (hitz elkartuetan)

Elkar agurtu eta Niko bere **lija** lanera bildu zelarik, Guridi bazihoan eta, bere kotxean iritsi zen Mandi. Pablo Sastre

---

**lixatu**[1] *(orobat* ***lijatu****)* , lixa, lixatzen du *ad* paper-latzarekin leundu.

Abadiñokoek zolaren takoa **lijatu** egin zuten, hala ikusi genuen gainera aldalekuetan. Berria - Kirola

Arkatza belarrian jarri eta eskailerako esku-karrila arras-arras **lixatzen** segitzen du, txirbil hautsa erortzearekin batera zuraren baitako begi batzuk itsutu eta barruragoko begiak eta korapiloak agerian utziz. Harkaitz Cano

Teresak hankak luzatu zituen: "Ikusten duzu? eskuinekoa **lijatuta** bezala dago". Bernardo Atxaga

Sei egun dituzu egin ahalean lan egiteko, bat ontzigaina **lixatu** eta sokak txarrantxatzeko. Xabier Olarra

Ontzigaina **lixatzeak** egunetan eta egunetan belauniko lan egin beharra esan nahi zuen. Xabier Olarra

---

lixatu[2] ik **lisatu**.

---

**lixatze** *iz* paper-latzarekin leuntzea.

Etxebizitza batean **lixatze** lanak egiten ziharduen eztanda bat gertatu zen unean, eta gorputzaren erdia erre zitzaion ia. Berria - Ekonomia

---

lixeriketa ik **liseriketa**.

---

lixeritu ik **liseritu**.

---

**lixiba** **1** *iz* arropak garbitzeko eta zuritzeko isurkari alkalinoa, usain bortitzekoa.

Metala birfintzeko sua bezala, arropa garbitzeko **lixiba** bezala izango da. Elizen arteko biblia

Erabilera bakarreko paperezko toailak, **lixiba** bereziak, autoklabea, etc. Edorta Agirre

Emakume batek jangelako mahai gainean abandonaturik utzi zuen **lixiba** injektatu ondoren. Joseba Urteaga

Elizako dorre bereziak hareazkoagoa zirudien orain, **lixibatan** garbituriko harri. Koldo Izagirre

**2** irud/hed

Emakumeen lekukotasunak ezabatzeko erabili ohi den **lixiba** historikoa kentzeko ekarpen txiki bat da, finean. Berria - Kultura

**3** lixibatzea.

Ezta izarak estu-estu bihurritu eta **lixibako** ura besoetan gora zihoakienean ere. Anton Garikano

**4** batera lixibatzen den arropa.

**Lixiba** zabaltzen ari zen batean. Ramon Saizarbitoria

Arnaska, barreka, aulkietan eta mahai gainean zabaldu zuten **lixiba** . Anton Garikano

**Lixiba** ere ikus zezakeen harkaitzetan zabalduta lehortzeko. Anton Garikano

Bere aurrean ikus zezakeen Ramsay andrea, bidean gora **lixibarekin** zetorrela. Anton Garikano

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Omo **lixiba** errautsa irenstera behartu zuten. Itxaro Borda

**Lixiba** pastillen kea oso toxikoa da. Berria - Euskal Herria

Garbitasuna, **lixiba** usaina, argi xuri bizi bat... Filipe Bidart

Berriro sartu du Domingok lanbasa kuboan; atera duenean, **lixiba** usain sarkorra zabaldu da giroan. Iban Zaldua

Barazkiak gordinik janez gero, garbitzerakoan uretan **lixiba** tanta bat bota desinfektatzeko Miepen edo Bepen **lixiba** arropa terreinan, sukaldean. Josu Zabaleta

**6** ***lixiba egin***

Berak **egiten** zuen **lixiba** . Fernando Rey

Garbitegira abiatu zen **lixiba egitera** . Iñaki Zabaleta

**Lixiba egiterakoan** amak xaboiari eransten dion izpiliku-usaina. Anjel Lertxundi

**Lixiba egiten** dute, arropa lehortzen jartzen dute soketatik zintzilik. Felipe Juaristi

Pasaian beti ikusiko dituzu neskak **lixiba egiten** eta arropa idortzen. Koldo Izagirre

Nork **egingo** zion ume gaixoari **lixiba** eta lisaketa, emaztea hain urrun egonda. Iban Zaldua

**7** irud/hed

Landarea eta bizidun gizakia, barru-garbitzen, zurruntasuna lijerotzen, zalutzen eta malgutzen, izerdia medio **lixiba egiten** ari dira. Pello Zabala

**8** ***lixiba jo***

Horra zubia, **lixiba jotzen** genuen erreka. Xabier Olarra

Senarra frentean zuten emakumeak hilero **lixiba jotzera** joaten zirenean. komunak eta **lixiba jotzeko** harraska. Joseba Urteaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lixiba egiten** (7); **lixiba usaina** (8)
> **lixibarekin zetorrela** (3)

---

**lixibagile** *iz* lixiba egiten duen pertsona.

Gainera, **lixibagile** gaztea oso apain dago bere gona gorri eta gerruntze urdinarekin, euskaldunen kolore hautak. Koldo Izagirre

---

**lixibatu**, lixiba(tu), lixibatzen **1** du *ad* lisibaz garbitu eta zuritu. • *irud/hed*

Airea ere garbi zegoen, **lixibatuta** ; guztia zen higienea. Unai Elorriaga

**2** (era burutua izenondo gisa)

Lurra kutsatzen duten ur **lixibatuen** isuriak saihesten ditu, ureztatze zirkuitu itxia baitu. Berria - Kultura

· Lekua hutsik aurkitu du, eta igande goizeko biluztasun **lixibatu** berriaren kerua sudurreraino sartu zaio. Javi Cillero

**3** (era burutua izen gisa)

Hondakinetatik sortzen diren kutsatutako likidoak dira **lixibatuak** . Berria - Euskal Herria

Zabortegien azpian **lixibatuak** batzeko sistema izaten da. Berria - Euskal Herria

Kontuan izan behar da gure ingurua oso euritsua dela, eta horrek **lixibatu** asko sortzea eragiten du. Berria - Euskal Herria

**Lixibatuak** tratatzeko Europako Batasuneko plantarik handiena izango du Bilbok, datorren maiatzean. Berria - Euskal Herria

Artigasko zabortegiko **lixibatuak** tratatzeko plantan, 350.000 metro kubo likido tratatu ahal izango dira urtean. Berria - Euskal Herria

Bakterioak erabiliko ditugu **lixibatuak** garbitzeko. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lixibatuak tratatzeko** (3)

---

**lixibatxo** *iz* lixibaturiko arropa gutxia.

Harrikoa egiten ari ziren emakumeek **lixibatxoa** ibai ertzeko belar gainean ondo tolestuta utzi, eta atera behar izan zuten uretatik. Felipe Juaristi

lixta ik **lista**.

---

lixtaño ik **listaño**.

---

lixto ik **listo**[1].

---

lixtor ik **liztor**.

---

lixtu ik **listu**[1].

---

**lixun** *izond adkor* apur bat lizuna, baina onargarria.

Bazuen zugana oldartzeko moduan halako zer probokatzaile bat, halako adimen zirikatzaile eta eztenkari bat, zeinak erantzun bizkorrak emateko gogoa eragiten baitzizun bere kontu **lixun** pertsonalegi haiek erreskadan botatzen hasten zitzaizunean. Oskar Arana

-Eta a zer apetak -esango zuen Harryk, halako distira maltzur bat erantsiz-, a zer apeta **lixunak** izango diren! Oskar Arana

---

lizantza ik **lizentzia**.

---

**lizar** **1** *iz* olibondoaren familako zuhaitz handi eta hostotsua, zur argia, gogorra eta malgua duena*(Fraxinus excelsior).*

Borda inguruko **lizar** zimaluzeek berantetsi egin dute bi urtetik behingo kimatzailea. Patziku Perurena

**Lizar** zahar barrenustu horiekin egiten zirela maiz eultzak edo erlauntzak. Patziku Perurena

Aitak **lizar** gaineko adaskak moztu eta behera bota ahalean nik zatukatan bildu. Patziku Perurena

Gero basalizarra, **lizarra**, altza, eta gaurtik aurrera, Sahatsa zuten zuhaitz gogoratu eta beneratua. Pello Zabala

Udatzenean, garaitsu honetan, **lizar** egitera joaten ginen. Patziku Perurena

Zenbat aldiz egondu ote naiz elurretan **lizarrei** begira Zigarateko lepoan. Patziku Perurena

Arraunak denak **lizarrez**, kirtenetik puntara. Pello Zabala

Banasta eta saski jenero guztien euskarritako, beste zumitzei lokarri eusteko, edo kirtenetarako, **lizarrezkoak** nahi zituzten, halanola esku-saskien heldulekuak egiteko. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urte askotan gorde zuten Killuran **lizar** zuhaitzar handi bat. Pello Zabala

Ziri, ohol, taula eta oholtxo denak **lizar** zurezkoak. Pello Zabala

**Lizar** ilara batek ederki markatuko zituen terreno eta lurrak. Pello Zabala

Etxabereek **lizar** ostoa eta adar muturrik gurienak janda gelditzen ziren **lizar** zotzak datozkit gogora. Patziku Perurena

Udaberri aldera, **lizar** adaxka lodiskonak eta xuxenenak berextu eta kimatuz **lizar** arbak egiten genituen. Patziku Perurena

Eta oraindik, han hemen **lizar** kiman ikustean inor, poztu bezala egiten naiz. Patziku Perurena

**3** ***lizar morro***

Lurreko sutan ziuka atzeko muturretik apar zuria zeriela ikusten eta aditzen genituen lizar karrote heze haiek, edo lizar **morroek**, berriz, Orixeren "Suondoko otsa" dakarkidate gogora. Patziku Perurena

**4** ***pago lizar*** *(orobat* ***pagolizar*** *g.er.)* inausi gabeko pagoa.

Urrutiago, **pago**-lizar bakan batzuk ernetzen ziren, eta are eta urrutiago, basoa. Ni ikusia nago elorrian, alkazian, gaztainean, lizarrean, pagoan, **pagolizarrean**, haritzean, eta beste zuhaitzadar askotan, baina, sekulan ez, esate bateko, intsusean, gorostian, edo urritzean. Bernardo Atxaga

Ur xirripa bat bezala azaltzen zen basoko **pago**-lizarren artean. Bernardo Atxaga

Lorategian parterre borobilak zeuden, kolore zuri eta horiko loreekin, eta magnolia aski handiak, inguruko basoko **pago**-lizarren aldean bigunak ematen zutenak. Bernardo Atxaga

Baserri aurre, ermita atze eta **pago**-lizar arteko zabalguneetan dantzan ibilitakoek ondo gogoan dituzte, oraindik ere, Faustinok gehien bisitatu zituen alderdiak. Iñigo Aranbarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**basa lizar** (3); **lizar adaska** (4); **lizar adaska hezeak** (3); **lizar baten** (3); **lizar hostoa** (4); **lizar makilak** (3); **lizar zarbak** (4); **pago lizar** (3)

**basa lizarra** (3)

**pago lizarrak** (3)

**basa lizarraren** (5)

**pago lizarren** (4)

---

**lizardi** *iz* lizar asko dagoen tokia.

Etxeko **lizardiaren** itzalpean geundela. Joan Mari Irigoien

Bi baso geratzen zitzaizkigun, hariztia bata, **lizardia** bestea. Anjel Lertxundi

Irizpide etnologikoek hariztiaren alde jartzen gintuzten, literarioek **lizardia** lehenetsi behar genuela esaten ziguten. Anjel Lertxundi

---

**lizardismo** *iz* X. Lizardiren poesia estiloa.

Idazkeraren sinbolismotik, **lizardismoari** uko egin eta gero, beste estilo ez-zehatz batera egin zuen jauzi Mujikak. Berria - Kultura

---

**lizargune** *(corpusean **lizarrune** soilik)* *iz* lizarrak dauden gunea.

Arraiturre baino apur bat eskuinerago eta gorago, ehun bat metrora, etxaldea mugatzen duten kare-harri handi batzuen altzotik eta **lizarrune** batean behera eginez, errekasto bat jaisten da belardia erdibituz. Hasier Etxeberria

---

**lizarki** *iz* lizarraren erretxina, heste-aringarri gisa erabiltzen dena.

Gure **lizarki** botika kutsua duen lizar-zuku estamu libratzaileak ere holako zer edo zer izango du. Pello Zabala

---

**lizarpe** *iz* lizarraren azpiko eremua.

Zangulua ere paratzen zigun aitak, adar oker batetik zintzilik, eta hantxe ibiltzen ginen dilindan, bihotz ttiki erne hura hegaminez genuela, **lizarpe** guzia larraindu arte. Patziku Perurena

Hizketan ikasi baino lehen, amaren magalean eta auzoko neskatoen besoetan, askotan egondua omen naiz atariko **lizarpean** . Patziku Perurena

Bertze egun batean, **lizarpeko** gerizpean ediren ninduen, orri batekin. Joan Mari Irigoien

---

**lizarratar** *(orobat **lizartar** g.er.)* *izlag/iz* Lizarrakoa, Lizarrari dagokiona; Lizarrako herritarra.

Jatorriz Basaburukoa, Beruetekoa preseski [...] nik gurutzatu orduko erdi **lizarratarra** zen. Txillardegi

Europako lehiaketetan ariko dira biak: EHF Kopan donostiarrak (20:15), eta Europako Errekopan **lizarratarrak** (19:30). Berria - Kirola

**Lizarratarrek** , berriz, Eldan jokatuko dute, Ligako txapeldunaren aurka (18:30). Berria - Kirola

---

**lizarrondo** *iz* lizarra, lizar zuhaitza.

Beste miraria, **lizarrondoek** elur zuritan erakusten duten kolorajea da neretzako. Patziku Perurena

Gero, etxabereek lizar ostoa eta adar muturrik gurienak janda gelditzen ziren lizar zotzak datozkit gogora, nonahiko borda ataritan, **lizarrondoen** arrimora pilatuak. Patziku Perurena

**Lizarrondoan** , eta bere adarpe oparoak hartzen duen itzalean ez duzu topatuko sugerik... Pello Zabala

---

lizarrune ik **lizargune**.

---

lizartar ik **lizarratar**.

---

**lizartzar** *izlag/iz* Lizartzakoa, Lizartzari dagokiona; Lizartzako herritarra.

**Lizartzar** gaztea leku guztietara iritsi zen defentsan, ez zuen pilota bakar bat galdutzat eman eta partidaren jabe bihurtu zen.

Urratsa GBBk egin du Joseba Egibarren zuzendaritzapean udala **lizartzarren** esku uzten hasteko helburuarekin. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lizartzarren esku uzteko** (3)

---

lizentzamendu ik **lizentziamendu**.

---

**lizentzi**

**1** ***lizentzi izan*** zilegi izan.

Beste edozein kasutan berehalako kaleratzea sortaraziko zuen marraka hura **lizentzi** zen Kokoren klasean, eta zentroaren gogoko ez bazen ere toleratu egiten zuten nolabait ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez al hekien hor pipatzea ez zela **lizentzi** ? Anjel Lertxundi

---

**lizentzia** *(orobat **lizantza** g.er. eta **lizentzi** g.er.)* **1** *iz* baimena.

Pentsamendu umoretsu baterako **lizentzia** eskaini zion segidan Brown jaunak bere buruari. Karlos Linazasoro

Ezinezko zuen edonork ere ezagun ez zuenarekin ezer alderatzea, baina, azkeneko aldia izango zuelakoan, **lizentzia** poetikoaz baliatu zen. Imanol Zurutuza

**2** baimen-agiria.

Edariak saltzeko **lizentzia** . Detektibe **lizentzia** estreinatu berria zeukan izen txarreko toki batean harekin topo egin zuenean. Migel Angel Mintegi

Horrexegatik eman zioten Barbariako orga erabiltzeko **lizentzia** . Pablo Sastre

Kabaret **lizentzia** eduki beharko du taberna horrek. Harkaitz Cano

**Lizentzia** eman zaion enpresari enpresa lizentzia-emailearen lehiakide beldurgarria bihurtzen lagun diezaiokeela, eta luzarora konkurrentzia sor dezakeela bere merkatuan bertan. Koro Navarro

**3** goi irakaskuntzako maila, batxilergoaren eta doktoretzaren artekoa. ik **lizentziatura**.

Diplomatura egiteko, **lizentzia** ateratzeko, etab. Oinarrizko tituluak ematen dituzte unibertsitate batzuek, bigarren mailan daude **lizentzia** mailakoak ere ematen dituztenak eta azkenean, erpinean, goimailako titulazioak eta doktoregoa ematen dituzten unibertsitate ezagunenak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

1532an [...] bere tituluak baliozkatu zituen, erdietsiz bat bestearen ondotik Eliza legeetan batxilergoa, **lizentzia** eta doktoretza mailak. Piarres Xarriton

Filologia erromanikoan **lizentzia** lortu, eta Italiara itzuli zen berriro. Josu Zabaleta

Mayola ezagutu zuelarik, zuzenbide **lizentzia** pasatzen zuen. Ramuntxo Etxeberri

**4** ***lizentzia fiskal*** lanbide zerga.

Fakturak behar bezala egitekotan, Ogasunarentzako atxikipena jarri beharra zegoen, eta horretarako **lizentzia** fiskala atera behar. Iñaki Iñurrieta

Berak aterako zuen **lizentzia** fiskala, berak emango zuen izena Gizarte Segurantzan, eta beraren izenean igorriko zituzten fakturak, eta, kobratutakoan, hartuko zuen

pagantza haiek egiteko aurreratutako dirua. Iñaki Iñurrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egiteko lizentzia** (4); **euskal lizentzia** (4); **irakasgaiari loturiko lizentzia** (7); **lizentzia eman** (7); **lizentzia eskuratzeko** (3); **lizentzia jaso** (9); **lizentzia jaso du** (3); **lizentzia kentzeko** (3); **lizentzia lortu** (8); **lizentzia lortu zuen** (5)

**eko irrati lizentziak** (3); **irrati lizentziak** (7); **irrati lizentziak banatzeko** (3); **iruñ lizentziak banatu** (3); **lizentziak banatzeko** (13); **lizentziak berriz banatzeko** (6); **lizentziak ematea** (3)

**eko irrati lizentzien** (4); **erriko irrati lizentzien** (4); **irrati lizentzien** (14); **irrati lizentzien banaketa** (4); **irrati lizentzien banaketan** (4); **irrati lizentzien banaketaren** (3); **iruñ iruñ lizentzien banaketa** (17); **lizentzien banaketan** (7); **lizentzien banaketaren** (4)

**lizentziarik gabe utzi** (3)

---

# lizentziadun 1 *izond/iz* lizentzia duena.

Inongo osagai toxikorik gabe sortua eta Osasun Ministerioaren 128 zenbakiko **lizentziaduna**. Patxi Zubizarreta

Udalak 500 euro emango dizkio manparak jarri nahi dituen taxilari **lizentziadunari**. Berria - Euskal Herria

16 urtez goitikoeri idekiak dira topaketa horiek (ez da haatik herri kiroletako **lizentziadun** izan behar). Herria

**2** lizentzia mailako ikasketak dituen pertsona. ik **lizentziatu**[2].

**Lizentziaduna** bainaiz eta Elizaren lehen ordenak hartua. Patxi Ezkiaga

Letretan **lizentziaduna** duk gainera. Koro Navarro

Autista den arren, zoologiako **lizentziadun** da, Colorado Estatuko Unibertsitateko irakasle eta bere negozioaren jabe. Xabier Olarra

Barre eragin zion **lizentziadunari** andrearen maleziarik ezak. Patxi Ezkiaga

Gizarte batek zenbat eta **lizentziadun** gehiago izan, orduan eta aberatsagoa izango dela. gauza bat eskatu nahi diot berorri, **lizentziadun** jauna: [...]. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lizentziaduna da** (11)

---

# lizentziamendu *(orobat **lizentzamendu**)* 1 *iz ipar* langileez mintzatuz, kaleratzea.

Hogeita hamabi **lizentziamendu** kontatu ziren unean gizona bere gutuna ukaitean kexatu zen, eskupean zeuzkan tresna eta ekaiak birindika aurtikiz. Itxaro Borda

**Lizentzamendua** indargabetua izan da, enplegatzaileak beharko zuelako lan ikuskariaren baimena ukan aitzinetik; *Biarritz Culture* kondenatua da langilearen berriz hartzera, kanpo egon den denboraldiko soldat guzien itzultzera eta 20 000 Euro damu domaiaren pagatzera. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bidean zebilela, **lizentziamendu** gutuna eskuan, lan-eskaintzen bulegoaren parean geratu zen. Itxaro Borda

Aurreko bi **lizentziamendu** boladetan kanporatu langileak hurbildu ziren Etxarrira. Ahurtiko PEP (Pupilles de l'Ecole Publique) zentroko lau begiraleen kontra **lizentzamendu** prozedura bat idekitzen hasia duela zuzendaritzak erran du CGT sindikatak. Itxaro Borda

Baionan iragan zen lehen graduko Prud'hommes auziak erran zuen arrazoin ekonomikorik ez zela lizentziamenduen esplikatzeko, eta enpresa legez desegina izanki, AGS **lizentzamendu** kutxa damu domaien pagatzera kondenatu zuen. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lizentziamendu gutuna** (4)

---

# lizentziatu[1], lizentzia(tu), lizentziatzen 1 da *ad*

Irakasle ikasketak egin zituen, eta gero Euskal Filologian **lizentziatu** zen, Deustuko Unibertsitatean.Tartuko Historia Fakultatean Unibertsitateko **lizentziatu** zen eta, hainbat urtez, gidoigile lanetan aritu zen. Ana Urkiza

Han egin zituen ikasketak, eta industria ingeniari titulua atera eta ekonomian **lizentziatu** zen. Berria - Kultura

Eusko Jaurlaritzak igo egin nahi du zientzia eta teknologia ikasketetan **lizentziatzen** den emakume kopurua. Berria - Euskal Herria

Salamancako Unibertsitate Zibilean sartu zen Ikasketa Klasikoak ikastera; 1957an **lizentziatu** eta 1958an doktorego tesia amaitu zuen. Berria - Kultura

Pisan **lizentziatu** zen 1923an. Fernando Rey

Iñaki, biloba, meteorologian **lizentziatu** berria. Pello Zabala

Alta, Dong **lizentziatua** izan zelarik, Manilako "University of the Philippines" unibertsitate famatuak urte bateko beka bat proposatu zion. Ramuntxo Etxeberri

**2** (era burutua -n atzizkiaren eskuinean; ik **lizentziatu**[2] **2**)

Filosofian **lizentziatua** da (UPV/EHU) eta egun doktore-tesia idazten dihardu. Askoren artean

Filosofian **lizentziatua** Bordelen, eta Parisen doktoratua, filosofia-irakaslea izan da urte askotan Orthezen. Askoren artean

**3** (era burutua izenondo gisa)

80ko hamarkadan, gazte **lizentziatu** berri haiek... Berria - Ekonomia

• **4** du *ad* soldadu zerbitzua bukatutzat eman.

Erasoa ongi ateraz gero, hiria irabaziko zutela, eta beraz, [...] osteak **lizentziatu** ahalko zituela, etxera bidali, hurrengo kanpainara arte, soldata oso bat aurreztuz. Jon Alonso

**5** *ipar* langileez mintzatuz, kaleratu.

Ez zuelako ulertzen zergatik bere atelierrekoak **lizentziatuak** izan ziren makalak zirelako estakuruaz, aste zenbait lehenago nagusiaren ohore eta zorionak erdietsi zituztelarik helburuak bete zituztelakoan. Itxaro Borda

Suitzako enpresek bide berari jarraitu zioten, lagun asko **lizentziatu** zituzten. Pablo Sastre

Galkategi horretan ari ziren 120 langileak oro **lizentziatuak** izan dira, azkenak otsailaren hogeitalauean. Herria

**6** (era burutua izenondo gisa)

Itsas kirol eta jantzien saileko enpresa hori bet betan hetsi zuen nagusiak, alta, langile **lizentziatuen** arabera, kontuak arras onean zituelarik. Herria

Ruwel-eko hogeitamar langile **lizentziaturen** aitzinean, Baiona/Angelu/Miarritze hiri elkargoak aho batez deliberatu du Ruwel eremuaren berreskuratzea, hiru milioi eta hiru ehun mila eurotan. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ekonomian lizentziatu** (3); **filologian lizentziatu** (3); **filologian lizentziatu zen** (3); **lizentziatu berri** (4); **lizentziatu berria** (3)

**filosofian lizentziatua** (10); **filosofian lizentziatua da** (5); **lizentziatua da** (15); **zuzenbidean lizentziatua** (4)

**lizentziatuta dago** (3)

**lizentziatu**[2] **1** *iz* unibertsitateko lizentziatu maila duen pertsona. ik **lizentziadun 2**.

Han bazela euskaldun **lizentziatu** berri bat, tituluaren jabe zena. Joxerra Garzia

Ez duk beharrezkoa zuzentzailea izatea hori jakiteko, **lizentziatu** xume batek ere bazekik. Jon Alonso

Mandatu bat eramango diok Comalako Gerardo Trujillo **lizentziatuari**, eta hantxe bertan jarriko dik hire izenean jabetza. Juan Garzia

Beste arlo batzuetako **lizentziatuek** ere bazuten aukera hori. Berria - Euskal Herria

Banuen tiradera batean pergamino irudiztatu bat, zeinaren lege-indarrez, letrakera dotorezko hitzez, Primo Levi, judua arrazaz, Kimikako **lizentziatu** -agiriaren jabe egiten baitzen, goreneko kalifikazioz. Juan Garzia

**2** (-n atzizkiaren eskuinean; ik **lizentziatu**[1] **2**)

Matematikan **lizentziatua**, filosofian doktorea, eta irakaslea EHUn. Askoren artean

Beti gutxietsi nau Zuzenbidean **lizentziatu** triste bat besterik ez naizelako. Ramon Saizarbitoria

**3** lizentziaduna.

Euskal Herriko ligak badauzka 74 elkarte bai eta ere 8 milako bat **lizentziatu** zahar eta gazte, gizon eta emazte. Askoren artean

1875an sortua da, 325 arraunlari- **lizentziatu** badauzka gaur, 10 urtetatik goitikoak. Herria

---

**lizentziatura** *iz* goi irakaskuntzako maila, batxilergoaren eta doktoretzaren artekoa. ik **lizentzia 3**.

Gehienak lehen mailako ikasketak dituzten arren (%28), badira baita diplomaturak (%9) eta **lizentziaturak** ere (%13). Berria - Euskal Herria

Al Azar-eko unibertsitate aldia batere titulurik gabe amaitu zuen, urte luzeak igaro zituen **lizentziaturarik** lortu gabe. Patxi Zubizarreta

Han geunden agure txikia, mutil ilehoria, **lizentziatura** prestatzen ari zen emakumea eta ni. Monika Etxebarria

**Lizentziatura** teknikoetan ikasle asko matrikulatu zen. Berak bezala, ingeles hizkuntzako **lizentziatura** egin nuen nik ere unibertsitatean. Oskar Arana

Letretako **lizentziatura** bat egiten ari nintzen Rouenen. Joseba Urteaga

Ahmedabaden bizi zen eta SLU Unibertsitatean **lizentziatura** egina zuen arte ederretan. Gotzon Garate

Itzulpen **lizentziaturan** ditudan ikasleek. Berria - Harian

Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza **Lizentziaturako** ikasleak. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lizentziatura egin** (3)

---

**lizeo** **1** *iz* Frantzian eta beste hainbat herritan, bigarren irakaskuntzako ikastetxea.

**Lizeora** zu ikustera joaten hasi zenean. Bego Montorio

Parisko moda segitu nahian, larunbat arratsaldetan elkartzen ziren **lizeoko** neska-lagunekin 'Ye-ye' musikaren entzuteko. Ramuntxo Etxeberri

Ikasleen sindikatu nagusia den UNEFek eta **lizeoko** FIDL sindikatuak segurtatu zutenez atzo, oraino Frantziako 84 unibertsitatetik 69etan eragozpenak daude, 20 bat erabat okupatuak daudelarik eta 4.000 **lizeoetatik** milako batean. Berria - Harian

Jacqueline Van Maarsen **lizeo** juduan ezagutu nuen, eta orain bera dut lagunik minena. Josu Zabaleta

Jemal nekazaritzako **lizeo** teknikoko ikaslea zen, Ako irakasle eskolan sartua zen, eta Imad gure taldeko musikaria zen. Juan Kruz Igerabide

Albertok kolegioa utzi eta Turinera etorri zen **lizeoko** diploma lortzeko azterketa egitera. Fernando Rey

Haiei zor baitzien ilobak **lizeoan** bost urte alferkerian eta beste sei hilabete Lisboan paseatzen ibili izana. Bego Montorio

**2** *(Iparraldeko hezkuntza sisteman)*

Bigarren mailako materiala (kolegioak eta **lizeoak**) ez da oraino behar den bezenbat erabilia. Herria

Iparraldeko kolegio eta **lizeo** desberdinetan, izan publikoan, pribatuan ala ikastoletan. Herria

Neli Challet Hazparneko Urtsuia kolegio pribatuan eta San Josepe **lizeoan** ari denak. 2.129 ikasle ditu Seaskak, 477 kolegioetan eta 179 **lizeoan**. Herria

2037 euskarazko ikasle badaude 29 eskola, 9 kolejio eta 3 **lizeotako** sail elebidunetan. Herria

Ni latin eta frantses irakaslea nintzen, erdi kolegioan, erdi **lizeoan**. Piarres Aintziart

Xifretan ageri da Ikastolan dabiltzan lau ikasletarik bat bederen ez dela euskal **lizeora** pasatzen. Herria

Donibane Lohitzuneko Ravel **lizeoan** ematen zidaten Dokumentazio zentrora joateko baimen berezia. Ana Urkiza

Armand David laborantzako **lizeoa**. Herria

Zokoko itsas- **lizeoak** badu bere traineru gisako untzia, arraulari gazte askok baliatzen ahalko dutena hemendik goiti. Herria

Lehen mailako haurren %-eko 25a ba dabilela eskola katolikoetan; kolegioetan %-eko 40a doa pribatura, **lizeoetan** kopurua hupatzen delarik %-eko 60etaraino. Herria

Hazparneko San Josepe **lizeoan** idekia da BEP elebiduna, Iparraldeko lehen gela tekniko elebiduna. Herria

Baionan finkatua den Etxepare euskal **lizeoak** kanpaina berri bat abiatzen du diru sustengua galdatuz. Herria

**3** *(Hegoaldeko ikastoletako sisteman)*

Santo Tomas **Lizeoan**, batxilerrean, eskola ematen ari da Jose Mari Aranalde. Joxerra Garzia

-Nik uste nuen, **Lizeora** bidalita, Ixiartxo ez zela halako jendearekin nahastuko. Iban Zaldua

Orioko Herri Ikastola, Oteitza **Lizeo** Politeknikoa eta Salbatore Mitxelena ikastetxeak elkarlanean ari dira Kilometroak 2004 antolatzen. Berria - Euskal Herria

**4** lizeoko ikasketak.

**Lizeoa** bukatu eta lanean hasi zenetik, oso gutxitan egiten zuten topo. Bego Montorio

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lizeo juduan** (3); **lizeo politeknikoa** (3); **lizeo politeknikoak** (4)
>
> **baionako etxepare lizeoa** (3); **bernat etxepare lizeoa** (4); **etxepare lizeoa** (10)
>
> **etxepare lizeoak** (5)
>
> **baionako cassin lizeoan** (3); **baionako etxepare lizeoan** (5); **bernat etxepare lizeoan** (6); **cassin lizeoan** (6); **christophe lizeoan** (5); **errecart lizeoan** (3); **etxepare lizeoan** (15); **frantsesenia laborantza lizeoan** (3); **kolegio eta lizeoan** (3); **laborantza lizeoan** (6); **laborantza lizeoan iraganen** (3); **san josepe lizeoan** (4); **santo tomas lizeoan** (5); **st christophe lizeoan** (5)
>
> **cassin lizeoaren** (3)
>
> **kolegio eta lizeoetako** (3); **lizeoetako gela elebidunetan** (3)
>
> **kolegio eta lizeoetan** (6); **kolegio lizeoetan** (3)
>
> **bernat etxepare lizeoko** (10); **donibane garaziko lizeoko** (8); **etxepare lizeoko** (12); **garaziko lizeoko** (14); **kolegio eta lizeoko** (3); **lizeoko gazteek** (3); **lizeoko ikasle** (7); **lizeoko ikasleak** (9); **lizeoko ikasleek** (10); **lizeoko ikasleen** (8); **lizeoko neska** (3); **lizeoko zuzendari** (4); **ravel lizeoko** (4); **santo tomas lizeoko** (3)
>
> **lizeora joan** (3)

lizifrina ik **diziplina**.

---

# **lizitazio** *iz* enkantean hartzeko eskaintza.

Euskal herritarrak lan merkatuan sartzen ahalegintzen diren enpresak indartzea; **lizitazio** publikoetan baldintza sozialak ezartzea. Berria - Euskal Herria

Tranbiaren eraikuntzaren **lizitazio** epea datorren ostegunean amaituko da eta idazki itxiak martxoaren 6an zabalduko dira. Berria - Euskal Herria

GIFeko lehendakariak jakinarazi zuen aurten Araba nahiz Bizkaiko zatien **lizitazio** proiektuak egin nahi direla, eta, gero, 2005. urtean, «litekeena» dela eraikitzen hastea. Berria - Euskal Herria

Enpresaburuei jarduerak garatzen laguntzeko asmoz, %0,1eko komisioa duten **lizitazio** abalak eskainiko dizkie Elkargik. Berria - Ekonomia

---

# **lizta** *iz* liztaria.

Txongoari **lizta** bat lotu eta babarrun edo lenteja eltzean sartzen zuen aitonak. Pako Aristi

Harri kixkil bat, expal ttar bat, bellar izpiño bat, **lizta** muttur bat... Patziku Perurena

---

liztafin ik **listafin**.

---

# **liztor** *(orobat* ***listor*** *g.er.,* ***lixtor*** *g.er. eta* ***miztor*** *g.er.)* **1** *iz* Erlearen antzeko intsektua, hura baino lirainagoa, lagunartean bizi dena eta abaraskak egiten dituena *(Vespa vulgaris* edo *Vespula v.).* ik **listafin**.

Euli eta **liztorren** hegaldi urduriak. Erlea ez bezala, **liztorra** ez da galtzen, ez da hiltzen eztena barruraino sartuagatik ere, eta, beharra izanez gero, bigarrenez ere saiatuko da zu ziztatzen. Xabier Montoia

**Miztorra** lorez lore dabil, hegalak segundoko auskalo zenbat aldiz astinduz. Patziku Perurena

**Liztorra**, finean, oldartzailea da, borrokalari sutsua. Josetxo Azkona

Teilatua ia jasota zegoen **liztorren** abarasken eraginez. Josu Zabaleta

**Liztorrak** ziztatu balu bezala. Joan Mari Irigoien

**Liztor** batek ez zion ziztada handiagorik egingo Sergiori. Joan Mari Irigoien

Charlie **liztorra** zirikatzen ari zen, eta **liztorrak** ez zuen hura soilik eztenkatzen, baizik eta gu guztiok eztenkatzen gintuen. Mirentxu Larrañaga

**Liztorrek** bezala inguratu ninduten, sua sastrakan bezala zirtaka. Elizen arteko biblia

**Liztor** txiki batek jarritako arrautzetatik sortzen dira koskoilo horiek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Maradonak behin eta berriro esan ditu **liztorren** habiak astintzeko modukoak. Berria - Kirola

**2** irud/hed

Apirilaren 26an, Condor Legioko **liztor** itzelek Gernika suntsitu zuten iluntzean Ernest eta Martha Guadarrama mendietako fronte lerroen bisitan ziren. Edorta Jimenez

Zerua argitu ez argitu zegoen artean; lau **liztor** beltz zetozen hiri aldera; hurbildu zirenean, lau **Heinkel** 111 zirela ikusi nuen. Anjel Lertxundi

Hain emakume ederra izanik, **liztorrik** ez zaio sekula faltatu inguruan. Hasier Etxeberria

**3** (hitz elkartuetan)

Ehizako hegazkinak ikusi ditudanean, pasatu al zait burutik hasperen samurrik? **liztor** ezten zorrotzak bururatu zaizkit. Josu Zabaleta

**4** (izenondo gisa)

Sorgin **liztor** haren gaiztakeriak ez zuela harritzen. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **liztor arrunt** (3)

---

# **liztortzar** *iz* liztor mota, arrunta baino askoz handiagoa *(Vespa crabro).*

**Liztortzarrak** bidaliko ditu Jaunak zuen Jainkoak haien kontra, ezkutuan gordeta bizirik geldituko azkenak ere garbitu arte. Elizen arteko biblia

Bizarginaren esku lodiak haren ilajean gaindi higitzen ziren, guraizek burrunba egiten zuten **liztortzar** bat belarri atzean baleuka bezala. Lopez de Arana

Beraz, **liztortzar** eta liztor arrunt, euskarari bere arima ukatzeaz gain inolako zehaztasun zientifiko berririk ez dakarkioten erderakeria nahasgarriak besterik ez dira. Patziku Perurena

---

liztu ik **listu**[1].

---

# **lizun** **1** *iz* usteltzen-edo hasi diren gai organikoen azalean sortzen diren geruza edo orban zurixka eta harroak, onddoek eraginak.

Gazta azaletako **lizunak** urtzen ziren. Karlos Zabala

Taula batean gazta bat **lizun** berdexkaz estalia. Iñaki Mendiguren

**Lizunak** jotako etxeen garbikuntza. Elizen arteko biblia

Baina apaizak ikusten badu **lizuna** zurbildu egin dela garbitua izan ondoren, **lizuna** duen zatia ebakiko dio jantzi, larru nahiz ehunari. Elizen arteko biblia

Idoiak berriro ere **lizun** hori aurkitu du zilborrean. **Lizun** berdeak goitik beheraino harturik zeukan ate nagusiko eta oholesiko zur zaharra. Eider Rodriguez

**Lizun** arrosak eta urdinak ageri ziren aita gure bila joan aurretik egun osoz ipintzen aritua zen paper margotuan. Juan Kruz Igerabide

Eskuizkribua **lizunaren lizunez** galdu zen, zoritxarrez; **lizunak** hartuta hondatu zela esan nahi dut, jakina. Antton Olano

Denboraren iragaiteak utzitako **lizuna** kendu. Berria - Kultura

Lagunartean ordu batzuk pasatzera eta etxe-**zuloan** erantsitako lizunak astintzera, Iñaki Segurola

• **2** *izond* moralaren arabera lohitzat hartzen dena. ik **desonest**. (pertsonei buruz)

Fraide **lizun** eta libidinoso bat dirudizu. Karlos Linazasoro

Andre **lizun** haiek hiru, lau edo bost aldiz egunean eskatzen zioten mesedea, bigarren lan hura... Paddy Rekalde

Artea beren erotismo morbosoa elikatzeko erabiltzen duten bezero zahar **lizun** horiekin. Ramon Saizarbitoria

Andre hura **lizun** samarra iruditzen zitzaidan mugimenduetan eta begiratuetan. Pello Lizarralde

Agintearen goren gradura iritsi zen siberiar baldan eta **lizun** harekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Larrutik ordainduko dituzu zure egitekoak, etxekalte **lizun** hori! Patxi Zubizarreta

Haien atzetik pantera ilun eta **lizun** baten maneran herrestatzeko. Itxaro Borda

**Lizunak** dira, libertinoak, homosexualak, intzestugileak, eta sodomizatu, jo, zauritu, hil egiten dute. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** (gauzei buruz)

Amodio **lizunak**, bekaizkeria edota jelosia ardatz duten ipuinak. Berria - Kultura

Egutxik amodio kontu **lizun** bat izan zuen emakume ezkondu batekin. Ibon Uribarri

Humirzahk musu luze **lizuna** eman zion Taibeleri. Koro Navarro

Titiak erabiltzen zizkidan esku artean eta hitz **lizunak** esaten zizkidan. Karlos Zabala

Edozein begirada **lizun** ekiditeko. Askoren artean

Keinu **lizun** bat egin zidan. Anjel Lertxundi

Amodiorik gabeko joko **lizuna** izan zen. Jose Angel Irigaray

Zure hats **lizuna** arnastu nahi dut, atseginaren suak erretzen zaituenean! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beren jokabide **lizun** eta biziotsua aldatu ez dutelako. Elizen arteko biblia

Gazte denboran bere portaera **lizunagatik** kartzelaratu zuten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nahi al duzue errebista **lizun** horietako bat ikusi? Bernardo Atxaga

Grafiti **lizun** eta erasokorrak. Patxi Zubizarreta

Irain **lizun** gordinenak jaurtikiz emakumeari. Anjel Lertxundi

Amodio kanta **lizun** bat. Patziku Perurena

Ipuin **lizun** bat, ni berotzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Titipuntak eta hauen inguruko koroak ia modu **lizunean** nabarmentzen ziren. Juan Martin Elexpuru

Nolako berotasun **lizuna**! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Imajinatzen zuen haren bisaia transzendentala [...] barne lasaitasun **lizun** haren irudi metafisikoa. Unai Iturriaga

Bainuontziaren epeltasun gero eta **lizunagoan**, Sara hizkuntza eskolan ezagutu nuen egunaz oroitu naiz. Patxi Zubizarreta

**4** (izen gisa)

Utikan zakurrak, aztiak, **lizunak**, hiltzaileak, sasijainkozaleak eta gezurra maite eta gezurretan dabiltzan guztiak! Elizen arteko biblia

Zeren jakizue, **lizun**, zikin eta gutiziatsu bakar batek ere [...] ez duela Kristoren eta Jainkoaren erreinuko ondarean parterik izango. Elizen arteko biblia

**Lizun** gaixto batzuk ginela eta merezia genuela hura guztia. Joan Mari Irigoien

**5** (adizlagun gisa) ik **lizunki**.

Jonek gitarra **lizun** laztandu zuen kontzertu osoan zehar. Unai Iturriaga

**Lizun** begiratu diot Karlosi nire listuz bustitako paper zatia ahoratzen. Urtzi Urrutikoeetxea

Eskuineko hiru hatz luzeenen puntak zupatu, eta alura eraman ditu **lizun**. Patxi Iturritegi

Gerri-kolpe bortitzez aurrera egin eta hankak erdi zabaldu ditu, **lizun** igurzteko. Urtzi Urrutikoeetxea

**6** *izond* lizunak joa; zikina, lohia.

Baina ba al zekien hark ogi **lizuna** eta haragi ustela jaten zenituela? Karlos Zabala

Juduentzat jotzen zuten, gela itxi txikietan, gela kez beteetan, gela **lizun** urdinetan. Felipe Juaristi

Alga **lizun** berde kutsu sarkorra zeukan zurak. Koldo Izagirre

Tripazalekeriak eta diruzalekeriak agintzen duten lekuan, zulo **lizun** eta zatar bat dagoela, guztiz arriskutsua dena. Joan Mari Lekuona

Ordu arte esanekoa eta bertutetsua izandako semeak aita hiltzen du; **lizuna** garbi bihurtzen da; zuhurrak esku-beteka botatzen du urrea leihotik. Bernardo Atxaga

**7** ***lizun-etxe*** prostituzio etxea.

Estrabonek diosku uharte honetan mutilek bakarrik betetzen zituztela **lizun**-etxeak: publikoki prostituitzen ziren. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aldi berean, **lizun**-etxea zabaltzeko asmoa ere eragotziko genuke. Anjel Lertxundi

**8** ***lizun-usain***

Gure ileek **lizun usaina** zeukaten. Juan Kruz Igerabide

**Lizun usain** nahasgarria. Juan Kruz Igerabide

Inoiz egurasten ez diren lekuetan egon ohi den **lizun usainez** betea. Juan Kruz Igerabide

Astiro igo nituen **lizun** eta ozpin **usaineko** eskaileretako mailak. Urtzi Urrutikoetxea

**Lizun**- eta itxi-**usain** lauso haren erdian. Juan Garzia

Erdialdeko garagardotegi gangadun **lizun**-usainekoetan. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **agure lizun** (4); **aldizkari lizun** (3); **emakume lizun** (4); **gazte lizun** (3); **iduri lizun** (3); **irudi lizun** (4); **keinu lizun** (6); **keinu lizun bat** (4); **lizun baten** (5); **lizun usain** (5)
>
> **gizon lizuna** (3); **lizuna eta munduzalea** (3); **lizuna zen** (4)
>
> **hitz lizunak** (6); **keinu lizunak** (7); **keinu lizunak eginez** (3); **keinu lizunak egiten** (3)

---

# lizundu, lizun(du), lizuntzen **1** da/du *ad* lizunak jo.

Baina, esan bezala, hidrokarburoen gazta hau **lizuntzen** eta agortzen ari da. Berria - Gaiak

Denborarekin ia derrigorrez **lizundu**, gaixotu eta ustelduko gara denok, baina izoztu, ez dago inor izozteko moduko hotzik tropiko sargoriotan. Joseba Sarrionandia

Kalean pasatzen ikusten zaitudanean ez baitaramazu neskazaharren itxura alferrikaldua, **lizuntzen** utzitako jakiarena. Xabier Mendiguren Elizegi

**Lizuntzera** egindako piper beteren bat, bokarta oliotsu batzuk. Aingeru Epaltza

[Artxiboko] dokumentu asko «blai eginda» daude, eta **lizuntzeko** arriskua dute. Berria - Kultura

Bustitzeko eta armadura **lizuntzeko** beldurrez. Felipe Juaristi

Soro eta barruti lanetarako satsa eta ongarria ere, ilberriz **lizundu**ta gogortu egiten da. Pello Zabala

Beste etxe batzuk, ostera, usteldu egiten dira, eta **lizundu**. Unai Elorriaga

Paretak **lizunduak** barrenetik. Felipe Juaristi

**2** irud/hed

Errealitate gordin eta pisua, argirik gabeko izua, zorabioa, zentzumenak **lizuntzen** dituen irudia. Felipe Juaristi

Nire zientzialari ohorea **lizuntzeko** beldurrik gabe esan dezaket kurriloen dantza modu hura baltsea zela. Felipe Juaristi

**Lizunduta** zegoen diskurtsoa berritu du buruzagi zapatistak, zaharkituta zegoen kodea gaztetu eta lozorroan zeuden hartzaileak iratzarri egin ditu. Txema Ramirez de la Piscina

**3** zikindu, lohitu.

Kaltegarri zela, arima zintzo garbia gaixotu eta **lizundu** egiten zuelako. Felipe Juaristi

Inork ere ez duelako gustuz onartzen agian bere etxea ez duela behar lukeen bezain txukun eta garbi, beti bai baita norbait zure balizko gardentasuna urdekeria apurño

batekin **lizuntzen** duena. Pello Salaburu

**4** (era burutua izenondo gisa)

Ogi **lizundua**, sagardo mindua, olio zaharra eta ahuntz zahagiko ardoa. Ez zen harritzekoa komisarioak asuntoari ogi **lizunduaren** usaina hartzea. Koldo Izagirre

Babarrun tantodun **lizunduak** txukuntzea. Josu Zabaleta

Frak zahar eta **lizundu** bat zeraman soinean. Iñaki Mendiguren

Gortina **lizundu** bat korritu nuen dutxatzeko. Anjel Lertxundi

Han-hemenka paseatzeko, enborrezko langak, eta zubiño **lizunduak** latsen gainetik. Txillardegi

Bizitzan, dela beheko geruza gogor, latz, hits eta nazkagarriro **lizunduetan**, dela goiko geruza beti hotz eta gogaikarriro aratzetan, edonon dela, gizabanako orori, behin bakarrik bada ere, halako ikuskizun berezi bat agertzen zaio bidean, ordu arte ikusi duen ezeren antzik ez duena eta, behin bakarrik bada ere, halako sentipen berezi bat pizten diona. Jose Morales

---

## lizunduxe *adlag* lizundu samar.

Zaharkitua zagok esaera, **lizunduxe**. Juan Garzia

---

## lizunkeria 1 *iz* moralaren arabera lohitzat hartzen den egintza edo jokaera. ik **desoneskeria**.

**Lizunkerian** ez dagoela izugarrikeriarik, **lizunkeriak** iradokitzen duen oro naturak iradokitakoa delako. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

"Irakurgai nazkagarriak, **lizunkeria**, birao eta galdukeria sorta kalifikaezinak", poliziaren esanetan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez nuen sekula pentsatuko halako **lizunkeriarik** irten zitekeenik nire ahotik. Juan Martin Elexpuru

Ene seme, ez egin **lizunkeriarik**. Jose Antonio Mujika

Aneri **lizunkeriak** esaten. Unai Iturriaga

Zentzudunagoa beharko nuenean, nire buru madarikatuak inoiz baino gehiago asaldatzen nau, eta **lizunkeriara** eramaten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zentzu morala galdurik, **lizunkeriara** jo dute. Elizen arteko biblia

Eta harridurak goia jo zuen, azkenik, Masudek emakumea hankaz gora ezarri, haren baitara sartu, eta **lizunkerian** hasi zirenean. Patxi Zubizarreta

A, maite-maitea, **lizunkeriaren** suak kiskaltzen nau. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bakoitza geure aldetik murgiltzen gara **lizunkeriaren** itsaso eztienetan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Lizunkeriaz** ukitu zuen neskatxa bat babesleku antiaereoan, eta jaun ohoretsu batek zafratu egin zuen. Patxi Zubizarreta

Gaiztakeria lizuna izan da, Peaceful andrea, **lizunkeria** gaiztoa. Mirentxu Larrañaga

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **lizunkeri**)

Hamar **lizunkeria** saio, egunero errepikatuagatik ere, isiltasunaren gauean ezabatuko dira behin burutu ondoren. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Leku guztietan zabaldua dago, zuen artean **lizunkeri** arazo bat dagoela. Elizen arteko biblia

**Lizunkeri** kantarien buru zelako eta kantu profanoen sortzaile. Askoren artean

Ez zioten **lizunkeria** mota bat ere debekatzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Lizunkeria** akusamendu eta auzien erdian. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

lizunkeria eta neurrigabekerian (3)

lizunkeriaren eskola (3)

lizunkeriazko bizimodura itzuli (3)

---

## lizunki *adlag* era lizunean, lizuntasunez. ik **lizun 5**.

Niri gerritik **lizunki** helduaz. Joxean Agirre

Bi eskuekin goitik behera **lizunki** laztandu zuen. Joxean Agirre

Jakinduria handiz mugitzen hasi da emakumea, **lizunki**, atzera eta aurrera. Juan Martin Elexpuru

Eurekin leku ezkutuetara bazoaz, soinekoa jaso **lizunki**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## lizunkiro *adlag* lizunki, lizuntasunez.

Ondo entseiatutako ikuskizuna eskaintzen ari balira bezala, Sofia, Vanessa eta Susana batera dantza eginez, biluziz joan ziren; astiro, lurrean adurra zeriela zeuden lagunei **lizunkiro** begiratuz eta arropak banan-banan erantziz: lehenengo oinetakoak, gero prakak, alkandora... Jon Arretxe

Liburuzaina gizamodu takar ezertarakoez bat zen, lotsagabe nabarmena eta **lizunkiro** itsusia. Juan Garzia

---

## lizunkoi *izond* lizunkeriara emana.

Indiano **lizunkoi** batek bertutearen bidea hartu du. Anjel Lertxundi

Ni baino askoz ere **lizunkoiagoa** zen, alde handiz, bere zaldien zakila laztantzen zuen luze, begiak itxiak, eta trantzean kasik. Karlos Zabala

Satiroa hasieran Dionisosi leialtasun laxoa zion komunitate **lizunkoiko** kidea zen. ile horiko haragi hura fintasun **lizunkoiarekin** erabiltzen zuen. Xabier Olarra

---

## lizuntasun *iz* lizuna denaren nolakotasuna.

Bere ergelkeriagatik opariak ordaintzen ez dakiena, ez da eskergabea eta, are gutiago, bere opariengatik emagalduaren **lizuntasunaren** zerbitzura makurtzen ez dena, ez eta ere lapurraren lapurketak estaltzen ez dituena, ez eta beste baten horrelakorik. Piarres Xarriton

Bizitza [...] **lizuntasun** zaporegabe batez agertzen du. Berria - Kultura

---

## lizuntsu *izond* lizunez betea.

Idazluma hartu, isurkari **lizuntsuaz** gain barruan euli mordoa ere bazeukan tintontzi batean sartu, eta idazten hasi zen, musika-noten antzeko letrak eginez. Jose Morales

Hura "espirituaren munduan" gelditu zen, ertz hondatuko ikasliburu zahar eta papertegiko gaien giro **lizuntsu** antzekoan. Ander Irizar

---

**lizuntxo** *izond adkor* lizuna.

Begira, madame, ikusi **lizuntxo** hau nola isurtzen den buruz, ukitu ere egin gabe. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

llabrit ik **labrit.**

---

**llabur** *izond adkor* laburra.

Agerpen **llabur** bat baino ez. Hasier Etxeberria

Europako erreinu eta lurralde gehientsuenen ikuspegi axaleko eta **llaburra** emanez. Patziku Perurena

Gorputza motxa, anka **llaburrak**, xaltokako ibillera. Patziku Perurena

Etenaldi **llaburra** egin zuen arnasa hartzeko. Joxemari Iturralde

Tarte **llabur** hartan kazetari askok jo zutela txirrina. Xabier Olarra

Europako erreinu eta lurralde gehientsuenen ikuspegi axaleko eta **llaburra** emanez. Patziku Perurena

Anak kamiseta tirantedun zuri **llaburra** jantzten zuen. Aingeru Epaltza

---

**llaga** *iz* zauria.

Telebista piztu, eta hantxe daude denak, bere mixeriak kontatzen pobrea, erokeriak esaten eroa, bere **llagak** erakusten gaixoa. Bernardo Atxaga

---

**llama** *(orobat* ***lama****)* *iz* ugaztun apoduna, hausnartzailea, gamelua baino txikiagoa eta konkorrik ez duena, Hego Amerikako lurralde menditsuetan bizi dena *(Lama glama* edo *Lama peruana).*

Salara alfonbra zuria zapaldu beldurrez sartu naiz, zenbat ardi edo zenbat **llama** eta guanako kalkulatuz. Joseba Sarrionandia

Hazienda edo ganadua (ardia, behia, bufaloa, urdea, **llama** ). Edorta Agirre

**Llama** artzaina izan zen umetan. Berria - Harian

Hor zeuden ere lehen aldikotz bospasei **lama,** Hego-Ameriketako abere berezi horiek: arrak 600 eurotan negoziatu dira, emeak aldiz 1400 eurotan. Herria

---

**lo** **1** *iz* ohartasunaren etenaldia, gorputzaren atsedenaldi berezi bat eta amets egitea ezaugarri dituen egoera, aldizka gertatzen dena.

Jadanik ez du hotzik eta **lo** gozo batek hartzen du gauaren epelean. Antton Olano

**Lo** goxotik bortxaz iratzarri berria izan den eder baten apaindura hu tsean. Jon Muñoz

Hitz hauek esanda, **lo** beratz batek bereganatu zuen. Jon Alonso

Biharamun goizean, **lo** lasaigarri baten buruan esnatu zenerako, emakumeak prestaturik omen zion nortasun berriaren zirriborroa. Joxean Agirre

Artur **lo** eder batetik esnatu zenean, Morgana sartu zen gelan. Juan Kruz Igerabide

**Loa** arina izaten da gose greban zaudenean. Jokin Urain

**Lo** gogor batek harrapatu ninduen. Aingeru Epaltza

**Lo** sakonean igaro zuen gauaren gainerakoa. Jose Morales

**Lo** sakonean murgiltzen nintzela sentitu, eta han ikusi nituen atzera, kafetegiko erakusleihoan. Iban Zaldua

Ez nuen **lo** askorik galtzen Jainkoagatik edo zeruagatik. Matías Múgica

**Loa** ez etortzen, ordea. Aingeru Epaltza

**Loa** bere oinazea etetera etor zedila desiratu zuen. Patxi Zubizarreta

Dena dela, horrek ez zidan **loa** galarazten. Migel Angel Mintegi

Gauaz, **loa** ezin bilduz, jeikitzen zen. Patziku Perurena

**Loa** begietatik urrundu zitzaidanean, ontzira joan nintzen. Juan Kruz Igerabide

**Loa** kentzen zion haiengan pentsatzeak. Anton Garikano

**2** (nor bihurtua)

Eta **lo** xarmagarriak, irribarre zabalez, bi masailak laztandu zizkion bere masail iletsuekin. Jose Morales

**Lo** gozo samurrak garaipen-oihua egin zuen. Jose Morales

**3** (hitz elkartuetan)

**Lo** kanta hau hizpide hartuta: [...]. Iñaki Arranz

Egia esateko, **lo** kontuak ez zion batere kezkarik sortzen. Karlos Zabala

Bakoitza bere aldetik **lo** leku bila ari zirela, ostatu berean egin zuten topo. Martin Anso

Hurtadok **lo** itxurak egin zituen. Josu Zabaleta

Gizona **lo** itxuran geratu zen. Juan Garzia

Erdi lo erdi ametsetan zauden **lo** klase xelebre hori, badakizu. Koro Navarro

Sexuak nekatu egiten nau, eta **lo** orduak kentzen dizkit. Luis Elberdin

**Lo** kixka bat egin dut. Piarres Aintziart

Amesgaixtoz bete **lo** kiska bat eginik. Daniel Landart

Zuzen zegoen, **lo** falta nuen. Aingeru Epaltza

Gaur gauean saltzailerik ez baletor, behintzat; logale naiz oso, hain **lo** behar handia dut-eta. Monika Etxebarria

Müller jaunak **lo** zorrak kitatzen segitzen zuen ez baitzuen begirik zabaltzen. Anjel Lertxundi

• **4** *adlag*

Ez zen isildu bide guztian, **lo** joan zen denbora kenduta. Juan Kruz Igerabide

Lauaxeta **lo** utzirik, Goizeder niregana etortzen sentitu nuen gero. Juan Luis Zabala

Lehoiek ere, ehizan ari ez badira, eguna **lo** ematen dutela irakurria neukan. Gotzon Garate

**Lo** gelditzen dun lanaren gainean, gehiegi jaten din... Karlos Zabala

Eta han zetzan **lo** Foinisa, Septimaren ahizpa. Juan Garzia

Ez **lo** bai **lo** zebilen, belarriak zabuka. Karlos Zabala

Mundu guztiak **lo** dirudi, bera garajeko atea noiz zabalduko zain dagoela ez-jakin. Antton Olano

Bere ondoan, hura ere **lo** , osaba Juan zeukan. Bernardo Atxaga

Eguerdira arte **lo**. Felipe Juaristi
Amak egongelan jarraitzen zuen, **lo**. Juan Kruz Igerabide
Haurra trenbidean **lo** eta trena etortzen ikusi zuten. Gotzon Garate
· Um Hamida **lo** trinko geratu zen eta bere zurrunga zaratatsuez bete zuen gela. Patxi Zubizarreta

## 5 *lotan* *ik beherago* **31.**

**Lotan** ala esna ote nago? Patxi Zubizarreta
Goizaldera, etxekoak oraindik **lotan** zirela, Baionara abiatu zen. Iñaki Zabaleta
Senarra aldamenean **lotan** zuela. Monika Etxebarria
Lucy **lotan** zetzan gelara sartu eta harengana hurbildu nintzen edalontzi bat laranja-urekin. Oskar Arana
Hemen gelditukо al dira **lotan** berorren gizonak? Juan Garzia
Isilka sartu, eta egongelan **lotan** topatu nuen ama, nire zain. Juan Kruz Igerabide
Baina ezin zuen alargunaren bankuan **lotan** jarraitu. Koro Navarro
Egon, egon hor lurrean, eta segi **lotan**. Koro Navarro
Gaurik ez det pasatzen soseguzko **lotan**. Iñaki Segurola
Desenkusazko irribarretxoa egin dit, **lotan** uste ninduelako seguru asko. Anjel Lertxundi
Zaldun honek baietsi zuen haur oso eder bat ikusi zuela ganbelan **lotan**. Askoren artean
Erdi etzanda zegoen, **lotan** bezala. Bernardo Atxaga
Zelo ikaragarriak, ez **lotan** eta ez jaten uzten nindutenak. Juan Martin Elexpuru
**Lotan** edo irakurtzen pasatu nituen Ventimigliara iritsi arteko ordu guztiak. Anjel Lertxundi
Aldi berean dantzan eta **lotan** ari zela ematen zuen. Koro Navarro
**Lotan** eta hizketan? Anjel Lertxundi
Behealdean [...] ukenduz orrazturiko mototsak ageri ziren kartoizko kaxa batzuetan **lotan**. Karlos Zabala
**Lotan**, 80 watt ingurukoa da gorputzaren energia-gastua. Irene Aldasoro
· **Lo** zurrungan zegoen ordurako. Joxe Austin Arrieta
Beyaziteko hiri osoa **lo** betean zen. Fernando Rey
**Lo** bete gozoan zegoen eta zabuka egiten zuen trenarekin batera. Anjel Lertxundi

## 6 *lotara*

Gero, **lotara** joan zen. Juan Kruz Igerabide
Hori entzunik, jendea pozik joan zen etxera, **lotara**. Juan Kruz Igerabide
-Mozkortuta zaude, zoaz **lotara**! Josu Zabaleta
-Goazen **lotara**! -esan nion-. Joxe Austin Arrieta
Berehalaxe jarri nintzen **lotara**, gaua zen. Joxe Austin Arrieta
Hori eginik, denak etxera bidali zituen, **lotara**, hurrengo egunean ahalik eta zahar gehien biltzeko aginduz. Juan Kruz Igerabide
Geltoki ondoko belargune batean etzan ziren **lotara**. Josu Zabaleta
Erantzi eta **lotara** sartu nintzen. Koro Navarro
Gaua egin zenean, **lotara** erretiratu zen. Askoren artean
Gurdizainak **lotara** itzuli ziren beren soingainekoen azpian. Karlos Zabala
Eta orain, **lotara**. Iñaki Mendiguren
· **Lotarako** egokitu ginen, zamarra garondoaren azpian, hankak aurreko eserleku hutsen gainean luze. ez dut, baina, **lotarako** botikarik hartzen. Joxe Austin Arrieta
Argia itzaltzen dut, gurasoek **lotarako** bidean nagoela pentsa dezaten. Anjel Lertxundi

## 7 *erbi lo* *(orobat* ***erbilo****)* adi egonez egiten den loa.

Hitzordura garaiz iritsi beharraren urduritasunez egindako **erbi**-loa! Anjel Lertxundi
Loa **erbiloa** da gauean. Jokin Urain
Eskailera sistema zela eta, kontrarioak banan-banan elkar akabatuz, bera, **erbi-lotan**, finalaren eguna noiz iritsiko zain. Berria - Kirola
Gaur egun, **erbi-lotan** egon beharrean, enpresariek beste aldera begiratzen dute. Berria - Kirola

## 8 *erdi lo*

Baina ordurako berak ez zion entzuten, **erdi lo** zegoen. **Erdi lo** erdi esna egon zen buruko anabasa antolatu nahi eta ezin. Jose Morales
-Nora zoaz? - galdetu zion Ronek **erdi lo**. Iñaki Mendiguren
Besaulkian eserita, Ellen **erdi lo** entzuten ari zen. Lopez de Arana
Hamaikak inguruan, **erdi lo** geratu zen. Karlos Zabala
Etxe zahar, erdi erori baten aterpean zazpiren bat zakur **erdi lo** ikusiko dituzu. Gotzon Garate
Orduak eta orduak ematen zituen han **erdi lo**, bere ibilaldi luzeen ondotik atseden hartzen. Karlos Zabala
Eta hantxe dago erretratua: ni, **erdi lo**, eta senideak nire inguruan. Iban Zaldua
· *iz* **Erdi lo** gozoan nengoela, halako pentsamendu goratsuei atxikia. Anjel Lertxundi
· **Erdi lotarik** izkilak entzun nituen gau minean. Michel Oronoz

## 9 *erdi lotan* erdi lo.

**Erdi lotan** nengoela ere entzuten nuen. Koro Navarro
Mutila adi egon zen, gero **erdi lotan** geratu zen. Koro Navarro
Uil jiratu egin zen, **erdi lotan** hitz eginez. Juan Kruz Igerabide
Artean **erdi lotan**, txakurrak bere burua astindu zuen. Juan Kruz Igerabide
Bigarren atea zabaldu zuen, baina emakumezko ahots ezezagun batek garrasi egin zuen, **erdi lotan**: [...]. Koro Navarro
· Batzuetan ozta-ozta **erdi** lotan geratzen gaitun; baina pentsatzeari utzi gabe. Juan Garzia

## 10 *lo-belar* *(orobatr* ***lobelar****; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***lo-belar*** *agertzen da)* *iz* mitxoletaren familiako landare hosto-zabal eta lore-zuria, opioa ateratzen den esne bat duena *(Papaver somniferum).*

Postontziko banderatxoa zutik zegoen, eta barruan aurkitu zuen Mirandek zakutxo bat, **lobelar** gorriez betea. Javi Cillero
**Lobelarraren** eragina ez zaik oraindino joan. Edorta Jimenez
Denetariko gaiz beteriko pastelak: tipulaz, **lo**-belarraz, gaztanberaz, esne gaingabetuaz... Jose Morales
Neska bat **lo**-belarraz kordegabetu eta ontziratu zuen marinelaren elezaharraz gogoratu zen Nora. Anjel Lertxundi
Paradisuko esnea dariola **lobelarrari**. Edorta Jimenez
Hala ere, nik ekin egiten nion, **lobelarra** ekartzen ziona nor zen konta ziezadan. Edorta Jimenez
Estalkia kendu baino ez eta, hara, **lobelarrezko** edabearen usaina etorri zitzaidan. Edorta Jimenez

## 11 *lo egin*

**Lo egin** ezazu, esnatuko zaitut iristean. Karlos Zabala

Lokar hadi eta utzigun **lo egiten**! Juan Garzia
Zorion epelean **lo egiteko** modurik onena. Karlos Zabala
-Ondo **lo eginda**? - berak galde. Joxe Austin Arrieta
Ez zen ausartu "ondo **lo egin**" esaten ere. Karlos Zabala
Gau hartan bertan, osabarenean **egin** zuen **lo**, ganbaran. Karlos Zabala
Eta han **egiten** zuten **lo** bi burdinazko hagen artean eskegitako hamaka batzuetan. Karlos Zabala
**Lo** lurrean **egiten** genian, koltxoirik gabe. Pako Aristi
Egun bat eta erdi **egin** duzu **lo**. Felipe Juaristi
Ulertu zuen ez zuela ez **lo egiterik**, ez lasaitasunik, ez alaitasunik izango esferatik bereizitako ordu madarikatu, beltz hura igaro arte. **Lo egitea** gogoa mundutik bestetaratzea da. Jose Morales
Horrela egin zuen **lo ordu** bat eta bi, ahoz gora, lo gelditu aurretik hartu zuen jarrera eratsuan. Jose Morales
· **Lo** asko **egiteko**. Lourdes Oñederra
Nikolasek **lo** gutxi **egin** zuelako izan zen. Karlos Zabala
**Lo** askorik **egin** gabe baina, gela loretxodunean, hausnarrean etengabean. Fernando Rey
Gurasoak kexu ziren **lo** gutxi **egiten** nuela eta argaltzen ari omen nintzelako. Anjel Lertxundi
Baina fleitean naiz, **gauaz** lo guti **eginik** ere. Piarres Aintziart
Gau hartan ez genuen **lo** onik **egin**. Marzel Etxehandi
· Zergatik batzuetan ikasleari askoz errazagoa iruditzen zaion arazo zail bat **lo** bat **eginda**. Irene Aldasoro

## 12 *-kin* ***lo egin***

Jem eta Smith maitemindu egin ziren, eta berehala elkarrekin jarri ziren gela berean, elkarrekin **lo egiten** hasi ziren. Patxi Zubizarreta
-Emaztearekin **lo egiten** duzu, jauna? Koro Navarro
Baina orain prest nago bart nirekin **lo egin** duen emakume gaztearekin ezkontzeko. Patxi Zubizarreta
-Bart mutil ezin galaiago eta ezin segailago batekin **lo egin** dut, eta zure amarruren bat izan ote den jakin nahi nuke. Patxi Zubizarreta
Nirekin **lo egiten** zuten bi emagalduei ez zien kasurik egin. Ramuntxo Etxeberri
Big Joeren gelara aldatu behar izan nuen, eta elkarrekin **lo egiten** genuen haren ohean. Mirentxu Larrañaga
Bereganatu ahal duen edozein emakumerekin **lo egiteko**. Edorta Jimenez

## 13 ***lo egon***

Joanesek ez zekien ezer **lo zegoen** printzesaren ihesaz. Felipe Juaristi
Arratsalde osoa **lo egon** ondoan. Piarres Aintziart
Etxeko denak **lo zeudela**, etsaiak soroan sartu eta gari artean olo gaiztoa erein zuen eta alde egin. Elizen arteko biblia
Ebe **lo dago**, lo goxoan, lo arduragabean. Sonia Gonzalez
**Lo dago** zurrungan, ezkerrean, azpiko ohean, begiztatua nuen erromes berezia. Piarres Aintziart
Ia egun guztian **lo daude**. Gotzon Garate
Baina atzetik doana ere, ezin da **lo egon**. Andoni Egaña
Hannak, ordea, **lo zegoelakoa** egin. Joxe Austin Arrieta
Hiri osoa **lo zegoen**. Fernando Rey
Negu beltzean, lurra **lo dagoenean**. Patziku Perurena
**Lo daude** soroen gainean herrixka txikiak. Koro Navarro
Sozialismoaren itzalean **lo zeuden** nazionalismo guztiak jazarri zaizkie Mendebaldeko estatuburuei. Piarres Xarriton
· Nire adiskidea **lo zegoen** betiko. Bernardo Atxaga
· **Lo** trinko zegoela, andrazko jin batek begiztatu zuen mutila. Patxi Zubizarreta
Barruan, ozta-ozta ikusten zela, mutikotxo bat zegoen, **seko** lo. Iñaki Mendiguren

## 14 ***lo eragin***

**Lo eragiteko** edabeaz bete ditut hauek. Iñaki Mendiguren
Haur eskolan egon den hiru urteotan, ibiltzeko gai izan da gure alaba; eskailerak igotzen eta jaisten ikasi du, bakarrik jaten, eta panpinei **lo eragiten**. Berria - Harian
Maitetasuna-edo sentitzen ninan nik hor, bihotz zuloan, mutiko hura handik atera eta bularrean estututa ume txiki bati bezala ro-ro eginaz **lo eragiteko** gogo bizia. Xabier Mendiguren Elizegi

## 15 *lo-eragile* ik **loeragile**.

## 16 *lo-ez* ik **loez**.

## 17 ***lo galdu*** *(orobat* ***logaldu****)* loezina.

Biharamun goizean, eta **lo galduko** gau baten ostean. Jon Alonso
Minbiziak jota gazterik hil zen emakume poeta baten olerkiak zioenez, **lo galduko** gauetan "apoak, zakur beltzak eta itoen gorpuak, halakoak eskaintzen dizkit gauak". Ibon Uribarri
**Lo galdu** urduriaren arrastorik gabe. Jon Alonso
Negarrak eta **logalduak** osoro ahuldu zutenean, Doña Joaquina de Osmak baimendu zuen noizbait mikeleteek senarra zuenaren katabuta jaso zezaten. Koldo Izagirre
Zuretzat eta zure famili txiki meharrarentzat biharamunean jatekoa nondik bilduko **lo galduan** bizi beharrik gabe. Patxi Ezkiaga

## 18 ***lo hartu***

Oso berandu **lo hartu** nian eta oso berandu esnatu. Koro Navarro
Eguzkia sartzen ikustea bezalakoa da gauero bere haur masail-gorria **lo hartzen** ikustea. Pako Aristi
Bakean **hartuko** dut **lo** eta atseden betiko bizitzan. Askoren artean
Berriro ere saiatu nintzen **lo hartzen**. Xabier Olarra
Bi orenak arte **lo hartu** gabe egon zela. Jon Muñoz
Edozein lekutan **hartzen** zuen **lo**. Anton Garikano
Ez nuen berehalakoan **lo hartu**. Jesus Mari Mendizabal
Baina ezin nuen **lo hartu**. Koro Navarro
**Lo hartu** ezinik zegoela, ezkongaiekin etzaten ziren mirabeak irten ziren jauregitik. Juan Kruz Igerabide
Azkenean **lo hartu**, eta amesgaiztoak izaten nituen. Koro Navarro
Gaueko hamarrak irian, plaza hustu egiten da eta Iruñeak **lo hartzen** du. Koldo Izagirre
*Son*-a dantzatzen ez badu, **odolak lo** hartzen du. Jon Muñoz

## 19 ***lo harrarazi*** *(orobat* ***loharrarazi*** *g.er.)*

Niri gauez kamamila ematen zidan **lo harrarazteko**. Pello Lizarralde
Dalilak bere belaunetan **lo harrarazi** zion Sansoni, eta gizon bati dei egin zion. Jose Antonio Mujika
Lau emakumeek kantari **lo harrarazten** diotelarik. Koldo Izagirre

Biok amandre-ipuinetako arrosa erraldoien petaloen artean **loharrarazi** bagintuzte bezala. Xabier Olarra

## 20 *lo izan* da *ad*

**-Lo** al **haiz**? Ibon Uribarri

**Lo dun** oraino. Itxaro Borda

St. Mary eskolako haurrak eta serorak **lo dira**. Gotzon Garate

Biak **lo ziren**, hain sakon non ez ninduten aditu etortzen. Matías Múgica

Baina gau batez, **lo nintzelarik**, bi tipo sartu ziren nire ganberan... Ramuntxo Etxeberri

Egiazki **lo zen**, iduri aingeruekin ametsetan ari. Janbattitt Dirassar

Behebeheko aldera abiatu nintzen, bizkar-gain hartan ziren gizonen zurrungen artean, denak **lo zirelakoan**. · **Lo** betean **zen**, haren adinari dagokion lozorroan. Edorta Jimenez

## 21 *lo-jantzi* (*orobat* ***lojantzi***) *iz*

**Lo-jantzi** zuri bat zeraman eta ile gorri bizia sorbalden gainetik abailtzen zitzaion. Alberto Ladron Arana

Garbitzera botatako **lojantzia** erabiltzen zenuen horretarako, ama konturatuko ez zitzaizulakoan. Hasier Etxeberria

-Ongi zaude? -ama zen, **lo-jantzian**, buruko ile guztiak tente. Alberto Ladron Arana

## 22 *lo-kanta* (*orobat* ***lokanta***) *iz*

Nolakoa zen amamak kantatzen zidan **lo-kanta** hura? Berria - Kultura

Hara zer esaten duen, berriz, R.M. Azkuek bere kantutegian **lo kantei** buruz ari delarik: [...]. Patziku Perurena

R. M. Azkuek Antzuolako Petra Laskurain itsuari jaso zion **lokanta** honetan. Patziku Perurena

Ez badiote erritmorik ematen, galdu egiten da, desesperatu, lo hartu nahi lukeen haur ernegatua bezala, eta **lokanta**, beti bateko leloa, dizu eskatzen dundurika. Patziku Perurena

## 23 *lo kuluska* (*orobat* ***lokuluska*** *g.er.*) lo kukuxka.

Senar-emazte zoriontsuak dendara erretiratu ziren **lo kuluska** bat egitera. Patxi Zubizarreta

## 24 *lo kuluxka* (*orobat* ***lokuluxka*** *g.er.*)

**Lo-kuluxka** bat egin zuen. Julen Gabiria

Eguna argitu aurretik **lo kuluxka** egiteko erran ziguten. Berria - Euskal Herria

Tarte batean **lo kuluxka** bat egin dugu, goizaren eta arratsaldearen artean. Koro Navarro

Tarteka **lo kuluxkak** egiten zituen, tarteka esnatu egiten zen. Koro Navarro

Bazkalondoan **lo-kuluxka** labur bat egin ondoren, indarrez gainezka esnatu zen Ruche jauna. Jon Muñoz

Bazkalosteko **lo-kuluxka** egin ondoren, ura eskatu zuen. Jose Morales

Zeruan ez zegoen hodei arrastorik, eta haizea eta zuhaitz hostoak bazkalondoko **lo-kuluxka** egiten ari zirela zirudien, neke handi batek jota. Joan Mari Irigoien

## 25 *lo-kuma* logaleak eragiten duen astuntasuna. ik **lohasma**.

Aldartea gero eta atseginagoa nuen, **lo-kuma** eragiten zidana. Anjel Lertxundi

## 26 *lo-kumatxo* (*orobat* ***lokumatxo***) *adkor* lo-kuma.

**Lo-kumatxo** bat egiten du. Oskar Arana

Batzuetan, idazten edo irakurtzen ari dela, kaiolatik atera eta utzi egiten dio patioan lasterka eta jauzika itsuski ibil dadin, edo bere oinetan **lokumatxoa** egin dezan. Oskar Arana

## 27 *lo-lo* (*orobat* ***lolo***)

Aitona **lolo** dago. Joseba Urteaga

Horrela igarotzen dugu bizitza: autoa, lana, telebista, **lo-lo**. Markos Zapiain

Egin ezazu **lolo**. Berria - Kultura

## 27a *lo mokor* lo txarra.

Lo **mokorretik** atera berria nintzen eta hara non harekin topatu ziren nire begi makartsuak. Aingeru Epaltza

## 28 *lo ordu* (*orobat* ***lotordu*** *g.er.*)

Egia esateko, sexuak nekatu egiten nau, eta **lo orduak** kentzen dizkit. Luis Elberdin

Gaueko **lo**-ordutan [...] neurtuko balitz bezala zintzotasuna. Arantxa Iturbe

Zortziko **lo**-ordu kopuru gomendatura iristen ez diren horietakoa haiz hi ere? Harkaitz Cano

**Lotordu** gutxiegi ziren *speed*aren ajea uxatzeko, baina bazen zerbait. Unai Iturriaga

## 28a *lo susta* (*orobat* ***lo txusta***) lo kuluxka.

Gero **lo-susta** egin genuen itzalean laurok. biharamun goizera arte geratu nintzen, suharki nire enpresa berriaren antolamendua prestatzen, ondoko ohean Javier Rodriguez akitua ikusten nuelarik **lo sustan**. Sethe bere lo **txustatik** iratzarri egin zen, eskuak eta besoak garbitzen hasi zitzaionean. Txillardegi

## 29 *lo zaku* (*orobat* ***lozaku***)

Ez dute deus eraman, ez **lo-zakurik**, ez bizkarreko zaku handirik. Berria - Euskal Herria

Batzuetan **lozakua** hartu eta kanpoan ematen zuten gaua. **Lo zakuak** zeramatzaten, janaria, kartak, whiskia. Javi Cillero

- **Lo zakuak** eta mendiko zapatak ekar itzazue. Itxaro Borda

**Lozakua** bizkarrean eta Iruñeko Jai-Alai gaztetxearen gaineko liburua eskuan, kanpoan zain zituenengana jo zuen gazteak. Berria - Euskal Herria

## 30 *lo zerraldo* lo sakonean.

Gero, orbelezko ohatze batean etzan eta aurki zegoen **lo zerraldo**. Karlos Zabala

Karmen **lo zerraldo** neukan ondoan, eta nire sorbalda gainera erortzen zitzaion burua. Inazio Mujika Iraola

Atseginaren atseginez / **lo zerraldo** geratu zen... J.M. Olaizola "Txiliku"

Behingoz **lo zerraldo** nengoen, zurrungaka beharbada, eta neure ametsean aldarriak entzuten nituen; gero haiek handitu eta, erdi esna, atean kax-kax ari ote ziren iruditu zitzaidan. Xabier Mendiguren Elizegi

## 31 *lo zorro* ik **lozorro**.

## 32 *loak hartu* lo hartu. ik **lokartu**.

Gero, etzan zen eta **loak hartu** zuen ipuru haren azpian. Elizen arteko biblia

Oheratu nintzen, **loak hartu** ninduen. Josu Zabaleta

Lucyren ohe ertzean esertzen nahiz hari Zane Grey-ren eleberritik irakurtzera begiak itxi **eta loak** hartzen duen arte. Oskar Arana

**Loak hartzen** zuen bakoitzean, izugarrikeriek mendean hartzen zuten. Koro Navarro

Jarrera horretan **loak hartu** du. Monika Etxebarria

Gero, nekearen nekeaz, **loak hartu** zuen aitaren hilobiaren ondoan. Patxi Zubizarreta

-Eta **loak hartzen** ez banau? Anjel Lertxundi

Gauean, **loak hartu** aurretik, "bere Montaigne zaharra" hartu eta orri batzuk irakurriko zituen, edo Horazioren odaren bat latinez. Monika Etxebarria

Haur **loak hartua** trebeki Chandler Txikiri besoetan jarri eta esan zion: [...]. Irene Aldasoro

· Gau batez, tristurak menderatuta, **lo** tristeak **hartu** zuelarik, San Frantzisko agertu zitzaion. Askoren artean

Burusia belarrietaraino jaso eta berehala **lo** axolagabeak **hartzen** nau. Urtzi Urrutikoetxea

### 33 *lotan egon*

Pauline txikia **lotan zegoen**. Karlos Zabala

Zortziak, haurrek **lotan egon** behar duten ordua. Josu Zabaleta

**Lotan nengoen**, baina bihotza erne. Elizen arteko biblia

Berrogei minutu edo **lotan egon** ondoren. Josu Zabaleta

**Lotan dagoenaren** antzera egiten du irribarre. Monika Etxebarria

**Lotan zegoela**, estalkiari bultza eta besoak eta hankak astintzen zituen. Juan Kruz Igerabide

Gau batez **lotan zegoela**, bide batetik zihoala iruditu zitzaion. Etxea **lotan zegoen**. Askoren artean

Auzo batzuk **lotan zeuden** artean. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

**egin dut lo** (15); **egin duzu lo** (7); **egin lo** (10); **egin nuen lo** (19); **egin zuen lo** (24); **egin zuten lo** (13); **egiten du lo** (18); **egiten dut lo** (8); **egiten dute lo** (18); **egiten nuen lo** (16); **egiten zuen lo** (29); **egiten zuten lo** (19); **egizu lo** (17); **elkarrekin lo** (19); **elkarrekin lo egiten** (7); **elkarrekin lo egiten** (7); **erdi lo** (108); **erdi lo geratu** (7); **erdi lo zegoen** (9); **etxean lo egin** (12); **etxean lo egiten** (8); **etzanda lo** (7); **gaizki lo egin** (18); **jan eta lo** (16); **lasai lo egin** (12)

**lo apur** (7); **lo arina** (10); **lo asko** (8); **lo askorik** (8); **lo dago** (49); **lo dagoen** (36); **lo dagoenean** (10); **lo daude** (12); **lo dauden** (9); **lo egin** (602); **lo egin gabe** (13); **lo egin nahi** (51); **lo egin ondoren** (11); **lo egina** (7); **lo eginda** (17); **lo eginen** (13); **lo eginez** (12); **lo egingo** (49); **lo egitea** (92); **lo egiteko** (218); **lo egiteko lekua** (8); **lo egiteko pilulak** (9); **lo egiten** (353); **lo egiten utzi** (8); **lo egitera** (58); **lo egon** (32); **lo egongo** (20); **lo egotea** (7); **lo eragile** (7); **lo gela** (12); **lo gelditu** (47); **lo gelditzen** (18); **lo geratu** (87); **lo geratzen** (10); **lo gutxi** (28); **lo gutxi egin** (8); **lo gutxi egiten** (11); **lo handirik** (9); **lo handirik egin** (7); **lo hartu** (146); **lo hartu behar** (8); **lo hartu ezinik** (17); **lo hartzea** (8); **lo hartzeko** (11); **lo hartzen** (31); **lo itxurak** (8); **lo jarraitzen** (10); **lo kixka** (7); **lo kuluxka** (62); **lo kuluxka egiten** (10); **lo lasai** (15); **lo nengoela** (9); **lo nengoen** (14); **lo pixka** (10); **lo pixka bat** (10); **lo sakon** (9); **lo sakona** (7); **lo sakonean** (9); **lo seko** (35); **lo seko geratu** (7); **lo trinko** (11); **lo zaku** (7); **lo zakuak** (7); **lo zakuan** (7); **lo zegoela** (45); **lo zegoen** (129); **lo zerraldo** (10); **lo zeudela** (18); **lo zeuden** (34)

**ondo lo egin** (49); **ondoan lo egiten** (7); **ongi lo egin** (7)

**loa egin** (7); **loa galarazi** (11); **loa galarazten** (11); **loa kentzen** (11)

**loak har** (10); **loak hartu** (200); **loak hartu ninduen** (30); **loak hartu zuen** (44); **loak hartua** (9); **loak hartuko** (11); **loak hartuta** (18); **loak hartzeko** (15); **loak hartzen** (63); **loak hartzen zuen** (10)

**lorik egin gabe** (32)

**erbi lotan** (8); **erdi lotan** (74); **erdi lotan zegoen** (8); **lotan dago** (13); **lotan dagoen** (14); **lotan egon** (17); **lotan egongo** (7); **lotan egoten** (7); **lotan eman** (11); **lotan geratu** (17); **lotan geratu zen** (7); **lotan geratzen** (8); **lotan nengoela** (13); **lotan zegoela** (29); **lotan zegoen** (51)

**lotara joan** (52); **lotara joan aurretik** (11); **lotara joaten** (13)

---

## loakartu ik **lokartu**.

---

## **loaldi** *(orobat **lo aldi** eta **lotaldi** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **loaldi** agertzen da)* *iz* lo egiten den denbora; norbait lo dagoen aldia.

Ustez heriotza zen **loaldi** hartatik ateratzeko. Anton Garikano

**Loaldi** luze batek on egingo dik. Iñaki Iñurrieta

**Loaldi** eder bat behar diat, ez besterik. Lopez de Arana

**Loaldi** sakonean hondoratzeko gogoa. Ibon Uribarri

**Loaldi** luzetik esnatzean. Joan Mari Lekuona

Nire **loaldi** etenen zurrunbiloan. Anjel Lertxundi

Amets desatsegina bezala, **loaldi** aztoratu batean. Anton Garikano

Ez dute heriotza baltsamatuaren **loaldi** geldo eta luzea ezagutuko! Agustin Otsoa

Bere bizitza **loaldi** etengabea izanik, zein aldaketa ekarriko ote zion heriotzak? Patxi Zubizarreta

Ordu gutxiko **loaldia** ez zuen nahikoa izan. Agustin Otsoa

Bat hartzen bazuen, lo arinean sartuko zen; bi hartzen bazituen, heriotzaren antzeko **loaldia** izango zuen. Ibon Uribarri

Gure xoko hotan, hartza iratzartu zauku, neguko **loaldi** luzea bere gostuko harpe zoko zonbaitetan iraganik. Herria

Garai berean belaontzien erainkuntza bere **loaldi** luzetik esnatu zen. Iñaki Mendiguren

Konfiantza hartutakoan edabe lo-eragilea edo antzeko drogaren bat ematen diote eta, **lotaldia** aprobetxatuz, ia biluzik uzten dute, batere ondasunik gabe. Jon Arretxe

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egiten dute loaldian** (3); **lehen loaldian** (3)

**loalditik esnatu** (5)

---

## **loaldiño** *iz* loalditxoa.

Neronek ere eginen nian neure **loaldiñoa**, baina haurrekin ezin horretarako patxada hartu. Aingeru Epaltza

---

## **loalditxo** *iz* loaldi txikia.

Japoniar talde haren marmarrak atera ninduen nire **loalditxo** gozotik. Josetxo Azkona

Denok batera bazkaldu genuen, Dusselek **loalditxo** bat egin zuen eta gero gurekin batera hartu zuen tea. Josu Zabaleta

---

## **loarazi**, loaraz, loarazten *(orobat **lo arazi** g.er. eta **lotarazi**)* du *ad* lo eragin, lo harrarazi.

Hotzak **loarazi** zuen arte. Anjel Lertxundi

Esperantzak adimena **loarazi** zion, eta, halako batean, utzi egin zuen Bakuko jauregia, Samarcandara joateko. Felipe Juaristi

Ez zekien, konturatu gabe, berpiztu egin zizkiola kostata **loaraziriko** mamuak. Migel Angel Mintegi

Harik eta fluorezko sega horiek zure bihotz-taupaden erritmora egokitu eta sehaska kantaren kadentziaz **loarazten** zintuzten arte. Harkaitz Cano

Etxean zainduz hazi zuen, seme-alabekin batera, bere ogitik emanaz, bere edontzitik edanaraziz, eta bere magalean **lotaraziz**: alaba bat bezalaxe zuen. Jose Antonio Mujika

Jendea **loarazten** duen musika... deabruen inbasioari bide egiten diona! Joanes Urkixo

---

## loarazle *(orobat **lotarazle** g.er.)* **1** *izond* lo eragiten duena. ik **loeragile**.

Huraxe zen amarruetako bat: txakur ahulenaren azala gai **loarazleaz** espraiatu, beste zakurrak kosk egiten zion orduko lelotu eta bertan zerraldo eror zedin, nerbioak erabat anestesiatuta. Harkaitz Cano

Zinez da **loarazlea** zori oneko belar-edabea, logura ezti bat baitakar gorputzeko ataletara. Edorta Jimenez

Xaboibil napolitar: gariz, landare **lotarazlez**, ahuntz esnez, almendra mikatzez eta azukre zuriz egina. Patxi Ezkiaga

**2** gai loarazlea.

Lasaigarriak gutxituz eta **loarazleak** kenduta, garunaren funtzioak zertan dauden eta odol-jarioek eragindako ondorioek zelako larritasuna duten jakiteko aukera izango dute artatzaileek. Berria - Mundua

Noraezaren zentzuak normalean **loarazle** bezala jokatu arren, bekatuaren zentzuak estimulu izan beharko luke. Iñaki Mendiguren

---

## loba *iz* iloba.

Senitarteko bazkari batera joanda geunden, eta Mungian bizi den bost urteko **lobarekin** egin nuen topo bertan. Koldo Zuazo

Hurrengo urtean be aurkeztu zan Zeanurira, oraingoan Kepa Arrizabalagaren **loba** Ainaragaz, Gatikakoa berau be. Xabier Amuriza

---

## lobbie ik **lobby**.

---

## lobby *(orobat **lobbie** g.er.)* **1** *iz* presio taldea, bere interesen alde egiteko botere publikoak hertsatzen dituena.

Gure politikariek indarra dutenen interesak defenditu besterik ez baitute egiten, bai lekuan lekuko **lobby** edo interes-taldeena, bai hautesle talde indartsuena. Iñaki Heras

«Homosexualen **lobbie**-ak» aipatzen dituzte presio talde horien adibide moduan. Berria - Euskal Herria

Errifleareen **lobbya**. Oskar Arana

AEBetan Israelen aldeko **lobby** indartsua dago. Berria - Mundua

Neurriotako asko **lobby** sionistari men egiteko onartu dituzte. Berria - Mundua

EEBBtan ikaragarrizko indarra du audientziaren morala zaintzen duen **lobby**-ak. Harkaitz Cano

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gauerdia jotzear dela, Paolaren lagun kolonbiarrek osatzen duten foru hispanoak bere **lobby** izaera erabili du, japoniarrei ere hamabina mahats ale helaraziz. Harkaitz Cano

Cymuned Galesko Legebiltzarrean **lobby** lana egiteko sortu zen. Berria - Mundua

**Lobby** enpresak konpromisoa hartu zuen «Espainiako Gobernuari diplomazia publikoan eta komunikazio estrategikoan laguntzeko». Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lobby judua (4); lobby nuklearrak (3)

---

## lobelar ik **lo 10**.

---

## lobelia *iz* belar landare tropikala bost hostoko loreak dituena.

Atzean, bagoi narratsak ezusteko alaitasuna pizten zuen garraiatzen zituen lorontziak zirela eta: han, besteak beste, geranio arrosak eta gorriminak, krabelinak, ahuntz-prakak, arrosa goiztiarrak eta **lobelia** urdinak ikus zitezkeen nahasirik. Lopez de Arana

---

## lobizon *iz* otso-gizona.

Hori dio albisteak, banpiroak eta **lobizonak** edo otso-gizonak nahastuz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Brasilgo herri txiki batean izua eta ikara dira nagusi duela denbora batetik hona **Lobizon** beldurgarrien itzulera dela eta. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## lobotomia **1** *iz* lobulo batean, bereziki garuneko bekokikoan, egiten den ebakia.

**Lobotomia** egin diotela dirudi. Xabier Olarra

Walter Freeman neurologoak hurbilbide kirurgiko berri bat asmatu baitzuen, berak **lobotomia** transorbitala deitzen ziona. Xabier Olarra

Ikuskizun dago kasu hauen bilakaera, baina orain arte, sintomak nabarmen apaldu zaizkie, eta **lobotomiaren** ondoko portaera-arazo txikietariko batzuk baizik ez dituzte nabari. Xabier Olarra

**2** (hitz elkartuetan)

1960. urtean diagnostiko okerra izan zela jakin zuen, baina ordurako **lobotomia** tratamenduak jasan zituen. Berria - Kultura

---

## lobotomizatu, lobotomiza, lobotomizatzen **1** du *ad* lobotomia bat egin.

Zimel, burusoil, **lobotomizaturik**. Xabier Olarra

**2** (era burutua izenondo gisa)

1966tik 1990era arte estatuaren erietxe psikiatriko batean lan egin nuenean, dozenaka ikusi nituen halako gaixo **lobotomizatu** patetikoak. Xabier Olarra

---

## lobotomizazio *iz* lobotomizatzea.

Kontrolari, **lobotomizazioari** ihes egitea da iruntzietara idaztea. Iñigo Aranbarri

---

## lobular *izond* lobulukoa, lobuluari dagokiona.

Pneumonia **lobularra** zuen, birika baten kongestio larri bat zehazki; zainketa intentsiboen unitatean zegoen, eta oxigenoa eta antibiotiko zain-barnetikoak ari zen hartzen. Xabier Olarra

## lobulu *(orobat **lobulo** g.er.)* **1** *iz* belarriaren beheko zati haragitsu, bigun eta biribilkara.

Hobe izango da belarriko **lobulua** zurrupatzea? Jon Arretxe

**2** garuneko zati irten edo biribilkaretako bakoitza.

**Lobuluen** arteko arrakala luze fresko haiek margotzeko. Karlos Zabala

Garunaren alderik konplexuenak dira **lobulu** frontalak. Xabier Olarra

Artista handi askoren inspirazio kolpeak ez dira garunean, bekokiko **lobuluan**, jasaten dituzten epilepsia erasoen ondorio baizik. Joxean Agirre

Dientzefaloko eta **lobulu** frontaletako lesioak ere egin zioten berea. Xabier Olarra

Ezkerreko hemisferioko **lobulu** okzipitalean erasan zion apoplexiaren ondorioz. Xabier Olarra

Kaliforniako San Diego Unibertsitateko Larry Squire neuropsikologo ikertzailearen lana funtsezkoa izan da **lobulu** tenporalaren oroimen-sistemaren garraio-funtzio hori argitzeko. Xabier Olarra

Nire zerebroa aztertu ahal izango duzue horrela, nire **lobuloen** konfigurazioa, zelako asasinoa naizen ikusteko. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan)

Garrantzizkoak dira loki-lobuluak (belarrien eta bekokiaren artean daudenak), zeren, kirurgilariak **lobuluok** kentzen baditu, oroimen gehiena galtzen baita. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **garuneko lobulu** (3); **lobulu frontalak** (3); **lobulu frontaleko** (6); **lobulu frontalen** (7); **lobulu frontaletako** (7); **lobulu frontaletako lesioak** (3); **lobulu frontaletan** (3); **lobulu tenporaleko** (8); **lobulu tenporaleko epilepsia** (3); **lobulu tenporalen** (5)

---

## loden *iz* artilezko ehuna, lodia, sarria eta irazgaitza, beroki eta kidekoetarako erabiltzen dena.

Eta ate bat ireki zen, haizekolpe batek bultzatua bezala, eta emakume gazte bat sartu zen, **lodenezko** soingainekoko botoiak laxatuak, azpian atorra tiroles bat ikusten zitzaion, haritzhosto berdez eta ezkurrez bordatua. Fernando Rey

---

## lodi **1** *izond* luzerari buruz beste bi dimentsioak ohi baino handiagoak dituenak. ant**mehe**.

Gizon txiki **lodi** bat zen hura. Felipe Juaristi

Ama sudurmotz **lodi** bat zen, maltzur hutsa. Josu Zabaleta

Sagar aurpegiko gizon **lodi** zabal batek. Felipe Juaristi

Mutil **lodi** handikote haren besarkada bihotzaren erdi-erdiraino iristen zitzaion. Karlos Zabala

Militar txiki, **lodi** eta bibotedun bat, uda aldean Donostiara etortzen zena. Pello Salaburu

Ilea larru-arras mozturik garondoan, **lepo** lodi zabala. Jose Morales

Esku handiak ditu, **hatz lodiak**, oso baldar eusten dio arkatzari. Anjel Lertxundi

*ik beherago* 11. Askoren artean

Hatz **lodi** batez Harry seinalatu zuen mehatxuz. Iñaki Mendiguren

Sudur handia eta ezpain **lodiak** zituen. Jose Morales

Kolore urdin lokaztuko **suge** lodi hori. Karlos Zabala

Har **lodi** zuri bat etorri zitzaidan burura. Monika Etxebarria

Oso-osorik ezkutatu nintzen han, **adar** lodi ilunen artean. Josu Zabaleta

Kokotsa bastoi **lodi** baten bolizko eskutokian bermaturik. Karlos Zabala

Ukuiluan, lastategian eta sukaldean habetzar **lodiak** zeuden, menderen mendetan hortxe finko irauteko ezarriak. Jose Morales

Aldarean piztuta zegoen kandela **lodiaren** garra. Bernardo Atxaga

Enbor **lodi** batzuek eusten zioten. Karlos Zabala

Kanpaiaren erditik kate beltz **lodi** bat jaisten zen. Koro Navarro

Lau ertzetan sartutako iltze **lodi** batzuek eusten ziotela oholtza karratuari. Iñaki Iñurrieta

Hegazkin handi, **lodi** eta bonbez kargatuak. Felipe Juaristi

Lupa itxurako betaurreko **lodiak**. Urtzi Urrutikoetxea

Burdin hari **lodi** eta gogor batez lotu zituen. Felipe Juaristi

Orriaren goia alderik alde hartzen zuen letra beltz **lodiko** titularrak. Anjel Lertxundi

**2** hirugarren dimentsioa ohi baino lodiagoa duena.

Baina horma **lodi** haien barnera gauak ez zuen lortzen sartzerik. Juan Garzia

Sartzeko, borta **lodi** bat, burdinez azkartua. Michel Oronoz

Isilka-misilka, akuario baten **kristal** lodi batetik bezala. Lopez de Arana

Kristal **lodiko** betaurrekoen atzean. Anjel Lertxundi

Goizaren lehen argia hoteleko kortina **lodiaren** zirrikituetatik sartzen hasia zen. Lourdes Oñederra

Lanbroa belus grisezko errezel **lodi** baten gisa ezartzen zen leihoetako kristaletan. Monika Etxebarria

Artilezko irlandes trikota **lodi** bat. Ramuntxo Etxeberri

Berokiak eta bufanda **lodiak** babestua. Fernando Morillo

Haren oinak alfonbra **lodietan** hondoratzen ziren. Fernando Rey

Liburu haundi, ttipi, **lodi**, mehe, denetarik bazen. Michel Oronoz

Gutun-sorta **lodi** bat atera zuen soinean zeraman burko-azalaren barrutik. Iñaki Mendiguren

Itsutuz doanaren mintz **lodia** begietan. Edorta Jimenez

Ilunpean, ematen zuen dena lohi geruza **lodi** batek estaltzen zuela. Fernando Rey

Hosto zabalek belus **lodi** berdezko oihal puskak ziruditen. Karlos Zabala

Urdai saltzaileak paper orri **lodi** bat ipini zuen balantza batean. Karlos Zabala

Claude eta Florent ohatze **lodi** berde horren gainean etzanda jarri ziren. Karlos Zabala

**3** (neurketetan)

Dolmancé, neurtuz: bai, arrazoi duzu: hamahiru luze eta zortzi eta erdi **lodi**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Brontzea urtuz, bi zutabe egin zituen; bederatzina metro ziren gora eta seina metro **lodi**. Elizen arteko biblia

800 metro luze ziren kableak, eta 62, 5 milimetro **lodi**. Edurne Elizondo

Baina han hormak metro erdi **lodi** ziren. Juan Garzia

Aingira handiak, aldiz, ume baten besoa bezain **lodi**, burua jaso eta bakarrik lerratzen ziren ur azpira. Karlos Zabala

Dolmancé, neurtuz: Bai, arrazoi duzu: hamahiru luze eta zortzi eta erdi **lodi**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Metro **erdi** lodiko kristal bat dago haien eta nire artean. Koldo Biguri

**4** (izen gisa) ik **lodiera**.

Mahaiaren gainean geratzen den erregelak luzeran zortzi zulo izango ditu, zabalean eta **lodian** zulo baten erdia. Santiago Iruretagoiena

Lurrezko tutuak egingo dira **lodian** gutxienez bi hatzekoak. Santiago Iruretagoiena

Zentimetro bat gutxiago izango da **lodian**. Bernardo Atxaga

**5** isurkariez eta kidekoez mintzatuz, trinkoa.

Hasieran odol **lodi**, koagulatua ez zen ateratzen irekitako zainetik. Josu Zabaleta

Zilarrezko ontziak saltsa **lodi** eta alimentu handikoarekin. Iñaki Mendiguren

Olagarroek ura zikindu eta beren ehizakiak lo arazteko erabiltzen duten isurkari **lodi** horietakoren bat. Josu Zabaleta

Hain zen **lodia** lokatza, ezen berehala itsatsi baitzitzaien gurpilei. Jose Morales

Patata pure **lodi** itsaskor batean hondoratu izan banu bezain lirdingatsu jartzen zitzaidan eskua. Joxan Elosegi

Malkoak ke bihurtuak baitzituen, ke **lodi**, ke mingots, ke zorrotz. Felipe Juaristi

Pabiloi bakoitzetik lurrun **lodi** bat goratzen zela iruditzen zitzaion. Karlos Zabala

Galdurik laino **lodi** hartan noraezean nindoala ikusi nuen neure burua. Josu Zabaleta

Lainope **lodi** batean galduta dabilenari. Xabier Olarra

**6** irud/hed

Ahotsa **lodia** du, eztarria pittin bat hartuta edukiko balu bezala. Gurdi ilara gelditu, eta ahots **lodi** batzuen mintzoa entzun zuten. Bernardo Atxaga

Erretako gorputzen usain **lodi** itsaskorra. Felipe Juaristi

Hildakoen memoria **lodi** eta mingarria balitz bezala. taberna zuloko **musika** lodi eta kanta lizunetara eginiko jendea. Felipe Juaristi

Bi malko **lodi** isuri zitzaizkion [...] aurpegi beldurtuan behera. Karlos Zabala

Beltza, itzal **lodi** baten kolorekoa. Iñaki Segurola

**7** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Eta, gorputzaren **lodia** gorabehera, gomazko pilota bat bezain zalu egin zuen urrats bat atzerantz. Jose Morales

· **Lodiaren lodiaz**, ezin zen inola ere hondoratu. Jose Morales

• **8** *adlag*

Bat-batean zabaldu zen [...], **lodi** eta arin, malgu eta distiratsu, kometa baten suzko isatsa bailitzan. Josu Zabaleta

Dezente edan dut orduko, eta zigarroen kea **lodi** hedatzen da aretoan zehar. Eskarne Mujika

Izerdia tantaka zerion lurrera, odola bezain **lodi**. Elizen arteko biblia

Olatuak **lodi** aditzen ziren beheko arroketan. Anton Garikano

**9** *iz* hatz lodia.

Trapu zikin bati bezala heltzen zion aldizkariari, punta batetik hartuz hatz erakusleaz eta **lodiaz**. Bernardo Atxaga

**Lodiarekin** eta erakuslearekin igurtzen ari zela, laster bost hatzak zituen Egutxi agureak neskatoaren ilearekin jolasean. Ibon Uribarri

**Lodia** kokotsaren azpian ezkutatuta zeukan. Ibon Uribarri

**10** ***lodixe***

Asko ez, baina mahaia astunxeagoa iruditzen zitzaidan, **lodixeagoa**, eta nire luma trinkoagoa. Monika Etxebarria

Muturra laburragoa ipini eta gorputza **lodixeagoa** eta hor dugu mazoparen irudia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ezpainak, berriz, juxtu normala baino **lodixeagoak**. Xabier Olarra

**11** ***hatz lodi***

**Hatz lodia** ezpainetatik pasa du Asierrek, eta gero hatz hori bera Itxasori jarri dio ezpainetan. Pako Aristi

**Hatz lodiaren** eta erdikoaren artean. Jon Maia

**Hatz lodiaren** eta erakuslearen artean oktaba baten tartea hartzen nuen doi-doi. Harkaitz Cano

**Hatz lodiak** kanpoan utzita, eskuak jakaren sakeletan Ukabil bilduari eragin zion, **hatz lodia** tente behe aldera, zirko erromatarretik gurera zabaldutako heriotza-keinu ezagunean. Aingeru Epaltza

**12** ***lodi-lodi*** *izond*

Sophie-ren tabakoaren keak gela osoan hodei **lodi lodi** bat sortua baitu eta logalearen gainera, ke horrek begiak erretzen baitizkio. Eneko Bidegain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adar lodi** (6); **ahots lodi** (18); **aurpegi lodi** (3); **behatz lodi** (3); **beroki lodi** (3); **beso lodi** (3); **betaurreko lodi** (10); **bi malko lodi** (3); **emakume lodi** (20); **enbor lodi** (7); **estalki lodi** (3); **ezpain lodi** (7); **geruza lodi** (12); **gizon lodi** (25); **hatz lodi** (4); **hauts geruza lodi** (4); **hauts lodi** (4); **hodei lodi** (4); **horma lodi** (3); **jaka lodi** (3); **jertse lodi** (7); **kandela lodi** (3); **karkaxa lodi** (3); **ke lodi** (3); **kristal lodi** (5); **laino lodi** (4); **liburu lodi** (14); **lodi eta gogor** (3); **lodi lodi** (18); **lodi samar** (3); **lodi samarra** (4); **lodi samarrak** (4); **lodi zabala** (3); **malko lodi** (4); **marra lodi** (4); **oihal lodi** (4); **paper lodi** (7); **soka lodi** (8); **tanta lodi** (7); **usain lodi** (3); **zakil lodi** (3)

**ahots lodia** (9); **azal lodia** (3); **behatz lodia** (8); **emakume lodia** (3); **gizon lodia** (12); **gorputz lodia** (3); **hatz lodia** (15); **ke lodia** (6); **lepo lodia** (3); **liburu lodia** (6); **lodi lodia** (5); **lodia eta erakuslea** (4); **marra lodia** (4); **odol lodia** (3)

**beso lodiak** (3); **betaurreko lodiak** (8); **euri tanta lodiak** (3); **ezpain lodiak** (7); **galtzerdi lodiak** (3); **gizon lodiak** (9); **hatz lodiak** (10); **hodei lodiak** (5); **horma lodiak** (3); **liburu lodiak** (3); **lodi lodiak** (8); **malko lodiak** (4); **tanta lodiak** (11)

**behatz lodian** (4); **eskuko hatz lodian** (5); **hatz lodian** (6); **zabalean eta lodian** (3)

**hatz lodiarekin** (7)

**hatz lodiaren** (10); **jertse lodiaren** (3)

**hatz lodiaz** (6)

**tanta lodiek** (6)

**kristal lodiko** (3)

**ahots lodiz** (3); **hizki lodiz** (3); **letra lodiz** (5).

---

**lodiarazi**, lodiaraz, lodiarazten du *ad* loditzera behartu.

Proteina konplexuak odolean zurrunbiloka, organo sexualak hanpatzen, esku-ahurrei izerdi eragiten eta ahotsa **lodiarazten**, arimak bere gurari biziak zeruetarantz jaulkitzen dituelarik. Oskar Arana

Lehendabizi, elkarri begiratzen genion Ritak eta biok, eta ondoren, hitz gozoren bat edo igurtzi txikiren bat nahikoa izaten zen, etxean zegoen aire guztia **lodiarazteko**. Hasier Etxeberria

---

**lodidun** *izlag* lodiko.

Haren ezkerretara bibote **lodidun** eta harakin itxurako jendarmea ikusi nuen mahuka-hutsik. Urtzi Urrutikoetxea

Motz-motz ebakitako ile sarri eta **lodiduna**. Oskar Arana

Goi-aldean LIVINGSTONE irakur zitekeen beira **lodidun** atetik irten ziren, lasaiago orain. Joxemari Urteaga

**lodiera** *iz* loditasunaren neurria; hirugarren dimentsioaren neurria.

Uraskaren **lodiera** esku-arra betekoa zen. Elizen arteko biblia

Gurpil horien altuera sei oin eta bederatzi hazbetekoa zen; **lodiera**, hiru oinekoa. Santiago Iruretagoiena

Hauetako bakoitza luzean hogeita hamasei oin, **lodieran** hamabost hazbete, eta zabalean hamazortzi hazbete. Santiago Iruretagoiena

Ukaldi txikiak jotzen zituen hezurretan, haien **lodiera** neurtzeko. Karlos Zabala

Gizonak tenpluko horma neurtu zuen: hiru metroko **lodiera** zuen. Elizen arteko biblia

Hiru metroko **lodiera** eta hiru metroko altuera zuen. Elizen arteko biblia

Molekula baten **lodierakoa** edo. Irene Aldasoro

Haize horrek galeper saldo handiak ekarri eta kanpamentuaren inguruan bota zituen, egun bateko bidea adinako luze-zabala estaliz, metro beteko **lodieran**. Jose Antonio Mujika

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hiru metroko lodiera** (3); **zabalera eta lodiera** (4)

---

**lodikote** *(orobat* ***lodikot*** *g.er.) izond/iz adkor* lodi samarra, aski lodia.

Gizon **lodikote** bat, makila eskuan, feltrozko kapela buruan. Gizontxo **lodikotea** baino ez da falta bere lekutik. Patxi Iturritegi

Gizon motza zen, **lodikotea** eta burusoila. Ramon Saizarbitoria

Tenore eta soprano **lodikote** haien italierazko txilioak entzunda. Alberto Ladron Arana

-Alproja hori Lisa **lodikotearen** maitalea da! Karlos Zabala

Hori esaterakoan, esku **lodikote** bat airean jaso eta hatzak mugitzen zituen. Anjel Lertxundi

Hatz **lodikote** haien trebezia miretsi ahal izan nuen berriro ere. Ramon Saizarbitoria

Gotorra, ia gerririk ere gabea, poto txiki **lodikote** baten modukoa. Oskar Arana

Idazmahaiaren ondoko apaletaraino ezer zapaldu barik heldu eta nobela **lodikote** bat hartu dut. Sonia Gonzalez

Maleta **lodikote** beltz bat eskuan zintzilik badakar, akabo. Patziku Perurena

Kolore gorriko **lodikoteak** salto egin du airean. Tirabira labur baten ondoren, **lodikoteak** berriro atzeman du, eta zangartekoa eginez lurrera bota. Monika Etxebarria

-Horrela, horrela, segi horrela! - xaxatu du **lodikote** biziotsuak, begi biak txilotuta, estasi gozoan. Patxi Iturritegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gizon lodikote** (7); **txiki lodikote** (3)
> **gizon lodikotea** (6); **lodikotea zen** (3)

---

lodiska ik **lodixka**.

---

lodisko ik **lodixko**.

---

**loditasun 1** *iz* lodiaren denaren nolakotasuna. (bizidunez mintzatuz)

Obaban hotela eraiki zuen garaian don Pedro ehun eta hogei kilo inguru zen, eta **loditasun** harekintxe lotuta zegoen ezagutzen zitzaion ohitura bakarretakoa. Bernardo Atxaga

Eleberrietako protagonistei inola ere ez diete barkatzen **loditasuna**, eta dama gehienek, bizkarra emanik, esango dute: "Ene, bai gizon nazkagarria!". Jose Morales

**Loditasuna**, heriotza kausa nagusienetakoa. Berria - Gaiak

**Loditasunak** eragindako heriotza kopuruak %14 egin du gora. Berria - Gaiak

**Loditasuna** gaixotasun kroniko ugariren eragile zuzen-zuzena da. Berria - Euskal Herria

Egungo ohiturek **loditasuna** garatzea laguntzen dutela ohartarazi du OMEk. Berria - Gaiak

Haurren artean **loditasuna** ari dela azkarki emendatzen azken urte hauetan. Herria

Euskal Herriko ehun biztanletik 14 lodiak dira, eta horietatik hiruk **loditasun** morbidoa dute. Berria - Euskal Herria

Gene hori kendu zieten arratoiek **loditasun** erigarria garatzen zutela ikusi genuen. Berria - Gaiak

**Loditasunaren** genea egon badago, baina adituek ez dute uste gene horrek **loditasuna** eragiteko nahikoa ahalmenik duenik. Berria - Euskal Herria

**Loditasunari** aurre egiteko plangintza prest du Bruselak. Berria - Harian

**2** (gauzez mintzatuz)

Elkarren gainka ditudan hiru jantzien **loditasunak**, bizkarreko jausgailu astunak [...]. Josu Zabaleta

Orduan naiz ohartzen hormen **loditasunari**: egiazko harresiak, Erdi Aroko gazteluetakoen idurikoak... Filipe Bidart

Kortina haren **loditasuna**, zirrikuetatik argia sartu nahian. Lourdes Oñederra

Muga-marra lodia dela inori erakutsi behar bazaio, **loditasun** horren berri eman ahal duenari erakutsi behar zaio. Edorta Jimenez

**Loditasun** lirdingatsua zuela irudi zuen, olio mineral batez osatua edo. Karlos Zabala

**Loditasuna** sumatu zuen haren ahotsean, sudurra itxita eduki izan balu bezala. Joxemari Urteaga

Poliki-poliki, hala ere, ilunaren **loditasuna** mehetuz joan zen. Josu Zabaleta

Esan liteke aireak laga egiten ziola aire izateari eta kasik uraren **loditasuna** hartzen zuela askotan. Hasier Etxeberria

**3** (hitz elkartuetan)

Erresuma Batuko agintarien arabera, 30.000 pertsona inguru hiltzen dira urtero **loditasun** arazoak direla eta. Berria - Gaiak

**4** lodiera.

Gaur eguneko kondoiak, berriz, latexezkoak dira; 0,03 milimetroko **loditasunekoak**, oso finak, malguak eta moldaerrazak. Luis Elberdin

Bi hezurtxo erakutsi zizkion esku irekian, oso zuriak, bi zentimetro luze eta gutxi gorabehera zigarro baten **loditasuna** izango zutenak. Ramon Saizarbitoria

Teilatuak xut xutak dira, elurrak jautsarazteko, zeren eta hango elurteak noiz-nahi negu bortitzean zortzi zehe **loditasunekoak** egiten ditu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **loditasun arazoak** (8); **loditasun morbidoa** (4)

**loditu**, lodi(tu), loditzen **1** da/du *ad* lodi edo lodiago bihurtu. (bizidunez mintzatuz)

Espetxean ondo ematen zioten jaten eta, oso laster, zenbait egunen buruan, **loditu** egin zen eta apur bat harropuzten hasi. Jose Morales

Modu arras itsusian ari zen **loditzen** eta aldi berean arras sentibera bihurtzen. Joxan Elosegi

Gregen tumorrak lehenbizi guruin pituitarioari erasan zion; horregatik **loditu** zen eta erori zitzaion ilea. Xabier Olarra

Izeba Marge puxika beldurgarri bat bezala puztuz joan zen..., sabela askatzen hasi zitzaion bere tweed-ezko gerrikotik..., hatz bakoitza lukainka bezala **loditzen** ... Iñaki Mendiguren

Haur-behar **loditua** nintzen, bigarren gutun bat ukan nuelarik Jakes-en ganik. Janbattitt Dirassar

Arreba aspaldian ikustekoa nuen eta harritu nintzen zenbateraino **loditua** zen. Daniel Landart

Edanak **loditutako** agurearen hizketa-modu baldarrak atera zuen hausnarketatik: [...]. Anjel Lertxundi

Den-denak **loditu** egiten nau. Lopez de Arana

Ikulluko txala, hezur ta azala; San Antoniok **loditu** dagiala. Pello Zabala

Igela bezala **lodituko** da. Patxi Zubizarreta

**2** (gauzez mintzatuz)

Ageri zen gerria zabaldu zitzaiola eta bularrak **loditu**. Elena Touyarou

Ilea urdintzen eta sabelaldea **loditzen** hasiak dituen arren, [...]. Joxean Agirre

Mingaina **loditua** neukala disimulatu ezinik. Anjel Lertxundi

Gizona eszitatzen denean, zakila luzatu eta **loditu** egiten da. Luis Elberdin

Laranjak **lodituz** zihoazen arbolan. Luzatu ez ezik, **loditu** ere egin behar du hezurrak. Irene Aldasoro

Boza **loditu** nuen. Aingeru Epaltza

-Ontziarentzat izen berri bat bilatzen -erantzun zion Andreasek, ahotsa **loditurik**. Anjel Lertxundi

Kolpetik arnasa **loditzen** hasten zitzaion, norbaitek zintzurra estutuko balio bezala. Joxean Agirre

Eta horregatik konpondu behar da akats hori, kolomaren diametroa **lodituz**. Santiago Iruretagoiena

Masa pixka bat **loditu** arte. pipermina lehendabizi, eta ogirina gero, saltsa **loditzeko**. Pako Aristi

Azken egunetako uhar nasaiek ibaia **loditu** eta lohitu zuten. Itxaro Borda

Zigarreten keak **loditua** zuen airea. Mirentxu Larrañaga

Goizetan, **loditu** egiten duk behe-laino mehe hori, berotu egiten duk. Xabier Olarra

Azken urteetan asko **loditu** da Ameriketako Estatu Batuetako gastu militarra. Fernando Morillo

San Andresetarako elurra hasi eta egun gutxitan lur gainean metro bat gutxienik **loditu** zuen. Pako Aristi

Zuen kontu korronteak zelan **loditzen** diren besterik ez dizue ardura. Paddy Rekalde

Iluntasuna **loditzen** ari zen, hotz bortitzak zuhaitzak kraskarazten zituen. Josu Zabaleta

**Loditzen-loditzen** ikusten dut zerutik erortzen den itzal ilun handia. Josu Zabaleta

Esnegaina bezala **loditzen** etsipena. Anjel Lertxundi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Motelki mintzatzen ziren, mihi **loditua** ezpainetan igurtzen zuten eta korrokada egitean soin osoak dar-dar egiten zien. Iñaki Zabaleta

Emakume bat ageri zen bertan, egundoko zoriontasun-aurpegiarekin, bere **sabel** loditua laztantzen. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> loditzeko joera (3)

---

**loditxo** *izond adkor* lodi samarra.

Gortinak jartzera joan den neska **loditxo** hori. Bernardo Atxaga

Beltzarana zen, beltzaran **loditxo** bat. Josu Zabaleta

Emilek bi esku **loditxoak** hartu zizkion. Lopez de Arana

Hiru arratoi **loditxo**. Gotzon Garate

Bakeroak, botak eta jertse berde **loditxoa**. Sonia Gonzalez

Eta orri **loditxo** beltzon arteetan, babeski, paper garden mehe bana. Txillardegi

---

**loditzar** *izond adkor* oso lodia.

Neure burua kontrolatu behar ere bai nik, pozak gainezka egin ez ziezadan, barkuaren unama **loditzarrak** askatu zituztenean. Joxe Austin Arrieta

---

**loditze** *iz* lodi edo lodiago bihurtzea.

Soldadura-puntuen antzekoak dira ainguragune horiek, alboko zelulen pareten han-hemenkako **loditzearen** bidez eratuak. Irene Aldasoro

---

**lodixka** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **lodixko** agertzen da)* *izond adkor* loditxoa.

Haren eskuin eskuko behatz **lodixkak**. Aingeru Epaltza

Neskaren zango **lodixketako** azazkal gorriz pintatuak. Aingeru Epaltza

Bere atzean kokatu zen, astiro, besaburuak hartu eta ezpain **lodixka** gorriak bero pausatuta musu eman zion bizkar erdian. Sonia Gonzalez

Adar **lodixka** batetik . Pello Zabala

---

**lodixko** *izond adkor* loditxoa.

Zoritxarrez arkitektoak ez zuen Brad Pitten antzik, izatez burusoil samarra eta **lodixkoa** baitzen, eta, okerragoa dena, guztiz moldakaitza sedukzioaren artean. Patxi Iturritegi

Orrazkera berriak hagitz ongi ematen zion, baita gona motzak grazia berezia eransten ere bere izter nahi baino **lodixkoagoei**. Aingeru Epaltza

Betaurreko beltz graduatuen artetik, forma gorri **lodixko** batzuk begiztatu ditu, tente eta geldi, bere pauso traketsari so. Aingeru Epaltza

Ez dakizu ttipia naizen ala handia, azkarra ala mendrea, **lodixkoa** ala meharra, sudurra motza dudan ala luzea. Janbattitt Dirassar

---

**lodosar** *izlag/iz* Lodosakoa, Lodosari dagokiona; Lodosako herritarra.

Sabelaldean eta buruan hartu zituen kolpeak **lodosarrak**, istripuaren ondorioz. Berria - Euskal Herria

---

**loeragile** *(orobat **lo-eragile**)* **1** *izond* lo eragiten duena. ik **loarazle**.

Laugarren epaiketa saioa amaitu denean, ni landare **loeragile** baten mende banengo bezalatsu sentitu naiz: leher egina, eroria, akitua. mastodonte bat akatzeko adina pilula **lo-eragile** emanda egin zituen harekikoak. Patxi Zubizarreta

Tigreei gezi **loeragileak** jaurtitzen dizkiete. Gotzon Garate

Bazkalondoko ordu astun eta **loeragile** horietako bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta katuaren sabelak, haizeak airatzen duen orbelaren marmarra bezalakoxea sentiarazten zion, gozo eta **loeragile**. Patxi Zubizarreta

**2** gai loeragilea.

Baina orkideetara sartzen naiz maizenik, nire **loeragile** gogokoenetara. Josu Zabaleta

Nik uste **lo-eragile** txinatarren bat botatzen zutela kamamila hartan ni lo harrarazteko eta amets haiek guztiak izateko. Pello Lizarralde

---

**loeri** *(orobat **loeria**)* **1** *iz* logalea.

Gero, isildu ziren bazterrak eta **loeria** Markoz jabetu. Aurelia Arkotxa

Betazalak apaltzen zaizkizu: **loeriak** eroaten zaitu. Itxaro Borda

Bere grina makurren ukaldi bortitzak besterik ez zuen **loeriatik** erauzten. Patxi Zubizarreta

**2** lo eragiten duen eritasuna.

Eta haren loa hain zen sakona eta lasaia non une batez beldur izan bainintzen **loerian** ez ote zen. Jon Muñoz

**3** irud/hed

Fedeak gaurko giroan, sekulan baino gehiago, sineste baieztatu batetik aintzinago, bizi berritu, oraikotu, lekukotu, bermatu eta sustatzaile indar bat bilakatuz duela bere egitekoa, **loeria** batean kulunkatzerat loakeen mundu baten harrogarri. Herria

Honek inguramen guzia, 14eko gerlaren ondotik, **loeria** gaizto batek hartua zeukala oharturik, gazte zenbaitekin "Aitzina" deitu oldar berria piztu nahi izan zuen. Herria

Salatu du bereziki Baigorri-Garaziko herri elkargoaren nahikaria eskasa eta **loeria**, lurralde horren garapenari doakionez. Herria

---

**loez** *(orobat **lo(-)ez**)* *iz* loezina, lo galdua.

**Lo-ezak** eraginda, flakiak jota, zurrutak nahastua, haren buruak ezin zuen onik egon egoera hartan. Pako Aristi

Gauez, **loezak** uzten zizkidan tarte bakanetan, liburuaz amets egiten nuen. Juan Garzia

Bazeneki zenbat gautan eragin didazun **lo eza**! Patxi Zubizarreta

Gelara jo nuen: bakarrik egotera, bakarrik lo egiten saiatzera, bakardadeari -eta **loezari**, eta hotzari- aurre egitera. Patxi Zubizarreta

Izan ere hark egundo ez baitu arazorik izan lo egiteko (nik dakidala, lapurretarena gertatu, eta ondoko egunetan bakarrik ibili zen **loezak** joa). Patxi Zubizarreta

Zuk esana da **lo eza** gaixotasun larriagoen sintoma ere izaten dela askotan. Berria - Gaiak

Kopetilun eta **loezak** eragiten dituen begi gorrituekin. Patxi Zubizarreta

**Lo-eza**, lo-belarrez. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> loezak joa (4)

---

**loezin** **1** *iz* loa galarazten duen gaitza, lo galdua.

Hala ere, **loezina** duten lagunen %90 ez dira inoiz medikuarengana joaten. Berria - Gaiak

Horrek **loezina** eta estresa ere eragin ditzake. Berria - Gaiak

Bizitzan lehen aldiz, **loezinak** joa nenbilen, eta buru barruan irudi obsesiboak pilatzen zitzaizkidan. Juan Kruz Igerabide

**Loezina** zuen, eta irratia entzuten zuen gauez. Berria - Kultura

Dozena erdi bezero zeuden barran: pare bat etxeratzeko gogorik gabe artean, eta, gainerakoak, bizibeharrak, **loezinak** edo tragu baten premiak ohetik egotziak. Migel Angel Mintegi

Gero, behar baino gehiago lo egiten zuelako edo beste arrazoiren batengatik, **loezina** agertu zen. Jose Morales

Eta **loezinarekin** batera pentsamendu zorrotzak, ziztatzaileak, eta haiekin batera bizia galtzeko beldurra. Jose Morales

Baina gero konturatu nintzen nire filmek balio zutela **loezina** kentzeko eta pentsatu nuen bihotz-bihotzez onar nezakeela saria. Berria - Kultura

Bizitza **loezin** luzea delako. Joseba Sarrionandia

**2** *izond* lo hartzen ez duena.

Kanpoan, goizeko lehenengo argi moreek bonbillaren argia gorriztatzen zuten; begi **loezin** bat zirudien, horrenbestez. Lopez de Arana

---

**loft** *iz* biltegi edo lokal industrial bat egokituz eraturiko etxebizitza edo estudioa.

Etxebizitza bihurturiko fabrikei **loft** deritze hemen. Harkaitz Cano

Espazioa, hala esan du Txuspok, eta hala omen dira **loft**-ak, espazioak, ezen ez gelak. Harkaitz Cano

**Loft** batean baino apartamentu batean bizitzea nahiagoko ez ote lukeen galdetzean zera erantzuten du: [...]. Harkaitz Cano

Bi aste daramatzagu *phoneless* egoeran, **loftean** telefonoa jar diezaguten borrokan. Harkaitz Cano

**Loft** handiago bat hartua zuen negozioen auzoan, eta gela batean egokitu ninduen goiko solairuan, niretzat oso-osoa. Joxan Elosegi

---

**logabe** **1** *iz* loezina, lo galdua.

Harrigarria zen, hala ere, bere **logabean**, zalantzarik ez egitea hautatu beharreko bideaz. Patxi Zubizarreta

Buru argitasuna berreskuratzearekin batera, atzera erasan zioten **logabearen** pentsamenduek, bera baino doi bat lehenago esnatu izan balira bezala. Patxi Zubizarreta

**2** *izond* lo hartzen ez duena.

Eroen ilargi espermazkoari begira eta kilkerren letania **logabea** entzuten gau luzean zehar. Joseba Sarrionandia

---

## logabetasun *iz* loezina, lo galdua.

**Logabetasuna**, botagura eta sabelminak dira betekadaren ondorenak. Elizen arteko biblia

---

## logabezia *iz* loezina.

Eguraldiaren aldaketa bat-bateko eta guztizkoak halako trastornoak sor ditzake, Ismael, batik bat umetxoengan: bihotzekoak, umore aldaketak, **logabezia**, depresioak, bat-bateko heriotzak. Karlos Linazasoro

---

## logaitz *pred* loezina, lo galdua.

Lau miliar ardi baino gehiago kontatu ditut barda bilkuratik landa, **logaitz** nintzela, Testamentu Zaharreko, Itun Berriko, Apostoluen Aktetako eta Jondone Joanesen Apokalipsiko orrialdeen lur hutsetan. Itxaro Borda

---

logaldu ik **lo 17**.

---

## logale 1 *iz* lo egiteko gogoa. ik **logura**.

Erditze zoriontsuaren ondorengo **logalea**. Karlos Zabala

Loak hartuko naik halere, zertarako **logaleari** eutsi, zer inporta du? Fernando Rey

Begiak itxi egiten zitzaizkidan, **logaleak** erreak. Fernando Rey

**Logaleak** erreta neuzkan begiak. Fernando Rey

Nekeak eta **logaleak** jota, erdi lotan zegoen. Rafa Egiguren

**Logaleak** jotako begi horiek bero dardartiari so zegiten. Lopez de Arana

Hamidak, **logaleak** gorritutako begiak zabaldurik, sabai zuri dirdaitsua bistatu zuen. Patxi Zubizarreta

Sutondoaren epelak **logalea** eman zion, eta lokartzen ari zelarik sentitu zuen Maitearen ukitua. Anton Garikano

Gelan zegoen usain biziko keak **logalea** eman zion Harryri, eta lelotuta bezala utzi zuen. Iñaki Mendiguren

Zirrara zahar bat berpizturik, kolpetik joan zaio **logalea** Sarako erretoreari. Aingeru Epaltza

Oso lastaira ona da **logalea** nekearentzat. Juan Garzia

**2** ***logale izan*** da *ad*

-Eta zergatik lokartuko naiz, ez nauk-eta **logale**? Juan Garzia

Lasai nago eta oso **logale** naiz. Juan Garzia

**Logale** naiz oso, hain lo behar handia dut-eta. Monika Etxebarria

-Ez naiz **logale**, baina honetarat geroz, logela nolakoa duzun ikusi nahi. Janbattitt Dirassar

Alkoholak batzuetan ematen duen argitasunaren jabe, ez nintzen batere **logale**. Aingeru Epaltza

Afalostean, bapo berdinduta, **logale** ziren guztiak. Iñaki Mendiguren

**3** (aditza ezabaturik)

Narras, **logale** eta ohetik jaiki berria aurkitu zuten etxeko nagusia. Jose Morales

"Oraintxe bertan!", esan zuten haiek, eta halaxe, zeuden bezala, erdi mozkorturik, bizarra kendu gabe eta **logale**, telega batera igo eta alemaniarraren etxera joan ziren... Jose Morales

**4** ***logaleak egon***

Eta horrela joan zen gau hura, horrela joan zen hurrengoa, eta, hirugarrenean ere, nekatua eta **logaleak zegoela** esan, eta ohera joan zen bakar-bakarrik. Karlos Zabala

Baina lo luzaz eginda ere, eta losustak gero eta maizago eta luzeago eginagatik, beti ere **logaleak egoten** nintzen. Txillardegi

Bihotz samurra gestapoek ere, **logaleak daudenean**. Fernando Rey

Nik uste **logaleak gaudenean** hobeki ulertzen diogula geure buruari. **-Logaleak** al hago? - galdetu dizu zaindari batek. Fernando Rey

Begiak txukatu ditut **logaleak nagoelakoa** eginez. Koldo Izagirre

· Ni **logaleak** erretzen **nengoen**, ez nuen batere lorik egin bidaia osoan. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ez naiz logale** (3); **logale naiz** (4)
> **logaleak jota** (4)

---

## logaletsu 1 *izond* logaleak dagoena.

Tiro egiten ez zekiten udaltzain **logaletsu** eta baldar haiekin. Jose Morales

Batera eta bestera ibiltzen zen ziegan barrena, zaratarik atera gabe, isil-gordeka, **begi** logaletsuekin bazter guztiak arakatuz, eta horrela igarotzen zuen gau osoa. Jose Morales

Begiak itzaliak eta **logaletsuak** zituen, botila-kolore zikinekoak. Jose Morales

**2** (adizlagun gisa)

-Ni hilko nau horrek -esan zuen, bere begi beiratsuekin nagusiari **logaletsu** begiratuz. Jose Morales

Epaiketan, betiko itxurarekin azaldu zen: txiki, makal, oreztaz beterik, begitxoak beiratsu eta **logaletsu**. Jose Morales

---

## logaletu, logale(tu), logaletzen 1 da/du *ad* logaleak hartu.

Azkenean, nekatu eta **logaletu** ziren haurrak. Irene Aldasoro

Berehala **logaletu** zen, agian lo egiteko edaten ohituta zegoelako, eta ez lotarako pilulak hartzen. Ibon Uribarri

**Logaletzen** ari zen. Ibon Uribarri

Gauaren arnasa hotzak urrumaturik, **logaletu** egiten zara. Jose Morales

Aurrera egin genuen arratsaldeko eguzkiaren azpian, egarritzen **eta** logaletzen hasita, baina urratsa moteldu gabe. Koro Navarro

Zurrun eta **logaleturik** zegoen. Lopez de Arana

**2** (era burutua izenondo gisa)

Gaztetxo **logaletu** bat zegoen zaintzaile. Josu Zabaleta

Atzean utzi ditu hotza, euria, lokatza, posta-geltokietako arduradun **logaletuak**. Jose Morales

Emakumearen ahots **logaletuan**, haren keinu nagian, ez zen bozkario arrastorik, ezta ustekaberik ere. Aingeru Epaltza

Eguzki berriak setiatzaileen begi **logaletuak** itsutu zituen. Aingeru Epaltza

Erdi lo, noizean behin soilik eragiten zien uhalei, zaldi orobat **logaletuen** saihetsak leunki joz. Jose Morales

Bazkalondoko eguzkiak zehatzen zuen karrika **logaletura**. Aingeru Epaltza

Dantzan zebiltzan, beso ikusezinen muturretatik zintzilik, jauzika, eguna noiz argituko zain zeuden jende eta barazki pila **logaletuen** gainetik. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **begi logaletuak** (3)

---

# logaritmiko *izond* logaritmoarena, logaritmoari dagokiona. ik **logaritmo 2**.

Dezibela oharmen unitate **logaritmikoa** da, intentsitate biren erlazioa neurtuz, hotsaren ozentasuna neurtzen duena. Lourdes Oñederra

**Logaritmikoa** da dezibel-eskala, hau da, 10 dB-ko aldaketari ozentasun hamar aldiz handiagoa dagokio; 20 dB-koari ehun aldiz handiagoa; 30 dB-koari mila aldiz handiagoa, eta abar. Irene Aldasoro

---

# logaritmo 1 *iz zenbaki baten logaritmoa:* zenbaki hori lortzeko, oinarri deitzen den zenbaki bati ezarri behar zaion berretzailea.

Edozein zenbakiren **logaritmoa** eman zezakeen Bidderrek zazpigarren edo zortzigarren zifraraino. Xabier Olarra

Eta lastertasun berean egingo dizu kalkulu infinitesimal bat, **logaritmoak** aurkituz, guk emaitza irakurtzeko beharko genukeen baino arinago. Joxe Austin Arrieta

Matematikagileek ere, hainbat eragiketatan -**logaritmoen** kalkuluan, esaterako- kopuru infinitesimalak baztertzen dituzten bezala. Isabel Arrigain

Azkenik, jada nire burua aski trebatua ikusten nuenean, berreketak, **logaritmo** sinpleak eta poligono zenbaiten azalera kalkulatzeari ekiten nion. Josetxo Azkona

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **logaritmiko**.

Nire aita "l'Ingegné" zen ("ingeniaria"), poltsikoak beti liburuz hanturik zeramatzana eta urdaiazpikoaren biderkaketaren kontua **logaritmo**-erregelarekin ateratzen zuelako urdai-saltzaile guztiek ezaguna. Juan Garzia

---

# logarri *iz* gai loeragilea.

Askotan okela puska bat ematen diete, **logarriz** betea. Gotzon Garate

---

# logela *(orobat **lo-gela** g.er.) iz* lo egiteko prestatua dagoen gela.

Hiru solairuko etxe zuri bat da; hamasei **logela** ditu, eta, etxe aurrean, portxe estali bat. Oskar Arana

Bigarren solairuan, berriz, **logelak**. Josetxo Azkona

Aspaldi bi gela izan ziren han: **logela** eta jantzitokia. Xabier Olarra

Dursleytarren etxeak lau **logela** zituen. Iñaki Mendiguren

Hiru **logelako** apartamentu bat erosteko. Oskar Arana

Ganbaran, mutur batean, morroien **logela** zegoen. Joan Mari Irigoien

Sukaldea, egongela, **logela**... ohe zabalaren ondoan, mahaitxo bat. Larryren argazkia zeukan **logelan**, ohearen ondoan. Anjel Lertxundi

Hotel batean erreserbatu dut **logela**. Oskar Arana

Treinen geltokirat buruz abiatu nintzen, han nonbait **logela** bat segurtatu behar nuela. Janbattitt Dirassar

Davidek **logela** hartan giltzapetu ninduenean Maryk aita bere **logelan** sartzen entzun zuen. Oskar Arana

**Logela** bat bilatuko dut hirian. Oskar Arana

Han bi ohekiko **logela** bat alokatu baitzuten. Elena Touyarou

Usain atsegineko **logela** leunki argiztatura. Oskar Arana

Harry **logela** ilunera joan zen lasterka. Iñaki Mendiguren

Parisko auzo latindarreko etxebizitzako bere **logela** itogarrian. Alberto Ladron Arana

**Logelako** atearen kirrinka entzun nuen. Inazio Mujika Iraola

Intxaurrondotik Goiok Etxeberritxoko **logela** leihoa bertatik bertara zuen eta, gelako argia piztu zelarik, pare parean ikusi zuen [...] Joakina soinekoa eranzten. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aretoak eta logela** (4); **etxeko logela** (3); **gonbidatuen logela** (3); **haur logela** (3); **logela batean sartu** (3); **logela erakutsi** (3); **logela ilun zegoen** (3); **logela iluna** (3); **logela multimediak** (5); **logela txiki** (5)
>
> **logelako argia** (3); **logelako atea** (32); **logelako atea ireki** (6); **logelako atea zabaldu** (3); **logelako atean** (11); **logelako atera** (6); **logelako atetik** (3); **logelako horma** (3); **logelako horman** (3); **logelako leihoa** (5); **logelako leihoak** (4); **logelako leihora** (4); **logelako leihotik** (7); **logelako ohea** (3); **logelako ohean** (3)
>
> **anaren logelan** (3); **bere logelan sartu** (4); **etxeko logelan** (5); **hoteleko logelan** (4); **logelan bertan** (4); **logelan egon** (6); **logelan egongo** (4); **logelan ezkutatu** (3); **logelan geratu** (4); **logelan lo** (5); **logelan sartu** (48); **logelan sartu zen** (9); **logelan sartzen** (5); **logelan utzi** (3); **ondoko logelan** (4); **sartu zen logelan** (3); **umeen logelan** (3)
>
> **amaren logelara** (3); **bere logelara eraman** (3); **bere logelara joan** (6); **logelara abiatu** (12); **logelara abiatu da** (7); **logelara eraman** (13); **logelara eramaten** (5); **logelara erretiratu** (3); **logelara hurbildu** (5); **logelara igo** (11); **logelara igotzen** (3); **logelara itzuli** (12); **logelara itzultzen** (3); **logelara jo** (3); **logelara joan** (45); **logelara joan zen** (15); **logelara joateko** (4); **logelara joaten** (4); **logelara sartu** (23); **logelara sartzen** (3); **nesken logelara** (3); **osabaren logelara** (3); sartu zen logelara(4)
>
> **irten zen logelatik** (4); **logelatik atera** (6); **logelatik irten** (9); **logelatik irten zen** (4); **logelatik salara** (3)
>
> **logeletan sartzen** (3)

---

# logelakide *iz* logela berean lo egiten duena.

Haien kinka larriak gogora ekartzen zuen ustekabean esnarazitako ikaslearen egoera estua: **logelakideek**, bera baino lehenago jaiki baitira, itzalgaizka sartu diote sudurrean husar bat -tabakoz beteriko paper-tututxo bat alegia-, eta lo dagoen ikaslea, loaldiko arnasgora sakonetan tabako guztia sudurretik irentsita, bat-batean esnatu eta jauzi batez altxatzen da ohetik. Jose Morales

---

# logelari *iz* logelaz arduratzen dena.

Honela osatzen da: **Logelaria**, Ohelaria eta Otordularia. Xabier Olarra

---

**logelatxo** *iz* logela txikia.

Joan zen bere **logelatxora** eta, hurrengo eguna meza-eguna zela oroiturik, zazpietatik seietara aldatu zuen iratzargailuaren orratza. Irene Aldasoro

---

**logia** *iz* masoien elkartea.

Juan Jose Oyarzun Txileko **Logia** Nagusiko idazkaria da. Berria - Gaiak

Nazioarteko **Logia** masoien elkartea. Berria - Gaiak

Dirua framazonen **logia** bati ordaintzeko erabili zuten, besteak beste. Berria - Mundua

Erdi Aroan, jendeak **logietako** anaitasun eta askatasun giroa zuen helburu guregana hurbildu zenean. Berria - Gaiak

Lehendik **logia** batean dagoen masoi baten bidez soilik sar daiteke norbait **logia** batean. Berria - Gaiak

Egunero iristen zaizkit gure **logian** sartu nahi dutenen eskaerak. Berria - Gaiak

**Logia** nagusi bakoitzak badu konstituzio bat. Berria - Gaiak

Mundua menderatzea helburu duen **logia** baten bilera ezkutura. Iban Zaldua

---

**logika** *(orobat **lojika** g.er.)* **1** *iz* argudiatzeko era; batez ere, argudiatzeko era zuzena, ideien kateatze taxuzkoa.

Eta **logikarik** ez duten kontuak ez dituk logikoki gertatzen. Joan Mari Irigoien

Honek totalitarismoaren **logika** nagusiarazten du demokraziaren izenean. Joseba Zulaika

Globalizazioa modu horren **logika** hauxe baino ez da: apartheida mundu osoan antolatzea. Iñaki Heras

Desiraren **logika** honekin egituratu ditugu euskaldunok gure jatorrizko kulturaren eduki asko. Joseba Zulaika

Denboraren markak galduta eta **logikaren** arauak apurtuta. Unai Elorriaga

**Logikak** agintzen duena esaten hasi beharko nuke: lotsa sentitu nuela, edo nazka, edo hutsune sekulakoa nire barrenean. Anjel Lertxundi

**Logika** berari jarraituz, lau mila ken lau berdin mila, eta bederatzi ken bi berdin ederatz. Iñaki Arranz

Handik goiti, gauak, aitzina egin ahalean, bere **logika** ezarri zigun, elkarrenganako distantzia laburtuz hizketagaiak intimotasunera lerratu bezala. Aingeru Epaltza

**2** (izenondoekin)

**Logika** perbertso honen arabera, maitasunaren exijentzia traizioa zen. Joseba Zulaika

Orduan **logika** garbiak harrapatzen gaitu azpian, eta **logika** garbiaren arabera, zuria ez dena beltza da. Iñaki Segurola

Txikienaren mailan, zioen Bohrrek, ezin zen geure **logika** arrunta aplikatu. Fernando Morillo

Betor zentzu komunaren politika eta bertsolariaren **logika** hautsia. Joseba Zulaika

**3** (hitz elkartuetan)

Hizkuntza bat ikasten ari zarenean faltan bilatzen duzu sinplifikazio gehiago, **logika** piska bat. Harkaitz Cano

Giza **logikaren**, bere burua handitu eta bere boterea ezarri nahi duen bekatuzko giza **logikaren** kontrakoa. Askoren artean

**4** egiaren arauen azterketa, bereziki azterketa formala, gaitzat duen zientzia; giza ezagutzaren oinarri formalak aztertzen dituen zientzia.

Aristotelesen **logikak** pentsamendu finituaren logika dirudi. Askoren artean

Proposizioen **logika** eta **logika** elementalaren funtsezko tresnak. Askoren artean

Funtzio-sinbolorik ez badago, **logika** honi predikatuen **logika** ere esaten zaio. Askoren artean

**Logika** formala zertan datzan. Askoren artean

**Logika** bat izateko lehenengo elementua hizkuntza formala da. Askoren artean

Halako zientziak ***Logika*** *transzendentala* izena beharko luke. Ibon Uribarri

Gottlob Frege, Bertrand Russell, Alfred N. Whitehead eta Ludwig Wittgenstein-en **logika** sinboliko sortu berria, **logika** matematikoa. Askoren artean

**Logika**, adibidez, hizkuntza irekia da, onartzen baitu hizkuntza metalogikoa. Askoren artean

**Logika** bat izateko lehenengo elementua hizkuntza formala da. Askoren artean

**Logika**, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutua. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**desiraren logika** (3); **egiaren logika** (3); **itxuraren logika** (6); **logika aplikatua** (3); **logika berezia** (3); **logika berri** (3); **logika elementala** (3); **logika eta zientziaren** (4); **logika ezarri** (3); **logika formal** (3); **logika formala** (3); **logika garbiak** (3); **logika guztien arabera** (3); **logika hutsa** (5); **logika hutsez** (4); **logika klasikoaren** (3); **logika orokor** (3); **logika orokorra** (6); **logika orokorrak** (12); **logika orokorraren** (3); **logika transzendental** (4); **logika transzendentala** (6); **logika transzendentalak** (4); **logika transzendentalaren** (9); **proposizioen logika** (5)

**logikak agintzen** (3)

**aristotelesen logikako** (3)

**proposizioen logikan** (6)

**logikaren aldetik** (3); **logikaren arabera** (10); **logikaren barruan** (5); **logikaren historian** (3); **logikaren ikuspegitik** (4); **logikaren ikuspuntutik** (3); **proposizioen logikaren** (3)

**batere logikarik** (3); **inolako logikarik** (5); **logikarik gabe** (4); **logikarik gabeko** (4)

**logikatik kanpo** (6)

---

**logikadun** *izlag* logika duena.

Lotura bakarra musika duten irudi guztiz heteroklitoen videoclip baten gisa oroitzen dut orain itsaslabarrean beherako erorialdia, elementu guztien **logikadun** sekuentzia baten moduan baino. Anjel Lertxundi

---

**logikagabekeria** *iz* logikarik eza, gaitzesgarritzat markatua.

Luzeegia litzateke idazkeraren **logikagabekeriak** sailkatzea. Isabel Arrigain

---

logikalari ik **logikari**.

---

**logikari** *(orobat **logikalari** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **logikari** agertzen da)* *iz* logikan adituena den pertsona.

Matematikaria, naturalista, **logikaria**, arrazoimenaren artistak besterik ez dira. Ibon Uribarri

Metodo axiomatikoaren defendatzaile sutsua Hilbert **logikaria** izan zen. Askoren artean

XV. mende ingurura arte, Aristotelesen logikaren inguruan murgilduko ziren historiako **logikari** gehienak. Askoren artean

Boole-ren aitzindaritzat har genezakeen **logikaria**. Askoren artean

Gauza jakina denez, **logikariek** diote "urrezko mendia Kalifornian dago" moduko proposizio bat ezin dela egiaztatu erreferenterik ez duelako. Xabier Arregi

---

**logikazale** *izond* logikaren zalea dena.

Lisa, bere ongi izateko premia ase nahian, ez zen Macquartar artatsu, zentzudun, **logikazale** bat baizik, zorion epelean lo egiteko modurik onena pozezko ohea norberak egitea dela ulertu zuena. Karlos Zabala

---

**logiko** *(orobat **lojiko** g.er.)* **1** *izond* logikaren arauen araberakoa; logikaren edo argudiatzeko era zuzenaren araberakoa.

Egoeren eta gertakizunen hari **logikoari** segitu beharrean, buru-hankarik gabeko kaos batek gidatzen omen du nire diskurtsoa. Anjel Lertxundi

Esaldien ordena **logikoa** eta argitasuna zaindu. Askoren artean

Zer sentitzen du aita batek, ama batek, bizitzaren ordena **logikoa** bestelakotu egin dela ikustean, semea hil eta beraiek bizirik daudela ikustean? Jon Muñoz

Jende **logikoa** da hori; baina oso logika sinplekoa. Fernando Morillo

Eta hortik ondorio jakin bezain **logikora** iristen ziren. Felipe Juaristi

Psikologia kolektiboak [...] ez du materia **logiko** huts-hutsaren gainean operatzen. Isabel Arrigain

Normala eta **logikoa** iruditzen zitzaien denei hark egiten zuena egitea. Eskaintzen diren iradokizun asko "sen oneko iradokizunak" dira, edozein pertsonak normaltzat edo **logikotzat** joko lituzkeenak. Josu Zabaleta

Hain **logikoa**, hain berezkoa da gizonarengan oinazeari, gaixotasunari, tristeziari ihes egitea! Josu Zabaleta

**Logikoa** baino ez da, hortaz, liberalismo arrotza espainolen artean ez errotu izatea. Joxe Azurmendi

Zaldi bakarreko zalgurdi hura hain zegoen modu **logikoan** egina, ezen, ehun urte ibili eta gero, batera hondatu baitzitzaizkion pieza guztiak. Irene Aldasoro

**2** logika formalaren arauen eta legeen araberakoa.

Estoikoen teoria **logikoak**. Askoren artean

*Kategoriak* Aristotelesen testu **logikoen** artean kokatzen da. Askoren artean

XVI. mendean agertu ziren lehenbiziko aldiz Aristotelesen aurkako jarrera **logiko** eta filosofikoak. Askoren artean

Jainko hau printzipio **logiko** eta metafisiko bat da, munduaren azalpen razionalerako ezinbestekoa. Askoren artean

Egia **logikoa** oinarri **logikoen** arabera egiazkoa den proposizio abstraktua, orokorra, da. Askoren artean

Psikologian, adibidez, konduktismoak bat egiten du, oro har, Positibista **Logikoen** programarekin. Askoren artean

Enpirista **logiko** gehienek Estatu Batuetan aurkitu zuten babesa. Askoren artean

Hortaz, indukzioaren arazoa, indukzioa razionalki sendoa - **logikoa**, *cogent*- ez izatea da. Askoren artean

Beharrezko baldintza **logikoa** da halako adigaietan kontraesanik ez dela egon behar. Ibon Uribarri

Arrazoimenaren erabilera **logikoaz**. Ibon Uribarri

**3** *iz* logikaria.

Aristotelesengandik hona izandako **logikorik** handiena. Fernando Morillo

Kurt Gödel matematikari eta **logikoa**, beldurrak hartua. Fernando Morillo

**4** ***ez-logiko*** *izond*

Konstante logikoen esanahia behin betiko finkatuta dago logika bakoitzarentzat; konstante **ez-logikoek**, aldiz, interpretazio desberdinak onartzen dituzte interpretazio-eremuaren arabera. Askoren artean

Konstante **ez-logikoen** multzoa. Askoren artean

Sinbolo **ez-logikoen** interpretazioa. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> erabilera logiko (3); esanahi logiko (3); forma logiko (8); funtzio logiko (5); logiko hau (4); logiko soila (10); printzipio logiko (3)
>
> ahalgarritasun logikoa (4); analisi logikoa (4); azalpen logikoa (4); batasun logikoa (3); bere forma logikoa (3); egia logikoa (5); erabat logikoa (5); forma logikoa (12); gauza logikoa (4); guztiz logikoa (5); logikoa den bezala (6); logikoa denez (10); logikoa dirudi (6); logikoa ematen (4); logikoa iruditzen (5); logikoa izan (13); logikoa izan zen (9); logikoa izango (6); logikoa zenez (3); ondorio logikoa (11); ordena logikoa (3); oso logikoa (10); positibismo logikoa (4); printzipio logikoa (3)
>
> funtzio logikoak (4); logikoak izan (3); printzipio logikoak (4)
>
> forma logikoaren (5)
>
> konstante ez logikoen (3)
>
> arrazoi logikorik (3)
>
> logikotzat jo (7)

---

**logikoki** **1** *adlag* era logikoan; logikaren aldetik.

Eta logikarik ez duten kontuak ez dituk **logikoki** gertatzen, kasualitatez ez bada... Joan Mari Irigoien

**Logikoki**, pentsa daiteke 13:15 baino lehen eman ziola bihotzekoak. Berak ez dauka eta ez du eduki nahi zure identitatea; **logikoki** zuk ezin duzu bera zure identitate berekotzat eduki. Joxe Azurmendi

Nola ezkondu **logikoki**, esate baterako, aukeramenaren doktrina eta patuarena, edo historiak noranzko bat duelakoa? Juan Garzia

Adigaiak **logikoki** aldera daitezke beren objektuen egokitzapenaz arduratu gabe. Ibon Uribarri

**2** (adizlagun baten ezkerrean)

Egiazko izen propioak, hots, izen **logikoki** propioak, denotatu egiten du soilik. Askoren artean

Usteek **logikoki** kontsistenteak izan behar dute [...]: elkarrekiko kontsistenteak ez direnak -hots, inongo mundu posiblean aldi berean egiazkoak ezin direnak izan- ez daude elkarrekin ados. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> logikoki baliozkoa dela (3)

---

**logistika** **1** *iz* zerbitzu edo jarduera baten baten antolaketa zuzenak behar dituen bitarteko guztien multzoa.

Txapelketetako saioen **logistika**, esaterako, ona edo biziki ona izan ohi da. Berria - Kultura

Ekintza hau inoren laguntzarik gabe burutu diat, ez zagok **logistikarik** kanpoan. Koldo Izagirre

Denak ikaratuko zarete apur bat **logistika** militar horrekin. Joseba Sarrionandia

Biharamunean, taldeko guztiek alde egin eta gero, **logistikako** gorabeherak azaldu zizkigun don Tirsok. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **logistiko**.

Ekuazioan sartu eta irtenbidea aurkitu beharreko intendentzia eta **logistika** -arazoak oso latzak direla. Jon Alonso

Araia herrian **logistika** gunea eraikitzeko 17 milioi euro bideratu ditu. Berria - Ekonomia

**Logistika** enpresa bati esker. Berria - Mundua

Bilboko portuko **logistika** zentroan. Berria - Ekonomia

Atxilotuei **logistika** egiturako kide izatea leporatzen diete.

ETAren **logistika** sarearen aurka eginiko polizi operazioan. Berria - Euskal Herria

ETAren **logistika** aparatuko kide izatea eta kide berriak bilatzea leporatzen dio Poliziak Totorikari. Berria - Euskal Herria

Dena den, proiektu berria gauzatu eta **logistika** kontuak hobeto antolatzeko lankide prestuak beharko nituzke. Jon Arretxe

Hamaseietarik zortzi hoberenak hautatuko zituen Patxi ATEko **logistika** arduradunak. Itxaro Borda

Israelgo Armadako **Logistika** saileko buru Eran Ofir koronelak. Berria - Mundua

Euskadi-Akitania **Logistika** Plataformak sustatzen dituen egitasmoen artean. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **etako logistika** (5); **etako logistika egiturako** (4); **etaren logistika** (8); **etaren logistika arloko** (3); **logistika aparatuko** (3); **logistika arazoak** (3); **logistika arloko** (4); **logistika egiturako** (6); **logistika egiturako kide** (3)
> **garraio eta logistikaren** (4)

---

# **logistiko** *izond* logistikarena, logistikari dagokiona. ik **logistika 2**.

Noski, arazo **logistikoek** ere kezkatzen ninduten. Ramon Saizarbitoria

Horrexek izorratzen gaitik gu, intendentzia arazoek, arazo **logistikoek**. Iñaki Iñurrieta

Geu ginen Borgesen azpiegitura, laguntza **logistikoa** eta militantzia. Jon Alonso

Enpresen berriztatzeko ahalmena, izan ere, ingurune **logistikoaren** guztiz mendeko da. Koro Navarro

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru anbulatoriotan eskainiko dira plan horren euskarri **logistikoak**. Berria - Euskal Herria

Herrialde jakin batean zer ekoitzi, delako herrialdearen abantailen eta baldintza **logistikoen** arabera erabakitzen da. Koro Navarro

Akitania-Euskadi Plataforma **Logistikoa** sortu zuten atzo Barakaldon. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **laguntza logistikoa** (7)

---

# **logistikoki** *adlag* logistikaren aldetik.

Ez, ni ez naiz katarra, esan zuen, une honetan, erabaki taktiko diskutigarri baino erreal baten ondorioz **logistikoki** laguntzen ari banatzaie ere. Jon Alonso

---

# **logo** *iz* logotipoa.

Tipografia eta kolore bertsuko **logoak** sortuko ditu Eroskik, bezeroek errazago lotzeko negozio batzuk eta besteak. Jesarri eta egunkaria atera nuen gabardinaren poltsikotik: *Los Angeles Gazette*-ren betiko **logo** eta hizkiek diosal egin zidaten paper grisetik. Iban Zaldua

Gurean "Nik ez" **logoa** aipatu auziaren gaineko salaketa ikur bilakatu da askoren paparrean. Iñaki Heras

Estasiaren kolore, itxura eta **logo** (marrazo bat) berbera du pilulak. Berria - Gaiak

Barandiaranen lana islatzen du, halaber, museoaren irudi izango den Nestor Basterretxeak egindako **logoak** ere: *Katea ez da eten,* dio ikurrak. Berria - Harian

Alemania gorri eta komunista haren ikur, **logo** eta sinboloak. Berria - Kultura

*Nike* **logoa** *la police* hitzari loturik iraina ote? Herria

Herri Urrats 2004-ri buruz, **logo** lehiaketa bat antolatua da oraidanik. Herria

---

# **logokeria** *iz*

Ez dut "gizaki", "ugaztun adimendun" eta antzeko bihurrikeria jakintietan katigatu nahi, ez diot **"logokeria"** lasaigarriaren dialekto tranpazkoari (noiz-nola, komenentziazko haizearekin batera dabilenari) amore emango, aditu? Iñaki Segurola

---

# **logomakia** *iz* hitzei, eta ez esaten denari, dagokion eztabaida.

Badirudi senez-edo zalantza metodikoa aukeratua duela, mesfidantza orokorra Fakultatean eskaintzen dizkioten autore, teoria, eskola, joeren aurrean, **logomakia** infinituetan galtzeko bidea ikusten du han. Iñaki Iñurrieta

---

# **logopeda** *iz* logopedian aditua den pertsona.

Errehabilitazioa egin beharko dudala **logopeda** baten laguntzarekin. Hasier Etxeberria

Gainera, ikastetxez ikastetxe mugitzen diren langileen sarea dago, **logopedek**, zaintzaileek, fisioterapeutek osatua. Berria - Harian

Umeen jolaserako erabili ohi dira, eta ahoskera lantzeko material gisa ere erabili ohi dituzte irakasleek nahiz **logopedek**. Iñaki Arranz

New Yorkeko Unibertsitatean ikasia da Helena **Bascuñana** logopeda, garunean kalteak dituzten pertsonen errehabilitazioan aditua. Berria - Gaiak

---

# **logopedia** *iz* ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren nahasmenduen azterketa eta zuzenketa.

Fisioterapia eta **logopedia**, kasu. Berria - Gaiak

---

# **logos** 1 *iz* hitzaren bidez adierazten den gogamena; mundua antolatzen duen arrazoi unibertsala.

Gauza guztiak **Logos** horren arabera gertatzen dira. Askoren artean

Badakigu **logos** -aren jabe izateak bereizten duela gizakia gainerako animaliengandik. Piarres Xarriton

Zuzenbide kosmikoa eta politikoa, eta moraltasun indibiduala, lotu-lotuta daude: ordena edo **logos** bat bera da zeru-lurretako ordena, Inperiokoa eta norbere baitakoa. Joxe Azurmendi

Ezagutzaren misterioa, batetik; munduaren arrazionaltasunaren misterioa, **logosa** bestetik, "dena berak eta bere baitan sortua izan zen", Jainkoa "Arrazoimen-Hitza, **logosa**, Jainkoa eta Semea, Jesukristo. Felipe Juaristi

Hitza, arnasa bezala baino areago, kreazioarekin batera doan **logos** bezala ulertzen dut, Jainkoaren berba. Ana Urkiza

Grafiari esker, **logosa** iraunkor bilakaraz daiteke *(scripta manent)* ondoko gizaldiek jaso dezaten. Ana Urkiza

**2** (izenondoekin)

Hitzaren **logos** aldakorretik baino areago, matematikaren **logos** aldaezinetik sortu zian mundua... Joan Mari Irigoien

---

# logoterapeuta *iz* logoterapian espezialista den pertsona.

Nola edo hala, eskolak eta **logoterapeutak** halako batean lortu zuten Templeren baitan sartzea; erreskatatu leizetik (hala sentitzen zuen berak gero), eta abiarazi zuten bere salbamenduan, astiro bederen. Xabier Olarra

---

# logoterapia *iz* neurosien tratamendu psikoterapeutiko, V. E. Frankl-ek landu zuena.

Hiru urte zituenean, nahiz eta ez zuen esperantza handirik Templeren etorkizunaz, badaezpada ere, haur trastornatu eta ezinduentzako zaindegi-eskola berezi batera bidali zuen familiak, eta **logoterapia** saiatzeko proposamena egin. Xabier Olarra

---

# logotipo *iz* enpresa, erakunde edo merkataritza marka baten ezaugarri den sinboloa grafikoa. ik**logo**.

Bera bezain tantaia zen, garaiera eta itxura bertsukoa, eta Nikeren **logotipoa** nabarmentzen zitzaion elastikoaren aurrealdean. Josetxo Azkona

**Logotipoak** sinboloa eta izena uztartzen ditu. Berria - Kultura

"Bietan jarrai" **logotipoaren** azpian. Xabier Mendiguren Elizegi

**Logotipoaren** azpian, berriz, testu labur bat zegoen, ingelesez erabat idatzia. Josetxo Azkona

Bilboko Euskalduna Jauregian aurkeztu zituzten atzo iluntzean, anagrama eta **logotipo** berriak. Berria - Euskal Herria

Ekimen iraunkorra izateko helburuz jaio da, izen propioa eta **logotipoa** ere izango duena. Berria - Euskal Herria

---

# logozentriko *izond* logozentrizmoarena, logozentrismoari dagokiona, ardatz gisa logosa duena.

Definizio etiko-zentriko eta **logozentriko** horiek onartzen dituenak beste definizio batzuk uzten ditu bazterrean. Askoren artean

Eleatarren artean, berriz, ideia **logozentriko** horiek errepikatu egingo dira. Askoren artean

Oraintsuago Marie-Claire Ropars-ek eredu "**logozentrikoaren**" kritika gogorra jarraitu du egiten, film analisi sail batean "idazketa" prozesuak (Derridaren zentzuan) agerian jartzen ahaleginduz. Josu Zabaleta

---

# logozentrismo *iz* zernahi testu edo diskurtsoren ardatzean logosa jartzeko pentsamentu joera.

Derridak Mendebaldeko zientzia eta metafisikaren bazterrak astindu ditu eta ohiko **logozentrismoaren** ontologiaren subjektuaren (eta objektuaren) eraikuntza deseraiki, hizkuntza eta testuen zirrikituak aldenduz, lurrikara bilakatu arte. Askoren artean

---

# logune *iz* lokia.

Haraino hurbilduta, telefono baten irudia marraztu nuen airean, eskua **logune** aldera. Aingeru Epaltza

Bezero batek jaso egin zuen telefonoa eta ebasle batek tiro bat tira zion **logune-loguneetan**. Gotzon Garate

---

# logura **1** *iz* logalea.

Une horretan, baina, **logura** ezti bat etorri zitzaidan, akiturik nengoen-eta lemari atsedenik gabe eusteaz. Juan Kruz Igerabide

Oharkabean, nekeak bere mende hartu ninduen, eta **loguraren** bakea ekarri begietara. Edorta Jimenez

**Logura** sartzen ari zitzaionean, azken itxaropena izan zitekeena bururatu zitzaion eta bat-batean tentetu egin zen. Iñaki Mendiguren

Ateneak **logura** bidali zion begietara, eta betazalak itxi zizkion. Juan Kruz Igerabide

Nire **logurak** eragindako irudipen hutsa izango zen. Anjel Lertxundi

Kokainak ematen duen bizitasuna eta alkoholak eragindako **logura** leuna. Sonia Gonzalez

**-Logurak** jota nago. Agustin Otsoa

Baina horrek ez die **logura** kentzen. Berria - Kirola

**Logura** ere joan zaizu. Lourdes Oñederra

Aberastasunaren kezkak **logura** uxatzen du, eta azkenean osasuna hondatzen. Elizen arteko biblia

**Logurak** baditu bere legeak, grabitateak bezala, eta luze gabe bere menpera ekarriko ditu egoskorrenak ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Pertsona **logura** antxean, gose antxean eta diru-falta antxean ibiltzen dela ondoena. Iñaki Segurola

-Neure lagunek eta **logurak** galdu naute -erantzun nion-. Juan Kruz Igerabide

**Logura**, lo-nahia, loak har zaitzala, har zaitzala besoetan. Lourdes Oñederra

**2** *adlag* logaez.

Hor daude etzanda, ametsetan, beti **logura**. Elizen arteko biblia

**Logura**, eta etzateko irrikan. Txillardegi

**3** ***logura izan*** da *ad*

**-Logura** nauk, segi zuek. Orain ez naiz **logura**. Fernando Morillo

Harry, ordea, ez zen oso **logura**. Iñaki Mendiguren

-Ez zara **logura**, ala? - erantzun zion pisukideak, zakar samar. Jon Arretxe

**Logura** ziren, eta hori oso arriskutsua zen, lokartzen ziren une berean erortzen hasten baitziren. Julen Gabiria

**4** ***logurak egon***

Horiek, haurrek alegia, **logurak** egoteko joera izaten zuten beranduko jatorduetan. Eskarne Mujika

Marrazkiak egin, hara hona begiratu... **logurak** zaude, gainera. Jokin Muñoz

· **Logurak** erretzen zegoen. Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**logura bidali** (3)
**logurak erretzen** (3); **logurak jota** (3)

---

## **loguratsu** *iz* logaletsua.

Gure familian, lehenengo aurpegi **loguratsuak** bururdietatik altxatzen hasten dira. Josu Zabaleta

---

## **loguratu**, logura(tu), loguratzen **1** da/du *ad* logaletu.

**Loguratuta** dago, begiak ixten zaizkio, pot eginda dago, mutututa eta aharrausika ari da emakumea laztantzen ari den bitartean. Luis Elberdin

Emakumea kastore-gantz astunaren pean **loguraturik** etzaten da. Xabier Amuriza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bere betazal eroriek eta ile urri banatuak **loguratu** -itxura ematen zioten. Irene Aldasoro

---

## **lohadar** **1** *iz* gorputz adarra.

Aurpegia eta gorputza eta **lohadarrak**. Xabier Amuriza

Orobat ditu gizakiak ere lau **lohadar**, bost errai, bederatzi zulo eta hirurehun eta hirurogei artikulazio. Joxerra Garzia

Ondoren bota beltza kendu zion **lohadarrari**, eta galtzerdi odoldua, orduràko erabat odoldurik zegoen alkandoran bildurik, ehorzi egin zuen. Ramon Saizarbitoria

Ohorea eta bizia bezalako gauza preziatuetan ez baitziren beste deusez fidatzen, baizik eta beren indarraz eta kuraiaren eta **lohadarren** zangartasunaz. Patziku Perurena

Hotza **lohadarretan** sartzen eta astintzen gaituenean bezala, gogoz kontra dardar eta jauzi eraginez. Xabier Amuriza

Lauhankakoen **lohadarretan** eta hegaztien gorputzean. Xabier Amuriza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**lohadar guztiak** (3); **lohadar guztietan** (3)
**lohadarretan zehar** (5)

---

## loharrarazi ik **lo 19**.

---

## **lohasma** *(orobat **lo-hasma**)* *iz* logaleak eragiten duen astuntasuna; logalea. ik **lo 23**.

Emeki emeki beren **lohasmatik** ateratzen dira. Michel Oronoz

Bihotz ilunak egin zitzaizkion eta berehala, arrabio batek heldu izan balio bezala, **lo-hasmatik** esnatu zen. Patxi Zubizarreta

Bere **lo-hasmatik** hasmatik aterarazi zuen Husainen ahots zoliak, zeinak, zartako bat ematearekin batera, esan baitzion. Patxi Zubizarreta

Ama **lohasman** zegoela, dutxatu zen eta fereka soil eztiaz zakila gogortu zitzaion. Itxaro Borda

---

## **lohi** **1** *iz* zikina, zikintasunez betea.

Bihurkina ez zeukan esku **lohi** koipetsuarekin besotik heldu, eta eskolara eraman ninduen atzera. Juan Kruz Igerabide

Ardoa batean, ur **lohia** bestean. Iñigo Aranbarri

Labezomorro bihurtua, gela zikin batean itxia, zoko **lohi** batean baztertua. Juan Kruz Igerabide

**2** irud/hed ik **likits; lizun**.

Birao egiten zuen, hitz **lohiak** bilatzen, lokatzetan amiltzen. Karlos Zabala

Klodio eta Klodiaren gaineko lelo **lohiak** kantatzen ziren. Juan Garzia

Urteko sasoi batzuetan aise harrapa zezakeen han sukar gaiztoren bat, baina grina **lohi** batek hango emakume eta neskatoenganantz bultzatzen zuen gizona. Jose Morales

Jaurti ezak urrunera bizimolde **lohi** eta likits honetako zama! Patxi Zubizarreta

· Alde hortik, alde, **lohi** horrek!!! Jon Arretxe

• **3** (predikatu edo adizlagun gisa)

Urak **lohi** edo garbi ote zetozen jakiteko. Hasier Etxeberria

Zikin zetorren, izerditan eta mahoizko prakak lokatz eta zementu zipriztinez **lohi**. Urtzi Urrutikoetxea

**Lohi** nabaritzen duzu zure burua. Xabier Montoia

Eta zein poliki moldatu duten ez hain aspaldi dena errauts eta **lohi** zeukaten ezkaratza! Itxaro Borda

• **4** *iz* lokatza.

Ez **lohi**, ez buztin, ez kare, ez porlan... Patziku Perurena

Hainbeste euriren ondotik, lurra, **lohi** bilakatua zen. Daniel Landart

Haurrak **lohian** plisti-plasta jostatzen ziren. Itxaro Borda

Hau esanik, lurrera listua bota, listuaz **lohia** egin eta **lohiaz** itsuari begiak igurtzi zizkion. Elizen arteko biblia

Karraska hots batzuk aditu eta gona baten barrena eta **lohi** lehorraz zikinduriko bi botin agertzen ikusi nituen. Monika Etxebarria

Zerrautsak **lohi** mehe bat osatua du oinazpietan. Pako Aristi

Nork ezagutzen zuen, baina, lur azpiko labirinto amaigabe eta **lohi** eta arratoiz jositako hura? Karlos Linazasoro

Bidean bereziki nazkagarria zen putzu bat ikusi zuen, kirats handiko **lohi** berde higuingarria zuena. Iñaki Mendiguren

Zuloak ziren, ur eta **lohi** zikinez beteriko zulo ankerrak, katabuta beltz bi. Felipe Juaristi

Merkatuko lurra **lohi** likidozko itsaso bihurtzen ari zen. Karlos Zabala

Basamortu huts batera botako zuen, ogia **lohi** eta ura odol ziren eta Zalmaveth-en uluak gau eta egun entzuten ziren lekura. Koro Navarro

**5** irud/hed

Mende bukaeran, lokatz eta **lohi** honetan sarturik gaudela, ez da ikusten irtenbide errazik. Pello Salaburu

· Bizitza osoa pasio gaitzesgarriari lotua igaro ostean, **lohian** lardaska ibiltzearen poderioz, bizimolde hari guztiz normala irizten zion. Patxi Zubizarreta

Emakumerik zoriontsuena **lohi** eta lizunkerian murgilduta bizi dena ez balitz bezala Gaiztotasunaren **lohi** zikinetan erorita ere gizabanakoak maitasuna eskatzen duela.

Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orrialdearen behealdea, berriz, **lohi** krosko baten azpian desagertua zen. Monika Etxebarria

Ilunpean, ematen zuen dena **lohi** geruza lodi batek estaltzen zuela. Fernando Rey

Ikusi behar da zer gela, tresna eta muntadura harrigarriak dauden han! **lohi** -mainu, argi berezi, dutxa pixkorgarri, gimnastika gune, pizinak... Herria

Aitzur ukaldika harrotzen zuten lurra eta **lohi** puloak bazterrean metatzen. Itxaro Borda

**7** *ipar (hiri ur zikinen ondoriozkoak)*

**Lohi** horiek gure etxetarik ateratzen baitira, zerbait egin dezakeguia kutsadura gutiago heda dezaten? Herria

Baiona/Angelu/Miarritzeko (100 000 jende ez baian) **lohien** tratatzeko araztegiak.Gure etxetako ondarkin batzuetarik berexi **lohiak** . Herria

"Lur bizia" lantegia, araztegietatik ekarri **lohiak** tratatzen dituena. Herria

Auzitegiak errana du horko **lohiak** bazter berdetan balia daitezkeela baina ez laborantza lurretan. Herria

Pentsa daiteke **lohi** horiek garraiatzen dutela onkailu kimikoek baino aise elementu metaliko pozoitsu gehiago? Herria

**Lohi** idortuak hirugarren bahe batean pasaraziko dituzte oraingo biez gain. Herria

Bardozeko **lohi** biltegia hetsarazi du Dartout prefetak, iraila ondar arte bederen. Herria

Egun hortan Angeluko Herriko Etxean bilkura publikoa antolatzen du administrazioak Itsuaren zubiko **lohi** labe proiektuaz. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lohi artean** (4); **lohi babes** (3); **lohi geruza** (4)
> **lohia egin** (3); **lohia eta** (7); **lohia garbitzen** (3)

---

# lohidura 1 *iz* lohitasuna, orbana.

Errauts koloreko barku baten agerraldi isila adibidez, etorri eta joan; **lohidura** purpura itsaso barearen gainean, zerbait irakin eta urtu balitz bezala, ezkutuan, azpian. **Lohidura** [hidrokarburo orbana] uztailaren 5ean agertu zen Bizkaiko kostaldean. Anton Garikano

Eskuei heldu zaie txanda eta bortizki garbitu ditu, existitzen ez den **lohiduraren** -odolduraren- bat kendu nahian. Sonia Gonzalez

Eta zenbat eta gorputz-atal bat gorago eta ageriago egon, zenbat eta ederragoa eta bikainagoa izan, orduan eta itsusiagoa gertatzen dela hartan **ikusten** den lohidura. Askoren artean

**2** irud/hed

Aldi horretan emakumearekin etzaten den gizonezkoa haren **lohidura** beraz kutsatzen da. Elizen arteko biblia

---

# lohigabe *izond* lohirik ez duenaa, orbangabea, garbia.

Kamak ezker aldeko hegitik garbitzen zuen Volga ibaia bere ur **lohigabeaz** , Okak eskuin aldeko hegitik egin bezala, Nijni Novgorod zeharkatzean. Karlos Zabala

Guztiz entseiatuko ginela, han geundeneino, mundu ustez **lohigabe** haren ez kutsatzerat. Joan Mari Irigoien

---

# lohigune *iz* lohia, lokatza dagoen gunea.

Bidea neketsua izan zen; ez zen aise euriek **lohigune** bihurtua zuten lur hartan ibiltzea eta, guneka, harkaitzetarik erori harriak baziren. Elena Touyarou

---

# lohihartzeko *(orobat **loihartzeko**)* *iz* enborra, besoak eta zangoak estaltzen dituen lan-jantzia.

Ikusia naiz egunkariko tailerrak jendez husten eta sarraski teknologikotik salbatutako langile urrien **lohihartzeko** tintaz zikinduak txabusina zuriek ordezkatzen. Aingeru Epaltza

Eta han geratu zen Josemariren aita, bere **loihartzeko** urdinekin gure aurre-aurrean. Joseba Sarrionandia

*Basque landscape* tipikoa imajina daiteke, fabrika bat, tximiniatik kea, bizikletaz **lohihartzekoarekin** itzultzen den langilea, han atzean mendia, [...]. Berria - Harian

Arrantzaleak euren **loihartzekoekin** jardun ziren baporeetan beharrean. Joseba Sarrionandia

---

# lohihartzekodun *izond* lohihartzekoa duena.

Sekulako alukeria izaten da niretzat auto-garbigailuetan, ohiko ikastun **lohihartzekodunaren** ordez, itsulapikoen gisako arrailaz hornituriko aparatua aurkitzea. Aingeru Epaltza

---

# lohikeria *iz* lohitasun gaitzesgarria; bereziki, haragizko bekatua; egite lohi gaitzesgarria. ik**zikinkeria; likiskeria; lizunkeria**.

Kanal hura, batzuetan, lohiru egiten zen, zeren eta **lohikeria** baita eskrementuen eta bertze mila hondarren emaitza. Joan Mari Irigoien

Odolari, gaixotasunari, heriotzari, ustezko **lohikeriari** edo jainkoen zigorrari diogun beldurrak, egun horietan harreman sexualik ez izatera bultzatu gaitu. Luis Elberdin

Nahiago nukeen zure belarri garbiak **lohikeria** hauekin zikindu beharrik izan ez banu. Patxi Zubizarreta

Ibiliak egiten zituen munduaren **lohikerietan** barrena, bihotza gora-nahiez beterik, amodio unibertsalez gainezkatua. Patxi Zubizarreta

Normalean, mozorro intolerante eta handiuste horien atzean **lohikeriaz** eta lizunkeriaz betetako putzu hondogabea ezkutatzen da. Karlos Zabala

Berriro ibili zen estu, [...], berriro mugatu zen premiazkoenera soilik, araztasuna eta bizilege eratsua utzi eta berriro amildu zen **lohikeriara** eta bizitza zantarrera. Jose Morales

Zeren eta, horrelako lasterketen ikustea bekatu anitzen egiteko parada baita, hala nola urguilua, harrokeria, **lohikeria** , gormandiza, haserrea eta beste gisako guztiak. Piarres Xarriton

Ninive, gehiegikeriez beteriko emagaldua, sobera ederra eta sorginkeriatan iaioa! bere **lohikeriez** nazioak menperatzen zituen, bere sorginkeriez herrialdeak. Elizen arteko biblia

---

# lohila *iz* urtarrila.

Abendu luze samarra, beraz, azaro eta hazila, **lohila** eta zemendi sasoiak bezalaxe; beharko luzeak izan baserrian, eguraldiak gutxi laguntzen zuenean. Pello Zabala

---

**lohitasun** *iz* lohia denaren nolakotasuna. ik **zikintasun.**

Ezerk ez zuen higuindu: ez zinikoaren **lohitasunak**, ez haren txirotasun erabatekoak, ez haren bizi publikoaren lazturak. Juan Garzia

---

**lohitegi** *iz* lohiz beteriko eremua.

Ur, lohi eta simaur kopuru handia bota zuten gau guztian, eta hurrengo egunean hiriak setiatzeko makina ibiltzen hasi zenean eta harresira hurbildu baino lehen, **lohitegi** umel hartan geratu zen harrapatuta, eta ez aurrera eta ez atzera geratu zen bertan. Santiago Iruretagoiena

---

**lohitsu** *(orobat* ***lohizu*** *g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***lohitsu*** *agertzen da)* **1** *izond* lohiz betea, zikina.

Atzean utzi genituen hiru oilo harlauza **lohitsuetan** mokoka. Koro Navarro

Kale **lohitsu** batetik barrena heldu ziren azokara. Pablo Sastre

Joanes txapela buruan zetorren, lehenagoko zamar amironatua eta abarka **lohitsuak** soinean. Itxaro Borda

Ur basa **lohitsu** batek bazter guziak ari zituen hartzen. Janbattitt Dirassar

Lurra zilatzen duten xenda **lohitsuetarik** ibilirik. Itxaro Borda

Hango lurra, gainera, ohi baino buztintsuagoa eta **lohitsuagoa** zen. Jose Morales

**Zingira** lohitsuan. Askoren artean

Bi minutu geroago komunikazioetarako geletako batean zeuden, **kristal** lohitsu batek banatuta. Iban Zaldua

Hango ibai-adar **lohitsuetan**. Joan Mari Irigoien

Han dena duk eremu mortu eta **lohitsu**. Joanes Urkixo

Hemen lurra, **lohitsua** eta zikina, eta han goian zerua, garbia eta aratza... Joan Mari Irigoien

Kanpainetarik jazartzen ziren mutil **lohitsuak** doi bat zibilizatzeko. Itxaro Borda

Leku guztietan daude arantzak, baina bizioaren ibilbidean arrosak loratzen dira haien gainean; bertutearen lasterbide **lohitsuetan**, ostera, naturak ez du halakorik sortzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** irud/hed

Salatzea bera zela bekatu mortalik zikinena eta **lohitsuena**, eta isilpean salatzea bi bekatu mortal. Joan Mari Irigoien

Sumina zen gelditzen zitzaiguna, sentimendu trinko eta sutsu bat; jario **lohitsu** hark, gutxika-gutxika, den-dena estali zuen, eta, Vilma hildakoan, eremu agor eta mortu bat geldituzen familia-harremanak izan ziren lekuan. Ander Irizar

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **mortu eta lohitsu** (4)

---

**lohitu**, lohi(tu), lohitzen **1** da/du *ad* zikindu. ik **lohiztatu.**

Kanal hura, batzuetan, **lohitu** egiten zen, zeren eta lohikeria baita eskrementuen eta bertze mila hondarren emaitza. Joan Mari Irigoien

Odolak **lohitu** du halaber lepotik dilindan duen afixa. Xabier Montoia

Jakanarru odolez **lohitua**. Edorta Jimenez

Bere garunek eta odolak dendaren bazterrak **lohitu** zituzten. Gotzon Garate

Hildakoak besarka jaitsi zituzten kamioi gainetik eta bata bestearen gainean metaturik geratu ziren lurrean, [...], arropa zarpailduekin, odolez eta lokatzez **lohituta**. Joseba Sarrionandia

Fuel-olioz **lohitutako** hondakinak dira horiek. Berria - Euskal Herria

Emaztekiak zerriak bezala **lohitzen** diren tokia da... Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Gustamoldeak nahasten direnean, arima neurriz kanpoko atseginez **lohitzen** da. Joan Mari Lekuona

Nire susmoekin Marcel Martinen izena **lohitzen** nuelako. Ramon Saizarbitoria

Ez dizugu onartuko epaimahaien ohorea **lohitzen** duen ezer... Koldo Izagirre

Den-dena ahaztuko diat, baita nire adiskidetasuna **lohitu** huela ere. Anjel Lertxundi

Baina batez ere ez nuen nahi aitaren izena **lohitu** zedin. Ramon Saizarbitoria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Arropa **lohitua** garbigailutik atera ostean. Sonia Gonzalez

· Orduan senarrak bere ohore **lohitua** odolarekin garbitzeko beharra sentitu zuen. Martin Anso

Horrelakoxe lekuak izaten dira jendilaje gehiena ibilitzen den bazterrak; hantxe daude tenplorik **lohituenak**. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lohitzen eta zikintzen** (3)

---

**lohiztatu**, lohizta, lohiztatzen du *ad* lohiz bete, lohitu.

Goizean goiz, ekaitzak suntsitu ditu muntadura batzu eta aparkalekuak **lohiztatu**. Herria

Kanpoan, gelditzen den elur gutia oinezkoek **lohiztatua** dute. Aurelia Arkotxa

---

lohizu ik **lohitsu.**

---

**lohizulo** *iz* lohiez beteriko zuloa.

Ez dago txarto, ziega, funtsean, komun bat baino ez da, **lohizulo** nagusiaren itxaron gela. Koldo Izagirre

---

**lohizundar** **1** *izlag/iz* Donibane Lohizunekoa, Donibane Lohizuni dagokiona; Donibane Lohizuneko hiritarra.

**Lohizundarra** zen, apez izana, eta Parisen eta Geneban ibilia, Kalbino beraren eskutik. Aingeru Epaltza

Epaimahaia lau argazkilari profesionalez osatua da: Philippe Plantey baionesa, Pierre Ospital **lohizundarra**, Bertrand Lapegue baionesa eta Bernard Argazki miarriztarra.

Herria

Horren ondotik, artzain **lohizundarrak** bihotzak berotzen zizkigun. Aingeru Epaltza

**Lohizundarrak** Kontseilura jo zuen eta Kontseiluak Arrosengana. Aingeru Epaltza

**2** ***donibane lohizundar*** lohizundarra.

"Skyroom" liburuak, Mikel **Donibane Lohizundar** baten historia kondatzen digu, Filipinetara abiatzen dena. Herria

Gazteak ere ari zauzkigu plantan 13 urtez petikakoek irabazi dute frango aise **Donibane Lohizundarren** kontra 39 eta 7. Herria

---

# loialista *(orobat* ***loyalista*** *g.er.) izond/iz* Ipar Irlandan, Britainia Handiko parte izaten jarraitzeko mugimenduaren aldekoa.

Stobie paramilitar **loialisten** eskuetan hil zen, 2001. urtean. Berria - Mundua

UDA talde paramilitar **loialistarik** handiena da. Berria - Mundua

Bonba bat aurkitu zuten atzo preso **loialisten** aldeko elkarte baten egoitzaren aurrean, Belfast iparraldean. Berria - Mundua

Nazionalistek eta errepublikanoek beti salatu dute **loialistek** RUC Poliziaren eta Erresuma Batuko Armadako zerbitzu sekretuen laguntza jaso zutela hilketa hori eta beste hainbat burutzeko. Berria - Mundua

**Loialistek** hil egin zuten. UVF eta LVF **Loialista** Boluntarioen Indarra taldeen arteko borroketan lau lagun hil dira aurten. Berria - Harian

---

loihartzeko ik **lohihartzeko**.

---

# loina *iz* ibai arrain txikia, mutur-irtena, arrea eta jateko ona *(Chondrostoma toxostoma* eta *C. polypelis).*

Datorren urtetik aurrera besterik ez da geratuko Baztan ibaian: berak jango ditu beste guztiak, bertako izokin, **loina**, amuarrain eta ezkailuak. Hasier Etxeberria

Garai hartan Deban barboak, **loinak**, ezkailuak eta aingirak ugari izaten ziren. Gotzon Garate

---

# loiro *iz* lorioa.

Harrondoko **loiro** lohitsuan Pierra Cassieren konpainian agertu zen justu apezak Maddiri deabru-iraizteko letaniak errezitatu zizkion egunean. Itxaro Borda

---

# lojamendu *iz* ostatulekua.

Bi egun eman zituen basoetan ehizan, jauregiko beste hegalean izan zuen **lojamendua**, burdinazko ohe batean lo egin zuen, eta are gehiago, etxeko andrearekin dantzan ere egin zuen. Xabier Olarra

---

lojantzi ik **lo 21**.

---

lojika ik **logika**.

---

lojiko ik **logiko**.

---

# loka[1] **1** *izond* koloka dagoena, ongi finkaturik gabe dagoena.

Giltzadura **lokak** dituen mekanismo bat dela eskeletoa. Irene Aldasoro

Izan ere, eraikuntza-joko konplexu baten antza du gorputzak; giltzadura **lokaz** elkarturiko makila zurrun askoz osaturik dago. Irene Aldasoro

Argi **loka** batzuk mugitzen omen ziren sabaian. Joxean Agirre

Ez dizuet esan: besoa **loka** duenak musua estaltzen dion zapia darama. Iñigo Aranbarri

Txanoak kopetaraino sartuta zituzten, eta izar **lokak** bezalako oihal zerrendak jantzietan banatuta Josu Zabaleta

**2** *adlag* koloka, ongi finkaturik gabe.

Elkarrekin giltzatzeko modua izan behar dute hezurrek, hau da, bata besteari **loka** egokitzekoa. Irene Aldasoro

Baldosa bat **loka** zegoen. Joxean Agirre

**3** irud/hed

Itxura denez, **loka** geratzen da segundo batzuetan garunak jasotzen duen informazioa, eta galdu egin daiteke, baldin eta (esate baterako) buruan kolpe handi bat hartu eta aldi baterako konortea galtzen bada. Irene Aldasoro

**4** ***lokan*** *adlag* loka, koloka.

Aldundiaren egitasmoak, hortaz, ez du **lokan** jarriko Legebiltzarrak otsailean onartu beharko duen Lurzoruen Legea. Berria - Euskal Herria

**5** *loka gune* ik **lokagune.**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

izar loka (4)

izar lokak (3)

izar lokaren (3)

---

# loka[2] *adlag/izond* oiloez eta hegazti emeez mintzatuz, arrautzen gainean jarririk txitatzen ari dena.

Elorria loran dago, mirua **loka** dago, artoa ereiteko a zer sasoia dagon! Pello Zabala

Artelana deigarria da, baina artearen egoeraren adierazlea ere izan daiteke ipurdian urrea duen oilo **loka**. Berria - Kultura

Eta oilo **lokak** txitoa bezala defendatuko zaitu. Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

---

**lokabe** **1** *izond* askea, loturarik edo mendekotasunik gabea.

Egundaino ez du hain bakarrik sentitu goiztiria, nola Baionako parkeko aulki **lokabeetan**. Javi Cillero

Etxearen oinarriak kolokan zeuden, korridoreko oholtza **lokabeak** salatzen zuenez. Javi Cillero

Ezin diezu burutik pasatzen zaizkizun pentsamendu **lokabeei** ondo eutsi, dena doa lar arin. Sonia Gonzalez

Udako gau argietan urretxindor zoragarriak bere kantu goxoaz lagun egiten dio unibertsoaren harmonia jainkozkoari, penaturik agian horrelako harmonia batek ez dituelako xamurtzen gizakien bihotz **lokabeak**. Koldo Biguri

**2** (izan aditzarekin)

Zientziaren errealitatea **lokabea** baita gure teoriekiko. Askoren artean

Ezagutzen dugun errealitate hori, **lokabe** da gure gogamenarekiko? ala beti gure esperientziaren errealitatea ezagutzen dugu? zenbateraino da errealitatea **lokabe** gure teoriekiko? Askoren artean

---

**lokabetasun** *iz* lokabea denaren nolakotasuna.

Batetik, pentsa dezakegu gogamenari buruzko mendekotasuna edo **lokabetasuna** errealitateari berari dagozkion propietateak direla, eta ondorioz, hainbat planteamendu izan dezakegu zientziaren ontologiaz. Askoren artean

Arrazaren eta hizkuntza/izpirituaren artean bata bestearekiko **lokabetasun** posible bat ohartzen da (eta Unamuno-ren kasuan bederen, arraza bat posible da bere izpiriturik ere gabe, edo hizkuntza bat bere arrazarik gabe). Joxe Azurmendi

---

**lokagune** *(corpusean **loka-gune**)* *iz* abiadura-aldagiluaren egoera motorraren indarra gurpiletara helarazten ez duenean. ik **puntu 28**.

Berriro han ziren klaxonak, pneumatiko kirrinkarien galgatzea, **loka-gunean** egindako azelerazioak, zentzugabekeria, gaztetxoen galania hutsa. Joxe Austin Arrieta

Motozikletak, **loka-gunean** orroka. Joxe Austin Arrieta

Berriro Alfa Romeo hura, haren klaxonkadak kalesketan, haren balaztadak, haren **loka-guneko** sakadak, haren latorrizko durundia gauaren erdian. Joxe Austin Arrieta

---

**lokailu** *(orobat **lotgailu** g,er.)* **1** *iz* lotzeko gailua.

Fudgeren hatzek irrist egin zuten bere kaparen zilarrezko **lokailuetan**. Iñaki Mendiguren

Ekipaje bagoiaren **lokailua** hautsi zen, eta horrek sortu zuen danbatekoa eta irtenarazi trena errailetatik. Karlos Zabala

Oharturik kirol horietako tresnak zangoari finkatzeko moldeak ez zirela hain seguruak, **lotgailu** sistema berri bat asmatu dute, denbora berean finka erretxagoa eta seguragoa. Herria

**2** (gauza abstraktuez)

**Lokailu** gisa aritzen da aitaren eta amaren artean. Itziar Otegi

Gainera, itun batez lotuta dagoenari sinetsi egin behar zaio, fedea bakarrik baita itunen **lokailua**. Esteban Antxustegi

Halakoak ez daude buru den Kristorekin loturik, eta Kristo da, hain zuzen, buru bezala, **lokailu** eta junturen bitartez gorputz osoa elkarlotzen duena eta, Jainkoak nahi bezala, hazarazten duena. Elizen arteko biblia

**3** (gramatikan eta logika formalean)

**Lokailuen** bitartez testuaren jarraitasuna bermatzen da. Askoren artean

Ez dakigu bi esaldi bata besteari eransten, tartean "eta", "baina", "nahiz eta" eta gainerako **lokailurik** gabe. Andoni Egaña

**Lokailuak** mota askotakoak daude: esapide konjuntiboak, izenlagunak, juntagailuak, loturako esaldiak, etab. (iii) Paragrafoak. Askoren artean

Konektatzaileek hizkuntza naturaleko **lokailuen** errepresentazioa izan nahi dute; kasu honetan, ukapena eta baldintzatzailea hartu ditugu. Askoren artean

**4** lotailua.

Kontua zen delako gizona [...] zauritua zegoela, hamaika bendak eta **lokailuk** estekatua. Aingeru Epaltza

---

**lokal** **1** *iz* gune estalia eta itxia, batez ere merkataritza jarduerak, jolas elkarteak edo kidekoak kokatzeko erabiltzen dena.

Elizaren eskuetan zegoen **lokal** bat omen zen. Rafa Egiguren

Hantxe zabaldu zuten berandu gabe denda, **lokala** eskuratu eta hiru bat hilabetera. Joan Mari Irigoien

*Se vende* jartzen zuen **lokala** arrandegi izatera itzuli da. Eider Rodriguez

**Lokalak** hiru gune ditu: bilera lekua, taberna eta elkartea. Ordutik hona, **lokal** askotan jo izan du. Berria - Kultura

Cosmos delako **lokala** nabe bat zen, rock and rolleko taldeek jotzen zuten nabe bat. Fernando Rey

Portuan bazegoen **lokal** bat, garagardotegi bat. Fernando Rey

Gazteentzako **lokal** bat eskatzeko. Berria - Euskal Herria

Garai hartan Beatles zeritzan taldeko laurak beste **lokal** batean jotzen ari ziren. Fernando Rey

Halako sekzioak **lokal** bat hartu nahi zuen errentan. Karlos Zabala

**2** (izenondoekin)

Berdura plazatik gertu **lokal** txiki bat zeukaten Tolosako gazte kristauek. Xabier Mendiguren Elizegi

Zigarro-keaz **beteriko** lokal txiki-txiki batera sartu zen. Anjel Lertxundi

Garagardo batzuk hartzera joan gara lauok: **lokal** country batera lehenbizi eta irlandar batera gero. Harkaitz Cano

Espazioa liberalizatzeko kanpaina jarri behar diagu indarrean orain, **lokal** publikoetan, tabernetan batez ere, jarduera gay eta lesbikoak baimen ditzaten. Pako Aristi

Beraz Uztaritzera joanik ere, **lokal** tekniko bat atxiki beharko du Gure Irratiak Baionan. Herria

Charlyk lehengo asteko **lokal** post-iraultzaile halamoduzko bera hautatu zuen. Aingeru Epaltza

Etorkin asko etxe eta **lokal** alokatuetan bizi dira. Berria - Harian

New Yorkeko asmakuntza dira *deli*ak; erdi supermerkatu eta erdi taberna, urteko 365 egunetan eta 24 orduz irekita dauden **lokal** bereziak, gehienetan langile hegoamerikar edo asiarrak dituztenak. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan)

Bere ogibidearen ondorioz zapaldu behar izan zituen top-less **lokal** anitzetako batean. Harkaitz Cano

• **4** *izond* tokikoa, tokiari dagokiona. ik **toki 5; leku 8**.

Lege **lokal** asko daude erlijioetan. Iñaki Iñurrieta

Gaur egun 30 telebista **lokal** inguru daude Araba, Bizkai eta Gipuzkoan. Berria - Harian

Non daude albiste **lokalak**? Anton Garikano

Anestesia **lokalaren** eraginpean. Irene Aldasoro

Arau abstraktuak etengabe egoera **lokal** konkretuetara egokitzeko prozesu baten exijentzia. Santiago Iruretagoiena

Kontakerari kolore **lokal** pixka bat emate aldera. Karlos Zabala

Arrasateko kooperatiben merkatua izugarri aldatu da: hasieran **lokala** edo erregionala zena, 80ko hamarraldian Europa mailakoa izatera pasatu zen, eta 90ko hamarraldian berriz mundu mailakoa. Iñaki Heras

1996rako herrialde bakoitzeko agintari **lokal** gehienek burutua izatea kasuan kasuko biztanleriarekiko kontsulta prozesu bat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gaueko lokal** (4); **lokal berria** (3); **lokal txiki** (3)
> **anestesia lokala** (7); **anestesia lokala jarrita** (3); **entsegu lokala** (3); **gazte lokala** (3)
> **entsegu lokalean** (8)

---

**lokalismo** *(orobat* ***lokalismu****)* **1** *iz* tokikoa izateko nolakotasuna; tokikoak diren gauzen aldeko joera. ik **txokokeria**.

**Lokalismoa**, kosmopolitismoa, sustraiak, aberria eta arlo semantiko bereko hainbat kontzeptu izango dituzte aztergai eta eztabaidagai. Berria - Kultura

Pentsamenduaren eta sentimenduaren artean, unibertsaltasunaren eta **lokalismoaren** artean. Joxe Azurmendi

Herder-en nazionalismo eta **lokalismo** itsua. Joxe Azurmendi

Ez da itzuli behar duela hogei urteko egoerara, alderdiak desegin eta lekuko plataformak sortuz edo **lokalismoan** itoz. Berria - Euskal Herria

**2** herri batean edo eremu murritz batean soilik erabiltzen den hitza, esamolde edo aldaera.

Beraz, *gatxabiltzek, natxetorrek* eta oiek **lokalismo** estu-estuak dira Gipuzkoan. Koldo Zuazo

---

lokalismu ik **lokalismo**.

---

**lokalista** *izond* lokalismoaren aldekoa.

Woody Allen baino **lokalistagorik** ez dago; bere film gehienak Manhattanen girotuak daude. Berria - Harian

---

**lokalizatu**, lokaliza, lokalizatzen **1** du *ad* kokalekua zehaztu.

Zintzilik eduki duten mutilaren ama **lokalizatu** dutela. Anjel Lertxundi

Beste barku bat **lokalizaten** dogunean, harek eroango zaitu portura. Xabier Amuriza

Maiena Garaten gomendioz bere alabaren **lokalizatzeko**. Itxaro Borda

Informazio hori erraz lor eta manipula daitekeela eta soldaduak mementuan **lokalizatuak** izan daitezkeela. Berria - Mundua

Taldeko batzuk afari bat prestatzen ari zirela esan zidan [...] eta ni **lokalizatu** ezinean zebiltzan. Iban Zaldua

Egun osoan badaezpada ere **lokalizatzeko** moduan egoteko esan dit. Pako Aristi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bulkada kimiko **lokalizatu** batek jartzen du abian nerbiobulkada. Irene Aldasoro

Batzuetan, gogoeta egiten nuen ea erabat bestelakoa ote zen Stephenengan "emozioa" edo "emoziozko erantzuna": ez apalagoa, baizik eta gainerakoongan baino **lokalizatuagoa**, objekturantz, eszenetarantz eta gertaeretarantz bideratuagoa. Xabier Olarra

---

**lokalizazio** **1** *iz* lokalizatzea.

Zigor hori, epe laburreko kartzela zigorrarekin, komunitatearen aldeko lanekin edota etengabeko **lokalizazio** zigorrarekin ordezkatu da, betiere, kasuaren arabera. Berria - Euskal Herria

Bertan, 400 multzotan bildutako1104 mairubaratzen azterketa zehatza agertzen da: **lokalizazioa**, koordenadak, latitudeak eta abar aipatzen dira. Berria - Kultura

**2** lokal bihurtu.

Gauza jakina [...] da antzezlanak ez direla itzultzen, teatroak ozenki esatekoak izanik, moldapena edo, egun esaten den legez, **«lokalizazioa»**, tokian tokiko kulturetara egokitu beharra dutela beste ezein itzulgaik bainoago. Berria - Kultura

---

**lokalki** *adlag* tokiko ikuspegiaren arabera.

Globalki pentsatu, **lokalki** jardun. Txema Ramirez de la Piscina

Indarrak batu behar dira erabakietan eraginkorrak izateko, altermundializazioa **lokalki** laguntzeko. Berria - Euskal Herria

---

**lokaltxo** *iz adkor* lokala.

Erabaki bat hartzen lagundu zidak: eraiki behar dudala aspaldidanik buruan dudan **lokaltxoa**, badakik, igerileku, lorategi, joko-zelai, antzokia eta beste guztia edukiko dituena. Koldo Biguri

---

**lokamuts** **1** *iz* amets gaiztoa.

Zuen aitak ere **lokamutsak** izan ditu. Xabier Montoia

Goizaldean bakarrik bildu ahal izan nituen begiak, eta orduan ere **lokamuts** izugarriak izan nituen. Alberto Ladron Arana

**Lokamuts** bat ote da dena. Eider Rodriguez

Zulo nazkagarri honetara ekarri nautenetik **lokamutsek** loa eragozten didate. Migel Angel Mintegi

**Lokamutsetik** esnatzea espero zuen, edo gutxienez beste zerbait gertatzea, begiak ireki eta bere burua dena amets bat zela adieraziko zion paraje aldakor batean aurkitzea. Harkaitz Cano

Urduri bizi nintzen bolada hartan, eta gaueko **lokamutsak** eta eldarnioak, eta eguneko gertakariak eta katramilak, ez nituen beti elkarretarik garbiki bereizten. Txillardegi

**2** irud/hed

Bergen-Belsengo konzentrazio esparruko **lokamutsa**. Berria - Kultura

Topikoa badirudi ere, nor-nori nork; aditzen paradigma izan da nire **lokamutsa**. Berria - Harian

Gizentasuna, minbizia, tabakismoa, alkoholismoa eta sistemak nozitzen dituen gainerako **lokamutsak** desagertuko dira eguneroko elikagaiak kontsumitzeari esker. Edorta Agirre

Burua apaldu eta elikagai erraldoien **lokamuts** hartara sartu zen, osasun betean eta ezkai usainean emandako egun gozo tristea gogoan zeramala. Karlos Zabala

Amiltzen ari garen bitartean bakardadeak eragiten digun izua, esku adiskideak urruntzen ikustean bizi dugun **lokamutsa**. Joxean Agirre

---

lokanta ik **lo 22**.

---

# **lokarazi**, lokaraz, lokarazten du *ad* lo harrarazi.

Uste dit jende bakoitxak badien izigarriko indarra eta orai pediku handiz jenteak amiñi bat **lokarazten** ditüzüe. Menane Oxandabaratz

---

# **lokarrarazi**, lokarraraz, lokarrarazten **1** du ad lo harrarazi.

Alboko gelan lo zegoen edo, hobeto esanda, **lokarrarazi** zuten neskatoa "gorpu ito" horietako bat ez ote zen galdetzen zion bere buruari. Ibon Uribarri

Polizia agertu zenean, zakurrak oso urduri zeuden eta albaitariak dardoak bota zizkien, **lokarrarazteko**. maitagarriak bere bizilekua utzi eta errege-jauregira abiatu zen, herrialdeko guztiak sorgintzeko eta **lokarrarazteko** asmoz. Gotzon Garate

Ez zekien neskatoa **lokarrarazteko** erabili zituzten pilulak zein indartsuak ziren. Ibon Uribarri

Aspertu dela mundu honetaz eta pilula bat emateko, behin betikoz **lokarrarazten** dutenetarik. Aingeru Epaltza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Gau hartako neskato **lokarrarazia** hurbil hurbil sentitzen zuelako. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **lokarrarazi zuten neskatoa** (3)

---

# **lokarri** *(orobat **lotgarri** g.er)* **1** *iz* lotzeko erabiltzen den gauza.

Koaderno horia **lokarri** urdin batez itxia zegoan, eta **lokarriaren** begiztaren lakrea eraztunaz zigilatuta. Xabier Olarra

**Lokarri** berdez lotua zekarren. Patxi Ezkiaga

Baina Sansomek **lokarri** berriak ere eten egin zituen, hariak bailiran. Elizen arteko biblia

**Lokarriak** hautsi eta handik alde egin, besterik ez zuten nahi. Karlos Zabala

Perimedes eta Euriloko zutik jarri ziren, eta gehiago estutu zizkidaten **lokarriak**. Juan Kruz Igerabide

Eskuan kutxa tipi bat zuela, **lokarri** mehe bati lotua eta lepotik dilindan eramaitekoa. Joan Mari Irigoien

Kaputxinoen abitu luze marroia zeraman, **lokarri** eta guzti. Xabier Mendiguren Elizegi

Galtzak erorita eta zapatak **lokarririk** gabe. Harkaitz Cano

Ez dakit **lokarriak** lotzen. Mirentxu Larrañaga

**2** lotura.

Bata besteari **lokarri** etenezin batez loturik zeuden. Xabier Olarra

Gure arteko **lokarri** mehe eta sendo hori eten nahi dute. Koldo Izagirre

Alabaina errana da mahai on bat elgarren arteko **lokarri** bat dela, zinez azkarra, eta eztabaida frango bazkari baten bidez soleitzen dela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nola asmatuko zuen Marfak esker oneko **lokarri** batek estekatzen zituela bere semea eta gazte ezezagun hura? Karlos Zabala

Nazio batasunak sortzen dituen **lokarriak**. Piarres Xarriton

Legeak ezarritako erbesteratzeak gizartearen eta hiritar gaizkilearen arteko **lokarri** guztiak desegiten dituenean. Juan Martin Elexpuru

Honek iraganarekiko **lokarri** tradizionalak urratzea dakar. Iñaki Mendiguren

Odola dugu **lokarri**, eta, hain zuzen ere, odolkide eta errusiar gisa mintzo natzaizue orain. Jose Morales

Gure dolumin biziekin batean, opatzen dugu familia guziari, aintzina, segi dezaten beren atxikimendua, **lotgarri** tinkoa. Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Nire gauzak erlojua, zapata **lokarriak**, tabakoa, giltzak eta txanpon batzuk ziren. Gizaki libreak bakarrik dira elkarrentzat, zinez, baliagarriak, eta haiek ditu adiskidetasun **lokarri** tinkoenak elkartzen. Jon Maia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **lokarri berezi** (3); **lokarri berriak** (3)
>
> **elgarren arteko lokarriak** (4); **lokarriak apurtu** (3); **lokarriak askatu** (6); **lokarriak askatzeko** (5); **lokarriak askatzen** (3); **lokarriak estutzen** (4); **lokarriak hautsi** (4); **lokarriak lotzen** (6); **oinetako lokarriak** (5); **oinetakoen lokarriak** (6); **oinetakoen lokarriak askatzeko** (3); **zapata lokarriak** (3); **zapatetako lokarriak** (8)
>
> **zapatak lokarririk gabe** (3)
>
> **lokarriz loturik** (3); **purpura morezko lokarriz** (4)

---

# **lokarridun** *izond* lokarria duena, lokarriak dituena.

Bota beltz **lokarridunek** ere antigoaleko ziraiaren distira ageri zuten. Ramon Saizarbitoria

Iraunkorrak ziruditen gomazko zoladun zapata **lokarridunak**. Urtzi Urrutikoetxea

---

**lokarriño** *iz adkor* lokarritxoa.

Luzera ia sugekarako lepoaren eta **lokarriño** batez inguraturiko kapela baten artean. Xabier Olarra

---

# **lokarritu**, lokarri, lokarritzen du *ad* lokarriz estekatu, lotu. • *irud/hed*

Garaipenak baizik ez du **lokarritzen**. Josu Zabaleta

## **lokarritxo** *iz* lokarri laburra.

Galai pinpirin bat, lepo luze batez erasana eta, ororen harrigarri, onddo-kapelaren inguruan **lokarritxo** bat zuena. Xabier Olarra

Gero, samako **lokarritxo** eta beste, ohitura eta usadio mila sortu izan dira, tokian tokikoak. Pello Zabala

---

## **lokartu**, loakar, lokartzen *(orobat* ***loakartu*** *g.er.)* **1** da *ad* lo hartu, loak hartu.

Ez naiz gau berandua arte **lokartu**. -Edu, **lokartzen** bahaiz, ostiaka bidaliko haut hemendik. Jon Muñoz

-Nire aita ere **lokartua** da. Ramuntxo Etxeberri

Ez nau ni aise loak hartzen, baina behin **lokartu** eta gero, seko lo egiten dut. Mirentxu Larrañaga

Gizon zaharra arropaz aldatu eta gero, akitua, etzanik pausatzen da, eta **loakartzen**. Jose Angel Irigaray

Eskailera-mailetan **lokartu** da. Eskarne Mujika

Ezin nintzen **lokartu**, halere. Mirentxu Larrañaga

Marta **lokartu** ezinik zebilen Pataki zelako hark ekarritako gutuna irakurri zuenetik. Harkaitz Cano

Eta seko **lokartu** nintzen; mihiseen artean aspaldiko partez goxoki luzatuz. Filipe Bidart

Halako batean azaldu ziren, horratik, ni kulunkaulkian **lokartu** berria nintzela. Joxe Austin Arrieta

Soinu, irri, iturrien xurxura eta itzalaren goxotasunari esker, baratzea **lokartu** da eta amets bat egin du. Aurelia Arkotxa

Niri, haur-haurretik, oherakoan otoitz egiten **loakartu** arte hezi ninduten. Piarres Xarriton

Hondarretan **lokarturiko** ur epelaren urrina. Karlos Zabala

**2** irud/hed

Eskuinekoak jarriak ezkerrean, ederki bertzela denek ikusi dituzte, jakiten ahal duzue nehor ez dela **lokartu**. Herria

Haatik heletarrak ez ziren **lokartu**, baina behar zen lekura jo zuten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azkenik, haren arima txit santua haragitik askatua izan zen, hondargabeko argitan murgiltzeko, eta haren gorputza Jaunagan **lokartu** zen. Askoren artean

**3** (era burutua izenondo gisa)

Hantxe gelditu zen, mugitu gabe, ume **lokartua** gainean zuela. Karlos Zabala

Zortea aldeko izanez gero, argiztaturik ikuskatuko genituen haren arreben gorputz **lokartuak**, deusen estalkirik gabe. Aingeru Epaltza

Halako dirdai maleziazko bat islatu zen bere begi kasik **lokartuetan**. Patxi Zubizarreta

Hala ere, neskatoa ez zen esnatuko, buru **lokartu** baten pisua zuen eskuan agureak. Ibon Uribarri

Gurpilen hotsak etxe **lokartuen** fatxaden kontra jotzen zuela berriz ere. Karlos Zabala

-Hiri **lokartua** ote da? -bota zuen Mikel Strogoffek-. Karlos Zabala

Nik betazalak jaitsi ditut, gutxienez **lokartuarena** egiteko eta isilean egon ahal izateko. Patxi Zubizarreta

Arreta pixka bat ipini behar zen **lokartuak** ez zanpatzeko, nahierara etzanda zeuden-eta han-hemenka. Karlos Zabala

**4** ***lokartuxe*** lokartu xamar.

Baina luzara, badira joaiten hasten direnak, **lokartuxea** zagoena ere ikusi dugu. Herria

**5** ***lokartzear*** *adlag* lokartzeko zorian.

Horrela egin ohi du **lokartzear** dagoenetan. Jokin Muñoz

**Lokartzear** zegoela, oinaze sarkor batek erdiratu zion bularraldea eta arnasa sakon hartzeko beharrean gertatu zen. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **berehala lokartu** (13); **berehala lokartu zen** (6); **berriro lokartu** (7); **berriz lokartu** (7); **etzan eta lokartu** (3); **jaunagan lokartu zen** (3); **lokartu aitzin** (7); **lokartu arte** (6); **lokartu aurretik** (11); **lokartu baino lehen** (4); **lokartu orduko** (5); **seko lokartu** (4)
>
> **erdi lokartua** (6)
>
> **erdi lokartuari** (3)
>
> **erdi lokarturik** (4)
>
> **lokartuta kantxaratu zen** (3); **lokartuta nengoen** (3); **lokartuta zeuden** (3)
>
> **lokartutako tximeletak** (3)
>
> **berehala lokartzen** (3); **lokartzen ari** (15); **lokartzen ari zarenean** (3); **lokartzen saiatu** (3); **lokartzen uzten** (3)

---

## **lokartzaile** *iz* anestesista.

Biziki ontsa ez baitira bakarrik mediku orokorrak eskas bainan ere operatzaile, **lokartzaile** eta asko espezialista ere. Herria

---

## **lokartze** *iz* lo hartzea, loak hartzea.

Hori norberaren **lokartze** unea zehazki kronometratu nahi izatea litzateke. Markos Zapiain

Haietariko batzuk, desertatu eta ihes joateagatik, eta koldarkeriagatik; eta, beste bi, beren postuetan **lokartze** hutsagatik. Mirentxu Larrañaga

---

## **lokatu**[1], loka, lokatzen **1** da/du *ad* hezurrez eta kidekoez mintzatuz, bere lekutik atera.

Batak belarrian zauriak zituela eta besteak beso bat **lokatua** zuela. Berria - Euskal Herria

Zuk besoa **lokatzen** diozu edonori. Anton Garikano

Mandatariak **lokatua** zeukan eskumutur bat. Koro Navarro

Ahoa ezpainzabal eta begiak **lokatuak** izuaren izuz. Joxe Azurmendi

**2** koloka jarri.

Lohadarrak astuntzen, hankak **lokatzen**, mihia trabatzen, zentzuna lainotzen, begiak lausotzen. Xabier Amuriza

Adinaren zartako bortitzek gorputza zigortu eta lohadarrak indar-kamuts jausitakoan, burua herrentzen, mihia deliratzen, adimena **lokatzen** eta dena batera higatzen da eta huts egiten du. Xabier Amuriza

Tamalez, *Gipuzkoa* bouaren brankako kanoia behin eta berriro **lokatu** zen, eta txopakoak ez zuen tiro bakarra ere egin ahal izan; ezgauza zen. Edorta Jimenez

**3** (era burutua izenondo gisa)

Mandatariaren hezur **lokatua** ere zuzendu zuen; kondenatu bat bezala aritu zen hura oihuka eta garrasika. Koro Navarro

Pailazo **lokatu** bat Tomahawk edo Trumoi Burrunba izeneko piztia-bezatzaile apatxe beldurgarria lanean ikustera sartzeko deika ari zen oholtza gainetik. Josu Zabaleta

**lokatu**[2], loka, lokatzen da *ad* oiloaz eta kidekoez mintzatuz, loka jarri.

Oiloa noiz **lokatzen** den kontu: arrautza gainean ilberrian edo ilgoran jarriz gero, oilaskoak gehienak; ilbetean edo ilbeheran, oilandak nagusi. Pello Zabala

---

**lokatz** *(orobat* **lokatza***)* **1** *iz* urezko eta hauts edo lurrezko nahastura edo ore lodia. ik**lohi.**

Sua zerbait garbia da, lurra, berriz, berehalaxe **lokatz** bihurtzen da edozein ekaitzen ostean [...]; **lokatz** ez ezik, ernaminez beteriko ustelkeria ere bai, baselina bezain limuri. Joxe Austin Arrieta

Hodei zuri apal, **lokatza** eta putzuak bezain geldiek estaltzen zuten zerua. Josu Zabaleta

Garai batean gogoko nuen **lokatza**, **lokatzaren** usaina, **lokatza** ukitzea, eta **lokatzetan** jolasean ibiltzea. Mirentxu Larrañaga

Belarra berdea zen oso; eta bailarako bidea, **lokatzez** betea, horizta. Bernardo Atxaga

**Lokatzetan** luze etzanda. Eskarne Mujika

Jendea **lokatzetan** zaka-zaka zihoan, eta euria atertu gabe ari zuen. Juan Kruz Igerabide

Kalean bazen erretratua goitik behera estaltzeko adina **lokatz**. Juan Kruz Igerabide

Etxekoek eta gainerakoek harriak eta **lokatza** jaurtiz uxatzen zuten aurretik. Askoren artean

**Lokatz** gaineko **lokatza**, zabor gaineko zaborra haiz hi. Patxi Zubizarreta

**2** (izenondoekin)

Bizikleta gainean eserita zegoen, **lokatz** distiratsuan. Josu Zabaleta

Orduan, Frantziskok, jadanik diruaren benetako arbuiatzaile zenak, leiho batera jaurti zuen, **lokatz** zikina balitz bezala mespretxatuz. Askoren artean

Ur goraldiaren sasoian **lokatza** lodia pilatzen baitzen ibai ertz hartan. Karlos Zabala

Maiz ikusten baitugu haizeek gau bakarrean bideak hehortzen eta **lokatz** biguna azal-gogortzen dutela. Xabier Amuriza

Hurbiletik, edabeak **lokatz** sendo iluna ematen zuen, astiro-astiro borborrean. Iñaki Mendiguren

**3** irud/hed

Biolentziak odoleztatzen du gure herri hozkatua, gure gizartea, eta gero eta orakatuago uzten gaitu hiritar guztiak **lokatz** gorri horretan. Pello Salaburu

Izan ere, mende bukaeran, **lokatz** eta lohi honetan sarturik gaudela, ez da ikusten irtenbide errazik. Pello Salaburu

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lokatz** kolore arre hura. Xabier Mendiguren Elizegi

**Lokatz** plastaz beteta genitian berokiak eta jantziak. Josu Zabaleta

Praka beltzak eta bota are beltzagoak, **lokatz** zipriztinak gorabehera, praka barreneraino sartuak. Javi Cillero

Ur tanta batean birrindurik biraka ari den **lokatz** bikor honetan. Josu Zabaleta

Oinak **lokatz** zangatan hondoraino sartuz. Josu Zabaleta

Guinsaugon herria lurperatu duen **lokatz** oldean harrapatutakoak 1.500 eta 3.000 bitartean dira. Berria - Mundua

**Lokatz** putzu batean urtzen ari balitz bezala. Juan Garzia

46 hildako eta bizirik irten ziren 57 pertsona atera zituzten **lokatz** metatik. Berria - Mundua

**5** ik **lohi 7.**

Gaur egun Añorgan erretzen dituzte **lokatz** horiek. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lokatz artetik** (3); **lokatz gehiago** (3); **lokatz pixka bat** (3)
> **kaleetako lokatza** (4); **kaleko lokatza** (5); **kaleko lokatza bezala** (4); **lokatza jaurtitzen** (3)
> **lokatzaren azpian** (5)
> **lokatzetan sartu** (3); **lokatzetan sartuta** (3)
> **lokatzez beterik** (5); **lokatzez beteta** (7); **lokatzez zikindu** (3); **lokatzez zikindurik** (3)

---

**lokatza** *iz* lokaztia.

Ur lasterrak berehala irentsi zuelarik, **lokatza** azpian lurperatuta gelditu zen hilda. Askoren artean

**Lokatzan** gogotik zegoen sartua gurpil abatzetaraino. Karlos Zabala

Frantzisko dohatsuaren laguntza eskatu ondoren, lortu zuen haurraren gorpua aurkitzea, hilobi batean bezala **lokatzatan** sartua. Askoren artean

---

**lokazti** **1** *iz* lokatz asko dagoen tokia. ik **basatza.**

**Lokazti** batean trabatu zela. Anton Garikano

Eta barkatzeko kuxidade hura, atariko **lokaztia** eta bertako lahar eta asun ugariak, baina lan handiegia zela etxea irentsi gabe basoari eustea. Hasier Etxeberria

Egiaztatu ere bai nik neure sonbreilua galdu berria nuela: han zetzan, galtzadako **lokazti** arrean, pneumatiko batek zeharo birrindua. Joxe Austin Arrieta

Zirkuituaren albotik pasatzen da ibaia, eta zenbait tokitan **lokazti** handi samarrak daude. Berria - Kirola

Paduretako **lokaztiak**, espermatozoidez eta obuluz beteta egoten dira ekainean, eta erraza izaten da, jakin eta gero, horri erreparatzea: **lokazti** beltzaren gainean, dena estaltzen duen geruza zuri bat agertzen da ekaineko ilbetean. Hasier Etxeberria

**2** irud/hed

Dena zen posible politikaren **lokaztian**. Migel Angel Mintegi

Izan ere, Irakeko egoera Vietnamgo **lokaztiaren** antz gero eta handiagoa hartzen ari dela gero eta nabarmenagoa da. Berria - Mundua

---

**lokaztu**, lokatz/lokaztu, lokazten **1** da/du *ad* lokatzez bete.

Aguilera estadio nagusiaren alboan egin zuten prestaketa saioa, berdegunea **lokaztu** ez zedin. Berria - Kirola

Zeren iturri zaharrari zeriòn betiko ur gardena, ene imajinazinoaren lurretarat heldu bezain fite, lohitzen eta **lokazten** baitzen. Joan Mari Irigoien

Gona ez **lokazteko** altxatu egiten duen emakumearen moldez jokatzen zuen. Karlos Zabala

**2** irud/hed

Lanbidea galdu duzu, zure izena **lokaztu**, lagunek saihestu egiten zaituzte, Torrance Road-en ezkutatzen zara lepoa oskoletik ateratzeko beldurrez dagoen dortoka baten antzera. Oskar Arana

Bilbo Basketek aurreneko bi laurdenetan eginiko lan txukuna **lokaztu** du bigarren zatian. Berria - Kirola

Hirira sartu zenean, jendearen ibiliak **lokazturiko** zubi eta kaleetan egin zuen goiz osoa. Anjel Lertxundi

Gelara itzuli zen, oinetakoak **lokaztuta**. Juan Kruz Igerabide

**2** (era burutua izenondo gisa)

Lisa, berriz, salmahaian, haserre, Florenten oinetako **lokaztuak** zoladura zuri-arrosa zikintzen ari baitziren. Karlos Zabala

Ez zekien alabari nondik oratu, hainbeste nazka ematen zioten botin **lokaztuek**, galtzerdi zikinek, gona urratuak, esku eta aurpegi belztuek. Karlos Zabala

Hhanka-puntetan orain, salto txikiak emanez gero, tarte **lokaztuak** saihestuz egin genuen Ingoren hilobirainoko bidea. Anjel Lertxundi

Denboraren bide **lokaztuak**. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bide lokaztuan** (4); **zelai lokaztuan** (3)

---

# lokera *iz* lotzeko era, lotura.

Bi katekorratz topatu zituen kapan, eta haiekin eutsi zion larrialdiko **lokera** hari, batere lan samurra ez eskumuturrak elkarri estekatuta daudenean... Anton Garikano

Buruak egiten dizkigun **lokerak** harrigarriak zaizkigu sarritan. Xabier Mendiguren Elizegi

**Lokera** askatuko ote zaizun beldurra? Anton Garikano

---

# loki 1 *iz* buruaren alboko aldea, bekokiaren, belarriaren eta masailaren artekoa. ik **baldoki**.

Burua makurtu zuen, eskuak **lokien** kontra estutu zituen, buruari eragin zion. Koro Navarro

Hatz erakusleekin **lokiak** estutuz. Oskar Arana

Gizonak emakumea jo zuen eta errebolber bat ipini zion **lokian**. Koro Navarro

Jonek berak eman zion Browningarekin azken tiroa **lokian**. Jokin Muñoz

Pizzi hil zuen tiroa **lokitik** sartu zitzaiola, balaren kalibrea Pizzik eskuan zuen errebolberraren berbera zela. Koldo Biguri

**Lokiak** taupadaka zituen. Lopez de Arana

Odolak nire **lokiak** mailukatzen zituen. Juan Martin Elexpuru

**Lokiak** estuturik nituen, bihotza ito beharrean zebilkidan taupadaka. Josu Zabaleta

**Lokietako** zainak, guztiz irtenak, lehertu beharrean zeuzkan. Anjel Lertxundi

Ohitu egin nintzen dutxa hotza hartzera eta **lokietako** sastadei jaramonik ez egitera. Anjel Lertxundi

**Lokietako** izerdia lehortzen zion. Lopez de Arana

Haren **lokietako** xerloak beste inorenak ez bezala kizkurtzen ziren. Koro Navarro

Bizkarrezurra makurturik, urdaileko goragalea **lokietaraino** igotzen zitzaiola. Karlos Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Gero hiru barrunbeak zabaldu ziren, eta burezurraren haustura aurkitu zen; bekoki aldea eta **loki** aldea hartzen zituen, eta hark ekarri zion heriotza. Josu Zabaleta

Puntu horri dagokionez, garrantzizkoak dira **loki**-lobuluak (belarrien eta bekokiaren artean daudenak). Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lokiak igurtzi** (3); **lokiak taupadaka** (3)
> **ezkerreko lokian** (3)
> **lokietako xerloak** (3)

---

# lokia *iz ipar* heldulekua.

Jauzi bat egin besoak luzatuz eta eri bat sartzen dut sarearen ziloka batean, baina gorputzaren pisuak eri punta segatzen dit eta **lokia** utzi behar dut... Filipe Bidart

Bizi molde sanoak, janari orekatuak eta kirol mugimenduek **lokia** gutiago uzten diotela eritasun horri iduri du. Herria

Prodi kontrarioak ere badu hor **lokia**, protesta egiteko ez direla bozkatze moduak aldatzen azken sei ilabeteetan. Herria

Horiek hola, gezurrak ere badu maiz egian bere **lokia**. Herria

---

# lokomotiba *iz* lokomotorra.

**Lokomotibaren** lehen puzkerrak eta dardarak hasi ziren, trenaren lehenbiziko xistu luzeek bidaia hasiko zela seinalatu zuten. Eneko Bidegain

Gostaia den garaipena dudarik gabe baina ez duguna gutietsiko, joan den larunbatean senditu duguna "Baiona" deitu **lokomotiba** geltokian sartzen ikustearekin. Herria

---

# lokomotor *(orobat **lokomotora** eta **lokomotore** g.er.)* 1 *iz* gurpil gaineko makina, trenaren bagoiak atzetik daramatzana.

400 zaldiko **lokomotor** pila bat. Pello Zabala

Berriz ere martxan jarri zen **lokomotorra**. *Team* konpainiak 12 **lokomotor** egingo ditu Euskotrenentzat. Koro Navarro

Andrea, trenbidea gurutzatzen hasi zela, Kingstowndik zetorren hamarretako trenaren **lokomotorrak** jo eta bota zuen James Lennon-ek, **lokomotorreko** gidariak, esan zuen hamabost urte zeramatzala trenbide-konpainian enplegatu. Irene Aldasoro

Tren-gidariak doi-doi lortu zuen **lokomotora** geratu eta metal zati hura saihestea. Harkaitz Cano

Konboiaren muturrean zegoen **lokomotora** zaharrera. Koldo Izagirre

Laster ezkutatu zen gizenkotea bihurgune batean, ikatzezko **lokomotora** zaharrak tuneletan ezkutatzen ziren bezala. Berria - Kultura

Sartzen ari ziren **lokomotoren** ziztua. Matías Múgica

Hamar minutu egiten zituen geltokian, **lokomotorak** ura eta gidariak zerbeza hartzen zuten bitartean. Pako Aristi

**Lokomotorraren** kolpe-babesgarriak jo eta lurrera bota zuela emakumea. Irene Aldasoro

**2** irud/hed beste parteei tira egiten dien zatia.

Alemania azkenik hazkundearen **lokomotorra** bihurtu zen Europako gainerako lekuentzat; inportazioen hazkundearen erritmoa, bolumenean, urteko %10 ingurukoa zen. Koro Navarro

Aste honetan bi mugimendu arriskutsu etorri dira, EBren **lokomotora** osatzen duten bi estatuetatik. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lokomotoretik askatu ziren** (4)

---

lokomotora ik **lokomotor**.

---

lokomotore ik **lokomotor**.

---

**lokomozio** *iz* leku batetik beste batera mugitzea.

30 eta 45 urte bitarteko pertsonen %24,6k arazoak dituztela **lokomozio**-aparatuan. Berria - Gaiak

Bere eginkizuna betetzeko, **lokomozio** modu arin bat bereganatu behar zuen Krasnoiarsken. Karlos Zabala

Maitemintzen al dira oraindik gazteak, ala, mekanismo hori dagoeneko obsoleto bihurtu ote da, alferreko, atzeratua, lurrunezko **lokomozioaren** moduan? Oskar Arana

---

lokots ik **lokotx**.

---

**lokotx** *(orobat* ***lokotxa*** *g.er. eta* ***lokots*** *g.er.)* **1** *iz* aleak kendu zaizkion artaburua.

Arta **lokotsez** egindako lastaira baten gainean. Josu Zabaleta

**2** (herri kirolean erabiltzen dena; ik beherago **4**)

Bizkaitarrak bi kiroletan gailendu ziren: sokatiran eta **lokotx**-biltzen. Berria - Kirola

**Lokotx**-biltzen zortzi kirolari ariko dira, eta 50 **lokotx** saskiratu beharko dituzte. Berria - Kirola

**Lokotxetan** Onandi bizkaitarra eta Etxegarai nafarra dira indartsuenak. Berria - Kirola

Binaka aritu ziren lanean, eta 50 **lokotxak** biltzen lehena Julen martiartu izan zen. Egun Euskal Herrian diharduen **lokotx**-biltzailerik onenetakoak irabazi du aurtengo Nafarroako Txapelketa: Fernando Etxegaraik. Berria - Kirola

Segalari, aizkolari, zakulari, lasto altxatzale, orga altxatzale, harri altxatzale, arto burutxa edo **lokotxa** biltzale, esneketari eta beste, zonbat kirolari mota joko zaharren sail aberats hortan! Herria

**3** (kotoiarena)

Eskuinera egin genuen auto gurpilen arrasto zahar batzuei jarraituz, gerriraino iristen zitzaigun kotoi sail bat gurutzatuz, **lokots** lehorrek, guk bultzaka apartatu ahala, karranka haserrea ateratzen zutela zurtoinen muturretan. Koro Navarro

**4** ***lokotx apustu*** lokotxekin jokatzen den jokoa.

Bertan, ezinduek gizon probetan, **lokotx** apustuan edo trontzan aritzeko gai direla erakutsiko dute. Berria - Kirola

**5** ***lokotx biltze*** lokotx biltzean datzan herri kirola.

Zazpi kirol hartuko ditu: **lokotx** biltzea, ingude altxatzea, txinga eroatea, harri-jasotzea, lasto altxatzea, orga jokoa eta zaku lasterketa. Berria - Kirola

Proba konbinatuak, **lokotx**-biltzea, txinga-eroatea, zaku-eramate lasterketa, arpana eta korrika hartzen ditu. Berria - Kirola

**Lokotx**-biltze txapelketa izan zen lehena, eta zortzi kirolari lehiatu ziren. Berria - Kirola

Etxegaraik Euskal Herriko marka ondu du **lokotx**-biltze proban Nafarroako Jokoen Torneoan . Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lokotx biltze proban** (3); **lokotx biltzea** (9); **lokotx biltzen** (8)

---

lokuluska ik **lo 23**.

---

lokuluxka ik **lo 24**.

---

lokuma ik **lo 25**.

---

lokumatxo ik **lo 26**.

---

**lokutibo** *izond* lukuzioarena, lokuzioari dagokiona.

Esaldi deklaratiboek Austinek zerrendatutako hiru alderdiak izan ditzakete: eduki **lokutiboa**, indar ilokutiboa (baieztearena), eta ondorio perlokutiboak (norbait konbentzitzea, esaterako). Askoren artean

Esaldiaren edukia, halaber, eduki **lokutiboa** da. Askoren artean

---

**lokutore** *iz* esataria.

Batzuetan elurrak bideak ixten ditu, eta, irratiko **lokutoreek** esaten duten bezala, "kaos bat" bihurtzen da dena. Bernardo Atxaga

**Lokutoreak** galdetzen bazuen esaten genion, hau Gelatxorena da, hau halakorena da, baina bestela ez, eta pieza hura Martinen pieza bihurtzen zen. Pako Aristi

---

**lokutorio** **1** *iz* mintzategia. (telefonoz deitzeko)

Gaur bertan **lokutorioko** senegaldarrari erosi diot tabakoa. Urtzi Urrutikoeetxea

Plastikozko zorroan esku koipetsuak sartu eta jan irten dira mutikoak **lokutoriotik**. Urtzi Urrutikoeetxea

Herri batzuetan **lokutorioak** jarri zituzten, eta **lokutorio** horiek zeuden etxeetan, gehienetan bai behintzat, edaritegia izaten zen. Pako Aristi

**2** (espetxeetakoa)

**Lokutorio** luze bat burdin-sarez, bai familiakoak zeuden aldean eta bai presoak zeudenean, eta erdiko pasilloan kartzeleroak. Jokin Urain

**Lokutorioetara** eraman ninduten, presoarengana. Iban Zaldua

Goiz batean nirea ez zen ohe batean esnatu nintzen: ahots irmo batek bizkor janzteko eta **lokutorioetara** joateko agindu zidan. Iban Zaldua

Oraingoz behintzat **lokutorioan** euskaraz egiten uzten digute, beharbada esaten dugun guztia grabatu egiten digutelako. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan)

Afrikarren telefono **lokutorioan** bidaiarako gozokiak erosi eta markesinan dagoen jende artean aurkitu du txokoa. Urtzi Urrutikoeetxea

---

# **lokuzio** **1** *iz* hitz egitea; mintzatzailearen jarduera.

Ez da bilatu behar enuntziatuan batasun luzea edo laburra, sendotasunez edo ahultasunez egituratutakoa, baizik eta besteak bezala lokailu logiko, gramatikal edo **lokuziozko** batean hartua. Xabier Arregi

**2** esapidea.

Baina "zaldaleak irabazi" **lokuzioa**, bestelako testuinguruetan ere aditu izandu dut, berezko zentzurik galdu gabe. Patziku Perurena

Hizkuntzek esamolde bereziak dituzte: **lokuzioak**. Iñaki Arranz

Behin batean, hurrengo klaserako latinezko **lokuzio** bana agindu zigun. Joseba Sarrionandia

**3** (hitz elkartuetan)

Gezurretako aditz erabilerak (adizki soilak baztertu eta kate luze bihurtzen diren aditz **lokuzio** horiek guztiak). Iñigo Aranbarri

---

# **loleku** *(orobat **lo-leku**)* *iz* lo egiteko lekua. ik **lotoki**.

New Yorkera etorri zenean otorduak eta **lo-lekua** disketxeak ordaintzen zizkion, eta hori bukatu zenean noraezean geratu zen. Harkaitz Cano

Izkina batean antolatu genion, belar-pila baten gainean, obispoari **lolekua**, eta harengandik ez urruti eseri ginen geu ere. Inazio Mujika Iraola

Ezagun batzuk uzten zidaten **lolekua**. Arantxa Iturbe

**Loleku** baino ikasleku bihurtu nuen hura ere. Arantxa Iturbe

Asaldura handia dago kanpamentuko bidexka estuan, zeina alde bietatik hiru mailako kutxaz inguraturik dagoen, hemen Box deritzenak: gure **lo-lekuak** dira. Urtzi Urrutikoetxea

---

lolo[1] ik **lo 26**.

---

# **lolo**[2] *izond* ergela.

Deabruak haramala, ergel **lolo** hori...! Hargatik sentikortu eta anaiarekin muturtu egin behar nuela, eta ez memelo eta **lolo** ezdeus bat bezala geratu. Joan Mari Irigoien

---

# **lona** **1** *iz* belakia, olana.

Bi gau eta egun bat behar izaten genituen, kanpoko deus ikusi gabe, **lona** batez estalita. Pablo Sastre

**Lonazko** zapata zurietan. Ramon Saizarbitoria

Botilaz beteriko kaxa handi batzuk eta **lonazko** poltsa batzuk trakesten zuten zoko bat. Juan Garzia

· Barregarria ere bazen sukar hura, barre egin zuen kapitainak pentsatuz Nemesio Arozenak usteko zuela **lona** batean bilduta hondora jaurtiko zutela gorpua. Koldo Izagirre

**2** (boxeo borrokaldi bateko zorukoa)

Zurrutas-ek ez zuen **lona** gainera irteteko asmorik agertu, baina Joseluk norbait besarkatu beharrez besotik tira egin zion prestatzaileari.· Lehen faxistak **lonara** KO botatzeko zorian izan ditiagu, eta orain... Josu Landa

---

# **lonape** *iz* olana azpiko babeslekua.

Hargintzan jardun behar zutenak ilara utzi eta ibaian lotua zegoen gangileko **lonapera** jaitsi ziren lanabesak hartzera. Koldo Izagirre

---

# **lonbardiar** **1** *izlag/iz* Lonbardiakoa, Lonbardiari dagokiona, Lonbardiako herritarra.

Matteo Fagninik adio esan dio aurtengo Tourrari, Domina Vacanzeko txirrindulari **lonbardiarrak** lepauztaia apurtua izan baitezake. Berria - Kirola

**2** VI. mendean Italiako iparraldea inbaditu zuen herri gemaniar batekoa.

Liutprando **lonbardiar** gotzainak Konstantinoplan izandako eginkizunaren kontaketa. Iñaki Mendiguren

Chiquerello **lonbardiarra**, zeinak san Anton sua sendatzen irakatsi baitzion Justinianoren erreinuaren ondoren **lonbardiar**, eslaviar eta arabiar inbasioen uholdea etorri zen laster. Juan Garzia

Bisigodoek, burgundiarrek eta **lonbardiarrek** beren erresumak sortu zituztenean. Iñaki Iñurrieta

Nola iraun zuen erromatar zuzenbideak **lonbardiarren** mendeko lurraldean. Iñaki Iñurrieta

Bestalde, **lonbardiarren** legeak ez zuen erromatar zuzenbidearen dotorezia hura. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lonbardiarren legeak (8); lonbardiarren legean (4); lonbardiarren legeari (4)

---

# **londrestar** *izlag/iz* Londreskoa, Londresi dagokiona; Londresko herritarra.

Greg Coates **londrestarra** zen, eta Abigail Kutz andereñoa Yorkshiren jaioa. Joxemari Iturralde

Emmaren begirada paisaia **londrestar** hartatik harago zihoalakoan zegoen. Lutxo Egia

**Londrestar** batek, bere jaiotza, jaio zen urtean hirian alkate zen handikiaren izenaz datatuko balu bezala. Iñaki Mendiguren

Bat-batean gogoratu zen ezen gau batean *music-hall*eko artista haietako batek, **Londrestar** txiki ile-hori batek, Pollyren aipamen lotsagabe bat egin zuela. Irene Aldasoro

Galderren belarriek ozta-ozta jasaten zituzten **londrestar** ile-laburren arrantzak. Lutxo Egia

---

# **loneta** *iz* belaki mehea.

Beste abantaila batzuk ere baditu **lonetak**, [...]: «Ikusi dut irtenbide komertziala ere izan dezakeela euskarri horrek, gazteentzat batez ere, olio bat edo bestelako margolan bat

baino errazago eros daitekeelako». Berria - Kultura

Zurda zurruneko eskuila eta baldea lurrean utzi eta soka bati tiraka altxatu zuen zaldi-karrusela estaltzen zuen **loneta**, antzoki biribil bateko erridaua bailitzan. Harkaitz Cano

Panpina-tiro postu itxiak, **lonetaz** estalitako zaldi-feria geldiak. Harkaitz Cano

**Loneta** astintzen zuen haizea zen han mugitzen zen bakarra. Harkaitz Cano

---

# longain 1 *iz* kapa mahukaduna.

Larruzko txanoa buruan, galtza eta bota beltzak, atorra hori lepo-itxi bat, eta gainean **longaina**, kanpotik urdin eta barrutik zuri. Felipe Juaristi

Memo kartzelazaina [...] belaunetarainoko orein-larruzko **longain** batean bildua zegoen. Fernando Rey

**Longaineko** botoiak lotu, galtzetako hautsa astindu. Karlos Zabala

Botoi bat daukak **longainan** goregi jarria. Xabier Olarra

Ondo loturik daramagu **longaina**, belarrietaraino sarturik txanoa. Jose Morales

**Longaineko** sakela batean. Karlos Zabala

Oinetatik bururaino jantzirik lo egiten zuen, **longaina** bera ere erantzi gabe. Jose Morales

**Longain** bera jantzi zuen zortzi urtean. Karlos Zabala

**Longainak** zabaltzen dituzte larruaren koloreko lurraren gainean edo suharri gorrien gainean, eta borobilean esertzen dira. Fernando Rey

## 2 (izenondoekin)

Lekaio bat zihoan damarekin, lepo ugariko **longain** dotorea soinean eta urrezko galoi batez apainduriko kapelu biribil distiratsua buruan. Jose Morales

Prozesioan joaten zen dotore erregea, koroa eta **longain** urdina jantzita. Patziku Perurena

Bere **longain** militarraren lepoa jasota eta egunkari bateko lan sailari so. Lopez de Arana

Argi dute "goi mailako" norbait izan zela, **longaina** eta kapela altua direla-eta. Monika Etxebarria

Txamar eta **longain** ilunaz jantzirik. Txillardegi

Hotzago eta zakarrago jotzen du haizeak: estuago lotu behar **longain** berogarria!... Jose Morales

**Longain** higatuaren papar hegalak zeharo irekiak zeramatzan. Karlos Zabala

## 3 irud/hed

Gauez izarren soinuarekin batera, azerien eta lehoien orroak iristen zitzaizkien, orpoz orpo segika zituzten soldadu etsaien barreekin nahaste, baina beltza zen gauaren **longaina** eta babes emailea. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> longainak zabaltzen dituzte (4)

---

# longaindun *(corpusean **longainadun** soilik)* *izlag* longaina duena.

Nathanielek ez zuen Bostongo tertulietan modan zegoen galaitasunezko bizimodu dotorerik kontatu nahi, ez zuen bostondar burges **longainadun** puritanoen belarririk gozatzeko asmorik. Anjel Lertxundi

---

# longitude *iz* Lurraren gainaldeko leku bateko meridianoak oinarrizko meridianoarekin eratzen duen angelua. ik **luzera**[1] 2.

Errusiako lurraldea Europan, Asian, Amerikan hedatua duzu, ekialdeko **longitudeko** 15. gradutik mendebaldeko **longitudeko** 133.eraino eta hegoaldeko 38. paralelotik iparraldeko 91.eraino, hau da, ia 200 gradu ezker-eskuin eta 43 gradu goitik behera. Karlos Zabala

Kartagotarrak aberastasunen bidetik zebiltzan eta, ipar latitudeko laugarren graduraino eta **longitudeko** hamabosgarreneraino iritsi balira, Urrezko kosta eta ondoko itsasbazterra aurkituko zituzketen. Iñaki Iñurrieta

Zero graduko **longitudea** Greenwichen finkatzea. Joseba Sarrionandia

---

# longobardotar *izlag/iz* lonbardiarra (bigarren aduieran)

VII. mendean, 663an justu, **longobardotarrak** egundoko garaipena lortu zuten, Siponto itsasoan, sarrazenoen aurka. Pello Zabala

---

# lonja 1 *iz* porturatzen den arraina enkantean saltzeko eraikina.

Herrian alturako **lonja** berria egiteko premia. Berria - Euskal Herria

Bertan, arrantzarako alturako **lonja** eraikitzeko asmoa zeukaten. Berria - Euskal Herria

**Lonjan** «nahi baino berdel gutxiago» erosten dute handizkako saltzaileek, eta kofradiak 2.500 tona inguru izozten ditu urtero-urtero, gerora merkatua hornitu ahal izateko. Berria - Harian

Arrainak orain 20 urteko prezio bera dauka **lonjan**. Berria - Harian

**Lonjan** sei euro eta arrandegian halako bi pagatu behar aspaldiko mokadurik desiratuena dastatzeko. Berria - Ekonomia

## 2 lokala, zabala dena batez ere.

Sasoikako langileen hamarretik zazpi **lonja**, biltegi, pabilioi edo bordetan hartzen dute ostatu Araban daudenean. Berria - Ekonomia

Gazteen **lonjak** edo lokalak Udalak nola kudeatzen dituen azaltzen du. Berria - Euskal Herria

## 3 azoka.

Kataluniako eta Aragoiko ganadu pila saltzen dute Binefarko **lonjan**: «Modu intentsibo batean gizendutako ganadua da hori, haragiaren prezioa merketu ohi du eta, tamalez, aratxearentzat kalte da, **lonja** horretako prezioak erreferente baitira Nafarroan. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> alturako lonja (3)

---

# look *iz* janzkeraren eta apainkeraren itxura, irudi jakin bat lortzeko erabiltzen dena.

Kondairak dioenez, kartzelaratuak izaten ziren beltzek sortu zuten galtza zabalak arrastaka eraman eta lokarririk gabeko oinetakoak janzteko moda, gaur egun hip-hoparen jarraitzaileek duten **looka**. Harkaitz Cano

-Utz, gustatzen zaidak **look** berria. Aingeru Epaltza

Banekien neska esnob bat zela, eta nabarmentzeko zernahi egiteko gai zela, noiznahi aldatzen zuèn bere **look** -a edo bere janzkera hura lekuko. Joan Mari Irigoien

Historia postmoderno bat kontatu behar bazen, neskak berera erakarri beharko zuen mutila, koketo bihurtu, **look** -a aldarazi. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**lopide** *iz ipar* heldulekua.

Iñaki Etxelekuk ez zuen **lopide** txarra. Berria - Euskal Herria

Hori izan zuen **lopide** Paueko auzitegiak, eskariari jarraipenik ez emateko. Berria - Euskal Herria

---

**lor 1** *iz* zama.

Izan ere, hain da hori **lor** astuna ene gogo-aldartean, ezen egitura ikusgarri hau, lurra, tontor antzu halako bat baitzait iruditzen. Juan Garzia

Gizon zuhurregia zen emakume baten **lorra** bere gain hartzeko. Juan Garzia

Etxeko neke eta **lorrak** lazgarriak direla, begi-bistan osterantzekorik ez denean betierekotasuna baino. Andres Urrutia

Etxeko **lorrak** jasan. Andres Urrutia

**2** (izenondo gisa)

Denborarik gabeko helmuga berera garamatzaten bide malkorrak, bide makurrak, bide **lorrak** . Felipe Juaristi

**3** ***lorrean*** *adlag* herrestan.

Badirudi **lorrean** garraitzen den gauza orok uzten duela lorratza. Patziku Perurena

**4** ***sor eta lor*** *adlag* guztiz harriturik, txunditurik.

**Sor eta lor** gelditu ziren anaiak, gertatua mirari handitzat hartuz. Askoren artean

Besteak **sor eta lor** geratu ziren haren erantzun zakarraren aurrean, zer esan ez zekitela. Irene Aldasoro

**Sor eta lor** zeuden Masondarrak egongelara eraman zituen atzera. Iñaki Mendiguren

**Sor eta lor** nengoen ni, horrelakoak ikusita. Joxan Elosegi

Harri eta zur, **sor eta lor** , denbora arin pasatzea nahi zuela aurkitu zuen bere burua. Jon Alonso

---

lora ik **lore**.

---

**loraberritu,** loraberri(tu), loraberritzen da *ad* landereak loreak berritu.

Bizia bere baitatik indarra ateraz atzera **loraberritzen** hasi dela salatzen aurrendari izateagatik. Patziku Perurena

---

**lorabitxi** *iz*

Eta ni, Espainiaren **lorabitxian** , Filipinetan jaioa banaiz ere, Bizkaiko sabelak ekarri ninduen mundura, eta alde bietatik euskal odoletik ernatua izan nintzen. Berria - Kultura

---

**loradenda** *(orobat **loredenda** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **loradenda** agertzen da)* *iz* loreak saltzen diren denda.

Egongelako loreak ihartzen zirenean, sekula ez zitzaion ahazten **loradendan** sartu-irtena egitea biharamunean. Mirentxu Larrañaga

Behin kalean, **loradendara** joan eta lau arrosa erosteko behar zuen. Jon Alonso

Arrosa bat erostera joan zen Elosegiren **loredendara** . Berria - Kultura

Hura **loradendako** mutila zela eta ez zuela errurik esaten genion. Ramon Saizarbitoria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **loradendako kaxa** (3).

---

loradun ik **loredun**.

---

**loragintza** *iz*

Emaztea osatzeko kultura behar da; gizartearen espiritua esaten diogun **loragintza** hori, eta barka ezazu hitza. Koldo Izagirre

---

**lorail** *iz* maiatza.

Dena den, lore pollitak landatu ditugu **loraila** haste huntan, gure etxe aintzin eta xoko batzuetan. Herria

Zerbaitengatik izango da bada, maiatza, **loreila** , urteko sasoirik ederrena, edo ez? Pako Aristi

Maiatzak badaki, eguna eguzkiak berak aski luzatu diolako, batetik, eta uda bideko malkarra pasatuxea ere baduelako bestetik, badaki **lorail** honek azaleko mapen egoera aprobetxatu eta bero dezentekoak ekartzen. Pello Zabala

---

**loraldi 1** *iz* loratzea.

Ezpondan, astakarduak eta ihintz- **loreak** loraldi bete-betean zeuden. Ibon Uribarri

Mahatsa bildu baino lehen, **loraldia** igaro eta mahats-alea heltzen hastean, kimu berriak moztu egin ohi dira inauskaiaz, moztu eta bazterrera bota. Elizen arteko biblia

**2** irud/hed

Bizitzako **loraldian** zaudenean, zahartzaroko egunak kontuan izan behar dira. Juan Kruz Igerabide

Iparraldean euskal letren **loraldia** gertatuko da XVII. mendean. Askoren artean

Literatura baten **loraldietan** itzulpenak berez datoz, gorputzaren ondoren isatsa datorren bezala. Anjel Lertxundi

Irudi du **loraldi** bat izan zuela leku honek, paseolari maiteminduentzat pentsatua baitirudi kanpoko parkeak. Edorta Jimenez

Gizarte softwarearen **loraldiaren** urtea izan zen 2005ª. Berria - Gaiak

Oraindik beste **loraldi** bat izan zuen bere senarraren miresmenean. Pako Aristi

San Frantziskoren Ordenari buruz ari da, bere **loraldi** eta gainbehera-aldiekin. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan)

Baina guri literatur **loraldia** letren mundua uzkurtzen hasi den garaian heldu zaigu. Berria - Kultura

«Atentatu terroristak», ekonomia **loraldiaren** etsai. Berria - Ekonomia

---

# lorapuztu *izond adkor* puztua.

Eta hala ere hobe zen topikoetan babeste hori, ezen ez beste alemanen bihurri-lausotasun **lorapuztua** baino. Juan Garzia

---

# lorarazi, loraraz, lorarazten du *ad* loratzera behartu.

Nik, oraino herabe, irri xaloa **lorarazi** nuen neure ezpainetan. Jaunarenganako begirunea da jakinduriaren koroa, bakea eta osasuna **lorarazten** dituena. Aingeru Epaltza

Izan ere, ustelkeria **lorarazi** duen merkatu librearen sostengatzaile sutsua da. Berria - Mundua

Sakristaua pauso beti berdinez joaten da, ikusten ez duen eliza batean, eta pozik dago argimutilak banan-banan **lorarazirik**. Josu Zabaleta

---

# lorategi *(orobat **loretegi** g.er. eta **loretei** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lorategi** agertzen da)* **1** *iz* lore apaingarriak hazten diren eremua, lore baratzea.

**Lorategi** hartan magnolia eta ezki handiak zeuden, sasizko hesi batek inguratuta.Ez zen hura, inola ere, Orsini dukearen aginduz Bomarzon eraikitako **lorategia**. Koro Navarro

Gaua epela zen, balkoiak **lorategira** ematen zuen eta loreen usaina sarkorra izan, ihazmin eta kameliarena. Felipe Juaristi

Txaloak zaparradaka erori ziren patio gotikoko **lorategi** krabelin xuriz betean. Karlos Linazasoro

Han bizi zen, amarekin, **lorategia** zaintzen, paseo luzeak ematen. Iban Zaldua

Damian **lorategian** zegoen chaise longue batean etzanda. Hasier Etxeberria

Zinez atseginak diren Edengo **lorategiak**. Berria - Kultura

Belvedereko **lorategian** egon nahi zenuke amarekin, urarekin, jolasean. Lourdes Oñederra

Paseo luzeak ematen zituen Kensington **Lorategietatik**. Julen Gabiria

**2** (izenondo edo izenlagunekin)

**Lorategi** handi bat zuen, mundu bazter guztietako zuhaitzak zituena, eta han, lorez egindako muino baten gain-gainean iturri bat zegoen, sagar ura zeriona. Felipe Juaristi

Anaia baratzezainak baratzearen zati bat **lorategi** eder bihurtu behar zuela, eta bertan usain gozoko belar eta lore ederreko landareak aldatu. Askoren artean

**Lorategi** atsegingarriak landatzen dituzu eta kanpoko landare-haziak ereiten. Elizen arteko biblia

Errusiako lurjabeen **lorategi** ingelesetan. Jose Morales

**Lorategi** publikoko hesiaren ondotik nindoalarik. Monika Etxebarria

Alargundu zenean, Babiloniako **lorategi** eskegiak eraikiarazi zituen. Koldo Izagirre

Fakultateko **lorategi** zaharrean zehar nindoan oinez, eta han zen emakume gazte hura, Isaacs andereñoa, hala suertatu zen. Oskar Arana

Alemaniatik Parisa joan nintzen gero, eta han sei hilabetez gelditu, **Lorategi** Botanikoa taxuz antolatzeko agindu baitzidaten. Felipe Juaristi

Antzinako greziarrekiko bere maitasuna ere, dio Hannak, Ingeles **Lorategian** erne zitzaion. Joxe Austin Arrieta

**3** (hitz elkartuetan lehen osgai gisa)

**Lorategi** zainaren aihotz zorrotzak etengabe ezartzen zituen lerroan adar itxitura haiek. Josu Zabaleta

Han zegoen **lorategi** lanetarako jantzi ohi zuen sira gris zaharra. Anton Garikano

Stanley garajera presatzen da guretzat **lorategi**-aulki batzuk ekartzera. Oskar Arana

Aste betez luzatu zen otordua antolatu zuen erregeak bere jauregiko **lorategi**-atarian. Elizen arteko biblia

Poliziak hiru orduz itxi zituen **lorategi** inguruak eta herriko hainbat kale. Berria - Euskal Herria

**4** literatura zati hautatuen bilduma.

Karmelo Etxenagusiaren *Euskal Idazleen **Lorategia***. Berria - Kultura

Filosofian *Zeruko atea, Jakintza bildua, Izenaren liburua* eta *Pentsaeraren **lorategia*** izeneko liburukiak argitaratu zituen. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erregearen lorategi ondoan** (3); **lorategi botanikoan** (3); **lorategi eder** (8); **lorategi eta guzti** (4); **lorategi publikoa** (4); **lorategi publikoan** (3); **lorategi publikoko** (3); **lorategi txiki** (8); **lorategi zabal** (3)

**etxea eta lorategia** (8); **lorategia ikusi** (3)

**kensington lorategiak** (3); **luxenburgoko lorategiak** (3)

**etxe aurreko lorategian** (3); **etxeko lorategian** (7); **ingeles lorategian** (4); **kanpoko lorategian** (4); **lorategian barrena** (11); **lorategian bizi** (4); **lorategian eserita** (5); **lorategian sartu** (5); **lorategian zehar** (4)

**etxe aurreko lorategian** (3); **etxeko lorategian** (7); **haren lorategian** (4); **ingeles lorategian** (4); **kanpoko lorategian** (4); **lorategian barrena** (11); **lorategian bizi** (4); **lorategian eserita** (5); **lorategian eta** (3); **lorategian ez** (3); **lorategian nengoen** (3); **lorategian sartu** (5); **lorategian zegoen** (3); **lorategian zehar** (4)

**lorategietako lore** (3)

**kensington lorategietan** (7); **lorategietan zehar** (3)

**kensington lorategietara** (3); **lorategietara heltzeko** (3); **lorategietara joan** (4)

**kensington lorategietatik** (3)

**lorategiko aulki batean** (3); **lorategiko sarbidetik** (3)

**jauregiko lorategira** (4); **lorategira atera** (6); **lorategira ematen** (6); **lorategira ematen zuen** (4); **lorategira eraman** (3); **lorategira irten** (7); **lorategira itzuli** (3); **lorategira jaitsi** (5); **lorategira jo** (3); **lorategira joan** (8)

**lorategitik itzuli** (3)

---

# lorategitxo *iz* lorategi txikia.

Malacarten etxea Enaletik plazara bitartean bide erditsuan zegoen, eskoletatik hurbil, **lorategitxo** baten erdian hura ere, horma garai batez inguraturik. Josu Zabaleta

Biharamunean, amaren etxeko **lorategitxoko** belarra mozteari eta inguru hura garbitzeari ekin zioten. Joan Mari Irigoien

---

loratsu ik **loretsu**.

**loratu**, lora(tu), loratzen *(orobat* ***loretu*** *g.er; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***loratu*** *agertzen da)* **1** da/du *ad* loretan jarri, lorez bete.

Arrosa **loratzen** da martxoko hilean, ene arima iluntzen da gaitz hau jasan beharrean. J.M. Olaizola "Txiliku"
Zabaldu lurrin gozoa intsentsuak bezala, **loratu** lilia bezala. Elizen arteko biblia
Kimuberritu zen, **loratu** eta ondu egin ziren mahats-mordoak. Elizen arteko biblia
Burutua baitzegoen garagarra eta **loratua** lihoa. Elizen arteko biblia
Glizinia ezin ederragoa aurkitu du **loraturik**, malba kolorekoa. Hasier Etxeberria
Zuhaitzak denbora jakinean **loratzen** eta denbora jakinean loregabetzen dira. Xabier Amuriza
Udaberriko haizeak, loreak **loratzen** dituen horrek berak, eraitsi zuen amona. Juan Kruz Igerabide
Udaberriak baino goizago **loratzen** du zuhaitza xoriak bere kantuaz... Herria
Eta dena udaberri gisara **loratu** zaitu / zafiro eder dirdaitsuz. Askoren artean

**2** irud/hed
Erraz esaten da orain, gaztaroa **loratzen** ari den garaia ematen du, baina nik ordurako susmoa neukan **loratu** aurretik ximelduta geratuko ez ote nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi
Noiz lurra ernalduko eta **loratuko**, noiz espiritua birsortuko. Pello Zabala
Irri bat **loratu** zitzaion ezpainetan. Joan Mari Irigoien
Goitik beheiti so egin eta irriñoa **loratu** zitzaion. Aingeru Epaltza
Sekulako tristura sentitu zuen, estuasuna ezpain **loratu** berrietan. Eider Rodriguez
Mokanesa hartu eta begi-izkinan **loratu** malko-muskila idortu zuen. Itxaro Borda
Historia hila erromantze hilezkorrean **loratzen** da. Iñaki Mendiguren
Bazkari eta beste ezinbesteko osagaiez **loratuko** da besta. Herria
1965-1975 urte bitartean **loratu** ziren Euskal Herriko kultur elkarteena. Berria - Kultura
Baina xori kanta anitzek **loratzen** dute zerua, eta beharrik. Berria - Kultura
Zeren aro baketsuan baita libertatea **loratzen**, bakeak baitu gizonaren libertatea hazten eta segurtatzen. Michel Oronoz
Zurean zen **loratu** batasun gogoa. Piarres Xarriton
Urte haietan gu guztiongan **loratutako** gorrotoa, [...] ez dute bereizita eman ditugun urteek desegin. Aitor Arana
Hiriaren inguruan **loratu** diren auzo berrietariko batean. Aingeru Epaltza
Zeilanen, uhartearen eurigabeko erdialdean **loratu** zen Zibilizazio Indikoa. Iñaki Mendiguren
Jakoben ondorengoek sustraiak botako dituzte, Israel herria **loratuko** da eta kimuberrituko, eta mundu osoa fruituz beteko dute. Elizen arteko biblia
Indiako industriarik gotorrena eta filmagintzarik joriena Bonbain **loratu** dira. Gotzon Garate
Neguko iluntze luzeak edota ardoaren inguruko berotasun sutsuak **loratuko** zituzten bertsoak eta arrazoiak euren kabuz esateko. Pako Aristi

**3**
Urteak ziren zurrutik egiten ez genuela, **loratuta** egon behar zuen, antza. Koldo Izagirre
Haurdun dagoenetik gauez **loratuta** iristeari utzi dio, eta zortzietarako etxean da egunero Eider Rodriguez

**4** futbolean-eta, pilotaz mintzatuz, harrotu.
Luzeago eta **loratuago** sakatuz ez zion anaia gazteari piloteoa dominatzen utzi. Berria - Kirola
Baloia **loratzen** ahalegindu zen, baina harmailetara bidali zuen. Berria - Kirola
Pablo Garcia uruguaitarrak 0-2koa lortu zuen Casillasen gainetik baloia dotore **loratuta**. Berria - Kirola

**5** (era burutua izenondo gisa)
Inguruan palmondorik ez zegoenez, gehienok ereinotz **loratuarekin** joaten ginen elizara. Bernardo Atxaga
Pago **loratu** baten pean atzarri zelarik, bere burua inguraturik kausitu zuen zaldizkoz. Juan Garzia
Monikeren etxepetik igarotzen ari da Mikel, elkarrekin usaindu izan duten zuhaitz **loratuaren** azpitik. Eider Rodriguez
Irribarrerik **loratuena** ezpainetan, pozik ederrena bihotzean. Gorri geratzen dira Baxango larreak eta Karmel gaina, Libano **loratua** zimel. Elizen arteko biblia
Alkandora **lora tu** bat, praka nasaiak, eta eguzkitarako kapela hori txiki bat dauzka jantzita. Oskar Arana
· Herrenak Azkaraterenetan tinkatu zituen bere begi **loratuak**. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**irribarrea loratu** (5)
**loratua zegoen** (3)
**sagarrondoak loratzen diren** (3)

---

**loratudun** *izlag* loratuko.
Lepoan eta eskumuturrean urrezko uztaiak daramatzaten soineko **loratudun** emakumeak. Pako Aristi

---

loratxo ik **loretxo**.

---

**loratze** *(orobat* ***loretze*** *g.er.) iz* loretan jartzea, lorez betetzea.
Kriseiluak igaro ahala, orburu mordo baten **loratze** mamitsua ageri zen hemen. Karlos Zabala
*Euskalerriaren alde* aldizkaria (1911-1921), baita haren garaikide *Euskal Erria* (1880-1918) aldizkaria ere, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran euskal kulturak izandako **loratze** haren parte izan ziren. Askoren artean
Baigorriko kulturaldia eta Nafarroaren Egunaren elgarretaratze anaikorraren ondotik, udaberriak jarraitzen du bere **loratze** eta fruitutze emankorra. Herria
Greziarrek **"loratzea"** adierazteko erabili zuten hitza *eudaimonia* da. Askoren artean
Modu horretan, bizimodu-eredu batzuek gisa **loratzea** bultzatuko lukete, arbola bati egindako zainketa-mota jakin batek arbola horri handitzen, edertzen, loratzen lagun diezaiokeen modu berean. Askoren artean
Bil itzazu Sortaldeko lore distiratsuak, Iparreko **loratze** zurbilak, belardietako bioletak eta lorategietako arrosak, egizu sorta bat guztiez. Josu Zabaleta
**Loratze**-sasoia. Oskar Arana

---

**lorauts** ik **lore 14**.

## lorazain ik **lorezain**.

## lorazaintza ik **lorezaintza**.

## lorazale ik **lorezale**.

## **lorbide** *iz* lortzeko bideak.

Pilotu gazteek 1 Formulara ailegatzeko **lorbidetzat** hartzen dituzte Munduko Serieak. Berria - Harian

## **lord** 1 *iz* Britainia Handian, aitoren semeei ematen zaien ohorezko titulua.

**Lord** Byronen ondoren, Dylan Thomasen inguruan sortu dira segur aski mitorik handienak ingeles literaturaren munduan. Koro Navarro

-Oso jende gutxik daki **lord** Voldemortek garai batean Tom Riddle izena zuela. Iñaki Mendiguren

Ahoko bat ere inguratua zuen horrela erretzeko, **lord**-en moduan, hark esaten zuen bezala. Pello Lizarralde

Monokulo bat falta duela **lord** baten plantak egiteko uste dute **lordak** filmetan ikusi dituztenek. Koldo Izagirre

Dihoala berriz Londresa, **lord** baten alabaren bila. Koro Navarro

Slightly lady tituludun batekin ezkondu zen, eta **lord** bihurtu. Julen Gabiria

Emakume bat **lord** batekin ezkontzean, lady izatera pasatzen zen; baina ez alderantziz. Julen Gabiria

**2** (hitz elkartuetan)

Blairrek ez zuen zehaztu **lord** titulurako proposatutako pertsonetatik hiruk aldez aurretik diru maileguak egin zizkiotela alderdiari. Berria - Mundua

Gauazko festalekuak, zerbitzarien **lord**-aurpegi ozar eta zainduak. Matías Múgica

**3** ***Lorden Ganbera***

Parlamentua bera ere itxuraldatu egin zuen erabat: **Lorden** Ganbera (jauntxo eta aristokraziarena) desegin, erregetza sekulako baztertu; errepublika izendatu... J.M. Olaizola "Txiliku"

**Lorden** Ganberak Terrorismoaren Kontrako Legea arbuiatu du. Berria - Mundua

**Londresko** Lorden Ganbera aurka agertu arren, [...]. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lord bellamont** (3); **lord byron** (8); **lord byronen** (3); **lord lyttonen** (3); **lord taylor** (4) lord titulua (5); **lord titulua jasotzeko** (4); **lord voldemort** (8); **lord voldemortek** (6); **lord voldemorten** (5)

**lorden ganberak** (6)

## **lore** *(orobat **lora** g.er.)* **1** *iz* hainbat landareren zati koloretsu eta askotan usaintsua. ik**lili**.

Udaberriko haizeak, **loreak** loratzen dituen horrek berak, eraitsi zuen amona. Juan Kruz Igerabide

Aitak **loreak** landatzen zituen, saltzeko, eta urte hartan prezio ona egin zuten. Juan Kruz Igerabide

**Loreak** gustatzen zaizkit, baina fruituak gehiago. Bernardo Atxaga

**Loreak** beti maite ukan ditut... Janbattitt Dirassar

Baratza lantzen ibiliko zela, hilobirako **loreak** zaintzen. Ramon Saizarbitoria

Denbora gutxiren buruan, **loreak** ureztatzeari utzi zion. Ramon Saizarbitoria

Miragarriro kimuberritu zuen erabat ihartuta zegoen gereziondo bat, orri, **lore** eta fruituz jantziz. Askoren artean

**Lore** horietako baten txortena bihurritzen. Josu Zabaleta

Sei petaloko **lore** batekin. Fernando Rey

Plastikozko **loreak** kristalezko ontzi batean. Eider Rodriguez

**2** (izenondoekin)

Kondesak **lore** arrosaz apaindutako lastozko kapela bat zeukan buruan. Xabier Olarra

Txikoria-belarraren eta apo-belarraren **lore** horixkek. Koro Navarro

**Lore** ebakien azokaren erdian zeuden. Karlos Zabala

Jendeak ehun mila libera baino gehiago gastatzen zuen **lore** moztuak erosten. Karlos Zabala

**Lore** zimelduzko koroak. Josu Zabaleta

Bizpahiru **lore** histurengatik galdu dik beraz bizia? Daniel Landart

Neskatila segituan atera da bidera hiru **lore** zuztar-luze hartuta. Patxi Iturritegi

Egunero-egunero, kaxa zuri distiratsuak jasoko zituen, **lore** bitxiz mukuru beteak. Mirentxu Larrañaga

**3** (multzokari gisa)

Goizero-goizero, aldirietako ortuzainei erositako hainbat besakada **lore** izaten ziren, bai eta goroldioa, iratze hostoak eta inkonte belarrak ere. Karlos Zabala

**4** irud/hed

Gozotasunezko **loreak** sortu, ohore eta ontasunezko fruituak eman zituen. Askoren artean

Baina pasioa **lore** gaiztoa da. Harkaitz Cano

Eta amorioaren **lorea**, gaur hain ederra dena, bihar berean ihar liteke. Joan Mari Irigoien

Baina halaxe da: **loreak** eta **loreak** kontatu dizkit zutaz. Joan Mari Irigoien

Adela, gure arabar **lorea**. Juan Kruz Igerabide

Irriaren arantzak, irriaren **loreak**. Karlos Linazasoro

Hango ore egosizko epeltasun atseginak aurpegia **lore** bihurtzen zion neskari. Karlos Zabala

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kanposantuko **lore** koroek, perla beltzez eta zuriz josirik. Karlos Zabala

**Lore** usain gozo bat zebilen zirimolan bidetxo garbietan. Josu Zabaleta

Litroak bi mila liberaraino egiten duen **lore** urrin horiek. Josu Zabaleta

**Lore** lurrin astun hura gelditu zitzaion akorduan betirako. Koldo Izagirre

**Lore** zuztarrak landatzen zituzten janari lata herdoilduetan. Bernardo Atxaga

Aurten ere goiz abiatu zen **lore** pipitta bilduak erakusten. Pello Zabala

Txemiren lan-mahaiaren aurrean dago leihoa, eta bertan bi **lore**-poto. Berria - Kultura

Flasko argiek [...] likore ezezagunekin eta gardentasun aparteko **lore** estraktoekin amets eginarazten zuten. Karlos Zabala

**Lore** itxurako nanoegiturak sortu ditu Cambridgeko Unibertsitateko ikasle batek Berria - Gaiak

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gezien muturretan purpura iluneko hiazinto **loreak** zeuden. Hiru lore bikain zituen *géant des batailles* arrosa **lore** bati begira nengoela. Ibon Uribarri

Pentsamendu **lore** hori batez apainduriko orrialde satinatu batean. Karlos Zabala

Hilobi batean, geranio **lore** naturala ikusi nuen. Iñaki Zabaleta

Etxearen berdetasuna pasio **lore** purpurez izarreztatua. Anton Garikano

Txoritxoon burrunba entzuten zen jasmin **lore** artean. Juan Garzia

Piztiaren bat bere San Jose **loreak** hondatzen ari zen. Anton Garikano

· Besoak zabalik, eskuineko eskuan **lore** zimeldu sorta bat zeukala. Daniel Landart

. Emaztegai orrazkera txit altua zuen, laranja **lore** adarrez goratua. Karlos Zabala

**7** zerbaiten zati hoberena.

-Ene Dulzinea, edertasunaren **lore**, nire bihotzaren jabe! Patxi Ezkiaga

Zaldien **lore** eta ispilu zaren hori. Patxi Ezkiaga

Bere odolaren **lore** izatea nahi nuen nik. Patxi Ezkiaga

-Ongi etorria bedi, zaldun ibiltarien gain eta **lore** den hau! Patxi Ezkiaga

Adinaren **lorean** zegoen. Oskar Arana

**8** birjintatsuna.

Diru handia egiten dute sendagileek **lorea** galdu duten neskei himena berriz ipintzen. Gotzon Garate

Aspaldiko ohitura zen, *dalit* bat ezkontzen zenean, ezkondutako gauean senarrak baino lehenago goi kastako nagusiak andregaiari **lorea** kentzea. Gotzon Garate

**9** ***loretan*** *(orobat **lorean** g.er.)*

Gozoa da arratsaldea, gereziondoak **loretan** daude. Anjel Lertxundi

Babak **loretan** ikusi nahi badituzue. Pello Zabala

Elorria **loretan**, artaldeak goietan. Pello Zabala

Etxea beterik zegoela; baratza **loretan**. Anton Garikano

Elorria **lorean** eta artzaia mendi gainean. Pello Zabala

**10** ***eguzki lore*** *(orobat **eguzkilore** g.er.)* landare handia, hosto-zorrotza, eguzkiaren eiteko loreak dituena *(Carlina acaulis).*

Mendian aurki daitekeen **eguzki lorea** *(Carlina acaulis).* *Pello Salaburu*

Udaberriko egun euritsu batez, **eguzki loreak** landatzen aritu ginen. Juan Kruz Igerabide

Atariko **eguzki loreen** hostoak zabalak ziren emakumeak alde egin zuen egunean. Juan Kruz Igerabide

Behi gorri andanak, gari eta **eguzki lore** landak. Berria - Kultura

**Eguzki lorearen** aleak onak zirela emaztearen gaitzaren kontra. Juan Kruz Igerabide

Nahiz eta egunero **eguzki lorearen** pipitak irentsi, ez zuen hobera egiten batere alabak. Juan Kruz Igerabide

Amona udaren zain zegoen, **eguzki lorearen** ale beltz umotuak noiz agertuko. Juan Kruz Igerabide

Etxera orduko, ateburu gehienetan iltzez josita izaten zen **eguzkilorea** zuen barometro fidelen eta zuzenena. Pello Zabala

· Handik honainoko tartean makaldiak ibaia markatuz, galsoroak, **eguzki lore** saila... Jokin Urain

**Eguzki-lore** eremu zabalak trebeskatuz. Herria

Gustuko ditu **eguzki-lore** haziak. Berria - Harian

**Eguzki-lore** koipearekin hidrogenoa sortzea lortu dute. Berria - Gaiak

**11** ***lis lore*** *iz* heraldikan, lirioaren lorearen irudikapena.

Bortak iltzez eta **lis** lorez beteak daude. Koldo Izagirre

Elurrak bortuetako pasabideak hetsi zituen, Frantziako **lis** lorearen eskuoihalik agertzen ikusi gabe Donazaharre aldetik. Aingeru Epaltza

Eta ez bakarrik **lis** loreari zerbitzu handia egindako leinu baten ondokoa zelako. Aingeru Epaltza

**12** ***lore baratze*** *(orobat **lorebaratze** g.er. eta **loreberatz** g.er.)* ik **lorategi**.

Aspaldiko Paradisuan, ibai biren arteko **lore**-baratze hartan. Felipe Juaristi

Masustondo handiaren abaroan eserita, gure etxe zaharreko **lore**-baratzean, mingranak aletzen ari zen ama. Juan Kruz Igerabide

Etxe tipiko zoragarri bat zen, muino baten gainaldetik herrira begira jarria, eta **lore**-baratze basa bat zuen aldamenean. Xabier Olarra

Inguratzen duen **lore baratze** zabal hortan, eraikiko ote da, berrikuntzaletasun guziez apaindua izanen den Etxe Gaitz hura? Herria

**13** ***lore eskaintza***

Ondoren: Bilintxen oroitarriaren inaugurazioa, **lore eskaintza** eta ohorezko kontrapasa. Berria - Kultura

Donoztirin 10.30tan soldado gerletan hileri egin izan zaie **lore eskaintza**, pausatuz lore eder batzu eta otoitz eginez. **Lore eskaintza** egin dute Zizurkilen, Arregiren hilobian. Herria

Giroa ere berezia izan zen herri askotan; azken orduko **lore eskaintzak** nagusi izaten dira Omiasaindu kari familia bazkariak antolatzeko ohitura duten herrietan. Berria - Euskal Herria

Eta festa egunetaz asko akordatzen naiz: ziren ostegun eukaristikoak, lehendabiziko jaunartzea eta Korpusetako **lore eskaintzak**. Arantxa Iturbe

**14** ***lore hauts*** *(orobat **lorauts**)* lorezilak daukan hauts ernalgarria. ik **polen**.

**Lorautsak** eragindako alergia txiki bat. Oskar Arana

Autoak zorne-belarren eta urrezko makilen **lorautsaz** guztiz estalirik. Lopez de Arana

Neskaren barne-muinetako **lore-hautsa** jaso ordez, mutilaren musuek kezkak eta larridurak oro irentsarazten zizkioten Norari, gero eta atseden-limo eztiagoari tokia egiteko. Anjel Lertxundi

**15** ***lore-hori*** *(corpusean **lorehori** soilik)* *izond*

Anemonak ez dira gaur egungoak baina Bachelier lorazain frantsesak landatu eta zaindu zituen lehenengo aldiz apaingarri eta lorategietako lore bezala *-Pulsatilla alpina* **lorehoria** batik bat-. J.M. Olaizola "Txiliku"

**15a** *lore-hosto* ik **hosto 6**.

**16** ***lore joko***

Bakartasunaren kronika biluzia dugu hau, apaindura eta **lore-joko** antzurik gabeko testigantza hunkigarria. Filipe Bidart

-Gerra ez da **lore-jokoa** bezain ikusgarria. Felipe Juaristi

Anton Abbadia irlandarrak antolatu zituen **Lore Jokoak**, 1854an, Urruñako herrian eta gero, 1879an, zabaldu Nafarroako Elizondon gaindi Hegoalde guztira. Piarres Xarriton

Antoine D'Abbadiek apailatu **lore-jokoetan** ere izan zen emakume bertsolaririk. Berria - Kultura

1874ko Abbadiaren **lore jokoetan,** adibidez, lehen saria izan zuten Jesusen lagundiko aita Aranaren bertso hauek: [...]. Piarres Xarriton

Bilboko **Lore Jokoetan** Unamuno-k 1901eko abuztuko 26 gauean harrotu zituen hautsak. Joxe Azurmendi

Iurretako **Lore Jokoetan,** 1891n, aurkeztu zen ondoko sonetoa. Iñaki Arranz

· Beste eztabaida oro **lore jokoak** dira, fikzioa. Berria - Harian

### 17 *lore ontzi* ik **loreontzi**.

### 18 ***lore sail*** *(orobat **loresail**)*

Inguruan **lore sail** batzuk zituen, iturri bat eta estatua bat. Jon Muñoz

Gero erlauntzen ondotik igarotzen dira, eta baratzean zehar; bertan, **lore-sailak** eta neguko barazkiak -azaloreak, patatak, erremolatxak, zerbak, tipulak- ikus daitezke. Oskar Arana

Hurrengo urtean, txingorrak eta uholdeak **lore saileko** uzta guztia hondatu zuten, eta hirira joan ginen bizitzera. Juan Kruz Igerabide

Hala nola erleak aurreko urteko **lore sailik** aberatsenetara itzultzen diren. Pako Aristi

Neure lorategia ureztatu behar dut, neure **loresaila** urez bete. Elizen arteko biblia

### 18 ***lore sorta*** *(orobat **loresorta** g.er.)*

Zetazko jantziekin joaten omen ziren, **lore sorta** handiak eskuan. Karlos Zabala

**Lore** -sorta bat zeraman besoan, haur txiki bat nola. Emaztegaien **lore sortak** ziruditen. Anjel Lertxundi

Egongela [...] paperezko **lore sorta** haustuz eta animalien grabatuz zegoen apaindua. gizon txipi urduri batek **lore sortak** josi izan zituen hango izei zaharretan. Xabier Olarra

Su-galda **lore sorten** artean zeudelarik, Goiz hartan etxepeko neskame bat gurutzatu zuela eskaileretan **lore sorta** bat eskuan zeramala, eta txantxetan senargaiarentzat al ziren galdetu zionean, hark erantzun ziola ea ez al zekien Ama Birjinaren hilean zeudela. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **almendra lore** (4); **belar eta lore** (4); **bilboko lore** (6); **bitxi lore** (5); **eguzki lore** (14); **euskal lore** (5); **iguzki lore** (42); **iguzki lore taldeak** (7); **iguzki lore taldean** (4); **landare eta lore** (5); **lore azau** (18); **lore berriak** (7); **lore bila** (4); **lore eder** (11); **lore ederra** (6); **lore ederrak** (5); **lore ederrez** (5); **lore elkarteak** (7); **lore eskaintza** (41); **lore eskaintza egin** (12); **lore eskaintzak** (7); **lore eskaintzan** (4); **lore eta landare** (8); **lore gorri** (9); **lore gorriak** (8); **lore hosto** (9); **lore hostoak** (5); **lore joko** (5); **lore jokoak** (13); **lore jokoen** (5); **lore jokoetako** (11); **lore jokoetan** (13); **lore koroa** (4); **lore koroak** (5); **lore pausatzea** (5); **lore sail** (5); **lore saltzaile** (5); **lore saltzaileak** (5); **lore sorta** (121); **lore sorta bana** (8); **lore sorta eskuan** (4); **lore sorta handi** (4); **lore sorta jarri** (4); **lore sortak** (32); **lore sortaren** (5); **lore sortarik** (4); **lore sorten** (5); **lore taldeak** (8); **lore taldean** (4); **lore txiki** (4); **lore urdin** (5); **lore xorta** (9); **lore xortak** (4); **lore zuri** (7); **lorez lore** (13); **maiatz lore** (5); **martxo lore** (5); **paperezko lore** (4); **udaberriko lore** (4)
>
> **eguzki lorea** (6)
>
> **eguzki loreak** (4); **koranaren loreak** (4); **loreak biltzen** (10); **loreak bota** (6); **loreak botatzen** (4); **loreak eskaini** (4); **loreak eskaintzen** (4); **loreak hartu** (4); **loreak jartzen** (4); **loreak landatzen** (4)
>
> **eguzki lorearen** (4)
>
> **eguzki loreen** (4)
>
> **eguzki loreen** (4)
>
> **loretan zeuden** (5)
>
> **lorez apaindua** (7); **lorez betea** (6); **lorez beteta** (4); **lorez betetako** (8); **lorez betetzen** (4); **lorez egindako** (4); **lorez lore** (13)

---

## **lorealdi** *iz*

Hurrengo urteko **lorealdia** nolakoa izango ote zen bere artean galdezka. Anton Garikano

---

## lorebaratz ik **lore 10**.

---

## lorebaratze ik **lore 10**.

---

## loredenda ik **loradenda**.

---

## **loredi** *iz* lorez betriko eremua.

**Lorediz** inguratutako plazatxo bat zen. Jon Arretxe

Nahiko luketela halako belar zaindua, halako **loredi** eta arbolapea, ibiltzeko, balak bezala, airera botatzen pilota asesinoak. Hasier Etxeberria

---

## **loredun** *(orobat **loradun** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **loredun** agertzen da)* *izond* lorea duena; loreak dituena.

Ama harrikoa egiten oroitzen dut, amantal **loreduna** jantzirik eta irratia entzuten. Jon Maia

Hatz keinu batez garagardo gehiago eskatzen zioten blusa **loreduna** eta gizonezko txanoa zeramatzan emakume mutur-luze bati. Koro Navarro

Jantzi luze **loreduna** zeraman soinean. Aingeru Epaltza

Pentsakor gelditu da, hormako friso **loredunak** osatutako hodeiertzari begira. Blancheren soinekoa, **loredun** estanpatua, Stellaren ohe gainean dago. Eider Rodriguez

Oihal **loredunak** erosi zituen besaulkiak estaltzeko. Fernando Rey

Beheko solairuko egongela hartan geunden, sofa **loredunak** zituen eta erdian mahai borobil bat. Fernando Rey

Errealitate gordinenak ezkutatzen dituen gortina **loreduna**, kolore biziko ataria. Jon Alonso

---

## **loregabetu,** loregabe(tu), loregabetzen da *ad* lorerik gabe gertatu.

Zuhaitzak denbora jakinean loratzen eta denbora jakinean **loregabetzen** dira. Xabier Amuriza

---

## **loregune** *iz* loreak dauden gunea.

Erdian, belargune eder handi bat, kolore bizietako hainbat **loregunez** zipriztindua eta erreka-harriez eginiko bidezidorrek zeharkatua. Anjel Lertxundi

**Loregune** berezi bat, ahal bezen aberatsa, ahal bezenbat landare eta lore motarekin, muntatzen ari dute Donibane Lohizunen. Herria

**lorehori** ik **lore 13**.

**loreil** ik **lorail**.

**lorekatu** *izond* loreduna, lores hornitua.

Oraino ere nolazpait enea nahiko nuen Magali, behin ere ikusia ez nion zaia **lorekatu** bat soinean. Janbattitt Dirassar

Mateletan beheiti heldu zitzaizkion negarrak mokanes **xuri** lorekatu batekin pollikiño kenduz. Janbattitt Dirassar

**loreketa** *adlag ipar* lore bila.

Gazte gaztea zelarik, primadera goiz batez **loreketa** zabilan bere etxeko baratzean. Herria

**loreontzi** *(orobat **lore-ontzi** g.er., eta **lorontzi** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **loreontzi** agertzen da)* **1** *iz* loreak edukitzeko ontzia.

Lanean aritzen zinen idazmahaia, eta gainean, **loreontzi** urdin batean lore pare bat. Eduardo Matauko

Lorategira irten nintzen hiru **loreontzi** betetzeko adina dalia biltzera. Ander Irizar

**2** lore landareak edukitzeko ontzia, landare ontzia. ik**landare 5**.

Umezainak entzun zuen zarata hura lorezain bik egin zuten, **loreontzi** hartan lore berriak landatzera joandakoak. Julen Gabiria

Sprout andereñoak **loreontzi** handi bat mahai azpitik hartu eta han sartu zuen mandragora, eta ongarri ilun eta hezeaz estali zuen, hostoak bakarrik utzi arte agerian. Iñaki Mendiguren

Gaindegiko landareetatik, sandalo eta menda **loreontzietatik**, urrin gozozko bafadak iristen ziren. Josu Zabaleta

Markesina ebaki urreztatuarekin, non terraza bat eratzen baitzen eta **lore ontzi** batzuen berdetasunak gainezka egiten baitzuen. Karlos Zabala

Gainerako landareei kasu gutxi egiten zien, ordea, arkitektoek landareentzako **loreontzi** moduko hainbat txoko aurreikusi bazituzten ere: belar txarren bat izan ezik, emaitza eskasa antzematen zen lur hareatsuz beteriko porlanezko kubo haietan! Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> kristalezko lorontzi (3)

**loreontzitxo** *iz* loreontzi txikia.

Bere begiek **loreontzitxo** japoniarrarekin topo egin zuten orduko, ezpainak hertsatu zituen; argi eta garbi, askoz ere hobeto zegoen hasierako lekuan. Mirentxu Larrañaga

**loresail** ik **lore 15**.

**loresorta** ik **lore 16**.

**lorestatu** ik **loreztatu**.

**loretegi** ik **lorategi**.

**loretei** ik **lorategi**.

**loretoki** *iz* lore landareak dauden eremua. ik **lorategi**.

Bigarren lur eremua, berriz, jardina zen: bertan, belardiak, ezpel-hesiak eta **loretokiak** ikus zitezkeen, iduri geometrikoetan bilduak eta simetrikoki banatuak. Joan Mari Irigoien

Sargoriaren aire astunak bere mende zeukan, arian-arian geldia, **loretokiko** belar ebaki berriaren usaina. Anjel Lertxundi

Bere lurretan ziren oilotokietako arrautzak eta bere **loretokietako** alferriko belarrak saltzeko agindu zuen; eta bere herriei banatu zizkien lonbardiarren aberastasun guztiak eta mundu osoa arpilatua zuten hunoen altxor eskergak. Iñaki Iñurrieta

**loretsu** *(orobat **loratsu** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **loretsu** agertzen da)* **1** *iz* lore asko duena.

Lorategiko amañi-lili eta otsagereziondo **loretsuak** patio osoa inguratzen zuten urki lirainetaraino iristen ziren. Jose Morales

Zuhaitz **loretsu** baten azpian irribarrez zeudenenak. Juan Kruz Igerabide

Erleek baso **loretsuetan** dena zurgatzen duten bezala. Xabier Amuriza

Maiatz **loretsu** huntan, Mendekoste asteleheneko lorea eihartu zaiku. Herria

Hango zutabe borobilak, apaingarri **loretsuz** bururatuak, hango leiho zabalak, eguzkiari deika ari zitzaizkionak... Aingeru Epaltza

Kretona-azal **loretsuz** estalita. Mirentxu Larrañaga

**2** irud/hed

Hogei bat urteko gazte **loretsuak**. Joxerra Garzia

Ez da ezer aurreztu behar; esapiderik **loretsuenekin** apaindu behar dira madarikazioak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kaligrafiarik **loretsuen** eta katramilatsuenez idatzi zuen dekretua. Felipe Juaristi

Sinadura **loretsuko** ikuskatzaile batek. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kaligrafiarik loretsuen** (3); **loretsuen eta katramilatsuenez** (3)

---

## loretu ik **loratu**.

---

## **loretxo** *(orobat **loretxu** g.er.)* **1** *iz* lore txikia.

Asto-arrosak, adibidez, berandu zabaltzen du bere **loretxo** tximeleta itxurakoa. Pello Zabala

Ez larreko **loretxoa** edo zuhaitzaren ezein orri ez zuen utzi atalen arteko harmoniarik eta nolabaiteko naretasunik gabe. Imanol Unzurrunzaga

Aurrean umetxoa, **loretxoari** begira... Herria

Sasidiak eta zuhaizti txikiak, eta **loretxoez** zipriztindutako belardi berdeak. Koro Navarro

Haren hostaila, **loretxo** zuriz apaindua, hain zen sarria non eguzkiaren argiari ez baitzion igarotzen uzten. Josu Zabaleta

**2**

San Frantziskoren eta lagunen **Loretxoak**. Berria - Kultura

---

## **loretxodun** *izond* lore txikiak dituena.

Hiru egunez gelditu nintzen Sierichstrasseko etxean, lo askorik egin gabe baina, gela **loretxodunean**, hausnarrean etengabean. Fernando Rey

---

## loretxu ik **loretxo**.

---

## **loretza** *iz*

Zeren atsegin iturritik bertatik sortzen baita halako zer garratz bat, **loretzan** ere nahigabea daragiena. Xabier Amuriza

---

## loretze ik **loratze**.

---

## **lorezain** *(orobat **lorazain**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lorezain** agertzen da)* **1** *iz* lorezaintzan ogibidez aritzen den pertsona.

**Lorezainek** lortu dituzte lore gorrien eta zurien bitartekoak, arrosa kolore ezin ederragoko loreak sortuz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nire etxeko langile multzoa kotxezain bat, **lorezain** bat, gelari bat, sukaldari bat eta aldi berean garbitzaile eta giltzazain zen emakume batez osatzen da. Josu Zabaleta

Cape Town hiriko Parke eta Jardinetako udal enpresan lanean hasi zen, eta bertan jardun zuen zenbait urtez, lehen mailako **lorazaina** izatera iritsi zen arte. Pablo Sastre

Neskameari eta **lorezainari** debekatua zien animalia kaltegarritzat hartzen zirenak hiltzea. Josu Zabaleta

Ordurako, hasita omen zegoen komentuko **lorezainaren** semea ezkutuka ikusten... Inazio Mujika Iraola

Agurea **lorazain** ibili zen laku ondoko etxe handi batean . Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Iturri ondoan ezagutu dugu aitari **lorazain** lana eman dion gizona. Javi Cillero

Gero, **lorezain** armada bat heldu zen, maitagarrien gurditxoekin eta laiekin eta haziekin eta erraboilekin eta umotegiekin, eta handik denbora gutxira lorategi bat sortu zen galeriaren eskumatan. Julen Gabiria

---

## **lorezaintza** *(orobat **lorazaintza**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lorezaintza** agertzen da)* **1** *iz* lore-landareak haztea eta zaintzea.

Inausketetako eta **lorezaintzako** hondakinak. Berria - Euskal Herria

Zoritxarrez, ez dugu XX. mendearen hasiera aldean emakume euskaldun batek idatzitako botanika eta **lorezaintzako** libururik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beharbada ikasten jarrai nezakeela bururatu zait: historia, psikologia edo, zergatik ez?, buruko neke handirik sortuko ez didan **lorazaintza**. Patxi Zubizarreta

Ziklo bat dago euskaraz, **lorezaintzakoa**. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bera **lorezaintza** etxe batean dabil lanean. Berria - Harian

Belar zati berriak jarri ditu Cengotita **lorezaintza** enpresak. Berria - Kirola

**Lorezaintza** lanak egiten zituen, horretaz ez dago inolako zalantzarik, beraren etxebizitzatik gertu zegoen horma luze eta zahar baten ondoan hazten zen hortentsia sail oparoa mimoz ureztatu, ongarritu eta kimatzen baitzuen. Iban Zaldua

**Lorezaintza** zikloa, esaterako, hiru eskoletan daukagu. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lorezaintzako liburu** (3)

---

## **lorezale** *(orobat **lorazale**)* *iz* loreen zale dena.

Misterio hutsa da nor izan zitekeen neskame **lorezale** hori, Marie-Émilie Coulomb Etxauzeko etxekoandrearen ganberako neskame hori. J.M. Olaizola "Txiliku"

Neskame **lorazalea**: Marie-Émilie andereñoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## **lorezil** *iz* lorearen organo arra.

Lore urdin zurixken **lorezilak**. Anton Garikano

---

**loreztapen** *iz* loreztatzea.

Une berean, esku-zarta hotsek eta pianistaren azken **loreztapenak** balsa amaitu zela adierazi zuten. Irene Aldasoro

---

**loreztatu**, lorezta, loreztatzen *(orobat **lorestatu**)* **1** du *ad* lorez bete.

Urtaroak belarraren berdetasuna **loreztatzen** duenean. Xabier Amuriza

Etxe multzo bat ere bada zubi konkorraren inguruan, Zubipunta deitzen dena, horietan zaharrena eta ederrena, beti **lorestatua** , Zuburia. Michel Oronoz

Hire ezkon-ohea apaintzea ninan, haur laztana, gogoan, eta ez hire **hilobia** loreztatzea. Juan Garzia

Biziki hunkiak izan omen ziren eta hazpandarren eskertzeko, eskaini zioten ikuskizun bat urririk eta geroztik familia batek **loreztatzen** zuen hil-hobia. Herria

**2** irud/hed

Badira ere saririk ukan ez duten kantuak baina herriaren famak eta bozak **loreztatu** dituenak. Michel Oronoz

Koldo Ameztoien gaien arteko lotura bizi-alaiak, hain airoski umorez eta poesiaz **loreztatuak** ... Herria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Zeren, paper **loreztatuen** gibelean, mutzidura eta arraildurak beti hor daude. Herria

Etxe **lorestatuen** zoin gehiagokan 15 bat presuna saristatuak izan dira. Herria

Hilharri **loreztatuen** artean, mundu guzian gaindi zenbat eta zenbat jende beren hurbilekoak gogoan! Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ederki lorestatuak** (3)

---

**loreztatze** *(corpusean **lorestatu** soilik)* *iz* lorez betetzea.

Aurten izan da hautetsien ikustate berezi bat, etxeak ongi arrimatzen dituzten familier buruz: izan dadin etxe itzulien ongi artatze, **lorestatze** ala Eguberriko argiekin ongi dirdiran emaite. Herria

---

**lorgarri** *izond* lor daitekeena.

EABk helburu **«lorgarriak** » zehaztea eta horiek ongi finkatzea proposatu du. Berria - Euskal Herria

**Lorgarriak** diren helburuekin jokatuko dugu, baina argi eta itxuraz. Berria - Kirola

Bizitzaren magia guztiontzako al da **lorgarri** ? Ana Urkiza

---

**loria** **1** *iz* aintza, ospea.

Begien aitzinean atxikiz Jainkoaren **loria** eta haren ospea. Piarres Xarriton

Himnoetan, Jainkoaren **loria** kantatzen genuen. Aingeru Epaltza

Jainkoak har dezala bere **lorian** eta doluzko sendimenduak familia guziari. Herria

**-Loria** zuri, printze Henrike! Piarres Xarriton

Laburra da atsegina eta betikoa zigorra, txikia sufrimendua eta azkengabea **loria** . Askoren artean

Haren eraginez, zikina garbi bilakatu zen nire gogoan, lotsa **loria** , torturatzailea biktima eta zekena barregarri. Joxan Elosegi

Bekatu harengatik gizon hark galdu zuen beretzat eta beste guztientzat mundu honetako justizia jatorrizkoa eta beste munduko **loria** betierekoa. Piarres Xarriton

Roman hasi zitzaion obispoari labur-zurrean kontatzen zer gertatzen ari zen eta nola hurrengo baterako utzi beharko zuen martirioaren **loria** . Inazio Mujika Iraola

**Loria** desiratzen zuen. Juan Garzia

Baina zer balio die antzina bateko **loria** zaharrak, zer balio Italia batzeko ahaleginean Frantziaren eta Austriaren aurka isuritako odolak? Anjel Lertxundi

Ez ulertua izateko modu bat da **loria** , menturaz okerrena. Berria - Ekonomia

Nahiz makur handiagoa den oraino betiereko **loriaren** galtzea, jatorrizko bekatuak galarazten duena, graziazko legeak bekatu hura kendu arte bataioaren eta penitentziaren bitartez [...] edo beste zerbait gisaz. Piarres Xarriton

Berriro ere zaldi gainera igoko naiz, eta **loriazko** egunak biziberrituko ditut. Oskar Arana

**Loriazko** herioa erdietsi baitzuten. Piarres Xarriton

Barneko kausa baten ideiak lagun daraman Poztasuna **Loria** deituko dugu. Piarres Xarriton

**2** *ipar* poz edo atsegin handia.

Hori jakin orduko, gure **loria** ! Daniel Landart

Nahi nuen norbaiti ene **loria** erran. Piarres Aintziart

Zer **loria** haurrentzat; hortxet bistan ikusten dituzte urteko opor zoriontsu maiteak. Herria

**Loria** zen pilotari horien karra eta pindarrak ikustea. Herria

Pilotari hauentzat denaden laneko eguna zen: hain dira laurak gogotik arizan, bi orenez banabeste eta jende guzia **lorian** ! Herria

Jean Marc Sallaberry ren familia **lorietan** da --, ongi etorri egin diote bere hirugarren haurrari. Herria

Auzoko haurrekin beti josteta, noiztenka ariz baserri lanetan eta eskolan gogotik ikasten nuela, hautzaroa iragan zait **lorietan** . Piarres Aintziart

Erran dautzuet **lorietan** naizela zuek hemen ikusi-eta... Herria

UMP alderdian ez dira haatik denak **lorietan** afera hori hola itzulikaturik. Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Arima eztitu egin zitzaion, eta bozkario eta **loria** sentipen batek hartu zuen. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jainkoaren loria** (4); **loria lortu** (3); **loria zuri** (5); **munduko loria** (4); **zer loria** (22); **zeruko loria** (3)
> **hango loriara zuzenduz** (3)
> **loriaren atarian geratu** (3)
> **loriazko egunak** (5)
> **denak lorietan** (8); **familia lorietan da** (3); **lorietan daude** (11); **lorietan dira** (4); **lorietan ezartzen** (3)

---

**loriabide** *iz* loriatzeko zergatikoa.

Thuleko (Islandiako) gizonei hainbat laket zaie herri guztien kondaira ikas eta izkributan ematea eta ez daukate **loriabide** tipiagokotzat inoren laudorioak argitaratzea berenak

baino. Juan Garzia

---

# loriagarri 1 *izond* loria merezi duena, loriatzekoa. ik **aintzagarri**.

Horra zertako ahal ditudan eskerrik hoberenak bihurtzen dizkiedan Jainkoari eta Orreaga eta Toledoko zaindari Ama Maria Birjina **loriagarriari**. Piarres Xarriton

Kotoina eta zeta modu **loriagarrian** lantzen dute eta xoriez beldur dira, zerutik jiten baitzaizkie jokatzera eta beren haztaparretan hartuz kafietara erematen baitituzte gaixoak airean. Aurelia Arkotxa

**2** *ipar* pozgarria, atsegingarria.

Alde honetako eskualdunentzat zer gauza **loriagarria**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zer leku **loriagarria**! dena pentze ederrez estalia, behi xuri eta behorrez beteak, alapide aberatsetan bazkatzen direnak udaberritik larrazkenaraino. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Loriagarri** izan zen bi bikotek Ibañetarat egin ginuen joan-jina. Michel Oronoz

**Loriagarriko** aroarekin 40 zakur talde erakutsiak izan dira eta 80 ek parte hartu dute eperren ihizin ainitz kalitateko zakur heietan. Herria

Horra nun eskas hori bete duten eta zoin ederki hamasei musika zati berexiz ehun bat edo gehiagoren artean eta artoski bilduz denen **loriagarri**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> denen loriagarri (15); guzien loriagarri (3)

---

# loriagarriki *adlag* era loragarrian.

**Loriagarriki** arizan dira lau pilotariak, bat ere berexi gabe. Herria

Hori guzia arlos Gimenezen pianoak **loriagarriki** lagundurik, kantu guziak halako barnatasun handi batekin heldu zaizkula bihotz-beharrietara. Herria

Nor ez da ere hunkitua izan Hélène eta Pantxika andere esposaren ahizpek hoin **loriagarriki** eman duten egunari zoakon kantuarekin! Herria

---

# lorialdi *iz* loriako aldia.

Errenazimentuan erantzun zuten guneak italiar Risorgimiento-an eraginkortasunik gabeak gertatzen dira, eta gidaritza Piamontek hartzen du, Italiaren aurreko **lorialdietan** parterik izan ez zuenak. Iñaki Mendiguren

---

# loriatsu *izond* aintzatsua, loriaz betea.

Hamabi izarreko koroa **loriatsu** bat daramala buruan. Juan Garzia

Bere Lider **Loriatsuari** jarraitzen dio garaipena arte. Ramon Etxezarreta

Etorkizun **loriatsu** baten alde sakrifikatu zuen bere dirua. Patxi Zubizarreta

Antzinatasuna eta aretoan barrena barreiatutako dibanak, horra bere iragan **loriatsuaren** ezaugarri bakarrak. Patxi Zubizarreta

Estimuzko **garai** loriatsu haien xarma dute hiriak eta hiriko eraikuntzek. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> garai loriatsu (3)
> egun loriatsua (3)

---

# loriatu, loria, loriatzen 1 da/du *ad* atsegin handia hartu edo eman.

Latinetik frantsesera itzultzen **loriatzen** nintzen. Piarres Aintziart

Zenbat eta handiago baita irudikatzen dugun maitaturiko gauzak guretzat duen afektua, hainbat eta gehiago **loriatuko** gara. Piarres Xarriton

Erraz gerta daiteke bere buruaz **loriatzen** dena harro izatea, eta bere burua denei maitagarri zaiela uste duelarik, denei gogaikarri izatea. Piarres Xarriton

Auzoarekin joatea deliberatu zuen, eta emazte arrantzaleen elasturiaren aditzeak bai eta arraina enkantean saltzen ikusteak **loriatu** zuten. Elena Touyarou

Horiek guziek **loriatu** gaituzte luzaz eta **loriatzen** oraindik. Herria

Eta **loriaturik** zeuden... laster etorriko zitzaiela lehen haurra. Daniel Landart

**Loriatua** nintzen holako neskatxa laketa funts horretan ezaguturik. Janbattitt Dirassar

Amak holako zernahi galde egin zizkion eta ni **loriatua** amari esker ikasiz jakin nahiak nituen asko gauza. Janbattitt Dirassar

Mihia furfuriaz dantzatuko zuen arren, funtsean **loriaturik** zegoen. Patxi Zubizarreta

Bertsulariaren bozari **loriatuak**, bata bertzeari ari ziren xarmanki luketela holako bat xantre bezala... Michel Oronoz

**2** goretsi.

Pio Barojaren edo Unamunoren *estilo vasco* **loriatzetik** abiatzen da diskurtso politikoaren eta ahulezia linguistikoaren arteko luizia nola zuritu ez dakien saio bat baino gehiago. Anjel Lertxundi

Hitzezko eta soinuzko jostailuak plazaz plaza jendeak **loriatzen** zituela. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> denak loriatu (8); jendea loriatu (4); jendea loriatu du (3)
> jendea loriatua (10); loriatua iduri (3); loriatua nintzen (4)
> denak loriatuak ziren (3); haurrak loriatuak (4)
> denak loriaturik (3); jendea loriaturik (5); loriaturik atxiki (3); loriaturik egon (3)

---

# lorifikapen *iz* lorifikatzea, gorestea.

Inoiz *k-bôd* hitzak gizakien aldetik Jainkoak hartzen duen **'lorifikapena'** adierazten du, edo, hobeki esan, Harengandik (gorets bedi!) landa dagoen orotik hartzen duena, egiazko **lorifikapena** Haren handitasuna hautematea baita. Xabier Kintana

---

# lorifikatu, lorifika, lorifikatzen du *ad* goretsi.

Zeren martiri haiek guztiak noren ahotan daude egun, eta nork loriatzen eta **lorifikatzen** ditu. Joan Mari Irigoien

Erdi nigarrez hasi nintzen ni ere, zeren eta mutil kondenatu harenganik hurbil egon bainintekeen ni ere, orduan hilez gero, eta ez sainduen saindutasunean **lorifikaturik** eta

golardoaturik. Joan Mari Irigoien

---

**lorifikatze** *iz* gorestea.

Hortaz, *k-bôd* hitzari emandako **'lorifikatze'** adiera honetan erran zen. Xabier Kintana

---

**lorio** *iz* atari arkupeduna.

Clubeko **loriotik** oso urrutira gabe, kalean, harpalari bat ari zen, biribilean jarritako entzule bakan batzuentzat jotzen. Irene Aldasoro

Mendian altxaturiko etxe goitsu baten **lorio** beltzaren itzalpean eman zituen lehen egunak. Juan Garzia

Tristurarik handiena elizetako eta kaperetako ezkilak entzutea zen; zeren ekaineko gauez oroitzen baitzen Mutur, noiz eta bera hantxe eserita baitzegoen, kota berdez jantzia, **lorio** santuetako aulkietan. Juan Garzia

---

**lorios** 1 *izond* loriotsua.

Buhameak bazter orotan kurri ibiltzen ziren garai **loriosetan**. Itxaro Borda

Urte anitz geroago militante horiek garai **lorios** horietaz balentriaka eta negarra begian mintzo adi zitezkeen. Itxaro Borda

Jesu Kristo gure Jaunaren arima **loriosa** eta beti benedikatua. Piarres Xarriton

Liburu horretan berariaz utziko nuela albora kimika handia, industrietegi kolosalen eta fakturazio-ustelkeria zorabiagarrien kimikatzar **loriosa**, hori lan kolektiboa baita eta, beraz, anonimoa. Juan Garzia

Historia sartzen ari da Frantzian, ez bakarrik gertakari haundi eta **lorios** horiena, gertakari latzena ere. Herria

**2** atseginezkoa.

Bizi **lorios** eta zoriontsu bat Lisa ttipiari desiratzen diogu. Herria

**3** (adizlagun edo predikatu gisa)

Bakarrik gaude, mende mendekariak zeharkatu arren, gazte eta **lorios**, grebarengatik lekua huts dago: konpainia onean gaudela nola ez aitor? Itxaro Borda

Berpizten naiz, gorputza akitua bainan buru-bihotzak **lorios** !Plazako jendetze hura doi bat arindu bada ere orduan, gehiengo handi bat halere han berean zagon berant arte, **lorios**. Herria

Gaztearen irria, herri bizikor baten irria, hainbeste dohain eder eta aberatsekin: ikusten dugularik egun hauetan korrika saldoa laster eta laster, hainbeste gazteren itxaropenez **lorios**. Herria

Bai, Kristo Errege eta San Petri eta Paulo, segur, **lorios** zirela gurekin batean ikusirik: herritar guziak batean eta bakean! Herria

**4** ***loriosik*** *adlag*

Batere kanpo ametsik gabe, kanta zezakeen bai **loriosik**, ez dela nehor munduan "ni bezain urosa denik". Herria

---

**lorioski** 1 *adlag* loriaz; pozik.

Gutxigatik ez zion astoa irauli, eskuak astinduz azaldu zenean, "Zaldiz aurrera eginda" oihuka, baina, zorionez, agudo jiratu eta jarraitu zuen zaldiz, ustez behintzat **lorioski** hiltzera Balaclavako gainetan. Anton Garikano

Ostatuan elgarretaratu dire beren 55 urteak **lorioski** eta omore hoberenean ospatzeko beren bizi lagunekin. Herria

Gazteria metatua zagon haren aintzinean, ehunka berdin milaka, **lorioski** jauzika eta dantzan, zangoak lohian bainan halere arin! Herria

250 bazkaltiar, irabazleak **lorios** eta galtzaleak, geroko suerte onaren beha! Herria

**2** aintzaz beterik. • *irud/hed*

Galdarakoa biltzeko hodia lotu, konpresorea martxan jarri, eta **lorioski**, ke zuri artean eta ohiko usain garratzaren erdian, erretxinaren txorrotada lodia erreten-buruko askatxoan hantxe baratu zen, ispilu beltz dirdaitsu bat osatuz. Juan Garzia

---

**loriostu,** lorios, loriosten da/du *ad* loriotsu, atseginezko bihurtu.

Agatak egur hiro ukaldia kokotsean jaso zuen: denbora eskasa betikotasunaren itxuraz **loriostu** adiskidantza-harien hausteko baliatzen zen aitzakia logikoa zena? Itxaro Borda

---

**loriotsu** *izond* atsegintsua.

Bai, aste **loriotsuenetarik** iragan da herrian: Pilota, Kulturaren agertze, Azoka, Ikastolaren besta, Lasterkariak, Musikaldiak, Espos eta abar... Herria

---

**lorito** 1 *iz* loroa.

Afrikaren erdialdeko eta Madagaskarko *Agapornis* generoko hegaztiak dira horietako batzuek -**lorito** edo perikitoen antzekoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Loritoek** eraso egin eta hilzorian utzi zuten. Gotzon Garate

**2** *adkor* loroa.

**Loritoen** moduan, etengabe errepikatzen zuen mutil kozkorrak leloa. Joxerra Garzia

**3** (hitz elkartuetan)

Ramsay andreak azkenean ernearazi ahal izan zuen alabarengan **lorito** sen hura. Anton Garikano

Mahabalipuran, Madrasen, **lorito** talde handi bat arroz alor batera joan zen jatera. Gotzon Garate

---

**lorketa** *iz* lorrean eramatea.

Ez dirudi, ordea, orga edo gurdi perrilduna baino zaharragoa izan denik, gurpil gabeko **lorketa** kontua. Patziku Perurena

---

**lorketari** *iz* gauzak lorrean eramaten duen pertsona.

Lor lanean aria, beti nekazari-**lorketari**; lera, goldea, area, narra edo alferra beti lorrean edo arrastaka dituela. Patziku Perurena

---

## lorkizun *iz* lortu behar den gauza.

Bestalde, badakigu *logos* edo arrazoimen hori, ondoren itzuliko dugunez, ezaguerak lortzen saiatzen dela eta **lorkizun** gisa filosofia eratzen duen jakituria horretara iristen. Piarres Xarriton

---

## lorkuntza *iz* lortzea, lorpena.

-Bilatzen jakin behar, Gotzain jauna! -erantzun zuen Ñabarrak, berak baitzuen **lorkuntza** haren merituri handiena-. Koldo Biguri

---

## loro 1 *iz* papagaia.

Andereak bazuen **loro** bat ahotik sugeak eta ziraunak botatzen zituena. Xabier Paya

Neskazahar itsusi, beltz, kakatua-sudurdun bat zen, **loro** zaharrak baino urte gehiago zituena. Josu Zabaleta

Buruz ikasi duena errepikatu besterik ez du egingo, **loroek** bezala. Koldo Zuazo

**Loroa** isiltzeko modu bakarra haren kaiola zapi batekin estaltzea zen. Xabier Paya

**Loroak** esan du: viva España! Pablo Sastre

Beste zer esanik ez dute asmatzen, **loroen** leloan temati: [...]. Jesus Mari Mendizabal

Txori tropikalen bat zela erabaki genuen, **loroen** familiakoa-edo. Bernardo Atxaga

Txori horiek alegia, **loro** moduko horiek, ea ondo girotu diren inguru honetan. Bernardo Atxaga

H5 birusa atzeman diotela **loroari**. Berria - Harian

**2** (izenondo)

**Loro** buztan-gorriak. Josu Zabaleta

Bost **loro** moko-zorrotz gozo-gozo lo. Iñaki Arranz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **loro alu** (3); **loro emea** (4)

---

## lorontzi ik **loreontzi**.

---

## lorpen 1 *iz* lortzea; lordu den gauza.

Bakearen **lorpena**. Herria

Petrolioa ordezka dezaketen iturri energetikoen **lorpen** eta garapenari. Berria - Gaiak

Eta zein da animaleko esportzu horren **lorpena**? Patziku Perurena

Oraindik ere oso zaila da begiaren zenbait **lorpen** ulertzea. Irene Aldasoro

**Lorpen** hau mugarri historikoa da. Iñaki Mendiguren

Azter dezagun orain zehatzago nolako **lorpenak** erdiesten dituen belarriak bere eginkizunean. Irene Aldasoro

Gizarte industrialetan XX. mendean egin diren **lorpenak** (gizarte-babesa, gutxieneko soldata, itun kolektiboak, etab.). Koro Navarro

Erresuma Batuko eta Alemaniako ikertzaile talde baten jardunaren emaitza izan da **lorpena**. Berria - Gaiak

Presoek erdietsitako hainbat **lorpen** «deusestatzen» ari zaizkiela zehaztu dute. Berria - Euskal Herria

**Lorpen** horietatik zelula bat sintetizatzera alde izugarria dago. Berria - Gaiak

**2** (izenondoekin)

Hori guztia **lorpen** handia izan zen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Lorpen** harrigarriak erdiesten ditu sudurreko aire-girogailuak tenperatura oso hotzetan. Irene Aldasoro

Gizakiaren **lorpen** intelektual eta teknologikoak. Iñaki Mendiguren

Herri germanofonoen **lorpen** artistikoak eta intelektualak. Askoren artean

Arrazoimenaren **lorpen** epistemikoak. Askoren artean

«Orduan frantsesa beharrezkoa zen **lorpen** sozialerako», erantzun zien prefetak. Berria - Euskal Herria

Putinek bozen %71,2 eskuratu ditu, eta orain arteko **«lorpen** demokratikoak» bermatuko dituela dio. Berria - Mundua

Jenderik gehienak ez du monumenturik edo **lorpen** iraunkorrik uzten alde egin ostean. Oskar Arana

**3** (kiroletan)

Espainiako Itzulian halako **lorpenak** dituen txirrindulariak errespetua merezi du, handia gainera. Emaitzak alde batera utzita, zein izan da zure **lorpenik** aipagarriena? Berria - Kirola

Osasunaren gisako klub batentzat bi urtez jarraian Europan izatea **lorpen** itzela da. Berria - Kirola

Ez da **lorpen** makala, duela pare bat urte Gazte Mailan jokatzen zuenarentzat. Berria - Kirola

**Lorpenak**: eskuz banakako txapelduna (1996, 1999 eta 2000) eta txapeldunordea (1998 eta 2001). Berria - Kirola

**Lorpen** esanguratsuenen zerrenda: -garaipena Friuliko Giroan (2003). Berria - Kirola

Zazpi Tour irabaztea **lorpen** handia da, baina horren ondorioa ere gogor-gogorra da. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Neurrien artean, euskararen **lorpen**-mailak zehaztuko dira etapa guztietan. Berria - Harian

Lau urte daramatzazu profesionaletan eta **lorpen** zerrenda ona pilatu duzu.

Nire ustez bateragarriak dira umiltasuna eta **lorpen** gosea. Berria - Kirola

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Joan den mendean izan ziren medikuntza **lorpen** guztiak animaliekin egindako ikerketan oinarritu ziren. Berria - Gaiak

Gure Heinrichek gizarte **lorpen** bat egin du. Ramon Etxezarreta

Kultur **lorpen** helenikoak Salaminakoaren ostean izandako piztualdiaren sustraiak. Iñaki Mendiguren

Miguel Indurainen kirol **lorpenek** zeruraino goratu zuten Nafarroako txapeldun handia, baina kirol **lorpen** horiek bezainbesteko garrantzia izan zuen Indurain beraren izateko modu apalak, handinahirik gabeko jarrerak, zintzotasunak, finean. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kirol lorpen** (3); **lorpen bikaina** (3); **lorpen esanguratsuenen zerrenda** (3); **lorpen garrantzitsua** (3); **lorpen handia** (38); **lorpen handiak** (10); **lorpen handiena** (8); **lorpen handienetakoa** (3); **lorpen handitzat jo** (3); **lorpen historikoa** (6); **lorpen izugarria** (4); **lorpen makala** (4); **lorpen nagusia** (3); **lorpen nagusiak** (3); **lorpen sozialak** (5); **lorpen zerrenda** (10)

lorpena izan (13); lorpena izan zen (5)
egindako lorpenak (3); izandako lorpenak (3)
kirol lorpenen (3)
lorpenik handiena (12); lorpenik handienak (3)

---

lorraniar ik **lorrenar**.

---

**lorratz** **1** *iz* higituz doan ontzi batek edo zernahi gauzak uretan edo argi batek zeruan uzten duena.

Enbarkazioak ura branka bularraz jo eta erdibituko du, ur erdibituak bitsa altxatuko du eta apar kizkurtu horrek, enbarkazioaren alboak igurtzi ondoren, **lorratz** zurixka utziko du atzean. Joseba Sarrionandia

Itsasoko uhinak zeharkatzen dituen ontzia bezala: igaro eta arrastorik ez du uzten, ontzipeak ere ez **lorratzik** uhinetan. Elizen arteko biblia

Ontziaren **lorratzak** zipriztinez betetzen zituen Volgaren ibai bazterrak. Karlos Zabala

Kea eta zeruan utzi **lorratza**, airekoek egin lanaren seinale. Xabier Montoia

Argi balen eta kalibre txikiko argi obusen **lorratzak**. Josu Zabaleta

Iaz jaso zituen laginok *Stardust*-ek (Izarren hautsa, euskaraz), Wild 2 kometaren **lorratza** zeharkatuta. Berria - Gaiak

Komenten **lorratza** aztertuta, ur lurrunaren arrastoak hauteman dituzte hainbatetan. Berria - Gaiak

Komandanteak, kanpora bidean, Geley bere **lorratzean** darama, hildako arrain bat arrantza hariaren muturretik tiraka eramango balu bezala. Josu Zabaleta

**2** (izenondoekin)

Beren hegada pausatu eta ero samarraz zeru-sabaian **lorratz** ikusezinak intsinuatzen dituzten kalatxorien txilioak. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** aztarna, arrastoa, batez ere higituz doan zerbaitek uzten duena.

Badirudi lorrean (arrastan) garraitzen den gauza orok uzten duela **lorratza**. Patziku Perurena

Automobilaren pneumatikoen **lorratzaren** gisa. Irene Aldasoro

Horren ordez, ikertzaile-agentzia bati ordaintzen dio, haren **lorratza** aurkitzeko. Oskar Arana

Aurrena bere urratsen **lorratza** estali da, gero bera hasi da zuritzen. Koldo Izagirre

Iduri likek hiltzaileak ardura berezia hartu zuela bere sar-ateren **lorratzik** ez uzten. Aingeru Epaltza

Hori da benetan **lorratza** uztea, arrasto bizia, eta Lizardi hemen arrastoa utzita joan zen. Juan Luis Zabala

Ez zela oso probablea pistolariak nire **lorratzean** etorri izana. Alberto Ladron Arana

Nire pozaren **lorratzean** bizi naiz. Josu Zabaleta

**4** (izenondoekin)

**Lorratz** zarakartuak ziren, nahiko luberatuak, gurdi batenak ere izan zitezkeenak. Joxe Austin Arrieta

Txakurrak sarritan, behin **lorratz** ziurra hartutakoan, piztia menditar baten atsedenlekua, hostotzan ezkutatua, usnaz aurkitzen duen bezala. Xabier Amuriza

Ginebrak eztarrian uzten duen **lorratz** zakarrak. Aingeru Epaltza

Bezperako oinazeak memorian utzi zidan **lorratz** sakona. Joan Mari Irigoien

Odola, malkoak eta tinta: emakumeak izaki isurkariak dira eta, bareak bezala, **lorratz** limur bat uzten dute iragaiten diren lekuan. Joxean Agirre

Sudurpeko bi **lorratz** gorriak xukatu beharrez. Aingeru Epaltza

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Miren agertzen zait, lepoa urratuta zabuka datorrela nireganantz, odol **lorratz** batek darraiola... Migel Angel Mintegi

Atzean jantzi **lorratz** bat utzirik amildu ziren ohe gainera. Migel Angel Mintegi

Argi **lorratz** soil batzuetara mugatzen zen, azaltzean: [...]. Josu Zabaleta

Eta baten batek bere aldia egin, altxatu eta alde egiten badu, airean tristura **lorratz** bat uzten duela esan daiteke. Joxean Agirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
lorratza uzten (3)

---

**lorrenar** *(orobat **lorraniar** eta **lorrenatar**) izlag/iz* Lorrenakoa, Lorrenari dagokiona; Lorrenako biztanlea.

Eta Joana, **Lorrenar** zintzoa / ingelesek Rouenen errea. Josu Zabaleta

'Gu' esatean lonbardiar, saxoniar, frantziar, **lorrenar**, bavariar, suabiar eta burgundiarrak esan nahi dut. Iñaki Mendiguren

-Ez, jauna, **Lorrenatarra** nauzu- erantzun zidan. Josu Zabaleta

B ereziki alzaziarrak eta **Lorraniarrak**, mugen pasatzaile espresak, paper faltsu egileak, makiako jendea eta airekoetatik erori soldadoak aterbetu zituztenak. Marzel Etxehandi

---

lorrenatar ik **lorrenar**.

---

**lorrin** *izond* eguraldiaz mintzatuz, nahasia.

Haize mina dabil, dotorea aroa etxean utzitako euri zirin, narras, **lorrinaren** aldean. Iñigo Aranbarri

Itsasoaren aldera, zerua eta itsasoa gris **lorrinean** nahasten zituen behelainoak. Joseba Sarrionandia

Gaurko egun **lorrinarekin** zer demontre ikusteko asmoa dauka ba? Urtzi Urrutikoeetxea

---

**lorrindu**, lorrin(du), lorrintzen da/du *ad* nahasi; hondatu.

Lehenen behar duzuna ahal den oliba oliorik usaingabeena, [...], egoskeran usain nahastuak **lorrin** eta honda ez ditzan. Xabier Amuriza

Kaleak hondatuta aurkitu nituen, etxe-sailetan hutsuneak tarteka, eta oraindik zutik zeudenak ere **lorrinduta**, narriatuta, zulatuta, leihorik gabe, baina hala ere ezagutu nuen bidea gutxi gorabehera. Urtzi Urrutikoetxea

Alkondara guztiz **lorrinduta** zeukan. Unai Elorriaga

Mundu natural jatorraren sinbolo perfektua da berau ere, "honen herri landako, larreko eta gisako hau", diruaren grinak **lorrindu** gabea oraindik. Koldo Izagirre

---

**lorrinkeria** *iz*

Maketo berba bera, arrazismo abertzalearen seinaletzat ailegatu ohi dena (politikoa), Unamuno-k aberastuberrien **lorrinkeriatzat** jotzen du (soziala): Euskal Herri tradizionala igualitarista izan ei da. Joxe Azurmendi

---

**lortarazi**, lortaraz, lortarazten dio *ad* lortzera beharttu.

Ni Jaunaren zerbitzuan bizi izan naiz beti eta hark bere aingerua bidaliko du zurekin; zure bidaiaren helburua **lortaraziko** dizu, eta nire semearentzat emaztea hartuko duzu nire ahaideen artetik, nire aitaren etxetik. Elizen arteko biblia

---

**lortezin** *izond* ezin lortuzkoa.

Jainkoa goretsi zuten, hark negu sasoi hartan Asisen **lortezinak** ziren arrain haietaz bere zerbitzaria hornitu zuelako. Askoren artean

Paradoxa bete-betekoa da, tratua berez berezia izaki, preso politiko estatusa helburu **lortezina** bilakatzen da. Jokin Urain

Baina, orduan, existentzia hau zuen adigai enpirikoarentzat **lortezina** litzateke. Ibon Uribarri

---

**lortu**, lor, lortzen **1** du *ad* desiratzen den zerbait izatera edo egitera iritsi. ik **erdietsi**.

Haiek **lortu** baldin badute, nik ere **lor** zezakeat. Fernando Rey

Ez zuen erabat **lortu**. Migel Angel Mintegi

Emazteari masailean musu bizkor bat eman eta semetxoari ere musu ematen saiatu zen, baina ez zuen **lortu**. Iñaki Mendiguren

-Nola **lortu** baneki, ez nintzateke orain zurekin ariko. Aingeru Epaltza

Begitarte gorrixka hura ahazten saiatu nintzen, baita **lortu** ere. Joxe Austin Arrieta

Jendeak maita zaitzan **lortu** behar duzu. Oskar Arana

Atomoa banatzea ere **lortu** du..., eta zer emaitzarekin? Iñaki Mendiguren

Nola **lor** daiteke zu lotu eta mendean hartzea? Jose Antonio Mujika

Eta zintzotasunari esker **lor** dezake zientzialariak, hain zuzen, zientziaren erabilera okerra saihestea. Juan Garzia

Sugandila iheskorrak ziren, ordea, beste batzuk: harrapatu nahi zituenean, asko jota ere isatsa kentzea baino ez zuen **lortzen**. Ramon Saizarbitoria

Lau jardunalditan hiru partida irabaztea ere **lortu** du. Berria - Kirola

Gauza garrantzitsuak deszifratzea **lortua** zuen, egia zen hori. Xabier Aranburu

Ez nian **lortu** deus ateratzerik. Juan Garzia

Damu bakarra izaten zuen: etxekoandrea bortxatzea **lortu** ez izana. Jose Morales

**2** (aditzaren objektua izen sintagma bat dela; gauza kontrekuak )

Nekez **lortu** zuen Mikel Strogoffek janari pizarren bat zaldiarentzat eta beretzat. Karlos Zabala

Gubbio hirira heldu zen, eta han tunika koskor bat **lortu** zuen antzinako lagun batengandik. Askoren artean

Bere emaztearekin batera, inork ez jakin nola, Londonera joateko baimena eta bidaia-txartela **lortuak** zituen injineru ospetsu baten apartamenduan. Felipe Juaristi

Atxikoria-ura su gainean, eta bezperan estraperloan **lortu** ahal izan nituen ogi zuri bi mahaiaren gainean. Inazio Mujika Iraola

**Lortzen** erraza ez den dirua. Iban Zaldua

**3** (aditzaren objektua izen sintagma bat dela; bestelakoak)

Ahal bezala gorde zuen hain errazki **lortu** zuen zehaztapen horrek eragin zion inpresioa. Elena Touyarou

Erregaiaren konbustiotik **lortzen** du gorputzak energia, batez ere. Irene Aldasoro

Erdiko geruza gehituta **lortzen** da hurrengo konplexutasun maila. Irene Aldasoro

Hobekuntzetako batzuk aski erraz **lor** zitezkeen. Oskar Arana

55 puntu **lortu** zituen Bryantek, Torontoko jokalari guztiak baino gehiago.1994-1995 denboraldian **lortu** zituen Kovacevicek bere lehen tituluak: Jugoslaviako Liga eta Kopa, Belgradeko Izar Gorriarekin. Berria - Kirola

24 garaipen **lortu** dituzte euskal txirrindulariek 2004an. Berria - Kirola

Ez nuen **lortu**, hara, lurrun higuinak, asperdura eta umiliazioa besterik. Juan Garzia

Ez zuen gauza handirik **lortu**, egia esan, jakingura piztea soilik.· Baina ez zen **lortu** erraza, bakardadea. Bernardo Atxaga

**4** ***lortze bidean*** lortzeko bidean.

Euskal Herrian ere bakea eta normalizazio politikoa **lortze** bidean esperantza handitzen digu horrek. Berria - Harian

Hemengo ondasunak alde batera utzi eta betikoak **lortze** bidean. Imanol Unzurrunzaga

Eskubideen berdintasun hori **lortze** bidean, bikote homosexualek adopziorako zein ezkontzeko aukera izan behar dutela aldarrikatu zuen. Berria - Euskal Herria

«Akordioak **lortze** bidean urratsak emateko, alderdiek beren ardura onartzea» beharrezkotzat jo zuen Elorzak. Berria - Euskal Herria

«Konpromisoa» hartu du Segik, «Euskal Herri libre, sozialista eta feminista **lortze** bidean» Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)**

**erraz lor** (10); **garaipena lor** (15); **nekez lor** (9)

**absolutua lortu** (14); **adostasuna lortu** (47); **adostasunik lortu** (24); **aise lortu** (16); **akordio bat lortu** (18); **akordioa lortu** (201); **akordioak lortu** (21); **akordiorik lortu** (104); **akordiorik lortu ezean** (15); **alde egitea lortu** (16); **amaitzea lortu** (10); **argia lortu** (11); **arrakasta handia lortu** (26); **arrakasta lortu** (51); **arrakastarik lortu** (10); **askatasuna lortu** (24); **askatzea lortu** (17); **asko lortu** (32); **ateratzea lortu** (69); **aurrera egitea lortu** (17); **aurretik jartzea lortu** (9); **babesa lortu** (45); **baimena lortu** (48); **bakea lortu** (15); **bat egitea lortu** (14); **batasuna lortu** (11); **batzea lortu** (11); **berdinketa lortu** (45); **berdintzea lortu** (42); **berehala lortu zuen** (9); **betetzea lortu** (11); **bigarren garaipena lortu** (22); **biltzea lortu** (22); **bizirik ateratzea lortu** (13); **bizitzea lortu** (9); **botatzea lortu** (10); **boto gehiago lortu** (10); **boto gehien lortu** (11); **boto lortu** (30); **boto lortu zituen** (11); **brontzea lortu** (11); **brontzezko domina lortu** (10); **buelta ematea lortu** (12); **dena lortu** (10); **deus lortu** (11); **diputatu lortu** (17); **diputatu lortu zituen** (10); **domina lortu** (43); **egotea lortu** (12); **ekartzea lortu** (11); **emaitza bikainak lortu** (9); **emaitza hobeak lortu** (17); **emaitza lortu** (15); **emaitza ona lortu** (19); **emaitza onak lortu** (55); **emaitzak lortu** (26); **emaitzarik lortu** (15); **ematea lortu** (39); **eramatea lortu** (9); **errebote lortu** (27); **errebote lortu zituen** (21); **errenta lortu** (16); **eskubidea lortu** (10); **etxean lortu** (9); **euro lortu** (9); **eustea lortu** (33); **eustea lortu zuen** (10); **finalerako txartela lortu** (30); **finalerdietarako txartela lortu** (14); **gainditzea lortu** (28); **garaipen argia lortu** (9); **garaipen bakarra lortu** (15); **garaipen bat lortu** (15); **garaipen bikaina lortu** (9); **garaipen erraza lortu** (12); **garaipen garrantzitsua lortu** (19); **garaipen handia lortu** (10); **garaipen lortu** (69); **garaipen lortu ditu** (30); **garaipena lortu** (280); **garaipenik lortu** (45); **gauza asko lortu** (9); **gehiengo absolutua lortu** (14); **gehiengo osoa lortu** (22); **gehiengoa lortu** (21); **geldiaraztea lortu** (12); **gelditzea lortu** (18); **geratzea lortu** (11); **gol lortu** (21); **gol lortu zituen** (10); **gola lortu** (25); **hartzea lortu** (27); **helburua lortu** (91); **helburuak lortu** (16); **heltzea lortu** (10); **hiru puntuak lortu** (12); **hirugarren garaipena lortu** (13); **hirugarren postua lortu** (10); **hitz egitea lortu** (12); **hitzarmena lortu** (19); **igoera lortu** (11); **igotzea lortu** (25); **ihes egitea lortu** (105); **independentzia lortu** (53); **informazioa lortu** (12); **irabaztea lortu** (57); **irekitzea lortu** (24); **iristea lortu** (39); **irtetea lortu** (16); **itzultzea lortu** (16); **jaistea lortu** (19); **jartzea lortu** (57); **kentzea lortu** (19); **kontratua lortu** (18); **kostata lortu** (12); **laguntza lortu** (10); **laugarren garaipena lortu** (16); **lehen garaipena lortu** (32); **lehen postua lortu** (9); **lehen puntua lortu** (9); **lidergoa lortu** (14)

**lortu beharra** (15); **lortu beharreko** (23); **lortu ezean** (64); **lortu ezinik** (20); **lortu nahian** (48)

**maila lortu** (12); **mailari eustea lortu** (9); **mantentzea lortu** (13); **marka lortu** (11); **merezita lortu** (9); **merezitako garaipena lortu** (9); **murriztea lortu** (24); **nekez lortu** (11); **ordezkari lortu** (11); **oreka lortu** (25); **orgasmoa lortu** (10); **osatzea lortu** (14); **ospe handia lortu** (10); **ospea lortu** (24); **ozta lortu** (11); **ozta ozta lortu** (11); **partida berdintzea lortu** (10); **partziala lortu** (45); **pole a lortu** (11); **postua lortu** (44); **puntu bakarra lortu** (10); **puntu bat lortu** (9); **puntu lortu** (104); **puntu lortu zituen** (40); **puntua lortu** (19); **puntuak lortu** (29); **punturik lortu** (14); **saihestea lortu** (9); **sailkapena lortu** (24); **sailkatzea lortu** (42); **sailkatzea lortu zuen** (11); **salbatzea lortu** (9); **saria lortu** (23); **sartzea lortu** (89); **seigarren garaipena lortu** (9); **sekula lortu** (13); **sinadura lortu** (16); **sortzea lortu** (14); **sostengua lortu** (12); **tanto lortu** (28); **tanto lortu zituen** (22); **titulua lortu** (16); **txapela lortu** (21); **txartela lortu** (96); **txartela lortu zuten** (23); **urrezko domina lortu** (15); **uztea lortu** (18); **zabaltzea lortu** (11); **zera lortu** (10); **zerbait lortu** (28); **ziurtagiria lortu** (9)

**akordioa lortuko** (9); **akordiorik lortuko** (9); **arrakasta lortuko** (11); **bakea lortuko** (10); **diputatu lortuko** (9); **gehiengoa lortuko** (9); **helburua lortuko** (16); **nekez lortuko** (35); **sekula lortuko** (13); **txartela lortuko** (21)

**akordioa lortuta** (12); **garaipena lortuta** (16); **puntu lortuta** (9)

**lortutako akordioa** (48); **lortutako akordioak** (20); **lortutako akordioarekin** (9); **lortutako akordioaren** (19); **lortutako akordioari** (12); **lortutako aldea** (9); **lortutako arrakasta** (10); **lortutako dirua** (9); **lortutako emaitza** (28); **lortutako emaitzak** (50); **lortutako emaitzekin** (12); **lortutako emaitzen** (12); **lortutako garaipen** (14); **lortutako garaipena** (15); **lortutako garaipenak** (14); **lortutako puntua** (10); **lortutako zelula** (10)

**akordioa lortuz** (13); **akordioa lortuz gero** (9); **garaipena lortuz** (19); **garaipena lortuz gero** (17)

**adostasuna lortzea** (43); **akordio bat lortzea** (12); **akordio zabala lortzea** (9); **akordioa lortzea** (60); **akordioak lortzea** (10); **askatasuna lortzea** (12); **bakea lortzea** (37); **batasuna lortzea** (11); **dirua lortzea** (11); **emaitza ona lortzea** (11); **garaipena lortzea** (49); **gehiago lortzea** (21); **gehiengo osoa lortzea** (12); **postua lortzea** (9); **puntuak lortzea** (18); **punturen bat lortzea** (12)

**adostasuna lortzeko** (41); **adostasunak lortzeko** (11); **akordio bat lortzeko** (23); **akordioa lortzeko** (132); **akordioak lortzeko** (60); **arrakasta lortzeko** (31); **askatasuna lortzeko** (19); **babesa lortzeko** (23); **baimena lortzeko** (20); **bakea lortzeko** (201); **batasuna lortzeko** (23); **berdinketa lortzeko** (12); **berdintasuna lortzeko** (19); **bigarren postua lortzeko** (10); **boterea lortzeko** (10); **dirua lortzeko** (38); **domina lortzeko** (9); **emaitza onak lortzeko** (11); **emaitzak lortzeko** (14); **energia lortzeko** (11); **eskakizuna lortzeko** (9); **etxebizitza lortzeko** (12); **euskararen normalizazioa lortzeko** (19); **garaipena lortzeko** (149); **garaipena lortzeko aukera** (20); **garaipenak lortzeko** (17); **garapen iraunkorra lortzeko** (11); **gola lortzeko** (18); **helburu hori lortzeko** (47); **helburu horiek lortzeko** (9); **helburu politikoak lortzeko** (23); **helburua lortzeko** (63); **helburuak lortzeko** (37); **hiru puntuak lortzeko** (10); **hitzarmena lortzeko** (18); **independentzia lortzeko** (12); **informazioa lortzeko** (20); **konponbidea lortzeko** (18); **lana lortzeko** (14); **lehen postua lortzeko** (13); **lortzeko ahalegin** (12); **lortzeko ahalegina** (17); **lortzeko ahaleginak** (18); **lortzeko ahaleginean** (13); **lortzeko ahaleginetan** (12); **lortzeko arazoak** (11); **lortzeko asmoa** (17); **lortzeko asmoarekin** (11); **lortzeko asmoz** (40); **lortzeko aukera** (186); **lortzeko aukerak** (37); **lortzeko aukerarik** (27); **lortzeko bide** (53); **lortzeko bide bakarra** (15); **lortzeko bidea** (40); **lortzeko bideak** (12); **lortzeko bidean** (89); **lortzeko biderik** (12); **lortzeko borondatea** (12); **lortzeko borroka** (11); **lortzeko borrokan** (19); **lortzeko erabili** (15); **lortzeko erabiltzen** (14); **lortzeko esperantza** (12); **lortzeko faborito** (10); **lortzeko gai** (39); **lortzeko gai izan** (11); **lortzeko hautagai** (13); **lortzeko helburua** (12); **lortzeko helburuarekin** (31); **lortzeko itxaropena** (23); **lortzeko konpromisoa** (19); **lortzeko lan** (24); **lortzeko lana** (10); **lortzeko lanean** (24); **lortzeko lehia** (11); **lortzeko lehian** (32); **lortzeko modu** (19); **lortzeko modu bakarra** (12); **lortzeko modua** (17); **lortzeko moduan** (15); **lortzeko oztopo** (13); **lortzeko prest** (11); **lortzeko tresna** (15); **lortzeko zailtasunak** (10); **lortzeko zorian** (20); **normalizazio politikoa lortzeko** (40); **normalizazioa lortzeko** (44); **ordezkaritza lortzeko** (11); **oreka lortzeko** (9); **orgasmoa lortzeko** (21); **paperak lortzeko** (9); **podiuma lortzeko** (9); **postua lortzeko** (39); **puntuak lortzeko** (24); **sailkapena lortzeko** (13); **salbazioa lortzeko** (12); **saria lortzeko** (16); **sostengua lortzeko** (9); **titulua lortzeko** (21); **txapela lortzeko** (26); **txartela lortzeko** (33); **zerbait lortzeko** (25); **ziurtagiria lortzeko** (10)

**adostasuna lortzen** (12); **akordioa lortzen** (32); **akordiorik lortzen** (16); **arrakasta lortzen** (11); **bakea lortzen** (12); **emaitza hobeak lortzen** (13); **emaitza onak lortzen** (28); **emaitzak lortzen** (9); **garaipena lortzen** (37); **garaipenak lortzen** (10); **gehiengo osoa lortzen** (10); **helburua lortzen** (20); **lortzen ahaleginduko** (9); **lortzen lagundu** (16); **lortzen laguntzen** (10); **lortzen saiatu** (38); **lortzen saiatuko** (66); **lortzen saiatzeko** (10); **lortzen saiatzen** (16); **nekez lortzen** (9); **puntu gehien lortzen** (10); **puntuak lortzen** (12); **sartzea lortzen** (15)

---

## **losa** *iz* lauza.

Barru harresituaren erdian marmolezko **losa** bat jarriko da nibelean. Santiago Iruretagoiena

Nukleoaren gainean zoladura jarriko da erregela eta nibelarekin doi-doi berdinduta, marmolezko **losazkoa** edo mosaikozkoa. Santiago Iruretagoiena

---

## **losangelestar** *izlag/iz* Los Angeleskoa, Los Angelesi dagokiona; Los Angelesko herritarra.

James Ellroy da idazlea, polizi eleberriak egiten dituen idazle estatubatuarra (**losangelestarra**, zehatzago esanda). Xabier Mendiguren Elizegi

---

## losentxa ik **losintxa**.

---

## losentxari ik **losintxari**.

---

## **losintxa** *(orobat **losentxa** g.er. eta **loxintxa** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **losintxa** agertzen da)* **1** *iz* norbaiti, haren onginahia irabazteko, esaten zaizkion hitz labainak edo egiten zaizkion txerak, askotan engainuzkoak. ik **balaku, lausengu**.

Ramirorekin ezkontzeko hitz emanda zegoela gogorarazi eta **losintxa** guztiei muzin egiten baitzien. Martin Anso

Zuk ez zenidan **losintxarik** ez gezurrik esan, ez ninduzun limurtu. Eduardo Matauko

**Losintxa** bat, familiaz galdetu, nonbait geratu: edozein gauza bien arteko distantzia laburtzeko. Patxi Iturritegi

Mutilak hasierako **losintxak** ahal bezala saihestu ditu eta ondoko proposamen zuzenei, berriz, argi eta garbi egin die uko. Martin Anso

Ni harritua nengoen nola onar zitzakeen nire Veronica Lakek batere aurpegi zoragarria ez zuen Marcantonio baten **losintxak**. Pello Lizarralde

Azkenean bere nagusiak **losintxaz** baretu zuen pakidermo larru-lodi haserrea. Gotzon Garate

**Losintxaz** eta balakuz hazia zuten umetatik. Gotzon Garate

**Losintxaz** eta laztanez hazi zuten behi hura. Gotzon Garate

Ezin da **losintxatan** ibili momentuko onurarekin eta pertsonaia itzaltsu batzuen zorionarekin, jende ilun askoren etorkizun beltza eta malkoak mesprezatuz. Juan Martin Elexpuru

**2** (hitz elkartuetan)

**Losintxa**-eskaintza ugari eginez ari ziren elkarri, Don Kijote eta Don Fernando. Patxi Ezkiaga

Maiteminduen arteko **losintxa** eszena. Pello Lizarralde

**3** (**egin** aditzarekin)

Beste batzuek **losintxa** egiten dihardute, oihalaren gelditasunetik. Josu Zabaleta

Libertinoegia izan naiz logelako atean gelditzeko, harroegia faboritoei, ministroei edo maitaleei **losintxak** egiteko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Buruan sukaldari txanoa ipiniko diogu eta, ikusiko duzue, urte gutxiren bueltan, nola Michelin gidako babo horiek etorriko zaizkion **losintxak** egitera. Jesus Mari Mendizabal

Lurrean dantzan hasi duk, nagusiari **losintxak** egiten, ondoren zaldalea eman diezaion. Patziku Perurena

Ez zidan **losintxa** askorik egin. Fernando Rey

Balaku eta **losintxa** era guztiak egin zizkion. Josu Zabaleta

---

## **losintxakeria** *iz* losintxa, gaitzesgarritzat markatua.

Ez zuen zurikeriarik erabiltzen, ez hitzen **losintxakeriarik** bilatzen; besteei hitzez aholkatzen ziena, egintzaz bere buruari aholkatzen zion lehenengo, beldurrik gabe egia hots egin ahal izateko. Askoren artean

---

## **losintxari** **1** *izond* losintxak egiten dituena.

Herald eta World egunkarietan niri buruz igandean argitaratutako artikulu **losintxariek** zirrara handia eragin zioten... Lopez de Arana

Txitxikovek, itxura **losintxaria** gorabehera, Manilovekin baino askatasun handiagoz [...] hitz egiten zuela etxekoandrearekin. Jose Morales

Horixe esan nion, hein batean behintzat, ulertzen nuela poema ehortziak berreskuratzeko desira, besterik gabe bere iritzietara errazegi etortzen nintzen **losintxari** horietako

bat nintzenik pentsa ez zezan. Ramon Saizarbitoria

**2** (adizlagun gisa)

Berarenganantz joan zen, irribarretsu eta **losintxari**. Jose Morales

---

## losintxatu, losintxa, losintxatzen du *ad* losintxak egin, losintxaz bereganatu.

Hirigintza zinegotziei jarraitzen die, ministroak eta presidenteak **losintxatzen** ditu eta kazetariak estutzen ditu. Berria - Kirola

Ez zuen begi onez ikusten Lajosek ni **losintxatzea**. Ander Irizar

Argiro eskatzen zuen **losintxa** zezaten, mirets zezaten, haren amarru txikiek ez zuten inor engainatzen. Anton Garikano

**Losintxatua** sentitu zen; lehen aintzat hartu ez, eta orain arindu egin zen Ramsay andrearen hizketa saio harekin. Anton Garikano

---

## losintxazale *(corpusean **losintxa zale** soilik)* *izond* loxintzen zalea dena.

Martxoak, udaberri bidean, gustua hartzen baitio urte batzuetan hego haize epel-bero **losintxa zale** horri. Pello Zabala

---

## losintxero *izond adkor* losintxaria.

Ez da irribarre errazekoa, gainera, sarritan Mariarekin **losintxero-losintxero** jarduten badu ere. Jokin Muñoz

---

## lot ik **lote**.

---

## lotailu **1** *iz* begiak, zauri bat eta kidekoak estaltzeko ezartzen den oihalezko zerrenda.

Begiak **lotailuz** estalita zituzten batzuek. Mirentxu Larrañaga

Maitasuna begietan jartzen den **lotailua** da. Antton Olano

Hala bada, sendagile bat etorri zen, aztertu zuen Martin eta **lotailu** bat ipini zion. Koro Navarro

Berehala luzatuko ziokeen bere diru-zorroa, jokabide hori zuhurra ala ergela zen pentsatu gabe, eta, zaurituriк egonez gero, bere soinekoa zarrastatuko zukeen **lotailuak** egiteko! Jose Morales

Haren bular gazteak estutzen zituen gerruntze gorria askatu, eta **lotailuz** troxatu zuten. Juan Garzia

**2** lotura.

Goragalez esnatu zen, **lotailuz** estekaturik, putzu bat gogorarazten zuèn gelaxka batean. Juan Garzia

Haurtzaro eta gaztaroko denbora magikoa bukatu, eta bi pertsona heldu gelditu zituan, harreman korapilotsu eta misteriotsu baten **lotailuez** estekaturik, hizkera arruntean adiskidetasun deitzen zaion harremanaz lotuta. Xabier Olarra

**3** anatomian, zuntzezko kordoia, giltzadura bateko hezurrak lotzen dituena.

Oinatz Bengoetxeak min hartu zuen sorbaldako **lotailuetan**, eta gaur Esainek jokatuko du bere ordez. Berria - Kirola

Zaragozaren aurka eskuin belauneko aurrealdeko **lotailu** gurutzatua eta barrualdeko alboko **lotailua** hautsi zituen. Berria - Kirola

Barru-alboko **lotailuan** haustura txiki bat izateaz gain.

Barruko **lotailu** bat dut minberatuta eta baloiari barruko aldearekin jotzean hartzen dut min. Berria - Kirola

Medikuek ez dute baztertzen, meniskoaz gain, kanpoko **lotailu** albokoa ere minduta izatea. Berria - Kirola

Atzo egindako analisietan ageri denez, alboko **lotailua** minduta dauka. Berria - Kirola

Wimbledonen hartu zuen min, ezker belauneko **lotailuetan**. Berria - Kirola

Izan ere, barnealdeko **lotailuak** hautsi eta berehala egin zidaten ebakuntza. Berria - Kirola

**Lotailuak** hautsita badaude, sei hilabete egin beharko ditu jokatu gabe.

Lacruzek **lotailu** haustura du eta sei hilabete beharko ditu osatzeko.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aurrealdeko lotailu** (4); **aurreko lotailu** (6); **aurreko lotailu gurutzatua** (5); **belauneko lotailu** (4); **belauneko lotailu gurutzatua** (3); **lotailu gurutzatua** (12); **lotailu gurutzatua hautsi** (4)
>
> **alboko lotailua** (3); **lotailua hautsi** (3)
>
> **lotailuak hautsi** (3)

---

## lotaldi ik **loaldi**.

---

## lotaratu, lotara, lotaratzen **1** da *ad* lotara joan.

Ez dira **lotaratzen** gaiztakeriarik egin gabe; logura galtzen dute, ez badute inor erorarazi. Elizen arteko biblia

Izu-ikararik gabe **lotaratuko** zara, oheratu eta gozo-gozo hartuko zaitu loak. Elizen arteko biblia

Lotara joateko margotzen ziren eta **lotaratu** aurretik aurpegia garbitzen zuten emakumeez oroitzen zen Egutxi agurea. Ibon Uribarri

**Lotaratu** aurretik, ordea, ipuin bat kontatzea eskatzen nion. Joan Mari Irigoien

Bere bularren gerizpean **lotaratzea** axolagabeki, / herrixka baketsu bat mendiaren oinean bezala. Bernardo Atxaga

• **2** du *ad* lotara joanarazi.

Bere ogitik eman ohi zion jaten eta bere edalontzitik edaten, eta bere magalean **lotaratzen** zuen. Elizen arteko biblia

Batzuetan, amak **lotaratzen** ninduen, baina, gehienetan, amonak. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **lotaratu aurretik** (6)

---

## lotarazi[1], lotaraz, lotarazten du *ad* lotzera behartu.

Posta etxetik lehenbailehen abiatu nahi zuen aldi oro, eta, horretarako, zaldi berriak tarantasetan agudo baino agudoago **lotarazten** zituen, postako nagusiei eraginez eta

iemstxikei akuiluka. Karlos Zabala

Hesola batzuk iltzarazi zizkidan etxe aurreko luzera osoan, eta lurretik hogeita hamar zentimetrora soka batekin **lotarazi**, landatu behar omen zituen hortentsien euskarritzat. Ramon Saizarbitoria

Epaileak lapur ospetsu bat aurkitzen badu, **lotarazi** egingo du erregearen aurrera eramateko. Iñaki Iñurrieta

Buruak barre egiteko agintzen dit, baina ni naizen txanponaren beste aldeak, bihotzak, Capitán Truenorekin **lotarazten** dit pezeta. Joxerra Garzia

Zientifikoki zituen emaiten bere erakaspenak, elgarri ongi **lotaraziz** arrazoinamenduaren bidez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

lotarazi[2] ik **loarazi**.

---

## lotarazle[1] *izond* lotarazten duena. ik **lotesle**.

Formalki eratutako erakunde bat izanik, hartzen dituen erabakiak **lotarazleak** dira beren kideentzako. Iñaki Heras

---

lotarazle[2] ik **loarazle**.

---

## lotazil *iz* abendua.

Larrazkena, hazila, zemendia, azaroa, ***lotazila*** eta horrelako izenak, lurreko eta aziendekiko larre-kontuekin lotuagoak daude egutegiarekin baino Pello Zabala

---

## lote *(orobat **lot** g.er) iz* gauza sorta edo produktu sorta.

Nire ordezkoak [...] iruzkin bitxi bat egin zian: **lote** akastunak nolabaiteko erregulartasunez hurrenkatzen zituan, bost onak eta bat txarra. Juan Garzia

Beasaingo CAFek, Siemensekin partzuergoan, irabazi egin du Renfe Espainiako tren konpainiak aldiriko trenak eraikitzeko inoiz egindako lehiaketa handieneko bi **loteetako** bat. Suko egur **lota** nahi dutenek behar dute Herriko Etxean beren izena eman azaroaren 30a aitzin. Herria

Kromatoa ere, hainbat hornitzale desberdini erosia izan arren, **lotez lote** behar bezala ikuskaturik zegoen. Juan Garzia

---

## loteria 1 *iz* salgai jartzen diren edo banatzen diren hainbat txartel zenbakidunen artetik, zozketa bidez bat edo zenbait saritzean datzan zori jokoa.

Itsuek **loteria** saltzeko ohi duten postu bat. Joxemari Iturralde

Autobusetan eta trenetan saltzen zuen **loteria**. Gotzon Garate

Diren eta ez diren **loteria** eta diru-zozketa klase denetan jokatu. Iñaki Segurola

Espainiako Gabonetako **loterian**. Berria - Euskal Herria

Gabonetan beti jokatu izan dik **loterian**. Xabier Etxabe

**Loteriako** bigarren sariak (45.564) 960.000 euro utzi ditu Gasteizen. Berria - Euskal Herria

Egun batean milioikada bat pezeta suertatu zitzaion **loterian**. Joxemari Iturralde

Ustekabean neskaren aitak **loterian** milioi bat pezeta irabazi zuen. Gotzon Garate

**Loteriako** sari handia egokitu eta inori aitortu ezin diotenen senitartekoa nintzen. Hasier Etxeberria

Huna **loteriako** irabazdunen zerrenda. Herria

**Loteria** nazionalean bezala: galtzeko beldurrik ez denean, orduan irabazten duk sari gizena. Josu Zabaleta

Bazkal ondoan **loteria**. **Loteria** moduko bat zen. Fernando Morillo

Bizitza **loteria** iruditzen zaio orain, bonoloto hutsa. Patxi Iturritegi

**2** irud/hed

Eskaria hain handia izanda etxe horietako baten jabe egitea **«loteria**» delako. Berria - Euskal Herria

Genetikaren **loteria** eskuzabalegia izan zen berarekin, eta zenbaki irabazle guztiak egokitu zitzaizkion. Oskar Arana

Paperak, etorkinen **loteria**. Berria - Harian

Gero penaltien **loterian** ez genuen zorterik izan. Berria - Kirola

80ko hamarkadan Beiruteko aireportutik hiribururaino doan errepidea bahiketen **loteria** zenean. Berria - Mundua

Nola erabakiko dute nor zigortu? aurpegirik ezagunenak zigortuko dituzte? edo atal bakoitzetik bat? **loteria** bat izango da. Berria - Harian

Jaiotzaren **loteria**. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **loteri** g.er.)

**Loteria** joko bat asmatu dute, eta hor lortzen dutenarekin espero dute galerak murriztea. Berria - Harian

**Loteria**-saltzailea Indian egon zela, hondartza batean, hamabost egun. Unai Elorriaga

**Loteria** denda baten aurrean. Lutxo Egia

Pasatutako **loteria**-txartelak. Unai Elorriaga

Amak belarritakoak eta bi **loteria**-txartel gorde dituen kutxatilako giltza. Anton Garikano

Udalak bidalitako **loteria**-zenbakia. Xabier Etxabe

-Hori bakarrik fata zitzaidan, **loteri** zozketa egin aurretik zenbaki sariduna ematen ibiltzea. Joan Mari Irigoien

**Loteria** egunean zer gertatu zen? Iñigo Aranbarri

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Neguan abiatuberri garenez, bustitik tokatzea normala: Donostiari euri **loteria** gehien: 162 litro hileko. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**babiloniako loteria** (4); **loteria modukoa** (3); **loteria tokatu** (4)
**penaltien loterian** (4)

---

## lotesle 1 *izond* lotesten duena; bereziki, erabaki eta kidekoez mintzatuz, bete beharrekoa dena.

Generalitatearen erabaki **lotesleak** nahitaezkoak ez izatea nahi du Madrilek. Berria - Mundua

Erabaki **loteslea** izango da bi aldeentzat. Berria - Harian

Produktu transgenikoak kontrolatzeko nazioarteko sistema **lotesle** bat ezartzea. Berria - Gaiak

Orain EB mailako erreferendum batek ez luke izaera **loteslea** izango, eta soilik sinbolikoa izango litzateke. Berria - Harian

Laudoa **loteslea** izango zela hitzartu zuten Caballitoko buruzagitzak eta grebalariek. Berria - Ekonomia

Arbitratzea **loteslea** izango da. Berria - Harian

Erabakia **loteslea** ez izanik, zein da aurrerantzean izango duen bidea? Berria - Mundua

Ebazpena ez da **loteslea**, soilik kontsultiboa; beraz, edukia ez da agindua. Berria - Mundua

Printzipio konstituzionalak [...] **lotesleak** dira eta derrigortu egiten dituzte erakunde parlamentario guztiak. Berria - Euskal Herria

Presidentea aukeratzeaz gain, herritarrek **loteslea** izango ez den erreferendumaren alde edo kontra bozkatu zuten atzo. Berria - Mundua

**2 *ez-lotesle***

Emandako 25 ebazpen ez **lotesleak** bete egin direla. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erabakia loteslea** (4)

---

**lotetsi**, lotets, lotesten du *ad* norbait edo zerbait eginbide edo obligazio baten pean ezarri.

Ez da konturatzen zer esaten ari den, elkartu, estutu, hartu, pasatu, bildu, finkatu, batu, hurbildu, **lotetsi**, harremanean sarrarazi. Jon Alonso

---

lotgailu ik **lokailu**.

---

lotgarri ik **lokarri**.

---

**loti** 1 *izond/iz* lo asko egiten duena.

Ez nintzen, haatik, asaldatu: bederatzi minutuko atzerapena, eta are gehiagokoa ere, aise barkatzen ahal zitzaion Edurne bezalako panpox **loti** bati. Aingeru Epaltza

Eustaki astotxo **lotia**. Berria - Euskal Herria

Basoko **loti** ederra. Ibon Uribarri

Senari jarraiki, sorbaldaren gainetik begiratu bat egin zion **loti** ederrari eta artegatasun urduri apurrik ere gabe hurbildu zitzaion isil-isilik. Mirentxu Larrañaga

Loak hartu naik berriro, hi esnatu zain nengoen bitartean, **loti** halakoa. Agustin Otsoa

-Ikusten duzue, **loti** ikaragarria bihurtu naiz -esan zuen-. Agustin Otsoa

Gaubeiletan eta beste egite onetan axolagabe, alfer eta **loti** izan nahi badu, orduan zigorra eman behar zaio asto gaizto eta alferrari bezala. Askoren artean

**2** irud/hed

Lantzean behin Azpeitia **lotia** zalaparta politikoek inarrosten dute. Markos Zapiain

Bularra hartzen ari zen haurraren begi **lotiak**. Anton Garikano

Haiek pasatzean, ateak ireki eta ahots **lotiek** galdetzen zieten: [...]. Iñaki Mendiguren

Osaba Vernonek zurrunga **loti** ozen bat egin zuen ondoko logelan. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **loti ederra** (10); **loti ederrak** (6); **loti ederraren** (5); **loti ederren** (12)

---

**lotinant** *(orobat **lotinante** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lotinant** agertzen da)* **1** *iz* armadako ofiziala, kapitainaren azpian hurrengoa. ik **teniente**.

Sarjentak **lotinanta** agurtu, hark kapitaina, eta hirurak solastatu dira zuei behatu gabe. Xabier Montoia

Beste komandante bat genuen konpainiako buru, Buckland **lotinanta**. Mirentxu Larrañaga

Berak ez zeukan bere burua militartzat, antza, infanteriako **lotinanta** zen arren. Koldo Izagirre

Kapitain alemanaren ondoan frantses armadako bi **lotinant** ere ba omen zituan. Itxaro Borda

Ramadi hirian herenegun bahitu zuten Nafa Atala Azidj Poliziako **lotinantea** hilik aurkitu zuten atzo. Berria - Mundua

Guardiazibiletako **lotinant** bat hurbildu zitzaidan pasaportea itzultzeko. Koldo Izagirre

Bonnet **lotinantak** manatu dizue aitzina egiteko prest izan zaitezen. Xabier Montoia

Jeneralik gabeko armada hartan, Gabriela kaporal garbia zitekeen eta Sauvade **lotinanta**. Aingeru Epaltza

**2** irud/hed

Hor herriak eskaini zintzur bustitzearen aintzinean [Herria aldizkariko] Jorajuria gure **Lotinantak** eman ditu urteko konduak. Herria

**3** (hitz elkartuetan)

**Lotinant** gradura iritsi zen, Roberts handiaren pean, torturan erakusten zuen talentuarengatik. Juan Garzia

**4 *lotinant jeneral*** salbuespenezko egoera batean errege kargua hartzen duen pertsona.

Erregina Joanak, Arroxelara partitzean, Agaramont kendu eta Arros utzi zuen bere ordezko, armadaburu eta **lotinant** jeneral. Aingeru Epaltza

Antonio Agaramont handik labur izendatu zuten Nafarroako Erresumako **lotinant** jeneral. Aingeru Epaltza

Nafarroako Erresumako **lotinant** jeneral Antonio Agaramontekoaren sinadura. Aingeru Epaltza

Ministroek arrazoi pisuak metatu zituzten **lotinant** jeneralaren mahaiaren gainean. Aingeru Epaltza

Erresumako **lotinant** jeneralak zuzen jo zuen gerrira. Aingeru Epaltza

**5 *lotinant koronel*** armadako ofiziala, koronelaren azpian hurrengoa.

Ez dago nire esku, **lotinant koronelen** batekin egin beharko zenuke berba. Koldo Izagirre

AEBetako Armadako bozeramaile William Macdonald **lotinant-koronelak** zehaztu zuen erasoa gertatu eta berehala miaketa operazioa abiatu zutela. Berria - Mundua

**6 *koronel lotinant*** lotinant koronela.

Azken urteetan koronel **lotinant** mailara, hots, Espainia Errepublikanoan karrera barik militarrak iritsi zitezkeen eta gradurik gorenera iritsi zen. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erresumako lotinant** (7); **erresumako lotinant jeneral** (4); **lotinant jeneral** (7); **lotinant jeneralak** (4); **nafarroako erresumako lotinant** (3)

lotinante ik **lotinant**.

---

# lotinantorde *iz* lotinantearen hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

**Lotinantorde** nekatuak ofizialei esaten zien: 'Hiria herriaren eskuetan dago, bat egingo al duzue? Pablo Sastre

---

# lotizamendu *iz ipar* etxeak egiteko sailetan banaturiko eremua; sail etxedun horietako bakoitza.

Jende hauk bizi dira «Sosegua» etxe multxo edo **lotizamenduan**. Duela 28 urte Hiruak Bat **lotizamenduan** etxea erosi zuten. Herria

Arzubiko **lotizamenduan**, lanak hasi dire eta auzotegi berri bat agertuko zaiku herrian. Herria

**Lotizamenduko** bideak enrobatuak izan dira, argi publikoa lurpean ezarri ondoan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hiruak bat lotizamenduan** (4)

---

# loto[1] *(orobat **lotus** g.er.)* **1** *iz* igebelarraren familiako landarea, hosto-handia eta lore biribil zuriak, handiak eta usaintsuak ematen dituena *(Nynphaea lotus)*.

**Lotoaren** gerizpean babesten da, errekako sahatsek inguratzen dute. Elizen arteko biblia

Urtaro hartan urmaeleko **lotoak** zimeltzen ari ziren. Ibon Uribarri

Odisean kontatzen denez, eztia bezain gozoa da **lotoaren** fruitua. Joxerra Garzia

Gero, itsasoratzeko agindua eman nuen, ez bainuen nahi inor **lotoa** jan eta itzulera ahazturik geratzea. Juan Kruz Igerabide

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Loto** landareak dituen urmael handia. Ibon Uribarri

Nasaiki landatuak izan ziren **Lotus** loreen artean, liranja kolorezko arrain lodiak bazeuden urean lasaiki igerika. Ramuntxo Etxeberri

Igel motadunek salto egin dute ertz eguzkitsutik te koloreko ur geldietara, eta dortoka txiki batek **loto** loreen artean gorde du bere buru zimurra. Patxi Iturritegi

Yogan **"loto** lorea" deitzen zaion posturan. Bernardo Atxaga

Bularrak ikusiak zizkion, apenas bi **loto** lili izatetik palmondoen bi fruitu izatera igaro, eta azkenik bi granada mardul bilakatu zirenak. Patxi Zubizarreta

---

# loto[2] **1** *iz ipar* zorizko jokoa, tonbola modukoa.

Helduden ortziralean 11n "Labourdins" taldeak **loto** handi bat antolatzen du aratseko 9etan Kiroleta ezker paretan. Herria

Krakada eta **lotoa** izanen dituzte ondotik, egunaren ongi bururatzeko. Herria

Milesker **loto**-ko oparien biltzen ari diren laguntzaile guzieri. Herria

Gero jakin nuen nire amak diru poxi bat irabazi zuela **Lotoan**. Joxan Elosegi

**Loto** huntako irabazduna Marina Landaboure gaztea. Herria

René Belleau Jaunak du antolatzen **Loto** hori kermezarentzat eta kermezako langileekin. Herria

Fruitu eztia zein dirua eman, **lotoa** beti **loto**. Joxerra Garzia

· 8etan Super **lotoa**. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Esku baloi elkartearen **loto** jokoa. Herria

San Josep eskolako buruzagi eta burasoek muntatzen dute **loto** zoingehiagoka bat helduden igandean. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **loto bat antolatzen** (10); **loto handi** (7); **loto handi bat** (7); **loto haundi** (6); **loto haundi bat** (6); **loto jokoa** (6)
> **eskolako lotoa** (3)+

---

# lotofago *iz* loreekin elikatzen den alegiazko pertsona.

Itsasoak eta haize indartsuek bidetik atera gintuzten, eta, bederatzi egunen buruan, **lotofagoen** lurraldera iritsi ginen; **lotofagoak** loreak janez bizi dira. Juan Kruz Igerabide

**Lotofagoek** ez zituzten hil, baina loreak janarazi zizkieten; loreak jan zituztenean, gugana itzuli eta berri emateko gogo guztiak joan zitzaizkien, eta **lotofagoekin** geratu nahi zuten. Juan Kruz Igerabide

---

# lotoki *(orobat **lo-toki**)* *iz* lo egiteko tokia. ik **loleku**.

Pavel Ivanovitxek, **lotokitzat** eman zioten gelara sartu eta ohean etzan zenean, sabela haztatu, eta bere artean esan zuen: "Danborra ematen dik! Jose Morales

Funtsean, berdinak dira kaserna guztiak: Frantziaren bandera erdigunean, **lo-tokiak** haratago... Xabier Montoia

Pasabide zuri eta gangadunetan, ikasgeletan, jantokian, **lotokietan**, alde guztietan, dena xehero antolatua zegoen. Xabier Olarra

**Lo-tokiak**, bulegoak, biltegiak, sukalde eta jantokiak, garajeak, zalditegi eta ukuiluak, aitzindari zenbaiten etxe tipiak eta oraino ezezagun dituzun eraikin batzuek osatzen dute. Xabier Montoia

Iratzargailurik gabeko **lotokia**. Xabier Olarra

---

lotordu ik **lo 27**.

---

# lotsa **1** *iz* ohorea galtzeak, egin den hutsak, hartu den irainak, edota herabetasunak sortzen duen sentimen mingarria. ik **lotsari, ahalke**.

**Lotsa** ez da inoiz bertutea izan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

"Hau **lotsa"** esan zidan bi pauso aldendu ginenean. Ramon Saizarbitoria

**Lotsa** baino gehiago umiliazioa esango nuke sentitzen zuela, inoren laguntza behar izate horrekin. Xabier Mendiguren Elizegi

"Hau **lotsa"** esan zidan bi pauso aldendu ginenean. Ramon Saizarbitoria

Filistear hori hil eta Israelen **lotsa** kenduko duenari. Jose Antonio Mujika

Nola gainditu zuen **lotsa**, eta birjina pobreei buruz iragarri zuena. Askoren artean

**Lotsa** barik harrotasuna sentitu beharko zenuke horren arrakasta sinesgaitzaren ondorioz. Jon Arretxe

Desinibitzeko, **lotsa** galtzeko, ondo pasatzeko hasten naiz edaten, adin horretako guztiek egiten duten bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez nuke jakingo esaten zerk bridatu zidan gogoa, **lotsak**, beldurrak, ala bekatuaren itzalak. Anjel Lertxundi

Inork ikusten ez dituen **lotsak** dira eraman-ezinenak. Anjel Lertxundi

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Amari **lotsa** handia ematen zion maitasuna azaltzeak. Joseba Urteaga

Lotsatu beharko nuke, eta lotsa dut, **lotsa** izugarria. Josu Zabaleta

Berehalaxe damutu zen eta bere buruari hasi zen esaten **lotsa** eta desohore handia dela halako Errege handiaren izenean eskatzen duenari laguntza ukatzea. Askoren artean

Itzelezko **lotsa** pasatua zuelako Ikastetxean. Joseba Sarrionandia

## 3 begirunea, errespetoa.

Bihotz maltzurrena ere, irudimen lizunena ere, ez da gai arrazoia, **lotsa** eta gizalegea neurri horretan iraintzen duen zerbait asmatzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nik serioegi hartzen nizkion gauza horiek, mindu egiten nintzen, **lotsa** galtzen nion eta gaizki tratatzen nuen, eta horrexek, aldi berean, min gehiago egiten zion oraindik. Josu Zabaleta

-Bederatzi urteko **lotsa** zor! Aingeru Epaltza

-Ziur nago Normandiarra **lotsa** txarreko agertuko zela; halakoxea du usadioa... Karlos Zabala

Egin ere, 1889. urtean egingo da hori Espainia osorako, foru zuzenbideari **lotsa** gordeta, apurrean bada ere. Andres Urrutia

## 4 nork bere izen ona aintzat hartzea; norberaren duintasunaren begirunea.

Badira bizitzaren zoko-moko intimo eta ilunenak **lotsa** handirik gabe publikoari aitortzen dizkioten autobiografiak, baina hori ez da bide ibiliena. Janbattitt Dirassar

**Lotsa** galdu zuen, eta etxekoak lotsatzen gintuen, ez baitzuen neurriaren zentzurik. Joan Mari Irigoien

Sedanok, **lotsa** arrastorik gabe, "hutsune kuantikoa" ulertu ahal izateko Félix Guattari ezinbestekoa zela esan zuen. Ramon Saizarbitoria

Gupidarik gabe, **lotsa** izpirik gabe. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 5 moralaz, eta batez ere sexuaz, gizarteak eskatzen duen jokabidearekiko begirunea. ik beherago**13.**

Goazen orain xehetasunetan sartzera, eta has gaitezen **lotsa** aztertzen, sentimenen eta joera lizunen aurkako mugimendu mengel hori. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kulpa eta **lotsa** direla eta, pertsona ezingo da normatik irten, ezingo da disidente izan. Luis Elberdin

Edo herriko plazan, auzoko mutil **lotsa** gutxi batek neskaren ahotik dantzarako ezetza hartu eta gero? Anjel Lertxundi

## 6 *ipar* beldurra. ik beherago **8** eta **12.**

Bidean ninduen halako **lotsa** batek bat-batean hartu. Janbattitt Dirassar

Itzulpen lanek italiarrengan sortuko zuten **lotsa**, "Tradutore Traditore" erranarazi ziena. Piarres Xarriton

-Alimaleko zakur zanpakaria badugu eta **lotsa** gara hemengo baten bat ausikiko duela. Itxaro Borda

-Zeren **lotsa** zara Werner? Itxaro Borda

Jendea hala ere alde guzietarik jin da, **lotsa** gabe. Herria

Orain, berriz, Nafarroa Behereko jaun printzipalenak Joanaren kontra altxatuak zirelarik, **lotsa** galdua zuten Zuberoako papistek ere. Aingeru Epaltza

## 7 *lotsaz* lotsa gorriz. ik beherago **13.**

**Lotsaz** makur, zertara jo ez zekiela gelditu zen. Anjel Lertxundi

Garbitu beharreko erru baten **lotsaz**. Karlos Zabala

Norak, **lotsaz** gorriturik, eskua eman zion, eta Andreas Pilniakek muin egin zion eskugainean. Anjel Lertxundi

*ik* lotsagorritu.

Orduan bakarrik gorritu zen Lisa **lotsaz**, bere ondoan mutila ikusita. gonazpikoa utzi zuen, gizonei aurka egin nahi izan zien, mantar hutsean, ernegazioz gorri-gorria, **lotsaz** baino gehiago. Karlos Zabala

Eta kontu horren gainean hitz egiteko unea iritsi den honetan, **lotsaz** gaixotzen naiz gure artean gertatu zenaren oroitzapenarekin. Oskar Arana

**-Lotsaz** bete nauzu! Patxi Zubizarreta

Elkarri begira geratu ginen, **lotsaz**, lotsa goxoaz. Joxean Sagaztizabal

· **Lotsazko** irriñoa egin zuten neskaren begiek. Anjel Lertxundi

## 8 *lotsazsup_2 ipar* beldurrez.

Egiaren erraiteko **lotsaz**. Janbattitt Dirassar

## 9 *lotsa gabe adlag* ik **lotsagabe.**

Eta neurrien gogorra elizari bazegokion ere, **lotsa gabe** bilatu zen agintari zibilen konplizitatea. Iñigo Aranbarri

Utik at! -dio atso idor hark, **lotsa gabe**, harro, atso lirainari- eta kito! Iñaki Arranz

Askotan (protagonistak ausartzen ez badira ere, **lotsa gabe** aitor dezagun), negozio bila. Edorta Agirre

· *(beldur gabe)* Jo aintzina **lotsa gabe**! Herria

## 10 *lotsa gorri (orobat **lotsagorri**)*

**Lotsa gorria** emango dizuete, hain maite zenituzten haritz sakratuek, hain atsegin zenituzten baratze sakratuek. Elizen arteko biblia

Ezpata eta gatibutza, harrapakeria eta **lotsa gorria** jasan behar izan dugu, eta horixe da gaurko gure egoera. Elizen arteko biblia

Ene Jainko, **lotsa gorritan** nago begiak zuregana jasotzeko; geure bekatuek buruz gain egin digute eta gure errua zerurainokoa da, **Lotsa gorritan** geldi bitez / ni hil nahian dabiltzanak! Elizen arteko biblia

Bere buruaren kontzientzia hartzeak **lotsa gorritan** utzi zuen Gabriel bat-batean. Irene Aldasoro

Zuen jaioterria **lotsagorritan** eta desohorez betea geldituko da. Elizen arteko biblia

## 11 *lotsa izansup_1* da *ad*

Aitzurrerako ez naiz gauza, eta eskerako **lotsa** naiz. Elizen arteko biblia

**Lotsa** izango dira egin duten guztiaz. Elizen arteko biblia

**Lotsa** naiz neure buruaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Ene senarra ez da ezeren **lotsa** eta ez du zentzatzeko asmorik. Patxi Zubizarreta

Ez izan **lotsa** buru gutxikoa eta zentzugabea edo lizunkerian dabilen agure zahartua zentzatzeaz. Elizen arteko biblia

Ez naiz judu izateaz **lotsa**, esan nion mingostuta. Anjel Lertxundi

## 12 *lotsa izansup_2* da *ad ipar* beldur izan.

Jendea uzkur da, biziki uzkur, **lotsa** bezala... Herria

Bi gazteek erakutsi dute ez direla batere **lotsa** izen haundikoen kontra jokatzeko. Herria

Bestearen ez da **lotsa**. Herria

**13** ***lotsa on*** moralaz, eta batez ere sexuaz, gizarteak eskatzen duen jokabidearekiko begirunea. ik**pudore**.

Putetxeen jabeen artean baziren **lotsa oneko** pertsonak: apaiz batek bi zituen, eta ebanjelioko zientzia oso-osoaz esplotatzen zituen. Josu Zabaleta

Zerua **lotsa onez** gordetzen zen belo-irudiko hodei gardenen atzean, eta horrek xarmagarri bihurtzen zuen. Jose Morales

Bururdi zuria musukatzen igaro zuen gau osoa, ospitaleko tapaki latzean **lotsa onez** bildurik, zoriontasunez, maitasunez eta ahalkez dardarka. Jose Morales

Baina horrelakoak dira Bekele eta Dibaba: lotsagabeak lehiaketan, **lotsa onekoak** lehiaketatik kanpo. Berria - Kirola

**Lotsa onaren** mugetatik irten. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erabiltzeko lotsa** (3); **ez izan lotsa** (3); **ez naiz lotsa** (3); **ez zen lotsa** (4); **halako lotsa** (10); **hasierako lotsa** (3); **izugarrizko lotsa** (3); **lotsa adierazten** (5); **lotsa apur** (29); **lotsa apur bat** (22); **lotsa apur batez** (3); **lotsa eginda** (16); **lotsa eginik** (4); **lotsa eman** (22); **lotsa eman zidan** (5); **lotsa eman zion** (6); **lotsa emango** (11); **lotsa ematen** (97); **lotsa ematen dit** (22); **lotsa ematen zidan** (10); **lotsa eragin** (3); **lotsa eta beldur** (3); **lotsa eta beldurra** (5); **lotsa gabe** (18); **lotsa galdu** (10); **lotsa galtzeko** (4); **lotsa galtzen** (3); **lotsa gordetzeko** (3); **lotsa gorria** (4); **lotsa gorritan** (3); **lotsa gutxi** (4); **lotsa gutxiago** (6); **lotsa gutxiko** (4); **lotsa gutxirekin** (9); **lotsa guztia** (3); **lotsa handia** (15); **lotsa handia ematen** (5); **lotsa handirik** (5); **lotsa handirik gabe** (4); **lotsa izan** (7); **lotsa izango** (6); **lotsa izpirik** (10); **lotsa izpirik gabe** (6); **lotsa jasan** (3); **lotsa lotsa** (21); **lotsa lotsa eginda** (15); **lotsa lotsa eginik** (4); **lotsa moduko** (3); **lotsa naiz** (13); **lotsa nintzen** (4); **lotsa onez** (4); **lotsa pittin** (3); **lotsa pixka** (15); **lotsa pixka bat** (14); **lotsa punttu** (3); **lotsa sentitu** (12); **lotsa sentitzen** (15); **lotsa zara** (3); **lotsa zen** (5); **ze lotsa** (5); **zelako lotsa** (3); **zer lotsa** (13)

**ematen dion lotsagatik** (3)

**lotsak eta beldurrak** (4); **lotsak galarazten** (3)

**batere lotsarik gabe** (25); **ez du lotsarik** (7); **ez duzu lotsarik** (3); **ez duzue lotsarik** (3); **ez izan lotsarik** (4); **ez nuen lotsarik** (3); **ez zuen lotsarik** (5); **inolako lotsarik gabe** (20); **inongo lotsarik gabe** (8); **lotsarik eta beldurrik** (5); **lotsarik ez izatea** (3); **lotsarik gabe** (132); **lotsarik gabe erakusten** (3); **lotsarik gabea** (3); **lotsarik gabeko** (4)

**lotsatan utzi** (3)

**lotsaren lotsaz** (34); **lotsaz betea** (4); **lotsaz beteko** (4); **lotsaz beterik** (12); **lotsaz beteta** (3); **lotsaz esan zion** (3); **lotsaz eta laidoz** (4); **lotsaz gorri** (14); **lotsaz gorri geratu** (3); **lotsaz gorritu** (5); **lotsaz gorrituko** (4); **lotsaz gorriturik** (5); **lotsaz hilko** (3); **txundituta eta lotsaz** (3)

**lotsagorritan geldi bitez** (3)

---

# lotsabako **1** *izond* lotsagabea.

Neskato **lotsabako** batzuek Daviden taldeari erronka bota ziotenean. Julen Gabiria

Aita gaizki hartu eta ama etxetik bidaltzen duena seme **lotsabako** eta ohoregabea da. Elizen arteko biblia

-Gazte harro eta **lotsabakoa** -esan zuen Kako-okerrek-, prestatu heriotzarekin elkartzeko. Julen Gabiria

Mota askotako lapur, ergel eta **lotsabakoak**. Xabier Montoia

Gogoa egin zitzaidan pertsonaia berezi haren gainean gehiago jakiteko, **lotsabako** harekin aurrez aurre egokitu eta neure begiekin jardunean behatzeko. Oskar Arana

**2** (adizlagun gisa) lotsa gabe, lotsarik gabe.

Txilintxok **lotsabako** erantzun zuen. Julen Gabiria

-Kako bat zeukan, kapitaina? - galdetu zuen Cooksonek, **lotsabako**. Julen Gabiria

---

# lotsabide *iz* lotsatzeko motiboa.

Ez nadila **lotsabide** gerta zuregana jotzen dutenentzat, oi Israelen Jainkoa! Elizen arteko biblia

Ez nion **lotsabiderik** eman nahi. Matías Múgica

Konturatuta zegoen, ordea -eta hori **lotsabide** zitzaion, txit, bere baitan-, trebeagoa zela, dirua irabazten baino, hari eusten. Juan Garzia

---

# lotsadura *iz ipar* lotsa (zazpigarren adieran), beldurra.

Baina airatu zait **lotsadura**. Piarres Aintziart

---

# lotsagabe **1** *izond* lotsarik ez duena. (pertsonak)

Gizon **lotsagabe** eta zentzugabeen esku zagok orain lurralde hau. Juan Kruz Igerabide

Baziren ikasle **lotsagabe** batzuk ozarkeriarik handienak ere egiten zituztenak. Josu Zabaleta

Urdanga **lotsagabe** horren kontura primeran igaroko dugu gaurko gaua... Patxi Zubizarreta

Neska bitxi samarra da; izuti samarra, normalean, eta etxean **lotsagabea** oso. Josu Zabaleta

Zenbat eman dik Peppone **lotsagabe** horrek penaltia adierazteko, berdinketa gertatuz gero? Koldo Biguri

Esker txarreko **lotsagabe** galanta zara zu... Iñaki Mendiguren

-**Lotsagabe** hori, zakur eme alaena! Juan Kruz Igerabide

**2** (bestelakoak)

Gorroto du mizke hazitako txakur **lotsagabe** hori. Patxi Iturritegi

Begiratu luze eta **lotsagabe** samarra zuzendu zien. Migel Angel Mintegi

-Ez diat onartzen, Joxemai -haserre antzean-, hizkera **lotsagabe** hori. Txillardegi

Zigarroak osten zizkigun, erantzun **lotsagabeak** ematen. Bernardo Atxaga

Den-dena poliki aztertu nian... barkatuko didak jakin-min **lotsagabe** hori. Xabier Olarra

Pollyren aipamen **lotsagabe** bat egin zuela. Irene Aldasoro

Literatur lapurreta **lotsagabe** bat. Iban Zaldua

**Lotsagabe** bezain fidagaitzak dira txoriok. Gotzon Garate

Zenbat aurreratu duen **lotsagabe** honek denbora gutxian! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Ez ezazu esan "bai" hain era **lotsagabean** -purrust egin zion izeba Margek. Iñaki Mendiguren

**3** (erkaketan)

Haizea baino **lotsagabeagoa** da. Karlos Zabala

**4** (adizlagun gisa) lotsarik gabe. ik **lotsagabeki**.

**Lotsagabe** begiratzen zion sorginak, bere hortz-hagin goroldiotsuak erakutsiz. Iñaki Mendiguren

Harro eta **lotsagabe** jokatu baitu. Elizen arteko biblia

Bragetako botoiak **lotsagabe** irekita zituela. Karlos Linazasoro

Muturrean gora **lotsagabe** igotako aparra miazkatu eta pasta gerezidun bat ahoratu zuen. Joxemari Urteaga

-Zer nahi duzu, zuria? -galdetu zion neskak, **lotsagabe**. Josu Zabaleta

Berak ez ikusia egiten zidan, baina nik banekien berak bazekiela hantxe nengoela ni, **lotsagabe** eta isilik. Koro Navarro

**Lotsagabe** irten ziren golaren bila. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ausart eta lotsagabe** (4); **gizon lotsagabe** (4); **joko lotsagabe** (3); **lotsagabe aritu** (6); **lotsagabe aritu zen** (3); **lotsagabe atera** (3); **lotsagabe begiratzen** (3); **lotsagabe ekin** (3); **lotsagabe halakoa** (6); **lotsagabe hutsak** (3); **lotsagabe jokatu** (5); **lotsagabe samar** (3)
> **jarrera lotsagabea** (3); **lotsagabea halakoa** (6); **lotsagabea izan** (7)
> **era lotsagabean** (3)

---

# lotsagabekeria *iz* lotsagabetasun gaitzesgarria; egite lotsagarria.

Hiztun bikaina, aurpegiz alaia, begitartez atsegina, zabarkeria eta **lotsagabekeriarik** gabea. Askoren artean

Kristinarekiko ahaidetasunak edo hemeretzi urte bete berriek ematen duten **lotsagabekeriak**. Aingeru Epaltza

Gogoko nuen mutilaren **lotsagabekeria** espantu gabea. Aingeru Epaltza

**Lotsagabekeria** hau gogor zigortzeko eskatzen dizuet. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hori, Triniti, gezur hutsa eta **lotsagabekeria** da. Antton Olano

Zer nolako **lotsagabekeriak**! Imanol Unzurrunzaga

Baina isildu egin zen, **lotsagabekeria** pentsatu izan balu bezala. Felipe Juaristi

Horrelako **lotsagabekeriak** txundituta utzi zituen gure gizonak. Josu Zabaleta

Lisak bere lehengusuarekin egiten zituen **lotsagabekeriez** mintzatzen ziren. Karlos Zabala

-Ez niri **lotsagabekerietan** hasi gero -esan zuen-, bestela ez zaitut-eta parkera eramango! Koro Navarro

**Lotsagabekeriaz** erantzuten dion hobe-beharrez esandako guztiari. Arantxa Iturbe

---

# lotsagabeki *adlag* lotsarik gabe. ik **lotsagabe 4**.

Errepresioa justifikatzeko gezurra **lotsagabeki** erabiltzea ez baita gaurko kontua. Martin Anso

**Lotsagabeki** begiratu zion emakumeari. Migel Angel Mintegi

Abasek Hamida ikusi zuen, **lotsagabeki** eseria, soldadu sail baten erdian. Patxi Zubizarreta

-Ez! -erantzuten dute umeek **lotsagabeki**. Bernardo Atxaga

Ama berriz, Hain zen **lotsagabeki** ederra non, bera pasatzean kale komertzio guztia gelditu egiten zen. Pablo Sastre

**Lotsagabeki** eta jendetasun arrastorik gabe. Karlos Linazasoro

Ez baitut inoiz izan emakumeei aurrez aurre begiratzeko ohiturarik, ez behintzat horren **lotsagabeki**. Joxean Agirre

---

# lotsagabetasun *iz* lotsarik eza.

Haren **lotsagabetasuna** ulertu ezinik, begiak begietan josi zizkion, halako zerbait esatearren: "Ba ote dago niri horrela hitz egiterik?". Patxi Zubizarreta

Hitz batean esateko, lotsagabeagoa, bere on-gaitz guztiekin; lotsagabekeria esango nuke orain, **lotsagabetasuna** orduan. Xabier Mendiguren Elizegi

Berariazko **lotsagabetasun** grazia gaiztoz. Josu Zabaleta

---

# lotsagabetu, lotsagabe(tu), lotsagabetzen 1 da/du *ad* lotsagabe edo lotsagabeago bihurtu.

Gizon hari Praixku deitzen genion, eta zurrutarekin guztiz **lotsagabetzen** zen. Joan Mari Irigoien

"Horrelako marikoi jotzen baduk ez haiz oso boxeolari ona izango", **lotsagabetu** zen mutikoa. Bernardo Atxaga

Berriro hitza hartu, eta, ordurako zeharo **lotsagabetuta**, honelako zerbait esan nien: [...]. Joxerra Garzia

Joan egingo haiz, edo, bestela, aitonari kontatuko zioat nirekin **lotsagabetu** haizela eta hi irentzeko aginduko dik. Karlos Zabala

Ahalik eta isilen jokatzera entseatzen ginen, baina haragiaren eromenak aise ditu eztarriak **lotsagabetzen**. Aingeru Epaltza

Kontzientzien inbaditzeko grina hau Estatuaren partetik, beti egon bada ere gizarte modernoan, azken denboran, balio sano eta demokratiko beharrezkoen inposaketa agresiboaren izenean ikaragarri **lotsagabetu** dela gure artean. Joxe Azurmendi

Xala eta Paskual ere hor daude, **lotsagabetuta**. Berria - Kirola

**2** (era buruta izenondo gisa)

Baina, gazte zaharkitu inozo **lotsagabetuok** ez dute deusen kulparik. Patziku Perurena

---

# lotsagabetxo *izond adkor* lotsagabea.

Baina ezpainetan irribarre **lotsagabetxoa** zuen esan zidanean, eta ez ninduen batere konbentzitu. Karlos Zabala

---

# lotsagabezia *iz* lotsagabetasuna.

Hezigaitza eta managaitza kontzeptu negatiboak dira; mutiriak **lotsagabezia** adierazten du; errebeldea, aldiz, sistema baten kontrako jarrera aktiboa duena da, haren aurrean errebelatzen dena. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# lotsagaldu 1 *izond* lotsa galdu duena. ik **lotsagabe**.

Gazte **lotsagaldu** horretaz ari naiz... Patxi Zubizarreta

Kontuan harturik ezen morroiak lehengo aurpegiera **lotsagalduarekin** begira jarraitzen zuela. Patxi Zubizarreta

Seguruenik kafera gauero etortzen zaion **lotsagalduaren** aditzea izango duzu, ezta? Patxi Zubizarreta

Une hartan **lotsagaldu** hura eskumenera izan balu, tigre baten gisara oldartuko zitzaion bere atzaparrak itsastera. Patxi Zubizarreta

Uste ote zuen errusiar bat, erbesteraturik ere, bere herria saltzeko bezain **lotsagaldua** izan zitekeenik? Karlos Zabala

**-Lotsagaldu** horren amarrukeria bat baino ez da. Patxi Zubizarreta

-Ahantzi zure zakur ametsak, **lotsagaldu** halakoa -aurre egin zion. Patxi Zubizarreta

Ongilea lagun hurkoaren fidatzaile bihurtzen da; **lotsagalduak**, berriz, bertan behera uzten du. Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan)

-Bada, nik segituan sartuko nuke **lotsagaldu** koadrila hori arrastoan! Karlos Zabala

---

# lotsagarri 1 *izond* lotsa ematen duena, lotsarazten dena.

Adar ostotsu bat erauzi zuen, gorputzeko alde **lotsagarriak** estaltzeko. Juan Kruz Igerabide

Galdukeriaren fruitu **lotsagarriak**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bizitza **lotsagarria** baino heriotza ospetsua nahiago zuenez, [...]. Elizen arteko biblia

Desiraz, gauza **lotsagarri** eta misteriozko baten tentazioaren aurrean bezala. Josu Zabaleta

Gauza **lotsagarri** eta higuingarriak erakusten zaizkie keinuz eta hitzez. Askoren artean

Eskizofrenia **lotsagarri** bat saldu eta neurosi errukarri bat erosi. Iñaki Segurola

Zor eta bonbonkeria **lotsagarri** gehiago? Antton Olano

Gaztaro betean galtzen dute bizia, era **lotsagarrian** hiltzen dira. Elizen arteko biblia

Victoriak egoera **lotsagarrian** ikusi ninduela zen errealitatea. Ramon Saizarbitoria

Itxura **lotsagarrian** jantzita. Hasier Etxeberria

Deus ere ez dago **lotsagarriagorik** izerdia baino. Joxan Elosegi

**2** (izan aditzarekin)

Zuzentasunak goretsi egiten du herria, bekatua nazioen **lotsagarri** da. Elizen arteko biblia

Agustinentzat sinestea ez da **lotsagarri**. Imanol Unzurrunzaga

Autoreari guztiz **lotsagarri** zaio irakurlea hain luzaz nekaraztea beheko klaseko jendeari buruzko kontuekin. Jose Morales

Ilea erabat mozturik edo kaskamotz egotea **lotsagarri** bazaio, estal dezala burua. Elizen arteko biblia

Eza inoiz ez baita **lotsagarri**. Xabier Amuriza

· Kontu hau guztia **lotsagarria** da, hasieratik amaieraraino. Oskar Arana

**Lotsagarria** izan zen han gertatutakoa. Edurne Elizondo

Guztiz **lotsagarria** duk Gwendolenekin maitakeriatan habilen modua. Antton Olano

**"Lotsagarriak** dira ume hauek", esan zuen berak hasperenka. Anton Garikano

-Zuzena eta bidezkoa dena nolatan **lotsagarria** izan? Patxi Zubizarreta

**3** (adizlagun gisa)

Ikusiko duzu, aita: ez dut **lotsagarri** utziko zure leinua. Juan Kruz Igerabide

-Bai, **lotsagarri** laga gaituzu- esaten didate gurasoek. Eskarne Mujika

Esan zidan neska bat **lotsagarri** geratzen dela bere sentimenduak jende aurrean horrela agertuta... Lopez de Arana

Lisias bera ere **lotsagarri** ihes eginez salbatu zen. Elizen arteko biblia

Biluzik agerraraziko zaitut herrien aurrean, **lotsagarri** erreinuen aurr ean. Elizen arteko biblia

Une batean, **lotsagarri** larria bihurtu zitzaidan komunera joateko premia. Koro Navarro

Katramilatu egin nintzen, **lotsagarri**, beharrik ez zegoen lekuan. Hasier Etxeberria

**4** (hitz soila -en atzizkiaren eskunean)

Sorterriaren **lotsagarri** ez izateko. Jose Morales

Zergatik ez konpondu toki publikoetan denon **lotsagarri** dauden euskarazko disparateak? Joxerra Garzia

-Etxekalte hezigaizto horrek denon **lotsagarri** utzi gaitu. Patxi Zubizarreta

Eta ez da, bada, ozenki irakurtzen hasi, nire **lotsagarri**, keinuak eginez eta ahotsa behartuz, nik idatzitakoa barregarri utzi nahirik! Juan Kruz Igerabide

**5** (izen gisa)

Etxearen **lotsagarria** zara! Patxi Zubizarreta

Hantxe hilko zara, harrogarri zenituen gudu-gurdi eta guzti, zeure jaunaren etxearen **lotsagarri** hori. Elizen arteko biblia

**6** *ipar* beldurgarria.

Gerla **lotsagarri** hura ez da ahantzia. Herria

Buruilaren 16an Sarako elizdorrean zagon ezkila ederra, sute **lotsagarri** batek du suntsitu. Herria

Xinaurritegi **lotsagarria**. Janbattitt Dirassar

Ifernuko labe **lotsagarria**. Herria

Asteartea jin zelarik, bigarren gau **lotsagarri** baten ondotik, Josepe egun guzia etxen egon zen. Janbattitt Dirassar

Arratsaldea izan zen **lotsagarri** luzea. Janbattitt Dirassar

**Lotsagarri** da segur ikustea ETA nola tematzen den bere hartan, borroka harmatuari uko egiteko partez.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gauza lotsagarri** (6); **lotsagarri da** (6); **lotsagarri gelditu** (4); **lotsagarri geldituko dira** (3); **lotsagarri geratu** (7); **lotsagarri geratuko** (3); **lotsagarri geratzen** (3); **lotsagarri gertatuko** (6); **lotsagarri iritzi** (4); **lotsagarri iritzi zion** (3); **lotsagarri izango** (4); **lotsagarri utzi** (20); **lotsagarri utzi zituen** (3); **lotsagarri utziko** (7); **lotsagarri utziz** (3); **lotsagarri uzteko** (3); **lotsagarri uzten** (5)

**auzi lotsagarria** (3); **egoera lotsagarria** (4); **guztiz lotsagarria** (8); **ikuskizun lotsagarria** (7); **jarrera lotsagarria** (12); **jarrera lotsagarria izan** (3); **kanpaina lotsagarria** (3); **lotsagarria balitz** (3); **lotsagarria balitz bezala** (3); **lotsagarria da** (110); **lotsagarria eman** (3); **lotsagarria eta patetikoa** (3); **lotsagarria iruditu** (3); **lotsagarria iruditzen** (10); **lotsagarria iruditzen zaigu** (3); **lotsagarria izan** (21); **lotsagarria izan zen** (11); **lotsagarria izango** (8); **porrot lotsagarria** (3); **proiektu lotsagarria** (4)

**lotsagarriak dira** (5)

**egoera lotsagarrian** (3); **era lotsagarrian** (3); **modu lotsagarrian** (3)

**lotsagarritzat jo** (21); **lotsagarritzat jo zuen** (8)

---

# lotsagarrikeria *iz* gauza edo egite lotsagarria.

Giza adimenak irudika dezakeen **lotsagarrikeriarik** lizunena. Ez naiz ausartzen ere **lotsagarrikeria** hau aitortzen. Anjel Lertxundi

Nire kontra egin dituzten **lotsagarrikeria** eta desleialkeria guztiak. Elizen arteko biblia

Zergatik egin didazu **lotsagarrikeria** hau, zurea eta zure anaiena den nire etxera etorri eta limosna bila joanez? Askoren artean

Bostondarrek Hester Prynneri leporatzen zioten sasiko neskato bat munduratu izanaren **lotsagarrikeria** adulteroa. Anjel Lertxundi

---

# lotsagarriki *adlag* era lotsagarrian. ik **lotsagarriro**.

Ostikatuen erremina trufazko lanabes bihurtu du, eta ostikatzaileen atzaparkadarik zorrotzenak **lotsagarriki** utzi ditu nabarmen, harik eta peluxezko panpinak bilakatu diren arte. Txema Ramirez de la Piscina

Duela hogei bat urte gure herrian ofizialki babes hartu zuten italiarrak orain estradikatzeak **lotsagarriki** bortxatuko luke Frantziak 1985ean emaniko hitza. Berria - Mundua

## lotsagarriro *adlag* era lotsagarrian. ik **lotsagarriki**.

Horrek adierazten diguna da autoreak diru zikina hartzen duela **lotsagarriro** pertsonaren balio garbien neurri gisa. Iñaki Segurola

Azkenik, **lotsagarriro** botatzen naute, denen irainen artean. Askoren artean

Ilea arraso moztuta, buruko painulotako bandera española ezarririk, kalerik kale arrastan erabili zituzten emakume abertzaleak, **lotsagarriro** umilatuak. Patziku Perurena

---

## lotsagogor *iz adkor* lotsa.

Ez nekien zeri egotzi, **lotsagogor**, ezjakin ala ergelkeriari, latin ez batere samurrak hiztegia beste tresnarik behar ez zuelako ideia hura. Juan Garzia

---

lotsagorri ik **lotsa 10**.

---

## lotsagorritu, lotsagorri(tu), lotsagorritzen *(orobat **lotsa-gorritu** g.er.)* **1** da/du *ad* lotsaz gorritu.

Goio tomate zapalduaren moduan **lotsagorritu** zen. Joseba Sarrionandia

Emakumezkoak gizonezkoak baino aiseago **lotsagorritzen** dira, sexu ahulekoak gara. Jon Alonso

**Lotsagorritu** egin zen, eta gaztetzen sentitu zen, bere zain zaharretan zebilen odola berritu izan balitzaio bezala. Patxi Zubizarreta

**Lotsagorritu** ninduen betileetaraino. Xabier Olarra

Gaur egun, **lotsagorritu** egiten naiz eta deseroso sentitzen oroitze hutsarekin, baina orduan bururatu ere ez zitzaidan egiten bestela jokatzerik. Juan Kruz Igerabide

Istant baten buruko zutik baitzegoen atzera berriz xafla zulatuzko plataforman, batere **lotsagorritu** gabe. Joxe Austin Arrieta

Jimmy ohartu zen **lotsagorritzen** ari zela. Lopez de Arana

**-Lotsagorritu** egingo nauzu! komisariako ate nagusian ikusi nuen neure burua, **lotsa-gorriturik**. Juan Kruz Igerabide

Txalo handiek agurtu zuten Mary Jane, **lotsagorriturik** eta partitura urduri bilduz gelatik ihesi irten zenean. Irene Aldasoro

**2** (era burutua izenondo gisa)

-Eskerrak eman aurretik zabaldu egik -barre egin zion Mentxuk mutiko **lotsagorrituari**. Josu Landa

Hilde andereak irribarre itsugarri batez hartu zuen nire aurpegi **lotsagorritua**. Alberto Ladron Arana

Aitorpen **lotsagorritu** hauxe baita azken gutun honen arrazoi nagusia. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lotsagorritzen ari zela (3)

---

## lotsagorritze *iz* lotsaz gorritzea.

Ez duzu beste aukerarik edukiko, **lotsagorritze** eta ustekabe guztiek garrantzia galdu dute Maria Sarak eman duen urratsarekin alderaturik. Jon Alonso

**Lotsagorritzeak** masailetan islatutako ondorioak disimulatzearren aulkira itzuli zen Joselu. Josu Landa

---

## lotsaizun *(orobat **lotsakizun**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lotsaizun** agertzen da)* **1** *iz* norbait lotsarazten duen gauza. ik **desohore**.

Belarriak apaltzen dituzte, buztanak erortzen uzten, eurek ere hiltzearen **lotsaizuna** sentituko balute bezala. Oskar Arana

Egunez egun ari naiz zigor horrekin bizitzen, **lotsaizunean** bizitzea neure bizimodutzat onartzeko ahaleginetan. Oskar Arana

**Lotsaizunean** erorita nago, eta lanak izango ditut berriro jaiki eta hortik ateratzen. Oskar Arana

Honela esan zuen: "Kendu dit Jaunak **lotsakizuna"**. Jose Antonio Mujika

Ezin jasan zuen euren haurtxoa besoetan hartuta ikustea, hain mingarria izaki andereñoaren jokabideak zeharka eragiten zion **lotsaizuna**. Mirentxu Larrañaga

Eta jendeak lotsarazten dituenean eta limosnarik eman nahi ez dienean, eskerrak eman biezazkiote horregatik Jainkoari; izan ere, **lotsaizun** horien ordain ohore handia jasoko dute Jesu Kristo gure Jaunaren auzitegi aurrean. Askoren artean

**Lotsakizuna** ugari eta laidoa jasan behar izan dituztenez. Elizen arteko biblia

Gaur egun 2.000 soldadu besterik ez badira ere, mundu honetako **lotsaizunik** handienetakoa izaten jarraitzen du base horrek. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** lotsabidea.

Seguru aski ere, amodio kontu lizunok adieraztekoan kultura kristauak eragindako pudore edo **lotsaizuna** dela medio. Patziku Perurena

Traba besterik ez haiz izango harentzat, **lotsaizuna**, bizi guztian. Eskarne Mujika

**3** *pl* lotsariak.

Atzoko sozialista gorriak orain liberal zuriak dira (Prietoren "socialista a fuer de liberal" leloa gustatzen zaie: ez liberal eta ez sozialista askok **lotsaizunak** estaltzeko zapitxo literario oportuno bat). Joxe Azurmendi

---

lotsakizun ik **lotsaizun**.

---

## lotsakor 1 *izond* lotsatia.

Baroja gizon herabea zen, **lotsakorra**, literatur naturalismoaren gordintasun deskriptiboa hastio zuena. Josu Zabaleta

Flauberten liburuaren kointzidentziaz konturatu izan balitz ere, Txekhovek, berez, ez ziokeen ezer aipatuko: apalegia zen, **lotsakorra** oso, hotza ezezagunekiko tratuan. Iban Zaldua

Neskak kilimusi **lotsakor** batez itzuli zion irribarrea. Anjel Lertxundi

Merezi du arazo hauek zehaztasun geometrikoz aztertzea, sofismen lainoei, hizjario xarmatzaileei, eta zalantza **lotsakorrei** zirrikiturik utzi gabe. Juan Martin Elexpuru

**2** (adizlagun gisa)

Agur egiteko asmoarekin adeitasunezko imintzio bat egin zuen eskuarekin airean eta keinua erdibidean geratu zitzaion, motz eta **lotsakor**, eta bere eskuineko esku hori berriro arrotz bihurtu zitzaiola pentsatuz alde egin nuen handik. Joxean Agirre

Feriaren erdialdera abiatu nintzen **lotsakor**. Irene Aldasoro

Eta autoa martxan jarriko nian baldin eta emakumeak **lotsakor**, barkamena eskatuz bezala, deskuidatu egin nintzela esan izan ez balit. Joxean Agirre

**3** *ipar* beldurkorra.

Josepe beti izana zen mutiko gazte **lotsakor** eta beldurti bat. Janbattitt Dirassar

Horiek hola, "demo" horiek ez dira **lotsakor** ! batzu Parisen izan dira Zuzen taldeko lagun batzuekin, eta *La Santé* presondegiko murru baten kaskorat hupatu! Herria

Konplimenduak egin daizkiote feriaren muntatzaileeri, geroari buruz ez direla **lotsakor** eta molde hortan behar dutela aintzina segitu... Herria

---

**lotsakortasun** *iz* lotsakorra denaren nolakotasuna.

Emakume guztiek duten ostrukaren **lotsakortasun** hori ez ikararazteko. Josu Zabaleta

Gure ezertarako ez den itxuraren zaletasunarekin, gure **lotsakortasun** gorrotagarriarekin, gure moral zentzugabearekin. Josu Zabaleta

---

**lotsalarritu** da/du *ad* lotsak larritu.

Ez nau **lotsalarritzen** kazetari izan nahi izanak, nahiz orain errutina horri ezdeusa deritzodan. Juan Garzia

---

**lotsaldi** *iz* norbait lotsa den aldia.

Zenbat **lotsaldi** gogor pasarazi zion mutil horrek! Juan Garzia

Sarak ez dio hitz egin nahi izan "ordu beteko **lotsaldi** bat" izan duelako. Bernardo Atxaga

Bere burua ere ezkutatu zuen, bigarren **lotsaldia** ez jasateko, jakitean, urte asko lehenago, [...] amak Napumoceno jaunaren dirua onartu zuela. Bego Montorio

---

**lotsamendu** *iz* lotsa.

**Lotsamenduak** harturik? segeretua berarekin ereman du. Herria

---

**lotsamindu,** lotsamin(du), lotsamintzen da/du *ad adkor* lotsatu.

Zure ama, bere larogeita hamalau urterekin, euskara besterik ez dakielako, **lotsamindurik** joaten da klinikara. Joxe Azurmendi

---

**lotsarazi,** lotsaraz, lotsarazten **1** du *ad* lotsa sentiarazi.

Hau idaztean, ez zaituztet **lotsarazi** nahi, ohartarazi baizik. Elizen arteko biblia

Badakizu nola iraintzen nauten eta **lotsarazten** , / nola desohoratzen. Askoren artean

Axaleko dotorezia lehenetsiz, gu ilustratuok baino mila aldiz sen hobeagoko euskara zerabilten hiztun asko **lotsarazi** eta mututu ditugu. Joxerra Garzia

Zozokeria inozoak, ezertarako balio ez duten irudi ezdeus eta txepelak, edonor **lotsarazteko** modukoak. Hasier Etxeberria

**Lotsarazten** gaituzten estigmak ezkutatzea. Joxean Agirre

Munduak zorotzat duena aukeratu du Jainkoak jakintsuak **lotsarazteko** . Askoren artean

Ispiluan itsatsita, neure burua **lotsarazteko** , Wester Mail aldizkariko "Gales egunez egun" sailean argitaratu zidaten poema bat zegoen, baina ez zidan jada lotsarik ematen. Koro Navarro

**2** *ipar* beldurrarazi.

-Biba zu, Magali, aro hitsak ez zaitu **lotsarazi** beraz? Janbattitt Dirassar

Setio hark ez zuen Joanes **lotsarazten** . Eneko Bidegain

Bazterretik batzu ari direla hura zikindu eta apaldu nahiz, oroz gainetik **lotsarazi** nahi luketela ez dadin president-gai izan helduden urtean. Herria

Euskal-departamenduari eza eman diotela Parisen bainan ez gituela horrek gibel-arazi behar! baditake gainerat eza eman duten gure **lotsarazteko** eta gure da erakustea ez gituztela batere **lotsarazten** . Herria

**3** ***lotsaraztearren*** lotsarazteko.

Batzuetan Roberts jaunak, **lotsaraztearren** , "pobrearen adiskide" esaten zion. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ni lotsarazteko** (3)
> **lotsarazten ninduen** (3)

---

**lotsari** **1** *iz* lotsa, lotsabidea.

Ez, ezta ulertzeko ere: **lotsaria** zen hori, laidogarri ezaina; beste bide bat bilatu behar zen. Juan Garzia

Nork bere buruari, berriz, **lotsaria** eta atsekabea, bizi den artean. Askoren artean

**2** *pl* giza ernalkinen ageriko zatia.

Zaintzen zuten andereñoak uxatu zituen zantarkeriak esanez, **lotsariak** erakutsiz, buztana tente zuela haien atzetik lasterka abiatuz. Nik ere biluztu egingo zaitut, zure **lotsariak** bistan jarriko. Jon Alonso

Gerripeko bat besterik ez zuela **lotsariak** estaltzeko. Fernando Rey

Adan eta Evak, konparaziora, piko hostoz estali zituzten beren **lotsariak** . Patziku Perurena

---

**lotsati** **1** *izond/iz* erraz lotsatzen dena, pertsona nagusien edo beste sexuko gizakien aurrean lotsatzeko joera duena. ik **ahalketi; lotsakor.** (pertsonak)

Neskato ihar eta **lotsati** bat gogoratzen nuen nik. Joxean Agirre

Nire iloba **lotsati** eta maiteminduaren buru-osasunarengatik, gatibu zeukan xarma hura desegiteko betebeharra neukala sentitu nuen, [...] emakume hura benetan zer zen agerian uzteko betebeharra, alegia. Oskar Arana

**Lotsatiek** ere, telefono erotikoen bidez, bazuten euren fantasiak bakarka betetzeko aukera, eta ez txikia. Migel Angel Mintegi

**2** (bestelakoak)

-Orain ez dut idazten- sartu nintzen tartean, ahots **lotsatiarekin** . Juan Kruz Igerabide

Ni ikustean adeitasunezko imintzio bat egin zuen eskuarekin airean, erdibidean geratu zitzaion keinu labur eta **lotsati** bat. Joxean Agirre

Bekainak kakotu nituen, Mitxelenaren doinu **lotsatiak** harriturik. Alberto Ladron Arana

Aitak begiak beheititu eta irribarre **lotsati** bat ezkutatzen zuela ikusi nuen. Alberto Ladron Arana

Nekeak tarteka **lotsatiok** adoretsu egiten baikaitu. Joxean Agirre

**3** (izan aditzarekin)

Ni **lotsatia** nintzen neskekin -gorritu egiten nintzen, aztoratu, haien aurrean. Koro Navarro

Florent **lotsatia** zen; hogeita hamar urterekin, ez zen ausartzen emakumeei aurpegiz aurpegi begiratzen. Karlos Zabala

Konturatzen zen Joxe neskak begi onez begiratzen ziola; baina hain zen gizon **lotsatia**, non sekula ez baitzen ausartuko hari ezer esatera. Koro Navarro

Aski **lotsatia** nintzen izatez, baina hizketarako ez nintzen inoiz kamutsa izan. Xabier Mendiguren Elizegi

Pertsona zintzoa zen eta **lotsatia**, **lotsatiegia** aukeran. Jon Muñoz

Sentibera naizelakoan, makala eta **lotsatia** besterik ez naiz, sakon-sakonean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**-Lotsati** samarra izaten naiz neskekin -aitortu nion. Jon Muñoz

Batzuetan lotsagabe eta besteetan **lotsati** samarra den txoriño batek eskaini dit txostena. Migel Angel Mintegi

**4** (adizlagun gisa)

**Lotsati** erantzun nion: [...]. Juan Kruz Igerabide

Aita **lotsati** eta baldar ibiltzen zen asteburuko gonbidatuen artean, jakatxo higatua soinean. Kale kantoi aldera begiratu du **lotsati**. Ander Irizar

Elkarri begiratu zioten, aldi berean harro eta **lotsati**. Harkaitz Cano

Itsua politikaz mintzatzen hasi da, hasieran **lotsati**, segituan konfiantzaz. Itziar Otegi

Untxiek, berriz, **lotsati**, edo agian izuti, ekiten zioten pentsu borobil eta luzexkari. Joxemari Urteaga

Eguzkiak Mugarra ostetik agur esaten du **lotsati**, Aramotz gorituz. Unai Iturriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> irribarre lotsati (8); lotsati eta uzkur (3); lotsati izate (4); lotsati samar (6); lotsati samarra (5); ume lotsati (3)
>
> irribarre lotsatia (4)

---

# lotsatikeria *iz* lotsatia denaren egintza, gaitzesgarritzat markatua.

Zapaldu **lotsatikeria** guztiak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

# lotsatu, lotsa(tu), lotsatzen **1** da *ad* lotsa sentitu.

Neska bat ikusi dut Victoria lorategian, eta **lotsatu** egin naiz eta ez diot hitzik egin. Koro Navarro

Beraz, **lotsa** zaitez eta hartu desohorea zeure gain, errugabeak bailiran utzi baitituzu ahizpak. Elizen arteko biblia

Atean agertu, biluztu eta, bigun-biguna bazuen ere, ez zen batere **lotsatu**. Karlos Zabala

Darling jauna guztiz **lotsatu** zen egindakoaz. Julen Gabiria

Jendaurrean **lotsatu** gabe kantatzen eta hitz egiten. Andoni Egaña

Eta on egiten zion pornografian lan egin zuela-eta ez **lotsatzeak**, nik uste. Oskar Arana

Baina **lotsatu** egiten da bere pozaz, berekoikeria itsusi bat delakoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Ematen zuen **lotsatu** egiten zela soldadu-garaiaz hitz egiteaz. Anjel Lertxundi

**Lotsatu** egiten al zara nitaz, Hobie? Mirentxu Larrañaga

Irudipen hori etortzen zitzaidan bakoitzean, **lotsatu** egiten nintzen neure buruaz. Hasier Etxeberria

Dionisos **lotsatu** egin zen bere jarrera paternalistaz. Unai Iturriaga

Jende asko da Touretteren sindromeagatik larritu eta **lotsatzen** dena, mundutik erretiratu eta armairu batean ezkutatzen dena. Xabier Olarra

**Lotsatu** egin nintzen proposamenarekin. Hasier Etxeberria

Aurrena uko egin zien arratsaldeetako ibilalditxoei, **lotsatu** egiten baitzen bere soineko xahar maiztuekin, Aurrena uko egin zien arratsaldeetako ibilalditxoei, **lotsatu** egiten baitzen bere soineko xahar maiztuekin. Patxi Zubizarreta

Harrotu beharrean, **lotsatu** egin behar omen genuen. Alberto Ladron Arana

**2** du *ad* lotsa sentiarazi.

Zorionak **lotsatu** egiten nau -esan zuen Nathanielek, baina ahotsa ahuldurik, esaten ari zenak ere **lotsatu** egingo balu bezala. Anjel Lertxundi

Gehienera ere, ikuskizunaren itsusiak gogaitzen nau, baina ez **lotsatzen**. Anjel Lertxundi

Itsumen hura gogoratze hutsak **lotsatu** egiten nau orain; ez, ordea, garai hartako jakin-minak. Anjel Lertxundi

Zuzen ari zen, **lotsatu** egiten baininduen Ada nire arropa zikinarekin ikusteak. Anjel Lertxundi

**Lotsatu** egiten hau nirekin hitz egiteak, ala? Koro Navarro

**3** da/du *ad ipar* beldurtu.

Orduan, **lotsatzen** naiz, esnearen molekula salbaietarik, zerbait piztia haziko eta nire oherainoko bidaia luzea tragikoki hautsiko duelako menturaz hordi. Itxaro Borda

Baina Magali ez zuen euriak batere **lotsatu**. Janbattitt Dirassar

Ikus beza zure Zuhurtasun Argiak, zu Jaun txit Argia, jasateko ditudan guztiak **lotsatu** gabe pairatzekotan zenbat naizen Jainko laguntzaren beharretan. Piarres Xarriton

Gehiago **lotsatzen** zuen bere anaiak Bibliako hitzak errepikatzeak, haren hoztasunak baino. Koro Navarro

Zenbat aldiz, bide-nabar, **lotsatuak** zirelarik, hitz miragarri horiek kuraia berriz piztu zuten haien bihotzetan? Michel Oronoz

**Lotsatua** zen, zepo batean harrapatu erbia iduri. Elena Touyarou

Atzokoa zer zen badakigu, ohorea desohore zela sinetsia genuen denbora hura; eta hala ere biharkoak gaitu **lotsatzen** Piarres Aintziart

**4** (era burutua izenondo gisa)

Ondo gogoan ditu Mirenek ama **lotsatuaren**, nekatuaren begirada sinesgogorra. Iban Zaldua

Txibista deigarri batez hornitutako fardela eman zion eta "eskerrik asko" **lotsatu** batekin batera jaso zuen. Josu Landa

Irribarre **lotsatu** batez. Fernando Morillo

Batean bisaia eskuekin gordez, bestean eni behatuz aire **lotsatu** batekin. Janbattitt Dirassar

Zure ikasle ginenon mututasun **lotsatua** hautsi beharrez. Iñaki Segurola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> jendea lotsatu (4); lotsatu antzean (3); lotsatu arren (5); lotsatu gabe (22); lotsatu samar (7); lotsatu samarturik (3); semea ere lotsatu (3); zertan lotsatu (6); zertaz lotsatu (4)
>
> apur bat lotsatuta (3); erdi lotsatuta (3); lotsatuta egon (3); lotsatuta egongo (4); lotsatuta geratu (4); lotsatuta nengoen (7); lotsatuta sentitu (4); lotsatuta zegoela (3); lotsatuta zegoen (4)
>
> lotsatzeko moduko (6)
>
> mezuaz lotsatzen (3); mezuaz lotsatzen bada (3)

---

## lotseria *iz ipar* beldurra. ik **lotsa 7.**

**Lotseriak** hartzen zuen zenbait aldiz bereziki ofizier SS batek ostiko bat ederra eman zion arrats hartan. Marzel Etxehandi

---

## lotsor **1** *izond* lotsakorra, lotsatia.

Abasek irribarre **lotsorra** egin zuen, baina ez zuen hitz erditxorik ere esan: ongi ohartu zen zuhurra izatea komeni zitzaiola eta kontuz ibili lagun suminkorrari esaten zionarekin. Patxi Zubizarreta

**2** beldurkorra.

Arima **lotsor**, txepelak ez du munduan misio propio bat: haren bizitzea hor-egotea eta irautea izaten da, egindа aurkitu zituen gauzen artean mugitzea. Joxe Azurmendi

---

## lotu, lot, lotzen **1** du *ad* lokailuen edo lokarrien bidez batu edo atxiki.

Longaineko botoiak **lotu**, galtzetako hautsa astindu, eta pixka bat apaintzen saiatu zen. Karlos Zabala

Gero, poliki-poliki eskua atzeratu, bularretakoa igo, eta alkandoraren botoiak **lotu** zituen. Juan Kruz Igerabide

Prakak jantzi, gerrikoa **lotu** eta ahal bezain lasterren atera nintzen handik. Oskar Arana

Erakutsi egingo dizugu nola **lotu** behar dituzun lokarriak. Mirentxu Larrañaga

Gerria larruzko uhalez **lotua** zeraman. Elizen arteko biblia

Oinetakoak **lotu** zituen lehendabizi, jaka jantzi zuen gero. Anjel Lertxundi

Gizonak leporaino **lotu** zuen zamarra, eta emakumeak hobeto itxi zuen berokia. Koro Navarro

Herrirantz joan zen, lasai, atorra has, besorik gabeko barnekoa **lotu** gabe. Elena Touyarou

*ik* lotugabe.

Gero, etxeko nagusia atera zenean, kargu hartu zion zakurra **lotu** gabe zeukalako. Xabier Etxabe

Betiko tabernan oporrak hartu dituzte eta ondokora joan naiz Martinek bizikleta **lotu** bitartean. Xabier Etxabe

Sorbaldan zeraman xal gerezi-kolorearen ertzak **lotu** zituen amak katekorratz batez. Anjel Lertxundi

Argazki-kamera eta flasha kable batez **lotu** eta esku banaz heldu zien jaiki aurretik. Josu Landa

Oinak girgiluz **lotu** eta eraman espetxera! Jose Morales

Giltzadura bakoitza **lotzen** duten torloju eta azkoinak estutzen badira, egitura zurrun eta jokorik gabea eratzen da. Irene Aldasoro

Hor dugu bizkarrezurreko ornoak **lotzen** dituen zela-giltzadura. Etxeko nagusia, arreba eta morroia salako habeari **lotu**; zituzten diru eta erlikia guziak kendu; eta etxabereak barren, su eman omen zioten jitoek etxe guziari, eta hanka egin. Irene Aldasoro

Baina zein ibilgailu motari **lotu** zaldi horiek? Karlos Zabala

Suhiltzaileak ibai-zolan zeuden beti, garabiko kablearen muturrari mukulu bat **lotu** nahian. maitalerik gabe ezin etsi eta bere burua **lotu** ziola sagarrondo adar sendo bati. Aingeru Epaltza

Ilea **lotu** gabe zekarren, eta azazkalak odoletan. Karlos Zabala

**2** (non adieraziz)

Ohetik atera, eskuak atzean **lotu** zizkidaten eta hormari begira ipini ninduten. Jokin Urain

Ohean **lotu**, eta hor edukiko naitek egunetan eta egunetan, obratzeko ere askatu gabe. Anjel Lertxundi

Sotana gerrian **lotu** eta galtzak agerian dituela. Pako Aristi

Zaldia ur bazterrera eraman eta zuhaitz batean **lotu** zuen. Karlos Zabala

Sokak lurrean sendo iltzatutako makiletan **lotu** zituzten. Koro Navarro

-Hartu nire zapia eta **lotu** lepoaren inguruan. Jose Morales

Alde egin zutenean, emakumeak lokarri gorria **lotu** zuen leihoan. Elizen arteko biblia

Ezpata **lotu** zion gero gerrian, jantzien gainetik. Jose Antonio Mujika

Haiek, aldiz, mastan **lotu** ninduten, esku eta hanka, eta arraunean jarraitu zuten. Juan Kruz Igerabide

**3** irud/hed

Komunikazio elektrikoak baizik ez ditu **lotzen** Siberiako bi mugak, mendebaldekoa eta ekialdekoa, 8ø000 versta luze baino gehiago den hari baten bidez.Iraganarekin **lotzen** zuten lokarri guztiak hautsirik, orainaldia zuen mugarri. Karlos Zabala

Eskumuturreko ordulari ttikiok morrontza makurrenean **lotu** eta joputu gaituzte. Pello Zabala

Sexuak elkarri **lotzen** gaitu. Luis Elberdin

Izen batek asko **lotzen** du: txakurra edozein da, baina Lixta ez, Lixta ez da edozein. Iñaki Segurola

Hainbat segundoz ahoa **lotu** zuen baina, luze gabe, mintzatu beharrak gaina hartu zion kolerari. Aingeru Epaltza

Neska gazte beltzaran maitagarri bat ikusi zuen, lurrean eserita, tratua **lotu** nahian. Karlos Zabala

Negozioa erabat **lotu** artean, ez dago zertan gehiegi aztoratu. Oskar Arana

Elsbeth galtzeko beldurrak **lotzen** ninduen. Anjel Lertxundi

Gauza asko **lotu** behar dituzte; baliteke eragozpen bat baino gehiago sortzea, eta poliziak, ondorioz, denbora gehiago beharko du seguru asko deklarazioak egiaztatzeko. Rafa Egiguren

Hala oroit dezaket problema hura, xake jokoarekin **lotua** zegoena. Joan Mari Irigoien

Ez zuen mingaina **lotzen** hitz egiteko. Josu Zabaleta

Ezin izan nuen herra **lotu**, eta pistolaren kirtenaz jo nuen buruan. Inazio Mujika Iraola

**4** (elkartu)

Umbertok *Trieste* eta *triste* **lotu** zituen [...] Trieste munduko hiririk tristeena zela esateko. Anjel Lertxundi

Mugimenduarekin **lotzen** da eskeletoaren zeregin nagusia. Irene Aldasoro

Zerk **lotu** ote du, ordea, saguzahar hori hortzarekin? Patziku Perurena

Betidanik kalean bizi den jendea lapurretarekin, burutik joandako mozkorrekin eta miseriarekin **lotu** nahi izan bada ere, badira beren egoera duintasun berezi batez eramaten duten homelessak. Harkaitz Cano

Errusiaren azpian egoteak sortzen zien gorrotoari ez ote zitzaion **lotu** erlijio grekoaren eta musulmanaren arteko etsaitasuna. Karlos Zabala

Oparo jan eta edateari **lotu** izan zaio eritasun hori, baina guztiz argitu gabe dago oraindik haren jatorria. Irene Aldasoro

Konputagailua neurozientziekin **lotzen** dugunean inteligentzia artifizialaz hitz egiten hasiko gara. Pello Salaburu

**5** zauriez eta kidekoez mintzatuz, tela zerrenda batez inguratu.

Lagunek zauria **lotu** zioten Ulisesi, eta arao bat esan zuten odoljario beltza geldiarazteko. Juan Kruz Igerabide

Saihetseko zauria **lotzen** zion zapia aldatzean. Askoren artean

Gizon zaurituek ez dute egun bete pasa arte zauria **lotuko**. Harkaitz Cano

Sendagileak estu **lotu** zion hautsitako hanka. Felipe Juaristi

Muinoia bendaz **lotu** zion gero. Ramon Saizarbitoria

• **6** zaio *ad* itsatsi, atxiki.

Haren itxura lasaiagoa eta soinekoei **lotu** belar zatiak hitzak baino aise hobeki mintzo ziren. Elena Touyarou

Goroldiorik ere **lotzen** ez zaion harri ahantzi batena. Iñaki Segurola

Urteen joanean, ordea, erdeinuzko goroldio halako bat **lotu** zaio esapideari. Anjel Lertxundi

Olagarroa haitzari bezala **lotu** zitzaion Fructuoso. Inazio Mujika Iraola

Pantxori hotzikara **lotu** zaio bizkarretik. Aingeru Epaltza

Sukarra **lotu** zitzaion eta hiru bat aste bai lo ez lo ohetik jaiki gabe eman zituen zentzua tontoturik. Karlos Zabala

Errepide ilun estuari **lotu** nizkion begiak. Alberto Ladron Arana

Hong Kong zen, 1997an Txinari berriz **lotu** zitzaion arte, ekonomia erabat liberalaren munduko adibide bakarra. Koro Navarro

**7** irud/hed

Gurean bestelako esanak **lotu** zaizkio Karmengo Ama Birjinari. Pello Zabala

Bizi-maila hazkundeari **lotzen** zaio zuzen-zuzenean, eta bizi-kalitatea garapenari.Neska, hitza hitzari nola **lotu** jakin gabe, isil-isila geratu zen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ez dakizu zer ari zaren, baina hitza hitzari **lotzen** zaio, esaldia esaldiari. Iñaki Iñurrieta

Eta Mikel, beste sasikume bat, gaur **lotu** behar izan da tipa batekin, juxtu gaur! Sonia Gonzalez

Euskalduna pilotalekuaren sarreran **lotu** ziren, handik ehun metrora zegoen jatetxean afaltzekoak ziren eta. Josu Landa

**8** ekin.

Berehala, goizean bezain kementsu **lotu** zitzaion lanari. Patxi Zubizarreta

Plazakoa bukatuta, herritarrak barreiatu ziren eta beren zereginei berriz **lotu**. Elena Touyarou

Mikel eta Nadia Semilowskoetik atera eta Irkutskeko bide nekosoari **lotu** zitzaizkion berriro.Basamortu batean bezala sartu naiz, eta bide harritsu eta patartsuari **lotu**. Karlos Zabala

Lau kilometroko asfaltoari **lotu** naiz, Ledigos herrira heltzeko. Piarres Aintziart

Bere puskak biltzeari **lotu** zaio, mutilak janzten bukatu bitartean. Aingeru Epaltza

Gero, irkaurtzeari **lotu** zitzaion, biarnesez. Aingeru Epaltza

Patrizio itsasontziaren konponketari **lotu** zitzaion. Felipe Juaristi

Paperezko ezpain-zapia eskuan nuen, eta hartan tolesdurak egiterari **lotu** nintzaion, erantzun baten bila. Aingeru Epaltza

Eta kinto ez joatearren erruz **lotu** zitzaizkien ihesari euskal gazteak. Jokin Urain

Etzanda eta egonean egoteari **lotu** zitzaion berriro. Jose Morales

Musuka **lotu** zitzaidan, kasik irentsi behar banindu bezala. Janbattitt Dirassar

**9** (era burutua izenondo gisa)

Borrokarako hezi den txakur **lotu** baten moduan pasatzen zuen eguna, telefonotik gehiegi urrutiratu gabe. Anjel Lertxundi

Baina dantza **lotua** izan dadila, konforme? Fernando Rey

Frantsesaren irribarre **lotua**. Iñigo Aranbarri

Zeinen bizkor askatzen zen zapore **lotua**. Anton Garikano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**akordioa lotu** (9); **asko lotu** (6); **begira lotu** (12); **berehala lotu** (7); **berriro lotu** (12); **berriz lotu** (22); **betiko lotu** (5); **bideari lotu** (44); **bideari lotu zitzaion** (10); **borrokari lotu** (5); **botoiak lotu** (15); **elkarrekin lotu** (16); **elkarri lotu** (8); **erabat lotu** (8); **errekontruz lotu** (5); **eskuak atzean lotu** (5); **eskuak lotu** (19); **estu lotu** (14); **geldi lotu** (8); **gerrian lotu** (7); **gerrikoa lotu** (5); **kate motzean lotu** (16); **katez lotu** (9); **kontratua lotu** (5); **lanari lotu** (23); **ondo lotu** (14); **ongi lotu** (10); **sokaz lotu** (5); **sua lotu** (12); **sua lotu da** (6)

**biziari lotua** (6); **dantza lotua** (16); **erabat lotua** (7); **estu lotua** (12); **estuki lotua** (5); **hertsiki lotua** (7); **katez lotua** (9); **lotua egon** (20); **lotua izan** (17); **lurrari lotua** (5); **ondo lotua** (6); **ongi lotua** (6); **oso lotua** (22)

**elgarri lotuak** (15); **elkarrekin lotuak** (6); **elkarri lotuak** (16); **estu lotuak** (7); **lotuak egon** (8); **lotuak izan** (11); **lotuak zeuden** (6); **lotuak ziren** (12); **ongi lotuak** (5); **oso lotuak** (7)

**dantza lotuan** (6)

**berriz lotuko** (5)

**elkarri loturik** (22); **erabat loturik** (6); **eskuak loturik** (14); **estu loturik** (23); **estuki loturik** (7); **hertsiki loturik** (7); **katez loturik** (17); **loturik ageri** (14); **loturik agertzen** (7); **loturik geratu** (5); **ondo loturik** (5); **ongi loturik** (5); **oso loturik** (10); **sokaz loturik** (5)

**elkarri loturiko** (5); **estuki loturiko** (6); **ingurumenari loturiko** (5); **irakasgaiari loturiko** (7); **irakasgaiari loturiko lizentzia** (7)

**al kaedari lotuta** (6); **artean lotuta** (9); **atzean lotuta** (7); **bat lotuta** (7); **batean lotuta** (9); **batekin lotuta** (19); **batez lotuta** (6); **bati lotuta** (56); **bati lotuta dago** (5); **besteari lotuta** (5); **bezala lotuta** (7); **dago lotuta** (23); **daude lotuta** (21); **dena lotuta** (9); **elkarrekin lotuta** (10); **elkarren artean lotuta** (7); **elkarri lotuta** (39); **erabat lotuta** (11); **erasoekin lotuta** (5); **eskuak atzean lotuta** (6); **eskuak lotuta** (43); **eskuburdinekin lotuta** (5); **estu lotuta** (21); **estuki lotuta** (14); **katez lotuta** (12); **lotuta agertzen** (11); **lotuta bizi** (12); **lotuta eduki** (13); **lotuta edukitzea** (5); **lotuta egon** (73); **lotuta egotea** (15); **lotuta egoten** (9); **lotuta eraman** (9); **lotuta gelditu** (9); **lotuta geratu** (12); **lotuta idaztea** (10); **lotuta ikusten** (10); **lotuta izan** (6); **lotuta jaio** (5); **lotuta jarraitzen** (12); **lotuta joan** (8); **lotuta utzi** (18); **lotuta uzteko** (5); **makina bati lotuta** (10); **ondo lotuta** (28); **ongi lotuta** (6); **oso lotuta** (49); **politikoarekin lotuta** (5); **sareari lotuta** (5); **sokaz lotuta** (6); **taldeari lotuta** (5); **ustez lotuta** (6)

**al fatari lotutako** (6); **al kaedarekin lotutako** (10); **al kaedari lotutako** (13); **elkarri lotutako** (7); **erlijioarekin lotutako** (5); **estu lotutako** (8); **estuki lotutako** (6); **indarkeriarekin lotutako** (9); **ingurumenarekin lotutako** (11); **ingurumenari lotutako** (5); **lotutako arazoak** (7); **lotutako auziak** (6); **lotutako gaiak** (7); **lotutako gaietan** (5); **lotutako gaitzak** (7); **lotutako gaitzen** (7); **lotutako gaixotasunak** (6); **lotutako jarduera** (5); **lotutako lehen oroitzapena** (5); **lotutako osasun** (6); **lotutako talde** (14); **lotutako taldeak** (5); **terrorismoarekin lotutako** (6); **ugaltzeari lotutako** (7); **ustez lotutako** (9); **zinemarekin lotutako** (8)

**elgarri lotuz** (9); **elkarrekin lotuz** (5)

**lotzea erabaki** (5)

**berriz lotzeko** (8); **elkarrekin lotzeko** (6); **etarekin lotzeko** (7); **lanari lotzeko** (5); **lotzeko agindu** (5); **lotzeko asmoa** (7); **lotzeko aukera** (12); **lotzeko erabiltzen** (8); **lotzeko eskatu** (8); **ondo lotzeko** (6)

**al kaedarekin lotzen** (7); **botoiak lotzen** (7); **elkar lotzen** (6); **elkarrekin lotzen** (23); **elkarri lotzen** (7); **estu estu lotzen** (6); **estu lotzen** (14); **hiriak lotzen** (12); **hiriak lotzen dituen** (11); **iraganarekin lotzen** (7); **lanari lotzen** (5); **lokarriak lotzen** (6); **lotzen dituen erlazioa** (5); **lotzen dituen errepidea** (6); **lotzen dituen errepidean** (11); **lotzen saiatu** (8); **lotzen saiatzen** (6); **objektuei lotzen** (8); **ondo lotzen** (7); **ongi lotzen** (7); **zuzenean lotzen** (5)

---

# lotugabe 1 *izond* loturarik gabea.

Behin Joséz esan nuen er zela bizi unibertso batean, William Jamesek "multibertso" deitzen zion halako batean baizik, ezaugarri kontaezin, **lotugabe** baina oso bizien mundu halako batean. Xabier Olarra

**2** ***lotugabeko*** *izlag* lotugabea.

Oroitzearekin konformatu zen, beste hitzetan lehen ere adierazi den bezala, zeruko hodeiez eta aireko elektrizitateaz hitz egin denean, **lotugabeko** hodeiez eta tentsio txikiko elektrizitateaz. Jon Alonso

---

# lotune 1 *iz* zenbait gauza lotzen diren gunea. ik **loturagune**.

Anplifikagailu kimiko bat dago muskuluaren eta nerbio-zuntzaren arteko **lotunean**. Irene Aldasoro

Ezker izterreko iskiotibialen **lotuneko** tendinitisa. Berria - Kirola

Bizkarrezurreko **lotuneek** dar-dar egiten dute, animalia hau ergel erabatekoa da. Jon Alonso

Odolak harrien arteko **lotuneetan** gurutze gorri errepikakorrak irekitzen ditu. Harkaitz Cano

Azterketa arkeologikoaren eta ideien historiaren artean **lotuneak** ugariak dira. Xabier Arregi

Arte espazioan, feminismo kritikoaren eta queer teoriaren arteko **lotunean** sortzen diren diskurtsoak Berria - Kultura

## 2 (errepideetan eta kidekoetan)

Luizi handia gertatu zen N-1 errepidearen eta A-8aren **lotunean**, Donostiako saihesbideko sarreran. Berria - Harian

Ezponda bat erori egin zen Basaurin (Bizkaia), A-8 eta A-68 autobideen **lotunean**. Berria - Harian

Gaintxurizketa gainean biribilgunea egitea, Zaldunborda inguruan **lotune** osoa egitea eta Kateako sarbidea eraberritzea. Berria - Euskal Herria

Euskal Y-aren Gasteiz eta Bilbo arteko zatia eta Arrasate-Elorrio-Bergara **lotunea** eraikitzeko proiektuak idazteaz eta gauzatzeaz. Berria - Harian

## 3 (hitz elkartuetan)

Taldeak galdu egingo gaitu, trenbide **lotuneetako** nahasmenduan hatuak galtzen diren bezalaxe. Josu Zabaleta

---

# lotura 1 *iz* gauza abstraktu bi edo gehiago lotzen dituen zera.

Ez dagoela deus ere sakratu edo erlijiosorik gizakien artean, ezkontzaren **lotura** hautsezina ez bada. Andres Urrutia

Fonemak hotsarekin zuen **lotura** alde batera utziz. Lourdes Oñederra

Ongi aritzea, entzuleekiko **lotura** lortzea... biren lana da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Fenomenoak ez dira artean bakarkako gertakari batzuk baino, elkarrekiko **loturarik** gabeak. Juan Garzia

Biek jakin zuten, hasiera-hasieratik, elkarrekiko **lotura** hark bizi osoan iraungo ziela. Xabier Olarra

Zerbait eten zen nire maistraren eta bion artean; **lotura** berriro itsasten saiatu zen bera. Juan Kruz Igerabide

Bortxatua izanen zela, gure familiarekin **loturak** atxikitzera. Daniel Landart

Ez dakizu soilik irritsak duela amodioaren **lotura** urratzeko eskubidea? Jon Muñoz

Zeintzuk dira haustera entseiatua haizen **lotura** horiek? Jon Muñoz

**Loturako** bokaltzat, azkenik, e aukeratu zen: *nabilek* (ez *nabilk / nabilak*). Koldo Zuazo

## 2 (arteko-ren eskuinean)

Biziaren eta mundua gobernatzen duten indarren arteko **lotura**. Juan Garzia

Irudiaren eta idazkiaren arteko **lotura** begi-bistakoa zela. Anjel Lertxundi

Nazionalismoaren eta euskararen arteko **lotura** hausteko. Markos Zapiain

Etikaren eta politikaren arteko **loturak** azter daitezke, baina, ezin dira dimentsio horiek sekula nahasi. Askoren artean

Belaunaldien arteko **lotura**. Berria - Euskal Herria

Natura osoaren ordena, hau da, kausen arteko **lotura** argitu beharko dugu. Piarres Xarriton

Hildakoaren eta Jeronimoren arteko **lotura** asmatu ezinik egin nuen hileta osoa. Anjel Lertxundi

## 3 (izenondoekin)

Lanaren banaketaren tamainak, izan ere, oso **lotura** estua du ekoizpenaren bolumenarekin. Koro Navarro

Etxekoekin **lotura** estua izaten jarraitu zuen. Xabier Olarra

Unibertsoko fenomeno bakoitzarekin **lotura** estu-estua balu bezala, ulertzen?... Xabier Olarra

**Lotura** diskurtsiboak egiten ez dakien baten ahulezia. Anjel Lertxundi

Ezkondu beharrak, edo nire askaziaren jarraipena eta ondasunak ziurtatu beharrak **lotura** hautsiezin edo sakratuak ezartzera naramala elkartzen naizen objektuarekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nire lagunak **lotura** liluragarria deitzen zionari, binomio fantastikoa deitzen ziola Rodarik. Anjel Lertxundi

Ezkontzako **lotura** zentzugabeen izenean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lotura** sare bat dira beren lanarekin, beren lanbidearekin, beren eginbeharrarekin. Josu Zabaleta

Irudia ikustea, **lotura**-sorkuntza eraginkor bat bezala, lotura horiek askotan aldakorrak eta iheskorrak badira ere. Josu Zabaleta

Bere **lotura**-ahalmenaz kontziente den inteligentzia gisa existitzen naiz. Ibon Uribarri

Bilgune hoieri buruz euskal gobernuak egiten duen **lotura** lana bera hain baita baitezpadakoa. Herria

Internet **lotura** puntu iraunkorra zabalik dago Donapauleko mediatekan. Herria

Eta etetearekin batera, beste **lotura** mota berezi bat sortzen da. Arantxa Iturbe

Nire adiskidearen maneren koherentzia faltak, haien **lotura** ezak, berehala txunditu ninduen. Koro Navarro

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezkon **lotura** gehiegi estutzen bada, argaldu egiten dela. Andres Urrutia

Bi hitz horiek [...] sozializazioaren kontzeptuarekin loturik erabili ohi dira, hots, gizarte-**loturak** sortu eta sendotzearekin. Koro Navarro

Zenbait animaliak kidetasun-**lotura** sendoak sortzen dituzte, J.M. Olaizola "Txiliku"

## 6 (gauza ez-abstraktuekin)

Konexio konplikatuak dituzte garuneko usaimen-eskualdearekin **lotura** duten 50.000 nerbio-zuntz ingururekin. Irene Aldasoro

## 7 lotzea.

Joachimek jakin zuenean Hannak tronpen **lotura** egina zuela, lehertu zen zirkuitulaburra: [...]. Joxe Austin Arrieta

## 8 lotailua.

Astebeteko epea eman zidan Wu maisuak zauriak biltzen zituzten **loturak** kentzeko. Javi Cillero

Haurrari **loturak** kendu zizkiotenean, sendatua aurkitu zuten. Askoren artean

Gotzone, bitartean, ikaragarri lanpeturik dago kanpadendan, honi **loturak** aldatzen, horri termometroa ezartzen, hari negarra eztitzen... Aingeru Epaltza

Gogo onez ukitzen zituen haien zauriak, **loturak** aldatu eta sendatzen zituen. Askoren artean

Lanpararen erlaitza horman barrena atxikia zegoen eta bertan botila ttiki eta handiak, tresna desberdinak eta oihalezko **lotura** ugari lerrokatzen ziren. Patxi Zubizarreta

**Lotura** odolez blai. Juan Kruz Igerabide

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**alderdiarekin lotura** (4); **amarekiko lotura** (3); **beharrezko lotura** (3); **bidezko lotura** (6); **bien arteko lotura** (14); **elkarrekiko lotura** (6); **erakundeen arteko lotura** (3); **errealitatearekiko lotura** (3); **etarekin lotura izatea** (5); **gizarte lotura** (3); **gurasoen arteko lotura** (3); **herriarekin duen lotura** (3); **herrien arteko lotura** (3); **hitzen arteko lotura** (10); **hizkuntza lotura** (5); **ideien arteko lotura** (5); **ingurumenarekin lotura duten** (5); **inolako lotura** (5); **internet lotura** (4); **interneterako lotura** (4); **iraganarekiko lotura** (4); **izan zuen lotura** (3); **izandako lotura** (4)

**lotura afektibo** (6); **lotura afektiboa** (5); **lotura argitu** (3); **lotura asko** (5); **lotura azaltzea** (3); **lotura azpimarratu** (5); **lotura aztertzen** (4); **lotura bakarra** (10); **lotura begi bistakoak** (4); **lotura berezi** (7); **lotura berezi bat** (5); **lotura berezia** (8); **lotura berri** (6); **lotura berri bat** (3); **lotura berriak** (3); **lotura bitxia** (4); **lotura duten gaiak** (4); **lotura eduki** (3); **lotura egin** (20); **lotura eginez** (4); **lotura egitea** (6); **lotura egiteko** (11); **lotura egiten** (22); **lotura estu** (6); **lotura estua** (76); **lotura estua dago** (3); **lotura estua du** (14); **lotura estuagoa** (4); **lotura estuak** (12); **lotura estuan** (3); **lotura esturik** (4); **lotura eta interes** (3); **lotura eta ordena** (4); **lotura eten** (3); **lotura fisikoa** (3); **lotura gehiago** (5); **lotura gisa** (4); **lotura gutxi** (5); **lotura gutxiago** (3); **lotura guztiak eten** (4); **lotura handia** (24); **lotura handia izan** (3); **lotura handiago** (3); **lotura handiagoa** (15); **lotura handirik** (7); **lotura hausteko** (3); **lotura hautsi** (6); **lotura hertsia** (3); **lotura historiko** (3); **lotura historikoa** (3); **lotura izan** (29); **lotura izanen** (3); **lotura izango** (4); **lotura izatea** (29); **lotura izatea egotzita** (7); **lotura izatea leporatuta** (5); **lotura lana** (7); **lotura lana egiten** (3); **lotura lanak** (3); **lotura**

**mota** (6); **lotura politiko** (3); **lotura politikoak** (3); **lotura politikorik** (3); **lotura sakona** (3); **lotura sendo** (4); **lotura sendoa** (4); **lotura sendoak** (8); **lotura sendotzen** (3); **lotura ukatu** (3); **lotura zibilak** (3); **lotura zuten** (12); **lotura zuzen** (3); **lotura zuzena** (54); **lotura zuzena du** (9); **lotura zuzena izan** (3); **lotura zuzenagoa** (4); **lotura zuzenak** (4); **lotura zuzenik** (4)

**mailako lotura** (3); **nolabaiteko lotura** (25); **ordena eta lotura** (4); **oso lotura estua** (12); **terrorismoarekin lotura duten** (3); **ustez lotura duten** (4); **ustezko lotura** (3); **zuzeneko lotura** (3)

**bien arteko loturak** (3); **familia loturak** (4); **loturak askatu** (4); **loturak aztertu** (4); **loturak bilatu** (3); **loturak egin** (3); **loturak egiteko** (7); **loturak egiten** (9); **loturak ezarri** (4); **loturak hautsi** (6); **loturak izan** (3); **loturak kendu** (3); **loturak moztu** (3); **loturak sendotu** (3); **loturak sortu** (6); **loturak sortzea** (3); **loturak sortzen** (3); **zer nolako loturak** (3)

**ageriko loturarik** (5); **batere loturarik** (5); **inolako loturarik** (53); **inongo loturarik** (9); **loturarik aurkitu** (3); **loturarik gabe** (25); **loturarik gabea** (7); **loturarik gabeak** (3); **loturarik gabeko** (19); **loturarik gabeko hitz** (3); **loturarik gabekoak** (4)

---

# loturagabe *(orobat **lotura gabe**)* *izond* loturarik gabea.

Gertakari etenak, deskonektatuak edo **loturagabeak**. Iñaki Segurola

Nahasmenaren beraren nolakotasun fantastiko eta **lotura gabearen** parte ziren, eta ez txikia gainera, ikusiko denez. Koro Navarro

Bazirudien une oroigarri, bakartu eta **loturagabez** osatzen zela haren bizi-eskarmentua. Xabier Olarra

Esan zidan hasieran Stephenen musikarekiko "loturak" zorizkoak nahiz egozentrikoak zirela, izugarri **loturagabeak** piezaren benetako doinuarekiko. Xabier Olarra

---

# loturagune *iz* lotura bat dagoen gunea. ik **lotune**.

Aire trafikoaren etorkizuna ez dagoela aireportu handien ( **loturaguneen** ) arteko ibilbideetan, puntutik-punturako bidaietan baizik. Berria - Harian

Ez zen han aditu "Barkatu, lehenago eskaini behar nizun", ez bitarteko urratsik, ez gizalegezko **loturagunerik**. Xabier Olarra

---

**loturaño** *iz adkor* lotura.

To, hara azkenean **loturaño** bat egina Ibarla eta Toronto-ren artean... Herria

---

lotus ik **loto**[1].

---

# lotutasun *iz* lotua denaren nolakotasuna.

Gure aurreko belaunaldiko idazleak ere kapaz izan dira euskarari modernotasun literarioa ekartzeko, gaien aldetik ez ezik, baita hizkuntzaren erabilera **lotutasunik** gabearen bitartez ere. Ana Urkiza

· Estatu bat sortzeari ere askatasuna esaten diote askotxok hemen, **lotutasuna** esan beharrean, eta estatu berririk sortu ez eta lehengoa bere hartantsu uzteari ere askatasuna esaten diote beste askok. Iñaki Segurola

---

# lotzaile *(orobat **lotzale**)* *izond* lotzen duena.

Orain nahigabetu horri aurre egiteko, lanaren egunerokotasun **lotzailea** erabili zuen eta tartekako bidaia batzuk, Frantziara, Ingalaterrara edo Italiara. Josu Zabaleta

Komunikabide Teknologia berrietan departamenduak nahi du **lotzaile** agertu, sortzen ari diren sare desberdinen artean. Herria

**Lotzaile**, erran nahi baita lokarri baino gehiago, KTBeen zerbitzu publikoaren buruzagi izan nahi du departamenduak. Herria

Orain nahigabetu horri aurre egiteko, lanaren egunerokotasun **lotzailea** erabili zuen eta tartekako bidaia batzuk, Frantziara, Ingalaterrara edo Italiara. Josu Zabaleta

Fabien ere **lotzalea** da pilotan, aire ona eta jokorik askorekin, eta guziz trebetasun asko. Herria

---

lotzale ik **lotzaile**.

---

# lotze 1 *iz* lokailuen bidez batzea edo atxikitzea.

Horrela, haizeak bere bidean ez du oztoporik izaten, esekiduraren **lotze** puntua erdian joan ordez alboetara eraman eta erdiko zatia aerodinamikoki garbiago gelditzen baita. Berria - Kirola

**2** lotura egitea.

Mus jokoarekin **lotze** horrek beste konparazio baterako ere balio digu: agi denez, ezustean harrapatu nahi du Arrietak irakurlea, muslariak joko lagunekin egiten saiatzen diren bezala. Berria - Kultura

· Filmeko emakume hotz kalkulatzaile haiekin **lotze** hark goragalea eman zidan, baina filma bukatu arte itxaron nuen. Anjel Lertxundi

---

# lotzeke *adlag* lotu gabe.

Galtzerdiak lohi, **lotzeke** eta girgilu legez orkatilaraino jausiak. Juan Garzia

Lan ituna **lotzeke** dute ontziolan, eta atzo bitartekari baten epaia onartzeko eskatu zien zuzendaritzak langileei. Berria - Ekonomia

Koalizioko alderdiek hauteskunde akordioa oraindik erabat **lotzeke** duten arren, [...]. Berria - Euskal Herria

---

loxintxa ik **losintxa**.

---

loxorrotu ik **lozorrotu**.

---

loyalista ik **loialista**.

---

**lozagi** *iz* ardatza.

Jenson Buttonek hobeto ibiltzea espero zuen, baina **lozagiak** huts egin zion irteeran eta ondoren ezin izan zuen onenekin jarraitu. Berria - Kirola

Eraketa diskurtsibo bakoitzarentzat berezia den **lozagia** jartzea, ez dituena ez arau berdinak, ez eragile berdinak, ezta sentsibilitate berdina ere, esaterako aberastasunen azterketan, ekonomia politikoan, garai bateko "gorpuzkeren" medikuntzan eta egungo epidemiologian. Xabier Arregi

---

lozaku ik **lo 27**.

---

**lozale** *izond* lo egiten zalea dena.

Ez zaitez **lozale** izan, behartsu bihurtuko zara eta; izan begiak zabalik eta ogiz asebeteko zara. Elizen arteko biblia

---

**lozio** *iz* larruazalean edo ilean igurtzialdiak edo masajeak emateko isurkaria.

Aurrekoen kontra bultzaka, atzekoen bultzadapean, izerdi usaina eta era guztietako **lozioak** eta beroa ziren nagusi ar saldoaren korronte hartan. Iñaki Iñurrieta

Bitsak kilimak eragiten zizkion sudurzuloetan; **lozioaren** lurrina atzeman zezakeen. Lopez de Arana

Ilea zaintzeko neure **lozioak** merkaturatzea. Iñaki Mendiguren

Denboraren hondamenak leuntzen joateko erabili ohi duen **lozio** zaharberritzaile meritu onekoa. Jon Alonso

---

**lozorro** *(orobat **lo zorro**)* **1** *iz* lo sakona eta pisua.

**Lozorroak** gizakia hartzen duen garaian. Elizen arteko biblia

Bat-batean **lozorroak** hartu eta estasian erori zen. Askoren artean

Bat-batean, telefono dei batekin, eten zen **lozorroa**. Lourdes Oñederra

Sukarra, buruko mina, ikusmen bikoitza, mugitzeko zailtasunak eta **lozorroa** eragiten ditu normalean. Berria - Gaiak

Kirxa bera, **lozorroa** gorabehera, kezkatu egiten zen kafe etxean sartu-irten bat egiten ez bazuen. Patxi Zubizarreta

Amets horietan hartu ninduen **lozorroak** gaueko haize freskoan. Josu Zabaleta

Nekez sartuko da inor **lozorroan**, une labur bateko lo-kuluxka izango da gehienera. Xabier Mendiguren Elizegi

Goizaldera egiazki **lozorroan** sarturik, lehen arrabotsak ez ditut aditu. Piarres Aintziart

Ez ote den gure baitan dugun beste izaki arrotz ezagutu eta atxiki ezin daitekeen bat, gure arima **lozorroan** denean gure gorputz gatibua biziarazten duena. Josu Zabaleta

Osaba Kamilek aulki batean esertzeko usadioa zuen, [...] eta **lozorroan** egoten zen, euli uxatzailea bularraldean hartua. Patxi Zubizarreta

Erdi **lozorroan** egon nintzen, neure artean erdi barrez. Koro Navarro

Igandeetan giro astun, **lozorrozko**, deprimigarri bat izaten da hemen. Josu Zabaleta

Gero arimaren zurruntasun moduko bat izan zen, halako ongizate **lozorrozko** bat, minak aldegin gabe bazen ere, ez zen min nekagarria,. Josu Zabaleta

Txilin baten hotsak atera zuen osaba Kamil bere ohiko **lozorrotik**. Patxi Zubizarreta

Ardoaren **lozorrotik** iratzartu zenean. Jose Antonio Mujika

**Lozorrotik** esnatuxe, halako epeltasun jostarina nabaritu zuen zainetan barrena. Patxi Zubizarreta

· **Lozorroa** egin zuen, aspaldiko partez eta pausaturik eta goseturik iratzarri zen. Elena Touyarou

**2** (izenondoekin)

Egonean zegoen, **lozorro** goxo eta sakonean. Koldo Zuazo

**Lozorro** gozoak hartu zuen magalean Deportivo. Berria - Kirola

**Lozorro** sakonenetik atereaz, ametsen baten sare fina urratzen dugu. Koro Navarro

Gero loak hartu ninduen, edo **lozorro** sakonak bederen. Txillardegi

Nadia **lozorro** gogorrean zetzan. Karlos Zabala

Zentzumen guztietara zabaldua nuen **lozorro** ameslari hura. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan)

Neke **lozorro** bitxi hartan ezin nuen igarri. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lozorro sakonean** (4)
> **izan nuen lozorroak** (3)
> **erdi lozorroan** (4); **lozorroan egon** (11); **lozorroan geratu** (4); **lozorroan zegoen** (14)
> **lozorrotik atera** (7); **lozorrotik esnatu** (6); **lozorrotik esnatzen** (4)

---

**lozorrotsu** *izond* lozoorro sakonean dagoena.

Routh **lozorrotsua** ernatzea lortu zuen azkenean. Irene Aldasoro

---

**lozorrotu**, lozorro(tu), lozorrotzen *(orobat **loxorrotu**)* **1** da/du *ad* lozorroak hartu.

Gauez, **lozorrotzen** hasten denean, erdi ametsetan, bere burua ikusten du Garibairen jantzian, Garibai bezala hitz egiten, Garibairen kezka berberen hausnarketan... Anjel Lertxundi

Noranahi abiatu, zekenkeria jazartzen zaio gizaki honi, lizunkeriak suntsitzen du, handikeriak txunditzen du, harropuzkeriak haizez puzten du, inbidiak torturatzen du, utzikeriak **lozorrotzen** du, egoskorkeriak zirikatzen du, laidoak sumintzen du eta, azkenik, libidoaren nagusitzak berekin dakartzan beste hainbat gaitz sufritzen ditu. Imanol Unzurrunzaga

Ez zegoen konortegabetua, baina zeharo **lozorrotua** bai, elbarritua bezala. Joxe Austin Arrieta

**2** (era burutua izenondo gisa)

Harridurazko begirakunea piztu zen bere begi **lozorrotuetan**. Patxi Zubizarreta

Ikusleen kontzientzia **lozorrotuaren** gainean egindako aipamena. Karlos Linazasoro

---

**lozorrotzaile** *izond* lozorrotzen duena.

Erromak badaki aski ongi Jesusen dotrina hutsak nor bere buruaren ukapenera eta nihilismo mistikora eragiten duela, edota komunismo **lozorrotzaile** batera. Patziku Perurena

---

**lubaki** *(orobat **luebaki** g.er.)* **1** *iz* lurrean egiten den zulo luze eta meharra.

**Lubakiak** zulatzen ere, ilaran aritzen ginen. Mirentxu Larrañaga

Fusilak eman zizkiguten, eta zakutoak, eta **lubakiak** egiteko palak. Mirentxu Larrañaga

**Lubakiak** zulatzen ere, ilaran aritzen ginen. Mirentxu Larrañaga

Alde guztietatik setiatuko zaitut, **luebakiz** inguratuko. Elizen arteko biblia

Murruetako arraildurak petatxatu zituzten, **lubaki** betetzen hasiak sakondu. Aingeru Epaltza

Heroi batek bezala **lubaki** bat defendatu eta txistuka datozen balen artean bandera landatu. Koro Navarro

Azkenean **lubakiaren** hondora heldu ginen. Alberto Ladron Arana

Aita Lehen Mundu-Gerrako **lubakietan** hil ostean, ama antzezleak hazi omen zuen. Oskar Arana

**Lubakietan** eman zioten lurra, otoitz labur baten ondotik. Aingeru Epaltza

Gerra garaian edozein zulo da **lubaki**. Pako Aristi

Ideologiaz alde banatan egon arren gerran **lubaki** berean diren euskoek, euskotarrek eta besteek. Edorta Jimenez

Faxismoaren kontrako **lubakietan** poetak eta langileak, zuriak eta beltzak, mundu osotik etorriak... Berria - Kultura

Astebeteko su-etena ere pozgarri da **lubakian** dagoenarentzat. Imanol Zurutuza

**2** (izenondoekin)

**Lubaki** zuzenak egin behar genituen, ertzak zuzen ageri zituztenak. Mirentxu Larrañaga

**Lubaki** sakon batek hartzen zuen gazteluaren albo haren luzera osoa. Alberto Ladron Arana

Zintzurraren luzera osoan lurrezko horma altxatu eta zubi bakarreko **lubaki** sakona indusi zuten. Agustin Otsoa

Gotorleku guztiak isilik zeuden, mutu **lubaki** karlistak. Koro Navarro

**3** irud/hed

Bruselako kale nagusiak **lubakiarena** egiten du. Edorta Jimenez

Bizitza osoa esperientziaren **lubakietan** lanean gogor ibili ondoko iradokizunak. Oskar Arana

ELAri **«lubaki** sindikala» utzi izana leporatu dio LABek. Berria - Ekonomia

Uste dut euskal politikan letra txikia irakurtzen hasteko garaia dela, letra handiak blokeetara eta **lubakietara** bultzatzen baikaitu. Berria - Euskal Herria

Masoneria ideia guztientzako tribuna bat da, eta gure ideientzako **lubaki** bat. Berria - Gaiak

Ez zituen guduak deskribatzen, ez zuen historia egiten, ez zen **lubakiaren** alde batean edo bestean jartzen. Anjel Lertxundi

Aberatsen **lubakiak**: etxea, pisu bat, apartamendua, bidaiak. Pako Aristi

Desesperazioaren arrazoia ematen du, azkeneko **lubakia** erresistentzian: uholde latinotik hizkuntza salbatzerik jada ez daukagunez gero, salba dezagun arraza eta arrazaren izpiritua. Joxe Azurmendi

Fusilarekin irabazten dira iraultzak historiaren **lubakian**. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** (hitz elkartuetan)

Buckland lotinanta **lubaki** hesira igota dago, gure gainean, eta garrasika ari zaigu. Mirentxu Larrañaga

Lepoa okertuta etzaten zinen, **lubaki**-ertzaren gainean zure maitea ikusteko lokartu aurretik. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lubakiak egiteko** (3); **lubakiak egiten** (5)
> **lubakian babesteko** (3)
> **lubakietan hil** (3); **mundu gerrako lubakietan** (4)

---

**luberatu** *izond*

Lorratz zarakartuak ziren, nahiko **luberatuak**, gurdi batenak ere izan zitezkeenak; baina beste toki batzuetan, zoru tinkoagoan, garbi zegoen haiek, dudarik gabe, pneumatiko-arrastoak zirela. Joxe Austin Arrieta

---

**luberri** **1** *iz* kendu diren belarrak eta sustraiak bertan erreaz eta goldatuz, ereiteko prestatu den lurra.

Lorez betetako **luberri** bat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Garia jotzeko eta **luberriak** ateratzeko. Koldo Biguri

**2** irud/hed

Bestalde, oso emankorra izan daitekeen **luberria** egin da elkarlanean osatu den *Euskara mintzatuaren erronkak* liburuan. Koldo Zuazo

•

Erdi Arotik Aro berrira iragaitean, ordea, XVI. mendean Ameriketako **Luberriak** agertu zirelarik eta, gero, mundu biribil osoaren itzulia lehen aldikotz egin zelarik, Piarres Xarriton

---

**luberritu**, luberri(tu), luberritzen *(orobat **lurberritu**)* du *ad* lur eremu bat luberri bihurtu. ik**labakitu**.

Lurrak ezer ez duten familia guztiei banatu, **luberritzeko** eta lantzeko bitartekoak eman. Iñaki Iñurrieta

Arlo emankorrak **luberritu** eta zelaiak belardi bihurtu. Xabier Amuriza

Hazparneko eremuetan 2000 Ha dira jadanik **lurberrituak** direnak eta Herriarenak direnak Herria

---

**luberritze** *iz* lur eremu bat luberri bihurtzea.

**Luberritze**-, inflexio- eta krisi-garaiak dira. Joan Mari Lekuona

---

**lubeta** **1** *iz* lurra pilatuz eraikitzen den hesi modukoa.

Hiri-gotor bati ere eraso zion Judasek; **lubetaz** eta harresiz inguratua zegoen, eta jatorri askotako jendea bizi zen bertan. Elizen arteko biblia

Gerlariek eraso-dorreak jarriko dituzte zure kontra, **lubetak** eraikiko zuri erasotzeko. Elizen arteko biblia

Leku horietan, aurrena **lubetak** egin behar dira, zabaleraz eta altueraz ahal denik eta handienak, gero harresien zimenduak ondo sartu **lubetaren** hondoan, eta gero, harresiak zabal eraiki, lurraren bultzadari erraz eusteko bezain zabal. Santiago Iruretagoiena

Alde batean ainguratokiren bat balego eta inongo ibairik ez traba egiteko, orduan beste aldetik malekoi edo dike bat egingo da hormak edo **lubeta** eginez, eta honela eratuko da portuaren ahoa edo bokalea. Santiago Iruretagoiena

· **Lubetak** betetzeko. Santiago Iruretagoiena

**2** lur pilatuak osatzen duen pendiza.

Horrek sortu zuen danbatekoa eta irtenarazi trena errailetatik; gutxik egin zuen **lubetan** behera erori eta zokogune batean amildu ez zenean. Karlos Zabala

**3** ***harri lubeta*** harrizko lubeta.

Obrak egiten direnean beti joera horiek neurtu behar dira eta euskarriak ipini jausiak galarazteko: buloiak, aingurak, hormak edo harri-**lubetak**. Berria - Harian

Itsas pasealeku inguruko harri **lubetan**. Berria - Euskal Herria

---

lubizi ik **luizi**.

---

## lubrifikatu, lubrifika, lubrifikatzen da/du *ad* lubrikatu

Kitzikatze sexualaren ondorioz, paretak umeldu eta **lubrifikatu** egiten dira, zakila errazago sar dadin. Luis Elberdin

Melanie-z oroitzen da, elkarren ezagutza gertuagotik egin zuten lehenbiziko iluntzeaz: sofan bere ondoan eserita, kafea edaten whisky-zorrotadatxo batekin, zeinaren helburua baitzen hura -hitza nekez etortzen zaio burura- **lubrifikatzea**. Oskar Arana

---

## lubrifikatzaile *izond* lubrikatzailea.

Gauza jakina baita gaztaina-saldak zer nolako erabilpen **lubrifikatzailea** izaten zuen akelarreetarako prestakuntzan. Anjel Lertxundi

Krema **lubrifikatzaileren** bat erabili, sartzea errazagoa izan dadin; izan ere, uzkia ez da bagina bezainbeste dilatatzen. Luis Elberdin

---

## lubrifikazio *iz* lubrikazioa.

Giltzaduretako **lubrifikazio**-sistema. Irene Aldasoro

---

## lubrikagarri *iz* gai lubrikatzailea.

Halakoetan, **lubrikagarri**-geruza mehe-mehe bat (molekula baten lodierakoa edo) atxikitzen zaio frikzioa jasan behar duen gainazal bakoitzari estuki. Irene Aldasoro

**Lubrikagarriaren** ezaugarri kimikoak. Irene Aldasoro

---

## lubrikatu, lubrika, lubrikatzen da/du *ad* labaingarria eman.

Berez **lubrikatzen** direnak izan behar dute hezurren arteko giltzadurek. Irene Aldasoro

Gorputzeko giltzadura guztiak beren kasa **lubrikatzen** dira. Irene Aldasoro

Biraka dabilen ardatz batek jaso dezake olioa, eta bere errodamendua **lubrikatzeko** erabili. Irene Aldasoro

---

## lubrikatzaile *izond* lubirkatzen duena.

Kasu horretan, gerta liteke likido-geruza **lubrikatzailea** ezin mantendu izatea, eta bi gainazalak ia elkar ukitzea. Irene Aldasoro

Likido sinobialak, animalien giltzaduretatik atera eta laborategian analizatzen denean, ez du balio handirik **lubrikatzaile** gisa. Irene Aldasoro

---

## lubrikazio 1 *iz* lubrikatzea.

Motorraren **lubrikazioa**. Metalezko gainazalak elkarrengandik bereiz mantentzen saiatzen da ingeniaria **lubrikazioaren** bidez. Irene Aldasoro

Automobil-ingeniariek, orain dela gutxi arte, ezin eraman izan dute praktikara etengabeko **lubrikazioaren** kontzeptua. Irene Aldasoro

Zinez ona da giltzaduren **lubrikazioa**. Irene Aldasoro

Harrigarria bada ere, nahiko **lubrikazio** txukuna eskaintzen dute gorputzeko fluidoek. Irene Aldasoro

**Lubrikazio** hidrodinamikoa esaten zaio horri. Irene Aldasoro

Karga handia eta abiadura txikia denean, egokiagoa da **lubrikazio** hidrostatikoa. Irene Aldasoro

**Lubrikazio**-sistema itxiak. Irene Aldasoro

**Lubrikazio**-olioari itsatsia. Joxe Austin Arrieta

**2** ***lubrikazio-bide*** *(corpusean **lubrikaziobide** soilik)*

Hezurrak estu egokituko balitzaizkio elkarri, likidoz hustuko litzateke kartilagoa, eta **lubrikaziobidea** agortuko. Irene Aldasoro

---

lubrikaziobide ik **lubrikazio 2**.

---

## ludi *iz* mundua.

Horrek biziarazten du gure **ludi** honetako bizidun oro. Pello Zabala

Bai, leku hura non **ludi** osoko leku guztiak baitaude, nahasteke, angelu guztietatik ikusirik. Juan Garzia

Hala ere, oker egongo ginateke baldin eta mapa horiek, **ludia** gaizki irudikatzen dutelako, alferrikakoak direla pentsatuko bagenu. Bernardo Atxaga

**Ludi** osoko klima, temperaturari begira definituko bagenu, [...]. Pello Zabala

**Ludiaren** gerrikoan, ekuatore deitzen diogun horretan, bi klima jenero dauzkagu. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ludi osoan (4); ludi osoko (3)

---

# ludiko *izond* jolasari dagokiona, jolas-.

Hizkuntzaren alde **ludikoa** ezagutu eta lantzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Primateen sexualitatearen alderdi **ludikoak** .Taldeko jardun **ludiko** ez-formala: bertso-eskola. Luis Elberdin

Esaera erdi **ludiko** erdi pedagogiko hauek fonemak ondo bereizteko ariketa atseginak dira umeentzat. Iñaki Arranz

Errekorra lortzeko ahalegin **ludiko** batean. Iñaki Arranz

Interes bakarra **ludikoa** zuten, edo turistikoa, nola begiratzen den. Patxi Iturritegi

Modu **ludiko** eta ikusgarri batean. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> alde ludikoa (3)

---

# ludikotasun *iz*

**Ludikotasuna**: umorea, ironia, satira... Goyaren iluntasuna; Zuloagaren **ludikotasuna**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hain zuzen, askatasunaren bila doan ezagupena da Nagelek eskaintzen diguna bere parke fantastikoan, ez arinkeria, ez jolas hutsa, ezagupenerako **ludikotasuna** baizik. Berria - Kultura

---

# ludismo *iz* Ingalaterran XIX. mendearen hasieran piztu zen langile higikundea, ekintza antolatugabeak eta errelbota espontaneotan oinarritu zena.

Ezaguna da XIX. mendearen hasiera aldera gertatu zen **ludismo** mugimendua: industrian gertatzen ari ziren makineria berrikuntzek lanpostuen deuseztatzea zekartenez, makineria jo eta txiki-txiki egiten zuten luditek. Iñaki Heras

---

# ludita *iz* ludismo mugimenduko kidea.

Ezaguna da XIX. mendearen hasiera aldera gertatu zen ludismo mugimendua: industrian gertatzen ari ziren makineria berrikuntzek lanpostuen deuseztatzea zekartenez, makineria jo eta txiki-txiki egiten zuten **luditek**. Iñaki Heras

---

# ludoakronimia *iz* akronimoei, jostatzeko asmoz, esanahia aldatzea.

Hau da, **ludoakronimia** deritzonak aurretik markatutako bidetik ateratzeko aukera ematen digu, asmaketaren bitartez. Iñaki Arranz

---

# ludohizkuntzalaritza *iz*

**Ludohizkuntzalaritzaren** tradizioan, "maleta hitzak" izendatu ohi dira asmatitzak, hitz batek bere barruan beste bat gordetzen duelako irudiaz baliatuz, hau da, hitzak maletatxo batean beste hitz bat eroango balu bezala. Iñaki Arranz

Hizkuntzek aise laburtzen dituzte hitzak, era ezberdinetan eta xede anitzekin, eta denak ez dira horratik **ludohizkuntzalaritzaren** eremuan sartu behar. Iñaki Arranz

**Ludohizkuntzalaritzaren** eremuan sartzen gara, eta premiazkoa dugu gure analisiaren eremu hori mugatzeko gutxieneko irizpide batzuk zehaztea. Iñaki Arranz

---

# ludopata *iz* jokozale gaixotia.

beren bizitzarekin zer egin jakin ez, eta emozio berriak agindu zaizkien **ludopata** aspertuak besterik ez ziren gehienak. Harkaitz Cano

**Ludopata** uholdea agertu zen orduan. Berria - Gaiak

Oso ondo ulertzen ditut **ludopatak**. Arantxa Iturbe

---

# ludopatia *iz* jokozaletasun gaixotia.

Pello Elzabururentzat, «best-seller-en atzetik ibiltzea **ludopatian** erortzea da. Berria - Kultura

**Ludopatia** dutenak artatzen dituen Arabako *Asejer* elkarteko psikologoa. Berria - Harian

**Ludopatiarekin** arazoak dituztenei kosta egiten bazaie laguntzaren bila etortzea. Berria - Harian

---

# ludopatiko *izond*

Hara esoterismo berria: kasinoetara finantzazio bila joan eta kasinoek gidatzen bide dute orain gure ekonomia jarduera, joko **ludopatikoan** erabat murgildurik. Iñaki Heras

---

# ludoteka *iz* jostailutegia.

Ikastetxeetan, euskaltegietan eta **ludoteketan** 26 hitzaldi egingo dira Galdakaon euskarazko literaturaren inguruan. Berria - Kultura

Aisialdi taldeak, ikastetxeak, **ludotekak**, gizarte laguntzaileak... Berria - Euskal Herria

600 joko eta jostagailu proposatzen ditu **ludotekak**. Herria

Sondikako **ludotekako** haurrak. Berria - Kirola

---

# luebaki ik **lubaki**.

---

# lugin *(corpusean **lurgin** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lugin** agertzen da)* *iz* nekazaria. ik **laborari**.

Hogoi urteren buruan zonbat laborari, zonbat **lurgin**, zonbat nekazari gelditukо dira gure mendietan jakinaren gainean Lapurdiko zelai horiek eta ere bixkarrak, eraikuntzak eta etxekintzak hari dituela iresten! Herria

---

**lugintza** *(orobat **lurgintza**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lugintza** agertzen da) iz* nekazaritza.

Isilean eta sasian egin beharreko lana da **lugintza**. Koldo Izagirre

**Lurgintzan** lan egiten duen alogerako mutil batek egunero 15 rupia irabazten ditu. Gotzon Garate

Hots, **lurgintzatik** bizi diren, animaliekin harremanak dituzten, naturalezari, landare eta zuhaitzei lotuak dauden, basoan eta mendian bizi direnen joan-etorri eta aburuak. Patziku Perurena

---

**lugorri** **1** *iz* erein gabe uzten den lur saila.

**Lugorri** bihurtuko dut: ez dute inausiko, ez jorratuko, eta sasiek eta laharrek hartuko dute. Elizen arteko biblia

Hango **lugorriak** eta areaz urraturiko galsoroak. Jose Morales

Benetan, denboraren poderioz, **lugorriak** ez dituk **lugorri** izango, eta lehengo basamortuetan eta landu gabeko lurretan jendea eta zelaiak egongo dituk. Agustin Otsoa

Bukatu zen lehengo lehortea, eta **lugorriak** uzta ederra eman zuen; landu gabeko mahastia ere Jaunaren usain gozoa hedatzen zuten kimuak ematen hasi zen Askoren artean

**2** irud/hed

Horrela "Erdi Aro" adierazpenari hasiera eman zioten, bi sail emankorren artean dagoen **lugorriaren** esanahiarekin. Askoren artean

Nire burua **lugorri** uzte hau denboren amaieraraino luzatuko zen agian baldin eta, nola esan, hanka sartu izan ez banu. Joxan Elosegi

---

**lugorritu**, lugorri(tu), lugorritzen **1** da *ad* lugorri bihurtu.

Landare-hesiak kimatu gabe daude eta zelai asko **lugorritu** egin da. Mirentxu Larrañaga

**2** (era burutua izenondo gisa)

Hogei urteren ostean, oraindik badut zer ikasi koarta-tenporen alor **lugorrituan**. Pello Zabala

---

**lugotar** *izlag/iz* Lugokoa, Lugori dagokiona; Lugoko herritarra.

Realaren elastikoa jantzita etorri ziren denak Iruñera; tartean, 29. zenbakiarekin, **lugotarra**, Galiziako zalea. Berria - Kirola

---

**luhartz** *iz* kilkerraren familiako intsektua, hura baino handiagoa, aurreko hankak satorraren eskuen antzekoak dituena, landareetan kalte handiak egiten dituena *(Gryllotalpa gryllotalpa)*.

Amonak platanoa edo mandarina ateratzen du mantal azpitik, **luhartza** kentzen laguntzen diodan bakoitzean. Arantxa Iturbe

---

**luhusoar** *(orobat **luhusotar** g.er.) izlag/iz* Luhusokoa, Luhusori dagokiona; Luhusoko herritarra.

1971an, nagusiek [...] bet-betan hetsi zuten lantegia, orduko 15 **luhusoar** langileak egunetik biharamunerat ogibiderik gabe utziz. Herria

**Luhusoar** neska puttil andana bat. Herria

Gora Jerome Etxebarne lekondarra eta Cecile Aguerre **luhusoarra**. Herria

**Luhusotarra** sortzez eta Ezpeletan familiatua. Herria

Ostatu laketa ditaike Noblianea: aratsalde erditan, 45 **luhusoar** ziren horrat biltzen, beren aratsaldekoaren egiteko. Herria

---

luhusotar ik **luhusoar**.

---

**luis** *iz* Frantziako diru zahar urrezkoa, hogei liberaren baliokidea zena.

Hamar **luis** neramatzan aldean; eman egin dizkiet. Jon Muñoz

Hamar **luis** eskaini nizkion zerbitzu xume horren truk. Jon Muñoz

Bi **luis** gehiago eskatu dizkiot Philipperi emateko. Jon Muñoz

Bostehun **luis** ezarri ditut notario baten etxean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

**luistar** *iz* san Luis Gonzagaren kongregazioko kidea.

Esan, esan, ume-garaian **Luistar** izan nintzela, edo akolito, belebeltz batena. Inazio Mujika Iraola

Saninazioetan, Landetako **luistarrek** San Luisen irudia eraman ohi zuten Loiolako basilikara. Berria - Kultura

Halako ez zekiat nongo lekutan helduan aritu zela enteratzen baziren, jo eta **Luistarren** kongregaziotik bidaltzen zitean, herri guztiaren aurrean lotsaraziz. Pako Aristi

-Bileratik nator, **Luistarretatik**. Jon Maia

---

**luizi** *(orobat **lubizi**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **luizi** agertzen da)* **1** *iz* lur malkarren higidura.

Hondamen beldurgarriak, hiri bat edo gehiago eta are eskualde osoa ere suntsitzen dituztenak, esaterako, **luiziak**, lurrikarak, suzko ekaitzak eta itsaso eta amildegietako uren gainezkaldiak. Xabier Kintana

**Luizia** urak edo izotzak eragin duela uste dute. Berria - Harian

Itoizko urtegiko maldetan **luiziren** bat gertatzeko zer arrisku dagoen argitzeko ikerketa. Berria - Euskal Herria

Ekainean hasten da montzoi garaia, eta orduan, **luiziak** izateko arriskua handitu egingo da. Berria - Mundua

**Luiziak** 150 metroko luzera eta 80 metroko zabalera izan zuen. Berria - Harian

1979an, Valdepeñasen, itxurabako ekaitz eta erauntsiak, **luizi** eta alubioi, etxe mordo bat bota eta hondatu zituen. Pello Zabala

Beherago metala bilatzen ari ziren meatzariak **luizien** pean geratzeko arriskua handia zen orduan. Harkaitz Cano

**Lubiziak** maiz gertatu ohi direla-eta, sare trinko zabal bat ikusi dut labarra luzeran estaliz. Urak **lubiziak** eragin zituen hainbat lekutan, esaterako, Deba eta Getaria artean Gipuzkoan (errepidea moztuta egon zen). Txillardegi

Goizueta eta Hernani arteko errepidean ere izan ziren **lubiziak** atzo. Berria - Euskal Herria

Pitzaduraz mintzatzea ez da zuzena; **lubizia** gertatu da, baina ez dago inolako arriskurik. Berria - Euskal Herria

Eta gaua iritsita ezerezean gelditzen diren leku misteriotsuak, basoak, **lubiziak** edo etsipenak irentsi bailituen. Pako Aristi

**2** (nork osagai gisa)

Uholdeek eta **luiziek** populazio mugimenduak eragin ditzakete. Berria - Gaiak

Euriteek eragindako **luiziek** etxola eremu bat estali, eta 67 hildako eragin zituzten Bombayn. Berria - Mundua

**Luiziak** ikastetxe bat ere lurperatu du. Berria - Mundua

**Luizi** batek azpian harrapatu zuen San Bernardo herria. Berria - Mundua

**Luiziak** itxitako bideetako bat, zabalik. Berria - Euskal Herria

**Luizi** batek Euskotrenen tren zerbitzua eten du Donostian. Berria - Euskal Herria

**Lubiziak** dena eramaten du maldan behera, eraikinik sendo eta gotorrenak ere. Berria - Kultura

Huescan **luizi** batek eraman zuen pertsona bat. Pello Zabala

**3** irud/hed

Inertzia horiek **luizi** kulturalak sortzen dituzte: sotoetan erabat galduta dauden liburuak dira horren adibide. Berria - Kultura

Lehenago ia egunero ozen eta garden agertzen zitzaigun mamua bizitzaren **lubizian** geratzen zen harrapatuta eta erdi ezkutuan, eguneroko gertakizunek estalirik. Hasier Etxeberria

Sugar handi bat lehertu zen hiriko etxeen artean, eta eliza bateko kanpandorrea lurrera erori zen hauts eta garrezko **luizien** erdian. Karlos Zabala

Liburu batetik bestera, liburuetatik irudietara, irudietatik hotsetara eta hotsetatik liburuetara lerratuz doan **luizia**, diziplina guztien arteko joan-etorri etenik gabea. Anjel Lertxundi

Pio Barojaren edo Unamunoren *estilo vasco* loriatzetik abiatzen da diskurtso politikoaren eta ahulezia linguistikoaren arteko **luizia** nola zuritu ez dakien saio bat baino gehiago. Anjel Lertxundi

Gurutzaden eragina joera hori **lubizi** bihurtzea izan zen. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **luizia gertatu** (3); **luizia izan** (4); **luizia izan zen** (3)
> **uholdeek eta luiziek** (3)
> **luizien ondorioz** (4)

---

lujo ik **luxu**.

---

luju ik **luxu**.

---

lujuria ik **luxuria**.

---

lujurioso **ik luxurioso**.

---

**lukainka** *(orobat* ***lukinka*** *g.er.)* **1** *iz* zerri haragiz egiten den hestebete luze eta mehea.

Alde batera ezin utzi **lukainka** arruntak, hestebete freskoak, gibel eta erbi pateak, galantinak, saltxitxak, odolkiak. Karlos Zabala

Ogia, **lukainka** eta gaztarekin. Anton Garikano

Handik pixka batera, polenta eta **lukainkak** jaten ari ziren denak. Josu Zabaleta

Kioskoaren inguruan bildu direnak *ricard*-a, kakahueteak, txistor eta **lukainka** errea dauzkaten mahaira inguratu dira. Berria - Harian

Baina **lukainkak**, gordetzekoak baitziren, ongi lehortu behar dira. Josu Zabaleta

Sabela askatzen hasi zitzaion bere tweed-ezko gerrikotik..., hatz **bakoitza** lukainka bezala loditzen... Iñaki Mendiguren

Esaguk egia, bestela heu ere **lukainka** bat bezala jarriko haugu zintzilik! Anjel Lertxundi

Legeak eta **lukainkak** parekoak dira sarritan: bageneki nola egiten dituzten ikaratuko ginateke. Pello Salaburu

Politika eta **lukainka** elkarren antzekoak dira; higuina sentiarazten dute nola egiten diren ikustean. Patxi Zubizarreta

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondoan zeuzkan, bankuan, ogiaren hondarra eta **lukainka**-xerra batzuk. Anton Garikano

Kitok **lukainka** zati bat jan zion Ellari, hartara erakusteko ez zitzaiola gaitzitu. Anton Garikano

Morroiari eskatu **lukainka**-azalak txakurrarentzat. Anton Garikano

**3** *adkor* zakila.

Aleman armadako uniformea soinean, Wernerrek **lukainka** barna landatu eta larrua blitz jotzen zuten. Itxaro Borda

Nire **lukainka** gorrixka zorrotik aterata, haren atzera salto egin eta enpopatzen saiatzen nintzenean, jesarri eta kexuz zaunkaka hasten zen. Jon Arretxe

**Lukainkaz** iltzaturik neukan laguna histerika paratu eta zarataka hasi zen, bere onetik aterata. Jon Arretxe

-Nahu'na ene **lukainka** dasta! -Bettan lizun-aire zebilen. Itxaro Borda

-Ene, zer pasatzen zaio Txoren **lukainkari**? Jon Arretxe

**4** *adkor* ezin sinetsizko gauza; gezurra.

Nire emazteari gisa bereko **lukainka** irentsaraztea ameskeria zen: elkarrekin egindako urteak eginda, neketan sinetsiko zidan horrelako zaflako bat hartzeko moduko etxeko-lanetan ari izana. Aingeru Epaltza

Ez zion inolako **lukainkarik** sartuko. Fernando Morillo

-Ez ezazue **lukainka** hori irentsi! Joanes Urkixo

Orduan esaten zuen ez zela egin zitekeen gauza, nik esaten nuen bezala, eta ea non asmatua nuen **lukainka** hori. Pello Lizarralde

**5** ***ametsetako lukainka***

Berdeetako hiru diputatuek kontra bozkatu dute azkenean eta xedea «ametsetako **lukainka**» besterik ez dela adierazi dute. Berria - Euskal Herria

Ametsetako **lukainkak**, bere ustez, toki egokia aurkiturik ere ez baitzuen dirurik haren erosteko. Xipri Arbelbide

Etxearen eta hangarraren arteka hertsian, gizonak eta haurrak taldean eleka ikusten zituen, baina ez zuen hargatik **ametsetako lukainkak** zenbatzeko astirik galdu. Itxaro

Borda

Behin hola, bidean nintzela, uda mineko galerna ari zela kanpoan, beribilez etxerakoan, **ametsetako lukainketan** zintzilik, bi zamari, bata zuria eta bestea beltza, agertu zitzaizkidan faroen eremuan. Itxaro Borda

**6** ***lukainka mutur***

**Lukainka-mutur** egosia. Jon Alonso

Ama arduratu batek seme soldaduari **lukainka-mutur** bat bidal diezaiokeen bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hango taberna batean **lukainka mutur** bana jan eta baxoerdi bana hartzea erabaki genuen. Juan Luis Zabala

· **Lukainka muturtxoren** bat ez, bijilia zelako. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lukainka mutur** (4); **ogia eta lukainka** (3)

---

**lukerna** *iz* argizuloa, sabailehioa.

Argitzeko, plafonean **lukerna** bat. Michel Oronoz

---

lukinka ik **lukainka**.

---

lukro ik **lukuru 2**.

---

lukrogose ik **lukuru 3**.

---

**luku** *iz* mordoa, mulkoa.

**Luku** handitan eskegitzen diren lila koloreko loreak ditu. Ibon Uribarri

Mahastiz lerrotutako lurra zeharkatzen zuten, aihen pilotxoen eta ahaztuta utzitako **lukuen** tartetik. Joxemari Urteaga

Haren burua urrea, urrerik garbiena; haren ile-kizkurrak palmondoaren **luku**, beleak baino beltzago. Elizen arteko biblia

---

**lukubrazio** *iz* hausnarketa, gogoeta.

Holako **lukubrazioak** gizon hautei dagokie, Jainkoa goresteko, Harekin bat ez datorrena esan ez, baina Berari dagokiona ulertzen dakitenei. Xabier Kintana

---

**lukur** *izond/iz* lukuraria.

Gero beste bi ordu kapitalista **lukur** bat komentzitzeko, udalekurako behar diren diruak eskain ditzan. Koldo Biguri

Baina ez zituzten aurkitzen bitxi-saltzaile **lukur** eta lapur bati lapurtutako bitxiak. Pello Lizarralde

Satana haserre dago beti, Asmodeok zakila du bere jardun guztien masta, Mammon **lukurra** zekenegia da hitzak esateko ere Oraintxe noa **lukur** horri esatera gorde dezala bere dirua! Anjel Lertxundi

Ezin izan zuen atera **lukurrengandik**. Juan Garzia

---

**lukurari** *(orobat **lukurrari** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lukurari** agertzen da)* *izond/iz* maileguak lukurreriaz egiten dituena.

**-Lukurari** halakoa! -esatekotan izan nintzen. Oskar Arana

Bada, une hartan **lukurari** haren zuhurtzia miretsi nuen, agindu haiekin kito egin baitzuen diruen kontua behingoz. Edorta Jimenez

Orson Welles eta Laurence Olivier aritu dira **lukurari** juduaren rolean. Berria - Kultura

Bankuak dira «XXI. mendeko **lukurrari** okerrenak» --, euskal sindikatuak salatu zuenez. Berria - Ekonomia

Dembak hainbesteraino ulertzen zuen bukizaleen hizkera: "belea" **lukuraria** zen, eta "aparejua" jokalari porrokatua. Anton Garikano

---

lukurrari ik **lukurari**.

---

**lukurreria** **1** *iz* maileguz ematen den dirutik ateratzen den gehiegizko korritua; horrelako korritua hartzea.

Mahomet-en legeak nahastu egiten ditu **lukurreria** eta interespeko mailegua. Iñaki Iñurrieta

Hartan saiatzen ziren ontzi urrietako patroi batzuek, **lukurreriak** jota, gero eta diru gehiago eskatzen zuten bidaia-txartelagatik. Anjel Lertxundi

Aberatsak, berriz, asaldaturik bizi ziren, eta **lukurreriak** hiriko bizitza guztia xurgatzen zuen. Josu Zabaleta

Kapitala galtzeko arriskua areagotuz, **lukurreria** ere areagotu egiten zuen. Iñaki Iñurrieta

Nire aitaren etxea defendituko dut otsoen kontra eta **lukurreriaren** kontra. Printzeari diru asko aurreratzen diotenean, haien antzea honetan datza: **lukurreriaz** salatuak izan gabe, beren dirutik etekin handia ateratzean. Anjel Lertxundi

Ez dela **lukurreriaz** mailegurik hartu behar. Iñaki Iñurrieta

Ez du esku hartzen bidegabekerian; ez du mailegurik **lukurreriaz** edo interesak kobratzeko egiten. Berria - Kirola

**2** (izenondoekin)

Horren ondorioz, mailegutan emateko eta hartzeko bide zintzo guztiak desagertu egin ziren Erroman, eta **lukurreria** beldurgarria ezarri zen. Iñaki Iñurrieta

Kolonialismoa bat eta bakarra baitzen munduan, aberats eta handikien **lukurreria** aseezinaren ondorio zuzena, tokian tokiko itxura hartu arren. Xabier Montoia

**3** (hitz elkartuetan)

Itsas **lukurreriaren** handitasuna bi gauzatan oinarritzen da: itsasoko arriskuan, zeinen ondorioz dirua irabazi handiak izatekotan baizik ez baita mailegutan ematen; eta merkataritzak mailegu-hartzaileari negozio handi eta ugariak bizkor egiteko ematen dion erraztasunean; lehorreko lukurreria, berriz, legez kanpo jartzen da, edota, zentzuzkoagoa dena, beren neurri egokietan uzten. Iñaki Iñurrieta

**4 *lukurreriazko*** *izlag*

**Lukurreriazko** interesekin maileguan hartu eta emateko tentazioa. Iñaki Mendiguren

Finantza-gizon ilun gisa hasi zen bizibidea ateratzen, langileei diru-kopuru txikiak **lukurreriazko** korrituan mailegatzen ziela. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lukurreriaren kontra** (12)

---

lukurrero ik **lukurreru**.

---

# lukurreru *izond/iz* lukuraria.

Diru gizona zen, **lukurrerua**, txerpolariei maileguak egunka egiten zizkiena. Karlos Zabala

Behartsua eta **lukurreroa** honetan dira berdinak: Jaunak ematen die argia bien begiei. Elizen arteko biblia

Ez hion ezer zor ez heure jostunari, ez hiriko **lukurrero** bakar bati ere. Xabier Olarra

Kanpotar bat atetik sartu orduko egin ohi dute irribarre hori **lukurreru** zeken abarizios berriek. Lutxo Egia

Ebenezer Scrooge, Dickens-ek asmatutako **lukurreru** maitagarria. Berria - Kultura

Zeren jainkoak, jakina denez, bekaiztiak baitira, eta urte beteko zoriona ematen diotenean gizaki soil bati, zor gisa apuntatu, eta **lukurreroen** korritu eta guzti erreklamatzen baitute [...] bizitzaren azkenean. Xabier Olarra

Txiroek bost xentimokoa ematen dute, **lukurreroek** ardit bat. Koldo Izagirre

---

# lukuru 1 *iz* diruaren etekina.

Tartean dituk **lukuruak** -une batez atzera begiratu zuen-, Isasi eta bion irabaziak, esan nahi diat. Edorta Jimenez

Uste horren arrazoia hauxe da, erromatarren hizkuntza zaharrean, ehuneko seiko interesari **lukuruaren** erdia deitzen zaiola, ehuneko hiruko interesari **lukuruaren** laurdena; **lukuru** osoa, beraz, ehuneko hamabikoa litzateke. Iñaki Iñurrieta

**2** *(orobat **lukro** g.er.)* irabazia.

Espainiako Jabetza Intelektualaren Legearen arabera, **lukuru** asmorik gabeko deskargak eta kopiak legezkoak dira. Berria - Harian

*Klasikoak, S.A.* **lukro**-asmorik gabeko elkarteak argitaratu du obra hau. Iñaki Iñurrieta

**3 *lukuru-gose*** *(corpusean **lukrogose** soilik)*

Pozoinik galgarrienaz zabiltzate elkarren espan, **lukrogose** itsuz auzitan eta gatazkan. Patziku Perurena

---

# lukuztar *izlag/iz* Lukuzekoa, Lukuzeri dagokiona; Lukuzeko herritarra.

Ekainaren 14 ean Denise Guillamondeguy andereak senartzat hartu du Frederic Suhas **lukuztar** gaztea. Herria

**Lukuztar** hautetsiak hitz-emaiten du jendearen ikusmoldeaz kontu atxikiko dutela departamenduan afera aitzinera pusatzeko tenorean. Herria

---

# luma 1 *iz* hegaztien gorputza estaltzen duten eranskinetako bakoitza, bi alboetan bizar modukoak dituen hodi batez osatua. ik **hegats**.

Hegaztiak **lumak** harrotu eta nazka handiz begiratu zion. Iñaki Mendiguren

Isatseko **lumak** zabaldu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aldi berean loroari ere **lumak** laztu zitzaizkion. Matías Múgica

Perlak bezalako negar-malko lodiak zerizkion hegaztiari **luma** distiratsuetan behera. Iñaki Mendiguren

Ubarroiek zenbatu ezineko saldotan alde egingo dute airetik iparralderantz, eta kaioak **luma** berriak luzituko dituzte. Joseba Sarrionandia

Galeper birrindu, desagertu hartatik **luma** batzuk eta moko odoleztatua baino ezin izan zituen aurkitu. Itziar Otegi

**Luma** batzuk ere bazeuden han eta hemen, birigarroei jausitakoak lanean ari zirela. Julen Gabiria

Haren hanka iharrek burdin hariak ziruditen; haren **luma** hautsez eta lurrez zikinduek sorgin-belarren buruen antzera egiten zuten inurri-azkura. Juan Kruz Igerabide

Garai batean, idazteko baliatzen ziren antzaren **lumak**. Anjel Lertxundi

**2** (hegaztiekin lotu gabe)

Gonan itsatsitako **luma** batzuk astindu zituen. Karlos Zabala

Neure eskua bera ere **luma** bat bezain ahula eta arina iruditzen zaidak. Agustin Otsoa

Bost zaintzalek hartu naute alde guzietarik eta **luma** bat bezala altxatu. Filipe Bidart

Jaso zuen lurretik bizikleta **lumazkoa** balitz bezala. Josu Zabaleta

· Hobe nuela heroiaren **lumak** ez janztea, barregarri geratu nahi ez banuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina anaiak **lumak** maite zituen eta **lumaz** jazten zuen bere iduria, eta, gainerat, oilarra bezala, ahalik eta **lumarik** ikusgarrienez apaintzen zen. Joan Mari Irigoien

**3** eranskin hori apaingarri, berogarri... gisa erabilia.

**Luma** urdin batek apaintzen zuen nire zapela eta zurezko gurutze batek nire paparra. Aingeru Epaltza

Eskuin eskuko hatz erakusleaz kapelako **luma** ukituz. Felipe Juaristi

Kasko dotorea zen, **luma** zuriz hornitua. Aingeru Epaltza

Buruan **luma** daramaten indio errebeldeak. Joseba Sarrionandia

Ez zuen koltxoirik nahi izan, ez eta **lumazko** burkorik ere. Askoren artean

Lastozko koltxoia eta **lumazko** tapakia. Koro Navarro

Farfail zurrunezko iduninguru handi bat, eta **lumazko** haizemaile bat eskuan. Juan Garzia

Azpitik hautsa kentzeko mustuka gris bat, **luma** asko gabea, atera zuen. Iñaki Mendiguren

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire alboan, hiru oilo saskian, elkarren kontra, **luma** multzoa dardaraka, burua hegalpean gordeta, dandarra gora, uzki uzkurtu eta arrosa kolorekoak agerian. Joseba Sarrionandia

Baziren han, abere hiltokiko harrietatik hurbil, **luma** otarre handi batzuk, non aise kabitzen baitziren. Karlos Zabala

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oilo **luma** arinak, urre kolorekoak, nabarrak, putz egin eta hegaka goratzen zirenak. Karlos Zabala

Baziren indioilo **luma** luze beltzak eta antzara **luma** zuri lauak. Karlos Zabala

Buruan kapela luze mehea, indioilar **luma** bat tente zuena. Felipe Juaristi

Bele **lumaren** kolore beltza. Imanol Unzurrunzaga

Harri txintxar bat, txori **luma** bat, intxaur bat eta paper tolestu bat. Patxi Zubizarreta

Zuria kapela eta zuria kapelaren gaineko uso **luma**. Felipe Juaristi

**6** idazteko erabiltzen zen hegazti luma, hodiaren muturra ebakia zuena; idazteko lanabesa, metalezko xafla puntadun batez eta eskutoki batez osatua. ik **idazluma**.

Gabiako likatan preso geratutako kaioari **luma** kendu eta idazten hasiko zen gero bere kaierean. Harkaitz Cano

**Luma** hainbatetan zorroztu behar izan nuen emaitza ontzat jo artean. Aingeru Epaltza

**-Luma**, tinta, papera. Aingeru Epaltza

**Luma** beltz luzea tinta-ontzian sarturik. Iñaki Mendiguren

Harryk **luma** berriro busti eta zera idatzi zuen: "Nire izena Harry Potter da". Iñaki Mendiguren

Filchek **luma** hartu zuen mahai gainean zeukan ontzitik, eta tirri-tarra hasi zen pergamino bila. Iñaki Mendiguren

**Luma** hartu eta lanari ekiten saiatu nintzen. Monika Etxebarria

Jar ote zitekeen bolatxo txiki bat idazteko **luma** baten muturrean? J.M. Olaizola "Txiliku"

**Luma** behatzetatik erori eta tinta isuri zuen. Monika Etxebarria

**Luma** muturrari miazka, zer idatzi pentsatzen hasi nintzen. Josu Zabaleta

Hasierako 379 orriak makinaz idatziak eta gainerakoak **tintazko** lumaz eskuz idatziak. Bego Montorio

Gainerako idazleek inguratu eta **luma** estilografiko zorrotzekin mehatxatu dute. Karlos Linazasoro

· **Lumoi**, naturaren prozesu ezezagunen batengatik, hegaztiaren kemen intelektuala eta izaera barneratu eta atxikitzen zaizkie, eta horren ondorioz "autorea" deritzan pertsona batek paperaren gainean tintaturik mekanikoki irristarazten dituenean, hegaztiaren pentsaera eta sentimenduen transkripzio zintzo eta zehatza eman ohi du. Xabier Olarra

**7** idazteko zernahi lanabes.

Pinuarena orratza bilakatzen da, gaztainondoarena zerra, zumearena idazteko **luma**. Koldo Izagirre

Jakintsua banintz eta **luma** erabiltzen jakin! J.M. Olaizola "Txiliku"

Edozein garai, leku eta egoeratan idatziko zuen **luma** nahi zuen, behar zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lázló-Jozsef Bíróri zor zaio lehenengo **luma** boladunaren asmakuntza. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gerra amaitutakoan, **luma** berria, garaiko idazlumen antz handia zuen bolaluma sendoa, edozeinentzat izateko asmoarekin komertzializatzen hasi ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta horretarako barne erraietan, sabelean, tripetan eduki behar dugu beharrizan hori, luzaroan gehienetan, harik eta, egun batez, **luma** hartzera behartuta sentitzen garen arte. Patxi Zubizarreta

Zuen biloben bilobak **luma** eta idaztortz elektronikoak hartu ditu orratzaren orde. Joxan Elosegi

**8** irud/hed

Beste muturrean, Primo Levi: bere **luma** esperientzia biografikoaren infernuan busti, eta giza hondamendiaren zaurian gaitza bilatzeko bisturi moduan ulertu zuen literatura. Juan Garzia

-Konturatuko zinen, beraz -jarraitu du-, **luma** beretik idazten dutela Borgesek eta Sábatok, aho beretik mintzo direla. Imanol Zurutuza

Irainak **luma** barnean gorde dira, baina arazoa ez da funtsean konpondu. Iñigo Aranbarri

Orriotan edirenen duzun **luma** ez dela urrezkoa, eta ez dela, halatan, Petrarcarena, Danterena edo Cervantesena, ezta Rabelaisena edo Périgordeko jeinuarena ere, jakina, eta, beraz, ene hitza ez dela, haien kasuan bezala, Jainkoak edo goiargiak ukitua. Joan Mari Irigoien

Deschampsek zuria du **luma**: bere istorioa idatzi eta aurkaria zur eta lur uzten du, tintak hamaika baliabide eskaintzen baitizkio, guztiak unean unerako baliagarriak. Berria - Kirola

Txillardegiren **luma** nabari da orri hauetan. Joseba Zulaika

-Mihia bezain arina duzu **luma**, jauna -mintzatu zen Idiakezen idazkaria-. Aingeru Epaltza

Hartua bainuen analisien usaia, menturatzen baita **luma**, hetsia delarik ahoa. Piarres Aintziart

Nola herri arimaren kontzeptua haren **luman** arrazarena bilakatu den. Joxe Azurmendi

Autorea berrogeita hamar bat urteko emakume aljeriar bat da, eta darabilen **luma**-izenak aditzera ematen digu egoera politiko eta sozial berezi batetik ari zaigula eta mozorropean baino ezin izan dituela hauek idatzi. Berria - Kultura

**9** (izenondoekin)

Osaba Joanikotek hain atsegin zituen Rabelaisen edo Quevedoren **luma** satirikoetan. Joan Mari Irigoien

Betiko biztanleen eta etorri berrien arteko talkaren kronika txikia eskaintzen digu, hein batean, idazle gasteiztarraren **luma** zorrotzak. Iban Zaldua

Zure **luma** gatz biperdun hori laket baitzaigu errotik. Herria

**10** ***elur luma*** *ipar* elur maluta.

Haizearekin **elur lumak** errada zihoazen. Piarres Aintziart

4000 metretan pasatu dugu Xileko muga, **elur lumen** azpian. Herria

Biktima nortasuna ADNarekin transmititzen da, eta halaz, zuenak bezalako gerlak hazten dira, **elur luma** lurrean itzulikatzearen bortxaz borobil erraldoia bihur litekeen eran. Itxaro Borda

**11** ***luma-punta****sup_1 (orobat* ***lumapunta****)* idazlumaren metalezko punta.

Lehenengo zeremonia **lumapunta** garbia jartzea zen. Joseba Sarrionandia

• **12** ***luma-punta****sup_2 irud/hed*

Eta beren **luma**-puntako suaz nahi dituzte pentsamenduak eta sentimenduak berak pertsegitu eta kiskali, inoren barru-barruneraino, demokrata estrainio horiek. Joxe Azurmendi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**antzara luma** (3); **hegaletako luma** (3); **idazteko luma** (7); **indioilar luma bat** (3); **luma airean** (3); **luma beltz** (5); **luma beltza** (3); **luma berri** (3); **luma berrien** (4); **luma berrien eleak** (4); **luma bezain arin** (3); **luma erabiltzen** (5); **luma eskuan** (14); **luma eskuan duela** (3); **luma eta papera** (6); **luma eta tintontzia** (4); **luma gorri** (3); **luma hartu** (21); **luma harturik** (3); **luma hartzen** (3); **luma luze** (4); **luma muturrak** (4); **luma otarre** (3); **luma tintontzian busti** (4); **luma xorrotx** (3); **luma zuriak** (5); **oilo luma** (4); **ostruka luma** (4); **papera eta luma** (5); **uso luma** (3)

**lumak eta tinta** (3); **txori lumak** (4)

**lumaren azpian** (3); **lumaren maisu** (3)

**lumazko burkorik** (3); **lumazko burukoa** (3)

---

# lumabako *izond* lumagabekoa, lumagabea.

Eta basoko animaliak oro, handi zein txiki, lumadun zein **lumabako**, basakoruko kantariak dira eta basoaren zabaldia betetzen dute musikaz. Felipe Juaristi

---

## **lumadun** *izond* lumak dituena.

Oilo txiki eta beltz bat ikusi zuen, zango **lumadunak** eta etxe-usoak bezalako hankak zituena. Askoren artean

Kapelu **lumadunak** eta esku larru lodi loredunak. Felipe Juaristi

Biek zuten sonbrailu **lumadun** bana, eta oinetako zuri batzuk beren ezproinekin. Joan Mari Irigoien

Hasperen **lumadun** bat bezalako zerbait. Jon Alonso

Eta basoko animaliak oro, handi zein txiki, **lumadun** zein lumabako. Felipe Juaristi

**Lumadun** ginbail bat zeraman · Kapelu **lumadunak** eta esku larru lodi loredunak. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kapelu lumaduna** (4)

---

## **lumagabe** **1** *izond* lumarik ez duena.

Kimikari **lumagabe** eta armagabea. Juan Garzia

Gehien bat **lumagabeak** dira, eta jateko ez oso onak, baratzuriz beteta ere. Xabier Olarra

**2** ***lumagabeko*** *izlag* lumagabea.

Denak harrapatzen zituena, **lumagabeko** emagazte daktilografoak zein ilegabeturiko gizaseme kontulari. Juan Garzia

---

## lumaia ik **lumaje**.

---

## **lumaje** *(orobat* ***lumaia*** *g.er.)* *iz* hegazti baten gorputza estaltzen duten lumen multzoa.

**Lumaje** berdeko hegaztiak. Javi Cillero

**Lumaje** distiratsuko txori batzuk txilioka eta txorrotxioka ari ziren kokondoen goialdean. Lopez de Arana

Bazen beste arrano handi bat ere, hegal tzar luzekoa eta **lumaia** ugarikoa. Elizen arteko biblia

Eta smoking-dun jaun haiek, zopiloteak bezain beltzak, haien **lumajeak** ere distira bera egiten baitu... Joxe Austin Arrieta

Paumaren **lumajearen** edertasuna. Askoren artean

Antxetak bere begi lateralak kliskatu zituen, **lumajea** hanturik zuen eta lodia ematen zuen. Joseba Sarrionandia

Noizean behin, luma bat erauzten dut txoriaren **lumajetik**. Eskarne Mujika

---

## **lumalari** *iz adkor* idazlea.

Aitortu zuen, halaz guztiz, obra berriaren atarian egoki zetorkeela hitzaurre deigarria, gauzari zorrotz eta sendo heltzen zekikeen **lumalari** baten bizkar-bultzada, sinadura eta guzti. Juan Garzia

---

## **lumape** *iz* lumen azpialdea.

Bere hegalpean emango dizu gerizpe, haren **lumapea** izango duzu babesleku, haren besoak babeski eta koraza. Elizen arteko biblia

Sozialagoa idaiez eta idekiduraz, langilearen eta jende xehearen alde bai, horra nola nahi zuen mintzatu eta bermatu, ahoan bilorik gabe, Lafitte eta haren pekoen **lumapean**, jende batzu, eta irakurlea halaber, ez badira ere hola ta hola aldatzen. Herria

---

## lumapunta ik **luma 10**.

---

## **lumatsu** *iz* luma asko duena.

Zeren, Rabelaisek bere Gargantua-n dioena egia bada, antzarakume **lumatsuak** bailirakete uzki-garbitzailerik onenak. Joan Mari Irigoien

Marinelek palmondoen adaburu **lumatsuak** begiztatzen zituzten, eta bazekiten palmondo haiek uharte idilikoak apaintzen zituztela aintzira bare batean. Iñaki Mendiguren

---

## **lumatu,** luma(tu), lumatzen **1** du *ad* (hegazti bati) lumak kendu.

Zeren, abere haiek bere puntuan akabatu eta larrutu beharra baitzegoen -edo **lumatu**, hegaztien kasuan-. Joan Mari Irigoien

Hegaztiak kasik bizirik zeudela **lumatu** behar zirela. Karlos Zabala

Azokako kale meharretan aldez alde, emakumeak, eserita, hegaztiak **lumatzen** ari ziren. Karlos Zabala

Sua piztu, oilaskoak **lumatu**, hesteak egin, eta erretzera ezarri dituzue. Xabier Montoia

Oilanda gazte bat atzeman, **lumatu**, tripatu, erre eta bazkaldu zuten han berean. Itxaro Borda

**Lumatu** berri duzuen oilasko parea. Xabier Montoia

Lehenbizi kontu handiz lepondoa **lumatu** eta gero odola pertzera isuriko du, hegaztia ahultzen joanen da indarrak erabat ahitu arte. Fernando Rey

Lazarok xoria harrapatu, Erramuk **lumatu** eta Pazkok jan. Pello Zabala

· -Hoa basurdeak **lumatzera**. Aingeru Epaltza

**2** ezer gabe utzi. ik **larrutu 3**.

-Jatetxeak; han **lumatu** egiten zaituzte, eta aurretik ezin ziur jakin ona izango denik. Eskarne Mujika

Nonbait, bere diru guztiak barreiatu zituen ofizial gisa zerbitzatu zuenean, edo emakumezko antzezlariren batek **lumatu** zuen. Jose Morales

Atsegin duzue basoan ibiltzea bidaiariak **lumatzen**? Jose Morales

Alderrai ibiltzen zen soldadu saldoen norabidean, berak ongi ezagutzen zituen bideetatik barrena, nor adiskidetzat hartuko eta haren konfiantza bereganaturik, haren ezustekoa baliatuz, hura noiz **lumatuko**. Felipe Juaristi

Sinetsidak, bizitza osoan sekula ez naitek horrela **lumatu**. Jose Morales

Ez ditiztek bakarrik kanpotarrak **lumatzen**. Aingeru Epaltza

• **3** (hegazti bati) lumak irten, lumaz jantzi. ik **lumaztatu**.

Aspaldi **lumatu** ziren txorikumeak. Imanol Zurutuza

Oraindik ongi **lumatu** gabeak, bero beroan, nere esku koxkorrekin hartu eta, segituan bota nituen, banan banan, hiru belekumeak erdi hegaka lurrera. Patziku Perurena

· **Lumatu** gabeko oilasko hasberri baldin baginen ikastetxe hartara gindoazenetako asko, gu bezain nobato, gu bezain ezjakin eta inozentea zen Periko ere. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** irud/hed

Ezpain gainean bibote oihantsua ageri zitzaion jada, gu oraino kasik **lumatu** gabeak ginelarik. Aingeru Epaltza

**-Lumatuko** hintzen, urte eta erdi honetan... Aingeru Epaltza

Ni ez nago hostoan jo eta hautsian aritzeko **lumatu** berri hauekin frontoian, patiora irteten garenean eguteraren txokoa bilatzen dut, zaharraren hezurrek beroa behar dute. Koldo Izagirre

**5** (era burutua izenondo gisa)

Arboletan zintzilik jarriak zeuden erbi larrutuak eta oilo **lumatuak**, eltzeetan sartzeko zain-zain. Patxi Ezkiaga

Haiek ere han geratu ziren oilar **lumatuen** antzo, hitzik gabe eta mutu, ez kikiriki, ez kukurruku. Joan Mari Irigoien

Hegazterren **lumatuaren** pailazo sudurra. Xabier Olarra

Lepo luze **lumatuko** oilokume batek. Xabier Olarra

Emakume bat baino areago, txori **lumatua** ematen zuen. Matías Múgica

**6** ***antzarak lumatzen***

Inorengatik *antzarak **lumatzen*** ari dela esaten denean, poz-pozik dagoela adierazi nahi da. Anjel Lertxundi

Baina zoriontsu jarri nau, antzarak **lumatzen**, Juan Kruz Igerabide adiskide aspaldikoak bidali didan gutunak. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
antzarak lumatzen (3)

---

# lumatxa 1 *iz* lumaz beteriko lastaira.

Dusselen ohetik, han egoten baitira gordeta egunez, **lumatxa**, maindireak, burukoak eta tapakiak atera behar dira. Josu Zabaleta

Bai, andrea! -esan zuen Fetiniak, **lumatxaren** gainean izarak hedatu eta bururdia bere tokian ipintzen zuen bitartean. Jose Morales

Ekarria zuen **lumatxa**, eta, eskuekin bi alboetan astindu on batzuk eman zizkiola, lumaz beterik utzia zuen gela osoa. Jose Morales

Nabaria zen Fetinia ikaragarri trebea zela **lumatxak** harrotzen. Jose Morales

Begi txikiek eta azalmintzaren kolore horixkak, berriz, **lumatxaren** eta izaren lagun mina zela salatzen zuten. Jose Morales

**2** hegazti lumatu berriaren lumak.

Pinguinokumeek beren **lumatxa** leuna galdua izango dute horrezkero eta luma beltz azulkarak luzituko dituzte, nagusien trajea jaso gabe oraindik. Joseba Sarrionandia

**Lumatxaz** leporaino beteriko otarre handien hondarreraino ere sartu behar izan zuen Lisak eskua, Marjolinek eskaturik. Karlos Zabala

Ez dut saltzen ez lupulurik, ez **lumatxarik**, ez eztirik, [...] ez artilerik, ez xingolarik, ez lihorik, ez ahuntz larrurik, ez bestelako larrurik... Karlos Zabala

**Lumatxazko** ohazal bat jartzen zion Kearney andreak oinen gainean eta ron-pontxe sendo bat egiten zion. Irene Aldasoro

**3** lumatxoa.

Emakumezkoek lumatzen jarraitzen zuten, eta tirabiran, gizon gazte hura nork erakarriko; **lumatxa** finak hegaldatzen ziren, hegaztien usain sendoa hedatzen. Karlos Zabala

---

# lumatxo *iz* luma txikia.

Bere soldadu-sail indargabea **lumatxoak** airean bezala haizatuko dela behingoan. Jose Morales

**Lumatxoak** irrist egin eta balantzaka hasi zitzaion kopetaren aurrean. Fernando Rey

Hegaztiaren **lumatxo** odolduak. Koldo Izagirre

**Lumatxo** batzuk ageri ditu sorbaldan, enplegatuak arduratsu astindu dizkio. Koldo Izagirre

---

# lumazale *izond adkor* idazlea.

Baroja "ez zen batere berezia", oso zabaldutako gizalarru mota baitzen eta baita hori **lumazaleen** artean. Patziku Perurena

---

# lumaztatu, lumazta, lumaztatzen da/du *ad* lumez jantzi, lumez hornitu.

Hegoak ebakiak dituen txoriño bat ere eman zezakeen, lur arrasean hegaldatu ezinik ibili ostean, mirakulu sinesgaitz baten eraginez berriro **lumaztatu**, eta huts eginen ondotik mendien gailurretarantz igotzen dena. Patxi Zubizarreta

Santa Kruz handik pasatu zenean, horren berri izan, eta agindua eman omen zuen: lehenik, ilea motz-motz egiteko andreari; bigarren, larrugorritan jarri eta bikez dena ondo igurtzi eta **lumaztatzeko**; hirugarren, kale nagusian barrena ibilarazteko, etengabe zioela: "Nik artu det txokolatia jeneralarekin". Bernardo Atxaga

---

lumero ik **numero**.

---

lumerodun ik **numerodun**.

---

lumerologia ik **numerologia**.

---

# luminantzia 1 *iz* azalera baten argi intentsitatea azalera unitateko.

**Luminantzia**, azkenik, objektu argitsuak azalera-unitate bakoitzeko duen argi-intentsitatea da. Josu Zabaleta

-Argitasuna, **luminantziari** lotua: zenbat eta **luminantzia** handiagoa izan, orduan eta argitsuagoa emango du koloreak, eta orduan eta zuritik hurbilagoa izango da. Josu Zabaleta

**Luminantziaren** bat-bateko aldakuntza bortitz bat pairatu behar duenean, begia "itsu" geratzen da aldi batez. Josu Zabaleta

Pantailaren **luminantzian** berebiziko eragina izango dute, aldiz, argi-iturriaren aldakuntzek; proiektorea lekuz aldatzeak, adibidez, zineman. Josu Zabaleta

Neurri berean argiztatuta dagoen objektu bat (**luminantzia** berbera emititzen duena, beraz) argitsuagotzat hartuko da atzealde ilunago baten aurrean badago. Josu

Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Gure ikusmen-sistema luminantziak berak ez baina **luminantzia**-aldaketak atzemateko dago prestatua. Josu Zabaleta

**Luminantzia** magnitude ordenak (cd/ml-tan) Josu Zabaleta

---

## luminiszentzia *iz* gorputz batzuek, erradiazio energia bat xurgatzen dutenean, argia emititzeko duten propietatea.

Zinema eta bideoa ere, nahiz ilunpean ikusi, gisa honetakoak dira orobat, pantailak **luminiszentzia** handia izaten baitu (milaka cd/m2): besterik gabe usteko litzatekeenaz oso bestela, zinemako pantailaren edo telebistako hodiaren ikuspena "eguneko" ikuspena da, "gau" ingurumen batean gertatzen bada ere. Josu Zabaleta

---

## luminositate *(corpusean **luminosidade** soilik)* *iz* argitsua denaren nolakotasuna. ik **argitasun; distira**.

Esklabotasun distiratsu hartan -"Vuestra lumninosa esclavitud"darabil orijinalak erdara hutsean-, kartzela haietan, alegia, 25 watteko bonbillak zeuden, eta ez zen **luminosidade** makala izango, preso larrituen bihotzetakoarekin alderatuta. Jokin Urain

---

## lumpen *iz* hiriko gizarte taldea, gizarteak bazterturiko gizabanakoez osatua.

Eskola nazionala **lumpen** kanpotarren eskola zen, baita baserritar **lumpen** batzuena ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Hamar edo hamabost urte zaharragoa, **lumpen**, batere jatorri garbirik gabeko diru-iturri irregularrak. Iban Zaldua

---

lumutur ik **lurmutur**.

---

## lunatiko *iz* ilargi-joa.

Birtute anitz baditu diamanteak, kuraia ematen du, biktoria, oker dena zuzentzen du, amets gaiztoetarik eta sorginkerietarik zaintzen, **lunatikoak** sendatzen. Aurelia Arkotxa

---

## lunbago *iz* erreuma min bortitza, gerrialdeko ornoei eta inguruko giharrei erasotzen diena.

-**Lunbagoa**, maitea. Lopez de Arana

Granollersen kontra ez zen aritu, **lunbagoak** jota zegoelako. Berria - Kirola

Zalantza bakarra Raulena da, kapitaina **lunbagoarekin** egon baita azken egunotan. Berria - Kirola

---

## lunbalgia *iz* lunbagoa.

Bittor Alkizak bizkarrean min hartu zuen atzoko entrenamenduan, eta **lunbalgia** txiki bat du.

Travis Hansen **lunbalgiak** jota dago oraindik. Berria - Kirola

Medikuek azaldu zutenez, estrogenoak hartzea lagungarri gerta dakieke neskei, gihar-minak kendu eta **lunbalgia** minik ez izateko. Berria - Euskal Herria

---

## lunbar 1 *izond* gerrialdekoa.

Daukaten kezka da orno **lunbarren** hausteak bizkarrezurreko muina ukitu duen. Agurtzane Juanena

Han, 3. orno **lunbarraren** parean, non orgasmoaren gune erreflexua dagoen. Luis Elberdin

• **2** *iz* orno lunbarra.

Bizkarra ikusi eta gerri azpian buruko bat paratzeko agindu du, **lunbarrei** hobeki eusteko. Agurtzane Juanena

---

lunch ik **luntx**.

---

## luneta 1 *iz pl* betaurrekoak.

Gainerakoan -eguzkitako **luneta** handiak, ezker besotik dilindan egiten zion kapazutzarra, sandalia takoidun urrekarak-, hondartzara joaki zela erran zitekeen, ehorzketa batetik etorri baino areago. Aingeru Epaltza

-Esan al diozu Xantiri? -berak, **luneten** gainetik. Eider Rodriguez

**Lunetak** galdu nituen eta begiak akitzen zitzaizkidan brebiarioaren irakurtzen. Marzel Etxehandi

Maletatxotik spray eta zapi bat aterata garbitu ditu **lunetak**. Eider Rodriguez

Itsura hautatu zuen behar nuen **luneta** parea, beste anitzen artetik. Marzel Etxehandi

**2** irud/hed

Ene partetik, telebixtari so, bihotza pilpil gertakari itsusi horien aintzinean, fededun-kristau **lunetekin**, hauxe diot: [...]. Herria

---

## lunfardo 1 *iz* herri jargoia, jatorriz Buenos Aireseko gaizkileena, gaur egun zabalduagoa dagoena.

Maldan behera doan boxeolari baten historia da, berberak **lunfardoz** Buenos Aireseko behe-auzkoetako dialektoan kontatua. Berria - Kultura

**Lunfardoan** bezala, silabak alderantziz paratuta. Iñigo Aranbarri

**2** (izenondo gisa)

Egia esan, ez zen erraza narrazioaren hariari jarraitzea, ez eta jerga **lunfardo** horretan saiatuenak zirenentzat ere, baina batek sentitu egiten zuen, eta min egiten zioten boxeolari gaixoak jasotzen zituen kolpeak laukiaren bakardadean. Berria - Kultura

---

**luntx** *(11 agerraldi, 2 liburu eta 4 artikulutan; orobat* ***lunch*** *9 agerraldi, 5 liburu eta artikulu 1ean)* iz zeremonia bateko gonbidatuei zerbitzatzen zaien otordua.

Urte berriari ongi etorrika **luntx** eta txanpaina tarteko. Jose Angel Irigaray

**Luntxa** izan zuten gonbidatuek ekitaldiaren ondoren; ardoa, freskagarriak eta pintxoak. Berria - Euskal Herria

**Luntxa** eta edariak, eta dantza talde bat; jende izigarri ederra, bereziki emaztekiak. Jose Angel Irigaray

12:30etan Bihotz Bakartien Klubaren emanaldia izango da eta 13:00etan herri **luntxa** egingo dute trikitilari eta bertsolarien saioekin batera. Berria - Harian

Poloniako idazleak nazkaturik, **luncha** egin barik geratu dira, ez pasaporte azterketarik gabe, ostera. Edorta Jimenez

Gaztetxean, gazte asanbladak antolaturik **lunch**-a izan zen ekitaldiaren ondoren. Berria - Euskal Herria

**Lunch** jendetsutik apur batzuek tabernaratu garenean. Pako Aristi

Haiek bazekiten, antza, sari banaketa **lunch** soil batekin amaitzen zela. Patxi Zubizarreta

Luxuzko **lunchetan** edo hegazkinetan bezala banatuko da janaria: aurkezpen polita, anoa txikiak, baxera abangoardistan, aseptikotasunerainoko higienea hamaika bilgarritan babestua. Edorta Agirre

**Luntxeko** zertxobait jan, kopa bat tekila eta gero txanpaiña. Jose Angel Irigaray

---

**luntxatu**, luntxa(tu), luntxatzen du *ad*

-Orduan zertarako erosi ditugu ibilaldian **luntxatzeko** janariak? - ekin dio Idoiak. Patxi Zubizarreta

---

**lunula** *iz* azazkalen erroko zati zurixka, ilgora itxura duena.

---

**lupa** **1** *iz* gauzakien irudia handiagotzeko leiarra.

Patrikatik **lupa** atera, eta beste begirada bat egin diot oihalari, luzeagoa eta aztertzaile gisa. Javi Cillero

Mahai zuri bat zegoen, eta haren gainean jartzen nituen zelaietan ebakitako loreak eta belarrak, **lupaz** ikusteko. Joan Mari Irigoien

Ezagutzen nuen, bai, 1:500.000 eskalako mapa hura, **lupaz** begiratuta ere ezer argitzen ez zuena. Joxe Austin Arrieta

Ofizialak zakua eskuetan hartu, **lupaz** zentimetro bakoitza aztertu, pisatu, neurtu, usain egin eta ostikoka ere erabili zuen. Koldo Biguri

**Lupa** ahaltsu batez. Josu Zabaleta

Baina hori **luparekin** ere ez zegoen ikusterik. Pello Lizarralde

Baina ikusi al duzu sekula loreren bat **luparen** batekin? Joan Mari Irigoien

-Aita, gaur goizean sagua harrapatu dut, eta ikusi nahi al duzu haren bihotza **lupan** [...]? Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan)

**Lupa** itxurako betaurreko lodiak daramatzana sudur motz eta zabalaren gainean. Urtzi Urrutikoetxea

**3** irud/hed

**Lupaz** aztertu beharko dira estatistika pontifikatuak. Iñaki Heras

Poliziak ikertzen jarraitu eta Joel Cacace **lupapean** hartu zuen, hau baitzen azken aldian mafiaren buru nagusia eta garai baten Kimberly Kannaughrekin amodiotan ibilia. Gotzon Garate

---

**lupar** *iz* estalgilea.

Gerra Zibilaren denboretan bera arduratzen zen Hemingwayren errekaduak egiteaz, idazkari lanak betetzeaz eta, ia-ia, **luparra** izateaz. Edorta Jimenez

---

**luparda** *iz adkor* mozkorraldia.

Sekulako **luparda**, haren hitzez esateko. Iñaki Iñurrieta

---

lupe ik **lur**.

---

**luperia** ik **luizi**.

Eguna argitu gabe zegoen oraindik, eta Itziarko geldiuneko tabernan gosaltzeko asmoa zuen, baina **luperiak** bidea itxi zion. Berria - Harian

**Luperiak** azpian harrapatutako autoen .irudiak Berria - Harian

---

**lupetsu** *izond* lokatzez betea.

Neskak zingira arreak begiztatu besterik ez zezakeen egin, bai eta lantegietako milaka leiho beltzak eta hirietako karrika **lupetsuak**. Lopez de Arana

---

**lupetz** **1** *iz* basa, lokatza.

Ilea **lupetzez** beterik, Harris txikia urbazterretik gora ari zen, lauoinka. Lopez de Arana

Bustitako harriak eta **lupetzezko** eskukadak jaurtikitzeari ekin zioten. Joanes Urkixo

**2** irud/hed

Gaizki dagoenak askotan bere hantustekerian ez baitu laguntza eskatzeko asmorik edukitzen, bestea bere **lupetzera** makurtzeko grina baizik Pako Aristi

---

**lupetza** **1** *iz* basatza, lokatza.

Ur-lasterra bailitzan isurtzen da gure lubakiko hondoraino, lokatzez jositako zanga-zulo bilakatzeraino den-dena, **lupetza** likits kirasdun. Mirentxu Larrañaga

Hondoratu egingo haut, **lupetzan** bertan itotzeraino! Paddy Rekalde

**2** irud/hed

1819ko Paris, filusen eta petzeroen biltzar hura, diruzalekeriazko **lupetza** hura, sotiltasun gomutagarriz margotzen digu, eta zenbait alegia historiko eskaintzen dizkigu aldi berean. Markos Zapiain

Bazakiat Galizia aldean ez haizela kontu garbietan ibili, eta boxeoaren **lupetzan** murgildu hintzela, hemen egin huenaren ispilua besterik ez... Paddy Rekalde

Etsipenaren **lupetzan** erori delako. Iñaki Mendiguren

---

**lupeztu**, lupetz/lupeztu, lupezten **1** da *ad* lokaztu.

Euri asko bota du, eta kaminoak ere **lupeztuta** daude; hainbeste obra ari dira egiten! Pako Aristi

**Lupeztutako** asfaltozko bidexkatik behera. Lopez de Arana

**2** (era burutua izenondo gisa)

Elkarren kontra bermaturik zihoazen ibai ertzeko kale ilun eta **lupeztuetan** barna. Arrainak akuario **lupeztuan** bezala. Lopez de Arana

---

**lupia** *(orobat **lupina** g.er.)* *iz* itsas arrain bizkar-grisa eta sabel-zuria, bizkarrean bi hegal hezurdun dituena, sukaldaritzan oso aintzat hartua *(Morone labrax edo Dicentrarchus l.)*.

Berdelek, **lupiek** eta sardinek distira egiten dute txalupen hondoan eguzkitan, izar metak bezala. Koldo Izagirre

Arkume saihets bi, **lupia** frijitua, arrain gozoa zinez. Koldo Izagirre

Lengoradu pare bat, barbarinak **lupinak**, denak fresko-freskoak. Karlos Zabala

Ez muxarrik ezta **lupiarik** ere. Joan Mari Irigoien

---

**lupu** *(orobat **lipu** g.er.)* **1** *iz* azal azpiko handituak eragiten dituen gaitza.

**Lupua** dutenen kasuan, immunitate sistemak zelulei erasotzen die, ehun eta organoei kalte eginez. Berria - Gaiak

XIX. mendearen azken aldera Pasteur ardiei **lupuaren** baziloaren aurkako txertoa jartzen hasi zenean, [...]. Juan Garzia

**Lupuaren** aurkako Nazioarteko Eguna. Berria - Gaiak

Zenbaitetan --, **lupuak** heriotza ere eragin dezake Berria - Gaiak

**2** armiarmaren klaseko animalia, salbelaldearen puntan azazkal pozoitsu bat duena*(Buthus occitanus)*.

Harripetan kukutu sugegorri, **lupu**, are inurrien bizia izanen da zurea baino interesgarriagoa. Xabier Montoia

Esku hura, esku beldurgarri hura, **lupua** edo armiarma bezala nire errezeletan eta hormetan zehar lasterka. Josu Zabaleta

Badu hoberik ahoan, trauskilondo hauek mututuko dituen **lipua**. Koldo Izagirre

Baina etsaiaren sareetara eroriak ziren eta sare haren erdian beha zeukaten **lupua** nolakoa zen asmatzetik urrun zeuden oraino. Eneko Bidegain

Horrela sinaturiko artikuluetan, **lupua** bizi ohi da. Iñigo Aranbarri

**3** (esapideetan)

**Lipuak** itoko ahal hau! Koldo Izagirre

**Lipuak** helduko balie! Gainera, tortilla madarikatu hau **lupua** baino gaziago dago. Patxi Iturritegi

---

**lupulu** *(orobat **lupulo** g.er.)* **1** *iz* otsaiena.

Bere atzeko garagardotegi burrundaritik **lupulu** egosiaren usain gozoa zetorren. Lopez de Arana

Hozkailutik garagardoa atera eta irekitzeaz batera zabaldu zen **lupuluaren** garraztasuna. Joxemari Urteaga

Udan elkarrekin aritzen ziren lanean: mertxika beratzen, gerezi biltzen, **lupulu** askatzen, egin zezaketen edozertan, zerbait ordaintzen bazieten eta beti atzetik ibiliko zitzaien nagusirik ez bazen. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan)

Baratze ugari zeuden, etxaldeek **lupulu**-labeak eta aletegiak, eta angioak eta ukuiluak zituzten. Agustin Otsoa

Bazter batean, baxerategi txikiago baten ondoan, bi mutil zeuden, zutik, **lupulu**-garagardoa edaten. Irene Aldasoro

---

**lur** **1** *iz* (batez ere L larriz gehienbat) bizi garen planeta, Eguzki sistemako hirugarrena. ik **lurbira**.

**Lurrak** eguzkiaren inguruan jiratzen duela. Imanol Zurutuza

Edo **Lur** planetako bati bezala. Karlos Zabala

**Lurra** nahas-mahas hutsa zen: leize handiaren gain ilunpea; Jainkoaren arnasa uren gainean zebilen. Elizen arteko biblia

Gu atzera-aurrera **gabiltzan** Lur hau, bere baitan ozeanoak, kontinenteak, mendiak dauzkan eta elementu guztiak bat izaki biziren bizileku **den** Lur hau. Juan Garzia

Erromatarrek [...] hondatu egin zituzten Kartago eta Korinto; eta galduko ziren hala eginda, **Lur** osoa konkistatu ez balute. Iñaki Iñurrieta

**-Lur** osoan den tokirik ederrenera... Elena Touyarou

**Lur** honen gainean bizi diren izakiak -zeinahi izanik ere haien ingurunea, tamaina, bizimodua; barea izan, zein otarraina, eulia edo jirafa- molekula ia berdin-petoz osatuak dira guztiak. Juan Garzia

Beti pentsatu izan dut **Lur** honetako nahigabetuak direla Jainkoaren hautatuak. Patxi Zubizarreta

**2** Lurraren azala, eta bereziki haren zati gotorra, gizakiak eta abereak daudena*(zeru* eta *aire*-ren aurrez aurre).

Zeru eta **lur**, hiri eta baso, etxe eta kanpo, dena dugu antzerki eta zeremonia sare. Patziku Perurena

Isiltasuna gero: gogoa zeru argira eta gorputza **lur** ilunera. Pello Salaburu

Lehorrari **"lur"** eman zion izena eta ur-multzoari "itsaso". Jose Antonio Mujika

Mundua -**lur** eta itsaso guztiak- esploratu eta deskubritu ditugunean. Anjel Lertxundi

**Lur** guztian zehar hedatzen den lorategi zabal bat da filosofia. Josu Zabaleta

**Lur** osora zabaldu zen gosetea. Jose Antonio Mujika

Gero, **lur** guztia hildako aberez estali zenean. Josu Zabaleta

Gehienak mujikak ziren, **lur** gogorrean lo egiten ohituak. Karlos Zabala

Berdin dio lurraldearen izenean lurra, **lur**-gaina eta lurpea hustu, zulatu, itzulipurdikatu, desegin edo txikitzen badira ere. Iñaki Segurola

**Lur** gainean lo egin behar izaten nuen, estalgarririk gabe, hotzikaretan, haurdun egon arren. Gotzon Garate

**Lur** azpiko tunela nola egin zuten. Juan Kruz Igerabide

**Lur** azpiko trena hartu eta azkenean hirira joan nintzen. Fernando Rey

Nahi baduk, itsasoz joan haiteke; nahi baduk, **lurrez**. Juan Kruz Igerabide

**3** lurraldea.

Utz diezaiogun biharko bidaiari berriari **lur** berrien deskubritzeko sua eta gero haien kondatzeko gustua. Aurelia Arkotxa
Hona, bada, zer gertatu zitzaidan Afrikako **lur** horretan. Josu Zabaleta
Argentinako **lur** zabal haietan. Pello Salaburu
Persiako erregeren eremuen mugetan den Joben **Lurrera** heltzeko. Aurelia Arkotxa
Utzi zeure **lurra**, zeure ahaideak eta zeure aitaren etxea eta zoaz nik erakutsiko dizudan lurraldera. Elizen arteko biblia
Gure **lur** euskaraz humanizatua. Patziku Perurena
**Lur** honetako gure arbasoen hizketa bitxia. Juan Garzia
**Lur** menditsu hau nola har dezakeen esango diot, gizon bat bakarra ere galdu gabe. Jose Antonio Mujika
Handik aurrera, oihan sarriko **lur** basati honetan, nonahi ikusiko zen gizonaren oin parea, moldegaiztoko arbol bakartu eta adarrokerren batetik zintzilik. Patziku Perurena
**-Lur** eder hau odolez zikindu duten gerra guztietan parte hartua naiz, jauna. Felipe Juaristi
**Lur** honetan lurrikarak ez dira maiz gertatzen. Jon Alonso
Po ibaiaren eta Appennino mendien arteko **lur** zatian. Koldo Biguri
· Agorrila zen Avaloneko **lur** besoan. Aurelia Arkotxa

## **4** Lurraren azalaren zati gotorra eratzen duen osagaia; bereziki, osagai horren zati biguna, landareak hazteko balio duena.

**Lurra** buztintsua den tokian. Elizen arteko biblia
**Lur** joriko herrialdea da, abereetan, landareetan, mineraletan oparoa, eta handiagotu egin dena Balkh, Aukoi eta Meimaneheko eskualdeak beretuz. Karlos Zabala
Izotz gogorra, bide zabala, **lur** irmoa nonahi! Karlos Zabala
Hegoaldean, **lur** bigun ardo koloreetan. Felipe Juaristi
Raimundo Silvak Lisboako **lur** zaharra estaltzen duten teilatuetarantz beheratzen ditu begiak. Jon Alonso
Harri bat bilatzen zuen **lur** bigun hartatik irteteko. Karlos Zabala
Uzta astunak biltzen diren **lur** gozo ederrak. Josu Zabaleta
Zulo bat ireki zuten **lurrean** eta hantxe lurperatu, brioleten artean, loretegi ireki batean bezala. Felipe Juaristi
Aukera ezak zer nahi duan: uztatik **lur** gainean geratzen dena ala **lur** azpian geratzen dena. Josu Zabaleta
Peoi ere hasi zen, **lur** mugitze lanetan... Karlos Zabala
Guk ez baitugu esku zakarrik, **lurra** ebakitzeko, **lurra** zulatzeko, **lurrean** hazia sartzeko eta gero fruitua jasotzeko. Felipe Juaristi
· Letrak baitziren Isaak Bitoriaren iritzian pentsamenduaren **lur** gogorrerako golderik egokienak. Felipe Juaristi

## **5** osagai horren hedadura jakina; bereziki, lantzeko erabiltzen dena.

Frantziaren Inperio zenaren **lur** eremuetan. Piarres Xarriton
Norenak dira belardi hauek eta **lur** urperakoi hauek? Jose Morales
Gero, lurrak egitean goitiago, egin ziren ere etxeak **lur** berrien ondoan, lanetik hurbilago izaiteko gisan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Hik heure **lur** guztiak utziko dizkidak. Josu Zabaleta
Eta **lur** jabegoaren aldaketa egitekoan ere, **lurraren** jabe zaharrak, jaurti duen oinetakoa hartu eta, jabe berriari emanen dio. Patziku Perurena
Bere eskupeko **lur** guztiak eman baitzizkion garaileari. Juan Garzia
Kapareak, bistan dena, **lur** jabe behar du. Aingeru Epaltza
Bere **lurra** lantzen duenak ogia ugari, huskerien atzetik dabilenak miseria sarri. Elizen arteko biblia
Barkatu egin zion emakumeari, eta eman ere bai, **lur** aberatsak Trebizonda inguruan. Felipe Juaristi
Urteetan gari-uztarik eman ez zuen **lur** beltza. Felipe Juaristi
Nola **lur** irauli berriaren ildo beltzak alorrak zeharkatzen zituen. Jose Morales
**Lur** irauli berrian berdetzen hasitako galsoroen artetik. Jose Morales
Gero, erretenak itxi eta beste batzuk ireki behar izan ziren, **lur** goldatua urez betetzeko. Koldo Biguri
Itoizko uraren zain omen dauden **lur** sailak ezin izanen direla ureztatu. Edurne Elizondo
Hirurehun eta berrogeita hamar azienda, hamabi seme-alaba eta mila eta bostehun golde **lur** zeuzkaten gizonak, nire aita kasu. Koldo Biguri
Euskal baserri guztikoen irudira, etxebizitzarako ta **lur**-langintzarako behar ziren tresnez betea. Xabier Mendiguren Elizegi

## **6** delako osagaia gaitzat hartua.

Suak **lurra** egosi-egosi egiten zuenean. Xabier Amuriza
Bere ustez, haitzak **lurrez** osatuta daude nagusiki, eta, horregatik, hondoratzen dira uretan. Berria - Gaiak
Har ditzagun **lurrezko** bi ontzi labe berean erretakoak. Santiago Iruretagoiena
Egin behar dira **lur** kleratsu zuriz edo buztin gorriz, eta baita pikor lodi samarrak dituenaz ere. Santiago Iruretagoiena
Garai hartan, gure herria egurrez, harriz eta zotal **lurrez** egindako etxola multzo bat besterik ez zen. Pako Aristi
Frontoia **lurrezko** edo brontze urreztatuzko irudiekin apainduta izaten dute toskaniarren estilora. Santiago Iruretagoiena
**Lurrezko** tutuak egingo dira lodian gutxienez bi hatzekoak. Santiago Iruretagoiena
Urruneko eltzea urrez, etxekoa **lurrez**, horra hire amaren ikuspuntu zoribeltzekoa! Patxi Zubizarreta
Batzuetan, **lur koloreko** kamioi handi batek ziztuan gurutzatzen du, ostotsetan. Monika Etxebarria

## **7** oinen azpian dugun zera. ik **lurzoru, zoru**.

Arkua eta biolina **lurrean** utzi zituen, aulkiaren aurka biak. Felipe Juaristi
Emakumeak **lurrean** eseri dira. Felipe Juaristi
Gero, fardel txiki zikin bat begiztatu zuen, paper marroiz bilduta **lurrean** zegoena. Iñaki Mendiguren
**Lurrean** zegoen argazki-kamera hartu zuen. Josu Landa
Ezpata **lurrera** jausi zitzaion, eta mahai gainera erori zen bera, janariak eta edontziak **lurrera** botaz. Juan Kruz Igerabide
-Kontuz, ia-ia lanpara **lurrera** bota genuen. Lopez de Arana
Jator jokatzen badu, ez zaio ile bat ere eroriko **lurrera**. Elizen arteko biblia
Galtzak **lurretik** jaso eta heriosuharrean jantzen hasi zen. Pako Aristi
Zorroa **lurretik** jasotzeko agindu zion lagunari. Askoren artean
Hegazkinak! eta denak **lurrera**. Edorta Jimenez

## **8** ***goi lur***

**Goi**-lurretako sorterri latza. Iñaki Mendiguren
Aragoiko **goi**-lurretan bizi izandako nekazari baten esperientzian. Bernardo Atxaga
Haizea hasi zuen, harriak zartatzen dituen eta **goi** lur abandonatu hauetan ezer bizirik uzten ez duen haizea. Josu Zabaleta
Beheko lur-zatira aldatu zuela gobernu-egoitza arbasoen **goi**-lurretatik. Iñaki Mendiguren

## **9** *lur azal* ik **lurrazal**.

## **10** ***lur azpi*** *(164 agerraldi, 45 liburu eta 62 artikulutan; orobat* **lurrazpi** *72 agerraldi, 21 liburu eta 19 artikulutan)* iz lurrazalaren azpialdea.

Trenbiderik ez dago harribitxizko meatzeetara iristeko, nahiz meatze horiengatik Siberiako alderdi handien **lur azpia** aberatsagoa izan lur gaina baino. Karlos Zabala

Arabako **lur-azpiak** ez dituela bere sekretu guztiak azaldu. Berria - Kultura

Bidaia hartan izan ziren lurrikarak [...] eta horiei esker Charles gazteak bere begiez ikusi ahal izan zituen **lurrazpiak** gora eginda. Edorta Jimenez

Zeruan, lur gainean, **lur azpian** eta itsasoan dauden sorkari guztiei. Elizen arteko biblia

Duela urte batzuk pentsaezinak ziren tokietan ari gara orain bila, bai 2.500 metroko sakoneran itsasoetan zein 6.000 metrora **lur azpian**. Berria - Gaiak

**Lurrazpian** baina azaletik gertu ur poltsak daudela iradoki dute ereduetako batean. Berria - Gaiak

**Lurrazpian** ehortzi edo zeruraino igoez gero ere, berak ez ziola huts egingo. Anton Garikano

Mota guztietako bizidunez estali zuen lurgaina, eta **lur azpira** itzuli behar dute hiltzean. Elizen arteko biblia

**Lur azpiko** trena hartu eta azkenean hirira joan nintzen. Fernando Rey

**Lur azpiko** petrolio putzuak aurkitzeko. Berria - Gaiak

Horiexek dira **lurrazpiko** etxera sartzeko zazpi ateak. Julen Gabiria

## 11 *lur bazter*

Eoliako **lur bazterrak**. Xabier Amuriza

Mexikoko **lur bazter** bat dugu irudikagai, Comala, hautsez eta nekez lurrarekin berdindutako bere jendeekin. Afrikako **lur bazterrei** buruz «Jainkoarentzat duela 300 urte irabazi lurrak» dio. Juan Garzia

Urrutiko irletaraino iritsi da haren izena eta **lur-bazter** guztiek miretsi dituzte haren egintza miresgarriak. Askoren artean

· Hona zer oihukatzen duen Jaunak **lur-bazterretaraino**. Elizen arteko biblia

## 11bi *lur-beltz* elementu organiko asko dituen lurra.

Esteparen ipar-mendebaldeko zerrendan zehar zegoen **lur beltzeko** zati goldagarrira. Iñaki Mendiguren

Sektakide bezain miltante izateko **lur-beltza** zen bera. Itxaro Borda

## 12 *lur-emaile* hilei lur ematen dien pertsona.

Vallecasko **lur-emaileak** 189 gorpu zenbatu zituen. Lutxo Egia

Printzearen idazkaria ez, haren **lur-emailea** ematen zuen, segizioko laguna edo. Matías Múgica

Izan ere, **lur-emaileez** izaten diren aurreiritziak lagun, alkoholari loturiko arazoak zituela iritzi nion. Ramon Saizarbitoria

## 13 *lur eman* (orobat ***lurra eman*** g.er.) hila ehortzi.

Hirira itzulirik, hiletak egin eta **lur eman** zion. Elizen arteko biblia

Gorpuak hartu eta **lur eman** nien guztiei. Jose Antonio Mujika

Bere zerbitzariek gurdi batean hartu eta Jerusalemera eraman zuten, bere hilobian, arbasoen ondoan, **lur emateko**. Elizen arteko biblia

Fusildunek ez zuten, nonbait, fusilatu berri zituzten gizonei **lur emateko** asmorik. Xabier Etxabe

**Emaiok lur** kristauari dagokion moduan. Josu Zabaleta

Kanpoan geratu nintzen **lur emateko** zeremonia bukatu arte. Bernardo Atxaga

· **Lurra eman** behar diegu bizia eman zigutenei, gure sortzaileei, gure lehen lekukoei. Joxan Elosegi

## 14 *lur gorri* (orobat ***lurgorri*** g.er.) landarerik gabeko lurra.

Arestik, ostera, esan liteke maiteago zuela harria lurra baino; lurrari tranpa gehitxo ikusten nonbait, edo beharbada, **lur gorria** bera baino gorriago, biluziago eta ezago kausitzen harria. Iñaki Segurola

Argi zegoen nire patua: **lur gorrian** lo egiten jarraitu beharko nuen. **Lur gorriaren** gainean biluzik jar zezatela agindu zuen. Bernardo Atxaga

**Lur gorrian** zulo bat egin eta bertara bota zuten, inongo ezaugarririk gabe, izenik gabeko hilobian. Felipe Juaristi

Harri sorginduen ondoan otea baizik hazten ez den **lur gorriak**. Josu Zabaleta

Ama hildakoan, sekula sentitu ez nuena sentitu nuen goiz hartan: **lurgorrian** estalperik batere gabe nentzala. Txillardegi

Bide bazterrean, ezker, baratze bat, **lur gorria** berdez estalia daukana, errekan ura nasaiki baitario. Piarres Aintziart

## 15 *lur hartu*sup_1 (hegazkin edo kideko batek)

**Lur hartzeko** pista baten ondoan dago. Xabier Olarra

Bidean barrena nindoala, hara non ikusten dudan han ondoko zelaietan **lur hartzen** hegazkin aleman bat, zikoina bat, berrogeita hamar metroan **lur hartzen** duten horietakoa. Juan Garzia

Zerbait esan zidaten Léon Degrelle belgikarrak Kontxako hondartzan **lur hartu** zuenean ere. Arantxa Iturbe

Aizu, uste duzu asko falta dela Renon **lur hartzeko**? Javi Cillero

Junkers hegazkinen helizeen zarata entzuten du gerra-ontzietan lur uzten eta **lur hartzen**. Harkaitz Cano

*Opportunity*k Marteko beste muturrean **lur hartuko** du. Berria - Gaiak

Cassini espazio-zundak ezingo du Saturnon **lur hartu**, hidrogeno eta heliozko gas-bola erraldoia delako hura.

## 16 *lur hartu*sup_2 irud/hed

Enpresaren mozkinak aireratu egin ziren eta ez dute **lur hartu** ordutik. Berria - Ekonomia

## 17 *lur ikara* ik **lurrikara.**

## 18 *lur-jasa* (corpusean ***lurjasa*** soilik) *iz* luizia.

Urtea joan urtea etorri, hauts eta legarrezko **lurjasa** geldo batek betez zihoan ibarra. Juan Garzia

## 19 *lur-jauzi* (orobat ***lurjauzi***) *iz* luizia.

**Lurjauzi** handiena izan zen lekuan lau metroko altuera hartu zuen harri eta lur pilak. Berria - Harian

**Lur-jauziengatik** eta ur putzuengatik, errepide bat baino gehiago moztu behar izan zituzten. Berria - Euskal Herria

## 20 *lur jo* (orobat ***lurjo*** g.er.) hondatu, amildu.

Hiri handia hiru zatitan lehertu zen eta munduko beste nazioetako hiriek **lur jo** zuten. Elizen arteko biblia

Edifizio asko **lur jo** eta suntsitu zen. Gotzon Garate

Burtsa eta higiezinen merkatua lur jota geratu ondoren, yenaren truke-tasak ere **lur jo** zuen. Koro Navarro

Gero bere familiak **lur jo** zuen diru kontuetan. Fernando Rey

Debotak aldiz haserretuko dira bertuteak **lur jo** duela ikusirik. Jon Muñoz

Baina iduri luke honek guztiak **lur jo** behar duela. Koldo Izagirre

Dena ari da **lur jotzen**. Josu Zabaleta

· Eta nik, damen artean **lur**-jo tristeen honek, haren hitz gozo kantarien eztia dastatua, hor dakusat buru argi, bikainetan bikainen hori, ezkila finak nola, kirrinkaz soinu-garrazturik. Juan Garzia

## 21 *lur jota* (orobat ***lurjota*** g.er.) hondatua, amildua.

Eta etxe dotoreetan bizitzeko garaia ote da, bada, nire etxe hau **lur jota** dagoen bitartean? Elizen arteko biblia

Israel neskatxa ederra erori da, ez da gehiago jaikiko; **lur jota** dago, ez da altxatuko duenik. Elizen arteko biblia

**Lurjota** nengoen, nekearen nekez. Joxe Austin Arrieta

Weldon andrea **lur jota** sentitu zen bat-batean. Mirentxu Larrañaga

Mutila **lur jota** dago, Harry. Oskar Arana

Auskalo noizdanik ez ninduen ezerk hain **lur jota** utzi. Mirentxu Larrañaga

Nekatuta eta **lur jota**, etsita. Mirentxu Larrañaga

Nerbioak **lur jota** dauzkat! Xabier Paya

Haren adorea **lur jota** dago. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 22 ***lur-jotze*** *(orobat* ***lurjotze*** *eta* ***lur jotze****)*

Arerioaren **lur jotze** azkarra eragingo zuen kolpe zitalaren atezuan zebiltzan denak, ikusleak zein boxeolariak. Josu Landa

Neurriz gaineko esperantzaren ondoren, ohi denez, **lurjotze** gehiegizko bat etorri zen. Juan Garzia

## 23 ***lur-karta*** *(corpusean* ***lurkarta*** *soilik)* Lurraren mapa.

Arraza indoeuroparren teoria, hizkuntza indoeuroparren **lurkartaren** gainean asmatu da, eta beste oinarririk gabe. Joxe Azurmendi

## 24 ***lur-kolore*** *(corpusean* ***lurkolore*** *eta* ***lur kolore*** *soilik)* *izond* lurraren kolorekoa.

Ofizialen pabilioi berdeen eta soldaduen etxolatzar **lur koloreen** artetik igaro eta egurrezko eraikin zabal batera iritsi ginen. Anjel Lertxundi

Ofizialen pabilioi berdeen eta soldaduen etxolatzar **lur koloreen** artetik igaro eta egurrezko eraikin zabal batera iritsi ginen. Anjel Lertxundi

Aurpegi **lurkolorea** zuen, eguzkiak zaildua. Anjel Lertxundi

Postalaren beste aldean herri txiki bat, Carlo Levik berak pintura **lurkolore** batez pintatua. Anjel Lertxundi

## 25 ***lur lan*** *(orobat* ***lurlan*** *g.er.)*

Horiek guziek hau dute beren zimikoa: laborantza elikadura edo janarien aztapar haundidunek beren peko ezartzen dutela **lurlanaren** gorabehera guzia. Herria

Lehenago, Aduana bezala ekarria zen, gainekoletarrek eta Ondarrola Borderreko eta Hartxaineko jendeek beren **lur lanen** egitera joan zitezen libertate osoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Chirak presidentak nahi du zaindu **lur lanaren** laguntzeko preseski egina den PAC tratua. Herria

Ganixon **lur lanetan** eta bere kabala ederren artatzen. Herria

Palestindarrek mortierekin ukaldikatzen dituzte lur horietan kokatuak eta bereziki **lur lanetan** ari diren Juduak. Herria

**Lur lan**, zur lan, tindatze eta beste. Herria

## 26 ***lur-lantzaile***

Bizi molde berrien frankatzea, **lur lantzaileen** artean eskuz esku lan egitetik haurren altxatzeko moldetaraino, hori da LGM-en aurpegi argitsuena. Herria

## 27 *lur mutur* ik **lurmutur**.

## 28 ***lur sail*** *(orobat* ***lur-sail*** *eta* ***lursail*** *g.er.)*

Gero jornalari hasi zen, herriko **lur sailez** baliatuta. Jon Maia

Berehala bi guardia zibil agertuko ziren, **lur saileko** patroiak hara deituta. Jon Maia

**Lur sail** txikiak, batzuk pobreak, lihotarako baino balio ez zutenak. Alberto Barandiaren

Handik gutxira modu txit arraroan goldaturiko **lur sail** bat ikusi nuen nire aurrean. Jon Alonso

**Lur saila** hilotzez estalirik zen. Jon Alonso

Fruta-arbolen **lur-sail** txiki bat dut. nekazaritzarako egokiak diren 15 hektareako **lur-sail** bat baitut Vigian, Merida estatuan. Fernando Rey

**Lur-sailen** jabeak atzerritarren kolonoak besterik ez dira izango han. Iñaki Iñurrieta

Ugalduz joan ziren pentzeak eta **lursail** landuak. Anjel Lertxundi

Urbanizagarritzat jotako **lur-sail** bat modu onean emateko asmoa omen zuen udalak, hartarako propio eratutako hiritarren kooperatibaren bati. Xabier Mendiguren Elizegi

Argentinako **lur sailen** %75 basamortua dira gaur egun. Berria - Gaiak

Kalera atera zen, **lur sail** zabalera, garabi eta eskaileren azpira. Berria - Euskal Herria

## 29 ***lur santu***

Erantzi oinetakoak, zu zauden lekua **lur santua** baita. Elizen arteko biblia

Inork ez barrenik traidoreari **lur santua** emateko. Patziku Perurena

## 30 ***Lur Santu***

**Lur Santura** ailegatu bezain laster. Patziku Perurena

**Lur Santu** aldera, non Jesukristo Gure Jauna zain baitzeukaten, turkoen burdinen azpian. Bi mila urte badira **Lur Santutik** aterarazi gintuztela, eta orain itzultzeko ahaleginetan gabiltza. Jon Alonso

Salonikan zegoelarik, **Lur Santuraino** joateko grina piztu zitzaion. Felipe Juaristi

· *pl* Gurutzadak, bestalde, ez ziren **Lur Santuak** berreskuratzeko bakarrik antolatu izan. Askoren artean

Hurrengo goizean, zalduna **Lur Santuetarantz** abiatu, eta, seguruena, han hil zen. Martin Anso

## 31 ***lur zati*** *(orobat* ***lur-zati*** *g.er. eta* ***lurzati*** *g.er.)*

Berrogeita hamar akreko **lur zati** bat dauka etxe bakoitzak inguruan. Javi Cillero

Urbanizazioko etxeen itxura berekoa da eskola: eraikuntza apal bat, adreilua agerian, leihoak altzairuzkoak eta teilatua asbestozkoa, hautsez betetako **lur zati** karratu batean eraikia eta txarrantxaz hesitua. Oskar Arana

Sararen hilobia egiteko **lur zati** bat erosi nahi duenean. Jose Antonio Mujika

Ardi gazte biek lotuta igarotzen dute egun osoa ukuilu ondoan, **lur**-zati soil baten gainean. Oskar Arana

Po ibaiaren eta Appennino mendien arteko **lur zatian**. Koldo Biguri

Naturarentzako Mundu Funtsak salatu du soja laborantzak Erresuma Batua adinako **lur zatia** suntsituko duela urte gutxiren buruan. Berria - Gaiak

· Bi orduren buruan bidea utzi eta etxalderako pista hartzen du, Lucyren etxaldera, haren **lur zatitxora** daramana. Oskar Arana

## 32 *lur zoru* ik **lurzoru**.

## 33 ***zur eta lur*** *adlag* erabat harriturik

-Zer eskutitz? -galdetu nion **zur eta lur**. Ander Irizar

-Bihar goizean?! - **zur eta lur** gelditu zen. Migel Angel Mintegi

**Zur eta lur** geratu ginen Roman eta biok. Inazio Mujika Iraola

Osabaren erranak **zur eta lur** utzi zuen. Elena Touyarou

**Zur eta lur** begiratu zidan erizainak. Harkaitz Cano

**Zur eta lur** daude korridore ilunean pilatutako anabasari eta trepetei begira. Harkaitz Cano

Hitzik gabe ni, **zur eta lur**. Joxe Austin Arrieta

Eta ni **zur eta lur**, halako emakume fina tenientea dela jakinda. Pako Aristi

**Zur eta lur**, burua Weberrenganantz itzuli zuen. Alberto Ladron Arana

Bat-batean, etxe aurrera iritsita, ama gelditu egin zen, **zur eta lur**. Juan Kruz Igerabide

-Ezetz esan du! -hasi zen Nibs garrasika, **zur eta lur** holako lotsagabekeriagatik. Julen Gabiria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**ama lur** (19); **eman zioten lur** (11); **erabat lur jota** (8); **etxe lur** (20); **hektara lur** (9); **hektarea lur** (11); **hektareako lur** (8); **herri lur** (16); **herriko lur** (8); **inguruko lur** (12); **inoren lur** (13)

**lur antolaketa** (19); **lur antolaketari** (10); **lur arras** (11); **lur asko** (11); **lur azal** (8); **lur azala** (18); **lur azalak** (8); **lur azalean** (24); **lur azaleko** (11); **lur azaletik** (10); **lur azpian** (71); **lur azpiko** (57); **lur azpitik** (26); **lur batzu** (8); **lur batzuk** (9); **lur beltza** (10); **lur berri** (37); **lur berria** (9); **lur berriak** (8); **lur berrien** (8); **lur eman** (55); **lur eman zioten** (13); **lur emankorra** (10); **lur ematea** (9); **lur emateko** (19); **lur ematen** (19); **lur ematera** (10); **lur eremu** (55); **lur eremua** (27); **lur eremuak** (12); **lur eremuan** (10); **lur gainean** (116); **lur gaineko** (52); **lur gainera** (22); **lur gainetik** (12); **lur gehiago** (17); **lur gorri** (8); **lur gorrian** (13); **lur gorriaren** (9); **lur gorriaren gainean** (9); **lur guztia** (19); **lur guztiak** (22); **lur guztien** (10); **lur haiek** (12); **lur haietan** (12); **lur hartan** (13); **lur hartu** (39); **lur hartu zuen** (11); **lur hartuko** (9); **lur hartzeko** (10); **lur hartzen** (11); **lur hau** (24); **lur hauetan** (8); **lur honek** (11); **lur honen** (12); **lur honetako** (27); **lur honetan** (49); **lur hori** (27); **lur horiek** (40); **lur horien** (17); **lur horietan** (12); **lur horren** (8); **lur hotzean** (8); **lur huntako** (24); **lur huntan** (19); **lur hura** (12); **lur ikara** (61); **lur ikarak** (12); **lur jabe** (24); **lur jo** (52); **lur jo zuen** (15); **lur joa** (19); **lur joko** (8); **lur jorik** (13); **lur jota** (289); **lur jota dago** (20); **lur jota gelditu** (9); **lur jota geratu** (23); **lur jota utzi** (32); **lur jotako** (11); **lur jotzeko** (8); **lur jotzen** (8); **lur lehertze** (11); **lur mugimendu** (12); **lur mugimenduak** (10); **lur osoa** (37); **lur osoan** (11); **lur osoaren** (13); **lur peza** (26); **lur planeta** (12); **lur planetatik** (10); **lur puska** (28); **lur sagar** (21); **lur sail** (95); **lur sail bat** (18); **lur saila** (22); **lur sailak** (44); **lur sailen** (19); **lur sailetan** (10); **lur sailik** (12); **lur saltze** (10); **lur zati** (39); **lur zati bat** (12); **lur zerrenda** (14); **lur zoru** (9); **lur zorua** (8)

**zeru lur** (13); **zur eta lur** (236)

**ama lurra** (20); **jo zuen lurra** (11); **lurra baino apalago** (10); **lurra berotzen** (12); **lurra eman** (8); **lurra jo** (69); **lurra jo zuen** (24); **lurra jota** (9); **lurra jotzean** (9); **lurra jotzen** (12); **lurra landu** (11); **lurra lantzeko** (11); **lurra lantzen** (25); **lurra ukitu** (17); **lurra ukitzen** (13); **lurra zulatu** (9); **zerua eta lurra** (17)

**bere lurrak** (15); **beren lurrak** (15); **etxe lurrak** (11); **euren lurrak** (9); **gure lurrak** (25); **herri lurrak** (23); **inguruko lurrak** (15); **lurrak ematen** (8); **lurrak erosi** (8); **lurrak erosteko** (8); **lurrak kendu** (8); **zeru lurrak** (83); **zeruak eta lurrak** (11)

**ama lurraren** (8); **lurraren aldeko** (10); **lurraren azaletik** (9); **lurraren azpian** (13); **lurraren berotzea** (27); **lurraren berotzeak** (8); **lurraren berotzearen** (15); **lurraren eguna** (14); **lurraren erakunde** (8); **lurraren eta eguzkiaren** (9); **lurraren gainean** (82); **lurraren gaineko** (14); **lurraren gainera** (11); **lurraren gainetik** (19); **lurraren goi** (12); **lurraren inguruan** (23); **lurraren inguruan biraka** (9); **lurraren jabe** (15)

**lurrari begira** (10)

**begiak lurrean** (10); **behean lurrean** (10); **hankak lurrean** (26); **hemen lurrean** (9); **lurrean ahuspeztu** (8); **lurrean arrastaka** (23); **lurrean aurkitu** (16); **lurrean barrena** (9); **lurrean belauniko** (10); **lurrean bertan** (10); **lurrean bizi** (27); **lurrean botata** (28); **lurrean erorita** (8); **lurrean eseri** (33); **lurrean eserita** (67); **lurrean etzan** (41); **lurrean etzanda** (105); **lurrean etzanik** (12); **lurrean geratu** (15); **lurrean ikusi** (12); **lurrean ipini** (8); **lurrean iraulka** (11); **lurrean izan** (13); **lurrean jarri** (32); **lurrean jarrita** (14); **lurrean lo** (10); **lurrean luze** (10); **lurrean pausatu** (14); **lurrean sartu** (10); **lurrean utzi** (95); **lurrean utzia** (9); **lurrean utzitako** (10); **lurrean uzten** (8); **lurrean zegoen** (45); **lurrean zehar** (12); **lurrean zen** (8); **lurrean zerraldo** (22); **lurrean zetzan** (15); **maleta lurrean** (9); **oinak lurrean** (61)

**zeru lurrek** (11)

**lurreko gauzak** (11); **lurreko hautsa** (18); **lurreko herri** (14); **lurreko herri guztiak** (9); **lurreko paradisua** (13); **lurreko suaren** (8); **zeruko eta lurreko** (9)

**lurren jabe** (9); **lurren jabetza** (12); **zeru lurren** (55)

**erori zen lurrera** (27); **erori ziren lurrera** (10); **lurrera begira geratu** (8); **lurrera begiratu** (16); **lurrera bota** (226); **lurrera bota zuen** (57); **lurrera botako** (15); **lurrera botata** (8); **lurrera botatzea** (9); **lurrera botatzeko** (16); **lurrera botatzen** (48); **lurrera botaz** (15); **lurrera erori** (222); **lurrera erori zitzaion** (10); **lurrera eroriko** (11); **lurrera erorita** (9); **lurrera erortzeko** (11); **lurrera erortzen** (68); **lurrera erortzen utzi** (16); **lurrera jaitsi** (21); **lurrera jaurti** (22); **lurrera jausi** (46); **lurrera jausten** (9); **lurrera joan** (15); **zerutik lurrera** (13)

**lurrerat bota** (17)

**zeru lurretan** (16)

**lurretik altxatu** (34); **lurretik altxatzen** (14); **lurretik hartu** (9); **lurretik jaiki** (9); **lurretik jaso** (29)

**lurrez estali** (8)

**lurrik gabe** (13); **lurrik gabeko** (17)

**lursailen jabetza** (3)

---

lurberritu ik **luberritu**.

---

## lurbide *(orobat **lur bide**)* *iz* lurrezko bidea.

**Lurbide** zabal, hori eta ongi zaindu batek bereizten zuen etxea hondartzatik. Matías Múgica

Gaitzeko zatian juanak ginen orduko **lur bide** batean. Herria

---

## lurbira *iz* Lurra, mundua.

**Lurbira** guztira zabaltzen da haien hotsa, munduaren bazterreraino haien mezua. Elizen arteko biblia

Eguerditik hirurak arte ilundu egin zuen **lurbira** osoan. Elizen arteko biblia

Mirarien argi ederrez argitzen du mundua, eta benetako izarraren distiraz **lurbira** osoa betetzen du. Askoren artean

**Lurbira** osoko eguzkiek erretako kapelu higatu bat zeraman. Karlos Zabala

-O **lurbira** guztiko andererik ederrena eta eskergabeena! Patxi Ezkiaga

**Lurbirako** nazio guztiei. Iñaki Iñurrieta

Mendebaldeko Europako marinelek itsasketa ozeanikoaren teknika menderatu zutenean, horri esker **lurbirako** lurralde jendeztatu eta jende gabeko guztietara fisikoki iristeko bitartekoa lortu zuten. Iñaki Mendiguren

Amore ere ez zuen eman, horratik, niri berriketa eginarazi arte, hainbat gairi buruz: nabigazioa, radarra, **lurbiraren** kurbadura, elektrizitatea, entropia, [...]. Joxe Austin Arrieta

Ikusi nuen Alkmaar-eko salatxo batean **lurbira**-esfera bat, hura azkenik gabe biderkatzen duten bi ispiluren artean. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lurbira guztian** (4); **lurbira guztiko** (3); **lurbira osoa** (10); **lurbira osoan** (12); **lurbira osoko** (3)

---

## lurgabe *(orobat **lur-jabe** g.er.)* *izond/iz* lurren jabe ez dena.

Jadanik hango laborari **lurgabe** andana batek oldarrean hartuak eta bahituak zituen presidentaren esposaren 1.800 hektara lur Collanan. Herria

Laborantzaren ordez beste hiri-negozio batzuetan, erbesteratu **lurgabeek** jada ezin baitzuten zertu lanbide hori. Iñaki Mendiguren

Brasilgo **lurgabeen** egoeraz artikulu batzu. Herria

Fortinbras gazteak, soberako kemen beroz gainezka, gizon **lurgabe** bipilezko saldo bat arrantzatu dik. Juan Garzia

---

## lurgabetu, lurgabe(tu), lurgabetzen da/du *ad* lurgabe bihurtu.

Aldi berean, kontzesio faltsu horien truke AEBetako presidente George Bushen baimena jaso du banaketa hesia eraikitzen eta palestinarrak areago bakartzen eta **lurgabetzen** segitzeko. Berria - Mundua

---

lurgain ik **lur 2**.

---

lurgin ik **lugin**

lurgintza ik **lugintza**.

lurgorri ik **lur 14**.

## **lurjabe** *(orobat **lur-jabe** g.er.)* **1** *izond* lurren jabea dena.

Aristokrazia **lurjabeak** bere zapalkuntza-indar osoa berreskuratu zuen. Koro Navarro
Nekazari lur- **jabeek** hautatu egiten zituzten lanerako. Pablo Sastre
Andre **lurjabe** txiki horietakoa. Jose Morales

• **2**

Dubosc jauna, Remiredoneko **lur-jabea**. Monika Etxebarria
Ahaztu egin zaizu ez dagoela nekazari onak saltzen dituen **lurjaberik**. Jose Morales
Kapareak, bistan dena, lur **jabe** behar du. Aingeru Epaltza
Epailearen aginduz **lurjabe** baketsuren bati kenduriko lurrei edo bahituriko basetxeari buruzko txostena kopiatzen ari zen. Jose Morales
Kolono ingelesek lurrak kendu zizkieten **lurjabe** irlandarrei. Berria - Kultura
Ustiapen industrialetako **lurjabe** handiek. Berria - Ekonomia
Ezin dira **lurjabe** handiak desjabetu lurrak nekazariei emateko. Berria - Harian
Amazoniako lur- **jabe** handien txikizioei aurre egiteko. Iñaki Heras
Lurrik ez zutenek inguruko **lur-jabe** handiei alokatzen zieten beren burua. Joseba Urteaga
**Lurjabe** txikiei mintzaldi bat ematera. Koldo Biguri
**Lurjabe** eskuzabala benetan! Jose Morales
Lege proiektuaren arabera, lurra babestea **lurjabeen** «oinarrizko betebeharra» da. Berria - Euskal Herria
Beste eskualde batean, berriz, mujik-ak **lurjabeen** eta polizi kapitainen aurka matxinatu ziren. Jose Morales
Lur **jabeen** eta partzuerren arteko harremanetan justizia gehiago ezartzeko legea. Josu Zabaleta
**Lurjabea** naiz, eta hori ez da munta gutxiko lana. Jose Morales
Henrike II.ak egin ez zuena egin zuen haren alabak: koroaren ondarea arindu eta lur **jabe** bilakatu soldadu zaharra. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lurjabe handiak** (3); **lurjabe handien** (3)
> **inguruko lurjabeak** (3)

## **lurjabetza** *iz* lurren jabetza.

Pepinek Estebani eskainitako lur horietatik hasiko zen Elizaren **lur** -jabetza. J.M. Olaizola "Txiliku"
Finantza-ondasunak, osatu orduko **lur-jabetzetan** edo luxuzko kontsumoetan gastatzen ziren. Koro Navarro
Emaguzu, beraz, guri **lur** -jabetza gure aitaren anaiei bezala Elizen arteko biblia

lurjasa ik **lur 17**.

lurjauzi ik **lur 18**.

lurjo ik **lur 19**.

lurjota ik **lur 19**

lurjotze ik **lur 20**.

## **lurkara** *izond* lurraren itxurakoa, lurraren kolorekoa.

Eta ia bat-batean, zurbiltasunera bitarteko kolore-aldaketarik gabe ia, hilotzaren urdintasun **lurkarak** ordeztu zion masailetako kolorea. Jose Morales
Dioskunez, gizon higatu, **lurkara** bat zen; begi grisak eta bizar grisa zuen, eta bereziki lausoak hazpegiak. Juan Garzia
Nabe altua zen, kanpotik bezain biluzia barrutik, iluna, hotza, miserablea eta handia, egun ilunabartuaren isla ubel eta **lurkarek** doi argitua. Koldo Izagirre

## **lurkari** *izond* lurreko sorkaria.

Honek bere burua askatzeko emango dio bide Jainkoagandik nahiz **lurkariengandik**, egindakoetatik eta egingabekoetatik etor lekizkiokeen oinaze eta estuasunetatik. Joan Mari Lekuona

lurkarta ik **lur 22**.

## **lurketa** *iz* lur pila.

Harri eta **lurketa** gaitza. Herria

## **lurkidetza** *iz*

Laborantza munduan **lurkidetza** bultzatzen duen GFAM-LURRA elkartea sortu zen 1979an Herria

## **lurkoi** *izond*

Arimaren ilunpea, gogo-nahastea, gai purtzil eta **lurkoietarako** lera. Patxi Altuna

## lurkolore ik **lur 23**.

## **lurkume** *izond/iz*

Gauzainek oraintxe ere eusten diete ohitura hauei eta konpas motak eramaten ikasi dute, baina ez pentsa basa enda **lurkume** hark baino gozamen handiagoa hartzen dutenik. Xabier Amuriza

Zeren, larrurik gabe, hotzak **lurkume** biluziak oinazetzen baitzituen. Xabier Amuriza

## lurlan ik **lur 24**.

## **lurlantza** *iz* nekazaritza. ik **lugintza**.

Itsasgintza eta **lurlantza**, gotorlekuak, legeak, armak, bideak, jantziak eta honelako beste enparauak, [...] hauek denak apurka-apurka, urratsez urrats, erabilerak eta gogo ekilearen esperientziak irakatsi zituen. Xabier Amuriza

## **lurmen** *iz* elurra urtu den lur zatia.

Bere gogoetetan barrenduta, ez da ohartu hondo beltza mehetu ez ezik, aluminioa agertzen hasi zaiola ontziari, nola **lurmenak** elurra urtzen hasten denean. Iñaki Iñurrieta

**Lurmen** gunean zepotxoa artalearekin ipintzen duen umearen moduan, Joxe Austinen erantzunaren zain geratu naiz. Jokin Urain

## **lurmendu**, lurmen(du), lurmentzen da/du *ad* lurmenak agertu, elurra urtu.

Negu gogorra egin zuen, eta Peru gure etxean egon zen **lurmendu** zuen arte. Pako Aristi

Lehengo tokian geratu ziren haiek nare eta bare, lehengo tokian sustraiak gero eta sakonago, gero eta lodiago eginda, eta **lurmendu** zuenean bakoitza are indar, grina, amorru handiagoz azaleratu ziren. Felipe Juaristi

Akabo elurrak ekarritako goraintziak, **lurmentzen** hasiko baita agudo. Pello Zabala

Lainoari bazter guztietara zabaltzea eta elurrari **lurmentzea** beharrezkoa zaien bezala. Felipe Juaristi

Ia bi hilabete bota zituen etxetik irten gabe; elur-arrastoak oro zeharo desagertu eta dena **lurmenduta** gelditu zen arte. Anjel Lertxundi

## **lurmentze** *iz* lurmenak agertzea, elurra urtzea.

**Lurmentzeak** utzi du horrela, eta horren kontra ezin da ezer egin. Jose Morales

Sasoi honetan gertatzen baita glaziarretako elurren **lurmentze** nagusia. Anjel Lertxundi

Atsegin fisiko bitxi bat sentitzen dut nire estrabeak etengabe bitan banatzen duen izotz **lurmentze** hori ikusiz. Josu Zabaleta

## **lurmin** 1 *iz* epilepsia.

Erortzeko mina [= epilepsia] bertze zerbaiten seinalea ditakela, Lurraren amodioarena, eta amodioak sortzen baitu usaian eta berekilan ekartzen baitu, kasik beti, amodio mina, aspaldiko gizon emazteen esperientzia zela eta, amatxik erraiten zeakan hortakotz zutela gure arbasoek erortzeko mina, **'lur-mina'** deitzen. Michel Oronoz

**2** irud/hed

Hala eta guzi, ez da posible, ezin liteke, honenbeste pozoin, abere gose, **lurmin** eta artritis politiko sendatzea. Patziku Perurena

**3** *izond*

Nondik-nahiko ekaizteen erasoa sufrituagatik ere, sustrai amorratuak gero eta **lurminago** barneratzen dituen landare temati eta bakarzaletzat dauka Perurenak, antza, bere burua. Patziku Perurena

## **lurmutur** *(orobat **lumutur** g.er. eta **lur-mutur** g.er.eta **lur mutur** g.er.)* **1** *iz* itsasoan barneratzen den lur punta.

Gorago zegoen **lurmutur** luze batek ur lasterra hautsi eta zurrunbilo bat sortzen zuen, baina gabarra aise pasatu zen erditik. Karlos Zabala

Farola birakari bat piztu berria zen ene eskuinera, ondoko **lur**-muturrean. Koldo Izagirre

-Hurrengo **lurmuturra**, Finisterre. Edorta Jimenez

Gutxitan gainditutko du Higer **lurmuturra**, uretako arrantza egiteko ez bada. Migel Angel Mintegi

Hornos **lurmuturra** gainditu ondoren. Felipe Juaristi

Lehenik, Siagreko **lurmuturretik** Pataleneko uhartera joaten ziren. Iñaki Iñurrieta

Afrikako itzulia egiteko, gakoa Esperantza Oneko **lurmuturra** aurkitu eta biratzea zen. Iñaki Iñurrieta

Ahaztuta zeukan neguko goizak zein hotzak izan litezkeen Ekialdeko **Lurmuturreko** goi herrietan. Oskar Arana

**2**

**Lurmutur** Hiria: ederrean eta ederretan oparoa den hiria. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

lurmutur hiria (5); lurmutur hirian (6); lurmutur hiriko (6); lurmutur hirikoa (3); lurmutur hirira (6); lurmutur hiritik (3).

esperantza oneko lurmuturra (4)

**ekialdeko lurmuturrean** (3); **higer lurmuturrean** (4); **mendebaldeko lurmuturrean** (3)

---

# lurpe *(orobat **lupe** g.er.)* **1** *iz* lur azpia.

Bonba horien parte bat **lurpe** hortan muntatzen omen zen. Marzel Etxehandi

Arbelezkoa zen herri horretako **lurpe** gehiena. Xabier Mendiguren Elizegi

Berdin dio lurraldearen izenean lurra, lur-gaina eta **lurpea** hustu, zulatu, itzulipurdikatu, desegin edo txikitzen badira ere. Iñaki Segurola

Gizakiak ilunpearen mugak hautsi ditu, azken bazterrak, **lurpe** sakon ilunenak, arakatzen ditu. Elizen arteko biblia

**2** (leku atzizkiez)

Bat-batean, birjina trozatua, jaiki, eta **lurpean** barrendu zen, hortzak agerian. Juan Garzia

Satorrak **lurpean** behar dik. Unai Iturriaga

Urrezko txanpon batzuk zeuzkala **lurpean** ezkutaturik. Koro Navarro

Gorde nazazu **lurpean** . Ramon Saizarbitoria

Eta horri esker, egundaino **lupean** eduki dudan kontua azaldu zait bere hitzetan. Koldo Izagirre

Munduan ere uste zabaldua da etsairik onena hilda datzana dela, **lupean** gorrotoa baino ontzen ez den arren.Meza nausia Basilika **lurpekoan** izanen delarik 10 orenetan. Herria

Bertan goratu zen lauza, eta eskailera mehar batetik jaitsi zen Sufrah **lurpera** . Juan Garzia

-Joanes, ni ez nauk luzaz hemen izanen eta muntarik ez dik bat-bateko hotz batek ala papista baten sastakadak igortzen nauen **lurpera** . Aingeru Epaltza

Poema zikin batzuk berreskuratzeko gorpu bat **lurpetik** atera! Ramon Saizarbitoria

Espiritu bat dakusat **lurpetik** igotzen. Elizen arteko biblia

**3** ***lurpeko*** *izlag*

- **Lurpeko** toki bat non arimak erretzen egongo diren sekulako- Badaukat iloba bat radiestesista izateko dohainak dituena, irakatsi egin behar nioke **lupeko** lasterrak bereizten eta harribitxien izpiak begiak itsututa atzematen... Juan Garzia

Tea prestatu genion gure presoari **lurpeko** babeslekuan. Mirentxu Larrañaga

Autoa aski hurbil nuen, ondoko plazako **lurpeko** aparkalekuan. Aingeru Epaltza

**Lurpeko** berotasunean ere elkarrekin, ezin hilez bizirik! Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gorde nazazu lurpean** (8); **lurpean ezarri** (3); **lurpean gorde** (7); **lurpean gordetako** (3); **lurpean gordetako historia** (3); **lurpean gordetzen** (5); **lurpean sartu** (10); **lurpean zegoen** (3)

**lurpeko aparkalekuan** (3); **lurpeko babeslekuan** (12); **lurpeko egiturak** (4); **lurpeko pasabide** (3); **lurpeko tren** (3); **lurpeko trenak** (3); **lurpeko uretan** (4); **lurpeko uretan dagoenetik** (4)

**gorpua lurpetik atera** (3); **lurpetik atera** (18); **lurpetik ateratako** (4); **lurpetik ateratzeko** (5); **lurpetik ateratzen** (6); **lurpetik joango** (3)

---

# lurperakera *iz* lurperatzea.

Ez zen hirian jagoten **lurperakera** hura ere, zeinaren arabera lur-ematen ohitua zen beti herri hau; dena hankaz gora zebilen, eta bakoitzak, noraezean, ahal bezala ehorzten zituen bere senideak Xabier Amuriza

---

# lurperatu, lurpera(tu), lurperatzen **1** da/du *ad* lurpean sartu. ik **lurpetu**.

Izan ere, asko eta asko, bizirik **lurperatuta** egon izan ziren, inoiz edo behin, obus-eztandaren batek lurrez estali eta gero. Mirentxu Larrañaga

Ur lasterrak berehala irentsi zuelarik, lokatza azpian **lurperatuta** gelditu zen hilda. Askoren artean

Nikolas leporaino **lurperatua** dago, tatariarren usadio basatiari jarraituz. Karlos Zabala

Horietako bat [...] *samadhi* egoeran (lilluraturik) astebetean **lurperatua** egoten zen, ur, janari eta haizerik gabe. Gotzon Garate

Germinaleko meatze-zuloan **lurperaturiko** meatzariek bezala. Juan Garzia

Argi indar hariak **lurperatzea** . Herria

Harean erdi **lurperatua** zegoen oskol handi bat aurkitu zuen. Fernando Morillo

Lorontzian **lurperatutako** giltza. Joxemari Urteaga

-Altxorra **lurperatu** aurretik, hobe dugu zenbat daukagun jakitea. Patxi Zubizarreta

**Lurperaturiko** aberastasunaren lilura. Juan Garzia

Emaztearekin batera **lurperaturiko** obra berreskuratzeko. Ramon Saizarbitoria

**2** irud/hed

Berriro ere errukituko zara gutaz, **lurperatuko** dituzu gure gaiztakeriak, eta itsas hondora botako gure bekatu guztiak. Elizen arteko biblia

Besaburuari jarraiki, sorbalda bat, eta sorbalda biren erdian **lurperatua** , lepoa. Harkaitz Cano

Metroko bagoia lepo joanagatik inork ez du inor ukitzen, geldirik eta zurrun mantentzen da jendea, norbere zapaten zingiran **lurperatua** Harkaitz Cano

• **3** du *ad* ehortzi, hobiratu.

Lehen hilak eliz inguran **lurperatzen** ziren, eta batez ere, eliz aurrean. Patziku Perurena

Zure gorpua ez dute zure gurasoen hilobian **lurperatuko** . Elizen arteko biblia

Mondoñedoko hilerri zibilean **lurperatu** zuten. Paddy Rekalde

Ezezaguna isilpean **lurperatu** zuten. Edorta Jimenez

Kanposantuan eta kristauki **lurperatu** beharko zirela. Jon Alonso

Senarra hiltzen denean, emaztea bizirik **lurperatzen** dute harekin batera, eta alderantziz. Patxi Zubizarreta

**Lurpera** nazak neure armekin eta negar egin ezak nigatik. Juan Kruz Igerabide

Giza taldeak aukeratuko dituzte etengabe harat-honat ibil daitezen, lur gainean gelditutako **gorpuak** lurperatu eta herrialdea garbitzen. Elizen arteko biblia

Fourniet iaz atxilotu zuten, 1989. urtean Elisabeth Brichel 12 urteko neskatoa bahitu, bortxatu eta **lurperatu** izana leporatuta. Berria - Gaiak

**4** irud/hed

Ezari-ezarian, baina konturatu naiz, ulertu dut, **lurperatuta** nago, bizirik **lurperatuta** . Mirentxu Larrañaga

Besoa ibai baten ondoan **lurperatu** genuen. Harkaitz Cano

Bizirik geldituak izurriak **lurperatuko** ditu eta alarguntsek ez diete negarrik egingo. Elizen arteko biblia

Hantxe **lurperatu** zuen sagua ere, fruitu-arbolen baratzearen hondoan. Mirentxu Larrañaga

Zakur hilak, inork **lurperatzen** ez dituenak, zopiloteak, azoka alderako teilatuen gainean pausatuak. Joxe Austin Arrieta

Kioton, Japonian, hegaztien gripeaz jotako 265.000 oilasko **lurperatuko** dituztela jakinarazi zuten atzo bertako agintariek.

Ba, zuen hitzak **lurperatzen** ibili ziren bolada luze batean. Bernardo Atxaga

Gauza asko gogoratzen ditut hemen azpian nagoelarik, asfaltoaren gainean **lurperaturik**, lur azpian sartu gabe **lurperaturik**. Harkaitz Cano

**5** (era burutua izenondo gisa)

Geruzaz geruza antzinako estratu **lurperatuz** betea. Xabier Olarra

Martak beren apartamentuko leihotik ikus zitzakeen txatarra meta haiek guztiak, sukalde **lurperatuen** hondakinak, altzairuzko idazmakinak, [...]. Harkaitz Cano

Jimmyk, eragin oparoen mende, aitaren sugar **lurperatua** berpizten sentitu zuen beraren baitan. Irene Aldasoro

Ezin duzulako ondoko **lurperatuekin** berbarik egin, ez diezulako tutik ere ulertzen. Paddy Rekalde

-Gure inguruan atseden hartzen duten **lurperatuengatik** edaten dut. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **lurpera ditzatela hilek** (3)
>
> **bizirik lurperatu** (10); **gorpua lurperatu** (4); **hil eta lurperatu** (3); **hildakoak lurperatu** (3); **hilerrian lurperatu** (3); **polloen lurperatu zuten** (3)
>
> **bizirik lurperatua** (4); **lurperatua izan** (5); **lurperatua izatea** (6); **lurperatua izateko** (4); **lurperatua zegoen** (4)
>
> **lurperatuak izan** (4)
>
> **lurperaturik egon** (3)
>
> **lurperatuta gelditu** (5); **lurperatuta zegoen** (8)
>
> **azken hondakinak lurperatzeko** (5); **hondakinak lurperatzeko** (7)
>
> **bizirik lurperatzen** (3)

---

## lurperatzaile *iz* lur-emailea.

**Lurperatzailea** ere betikoa zen, Juan Simon, bere alaba hilobiratu zuen gizona. Jon Maia

**Lurperatzailearen** laguntzailea. Juan Garzia

Orduan bezala orain ere kondenatzen du lege berriak **lurperatzailea** bizirik lurperatua izatera. Joxerra Garzia

Florentek hilkutxa eta ehorzketa ordaintzeko dirua aurreratu behar izan zuen; **lurperatzaileen** eskupekoa ere berak eman behar. Karlos Zabala

Hogeita hamar urte daramat nik hemen, mutikotatik, **lurperatzaile**-lanean. Juan Garzia

---

## lurperatze 1 *iz* lurpean sartzea.

Zentral nuklearretako hondakinak behar bezala erretiratzeak eta **lurperatzeak** eskatzen duen lana. Berria - Gaiak

Bachefores errauste planta itxi denetik, **lurperatze** eremurik ezean, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako hondakinak Lapouyadera eraman behar dituzte. Berria - Euskal Herria

**2** ehorztea, hobiratzea.

Valeriano Neira-ren **lurperatzea** izan zen, ezusteko tiroketan hila errekisa bat egiten ari zela Hernaniko Banco Guipuzcoanon. Koldo Izagirre

15:30ak pasata amaitu zen **lurperatze** ekitaldia. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan)

Hileta eta **lurperatze** gastuak. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bi lurperatze** (3); **lurperatze eremu** (3); **lurperatze eremua** (3); **lurperatze eremuen** (4); **lurperatze eremurik** (3)

---

## lurpetar *izond* lurpekoa.

Iraultzaren indar **lurpetarrak** borborka daude jada nonahi. Koldo Izagirre

---

## lurpetu, lurpe(tu), lurpetzen du *ad* lurperatu.

Lehenbizkaiko elektrika hariak **lurpetu**; Ihalar argistatu eta arbolez beztitu; Elbarron-go galzadak, argitu, garbitu eta abar... Herria

Tximista harrapatu eta bildu, gero eroale metalikoa medio, lurpera edo uretara lotuta dagoenez, han sartu eta **lurpetu** ekaitzaren indar hori, kalterik ez dezan egin. Pello Zabala

Garagardoa zeukaten hondarrean **lurpetuta** ezkutuan eta fresko. Koldo Izagirre

Horrek ez du erran nahi ixildua edo **lurpetua** dela hainbertze beldur eman duen manu hori. Herria

---

## lurralde 1 *iz* eraren batean mugaturiko lur eremua.

Britainiarrek Indiako **lurralde** asko bere egin zituztenean, Punjabeko hiriburuan zegoen, Lahoren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Munduko **lurralde** eta herrialdeak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Biztanlerik gabeko **lurraldeek** bereizten dituztelako herrialde txiki biztanledunak. Iñaki Iñurrieta

Gure inguruan ugalduz doaz gizakiak Lurreko **lurralde** askotan eragindako kaltearen frogak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Honxuko iparraldeko eta ipar-mendebaldeko **lurraldea**, Japoniar itsasoan. Ibon Uribarri

Ingalaterrak uko egin zien aski laster bere inperioaren kolonietako **lurralde** gehienei. Piarres Xarriton

Bere gogara hauta zitzan Gaztelako, Aragoiko, Nafarroako apezpikuak, bai eta ere haien ondotik menperatu zituen beste **lurralde** eta kolonia guztietakoak. Piarres Xarriton

Estatu espainiarreko lau **lurralde** eta estatu frantziarreko hiru **lurraldetan** banatua. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Don Kijote biziki haserretuko da kanpaiak joko dituelako mairuen **lurraldean**. Patxi Ezkiaga

**Lurralde** hau ere subtropikala eta berdea izan zen inoiz. Joseba Sarrionandia

Euskal **lurraldeetako** foruak. Andres Urrutia

Frankoen mendeko **lurraldean**, lege salikoa zegoen frankoentzat, eta Teodosiar kodea erromatarrentzat. Iñaki Iñurrieta

Musulmanen agintepeko **lurraldeak**. Iñaki Mendiguren

Agindutako **lurraldearen** atarian. Jose Antonio Mujika

Handik alde eginda, oso urrutiko **lurraldeetara** joan zen. Askoren artean

Euskararen **lurraldea** da bertsolaritzarena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kain, Jaunagandik aldenduta, Nod **lurralde** galduan bizi izan zen, Edendik ekialdera. Jose Antonio Mujika

Siberiako **lurraldearen** lurzoru gogor idorra. Karlos Zabala

Kanaango **lurralde** hartan ez zuten larrerik aski bere abere guztientzat. Jose Antonio Mujika

Txantxangorriak, bere **lurralde** horretan bakarrik kantatuko du. Patziku Perurena

## 2 (izenondoekin)

Nafarroakoa zela, **lurralde** basati eta menditsukoa. Felipe Juaristi

**Lurralde** zabal hori hainbat estatutan banatzen da, hainbat khanerrietan, zehatzago esanda, khan izena hartzen baitute han agintariek. Karlos Zabala

Neure emazte zenari **Lurralde** Santutik ekarritako erliki berbera dun! Patziku Perurena

**Lurralde** historikoen eskubideak.

Ameslariek sinetsi nahi izaten dute itsasoak sekulako **lurralde** urdinkarak dituela bere magalean. Josu Zabaleta

Alegiazko **lurralde** jori eta aberatsak irudikatu zituen mundu urrunetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Lurralde** Petrolio Esportatzaileen Erakundea osatzen duten 11 herrialdeek petrolio merkatuaren %40 inguru kontrolatzen dute. Berria - Ekonomia

## 3 irud/hed

Orain, pentsatu zuen Ramsay andreak, ametsen **lurralde** hartara itzul naiteke, leku irreal baina liluragarri hartara. Anton Garikano

Matematikari fina eta astronomiazalea, beti izan zuen astrologiaren, iragarpenen eta magiaren **lurralde** zingiratsuetara arrastan joateko joera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sekula Betiko Lurraldea Barrieren **lurralde** desiratua da, haurtzarokoa.Egiaren eta gezurraren arteko **lurralde** ilun eta arriskutsuan. Julen Gabiria

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Espainiako Senatua alderdietan oinarritutako talde parlamentarioek osatu ordez, **lurralde** taldeek osatuko luteke. Berria - Euskal Herria

**Lurralde** kolektibitate bateko erroldan. Berria - Euskal Herria

**Lurralde** berezitasunak defendatu eta «elkartasun printzipioa» bermatzeko. Berria - Euskal Herria

Estatuen lurraldetasuna: «Estatuen kide bakoitzaren **lurralde** osotasuna errespetatuko du EBk». Berria - Mundua

**Lurralde** kohesioa udal hautetsien helburu. Berria - Euskal Herria

**Lurralde**-anexioak egiten ziren, periferizazio-prozesuak osatzen zituztenak. Koro Navarro

Euskal Herria **lurralde** mugarik gabeko nortasun bat da. Berria - Euskal Herria

Etengabeak ziren Elizaren eta Inperioaren arteko tirabirak, **lurralde** errebindikazioak zirela medio. Askoren artean

Bistara azaltzen zen **lurralde** eremu hartan etxe dotoreak eta eliz dorreko kupula sabel-handiak nabarmentzen ziren aurrena. Karlos Zabala

Estatuen erabakiak, batez ere **lurralde**-osotasunari buruzkoak, onartzera behartzen du Europako Batasuna. Berria - Euskal Herria

Atzo Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako **lurralde** batzarrak egin ziren. Berria - Euskal Herria

Ares PSOEko zuzendaritzakoa da; Lopez **Lurralde** Kontseiluko buru. Berria - Euskal Herria

Nafarroako **Lurralde** Estrategiaren proiektuak «etorkizuneko Nafarroa» osatzeko gakoak jaso ditu agiri batean. Berria - Euskal Herria

Donostiako **Lurralde** Auzitegian. Berria - Kirola

Zatikako **Lurralde** Planak egin dituen aurreikuspenen arabera, Erdialdeko Arabak gutxienez 32.516 eta gehienez 71.441 etxebizitza berri beharko ditu datozen 16 urteetan. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzaren **Lurralde** Antolaketa eta Ingurugiro Sailak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Padura **lurralde** kiskalgarri, erigarrietatik datoz neska berezi horiek. Josu Zabaleta

## 6 Frantzian, hainbat departamendu biltzen dituen eskualdea.

**Lurralde** bereko beste departamendu guzietan. Herria

Departamenduka egiteko partez, bozak egin litazke **lurralde** osoka. Herria

Ezkerrekoak nagusitu dira **lurralde** guzietan, salbu Alsazian. Herria

Poitou-Charentes **lurraldean** emazte bat da buru, Ségolène Royal. Herria

Gaur egun Bretainiako **lurralde** administratiboa osatzen duten lau departamenduetan eta Loire Atlantique departamenduan. Herria

Korsikan ere **lurralde**-bozak zituzten hango batzar bereziarentzat, bainan beste **lurraldetan** ez bezalako bozka-lege batekin. Herria

**Lurralde** bozak alde batetik eta kantonamendu-bozak bestetik. Herria

**Lurralde** zerga, etxe zergaren gainean **lurraldeari** johan zaion partea, azkarki goratu dute eskualde frangotan Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**donostiako lurralde auzitegian** (6); **egiptoko lurralde osoan** (6); **euskal lurralde** (19); **hegoaldeko lurralde** (6); **inguruko lurralde** (9); **iparraldeko lurralde** (9); **korsikako lurralde asanbleako** (7)

**lurralde antolaketa** (48); **lurralde antolaketako** (5); **lurralde antolaketari** (7); **lurralde antolakuntza** (7); **lurralde antolamendu** (63); **lurralde antolamendua** (8); **lurralde antolamenduaren** (6); **lurralde antolamendurako** (10); **lurralde arrotzean** (6); **lurralde asanblea** (6); **lurralde asanbleako** (12); **lurralde asanbleako presidente** (6); **lurralde asanblean** (15); **lurralde asanblearako** (14); **lurralde auzitegiak** (27); **lurralde auzitegian** (32); **lurralde auzitegiaren** (7); **lurralde auzitegiko** (24); **lurralde batzarra** (7); **lurralde batzarrak** (26); **lurralde batzarrean** (13); **lurralde batzarren** (10); **lurralde boz** (7); **lurralde bozak** (11); **lurralde bozeri buruz** (6); **lurralde eder** (10); **lurralde egokitasuna** (8); **lurralde eredua** (5); **lurralde eremuan** (5); **lurralde ezezagun** (5); **lurralde hauteskundeen** (6); **lurralde historiko** (7); **lurralde historikoak** (6); **lurralde historikoen** (26); **lurralde historikoen legea** (10); **lurralde hizkuntzen** (16); **lurralde jakin** (8); **lurralde kohesioa** (6); **lurralde menditsu** (6); **lurralde okupatuetako** (10); **lurralde okupatuetan** (23); **lurralde okupatuetatik** (5); **lurralde osoa** (56); **lurralde osoan** (71); **lurralde osoaren** (7); **lurralde osora** (17); **lurralde osotasuna** (10); **lurralde palestinar** (7); **lurralde palestinarrak** (9); **lurralde palestinarren** (9); **lurralde palestinarretan** (15); **lurralde petrolio esportatzaileen** (54); **lurralde plana** (12); **lurralde planak** (20); **lurralde planaren** (5); **lurralde zabal** (15); **lurralde zati** (9); **lurralde zilarra** (5); **lurraldez lurralde** (10)

**madrilgo lurralde auzitegiak** (10); **madrilgo lurralde auzitegian** (9); **madrilgo lurralde auzitegiko** (6); **mendebaldeko lurralde** (6); **munduko lurralde** (7); **nafarroako lurralde auzitegiak** (10); **nafarroako lurralde auzitegian** (10); **nafarroako lurralde auzitegiko** (10); **okupatutako lurralde** (5); **zatikako lurralde plana** (6); **zatikako lurralde planak** (12); **zatikako lurralde planaren** (5)

**hazparneko lurraldea** (5); **kanaan lurraldea** (12); **leinuaren lurraldea** (12); **lurraldea emango** (5); **lurraldea eta** (27); **lurraldea ez** (5); **lurraldea hondatu** (8); **lurraldea ikertu** (5); **lurraldea ikertzera** (12); **lurraldea ikertzera bidali** (5); **lurraldea zeharkatu** (7); **lurraldea zen** (5); **nire lurraldea** (6); **sekula betiko lurraldea** (13)

**akitania lurraldeak** (7); **hazparneko lurraldeak** (5); **zazpi lurraldeak** (6)

**agindutako lurraldean** (10); **betiko lurraldean** (8); **emandako lurraldean** (7); **emango dizuen lurraldean** (11); **erdialdeko lurraldean** (6); **filistearren lurraldean** (5); **gazako lurraldean** (10); **hartzera zoazten lurraldean** (10); **hazparneko lurraldean** (11); **juda lurraldean** (5); **kanaan lurraldean** (26); **leinuaren lurraldean** (10); **lurraldean barrena** (7); **lurraldean bizi** (18); **lurraldean biziko** (8); **lurraldean eta** (10); **lurraldean sartu** (12); **lurraldean sartzea** (5); **lurraldean sartzean** (5); **lurraldean sartzen** (5); **lurraldean zehar** (10); **mendeko lurraldean** (6); **moab lurraldean** (6); **nien lurraldean** (6); **sekula betiko lurraldean** (8); **zoazten lurraldean** (10)

**akitania lurraldearen** (5); **gazako lurraldearen** (6); **hazparneko lurraldearen** (5); **lurraldearen banaketa** (6); **lurraldearen batasuna** (7); **lurraldearen jabe** (11); **lurraldearen mugak** (6); **lurraldearen zati** (8)

**lurraldeaz jabetu** (9); **lurraldeaz jabetuko** (6); **lurraldeaz jabetzera** (6)

**euskal herriko lurraldeen** (6); **euskal lurraldeen** (9); **lurraldeen artean** (13); **lurraldeen arteko harremanak** (8)

**euskal lurraldeetako** (5); **zazpi lurraldeetako** (11)

**elkarren ondoko lurraldeetan** (7); **lurraldeetan bizi** (8); **lurraldeetan bizi diren** (5); **mendebaldeko lurraldeetan** (6); **okupatutako lurraldeetan** (7); **zazpi lurraldeetan** (8)

**urrutiko lurraldeetara** (5)

**hazparne lurraldeko** (10); **lurraldeko hiri** (8)

**agindu nien lurraldera** (7); **agindutako lurraldera** (8); **amondarren lurraldera** (5); **kanaan lurraldera** (9); **lurraldera eraman** (9); **lurraldera eramango** (8); **lurraldera iritsi** (9); **lurraldera itzuli** (9); **lurraldera itzuliko** (6); **lurraldera joan** (5); **lurraldera joateko** (9); **sekula betiko lurraldera** (7)

**euskal lurraldetako** (8)

**lurraldetik atera** (5); **lurraldetik igarotzen** (5); **lurraldetik kanpo** (9); **lurraldetik urrun** (5); **urrutiko lurraldetik** (5)

**lurraldez lurralde** (10); **zazpi lurraldez** (7)

## lurraldeburu *iz* Frantziako lurralde bateko burua.

Alain Rousset Akitaniako **lurraldeburua** aski garbi mintzatu da: [...]. Herria

Alain Rousset aintzina **lurraldeburu** egonen da Akitanian. Herria

Akitanian, Alain Rousset sozialixtaberriz hautetsia izan da **lurraldeburu**, 85 bozetarik 58 ukanik. Herria

Dominique Bussereau gobernukidearekin eta Jean-Paul Huchon Parise aldeko **lurraldeburuarekin**.

Eskuineko hautagaia pasarazia zutela **lurraldeburu** alkirat ezkerrekoa arrunt begietan hartua zutelakotz. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> rousset akitaniako lurraldeburua (3)

---

## lurraldeburugai *iz* lurralde hauteskundeetara lurraldeburu izateko aurkezten den pertsona.

Departamendu batean etzela zerrenda bihi bat agertzen ahal ez balinbazen ba lurralde bereko beste departamendu guzietan izen bereko zerrenda bat, **lurraldeburugai** berarekin, alderdi berak (edo berek) osatua. Herria

---

## lurraldeka 1 *adlag* lurralde mailan.

Datuak **lurraldeka** ere aztertu zituen Lan sailburuak. Berria - Ekonomia

**Lurraldeka**, salmentak %8,3 igo ziren Gipuzkoan, %7,3 Bizkaian eta %3,3 Araban. Berria - Ekonomia

Lurralde batzarren berritzea, **lurraldeka** ikusiz nun zoin diren behar-ordu premiatsuenak. Herria

Euskararen merkatuak mugatuak dira, eta **lurraldeka** zein kultur politiken arabera banatuta daude. Berria - Kultura

· Lurralde-bozak eta kantonamendu-bozak iragan dira bainan hauteskunde horietarik landa hautetsien artean berriz izaiten dira bozak **lurraldeka** eta departamenduka, giderrak nork nun bere esku ukanen dituen finkatzeko. Herria

**2** ***lurraldekako*** *izlag*

**Lurraldekako** datuak kontutan hartuta, langabeen zenbatekoa Nafarroan handitu zen gehien, %15,29 hain zuzen. Berria - Ekonomia

**Lurraldekako** zein Euskadiko eta Espainiako txapelketak. Berria - Kirola

Tokian-tokikoaren errespetua edo subsidiaritate printzipioa: **lurraldekako** eta taldekako estilo eta erabakiak lehenetsiz zentralismo demokratikoaren aurretik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

## lurraldekatu *izond* lurraldeka antolatua.

Jadanik muga zaharrak apaldu direla eta oraino aintzina apalduko, Imaz-ek dauka bihar edo etzi Europa **lurraldekatu** bat izanen dela, gaurko estadoek, eta bereziki orobat handienek, beren eraginaren parte handi bat galdurik. Herria

---

## lurraldekizun *iz*

Eta Estatuak (eta nazionalismoak) ere badaki zer den lurraldea (eta **lurraldekizuna** edo lurraldetasuna). Iñaki Segurola

---

## lurraldekotasun *(2 agerraldi, liburu 1 eta artikulu 1ean)* *iz* lurraldetasuna.

Ezin dugu onartu lurra aintzat hartuko ez duen **lurraldekotasuna**, edo zentzuzko edukirik izango ez duen egoera juridiko-politiko berria. Berria - Euskal Herria

Ikusmolde historiko zabala harturik, **lurraldekotasunaren** galera bi fenomenoren emaitza da: munduko espazioaren desberdintasunak ustiatu nahi dituzten kapitalen zabalkunde-prozesu etengabearena, batetik, eta, bestetik, konkurrentziaren printzipioaren indarra mugatzeko estatuek ipintzen dituzten arauei azpiak jateko kapital horiek beroriek etengabe egiten duten lanarena. Koro Navarro

---

## lurraldemin *iz* lurraldearekiko herrimina.

Intolerantziak, gogor-irteerak, irmotasunak, gutarrismo eriak, ideien purutasunak, koherentzia iraunkorrak eta abarrek, Plá-ren arabera, norekin eta kastillanoekin dituztela senidetzen eta berdintzen euskotarrak; eta abar horiei gehitu behar zaie noski, militarren gaitz fundazionala den **lurraldemina** edo mapamania Iñaki Segurola

---

### lurraldeño *iz adkor* lurraldea.

Parada hauta dela gure aldarrikapen premiatsu zonbaiten egundainokotan entzun-arazteko, euskaldungoaren onetan, gure **lurraldeño** hunen geroa gogoan. Herria

---

## lurraldetasun *(237 agerraldi, 13 liburu eta 156 artikulutan)* 1 *iz* lurralde osotasun juridikoa.

Tentsioa berriz ere piztu zen aurtengo urtarrilean, Georgiako hauteskundeak Mikhail Saakashvilik irabazi eta **«lurraldetasunari** eustea» zin egin zuenean. Berria - Mundua

**Lurraldetasuna**: euskararen lurraldea da bertsolaritzarena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kultura arloko ikuspuntutik begiratu eta nazio bat osatzen duela Euskal Herriak ez da dudarik, baina **lurraldetasun** politiko-administratiborik gabe. Berria - Kultura

EAEn, Nafarroan eta Iparraldean **lurraldetasun** bateratua lortzea da gakoa, betiere tokian tokiko herritarren borondatea errespetatuta. Berria - Euskal Herria

Ipar Euskal Herriari ez dio **lurraldetasuna** onartu nahi, ez du euskal departamendurik sortu nahi. Berria - Euskal Herria

Noiz gertatuko ote da Iparralde huntako kargudun bat frantses legebiltzarrean, Parisen, euskaldunen eskubideak hortzez eta haginez defenditzen, dela **lurraldetasuna**, dela euskal hizkuntza? Herria

Herri indarrek autodeterminazioa eta **lurraldetasuna** oinarri duen alternatiba nazionalaren alde egin dezaten. Berria - Euskal Herria

Eta Estatuak (eta nazionalismoak) ere badaki zer den lurraldea (eta lurraldekizuna edo **lurraldetasuna**). Iñaki Segurola

Oso kontuan hartu beharko du kazetariak Euskal Herri osoaren **lurraldetasuna** izan behar duela gogoan, euskararen mugapeak estatu artekoak direla. Iñigo Aranbarri

**Lurraldetasunaren** ideia integratzaileak Iparraldea Hegoaldeari itsuki beha jartzen du. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Lurraldetasun** printzipioa, indarraren monopolioaren kontrola eta ordezkaritzan oinarritutako botere politiko zilegia ziren estatu-nazio modernoa itxuratzen zutenak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Estatu modernoaren oinarrian dagoen **lurraldetasun** printzipioa aldatu egin da, lurraldeari eta espazio sozio-ekonomiko eta politikoari buruzko berrantolaketa bat ikusi da eta.

Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Autodeterminazio eta **lurraldetasun** eskubideak aitortuak izan daitezen. Berria - Euskal Herria

**Lurraldetasun** ezagupena lortzeko urrats taktiko bat. Berria - Euskal Herria

Ipar Euskal Herriko **lurraldetasun** onarpenaren eskaerari begirako eztabaida nola ikusten duzu? Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **autodeterminazioa eta lurraldetasuna** (8); **euskal herriaren lurraldetasuna** (3); **lurraldetasuna oinarri** (3)
> **lurraldetasunaren auzia** (3); **lurraldetasunaren gaia** (3); **lurraldetasunaren inguruan** (5); **lurraldetasunaren inguruko** (3)
> **lurraldetasunari buruz** (4); **lurraldetasunari dagokionez** (3)

---

**lurrazal** *(**67** agerraldi, **12** liburu eta **26** artikulutan; orobat **lur azal** **61** agerraldi, **20** liburu eta **8** artikulutan eta **lur-azal** **36** agerraldi, **5** liburu eta artikulu **1**ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lurrazal** agertzen da)* **1** *iz* Lurraren azala; Lurraren azaleko geruza, bereziki solidoa.

**Lurrazalean** ibiliko ote zen, edota lurpean ote zetzan, karitatea egiten zutenei esker? Patxi Zubizarreta

Orduan **lurrazala** eta inguruan edo kontaktuan dagoen airea azkar hozten da. Pello Zabala

Urpekari talde batek antzeman du, baina sakonera handian dagoela-eta ez dute oraindik **lur azalera** ateratzea lortu. Berria - Mundua

Militarrak ez dira jaitsi, baina helikopteroa **lurrazaletik** metro gutxira egon da. Berria - Euskal Herria

Adituen ikerketaren arabera, seismoa **lur azaletik** 26 kilometro barrualdera izan zen. Berria - Mundua

Zartadak berak 28 meatzari hil zituen eta beste 8k lortu zuten **lurrazalera** irtetea. Berria - Mundua

Jackson Avenue-n jaitsi, **lurrazalera** irten eta ordurako ezagun zuen bidea egin zuen Joe's Grocery-raino. Iñaki Zabaleta

Jaurtigailu zaharraren karkasa-zatiak atmosferan sartu orduko birrinduko ziren, eta haien errautsa besterik ez zen iritsiko **lurrazalera**. Patxi Iturritegi

Noek ontziko estalkia zabaldu eta **lurrazala** lehor zegoela ikusi zuen. Jose Antonio Mujika

Narrastiak, hegaztiak, abereak eta piztiak, eta **lurrazalean** mugitzen den oro. Jose Antonio Mujika

Esan, bada inor doilorragorik eta okaztagarriagorik **lurrazalaren** gainean? Iñigo Aranbarri

**Lurrazalaren** berotze gogor baten ondoriozko tenperatura handiek eragindako depresioa. Pello Zabala

Azaleko **lur-azalaren** azpian beste hainbat azal badira eta, nahikoa da sakon zulo egitea azalok ikusi ahal izateko. Edorta Jimenez

**2** (izenondoekin)

**Lur azal** menditsu eta koskaduna baita ekaitzak gehien estimatzen duena. Pello Zabala

**Lur azal** eta itsas ordeka horietan. Pello Zabala

**3** irud/hed

Ontziak Marten lur hartuko du, eta hango **lurrazalaren** laginak jasoko ditu, gero Lurrera ekartzeko. Berria - Gaiak

**Lurrazaletik** 8,6 kilometroko distantziara, berriz, paraxutak zabaldu eta apurka-apurka lur hartuko du Marten, Gusev kraterraren gainean. Berria - Gaiak

Antena handia baliatu du Cassinik, Titan ilargiaren atmosferako lainoak saihestu eta haren **lurrazalari** argazkiak egiteko. Berria - Gaiak

Planeten **lurrazala** ikertzeko martxan jarritako proiektuak. Berria - Gaiak

Horretaz gain, grabitate-uhinak aztertuz zulo beltzen **«lurrazala»** ikertzeko gai izango lirateke astronomoak. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lurrazala aztertuko du** (3); **marteko lurrazala** (4); **marteko lurrazala aztertzeari** (3)
> **marteko lurrazalean** (3)
> **marteko lurrazaleko** (4)
> **marteko lurrazaleko** (4)

---

lurrazpi ik **lur 9**.

---

**lurrazpiratu,** lurrazpira(tu), lurrazpiratzen du *ad* lur azpira bota.

Liberalek Espainia-Nazio mitiko bat demokratiko samarra asmatu dute, Menéndez Pelayok berehalaxe beste mitologia batekin, tradizionalista eta katolikoa, **lurrazpiratu** diena Joxe Azurmendi

---

**lurrerarazi,** lurreraraz, lurrerarazten du *ad* lurreratzera behartu.

Urduri baino urduriago nengoen arren, ongi **lurrerarazi** nuen aeromodeloa. Joan Mari Irigoien

Hamar bat bira eragin ondoren **lurrerarazi** nuen. Joan Mari Irigoien

Lepoa moztu eta burua **lurrerarazi** nion, odola pol-pol zeriola. Patxi Ezkiaga

---

**lurreratu,** lurrera(tu), lurreratzen **1** da *ad* lurrera jaitsi; lurrera etorri.

Aireplanoa **lurreratzen** ari zen, boteka eta punpaka. Mirentxu Larrañaga

**Lurreratu** da helikopteroa. Xabier Montoia

Tristeagoa oraindik espaziontziak poliki-poliki **lurreratzen** ikustea, baina pilotuak hilda daudela jakinda, asfixiatu egin direla beren kabinetan **lurreratu** baino lehen. Bernardo Atxaga

Paraxutista asko ere **lurreratu** dira; beltzez margotuta zeuden, gauez ikus ez zitzaten. Josu Zabaleta

Hegan eta hegan, harik eta ibai baten **gainean** lurreratu eta uretaratu zen arte. Joan Mari Irigoien

Egundoko motor bat goitik behera etorri eta **errepidean** lurreratu zen haien aurrean. Iñaki Mendiguren

Talde osoa lokatzetan **lurreratu** zen. Iñaki Mendiguren

1755ean, Lisboa aldean izandako lurrikara bortitzean [...] Viso del Marqués herriko elizako dorrea goitik behera zerraldo **lurreratu** zen. Pello Zabala

Desagertu ziren; bideko hautsa berriz **lurreratu** zen. Koro Navarro

Liburuak apaletatik **lurreratuak**, batzuk gainera etenda. Koldo Izagirre

**2** *hed*

Ikertzaileek, baina, Huygensen jarri dituzte begiak, Saturnoren Titan ilargi gorrixkan **lurreratuko** den lehen zunda delako. Berria - Gaiak

Era berean, bera izango da kometa batean **lurreratuko** den lehena ere. Berria - Gaiak

**3** *irud*

Tortilla maltzurra, hegaldi labur eta aldrebes baten ondoren, harraskan **lurreratu** zen. Fernando Morillo

Gaileta bero bat **lurreratu** zen Herfen egunkariaren gainean. Lopez de Arana

-Haritz! **lurreratu** mesedez... -jarraitu zuen Arantxak. Fernando Morillo

Oroimenaren olatuek kostata **lurreratu** zioten bila zebilena. Joxemari Urteaga

Oroimenaren olatuek kostata **lurreratu** zioten bila zebilena. Joxemari Urteaga

• **4** da/du *ad* lehorretatu.

1942ko azaroaren 8an, amerikano tropak Ipar Afrikan **lurreratzen** dira itsasotik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aingura bota, eta itsasertzean onik **lurreratu** ziren. Juan Kruz Igerabide

Portu on batera iritsirik, **lurreratu** eta bi egun eta bi gau egin genituen lotan, neke eta saminagatik. Juan Kruz Igerabide

Zin egin zuten, bada, eta ontzia **lurreratu** genuen. Juan Kruz Igerabide

• **5** du *ad* lurrera bota.

Helikopteroa **lurreratu** baldin badute, nork ziurta dezake airekoei ere berdin eginen ez dietenik? Xabier Montoia

Nik hainbat frontetan eman izan dut lehen pausoa, hainbat Heinkel **lurreratua** naiz, hainbat kostazain hondoratua, hainbat rekete lepotua... Koldo Izagirre

Etsaiak inguratuko du lurraldea, zure babeslekuak **lurreratuko** ditu. Elizen arteko biblia

· Kotxetik etorri eta, Larrak zemento zakua **lurreratu** zuelarik, Pablo Sastre

**6** (era burutua izenondo gisa)

Horma pitzatuak beteko dizkiot eta **lurreratuak** jasoko. Elizen arteko biblia

Hango harrietatik batzuk San Nikolasko gotorlekua berritzera joan ziren, eta bertzeak gaztelu berria eraikitzera komentu **lurreratuaren** tokian. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **lurreratzeko pista** (4)
>
> **lurreratzen ari** (4)

---

**lurreratze** **1** *iz* lurrera jaistea; lurrera etortzea.

**Lurreratzeak** beldur handia ematen dit, ez aireratzeak bezainbat, baina handia nolanahi ere. Ramon Saizarbitoria

Banekien, larritasunezko **lurreratze** batean, arriskua izaten dela hegazkina jo-eta-txikitu edota sutan kiskaltzekoa... Joxe Austin Arrieta

Jaisten ari ginen, nahiz eta, esana zigutenez, bi motorrekin ere nahikoa omen, pneumatiko-parea hantxe, airean geldirik, edozein **lurreratzeren** aurretixe bezala. Joxe Austin Arrieta

Ontziratzeak eta **lurreratzeak**, italiarrekin eta falangista espainiarrekin izandako gorabeherak kontatzen jarraitzen du Dupuyk. Jokin Urain

**2** (hitz elkartuetan)

Goi-goian bezalaxe gindoazen, lasai samar eta **lurreratze**-gurpilik gabe. Joxe Austin Arrieta

DC-7 edo Super-Constellation-en bat edo beste igarotzen zen hegaz, **lurreratze**-trena jadanik aterata. Joxe Austin Arrieta

**3** ***lurreratze pista*** aireportu batean, lur hartzeko pista.

Helburua, aireratze eta lurreratze **pistaren** luzeera 1.754 metrotik 1.454ra gutxitzea da. Berria - Euskal Herria

**4** irud/hed

Lurreratze **pistak** besteok ere behar ditugu, ez ETAk bakarrik. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aireratze eta lurreratze** (3); **lurreratze moduluak** (5); **lurreratze pista** (3); **lurreratze trena** (3)
>
> **huygensen lurreratzea** (3); **larrialdiko lurreratzea** (4); **larrialdiko lurreratzea egin** (4)

---

**lurrikara** *(639 agerraldi, 60 liburu eta 157 artikulutan; orobat **lur ikara** g.er. eta **lur-ikara** g.er.)* **1** *iz* Lurrazalaren higidura edo astinaldi nabaria. ik **seismo**.

Italia ipar-mendebaldean eta Eslovenia mendebaldean Richter eskalan 5,1 graduraino iritsi zen **lurrikara** izan zen atzo. Berria - Gaiak

**Lurrikarak** detektatzeko erabiltzen diren sismografoek bezala jokatzen dute egitura horiek. Irene Aldasoro

Sufrimenduaren hipozentroa gaixoaren baitan bazegoen ere, epizentroa hurkoengana aldatua zela irudi zuen, eta, hedabideek **lurrikararen** epizentroaz eta ez hipozentroaz hitz egin ohi duten era berean. Imanol Zurutuza

Glaziarren urtzea **lurrikarak** eragiten hasi da Groenlandian. Berria - Gaiak

Berehala, trumoiak, danbatekoak, tximistak eta **lurrikara** izan ziren. Elizen arteko biblia

Derrigorrean babesten nauten lau horma hauen artetik, ezinezkoa den **lurrikara** batek bakarrik atera nazake, hondamendi latz batek aska nazake zuek denok izendatu duzuen legeak ezarritako nire patutik. Hasier Etxeberria

Orgasmoa ezustean etorri zitzaidan, **lurrikara** bat bezala. Juan Martin Elexpuru

**2** (izenondoekin)

Beste hamaika harresi ere jausi izan da **lurrikara** handietan, eta hamaika hiri hondoratu itsasoan. Xabier Amuriza

Pendulu astun bat da sismografoa; duen inertziagatik geldi geratzen da **lurrikara** bizkor bat denean, inguruan lurra dardaraz dagoela. Irene Aldasoro

Turkian **lurrikara** ikaragarri batek hainbat hiri suntsitu zituela, eta Biafran gerrak jarraitzen zuela. Joseba Sarrionandia

**3** irud/hed

Ezinezkoa izan zen, baina gertatu izan balitz, **lurrikara** politiko izugarria piztuko zukeen. Rafa Egiguren

Lehen tomo hori **lurrikara** baten antzekoa izan zen, bortizki inarrosi zuen errusiarren gogoa. Jose Morales

Bere liburu berriak *Cosmic landscape* **lurrikara** izugarria sortu du, eta beharrezkoa zen. Berria - Gaiak

Derridak Mendebaldeko zientzia eta metafisikaren bazterrak astindu ditu eta ohiko logozentrismoaren ontologiaren subjektuaren (eta objektuaren) eraikuntza deseraiki, hizkuntza eta testuen zirrikituak aldenduz, **lurrikara** bilakatu arte. Askoren artean

**4** (hitz elkartuetan)

Orain aste batzuk hasi ziren sumendia arretaz behatzen, **lurrikara** sail baten ostean. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **graduko lurrikara** (18); **graduko lurrikara gertatu** (3); **graduko lurrikara izan** (8); **lau lurrikara gertatu** (8); **lurrikara bat gertatu** (5); **lurrikara bat izan** (3); **lurrikara batek astindu** (3); **lurrikara eragin** (5); **lurrikara gertatu** (38); **lurrikara handia** (7); **lurrikara izan** (33); **lurrikara izugarria** (3); **lurrikara jasan** (3); **lurrikara politikoa** (7); **lurrikara politikoa eragin** (6); **lurrikara txiki** (4); **lurrikara txikiak** (4)
>
> **biderkatu dira lurrikarak** (3); **gertatu diren lurrikarak** (4); **gertatu lurrikarak** (3); **gertatutako lurrikarak** (3); **izandako lurrikarak** (4); **lurrikarak aztertzen** (3); **lurrikarak eragin** (8); **lurrikarak eragin dituen** (3); **lurrikarak izan** (4); **lurrikarak nafarroan** (3); **lurrikarak urtegiak eragin** (7); **lurrikarak urtegiak eragiten** (3)

**graduko lurrikaran** (3)
**gertatu zen lurrikararen** (3); **lurrikararen hondakinen** (3); **lurrikararen ondorioak** (5); **lurrikararen ondorioz** (6)
**lurrikararik handiena** (3)
**lurrikarek eragindako** (3)
**gertatu diren lurrikaren** (4); **lurrikaren berri** (3); **lurrikaren inguruko** (3); **lurrikaren kontrako asegurua** (3); **lurrikaren ondorioz** (4)

---

**lurrikaratxo** *iz* lurrikara txikia. • *irud/hed*

Bada lehen unean SIBEko burtsetan **lurrikaratxoa** eragin zuen arren (80 puntu galdu zituen Ibex-35 indizeak), ondoren 30 puntu inguru errekuperatu ahal izan zituen. Berria - Ekonomia

---

**lurrin** **1** *iz* usain gozoa. ik **perfume.**

**Lurrin** eta usain gozoek bihotza alaitzen, adiskidearen aholkuak barrua gozatzen. Elizen arteko biblia

Hilde anderearen **lurrin** erogarria. Alberto Ladron Arana

Nellieren ilearen **lurrin** arinak ez zion alde egin sudurretik. Lopez de Arana

Korridorera sartu orduko **lurrin** sarkor bat nabaritzen zen, arrosa-olio eta kolonia frantsesarena. Xabier Olarra

Nikotina eta mendazko **lurrin** sarkor hura. Aritz Gorrotxategi

Makilaren azal hezeak moztean uzten duen **lurrin** freskoaren hari meheak sudurrean ukituta. Jon Maia

Lagin bat **lurrin** garesti eta txanpon batzuk eman zizkidaten gero. Joxan Elosegi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Izebaren **lurrin** flaskoa hartu eta pixka bat zabaldu nuen lepoan eta galtzarbeetan. Aitor Arana

Jantzi politenak sartu dizkiot, eta Gabonetan oparitu nion Loewe **lurrin** potea. Eider Rodriguez

Zaratatsu hartzen zaitu, **lurrin** usainarekin. Lander Garro

Burua mugitzen zuen bakoitzean **lurrin** ufada bat arnasten nuen. Monika Etxebarria

Haren lagunak, gauean, Vienan eta munduan barrena ibili eta gero etxera itzultzen zenean, tabako eta **lurrin** usaina ekartzen zuen, eta itxura zabartu samarra, aire mundutarrek horditutako nerabe baten itxura. Xabier Olarra

Usain estrainio eta definigaitza darie erietxeei, **lurrin** mota askoren emaitza, ziurrenik. Iban Zaldua

Greenpeace erakunde ekologistak iaz eginiko salaketari erantzun zion atzo Frantziako **Lurrin** Industrien Federazioak (FIP). Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aerosol **lurrin** arruntez girotu zuen denda guztia, gure begien aurrean. Joxan Elosegi

Zetazko soineko zuri garden batez jantzia, **azahar** lurrin gozoz oparo bustia. Felipe Juaristi

Emetasun **lurrin** tanta bat suma zekiokeen, baina apaiz batena ere izan zitekeela erabakirik nuen. Joxean Agirre

Amoniako **lurrin** gotor batek bota zuen atzeraka. Hasier Etxeberria

**4** *(adiera honetarako, Euskaltzaindiaren Hiztegian **lurrun** agertzen da)* lurruna.

Ehunka **lurrin** baporek beren lurrina batera botata egingo luketenaren moduko zarata zen. Koro Navarro

**Lurrin** kiratsu eta mistiko bat, opakoa, astuna, nekez antzematen zena, berun-kolorea. Koro Navarro

**Lurrin** berotan izerdia dariola egotearen goxotasuna. Joseba Sarrionandia

**Lurrin** makina erraldoia. Karlos Zabala

**5** ***lurrin denda*** *(orobat **lurrindenda** g.er.)*

Iaz 155 saltoki berri zabaldu zituen Eroski Taldeak; horietatik zortzi hipermerkatuak izan ziren, 28 *Eroski center* supermerkatuak, [...] zazpi *Forum* kirol dendak, eta 39 **lurrindendak**. Berria - Ekonomia

**Lurrin-denda** dotore batean geunden. Joxan Elosegi

Gorpua ikusi zuenean, Beauvaisek, hasieran duda egin bazuen ere, **lurrin dendako** neska zela adierazi zuen. Koro Navarro

*Basmo* **lurrin dendako** Francisco Ferreñasek jaso zuen atzo 200ko merkatari onenaren saria, Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren eskutik. Berria - Ekonomia

**Lurrin-dendako** manikien argazkiek obsesionatzen ninduten. Joxan Elosegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lurrin denda** (11); **lurrin dendako** (8); **lurrin dendan** (4); **lurrin dendara** (4); **lurrin eta usain** (8); **lurrin goxoa** (4); **lurrin gozo** (9); **lurrin gozoa** (8); **lurrin gozoz** (6); **lurrin katearen** (7); **lurrin katearen zuzendaria** (5); **lurrin makina** (4); **lurrin sarkor** (5); **lurrin sarkor bat** (3); **lurrin usaina** (5); **lurrin zuria** (3)
**lurrina zerion** (3); **uraren lurrina** (5)

---

**lurrindegi** *iz* lurrun saltegia.

Oscarren aita *Eros Galeriak* izeneko saltokien jabea zen eta neska **lurrindegian** lan egiteko kontratatu zuen. Jasone Osoro

Eta hunek botatzen duen usain on gozoa **lurrindegi** bihi batean ez dela derautzuet. Herria

---

lurrindenda ik **lurrin 5.**

---

**lurrindu, lurrin(du), lurrintzen** **1** du *ad* lurrinez bete. ik **lurrineztatu.**

Ahoa **lurrintzeko** sofistikaziorik ez zuenez, noski, nabaritzen zena emakume gazte bati ahotik zerion usain gozoa zen. Ibon Uribarri

Logela mirra, aloe eta kanelaz **lurrindu**. Elizen arteko biblia

Eraman beti jantzi zuriak soinean, ez egon zeure burua **lurrindu** gabe. Elizen arteko biblia

Arnasa sakon hartu eta zorabiatu egin behar zuela zirudienean, berriz ere potoa hartuta lepaldea **lurrindu** eta alde egiten zuen. Jasone Osoro

**2** (adiera honi buruz, ik **lurrin 2**) lurrundu.

Komuneko ispilua **lurrindu** egin zen dutxako ur beroagatik, eta Pilarrek gorputza lehortzeko xukadera handiaren mutur batez garbitu zuen. Aitor Arana

**3** (era burutua izenondo gisa)

Masailetan behera irristatu zitzaizkionak Maitek xukatu zizkion samurki musuzapi **lurrindu** batez. Aitor Arana

---

**lurrindun** *izlag* lurrineko.

Koinak **lurrindun** zigarroekin hasi eta tabakorik gabeko menta zaporedunekin bukatu. Harkaitz Cano

---

**lurrindura** *iz* lurrina.

Goiz-lainoak, beroaldiko goizeroko **lurrindura** naturalak direnak. Pello Zabala

---

**lurrineztatu**, lurrinezta, lurrineztatzen *(orobat **lurrinztatu** g.er.)* **1** du *ad* lurrinez bete. ik **lurrindu**.

Itxuragabe ematen zion, nabarmen ageri zuen aho handi hartako ezpainak gorriz margotuko balitu bezain itsusi, edota bere bular alde zapala usain gozoz **lurrineztatuko** balu bezain zantar. Mirentxu Larrañaga

Jesus haurraren azala arrosa-urez **lurrinztatua** zegoan. Joan Mari Irigoien

Ile dotorea koloniarik garestienez **lurrineztatua**. Gotzon Garate

Egia esan, jendeari **lurrineztatua** ibiltzea gustatzen zaio. Gotzon Garate

**2** (era burutua izenondo gisa)

Eta apaintzen dugu geure satsa eta geure simaurra arrosa **lurrinztatu** batez. Joan Mari Irigoien

Aurpegia esku-ahur gizen **lurrineztatuekin** estalirik. Jose Morales

Itxura ezin apartagoa izango zuen beti Camillak, gasa **lurrineztatuetan** eta belus sarrian bildurik. Mirentxu Larrañaga

Mercierrek bizar beltz gorrixka dauka, oso **lurrineztatua**. Monika Etxebarria

---

**lurringai** *(orobat **lurrinkai**)* *iz* lurrinak egiteko gaia.

**Lurringaiei** eta antzekoei buruz gauza handirik ez zekien arren, sumatzen zuena, zalantzarik gabe, neskatoaren lurrina zen. Ibon Uribarri

Bizarra txukun-txukun eginik eta **lurringai** apur batez perfumatuta. Jose Morales

Gelan **lurringairik** gabeko xaboi merkearen usaina aditzen zen. Jose Morales

Josiasen oroitzapena zoragarria da, **lurrinkaiak** nahastuz lurringileak prestaturiko intsentsua bezala. Elizen arteko biblia

---

**lurringile** *iz* lurrinak egiten dituen pertsona. ik **perfumegile**.

Euli hilek **lurringilearen** olioa kutsatzen eta kirasten duten bezala. Elizen arteko biblia

Josiasen oroitzapena zoragarria da, lurrinkaiak nahastuz **lurringileak** prestaturiko intsentsua bezala. Elizen arteko biblia

**Lurringileak** denda bat zeukan Palais Royalgo behealdean. Koro Navarro

**Lurringileek** 0tik 8rako eskala bat erabiltzen dute askotan; arrosa, esate baterako, 6423 zenbakiaren bidez adierazten da eskala horretan: horrek esan nahi du sei parte dituela osagai lurrintsutik, lau, osagai azidotik, eta horrela gainerakoak. Irene Aldasoro

---

**lurringintza** *iz* lurrinak egitea.

Musketa (animalia baten jariakina), zibeta (era bereko substantzia) edo anbar arrea (balearen hesteetako hondakin digeritu gabeak) oso maiz erabiltzen dira, kantitate txikitan, **lurringintzako** nahasketetan. Irene Aldasoro

---

lurrinkai ik **lurringai**.

---

**lurrinketa** (adiera honi buruz, ik **lurrin 2**) *iz* lurrunketa.

Beroak hotzarekin tupust egitean hantxe sortzen den **lurrinketa** gero eta trinkoago horretan. Pello Zabala

**Lurrinketa** lana datorkio gero, hurrengo goiz azkarrean: erreka-laino, behelaino eta lanbrobeherak nonahi. Pello Zabala

Ebaporazioa edo **lurrinketa** prozesua ere, oxigenoarekin eta nitrogenoarekin nahastea eta kondentsazioa, eta euria, jakina, oso prozesu inportante eta garrantzi betekoak dira. Pello Zabala

---

**lurrinketatxo** (adiera honi buruz, ik **lurrin 2**) *iz adkor* lurrunketa.

Hezedura asko dagoenean lur azal eta inguruetan, horrelako **lurrinketatxoak** eta lainoxka umelak egoten dira. Pello Zabala

---

**lurrinontzi** *(orobat **lurrin ontzi**)* **1** *iz* lurrinak gordetzeko ontzia.

Apainketa mahaian hainbat **lurrinontzi** bistatu zituen, baina bere bizitzan ez baitzuen halakorik egundo ikusi, alferrekoak gertatu zitzaizkion. Patxi Zubizarreta

Ez zen errautsik aurkitu ez estufan ez **lurrin ontziaren** azpian. Koro Navarro

**2** (adiera honi buruz, ik **lurrin 2**) lurrunontzia.

Eta ontzi handiak ikusten nituen egunero, bai bela ontziak bai **lurrin ontziak**, munduko bazter guztietatik etorriak. Josu Zabaleta

---

**lurrintsu** 1 *izond* lurrinez betea.

Usain gozo edo **lurrintsuak**, usaimenaren atsegin puru edo berezkoak adierazten dituztenak. Irene Aldasoro

Galtzerdi leunagoak eta are perfume **lurrintsuagoak** ekartzen zituen Arlenek, amak eros ziezazkiokeenen aldean. Mirentxu Larrañaga

Soinekoraino jaisten den olio **lurrintsua** bezala. Elizen arteko biblia

Bera ez zen Marco Polo, espeziak, lore **lurrintsuak** eta enparauak bildumatzen zituena. Harkaitz Cano

Argi nahiz ilunpe, piano gaineko sei kandela **lurrintsu** pizten zituen beti. Anjel Lertxundi

Sudur luzea eta kokotsa erabat hautseztatuta zituen; ez ordea inolako hauts **lurrintsu** eta tindaturekin, [...] azala are nabarmenduko ziotenekin, baizik eta talko-hauts lodi eta zuri distiratsuekin. Mirentxu Larrañaga

Gazta parmesano batek usain **lurrintsu** pittin bat gehitzen zion ore egosien astuntasun hari. Karlos Zabala

• **2** (-en atzizkiaren eskuinean, izen gisa)

Pertsiako arrozaren samurra; Arabiako kafe-ale lehorren kilikaria; Siziliako ardoaren gozoa; Corintoko mahaspasa lehorraren **lurrintsua**; Kamargako gatzaren mina. Felipe Juaristi

**3** (adiera honi buruz, ik **lurrin 2**) lurruntsua.

Hozkirri-arrastorik ez, ordea; huraxe bai goiz sargori eta **lurrintsua**, eguzkia ere inoiz baino lirdingatsuago ageri, eta hostoak ere distira itsuan, eta gu izerdiz eta euriz eta olioz blai, jaioberriak bezain zoldatsu. Joxe Austin Arrieta

---

# lurrintsudun *izlag* lurrintsuko.

Amak perfume **lurrintsudun** botilatxoak ekartzen zizkion alabari, eta zeta kaskarreko galtzerdi ziztrinak, Mirentxu Larrañaga

---

# lurrintxo (adiera honi buruz, ik **lurrin 2**) *iz adkor* lurruna.

Bainugela hotzean ur beroak sortzen duen ke-lurrina; errepidea bero-bero badago, euria hasi, eta igotzen den **lurrintxoa**. Pello Zabala

---

# lurrinzale *izond* lurrinaren zale dena.

Atseginetara emanak behartsu bukatuko, ardo eta **lurrinzalea** ez da aberastuko. Elizen arteko biblia

---

lurrinztatu ik **lurrineztatu**.

---

# lurrontzi *(orobat **lurruntzi** g.er.)* *iz* lurrezko ontzia.

Haren eskumenean, urdaiz beteriko txahalkia, gibel patea eta erbi patea, **lurrontzi** hori batzuen barruan. Karlos Zabala

Eskua txahalki betearen **lurrontzian** paraturik. Karlos Zabala

Baziren han poteak, **lurrontziak**, pertzak, azpilak, latorrizko lanabesak, lapiko sakonak, [...]. Karlos Zabala

Edipo eta Esfingea, **lurrontzi** puskatu batean ume-marrazkieran pintatuak. Joxe Austin Arrieta

Burdinazko baranda garaia zuen, eta Augustinek granadondo bat zaintzen zuen han **lurrontzi** batean. Karlos Zabala

Goikoetxea **lurruntzi** lantegitik abiaturik, Gahardu eta plazan iragan eta ezker paretan bururatu dute. Herria

---

# lurrun 1 *iz* gorputz heze edo isurkari bero batetik jalgitzen ikusten den gasa.

Arina zen, **lurrun** bat bezala, ia irreala, gorrizta. Monika Etxebarria

Estu besarkatu ninduzun kale-ertzean, ahotik **lurruna** zerizula. Harkaitz Cano

Ahoa erdi zabalik, arnasaren **lurruna** elkarri emanez. Juan Kruz Igerabide

Lokomotorrarean **lurruna** arnasaren gisa mehe eta zuri arratsalde hotzean. Koro Navarro

**Lurrunezko** hodei lodiak. Joanes Urkixo

Lurra odolez estalirik zegoen, **lurruna** zeriola. Juan Kruz Igerabide

Eskaileretan beherakoan betaurrekoak oso gandutu zitzaizkion **lurrunez**. Irene Aldasoro

**Lurrunezko** Moulinex plantxa zuen erosia. Jesus Mari Mendizabal

**Lurrunezko** makinak bere garaian sortarazi zuen izua ikaragarria izan zen, jende oro trena errailetatik irteteko beldur baitzegoen. Txema Ramirez de la Piscina

*ik beherago* 7. Askoren artean

**2** (izenondoekin)

Tximiniatik gora ke arin bat baizik ez zen ateratzen, eta **lurrun** zuri bat zerien ihes hodiaren muturrari eta balbulen estalkiari. Karlos Zabala

**Lurrun** mehe hauskor batez inguraturik balego bezala. Gotzon Garate

Lur horrek orduan **lurrun** beroa botatzen du gora, eta hala, gainean dauden leku horietan ur gezako iturriren bat jaioko balitz. Santiago Iruretagoiena

Lurretik aireratzen den eta zerua halako hedadura batean pozointzen duen **lurrun** hilgarria. Xabier Amuriza

Kiratsa lurretik gora altxatu eta **lurrun** atsitu batek astundu zuen eguratsa. Karlos Zabala

Beldurra **lurrun** grisaren antzera isurtzen zen bertatik. Agustin Otsoa

**3** ohiko egoeran isurkaria den gai baten gasa.

Gas edo **lurrun** bat gainazal solido batean adsorbitzeko prozesuak beroa askatzen du beti. Irene Aldasoro

Likidoa **lurrun** bihurtzeko, energia askotxo behar da. Irene Aldasoro

Ura beti ur den moduan, izan izotz, izan likido edo izan **lurrun**. Hasier Etxeberria

Plastikoa urtu eta, **lurrun** eta hidrokarburozko gas ase bihurtzen da. Berria - Gaiak

Besterik ez bazen, bentzenoaren **lurruna** eduki behar zuen. Juan Garzia

Oliozko **lurrun** lodiak bihurritzen ziren haien gainean. Karlos Zabala

**4** (indarretxe nuklearretako ur lurruna)

Fisio nuklearrak beroa askatzen du, eta bero hori ura **lurrun** bihurtzeko erabiltzen da, eta **lurruna**, berriz, turbinak martxan jartzeko. Berria - Mundua

**Lurruna** presio handian irten zen, 200 graduko tenperaturan. Berria - Gaiak

Ihes egindako **lurrunak** ez zuela elementu erradioaktiborik argitu dute suhiltzaileek. Berria - Gaiak

**Lurruna** egiteko erabili den gas beroa hoztu da, neurri batean, eta 100 gradotan dagoela kanporatu egiten da zentraleko 60 metroko tximinia bietatik. Berria - Euskal Herria

Turbina gelara **lurruna** eramaten zuten hodiak ugerrak janda zeudela. Berria - Gaiak

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Apirilaren 13an abiatuko dute Azpeitiako **lurrun** trenaren zerbitzua. Berria - Euskal Herria

**Lurrun** indarrezko trena tunel bakoitzean sartzen zenean. Ibon Uribarri

Bigarren erreaktorearen **lurrun** sorgailuko hodi bat apurtu zen orduan.

Lau behargin hil dira Mihamako zentraleko **lurrun** ihesean. Berria - Gaiak

Kanbokoan ere edateko ematen dute ura; «bainu eta **lurrun** tratamenduen osagarri». Berria - Euskal Herria

Trena geltokian sartu zen, **lurrun** hodei batean bafaka. Alberto Ladron Arana

Oso beltza ilea, txamarra ere beltza [...] **lurrun** laino bat askatzen zuen hatsaldi bakoitzean. Pablo Sastre

Arnas kolpeak botatzen zituela esaten du, **lurrun** lainoxkak airean utziz. **Lurrun** mataza eskergek zeru ganga behera zekartela irudi zuen. Joxean Agirre

Honaxeago, **lurrun** moltso zuriak isurtzen zituen fabrika batek. Pablo Sastre

Eguzki errainu ongileek ur bihurtu ditek **lurrun** pila hori! Karlos Zabala

Unibertsoaren aurretik **lurrun** nahasmendu zurrunbilotsu bat besterik ez omen zegoen: hutsa, leizea, amildegia. J.M. Olaizola "Txiliku"

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Fenol **lurrun** kirats gaitzak jasanez. Juan Garzia

Alkohol **lurrunen** artean. Josu Zabaleta

Izan ere, zenbat eta itsasotik gertuago egon, orduan eta ur **lurrun** gehiago egongo da. Berria - Gaiak

Hezetasun **lurrun** bat altxatzen zen, euri ziri-ziri bat. Karlos Zabala

Zeruaren urdina zurbila zen: ke **lurrun** batzuk, zenbait gandor, aldian behin hodei bat iragaten zen eguzkiaren aurretik, nora ezean. Monika Etxebarria

Ideologia, izerdi **lurrunetan** datorkit azalera. Iñigo Aranbarri

Eta arnasa sakon hartzeari ekin diot, indarka ia-ia, **kresal** lurrunean igeri. Txillardegi

**7** irud/hed

Gauez, batez ere, Florenten garuna **lurrun** gaiztoz kargatzen zen. Karlos Zabala

Mitoek gehiegikeria karga bat izaten dute eta **lurrun** mistiko batean bilduta egoten dira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aspertu egiten zaitut beharbada -esan zizun Lupek, tristezia **lurrun** bati supituan leku eginez eta Vèroniqueren izena aitatzera ausartu ere egin gabe. Hasier Etxeberria

**8** ***lurrun makina***

Lehenengo garaietako **lurrun**-makina, pistoia zilindro baten barruan mugitzen zena. Irene Aldasoro

**Lurrun**-makina baten eraginkortasuan ez da % 20 baino askoz handiagoa. Irene Aldasoro

**Lurrun**-makina ematen zuen arnaska. Anton Garikano

Burua jasotzean Hogwartseko tren espresa ikusi zuten; **lurrun**-makina gorri-gorria kea botatzen ari zen bafadaka, eta nasa sorginez eta aztiz betea zegoen, beren haurrak trenera nola igotzen ziren begira. Iñaki Mendiguren

**9** *lurrun ontzi* ik **lurrunontzi**.

**10** ***ur lurrun***

Castejongo zentral termikoei so, tximinia txikienetatik ateratzen den **ur lurruna** besterik ez da ikusten; ondoko tximinia zabalagoetatik ez da **ur lurrunik** ateratzen; ezta kerik ere. Berria - Harian

Bolidoak igarotzean eragiten duen inarrosiak kristaldu egiten du atmosferako **ur lurruna**. Josu Zabaleta

Kometen lorratza aztertuta, **ur lurrunaren** arrastoak hauteman dituzte hainbatetan. Berria - Gaiak

Atmosferaren azpiko geruzetan dagoen **ur lurruna** goiko geruzetara igoaraziko dute eta hodeiak sortuko dituzte, modu artifizialean. Berria - Gaiak

**Ur lurrunezko** molekula batek hamasei mila aldiz xurgamen handiagoa du aire lehorrezko molekula batek baino, **ur lurruna** da beraz gure bero biltegia. Josu Zabaleta

Tenperatura jakin batean, asetasun-puntua iristeraino handitu daiteke aireko **ur-lurrun** kantitatea; puntu horretan, kondentsazioa hasten da. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lurrun bainuen** (3); **lurrun beroa** (4); **lurrun ihesa** (3); **lurrun laino** (3); **lurrun makina** (7); **lurrun ontzia** (4); **ur lurrun** (8)
> **lurruna egiteko** (3); **lurruna eramaten** (3); **lurruna irteten** (3); **lurruna sortzen** (3); **lurruna zeriola** (3); **lurruna zerion** (6); **ur lurruna** (8)
> **ur lurrunik** (3)
> **ur lurrina** (4)

---

# lurrunaldi *iz* lurrn botaldia.

Lupinek bere makila magikoaz ura berotzeko ontzia ukitu zuen, eta **lurrunaldi** bat atera zen bat-batean ontziaren muturretik. Iñaki Mendiguren

**Lurrunaldi** hura zeharkatuz geltokiko eskaileretan behera jaitsi zen. Iñaki Zabaleta

---

# lurrunarazi, lurrunaraz, lurrunarazten du *ad* lurruntzera behartu.

Pertza bezala jartzen du irakiten urazpia, lurrinontzian bezala **lurrunarazten** gaineko ura. Elizen arteko biblia

Sudurrak askoz mekanismo hobea du ura **lurrunarazi** eta airera bidaltzeko, eta, hala, gorputzetik beroa galtzeko. Irene Aldasoro

Aire kanpaiak gutxi ziren; bakoitzak, testuaren aginduei jarraiki analisi sistematikoan buru-belarri, azido kloridriko eta amoniako isuri puska ez nolanahikoa **lurrunarazten** zuen aire zabalera. Juan Garzia

---

# lurrundu, lurrun(du), lurruntzen **1** da/du *ad* isurkari bat lurrun bihurtu.

Ukendua ez delako berehala **lurruntzen**. Irene Aldasoro

Likorea azkar **lurruntzen** dun egun beroetan. Xabier Paya

Airearekin kontaktuan dagoen ura **lurrundu** egiten da; poliki-poliki egun hotzetan, eta bizkorrago egun beroetan. Irene Aldasoro

Arnasa **lurrundu** eta gora igotzen zen lainoa legez. Iñaki Mendiguren

Ur hori ere **lurrundu** egiten da, eta beroa gorputzetik kanporatzen laguntzen du. Irene Aldasoro

Bestela, ahotik ura **lurrunduz** galtzen da beroa. Irene Aldasoro

**Lurrunduriko** ura ihesi zihoan airean gora txistu gorgarrien erdian. Karlos Zabala

Eguzkiaren erradiazioa da kometaren izotza **lurruntzeko** arrazoi nagusia. Berria - Gaiak

**2** irud/hed

Hotz egin behar du kalean: leihoak **lurrunduta** daude. Anjel Lertxundi

Orduan edandako ardo guztia **lurrundu** egin zitzaion. Felipe Juaristi

Burmuinak **lurruntzeko** arriskuan zaude. Patxi Zubizarreta

Etorri bezala **lurrundu** zitzaion emakume hura. Harkaitz Cano

Hotzak, beroak, lurrunak..., eta jo-ta-bertan **lurrunduko** ote naizen beldurrak hartzen nau; beldurrak aurrena eta gogoak hurrena. Eta goxotasuna **lurrundu** egiten da zeure burua mundura ongi egokitutako pertsonatzat hartu bezain laster. Iñaki Segurola

Ni ere desagertua eta **lurrundua** nengoen, aire huts edo haize bihurtuta. Fernando Rey

**3** (era burutua izenondo gisa)

Roberto betiko lekuan zegoen: neutral corner-etik oso gertu eserita, oholtza karratuko argiari adi, ringeko izerdi **lurrundua** usnatzeko aski gertu. Harkaitz Cano

Hotzak hilik heldu naiz mendate baten gainera, lur jota, non nengoen ere ikusten ez nuela betaurreko berrien kristal **lurrunduen** atzetik. Jon Arretxe

**lurruneztatu**, lurrunezta, lurrunteztatzen da/du *ad* lurrunez bete.

Haren kiribil hilgarriak miaka dabiltza gure aurrez aurre; itsumustuan etorri datoz haren kiribil hori luzeak, haztamuka, ni **lurruneztatuz**, nire bila. Mirentxu Larrañaga

**lurrungailu** *iz* lurruna sortzeko gailua.

Arnastuta diodanean ez dut esaten porro batean erreta (erretzeak minbizia eragin dezakeelako eta, droga den heinean, menpekotasuna sor dezakeelako), baizik **lurrungailuak** erabiliz. Berria - Harian

**lurrungarri** *izond* lurrun bihurtu daitekeena.

Zilarbizia, beren ekitaldirako, ezinbestekoa omen zen, zeren eta espiritu finko **lurrungarria** da, hau da, printzipio femeninoa, eta sufrearekin konbinaturik, zeina lur sutsu maskulinoa den, Arrautza Filosofikoa lortzeko modua ematen du. Juan Garzia

**lurrunketa** **1** *iz* lurruntzea.

Eguzkiaren beroak eragindako **lurrunketaren** ondorio da euria. Irene Aldasoro

Gorputzaren gainazalera iristen den uraren **lurrunketan**, energia asko galtzen da bero sor gisa. Irene Aldasoro

Prostataren **lurrunketa** fotoselektiboa erabiltzen hasiko dira laster Gipuzkoako Poliklinikan. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Hilabete honen ezaugarri adierazgarrienak beroa, errea, **lurrunketa** edo ebaporazio prozesu ur xahutzailea, eta lehortea ditugu. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> prostataren lurrunketa (3)

**lurrunkor** *izond* lurruntzeko joera duena.

Hala ere, nukleo sendoa izan arren, kometak oso **lurrunkorrak** zirela nabarmendu zuen Whipplek. Berria - Gaiak

"Dagoen hau" (ni, hi, sentimendu hau, bizi-hondar edo herio-arrasto hauek...) lausoa da, **lurrunkorra**, "den hura" ez bezala. Iñaki Segurola

**lurrunontzi** *(orobat **lurrun ontzi**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lurrunontzi** agertzen da)* *iz* ur lurrunaren indarrez higitzen den itsasontzi edo ibaiontzia. ik **bapore**.

Bata edo bestea izan, Alec Smith hilik zen, eta Harry Dunkel **lurrunontzia** hondoratzekotan zen. Oskar Arana

Jendea egunero harritzen zen asmakuntza berriekin: **lurrun ontzia**, trena, telegrafoa, argindarra, harako edo honako lurraldearen aurkikuntza... Karlos Zabala

Lehorreko bideari ekingo zion edo Volgako **lurrun ontziren** bat hartuko zuen, Ural mendietara lehenbailehen iristeko. Karlos Zabala

Trena, posta kotxeak, **lurrun ontziak**, zaldiak, denen eskura zeuden. Karlos Zabala

**lurruntasun** *iz* aldakortasuna.

Bi arazo bereizi behar dira hemen: lehengaien prezioen **lurruntasuna**, bereziki nabarmena, eta prezio horien epe luzeko bilakaera. Koro Navarro

**lurruntsu** *izond* lurruna dariona

Zerbitzari bat sartu zen kafe **lurruntsua** zekarrela. Felipe Juaristi

Ohean atsedena behar du, eta agian katilukada handi bat txokolate bero **lurruntsu**. Iñaki Mendiguren

Horregatik du erretratuak aire bigun iheskor hori, aire **lurruntsua**, emakumearen soinekoa krema-kolorekoa baita. Felipe Juaristi

Hostaila sarriaren azpian freskotasun gozo eta **lurruntsua** ezkutatzen zen. Xabier Olarra

Merezi duen zerbaiten atzetik, uki dezakedan zerbaiten atzetik, eta ez amets **lurruntsu** baten atzetik. Juan Kruz Igerabide

**lurruntz** *iz* ezkertea.

Nork ez du miresten menda beltzaren lurrina, **lurruntz** morearen txiklin dilindaria edo eguzkiari jarraitzen dion lorearen portaera ikusgarria? J.M. Olaizola "Txiliku"

**lurruntze** *iz* isurkari bat lurrun bihurtzea.

Lorategia gauez ureztatu behar da, **lurruntzea** saihestu eta urari probetxu handiagoa ateratzeko. Berria - Harian

Orduan, gonaren eta gonazpikoaren kulunkari halako gandu bat zerion; itsas belar lohitsuen **lurruntze** baten erdian zebilen. Karlos Zabala

Izerdia ez da beti agerikoa izaten; izerdiaren ekoizpen-tasa **lurruntze**-tasa baino handiagoa denean baino ez da bustitzen larruazala. Irene Aldasoro

**lurruntzear** *adlag* lurruntzeko zorian.

Zoriontasun zinez desiratua beragandik bi urratsetara zegoen, bakardadearen itzalak atzera egiten hasiak ziren, eta bere arimaren hotza ur epeletan **lurruntzear** zegoen. Patxi Zubizarreta

lurruntzi ik **lurrontzi**.

**lurrustel** *(orobat **lur ustel**)* *iz* konposta.

Humusaren arabera, lurreko materia organikoaz eginikoak gara, **lurrustelez** eginikoak. Askoren artean

Emakume hura landare mardul osasuntsua zen, haren irudian, baratzeko **lurrustelean** hazitakoa, barazkien modura. Karlos Zabala

Urazek, eskarolek, txikoriek, zabalik eta **lurrustelez** zikin oraindik, beren bihotz bikainak erakusten zituzten. Karlos Zabala

Ziazerba eta mingarratz alorrek, errefau, arbi eta azenario zerrendek, patata eta aza landare handiek beren zamau erregularrak hedatzen zituzten, beren **lurrustel** beltza zabaltzen, hostoen mototsek berdetua. Karlos Zabala

· Hil nadila, ustel nazala **lur ustel** honek, lotsaren harrak irents eta ezaba ditzala nire hautsak. Anjel Lertxundi

Hobi hormatu batetik ateraia ematen zuen, **lur ustel** usaina zeriola larruko zulo zimurtu guztietarik jori. Itxaro Borda

---

## **lurrusteldu** *izond* lurrustela.

Lurrekoak gara, baita lurrezkoak ere: **lurrusteldua**k. Askoren artean

---

## **lursagar** *(orobat **lur-sagar** eta **lusagar** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lursagar** agerten da)* *iz* patata.

Nahi dute **lursagarrak** landa ditzagun armadaren hazteko. Elena Touyarou

Edozein armadetan bezala, salda mehe eta **lursagar** gurintsuz bazkaltzen ziren, arratsaldeetan militarrez bezti, formazio teorikoa irentsi aurretik. Itxaro Borda

Eta hamabi hektarea hartan bildutako pilo bat arto, tomate, tipula, **lusagar** eta babarrun jana nago ni. Txillardegi

**Lur-sagar** egosi bat edo bertze botatzen zieten Joanesi eta harekin batera lanetik itzultzen zirenei. Eneko Bidegain

**Lursagar** gordina jaten nuen ogi tartean. Joxan Elosegi

Kuiattoa esne opil gisa, **lursagar** xigortuekin. Herria

---

## lursail ik **lur 27**.

---

## **lursailtxo** *iz* lur sail txikia.

Artaburu bakoitzak badauka bere **lursailtxoa** defendatzeko, eta gaixoa haren tribukoa ez den atzerritarra. Oskar Arana

---

## lursuil ik **lusuil**.

---

## **lurtar** *(orobat **lurtiar** g.er.)* **1** *izond/iz* lurrari -ez Zeruari- dagokiona.

**Lurtarra** baino gehiago zerutiarra edo, hala nahi bada, bere barne hutsez eraikitakoa. Hasier Etxeberria

Ez zirudien soinu **lurtar** bat, ez zen fabriketako tutuen gisako sirena bat. Juan Garzia

Era horretako hainbat distira **lurtarrez** txundituta, fede erneberria iraungiz joan zen Agustin gaztearen baitan. Imanol Unzurrunzaga

Jaungoikoa abandonatuz gaitzari emanda bizi diren hiri **lurtarreko** biztanleek [...] betiko heriotza izango dute azkenean. Imanol Unzurrunzaga

Kristau-aroko hogeigarren mendean Mendebaldeko munduan ezinbesteko galdera zen hau, nolabaiteko paradisu **lurtar** bat ideologia sekular gehienen helburua baitzen. Iñaki Mendiguren

Joera horren azpian oso eragile **lurtarrak** egongo zirela: hiri, erresuma eta elizetako agintari larderiatsuak. Bernardo Atxaga

Ni ez bainauzu **lurtarra**, baizik eta izpiritua. Aurelia Arkotxa

Kanta Jaunari kantu berria, kanta Jaunari, **lurtar** guztiok. Elizen arteko biblia

Non dago **lurtarrontzat** zerua? Karlos Linazasoro

**2** (izenlagun gisa)

Gure **lurtar** bizitzan ikusten dugun guztia materia eta formaz osaturiko gauzak direla nabarmentzea. Xabier Kintana

Ordutik aurrera, munduaren arbuiatzaileak, **lurtar** gurarien loturetatik askatuta, hiria utzi zuen. Askoren artean

Arimaren etsai den **lurtar** gizakiaren osasuna. Askoren artean

Amaren begiratua baldin bada **lurtarra**, zeinek ukatu guri zerutarra dela lurra. Berria - Kultura

Haiei, izatez zerutarrak izanik, ez zaie axola argi egiterakoan begira dagoena **lurtarra** den. Xabier Etxabe

**3** lurrari -ez urari- dagokiona.

Izan ere, izaki **lurtarrak** uretako bihurtzen ziren, eta igeri egiten zutenak lehorreko. Elizen arteko biblia

Gizona, urte gehienak itsasoan emanda ere, **lurtarra** da, azkonarrak eta basurdeak bezalakoa. Paddy Rekalde

Jakin beharra daukazu gure familia **lurtarra** ez, baina itsastarra dela. Patxi Zubizarreta

Zer egin animaliak **lurtarrak** eta itsastarrak edo urtarrak direla irakurtzen badugu, sistematikoki baztertuz *lurreko* edo *itsasoko* bezalako hitz jatorrak? Pello Salaburu

**4** *iz* Lur planetako biztanlea.

Egiazko beste mundu bakarra, zeren, martiztarrek eta **lurtarrek** elkarrekin topo egingo balute, beti edukiko bailukete bizia elkarren ezaugarri. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **lurtar bat** (3); **lurtar guztiok** (9)
>
> **lurtarra da begiratua** (5); **zeru lurtarra** (4)

---

## **lurtasun** *iz* lur izateko tasuna.

Pedro Páramon, beste zentzu fisiko horretan ulerturiko **lurtasuna** azpimarratu behar da, nik uste, hasiera-hasieratik [...]: Mexikoko lur bazter bat dugu irudikagai, Comala, hautsez eta nekez lurrarekin berdindutako bere jendeekin. Juan Garzia

Itzul gaitezen **lurtasunaren** kontura, nahiz eta Comalako lurraren lehen irudia Paradisu izaniko Infernu batena ere baden. Juan Garzia

Letek kantuz esanik dakigu, bestalde, **lurtasuna** zabarra dela txori hegalariarentzat. Iñaki Segurola

---

## lurtiar ik **lurtar**.

---

**lurtsu** *izond* lur asko daukana.

Leku batzuetan **lurtsuak** izaten dira eta baita hareatsuak eta harri-koskorrez beteak ere. Santiago Iruretagoiena

Zorua toba edo harkaitza balitz, zoruaren beraren gainean irekiko da kanala; aldiz zorua **lurtsua** edo hareatsua balitz, tunelaren zola eta paretak ganga batekin egingo dira eta bertatik eramango da ura. Santiago Iruretagoiena

Leku hori **lurtsua** baldin bada, husten eta lehortzen joan beharko da oinarri sendoa aurkitu arte, beti ere gero egingo den hormak izango duen zabalera baino tarte handiagoa hartuz oinarria egiteko. Santiago Iruretagoiena

Mahasti eta ogi landen erdian goiti beheiti eztiak uhain **lurtsu** bilakatzen ditu ibiltariaren urrats biziak. Piarres Aintziart

---

**lurtu**, lur(tu), lurtzen da/du *ad* lur bihurtu.

*Pedro Páramon*, beste zentzu fisiko horretan ulerturiko lurtasuna azpimarratu behar da, nik uste, hasiera-hasieratik (eta bukaeraraino, protagonista ere **lurtu** egiten baita azkenean [...]). Juan Garzia

Lur nintzen ta **lurtuz** noa, zugan bat egin arte. Joxerra Garzia

---

**lurtxo** *iz adkor* lurra.

Aurrena, uhartediko **lurtxo** hareatsu batean, biltzarra egin zuten fortuna-zaldun bihurtzeko. Juan Garzia

Hator honantz, Enmedioko **lurtxo** hori. Juan Garzia

---

**lurtza** *iz*

Eta harena da **lurtza** hori guztia. Juan Garzia

---

lurzati ik **lur 30**.

---

**lurzoru** *(382 agerraldi, 25 liburu eta 102 artikulutan; orobat **lur zoru** 30 agerraldi, 4 liburu eta 4 artikulutan; eta **lur-zoru** g.er.)* **1** *iz* ibiltzen garen gainaldea. ik **lur 7; zoru**.

Gelan batetik bestera, eskuak gorantz zituela, eta oinak **lurzoruan** bizkor bezain irmo finkaturik. Mirentxu Larrañaga

Gure oinpeko **lurzoruan**, udako beroa suma zitekeen artean. Mirentxu Larrañaga

Luziak tarte bat bilatu zuen mukuru betetako barran eta **lurzoruan** utzi zituen poltsak. Joxemari Iturralde

Joek zigarrokina bota eta takoiaz zanpatu zuen **lurzoruaren** kontra. Lopez de Arana

Ziegako **lur zoru** zikinean. Felipe Juaristi

Arku horiek, era berean, katedraleko **lurzoru** iraunkorraren euskarriak izango dira. Berria - Kultura

Joanes oin hutsik zegoen, eta gelako **lur zorua**, pinu egurra izan arren, hotza zen. Felipe Juaristi

Bere burua zurezko **lur zoru** garbira bota zuen. Felipe Juaristi

Mexikon karrera hasi bezperan ekaitza izan zen, eta horrek **lurzoru** lehorra espero zutenei, Carlos Sainz tartean, kalte handia eragin zien. Berria - Kirola

Machu Picchuko **lurzorua** 2.500 metroko altueran dago ez zela batere egonkorra. Berria - Gaiak

Turisten joan-etorri etengabeak lurrikara txiki batek adinako kaltea eragiten diote **lurzoruari**. Berria - Gaiak

**2** lurraren gainaldea.

Baina **lurzoru** gogorra eta berdin samarra behar dute gurpilek; Lurreko eremu handi batean dagoen **lurzoru** aldapatsu eta malkartsuan ibiltzeko, hobeak dira oinak. Irene Aldasoro

Murrizte hori ekarri duten faktore garrantzitsuenak hazkunde demografikoa, desertifikazioa eta **lurzoruen** higadura dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Siberiako lurraldearen **lurzoru** gogor idorra jotzen hasi ziren berriro ere haren zaldiaren zangoak. Karlos Zabala

Aireak ez baitu **lur zoruko** tenperatura bera. Pello Zabala

Izotza eta ihintza, adibidez, **lur zoruan** dira normalan; baina, 10 zentimetro gora, beste koska bat du hotz-beroak. Pello Zabala

Gero eta gutxiago dira **lur zoru** gainean, arraso bertan etzanda lo egiten dutenak. Pello Zabala

Eusko Jaurlaritzak **lurzoru** kutsatuak garbitzen ez dituztenak zigortzeko neurri zehatzak proposatu dizkio Eusko Legebiltzarrari. Berria - Euskal Herria

**3** (etxegintzan)

Lurra **lurzoru** da agintarientzat. Berria - Ekonomia

**Lurzoruen** jabeek eta espekulatzaileek. Berria - Euskal Herria

Ekimen pribatuak **lurzoruaren** merkatuan duen erabateko kontrola. Berria - Euskal Herria

Hemendik aurrera udalek **lurzoruak** urbanizatzeko prozesuak abiatu ahal izango dituzte hirigintza-agentearen bitartez. Berria - Euskal Herria

Propaganda bereko beste orri batean txaleten aurkako informazioa dator, behar duten **lurzoru** ugariagatik. Pako Aristi

EAEko **lurzoruaren** lege proiektua. Berria - Harian

SAk eta PPk osoko zuzenketa aurkeztu dute **Lurzoruaren** Legea aldatzeko. Berria - Euskal Herria

ELAk dionez, etxebizitzak eraikitzeko kalifikatutako **lurzorua** egon badago Hego Euskal Herrian. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Gobernuak ia 3,5 milioi metro koadro **lurzoru** erosiko ditu, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko. Berria - Euskal Herria

**Lurzoru** horren salerosketaren ondoren, 130 milioi euroko plusbalioak lortuko lituzke Gasteizko Udalak, Alonsok azaldu duenez. Berria - Harian

**Lurzoruak** sailkatzeko prozeduran eskatu ditu, batez ere, aldaketak. Berria - Euskal Herria

**Lur zoruen** urbanizazioak Iruñerri inguruko udalerri askoren diru sarrerarik garrantzitsuena dira. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lurzoru publikoaren** (3)

**kalifikatutako lurzorua** (3)

**autonomia erkidegoko lurzoruaren** (7); **eaeko lurzoruaren lege** (17); **eaeko lurzoruaren legea** (13); **eaeko lurzoruaren legearen** (3); **erkidegoko lurzoruaren lege** (5); **etxebizitza eta lurzoruaren** (3); **jaurlaritzaren lurzoruaren lege** (6); **lurzoruaren espekulazioa erabiliz** (3); **lurzoruaren lege** (63); **lurzoruaren lege egitasmoa** (15); **lurzoruaren lege egitasmoak** (7); **lurzoruaren lege egitasmoaren** (6); **lurzoruaren lege egitasmoari** (4); **lurzoruaren lege proiektua** (13); **lurzoruaren lege proiektuaren** (5); **lurzoruaren legea** (48); **lurzoruaren legeak** (7); **lurzoruaren legean** (3); **lurzoruaren legearen** (15); **lurzoruaren legeari** (5)

**lurzoruen legearen** (3)

---

lusagar ik **lursagar**.

## **lusitaniar** *izlag/iz* portugesa.

Biografia Mitologikoa, Liburutegi **Lusitaniarra**, Geografia Konparatuaren Hiztegia. Jon Alonso

**Lusitaniar** famatu haien ondorengo historikoak. Jon Alonso

Edota bestela, esadazue era berean, ez zela zaldun ibiltari izan, halako Merloko Juan hura, **lusitaniar** kementsu hura. Patxi Ezkiaga

Ezin deskribatzeko modukoak dira, baita ere, **lusitaniarren** pena, amorru eta laidoa. Jon Alonso

---

## **lusitano** *izond* portugesa.

Soldadu-osteak paradan formatuak, horrelaxe irudikatzen ditugu, infanteak eta zaldunak oina lurrean, ikur nazkagarriaren jaitsierari eta ikur kristauaren zein **lusitanoaren** eraikitzeari begira, ahots bakarraz oihu egiten dutela Gora Portugal. Jon Alonso

---

## **luso** *izond* portugesa.

Mendian behera zaldieria bailetorren egin zuen aurrera gudari **lusoen** Irizar autobusak. Berria - Kirola

Entziklopedia Politikoa, **Luso**-Brasildarra, Britainiarra, osatu gabea, Historia eta Geografiari buruzko Hiztegia. Jon Alonso

---

## **lustratu**, lustra, lustratzen **1** du *ad* distira eman, lustrea eman.

Arazoak zituenean horixe egiten zuen: lasaitzeko, zapatak **lustratu**. Harkaitz Cano

Konplizitate keinu bat egin zion eskopeta **lustratzen** jarraitzen zuen anaiari. Harkaitz Cano

Zutitu eta trapuarekin zaldiaren bizkarra **lustratzen** hasi zen. Harkaitz Cano

Minutu batzuk lehenago **lustratutako** zapatak. Iñaki Zabaleta

Ohitura zen zapatak oliotan urtutako kedarrez **lustratzea**. Patxi Ezkiaga

Idazmahai handi bat zegoen, ziratua eta kontu handiz **lustratua**. Josu Zabaleta

**2** irud/hed

Harrotasunez adierazi zuen alabaren liburuekiko zaletasunarena, horren aipamenak Noraren nortasuna **lustratuko** zuen uste osoz. Anjel Lertxundi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Eskularru zuriak zituen, sable distiratsua eta larruzko pistola-zorro **lustratua**. Matías Múgica

Igandetako galtza motx eta zapata gogor baina **lustratuak** jantzi eta hirira abiatzen ziren. Iñaki Zabaleta

Berriro lur hartu zuten bere bota **lustratuek**. Harkaitz Cano

---

## **lustre** 1 *iz* distira.

Odolaz botoiak, lekeda, frijidurak, odolkiak, horma-margoak eta **lustre** emateko orea egiten zituen. Juan Garzia

**2** betuna, krema.

Zapatei **lustrea** behin eta berriro ematen. Xabier Mendiguren Elizegi

Geroztik geratu zitzaion zapatei **lustrea** ateratzeko zaletasuna. Harkaitz Cano

Larruazal beltzak **lustre** koipetsua erakusten zuen. Iñaki Zabaleta

**3** irud/hed

Ozen eta maiz egiten zuten barre, hortz-ilara hits eta **lustre** gabea agerian utziz. Mirentxu Larrañaga

Erroma edertzearren eta Elizari behar adinako **lustrea** ematearren egin berri zituen lanen gastuak kitatzeko... J.M. Olaizola "Txiliku"

Esteban Garibaykoa 1533an jaio zen **lustre** handiko familia oñatiar euskaldun batean. Patziku Perurena

Iturrino dontsua orain hor dabil penatuta, bere duintasunari **lustre** pixka bat eman ezinik. Anjel Lertxundi

Gutariko gehienok pasadizoko geltoki bat genuen telebista, [...] **lustrea** (eta kontu korronte erosoa) emango zigun best-seller baten bidean. Anjel Lertxundi

---

## **lustreatu** *izond* lustrea eman zaiona.

Arratoi handiaren pauso hotsa nabarituko nukeen, hurbildu egingo zitzaidan ofizialaren bota **lustreatuaren** forma hartuta. Koldo Izagirre

---

## **lustreatzaile** *iz* lustrea ematen duen pertsona.

-Ez nuen asko uste gure zapata **lustreatzailea** ikusi behar genuenik berriz han! Koldo Izagirre

---

## **lustredun** *izond* lustrea duena, distiraduna.

Gogaitu egiten zuen bistaz ere ezagutzen ez zituen zarauztar nahiz udatiar **lustredunenen** festara lagunik gabe agertu beharrak. Anjel Lertxundi

Izen **lustredunei** ihes egin arren hortxe dago beti egolatriaren sagarra, ergelkeriaren arbolan zintzilik eta distiratsu. Xabier Mendiguren Elizegi

"Serendipity!" esan ahalko zuen Lertxundi idazleak horra bizitzera joan zenean, etxearen iragan **lustreduna** ezagututa. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **lustretsu** *izond* lustrez betea, distiratsua.

Erdirago, aldare-harrian etzanda, ereinotz adar polit bat ikusten zen, hosto **lustretsu** eta lore ugarikoa. Bernardo Atxaga

Niri dagokidanez, dontsu-banda **lustretsuaren** eskuin--muturrean nago, bat-bi bat-bi, urduri halako jendearen konpainian, ubi sunt topogune etxetiar horren astoa nire kontakizun honen errotarrira lotu nahian: Anjel Lertxundi

---

## **lustro** *iz* bost urteko denbora bitartea.

**Lustro** batzuk eman zituela Luvinok buruko ilea ikutu gabe. Unai Elorriaga

---

**lustroso** *izond* lustretsua.

Oso betile **lustrosoak** zituen, saltzeko modukoak. Unai Elorriaga

Handik egongela handi eta **lustroso** batera. Pako Aristi

---

**lusuil** *(corpusean* ***lursuil*** *soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***lusuil*** *agertzen da)* *iz* lurrezko suila.

-Ez duzu izango ezertarako balio ez dizun **lursuilen** bat? -galdetu zion. Josu Zabaleta

---

**luteranismo** *iz* M. Lutero eraberritzailearen doktrina.

**Luteranismoak** gizaki berria aldarrikatzen zuen. Askoren artean

Halaxe gertatu zen Erreformarekin; **luteranismoa** etorri baitzen protestantismoaren ordez. Koro Navarro

---

**luterano** *(orobat* ***luteriano*** *g.er.)* *izond/iz* Luterori dagokiona; luteranismoari dagokiona; Luteroren doktrinaren jarraitzailea. ik **lutertar**.

Alsfed-eko eliza **luteranoaren** kanpandorreak. Iban Zaldua

Fede **luteranoaren** eta katolikoaren artean kulunkatzen den liturgiarako errituala osatu zuen. Berria - Kultura

Dorace Julieta Edinger Brasilgo misiolari **luteranoa** bortxatu eta hil egin zuten Nampulako etxean. Berria - Gaiak

Italiako emakume-jantzi luxuzko sentsualak eramaten omen zizkien Alemaniako emakume aurreiritzi gabeei; Alemaniako gerruntze **luterano** estuenak, Italiako emakume vatikanozaleenei. Anjel Lertxundi

**Luterano** zenbaiti, Kristoren gorputza nonahi zegoela baitzioten, *Nonahitasunzaleak* esaten zitzaien. Xabier Olarra

**Luterano** batekin lotu nahi ote zuen orain Idiakezek? "Hurrena otso bat harrapatzen duzuenean," esan zien gizon zintzoak, "hankatik lotuta jarri katean, eta goizean **Luterano** bat aurkituko duzue". Aingeru Epaltza

---

luteriano ik **luterano**.

---

**luterozale** *iz* luteranoa.

Errepublikan bizi ziren **luterozaleak** beste ezpalekoak ziren. Felipe Juaristi

---

**lutertar** *(orobat* ***luthertar*** *eta* ***luthertiar****)* *izlag/iz* luteranoa.

Bi erlijio horietako bakoitzak bere burua beteginentzat eduki zezakeen; kalbinista Jesukristok esandakoari atxikiagoa zelakoan zegoen, eta **lutertarra** apostoluek egindakoari. Iñaki Iñurrieta

Familiako lehen **luthertar** eta ustez bakarrarena. Joan Mari Irigoien

Zeren eta zure osaba **luthertarra** zen eta bekatu mortalean zegoen. Joan Mari Irigoien

Judu, mairu, turko ala **luthertiar** fedegabeen taldean. Piarres Xarriton

Ea Errege Txit Kristauak bere Erreinuko **luthertiarrekin** eta beste heretikoekin egin zuen bakea, hots, bakoitza bere gisara eta, erraten den bezala, bere kontzientziako libertatearen arabera bizi zedin, goretsi behar den ala gaitzetsi? Piarres Xarriton

---

**lutertasun** *(corpusean* ***luthertasun*** *soilik)* *iz* luteranismoa.

Gutienean bazenerrake hura dela **luthertasun** handia, gauza itsusia, eta ez dakizula zer gaztigu ordena halakoari. Joan Mari Irigoien

---

luthertar ik **lutertar**.

---

luthertiar ik **lutertar**.

---

**luthier** *iz* lanbidez hari musika instrumentuak egiten edo konpontzen aritzen dena.

Hala, software egileek hartu dute garai batean **luthier** askok betetzen zuten papera: musika tresnak sortzen dituzte, sorkuntza garaikiderako musika tresnak. Berria - Kultura

Iruñeko eta Madrilgo **luthierrekin** harremanetan jarri eta tresna gehienak prest daude dagoeneko doinua berriro aireratzeko. Berria - Kultura

Max Vandervorst **luthierrak** gaztetxoenei zuzendutako kontzertua emango du bihar Gasteizko Antzoki Nagusian. Berria - Kultura

---

**luto** *(orobat* ***lutu****)* *iz* dolua.

**Lutoa** gorde behar baitut oraindik. Joxemari Urteaga

Oraindik **lutoa** zerabilela bidali zizkion geroz eta gutun ausartago haiek gogoratu zituen. Joxemari Urteaga

Gure amak malkorik isuri gabe ikusi zuen bere iraganaren gainbera eta ez zuen **lutorik** jantzi harengatik. Fernando Rey

Ez da denbora asko **lutoa** kendu dudala. Joxemari Urteaga

**Lutuz** jantzita ibiltzen zen beti. Josu Zabaleta

Gizonezkoak beltzez jantzita zeuden, ez **lutoz** ordea, ohituraz baizik. Felipe Juaristi

Txingarren gainean ez da gelditzen errauts beltz leunak baizik, **lutozko** satinezkoen antzekoak. Xabier Olarra

Ehorzketa, hileta-elizkizunak, meza, eskelak eta **lutu**-jantziak antolatzeari ekin genion. Joseba Urteaga

---

**lutodun** *iz* doluduna.

**Lutodunak** eserita zeuden geletara sartu izan zen. Anton Garikano

---

**lutoki** *adlag* sakonki.

Oso tarteka baizik ez zuen hitz egiten, ozen, sakon, **lutoki**, etenaldiak eginez esaldien artean, arrosarioa, letaniak edo beste edozein otoitz, erritual bat errezitatzean plazera kausituko bailuen. Jon Alonso

---

lutu ik **luto**.

---

**lutxalibre** *iz* borroka librea.

**Lutxalibrean** jakin arren, izugarria izan behar du denon bistako Hirutasun Santu berritua izatea: aldi berean Orakulu, Golem eta Midas. Hasier Etxeberria

---

**lutxo** *iz* ur gezetako arraina, ibai eta aintziretan bizi dena, muturra luzea eta gorputza berdaxka zerrenda arreduna dituena *(Esox lucius)*.

**Lutxo** handiak ere deskargatzen ari ziren, beren moko basa luzatuekin, ibaietako bidelapur zakarrak, burdinaren kolore grisekoak. Karlos Zabala

Ibaian arrain ugari egoten da: zarboak, tenkak, **lutxo** jatunak, karpa zilarkarak, perka hegalgorriak, aingira irristakorrak. Koldo Biguri

Anaiok, ez dut jateko gogorik; baina **lutxo** deritzan arrainaren zati bat banu, agian jan egingo nuke. Gaixo zelarik, **lutxo** arraina jan zuen neguan. Askoren artean

Hiru **lutxo** eder ongi prestatuak eta aita santuak hain gustura jaten zituen izkirazko pasteltxoak. Askoren artean

Frantzian **lutxoa** arrain oso fin eta garestitzat hartzen dute. Askoren artean

Geroago, Claire izebaren inguruan ibiltzera joan zen, zamoei eta **lutxoei** kentzen zizkien maskuriak eman ziezazkion. Karlos Zabala

---

**luxanga** *izond adkor* luzanga.

Urrezko belarritako **luxanga** polit horiek. Patziku Perurena

Aitona xaharren bixajeko mutikoak, eta haietako asko beren hankaxixtor **luxanga** ahulekin, hain gazte eta beren gorputz kakotua ezin tentetuz. Patziku Perurena

---

**luxatu**, luxa, luxatzen **1** da/du *ad adkor* luzatu.

Garia eta besteak ari dira, xuabe, isilean, erroak hartzen, xuxtartxoak **luxatzen** eta xendotzen lurrean. Pello Zabala

Nik leku batean uste nuena, beti besteren batetik agertzen zitzaidan, belar tartetik lepoa **luxatuz**, ager gordeka: [...]. Patziku Perurena

Hurrak jausi orduko, garba ttikiak zintzilik **luxatzen** hasten dira, negua baino lehen. Pello Zabala

**2** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Horien ondotik, azaltzen dira beste txima txuri **luxatuak**, goitik behera ile ongi kardatuaren antzekoak. Pello Zabala

Gari-orratzek, eguzkia goraka hasi eta eguraldiak ezer laguntzen bazuen, **luxatu** bat hartuko zuten igandetik igandera, eta han hasiko ziren asmatzen zein gari jenero eta motatakoak ote ziren. Pello Zabala

---

**luxazio** *iz* lokadura, trokadura.

Medikuek ez zioten ezer argirik esaten, **luxazio** bat izan zitekeela, masajeak hartzera joan behar zuela, baina bitartean kamioia garajean geratzen zen, eta ez zen dirurik sartzen etxean. Iban Zaldua

Ezker sorbaldan **luxazio** hasiera bat izan zuen Maccabiren aurka. Berria - Kirola

---

**luxe** *izond adkor* luzea.

Gazte ileargi, muxugarbi bat zen Kruz Lete, fina esaten zaien horietakoa, argal samarra iharra izan gabe, **luxea** eta altua lekukoek diotenez. Xabier Mendiguren Elizegi

Kolore gorri, zuri eta berdezko xingola dozena bat erosi dut bertan, baita kandela **luxe** bat ere. Txillardegi

Batek behatz ttikia motxa duela, besteak **luxea**... Patziku Perurena

Orein batzuk geneuzkan adarrak, eta beste batzuk ez, baina denok geneuzkan lau hanka, eta mutur **luxe** bat. Joan Mari Irigoien

Biper **luxe** hori, hemengoa, hain goxoa, ezagutarazi behar zen, iduri bailuke galtzen ari dela. Herria

Bere notario-idazkera etzan eta **luxe** harekin. Fernando Rey

---

luxenburgoar ik **luxenburgotar**.

---

**luxenburgotar** *(orobat **luxenburgoar**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **luxenburgotar** agertzen da)* *izlag* Luxenburgokoa, Luxenburgori dagokiona; Luxenburgoko herritarra.

Frank Schleck **luxenburgoarrak** Euskal Herriko Itzulia utzi zuen atzo, erorketa baten ondorioz.Eta laster, Dachau-n ziren belgikar, holandes eta **Luxenburgotar** gutiak autobus eta anbulantzietan eraman zituzten beren herrietara. Marzel Etxehandi

---

luxo ik **luxu**.

---

**luxu** *(orobat **luxo** g.er., **luju** g.er. eta **lujo** g.er.)* **1** *iz* beharrezkoak ez diren gauza garestien multzoa; aberarastasun erakustaldia.

Bete-beteko **luxu** burges sendoa. Karlos Zabala

Ia Europako gorte guztietan baliatu ditu bere espia-dohainak **guztizko** luxu baten truke. Anjel Lertxundi
Alferrikako **luxua** dirudi arnasa azaletik hartzeko gaitasunak. Irene Aldasoro
Gure xingola zuriaren **luxu** arranditsuak. Josu Zabaleta
Lehenbait lehen beste zerbait aurkitu behar dugu, **luxu** asiarra baita hemen bizitzea. Harkaitz Cano
Gurasoen diruari, etxeei, autoei eta **luxuari** uko egin eta iraultzaren alde borrokatzeko eman omen zuen izena. Inazio Mujika Iraola
Inguratzen nauen **luxuak** liluratzen nau. Josu Zabaleta
Hotel baten **luxuarekin** apaindurik zegoen. **Luxuaren** historia merkataritzaren historiaren parte eder bat litzateke. Karlos Zabala
Egungo **luxuak** biharamuneko beharrak diren heinean. Iñaki Heras
Aberatsak **luxura** eta harrokeriara, diru pilatzera bezain emanak dira. Iñaki Heras
Dotore eta txukun jarrita zegoen, **luxuz**. Migel Angel Mintegi
**Luxuzko** apaingarriz betetako gelak. Pello Lizarralde
**Luxuzko** merkataritza handia zegoen Asiako inperioetan. Iñaki Iñurrieta
Virgin hiri inguruan eraiki duten **luxuzko** hotel berri horietako bat da. Iban Zaldua
**Luxuzko** automobilak eta, ia beti, **luxuzko** emakumeak gidariaren ondoan. Migel Angel Mintegi
Modeloa, artista, azafata... edo **luxuzko** puta bat izan zitekeen. Migel Angel Mintegi

**2** (hitz elkartuetan)

Dotoretasuna eta txukuntasuna, **luxu** ukitu batekin, nonahi zeuden. Migel Angel Mintegi
Handiak ez izan arren, biztanle askokoak diren estatuetan, **luxu** gogoa nagusitu egiten zaio nabarmenkeriarako joerari. Juan Martin Elexpuru

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**luxu bat da** (6); **luxu handiegia** (3)
**apaindura xumearen luxua** (3); **luxua da** (9); **luxua dela** (6); **luxua izan** (3); **luxua maite** (3)
**luxurik gabe** (4)
**luxuzko ertzain** (10); **luxuzko etxebizitzak** (3); **luxuzko hotel** (8); **luxuzko hotel batean** (3)

---

# luxuria *(orobat **lujuria** g.er.)* *iz* haragikeria, lizunkeria.

Nire **luxuria** asebetetzeko zeregin osasungarrian eman ditut nire egunak, funtsean. beste bekatu bat eskatu zuen eta orduan **luxuria** eskaini zioten. Karlos Zabala
**Luxuria** bekatuari buruz testu bat idazteko proposamena. Karlos Zabala
**Luxuria** jabetu zen nitaz eta inguratu egin ninduen bere traiziozko itzal mugikorrez. Karlos Zabala
**Luxuriazko** eta lizunkeriazko giro bat sortu nahi dut. Karlos Zabala

---

# luxurioso *(corpusean **lujurioso** soilik)* *izond* luxuriari dagokiona, haragikeriazkoa, lizunkeriazkoa.

Interneteko pornografia orrietan sartzea aldizkari infinitu batean murgiltzea bezala duk, ez zeukak amaierarik heuk amaitzen duan arte... korritzen haizenean atera azkar handik, telefonoak korritzen jarrai ez dezan, esan zion lagunak nabigazio **lujuriosorako** helbide bat emanez. Pako Aristi

---

luza gabe ik **luze 13**.

---

# luzabide *iz* luzamendua, luzagarria.

Egoera bere onera ekarri zuen, beraz, azafaten jardunak, eta **luzabide** gehiagorik gabe heldu zioten hiru aurkezleek hienaren zigorraren auziari. Karlos Linazasoro

---

# luzadura *iz* luzatzea.

Ezpain ertzaren **luzadura**, ozta-ozta ohargarria bisaia itxuraz neutroan; horra nire bizkar irriz ari zelako marka. Aingeru Epaltza

---

luzaera ik **luzera**[1].

---

luzagabe ik **luze 13**.

---

# luzagarri **1** *izond* luza daitekeena.

Arrantzarako pita, amu, kanabera **luzagarri** eta bestelakoak autoaren atzealdean sartu eta irratia piztu dut, malekoira bidean. Harkaitz Cano

**2** luzatzen duena.

Harago [...] emakume turkomanak ageri ziren, ileetatik dilindan ahuntz ile txirikordatuak zeramatzatela adats **luzagarri**, soinean mantarra zabalik, urdinez, purpuraz edo berdez marraturiko djuba baten azpian. Karlos Zabala
Sendabide hau, hire gaitzaren, ez duk **luzagarri** baino. Juan Garzia

**3** (-en atzizkiaren eskuinean)

Bertze izengoiti bat, zerrendaren **luzagarri**. Aingeru Epaltza
Berari botoa ematea azken urteotako indarkeriaren **luzagarri** baino ez dela izango. Berria - Euskal Herria
Fraideen bisita errepikatuek zuzendariaren berba jateak eta orain gizajoak hartu duen durduzamenduak baieztatu egin didate anarkista baten heriotza ekintza bidezko propagandaren **luzagarri** dela. Koldo Izagirre

---

# luzaidar *(orobat **luzaidetar** g.er.)* **1** *izlag* Luzaidekoa. Luzaideri dagokiona.

Don Miguel-ek berriz xutik ezarri zituen **luzaidar** dantza xahar batzuk, berak txistuaren bidez laguntzen zituenak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Angel Ainciburu **luzaidar** adiskideari. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Iñaki Arrosagaray, **luzaidar** txapelduna. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** *iz* Luzaideko herritarra.

Hogeitabost lekuko, gutiz gehienak **luzaidarrak**, mintzatu ziren bat bestearen ondotik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Irailaren 8an izan da **Luzaidarren** beila Orreagarat. Herria

Delako Robles jaun hori ezagutu izan dute **luzaidarrek** duela 75 urte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baziren ere **luzaidar** batzuk ezkontzaz Auritzera joanak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

luzaidetar ik **luzaidar**.

---

**luzaketa** **1** *iz* luzatzea.

Eta egia da aroa aldatzen ari dela, iluntze orduetan izarrak ikusiko dituzue, gauaren **luzaketa** igorriz. Joseba Sarrionandia

Baldintzen ilararen **luzaketa**. Ibon Uribarri

**2** (soinketako ariketa gisa)

Gero mendira 40 minutuz korrika egitera, gimnasiora jaitsi, **luzaketak** berriz, eta sokan salto egiten dut. Berria - Kirola

Baloi ukitze batzuk egin zituzten, eta **luzaketak**. Berria - Kirola

Ondoren, **luzaketak**, eta bestelako ariketak. Berria - Kirola

**Luzaketak**, arnas ariketak, taldeko dinamikak, teknika psikokorporalak, erlaxazio eta bisualizazio teknikak... Berria - Harian

· Gimnasioan egin zituzten **luzaketa** ariketak. Berria - Kirola

Denbora luze eskainiko diogu giher **luzaketari**. Berria - Kirola

---

luzaki ik **luzeki**.

---

**luzakin** *iz* zerbait luzatzen duen gauza.

Nik besaulki txikian lo egiten dut; metro eta erdi luze ez du, eta **luzakin** bat erantsi behar zaio, aulkiak jarriz. Josu Zabaleta

Sabai bigunaren azkenean, eztarrirantz zintzilik dagoen **luzakinari** deitzen zaio *aho gingil* edo *ubula*. Lourdes Oñederra

Silabaka ere konta genezake, baina irizpide oinarrizkoago bat erabiliko dugu guk gure sailkapena egiteko: **luzakinaren** kokapena, hain zuzen. Iñaki Arranz

Zenbaki segida hauetan, *-ga* **luzakinak** egiten du zapo erdara (edo *-da, -gi, -hi*), batzuetan zenbakiari dagokion letraren bat ere kenduta. Iñaki Arranz

Alemaniaren **luzakin** ttiki bat baino ez gara, ehun uhartek osatzen duten lurralde bat. Pako Aristi

---

**luzakor** **1** *izond* luzaz irauten duena.

Berriro besarkatu eta musu **luzakor** horietako bat eman diogu elkarri. Txillardegi

Aturri gaineko gandu **luzakorretako** bakardade hartan. Txillardegi

Hiru itsasargi ezagutzen nituen: Igeldokoa, izpi bat, eta gero bi hutsarte labur; [...] eta azkena (edo azkenurrena: ez nago ziur) Miarritzekoa, bi izpi segidan, eta hutsune **luzakorra** ondoren. Txillardegi

**2** epea eta kidekoak luzatzeko joera duena.

Zeren eta Jainkoa, **luzakor** bada ere, ez da ahanzkor... Joan Mari Irigoien

---

**luzamen** **1** *iz* luzamendua.

Denen buru, geriza kontseiluak delako ikertzeentzat epea luzatu du, bainan **luzamen** laburra haatik, bizpahiru asterena tirahala. Herria

Bost urteko **luzamen** hori eskatzen dutenek. Herria

Behar duzula ordaindu eta **luzamen** handirik gabe. Herria

Hitz horrek erran nahi du **luzamena** nolazpait ere, erran nahi du **luzamen** bat eskaintzen dutela leheneri, hauer aitzinatu diruaren luzatzeko intresik gabe. Piarres Aintziart

Ez dela erraten ahal epe finko batentzat eman faborearen gaindiak, erakar dezan itzulian printzea, epea gainditu duenari **luzamen** handiago baten uztera. Piarres Xarriton

Irabazle bat behar eta, 3 ta 3-tan, **luzamenak** jokatu behar izan dira. Herria

**2** luzatzea.

Atzizkiek eta hitz elkarketek **luzamena** ekartzen diete bokalismoei: *ioiei, hauei, oihuei, huia-oihua.* Iñaki Arranz

---

**luzamendu** **1** *iz* zerbaiten epea edo denbora luzatzea.

Euskal Herriari bigarren ziklo autonomiko bat inposatzeak gatazkaren **luzamendua** besterik ez dakarrela. Berria - Euskal Herria

Inkomunikazioa ezarri zioten gazteari eta, berri agentziek zabaldu zutenez, neurriaren **luzamendua** atzo bertan baimendu zuen epaileak. Berria - Euskal Herria

Baleen arrantzaren gaineko **luzamendua** 1990ean gainbegiratu behar zuen batzordeak, baina, oraingoz, ez dute halakorik egin. Berria - Gaiak

Zertxobait egin bada ere, gai arriskutsuak itsasoz garraiatzeko dagoen **luzamenduak** indarrean jarraitzen du oraindik. Berria - Euskal Herria

Horrekin amaiera emango dio Europako Batasunean horrelako produktuengandik babesteko sei urtez indarrean egon den **luzamenduari**. Berria - Euskal Herria

Penelopek **luzamenduak** ematen zizkien ezkongai guztiei. Juan Kruz Igerabide

Eta egunero deituko niola erabaki arren, gerotik gerora, beti **luzamendutan** aritu nintzen. Patxi Zubizarreta

Juana Bixentaren amak, sosik ez eta, ez zuen ikusten etxeko errenta ordaintzeko modu bat besterik: zorra kitatzeko **luzamendua** eskatzea. Anjel Lertxundi

Agintariek atzerriko zorraren parte baten **luzamendua** iragarri zuten orduan, NDFren kredituak etenarazi zituena. Koro Navarro

AEBetako presidenteak erantsi zuenez, Somaliaren eta Indonesiaren kanpo zorrari **luzamendua** jartzeko Alemaniak eginiko proposamena «aztertuko» du. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

SA ez desegiteko Atutxak, Knörrek eta Bilbaok «hainbat **luzamendu** maniobra» jarri dituztela. Berria - Euskal Herria

**3** luzapena, luzatzea.

Gure begirada gure hatzen **luzamendu** bat balitz bezala gertatzen da. Josu Zabaleta

Labur hitzegingo duzula agindu eta **luzamendutan** hasten zara berehala. Bernardo Atxaga

**Luzamendua** egon daiteke, ikusi dugunez, baina errepikapen luzatuetan ere errepikagaiak bere horretan dirau. Iñaki Arranz

**4** luzaketa (bigarren adieran).

Denborarekin ikasiko dut halaber ibiltokian kirola egiten, batzuetan lasterka arizanez ibilbide luzeena hartuz, eta ibiltoki gaineko sareari lotuz tiraketa batzuk edo **luzamenduak** egiten ere bai. Filipe Bidart

Jantzi motzetan jaitsi ginen patiora, **luzamenduak** egin eta itzulien itzulira itzuli ginen. Lander Garro

**5** ***luzamendurik gabe***

Bernardok **luzamendurik gabe** bete zuen hau guztia, aholkuaren izpirik txikiena ere huts egin gabe. Askoren artean

Irribarre biziki ederra egin zuen bere ezpain handiez eta, **luzamendurik gabe** , soinean zeraman elastiko morea kendu zuen gure begien aurrean bere soin-enbor ederra agerian utziz. Aitor Arana

**Luzamendurik gabe** iritsi ziren txekea eta kontuak. Ramon Etxezarreta

Esadazu itzulingururik eta **luzamendurik** gabe: oraindik maite al nauzu? Patxi Zubizarreta

· Burua, berriz, lehenbailehen jaikitzeko eta, **luzamendu** gehiagorik **gabe** , bere mandoa halaberean azpian hartzeko agintzen ari zaio. Aingeru Epaltza

**6** ***luzamendutan ibili***

Haiek lehenbailehen ezkondu nahi zuten, baina bera **luzamendutan zebilen** . Juan Kruz Igerabide

Joateko erabakia hartuz geroz, zertarako **luzamendutan ibili** . Elena Touyarou

Gero, **luzamendutan ibili** gabe, eta, kafe txepel bat hartu bitartean, dena laburbildu diot. Patxi Zubizarreta

-Txostena nahi dut -bide zuzena hartu zuen detektibeak, **luzamendutan ibiltzeke** . Migel Angel Mintegi

Ez naiz **luzamendutan ibiliko** , bestela ez naiz sekula iritsiko istorio honen muinera. Xabier Mendiguren Elizegi

**Luzamendutan ibiltzen** nintzen, joera hori neukan. Bernardo Atxaga

Ezin zen, bestalde, **luzamendutan ibili** , gaitz hilgarria alde guztietara zabaldua baitzegoen ordurako eta jende askoren gorputz-atalak hartuak zituen. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gatazkaren luzamendua** (7)
> **luzamenduetan ibiltzeko** (3)
> **luzamendurik gabe** (9)
> **luzamendutan ibili** (19); **luzamendutan ibili gabe** (12); **luzamendutan ibiltzea** (3)

---

# luzanga *(orobat **luzenga** g.er.)* **1** *izond adkor* pertsonez mintzatuz, luzea eta mehea dena.

Alkandoraren mahukak jasota zeuzkan gizon beltzaran **luzanga** bat urrats luzez irten zitzaion bidera. Lopez de Arana

Gazte **luzanga** sesiozale batekin. Juan Kruz Igerabide

Geraldi apenas axola izan zitzaion haren aurpegi **luzangari** begiratzea. Mirentxu Larrañaga

Begitarte **luzanga** eta meharra zuen, begiak almendra irudi, bekain trinkoak. Patxi Zubizarreta

Eskuan zeraman kandelak haren soslai **luzanga** marraztu zidan, bera labirintoan barrena urrundu bitartean. Alberto Ladron Arana

El Greco-ren margolanetako irudi **luzangak** haren astigmatismoaren isla direla iradoki izan da. Irene Aldasoro

**2** luzexka. ik **luzanga**.

Arrautza **luzangak** oilaskoa dakar; arrautza potoloagoak, oilanda. Pello Zabala

Barra **luzanga** hartan zerbitzari bakarra, gizonezkoa, hara eta hona edariak prestatzen. Paddy Rekalde

Urrutian itsasoa ikusten zen, berde zurbilezko orban **luzanga** bat, ostertzean kolore esnekara samarra zuen zerutik lerro zuzen argi batez bereizia. Josu Zabaleta

Palestretan peristilo karratuak edo **luzangak** egin behar dira. Santiago Iruretagoiena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurpegi luzanga** (3); **gizon luzanga** (3); **luzanga zen** (4)

---

# luzangatu, luzanga(tu), luzangatzen **1** luzanga, luzexka bihurtu.

Uzkurdura horretan luzera seiren bat sartuko da barrura eta zuloa ere, beraz, **luzangatuta** geratuko da *epizigis* izeneko piezak duen lodieraren arabera. Santiago Iruretagoiena

**2** (era burutua izenondo gisa)

Horregatik angeluetako triglifoen ondoan egiten diren metopak ez dira karratuak izaten baizik eta **luzangatuak** . Santiago Iruretagoiena

---

# luzapen **1** *iz* luzatzea; luzatzearen ondorioa.

Honek egunaren argitze eta **luzapenari** egin dio so. Pello Zabala

Hilabete bakoitzeko egunen laburketak eta **luzapenak** esplikatzea. Santiago Iruretagoiena

Hori baita bere estiloa, hitza zuzenean, **luzapenik** eta interpretaziorik gabe, praktikan jartzea. Askoren artean

**2** zerbait luzatzen duen gauza edo zatia. ik **luzakin**.

Mazelen tolesdura liraina, ezpainen **luzapen** xarmanta. Aingeru Epaltza

Plaza hau ez da karrikaren **luzapena** besterik, zabaldua eta itsasoari irekia. Koldo Izagirre

Garunaren **luzapen** bat baino ez da erretina. Irene Aldasoro

Bai, familia, edota familia horren **luzapen** baizik ez zen gizartea -lagunartea, auzunea, herria- oso babes ona izaten zen pertsonarentzat haurtzaroan. Bernardo Atxaga

Segur aski, hire aberriaren **luzapen** bat duk paraje hau. Hasier Etxeberria

Aitatxirekiko solasaren **luzapen** suerte bat nuen elizkizuna. Aingeru Epaltza

**3** denbora bitarte bat, bereziki kirol partida bat, arauzko denbora bukatu ondoren, luzatzen duen epea.

Houston Rocketsek 93-85 irabazi zion atzo Portland Trail Blazersi, **luzapen** bat jokatu ondoren. Berria - Kirola

New Yorkek Phoenixi irabazi dio NBAn, hiru **luzapen** jokatu ostean. Berria - Kirola

**Luzapenetan** Badiolak sartu duen golak salbatu ditu baionesak. Herria

Bilbo Basket **luzapenean** nagusitu zaio Pamesari, norgehiagoka osoan aurretik egon ostean. Berria - Kirola

Hormadiri ihes egin dio garaipenak **luzapenean** . Berria - Kirola

**Luzapeneko** minutuak zenbat diren. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartuetan)

Ultimatumaren ostean bi urteko kontratu **luzapen** bat sinatu du enpresarekin. Berria - Kirola

Unairi ezarri nahi dioten kondena **luzapena**. Jokin Urain

Eta atxiloketa **luzapeneko** orriak erakutsi eta berehala Madrilera eraman ninduten. Berria - Euskal Herria

**5 *luzapenetan ibili*** luzamendutan ibili.

Aitor dezadan **luzapenetan ibili** gabe: testu hau antiplagioa da. Bernardo Atxaga

Loa uxatzea kostatzen zaio eta **luzapenetan dabil** esnatzeko ordua izanik ere. Imanol Unzurrunzaga

Egia esan ez dugu denbora askorik; beraz, hobe **luzapenetan ibili** gabe zuregana ekarri gaituenari heltzen badiogu. Migel Angel Mintegi

Ustez aukerabide egokiena egin eta gero ere, haren egokitasuna zalantzan jarri zuen, baina **luzapenetan ibiltzeko** ezintasunak eta beste asmo egokiaren ezak, erabakitakoa abian jartzera behartu zuten. Migel Angel Mintegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **beste luzapen bat** (7); **hiru luzapen jokatu** (3)
>
> **aurrekontuen luzapena** (3); **kontratu luzapena** (5); **kontratuaren luzapena** (3); **luzapena behartu** (3); **luzapena behartzea** (3); **luzapena behartzeko** (4); **luzapena eman** (3); **luzapena eragin** (3); **luzapena eskatu** (5); **luzapena izan** (3); **luzapena jokatu** (13); **luzapena jokatu behar** (4); **luzapena sinatu** (4); **urteko luzapena** (6)
>
> **lehen zatiko luzapenean** (3); **luzapenean galdu** (7); **luzapenean lortu** (8)
>
> **batere luzapenik** (4); **luzapenik gabe** (7)

---

# luzapendu, luzapen(tu), luzapentzen du *ad*

Gaztea izatea ez da gizon (edo emakume) ez izate hutsa: bizia luzatu (hau da, **luzapendu**) eta gizon egitea atzeratu den honetan, ez pentsa ez-gizon izatea ezer ez izatea denik. Iñaki Segurola

---

# luzara *(orobat **luzera**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **luzara** agertzen da)* 1 *adlag* luzarora.

Angeluko ikastolaren eremuan 60 metro karratuko bastiza bat eraikiko du hiriak, ikastola haurrez emendatzen ari delako, eta **luzara**, lehen maila bat hor idekitzeko paradak zabaltzeko. Herria

Nork daki, **luzara** beharbada mendiak urra ditaizke eta barneko sua libra lezakete eta kanporat bota, zinez mundu osoak burua gal lezake. Jendeen gustuak, **luzara**, aldatu egiten dira, modu paradoxaletan batzuetan. Michel Oronoz

Ez al dakusu haitzean jausten diren tantek ere **luzera** zulatu egiten dutela haitza? Xabier Amuriza

Erasoaren eta defentsaren arteko lasterketan, erasoak **luzera** irabazi egin behar du nahitaez. Iñaki Mendiguren

Esplorazio horien fruituak **luzera** heltzen dira. Ana Urkiza

Orain arte arrazoia izan da gailen, **luzera** ordea, ez ote dira desirak gailenduko? Josu Zabaleta

Baditu bere susmoak Petrusek zer asmo darabilen **luzera**. Oskar Arana

**2** ik **luze 23.**

**3 *luzarako****sup_1 izlag*

**Luzarako** erabakietan, autobus garraio zerbitzuen garapena markatu behar da. Herria

Laborantxa mailan **luzarako** alokailu bat emaitekotan dira E.A.R. Herria

**4 *luzarako****sup_2 adlag* luzerako.

Joan ninteke bai, bainan halere ez **luzarako**... Menane Oxandabaratz

Baina adina ere dut orain handia, eta **luzarako** ez bizia. Aurelia Arkotxa

Zorionak Pettan eta **luzarako**! Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ez luzarako** (4)

---

# luzaran *izond* ohi baino luzeago dena. ik **luzanga 2.**

Dena **luzaran** da Vietnam herria (2000 km luzetasun), alde batean daukala Txinako itsasoa, bertzaldean Laos eta Kanputxea, gainekaldean aldiz Txinako eremu zabala. Herria

Begi txiki **luzaranak** eta aurpegi erabakia zituen neskato txikiak presa handia zuen, Egutxik ez bezala. Ibon Uribarri

---

# luzarazi, luzaraz, luzarazten du *ad* luzatzera behartu.

Bi besoak **luzarazi** zizkidan supituan eta mataza berri bat jarri zidan gainean. kexu dira Eibar-Gasteiz errepidea Arminonaino **luzarazteko** asmoa «ez baita desagertu». Hasier Etxeberria

Ezustean agertu zen euria ere, partidaren bat edo beste hainbatetan eten eta **luzaraziz**. Berria - Kirola

Feudoen jabetza diru truke **luzaraztea**, konderrien jabetza luzatzen zen bezala. Iñaki Iñurrieta

Ingalaterratik honaino diapasoiarekin **luzarazitako** nota elektrikoen bibrazioa ailegatzen zen. Fernando Rey

Abiadura Eztiaren Denbora ahal bezainbeste **luzaraztea** Hasier Etxeberria

---

# luzaro 1 *adlag* denbora luzean. ik **luzaz.**

**Luzaro** egon ginen hantxe, zutik. Joxe Austin Arrieta

**Luzaro** bizi izan zen. Elizen arteko biblia

Gela txikiko beste mahaian eserita egon ziren **luzaro**. Karlos Zabala

**Luzaro** ibili zen, bizi ala hil; azkenean, ordea, gaitzak gaina hartu zion eta Indian bertan hil zen. Gotzon Garate

-Ez gaituk **luzaro** geratuko! -oihu egin zuen iemstxikak, beldurraren beldurrez. Karlos Zabala

**Luzaro** iraun dezaten. Xabier Kintana

Hain **luzaro** egon natzaio begira / nire bihotzaren zati bat dela uste dut. Bernardo Atxaga

**2 *luzaro gabe*** ik **luze 13.**

**Luzaro gabe** hila zen. Gotzon Garate

**Luzaro gabe** zerbitzatu ziguten lehenengo platera. Anjel Lertxundi

Amak, ordea, telefonoa aldatu zuen eta **luzaro gabe** etxetik irten eta beste tokiren batera bizitzera alde egin zuen. Gotzon Garate

Ikusiko duzue, **luzaro gabe** eremu menditsu guztiak inor gabe geratuko dira, eta lehen zerbait izandako tokiak ahaztu egingo dira. Bernardo Atxaga

**3** ***luzaroan*** *adlag* luzaro.

**Luzaroan** egona zen bere baitara bildua, iluntasunik handienean. Patxi Zubizarreta

**-Luzaroan** geratuko al da Bevan jauna? Koro Navarro

Kutuzov **luzaroan** ahalegindua zen irudikatzen zer maniobra-aukera zituen Napoleonek. Juan Garzia

Emakumeak ez zuen **luzaroan** itxaron behar izan. Patxi Zubizarreta

Orain, baina, **luzaroan** egoten zen ispiluaren aurrean. Patxi Zubizarreta

Munduko merkataritzak Europan izan du **luzaroan** ardatz bakarra. Koro Navarro

Noelia maitea, barkatu **luzaroan** zuri ez idatzi izana. Jon Muñoz

Badirudi lapurteraren ospeak **luzaroan** iraun duela jendearen oroimenean. Koldo Zuazo

Elkarrekin **luzaroan** bizi direnek, senar-emazteek nahiz zakur eta jabeek, azkenerako elkarren antza hartzen dute. Ramon Saizarbitoria

Orduan, azkenean, iritsi zen hain **luzaroan** igurikitakoa. Oskar Arana

Berantetsita ere banengoen Herbert hain **luzaroan** gogoetatsu ikusirik, nahiz eta ordurako ondotxo jabetua behar zuen ez zeukala salbabiderik. Joxe Austin Arrieta

Ez **luzaroan**. Mirentxu Larrañaga

**4** *luzarora* ik **luzarora**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bizi zaitez luzaro** (3); **egon zen luzaro** (11); **geratu zen luzaro** (4); **luzaro aritu** (8); **luzaro aritu ziren** (4); **luzaro aztertu** (3); **luzaro baino lehen** (5); **luzaro begiratu** (5); **luzaro bizi** (26); **luzaro bizi izan** (9); **luzaro biziko** (16); **luzaro biziko zarete** (5); **luzaro bizitzeko** (6); **luzaro eduki** (3); **luzaro egin** (3); **luzaro egon** (47); **luzaro egon zen** (13); **luzaro egoten** (5); **luzaro eserita** (3); **luzaro eutsi** (4); **luzaro gabe** (26); **luzaro gelditu** (5); **luzaro geratu** (7); **luzaro geratzen** (3); **luzaro hitz egin** (8); **luzaro ibili** (11); **luzaro ibili nintzen** (5); **luzaro iraun** (33); **luzaro iraungo** (11); **luzaro irautea** (3); **luzaro irauten** (8); **luzaro itxaron** (7); **luzaro itxita** (3); **luzaro izan** (4); **luzaro jardun** (4); **luzaro jasan** (4); **luzaro mintzatu** (5); **luzaro pentsatu** (5); **luzaro samar** (3); **oso luzaro** (6)

**luzaroago bizi** (3); **luzaroago eduki** (3); **luzaroago egon** (3); **luzaroago geratu** (3); **luzaroago iraun** (6); **luzaroago jasango** (3); **zenbat eta luzaroago** (4)

**egon luzaroan** (3); **egon zen luzaroan** (8); **ibili zen luzaroan** (3); **izan da luzaroan** (5); **izan zen luzaroan** (5); **luzaroan aritu** (3); **luzaroan begiratu** (6); **luzaroan bizi** (16); **luzaroan bizi izan** (5); **luzaroan biziko** (4); **luzaroan egin** (6); **luzaroan egon** (68); **luzaroan egon ondoren** (3); **luzaroan egon zen** (23); **luzaroan egona** (3); **luzaroan egoten** (4); **luzaroan entzun** (3); **luzaroan eutsi** (9); **luzaroan ezkutatu** (4); **luzaroan gelditu** (3); **luzaroan geratu** (6); **luzaroan geratuko** (3); **luzaroan gorde** (5); **luzaroan hitz egin** (3); **luzaroan ibili** (10); **luzaroan iraun** (18); **luzaroan iraun zuen** (3); **luzaroan iraungo** (7); **luzaroan irauteko** (5); **luzaroan irauten** (4); **luzaroan isilik** (4); **luzaroan itxaron** (4); **luzaroan izan** (7); **luzaroan izango** (3); **luzaroan jardun** (5); **luzaroan jarraitu** (7); **luzaroan jokatu** (3); **luzaroan jokatu barik** (3); **luzaroan utzi** (3); **oraindik luzaroan** (3); **oso luzaroan** (5)

**ahalik eta luzaroen** (7)

**luzaroko bizitzaren** (3)

---

# luzarora **1** *adlag* denbora pasatu ondoren.

**Luzarora** errentagarritasuna, pribatua nahiz soziala, ziurtatua dutela dirudien proiektu produktiboak edo kolektiboak finantzatzen dituzte. Koro Navarro

Gaitz horrek **luzarora** itsutasuna eragin dezake, eta horixe gertatu zitzaion emakume honi ere. Berria - Gaiak

Europak, **luzarora**, herrien eta herritarren Europa izan behar du. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko ordena hau, nolanahi ere, **luzarora** ez da egonkorra izaten. Koro Navarro

Handik **luzarora**, lehortearen hirugarren urtean, honela hitz egin zion Jaunak Eliasi: [...]. Elizen arteko biblia

Helburu hau sekula ez da betetzen **luzarora**. Iñaki Mendiguren

Politikoki zuzen jokatzea, moralagoa ez ezik, historian efikazagoa ere badela, **luzarora**. Piarres Xarriton

Halako garraztasun zantzu bat, halako etsimen bat, **luzarora** baizik ezin ken dezakeguna. Josu Zabaleta

**Luzarora** gabe, ordea, Sobakevitxen herriaren agerpenak pentsamenduak ildo hartatik baztertu eta betiko hausnargaira itzularazi zizkion. Jose Morales

**2** ***luzarorako****sup_1 izlag*

Zarpeatuak [...] egonkortasuna, distira eta **luzarorako** iraupena izan dezakete. **Luzarorako** proiekturik gabe. Santiago Iruretagoiena

**Luzarorako** goxotasuna uzten duten musua. Gotzon Garate

**3** ***luzarorako****sup_2 adlag* denbora luzerako.

Gainera ez noak **luzarorako**. Jon Muñoz

Mundu honetako hutsalkeriak **luzarorako** eduki uste duzue, baina oker zaudete. Pako Aristi

Ziur zekien arren ez zela mundu honetan **luzarorako**. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**handik luzarora** (4); **luzarora gabe** (4)

**ez luzarorako** (5); **luzarorako izango** (3)

---

# luzatu, luza, luzatzen **1** da *ad* luzeago bihurtu, luzera handitu.

Orain **luzatu** egin da, eta neska polita dago. Bernardo Atxaga

Bere kasa bizitzen hasi zen, **luzatu** egin zen, neurrigabeko zutoin beltz baten itxura hartu zuen. Jose Morales

Sudurra **luzatzen** ari zaizu. Itziar Otegi

Ilea **luzatzen** utzi zuen. Xabier Olarra

**Luzatu** ez ezik, loditu ere egin behar du hezurrak. Irene Aldasoro

Bertan murgiltzen dugun guztia bigundu eta **luzatu** egiten da. Monika Etxebarria

Arrainak amuari kosk egina zion, eta orain haria **luzatu** behar zen, urruntzen utzi, amua erabat irentsi zezan. Juan Kruz Igerabide

Dantza-korda **luzatu** ahala, oihuak eta irriak ugaritzen joan ziren. Anjel Lertxundi

Nire ohea **luzatzeko** jarrita dauzkadan aulkiak. Josu Zabaleta

Aurki, **luzatu** egingo ziren segmentuok, dela kate-muturretatik elkarrekin lotuz, dela bakoitza bikoiztuz, behin bakarrik edo behin baino gehiagotan. Juan Garzia

• **2** du *ad*

Hitzak **luzatzeko** prozedurez ari garela, kontrako bidea egin dezakegu: [...]. Iñaki Arranz

Kandela dardarati baten argi motelak piezen itzalak **luzatu** eta dantzarazten zituela. Alberto Ladron Arana

Oso nabarmena zen bizarra urte haietan, moztu egin behar izan nuen asko **luzatu** baino lehen. Koldo Izagirre

Irri urduri baten **luzatu** zitzaizkion ezpainak Felip Cortiellari. Koldo Izagirre

Errejistro-zerrendan emaitzak **lerroka** luzatu ahala, lan errepikakorraren neke-asperdura poz-pilpira bilakatuz zihoan. Juan Garzia

· Handik bi ordura, Nataliaren etxeraino **luzatu** zuten paseoa. Aritz Gorrotxategi

• **3** da/du *ad (denbora bitarteei buruz)*

Bere baitako zerbaitek momentu hura **luzatu** nahi ukan balu bezala. Elena Touyarou

Ahulezia une hura ez zen segundo batetik gora **luzatzen**. Hala, ontziak mantsoago hartzen duenez ura, **luzatu** egiten da orduen iraupena. Monika Etxebarria
Beste hamabost **urtez luzatuko** dizut bizia. Elizen arteko biblia
Xerazadek are ipuin zoragarriagoa kontatuko zuela hitzeman zuen, baldin eta Xariar sultanak bizia beste egun batez **luzatzen** bazion. Berria - Kultura
Kaleak hutsik zeuden, tabernetan azken bezeroak etxera itzultzeko ordua **luzatzen**. Migel Angel Mintegi
Itxaronaldia ez zen **luzatu**, izan ere gizon bat agertokira igo baitzen otoitzak esatera. Patxi Zubizarreta
Segundo batzuk gehiago **luzatu** zuen isilunea eta gero ahora ireki zuen. Aingeru Epaltza
Erantzuna hamar egunez **luzatu** zen. Lasterka etorri zen eta ordu erdi batez **luzatu** zuen kontaketa. Aingeru Epaltza
Minutu batez ere ez nintzen **luzatu** Patxirekin batean erredakziotik alde egiten. Aingeru Epaltza
Enrollatuta egongo zirela pentsatu nuen, eta oporraldia **luzatu** nahiko zutela. Xabier Mendiguren Elizegi
Bidaialdiak **luzatu** ez ezik, bakarrik hasi zen joaten. Migel Angel Mintegi
Egoera hau **luzatu** nahi nuke. Sonia Gonzalez
Isilunea **luzatu** eta **luzatu** egin zen. Alberto Ladron Arana
Mentxuren algarak **luzatu** zuen Santosen irri-karkaila. Josu Landa
Pistolarenak zigor latza ekarriko omen dio, auskalo noiz arte soldadutza **luzatu** beharra. Iñaki Iñurrieta
· Martxan zehar, zenbait orduz **luzatu** baitzen, bi gauza egitea lortu nuen. Juan Garzia

**4** zerbait egiten, ohi den baino denbora gehiago eman.

Ez nintzen **luzatu** aldez aurretik nekiena egiaztatzen. Aingeru Epaltza
Ama sukaldeko atean azaldu zen, eta afaria mahaian zegoela adierazi zidan, ez **luzatzeko** telefonoan. Bernardo Atxaga
Osaba Juani ez zitzaion telefonoz **luzatzea** gustatzen. Bernardo Atxaga
Kontakizunari gatz-ozpin pizar bat erantsi nahirik, ehorzketaren inguruko xehetasun makabro-barregarrietan **luzatu** nintzen. Aingeru Epaltza
-Ongi da, itxarongo dizut, baina ez **luzatu**. Elizen arteko biblia
Behar baino gehiago **luzatu** nintzen gure gastronomiaren inguruko azalpenetan. Ramon Saizarbitoria
Hain zegoen argi, ezen ez baitzuen horri buruzko azalpenetan **luzatu** nahi. Jose Morales
Nik ez nuen elkarrizketa **luzatu** nahi. Inazio Mujika Iraola
Gauza horiek, zenbat eta gehiago **luzatu**, okerrago. Bernardo Atxaga
Gidariak, kontrolen beldur, errepide nagusiak saihesten zituen ahal zuen guztietan, eta horrek izugarri **luzatu** zuen bidaia. Anjel Lertxundi
Ez ziren gehiago **luzatu** eztabaida hartan. Iñaki Iñurrieta
Egun bat gehiago **luzatu** nahi duzu zure jarrera isila. Rafa Egiguren
Dena dela, aurre-**azalpenetan** luzatu gabe, alda dezadan hona "Atarian" lehen atala: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi
Zertan gehiago **luzatu**? Joan Mari Lekuona

**5** halako denbora hedadura hartu.

Erantzuna ez zen askorik **luzatu**: urteak eta itxura bat zetozen. Juan Garzia
Gutun truke bat hasi zen, 1933tik 1938ra **luzatu** zena. Koro Navarro

• **6** du *ad* gorputz adarrez eta kidekoez mintzatuz, hedatu edo aurreratu.

Eskua **luzatu** du autobusa ikusi duenean. Urtzi Urrutikoetxea
Begiak itxi zituen eta besoak zabal-zabal **luzatu**. Mirentxu Larrañaga
Jakobek eskuak **luzatu** zituen, ezker-eskuin gurutzatuz. Jose Antonio Mujika
Eskua ilunpetan **luzatu**, eta topatu dudan lehen gauza sendoa urontzia izan da. Patxi Zubizarreta
Esaldia eten eta esku bat hartu nion, niregana **luzatua** zuelako protestaka, isil nendila eskatuz. Bernardo Atxaga
Tomek eskuin besoa **luzatu** eta eskua eman zion Nancy-ri. Oskar Arana
Saget andereñoak hatzak **luzatu** zituen eskutada bat aran hartzeko. Karlos Zabala
Mihia **luzatu**, eta bietatik dastatu zuen markesak. Anjel Lertxundi
Bat-batean, burua makurtu, lepoa **luzatu**, eta aurrera egin zuen, besteenganantz. Jose Morales
Lepoa **luzatzen** zuen, kaleen azken bazterrak ere ikusteko. Karlos Zabala
Masail bat **luzatu** zidan musu bila. Joxean Agirre
Itsasok ezpainak **luzatu** dizkio eta Asierrek bereen artean hartu ditu une labur batez. Pako Aristi
Aldi berean zangoa **luzatu** eta bultzada bat eman zion ateari. Migel Angel Mintegi
Burua pixka bat **luzatu** zuen izter ederrak hobeto ikustearren. Migel Angel Mintegi
Ohe ondoko mahaitxora **luzatu** nuen eskua. Aingeru Epaltza
Pizgailua atera eta esku dardaratia harenganantz **luzatu** nuen. Migel Angel Mintegi
-Eser zaitez, mesedez -besoa larruzko eserleku baterantz **luzatu** zuen. Migel Angel Mintegi
Ebakinaren beheko aldera **luzatu** zuen hatza. Aingeru Epaltza

• **7** (da ad)

Ni, bien artean **luzatu** nintzen, bi lastairen artean. Marzel Etxehandi
Suge bat bezala **luzatu** nintzen. Juan Kruz Igerabide
Ttipiren hatza berak emandako paperen aldera **luzatu** zen. Aingeru Epaltza

• **8** du *ad* zuzendu.

Begi bat ireki eta iratzargailuaren aldera **luzatu** nuen. Aingeru Epaltza
Konplizitate kutsu bat antzeman nion **luzatu** zidan irriñoari. Aingeru Epaltza
Danek, furgonetaren gainaldetik, begirada sutu eta sarkorra **luzatu** dio. Patxi Zubizarreta
Agur zabal eta lehor bat **luzatu** dio, besoarekin zirkulu bat eginez. Monika Etxebarria
Ondoren galderazko begiratua **luzatu** zion Maizari. Migel Angel Mintegi
Bien bitartean, ez diogu elkarri ez begiratu ez hitz erditxorik ere **luzatu**. Patxi Zubizarreta

**9** zerbait egiteko edo gertatzeko unea atzeratu. ik **berandutu**.

Manex esnatu behar duela pentsatu du, baina unea **luzatu** du, gustura dago-eta bakarrik. Eider Rodriguez
1987an, Brasilek banku-zorrak ordaintzeko epea **luzatzen** zuela adierazi zuenean, banku anglosaxoi handien metatze-ahaleginak areagotu egin ziren. Koro Navarro
Topo egiteko denbora **luzatu** nahi balu bezala. Aitor Arana
Apezpiku bat Heriori erreguka, epea **luza** diezaion. Anjel Lertxundi

• **10** dio *ad* zerbait, norbaiten eskumenean jarri.

Jaiki, txanpain kopak bete eta bat **luzatu** zidan. Juan Martin Elexpuru
Neskak berak **luzatu** zidan eskua garbitzeko mahaizapia. Aingeru Epaltza
Banan-banan **luzatu** nizkion piezak nire lagunari. Joxan Elosegi

Gutunazal hori, luze eta hanpatu bat **luzatu** dit: Annyk idatzi dit. Monika Etxebarria

Anjel Maiza naiz -txartel bat **luzatu** zion -, detektibe pribatua. Migel Angel Mintegi

-Sakon ezagutu, esan nahi dut -argazkiak atera eta **luzatu** egin zizkion-. Migel Angel Mintegi

Lasai oso **luzatu** zion mahaitxo batetik hartutako haririk gabeko telefonoa. Migel Angel Mintegi

-Zigarrorik? -paketea **luzatu** zion Maizari. Migel Angel Mintegi

### 11 egin.

Burua gizonarengana itzulirik, berezko zuen ausardiaz irribarre egin, eta galdera **luzatu** zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Itzuli zenean, kikarak banatu, eta eseri ondoren, hitz egiteko gonbitea **luzatu** zien bisitariei. Migel Angel Mintegi

Eskaintza **luzatua** nion bere autostop-bidaia nirekin egin zezan. Joxe Austin Arrieta

Horiek horrela, Etxerat-ek honako eskaera **luzatu** zien EAJri, EAri eta EBri: [...]. Berria - Euskal Herria

Hainbestenarekin, Jakes Handia ere mintzatu da, bazterrak hein bat lasaitzearen aldeko deia **luzatuz** deneri, bortizkeriak ez duela deus onik ekartzen ahal. Herria

· Izan ere, zer arraio dira gaur egun hitzetik hortzera entzuten eta irakurtzen ditugun *deia* ***luzatu***, *galdera bat* ***luzatu***, *gonbita* ***luzatu*** horiek? euskaraz *deitu* edo *dei egin*, *galdetu* edo *galdera egin*, *gonbidatu* edo *gonbita egin* esan ohi dira beti eta nonahi. Koldo Zuazo

### 12 (era burutua izenondo gisa)

Esku **luzatu** hark ez ote zion aurretik erantzuten hark esan ziezaiokeen guztiari? Karlos Zabala

Uko egin nion Potzoloren esku **luzatuari**. Aingeru Epaltza

Beso **luzatuaren** muturrean eusten nion pistolari. Alberto Ladron Arana

Irudiaren proportzioei dagokienez, laukizuzen ez oso **luzatu** baten ingurukoak izan ziren ia beti. Josu Zabaleta

Gogoan dut, adibidez, eskale itxura ematen zion bizar **luzatua** nekusala. Ramon Saizarbitoria

Gurdien zalaparta sorra aditzen zen, eta tarteka urrutiko lokomotora baten ziztu mindu **luzatua**. Matías Múgica

### 13 *belarriak luzatu* adi-adi jarri.

Belarriak **luzatu** ditut, adi: [...]. Monika Etxebarria

Joanttok belarriak **luzatu** zituen, toki hartan bizi izan zirenen oihartzunen entzuteko. Elena Touyarou

### 14 *bostekoa luzatu*

Zer moduz zaude? - **bostekoa luzatu** zion. Migel Angel Mintegi

Anjel Maiza nauzu - **bostekoa luzatu** zion. Migel Angel Mintegi

**Bostekoa luzatu** zion idazleak: [...]. Harkaitz Cano

**Bostekoa luzatu** nien, eta barkatzeko esan, lehengo eguneko bultzadarengatik. Inazio Mujika Iraola

Eta hau guztia gazteek erraz irentsi behar luketen apoa balitz bezala, guztiei **bostekoa luzatzen** jarraitu du oso eta santu. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**asko luzatu** (19); **atzaparrak luzatu** (6); **aurrekontuak luzatu** (5); **belarria luzatu** (8); **bere eskua luzatu** (6); **beso bat luzatu** (5); **besoa luzatu** (72); **besoak luzatu** (36); **bi orduz luzatu** (5); **bi urtez luzatu** (17); **bidea luzatu** (5); **bizia luzatu** (6); **bostekoa luzatu** (26); **bostekoa luzatu zion** (5); **dei bat luzatu** (9); **deia luzatu** (61); **deia luzatu zien** (11); **deialdia luzatu** (7); **denbora luzatu** (7); **egonaldia luzatu** (6); **epea luzatu** (25); **epeak luzatu** (5); **esku bat luzatu** (6); **eskua luzatu** (264); **eskua luzatu zidan** (24); **eskuak luzatu** (15); **galdera luzatu** (5); **gatazka luzatu** (5); **gehiago luzatu gabe** (13); **gonbidapena luzatu** (6); **gonbita luzatu** (11); **hanka luzatu** (9); **hankak luzatu** (12); **hatza luzatu** (8); **hilabete batez luzatu** (5); **hilabetez luzatu** (17); **hiru urtez luzatu** (6); **joateko deia luzatu** (6); **kontratua luzatu** (27); **lanaldia luzatu** (7); **lepoa luzatu** (25); **luzatu dio kontratua** (8); **luzatu du kontratua** (15); **luzatu eskua** (14); **luzatu eta luzatu** (7); **luzatu eta ukitu** (7); **luzatu nuen eskua** (6); **luzatu zituen besoak** (7); **luzatu zuen eskua** (12); **makila luzatu** (6); **metro luzatu** (5); **partida luzatu** (12); **proposamena luzatu** (10); **prozesua luzatu** (7); **sei hilabetez luzatu** (7); **sobera luzatu gabe** (12); **urtebetez luzatu** (11); **zangoak luzatu** (6)

**gomita luzatua** (9); **gomita luzatua da** (7); **luzatua du oraindik** (5); **luzatua zuen** (6); **oihartzun luzatua** (6)

**egunez luzatuko** (8); **eskua luzatuko** (7); **ez naiz luzatuko** (7); **hilabetez luzatuko** (5); **kontratua luzatuko** (6); **urtez luzatuko** (7)

**besoa luzaturik** (7); **besoak luzaturik** (10); **eskua luzaturik** (10); **eskuak luzaturik** (5); **hatza luzaturik** (6); **lepoa luzaturik** (15)

**besoak luzatuta** (5); **eskua luzatuta** (14); **eskuak luzatuta** (5); **lepoa luzatuta** (5)

**luzatutako eskuari** (5)

**besoa luzatuz** (12); **besoak luzatuz** (12); **eskua luzatuz** (49); **eskuak luzatuz** (5); **lepoa luzatuz** (11)

**epea luzatzea** (11); **gatazka luzatzea** (7); **gehiago luzatzea** (9); **hilabetez luzatzea** (12); **hiru hilabetez luzatzea** (6); **itxiera luzatzea** (5); **kontratua luzatzea** (9); **lanaldia luzatzea** (5); **luzatzea erabaki** (40); **luzatzea erabaki zuen** (11); **luzatzea erabaki zuten** (7); **luzatzea eskatzeko** (5); **luzatzea hitzartu** (5); **luzatzea onartu** (5); **luzatzea proposatu** (5); **misioa luzatzea** (5); **urtez luzatzea** (8)

**gatazka luzatzearen** (5)

**bizia luzatzeko** (5); **bizitza luzatzeko** (5); **epea luzatzeko** (9); **epea luzatzeko eskatu** (5); **eskua luzatzeko** (6); **espetxealdia luzatzeko** (6); **hilabetez luzatzeko** (9); **kontratua luzatzeko** (22); **luzatzeko akordioa** (5); **luzatzeko asmoa** (9); **luzatzeko aukera** (33); **luzatzeko aukerarekin** (5); **luzatzeko erabakia** (6); **luzatzeko eskaera** (6); **luzatzeko eskaintza** (5); **luzatzeko eskatu** (31); **sei hilabetez luzatzeko** (5); **urtebetez luzatzeko** (5)

**asko luzatzen** (16); **besoa luzatzen** (9); **besoak luzatzen** (9); **bizia luzatzen** (6); **dei bat luzatzen** (9); **deia luzatzen** (8); **denboran luzatzen** (5); **egun batez luzatzen** (18); **eguna luzatzen** (5); **eskua luzatzen** (38); **gehiago luzatzen** (13); **gehiegi luzatzen** (9); **infinituraino luzatzen** (6); **itzalak luzatzen** (6); **lepoa luzatzen** (11); **lepoa luzatzen zuen** (5); **luzatzen utzi** (5); **zangoak luzatzen** (5); **zerrenda luzatzen** (6)

---

## luzatzaile *izond* luzatzen duena.

Aurreiritzi hutsa ez al da kate horien **luzatzailea**? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## luzatze *iz* luze edo luzeago bihurtzea.

Hitzetik hitzera garatzen den **luzatze** hau grafikoki ere ikusgarri bihur daiteke, piramidearen itxura hartuta. Iñaki Arranz

Haren margolan batzuei X izpien bidez egin zaizkien azterketek erakusten dutenez, hasierako zirrimarrek proportzio normalak zituzten, eta geroagoko fase batean erantsia da **luzatze** adierazgarri hori. Irene Aldasoro

Bokal bakarraren **luzatze** edo diptongatzeak. Lourdes Oñederra

Auzogune hortan jarri berriak diren lantegi eta saltegi batzuk berantetsia dute bide **luzatze** hori 12etan *Mutxikoak* ostatuan, zintzur bustitze eta oinak **luzatze**. Herria

---

## luzatzearren *adlag* luzatzeko.

Itzulera **luzatzearren** portutik Jaizkibel mendate aldera bideratu zen. Migel Angel Mintegi

Beti bakarrik, beti liburu ireki bat aurrean neukala, beti janaria ahalik eta astiroen irentsiz ahoan, jatordua albait gehiena **luzatzearren**. Oskar Arana

Sasiunibertsitari bizimodu patxadatsua **luzatzearren**. Jon Arretxe

Une hori ez **luzatzearren** Lainez mahai luze hutsean eseri da, bizkarra hormaren kontra. Pello Lizarralde

---

## luzaz 1 *adlag* denbora luzean. ik **luzaro**.

**Luzaz** pentsatu ondoren, hori erabaki dut. Txillardegi

**Luzaz** hitzik erran gabe segitzen dute bidea. Michel Oronoz
Ez daiteke hola **luzaz** iraun. Michel Oronoz
Harekin **luzaz** mintzatu nintzen eta behin baino gehiagotan, haren etxekoez, haren haurren altxatzeaz. Marzel Etxehandi
Bizkarra bortari kontra bermaturik egon zen, **luzaz**, eta berriz gurutzearen seinalea egin zuen. Elena Touyarou
Hamaika gaiztakeria egin ohi du bekatariak! baina **luzaz** bizi da. Elizen arteko biblia
Beharrik ez zuen **luzaz** iraun legedia berriak. Piarres Xarriton
Ederki!, pentsatu nuen, eta berak iradoki bezala egon nintzaion **luzaz**. Anjel Lertxundi
Ez **luzaz**. Aingeru Epaltza
Bestalde, Aljeriako Gerla egina zuen, franko **luzaz**. Daniel Landart
Bihurgune baten ur geldian errotua dagoen ihi flokari so egon naiz aski **luzaz**. Piarres Aintziart
**Luzaz**, biziki **luzaz** kanpoko haize hotzean beha egon behar. Marzel Etxehandi

**2** alde handiz.

Sasoi hau izan zait ene bizian **luzaz** atsegingarriena. Piarres Aintziart
Hemen biriatuarra arras bringoan hastetik, eta **luzaz** bereratu uztariztarra: 14-4 izan ondoan, 31-14 ere kondatu zaie. Herria

**3** ***luzaz eta luzaz*** *ipar*

**Luzaz eta luzaz** alta, zubirik etzen Ziburu eta Donibane bi herriak elgarri lotzeko. Herria
Soldadutzako denbora gehiena elkarrekin egina genuen, Mont-de-Marsan hirian, eta iluntzetan bereziki, ez baikenuen deus egitekorik, ostatuetan **luzaz eta luzaz** egoten ginen hizketan. Daniel Landart
**Luzaz eta luzaz** CGT sindikataren buru egona, Henri Krasuckipausatu da 78 urtetan, barkatzen ez duen gaitz batek bildurik. Herria
**Luzaz eta luzaz** europatiar suhar agertua, bainan beti azpimarratuz Europa batua egitekotan behar dela zimendu azkarrekin finkatu, jendetze bakoitxari, izan ttipi ala handi, bere tokia eginez, bere nortasunaren araberako tokia. Herria

---

**luze** **1** *izond* buru batetik bestera hedadura handia edo ohikoa baino handiagoa duena; luzera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duena. ant **labur**.

Kanpo aldean, berriz, balkoi **luze** bat, baranda zurezkoa zuena. Joan Mari Irigoien
Mahai **luze** hartako beste muturrean. Txillardegi
Horman, gizonaren atzealdean, arasa **luze** bat, eta botilak ilaran. Patxi Zubizarreta
Etorbide **luze** baten erdian ginen, autoko lau keinukariak piztuta. Aingeru Epaltza
Galeria horizontal **luze** batera. Juan Garzia
Paretak berinezkoak, moketa grisezko pasabide **luze** luzeak... Ramuntxo Etxeberri
Bide **luzea** egin dut. Iñaki Iñurrieta
Eta pauso **luzeak** emanez alde egin zuen handik. Iñaki Mendiguren
Ebaki **luze** bat egin beharko ziotela. Imanol Zurutuza
Baziren indioilo luma **luze** beltzak eta antzara luma zuri lauak. Karlos Zabala
Belarritako **luzeak** dilindan eta zapatillak zangoetan. Aingeru Epaltza
Marjoriek bere zango **luze** zuriak erakusten zizkien. Koro Navarro
Sudur **luze** eta fin bat jantzi zion haren aurpegiaren imajinari, Cyrano bihurtuz. Joxemari Urteaga
Bizar elur-**kolore** luze batez, tunika zuri batez, begirada aratz batez. Anjel Lertxundi
Anaiak betile jori **luze** ederrak zituen. Daniel Landart
Gaua bezalako zapzi txirikorda **luze** eta beltzak. Patxi Zubizarreta
Kate **luze** baten kate-begia baita gaurko literatur jarduna. Anjel Lertxundi
Soineko **luze** ederrez jantzia zegoen neska. Elizen arteko biblia
Orain gutun **luze** bat idatzi diot. Oskar Arana
Testu **luze** batean tautograma bati eustea ez da erraza. Iñaki Arranz
Mila milia baino tarte **luzeagoa** lerro zuzenean. Iñaki Mendiguren

**2** irud/hed

Hire mihi **luzea** amarrukeriaz dantzatu ostean, jai duk uste baldin baduk ene kafetegian jotzen utziko diadala. Patxi Zubizarreta
Aita-semeen arteko ezinikusiak **soka** luzea zuen, lehenagotik zetorrena. Xabier Etxabe

**3** (neurrietan)

Hogeita bost bat milimetro **luze** ziren, hor nonbait, eta lau edo bost milimetrokoa zuten diametroa. Juan Garzia
Murruak 28 besabete **luze** ziren alde bakoitzean, 5 besabete garai eta 6 ukondo gizen. Aingeru Epaltza
Salomonek Jaunari eraiki zion etxe hura hogeita hamar metro zen **luze**, hamar metro zabal eta hamabost metro gora. Elizen arteko biblia
Bederatziehun bat versta da **luze** eta ehun bat zabal. Karlos Zabala
Beste sakonune bat ikusi genuen, lau bat oin **luze**, hiru bat oin zabal eta sei edo zazpi oin garai. Koro Navarro
Santutegi honen aurreko sala handia hogei metro **luze** zen. Elizen arteko biblia
Bitan tolestatua zegoen eta karratua zen: hogeita bost zentimetro **luze** eta beste hainbeste zabal. Elizen arteko biblia
Bakoitza hogei zentimetro **luze** ere ez zen hiru arrain kontatu nizkion. Jon Muñoz
Itsasoan mila oin **luze** diren itsas munstrorik baitabil igeri. Juan Garzia

**4** (denborari buruz) hasieratik bukaera arte iraupen handia duena, denbora hedadura handiz dirauena.

Denbora **luzea** daramazue hemen eta egurastu beharra duzue. Aingeru Epaltza
Denbora **luzean** ibili ginen harrizko murru garaien arteko kale zaratatsuetan. Irene Aldasoro
Etxe-barruan **denbora luzean** egoten edo etsitzen ikasia. Iñaki Segurola
Handik ez oso denbora **luzera**. Alberto Ladron Arana
Interes-tasek, **epe** luzera, berdintzera jotzen dute. Koro Navarro
Egoerak epe **luzera** aztertu behar dira. Berria - Euskal Herria
Epe ertain edo **luzera** Nafarroa Euskadin sartzeko aukera planteatzea. Berria - Euskal Herria
Epe **luzera begira** egokiena baldintza horiek guztiak desagertzea litzateke. Berria - Euskal Herria
Urte **luze** hauetan ez dituzue zeuen herritarrak bakarrik utzi. Elizen arteko biblia
Bi egun **luze** eta bi gau amaigabeak igaro ondoren. Felipe Juaristi
Orain eguna **luzeagoa** dun, argia handiagoa. Patxi Zubizarreta
Ordu **luzeak**, soldata txikia, arrisku fisikoak. Oskar Arana
Bi ordu **luze** eman zituzten horren guztiaren batuketa egiteko. Karlos Zabala

Tarte **luze** batean -ordubete baino gehiago, taxutu nuenez- asotsik apalena ere ez zitzaidan inguratu. Aingeru Epaltza
Gau **luzean** murgilduko naiz. Lopez de Arana
Bolada **luze** batez Prousten antzera idatzi zuen. Joxean Agirre
Bizitza **luze** eta zoriontsua. Elizen arteko biblia
Bizi naizen artean sekula ahaztuko ez zaidan musu **luze** eta samur bat. Oskar Arana
Gero, loaldi **luzea** egin zuen, sorgorturik egongo balitz bezalakoa ia. Xabier Olarra
Lo **luze** batetik esnatu balitz bezala bere onera itzulirik. Jose Morales
Kristinak irri apal eta **luzea** egin zuen. Aingeru Epaltza
Berak edan zuen lehenik, bi hurrupada **luze**. Aingeru Epaltza
"Haa" **luze** bat egin du, zintzurraren eta triparen zoriona deplauki salatuz. Piarres Aintziart
Nazioaren eta nazionalitatearen inguruko eztabaida **luze** batzuen ondorioz. Piarres Xarriton
Adiskidetasun **luze** baten hasiera izan zitekean gertatua, ez dituk horrelako pasadizoak askotan gertatzen. Joxean Agirre

## **5** (pertsonez, zuhaitzez eta kidekoez) ik **altu.**

Arratsalde hartan, agure **luze** bat baizik ez zegoen dendaren aurrean. Karlos Zabala
Kirxa bistatu zuen, kafe etxeko nagusi **luze**, flakoxta eta goibela. Patxi Zubizarreta
Hogeita hamabosten bat urteko gizon sendoa zen, **luze** samarra, tankera onekoa. Neska **luze** serio horrek, gizon haien guztien artean galduta, irakasle plantan entzuten zien. Migel Angel Mintegi
Luzea eta **lerdena** zen, aldaken aldetik zabal samarra beharbada, baina haragi sendokoa, halere. Migel Angel Mintegi
Zazpi pinu **luzeren** erdian. Xabier Mendiguren Elizegi
Gar **luze** garbien aurrean egoten zen. Karlos Zabala
Harkaitz bertikal **luze** baten orpoan. Koldo Izagirre
Eskuinean dorre **luze** eta estu bat dauka, eraikuntzaren errematetik ozta goititzen dena. Koldo Izagirre
Baso handi **luze** bat, arno hormatuz betea! Piarres Aintziart

## **6** (hitz soila izan aditzarekin)

Hiria karratua zen, **luze** bezain zabal. Elizen arteko biblia
Eta zein **luze** diren berrogeita hamar metro kixkil, gibeletik tiroka ari zaizkizularik. Eneko Bidegain
Zeinen zabal eta **luze**, garai eta sakon den Kristoren maitasuna. Elizen arteko biblia
Denbora **luze** da beha dagoenarentzat, bereziki biziaren arriskuan zeudelarik. Marzel Etxehandi
Eternitatea ez da **luze** eta ez da denboraz eginikako zerbait. Patziku Perurena
Bidea **luze** eta zabal bezain erraza da. Piarres Aintziart
· Zoaz, bada, orain, zeharka ezazu lurralde hau, **luze** eta zabal, zeuri emango baitizut. Jose Antonio Mujika

## **7** (-en atzizkiaren eskuinean, izen gisa)

Zer logika klase du hatsaren laburra eta heriotzaren **luzea** lotzeak? Anjel Lertxundi
Orduan ez du izutzen zaputzaren beldurrak, ez du nekatzen balizko oztopoak eta bidearen **luzeak**. Hasier Etxeberria
Barkatuko ahal zait aipuaren **luzea**. Anjel Lertxundi
Urteak joan ahalean kexu baitira biziaren **luzeaz**. Felipe Juaristi
Hogei urte bizi-aldi bat dela batere ohartu gabe, denboraren **luzeari** batere erreparatu gabe. Jokin Urain
Tiro egin aitzin, neurtzen zituen balaren pisua eta bolborarena; eta tiro egin ondoren, tiroaren **luzea**. Joan Mari Irigoien
Oinkadaren **luzea** kalkulatuta daukazu dagoeneko. Rafa Egiguren
Galderen **luzean** eta erantzunen laburrean -"kontatuko banizu!", "mintza banendi!"- hautematen ahal zen Ixabel Xankoxe ene bihotzekoa irakurleak txunditzeko mauka aurkitu zuelakoan hurbildu zitzaiola apezñoari. Aingeru Epaltza

## **8** (pilota mota baten izena)

Azken hau mendi batean zegoen, non pilotan **luzean** aritzen baitziren artzainak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Igande 17an Donapaleun, **Luzea**, Xixtera haundi eta ttipiak. Herria
**Luzean** Uztariztarrak xapeldun. Herria
Xapelgoak hasiak dire **Luzeko** jokoan, joko garbian eta esku huska. Herria
Euskal Ligako Astea, euriak trabaturik ere, bururatu da, eta huna finala bat **luzean**, edo errebotean, bakan ikusi dena: 13-0. Herria
Liburu berri bat agertu du "Atlantica" argitaletxeak, "Rebot passion" tituluarekin, **luzeko** joko zaharraren ohoretan. Herria
Bidearen beste alderdian, bazen lehen **luzeko** pilota plaza bat, 40 metro luze, 18 metro zabal zuena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Errebotean edo **luzeko** jokoan izanen ditugu bi talde. Herria
Gero, segidan, **Luzeko** partida. Herria
Igandean Hazparnen 10 1/2tan **Luzeko** finala. Herria

## **9** (adizlagun gisa) ik **luzeki.**

**Luze** ari izan zitzaion Ana otoitzean Jaunari. Elizen arteko biblia
Ez dut ia zuekin **luze** hitz egiteko aukerarik. Elizen arteko biblia
**Luze** mintzatu ginen, ahots apalez, Lajosi buruz, haren seme-alabez eta Vilmaz, nire ahizpa zenaz. Ander Irizar
Jende sakonak ez du **luze** jarduten hizketan; are gutxiago idazketan. Iñaki Segurola
**Luze** iraun zuela airean zintzilik bezala, eta gero lurrera erori zela ahoz gora. Ramon Saizarbitoria
Ikuskaria **luze** gogoratzeko modukoa izan zen. Inazio Mujika Iraola
Garizuma **luze** gertatzen zitzaiola. Pello Zabala
**Luze** hartu zuen arnasa, haren irritsaren ausardia indarberritu izan balitz bezala. Karlos Zabala
**Luze** zain egon behar izan genuen, zuzendariak noiz errezibituko. Anjel Lertxundi
Hamabost mila pezeta kendu zizkiotela aitorpena entzuteagatik, oso **luze** joan ez zena bestalde. Ramon Saizarbitoria
**-Luze** geratuko al zarete hemen, Brazell eta Skully? Koro Navarro
Zoaz, bada, orain, zeharka ezazu lurralde hau, **luze** eta zabal, zeuri emango baitizut. Jose Antonio Mujika
Besoak gorputzaren bi aldeetan **luze** utzita. Juan Kruz Igerabide
Halaxe iraun zuten denbora batean, Enrike lurrean **luze**, Gabin fitxekin ari zelakoa egiten, biak geldi, biak isilik. Iñaki Iñurrieta
Bat-batean, Saul **luze** erori zen lurrera. Elizen arteko biblia
**Luze** jo zuen epaiketak. Harkaitz Cano
**Luze** egiten da bidea aldapan gora. Arantxa Iturbe
**Luze** egin zuten bi gizonek isil-isilik, kareleko barandan eskuak. Anjel Lertxundi
**Luze** eman zenuen uretan sartuta. Patziku Perurena
Ikaragarri **luze** joko du horrek. Jose Morales

• **10** *iz* estropadetan eta igerilekuetan, aurrera eta atzera zenbait aldiz korritu behar den tartea.

Traineruak binaka atea ziren, eta lehen **luzean** nahiko parekatuta iritsi ziren elkarrengandik denak ala denak ere. Berria - Kirola

Bigarren **luzean** lehiak bere horretan jarraitu zuen. Berria - Kirola

Azken **luzean** hondarribitarrek hirugarren ziabogan lortutako errentarekin eroso egin zuten arraunean Kontxako hondartzarantz. Berria - Kirola

Kalez aldatu zuten atzo azken **luzean** eta 3 segundo baino ez zizkion atera Astillerok. Berria - Kirola

Orain -dio- hogei luze **igeri** egitera, xanpain pittin bat edatera eta nire katemetxoa zein maite dudan gogoratzera noa. Edorta Jimenez

**11** ***luzexeago*** *(orobat* ***luzexago****)*

Lehen hitza motzagoa da, **luzexeagoa** bigarrena. Iñaki Arranz

Batzuetan labur joaiten zen, bertzeetan **luzexago**. Eneko Bidegain

Etorreran baino tarte **luzexeagoa** utzi nuen orain haien eta nire artean. Aingeru Epaltza

Egizu kontu ilargiak bere bidea osatzeko, 28 egun dituela, baina, egun **luzexeagoa** duenez, 25 ordu eta minutu batzuekikoa, bere ilargialdia betetzeko, 29 egun eta puxka bat behar duela. Pello Zabala

Gure etxean **luzexeago** gelditzen uzteko eskatzen nion. Fernando Rey

Aurretik pare bat bideo xixtrin egin eta orain zerbait **luzexeagora** pasatu nahi zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Edo **luzexagoko** zerbait berdin baina ez halere hein honetakorik! Janbattitt Dirassar

**12** ***luze baino lehen*** luze gabe.

Ziur nengoen **luze baino lehen** eta lan askorik gabe nire ohar ditxosozkoa berreskuratu ahal izango nuela. Ramon Saizarbitoria

Erresuma zure kemenaz, zure eskarmentuaz eta zure zuhurtziaz baliatzeko premian egonen da **luze baino lehen**. Aingeru Epaltza

Edaten segituz gero, berriz, **luze baino lehen** etorriko zait goragalea, gonbitoak. Xabier Mendiguren Elizegi

**13** ***luze gabe*** *(306 agerraldi, 78 liburu eta 36 artikulutan; orobat* ***luza gabe*** *15 agerraldi, 3 liburu eta 11 artikulutan,* ***luzegabe*** *2 agerraldi liburu 1ean eta* ***luzagabe*** *4 agerraldi 2 liburutan)* *adlag* denbora asko igaro gabe.

**Luze gabe**, bere itsasontzirik azkarrenak bidali zituen haren bila. Patxi Zubizarreta

**Luze gabe**, betazalak karga-karga egin zitzaizkidan berriz. Aingeru Epaltza

Baiezkoa eman nion, **luze gabe** bisitatuko nuela. Bernardo Atxaga

Gazteek **luze gabe** bete zuten kalea, eta haietako askok pabilioira jo zuten gero. Patxi Zubizarreta

Lagundu behar nauk, lagundu, bestela, **luza gabe**, burua galduko diat... Daniel Landart

Haren izaera pipertuaren eta eztabaida amaiezinen hotsa **luze gabe** heldu zen nagusiengana. Patxi Zubizarreta

Harria beheraka hasiko da **luze gabe**, eta maitale arbuiatuak ere, bere desesperantzaren poderioz mundutik at sentitzen zenak, gosaria prestatu beharko du, bizarra moztu, bulegora joan, [...]. Bernardo Atxaga

Pozgarri zaio gizonari horretarako indarrak bildu dituela ikustea, baina badaki **luze gabe** nekatuko dela, eta atseden hartu beharko duela orduan. Imanol Zurutuza

Amore eman genion, eta kuia zopa hura aurrean izan genuen **luze gabe**. Bernardo Atxaga

Garbi dago milurteko larrutaldia joko dugula **luze gabe**. Patxi Iturritegi

**14** ***luze-labur*** *iz* luzeraren tamaina.

Amak soinekoa pertxatik askatu eta gorputz parean jartzen dit, **luze-laburraren** neurria ikusteko. Edozein gauza **luze laburrean** neurtzeko orduan. Anjel Lertxundi

Zokota zuri bat sartu du, gero, burutik behera: ongi geratzen zaio **luze-laburrean**. Anjel Lertxundi

Testuaren **luze-laburra**. Iñaki Arranz

Hedaduraz, **luze-laburrez** eta informazioaren ugaritasunaz lehengoa baino handiagoa. Berria - Harian

Asmoak eta **luze-laburrak** ezagutzen ez nizkion sare ikusezin batean sartzeko eskatzen ari zitzaidan Anghios. Anjel Lertxundi

Izan ere, eternitatea ez da **luze-labur** kontua. Joxerra Garzia

· Manex Goihenetxe Ezterenzubin jaio zen, 1942an, hirurogeita bi urteko bizitza **luze-laburrean** asko eman duen unibertsitario euskalduna izan dugu.

**15** ***luze-laburtu***

Doinua **luze-laburtu** gabe ari bada, badaki zenbatu gabe ere zenbat silaba sartzen ari den oin bakoitzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**16** ***luze-zabal*** *(orobat* ***luzezabal*** *g.er.)*

Haien xehetasunak buruz nekizkien, gaiak ez ezik, **luze-zabalak** ere. Aingeru Epaltza

Etxe haren **luze-zabala** neurtu izan balu, mintzatuko zatekeen agian huste lan nekagarri eta halaz ere askatzaile honi buruz. Joxan Elosegi

Munduaren **luze-zabalean** gosea gero eta handiagoa da. Pako Aristi

Inperioaren **luze-zabal** osoan. Iñaki Iñurrieta

Lurraren antzeko tasunak dituzten planeta asko eta asko baitaude haien iritziz unibertsoaren **luze-zabalean**. Juan Garzia

Andre bat nigana makurtzen da, bera zinez zer den nire **luze-zabalean** aztertuz. Bernardo Atxaga

· *pl* Hein Völker militante gaztearen ia gorputz osoko fotograma batek hartzen zituen kartelaren **luze-zabalak**. Anjel Lertxundi

**Luze-zabalei** zegokienez, gela hura aurrekoaren antzekoa zen. Patxi Zubizarreta

**17** (neurrietan)

Hamabost-hogei zentimetroko **luze-zabaleko** plaka angeluzuzenak. Iñaki Iñurrieta

Zaingelak hiru metrokoak ziren **luze-zabalean**. Elizen arteko biblia

Brontzezko aldarea ere eginarazi zuen Salomonek; hamar metro zen **luze-zabal** eta bost metro gora. Elizen arteko biblia

**18** (izenondo edo izenlagun gisa)

Baina ozta-ozta ikusten zituen begien aurrean igarotzen zitzaizkion estepa **luze-zabal** haiek. Karlos Zabala

Hargatik sortu dira azken urteotan egitura **luze-zabalagoak**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Orain, burua paretaren kontra, begiak itxita eta hanka-besoak **luze-zabal**, berriro hemen nagoelarik, haluzinazio hutsa iruditzen zait. Joxe Austin Arrieta

Baina, gertakariak **luze-zabal** kontatzeari uko eginez, gauzak laburki ematen utzi behar zaio egokitzaileari. Elizen arteko biblia

Han zeuden etzanda, eguzkitan **luze-zabal** hedatuta. Mirentxu Larrañaga

**19** ***luze-zabalera*** *(orobat* ***luzezabalero****)*

Handiagoa egin zuen **luze-zabaleran**. Juan Kruz Igerabide

Ez gure herri horretan bakarrik, baizik eta munduaren **"luzezabalero"** guzian. Patziku Perurena

**20** ***luze-zalbadu*** hedatu.

**Luze-zabal** ezazu gorputz puska hori zoru gainean eta zenbatu hemeretzi maila. Juan Garzia

**21** ***luze-zabalka***

Ibilbide itzaltsu hartan **luze-zabalka** nenbilen, parkea azpian hartzen duen hegitxo baten gainean kasinoko musika-taldeari lehenengo abestiak jotzen entzuten. Josu Zabaleta

**22** ***luze-zabalki*** *(corpusean* ***luzezabalki*** *soilik)*

Pantailak familia nuklearra munduarekin konektatzeko daude; libreki, liberalki eta **luzezabalki** informatzeko eta hezteko. Iñaki Segurola

**23** ***luzerasup_1*** *(orobat* ***luzara****)* luzeraren norabidean.

**Luzera** moztuko banu... belaunaren gainetik ez al litzateke freskoagoa, arinagoa geratuko? Jasone Osoro

Ebaki behar dituzu eskuturretatik gorantz, **luzara** . Sonia Gonzalez

**24** *luzera*[2] *ik* ***luzara***.

**25** ***luzera begira*** *adlag*

**Luzera begira** , hori gero eta nabarmenagoa izango da etorkizunean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Luzera begira** , gainera, mesede egingo zion Bladiri gure erabakiak. Hasier Etxeberria

Ondorioak **luzera begira** , ondorioak erdiko epera begira, ondorioak epe laburrera begira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Enpresek ziurtasun politikoa behar dute **luzera begira** . Berria - Ekonomia

· Hazkunde ekonomikoaren epe **luzera begirako** ikuspegien inguruan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

adats luze (9); aldi luze (28); aldi luze batez (8); artikulu luze (7); aski luze (12); aste luze (12); asteburu luze (9); aulki luze (7); aurpegi luze (13); azalpen luze (7); begi luze (7); beltz luze (19); bi metro luze (9); bi ordu luze (8); bi urte luze (7); bidaia luze (45); bidaia luze bat (11); bide luze (53); bidea luze (16); bizar luze (11); bizi luze (124); bizi luze bat (9); bizi luze zoriontsu (10); bizitza luze (15); bizitze luze (27); bolada luze (22); bolada luze batean (7); borroka luze (13); bost metro luze (7); bost zentimetro luze (7); bulta luze (7); denbora luze (51); denbora tarte luze (7); denboraldi luze (17); egonaldi luze (12); egun luze (23); egunak luze (9); elkarrizketa luze (18); epe luze (18); epe luze batean (7); erdi luze (24); eritasun luze (13); eritasun luze baten (8); esku luze (12); eta abar luze (8); eztabaida luze (21); eztabaida luze baten (7); film luze (42); gaixotasun luze (16); gaixotasun luze baten (14); galtza luze (7); gau luze (23); gizon luze (9); gutun luze (17); gutun luze bat (9); hamar metro luze (11); hanka luze (11); hankak luze (7); hari luze (8); hasperen luze (22); hasperen luze bat (14); hatz luze (21); hilabete luze (42); historia luze (17); hitz luze (7); hodi luze (7); hogei urte luze (7); ibilaldi luze (22); ibilaldi luze eta (7); ibilbide luze (24); ibilbide luze eta (8); ilara luze (17); ile luze (41); ilea luze (9); ipuin luze (8); isilaldi luze (12); isilune luze (40); isilune luze bat (14); isilune luze baten (18); istorio luze (9); itzal luze (8); kale luze (7); kate luze (15); kilometro luze (27); korridore luze (19); lan luze (15); lepo luze (17); lepoa luze (7); lerro luze (12)

luze ari (8); luze aritu (31); luze baino lehen (23); luze barik (25); luze bizi (8); luze da (26); luze ditu (13); luze doa (11); luze egin (51); luze eginda (14); luze egiten (26); luze egiten da (7); luze egon (30); luze egon zen (7); luze eman (13); luze eta gogor (7); luze eta gogorra (8); luze eta neketsua (10); luze eta oparoa (7); luze eta sakon (7); luze eta uros (10); luze eta urosa (15); luze eta zabal (89); luze eta zail (8); luze eta zaila (7); luze eta zoriontsu (41); luze etzan (9); luze etzanda (19); luze etzaten (7); luze eztabaidatu (10); luze gabe (294); luze hitz egin (43); luze hitz egiten (7); luze ibili (8); luze igaro (7); luze iraun (83); luze iraun zuen (17); luze iraungo (35); luze irauten (28); luze iritzita (7); luze itxaron (18); luze izan (18); luze izanen (18); luze izango (10); luze jardun (28); luze jardun zuen (10); luze jo (72); luze jo zuen (32); luze joan (41); luze joan zen (12); luze joaten (9); luze jokatzen (7); luze joko (87); luze joko du (25); luze jotzen (18); luze laburra (14); luze luze (121); luze luze bat (15); luze luze eginda (14); luze luze etzanda (11); luze luzea (39); luze luzeak (11); luze mintzatu (23); luze pentsatu (7); luze samar (21); luze samarra (34); luze uros (9); luze uros bat (9); luze zabal (51); luze zabal osoan (9); luze zabala (13); luze zabalak (9); luze zabalean (39); luze zen (20); luze ziren (9); luze zoriontsu (11); luze zoriontsu bat (10)

mahai luze (28); makila luze (10); metro da luze (41); metro luze (80); metro luze da (7); metro luze zen (8); metro zen luze (13); minutu luze (19); musu luze (17); oin luze (8); oinazeak orduak luze (8); ordu luze (24); orduak luze (9); oso luze (48); partida luze (25); prozesu luze (37); prozesu luze baten (9); puska luze (14); puska luze batean (9); sail luze (10); segundo luze (7); sobera luze (13); soineko luze (15); soka luze (13); sudur luze (15); tanto luze (12); tarte luze (51); tarte luze batean (12); tarte luze batez (14); testu luze (9); testu luze bat (7); trago luze (16); trago luze bat (10); txima luze (7); une luze (36); une luze batez (25); upakada luze (8); uros eta luze (8); urte luze (81); zentimetro luze (21); zerrenda luze (45); zerrenda luze bat (15); zuri luze (11); zurrutada luze (9)

aldi luzea (11); arras luzea (7); aski luzea (19); beltz luzea (15); bidaia luzea (56); bidaia luzea egin (10); bide luzea (222); bide luzea dago (14); bide luzea du (8); bide luzea egin (63); bide luzea geratzen (13); bidea luzea (29); bidea luzea da (9); bilera luzea (8); bilkura luzea (7); bizi luzea (26); biziki luzea (11); bizitza luzea (28); borroka luzea (21); denbora luzea (185); denbora luzea da (10); denbora luzea egin (8); denbora luzea eman (19); denbora luzea ematen (7); denbora luzea pasatu (10); denbora luzea zeraman (11); denboraldi luzea (9); denboraldia luzea (10); elkarrizketa luzea (8); epe luzea (9); esku luzea (10); esperientzia luzea (8); eztabaida luzea (17); eztabaida luzea izan (9); film luzea (37); frango luzea (8); gatazka luzea (8); gau luzea (18); gogorra eta luzea (16); hasperen luzea (7); hatz luzea (15); historia luzea (38); historia luzea du (10); hots luzea (7); ibilaldi luzea (10); ibilbide luzea (49); ibilbide luzea egin (11); ilara luzea (13); ile beltz luzea (7); ile luzea (40); isilaldi luzea (11); isilune luzea (16); itzal luzea (35); itzala luzea (9); izugarri luzea (14); kate luzea (7); lan luzea (17); legenda luzea (13); lehen film luzea (9); lepo luzea (21)

luze luzea (39); luzea da (193); luzea da oso (14); luzea dauka (17); luzea du (46)

mihi luzea (12); oraindik bide luzea (22); ordu erdi luzea (8); oso luzea (86); partida luzea (15); proba luzea (7); prozesu luzea (43); prozesua luzea (25); saio luzea (7); soka luzea (35); sudur luzea (15); tarte luzea (20); tradizio luzea (9); trago luzea (13); txapelketa luzea (8); zaila eta luzea (8); zerrenda luzea (104)

luzeago jo (7); uste baino luzeago (10)

askoz luzeagoa (9); bide luzeagoa (7); denbora luzeagoa (9); luzeagoa izan (23); luzeagoa izango (16); luzeagoa izaten (7); zenbat eta luzeagoa (7); zerrenda luzeagoa (7)

gero eta luzeagoak (12); luzeagoak izan (8); luzeagoak izango (7)

denbora luzeagoan (11)

aldi luzeak (10); aski luzeak (7); auto ilara luzeak (44); baloi luzeak (10); beso luzeak (8); betile luzeak (7); bidaia luzeak (20); bota luzeak (8); denboraldi luzeak (7); egonaldi luzeak (9); egun luzeak (8); elkarrizketa luzeak (8); esaldi luzeak (7); eztabaida luzeak (12); film luzeak (27); galtza luzeak (15); gau luzeak (7); hatz luzeak (10); hilabete luzeak (9); ibilaldi luzeak (25); ibilaldi luzeak egiten (11); ilara luzeak (81); ilara luzeak eragin (9); ilara luzeak izan (10); ilara luzeak sortu (29); ile luzeak (19); itzal luzeak (8); lanaldi luzeak (7); luze luzeak (11); luzeak dira (31); ordu luzeak (37); ordu luzeak eman (7); oso luzeak (33); paseo luzeak (10); pauso luzeak (20); pauso luzeak emanez (12); saio luzeak (10); solasaldi luzeak (8); txima luzeak (8); urrats luzeak (22); urrats luzeak eginez (15); urte luzeak (25); zerrenda luzeak (14)

aldi luzean (7); aspaldi luzean (13); azken luzean (7); bere bizi luzean (12); bide luzean (29); bizitza luzean (8); denbora luzean (200); denbora luzean egon (12); epe luzean (53); gau luzean (7); historia luzean (15); ibilbide luzean (12); lehen luzean (7); tarte luzean (11)

bidaia luzearen (9); denbora luzearen (7); mahai luzearen (9); prozesu luzearen (7)

luzeegi joko (12)

luzeegia da (8); luzeegia egin (9); luzeegia izan (8)

ahalik eta luzeen (8); film luzeen (10); ordu luzeen (7)

hilabete luzeetako (8); urte luzeetako (23)

bidaia luzeetan (7); egun luzeetan (12); hilabete luzeetan (14); mende luzeetan (14); ordu luzeetan (18); urte luzeetan (87)

epe luzeko (62); ibilbide luzeko (13); ile luzeko (8); iraupen luzeko (25); kilometra luzeko (12); kilometro luzeko (11); lepo luzeko (8); luzeko finala (9); luzeko jokoa (8); luzeko jokoan (15); luzeko partida (15); metro luzeko (18); urte luzeko (7)

epe luzera (174); epe luzera begira (17)

denbora luzerako (8); epe luzerako (94)

bide luzerik (7); denbora luzerik (12)

urte luzetako (11)

ordu luzetan (9); urte luzetan (43)

aste luzez (8); denbora luzez (193); denbora luzez egon (14); egun luzez (12); hilabete luzez (18); minutu luzez (10); ordu luzez (18); ordubete luzez (8); tarte luzez (9); urrats luzez (29); urte luzez (103)

---

## **luzeagotu,** luzeago(tu), luzeagotzen da/du *ad* luzeago bihurtu.

Erroman, gizonen bizia **luzeagotzea** haien agonia **luzeagotzea** eta haien heriotzen kopurua berretzea zela sumatu zuten filosofoekin solastatu nintzen. Juan Garzia

Goiko plataforma hiri aldera **luzeagotzen** zen. Jon Alonso

Bertso "ikusgarriagoa" egite aldera, doinu-neurriak **luzeagotu** nituen: [...]. Andoni Egaña

Hitz, letra, silaba, esakune, paragrafoak... **luzeagotzeko** . Iñaki Arranz

---

## **luzedun** *izlag* luzeko.

Beltzaran txiki bat zen, begi beltzekoa, ile **luzeduna** , bizkor-bizkorra. Juan Kruz Igerabide

Bat-batean ile beltz **luzedun** neska baten atzealdeak balizko gomutapenetatik atera zaitu. Sonia Gonzalez

Ile **luzedun** gizonezkoak betidanik gustatu izan zitzaizkiola. Joxean Agirre

---

luzegabe ik **luze 13**.

---

# luzeki *(orobat* ***luzaki****)* *adkor* ik **luze 9**.

Trenak aizina zuen, Moselle ibaiari harat zihoala, eta **luzeki** ikus genitzakeen ibaia bi aldeetatik hesten duten mendixka oihantsuak. Marzel Etxehandi

Argitasunak **luzaki** emanak izan dira joanden astelehen arratseko kontseilu bilkuran heldu den urteko buxetaz. Herria

Izpiritu xorrotxeko gizona, bere lana eta jakitate zabalari esker, goraxko igana Frantziako gizartean, mintzatu zait **luzeki**, aipatuz bere ikusmoldea, Euskal Herriko geroaz. Herria

Jakobe Almaynusek erraten duela *Elizaren Botere Goihenaz* idatzi liburuko 15. kapituluaren 11. lerroan eta **luzekiago** arratsaldeko hitzaldietan, ez dela erreinua erregearena baina herriarena. Piarres Xarriton

Hor dugu lekuko Garat Pikasarri, Hazparneko misionesten sortzailearen historia Arbelbidek **luzeki** aipatzen baitu. Xipri Arbelbide

---

# luzekiro *adlag* luzeki.

Janinak Wernerren txapela kaskoan zetxikan **luzekiro**, zangartea garbitzen eta *maitia nun zira* abesten zuela. Itxaro Borda

---

# luzemetraia *iz* film luzea.

**Luzemetraia** eta laburmetraiak sarituko dira. Hasier Etxeberria

*Arrazoirik badago* **luzemetraia** ere atzo aurkeztu zuten estatuko hainbat zinemagilek: prestitx, Irak, etxebizitza... gidoia eskuan hartuta. Berria - Euskal Herria

---

luzenga ik **luzanga**.

---

## luzeño *izond adkor* luzetxoa.

Aurpegi fineko mutil gaztea, arras elegantea, urrezkoa izan zitekeen petenta **luzeño** bat beharri batean, zetazkoa iduri zuen atorra koloretsu batekin, galtza balus arrosa kolore batzuekin. Janbattitt Dirassar

---

# luzera[1] *(orobat* ***luzaera*** *g.er. eta* ***luzero*** *g.er.)* **1** *iz* luzetasunaren neurria; lehen dimentsioaren neurria.

Berrogeita hamar **metroko** luzera zuen, eta hogeita bosteko zabalera. Elizen arteko biblia

Zortzi oineko **luzera**: 2,44 m. Lopez de Arana

Hegoaldeko harresiak, **luzera** berekoak, beste hiru ate: Simeon, Isakar eta Zabulonenak. Elizen arteko biblia

Guztiak **luzera** batekoak al dira altzairuok? Juan Garzia

Begiaren atzetik aurrerako **luzera** 22 eta 26 mm artean dabil. Irene Aldasoro

**Luzera**, zabalera eta altuera berdinak ziren. Elizen arteko biblia

Denbora, distantzia, **luzera**, bolumen, pisu eta balioaren neurri estandarrak. Iñaki Mendiguren

Hori lortzeko obraren elementuak egokitu behar dira elkarrekin, altuera zabalerarekin, eta zabalera **luzerarekin**. Santiago Iruretagoiena

Teilatuaren **luzera** osoan aire edo argi instalazioa zeukaten. Urtzi Urrutikoetxea

Bidearen **luzera** osoan jarri zuten jendea, binaka-binaka. Koro Navarro

Neskatila dontzeila **luzera** lirainekoak, neskatila gazte uzta berrikoak! Patziku Perurena

Pasillo labur baten tankera zuela, **luzeran** sei pauso betekoa eta zabaleran bi eskasekoa. Bernardo Atxaga

*Tetraodon nigroviridis* espezieko arrainek hiru eta hamabost zentimetro artean izaten dira **luzeran**. Berria - Gaiak

Egundoko zabaleroko eta **luzeroko** oihan itxi berdeak. Pello Zabala

Une hartan oso lanpetuta zegoen Wendy hankekin neurtzen, jakiteko ze **luzeratako** etxea beharko zuen. Julen Gabiria

**2** *(Lurraren koordenatuetan)* ik **longitude**.

Lurrikara 14:52an gertatu zen eta epizentroa Lizaoainen izan zuen, Agoitz eta Iruñea artean (42,80 gradu iparreko latitudean eta 1,49 gradu mendebaldeko **luzeran**). Berria - Euskal Herria

Linguistikoa ez den oinarri guztiz logiko baten arabera egiten al da, gramatikaren eremuaz kanpotik aplikatuz, Munduko bolan **luzera** eta latitudea aplikatzen diren bezalaxe? Isabel Arrigain

**3** (denborari buruz)

[Hilabete] bakoitzak hogeita hamar eguneko **luzera** berdina zuen, hamar eguneko hiru astetan multzokatuta. Iñaki Mendiguren

Egunen **luzera** amaigabean. Xabier Amuriza

Prosodiaren osagaiok (garaiera, ozentasuna eta **luzera**) gauzatzen dute *azentu* deritzona. Lourdes Oñederra

Kosta zitzaien bat etortzea, hilabete honek behar zuen **luzeroan**: [...] azkenik, 31 eman zizkion Julio Zesarren erabakiak. Pello Zabala

**4** (hitz elkartuetan)

Ivan Pedrosok ere eskura zuen marka, baina **luzera** jauzilari kubatarrak kale egin zuen herenegun eta dominarik eta markarik gabe geratu zen. Berria - Kirola

· Gaixotasunik gabeko gizarte hartan arazo bilakatu baitzen biztanleen bizitza-**luzera** mugagabea. Berria - Kultura

**5** ***luzera jauzi***

**Luzera** jauziak egitera jolastu ohi zuten lorategi hartan arrebak eta biek umetan. Harkaitz Cano

Perla Bustamante mexikarra **luzera** jauziko munduko marka ontzen saiatuko da (3,49 metro).

Pertika eta **luzera** jauzian nagusitu zen. Berria - Kirola

Marion Jones Atenasko Olinpiar Jokoetan izan daiteke, **luzera** jauzian. Berria - Kirola

**6** ***uhin luzera***

Objektuak 1,2 milimetroko **uhin-luzeran** igortzen duen erradiazioa neurtu dute. Berria - Gaiak

2003 UB313ren azala argia ala iluna izan, erradiazio berdina da **uhin-luzera** horretan. X eta gamma izpien **uhin luzera** atomoak baino txikiagoa da, eta beraz oso probabilitate txikia dute atomoaren nukleoarekin edo elektroiekin topo egiteko. Berria - Gaiak

**Uhin luzera** milimetroaren mila milioigarrena da, eta frekuentzia 100.000.000.000.000.000.000 hertzekoa. Berria - Gaiak

Bi filtro erabili zituen irudiak egiteko: batak **uhin-luzera** handiak filtratzen zituen (filtro gorria), besteak **uhin-luzera** txikiak (filtro berdea). Xabier Olarra

Bi filtro erabili zituen irudiak egiteko: batak **uhin-luzera** handiak filtratzen zituen (filtro gorria), besteak **uhin-luzera** txikiak (filtro berdea). Xabier Olarra

Lau aparatuek kometa eta haren isatsa neurtu dituzte **uhin luzera** desberdinak erabiliz. Berria - Gaiak

**7** irud/hed

Tomen **uhin-luzera** berean ibiltzen naiz -esan zuen Templek-, nahiz eta umeen **uhin-luzera** izan. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ardatzaren luzera** (3); **bere luzera guztian** (3); **bere luzera osoan** (4); **bi metroko luzera** (3); **bidearen luzera** (3); **errusiako luzera neurri** (3); **foku luzera** (8); **hamar metroko luzera** (4); **ibilbidearen luzera** (3); **itzalaren luzera** (4); **kilometroko luzera** (19); **kilometroko luzera du** (3); **luzera desberdineko** (3); **luzera eta zabalera** (5); **luzera guztian** (11); **luzera handiko** (3); **luzera jauzia** (9); **luzera jauzian** (13); **luzera neurri** (6); **luzera neurri antzinakoa** (3); **luzera osoa** (3); **luzera osoan** (26); **metroko luzera** (38); **metroko luzera du** (6); **oineko luzera** (4); **oso luzera** (6); **uhin luzera** (40); **zabalerarik gabeko luzera** (3); **zentimetroko luzera** (4)
>
> **uhin luzerak** (7)
>
> **luzeran etzanda** (3); **luzeran zortzi zulo** (3)
>
> **uhin luzerari** (3)

---

## luzera$^2$ ik **luze 23**.

---

## luzera$^3$ ik **luzara**.

---

## **luzerna** *iz* alpapa.

Campo hortan lan eginez eta segaz **luzerna** moztuz hazi zituen 13 haur, zortzi alaba eta bost seme. Herria

Hor berean pusarazten dute **luzerna** idor arazteko. Herria

**Luzerna** edo gari koadro handiak eta baso hirukiak. Josu Zabaleta

---

## luzero ik **luzera$^1$**.

---

## luzeska ik **luzexka**.

---

## **luzesko** *izond* luzexka.

Pozez txoratzen hasi nintzen nere lan **luzeskoa** argitaratzeko moldatzen eta txukuntzen. Patziku Perurena

Inprimaki bakoitzeko irakurleak gutun **luzesko** bat igortzen dio. Jose Angel Irigaray

Nire sudurra **luzeskoa** ote den, izan nuen horretaz kezkaren bat edo beste nerabezaroan. Joxe Austin Arrieta

---

## **luzetasun** 1 *izond* luzea denaren nolakotasuna.

Horretaz gain, kontatzeko moduaren berezitasunaren eta **luzetasunaren** ondorioz, Ulysses ez da inondik ere irakurketa errazeko nobela. Berria - Kultura

**2** *ipar* luzera.

Aturriko etorbide horren zabaltasuna hemezortzi metrotara heltzen da kilometro pasako **luzetasunean** . Herria

Leku handia zen, 63 metro **luzetasunean** , 11 largotasunean, sei mila ikusle baino gehiago aterbetzen omen zituen. Ramuntxo Etxeberri

Etorri berriak, ezin sinetsizko **luzetasuna** zuen eta jende zaratatsuz abantzu osoki betea zen mahai baten puntan jarri ziren. Elena Touyarou

Perzepoliz hain zela ziutate handia non gaur zutik dirauten itzulia egiten dioten harresiak bederen hogeita bortz lekoako **luzetasunekoak** diren. Aurelia Arkotxa

252 mendizalek egin dute 25 kilometrako ibilaldia, Urritzateko haran miresgarria bere **luzetasun** osoan kurrituz. Herria

Egunek izari polliteko **luzetasuna** dute, adineko jendeek, sobera unatu gabe bururatzen dutena. Herria

Bakartasun tokian, denboraren **luzetasuna** da menperatu behar, eguneroko zure egitaraua asmatuz, antolatuz, kontrolatuz, zure gaintasuna atxikiz. Filipe Bidart

---

## **luzetsi**, luzets, luzesten du *ad* luzea edo luzeegia iruditu.

**Luzetsi** egiten dio ostalariak zaldun mozkortien ostatuko egonaldiari, hala nola Madama Butterflyk **luzesten** dion senarraren absentziari, edo gaixoak gaixoaldiari.

**Luzetsita** baitago gaixoa, kimioterapia bukatutzat emateko zein irizpide dituen galdetu dio doktoreari, tratamendua noiz bukatuko duten. Imanol Zurutuza

Balantzaka ibili ginen itsasontziaren gainaldean, herio larritik noiz libratuko **luzetsita** zebiltzan mamu mozkortuak antzo. Mirentxu Larrañaga

Jendea marmarka hasi zen, zeharo **luzetsita** . Jon Alonso

---

## **luzetto** *izond* luzetxoa.

Arrosario **luzetto** bat aterarik, otoitzean. Herria

Julian Retegi pilotariarekin elkarrizketa **luzetto** bat. Herria

---

## **luzetxo** *izond*

Irlandarra naizen arren, egonaldi **luzetxoa** egin nuen Orion. Martin Anso

Aipamen **luzetxo** baina interesgarri bat. Joxe Azurmendi

Geetha neskatilla polit, aurpegi-borobil, **luzetxoa** da, ile luze zoragarriarekin. Gotzon Garate

**Luzetxoa** da hirugarren partea ("Lêna" izenekoa) osorik kopiatzeko, baina hona hasiera: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Lurrazpian hamar egunez egoteko asmoa baldin bazuen, **luzetxoago** egon behar izan zuen. Gotzon Garate

**Luzetxo** egiten ari zaidak zain egon behar hau. Xabier Etxabe

---

## **luzexeago** ik **luze 11**.

## **luzexka** *(orobat* ***luzeska*** *g.er.) izond* luzetxoa.

Bizikletaz zakukada handi bat zekarren batean, gizon mehe **luzexka** bat atera zitzaion bidera. Argazkiaren erdi-erdian Ron zegoen, ihar eta **luzexka**. Anjel Lertxundi

Bere lepo **luzexkan** beirazko kate eta iduneko ugari zeuzkan zintzilik. Iñaki Mendiguren

Hanka **luzexka** haietako batean. Alberto Ladron Arana

Zigarro **luzexka** bat piztu zuen gero. Anjel Lertxundi

Aulki **luzexka** bat baino ez zegoen, eta hantxe eseri zen Hagrid itxarotera. Iñaki Mendiguren

Kamioneta zahar, berde eta **luzexka**. Aingeru Epaltza

Hodei **luzexka** batek ilargia gurutzatu zuen. Fernando Rey

Solasaldi ederrak ziren, baina **luzexkak**. Pello Lizarralde

---

## **luzexkatu** *izond* luzexka bihurtua.

Niri, eguraldia gaiztotzen denean, pena eta min gehien ematen didana, garai honetan, eguna **luzexkatua**, ongi tiratua dugula dagoeneko, onetik dabilenean ordu dezente argiz ematen dituena. Pello Zabala

---

## luzezabal ik **luze 16**.

---

## **luzezabalero** ik **luze 19**.

---

## luzezabalki ik **luze 22**.

---

## **luzido** **1** *izond* buruargia, argitasun handiz arrazoitzen duena.

XX. mendeko lehen erdian gertatu kataklismo handienetan partaide eta humanitatearen krudelkeriaren lekuko **luzidoa** izan zen bere baitako Apokalipsia islatu zuen artista. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Nobela hori intuiboa da, **luzidoa**, izugarri hunkigarria eta, neurri batean, gaizki ulertua izan da. Berria - Kultura

---

## **luzidotasun** *iz* luzidoa denaren nolakoasuna, buruargitsuna.

Noraezeko **luzidotasun** batez konturatu nintzen noraezean preso nintzela: Solowejczyken preso? Matías Múgica

---

## **luzimendu** *iz* distira; nabarmentzea.

Gehiegizko mugimendua dagoela koreografiaren diseinuan, gehiegizko distira eta **luzimendua**, benetako dantzaren araztasunaren kaltetan. Berria - Kultura

-**Luzimendu** hutsean ibili haiz orduan? Iñigo Aranbarri

Nolanahi ere den, Garibai ikasleak lehendabizi Oñatiko unibertsitatean eta gero Salamancan eta Alcala de Henares-en pasatu zituen urteek **luzimendurako** aukera aparta eman diote biografoari. Anjel Lertxundi

Beizamarrak joko klasikoa egiten du, **luzimendu** gutxirekin, baina beti hartzen du erabaki egokia. Berria - Kirola

Hoteleko aulki patxadatsu haietan antolatzen zituzten **luzimenduzko** hitz-aspertuak. Josu Landa

Urteroko **luzimendu** unea izango zuen hura. Joxerra Garzia

---

## **luzitu**, luzi, luzitzen **1** da/du *ad* ederki eman; distiratu edo distirarazi; harro erakutsi.

-Zer iruditzen zaizkizu, uste duzu ondo **luzitzen** duela zure alkandorak nire soinean? Koldo Izagirre

Ongi iruditzen zaidak gastatzea, apaintzea, **luzitzea**. Josu Zabaleta

Gero, oskorriari **luzitzeko** astirik eman gabe zabaldu da gau tropikala. Jantzita zein jantzi gabe **luzituko** duen gorputzarentzat arropa dotoreak egiteak ez du merituri. Joseba Sarrionandia

Eguzkiak nola gehiago **luzitzen** duen, eguzkiaren argiak itsutzen du ilargiarena eta ez gara ohartzen hor denik. Pello Zabala

Igandeetan herrian **luzitzea** gustatzen zitzaion. Koro Navarro

Inor ez al zen ohartu betondoan **luzitzen** zuen orban nabarmenaz? Karlos Linazasoro

Amestu bezala, bere edertasuna Frantziako hiriburuan **luzitu** ahal izan zuen. Martin Anso

Itsastxakur eguzkizaleak ere izango dira izotz lauzen gainean etzanda, euren morfologia arraroa **luzitzen** Joseba Sarrionandia

**2** (hargintzan) igeltsuztatu.

Sabai gangatuak prestatuta eta ehunduta daudenean, azpiko aurpegiari lehenengo zarpeatua emango zaio plaunkaiarekin, gero harearekin berdinduko da, eta ondoren kreta edo marmol-**hautsarekin** luzituko da. Santiago Iruretagoiena

Aurrena elkarrekin nahastutako kare eta adreilu birrinduz zarpeatuko da, eta gainetik iztuku edo zarpeatu finez **luzituko**. Santiago Iruretagoiena

**3** (era burutua izenondo gisa)

Apalik eta koxkarik apainduenen pare, eskaparate **luzituagorik**! Pello Zabala

**4** (izen gisa)

Horregatik antzinakoek okre-lur ugari erabili zuten **luzituak** egiteko. Santiago Iruretagoiena

Gela hauetan zokaloaren gainean pintura beltzarekin moldatu eta bukatu behar dira panelak, tartean triangelu batzuk sartuz okrez edo bermiloiez; sabai gangatuak bukatu **luzitu** hutsarekin Santiago Iruretagoiena

---

## **luzitzaile** *iz* igeltsuztatzen duen pertsona.

Hala, **luzitzaileek** okre atikoaren kolorea imitatu nahi dutenean, ontzi batean jartzen dituzte ihartutako bioletak, eta sutan egosten dituzte. Santiago Iruretagoiena

## **luzoker** **1** *iz* kuiaren familiako landare herrestari hosto-handia, ezkila formako lore horiak dituena eta fruitu mamitsu eta luzangak ematen dituena *(Cucumis sativus)*. ik **pepino**.

Oilasko bana jan genuen, ogiarekin, tipulekin, perrexilarekin, **luzokerrekin**; dena garagardo batzuekin bustita. Juan Kruz Igerabide

Garunak ilarrekin, saltxitxak azalorearekin, labean erretako oilanda galkatua, **luzoker** gaziak eta, beti bezala, hostorezko gozopila. Jose Morales

Konfituren eta **luzoker** ozpinduen ontzien erdi-erdian. Josu Zabaleta

**Luzokerrak** kontserbatzeko erabilitako gatzunaz garbitu zituela eskuak. Jose Morales

Haren aurpegia estua eta luzanga zen, **luzokerraren** irudiko. Jose Morales

**2** (hitz elkartuetan)

**Luzoker**-aurpegiak alde egin duenean, il nonno-ren oporrei egotzi diete gazteek poliziaren presentzia. Berria - Kultura

---

## **lyondar** *izlag/iz* Lyongoa, Lyoni dagokiona; Lyongo herritarra.

Francisque-**Michel** lyondarrak 1859an idatzi zuen *Kain* bera baino are gaiztoagoa zen Urrutiko jaun bat protagonista duen elezahar bat. Martin Anso

Litekeena da **lyondarrek** atzo galdu zuten aukeraz damutzea, itzuliko partida buruan. Berria - Kirola

**Lyondar** irribarretsuen aurrean. Berria - Kirola